

1 lib.

**SERORAK EUSKAL HERRIAN:
IKUSPEGLAK, HASTAPENETATIK
DESAGERRARAZTERARTE
(Antzinate Berantiarra - XVIII. mendea)**

Mikel Larrañaga Arregi

Doktorego tesia

**Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Departamentua,
Letren Fakultatea, EHU/UPV (Vitoria-Gasteiz)**

Doktorego Programa: Botere-guneak Erdi Aroko eta Aro Berriko Munduan

Zuzendariak: Iñaki Bazán Díaz, Alberto Angulo Morales

Bergara, 2015

AURKIBIDEA

1 lib.

LABURDURAK ETA SIGLAK.....	1 or.
I. SARRERA.....	5 "
I. 1. Antzinateko, Erdi Aroko eta Aro Berriko Euskal Herriko emakumeei buruzko ikerketa historikoak.....	8 "
I. 2. Serorei buruzko ikerketa historikoak.....	14 "
I. 3. Iturrien eta ikerketarako metodologiaren inguruko xedapen orokorrak.....	30 "
II. JATORRIAREN ETA TERMINOEN INGURUAN.....	41 "
II. 1. Norabidea hartzen: ekarpen historiografikoak.....	45 "
II. 2. Antzinateko eta Goi Erdi Aroko erlijiozko emakumeak.....	53 "
II. 2.1. Diakonesak, apezmeak eta -balizko- emakumezko apezpikuak.....	53 "
II. 2.2. Bizimodu monastikoen hastapenak.....	59 "
II. 2.2.1. Birjinak eta alargunak.....	61 "
II. 2.2.2. Bakarkako bizitza: eremutarrak eta anakoretak.....	63 "
II. 2.2.3. Komunitateko bizitza: monasterioetako birjinak eta <i>soror</i> -ak.....	65 "
II. 2.2.3.1. Emakumezkoen monasterioak eta monasterio bikoitzak.....	67 "
II. 2.2.3.2. Monasterio familiarak eta "herrixka monastikoak".....	71 "
II. 2.3. Aldaketa garaiak: ordenen hedapena, Erreforma Gregoriarra eta klausuraren orokortzearen hasiera	75 "
II. 3. Seroren aurrekarietan: diakonesak ala monakotza zaharreko <i>soror</i> -ak?.....	77 "
II. 3.1. Euskal Herriko lurraldeen Antzinateko eta Goi Erdi Aroko testuinguru sozial eta erlijiosoa.....	77 "
II. 3.2. Kristautzea eta seroren aurrekarien helduera: frogak eta posibilitateak.....	91 "
II. 3.3. <i>Soror</i> -etik <i>seror</i> -era: terminoaren jatorriaren eta iraupenaren inguruan.....	97 "
II. 4. Ordenen eta klausuraren helduera eta hedapena Euskal Herriko lurraldeetan.....	114 "
II. 4.1. Monasterioen benedikartztea eta garaiko Euskal Herriko lurraldeetako testuinguru sozial eta erlijiosoa: <i>benedicta</i> terminoaren balizko jatorrietan.....	131 "
II. 4.2. <i>Freila</i> , <i>freira</i> , etab.: ordena militar eta hospitalarioak.....	136 "
II. 4.3. Izpiritualtasun mendikantearen hedapena eta erlijiozko emakumeak: beguinak, beatak eta bestelakoak.....	142 "
II. 4.4. "Mundutik aldentzearen" iraunkortasuna: <i>emparedada</i> eta <i>recluse</i> -ak.....	152 "
II. 5. Seroren instituzioaren sorkuntza eta bilakaeraren inguruko hausnarketak eta ondorioak.....	154 "
III. ARO BERRIKO EUSKAL HERRIKO ETA DEBAGOIENEN SERORAK: TESTUINGURUA ETA INSTITUZIOAREN AURKAKO JAZARPENEN BILAKAERA.....	169 "
III. 1. Testuinguru historiko-geografikoa.....	180 "
III. 2. Seroren desagerrarazte saiakeren ondorioak Debagoiengan eta Euskal Herrian: kanporatzeak, alokairuak eta ordezkapen prozesuak.....	201 "
III. 2.1. XVI. mendea: neurriak abian.....	201 "
III. 2.2. XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakerak eta hauen ondorioak.....	218 "
III. 2.3. Gainbehera luzearen osteko azken txanpa: 1769ko Errege Agindua.....	270 "

IV. DEBAGOIENA: SERORATZA MOETA EZBERDINEN	
ARABERAKO ESPAZIOAK ETA EZAUGARRIAK.....	287 "
IV. 1. Bergara, Elgeta eta Antzuola.....	290 "
IV. 1.1. Parrokiak.....	292 "
IV. 1.1.1. Bergarako San Pedro parrokia.....	292 "
IV. 1.1.2. Bergarako Santa Marina parrokia.....	297 "
IV. 1.1.3. Bergara, Elosuako San Andres parrokia.....	300 "
IV. 1.1.4. Elgetako Andre Mariaren Zeruratzea parrokia.....	303 "
IV. 1.1.5. Elgeta, Angiozarreko San Migel parrokia (gaur egun Bergararen parte).....	304 "
IV. 1.1.6. Antzuolako Gure Errukizko Ama eta Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokia batuak.....	305 "
IV. 1.2. Ermitak.....	312 "
IV. 2. Leintz-bailara.....	322 "
IV. 2.1. Parrokiak.....	325 "
IV. 2.1.1. Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokia.....	325 "
IV. 2.1.2. Aretxabaletako Andre Maria eta San Migel parrokia batuak.....	327 "
IV. 2.1.3. Eskoriatzako San Pedro parrokia.....	328 "
IV. 2.1.4. Leintz Gatzagako San Millan parrokia.....	331 "
IV. 2.1.5. Leintz bailarako auzoetako eta elizateetako parrokiak.....	331 "
IV. 2.2. Ermitak.....	338 "
IV. 3. Oñati.....	341 "
IV. 3.1. Parrokiak.....	342 "
IV. 3.1.1. San Migel parrokia.....	342 "
IV. 3.1.2. Araotzeko San Migel eta Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea auzoetako parrokiak.....	347 "
IV. 3.2. Ermitak.....	349 "
IV. 4. Hiru kasu berezi.....	356 "
IV. 4.1. Arriarango Juana serora eta Arantzazuko santutegia (Oñati).....	357 "
IV. 4.2. Dorletako Andre Mariaren santutegia (Leintz Gatzaga).....	365 "
IV. 4.3. Soledadeko Andre Mariaren neskatxendako ikastetxea (Bergara).....	404 "
V. LABURBILTZEA ETA LEHEN ONDORIO BATZUK.....	423 "

2 lib.

VI. SEROREN AKTIBITATEAK, ONDASUNAK ETA ETEKINAK.....	443 "
VI. 1. Tenpluetako lanak, emolumentuak eta negozio paraleloak.....	446 "
VI. 1.1. Soldatak eta tenpluaren garbiketa.....	447 "
VI. 1.2. Administrazioa.....	452 "
VI. 1.3. Argiteria: olioia eta argizaria.....	466 "
VI. 1.4. Ehunak, ohialak eta arropak.....	470 "
VI. 1.5. Heriotz-erritueta eta bestelako iragate-erritueta eta testuingurua eta etekinak.....	473 "
VI. 1.5.1. Jarlekuen zerbitzua eta heriotzaren testuingurua.....	476 "
VI. 1.5.2. Parrokia bertako serorak, beste serorak eta zerbitzari partikularrak.....	487 "
VI. 1.5.3. Zerbitzuegatiko diruak eta etekinak.....	497 "
VI. 1.6. Kanpaiak.....	516 "
VI. 1.7. Limosnen eskaera (eta administrazioa).....	522 "

VI. 1.8. Gaisoen, erromesen, txiroen eta umezurtzen artapena eta sendakuntza.....	528 "
VI. 2. Espazio laikoko lanak eta aktibitateak.....	532 "
VI. 2.1. Lurren ustiapena eta alokairua.....	533 "
VI. 2.2. Abereak (eta hauen produktuak).....	544 "
VI. 2.3. Ehungintzari eta joskintzari loturiko aktibitateak.....	547 "
VI. 2.4. Mailegutza.....	566 "
VI. 2.4.1. Zentsuak.....	577 "
VI. 2.4.2. Ohizko mailegutza.....	593 "
VI. 2.5. Salerosketak eta alokairuak (ondasun higiezinak, zentsuak, maileguak eta bestelakoak).....	613 "
VI. 2.6. Ondasun partikularren administrazioa.....	621 "
VI. 3. Bestelako lanak.....	624 "
VII. SERORAK EMALE: GIZARTE ETA FAMILIA BAITAKO	
ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA.....	629 "
VII. 1. Familia-kide eta lagunekiko erlazioak.....	631 "
VII. 1.1. Etxearekiko erlazioak eta familiaren sostengua.....	634 "
VII. 1.2. Oinordekotzak eta dohaintzak.....	657 "
VII. 2. Elizaren eta arimaren diruak	679 "
VII. 2.1. Elizei, ermitei eta bestelako espazio erlijiosoei eta bertako zerbitzariei egindako dohaintzak.....	679 "
VII. 2.2. Arimaren aldeko diruak: mezak, anibertsarioak, memoriak.....	713 "
VIII. ERLIJIOA, SINESKERAK ETA BOTEREA:	
EMAKUMEZKOEN ESPAZIO SAKRATUAK.....	755 "
VIII. 1. Heriotza: errituak eta arbasoen gurtza.....	758 "
VIII. 1.1. Serorekin batera heriotzaren testuinguruan jarduten ziren emakumeak: hiletariak, erostariak eta bestelako partehartzaileak.....	760 "
VIII. 1.2. Hiletako errituak: hildabidean eta elizan.....	774 "
VIII. 1.3. Ondrak, bederatziurrena, etab.	779 "
VIII. 1.4. Eskaintzak eta doluaren garaiko errituak.....	780 "
VIII. 2. Erlijiotasun herrikoia eta sendakuntza sineskerak.....	789 "
VIII. 3. Sineskeren eta kultuen alderdi heterodoxoak eta desbiderapenak.....	794 "
IX. AZKEN ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK.....	801 "
X. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK.....	829 "
X. 1. Artxiboak eta iturriak.....	831 "
X. 2. Bibliografia.....	835 "
X. 2.1. Argitaraturiko iturri dokumental eta narratiboak, terminologia.....	835 "
X. 2.2. Ikerketak.....	838 "
XI. GEHIGARRIAK.....	865 "
XI. 1. Testu barneko koadroen kokapenak.....	867 "
XI. 2. Koadroak.....	869 "
1. Bergarako 9 serorak 1556-1650 bitartean jarlekuen zerbitzuagatik jasotzekoak zituzten zorrak, euren testamentuen arabera.....	869 "
2. Debagoieneko 15 serorek 1572 eta 1664 bitartean emanak zituzten ehun, ohial eta arropazko bahidun maileguak eta hauen kopuruak, beraien testamentuen arabera.....	877 "

3.a. Debagoieneko 61 seroren testamentuetako zentsuak eta maileguak, zordunen sexuaren, kopuruen eta loturiko ondasunen arabera (1554-1784).....	879 "
3.b. 3.a. koadroko emaitzak, herrika, espazioka eta Debagoienean.....	913 "
3.c. 3.a. koadroko mailegutza aktibiteetan zentsuen hipotekatzat eta maileguen bahitzat aipaturiko ondasunak.....	917 "
4. Bergarako Maria de Izaguirre seroraren aldeko zentsuak: zordunak, kopuruak eta hipotekaturiko ondasunak (1609-1631).....	919 "
5. Maria Lopez de Olazaran serorak Arrasateko San Frantziskoren komentuari dohaintzan emandako zentsuak. Arrasate, 1604ko martxoak 23.....	921 "
6. Bergarako San Pedro parrokiako bi seroren maileguen zordunak kopuruaren eta sexuaren arabera banaketan, beraien testamentuen arabera (1572-1607).....	923 "
7. Debagoieneko 15 seroren bahidun maileguak: zordunak, kopuruak eta bahiak (1554-1664).....	927 "
8. Debagoieneko 18 serorek 1554-1761 bitartean familia-kideen -eta lagunen- alde oinordekotza edo dohaintza bidez emandako etxe, baserri, ondasun higiezin, seniparte eta zentsuak.....	931 "
9. Debagoieneko 99 seroren testamentuetan familia-kideei, lagunei eta tenpluetako zerbitzariari egindako dohaintzen hartzaileen sexuen arabera banaketa (1554-1793).....	935 "
10. Debagoieneko 98 seroren testamentuetako oinordeko eta albazea izendapenak sexuen arabera (1554-1793).....	941 "
11.a. Debagoieneko 74 seroren testamentuetako familia-kideen eta etxekoan, eta lagunen aldeko dohaintzak, jasotzaileen eta ondasunen ezaugarrien arabera (1554-1784).....	957 "
11.b. 11.a. koadroko diruzko dohaintzen emaitzak sexuen arabera, herrika eta espazioka.....	986 "
11.c. 11.a. koadroko ondasunen dohaintzen emaitzak garaian arabera.....	988 "
12.a. Debagoieneko 78 seroren testamentuetako tenpluen eta bertako zerbitzarien aldeko dohaintzak, jasotzaileen eta ondasunen ezaugarrien arabera (1554-1750).....	989 "
12.b. 12.a. koadroko tenpluen aldeko dohaintzen emaitzak.....	1013 "
12.c. 12.a. koadroko tenpluen aldeko dohaintzetan aipaturiko xedeak espazioen eta garaian arabera.....	1024 "
12.d. 12.a. koadroko tenpluetako zerbitzarien aldeko dohaintzen emaitzak.....	1030 "
13.a. Debagoieneko 97 seroren testamentuetako mezak, lekuen eta kopuruen arabera (1554-1793).....	1037 "
13.b. 13.a. koadroko emaitzak lekuen eta kopuruen arabera (1554-1793).....	1059 "
14.a. Debagoieneko 35 seroren testamentuetako anibertsarioak eta memoriak, lekuen, kopuruen eta mezen arabera (1554-1762).....	1065 "
14.b. 14.a. koadroko emaitzak lekuen eta kopuruen arabera (1554-1762).....	1070 "
15.a. Bergarako 28 seroren aldi bakarreko mezak eta betiereko memoria eta anibertsarioak. Eboluzio kronologikoa.....	1073 "
15.b. 15.a. koadroko emaitzak, mende Erdiko ggb.ko tartetan.....	1074 "
16.a. Bergarako 28 seroren hiletetako eta deboziozko eskakizunetako gastuen kalkulu orokorrak. Eboluzio kronologikoa.....	1075 "
16.b. 16.a. koadroko emaitzak mende Erdiko eta mende eta Erdiko ggb.ko tartean arabera.....	1076 "
XI. 3. Dokumentuak.....	1077 "
1. 1589, Azaroak 18. Oñati, Santa Katalina ermita.	

	<i>Mari Ramos de Laquidiolaren izendapena</i>	1077 "
2.	1694, Ekainak 20. Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Maria santutegia. <i>Teresa de Laquiteguiren seroratarako izendapena edo sarrera-kontratua</i> ...	1079 "
3.	1704, Urtarrilak 23. Elgeta, Andre Maria parrokia. <i>Francisca de Berraondoren izendapena</i>	1082 "
4.	1734, Martxoak 12 / Apirilak 7. Oñati, San Migel parrokia. <i>Ana Cathalina de Inzaren izendapena (titulua) eta posesio-hartzea</i>	1083 "
5.	1759, Martxoak 1. Antzuola, Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokia ondoko seroretxea. <i>Maria Ygnacia de Ynurrigarroren izendapena</i>	1084 "
6.	1719, azaroak 3. Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Mariaren santutegia. <i>Maria de Pagadigorri seroraren testamentua</i>	1086 "
7.	1750, irailak 4. Bergara, Soledadeko Andre Mariaren santutegia eta ikastetxea. <i>Maria Clara de Berroeta seroraren testamentua</i>	1090 "
8.	1570, irailak 30. Arrasate. <i>Catalina de Otalora seroraren testamentuari atxikiriko inbentarioa, bere gurasoengandik jasotako ondasunen berri emanaz</i>	1094 "
9.	1594, abenduak 13. Eskoriatza, San Pedro parrokia. <i>Maria Lopez de Espilla seroraren testamentuari atxikiriko ondasunen inbentarioa</i>	1096 "
10.	1615, azaroak 4. Arrasate. <i>Maria Gimenez de Guesalibar seroraren ondasunen inbentarioa</i>	1098 "
11.	1625, azaroak 11. Arrasate, Gesalibar, Santa Ageda parrokia eta ospizioa. <i>Maria Perez de Bengoaren ondasunen almoneda, bere heriotzaren ondoren</i>	1099 "
12.	1587, abuztuak 7. Antzuola. <i>Catalina de Lizarriturri Igueribar seroraren seniparteen uko-egitea</i>	1102 "
13.	1608, urtarrilak 16. Bergara. <i>Mateo Ibañez de Urietaren eta Francisca de Arana seroraren arteko hitzarmena, Aparicio de Cearretaren eta bere emazte Ana Perez de Aranaren oinordekotza zela eta</i>	1104 "
14.	1639, urtarrilak 3. Antzuola, Uzarraga, San Juan Bataiatzailea parrokiako seroretxea. <i>Antzuolako Uzarraga auzoko auzotarren eta parrokiako seroren arteko akordioa</i>	1108 "
15.	1657, urtarrilak 21 - apirilak 22 - ????. Bergara, San Pedro parrokia. <i>Begarako San Pedro parrokiako seroren eta kanpoko jarlekuetako zerbitzarien arteko, eta parrokia bertako hiru seroren arteko hitzarmenak</i>	1110 "
16.	1700, apirilak 21. Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Mariaren santutegiko seroretxea. <i>Seroren bizimodua arautzeko, Don Ambrosio Baroja bisitatzaielaren aginduz Ignacio de Sagastiberria santutegiko administratzaileak idatziriko arautegia</i>	1115 "
17.	XIX. mende erdialdea. Bergara. <i>Begarako San Pedro parrokiako hiletetako zerbitzarien etekinen eta emolumentuen informea</i>	1119 "
18.	1538. Bergara. <i>San Pedro parrokiako Domenja de Ascarrunz seroraren kereila Gipuzkoako korrejidorearen aurrean, parrokia bereko</i>	

- Maria Garcia de Gorosavelek eman zion jipoiagatik*.....1122 "
19. 1597, maiatzak 11. Bergara, Santa Marina parrokia.
Apezen, benefiziodunen eta eliztarren kexua, Catalina de Sarralde, apezpikutzaren aurreko dilijentzien bidez modu irregularrean lortu nahian zeroratzaz baztertuz.....1123 "
20. 1618, urtarrila - martxoak 23. Leintz bailara.
Leintz bailarako udal agintarien aldetik Valladolideko Kantzeleriaren aurrean egindako eskakizuna, Kalagorriko apezpikutzatik serorak karguetatik kanporatzeko hartzen hasiak ziren neurriak atzera botatzea eskatuz, eta epaia eman zuen Errege Agindua.....1125 "
21. 1623, martxoak 23 - ??? - maiatzak 31 - ??? - ??? - azaroak 23.
Bergara, Kalagorriko apezpikutzak.
Bergarako herriaren eta Kalagorriko apezpikutzako prokuradorearen artean, 1623an herrian abian jarri zen seroren kanporatzeen inguruan apezpikutzako auzitegietan izan zen auziari dagozkion dokumentuak: Bergarako herriaren ahalduen Pedro de Juberak gaiaren inguruan egindako informeak, auzirako bi aldeetatik prestatutako galdeketak, auziari buruz Bergarako herriaren aldetik osaturiko memoria, eta apezpikutzaren aldetiko auziaren Errege Kontseilurako bideratzea.....1128 "
22. 1759, Martxoak 24. Bergarako bikarriotza, Antzuola, Uzarragako San Joan Bataiatzailea parrokia.
Maria Ygnacia de Ynurrigarroren izendapena zela eta (5 dokumentua), Ignacio Xauier de Artech Bergarako bikarioak apezpikutzara bidaliriko serorei buruzko informea.....1136 "
23. 1769, urriak 13 - azaroak 4 - Azaroak 18.
Kalagorriko apezpikutzak, Oñatiko bikarriotza.
Ermitauek jantzi erlijiosoa erabiltzeko debekuaren berrespena, eta serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Agindua, apezpikutzaren bidez jakinarazia.....1138 "
24. 1769, azaroak 28. Oñati.
Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, Oñatiko udal agintariak aginduriko dekretua.....1140 "
25. 1769, abenduak 11. Oñati.
Seroren inguruko informazioa batzeko udal komisionatuen informea.....1142 "
26. 1769, abenduak 16. Oñati.
Oñatiko bikarioaren eskutitza apezpikuari, serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, egoera azaldu eta ermiten inguruko iritzia emanez.....1145 "
27. 1770, apirilak 7. Bergarako bikarriotza, Kalagorriko apezpikutzak.
Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, Ignacio Xauier de Artech Bergarako bikarioak apezpikutzara bidaliriko informea.....1146 "
28. 1770, maiatzak 11. Oñati.
Oñatiko alkatearen eskutitza Kalagorriko apezpikuari, serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunerako dilijentzien eta arazo berri emanaz.....1148 "
29. 1782, ekainak 26. Oñatiko bikarriotza, Kalagorriko apezpikutzak.

- Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako*
Errege Dekretuaren betekizun egokiaren berri emateko,
Miguel de Eguino Oñatiko bikarioak apezpikutzara bidaliriko informea.....1149 "
30. D.g. (1769-??), Oñati, San Antonio Abad ermita.
Ermitari zegozkion auzotarren eskutitza Oñatiko apezpei,
ermitaren berririkiera baimendu zezaten eskatuz.....1151 "

LABURDURAK ETA SIGLAK

arg.	argitaratzailea
BUA	Bergarako Udal Artxiboa
DEAH-AHDSS	Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa-Archivo Histórico de la Diócesis de San Sebastián
dig.	digitala
dok.	dokumentua
EHU/UPV	Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco
et. al.	<i>et alii</i> (eta beste batzuek)
f.g.	foliatu gabea
fol.	folioa/ak
fot.	fotograma/ak
GPAH-AHPG	Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa-Archivo Histórico de Protocolos de Gipuzkoa
hurr. or.	hurrengo orrialdea/ak
KKA-ACC	Kalagorriko Katedraleko Artxiboa-Archivo de la Catedral de Calahorra
koord.	koordinatzailea/ak
LGUA	Leintz Gatzagako Udal Artxiboa
lib.	liburukia/ak
MLBA	Mariaren Lagundiaren Bergarako Artxiboa
mrbd.	marabedi
or.	orrialdea/ak
OUA	Oñatiko Udal Artxiboa
r	<i>recto</i> (aurrekaldetik)
v	<i>vuelto</i> (atzekaldetik)
VEKA-ARChV	Valladolideko Errege Kantzelerariako Artxiboa-Archivo de la Real Chancillería de Valladolid
z.g.	zenbakitu gabea
zuz.	zuzendaria/ak

I. SARRERA

Antzinatean, Erdi Aroan eta Aro Modernoan zeharreko Euskal Herriko emakumeen historia, are ikuspegi feministak –eta beraz emakumeen historia espezifikoa, eta genero ikuspegiak– aintzat hartzen omen diren garai hauetan ere, oso kontu iluna dugu artean. Orain gehiegi ez dela (2009an), Ohiane Oliveri Korta, bere doktorego tesiaren argitalpenerako sarreran, euskal historiaren arloan emakumeen inguruko historiografiak azaltzen zuen eskastasunaz zen kexu; eskastasun hau are adigarriagoa da, esate baterako, 80. hamarkadatik aurrera Espainian -eta Europan hamarkadaren batzuek lehenago- garatu izan den emakumearen inguruko historiografiari erreparatzen badiogu. Historia Garaikidearen alorrean eginiko ikerketak baino ezin litezke salbuetsi ikuspegi etsigarri honetatik. Antropologiaren alorretik ere, egin dira funts gehiagodun hainbat ikerketa, eta nahiz eta hau bapateko apreziatio bat baino ez den, batzuetan badirudi, Erdi Aroko eta Aro Berriko Euskal Herriko emakumeen ohizko irudi “historikoa” zordunago zaiela azken hauetatik eratortzen diren ikuspegiei, zehazki ikerketa historikoetatik eratortzen direnei baino. Egoera hau lotsagarri xamar ere egiten da, inguruko kulturekiko konparazioan, euskal kulturaren eta historiaren baitan emakumeek jokatu izan omen zuten paper garrantzitsuari buruz hedatu izan diren ideia arranditsuak (euskal matriarkalismoa, etab.) gogoan hartzen baditugu.

Sarrera hau bideratzen joateko beraz, Euskal Herriko emakumeen historiaren inguruko ikerketen errepassoa egingo dugu lehenik, gero seroren inguruko ikerketekin beste hainbeste egitera iragateko. Gure ikerlana txertatzen zaigun testuinguru orokorra dugu, azaldu beharrekotzat daukaguna. Hirugarren atal bat, azkenik, iturri dokumentalen, bilaketaren eta metodologiaren alderdiei eskainiko diegu, horien berri izatea ere beharrezkoa baita, ikerketaren funtsak ulertuko badira. Ondoren barneratuko gara gaian, seroren jatorriei eta eraginei buruzko auziari helduz.

I. 1. ANTZINATEKO, ERDI AROKO ETA ARO BERRIKO EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEI BURUZKO IKERKETA HISTORIKOAK

Propioki ikerketa historikoa izan gabe Euskal Herriko emakumeen gaineko Erdi Aroko eta Aro Berriko -nahiz aurretiko garaietako- ikuspegi historikoan gehien eragin izan duten lanetariko bat Ortiz Osésen *El matriarcalismo vasco* (1980) sonatua dugu. Autore honen eta bere jarraitzaileen (hauen arteko aipagarriena, Txema Hornilla -1981-) ildotik Euskal Herrian izandako antzinako balizko matriarkatu baten ideia onartu izan dute hainbatek (zeinaren ohiartzuna gaur egungo euskaldunen egitura psikosozialean matriarkalismotzat gelditua legokeen), eta ohiartzunik handiena ezker abertzalearen esparruan izan duen interpretazio politiko nabaridun ikuspegi historiografiko bat hedatu da gaurdaino, azkenaldiko autoreren bat aipagai hartzearen, esaterako, Martinez Lizarduikoaren lanetan (adib., 1998) jaso izan dena.

Ikuspegi honek Ortiz-Osésen lana argitara emana izatetik gutxira jaso izan zituen jada kritika gogorrak, hauek ere zenbaiten aldetik (bereziki nazionalista espainiarren aldetik) politikoki probestuak izan zirenak, printzipalki, Juan Aranzadik *El milenarismo vasco* (1981) lanean "mito del matriarcado vasco" bezala izendatu zuenaren gain egindako kritikatik abiatuak. Teresa del Vallek koordinaturiko *Mujer vasca: imagen y realidad* (1985) lan kolektiboan ere aski kritikatu izan zen ustezko "euskaldunen matriarkalismoa"; hona nola laburbildu zituzten Ortiz Osésen tesiak, beraien kritika burutzean:

parte en *El matriarcalismo vasco* (1980) de datos sobre mitología, terminología del parentesco y datos etnohistóricos, tomados en su mayor parte de Barandiarán y Caro Baroja. A partir de estos datos y desde un enfoque filosófico, defiende las siguientes tesis: primero, la existencia de una cultura matriarcal, en pleno auge en el Paleolítico; segundo, la existencia de una fuerte aculturación, que tiene lugar en el Neolítico, por grupos con formas de organización del poder con características fuertemente patriarcales; tercero, la fuerte resistencia en la cultura vasca de los elementos que él llama matriarcales frente a la aculturación patriarcal, que llega principalmente por la religión cristiana y la romanización. Postula, finalmente, la existencia de una fuerte conflictividad derivada de la coexistencia de estos dos niveles, el matriarcal originario y el patriarcal superpuesto. [...] En la sustitución del matriarcalismo originario por el principio masculino, caracterizado por el derecho, el culto solar, y la razón, es cuando Mari se convierte en maga y bruja, es decir en elemento negativo. Sin embargo, y a pesar de la implantación de lo masculino, quedarán impresos en el sustrato más interno de la mente vasca una serie de valores a los que Ortiz Osés denomina "estrato psicomatriarcalista vasco". Se caracteriza éste por cuatro elementos: naturalista, comunal, terráqueo y mágico. Estos elementos matriarcalistas entrarán en conflicto con los patriarcales oficiales, manteniéndose entre ambos cierto equilibrio cuando no una cierta preponderancia de los primeros (Valle 1985, 45-48)

Tesi hauei lan kolektibo honetan egiten zaien kritika zeharo zentzuduna iruditzen zait, eta argi utzi beharrean nago neure egiten dudala.

Hala, bertakoa eta arrotza kategoria ezberdinu eta bateraezintzat hautematearen aurreritzi analitikoa eta honen komenientzia politikoa, aurkako ezaugarrien pareko dikotomikoen antolaketa bat asmatzeraino, azpian, euskalduna = matriarkala = ezaugarri "positiboak" / arrotza (bereziki espainiarra edo frantsesa) = patriarkala = ezaugarri "negatiboak" hautemapena lukeena; antropologiatik, psikologiatik, etnohistoriatik eta autorearen beraren kontsiderazio filosofikoetatik bilduriko datuen erabilera nahasia eta interesatua, ustezko matriarkatuaren eta honen biziraupen litzatekeen matriarkalismoaren kokapen historiko baterako irizpide garbidun metodologiarik gabea (analisi filosofikoa da, -jatorri zeharo ezberdineko datuak norbere komenientzietara

nahierara moldatzea ahalbidetzen duen- "hermeneutika" bat oinarri hartuta); honi loturik, antropologiatik eratorririko "gizarte tradizional" baten testuinguruan emakumeak lukeen egoeraren transposizio historikoa, aurretiko mende ugarietako gertakizun historikoak eta aldaketak ahazturik, Neolitikorainoko eta are Paleolitikorainoko bidea eginaz; kontzeptu eta ezaugarri "matriarkalek" eta "patriarkalek" euskal kulturari egozten zaizkion ezaugarrien testuinguruan azaltzen dituzten kontraesan nabariak (beste askoren artean, esate baterako, *txokoak* alderdi matriarkalen adierazletzat hartzea, orain gutxirarte leku askotan emakumeek sarrera galerazia zeukatzen espazioak izanda ere), etab. Termino orokorretan, historiaren hautemapenarekiko beste kritika bat ere gehitu beharrekoa dela uste dut gainera: norbere herriaren historiari ez zaio inongo mesederik egiten, datu historikoetatik -nahiz bestelako disziplina lagungarrietakoetatik- abiatu eta norbere ikuspegia datuek emandako emaitzetara egokitu beharrean, alderantzizko bidea eginaz gero; hau da, Ortiz Osésen eta bere jarraitzaile askoren lanetan egiten den bezala, -motibazioak eta interesak direnak direla osaturiko- norbere gustoko azpiegitura analitiko bat oinarrian ezarri (kasu honetan, interes politikoek zeharo dikotomiko egiten dutena), eta ikuspegi horri egokitzen zaizkion datuez hau "ilustratzeko" baliatuz.

Datuen aukeraketa interesatuak, bestalde, zenbaitetan, zeharo nabariak izanik ekidinezinak diren beste datu batzuen bazterketa ere eragiten baitu. Eta hau nabaria zaigu, bai Ortiz Osésen lanari sostengu lez prestigiotsutzat harturiko bi ikerlariren artikuluak gehitzearen erabakian bertan, bai eta ikerlari hauek, historiaren alorrean baino filosofiarenean espezializatuak ditugunak, Ortiz Osesen lanari oinarritzat paratzen dizkioten kontsiderazio historikoetan ere; Portland-eko Unibertsitateko Franz-Karl Mayr doktorearen hitzek euskal historiografian aski ohizkoak ditugun topikoak azaltzen zituen, Ortiz Osésen lanaren oinarritzko ikuspegi historikoa laburbilduz:

Más antiguos que los demás pueblos europeos comparecen los vascos al pie de los Pirineos, y más antiguo que los demás lenguajes de Europa comparece el vasco o euskara. Lingüistas y filósofos están siempre todavía ante el enigma del lenguaje vasco, su origen y desarrollo. Sus comienzos nos remiten a la Edad de Piedra. Las palabras para cuchillo, arado y hacha remiten a la raíz vasca *aiz*, es decir, a la raíz de 'piedra'. Cabañas y casas de los vascos yacen a menudo sobre la ruinas de la Edad Megalolítica [*sic*]. Lo mismo sucede con el origen del pueblo vasco. La leyenda vasca hace del lenguaje vasco el lenguaje de Adán y Eva en el paraíso. Sobre si los vascos, tal como algunas teorías sostienen, tienen orígenes íberos provenientes de Africa, o bien proveniencia bereber que ha dejado su presencia en los monumentos del antiguo Egipto, o finalmente se trata de un pueblo emigrado desde el Cáucaso a través de Europa, en todo caso hay que reconocer *que los vascos se asentaban ya al pie de los Pirineos antes de que las tribus arias de origen lingüístico indoeuropeo arribaran* mucho después a la península ibérica. Nadie pudo realmente vencer o conquistar al pueblo vasco, ni los celtas, ni las legiones romanas de las que recibieron el nombre latino de 'Vascones', ni siquiera los godos y tampoco los moros o árabes. El propio Carlomagno sufrió una decisiva derrota en su retirada de una conquista española en el famoso valle de Roncesvalles, donde Rolando entró en combate con los vascos. Incluso cuando los vascos se encontraron más tarde bajo dominio español y francés, siguieron conservando o bien lucharon por su libertad, tal y como la historia del nacionalismo vasco, las luchas por la libertad vasca y los movimientos de independencia lo muestran hasta nuestros días. Guernica es el símbolo trágico de todo ello. Los vascos no han pasado jamás en su desarrollo histórico por una fase feudal, a diferencia de los otros pueblos limítrofes. A pesar de la asunción del cristianismo, no han tenido nunca un patriarcalismo religioso cristiano. Con su sentido innato de la libertad-en-comunidad o 'libertad comunal', así como con su autonomía en solidaridad, los vascos son los testigos de la más vieja *democracia* en el mundo occidental. Su expresión está contenida en los famosos

'fueros', o sea, en los llamados privilegios de autonomía regional, que, mantenidos por los reyes castellanos o franceses, representan una legalidad y justicias autóctonas, junto a una organización financiera y militar propia. Lo que el resto de Europa y América hubieran de conseguir mucho después y lentamente, o sea, tanto el ideal de la democracia como la libertad y la igualdad ante la ley, respeto a la persona y a la propiedad, forma comunal de votación y otros derechos humanos naturales, pertenecían a la tradición de la cultura vasca. No es un milagro que la antiquísima idea de los fueros juegue en los actuales movimientos de autonomía un papel especial. Incluso allí donde el vasco ha resultado portador de la industrialización y de la modernización, como ocurre en las provincias del norte de España, le han resultado intrínsecamente extrañas las ideas del capitalismo moderno con su división en clases y su ideología agresiva. Dominio y esclavitud son palabras ajenas al vocabulario vasco. Y lo mismo vale de la discriminación sexual; no existe como tal. Hombre y mujer obtiene los mismos derechos en la economía doméstica y en la familia (*baserría*) (Ortiz Osés; Mayr 1980, 128-129).

Nahiz eta ondorengo garaietan Ortiz Osések bere lanean azalduko "matriarkalismoa" propioki gertakizun historikotzat baino euskal kulturaren baitako "entitate psikosozialtzat" hauteman beharrekoa dela askotan zehaztu izan duen, ikuspegi historiko hau da, hain zuzen ere, -hastapenetako matriarkatu baten ondorengo litzatekeen- bere "matriarkalismoa" euskal kulturaren mantendu izana gauzatzeko aurrebaldintza: kanpoko kutsadura patriarkalak urriak izanak zituzkeen herri bat, zeharo konkistatua izatera inoiz heldu ez zena, feudalismorik eta gizonaren emakumearen gaineko aginterik ezagutu gabea, foruetan isladaturiko "demokrazia" (hau ere "matriarkal") baten mantentzaile izana, eta areago, garai modernoagoetan kapitalismoaren eraginak antzaldatu gabea. Hau da, ikuspegi historiko hau beharrezkoa du matriarkalismoaren hipotesiak, "entitate psikosozial" horren jarraipena gauzatzea posible izatekotan. Eta ez gara ikuspegi historiko honetako topikoen faltsutasuna azaltzen tematuko, "konkistatu gabeen" teoria bezalaxe, esaterako, feudalismoaren edo kapitalismoaren existentziarik eza ere, honez gero, euskal historia zertxobait arakatu duen edonori irri eragiteko bezalako baieztapenak baititugu; jada aski ezagunak diren datu gehiegirekin dago ezikusiarrena egin beharra, "arkadia matriarkal" baten halako ikuspegia sostengatzen jarraitzeko.

Eta hala ere, Ortiz Osésen eta bere jarraitzaileen lanek Euskal Herriko emakumeek Antzinatean, Erdi Aroan eta Aro Berrian izana zezaketen ikuspegiaren oinarriak osatzen jarraitu dute, ez hainbeste meritu propioegatik, garai hauetako emakumeen egoeraren inguruko analisi historiko esanguratsuen urritasunagatik baizik. Honekiko, Ohiane Oliveri Kortak bere doktorego tesian azalduko iritziarekin bat egiten dugu; ez zaio mingaina tratatzen, arrazoi guztiz, honakoa dioenean:

Si algo podemos afirmar en este trabajo es que el estamento hidalgo guipuzcoano estuvo formado por mujeres y hombres y que ambos sexos participaron de las prácticas sociales vigentes en aquella configuración social. Sin embargo, parece que a los historiadores vascos y guipuzcoanos se les ha olvidado este hecho, empezando por los clásicos, como el propio Lope Martínez de Isasti, hasta los contemporáneos (Oliveri Korta 2009, 31)

Orripeko notan diosku nola, adibidez, 1975-2000 bitartean Gipuzkoari dagokion historiografiaren inguruko ikerketa bat egin zuen José Urrutikoetxea Lizarragak orripeko aipu bakarra nahikoa izan zuen, 25 urte haietan emakume gipuzkoarrari buruz idatziriko historiografiaren berri emateko (Urrutikoetxea Lizarraga 2003).

Alabaina, azalduz joan garen historiografiaren gorabeherek ez gaituzte ezer egin ez dela pentsatzera eraman behar, gaia jorratzeko lana hartu izan duten ikertzaileekiko,

ez bailitzateke justua izango. Artean ere egiteko aski lan badago ere, izan dira zenbait ikerlan eta ahalegin, Antzinateko, Erdi Aroko eta Aro Berriko Euskal Herriko emakumeen historiaren gain argi emateko asmoz eginak. Beraiei esker has liteke garaiotako Euskal Herriko emakumeen historiaren funtsak ulertzen, Ortiz Osésen eta bere jarraitzaileen ikuspegi "hermeneutiko" mistifikatzaileez haratago, emakumeen bizimoduaren errealitate historikoarekiko ikuspegi fidagarriago bat azaleratzen.

Honekiko, gauza ezaguna da, matriarkatuen eta matriarkalismoen usteetara jo beharrik gabe, Euskal Herriko emakumeei buruz bildu izan ziren hainbat informazioak, Erdi Aroan eta Aro Berrian hauek emakume europarrek orokorrean zeukatena baino egoera abantailatsuago edo askeagoa izan zutela pentsatzera daramatela. Bertako sinesteen oinarri paganoei aurkitu zaizkien zantzuek, Paleolitotik Neolitorainoko jainkosen (*Venus* deiturikoen) presentziarekin ekinda eta erromatarren heldueraren garaiko eta Antzinate berantiarreko hilarri eta bestelako arrastoetararteko bitarte luzean, jainkosen inguruko sineste eta kultuen garrantzia ohartzera daramate. Hor da Estrabonek Penintsula Iberikoko iparraldeko biztanleei egotzi zien ustezko ginekokraziaren kontua ere, iritzi kontrajarrien iturri izan dena (Estornés Zubizarreta 1988, 518-521). Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar gaur egun Euskal Herria duguneko lurretatik iragan ziren bidaiarien testigantzak ere aspaldidanik dira ezagunak, eta ezaguna eta nabaria da halaber, -batez ere- Europako lurralde ezberdinetatik helduriko bidaiari haiei lurrotan emakumeek zeuzkaten ezaugarriek harridura eragin izan zieten ere. Jantzkerak harritzen zituen askotan, bereziki, emakume ezkongabeen -alboetan motots labur batzuk utzirik- buruaren gainekaldea soildu edo "tonsuratzeko" ohiturak eta beste emakumeen burukoek eta hauen esanahiek (ezkondua edo alarguna izan, etab.), eta kalean eta jendartean jarduteko era askeak ere harritu zituen hainbat, eta baita, miresmenen batekin bat, zenbait gaitzespen eragin ere¹. Eta datu hauek emakumeek Euskal Herrian izan zen gizartearen baitan izan zuten garrantzia azpimarratzera eramanez badezakete ere, garrantzitsua da zein bere testuinguruan txertaturik eta dagozkion dinamiketan hautematea, emakumeek izan zuten esangura sozialari neurri egokia hartzea, errealitate historikoa doitasunez hauteman eta gizartearen baitan izan zuten lekua zentzudunki ulertuko badugu, baterako nahiz besterako esajerazioak ekidinez.

Eta ibilbide horri ekin diote Erdi Aroko eta Aro Berriko emakumeen inguruan egin izan diren ikerketa historikoei, jada aintzat hartzeko bestekoa dugun historiografia bati bidea emanez, nahiz eta artean egitekorik aski dagoen. Zenbait lan eta autore bereziki aipagarriak zaizkigu, arakatu ahal izan dugunaren arabera behintzat. XIX. mendean, Navarro Villosladak Nafarroako emakumeei buruz eta Valmar-eko Markesak Gipuzkoakoei buruz *Euskal Herria* aldizkariaren lehen alean (1880) argitaraturiko artikulu "kostunbristak" aipatu litezke; informazio esanguratsua bildu zen lanotan, nahiz eta emakumeen "tradiziozko" irudiak goraiatzeko joera nabariarekin izan. Desdiseñatzen du Dézert-ek ere argitaratu zuen aldizkari berdinean 1891ean artikulu bat, Foru Orokorraren aurretiko (XIV-XV mendeetan) Nafarroako emakume ezkonduen egoerari buruzkoa. Aipagarria dugu, halaber, Zuzenbidean doktore eta Baionan abokatu zen Tessier-ek 1918an Iparraldeko emakumeen Errejimen Zaharreko egoerari (batez ere juridikoari) eskainitako liburua ere, *La situation de la femme dans le Pays Basque et à Bayonne avant la révolution*. Ondoren Ortiz Osésen teoriak ezagun egingo zuten

¹ Aspektu hauen gain Euskal Herrian izandako bidaiarien inguruko bi argitalpenetako aipuak, honakoak: Garate 1989, 62, 71-76, 106, 110, 115-117, 118, 121-122, 124, 129, 131, 140, 146-147, 151-152, 155-156, 158-159, 170, 195-225; eta Díaz de Tuesta 2006, 22-24, 37, 38, 40, 44, 47, 49, 50, 57, 58, 82.

matriarkatuaren teoria hartu zuen jada Tessier-ek aintzat, Estrabonen kantabriarren ginekokraziari buruzko aipu ezaguna mintzagai harturik.

Jada XX. mendearen bigarren erdialdean, ahalegin esanguratsuetariko bati 80. hamarkadan ekin zitzaion, aipagai dugun Ortiz Osésen *El matriarcalismo vasco* (1980) liburuak agerpena egin ondoren; Díez de Salazar-en eta Huxley-ren artikuluak izan ziren lehenik (biak 1983an), hurrenez hurren, emakumeen egoera juridikoa eta aktibitate komertzialak ikergai zituztela. Zenbait urtetara lan kolektibo garrantzitsu bat argitaratu zen GITE-IPES elkartearen eskutik, jada ikuspegi orokor bat osatzera begirakoa: *Emakumea Euskal Herriko historian = La mujer en la historia de Euskal Herria* (1988). Bertan Antzinatetik Aro Modernorainoko bitarte kronologiko zabala artikulu ezberdinetan landu zuten; Erdi Aroari eta Aro Berriari dagozkion lanak zaizkigu bereziki aipagarri, Val Valdivieso, Oria, Valverde, Lafourcade eta Osabaren artikuluak (Zenbaiten artean 1988, 21-54, 59-64). Urte berean idatzi zen *Auñamendi* entziklopedia orokorrerako Idoia Estornésekin zuzenduriko "mujer" boza ere, eta bertan, beste lanekin bat, argitalpen kolektibo honetako artikuluen bidez osaturiko irudiaren laburbiltze bat egin zen, ordurarte Euskal Herriko emakumeen historiaren inguruan egindako ikerketek egindako ekarpenak jasoz (Estornés Zubizarreta 1988).

GITE-IPES-ek argitaraturiko lan kolektiboaren ondoren, 90. hamarkadaz geroztik, lan hartarako artikuluak idatzi zituzten ikertzaileek lanean jarraitu zuten, beste zenbait ikerlanekin. 1990ean bertan Valverderen beste artikulu bat irten zen argitara, eta 1998an GITE-IPES-en beste argitalpen kolektibo bat izan zen, aurrekoaren oso antzerako izenburuarekin, *Emakumeak Euskal Herriko historian*. Beste ekarpen garrantzitsu bat ere argitaratu zen hamarkada honetan, Azpiazuren *Mujeres vascas. Sumisión y poder* (1995b). Ordurarte egoera juridikoak eta familiaren eta bere ondasunen testuinguruko alderdiak ikergai nagusi izan baziren, Azpiazuren eta GITE-IPES-en 1998ko argitalpen kolektiboko ikerlanek (bereziki, Val Valdiviesorenak) beste alderdi garrantzitsu batzuetara ere zabaldu zituzten ikergaiak: langintzen eta erlazio komertzialen esparruak. Halaber, hamarkada hartan (1996an), ondorengo urteetan emakumeek leinuen botere-eremuetan izan zuten partehartze eta garrantziaren inguruko ikerketa garrantzitsuak egingo zituen Oliveri Kortaren lehen artikulu bat ere argitaratu zen.

2000. urteaz geroztik argitalpenak ugartuz ikusten ditugu, poliki bada ere. Urte hartan bertan, 2000.ean, Merinok Donostiako arrantzaileen testuinguruko emakumeei buruzko artikulu bat idatzi zuen. 2001ean lekuko ikerketa bat kaleratu zen, Manzanos Arreal eta Vives Casasen eskutik idatzia, eta Gasteizeko emakumei eskainitakoa. Oliveri Kortaren liburu bat ere argitaratu zen urte hartan, *Mujer y herencia en el estamento hidalgo guipuzcoano durante el Antiguo Régimen (siglos XVI-XVIII)*, Gipuzkoako familia boteretsuetako emakumeen bizimodu eta aktibitateen (bereziki ekonomikoen) berri ematen zuena. 2002ko eta 2004ko artikulu batzuetan ere jarraitu zion gaian sakontzeari; lan hauek 2009an argitaratu zuen doktorego tesiko ikerketen parte ziren: *Mujer, casa y estamento en la Gipuzkoa del siglo XVI*. Bitarte hartan, 2003an, emakumeek eliteetako familietan zeukaten paperaren inguruko beste artikulu bat ere argitaratu zen, kasu honetan Nafarroako XVI-XVII mendeak bitarteko eliteetakoei begirakoa, Moreno Almárcegui eta García Bourrellier-en eskutik, eta 2004an Sesmero Cutandaren artikulu bat argitaratu zen, Bizkaiako landa eremuetako emakumeek etxeen testuinguruetan XVI. mendetik XIX.ren erdialdera izan zuten partehartze ekonomikoa ikergai zuena. 2008an Rivera Medinak Erdi Aro berantiarreko eta Aro Berriko Bilboko emakumeen lan-munduaren gaineko artikulu bat argitaratu zuen, eta 2009an Ayuso Sánchez-ek ere gai berberaren gaineko beste artikulu bat eman

zuen argitara, kasu honetan, Erdi Aroko Euskal Herriko emakumearen ikerketa esparruan zedarritua. Eta izango dira ziurrenez aurkituko ez nituen lan interesgarriak ere, azken urteetan idatziak.

Lan hauetan joan zen Erdi Aroko eta Aro Berriko emakumeen ikuspegi orokorra josten, beraien presentziadun ildo historiografiko espezifikoko batzuen alboan: komentu eta monasterioen -eta bertako mojen- historiarena, eta familiaren zuzenbidearen historiarena. Baina ez gara hauen azalpenetan luzatuko, dagokigunarekiko funtsezkoena aipaturiko argitalpenetan egoki jaso dagoelako, eta lanean zehar ere azalduz joango zaizkigulako.

Jarraian asko laburbildu eta sintetizatzen saiatuko garen ikuspegi orokor hau, noski, ikerketak bideratu izan diren norabide nagusiek baldintzatzen digute. Alde batetik, alor publikoko botere espazioetako partehartzearen gaia dago. Espazio publikoei zegozkien karguak -heredentzia bidez jaso zitezkeenak, alegia-, nahiz eta zuzenbidearen arabera emakumeek ere heredentzian jaso zitzaizketen, aitarengandik semera igaro ohi ziren, praktikan generoaren araberrako banaketa ematen zen. Alabaina, komunitateen batzarretan emakumeek etxeen ordezkariak Erdi Aroaren garai berantiarren arte parte hartu izan zuten, eta are, bizilaguntzat epaitegiko tribunalen parte izan ziren espazioak ere izan ziren. Orohar, dena den, Euskal Herriko testuinguru orokorraren baitan, Erdi Aroan aurrera egin ahala, emakumeek espazio publikoan zeukaten partehartzea murriztuz joan zela esan liteke.

Euskal Herriko ohituretan emakumeek zeukaten garrantzia, alor publikoko karguetako partehartzean baino, heredentziaren zuzenbidearen alorrean ageri zaigu nabariago. Emakumeak oinordeko hautatuak izan zitezkeen, ez soilik familiaren ondasunekiko, baizik honen gidaritzan, are leinu boteretsuen kasuetan ere. Alabaina, azken hauen kasuan ere Erdi Aroak aurrera egin ahala oinordekotzak gizonezkoengan egitea ohizkoago egin zela dirudi. Foruetan eta Ordenantzetan, bestalde, emakumeek espazio publikoetan burutzen zituzten aktibitateen gaineko kontrol neurriak ere izan ziren, batzuetan gizonezkoak eta emakumezkoak baitaritzen zituztenetan, eta bestetan eurekiko espezifikoen (esaterako, salerosketa espazioetako zaratak, meza aurreko berriketak, merkataritzaren alorreko aktibitateak, etab.). Familietako ondasunen administrazioarekiko ere izan ziren emaztea senarraren menekotzat egiterako legediak ere (adib., emazteak ezkontza bidez ekarritako bere ondasunen administrazioarako senarraren baimena behar, baina ez alderantziz), zenbait ordenantzetan ohar litekeenez.

Hala ere, legeen alorraz haratago, Euskal Herriko Erdi Aroko eta Aro Berriko emakumeen artean izan ziren botere handia izatera heldu zirenak, eta legeen arabera printzipioz gizonezkoen esparrukotzat hautematen zirenetako espazioetan parte hartu zutenak. Familia boteretsuetako emakumeen kasuan, familiako ondasunen administrazioaz gain, maila altuko komertzioan, itsasoko negozioetan, burniaren produkzioan eta komertzioan, argizarien edo ohialen salerosketan aritu zirenen kasuen berri bildu izan zaigu, eta baita maila sozioekonomiko baxuagoetan, aniztasun handiko aktibitate eta langintzen esparru bat zabaldu ere: elikagai eta produktu ezberdinen salerosleak, ehuleak, jostunak eta lioaren langileak, tabernari eta ostalariak, labegileak, amasatzaileak eta okinak, batelerak eta gabarrerak, neskameak, nekazariak, "jornalera" edo soldatapekoak, merkataritzako bitartekari edo "corredoras" zirenak, "regatoneria" deiturikoan (produktuen kopuru txikiak salmenta edo bitartekaritza) aritzen zirenak, emaginak, garraiolariak, errentariak, ileapaintzaileak edo "burukoak lotzaileak", garbitzaileak, etab., eta are batzuetan propioki gizonezkoentzat hartuak ziren langintzak ere, labangile eta guraizegileak edo eraikuntzako langileak kasu. Gizonezkoekin partekaturiko ofizio edo langintzen kasuetan, emakumeek etekin gutxiago jasotzeko

joera ohizkoa izaten zen; zeharo nabaria dugu hau, esaterako, soldatapeko edo "jornalera" zirenetan, beraien soldata gizonezkoenaren erdia edo gutxiagokoa izatea ez baitzen arraroa. Bestetan ostera gizonek partehartzerik ez zeukaten emakumezkoen lanak ziren, ehule eta jostunak, okinak edo emaginak kasu, eta emakumezkoen aktibitate, erlazio eta botere espazioak osatu zitzaizketen. Ez da kasualitatea, ohartarazi izan denez, dokumentuetan zenbaitetan "muger libre" bezala aipatuak izan ziren emakumeak (bere kabuz, zeukaten bizimoduaren autonomiarekiko aski esanguratsua dugun izendapena), propioki emakumezkoenak ziren ehungintza eta jostintza aktibitateetan jarduten zirenak izatea².

I. 2. SEROREI BURUZKO IKERKETA HISTORIKOAK

Aktibitate eta langintza guzti hauen artean, erlijiozko esparruarekiko duen loturagatik leku berezi xamarrean kokatuz, ikerlan honetako objektu nagusia ere badugu, seroren kargu edo "ofizioa". Emakumeari buruzko lan orokorretan ere eman izan zaio bere lekua, GITE-IPES-ek argitaraturiko 1988ko lan kolektiboko lanetan Val Valdiviesoren eta Valverderen artikuluetako ataltxoetan (Zenbaiten artean 1988, 26-27, 44-45), baina bereziki Azpiazuren liburuan, "La mujer y la iglesia" ataleko (Azpiazu 1995b, 277-349) azpiatal nagusian (*Ibid.*, 305-349). Val Valdiviesok orokorrean erlijiozko emakumeen instituzioei eskaini zien beste artikulua batean ere izan zituen laburki serorak aipagai, aurreko ataltxoan bezala, oso laburki (Val Valdivieso 1997). Baina serorei buruzko produkzio bibliografikoak eta historiografiak ibilbide propioak izan zituzten; emakumeen historiaren baitako testuinguruan eskaini zaizkien ikerketak erlatiboki ugariak ditugu, baina oso ezaugarri historiografiko mugatuak kokatzen dira, behar besteko sakontasunezko ikerketa gutxiarekin. Gainera, serorak ikergai izan dituzten autoreen artean, instituzioaren definizio garbirik gabeko erlijiozko eta laiko arteko erdibideko izaera medio, batzuetan kontrajarriak izatera ere iritsi diren aski iritzi ezberdinak mantendu izan dira, hainbat aurreritzi ere tarteko izanik. Hala gertatzen da, esaterako, seroratzat ezkontzeko asmoz uzteko posibilitatearen inguruan, edo instituzioaren hastapenen gaiarekin, hainbatek, Larramendiren azalpenei jarraiki, kristautzearen hasierako garaian kokatzen dutena, lehen mendeetako diakonesen instituzioan. Printzipioz behintzat sinesten zaila dirudien baieztapena, bi instituzioen arteko mende ugariak eta hauetako aldakuntzak gogoan izanik; ikusiko dugu baina aurrerago posibilitate honen parametroak non kokatzen zaizkigun, eta garai haietako testuinguruan zentzugabea behintzat ez litzatekeela izango ohartuko dugu.

Ikerlan hauetan bilduriko datuak, hausnarketak eta ondorioak lanean aurrera egin ahala azalduko zaizkigu, informazio ezberdinak dagozkien lekuan kokatuz. Baina beharrezkoa dugu, gairako sarrera egiten gauden hontan, seroren inguruko ikerketen gainbegiratu ematea, gure doktorego tesia testuinguru historiografiko horretan non kokatzen den ohartu eta ulertzeko besterik ez izatekotan ere. Gaiari buruz argitaratu izan den gehiena liburuetako kapitulu edo aldizkarietako artikulua eran azaldu izan da, eta liburu formatoan Juan Garmendia Larrañagaren *Seroras y sacristanes* (2008 -2007-) (bakoitzari eskainitako artikulua banarekin osaturiko liburua) eta *Serorak Debagoienan (XVI-XVIII)* (2010) -doktorego tesi honen aurrekari izan zen- nire ikerlana baino ez dira argitaratu. Aipagarria dugu halaber Amalur Kultur Elkarteak argitaraturiko *Les benoîtéries au Pays Basque* (1991) artikuluz osaturiko *Ekaina* aldizkariaren gaiari

² Ikuspegi orokor honetarako gorago aipagai izan berri dugun bibliografia baliatu dut; bereziki, saiakera sintetikoez eta aktibitateen ikuspegi zabalagatik, ondorengo lanetan hartu dut oinarri: Zenbaiten artean 1988, Estornés Zubizarreta 1988, Azpiazu 1995b, Oliveri Korta 2001 eta 2009, eta Ayuso Sánchez 2009.

buruzko ale monografikoa ere. Kasurik gehienetan analisi partzialak ditugu, ikerketak espazio mugatu batean, aspektu jakin batzuekiko, edo serorak presente izan ziren gertakizun historikoen inguruan burutu direlako; aipatu berri dudan nire ikerlanean, ahal izan nuen heinean, aurretiko ikerlanen ekarpenak batu eta antolatzen saiatu nintzen, ikuspegi orokorrago batera heltzen, ikerketak espazio nagusizat Debagoiena izan bazuen ere. Eta izan dira ondorengo argitalpenak ere, jarraian zabalxeago aipagai izango ditugunak.

Ohar dezagun ekin baino lehen, historiaren aldetik bezalaxe etnografiarenetik ere ikertu izan dela instituzioa, eta ohizko beste ikerbide edo gai espezifikoko bat heriotzaren errituena izan dela. Eta esan behar, halaber, jarraian aipagai izango ditugun lanez besteko bibliografia ugari batean ere aurki litezkeela seroren inguruko berriak, bereziki parrokiei edo bestelako tenpluei monografikoki eskainitako lanetan, eta ermiten inguruan egin izan diren ikerlan zabaletan. Ezin gara baina, noski, hemen guztien errepassoa egiten hasi, eta esanguratsuenak iruditzen zaizkigunak azaltzera mugatuko gara.

Historiografiari errepassoa egitean, lehenik Aro Berriko zenbait iturri narratibo aipatzea beharrezkoa dugu, lan hauek ondorengo seroren ikuspegia historiografikoa eratzekoan eragin handia izan baitzuten. Lehen autorea Euskal Herriko historian aski ezaguna dugun Pierre de Lancre inkisidorea izan genuen; bere *Tableau de l'insconstance des mauvais anges et démons* (2004 -1612-) liburu famatuan, gatzelerarako itzulpenean "El porqué hay más mujeres brujas que hombres, y de cierta clase de mujeres, llamadas benedictas, que en el país de Laburdi tienen como sacristanas" bezala itzuli ziguten izenburuko kapituluaren seroren berri eman zuena. Gaitzespenetik izanda ere, Lancreren seroren gaineko deskribapena oso interesgarria dugu. Liburuaren argitalpenetik urte gutxitara ekingo zitzaion seroren desagerrarazte saiakeran hartu ziren neurrien aurrekari ere baditugu bere hausnarketa eta obserbazioak, eta bera dugu, ondorengo historiografian ohizko bihurtu izan den seroren hastapenetako figuraren lehen aipamena, diakonesak serorekiko konparazioan isladatzean. Funtsean, Lancreren deskribapenak ondoren batez ere elizako instituzioen aldetik seroren aurka hartu ziren neurrietan gaitzetsi ziren aspektuen lehen irudi bat dakargu. Diakonesekiko erlazioa iradokitzen eta deskribapen baliotsu bat eman zigun lehen autorea izan bazen ere, historiografiaren baitan Lancreren liburua iturritzat baztertu xamarra suertatu da, ziurrenez, inkisidorearen itzal ilunagatik.

Seroren berriak eman zizkigun hurrengo autorea Lope Martínez de Isasti dugu, bere *Compendio Historial*-eko (1985 -1625-) XX. kapituluaren "De las Iglesias y ermitas devotas de Guipuzcoa" ziarduela, bertan "'serora", "beata" eta "hermitaño" zirenak aipatu zizkiguna. Marota la Santa izeneko serora baten inguruko kontakizun heterodoxo xamar batez beste (ikusiko dugu aurrerago), "serora" edo "beata"-k beste sei kasutan baino ez zizkigun aipatu, eta ohartzeko ekarpen bakarra egiten duen terminoen ezberdinketa bera dugu, "serora" eta "beata" zirenen artean, izen ezberdinez aipatuak izateko, ezberdintasunen bat hauteman behar baitzuen.

Lehen iturri narratibo hauen artetik seroren inguruko historiografian eraginik handiena izan zuena, zalantzarik gabe, Manuel de Larramendiren *Corografía de la Provincia de Guipúzcoa* dugu (1985 -1754-). "De las seroras de las iglesias y ermitas de Guipúzcoa" atalean seroren inguruan osatu zuen irudia, ondorengo hainbat autorek jaso zuten. Larramendik parroketako serorak hauen zerbitzuan erabat beharrezkoak zirela eta nolabait "estado eclesiástico"-aren parte zirela hautematen zuen; gainera, diakonesen instituzio zaharraren azken arrastotzat zeuzkanez, mantendu eta errespetatuak izan beharko lirakekeela uste zuen. Alabaina, ermitetako seroren inguruan azaldu zuen iritzia

bestelakoa izan zen. Azken hauek ermitauen bikoteen bidez ordezkatzearen aldekoa zen (garai haietan jada abian zegoen prozesua), ezen "no habia antiguamente diconisas de ermitas", eta bertan "las pobres *seroras* con mucho peligro de ser atropelladas" zeudela kontsideratzen baitzuen.

Serorak Antzinateko diakonesen ondorengotzat hartzea ondorengo historiografiara iragango den hautemapena dugu, askotan, analisi kritiko handiegirik egin gabe jasoko den ideia. Aurkitu ahal izan ditugun serorei buruzko ikerlan gehienek, bere lekuan aipatuko ditugun salbuespenez beste, edo ez dute hastapenen gaia jorratzen, edo diakonesengandiko jatorriaren ideia jasotzen dute Larramendirengandik, konbentzimendu handiagoz edo txikiagoz, edo aipu hutsean. Larramendi bera iritzi honetara diakonesen eta seroren arteko kargurako baldintzen eta funtzioen parekotasunak erreparaturik heldu zen; jada XX. mendearen hasieratan Webster-ek konparazio zehatzago baten bidezko irizpide zientifikoagoen arabera berretsiko dituen parekotasunak.

Bi parrafotan laburbildurik dakarzkigun baldintzen, eskubideen eta eginkizunen deskribapenez beste, bost orrialdetako kapitulu honetan Larramendi arduratzen duten alderdi nagusiak, hiru ditugu: seroren hastapen urrunak, diakonesetan leudekeenak; "kargua" utzirik ezkontzeko posibilitaterik eza; eta parroketakoak mantentzeko beharra, ermitetakoak ez bezala. Neurri bateraino hiru alderdi hauek elkarren osagarri dira, nahiz eta aspektu hauek azaleratzen duten erlijiozko eta laiko bitarteko erdibide egoera indefinitu xamarra medio, azalpenen batzuk eman beharrean izango den.

Hurrengo ekarpen aipagarri bat autore ezezagun baten eskutik heldua zaigu; Gabriel de Henaok 1689-1691 bitartean idatzirik *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria* bost liburukiko lan zabalari 1895ean, zuzenketak eginez eta azalpenak eta dokumentuak baitaratuz gehigarriekin (bi liburuki gehituz) Eusebio López-en eskutik egin zitzaion argitalpenean, VII. gehigarrian ("Sobre la Historia del Patronato de Loyola en la Iglesia Parroquial y Ermitas de Aspeitia") serorei buruzko lehen iturri dokumentalak argitaratu ziren, lau izendapen eta hiru posesio-emate. Ekarpen hau garrantzitsua izango da, batez ere, Webster-engandik hasita, serorei buruzko ondorengo ikerlan historikoetarako oinarrietariko bat osatuko duten dokumentuak argitara eman zirelako.

Lehen lan narratibo hauek kualitatiboki garrantzitsuak zaizkigu, batez ere Lancreren eta Larramendiren lanak. Lancreren liburua literatura misoginoaren Europa mailako oldarraldi baten parte izan zen, eta emakumeekiko orokorrean, eta serorekiko partikularki, legedi zurrunagoak sortzerako orduan bere eragina izan zuela dirudi. Larramendiren lana eragin historiografikoagatik dugu garrantzitsua, bai gizarte baitako, kultuko eta elizako funtzioak definitu eta deskribatzerako orduan, eta baita, nagusiki kutsu ideologiko eta dotrinalak gidaturik, oinarri zientifiko handiegirik gabe datu historikotzat pasarazi diren zenbait aspekturen kasuan ere: hauxe dugu Antzinateko Elizako diakonesengandiko jatorriaren ideien kasua, edo beraien kargurako sarrera "tomar estado" bezalako egoeratzat hautematearena ere, ezkontzea erabat debekatua izango zuketelarik, etab.³ Esanguratsua dugu, era berean, bi lan hauek seroren instituzioarendako ardatzezkoak izan ziren garai batzuetan idatziak izana: Lancrek apezpikutza ezberdinen aldetik Euskal Herriko espazio ezberdinetako seroren aurkako neurriak hartzeari hasita zeuden eta XVII. mendearen lehen erdialdean garairik gailenena izango zuen testuinguan, eta Larramendik, 1769ko Errege Aginduaren bidez

³ Azken baieztapen honen partzialtasuna ondorengo ikerlanetan azaleratuko da (adib., Webster 1911 eta Arza Alday 2006), beraien "estado"-a ezkontzeko asmoz itxurazko arazo edo "eskandalurik" gabe utzi zuten seroren kasuak ageri zaizkigun dokumentuak agertuz joan ahala.

seroratzak desagerrarazi zituzten baino zenbait urte lehenago, desagerraraztearen aurreko urteetako neurriekin giroa berotuz zioan garai batean, 1754an. Azkenik, lehen iturri hauen autorerik gehienak jesuiten ingurumarian kokatzen zaizkigula aipatu beharrean gaude: Lancrek jesuiten kolegioetan burutu zituen bere ikasketak, eta baita zuzenbidean doktoratu ere; Larramendi apezaren zen, konpainiako partaide; eta halaber jesuita zen Henao aitaren *Averiguaciones...* laneko 1895eko gehigarrien egilea konpainiako partaide edo inguruko izatea ere ez litzateke batere arraroa izango.

Lehen iturri narratibo hauen ondoren, XX. mendearen hasieratan serorei buruzko ikerketak egiteari ekingo zaio, jada ikerketa historikoak burutzeko garaiko metodologiaren arabera eginak. Dokumentuen ikerketa zabalago eta sakonagoen bidez gizartean zeuzkaten funtzioak, eskatzen zitzaizkien baldintzak eta eskubideak ikertzeari ekin zitzaion, jada espazioen eta garaien araberrako banaketei ere erreparatzeari ekinez. Artikuluen eta liburuetako kapituluen bidez, ohitura lokalak beraien berezitasunetan hartuko dira ikergai, seroren aurka hartu ziren neurrien araberrako garai ezberdinak banatuz joango dira, lurralde historiko nahiz herri mailako instituzio ezberdinek seroren desagerrarazterako neurrien aurka azaldu zuten erresistentziaren fenomenoaren ere ohartuz. Guzti honek, apurka, seroren desagerrarazte prozesuetan inpikaturiko autoreen eta batez ere Larramendiren ikuspegi historiografikoarekiko, bestelako ikuspegiaren eraketa ahalbidetuko du.

Ikerlan historiko hauei ekiten lehena Wenworth Webster apez protestantea izan genuen, 1911ko "Seroras, Freyras, Benitas, Benedictae entre los vascos" artikuluarrekin. Aurreraxeago azalduko dugunez, Webster-en argitalpena protestanteen artean diakonesen figura errekueratu eta -diakonesen ordena berriak sortuz- eguneratzeari ekin zitzaion garai batekoa dugu, eta European eta Ameriketara XIX. mendearen bukaeran eta XX. ren hasieratan diakonesen historiaren inguruan burutu ziren ikerketen testuinguruan txertatzen zaigu. Esan bezala Webster-ek diakonesen funtzioen ikerketa bat burutu zuen, aurretik Larramendik emandako azalpenen aldean, bibliografikoki eta dokumentalki (kontzilioetako informazioarekin, nahiz Eliz Gurasoen aipamenekin) zabalago eta sendoago oinarritua. Funtzio hauek seroren funtzioekiko konparazioan kokatu zizkigun, jada Erdi Aroko eta Aro Berriko dokumentuetan oinarrituz; aipatu berri ditugun autore "narratiboen" ekarpenak jaso zituen, hauei beste zenbait iturri bibliografiko garrantzitsu gehituz⁴, eta ekarpen arkeologikoak ere bere azalpenak sendotzeko jaso (katakunba erromatarretako *benedicta* zirenen hilarriak eta seroren hilarriak ere konparatuz). Hein bateraino, Webster-en lana ordurarte serorei buruz argitaraturikoaren birkapitulazio bat egitera datorkigu, bere ekarpen propioa eginez, analisiaren alderdian bezalaxe, dokumentuenean ere.

Funtsean, Webster-ek hiru informazio iturri nagusi darabiltza: (a) Lancre eta Larramendi bezalako iturri narratiboetatik eratorritako informazioa, (b) izendapen eta posesio-hartze dokumentuetatik jasorikoa, eta (c) legezko neurriak hartzeko eta araudiak sortzeko gaitasun edo asmodun instituzioen aldetik xede horietarako sorturiko dokumentuak. Horrez gain, Webster, nahiz eta darabiltzan iturritzko eta bibliografiako oinarriak batez ere Gipuzkoari eta Iparraldeari dagozkien, Pirinioen bi aldeak aintzat hartuz informazioa Euskal Herriarekiko modu "orokor" batean ikertzeko saiakera egiten lehena izango dugu.

⁴ Dubarat-ek 1901ean argitaraturiko *Le Missel de Bayonne de 1543, Índice Cronológico de los documentos y Papeles del Archivo General de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, D'Olice monsinorearen *Statuta Synodalia*-k, eta "Memoria del estado presente de los Reinos de Baja Navarra y país soberano de Bearn, dirigida el 31 de Diciembre por M. Le Bret, Intendente" izena daraman eskuizkribua.

Alabaina, nahiz eta bere analisirako esfortzuak aintzat hartzekoak izan, Webster-ek ez zituen ondorengo autoreek poliki-poliki baliatzeari ekin zioten dokumentu moeta batzuek aintzat hartu: auziak, besteak beste, apezpikutzetatik eta bestelako instituzioen aldetik agindu ziren neurrien aplikazio errearen, eta egunerokotasuneko arazo eta liskarren berri ematen digutenak. Hutsune honek eragin zuen Webster-ek prozesu eta gertakizun garrantzitsu batzuek ohartu ez izana: XVII eta XVIII mendeetan seroren funtzioen mugapenak eta debekuen prozesua, eta instituzio ezberdinen aldetik (Bizkaiko Jaurlarria, Gipuzkoako Probintzia, Iparraldeko Estatuak, herrietako udalak, etab.) mugapen eta debeku horiei agertu zitzaizkien erresistentzia.

Debeku eta mugapenen prozesu hauen lehen ikuspegi baliagarri bat lasterrera eman zigun Lizarralde, bere "Orígenes de la vida claustral en el País Vasco" artikuluan (1919). Komentuen hastapenak aztergai harturik, hauen jatorrian izan ziren eta batez ere hiribilduetan kokaturik zeuden seroretxe edo "beaterio"-ek piztu zuten batez ere bere interesa. Autoreak berak zioskun Larramendiz beste ez zuela seroren gaia ikertu zuenik ezagutzen, eta beraz, beragandik jason zituen azalpenak zabal. Horrez beste apezpikutza ezberdinetako konstituzio sinodalak eta eliz-hierarkien bestelako dokumentuak eta zenbait autoreen lanak (bereziki Labayruenak) baliatu zituen, seroretxe edo "beaterio" haien gain klausura ezartzearen prozesuan izan ziren neurri eta debekuen eta "bizimodu klaustral"-aren hedapenaren berri emateko. Handik zenbait urtetara, 1921ean, *Historia del Convento de la Purísima Concepción de Azpeitia* eman zuen argitara, eta sarrerako kapituluetan, batez ere lehenean, seroren inguruan egina zuen ekarpena hedatu zuen, parroquia eta ermitetako seroren gainekoak zehatzago azalduz. Orduan ere Larramendirengandik jasotako informazioa jaso zuen zabal, Henao eta Webster-en ekarpenak ere gehituz; funtsean, aurreko lanean eratu zuen ikuspegi berretsi eta zabaldu zuen, aipaturiko autoreen eta bereziki Larramendiren hitzak gidatzen harturik. Lizarralde seroren inguruan osatu zuen ikuspegiaren bereizgarri nabarmenena hauek bizimodu klaustralaren aurrekaritzat hautematea dugu, bizimodu kontenplatiboaren eredurako ibilbidean hastapenetan eman izan ziren forma arkaikoak baino izan ez bailiran, eta serorek eurek mojen eradura heltzea desiratu izan balute bezala. Eta ibilbide hartan, bakarkako serorak eta komunitatean bizi zirenak banatu zizkigun, azken hauen komentuetarako transformazioaren prozesua ikerketaren erdigune eginez.

Herrietako eta lurralde historikoetako artxiboetako informazioa, bereziki auzi ezberdinen bidez, autore ezberdinek atera zuten ondorengo urteetan argitara, liburu- eta kapitulu edo artikuluko motzetan (2 edo 3 orrialdekoak), 1976an, Karmele Saint-Martinek informazioa batzeko hurrengo ahalegina egin zuen arte, *Las seroras vascas* ipuinen liburuari atxikitako artikuluko erako ikerketa historiko batean. Webster-en eta Saint-Martinen lanen artean daukagun ia mende erdian zehar, Lizarralderen lanarekin batera, Juan de Arín Dorronsororen (1929) eta Juan Garmendia Larrañagaren (1976) lanak ditugu lehenik aipagarri; dokumentu berriren batzuetako informazioarekin batera, "ofizioaren" ikuspegi orokor bat jasotzen dute, jada aipagai izan ditugun ikerlanen irizpideekin. Roland Moreauk (1970) ere, bere aldetik, ikuspegi orokor bat eskaini zigun, baina Iparraldeko iturri dokumentaletan oinarritua. Patroitzen inguruko zenbait auziren berri, hurrenez hurren Begoñan eta Donostian kokaturikoen berri eman ziguten Darío de Areitiok (1959) eta José Ignacio Lasak (1977), eta aldareko eskaintzen ordenaren inguruan serorak inplikaturiko Bergarako auzi baten berri ere eman zigun Ignacio Zumaldek (1962). Areitioren eta Lasaren kapitulu motzek, Arín Dorronsororen eta Garmendia Larrañagaren lanek bezalaxe, serorei buruzko sarrera orokorrak dakartzate, udal artxiboetatik edo lurralde historikoetakoetatik jasotako herri jakinei

buruzko informazio berriarekin. Bestalde, Arín Dorronsororen, Areitioren eta Moreauren lanek ez digute, zoritxarrez, informazio iturrien berri ematen.

Baditugu jada, hortaz, lau informazio iturri moeta: (a) iturri narratiboetan behaketa zuzenaren bidez jasotako informazioa, (b) izendapenak eta posesio-hartzeak, (c) dokumentu legegileak, eta (d) auziak.

1976an, Karnele Saint-Martinek, serorei buruzko ipuinen osagarritzat, eta agian hauei buruzko informazio bibliografikoa nahiz dokumentala batzeko beharra oharturik, azken kapitulu bat gehitu zien ipuinei ikerketa historiko xumetzat, "Pequeña recopilación histórica sobre las seroras" izenarekin. Funtsean, Saint-Martinen lanak aurretik argitaraturiko lanetako informazioa biltzen digu (nahiz eta bilaketa dokumentalen bat ere egin zuen, transkripzio bat ere gehitzen baitu), eta batez ere -zenbaitetan jada landuak zeuden- gai espezifiko batzuek isolatu izanaren meritua dauka, ondorengo historiografian ohizkoa egingo zen oinarrizko banaketa analitiko bat antolatuz: (1) jatorrien auzia ("Origen probable de las seroras"); (2) izendapena eta dotea ("Nombramiento y dote"); (3) funtzio sozial eta langintza ezberdinak ("Ocupación y trabajo de las seroras"); (4) etekinen dimentsio ekonomikoa ("Emolumentos"); (5) portaera arazotsuak eta liskarrak ("La excepción de la regla"); eta (6) desagerrarazte prozesua ("Vicisitudes por los que pasó el cargo de serora").

Hurrengo urtean, 1977an, Roslyn M. Frank-en artikulua bat argitaratu zen, gaia hautemateko bi ikuspuntu nagusiz baliatuz: bata sinkronikoa, aktibitateen espazioari eta funtzio sozialei legokiokeena, eta bestea diakronikoa, mendeetan zehar -batez ere mugapen eta debekuen bidez- izan ziren aldaketa prozesuen gainekoa. Analisi sinkronikoaren baitan bi alderdi nagusi banatu zituen: elizetako zaintza lanak eta parrokiako emakumeen zeremonietako gida lanak (serorak "priestess or mistress of ceremonies" bezala hautemanez). Ikerketa diakronikoa oso bitarte kronologiko zabalaren gain hedatzen du, lurraldearen kristautzearen testuingurutik ekinda (garai zaharrenetako seroren eta apezeme paganoen arteko loturak, agian, oinarri handiegirik gabe ziurtzat emanez), espazio eta garai ezberdinetan beraien funtzioen mugapenen eta desagerrarazte saiakeren prozesuetara. Informazioa hogeita hamar bat artikulua eta liburutako bibliografia anitz batetik jaso du, orain arte ikusi ditugun Lancre, Larramendi, Henao, Webster, Lizarralde, Areitio eta Moreauren lanak tarteko⁵.

Ikus liteke nola, poliki poliki, seroren gaineko ikuspegi historiografikoa Larramendi eta Lizarralde bezalako autoreek eraturiko mojaren figurarekiko isladatik ("estado eclesiástico"-aren partetzat hautemanak, edo mojen komentuen aurrekari paperean baino hautematen ez ziren "beaterio"-enean, etab.) aldenduaz joan zen, espazio laikoago batean kokatzera heltzeko, erlijiozko eta laiko bitarte horretan, indefinizio hark motibaturiko egoera arazotsuei bide emanez. Baina dokumentuen ikerketa zuzena ez zen oraindik handiegia izan, ondorengoek aurrekarien informazioa oinarritzat harturik, poliki poliki multzo esanguratsua osatzen doazen lekuan lekuko ekarpen txikiak eginez. Zentzu honetan, Claudio Zudaireren "Seroras del Baztán en el siglo XVII" (1978) ardatzezkoa izan zen, dokumentuen ikerketa zuzen xeheago eta arduratsuago bati ekin baitzion. Hein bateraino, serorak ordurarteko lanetan egiten zenaren kontrako modu batean izan zituen ikergai. Ez zen ohizko deskripzio eta

⁵ Lehen argitalpen honetatik urte askotara, jada 2001ean, artikulua honen euskararako itzulpen hedatu bat argitaratu zuen; hedapenean, mitoen interpretazioan eta hizkuntzaren analisisian oinarriturik, seroren laguntzaileen (Hegoaldean "coadjutora" bezala eta Iparraldean "brayine", "braine" edo "braguine" bezala ezagutuak) inguruko hipotesi bat eratu zuen, hauek etimologikoki -Iparraldeko dokumentuetan ematen zitzaizen izenaren arabera- "beguine" europearren jatorrian kokatuz. Emango ditugu aurrerago hipotesi honen inguruko berriak eta iritzi propioak.

azalpenetarik ekin, ondoren azalpenok bibliografiaren eta dokumentuen ekarpenen bidez hedatu eta finkatzeko; alderantziz, dokumentuak eurak oinarriztat harturik, seroren bizitza, aktibitateak eta instituzioaren hautemapena bera elementu ezberdintzat banatzea izan zen egin zuen lana, auzien eta bertako dilijentziek gorabeheren jarraipenean. Prozesu konkretu bat ikertu zuen (Iruñako apezpikutzako 1590eko konstituzio sinodaletan aginduriko neurrien aplikazioa) leku eta denbora konkretu batzuetan (Baztan, 1626), seroraren irudia beti esparru horren baitan ikertuz, izaera orokorragoko ikerketekiko erreferentziarik eman gabe. Artikulua gorpuzten duena dokumentuen gertakizunen jarraipena dugu, eta bertatik eratortzen da gainontzekoa, ordurarte egin izan zuten bezala, autore nagusi batzuegandik (batez ere, Larramendi eta Webster) jasoriko informazioarekin osaturiko ardatz nagusi batez baliatu beharrean.

Gaia lantzeko antzerako modua hartu zuen, Imanol Sorondok ere, serorak aipagai izan zizkigun "Las 38 ermitas de Bergara. Estudio etnográfico-histórico" (1982-1983) lanean ere. Gaiari hiru orrialde baino eskaini ez bazizkion ere informazio baliotsua bildu zuen, eta serorak izendatzeko modu ezberdinen berri emateko baliatu zuen Larramendiren aipu batez beste, ikerlana dokumentuetan oinarritu zuen osoki. XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte saiakeren testuinguruan izan ziren bi auziren berri eman zigun, Kalagorriko apezpikutzak Bergarako Udalarekin eta Gipuzkoako Probintziarekin izan zituenak.

Zenbait urte lehenago, 1980an, José Iturratek *El Santuario de la Virgen de la Encina* liburua kaleratu zuen, 3. atalaren azpiatal bat bertako "La beata"-ri eskainiz. Azpiatalak sarreratzat dakarzkigun kontsiderazioak, instituzioaren jatorriei, "fraila" eta "beata" terminoen azpian aipatzen ziren erlijiozko emakumeen inguruko ezberdintasunei, eta hauen zenbait komunitatek egin zuten klausurarako bideari buruzkoak, interes handikoak ditugu. Horiez beste, eta datuen jarraipen kronologikoa gehiegi aintzat hartu gabe izanik ere, gaia lantzeko banatu zituen atalak Saint-Martinen lana aipagai izan dugunean azaldu ditugun irizpideen arabera antolatutako ageri zaizkigu, serora-laguntzaileari ere bere espazioa emanez, eta ikergai izan zuen tenplu espezifikuari zegozkion bereizgarriren batzuekin. Izan ere, Artziniegako Artearen Amabirjinaren santutegiko seroretxea erromesendako ostatu eta hospizioa ere bazen, eta bertako erromesen eta umeen zaintzaren ardura zeukaten serorak eta bere laguntzaileak, tenpluaren artapenez gain. Iturriei dagokienean ere badu lanak interesik, herriari eta tenpluari zegozkion dokumentuez baliatzeaz beste, erabilitako bibliografian aurreko autoreek baliatu gabeko zenbait lanen berri eman baitzuen.

80. hamarkadan eman zen argitara halaber Vicente de Urquizaren *Iglesia parroquial de Santa María de Lequeitio* monografia ere, 1985ean. Liburuko azken kapitulu batean eman zuen herriko seroren berri, ermitetakoak soilik aipagai harturik. Azalpen orokor labur batzuen ondoren ermitako seroratzara baterako sarrera dokumentu baten transkripzio partziala eman zuen, eta baita ermitetako eta ospitaleko seroren 1596-1610 bitarteko zerrendatxo bat osatu ere. Baina lan honetako ekarpen nagusia hurrengo orrietakoa dugu; 1595-1636 bitartean seroren desagerrarazte aginduek sorturiko auzi eta dilijentzien jarraipena egin zuen, azken urte honetan -beste leku batzuetan gertatu ez bezala- desagerrarazte aginduaren betearazpena eman zela azalduz, eta ondorengo urteetan ermitetan ermitau bikoteak nola sarrarazi zituzten ohartuz. Prozesu hauen ondorioen aniztasuna azaleratuz zioan.

90. hamarkada, zentzu zabal batean hautemanik, seroren inguruko historiografiaren "urrezko arotzat" har liteke. Zehaztasun handiagoko ikerketak egin ziren, diziplina ezberdinen barretetik. Hargatik, eta ardatz orokor batzuk ematearren baino ez bada ere, lan ezberdinak hartzen duten ikuspegi ezberdinaren arabera

sailkaturik hautemango ditugu: (a) etnografikoak (bereziki heriotz errituei dagozkionak), (b) erlijiozko instituzioei orokorrean dagozkienak (bereziki klausuraren fenomenoari erreparatzen diotenak), eta (c) propioki historikoak, espezifikoki serorei buruz dihardutenak. Karakterizazio orokorrerako sailkapen hau baliatzeaz beste baina, jarraian datozen azalpenen ordena, nahiz eta hein bateraino jarraipen kronologikoa errespetatuko dugun, espazioen arabera izango dugu, puntu honetatik aurrera, Bizkaiaren salbuespen esanguratsuz aparte, Euskal Herriko lurralde historiko ezberdinei dagozkien serorei buruzko ikerketak agertuz joan baitziren, lurralde historikoen euren mailan, edo herri jakinenean. Eta izan ziren, noski, ikerketa espaziotzat Euskal Herri guztia hartu zutenak ere. Hala, hein bateraino jarraipen kronologikoan antolatzen zaizkigun ondorengo ikerketen azalpenak honako ordenean emango ditugu: (1) Iparraldea, (2) Gipuzkoa, (3) Euskal Herri guztiari dagozkion emakumeen erlijiotasunari eskainitakoak, (4) Nafarroa, eta (5) Araba.

(1) Iparraldea: Espazio honetan, lehenik, Michel Duverten lanak zaizkigu aipagarri. Duvertek gaiari eskaini zizkion hiru artikuluren berri daukagu, 1989an, 1991n eta 1998-1999an argitaratuak. Lan hauetako ikerketarako ikuspegia orokorrean etnografikoa dugu, heriotz errituetan erdigunea harturik, eta erlijiozko esparruen emakumeek izan zuten garrantzia azpimarratuz. Horrez gain, datu historikoak ere aintzat hartu zituen, dokumentuen transkripzioak ere eginez. Oinarria batez ere inkesta etnografikoetan harturik, instituzioaren izaeraren inguruko eta seroren langintza eta funtzio sozialen inguruko berri aberatsak eman zituen. Eta alderdi historikoarekiko, dokumentuez gain, Duverten lanek gaiari buruzko Iparraldeko bibliografiaren berri eman ziguten, eta baita Iparraldean bertan zeuden seroren egoeren aniztasuna aditzera eman ere.

Duverten artikuluetako bat, 1991koa, urte hartan argitaratu zen serorei eta seroretxeei buruzko lan kolektibo batean azaldu zen: *Les benoïteries au Pays Basque*. Amalur Kultur Elkartek *Ekaina* aldizkariaren ale berezitzat argitaraturiko lan hau, Duverten lanaz gain, beste lau artikulurekin osatu zen: Lafourcade, Martín-Ochoa de Alda, Lafitte eta Mersch eta Desporten sinadurak dakartzate. Argitalpenari hautemapen orokor bat osatu ahal izateko ikuspuntu ezberdinak aintzat hartzeko borondatea atzeman dakioke, gaia artikuluan ezberdinetan nola lantzen denaren arabera ikus litekeenez. Hala, ikerketak etnografiaren alderditik eta heriotz errituetan erdigunea harturik (Duvert), "benoïteries"-en eta hauen inguruaren arkitekturaren alderditik, esangura sinboliko eta soziologikoari erreparatuz (Duvert, Martín-Ochoa de Alda, Desport), gizarte baitako funtzioen, eskubideen -eta emolumentuen- eta betekizunen ikuspegitik (Duvert, Lafourcade, Desport), eta "benoïterie" jakinetan izan ziren seroren jarraipenetik (Lafitte eta Mersch, Desport) egin ziren. Espazioekiko aldiz, Duvert eta Lafourcaderen lanek Iparraldeko testuingurua bere osotasunean aintzat hartzen zuten bitartean, Martín Ochoa de Aldaren eta Lafitte eta Merschen lanek Arbonako (Lapurdi) seroretxea izan zuten ikergai, Desportek Hiriburukoa (Lapurdi) ikergai izan zuen artean.

Lan guztiek hartu zuten parterren batean ikuspegi historikoa, edo daturen batzuek Errejimen Zaharreko dokumentuetatik jaso zituzten; Martín-Ochoa de Aldaren lana dugu agian salbuespen, datu historikoren bat emanda ere, seroretxearen arkitektura izan baitzuen ikergai nagusi. Dokumentuen erabilpen zuzena egin zuten lanak Lafourcade, Lafitte eta Mersch eta Desportenak ditugu; dokumentuok XVII-XIX mendeen bitartekoak dira, gehienak XVIII.ekoak.

(2) Gipuzkoa: Gipuzkoara, ikergai nagusitzat heriotz errituak izan zituen lan batekin iragango gara: Juan Garmendia Larrañagaren *Costumbres y ritos funerarios en el País Vasco; del siglo XVI a nuestros días* (2007 -1991-). 68 orrialdeko lan honek 25

orrialdeko lehen atal bat eskaini zien serorei, "Esbozo histórico" bat eginaz. Gipuzkoari buruzko lanetan aipatzen badugu, Euskal Herria orokorrean aipagai izan bazuen ere, serorei buruzko ataleko informazio guztia Gipuzkoari dagokiolako da. Sarreran insituzioari buruzko ikuspegi orokor bat ematen zaigu, jada aipagai izan ditugun zenbait autoreren lanak (batez ere Larramendi, aiputan zabal jasotzen duena, baina baita Henao, Webster eta Lizarralde ere) eta Gipuzkoako Batzar Orokorren aktak oinarritzat harturik. Banaketa kronologikoaren arabera banatu zizkigun datuak ondoren, XV, XVI, XVII eta XVIII mendeetarako, bakoitzeko bi edo hiru iturri nagusi oinarritzat zituela, eta jada ikerketez nahiz herri mailako dokumentazioaz baliaturik. Garmendia Larrañagaren ekarpenik handiena transkribitzen eta azaltzen dizkigun dokumentuena da⁶, eta aipagarria dugu XVII. menderako baliatu zuen iturri nagusia ere, interes handikoa dirudiena, baina zoritxarrez ikerlan honetarako eskutan izan ez duguna: 1691n Izaskuneko Andre Mariaren kaperako kapilau zen Antonio de Aldabaldek idatzirik lan argitaragabe bat; bertan, kapilauak seroren berriak jaso nahi izan zituen, baina gaiari buruzko dokumenturik aurkitu ez zuenez, ordungo serora zaharrenengandik jaso ahal izan zituen berriak bildu zituen, gaur egungo ikerketa etnografikoen tankerara. Orokorrean, Garmendia Larrañagaren lana dokumentuen "miscelanea" bat dugu, aipu luzeak jasotzen dituena, eta irizpide kronologiko eta tematikoak dokumentuetako informazioak ematen dion jarraibidearen arabera antolatzen dituena.

1993an Emeterio Sorazuren *Gaintza. Kondaira. Ohiturak. Erligiotasuna* liburua irten zen argitara, aski labur izanik ere, kapitulu batean ("Seroren zereginak Gaintzan", 2009an liburua berrargitaratzean *Goierriarra* aldizkarian atal interesgarritzat jaso zutena) Gaintzako seroren bizimoduaren eta zereginen azalpen garrantzitsuak era sintetiko eta eskematiko batean jaso zituena, historiaren alorretik bezalaxe etnografiarenetik ere informazioa bilduz. Batez ere elizako aktibitateak eta erritu eta ospakizun ezberdinetako zereginak izan ziren bere ikerketaren intereseko, eta oso labur bildurik eta iturrien berri eman gabe izan bazen ere, ordurarteko argitalpenetan aipatu ez ziren xehetasunak eman zizkigun.

Hurrena, Gipuzkoatik irten gabe, orain arte ikusi ditugun lanen arteko bete eta zorrotzenetarikoa dugun batera heltzen gara: José Antonio Azpiazuren "Las seroras en Gipuzkoa (1550-1630)" (1995a). Artikulu berberak gorago aipagai izan dugun bere *Mujeres vascas. Sumisión y poder* (1995b) liburuko ataletariko bat osatu zuen, emakumeari eta erlijioari eskainitako atal zabalagoaren baitan. Termino orokorretan Saint-Martinen lanari buruz jardutean aipatu dugun eskema orokor berbera darabilela esan liteke, baina honek ez bezala, gaiaren garapen eta azalpenetarako oinarri nagusia dokumentuetatik jasoz (Saint-Martinek nagusiki bibliografia baliatu zuen artean); eta dokumentuok zedarritzen dituzte, espazioa bezalaxe tarte kronologikoa ere. Azpiazuren ekarpenik garrantzitsuenetariko bat, elizako nahiz alor zibileko artxiboetako auziez beste, ordurarte seroren ikerketan baliatu ez zuten dokumentu moeta baten erabilera garrantzitsua dugu: protokoloak, kasu honetan Oñatin kokaturiko Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikokoak. Ikerlanaren sarrerarako, bestalde, serorei buruz idatzirikoaren errepaso bat egiten du, jada aipagai izan ditugun autoreren batzuen berri emanez: Martínez de Isasti, Larramendi, Garmendia Larrañaga, Zudaire eta Sorondo. Diogunez, Azpiazuren laneko gaiaren garapenak eta aspektuen sailkapenak gehienez bat egiten du gorago Saint-Martinen lanari buruz jardutean azaldu dugunarekin. Kapituluaren antolakuntzaren inguruko azalpenetan luzatuko gara, historiografiaren baitan

⁶ Aipa dezagun, lan honetan XVI. menderako baliatu zituen dokumentuak 2007an argitaratu zuen artikulu batean transkribatu zituela (ikus bibliografia).

aspektu ezberdinen sailkapena nola finkatzen joan zen ikusteko lanik egokienetariko bat baitugu Azpiazurena.

Berez, Saint-Martinek baliaturiko sailkapenarekiko ezberdintasun bakarra seroren jatorriei buruzko atalarena dugu; Azpiazuk, izan ere, ez du gaia lantzen. Gainontzeko ataletan baina, jada azaldu zaizkigun aspektuen araberrako sailkapena darrai: elizari eta kultuari zegozkien aktibitateak ("II. Actividades relacionadas con el culto") eta aspektu "laikoei" zegozkienak, batez ere ekonomikoak ("III. Actividades artesanales: ropa y telares", "IV. Actividades económicas: los préstamos" eta "V. Las seroras y sus familias. Relaciones económicas"), izendapenari eta doteari buruzko ezaugarriak eta baldintzak (aurkezpena, gutxieneko adina, baldintza ekonomiko eta moralak) ("VI. Condiciones para ser freira") eta sarrerarako errituak ("VII. Honores de las freiras y ritos de entrada"), eta azkenik, instituzioaren inguruan sorturiko arazoak eta desagerrarazte prozesuaren gorabeherak ("VIII. Conflictos entre seroras y violencia" eta "IX. El definitivo ataque contra las seroras"). Ondorengo ikerlanetan presente izango diren aspektuak ditugu, hainbat ikerlanetan azpiatalak antolatze modua finkatuko dutenak.

(3) Euskal Herri guztiari dagozkion emakumeen erlijiotasunari eskainiriko ikerketak: Puntu honetara heldurik, María José Aranaren doktorego tesia erabat ardatzekoa den lana dugu: *La clausura de las mujeres. Una lectura teológica de un proceso histórico* (1992). Izenburuak berak aditzera ematen duenez, ikergai nagusia erlijiozko emakumeek bizi izan zuten klausurarako prozesua dugu. Kapitulu ezberdinetan zehar Euskal Herrian izan ziren erlijiozko emakumeen aniztasunaren berri emanaz doa, moja eta komentuetako "beata" izan zirenekin bat, serorak eta ordenekiko loturarik izan ez zuten "beaterio" edo seroretxeak eta "hospitalera" zirenak ere ikertuz. Aranaren doktorego tesiaren merituetako bat, serorak Euskal Herriko erlijiozko emakumeen testuinguru orokorrangoan kokatu, eta bizimodu batzuen eta besteen arteko berezitasun eta ezberdintasunak egoki aditzera ematea dugu; gura ikerketa esparruan sartzen zaizkigun artetik honakoak izan zizkigun aipagai: hospitalerak, parrokietako serorak, ermitetakoak, eta tenpluekiko loturez beste, seroren taldetxoek osaturiko seroretxeak, batzuek ordenekiko loturadunak, besteak gabeak. Alabaina, serora moeten sailkapenean egindako ahaleginaz beste, azalpen orokorrak ematerako orduan, beste hainbat autorek bezala, jada aipagai izan ditugun zenbait autore "printzipal" baliatu zituen: Larramendi, Henao, Webster, Moreau eta Lizarralde.

Aranaren beste ekarpen nagusi bat, seroren aurkako neurriak erlijiozko emakumeak klausuraperera eramateko prozesu zabalagoaren baitan txertaturik azaltzearena dugu. Neurri horiek testuinguru zabalago baten partetzat agertzen zaizkigu horrela, eta ordurarte era nahasi xamarrean hauteman ziren zenbait auzi garbiago azaltzen dizkigu. Moeta bateko nahiz besteko erlijiozko emakumeen inguruko eliz legediaren garapena ordurarteko autoreek baino xehetasun handiagoarekin ikertzeaz gain, batez ere Bizkaiako kasuaren jarraipena eginik, alde batetik ordenekiko loturadun seroretxeak klausuraperera eramateko neurriak eta hauek motibaturiko auziak, eta bestetik parrokia eta ermitetako seroren aurka izan zirenak, egoki eta garbi banatzen dizkigu, aurreko autoreen artean, -elkarri ertsiki loturik garatuta ere- ezberdinak izan ziren bi prozesu hauek nahastera jotzen zuten artean. Azkenik, doktorego tesi honetan erabilitako bibliografia eta iturri dokumentalak oso aberatsak direla aipatu behar, eta dakartzan koadro analitikoek eta mapak aipamen berezia merezi dute, zehaztasun handiko lana isladatzeaz gain, oso era garbian azaltzen baitzaigu, espazioaren eta kronologiaren aldetik, erlijiozko emakumeen bizimoduan izan ziren aldaketa prozesuen gorabeherak nolakoak izan ziren.

Instituzioa erlijiotasunaren eta emakumeen erlazioen ikuspegi orokor batekin ikertzen duten lanen artean, Antxon Aguirre Sorondoren "La mujer en la religiosidad popular: las seroras" (1995a) artikulua daukagu hurrena. Artikulu motz bat dugu hau, aktibitate espazioen arabera (etxekoa, publikoa eta liturgikoa) emakumeek erlijiotasun herrikoiazen testuinguruan zeukaten paperaren berri eman ondoren, seroren instituzioaren ezaugarriak sintetikoki azaltzen dizkiguna. Hiru orrialdetan zehar, motz baina garbi azaltzen dizkigu: jatorri posibleak, izenaren etimologia, ustezko "bizimodu okerragatik" instituzio ezberdinen aldetik seroren aurka harturiko lehen neurriak, patroitza moetak eta izendapena (eta posesio-hartzea), aktibitateen espazio nagusiak eta bakoitzeko funtzioak, gizarte baitako eragina eta gaitasun ekonomikoa, eta azkenik, desagerrarazte prozesua. Sintetikoa dugu beraz artikulua, laburbiltze tankerara hautemana, baina zoritxarrez, informazio iturrien berri ematen ez diguna; azaltzen duen asmoa, hala ere, egoki betetzen du.

1997an Roslyn Mary Frank-ek -1977ko artikulua ondoen- urteetan zehar seroren inguruan bilduriko datuen zirriborro bat osatu zuen, ondoren "En torno al papel de la serora en Euskal Herria: documentos y archivos" izenarekin *Academia.edu* webgunean ikertzaileen eskutara ipini zuena. Zirriborroa izanda ere lan baliotsua dugu hau, seroren inguruko zenbait aspekturen inguruan sakontzeko iturri bibliografikoetako ekarpenen eta dokumentuen gain oinarriturik, hausnarketa interesgarriak baitakarzki. Diakonesengandiko jatorriaren hipotesiarekiko instituzio honen inguruan bildu izan den informazioaren eta argitaratu izan denaren berri ematen digu, Euskal Herrian etxeek zeukaten ardatzeko papera aintzat harturik emakumeek erlijiozko alorrean zeukaten partehartzearen eta testuinguru hartan serorek zeukaten garrantziaren inguruan jarduten da, ermitetako eta parrokiatako seroren inguruko bibliografiatik jasoriko datuak antolatuta eta hauek koherentziaz azaltzen saiatzen da, eta desagerrarazte prozesuaren jarraipena egiten digu, alderdi guzti hauetan, esan bezala, hausnarketa interesgarriak tartekatuz.

Jada 2007an, Juan Garmendia Larañagak serorei eta sakristauei eskainitako liburutto bat argitaratu zuen, *Seroras y sacristanes. Etnografía e Historia*. Ofizio bakoitzari atal bana zegokion bertan; serorei zegokiena, 24 orrialdetan zehar landu zuen. Gida orokortzat aurretik 1991n argitaratu zuen laneko serorei buruzko atala harturik, bere bilketa lanetako ekarpen berriak gehitu zituen, dokumentuetako transkripzio zabalekin, termino orokorretan, irizpide berberekin jarraituz. Datu baliotsuak dakarzkigu hemen ere; besteren artean, seroren aurkako neurriei, izendapenei, langintzei loturiko etekinei, edo seroren euren hiletei dagozkienak aipatu litezke. Aurreko lana bezalaxe, hau ere informazio dokumental eta bibliografikoen "miscelanea" bat dugu, informazio iturrien aldetik aberatsa, baina instituzioaren inguruko hausnarketa orokorren faltan duguna.

(4) Nafarroa: 90. hamarkadaren bigarren erdialdean eta bigarren milurtekoaren lehen urteetan, Nafarroako serorak ikergai espezifikotzat hartu zituzten lehen artikuluekin egiten dugu topo. José María Jimeno Juríoena dugu lehen artikulua aipagarria, "Artajona. Monjas emparedadas (1530-1540)" (1997). "Emparedamiento" edo "hormaratzearen" fenomenoak, emakumeek seroratzat identifikaturik, Moreauk eta honen laneko informazioa jasotzen zuen Saint-Martinek baino ez zizkigun ordurarte aipatu. Identifikazio hau Jimeno Jurío berak finkatu zigun egoki, seroren eta "emparedada" zirenen gizarte hautemapenaren baitako baliokidetza azalduz, besteak beste, "emparedada" haiek euskaraz "serora" izena jaso zutela frogatzen digularik. Hargatik jasotzen dizkigu, instituzioaren ezaugarri orokorren berri emateko, Larramendik eman zituen azalpenak. Artikuluaren alderdirik aipagarriena, Nafarroan bertan, instituzioak izan zituen formen aniztasuna da; egoerak, baldintzak eta

langintzak, nahiz ordenekiko erlazioak (klausuraren ezarpena barne) eta instituzioaren aurka harturiko neurriak, oso ezberdinak izatera hel zitezkeela ikusten dugu.

2002an jada, Pilar Peñaranda Garcíaren artikulua bat argitaratu zen, Nafarroako serorak orokorrean ikergaitzat harturik: "Un desconocido grupo social: las seroras navarras". Funtsean, artikulua orain arte aipagai izan ditugun gai eta atalen arabera banaketa analitikoak darabil, baina alderdi ezberdinen berri Nafarroako dokumentuetan oinarrituz emanez. Aipatzen zaigun bibliografian Larramendi, Webster, Arín Dorronsoro, Saint-Martin, Garmendia Larrañaga, Zudaire, Sorondo eta Azpiazuren lanak kontsultatu zituela ageri zaigu. Ikerlanean azpimarratu litezkeen aspektuak, alde batetik, instituzioaren Nafarroako hedapena batez ere iparraldean eman zela argitzea, eta Larramendirengandik jasoriko instituzioaren hastapenetan diakonesak izatearen ideia, penintsulako "beatak" eta Europako beste emakumezkoen fenomeno erlijiosoak probableagotzat emanez auzitan jartzen duela ditugu.

(5) Araba: Arabara heltzen gara azkenik beraz, ekarpenik berriekin. Lehena Juan Carlos Navarro Uillések 1998an Laudioko San Roke patroia jaietarako programan argitaratu zuen ikerketa xume bat dugu: "Profesiones seculares de la mujer: apuntes sobre frailas, seroras, ermitañas, beatas y plañideras". Bertan, San Pedro parrokiako kontu liburuko eta bataioen liburuko, eta zenbait argitalpen interesgarritako⁷ informazioaz baliatuz herriko seroren ikuspegi orokor bat eman zuen, seroren historiografian ohizkoak ziren bestelako argitalpenei erreparatu gabe. Iturri hauen gida erabiliz, izenburuan zehaztu bezala "apunteak" jasoz, zenbait aspekturen berri eman zuen; bereziki aipagarri zaizkigunak, desagerrarazte neurrien ingurukoak, eta serorek amabitxitzat aritzeko ohituraren ingurukoak.

Artikulu zabalagoa eta sakonagoa dugu aldiz Florencio Arza Aldayk 2006an argitaratu zuena: "El oficio de beata en Salvatierra-Agurain (Álava-Araba) en el siglo XVI". Artikulua hasieran historiografiaren errebaso labur bat egin zuen, besteren artean, jada ikusi ditugun zenbait autore aipatuz: Webster, Zudaire, Saint-Martin, Duvert, Aguirre Sorondo eta Azpiaz (Aranaren doktorego tesia ere aipatu zuen, baina ez sarreran). Larramendiren lana aipatu ez zuen bakarria dugu. Alabaina, artikuluan zehar darabiltzan iturriak batez ere dokumentuak dira, Arabako Protokoloen Artxibo Historikoan kontsultatuak. Aguraingo serora moetak banaturik, komunitateko komunitateak kanpo utzi eta herriko nahiz inguruetak ermitetan komunitatean nahiz bakarka bizi ziren seroren berriak bildu zituen, sailkapenerako hein bateraino jada aipagai izan ditugun irizpideak baliatuz. Orain arte aipatu ditugun lanekiko, artikulua ekarpenik esanguratsuenak, alde batetik zenbait serorak seroratzat ezkontzeko uzteko zeukaten posibilitatearena (arautegietan aurreikusia), eta bestetik, sendakuntza lanetan zenbait serorak izan zuten inplikazio handiarena ditugu.

Orain arte aintzat hartu dugun bitarte kronologikoan, izan ziren bestelako lanak ere, seroren gaineko ekarpen esanguratsuak egin zituztenak; honaino heltzen dira baina gure ahaleginak, eta ikerlanik garrantzitsuenen berri eman dugulakoan gaude. 90. hamarkadatik ekindako ikerlanek Saint-Martinen lanari buruz jardutean azaldu dugun -eta Azpiazurenarekin kontrastatu dugun- banaketa analitikoak aberastu zuten. Dokumentuen analisi sakonagoa eta zehatzagoak gai berriak eta azpisailkapenak gehitu zizkieten ordurarteko ikuspegiari, ondorioztat honako sailkapen analitikoak ematen diguna:

⁷ Hauen artean dugu zoritxarrez aurkitu ezin ahal izan dugun Gentza de Goienuriren 1996ko lan bat, *Zuin* aldizkariaren 91. alean argitaratua: "Frailas y cofrades".

- (1) Jatorria: hastapenak eta eraginak
- (2) Terminologia eta analisi etimologikoak
- (3) Espazioak: parrokia eta ermitak
- (4) Patroitzak: kontzejuenak, eliz-agintarienak, partikularrak eta mistoak
- (5) Izendapena
 - (a) Baldintzak: gutxieneko adina, baldintza moralak (kastitatea) eta ekonomikoak (dotea)
 - (b) Errituak: aurkezpena, izendapena edo onarpena, sarrera-erritua
- (6) Aktibitateak
 - (a) Elizakoak, kulturalak eta erritualak: elizako aktibitateak, heriotz errituak eta otoitzak
- (7) Ondasunak eta etekinak
 - (a) Biziraupenerako oinarria: etxea eta atxikiriko ortua
 - (b) Etekinak: emolumentuak, limosnak eta testamentuetako dohaintzak
 - (c) Ondasun propioak eta testatzeko askatasuna
- (8) Arazoak eta liskarrak
 - (a) Gutxieneko adinaren falta
 - (b) Portaera ezegokiak eta biolentzia
 - (c) Eskubideen eta funtzio sozialen mugapenen aurreko erresistentzia
- (9) Desagerraraztearen prozesua
 - (a) Lehen neurriak: Trentoren ondorengo elizbarrutietako sinodoak
 - (b) Elizako legediaren aplikazioa eta erresistentziak
 - (c) Azken desagerrarazte agindua: 1769ko Errege Dekretua

Gaien araberrako eskema bat dugu, orain arte aipagai izan ditugun autoreen artean bere osotasunean jaso ez zena, baina -batez ere 90. hamarkadaz geroztik-historiografiaren baitan zehazten eta ikertzen joan ziren aspektuak baitaratzen dituen. Ikusi ahal izan dugunez, izan ere, ikerlanen gehiengoak gaia partzialki landu izan du, dela espazioka, gaika edo prozesu konkretuei jarraika, dela funtzio edo aspektu jakinak ikergaitzat hartuz.

Honi bibliografia aurkitzen erraza ez izatea gehitzen zaio, artikuluetan eta liburuen kapituluetan barreiatuak aurkitzen baitugu, eta autoreek, askotan, ez baizituzten -zenbait alderditan erabakiorrak izatea suerta zitezkeen- elkarren ekarpenak ezagutzen. Autoreek aipatu ziguten bibliografiaren analisiak elkarren ezagutza ezaren berri ematen digu, esate baterako, Pirinioen bi aldeetako autoreen artean nabaria zaiguna. Orokorrean, guztiek ezagutzen zuten bibliografia autorerik garrantzitsuenena dugu, bereziki, Larramendiren eta Webster-en lanak. Hargatik, hauek finkaturiko ikuspegi historiografikoa izan zen batez ere ondorengo autoreek kritikapean hautemango zutena. Analisi kritikorik egitekotan noski, beti eman ez zena.

Hala, jatorriekiko, serorak diakonesengandik letorzkeela dioen hipotesia edo ideia ikerlanik berrienetaraino hedatzen zaigu, baina aurkako iritziak ere azalduz joan dira, gaia landu ez dutenekin bat. Izan da diakonesez beste Antzinateko elizako *virgines* eta *viduae*-ak aipagai izan zituenik, baina aurkako iritzia garbien azaldu zuena Peñaranda García dugu; honek, diakonesen instituzioari baino, probabilitate gehiago ikusten zizkien ondorengo mendeetako emakumezkoen mugimendu erlijiosoei, penintsulako "beatei", edo Europan zeharreko erlijiozko emakumeen mugimendu laikoei.

Seroratza ezkontzeko uzteko posibilitateari dagokionean, batzuek Larramendirengandik seroratzarako sarrera mojen pareko "tomar estado" lako bat litzatekeenaren ideia jaso zuten artean, beste batzuek seroratza uzteko posibilitatea

ohartu zuten, baina doterik itzuli gabe, eta beste batzuek, dotea itzulirik "ofizioa" utzi eta ezkondu zitezkeela ere frogatu ahal izan zuten. Egoera hauen azpian instituzioaren izaera indefinitua eta lekuen eta garaien araberako ezberdintasunak ematen zirela ohartu liteke, elizbarruti edo patroitzaren egoera ezberdinek guzti honetan eragiten zutelarik; orokortzeak, beraz, arriskatuak lirateke.

XX. mendearen hasieratik iturri dokumentalenganako gerturapen progresibo bat eman zen, patroitzen, sarrerarako baldintzen eta izendapenen, elizako eta alor laikoko aktibitateen, egoera ekonomikoen eta arazo eta liskarren dibertsitate handi baten berri emanez. Aspektu guzti hauetan ezberdintasun handiak azalduz joan dira, batzuetan besteetan baino gehiago, eta lekuen eta garaien arabera. Gutxieneko adinaren auzia dugu aspektu hauen arteko nabarienetariko bat, lekuen eta garaien arabera, 30, 40 edo 50 urtetan ezarria izan zena. Serorei buruzko informazioarik gehiena heltzen zaigun mendeetan zehar (XVI-XVIII mendeak) garaturiko asimilazio, mugapen eta debekuen prozesuan ere aski nabaria dugu egoeren dibertsitatea; Lizarralderen lanetik ekinda, zehaztasun eta sakontasun handiagoz ikertua izan den gaia.

Halakoa genuen egoera, 2010ean argitaratu nuen lehen ikerlanerako informazio bilaketari ekin nionean. *Serorak Debagoiengan (XVI-XVIII)* izenburua zeraman liburua izan zen urte hartan argitaratu zidatena; printzipalki Debagoiengan kokaturik izanda ere, aipagai izan dugun historiografiaren baitan bilduriko informazioa batu eta antolatzen saiatu nintzen bertan. Hartarako azaldu berri dudan eskema analitikoaren oinarritzat baliatu nuen, dokumentuen eta bibliografia zabalagoaren bidez neure ekarpena egiten saiatuz. Gaztelerazko laburpenezko artikulu bat heldu zen ondoren (2010b), eta baita seroratzat baterako hautagaien izandako lehiak ikergai izan zituen artikulu bat ere (2011), biak tankera dibulgatibokoak. Bitartean *Auñamendi* entziklopedia orokorraren sareko argitalpenerako "Serora" boza ere idatzi nuen (2010c), euskarazko bertsioan (gaztelerara egin zuten itzulpenak zenbait gaizkiulertu eta akats larri dauzka), hemen ere laburbiltze lanak eginez. Lan guztiok orain aurkezten dudan doktorego tesiaren ikerketa eta sintesi lan aurrekariak izanik, ez naiz hemen azalpenetan luzatuko, baina esan beharrean nago behintzat, ikerketan aurrera egin dudana ahala, ordungo zenbait baieztapen eta hausnarketa ez ditudala jada zeharo ontzat ematen, eta izan zirela informazio bilketari eta honen interpretazioari dagozkion zenbait akats ere, lan honetan aurrera egin ahala azaldu eta zuzenduko ditudanak.

Ondorengo urteetan ere, gainera, izan dira beste zenbait argitalpen aipagarri ere, eta aurkitu ahal izan dut garai ezberdinetan argitaraturiko intereseko bibliografia gehiagorik ere, jada aipagai izan denaz beste. Zoritxarrez azken lan hauetako informazioa ezin izan dut hainbesteko xehetasunez arakatu, ikerlan hau bukatzen nengoela izan bainuen beraien berri. Hala ere, beharrezkoa dugu beraien berri ematea, interesekoak baitzaizkigu.

Azkenaldiko hauen artean aipatu beharrean gauden lehen lana Arantxa Arriet Azpirozena dugu, 2011n *Instituto Superior de Ciencias Religiosas Pio XII* institutuan aurkeztu zuen lizentziaturarako tesina: *Las seroras en Euskal Herria*. Hasiera batean ilusioz hartu nuen lan honekin topo egitea, 117 orrialdeko lana baitugu, gaia aski zabal lantzen diguna. Alabaina, irakurketari ekin bezain laster moteldu zitzaidan ilusioa, hainbat pasartetan iturrien inguruko azalpenak garbi eman gabe besteren lanez hitzez hitz baliatzen baitzaigu. Neure lanekiko ohartu nuen hau lehenik noski, parrafo eta orrialde askotan zehar 2010eko nire liburutik eta ondorengo artikulutik ateratako zatiak kopiatzen edo itzultzen baititu hitzez hitz, jatorririk aipatu gabe. Hau batez ere gazteleraz argitaraturiko artikuluen kasuan dugu nabari, orrialdeak eta orrialdeak baitira hitzez hitz edo moldaketa txikiekin kopiatzen direnak. Ez gara hemen pasarte

guztien jarraipena egiten hasiko, aski izango dugu kopiaturiko testuen adibiderik esanguratsuenen bat edo beste aipatzea. Irakurleak aski du nire eta Arriet Azpirozen lanen erkapan bat egitea, prozedura honen norainokoari neurria hartzeko. Kopiaturiko testuen bitarterik nabarmenen artean, "Tercera parte: los últimos siglos" ataleko lehen azpiataleko ("1. Ataques a la institución") parterik handiena aipatu liteke. 14 orrialdetan zehar gazteleraz argitaratu nuen artikuluko "El proceso de supresión de las seroras" atalaren parterik handiena kopiatzen du, euskarazko liburuko azalpen zabalagoen (artikuluaren xedea liburuaren laburpenezkoa baitzen) itzulpenekin, edo beste autoreen batengandik kopiaturikoekin hedatuz. Halatsu, prozedura berbera darabil, liburuko eta artikuluko zatiak itzuliz, kopiatuz, eta berrantolatuz, esaterako, "2.1. Cuidado de los centros de culto" eta "2.2. Acompañando el ciclo de la vida" ataletako 13 orrialdetan zehar ere. Eta esan bezala, badira beste hainbat orrialde eta pasarte ere, modu berean txertatuak, hemen azaltzen hedatuko ez garenak, baina lanaren parte esanguratsu bat osatzen dutenak⁸. Testuez beste, gaien sailkapeneterako erabilitako irizpideak ere jasotzen ditu, eta baita beste autoreen ekarpenak eta aipuak azalpenen baitan antolatzeak ere. Hitzez hitz kopiatzearen prozedura, bestalde, ez dagokio soilik nire ikerlanei, hainbat pasartetan, beste autoreen lanekin ere beste hainbeste egiten duela ohar bailiteke; parte esanguratsuak dagozkien bateron batzuk aipagai hartzearen, Lizarralderen eta Frank-en lanak aipatu litezke. Alabaina, kasu hauetan ohizkoagoa dugu jatorrizko autorearen berri ematea, nahiz ez beti.

Ez dakit garbi autore honek nire eta besteren lanen aipamenak tarte hauen parterik handiengan zergatik ekiditen dituen. Lanaren gainbegiratu egin ondoren zenbait arrazoi badatozkit burura, hala ere. Lehen, noski, testuen parte esanguratsu bat zuzenean kopiatu edo itzulia dela ohartuko litzatekeela dugu. Beste arrazoi posibleetariko bat, lana egina izan den testuinguruak adierazten digu. Erljiozko institutu batean landuriko lana izanik, seroren instituzioak zegozkion eliz-hierarkiekiko txertapen "egokia" izan zuela azpimarratzeko joera nabari dakiok. Lanaren hainbat alderditan ohartu dugu hau. Lehenik eta behin, sarreran eta ondorioetan, nabaria baita kristau komunitatearen baitatik egindako lana dugula. Horrez gain, nire lanen aipamenak egiten diren kasu gutxietariko batzuetan, eratzen duen seroren irudiarekiko kontraesankorrak liratekeen baieztapenak azaltzen zaizkigu, bestelako iritzia azaltzen duten autoreen alboan. Seroratza ezkontzeko uzteko posibilitatearen, edo ermitauekin edo sakristauekin ezkonduko seroren existentziaren kasuak ditugu; alegia, datua berak emandakotzat aipatzea "deserosoa" izan zekiokkeen kasuak ditugu⁹. Esan beharrean nago guzti

⁸ Ezin dugu orri zehatzen erreferentziarik eman, lanak ez baitakar zenbakitzerik.

⁹ Honekiko esanguratsua dugu, esaterako, seroren desagerrarazte prozesua nire lanetatik kopiatu eta itzultzerakoan tartekatzen duen aldatetatariko bat: 1700eko Kalagorriko konstituzio sinodaletan baitaratu zen 1623ko Errege Kontseiluaren agindu "faltsuaren" kasua. Nire liburuan, XVII. mendearen lehen hamarkadetako seroren desagerrarazterako lehen saiakeraren testuinguruan apezpikutzaren eta Bizkaiako jaurgoaren eta Gipuzkoako Probintziaren artean izan ziren auzien gorabeheretan izandako hainbat inkoherentzia zirela eta, Errege Kontseiluaren agindu honek faltsua behar zuela ondorioztatu nuen. Konstituzioetan txertaturiko dokumentuan Errege Kontseiluak epaia apezpikutzaren aldekoa eman zuela ziurtatzen zen, auzien aurreko eta ondorengo urteetako gorabeherak halakorik izan ez zela azaltzen diguten artean (Larrañaga Arregi 2010a, 112-113). Bada, Arriet Azpirozek desagerrarazte prozesuaren berriak nire lanetatik jasotzeari puntu horretan utzi zion, Labayurengandik Lizarralde jasoriko bertsiolari leku egiteko. Agindu hura egiazkotzat hartzeko, alegia. Bitarte horren ondoren, testua nire lanetatik kopiatu eta itzultzen jarraitzen du (Arriet Azpiroz 2011, z.g.). Beste aspektu aski adierazle bat ikerketa objektuaren zedarripenean bertan ageri zaigu: ikertuko duen instituzioaren inguruko azalpenak ematean, garbi diosku, ikergai dituenak, besteren artean, "con aprobación del obispo" jarduten ziren tenpluetako zerbitzariak zirela. Eta oster, lanean zehar, apezpikutzaren aldetiko onarpen gabe normaltasunez jardun izan ziren seroren berri ematen digu. Hau hein handi batean nire testuetaz baliatzen delako gertatzen zaio, ezen, darabiltzan nire lanetan azaltzen dudaren arabera, apezpikuen aldetiko onarpena hainbat lekutan

honetatik gutxien gustatzen zaidana nire ekarpenaz baliatzeko azaldu berri dudana modu hau dela; nire lanez baliatzea ez zait batere axola, informatzeaz beste, hortarakoxe ere izan baitira idatziak. Baina esandako eran kopiatu eta itzultzea eta nire lanekiko aipamenak baieztaturikoa norbere erantzunkizunez kanpo kokatu nahi denean soilik baliatzea, ez zait jarduteko batere modu zuzena eta garbia iruditzen.

Eta guzti hau esan beharrean bagaude ere, Arriet Azpirozen lanak datu interesgarriak dakartzala ere azpimarratu behar dugu. Bere ekarpenik interesgarrien artean Barandiaranengandik eta Caro Barojarengandik jasoriko seroren irudia azpimarratuko nuke, autore hauengandik nire lanetan behar beste aintzat hartu ez ditudan datuak jasotzen dituela ohartu ahal izan baitut.

Beste ikerlan esanguratsu bat, aski interesgarria eta esan bezala jada lan hau bukatzeaz nagoela aurkitu dudalako nahi beste baliatu ezin izan dudana, Antxon Aguirre Sorondok 2013an argitara eman zuen "Diaconisas, beatas, seroras, ermitaños, santeros y sacristanes" artikulua mamitsua dugu. Lan honetan, hein batean, autoreak aurretik Koldo Lizarralde Elberdinekin batera burutu zuen *Ermitas de Gipuzkoa* (2000) ikerlaneko bilketa lan eskergan jasoriko seroren eta ermitauren inguruko datuak batu, berrantolatu eta hedatu zituen, hala egitean, hausnarketa interesgarriak ere tartekatuz. Hargatik, batez ere ermitetako serorak (eta ermitauak, etab.) dira ikergai dituenak. Termino orokorretan, gorago azaldu dugun sailkapen analitikoaren alderdi batzuen araberrako banaketa darabil, bestelako azpiatal zehatzagoren batzuk ere baitaratuz, inbentarioei dagokiena, edo ehorzte-lekuei dagokiena kasu. Sailkapenean azpimarratu zizkigun alderdietariko zenbait, seroren inguruan ordurarte argitaratutakoarekiko, datu berriegatik eta harturiko ikuspegiengatik bereziki aipagarriak zaizkigu. Lehenik eta behin, gaian sartzeko seroren jatorriari buruz ari zaigula, -bere beste zenbait lanetan bezala- diakonesengandiko jatorriaren ideia defendatzen du, alde batetik Euskal Herriko kristautzearen prozesuari eta bestetik diakonesen instituzioaren inguruko datuei erreparatuz (geuk ere ikerlan honetan -diakonesekiko beste ondorio batzuetara helduz- egingo dugun bezala; ez genuen baina ikerlana hala antolatzerako orduan oraindik Aguirre Sorondoren artikulua honen berri). Puntu honetan Larramendirengandik ekindako ikuspegi historiografikoaren azken agerpena genuke, datu berriekin aberastua. Seroren instituzioaren aspektuen eta ibilbide historikoaren hainbat alderditan ematen dizkigun datu berriak eta egiten dituen kontsiderazioak oso interesgarriak zaizkigu, bestalde: seroren kopuruari buruzko hausnarketak, desagerrarazte prozesuari buruzko datuak, sarrerarako baldintzei, langintzei eta etekinei buruzkoak, kanpai-joteen inguruko xehetasunak, ospitale funtzioa izan zuten ermiten inguruko azalpenak, doteen kopuruari buruzko berri zabalak, inbentarioen azalpenak eta seroren aberastasunei buruzko hausnarketak, ermitetan ehorzteko ohituraren berriak, bizimodu ezegokiagatik liskarrak eta debozio kasu bereziak, eta sendakuntza sineskeren inguruko datu ugariak. Gehigarritzat transkribatzen dituen hiru dokumentuek ere, badute interesik. Bada beraz lan honetatik jasotzeko aski datu interesgarriak, nahiz eta, tamalez, esandako arazoengatik ikerlan honetan nahi beste ezin baliatu izan ditugun.

Ikuspegi orokor honek, emakumei buruzko historiografiaren eta espezifikoki serorei buruzko historiografiaren testuinguruan kokatzen gaituelakoan gaude, hori genuen behintzat asmoa. Testuinguru historiografiko honetan kokatzen zaigu jarraian datorren ikerlana, gaiari eskainitako ikerlan luze gutxietakoa den heinean, serorei buruzko ikuspegi osatuz joan diren datuak batu, antolatu, aberastu, eta historian zehar egokitu zitzaizkien testuinguru sozial ezberdinetan izan zuten txertapena modu

ez baitzen ez beharrezkoa izan ez beharrezkotzat hartu, batez ere, XVII. mendearen hasieratako seroren kontrolerako eta desagerrarazteerako neurriak hartzen hasi ziren arte.

koherente eta berri batean azaldu nahiko lukeena. Eta hartarako, azaldu berri ditugun gaiari buruzko ekarpenetatik eta bestelako bibliografia zabal batetik jasotako informazioaz beste, sendoa izan zedin saiatu naizen dokumentuen oinarri batetik jasotakoa dugu ikerlan honek jasotzen duena, jarraian aipagai izango ditugun jarraibide metodologikoen arabera bildu eta antolatua. Ondorengo azalpenak hein batean ikerketa gorpuzten joan den urteetan zehar izandako gorabeheren azalpenei ere badagozkie, zalantzak eta zailtasunak azaldu beharrekoak baitira, emaitzari neurria egoki hartuko bazaio.

Esan dezadan, dokumentuen eta metodologiaren inguruko azalpenei ekin baino lehenago, ikerketa aldikako bulkadetan egina izan dela, bere jarraipenean izan ditudan zailtasunak handiak izan baitira. Ez dut nire esfortzu guztiak ikerketara bideratzea ahalbidetuko zidakeen unibertsitateko beka publikorik jasotzeko modurik izan, beka hauek jasotzeko, doktorego ikasketak hasterako momentuan lizentziatura bukatu izatek urte gutxi batzuek behar baitute iraganak izan. Nire kasua den bezala, lizentziatu ondoren zenbait urtetan zehar lan ezberdinetan jardun ondoren, abagunea izatean doktoregoa egitea erabakiaz gero, ez dago halako bekarik jasotzerik. Nabaria denez, hau azaltzen badut, bekak esleitzeko mugapen horiekin batere ados ez nagoelako eta injustuak iruditzen zaizkidalako da. Baina ez naiz hemen honen ingurukoetan luzatuko, ez baita hartarako lekua. Adierazi nahi nuena, ikerketa osatuz joan naizen urte luzeetan zehar, nire aktibitateak propioki ikerketara bideratu ahal izan ditudan garaiak, batean edo bestean lanean jardun naizen garaien -dirua aurreztu ondorengo- bitarteetakoak izan direla da; ibilbide luze horretan bi diru-laguntza ere eskuratu ahal izan ditut, ikerketa burutu eta bukatu ahal izateko erabat ardatzezkoak izan direnak. Lehena Bergarako Udal Artxiboak ikerketa historikotarako emandako beka edo diru-laguntza izan zen, 2010eko liburua posible egin zuena; bestea Gipuzkoako Artxibo Orokorrak esleitu zidan José Ignacio Tellechea Idigoras beka izan zen, 2010 urte berbereko beka, ikerketak doktorego tesia bukatu arte aurrera egitea ahalbidetu duena. Laguntza hauek baino ardatzezkoagoa izan dut, bestalde, nire neska-lagunarena, elkarrekin semeak izan ditugun eta bizimoduan aurrera egitea konplikatur joan zaigun urte hauetan zehar doktorego tesiarekin jarraitu eta bukatzeko beragandik jaso dudana laguntza eta sostengua, azaldu ezin dudana neurrikoa baita. Guzti honegatik, ikerlan hau eten ugaridun bulkadaka egin beharra izan dut, eta horrek, lanaren konfigurazioan eta transformazioetan ardatzezko garrantzia izan du; azken puntuak garai ezberdinetan eta modu ezberdinetara bilduriko informazio samalden eta gaiari buruzko garai ezberdinetako eta alderdi ezberdinetako hausnarketa eta analisisien multzo heterogeneo bati gorpuzkera zentzuduna eta koherentea eman beharrean izan naiz, asko, benetan asko, kostatu zaidan lana. Eta hargatik, barka bitza irakurleak, zirkunstantzia hauek medio orain aurkezten dudana ikerlan honetan -ziur- aurkitu ahal izango dituen akatsak; ahal izan dudana hobekien egin dut, ahal izan dudana modura.

I. 3. ITURRIEN ETA IKERKETARAKO METODOLOGIAREN INGURUKO XEDAPEN OROKORRAK

Ikerlan hau burutu ahal izateko oinarriak ezartzen saiatu nintzenean, hasiera batean Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoan gorderiko parrokiaren eta ermiten liburuekin ekitea pentsatu nuen¹⁰. Nire asmoa bertan jasotako informazioarekin seroren

¹⁰ Bergarako parrokiaren eta ermitetako liburuen kasuan, bilaketak Bergarako Udal Artxiboan burutu nituen; Elizbarrutiko artxiboan dauden liburuen kopiak daude bertan, eta baita azken honetan ez dauden beste zenbait liburu ere (adib., San Pedro parrokiako akordio-liburuak, etab.). Funtsezko arrazoia Bergaran bizi naizela da, eta baita bertako artxiboan Elizbarrutikoan baino kontsultetarako ordutegi

lehen zerrenda bat osatzea zen, gero, zerrenda horren bidez, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan bilaketak egin ahal izateko. Bertan landu izan dituzten bilaketa-instrumentuez baliatu nahi nuen, eta bereziki, informatizaturik dauzkaten “Índice de otorgantes” deritzon izenen araberrako bilaketak egin nahi nituen¹¹, dokumentuen helarazleen arten serorak errazago aurkitzeko asmotan. Eta horrela ekin nion lanari, eta osatu nuen lehen zerrenda hura. Laster ohartuko nintzen nire lehen planteamendu haren inozentzia.

Parrokietako, ermitetako eta santutegietako¹² liburuaren artean, noski, ez dira izan ziren denak gordetzen; asko galdu egin dira. XVI-XVIII mendeetan zehar Debagoienean gutxi gora behera mantendu izan ziren 160-165 tenpluen parte bati zegozkien liburuak gorde izan dira, eta horien artean, seroren inguruko berriak, gehiago edo gutxiago, 35 bat tenplutan baino ez zaizkigu ageri; beraz, bertatik lorturiko datuek portzentaia honi dagokion errepresentatibitatea baino ezin dezakete izan. Ikerketan aurrera egin ahala, bestalde, kontu-liburuaren serorarik ez aipatzeak halaberrez bertan serorarik ez egotea esan nahi ez zuela ohartu dugu, hauek aipatu ere egin izan ez ziren kontu-liburuaren espazio batzuetan, beste iturri batzuen bidez aipaturik aurkitu izan baititugu. Gainera, proportzionalki, eta espero izatekoa zen moduan, gehiago dira gorde izan diren parrokietako liburuak, ermita eta santutegietakoak baino, eta horrek, informazioaren inguruko mugapen bat ezartzen digu. Berez, Kalagorriko Apezpikutzako konstituzioetan XVI. mendetik hala agindu bazuten ere, eta bisitatzailerik aginduok hainbatetan berretsi bazituzten ere, litekeena da zenbait ermitak kontu-libururik sekula eduki ez izana, Arrasateren kasuan, esate baterako, esplizituki adierazirik aurkitu izan dugunez; hauen kontuak, izan ere, askotan zegozkien parrokietatik bertatik eramaten baitziren. Ohitura honek ermitetako serorak parrokietako liburuaren artean agertzea eragiten du, eta hein batean, iturrien irregulartasuna konpentsatzen du. Edonola ere, mugatua da gorde izan diren tenpluetako liburuak bizitza aktiboan izan ziren tenpluen kopuruarekiko eskaintzen diguten informazio emaria. Badaude salbuespenak ere; hauen artean bereziki aipagarria dugu Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegiaren kasua. Santutegiko kontu-liburuak bertako seroren komunitateari eta hauen ondasunei buruzko informazio samalda dakar, ikerketarako ardatz ezin hobea eskaintzen duena¹³. Baina salbuespenak salbuespen, orokorrean, aipatua dugun panorama azaltzen zaigu, eta honi, jasotzen duten tarte kronologikoa gehienetan XVII. mendetik aurrerakoa izatea gehitzen zaio. Oso gutxi dira XVI. mendean hasi ziren

zabalagoa dutela ere.

¹¹ “Índice de otorgantes” delakoa dokumentuak helarazi zituzten pertsonen izenen zerrendaketa bat da, oinarri informatikoko bilaketarako moldatu dena. XX. mende erdialdera burutu zen lan eskerga hau, lan handia izanagatik ere, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoan (Oñati) eta Gipuzkoako Artxibo Orokorrean (Tolosa) gordetzen diren 16.000 bat protokolo horien arteko 1.100 bat protokolutako izenak jasotzera baino heldu ez zena. Edonola ere, eta dituen mugak dituela, bilaketak burutzeko oso baliagarria eta askotan erabat beharrezkoa den instrumentu bat da.

¹² Ospitaleetako kontu-liburuari dagokienez, Debagoieneko hiribilduetako ospitaleetako gehienak gorde izan badira ere, aurrerago aipatuko ditudan arrazoiak medio, hasiera batean ospitaleetako serorak ikerlan honetako ikerketa objektutik at uztea pentsatu nuenez, alde batera utzi nituen.

¹³ Kontu-liburuari santutegiko maiordomo lez 1691n ekin zion Ignacio de Sagastiberria Leintz Gatzagako numeroko izkribaua zen, eta honek izan zuen noski zerikusirik kontuen eta ondasunen inguruko azalpenen zehaztasun eta garbitasunari zegokionean. Leintz Gatzagako kasua, bestalde (hau aurrerago xehetasun gehiagoz azalduko dut), berezia da, bertako protokoloak, GPAH-AHPGan beharrean, Leintz Gatzagako Udal Artxiboan gordetzen direlako. Ikerketa burutzeko ditudan mugak medio, ezin izan ditut protokolo hauek kontsultatu; kontu-liburuak berak eskaintzen duen informazio oparoari Leintz Gatzagako alkatearen aurrean erabaki ziren hiru auzi luzetatik jasotako informazioa baturik, aski iritzi izan diot ikuspegi egoki bat osatu eta analisi xedatu bat burutzeko.

liburuak (edo gaur arte ordundik gorde izan direnak); honek nire ikerketarako baliabideei muga kronologiko bat ezartzen zien.

Jaso litekeen informazioari dagokionean, aipatu behar, parroketako eta ermitetako liburuen ezaugarri bat maiordomoek kontuak eta bestelako datuak jaso izaterako orduan azaltzen zituzten irregulartasunak direla. Gainera, maiordomo berriek kontuak egiterakoan aurretik maiordomo izan zirenen kontuen eredua jarraitzen zuten; kontu-hartzearen inguruko “tradizioak” sortzen ziren, eta horrela, oso ezberdinak izatera heldu ziren kontu-liburu bakoitzean aipatzen ziren diru-sarrerren eta gastuen kontzeptuak. Gauzak horrela, batzuetan diru-sarreretan nahiz gastuetan serora izen-abizenekin ageri zaigu, bestetan, “bateko edo besteko etxeko” serora lez izendatzen da, edo “bateko edo besteko ermitako” serora bezala, edo besterik gabe “la beata”, “la freira” edo “la serora” bezala, edo izen osoa emanda baina serora zenik zehaztu gabe, edo garbiketetz eta argiteriaz arduratzen zen “emakume bat” bezala aipatzen zen... Seroren soldatekin eta emolumentuekin beste hainbeste gertatzen zen. Batzuetan seroraren soldata lez esplizituki ezartzen zen diru-kopuru bat, bestetan bere serora egoera aipatzen zen baina bere soldata eta emolumentuak kontzeptu ezberdinen ostean ezkutatzen ziren (argizaria, garbiketetarako xaboa... urtero zapata pare batendako dirua jasotzen zuen serora batekin ere egin nuen topo), eta beste askotan kontzeptua zehazten zen (garbiketa, argizaria, ohialak egitea, etab.) baina diru hori serorari ematen zitzaionik aipatu gabe, beste zenbaitetan tenplu ondoko ortuaren eta lursailen etekina ematen zitzaion besterik gabe, etab. Eta doterekin ere beste hainbeste. Kasu batzuetan doterik aipatu ere egiten ez zen artean, bestetan diru-sarrerren artean esplizituki azalduerik ageri zaigu, etab.

Baina maiordomoen kontu-hartze ohiturez bestalde, edo hobe esan hauekin bat, kontsultak egin ahala ohartzuz joan nintzen lehen gauza bat Debagoieneko testuinguruan seroren egoera sozialek eta instituzioaren bilakaerek azaltzen zuten dibertsitate handia izan zen; hau liburuetan datuak jasotzen ziren eran atzematen zen, eta baita serorek jasotzen zituzten izen eta deituren aldaeretan bertan ere. Horrela, jarlekuen zerbitzutik zegozkion emolumentuak jasotzen, parrokiako behar eta aktibitate ezberdinetan inplikaturiko negozioak (argizaria, jarlekuetako ohialak, etab.) sostengatzen eta parrokiaren seroretxean bizitzen ageri zen seroraren kasutik, kontu-liburuan aipatu ere egiten ez zen eta bere etxe partikularrean edo seroretxea alokairuan zuela bizi zen serorarenera, alde handiak nabari litezke. Beste hainbeste esan liteke, beste mutur batzuk hautatzearen, kontu-libururik eduki ere ez zeukan ermitan, "coadjutora" (serora-laguntzailea edo bigarren-serora) baten konpainian baserri lanetatik bizi zen seroraren, eta hiribilduaren testuinguruan komunitatean, doterearen hasierako ekarpenean eta limosna eskaeran sostengaturik eta eliz-agintarien eta ordenen eragin eremu ertsia goaren baitan bizi zen seroraren bizimoduaren arteko ezberdintasun nabariei buruz. Instituzioaren izaera erlijiosoaren eta laikoaren arteko mugak ere oso nasaiak ziren, egoera zibil ezberdinek aditzera ematen dutenez. Manuel Larramendiren *Corografía...-z* (1754) geroztiko seroren inguruko historiografiaren parterik handienez –zentzu kritiko handiegirik gabe– errepikatu ohi den bezala, Debagoieneko tenplu gehien kasuan serorak ezkongabeak izan ohi baziren ere, Arrasateko San Juan parrokiako *beata* oster bertako sakristauaren emaztea izan ohi zen, eta beste hainbeste gertatzen zen Eskoriatzako San Pedro Apostoluaren parrokiako *sacristanarekin* ere (senar-emazteak “sachristanes” bezala ere aipatzen ziren). Oñatiko ermita askoren kargu ere –XVII.en mende erdialdetik behintzat– ermitau bat eta bere emazte *beata* egon ohi ziren. Eta jarraian ikusiko dugunez, ez ziren nohizbehinkako kasuak, urteen puruan eta legedien aldetiko mugapenen harira sendotutako ohituren ondorioa baizik.

Seroraren instituzioaren baitan ageri zitzaidan dibertsitate zabal hau, GPAH-AHPGko bilaketek berretsi baino ezin zuten egin, eta halaxe izan zen. Eta bilaketa hauei ekiterakoan, halaber, beste zenbait arazorekin ere egin nuen topo. Alde batetik, informatizaturiko helarazleen aurkibideek muga kronologiko jakin batzuk dituzte; nire ikerketa espazioari dagokionean, XVI. mendeko lehen hamarkadetatik XVII.aren lehen laurdenerako tarte kronologikoko dokumentuetako izenak dira bildurik daudenak¹⁴. Honek hasieran jorratu nahi nuen ikerbidea aldrebesten zidan, aipatu berri dudan bezala, parroketako eta ermitetako liburuek gutxien jasotzen duten bitarte kronologikoa baita berau. Baina badira beste baliabide eta bilaketetarako instrumentuak ere, eta XVII. mendearen gehienerako eta XVIII.erako behintzat, beraietaz baliatu beharrean nengoen: protokoloen euren aurkibideak. Kasu honetan ere, noski, ez daude protokolo guztietako aurkibideak eskuragarri, ez baitzuten izkribau guztiek beraien bermepean idatzi ziren dokumentuen aurkibideak egiteko lana hartu. Areago, beste tankera batekoak ere baziren arazoak. Ramon Sukia GPAH-AHPGko artxibozain nagusiak hasieratik esana zidan protokoloekin arazorik ohikoena ikertzailearen esku artera heltzen den dokumentazioaren gehiegizko bolumena izaten dela, eta bilaketa informatikoak egiteari ekin bezain laster ohartu nuen arrazoirik ez zitzaiola falta. Eta gainera, dokumentazioaren bolumenari, beste arazo bat ere gehitzen zitzaien. Elizbarrutiko artxiboan jasoriko seroren izenak agertu, agertu ohi ziren, baina fitxa informatikoak ez zuen noski serora zenik edo ez zenik jasotzen, eta ziurtapenerako kontsulta asko egin beharko nituela konturatu nintzen. Egin nituen kontsultetan, gainera, dokumentu asko serora baten edo bestearen izen berbera zeramaten emakumeei zegozkien, eta gehitzen edo kentzen ziren abizen mugikorrek (Lopez, Perez, Martinez, etab.) asko nahasten zuten bilaketa. Denbora gehiegi bila, etekin gutxiegi jasotzeko.

Berandu baino lehen bilaketarako beste ibilbide bat jorratu beharrean nengoen, eta azkenean, luze joango zela jakinik ere, tarte kronologiko osorako bilaketak protokoloetako aurkibideetan egitea deliberatu nuen. Honek, bilaketa izen zehatzen bidezkoa izan beharrean, aurkibideetako dokumentuen deskripzioetan serorak izendatzeko erabili ziren termino ezberdinen arabera (“serora / sorora”, “beata”, “freila / freyla / freira / etab.”, “sacristana”, “hospitalera”, “hermitaña”, etab.) izan behar zela esan nahi zuen, eta dokumentuak lokalizatzeko posibilitateak izkribau bakoitzaren xehetasunak aipatzeko ohituraren esku gelditzen ziren. Eta izkribau askok seroren instituzioaren hautemapen berezitu bat bazuten ere, beste batzuk ez zuten seroratzat aipatzeko datutzat hartzen, eta seroraren izena baino ez zuten jasotzen. Hein honetan, elizbarrutiko iturrietan jasoriko seroren izenen zerrenda protokoloetako bilaketetan ageri ziren serorekin erkatzea oso aberasgarria suertatu zen. Izan ere, tenpluen liburuetan serora lez esplizituki aipatzen ziren emakumeak, batzuetan, protokoloetan beraien izen soilaz ageri zaizkigu, eta alderantziz, protokoloetan agertzen direlako jakin dezakegu tenpluetako liburuetan aipatu ere egiten ez diren serora batzuen berri. Beste fenomeno batzuk ere deigarriak ziren; gorago aipatu ditugun Arrasateko, Eskoriatzako eta Oñatiko ezkonduetako seroren kasuan, izkribauak normalean ez zuten beraien serora egoera aipatzen. Oñatiko kasuan gainera, kuriosoki, dokumentuen helarazleen serora izaera –zenbait salbuespenez beste– testamentua egiten zutenean baino ez zuten zehazten. Zer zela eta sendotu zen ohitura hau Oñatiko izkribauen artean? Ezin jakin. Ondasunen eta tenpluarekiko loturen inguruko dokumentuak, bestalde, aipagai ditugun ezkonduetako seroren kasuan, gehienetan beraien senarrek helarazten zituztela dirudi. Alegia; zailago ziren protokoloetan aurkitzen, izkribauak ez zituztelako seroratzat aipatzen, eta beraien

¹⁴ Bergarako notario-barrutian 1521-1600 bitarterako helarazleen %100a, eta 1600-1612 bitarterako %45a dago jasoa, eta Oñatiko notario-barrutian berriz, 1512-1600 bitarterako %95a, eta 1600-1614 bitarterako % 25a.

senarren manupean ere bazeudelako. Gainera, antzerako espazio baten baitan, Leintz bailaran eta Oñatin nagusiki, XVII. mende erdialdetik aurrera seroretxeak alokairuan jartzen hasi ziren, eta bikote bati eginiko zenbait urterako alokairu kontratuak, bizitza osorako omen zen serora zelibearen izendapena ordezkatu zuen; instituzioa ikuspegi “laikoago” batean hautemateari ekin zitzaion. Elgetaren kasuan, bestalde, IRARGIn partzialki informatizaturiko aurkibideak daude, XVI. mendetik XVII. mendearen erdialderarteko protokoloak baino baitaratzen ez dituztenak; muga kronologikoa hor izanik ere, aurkibide hauetaz baliatzea erabaki nuen, aski luze joateko itxura zeukaten protokoloen aurkibideetako bilaketak zertxobait arintze aldera; gera bedi beraz garbi, Elgetaren kasuan hutsune kronologiko bat tarteko dagoela.

GPAH-AHPGko bilaketetan ageriraturiko berezitasun hauek ere, noski, eragin zuten ikerketaren gorabeheretan. Lehenik eta behin, ikerketa bideragarria izan zedin, kontsultatu beharreko dokumentazioaren bolumena murrizteko irizpide zentzudunen bat zehaztu beharrean nengoen. Zenbait aukera egin beharrean nengoen, muga jakin batzuen baitan garatu beharreko ikerkuntza baterako, ezinezkoa baitzen dokumentu guztien kontsulta. Lehenik eta behin, beraien inguruan egindako informazio bilaketak beste espazioetako serorenak baino murriztagoak izan zirenez, ospitaleetako serorak alde batera uztea erabaki nuen; artean egitekotan nagoen ospitaleen liburuen gaineko erreposoa bukatu artean, bertako seroren inguruko datuak erreserban utzi nituen, hauen gaineko ikerketa datu gehiagoren esperoan utziaz. Eta beste serora guztien inguruko dokumentazioari begira... izkribauen aurrean helarazten zen dokumentazio pertsonalaren artetik, ze tankerako dokumentuek eskain zekidaketen ikergaiari buruzko informazio osatuagoa? Buelta asko eman ondoren, bi multzo nagusitara bideratu nuen nire begirada: izendapenetara eta testamentuetara.

Izendapenen parte handi bat GPAH-AHPGko bilaketen bidez aurkitu ahal izan nituen, eta hainbat izan ziren, era berean, Kalagorriko Katedraleko Artxiboan gordetako auzietan frogatzat berridatziak izan zirenak, hauek ere beste sortatxo bat osatzen zutelarik. Besteren batzuek berriz, Debagoieneko udal artxiboetan gordetako auzietatik ere heldu zaizkigu. Azkenik, gehienetan hala egiten ez bazuten ere, izan zen kontu-libururen batean berridatzi izan zuten izendapenik ere. Izendapenak, propioki serorei soilik zegokien dokumentu mota bakarrak ziren, eta beraien ikerketarako iturri baliotsua dira. Batzuetan dokumentua bakarra izan ohi zen, eta bestetan ostera alde batetik izendapena, eta bestetik jabe-egite edo posesio autoa helarazten ziren. Nire bilaketetako iturriak direnak izanik ere, dokumentu hauek, patroitzen eta ohituren arabera, eliz-instituzioen, udalen nahiz familien artxiboetan aurki litezke, protokoloetan bezalaxe. Aldaera handiekin bazen ere, gutxieneko egitura amankomun bat mantendu ohi zuten; lehenik eta behin, nabaria denez, partehartzaileak aipatzen ziren. Patroitza eta izendapen eskubidearen berri jaso liteke hemen, eta baita seroragaiaren familia-erlazioen berri ere. Batzuetan izendapen berria egiteko motiboak ere aipatzen ziren, horrela, serora aurrekariaren eta seroratzat beraren ezaugarrien inguruko datuak ere emanek. Beste funtsezko datu bat, gehienetan hala izanik ere beti aipatzen ez zena, dotearena zen. Era berean, dote berriaren sarrerarekin, batzuetan aurreko seroraren eta tenpluaren ondasunen inbentarioa egiteko ere probesten zen momentua, horrela, nori ze ekarpen zegokion garbi utziz. Beste batzuetan aldiz, inbentarioa bere kabuz egiten zen, izendapenaz aparte. Edozein kasutan, tenpluen eta seroren inguruko datu ekonomiko interesgarriak dira honen bidez lortzen direnak, eta inbentarioen bidez, seroren aktibitateen inguruko informazioa ere bildu liteke, baterako edo besterako elementuen presentziaren bidez (ortuak eta lursailak, ehunak eta ohialak, etab.). Batzuetan seroren betebeharrak eta eskubideen definizio eta deskribapenak ere zehazten ziren, seroren

hautemapen sozial eta erlijiosoaren inguruko informazio interesgarria eman. Jabe-egite autoek seroren aktibitateen inguruko informazio interesgarria eman dezakete, aktibitate hauek sinbolikoki egiten zireneko erritua izanik, beraien deskripzioa serorari zegozkion lanen azalpen egokia izaten baitzen; alabaina, askotan aurreztu ohi zuten azalpenetan luzatzea, “como se acostumbra” eta tankerako hitzekin laburtuz. Jabe-egite autoak, bestalde, Erdi Aroko ohituren jarraipen zirenak, XVIII. menderako jada erabat desagertu zirela dirudi, bai behintzat dagokigun ikerketaren espazioan, zenbait lekutan, batez ere udal patroitza zegokien tenpluen kasuan, izendapenak tramite burokratiko huts izatera iragan baitziren. Seroren inguruko informazioaren alderdi hauek lortzeko bildu ahal izan ditugun izendapenak 51 izan dira, 26 parroketakoenak, eta 25 ermitetakoenak. Baina noski, ez digute guztiek aipatu berri ditugun ezaugarrien berri ematen, formulak eta ohiturak, lekuen eta garaien arabera, oso ezberdinak izan baitziren. Espazioekiko berriz, ikerketak aurrera egin ahala ezaugarri amankomunak zeuzkatela ikusi ahal izan dugulako egin dugun banaketaren arabera, honela banatuko liriateke: Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osaturikoan 28, Leintz bailaran (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga) 8 baino ez, eta Oñatin berriz, 15. Izendapenez gain, aipaturiko hainbat aspekturen berri izendapen hauetariko zenbaiten jatorri diren auziek eurek ere ematen digute.

Beste erabaki nagusi bat testamentuen aldeko hautua egitea izan zen, hauek gizarte, familia eta ekonomia mailako datu ugariak eta aberatsak eskaintzen baitzizkigute. Bilaketen ondoren, beraien testamentuetaz eta kodiziloetaz baliatu ahal izan naizen seroren lagin orokorra, 99 serorek osatu dute. Testamentuak, helarazleak – bere heriotzeko momentua buruan zuela– bere inguruko pertsona eta instituzioekiko zeukan “borondatearen” berri ematen digu; alde batetik: norekiko zer nolako desioak eta asmoak zituen, bere ondasunetatik zer eta zertarako ematen zuen eta hauen arabera ze lotura pertsonal mota garatu eta nabarmentzen ziren, etab. Guzti hauen artean bereziki faboratua, batzuetan ezartzen zen oinordeko unibertsala. Talde honek helarazleak hartzekodun egiten zituen pertsona eta instituzioen sarea osatzen zuen; horrez gain, helarazlearekiko zorrak zituzten pertsona eta instituzioen ikuspegi bat ere eman ohi zaigu, erlazioen sarearen alderdi “zordun” bat ageriraturaz. Testamentua, hein honetan, nork bere bizitzaren apurrean egiten zuen “zorren kitatze” nagusi bat dugu, pertsonaren erlazioen sarea hartzekodunetan eta zordunetan banatzen zuena. Honek alderdi ekonomiko nabari bat du, baina ez da hori bakarrik, mugimendu ekonomiko guzti hauen artean, bataren eta bestearen zergatiak ere azaltzen baitzaizkigu. Balorazio koantitatibo hutsetik aktibitateen espaziora garamatza, diruak eta ondasunak nondik, nola, eta norengandik lortuak eta jasoak ziren ikustera. Horrela, langintza ezberdinak, lursailen ustiapenak, mailegutza aktibitateak, salerosketak, etab. ere ageri zaizkigu, ondasunak eta diruak jaso zituzten pertsonen beste. Horrez gain, albazeen aukeraketak, memoria eta anibertsario ezberdinen fundazioek eta eraikin ezberdinen konponketa eta eraikuntzarako dohaintzek ere informazio esanguratsua eskaintzen dute, pertsona jakinekiko eta gizartearekiko erlazioen modu eta izaerari buruz.

Baina testamentuek, seroren inguruan izan ohi ziren lagun, familia-kide eta gizarteko instituzio ezberdinei buruzko ikuspegi egoki bat eskaintzen badigute ere, informazio iturri lez “estatikoegiak” izan litezke. Momentu jakin bateko erretratua dira; momentu kritiko batekoa, bai noski, baina momentu bakarrekoa, azken finean. Testamentuez gain beste irizpideren baten araberrako aukeraketaren bat egin beharrean nengoen, ahal nezakeen heinean behintzat, seroren aktibitateak testuinguru “aktiboago” batean jasotzeko. Serorek helaraziriko –edo hauek parterik izan zuten– ahalordeak, eskriturak, hitzarmenak eta akordioak, zentsuak, betekizunak, lagapenak eta

eskualdatzeak, salerosketak, alokairuak nahiz ordainketa kartak eta hauek guztiek azaltzen zituzten gorabeherak egoki jasotzeko moduren bat landu beharrean nengoen, esan bezala, erabat ezinezkoa baizitzaidan GPAH-AHPGn lokalizaturiko dokumentu guztien jarraipenik egitea. Azkenean, asmoa hain prezeski ere serorak beraien “aktibitateetan” isladatzea zenaz gero, besterik gabe, hauen artean “aktiboenak” zirenei erreparatzea erabaki nuen. Alegia, dokumentu gehien helarazi zituztenen jarraipena egitea. Honek, noski, aurkituriko seroren artean boteretsuenak eta eraginkorrenak aukeratzea esan nahi zuenez, serora txiroagoak eta esangura sozial gutxiagokoak baztertzea ere esan nahi zuen. Baina esan bezala, irizpideren baten arabera bideratu beharrean nengoen, ez neukan beste aukerarik: 5 dokumentu edo gehiago helarazi zituzten serorak aukeratu nituen. Kuriosoki, eta pentsatu zitekeenaren kontra, ez ziren soilik parroketako –eta hauen artean hiribilduetako parroketako– serorak laginean baturik agertu zitzaizkidanak. Hein batean bai, gehiengo beraiek osatzen baitzuten, baina ermitetako serorak ere baziren, neurri esanguratsuko harremanetan, gainera. Azkenean, behin bilaketetako gorabeherak iraganik eta lehen asmoetan sartzen ziren zenbait serora datu urritasunagatik bazterturik, 30 serorak osatu dute jarraipen zehatzetarako aukeratutako lagina.

Lagin honetako emaitzek, bestalde, espazio eta kronologia aldetiko mugapenak agertzen zituzten, lehen begiratu hutsean jada nahiko esanguratsuak zirenak, eta ondoren ohartuko nuenez, trazu orokorretan, Aro Berrian zehar serorek botere eta aberastasun gehien izan zuten garai eta espazioekin bat egiten zutenak. Izan ere –eta bilaketetako arazoan mugapenez beste–, protokoloetako dokumentuak helarazterako orduan serorarik “aktiboenak” izan zirenen taldea azaltzen baitigute. Hala, lagineko serorarik gehienak Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osatzen duten multzokoak dira (22), batez ere Bergarakoak. Espazio honetako serora gehienak XVI. mende bukaera eta XVII. mende hasiera bitartean bizi izan ziren, XVII. mendearen bigarren erdialdeko Antzuolako bi seroren eta XVIII. mendearen hasieratako Bergarako serora baten salbuespenekin. Leintz-bailarako multzoa (Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga), 7 serorak osatua, murriztagoa da, eta batez ere XVII. mendeko datuak dakarzkigu; Oñatiko esparrurako berriz, laginean sartzeko besteko dokumentazioa aurkitu ahal izan diogun serora bakarria daukagu, XVII. mendearen lehen erdialdekoa. Lortu ahal izan ditudan testamentuak, halaber, gehienak Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osaturiko multzoko serorenak dira (52); Bergaran XVI. mendearen erdialdetik XVIII.enaren bukaerarartekoak dauzkagun artean (29 testamentu), Elgetakoak, XVIII. mende erdialdeko salbuespen batez beste, gainontzeko 10ak XVI.enaren bigarren erdialdearen eta XVII.enaren lehenaren bitartean kokatzen zaizkigu, eta Antzuolako 12ak aldiz, hiribildua 1629an izendatua izanik normala denez, XVII. mendearen erdialdetik ekiten zaizkigu, XVIII.enaren lehen erdialderarteko tartean. Leintz bailarako 25 testamentu lortu ahal izan ditugu (bat Aramaiokoa, hauekin batera sartu duguna), eta Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko XVII.enaren bukaera eta XVIII.enaren lehen erdialdeko 4ez besteko 21ak (Arrasateko 13, Aretxabaletako 4, Eskoriatzako 3 eta Aramaiokoa), XVI. mende bukaera eta XVII. mende bukaera bitartekoak dira. Azkenik, Oñatiko testamentu eta kodiziloak 22 serorenak dira, XVI. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik XVIII.enaren bukaerararteko tartean.

Parrokia, ermita eta santutegietako kontu-liburuen, izendapenen, testamentuen eta GPAH-AHPGko bilaketen ondorengo emaitzen oinarri dokumentalei, Kalagorriko Katedraleko Artxiboko eta Debagoieneko udal artxiboetako serorei buruzko bestelako dokumentuen inguruko bilaketen emaitzak ere batzen zaizkie, hainbat aspektutan, oso

garrantzizkoa den informazioa gehituz. Azkenik, Valladolideko Errege Kantzeleriaren Artxiboan ere egin dugu kontsultaren bat.

Informazio dokumentalaren oinarria azalduz, ondorengo orrietan emango ditudan azalpenek, oinarri honi dagozkion funtsezko ezaugarri batzuk izango dituzte. Debagoieneko tenpluen kontu-liburuen, eta Kalagorriko Katedraleko Artxiboko eta Debagoieneko udal artxiboetako dokumentuen bidez Aro Berri guztian zeharreko informazioa bildu ahal izan dugu, eta oinarri honen bidez, ikuspegi orokor egoki bat osatu ahal izan dugu. Protokoloetako informazioak ostera, seroren eragina eta aberastasuna handia izan zen “urrezko aro” bat zedarrizten digu, batez ere, XVI. mendearen bigarren erdialdean eta XVII. enaren lehenean garatu zena. Garai hau, seroren aktibitateen informazio gehien eskaintzen duena bada, hain zuzen ere, Aro Berriko mendeetan zehar serorek eragin sozial gehien izan zuten garaia izan zelako da, eta beraz, beraien aktibitateen inguruko ikuspegi orokor osatuena jasotzeko aukera eskaintzen duen garaia ere berau dugu. Bestalde, serora zehatzen jarraipenak ere egin izan ditugunez, ikerketaren bigarren atal horretan zehar serora jakin batzuen izenak behin eta berriro agertuko zaizkigu, poliki-poliki, beraien bizitza pertsonaleko aspaktuak osatuz joango garelarik.

Guzti honi, noski, aurreko azpiataletan azalduz joan garen oinarri bibliografikoa gehitzen zaio, beste zenbait aspekturi buruzko bibliografia zabalarekin batera. Aurreko azalpenetan ohartu izan denez, serorei buruzko bibliografia espezifikoan batez ere ikuspegi historiografiko nagusi bat jorratu izan da, ikertzaileen aldetiko atxikipen maila ezberdinak izanik ere, ardatz nagusi nabari bat eratu duena. Lan guzti hauek, edo -noski- aurkitu ahal izan ditudanek behintzat, ikerlanean zehar hainbatetan egingo dute agerpena, konparazioak ezartze aldera bezalaxe, jasoriko informazioa bideratzeko ere; eta noski, baita landu izan den ikuspegi historiografikoarekiko kritikak burutzeko ere, beharrezkoa dugun ariketa baita, seroren bizimodu erreala egoki ulertzekotan. Jada aipatu dudanez, Larramendik serorei bere *Corografia... -n* (1754) eskainiriko kapitulua bereziki izango dugu presente, ondorengo ikuspegi historiografikoaren iturri nagusia berau baita.

Baina aipatu berri ditugun iturrien ikerketari ekin aurretik, sarrera era egokian planteatzeko, seroren jatorriak eta Europa mailako beste emakumezko instituzio eta mugimenduen balizko eraginaren berri emate aldera, ikerketa historiko eta terminologiko batekin ekingo diogu, ondorengo kapituluetan jada, Aro Berriko dokumentuen ikerketan barneratzeko.

II. JATORRIAREN ETA TERMINOEN INGURUAN

Serorak egoki aurkeztekotan, ezin ditugu hauen jatorriaren inguruko dudamudak alde batera utzi. Zalantza hauek bere hortan diraute, eta irauten jarraitzeko itxura guztia dute, beraiei buruzko informaziorik gehiena, funtsean, Aro Berritik baitatorkigu. Erdi Aroko seroren inguruko datuak badaude zenbait, baina urriak izateaz gain ez dira hain esanguratsuak, eta itxuraz behintzat, ez dute zalantzak argitzeko bide gehiegirik zabaltzen. Hala ere, litekeena da hemen egin ahal izan duguna baino Erdi Aroko Euskal Herriko serorei buruzko dokumentuen bilaketa xeheago batek datu argigarrietarako bidea ematea. Baina lan honetan baliaturiko dokumentazioaren gehiengoa Aro Berrikoa izanik, sarreratzat jorratu nahi izan dudan ardatzeko jarraibidea bestelakoa da, hein batean eskura daukagun informazioan oinarritzen dena: serorak izendatzeko erabili izan ziren terminoak. Termino hauek, euskaraz erabilienak izan ziren “sorora” eta “serora” alde batera utziaz gero, gehienak auzo-hizkuntzetatik letorzke: “freila” eta bere bariante ezberdinak (“freira”, “freyra”, “fraila”, etab.), “beata”, “benoîte”, “emparedada” eta “recluse”. Termino hauez beste “sacristana” hitza ere badugu, baina bere ikerketa terminologikoa alde batera utziko dugu, gizonezko sakristauenganako asoziazioz sorturiko izena izanik, ez digulako seroren jatorriari buruzko informazio gehiegirik ematen. Kanpo gelditu zaigun beste termino bat, halaber jatorriari buruz berri gehiegirik ematen ez diguna eta ikerketa jada aurreratua izan arte bere berririk izan ez nuena, “mandarresa” dugu, “manda” zeritzen dohaintzetatik eratorria litzatekeena (Iribarren Argaiz 1967, 235).

Aipaturiko terminoen gain ezarriko dugun prozedura honakoa izango da, beti ere historiografiatik jasotako jatorriari buruzko iritziak, datuak eta etimologiak lehenik sarreratzat, eta ondorengo orrietan dagokiela deritzogun lekuan jasoz: lehenik, hiztegi historiko nahiz orokor ezberdinen eta terminoen jarraipen historikoa ahalbidetzen diguten informatizaturiko dokumentuen korpusen kontsulta egingo dugu, termino bakoitza ze kronologia zehatzetan kokatzen den argitzeko. Horretarako, termino bakoitzak bideratzen gaituen emakumezkoen instituzio erlijioso ezberdinen inguruko bibliografia anitzaren laguntza izan dugu, eta termino bakoitzerako, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan hitz egiten ziren eta diren hizkuntzen hiztegiak jo dugu: euskara

¹⁵ Larramendi 1745; Azkue 1969 -1906-; Sota; Lafitte; Akesolo 1976-1991; eta Mitxelena 1987-2005.

, gaztelera¹⁶, frantsesa¹⁷ eta -gaskoiaren aldaeratzat- biarnoera¹⁸ izan ditugu ikergai. Gaztelerari eta euskarari dagokienean, literatura zaharraren lanak jasotzen dituzten korpus informatizatuetako kontsultetara ere jo dugu: *Corpus diacrónico del español*¹⁹ eta *Klasikoen Gordailua*²⁰, hurrenez hurren.

Terminoak zein bere aldetik ikertuko baditugu ere, garrantzitsua da hauek elkarren artean nahasturik eta batera, baita “monja” terminoarekin batera ere, askotan erabili izan zirela presente izatea (“freira y serora”, “serora beata”, “seror reclusa”, “monja serora”, etab.). Honek, izkribauk eta garai hartan idazten zekiten biztanle gutxiek terminoek adierazten zituzten bizimodu ezberdinen arteko ezberdinketak egiteko arazo handiak izan zituztela adierazten digu. Era berean, ikusten joango garen termino bakoitzak kronologia jakin baterako lotura ezartzen digunez, zaharretik berrienerako jarraipen kronologikoan antolatu eta azaltzen saiatuko gara, horrela, seroren jatorriari buruz izan diren eta gaur egunean dauden teoria ezberdinei era ordenatu batean leku eginaz joateko.

Hiztegietako eta informatizaturiko korpus dokumentaletako informazioari, termino ezberdinek bideratzen gaituzten erlijiozko emakumeen instituzio ezberdinei dagokien bibliografiatik jasotakoa gehitzen zaio, noski. Bilaketa bibliografiko honi, alabaina, mugak jarri beharrean izan naiz, zenbait terminok adierazten dizkiguten instituzioen inguruko ikerketak hain ugariak baitira eze, kapitulu honen xedeetarako gehiegi luzatuko baikinake; "soror" (Antzinateko eta Erdi Aroko hainbat forma monastiko zaharretako emakumeek jasoriko izendapena), edo "beata" (Espainian eta Ameriketako kolonietan mendikanteei gradu eta modu ezberdinetan loturiko hirugarren ordenako erlijiotasunaren testuinguruan hedaturiko emakumeak aipatzeko erabilia) terminoei dagozkien instituzioen kasua dugu, esaterako. Horregatik, atal eta azpiataletarako bildu dugun bibliografia erreferentzia orokorretarakoa baino ez dugu, azaldu nahi ditudan alderdien berri modu egokian emateko besteko lanetara mugatua. Gehiago ikertu nahiko lukeenak, beraz, badu artean ere arakatzeko aski bibliografiarik. Eta beste hainbeste esan liteke, halaber, instituzio ezberdinen testuinguru sozial eta erlijiosoak azaltzeko bilduriko bibliografiari buruz ere. Hau hala izateak motibatzen du, halaber, erreferentziak emateko moduen joera orokorra ere, askotan publikazioak liburu edo artikulutzat baino ez aipatuz, orrien zehaztapenetara jo gabe; izan ere, lan horietatik jasoriko datuak eta azalpenak askotan irakurketa zabalak laburpen eta sintesi saiakerak baitira, puntu edo pasarte jakinetatik bilduriko informazioa baino usuago. Eta hala ere, laburbiltzerako eta sintesirako saiakerarekin izanda ere, sarreratzat egiten digun kapitulu bat izateko, aski luze hedatuko zaigu, instituzio ezberdinak eurak, ugari izanik.

Zailtasun hauek medio, pentsa liteke agian, alderdi hauei heltzea baino hobe litzatekeela jatorriaren auzia alde batera utzi, eta zuzenean Aro Berrian izan ziren seroren inguruko bestelako alderdiekin ekitea zentzudunago litzatekeela, atal honetan emango ditugun azalpenak, beste nonbait, lasaiago analizaturiko bibliografiarekin eta azalduko alderdietan gehiago sakonduz emateko. Baina seroren jatorriaren eta

¹⁶ Covarrubias Horozco 2007 -1611-; R.A.E. 1976 -1727-; Coromines; Pascual 1980; Alonso 1986; Chamorro 2002; eta Nieto Jiménez; Alvar Ezquerro 2007.

¹⁷ Robert 1986 -1951-1966-; eta Rey 1994.

¹⁸ Hizkuntza gaskoiaren esparru zabalagora heldu ahal izateko biarnoeraren hiztegi batera jo dugu, ez baitugu gaskoiaren hiztegirik eskura izan: Lespy; Raymond 1998.

¹⁹ R. A. E.: Banco de datos (CORDE) [sarean]. *Corpus diacrónico del español*. /<http://www.rae.es/>.

²⁰ KLASIKOEN GORDAILUA: /<http://klasikoak.armiarma.com/> webguneak euskal literatura zaharraren korpus bat (lehen idatzietatik 1936rartekoa) mundu guztiaren eskuragarri izateko bi proiektu batzen ditu: alde batetik Patxi Salaberria Muñoa idazle eta irakasleak gidaturiko taldeak abian jarritako *Euskal Testuen Gordailua*, eta bestetik euskal literaturari buruzko Susa argitaletxearen portala, *Armiarma*.

eraginen inguruko azterketari ekitean zerbait erreparatu nuen, jarraian, -halabeharrez-ondorengo orrietako azalpenen zenbait ondorio aurreratuz emango ditudan azalpenak ematera behartzen ninduen: azterketa objektuaren zedarripena. Terminoen euskarazko eta beste hizkuntzetako erabileren ezberdintasunak azaleratu ahala, oso garrantzitsua deritzodan zerbait ohartu bainuen: euskarazko literaturarik zaharrenean, Aro Berriaren bukaerarakoan eta haratago, XIX. mendearaino, "serora" terminoak beste hizkuntzetan aipagai ditugun termino guztiek adierazten zituzten bizi formen tankerakoak adierazten zituen; areago, eta sinpleago esateko, terminoak erlijiozko emakume guztiak aipatzeko balio izan zuen (hauek hiribilduan edo landa-eremuan, tenpluei edo familia jakinei loturik bizi, edo ez, etab.), mojak barne. Azken hauen eta "bestelako seroren" arteko banaketa terminologikoak ez zion XVIII. mendearen bigarren erdialderarte hedatzeari ekin, hurrengo mendean jada finkoago gorpuzteko. Honen xehetasunak aurrerago emango ditugu noski, baina adierazi nahi nuena honakoa da: "serora" terminoak bere garaian euskaraz izan zuen erabilerari atxikitzen bagaizkio, Euskal Herriko lurretara heldu ziren edo heldu ahal izan ziren erlijiozko emakumeen forma guztiei begira jarri beharrean gaude, gaur eguneko "seroren" eta "mojen" arteko ezberdintasunek iradokitzen dizkiguten banaketak alde batera utziz.

Aipatu berri dugun banaketa eta honen terminoen erabilera baitako hedapena, bestalde, klausurako bizitzaren eta mojen komunitateen hedapenari eta hauek garai barrokoan (nagusiki XVII. mendearen erdialdeaz geroztik, batez ere XVIII. mendean) jaso izan zuten bultzadari ere badagokio. Hau ez da noski kasualitatea eta ikerketa objektuaren zedarripenerako ere garrantzitsua dugu, Aranaren doktorego tesiaren (1992) ondoren zerbait garbi gelditu bazaigu, Aro Berriaren hasieratan, XVI. mendean, Euskal Herrian zeuden erlijiozko emakumeen taldeen parterik handi-handienak klausurarik gabeko bizimodua egiten zuela baita. Guzti horregatik, aipagai izango ditugun erlijiozko emakumeen instituzio ezberdinen baitako klausuraren ezarpenaren jarraipena ere egingo dugu. Azken finean, "serorek" bestelako terminoek adierazten dituzten bizimoduetan jatorria edo eraginak izatekotan, hauek klausurako bizimodurik jarraitzen ez zuten garaietan izan beharko zukeen, instituzioak Aro Berriko Euskal Herrian izan zuen forma nagusia klausura gabekoa izanik. Aipatu berri ditugun elementuak izango dira beraz ikerketa objektuaren zedarripenerako baliatuko ditugunak: "serora" terminoaren euskarazko erabilera orokortua, eta klausuraz kanpoko bizimodua; hau da, klausuraz kanpokoak izango dira lan honetan ikergai hartuko ditugun erlijiozko emakumeak, nahiz eta aurreraxeago azalduko dugunaren arabera, "serora" terminoaren euskarazko erabilerak mojak eurak ere barneratzen zituela badakigun. Garbi gera bedi beraz zedarripen hau ikerketarako hautua dugula, eta ez duela Aro Berriko euskaldunen hizkeran "serora" terminoak jaso zuen esparru semantiko guztia baitaratzen, hala izatekotan, klausurako mojak ere baitaratu beharko baikenituzke (egingo ez duguna).

II. 1. Norabidea hartzen: ekarpen historiografikoak

Ugari izan dira serorak izendatzeko erabili izan diren terminoen inguruan eman izan diren azalpen etimologikoak eta beraien jatorriari buruzko iritziak; hauek, euskarari dagokionean, Larramendi berarekin hasten dira, "serora" hitzaren jatorriaren inguruko azalpenak ematen dituenen: "Llamáranse *seroras* de *sorores*. En vascuence así se llamaban antes las monjas, y hoy así las llaman los vascongados de Labort". Etimologia hau, zuzena dela esango genuke, nabaria ere izateaz beste. Filologoek ere berbera diote, nahiz eta eratorpena zuzenean latinetikoa edo biderapenez erromantzeetikoa izan ote zen oraindik auzi erabat garbia ez izan. Honakoa diosku, esate baterako, Maria Teresa Echeniquek:

serora SORORE latinetik dator, eta bukaeran duen *-a* hori artikulua edo *-a* organikoa modura finkaturik dago (eta hiztegieta *-a* berarekin azaltzen da), baina baita femeninoaren markagailu morfologikoa bezala ere, hau da erromantzetik hartuta femeninoarekin lotuta dago (Echenique Elizondo 2006, 40)

Larramendiren hitzetan, “*serora*” hitzak berak eta mojen komunitateetan erabiliriko “*sor*” hitzak (“*sincopando el nombre de Soror*”) -zuzenean- latinetik eratorritako jatorri berbera lukete. Ikusten dugu, halaber, nola Larramendiren garairen aurretik mojei euri ere “*serora*” izena ematen zitzaien; Larramendiren garaian bertan – gaur egunean bezalaxe– erabilera horrek Iparraldean (aipatu zuenaren arabera, Lapurdin) bizirik jarraituko zukeen, nahiz eta Hegoaldean, edo Gipuzkoan behinik behin, “*dejando ese nombre, ya no se les da otro que el de monjas*”. Batzuen eta besteen arteko ezberdintasun terminologikoen falta hau azaltzen ere saiatu zen Larramendi, Elizaren lehen mendeetako kanonetara joaz. Kanon hauek, Larramendik seroren aurrekarizat zeuzkan diakonesei buruz dihardutela, terminoekiko antzerako egoera nahasia azaltzen baitute, izan ere (Larramendi 1985 -1754-, 135-136, 138-139). *Serora* izenak baitaratzen zuen esparru semantikoa Aro Berrian zehar -eta aurretik- hain zabala izatea oso garrantzitsua dugu: euskal kulturaren barneraturik bizi zen biztanlearen erlijiozko emakumeekiko ikuspegiaren parametroak azaltzen zaizkigu, esanguratsuki, are mojak eurak ere, termino berberaren pean batuz.

Konstatazio hau Larramendiren hitzez haratago eraman liteke, euskal literatura klasikoaren baitan, XVI-XVIII mendeak bitarteko testuetan *serora* hitzaren erabilera nolakoa izan zen aztertuz. Esan bezala, azterketa hau aurrerago egingo dugu xehetasunez, baina hartu dugun ikerketarako norabidea ondo ulertuko bada goraxeago azaldu duguna aintzat hartu beharrean gaude: aurreko mendeen gain, Larramendik aipatu zuen *serora* terminoaren erabilera orokortua XVIII. mendean bertan ere nagusi izan zen, egoera hau, are XIX. menderarte ere luzatu zelarik. Hau da, klausurako bizitzak mojen eta seroren artean gauzatu zuen banaketa ez zen euskal hizkuntzan erabat gauzatu, jada Aro Berria iragana zen arte²¹. Eta hau, diogunez, oso garrantzitsua da, XVI. mendea heldu zenerako eta ondorengo garaietan, Euskal Herriko biztanleek erlijiozko emakume *guztiak* termino bakarraren pean hautematen zituztela adierazten digulako, eta honek, seroren hastapenen bila, Euskal Herrian izanak zitezkeen erlijiozko emakumeen *forma guztiak* aintzat hartu beharrean geundekeela dioskulako.

Hau garbi utzirik, bada, jarrai dezagun ekarpen historiografikoen inguruko azalpenekin, gero terminologiaren azterketara iragateko. Larramendiren azalpenen ondoren, eta jada XX. mendean, Karmele Saint-Martinek, bere *Las seroras vascas* ipuinen liburuari atxiki zion ikerketa historiko sintetizatzailean (aurretik serorei buruz idatzirik lan urrietako datuak batu eta antolatu baitzituen) nahiko nabariak diren etimologia batzuek aipatzen dizkigu. “*Serora*” edo “*sorora*” eta “*fraila*”, “*freila*”, etab., hurrenez hurren, latinezko “*seror*” eta “*frater*” hitzetatik letorzke. “*Serora*” hitza argizariaren erabilerarekin lotuko zukeen etimologia herrikoi bat ere aipatzen du, “*çera*”=“*çerora*” lotura ezarriko lukeena, “*aunque la derivación sea del todo hipotética*” (Saint-Martin 1976, 158). Gerora Aguirre Sorondok ere jaso zuen etimologia herrikoi hau, bere ustez, zonalde batzuetan nahiko ohizkoa zen “*çerora*” forma azalduko zukeena. Peñaranda García ere bi etimologia hauek aipatzen ditu (“*kultua*” eta herrikoi) (Peñaranda García 2002, 298)²².

²¹ Ikus II. 3.3. azpiatala, 97-114 or.

²² “Etimológicamente, la palabra *serora* parece proceder del término latino *soror/sororis* (hermana), al que se le añade el artículo vasco “*a*”. Pero hay autores que sostienen tesis diferentes: Antxon Aguirre Sorondo afirma que el trabajo principal de las *seroras* es “mantener la luminaria de la ermita, o lo que es igual, ocuparse de la cera, etimología que al parecer explica la palabra *serora*, pues como *çerora* aparece en

Maria José Aranak ematen zitzaizkien izen ezberdinen sorta zabal bat azaltzen digu, instituzioaren jatorri eta eraginaren bide ugariak zabaltzen dizkiguna:

Los nombres empleados para las ‘seroras’ son múltiples: seroras o sororas cuya procedencia – soror – es fácil de descubrir. Además se las llamaba fraylas, freiras, freyla... nombre que también se utilizaba para las mujeres que habitaban y ayudaban en monasterios no ubicados en Vasconia como por ejemplo en el Hospital del Rey de las Huelgas de Burgos. También se les llamaba Benitas o Benoïtes (especialmente en Iparralde), término que nos está hablando de una espiritualidad muy concreta: la de San Benito. Pero, y esto quiero subrayarlo, en muchas ocasiones se las denomina como ‘beatas’, normalmente sinónimo de ‘serora’ e incluso de ‘monjas’ (Arana 1992, 97-98)

Aguirre Sorondok diakonesez gain seroren jatorria Goi Erdi Aroko *virgines* eta *viduae* zirelakoetan egon zitekeelako iritzia azaldu zuen, eta iritziaren sostengurako *Diccionario Crítico...*-an azaltzen den etimologia izan zuen aipagai, nire iritzirako, bertan baieztatzen denaren inguruko interpretazio oker bat emanaz. Hiztegi honetan ez da serora hitza “del catalán *sor*, hermana carnal, y ésta del latín *soror*” (Aguirre Sorondo 1995a, 108-109) eratorria izan zenik esaten; Berceok erabili zuen “seror” terminoa jasotzen da, hau “soror” terminotik eratorririko “representante hereditario del acusativo SOROREM” lez aipatuz. “Sor” sinkopatua ondorengoa litzateke, hiztegian bertan azaltzen den lez, azken termino hau ez baitzen XVI. mendean oraindik erabiltzen (Coromines; Pascual 1980, 309)²³, “seror” terminoa oster, Berceoren idatziak medio, jada XIII. mendean erabilia zela dakigun artean (*Diccionario Crítico...*-ak berak Azkuek gaiaren inguruan egin zituen ekarpen garrantzitsuen ingurukoak ere aipatzen dizkigu, baina azalpen hauek sakonago *Diccionario Crítico...*-an boz hau nola azaltzen den ikusten dugunerako utziko ditugu). Alabaina, interpretazio okerrak tarteko izan edo ez, eta aurrerago ikusiko dugunez, Aguirre Sorondok aipaturiko posibilitateak badu sostengatua izan ahal izateko besteko oinarririk.

Bestalde, autore honen kasuak Goi Erdi Aroko emakumezkoen instituzio erlijiosoen inguruan dagoen nahasterako joera orokorra ere agertzen digu, aipaturiko lanean seroren jatorriak *virgines* eta *viduae* zirelakoetan ere egon zitezkeela esan bazuen ere, aurreko eta ondorengo argitalpenetan diakonesen aldeko hautua agertua baitzuen eta agertu baitzuen, ziurrenez, Larramendi eta Henao bezalako autoreei jarraiki. Hala, serorak ez zituen diakonesengandik eratorririko instituziotzat soilik hartu izan; areago, Aro Berriko Euskal Herriko serorei buruz jarduterakoan hainbatetan erabili izan zuen “diaconisa” terminoa bera, jatorri hau zalantzagabea bailitzan, hau da, “serora” eta “diaconisa” terminoak baliokideak balira bezala, ulermen okerretarako bidea emanaz²⁴. Hein horretan, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko emakumezkoen instituzio erlijiosoen inguruko ikuspegi historiografikoak azken urteetan zenbait aldaketa izan dituela aintzat hartu beharrean gaude; oso zentzu rigoristan hautemandako munduaren aldentze eta klausurako egoera batetik ekinez, Erdi Aroan barneratu ahala ohiturak erlaxatuak izango zituzketen emakumeen komunitateen ikuspegi batetik, Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan modalitateen askoz espektrora zabalagoa (taldeka, banaka, hiribilduetan, landa-eremuetan, instituzio erlijiosoekiko izaera oso ezberdineko loturekin) eta klausurarik gabeko eta autonomia maila handi bateko bizimoduak agertzen dizkiguten emakumeen hautemapen batetara. Ikuspegi historiografikoaren

muchos documentos, sobre todo del siglo XVI”.

²³ “Sor” bozean diote: “Falta todavía en C. de las Casas, Percivale, Oudin, y es ajeno al léxico de Góngora y del *Quijote*; creo lo es también al de Santa Teresa”.

²⁴ Erabilera nahasi hau ohartzeko, ikus Aguirre Sorondo 1994, 17, 21-24, 32, 44, 53. Eta azkenaldian seroren diakonesengandiko jatorriaren iritzia nola sostengatzen jarraitu duenarekiko berriz, Aguirre Sorondo 2013, 17-20, 24-26.

aldaketa hauek garai haietako emakumezko instituzio erlijiosoen gaineko informazioa eta ikerketak ugaritu ahala gertatu dira; azken finean, irudi orokorra -printzipalki-klausuraren alderdiaren antzinakotasuna azpimarratzeko interesa zeukaten autore erlijiosoek jorraturiko monakismoaren "hastapenetako egoera puruaren" ideia batetik jaso izatetik, erlijiozko emakumeendako klausura Erdi Aro beterarte (XII-XIII mendeak, batez ere) gauzatu ez zen inposizioa izan zela eta aurretiko garaietako izen anitzen pean ezkututzen ziren erlijiozko emakumeen talderik gehien-gehienek klausurako bizimodurik izan ez zutela azpimarratzera iragan den historiografia baterako aldaera izan da. Emango dugu ondorengo orrietan autore hauetariko zenbaiten berri.

Eta guzti hau oso garrantzitsua dugu seroren balizko jatorrien ikerketarako; izan ere, Antzinateko eta Goi Erdi Aroko *soror*-en inguruan orain gutxirarte jorratu izandako ikuspegi historiografikoak hauek seroren hastapenetan izan zitezkeela kontsideratzea eragozti izan du, garai haietan seroren tankerara bizimodu "askeagoa" izango zuketenen eta nabariki tenpluen zerbitzuan zeudela hautematen zen haien instituzioa, hau da, diakonesena baino ez aintzat hartzea eraginez. Alabaina, monakismoaren "hastapenetako egoera puru edo rigorista"-ren ikuspegia alde batera utzi eta klausuraren fenomeno XII-XIII mendeak arte orokortzen hasi ez zela kontsideratuko bagenu, Antzinateko eta Goi Erdi Aroko *soror*-en eta Erdi Aroan eta Aro Berrian Euskal Herrian aurkitzen ditugun seroren arteko bizimoduek elkarren artean hain ezberdinak zertan izan beharrik ez zutela ohartuko dugu. Honek diakonesen instituzioaren euskal lurraldeetarako helduerak efektiboki gertaturiko zerbait izan beharrik ez zeukala adierazten digu, eta oztopoz libre uzten digu fonologikoki zentzudunena dirudien eta itxura guztien arabera zuzena behar duen etimologia, alegia, propioki diakonesetatik beharrean, euskal herrietako *seror*-ak Antzinateko eta Goi Erdi Aroko monakismoaren oinarrietan zeuden *soror*-etatik eratorriak lirakeela azaltzen diguna. Eta hala ere, guzti honek ez du diakonesen instituzioa bera ere euskal lurretara heldu izanik eragozten, aurrerago gaian barneratu ahala ikusiko dugunez, azken ikerketen argitara posibilitate hori ere aintzat hartzekoa baitugu. Baina jarrai dezagun historiografiatik heldu izan zaizkigun datu eta ikuspegiekin.

Larramendiren hitzez beste, diakonesengandiko jatorriaren iritzia sostengatzeko beste frogarik eman izan ez duten ikerlarien sortatik nabarmenduz, Wenworth Webster-en 1911ko ikerlana dugu uste honi oinarririk sendoena eman ziona, eta auzi honi behar besteko seriotasunez heldu zion bakararra, ondoren ikusiko dugunez, María José Aranak frogatzen berriak ekarri zituen arte behintzat. Webster apez protestantea zen, eta Iparraldean burutu zituen bere apez lanak bezalaxe, ikerketak ere. Ordurako, XIX. mendearen bukaera aldetik, zenbait inguru protestantetan hasia zegoen Antzinateko Elizako diakonesenganako interesa pizten, eta hainbat lan argitaratu izan ziren, asistentzia sozialera begira, diakonesen ordena berriak sortu eta hedatzeko asmoz; zenbait, ordena berrietako diakonesek eurek idatziak izan ziren. Lan hauek ikerketa historikoak baitaratu zituzten, batzuetan sarrera xume tankerara eginak, eta bestetan, oinarri sendodun ikerketak burutu osteko emaitza lez, eta dakigunaren arabera, Ingalaterran, Estatu Batuetan eta Alemanian argitaratu izan ziren²⁵. Baina ez gara lan hauen jarraipena egiten hasiko, hau ere luzeegi joango litzaiguke eta; besterik gabe, Webster-en 1911ko lana diakonesen inguruko lanak esparru protestantearen baitan abian zeudeneko garai bati zegokiola aditzera emateari garrantzitsua iritzi izan diot. Izan ere, lan haietan, garai modernoetako eta Antzinateko diakonesen langintzen arteko zubiak

²⁵ Ingalaterran: Howson 1862; Ludlow 1865 eta Robinson 1898 (autorea diakonisa zen). Estatu Batuetan: Bancroft 1889; Weeler 1889; Meyer 1889; Gage 1893 eta Golder 1903. Ingalaterran eta Estatu Batuetan argitaratu zen Zenbaiten artean 1919, eta lehenik Alemanian argitaratu zen Wacker 1890, 1893an Estatu Batuetan argitaratu zuten ingelesera itzulirik.

eraiki nahi izaten baitziren, jarraipen historiko baten azalpenen gain, Webster berak ere egin bezala. Testuinguru hura izan zen bada, Webster-ek diakonesen funtzioek serorenekiko zeuzkaten parekotasunak aditzera eman zituen; lehenen funtsezko funtzioak honela azaldu zizkigun:

1.º Las mujeres no podían reunirse con los hombres en las iglesias, ni en otras asambleas religiosas. [...] de suerte que una de las primeras funciones de las diaconisas, de las viudas, o de las vírgenes que presidían estas reuniones, era guardar la puerta por la cual entraban las mujeres a la iglesia, e indicar en el *matroneum* el lugar que en él estaba reservado a las mujeres.

2.º Les enseñaban también el catecismo antes de su bautismo, y las asistían durante las ceremonias del bautismo, ayudándolas a vestirse o a desnudarse. Hacían asimismo sobre ellas la unción del Santo Crisma, menos la de la cabeza.

3.º Cuidaban a los enfermos y a los pobres. [...]

4.º Asistían a las mujeres durante la ceremonia del matrimonio.

5.º Lavaban y amortajaban los cuerpos para el sepelio (Webster 1911, 141-142)

Funtzio hauek, Webster-ek erreparatu bezala, *mutatis mutandis*, Euskal Herriko hainbat serorek ere bete izan zituzten ondorengo garaietan. Eta ikusten dugunez, ondorengo ikerlan batean Aguirre Sorondok ere aipatu izan zuenez, seroren hastapen posibleetan ez zaizkigu diakonesak soilik ageri, hauek, aipuan ageri zaigunez, beraien lanak "viudas" eta "vírgenes"-ekin batera burutu edo banatzen baitzituzten. Eta ohartarazi dugunez, azken hauek ere seroren aurrekari posibletzat aintzat hartzekoak ditugu.

Baina funtzioen parekotasunetik jarraipen historikoa hipotesi lez eratoritzea posible bada ere, konparazioak, bere kabuz, ez du behar besteko frogarik ematen. Antzerako funtzio sozialak, izan ere, antzerako egoera sozialek eta mugapen instituzionalek sortuak ere izan bailitezke, horregatik, halabeharrez bi instituzio sozialen jarraipenik egon beharrik gabe. Eta, halaber, antzekotasunak bi instituzioak jatorri amankomun batetik eratorriak izanagatik eman litezke, elkarren arteko lotura zuzenik egon gabe; hau da, Antzinateko Elizan diakonesak kokatzen zaizkigun espazioak (batez ere Mediterraneoan eta Ekialdean) kristautu zireneko garaietan zeuden emakumezkoen instituzio erlijiosoek, eta Euskal Herria kristautu zenean bertan zeuden emakumezkoen instituzio erlijiosoek, antzerako ezaugarriak izanik, lekuan lekuko eta garaian garaiko kristautze prozesuetan gorpuzturiko antzerako instituzioak sortu izana, elkarren arteko erlazio zuzenik izan gabe. Areago, elkarren jarraipen diren prozesu kulturalen gainjartzei buruz ari garenean (hau da, kristautzeak zeraman hedapen espazial eta kronologikoa, hein handi batean, erromatartzearen gain gauzatua). Azalpen guzti hauek, bestalde, ez dute elkar baztertzen, gertakizun historikoen ildoan prozedura hauek elkarren osagarri izatea suertatu zitekeen.

Alabaina, María José Aranak jaso zituen beste alor bateko frogak, seroren diakonesengandiko balizko jarraikortasun historiko baten alde egiten dute. Sojon (Aiarako Administrazio Batza, Nafarroa Garaia) kokaturiko -eta zoritxarrez datarik zehaztu ez zigun- posesio-emate batean, administrazio lanen sinbolo ziren giltzez gain, liturgiari loturiko beste zenbait elementu sinboliko ere jaso zituen serorak:

Además, la *serora* recibía la "llave" durante el acto de toma de posesión, pero también "el cáliz y el misal de la dicha ermita". Señales todas ellas de autoridad y de gran contenido sacral y cúlrico y cuya importancia es mucho mayor de lo que podemos pensar y que apoyan las tesis de Larramendi y Henao sobre las *diaconisas* [...] (Arana 2002, 847)

Garmendia Larrañagak ere bildu zituen Azpeitiako (Gipuzkoa) bi posesio-errituen kasuak, elementu berberak aipatu zirenak. Bata 1561ean Olatzeko ermitan sartu zen serora batena, meza-liburua aipagai izan zuena: "y dándole un libro misal en sus manos [...]. La cual tomó el dicho libro en sus manos"; eta bestea, 1571koa, San Migel ermitan sartu zen beste batena, Aranak bildutako kasuan bezala, giltzak, meza-liburua eta kalizea emanak izan zitzaizkiona: "le dieron y entregaron las llaves de ella y el cáliz y el misal de la dicha ermita, en señal de posesión" (Garmendia Larrañaga 2007 -1991-, 20). Bildu izan diren posesio-erriturik gehienetan agertzen ez diren elementuak izanik ere, zenbait lekutan halako ohiturak gorde izanak, noizbait -garai hartan bertan izan beharrik gabe- serorek kalizeak eta meza-liburuak adierazten zuten liturgiako funtzio aktiboak ere bete izan zituztela adierazi ahal izango luke. Esanguratsua dugu, gainera, ohitura hauek ermitetan kokaturik agertzea; parrokiako espazioan gizonezkoen presentziak elementu hauek beraien eskutan izatea eragiten zuen artean, zenbait ermitatan, gizonezkoen ohizko presentziaren faltan, errituetan elementu liturgikoak seroren esku gelditu edo mantendu zirela dirudi. Baina beste alde batetik, posesio errituetako ematearen sinbologia liturgiako elementuen zaintza edo gordailutza lan hutsari ere badagokioke, zertan garai zaharragoetako partehartze liturgiko errealik adierazi gabe. Izan ere, hori gertatzen baita erritu sinbolikoekin eta sinboloekin: interpretatu beharra izaten dela. Edozein kasutan, gogoan mantentzeko datuak ditugu, zalantzarik gabe.

Hastapenak Antzinateko edo Goi Erdi Aroko garaietan kokatu izan dituztenekin bat, bestelako garaietako eraginak ere aintzat hartzekoak direla ohartu izan dutenak ere badira. Artziniegako (Araba) apez izan zen José Iturratek, Gordexolan (Bizkaia) apez izan zen Julian de Echezarragaren *Historia del Valle de Gordejuela* eskuizkributik honako hitzak jaso zituen, "frailas, freilas o seroras" zirenen eta "beatas" zirenen arteko ezberdintasunak azaltzen zituen pasarteetan:

A imitación de las antiguas diaconisas, existió en el País Vasco una institución llamada de las frailas, freilas o seroras. Pudo tener su origen en la Alta Edad Media. Las hubo en las iglesias parroquiales, anejas y, sobre todo, en las ermitas de culto frecuente.

Una sola fraila estaba al servicio de cada uno de estos templos. Se le confiaban las llaves y se encargaba del cuidado de la lámpara del Santísimo o del santo, adorno de los altares, aseo del templo, toque del ángelus, etc. [...]

Otra institución -sigue escribiendo don Julián Echezarraga-, distinta de la anterior, es la de las beatas. Surgió del fervor religioso de los pueblos. Algunas mujeres piadosas no se contentaban con las prácticas habituales de los fieles cristianos. Aspiraban a una vida de perfección, mediante la convivencia frecuente y los ejemplos mutuos, con frecuentes actos comunes de culto y oración, actos habidos en alguna capilla o ermita construida a sus expensas y que estaría dedicada con preferencia a la Virgen María. Formaban una especie de comunidad, aunque vivían en sus domicilios, reuniéndose a horas prefijas en la citada ermita para sus piadosos ejercicios (Iturrate 1998 -1980-, 187-188)

Iturrate berak azalpen hauek Artziniegan (Araba) Artearen Andre Maria santutegiko serora izendatzeko erabili izan ziren izenei buruz jardutean ematen dizkigu, hau dokumentuetan "fraila" eta "beata" terminoekin aipatu izan baitzen. Eta Echezarragarengandik jasotzen dituen zehaztapenak egokiak izanik ere, dokumentuetan izen hauek baliokidetzat erabiltzeko joerak berak (beste hainbat autorek ere ohartua), Aro Berriko Euskal Herriko gizartean espazio bereberko partaidetzat hartuak izan zirela berresten digu, nahiz eta Echezarragak ezberdinduriko "frailas, freilas o seroras"-en eta "beatas"-en artean jatorri ezberdinen ildoak nabariak izan. Eta oso litekena da dokumentuek agertzen diguten erabilera baliokidea emakume hauek mugitzen ziren

testuinguru kulturalako hizkuntza euskara izateak motibatua izatea, euskaraz, goraxeago aipatu dugunez eta aurrerago zabal azalduko dugunez, erlijiozko emakumeen forma guztiak izendatzeko termino nagusia, Aro Berrian zehar, bakarra izan baitzen, "serora". Dokumentuen helarazleak, hala, euskaraz espresaturiko termino hau auzo-hizkuntzetara itzultzean zenbait hautu egin beharrez izango ziren, aipaturiko beste terminoak era baliokidean erabiltzera helduz.

Pilar Peñaranda García ere aintzat hartu zituen aipaturiko instituzioen arteko ezberdintasunak Nafarroa Garaiko serorei buruz idatzi zuen artikuluan (2002), eta zentzudunak iruditzen zaizkigun zenbait kontsiderazio ere egin zituen seroren balizko jatorrien inguruan; bere iritzirako,

hay cierta semejanza entre ambas instituciones (seroras y diaconisas), pero no puede establecerse una relación rigurosa entre dos fenómenos tan alejados en el tiempo, ya que las circunstancias de la iglesia habían cambiado por completo en el siglo XVI y por tanto la espiritualidad no era la misma. [...]

A nuestro entender, resulta más acertado relacionar esta institución con las beatas, fenómeno generalizado en la Península y aún en toda Europa durante la Edad Media, que desapareció debido al temor de que pudieran dar lugar a formas heréticas, se inició entonces un ataque sistemático contra ellas, seguido de un intento de reabsorberlas o transformarlas en religiosas, que llevó a su extinción. Probablemente en la zona vasca también existían estas mujeres, pero el carácter matriarcal de la sociedad y el importante papel que jugaba la mujer en todos los aspectos de la vida, también en el religioso, pudieron llevar a la perduración de esta forma de vida religiosa entre los vascos (Peñaranda García 2002, 305-306)

Kontsiderazio zentzudunak, diogu, diakonesen presentziaren eta serorenaren garaiek, printzipioz aski urrunak diruditelako, eta dioen bezala, "beata" izenarekin Penintsula Iberikoan zehar eta honekin eta bestelako izenekin Europa guztian zehar hedatu izan ziren erlijiozko emakumeen presentzia nabariki aintzat hartu beharreko delako, hauek seroren jatorritzat edo ondorengo garaietako eragintzat kontsideratu.

Ondorengo orrietako azterketa, beraz, bi mutur horien artean kokatuko zaigu: hastapenak Antzinatean eta Goi Erdi Aroan izan zituzten erlijiozko emakumeen instituzioen, eta beste muturrean, Erdi Aroan eta Aro Berrian sortu eta garatu zirenen artean. Honek, ondorengo orrietako ikerketa, Euskal Herriko lurraldeetako egoerarekiko konparazioaren baitan, Europan zeharreko Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko emakumeen instituzio erlijiosoen -Euskal Herriari begirako- gainbegiratu bat egiten saiatuz hasiko dena, lau ildori jarraika antolatuz eramango gaitu: (1) parrokiako serorak: hiribilduko testuinguruan, diakonesenganako balizko loturaren bat izan dezaketenak; (2) ermita, santutegi eta ospitaleetakoak: hiribilduetan ere baziren ere, landa-eremuetako testuinguruaren adierazgarriago zaizkigunak, jatorrian anakoreta eta eremutarren bakarkako bizitza izan dezaketenak; (3) ingurune populatuetan, herri eta hirietan, tenpluekiko nahiz komunitatekiko lotura gabe, euren kabuz bizi ziren erlijiozko emakumeak: Erdi Aroko eta Aro Berriko hiribilduetan, tenpluen zerbitzurik gabe euren kontu bizi ziren erlijiozko emakumeen aurrekari izanak litezkeenak; eta (4) tenpluenganako loturekin edo gabe, nolabaiteko komunitateko bizitza egiten zutenak: hiribilduetako edo landa-eremuetako monasterioetan izan ziren eta Antzinatean eta Goi Erdi Aroan, besteak beste, *virgines* eta *viduae* izenekin ezagutu izan zirenen ondorengo litezkeenak. Izan ere, *soror* terminoa, Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan zehar, diakonesak eta bestelako ministeritzak euren esku izan zituzten emakumez beste, -ondorengo garaiekiko oso bestelakoak ziren- monasterioetako emakumei ere aplikatzen zitzaizkien, bizimodu anakoretiko edo eremutarra hautatu zutenei bezalaxe. Sailkapen hau, noski, ikerketa xedeetarako baliatuko dugu, espazio eta bizikera

ezberdinen arteko mugak, kasu askotan, ez baitziren inondik ere hain garbiak; ildo nagusiak ezartzea baina, Euskal Herriko serorekiko konparazioaren baitan, baliagarria eta zentzuduna zaigu. Nabaria duguna zera baita: garai hartako Europan zehar, mota guzti hauetako emakumeak izan ziren, Euskal Herrian ere beraien arrastoak utzi izan zitzaizketenak, *seror*-en hastapenetan.

Sarrera honetan dagokigunarekiko, espazio eta kronologia aldetik baskoien lurraldearen inguruan eta barruan izan ziren gertakizun erlijioso eta sozialen ikuspegi orokorra aurkeztera baino ez gara mugatuko, aipagai izango ditugun instituzioen eta Euskal Herriko seroren arteko ikerketa konparatibo sakona, hemen burutuko duguna baino sakonagoa behinik behin, jada aipatuak ditugun arrazoiegatik (printzipalki, kontsultatu beharreko iturrien eta ikerlanen bolumenagatik) era monografikoan landua izan beharko lukeen lana baitugu. Hau hala izanik, beraz, azalduko mugen baitako²⁶ gainbegiratu bat ematera mugatuko gara, aipagai izango diren instituzio ezberdinek Euskal Herrian izana zezaketen presentziari buruzko datuak jasoz. Hala, nahiz eta seroren Goi Erdi Aroko -edo lehenagoko- jatorriei buruzko galderari erantzun definitiborik ematearen saiakera alde batera utziko dugun, erlazio posibleen testuinguru aski zabal baten berri emango dugu, -jarraian aditzera emango dugunez- ukalezina dirudien baieztapen bat oinarritzeko: seroren hastapenetan egon zitezkeen Goi Erdi Aroko instituzioen artean ez dira diakonesak soilik aintzat hartzeoak, erlijiozko emakumeen artean izan ziren modalitate ezberdinen espektro osoa baizik.

Beraz, eta halabeharrez, atal honetan barneratzeko, eta terminoen eta instituzio ezberdinen ikerketari propioki ekin baino lehen, ezin dugu Larramendi berak bezalaxe bere ondoren seroren gaia ikergai hartu izan duten autore askok oinarri dokumental edo bestelako froga gehiegirik izan gabe errepikatu izan duten jatorriari buruzko iritzia alde batera utzi: Euskal Herriko seroren jatorria, Antzinateko Elizako diakonesetan zegokeela dioena. Posibilitate hau Larramendiz gain 1769ko seroren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren garaian honen betearazpenerako dilijentziak egin zituen Xavier Ignacio de Arteach lizentziatua Bergarako bikarioak ere aintzat hartu zuen; honakoa zioen, desagerrarazte agindua baino zenbait urte lehenago, 1759an, Antzuolako Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako seroren izendapen berriak zirela eta apezpikutzatik hauei buruz egitea agindu zitzaion informean:

No es facil averiguar con certidumbre la institucion, origen, o introducion de estas mugeres en las Iglesias de este Pays. No sabemos, si se nos derivaron de las Vestales del Gentilismo, ó de las que en los Sagrados Canones, y Escritores Ecclesiasticos se leen con los nombres de Sacerdotissas, Diaconissas, y Subdiaconissas, de cuios officios, y varias acepciones habla el Sr Gonzalez Tellez in Not. ad cap. 2 de testament. num. 8. Pero desterraronse de la Iglesia Latina, pocos siglos despues de su mismo nacimiento è infancia, estas inutiles Ministras, llamadas con esos nombres de Diaconissas, y los demas, y se refugiaron entre los Sacerdotes Griegos, especialmente despues que la Sta Iglesia declarò y estableciò en diferentes Concilios el Celibato de sus Ministros Sagrados, contra el qual han procurado declamar Luthero, y los demas Heresiarchas de estos ultimos tiempos, de que trata lata y eruditamente el mismo S.or Gonzalez Tellez in Comment. ad cap. 1. de Cleric. conjug.

Por la misma razon, y algunas otras mas, que fue haciendo ver el tiempo y la experiencia, fueron desterradas de la Iglesia por la Santidad de Clemente Quinto en el Concilio de Viena en el Delphinado otra especie de mugeres, llamadas Beguinas, que vestian cierto habito Religioso, según consta de la Clement. unic. de relig. domib: y es por lo que tambien las Constituciones Synodales de este Obispado, decretos de la Sagrada Congregacion del Concilio, y sentencias del Supremo Consejo de Castilla

²⁶ Ikus I. 3. azalpenak gorago, 30 eta hurr. or.

prohibieron el servicio de las Iglesias de esta Diocesis por las Sororas, ó Beatas, que se mezclaban en los officios propios y privativos de los Sacristanes de ellas²⁷

Xavier Ignacio de Artech lizentziatua gizon jakituna zen (Bergarako bikario izan aurretik, besteak beste, Errege Kontseiluko abokatu ere izana zen), eta bazekien, seroren egoera sozial eta erlijiosoak izanak zituela bere ahaideak, beste garai historiko eta beste leku batzuetan. Ondoren jarraipena egingo diegun emakumezkoen talde eta bizimodu erlijioso ezberdinetariko hainbat izan zituen aipagai. Vestalak alde batera utziko ditugu, ez serorekiko konparazioak interesik ez duelako (aurkitu litezkeen parekotasunak ez baitira gutxi), testuinguru paganoetako apezeme eta erlijiozko emakumei begira jartzeak luzeegi joko ligukeelako baizik; gainera, hainbat elementuk "iraupen luzeko" sineskeren testuinguruetara garamatzate (esate baterako, suaren eta uraren inguruan emakumeek egindako errituek), eta mundu zabaleko erlijioekiko parekotasunak gehiegi zabalduko litzatezke, lan honetan egoki azaldu ahal izateko. Hortaz, zenbait alderdiren hastapen pagano posibleak -edo, kasu batzuetan, aski ziurra- ukatu gabe, kristautasunaren esparruaren baitan izan ziren erlijiozko emakumeen ardatza jarraituko dugu, diakonesengandik ekinez.

II. 2. Antzinateko eta Goi Erdi Aroko erlijiozko emakumeak

Atal honetan, Antzinateko ekinda, beneditarren erregelaren eta Cluny-ren helduerek, Karlomagnoaren inperioaren eraginak eta Erreforma Gregoriarrek mugatzen dituzten tarte kronologiko zabalerako (ggb. IX-XI mendeak) bidea egingo dugu. *Seror*-en *soror* termino aurrekariaren erabilera garaiak ditugu (beste hainbatekin batera), eta Euskal Herriko lurraldeen kristautzea bitarte hartan gauzatu izanik, eragin kristautzaileak helduak ziratekeen testuinguru zabalagoa aintzat hartu beharrean gaude. Ministeritza sakratuen alderdian bezalaxe, bizimodu eremutar, anakoreta, zenobitiko eta monastikoetan ere presente izan ziren emakumeak, *soror* eta bestelako terminoekin izendatuak, eta hargatik, Euskal Herrian ondorengo garaietan *seror* izendatuak hastapenetan egon litezkeenak.

II. 2.1. Diakonesak, apezemeak eta -balizko- emakumezko apezpikuak

Hainbat dira azken urteetan diakonesen instituzioari eskaini izan zaizkion ikerketak, eta hauetariko askoren berri, www.womenpriests.org webgunearen bidez jakin ahal izan dugu. Webgune hau, John Wijngaards-en bultzada eta sostengu nagusiarekin, Eliza katolikoaren baitan emakumeek apez izateko eskubidea izan dezatenaren aldeko taldeek azken urteetan zehar antolatua izan da, eta bertan bilduriko ikerketa lanek eta iturri dokumentalek Antzinateko eta Goi Erdi Aroko Elizaren baitan emakumeek izan zuten paperaren gaineko ikuspegi zabal bat osatzeko aukera ematen digute, kristau garaien lehen mendeetatik Erdi Aroa bitarteko gutxi gora beherako kronologia baten baitan kargu erlijioso ezberdinetan izan ziren emakumeen eta hauen funtzio eta gaitasun erlijioso eta sozialen berri emanez. Alor ezberdinetako lanak dira,

²⁷ KKA-ACC 17/759/40, f.g. Aipuen inguruko ohartarazpen bat egin beharrean gaude, ikerlan guztian zehar agertuko zaizkigun dokumentuei aplikatu beharrekoa dena. Hainbat dokumentutan, azpimarraturiko parteak daude. Hauek ez dira inongo kasuan neronek sartuak, dokumentuan bertan zeudenak baizik. Hainbatetan, nahiz ez beti, dokumentua helarazia izan zen instituzioaren aldetik egindako azpimarraketak dira, kasuko instituzioari emandako informaziotik intereseko zer ziztaion agertzen dituztenak; aipua konkretu honen kasuan, esaterako, bikarioaren informea apezpikutzara heldu zenean, erlijiozko emakumeen instituzioen eta legediarekiko erreferentziak izan ziren garrantzitsutzat azpimarratu zituztenak.

xede ezberdinetarako idatziak, eta hauen artean, oinarri sendodun ikerketa lan historikoak ere badaude. Hemen, iturri dokumental eta ikerlan hauetatik jaso ahal izan duguna oso labur azaltzera baino ez gara mugatuko, gaiak, bere kabuz, jada eman izan duen bezala, hainbat liburu eta ikerketa idazteko bidea emango bailuke²⁸.

Funtsean, ikerketa hauetatik zenbait ondorio garbi eratorri litezke, seroren gaiarekiko dagokigunarekiko: kontzilioek, kontserbaturiko diakonesen ordenazio formulek, bestelako iturri dokumentalek eta iturri epigrafikoek azaltzen dutenez, Mendebaldeko Europako zenbait lurraldetan diakonesen instituzioa ohizkoa izan zen, ez soilik Antzinateko Elizaren garaietan, baita Goi Erdi Aroan zehar ere, espazioaren batzuetan, X-XI. mendeak lako garai berantiarretararte bere "jatorrizko forman" iraunez. Areago, ondorengo garaietan ere iraun zuen instituzioaren ohiartzunak, laster azalduko dugunez, itxuraz jada izaera nominalarekin baino ez bazen ere, mojen artean diakonesen ordenazioak XIV. menderarte ere luzatu izan zirela pentsatzera daraman informazioarekin topo egin baitugu. Euskal Herriko lurraldeekiko, Galia izana zenaren lurraldeetatik hel zitezkeen eraginak behar ditugu aintzat hartu (gure begirada zuzenduko diegun beste bi espazioetan, Penintsula Iberikoan eta Britainiar Irletan, ez baita instituzioaren berri erabakigarriak jaso izan); eta aski garbi frogatu izan da bertan diakonesak ohizkoak izan zirela Antzinate Berantiarretik VIII. menderarte behintzat, kontzilioetako debekuen maiztasunari eta konplexutasunari erreparaturik, beraien presentzia eta eragina batez ere VII. mendean igarriko litzatekeelarik²⁹.

²⁸ Ondoren oinpeko aipuetan jasoko ditudan ikerlanak gutxi batzuek baino ez dira izango, adierazgarrienak iruditu izan zaizkidanak. Alabaina, aipaturiko webgunean ikerlan eta iturrien sorta askoz zabalagoa aurki dezake interesa lukeen orok.

²⁹ Lehen mailako iturri ezberdinen konpilazioak ematen zaizkigu www.womenpriests.org webgunearen "Resources" atalean. "Historic women deacons" loturak (Women deacons / deaconesses we know by name", URL: http://www.womenpriests.org/deacons/deac_lists.asp) hainbat iturri narratibo eta epigrafikotan aurkituriko diakonesen presentziaren datuak biltzen ditu, batez ere Ekialdeko Elizakoak, baina baita gure xedeetarako interesgarrienak zaizkigunak ere, Mendebaldeko Europan, Galian, Italian eta Dalmazian aurkiturikoak; beste lotura batzuen bidez garaien araberako emakumeei -eta diakonesei- buruzko autoritate kristauen pasarteak biltzen zaizkigu: "Fathers of the Church" ("Overview of the Fathers of the Church involved in the discussion on the ordination of women" URL: http://www.womenpriests.org/traditio/overv_fa.asp), "Medieval theologians" ("Medieval theologians writing about women", URL: http://www.womenpriests.org/theology/overv_th.asp), "Post-scholastics" ("Overview of post-medieval theologians writing about women ca. 1500-1900", URL: http://www.womenpriests.org/theology/overv_t2.asp) eta "Ancient Classics" ("Full Ancient Books/Essays", URL: <http://www.womenpriests.org/contemp8.asp>). Lege kanonikoaren iturriei eskainitako atalean bestelako iturri arautzaileak biltzen dira, "Councils & Synods" ("Overview of ancient Church Councils & Local Synods laying down rules [=canons] regarding women", URL: http://www.womenpriests.org/traditio/overv_cl.asp) eta "Church lawyers" ("Overview of Church law and Church lawyers legislating about women", URL: http://www.womenpriests.org/traditio/overv_la.asp). Azkenik, John Wijngaards-en "The ordination of Women Deacons" (URL: http://www.womenpriests.org/traditio/deac_ord.asp) atalean, ordenazio errituaren inguruko azalpenez gain, erritua jaso izan zen dokumentuak biltzen zaizkigu.

Ministeritza sakratu ezberdinei buruzko ikerketak ere hainbat dira, bai webgune honetan biltzen zaizkigunak, bai bestelako argitalpenak; ikuspegi orokor batetik: Hannon 1967; Bouyer 1979; LaPorte 1982; Rossi 1991; Otranto 1991; Torjesen 1996 -1993-; Macy 2000; Müller 2000; eta gaztelerazkoak (aipaturiko webgunean eskuragarri) Idigoras 1963; Zenbaiten artean 1993; eta Arana; Salas 1994. Zehazki diakonesei dagozkien artean, aipatu berri ditugun argitalpenetako atalez beste, noski, alde batetik, XIX. mende bukaerako eta XX. enaren hasierako historiografia daukagu, gorago, Wenworth Webster-en lanari buruzkoak azaltzean aipagai izan ditugun ikerlanak (48 or., 25 oinpeko nota), eta bestetik, argitalpen berriagoak: aipaturiko webgunean anonimoki argitaraturiko zenbait lanez (zehazki "Church Councils on Women Deacons/Deaconesses" eta "La historia de las mujeres diaconisas") eta webgunearen sostengatzaile nagusi den John Wijngaards-en data gabeko hainbat lanez beste (ikus tituluak bibliografian), ikus Elm 1991; Giordano 1995 -1979-, 133-139; Wijngaards 1999 eta -berezi Galiako egoerarekiko- Smyth d.g.

Instituzioaren iraupen eta bilakeraren berri ematen diguten iturrien artean, gure xedeetarako Elizako kontzilio eta sinodoetatik eratorritako eta bestelako arautegiak zaizkigu bereziki interesgarri, arrazoi garbi bategatik: ondoren seroren instituzioari mugapenak ezartzeko erabiliko den legediaren aurrekari ditugulako, emakumeek sakratuarekiko izan beharko lituzketen erlazioen parametroak eraikiz. Iturri arautzaile hauek ugariak ditugu, eta xehetasunezko ikerketa bat burutzeak luze joko liguke; alabaina, ardatzezko puntuak biltzearekin aski dugu serorei ondoren ezarriko zaien legediarekiko iturri hauek daukaten aurrekari papera atzemateko. Instituzioak bere "jatorrizko formarekiko" lotura mantendu zuen bitarterako, III. mendeko *Didascalia Apostolorum*-etik 1140an idatziriko *Decretum Gratiani*-rako ibilbidea daukagu³⁰; eta ibilbide honetan zehar garatu izan zen legediaren baitan finkatzen joan ziren funtsezko puntuak, ondoren serorei aplikatu zitzaizen legediarekiko, laburbiltzen saiatu gintezke.

Diakonesa izan bazitezkeen ere, -behin eta berriro errepikatzen zaizkigun debekuen arabera- emakumeek ezin zuten "ordenaziorik" jaso; izendapen hau "bedeinkapen" hutsa izango litzateke. Honek zera esan nahiko zukeen: diakonesen funtzioak alderdi liturgikoetatik kanpo leudeke, emakumeen bataioko oliodurako partehartzearen (gorputzeko oliodurak egingo zituzketen, apezari zegokion buruko oliodura salbu) eta testuinguru paganotako emakumeen konbertsioa lortzeko asmoz egindako kristautasunaren -zehazturiko zenbait- irakaskuntza lanen salbuespen bakarrez. Hala ere, araudi ezberdinetan terminoen eta hauen esanahien nahasketa eman izan zen, eta askotan, "ordenazioaren" (*consecratio*) eta "bedeinkapenaren" (*benedictio*) mugak batere garbi ez zeuzkatela dirudi. Gainera, nahasmenari gizonezko ordenatuen emazteak batzen zitzaizkion, apezpikuen, apezzen eta diakonoen emazteek ere nolabaiteko "ordenazio" edo "bedeinkapen" bat jasotzen zutela hautematen baitzen, eta honek emakume hauen eta emazte ez zirenen arteko mugen zehazgabezia eragiten zuen, hauek sakratuarekiko ze erlazio mantentzen zuten kontu arazotsu bihurtuz. Gainera, bitarte kronologiko honetan, bizimodu aszetikoaren ereduaren gailentzearekin, legedia gizonezko ordenatuen eta beraien emazteen arteko gero eta aldentze handiagoa agintzeko bilakaeran joan zen, ezkontzak debekatzearaino (askotan bete izan ez zena). Eta guzti honez gain, hor ziren alargunak eta birjinak ere, Antzinateko Elizan nolabaiteko ordenazio edo izendapen berezia jasotzen zutenak eta "ordenak" osatzen

³⁰ Iturri hauetatik jasoriko berriak www.womenpriests.org webgunean bildurik aurkitu ditugu, "Overview of ancient Church Councils and Local Synods laying down rules [= 'canons'] regarding women" atalean (ikus aurreko oinpeko nota); honako iturri arautzaileak ditugu: *Didascalia Apostolorum* (III. mendea), Dionisioren (Alexandriako Artzapezpikua) kanonak (248), Nizeako Kontzilioa (325), Gangrako Kontzilioa (325-381), San Basilioren kanonak (329-379), Laodiceako Sinodoa (363), Zaragozako Sinodoa (380), Kartagoko Sinodoa (390), Hiponako Sinodoa (393), Nimeseko Sinodoa (394), Konstituzio Apostolikoak (c. 400), Kartagoko Kontzilioak (345-419), Orangeko Sinodoa (441), Kaltzedoniako Sinodoa (451), Vanneseko Sinodoa (465), *Statuta Ecclesiae Antiqua* (485), Epaongo Sinodoa (517), Orléanseko 2. Sinodoa (553), Orléanseko 3. Sinodoa (538), Bragako Martinen kapituluaren bilduma (550), Bragako 2. Kontzilioa (563), Tourseko 2. Sinodoa (567), Sevillako Kontzilioa (578), Maconeko Sinodoak (581 eta 585), Auxerreko Sinodoa (588), Reimseko Sinodoa (630), Roueneko Sinodoa (650), Timoteoren (Alexandriako Artzapezpikua) kanonak (680), Teodororen (Canterburyko Artzapezpikua) penitentzia-liburua (690), Trulloko Kontzilioa (692), Erromako Sinodoa (743), Nizeako 2. Kontzilioa (787), Teodulforen (Orléanseko Apezpikua) kapitularioa (823), Basileako kapitularioa (823), Pariseko Kontzilioa (829), Erromako Sinodoa (850) eta Wormseko Sinodoa (868). Hauekin bat, aurreko legedien bilduma lan garrantzitsua izan zen eta ondorengo garaietako legedietarako ere ardatzkoa izango zen *Decretum Gratiani*-a (1140) ere aintzat hartu dugu, diakonesen gaineko ikuspegiak interpretazio berri baterako aldaera egin zuen mugarriko iturria baitugu. Azken lan honetatik diakonesen eta orokorrean emakumeek funtzio sakratu eta liturgikoekiko izan beharrekoak zituzten erlazioei buruzko atalak eta aipaturiko webgunean bildurik aurkitu ditugu, "Overview of Church law and Church lawyers legislating about women" atalean.

zituztenak, eta diakonesa bihurtzen zirenen jatorrizko egoerak izatez gain, ondorengo mojen lehen aurrekari zirenak³¹.

Gorabehera guzti hauek tarteko izanik ere, diakonesen instituzioaren bestelako ezaugarriak ere taxutuz joan ziren, 40 urtez gorakoak baino ezin izan zitezkeela ezarriz eta izendapena apezpikuek baino ezin egin zezaketela zehatzuz, eta beraien erlijiozko egoerarekiko bestelako zehaztapenak ere izan ziren, ezkontzeko debekuaren errepikapenarekin (izan zen paganoekin ezkontzeko debekua zehaztu zuenik ere). Halaber, alargunak izatekotan, behin bakarrik ezkonduak behar zuten izan. Horrez gain, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko eliz legedian ohiartzun handia izan zuten *Konstituzio Apostoliko*-en (c. 400) arabera, elizetako aginte-mailetan zeukaten lekua ere definitu izan zen: emakume "arruntez" goragoko maila batean zeudekeen, baina subdiakonoekin, kantariekin eta irakurleekin batera, diakonoaren agindupean. Mailaketa honi jarraiki zehaztu ziren, halaber, -diakonoek banatu beharrekoak ziren- *eulogia* edo eskaintzak zirenen banaketan elizako zerbitzari ezberdinei zegozkien proportzioak ere: apezpikuari lau parte, presbiteroari hiru, diakonoari bi, eta gainontzeko subdiakonoei, edo irakurleei, edo kantariei, edo diakonesei (orden horretan aipaturik), bana.

Legedien bilakaera honetan finkatuz joan zenaren arabera, beraien lanak funtsean gorago Webster-engandik jasoriko aipuan -egoki asko- azaldukoak baino ez lirateke³², eta ordenazio sakratuei dagozkien bestelako funtzio oro debekatua lukete, diakonesek bezala, emakumeek orokorrean ere: sakrifizioa eskaini, bataiatzea eta ordenatzea, irakatsi eta dotrina azaltzea (batez ere elizetan, edo misioilaritzan), komunioa banatzea, gizonezkoen erlijiozko arropak janzteia (ministeritzako suplantazioaren arriskuagatik) eta bizimodu aszetikoaren aitzakiaz tonsuratzea, aldareetan sartzea eta arropa eta objektu sakratuak ukitzea, elizetan kantatzea, eta garaiek aurrera egin ahala eta emakumeek -eta konkretuki, hilerokoa zeukatenek edo erditu-berritan zeudenek- sakratutzat hartua zen oro "zikintzeko" zegoen arriskuaren diskurtsoa gorpuztuz joan ahala, are eukaristia eta ohial sakratuak esku biluziz ukitzea ere.

Neurri guzti hauek, diogunez, Mendebaldeko Europako Elizaren baitan garaturiko legedian luzaroan izan ziren presente, eta bestelako iturrietako informazioaz beste (epigrafikoak, ordenaziorako formulak, bestelako iturri narratiboak, etab.), debekuak eta arauak behin eta berriro errepikatu behar izana, desagerrarazi nahi ziren ohiturak zenbait lekutan are lehen milurtekoa baino beranduagorarte mantendu izanaren aski frogantza garbia dugu. Eta seroren instituzioaren aurkako neurrien jarraipena egitean ikusiko dugunez, hauen aurrekari izan ziren aipatu berri ditugun debeku eta arauok, Elizaren tradizioan gorpuztu zen emakumeen eta sakratuaren arteko erlazioen ikuspegiaren jarraipen luzean. XII. mendean, 1140ko *Decretum Gratiani*-aren ondorengo lege eta hauen komentarioen egileek diakonesen instituzioa bestelako onarturiko instituzioekin parekatzeari ekin zioten, hauek aurretik instituzio bereizitatzat izan zuten izaera ukatuz; orokorrean abadesekin parekatu izan zituzten, baina izan zen ebanjelioaren irakurleekin parekatu zituenik ere. *Concordia Discordantium Canonum* izena ere jaso zuen *Decretum Gratiani*-a Erdi Arotik XX. mende hasierararteko bitarte luzean Eliz-legediaren ardatz nagusi izan zen *Corpus Iuris Canonici*-aren parte izan zen, eta hortaz, diakonesen eta ministeritza sakratuetan "nahasten" ziren emakumeen gaineko XII. mendean ondorengo legediaren erreferentzia eta jatorri nagusienetarikoa izan zen. Baina horrez gain, aurreko mendeetako legediaren konpilazio zen heinean, jarraian diakonesen gaia landu zuten autoretariko zenbaitek instituzioa iraganeko zerbait

³¹ Ikus aurrerago II. 2.2.1. azpiatala, 61-63 or.

³² Ikus 49 orrialdean jasotako aipua.

bailtzen hautemateko bidea ere eman zuen; lekuen arabera, hori hala izan zitekeen edo ez, edo "iraganekotzat" hautematea bera instituzioaren desagerpena gauzatzeko baliatu izan zezaketen.

Edozein kasutan, emakumeek ordena sakratuak ezin jaso izateko arrazoï berberak errepikatzen jarraitu zuten, esaterako, Sergusioko Enrike kanonista italiarrak bere *Commentaria in Quinque Decretalium Libros* lanean (1268) adierazi bezala (latinetik ingelesera John Wijngaards-ek itzulitakoaren arabera):

For women may not receive the tonsure... nor may their hair be cut... nor can any woman exercise the power of the keys... nor serve the altar..., though a woman may recite the Gospel during matins.

With regard to the ordination of deaconesses, understand "deaconess" as "abbess" and being ordained as "receiving the veil"³³

Aipuan ageri zaigun "giltzen boterea"-ren kontzeptua Erdi Aroan zehar garatzen joan zen, eta lan berberean aurreraxeago autore berak zehazturikoaren arabera, honek besteren artean honako funtzioak baitaratzen zituen: "teach, preach public sermons, hear confessions [...]". Ministeritza sakratuei loturiko funtzioak, alegia. Hau, Enrike berberak eta Butrioko Antoniok ere (*Commentarium in Decretales Gregorii IX*, 1338-1408) adierazi bezala, Jesukristok Zeruko Erreinuaren giltzak apostoluei, eta ez Amabirjinari, eman izanagatik justifikatzen zen³⁴. Hizkera sinboliko honen ohiartzunak, edo hala interpretatu liteke behintzat, Aro Berriko Euskal Herriko seroren izendapenetako posesio-agirietan (edo hobe esan, hauek deskribatzen zituzten errituetan) atzeman litezke, tenpluko giltzen ematearen ekintzan, eta partikularki, Aranek eta Garmendia Larrañagak jaso zituzten adibideetan, bertan, giltzez gain, meza-liburuaren eta kalizearen ematea ere aipatu baitziren³⁵. Objetu sakratu hauei asoziatutako ekintzak, nabariki, ministeritza sakratuei zegozkienak baitziren: Sergusioko Enrike kanonistak XIV. mendean aipaturiko irakaskuntza, sermoi publikoen esatea, konfesioen entzutea, etab.

Bestalde, aipuko abadesekiko parekatzea ez zen noski kasuala, diakonesetarikoa hainbat, abadesa ere izanak baitziren. Eta parekatze hau egin zuten legegileen artean XII. mendean geroztik instituzioa jada existitzen ez zela ziotenak izan baziren ere³⁶, hau Penintsula Iberikora heldua zitekeela adierazten digun berri bakarra data berantiarrago batetik heldua zaigu. 1325ean Segovian egin zen apezpikutzako sinodo batean Pedro de Cuéllar apezpikuak bere agintepeko lurretako apezzen formazio akatsak zuzentzeko -sinodoan landu ziren gaiekin- liburu bat egitea agindu zuen, urte berean idatzi zen gatzelerazko lehen katekesi-liburua, apezpiku beraren izenarekin ezaguna dena: *El catecismo de Pedro de Cuéllar*. Meza esateko moduei buruzko azalpenak ematerakoan, honako pasarteak dugu bertan, laikoei eta mojei zer egitea zegokien eta ez zegokien zehaztuz:

Los legos bien pueden dezir callando sos psalmos e sus oraçiones, mas non deven dezir "*Dominus vobiscum*" mas pueden dezir "*Domine, exaudi orationem meam*"; mas non deven dezir nada en manera de ofiçio, que non son llamados heredat del Señor así como los clérigos, nin deven llegar a las cosas sacras nin cantar nin ofiçiar con los

³³ www.womenspriests.org webgunean Henricus de Sergusio-ri eskainitako atalean jasoriko aipuak, URL: <http://www.womenspriests.org/theology/hostiens.asp>.

³⁴ Ikus autore hauengandik jasoriko pasarteak www.womenspriests.org webguneko "Medieval theologians writing about women" atalean, URL: http://www.womenspriests.org/theology/overv_th.asp.

³⁵ II. 1. kapituluaren izan ditugu aipagai, 49-50 or.

³⁶ Rufino (*Summa Decretorum*, 1157-1159), Huguccio (*Summa*, 1188) eta Baysioko Guido (*Rosarium Super Decreto*, 1296-1300); ikus autore hauengandik jasoriko pasarteak 33 oinpeko notan zehazturiko webgunearen atalean.

otros clérigos; e es de entender esto de cualsequier legos, siquier sean hospitalarios e cavalleros de Calatrava o de Santiago o legos de la orden del Çistel o de qualsequier orden; mas las monjas que son letradas bien pueden dezir sus horas altamente, que en la bendición o consagraçion que resçiben son dichas resçebir orden e algunas / entrellas se fazen diaconissas. Pero commo quier que deven dezir las oras por esta orden, la monja non es orden de las otras nueve órdenes, e tal diaconissa non deve dezir "*Dominus vobiscum*" nin deve leer el evangelio en la missa sollennemente nin ministrar el altar; pero a los matines puede leer la homelia. E otorga esto la iglesia por devoçion e religion e consolaçion de las mugeres que son [*hutsunea*] (Martin; Linage Conde 1987, 234)³⁷

Aipu honetan hainbat puntu interesgarri dauzkagu. Lehenik eta behin, pasarte honetako interes nagusia apezgoaren ministeritza sakratuari zegozkion mezako betekizunak zedarritzea zen, laikoak eta emakumeak honen funtzioetatik baztertuz. Emakumeen artean aipatzen zaizkigu mojak, eta baita hauen artean "diaconissas" egiten zirenak ere. Titulu hau jasotzeko moduari buruzko azalpenak arras interesgarriak zaizkigu, Antzinetatik Goi Erdi Arorarteko iturri legegileetan ikusi dugun ordenazioaren inguruko nahasmendu berbera isladatzen baitigu: "en la bendición o consagraçion" dio, bata eta bestearen artean ezin erabakirik, eta alde batetik erritu honen bidez "son dichas resçebir orden" esaten zaigun artean, ondoren "la monja non es orden de las otras nueve órdenes" zehaztu beharra ageri zaigu, apezei eta diakonoei zegozkien ministeritza sakratuetan hauek inongo inplikazioarik ez zeukatela garbi uzteko.

Berez, Pedro de Cuéllar-en katekesi-liburuak, erabili zituen iturrietan aurkitu zituen definizio arazoak eta zehazgabeziak isladatu baino ez zituen egin. Liburuaren transkripzioari sarreratzat egiten dion ikerlanean zehazten zaigunez, iturri horietariko bat, hain zuzen ere, goraxeago aipatu dugun 1140ko *Decretum Gratiani*-a izan zen (*Ibid.*, 44-49), eta diakonesenganako erreferentziak ziurrenez iturri honetan izango zuen jatorria; honek garai hartako Segoviako mojen artean diakonesak ordenatu edo "bedeinkatzeko" ohituraren existentzia errearen inguruko zalantzara gakartza. Alabaina, liburua egitea agintzeko izan zen motibazio praktikoa, apezpikutzako apezzen formazioaren hutsuneak zuzentzea, esplizituki adierazia izan zen, eta hein horretan, ez dirudi pasarte hau gehitzeko beharrik izango zutenik, zegokien testuinguruan ministeritza sakratuen funtzioen zedarripenaren inguruko arazo hauek edo hauen posibilitatea ez hautematekotan. Gainera, funtzioen murriztapena medio titulua praktikoki nominala baino ez izanik ere, "otorga esto la iglesia por devoçion e religion e consolaçion de las mugeres que son [*hutsunea*]" esaldian aditzera ematen zaigunaren arabera, maitinetan homilia irakurtzeko gaitasuna besteren artean "kontsolaziorako" egindako kontzesioa izatearenak noizbait instituzioak izaera nominalaz bestelakoa izan zuenaren kontzientzia izan zezaketela ohartarazten digu. Guzti honetatik zera ondorioztatu beharrean gaude beraz: XIV. mendearen lehen erdialdeko Segovian diakonesa ordenazio edo "bedeinkapena" jasotzen zuten mojak izatea oso posible zela eta aipaturiko arazoak presente izanak zitezkeela pentsatzeari aski zentzuduna eritzirik ere, erabateko baieztapenik ezin eginean gelditzen gara.

Edozein kasutan, Mendebaldeko European diakonesen presentzia Goi Erdi Aroan ohizkoa izan zela dirudi, edo arraroa behintzat izan ez zela; eta areago, ministeritza sakratuen artean ez zen diakonotza soilik izan emakumeen eskutara heldu zena. Apezmeak ere izan ziren, eta agian, baita emakumezko apezpikuak ere. *Episcopa* eta *presbytera* izenez ezagutu ziren hauen existentziaren inguruan bildu ahal izan diren frogen artean, nabarienak hegoaldeko Italiako eta Siziliako lurretatik datoz, non, II-VI mendeak bitarteko froga dokumental eta epigrafiko ezberdinen arabera, apezmeak

³⁷ Ikus halaber Contreras Jimenez 1989, 144.

(*presbytera*) funtzio liturgikoak euren gain hartzen ibili izanak aski frogatua dirudien. Informazio iturrien bitarte kronologikoa diakonesenen antzerakoa da, ggb. II. eta IX. mendeen artekoa, baina iturrietako aipamenak ez dira lehenen kasuan besteko ugariak eta zalantzagabeak, eta botere handiagoko ministeritza sakratuak direnez gero, -askotan erlijiozko emakume eta gizonak ziren eta diren- ikertzaileen artean ere aurreritziaren pisua handiagoa izan da; hala, termino hauen bidez apezpikuen eta apezzen emazteak baino adierazi nahi ez zirela diotenetatik, ministeritza sakratu hauek emakumeek jaso izana eta zegozkien funtzioak burutu izana, diakonesen kasuan besteko zalantzagabea dela diotenen arteko iritzien aldeak daude³⁸.

Honi beste arazo bat gehitzen zaio. Araudiek ziotena ziotela, gizartearen baitako dinamiketan apezpikuen, apezzen eta diakonoen emazteek hauen ministeritzaren sinboloak -eta are funtzioak ere- eurenganutzen zituzten, eta horrek emazte hauen ministeritzaren hautemapen sozial efektibo batetara zeraman, "ofizialki" ordenatuak izan ez baziren ere. Ohartu beharra dago, egituraketa eta onarpen sozialari zegokionean, dimentsio sinbolikoak dokumentuen eta kultura idatziaren indar loteslea gainditzen zuen garai bati buruz dihardugula, eta kokapen soziala bermatzeko forma sinbolikoek, Euskal Herriko lurraldeak bezala, eliz-hierarkiekiko egoera periferiko batean aurkitzen ziren lurraldeen kasuan, are indar handiagoa hartzen zutela. Hein hortan, hainbat dira apezpikuen eta apezzen emazteek, batez ere alarguntzean eta aspektu ekonomikoei zegokienean, lekuan lekuko eliz agintariekin izandako arazo eta gorabeheren berriak, ministeritza sakratuetako gizonen alargunen inguruko legedi mugatzaileak bezalaxe (alargun hauen bigarren ezkontzaren debekua, esate baterako, etab.)³⁹. Aipatu beharrean gaude hemen aurrerago zehaztasun gehiagorekin landuko dugun Vigilancioren kasua; hau, Jeronimoren hitzak fidagarri izatekotan, ezkonduko gizonen ministeritzaren aldeko sutsua zela dirudien Pirinioen inguruko -ustezko- baskoi bat izango genuke, bere eragina baskoien eta akitaniarren lurraldeetan zabaldu zuena.

Baina laburbilduz: ministeritza sakratuen artean emakumeek euren eskutan izatera heldu zirenen eta apezpikuen, apezzen eta diakonoen emazteek testuinguru hartan izan zuten paperari buruzko eztabaidetan sartu gabe ere, argi gera bedi Goi Erdi Aroko egoeran -modu baten edo bestearen bidez- emakumeek ministeritza sakratuak eskuratzeko posibilitatea ez zela batere ezohikoa, eta Euskal Herriak garai haietan izana zezakeen lehen kristautzearen formen artean emakumezkoen ministeritza hauek presente izatea normaltzat hartu beharrean gaudela.

II. 2.2. Bizimodu monastikoen hastapenak

Alabaina, seroren jatorrian bestelako instituzio batzuek ere egon zitezkeen, eta zenbaitek, diakonesen inguruko hipotesiak besteko fidagarritasuna azaltzen digute, handiagoa ez bada. Antzinate Berantiarrek eta Goi Erdi Aroak zedarriturikoa *ordo ecclesiasticus*-a formazio eta finkatze bidean zegoen garaia dugu, eta baita monakotzaren formen gailentzearen garaia ere; erlijiozko pertsonen arteko sekular/erregular banaketa garbi finkatu gabea zegoen eta ohizkoa zen, esaterako, abadetza eta apezpikutza figura bakarrean hautemana izatea. Eta kasu hau aipagai badugu, hain zuzen ere, Penintsula Iberikoaren iparraldeko komunitate kristauen hedapenean eta egituraketan oso ohizkoa izan zelako da. Euskal Herriko lurretan ere

³⁸ Ikus gorago 54 orrialdeko 29 oinpeko notan jasoriko ministeritza sakratuen inguruko lanak.

³⁹ Ministeritza sakratuetako gizonzkoen emazteekiko, ikus batez ere Gutiérrez Pardina 2004 eta Karras 2007, eta baita, www.womenpriests.org webguneko bestelako atalen artean, bereziki Wijngaards-en "Wives of the Clergy" (ikus bibliografia) ere.

ohizkoa izan zen, eta aski garai berantiarretaraino garamatzaten adibideak ditugu gainera: esaterako, XI. mendearen parterik handienean, Leireko abadea izan zen Iruñako apezpiku. Eta honekin bat, Goi Erdi Aroko Europan zeharreko erlijiozko emakumeen artean, ministeritza sakratuetan ageri zaizkigun emakumeak, hau da, diakonisak, apezemeak eta -balizko- apezpiku emakumeak, askotan *birjinen* edo/eta *viduae*-en komunitateetako partaide edo buru -ondorengo "abadesak"- ere izan zitezkeela ikusten dugu. Berez, lehenen (ministeritzazko alderdi "sekularrekoak" lirakeenak) eta bigarrenen (ondoren "monastiko" bezala finkatuko zen alderdikoak) arteko nahasketak ez ziren batere arraroak, ongi informaturiko autoreen artean ere. Gainera, Goi Erdi Aroko dokumentazioan, eta halaber, diakonesen edo apezemeen presentziaren inongo berririk jaso izan ez den lurraldeetan, birjinak, alargunak eta abadesak funtzio ministerialetan jardun izana ere ez zen batere arraroa, eta zenbait lurraldetan, ohizkoa ere bai. Hau dugu, esaterako, Irlandako hainbat santa abadesen kasua, zeinetariko asko, biztanleriaren kristautzerako predikazio ibiltarian jardun izan ziren urteetan eta urteetan zehar, irla guztian zehar. Eta hau ez zen gainera komunitateen buru ziren emakumeen kasua soilik, ezagunak baitira *birjina* bezala baino izendatu ez zirenen kasuak ere. Azkenik, gainera, hau bizimodu aszetikoa zeramaten bikote laikoetako emakumeen kasua ere izan zitekeen. Azken bi ebanjelizazio modu hauek (birjinena eta bikote laikoena), aurrerago ikusiko dugunez, baskoien kristautzean ere presente izan zirela dirudi.

Emakumezkoen taldeen klaustroko bizitza, *monachas*, *moniales* edo *sanctimoniales* izena jaso eta kontenplazioa eta klausura beraien bizitzen parte izatera iritsiko ziren haiena, motel hedatu zen fenomeno izan zen. Birjinen eta alargunen taldeen bizimoduaren erregulazioaren ondorena izan ziren *moniales*-en agerpena -edo hobe esan, terminoaren finkapena- eta XII-XIII mendeak bitarteko klausuraren ezarpen saiakera, eta erregulazio hau askotan gizonezko agintari erlijiosoen borondatez egina izan zen, emakumeek saiakera hauen aurrean izan zuten onarpena, lekuen eta garaien arabera, aski ezberdina izan zelarik. Adierazi dugunez, kristautasunaren sorkuntzaren eta lehen hedapenaren garaietatik bertatik, bizitza erlijiosoarekiko bi hautemapenen arteko tentsioa presente izan zen: komunitate kristauarenganako lotura momentuoro mantentzen zuten sekularrena, ondorengo garaietan apezgoa osatuko zutenena, eta munduarengandik baztertuz bakarka edo komunitate itxitan batzeko joera azaltzen zutenena, bizimodu aszetikoa, eremutarra, anakoretikoa, zenobitikoa eta monastikoa erdituko zituenena. Eta hautemapen hauek, noski, gizonen artean bezalaxe zeuden emakumeen artean ere. Alabaina, jada ohartarazia dugunez, banaketa hau ez dugu era zurrunean ulertu behar, bi esparruen arteko nahasketa -edo, hobe esan, bizimodu monastikoaren aldetiko apezgoaren baitaratzea- arrunta izan baitzen Antzinate Berantiarrean bezalaxe, Goi Erdi Aroan ere; hala, -esate baterako- abade eta apezpiku edo apez ziren gizonezkoak izan zirenen berri ugariak bezalaxe, abadesa eta diakonesa izan ziren emakumeen berriak ere badaude, eta are, *viduae* eta apezeme izan zirenenak ere. Baina batzuek Jesusen lehen jarraitzaileetaraino helarazten duten bizimodu erlijiosoaren gaineko ikuspegi ezberdintasun honek⁴⁰ III. mendeaz geroztik fenomeno anakoreta, zenobitiko eta azkenik monastikoak aparteko ibilbide batera eramanez aurretik

⁴⁰ Oso trazu orokorretan, eta laburbiltze aldera zenbait lizentzia harturik, apezgo "ireki" eta misioilariaren eredu, helenisten korrontea eta bultzatzaile nagusi izan zuten Pablo izango lirakeke, judu ez ziren paganoak kristau komunitateetan baitaratu nahi izan zituenena, eta Pedro eta Jakue berriz, talde "itxien" bizimoduaren bultzatzaile, kristauak, partaide juduek osaturiko sekta berezi eta beste gizarte taldeengandik bananduriko komunitate "semimonastikotzat" hautematen zituenena; beti ere, hautemapen hauek kristautasunak komunitate juduarekiko erlazioetan bere lekua bilatzen ziharduen garai bati dagozkiola behar dugu haintzat hartu (Trocmé 1979 -1972-, 238-286).

ere, kristau komunitateen baitan zenbait emakume botere handia izatera helduak ziren, eta ondoren ere, ez ziren adibide esanguratsuak falta izango.

Azken ohartarazpen bat (gizonezkoei ere hedagarria dena), Antzinateko eta Goi Erdi Aroko erlijiozko emakumeak aipatzerako orduan erabilia izan zen terminologiaren ugaritasuna eta zehaztapen gabeziarena da. Bizimodu ezberdinak finkatu eta arautzen joango ziren, aipatu ditugun talde nagusietan banatzerarte; baina ibilbide luze hartan, ugariak ziren garbiki definitu gabeko egoerak, edo terminoek bizimoduarekiko zehaztasun handiegirik eskaintzen ez digutenak. Hala, *sorores*, *viduae* eta *virgines* eta geroko *monja* terminoaren jatorrian dauden *monachas*, *moniales* eta *sanctimoniales* terminoekin bat, *sanctae virginiae*, *ancillae dei*, *matres*, *sacratae feminae*, *mulieres sanctae*, *puellae*, *deovotas*, *discipulas*, *filijs*, *religijsas*, eta bestelako izendapenen sorta luzea azaltzen zaigu, izen horien ostean azaldu nahi zen bizimoduarekiko, askotan, berri garbiegirik eman gabe. Hau ez zen soilik emakumezkoen bizimodu erlijiosoa adierazteko terminoak artean finkatu gabe zeudelako, hauek izan beharreko bizimoduaren inguruko ereduak eurak ere, artean, erabat finkatu gabe zeudelako baizik.

II. 2.2.1. Birjinak eta alargunak

Terminoen aniztasun horren oinarrian, Antzinateko kristau komunitateetako *birjinak* eta *viduae* edo alargunak zeuden. Eta beraiek dira, bizimodu monastikoaren hastapenetan izan ziren emakumeen jarraipena egiterakoan ikusiko ditugun "instituzio" edo bizikera ezberdinen artean, ondorengo Euskal Herriko serorekiko antzekotasunak agertzen dizkiguten lehenak.

Emakumezkoen talde hauek Antzinatean "ordenatza" hauteman ziren lehenik, kristautasuna etxe pribatuen testuingurutik, IV. mendearen bukaeran inperioko erlijio ofizial bihurturik espazio publikora iragan zen prozesuaren baitan. Eta hein hartan, apezpikuen eskutik nolabaiteko "ordenazioa" jaso izan zuten (zegokion errituarekin), ondoren, -batez ere- diakonesen aktibitate arazotsuek sorrarazitako legedian "bedeinkapen" huts zela zehaztuko zena, gizonezkoen ministeritza sakratuetako ordenazioekiko nahasketa ekiditeko asmoz. Izan ere, birjinen eta alargunen "ordenetatik" irten ohi ziren diakonesa izatera iragaten ziren emakumeak, eta emakume guztioi aplikatu nahi izan zitzairen, bizimodu aszetikoaren eredu gailendu ahala, kastitatearen betekizuna. Berez, betekizun hau "kontsekraturiko" birjina eta alargunen eta titulu hori jaso ez zutenen arteko muga ezartzeko baliatua izatera iragan zen, egoeraren adierazpenerako elementu sinbolikotzat, beluaren eta abitu jakinen erabilera arautu zelarik. Honek, era berean, lehen garaietan kontsiderazio altuagoa izana zuen alargunen "ordena", denborak aurrera egin ahala birjinenaren aldean maila gutxiagokotzat hautemana izatera bideratu zuen, azken hauek errepresentatzen zuten kastitate "garbiaren" ideiarekin aurrean (aurretik, idatzi arautzailetan -esate baterako, *Traditio Apostolica* zelakoan- alderantzizko mailakatzeara egin izan zen artean). Halaber, hautemapen berberari jarraiki, alargunen bigarren ezkontzen aurkako legedia garatu zen, hau, ministeritza sakratuetakoak izanak ziren gizonen alargunen kasuan ikuspegi bereziki zurrun baten pean hartuz⁴¹.

IV-V mendeak bitartean, *viduae ecclesiae* (hau da, "ordenatuak", alargun arruntak ez bezala) zirelakoan artean ondorengo monasterio eta bestelako zentru erlijiosoetako *familiaritas* erlazioen tankerako ohitura bat izan zen: elizei dohaintzak egiten zizkieten, eta hauen aldetik, trukean aldiroko errenta bat jasotzen zuten,

⁴¹ Bajo 1981-85; Elm 1991; Navarro Sáez 1991; eta ikus halaber Gutiérrez Pardina 2004.

esanguratsuki, apezen soldatak bezalaxe *stipendium* izena ematen zitzaiona. Alargun hauen bizilekuak eta moduak, bestalde, tankera ezberdinetakoak izan zitezkeen; batzuetan bakarka bizi ziren etxe partikularretan, beste batzuetan taldeetan batzen ziren bizimodu komunitarioan, eta izan zitezkeen, halaber, tenpluren baten zerbitzuari loturik ere (eta izan zen, halaber, paganoen kristautzerako predikazio itinerantean jardun zenik ere). Areago, batzuetan bizitza komunitariorako etxeak ("monasterioak") edo zerbitzatzen zituzten tenpluak alargunek eurek eraikiak izan ziren, alargunen "ordenan" familia boteretsuetako emakumeak integratzea oso ohizkoa izanik. Halatsu, ez zen arraroa, hain prezeski ekonomikoki zeukaten abantailazko egoeratik, kontsekraturiko alargun izatetik ministeritza sakraturen bat jasotzera iragatea; diakonisen eta apezemeen ohizkoa egoera genuen hau. Aski ugariak dira mende haietan Elizaren aldeko dohaintza handiak egin zituzten eta beraien boterea patroitzak aktibitateen bidez hedatu zuten alargunen kasuak, hainbat tenpluren eraikuntzaren erantzule izateaz gain, hauen administrazioan pertsonalki parte hartu, eta are kristautasunaren leku sakratuetarako bidaiak egin zituztenenak ere (Penintsula Iberikoko iparraldekoa behar zuen Egeriaren kasu ezaguna dugu hau, esaterako)⁴².

Kristautasunaren onarpen ofiziala eman zenetik gutxira Elizaren aldeko dohaintzak egitea baimendu zenaz geroztik (321), Elizako tenplu edo instituzioen aldeko dohaintzez beste, partaideen arteko erlazioen familiarteko erlazioen egitura paralelo bat eraiki zen (hortik datoz aitabixi eta amabitxiak), hauek ere dohaintzen jasotzaile izatera iragan zirelarik. Guzti honek Antzinate Berantiarrean zehar Elizak ondasun kopuru handiak pilatzea eragin zuen, eta hala, Galiarako kalkulatu izan denaren arabera, esaterako, V eta VIII mendeak bitartean Elizak nekazal lurren heren baten gaineko eskubideak bereganatu zituen; eta testuinguru hartan, diogunez, alargun boteretsuen dohaintzen papera oso garrantzitsua izan zela dirudi (Goody 2001 -2000-, 47-48).

Baina alargunek eliz-instituzioekin izan zituzten erlazioak, bi ahoko labanaren tankerakoak izan ziren. Alde batetik, alargun boteretsuen kasuan, beraien botere ekonomikoak eta dohaintza handiek emakumeen artean salbuespenezko egoeratzat har zitezkeen ordenaziotara iristea ahalbidetzen bazien (diakonisez beste, apezeme, edo are, agian, emakume apezpiku izatera hel zitezkeelarik), bestetik, monakotzaren forma erregularretarako bidean birjintasunaren goratzea eta alargunen gaitzestea eskutik joan ziren, eta hala, kontzilioetako legedian garai haietan gaizki ikusitako emakumeekiko parekatzeak egiten ziren, alargunok ezkonduak izandakoak ziren heinean, dibortziatuen, baztertuen edo are urdangen egoerarekin berdinduz. Hau da, beraien ondasunak gogo onez hartzen ziren eta elizgizonen alargun boteretsuen "gorteetan" parte hartzen zuten (Teodosioren familiako partaide zela dirudien Poemenia alargunak, esaterako, Palestinarako bidaia apezpiku, apez eta bestelako zerbitzariak bere itsasontzietan zeramatzala egin zuen), baina eliz-hierarkietako gizonak erlijiozko kontuen gain deliberatzeko kontzilioetan eurak bakarrik batzen zirenean, alargunen eskumenak zurrun lotzeko neurriak erabakitzen zituzten, bereziki, ministeritza sakratuetako funtzioei eta kastitatearen alorrari zegokienean.

Mendeek aurrera egin ahala, batez ere VI. mendeaz geroztik, bizimodu aszetikoetan kastitatearen ideia zurrunduz joan zen, eta komunitate zenobitikoetan arautegietan oinarrituriko bizimoduak hedatu ziren, apezpiku eta bestelako pertsonaia boteretsuek, beraien emakumezko familia-kidendako "birjinen monasterio edo komentuak" eraikitzeari ekin ziotelarik. Gradualki, alargunen "ordena" desagertuz joan

⁴² Bajo 1981-1985; Navarro Sáez 1991; Linage Conde 1992; Pedregal 2005, 318-330; eta Giordano 1995 -1979-, 133-139.

zen, eta bizimodu monastikoen ereduak finkatu eta arautegiak hedatu ahala, birjina eta alargunak "birjinen monasterioetako" bizimoduetan txertatuz joan ziren; baina halaber, Antzinate Berantiarrean zehar terminoak bestelako erlijiozko emakumeei buruz jarduteko erabilia izaten jarraitu zuen: hiriguneetan edo landa-eremuetan bakarkako bizitza egiten zutenak, familiako testuinguruan bizitzen jarraitzen zutenak, gizonezkoen erlijiozko instituzioekiko lotura edo menpekotzarik gabeko komunitateetan zeudenak, edo monasterio bikoitz eta familiarretan bizi zirenak⁴³. Eta jarraian banaturik azalduko ditugun testuinguru hauetan egin zuen bere agerpena, beste hainbatekin batera, seroren hastapenen ikerketarako intereseko zaigun *soror* terminoak erlijiozko emakumeei aplikatuz; ulergarria dena, emakume hauek zeramaten erlijiozko bizimoduak askotan zeukan jatorri edo itxura "familiar" edo "etxekoi"ari erreparatuz.

II. 2.2.2. Bakarkako bizitza: eremutarrak eta anakoretak

Hurrena, Iruñako Erreinuaren sorkuntza garaian ezarri dugun gutxi gora beherako mugari kronologikoaren -hau da, ggb. IX. mendearen- aurretiko monakotzaren hastapenetako formen artean, lehenik, landa-eremuetako ermita, santutegi eta ospitaleetako -eta agian parroketako- seroren jatorri izanak zitezkeen emakumezko eremutar eta anakoretak aintzat hartu beharrean gaude. Tenplu hauek, ondorengo garaietako berrien arabera Euskal Herrian -beste hainbat lekutan bezalaxe- *monasteria* bezala aipatuak, ez dakigu garbi bakarkako edo talde txikitako (serora bat eta bere laguntzailea, edo laguntzaileak) emakumeen bizimodua egiteko kokapen bilakatuak noiztik izanak zitezkeen. Alabaina, Mendebaldeko Europa guztian zehar bezalaxe, baskoien eta ondorengo Euskal Herriaren lurraldeek eragin kultural eta erlijiosoak jasoak izanak zitzazketen espazioetan, nagusiki Hispania eta Galia izanak zirenetan eta Britainiar Irletan, emakume eremutarren eta anakoretan presentzia ohizkoa eta erabat normala izan zen Goi Erdi Aro guztian zehar, eta bereziki, IX. mendearen aurretik.

Egin izan diren ikerketen arabera (eta oraindik ikertzeko asko badago ere), emakumeen bizimodu eremutar eta anakoretikoak Mendebaldeko Europako IV. mendeko hastapenak kontinentean (Frantzia eta Italia) izan zituela badirudi ere, V-VII mendeak bitartean behintzat, eta ziurrenez baita VIII.ean ere, Irlandatik Britainiar Irletara hedaturiko kristautasunaren eredu "zeltiarrak" bizimodu eremutarrari bultzada handia eman ziola ohartu izan da, kontinentean bertan ere, jatorri irlandar edo ingeleseko eremutarrak hedatuz (King 1983). Eta hala ere, Galia iparraldeko lurraldeetan bestelako iturriei jarraiki egindako ikerketek bertako emakumezko eremutarren nagusigo nabaria agertzen digute (Heuclin 1988, 99-102, 131-133); hau da, Irlandako ereduak ez ziren emakumezkoen bizimodu eremutar eta anakoretikoaren iturburu bakarrak, nahiz eta hauek izan zuten eragina ukazina izan.

Kristautasunaren eredu "zeltiarra" ez zen garai haietan eremutarren hedapenean soilik nabari izan; bizimodu zenobitikoaren ereduaren artean ere, Britainiar Irletatik -misioilarien bidez- helduriko eredu Mendebaldeko Europan hedatu ziren hiru korrante nagusietariko bat izan zen. Egoera hau ulertzeko, zenbait zehaztapen egin beharrean gaude: lehenik eta behin, Mendebaldeko Europako bizimodu eremutarraren eta semieremutarraren lehen ereduaren hedatzaile nagusiak, Egipton eta Sirian bertako anakoreta eta eremutarrek ("Desertuko Aitak") zeramaten bizitzaren eredu Mendebaldeko Europan txertatzen lehenetarikoa izan zen Tours-eko Martin eta bere kultua izan ziren; baskoien inguruko lurraldeetan, kronologia zehazten zaila izanik ere, zalantzarik gabe hedatu ziren figura eta kultua. Kultu hau, gainera, bizimodu

⁴³ Pardo Fernández 1986; Navarro Sáez 1991; Elm 1991; eta Pedregal 2005, 318-330.

anakoretiko, eremutar eta semieremutarraren eredu en lehen hedatzaile izateaz gain, VIII. menderarte behinik behin, Mendebaldeko Europako santuen kulturik garrantzitsuena izan zen; ondorengo mendeetan beneditarrek jorraturiko ereduak gaudituko zuen. Izan bitez, bada, mende hauetarako, ondoren zabalago azalduko ditugun "korronte" hauek buruan: kristautasun "martindarra" deituko duguna, bizimodu eremutar eta anakoretikoa aintzatesten zuena; kristautasun "zeltiarra" (edo kristau zeltiarrak, hobe esan, ez baitzen barne-koherentziadun mugimendua izan), bizimodu eremutarra bezalaxe, zenobitikoa indartsu bultzatu zuena; eta kristautasun "beneditarra", Nursiako Benitoren eredia eta bere erregela ardatzean harturik, bizimodu zenobitikoaren arautze eta erregulazioan garrantzitsuena bilakatuko zena (Bonnassie 1988 -1981-, 159-160). Korronte hauek, bestalde, ez zuten elkar baztertu izan, *regula mixta* nagusi zen garai hartan, ohikoena eredu ezberdinen nahasketa izan baitzen; areago, Frantziako lurraldeetan arrakasta handiena izango zuen erregelak taxutzeko modua, Columbanok fundaturiko Luxeuil-eko monasterioaren eragin erlijioso-politikoaren bidez hedatu zen erregela kolunbaniarra eta beneditarra nahasteko eredia izan zen.

Eraginen testuinguru hartan beraz, emakumezko eremutar eta anakoretak ohizkoak izan ziren, batez ere eredu "martindarrak" eta "zeltiarrak" nagusi ziren inguruneetan; eta hain prezeski ere eredu "beneditarrak", diogunez, bakarkako aszesiaren aurrean nabariki komunitateko bizitzaren aldeko zenak, indar gehiagorekin hedatzeari ekin zionean, IX-X mendeetatik aurrera, emakumezko eremutar eta anakoreten kopuruak behera egin zuen. XI. mendean aldiz, jada erregela beneditardun ordenen eragina nagusi zen testuinguru orokor baten baitan, emakumezko eremutar eta anakoreten kopuruak berriro egin zuen gora (King 1983). Parametro berberak ageri zaizkigu Galia iparraldean kokaturiko ikerketetan ere; V-VIII mendeak bitarteko presentzia esanguratsuen ondoren, IX-XI mendeak bitarteko eremutarren kopuruaren jeitsiera handia (Heuclin 1988, 99-102, 131-133, eta zenbakitu gabe gehituriko mapak).

V-VIII mendeak bitarteko lehen goraldiaren ondorengo "berpizkunde" honen testuinguruan idatzi ziren espreski emakume eremutarrei begira taxuturiko lehen erregelak, esanguratsuki, biak, hauen presentzia oso garrantzitsua izana zela dakigun Britainiar Irletan idatziak: Rielvaux-eko Aelred zistertarraren *De institutione inclusarum* (1160-1162), eta garai hartako ingeles dialektalean idatzi zen *Ancrene Wisse* edo *Ancrene Riwe* (XIII. mendearen hasiera). Biak ere biak zistertarren testuinguru eta izpiritualtasunari lotuak, eta erregela beneditarrean oinarrituak⁴⁴. Baina garai hauei aurreraxeago erreparatuko diegu, hurrengo kapitulu batean; ikusiko dugu nola Ingalaterrako XII-XIII. mendeetako eremutar edo anakoretak, Aro Berriko Euskal Herriko serorekiko parekotasunak zeuzkaten.

Oraingoz, emakumezko eremutar eta anakoreten presentzia Penintsula Iberikoan, Galia izana zeneko lurretan eta bereziki Britainiar Irletan ohizkoa eta are esanguratsua izan zela presente izan dezagun. Hau da, diakonesen -eta bestelako ministeritzadun emakumeen- kasuan bezala, baskoien eremuko eta ondorengo Euskal Herriko lurraldeen kristautzea gauzatu bide zenean, emakume eremutarrak eragin kultural eta erlijiosoak helduak izan zitezkeen inguruko testuinguruetan ohizkoak ziren figurak ditugu.

Gainera, ohartu beharrean gaude, espazioekiko, eremutar edo anakoretatzat hartu izan ziren emakumeak ez zeudela, bizimodu aszetikoaren hautemapen klasikoari jarraiki pentsa litekeenaren kontra, espazio populatuetatik urrun zeuden kokapenetan soilik. Landa-eremuetako espazio irisgaitzetara joatearena ohizko praktika izanda ere, *fuga*

⁴⁴ Ikus, esaterako, Morton 1853, V-XXIV; Hasenfratz 2000; eta Labarge 1988 -1986-, 159-170.

mundi-arena jarrera izpiritual bat zen, herri eta hiri populatuetan ere gauzatu zitekeena, eta Penintsula Iberikoan, 400 urte inguruko Toledoko lehen Kontzilioko 6 kanonean aipatu zirenez geroztik behintzat presente zegoena (Orlandis 1971, 228). Antzerako garaietan idatzi zituen -Vigilancioren aurka hain gogor egin zuen- San Jeronimok ere birjinendako bere "gomendioak", hiriko zirrikituak arakatzera birjinak etxetik irtetzea gaitzesten duenean, birjinek, beraien *sponsa christi* paperean, beraien senarra kalean aurkituko ez zutela eta; senatari erromatar baten alaba eta bere jarraitzailea zen -eta santa eta "Desertuko Ama" bat izan zen- Eustoquio-ri idatzi zionaren arabera, "Deja que vayan errando por fuera las vírgenes necias" (Piquer 1996, 137-138). Hirietan espazio publikoetan ibiltzen ziren birjinak bazeudenaren, eta baita, ondorengo kristautasunaren forma ofizialen bideratzaile izan ziren autoreen aldetik, gaitzetsia izango zen bizimodua zenaren seinale.

Denborak aurrera egin ahala bizimodu honen aurkako ikuspegia hedatu eta finkatuz joan zen eliz-hierarkien artean, eta gaitzesteko aipatu zizkigun San Leandrok, esaterako, VI. mendearen bigarren erdialdean, bere arrebaren birjinen komunitatearendako idatzi zuen erregelako XXVI. kapituluan:

Huye, te lo suplico, la vida particular. No imites a aquellas vírgenes que habitan en ciudades en celdas aisladas, pues una muchedumbre de inquietudes las oprime; en primer lugar, el interés por agrandar al mundo les lleva no a presentarse con vestidos pobres; luego, abrumadas por las preocupaciones domésticas, mientras se ocupan de atender a su sustento, descuidan las cosas del servicio de Dios (San Leandro 1971 -VI. mendearen bigarren erdialdea-, 67)

San Leandrok eta beste hainbatek hala nahi ez izanik ere, hainbat izan ziren espazio populatuetan bizimodu hura egin zuten -eta aipuan ohar bedi, ondasunei eta autonomia ekonomikoari ukorik egiten ez zieten- emakumeak, Goi Erdi Aro guztian zehar. Eta ez zuten hauek ere klausurarik gordetzen noski, eta ez zeuden ere, halaber, tenpluren baten zerbitzuari loturik, lotura hauek gauzatu bazitzaketen ere. Espazio populatuetan bizimodu hau zeramaten emakumeen aipamenak oso ugariak ez izanik ere, ez dirudi batere egoera arraroa izango zenik, eta San Jeronimoren eta San Leandroren aipuek ere, ohizkotasuna iradokitzen digute. Eta ohargarria dugu, halaber, bi kasuetan komunitatean bizi ziren birjinei idatziriko eskutitzei buruz dihardugula, bestelako birjinen bizimodu okerrak gaitzetsiz. Baina, jarraian ikusiko dugunez, birjinen komunitateko bizitzan ere asko zegoen artean aldatzekorik, gehienetara klausurako bizimodua hedatu arte.

II. 2.2.3. Komunitateko bizitza: monasterioetako birjinak eta *soror*-ak

Beste hainbeste esan liteke bilakaera zenobitikoa izan zuen bizimodu aszetikoari dagokionean ere. Egoera hartan, eremutar eta anakoretez gain, hasierako *monasteria* zirenen hedapen prozesuaren baitan komunitate zenobitikoak, monasterioak eta bertako abadesak ere izan ziren, Erdi Aroan aurrera egin ahala, beraien agintepeko lur zabaletan jaun feudalen eta apezpikuen pareko boterea izatera heldu zirenak; besteak beste, epaile lanak eginez, erregeen gudarosteetara zegozkien gudari-taldeak bidaliz, etab. Abadesa boteretsuen presentzia, gainera, diakonesena baino garai berantiaragoetara heldu zen; emakumeak ministeritza sakratuetatik urruntzeko apezemeen eta diakonesen gaineko ardurak, azken finean, indar handiagoa izan behar baitzuen⁴⁵.

⁴⁵ Ikus, esaterako, Labarge 1988 -1986-, 131-150; Harrington 2002; Arana; Salas 1994; Linage Conde 1993.

Hasierako bizimodu zenobitikoa, ondorengo monasterioen oinarrian dagoena, bizimodu anakoretiko edo/eta eremutarrak erditu zuen. Hau da, *monasteria* haiek hasieratan eredu eremutar eta anakoretikoa jarraitzen zuten bakarkakoen taldeak ziren, ez oraindik, erregela amankomun baten arabera bizimodu komunitarioa zeramaten komunitateak; zenobioak ziren, eta Jainkoarekiko loturaren dinamikan, bakarkakoa taldea baino garrantzitsuagoa zen. Gizonezko anakoretismoaren eta zenobitismoaren ildotik, III-IV mendeen inguruan hauen tankerako bizikera eginaz ageri zaizkigun *virgines* eta *viduaeak* gerturatuz joan ziren eurak ere instituzionalizazio bideetara, denborak aurrera egin ahala (eta klausuraren inposizioak indarra hartu ahala), gorago aipagai izan ditugun izenen sorta luzearen artetik, azkenik, *monachas* edo/eta *monialis* izendapenetara mugatzera helduz. Bakarkako eta taldekako bizimodu aszetikoen arautzeak bide ezberdinak eraman zituen, baina III-IV mendeen inguru hartatik, Inperio Erromatarraren gainbehera garaia igaro eta Erreinu berrien sorkuntzaren baitan goraldi nagusia izan zuten VII. mendera, monasterioen kopuruaren hazkunde handi bat eman zen, batez ere VI-VII mendeetan, Europa erdi-iparraldeko lurraldeetan bezalaxe, Penintsula Iberikoan ere. Monasterio hauen gorakada nagusia kokatzen zaigun VI-VII mendeak eurak, hala ere, ardatzezkoak izan ziren ondorengo bilakaera zenobitiko erregularrari, hau da, erregela bidez arauturiko komunitateko bizitza hobesten zuenari, norabidea ematerakoan (Tibbets Schulenburg 1989).

Bitarte kronologiko hartako monasterioek, gainera, partaide eta bizimodu aldetiko aniztasun handia agertzen zuten. Arautegiak eta erregelak, hain zuzen ere, aniztasun hartan ereduak finkatzeko behar edo interes erlijioso-politikoak -eta sozialak- motibatuak izan ziren. Patroitzat sistema eta erlazio familiarrak modu ezberdinetan txertatu ziren, eta VI. mendean, testuinguru hartan, emakumeen komunitateei idatzi zitzaizkien lehen erregelak agertu ziren. VI. mendeko lehen erregela hauek emakumezkoenak soilik ziren monasterioendako idatziak izan ziren; arrakasta handia izango zuten monasterio bikoitzak aldiz, VII. mendetik aurrera hasi ziren hedatzen, beraien erregelekin⁴⁶. Monasterio mota hauekin bat, mende hauetan zehar, monasterio familiarrak ere agertu ziren, familia jakinek -edo, ez gutxitan, komunitateko abadesa izatera iragaten zen familiako birjina edo alargun batek- beraien familia bertako edo honi atxikiriko partaideentzat eraikiak, ezkon-estrategietatik kanpo gelditzen ziren -edo beraien borondatez ezkontzari uko egiten zioten- partaideendako bezalaxe, alargundu osteko egoeran, edo zahartzaroan edo gaixoaldietan egon zitezkeenendako ere. Halaber, monasterio hauek familien panteoitzat egiten zuen tenplua ere izan ohi zuten, bertan *frater* eta *soror* zirenek, haien arimen alde otoitz egin zezaten. Monasterio familiar hauen eta monasterio bikoitzen arteko mugak oso lausoak izan zitezkeen, eta izen berberen pean oso errealitate ezberdinak bizi izan zitezkeen: zenbait monasterioek euren fundatzaile abade edo abadesaren bizi-arteko denbora baino ez zuten iraun, kasuren batzuetan, asmoa hasieratik halakoa izanik, eta kontrara, monasterio familiar izaten hasi eta komunitateen erregelen bidezko banaketa eta/edo espazio eta eraikinen banaketa fisikoa izaten bukatu zezaketen monasterio bikoitzen bilakaerak ere izan ziren; edo, hasieratik bi komunitateen arteko banaketa ezarria egon zitezkeen, etab.⁴⁷ Baina jardungo gara sakonago monasterio familiarrei buruz, zertxobait aurrerago.

⁴⁶ Honen ingurukoak, besteren artean, Eckenstein 1963; Harrington 2002; eta Greer 2012.

⁴⁷ Ikus Orlandis 1971, 165-202; Linage Conde 1990; eta Fernández Conde 2008, batez ere VI. kap., 207-276.

II. 2.2.3.1. Emakumezkoen monasterioak eta monasterio bikoitzak

Edozein kasutan, bizitza monastikoaren erregulaziorako arauak ez zuten irizpide amankomunik jarraitzen, ohiturak eta arauak tokian tokikoak ziren. Erregelekin ere, *regula mixta*-ren ohitura jarraitzen zen, askotan eredu nagusi bat oinarrian harturik, erregela ezberdinetako parteekin propio bat osatuz. Gainera, garai haietako monasterioek ondorengo garaietakoengandik ezberdintasun nabarmen bat ere bazeukatela ohartu beharrean gaude: klausura ez zen oraindik emakumezkoen taldeendako betekizuntzat ezarri, nahiz eta munduarengandik eta haragiarengandik aldentzea, norbere bizitza erlijiosoki gidatzeko beharrezko jarraibidetzat hartzen ziren. Hau da, ereduak zen, baina ez araua. Eta hau, ez zitzairen soilik monasterio familiar edo bikoitzetako emakumeen komunitateei aplikagarri, beste hainbeste gertatzen baitzen emakumezkoenak baino ez ziren monasterioekin ere. Baieztapen hau arraroa suerta liteke, birjinen komunitateendako lehen erregela, 513ko Arlés-eko San Cesareoren *Regula ad Virgines*, bere arauen artean klausura aktiboa agindu zuen lehena ere izan baitzen. Eta erregela honek izan zuen itzal eta hedapenari erreparaturik, historiografia tradizionalak garai hartako *virgines*-en komunitateak klausura zurrun baten pean hauteman izan ditu, ondorengo garaietan klausuraren obserbantzia hain zurruna izan ez zela oharturik, mendeek aurrera egin ahala izandako ohituren "erlaxatzea" postulatu zelarik. Baina erregelen ikerketak aurrera egin ahala, batez ere monasterio bikoitzen kasuetan klausura aktiboa ez zela ezarri ohartu ahal izan da. Cesareoren erregela oinarritzat harturik ere, batez ere erregela kolonbaniarraren eta beneditarraren parteekin osaturiko *regula mixta*-k zirenek, klausura aktiboaren kapituluak eraldatu edo ezabatu egin zituzten⁴⁸. Eta hau ez zuen historiografia tradizionalak aintzat hartu, San Cesareoren erregela gidatzat hartu zuten komunitate guztiak klausura aktiboduntzat kontsideratuz, jarraian ikusiko dugunez, hala izan beharrik ez zuenean⁴⁹.

San Cesareo Arlés-eko apezpikua izan zen 502-542 bitartean, eta bere *Regula ad Virgines* (513) idatzi zion monasterioa bere fundazio eta patroitzapekoa izan zen. Erregela bere iloba Cesarea Gaztea buru egin zuen komunitatearen bizibidea arautzeko idatzi zuen, eta aurrekari bat izan zuen, hain zuzen ere, bere arreba Cesarea Zaharrarekin beste hainbeste egitean, *Vereor* izena eman zaion eskutitz batean idatzi zizkion arauetan. Cesarea Zaharraren monasterioa, Arles-eko hiriaren ormen kanpokaldean zegoena, 506 edo 507an burgundiarren hiriaren setioan suntsitua izan zen, eta ondoren, ilobak hartu zion ordezkioa buruzagitzan. Ilobari idatzi zion *Regula*-n, jada, kontenplaziozko bizitza goratzeaz beste, klausura emakumeen aurkako bortizkeria sexuala ekiditeko neurritzat adierazi zen. Hau, zenbaitetik, Cesarea Zaharra buru zenean monasterioak izan zuen patuarekin erlazionatu izan dute, eta berez, *Regula*-ren aurrekari *Vereor*-ean, ez zen klausura arautzat hartu. Ideia, hala ere, ez zen berria, aurretik hainbatek jorrotua baitzuten birjinen taldeen klausura *pasiboaren* ideia -eta araua-, hau da, komunitatearen bizilekuan inongo kanpotarrik sartzea eragozten zuena. Klausura *pasiboak* eta *aktiboak* komunitateen bizitzarengan oso era ezberdinetan eragiten zuten, lehena, sarrera debekuen bidez komunitatearen eta bertako partaideen botere-esparruak

⁴⁸ Jarraian azalduko ditugun Frantziako komunitateen eta erregelen inguruko ardatz nagusia Greer-en doktorego tesitik (2012) jaso dugu, printzipalki 3. kapitulutik, 69-98. Beste espazio batzuetako egoerara heldu arte beraz, aipua aurreztuko ditugu. Ikus halaber Tibbets Schulenburg 1989.

⁴⁹ Hala ulertzen dute, nahiz eta beraien lanetan klausurari buruzko historiografia tradizionalaren ikuspegiak aurka egiten den, Aranek (1992, 74) eta Piquer-ek (1996, 139) ere, mojen klausurari eskainiriko beraien ikerlanetan Santa Radegundaren Santa Kruzeko monasterioaren kasua aipagai hartzen dutenean. Jarraian ikusiko ditugun kasuek halabeharrez komentu honetako klausurak hain zurruna izan beharrik ez zeukakeela erakusten digute, eta gainera, Radegundak komentua bere senar Klotariorengandik ihes egiteko erabili zuenez, klausuraren ezarpena gauzatu izatekotan, honek prezeski kanpo-erasoetatik babesteko funtzioa izan zezakeen; hau da, klausura pasiboa izan zitekeen, aktiboa beharrean.

finkatzeko instrumentu izatera hel zitekeen artean⁵⁰, bigarrenak ostera, erabat aurkako efektua izaten baitzuen. Cesareoren erregelak, hortaz, klausura *aktiboaren* nozioa gehitu zion *pasiboari*, hau da, inor sartzea eragozteaz gain, birjinak eurak bizilekutik irtetzea ere eragozten zuen, komunitatearen bizimoduan aldaketa sakona eraginez.

Aureliano Cesareoren jarraian izan zen Arles-en apezpiku, eta bere aurrekariak bezala, gizonezkoen monasterio bat eta emakumezkoendako beste bat fundatu eta patroitza mantendu zituen. Nahiz eta hainbat arau berriren bidez hainbat aspektutan kontrol zurrunagoa ezarri zuen, bere *Regula ad Virgines*-ean (546-551 bitartean apezpiku zela idatzia) Cesareorengandik jasoriko klausura aktiboaren kapituluak gehigarri baten bidez moldatu zituen, birjinen irtetzeko baimena abadesari edo prioresari esleituz (Cesareoren erregelari inongo kasuan irten ezin zirenean), eta familiarekiko erlazioak baimenduz. Donatoren *Regula ad Virgines*-a dugu hurrena (c. 660); Donatok bere erregelarako sarrera luzean bere ama Flaviak (monasterioko fundatzaile zenak) eta Gauthstruda abadesak erregelako kapituluaren hautaketan parte hartu zutela azaltzen du, eta klausura aktiboari buruzko kapituluak kanpo uzteko arrazoiak, bi emakumeek Cesareoren kapitulu hauek beraien beharretarako "egokiak behintzat ez zirela" esan izana zela. Monasterio bikoitzetako bizimoduak, izan ere, klausura aktiboaren praktikarekin zerikusi gutxi zeukala dirudi. Halatsu, monasterio bikoitz batendako idatzi zen, Donatusen erregelaren antzerako garaian, *Regula cuiusdam Patris ad Virgines* izeneko erregela ere, garai hartan Luxeuil-en abade zen Waldebertori egotzi izan zaiona, eta zenbaiten arabera, bitarte batean Waldeberto beraren bizileku izan zen Faremoutiers-eko monasteriorako idatzia izan zena. Waldebertok idatzia izana, besteak beste, erregela honek daukan aszetizismo kolonbaniarraren eragin nabariagatik pentsatu izan da; Donatusen erregela bezalaxe, izan ere, erregela hau Luxeuil-en eragin-eremuan konposatu zela baitirudi. Aipagai izan ditugun erregelen artean Cesareoren, beneditarren eta Columbanoren erregelak atalak modurik askeenean jaso eta moldatu zituena izateaz beste, Donatusen erregelari bezala klausura aktiboa alde batera utzi zen; kapitulu haiek, erregelaren pean Jainkoa zerbitzatzen zutenek jan eta edan monasterioan bertan egiteko araua baino ez zen jaso, bestelako itxiturarik inon aipatu gabe.

Penintsula Iberikoko gorabeherei dagokienean berriz, San Isidororen anai eta Sevillako apezpiku izan zen San Leandrok bien arreba Florentina bizi zen emakumeen komunitatearendako VI. mendearren bigarren erdialdean idatzirik *Regula Sancti Leandri* dugu aipagarri. Erregela hau berezi xamarra da, Cesareoren *Vereor*-a bezala, bere arrebari idatzirik eskutitz forman idatzia baitago. Beraz, bertako jarraibideak "gomendioak" dira, zurrunki erregelak baino. "Birjina perfektua" deskribatu nahi hartan, edonola ere, Leandrok ez zuen klausurarik aipagai izan, eta honek ekidin beharreko pertsonak aipagai izan zituen lehen 3 kapituluetan, nabaria da ez zela klausura *aktiboarena* buruan zeukan hautemapena; izan ere, birjinak klausura aktibopean izatekotan, ez baitzuketen zertan emakume laikoengandik, gizonezkoengandik, eta gazteengandik urrundu beharrik izango, besterik gabe, hauekin trataturik izateko paradarrik izango ez zutelako. Eta beste hainbeste esan liteke, komunitateaz kanpoko pertsonekin bakarka hitz egitea gaitzesten duen kapituluari buruz; hartarako paradarrik

⁵⁰ Izan dira kanpotarrak monasterioan sartzea eragozteak botere-erlazioetan zeuzkan eraginak aipagai izan dituzten ikerketak; hauen arabera, monasterioetan *secreta septa* izenez aipaturiko zirkulu kontzentriko erako esparruak eratzen ziren, gero eta sarrera mugatuagoak definituak. Hala, monasterioarekiko zeuzkaten erlazioen arabera, pertsonaia ezberdinak (botere maila ezberdinetako erlijio gizonak eta laikoak) halako edo bestelako esparrura baino ezin zitezkeen sartu, azken esparrura sartzeko pribilegioa, askotan, patroi fundatzaileek baino ez zeukatelarik; ikus Greer 2012, 27-28.

ez izatekotan, alegia, "gomendio" hau zentzugabea zitzatekeen (San Leandro 1971 -VI. mendearen big. erd.-).

Zenbaiten arabera San Fruktuosok idatzia izan zen VII. mendeko bigarren erdialdeko *Regula Communis*-ean berriz, zenbait arau garbi ezarri ziren *soror* eta *puella* bezala aipatu zirenentzat; erregela hau, aurrekoa ez bezala, monasterio bikoitzen erabilpenerako idatzia izan zen, eta zenbait kapitulu, emakumezkoen komunitatearekiko erlazioei eskaini zitzaizkien. Gizonezkoekin izan beharreko harremanak, beti ere emakumeak hauen jarduera izpiritualerako arriskutzat hautemanik, ia erabat debekatzeaz beste, emakumeek bakarrik bidaiatzearen debekua azpimarratu zen, gutxienez bikoteka joan beharko zuketela ezarriz. Hala ere, ez dirudi honek monasteriotik, alegia, eraikinetik irtetzeko debekua inplikatzan zuenik, bidaiaria luzeen kasuei zegokiola baizik. Gainera, *Regula Communis*-ak badu berezitasun garrantzitsu bat, Penintsula Iberiko lurralde batzuetako eta hastapenetan behintzat, Galiziako tradizio espezifikoa bati zegokiona: gizonezkoak bezalaxe emakumezkoak ere, monasteriora *pactum* bidez sartzeko ohitura. Beste lekuetako monasterioetako sarreretan pertsonen eta ondasunen ematea alde bakarrekoa bazen, hau da, komunitateari ordezkotzat ezer eskatzen ez bazitzaion, "hitzarmenezko monakotza" bezala izendatuko dugun honetan bi aldeen arteko hitzarmen bat ezartzen zen, monasteriora sartzen zirenak bezalaxe bertako komunitatea ere erregela errespetatzera behartzen zituena; eta hau bi aldeekiko ulertzen zenez, komunitateak sartu berri zirenekiko erregelako arauak hautsi, gainditu edo gaizki ezartzekotan, azken hauek errebelatu eta beste monasterioetara, *sub regula* bizi zen apezpikuarengana (hau da, abade ere bazenarengana) edo botere laikoarengana ("al conde católico defensor de la Iglesia") salaketa eginez joateko eskubidea mantentzen zuten. Zenbaiten arabera, bestalde, testuaren interpretazioak Dumioko apezpikutzat (diogunez, *sub regula* apezpiku batek gidatua) erdigune izango zukeen monasterioen federazio tankerako batendako idatziriko arautegia litzateke *Regula Communis*-a, Europako testuinguruan aski orijinala litzatekeen antolakuntza eta bizikera baten erakusle⁵¹.

Hitzaemenezko monakotza ondorengo mendeetan Penintsula Iberikoaren iparraldeko zenbait lurraldetan zabaldu zen, batez ere Gaztela Zaharrean eta Errioxan (baina baita Nafarroan eta Araban ere), eta ez *Regula Communis*-ean aipaturiko monasterio bikoitzetan soilik, baita monasterio familiarretan ere. Monakotzaren azken forma hauen ingurukoekin ekin baino lehen baina, aipagai izan berri ditugun erregelen eta monasterioen inguruan zenbait azalpen eman beharrean gaude, testuinguru egoki ulertuko bada. Erregela hauek maila sozial altuko testuinguruetan eta testuinguru hauetako emakumeendako idatziak izan ziren, garaia haietako kristautzearen eta honen formen gaineko kontrolaren erantzule nagusi izan ziren eragileen partetik. Idazleatariko asko apezpikuak ziren (beste batzuk abadeak soilik), eta beraiek fundatu eta sostengaturiko monasterioendako erregelak ziren idatzi zituztenak. Patroitzat egoera hauek beraien ospe eta itzala handitzeko estrategia politikoen parte izaten ziren, eta noski, emakumezkoen komunitate hauek familia-kideak bertan sartzeko espazioak ere baziren. Ikusi dugunez, hainbat erregela, idazleen arrebak edo amak zeuden komunitateendakoak ziren. Kasu askotan, monasterio handi eta aberatsak ziren, inguruko espazio eta biztanleriaren gain botere handia izan zezaketenak. Elite sozialen testuinguru orokor hau eliz hierarkien ideologia indar gehienez finkatu eta hedatu zena ere bazen, eta erregela hauen idazleak, kristautzearen forma instituzionalizatu eta ofizialen euskarri eta hedatzaile ere izan ziren. Hau da, beraien erregelatan azaltzen zaigun bizimodua gizarte maila jakin batean eta maila jakin hartako partaideendako

⁵¹ Ikus erregela bera eta sarrerako ikerketa: Anonimoa 1971 -VII. mendea-; eta hitzaemenezko monakotzari eta bere hedapenari buruz, Bishko 1984, I eta III ikerketak.

pentsatu eta diseinatua izan bazen ere, nolabaiteko eredu bilakatzeko asmoz ere izan zen sortua. Eta maila horietan ere, ohar dezagun, erabateko klausura aktiboaren praktika gutxiengo bati zegokion, nahiz eta gutxiengo hau besteen hastapenetan kokatu (Cesareoren erregela)⁵².

Halaber, klausura aktiboaren falta, laburki begira jarriko gatzazkion hurrengo espazioan, Irlandan, bereziki nabaria dugu. Irlandaren hautua "kristautasun zeltiar" deitu izan denaren sorgune izan zelako egiten dugu, iparraldetik helduak izanak zitezkeen eraginen jatorri dugulako. Irlandako kasuan, aipagai izan dugunez, monakotzak gidatu izan zuen erlijiozko bizitzaren ardatza, apezpikuen papera, labur esateko, bigarren maila batera baztertuz. Bertako egoera sozial eta erlijiosoak parekotasun asko ditu Penintsula Iberikoko iparraldearenarekin, non, Irlandan bezalaxe, apezpikuak monasterioetako abadeen artean hautatuak izatea kasik ohizkoena zela esan litekeen. Parekotasun hauek bereziki esanguratsuak ditugu V-VIII mendeak bitartean, beneditarren eta ondoren "Erreforma Gregoriarra" deituko zenaren hedapenak indar hartu baino lehenago. Horrez gain, Irlandan, Penintsula Iberikoan bezalaxe, ez dago diakonesen presentziaren berri askorik; VIII. mendeko epistolario batean aipaturiko bakar baten berri baino ez dago (gaelikoz *bandechuin*), baina hau diakono baten emazte izatea ere litekeena dugu, ezen ministeritza sakratuetako gizonezkoen emazteak zeudela ere jakina baita, VII. mendeko *Book of Armagh*-ean "in matrimonio legitimo ecclesiae servientes" zeuden emakumeak aipatu zirenez gero (Smyth d.g.).

Baina esanguratsuki, propioki diakonesen berri ematen diguten berrien eskasiak ez du emakumeak gizonezkoentzat mugatu nahi ziren aktibitate ministerialetan parte hartu ez zutenik esan nahi. Irlandako eta berari loturiko kristautasun zeltiarraren alderdirik deigarrienak, hain zuzen ere, birjinen eta abadesen bidaiatu, predikatu eta ebanjelizatze gaitasuna, eta apezekin batera meza esaten *conhospitae* lez partehartu zuten emakumeen presentzia dira; biak ere biak, nabariki frogatuak izan diren alderdiak. Monakotzaren baitatik bizimodu bidaiari ebanjelizatzailea egin zuten emakumeen *vitae*-ek, Irlandaren kasuan behinik behin, aktibitate hauek irla bertako lurretan egiten baino azaltzen ez badizkigute ere, eremutar eta anakoretei buruz jardutean azaldu zaizkigun datuak gogoan izan beharrean gaude⁵³. Jada ohartarazia dugunez, kristau zeltiarren artean eredu eremutar eta anakoretikoez pisu handia zeukaten eta hauen eta komunitateko bizitza zenobitikoak egiten zutenen arteko mugak ez ziren batere zurrinak, eta -jada azaldu bezala- batez ere V-VII mendeak bitartean, eta agian baita VIII.ean ere, kontinenteko (Frantziar, Herbeeretan, Italian) emakumezko eremutar eta anakoreten parte handi bat, jatorri irlandarreko edo ingeleseko emakumeek osatua zegoen. Hau da, kristautasun zeltiarraren baitako emakumeen bizimodu aszetikoen kontinenterako hedapena, eraginen artean, aintzat hartzekoa dugu.

Azken finean, monakotzaren eredu zenobitikoek emakumezkoen komunitateekiko izan zuten garapenaren baitan, klausura aktiboarekiko bi joera nagusiekin egiten dugu topo. Bata, Cesareorena eta agian, bere erregelari hain esplizituki eta arau forman adierazi ez bazuen ere (eskutiz formako "gomendioen" eran

⁵² Ezaugarri hauek argi ageri zaizkigu, esaterako, San Leandroren kasuan. San Leandro, esana dugunez, Sevillako apezpiku izan zen; bere anai San Isidorok, mendeetan zehar Erdi Aroko "entziklopedia" nagusi izan zen *Etimologiak* lanaren idazleak, Leandro Sevillako apezpikutzan ordezkatu zuen, eta honek bien artean Florentinaren komunitatearendako egin bezala, komunitate monastiko baterako erregela bat idatzi zuen, sona handikoa (*Regula Isidori*), kasu honetan gizonezkoendakoa. Jakina denez, bi anaiek (batez ere Isidorok) beraien garaiko Elizaren hedatze, arautze eta uniformizazioan izan zuten garrantzia (kontzilioen bultzatzaile eta buru izanez, etab.) oso handia izan zen. Ikus, azaldu dugun ikuspegi orokorrerako, Orlandis 1971, Fernández Conde 2008 (batez ere VI. kap., 207-276)

⁵³ Ikus Harrington 2002, eta penintsulako tradizioekiko erlazioei buruz, Isla Frez 1991.

formulatuak izanik), San Leandrok ere buruan izango zuena, klausura aktiboa jarraibide ideal edo eredu hutsetik, kohertzio mekanismoen bidez bermatu beharreko araura iraganarazi nahi izan zutenena. Ez da kasualitatea erregela hauek idatzi zituzten gizonak apezpiku boteretsuak eta emakumezkoen monasterioen fundatzaileak izatea, eta hauen gaineko patroitzat botere-elementutzat baliatzeaz gain, komunitate hauek beraien arriben, edo beraien manupeko emakumezko bestelako familia-kideen kokaleku edo "gordailutzat" hautematea. Batez ere VI. mendean ageri zaigun joera dugu hau, itxuraz, nagusiki emakumezkoenak baino ez ziren monasterioetan bultzatu zena. Beste joera nagusia, batez ere Donatoren eta Waldebertoren erregelek, eta agian, *Regula Communis*-ak adierazia eta monasterio bikoitzetan ohizkoagoa behar zuela dirudiena, sexuen arteko banaketa zurrun mantendurik ere klausura aktiboa baztertzen zuena dugu, bizimodu aszetikoaren ikuspegiaren baitan munduarengandiko aldentzea onarturik ere, eredutik araurako pausua emateari muzin egiten ziona. Ez kasualitatez hemen ere, erregela hauen idazleek monasterioen gaineko patroitzat eta botere-erlazioen testuinguruan zeukaten lekua klausura aktiboa bultzatu zutenenekiko ezberdina izan zela ikus dezakegu. Donatok bere amak bizileku propiotzat fundatu zuen monasterioarendako idatzi zuen erregela (eta klausura aktiboa bere amaren eta komunitateko abadesaren eskakizunez baztertua izan zen), eta Waldebertoren kasuan, litekeena da monje bezala monasterio bikoitza zen Faremoutiers-eko gizonezkoen komunitatean denbora batean zehar bizi izana, eta bere erregela egoera hartan edo egoera hari loturik idatzi izatea. Eta kristau zeltiarren kasuan ere ez zen batere arraroa birjina eta abadesak monasterioen eta elizen fundatzaile eta patroizate.

Korrante izpiritual eta ideologikoen, eta arlo sozial eta ekonomikoetako faktoreek, bada, bat egiten digute klausura aktiboaren ezarpenarekiko joeren taxukeran. Klausura aktiboaren baztertzak, interpretatu litekeenaren kontra, ez dauka zertan V-VIII mendeak bitartean nagusi izan zen ideal kristau aszetikoaren aurkako jarrera bat azaldu beharrik. Auziak, diogunez, ideala eredutzat edo arautzat hartzean baitatza, eta honek, hein handi batean, alderdi izpiritualez haratago, alderdi sozial eta ekonomikoekin eta hauei loturiko ideologiarekin ere badu zerikusirik. Azken finean, klausura aktiboaren ezarpen behartuak emakumezkoen komunitateen monasterioaz kanpoko aktibitateen bilakaeran haustura gogor bat eragiten zuen (erabatekoa ez izanik ere), eta honek, halaber, zerikusi handia zeukan komunitateen autonomia ekonomikoarekin, eta baita beraien eta beraien ondasunen gaineko kontrolarekin ere. Luzera, klausura aktiboarekin edo gabe, bi korronteen baitan eman zen komunitateen baitako kontrol mekanismoen garapena eta, halaber, abadesen figuraren indartzea, hauek, komunitateko birjinen eta komunitateaz kanpoko munduaren arteko erlazioen erregulatuak faktiko nagusi bihurtu baitziren, erlijiosoki, sozialki eta ekonomikoki eragile nagusi ziren monasterio handien testuinguruan, oso boteretsu bihurtzeraino.

II. 2.2.3.2. Monasterio familiarak eta "herrixka monastikoak"

Baina, aipatu berri ditugun monasterioak garrantzitsuak izanik ere, garbi izan beharrean gaude Frantzian eta Penintsula Iberikoan aipatu ditugun erregelen existentziak ez digula garai haietako monasterio gehienetako bizitza bertan azaltzen zaiguna zenik adierazten. Alde batetik, erregelek, arautzaileak izan eta zigorren kohertzioaz baliatuagatik ere, praktikarekiko ereduak izaten jarraitzen zutelako, eta teoriatik praktikarako aldea beti haintzat hartu beharrekoa delako. Santuen eta santen bizitzen kontakizunekin ere gertatzen den bezala, inozoak ginatete erregeletan agintzen zena errealitatean hitzez hitz hala gertatzen eta betetzen zela sinetsiko bagenu. Bestetik, eta garrantzitsuagoa dena, eredu hauez aparteko bizimodua egiten zuten monasterioak

ere hainbat izan zirelako; dagokigun espazioan, aurrerago ikusiko dugunez, gehiengo nagusia (eta gure ikerketa esparruari dagokionean, bereziki, jarraian aipagai izango ditugun monasterio familiarrak). Eta azkenik, monasterio hauetan, orain arte gehiegirik erreparatu ez diogun beste fenomeno bat ere presente zegoelako: Goi Erdi Aroko beste monasterio moietan bezalaxe, maila eta gradu ezberdinetan atxikiriko biztanleak ugariak izan ohi ziren, *familiaritas* izena jaso duen binkulazio formak, zenbaitetan, monasterioko konplexua erlijiozkoen eta laikoen artean osaturiko herrixken (eta are batzuetan aski handiak ziren herriak ere) sorrerara bideratzen zuelarik. Eta bereziki emakumeen artean, *familiaritas* erlazioen arabera sarturikoen eta propioki komunitatearen parte zirenen arteko nahasmenak, terminologia bera ere artean finkatu gabe egonik, ez ziren batere arraroak izaten. Serorekiko bereziki esanguratsua zaigun *soror* izena, beste hainbat bezala, batzuei bezalaxe aplikatu zitzaion besteei ere.

Monasterio familiarrek kristautasunaren forma "ofizialetatik" jaso zuten gaitzespenaren erakusgarri egoki bat, beraiei buruz informazio esanguratsua ematen digun iturrietariko bat, erabat gaitzesteko aipatu eta deskribatu zituen *Regula Communis*-a (VII. mendeko bigarren erdialdea) bera izatea dugu. Deskribapen hau erregelaren lehen puntuan egiten zaigu, testuari ekin bezain laster, hain zuzen ere, erregelan arautzen zen bizimodu monastiko "zuzenaren" eta monasterio familiarretako bizimodu "traketsaren" arteko ezberdintasunak ezarririk, egokia eta desegokia, onartua eta onartezina banatzeko (Anonimoa 1971 -VII. mendea-, 172-177). Baina hala ere, gaitzespenak gaitzespen, Goi Erdi Aroko Penintsula iparraldeko monasterioetariko gehienak monasterio familiarrak izan ziren, eta gainera, hauetako hainbatetan, -bikoitzak, baina ez familiarrak, ziren monasterioetarako hautemana izan zen- *Regula Communis*-ak berak lehen eredia eman zion *pactum* bidezko monakotzaren edo "hitzarmenezko monakotzaren" forma eurenganatu egin zuten. Monasterio hauek Elizari azaltzen zizkioten alderdi arazotsuetariko bat jabe partikularrena izatearena eta beraien ondasun lez, dohaintzan edo oinordekotzan emanik esku pribatuetan jarraitzearena izan zen (hauek jaun edo andereak, edo auzotarren komunitateak izan); batzuetan laikoak eta beste batzuetan erlijiozko gizon edo/eta emakumeak izan ohi ziren fundatzaileak, eta lur partikularretan fundatuak izanik, *ius episcopale*-aren manupetik at gelditzen ziren (edo jabe fundatzaileek hala kontsideratzen zuten behintzat), eta ez ziren, era berean, monasterio nagusiagoen meneko ere. Monasterioak familien ondasunen partetzat mantentzen ziren beraz, eta elementu erregulatzaile bakartzat, lekuan lekuko "ohiturez" beste, Gallaecia zaharreko, Gaztela Zaharreko, Errioxako, Nafarroako eta Arabako lurretako monasterioen hainbat kasutan behinik behin, aipagai izan ditugun komunitatearen eta bertan sartzen zirenen arteko *pactum*-ak baino ez ziren ezartzen.

Aipatu izan denaren arabera, monasterio hauek "funcionaban como iglesias propias de particulares y no tenían de *monasterio*, formalmente dicho, más que el nombre" (Fernández Conde 2008, 225). Hitzarmenezko monakotzaren ohiturak jarraitzen ziren lekuetan, hitzarmenetako ardura nagusiak, izan ere, askotan ekonomikoak izaten ziren, komunitatearen bizimodu eta erlijiotasunari buruzko erregulazio handirik baitaratu gabe. Berez, eta nahiz eta honen inguruan Euskal Herriko egoerari buruz jardutean sakonduko dugun, monasterio hauek Penintsula iparraldeko Goi Erdi Aroko komunitateen azpiegitura sozial eta erlijiosoen sarearen oinarrian zeuden, giza-taldeen eta botere-egituren antolakuntzarako elementu nagusi lez. Hau da, monasterio familiarrak ez ziren komunitate erlijiosoei zegokien biziraupenerako egitura hutsak, espazio sozial oso baten antolakuntzarako elementu nagusiak baizik, ondorengo mendeetako feudalismorako bilakaeran oinarritzkoak izan zirenak. V-VIII mendeetako

Penintsulako testuinguru nahasian (bereziki, iparraldeari eta baskoien inguruari dagokionean), eta 711ko musulmandarren inbasioaz geroztiko mugimendu berpopulatzaileen testuinguruan areago, Goi Erdi Aroko Penintsula Iberikoaren espazio sozial eta erlijiosoaren egituraketan monasterio hauek izan zuten papera erabat oinarritzkoa eta ardatzekoa izan zen⁵⁴.

Bada, klausura aktiboaren presentziari jarraiki daramagun ildoari heldurik, -askotan familia berdineko partaideak ziren- gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko banaketak bestelako monasterioetan baino arras nasaiago jarraitzeaz beste, eta nahiz eta azalpen esplizituak urriak izan, itxura guztien arabera, monasterio familiarretako emakumeei klausura aktiborik ezartzen ez zitzaie behar dugu esan. Hitzarmenen presentzia edo ausentziaz aparte, bizimoduaren arautzea "ohiturazkoa" izatera mugatzen zen askotan, erregela jakinik jarraitu gabe, eta uler litekeenez, egoera hartan, zaila dugu komunitateetako partaideek klausurako bizimodua eramango zutenik pentsatzea. Bestetan aldiz badira *regula mixta*-ren tradizioaren arabera osatuak diruditen erregelen aipamenak, eta baita beneditarren erregelarena ere, behin hau Penintsulako lurretan hedatzen hasia zenean (batez ere IX. mendeaz geroztik, baina erregela honen "monopolioaren" garaien aurretik). Alabaina, eta aurrerago Euskal Herriko bertako kasuetan ikusiko dugunez, ez dirudi hauek ere klausura aktiborik arautzat hartu izan zutenik. Ibilbide honetan, hitzarmen edo *pactum*-ak eurak ere, jada IX-X mendeetara heldu ahala eta ohitura Gallaecia zaharretik penintsula ekialderagoko lurretara hedatua zenean, Pirinioen bestaldetik Nafarroako Erreinuaren bitartekaritzarekin helduz zioan benediktartzearen eraginak eraldatuak izan ziren, bi alderen arteko betebeharren eta eskubideen hitzarmen izatetik, hitzarmena sinatzen zuten pertsonetik, hauek monasterioenganako zeukaten erabateko obedientzia eta beraien gain monasterioek zeukaten alde bakarreko boterea azpimarratzera heltzen ziren formetara helduz⁵⁵.

Ohitura hauekiko, oso interesgarriak dira penintsula iparraldeko eta Irlandako ohituen artean ageri zaizkigun parekotasunak eta balizko erlazioak. Balizko erlazio hauek aipagai izan dugun *Regula Communis*-aren eragin posiblei buruz ziharduela aipatu zizkigun Orlandis-ek; jakina da erregela hau idatzi zen testuinguruan nolabaiteko "kolonia monastiko zeltiar" zirudien bat izan zela, Britonia izena hartu zuen apezpikutzan. Apezpikutza honen lehen agerpena 572an Bragako II. kontzilioko aktak sinatu zituen Mailoc apezpikuarekin izan zen, eta bertako apezpikuen sinadurak 675eko Bragako III. kontziliolarterako aktetan ageri zaizkigu (ggb.rako mende bateko denbora hartan lurraldeotan izan ziren 5 kontzilioetan, bada). Mailoc apezpikua, izen nabariki zeltiarrak zeramana, suebiarren erreinuaren konbertsio katolikoa gauzatu zuen eta Bragako II. kontzilioko buru izan zen Bragako Martinen garaian azaltzen zaigu, Martin

⁵⁴ Ikus Orlandis 1971, VII. kap., 125-164, eta VIII. kap., 165-202; Bishko 1984, I, II eta III ikerketak; eta Fernández Conde 2008, 222-273.

⁵⁵ Klausurari buruz, alde batetik, monasterio bikoitzetariko gehienetan jarraitzen ez zela dirudien heinean (aurreko kapituluaren eman ditugu honen inguruko azalpenak), monasterio familiarretan klausura gordetzen zela pentsatzea ez genuke zentzuduna, are arautze-maila baxuagoa izanik. Hala dirudi *Regula Communis*-aren testuan bertan ere, non "euren etxeetan" monasterioak -monasterio familiarrak- sortzen zituztenak salatu zirenean, "munduaganako" mantentzen zituzten loturen (batez ere, lotura ekonomikoaren) aurka sutsuki ekin zitzaion: "Y obran así para mantenerse siempre bien unidos a los seglares y a los príncipes de este mundo, y amar, como el mundo, a los seguidores del mundo, y perecer con el mundo, como los mundanos" (Anonimoa 1971 -VII. mendea-, 173). Bestetik, aipagai izan dugun bibliografiako monasterio familiarren adibideei erreparatzean, hauetako emakumezko partaideen aktibitateek ez dute, inondik ere, itxurako bizitarik adierazten, are, Fernández Condek izendatzen dizkigun bezala, "beneditar-aurretiko monakotzaren" forma guztiei buruz jardutean ere; bere liburuan ematen dizkigun adibideetan behintzat, ez zaigu klausuraren inguruko erreferentziarik ageri (Fernández Conde 2008, 226-273). Azkenik, hitzarmenezko monakotzaren aipaturiko eboluzioa, Bishkok xehetasunez azaltzen digu (1984, III. ikerketa).

berak Dumioko apezpiku lez kontzilioa agindu eta gidatu zuenean, abade-apezpiku zela. Mailoc beraren Britoniako apezpikutzak, bestalde, VI. mendearen bigarren erdialdeko "Parochiale suebiarra" bezala ezagutzen den dokumentutik ondorioztatu denaren arabera, garai hartako apezpikutzak irlandarren ohizko ezaugarriak zeuzkan, lurraldeko beste apezpikutzek ez bezala: bere menean zehazki esleituriko lurralde bat izan beharrean, *intro Britones* zeuden komunitateen gaineko agintea zeukan (Asturiaseko lurraldeetan zeudenak barne); ez zen territoriala, komunitate espezifikoei zegokion. Kristautasun zeltiarraren ohiturak jarraitzen zituen komunitate honek, bada, mende bateko jarraipena bazeukan, testuinguru hartantxe *Regula Communis*-a VII. mendearen bigarren erdialdean idatzi zenerako⁵⁶.

Eta erregela honen ardatzetik, aipatua dugun bezala, ondorengo mendeetan zehar "herrixka monastiko" tankerakoak osatzera heldu ziren bezalaxe (monasterioko komunitateaz gain -hau bikoitza edo familiarra izan-, *familiaritas* erlazioen pean atxikiriko populazio zabal bat baitaratzen zuten "herrixkak"), kristautasun zeltiarraren eragin eremuan ere izan zen pareko eboluziorik. Batez ere Irlandan eta Eskozian, eta baita Galesen eta Ingalaterran ere hedatu ziren *Céli Dé* edo kuldeoen komunitateen kasua dugu: VIII. mendean ezagutzen zaizkien lehen zantzuez geroztik azken komunitateak desagertu ziren XIII. menderaino, izen honen pean eredu monastiko baten araberrako bizitza egiten zuten laikoen taldeak batu izan ziren, "mundutik" aldendurik eta batzuetan nor bere zeldan eta bestetan taldeetan bizitzen zirenak, monasterioren bat edo katedralen bat erdigune eta kultuleku zutela. Idatzirik ere jasotzera heldu izan ziren inspirazio monastikoko arauak jarraitzen zituzten, baina ez zuten boturik egiten, ez eta klausurarik gordetzen ere. Hein batean, jarraian laburki azalduko dugun Penintsula Iberikoko *familiaritas*-arekiko bilakaera paraleloa izan zuen fenomeno bat izan zen; ez dirudi, nahiz eta ikerketa konparatibo espezifikoen faltan haratagoko ezer esan ezin litekeen, bizimodu monastikoaren antzaldatze edo moldakuntza laiko hauek tarte kronologiko berean gertatu izana eta hainbat antzekotasun formal agertzea kasualitatea denik⁵⁷. Ezin gara baina hemen halako lanetan sartu.

Esandakoez gain, bakarkako, bikoitz edo familiar ziren monasterioetako komunitateen izaera ulergarri izan dakigun, *familiaritas*-aren inguruko zenbait azalpen eman beharrean gaude. Hainbat laiko, "traditio corporis et animae" bezala ezagutu zen formularen pean tankera ezberdinetako monasterioei (sexu bakarreko partaideenak, bikoitzak nahiz familiarrak) gradu eta forma ezberdinetan lotzen zitzaizkien, modu partzial batean monasterioko partaide izatearen abantailez gozatzen iraganez, dohaintza motaren baten truke. *Familiaritas*-aren praktika, gainera, eta hau seroren hastapenekiko garrantzitsua dugu -eta hainbat komunitate kuldeoren egoerarekin ere bat egiten du-, ez zen soilik monasterioetan hedatu, katedraletan eta bestelako elizetan ere usu dokumentatu izan baita, kabildoekin, apezekin edo *canonica* erregularrekin gauzatzen ziren kontratuetan. Honek, esana dugunez, fenomenoak indarra hartzen bazuen, bizimodu monastikoa (edo erregularra, monjeak edo/eta birjinak) edo kanonikoa (edo sekularra, apezpikuak, apezak, diakonoak edo/eta diakonesak) zeramaten erlijiozko gizon edo/eta emakumeen inguruan biltzen ziren laikoen taldeekin, nolabaiteko "herrixka monastiko edo erlijiosoak" sortzea eragin zezakeen. Instituzio edo komunitateaz gain, kontratuaren bestaldean, ohizkoena bakarkako gizon eta emakumeak egotea zen, baina bestelako egoerak ere ez ziren arraroak, aniztasun handia izan zezaketenak: bikote ezkonduak, familia-erlazio ezberdindun talde txikiak, familia osoak, nahiz, zenbaitetan, herri edo komunitate osoak ere izan ziren.

⁵⁶ Ikus Orlandis 1971, 95-122; eta Isla Frez 1991.

⁵⁷ Ikus Haggart 2003 eta Follet 2006.

Berez, Europa guztiko lekuetan eman zen fenomenoak dugu, baina Penintsula Iberikoan eta kristautasun zeltiarraren jatorrizko lurraldeetan bereziki indartsu erroto zena, beneditarren erregelaren hedapena eta Erreforma Gregoriarraren aplikazioa heldu arte beraien ohitura bereziak mantendu zituen lekuan lekuko tradizio erlijiosoen forma berezietan txertaturik. Hemen xehetasunetan sartzeko tarterik ez badaukagu ere, kontratu hauetako binkulazio formen aniztasuna oso handia izan zela nabarmendu beharrekoa da:

para unos, la relación no significaba más que la sociedad espiritual, conseguida a cambio de una pequeña limosna, mientras que otros se hallaban íntimamente ligados a una comunidad o *canonica*, con completa renuncia de sus bienes y con obligaciones cercanas, a veces, a la del estado religioso (Orlandis 1971, 374)

Aniztasun haren baitan, Orlandis berak bere ikerketan agertzen dizkigun jarraibide orokorrak oso baliagarriak zaizkigu, Aro Berriko Euskal Herriko serorek emakume "sekularrekiko" eta mojen komunitateekiko azalduko dituzten ezberdintasun orokorretariko zenbaitekin bat egiten duten banaketak agertzen dizkigulako. Forma sinpleen eta zurrunen arteko ezberdintasunei buruz dihardugu, eta baita dohaintza mota ezberdinek erlijiosoki, sozialki eta are juridikoki finkatzen zituzten komunitate eta tenpluekiko eskubide eta betebeharrak ezberdinei buruz ere⁵⁸. Baina nahikoa bekigu oraingoz hauen berri emate hutsarekin, parekotasun hauek aurrerago lantzeko utziko baititugu.

II. 2.3. Aldaketa garaiak: ordenen hedapena, Erreforma Gregoriarra eta klausuraren orokortzearen hasiera

Hein handi batean, Aintzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko monakotzaren forma familiar eta bikoitzen desagertzea eta emakumezkoen komunitateen -gizonen bidezko- kontrol, erregulazio eta klausurarako joera bi gertakizun historiko nagusiri loturik daudela dirudi: merobingiarren erreinuaren eredu kulturalen hedapena eta Karlomagnoaren aldiko gailentzea, eta beneditarren erregelaren eta hau jarraibide egin zuten ordenen erreformaren hedapena. Izan ere, Karlomagnoaren Inperioaren lurraldeetan (edo behinik behin, Frantzia eta Belgika), eta baita Europako beste espazio batzuetan ere (Britainia), monasterio familiar eta bikoitzen gorakadak VIII eta IX. mendeetan eten gogor bat jasan zuen, garai hartan beneditarren helduerarekin monasterioen gain hedatu zen ohituren erreformaren ostean, ondoren jarraitu zuten eta fundatu ziren emakumeen monasterio gutxietan, emakumeen bizimoduak arauen zurrunagotzea jasan zuelarik.

Ohar dezagun gainera, VIII eta IX. mendeetako monasterioen fundazioen gainbeherak gizonzkoen monasterioei ere hein batean eragin bazien ere, hauek, IX, X eta XI. mendeetan gorakadan jarraitu zutela; VIII-IX mendeek, bada, Europa erdi-iparraldeko mapa monastikoan sexuen araberako aldaketa sakonen garai bat agertzen digute, mugarriztat egin zuena. Alabaina, aipagai dugun espazioaren baitan monasterioen fundazioen gorabeherak aipatu berri ditugunak izanik ere, izan ziren VIII-IX mendeen ondorengo garaietan monasterio bikoitzen gaineko agintea eta hauei asoziatuak lurraldeen eta jendearen gain botere nagusia izaten jarraitu zuten abadesak ere, nahiz luzaroegi ez izan; hau da, monasterio bikoitzen eta bertan emakumeek izan zezaketen boterearekiko, VIII-IX mendeetako bitarteak, VII eta VIII. mende hasieratako fundazioen garai gailenaren ondoren, emakumeen komunitateak zeuden monasterioen kopuruak estabilizatu eta gainbeherari ekin zioneko garaia adierazten digu, ez erabateko

⁵⁸ Ikus batez ere Orlandis 1971, 217-378; baina baita Giordano 1995 -1979-, 169-182.

eten bat. Ondoren, X. eta batez ere XI. mendeetan, fundazioen beste gorakada bat izan zen, baina berpizkunde honek jada oso bestelako izaera zeukan; aurreko mendeetan emakumeak partaide edo/eta gidari izan zituzten monasterioetariko asko ordurako gainbeheran joanak edo suntsituak zeuden, eta fundazio berriek bi printzipio askoz zurrunago jarraitzen zituzten: emakumeen eta gizonen komunitateen erabateko banaketa, eta emakumeendako klausura⁵⁹.

Beneditarren hedapena ibilbide honetan garrantzitsua izan zen, besteak beste, Karlomagno berak, baina areago bere seme Ludobiko Piok eta honen erreformetan ardatzekoa izan zen Anianoko San Benitok, beraien menpeko lurraldeetako monasterioak kontrolpera eramateko instrumentu politikotzat baliatu zutelako. Izan ere, beneditarren ordenak bazuen zerbait garrantzitsua: beste erregelen aurrean "discretio"-ak bereizten zuen bere erregela, erregela bakartzat orokortzeko joera, estrategia edo nahia, *regula mixta*-ren ohituren gain. Ludobiko Pioren agintepean Aquisgran-n izan ziren zenbait sinodo monastikoren (816-821) ondoren, beneditarren erregela inperioko erregela bakartzat ezarria izatera iragan zen, Europako monasterioen beneditartzeari bultzada erabakiorra emanez. Korronte hau ez zen Nafarroako erreinura -eta honen bidez Penintsula Iberikora- ordenaren baitan Cluny-ko erreforma jada abian zen arte heldu, Santxo Nagusiaren erreinaldian. Erregela bera, noski, lehenagotik ere heldu izan zen penintsulara, baina artean, *regula mixta*-ren araura egindako konpilazioetan.

Cluny-n gauzatu zen erreformak, gainera, erregela bakarraren orokortzerako joerari beste ezaugarri garrantzitsu bat gehitu zion: monasterioen arteko obedientzien mailakatzearen ezarpena; hau da, botere-egituren zentralizazioa (Cluny-ko monasterio nagusia buru zela, noski), Karlomagnoen eta bere ondorengoen Inperioari, zalantzarik ez, interesgarria zitzaiona. Eta noski, monasterio bikoitzen eta batez ere familiarren erreforma eskatzen zuena, hauek, edo sostengatzen zituzten patroienaganako obedientziapekoak, edo autonomoak baitziren, edo nolabaiteko "federazioetan" egoten baitziren. Hau da, Cluny-ko erreformaren heldueraren aurretik, monasterioak ez ziren botere egitura zentralizatu handien menpeko, euren kabuzkoak edo gertuko botere esparru laikoen obedientziapekoak baizik. Baina aldaketak ez ziren botere-egiturei zegozkienak soilik; ideologia berri baten gailentzea ere izan zen, emakumeen talde erlijiosoekiko, kontrol sozialaren areagotze handi bat eragin zuena. Erregelen ugaritzeaz gain, kontzilioek monasterioetako sexuen banaketa eta emakumeen komunitateen klausurarako bideratzea ere arautu eta agindu zituzten, esan bezala, merovingiarren eta batez ere Karlomagnoen garaiko Inperioaren eragin-eremuan VIII-IX mendeetan ekin zitzaion emakumezkoen monasterioen gainbeheran indartsu eragin zuena, eta ondorengo erreinu karolindarraren eraginpean orokortuko zena⁶⁰.

Klausurarekiko, aldaketa hauek *aita santuaren klausura* ("clausura papal") deitu izan denaren lehen pausuak ziren. XI-XIII. mendeak bitarteko eta geroztiko egoeraren berri aurreraxeago emango badugu ere, "monastizismo zaharra" deitu genezakeenaren testuinguruko eredu aszetikoaren baitan klausuraren papera oso bestelakoa izan zela aintzat hartu beharrean gaude. Perfekzio aszetikorako "gomendioetariko" bat zen, eta kasurik gehienetan, are erregelak tarteko zirenean ere, "gomendioaren" mailan hautemana izan zen. Ondorengo garaietako klausuraren lehen eredu eta aurrekari izan zen Cesareoren erregelak, ikusi ahal izan dugunez, ez zuen ondoriotzat klausuraren orokortzerik izan, eta klausura aktiboa ez zen, hain zuzen ere, Bonifazio VIII.ren 1298ko *Periculosus* bulda eta ondorengo beste zenbait heldu ziren arte "arau" bihurtu. Eta hala ere, klausura aktiboa efektiboki martxan jartzeko neurri eraginkorrenak ez ziren

⁵⁹ Eckenstein 1963; Tibbets Schulenburg 1989; eta Greer 2012.

⁶⁰ Ikus Linage Conde 1973 eta 1985; Rosenwein 1977; eta Álvarez Palenzuela 1992.

Trentoko Kontzilioko XXV. bilkurako (1563) erabakiak arte heldu, eta Euskal Herrian behinik behin, kontzilioko aginduak praktikara eramanez zirenerarte, kasurik gehienetan XVII. mendearen hasieratararte itxaron beharrean gaude. Baina helduko diegu azalpen hauei zabalago ondorengo orrietan⁶¹; oraingoz, eta jarraian datozen hausnarketetarako, zera behar dugu buruan hartu: "monastizismo zaharra" izenpean aditzera ematen ditugun forma monastiko eta aszetikoetan, klausura aktiboa oso gutxitan eramanez praktikara, eta ideal aszetikoaren parte izanik ere, orokorrean ez zen -erregelatan- arautzat hartua izan.

II. 3. Seroren aurrekarietan: diakonesak ala monakotza zaharreko *soror*-ak?

Behin puntu honetara heldurik, hau da, IX-XI mendeetako aldaketa eta erreforma garaian aurretik Euskal Herriaren kristautze-prozesua gauzatzen zen bitartean inguruko lurraldeetan izan ziren erlijiozko emakumeen instituzioen gainbegiraturia emanik, gerturatu gatazkieke ardatzezko galderari: bitarte kronologiko hartan *soror* izenez ezagutuak izan zitezkeen erlijiozko emakumeen artean, zeintzuk izan zitezkeen ondorengo Euskal Herriko lurretan *serora* izan zirenen aurrekari? Galdera honi erantzuteko, edo erantzuten saiatzeko, hiru alderdi jorratu beharrean gaude: (1) Euskal Herriko lurraldeek garai haietan zeukaten testuinguru sozial eta erlijiosoa; (2) testuinguru hartan, orain arteko ataletan aipagai izan ditugun erlijiozko emakumeen forma ezberdinen heldueraren frogak eta zantzuak; eta (3) terminoak euskaraz eta inguruko hizkuntzetan izandako eboluzio fonetikoa eta semantikoa.

II. 3.1. Euskal Herriko lurraldeen Antzinateko eta Goi Erdi Aroko testuinguru sozial eta erlijiosoa

Baskoien eremuko lurraldeetan komunitate kristau antolatuak jada IV. mendearen bukaera aldean bazeudela, San Prudentzioren testigantzak aditzera ematen digu. Hurrengo mendeetan lurraldeotako kristautzean parte hartzen ageri zaizkigun pertsonetarikoa hainbat, "laiko hutsak" izan ziren, ideal aszetikoaren jarraibideei ekin zietenak: Nolako Paulino, ez dakigu Hispanian eta Galia hegoaldean lur eta aberastasun handiak zeuzkan bere emazte Teresiarekin edo bakarka, IV. mendearen bukaera eta V. enaren hasiera inguruan ibili zen *saltus vasconum*-eko baskoi "barbaro" eta "paganoen" artean (Paulino *cliché* honen sortzaileetarikoa bat dugu) bizimodu aszetikoa egiten, eta ziurrenez, ebanjelizazio lanetan saiatzen⁶².

Lehen zertzelada hauen ondorengo garaietan heldu ziren herri germaniarren inbasioak, Elizaren egitura instituzionalak finkatzen hasiak ziren lekuetan, honen moteltze eta atzerapena eragingo zituztenak. Penintsula Iberikoaren kasuan, baita iparraldeko lurri zegokienean ere, ordurako, IV-V mendeen ingururako, apezpikutzen arabiarako antolakuntza bezalaxe monakotzaren formak ere hasiak ziren hedatzen, motel, baina atzerapauso gabe. V-VIII mendeak bitartean penintsulan biziko den egoera kristautze prozesu batena dugu, paganismoak atzera egiten duen artean. Prozesuak, noski, gorabehera ugari eta kronologia ezberdinak izan zituen, eta kristautzearen forma ezberdinen artean, apezpikutzen eta monakotzaren formen arteko lehia ere izan zen tarteko. Penintsularen iparraldearen kasuan nabaria izan zen kristautze prozesu hartan monakotzaren formek izan zuten nagusitasuna, eta indartsu txertatu zen Europako beste leku batzuetan ere ohizko egin zen abade-apezpikuen instituzioa, VI-VII mendeen

⁶¹ Ikus aurrerago II. 4. atala, 114 eta hurr. or.

⁶² Ikus, adibidez, Sayas Abengoechea 1985; eta Larrañaga Elorza 1999.

inguruan izan zen bultzada kristautzaile indartsuaren testuingurutik bertatik. Alabaina, zailak izan ziren artean ere instituzionalizazio bideak, eta handia zen egoera instituzionalen aniztasuna, hierarkiaren kontrol gabeko espazioak bezalaxe. Hau bereziki aintzat hartzekoa dugu dagokigun espazioan, laburtu berri ditugun ezaugarriak zituen testuinguru orokorraren baitan. Izan ere, euskal lurraldeen kasuan, monakotzaren formen nagusitasunaz gain paganismoaren biziraupen luzea ere aintzat hartu beharrekoa dugu, kristautzearen lehen zantzuak Antzinateko garaietan aski goiztiar izanik ere, tumulo eta harrespiletan buruturiko erritu paganoen biziraupenaren azken arrastoak ere aski berantiarrek baitira, XI-XII mendeetako muturreko datetaraino ere helduz. Euskal lurraldeen kristautzearen prozesua Europako lurralde gehienetako prozesuekiko luze eta motela izan zela behar dugu hortaz momentuoro gogoan izan, lurraldearen hegoaldeko Antzinateko lehen arrasto kristautetik Erdi Aro beteko azken agerpen paganoetarainoko bitarte zabalean⁶³. Jarraian azalduko ditugun gertakizunak eta datuak, bada, testuinguru orokor hari dagozkio.

Baskoien lurraldeen ingurukoei dagokienean, Prudentzioren testigantza ondoen ez zen denbora askorik igaroko beste korrante erlijioso indartsu eta arazotsu bat azaldu arte: priszilianismoa. Inperioaren gainbehera baino lehenxeago, gainbehera bera ondorio izango zuten barne-arazoak pil-pilean zeudenean, *Gallaecia* zaharretik joera aszetikoak gidaturiko mugimendu priszilianista hedatu zen penintsula iparraldean, eta mugimendu honi dokumentatu ahal izan zaizkion muturreko espazioek, Akitaniak eta Tarragonak, Erromatar Inperioaren komunikabide nagusien baitan baskoien lurraldea zegoen espazioa baitaritzen dute, bi espazio hauen eta mugimenduaren jatorriaren arteko gurutzebide nagusiak ordungo baskoien lurretatik igarotzen baitziren; eta frogatua dago *Elusan* eta *Oscan* mugimenduak jarraitzaileak izan zituela. Priszilianismoaren baitan apezemeen edo diakonesen berririk aurkitu izan ez bada ere, jakina da emakumeek, batez ere zenbait alargun dirudunek, hainbatetan *virgines* eta *viduae*-en taldeak osatu eta gidatzen zituztenek, sostengu handia eman zioten mugimendua izan zela. Jakina da halaber, priszilianismoaren aurka antolaturiko -eta Espainiako eta Akitaniako apezpikuak presente izan ziren- Zaragozako 380ko sinodoan salatu zenaren arabera, priszilianisten artean emakumeek irakurketa publikoak egin eta komunitatearen hezkuntzan parte hartzen zutela. Bada, emakume hauen artean behar zuten Bordelen poeta eta erretoriko izana zen Attio Tiro Delfidio aski famatuaren alargun Eucrociak eta bien alaba Proculak egon; bere aurkako salaketan aurrean defendatzeko asmoz Erromako Damaso apezpikuarenganako bidea hartu zuen Prisziliano beraien lurretan hartu eta -azken hau Bordeletik kanporarazi zuen Delfinioren jazarpenaren aurrean- babestu zuten, eta -apezpikuak ere tarteko zeuden- aldekoen talde bat osatuz, berarekin batera joan ziren Erromara. Garesti ordaindu zuten emandako laguntza: Eucrocia eta Procula, Prisziliano bera bezalaxe, heriotzara kondenatuak izango ziren, bigarrena, Priszilianorekin oheratu izanaz salatua izateaz gain.

⁶³ Testuinguru orokor honen taxutzerako baliatu ditugun lanak, dagokien lekuan aipaturiko lanez gain (euren artean Euskal Herriko egoerari espezifikoki dagozkionak), ondorengo orrietako azalpenen oinarri orokortzat ere baliatu ditugunak -eta hain zuzen ere izaera orokor horregatik aldiro aipatzea ekidingo dugunak-, honakoak ditugu: apezpikutzen egituratze eta finkatze prozesuari eta kontzilioei buruz, Escribano Paño 1977; Larrañaga Elorza 1989; Castellanos 1995 eta 1998; Martin 1998; eta Zabalza Duque 1977; monakotzaren hedapenari buruz eta bereziki penintsula iparraldeko egoerari buruz, Orlandis 1971; Díaz Martínez 1991; Martínez Tur 1999; Ferreiro 1980 eta 1981; López Quiroga 2002; Riu 1982; Martínez Tejera 2006 eta Azkarate Garai-Olaun 1988; kristautzeari eta paganismoari buruz, azken autore honez gain, González Echegaray 1982 eta Gómez Fernández 2000. Aspektu guzti hauei buruz orokorrean, Fernández Conde 2008.

Zenbait lurraldetan, batez ere mugimenduaren jatorri zen *Gallaecia*-n, bere ohiartzunak luze jarraituko zuen Eliza ortodoxoaren instituzioen desagerrarazte neurriak eragiten, zenbaiten arabera, IX. mende hasieratako Donejakueren hilobiaren inbentzioraino bertaraino luzatu zen ildo batean; bada hilobi hau Prisziliano berarena zela uste duenik (Priszilianori bezalaxe, Jakueri ere burua moztu zioten), eta Donejakueren figuraren bidez priszilianismoaren kultuak ibilbide ortodoxotara eraman nahi izan zirela pentsatzen duenik ere. Gaitzespen eta jazarpen instituzionalekin izanik ere, Priszilianoren hilobia bere heriotzaz geroztik peregrinazio gune bihurtua izateak, noski, hipotesiari oinarria ematen dio. Dagokigun espazioarekiko, Akitaniarekiko erlazioek eta lurraldearen kokapenak berak priszilianismoaren eraginaren posibilitatea batere aldrebesa ez litzatekeela iradokitzen digute, eta izan da posibilitatea erabat zentzuduntzat kontsideratu izan duen ikertzailerik ere; alabaina, ez da gaur artean mugimenduaren helduera erabakiorki frogatzen duen daturik aurkitu ahal izan⁶⁴.

Gainera, garai haietatik bertatik datozkigu ondorengo Erdi Aroko mende luzeetan zehar eta are Aro Berrian ere Euskal Herrian ohizkoak izango ziren zenbait arazoren inguruko berriak ere. Bata, erlijiozko gizon eta emakumeen zelibatuaren ingurukoa dugu, protagonistatzat, Nolako Paulino beraz gain, garai hartako kristautasunean oso garrantzitsuak izan ziren hainbat figurarekin kontaktuan izan zen eta jatorriz baskoia izatea aski probablea den pertsonaia baten eskutik gainera: Vigilancio. Pertsonaia hau Akitaniako *Calagurris*-ekoa omen zen (ikertzaile gehienek arabera, gaur egungo Saint-Bertrand-de-Comminges -edo Cazères-), bertatik Hispaniarako bidetik *statio* edo ostatu baten jabearen seme. Honek garai haietako pertsonai kristaurik garrantzitsuenetarikoa -eta ondoren kanonikotzat onartuko zen Bibliaren *Vulgata* bertsioren itzultzaile- izan zen San Jeronimorekin 406 inguruan izan zituen liskarrek, dotrinaren alorreko aspektuetan ere ikuspegi ezberdinak landu zirela agertzen digute.

Esan bezala jatorriz baskoia izan zitekeen⁶⁵ Vigilancio, funtsean, monastizismoaren agerpenak eta santuen kultuen hedapenak garai hartako kristautasunaren baitan hartu zuten protagonismoak eragindako forma berrien aurka azaldu zen: erlikien inguruko sineskerak eta hildakoei bideraturiko otoitzak superstiziotzat salatu zituen, martiriaren kultuak eta beraien basiliketarako peregrinazioak, bijiliak eta santuen mirakulutzat hartzen zirenak gaitzetsi, eta gure ikerketarako garrantzitsuagoa dena, Mendebaldeko Europan bere lehen hedapen indartsuan zegoen monakotzaren oinarriak kaltegarritzat salatu zituen; pobreziaren botua, eta gizon eta emakumeen birjintasuna, baztertu beharrezkotzat zeuzkan. Kastitatea ordenaturiko erlijiozko gizonen (apezpikuen, apezten eta diakonoen) nahiz emakumeen (aipagai izan

⁶⁴ Priszilianismoari eta bere hedapenari buruz, ikus Blázquez Martínez 1981a, 1981b eta 1982, Romero Fernández-Pacheco 1988, Barcala 1997, Ruiz de Pablos 2001, eta Euskal Herriko hedapen posibleari buruz, Azkarate Garai-Olaun 1988, 486-488 eta 1991.

⁶⁵ Jeronimok, Vigilancioren jatorria bere "arrazaren" izaera eskasa azpimarratzeko aipatu zigun. Hala, Ponpeiok K.a. 72 urtearen inguruan fundatu zuen *Lugdunum Convenarum*-eko (Saint-Bertrand-de-Comminges) biztanleen arrazakotzat zeukan; fundazio hartan, Ponpeiok, Hispaniako lurretan jatorria izanik Piriniotan babes hartua izango zuketan "Vectonibus, Arrebacis, Celtiberisque" herri lapur eta sarraskilariak mendietatik jeitsiarazi eta batuko zituzkeen. San Isidorok oster, *Etimologiak* bezala ezaguturiko VII. mende hasieratako lanean, Ponpeiok *Lugdunum Convenarum*-en piriniotatik jeitsiarazi ondoren batu zituenak baskoia izan zirela zioen. Litekeena da San Isidororengan baskoiei buruzko "barbaro" eta "basati" izatearen *cliché*-ak eraginik izatea, eta baita, kontrara, San Jeronimoren "Vectonibus" haien aipamena, hauen jatorrizko lurren urruntasuna argudiatuz iradoki izan denez, ondorengo mendeetan hedatu zen *vacceos*=*vascones* akatsaren tankerakoa izatea, jatorrian, poblazioa haiek, baskoia izanik. Edozein kasutan, San Jeronimok lapurren testuingurutzat zeuzkan Pirinioetan kokatu zigun Vigilancioren "arrazaren" jatorria, bere akatsen izaera "menditarra", zarpail eta baldarra azpimarratu nahian. Ikus San Jeronimo IV-V mendeak; eta Ruiz Bueno 1962, 549-556.

ditugun *virgines* eta *viduae*-en, diakonesen eta are, apezemeen) eredutzat monakotzaren eraginez finkatzen zegoen garai hartan, San Jeronimoren hitzetan, Vigilancioren jarraitzaileek ez zuten apezpikurik, apezik edo diakonorik ordenatzen, emaztea eta seme-alaba ugariak ez izatekotan. Bereziki aipagarria dugu, diakonesekiko balizko erlazioagatik, diakonoei buruz egiten duen aipamen esplizitua: "qui non ordinant diaconos, nisi prius uxores duxerint". Beraz, Vigilancioren eragina V. mendean zehar hedatu zen lurraldeetan, Akitanian eta Pirinioen inguruan, alegia, baskoiekiko kontaktu-gunean, apezpikuek, apezek eta diakonoek emazteak izatea defendatu eta ontzat ematen zuten poblazioak izan zirela esan liteke; zenbaitek, eragin hau Iparraldearen ekialdeko lurraldeetara behintzat heldu zela kontsideratu izan dute⁶⁶. Eta honek seroren hastapenekiko eta diakonesekiko puntu interesgarri batera gakartza: izan ere -eta gorago azaldu izan dugunez-, Antzinateko Elizaren baitan, apezpikuen, apezek eta diakonoen emazteek, hainbat lekutan desagerrarazi nahi izan ziren ohituren arabera, beraien senarren ministeritzaren ezaugarriak eurenganatzten baitzituzten.

Beste gauza bat ere ohartu beharrean gaude: Vigilancioren ideiak zabaldu eta -Riez-eko Faustoren aipamen batek aditzera ematen duenez- gutxienez V. mendean bukaerara mantendu ziren ingurunea, Akitania, Pirinioen espazioa, eta agian, hauen bidez lehenari lotzen zitzaizkion Hispaniako *Tarraconense*-ko eta baskoien lurraldeak baitaratzen zituen, bisigotoen Tolosako erreinu arrianoaren sorkuntza eta hedapena eta bagauden sarraski eta suntsiketek sorturiko egoera nahasia bizi izan zituena izan zen⁶⁷. Bagauden suntsiketak gogorarazi nahi baditugu, altxamendu hauetariko bat Euskal Herriaren lurraldeen baitan kokatzeaz gain (*Aracellitani* ziren bagaudak Arakileko -Nafarroa- kokapenarekin identifikatu izan baitira), hauek *Tarraconense*-an zehar egin zituzten sarrasketan elizekiko agertu zuten jarrera ikonoklastak Vigilancioren ideien ohartzuna ere izan zezakeelako da.

Vigilancioren ideiek Pirinioen iparraldean behintzat hautsak arrotu bazituen, bestaldean ere laster izan ziren beste arazo batzuen berriak, hain zuzen ere, bagauden lehen altxamenduak izatetik (gg. 440an eta 454an) urte gutxitara. Eta kasu honetan ere, Euskal Herriaren ondorengo testuinguruan ere ohizkoa izango zen arazo-iturri baten ingurukoak izan ziren: apezek eta batez ere apezpikuen ordenazioan, beste apezpikuek zeukaten edo ez zeukaten papera. Izan ere, 454-457 bitartean hainbat arazo izan baitziren gai honen inguruan, Kalagorriko (Errioxa) Silvano apezpikuak bere kabuz -*Tarraconense*-ko metropolitanoaren baimenik gabe- beste apezpikuak eta apezak ordenatzeari ekin zionean. Silvanok, *Caesaraugusta*-ko apezpikuak aita santuaren aurrean salatu zuenean, baskoien, beroien eta autrigoen lurraldeetako hainbat *honorati* eta *possesores*-en aldekoa izan zuen (beraien lurraldeak, *Calagurris*-ez gain, *Cascantum*, *Varegia*, *Tritium*, *Levia* eta *Virovesca* lekuetan hedatzen zituztenak). Aipaturiko lurraldeen artean apezpikutzak *Calagurris*-en bertan eta *Turiaso*-n zeudela ziurra da, eta *Levia* edo *Virovesca*-ren arteko bat apezpikutzak izatea ere posible litzateke. Gainontzeko kokapenen kasuan, itxuraz diakonoek, presbiteroek edo *sacerdos secundis ordinis*-ek gidaturiko komunitateak liriateke, esanguratsuki, V. mendean Akitanian ohizkoa izan zen agintari erlijiosoen antzerako egoera azaltzen duen azpiegitura bat osatuz (Larrañaga Elorza 1989).

Silvanoren kasuak apezpikutzen mailan eliz hierarkiek eremu hartan zeukaten instituzionalizaziorako arazoak azaltzen dizkigute; antzerako garaian kokatzen

⁶⁶ Vigilanciok XIX. mendeko zenbait autoreren interesa piztu zuen, eta beraien lanak, zaharrak eta pertsonaia protestantismoaren hastapenetan kokatzeko interesdunak izanik ere, probetxuzkoak ditugu oraindik: Gilly 1841 eta 1864; eta Peyrat 1855. Ikus, halaber, Castellanos; Pozo 1995-1996.

⁶⁷ Bagauden gaiarekiko ikus, esate baterako, Larrañaga Elorza 2004, 78-80.

zaizkigu bizimodu monastikoaren inguruko beste zenbait berri ere, apezpikutzen alderdian bezalaxe monakotzarenean ere hainbat "gabezia" zeudela agertzen digutenak. Lehenik aipagai behar dugun Oriencio santuaren kasuak, besterik gabe, V. mendeko "Vasconia"-ko basoetan ermitautza praktikatzea ohizkotzat azaltzen digu, bere *Vita*-n azaltzen denaren arabera, santuak -beste hainbatek egin bide zutenez- gaztaroan egin izan zuen bezala. Vigilancioren jarraitzaileek gaitzetsi izan zuten erlijioa eta izpiritualtasuna hautemateko moduaren testigantza dakargu, txanponaren bestaldea; erlijiotasuna hautemateko forma episkopalen eta monastikoen arteko tentsioen agergerri ditugun muturrak, garaiko kristautasunaren baitako arazoek kristautze-bidean zeuden euskal lurraldeetan ere ohiartzuna izan zutela erakusten digutenak.

Silvanoren garaia baino mende bete beranduago, honek menpeko izanak zituen lurralde berberetan bizi izan zen Milian santuaren (473-574) kasuak, ohartu bezala, bertako monakotzaren hastapenetan ere instituzionalizazio bideek hainbat gabezia zeuzkatela agertzen digu. Milian santuaren ibilbideek, izan ere, gure xedeetarako interesgarri zaizkigun hainbat datu baitakarzkigute. Lehenik eta behin, 20 urterarte artzain izan zen San Milianek, bizitza eremutarrerako barneratzea Felices izeneko *castellum Bilibium*-eko anakoreta edo eremutar batengandik hiru urtetan jaso zituen lezioen bidez egin zuen; *castellum* hau gaur egun Buradon Gatzaga deneko lurretan zegoen, Araban. Ondoren mintzagai izango ditugun Trebiñuko eta inguruko eremutarren kobetatik ere, ez oso urrun. Isidorok "Etimologiak" bezala ezaguturiko bere lanean (*De Origine*, 627-630) azaldu zituen monakotzaren formen klasifikazioaren arabera⁶⁸, Milianek ez zuen "eremutar zintzo" zirenen ibilbidea eraman; hauek, bakarkako bizimodura abiatu baino lehen, bizitza zenobitikitik iragan beharrean zeuden. Milian ostera, maisu baten jarraibidea hartu eta bakarkako bizitzara zuzenean habiatu zen "eremutar zantar" haietariko bat zen, eliz hierarkien onespelik izan ez zuena (eskatu ere ez baitzuen egin). Alabaina, Tarazonako apezpikuak eremutarra biztanleriaren artean hartzen ari zen itzal handiaren berri izan zuen, eta gizona Elizako ordenen baitan integratu asmoz, Berceoko apez izendatu zuen. Ez luzarorako, baina. Itxuraz, egokitu zitzaion elizako ondasunak emateari ekin zion, lurraldeko beste apezek elizaren ondasunak xahutzeaz salatu zutelarik. Apez esperientzia haren ondoren bakean utzi zuten eremutarra, eta orduz geroztik heriotzaren ordurarte, bere zeldako

⁶⁸ Isidorok, bere lanean, Juan Casianoren (*Collationes*, 418-427 bitartean idatzia) banaketari beste moeta bat gehitu zion, bizimodu aszetikoaren ibilbide onartuz kanpo mugitzen zirenean: "eremutar zantar" bezala itzuliko ditugunena. Berarengandik jasoko dugu ikerketa xedeetarako baliatuko dugun monakotza mota ezberdinen panorama orokorra: Isidororen arabera, alde batetik "eremutar zintzoak" zeuden, propioki "anakoretatzat" hartzen zirenak, bizitza zenobitikitik iragan ondoren *fuga mundi*-aren praktikarako espazio irisgaitzetara joaten zirenak; beste batzuek, aldiz, ez zuten erabateko bakardadean bizitza egiterako pausurik ematen, komunitate baten baitan bizimodu zenobitikoa egiten gelditzen ziren; azkenik, anakoreta edo "eremutar zintzoengandik" bereiz, "eremutar zantarrak" ere bazeuden, erlijiozko bizimodua erabateko bakardadean egitera, aurretik bizimodu zenobitikoa praktikatu gabe habiatzen zirenak. Azken hauek oker dotrinaletan erortzeko arriskuan hautematen zituen Isidorok, hain zuzen ere, *fuga mundi*-aren praktikari, esperientzia zenobitikoaren bidez portaera aszetikoaren jarraibide zuzenak ikasi gabe ekin ziotelako; 646ko Toledoko VII. kontzilioan, esaterako, salatuak izan ziren. Kontrol gabeko eremutar hauen presentzia monakotzaren heldueraren ondoren lehen milurtekoraino Europa guztian hedatu zen fenomeno izateaz gain, ohartu beharra dugu, Hispaniaren kasuan, monakotzaren helduera eta ondorengo bilakaera gertakizun traumatiko batzuek hasieratik baldintzatu zituela: Hispaniako lehen herese izan zen Priszilianoren eta priszilianismoaren inguruan izan ziren arazo erlijioso eta sozialak, jada aipagai izan ditugunak. Priszilianismoaren gaitzespenerako antolatatu zen 380ko Zaragozako kontzilioaz geroztik (zeinetan "mendietan ezkutatzen" ziren kristauak salatu ziren, oker dotrinalen iturburutzat), monakotzarena kontrolatu beharreko esparrutzat hauteman zen, nahiz eta asmoek eta errealitateak ez zuten luzaroan bat egin; 589ko Toledoko III. kontzilioan, esaterako, kobetan ezkutatzen ziren heresiak eta dotrina faltsuak aipatu ziren, bi mende lehenago Zaragozan egin zen bezalaxe.

bakardadean bizi izan zen. Eta aurreraxeago ikusiko dugunez, izan ziren, bere konpainian, emakumezko eremutarrak ere⁶⁹.

Testuinguru orokorraren azalpen hauetan gauza bat nabaria dugu: abiapuntutzat azaldu ditugun IV-VI mendeen bitarteko datu eta gertakizun hauen arabera, Erromako Elizaren aginteak laguntza instituzional eskasa zeukan espazio bati buruz dihardugu. Eta espazio honetan, aipaturiko gertakizunez beste, Erromako Inperioaren gainbeheratik Iruñako Erreinuaren hastapenen urteetararte, batez ere VI. mendetik VIII-IX mendeen ingururarteko bitartean, baskoi etnonimoaren pean bilduak izan ziren populazioak hegoaldeetik (batez ere Bisigotoen Erreinaua, baina baita musulmandarrak ere), mendebaldeetik (Suebiarren Erreinaua) eta iparraldeetik (Frankoen Erreinaua) beraien eta akitaniarren gaineko kontrola eskuratu nahi zuten antolakuntza politikoekin liskarretan izan ziren testuinguru aldakorra bizi izan zen, menderakuntza eta altxamendu garaiekin, antolakuntza politiko ezberdinen saiakerekin, etab. Jarraipen historiografiko zabala izan duen garaia, baina informazio iturrien urritasunagatik -eta baskoien etsai zirenen iturrietatik jasoak izanagatik- ulertzen zaila dena, eta gainera, nahasmenak areagotuz, gaur egunetik eragiten duten interes politikoek erabat mediatizatua izan dena. Nahastu baino egingo ez gintuzketen zurrunbiloetan sartu beharrean, beraz, eta nahiz eta garai haietan politikak eta erlijioak zeukaten elkareragina handia zela ohartzekoa dugun, ez gara gertakizun soziopolitikoaren inguruko azalpenetan hasiko, eta testuinguru erlijiosoaren azalpenerako beharrezkoak zaizkigun elementuetara mugatuko gara.

Elementu hauetariko bat, hau ere, politikaren aldetik eragindako historiografia bati bide eman diona, mende haietan dagozkigun lurraldeetako apezpikuek sinodo eta kontzilioetan izan zuten presentziarena da. Batzuek datu hauek momentuko borroka eta tentsio politikoaren agergerri direla interpretatu izan dute, eta beste batzuek, datu horien interpretazioan, faktore horrek baino beste batzuek pisu gehiago izango luketela defendatu izan dute. Interpretazioak interpretazio, kontua da, Iparraldean bezalaxe Hegoaldean ere, ondoren Euskal Herria osatuko duten lurraldeei zegozkien apezpikuak edo beraien ordezkariak ez ziotela metropolitarrak deialdia eginiko sinodo eta kontzilioetara ohizkotasun apur batekin agertzeari ekin, VI. mendearen erdi-bukaera alderarte. Eta berbera esan liteke, hein handi batean, baskoien etnonimoak eurenganatuako zituen aurreko etniak (barduliarrak, autrigoak, karistiarrak eta akitaniarrak behinik behin) hedatu izan ziren espazioetako apezpikuen asistentziarekiko ere. Hau da, Penintsula Iberikoan, Iruñaz gain, Kalagorri, Tarazona, Oska eta Okako apezpikutzekiko, eta jatorrizko Akitania eta ondorengo Novempopulania izan zeneko lurretan, 511ko (Orléans) eta 533ko (Orléans) sinodoetan izan ziren Eauze eta Akizeko (bietan), eta Bazas-eko (511koan) eta Saint-Bertrand-de-Comminges-eko (533koan) apezpikutzen salbuespenez, beste guztiekiko (Dax, Armagnac, Saint-Lézer, Lescar, Aire, Bigorra eta Olorue).

VI. mendean, Novempopulaniako beste apezpiku batzuekin 506ko Adgeko kontzilioan parte hartu zuen Eauze eta Gratianus apezpikuaren berriaz bestalde, jada garbi identifikaturiko zenbait apezpikutzak 541eko (Orléans), 549ko (Orléans) eta 551ko (Eauze, maila probintzialekoa) sinodoetan parte hartu zutelak dakigu: hiruretan Eauze, Akize, Dax eta Saint-Bertrand-de-Comminges-ekoek; hauekin batera, 541ekoan Bigorrrakoa, 549koan Armagnac-ekoa eta Saint-Lézer-ekoa, eta 551koan Saint-Lézer-ekoak eta Bigorrrakoa izan ziren. Baina Pirinioen iparraldean bezalaxe hegoaldean ere, VI. mendeko azken hamarkadetako sinodo eta kontzilioak izango dira, bapatean, aipaturiko lurraldeetako apezpikuen edo hauen delegatuen presentzia zabala agertzen

⁶⁹ Ikus honekiko, eta aurreko oinpeko notan azaldukoenak, Martínez Tejera 2006, 62-65; eta Ibáñez Rodríguez 1997. Ikus halaber bere lehen biografia, San Braulio de Zaragoza 1976 -c. 635-

digutenak. Hala, 585eko Mâcon-eko kontzilio edo sinodoan Armagnac-eko eta Saint-Lézer-eko apezpikutzak ez beste guztiak izan ziren presente, eta Toledoko 589koan (hiri honetako III.) eta Zaragozako 592koan (hiri honetako II.), aurretik 300-306[?] eta 546 bitartean egin izan ziren 8 sinodo eta kontzilioetan (2 apezpikutzen zerrenda gabeak) agertu izan ez ziren Iruñako, Kalagorriko, Tarazonako, Oskako eta Okako apezpikutzak, guztiak presente izan ziren. Beste momentu garrantzitsu bat VII. mendearen bukaerako hamarkadetan eman zen. Novempopulanian, asistentzia eskasa izan zuten 614ko Pariseko eta 627ko Clichy-ko sinodoen ondoren, 673-675[?]eko Saint-Pierre-de-Granon-ekora ia denak joan ziren, -aurreko bietan ere agertu ez ziren- Bigorrako eta, esanguratsuki, ondoren Euskal Herriaren Iparraldea izango duguneko lurraldeak baitaratzen zituen Dax-eko apezpikutzen salbuespenez. Ikertzaile batzuek V-VI mendeen inguruan kokatu izan dute Baionako apezpikutzaren sorrera, eta hori hala izatekotan, honek ere izan zezakeen, agian, ausentzia honekin zerikusirik; edozein kasutan, Dax-eko apezpikutzari zegozkion -edo aurretik egokitu zitzaizkion- lurraldeetatik ez zen inor 673-675[?]eko kontzilioa joan.

Hegoaldeko egoerak ere bere interesa du; *Tarraconensis*-ean VI. mende bukaerako kontzilioak arte agertu ez ziren apezpikutzetatik gehienak, Kalagorrikoa, Tarazonakoa, Oskakoa eta Okakoa, 683ko Toledoko XIII. kontzilioaren aurretikoetara (597-681 bitarteko 13 kontzilio, 3 apezpikutzen zerrenda gabeak) maiztasun ezberdinez joaten hasi ziren. Alabaina, Iruñako apezpikutzatik ez zen inor 683ko aipaturiko Toledoko kontziliolararte azaldu, eta presentzia honetaz daukagun hurrengo berria hiri bereko 693ko kontzilioa izan zen (tartean 684, 688 eta 691koak izan zirelarik, lehena eta azkena apezpikutzen zerrenda gabeak); bietan ere bietan, ez zen apezpikua pertsonalki joan, ordezkoak izan ziren presente⁷⁰.

Eliz hierarkien arabera zegozkien espazioetako kontzilioetarako asistentziaren eta ausentziaren inguruko datu hauek, interpretazio ezberdinak izan ditzakete. Honekiko baina, bada ohartarazi beharreko zerbait: ez dihardugu hain propioki kristautzearen intentsitateari buruz, kristautzearen prozesuak garai hartan har zitzakeen forma ezberdinei buruz baizik. Hau da, kontzilioetarako asistentziarekiko, hauek ez dira halabeharrez kristautzearen intentsitate baxuaren adierazgarritzat hartu behar, bertako komunitate kristautuek Elizako hierarkia eta kontrol egituretan izan zuten txertatzearen formen eta denboren ulermenerako datu adierazgarritzat baizik. Alabaina, kristautze mailarekiko datu adierazgarritzat ezin da inondik ere bere garaian Azkarate Garai-Olaunek aditzera emandakoa ere ahaztu: salbuespenen batekin bada ere, hein handi batean Iruñako apezpikutzako ordezkariak agertu izan ziren kontzilioek hain justuki ere praktika paganoak eta idolatria gaitzetsi zirenekin bat egiten dute, eta oso litekeena da kointzidentzia batere kasuala ez izatea (1988, 517-519). Alegia, gaitzespen hauek Iruñako apezpikutzari zegozkion lurraldeetan paganismoa artean bizirik izatearen agergerri lirateke. Edozein kasutan, gauza bat aski nabaria dugu: IV-VI mendeen bitarteko kristautzean gorago aipatu ditugun kontrol eta instituzionalizazio gabeziak bazeuden, VII. mendearen bukaera alderarte ez zaizkigu ondorengo Euskal Herria izango deneko espazioak baitaratzen zituzten apezpikutzak kontzilioen dinamiketan beharko zuketan ohizkotasunez parte hartzen ageri, nahiz eta hainbaten kasuan V. mendetik behintzat jada apezpikutzatzat ezagunak zirela dakigun, eta kontinuitatea izan zela ulertzea ematen duten datuak badiren. Eta bilakaera motel hau, gogorarazi berri dugunez, kultu paganoak bizirik mantentzen zituen biztanleriaren presentziak oraindik ohizkoa behar zuen mende batzuetan eman zen.

⁷⁰ Hegoaldeko datuak eta gaiaren inguruko eztabaida interesgarri baterako, ikus Larrea 1996 eta 1997; eta Larrañaga Elorza 1997 eta 1998. Iparraldeko datuetarako berriz, Larrañaga Elorza 1992, 200-203.

Orain arte ikusi dugunaren arabera, beraz, eliz-hierarkien kontrol gabezia egoera normala izan zen kristautasunaren hedapen mendeotan, monakotzaren alderdian bezalaxe, apezpikuen eta apezzen alderdian ere; ez dira gainera erabat banandu litezkeen errealitateak, monakotza nagusi zen testuinguruetan (eta Penintsula Iberikoaren iparraldearen eta Piriniotako espazioaren kasua dugu hau) apezpikuak eta apezak, kasu askotan, edo gehienetan, anakoreta edo eremutarrak, monjeak edo abadeak izaten baitziren. Egoera honekiko, oso adierazgarriak zaizkigu Fernández Conderen hitz hauek:

se tiene la impresión, en general, de que la realidad sociorreligiosa más corriente y perceptible era la que reproducía, con todas las acomodaciones exigidas por la sociedad de aquellos tiempos, las características propias del cenobio -de la vida en común- y no la de las futuras iglesias regentadas por presbíteros seculares, es decir, la de las primeras "iglesias rurales" o parroquias propiamente dichas. Hasta podemos dudar, con bastante fundamento, si los escribanos de la primera documentación que disponemos tenían nociones claras sobre lo que significaría entonces *clérigo secular* (Fernández Conde 2008, 160)

Alderdi hauen banaketa garbiago hautemango zen garaietako apezpiku eta apezzen aurrekariak, bada, monakotzari oso loturik egon ziren. Euskal lurraldeetan errealitate hau zeharo txertatua eta orokortua zegoen, aurrerago -terminoen ikerketa egitean- zehaztasunez azalduko dugunez⁷¹.

Izan ziren halaber, *monasteria* zirenei baino, kokapen jakinei edo/eta bertako elizei mugikortasun handiarekin loturik ohar litezkeen apezpiku eta apez "ibiltariak" ere. Hala, *episcopi vagantes* deitu izan ziren apezpikutza finkorik gabeko edo/eta ordenazio "ofizialik" ez zeukaten apezpikuak (halaber anakoreta, eremutar edo abade izan zitezkeenak) Europan zehar inbasio barbaroen garaiaz geroztik -behintzat- hedatu ziren (Galia eta Hispaniaren kasuetan, eliz agintari arrianoek katolikoak kanporatu izanak ere eraginda), eta Hispanian, beraien presentzia 711ko musulmandarren helduerak areagotu egin zuen, beraien apezpikutzetatik bidalitako edo ihes egindako apezpikuekin. Luzaro mantendu ziren beraz "arazo" hauek ere, VII. menderarteko bitartean behintzat hainbesteko "arazotzat" hartu ez zirenak, ondoren instituzionalizazio bideetara eramanez beharko bazituzten ere, hainbat lurralde paganoren kristautzearen erantzuleak apezpiku eta apez "ibiltari" hauek izan baitziren. Penintsula iparraldean Asturiasen, Kantabrian, Gaztela Zaharrean, Euskal Herrian eta Aragoan behintzat izan da beraien berririk, eta Galiako egoerarekiko, esate baterako, 742an Soissons-en, 755ean Ver-en, eta 813an Tours-en eta Châlon-sur-Saône-n izan ziren kontzilioetan hartu ziren beraien aurkako neurriak.

Azken kontzilio honetan, beste batzuetan bezalaxe, *scotti*-ak ere salatuak izan ziren, *episcopi vagantes* hauetariko hainbat, hedapenean zegoen kristautasun zeltiar edo irlandarreko (*scotti* izena garai hartan irlandarrei ematen zitzaien) misioilariak baitziren. Irlandako kristautzeak, jada aipagai izan dugunez, forma monastikoetan hartu zuen oinarri; apezpikutzen araberrako egituraketa garai haietan praktikoki arrotza zitzaien (abadeek agintaritza politikoa zeukaten, eta abadeak eurak apezpiku ere ez zirenean, apezpikuei alderdi liturgikoa baino ez zitzaien esleitzen, abadeen menpeko izanez), eta San Kolunbanoren garaian (VI. mende bukaera-VII.enaren hasiera) misioilariak kontinentera heltzen hasi zirenean, ez zuten bertan antolakuntza bidean zeuden apezpikutzenganako menpekotasunik zeukatenik hautematen. Erromarenganako errespetua gorde behar zutela hautematen zuten, ez baina, obedienciazko lotura

⁷¹ Ikus II. 3.3. azpiatala, 100 eta hurr. or., eta II. 4. atala, 114 eta hurr. or., bereziki II. 4.1. azpiatala, 131-136 or.

zurrunik zeukatenik. Aurkakotasunezko egoera hau VII-VIII mendeak bitartean behintzat mantendu zen, kontinentean lurralde jakinak beraien agintepean zeuzkaten apezpikuen eta misioilari zeltiarren arteko hainbat liskarretarako bidea emanez. Progresiboki jatorri zeltiarreko monakotzaren eta Erromako Elizaren arteko gerturapena eta elkarren arteko nahasketa gauzatuz ere joan zen, baina erabateko bateratzea ez zen erregela beneditarraren orokortzerarte lortuko (IX. mendean gorpuzturiko prozesua). Monakotza irlandarrak ondorengo kristautasunaren bilakaerarako egin zuen ekarpenik garrantzitsuenetariko bat penitentziaren -eta penitentzialen- garapena eta hedapenarena izan zen. Irlandako kristautasunean gorpuztu eta monakotzaren esparrutik gizarte laikora hedatu ziren penitentziaren ohiturek 580 inguruan ekin zioten Britainiar Irletatik kontinenterako iragateari, eta hauen Penintsula Iberikorako heldueraren berri jada Toledoko III. kontzilioko (589) 11. kanonean eman zen garbi asko:

"Habiendo sabido que en algunas iglesias de España los hombres hacen penitencia por sus pecados no conforme a los cánones sino que, de forma repugnante, cuantas veces quieren pecar, otras tantas piden ser reconciliados por un presbítero...". Sin embargo, sesenta años después, un sínodo reunido en Chalon-sur-Saone no sólo aprobó una penitencia individual y reiterable, sino que recomendó una satisfacción de obra de carácter espiritual (García de Cortázar 2012, 203)

Scotti-en eta beraien ohituren Penintsula Iberikorako helduera zalantzagabea dugu beraz, eta gertakizun orokor hauek, gehixeago ala gutxixeago, baina Europa guztira hedatu ziren. Euskal lurraldeak besterik gabe balizko eragin hauetatik kanpo uztea ez genuke, bada, zentzuduna⁷².

VII. mendearen bukaera alderarte behinik behin, ondoren Euskal Herria izango zeneko lurraldeei zegozkien apezpikutzen eta hauek meneko zituzten azpiegitura erlijioso nagusiagoen (kontzilioak eta sinodoak, eta metropolitarraren agintea) arteko komunikazioa, ez dirudi oso usua eta sendoa izan zenik; eta VIII-IX mendeak arte, ez zaigu lurraldeen egituratze sozial eta politiko zabal bat gauzatzeko gaitasunik izan zezaketen antolakuntza politiko eta erlijioso eraginkorren zantzu nabaririk ageri. V-VIII mendeetarako habitataren eta populamenduaren inguruko ikerketek azaltzen diguten ikuspegia berriz, nahiz eta hemen ere ikertzekorik asko egon, Europako bestelako hainbat lekurekiko parekoa litzatekeela dirudi. Azpiegitura erromatarren gainbehera eman zen, erromatarren garaiko hiribildurik gehienen desagerpenari bide emanez, batzuetan gradualki, bestetan eten garbiarekin. Biztanleriaren kokapenak aldakorragoak egin ziren, dispartsoagoak eta iraupen motzagokoak, material iraunkorren berrerabilpena joaz, baina material galkorren (egurra, nagusiki) erabilpen nagusiarekin. Honekin bat, espazio urbanoen eta landa-eremuen arteko mugak lausotu ziren. Egoera honetan eman zen biztanleriaren parte handi baten kristautzea, Penintsula Iberikoaren iparraldean bezalaxe Pirinioen inguruan ere, batez ere, monakotzaren formak hartu zituen. Eta testuinguru horretan kokatzen zaizkigu, besteak beste, Arabako -Trebiñuko eta inguruetako- Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko kobak, hauetariko zenbait VI-VII mendeen bitartean eremutarren bizileku izan ondoren, VII edo VIII. mendeaz geroztik -litekeenaren arabera, eremutarren bizileku izaten jarraitzeaz gain- biztanleria zabalago baten bizileku izatera iragango zirenak, koben ugaritzearekin. Zenbaiten kasuan, ziurra da bertako biztanleria XI-XII mendeetan inguruko kokapenetan fundaturiko herrixketara igaro zela, halaber, kobak, hilerri erabilera izatera iraganez⁷³.

⁷² Ikus Balderas Vega 2008, 123-124; eta Martínez Tejera 2006, 62-65; eta baita García de Cortázarren aipuari dagozkion azalpenak zabalxeago ere (2012, 202-204).

⁷³ Azkarate Garai-Olaun 1988, batez ere 473-480, 485-498 eta 2004, 92-112; eta García Camino 2004, 139-146.

Beste alderdi batzuei erreparaturik egindako ikerketak ere, lurraldearen kristautze gradualari buruzko antzerako kronologiatan mugitzen dira. Adbokazioen ikerketa eta hagiotoponimia oinarrian hartuta, esaterako, Jimeno Aranguren Nafarroako kristautzearen zenbait garai banatu zituen. Ikerketa honen arabera, lurralde honetan kopuru nagusia osatzen duten adbokazioen multzoa, hau da, kultuen azpiegitura nagusia eratzen duten adbokazioena, hurrenez hurren, Andre Mariarenek, San Martinenek, San Pedrorenek eta San Esteban protomartiriarenek osatzen dute. Adbokazio hauek V. eta VII. mendeak bitartean hedaturiko prozesu kulturalaren adierazle izango lirake, hau da, besteren artean, San Migelen kultuaren VIII. mendeko helduerarekin azken espazio paganoetara (mendi gailur eta bestelako helduera zaileko lekuetara) hedatzerako bidea hartu zuen kristautze prozesuaren lehen abiarazle⁷⁴. Baina, azaldua dugunez, baskoiek eta inguruko erreinuek garaiotan izan zituzten gudu eta liskarreatatik, apezpikuek zegozkien botere-esparru nagusiagoetatik konbokaturiko kontzilioetara izan zuten asistentziagatik, monakotzaren eta ministeritza sekularren arteko nahasketagatik, eta aipagai izan ditugun beste faktore batzuegatik, ez dirudi lehen kristautzea oso elementu kontrolatuen bidez eginga izango zenik, ez eta paganismoa bapatean desagerrarazi zenik ere. Mendeotan baskoiekiko hedatu zen "barbaro" eta "pagano" izatearen *cliché*-ak berak ere berbera pentsatzera garamatza⁷⁵, eta esanguratsua dugu, halaber, historiaren hautemapen eta interpretaziorako oso datu fidagaitzak eta labankorrek ematen dituen diziplina badugu ere, euskal mitologiaren alorrean garapen nabariki sinkretikoak azaltzen dizkiguten figura kristau nagusiak, hain zuzen ere, Jimeno Aranguren azalduko V-VIII mendeen bitarteko kristautze prozesuan kulturik garrantzitsuena jaso zutenetarikoak izatea: Amabirjina, San Martin eta San Migel.

Figura kristauen inguruko mitoen eta legenden panorama hau ulergarria egiten zaigu, kapituluaren hasieran aipatu dugunez, lehen kristautzearen zantzu goiztiarrek eta azken arrasto pagano berantiarrek elkarren artean kontraesankorrak izan beharrik ez daukatela hautematen badugu. XII. mendeko ehorzte paganoak (Sohandiko harrespila) muturreko salbuespentzat hartzekotan ere, X-XI mendeak bitarteko testigantza arkeologikoak eta dokumentalak kontutan hartzeko bestekoak dira (berezi tumuluetako ehorzteak eta arabiarren iturrietan paganotzat hautemandako *mayu* edo *madchu*-en aipamenak), erritualki eta kultualki bizirik jarraitzen zuen paganismoaren froga lez. Arrasto hauek eta -azalduz joan garen- batez ere forma monastikoen bidez gauzaturiko kristautze prozesuaren formak, gorabeherak eta zailtasunak aintzat hartuaz gero, *Mari* jainkosa paganoak eta *Maria* amabirjina kristauak mito eta legendetan motibo eta kontakizun berberak edo analogoak izatea, esaterako, erabat normala bilakatzen zaigu. Halatsu, Europa mendebaldean bizimodu eremutarra eta anakoretikoa hedatzean lehen erantzuleetarikoa izan zen San Martin historikoaren antzaldatze herrikoia dugun *Xamartin*, *Martintxo*, etab.en mito eta legendetako figura *trickster* tankerako heroi zibilizatzaile batena -alegia, gizakiendako aurrerapen teknologikoak izaki boteretsu bati iruzur eginez lortzen dituen heroiarena- izatea ere zeharo zentzuduna zaigu; kristauen eta paganoen elkarbizitza testuinguru batean, kristauen heroiak beraien komunitatearen abantailarako eta gailentzerako instrumentuak bere egiten ditu (artoaren landaketa, zerraren inbentzioa, sekretu metalurgikoak, etab.). Heroi zibilizatzaileen kontakizunetan ohizkoak diren zenbait motibo ageri zaizkigu San Martini buruzko euskal mito eta legendetan, baina kuriosoki eta euskal lurraldeetako bariante batzuek -ez gutxi- berezi eginez, instrumentuen lapurreta egiten zaien izakiak,

⁷⁴ Adbokazioen ingurukoak batez ere Jimeno Aranguren 2003; eta Jimeno Jurio; Jimeno Aranguren 2004; ikus halaber Jimeno Aranguren 1999.

⁷⁵ Baskoien karakterizazio honen ingurukoetarako, ikus, esate baterako, Torregarai Pagola 2001-2002 eta Larrea 2002.

kristauak (edo "gizakiek") beharrezkoa duten jakintza gailenaren gordailu direnak, "etsaiak" eurak dira, *basajaunak* edo *jentilak*, hau da, izaki mitikoak edo paganoak.

Eta noski, nabaria denez eta jada zenbait ikertzailearen aldetik ohartarazi izan denez, *jentilen* figura beraren presentzia ere aski esanguratsua dugu. Euskal lurretan *jentilei* egozten zaizkien mito eta legenda prototipikoak, penintsula iparraldeko eta Pirinioetako hainbat lurraldetan (eta baita euskal lurretan bertan ere), askotan deabruari edo deabrueri, nahiz mairuei egozten zaizkie. Figura mitikoa bera pluralean hautemana izateak, hau da, pertsonaia bakar bat izan beharrean gehien gehienetan figura kolektibo bat izateak eta izenak berak adierazten duen paganismoak, erlijiozko hautemapenek ezberdinduriko bi komunitateren elkarbizitza testuinguru baten berri ematen digute; elkarbizitza, *jentilen* figura mitikoa sortu eta finkatzeko besteko tarte kronologikoan eman beharrezkoa, eta San Martinen inguruko kontakizunetan *jentilek* hartzen duten jakintzen gordailutza papera aintzat hartuaz gero, bi komunitateen elkarbizitzazko hastapenetako egoeran "gizakien" (kristauen) aurrean *jentilak* abantailazko egoeran azaltzen dizkiguna. *Jentilek*, bestalde, hainbat motibo mitiko partekatzen dituzte izaki mitiko eta paganismoaren adierazle izatearen erdibide berberean dauden beste zenbait pertsonaia kolektiborekin ere, *mairuekin*, *deabruekin* (edo *Mikolasekin*, etab.) eta *laminekin* batipat (baina baita, kasuren batean, indibidualtasuna ezaugarri bereizgarri duen *Marirekin* ere). Iruzurra *basajaunei* egiten zaien kasuak, bestalde, *Basajaunaren* pertsonaia kolektiboki aipaturik ageri zaigun bakarrenetarikoak dira, bestelako kontakizunik gehienetan ostera, pertsonaia hau ez delarik kolektiboa, indibiduala baizik. Pertsonaia kolektibo hauek dira, gainera, tumuluei, zutarriei, harrespilei eta kobei beraien izena ematen dietenak, eta baita, *Marirekin* eta *Amabirjinarekin* batera, ermita eta bestelako tenplu kristauen eraikuntza mitoetan inplikaturik aurkitzen ditugunak ere (alabaina, esanguratsuki, *basajauna* ez dugu sekula paper horretan aurkitzen). Areago, propioki tenplu kristauak direnez besteko kokapen horiek ez dira soilik *jentilen*, *mairuen* edo *laminen* "etxe"tzat hartzen, baizik baita hauen "baratz" edo "(il-)arri" (hau da, ehorzleku) eta "eliza" bezala ere (*Jentilen* edo *Mairuen* "koba" edo "zulo" ugariez beste, adib.: *Jentilbaratz*, *Mairubaratz*, *Maruelexa*, *Mairuilarri*, etab.); eta askotan, "-etxe" edo "-mendi" bezala aipatzen direnetan ere, kontakizunetan eraikuntzok eta kokapenok *jentilen*, *mairuen* edo *laminen* "eliza" edo "tenplu" bezala hautematen dira. Ez zaigu hemen batere zaila, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko euskal lurraldeetako egoeraren antzaldatze mitifikatu bat hautematea. X-XII mendeak bitarteko tumulu eta harrespiletako erabilera paganoen azken arrastoak bezalaxe *jentilek*, *mairuek*, *laminek* nahiz *deabruak* eraikiriko elizak ere, mito eta kontakizun hauek erditu zituen erdibideko egoera sinkretikoaren alor ezberdinetako testigantzak ditugu. Aski luze iraun behar izan zuen egoera, biztanleriak luzaro gogoan gorde izan zuena; mito eta kontakizunei buruzko datu hauen iturrietariko bat dugun Satrustegik aipatzen digu adibidez nola, Urdiaineko (Nafarroa Garaia) *Jentileio* izeneko "lehioak" atetzat egiten dion *Jentilen sukaldea* izeneko koban egin zituzten indusketa arkeologikoetan XIII. mendeko txanponak aurkitu ziren (itxuraz, eskaintzat emanak).

Kristautzearen inguruko *Kixmi*-ren jaiotzaren mitoak ere *jentilak* eurak ditu protagonista, erlijio berriaren heldueraren aurrean paganoak gertakizuna onartzen ageri zaizkigula; behinik behin, bi komunitateen arteko liskar handirik gabeko elkarbizitza iradokitzen duena. Paganoek beraien sineskeren desagerpenerako patua onartzen dute (baliabide propioki paganoak erabiliz, kristautasunaren helduera adibinazioaren bidez jakiten baita), eta lurpera sartzan dira, ondoren -kristauturiko testuinguruan- mitoetan eta folkloean txertaturik biziraungo duten jainko eta jainkosen eta jeinuen espazio ktonikora. Mito honek, gainera, baditu dagokigunarekiko azpimarragarriak diren zenbait

aspektu berezi ere. Alde batetik, kontakizun moeta honetan, salbuespenen bat bada ere, gehien-gehienetan *jentilak* dira aipatzen direnak, *mairuak*, *laminak* edo *deabruak* beharrean. Dagokion dikotomia nabariki da kristaua / paganoa artean ematen dena, batetik besterako iragatearen kontakizuna izaki. Bestetik, mito edo kontakizunaren zenbait motiboren gertueneko agerpenak, alde batetik Pirinioetan eta bestetik kultura zeltiarrean, propioki irlandarrean, aurkitzen ditugu. Hartsuagak orain urte dezente direla mito honek baitaratzen dituen zenbait motibo espezifikoren ikerketa konparatibo bat burutu zuen, Europan zeharreko beste zenbait lekutan ere bai, baina bereziki Euskal Herrian eta Irlandan batera ageri ziren motibo haiek, arrasto aurreindoeuropartzat hautemanetz; hau da, Euskal Herria, Irlanda eta Europako beste lekuren batzuetako indoeuropearren heldueraren aurretiko kontakizuntzat. Nire ustetan ez daukagu zertan hain urrun joan beharrik, areago, mito edo kontakizuna bera, hain prezeski ere, kristautzeari dagokiola kontutan izanik. Tradizio kultural amankomun zaharrago baten parte izan, edo Antzinate Berantiarrean edo Goi Erdi Aroan izandako erlazio kulturalen ondorioz sortua izan, erlazorik gabeak izateko espezifikoegiak diruditen motiboen errepikapen hauek, euskal lurralde paganoen kristautzean beraien jatorria, edo testuinguru kristaueko lehen formulazioa, Irlandan edo Britainiar Irletan zeukaketen elementuen bidez gauzatu izanagatik gertatuak litezke. Alegia, euskal lurraldeen parte baten kristautzea kristau zeltiarrek burutu izanaren testigantza izan litezkeela; aurretik jada aipatua dugun hipotesia sendotuko lukeen interpretazioa. Bestalde, mitoaren beste motiboetakoren batzuek Piriniotan errepikatzen dira, eta horien agerpenak ere bere azalpena beharko luke, eraginen testuinguruan. Baina utz ditzagun kontsiderazio hauek zeharkako datu lagungarritzat, hausnarketa hauetan sakontzen hasteak gaitik gehiegi urrunduko gintuzke eta⁷⁶.

Guzti horregatik, litekeena da komunitate kristauek paganoei aurre hartu izan zieten garaia, Antzinate Berantiarrean baino, Goi Erdi Aroan kokatzekoa izatea. Izan ere, VIII-IX mendeen bitartean, Iruña erdigune zuela, familia boteretsuen arteko sareak sendotuz joan ziren, Iruñako Erreinu izango zenari hasiera emanez; ikergai dugun testuinguruan mugarri garrantzitsu bat ezartzen zaigu horrela, egitura politiko indartsu baten agerpenak ondorengo mendeetako azpiegitura erlijiosoan eta kontrol mekanismoen sendotze eta gorpuzte graduala eragin baitzuen. Iruñako Erreinuaren agerpenak, bada, aspektu sozialekiko bezala erlijiosoekiko ere, ziklo baten amaiera eta beste baten hasiera adierazten digu, eta halaber, beraien lehen berriak datozkigun -ondorengo Euskal Herriko- lurralde historiko ezberdinetako emakumezkoen erlijiotasunaren formen berri ematen diguten lehen datu dokumentalen agerpenak ziklo berriaren hasierarekin bat egiten du. Ziklo berri hau, Iruñako eta gero Nafarroako erreinuek bizi izango duten bi botere erlijioso nagusiren arteko dinamikek karakterizatzen digute: alde batetik, beneditarren erregelaren hedapen eta

⁷⁶ Mito eta kontakizun ezberdinetarako aski ugariak dira kontsultatu litezkeen argitalpenak, baina erreferentzia aski ezagunak ematearren, aipatuz joan garen pertsonaia mitologiko ezberdinen sarrerak Barandiaranen *Diccionario...*-an kontsultatu litezke (2003 -1984-), eta ikus halaber Satrustegik pertsonaia mitikoei eta heroi kulturizatzaileei eskainiriko atalak ere (1983 -1980-, 99 eta hurr. or.). Azkenaldian, mitoen inguruko eta bereziki sinkretismo erlijiosoaren inguruko hausnarketa interesgarri eta originalak Anuntxi Aranaren eskutik heldu zaizkigu; aipatu berri ditugun alderdiekiko, pertsonaia ezberdinei buruzko atalen artean, bereziki interesgarriak zaizkigu argitalpen ezberdinetan *Mariri*, edo hobe esan *Andereari* (berak egokiago baiteritzo izendapen honi), *Amabirjinari* eta emakumeen irudiari eskainiriko atalak (2000, 95-133, 179-187; 2004, 39-69, 207-230), eta *Jentilei* -eta *laminei*- buruzkoak (2000, 63-77; 2004, 263-287). Historiaren eta arkeologiaren aldetiko *jentilen* inguruko zenbait hausnarketetarako ikus Azkarate Garai-Olaun 1984, 124, VIII. mapa. Espezifikoki "Jentilen akabera"-ri buruzko mitoei dagokienean, ikus Hartsuaga 2004, 191 eta hurr. or., eta mitoaren Piriniotako barianteen inguruan Arana 2004, 264-266, eta Marliave 1995, 111, 114.

monopolioaren, Cluny eta Zistertarren erreformen eta hauei ertsiki loturik aplikaziora heldu zen Erreforma Gregoriarraren korronea, erreinu karolindarretik indartsu bultzatzen zena, eta bestetik, Goi Erdi Aroan tradizio propioak garatu eta finkatuak zituen Penintsula Iberikoko kristautasuna, mozarabiar deituriko bere errituen tradizio propioarekin, bertakoturiko monakotza forma bereziekin (testuinguru karolindarreko erreformekiko, arkaizanteak zirenak) eta botere erlijiosoaren koerlazorako ohitura propioekin.

VIII. mendean, Iruñako erreinuaren oinarriak finkatuz zioazen garaian bertan, izan zen kristautasuna hautemateko bi modu hauei dagokien pasarte garrantzitsu bat, tradizio mozarabiarrak baztertu eta "europarrak" onartzerako orduan erlijiosoki bezalaxe politikoki ere ardatzekoa izan zena: adopzionismoaren auzia. Adopzionismoa jatorriz II. mendeko Erromako interpretazio kristau gnostikoen saltsan sortua izan zen, eta bere jarraitzaileek, ñabardurak ñabardura, funtsean, ondorio esanguratsuak zeuzkan tesi sinple bat sostengatzen zuten:

La doctrina adopcionista proclamaba que, aunque la segunda persona de la Trinidad era coeterna con el Padre, el hombre Jesús no fue, de hecho, hijo de Dios hasta que fue "adoptado" por el Padre con ocasión de su bautismo. Ello suponía rebajar sensiblemente la categoría divina de Jesucristo lo que, de un lado, ponía en entredicho el valor universal de la redención, que pasaba a ser obra de un hombre extraordinario pero no de un dios, y, de otro, implicaba negar a María el título de Madre de Dios (García de Cortázar 2012, 197)

Auzi honek Toledoko metropolitarra eta Urgelleko apezpikua, eta erreinu karolindarretik bultzaturiko -ondoren "ofizial" bilakatu ziren- kristautze ereduak aurrez aurre jarri zituen, musulmandarren presentziak mediatizaturiko eztabaida dotrinal bat zela eta. Zenbait autoreren arabera, Urgelletik eta Toledotik defendaturiko adopzionismoak Kristoren hautemapena musulmandarren ikuspegira gerturatu zezakeen, Kristo -Trinitatearen parte lez Jainko bakarraren partetzat hauteman beharrean- Jainko Aitak "adoptaturiko" pertsonaiatzat eta beraz, -erabat bikaina izanik ere- zeharo haragizko eta lurtar zen gizon lez ulertzean, musulmandarrendik jasotzen zuen profeta kontsideraziora gerturatzen baitzen, "jainkozkotasunetik" urrunduz. Beste autore batzuek interpretazio hau baztertzen dute, eta liskarren motiboak "adopzioaren" kontzeptuak Eliza hispaniarrean zeukan tradizio propioaren aislamendu egoerazko bilakaeran eta hau bultzatzen zutenen aurkariak kontzeptua II-III mendeetako heresia homonimoan garatu zirenekin nahastu izatean bilatu dituzte. Edozein kasutan, Liebanako Beato famatua izan zen liskar haietan penintsulako komunitate kristauak Toledoko agintaritzatik urundu eta "korrone europarrera" begira jartzerakoan botere eta eragin handiena izan zuen pertsonaia, eta testuinguru orokorra, bereziki penintsula iparraldekoa, ondorengo Erreforma Gregoriarraren nahiz beneditarren erregelaren eta Cluny eta Zistertarren erreformen helduerarako "prestatzen" pisurik handiena izan zuena⁷⁷. Penintsulako erlijiozko instituzio nagusietan eman zen -dotrinaren eta honek inplikaturiko erlazioen- norabide aldaketa hau garrantzitsua dugu euskal lurraldeen kristautzearekiko ere, lurraldean erregetza baten sorkuntzarako bidean zeuden instituzioak sendotzen zeudeneko garaia baitugu; eta noski, agintariak erlijiozko boterea euren alde finkatu beharrean zeuden. Garai hark, azken finean, erlijiozko alorrean izandako aldaketa esanguratsuen garaia behar zuen izan: adopzionismoak eta aipaturiko

⁷⁷ Adopzionismoaren jatorrizko bertsioren eta berragerpen espainiarraren azalpen orokorretarako, ikus George 1998 -1995-, 15-16, eta adopzionismo espainiarraren eta bere testuinguru historiko eta teologikorako berriz, nahiz oso azalpen sintetikoekin izan, García de Cortázar 2012, 196-220. Propioki heresiari dagozkion historiografiaren eta testuinguru espezifikoren inguruko azalpen egoki eta zabalago batzuetarako aldiz, ikus Isla Frez 2004.

erreforma erlijiosoen helduerak ggb. zedarritzen dizkiguten VIII-XI mendeen bitarte hartan kokatzen zaizkigu goraxeago aipaturiko erritu eta kultu paganoen biziraupenaren arrasto berantiarrak, eta euskal lurraldeetan kristauak eta paganoak elkarbizitzan agertzen dizkiguten testigantzak. *Mayu* edo *madchu*-ei buruzko aipamenen artean bereziki esanguratsua dugu hemen Ibn al-Atir eta Ibn Idari-ren musulmandarrek jasoriko Asturiaseko erreinuaren aurka 975ean egindako kanpainaren inguruko testigantza; bertan Alfontso II. Asturiaseko erregeak baskoiei eta *mayu*-ei laguntza eskatu ziela ageri zaigu. Itxura guztien arabera, testigantza honek kristauen ("baskoiak", mitoetan "gizakiak" lirakeenak) eta paganoen (*mayu*-ak, mitoetako *jentilak*) arteko elkarbizitza ematen zeneko testuinguru baten berri ematen digu; eta hain zuzen ere, baskoiak alderdi kristauarekin identifikatu izanak, hauen arteko gehienek jada -azaletik edo ofizialki baino ez bazitekeen ere- kristautuak behar zutela adieraziko liguke. Hau da, gehiengo jada kristauak osatzen zutela, hauen artean paganoen zenbait tribu mantentzen ziren artean.

Euskal biztanleen -zinezko edo ustezko- paganismo berantiarrak ondorengo garaietan ere utzi izan zituen ohiartzunak. Aymeric Picaud-en XII. mendeko testigantza famatuaren arabera, orduan gehiegi ez zela, Donejakue biderako peregrinazioak jada hasiak zeudenean oraindik Pirinio mendebaldeko biztanleen artean kristautasuna "zeharo zabaldu gabea" zegoen, eta erromesei lapurtzeko ohitura zeukaten. Oso esanguratsua dugu, halaber, -Donejakue bidearen promozioan ere zerikusi handia izan zuen- Nafarroako Santxo Nagusiari (1004-1035) Oliva apezpikuak bidaliriko eskutitz bat ere. Bi pertsonaia hauek Cluny-tarren erreformaren Nafarroarako eta penintsularako sarreraren erantzule nagusi izan ziren, eta eskutitzean, apezpikuak erregeari bere menpekoen zenbait ohitura txarren salaketa helarazi zion, euren artean, adibinazioaren praktika ohizkoa eta zabaldua izatea (Azkarate Garai-Olaun 1988, 521). Hauekin bat, sineskera paganoen arrastoen beste hainbat datu bildu ahal izango lirake; euskal biztanleriaren kristautze prozesuarekiko interesekoa duguna baina, funtsean, honakoa da: konbentzionalki Goi Erdi Aroaren hasierako garaiak ditugun VIII-IX mendeak gutxi gora beherako, oso gutxi gora beherako mugarritzat harturik, Antzinate Berantiarreko garaiak kristautzearen hedapen -baina ez gailentze- garaitzat hartu beharko lirake, paganismoa oraindik indartsu mantenduko litzatekeen testuinguru batean. Kontzilioen inguruko datuek, eredu monastikoen bilakaerak, instituzionalizazio politikoaren finkapenak (Iruñako erreinuaren sorrera prozesuak, alegia), habitataren eta populamenduaren inguruko ikerketek, eta azalduz joan garen beste hainbat datuk VIII-IX mendeen ondorengo garaietako -eta ez lehenagoko- jada nagusiki eta ofizialki kristauturiko gizarte baten finkapenera daramatela esango genuke; garaietako komunitate paganoen testigantzak jada gutxiengoan leudekeen giza-taldeenak genituzke, erritu eta kultu bizien azken zantzuak XI-XII, edo are XIII. mendeak arte mantenduko litzatekeenak. Arrasto arkeologikoek testuinguru bizi batean agertzen dizkiguten azken erritu eta kultu horiek, baina, ordurako, jada "superstiziotzat" salatuak ziren, testuinguru orokor kristau baten baitako biziraupen paganotzat, aurreko garaietan, esaterako, VI-VII mendeetako kontzilioetako salaketetan, idolatriatzat eta sakrifizioak ere baitaritzen zituzten kultutzat aipatu izan ziren artean. Gogoan izan bedi, beraz, beste kontsiderazioen artean, jarraian azalduko ditugun gertakizunak eta ondorengo kapituluan azalduko ditugunak ezaugarri ezberdinak horiek dituzten testuinguru orokorretan kokatzen zaizkigula: kapitulu honetakoak batez ere kristautzea nagusiki paganoa zen gizarte batean barneratzen zioan testuinguru bati dagozkio, ondorengo kapitulukoak osterak, kristautasuna jada nagusi zen eta paganismoa, oraindik zenbait lekutan indartsu mantendu bazitekeen ere, atzerapausoan zegoeneko garai bati dagozkion artean. Ezartzen dugun mugari hau, noski, oso gutxi gora beherakoa dugu

eta mila zehaztapen egin dakizkioke, baina euskal lurraldeetako kristautzeari buruz eman izan diren iritzi kontrajarrien artean, termino orokorretan, analisirako ikuspegi aski egokia ematen digula uste dut.

II. 3.2. Kristautzea eta seroren aurrekariaren helduera: frogak eta posibilitateak

Euskal lurraldeetara kristautasunaren lehen zantzuak heldu ziren garaiak (IV. mendea) eta beneditarren erregelaren orokortzea eta Erreforma Gregoriarra gauzatu ziren garaiak (IX-XI mendeak) zedarrizten dituzten bitartean, Euskal Herriko lurralde ezberdinetan orain arte azaldu ditugun erlijiozko emakumeen modalitate ezberdinetako partaide zirenen zenbait kasuren berri bildu ahal izan dugu; latinaren nagusigoaren garaian *soror* izena jaso zezaketen emakume ezberdinen kasuak, alegia.

Eta lehen kasua, hain zuzen ere, Euskal Herriko lurraldeen kristautze-prozesuaren hasieratakoa dugu, birjinen eta alargunen "ordenak" arautzeari ekin zitzaion garaietakoa. Cerasia edo Ceresia birjinaren eta bere ahizparen berri IV. mende bukaerako Eutropio presbiteroaren eskutitz baten bidez dakigu; hau hispaniarra edo akitaniarra zela dirudi, eta bere eskutitzean Cerasiak paganoen artean egindako predikazioa goratu zuen, hauei beraien hizkeran zuzendurik, apez kristauengana konbertsio eske zuzendu zitezela lortu zuela eta. Cerasiak predikazio hau burutu zuen lurraldea -bere propietateen parte zena- Hispania iparraldearen eta Galia hegoaldearen ingurutan kokatua zegoela kontsideratu izan da, eta beraien mintzoan kristautzen jardun izan zen haiek, baskoiek izatea oso litekeena dela. Predikazioan jarduten zen birjina honen kasuak, onarpenaren neurriak eta emakumeen aktibitate pastoralari ezarri nahi zitzaizkion mugak ere azaltzen dizkigu, esan bezala, ustez, euskaldun paganoen kristautzearen testuinguruan; Eutropiok birjinak eraman beharrekoa zuen bizimodua irudikatu zuen modua aski esanguratsua dugu. Honela laburbildu zigun Amparo Pedregalek:

Aislamiento del mundo, incluso de los familiares próximos, vigiliat, abstinencia de comida, rigor en el atuendo son las pautas de vida propias de las vírgenes, cuya actividad debe ser tradicional, traducida en los términos cristianos de caridad asistencial: Cerasia es alabada por su atención a los enfermos, a los que ayuda con comida, haciendo de madre y de criada; también deben dedicarse a la lectura y conocimiento de las escrituras sagradas que ella transmite "en su propia lengua"; esta labor evangelizadora que Eutropio destaca en Cerasia se aparta sin embargo de lo que serían las competencias propias de estas mujeres, alejadas de cualquier función sacerdotal, reservada exclusivamente a los hombres. Por eso, a renglón seguido de valorar su tarea apostólica, especialmente importante porque permitía acceder a pueblos que él denomina "bárbaros" del norte peninsular, quizá el territorio vasco, Eutropio le agradece que deje paso a los clérigos para que hagan su oficio (Pedregal 2005, 321)

Gaixoen zaintza ere ageri zaigu birjina honen -eta bere ahizparen- aktibitateen artean, eta litekeena da, barbaroen kristautzea lortzeko laguntza handirako aktibitatea izatea. Baina aktibitateez gain, Cerasia kristautze lan horietan ibili izan zen lurraldeak, Hispania iparraldean edo Galia hegoaldean kokatu izan direnak, birjina beraren ondasunen parte zirenez gero, ez litzateke batere arraroa izango Cerasia garai hartako baskoien lurraldeetako edo ingurutako familia boteretsuren bateko partaide izatea, berak ere, predikazio burutzen zuen paganoen hizkuntza hura, ustez euskera, ama-hizkuntza izatea⁷⁸.

⁷⁸ Ikus batez ere Mariner Bigorra 1976; baina baita Sayas Abengoechea 1985; Pedregal 2005; eta Fernández Conde 2008, 125-137, zehazki 131-132.

VI. mendera iraganez, badugu beste birjina batzuen berririk ere, kasu honetan, bizimodu eremutarrari lotuak egongo lirakeenak. Aipatu izan ditugu Errioxako San Milianek Elizaren hautemapen ortodoxoekiko izan zituen aurkakotasunen batzuk; euren artean lan honen xedeetarako aski interesgarria zaigun bat ere izan zen, atal honetan aipatzeko utzi duguna: emakumeekin bizikidetzatza. Izan ere, jada bere zahartzaroaren eta gaixotasunezko ezintasunen berri ematean bere biografo eta Zaragozako apezpiku San Brauliok (c. 590-651) aipatu zuenaren arabera, Milian santua, bera artatzeaz arduratzen ziren eta are bere gorputz zaharra garbitu ere egiten zuten emakume batzuen konpainian bizi izan baitzen. Fray Toribio Minguellaren gaztelararako itzulpenaren arabera "vírgenes de Cristo", "sagradas vírgenes" edo "siervas de Dios" bezala aipatu ziren emakume hauei eremutar izaera ukatu behar al zaie?⁷⁹ ez dugu halakorik uste.

Anakoreta eta eremutarren bizimoduarekiko, gainera, ezin ditugu Araban eta Errioxan dauden Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko kobak ere ahaztu; Milian santuak izan zuen Felices izeneko irakasle eremutarra, ez dezagun ahaztu, Arabako herri batean bizi zen, gaur egun Buradon Gatzaga deneko *castellum Bilibium* izeneko kokapenean, aipagai ditugun beste koba hauetatik ez oso urrun. Eremutar hauek bizi izan ziren kobetan gordetako arrastoak hain dira urriak eze, zaila baita jakiten, bertako populatzaileek ze ezaugarri sozial eta erlijioso zeuzkaten. Arrasto hauek, era berean, nahiz eta testigantza epigrafiko urriek gizonezko eremutarren berri baino ematen ez duten, ez dute emakumezko eremutarrak -nahiz eremutarren bikoteak- ere bizi izatearen posibilitatea baztertzen, eta -aurreko atal batean aipagai izan ditugun- azken urteetako emakumezko anakoreta eta eremutarren inguruko ikerketek agertu lez, hauen presentziak ez zukeen zertan hain arraroa izan beharrik. Eta ez litzateke arraroa, halaber, Milian santuaren kasuan bezala, honen irakasle Felicesekin eta beste kobetako eremutarrarekin batera, emakumezkoak ere egon izana. Bertako izpiritualtasunarekiko, bestalde, garaiko aszetismoaren baitan, santutasuna atxikitzeko beharrezkotzat hautematen ziren "desertu" sozialak ziren, mundutik aldentzekoak, eta hauek ere inguru zibilizatuekiko *limes* espaziotzat hautemanak zirela oharturik -eta autoreren batzuek prisilianismoarekiko iradoki izan duten bezala-, ofizialtasunarekiko korronte heterodoxoen babesgune ere izan zitezkeela aintzat hartu beharrean gaude (Azkarate Garai-Olaun 1988 eta 1991).

Birjina ebanjelizatzaileak eta birjina eremutarrak izan ditugu aipagai; nahiz eta aipagai izan berri ditugun kasuak zeharo erabakiorrak ez izan, ez dirudi batere zentzugabea IV-VI mendeak bitartean Euskal Herriko lurraldeetan eta inguruetan, baskoiak hedatu izan ziren espazioetan, hauen presentzia arraroa izan ez zela pentsatzeak. Baina, ba al dago diakonesen presentzia adieraz dakigukeen inolako daturik? Diakonesek Euskal Herrian izana zezaketen balizko presentziarekiko oso esanguratsuak zaizkigu azken urteetan batez ere Agustín Azkarate Garai-Olaunek eta Iñaki García Caminok jorratu izan dituzten ikerbide berriak, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko baskoien lurraldeetan frankoen eta bereziki -baskoien eta frankoen artean botere eremu propioarekin mantendu ziren- akitaniarren lurraldeetatik helduriko eraginaren garrantzia azpimarratzen dutenak. Batez ere Aldaietako (Araba) eta honen tankerako ezaugarriak beste aztarnategi batzuetako aurkikuntzek motibaturik, iparralde kontinentaletik helduriko eragin kulturalen birbalarizazio bati ekin zitzaion, jada ikertuak izan ziren beste aztarnategi batzuetako emaitzak ikuspegi berriaren argitara kokatuz (besteak beste, bisigotikotzat hartzen ziren aztarnategiaren batzuk hain bisigotikoak ez zirela eta eraginak dibertsoak zirela azaleratuz). Birbalarazio kronologiko horietako bat Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko hilarriei eta

⁷⁹ Ikus itzulpena, San Braulio de Zaragoza 1976 -c. 635-; eta baita Ibáñez Rodríguez 1997 ere.

inskripzioei dagokiena dugu, serorekiko, bildu ahal izan ditugun bestelako datuekin bat, diakonesen presentzia posiblearekiko bide berriak ematen dituen. Izan ere, ikerketa hauek, bestelako hilarrien artean, Elorrioko Argiñetako nekropolikoei ere bestelako kronologia bat emateko posibilitatea zabaldu dute, zenbait hilarriri VII-VIII mendeetako kronologia esleituz⁸⁰.

Eta interesgarria zaiguna, bertako seroren garai haietako presentzia posibleari buruzko zenbait berri ere baditugula da. Juan Gorostiagak eman zigun garai goiztiarretakook izan zitezkeen "serora" batzuen berri, Iturrizaren aipu bati helduz (Gorostiaga 1983, 789-790). Azken autore honek frai Martin de Coscojales (gg. 1542-???) historialariarengandik jaso izandakoaren arabera, Elorrioko Argiñetako San Adrian ermitako hilarri eta harrizko hilobiak aipagai harturik bi "Seroras o sácristanas"-en hilobien berri ematen digu, bata Argiñetan bertan zegoena, eta bestea aldiz, herri bereko Berriozabal auzoko Santa Katalina ermitan. Coscojalesen garaiko ahozko tradizioaren arabera ahizpak izanak ziren, eta nor bere ermitan egonik, "por virtud divina" elkar argi eta garbi entzun omen zezaketen, arazorik gabe mintzatuz (Iturriza Zabala 1885 -1777-1812-, 470). Iturrizak bere bilketa lan eskerga, 1967ko azken argitalpenean *Historia General de Vizcaya y epítome de las Encartaciones* izena jaso zuena, 1777an hasiaz geroztik 1812an hil zen arte burutu zuen, eta garai hartan, dirudienez, bazeuden oraindik Argiñetan eta Berriozabalen aipatu zituen bi hilobiak, *Deludelix* eta *Delutrocoida* izen bitxiak inskribaturik zeramatzenak. Iturrizaren garaian 29 hilobi omen zeuden Argiñetan, gaur egunean gelditzen diren 23en aldean; litekeena da falta diren 6 horietariko bat serora hauetariko bati zegokiona izatea. Edozein kasutan, ez da gaur egunean hilobi eta inskripzio haien arrastorik gelditzen.

Baina datu kurioa dirudikeen desagerpen hau agian ez da hain kurioa izango, bere motiboa izan baitzezakeen: seroren desagerrarazterako XVIII. mende bukaerako neurriak eurak, hain prezeski ere, Iturrizak bere datuak bildu izan zituen garai kronologiko antzeratsuan gauzatu zirenak. Aurrerago zehaztasunez azalduko dugun testuinguru hartan seroren hilobi haiek paretik kendu nahi izatea ez litzateke harritzekoa⁸¹, eta XIX. mendean, hilobien berri eman zuten hurrengo autoreek jada 23 (Amador de los Rios, 1871n) eta 20 (Capelastegui, 1883an) hilobi aipatu izanak diogun hipotesia sendotzen du (Azkarate Garai-Olaun 1984, 34). Hala izan edo ez, datu hauek zenbait zehaztapen kronologikotara behintzat bagaramatzate. Hilobietako izenei serora eta ahizpa izaera esleitzearena XVI. mendeko ahozko tradizioaz haratago ezin kokatu dugu, Coscojalesengandik jasoriko berriek ez baitute zehaztasun gehiagorako ematen; hala ere, tradizio honen garrantzia ere ez genuke gutxietsi behar. Horrez beste, Argiñetako hilarri eta hilobien datazioak autore ezberdinek VII-IX mendeen eta XII-XIII mendeen bitartean kokatu izan dituzte, eta azken indusketen arabera, zeramikazko aurkikuntzek VI. menderaino aurreratu izango lukete hilarrien eta hilobien muturreko datazioa. Seroren lehen berri dokumentalekiko oso garai goiztiarrak dira, eta *Deludelix* eta *Delutrocoida* izenek eurek ere, printzipioz, aski arkaikoak dirudite⁸².

⁸⁰ Eraginen ikuspegi berri honekiko, ikus Azkarate Garai-Olaun 2004; eta hilarri eta inskripzioen datazioekiko berriz, Azkarate Garai-Olaun; García Camino 1996.

⁸¹ Ikus III. kap. orokorrean, 169 eta hurr. or., baina bereziki III. 2.3. azpiatala, 270-284 or.

⁸² Hona Gorostiagak izen hauen inguruan egin zituen hausnarketak, izaera arkaikoa berresten digutenak: "Sus nombres nos resultan en verdad bien enigmáticos, pero es fácil separar algunos elementos más claros. Un elemento inicial DELU/DELUDE que nos ligaría a otros como DADILDIS, DADOLENA, DALDA que aparecen en documentos propios y forasteros de la época. Los elementos finales -LUX de la primera nos relacionaría con aquella 'luz' de las apariciones y de su oficio particular: el de TROCAIDA más que con el de BRIGIDA parece afin al de TIGRIDA (o TRIGIDIA que también así se escribe en alguna parte). Esta TRIGIDIA sería la hija del Rey navarro que fundó el monasterio de Oña para su hija y donde moriría en olor de santidad el año 1011" (Gorostiaga 1983, 789).

Froga hauek ez dira noski erabakiorrak, baina nabaria zaigu, Euskal Herrira iparralde kontinentaletik helduriko korronteen datazioek (VI-VII mendeaz geroztikoak) eta Galia izana zeneko lurraldeetan diakonesen instituzioaren existentziaren garaiek (VI-IX mendeak) bat egiten dutela (are lehen datazioak, zehazki Argiñetako hilarrietakoak, okerrak izan eta pare bat mendetan atzeratu beharko balira ere), eta ez litzatekeela batere arraroa, Euskal Herriko lurraldeen kristautzea frankoen eta bereziki akitaniarren lurraldeetatik zetorren korronte horri -ere- jarraika gauzatua izatekotan (testuinguruaren inguruko azalpenak ematerakoan aipaturikoek iradokitzen dutenez), diakonesen instituzioa testuinguru kristau berrian ere presente izatea; areago, instituzioa desagerrarazteko ekinaldien erdiguneetatik urrun legokeen mugako espazio bati buruz dihardugunean.

Zalantzei loturik mantentzen zaizkigun lehen hauek ez bezala, ondorengo garaietako *soror* zirenei buruzko datuak ziurragoak ditugu, eta jada, testuinguru monastikoetatik datozkigu. Euskal Herriko lurraldeetan emakumezkoen erlijiotasunak zeukan garrantziaren erakusgarri esanguratsua dugu erregela beneditarrak, bere hedapenean, emakumezkoen komunitateendako izan zuen lehen moldaketa garai haietan Nafarroako erreinuaren parte zen Errioxako Albeldan idatzia izana. 976an Eneco Garseani presbiteroak transkribatua izan zen *Libellus a regula benedicti substractus* deritzona, zenbaitek Albeldako Salvus-ek idatzi izandakotzat daukatena, eta Naxera inguruko Nunilo eta Alodia santen emakumezko monasteriorako egina izan zena. Funtsean, erregela hau beneditarren erregelaren eta -Karlomagnoaren erreforma monastikoan pertsonaia garrantzitsua izan zen- Smaragdus-ek bere *Expositio in Regula Benedicti* (IX. mendearen lehen erdialdea) erregela beneditarraren azalpenezko lanean tradizio bisigotikotik jaso zituen arauekin osatua dago, tradizio propiotik eratorriak izan litezkeen arau gutxi batzuekin batera, guztia, propioki emakumezkoen zegoien egoerara moldatua; zenbaitek erregela hau tradizio karolindarren eta penintsulako tradizio galegoen arteko erdibidetzat hartu izan dute. Sorkuntzaren eta loturen ibilbideak direnak direla, hainbat aspektutan bizimodurako arauak eta betebeharrak erlijioso kontenplatiiboak zurrunak izanik ere, erregela honetan ere ez zen klausura aktiborik arautu⁸³.

IX-X mendeek baina, erregela beneditarraren helduerarekin eta *regula mixta* zirenetakoetan hau hartzen zioan paper garrantzitsuarekin izanda ere, monasterio bikoitz eta familiarren eta *pactum*-aren nagusitasunezko garaiak izaten jarraitzen dute penintsulan. Alabaina, ondorengo Euskal Herriari dagozkion lurraldeetan ez da *pactum*-aren tradizioaren helduerarik dokumentatu izan; nafar erreinuak Ebroaren hegoaldean bere menpe izan zituen lurretan ostera, bada adibiderik. Aipagai izan dugun *Libellus*-ak berak penintsulako tradizioen eragin nabariak mantentzen zituen, besteak beste, *sorores*-en nobiziatuak sarrera *traditio* tankerako tratu baten pean eginez (eta honek, beste behin, propioki monasterioko partaideak zirenen eta bertara *traditio* bidez loturikoen artean zeuden egoera nahasietara garamatza). Nafar erreinuaren agintepeko lurraldeetako beste hitzarmenezko monakotzaren adibideen artean Errioxan kokaturiko Pedroso-ko San Migelen monasterioko hitzarmen bat dugu aipagarri, emakumezkoen komunitate baterako sarrerarako hitzarmen bat izateaz eta *Libellus*-a baino garai zaharragoetako (759) izateaz beste, bertako komunitateko partaideen parterik handienaren izenek hauen jatorri baskoia azaltzen baitigute, jatorri germaniarreko eta erromantzeko beste batzuekin batera (Larrañaga Elorza 1992, 217-219).

⁸³ Linage Conde 1976; Bishko 1984, I ikerketa. Eskuizkribu orijinala ere kontsultatu liteke, *Biblioteca Virtual de Patrimonio Bibliográfico*-aren webgunean; URL: <http://bvpb.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?control=BVPB20100000731>.

Baina seroren aurrekariak monasterioetako *soror*-en artean bilatzekotan, argitu beharreko puntu bat daukagu: nola eman ziren, monasterioen testuingurutik parrokia eta ermitetarakoaren testuingururako bilakaeran, instituzioaren mantenua eta eraldakuntza? Galdera horri erantzuteko badaukagu konparaziorako biderik, Euskal Herriko kasuan ez bezala, -eboluzio hark gertatua behar izan zuen- IX-XI mendeen bitartean erlijiozko emakumeen inguruko dokumentazioa Kataluniako lurraldeetan mantendu izan baita. Bertan *deodicatae*, *deovotae* eta *deodada* izena jaso izan zuten emakumeak, izan ere, monasterioekiko erlazioen testuinguruko partaide ere izateaz gain, parroketan ere izan baitziren, bilduriko datuek iradokitzen dutenez, Euskal Herriko seroren oso antzerako eginbehar eta eskumenekin⁸⁴.

Soror terminoa bezala, termino hauek Antzinateko eta Goi Erdi Aroko garaietatik erabiliak izan ziren, eta badira Katalunian bertan Antzinate Berantiarreko eta garai bisigotikoko hilarrietako testigantza epigrafikoak ere. Jarraipen dokumentala egiten ekin dakiekeen IX. mendeaz geroztik, XI-XII mendeak bitartean -batez ere dokumentazio monastiko eta kontziliarrean- progresiboki *sanctimonialis* eta *monialis* terminoekin batera aipatzera iragan ziren monasterioei loturiko emakume eta hauen komunitatez gain, halako inolako lotura gabeko emakumeek ere jaso izan zituzten izendapen hauek. Beraiei buruzko informazio iturri nagusia dugun Cabre i Pairet-en artikuluan azken hauetariko zenbait kasu interesgarri azaltzen zaizkigu:

En este sentido son interesantes los casos de Matrona, viuda, a quien su hijo monje se refiere como *devota de ipsa cella Sancta Crucis*, dependiente de Sant Cugat del Valles; el de Guinilda, *deosacrata* que hace una donación testamentaria a San Juan de las Abadesas cuando éste ya había pasado a manos masculinas, y los ya citados de Ermengarda, *devota*, y Pedro, *monacho*, y Vidit, *deodicata* [*lehenean salerosketan eta bigarrenean dohaintza bat eginez, inongo tenpluenganako loturarik adierazi ez zuten kasuak*]. El caso de Ailo, *deodicata* y *devota*, merece una atención especial porque la importante donación que junto a sus hijos hace al obispo de Elna incluye la parroquia de Transserra con la iglesia fundada en honor de san Saturnino. Parece referirse a un caso de iglesia propia que mediante esta donación pasa a formar parte del patrimonio del obispado, y recuerda la dificultad de establecer en esta época diferencias entre iglesias y núcleos de vida comunitaria en otras zonas de la península ibérica (Cabre i Pairet 1989, 178)

Beneditarren monasterio gutxietakoak (gutxiegi dokumentuetan termino hauekin izendaturiko guztiak bertakoak izateko) nahiz hauez kanpokoak izan, emakume hauek IX-X mendeetan beraien ondasun higikor eta higiezinak askatasun osoz administratzen ageri dira, aipuan ikus litekeenez, parrokia edo ermitaren baten zaintzan bertako *cella* batean bizi zitezkeelarik, eta eliza propioen jabe izatera ere iritsi zitezkeelarik. Alabaina, XI-XII mendeen bitartean, dokumentuetan beneditarren erregelaren aplikazioarekiko ardua handitzen joan ahala eta halaber, *sanctimonialis* eta *monialis* terminoak beste

⁸⁴ Kataluniako emakume hauen inguruko azalpenetarako Montserrat Cabre i Pairet-en eta Assumpta Serra i Clota-ren artikulua ditugu iturri nagusi, biak *Las mujeres en el cristianismo medieval* (1989) lan kolektiboan argitaratuak (ikus bibliografia). Lehenak IX-XI mendeak bitarteko *deodicatae* eta *deovota*-k izan zituen ikergai, bigarrenak ostera, jada XII-XV mendeak bitarteko informazioaz baliatuz, *deodada* zirelakoen berri eman zuelarik; eskaintzen diguten informazioa bateraturik hauteman dugu, lehenen artetik monasteriotan bizi zirenei X-XI mendeak bitartean *sanctimonialis* eta *monialis* terminoak aplikatuz izendapen zaharrak alboratu nahi izan baziren ere, funtsean, ondorengo mendeetan *deodada* izenpean ezagutu zirenen eta aurretik *deodicatae* eta *deovota* bezala ezagutu zirenen arteko jarraipenezko erlazioak nahiko argia dirudielako. Terminoak, gainera, erabat finkatu gabeak ziren eta ez zuten elkar baztertzen, eta bestelakoak ere erabili izan ziren, *deosacrata*, esaterako. Funtsean, emakume hauen parte batek bizi izan zuen X-XI mendeetako monasterio eta komentuen klausurarako ibilbideaz aparte, bestelako erlazio, espazio eta bizimoduei atxikirik mantendu ziren emakume ziren heinean kontsideratu ditugu denak.

terminoekin batera erabiltzeari ekin eta hauek ordezkatzeko joan ahala, beraien ondasunez aktiboki baliatzen ziren *deodicae* eta *deovotae*-en kasuak desagertuz joan ziren, jada testuinguru zeharo monastikoan -eta beneditarren erregelak agindu lez-ondasunen administrazioa abadesen eskutara igarotzen joan zelarik.

Deodada terminoarekin izendaturikoen kasuan, XIII. mendean ere mantendu izan ziren parrokia, ermita edo are kaperetarako zerbitzura izen honekin sartzen ziren emakumeen izendapenak, seroren izendapenak aski gertutik gogorarazten dizkiguten forma eta formulekin: tenpluko apez edo errektorearen agintepea (edo honen bidez, apezpikuarena), momentuoro bertan bizi eta zerbitzeko konpromezua eta trukean *deodada* elikagaiez eta arropaz ornitu beharra, eta kastitate, obediencia eta txirotasun botuak. Hala egin zuten, esaterako, Vic-eko apezpikutzako Santa María Savall parrokiaren Càssoles *Domus*-eko jaunaren kaperaren zaintzarako *deodada* zirenen komunitateko 1236ko izendapen batean, eta baita, antzerako datetan, apezpikutzaren berberako San Martí Sescorts parrokiako Santa Margaridaren kaperaren zaintzaz arduratzen zirenek ere. Ondoren monasterio izatera iragango zen Conangle-ko Santa Magdalena elizan ere hasieratan *deodada*-k izan ziren halaber *deodada* izan zen Maria Bach-ek fundaturiko santaren kaperaren zaintzan, aurreko kasuenak baino betekizun are xedatuagoekin:

se retirarán a la vida religiosa para consagrarse a Dios entregando su servicio a una capilla o iglesia ya existente y observando unas mínimas reglas: residencia continua en dicha capilla en calidad de deodada, y comportamiento casto y honesto. En este caso se especifica además que llevarán un hábito distintivo. Al igual que para el caso de Santa Margarida, en esta nueva fundación también es el rector de la parroquia de Roda, donde pertenecía la capilla, quien aprueba y recibe a la deodada fundadora. Por parte del señor rector se estipuló un contrato jurado a 25 de noviembre del 1304, por el que María Bach, además de someterse a las normas antes mencionadas de carácter reglamentario con base moral y religiosa, también se compromete a recibir "las limosnas ofrendadas por los fieles y a mejorar el patrimonio de la capilla a fin de asegurar su conservación y culto" (Serra y Clota 1989, 326)

Sarrerarako halako eskakizunekin (kultulekuan bertan bizitzea, portaera "egokia", etab.) eta tankerako funtzioekin (kaperaren eta irudiaren zaintza, limosnen bilketa eta ondasunen sostengua, etab.) hainbat serora aurkitu ditugu Euskal Herrian ere, jada Aro Berriko testuinguru batean. Areago, *deodada*-k ez ziren soilik monasterioen eta parrokia eta ermiten testuinguruetan aurkitzen; Joan Segurak 1885ean argitaraturiko Kataluniako *Costums*-en inguruko liburuan hiru *deodado* moeta bereizten zituen, kategoria hartan emakumeak bezalaxe gizonezkoak ere sartuz; honek emandako definizioa eta banaketak honela jaso zizkigun Serra i Clotak:

Una Deodada es una persona que se entrega a Dios a través de una comunidad sin recibir nada a cambio de sus servicios excepción hecha de su manutención y vestido. Joan Segura distingue tres clases de deodados: 1) Quien se entrega a una familia a quien le entrega sus bienes a cambio de alimentarlo. 2) Quien se entrega a un monasterio o convento. 3) También llamados conversos quienes se entregaban a cuidar y servir una ermita o santuario (*Ibid.*, 324)

Hirurak ere hirurak, Euskal Herrian *serora* izena jaso zuten emakumeen egoeren artean daude, eta badira, gainera, *deodicae*, *deovotae* edo/eta *deodada* zirenen ibilbidean, orain arte aipaturikoez beste, seroren ibilbidearekin bat egiten duten bestelako hainbat aspektu ere: ondorengo monasterio eta komentuen hastapenetan halako hainbat komunitate izan ziren; kasuren batzuetan ez soilik emakumeak, baizik bikoteak ere sartu izan ziren espazio erlijiosoren baten zaintzan (instituzioak *donati*-en

edo *familiaritas* tratuen egoerarekin nahastera jotzen zuelarik); eta instituzioaren gainbehera heltzean, Kataluniako kasuan XIV. eta batez ere XV. mendean gertatu zena, komunitateak ingurune populatuagotara mugitzera behartu izana, hartarako arrazoitzat, "el supuesto desamparo de un grupo de mujeres en lugares aislados sin protección masculina" argudiatuz. Esanguratsuki, *devota* terminoarekin behinik behin, bitarte kronologiko hartan aldaketa semantiko esanguratsuak izan ziren, XI-XII mendeetaz geroztik *sanctimonialis* eta *monialis* terminoen erabileraren hedapena gauzatzen joan ahala:

Deodicatae y *deovotae* se asocian, progresivamente en los siglos X y XI a *sanctimonialis*, y ya en el siglo XIV, *devota* ha perdido su valor sustantivo y pasa a adjetivar la piedad, pero sin implicar una dedicación a la vida religiosa (Cabre i Pairet 1989, 173)

XV. menderako jada, ingurune populatuagoetara mugiarazi zituzten komunitateak *sanctimoniales* eta *moniales*-enak ziren, jada propioki moja bezala kontsideratu zitezkeenak. Terminoen ibilbide honetan oso esanguratsua dugu aipuan azalduko aldaera semantikoa (instituzio bat sustantiboki adieraztetik, adjetibo izaterako iragatea), aurreraxeago ikusiko dugunez gazteleraz *beata* eta frantsesez *béate* eta *benoîte* terminoen erabilerarekin XVII. mendean gertaturikoaren antzerakoa (kasu hauetan, areago, zentzu positiboaz gain, bere kontrako ironiko edo peioratibo izatera ere helduz), eta Euskal Herrian *serora* terminoak izendatzen zituen emakumeen egoera erlijiosoaren hautemapezarekin XVIII. eta XIX. mendeak arte gauzatuko ez zena.

Guzti honetatik, beraz, Euskal Herriko seroren jatorrian diakonesen instituzioa egon zela dioen teoriarekiko honakoa ondorioztatu liteke: serorei buruzko historiografian zenbait autorek (batez ere Larramendiri jarraiki) azaldu duten iritzi hau, froga erabakiorrak faltan izanik autore askok errazegi ontzat eman dutela kontsideraturik ere, gaur egunean diakonesen eta emakumezkoen ministeritzen inguruko ikerketak aurkitzen diren egoeran, teoria honek zuzena izateko dauzkan posibilitateak ez dira txikiak; eta beraz, jatorriaren inguruko teoria hau ikerketarako hipotesizat ontzat hartu eta baliatzea ez da onargarria soilik, baizik baita gomendagarria ere, seroren instituzioaren hastapenak zertxobait argitu nahi badira. Alabaina, bizimodu eremutar, anakoretiko, zenobita edo monastikoa zeramaten emakumeak ere aintzat hartzekoak ditugu, eta Euskal Herriko lurraldeek garai haietan bizi izan zuten testuinguruari, eta erlijiozko bizimodu hauek hartzen zituzten formei erreparaturik, probableagoa dirudi *seror*-en hastapenak, *soror* hauetan izatea, diakonesetan baino; honek azken hauen balizko presentzia eragotzi beharrik gabe, noski.

II. 3.3. *Soror*-etik *seror*-era: terminoaren jatorriaren eta iraupenaren inguruan

Puntu honetan ekingo diogu terminoen ikerketari, eta beste terminoekin egingo dugunaren kontrara, euskarazko hiztegiei beste hizkuntzetakoen ondoren egingo diegu lekua, terminoak euskararen baitan izan zuen iraupena luzeagoa izan zelako (eta beraz, kronologikoki zentzudunagoa dugu), eta hiztegietakoa informazioa bildu ondoren euskal literatura klasikoko autoreetan terminoak izan zuen erabileraren azterketa egingo dugulako.

Gainera, puntu honetan Larramendik -darabiltzagun euskarazkoetan zaharrena dugun- bere hiztegirako informazioa gaztelerazko hiztegietatik jasotzen duela dirudi. Hauek "serora" terminoa mojei aplikaturiko "sor" terminoaren eboluzioaren baitako arkaismotzat hartzen dute; azken hau, era berean, latinezko "soror" terminoaren sinkopatua litzateke. 1611ko Covarrubias-en *Tesoro*...-an "sor" sinkopatua,

mojenganako aplikazio espezifikoa, katalanezko boza bailitzan aipatzen da (Covarrubias Horozco 2007 -1611-, 1450). Ostera, mende bat beranduagoko *Diccionario de autoridades*-ean “sor” terminoa latinezko “soror” hitzetik gaztelerak zuzenean sinkopatu lez jasorikotzat hartzen da, katalanaren bitartekotzarik aipatu gabe (R.A.E. 1976 -1727-, VI, 158). Azkenik, *Diccionario Crítico...*-aren arabera, sinkopatua eta mojenganako aplikazio semantiko espezifikoa gaztelerara katalanaren bidez helduak lirateke (Coromines; Pascual 1980, 309). Ibilbide hauek zirenak izan zirela, gauza bat behintzat garbi ageri zaigu: euskarazko “serora” nahiz gaztelerazko “sor”, zentzu ezberdinekin bada ere (lehen emakumezkoen espazio erlijioso zabalagoari baitagokio), latinezko “soror” terminoaren eratorpenetik letorzke.

Penintsulako hizkuntza erromanikoetan, gazteleran eta katalanean behinik behin, “soror” termino zaharra “hermana” (gaztelera) eta “germana” (katalana) hitzek alboratua izana litzateke, eta eboluzio honekin bat, “sor” sinkopatuak –katalanaren bitartekaritzarekin, edo gabe– mojei soilik aplikatua izaten bukatua luke. Prozesu hau, *Diccionario Crítico...*-aren arabera, gazteleran azkarra izana litzateke, eta motelagoa eta berantiarra ostera katalanaren eta portugesaren kasuetan, zeinetan jatorrizko erabilera are XV. menderate ere gordeko litzatekeen. Eboluzio honen baitan “seror” bariante arkaikoarekiko aipatu ohi zaigun lehen iturria Berceo da, zeinak bere *Poema de Santa Oria*-n, terminoa, San Millán de Susoko monasterio bikoitzean “reclusa” edo “emparedada” izan zen eta 1050ean hil zen santari buruz jarduteko erabili zuen. Ez dezagun ahaztu, era berean, Berceok bere lanetan euskarazko hitzak baitaratu zituela (eta Nafarroako Erreinuko parte izanik, eragin nafar handia izan zuen Errioxako lurralde batekoa zela), eta ez litzatekeela batere arraroa izango, iradoki izan den lez, euskara ezagutu eta erabili izan zuen hizkuntza bat izatea. *Diccionario Crítico...*-ak, “seror” barianteari buruz diharduela, “en algún ambiente semibilingüe del P. Vasco” gordea izango litzatekeela gehitzen du, eta Azkuek emaniko adibideak jasoz, honakoa ondoriotatzen du: “es palabra vasca y no castellana, pero de origen románico claro”. Azken puntuan, galdera honakoa dugu: euskal hitzunik “serora” terminoa penintsulako hizkuntza erromanikoetan aipaturiko eboluzio morfologiko eta semantikoa eman aurretik –edo bitartean– jaso ote zuten maileguan (agian Berceo beraren garaietan), hizkuntza propioaren soinu-ezaugarrietan txertatzean, forma zaharrarengandik (sinkopatu gabe) gertuago mantendu zen bariante bat fosilduaraziz?

Frantsesean, penintsulako erromantzeetan ez bezala, latinezko termino zaharren deribatu modernoak (“soeur”) bere aurrekariaren zentzua (“soror”) gaur egunerarte mantendu izan du, gazteleraz “hermana”, “monja”, eta are orokorrean “religiosa” terminoek adieraziriko esparru semantikoa termino bakarraren pean mantenduz. Alabaina, *Le Grand Robert...*-ak (Robert 1986 -1951-1966-, 813) nahiz *Dictionnaire historique...*-ak (Rey 1994, 1960) jasotzen dituzten grafia modernoaren aurretiko formek (forma modernoa 1549az geroztik ezagutzen baita) are Berceoren aurretiko garaietara ere bagaramatzate, XI-XII. mendeetara⁸⁵. Hauen artean “seror” forma ere badago, aipaturiko mendeetako dokumentuetan aurkitu izan dena. *Dictionnaire historique...*-aren arabera, forma honek, “ahizpa sabelkidea” zentzuarekin –eta gazteleran ere gertatu izan zela ikusi dugun lez– “subsistent jusq’au XIVE s. sout l’aboutissement de l’accusatif latin”. Era berean, gazteleran ere gertatu izan zen lez, XIII. mendeaz geroztik erlijiozko bizitzadun emakumearen zentzu orokorra gailendu zela ere badiosku. Ohar dezagun hemen Juan Gorostiagak “serora” hitzaren hastapenak

⁸⁵ Grafia modernoaren aurretiko grafia horiek honakoak dira: “soer”, *La Chanson de Roland*, 1080 urtea; “suer”, *La Chanson de Guillaume* o *Chanson de Guillaume*, 1130 urtea; “seur”, XIII. mendeko idazlan zehazgabe batean (*¿Blancardin et l’Orgeulleuse d’Amour?*); eta “cas régime” lez, “seror” jasotzen du, *Mystère de l’époux*, 1050 urtea; eta “sorur”, *La Chanson de Roland*, 1080 urtea.

frantses zaharrean ikusi nahi izan zituela, eta dagokigunarekiko, beste hipotesi iradokikor bat ere formulatu zuela: "ahizpa" terminoa bera ere ("AIZTA, AINZTA, AIZPA...") frantsesaren bidez litzateke euskarara iragana, eta: "Quizá hay que vincularlo con el latino "antista" (superiora de convento) y ser el significado originado del vasco el de 'hermana mayor'"(Gorostiaga 1983, 788). Eta noski, gogoan izan ditzagun hemen goraxeago esandakoak, Gorostiaga berak aipaturiko Elorrioko Argiñetako San Adrian ermitan eta Berriozabal auzoko Santa Katalina ermitan zeuden bi ahizpa seroren hilarriak (frai Martin de Coscojalesek jasoriko XVI. mendeko ahozko tradizioaren arabera), eta Argiñetako nekropoliko hilarrien VII-XI mendeak bitarteko datazioak⁸⁶.

Bestalde, Goiz Erdi Aroaren bitarte kronologikoa modu zabal batean kontsideratuz, hastapenetako katalunieran, gazteleran eta frantsesean ondorengo "sor" (gazteleraz, zentzu erlijioso hutsa) eta "soeur" (frantsesez, zentzu erlijioso eta familiarra) terminoen bariante arkaikotzat hartzen den "seror" forma XII-XIII mendeetan kokatzen zaigu, eta puntu honetan Gorostiagaren kontsiderazioak ondo txertatzen direla dirudi. Hala, zentzu erlijioso eta zentzu familiarra banatzerako orduan erromantzeek harturiko aukeren artean (hau da, katalunieraren eta gazteleraren kasuetan termino ezberdinen pean jaso, "soror"-en ondorengo "sor" zentzu erlijioso hutserako utziz, edo frantsesaren kasuan, termino bakarrarekin bi zentzuak adierazten jarraituz), euskarazko espresioak ere ibilbide hauetariko baten hautua egina zukeen, "ahizpa" euskarazko jatorrizko terminotzat hartzekotan zentzu familiarra hizkuntza beraren termino baterako erreserbatuz, eta ostera zentzu erlijioso "soror" maileguaren "seror" garapenari utziz, edo bestela, Gorostiagak pentsatu izan zuenez, "seror" bezalaxe "ahizpa" terminoa bera ere latinezko jatorridun mailegua izatekotan, zentzu familiarerako nahiz erlijiosorako terminoak latinezko jatorritik eta emakumezkoen erlijiotasunezko testuinguru batetik jasoz. Edozein kasutan, aipaturiko eboluzio semantikoa inguruko erromantzeetan XIII. mendearen aurretiko garaietan gertatu izan zela haintzat hartuz gero, zentzudunena euskaraz ere balizko eboluzio analogoa garai beretsuan gertatu izan zela pentsatzea litzateke. Eta Coscojalesek XVI. mendean aipaturiko *Deludelux* eta *Delucotroïda* izeneko "Sororas, ó sácristanas" haien hilobiek ere, esleitzen zaien testuinguru arkeologikoarekin, XIII. mendearen aurreko garaietara garamatzate.

Terminoa biarnoeraz ere erabilia izan zen (Lespy; Raymond 1998, 585, 590); interesgarria da bertan ahaidegoa soilik adierazteko erabili izana ("seror" forma, XIII. mendean⁸⁷, eta "serou" forma⁸⁸ erabili izan ziren). "Sor" eta "soeur" terminoek, ostera, berantiarragoak izateaz gain, ahaidegoaren zentzuaz gain erlijioso ere baitaratu zuten⁸⁹.

⁸⁶ Ikus II. 3.2. azpiatala, 92-93 or.

⁸⁷ Terminoaren iturria: *Livre d'Or de Bayonne* (textes gascons du XIIIe siècle) publiés par l'abbé BIDACHE, Librairie Ribaut, Pau, 1882.

⁸⁸ MEYNIEL, dr., *La Nayade de la Houn de Bordeu, a las Aigue-Boues, Poème Bearnez dap sa Traductiou en Francez ; Seguit de Notes d'u bieil Medeci. Ou la Nayade de la Fontaine de Bordeu aus Eaux-Bonnes, Poème Béarnais avec sa Traduction en Français ; suivi de Notes d'un Vieux Médecin (le dr. MEYNIEL)* (Tonnet, Pau, 1811) lanetik jaso. Argitalpen urtea eta lana idatzi zen urtea berbera ote ziren jakiten saiatu gara, eta autoreari buruzko hainbat bilaketa eginik ere, ezin izan ditugu zalantzak argitu. Litekeena da 1811n Meyniel doktoreak argitaratu eta aipuekin osatu zuen poema aurreko mendeetakoa izatea.

⁸⁹ Adibideak honako lanetatik jasoak: *L'imitatiou de Jesu-Chrit traduside en bearnes*, par l'abbé P. LAMYSOUCETTE, 2e édition, Vignancour, Pau, 1872; *Coutumes de Soule*, édition de 1692. J. Dupoux, imprimeur et libraire, Pau; *Chansons de X. Navarrot*, publiées par Vastin LESPY, Imprimerie Veronese, Pau, 1868; eta RAYMOND, Paul: *Artistes en Béarn avant le XVIIIe siècle* (textes béarnais), Librairie Ribaut, Pau, 1874.

Egin berri dugun gainbegiratuaren arabera, beraz, Aro Berriko euskal hiztunen espazioan serorak izendatzeko erabili izan zen terminorik ohikoenetik morfologikoki gertuen leudekeen formek, edo zuzenean erromantzeen aurretiko latinezko errora, edo inguruko erromantzeen kasuan, beranduen jota –eta frantsesaren salbuespenez– XII eta XIII. mendeetara garamatzate; biarnoeraren kasuan, garai berantiaragoetara ere bai. Edozein kasutan, latinezko errotik zuzenean edo inguruko erromantzeetatik jaso izan, euskal hiztunen komunitateak terminoa erlijiozko emakumeen esparrura mugatuz jaso izango zukeen, ahaidegoaren loturak adierazteko, hizkuntza beraren baliabideak (“ahizpa”, “arriba”, etab.) mantenduz, edo emakumezkoen testuinguru erlijiosoko beste termino bat bertakotuz (Gorostiagak aipaturiko "antista"). Banaketa semantiko berbera gazteleraren eta frantsesaren kasuetan XII-XIII. mendeak bitartean gauzatu izana (portugesaren eta katalanaren kasuetan, are XV.eraingo ere luzatuz) ere kontsideratu beharrean gaude; honek, nire ustetan behinik behin, mailegua mende horietan jaso izanaren hipotesia sendotuko luke. Hau da, terminoak euskaran lehenik sortze-bidean zeuden inguruko erromantzeetan izandako bilakaera morfologiko berbera izana luke *soror*-etik *seror*-era, ondoren hizkuntza bakoitzak bilakaera ezberdindua izatean, euskaran bilakaeraren lehen pausuan gelditzeko.

Baina gauza gutxi esan liteke behar besteko ziurtasunez. *Diccionario Crítico...*-ak iradoki lez terminoa zuzenean latinetik erromantzeen eraginik gabe letorkeela onartuaz gero, erromantzeen sorkuntzaren aurretiko mendeetaraino jo beharko genuke, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko garaietara, VIII. mendea (edo batzuen arabera X. mendea) baino lehenagoko garaietara⁹⁰. Ikusi dugu hasieran, nola hizkuntzalaritzaren aldetik latinetik jatorria aintzatesten zen, erromantzeen eragina ukatu gabe ("bukieran duen -a hori artikulu edo -a organikoa modura finkaturik dago [...], baina baita femeninoaren markagailu morfologikoa bezala ere [...] erromantzetik hartuta femeninoarekin lotuta dago"); bada, behin mailegua zuzenean latinetik jasoriko izateak ze testuinguru sozial eta erlijiosotan kokatuko gintuzkeen ikusirik, iritzi hau berresten zaigula dirudi. Areago, Labayru ikastegiko hizkuntzalaritza eta etnologiaren alorreko ikertzaileek egin ziguten *Euskararen geografia historikoa*-n latinetik jasorikotzat aipatzen zaizkigun elizari loturiko terminoek monastizismo zaharraren testuingurua dakarkigute gogora: "abate / abat (<*abbatem*), apezpiku (<*episcopum*) eta serora (<*sorum*)" (Arejita; Manterola; Oar-Arteta 2006, 33). Agud eta Tovar-ek euskararen hiztegi etimologiko bat osatzeko bildu zituzten datuek berriz, *abade* = *apez* (alegia, liturgia ofiziatzeko gai zen ministroa) ekibalentziak **apat(e)* balizko formapean aragoieran, leoiera zaharrean eta mozarabiarrean existitu behar izan zuela agertzen digute (azken honetan badago *apate* formapeko testigantza dokumentalik), euskal lurraldeetan ere bere arrastoak utziak zituzkeen forma batean (*Aphatia* Zuberoan, *Aphat-Ospital* Behe Nafarroan, *Apatamonasterio* Bizkaian, etab.) (Agud; Tovar 1988a, 269). Areago, euskarazko *apez* = *abade* baliokidetzak berak iradokitzen duenez (erabilera hau gaur eguneraino luzatzen da; nik neuk entzuna dut behin baino gehiagotan nire jaioterri den Bergaran, *abade* eta *apaiz* izenak baliokidetzat erabiltzen), *apez* eta *apaiz* terminoak eurak ere jatorri berberetik letorzke, guztien jatorrian *abbas* termino monastikoa legokeelarik. Eta **apat(e)* eta *abade* terminoekin gertatu bezalaxe, euskaraz gain inguruko erromantzeetan ere izan ziren jatorrizkoarekiko gertuagoko formak ere; hala, okzitanieraz XIII. menderarte erabili izan zen *abatz* terminoa (Agud; Tovar 1988b, 886). Gorostiagak, *apaez-apaiz* formak bitarte, terminoa probentzal zaharreko ("antiguo provenzal francés") *abbes-abbas*-etik eratorrikotzat zeukan

⁹⁰ Hizkuntza erromantzeen sorkuntzaren kronologia bera eztabaidagai da oraindik, eta nahiko onartua den gutxi gora beherako mende bat hartzen dugu ziurtarritzat, VIII. mendea. Ikus, esate baterako, Bustos Tovar 2000 eta Climent de Benito 2006.

(Gorostiaga 1982, 129). *Ap(h)ezpiku*-ri dagokionean aldiz, Agud eta Tovar-en hiztegirako materialetan terminoa eta honen aldaerak (*aphezpükü, ipizpiku, ipiztiko, ipiztiku*) "Derivados del greco-lat. ecles. *episcopus*"-tzat azaltzen zaizkigu, baina "con influencia de *apez* por etimol. pop.". *Apez* terminoaren eragin herrikoa jasotzearekin bat *p-c-p* formatik *p-p-c* formarako metatesia gertatu izana litzateke, euskaraz jaso diren formak emanez (Agud; Tovar 1988b, 890).

Terminoen inguruko kontsiderazio hauetatik hausnarketa zabalagoetarako bideak zabaltzen zaizkigu. Lehenik eta behin, maileguak hauek -eta ez beste batzuek-izatea bera aski esanguratsua dugu. *Presbiterum*-etik eratorririko mailegurik ez zuen euskaraz jaso, esaterako, ingelesezko *priest* edo gaztelerazko *preste* terminoen ahaide izan zitekeenik. Euskal Herriko kristautzearen formekiko oso esanguratsua dugu hau, argi eta garbi azaltzen baitigu lurraldeon lehen -eta oinarrizko- kristautzearen ardatzezko protagonistak testuinguru monastikotik helduak izan zirela. Apezpikutzen aldetiko kristautasun instituzionalizatu baten egituraketa lehen azpiegitura monastikoaren ondoren eta gain ezarririkoa litzateke, eta euskaraz latinetiko *episcopum*-a *apez, apaiz* terminoen kutsu herrikoa medio antzaldaturiko *ap(h)ezpiku* bilakatu izana prozesu horren agerri litzateke.

Guzti hau hala izatekotan (eta ez daukagu kontrakorik pentsarazten digun arrazoi berezirik), *seror*-en hastapenetan monakotza forma zaharretako *soror*-ak egotea erabat zentzuduna litzateke; testuinguruari legokioke zeharo. Hau da, honek, *virgines* eta *viduae*-ekin, beneditarren erregelaren eta klunitarren erreformaren hedapenaren aurretiko monakotzaren formekin, anakoretekin eta eremutarrekin loturak ezartzeko bidea zabalik uzteaz gain, Larramendiren -eta jatorriari buruzko bere korrante historiografikoa jarraitu izan dutenen- iritzia sostengatzeko bidea ere emango luke, inguruko lurraldeetako diakonesen presentziaren berriak ere garai horietatik baitatozkigu. Gainera, Euskal Herriko lurraldeetan gehien zabaldu zen fenomeno izan zela dirudien monasterio "familiarren" testuinguruak, zer esanik ez, terminoaren ahaidegoaren zentzutik zentzu erlijiosorako desbiderapen semantikoa gauzatu zedin testuinguru egokia dirudi. Guzti honekin bat, monasterio moeta honek Aintzinateko eta Goi Erdi Aroko euskal lurraldeen egoera soziologiko eta demografikoarekin oso era egokian bat egiten duela ere azpimarratu izan dugu.

Eta bada bestelako daturik ere, monasterio familiarretako antolakuntza herrien testuingurura hedatu zela pentsaraztera daramanik. Hasieran aipatu dugu, nola euskal lurraldeetatik Erdi Aroan eta Aro Berrian iragandako bidaiariei emakumeen inguruko zenbait aspektu deigarriak zitzaizkien. Hauen artean neskatxek izan ohi zuten orrazkera berezia zegoen; tonsura erako soilunea, honen inguruko koroa tankerako batetatik modu ezberdinetako zenbait adats eta motots utzita (inguru guztian, edo belarri gainetan, edo aurrekaldean, edo atzekaldean, etab.). Hainbat atzerritarrek eman zuten orrazkera honen berri: Ssassek (1466), Arnold von Harff (1496), Montigny (1501), Sebald-Oertel (1521-1522), Johannes Lange (1526), Andrea Navagiero (1528), Christobal Weiditz (1529), Pedro de Medina (1548), Venturino (1572), Braun eta Hogenberg (1577), Montaigne (1580?), eta Lancre (1613) aipatu litezke; hainbatek, euren hizkuntzan "tonsura"ri zegokion terminoa baliatu zuten orrazkera aipatzeko⁹¹. Honen *beacumial* izenaren berri eman zigun Venturino-k (1572), deskribapenik xeheenatarikoa emanez:

Neskak, handiak eta ezkon adinekoak izanda ere, oinutsik ibiltzen dira eta ilea buruaren gaineraino moztua edukitzen dute; hala, denek ere mutikoak dirudite. Soilik koroa txiki bat edo zirkunferentzia bat uzten dute buru inguruan eta kizkur txiki batzuk,

⁹¹ Garate 1989, 62, 71-74, 106, 110-111, 122, 129, 146-147 eta 151-152; Díaz de Tuesta 2006, 37, 38, 40, 44, 47, eta 49-50. Datak bidaiaren edo argitalpen urtearen arabera antolatuta ditugu.

nahiz bekoki aurrean, nahiz lokietan zintzilik, nahiz belarri gainetan, nahiz buru inguru osoan zintzilik; batzuetan motzak eta beste batzuetan luzeak, edo beste moduren batean jarriak; oso polita da, are gehiago kontuan izanik neska ederrak direla gehienak, lirainak eta indartsuak; eta besoak agerian izaten dituzte. Emakumeentzako burugaineko artifizialari Beacumial esaten diote euren hizkuntzan (Díaz de Tuesta 2006, 50)

Orrazkera hau euskal lurraldeetako bereizgarritzat aipatu izan da, bertako ohitura bitxien eta balizko arrasto paganoen testigantzat. Eta jatorri paganoa ere ez genuke baztertzekoa, Estrabonek penintsula iparraldeko biztanleei buruz eman zituen azalpenetan, Aro Berriaren hastapenetan bidaiariek aipagai izan zituzten *beacumial* haien tankerako orrazkera izan zitekeen bat laburki deskribatu baitzuen, jada ezkonduak eramane ohi zuten burukoak dirudien batekin batera:

Kaskezur aurrealdea horren larru-arras moztuta ibiltzen dute, ezen bekokia baino distiratsuago gelditzen baitzaie. Beste emakume batzuek, berriz, oin bete inguruko garaiera duen zutabetxo bat jartzen dute buru gainean, gero horren inguruan ilea txirikordatu eta zapi beltz batekin estaltzeko (*Ibid.*, 22-23)

Alabaina, jatorri edo eragin paganorik ukatu gabe, litekeena da ohitura hauek finkatu eta orokortu ziren testuingurua beste bat izatea: ikergai dugun testuinguru monastikoa, alegia. Izan ere, Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan zehar emakumezkoak erlijiozko botere esparruetatik aldentzeko hartu ziren neurrien artean izan zen bat, *beacumial*-arekiko bereziki deigarria duguna: hain zuzen ere, emakumeak aszetismo aitzakiaz tonsuratzeke debekua. Gizonezkoen erlijiozko jantziekin gertatu bezala, emakumeei tonsuratzea ere debekatu egiten zitzairen, gizonezkoen funtzioak eurenganatzeko eta ministeritzetako suplantazio arriskuak ekiditeko asmoz. Eta debekuak eman baziren, garai batean emakumeek ohitura haiek hartu zituztelako behar zuten izan, noski⁹². Orain arte euskal lurraldeetako kristautzearen instituzionalizazio berantiarrari buruz azalduak ditugunak aintzat hartuaz gero, ez gintuzke bertan emakumeen tonsuratzeari buruzko debekuek eraginik ez izateak askorik harritu beharko. Gizartearen testuinguru orokorrean tonsura honek zeukan balore sinbolikoa, bestalde, egoki txertatzen da testuinguru monastiko batetik hautemandako gizartearen antolamentu baten baitan: tonsuratuak neskatxa ezkongabeak izan ohi ziren, oraindik sexu kontaktuez "garbi" zeudenak; ezkontzean ileari hazten uzten zitzaion eta ezkonduen buruko propioa jantzten zen. Bada, "garbitasunaren" zentzua zen tonsurak testuinguru monastikoan zeukana ere; munduko grinetatik aldentzearen adierazle zen, besteren artean -edo akaso, batez ere- sexu aktibitateekiko ukoa agertzen zuena. Alabaina, sinboloak bazuen beste alderdirik ere; emakumeen tonsuraren inguruko debekuek gogorarazten dutenez, ile motzak gizonengandiko binkulaziorik eza adierazi zezakeen, ile luzearen kontrakotzat, azken honek gizonenganako menpekotza adierazten

⁹² Lehen debeku bat Gangrako kontzilioan (325-381) eman zen; kontzilio honetan Eustazio zelako baten irakaspenak gaitzetsi ziren batez ere, eta bertan salaturikoak honen jarraitzaileen ohiturak izan ziren, euren artean, emakumezkoen tonsura, gizonezkoen arropak janztearen debekuarekin batera jaso zena. Hau, antza denez, Eustazioaren jarraitzaileen artean aszetismo aitzakiaz emakumeek gizonezkoen janzkera eta tonsurazko orrazkera imitatu izanagatik litzateke. Gangrako kontzilioko debeku hauek 1140ko *Decretum Gratiani*-aren -eta beraz *Corpus Iuris Canonici*-aren- parte izatera iragan ziren, Erdi Aroko eliz-legediaren oinarriko testu honen bidez ondorengo legedietara helduz. Debekuaren hurrengo agerpenak, Gangrako kontziliokoak bezalaxe, emakumeek gizonezkoen erlijiozko espazioak eurenganatzearen ardura azaltzen digu; Sergusio-ko Enrikeren *Summa Aurea*-n (1250-1253), izan ere, debekua emakumeak apez zergatik izan ez zitezkeen azaltzerakoan jaso zen, hauek "giltzen botererik" jaso ezin zezaketela eta aldarean zerbitzatu ezin zezaketela zehaztearekin batera: "For women may not receive the tonsure... nor may their hair be cut... nor can any woman exercise the power of the keys... nor serve the altar...". Nabaria da, beraz, ilea mozteak edo tonsuratzeak karga sinboliko handia zeukala, eta biztanleriak bere erlijiozko zentzua garbi hautematen zuela. Debeku hauen inguruan ikus II. 2.1. azpiatala, 53-59 or., eta iturrien erreferentziatarako, zehazki 54 or., 29 oinpeko nota.

baitzuen. Iradokitzen zaiguna, azken finean, jatorria hautemapen monastiko batean luketen patroï hauek euskal lurraldeetan ez soilik monasterioen antolakuntzarako, baizik haratago, gizartearen taxukera orokorrerako jaso izana litzateke.

Itzuliko gara honen gain aurrerago, baina honekiko eta monasterio familiarrekiko, ondorengo ermita askori jatorri historikoak Goi Erdi Aroko garaian “monasterio” batekin topo egin arte jarraitu ahal izan zaizkiela jakina dela aipatu behar. Lan honetan ere egingo dugu guk ere aurrerago batzuekin topo. Eta azaldu bezala, monasterio hauetariko batzuen biziraupena oso garai berantiarrak arte eman zen; zentralizaturiko instituzioekiko dependentzia ezaugarritzat zuten beneditarren eta klunitarren erreformak jada hedatuak zeudenean ere mantendu ziren zenbait, Penintsula Iberikoan X, XI eta XII mendeak arte, eta Euskal Herriko lurraldeen kasuan, are beranduagoko garaia arte⁹³.

Guzti honekin bat, hizkuntza erromanikoetako "serora" edo "seror" terminoen lehen aipamenek XII. eta XIII. mendeetara garamatzatela ikus dezakegu. Garai hartan, hiztegiek "emparedada" zirenei loturik jasotzen dituzten erabilerez gain, penintsulako ordena hospitalario eta militarretako erlijiozko emakumeek izendatzeko ere erabiltzen zen, aurrerago ikusiko dugun "freila" (edo "freira", etab.) terminoarekin batera.

Terminoak euskarara heldu zen eta *serora* forma hartu zuen garaia zelakoa zela ere, zalantzagabea duguna, bere erabilera Aro Berrian zehar erlijiozko emakumeak aditzera emateko mantendu zela da. Eta hala, Larramendiren hiztegian, seroren ingurukoak azaldu izan zizkigun *Corografía...* baino lehenago idatzi zuen *Diccionario Trilingüe...*-an, “serora” terminoa gaztelerazko “beata”ren itzulpena bailitzan ematen digu, hau da, gazteleraren baitan Erdi Aroan eta Aro Berrian sortu eta erabili zen termino baten baliokide lez, “andre jainkotia” izenarekin bat. Azken honek Larramendi berak sortutako neologismoa dirudi; latinez ematen duen “pia foemina”-ren itzulpen hutsa dela esango genuke (Larramendi 1745, 134), ez baitugu termino hau beste inon idatzirik aurkitu (ez gaztelerazko dokumentuetan, ez euskal literatura zaharraren korpusean). Neologismoak erabiltzeko joerak bere arrazoi historikoak ditu, jarraian laster ikusiko dugunez, XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik seroren instituzioaren eta honen zilegitasunaren inguruan izan ziren jazarpen eta presioek, hauek mojengandik garbiki ezberdindu eta banaketa hau terminoen erabileran isladatzea eragingo baitute.

Diccionario vasco-español-francés-ak (Azkue 1906, 219) eta *Diccionario Retana...*-k (De la Sota; Laffite; Akesolo 1976-1991, 3384), gaztelerazko “beata”ren esanahiaz haratago, jada terminoak euskaraz zituen esanahi ezberdinak azaltzen dizkigute. Hauek, era berean, espazio ezberdinen araberrako banaketa izango zuketean: “mujer del sacristán” (bizkaieraz: Arratia-Mañaria-Orozko), “monja” (Iparraldean ohikoa, Nafarroa Garaian ere erabilia), “solterona que sirve en la iglesia” (Nafarroa Garaian eta bizkaieraz nahiz gipuzkeraz), eta “mujer encargada de recoger los panes y la cera de las sepulturas en la iglesia” (Eibarren). Hitzaren eratorriak (*Loc.cit.*) “beata”, “sacristana” terminoek eta “solterona que sirve en la iglesia” bezalako deskribapenek adieraziriko “egoera erlijioso” orokor bat, edo erabat mojei asoziatutako egoera bat aditzera ematearen artean azaltzen zaizkigu.

Era berean, *Diccionario General...*-ak “monja” eta “beata” zentzuak, kongregazio erlijioso batean bizi izaten ziren emakume lez, batu egiten ditu, “propio de la tradición septentrional” litzatekeela azalduz: “Al Sur se encuentra en autores alto-navarros (Elizalde, Mendiburu, Lizarraga) o de influencia alto-navarra (Gamiz)”. Beste “solterona que sirve en la iglesia” eta “mujer encargada de recoger los panes y la cera de

⁹³ Ikus honen ingurukoak II. 4. atalean, 114 eta hurr. or.

las sepulturas en la iglesia” zentzuei buruz, Iparraldeko testuetan aurretik “*and(e)re*” hitza gehitzen zaiola zehazten digu. Hitzaren eratorriei dagokienean, *Diccionario Retana*...-k emandako eratorriei besteren bat gehitzen die, baina funtsean, azken honetako erdibide semantiko berberera garamatza, nahiz eta “monja”ren zentzua presenteago dagoen.

Hiztegi hauen bidez azaltzen zaigun banaketa espazialaren arabera, zentzurik “laikoena” deitu ahal izango genukeena, “solterona que sirve en la iglesia” lez adierazten dena, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian presente dagoela –edo zegoela– eta Bizkaiako ekialdean “mujer del sacristán” zentzua hartzera ere heltzen dela ikusten dugu. Iparraldera gerturatuz goazen ahala baina, “serora” hitzaren zentzua mojei loturik ageri zaigu, zentzu ertsian mojak direnen eta ez direnen arteko ezberdinketa, bigarrenei aurretik “andere-“ hitza gehituz egiten delarik. Araba, nahiz eta ezer erabakiorrik esan ahal izateko informazio gehiagoren beharra izango genukeen, hitz honen erabileratik kanpo gelditzen zaigula dirudi, beste lurraldeekiko gertu dauden zonalde batzuen salbuespenez (Agurain, kasurako). Baina terminoaren erabileran espazioen arabera ematen diren ezberdintasun hauek, jarraian ikusiko dugunez, ez ziren Aro Berri guztian zehar eman; egoera orokor hau XVIII. mendean izan ziren aldaketa terminologiko eta semantikoei dagokie, aurreko garaietan, *serora* terminoarekin erlijiozko emakumeen espektro guztia adieraziko litzatekeelarik, euskal lurralde guztietan. Ikus dezagun jada hainbatetan aipagai izan dugun hau esatera zerk garamatzan.

“Serora” terminoak XVI, XVII eta XVIII mendeetan zehar –eta are XIX.ean ere– izan zuen erabileraren bilaketak, terminoak emakumezkoen erlijiotasunaren aldaera ezberdinen sorta zabal bat baitaratzen zuela erakusten digu⁹⁴. Literatura guzti honen parterik handiena erlijiozko lanek osatzen dute, eta ondorioz, beti “serora” hauen debozioa, kastitatea eta erlijiozko sentimentu sakonak azpimarratzen zaizkigu, propioki moja zirenekiko asimilazio semantiko batera joaz. Alabaina, “monja” terminoa XVIII. mendea baino lehenagoko literaturan oso gutxitan agertzen zaigu, eta mende honetan ere “serora” hitza erabiliagoa izan zen, are beste hizkuntzetatik euskarara itzuliriko lanetan ere, non itzuliriko terminoa propioki “moja” zentzuari zegokion. Hau da, Larramendi berak ere esan bezala, Aro Berrian zehar “serora” hitza izan zen nagusi erlijiozko bizitza zeramaten emakume guztiak, are mojak eurak ere, izendatzeko.

Funtsean, dagokigun auziarekiko, XVI-XIX mendeen bitarteko obra hauetako aipamenak ondorengo oinarritzko banaketaren pean hauteman litezke: (1) propioki mojak -klausurakoak- zirenen kasuak, itzulpenetan eta bestelako obretan⁹⁵; (2) nabariki

⁹⁴ Jarraian aipagai izango ditugun obrak KLASIKOEN GORDAILUA webgunean (<http://klasikoak.armiarma.com/>) eskuragarri daude.

⁹⁵ Etxeberri Ziburukoa (Joanes Etxeberri) (*Noelak*, 1631); Silvain Pouvreau (*Filotea*, 1664; eta *Iesusen imitazioa*, 1669); Juan Tartas (*Arima penitentearen okupazioa debotak*, 1672); Mixel Xurio (*Jesu-Kristoren imitazioa*, 1720); Sebastian Mendiburu (*Festegunetako irakurraldiak*, 1982 -1740-1767-; *Jesusen Bihotzaren Debozioa*, 1747; *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai (III)*, 1760; eta *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 1982 -1767-1782-); Martin Maister (*Jesü-Kristen imitazioa*, 1757); Joakin Lizarraga (*Sermoiak*, 2004 -1771-1800-); Bernard Larregi (*Zenbeit sainduen bizitza*, 1777); Jusef Egiategi (*Filosofo Huskaldunaren ekheia*, 1785); Beñat Mardo (*Koplak*, XVIII-XIX); Franzisko Laphitz (*Bi Saindu Heuskaldunen bizia*, 1858); Zaldubi (Gratien Adema) (*Euskaldun peleginaren bidaltzailea*, 1877); Bazilio Joanategi (*San Benoaten bizitza*, 1887; eta *Sainduen bizitza*, 1890); Mixel Elizanburu (*Lehenagoko Eskualdunak zer ziren*, 1889) eta Emanuel Intxauspe (*Maria birjinaren hilabetia*, 1894).

mojak ez ziren serorenak⁹⁶; (3) banaketa garbirik hautematen ez zaiena⁹⁷; eta (4) termino berberarekin aipatu edo ez, -klausurako- mojen eta seroren arteko ezberdintasuna hautematen zutenak⁹⁸. Obra gehien lehen multzoan batzen zaizkigu, eta beraz, nabaria zaigu "moja" zentzua adierazteko "serora" terminoa erabiltzea guztiz ohizkoa izan zela, are XIX. mendean ere, nahiz eta Larramendik XVIII.aren bukaerarako jada Gipuzkoan "monja" izenaren erabilera orokortua zegoela ziurtatu.

Beste obren artetik mojen eta seroren arteko ezberdintasuna hautematen zutenak bereziki interesgarriak zaizkigu, XVII-XVIII mendeetakoak batez ere. XIX. mendean jada seroren eta mojen arteko ezberdinketa gehiagotan ageri bazaigu ere, aurreko mendeetakoek banaketa honen lehen zantzu batzuek landu zituzten. Hala, Estebe Materre frantziskotarrak, seroren lehen desagerrarazte saiakera garrantzitsua jada indar hartzen zioanean idatziriko (1617an) eta hau bete-bete zegoenean argitaraturiko (1623) bere *Dotrina kristiana*-n honako galdera planteatzen zuen, hiru "perfet izaiteko konseilluak" mintzagai zituela:

GALDEGITEA. Zer da bethiereko kastitatea?

I HARDESTEA. Ez ezkontzea, eta ezkonzatik kanpoan ere haragizko obrarik ez egitea. Eta hunetzaz ere egiten dute promes eta botu Fraidek, Serorek, eta Eliza-gizon ordenu sakratuak hartzen dituztenek.

GALDEGITEA. Konseillu hunen gaiñean nahi nuke iakin ea ezkondu gabe Fraide edo Serora sarthu gabe, eta ordenurik ere hartu gabe, on denz kastitatearen begiratzea, eta promes baten azpian haragizko obretarik apartaturik bere etxean bizitzea?

I HARDESTEA. Gauza ona eta saindua da hori, eta ezkontzea baiño hobe eta Giristinotasuneko añhitz lekutan usatzen dena: Eta halakoek izanen dute merezimendu handia Iainkoaren aitzinean, baldin bere promesa behar den bidean edukitzen eta begiratzen ba-dute (Materre 1623 -1617-, 36)

"Serora" terminoa mojudako uzten dela dirudi, eta inon izatekotan, "Fraide edo Serora sarthu gabe, eta ordenurik ere hartu gabe" kastitatea zaintzen zuten haien artean beharko genituzke bestelako serorak lerratu.

Frantziskotarra zen Joanes Haranburu ere, 1635ean *Debozino eskuarra* idatzi zuena; "Aita san Franzes serafikoak" fundatu zituen hiru erregelen berri ematen digunean egiten dizkigu terminoen bereizketak: "gu fraide menorak, santa Klarako serorak eta penitentziako debotak" bezala aipatzen zaizkigu. Nabaria denez, Materrek bezala, "serora" terminoak mojak adierazten zituela hautematen zuen, hau da, 2. ordenakoak, eta boturik egin gabeak ziren 3. ordenakoak aldiz, "penitentziako debotak" bezala sailkatu zituen. Liburuaren azken atala, hain zuzen ere, azken hauei eskaini zien, eta ondorengo kapituluan emango dugu bere azalpenen berri, ordena mendikanteen eta

⁹⁶ Athanase Belapeire (*Katexima labürra*, 1696); Juan Bautista Gamiz (*Euskal olerkiak*, 1748-1773); Salvat Monho: *Olerkiak* (XVIII-1821); Juan Bautista Agirre (*Jaungoikoaren legeko amar aginteen gaiñean erakusaldiak*, 1850 -1814-); Alfonso Maria Zabala (*Gabon zar bat eta beste ipui asko*, 1962 -1880-1889-); eta Jean Pierre Arbelbide (*Igandea edo Jaunaren eguna*, 1895).

⁹⁷ Joanes Leizarraga (*Konfesioea*, 1571); Etxeberri Ziburukoa (Joanes Etxeberri) (*Elizara erabiltzeko liburua*, 1636); Arnauld François Maitie (*Otoitzak*, 1874 -1676-); Franzisko Elizalde (*Apezendako dotrina kistiana uskaraz*, 1994 -1735-); Martin Duhalde (*Meditazioneak gei premiatsuenen gainean*, 1809); eta Jean Martin Iribarren (*Eskaraz Egia*, 1858).

⁹⁸ Estebe Materre (*Dotrina kristiana*, 1623 -1617-); Joanes Haranburu (*Debozino eskuarra*, 1635); Silvain Pouvreau (*Giristinoen dotrina*, 1656); Agustin Kardaberaz (*Ama beneragarri Josefaren bizitza*, 1882 -176?-); Jean Martin Hiribarren (*Eskualdunak*, 1853); Jean Baptiste Daskonagerre (*Athea gaitzeko ohiartzunak*, 1870); Etiene Lapeire (*Credo edo Sinhesten dut esplikatu*, 1891); Mixel Elizanburu (*Frantziako hirur errepubliken ixtorioa laburzki*, 1891); eta Jean Hiriart Urruti (*Mintzaira, aurpegia, gizon*, 1971 -1891-1914-); eta Zezenak errepublikan, 1972 -1891-1914-).

bereziki frantziskotarren 3. ordenako partaide serora ugari izan baitziren. Nahiz eta Haranburuk euskaraz "penitenziako debotak" bezala sailkatu zizkigun, gazteleraz "beata" izena jasotzen zuten hauek euskaraz ohizkoagoa zuten "serora" izendapena, azken termino honen erabilera egin zuten obrei erreparatze hutsetik ondorioztatu litekeenez. Baina XVII. mendearen lehen erdialdeko frantziskotarren artean, itxuraz, euskarazko tradiziozko terminoa, hau da, "serora", garai hartan klausura bideetara eramaten zebiltzan mojudako gorde nahi izan zuten, beste erlijiozko emakumeak aldiz, ordenez apartekoen artean, "deboten" artean sailkatuz. Ulegarria izan litekeena, seroren desagerrarazterako lehen ahalegin garrantzitsua eman zen garaia dugula aintzat harturik, eta aurrerago azalduko dugunez, Kalagorriko apezpikutzaren aldetik parrokia, santutegi eta ermitetako seroren aurka egin zen bezalaxe, frantziskotarren Ministro Orokorrak ere XVI. mendearen bigarren erdialdetik jada hasiak baitziren beraien manupeko seroren ("beaten") komunitateak klausurapera bideratzen saiatzen, XVII. mendeko lehen hamarkadetan tentsiorik handieneko momentuak eman zirelarik⁹⁹. Ez dugu harritzekoa, beraz, garai hartako autore frantziskotarren idatzietan "serora" zirenak 2. ordenako, hau da, klausurara bideratu nahian zebiltzan seroren komunitateetakoak zirela adieraztea, bestelako serorak izendapenetik kanpo utziz eta bestelako terminoekin aipatuz, onarturiko erlijiozko emakumeen esparruaz kanpo gelditzen baizitzaizkien. Idatzi hauetan, beraz, "debotak" bezalako terminoen pean adierazi ziren guk ikerlan honetan seroratzat hautematen ditugunak ere; batez ere, autore frantziskotarrek printzipalki aintzat hartu zituztenak, 3. ordeneko egiten ziren emakumeak.

Lan honen xehetasun gehienak hurrengo kapitulurako utziko baditugu ere, badu Haranbururen liburuak bestelako alderdi aipagarriak, hemen ohartzea zentzudunago zaigunik. Alde batetik, Materre eta Haranburu, biak Axularren inguruan bilduriko "Sarako eskola"-ren partaideak ditugu. Esteve Materreren bizitzari buruz berri gutxi dago, baina jaiotzez euskalduna ez zela dakigu; Axularren laguna zela eta "Sarako eskola"ko partaide izan zela eta euskaraz testuinguru hartan ikasi zuela jakina da baina¹⁰⁰. Joanes Haranburu ere "eskola" bereko partaide izan genuen, Materre bezala frantziskotarra baina hau ez bezala jatorriz euskalduna, idazleen eskola sonatua mamitu zen Sara bertakoa, hain zuzen ere¹⁰¹. Bada, Haranburuk 3. ordenako partaide zirenen haien artean izan behar zituzten otoitzezko betekizunen berri eman zigun, gizonezko partaideak (apezak) ere aintzat hartuz:

8. Anaitasun hunetako apezek bere elizako ofizioaz landan ordena hunetako bere zorra pagatzea gatik eginen dute san Franzesen ordenatik orenak akhabatzean orhoitzapen bat, eta defuntuak gatik erranen dute erresponstu bat, *Deus Veniae!* erraiten delarik othoitza.

Ordena sakraturik eztutenak bere kargua konpliztea gatik Birjinaren ofizioa erraitera tenitu dira. Defuntuak gatik eta beregainki anaiatasun hunetakoak gatik ofizioaren ondoan zenbait othoitz eginen dute.

Egun guziaz bedere (nola baitira irakurtzen eztakitenak) tenitu dira bere orenak erraitera, da iakiteko, Matutinak, laudeak, Prima, Terzia, Sexta, Nona, Bezperak eta Konpletak: Matutinak gatik hamabi *Pater noster*, *Aue Maria*, eta *Gloria Patri*. Othoitz hauk berak zazpi banatan erran behar dira berze orenetan. Ordea priman eta konpletetan othoitz hautzaz berze alde erran behar dira *Credo* eta *Miserere mei* ezperre gogoz eztakitzenek hirurnatan *Pater*, hauken lekhuari erranen dute (Haranburu 1635, 103)

⁹⁹ Ikus III. 2.2. azpiatala, 218 eta hurr. or.

¹⁰⁰ Ikus "Literaturaren zubitegia" webgunean berari buruzko atala eta Lur, Harluxet eta Auñamendi hiztegi entziklopedikoetarako loturak, autore hau aipagai duten literaturari buruzko artikulua bezalaxe: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=616>.

¹⁰¹ Aurreko oinpeko notan aipaturiko informazio iturri berberak ditugu autore honentzat ere, "Literaturaren zubitegia"n eskaintzen zaion atalean: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=703>.

"Ordena sakraturik eztutenak", hau da, euren artean 3. ordenako "penitenziako debota" zirenak, Birjinaren ofizioa eta "orenak" otoitz egin beharrekoak ziren beraz. Eta hamarkada batzuetara helduko ziren otoitz hauek euskaraz egiteko eredu emango zuten obrak ere, hain zuzen ere, "Sarako eskola" berbereko partaide izan ziren beste autore batzuen eskutik: 1658an argitaratu zen Saran bertan bikario eta predikatzaile zen Kristobal Harizmendik idatzirikoa *Ama Birjinaren ofizioa*¹⁰², eta 1665ean aldiz, Ziburun bikario eta predikatzaile zen Pierre Argaiñaratzen *Deboten breviariora*¹⁰³.

Azken hau bereziki interesgarria dugu, alde batetik espreski emakumeei zuzenduriko obra izan zelako, eta bestetik, zazpi orduen (Haranbururen aipuan jaso ditugun Matutinak, etab., baina "laudeak" gabe) eredu egin zuten emakumeen aukeraketatik ("Çazpi princesa sainduen bicitce deuotac escolatçat aiticnean presentatcen darozquitçuela", dio). Ezjakina zitzaien obra hau 1910ean argitara eman zuen Vinson-i, guri bezalaxe, obra eta eredu aukeraketa -frantses jatorrizkotzat susmatzen zigun- aurreko obraren baten itzulpen edo moldaketa izango ote zen:

je ne trouve ni dans les Bollandistes, ni dans la Légende dorée, ni dans les autres ouvrages spéciaux la mention des faits pieux attribués à chacune de ces saintes. [...] Il est probable que le *Bréviaire des Dévots* basque n'est que l'adaptation ou la traduction d'un ancien livre français: mais quel est ce prototype? Les sept saintes femmes dont il s'agit sont évidemment sainte Elisabeth de Hongrie (19 novembre), la reine Radegonde (13 août), la reine Clotilde (3 juin), sainte Christine (24 juillet), sainte Eléonore de Provence, femme du roi Henri III d'Angleterre, morte en 1292 (1er juillet), l'impératrice Hélène (18 août) et Marguerite de Lorraine, duchesse d'Alençon (2 novembre) (Argaiñaratz 1978 -1665-, viij)

Vinson berak azaldu zigunez, hauen arteko azkena ez zen sekula kanonizatua edo beatifikatua izan, bere pietatezko obregatik aski ezaguna egin bazen ere. 1516an, 53 urte zituela frantziskotarren 3. ordenako abitua hartu zuen Argentan-eko monasterioan, eta bertan hil zen handik bost urtetara. Lan honetako eredu aukeraketaren iturria eta zergatien inguruan, eta baita egozten zaizkien pietatezko ekintzen jatorriaren inguruan ere, nahikoa legoke arakatzekorik, baina emakume hauetariko bakar baten ingurukoak baino ez ditugu aipatuko, dagokigunarekiko deigarri egin zaigulako: Santa Radegunda ("Priman"), VI. mendeko merovingiarren arteko erregina, Klotario I.ren emazteatariko bat izan zena eta hau -zenbaiten eritiz Frantziako lurretako lehen emakumezkoen monasterio litzatekeen- Poitiers-ko Gurutze Santuaren monasterioa fundatu eta gidatzeko utzi zuena. Eta halaber, eta nahiz eta hau berari buruzko biografietan ez den askotan aipatu ohi, abadesa izateaz gain garai haietako diakonesarik boteretsuenatariko bat ere izan zena¹⁰⁴. Baina ez zuen ziurrenez Argaiñaratzek halakorik buruan izango "Prima"-rako Santa Radegunda aukeratu zuenean, eta bere figurarekin ematen zaigun ereduak ere, printzipioz, ez du diakonesa baten irudiarekin zerikusi handirik. Ala Herbeeretako *kloppen*-en kasuan bezala, gordeko al zen artean ere, elizgizon eta

¹⁰² "Literaturaren zubitegia"n idazle honi buruzko atala eta loturak: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=707>.

¹⁰³ "Literaturaren zubitegia"n idazle honi buruzko atala eta loturak: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=704>.

¹⁰⁴ Areago, 630. urteko Reims-eko sinodoko 23. kanoneko neurriak, aurreko mendeko Radegundaren kasu-ordurako aski- ezagunak motibatuak izan zirelako ustea dute zenbaitek. Kanon hartan "Jaunari kontsekratzea eskatu duten alargunak eta Jaunari kontsekratuak izan diren emakumeak" botere zibilen aldetik "bortxatu" edo "beraien gain eskuak jartzea" debekatu zen; neurri hau Klotario I.ren eta Radegundaren inguruko gertakizunetik erreferentzia izan baliteke, hain zuzen ere, bere alboratza itzularazi nahi izan zuen Klotario I.ren borondatearen aurka, Radegundak, fundatu zuen monasterioan "Jaunari kontsekraturik" babes hartu zuelako da. Eliz legediak, kasu honetan, erlijiozko emakumeen gaineko babesaren botereari aurre egiteraino hedatuko zuteen. Ikus kanon hau www.womenpriests.org webgunean jaso eta itzulia, eta Radegundaren kasuarekikoak oinpeko notan: http://www.womenpriests.org/minwest/can_reims.asp.

emakumeen artean, diakonesen gogoramenik?¹⁰⁵ Ezin jakinean gaude, baina bego hala ere datua.

Aipagai izan berri ditugun obra hauetatik, dena den, zerbait nabaria zaigu: Sarako eskolako partaideek emakumezkoen erlijiotasunaren formak definitu, arautu eta testuinguru katolikoaren ildo ofizialetan sarrarazteko ahalegina egin zuten, aspektu ezberdinei heltzen zieten obrak idatzi eta argitaratzeko lana hartuz. Eta lan haietan, "serora" terminoa mojei esleitu izan zitzaien, bestelako erlijiozko emakumeak esparru laiko batean hautemanez eta bestelako izenekin aipatuz, euren artean nabariena zaiguna, "debota". Harizmendiren eta Argaiñaritzen obren antzerako garaian Silvain Pouvreau-k idatzi zuen *Giristinoen dotrina*-n (1656) baina, beste adierazpide batzuen bidez ezberdindu ziren erlijiozko emakumeak; edo hobe esan, haragizko bekatuak egitea galerazia zuten -eta gizonezkoek ere grinak ekidin beharreko- emakumeak: "kasu hartan erran behar du, ea berak gaizki egitera erakharri duen emakumea, zeinarekin egin baitu bekatu, edo kea jadanik lizundua zen, [...] ea Birjina zen, Serora, edo kastitatesko botuz obligatua [...]" (Pouvreau 1656, z.g.). Darabilen "edo" loturak adierazten digunez, hiru kategoria hauek ezberdintzat hautematen zituela dirudi: birjinak, serorak eta "kastitatesko botuz obligatua"-k zirenak; perfekziorako bidean progresioan paratzen dituen graduak direla esan liteke, eta kasu honetan, terminoa ez dagokio mojei, hau da, "kastitatesko botuz obligatua"-k zirenei, hauen eta "Birjina" zirenen artean kokatuko liratekeen erlijiozko emakumei baizik.

Sarako eskolako autoreen obretan saiaturiko kategorizazio eta banaketak, edozein kasutan, ez ziren "serora" terminoaren aplikazioa moja zirenei mugatzera heldu, eta Pouvreau-ren kasuan bezala, ondorengo hainbat obratan jaso zen terminoa mojak ez ziren emakumei aplikaturik, mojei eurei aplikatzen jarraitzearekin batera. Hala, Athanase Belapeirek bere 1696ko *Katexima labürra* zelakoan, parroketako hezkuntza lanak deskribatuz irakasle lanetan jarduten ziren serorak izan zituen gogoan; hain zuzen ere, serorak bere liburuan azaltzen saiatu zen edukien katekesi lanak egitekoak ziren:

Erretor eta bikariak biziki eskolaziren dütie bere parroketako haur gaztiak, txipizaroan ihiki ikhas, eta hartia hobeki bethikoz begiratzen ahal dielako. Hala gure jaun apezküpiaren ordenanzen arau, nor bere parroketan, ororen eskola bat ezar eraziren die ahalik sarriena, zoñez arranküra berhezi bat ükenen baitie bere erretoretako eginbidek lekhü derieno, auher eztaudian, nontik sortzen baitira bizioak; edo beste eskola bürzagi onsa ikhasi, bizitze honetako, elizako jabez onhetsi datian, bati eraginen: baita ahalaz ezariren berhez neskaten, serora edo beste bürzagisa berhalakoak: zoin saristatü baitirate parrokiak, gure errege jaunaren, haren Konseillüko, eta intandanten errege honen arau¹⁰⁶

Aurrerago ere ikusiko dugu nola seroren irakaskuntza lanak zein puntutaraino estimatuak ziren; kasu honetan bezala, Iparraldean serorek betetzen zuten funtzio honen inguruko ardura berezia izan zela dirudi, nahiz eta beste lekuetan ere nahikoa testigantza badugun¹⁰⁷.

Jada XVIII. mendean, Juan Bautista Gamizek 1748-1773 bitartean konposaturiko *Euskal olerkiak* direlakoetan aurkitzen dugun aipua, oster, ermitaren bateko serorari dagokiola dirudi, ezkutuko maitasunetarako leku apartatuak azaltzen baitzigu: "Joango gara nai baduzu zubira edo errotara edo serorean aldetik azpiti

¹⁰⁵ *Kloppen* deituriko emakume hauei buruz, ikus aurrerago II. 4.3. azpiatalean, 151-152 or.

¹⁰⁶ Klasikoan Gordailuan, liburuaren sarrerako atalean:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/B/BelapeireKatexima003.htm>.

¹⁰⁷ Ikus IV. 4.3. azpiatala, 412-413 or., eta VI.3. atala, 624 or.

errekaldera". Serora singularrean aipatzen zaigu gainera, ez dihardu inongo mojen komunitateari buruz¹⁰⁸.

Gamizen aipu laburraren aldean baina, badugu XVIII. mendeko beste idazlan bat, euskal literatura klasikoaren baitan emakumeen erlijiozko bizitzen formei buruzko gorabeherak askoz xehetasun handiagoarekin azaltzen dizkiguna: *Ama beneragarri Josefaren bizitza*. Agustín Kardaberazek XVIII. mendeko 60. hamarkadan egindako itzulpen-laburpen lana dugu, Salamancako Unibertsitateko erretore izan zen Agustín Ignacio de Aguirre azkoitiarrak 1724an idatzirik *Vida de la venerable madre Josepha de el Santissimo Sacramento religiosa recoleta de Santa Brigida en el convento de Santa Cruz de la Villa de Azcoytia* lanean oinarritua¹⁰⁹. Jatorrizko lanetik itzulpen-laburpenera Kardaberazek kontakizunaren muina jaso zigun, aipu eruditoak alde batera utzirik. Lan hauek, bai jatorrizkoa bai itzulpen-laburpena, oso interesgarriak ditugu erlijiozko emakumei helarazi nahi zitzaizkien ereduak ikerketarako, eta ikerketa espezifikoa sakonagoen beharra lukete (hemen ezin eginean gaudena). Izan ere, Josefa Larramendik bere "arimaren salbaziorako bidean" iragandako bizimodu ezberdinek, Aguirre eta Kardaberaz bezalako autoreek emakumeek santutasuna atxikitze egin beharrekoa zutela hautematen zuten bidearen gradazio ezberdineko pausuak agertzen baitzizkigute: baserrietik jeitsi eta etxe printzipal baten -edo hobe esan, hauetako alargun baten- zerbitzuan iragandako urteak (kasu honetan, Txurruka etxeko alargun bat), etxe partikularretako seroren tankerara; ospitalaren zerbitzuan iragandakoak, "hospitalera" lez; ermita bateko seroratzarako sarrera (Santa Kruz ermitan); eta komentu batetako klausurako bizitzarako sarrera (lehenik klarisen artean, eta ondoren -Idiakezarren babesarekin- ermita bertan fundaturiko brigiden komentua). Perfekzioarako bidearen ereduak helarazten zaizkigu, otoiak, trantze mistikoak eta konfesoeraganako obedienciaitsu batek gidaturiko ibilbide batean.

Euskal literatura klasikoaren obra ezberdinen artean, aipaturiko egoera guztiek jaso izan zuten, batean edo bestean, "serora" izena; alabaina, Aguirrek eta Kardaberazek Josefa Larramendiren bizitza kontatu zigutenean, "serora" terminoa Santa Kruzeko ermitan igaro zuen garaiko egoerarako baino ez zuten baliatu. Alargunaren zerbitzuko garaian neskame bezala hautemana ageri zaigu, ospitaleko zerbitzuko kargua "hospitalera" terminoarekin adierazi zuten, eta ermitatik igaro ondoren nobiziatua egin eta komentuan sartzerakoan, gazteleraz "monja" eta euskaraz "moja" terminoak erabili zituzten. Aguirrek eta Kardaberazek, beraz, ez zioten XVII. mendean Sarako eskolako testuinguruan jorratzen ekin zitzaion bideari heldu; areago, kontrako hautua egin zuten (Pouvreau eta Belapeire bezalako autoreek jarraitu zutela ikusi duguna), "serora" terminoa, mojentzat beharrean, tenpluen -edo behintzat ermiten- zerbitzuko erlijiozko emakumeen adierazpenerako erabiliz. Hain zuzen ere, Materrek eta Haranburuk ekindako karakterizazioan "debotak" edo "kastitatesko botuz obligatuak" bezala aipatu zirenak. Eta azken hauen "serorak", aldiz, Aguirre eta Kardaberazek "monja" eta "moja"-k ditugu. Eta Aguirre eta Kardaberazekin batera daukagu Larramendi ere, XVIII. mendearen bigarren erdialde hartan, ikusi dugunez, "serora" terminoa gaztelerazko "beata" bezala itzuli ziguna, eta bere *Corografía...-n* (1754) seroren ikuspegi historiografikoaren ardatza osatuko zuten orrialdeak idatzi zituenak. Eta berak ziurtatu zigun, hain zuzen ere, garai hartarako Gipuzkoan jada ez -omen- zitzaiela mojei

¹⁰⁸ Klasikoaren Gordailuan, aipaturiko liburuaren "Euskaraz gaiztoetan" atalean: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/G/GamizOlerkiak002.htm>.

¹⁰⁹ Aguirreren jatorrizkoa www.liburuklik.net webgunean dago eskuragarri: <http://www.liburuklik.euskadi.net/handle/10771/26595>; eta Kardaberazek itzulpen-laburpena berriz, Klasikoaren Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazJosefa.htm>.

"serora" izenik ematen (bestelako serorei ez bezala), "monja" terminoaren erabilera jada hedatua zegoela.

Baina Larramendik, Aguirre eta Kardaberazekin batera, adoktrinazio beharrak gehiago azaldu zizkigun, hizkuntz-errealitatearen islada eman baino. Azken finean, ikusten joan garen zehazgabeziak biztanleriak "serora" terminoarekin adierazten zituen egoera erlijiosoaren artean zegoen indefinizioaren erakusgarri baino ez ditugu; autore hauen hautuak eta azalpenak terminoen eta egoera sozial ezberdinen banaketa eta karakterizaziorako saiakerak dira, "serora" terminoa erlijiozko emakumeen egoera guztiak adierazteko erabiltzen zen testuinguru batean. Izan ere, bitarte kronologiko guzti horretan zehar idatziriko bestelako obretan, eta baita XIX. mendean ere, "serora" terminoaren aplikazioa erlijiozko emakumeen egoera guztiei hedatu zitzairen, eta hala, modu bateko edo besteko banaketarako saiakerak ur nahasietako korronteak baino ez ditugu, halako banaketarik ziurrenez hautemango ez zuen biztanleriaren testuinguruan. Terminoaren erabilera orokortuaren jarraipenak ez du, hala ere, Aguirre, Kardaberaz edo Larramendi bezalako autoreen lanek inolako eraginik izan ez zutenik esan nahi; Hegoaldeko autoreen artean XVIII. mendearen bigarren erdialde hartako obrak ditugu terminoa nabariki mojak zirenei aplikaturik erabiltzen azkenak, zehazki, Sebastian Mendibururenak¹¹⁰ eta Joakin Lizarragarenak¹¹¹.

Berez, XVIII. mendearen bigarren erdialdea eta XIX. enaren hasiera inguru horiek dira ondorengo terminoen erabileren norabideak finkatzeari ekingo zaion garaia. Hegoaldean aipaturiko azken autoreez ondorengoek "serora" terminoa jada parrokia eta ermitetakoak izendatzeko baino ez dute baliatuko, eta Iparraldean aldiz, termino berbera mojak adierazteko erabilerara iragango da, zenbaitetan "komentuko serorak" zehaztapenarekin, bestelako serorei berriz, bateko edo besteko gehigarriak atxikiz: "ospitaleko serorak", "andre-serorak", edo irakaskuntza aktibitate printzipaltzat aipatzen zitzaienen kasuan, "frera edo serorak". Hala, Hegoaldeko autoreen artean, 1814an *Jaungoikoaren legeto amar aginteen gañean erakusaldiak* idatzi zizkigun Juan Bautista Agirre asteasuarrak -bera bezalaxe gipuzkoarrak ziren- aurreko autoreen eragina nabari jaso zuen, bereziki Larramendirena, gerra garai haietan elizetan aldatzen ari ziren ohiturez kexu zela parrokietako serorak diakonisen ondorengotzat aipatu baitzizkigun:

Ekusi dezue gerra onetan, nola andre arrotzak jartzen ziran gizonen alkietan, eta gizartean: gaizki da au, eta beragatik Eliz Ama Santuak beti nai izan du, emakumeak bereziak egotea, ez gizartean: orregatik emakumeak sartu oi ziran Elizan berentzat Elizak markatzen zien atetik, eta ate au zaitzen zuan Diakonisa, edo serore batek: eta gizonetzkoen atea zaitzen zuan Eliz gizonen batek (Agirre 1850 -1814-, 31)

Hegoaldeko autoreen artean XIX. mendean terminoa erabili zuen azkena dugun Alfonso Maria Zabalak ere, *Gabon zar bat eta beste ipui asko* (1962 -1880-1889) lanean "Ondarribiko Ama Guadalupekoaren kondaira" kontatzen zigularik, terminoa Guadalupeko ermitako serorari buruz jarduteko erabili zuen¹¹².

Iparraldean aipaturiko erabilerak batez ere XIX. mendean joan ziren gorputz hartzen, baina jada XVIII. mendearen bukaeran joera bidea hartzen zioala dirudi. Diogun honen agergarri dugu Salvat Monho (1749-1821) baxenafarraren lana; Bardozen (Lapurdi) apez zela bizi izan zituen honek Iraultza Frantsesean izandako gorabeherak, eta Errepublikak apezzei konstituzioa zin egitea agindu eta Aita Santuak

¹¹⁰ *Festegunetarako irakurraldiak* (1982 -1740-1767-), *Jesusen Bihotzaren Debozioa* (1747), *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai (III)* (1760) eta *Igande eta festegunetarako irakurraldiak* (1982 -1767-1782-), guztiak Klasikoen Gordailua webgunean eskuragarri.

¹¹¹ *Sermoiak* (2004 -1771-1800-), webgune berebean eskuragarri.

¹¹² Klasikoen Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/Z/ZabalaAMGabon.htm>.

aldiz halakorik egitea debekatu zienean, Delizalde erretorearekin batera uko egin zion zinegiteari, Mentaberri bikarioa eta Tisso izeneko apez bat alde agertu ziren artean. Azken hauei aurka egiteko idatzi zituen "Eskandala" titulaturiko bertsoetan, apez zinegileekin batera "Andre serorak", "heren ordenako serorak" eta "Debotak" aipatu zizkigun, eta baita hauek nola "serorategirat" joaten ziren ere. Erlijiozko emakumeen talde bat dugu, 3. ordenari lotua, eta beraien artean baita Barozeko parrokiako artapenez arduratzen zen "Andre serora" ere, "Graziote" izenez aipatzen diguna¹¹³. Ez dira, inondik ere, komentuko mojak, Iparraldean bestelakoek bezalaxe oraindik -eta gaurdaino- "serora" izena jasotzen zutenak, eta jada gehigarrien bidezko karakterizaziora eta bestelako hitzen erabilerara joteari ekiten zaio, "Andre-", "heren ordenako" serorak, edo "Debotak" bezala aipatzen direnean. Harrez gero idatzi zuten Iparraldeko autoreen artean (terminoaren erabilpenean jarraitu zuten bakarrak, Juan Bautista Agirrerren salbuespenez), propioki moja zirenak "serora" termino soilarekin aipatzera jo zuten¹¹⁴, bestelakoendako aldiz, "ospitaleko serorak"¹¹⁵, "andere-serorak"¹¹⁶, eta "frera edo serorak" edo "serora eskol-emaileak"¹¹⁷ espresioak ugaritu zirelarik.

XVIII-XIX mendeen ggb.ko bitarte hartan Hegoaldean eta Iparraldean "serora" terminoak izan zituen erabileraren aldaerak, noski, auzo-hizkuntzen presentziak eraginak ere izan ziren. Gaztelaraz mojak *-monialis*-etik eratorritako- "monja" terminoarekin izendatzeak eta "soror" terminoa mojudako "sor" titulu sinkopatua bilakatzeak, eta familia-erlazioen adierazpenerako bestelako hitz bat erabiltzeak (alegia, "hermana"), "seror" terminoarekiko jatorrizko loturak laxatzea eragin zuen, eta hala, Hegoaldean, erlijiotasun ofizialaren ildoari jarraitu ziotenak maileguzko "monja" edo "moja" terminoarekin izendatzeari ekin zioten, "serora" terminoa, aldiz, ildo hartatik

¹¹³ Ikus "Literaturaren zubitegia" webgunean autore honi buruzko ataleko hiztegiatarako eta bestelako iturrietarako loturak: <http://zubitegia.armiarma.com/?i=360>; eta bere olerkiak Klasikoen Gordailuan: <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MonhoOlerkiak.htm>.

¹¹⁴ 104 or. 95 oinpeko notan erabilerak haur eman ziotenak biltzen ditugu, ikus XIX. mendeaz geroztiko autoreak.

¹¹⁵ Jean Baptiste Daskonagerrek (*Atheka gaitzeko ohiartzunak*, 1870) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DakonagerreAtheka.htm>) "ospitaleko serora" izena eman zien, baina ondoren "serora" terminoa soilik erabiliz jarraitzeko;

¹¹⁶ Jean Martin Iribarrenek, (*Eskaldunak*, 1853) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiribarrenEskaldunak.htm>), "serora" terminoarekin neskaten irakasle lanetan jarduten zirenak aipatu zizkigun, "Elizak arthatzen" ibiltzen zenari, aldiz, "Andre-serora" deituz, kasu bakar baten salbuespenez, zeinetan azken hauei ere "serora" izena eman zien; Jean Hiriart Urrutik (*Gontzetarik jalgiaraziak*, 1995 -1891-1914-) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruGontze.htm>) "elizetako andre serorei" ematekoak ziren apaindurak aipatu zituen;

¹¹⁷ Jean Martin Hiribarrenek (*Eskaldunak*, 1853) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiribarrenEskaldunak.htm>) "serora" terminoa baliatu zuen irakasle ziren serorentzat, kasu gehienetan irakasle zirela aditzera emanez; Jean Baptiste Daskonagerrek (*Atheka gaitzeko ohiartzunak*, 1870) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/D/DakonagerreAtheka.htm>) "serora eskol-emaileak" aipatu zituen; Mixel Elizanburuk (*Frantziako hirur errepublikan ixtorioa laburki*, 1891) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/ElizanburuMHirur.htm>) "frereri eta seroreri" kendu zizkieten eskolak aipatu zizkigun; Jean Hiriart Urrutik (*Zezenak errepublikan eta Mintzaira, aurpegia, gizon*, 1972 -1891-1914-) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruZezenak.htm>) eta <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HiriUrruMintza.htm>), moja ziren "serorak" aipatzeaz gain, "eskola emaile" edo "eskolatzaile" ziren "frera eta serora"-k aipatu zizkigun; Jean Pierre Arbelbidek (*Igandea edo Jaunaren eguna*, 1895) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArbelbideIgandea.htm>) apezpikuak "eskola girixtino guzietako irakasleri, Frera ala seroreri" haurrei euskaraz irakastea agindu ziela aipatu zuen; eta azkenik, jada XX. mendean, Piarres Lafittek (*Euskal literaturaz*, 1990 -1934-1967-) (<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LafitteLiteraturaz.htm>) irakasle ziren serorak "serora-errientsa" bezala aipatu zituen.

kanpo zeudenendako geldituz. Iparraldean oster, frantsesean "soror" terminoak zentzu familiarra bezalaxe erlijiosoa ere mantendurik, euskarazko "seror"-ak frantsesez "soror" izaten jarraitu zuten mojei aplikatua izatera jo zuen, bestelako bizimodu erlijiosoa zeramaten seroren izendapenerako barianteak erabiltzeko joera nagusitu zelarik.

Ez da noski kasualitatea, terminoen erabileran saiatu ziren banaketa ezberdinak seroren instituzioaren aurka hartu izan ziren neurrien garai berberetan eman izana; hau da, XVII. mendearen erdi inguruan, eta XVIII.enaren bigarren erdialdean. Azken garai honetan banaketarako joera horiek biztanleriaren artean hedatzen hasia lortuko zuten autoreek ez zituzten, bestalde, beraien hautuak erabaki pertsonal huts bezala egin. Instituzio erlijiosoen eta zibilen aldetiko presioak esanguratsuak izan ziren, biztanleria arruntak terminoen banaketara zeramaten presio horiek nabaritzera. Larramendik berak ere, ikusi bezala, 1745eko bere hiztegian neologismoak baitaratu zituen, eta hauen beharrekiko, 1763an Elgetan izan zen seroratza baten inguruko auziak XVIII. mendearen erdialde hartan seroren euren izendatzeko moduen inguruan zegoen tentsioa azaltzen digu, bertan, "serora" hitza bera ere baztertu nahi izan baitzen, "andre jainkotia"-ren tankerako beste izendapen baten alde: "elizaco andra". Ordurako hasiak ziren instituzio ezberdinak, Debagoienengan bertan, seroratzen izaerari buruzko informazio eskaerak egiten; serora berrien izendapenak, hautagaien arteko konpetentzia egoerak eta funtzioen inguruko eztabaidak tarteko izan ziren kasuetan, instituzioaren izaera eta zilegitasunari buruzko galdeketak egiteko probestu zen, Oñatin 1742an eta 1768an, Leintz Gatzagan 1746an, Antzuolan 1759an, eta Elgetan bertan, 1763an (Larrañaga Arregi 2010a, 115). Elgetako galdeketak izan zirenerako, beraz, seroratzen inguruan nolabaiteko tentsiozko egoera hedatua zegoela esan liteke.

Elgetako Udalak, parrokiako apezek eta eliztarrek Juana Bautista de Irigoienek aurka Kalagorriko Apezpikutzaren epaitegietan aurkeztu zuten galdeketa, honakoa zen azken galdera, serorak eta mojak -eta komentuen testuinguruko zerbitzariak- garbiki desberdindu nahian:

6. Y si por lo que lleuan expuesto, tienen por cierto, que el llamar Sororas a dichas mugeres, prouiene de usar de este nombre los Escruanos, y Notarios, confundiendolas, con las que se dicen ueatas, que siruen a conuentos; y que propriamente se llaman en el bascuence elizaco andra. Termino, que reducido a el idioma castellano, significa mugeres, que cuidan de la limpieza del suelo de la Yglesia. digan etc.¹¹⁸

"Sororas" deitzea beraz, izkribauen eta notarioen ulermen okerrak sortua zegoeken. Lekukoek erantzunetan "Error y mala Costumbre de llamarlas asi los Escruanos y Notarios en sus escrittos" zelakoa azpimarratu zuten, baina terminoen erabilera errearen inguruko iritzia ez zuten erabat adostu. Hala, 79 urteko Josef de Lezeagak, Elgetakoek bezalaxe, Gipuzkoako eta Bizkaiako izkribauak eta notarioek bertako serorei "sorora" izena ematea komentuetako beatekin ("Beatas que siruen y estan sujetas a Combentos") nahasten zituztelako gertatzen zela zioen, eta hargatik behar zuela terminoaren erabilerak hedatua izan herritarren artean; hau da, herritarrek "sorora" terminoa erabili ohi zuten serorak izendatzeko, nahiz eta hauek euskeraz "elizaco andra" izena izan.

Parrokiako apez benefizioduna zen 56 urteko Miguel de Arescurenagak ere antzerako erantzuna eman zuen, baina "propiamente en el Bascuence se llaman dichas mugeres y se deuen llamar Elizaco Andras" zehaztuz. Azken honek terminoaren

¹¹⁸ KKA 22/763-112, f.g. Dokumentua foliaziorik gabea denez, auzi honen inguruan jarraian emango ditugun datuak erreferentzia honen baitan jasoak gelditzen zaizkigu; ez gara beraz, azalpenotan, berriro aipatzen ibiliko.

erabilera “se llaman”-etik “se deuen llamar”-erako bitarte irristakorrera iragan bazuen, 45 urteko Atanasio de Berraondori jada “se llaman”-a ahaztu zitzaion, “el propio nombre con que se deuen llamar dichas mugeres de que ba echa mencion es en Bascuence Elizac[o] Andra” esan zuenean. Parrokiako sakristau zen 53 urteko Francisco Joaquín de Raizabalek ere izkribauen eta notarioen erabilerak herritaren artean zabalduriko akatsezko ohitura aipatu zuen, “Elizaco Andras” izan behar zuten haiei (“se deuen llamar” honek ere) ez “sorora” izena bakarrik, “beata”-rena ere ematen zitzaizela aipatuz: “ya el Bulgo no las conoce por otro nombre que el de Sororas o Beattas”.

Handia behar zuen izkribauek eta notarioek eragindako nahasmenak izan, lekukoak serorei herritarrek ze izen ematen zietenaren eta honen erabilera egokiaren inguruan ere ados jartzen ez zirenean: batzuek “elizaco andra” deitzen zitzaizela, baina komentueta beatekiko parekotasunez –ez “beata” izena, baizik– “sorora” izenaren erabilera ere hedatu zela; beste batzuek, ohizko erabilera akatsez barneraturiko “sorora” hitzarena zela, nahiz eta zegokien eta herritarrek erabili beharko zuketena izena “elizaco andra”-rena izan; beste batek, akatsez barneraturiko eta erabilera ohizkoeneko hitza ez zela “sorora” soilik, “beata”-ren erabilera ere barneratua zegoela; eta errematerako, 62 urteko Francisco Antonio de Albizteguik, hedaturiko akatsezko erabilera, “sorora”-rena ez, baina “beata”-rena zela ziurtatu zuen: “asi en esta Uilla como [...] donde se manttienen dichas mugeres [...] no las llaman ni nombran con el de Sororas, si no es con el de Beattas respectto de esttarsen Recogidas y Cuidar de la asistencia limpieza y ornatto [...]”. Nabaria da “sorora” eta “beata” hitzen erabilerari azalpenen bat ematearekin bat, serorak mojen nahiz komentueta beaten iruditik izen berri baten erabileraren bidez aldendu nahiean zebiltzala, baina esan bezala, terminoen erabilera errealaren inguruko aitortpena ez zutela egoki adostu.

Elgetako galdetegiko “sorora” terminotik aldendu nahi horrek, beraz, aurreko orrialdeetan azaldu dugun egoera berresten digu: Erdi Aroko eta Aro Berriko mende luzeetan zehar ez zuten euskal hiztunek “monja” hitza erabili, emakumezkoen erlijiozko egoera guztiak izendatzeko “serora” edo “sorora” hitzak erabili izan zirela baitirudi; klausuraren inposizioa oraindik ezarri gabea zenean, eta are ondorengo bi mende luzeetan ere, seroren eta mojen arteko egoera sozial eta erlijiosoen arteko ezberdintasunak oso lauso hauteman izan ziren, eta XVIII. mendearen bigarren erdialderarte ez zen “monja” terminoa euskal hiztegian barneratu.

Baina terminoaren erabilerak ez zion norabide hauek hartzeari XVIII. mendearen bigarren erdialderarte ekin, eta guzti honek euskarak gaztelarekiko eta frantsesarekiko zeukan egoera diglosikoan pentsatzera ere bagaramatza; printzipalki dotrinaren irakaspenerako idatzi izan ziren liburu hauetako mezuen hartzaile ziren hizkuntza bakarreko biztanleek, eta are bi hizkuntzen jabe zirenek ere, ez zuketena garai hartararte termino beraren pean adierazten ziren egoera erlijioso ezberdinen hautemapen banatu garbirik izango. Eta hain prezeski ere, obra hauen idazle nagusi ziren elizgizonak, auzo-hizkuntzetako kultur-moldeetan eta terminoetan eskolatuak izanik, banaketa horien ezberdintasunak biztanleriari helarazten saiatuak ziratekeen. Alabaina, terminoen erabilerarekiko jarrera amankomun orokorturik ez zuten izan, mojen eta bestelako seroren arteko banaketa terminologikoa gauzatzera heltzerakoan, Hegoaldeko eta Iparraldeko erabileretan norabide ezberdinak hartuz.

Eta beraz: Aro Berriaren parterik handiengan, erlijiozko egoeren ezberdintasunak euskararen erabileran txertatu artean, zein izan zen “serora” ziren haien inguruan herritarrek izan zuten hautemapena? Nire iritzirako, XIII. eta XIV. mendeetan

gazteleraren baitan “beguina” eta “beata” terminoekin gertatu izan zenaren tankerako egoera baten aurrean egon gintezke:

En la segunda mitad del siglo XIII, el nombre de beguino y beguina comenzó a propagarse y se aplicó, no sólo para designar hombres y mujeres que vivían juntos en conventos y beaterios (*béguinages*), sino también a todas las personas que llevaban una vida religiosa ejemplar. También se aplicaba el nombre de herejes, a los hermanos y hermanas del nuevo espíritu (siglo XIII) o del Libre Espíritu (siglo XIV), a los franciscanos espirituales y *fraticelli*, a los begardos, beguinos y beguinas, a las personas que vivían aisladas del mundo, y a los hombres y mujeres que recorrían el país mendigando y predicando [...] En general, a principios del siglo XIV, se llamaba “beguino” y “beguina” a toda persona que tenía ciertas inclinaciones ascéticas. El vocablo era usado habitualmente como sinónimo de ‘beato’, ‘beata’, y, con frecuencia, en tono muy despectivo” (Santonja 2000, 358, 354 or.)

Hau da, -mespretxuzko zentzuarena alde batera utzirik- terminoak "erlijiozko emakume" zentzu orokor bat baino ez zukeen aditzera emango, bere baitan bizimodu ezberdinen espektro guztia jasoz, XVIII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik, biztanleriaren baitan seroren eta -klausurako- mojen arteko ezberdintasunak jada behar beste asimilatuak izatean, guztiak izendatzeko aurretik erabiliriko terminoaren inguruko hautu semantikoak egin zirelarik; ikusi dugunez, Hegoaldean eta Iparraldean norabide ezberdinak hartuz.

II. 4. Ordenen eta klausuraren helduera eta hedapena Euskal Herriko lurraldeetan

Ibilbide luzea egin berri dugu, *soror* terminoak bere jatorrietatik Euskal Herriko *serorak* izendatzera izana zezakeen bilakaerari begira. Beste terminoei erreparatzera gatoz orain, eta berriro atzera egitea komeni zaigu, azalpenekin jarraitzeko beneditarren heldueraren aurretiko monakotzaren garaietara itzuliz. Euskal Herriko testuinguru orokorraren inguruko azalpenak ematean gelditu garen puntura itzuliko gara, IX-X mendeen ingurura, erlijiozko emakumeen historian -eta historia orokorrean- ardatzezkoak izan ziren gertakizun batzuen atarira. Ez daukagu noski, hemen, Euskal Herriak, Erdi Aroak batzen dituen mende guztietan zehar izan zituen bilakaera eta aldaketak xehetasunez aztertu eta azaltzeko ez asmorik, ez egokierarik, ez eta gaitasunik ere, baina aurretik azaldu ditugun mendeetarako egin bezalaxe, dagokigun gairako funtsezkoak zaizkigun zenbait gertakizunen eta testuinguru orokorraren inguruko azalpenak ematen saiatuko gara, seroren hastapenen bilaketa txertatzen zaigun mende luzeotan izan ziren gizartearen bilakaerak hautemateko¹¹⁹.

Funtsean, aurreko mendeetako tentsiozko testuinguru arazotsuaren ondoren (bisigotoen eta frankoen aurkako guduak, musulmandarren helduera, aliantza joku nahasiak, etab.), bertako botere egiturak gorpuztuz eta finkatuz joan ziren garaia dugu, Iruñako eta ondoren Nafarroako erreinuek forma hartu zutenekoak. Bilakaera hartan, politikaren eta gerraren alorreko aliantzen eta aurkaritzen jokuek bezalaxe, zerikusi handia izan zuten leinu eta familia boteretsuek monasterio handien gain eraiki zituzten

¹¹⁹ Jarraian azalduko ditugun IX-XII mendeen bitarteko gorabeheren azalpenetarako zenbait ikerlan baliatu ditut oinarritzat; bereziki interesgarri zaizkigun alderdiak aintzatetsiz, hauetatik jasoriko informazioaren sintesia egiten saiatu naiz: García de Cortázar 1981 eta 1982; Martín Duque 1999; Jimeno Aranguren 1999; García Camino 2004; Pastor Díaz de Garayo 2004; eta Curiel Yarza 2009, 239-263 or. Ondorengo orrietan iturri hauen errepikapena ekidingo dugu beraz, eta erreferentzia bibliografikoen berri emango dugun hurrengo oinpeko notararteko bitartean jasoko ditugun erreferentzia zehatzak aipuen jatorria zehazteko baino ez dira emango.

produkzio eta administrazio azpiegiturek eta erlijiozko instituzioen egituren finkapenak ere. IX. mendeko lehen bulkada batean herrixken orokortzea gauzatu zen; Inperio Erromatarraren gainbehera osteko mendeetan bizi-guneen izaera galkor eta aldakorren ondoren, biztanleriaren espazio konkretuekiko finkapen sendoagoa eman zeneko garaia dugu. Hein batean behintzat -eta azaldu izan dugunez- beneditarren aurretiko monastizismoaren ereduak jarraibidetzat harturik, lurren esplotaziorako sistemen erabileraren hedapena (*presura*-k), monasterio eta eliza berrien eraikitzea eta herritarren kontzejuak (*concilium*-ek) izan ziren egituraketa hartarako elementu nagusiak; lasterrera, X. menderako jada, azken hauek, gorpuzte eta finkatze prozesuan zeuden erregeen, aristokraziaren eta monasterio handien botereak alboraturik, desagerpen prozesuan izango ziren. Herrixkekin bat, espazioaren eta biztanleriaren egituraketarako oinarritzko beste espazioa formazio natural eta kultural ziren bailarek osatzen zuten, baitan herrixketan baturiko biztanleria izan edo ez, hauetan bezala, monasterio eta elizak erdigunetzat egiten zieten espaziotzat zeuzkatenak. Populazio gune eta eliza haien sortzaileak komunitateak eta jauntxoak izan ziren, baina XII. menderarteko bitarte kronologikoan jauntxoek, eta euren buru, erregetzak, komunitateen eta beraien elizen gaineko dominazio mekanismoak garatu zituzten, alegia, gizarte feudalaren gorpuztea eman zen.

Prozesu honen lehen pausuak eman zireneko IX-X mendeak seroren hastapenen bila kontutan hartzekoak ditugu, aurreko mendeetan kristautzearen hedapena indartzen joan ondoren, gizarte-bizitza gauzatzen zen nukleorik gehienen ingurune fisikoaren erdigune tenplu erlijiosoak izatera iragan ziren garaia baitugu; ermita, parrokia, santutegi, edo ospitale bezala bereiztera helduko ziren haietariko hainbatek garaiotan hartu zuten gizarte eta erlijiozko bizitzaren erdigune izaera. Hau ala izanik, serorekiko, ondorengoa genuke auzia: seroren berriak dauzkagunetik, hauen instituzioa txertaturik aurkitzen dugun testuingurua tenplu hauena izanik, eta IX-X mendeen aurretiko garaietan, *saltus* bezala ezagutu izan zen lurraldean behinik behin, tenpluok eskasak izanik, noiz agertu eta orokortu zen *seroren* hastapenetan genituzkeen *soror*-en bizimodua? Terminoen inguruko hausnarketek gutxi gora beherako *ante quem* data batzuen ezarpenera eramán gaitu; eratorpena latinetik zuzenean emandakoa izatekotan VIII-X mendeak bitartean edo lehenago kokatuko ginatke, eta erromantzeetatik eratorria izatekotan aldiz, XIII. menderainoko bitartea zabalduko litzaiguke. Populamentuaren formek monasterioak eta elizak biztanleriaren bizimoduaren erdigune izatera iragan ziren garaia IX-X mendeetan kokatzen badigute, posible al dugu seroren bizimodua gauzatu zen tenplu hauen orokortzearen aurretiko garaiak seroren hastapen posibleen bitarte kronologikotzat aintzat hartzea? Erantzuna halabeharrez Euskal Herriaren erromatartzearen eta kristautzearen formen eta hauen sakontasunaren gaiari lotua gelditzen zaigu, eta gaiari buruz egin ditugun kontsiderazioak kontsiderazio, ez dakigu ziutasun osoz ze puntutaraino IX-X mendeetako gizartearen eta populamentuaren prozesuez haratago joan gintezkeen. Hala ere, bildu ahal izan ditugun zenbait datuk garai goiztiaragoetara joteko bidea eman diezaguketela ikusi dugu, kristautzearen prozesuaren baitako monakotza zaharraren formen hedapenean, *soror*-en partehartzea presente izatean. Eta areago, garaiotako testuinguru erlijiosoan diakonesen edo funtzio ministerialak eureganatuak zituzten erlijiozko emakumeen helduera ere arraroa izango ez zatekeela ere ikusi dugu¹²⁰.

Baina guzti hau hala izanik ere, ondorengo serorak txertaturik aurkitzen ditugun tenpluen testuinguruaren orokortzearen garaia, diogunez, nagusiki IX-X mendeetan

¹²⁰ II. 2. eta II. 3 atalak (hurrenez hurren 53 eta hurr. eta 77 eta hurr. or.), batez ere II. 3.2. azpiatala, 91 eta hurr. or.

kokatzen zaigu. Beste ziklo baten hasiera dugu, Iruñako erreinuaren erakuntza, hedapen, eta Nafarroako erreinurako bilakaerarena, espazio ezberdinek honen eta inguruko erreinuen artean izan zituzten kulunkatzeena, eta halaber, ondoren gorpuztuko zen sistema feudalaren oinarrien finkapenarena. Ondoren Euskal Herria izatera iragango zeneko lurralde ezberdinetan, noski, ezberdinak izan ziren botere-egituren erlazioak eta hauen garapenaren denborak, eta espazioen arabera, erregetzen, jauntxo lokalen, monasterioen eta elizen eta are biztanleria nekazariaren erabaki, aginte eta botere mailak forma eta gradu ezberdinetan nahasten ziren. Alabaina, produkzio sistemen hedapen eta finkapenak eragindako hazkunde demografikoa ere izan zuen ondorio, eta hau halaber erregetzen gidaritzapeko lurraldeen hedapenerako akuilu izan zen, "birkonkista" eta lurralde berrietako kolonizazioa gauzatu.

Prozesu honen adierazle egiten digun beste gertakizun aski esanguratsu bat, VIII. mendean geroztik baskoien aipamenak urrituz eta desagertuz joan zirenaz geroztik, ondorengo garaietan izaera propioa garatuz agertuko diren zenbait espazio historikoren lehen aipamenak garai hartan eginak izatea dugu. Zehazki, IX. mendearen bukaera aldeko Asturiaseko Alfontso III.aren kronikan aipaturik ageri diren Sopuerta, Karrantza, Araba, Bizkaia, Aiara, Urduña, Iruña, Deio eta Berrueza ditugu bereizirik espaziotzat ageri zirenak, espazioen hautemapenerako nozio berrien gorpuztearen lekukotza dakarkigutenak.

Bien bitartean, erlijiozko botere-egiturak ere gorpuztuz joan ziren, jada IX. mendean geroztik, parterik handiengan kristautua -edo bataiatua behintzat- behar zuen biztanleriaren gain (erritu eta kultu paganoen azken arrasto berantiar gutxi batzuek salbu). Egitura hauek mendeotan hartu zuten formaren berri García Caminok ematen digu egoki asko, gaia landu osteko laburpen eran:

En definitiva, frente al carácter privado de las fundaciones eclesiásticas en las zonas cantábricas y occidentales del País Vasco, en las tierras de Oriente y Sur se observa el mayor protagonismo de la monarquía de Pamplona que, mediante la concesión de bienes a determinados monasterios preexistentes o la dotación de otros nuevos, pretendió organizar los espacios conquistados, encuadrar la población campesina y evitar el enriquecimiento de las iglesias privadas, cuyos propietarios podían hacer frente o minar la autoridad pública representada en la corona y sus delegados.

La mayor parte de las iglesias propias y de los monasterios quedaron al margen de los obispados que, pese a existir y tener su correspondiente ámbito de influencia, limitaron su autoridad al entorno de la iglesia catedralicia o se confundieron con los principales cenobios hasta la reforma gregoriana de finales del siglo XI.

Por un lado, continuaron los de tradición tardoantigua con sede en Bayona y Pamplona. [...] Desde el siglo X era frecuente que el Obispo de Pamplona fuera el abad de algún monasterio vinculado a la corona (Albelda, San Millán y, sobre todo, Leire), prueba de la confusión existente entre las distintas autoridades religiosas y entre las tareas episcopales y las propias de la vida monástica.

Por otro lado, se crearon nuevas sedes, vinculadas al mundo rural, como las de Valpueda o Armentia. [...] la riqueza y autoridad de Valpueda no derivaban de su condición de sede episcopal, sino de ser un importante monasterio con amplio patrimonio, erigido en la primera fase de fundaciones y fortalecido mediante donaciones en la segunda. De hecho, durante los siglos IX y X los títulos de abades y obispos recayeron en la misma persona. El primero les confería poder, el segundo sólo prestigio (García Camino 2004, 152)

Aipuan bertan ere azaltzen zaigunez, errealitate hau ez zen, apezpikutzen mailan behinik behin, XI. menderarte aldatzen joango, Erreforma Gregoriarraren helduera medio.

XI. mendean, beste errealitate batzuen agerpena izan zen; erregetzek bultzaturik, jada aski urrun zegoen erromatartze garaia ondoz lehen gune urbanoak sortu ziren. Hauek Donejakue bidearen ibilbidean sortuak izan ziren, honek sorturiko mugimendu kultural eta komertzialen arira; eta hargatik, Europa iparraldetik Santiagorako bidea hartzen zuten biztanleek populatuak izan ziren, frankoek batipat, garaian abantailatsuak ziren eta jauntxoek botere esparruetatik kanpo uzten zituzten erregeek emandako foruak medio. Lasterrera egin zuen frankoen elementu etnikoak egoera sozial eta juridiko berezia adierazterako aldaera, bertako biztanleak ere bilakaera hartan modu ezberdinetan baitaratuz. Testuinguru komertzial hark Iparraldean, bereziki Baionan, eta Gipuzkoako kostaldean gaskoien eta gaskoiaren hedapena ere eragin zuen, eta baita juduen komunitateen helduera ere. Alabaina, gertakizun guzti hauek abian jarri baziren ere, beraien eragina dagokien lekuan kokatu beharra dago, hiribilduen gailentzea XI. mende hartatik XIV.era hedatuko zen prozesu luzea izan baitzen; XI-XII mendeetako populamentuaren egoera orokorra, artean ere honakoa genuke, Pastor Díaz de Garayok laburturiko eran:

La fundación y consolidación de estos núcleos supuso la aparición de novedades nada desdeñables y de sobra conocidas: un urbanismo planificado; la concentración y desarrollo de actividades artesanales y comerciales; el enriquecimiento cultural, artístico... Pero estos burgos aparecen como islotes en la inmensidad de un mar de *villas*-aldeas. Ni tansiquiera dispusieron de la capacidad suficiente para forzar, de manera generalizada, el abandono de las aldeas de sus alrededores. No se puede negar la existencia de este fenómeno, pero, en cualquier caso, sus dimensiones debieron ser muy reducidas (Pastor Díaz de Garayo 2004, 246)

Gertakizun hauek erlijiozko esparrutik Erreforma Gregoriarraren eraginak hedatzen ziarduten bitartean gertatu ziren; erreforma honen baitan bultzaturiko aldaketak alor ugaritakoak izan ziren, eta dagozkigun lurraldeetan, alorren arabera, sakontasun ezberdineko eragina izan zuten. Alde batetik, espazio laikoak eta erlijiozkoak banatzeko asmoak gidatzen zituen ahalegin hauek; jauntxo laikoek elizen gain zeukaten jabegoak hauei ematen zien boterea gutxitzeko ahaleginak ziren, erregetzek bezalaxe, apezpikutzek ere euren botere esparruak mantendu eta areagotzerako gutiziatzen zuten aldaketa. Erregetzen eta apezpikutzen aldetik harturiko neurri hauek erreakzio ere baziren baina; jauntxoak beste botere espazioei loturiko elizak euren meneratzen ari ziren, gutiziatuak zituzten izendapenen gaineko boterea eta hamarrenen etekinak -jada bazeuzkatenez gain- tenplu gehiagotara hedatzen saiatuz. Gertakizun hauek dagozkigun lurraldeetan izan zuten garrantziaren adierazle, Nafarroako erreinuan jauntxoek boterea murrizteko ahalegin hauek Erreforma Gregoriarraren lehen ekinaldien aurretik ere hasi ziren jada, beste hainbat alderditan ere ardatzezkoa izan zen Santxo Nagusiaren erreinaldian (1004-1035)¹²¹.

Erreinaldi hau izango dugu, era berean, beste gertakizun garrantzitsu bat ahalbidetu eta bideratu zuena ere: Nafarroarako, eta bide hartatik, penintsularako Clunyk ordeneko komunitateen helduera (erregela beneditarra heldua zen aurretik ere *regula mixta* zirenetara). Errege honen eta bere ondorengoen agintaldietan, XI-XII mendeetan, Europa guztiko testuinguru erlijiosoa eraldatuko zuten zenbait gertakizun eta prozesu izan ziren. Alde batetik, alor monastikoan, Clunyk-ren itzalpeko beneditarren hedapena eta beraien erregelaren nagusitzea, botere egituren zentralizazioarekin. Puntu honetan

¹²¹ Jarraian azalduko ditugun alderdiak, Erreforma Gregoriarrarenak eta beneditartzearenak, 119 oinpeko notan aipaturikoez beste (114 or.), ondorengo lanetan oinarritzen dira: Europako eta Espainiako beneditartzeari eta ordenen hedapenari buruz hurrenez hurren Linage Conde 1985 eta Álvarez Palenzuela 1992; Nafarroako eta Euskal Herriko beneditartzerako eta Erreforma Gregoriarraren ondorioetarako aldiz, Ozaeta 2004 eta Curiel Yarza 2009, batez ere 73-100 eta 183-263.

berezia dugu Santxo Nagusia beraren eta bere erreinu zabaletik Nafarroako parte jaso zuen Naxerako Gartziaren politika, erreinuko monasterioetan Cluny-ko erreformaren hedapena faboratu bazuten ere, juridikoki eta administratiboki Cluny-ko monasterio nagusiaren eta aita santuen obedientziatik at mantendu baitzituzten. Espazio hauek botere lokalaren pean mantentzeko baliabide bat -erregearen familiakoak izan ohi ziren- monasterio handietako abadeak Iruñako apezpiku izateko ohitura mantentzea izan zen, jada X. mendetik -behintzat- ezaguna zen ohitura; Santxo Nagusiaren erreinaldian Leireko abadeek hartu izan zuten apezpikutzat, eta egoera hura 1084rarte luzatu zen. Alabaina, honengandik Gaztelako erreinua jaso zuen Alfontso VI.k eta Aragoakoa jaso zuen Ramirok, bereziki lehenak, erabakiorki egin zuten Cluny-ren hedapena faboratzearen alde; eta hala, erreinu hauetan beneditarrak indartsu hedatzeari ekin zioten artean, Nafarroako erreinuan lehen ekinaldiko fundazioak baino ez ziren gelditu. Cluny-ren hedapen hartan, aurretiko tradizio penintsularretako monasterio familiar eta bikoitzak monasterio handiei dohaintzan ematearen praktika bultzatu zen erregeen eta aristokraziaren aldetik, aurreko garaietan nolabaiteko autonomia politiko-administratiboa zeukaten monasterio txikiak zentru nagusiagoen obedientziara lotuz; eta honek, ondorengo jaurgoko monastiko boteretsuen hazkundea eragin zuen, noski.

Eta guzti hau, diogunez, erregetzen, jauntxoek, apezpikutzen, monasterio handien eta komunitate ezberdinen arteko botere lehien testuinguru batean gauzatu zen. Lehia hartan -eta erlijiozko alorrera itzuliz-, Leon IX. aita santuaren agintaritzatik (1049-1054) jada abian jarri zen Erreforma Gregoriarrak *ius episcopale*-a indartu nahi izan zuen, laikoek espazio erlijiosoetan zeuzkaten boterezko espazioak murriztearekin bat, apezpikuen elizen gaineko eskumenak eta boterea indartuz, elizgizonen moralitatearen gaineko ikuspegia zurrunduz eta apezpikutzen boterea sendotzeko asmoz eliz-egituren berrantolaketak bultzatuz. XI-XIII mendeak bitartean hartu izan ziren neurri ezberdinen artean, dagokigunarekiko garrantzitsuenetarikoak 1075ean -erreformari izena eman zion- Gregorio VII. aita santuak laikoek eginiko apezpen izendapenen aurka helarazi zuen dekretua, eta 1179ko Letrán-eko III. Kontzilioan eliz-jabe laiko kontzeptua desagerrarazi eta ordezkatzeko asmoz garatu zen patroitzaren kontzeptua, kontzilioan bertan landuriko legediarekin sartu eta hedarazi nahi izan zena. Hala, patroitzaren sistema XII-XIII mendeetan Europako hainbat lekutara hedatu zen; alabaina, Euskal Herriaren eta bereziki honen isurialde atlantikoaren kasuan, hurrengo kapituluan xehetasun gehixeagorekin azalduko dugunez, indartsuagoa izan zen jauntxo laikoek elizak eurenganatzeko joera.

Halaber, beste lurralde batzuetan orokortu zen ohitura batek ere eragin eskasa izan zuen dagokigun espazioan; erreformaren testuinguruan eta eliz-egituren zentralizazio, ondasunen pilaketa eta berregituraketari begira, erregetzen eta aristokrazia boteretsuenaren aldetik norbere jabegoko monasterio eta eliza txikiak monasterio handiei dohaintzan emateko politika bultzatu nahi izan zen. Gipuzkoan eta Bizkaian behintzat frogatu ahal izan denaren arabera (eta zantzu guztien arabera Arabako egoera ere tankerakoa zela dirudi), nahiz eta erregetzaren aldetik bultzaturiko politika hau abian jarri zen, XI-XII mendeak bitartean egin ziren dohaintzak -Gaztelako egoeraren aldean, esaterako- oso eskasak izan ziren, eta gainera, XIV-XV mendeetarako, dohaintzan eman ziren ondasun gehien-gehienak emaleen ondorengoek aldetik berreskuratuak -edo behintzat, jabe edo "patroi" laikoen eskutara berriro helduak- zeuden. Azaldu berri ditugun gorabeherak, azken finean, honakoa adierazten digute: Euskal Herriaren, edo behintzat bertako espazio handi baten barruan, Erreforma Gregoriarraren testuinguruan jauntxoek elizen gain zeuzkaten eskumen eta boterearen aurka harturiko neurriek ez zuten eragin handiegirik izan, eta desagerrarazi nahi zen -eta Europako lurralderik

gehienetan azkenerako desagerrarazi zen- testuinguru hura ondorengo mendeetan ere mantendu zen; areago, jauntxoek boterea areagotu ere egin zen, hauek monasterio eta elizak eurenganatzearen prozesuak, XIII-XIV mendeetan ere jarraitu baitzuen. Gainera, Erreforma Gregoriarra Europan zeharreko lurraldeetako sare parrokiaren sorkuntzari lotua ere bazegoen, eta berregituraketa haietarako akuilu ere izan zen; dagozkigun lurraldeetako sare honen sorkuntza, beste hainbat lekutan bezala X-XIII mendeetan gauzatu zen, nekazarien komunitateen aldetik bezala, jauntxoek aldetik ere. Alabaina, feudalizazio prozesuan azken hauek komunitateen gain hedatzen joan ziren botere-egiturak medio, aurreko garaietako "monasterio" zirenetatik batzuek parrokia izatera eta besteak ermita edo kapera soil izaterako mailakatzearen baitan, -sakramentu santuaren edukitzeagatik eta arimen zaintzaren funtzioegatik ezberdinduriko- parrokia kategoria gehienetan jauntxoek jabegokoek erdietsi zuten, izendapen eskubideak medio arimen zaintza bidezko kontrol sozialerako baliabide baten, eta parrokiatzat zegozkien hamarren guriagoen eta bestelako etekinen jabe eginez. Bilakaera hartan, baina, beste prozesu batzuek ere gainjarri ziren; batez ere XIII. mendearen hasieretatik hiribilduen sorkuntza prozesuak populatze gune berri hauek ere beraien parrokiak eraikitzea eta bertako biztanleak jauntxoek jabegoko parrokieganako loturetatik askatzea eragin zuen, garai haietatik aurrera finkatuz joan ziren botere-esparruen testuinguru berriko tentsio eta liskarren artean, beste hainbaten arteko motiboetariko bati bide emanaz.

XIII. mendeaz geroztiko bilakaerari heldu baino lehenago baina, gure ikerketa objektuekiko gerturapenen batzuek egin beharrean gaude. Izan ere, IX-XII mendeak bitartean izandako eraldakuntzak ematen ziren bitartean, eta are VIII. mendean ere, jada monasterioetako *soror*-en testigantzak ageri baitzaizkigu Euskal Herrian eta inguruko lurraldeetan. Eta hauen berri xeheago aurreraxeago emango badugu ere, zenbait orain aipagai hartzea egoki datorkigu, aipatu berri ditugun prozesuetan zuzenean inplikaturik izan ziren zenbait *soror* ere izan baitziren. Monasterioetako *soror* hauek tradizionalki mojatzen aipatuak izan dira, baina badugu arrazoirik, Antzinateko eta Goi Erdi Aroko erlijiozko emakumei buruzko kapituluak eman ditugun argudioak medio, hauek ondorengo *soror*-enganako transmisio ildoaren parte izan zirela pentsatzeko. Ez dezagun ahaztu, halaber, diakonesak presente zegoen instituziotzat aipatuak izan ziren -eta hauekiko hautemapenean mugarriztat egin zuen- azken testu arautzailearen garaia ere badugula, ondorengo mendeetako legedietan ardatzezko testuetariko bat izango zen *Decretum Gratiani*-arena (1140); emakumeek erlijiozko alorrean izan zuten boterearekiko aldakuntza garaiak izan zirela, alegia¹²².

Aipatuko dugun lehen kasua Gipuzkoa lurralde historikotzat lehen aldiz aipaturik ageri zaigun testuinguari dagokio; 1025 inguruan, García Aznarezek eta bere emazte *Ipuçcha* edo *Ippuzka*-ko Galga edo Gailak, Olazabaleko San Salvador monasterioa (Altzo) San Juan de la Peñako monasterioari eman zioten dohaintzan, ikusi berri dugun monasterio txikiak handien alde dohaintzan ematearen prozesuaren baitan. García Aznarez Santxo Nagusia erregeak Gipuzkoan bere alde agintean zeukan *senior*-a zen, alegia, Iruñako koroari loturiko pertsonaia boteretsu bat zen, eta dohaintza hau, beraz, -azkenerako arrakastarik izango ez zuen- erregetzatik bultzaturiko dohaintzen politikaren parte izan zen. Bada, *Ippuzka*-ko Galga, 1048an Zuasti (Nafarroa) inguruan zegoen bere jabegoko Lakidaingo Santiago monasteriora joana zen *soror* lez, jada behin alargundua zegoenean; hain zuzen ere, *soror* lez bizi izan zen monasterio hura bere testamentuan San Juan de la Peñari eman zion dohaintzan, Olazabaleko San Salvadorrekin senarra izan zuenarekin batera egin izan zuen bezala¹²³. Ze eratako

¹²² Monakotza zaharreko *soror*-ei eta diakonesei buruz, ikus II. 2. kap., 53 eta hurr. or.

bizimodua egin ote zuen familia boteretsuetako partaide zen Galga andereak *soror* lez monasterio txiki hartan? Ondorengo garaietako serorekiko zer pentsaturik ematen digu.

Garai haietan emakumeak alor erlijiosoan izatera hel zitezkeen boterearen beste erakusgarri esanguratsu bat, aurrekoa baino garrantzitsuagoa, XI. mendearen bukaera aldean Iruñako apezpikutzan -bere burua "apezpiku" izendatu gabe, "in comendatione" bezalako espresioen bidez izanda ere- agintari nagusi izatera heldu zen Aragoako Santxa kondesaren kasuan daukagu; garai hartako Europako testuinguruan parekorik ez zeukan egoera, dotrina kanonikoaren aurka zuzenean zioana, eta emakumeak ministeritza sakratuetatik aldentzeko saiakerak eta diakonesak desagerrarazterako neurriak Mendebaldeko Europako espaziorik gehienetan azken txanpan zeudela gogorarazten diguna. 1076an Peñalengo Santxo Nafarroako erregea hil zenean, Aragoa eta Nafarroako erreinuak Santxo Ramirezen agintepean batu ziren. Honen anai Garciak, Jakako apezpiku zela, 1076-1079 bitartean erritu erromatarra sarrarazi zuen bere apezpikutzan, eta 1078an Iruñako Blasco apezpikua hil zenean, apezpikutzan hau ere bere agintepean gelditu zen, bere anai erregearen eskutik. Itxuraz erregeak Iruñako apezpikutzan "encomienda"-n bere anaiari eman izana, bertan ere erritu erromatarra sarrarazteko izango zela dirudi; ez dago baina Iruñan halako erreformarik egin zuenaren konstantziarik, nahiz eta puntu batetik aurrera, jada bere burua Iruñako apezpikutzan ere aurkezteari ekin zion. Zenbait gorabeherak (Garcia apezpikuak bere anai erregearen kontseilari Pipino eskomikatu izana, hartzen ari zen botere erlijioso handia, bere kontra izandako Gaztelako erreinuaren aldekotzan aritzearen salaketa, etab.) Garciak bere anai erregearen oneritzia galtzea eragin zuen; eta honek, bien artean Santxa kondesa 1080-1082 bitartean jokuan sartzea eragin zuen.

Santxa kondesa alarguna zen 1065az geroztik, eta 1067tik behintzat bere fundazioko Santa Cruz de la Serós monasteriora joana zen bizitzera (*seror*-ekiko ere izen ebokatzaila, ohar litekeenez); ez zuen baina profesiorik egin, monasterioaren jabe laikotzat aritu baizik. Monasterio honetaz gain beste hainbat tenplu, lur eta ondasun zituen, eta alor erlijiosoan botere handia izatera heldu zen, gizonezkoen nahiz emakumezkoen hainbat monasteriotako "tenente" edo "presidente" lez arituz: aginte honen pean izan zituen 1074an San Urbez, Santa Cruz bera 1074tik 1094ra, Siresa 1082tik 1095era eta Atarés 1083an. Garaiko Aragoako eta Nafarroako legediaren arabera emakumeek kargu hauek ("tenente" edo "presidente") heredentzian jasoak izan zitzaizketen eta ondorioz titularrak izan, baina beti ere, agintaritza hau gizonezko nobleren baten eskutan uzten bazuten. Santxaren kasuan ez zen halakorik izan, eta bere kabuz eraman izan zituen administrazioa, tratuak eta harremanak, salerosketak, etab.

Erregearen anai eta arreben tirabiren eta botere-jokuen testuinguru hartan, nominalki bere anai Garciak Jakako eta Iruñako apezpiku izaten jarraitzen bazuen ere, 1082ko dohaintza batean jada Santxa kondesa ageri zen Iruñakoa "in comendatione" izaten, bere anaiaren gain. Hurrengo bi urteetan Santxa kondesa Iruñako apezpikutzako agintari nagusia izan zen (eta bitarte batean Monjardineko gaztelua ere bere kargu izan zuen), bere anaia Garciak bere menpeko esparruen murrizte eta botere galtze handi bat izan zuen bitartean. 1084rarte ez zen egoera aldatu; urte hartan Tomeras-eko abadea zen Frotardo heldu zen Iruñara aita santuaren ahaldun lez, eta Santxo Nagusiaren erreinaldian ekindako Leireko abade-Iruñako apezpikuen ohiturari amaiera eman zion, Leireko abadetzat Raimundo eta Iruñako apezpikutzat Pedro de Roda izendatuz. Iruñako apezpikutzan abade-apezpikuen ohiturari -eta honekin bat, aurreko usadioei-amaiera eman zioten aita santuaren partehartzearen bidezko gertakizun hauetan

¹²³ Ikus Martín Duque 1999, 430-431; eta baita García de Cortázar 1982, 92-94 eta Curiel Yarza 2009, 249-251.

emakume bat protagonista izatea, hauek Euskal Herrian alor erlijiosoan izan zuten boterearekiko oso esanguratsua dugu, nahiz eta historiografiarik ohizkoenaren aldetik askotan aipatu gabe uzten diren gertakizunak ditugun. Pedro de Rodaren helduerak eragin zuen Iruñako apezpikutzako erromatar usadioetarako erabateko iragatea, katedraleko kabildoa agustindar kanonikoen ordenatzat berrantolatuz, eta erromatar liturgiaren sarrera eraginez. Apezpikutzako aginte nagusia jada berea ez bazen ere, ondorengo urteetan ere handia izan zen Santxak alor erlijiosoan izan zuen boterea, monasterioetako "tenente" izaten jarraituz, eta auzi erlijiosoak tarteko zirenean, bere anai Santxo Ramirezen eta honen seme eta bere iloba Pedro I.ren kontseilaritzan jardunez. Aragoako Santxa kondesa ez zen noski Antzinateko *episcopa* edo *episcopissa* haietariko bat izan, baina zalantzarik gabe, "in comendatione" formapean izatera heldu zen boterea haiek izandakoaren bestekoa izan zen. Bere heriotzean Santa Cruz de la Serós-en ehortzia izan zen, eta bere sarkofagoa, artearen historialarien artean duen balore artistikoagatik aski preziatua izateaz beste, heriotz errituetan aktiboki parte hartzen emakumeak agertzen dizkigun Erdi Aroko sarkofagoetariko bat da; bereziki, bere agintepeko monasterioetan izan zirenak bezalako *soror*-ak, eta aurrerago aipagai izango ditugun hiletariak, errituen testuinguruan serorekin batera izan ohi zirenak¹²⁴.

Bi adibide hauek azaltzen ari garen testuinguruari buruz zenbait ohartarazpen egitera garamatzate. Garai hartako Euskal Herriko lurraldeetako testuinguru erlijiosoan emakumeak izatera hel zitezkeen boterea handia zen, are Erreforma Gregoriarraren baitako aldakuntzak eraginik gehien izan zezaketen gizarte-maila altuetan ere. Honi Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa prozesu haietatik urrunen zeuden populazio formetan (hau da, testuinguru urbanoetatik kanpo) bizi zela gehitzen badiogu, testuinguru hartan erreformaren bultzadak eragiteko zeukan gaitasun urria ohartuko dugu. Tenpluen gehiengoa jabego pribatuen babesak gordetzen zuen, eta hein hartan, zaila zen monakotza zaharraren formen eraldakuntza gauzatzea. Ondorengo mendeetan lurraldearen baitako dokumentuetan agertuz joango ziren *benedicta*, *emparedada*, *reclusa*, etab. haiekiko, XII. mendearen aurretiko egoera hura aintzat hartu beharrekoa dugu, *seror*-en instituzioaren hastapenei eta jarraikortasunari begira.

Tarte honen ondoren itzul gaitezen testuinguruaren azalpenetara¹²⁵. XIII. mendean geroztik beste errealitate bat iragango da gizarte-bizitzaren erdigunera, nahiz jada mende batzuetako ibilbidea bazeukan: hiribilduena. Aipatu dugu goraxeago, nola espazio hauek Donejakue bidearen bultzadari loturik abian jarri ziren, erregetzek testuinguru komertzial hura sendotzeko izan zuten interesa akuilu zutela, eta komertzio hartan protagonista izan ziren lurraldeetako biztanleekin populatzeari ekin zitzaion, hauek, erregeren lurretan, inguruko jauntxoek botere-esparruetatik eta hauekiko loturetatik salbuetsiz. XI-XII mendeetako hiribilduen lehen fundazio haiek batez ere Nafarroan gauzatu ziren, Donejakue bidearen inguruan sorturiko testuinguru komertzialak motibaturik. XIII. mendea abiatu zenetik izan ziren aldaketa politiko esanguratsuez beste (noski, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba Nafarroako erreinuaren parte izatetik Gaztelakoaren parte izatera iragateari buruz dihardugu, testuinguru ekonomikoari ertsiki loturik zeuden gertakizunak), mende hartako hazkunde ekonomikoak eta komertzioaren garapenak hiribilduen fundazioak ibilbide

¹²⁴ Muñoz Cascante 1989; Vinyoles i Vidal 2003; eta Campo Betran 1987.

¹²⁵ Gutxi gora beherako XIII-XV mendeen bitarte kronologikoko azalpenetarako, aurreko bitarte kronologikorako bezalaxe, zenbait lan ardatzekotzat baliatu ditugu, hauek dagokigun gaiarekiko eskaintzen diguten intereseko informazioa sintetizatzen saiatuz; honakoak ditugu: Achón Insausti 1995; García de Cortázar 2000; Bazán 2001; García Fernández 2004; Díaz de Durana 2004; Fernández de Larrea 2004; elizen inguruko alderdietarako hemen ere ardatzekoa dugu Curiel Yarzaren doktorego-tesia (2009), eta baita Díaz de Durana 1998 ere.

komertzialetan nabari ugaritzea izan zuen ondorio. XI-XII mendeak bitartean monasterio nagusiak erreferentzetat harturik ekialde-mendebalde norabidean garatu zen lehen hiribilduen sorkuntza garaiaren ondoren, XIII. mendearen hastapenetatik gailendu zen joera indartsuagoak itsasorako irteerak protagonista zirela hegoalde-iparralde norabidean finkatu zen komertzioa sustatu eta babestea zuen xede. Hiribilduen ugaritzeak, XIV-XV mendeetan zehar, hauen eta aurreko mendeetatik zetozen monasterioen jurisdikzioen definizioa eta finkapena eragingo zukeen, azken hauen "monasterio" terminotik "elizate" terminorako aldaketa eraginez. Curiel Yarzak XVII. mendeko Antzuolako dokumentu batetik aipuan jaso zigun gogoramena esanguratsua dugu honekiko:

las iglesias mas antiguas del Pays Bascongado se llamaron monasterios hasta el siglo 14, ya porque comunmente estaban situadas en despoblados ya por otras razones que no es facil atinar, porque desde el siglo 15 se llamaron ante-yglesias y dejaron el nombre de monasterios (Curiel Yarza 2009, 143)¹²⁶

Ordurarte jauntxoen intereseko izanak ziren monasterio eta elizen, hauen ondasunen eta biztanleen esplotazio eta jabegoaz beste, aberastasun bide berri eta esanguratsuagoak garatu ziren XIII-XV mendeetan, hiribilduak erdigune zirela. Orduz geroztik fundatuak izan ziren hiribilduak, bestalde, nagusiki bertako biztanleen bidez populatuak izan ziren; hainbat hiribildutako "Villafranca"-ko frankoekiko erreferentziak ez zuen jada jatorri etniko ezberdinu bat adierazten, erregearen fundazioaren eskutik populatzaileei ematen zitzaien egoera sozioekonomiko eta juridiko berezia baizik, inguratzen zuen testuinguru feudalarrekiko "salbuetsia" lez ulertzen zena. Nafarroan, bestalde, jada XII. mendeko fundazioez geroztik gailendua zen hiribilduak bertako biztanleriarekin fundatzeko joera, lehen fundazioetako frankoen eta gaskoien heldueraren ondoren. Eta hala, prozesu honen ondorioztat, XIII-XV mendeak bitartean, biztanleria berri baten boteretzea eta jauntxo zaharren hiribilduetako testuinguruarekiko -halabeharrezko- gerturapena eta integrazioa eman ziren, sortze prozesuan zen burgesiaren eta beraien boterea ordurarte eredu sozioekonomiko tradizionalak izanak zirenetan sostengatzen zuten talde sozialen arteko lehia, elkarrekintza eta nahastea.

Euskal Herriko lurraldeetako egoera geografikoak eta lurraldearen ezaugarriek boteretze eta aberasterako irizpide berriak dinamika jakin batzuetan txertatzerako joerak garatu zituen; beste produktu askoren artean, iparralde-hegoalde ardatz komertzialean aberasbiderik nagusienak izan ziren negozioak artilea hegoaldeko lurretatik (Gaztelatik eta Nafarroa hegoalde) Europa iparraldera eraman eta itzuleran Europa iparraldeko (Ingalaterra, Flandria eta Rin bailaratik) manufakturatutako ohialak ekartzea, eta esportazioaren alorrean, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan ekoitziriko burnia Europako lurralde ezberdinetara eramatearena izan ziren. Azken produktu honen garrantzia erabakiorra izan zen, eta ez bertakoen aberasbidetzat soilik, Europa mailan, XV. mendean, ekoiztera heldu zen burni guztiaren %10-15a bertatik abiatzen zela kalkulatu izan baita. Horiekin eta bestelako produktuekin indartu zen komertzioak euskal lurraldeek etxean bertan produkzio defizitarioa zeukaten produktu garrantzitsuren batzuek inportatzeko bidea ematen zuen, nagusiki, garaiko elikaduran oinarritzkoa zen garia. Testuinguru komertzial hartan kostaldeko portuak eta hiribilduak izatera heldu ziren garrantzia eta boterea, noski, oso handia izan zen. Itsasoko komertzioari zegokionean euskal lurraldeetako itsasontziak komertzio atlantiarrean nagusi izatera heldu ziren garaia dugu, eta hein horretan aski esanguratsua dugu, karabelen heldueraren aurretik nabigazio komertzialerako erabili izan zen itsasontzi moeta nagusia koka baionarra izatea. Komertzioaz beste, gainera, nabigazioaren aurrerapenek batez ere

¹²⁶ Ematen duen erreferentzia: AHDSS-DEAH, Antzuola 01301 1273/023-00.

baleen eta bakailaoaren arrantzaren inguruan eratu zen negozioa ere indartsu sustatu zuten.

Aberasbide berrien testuinguru hartan, lurraldeetako botere-esparruen aldetik ordurartean hainbesterako garrantzia izan ez zuten baliabide batzuek gutzituak izatea eragin zuen. Besteren artean, ubideen, erroten eta basoen edukitzea eta esplotazioa garrantzitsu bilakatu ziren, norabide ezberdinetarako komertzioaren erregulatzailerik ziren portuen gaineko boterea ere ardatzezkoa bihurtu zen, eta noski, testuinguru komertzialaren erdigune ziren hiribilduen gaineko agintaritzaren botere-erlazioen oinarri izatera iragan zen. Gizartearen mailakatzerako -batez ere elizen eta lurren jabegoan oinarrituriko- eredu "feudal" zaharraren eta -hiribilduetako testuinguru komertzialean oinarrituriko- eredu "burges" berriaren arteko lehia mende guztietan tentsioen erdigunean izan zen, "tradizionalizat" finkaturiko historiografiak Ahaide Nagusien "bandoen" arteko gudu bezala irudikatu izan dituen era ezberdinetako borroka, liskar eta tentsioei bide emanez. Gaur egunerako, noski, bi bandoren arteko borroketara mugaturiko irudi historiografikoa aski urruna dugu jada, eta XIII-XV mendeak bitartean aipatu berri ditugun aberasbiderako elementuak tarteko zirela izan ziren hazkunde eta krisi boladen artean, gizarte eragile ezberdinen arteko aurkaritzarako eta bateratzerako oso norabide eta joera ezberdinetako borroka eta liskarrak izan zirela (Ahaide Nagusi ezberdinen artekoak bezalaxe, nekazarien eta hauen artekoak, hiribilduen eta Ahaide Nagusien artekoak, etab. luze bat) aski ohartarazitako eta ikerturiko fenomeno dugu.

Ahaide Nagusien boterearen panoraman arrakalak agertzen hasiak ziren, eta hauen aurkako ekinbideen artean, Hermandadeen sorkuntza izan zen esanguratsuenetariko bat. Aipatu berri ditugun elementuen arteko botere-borroken testuinguruan izan zen joera orokor bat, XIV-XV bitartean gauzatu zena, Ahaide Nagusiek abian jarri zuten botere-espazioen eureganatzeko "politika" izan zen, XIV. mendearen bigarren erdialdeko krisi testuinguruan errenta bidezko etekin berriak lortzera eta aurretik zeuzkatenak areagotzera begirakoa. Garai haietan erregetzen guduetan izan zuten partehartzeak abantailazko egoeran kokatzen zituztela probesturik, hauengandik ordaintzat jaso izan zituzten lur eta bestelako ondasun ugarietz beste, larreen, mendien, erroten, bestelako etekin-iturrien eta basailuen euren gaineko eskubideak areagotu zituzten, garaian zilegitzat hartzen ziren medioez gain, bortxakeriaz ere hainbatetan baliatuz. Egoera hark Ahaide Nagusien arteko lehia ere areagotzea eragin zuen, eta gudu pribatuek XV. mendearen erdialderako egoera jasanezina egitea eragin zuten; XIV. mendearen azken urteetan ordena publikoa mantentzeko xedez sortu ziren Hermandadeek hala hauteman zuten behintzat, eta Ahaide Nagusien boterearen aurkako erreakzioari ekin zitzaion. Izan ere, XV. mendearen erdialderako bestelakoak ziren jada garaiak, eta erregeek eurek Ahaide Nagusiek sorturiko arazoak eteteko Hermandadeen ahaleginen alde egin zuten, jada interes handiagokoak izateari ekinak zioten hiribilduetako bestelako botere esparruekin bat. Enrique IV.rekin 1457an heldu zen Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Ahaide Nagusien -mairuen aurkako guduan borrokatzera joan zitezene- Granadako mugarako desterrua eta beraien boterearen agergarri fisiko eta sinboliko nagusi ziren gotorlekuen "berdintzea" eta suntsipena, lurraldeotako Ahaide Nagusien gainbehera garaiari ekingo ziona.

Gertakizun hauek beste ziklo bati hasiera eman arteko XIV-XV mendeen bitarte hartan, gudu pribatuen testuinguruan ugariak izan ziren Ahaide Nagusiek beraien menara eraman izan zituzten edo eraman nahi izan zituzten beste botere esparruetako biztanleek hauen aurka buruturiko altxaldiak ere; nekazariak, hiribilduetako biztanleak eta landa-eremuetako kapareak, eta baita are eliz-gizonek ere, antolaturiko ekinaldiak

egin izan zituzten, Ahaide Nagusien gehiegikeriei amaiera eman nahian. Ahalegin haiek, bada, XV. mendearen erdialdean izan zuten beraien aldeko testuinguru bati ekin zitzaion inflexio puntua; harrezkeroztik, hiribilduetako udalak eta lurralde historikoen mailako instituzioak izan ziren aginte-eremu nagusiak, eta Ahaide Nagusien ondorengoak ere, boterean jarraitu nahi izatekotan, testuinguru berrira egokitu behar izan ziren.

Baina azaldu berri ditugun XIII-XV mendeen bitarteko gorabehera guzti hauetan zenbait alderdi zaizkigu gure ikerlanerako adierazgarri, hauek ere, botere esparruei dagozkien heinean, liskarretarako motibo izan zirenak. Nagusiki, tenplu ezberdinen kopuru, izaera eta jabego edo "patroitzza" ezberdinei dagozkien alderdiei buruz dihardugu. Gorago azaldu dugun elizen parrokia eta ermita arteko mailakatzearen garaiaren ondoren Euskal Herrian finkatu zen tenpluen mapak, garaiotan zenbait aldaketa jasan zituen, ez baina agian, bestelako alderdietan eman izan ziren aldaketak bezain sakonak. Horietako bat, noski, botere-esparrutzat hazkundera zeuden hiribilduetan parrokiak eraiki eta fundatzearena izan zen, hauek berriak izan, edo -halako aldakuntzak izan ziren gehienetan- bailara barrenean kokaturiko hiribildutik jada urrun gelditzen zen alturako kokapeneko parrokia hiribildura trasladatuz egindakoa izan. Apezpikutzetatik bultzaturiko parrokien sarearen berrantolaketak ere bazeuden aldaketa haietan tarteko, parrokien bidezko artapenak lurraldearen baitako biztanleria guztia baitaratzea xede zeukatela. Hala, parrokiako "zerbitzuak" populazio gune txikiagoetara hedatzeko asmoz parrokia txikiagoen fundazioak sustatu ziren, lurraldearen antolakuntzaren baitan erdigunetzat egiten zuten parrokia nagusien "atxikiriko" parrokiatzat. Berez, hiribilduetako parrokien fundazio berriez eta hauetara jeitsiriko parrokia nagusi zaharrez beste, XIV-XVI mendeak bitartean -batez ere XV-XVI mendeetan- fundaturiko parrokiarik gehien-gehienak atxikirikoak izan ziren. Azalpen hauetarako ardatzetariko bat dugun Curiel Yarzaren ikerlanean Gipuzkoa eta Bizkaiarekiko esaten zaigunaren arabera, XIV-XVI mende-bitartean lehenean bigarrenean baino fundazio gutxiago eman ziren, eta bigarren honetan, Errege Katolikoaren erreinaldiaren hasieratik (1474) XVI. mendearen erdialderarte elizen kopurua %30ean areagotu zen. Baina edozein kasutan, aldaketa hauen eragina ez zen patroitzen egoera orokorrean izugarria izan, eta areago, Ahaide Nagusiek tenpluen patroitzak mantendu eta areagotzeko ahaleginak ere egin izan zituzten; parrokia berrien kasuan, hauen sorkuntzak eliztarren hamarrenetan sortzen zizkien etekinen galera medio tenplu berriaren gaineko patroitzaren gaineko eskubideak aldarrikatuz, eta hainbatetan lortuz; erregeren patroitzapeko tenpluak honen dohaintza bidez lortuz; eta baita, zenbaitetan, aurreko patroiak auzotarrak ziren kasuetan nahiko beharturikoa ere izan zitekeela dirudiena, patroitzen "erosketa" bidez ere. Beraz, hein handi batean, XI-XIII mendeetan egituraturiko sare parrokiaren patroitzen egoerak, XIV-XVI mendeen bitarteko bilakaeran, termino orokorretan jarraikortasuna izan zuela aintzat hartu beharrean gaude, hauek neurririk handiengan Ahaide Nagusien esku egoten jarraitu baitzuten.

Hein hartan, parrokia eta ermiten gaineko jabegoa edo "patroitzza" Ahaide Nagusi izan zirenen "tradiziozko" botere esparru bat zen, hauen boteretzearen lehen pausuetatik (oraindik "Ahaide Nagusi" nozioa bera ere artean eraiki gabea zegoenean, botere-esparru nagusiak testuinguru monastikoetakoak zirenean) presente izan zena, eta gainbehera garaiak heldu arte hein handi batean beraien eskutan mantendu izan zena. Hala, testuinguru orokorrean gutxiengoa osatzen zuten hiribilduetan fundaturiko parrokia berriez beste, patroitzen alorreko aldaketek ez zioten XV. mendearen bukaera alderarte esanguratsuak izateari ekin. Díaz de Duranak Gipuzkoaren kasurako azaltzen

digunaren arabera, patroitzaren inguruan eliztarrek eta patroiek izandako liskarrak XIV-XVI mendeen bitarte guztian eman baziren ere, "es sobre todo entre 1480 y 1510 cuando se generaliza adoptando en ocasiones caracteres de un auténtico levantamiento señorial" (Díaz de Durana 1998, 490 eta hurr.). Ondorengo bilakaeran, XVI-XVIII mendeak bitartean konbentzionalki zedarrizten zaigun Aro Berrian zehar, Ahaide Nagusiak tenplu ezberdinen gaineko patroitza Udalen eta Kontzejuen alde galtzen joan zireneko prozesu luze bat eman zen, hurrengo kapitulu batzuetan azalduko duguna.

Bada, azkenik, azalduz joan garen testuinguruaren baitan, XIII-XV mendeetako euskal gizartearen erlijiotasunari buruz azaldu beharrekorik ere. Tarte kronologiko hartan, bai erlijiotasunaren aldetik bai emakumeen botereari dagokionean ere garrantzitsuak ditugun kultur ekoizpenak izan ziren. Aurreko kapitulu batean, Antzinateko eta Goi Erdi Aroko euskal lurraldeetako kristautzearen zenbait azalpen eta kontsideraziotan luzatu izan gara. Komunitate kristauek paganoei gain hartua izan zekiekeen gutxi gora beherako garaia VIII-X mendeak bitartean kokatzen genuen, Euskal Herriaren kristautzeari buruzko testuinguru historiografikoaren baitan eta dagokigun gaiaren baitatik har litekeen ikuspegiaren laguntzaz, funtsezko gertakizun kultural izan zen kristautzearen gailentzerako zentzudun zirudigun mugarri kronologikoa finkatuz. Alabaina, kristautzearen fenomeno ulertzeko zehaztasun kronologikoak ez dira aski, erlijio berriaren atxikitzea forma eta gradu ezberdinak hartu zituen prozesu konplexua izan baitzen. Hala, ugariak izan ziren kristaturiko testuinguru orokor eta ofizialean normaltasunez biziraun ahal izan zuten sineskera eta erritu paganoak, eta hau bereziki esanguratsua dugu euskal lurretako emakumeen eta propioki seroren kasuan, landa eremuetako tenpluetako hainbat sendakuntza errituen nahiz jatorri pagano nabaridun heriotzaren inguruko errituen -bereziki hiletetako eskaintzen ohituraren- gordailu nagusi, beraiek izan baitziren. Halatsu, eta jada aipatua dugunez, jainko eta jainkosa paganoen eta figura kristauen artean baztertze eta asimilazio prozesu ezberdinak eman ziren, batzuetan elkarren aurkaritzan agertzen zaizkigun artean, bestetan azkenek lehenen tasunak asimilatu zituztelarik.

Itxura guztien arabera, eta antropologiaren alorrean jaso izan diren mito eta legendetatik eratorri litekeenez, hein handi batean azken prozesu hau dugu *Mari* jatorri paganodun jainkosaren eta *Maria* kristauaren artean gertatua¹²⁷; alabaina, XIII-XV mendeen artean asimilazioa ez zen oraindik zeharo gauzatu izan, testuinguru kultural europarrean jainkosa zaharren gogoramena auspotu baitzen gainera, euskal lurretara heldu zen bolada batean. XII. mendeaz geroztik jada habian zen figura paganoen berpizte honek, monarkia feudalen sorkuntzaren eta Erreforma Gregoriarrak suposatzen zuten Elizaren boteretzearen testuinguruan bere logika zeukan:

¹²⁷ Hainbatek iradoki izan dute, erabat zentzuduna denez, *Mari* jainkosaren eta *Maria* amabirjina kristauaren izenen kointzidentzia ez dela inondik ere kasuala, eta jatorri paganodun jainkosak bere izena amabirjina kristauarenetik jasoa lukeela. Izan da jainkosa paganoaren jatorrizko izenak *andere*- erroari lotua behar zukeela pentsatu izan duenik (Anuntxi Arana), hau ere, nire ustez, erabat zentzudunki (ikus Barandiaran 2003 -1984-, 127 eta hurr. or.; eta Arana 2000, 179-187). Argudiatu denaren arabera, jainkosaren izenen artean elementu finkoa *andere*- erroak eta "-bateko edo besteko- Señora", edo "Dama" konposizioek osatzen dute, *Mari* izena konposizio hauetan gehitzen den elementua izanik, bigarren mailakoa; halaber, erromatarren garaietan Pirinio erdialdean euskal jainko eta jainkosei eskaini izan zitzaizkien zutarrietan *and*-, *andr*-, *andere*- erroak behin baino gehiagotan agertzen zaizkigu jainkosen izenetan (*Ande*, *Anderixo* eta *Andoss*, azken hau bakarka eta *Bascei-Andoss* bezalako bestelako konposatuetan, ikus Estornés Lasa 1978, 539-550, 581-588). Ohar bedi, azkenik, jainkoendako "jaun" edo "errege" titulua bezalaxe jainkosendako "andere" edo "erregina" titulua ere ohizkoa izan zela Antzinateko zibilizazioetan, bereziki, ziklo grekoerromatarren aurreko kulturetako "piztien andereen" kasuan (ikus, esaterako, Sumeriako, Anatoliako, edo Grezia Minoiko eta Akearreko erlijioetako faserik zaharrenetako jainkosak, hurrenez hurren Jestin 1977 -1970-, 209-267; Vieyra 1977 -1970-, 334-388 eta Vian 1977 -1970-, 205-237).

La formación de la monarquías feudales en el Occidente medieval supuso una revisión y reformulación del problema de los orígenes históricos de las fuerzas políticas existentes. Respondiendo, desde un doble frente de combate y afirmación, a las pretensiones teocráticas del Papado y a su dependencia, los reyes y príncipes fomentaron a partir del siglo XII la confección de nuevas crónicas dinásticas y la elaboración de genealogías que los presentasen como descendientes de héroes cuya existencia no fuese reivindicada como herencia propia de los poderes de los que pretendían liberarse o con los que querían rivalizar (Krus 2014b, 44)

Eta hala, bereziki Mendebaldeko Europako espazio atlantiarrean tradizio herrikoiak eta kultura klasikoetako materialak jaso zituen mito eta legenden ziklo erudito bat landu zen, *tradizio melusindarreko ipuinak* deitu izan direnetan. Ipuin hauen izaera, jatorria eta garapena aski ikertuak izan dira:

un ser sobrenatural se une a un mortal y le concede su amor a cambio de la promesa de respetar una prohibición; la correspondiente transgresión de ésta provoca la desaparición del ser superior. Ampliamente atestiguados en la cultura folclórica universal, tales cuentos aparecen registrados en la literatura del Occidente medieval de los siglos XII y XIII, en obras producidas por autores relacionados con la Corte de los Plantagenet. Se forma en ella un amplio *corpus* literario donde, a través de la influencia del lirismo provenzal y de la materia de Bretaña, se valora la temática amorosa de cariz erótico y lo maravilloso de raíz pagana y se favorece, en una atmósfera propicia a la innovación cultural, la incorporación de temas y motivos propios de la cultura popular, rechazados hasta entonces por una cultura erudita demasiado influida por la rigidez, ortodoxia y moralismo de los modelos de origen clerical (*Ibid.*, 48-49)

Legenda erudito eta ipuin herrikoi bezala agertzen zaizkigun kontakizun hauek alde batetik gizarte feudaleko *zalduneriaren kulturaren* ("*cultura caballeresca*") garapenari dagozkion patroiak barneratu zituzten, dama miresgarri maitatuaren figurarekin, eta bestetik, tradizio paganoetako jainkosak, *Oparotasunaren Dama* bezala izendatu izan diren jainu maitagarri edo "hada" zirelakoan soinean berpiztu zituzten.

Euskal Herriaren kasuan, ipuin melusindarren zikloa Bizkaiako familia agintari nagusien probetxurako jaso eta landua izan zen, lekuko bereizgarri interesgarriak garatu zituzten barianteetan. Bariante hauek Barcelos-eko kondeak *Livro de Linhagens*-ean (1340-1344) eta Lope García de Salazarrek *Crónica de Vizcaya*-n (1454) jaso zituzten, jada aski ikertuak izan diren testuetan. Alderdi literarioak eta politikoak alde batera utzirik, erlijiotasunaren eta boterearen arteko erlazioen alorreko zenbait aspektu zaizkigu hemen interesgarri. Alde batetik, batez ere espazio atlantiarreko lurraldeetan garaturiko tradizio baten parte izatea eta "eskoziarrak" modu batean edo bestean -barianteen arabera- kontakizunaren eta bere bidez bermaturiko boterearen jatorriaren parte izatea, oso datu interesgarriak ditugu. Euskal lurraldeak Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan inguratzen zituzten erlijiozko erlazioen testuingurua kontutan harturik, izan dezagun gogoan kristautasun zeltiarraren aldetik euskal lurraldeek -eta bereziki isurialde atlantiarrekoek- izana zezaketen balizko eragina. XIV eta XV. mendeetako iturri hauetan Bizkaiako leinu agintarien duintasun aristokratikoaren justifikaziotzat baliatu ziren -eta bertsioren arabera, printze edo printzesa ziren- "eskoziarrak", Aymeric Picaud erromesak ere aipatu zituen XII. mendean, kasu honetan nafarren jatorrietan, eta duintzeko baino, gaitzesteko xede nabariarekin. Nafarrak lurraldeok sarraskitzera helduriko eskoziarrek bertako emakumeak bortxatu ondoren jaiotakoak ondorengoak ziratekeen, *navarrus* = *non verus* ("ez benetakoa", alegia, faltsua, jatorri "garbi" gabea) etimologiarekin justifikatu zuena; eskoziarren ohituren antzerakoak ere izan zituen esandakoaren alde aipagai. Zergatik aipatzen zaizkigu XII-XV bitarteko iturri ezberdin hauetan, euskal lurraldeetako biztanleen edo bertako gizarte

antolakuntzaren jatorriari buruz jarduten duten kontakizunetan, hain prezeski ere "eskoziarrak"? Duintzeko bezalaxe gaitzesteko ere, bazuten testu hauen autoreek Europan zehar -edo kultura kristauaren, edo klasiko paganoen testuinguruetan-hautatzeko aski balizko jatorri ezberdinik, halaberrez "eskoziarrena" joan beharrik gabe. Hiru autoreen arteko kointzidentzia gehiegitxo, kasuala izateko. Nire ustez, eta aurreko kapitulu batean jada aipatu dudanez, "eskoziar" hauek ez lukete gaur egun Eskozia deneko eskoziar direnekin zerikusirik, Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan *scotti* bezala ezagutu zirenekin baizik, hau da, irlandarrekin, kristautasuna ulertzeko hautemapen zeltiarra hedatu zuten misioilari irlandarrekin. XII-XV mendeen garaietarako Antzinate Berantiarrean edo Goi Erdi Aroan gauzatuak izan behar zuten erlazio horien gogoramen lausoa gorde izana litzateke, autore ezberdinek bigarren mailako motibotzat euren gogara probestu eta antzaldatu zutena, zegozkien testuinguruetan eta interesetan txertatzeko.

Ipuin melusindarren euskal lurretako barianteek badute beste interesik ere, XIII-XV mendeetako gizartearen erlijioetasunarekiko. Europan zeharreko aldaerarik gehienetan "hada" edo maitagarriaren sekretuak momentu jakinen bateko transformazio ofidikoren batean datza; euskal barianteen kasuan ere sugea presente dago, modu ezberdinetan bada ere. Barcelos-eko kondearen bi bertsioetan, eskoziarrekiko lotura eta maitagarriarekiko erlazioak kontakizun ezberdinetan garatzen dira, eta leinuko pertsonaia ezberdinei dagozkie. Maitagarriaren bereizgarriak ahuntz-hanka bat edukitzean datza, eta bere izaera paganoa ezkongaiari ezartzen dion baldintzak adierazten du: gurutzearen zeinurik egitearen debekua. Debeku hura haustek aita eta semea (kristauak) eta ama eta alaba (paganoak) banatzea dakar, eta momentu hartan azaltzen da maitagarriaren izaera ofidikoa: harrez geroztik, zenbait bizkaitarren arabera ("disserom e dizem hoje em dia"), ahuntz-hankadun maitagarria Bizkaiako "o coovro" ere baitzen, bere ondorengoek Busturiako harroka baten gainean etxean hiltzen zuten behi ororen erraien eskaintza egiteari ekin zioten. Juan Begibakarraren (1328) erreinaldiaren garaian eskaintza egiteari utzi zitzaionean zorigaitza heldu zen lurraldera, maitagarriak, ezkutari eder baten itxurara antzaldaturik, bertako andereak maitemindu eta hauekin oheratzeari ekin baitzion, hauek, zorigaitzoko maitasun hura medio, zeharo gaixo eta zurbildurik ("esooradas") gelditzen zirela. Garcia de Salazarren bertsioan aldiz, eskoziarrekiko lotura eta partehartze ofidikoa kontakizun berberean txertatzen dira: zenbaiten arabera (kontakizuna leinuaren jatorriari buruzko bertsioetariko bat bezala aipatu baitzuen) Eskoziako errege baten alaba, Bizkaiatik igarotzean, *Culebro* zelakoarekin oheratu zen, eta bateratze honen fruitu izan zen Bizkaiako lehen jauna, Jaun Zuria zeritzona, bizkaitarrak Gaztelarekiko menpekotzatik askatu zituen.

Kontakizun hauek Euskal Herriko gizarte tradizionaletik ikerketa etnografikoetan bilduriko mito eta legendetan jasotakoekin alderatuaz gero, nabaria zaigu, beste hainbati ere jada nabaria egin zaien bezala, patroi melusindarren eraginekin taxututako istorio haietan azaltzen zaizkigun maitagarria eta sugea ez direla besterik, *Mari* eta *Maju*, *Sugoi* edo *Sugaar* jeinu edo jainko-jainkosak baizik. Honek bere interesa dauka, *Mari* ez baitugu ohizko maitagarri bat; ipuin melusindarren bertsiorik gehienetako maitagarriek *lamien* tankerako atributuak izan ohi dituzte, beraien boterea dagozkien espazioei mugatua daukaten uretako edo basoetako jainkosa edo jeinuenak. Euskal mito eta legendetan baina, nahiz eta noski, kontakizun askotan protagonistatzat elkar trukatu ohi diren, aski garbia dugu *Mariren* eta *lamien* lekuak ezberdinak direla, lehena agintari paperean bakarka aipaturik ageri ohi den jainkosa nagusia dugun artean, bigarrenak maila apalagoko jainkozko edo jeinuak direla, gehienetan kolektiboki aipatuak, eta botere mugatua dutenak (gizakiek engaina ditzakete, *Marirekin* gertatu ohi

ez dena). Deigarria da figura honek Barcelos-eko kondearen bertsioetan (1340-1344) eta Garcia de Salazarrenetan (1454) zein paper ezberdina jokatzen duen. Lehenetan, edo hobe esan, kondeak bilduriko kontakizunetariko batzuetan, jainkozko boteretsu lez ageri zaigu. Diego López zalduna, *Mari* jainkosaren antzaldatze genukeen "Dama Pé de Cabra" maitagarriarekin batzean Íñigo Guerra semetzat izan zuena, mairuek giltzapetua zutenean, bizkaitarrek semeari bere amaren bila laguntza eske joan zedila gomendatu zioten; semea amarengana heldu zenean, hau jada guztiaren jakitun zen. Berak emandako zaldi miragarriaren bidez askatu ahal izan zuen aita semeak, eta ondorengo garaietan, behien erraiak eskaintza lez emateko erritua alde batera utzi zenean, jainkosak kaltetzeko erabili zuen bere boterea (sinbolikoki oso adierazgarria dugun gizonezko bilakatzeko gaitasuna baitaraten zuena), emakumeak gaixotu eta lurraldean zehar zorigaitza hedatuz. García de Salazarren kontakizunean ostera, jainkosa ez zaigu maitagarri izatera ere heltzen; bere figura eskoziarrekiko lotura finkatzeko baino ez da erabiltzen. Kanpoko elementu prestigiotsuaren (errege eskoziarra, bere aita) eta bertako elementu magiko eta halaber prestigiotsuaren (*Culebro* zelako jeinua) arteko lotura baino ez dugu, eta ez du kontakizunean haratagoko inongo paperik.

Koerlatiboki, bertsio ezberdinetan *Coovro* eta *Culebro* bezala aipaturikoak, mito eta legenda herrikoietan *Maju*, *Sugoi* eta *Sugaar* izenekin ezaguna denak, alderantzizko bidea egiten digu. Barcelos-eko kondearen bertsioetan "Pé de Cabra" damaren transformazioetariko bat baino ez zen artean, hau da, honen figurari azpiraturiko bigarren mailakoa, García de Salazarren bertsioan bera zen leinuak jasotzen zuen alderdi magikoaren jatorria, Bizkaiako lehen jaun mitiko zen bere semeari, Jaun Zuriari, garaile eta zori onekoa izateko babes magikoa helarazten ziona. Alderantzizko honek irakurketa asko izan ditzake, emakumeen kontsiderazioari eta autoreen eta beraien testuinguruen mentalitateari dagokionean; nabaria baita, XIV. mendearen erdialdetik XV.enaren erdialdera, uren edo basoen domeinutik askoz haratagoko boterea azaltzen digun jainkosa, erabat desagertzen dela, eta alderantziz, gizonezko jeinuaren papera bigarren mailan egotetik erdigunera iragaten dela. Mende baten puruan emakumezko figurak gizonezkoaren aurrean izan zuen botere galtzea erabatekoa dugu. Hau arrazoi ezberdinengatik dugu sineskeren alorrean esanguratsu. Azken finean, kontakizun hauek, genealogikoak ziren heinean, familia jakinek gizartearen baitan zeukaten boterea bermatzeko eratuak izan ziren. XIV. mendearen erdialdean, ipuin melusindarren tradizio bat espazio atlantiarreko lurraldeetan hedatua zela, Bizkaiako agintariak, zehazki Haro leinukoak, bertako sineskeretara eta tradiziozko figuretara moldaturiko kontakizuna eratu zuten, zeukaten boterea finkatzeko asmoz. Baliabide hau erabili izateak berak, bai dagokigun kasuan, bai eta gainontzeko ipuin melusindarrenetan ere, aski diosku garai haietako gizartearen kristautzearen sakontasunari buruz. Aski nabari, familia boteretsu batzuek, Elizaren botere espazioetatik aldenduz, beraien familien izaera prestigiotsua azpimarratzeko eta handitzeko tradizio paganoetatik helduriko figurak berreskuratu bazitzaketen, figura haiek familia boteretsu haien menpeko zen biztanleriarengan nolabaiteko predikamentua zeukatelako eta sineskeren multzo baten parte izaten jarraitzen zutelako baino ezin zitekeen izan. Hau da, familien prestigioan eragiteko gai ziren elementutzat baliatzeotan, nolabait gizartean bizirik jarraitzen zuten tradizioetan behar zuten oinarritu. Eta XIV. mendearen erdialdean Bizkaiako familien botere egiturak finkatzeko baliatu ziren tradiziozko elementuen artean nagusi, jainkosa boteretsu baten antzaldatzea ageri zaigu, are eskaintza paganoak jasotzen ere. Alabaina, XV. mendearen erdialderako, izan behar zuten figura hura desagerrarazteko arrazoiren batzuek.

Kontua da, bilduma etnografikoetan jasoriko mito, legenda eta ipuinetako *Mariren* figura Barcelos-eko kondearen kontakizunetako maitagarriari dagokiola, irudi hori izan dela gorde dena, eta beraz, García de Salazarren kontakizunetako "desagerpenean" ezin dugula tradizioaren desagerpenik postulatu. *Mariren* eta *Maju* edo *Sugaarren* arteko erlazioek, gainera, Barcelos-eko kondearen bertsioetatik García de Salazarrenetarako aldaeren tankerako aniztasuna mantentzen dute; batzuetan senar-emaztetzat hautematen diren artean, bestetan *Mari* ama dugu, eta *Sugaar* semeotariko bat, gaiztotzat hautemana eta alderdi paganoaren adierazlea, beste semea apeza den artean, alderdi kristauaren adierazle (*Atarrabi*, edo *Axular*, edo lekuan lekuko apez ezagunen izenak jasotzen dituen). Horrez beste, eta gizonezko figurarekiko erlazioaz aparte, *Marik*, Barcelos-eko kondearen kontakizunean gertatu bezala, sugera antzaldatzeko gaitasuna mantentzen du, bestelako animalietara (behiak, zaldiak, putreak, etab.) antzaldatzekoa bezalaxe. García de Salazarren kontakizuneko jainkosaren figuraren desagerpenerako, bada, beste arrazoiren batzuek behar zuten tarteko egon, tradiziozko kulturatik ez baitzen jainkosa desagertu.

Berez, XV. mendeko erlijiozko testuinguruari erreparaturik, falta, balizko arrazoirik ez zaigu falta. Hau ez dugu baina hausnarketa hauetan sakontzeko lekua, luzeegi joko bailiguke; zenbait arrazoi posible aipatzera mugatuko gara. Alde batetik, genealogietan figura melusindarrez baliatzea bi ahoko labana zen prestigio nahian zeuden leinu haientzat; Elizako eragileen aldetik erraza zen figura haiek deabruzkotzat salatu eta beraietaz leinuaren ospea kaltetzeko baliatzea, eta haizeak aldeko zirenean prestigio iturri zen elementu magiko zena, aurka jotzen zutenean leinuaren gainbehera azaltzen zuen deabruzko elementutzat interpretatu zitekeen. Leinu batek baino gehiagok jo zuten fundazioko legenden birformulazioetara, deserroso bilakaturiko arbaso magikoen berrinterpretazioetara; zenbaitetik ibilbide hori egina zuten jada, Barcelos-eko kondeak "Pé de Cabra" damaren legenda idatzi zuen XIV. menderako. Puntu honetan ere euskal lurraldeetako gertakizunek Europako beste lurralde batzuetakoek baino *tempo* berantiarra goa izan zutela dirudi, bertako erlijiozko antolakuntzaren botere gune nagusiez kanpoko egoerari erreparatzean (apezpikutzen erdiguneak lurraldetik kanpo, tenpluen jabego partikularren nagusigoa eta bertako zerbitzarien aukeraketaren gaineko kontrola, etab.) nahiko zentzuduna dirudiena. García de Salazarren legendaren bertsioa idatzi zen XV. mendea, hain zuzen ere, tenpluen gaineko patroitzak Ahaide Nagusien menetik Udal eta Kontzejuen eskutara iragan zireneko prozesuaren garai gailena dugu, batez ere mendearen bukaera aldera eta XVI. enaren hasieratan. Halaber, erlijiozko instituzioek lurraldearen gain zeukaten kontrolaren neurria hartzeko adierazle egokietariko bat, -lurraldeko foruak medio- Kalagorriko apezpikua XVI. mende hasierararte Bizkaiko Jaurgoan ezin sartu izanak ematen digu. XV. mendean, bada, erlijiozko instituzioen egoera aldaketa bidean zen, eta biztanleriaren erlijiotasunaren gaineko kontrolean, tenpluen jabe edo patroiez besteko eragileen partehartzea areagotuz zioan. XV. mendea, gainera, Amabirjinaren kultuak goia jo zuen garaia ere badugu; aurrerago ikusiko dugunez, kultu honek Amabirjina erdigune teologikora zeramaten muturreko interpretazio heterodoxoak ere izan zituen, euskal lurraldeetara heldu zela badakigun Amabirjina irekigarri trinitarioen ikonografian jaso gelditu zena. Hargatik, litekeena da mito eta legenda herrikoietan *Mari* paganoak eta *Maria* kristauak agertzen diguten sinkretismoa ere garaiotan sendotu izana; azken finean, tenpluen azpiegitura eta hauen gaineko erlijiozko instituzio nagusiagoen bidezko kontrola areagotzean figura paganoen kristautzeak aurrera egina zezakeen *Mari* paganoa munduikuskerak kristauan barneratuz, eta kontrako norabideak ere indarra hartu zuen, *Maria* kristauaren kultua sendotu ahala garatzean, honen figura, kristau kulturaren tradizionalki emakumeari

zegokion paperaz haratago zioan emakumezko jainkosa -sortzaile- baten taxukera hartuz joan baitzen¹²⁸.

García de Salazarrek XV.en mendean Bizkaiko Jaurgoaren jatorri mitikoei eman zien bertsio berriaren aldaketen zergatiak zirenak zirela, Erdi Aroko erlijiotasuna ulertzeko garrantzitsua dugu mito, legenda edo kontakizun hauek garai hartako biztanleriagan izan zezaketen eraginaren berri ematea, Aro Berriko erlijiotasunarekiko hautemapen ezberdina zutela ulertzea garrantzitsua delako, eta hautemapen ezberdin horrek emakumearen eta jainkozkoaren arteko erlazioetan ere bere eragina izan zuelako. XII. mendean geroztik, hiribilduak boteretze bidean zeuden, parrokiaren egitura eratuz zioan, ordena monastiko berriak sortu eta hedatu ziren, eta motel bazen ere, erlijiozko botere-gune nagusiagoak, apezpikutzak, euskal lurraldeetan euren eragina barneratuz zioazen. Alabaina, orokorrean biztanleriaren adoktrinazio maila oso baxua zen, eta herri xumeak bezalaxe agintariek, eta baita hauen meneko ziren apezpen gehiengoak ere, jatorri paganodun sineste eta praktika ugari mantentzen zituzten. Eta ez zuten hargatik kristau zintzo ez zirenik pentsatzen; Aro Berriko jainkozkoarekiko garatu eta finkatu zen sentsibilitate barnerakoiak ez zuen oraindik bere agerpena egin, eta miragarritzko gertakizunek, mirakuluek, sinpatiazko kutsuek, deabruaren itzalpera iraganak ziren garai zaharragoetako jainkozkoen birmoldatze folklorikoei, finean, eguneroko bizimoduan presente zegoen miragarritzkoarekiko predisposizio positibo batek unibertso kristaua geruza sinkretiko batez aberasten zuten. Norbera kristaua izateak ez zuen kristauak ez ziren elementuen presentzia baztertzen, alderantziz, norbere izaera kristaua berretsi baizik; beti ere, baina, kristaua ez zenaren presentzia ere ontzat ematearen truke (Aro Berriko bilakaeran ostera, azkenean baztertuko zena).

IX-XV mendeak bitarteko testuinguruaren inguruan eman ditugun azalpen orokor hauek, jarraian ikergai izango ditugun emakumezkoen erlijiozko instituzio ezberdinek Euskal Herriko lurraldeetan edo hauen ingurumarian agerpena egin zuteneko egoerari dagozkie; instituzio hauek auzo-hizkuntzetan idatziriko dokumentuetan seroren izendapenerako erabili ziren terminoen jatorrian daude, eta hargatik ditugu ikergai. Termino hauek baina, aurretik ikergai izan ditugun *serora* eta bere aurrekari *soror*-ekiko beste egoera batean aurkitzen direla aintzat hartu beharrean gaude: azken hau, ikusi dugunez, euskaraz erlijiozko emakume guztiak izendatzeko erabilia izan zen artean, jarraian ikusiko ditugunak auzo-hizkuntzetan helarazi ziren dokumentuetan *-serora* termino berarekin batera- serorak aipatzeko erabili izan zirenak ditugu. Azken hauen kasuan, beraz, biztanleriaren gehiengoaren hizkuntza nagusiaz besteko hizkuntzetan serorak aipatzeko baliatu ziren terminoak ditugunez, hauen erabilera egin zuten kultur eragileen aldetik seroren eta terminoak izendaturiko instituzioen arteko nolabaiteko parekotasuna edo baliokidetzat hauteman zutela beharko genuke lehenik aintzat hartu. Horrez gain, seroren eta bestelako instituzioen artean jatorri edo eragin mailako erlazio zuzenik izan zuten edo ez, gradu ezberdinetako posibilitateen arabera kontsideratu litezkeen alderdiak dira.

¹²⁸ Ipuin melusindarrei eta hauen Bizkaiaiko eta bestelako bertsoiei eta historiari buruz, ikus Krus 2014a eta 2014b, eta zabal eta sakonago, Prieto Lasa 1995. Ikus halaber Etxeberria Ayesta 2003. Aymeric Picaud eta bere testuari buruz, Garate 1989, 133-142 eta Anguita Jaén 1999. *Mariri* eta *Maju*, *Sugaar* edo *Sugoiri* buruzkoetarako berriz, ikus Barandiaran 2003 -1984-, 127-140 eta 189-190; Satrustegui 1983 -1980-, 110-119; Arana 2000, 29-32, 117-133 eta 179-187; eta 2004, 39-69. Amabirjinaren kultuaren desbiderazioei eta gorabeherari buruz, ikus aurrerago, VIII. 3. atalean, 797-799 or.

II. 4.1. Monasterioen benediktartzea eta garaiko Euskal Herriko lurraldeetako testuinguru sozial eta erlijiosoak: *benedicta* terminoaren balizko jatorrietan

Aipatu izan dugu, askotan bikoitzak ala familiarak ziren zehazteko zailtasunak izaten diren monasterioen penintsulako gorakadaren eta beherakadaren kronologia, merobingiarren eta karolinjioen eraginpeko eremurako ikusi duguna baino berantiaragoa dugula: batez ere VI. mende ingurutik hasi ziren hedatzen, IX-XI mendeak bitartean goraldi nagusia izanik, penintsulan XII. menderate behintzat biziraunez eta Euskal Herriko lurretan, jarraian azalduko dugun hipotesia zuzena izatekotan, Aro Berrirainoko jarraipena izanez, patroitzaren sistemaren parametroetara antzaldaturik bazen ere. Kronologia honek, Penintsula Iberikoko gorabehera sozial eta politiko espezifikoen eraginaz beste (musulmanen helduera, Asturiaseko eta Iruñako Erreinuen sorrera, etab.), noski, erregela beneditarraren helduerarekin ere badu zerikusirik.

Penintsula Iberikoan -lurralde frankoetako kronologia berbera daraman Kataluniako "Marca Hispánica"-ren salbuespenez- ez zen erregela beneditarraren agerpena X-XI mendeak arte gertatu: San Martín de Albeldan 958an, San Millán de la Cogollan 971n, San Juan de la Peñan 1028an, Leiren 1032an eta Iratxen 1033an. Emakumezkoen komunitateei dagokienean, gogoan izan dezagun Naxerako Nunilo eta Alodia santen monasterioko *sorores*-endako 976an idatzi zen *Libellus a regula benedicti substractus* erregela, eta baita garai berantiaragoetatik ezagunak zaizkigun beste bi komunitate ere: Leireko gizonezkoen monasterioarekin batera monasterio bikoitza osatzen zuen San Kristobalekoa, 1104an dokumentatua -eta 1450ean Lisabera joango zena-; eta San Benitoren Lizarrako komunitatea, "Real Monasterio" bezala ezagutua eta agian bere hastapenak X. mendean izan zitzaizkeen, eta 1268an, San Juan de la Peña monasterioaren fundazioz sortua izan zela ziurtatzearekin bat, "Santa María de la Huerta" izenarekin aipatu zena¹²⁹. Paradoxikoki, Nafarroako Erreina, batez ere Antso Nagusiaren erregealdian (1004-1035), beneditarren penintsularako atea izan bazen ere, ondorengo erreinaldietan Nafarroako Erreinuarenak izango ziren lurraldeak izan ziren, hain zuzen ere, monasterio familiar eta bikoitzen eredu arkaikoak luzaroen mantenduko zituztenak.

Jada beneditarren penintsularako hedapena hasia zenean, Erreforma Gregoriarrak izandako bilakaeran, beste pausu garrantzitsu bat Letrán-eko kontzilioaren (1179) gidari izan zen Alejandro III. aita santuaren agintaldian eman zen. Elizako eta laikoaren esparruen arteko mugak zedarrizterako orduan, apezken aukeraketarako partekaturiko sistema bat bultzatu zen, beti ere azken hitza elizako agintariei ematen ziena; tenpluen "patroiek" -ez jada "jabeek"- aurkezpen eskubidea izan zezaketen, hau da, tenpluaren artapenerako apezketarako hautagai bat aurkezteko eskubidea, eta hautagai honen onarpenaren gaineko azken hitza apezpikuaren eskutan gelditzen zen, zeinak hautagaiari egoki iritzi izanez gero, hau berretsi eta izendapen definitiboa egingo zuen. Hautematen hauek eta beraiei loturiko araudiek, noski, jabe pribatudun monasterio propioen egoera aldatzea eragin nahi zuten, hauek *ius episcopale*-aren menara eta apezken izendapenak eliz agintarien kontrolpera ekartzeaz gain, beste alderdi garrantzitsu bat ere euren gantzeko: elizetako ondasun eta hamarrenak, monasterio propioen jabeek, propietate pribatua bailiran hautematen zituztenak. Sistema berriaren gailentzea Penintsula Iberikoan XII-XIII mendeen bitartean gauzatu zen, nahiz eta zenbait lurraldetan ondorengo mendeetan luze jarraituko zuten erresistentzia guneak ere izan ziren. Erregeen eta aristokraziaren aldetik monasterio handien inguruko zentralizazioa

¹²⁹ Linage Conde 1985; Ozaeta 2004; eta Jimeno Aranguren 2006; ikus halaber Arana 1992, 124-125.

bultzatu zen, monasterio handien aldeko lurren, tenpluen, eta monasterio -txikiagoen-dohaintzak sustatuz, eta eurek eginez.

Ius episcopale-aren arabera apezpikuari hamarrenen herena bazegokion ere, Euskal Herriko lurralde askotan -nabarien, Bizkaian eta Gipuzkoan- ez zen hamarrenen parte hau sekula ordaindu izan, hamarrenen gaineko erabateko kontrola, tenpluen jabe ziren jaunek baitzuten, askotan, hauek beraien osotasunean eurenganatzuz. Izan ere, ondoren Euskal Herria bezala ezagutuko duguna aipatu berri ditugun "erresistentzia gunen" horietariko bat izan baitzen, eta bertako monasterioen jabeak ez baitziren monasterio handiekiko oso "dohatsu" azaldu. Curiel Yarzak ikerketa espaziotzat Bizkaia eta Gipuzkoa hautatu zituen bere doktorego tesian azaldu zigunez, lurralde historiko hauetan XI-XII mendeetan egin ziren tankera honetako dohaintzak oso urriak izan ziren, 13 baino ez, guztiak erregeen eta hauen gertuko aristokraziaren testuingurutik eginak (hau da, lurraldeotako botere egituretan elementu nagusi zen behe-nobleziak ez zuen parte hartu), eta azkenean, gainera, XIV-XV mendeetarako, monasterio hauetariko gehien gehienek aurretiko jabe laikoen familien eskutara itzultzen bukatu zuten. Hau da, monasterio txikien handieganako zentralizazio prozesua, Bizkaian eta Gipuzkoan behinik behin, ez zen gauzatzera heldu¹³⁰.

Eta "monasterio" haiek, azkenean, izenez "patroitzan" baina faktikoki -izendapenekiko eta hamarrenekiko- jabe pribatuen eliza propio izanez parrokia eta ermitatan banatu ziren tenpluak bilakatu ziren Behe Erdi Arorako, askok, oraindik ere, "monasterio" izena jasotzen zuten. Honek euskarazko elizako pertsonendako terminologia orokorrean ere bere islada dauka, gorago ikusi dugunez, latinetik maileguan harturiko "apez" / "apaiz", "apezpiku", "abate / abat" eta "serora" terminoek taxukera monastikodun testuinguru batetara baikaramatzate. Interpretazio honen arabera, beraz, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko testuinguruetan sortutako bizi eta erlazio egitura sozioerlijiosoen Behe Erdi Aroko eta Aro Berriko biziraupen ziratekeen, "abade" izenezko apezak bezalaxe, "soror"-en ondorengo serorak ere. Baina serorak ez zeuden abadeen kasu berebean; izan ere, "abadeak" apez (uler bedi, parrokietako *cura animarum*-aren erantzule eta liturgiako ministro) izateko egoera soilera iragan -edo hauen bidez ordezkatuak izan- zitezkeen, baina monasterio haietako *soror*-ek ez zeukaten, Behe Erdi Aroko eta Aro Berriko testuinguruan, antzaldatzeko instituzio "onarturik". Eta hortaz, jatorrizko izenarekin gelditu izango ziratekeen.

Egoera eta bilakaera orokor hau 1390eko Guadalajarako Gorteetan azaleratu ziren; Kalagorriko, Burgoseko eta Iruñako apezpikutzetako ahaldunak kexuz agertu ziren, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako jauntxoek elizetako hamarren guztiak eurenganatzzen zituztela eta; "monasterio" deitzen omen zituzten, eta apezzei ere "abad" esaten omen zieten. Baina Juan I. erregeak bazeuzkan berak ere, Bizkaiako, Gipuzkoako eta Arabako jauntxoek bezalaxe, eliza hauetariko zenbait bere ondasunen -eta etekin iturrien- artean, eta baita hauen bidezko inguruarekiko lotura estrategikoak ere. Lurralde historikoetako defentsaren aldetik hainbat argumentu baliatu ziren, historikoak, biblikoak, zuzenbide kanonikokoak, politikoak, etab., baina funtsezkoa zera dugu: erregearen epaiak Bizkaiako, Gipuzkoako eta Arabako jauntxoek kasuak salbuespentzat onartu zituen, baina gainontzekoan, orokorrean, laikoek elizetako hamarrenak eskuratzea debekatu zuen, eta jauntxoek hauek Elizari itzul ziezazkiotela agindu. Kexu hau XIV. mendean ekina zen jauntxoek aldetiko elizen eta hauen hamarrenen eurenganatzte prozesu baten testuinguruan eman zen, baina ez zuen prozesua gelditu,

¹³⁰ Azalpen hauetarako batez ere Curiel Yarzaren doktorego tesiko (2009) 4. kapitulua darabilgu, 239-263; ikus halaber, testuinguru orokorrako baterako, Le Goff 1992 -1972, 137-141.

XV. mendean ere jarraitu baitzuen¹³¹. Bilakaera hartan, Europako beste lurralde batzuekiko aski garai berantiarretan, XIV-XV mendeetan zehar, monasterioak elizate izatera iragan ziren, eta monasterioetako jabe ziren abadeak "patroi" izatera iragan ziren; 1539ko Begoñako (Bizkaia) auzi batean lekuko batek zioenaren arabera:

antiguamente al patron de la casa de Begoña se solia llamara abad del monesterio de Begoña, aunque hera lego, e que ansy mismo en el valle de Mena e su tierra a los patrones de las yglesias de patronazgos los llamaban abades aunque legos y casados, espezialmente al que es abad de Vibanco (Curiel Yarza 2009, 226-227)¹³²

Bizkaian ohitura halakoa izana bazen, Iparraldean "alkatea" adierazteko gaur egunerarte heldu den *auzapeza* terminoa ere oso argigarria dugu honekiko: "auzoko *abbas*"-a genuke auzoko edo herrixkako buru. Bizkaian bezalaxe Iparraldean ere, erlijiozko espazioan bezalaxe espazio "zibilean" agintzen zuten buruzagi bakar hauek monasterioen eta herrixken arteko mugen zehazgabezia adierazten digute, komunitatea funtsean bakarra zela azaleratuz.

Guzti honek Irlandako Goi Erdi Aroko monasterioetako egoera dakarkigu gogora; izan ere, bertako kristautzearen eredu monastikoaren baitan gertatu izan zen fenomeno auzoko buruzagiak, kristautzerakoan, monasterioetako abade izatera iragan izana, apezpiku eta apezpei, alderdi liturgikoa esleituz. Abade hauek jauntxo izaten jarraitzen zuten, eta arraroa badirudike ere, besteak beste, monasterioen eta bestelako komunitateen arteko guduetan ere hartzen zuten parte, monje edo abade izateari utzi gabe. Areago, gudu horietarako motiboak erlijiozkoak ere izan zitezkeen (meza edo penitentzia libururen baten lapurreta edo baimen gabeko kopiatzea, esate baterako). Eta gogoan izan dezagun erlijiotasun irlandarraren eragina Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan Galizia zaharreko lurretara heldu zela, eta jakina denez, bertan jorraturiko forma monastiko propioak penintsula iparraldean zehar zabaldu izan zirela¹³³. XVI. mendeko biztanleek Begoñako eta Mena bailarako abade laikoen inguruan gordetzen zuten gogoramena antzerako botere egituren arrastoa izan litezkeela esango genuke.

Antzinate Berantiarretik Goi Erdi Aroa Irla Britaniarrak-Galizia-Euskal Herria espazioan eratua izan zitekeen erlazioen sare posible honek, gainera, gorago azaldu dugunez, XII-XV mendeen bitarteko autoreen idatzietako euskaldunen jatorriari buruzko kontakizun mitikoetan "eskoziarrak" nahastu izanari nolabaiteko oinarria ematen die; Goi Erdi Aroko garaian, *scotti* izenez irlandarrak ezagutu izan baitziren (gaur egun eskoziarrak direnak adierazteko aplikazio espezifikoa berantiarra dugu), eta kristautasun zeltiarra kontinentean hedatu zuten monje ibiltariak ere izen harekin aipatuak izan baitziren, kontzilioetako legeditik ikusi ahal izan dugunez. Ondorengo garaian erlazio hauen nolabaiteko gogoramena gordea izan zitekeen, Aimeric Picaud-ek XII. mendean, Pedro Alfonso Barcelos-eko kondeak XIV.ean, eta Lope García de Salazarrek XV.ean nork bere nahierara eta xedeetara moldatuko zutena¹³⁴. Eta badira, bestalde, eta nahiz eta ikuspegi hau jorratu duenik ezagutzen ez dudana, Euskal Herriko Erdi Aroko eta Aro Berriko gizartearen egituraketan, erlazio hauen testuingururako lotura iradokitzen duten bestelako alderdiak ere: nabariena, parrokiaren baitan ehorzteko ohitura eta honek egituratzen zuen espazioaren eta bertako botere egituren mailakatzea, balizko jatorrizko "monasterio" egoeran buru zen leinu bat eta honetako buruzagi "abadea" izango zukeena, bere tenpluaren menara bertako heriotz errituen espazioan

¹³¹ Curiel Yarza 2009, 239-263; Díaz de Durana 1995, 474-481.

¹³² Aipatzen digun iturri dokumentala: ARChV, PC, Fernando Alonso, Fenecidos, C. 3370/4.

¹³³ Ikus honekiko azalpenak II. 2.2.3.2. azpiatalean, 71 eta hurr. or.

¹³⁴ Ikus II. 4. atalean, 127-130 or.

errepresentaturik inguruko biztanleria batuko zukeena, leinuarekiko loturen edo *familiaritas* erlazioen bidezko mailakatzeen arabera.

Baina konparazio honen balizkotasuna delakoa dela, nabaria dugu, Euskal Herriko zenbait lurraldetan behintzat, alderdi laikoen eta erlijiosoen arteko mugak ez zirela batere zurrinak, eta inguruko ohiturekiko egoera berezia zela. Hortaz, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako bilakaeran behintzat, parrokia eta ermita izatera iragan ziren "monasterio" haiek, lurraldeko tenpluen gehiengoaren kasua zena, hiribilduen gailentzerarte jauntxoek eskutan mantendu zirela kontutan izan behar dugu, ordenen komunitateen eta hauen artean emakumezkoenen helduera eta hedapenaren formak eta garaiak ikusterako orduan ere.

XI. mendean ekinda, baina batez ere XII-XIII mendeetan zehar, Euskal Herriko lurraldeetan ordenei loturiko monasterioak azaldu berri dugun testuinguru berezian hedatuz joan ziren, eta euren artean, noski, baita emakumezkoen komunitateenak ere. Garai hartan azaldu ziren lurrotan ordena hospitalario eta militarrek eta mendikanteak ere, baina hauetaz aurreraxeago jardungo dugu. Gorago aipaturiko beneditarrekin batera, lehen hedapena erregela agustindarreko komunitateei dagokie, eta lehenak bezala, hauek ere batez ere Nafarroako lurretan hedatu ziren, nahiz eta Bizkaian (Elorrioko Etxebarriako San Agustin, 1053a baino lehenago Durangoko kondeek fundaturiko monasterio bikoitza) eta Gipuzkoan ere (Donostiako San Bartolome, XIII. mendekoa) kanonesa agustindarren komunitate garrantzitsuak fundatu ziren. Beneditarren artetik zistertarren erreformaren fundazioak ere bereziki aipagarriak ditugu, zenbait arrazoigatik: garai hartan Euskal Herriko lurraldeetan egin ziren emakumezko beneditarren komunitateen fundazio gehienak zistertarrenak izan zirelako, eta ordena hau emakumezkoendako klausura aktiboaren bultzatzaile nagusia izan zelako. Tulebrasen (1147), Tuteran (1149 baino lehenago), Marcillan (1160-1166) eta Lizarran (1260-1266) fundaturiko monasterioak ditugu Nafarroa Garaian, eta baita, Araban Barriakoa (XII. mendea-c. 1200) eta Lapurdin Baionakoa (XIII. mendea, 1268?) ere¹³⁵.

Alabaina, zistertarren Kapitulu Orokorretan XIII. mendearen hasieratik hasi ziren emakumezko komunitate guztien klausurarako aginduak ematen, eta komunitateak hartara behartzen saiatzen, nahiz eta hau ez zen berehalakoan lortu; eta ikusten dugunez, Euskal Herriko fundazioen artean gehiago izan ziren XIII. mendearen aurretikoak, mende hartakoak baino. Hau da, beraien hastapenetan klausura gabeko bizimodua zeramatenetariakoak ditugu. Baina zistertarren -eta besteren- ahaleginek euren frutuak izan zituzten, eta 1298an Bonifazio VIII. aita santuaren *Periculoso* bulda heldu zen, erlijiozko emakumeen forma guztien klausura aktiboa agindu zuena. Dekretu edo bulda honen eragina ez zen berehalakoa izan, baina ondoren, lehenik Errege Katolikoen Espainiako erreformen baitatik, baina batez ere jada XVI. mendearen bigarren erdialdean, Trentoko kontzilioan eta Pio V.enaren eta bere legegileen aldetik berreskuratua izatean izango zen eraginkorren. Euskal Herriaren kasuan, María José Aranak bere doktorego tesian aski frogatu zuenez, XVI. mende bukaera-XVII.enaren hasieran klausuraren aplikazioari ekin zitzaion arte klausurapean bizi izan ziren komunitateak oso gutxi izanak ziratekeen, gehiengo nagusia, klausura gabekoek osatuz (Arana 1992, 76-84; Piquer 1996, 139-153).

Baina Euskal Herriko lurraldeetarako beneditarren helduerak aipatu berri ditugun gorabeherak izan bazituen ere, badugu serorak izendatzeko auzo-hizkuntzetan erabili izan zen termino bat, agian, zistertarren eraginaren islada dakarguna: Pirinioez

¹³⁵ Jimeno Aranguren 2006, 116-120; eta Arana 1992, 124-126.

iparraldeko auzo-hizkuntzetan jasoak gelditu zaizkigun "benoîte", "benediit", "benediite", etab.ez dihardugu.

Hiztegietakoa azalpenen arabera, frantsesezko "benoîte" terminoa gazteleraizko "beata"-ren antzerako jatorrizko zentzu batekin izan zen hasiera batean erabilia, baina egoera sozial eta erlijioso espezifiko baten zentzurako garapenaren espazioak penintsulan "beata" terminoak izan zuenarena baino askoz mugatuagoa dirudi, bere erabilera Euskal Herrira eta bere ingurura mugatu zela baitirudi. Biarnoeraren testigantzek noizbait Erdi Aroan instituzio sozial eta erlijiosoaren zentzu espezifikoan Biarnon ere erabili izan zutela pentsatzera daramate, baina ezin ezer ziurtatu. *Dictionnaire historique...*-aren (Rey 1986, 206) arabera, "bedeinkatu" zentzuarekin erabiltzen zen "bènet" terminoak eboluzio morfoloikoa eta semantikoa bat izango zukeen, XII. mendean "benoît, oîte" formara antzaldaturik, "bienheureux, sur qui est répandue la bénédiction divine" eta "consacré par des ceremonies rituelles" zentzuak hartzeri iragateko. Hitz honi seroratzat har genezakeen emakume baten lehen aipamenetariko bat dagokio, 1302an kokatua: Domingo de Mans Baionako apezpikuaren testamentuan "Benedictae" hitzarekin aipatu zen katedraleko zerbitzaria, apezpikuaren arimaren aldeko heriotz errituetan argiteriaren kargu hartu behar zuena, bere soldatarekin (Webster 1911, 143). "Beata" terminoak gaztelera eta frantsesean ("béate") izan zuen eboluzioarekin gertatu bezala, "benoîte" terminoa XVII. mendean zentzu peioratibo bat izatera iragan zen.

Biarnoeraren kasuan, "benediit", "benediite", "benedicte" eta "benazita" barianteak aurkitzen ditugu, kasu hauetan, Euskal Herrian "serora" bezala ezagutzen zirenekiko antzekotasun gehiago azaltzen dizkigutela. *Dictionnaire béarnais...*-ak (Lespy; Raymond 1998, 84) "benediit"-ek "charge dans une église des soins matérielles du culte" esan nahi duela diosku, eta "benediite" bariantearen azalpenetan De Lancreren aipu bat jasotzen du, non honek, Lapurdiko "andere-seroren" elizako lanen inguruko azalpenak eman zituen.

Baina, nola heldu zen hau frantsesaren eta biarnoeraren -eta hala balitz, gaskoiaren- baitako ohizko hiztegiatan sartzeri, Iparraldean eta bere ingurumarian baino erabilia izan ez bazen? "benèt"-etik al dator terminoa, "bedeinkatua" adjetiboaren sustantibizazio soil bidez, ala Maria José Aranak iradokitzen digun lez, ordena beneditarrarekiko loturaren bat haintzat hartu beharko ote genuke?¹³⁶ Bi aukerak izan litezke zuzenak, bien aldeko datuen berri izan baitugu. Alde batetik, gogoan izan dezagun birjinak, alargunak eta batez ere diakonisak zegozkien egoera sozial eta karguetara "ordenatu" (*consecratio*) edo "bedeinkatu" (*benedictio*) egiten ote zirenen inguruko zalantza eta tentsioak Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan zehar mantendu zirela, jada XII. mendean eta propioki diakonesei buruz jardutean, legegileen artean hauen "ordenazioa" ukatzeko joera nagusitu zelarik. Honi legokioke *Dictionnaire historique...*-eko "consacré par des ceremonies rituelles" zentzua, eta "benedicta", "benediite", etab.ek termino hauetan izan dezakete jatorria; ez dezagun ahaztu, Baionako "benedicta"-ren aipamenaren garaia (1302), legegileak diakonesen izaera "ordenatua" behin eta berriro ukatzen jardun zuten bitarte kronologikoaren (gg. XII-XIV mendeak) erdigunean kokatzen zaigula¹³⁷.

Beste posibilitatea terminoa, hain prezeski ere, María José Aranak iradoki bezala beneditarren testuingurutik heldu izana genuke; terminoaren erabilerean ingurunea Iparraldeak eta inguruko lurraldeek (Biarnok behintzat) osatzen dutela oharturik, zenbait

¹³⁶ Ikus aipua gorago, II.1. atalean, 47 or.

¹³⁷ Ikus "ordenazioaren" eta "bedeinkapenaren" ingurukoak II. 2.1. azpiatala, 53 eta hurr. or.

posibilitate zabaltzen zaizkigu. Gogoan izan ditzagun, alde batetik, Ingalaterrako eremutarren inguruko azalpenak ematean aipagai izan ditugun Rielvaux-eko Aelred zistertarraren *De institutione inclusarum* (1160-1162) eta ingeles dialektalean idatzi zen *Ancrene Wisse* edo *Ancrene Riwle* (XIII. mendearen hasiera) eremutarrendako erregelak. Erregela hauek zistertarren testuinguruan idatziak izan ziren, eta beneditarren erregelan eta beraien izpiritueltasunean oinarritu ziren; ez ziren bakarrak izan, bestalde. Zistertarren testuingurutik emakumezko eremutar eta anakoretendako erregelak idatzi izanak arraroa dirudike, hauek erlijiozko emakumeen gaineko klausuraren inposizioan izan zuten papera gogoan izanik; alabaina, erregelok, hain zuzen ere, Ingalaterran hain ugariak ziren bakarkako emakume horien erlijiozko bizimodua arautu eta kontrolatzeko xedez idatzi zirela pentsaturik, ez gara hainbestean harrituko. Baina dagokigunarekiko, interesgarri zaiguna *Ancrene Wisse* zelakoaren 17 bertsio ezagutzen direla da: ingeles dialektalekoak bederatzi, latinezko lau eta frantsesezko beste lau¹³⁸. Eta azken bertsio hauek zaizkigu bereziki interesgarri, obra hauek idatzi ziren garaian Akitania, Lapurdi eta Zuberoa baitan, erreinu ingelesaren parte izan zelako (egoera hau 1154-1453 bitartean eman zen). Areago, Baionako katedraleko "Benedicta"-ren aipua (1302), frantsesezko bertsioak idatzi ziren garai berberetako dugu (XIII. mende bukaera - XIV.enaren hasiera). Bada beraz honen inguruan oraindik zer arakaturik, baina oraingoz, terminoa erabili zen testuinguruak María José Aranaren iradokizunak, beneditarrekiko loturan pentsatzera zeramatenak, bide onean izan zitezkeela adierazten digula esatera mugatuko gara. Azaldu ditugun bi posibilitateak, beraz, zabalik mantentzen zaizkigu serorak frantsesez "benedicta", "benedit", eta hauen aldaerekin izendatu izanari dagokionean.

II. 4.2. *Freila, freira, etab.:* ordena militar eta hospitalarioak

Jatorria ordena militar eta hospitalarioetan duten "freila", "freira", eta hauen barianteei erreparatuko diegu jarraian. Euskarazko hiztegiei dagokienean, Mitxelenaren *Diccionario General...*-ak (Mitxelena 1987-2005, 60) Larramendiren *Diccionario Trilingüe...*-aren boza (Larramendi 1745, 378) jaso baino ez du egiten, eta honek, era berean, *Diccionario de autoridades*-eko deskripzioa jaso baino ez du egiten (R.A.E. 1976 -1727-, 794). Hortaz, azken hiztegi honekin ekingo diogu terminoaren ikerketari, zuzenean gaztelerazko hiztegiak aztertzeraz iraganen.

Diccionario de autoridades-aren (R.A.E. 1976 -1727-, 794) arabera, "freila" terminoak honako bi definizioak lituzke: "la Religiosa de alguna de las Ordenes Militares", eta "se llama también la Religiosa lega de otras Religiones". Ematen dituen adibideetatik eratorritzen denez, ordenako mojen ("del Choro") egoerarekiko beheagoko edo aurreragoko maila batean leudekeen emakumeak liriateke¹³⁹. *Diccionario Crítico...*-an mojarrendako izen zahar lez aurkezten zaigu, eta besteak beste, "seror" eta "serora" terminoak ere erabili zituen Berceoren lanak (*Milagros de Nuestra Señora, Vida de*

¹³⁸ Morton 1853, V-XXIV; Clay 1914; Robertson 1990; Hasenfratz 2000; Labarge 1988 -1986-, 159-170.

¹³⁹ Aipatzen duen lehen adibidea *Establecimientos de la Orden de Santiago* arautegikoa da, ziurtasunez ez badakigu ere, 1565eko *La regla y establecimientos de la orden de caualleria de Santiago del Espada: con la hystoria del origen y principio della: todo de nuevo acrecentado...* (Galiciana webgunean eskuragarri: <http://galiciana.bibliotecadegalicia.xunta.es/gl/consulta/registro.cmd?id=6925>) izan litekeena. Edozein kasutan, aipuan agertzen zaigun "freila" zirenen onarpenaren debekuak ("monja" zirenak ez bezala) ordenak 1493an Errege Katolikoen manupean sartu ostean bizi izan zituen aldaketa sakonak (klausuraren inposizioa, besteak beste) testuinguruarekin bat egiten du. Guzti honen berri María Echániz Sansen Donejakueren Ordeneko emakumeen inguruan egindako ikerketek ematen digute (Echániz Sans 1991, 1992 eta 2000). Beste adibideen jatorria: SANTA TERESA DE JESÚS: *Libro de las fundaciones*, 1573-1582, eta YEPES, Diego de (Fr.): *Vida, virtudes y milagros de la Madre Teresa de Jesús*, 1606.

Santa Oria) hartzen ditu oinarri. Alabaina, *Diccionario Crítico...*-ak jasoriko Berceoren adibide berbera emanaz (XIII. mendean), *Diccionario medieval...*-ak (Alonso 1986, 1170) “freira” “religiosa de las órdenes militares” bezala jasotzen du, “monja, hermana” zentzua XV. mendeko adibide batean oinarrituz; baina azken mende honetan, lehen zentzua ere, espezifikagoa, mantenduko da¹⁴⁰. Bere aldetik, *Nuevo tesoro...*-ak (Nieto Jiménez; Alvar Ezquerro 2007, 4912-4914) adibide ugari jasotzen ditu, batez ere “moja” –edo orokorrean, “erlijiosa”– zentzuarekin, 1493 eta 1721 bitartekoak. Edozein kasutan, terminoak penintsulako erromantzeen testuinguruan sortua behar izan zuen, “freila” hauei latinezko testuetan beti “sorores” deitzen baitzaie.

Frantsesez, eta halatsu biarnoeraz, terminoa ez da existitzen. Esparru semantiko hau, jada ikusi ditugun “soeur” (*soror*-etik) terminoari dagokio, eta agian, “Religiosa lega” zirenen kasuan, baita “benoîte” terminoari ere.

Orain arte azaldutakoaren arabera, terminoaren lehen berriak ordena militar eta hospitalarioen testuingurutik datozkigu (XI, XII eta XIII. mendeetan), nahiz eta “sorores”-ekin batera, bere erroak beneditarren aurretiko monasterioetan dituela dirudien, San Millán de Suso monasterioa kasu (zeinaren ondoan Santa Oria “ormaratu” zen). Euskal Herriko seroren jatorria ordena militar eta hospitalarioetako “freira” (erromantzetik) eta “soror”-etan (latinetik) izatearen hipotesia azken hamarkadetan argitaratu izan diren zenbait ikerlanen argitara kontsideratu liteke¹⁴¹; eta ikusiko dugunez, hemen ere hainbat ditugu parekotasunak. Baina lehenik azaldu beharreko aspektu bat, militar eta hospitalarioak ziren ordena ezberdinetatik (hospitalarioen edo San Juanen ordenakoak, Santiagokoak, tenplarioak, Calatravako ordena, ordena teutonikoa, etab.), erregela beneditarraren erreforma zistertarrean inspiraturikoen (tenplarioak, Calatravako ordenakoak) eta erregela agustindarrean inspiraturikoen (hospitalarioak edo San Juanen ordenakoak, Santiagokoak) artean emakumeekiko ikuspegi eta jarraibide ezberdinak garatu izan zirela da (eta ordena teutonikoaren kasuan, emakumeekiko beste ordenen arteko erdibide bat garatu zen); lehenak, inspirazio iturritzat zeuzkaten zistertarrek bezalaxe, emakumeak ordenetan partaidetzat onartzeko mesfidati agertzen baziren, bigarrenak askoz jarrera zabalagoa azaldu zuten, hauek ordenetan onartuz eta beraiendako etxe eta komentuak eraiki eta ornituz. Ordena teutonikoak San Juanen ordenaren eta tenplarioenaren arteko erdibide baten hautua egin zuen, eta halatsu egin zuen emakumeekiko ere, erdibide batean kokatu: emakumeak *consorores* edo asoziatu laiko bezala onartuak izan ziren, baina estatus horretan baino ez, San Juanen edo hospitalarioen ordenean ez bezala partaide oso izatea ukatuz, eta halatsu, tenplarioen usadioei ere aurka eginez, hauek -teorian behintzat- ez baitzituzten emakumezkoan ordenean onartzen.

¹⁴⁰ Antonio de Nebrijaren *Vocabulario español-latino* (1495) lanetik jasoriko adibideak dakartza.

¹⁴¹ Ordena militar eta hospitalarioetako “freilen” bizitza gutxi ikertu izan da, nahiz eta azken hamarkadetan zenbait ikerlan argitaratu izan diren. Penintsula Iberikoari dagokionean gehien ikertu izan den ordena (agian, beharko genuke esan, bakarra) Santiagokoa izan da, María Echániz Sans-en zenbait argitalpenetan (1991, 1992 eta 2000). Haez gain Myra Struckmeyer-en doktorego tesi baliotsua ere badaukagu, *Female hospitallers in the twelfth and thirteenth centuries* izenekoa (2006), ordena hospitalarioko emakumeak ikergai nagusi izanik ere, beste ordenen inguruko informazio esanguratsua dakarkiguna. Azkenik, badugu Anthony Luttrell eta Helen J. Nicholson-en gidaritzapean 2006an argitaraturiko lan kolektibo baten berri ere, *Hospitaller women in the Middle Ages* (Ashgate Publishing, Hants) tituluduna, baina zoritxarrez, doktorego tesi hau aurkezten dugun momentuan, ezin izan dugu kontsultatu. Ondorengo azalpenak, beraz, Santiagoko ordenakoei dagokienez ere Echániz Sans-en lanetatik jasoak ditugu, eta besteen kasuan, Struckmeyer-en doktorego tesitik. Euskal Herriko hedapenari buruzkoak berriz, Aranaren (1992) eta Jimeno Jurioren (2006) lanek ordena hauen -eta besteen- gain ematen diguten ikuspegi zabalean oinarritu ditugu.

Ordena hauek XI-XIII mendeak bitartean ordenen eta emakumeen arteko erlazioekiko definituz joan ziren bi korronteen erdibidean izan ziren, eta nagusiki erregela beneditarraren edo agustindarraren hautuen gain eraturiko monasterioen sarea osatuz hedatu ziren, batzuetan aurretiko monasterioak (hauek sexu bakarrekoak, bikoitzak edo familiarrak izan) ordenan baitaratuz eta bestetan berriak eraikiz. Euskal Herriko lurraldeen kasuan, kurioso da, XIII. mendearen bukaerararte alde batetik, erregela beneditarreko eta zistertarren fundazioak eta bestetik, erregela agustindarrekoak (premostratenseak, kanonesak, etab.) izan baziren ere, ordena hospitalario eta militarrei zegokienean, lurraldeotan emakumezkoen komunitateen edo komunitate bikoitzen fundazioak eta emakumezkoen presentzia izatea aski posiblea zen ospitaleak erregela agustindarra jarraitzen zuten ordenenak baino ez zirela izan: batez ere San Juanen edo Hospitalarioen ordenakoak¹⁴², baina baita Sancti Spiritus-ekoak¹⁴³, antonianoak¹⁴⁴ eta lazaristak¹⁴⁵ ere. Ordena hauez beste tenplarioena ere izan zen; hauek, 1119an lehenik agustindarren erregela jarraitzeari ekin bazioten ere, 1129ko ordenaren erregela propioan, emakumeekiko behinik behin, zistertarren eragina jaso zuten (hurrenez hurren Clairvaux-eko eta Cîteaux-eko abade ziren San Bernardoren eta Stephen Harding-en eragina nabaria izan zen, eta biak izan ziren presente erregela onartua izan zen kontzilioan), teorian behintzat, emakumeak ordenako partaide izatea eragotziz. Alabaina, jakina da praktikan emakumeak ordenean onartuak izan zirela, gehienetan *consoror* edo *donata* gisa, baina kasuren batean, baita profesio osoko partaidetzat ere. Beraz, Euskal Herrian izan ziren tenplarioen etxeetan ere posible litzateke emakumezkoen presentzia noizbait gauzatu izana.

Berez, hospitalario eta militarrek ziren ordena gehienetan izan ziren emakumeak inplikaturik, batez ere XI-XII mendeetan; bitarte hartan emakumeek ordenetan izan behar zuten papera ez zen oraindik finkatu eta kontenplaziozko bizitzara bideratu, eta *familiaritas* erlazioen ereduak loturretatik erabateko profesioarteko binkulazio formetan, askotan aski nahasi ageri zaizkigun *donata*, *consoror* eta *soror*-ak hainbat izan ziren, zaintza, artapen eta sendakuntza lanetan.

Baina XI-XIII mendeen bitarte hartan, gradu eta garai ezberdinetan izanik ere, orden hospitalario eta militarretako emakumeek aldaketa nagusi batzuek bizi izan zituzten. Echánis Sans-ek prozesu hau ulertzeko giltzarrietariko batzuek ematen dizkigu, Premontré-ko ordenan izan zen eboluzio goiztiar bat aipaturik, eboluzio honen eta beste ordena batzuetan ondorengo garaietan bizi izan zirenen arteko zenbait paralelismo aditzera emanez. Aipatzen dizkigun ordenetariko bat Hospitalarioena edo San Juanena da, Donejakue edo Santiagorenarekin bat, Euskal Herrian presente izan zela dakiguna:

¹⁴² Monasterioen artean 1302an jada "zahar" bezala aipatua izan zen Gesaltza Añanakoa (Araba), XVI. menderako ziurrenez jada desagertuak zeuden Axkoakoa (Apodaka, Araba) eta Bargotakoa (Nafarroa Garaia) (garai zaharragoetan monasterio bikoitz izana), eta mende berbererako "monjas beatas" laikoan komunitate bilakaturik zegoen Belatekoa (Nafarroa Garaia) ditugu ezagun, eta ospitaleen artean aldiz, 1194 ingurutik ezagunak zaizkigun Irisarrikoa (Nafarroa Beherea) eta Saint-Blaise-d'Aphat-Ospital-eko (Zuberoa), XII. mendeko Baionakoa (Lapurdi), eta noiz sortuak izan ziren ez dakigun Lekunberrikoa (Nafarroa Beherea), Arsoritzekoa (Nafarroa Beherea) eta Berroetakoa (gaur egun Domintxaine-Berroeta, Zuberoa).

¹⁴³ Gares-en (Nafarroa Garaia) lehen berriak XIII. mendetik helduak zaizkigun "Comendadoras de Sancti Spiritu"-ak izan ziren, eta Zegaman (Gipuzkoa) ere izan zen XVI. mendearen aurretik beste komunitate bat ere, lehenari loturiko priorato txiki bat izan zitekeena.

¹⁴⁴ San Gines-en (Lerga, Nafarroa Garaia) XVI. menderako ziurrenez jada desagertu zen antonianoen seroretze bat izan zen.

¹⁴⁵ Gasteizen (Araba) Magdalenaren ospitalean izan zen lazaristen komunitate bat, XVI. mendean artean bizirautea zuena.

[...] lo que sí ocurrió fue un doble proceso: por una parte, la transformación de la función de las mujeres en la Orden, ya que mientras el fundador les había asignado una función asistencial y hospitalaria, propia de la vida apostólica, los estatutos de la Premontré de 1140 se referían a ellas como canonesas de coro, con una vida contemplativa y claustral, y por otra la eliminación de las mujeres laicas asociadas a la Orden, mujeres que realizaban también funciones asistenciales y hospitalarias bajo la protección de los monasterios premonstratenses (Echániz Sans 1992, 26)

Zenbait urtetara, Struckmeyer-ek bere doktoregoa tesian prozesu honen inguruko bestelako xehetasunak eman zizkigun: ulergarria denez, klausuraren hedapenean hainbesteko eragina izan zuten zistertarren ordenean -eta beneditarren erregelainspiraturiko ordenak izan ziren lehenak, eta erregela agustindarrean oinarritzen zirenak berriz, bereziki Euskal Herrian hedatuena izan zela dirudien San Juanen edo Hospitalarioen ordenakoak, aldaketa hauek onartu eta gauzatzen azkenak izan ziren¹⁴⁶.

Eta beraz, Euskal Herrian “serora” eta “freila” lez ezagutu izan zirenek, halako prozesurik bizi izan ote zuketzen? Maria José Aranaren ikerketen arabera, ez lirateke soilik ordena militarreko “freila”, “sorores” eta are “emparedada”-k ondorengo “beatas hospitalarias” edo “monjas beatas laicas”-ak izatera iragango, baizik, ordena militarrek eurak, aurreko monasterio bikoitzen gain eratuak lirateke, San Millán de Susoren kasuan gertatu izan bezala (Arana 2002, 845-847)¹⁴⁷. Alegia, leku jakin batzuetan lehenik monasterio bikoitzen testuinguruan “sorores” izenpean ezagutu izan zirenen, gero ordena militarretan “freila” eta “emparedada” lez ezagutzen zirenen, eta azkenik, ordena mendikanteei loturik “beata” lez ezagutu izan zirenen gainjartze bat egongo litzateke.

Beraz, ordena hauen ezaugarri garrantzitsu bat hasierako mendeetan behintzat “freila sekularrak” eta “freila konbentualak” existitu izanarena da, batzuen kasuan, fundaziotik bertatik. Lehenak beraien testuinguru familiarrean bizi ziren, eta bigarrenak ostera, komentuan, komunitatean. Santiagoko ordenean behinik behin, bi “freila” moetek hiru botuen betekizunaren zina egiten bazuten (txirotasuna, obediencia, kastitatea), eta honek Euskal Herriko Aro Berriko serora askorekiko ezberdintzen bazituen ere, oinarritzko bi moeten arteko banaketa bera nahiko adierazgarria da. Gainera, “freila sekularren” kastitate botua ez zen betierekoa, eta ezkontzeko posibilitatea zabalik mantentzen zuten. Ordenako alabenganako hezkuntza funtzioak ere

¹⁴⁶ Prozesu honek Hospitalarioen Ordenean izan zuen bilakaera ikusteko, ikus halaber: Forey 1987.

¹⁴⁷ “[...] algunos hospitales eran regentados por religiosas, como por ejemplo el de la Magdalena de Vitoria por las de la orden militar de San Lázaro o las lazaristas. Parece que el de Salvatierra, en épocas muy remotas, fuera asistido por “las emparedadas de San Lázaro” pues consta que se les dejaban mandas y la casa conserva las insignias religiosas, por ejemplo, un torno, más tarde lo hicieron las beatas hospitaleras. [...] y alguno, como el de la Magdalena de Leaburu (Guipúzcoa) dice la tradición que perteneció a los templarios, pero parece que también hubo monjas templarias, a lo menos en algún lugar de Álava. Muy a menudo existían hospitaleros y hospitaleras en un mismo hospital, como en el de Mongelos (Navarra) que tenían “priors, frailes y donas del ospital de Sancta Madalena” (845 or.). Aurrerago, espeziifikoki ordena hauei buruz diharduela, informazio zabalagoa ematen digu, Sancti Spirituaren Ordenako Zubiburrutiako monasterioaz gain, honakoak aipatuz: “En Cegama (Guipúzcoa) acababa casi de desaparecer un pequeño priorato de la familia del monasterio de Puente la Reina del Sancti Spiritu. En Axcoa de Apodaca (Álava) el de sanjuanistas como las de Salinas de Añana y en ambos, anteriormente y como ya hemos insinuado, posiblemente hubo templarias. Las de Bargota (Navarra) y, posiblemente también las de Cizur, fueron también sanjuanistas y en tiempos más antiguos existió un monasterio doble en el que las sororas, además de llevar el Hospital, regentaban una escuela para niños y niñas. Las Canónicas Regulares en su rama hospitalaria de Velate (el que fuera monasterio doble) (Navarra) dejaban paso a un serorato-beaterio de “monjas beatas” laicas. En San Ginés (Navarra) estaban la Antonianas hospitalarias, pero posiblemente desaparecieron a finales del XV. Todavía en el siglo XVI, las lazaristas regían el Hospital de la Magdalena de Vitoria” (846-847 or.).

bete zituztela jakina da, eta funtzio hau Euskal Herriko seroren artean ere aurkitzen dugu, baina parrokia, auzo edo elizateari aplikaturik. Beste ezaugarri amankomun garrantzitsu bat testatzeko askatasuna da (eman beharreko dotea, noski, alde batera utzirik). *Conсорores* izenekoak existentziak Hegoaldean “coadjutoras” izenez eta Iparraldean “brañe” edo “braguine” izenez ezagutu izan ziren karguen gogoramena ere badakargu, "laguntzaileen" figuran. Alabaina, diogunez, nahiz eta batez ere agustindarren erregela jarraitzen zuten ordenen artean kontenplaziozko bizitzaz bestelakoa egiten zuten emakumeen presentziak luzaroago iraun zuen, XIII. mendearen hasieratik eta batez ere mende bukaerako aita santuaren *Periculoso* (1298) buldaren helduerarekin -teorian- erlijiozko emakume guztiendako arauzko bihurtu zen klausuraren ezarpenak "freila sekularren" desagerpena ere eragin zuen. Eta desagerpen honen ondorioekiko, ez dezagun ahaztu, mende haietan “freila” bezala izendatzen zirenak ordena militar eta hospitalarioei loturik ez zeudenean (eta komunitateko bizitza beharrean, bakarkako bizitza egiten zutenean), aurrerago aipagai izango dugun ormaratze edo “emparedamiento”-aren fenomenoarekin topo egiten dugula.

Ikusten dugu, bada, XI, XII eta XIII. mendeetan termino honek izan zituen erabilerekin adierazitako bizimoduek eta funtzioek askotan Euskal Herriari Aro Berrian zehar “freira” eta “serora” izenez ezagutu zirenen funtzioekin bat egiten dutela. Terminoen hedapen espazialak, nahiz eta Gipuzkoan eta Bizkaian baino biziraun ez zuela dirudien, kostaldeko eta Gipuzkoa barnekaldetik Donejakue bideek egiten zituzten ibilbideekin nahiko egoki bat egiten zuela dirudi, eta Bizkaian izen hauek aurkitu ahal izan diren kokapenek, eta are Araban Agurain berak ere, bide hauei loturiko espazioekin bat egiten dutela dirudi. Hala ere, ezer sendoki baieztatu ahal izateko, terminoen banaketaren inguruko ikerketak xehetasun gehiagorekin egin beharko lirake¹⁴⁸.

“Freila” terminoak beste arazo batzuetara ere bagaramatza. Hiztegietan XVI. menderako jasotzen diren adibideetan, bereziki Santa Teresa de Jesús-en lanetatik jasotakoetan, “freira” terminoak prozesu ezberdinak iragan zituela nabari liteke. Alde batetik, ez da jada ordena militar eta hospitalarioen baitan soilik erabiltzen. Baina beste aldetik, terminoa ordena militarretan “freila sekularren” funtzioak betetzen zituztenei baino ez zitzaion aplikatzen, korokoentzat “monja” terminoa baino ez erabiliz. Santa Teresak bere ordenako (karmeldarra) priorari idatzi zizkion zenbait eskutitzetan nabari ageri zaigunez, “freilak” erlijiozko emakume txiroak izatera iragan ziren, dote urriak edo batere doterik ez eramanez, “monja” zirenen neskame lanetan ibiltzen zirenak. Egoera sozioekonomikoarekiko, oso argigarria da hautagaiak “monja” bezala beharrean “freila” bezala hautatzeko seinalatzen zen ezaugarrietako bat: “para freila es buena, no sabe leer” (Santa Teresa de Jesús 1862 -1515-1582-, 86)¹⁴⁹. Dagokigun espazioaren

¹⁴⁸ Honi buruzkoak zehatzago IAD (Ikasketa Aurreratuen Diploma) titulua eskuratzeko egin nuen *Seroras en Vasconia: perspectivas* (2008) ikerketa lanean landu nituen, terminoen herrien araberako banaketaren gain. Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba aintzat harturik, "freila" terminoen eta bere barianteen presentzia honako herrietan aurkitu ahal izan nuen orduan: Gipuzkoan: Amezketa, Asteasu, Astigarragan, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Hondarrabian, Getaria, Ikaztegieta, Itziarren, Legazpian, Mutrikun, Oñatin, Soraluzen, Errenterian, Urretxun, Leintz bailara, Zarautzen eta Zumaiari; Bizkaian: Begoñan, Berrizen, Castro Urdialesen (Bizkaia-erikiko lotura historikoengatik zerrenda honetan baitaratu), Lekeition eta Orozkon; Araban: Agurainen. Ikus litekeenez, herri gehienak edo bidean bertan edo bere gertuko eragin eremuan leudeke, zenbait salbuespenekin. Nabariak, agian, Gipuzkoan, lan honetako ikerketa espazio nagusia den Debagoieneko eta Urola inguruko zenbait herrien multzoan aurki ditzakegu (Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Oñati eta Leintz bailara). Alabaina, Donejakue bideak Gipuzkoa osoan izan zuen eragina sakona izan zen, eta terminoa espazio hauetara heldu izanak ez gintuzke harritu beharko. Edozein kasutan, esan bezala, berrespenerako ikerketa sakonagoen beharrean legokeen lanerako hipotesi baten inguruan dihardugu.

¹⁴⁹ Adibidetzat, aipuaren jatorri dugun “Carta a la M. María de San José. Toledo, 13 de octubre de 1576” ikus liteke (86 or.), baina badira bere eskutitzetan tankera honetako beste hainbat "freila"-ren aipamenak

baitan ere badugu Santa Teresari loturiko adibide honen parekorik, nahiz eta kasu honetan, "freila" beharrean, emakume hauek "beata" izena jasotzen zuten (edo behintzat, darabilgun iturriaren arabera, hala dirudien). Oñatin, 1594an Manuel de Zerayn fraile frantziskotarrak aita probintzialaren mandatuz Bidaurretako komentuaren gorabehera ekonomikoen zenbait kontu egin zituztenez, 40 mojekin batera, 3 "beata" eta beste hiru neskame zeuden bertan. Bestalde, Santa Teresaren karmeldarren artean "monja" eta "freila" terminoen banaketak koroko mojak eta bestelakoak (doterik eman gabeak, "sekularrak" edo "lega"-k) ezberdintzeko balio bazuen, Bidaurretan banaketa berbera (koroko dotedunena eta dotegabeena) belu beltza edo belu zuria erabiltzera mugatzen zela dirudi, termino ezberdinez, hau da, "beata" izenez, komunitatearen zerbitzurako eta honengandik kanpo hautematen zirenak baino ez zirelarik izendatzen (Molero; Lanzagorta 2000, 55-56).

Baina Aro Berriko Euskal Herrian "freira" izena jaso zutenek gehienetan ez zeukaten klausuradun komentuekiko dependentziarik, eta ikusten joan garenaren arabera, funtzio sozialei eta egoera ekonomikoari dagokionean, XI, XII eta XIII. mendeetako ordena militar eta hospitalarioetako "freira" zirenekin zerikusi gehiago zeukatela dirudi, Santa Teresaren korrespondentziatik ezagutu izan ditugun XVI. mendeko "freira" haiekin baino.

Termino multzo hauen eta beraien testuinguru historikoaren ikerketak, zenbait hipotesi bata bestearen gain jartzera eramán gaitu. Hipotesi hauek, bestalde, jada zehaztu izan dugun bezala, ez dute elkar baztertzen. Ikerketa terminologikoak, edozein kasutan, mugarri garrantzitsu bat ezartzera eramán gaitu, gertakizun historiko esanguratsu batzuekin bat egiten duena: frantsesaren salbuespenez, auzo-erromantzeetan "ahizpa" eta "erlijiozko emakume" adierak "soror" –eta gutxiagotan "seror"– terminoarekin adieraziak izatetik, lehen adierarako "hermana" eta "germana" terminoak eta bigarrenerako mojen "sor"-erako eboluzioari ekingo zion "soror" terminoa erabiltzera iragan ziren garaia, ggb., XII-XIII mendeak aldera kokatu ahal izango litzatekeena. Banaketa semantiko hau, euskaraz, lehena "ahizpa" terminoarekin adierazirik, bigarrenerako "serora" mailegua erreserbatuz gauzatu zena, euskal hiztunen artean garai berberean gauzatua izatekotan, seroren instituzioaren agerpena, hitzaren maileguarekin batera, erromantzeen sorreraren (VIII-X) eta aldaketa semantikoen (XII-XIII) bitartean kokatu beharko litzateke. Hori, terminua erromantzeetatik jaso izatekotan, noski. Eta hala izatekotan, monasterio bikoitzetan edo/eta familiarretan, edo/eta ordena militar eta hospitalarioen testuinguruan bilatu beharko lirateke seroren instituzioaren aurrekariak.

Beste batzuek sostengatzen duten bezala, terminoa euskarak zuzenean latinetik jaso izango balu, VIII-X mendeak baino lehenagoko garaietara joango ginateke, apezemeen (eta emakumezko apezpikuen), abadesen, eta batez ere, diakonesen, *viduae ecclesiae*-en, anakoreten, eta eremutarren testuingurura. Edo hobe esan, hauek baskoien artean izana zezaketen testuinguru posiblea.

Bestalde, bi hipotesiek daukate serorek gizartearen baitan izan zituzten funtzioen eta instituzioen ezaugarrien parekotasun morfologikoen nolabaiteko bermea. Hemen aurre egin beharrean gauden arazo nagusia, azken finean, euskarak "serora" hitzaren pean batu izan zuten, eta auzo-hizkuntzetan hainbat termino ezberdinen pean adierazi izan ziren bizimodu ezberdinen artean, bizimodu horien hastapen historikoei jarraipena ze puntutaraino egin dakiekeen da. Baina egin dezagun aurrera, ez baitugu oraindik

ere.

euskaraz “serora” terminoak adierazten zituen bizimodu ezberdinen auzo-hizkuntzetako ahaideen errepassoarekin bukatu.

II. 4.3. Izpiritualtasun mendikantearen hedapena eta erlijiozko emakumeak: beguinak, beatak eta bestelakoak

Atal honi ekiterakoan ikerketa terminologikotik kanpo geratzen zaigun emakumezkoen talde erlijioso batzuei erreparatu beharrean gaude, zenbait serorekiko azaltzen dituzten lotura morfologikoak nabariak baitira: Xavier Ignacio de Artech lizentziatuak 1759an ere seroren aurrekari posible lez aipatu zituen beguinak. Orain arte aipagai izan ditugun emakumezkoen talde erlijioso edo instituzioen artean, gehienetan taldeka bizi ohi zirenen artekoak ditugu beguinak, nahiz eta zenbaitetan, bakarkako bizitza ere aukeratu izan zuten, ermita edo hospitaleei atxikiriko etxeetan bizitzen, bakarkako serorak bezala. Baina beraien testuingurua batez ere hiribilduetakoa izan zen, anakoreten edo eremutarren kasu gehienetan ez bezala, eta Europa guztian zehar zabaltzera heldu ziren: Herbeeretan, Alemanian, Frantzian, Italian, nahiz Espainian jaso izan da beraien berri, eta lehen agerpen esanguratsua Europa iparraldeko herrialdeetan egin zuten, XII. mendearen bukaera aldeaz geroztik. Espainiako testuinguruan beguinen eta beaten arteko mugak, muga baino, jarraipen izan ziren, oso antzerako bizimodua zeramaten emakumeei esleitzen zitzaizkien izenak izan baitziren; baina XIII. mendez geroztik Europako hedapenari jarraiki agertzen hasi zirenak “beguina” terminoarekin ezagutu izan zituzten artean, XV. mende ingurutik jada lehenari “beata” terminoa gailendu zitzaion, agian gaztelera eta bestelako erromantzeetan honek hartzen zuen zentzua hiztunei identifikagarriagoa zitzaielako (“zorionsua”, “dohatsua”). Mugimendu hauei buruz, kristautasunaren hastapenetako emakumezkoen instituzio erlijiosoekiko esan dugun berdina baino ezin dugu esan; ikerketak oso ugariak izan dira, eta hemen ardatz nagusi oso orokor batzuk ematera baino ez gara mugatuko, bestela gehiegi luzatuko baikinake.

Boturik egiten ez bazuten ere, kastitatea, obedientzia eta pobrezia praktikatzen zituzten, eta gehienetan kolektiboki bizi izaten ziren etxeetan, asistentzia sozialeko aktibitateak (txiroen eta gaixoen artapena, umeen irakaskuntza, etab.) eta norbere eta besteren sostengurako lanak burutuz (bereziki ehungintzari eta joskintzari loturikoak, baina baita bestelakoak ere), erregela zehatzik jarraitu gabe (hasiera batean, gero hainbat “beata” ordenen obedientziapean erregelak jarraitzen hasiko baitziren) eta beraien ondasunen jabegoa eta administrazioa mantenduz. Era berean, kasu batzuetan elizak eta ospitaleak zaindu eta artatzen zituzten, eta arimen aldeko otoitzegatik egin ohi zitzaizkien hainbat dohaintza ere. Boturik egiten ez zutenek, komunitatea eta bere bizimodua egoki zeritzotenean utzi zezaketen, gehienetan ezkontzeko, nahiz komenturen batean sartzeko asmoa izatekotan gertatu ohi zena. Beguinek eta beatek izan zuten beste ezaugarri nabarmen bat, garatu izan zuten izpiritualtasun mistiko berezia izan zen, kasu askotan arazotara eramanez zituena, Inkisizioaren eta bestelako instituzioen auzitegien aurreko hainbat prozesuri bide emanez¹⁵⁰. Euskal Herriko seroren

¹⁵⁰ Beguinei buruz, ikus: Ruysbroek 1913 -1293-1381- (itzultzailearen sarrera), Bolton 1976, Wade Labarge 1986 (bereziki “Mujeres que rezaban: monjas y beguinas” kap., 131-157), Neel 1989, Stoner 1995, Epyney-Burgard 1996, Galloway 1997 eta Rivera 2005; espezifikoki hauen izpiritualtasunari buruz, ikus: McGinn 1997 -1994- eta Hollywood 2001 -1995-. Beatei buruz orokorrean, eta baita Inkisizioarekin izan zituzten arazoekiko ere, aipaturiko Riveraren argitalpenaz (2005) gain, ikus: Sánchez Ortega 1979, Palacios Alcalde 1988, Miura Andrades 1991, Huerga 1994, Giordano 1999, Núñez 2001, Lavrin; Loreto López 2002, Araya Espinoza 2004 eta Pérez González 2005, 91-137.

kasuan izpiritualtasunaren alorreko hainbesterako fenomenorik izan ez bazen ere, gainontzeko alderdietan parekotasuna nabaria dugu.

Eta beguinetaz dihardugula, ezin ditugu Roslyn Frank-ek beguinen eta seroren arteko loturei buruz esandakoak aipatu gabe utzi. Bere hipotesiaren arabera, "beguine" terminoaren jatorria, Iparraldeko euskararen serora-laguntzaileak izendatzeko erabiltzen ziren "brayine", "braine" eta "braguine" terminoetan legoke, edo hobe esan, izkribauk jasoriko aldaera hauen mintzozko jatorri liratekeen "belhargin", "bedagin" eta "bedegin" terminoetan. Honen arabera, serora-laguntzaileak azken termino hauek adierazten dutena lirateke, "belar + -egin/-egi(n)le", hau da, darabilen Iribarrenen hiztegiaren arabera, "belarrak eta landareak erabiliz gauzak egiten dituen". Hitz hauek, bestalde, Iparraldeko hainbat lekutan sorginak izendatzeko erabili izan zirenak ziren. Honek, emakume sendagile haietariko zenbait kristau esparrutik kanpo mantendu izan ziren artean, beste batzuek, seroren agerpenarekin, kristau testuinguruan serora-laguntzaile lez txertatu zirela esan nahiko luke. Eta baita, Europa iparraldeko "beguinen" izendapenaren atzean, euskal testuinguruan jatorria zuketena emakumezko sendagileak zeudekeela ere. Aurkako hipotesia ere aintzat harturik (hau da, euskal "brayine", etab.ak frantsesezko edo gaztelerazko "beguinen" aldaeretatik -hurrenez hurren, "beguiña" eta "beguine"- eratorria izatearena), euskarazko aldaeren bilakaera fonologikoa zentzuduna ez litzatekeela diosku ("euskal hitzetan /r/ zergatik agertzen den azaldu beharko litzateke"). Halaber, beguinak ikergai izan dituzten adituren batzuek mugimenduaren jatorria Akitanian kokatu izana bere hipotesiaren alde dakar (nahiz eta aditu gehienek lehen hedapen guneak Europa iparraldean kokatu), eta serorak bezalaxe beguinak sendakuntza lanetan ibili izana ere, hipotesia sendotzera letorke (Frank 2001, 85-91). Eta hortaz, diosku,

mugimendu honek Euskal Herrira kristautasuna heldu aurretiko erritu eta egitura sozio-ekonomikoetan du jatorria, hau da, Erdi Aroan eta aurreko mendeetan Europa mendebaldean euskaraz hitz egiten zen lurraldeetan, eta ez gaur egungo Euskal Herriko mugen barruan soilik (*Ibid.*, 89)

Alde batetik, Frank-en hipotesia iradokikorra iruditzen zaidala onartu beharrean nago; izan ere, euskal ikertzaileen ohizko joera baita gutxiagotasun konplexu batek gidaturik, antzekotasun kulturalen aurrean, eragin denek kanpotik Euskal Herrirakoak izan behar zutela pentsatzea, alderantziz, Euskal Herriko gertakizun eta kultur moldeek kanpoko herrietan eragin esanguratsurik izan zezaketela pentsatu beharrean. Heine horretan, ikuspegia alderantzeari positiboa deritzot, posibilitate horiek ere aintzat hartzekoak direla gogorarazteko besterik ez bada ere. Alabaina, hipotesiak ez nau asetzen, ezen beste aldetik, Frank, ziurtzat hartzen dituen ondorioetara errazegi heltzen dela iruditzen baitzait. Lotura etimologiko bat planteatzen du, hipotesizat harturik, filologiaz gain beste ikerketa esparruetako (arkeologia, historia, antropologia) frogek berretsi edo baztertu beharko zuketena; alabaina, lotura etimologikoa azkar asko hartzen du frogatutzat, bai "belhargin"-ekiko, eta bai "beguine"-ekiko ere, eta gainontzeko datuak jada onartutzat hartzen duen oinarri etimologikoaren inguruan biltzen ditu. Hau da, etimologiaren gaineko ikerketak azaltzen dituen aspektuak aintzatesten ditu (batez ere sendakuntza lanak, belarren erabilera eta jakintza hauen oinarri paganoa), balizko lotura honek dituen bestelako arazoei erreparatu gabe.

Lehenik eta behin, hizkuntza ezberdinetako hitzen artean lotura etimologikoak ezartzea posible izateak, ez du halabeharrez izendatzen dituzten elementuen arteko lotura historikoki gauzatu zenik adierazten. Frank-ek euskaratik Frantziako, Espainiako eta Europako beste herrialdeetako hizkuntzetara "belhargin" hitzak eta honen deribatuek "beguine"-ra egina izan zezaketena ibilbidea fonologikoki zentzudunagoa dela, eta lotura

hau semantikaren aldetik defendatzea ere posible dela erakusten digu. Halaber, alderantzizko ibilbidea euskararen fonologiaren arabera zentzugabea litzatekeela ere badiosku. Ziur nago analisi hau filologiaren aldetik erabat zentzuduna eta balizkoa dela, Frank bera, besteren artean, filologoa baita. Baina ez du ohartzen, beste posibilitate bat ere badagoela: ez bata ez bestea gertatu izana. Hau da, "brayine", "braine" edo "braguine"-en jatorriak "belhargin", "bedagin" edo "bedegin"-ekin zerikusirik ez izatea, edo/eta era berean, hauek, "beguine" hitzarekin -eta bere aldaerekin- ere zerikusirik ez izatea. Esan bezala, lotura fonologikoki eta etimologikoki gauzagarria izateak ez baitu historikoki horrela izan zenik frogatzen. Eta hipotesi filologiko batek ezin du froga historikoen ordezkotzat egin. Nire iritziz, gertakizun historikoak analisi etimologiko batetik ondorioztatzea hipotesizat zilegizkoa izanagatik ere, froga historiko erabakiorrik ez agertu artean (esate baterako, "brayine"-ak eta "beguine"-ak elkarrekiko identifikaturik hautemango lituzkeen dokumenturen bat, bi instituzioen arteko harreman zuzenen inguruko frogaren bat, etab.), ondorio horiek ezin dira egia historikotzat hartu.

Noski, Frank-ek seroren eta beraien laguntzaileen eta beguinen instituzioen arteko antzekotasun morfologikoak aipatzen dizkigu, eta arrazoi du, ugari baitziren. Baina seroren eta beraien laguntzaileen hastapenetan bezalaxe beguinen ere, orain arte aipagai izan ditugun erlijiozko emakumeen mugimenduak ere egon zitezkeen (diakonesak, anakoreta eta eremutarrak, Erdi Aro goiztiarreko monasterio bikoitz eta familiarrak, etab.), serorekiko beguinenak besteko antzekotasun morfologikoekin, derrigor azken hauen artean lotura historiko zuzenik izan gabe. Edo beguinak testuinguru historiko berriaren produktu ere izan zitezkeen, ez baitezagun ahaztu, beraien agerpen eta hedapena Europa iparraldeko hiribilduetako testuinguru komertzial burgesen garapenari, eta bereziki ehunen eta arropen komertzioari ere loturik egon zela (eta Iberiar Penintsulako beguinen eta beaten agerpenean ere, gizarte baitako aldakuntza berberak izan zirela presente), hainbat ikertzailek ageriratu izan dutenez. Gainera, orain arte bildu izan diren -edo hobe esan, aurkitu ahal izan ditugun- froga historikoei zurrunki heltzen bagatzaizkie, seroren presentzia dokumentatua ezingo genuke beguinen baina lehenagokotzat hartu; antzerako garaietan kokatu ahal izango genituzke, edo, areago, serorak beranduxeago agertuko litzaizkiguke. Beguinen ikertzaileen artean finkatua dago XII. mendean jada instituzioa bazela (bada lehen aurrekariak X.en mendean kokatu izan dituenik ere), eta ostera, oker ez banago, zalantzarik gabe serorei buruz dihardutela dakigun lehen dokumentuak XIII. mende bukaera eta XIV.enaren hasiera bitartean kokatzen zaizkigu: Frank berak ere jasotzen duena eta jada aipagai izan dugun Domingo de Mans Baionako apezpikuaren 1302ko testamentuko "benoîte"-arena; Baionan bertan eta Nafarroa Garaian kokaturiko XIII. mende bukaerako eta XIV.enaren hasierako "emparedada", "reclusa" eta bestelako izenez aipaturiko beste zenbaitenak; eta ez ditzagun ahaztu, Berceok -XI. mendean bizi izan zen- Santa Oriari buruz "emparedada", "reclusa" eta "seror" izenekin egin zituen XIII. mendeko aipamenak¹⁵¹. Honek ez digu, noski, seroren instituzioa garai haietan sortu izan zenik adierazten, eta ez dakigu hauen hastapenen bila aurreko ze mendetaraino joan ahal izango ginatkeen, ez eta, "belhargin"-ekiko loturak zertan ziren, edo noiz finkatuak izan zitezkeen adierazten. Hau da, honek ez du Frank-en hipotesia baztertzen, frogan beharrean utzi baizik. Alabaina, "belhargin" hitzarekiko lotura etimologikoa ontzat ematen duen momentutik, Frank-ek serora-laguntzaileak jada kristautasunaren aurretiko testuinguru pagano batean kokatzen dizkigu, bestelako frogan beharrik gabe ("belhargin" hitza jada kristautasuna presente zegoen testuinguru batean sortu izatea ezinezkoa balitz bezala, bestalde). Ondorioztapen azkarregia, nire ustez.

¹⁵¹ Ikus II. 3.3. azpiatalean, 98 or., II. 4.2. azpiatalean, 136 eta hurr. or. eta II. 4.4. azpiatalean, 153 or.

Ez naiz hipotesi honen inguruan gehiago luzatuko. Ez zait baztertzekoa iruditzen, bere alde emandako frogak ez baitira zentzugabeak; alabaina, ez zaizkit behar bestekoak iruditzen. Frank-ek bere ondorioak errazegi ateratzen dituela eta urrunegi doala iruditzen zait, eta baita, darabiltzan argumentuen atzetik, serora-laguntzaileen aintzinasuna -eta jatorri paganoa- ziurtzat ematen duen aurreritzi batek gidatzen duela ere; eta hau ere zentzudun izan litezkeen posibilitateen barruan sartuko litzateke, baina haratago joateko bestelako froga erabakiorren beharra legoke.

Euskal Herriko testuingurutik gertuago izan genituen "beata" zirenengana igaroz eta hiztegiekin ekinez, alde batetik euskarazkoen, eta bestetik gaztelarazkoen eta frantsesezkoen artean definizioen inguruko ezberdintasunak hauteman ditzakegu. Ikusi dugu nola, Larramendik gaztelarazko "beata" euskarazko "serora" lez itzultzen zuen. *Diccionario General...*-ak (Mitxelena 1987-2005, 333) ostera, jada termino honen euskarazko erabileraren adiera ezberdinak ematen dizkigu, "beata"¹⁵² terminoa bera lez, eta honen euskaratutako "bieta" bariantean¹⁵³. Hala, gaztelarazko "beata"¹⁵⁴ eta frantsesezko "bigotte" (hau da, gaztelarazko "santurrona")¹⁵⁵ terminoei emandako zentzu peioratiboaz gain, "biyetia" agertzen zaigu Bergaran "serora" esateko modu lez¹⁵⁶, baita "ermitaña" ere¹⁵⁷, Nafarroan "mujer que tiene a su cargo la limpieza y vigilancia de una ermita (Montaña)"¹⁵⁸, eta Araban "además de la persona que acude con frecuencia a la iglesia, recibe este nombre la mujer que se cuida de la limpieza y vigilancia de alguna ermita (Lagrán)"¹⁵⁹. Batez ere Araban eta Nafarroan, hauen funtzioak Euskal Herriko beste lekuetan "serora" ere deitzen zitzaizkion berdintzen zaizkie, eta hiztegiak berak boz honetara bideratzen gaitu.

Gaztelarazko hiztegiek ostera, euskarazkoek ematen dizkigutenekiko erabat baliokideak ez diren definizioak ematen dizkigute. Bi kasuetan "bienaventurada", "dichosa" edo "feliz" den pertsonaren zentzua eta bere aurkako peioratiboa, "santurrona" edo "de falsa devoción" zentzua (frantsesezko "benoîte"-aren zentzu eta eboluzio semantiko berbera) aurkitzen baditugu ere, gaztelaraz eta euskaraz "beata" hitzari emandako ezaugarriek ez dute erabat bat egiten. Covarrubias-ek bere *Tesoro*-an (Covarrubias Horozco 2007 -1611-, 303) "beata" horrela definitzen du: "mujer en hábito religioso, que fuera de la comunidad, en su casa particular, profesa el celibato y vive con recogimiento, ocupándose en oración y obras de caridad". Kuriosoki, jarraian "beaterio" boza ematen digu, nolabait, bere burua kontraesanez: "beaterio, la casa donde se recogen las beatas". Ez al digu ba lehenik, "fuera de la comunidad, en su casa particular" bizi zirenak zirela esan? *Diccionario de autoridades*-ak (R.A.E. 1976 -1727-, 582-583) jada beste ñabardura batzuek gehitzen ditu. Aurrekoari "beata"-k "siguiendo la regla que mas se acomóda à su génio, aunque no en Comunidad" bizi zirela gehitzen dio, baina jarraian zenbait kasu dakartza, arauaren salbuespen izatearen izenean, zeinetan komunitatean bizitzeaz gain, batzuek klausura gordetzera ere heltzen ziren. Jada aipatu dugun zentzu peioratiboa ere badakar, neurri batean, beatek XVI eta XVII. mendeetan aktiboki parte hartu eta gidatu izan zituzten mugimendu heterodoxoen

¹⁵² Iturritzat Silvain POUVREAU (XVII. mendea) y Jean DUVOISIN (1810-1891) aipatzen ditu. Jarraian hiztegietatik jasoriko iturriak, hauetan jaso izan ziren forma berberean aipatuko ditugu.

¹⁵³ Bergaran eta Leintz Gatzagan jasotako aldaera, eta baita Oñatiko hizkeran ere, Cándido IZAGUIRRE-k honako lanean jaso zuenaren arabera: "El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate", in *Anuario del Seminario Julio Urquijo* (1970), 6-248 or.

¹⁵⁴ Iturritzat Silvain POUVREAU (XVII. mendea) y Jean DUVOISIN (1810-1891) aipatzen ditu.

¹⁵⁵ Iturritzat DUVOISIN aipatzen du.

¹⁵⁶ Iturria: GARATE, J.: "Contribución al diccionario vasco", in *RIEV* (1935), 349 or.

¹⁵⁷ 153 oinpeko notan jasoriko IZAGUIRRE-ren lanera bideratzen gaitu.

¹⁵⁸ IRIBARREN, J. M^a: *Vocabulario Navarro*, Ricardo Ollaquindia, Iruña, 1984.

¹⁵⁹ LÓPEZ DE GUEREÑU, G.: "Voces alavesas", in *Euskera* (1958), 173-357 or.

(alunbratuak, iluminatuak) ospe txarrak motibatua zena. *Tesoro de villanos...*-ean (Chamorro 2002, 145), areago, hizkerarik lotsagabeenean “prostituta” zentzua ere hartzen zuela ageri zaigu.

Edonola ere, nahasketa neurri bat, edo flexibilitate neurri bat nabari ageri zaigu, beraien bizimoduari dagokienean. Erlijiozko abituarekin aipatzen zaizkigu beti, zelibatua profesatzen dute eta otoitzean eta karitatezko lanetan jarduten dira. Euskal Herrian izan ziren serora moietaren batzuk ongi egokitzen zaizkio eskema orokor honi. Bereziki, komentuen zerbitzuan jardun izan zutenen kasuan, Oñatiko Bidaurretako “beata” ziren haien kasuan bezala, eta baita hiribilduetan kokaturiko zenbait seroren komunitateren kasuetan ere, aurrerago, Leintz Gatzagan edo Antzuolan aurkituko ditugun komunitateetan ikusi ahal izango dugunez. Baziren, bestalde, etxe edo leinu nagusien zerbitzuan etxe partikularretan bizi ziren serorak ere, edo are, inongo etxe partikularri zerbitzurik eskaini gabe, euren kontu bizi zirenak ere, Bergaran eta Arrasaten aurkitu ahal izan ditugunez. Hauei ere erreparatuko diegu aurrerago¹⁶⁰. Ostera, Euskal Herrian “beata” izenpean ageri zaizkigun bezala “la limpieza y la vigilancia de una ermita” lako lanik ez da gaztelerazko hiztegiatiko “beaten” eginkizunen artean aipatzen, nahiz eta hiztegiatiko definizioez haratago, zenbait lurraldetan funtzio hori ere bete zutela badakigun, eta hala, atal honen hasiera aldera, beguinen eta beaten ezaugarri orokorren berri ematean ere, hauen artean aipagai izan dugun. Ostera, funtzio hauei loturik ageri den termino bat “santera” dugu; eta honek, era berean, batzuetan “mujer del santero” adiera ere hartzen du¹⁶¹. Gero mintzagai izango ditugun “emparedada”-k ere, izan ziren lan horiek betetzen.

Kronologikoki, terminoa garbiki ezberdindurik hautematen zen egoera erlijioso eta sozial baten zentzua XV. mendean hartzen hasi zela dirudi (nahiz eta, lehenago esan bezala, XIII eta XIV. mendeak bitartean erabilera nahasi bat jada ematen zen); *Nuevo tesoro...*-n (Nieto Jiménez; Alvar Ezquerria 2007, 1519-1520) 1490 eta 1721 bitarteko hainbat kasu jasotzen dira, eta *Corpus diacrónico del español*-eko kontsultek kronologia hau berresten digute¹⁶².

Frantsesaren kasuan, *Dictionnaire historique...*-aren (Rey 1994, 199) arabera, terminoak aipatu berri dugun zentzua XVI. mendean zehar hartu zuen, gazteleraren baitan gertatu bezala, XVII. ean zehar, zentzu peioratibo edo ironikora iraganaz joateko. Hala, *Le Grand Robert...*-ak (Robert 1986 -1951-1966-, 905), “heureux, bienheureux” (“dichoso/a”, “bienaventurado/a”) zentzuaz gain, “qui est rabí en Dieu, a ou croit avoir des visions, des extases” zentzua ere hartzen zuela ageri zaigu. Aditzera emana dugu jada, nola alunbratuen eta iluminatuen trantze extatikoek bazuten zentzu honekin zerikusirik.

Aldaera hauek ulertzeko, terminoak bere jatorria izpiritualtasun mendikantean duela ezin dugu ahaztu. Edo hobe esan, XI-XIII mendeak bitartean gorpuztuz joan zen izpiritualtasun berri baten agerpenak izan ziren “beatak” bezalaxe, izpiritualtasun horren eta mugimenduaren katalizatzailetzat egin zuten ordena mendikanteak ere garai hartan eratu zirela. Bonnassie-k ibilbide hau era sintetiko garbi batean azaldu zigun, eta luze xamar jasoko ditugu bere azalpenak, guk ez baikenuke hobeto azalduko:

¹⁶⁰ Batez ere VI. kapitulutik aurrera joango zaizkigu agertzen (443 eta hurr. or.)

¹⁶¹ Terminoa lehen aldiz DICCIONARIO DE LA REAL ACADEMIA-ren 1832ko argitalpenean agertzen da, 675 or.

¹⁶² REAL ACADEMIA ESPAÑOLA: Banco de datos (CORDE) [sarean]. *Corpus diacrónico del español*. /<http://www.rae.es/>.

A partir del año Mil aproximadamente, el escandaloso abismo que existía entre la opulencia del alto clero y el desamparo del "pequeño pueblo" fue piedra de escándalo para muchos cristianos. Nació entonces una corriente de protesta que la emprendió violentamente contra la jerarquía eclesiástica, al tiempo que, como reacción, celebraba con estrépito las virtudes de la indigencia. El pobre (especialmente aquel pobre entre pobres que era el mendigo) se convirtió en elegido de Dios, en la imagen viva de Cristo, quien voluntariamente había querido encarnarse en una naturaleza pobre. Los predicadores errantes que enseñaban eso mientras ellos mismos practicaban la mendicidad, suscitando el entusiasmo de numerosos discípulos, serían fustigados durante mucho tiempo como herejes: por ejemplo, Pedro de Bruis, Enrique de Lausana, Pedro Valdès o, a finales del siglo XII, los primeros perfectos cátaros. Con todo, esa corriente acabaría por instalarse en el mismo corazón de la Iglesia dando lugar, a comienzos del siglo XIII, a la fundación de las órdenes mendicantes.

Esta fundación supuso un ruptura profunda con la tradición monástica anterior. Los mendicantes rechazaban todos los compromisos -por no decir todas las componendas- que la historia había hecho contraer al movimiento monástico. Del monacato tradicional sólo conservaron su espíritu (caridad, penitencia, humildad) y la práctica de un tipo de vida comunitario. Por lo demás, la creación de las órdenes mendicantes respondía, de la manera más apropiada posible, a las nuevas necesidades surgidas de la evolución material y mental de las sociedades occidentales: eran órdenes con vocación específicamente urbana, profundamente implantadas en el medio laico englobante y abocadas prioritariamente a la predicación. [...] Dominicas y Clarisas fueron las ramas femeninas de las dos grandes órdenes mendicantes, sin perjuicio de que una Orden Tercera franciscana reagrupase a los laicos deseosos de juntarse en comunidades piadosas e imitar al Pobre de Asís. Por fin, otras dos órdenes, los Carmelitas en 1247 y los Ermitaños de san Agustín en 1256, vinieron a completar la familia de los mendicantes (Bonnassie 1988 -1983-, 152-153)

Ordena mendikanteen hastapenen testuingurua dugu "beata" terminoaren agerpen eta hedapenarena ere; nahiz eta beti hala ez izan, "beata" izenez aipaturik ageri zaizkigun emakumeen parte esanguratsu bat 3. ordenetan integratu zen, bereziki frantziskotarrenean. Azken finean, frantziskotarren 3. ordena gertakizun sozial ekidinezin eta geldiezin bat ofizialtasunaren moldeetara eramateko bidea baino ez zen izan, lehenik bizimodu aszetikoaren eta txirotasunaren ereduak liluraturiko debotuak, euren artean "beatak", bere baitara erakarri zituena, eta ondoren, mugimendu horietatik sorturiko komunitateak patroï monastiko "tradizionaletara" bideratzeko instrumentu bilakatu zena.

Honekiko, interesgarria dugu erlijiotasun laikoaren testuinguruko emakumeen ugaritzeak, 3. ordenen hedapenak eta klausuraren inguruko legediak agertzen dizkiguten korrespondentzia kronologikoak. Izan ere, San Frantziskoren 1212ko frantziskotarren 3. ordenaren fundazioa, ordena zaharretako (funtsean, tradizio beneditarrekoak, agustindarrak eta ordena militar eta hospitalarioak) erlijiozko emakumeen testuinguruan batzuk profesioa egin eta klausura gordetzera eta besteak, asoziatu laikotzat hartzen zirenak (nahiz eta bi egoeren arteko ezberdintasunak, praktikan, hain garbiak ez ziren), desagerrarazi nahi izan ziren prozesua gauzatu zen eta halaber, beguinen agerpen eta hedapen garaian (XI-XIII mendeak) eman zen, eta XIII. mendearen bukaeran bertan eman zen *aita santuaren klausura*-ren lehen agindua, Bonifazio VII.ren *Periculoso* buldan (1298). Eta halatsu, zenbait mende beranduago gertakizunen antzerako sekuentzia bat atzeman liteke, frantziskotarrez besteko ordenetan 3. ordenak fundatu zituztenean: XV-XVI mendeak bitartean domingotarren (1406), agustindarren (1409), serviten (1429), karmeldarren (1452) eta minimoen (1509) ordenek egin zituzten laikoz osaturiko 3. ordenen fundazioak; Penintsula Iberikoan behinik behin, beguinen eta beaten agerpen eta hedapenaren garaia izan zen aurretik (XIII-XV mendeak), eta

ondoren, erlijiozko emakume guztiendako klausura berriro agindu zuen Trentoko Kontzilioaren XXV. bilkura (1563) eta bertan agindurikoaren aplikazio garaia helduko ziren (XVI. bukaera-XVII mendeak), eta baita, esanguratsuki, beaten testuinguruan eman ziren heresia mistikoen aurkako jazarpenak ere (*ilusa* eta *alumburada* bezala ezagutu zirenak). Bitarte hartan, gainera, beaten bizimoduaren ereduak lantzen zituzten obrak ere idatzi ziren, hauek ibilbide onargarrietara eramateko asmoz¹⁶³. Parametro hauetan kokaturik edo bestelako formetan, edozein kasutan, laikoen eta ordena mendikanteen arteko moeta eta gradu ezberdinetako erlazioak ohizkoak izan ziren Erdi Aro guztian zehar, eta baita Aro Berrian zehar ere¹⁶⁴.

Ordena mendikanteetako 3. ordenen sorkuntza, bestalde, hiribilduen sorrerari eta urbanizazioaren hedapenari lotua egon zen; prozesu hau Euskal Herriko lurretan garai eta intentsitate ezberdinekin eman zen printzipalki XI-XIV mendeak bitartean, baina bertako botere egituren eta hauetan eliza propioen edo partikularren errejimenak zeukan garrantziaren eraginez ordenen hedapenerako erresistentzia handia izan zela dirudi, eta hala, ordena mendikantei dagokienean, hauen "beaterio" edo seroretxeak XIV-XV mendeak arte oso urriak izan ziren; XVI. mendearen hasieratan ere serorarik gehienak, hauen bizimodua komunitarioa izan edo ez, ordenekiko loturarik gabekoak ziren:

La inmensa mayoría de los beaterios a comienzos del siglo XVI en nuestro País no estan adscritos a ninguna orden religiosa; había alguno, testigos de otras épocas, dependiente de Ordenes hospitalarias, y, como veremos a continuación, existían además algunos beaterios -muy pocos- dependientes de las Ordenes mendicantes, pero eran los menos. Cuando verdaderamente van a adherirse en gran número, a las Ordenes -especialmente a éstas- va a ser durante el siglo XVI. Y será, por fin, a partir del Concilio de Trento cuando el mapa religioso femenino va a cambiar su faz definitivamente, cambio que guarda muy estrecha relación con la legislación de la clausura (Arana 1992, 114)

Trentoko Kontzilioaren eragina, eta berarekin klausuraren ezarpena, ez ziren Euskal Herrira XVI. mendearen bukaera eta batez ere XVII. enaren hasierararte helduko, eta garai hartan kokatzen zaizkigu erlijiozko emakumeen testuingurua ildo ofizialetara moldatzeko saiakerarik esanguratsuenak: funtsean, ordenei loturiko seroretxeen gaineko klausuraren inposizioa, eta bestelako seroren aurkako neurriak eta desagerrarazte aginduak¹⁶⁵.

Eta testuinguru hartan idatzi ziren, halaber, 3. ordenako izateak zertan zetzan azaldu izan zuten lehen euskarazko idatziak ere; euren artean, ondorengo azalpenen gida izango dugun Joanes Haranbururen *Debozino eskuarra* (1635). Lan honetan aipagai izango ditugun hainbat serora ordena honetako partaide ziren, bereziki -baina ez bakarrik- hiribilduetako testuinguruan mugitzen zirenak, eta hargatik, komenigarria zaigu ordena honetako partaide izateak zer esan nahi zuen argitzea. Haranburuk bere "debozino" liburuari idatzi zion hirugarren partean, frantziskotarren 3. ordenakoen ingurukoak azaldu zituen; "Aita san Franzes"-ek fundaturiko hiru ordenen berri emanez ekin zion: "gu fraide menorak, santa Klarako serorak eta penitenziako debotak". Ohar litekeenez, terminoen erabileran Haranburuk "serorak" 2. ordenakoak zirela hauteman zuen, 3. ordenakoak aldiz, "penitenziako debotak" bezala izendatuz. Liburuaren

¹⁶³ Klausurerekikoetarako ikus Arana 1992, 76-84; eta Piquer 1996, 139-153. 3. ordenen fundazioen inguruan berriz, Martínez Ruiz 1998, 255-256. Beaten bizimoduaren eredu emanaz idatzi zen obretariko bat Pérez de Valdiviarena dugu (1585).

¹⁶⁴ Honekiko, Bouter 1996 kontsulta liteke, erlijiozko ordenetako laikoen partehartzeari eskainitako obra kolektiboa.

¹⁶⁵ Ikus honen ingurukoak III. 1. atalean, 169 eta hurr. or.

hirugarren parte eskaintzen dien azken hauek baina, gorago azaldu dugunez¹⁶⁶, mojek bezalaxe "serora" izena jaso izan zuten euskaraz, gazteleraz berriz, "beata" izena jaso zutenak.

Haranburuk, ordenaren jatorriaren inguruko sarrerako azalpenen batzuen ondoren, bertan sartu nahi zutenek izan beharreko betekizunak eta sarreraren gorabeherak azaldu zizkigun:

Ordena hunetan errezibitu baino lehen errezibitzeko kargua duena informatuko da ordenan sarthu nahi denaren kondizinoaz, ethorkia, estatuaz eta kalitateaz, ordenako legeak eta obligazioak deklaritzen derozkala. Aldez edo moldez errezibituko den baino lehen zorrak eta munduko tratuak kontenta bitza guziekin baketzera enseiatzen dela. [...] Errizibitze hau eskiribuz hartuko da. Ordena hunetarik ezin athera daitezke berze ordena digneago batetan ez sarzekotz: guziak gatik ilkitzen lizena ez lizateke sakrilego. Emazte ezkonduak errezibituko den baino lehen kongia bere senharra ganik izan behar du (Haranburu 1635, 101-102)

Parrokietako eta ermitetako seroratzetarako sarrerarekin askotan egin ohi zen bezala, hautagaiaren bizitza egokiaren inguruko informazioa bildu beharra zegoen, eta ordenarako sarrera ere idatziz jasotzen zen; aipagarria dugu, halaber, ordena laikoek osatua izanik, "Emazte ezkonduak" ere onartzen zirela, beti ere, senarraren baimenarekin.

Frantziskotarren 3. ordenako profesio formula hauetariko euskarazko adibide bat Durangoko serora edo beatena dugu. 1439-1610 bitartean izan zen komunitatea, eta gorde den profesio formula, 1521 baino lehenagokoa da. Ez zen baina, ez euskarazko bertsioan ez honekin batera gordetako gaztelerazkoan ere, aipagai ditugun terminoen erabilerarik egin. Hona euskarazko bertsioa:

Ni N. neure borodate gustirean voto egitedot eta promitietadot / Jaingoicoari eta Andradone M(aria) virgineari eta Sat Fra(nci)scuari eta / cerucu sanctu eta sancta custiaj ta çuri aita goardaetaco erreguela / tercera Sat Fraciscuare ordeacoa penitenciacoa ayta sanctu Nicolao / laugarrenare emona eta otorgadua eta ayta satu sist lau / garrenare aprobadua ta cofirmadua, biçi izaiteco obedeçian / eta pobreçan eta castidadean. /

Au guardadu badaguiçu, nic prometieta deusut gure Jaunare / rregnuu (Estornés Zubizarreta 1984, 58)

Ordena "penitenciacoa" zela nabaria zaigu; ez zaigu baina Haranbururen "serora" eta "debota"-ren ezberdinketaren zantzurik ageri. Eta gaztelerazko bertsioan, diogunez, beste hainbeste: "regla tercera de Sat Fr(ancisco) de los hermanos y hermanas, de la penitencia" da azaltzen zaiguna, baina "beata"-rik aipatu gabe (*Ibid.*, 57).

Itzul gaitzen baina Haranbururen azalpenetara; abituak "ez guzia belxa, ez guzia xuria, baina hauts kolorea duena" behar zuen izan, eta hau ez erabiltzeko baimena jaso zitekeen "bizitadorek, superioiek eta kargudunek" ontzat emanaz gero; hala izatekotan, edonola ere, janzkerak diskretua behar zuen izan: "Kalitate handiko presunak ere dispentsatuak izanagatik bere beztiduretan eztute eman behar kuriositaterik, banaloriarik eta handirasunik dela prezioaz, iostesariaz edo koloreaz" (Haranburu 1635, 101-102). Bizimoduak ere, noski, erlijiosoki egokia behar zuen izan, "Komediarik, danzarik, gonbidu desonestetarik eta berze dosteta debekatuetarik" aldenduz, zehazturiko hainbat barau mantenduz, eta gutxienez, "Eguberriz, bazkoz eta mendekostez" konfesatuz. Konfesio hau, laikoiei zegokienez, herriko apezek jasoko zuten (hauek halabeharrez 3. ordenakoak edo frantziskotarrak izan beharrik gabe).

¹⁶⁶ Ikus II. 3.3. azpiatala, 97 eta hurr. or.

Otoitzei zegokienean, gorago aipatu bezala, "Ordena sakraturik eztutenak" Birjinaren ofizioa eta "orduak" ("Matutinak, laudeak, Prima, Terzia, Sexta, Nona, Bezperak eta Konpletak") jarraitu beharrekoak ziren (*Ibid.*, 102-103)¹⁶⁷.

Bestelako ordenetan ez bezala, 3. ordenakoek, laiko izaera zela eta, autonomia ekonomikoa mantentzen zuten, "Iuramentu solemnea" egitea baimentzen zitzairen kasuen azalpenek aditzera ematen digutenez: "bakea gatik, fedea mantenitzea gatik, kalumnia ilkhitzea gatik, lekhuko egiaren izaitea gatik, nola sal-erosi hartu-emanetako kontratuetan, edo zenbait premia handiak gatik egin dezakete" (*Ibid.*, 104). Halatsu, ezen "Bertze ordenak obligazinozkoak dira, baina hau debozinozkoa da", 2. ordenetan ez bezala, bazuten etxe pribatuetan bizitzerik, komentuetan beharrean: "berzeak bere konbentuak beregainki dituztela dira: baina hau nor bere etxean egoiten dela badate" (*Ibid.*, 106). Covarrubias-en *Tesoro...*-ko (1610) "beata" eta "beaterio" bozen itxurazko kontraesanak ulergarri egiten dizkigu honek, bakarrik bizitzea posibilitate bezala aipatzen zaigunez, komunitatean bizitzeko aukera ere zabalik mantentzen baita.

Eta baziren bizimoduaz, mezez, hiletez eta otoitzez beste, izaera komunitariozko bestelako ardurak ere:

Eliza hartan konpainiako anai bat ezpa arreba bat ordenatua izanen da nihork emanen dioen limosna errezibitzera, eta diru bilduko den hau enplegatuko da parte ordena hunetako pobreak sokorritzea gatik, parte defuntu beharrak ehorztea gatik, edo zertako buruzaguak ordenatuko baitu hartako (*Ibid.*, 104)

Izango ziren, hortaz, 3. ordenako serorak ere, ordenakoen limosna-biltze eta diruen banatze lanetan. Praktika komunitarioez beste, baina, ordenakoak laiko ziren, eta halakoak zituzten izaera juridikoa eta eliz-komunitatekoa:

Ordena hunetakoak hainitz perdunanza irabazia gatik eztira eklesiastiko. Bazkoak erretorek herrian kofesatzen direla harraraz diatzeke. Ipizpikuk ta iuge sekularrek badute ordena hunetako gainean bothere ordenako ezpalire bezala, baldin berzenaz berzela berengaineko berezkuñik ezpadute (*Ibid.*, 107)

Ordenaren izaera laikoa beste hainbat puntutan ere azpimarratu izan zuen Haranburuk. Ordenako botua "debozino kontseillatu bat bere konzienziako pausu ona bilhatzea gatik eta Iainkoaren zerbitzuan bidezkiago bizitzea gatik" egina izaten zela zioskun, eta "sudurra baino arrazoina laburragoa" zuten batzuen esanak, 3. ordenako "botua dela kausa, botua ez konplitzea dala bekhatu egitea" ziotenenak, zuzendu beharrean izan zen:

Baldin botua dela erran nahi baduzu, botua da analogiaz, eta hala berze botu guztiek obligatzen dute hunek ez; zeren eta gure Aita san Franzesek bera konbertitu zenetik hamalaurgarren urthean inspirazione sainduz obligazinorik gabe fundatu baitzuen eta zeren adimendu eskas batzuez berzerik ezpaita kontrariatzen ordena saindu hunetako erregela iustuen kontra (*Loc. cit.*)

Eta botuaren izaera hargatik, hain zuzen ere,

Berze ordenakoek bere manamenduak egiratuko dituztelako otuaren azpian mengoaz kanpoan ez begiratzea bekhatu mortal egiten dute: baina ordena hunetakoek bere botua ez konplitu gatik eztute bekhatu batere (*Ibid.*, 106)

Interes bereziarekin azpimarratu izan zuen Haranburuk alderdi hau liburuan ordenari eskaini zion atalean zehar, ordenako erregelak betetzen ez zituenak bekatu

¹⁶⁷ Otoitz hauen euskarazko ereduak, gorago azaldu bezala, ondorengo argitalpenetan eman ziren, Sarako bikario eta predikatzailer izan zen Kristobal Harizmendiren *Virginaren Officio* (1658) eta Ziburun postu berberetan zegoen Pierre Argaiñaraten *Deboten Breviario* (1665).

mortalik egiten ez zuela behin baino gehiagotan azpimarratuz. Borondate oneko jende xumearen eskuera errazean zegoen botua zela aditzera eman nahia nabari dakiok, jarraibide zurrunegiek estutzen ez zuten baina hala ere deboziozkoa eta "perdunanza" askoduna zen bizimodu bat irudikatuz. Ordenaren izaera laikoak eta botuaren berezitasunek ez zuten, gainera, beste ordenetakoak 3. ordenako ere egin zitezenik galerazten: "Berze ordenak zein bere ordenaz kontentatu behar dira, baina guziek abitu haur har dezakete, eta da tunika bat bere gerrikoarekin" (*Ibid.*, 107). Eta debotuen arimen "perdunanzez" jardutean dioskunez, azkenik, ordenakoek ez zituzten, 2. ordenako beharrean 3.eko izateagatik, abantaila gutxiago izaten, ezen "Erregela generala"-ren arabera: "heren ordenako anaiek eta arrebek badutela perdunanzetan, garazietan eta faboretan fraide minorek bezanbat pribilegio eta parte; Inozenziok 8. eta Leonek 10. Laterango konzilioan" (*Ibid.*, 108).

Haranburuk 1635ean azaldu zizkigun ordenakoen ezaugarri hauei erreparatuz, bada, ez da ulertzen zaila egiten serora askok 3. ordenako abitua eraman izana, bere "botu" bereziarekin, izaera laikoa mantenduz eta etxe partikularretan bizi izanez (hauek propioak edo zerbitzatzun zuten familiaren batekoak izan). Ordenako inongo arauak ez zuten galerazten, gainera, parroketako, ermitetako, santutegietako, edo familia partikularren zerbitzuko seroren eginkizunetan jardutea; ez eta hartara behartzen ere noski, eta izan ziren espazio hauez kanpo, euren kontu bizi izan ziren serorak ere. Flexibilitate honek ahalbidetzen zuen, aurreko garaietatik helduriko seroratzen kargu, 3. ordenako serorek ala "beatek" hartzea, eta termino horren pean, bizimodu ezberdinen espektro zabal bat batu izana. Baina halaber, eta nahiz eta espazioren batzuetan landuriko ohituren arabera lehentasuna izatera iritsi zirela dirudien, ez zegoen halabeharrez 3. ordenako partaide izan beharrik ere, tenpluren baten edo familiaren baten zerbitzuan serora izateko. Ikusiko dugu aurrerago seroren arteko zenbatek, seroratzara sartzerakoan eta ondoren, 3. ordenako abituak izan zituzten¹⁶⁸.

Azkenik, "beata" izendapena jaso zuten emakumeak bezalaxe, Erreforma eta Kontraerreformaren testuinguruan agertu ziren beste emakume batzuei ere leku egin beharrean gaude, besteak beste, garai hartako gizartean diakonesen gogoramena oraindik ere gordetzen zela erakusten baitigute: dokumentu ofizialetan "birjina izpiritualak" (*geestelijke maagden*) eta hizkera herrikoiean "kloppen" bezala ("irenduak" bezala interpretatu izan dena) ezagutu zirenak. Emakume hauek Holanda iparraldeko katolikoaren artean agertu ziren, eta protestanteen aurkako ebanjelizazio ikamiketara oso inplikaturik egon ziren:

Tenían una cantidad de características comunes a las semirreligiosas del resto de Europa. Vivían como laicas, solas o en grupo, en familia o por separado, a menudo unidas, en calidad de terciarias, a órdenes mendicantes, especialmente a los franciscanos, pero a veces también a los jesuitas y al clero secular, lo que daba lugar a muchas tensiones en el seno de éste último (Schultz van Kessel 2006-1990-, 218)

Aro Berrian zehar Euskal Herrian bizi izan ziren serora moeta ezberdinekiko parekotasunak nabariak zaizkigu, baita -aipatu berri ditugun- ordenekiko (frantziskotarrak eta jesuitak) eta apezekiko erlazioen izaera orokorrean ere. Beraien aktibitateak oso eraginkorrak izan ziren, protestanteak neurriak hartzera behartuz:

Sus actividades dependían mucho de las circunstancias. Consistían sobre todo en atender iglesias clandestinas, en dar albergue y asistencia a los sacerdotes que ejercían clandestinamente, en socorrer a los necesitados y enfermos y a enseñar el catecismo. Pero muy pronto se dijo que, a menudo, hacían uso excesivo de la palabra,

¹⁶⁸ Honen berri, beste leku batzuek gain, Debagoieneko herri eta tenplu ezberdinetako seroratzen ezaugarriak aztertzean emango dugu, IV. kap., 287 eta hurr. or.

de tal modo que se hacían reas de predicación y evangelización; en resumen, que se mezclaban demasiado en cuestiones pastorales. Y tuvieron tanto éxito en todo esto que a mediados del siglo XVII las autoridades calvinistas se movilizaron contra ellas, lo cual se realizó en forma de acusaciones que apenas se distinguían del chismorreos de los medios católicos. Las *kloppen* -se decía- eran autoritarias e insolentes, producían escándalo con su comportamiento de franca independencia, como el de desplazarse sin compañía. Tenían relaciones inusuales con sacerdotes, que las despojaban no sólo de su honor, sino también de sus bienes (*Loc. cit.*)

Bizi izan zuten egoeragatik predikazioak aktibitate salagarritzat pisu berezia bazeukan ere, bestelakoetan aktibitateek eta beraien aurka harturiko neurriek antzekotasun handiak dauzkate seroren aurka garai berberean hartu zirenekin, eta hau oso garrantzitsua dugu. Gainera, esan dugun bezala, "kloppen"-ak beste arrazoi bategatik ere baditugu garrantzitsu: diakonesen gogoramena gorde izan zela agertzen digutelako. Izan ere, azkenean ez protestanteen artetik soilik, baizik baita katolikoen artetik ere, beraien aurkako neurriak hartu baziren ere, aldeko zituzten apezek "comparaban con orgullo a sus colaboradoras con las vírgenes y diaconisas protocristianas, pilares del cristianismo perseguido". Baina aldekoak ez ziren behar besteko indartsu, eta instituzio katolikoen aldetik mesfidantzaz hartu izan zituzten, Penintsula Iberikoan eta beste lekuetan "beata" bezala ezagutu zirenen aurka ere izan ziren -kietismo eta alumbradismo- akusazioen antzerakoak egin zitzaizkielarik :

Entre los católicos se agregaba una acusación muy grave: las vírgenes espirituales eran proclives a una devoción excesiva, a las ideas heréticas y al falso misticismo. Tuvieron que refrenar su pasión por la lectura y limitar ésta a las obras edificantes que les proporcionaban su guías espirituales. Católicos y protestantes coincidieron en un punto: en materia de fe y de actividad pastoral, permitir la colaboración entre hombres y mujeres era jugar con fuego (*Ibid.*, 219)

Protestanteen medioetan nolabait kontrolatu beharreko inbasio kaltegarritzat bezala irudikatzen bazituzten, katolikoen agintarien artean "kloppen"-en ebanjelizazio aurrerapenek ez zuten behar besteko konbentzimendurik sortu, hain prezeski ere, instrukzio handiegia izaten eta irakasten eta predikatzen hasiak ziren erlijiozko emakume haiek, itxuraz, kasik protestanteena baino meatxu handiagotzat zeuzkatelako. Azkenean, euren buruak Antzinateko diakonesek bizi izan zuten jazarpenezko testuinguruaren egoera analogo batean ikusi nahi izan zituzten "kloppen" haiek, bi aldeek gaitzetsiak izan ziren. Eta guzti hau Europan zehar "iluminatuak" eta Penintsula Iberikoan -hainbat "beata" jarraitzaile izan zituen- "alumbratuak" izan ziren garaiaren jarraipenean heldu zen, hain prezeski ere -eta aurrerago ikusiko dugunez-, seroren desagerrarazterako lehen saiakera eraginkorra egin zen antzerako garaietan, XVII. mendearen hasieratik erdialderako ggb.ko tartean.

II. 4.4. "Mundutik aldentzearen" iraunkortasuna: *emparedada* eta *recluse*-ak

"Emparedamiento" edo "hormaratzearen" fenomenoari dagokionez, printzipioz, Euskal Herriko serorek zeramaten bizimoduarekiko nahiko urruna dirudi, hain prezeski ere, hauen ezaugarrietariko bat gizarte-bizitzan zeukaten partehartze aktiboa baita, zeina "hormaratzearen" edo itxituren sartzearen erabat aurkakoa den. Baina itxiturepeko bizitza, berez, ez zen beti hain zurruna izan (batez ere Behe Erdi Aroan), batzuetan, ezkontzeko asmotan itxituretik irtetzeko kasuak ematerainoko nasaitasuna izatera iritxiz. Baina bizimodu honen alderdirik interesgarriena "reclusa" (gaztelera) eta "recluse" (frantsesa) terminoen euren eboluzio semantikoak agertzen digu, "recluire" aditza, "irekitzea" zentzutik "istea" zentzura iragan baitzen. Gaztelera, "emparedada"

terminoa mundutik banatzen zituen “pareta”ri loturik sortu zen, frantsesez “emmurées” ere baderitzen bezala. Baina termino hauek ez zituzten “reclusa” eta “recluse” terminoak baztertu, guztiak Erdi Aroan zehar erabiliak izan baitziren. Hego Euskal Herrian Nafarroa Garaian baino ez ditugu hauen adibideak aurkitzen, XIII-XIV mendeetatik ekinda, non beste zenbait terminorekin batera, "reclusa" eta "emparedada" terminoekin ere ezagutuak izan ziren: Teobaldo II Nafarroako erregearen 1270eko testamentuko "emparedados e emparedadas"-en aldeko dohaintzarena; Orizeko Semen Garceiz zaldunak 1284an "a las reclusas de la Quenqua", "a los fratres e serores de Belat", monasterioetako "dueynnas"-ei, "a los fratres e a las serores de Çiçurr" eta Bargotako serorei egindako dohaintzarena (Goñi Gaztambide 1965, 77); Miguel Garcéiz de Galzáin Lekarozeko abadeak 1319an "a todos los reclusos y reclusas de Pamplona" egin zien dohaintzarena (Jimeno Jurío 1997, 67-68). Adibide hauetan serora moeta ezberdinak ageri zaizkigu, eta agian, "serora" eta "emparedada" nahiz "reclusa" izena jaso zuten emakumeak instituzio ezberdinen parte izan zitezkeela pentsa liteke; eta litekeena da hautemapen ezberdintasunak egotea, baina euskarazko erabilerarekiko, Jimeno Juríoren Artaxoako XVI. mendearen lehen erdialdeko “monjas emparedadas”-ei buruzko ikerketatik badakigu, hauek euskaraz “serore” izena jasotzen zutela (*Ibid.*, 73).

Covarrubias-ek jada Valentziako “emparedada”-k aipatu izan zituen, “cuyo aposento está incorporado con algunas iglesias parroquiales, metiéndose allí mujeres que de todo punto se quieren apartar de los ruidos del siglo”. Baina “emparedamiento”-aren zentzu nagusia “un género de prisión y castigo severo”-arena da, normalean, borondatezkoa baino, derrigortua izan ohi zena (Covarrubias Horozco 2007 -1611-, 765)¹⁶⁹. Halatsu jasotzen du *Diccionario de autoridades*-ak ere (R.A.E. 1976 -1727-, 406), baina “emparedamiento”-aren beste definizio bat ere emanaz: “Se suele llamar también la clausúra y recogimiento de los Monasterios, principalmente de mugéres, por vivir siempre encerradas”. Halaber, “emparedado, da” bozerako ematen dizkigun adibideen artean, honakoa irakur liteke: “Como son Monjas, Beatas emparedadas”¹⁷⁰. Hau da, bakarkako “emparedada” zirena bezala, mojen euren itxiturako bizimodua ere “emparedamiento” lez hautematen zen. Baina “emparedada”-k ez ziren mojak, eurena beste bizimodu bat baitzen, bakartiagoa, eta "ormaritzen" ziren eliza edo ermitari lotua.

Diccionario medieval...-ak (Alonso 1986, 995) zentzu berberak jasotzen ditu, XIII. eta XV. mendeen bitarteko adibideak emanaz, eta bertan, “serora” eta “freira” terminuak ere erabili zituen Berceorekin egiten dugu berriro topo (*Poema de Santa Oria, Vida de Santo Domingo de Silos*). *Glosarios latino-españoles*...-eko¹⁷¹ adibide bat ere jasotzen du, non “emparedada”, “anacoreta” (c. 1400) terminoaren baliokidetzat hartzen den.

Frantsesez “reclus, use” terminoa, ez jada adjektibo soil lez (X-XII mendeak bitartean), baizik eta sustantibo lez XIII. mendean agertzen zaigu, *Le Grand Robert*...-ak ematen dizkigun adibideen arabera (Robert 1986 -1951-1966-, 100). Moreau-k, Webster-engandik goraxeago jaso dugun "Benedictae"-aren 1302ko kasua mintzagai duela, hau “emmurée de Dieu” bat bailitzan aipatzearekin bat, Kapituluaren (aurretik aipaturiko Baionako katedralekoa izango zela suposatzen dugu, ez baitzuen zehaztu) eta

¹⁶⁹ “Emparedar” boza.

¹⁷⁰ Adibideen jatorria: El Comendador Griego (Hernán NUÑEZ): *Glosa sobre las trezientas (de Juan de Mena)*, 1499, eta QUEVEDO, zeinaren lana “Mus.” laburdurarekin aipatzen den. *Las tres Musas últimas castellanas* (Pedro Alderete, 1670) lana izan behar du, ala bestela, *El Parnaso español, monte en dos cumbres dividido, con las nueve Musas* (J.A. González de Salas, 1648).

¹⁷¹ CASTRO, A. (arg.): *Glosarios latino-españoles de la Edad Media*, Madrid, 1936.

Domingotarren arteko 1317ko eztabaidetan "la Recluse de Saint-André"-ren kontua ere presente zegoela diosku (Moreau 1970, 149). Garai goiztiar haietatik ematen zitzairen "recluse" izena beraz, ondoren euskaraz "serora" bezala agertuko zaizkigun haiei. Ez ditzagun ahaztu, halaber, "benedictae" terminoaren erabilerari buruz goraxeago jardun garenean azaldu ditugun Ingalaterrako zistertarren testuinguruan idatziriko emakumezko eremutar edo anakoretendako erregelak ere, hauek eta beraien latinerako eta frantseserako itzulpenak ere, Nafarroa Garaian eta Iparraldean behintzat "emparedada", "reclusa", "recluse" edo "emmurée de Dieu" terminoekin aipatu zirenen garai berebean kokatzen baitzaizkigu, XIII-XIV mendeetan¹⁷². Azkenik, *Dictionnaire historique...*-ak (Rey 1986, 1732) atal honen hasieran aipatu dugun terminoaren eboluzio –edo hobe esan, alderanzketa– semantikoaren berri ematen digu, zeina Tertulianok (II-III mendeak) emandako interpretazio semantiko baten ondoriozko garapena litzatekeen.

Baina hara non, Gregoria Caverok dioskunez, Erdi Aroko lehen glosario hispaniarretan "recludo" hitzari oraindik aipaturiko bikoiztasun semantikoa esleitzen zitzaion. Baieztapen hau Madrileko Liburutegi Nazionaleko 46 zenbakidun kodizean oinarritzen du; X. mendeko donemiliagako kodize bat da, zeina Penintsula Iberikoko lehen hiztegi entziklopedikotzat hartzen den. Egiten duen analisiaren arabera "recludo" hitzaren hiru sarrerek "zabaldu"/"itxi" bikoiztasuna mantenduko lukete, baina "en ningún caso se hace alusión a la reclusión religiosa que en el mundo medieval termina ciñéndose al significado de aislado, encerrado, solitario" (Cavero Domínguez 2006, 114-115).

"Emparedada" eta "reclusa" zirenen erabateko itxituraren inguruko zalantzak areagotu baino ez dira egiten beraien bizimoduari gertuagoko begirada bat ematean, eta Euskal Herriko serorekin hasiera batean uste izan zitekeena baino antzekotasun gehiago zituztela ikusten dugu. Bestalde, Espainian, "emparedada" eta "beata" zirenen arteko mugak ere oso lausoak ziren. Egin izan diren ikerketek aditzera ematen digutenez, "emparedamiento"-a ezkontzeko asmoz utzi zuten emakumeen kasuak izan ziren, beste batzuek lurra lantzen, edo jostun lanetan, edo irakaskuntzan, edo sendakuntza eta artapen lanetan ibili ohi ziren, eta –batetik bestera inongo arazorik gabe mugituaz– familia-kideekiko betebeharren kargu hartzen, harreman ekonomikoak autonomia osoz lantzen (salerosketazkoak, mailegutzazkoak, testamentuetakoak) nahiz elizan zerbitzen eta bertako garbiketara lanak egiten ere ibili ohi ziren. Ez dirudi "emparedada" –eta "beata"– hauek oso "itxita" bizi zirenik, ez eta Euskal Herriko serora askorengandiko oso bizitza ezberdina zeramatenik ere. Badakigu gainera, jada aditzera eman dugunez, Nafarroan, XVI. mendeko Artaxoan, "monja emparedada" esaten zitzaienei, euskaraz "serora" izena ematen zitzaieela; kasu horretan, ez dago identifikaziorako inongo zalantzarik¹⁷³.

II. 5. Seroren instituzioaren sorkuntza eta bilakaeraren inguruko hausnarketak eta ondorioak

Euskal Herrian serorek izan zuten presentziaren ibilbide historikoak, zalantzarik gabe, luzea behar du izana izan. Aro Berriko dokumentuen bidez beraien bizitzen maila pertsonalera gerturapen ertsiaigo bat egiteko posibilitatea zabaltzen zaigunerako, instituzioak mende sorta bateko ibilbidea zeraman. Baina ez gara kapitulu honetan

¹⁷² Ikus II. 4.1. azpiatala, 131 eta hurr. or.

¹⁷³ Ikus Miura Andrades 1991, Pérez González 2005, 91-137 eta Cavero Domínguez 2006, eta baita L'Hermitte-Leclercq 1994 eta Jimeno Jurío 1997 ere.

seroren jatorriari buruzko iritzi zorrotzegirik ematen hasiko; aski garbi daukagu, hemen burututako gerturapenaz haratago, bere kabuzko ikerketa zabalagoa beharko lukeen gaia dela, eta gainera, ikertzaileen aldetiko interpretazioen eragin handia izan dezaketen datuen gain oinarritzen den gaia izanik, metodologiaren aldetiko lan handia eskatzen duen ikerketa baten beharrean legokeela. Orain arte ikertzaile askoren aldetik (batez ere diakonesengandiko jatorriaren tesiaren defendatzaileenetik) aintzat hartu izan diren ikuspegi historiko “genetikoez” gain, ikuspegi funtzionalak, morfologikoak, antropologikoak eta arkeologikoak ere, kasurako, sakonago aintzat hartuko lituzkeena. Ez daukagu beraz hemen hainbesterako lanik hartzeko asmorik, nahiz eta azaldukoaren gain zenbait ondorio ateratzeari ere muzinik egingo ez diogun.

Hemen, eraman dugun ikerbidearen arabera seroren jatorriari buruz ondorioztatu dezakeguna, Aro Berri guztian zehar “serora” hitzak euskaraz adierazten zuen esparru semantikoak emakumezkoen erlijiotasunaren forma guztiak baitaratzen zituela da, eta honekin bat, dokumentu administratibo eta pertsonal gehienek euskarri linguistiko ditugun auzo-hizkuntzetan serorei buruz jarduteko erabili ziren terminoen erabilera eman zen bitarte kronologikoak, kristautasunaren lehen hedapenaren mendeetatik Aro Berrirarte Europa guztian, eta bereziki Espainian eta Frantzian, hedatu izan ziren bakarkako eta taldekako emakumezkoen instituzio eta fenomeno erlijiosotara bideratzen gaituztela da. Honek ez du esan nahi, noski, seroren instituzioak, instituzio lez, mugimendu guzti horiekin kontaktu zuzena izan zuenik, edo halabeharrez beraietatik eratorri zenik. Baina Europa Mendebaldeko kulturaren baitan gorde izan ziren emakumezkoen mugimendu eta instituzio erlijiosoak izendatzeko modu horiek Aro Berriko Euskal Herriko serorei esleitu izan bazitzaizkien, garai hartan dokumentuak idazten zituztenek eta hauek idaztea agintzen zutenek izendapen horiek adierazten zuten ideiarene eta serorek momentu hartan zeukatzen bizimoduaren arteko loturak hautematen zituztelako izan zen. Eta hala ere, berriro diot, horrek ez du instituzio eta mugimendu erlijiosoen arteko jarraikortasunik edo kontaktu zuzenik frogatzen, kultur eragileen aldetiko identifikazio bat baizik.

Diodan hau, noski, hastapenik zaharrenean inguruko hipotesiekiko diot. Pertsonalki, “sorores”-en jatorria Goi Erdi Aroko edo Antzinate Berantiarreko garaietan (VI-IX mendeak) legokeela aintzat hartzekotan, Euskal Herriko testuinguruari erreparaturik, posibilitate gehiago ikusten dizkiet mugimendu monastiko zaharretako komunitate bikoitz eta familiarrei eta inspirazio aszetikodun mugimenduei (anakoretak eta eremutarrak), espazio urbanoagoetan hedaturiko diakonesena edo *viduae ecclesiae*-ena bezalako instituziei baino. Monasterio zahar hauetariko askoren parroikia edo ermitarako X-XIII mendeen bitarteko bilakaera ezaguna da, eta Debagoieneko hainbat tenpluk ere euren jatorriak monasterio zaharretan dauzkatela ere ikusi ahal izango dugu; bitarte kronologiko hau Euskal Herriko testuinguruan (beste hainbatetan bezalaxe) parrokien eta hiribilduen sorkuntzari dagokion berbera izanik, parrokiatiko seroren hasierak monasteriotik parrokiarako egokitzapen honen baitan txertatuko lirateke. Filologiatik datozkigun pertsonak izendatzeko termino erlijiosoen inguruko kontsiderazio historikoek ikuspegi honekin bat egiten dute, eta Curiel Yarzak Goi Erdi Aroko Euskal Herriko -edo behinik behin, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako-monasterioen botere-testuinguruaren kontinuitatearen inguruan landutako hipotesia, bildu ahal izan dugun informazioaren argitara berretsi baino ezin zaigu egin. Behe Erdi Aroan eta Aro Berrian zeharreko Euskal Herriaren lurraldeetan Goi Erdi Aroan ohizkoak izan ziren eredu monastikoek jarraipena izana zezaketela, edo hobe esan, garaien iragatean izan zuten bilakaera tenpluen gaineko molde zaharreko botere-egiturak mantenduz gauzatu zela kontsideratuko bagenu, izan ere, seroren instituzioaren

Goi Erdi Aroko *soror*-engandiko jarraipen posiblea garbi asko hauteman liteke. Seroren dotea emateko ohitura, bestalde, diakonesekiko zeharo bat egiten ez duen datua dugu, eta honek ere, monasterio zaharrei begira jartzen gaitu. Gainera, XIII. menderarte emakumeen monasterioetan eta monasterio bikoitz eta familiarretan ez zen klausura aktiboaren inposizioaren aldeko mugimendua eragin esanguratsurik izaten hasi, eta ikertu denaren arabera, Euskal Herriko testuinguru espezifikoa, Trentoko Kontzilioko XXV. bilkuran (1563) beste behin erlijiozko bizitzadun emakumezko komunitate guztien klausura aktiboa agindu ostean neurrien aplikazioa hasi zen arte, hauen arteko oso gutxi izan ziren erabateko itxitura gorde izan zutenak.

Bien bitartean, bestalde, eta komunitatean baino bizitza bakarka egiten zuten emakume erlijiosoekiko, anakoreta eta eremutarren presentzia Antzinateko garaietatik Erdi Aroa bitartean Europa guztian zeharreko lurraldeetan mantendu zen, eta eragin aszetiko hauek Euskal Herrian ere izango zuten presentziarik, lehenago edo beranduago; datu dokumentalek, printzipioz, XIII-XIV mendeetarainoko antzinasuna agertzen digute. Aro Berrian ere, gazteleraz “emparedada” edo “reclusa” bezala eta frantsesez “recluse” edo “emmurée” bezala ezagutzen zirenak erlijiotasun aszetikoaren joera honen ondorengoak baino ez lirateke, eta badakigu, Hegoaldean bezalaxe Iparraldean ere frogatu ahal izan denaren arabera, hitz hauek euskarazko “serora”-ren baliokideak zirela. Guzti honek, euskaraz “serora” hitzak hain esparru semantiko zabala baitaratzeari eta XVIII. menderarte –ordurarte “serora” hitzak baitaritzen zuen esparru semantikoa banatu zuen– “moja” hitzaren erabilera ez hedatu izanari ere azalpen bat ematen dio.

Alabaina, euskarazko zenbait autoreren aldetik Euskal Herriko erlijiozko emakumeen historian ardatzezkoak izan ziren garaietan terminoen erabilerak finkatzeko saiakerak egin zirela ere ikusi dugu: XVII. mendearen hasieratik erdi ingurura, bizitza komunitarioa zeramaten ordenekiko loturadun serorei klausura inposatu zitzaizenean, eta parrokia, ermita eta beste tenpluetako serorak desagerrarazteko lehen saiakera esanguratsua izan zenean; eta XVIII. mendearen bigarren erdialdean, seroratzen izaeraren inguruan instituzio ezberdinen aldetik informazio bilketak eta debekuak izan ondoren, Errege Agindu bidez (1769) seroren desagerraraztea eta ermiten itxiera agindu zirenean. XVII. mendearen hasiera-erdialdeko saiakerek ez zuten aurrera egin, eta XVIII. mendearen bigarren erdialdean baino ez zioten terminoaren gaur egunerarteko “serorak” eta “mojak” banatzeko joerak gorpuzteari ekin, aurretik, euskal hitzunez guztiak “serora” bezala ezagutu izan zituzten artean. Guzti honek, ohar litekeenez, seroren instituzioa orain arte ikergai izan duten autoreek ikerketa objektuz harturiko talde sozialaren hedapen eta zedarripenaren inguruko berkontsiderazio batera garamatza; “serorak”, izan ere, ez baitziratekeen parrokia, ermita eta bestelako tenpluen artapenaren ardura hartu izan zuten erlijiozko emakume haiek soilik izanak izango, taldeetan eta bakarka, ordenekiko gradu ezberdinetako loturekin izan ziren erlijiozko emakumeak, eta are mojak eurak ere, guztiak baitziren Aro Berriko eta aurretiko garaietako euskal hitzunarentzat.

Argi ageri zaigun beste zerbait, Erdi Aroko hiribilduetako testuinguruan hedatu ziren beguinen eta -batez ere- beaten mugimenduen eta Euskal Herriko seroren arteko nolabaiteko kutsuak izan zirela ere ezin ukatzukoa dela da. Nabaria baita, Euskal Herrian parrokietako serorek jarlekuen zerbitzuan zeuzkaten betekizunen salbuespenez, serorek Euskal Herrian, beguinek Europa iparraldeko lurraldeetan eta beatek Espainian bete izan zituzten funtzio erlijiosoak eta hautemapen soziala, neurri handi batean, baliokideak zirela, eta gertutasun sozial, erlijioso eta -batez ere beaten kasuan- are geografikoagatik ere, izpiritualtasunaren alorreko kutsuek eta elkar-ezagutzeek halabarrez gertatu behar izan zutela; azken finean, ezin baitugu Euskal Herria garai

hartako erlazio eta kutsu kulturalen –eta harreman komertzialen– testuingurutik besterik gabe kanporatu. Jarlekuen zerbitzua, bestalde, Euskal Herriko ezaugarri kulturalen bereizgarria duguna, Europako beste lurraldeek ere bazituzten bestelako bereizgarrien araberako bariante kulturalen testuinguruan hauteman beharko litzateke (eta gainera, parrokien barruan ehorzteko ohitura ez zen Euskal Herri guztian hedatu, eta bata bestea bezain "euskaldun" diren ohiturak ditugu).

Hurrengo kapituluan ikergai izango ditugun seroren desagerrarazte saiakerak izan zirenean jarlekuen zerbitzua argudiotzat baliatu izana bera ere, debekatuak izan ziren parroketako sakristanengandik ezberdintzeaz gain, gainontzeko alderdietan Europako beguinak, eta bereziki Espainiako beatak, debekatu eta desagerrarazteko erabili ziren bestelako argudioak aplikagarri zitzaizkielako erabilia izan zela esan liteke; eta gainera, defentsarako argumentuak parroketako serorak baino ez zituen babesten. Eta propioki parroketakoak ziren serorek zeramatenaren oso bestelako bizimodua zeramaten serorak, baziren Euskal Herriaren ugari, Europako beste lurraldeetan, bereziki gertuenekoetan, Espainian eta Frantzian, beraien baliokideak zeuzkatenak ("beguina" eta "beata"-k, "devota"-k, "tercera"-k, "freila"-k, "honesta"-k, "deodata"-k, "recluse"-ak, "enmurée de Dieu"-ak, "monja" izena bera zeramaten zenbait emakume ere bai, oso espazio erlijioso ezberdinetako anakoreta eta eremutarrak, etab. luze bat). Beraz, labur esanda: gertueneko inguruko egoera halakoa izanik, Euskal Herriaz gaindiko testuinguru kulturalako kutsu eta eraginei erreparatu gabe Antzinateko diakonesengandiko jarraipenezko jatorri batean tematzea, norbere zilborraz haratago ez begiratzea baino ez dela iruditzen zait. Eta hau badiot ere, garbi gera bedi, diakonesengandiko jatorriaren hipotesiak, hipotesizat, aintzat hartzekoa izaten jarraitzen duela ere sostengatzen dudala, eta halaber, instituzioaren helduerarako kronologiarik sinesgarriena iruditzen zaidana, Antzinate Berantiarra eta Goi Erdi Aroa bitartekoa dela. Informazioa eta ikerketa konparatibo sakonagoak falta zaizkigu, auzi hau erabakiko bada.

Gainera, azken finean, ezer ezin dugu euskal lurraldeen kristautzearen prozesuak baldintzaturiko *ante quem* dataren batzuk ahal den neurrian zedarritu gabe erabaki. Eta hargatik, euskal lurraldeen kristautzearen gaia ere hartu dugu hein batean ikergai, ahal izan dugun eta egoki zeritzogun modu eta neurrian. Eta funtsean, kristautzearen gaia emakumeen prismatik begira hauteman eta gero, zenbait ondoriotara heldu ahal izan gara: Baskonia zaharraren nahiz gaur egungo Euskal Herriaren lurraldeen kristautzea prozesu luze eta konplexua izan zen, Antzinate Berantiarreko germaniarren inbasioen aurretiko garaietan jada bere lehen hastapenak izan zituen (printzipalki, III-IV mendeetatik) eta ondorengo mendeetan *impasse* luze batean edo bilakaera motel batean gauzatu zena, eta Iruñako Erreinuaren sorkuntzaren garaietan instituzioen aldetiko bultzada sendoa izan arteko bitarte luzean (VIII-IX mendeak arte, ggb.), lurraldearen ezaugarri bereziak eta -erabatekoa ez izanik ere garrantzitsua izan zen- aislamendu politiko, sozial eta erlijiosoa medio, ondoren ortodoxotzat finkatuko ziren korronteetatik baino baztertuak suertatuko ziren korronteetatik eragin esanguratsuagoak jaso behar izan zituen (izan gogoan priszilianismoa, Vigilancio, ikonoklastia zantzudun bagaudak, Arabako eta inguruetako eremutarren "mugako" komunitateak, kristautasun "martindarrarekiko" eta zeltiarrarekiko loturak eta parekotasunak, etab.), eta paganoak izaten luzaro jarraitu zuten komunitateekin izandako elkarbizitzan lurraldeko jatorrizko sineskeretikiko prozesu sinkretiko sendoa izan zuena. Azaldu dugunaren arabera, Iruñako Erreinuaren sorkuntzaren eta Erreforma Gregoriarraren heldueraren ggb.ko bitarte kronologikora heldu arte ezin dugu biztanleriaren gehiengoa kristaututzat hauteman, eta

are ondorengo garaietan ere, Erdi Aro guztian zehar, sineste -eta are erritu- paganoen arrastoak eta zantzuak mantendu ziren.

Eta nahiz eta ikergai izan ditugun Europan zeharreko emakumezkoen erlijiozko instituzioen errebasoa egitean seroren jatorria hauetariko bakoitzean egotearen posibilitateak kontsideratu ditugun, euskal lurraldeen erlijiozko bilakaera historikoa bere osotasunean begiraturik, beste behin, seroren instituzioaren agerpena Iruñako Erreinuaren sorkuntzaren aurretiko garaietan kokatzearen ideia berresten zaigu. Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko instituzioen heldueraren inguruan jaso ahal izan ditugun frogak, balizkoak bezalatsu ziurrak, nahiz Behe Erdi Aroko eta Aro Berriko Europan zeharreko emakumezko erlijiozko instituzioen eraginpean izandako bilakaerak alde batera utzita, instituzioaren eta bere testuinguruaren zenbait ezaugarri arkaikok nabariki daramate hala pentsatzera. Ondorengo kapituluetan zabalago azalduko ditugu, baina orain eman beharreko azalpenetarako, honakoak aipa litezke: klausuraren gabezia eta instituzioaren permanentziarekiko arauen aldakortasuna; tenpluarekiko eta komunitatearekiko binkulazio forma ezberdinen existentzia; zerbitzen zituzten tenpluen gaineko botere testuinguruarekiko izan ohi zituzten loturak, askotan familiarrak; *seror* terminoa beraren jatorria, hein berean monastikoa eta familiarra; euskarak jasoriko elizaren eta bereziki erlijiozko zerbitzarien terminologiaren jatorri monastikoak; euskal lurraldeetako komunitateek egitura erlijiosoen alorrean Erdi Aroaren bukaeraraino -eta zenbait lurraldetan Aro Berriraino mantendu zuten- taxukera fosildu eta arkaizantea, bertako botere egituren izaera bereziak baldintzatua (jabego pribatudun monasterio familiarren nagusigoa, erlijiozko instituzioen mailaketa piramidaletik eta apezpikutzen agintetik at mantentzen zituena); oso garrantzitsuak ziren erritu komunitarioetako (bereziki, heriotz-errituak) eta are liturgiaren baitako seroren partehartzea, eta euskal lurraldeetako biztanleen sineskerak eta kultuek luzaroan mantendu zuten izaera sinkretikoa, serorek eurek ere sostengatu eta kudeaturiko sinesmenen eta errituen sistema batean baitaratua... alderdi guzti hauek eta aurreko orrietan azalduz joan garen besteren batzuek, ez soilik seroren instituzioa, baizik euskal lurraldeetako erlijiozko egituren, sinesmenen eta kultuen jatorria Antzinate Berantiarra eta Goi Erdi Aroa bitarteko garai batean kokatzen digute. Eta diogunez, lurraldearen berezitasun sozial eta erlijiosoak medio, Behe Erdi Aroko eta Aro Berriko Europako testuinguru zabalagoan, euskal lurraldeen egoera fosildua eta arkaizantea mantendu zen, aski luzaro, kasik, eta hau ondorengo kapituluetako azalpenetan aurrera egin ahala argiago azalduko zaigu, Aro Berriaren erdialderarte, XVII. mende beterarte. Eta jarraian datorren kapituluaren ikusiko dugunez, ez kasualki, XVII. mendearen lehen hamarkadetatik -eta areago mendearen erdialdetik- ekin zitzaion seroren instituzioa desagerrarazteko saiakera indartsu eta erabakiorrak bultzatzeari, erlijiozko instituzioen aldetik lehenik, eta zibilenetatik ere bai, ondoren.

Jarraian helduko diogun Aro Berriko testuingurura heldu arteko ibilbidea sintetizatzen saiatuz, beraz, seroren jatorriarekiko -edo jatorriekiko- hemen sostengatzen duguna honakoa dugu, oraindik ikertzekorik aski dagoela eta -batik bat, kristautze prozesuarekiko- teoria ezberdinen arteko hautua egina dela onarturik ere: Instituzioaren lehen formek bere agerpena lurraldearen kristautzearen lehen garaietan egina zuketean. Inbasioaren aurretiko garaiak goiztiarregiak lirakeke ziurrenik, nahiz eta -besteak beste, Prudentzioren testigantzak agertzen digunez- ingurunerik populatuen eta erromatartuenetan jada zenbait kristau komunitate gorpuztuak bazeuden. Instituzioa garai haietan agertua izatekotan, kristautasuna familia-arteko testuinguruetan hedatu zeneko garairik zaharretako birjinen, alargunen eta diakonesen -edo are apezemeen- forman izan beharko zukeen, ondoren monakismotzat gorpuztuko zen joeraren

orokortzea artean ez baitzen gertatu. Probableago dirudi V-VIII mendeen bitarteko kronologia batek; aurreko garaietako birjinen, alargunen eta diakonesen instituzioen biziraupena emateaz beste, bizimodu aszetikoaren indartzea eta honen araberako aurretiko instituzioen bilakaera ere gertatu zen orduan, jatorrizko bakarkako nahiz komunitatezko bariante ezberdinetan, ondoren bizimodu eremutar, anakoreta, zenobitiko, eta azkenik monastikotzat ezagutuko ditugunei bide emanez, -emakumezkoen esperientziei dagokienean- VII. mendean bere punturik altuena izan zuen gorakada batean. Hauen artean izan ziren euskal lurraldeetan ohizkoenak izan zirela diruditen bizimodu aszetikoak ere, eremutarra eta monasterio familiarretakoa, eta nabaria da lurraldearen kristautzearen eta erlijiozko emakumezkoen presentziaren aldetik, V. mendean ekinda eta ondorengoetan, aurreko garaietan baino testigantza ugariagoak eta fidagarriagoak ditugula. Horrez beste, bestelako datuekin batera, aztarna arkeologikoez eta San Martinen kultuak lurraldean -adibokazioen aldetik bezalaxe bestelako aspektu kulturaletan (mitoetan) ere- izan zuen hedapenak Galia zaharreko lurretako, eta bereziki Akitaniako eraginaren berri ematen dute. Honek diakonesen heldueraren probabilitateak handitzen ditu, Galia izana zeneko lurraldeetako diakonesen presentzia, VII. mendeko garai gailenarekin, VI-IX mendeak bitartean eman zela jakina baita. Halaber, VII-VIII mendeetan hedatu zen kristautasun zeltiarra irletatik lurralde kontinentaletara indar handienez, bizimodu eremutarraren eta anakoretikoaren tradizioek pisu handia zeukaten hautemapen batekin, eta funtzio ministerialak eurenganatzeko arazorik izan ez zuten birjinak, alargunak eta abadesak ere presente izan zirelarik.

Gainera, eta azpimarratzeaz arduratu garenez, euskal lurraldeetako eremutarren eta monasterio familiarren presentziak, eta diakonesenak, ez lukete zertan elkar baztertzeko fenomenoak izan beharrik, gizonezkoen artean bezalaxe emakumezkoen artean ere, erlijiozko pertsona sekularren eta ondoren "erregular" deituko ziren aszetiko edo/eta monastikoen arteko mugak, garaiotan, ez baitziren artean oso garbiak, eraikitze eta finkatze bidean zeuden. Ziurrenez V-VIII mendeak bitartean heldu ziren lehen *soror* haiekin, bada, euskal lurraldeetako kristautzearen prozesua eta erlijiozko bizimodu sinkretikoa apezpikutzen kontrolpera iraganaz joan ziren poliki poliki, hauek gorpuztuz eta finkatuz joatearekin bat, Iruñako Erreinua osatzen bukatuko zuten botere-egiturak ere forma hartzen joan zirelarik. Alabaina, eta Iruñako Erreinuaren sorkuntza erlijiozko erreformen hedapenean oso garrantzitsua izan bazen ere, Europako testuinguru orokorragoan erabakiorrak izan ziren erreforma monastikoez eta Erreforma Gregoriarrak oso eragin irregularra izan zuten lehenik Iruñako eta ondoren Nafarroako erreinuetan, V-VIII eta ondorengo mendeetan osaturiko erlijiozko egitura eta antolakuntzak, funtsean, -parte handi batean "familiarrak" ziren- jabetza pribatuko monasterioez osatua zenak, XV. mendearen atarirarte nagusi izaten jarraitu zuelarik. Areago, -Erreforma Gregoriarraren funtsezko aldakuntzetariko bat izan zen- jabetza sistematik patroitza sistemarako aldaketak, Aro Berriaren hastapenetan ere, oraindik egoera nahasiak sortu izan zituen, jabe izateari utzi nahi ez zioten "patroiek" ez baitzuten tenpluen gaineko boterearen murrizterik erraz onartzen.

Baina noski; monasterio familiarren nagusitasunezko testuinguruaren jarraikortasuna eman bazen ere, Goi Erdi Arotik Behe Erdi Arora, aldakuntzak ere hainbat izan ziren, eraldakuntzan zegoen erlijiozko testuinguru europarraren eraginak ere heltzen baitziren lurraldera. Penintsula iparraldeko monakotzaren formen eraginak bezalaxe Europa mendebalde-erdialdetik hedatzen zioan erregela beneditarrarenak ere heldu ziren, VIII-X mendeak bitartean; emakumeak presente zeuden euskal lurraldeetako komunitate monastikoetan garai hartan heldu ziren hitzarmenezko

monakotza (*pactum* bidezkoa) bezalaxe, *regula mixta* zirenetan txertaturiko erregela beneditarreko lehen arau eta pasarteak ere. Kristautasun zeltiarraren eraginak presente egoten jarraitzea ez litzateke arraroa ere, Erdi Aroko euskal komunitateen taxukeran mendeotan korrante honen baitan izan ziren *Céli Dé* edo *kuldeoen* komunitateekiko parekotasunak atzeman bailitezke, eta "eskoziar" edo *scotti* zirenen helduerarekiko XIV-XV mendeetako erreferentzia nahasiak ere badaude, eragin kulturalen bidezko nolabaiteko azalpena eskatzen dutenak. Biztanleriaren dispersioak, eraikuntzarako material galkorren erabilera nagusiak eta bizilekuen mugikortasunak karakterizaturiko V-VIII mendeen bitartean ondoren, bestalde, Iruñako Erreinuaren agerpenarekin batera, IX. mendeko herrixken orokortzea ere gertatu zen, zibilak nahiz erlijiozkoak izan, botere egituren finkapenerako ere zeharo beharrezkoa zen fenomeno; aurrerapen teknologikoek eta laborantzaren alorrekoek ere izan zuten noski fenomenoarekin zerikusirik. Bailaretan eta bertako herrixketan bilduriko biztanleriaren kristautzearen prozesuan ere pausu garrantzitsua izan zen biztanleriaren biltze eta finkatze hau, gune sozial eta erlijiozkoztat erdigune izatera iragan ziren tenplu kristau ugari garai hartan sortuak izan zirelarik, kasurik gehienetan, "monasterio" lez. Gehienetan familiarrak -edo bikoitzak- ziren monasterio hauek, bestalde, X-XIII mendeak bitartean gauzatu ziren Erreforma Gregoriarrari loturiko aldaketen testuinguruan, sare parrokiaren sorkuntza eta antolakuntza eman zenean, parrokia edo ermita tituluak izatera iragan ziren, nahiz eta lurraldeko usadioen arabera, XIV. menderate eta are beranduago ere, "monasterio" izena jasotzen jarraituko zuten.

Gertakizun hauek, seroren instituzioaren bilakaeran ere zeharo ardatzezkoak suertatu behar izan zuten halabeharrez. Printzipalki, beneditarren heldueraren aurretiko monakotzaren testuinguruko *soror*-etatik, parrokia edo ermita titulua eta kontsiderazioa zeukaten tenpluak artatzera igaro ziren *soror* edo jada *seror*-etarako iragatearen garaia dugulako. Esanguratsuki, terminologiaren inguruko hausnarketek ere, beste bide batzuetatik, *seror* terminoa bera ere garai haietan finkatua izan zitekeela pentsatzera eramán gaituzte. Auzo-hizkuntzetan bezalaxe euskeran ere, finkapen hau erlijiozko espazioaren (*serorak*) eta familiarenaren (*ahizpak*) arteko banaketa terminologikoa gauzatzearekin bat gertatua litzateke. Eta berez, Behe Erdi Aroan eta Aro Berrian aurkitzen ditugun parrokia eta ermita, santutegi eta ospitaleetako seroren bizimoduaren ezaugarri nagusiak garai honetan (X-XIII mendeak) sorturiko tenpluetako zerbitzuari ertsiki loturik daude. Kataluniako *deodada*, *deovota* eta bestelako izenekin ezagutu zirenen kasuan ikusi dugu prozesu hau hemen ere nola gertatua izan zitekeenaren islada. Termino hauek erlijiozko emakumezkoen moeta ezberdinak baitaratu izan zituzten, monasterio handietara *donati* bezala edo *familiaritas* erlazioen pean sartzen zirenekin batera, familiaren baten zerbitzura edo ermita edo parrokiaren baten zerbitzura sartzen zirenak ere adieraziz. Lehenen kasuan XI-XII mendeak bitartean *sanctimonialis* eta *monialis* terminoek termino zaharrak alboratzen bukatu zuten, eta besteen kasuan, *deovota* terminoaren kasuan behintzat ohartu izan denez, XV. menderako balore sustantiboa galdua zuen, debozioa adjetibatze soilera iragateko.

Euskal lurraldeen kasuan, *serora* terminoak luzaroago jarraitu zuen erlijiozko emakume guztiak adierazten, testuinguruan aldakuntzak gertatu ahala. IX. mendeko herrixken, bertako *concilium*-en eta hauei loturiko elizen gailentzearen ondoren, X. menderako jauntxoek eta erregetzak tenpluen kudeaketaren gaineko kontrola lortu zuten lurraldearen parterik handiengan. Isurialdi kantabriarrean, mendebaldean bereziki, fundazio pribatuak gailendu ziren artean, ekialde-hegoalde inguruan Iruñako erregetzak eta bertako apezpikutzak eragin handiagoa izan zuten. Edozein kasutan, eta are Elizaren erreformak bideratzeko espaziorik egokiena zen Iruñako Erregetzaren eragin esparruan

bertan ere, tenpluak, monasterio familiar tankerakoak ez zirenean, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko bestelako fundazioen tankerakoak ziren, zenbait monasterio bikoitzak, eta abade-apezpikuen tradizioaren mantenuarekin. Eta normalaenez, Iruñako Erregetza izan zen arlo zibiletan bezalaxe erlijiozkoetan ere, bere eragin eremu nagusia zen euskal lurraldeen ekialde-hegoaldean X-XIII mendeetan izan ziren zenbait transformazio garrantzitsuren abiarazle. Donejakue bideari loturik egindako lehen hiribilduen fundazioak eta Erreforma Gregoriarrak babesturiko ordenen (funtsean beneditarrak, agustindarrak, ordena militarrik eta mendikanteak) lehen helduera eman ziren hala, printzipalki XI. mendeaz geroztik, monasterio handien boteretzea eta hazkundera sustatzeko erregetzaren aldetiko -arrakasta handirik izango ez zuten-ahaleginen batzuekin batera. Alabaina, hiribilduak eta monasterio handiak irlatxoak baino ez ziren oraindik, bailaren, herrixken eta monasterio familiar txikien itsaso zabal batean. Sare parrokiaren eraketa eman zenean jauntxoek kontrolaturiko etekin handieneko tenpluek jaso zuten gehienetan parrokia titulua, auzotarren esku zeuden hainbat, ermita izatera iraganez. Funtsean, *cura animarum*-aren eta ehorzte-eskubideen eta bestelako etekinen gaineko kontrola lortzen zuten jauntxoek, banaketa hala bideratzean.

Antzinate Berantiarreko eta batez ere Goi Erdi Aroko tradizioko monasterioen parrokia eta ermita arteko banaketa, eta hauen funtzioetarako bilakatzearekin batera, XI-XIV mendeak bitartean honi loturiko beste transformazio prozesu luze bat ere gauzatu zen euskal lurraldeen testuinguru orokorrean: bestelako populamendu moeten aurreko hiribilduen gailentzea. Berez, tenpluei XIV. menderate -eta beranduago- "monasterio" izena eman zitzaizen eta hauetako zerbitzariak ere testuinguru monastikoko izenez ezagutuak izaten jarraitu zuten, nahiz eta parrokia eta ermita arteko banaketa funtzionala txertatuz zioan, eta poliki baina atzerapauso gabe, hiribilduen eta bertako botere esparruen menpe egotera iragateareki ekingo zioten. Azken prozesu honek, dena den, XV. menderate ez zuen pisu esanguratsurik hartu, eta tenpluen parte handi bat ez ziren Aro Berri beterate Ahaide Nagusi izan zirenen boterepetik hiribilduenera iragan. Testuinguru "berrian", dena den, eta botere esparru ezberdinek tenpluen gain zeuzkaten eskumenak zirenak zirela, alde batetik, hiribilduetako parrokiatan -eta beraien kontrolpeko ermitetan- "tradiziozko" serorak enplegatu ziren bezalaxe, bestetik, Europan zeharreko testuinguru urbanoetan hedatzen joan ziren emakumezkoen mugimendu erlijiosoaren eraginak ere helduz joan ziren, *beguinen*, *beaten* eta tankerako erlijiozko emakumeen esperientziak asimilatzean, tenplu jakinenganako zerbitzurik gabeko bakarkako nahiz taldekako hiribilduetako *serorak* ere agertuz joan zirelarik.

Bien bitartean, monakotzaren alorreko erreformak eta aspektu zabalagoetara hedatzen zen Erreforma Gregoriarra eragina izaten hasi ziren, batez ere Iruñako eta ondoren Nafarroako erreinu izango zirenen gertueneko esparruetan, eta monasterio handi printzipalenetan erregela beneditarra sarrarazi zen bezalaxe, -mozarabiarraren ordezkotik- liturgia erromatarra ere barneratu zen, eta XIII. mendearen bukaeran aita santuaren eskutik erlijiozko emakumezkoen komunitate guztientzat aginduriko klausura aktiboa aplikatu zuten monasterio gutxi batzuek ere joan ziren pixkanaka agertzen. Alabaina, eta batez ere lurraldearen ekialde-hegoaldean prozesu hauek eragin zituzten aldaketan alboan, testuinguru orokorrak, ekialde-hegoaldean bertan ere nagusi zenak, berrikuntza horiekiko taxukera "arkaizantea" izaten jarraitzen zuen. X-XIV mendeak bitarteko ibilbiderik ohizkoena, tenplu gehienetan, bikoitza edo familiarra zen monasterio baten eta honen inguruan *donati* eran edo *familiaritas* erlazioen arabera loturiko biztanleria baten testuingurutik, tenplua -*abbas*-etik eratorririko- apez edo abade bat edo gutxi batzuen eta *serora* bat edo batzuen bidez artatua egoterako

aldakuntzarena litzateke. Litekeena da jatorrizko egoera monakotzan inspiraturiko Irlandako komunitateen tankerakoa izatea; bertan, kristautzerako momentuan komunitate monastiko -edo hobe esan, semimonastiko- bilakatu zirenak hainbatetan herrixka edo tribu osoak izan ziren, komunitateko buru, abade edo *abbas* izatera iragaten zena, hain zuzen ere, aurreko herrixkako edo tribuko buruzagia izan ohi zelarik. Nabaria denez, bizimodu monastikorako antzaldatzea ez zen bapatean eman ohi, eta aurreko bizimodu "paganoaren" arrasto ugari mantendu izan zituzten. Komunitateko buruzagiak, bestalde, ez zeukan apezpikuekiko obedientziarik, azaldu dugunez, Irlandako kristautasunaren garapenaren baitan, abade-apezpiku botere erlazioa alderantzizkatu baitzuten, apezpikuak abadeen menpeko eginez, eta euren esku alderdi liturgikoko domeinua baino ez utziaz, alderdi hau ere abadeak bere egiten ez zuenean. Elementu hauek, komunitateen eta bertako buruzagien "azaleko" kristautzearena, nahiz apezpikutzenganako obedientziarik eza, euskal lurraldeetako komunitateen baitan ere ematen ziren, egoerak zeharo berdinak ez baziren ere; Iparraldean alkateak izendatzeko erabiltzen duten *auzapeza* termino aski adierazgarriaz beste, Bizkaian aurkitu ahal izan ditugun adibideak zaizkigu esanguratsu: gogoan izan nola XVI. mendean, Begoñan eta inguruetan, ordurako patroï bezala hautematen zirenak garai zaharragoetan (XIII-XIV mendeak) "legos y casados" ziren abadeak izan ohi zirela ziurtatu zuten, eta nola Bizkaian apezpikuek XVI. mende berberaren hasieratararte sartzerik izan ez zuten, foruetako debekua zela eta. Horrez beste, neskatxa ezkongabeen *Beacumial* izeneko tonsura bitxiak ere, azaldu dugunez, jatorria herrixketako dinamika beraien osotasunean baitaratzera heldu ziren testuinguru monastikoetan izan zezakeen.

Biztanleria zabalagoak tenpluekiko zeuzkan loturen garapenarekiko, heriotza errituen eta ehorzte ohituren testuinguruak oso esanguratsuak ditugu. Ohar bedi ehorzte-ohituren erreforma (tenpluen barruan ehorzteko debekuarekin) eta aipatu berri dugun emakumeen tonsuraren debekua Erreforma Gregoriarraren testuinguru orokorrean harturiko neurriak izan zirela, eta honen beste zenbait asperturekin ere gertatu zela ikusi dugun lez, ez zutela ia euskal lurraldeetan eraginik izan; hain gutxi eze, erreforman debekatu ziren ohiturak, lurraldeko ohitura eta bereizgarritzat finkatzen bukatu baitzuten. Kultura monastikoaren baitatik harturiko elementuz egituratu ziren auzo, herrixka eta bailaretan familia edo leinu nagusi bat -edo zenbait- izango zatekeen -edo ziratekeen- bertako monasterioaren jabe, apezak edo abadeak eta serorak familiari loturiko pertsonak izango ziratekeelarik, gizarte-egituren islada ematen zuten heriotz-errituen testuinguruan, uler litekeenez, aldareen aurreko lehen postuak familiako partaideentzat erreserbatuz. Determinatzen zailak genituzkeen muga batzuek zehaztuko zuketena "komunitate monastikoaren" norainokoa, espazio sakratuenganako gertutasunezko postuak eurenganatuak zeuzkatenean. Hauen emulazioz eta jarraipenez, tenpluaren baitako beste espazioak *donati*-en eta *familiaritas* erlazioen graduen araberrako ordenan egituratuko ziratekeen, binkulazio moeta hauetan ohizkoa zenez, monasterioari eskainirikoarekin koerlaziozko heriotz-errituen gradazio ezberdinetan antolatuz. Tenpluotan, izaera "monastikotik" "parrokialera" edo "ermitarenera" igaro ahala, "komunitate monastikoaren" murriztearekin batera, *donati*-en eta *familiaritas* erlazioen araberrako binkulaziodunen espazioa familien tradiziozko ehorzleku-jarlekuen espazio izatera iragan ahala fosildu izana zatekeen. Praktikan, ziurrenez, hausturazkoa baino jarraipenezkoa izana zitekeen bilakaera. Izan ere, iragate hartan, kontzeptuak, propioki adierazten zuten egoera erreala baino gehiago aldatu zirela esan liteke. Azken finean, heriotz-errituen testuinguruaz beste, "legos y casados" izan zitezkeen monasterio zaharretako *abade*-etatik, komunitatearen bizitza kontrolatzen eta monasterioaren hamarrenak jasotzen jarraitzen zuten "patroï"-etara, ez zatekeen hainbesteko alderik izango, eta iragatea aski graduala izatea litzateke normalena. Neskatxen tonsuraren

ohiturak ere, erlijiozko komunitatearen baitan emakumeek izan zituzten binkulazio formek testuinguru monastikoko ohiturak mantendu zituztela adieraz lebiguke; komunitate monastikoaren baitan eta kultura monastikoaren adierazpide sinbolikoen arabera, teoriak teoria eta hauen praktikarako aldea handia izan bazitekeen ere, tonsurak haragizko kontakturik izan gabe "garbi" mantentzen ziren neskatxek komunitatea zedarrituko zukeen (gizonezko partaideen kasuan ere berbera adierazten zuen bezalaxe), behin ezkontzea edo komunitatean *seroratzat* jarraitzea erabakitzean, beste egoera hauen adierazle ziren burukoak janztera iraganez. Hemen ere, komunitate monastikoaren dinamikatik parrokiarenerako iragateak ez zukeen aldakuntza handirik eragingo.

Aldakuntzarik sakonenak, azken finean, ez ziren jauntxoek, edo garaiko terminologiaren arabera, Ahaide Nagusien boterearen gainbehera izan arte heldu. 1457ko Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako Ahaide Nagusien Granadarako desterrua eta beraien gotorlekuen "berdintzea" mugarrizko data bat dugu hemen, gertakizun hauen ondoren izan baitzen hiribilduek Ahaide Nagusiei tenpluen gaineko patroitzia eta bertako apezten izendapen eskubidea kentzeko agin zituzten ahaleginik handien garaia, XV-XVI mendeen bitartekoa. XVI. mendearen atarira heldu aurretik euskal lurraldeetako bakarkako nahiz komunitateetako *serorek* ez zuten ordenekiko loturarik izan ohi, eta jakina da ordurarte -eta hein handi batean baita ondoren ere- ordena ezberdinetako komunitateek lurraldeotan finkatzeko arazo ugari izan zituztela, printzipalki, apezzeria "sekularrak" eta tenpluen gaineko agintea mantentzen zuten jauntxoek konpetentziatzat (batez ere konpetentzia ekonomikotzat) hautematen zituztelako. XIV. mende bukaerarte, eta zenbait kasutan XV. erarte eta are XVI. erarte ere, jada parrokia edo ermita (edo ospitale) titulua zeukaten tenplu haiek "monasterio" izena jasotzen eta -interesatuki- hala hautemanak izaten jarraitzen zutelako kontutan izanik, are ulergarriagoa egiten zaigun oposizioa. Tenpluen jabe ziren familietako partaide izan ohi ziren eta ordurarte dotrinaren jakintzan gabezia deigarriak izaten zituzten apezten erlijiozko instrukzio egokia ere orduan hasi zen agintzen eta arautzen, aurretiko mendeotan erabat ohizkoa zen -eta monasterio familiarretatik heldua behar zuen- apez ezkonduen -edo ohaidedunen- panoramari ere orduan, XVI. mendean ekin zitzaion erasotzen (Loiolako Inazio izan zen ohitura hauen aurka sendoki egin zuenetariko bat), eta erlijiozko emakumeen komunitateen gaineko klausura aktiboa ez zen Trentoko Kontzilioan -XIII. mende bukaeratako- *aita santuaren klausura* berretsi eta berrespen honen aplikazioa heldu arte gauzatu, XVI.etik ekinda baina batez ere XVII. mendean zehar (eta hala ere, klausurarik gabeko *serorek* ere biziraun zuten, nahiz eta aurrerago ikusiko dugunez, jada instituzioaren gainbeherarik ekin zitzaion).

XIV. en mendearen bukaeratik ekinda, baina funtsean, Ahaide Nagusien gainbehera eman zen XV-XVI mendeen bitarte horretan izan ziren euskal lurraldeetako erlijiozko egituren eta ohituren egoera Europako testuinguru orokorrera "egokitzea" lortu zuten aldakuntza garrantzitsuenak, ordurarte aspektu horietan "arkaizantea" izana zen gizarte baten baitan (eta artean ere, Aro Berrian zehar mantendu izan ziren erlijiozko bizimoduaren alderdi "arkaizanteak" ez ziren gutxi izan). Aurrerago zabalxeago azalduko badugu ere, Oñatiko kasuan aldaketa haien adierazle ziren gertakizun aski garbiak izan ziren XIV. mende bukaera aldera; 1388-1395 bitartean Oñatiko herritarrak bertako "Jaunaren" ("Konde" ez baitziren XV. menderarte izendatu) agintearen aurka altxatu ziren auzi bat motibatuz, hain zuzen ere, Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban parterik zeukaten apezpikutzek lurralde historikoetako "monasterioen" hamarren guztiak jasotzen zituzten jauntxoek aurkako Guadalajarako Gorteetako auzia bultzatu zuten garai bereberetan (1390). Herritarrek, Oñatiko Jaunaren agintepetik

askatzeko, herriaren "monasterioarekiko" loturak ukatu beharrean, herria "abadengoa" zela baina "monasterioaren" gain jauntxoak zeukan boterea zilegizkoa ez zela defendatu zuten; herria "monasterioaren" inguruan sortu izana eta honen agintearekiko zeukan lotura ez ziren inongo momentuan zalantzan jarri. Epaiak baina, "monasterioa" jabego pribatukoa eta "familiarra" zela defendatu zuen Oñatiko Jaunaren alde egin zuen, artean luzaro irautekoa zen herriaren gaineko agintea bermatuz. Terminoen erabileran ere berretsi zen aginte hori hurrengo mendeetan, dokumentuetan, tenpluak "iglesia monasterial" eta bertako apezak "abad" izenak jasotzen jarraitu baitzuten (eta serora nagusiak baino ez zuen "serora" titulua jasotzen), are euskal lurraldeetarako berantiarrek liratekeen garaiak arte ere, XVI. menderate.

Mitoen eta sineskeren aldetik emakumezko figuren inguruan jaso dugun informazioa ere marraztu berri dugun ibilbidean egoki txertatzen zaigula dirudi. Hastapenak Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko kristautzearen testuinguruetan baino kokatu ezin dizkiegun figura eta motibo mitikoak identifikatu ditugu, mende luzeetan zeharreko sinkretismo prozesuen ondorio direnak. Beste zenbait figuren kasuan bezala, *Mari* paganoaren eta *Maria* kristauaren artean izandako baztertze-asimilazio dinamikaren tentsioa mende luzeotan zehar mantendu zen, mito eta legenda herrikoiez gain, garapen kultura izandako ekoizpenak ere emanez. Bilakaera hartan, *Mari* edo egokiago, *Andere* paganoaren gaineko sineskerak -eta errituak- Erdi Aroaren azken mendeetara aski bizirik heldu ziren, eta halatsu, *Maria* Amabirjinari eskainitako gurtza eta kultura Erdi Aroan zehar areagotu baino ez ziren egin, XV. mendean puntu gorenera heldurik, Amabirjina jainkosa baten pareko egitera heldu ziren interpretazio heterodoxoak ere eman zirelarik. Aurreragoko sineskeriei eskainitako kapituluak zehatzago ikusi dugunez, Aro Berrian zehar gurtzaren eta kulturen gainbehera motel bati ekin zitzaion, muturreko interpretazioei bide eman zieten Amabirjina irekigarri trinitarioen ikonografia, azkenik, XVIII. mendearen erdialdean debekatua izan zelarik. *Anderearen* eta *Maria* Amabirjinaren ibilbide hauek, hau da, "jainkosen" edo jainkozkoari loturiko emakumezko figuren gurtzaren eta kultuen gorabeherek, kultura hauen mantenuan parte garrantzitsua izan bide zuen seroren instituzio beraren gorabeherekiko garapen paraleloa agertzen digute. Espazio paganoaren eta kristauaren arteko garai sinkretiko luze bat, jada Erdi Aroaren azken mendeetarako espazio kristauaren dinamikek asimilatua, baina Aro Berriaren bukaerararte, zenbait biziraupen eta zantzu pagano bere baitan gorde eta mantenduko zituena. Ezaugarri hauek eta beraien ibilbidea, emakumezko "jainkozkoen" bezalaxe, hauek mantentzen zirenez zerikusi handia izan zuten seroren instituzioari berari ere aplikagarri izatea oso esanguratsua dugu, eta aski nabariki, ez da kasualitatea.

Halakoa dugu, bada, ondorengo azalpenak kokatuko zaizkigun bitarte kronologikora (XVI-XVIII mendeak) heldu artean seroren instituzioak eta hau txertatzen zen euskal lurraldeetako egoera sozial eta erlijiosoak izan zuten bilakaera, beti ere, ikerketarako hartu dugun ikuspegiak agerira dakargun eran. Jarraian azalduko dugun bilakaeran, seroren instituzioa desagerrarazi zutenerarteko ibilbidea jarraituko dugu. Trentoko kontzilioa (XXV. bilkura, 1563) erabakien aplikazioaren helduerak (XVI. mendearen bukaeratik ekinda, baina batez ere XVII. mendearen lehen erdialdean) bi garai ezberdinetan zatitzen digun bitarte kronologikoa dugu Aro Berrikoa, erroak Antzinate Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan txertaturik bizirautean zuen testuinguru baten parte eta sostengatzaile zen seroren instituzioa, azken "Urrezko Aro" bat bizitzen eta ondoren gainbeheran erortzen agertzen diguna. Eta ikusiko dugunez, Aro Berrian jada antigoalekoa zen unibertso hura desagerrarazteko, hain prezieski ere Antzinate

Berantiarrean eta Goi Erdi Aroan landu eta lehen aldiz aplikatu zen legedia berreskuratu eta aplikatu beharrean izan ziren, legedi berriak sortzearekin batera.

**III. ARO BERRIKO EUSKAL HERRIKO ETA
DEBAGOIENENKO SERORAK: TESTUINGURUA ETA
INSTITUZIOAREN AURKAKO JAZARPENEN
BILAKAERA**

Debagoieneko Aro Berriko seroren ingurukoak ikertzen hasi ahala, laster batean azaleratzen zaigu hauek azaltzen duten egoeren, jatorrien eta aktibitateen dibertsitatea. Hasiera batean ez neukan zerekin topo egingo nuenaren inguruko zantzu garbiegirik, baina ikerketan barneratu ahala aukeraturiko ikerketa-espazioaren egokitasuna ohartzu joan nintzen; izan ere, aipaturiko dibertsitatearen baitan seroratza ulertzeko hainbat eredu ezberdin hauteman litezke, eta eredu hauek Euskal Herriko gune ezberdinetan izan ziren seroratzaren inguruko hautemapen ezberdinen adierazgarri egokiak izan litezke. Honek lehenik oinarrizko espazioak definitu eta bertako seroren ezaugarri ezberdinen lehen taxukera orokor bat egitera behartzen gaitu, bestela ez baitira beraien egoera pertsonalak, familia eta gizarte baitako erlazioak, ekintzak eta aktibitateak egoki ulertzen. Eta halaber, espazio ezberdinetako seroratzen bilakaera egoki atzemateko, instituzioaren aurkako jazarpenen eta mugapenen jarraipena egin beharrean gaude.

Kokatzen joateko, erlijiozko edo erlijioari loturiko emakumeek Euskal Herriko herrietan Aro Berrian zehar izan zuten presentziari buruzko kontsiderazio batzuekin ekingo diogu. Bergara hartuko dugu herri adierazgarritzat, berau baita kontsiderazio hauek egiteko besteko datuak bildu ahal izan ditugun kokapena, eta gainera, bere ezaugarriek espazio ezberdinetako seroren presentziarekiko ikuspegi bat eratzeko herri egokia egiten baitute: alde batetik, Aro Berriko herrien bilakaeran ardatzezko zen komertzioaren garapen esanguratsua zeukan hiribildua zeukan, bere parrokiarekin noski (San Pedro), eta populazio dispertsodun landa-eremu zabala ere bai, halaber, esparru honen parterik handiena biltzen zuen parrokia propioarekin (Santa Marina), eta baita, parrokia propiodun auzo eta elizateetako dinamiken adierazgarritzat egin dakigukeen auzo bat ere (Elosua, San Andres parrokiarekin). Baina ez pentsa lehen kokapen orokor baterako orri hauetan nahasmendu handietan sartuko garenik: Aro Berriaren kronologiaren bihotzean, hau da, XVII. mendearen erdialdean kokaturik, huts-hutsean, herrian zeuden seroren zerrendaketa eta zenbaketa bat egingo dugu, ondoren, herrian bertan zeuden mojen zenbaketa egin, eta bi taldeen presentziari neurria hartzeko. Honekin lan honetan planteatu nahi izan ditugun auzietako bati helduko diogu: Aro Berriko Euskal Herriko erlijiotasunaren panoraman, seroren presentzia mojenarekiko ze neurritakoa zen? txikiagoa, parekoa, handiagoa?

Lehenik eta behin, ordungo Bergara zenaz dihardugula aintzat hartu beharrean gaude. Angiozar auzoa, bere San Migel parrokia eta garaiko zortzi ermitekin, ez zen Bergararen parte, Elgetaren parte baizik. Egoera bereberean zegoen Ubera auzoa ere, garaian zeuzkan bi ermitekin (bat ondoren parrokia bihurtuko zena). Errepaso honi ekiteko, 1658ko San Pedro parrokiako eliztarren matrikula daukagu. Bertako datuak jasoz, lehenik, ondoren zenbait gorabeheraren protagonistatzat ikusiko ditugun eta Goenkaleko 5.eko seroretxean bizi ziren parrokia bertako 3 serorak aipa ditzagun: Catalina de Zuruzelaegui, Francisca de Oruesagasti eta Ana de Guerra. Hauez gain, etxe partikularretan, beste 8 serora aipatzen zaizkigu: Ana de Herenchun eta Marina de Alday (Bidekurutzetako 16.ean), Ana de Ariztizaval (Merkatuaren kalea zeritzona, “Desde Esselucea asta la Plaza mayor”, 11.ean), Maria de Ylarregui (kale berean, 21.ean), Ana de Vidaurre (“Arrabal” zeritzon kalea, 2.ean), Mariana de Pagalday (Barrenkalen, 7.ean), Sena de Byain (Goenkalen, 8.ean) eta Angela de Barroeta (Arruriaga kalean, 20.ean) (Zenbaiten artean 1994, 183-212). Santa Marina parrokiari dagokionez, 1597an¹⁷⁴ eta 1655ean 3 serora zeudela dakigu¹⁷⁵, eta 1677an egin zen –eta ondorengo kapituluetan azalduko dugun– hitzarmen batean berriz, aurrerantzean parrokiari 2 serora izan zitezela adostu zen¹⁷⁶. Hauek, zehazki noiztik ez badakigu ere, 1655ean parrokia ondoko etxe batean bizi zirela dakigu¹⁷⁷. Elosua auzoko San Andres parrokiarako 1595eko berriak baino ezin ditugu ekarri; orduan, ugari ziren serorak parrokia ondoko seroretxean. Jada 4 zeuden, eta beste 2k egin zuten bertako serora izateko eskaera apezpikutzara¹⁷⁸. Beste datuekiko urteen aldea aintzat harturik eta moderatu xamar ibiltzeko, 4 serora kontatu ditzagun. Denera, hiru parrokiatan 10 bat serora, eta hiribilduan beste 8, 18 inguru. Aipatu berri ditugunez gain ospitaleetako serorak ere izan ohi ziren, baina lan honetako ospitaleetako seroren ikerketaren mugak direla eta –aurreko kapituluan azalduko arrazoiak medio–, eta Bergarako ospitaleko seroren berri gehiegirik jaso ez dugunez, zuhurtziaz, ez ditugu kontuan hartuko. Gainera, badirudi Bergaran ohitura ospitaleko zerbitzua bikoteei alokatzearena izan zela, eta horrela, 1658ko matrikulan, Pedro de Ariztegui “mayoral”-a eta bere emazte Marina Martinez de Arana ageri zaizkigu lehen tokian aipaturik. Horrez gain, abizenengatik, printzipioz behintzat, lehen biek in erlazio zuzenik ez zutela dirudien beste hiru emakume, hauetariko baten semea eta gizon bat ageri zaizkigu, baina beste azalpenik gabe. Emakume hauen artekoen bat serora ote zen zehazten ez zaigunez, esan bezala, ez ditugu zerrendaketa honetan baitaratuko.

San Pedro parrokiako 1658ko eliztarren matrikulan parrokiari atxikiriko ermitetako seroretxeetan ere aipatzen zaizkigu zenbait serora, 5 zehazki: San Juanekoan, Maria de Lizarralde alarguna; Ariztetako San Migelekoan, Ana de Larrea eta serora-laguntzaitzat, seroraren iloba, Isabel de Larrea; eta San Martinekoan, Francisca de Essenagusia eta serora-laguntzaile lez bere ahizpa, Maria de Essenagusia. Hauen arteko lehena, Maria de Lizarralde, alargun bezala baino ez zen aipatu, eta beste bi ermitetan ere, serora nagusiei baino ez zitzairen “beata” izena eman (Zenbaiten artean 1994, 183-212). Honek abituaren eramatearekin zerikusia izango zuela pentsatzen dugu. San Pedrori atxikiriko ermitetan 1658an zeuden serora hauei, gerturapen orokor hau osatzeko, 1607an, Kalagorriko Apezpikutzatik seroren bizimoduaren inguruko

¹⁷⁴ Catalina de Sarralde seroratzat sartu nahi izan zuenean izan ziren liskarretan ematen zaigu kopuru honen berri, jada behar ziren beste bazirela eta (GPAH-AHPG 1/0135, 236r-238r).

¹⁷⁵ Seroretxean izan ziren eta ondorengo orrietan zabalago azalduko ditugun liskar batzuetan hiru serora azaltzen zaizkigu (GPAH-AHPG 1/0312, 399r-402v).

¹⁷⁶ GPAH-AHPG 1/0324, 72r-73r.

¹⁷⁷ Goraxeago eman berri dugun 175 oinpeko notan aipaturiko liskarretatik dakigu hau.

¹⁷⁸ GPAH-AHPG 1/0133, 435r-443v eta 542r-543v. Ikus IV. 1.1.3. kap., 300 eta hurr. or.

galdeketaren bat egiteko asmotan zebiltzala jakin zutenean, Santa Marinari atxikiriko ermitetako serorek helarazi zuten ahalorde amankomunean izena eman zutenak gehituko dizkiegu: San Fauston Catalina de Ybarçaua eta Catalina de Gallaiztegui (hauek “en su propia cassa destinada” bizi ziren), San Juanen Maria de Olabarria, Santiagon Magdalena de Yribe, Murinondoko Andre Marian Marina de Urquiola eta Magdalena de Abrain, Santa Luzian Magdalena de Telleriarte, Santa Engrazian Maria de Barrutia eta Catalina de Sauala, Leizariako San Lorentzon Marina de Çubiarte eta Maria de Ueiztegui, eta San Martinen Marina de Aumategui eta Magdalena de Yturbe. Era berean, serora hauek guztiak “con sus abitos deçentes de freilas” zeudela zioten, eta hortaz, –1658an San Juan ermitan zegoen Maria de Lizarralde alarguna bezala– abiturik gabe zerbitzen zutenak zerrenda honetatik kanpo gelditu zitezkeela pentsatu beharrean gaude; areago, euren aurkako neurriak hartzeaz zeudela pentsatzen zuten serora batzuen testuinguruan¹⁷⁹. Gainera, eskakizuna “por si y por las demas beatas enfremas” egiten zutela ere zehaztu zuten, serora gehiago bazirela ziurtatuz, eta beraz, serora hauek ez ziren Santa Marina parrokiari atxikiriko ermita guztietan zeudenak; izan ere, hainbat ermitaren berririk ez baitzen eman. Ermitetarako jaso ditugun datu hauek, abituaren erabilerak izkribauen aldetik izan zezakeen “filtro” efektuaz bestalde, hamar ermitetatik jasoak direla aintzat hartu beharrean gaude, eta Lope Martínez de Isastiren 1625eko Bergarako ermiten zerrendaketari erreparatzen badiogu, hamazortzi aipatu zituela ikusiko dugu (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 221-222). Agian, hain prezeski ere, aipatu ez ziren ermitetarako aldeak, gaixorik omen zeudenez gain, abiturik gabeko serorak zeudenen espazioa ere zedarrituko liguke. Baina honekiko, noski, serorarik gabeko ermitak ere izan zitezkeela aintzat hartu beharrean gaude. Guzti honi, gainera, Santa Marina parrokiari atxikiriko ermitetako seroren datuak XVII. mende hasieratako seroren aurkako lehen desagerrarazte saiakeraren aurretikoak direla gehitu beharrean gaude; izan ere, ikusi bezala, datuen jatorri dugun ahalordea saiakera horren susmora serorek eurek izandako erreakzioari dagokio. Nahiz eta saiakera honetatik Bergarako serorak onik irten zirela badakigun, aurrerago ikusiko dugun lez, seroren aurkako ekinaldi honek izan zituen ondorioak ez genituzke gutxietsi behar; beraz, beste behin datuak zuhurtziaz baloratzea litzateke egokiena, eta agian, Santa Marina parrokiari atxikiriko ermitetan XVII. mendearen erdialdean (gainontzeko datuak garai horri baitagozkio) mendearen hasieran zeuden serorak baino gutxiago egon zitezkeela aintzat hartu beharko genuke.

Edonola ere, laburbildu ditzagun eskuratu ahal izan ditugun datu hauek. Azken zerrenda honetan San Juan ermita errepikaturik ageri zaigunez, serora bat gutxiago kontatuz, beste 12 serora genituzke San Pedrorako atxikiriko ermitetakoei gehitzekoak. 12 eta 5, bada, 17. Datuak jaso izan ditugun XVII. mende hasiera-erdialde inguru hartan, beraz, parrokiatiko eta ermitetako seroren behetik jotako kopurua 35 serorarena litzateke. Garaian herrian zeuden mojen kopuruarekiko konparazio baterako, 1658ko San Pedroko matrikulak Goenkaleko Trinitate Santuaren komentuan 27 moja aipatu zituela ikusten dugunez (Zenbaiten artean 1994, 197-198), zenbait galdera datozkigu honen harira: Aro Berrian erlijiozko bizitzari loturiko emakumeen artean, mojak al ziren benetan nagusi, garaiko topikoak iradokitzen duen lez? Hau da, ezkontza / komentua dikotomia, garaiko emakumeek gizarte baitan txertatzeko zeuzkaten aukeren adierazle lez, bere hortan hartu beharko ote genuke garai historiko hartako emakumeen egoera sozial –eta erlijioso– errealean erakusgarritzat, ala hau horrela zela besterik gabe onarturik, garaian bertan zabaldu nahi izan zen topiko dotrinala azalpen historiko ustez fidagarrietara antzaldatu baino ez ote dugu egiten? Probintzia mailan klausuraren ezarpenari –XVI. mende bukaeran– ekin zitzaion lehen herria izan zen Bergara bezalako

¹⁷⁹ GPAH-AHPG 1/0185, 184v-185r.

testuinguru batean XVII. mendearen erdialdean serorak mojak baino gehiago baziren, ez ote genuke dikotomia hau birkontsideratu beharko, ezaugarri historiko faktikotzat beharrean, besterik gabe, ideologia mailan izan zen korrante eraginkorreneko topiko bezala baloratu? Eta beraz, ez ote genuke serorek azaltzen diguten bizitza erlijioso eta laiko arteko “erdibidea” ere emakumeek izan zitzaketen bizimodu ezberdinen arteko beste aukera ohizko eta normal bat bezala hauteman beharko, eta Aro Berriko gizartearen –eta bereziki emakumeen– historiaren azalpenen baitan horrela txertatu beharko? Zerk motibatzen du Aro Berriko emakumeen bizitza sozial eta erlijiosoaren inguruko ikuspegiaren itxuraldaketa hau, garaiko topikoez beste, gaur egungo historiografia orokorraren baitan ere txertatua dena?

Herri bakar bateko zerrendaketa baten isladan planteatzeko galdera handiegiak badira ere, galdera hauek, eta beste zenbait, izango dira ondorengo orrietan argitzen saiatuko garenak, noski, sarreratzat balio digun zerrendaketa honez gain, beste hainbat iturritako datuetara ere joaz. Eginkizun honetarako lehen pausua, aukeratu dugun ikerketa-espazioaren baitako seroren egoera ezberdinen ezaugarri orokorrak zedarrizten saiatzea izango dugu, horretarako, batez ere izendapenek eta parrokia eta ermitetako liburuek dakarzikiguten datuez baliatuz. Izan ere, dokumentu hauek, serorak bere kargurako sarrera egiten zuenean zeukan testuinguruaren berri modu egokian ematen digute, era berean, gairako sarrera bideratzeko baliagarri zaizkigun datu interesgarriak emanaz. Azaltzen dizkiguten datu ezberdinen artean, lehenik tenpluen patroitza ezberdinak aipatu beharrean gaude. Seroren egoera ez zen berbera patroitza elizarena, udalarena, partikularra, herritarrena edo auzotarrena, edo mistoa zenaren arabera, eta beste hainbat alderditan ere eragiten zuen; dokumentuak isladatazen zituen formula erritualak, dotearen ematea edo ausentzia, soldadak eta emolumentuak, karguari zegozkion betekizunak, etab. Alderdi guzti hauetan patroitzaren faktoreari oso lotua zegoen seroren aukeraketa eskubideak ere eragiten zuen. Eskubide hau ez zen beti patroitza zeukan botere-esparruaren esku egoten, eta berez, hau askotan gertatzen zela berretsi ahal izan dugu, aurrerago ikusten joango garenez¹⁸⁰.

Aukeraketarekiko, bestalde, 1555eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan ermiten, ospitalen eta legenardundegien administraziorako pertsonen aukeraketari buruz soilki “si el concejo quisiere con el cura poner vna buena persona para la tal administracion, que lo puedan hazer ambos a dos, y den cuenta cada año en concejo delante clerigos y legos de el lugar” aipatu bazen (Díaz de Luco 1555, LXIVr), 1602ko

¹⁸⁰ Seroratzak kasu konkretuez haratago, ikuspegi orokor batetik azaltzen saiatu diren autoreen artean, patroitzarekikoak era labur eta sintetiko batean, esate baterako, Aguirre Sorondok laburbiltzen dizkigu, nahiz eta, beste hainbat autorek bezala, patroitza eta izendapen eskubidea eragile bereberei zegozkiela dioskun (aurrerago ikusiko dugunez, ez zen beti horrela gertatzen), eta bere aipu honetan mintzagai ermitak baino hartu ez zituen, parrokiak ere berdintsu sailkatu zitezkeenean: "Las ermitas se dividían según su propiedad o patronato (esto es, suma de derechos y obligaciones) en: eclesiales (dependientes del clero de la villa), concejiles (del concejo o ayuntamiento), seglares (familia o solar) y mixtas (compartidas)" (Aguirre Sorondo 1995a, 109). Aguirre Sorondok aipaturikoez gain, edo "concejiles"-en arteko bereiz, beste autore batzuek aintzat harturiko patroitza moeta bat ere aipagarria dugu: herritar edo auzotarrena, batzar irekian egiten zena.

Zudairek, esaterako, zenbait urte lehenago posibilitate hau presente zegoela ziurtatu ahal izan zuen Baztaneko (Nafarroa) seroren aurka Iruñako Apezpikutzatik abiatu zen prozesu judizial bat ikergai izan zuenean. Izendapenak bermatzeko -Apezpikutzak helarazten zituen- tituluak eskatu zitzaizkienean, serora gehienek uestezko titulu bat izan zuten aipagai, beraien izendapena egin zuten eragileen zerrendaketa bat emanez: "en su alegación, todas acuden a un presunto título que justificaba su actuación: el nombramiento que han recibido verbalmente del cabildo y pueblo, o de los patronos de las iglesias (Errazu), de los vecinos (Arrayoz y Ciga), de los curas (Arizcun), de los jurados y vecinos (Ornoz). No hay uniformidad en cuanto a la concesión de títulos, pese a la seriedad con que afirman a veces, ser la costumbre de todo el valle" (Zudaire 1978, 439).

konstituzioetan jada espezifikoki serorei eskeiniriko errubrikan “muerta la dicha frayla anciana, no se reciba otra sin nuestra expressa licencia” zehaztu zen; ordundik aurrera, ofizialki behintzat, izendapenak, egin zitzanak eginik ere, apezpikutzak berretsiak baziren soilik ziren balizkoak (Manso 1602, 88r). Iruñako apezpikutzako egoera bestelakoa zen, 1585ean Juan de Undiano ermitauak ermitauen erreforma bat bultzatzeari ekin zionaz geroztik, hainbat neurri hartzeari ekin baitzitzaion, eta 1590ko Konstituzio Sinodaletan erreforma honen jarraibideak islatu baitziren (Goñi Gaztambide 1965, 78-81). Eta hala, ermitetako serorei zegokienean, jada 1590eko konstituzio hauek geroztik ezarri ziren seroraren -edo ermitauaren- bizitzaren egokitasunaren gaineko informazio jasotzea, hauek ezkongabeak izatearen araua, apezpikutzako lizentziaren beharra, eta ermitauez beste, zehazki seroren kasuan, baita 40 urtetik gorakoak izatearen betekizuna ere (Rojas y Sandoval 1590, 93v). Baionako apezpikutzari dagokionez, 1749ko konstituzio sinodaletan "anciennes ordonnances"-etan (1666ko Olce-ko Monsinorearen *Statuta Synodalia* zirelakoak ote?) jaso izan zena berretsi zuten: apezpikutzaren aldetiko onarpenaren beharra, seroragaia 30 urtetik gorakoa izatea eta bere bizimodu ona eta bertuteak frogatuak izatea (D'Arche 1749, 10). Hurrengo kapituluan azalduko ditugu arautegi hauen ingurukoak zehatzago; oraingoz bego ikuspegi orokor hau, patroitzaren eta aukeraketaren alderdiei dagozkien azalpenetarako.

Lizentziaren kontu hau ez zen beti eta leku guztietan errespetatzen, ez eta aukeraketarako erabakiortzat hartzen ere, hautagaien artean konpondu beharreko liskarrik ez zegoen artean behintzat. Baina auzitan sartuaz gero, aspektu erabakigarriak izatera hel zitezkeen. Eta era berean, honez gero nabaria zaigunez, lurralde ezberdinei zegozkien Konstituzio Sinodaletan izendapenetarako ezarri ziren eragileak ere (apezak eta kontzejua) ez ziren beti izendapena egiten zutenak, ez eta beti patroiak ere. Lehen gerturapen honetan aintzat hartu beharreko beste faktore nabari bat zerbitzen zuten tenpluaren izaerarena dugu: parrokiak, ermitak, santutegiak, ospitaleak, aterpetxeak edo ospizioak oso ezaugarri ezberdinak izan zitzaizketen tenpluak eta eraikinak ziren, eta inguruko botere-esparruekiko zituzten erlazioak ere oso modu ezberdinetan josten ziren.

Gaia ikergai izan duten autoreen azaleko jarraipen bat eginez, Larramendik eta Henaoren *Averiguaciones...* lanaren 6. liburukiko gehigarrien egileak izendapenak patroiek egiten zituztela esan bazuten ere (Larramendi 1985 -1754-, 136; Hena 1980 -1689-1691/1895-, 115), ondorengo zenbait autorek ohartu zuten, patroitza eta izendapena beti ez zutela eragile berdinek egiten. Webster-ek patroitzarekiko lehen bi autore hauek esandakoa jaso zuen (Webster 1911, 143-144, 147), baina bere datu bilketan 1700ean M. Le Bret intendenteak idatziriko memoria baten aipua ere jaso zuen, zeinaren arabera, garai hartan Nafarroa Behereko izendapenetarako ohitura "orokorra" "por el cura y los parroquianos"-ek egina izatea omen zen (*Ibid.*, 146); ez ziren hauek kasu guzti-guztietan tenpluen patroizango, baina izendapena eurek egitea omen zen ohitura. Ia mende bat geroago, Lafourcadek, -ohituraren salbuespentzat- patroitza partikularren eta bestelako kasuak ere aipatzearekin bat, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko egoera orokorrak antzerako terminotan azaldu zitzaizkion, eta Peñaranda Garcíak egoera honen antzerakoa Nafarroa Garairako ere berretsi zigun, lekuan lekuko aldaerak ere batera arraroak ez zirela agertuz¹⁸¹.

¹⁸¹ Lafourcadek Lapurdiko eta Nafarroa Behereko berri interesgarriak jaso izan zituen; beti ere aniztasun baten barranean, Lapurdin ohitura orokorraren izendapena -apezarekin, edo gabe- herritarren batzarrean egitea izan zen artean, Nafarroa Beherean, egoera orokorra antzerakoa izanik ere, ohizkoagoak ziren patroiz partikularrek egindako izendapenen kasuak: "Au décès de la benoîte, sa charge était le plus souvent **mise aux enchères** par la communauté des habitants, représentée par les maîtres de maison réunis en assemblée capitulaire. [...]"

Baina patroien eta izendapenen arteko loturak ez ziren beti garbiak izaten, eta botere esparruen arteko liskar ugari izan ziren tarteko, seroragai baten edo beste baten alde egin nahi izateagatik, ala besterik gabe, seroratzaren gaineko eskumenak herrietako beste eragileen aurrean norbere boterea eta ohorea bermatzeko aitzakiatzat hartuz. XX. mendearen erdialdera, Areitiok izendapenen inguruan patroiek eta bestelako eragileek izan zituzten liskarren berri emana zuen jada: "innumerables pleitos entre patronos y cabildos y pueblos, que duraron varios siglos" izanak omen ziren, eta Begoñako (Bizkaia) kasu interesgarri baten berri eman zigun; bertan serora baten aukeraketak botere esparru ezberdinen artean sor zitzakeen tentsioak eta liskarrak ageri zaizkigu¹⁸².

Larramendik eta Henaok aipaturiko patroiek eta Webster-ek jasoriko M. Le Bret intendentearen aipuko "el cura y los parroquianos"-ek izaten zituzten batzuetan liskarren

Dans certaines paroisses où l'église avait été fondée par le maître d'une maison noble, ses descendants jouissaient de certains privilèges honorifiques dont celui de présenter le curé en cas de vacance à l'agrément de l'Evêque et aussi de participer à la nomination de la benoîte, alors que les nobles, en Labourd, étaient exclus des assemblées paroissiales, sauf à Saint-Pée-sur-Nivelle et à Urrugne. Ce privilège était exceptionnel en Labourd et n'appartenait qu'aux maîtres de la maison noble d'Arcangues, aux vicomtes d'Urtubie à Urrugne et à Hendaye, aux seigneurs de Saint-Pée-sur-Nivelle, aux seigneurs de la maison de Macaye dans cette paroisse, aux barons de Lacarre à Larressore et à Halsou, et aux abbés de l'abbaye des Premontres à Lahonce et à Urcuit.

En Basse-Navarre où la féodalité s'était largement implantée, il était plus fréquent. Parfois, comme à Anglet ou Uhart-Cize, le droit de patronage de la cure appartenait au chapitre de la cathédrale de Bayonne, ou, comme à Hasparren, Béhorléguy, Saint-Jean-Pied-de-Port, il était partagé entre l'Evêque de Bayonne qui en jouissait de janvier à juin et le chapitre de la cathédrale de juillet à décembre. A Ayherre, l'Evêque intervenait seul. [...]

Mais le droit de présentation de la benoîte appartint aux maîtres de maison de la paroisse, comme généralement en Labourd, au aux descendants du fondateur de l'église paroissiale, ce choix faisait l'objet d'un contrat rédigé par un notaire entre l'abbé (nom donné au maire dans les communautés rurales sous l'Ancien Régime) qui représentait la communauté villageoise, assisté ou non de jurats (alias, conseillers municipaux) et les maîtres de la maison natale de la benoîte" (Lafourcade 1991, 28-30). Zehaztaren garrantzitsu bat egiten du hemen Lafourcadek, nahasketak ekiditeko beharrezkoa duguna: gauza bat serora aurkezteko eskubidea zen, eta bestea, seroratzarako sarrera-kontratua noren artean egiten zen (apezaren -eta batzutan, udaleko ordezkarien- eta seroraren guraso edo erantzuleen artean). Peñaranda Garciak Nafarroa Garaia izan zuen ikerketarako eremua, eta ohizkotasunari bezalaxe salbuespenei dagokienean ere, Lafourcadek Lapurdirako eta Nafarroa Behererako azaldu zigun antzerako egoera deskribatu zigun:

"En la mayor parte de los casos, los que nombraban a las seroras eran los vecinos y concejo del lugar, por ser ellos los patronos. Este es el caso de la ermita de Nuestra Señora de Musquilda y los lugares de Ripa/Guenduláin y Olcoz.

Un caso curioso es el de Guembe, donde el abad y los vecinos suscribieron un convenio por el que se alternaban en la nominación de la persona que había de cuidar del templo.

En el Baztán, aunque el patronato de la iglesia perteneciera a una familia particular, el derecho de presentación de seroras lo tenía el pueblo. Esto ocurría en Azpilcueta, Lecároz, Almádoz, Elvetea, Arráyoiz, NARBARTO, Oyeregui, Oronoz, Maya, Ciga, Echalar, Yanci, Arizcun y Errazu.

La basilica del barrio de la Magdalena 'forma parte de la hospitaleria de la catedral, y por tanto solo el hospitalero depone y provee en todo lo tocante a la dicha basilica y oratorio (...), y de tiempo ynmemorial a esta parte siempre an puesto los hospitaleros en la casa y avitacion de la dicha basilica una muger de hedad, honrada y onesta a quien llaman reclusa'.

El nombramiento de serora se hacía públicamente por los patronos de las parroquias y ermitas o por quien correspondiese en cada caso" (Peñaranda García 2002, 305).

¹⁸² "A principios del siglo XVI se entabló un ruidoso pleito entre los patronos de Begoña don Juan López de Escoriaza y doña Teresa Luis de Butrón con los fieles, escuderos, omes fijos dalgo y vecinos y moradores de la anteiglesia 'sobre razón e causa de poner la freila en la ermita de Santo Domingo de Meazábal'.

Los patronos habían nombrado a María Ortiz de Ugaldeguren y los fieles de la República la separaron del cargo y nombraron a Catalina de Arza.

El Corregidor mandó al teniente de prestamero Domingo de Zárate repusiera a la nombrada por los patronos.

batzuek, serora aukeratzeko orduan. Baina eliztarren eta patroien artekoa ez zen patroitzaren eta seroren aukeraketa eskubidearen inguruan izan ohi ziren liskarren ardatz bakarra, liskarrotan ere patroiz izan zitezkeen botere esparru guztiek parte hartu baitzezaketen. Eta hala, Areitioz gain, XX. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik gaia ikergai izan duten autore askok eman dute hainbat adibideren berri. Eliz hierarkien artekoak¹⁸³, hauen eta herrietako instituzioen eta herritarren artekoak¹⁸⁴, jauntxo boteretsuen eta udalen artekoak¹⁸⁵, etxe boteretsuen eta elizgizonen artekoak¹⁸⁶, etxe boteretsuen eta herritarren artekoak¹⁸⁷, eta beste hainbat kasu. Tenpluak izatera heldu zitezkeen patroiz eta biztanleriarekiko lotura ezberdinak besteko liskarren kasuistika bat ageri zaigu, noski, batere arazorik gabe egin ziren beste izendapen sorta baten alboan.

Mas el rector de Santo Domingo, don Pedro Abad de Uríbarri, Beneficiado de Bilbao y tío de Catalina, nombrada por el pueblo se opuso al mandamiento del Corregidor, alegando que la ermita era aneja de las parroquias de Bilbao. Los patronos, luego de ésto, no le consintieron celebrar los oficios divinos, sacándole de la ermita; recurrió al juez mayor de Valladolid, el cual anuló y revocó la sentencia del Corregidor por extralimitación, porque la ejecutoria solo se dió en litigio entre los patronos y los fieles y parroquianos de Begoña y no contra el rector y que la ejecutoria no podía extenderse contra el personal del cabildo de Bilbao y también hubo extralimitación en cerrar la ermita y no dejar al rector a cumplir su oficio religioso. Se mandó poner al patrón en posesión de la ermita y en cuanto a la guarda de la custodia, cálices, cruz y otros ornamentos y cosas de los divinos oficios se observase lo que el prelado o su visitador hubieren encargado" (Areitio 1959, 179-180).

¹⁸³ Saint-Martinek honako kasua aipatu zigun: "Se debe considerar el hecho de la meticulosa justicia con que se procedía al nombramiento de serora en el largo conflicto que enfrentó al Mons. Arche con el Capítulo, porque el obispo había nombrado serora para Benloc, antigua dependencia de Roncesvalles, cedida al obispo de Bayona en el año de 1772" (Saint-Martin 1976, 161-162).

¹⁸⁴ Lasak, jarraian aipuan ikusiko dugun auziari sarrera egiteko, zera gertatu ohi zela zioen: "Cuando no había patronato especial, se reunía todo el pueblo juntamente con el Párroco en la iglesia o en algún otro lugar, y procedían a la elección". Eta ondorengo bezalako kasuak gertatzen ziren; Donostian (Gipuzkoa) izan zen, 1734an, Antiguoko San Sebastián parrokiako serora aukeratzekoan: "El año 1737 [*sic, baina akatsa behar du, ondoren 1734a aipatzen baitu*] fue nombrada serora de la referida Parroquia del Antiguo, Mariana de Echaondo, criada de las monjas dominicas (que con paso al coro se servían de la misma iglesia) por 300 ducados de dote, prefiriendo a María Josefa de Aguirre, natural de San Sebastián, que ofreció 400 ducados. Y aunque los parroquianos y el Mayordomo habían informado de este detalle al Sr. Obispo de Pamplona, concedió su Iltma. el título a la nombrada por los dominicos, y tomó posesión de la Seroría [...].

Los parroquianos elevaron un memorial a la Diputación, exponiendo el caso. Los motivos principales de su protesta se basaban en la costumbre inmemorial, según decían, de preferir a la que daba mayor dote, ya que ésta se destinaba para el sostenimiento de los gastos de la iglesia y mayor esplendor y decencia del culto divino en las parroquias. [...]

La Provincia de Guipúzcoa dirigió una carta el Prior de San Telmo solicitando fuese revocado el nombramiento. Y el Prior le contestó de forma muy respetuosa, diciendo que la Comunidad de San Telmo era la única patrona, y que los parroquianos carecían de voz y voto en el asunto del nombramiento. En vista de este comunicado, se reunió la Diputación con el Corregidor de Guipúzcoa y otros elementos representativos en la ciudad de San Sebastián el día 17 de septiembre de 1734, y otorgó todo su poder a Dionisio de Huarte, Procurador de la Causa en el tribunal del Obispado de Pamplona para que compareciese y pidiese la nulidad del nombramiento de la citada serora. Y el Tribunal Eclesiástico de Pamplona falló el día 3 de julio, confirmando el título despachado a la Serora y amparándola en la posesión tomada. Y luego se apeló contra esta sentencia ante el Nuncio de S.S. en España. La Nunciatura pidió la compulsación de la documentación de los archivos, y en esta tarea se hallaban ocupados en año 1736. ¿Cómo terminó el pleito? Desconozco, pero sospecho que el tiempo arregló, lo que no pudieron los hombres" (Lasa 1977, 190-191).

Azpiazuk udalen eta elizako agintarien arteko liskarren beste bi adibide bildu zituen; lehena, Urretxun (Gipuzkoa) gertatu zen: "En Urretxu se dió un enfrentamiento entre el vicario y los síndicos del concejo sobre las atribuciones de la serora mayor y sobre quién debía ejercer como tal. Los clérigos, muerta la anterior serora mayor, habían nombrado como sucesora a Catalina de Yrigoyen, y le habían entregado las llaves de la iglesia, mientras que el pueblo y las autoridades municipales apoyaban la candidatura de Catalina de Altuna. Ante este enfrentamiento Yrigoyen quiso renunciar a su puesto, admitiendo que la otra había sido su maestra y en atención a su mayor edad". Beste adibideak XVI.

Serorei buruzko historiografiaren garapenaren baitan, aipatu berri ditugun alderdiei eta ondoren azalduko ditugunei erreparatzerakoan, bi iturri dokumental izan dira nagusi: izendapenak eta auziak, udaletako eta elizako arlo ezberdinetako artxiboetan aurkituak. Oso autore gutxi izan dira, esaterako, protokoloetako dokumentazioa (alor pertsonalagokoa) seroren berrien bila harakatu dutenak. Hauen arteko aipagarriena Azpiazu dugu; eta hain zuzen ere, protokoloetako informazioaz baliatuz, beste autoreek aipatu izan ez dituzten zenbait aspekturen inguruko berriak eman ahal izan zituen (ehunen eta ohialen inguruko negozioak, mailegutza, etab.). Ikertu eta argitaratu izan den dokumentazioaren izaera mugatuak ere, beraz, eragin du alderdi hauen inguruko hautemapen orokorrean.

mendearen bigarren erdialdeko Soraluzera (Gipuzkoa) garamatza: "Un documento de 1575 nos revela que el 'contrato' se establecía 'En las puertas de la casa de las freylas de la yglesia parrochial de nuestra señora santa maría'. La reunión, presidida por autoridades civiles y eclesiásticas, debía contar con la aprobación de ambos sectores. Si se intentaba soslayar este paso, la elección corría el riesgo de quedar anulada, como ocurrió en 1558, cuando se pretendió admitir a una freira sin el conocimiento de los mayordomos. Estos presentaron la correspondiente queja argumentando que síndico, alcalde y curas habían procedido 'de su propio motu e sin dar parte al concejo y vezinos de la dicha villa', y que habían querido 'resçivir y admitir en las dichas casas de las freylas de la dicha villa a françisca de loyola...contra todo lo hasta aquí en la dicha villa husado'. Por las acusaciones de los mayordomos sabemos que no se trató de un olvido casual, sino intencionado, puesto que se menciona la existencia de otras candidatas, que sin duda hubieran recibido el apoyo de los mayordomos puesto que aportaban más dinero para la fábrica de la iglesia. Ante semejante desconsideración, los mayordomos decidieron dar por inválida la elección" (Azpiazu 1995a, 54-55).

Azkenik, Jimeno Juríok Artaxoan (Nafarroa Garaia) 1533an izan zen auzi baten berri ere eman zigun; bertan udal agintariak eta itxuraz -hitzarmenez aukeratu ziren bi epaileen egoera zibilei erreparatuaz gero- eliz agintariak izendatu zuten bigarren serora bat izan ziren auzitan, azken honen izendapena zela eta: "María Sanz de Berástegui era entonces 'monja, reclusa y emparedada' para toda su vida, elegida y nombrada por el alcalde, jurados y concejo. Hacia vida retirada en la casa que las emparedadas tenían habilitada en la iglesia de San Pedro, templo dependiente antiguamente de la parroquia de San Cernin del Cerco. Por su parte, María Goyena debió conseguir algún permiso y pretendía tener derecho y título para hacer vida de monja en la misma casa, y había comenzado a vivir allí. Protestó el Ayuntamiento por no haber sido él quien nombrara a la Goyena, según era costumbre inmemorial. A ello debió unirse la falta de espacio físico para vivir dos mujeres juntas en sus respectivas celdas. La Goyena, creyéndose con derecho a vivir su vocación en la casa de San Pedro, entabló pleito, que llegó en grado de apelación ante el metropolitano de Zaragoza.

El alcalde, jurados y veintena, reunidos en la cambra concejal de la villa, sostenían que 'ninguna persona puede ser ni ha sido monja en dicha casa, sino por la mano y consentimiento del concejo, según que de tiempo ynmemorial a esta parte ha sido, sin contrario alguno'. Auzia itxi nahian Iruñako apezpikuaren idazkaria (Martín de Ollacarizqueta) eta alkatea (Miguel Lasterra) epailetzat aukeratu zituzten, eta biek erabaki zuten sententzian 'alcalde, jurados y concejo'-k serora aukeratzeko zeukaten eskubidea bermatu zen: "Otrossi por quanto nos consta y parece que, de tiempo prescripto e inmemorial a esta parte, la monja o monjas que han seydo en la dicha casa de la yglesia de Sant Pedro de la villa, han seydo puestas por mano de los alcaldes, jurados y concejo de la villa de Artaxona a su mera voluntad, sin que otra cosa aya seydo en contrario, por tanto sentenciamos y declaramos que las que dende aquí adelante serán monjas o emparedadas en la dicha casa, sean puestas personas debotas y honestas por los alcalde, jurados y concejo de la villa de Artaxona, qui de presente son o por tiempo serán, y segunt y como ataquí han usado y acostumbrado, y que la dicha María Goyena aya de desistir y renunçiar del pleito y qualquiere drecho que tiene por otra via, so la pena en el compromiso contenida, aplicada como por aquel es repartida" (Jimeno Jurío 1997, 71-73).

¹⁸⁵ Azpiazuk Azkoitian (Gipuzkoa) 1564an gertaturikoaren berri eman zigun: "Al fallecer la antigua freira de San Juan de la Peña, en Azcoitia, en 1564, se establece una competición para ocupar el puesto vacante. María López de Madalçaeta ocupó la primera plaza, avalada por el comendador Zuazola, al que le unían lazos de parentesco. Pero esta treta para suministrar esa forma de vida a una familiar chocó con la oposición del concejo, que reaccionó violentamente ante la irregular ocupación de la ermita. [...] Los representantes del concejo alegan ser ellos los únicos patronos de la ermita, construida en terreno concejil, reparada y atendida por el ayuntamiento, que se ocupaba de que no faltasen cáliz, ornamentos y demás medios de culto. El comendador Zuazola había actuado contra todo derecho, ocupando la ermita 'oculta e

Izendapenetan jasotzen den informazioaren artean, faktore hauek eragiten zieten seroratzaren beste zenbait ezaugarri ere zehazturik ageri zaizkigu. Lehenik eta behin, seroraren familia-erlazioak aipatu ohi dira. Bere gurasoen edo beste familia-kideen berri eman ohi da, eta honek gizarte erlazioen testuingurura gerturazten gaitu; familia boteretsua zen edo ez, hiribilduko testuinguru burgesetik heldua ote zen edo bere arbasoak landa-eremuko botere-esparruetan kokatzen ziren, edo jatorri txiroa zuen, edo ermiten kasuan bertako maiordomoaren ahaidea ote zen, edo patroitza partikularren kasuan patriaren familia-kidea zen, edo/eta beste hainbat gauza jakin litezke datu hauetatik abiatuz. Dotearen ematea ere askotan erlazio hauen izaerari ere loturik egon ohi zen. Doterik ematen ote zen eta honen kopurua aipatu ohi da, eta datu hauek,

clandestinamente', sin avisar a los verdaderos patronos" (Azpiazu 1995a, 47-48).

¹⁸⁶ Lazkaoko (Gipuzkoa) kasu batean, seroren aukeraketa eskubidearen inguruko interesez beste, liskar hauetan eragin zezaketen beste faktore pertsonalago batzuen berri ere ematen zaigu; hau da, serorak botere esparruetako eragile ezberdinekin zeuzkan loturen pisua, zeharka bada ere, nabari ageri zaigu. 1616an parrokiako serora zen María de Huarteren eta "doña" María de Iribe, Iribe jauregiko jabearen arteko auzi bati ekin zitzaion. Gorpuzti-eguneko prozesioan Iribeko andere nagusiak, bere seme-alaben laguntzarekin, parrokiako seroraren aurretik joan nahi izan zuen. Testigantza askok seroraren alde egin zuten, itxuraz, Lazkaoko prozesiotarako tradiziozko ohiturak seroraren alde egiten baizuen. Baina parrokiako serora ez zen Iribeko anderearen eta beste etxe nagusietako andereen gustokoa, herriko etxe boteretsua zen Lazcano etxeko anderea barne: "Las 'señoras principales' no podían ni entender que una mujer 'tan ordinaria' como aquella pudiera precederles en actos de ofrenda y procesiones 'y si alguna vez se a ofrecido primero la dicha serora a ssido que las dichas señoras le an querido enviar como a criada y no por derecho que tenga al ofrecer primero la dicha serora". Aldi hartan Juan Francisco de Plaza bikarioak eta Francisco de Apalategui benefiziadunak, etxekoandre nagusiekin liskarrik ez baitzuten izan nahiko, seroraren aurka egin zuten, eta Iribeko andereak auzia irabazi zuen. Eta testuinguru hartan, apezek eta benefiziadunek liskar momentua seroren bazterterako probestu nahi izan zutelako dirudi. Izan ere, Lazcano etxeko andereak, liskarren zio izan zen serora 1642an hilik, hurrengo serora aukeratu zuenean, benefiziadunak honi zegozkion etekinak ukatzeari ekin baitzioten, izandako liskarrez gain, XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazterako neurrien giroa ere euren portaeraren aldeko eginez: "Doña María de Lazcano como patrona nombró serora a Magdalena de Apalategui, pero los beneficiados, bien fuese porque aspiraban a hacer los nombramientos ellos, o a repartirse la parte de las ofrendas que percibían las freiras o porque pensasen que su papel era superfluo, lo cierto es que impidieron a la nueva serora cobrar sus emolumentos. Ayuntamiento y cabildo estaban de acuerdo en que las seroras no eran necesarias y que "habían ocurrido muchas liviandades con ellas". La señora de Lazcano interpuso pleito a favor de su serora y en contra de cabildo y concejo. La sentencia fue favorable a la serora..." (Madariaga Orbea 2001, 17).

¹⁸⁷ Zizurkilen (Gipuzkoa) kasu adierazgarri batekin egin dugu topo; bertan, San Millan jauretxearen eta auzo berbereko bizilagunen arteko liskar batzuei ekin zitzaion 1526an, tentsioak berdintzeko xedez eman zirela diruditen bi sententzia eman arte bukatuko ez zirenak. 1526az geroztik, "San Millango Martin Ruiz Zizurkilgo kontzejuaren aurka salaketak jartzen aritu zen, San Millango Maria Miguel -bere familiarteko San Millango Miguelen alaba- bere gogoaren kontra eliza-parrokiako zaintzaile [hau da, testuaren gaztelerazko bertsioan ageri zaigunez, "serora"] izendatu zutelako". Antza denez, Martín Ruiz zelakoa ez zen bere ahaideren batzuekin oso ongi konpontzen. Gipuzkoako Korregidorearen aurrean bizilagunen ahaldunek honakoa esan zuten: "Maria Miguel 20 urtean ari zen eliza zaintzaile [serora] gisa, beraiek izendatuta, San Millandarren adostasunarekin. Era berean, 150 urte lehenagotik egiten zen hori herrian. Azaldu zuten, San Millango Martin Ruizek elizako zaintzaile karguan beste zerbitzari bat (Martico de Arrieta) jarri zuen, apostoluen buldei jaramonik egin gabe. Kanpaiak jotzeaz eta bestelako zereginetaz ere arduratzen zen, eta herritarrek beraren aurrera joan behar zuten limosnekin eta opari-gaiekin. San Millango Maria Miguel, bere aldetik, bizilagunen batzar batera joan zen, eta elizara inor ez zela joaten agertu zuen, eta, beraz, elikagaiak falta zituela, baina kontzejuak bere karguan jarraitzeko eskatu ziola, behar zuen guztia emango ziola aginduz". Azkenean sententziak San Millaneko jauretxearen alde egin bazuen ere, bizilagunek serora bere karguan mantendu zuten, honen beharren sostengua euren gain hartuz, eta jauretxeari aurre eginez. Hurrengo urtean eragile berberen arteko liskarrek jarraitu zuten, herrikoak ez ziren errektoreen aukeraketa akuilu zela. Bizilagunen arabera, San Millan jauretxeak egindako errektore aukeraketa, hau herrikoak izatearen ohituraren aurka zioan; ohitura hau Gipuzkoa guztian gordetzen omen zen, bestalde. Sententziak oraingoan bizilagunen alde egin zuen, baina jauretxeak ez zion sententziari 1530ean hurrengo jabea buru izatera iragan arte men egin. Bien bitartean seroraren

familiaren ondasunen eta serorek tenpluekin eta seroretxeekin mantentzen zituzten erlazio ekonomiko funtsezkoen berri ematen digute. Beste alderdi bat, era berean guzti honekin lotua dagoena, seroren egoera erlijioso eta zibilaren berri ematen diguna izan ohi da. Izan ere, ez baitzen berbera “doncella en cabello” zelarik kargura sartzen zen seroraren kasua, edo behin alargundurik sartzen zenarena, edo tenpluko sakristauaren emazte zen “sacristana”-rena, edo ermitetako ermitauen emazte ziren serorena. Batzuei zelibatua eta adin jakin bat esijitzen zitzaizkien, beste zenbaitei zelibatuaz gain baita ordena onarturen bateko abitua eramatea ere, eta ostera beste batzuei ez zitzaien halako ezer eskatzen, edo serora baziren beraien senarraren karguagatik zen (hau sakristaua edo ermitaua zelako), edo debozio hutsez serora lanak egiten hasten ziren eta auzotarrek onartzen zituzten eta kitto, etab.

Testuinguruan kokatzen hasteko beraz, faktore eta datu hauen inguruko azalpenak ematera gerturatuko gara lehenik, eta ondorengo orrietan beste alderdi batzuei sakonago ekingo diegu; hala nola izendapenak egiteko modu ezberdinak, seroretxeekiko zituzten erlazioak, ondasunekiko zituzten betekizun nahiz abantailak, etab. Badugu artean sakontzen joateko astirik. Kapitularako sarrera honetan partzialki jaso ditugun beste autoreen alderdi hauen inguruan eginiko ekarpenak, Euskal Herriko beste espazioei dagozkienak, ez gara hemen sakonki azaltzen hasiko; patroitzaren eta izendapen eskubidearen alderdiei begira hedatu ditugu batez ere azalpenak, gainontzeko alderdietan eragiten zuten ardatzezko faktoreak izateaz gain, gairako sarreraren baitan egoeren dibertsitatea irudikatzeko alderdirik esanguratsuena dugulako. Eta aspektu horietan zertxobait sakontzea sarrerarako baliagarri izanik ere, egokiagoa dirudi beste autoreek alderdi guztion inguruan egindako ekarpenak behin Debagoieneko serorei dagozkien datuak bildurik jasotzeak, horrela, lehen ondorio batzuetan, elkarren arteko erkapen bidez ikuspegi orokor osatuago bat eratu ahal izateko, eta bateko eta besteko datuak elkarren argitara interpretatu ahal izateko. Halaxe egingo dugu beraz.

Ur horietan sartu aurretik baina, badugu oraindik beste zereginik ere. Espazio konkretu ezberdinei erreparatzen hasi aurretik, beharrezkoa baitugu testuinguru historiko-geografikoaren azalpen orokorrarekin ekitea, ikergai izango ditugun pertsonaia eta gertakizunen itsaso zabala bistatik ez galtzeko. Bestela, urmael batean gaudela pentsaturik, ur zabaletan itotzeko arriskua izango genuke.

III. 1. TESTUINGURU HISTORIKO-GEOGRAFIKOA

Espero izan zitekeen bezalaxe, hiribilduetako parroketako seroren ingurukoa da bildu litekeen informazioaren parterik esanguratsuena. Azken finean, Aro Berriko bizimoduaren eta aktibitate garrantzitsuenen zentruak hiribilduak ziren, eta informazio iturri ditugun kontrol sozialerako instrumentu gehienak (tenplu ezberdinetako kontu-liburuak) eta izkribauak helaraziriko dokumentazioaren parterik handiena bertan sortzen zen, eta bertan mantendu eta kontserbatu izan da gaur eguneraino. Hala, hiribilduetako parrokia gehienetako kontu-liburuak gorde izan dira, eta elizate eta auzoetako eta ermitetako hainbat liburu gorde izan badira ere, mugatuagoa da dagokien espazioari buruz azaltzen diguten ikuspegi orokorra. Eta halaber, hiribilduetako parrokia gehienetarako aurkitu ahal izan ditut seroren izendapenen kasuak, elizateetako eta auzoetako parroketako eta ermitetako izendapenen kasuak bakan eta dispertsoagoak diren artean. Mugapen hauek, beraz, momentuoro eragingo dute testuinguru ezberdinen inguruan jaso ahal izango dugun informazioaren kopuruan eta izaeran.

aukeraketaren inguruko liskarrak ere bazerraien, eta ez zen 1540an Valladolideko Kantzeleriaren sententziak San Millan jauretxearen eskubideak bermatu zituen arte bukatu (Mora Afán 2005, 43-46).

Aro Berriko bizimodu erlijiosoari loturiko botere-espazio nagusiak parrokiak zirenez, hauen gaineko patroitzaren inguruan sortu izan ziren liskarrak eta gorabeherak ez ziren edonolakoak izan. Hala ere, auziak eta arazoak zirenak zirela, Debagoieneko parrokiaren batzuk Aro Berri guztian zehar patroitza berbera mantendu zuten: Arrasaten hiribilduko San Juan Bataiatzailea eta auzoetako parrokia guztiak (Uribarriko Andre Maria, Udalako San Esteban, Garagartzako San Migel eta Gesalibarko Santa Ageda), Eskoriatzan Marin auzoko Andre Maria, Bergarako San Pedro eta Leintz Gatzagako San Millan errege patroitzapekoak (eta jurisdikziopekoak) izan ziren, eta Oñatin hiribilduko San Migel, Araotz auzoko San Migel eta Urrexola auzoko Andre Maria, Antzuolako San Juan Bataiatzailea eta Gure Errukizko Ama (parrokia batuak), Bergarako Santa Marina, eta Aretxabaletan hiribilduko San Migel eta Andre Maria (parrokia batuak), Izurieta auzoko San Pedro eta Areantza auzoko Andre Maria parrokiak berriz, Oñatiko kondearen patroitzapean mantendu ziren. Hauen artean Oñatikoak eta Leintz bailarakoak (aipaturiko salbuespenekin) zeuden bere jurisdikziopean, eta Bergarako Santa Marina eta Antzuolako San Juan Bataiatzailea eta Gure Errukizko Ama (baturiko parrokiak) eta XVI-XVII mendeetan zehar bere patroitzapetik irten zen Elgetako Andre Maria eta XVIII. menderako beste hainbeste egin zuen Bergarako Elosua auzoko San Andres berriz, errege jurisdikziopekoak ziren (Larrañaga Arregi 2010a, 33-34)¹⁸⁸.

Aro Berrian Debagoienean izan ziren parrokien gaineko botere-borroken trazu nagusiek Oñatiko kondearen menpeko espazioen atzerakada bat azaltzen digute. XVI. mendearen hasieratan, kondeak, bere patroitzapeko lez aipatu berri ditugunez beste, Elgetako Andre Maria, –oraindik ermita izatetik parrokia izatera iragan ez zen– Bergarako Elosua auzoko San Andres eta Leintz bailarako parrokia gehienak (errege patroitzapean hasieratik zeudenak salbu) ere bere manupeko zituen. Eskoriatzako Galartza auzoko Santa Luzia parrokiaren patroitza kondeak XVI. mendearen lehen erdialdean Martin Sáez de Galarza, Galartza etxeko jaunari emana zion, eta Angiozarko (Bergara, orduan Elgeta) San Migel parrokiako patroitza berriz, mendearen erdialdeko hamarkadetan Francisco de Zuazolaren eskutan zegoen (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 381, 374-375)¹⁸⁹. 1556an Leintz bailarako biztanleek bat eginik Oñatiko kondearen jurisdikziotik irtetzea lortu zuten, auzi baten bidez. Honek ondorengo urteetan eta XVII. mendean zehar patroitzaren inguruko auziak eragin zituen, bailarako parrokiek kondeari zegozkion hamarrenak ordaintzeari uko egiten baitzioten. Urteen puruan gehienek lortu zuten jurisdikzioaz beste kondearen patroitzatik ere at gelditzea, 1844an bere manupekoen artean gorago aipaturiko Aretxabaletako hiribilduko San Migel eta Andre Maria (parrokia batuak), Izurieta

¹⁸⁸ Akats bat egin nuen aipaturiko argitalpenean, Bergarako Elosua auzoko San Andres parrokia jada Lope Martínez de Isastik aipatu zuen 1625erako Udalaren patroitzapera iragana zela esatean; Martínez de Isastik ez zigun patroitzarik zehatu, parrokia hiribilduko San Pedro parrokiari atxikia zela baizik (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 210). María José Aramburuk 1777rako hala zela argitzen digu, eta betidanik udal patroitzapekoa izandakotzat dauka; alabaina, hiribilduko San Pedro parrokiak eta Udalak ez zeukaten partehartze handirik Elosuako parrokian, eta patroitzaren egoera zelakoa izanik ere, auzoa eta parrokia euren kontu sostengatu izan zirela dirudi: "Incluso durante el siglo XVIII a la hora de notificar al obispado la situación administrativa de la parroquia se insistía en que carecía de patrón" (Aramburu 2008, 617). Areago, 1562ko epai betearazle baten arabera, Gebaratarren patroitzapeko parrokien artean "Santa Marina de Oxirondo, Santa María de Elgueta, Nuestra Señora de la Piedad y San Miguel de Anguiozar" zeudela ikusten dugu (San Martín 1975, 80); Elosuako San Andres ez zen itxuraz aipatu, kondearen patroitzapean egotekotan, hala egingo zutenean. Litekeena da kondearen patroitzapetik irteera 1545ean ermita izatetik parrokia izatera iragan zenetik urte gutxitara gertatu izana, nahiz eta XVI. mendearen lehen hamarkadetan (*Libro de visita del Licenciado Martín Gil*-en ageri zaigunaren arabera, ikus jarraian datorren oinpeko notak bideratzen gaituen lekuko azalpen kronologikoak), oraindik kondearen manupean zeuden.

¹⁸⁹ Ikus daten inguruko zehaztapenak 362 or., 662 oinpeko notan.

auzoko San Pedro eta Areantza auzoko Andre Maria parrokiak baino gelditzen ez ziren arte. Elgetako Andre Maria eta Angiozarko (Bergara, orduan Elgeta) San Migel 1625erako jada kondearen patroitzapetik at zeuden (eta 1844an azken honen patroitzza Granadako dukearen eskuetan zegoen), eta Bergarako Elosua auzoko San Andresen beste hainbeste egina zuen XVIII. menderako¹⁹⁰. Eta nahikoa dugu oraingoz aipatuarekin, alderdi hauen ingurukoak, xeheago, ikerketa xedeetarako banadu ditugun espazioen inguruan jardutean emango baititugu.

Patroitza eta izendapen eskubidea baina, ez ziren beti botere-esparru berberen eskuetan izaten. Eta eskubide honen inguruan ere, izan ziren hainbat gorabehera. Patroitzaaren faktoreak, bestalde, ez dirudi Debagoieneko seroren bizimoduaren taxukera orokorrean hainbesteko eragina zuenik; jarraian azalduko ditugun seroren aukeraketa eskubidearen, sarrerarako baldintzen eta seroratzaren ezaugarrien inguruko ikerketek, datuen antolakuntzarako beste irizpide bat jarraitzera naramate, hein batean bikarriotzen araberako banaketarekin bat egiten duena. Bikarioek seroren bizimoduaren gain zeukaten eragina gehienetan ez zaigu dokumentuetan zuzenean edo esplizituki azaltzen, baina nabaria da hein bateraino patroiz amankomun batzuk gidatzen zituztela Bergarako bikarriotzako (Bergara eta Antzuola), Arrasateko bikarriotzako (Arrasate, Leintz-bailara eta Leintz Gatzaga, Elgeta) eta Oñatiko bikarriotzako (Oñati) seroren bizimodu eta ezaugarri ezberdinak.

Funtsean, ondorengo kapituluetan espazio hauetan bildurik azalduko ditugu bertako seroren ezaugarriak: Bergarako, Antzuolak eta –Arrasateko bikarriotzako izanik ere– Elgetak osatuko lukete antzekotasunen lehen talde bat, beste bat Arrasateko, Eskoriatzako eta Aretxabaletako, eta partzialki bada ere, Leintz Gatzagak, eta azkenik Oñati genduke, beste zenbait ezaugarri berezirekin. Orden horretan ekingo diogu ikerketaren azalpeni, parrokiekin bezalaxe ondoren ikertuko ditugun beste tankeretako tenpluekin ere. Elkarren arteko ezberdintasun nabariak ere bazituztenez, halaber, hiribilduetako parrokiei erreparatuko diegu lehenik, gero auzoetako eta elizateetako parrokiak iragateko.

Auzoetako eta elizateetako parrokiei dagokienean, Antzuolaren eta Leintz Gatzagaren kasuetan ez zegoen batere, eta Leintz bailarako elizateetan zeuden gehien, 18. Arrasaten, Bergaran, Elgetan eta Oñatin auzoetako zenbait parrokia zeuden, dena 8: Arrasaten Uribarriko Andre Maria, Udalako San Esteban, Garagartzako San Migel eta Gesalibarko Santa Ageda, Bergaran Elosuko San Andres, Elgetan Angiozarko San Migel, eta Oñatin Araotzeko San Miguel eta Urrexolako Andre Maria.

Ermitetako serorei buruz eskuragarri daukagun informazioa, jada esan bezala, partzialagoa eta dispertsoagoa dugu. Parrokien kasuan bezala, informaziorik osatuena Bergara, Antzuola eta Elgetak osatzen duten multzorakoa dugu (batez ere, beste behin, Bergarako kasuen gehiengoarekin), baina Leintz-bailararako eta Oñatirako ere ikuspegi orokor egoki bat osatzeko besteko informazioa batu ahal izan dugu. Zuhur ibili beharrean gaude hemen, daukagun informazioarekin orokortze fidagarrikerik egitea zaila baita; alabaina, seroratzak moeta ezberdinen zenbait eredu perfiletu ditzakegu. Darabilgun funtsezko banaketa, bestalde, ermitei dagokienean ez da hain erabilgarria, hauetan aurki ditzakegun seroratzak modu eta moetak ez baitzaizkie erabat muga hauei egokitzen. Hala ere, aipatu beharreko salbuespenak aipaturik eta mugen malgutasuna hasieratik adierazirik, banaketa bere hortan utziko dugu, ardatz orokorretan baliagarria baita.

¹⁹⁰ Martínez de Isasti 1985 -1625-, 210-211; eta KKA-ACC 6/453/52, f.g., 6/453/44, f.g., eta Aramburu 2008, 617.

Ondorengo orrietan zehaztasun gehiagorekin azaldu dugunez, auzoetako eta elizateetako parroketan sakristauek seroren espazioak eta funtzioak eureganatzearen fenomenoak gertatu zen, eta ermitetan, bakarkako seroren espazioa senar-emazte ziren ermitau eta serorak –edo halako titulurik izan gabe aurretik serorenak ziren eginbeharrak burutzen zituzten senar-emazteek– betetzerako joera nagusitu zen. Honekin bat, legezko formulei dagokienean, ermitetako seroren izendapenak seroretseen alokairuek ordezkatu zituzten. Prozesu guzti hau kronologia eta espazio aldetiko irregulartasunekin eman zen; Leintz-bailaran eta batez ere Oñatin izan zuen garapenik nabariena, bertan, XVII. mendearen hasieratako zenbait kasu goiztiarrekin hasita, XVIII. menderako ermitetako zerbitzura sartzeko prozedurarik ohizkoena izateraino. Badugu, halaber, Bergaran eta Antzuolan XVII. eta XVIII. mendeetan alokairuan izan ziren zenbait ermitaren berri ere.

Patroitzaren inguruko gorabeheren eta biztanleriaren baldintzapen geografiko eta demografikoez beste, hiribilduen eta landa-eremuen arteko dikotomiak erlijioaren alorreko eraginei dagozkien eta aintzat hartu beharrean gauden funtsezko gertakizun batzuetara garamatza: klausuraren ezarpenaren ondorioak, eta honi loturik, ordena mendikanteen agerpena eta hedapena. Jada azaldu izan dugunez, euskarazko iturri literarioetan “serora” hitzaren erabilera nagusi dugu “moja”-ren erabileraren aurrean, eta erabilera hau, noski, ez dagokio kasualitateari. “Moja” hitzak adierazten digun bizimodua batez ere XVII. mendearen hasiera-erdialdean hedatu zen Gipuzkoan, eta Larramendik, 1754an, gogoan zeukan oraindik erabilera zaharra zein izana zen (hau da, serora nahiz moja zirenak, biak, “serora” hitzaren pean adieraztea) (Larramendi 1985-1754-, 138). Guzti honek, emakumezkoen bizimodu erlijiosoaren inguruan gizartean hedaturiko hautemapen orokorrak, klausuraren ezarpena gauzatu zedin baino lehenago behinik behin (eta hein batean, baita jada hau ezarria zegoenean ere), serorak eta mojak sailkapen bakarraren baitan hautematen zituela adierazten digu. Zentzu honetan, eta hizkuntza bakoitzeko terminoen eboluzioak ezberdinak izanik ere, “serora” terminoaren euskarazko erabilera orokortuak, European zeharreko emakume erlijiosoaren artean XIII. mendea baino lehenago bizi izan zenarekiko egoera analogo bat adierazten digu; mende hartan izan ziren emakumeen mugimendu erlijioso heterodoxo eta ortodoxoen testuinguruan izan ziren ordenei loturiko emakumeek laugarren botua, klausura, onarrez zezaten garatu ziren lehen araudi eraginkorrak, eta mende bukaera aldera, 1298an heldu zen *Periculoso* bulda, ordenen obedienciapean zeuden emakumezkoen talde guztiek, aurretik laugarren botua egin izan edo ez, klausura gorde behar zutelako agindu zuena. Baina bulda honen eragina ez zen noski erabatekoa izan, eta emakumeek bizimodu erlijiosoa garatzeko bestelako forma publikoak lantzen jarraitu izan zuten¹⁹¹.

Ikerketarako espazioa dugun Debagoienaren testuingurua, bestalde, Gipuzkoaren testuinguru orokorragoan, aitzindaria izan zen klausuraren ezarpenaren Probintzia barneko hedapenari dagozkionean. Erdi Arorarte jada aipagai izan ditugun gorabeherak izan ostean, Aro Berrian emakumeen bizimodu erlijiosoak izan zituen aldaketarik handienak Trentoko Kontzilioaren XXV. bilkuraren (1563) ostean heldu ziren, bertan erlijiozko bizitza zeramaten emakumeen klausura beste behin agindu ondoren hartu ziren neurriekin. XI-XIII mendeetako klausurarako prozesuek, gorago azaldu dugunaren arabera, ez dirudi Euskal Herriko lurralde gehienetako erlijiozko emakumeen egoeran eragin handirik izan zutenik; garaiotan Nafarroa Garaiaren eta Arabaren hegoaldeko eta Hegoaldeko nahiz Iparraldeko kostaldeetako zenbait puntu estrategikotan egin ziren batez ere fundazioak, eta kasu gehienetan klausurarik gabeko komunitateak izan ziren. Azaldu dugu halaber nola, bestelako datu eta testigantzekin bat, XIV. mende bukaera

¹⁹¹ Ikus azalpenak II. 4. azpiatalean, 114 eta hurr. or.

aldean zegozkien apezpikutzen aldetik Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako *monasterioen* errejimenaren aurka altxatu ziren salaketek, lurralde hauetako testuinguru sozial eta erlijiosoaren egituraketa orokorrak tankera "arkaikokoa" izaten jarraitzen zuela adierazten diguten. XVI. eta batez ere XVII. mendeetararte, Euskal Herriko erlijiozko emakumeei zegokienean behinik behin, ez ziren aldaketarik erabakiorrenak heldu; baina jada XV. mendean Errege Katolikoan bultzadarekin abian jarri ziren erreformek giroa berotua zuten, ezen, batez ere ordena mendikanteetan, baina baita besteetan ere, obserbante eta konbentualen arteko banaketa eta alderdi ezberdinon arteko botere-borrokak eragin zituztenean, erlijiozko emakumeendako klausura obserbanteen eskakizun nagusienetariko bat bilakatu baitzen. Obserbanteen eta konbentual edo klaustralen arteko ikamiken testuinguru hartan klausura alderdietariko baten hautua izan zen beraz, baina horrez gain, Euskal Herriko testuinguru espezifikokan bestelako faktoreek ere eragiten zuten, batez ere, 1512ko Nafarroa Garaiko konkista inguratu zuten gertakizunek. Egoera hartan obserbanteen eta konbentualen arteko borrokak aldekotza politikoen jokua izan zuten, konbentualek Nafarroako komentu eta monasterioek ordurarte nagusi izanak zituzten Aragoako botere-espazioekiko loturak defendatzen zituzten artean, obserbanteek erlazio hauen Gaztelarako norabidea defendatzen baitzuten, alegia, Nafarroako komentu eta monasterioak, Gaztelako obserbanteen obedientziapera iragatea. Eta tarteko, ez dezagun ahaztu, erlijiozko emakumeendako aginduriko klausuraren auzi ezkatatsua zegoen, arazo eta liskar ugaritarako bidea emango zuena. Penintsula Iberikoan erreforma hauen eraginaren arabera banaturiko espazio nagusien artean, normala denez, konbentualen aldekoak gehiago ziren espazioetan izan ziren klausuraren ezarpenerako liskarrik handienak, batez ere Katalunian eta Aragoan. Baina borroka hauen eraginik handiena ez zen emakumezkoen komunitateen esparruan nabari izan, beste espazioetan bezalaxe, Euskal Herrian eta zehazki, konkistatua izatekoa zen Nafarroa Garaian ere; izan ziren noski liskarrak eta botere-borrokak, baina hauek ez ziren erlijiozko emakumeen testuinguru orokorrean aldaketa esanguratsuak eragitera heldu, lehen txanpa hartan, nagusiki gizonezkoen komunitateen arteko borroka izan baitzen gauzatu zena. Salbuespenak salbuespen, XVI. mendeko neurriak eta batez ere Trentoko Kontzilioaren ondorengoak heldu arte, Euskal Herriko erlijiozko emakumeen testuinguruak, nagusiki, klausurarik gabe banakako edo laguntzaileekin seroren, edo taldekako bizimodua egiten zutenen komunitateena izaten jarraitu zuen; hauetariko zenbait XV-XVI mendeak bitartean ordenekiko loturak garatzen eta obedientziapera iragaten joan baziren ere (batez ere mendikanteetan, 3. ordenetan sartuz), erlazio hauek ez ziren XVI. mendearen bukaeratararte erabakiorrak bihurtu. Eta hain zuzen ere, klausuraren ezarpen orokorrerako hurrengo saiakera izango zen ordungo auzi nagusia.

Trentoko Kontzilioan, zehazki, klausuraren agindua lau botuak eginak zeuzkaten erlijiozko emakumeei baino zuzendu ez bazitzaien (eurek ere, nahiz eta botuz onartua zeukaten, klausura gordetzen ez zutenaren seinale), 1568an Pio Vak helarazirik *Circa Pastoralis* buldak agindua botu sinpledunei (tertziariei, klausuraren boturik egin gabe zutenei) ere hedatu zien, eta urte berean (*Lubricum vitae*) eta 1570ean (*Decori et honestati*) ere helarazi ziren beste bi bulda, botu sinpledun erlijiozko emakumeei ere klausuraren agindua hedatuz eta berretsiz. Debagoienean, zenbait seroren komunitate XVI. mendearen hasierako hamarkadetan lotuak zitzaizkien ordenekiko obedientziari, baina noski, oraindik klausurarik gabe; frantziskotarren manupera iraganak ziren Oñatin Zubikoako Santa Ana komentua (1503), Arrasaten Sortzez Garbiaren komentua (1509) eta Bergaran Trinitate Santuaren komentua (1513); agustindarrenera, Arrasateko seroren komunitate bat (1511); eta mesedeetakoenera, Eskoriatzako Santa Ana komentukoak, aurretik Lete auzoan izanak zirenak (1541). Oñatin Bidaurretako Trinitate Santuaren

komentua ere fundatu zen 1509an, kasu honetan, jada hasieratik obserbantzia jarraituz, bere erregelan klausuraren botua ezarria zeukana. Ohar dezagun, puntu honetara heldurik, XVI. mendean izan zen erlijiozko emakumeen aniztasun handiko egoera; ermitei eta parrokiei loturik bakarka, nahiz laguntzaileren batekin edo batzuekin, nahiz komunitate baten baitan bizi ziren serorekin batera, ermita edo parrokiekiko lotura espezifiko gabeko seroren komunitateak ere bazeuden, batez ere hiribilduen testuinguruan; azken hauek izan ziren aipagai izan berri ditugunak, XVI. mende hasieratik ordena ezberdinen obedientziapera iraganaz joango zirenak, nahiz eta seroren komunitate bezala noiztik existitzen ziren jakitea aski zaila zaigun. Hauek, ez dezagun ahaztu, ez ziren, are ordenen obedientziapera iragan zirenean ere, klausurapean bizi, nahiz eta, ikusiko dugunez, laster agertuko ziren ibilbide hartara eramango zituzten aginduak. Alabaina, ez ziren tankera honetako seroren komunitate guzti-guztiak ordenen obedientziapera iragan, eta izan ziren zenbait, batez ere udalenganako loturak medio, klausurarako ibilbidea horrela ekiditea lortu zutenak ere. Gainera, hiribilduan etxe partikularretan bizi ziren eta ermiten edo parrokien zerbitzari ez ziren serorak ere bazeuden, komunitatean ez, baina bakarka bizi zirenak¹⁹². Eta azkenik, komentuaren fundazioa XV-XVI mendeetako konbentualen eta obserbanteen arteko ikamiketan bigarrenen aldekoen testuinguruan eginga izanik, fundaziotik klausurapen bizi ziren serorak, ondoren "moja" bezala ezagutuko zirenen tankerako itxiturazko bizitza egiteari hasiera-hasieratik ekin ziotenak.

Parrokien eta ermiten zerbitzura bizi ziren serorak alde batera utzita, artean klausura bizimodurik egiten ez zuten seroren komunitateen artetik Bergarako serora frantziskotarren komunitatekoak izan ziren klausura onartzen lehenak, 1573an. Cristobal de Cheffontaines frantziskotarren ordenako Ministro Orokorren aginduz egindako bisitetan klausuraren agindua eman ondoren gertatu zen hau, eta Bergarako komunitateak eta Azpeitiakoak (1574) agindua bete bezain laster zenbait gorabehera izan ziren Probintzian; Kantabriako Probintzia Frantziskotarreko Probintzial zen Pedro de Trucíos-i ez zitzaion Ministro Orokorak Vatikanoko aginduei jarraiki erabaki zuen jarduera gustatu, eta klausuraren ezarpenaren aurkako erresistentziaren batzuk izan ziren. Probintzialaren aginduei jarraiki, 1574an Juan de Arriaran aitak seroren komunitateen nahia Gipuzkoako Probintziaren aurrean azaldu zuen, Azkoitian egin ziren Batzar Orokorretan. Batzarrari erregearen aurrean baliatzeko klausuraren ezarpenaren aurkako eskutitzak eskatu zizkion, serorek klausura onartu beharra izanaz gero, komunitate asko ezin sostengatu ahal izango zirela eta: jada nahiko txiroak zirela zioen, eta itxituren sartuaz gero goseak hilko omen zirela. Baina frantziskotarren Ministro Orokorak, lurralde ezberdinei zegozkien apezpikuekin batera, klausura ezarri nahian jarraitu zuen, eta mojen aurkaritza medio maila eta izaera ezberdinetako instituzioak inplikatuak izan ziren eta dezente ohiartzuna izatera heldu ziren hainbat liskar eta gorabehera izan ziren, dakigunerarte behintzat, Gipuzkoan bezalaxe Bizkaian eta Araban ere, tankera honetako bizitza zeramaten serorategiak edo "beaten komentuak" klausurako bizitza onartzera heldu ziren arte. Erresistentzia bezalaxe, transformazioa gauzatzeko neurri baterainoko planifikazioa ere izan zen, eta klausuran ondo ezarririko komentuetatik besteetara "*reformadoras*" zirelakoak bidali izan ziren,

¹⁹² Lizarralde serora bizimodua hautatzen zuten emakume hauen batzerako joerari "berezkoa" edo "espontaneo" zeritzon, zeukaten erlijiozko bizitzarako nahiak hartara bultzatzen zituela eta; ez omen zuen bakarka etxe partikularretan bizi ziren seroren kasurik aurkitu: "no conocemos ningún caso en que se encuentren dos beatas terciarias de una misma Orden separadas en una misma población. Su condición de religiosas las hacía congregarse en una misma casa..." (Lizarralde 1921, 16). Lizarralderekin hainbatetan gertatzen den bezala, erlijiotasun "egokiari" buruz zeuzkan aurreritziak gidatu zuten hemen ere; guk aurkitu ahal izan ditugu hala bizi ziren hainbat serora, batez ere Bergaran eta Arrasaten. Ondorengo kapituluetan testamentuetako datuen analisiari ekiten diogunean egingo dugu eurekin topo.

zenbait urtetan ohituren aldaketak gidaturik, jatorrizko komentuetara itzultzen zirenak. Batzuen eta besteen artean, komunitateek klausurarekiko azaldu zuten onarpena, zeuzkan zailtasunekin, ez zen berehalakoa izan noski: zenbaitek XVI. mendearen bukaera inguruan onartu bazuten ere, gehienek ez zuten XVII.enaren lehen laurdenerarte onartu, eta izan ziren beste zenbait, bakanagoak, XVII. mendearen bukaerarte eta are XVIII.errete ere, artean klausura onartu gabe biziraun zutenak. Gainera, izan ziren, nahiz eta ordenekiko nolabaiteko loturen barnean izan, komunitatea desagertu arte klausurarik onartu ez zuten serorategiak ere (euren artean, ondoren ikergai izango dugun Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko serorena), aldakuntza prozesu honetako presio guztien artean euren bizimodu zaharra, hala nola, gordetzen saiatu zirenak; hauek ere bakanak izan ziren, hala ere¹⁹³. Debagoieneko komunitateen artean klausurarako bidea egin zutenetara itzuliz, Bergarako aitzindariaz aparte (1573), frantziskotarrekiko obedientziapean zeuden beste bi komunitateek, Oñatiko Zubikoako Santa Anakoak eta Arrasatekoak, XVI. mendearen bukaera eta XVII.enaren hasiera bitartean onartu zuten klausura (lehenak 1594-1601 bitartean, eta bigarrenak 1598-1613 bitartean). Beste ordenetakoei dagokienez, Arrasateko serora agustindar ermitauren komunitateak 1618an eman zuen pausua, eta Eskoriatzako mesedeetakoena berriz, 1622an¹⁹⁴.

Baina mojen komentuen fundazioek ere ez zuten luzaroegi iraungo; fundazio gehien eman ziren XVI. mendearen bukaera eta XVII.enaren lehen erdialdeko garaia igaro ondoren, ez zen jada gehiagotarako leku askorik gelditu. Madariaga Orbeak 1650ean kokatzen digu Gipuzkoan fundazioek goia jo zuten momentua:

El panorama conventual vasco se forja entre finales del siglo XIII y 1650, dándose para esta última fecha una cierta saturación. Las órdenes que en épocas posteriores pretendieron erigir nuevos conventos tuvieron bastantes problemas. Por ejemplo, en Gipuzkoa entre el siglo XIII y 1650 se habían fundado 23 conventos de monjas y desde 1512 hasta 1640, 16 de frailes. Las Juntas Generales tomaron acuerdos en 1612, 1699 y 1708 para evitar la proliferación de estas instituciones y, de hecho, desde 1650 hasta 1797 sólo se erigieron otros dos más de frailes y cuatro de monjas. La introducción de un nuevo convento en una localidad mermaba los ingresos de los ya existentes, por lo que su oposición a esta alteración era segura. Los conflictos más notorios se produjeron cuando en el siglo XVII los jesuitas trataron de abrir conventos y se encontraron con la cerrada negativa de las demás órdenes que habían hecho lo propio uno o dos siglos antes (Madariaga Orbea 2004, 196)

¹⁹³ Kasu oso interesgarri bat, Iruñako domingotar beaten "colegio"-arena dugu; hauek XVI. mendearen bigarren erdialdean sorturiko komunitate batean bizi izan ziren serora batzuek izan ziren, domingotarren ordenarekiko erlaziotan izanik, termino orokorretan adieraztearren, klausurapeko komunitateei onartzen zitzaizkien abantailaz baliaturik ere, XVII. mendearen bigarren erdialderarte behintzat, klausurarik gorde gabe mantendu zirenak (ikus Rodríguez 1996).

¹⁹⁴ Hemen laburbiltzen dugun egoera, eta klausuraren ezarpenaren prozesuaren xehetasun eta datuak, neurri handi batean, María José Aranak klausuraren ezarpenaren inguruan idatzi zuen doktorego-tesitik jaso ditugu; azaltzen ari garen testuinguruaren ulermen egokirako erabat ardatzezkoa deritzot lan honen irakurketari: Arana 1992; azaldu berri dugunarekiko, batez ere 5. kapitulua ("Los beaterios y la clausura femenina"), 233-265, eta ikus halaber laburrago Arana 2004, 850-865. Funtsezko datuetarako Lizarralderen lanak baliagarria izaten jarraitzen du (1921, 33-34), eta Aranaren tesiaren ondoren oso artikulua oparatu idatzi zuen Piquer-ek (1996) ere. Martín Mendizabalek Oñatiko Zubikoako Santa Ana komentuen historiari buruz idatzi zuen liburuan ere klausuraren ezarpenaren gorabeheren eta bere ondorioen inguruko azalpen labur bezain garbi eta egokiak ematen ditu (2001, 83-94), eta Trentoko klausura agindua Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako isabelinen artean nola jaso zen azaldu ere idatzi zuen artikulua bat (2004). Espainiako Felipe II.enaren erregealdian frantziskotarren 3. ordenako mojen artean erreformak izan zituen gorabeheren buruz ikus Fernández Terricabras 1993, eta ordenetako erreformen eta konbentual eta obserbanteen arteko Hegoaldeko gorabeheren ingurukoei buruz aldiz, García Oro 2004.

Komentu berriak zabaldu nahian zebiltzan ordenetarako bezalaxe, 1650az geroztiko egoera erabakiorra izan zen hainbat seroraren (batez ere ermitetakoen) aktibitate ekonomikoendako, ikusiko dugunez, limosna eskaeraren gain ezarri zitzaizkien debekuek, hain zuzen, egoera honekin erlazio zuzena baitzuten¹⁹⁵.

Klausurarako ibilbide hau ez genuke, edozein kasutan, gehiegitan egin izan den bezala, Aro Berrian zehar erlijiozko bizitzari loturik mantendu ziren emakumezko guztien -gauzaturiko nahiz desiaturiko- ibilbide nagusitzat hartu beharko¹⁹⁶. Gertakizun hauekin bat, esana dugunez, ordenen obedientziatik kanpo hiribilduetan zeuden seroren komunitateenak, nahiz bakarka, binaka edo komunitate txikietan landa eremuetako parroketan eta ermitetan bizi zirenei zegozkien gertakizunak ere izan baitziren; eta noski, ildo guzti hauek elkarri loturik zeuden. Diogunez, bada, XVI. mendean zehar eta XVII.enaren hasieratako hamarkadetan izan zen egoera ondorengo garaiekiko ezberdina izan zen, bitarte horretan, seroren komunitate gehienak, baita jada “komentu” izena jaso zuten ordenen obedientziapekoak ere, klausurarik gabe bizi baitziren. Ikerketa ziotarako dagokigunarekiko, horrek bitarte horretan “beata” bezala aipaturik ageri zaizkigunak “profesa” edo “lega” izan zitezkeela esan nahiz du, eta baita, besterik aipatzen ez zen kasurik gehienetan, hau “lega” izatea ohizkoagotzat hartu beharrean gaudela ere. Debagoienean, aipatu dugunez, XVI. mendearen bukaerako garaian aurretik Oñatin, Bidaurretako Trinitate Santuaren komentuek baino ez zuten klausura gordetzen. Ordenei loturik zeuden komunitate hauek bitarte horretan izan zuten bizimoduaren ikerketak ere interes handia izanik ere, ez ditut lan honetan ikertzea asmo ditudan seroren artean baitaratu, alde batetik jada ikerketaren objektua nahikoa zabala delako, eta bestetik, batzuetan nahasmenetara eraman gaitzakeelako¹⁹⁷. Baina

¹⁹⁵ Ikus III. 2.2. azpiatala, 218 eta hurr. or.

¹⁹⁶ Ikuspegi honen adibide aski garbi bat, esaterako, Lizarralderen lanek osatzen dute. Lizarralde fraile frantziskotarra zen, eta Jesusen Bihotzaren komunitateko moja den María José Aranaren aipatu berri dugun lanean baitaraturiko informazioaren parte handi baten iturria badugu ere, gaiari buruz azken honena baino aski ikuspegi ertsia goa zeukan (bereiz, Aranaren lana, erlijiozko ikuspegiaren baitan bizi den moja batek eginga izateko, oso inpartziala da, gutxitan nabari zaio bere egoera pertsonalak eragindako kutsua; hau da, ez zaio beste edozein egoeratan egon litekeen ikertzaile bati baino aurreritzi gehiagorik sumatzen). Hau badiogu, serorei eta klausuraren ezarpenaren prozesuari buruz diharduenero, Lizarralde aurreritzi garbi batzuek gidatzen dutelako da. Nabaria zaio, parroketako eta ermitetako serorena bezalaxe, komunitateetan bizi ziren seroren nahia, klausuran bizi ziren mojen kontenplaziozko "maila gorena" erdiestea izan behar zuela momentuoro buruan darabilela: hala, lehenik, tenpluen zerbitzupeko bakarkako, binakako edo taldekako seroren artean komunitateak sortuko ziratekeen; gero, hastapena halakoa zen kasuan tenpluekiko loturetatik banantze bidez edo bestela, aparteko sorkuntzazkoa izanik, komunitateek ordenaren baten obedientzia onartuko zuketean, azkenik klausura onartu eta perfekziozko kontenplaziozko bizitzara heltzeko. Eta bidean gelditurikoak, klausurako mojarenak ez beste egoera erlijiosoak, perfekziozko erdibidean gelditutako egoerak ziratekeen, arazo ezberdinak medio beraien nahia (noski, klausurapeko moja izaten bukatzea) bete ezin izan zuten komunitateenak (Lizarralde 1921, 4-112). Nabaria da ikuspegi honek serorei -mota guztietakoei- borondate bat esleitzetik partitzen duela, eta hein horretan, errotik baldintzatua dagoela. Areago, mojek Aro Berriaren parterik handienean gainontzeko emakumezkoen egoera erlijiosoaren artean gehiengorik osatzen ez zutela pentsatzen badugu, ondorengo orrietan azaldu ahal izango dugunez.

¹⁹⁷ Ez da erraza batzuetan ordenen obedientziapekoak besteengandik bereiztea, serora gehienek, ordenekiko lotura zorrotzik gabe ere, bateko edo besteko abitua jantzi ohi zutelako; ordenekiko erlazioak, gainera, maila ezberdinetan lantzen ziren, eta obedientzia aitorturiko komunitate bateko serorak ez zirenek ere, neurri ezberdinetako eraginak jasotzen zituzten ordenengandik. Baina badira zalantza hauek argitzeko aski erabakigarriak zaizkigun daturen batzuk ere. Alde batetik, informazio iturrien izaera: parroketako eta ermitetako liburuetan, dohaintzen eta limosnen salbuespenez, gainontzeko kasurik gehienetan tenplu bakoitzekoak izan ohi dira aipaturiko serorak. Protokoloetako dokumentuei dagokienez, zenbait datu espezifikok argitzen digute bidea: aipatzen denetan, bizilekua dugu horietako bat, ordenen obedientzia zeramaten seroren komunitateen kasuan bizilekutzat komentua edo monasterioa aipatzen baitzaie (eta hauen kasuan, klausurakoak ez bezala, “de beatas” zirela zehaztu ohi zen), bestelako serorak aldiz, tenpluen seroretxeetan (hauei ez zitzaien “convento” nahiz “monasterio” izenik ematen),

garrantzitsua da ondorengo urteetan klausura ezarriko zitzaien serora hauen berri ematea ere, XVI. mende hasieratik XVII.enaren hasieratara emakumeen erlijiozko bizitzaren panorama ondorengo mendeetakoekiko zein ezberdina izan zen azaltzen baitigute. Eta halaber, ideologiaren mailako korrante batzuen ondorioen erakusgarri dira, eta hauek aintzat hartu beharrean gaude, klausurarako biderik egin ez zuten seroren gain ere eragin handia izan baitzuten.

XVI. mende bukaera eta XVII.enaren hasierako garai haiek ez ziren Euskal Herriko emakumeendako gozoak izan. Erlijiozko emakumeen esparruan klausuraren ezarpena bizi izan zuten bezalaxe, beste hainbat emakumek –eta maila txikiagoan izanik ere, baita gizonek ere– sorgin-ehizak eta hauek sorturiko beldurrezko giroak jasan behar izan zituzten. Eta noski, ez da kasualitatea gertakizun hauek guztiak antzerako bitarte kronologikoetan gertatu izana. Areago, 3. ordenen sorrera eta hedapenari buruz jardutean aipatu ditugun prozesuen korrespondentziak zeharo egoki txertatzen zaizkigu hemen ere, klausuraren ezarpenerako lehen saiakeraren (XIII. mende bukaera) eta bigarrenaren (XVI. mende bukaera) inguruko hainbat gertakizunek bilakaera paraleloak agertzen baitizkigute. Azken garai honetan kokatzen bagara, esparru bakoitzeko gertakizunik garrantzitsuenak aintzat harturik, bata besteari gainjartzen zaizkien sekuentzia bat osatu liteke: frantziskotarrez besteko ordenetako 3. ordenen fundazioak (XV. mendea) - klausuraren ezarpena (1563 -Trentoko kontzilioa- / XVII. mendeko lehen hamarkadak) - Inkisizioaren jazarpenak: sorginen ehiza nagusiak eta "kutsadura" protestantearen aurkako neurriak (XVI. mendetik ekinda, baina batez ere XVII. mendeko lehen hamarkadetan) - Euskal Herriko seroren desagerraraztea eta Espainiako beaten mugimendu mistikoen aurkako jazarpenak (*ilusa* eta *alumburada* bezala ezagutuak izan zirenak) (batez ere XVII. mendeko lehen hamarkadez geroztik). Dotrina erlijiosoaren eta izpiritualtasunaren alorreko aldaketei dagozkien gertakizun hauek, diogunez, bere antzekotasunak dauzkate Europan izan ziren bestelako emakumezkoen mugimendu erlijiosoekiko ere; kasu honetan, -aurrekari genukeen- gertakizunen sekuentzia honakoa litzateke, azaldu berri dugun sekuentzia berantiarraigoaren oso antzerakoa duguna: 1212an San Frantziskoren eskutik -berehalako arrakasta izango zuen- lehen 3. ordenaren fundazioa - klausuraren ezarpena (batez ere XIII. mendean zeharreko zistertarren Kapituluak eta 1298ko *Periculoso* bulda) - Inkisizioaren jazarpenak: beguinen aurkakoak (XIV. mendeaz geroztik) - Inkisizioaren jazarpenak: Europa iparraldeko sorginen ehizak (batez ere XIV-XV mendeak). Beguinen eta beaten artean, bestalde, –Euskal Herriko seroren kasuan bereziki esanguratsuak ez diruditen– konfesoaren partehartzearekin, izpiritualtasun mistikoaren alorreko loturak eta analogiak ere izan ziren¹⁹⁸.

etxe propioetan edo zerbitzen zituzten leinu eta familienetan bizitzen ageri zaizkigun artean. Ordenen obedienciapeko “beata” zirenen kasuan, bestalde, ohizkoagoa zen dokumentuak komunitate lez, kolektiboki helaraztea, bakarka baino, eta beti zehaztu ohi zuten ze ordenetakoak ziren (“beatas agustinas”, edo “beatas de Nuestro Serafico Padre San Francisco”, eta tankerakoak). Bestelako seroren kasuan ostera, bakarkako dokumentuak ziren ohizkoenak, eta batzuetan, 3. ordenakoak izanik, euren burua “tercera” bezala aurkezten bazuten ere, beste batzuetan ostera, serora zirenik ere ez zuten aipatzen. Hauek eta beste zantzuren batzuek baliatu ditugu bereizketak egin, eta lan honetako ikerketa objektuari dagozkion dokumentuak zedarrizteko.

¹⁹⁸ Alemaniako eta Herbeeretako mistikoen eta –zenbaitetan hauek konfesoretzat izan zituzten– beguinen arteko lotura izpiritual eta erlijiosei buruz ikus McGinn 1994, Hollywood 1995 eta oso argitalpen zaharra izanik ere, baita Ruysbroek-ek (c. 1290-1381) beguinei eskainiriko liburuaren ingelesezko itzulpenaren (*The Book of the Twelve Bèguines*, idatzi zuen azken lanetariko bat) sarrera ere (John Francisek 1913an argitaratua); hauen Inkisizioaren aldetiko jazarpenaren laburbiltze egoki baterako berriz, ikus Frank 2007, eta baita Stoner 1995 ere. Espainiako beatek *iluminismo* eta *alumbadismo*-arekin izan zituzten loturei, konfesoarekiko erlazioei eta Inkisizioaren jazarpenei buruz berriz, ikus Sánchez Ortega, 1979, Foley 1986, Santonja 2000, Fernanda Núñez 2001, Lavrin; Loreto López 2002 eta

Dagokigun garaira itzuliz baina, XV-XVI mendeek geroztik eta Aro Berrian zehar, aipaturiko gertakizunak gauzatzen ziren artean, emakumeen gizartearen baitako parte hartzearen, gaitasun intelektualen eta hezkuntzaren inguruko polemika paralelo bat ere izan zen Europa mailan, Frantzia aldean *Querelle des Femmes* bezala ere ezagutu zena, eta espazio eta kronologia aldetik, zehaztapenak zehaztapen, antzerako ibilbideak eraman zituen¹⁹⁹. Horrez gain, aipagai ditugun gertakizun nagusi hauek, bereziki sorginen ehizak eta seroren desagerrarazteko neurriek, XVI. mende bukaera eta XVII.enaren hasieratako “garai beroena” bitarteko, –Erdi Arotik ekinda– XVI. mendearen hasieratatik goraldian joan ziren eta XVIII. mendearen bukaera arte beheraldian gauzatu ziren agerpenak dituzte. Eta beste hausnarketa bat ere egin beharrekoa dugu, aipagai izan berri ditugun gertakizunen sekuentziak, espazioei eta bitarte kronologikoei dagokienean, termino orokorretan hiribilduen eta bertako testuinguru komertzialen gailentzearekin ere bat egiten baitute, aipagai izan ditugun erlijiozko emakumeen zenbait aktibitate espezifikori eta hauen bidezko autonomia ekonomikoari ere bide eginez; nabariena, beguinek, beatek eta serorek, guztiak ohizkoa izan zuten aktibitate batzuen kasua dugu: joskintza eta honi asoziatutako langintzak. Baina izango dugu aurrerago honi buruz jarduteko tarterik.

Euskal Herrian, esan bezala, eragin ezberdin hauek XVI. mendearen bukaera eta XVII.enaren hasiera inguruan azaleratu ziren, ondoren “moja” bezala ezagutuko genituenen klausurarekin eta sorginen ehizarekin bat, seroren instituzioaren aurkako jazarpenak ere bultzatuz. Dagokigun ikerketa objektuaren espazio espezifikora gerturatuz, Debagoieneko serorekiko, zenbait arazo aurreko garaietan ere izan baziren ere, 1602ko eta 1621eko Kalagorriko Konstituzio Sinodalak izan ziren eragin gehien izan zuten araudiak. Jarraian azalduko ditugun gorabeheretan, ardatzezko auzia serorak –eta orokorrean, emakumeak– aldarean eta bestelako espazio "sakratuetan" (sakristian batez ere) sartzea debekatzearena zen, gizonezkoen botere-esparruetan gailenduz zioan ikuspegi misoginoaren arabera, emakumeak, berezkoa zuten bekatutako eta lizunkeriarako joera medio, sakratutzat hautematen zen guztiarengandik urrundu behar baitziren. Seroren kasuan, gainera, horrez gain, gizonezkoen erlijiozko bizitzaren ereduakiko konparaziotik heldutako mespretxu bat ere bazegoen. Izan ere, beraien aurkako neurriak hartzeko baliatu zen argudioaren pean, hau da, sakristaen lanak egitearen salaketaren pean, emakumeek gizonezkoei zegozkien apez lanak egitearenganako ukoaren isla ere hatzeman liteke. Sakonduko dugu honen inguruan ere hurrengo kapituluan, Aro Berriko seroren aurkako neurrien eta Antzinatean eta Goi Erdi Aroan apezemeen, diakonesen, birjinen eta alargunen, eta orokorrean emakumeen ministeritza sakratuen baitako partehartzearen aurka hartu ziren neurrien arteko antzekotasun nabariaren inguruan jardutean²⁰⁰.

Mas Galvañ 2003. Sorginkeriarri dagokionean hain ugaria dugu bibliografia eze, oinarritzko orientaziotarako balio dezaketen zenbait lan baino ez baititugu aipatuko: lan klasikoez beste (arras ezaguna den lan bat aipatzearen, ikus Caro Baroja 2006 -1966-, batez ere bigarren atala, 193 eta hurr. or.), sorginen eta sorginkerien inguruko sinesmenen XIII eta XVI. mendeak bitarteko goraldiari buruz ikus Bazán Díaz 1998; Espainiako sorginen jazarpenen ingurukoetarako aldiz, Armengol 2002. Aro Berriko Euskal Herriko sorginkeriarren agerpen ezagunen kasu batzuetarako, esate baterako Arzadún 1909; Paul Arzak 2002; eta Azurmendi 2013; eta ikuspegi orokorrak emanez, Zabala Montoya 2001; eta Rilova Jericó 2006a eta 2012. XVIII. eta are XIX. mendeetako azken jazarpen batzuei buruz, ikus Rilova Jericó 1999 eta 2002. Inkisizioaren Euskal Herriko inplantazioari eta sorginez gain protestanteen aurka ere buruturiko jazarpenei dagokionean, ikus Orella Unzué 1999; eta Reguera 2005.

¹⁹⁹ *Querelle des Femmes*-ari eta bere testuinguruari buruzko ikuspegi orokor baterako, ikus: Bock 2001 -1993-, 13-45; Kelly 1982 eta Laurenzi 2009. Mugimenduak Espainian izan zituen agerpenei dagokionean, ikus Cacho 1995; Lorenzo Arribas 2001 eta Bolufer 2009; eta ikus halaber Álvaro de Lunaren emakumeen aldeko tratatu edo liburua, Luna 2002 -XV. mendea-.

Gizonezkoen erlijio bizitzaren eredu nagusiak bi ziren: arauturiko ordenetakoa eta sekularra. Bi eredu hauek Aro Berriko Euskal Herriko emakumeen artean ere bazeukaten adierazpena: arauturiko ordenetakoak izan zitezkeen (moja izatera helduko ziren botuak egindako serorak), edo sekularrak, hau da, tenpluei, komunitateei nahiz familia partikularrei loturiko bestelako serorak. Bi ereduak, halaber, izpiritualtasunaren eta erlijiotasunaren bi alderdiri dagozkio: ordenetakoek bizitza kontenplatiboa, azken xedetzat jainkozkoarekin kontaktu pertsonala bilatzen zuena zeukaten helburu (eta emakumeen kasuan, horretarako biderik onena itxitura baino ezin omen zitezkeen izan), gizabanakoari zegozkion esperientzia erlijiosoen alorra jorratuz; eta sekularrek berriz errituaren kargu hartzen zuten, erlijioak talde sozialaren bizitzan lantzen zituen joskuretarako aktibitate sozial komunitarioen kargu. Hein horretan, apezek zio ezberdinetarako mezak esaten zituzten bezalaxe, parroketako serorek, jarlekuei zegozkien erritu partikularren kargu hartzen zuten, edo hobe esan, erritu hauen kargu hartzen zuten emakumeen gidaritza edo ordezkaritza lanak egiten zituzten. Ermita eta santutegietakoek, halaber, tenplu hauetan egiten ziren –eta askotan izaera sinkretikoa zeukaten– errituetan ere parte hartzen zuten (esate baterako, sendakuntza-errituetan)²⁰¹. Ikuspegi honetatik uler liteke seroren aurkako neurriak, hauek aldareetan sartzearen –eta ornamentu sakratuak ukitzearen– auziaren inguruan bildu izana; erritu komunitarioetan talde sozialaren eta jainkozkoaren arteko bitartekari gizonezkoak baino ezin zitezkeen izan, eta hortaz, jainkozkoarekin errituetan gauzatzen ziren loturen espazio nagusian, hau da, aldarean, apezak eta bestelako erlijio-gizonak baino ezin zitezkeen sartu; aldarea bera eta bertako ornamentuak, izan ere, emakumezkoekiko kontaktuak “zikindu” egin zituzketen, hauek berezkoak omen zituzten joera bekatariak zirela eta.

Euskal Herriko emakumeen historiaren baitan hain erabakigarria izan zen XVI-XVII. mendeak bitarteko hamarkaden garai historiko hau, bestalde, bestelako eragin orokorragoen baitan txertaturik dago. XVI. mendea, jakina denez, orokorrean erlijioaren alorreko liskar eta gorabehera ugari bizi izan zituen mendea izan zen. Protestantismoaren agerpenak Europa guztiko lurraldeen barne eta kanpo harremanak harrotu zituen, eta Euskal Herrian ere berebiziko garrantzia izan zuen, Nafarroako Hegoaldeko partearen konkistarako erabili ziren argudioetariko bat izateaz beste, Iparraldean joera kalbinistadun –eta ezaugarri propiodun– protestantismoaren ziklo bati ekin baitzitzaion, Angulemako Margarita, Labriteko Juana eta Valoisko Margaritak osatutako Nafarroako erreginen bultzadarekin. Egoera honek Hegoaldean ere izan zuen noski eraginik, protestantismoaren sarrerarako gune nagusi bat izan baitzen, agintari zibilen eta Inkisizioaren aldetiko neurri eta jazarpenak izan zirelarik²⁰². Baina izan ziren kontrol neurriez bestalde, Hegoaldean, eta bereziki dagokigun Gipuzkoako espazioan, alderdi katolikoaren baitan Trentoko Kontzilioaren inguruan, hau da, lehenago eta batez ere, ondoren, izan ziren erlijiotasunaren inguruko aldaketak dira, batez ere, hemen aintzat hartzekoak ditugunak. “Kontraerreforma” deitu izan denaren bultzatzaile nagusienetariko batek, Loiolako Inaziok, Gipuzkoan izan zuen bere jatorria, eta berak sortu zuen ordenaren eraginak ere erabakiorrak izan ziren Probintzian, erlijiotasunaren alorrean bezalaxe, gizartearen beste hainbat alderditan ere. Bertako erabakiak, Aro Berri guztian zehar eragina izango zutenak -, nahiz eta, ikusiko dugunez, Euskal Herrian edo

²⁰⁰ III. 2.1. (201 eta hurr. or.) eta III. 2.2. azpiatalak (218 eta hurr. or.), bereziki 203 eta hurr. or. eta 225 eta hurr. or.

²⁰¹ Ermitetako serorak aldarean sendakuntza-errituak egiten agertzen zaizkigun kasu baterako, ikus Elorza 2001.

²⁰² Kalbinismoaren eta Nafarroako erreginen arteko loturei buruz, ikus Jon Oria Osésen lanak, 1981, 1984, 1986, 1989 eta 1990. Protestantismoaren Euskal Herriko presentziaren eta bere hedapena galarazteko harturiko neurrien inguruan berriz, ikus Olaizola 1993; Orella Unzué 1999; eta Reguera 2005.

behintzat, espezifikoki dagokigun Debagoienaren espazioan, batez ere XVIII. mendean gauzatu izan ziren-, funtsean, honakoak izan ziren:

Ningún otro concilio había definido tal masa doctrinal. En cuanto a la Sagrada Escritura se determinó su canon, incluyendo en él los libros deuterocanónicos (Ester, Tobías, Judit y otros) que Lutero rechazó como apócrifos. El mensaje bíblico debía interpretarse con arreglo a las normas de la tradición y de su intérprete, la autoridad eclesiástica. Con posterioridad al concilio la postura de Roma se hizo aún más estricta, hasta prohibir el uso de versiones de la Biblia en lengua vulgar.

La cuestión de la justificación provocó serios enfrentamientos entre Seripando, general de los agustinos, que defendía los conceptos de San Agustín sobre la gracia y la predestinación y el jesuita español Laínez, que calificó su postura de próxima a Lutero. La decisión del concilio fue intermedia: la gracia es concedida libremente por Dios, pero el hombre no es un sujeto meramente pasivo; debe cooperar a su salvación con obras. De todas formas, estas difíciles cuestiones de la gracia y la predestinación siguieron ocasionando polémicas hasta el siglo XVIII.

El concilio definió la misa como sacrificio, los siete sacramentos, el concepto católico de Presencia Real y la transubstanciación, la existencia del purgatorio, la licitud del culto a los santos y las reliquias y el valor de las indulgencias.

Los decretos reformistas, de menor trascendencia que los doctrinales, aunque hubieran sido muy útiles si se hubieran aplicado en su integridad, se referían a la formación de un clero instruido y honesto, para lo que se recomendaba la erección de seminarios; a la obligación de residir, prohibición de acumulación de beneficios y corrección de otros abusos. De trascendencia social fue la declaración de invalidez de los matrimonios clandestinos, es decir, los celebrados sin presencia de testigos. Se reafirmó el celibato del clero, a pesar de que era uno de los puntos en que podía darse satisfacción a los protestantes sin obstáculos doctrinales.

Las determinaciones del concilio en materia artística también tuvieron notable trascendencia; se trató de cerrar el paso a la música profana; se prohibió admitir en las iglesias ninguna imagen "que sea ocasión de error para los rudos, y se evite toda lascivia y profanidad", mandato repetido y amplificado por los concilios provinciales. En opinión de Mâle, Schnürer y otros críticos, de Trento arranca la separación del arte sagrado y el profano. Lo que entendían los padres conciliares por *imágenes lascivas* hay que comprenderlo situándose en el ambiente recesivo que ya imperaba incluso en Roma, donde una moralidad estrecha estaba reemplazando a la anterior libertad. Ya Paulo IV había ordenado velar los desnudos más atrevidos del Juicio Final de Miguel Ángel y Clemente VIII estuvo a punto de ordenar su total destrucción. Pío V retiró las estatuas antiguas del Belvedere y las colocó en un local cerrado del Vaticano. Estas medidas no fueron producto de los cánones de Trento: más bien habría que decir que Trento fue un producto de su época (Domínguez Ortiz 1989 -1983-, 171-172)

Aipu luze honetan aipatzen zaizkigun eragin guzti hauek azkenean Euskal Herrira ere heldu ziren, nahiz eta alderdi gehienetan, ez zen XVIII. mendea heldu arte aurrerapen handiegirik egin. Protestantismoen agerpenak izan zuen eraginaz gain, graziaren eta predestinazioaren inguruan esparru katolikoaren baitan ondorengo mendeetan izan ziren eztabaida eta liskarretan ere, izan ziren euskaldunak presente. Eztabaida hauen alde batean izan ohi ziren jesuiten konpainian bere fundatzailearen hasieretatik, espainiarrekin bat, euskaldunek ere presentzia esanguratsua izan zuten; Luis de Molina "molinismoaren" defendatzailearen aurka *de auxiliis* deituriko eztabaidan (XVI-XVII) azaldu ziren domingotarren arteko buru izan zen Domingo Bañezen familiak Arrasaten zeukan jatorria (eta berak ere halaxe gogorarazten zuen), eta hein handi batean eztabaida honen jarraipen izan ziren jesuiten eta jansenisten arteko liskarretan (XVII-XVIII), Jansenio berarekin batera azken mugimendu honen ardatz nagusiak taxutu zituen Jean Duvergier de Hauranne, Saint-Cyran ezizena jaso zuena,

baionarra zen. Alde batetik nahiz bestetik, Euskal Herriko inguruetan eztabaida hauen ohiartzunak heldu izan ziren²⁰³.

Horrez gain, eta seroren ekonomiaren alderdi garrantzitsu batekiko, XII. mende bukaera aldetik gorpuztuz joan zen, protestantismoen agerpenerako akuilu nagusienetariko bat izan zen, eta hauen kontra Trentoko Kontzilioak -bere azken bilkuran, 1563an- finkatu eta bultzatu zuen purgatorioaren dotrina etekinen iturri bilakatu zen, santuen kultuekin, erlikiekin eta induljentziekin batera. Eragin honen testigantza -lanak aurrera egin ahala xedatuki aztertuko ditugun- seroren euren testamentuetatik heltzen zaigu, bere gorabeherekin, mezen eta "obra pía" zirelakoen bidez arima salbazio bidean jartzea, Aro Berri guztian seroren artean presente izan zen

²⁰³ Luis de Molina (1536-1600) jesuitak gorpuzturiko ikusmoldea jada ordenaren hasieratako urteetan lantzen hasia zen, zenbaiten arabera, Loiolako Inazio berak eta bere lehen jarraitzaileek gizabanakoaren borondatearen askatasunaren ideia protestantismoaren Jainkoaren graziaren ikuspegi deterministaren aurka defendatzeari ekin ziotenetik bertatik. Molinaren *Concordia liberi arbitrii cum gratiae donis, divina praescientia, providentia, praedestinatione et reprobatione* (1588) lanean azaldu zen molinismoaren ikuspuntua, zentzu hontan, protestantismoaren aurka defendaturiko argumentuek – katolikoen artean – *de auxiliis* auziaren baitan izango zuketzen antzaldatzea baino ez litzateke. Eta guri dagokigunarekiko, Inazio berak ere bere *Espiritu Ejertzizio*ak nabari asko eta arduraz azaltzen digu, predestinazioaren inguruko auziek gizarte mailan nolako eraginak izan zitzaizkiren:

15. *araua*. Ez dugu predestinazioaz asko hitzegiteko ohiturarik eduki behar. Baina, nolabait edo noizbait hitzegingo balitz, jende xeheari ez oker arazteko eran egin bedi. Batzutan hala gertatzen baita: ‘Salbatuko ala kondenatuko naizen erabakia dago, eta nik nahiz on egin nahiz gaizki egin, ez daiteke gauza aldatu’. Eta horrela, moteldurik, ez dute beren arimen osasunerako eta espirituaren onerako obrak egiteko ardurarik izaten (Loiolako Inazio 1991-1548-, 106)

Zalantza handiegirik gabe, protestantismoaren doktrinaren “kutsuak” katolikoen artean sortzen omen zituen ondorio sozialak –eta ekonomikoak– dira hemen aipatzen zaizkigunak. Ordenaren fundatzaileari jarraiki, Trentoko Kontzilioan (1545-1563) izan ziren Diego Laínez eta Alfonso Salmerón jesuitak molinismoaren aurrekaritzat hartzen ziren ideiak (“premolinismo” izendatzen dena) defendatu zituzten, eta urte gutxitara, 1567an, jesuiten (P. Deza) eta Bañezen arteko lehen liskarrak hasi ziren. Eltzeari azken berotua 1582an Prudencio Montemayor jesuitak Salamankako ekitaldi eskolastiko batean defendaturiko ikuspuntuek emango zioten. Ordundik aurrera molinistak eta Bañezen jarraitzaileak elkarren aurkako –Inkiszioaren aurreko– salaketak eginaz hasiko ziren, azkenek molinistei pelagianok izatea egotziko zieten artean, hauek berriz, Bañez protestante izateaz salatuko zutelarik. Hara nola aurrekariaren gogoramena berpizten zuten. Molinak bere liburua argitaratu zuen, eta Bañezek eta bere jarraitzaileek honen aurkako *Apología de los hermanos dominicos contra la “Concordia” de Luis de Molina* (1595) ere argitaratu zuten, Inkiszioak bere aldetik debekuak ezarri zituen (“premolinistek”), aita santuak eta Vatikanok ere tartean sartu beharra izan zuten... baina ez gara xedapenotan luzatuko. Nahikoa bekigu esatea, hainbat gorabehera ondoren, 1602an jesuiten eta domingotarren arteko aita santuaren aurreko eztabaidak hasi zirela, eta 1607an, ezin ondorio batera iritsirik, Paulo V.ak nork bere doktrina defendatzeko askatasuna ezarri zuela, elkarri heresia salaketak egitea debekatuz. Aita santu aurrekaria (Klemente VIII.) eztabaida sutsu hauetariko batean bihotzekoak emanda hil zen, eta antza, aski zuten jada *de auxiliis* auziarekin.

De auxiliis auzian “beharrezko graziaren” (“gracia suficiente”, gizakiaren borondatea salbaziorako ekintza bat aukeratzeko egoeran kokatzen duena, Jainkoari dagokiona) eta “grazia eraginkorraren” (“gracia eficaz”, ekintzaren egikaritzea, eta hortaz, graziaren erdiestea eragiten duena, gizakiari dagokiona) inguruan izan ziren eztabaidetan sartuko ez bagara ere, auziaren baitan landu ziren alegiei erreparatzea interesgarria zaigu, protestantismoaren baitan luthertarren eta kalbindarren artean landu ziren zenbait ezberdintasunen pareko katolikoa ikuskatzera baikaramatzate. “Ontzia” eta “lanabes” metaforen artean lantzen diren ñabardurei buruz dihardut. Ezberdintasun hau Weber-ek Jainkoaren eta gizakiaren arimaren artean josten diren erlazioen moduei buruz diharduela aipatzen digu, luteranismoaren eta kalbinismoaren arteko hautemapen ezberdinen adierazgarri. Alemaniar tradizio mistikoaren eragina (Tauler, bereziki) ere jaso zuen Lutherrek, gizakia Jainkoaren “ontzi” lez hautematen zuen, arimaren eta Jainkoaren arteko *unio mystica* zeritzon erlazioaren baitan. Kalbinok ostera, Jainkoa bere sorkariaren hain gaindikotzat baitzuen, ez zuen Jainkoak gizakiaren arimarekin bat egin zezakeenik sinesten (*finitum non est capax infiniti*), eta gizakiari gehiago zeritzon Jainkoaren “lanabes”, “ontzi” baino. Hau da, Jainkoak gizakiengan eta beraien ekintzengan eragingo luke, hauen arimarekin bat egin gabe baina. Eta hara non

ardura garrantzitsua baitugu (XVII. mendearen hasieratik gorakadan, eta XVIII.enaren bukaerarako beherakadan).

Trentoko kontzilioan erabakitako beste zenbait puntuk, hala nola apezen instrukzio egokiak eta ohaideen eta seme-alaben edukitzeak, eta benefizioen pilaketaren eta zegokien parrokiatik gertu bizitzearen, nahiz eliztarren arteko ezkontza klandestinoen eta ezkon-aurretiko erlazioen -eta seme-alaben- ingurukoek, XVIII.en menderarte itxaron beharra izan zuten, Euskal Herrian eragin esanguratsurik izaten ekiteko²⁰⁴. Honen berri ematen digun Madariaga Orbeak Larramendiren kexuak hartu zituen egoeraren adierazle, geuk ere, erabat egoki iritzirik, egingo dugun bezala:

de auxiliis auziak sorturiko eztabaidetan tankerako metaforekin topo egiten dugun, kasu honetan, *mutatis mutandis*, gizakiaren eta Jainkoaren borondateen arteko erlazioari eta graziaren izaerari buruz dihardutela. Molinak “beharrezko grazia” eta “grazia eraginkorra”ren artean josten duen elkarrekintza –eta gizakiaren salbaziorako elkarrekiko lotura–, “concausalidad” izendapenez aipatzen duena, ontzi berberari bultzatzen dioten bi gizonen alegiara joaz azaltzen du. Bañezek berriz, kontzeptu hau kritikatzeko artisauaren eta bere lanabesaren arteko loturaren alegiara joko du. Gizakia lanabesa lakoa litzateke, eta ezingo luke inongo ekintza nahiz obra onik egin, oinarrian Jainkoaren eskuak (bere borondateak) horretara bultzatu gabe. Protestanteen nahiz katolikoaren artean, edonola ere, Jainkoaren eta gizakiaren arteko loturei buruz dihardugu. Jainkoaren ahala norainokoa ote denaren, eta gizakiaren aukeraketa eta borondate askatasunik izan, ba ote denaren inguruan. Auzi hauexei helduko zieten jansenistek ere, molinismoarekiko aurkaritzaren ibilbideari ekin ziotenean.

Domingotarren ordenaren baitatik, molinisten aurkaririk sutsuenak Bañez eta bere jarraitzaileak izan baziren, *de auxiliis* auziari beharturiko bukaera eman zitzaionaz gero, gerora jansenismo lez ezagutuko zena gorpuztuz joan zen, batez ere mugimenduari izena eman zion Cornelius Jansen (Jansenio, 1585-1638) holandarraren, eta Jean Duvergier de Hauranne (Saint Cyran, 1581-1643) baionarraren eskutik. Ohar dezagun, gainera, jesuitek (eta beste zenbaitek) Saint Cyran-i Jansenio berari baino kar handiagoa ziotela, lehenaren magalpean garatu zen Port Royal-eko komentua eragin sozialak gehiago arduratzen baitzituen, eta jansenismoaren ideien erantzuleztat hartu ohi baitzuten, askotan Jansenio bera baino gehiago. Euskal Herriaren kasuan, Baionan bertan izan ziren jansenistak indartsuen, eta jesuitek hirian eskola bat sortzeko egin zituzten ahaleginek, hauek zieten aurkaritzagatik egin zuten porrot.

Funtsean, jansenismoak Bayoren ideia predestinazionista jaso zuen: Adanen bekatu orijinalaren ostean gizaki oro bekatuaren esklabo litzateke, eta Jainkoak, grazia “eraginkorra”ren bidez, betiereko bizitzarako zenbait aukeratuak litzuke. Aukeraketa hau, molinistek defendatzen zutenaren aurka, eragin gizatiarrez askea litzateke, eta protestanteek defendatzen zutenaren aurka berriz, ez litzateke predestinazio bikoitzik egongo, kondenazioan Jainkoaren partehartze aktiboa egoterik ukatzen baita. Kondenatuek, besterik gabe, Adanen ondorengo bekatari ororen ibilbidea daramate, Jainkoak bere grazia eman dienek ez bezala. Batzuek dira aukeratuak, eta besteak “utzi” egiten dira, dagokien egoeran. Graziak gizakiaren borondatearekiko lukeen loturaren auziari dagokionean, protestanteek gizakiaren borondatea Jainkoaren eskutan zegoen instrumentu pasibo bat lez hautematen bazuten, eta molinistek “beharrezko grazia” eta “grazia eraginkorra”ren banaketaren baitan, azken hau gizakiaren borondatearen esku uzten bazuten, jansenistek, graziak gizaki justuaren (salbaziorako jada predestinatuaren) borondatea bete-betean hartzen zuela sinesten zuten; graziak borondatea ontasunera erdibiderik gabe gidatuko luke, hau jainkotasunaren partedun egiteraino.

Jainkoarekin “bategite” honen araura, bizitza moralari garrantzia handia eman zioten, honi zentzu aszetiko rigorista bat emateraino. Jesuitenganako kritika ere ikuspegi honi lotua zegoen, moral nasai baten eta kasuistikaren praktika zela eta, lege ebanjelikoaren zurruntasun moralala alde batera utzi izana egozten baitzieten. “Jainkotasunaren partedun” egite hau egingo dute jansenistek, grazia erdiesteko beharrezkoa den bekatariaren barreneko damua eta urrikalmendua, *contritioa*. Jesuitek eta ortodoxia katolikoak *contritio*arengandik bereizten zuten *atritio*arekin baina, izan zuten arazorik; *atritio*aren teoriak, izan ere, salbazioaren ibilbidean konfesoreak berak zuen papera erdigunera eramaten zuen, konfesatzen ari zenari –hobe esan, bere arimari– zegokion *contritio*aren aurrean. Izan ere, *atritioa* paradisuaren galeraganako eta infernuko zigorranganako beldurak eragindako sentimendua zen, konfesoaren eta apezen eskutik bideratua, eta jesuiten eta katolizismo ortodoxoaren arabera, Jainkoaren grazia erdiesteko nahikoa zena, konfesatzen zenaren aldetiko *contritioa* gabe izanik ere. Pentsalari jansenistek *atritioa* kontzeptu faltsu bat edo inbentzio bat zela zeritzoten, eta *contritioa* gabe, ez zegoela Jainkoaren graziaz erdiesterik.

Honekin gehiago luzatuko ez bagara ere, esan dezagun, Saint Cyran bera ere, azkenean,

De esta excusa nace el abuso de que nos envíen a las comunidades de Guipúzcoa predicadores castellanos que predicán al pueblo en castellano, con gran satisfacción de que son entendidos, siendo ciertísimo que, de mil oyentes, no habrá cincuenta que los entiendan para que saquen algún fruto; y todos los demás, o están dormidos, o están oyendo como si los oyesen predicar en griego [...]. Lo que es más intolerable es, que suben al púlpito predicadores vascongados y predicán en castellano, no atreviéndose a hacerlo en vascuence. No quieren trabajar ni aplicarse a saber bien su lengua, ni a leer y escribir en ella. Tienen sermones en castellano que encuentran trabajados y de molde en romance. Para traducirlos se necesita de inteligencia y saber bien una y otra lengua, [...] Y aún ha llegado la infamia a valerse de estos predicadores para que en muchos pueblos, comunidades de monjas y cofradías, se tenga por cosa de

atritioaren auzi hau medio kartzelaratu zutela. Eta gogoratu dezagun, edonola ere, *atritioaren* balizkotasuna, konfessorei eta apezpei ofizialki egozten zitzaien botere izpiritualaren oinarrietan zegoela, beraien presentzia salbaziorako ezinbesteko egiten baitzuen. Eta Eliza katolikoak, ez zuen horretan batere amore emateko asmorik, alor sozialean eta ekonomikoan ondorio eta onura luzedun katea zekarkion teoria baitzen. Hala, eztabaida 1713eko *Unigenitus* aita santuaren buldarekin itxi zen, jansenistei egotzi zitzaizkien proposizio eta argumentuen aurka eginaz.

Ikuspuntu orokorrago batetik, azken finean, katoliko nahiz protestanteen artean, Bibliaren eta idatzi sakratuen itzulpenek fede kristauaren oinarritzko testuen zuzeneko irakurketa hedatuaz bat, eta nobleziaren aurrean burgesia indarra hartuz joan heinean, teologia auziak interes politiko eta ekonomikoen zurrunbiloetan gero eta sartzengo joan ziren, eta giltzarri sozial eta politikotzat egiten zuten auzi teologikoak eurak, nork bere botere esparruan, gero eta zehaztuago eta xedatuagoak behar zituztela esan liteke. Aplikazio soziologiko, politiko eta ekonomikodun teologiak edo (Boni 1992 -1981-, 81, 86, 510, 673; Hevia Echevarría 2003; Tavenaux 1987 -1972-, 35-41).

²⁰⁴ Madariaga Orbea 2007, 11-14. Apezzen euren eta eliztarren instrukzioarekiko eta dotrinaren ikastearekiko, eta halaber, apezzen seme-alaben nahiz eliztarren ezkont-aurretiko erlazioen inguruan XVIII. mende hasieratan hartu izan ziren neurriekiko, Aretxabaletako Andre Maria eta Bedarretako San Migel parrokia batueta liburuek hainbat berri dakarzkigute, kasu honetan, jada XVII. mendearen bukaeratik hasten direnak; testigantza lez lehen liburuko (1601-1722) (DEAH-AHDSS 4143/001-01) zenbait agindu jasoko ditugu:

- "6. Y porque en la visita personal que esta haciendo le ha constado de la grauissima ignorancia que ay en los parrochianos destas Yglesias originada de el detestable descuido, que los curas de ellas tienen en el cumplimiento de la obligacion de enseñarsela en que se abentura la saluacion de vnos y otros, para rremedio de lo qual mando su Yllma. en virtud de Santa obediencia â los curas que al presente son y en adelante fueren que todos los Domingos y fiestas de el año â hora competente comboquen â sus feligreses tocando la campana para que se junten y estandolo les instruian, y enseñen los misterios mas principales de nuestra Santa Fee Catholica..." (1691) (162v)

- "10. Y por quanto su Illma. ha sido informado de que muchos de los Vecinos de esta dicha Villa de Arechualeta con el pretexto de hauer hecho esponsales con promessa de futuro matrimonio cohauitan juntos como si realmente estuvieran Cassados ocasionando nota y Escandalo en las rrepublicas en gran desseruicio de Dios, por lo qual manda su Illma. que ninguna perssona de dicha Villa debaxo de dicho pretexto Viua, ni se mezcle con su Esposa pena de Excomunion mayor en que incurran los delinquentes y constando al Cura, que algunos lo hacen los publique por Excomulgados y ponga en tablillas, y no los absuelua sin Especial Orden de su Illma. para ello" (1691) (163v-164r)

- "11. Otrosi por quanto por los sagrados canones y constituciones de este obispado esta prohibuido a los Sacerdotes el tener en su cassa y compañía sus hijos hauidos en el tiempo del clericato, y ha sido informado su Illma. de que muchos de los Sacerdotes de estas Yglesias contrauienen â ello por lo qual mande que en adelante ninguno de dichos Sacerdotes tengan en su cassa hijo o hijos pena de Excomunion mayor en que incurran, y con aperciuimiento que se procedera contra los reueldes a lo demas que huuiere lugar en derecho" (1691) (164r)

- "14. Yten mando que ningun ecclesiastico entre en meson ni taberna â jugar, beber, ni dar de beber pena de Excomunion mayor en que incurran" (1691) (165r)

- "Mando que ninguna de las personas de dicho lugar que contrahen esponsales de futuro cohauiten juntos dentro de una mesma Casa, ni concurren a solas a parte alguna donde aia peligro de incontinençia por el riezgo que de tal cohauitacion y concurrençia se sigue de ofender a Dios nuestro Señor grauemente lo cumplan pena de excomunion maior latae sententiae y de dos ducados en que por cada uez seran multados, que desde luego aplico su m[?] para la luminaria del ssantissimo Sacramento de dicha Yglesia" (1693) (171v-172r)

menos valer el que se predique en vascuence, como que el vascuence es solamente lengua para aldeanos, caseros y gente pobre: diablura más perjudicial no ha podido introducirse en nuestros púlpitos. [...] No me queda otro consuelo, si no es el ver que son tales sus sermones castellanos y de tan poco jugo y sustancia y de tan poca o ninguna instrucción, que pierde poco el auditorio en no entenderlos (Larramendi 1985 -1754-, 303-305)

Alabaina, apezken eta eliztarren instrukzio eta dotrinaren jakite egokia protestantismoen agerpenetik presente izan zen ardura dugu, eta euskarazko argitalpenetan ere, isladatzen dena. Katekesiaren eta katezismoen inbentzioa Luterorena izan bazen ere, laster asko jaso zuten Loiolako Ignaziok eta Borjako Frantziskok, katolikoaren artean ere katekesiaren ikaskuntza bultzatzeko (Tavenaux 1987 -1972-, 18-19). Hala, euskarazko lehen katezismoak protestanteak izan ziren (Leizarraga, J., *Abc, edo kristinoen instruktionea* eta *Katexisma*, 1571koak), baina gerora agertu ziren esparru katolikokoak ere (Belapeire, A., *Katexima labürra*, 1696). Alabaina, euskarazko argitalpen katolikoaren parte handi bat apezkei eurei zuzendurik zegoen, konstituzio sinodaletan errepikatu izan zenaren arabera, hauek zegokien biztanleriaren hizkuntzan dotrina ongi ikasi eta irakatsi zezaten. Aro Berri guztian zehar -batez ere XVII. mende hasieratik- izan ziren halako argitalpenak, nahiz eta, Larramendiren aipuan ikusi berri dugunez, itxuraz, ez zuten etekin handirik eman, apezkei artean gaztelarazko liburu eta materialak erabiltzeko ohitura zeukatzen eta; eta hala ere, euskarazko argitalpenen artean, dotrinaren irakaspenetara begirakoak (XVIII. mendean, baita sermoien bildumak eta

- "Yten mando su merced al dicho Cura no asista a ningun matrimonio que intentaren contraher sus feligreses sin que le conste sauen la doctrina christiana y misterios mas principales de nuestra Santa Fee necessarias para saluarse porque si la ignoran no podran enseñarla a los hixos y lo cumpla pena de quatro ducados" (1696) (187r-187v)

- "Otroxi exsorta y manda â dicho Cura que en execucion de lo dispuesto por el Santo conzilio de Trento y constituciones sinodales de este obispado ynstruia a sus feligreses en los misterios de nuestra Santa Fee Catholica en los dias de su encargo y no administre el Santo Sacramento, de la Eucharistia ni asista â los matrimonios de los contrayentes de los que ygnoran los misterios prinzipales que deuen sauer como catholicos christianos..." (1700) (197v-198r)

- "Y porque sin sauer los Misterios Sacrosantos de la Fee no se deue dispensar la sagrada Eucharistia mando su merced que al tiempo de la comunion anual, y quando se preuienen para ella los fieles con la confesion sean todos examinados en la Doctrina Xptiana negandole absoluzion a los que no se sugetasen a este catholico examen, lo qual cumplan, y executen el Cura que es ô por tiempo fuera de esta Yglesia y los confesores seculares y se exorta a los irregulares se conformen con la obseruancia de este mandato" (1722) (256r-256v)

- "Y por quanto en todos los ecclesiasticos es la mas importante ciencia la del Moral pues con ella pueden satisfacer a su Ministerio enseñando la ley de Dios a la rrudeza del Pueblo: por tanto y procurando su mayor aprovechamiento e instruccion en la moralidad, mandaba y mando su merced a todos los Sacerdotes y Ecclesiasticos que ay al presente y por tiempo hubiese asi en este lugar, como en los de Arcaraso, Galarza, Ysurieta, Larrino, Aozaraza, Goronaeta, Arenaza, y Guillano, que luego que este mandato les sea leydo, y notificado ayan de tener, y tengan de ocho en ocho dias conferencias Morales en este referido lugar de Arechaualeta a que asistiran puntualmente todos los beneficiados y Ecclesiasticos de ella, y con la asistencia de estas conferencias se declara cumplir don Martin de Garay cura de esta Yglesia y la de Unzella..." (1722) (259v-260r)

- "Y por quanto es tambien de toda importancia la inteligencia en las Sagradas Zeremonias de la Misa para desterrar qualesquiera defectos, que puedan ocurrir en ella y seruirle con todo el asierto y compostura que corresponden a tan alto Misterio mando su merced que todos los meses del año los rreferidos Capellanes y Ecclesiasticos de este lugar y los de Arcaraso, Galarza, Ysurieta, Larrino, Aozaraza, Goronaeta, Arenaza, y Guillano, tengan en el lugar arriba señalado un dia de conferencia de Zeremonias dificultando sobre la significacion y puntual inteligencia de ellas, y para que mas debidamente se execute esta conferencia, y se propongan las razones y serbiz[ios] que a qualquiera se le puedan ofrecer corra por cuenta del Presidente a quien tocara la alternatiba de las conferencias Morales el destinar sugeto [?] que aya de decir una Misa en seco para que conforme la fuere diciendo se vaya dificultando: todo lo qual cumplan uajo la misma pena arriba impuesta y obseruando en todo el regimen e instruccion que en las conferencias Morales" (1722) (260v-261r).

santuen bizitzak ere) asko izan ziren²⁰⁵. Berez, euskal literatura klasikoaren gehiengo nagusia, hain prezeski ere Aro Berrian zehar argitaratu zena, esparru katolikoan biztanleriaren kristautze "egokirako" abian jarri ziren ekimenei zuzenean lotua dago. Alabaina, liburuok euskaraz isurtzeko lana hartu zuten apez arduratsuak izan baziren ere, arazoa, apezik gehien formazioa eta eliztarrei dotrina egoki irakasteko karra oso bestelakoa zela zen; eta hala, kexu zitzaigun Larramendi, XVIII. mendearen erdialdean ere. Baina diogunez, oinarritzko kontsonantzia bat dago Aro Berriko erlijiotasunaren baitan bultzatu ziren argitalpen moten, eta euskaraz garai beretsuan argitaratu zirenen artean.

Horrela, katekesiez eta dotrinez gain, erlijiotasun intimista baten gailentzeari lotuago zeuden bestelako lanak ere argitaratu ziren; eta hauek, katolikoan eta protestanteen arteko dotrina ezberdintasunak zirenak zirela, bi esparruetan gauzatuko ziren joera orokorragoei ere bazegozkien. Alor publiko bateko manifestazio erlijiosoz haratago, gizabanakoaren bizipen erlijioso pertsonaletan eta psikologian barneratzera jotzen zuen mugimendu bat hedatua zen; hau XIV. mendean hasi zen bidea hartzen, mistizismo alemaniarraren eskutik:

Una élite de devotos se destaca de la masa cristiana. A principios del siglo XIV surgen los místicos alemanes, alrededor de los grandes maestros, como Eckhart (muerto hacia 1328), Taulero (muerto en 1361) y Suso (muerto en 1366). Su fe culmina en lo inexpresable. "El Dios sin nombre es inexpresable -dice Eckhart-, y el alma, en el fondo, es tan inexpresable como El." De aquí saldrá, a finales del siglo XIV, la vía de la *devotio moderna*. Ruysbroek (muerto en 1381) y la comunidad de Groenendale, Gerardo Groote (muerto en 1384) y la fraternidad de los hermanos de la vida común de Deventer preparan el terreno de la *Imitación de Cristo* (1424-1427) (Le Goff 1992 -1972-, 184)

Beguinek eurek ere izan zuten joera honen hastapenekin zerikusirik, eta hainbat erlazio, elkarreragin eta kutsu aurkitu izan dira, beguinen eskutik idatziriko lan mistikoen, eta -zenbaitetan beguinen euren konfesore izan ziren- mistizismo alemaniarraren bultzatzaile nagusien artean (McGinn 1997 -1994-; Hollywood 2001 -1995-). Baina esan bezala, bere jatorria Herbeeretan izan zuen *Devotio Moderna* mugimendua dugu joeraren adierazle nagusi eta indartsuena, Tomas Kenpisen *Kristoren Imitazioa* (1418-1427) deituriko lana ardatzean zuena, eta katolizismoaren esparru ofizialaren baitan Saleseko San Frantziskoren eta Bérulleko Pedroren erlijiotasunean jarraipena izan zuena (Tavenaux 1987 -1972-, 27-30). Joera orokor honek Euskal Herrian izan zuen eragina nabari agertzen digu, batez ere, Kenpisen *Imitazioa*, Aro Berrian euskararako itzulpen gehien izan zituzten lanen artean egoteak: jansenismoaren oinarri nagusietariko bat izan zen Saint-Cyranen (Jean Duvergier de Hauranne baionarra) idazkari izandako Silvain Pouvreaux (*Jesusen Imitazionea*, 1669), Aranbillagak (*Jesu Kristoren Imitazionea*, 1684), Mixel Xuriok (*Jesu-Kristoren*

²⁰⁵ Betolaza, *Doctrina Christiana*, 1596; Materre, E., *Doctrina Kristiana*, 1623; Beriain, J., *Doctrina Kristioarena euskaras*, 1626; Otxoa de Kapanaga, M., *Doctrina*, 1656; Pouvreaux, S., *Giristinoaren Doctrina*, 1656; Zubia, N., *Doktrina Kristiana*, 1691; Otxoa de Arin, J., *Doktrina Kristianaren explikazioa*, 1713; Arzadun, M., *Doktrina Kristianeen explikazioa*, 1731; Elizalde, F., *Apezendako Doctrina Kristiana uskaras*, 1735; Irazusta, J., *Doktrina Kristiana*, 1739; Mendiburu, S., *Festegunetarako irakurraldiak*, 1740-1767, eta *Kristauaren Doktrina*, 1757; Kardaberaz, A., *Kristauaren Doktrina eta Kristiñau Doctrina*, 1762; Olaetxea, B., *Doktrina Kristianea*, 1763; Mendiburu, S., *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 1767-1782, eta *Francisco Xavierren bederatz urruneko irakur-aldiak*, 1769; Ubillos, J.A., *Kristau doktriñ berri-ekarlea*, 1785; Mogel, J.A., *Kristaubaren ikasbidea edo Doktrina Kristiana eta Kristau erakasle euskalduna*, XVIII. mendea. Guztiak, testu nagusian aipatu ditugunak bezalaxe, KLASIKOEN GORDAILUA webgunean eskuragarri (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

imitazionea, 1720), eta Martin Maisterrek (*Jesü-Kristen imitazionia*, 1757) itzulia izan zen²⁰⁶.

"Imitazio" hauek erlijiotasun barnerakoiago baten agerpena ziren, eta baita gero eta presentzia handiagoa hartuz joan zen kristozentrismoarako joerarena ere (Tavenaux 1987 -1972-, 45-46). Kristozentrismoak eta bere "imitazioek", bestalde, Amabirjinaren figuran ere bazeukaten eraginik, eta hala, Alexander Mihurak 1778an *Andredena Mariaren imitacionea* ere argitaratu zuen²⁰⁷, 1773an Alexandre-Joseph de Rouville-k argitaratu zuen *L'Imitation de la Tres-Sainte Vierge sur le modele de l'Imitation de Jesus-Christ* itzuliz²⁰⁸. Mihura jesuita zen (eta baita oinpeko notan aipatu dugun Andrade ere), eta izan zen hauen eta frantziskotarren bultzadarekin gauzatu zen bestelako kultu bat ere, hartu zuen indarragatik, Elizak ofizialtzat onartu behar izan zuena: Amabirjinaren kontzeptzio garbiarena. Domingotarren teorien ardatz egiten zuen Santo Tomasen autoritatearen kontra, jada Erdi Arotik, frantziskotarrak hasiak ziren ideia honen alde egiten: Amabirjinaren jaiotza, Jesusena bezalaxe, munduko bekatuen izpirik gabe gertatua izan zela, alegia, mirakulu bidezko kontzepzioz, haragizkoaz beharrean. XVII. mendearen hasieratik eta batez ere Espainian, sinesmen eta kultu honek bultzada handia jaso zuen, eta domingotarren iritzia aurka zeukala, frantziskotarren eta jesuiten laguntzarekin onartua izan zen, gaiari buruz aurkako iritzia agertzeko aita santuaren debekuarekin izanda ere (debeku hau 1854rarte mantendu zen) (Domínguez Ortiz 1989 -1983-, 333; Rambla 1954, 192-210).

Eta ez ziren hauek izan, diogun erlijiotasun barnerakoiak euskal lurretan izan zituen agerpen bakarrak; debozio laikoen, meza -ongi entzuteko- liburuen eta "ongi hiltzeko" liburuen argitalpenek euskal literatura klasikoaren beste atal garrantzitsu bat osatzen dute, beste behin, biztanleriaren adoktrinamenduan egin nahi izan zen esfortzua agertzen digutenak, eta beraien frutuak, batez ere, XVIII. mende hasieratik seminarioen eta misioilarien hedapenarekin emango zituztenak²⁰⁹. Ohar dezagun, bestalde, serorekiko, erlijiotasun tankera hau bultzatzeko euskarazko liburuen parterik handiena XVII.en mendearen lehen erditik hasita argitaratu zela; hau da, hain zuzen ere, seroren desagerrarazterako mende hasieratako lehen ekinaldi esanguratsuen ondoren.

Era berean, nahiz eta beste ibilbide batzuek jorratzen zituen, Loiolako Inazioren *Izpiritu Ejertzizioak* edo *Gogo-jardunak* ere (1548), izpiritualtasun barnerakoi baten

²⁰⁶ KLASIKOEN GORDAILUA webgunean eskuragarri (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

²⁰⁷ KLASIKOEN GORDAILUA webgunean eskuragarri (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

²⁰⁸ *Google books* webgunean eskuragarri. Webgune berean gazteleraz mende bat lehenago gai berberari buruz idatziriko liburu bat ere badaukagu eskuragarri; ez dakigu Alexandre-Joseph de Rouville-ren lanean eraginik izango ote zuen: Alonso Andradek 1642an argitaratu zuen *Libro de la guia de la virtud y de la imitacion de Nuestra Señora*.

²⁰⁹ Beriain, J., *Tratatzen da nola entzun behar den meza*, 1621; Haranburu, J., *Debozino eskuarra*, 1635; Axular, P., *Gero*, 1643; Etxeberri, J. ("Ziburukoa"), *Elizara erabiltzeko liburua*, 1665, eta *Manual debozionezkoa*, 1669; Harizmendi, K., *Ama Birjinaren ofizioa*, 1658; Pouvreau, S., *San Frances de Sales Genevako Ipizpicuaren Philotea*, 1664, eta *Gudu espirituala*, 1665; Argaiñaratz, P., *Deboten brebiarioa*, 1665; Tartas, J., *Onsa hilzeko bidia*, 1666, eta *Arima penitentearen okupatione debotak*, 1672; Maitie, A.F., *Otoitzak*, 1676; Gasteluzar, B., *Egia katolikak, salbamendu eternalaren egiteko nezesario direnak*, 1686; Kardaberaz, A., *Kristabaren bizitza*, 1744 eta 1760; Haraneder, J., *Gudu izpirituala*, 1750; Mendiburu, S., *Jesusen bihotzaren debozioa*, 1751; Mikelestorena, J., *Zerura nahi duenak ar dezaken bide erraza*, 1751; Mendiburu, S., *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai (I)*, 1759, eta (II) eta (III), 1760; Kardaberaz, A., *Aita San Ignazioren ejerzizioen gañean afektoak (Ejerzizioak-II)*, 1761, eta *Ondo iltzen ikasteko, ta ondo iltzen laguntzeko ejerzizioak (Ejerzizioak-III)*, 1762; Mendiburu, S., *Euskaldun onaren biziera*, 1762; Kardaberaz, A., *Jesus, Maria eta Joserren debozioa, Deboziño batzuk eta Justuen ispilu argia*, 1764, *Senar emazte santuak*, 1766, eta *Ama beneragarri Josefaren bizitza eta Meza eta komunioa*, 1767; Baraziart, A., *Meditazione ttipiak*, 1784. Guztiak KLASIKOEN GORDAILUA webgunean eskuragarri (<http://klasikoak.armiarma.com/>).

joera orokor berean txertatzen ziren. Eta joera orokor honek, halaber, laikoan izpiritualtasunean bezalaxe eragin zuen mojen eta seroren izpiritualtasunean ere. Euskal Herrian eragin berezia izan zuten –eta Debagoienean behinik behin, serorekiko erlazio gehien izan zituzten– jesuiten eta frantziskotarren ordenek gizartean gizabanakoaren mailako izpiritualtasun hau barneratzerako orduan garrantzia handia izan zuten. Konfesioaren praktikaren hedapena ere ikuspegi berri honi loturiko fenomenoak izan zen, gizakien adimenean askoz ere barneragoko esparruetara hedatzen zen botere esparru baten agerpena eraginez; bekatuaren nozioa eta purgatorioarekiko beldurra armatuz zeuzkatela, konfesoreak gizabanakoen adimenean gain botere handia izatera heldu ziren garaia dugu. Guzti honetan zerikusi handia izan zuen beste alderdi bat, aipatu berri ditugun ordenak oso inplikaturik izan zirena, misioilaritzaren garapenarena da. Kolonien testuinguruak paganismoarekiko konfrontazio –eta konparazio– egoera berri bat sorrarazi zuen, lurralde berrien kristautzearekin bat, misioilariak, jatorrizko lurraldeetako “superstizioak” sineskerak paganoekiko loturan hautematera bideratu zituen; eta hala, “barne-misioak” ere antolatu ziren, Europako biztanleriak artean gordetzen zituen “superstiziozko” arrasto paganoak uxatzeko, eta aipaturiko erlijiotasun barnerakoia hedatzeko asmoz egin zirenak. Horrek, noski, batez ere landa eremuetan kokatzen ziren erlijiotasun herrikoien agerpenen aurka egitea ere esan nahi zuen, santuen eta Amabirjinen inguruko joera animistadun sineskerak sinkretikoak baztertzuz, jainkozkoarekiko lotura izpiritual pertsonalizuatuago baten alde²¹⁰.

Eta hain zuzen ere, XVI. mende bukaera eta XVII. enaren hasieratako Euskal Herriaren testuinguruko sorgin ehizak, seroren komunitateen gaineko klausuraren ezarpenaren hedapena eta bestelako seroren desagerrarazterako lehen saiakera esanguratsua, erlijiotasunaren alorreko joera hauek Erdi Aroko tradizioari atxikitzen zitzaion erlijiotasunari gailendu zitzaizkion bitarte kronologikoan kokatzen zaizkigu. XVII. mendearen erdialdeaz geroztik goraldian joango zen erlijiotasun barrokoa aipaturiko ezaugarriak nagusitu zireneko dugu jada; eta azken garai hau dugu, halaber, seroren gainbehera luzeari hasiera eman ziona. Eta hala ere, izpiritualtasunaren eta erlijiotasunaren alorreko bilakaera intimista ez zen XVII. eta XVIII. mendeetako gizarteko sektore guztien bizipen erlijiosoak antzaldatzera iritsi; azken finean, misioilariak –eta konfesoreak– eurak ere bere munduikuskeran baitaratu zituen sinkretismo berri bat izan zen lortu zena. Esate baterako, misioilari hauek fenomeno meteorologikoen baitan zeuden deabru eta jeinuen eta egin beharreko konjuruen inguruko sineskerak desagerrarazi nahi bazituzten ere, gizartearekiko elkarrekintzaren baitan, azkenean misioilariak eurei egoztera heldu izan zitzaizen ekaitzak uxatzearen ahalmen magikoa (konjuratzaileari zegokiona), ekaitzak batera eta bestera, hauen predikazioaren norabidea ekidinez mugitzen zirela sinesterraino; misioilariak eurek ere, gainera, ezin izan zuten askotan egozten zitzaizen paper arranditsuaren lilura ekidin, joera sinkretikodun dinamika hauei men eginik. Horrela, erlijiotasun barrokoaren teatralizazioaren baitan (argiak eta ilunak, prozesioak, musika, agerpen beldurgarriak, etab.), misioilari famatuen helduerak bidean zeharreko mirakuluen ugaritzeak eragiten zituen. Ortodoxia katolikoaren baitan arimaren salbazioaren ekonomia bermatua

²¹⁰ Ikus Tavenaux 1987 -1972-, 18-20, 22-25; Domínguez Ortiz 1989 -1983-, 175; eta Rico Callado 2002 (konfesioarekiko espezifikoki, 395-467). Oso esanguratsua dugu honekiko, antropologia zientifikoko baterako lehen hastapenetan egongo zen metodologia, hau da, herri “basatien” kulturen eta Europako Antzinate paganoko kulturen arteko konparazioa, lehen aldiz ikerketarako era konparatibo batean Joseph François Lafitau Bordeleko misioilari jesuitak landu izana, bere *Moeurs des sauvages américains, comparées aux mœurs des premiers temps* lanean (Paris, 1724). Lan honen xedea baina, ez zen soilki ikerketarena, misioilaritzarena baizik, azalduko ohiturak kristautasunaren sarrera bidez desagerraraztearena, alegia.

zegoenez, heriotzaren eta purgatorioaren inguruko sineskerek eurek ere, nahiz eta Trentoko Kontzilioak erabakirik mugen baitan izan, nabariki sinkretikoak izaten jarraitu zuten. Heriotzaren osteko egoerak, bere salbaziorako bidaian (gogoan izan dezagun hemen, purgatorioaren kontzeptuak kultura pagano klasikorik gehienek heriotzarekiko zeukaten "bidaia"-ren nozioarekin bat egiten duela) argi eta elikadura (ogia) beharrean zegoen arimarena izaten jarraitu zuen (hildakoen prozesioetan edo bakarka etengabe salbazioaren bila ziharduen arima erratuarena, alegia), egoera honi purgatorioaren kokapena emanik, –eliz agintariak kudeaturiko– induljentzien bidez bidaia gauzaten lagun ziezaiekeena (Rico Callado 2002). Hemen ere seroren desagerrarazterako interesen beste gako bat daukagu; izan ere, Euskal Herriko testuinguru kulturalean, arimaren ibilbide horien zaintzaren arduradunak emakumeak eta hauen gidari edo/eta ordezkari izan zitezkeen serorak baitziren. Hau da, arimaren salbaziorako mezen eta induljentzien emaleen eta hildakoen artean, elizgizonez gain, serorak -eta bestelako emakumeak- ere bazeuden tarteko, euren etekinak jasotzen.

Euskal Herriarekiko, "barne-misioen" eragina XVIII. mendean hedatu zen; hala azaltzen digu Madariaga Orbeak, batez ere jesuitek, baina baita domingotarrek, kaputxinoek eta frantziskotarrek ere izan zituzten misioilaritza lanak laburbiltzean:

Por lo que hace a los colegios jesuíticos en el País Vasco, nacieron, como digo, con la obligación de misionar en pueblos concretos; así, el de Bilbao, en Arcetales y Bakio; el de Lekeitio, en Arbazegi, Larrabetzu y Arrieta; el de Orduña en Gordexola; el de Loiola en Deba, Zumaia y Oikina, aunque extendía su acción a Zarautz, Orío, Getaria y Mutriku. Por su parte los franciscanos fundaron un "Seminario de Misioneros Apostólicos Populares" en cada Provincia de la orden. En la de Burgos, que incluía Navarra, funcionó el de Olite, entre 1745 y 1836. Misionaba en castellano por Navarra, La Rioja y Burgos. Respecto a la provincia franciscana de Cantabria el seminario que se mantuvo abierto como tal entre 1746 y 1793 fue el de Zarautz, misionando sobre todo en euskara por Bizkaia, Gipuzkoa, Navarra y Álava. En cuanto a los capuchinos, irradiaron su actividad misional desde el convento de Bera, desde 1731 hasta 1835. De esta forma, a lo largo de más de un siglo, entre 1710 y 1830, Euskal Herria dio varias generaciones de grandes predicadores de las órdenes citadas, junto con algún dominico: Jerónimo Dutari, Pedro de Calatayud, Sebastián Mendiburu, Antonio Garcés, Francisco Antonio de Palacios, Francisco Santos Guerrico, Pedro Antonio de Añibarro, Mateo Zabala o Miguel Villabona, entre otros (Madariaga Orbea 2007, 15-16)

Ikusten dugu bada; azken orrietan azalduz joan garen Trentoko Kontzilioaren ondorengo aldaketak, eliz-antolakuntza eta apezen hezkuntzari zegokionean bezalaxe, erlijiotasunaren alorrekoetan, Euskal Herrian, batez ere XVIII.en mendean zehar gorpuztu zirela dirudi.

Ekonomiaren alorrean, bestalde, XVII. mendearen hasierako hamarkadek inflexio puntu bat azaltzen dute. Europa mailan, Ameriketako lurraldeetarako testuinguru komertzialak gainbeherari ekin zion garaia dugu, eta hau Espainian, eta noski, Espainiako Ameriketarako komertzioan garrantzia berezia izan zuten euskaldunen artean, eragin handia izan zuen aldaketa izan zen. Europa mailan, eta baita Euskal Herrian ere, komertzioaren gainbehera honek botere ekonomikoaren jabe ziren klase sozialek berriro oinarri ekonomiko seguruak bilatzea eragin zuen, lurren eta aberastasun materialen pilaketarako joera batean gauzatu zena, "birfeudalizazio" bezala aipatu izan den prozesu batean (Domínguez Ortiz 1989 -1983-, 248-256)²¹¹. Baina noski, "birfeudalizazio" honetako protagonistak ez ziren jada Erdi Aroko jauntxoak, hiribilduen testuinguru komertzialetan aberasturiko burgesen klase berriko partaideak

²¹¹ Autore honek "birfeudalizazio" prozesua Europako lurralde guztietara hedagarria litekeenik zalantzan jartzen badu ere, Euskal Herriaren kasuan hala gertatu zela dirudi; ikus Zenbaiten artean 1994, 45-54.

baizik. Euskal Herrian ere bizi izan zen bilakaera hau, eta jauntxo zahar / burges berri banaketa batere zurruna ez izanik ere, lurren eta aberastasunen pilaketaren fenomenoak berdintsu gertatu zen (besteak beste, maiorazkoen hedapenarekin), eta hau, beste faktoreen artean, mendeek aurrera egin ahala, gero eta bizimodu okerragoa izatera heldu zen biztanleria xehearen matxinadetakako motibo garrantzitsuenetariko bat izatera heldu zen. Izan ere, gainbehera ekonomikoaren testuinguruan lurren jabetza galtzen lehenak jabe txikiak izan ziren, eta honek, lurjabe handiek hauen kontu biziraun eta are hazi ahal izatea ere ahalbidetu zuen. Prozesu honek zenbait arnasbide ere izan zituen, batez ere XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik hedatu zen artoaren landaketa, baina hala ere, lurjabe txikien gainbehera etengabea izan zen (Zenbaiten artean 1994, 45-57). Debagoieneko espazio baterako Bergarako adibidea jaso liteke, aldaketa hauen sakontasunaren berri ematen diguna; nekazarien lurren jabetzarekiko, XVI eta XVIII. mendeak bitartean aldaketa latzak izan ziren:

Si se comparan algunas cifras que hemos citado al referirnos al siglo XVI, con los valores de las mismas variables al concluir el siglo XVIII, el contraste resultará lo bastante elocuente para entender la profundidad de los cambios.

Los campos cultivados se extendieron a costa del bosque y de los pastos invernales, y el volumen de la cosecha de cereales se multiplicó por cinco contando con el maíz americano. Se edificaron ochenta nuevos caseríos y se reconstruyeron la mayor parte de los antiguos siguiendo un modelo arquitectónico innovador y de mayor calidad. Paralelamente, algunas de las familias más poderosas de la villa planearon una estrategia de acaparamiento de explotaciones agrícolas, mediante inversión, compra y matrimonios de conveniencia, que les permitió vincular en régimen de mayorazgo más del 50% de la propiedad rural del valle. Al concluirse este proceso el 70% de la población campesina había quedado degradada a la condición de inquilinos arrendatarios (*Ibid.*, 45)

Prozesu honen hasieratan behintzat, ondoren ikusiko dugunez, zenbait serora boteretsuk ere hartu zuten parte, ondasunen pilaketara joaz bezalaxe, familiaren ondasunak gainbeheraren arriskuaz libratzerako orduan ere. Esandakoez gain, Aro Berriaren hasieratik –eta zenbait lekutan are lehenagotik ere– goraldian zegoen klase boteretsu berriko partaideak, instituzioetako botere espazioen monopolizaziora jo zuten, eta XVII. mendean zehar baina batez ere XVIII. ean, kargu publikoetarako sarrerarako neurriak zurrundu ziren (gazteleraz irakurtzen eta idazten jakin beharra, kaparetasun frogatua, gutxieneko oinarri ekonomiko baten edukitzea –“millares”-ak–, etab.) eta Kontzeju Irekiak erabat gainbeheran joan ziren, lurrak eta aberastasunak bezalaxe, erabaki instituzionalen gaineko boterea ere gero eta esku gutxiagotan kontzentratuz. Aipatzea luzeegia litzatekeen beste hainbat faktoreen artean (hauen artean garrantzitsuenetarikoak, gerra nahiz izurrite garaiak), aldaketa hauen eraginak Euskal Herriko XVII. eta XVIII. mendeetako gizartearen baitan maila ekonomiko eskaseko bizimodua zeraman jendearen, kontrabandisten, bidelapurren eta eskaleen areagotzea eragin zuen, eta halaber, matxinadetakako prest zegoen testuingurua izatea eragin zuen; Gipuzkoa mailan, eta ikerketarako espazio nagusia dugun Debagoienean bereziki, XVIII. mendeko bi matxinadak izan ziren sonatuenak, 1718koa eta 1766koa (López Atxurra 2004, 92-94; Madariaga Orbea 2004, 149-153).

Guzti honek instituzioek kontrol sozialerako baliabide berriak garatzea ere eragin zuen, eta batez ere landa eremuetako seroren bizimoduan eragin sakonak izan zituen, ermitak eta hiribilduetatik urrun kokaturiko bestelako tenpluak, bizimodu “zalantzaragarria” zeraman jendearen kokaleku eta gordelekutzat hartuak izatera iragan baitziren. Egoera hau, espazio erlijiosoak ziren heinean inmunitate juridikozko eremu bat lez hautemateak areagotzen zuen, nahiz eta XVIII. mendean zehar inmunitate hori

baliogabetzeko neurriak ere hartu ziren (Angulo Morales 1997; Zapirain Karrika 2008). Eta noski, landa eremuetako egoera eta bertako kontrol sozialerako neurriak halakoak izateak, ez zuen batere espazio hauetako seroren bizimodua faboratzen. Ondoren ikusiko dugun ermitau bikoteen sarreraren bidezko seroren ordezkapen prozesuan, gertakizun guzti hauek pisu handia izan zuten, dagokion lekuan zehaztuko ditugun beste faktore batzuekin batera.

Asko luzatu ahal izango ginateke eman berri ditugun azalpenetan sakontzen, baina esandakoa nahikoa dugu, hemen dagokigunarekiko, ardatzezko ideia finkatzeko: seroren aurka hartu izan ziren neurriak, bai emakumeen historiako gertakizunen baitan, bai Europako historia erlijiosoaren baitako gertakizunenean, bai Europako historia ekonomikoarenetan, eta baita –noski– Euskal Herriko historiarenetan ere, ardatzezkoak izan ziren garaiei loturik daude, eta alderdi guzti hauetako eraginaren baitan txertaturik daude. Ondorengo orrietan azalduko ditugun seroren desagerrarazterako neurriei begiratzerakoan, beraz, nahiz eta momentuoro aipagai izango ez ditugun (aspergarria litzateke), faktore guzti hauek eragiten zutela buruan behar dugu izan, seroren instituzioaren ibilbideak egoki ulertu nahi baditugu.

III. 2. SEROREN DESAGERRARAZTE SAIAKEREN ONDORIOAK DEBAGOIENEAN ETA EUSKAL HERRIAN: KANPORATZEAK, ALOKAIRUAK ETA ORDEZKAPEN PROZESUAK

Hainbat izan dira seroren desagerraraztearen ingurukoak ikergai izan dituzten autoreak, espazio ezberdinetan, sakontasun ezberdinez, etab. Baina atal honi ekiterakoan, beste batzuetan egingo dugunaren kontrara, ez ditugu lehenik hauen ekarpenak bildurik jasoko, eramango dugun azalpenen ildoan txertatzeari egokiagoa iritzi izan diodalako; izango da parentesi eran gehituriko hedapen nabarmenik ere, baina parterik handienez, zentzudunagoa zirudien kapitulu honetan txertatuko ditugun bestelako ikertzaileen ekarpenak azaltzen joango garen testuinguruan han-hemenka, zegokien lekuan baitaratzeak, eta halaxe egin dugu. Azalpenei ekin aurretik, edozein kasutan, gaia ikergai izan duten zenbait autorek aintzat hartu ez zuten iturrien inguruko zehaztasunen bat eman beharrean gaude. Ez da beti ohartu, arauen eta praktikaren artean izan ohi zen -eta izaten den- aldea. Gauzarik normalena baitzen debekuak eta neurriak agindu eta helaraztea, eta hauen gauzatzea ezertan ez gelditzea, edo oso maila ezberdinetako eraginak izatera baino ez heltzea. Eta zenbaitetan, gutxienetan, baita agindu izandako eran bete izatea ere. Hau, diogunez, zenbaitek ez dute kontutan hartu izan, eta agindu baten helarazpenetik bere betekizuna zuzenean ondorioztatu izan dute, oker egin ere²¹². Horregatik, ahal izan den neurrian, atal honetarako jorratu dugun ikuspegiak bi aldeak jaso nahi izan ditu: arautzailea, eta hauen betekizunaren jarraipenarena. Saiakera egoki burutzea espero dugu.

III. 2.1. XVI. mendea: neurriak abian

Debekuen eta desagerrarazte aginduen prozesua oso luzea izan zen. Kalagorriko Apezpikutzan, 1555eko Konstituzio Sinodaletan sakristauei eta serorei buruzko xedapenak, artean, oso urriak izan ziren. Seroren egoera ermiten, ospitaleen eta

²¹² Hala, esate baterako, Darío de Areitiok, bere lanean aipagai izan zituen 1700eko Kalagorriko Konstituzio Sinodalak oinarritzat harturik, urte hartan kokatu zuen Bizkaiako seroren desagerraraztea: "Los numerosos pleitos sobre las freilas o seroras duraron más de tres siglos hasta el año de 1700, en que por fin el Prelado consiguió su desaparición" (Areitio 1959, 179-180).

legenardundegien administrazioari buruz 1410ean Diego de Zuñiga apezpikuak emandako agindua jasotzen zuen errubrika batean baitaraturik nabari zitekeen, hauetariko batzuk “estan de costumbre encomendadas a personas algunas, que especialmente tengan dellos cargo, y den cuenta” zeudela aipatzerakoan. Ermitak itxita edukitzea ere agindu zen, eta ospitaleei buruzko zenbait xedapen ere eman ziren, etab. (Díaz de Luco 1555, 64r). Sakristauei zegokienean, Diego de Zuñiga apezpiku berberak 1410az geroztik jada eliza guztietan bat egon zedila agindu zuela ikusten dugu; honen ezaugarri eta betekizunak labur azaldu ziren: “clerigos, o lego, que no sea casado, deputado para los officios de tañer, y ayudar a missa, y las otras cosas que suelen hazer” (1555ean arau hau baitaratzen zuen “De Celebratione missarum” errubrikari egin zitzaizkion “adicciones”-etan, kanpaiak egunean hiru aldiz joteko zuen betekizunean sakondu zen, baina bestelako funtzioak aipatu gabe) (*Ibid.*, 70r). Ziurrenik apezpikutzako sinodoa egin zen 1544rako baina, eliza eta ermitetan izaten ziren festen eta bijilien kontrolarekin arduraturik, 1540an apezpikutzara sartua zen Pedro Pachecok "Que ninguna persona vele de noche en las Iglesias, ni hermitas, ni coman, ni canten, ni dancen en ellas, ni hagan representaciones" burupean eman zuen aginduan aipatu ziren serorak, tenpluetako beste zaintzaileekin batera:

Y deffendemos que en las hermitas, que estan fuera de poblado, no vayan a velar de noche, ni se junten en las tales hermitas so color de romerias, y deuociones, pues la pueden hazer de dia, y el clerigo, o serora, o beata, o hermitaño, que tuuiere cuydado de la dicha hermita, que no la tuuiere cerrada, como arriba se dize, de noche, y permitiere las dichas velas, y vigalias, por el mismo echo sea expelido de ella, y no sea mas admitido a la guarda, y custodia de ella (*Ibid.*, 70r-71v)

Kasu honetan ardura nagusia eliza eta ermitetako, eta batez ere azken hauetako erromeria eta debozioen kontrola zen, eta serorak zeharka baino ez ziren aipatu; baina ohar bedi, "las hermitas, que estan fuera de poblado" izan zirela aipatuak, eta hauetako zaintzailezat serorak egotea onartu eta ohizkotzat eman zela; ez zeuden oraindik abian, luzeegi gabe, landa eremuetako serorak kanporatzeko hartuko ziren neurriak. Ez dirudi XVI. mendearen erdialde hartan oraindik sakristauen eta seroren funtzioen banaketaren eta aldareen kontuak ardura handiegirik sortzen zuenik, ez behintzat, apezpikutzetako arautegien mailan. Alabaina, bisitetako agindu eta debeku zehatzak izan ziren, XVI. mendearen hasiera haietan ere, eta baita, are lehenago ere.

Debagoienean kokaturiko adibideak emateari ekingo diogu beraz, seroren aurkako neurri zehatzak dagokigun espazio konkretuan nola gauzatu izan ziren ikusteko; oso garai goiztiarretatik ditugu seroren bazterketaren inguruko arazoer berriak. María Rosa Ayerbek honela laburbildu zuen, Oñatiko San Migel parrokiari jada 1425ean izan ziren liskarren batzuk medio, azkenean parrokiako sakristauren eta seroraren eginkizunak banatu ziren modua:

Se encomienda al sacristán:

- encender, regir y administrar las dos lámparas situadas delante del altar mayor
- hacer candelas de ceras para maitines, missa mayor, vísperas, coro, tabla del convento y dormitorio, dar cera a la iglesia según costumbre

Mientras las tareas encomendadas a la serora consistieron en:

- lavado de las vestimentas, sábanas, manteles y otras ropas de lienzo de la iglesia
- barrido del cuerpo interior de la iglesia una vez cada 20 días y los claustros 4 veces al año (en S. Miguel y en las tres Pascuas)
- disponer de agua para las abluciones de los clérigos en la iglesia
- encender, regir y administrar desde el amanecer hasta el anochecer todas las lámparas de la iglesia, salvo las dos del altar mayor, mientras no estuviere ocupada ‘de dolencia o

fuere fuera del término de Oñate o en Araos o en Urrexola' (en cuyo caso le sustituía el sacristán)

- traer el vino de la oblación 'cuando oviere en la tierra'

- guardar la cera de los difuntos que daban las mujeres a la iglesia y entregarla al sacristán y a los mozos para ponerla en los altares

Y finalizaba la sentencia señalando que los deberes de ambos no podían exceder los señalados (salvo que lo hicieran de propia voluntad o si 3 jueces realizaban una pesquisa y encontraban que lo debían hacer)

Aditzera emana dugun lez, ardua nagusia serorak aldareetatik kanpo mantentzea zen, "por quanto non es honesto nin osado que ninguna mujer sirva ant'el cuerpo santo de Dios y reliquias dentro de las gradas mayores" (Ayerbe Iribar 1985, 536-537 –44. aipua–). Eta hala izanik ere, ikusten dugunez, seroren eginbeharrak sakristauenak baino zabalagoak ziren (bidenabar, ondorengo kapituluetan azalduz joango garen seroren eginbeharretariko batzuen zerrendatze labur bat agertzen zaigu).

Serorak aldareetan ez sartzeko hurrengo agindua Oñatiko San Migel parrokian bertan aurkitu dugu, jada ia mende bat beranduago. 1517an apezpikutzako bisitatzaila iragan zenean bertako sakristauak suspentsioarekin mehatxatu zituen, zegozkien lanak egiten ez zituztela eta: "tengan cargo de rregir los altares de la dicha yglesia en espeçial en el tiempo que se dize la missa mayor". Agindu berberean serorei eskumiku mehatxua egiten zitzaien: "que ninguna freyra suba a los altares a rregir"²¹³. Nabaria da bisitatzailaren arabera sakristauek aldarean egin beharrekoak zituzten lanak, hauek beharrean serorek egiten zituztela.

Bergarako San Pedro parrokian ere, garbiketaren, aldareen eta ornamentuen inguruko gorabeheren berri XVI. mende hasieratik daukagu. 1516-1518 bitartean apezpikutzako bisitatzailak egin zituzten bisitetan seroren inguruko zenbait agindu eman ziren: garbiketa larunbatero eta ganoraz egin zezaten emandako agindu baten ostean (ez zuten antza euren lana konplitu betetzen), hauen kopurua serora bakarrera mugatu nahi izan zuen beste agindu bat ere eman zen, zeinaren arabera, honen eginkizuna elizako ornamentuak eta ohialak garbitzearena izango zen. Ornamentuak aipatu ziren; ez dakigu aldareetakoei buruz ere ba ote ziharduen, ala ez. 1525ean bertan zeuden lau edo bost serorei (seroren kopurua murrizteko aginduari ez zitzaion kasurik egin) bisitatzailak espezifikoki aldare nagusira nahiz aldemenekoetara igotzea debekatu zien, bertara kandelak eta bestelako gauzak ipintzera igotzen zirela eta ("lo que es proybido") (Sorondo 1994, 288-290), eta 1545ean beste hainbeste agindu zen, jada xehetasun gehiagorekin. Oñatiko 1425eko funtzioen banaketan eta Bergaran bertan 1525eko aginduan bezalaxe, jada emakumeak aldareetan sartzea eragozten zuen -Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko araudietan oinarrituriko- legedia aintzat hartzen hasiak zirela ageri zaigu:

Yten por quanto por derecho esta proybido... que las mugeres (entren en la Capilla Mayor), mandamos que ninguna de las dhas. seroras ni otra mujer alguna sea osada de subir al losado de la dicha Capilla Mayor de donde se acaban las sepulturas arriba... e tenemos por vien que las dhas. seroras puedan andar en la dicha Ygl^a. De la dha. Capilla Mayor abaxo e linpiar la Ygl^a. e sepulturas... e ny ellas ny otras mugeres algunas puedan subyr a la dha. grada de la dha. Capilla Mayor adelante so pena de excomunion e de una lybra de cera p^a. alunbraria del Sant^o. Sacram^o...(*Ibid.*, 295)

Alabaina, kontuen eta bisiten liburu berberean jaso ziren kontuetan, serorek aldareko ohialak eta ornamentuak garbitzen zituztela ageri zaigu: 1557an sakristauak Askarruntzeko serorari 4 erreal emanak zizkion, "para linpiar los corporales y palios y

²¹³ DEAH-AHDSS 3689/001-00, 52r.

otros ornamentos de la dicha yglesia”; eta 1563ko bisitan egindako kontuetan Ondartzako serorari eman zitzaizkion 8 erreal eta ½-ren ordainketa “por el trauajo de todo el año e para xabon para lauar los paños de los altares” izan zen²¹⁴. Lehen aipagai izan dugun Oñatiko San Migel parrokian ere, 1541eko kontuetan serorari egin zitzaion ordainketa bat aldareko ohialak garbitzeagatik izan zen²¹⁵.

Gipuzkoako testuinguru orokorrari buruz zihardutela ere azaldu zituzten apezpikuek serorek aldareetan zeukaten partehartzea. Iruñako apezpiku Antonio Manriquek 1576an Gipuzkoako apezpikutzako lurrak bisitatu zituenean seroren gaineko kexuak agertu zituen, muturra leku guztietan sartzen zutela eta: "en meterse casi en todo, aun en asuntos de ornamentos y cosas sagradas... sin consultar previamente a personas competentes". Hori zela eta, -informazioaren iturri dugun Aguirre Sorondoren aipuaren jatorriaren zehaztapenegatik, itxuraz Donostiako serorei zuzendua izan zen-seroren aurkako honako agindua eman zuen:

Otrosi por quanto el servicio de los Altares y culto de ellos toca particularmente a las personas eclesiásticas ombres y no mujeres, y somos informados y nos consta que en las dichas iglesias hay dos mujeres seroras, que llaman, las cuales sabemos que limpian las iglesias se llegan a los Altares y suben a ellos y tratan los ornamentos y cosas sagradas, lo cual es contra todo buen gobierno y derecho, y para obiar semejantes inconvenientes mandamos, en virtud de la santa obediencia y so pena de excomuni3n, que de hoy m3s las dichas Seroras no toquen ni se alleguen a los Altares, ni cosas sagradas, ni se empleen en m3s de limpiar el cuerpo de la iglesia y l3mparas; y que cuando convenga limpiar los Altares los haga el Sachrist3n a cuyo cargo est3 lo susodicho, so pena que, haciendo lo contrario, ser3n echadas de la iglesia. Y so las dichas penas ningunas mujeres suban al Coro ni campanario a tañer las campanas, pues es indecente (Aguirre Sorondo 2013, 37)

XV eta XVI. mendeetan Gipuzkoan aurkitzen ditugun aldareen inguruko ardura hauek, eliz-legediaren baitan, ordurako jada arrasto luzea utzia zuten. Seroren jatorriei eta eraginei buruzko kapituluak iturri dokumentalen erreferentetzat baliatu dugun www.womenpriests.org webgunean emakumeen inguruan bilduriko eliz-legediaren iturriek, ministeritza sakratuetako emakumeen, birjinen eta alargunen aktibitateak mugatzeko hartu izan ziren neurrien jarraipena egitea ahalbidetzen digute. Eta neurri haien artean ardatzezkoetariko batzuk aldarerako sarrera eta ornamentu sakratuen erabilera laikoei eta emakumeei galeraztearena izan ziren. Kristautasunaren sorkuntza eta lehen hedapen garaien ondorengo mendeetan ere hartu izan ziren emakumeak ministeritza sakratuen esparruetatik kanporatzeko neurriak, III. mendean geroztik bereziki, bataiatzea (nahiz eta emakumeen bataioetan diakonesek ezarritako paper bat betetzen zuten), irakastea eta predikatzea, komunitate erlijiosoaren batzarretan publikoki hitz egitea, bizimodu aszetikoari loturiko gizonezkoen arropak janzte eta tonsuratzea, eta bestelako alderdietako debekuak ezarri; funtsean, apezken eta apezpikuen funtzio ministerialak emakumeengandik eta laikoengandik aldentzea zen asmoa, Elizaren egitura instituzionalak finkatzen zeuden garai haietan, apezpikuen eta apezken nagusigoa eta agintaritza, sozialki eta erlijiosoki bermatu nahi baitziren²¹⁶. Ministeritza sakratuen baitan eredu aszetiko edo monastikoa hedatzen joan ahala, eta honekin bat,

²¹⁴ BUA SP2/173-431, 332 fot. eta 366 fot.

²¹⁵ DEAH-AHDSS 3689/001-00, 127r.

²¹⁶ Jarraian aipatuko ditugun iturriak aipaturiko webgunean aurki litezke. Aipagai izan berri ditugun aspekturen baten inguruko neurriak esplizituki aipatu ziren VI. mendearen aurretiko zenbait sinodo, kontzilio edo bestelako iturri arautzaileak (beste zenbaitetako karguetarako ordenazioen debekuek, apezmeenek kasu, hauek inplizituki jasotzen baitzituzten) honakoak ditugu: *Didascalia Apostolorum* (III. mendea), Gangrako Kontzilioa (325-381), Zaragozako Sinodoa (380), Konstituzio Apostolikoak (c. 400), eta *Statuta Ecclesiae Antiqua* (485).

sakratuarekiko "garbitasunaren" eta ministroen zelibatuaren eta erditzeen eta hilerokoaren "kutsakortasunaren" ideiak ere hedatzen joan ahala (ezkontzarekiko eta sexuarekiko legedi murriztaileak garatuz), jada III. mendetik baina areago V. mendez geroztik, diakonesen ordenazioen aurkako legedia ere hedatuz eta finkatuz joan zen, batez ere Mendebaldeko Europan, eta emakumeek espazio eta objektu sakratuak "kutsatzeko" ardurak ere orokortzerako bidea hartzeari ekin zion.

Ibilbide horretan aldea eta bertako objektu sakratuak ministeritza sakratudun pertsonen espazio eskusibo izatearen nozioa hedatu zen, legedian emakumeak eta laikoak bertan sartzeko debekuak VI. mendez geroztik hedatzeari ekin ziotelarik. Lehen debekuak Penintsula Iberikoan dauzkagu, *Gallaecia* zaharrean, mende erdialdekoak behar duten Bragako Martinen kapituluaren bildumako emakumeak aldean sartzeko debekuan, eta 563ko Braga bertako -eta Martin berak gidaturiko- 2. kontzilioan laikoak zuzenduriko debeku bereberak. Emakumeen "kutsakortasunaren" aurkako neurriak ere lasterrera egin zuten agerpena, Penintsula Iberikoan bertan, 578ko Sevillako kontzilioan; emakumeek eukaristia eta aldareko ohialak esku hutsez hartzea debekatu zen bertan. Eukaristia eta ohial sakratuak emakumeek ukitzeko debekuak ondorengo sinodo eta kontzilioetan errepikatu eta hedatu ziren, bestelako elementuak ere gehituz joan zirelarik: batez ere kalizeak eta apez-jantzi edo korporalak izan ziren aipagai. VI-IX mendeak bitartean izan ziren sinodo eta kontzilioen bidez, batez ere Frantzia, baina baita Alemanian eta Italian ere, hedatu ziren tankera honetako aginduak²¹⁷. Bereziki adierazgarriak zaizkigu hauen artean Rouen-eko sinodoko (650) eta Pariseko kontzilioko (829) dekretu edo aginduak, debekuak ez baitziren besteetan bezala arautzat besterik gabe helarazi, *de facto* ematen zirela aipaturiko egoeren zuzenketarako baizik; hau da, gaitzetsi eta debekatzeko zioz, emakumeen liturgiako partehartzearen eta objektu sakratuen erabileraren testigantza zuzenak eman ziren. John Wijngaards-en ingeleserako itzulpenaren arabera, honakoa salatu zen Rouen-en 650ean:

It has been reported to us that priests after saying Mass while they themselves consume the Divine Mysteries, hand over the chalice of the Lord to women who have made offerings for their Masses, or to some lay persons who cannot discern the Body of the Lord...

Eta Parisen 829an azaldurikoak ere oso antzerakoak izan ziren (hauek ere Wijngaards-ek itzulita):

We have learned through a report of trustworthy people that in some provinces, in contradiction to the divine law and to canonical instruction, women betake themselves into the altar area, impudently take hold of the sacred vessels, hold out the priestly garments to the priests and -what is still worse, more indecent and unfitting than all this- they give the people the body and blood of the Lord and do other things which in themselves are indecent²¹⁸

Lege hauek, gorago azaldu bezala, bildu eta antolatu zituen *Decretum Gratiani*-aren (1140) bidez izan zuten Erdi Aroaren ondorengo garaietarako eta Aro Berrirako transmisio ildoak, eta esaterako, XVI. mendeko Bergarako bisitatzailaren aginduetan serorei aldareetara igotzea debekatu zitzaizkionean, honek emakumeen aldareetarako sarrera "lo que es probydido" zela ziurtatu bazezakeen, oinarria Grazianoren legedian har zezakeelako zen.

²¹⁷ Aldareen, objektu sakratuen eta hauekiko "kutsakortasunaren", eta zelibatuaren eta ezkontzaren inguruko neurrien jarraipenerako, ikus II. 2.1. azpiataldean, 54 or., 29 oinpeko notan jaso ditugun eta www.womenpriests.org webgunean eskuragarri dauden iturri arautzaileak.

²¹⁸ Aipaturiko webgunean, bakoitzari dagokion ataletik jasotzen ditugu kontzilio eta sinodo hauetako aipuak.

Oñatin eta Bergaran, eta Euskal Herriko beste hainbat lekutan, XV-XVI mendeen inguruan legedi hartaz baliatu beharra izan bazuten, Rouen-en 650ean eta 829ko Pariseko kontzilioan "probintzia batzuetan" zegoela aipatu zen egoeraren antzekoa zegoela pentsatu beharko ote genuke? Oñatiko San Migel parrokian 1517an eman ziren aginduek, sakristauari burutzea agindu zitzaizkion eta jarraian serorei debekatu zitzaizkien aldareetako lanak espresatzeko erabili zen esakerak, "rregir los altares", aldarerako sarrera, bertako elementu sakratuen erabilera, eta areago, liturgiako partehartzea ere adieraz zezakeela dirudi. Sakristauari aldareen kargu "en espeçial en el tiempo que se dize la missa mayor" hartzea agindu izanak, ordurarte honi hartzea agintzen zitzaizkion lan horiek serorek burutuak izanik, liturgiako nolabaiteko partehartzearen posibilitatea iradokitzen baitugu. Eta Oñatiko agindu honi erreparaturik, jada aipatu ditugun Sojoko (Nafarroa Garaia) eta Azpeitiako (Gipuzkoa) seroren posesio-errituetan giltzekin batera aipaturiko kalizeak eta meza-liburuak partehartze liturgiko efektiboaren adierazle sinboliko izatea zentzudunagoa zaigu, eta giltzen ematearen beraren kasuan ere, "giltzen boterearen" sinbologiak adierazitako funtzio ministerialak, alegia, irakastea, predikatzea, edo konfesioa entzutea lakoak, agian noizbait seroren eskutara ere helduak izan zitezkeenaren ustea sendotzera datorkigu²¹⁹. Eta guzti honek, halaber, Euskal Herriko lurraldeen bilakaera erlijioso eta instituzional berezian, diakonesen eta monakismo zaharraren moldeen presentzia, eta emakumeen aldareko eginkizunetako eta liturgiako partehartzea Europa guztian zehar hedaturiko gertakizunak izan ziren Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko garaietatik Aro Berrirainoko jarraikortasuna emana izan zitekeela dioen hipotesia ere sendotzen digu. Honek ez du, bestalde, seroren eginkizunak garai zaharretatik ondorengoetara batera aldakuntzarik eman gabe mantendu zirenik esan nahi, inguru "arkaizantea" izanik, molde zaharren biziraupen fidelagoa eman zitekeela baizik.

XVI. mendeko Debagoiengan, bada, serorei aldareetarako sarrera eta objektu sakratuen erabilera debekatzeko aginduak izan ziren, ez baitzen bertan emakumeak sakratuarengandik aldentzeko legedirik ezagutzen edo errespetatzen, ez behintzat jarraitzen. Aginduok ez ziren, hala ere, oraindik aspektu guztietara hedatu, aldareetako ohialen eta ornamentuen garbiketaren kargu arazorik gabe hartzen jarraitu zutela ere ikusi baitugu. Eta nahiz eta aldareko espazio sakraturako sarrerak eta objektu sakratuen erabilerak ardurak sortzeari ekin zioten, bisitatzailen aginduak eta konstituzio sinodaletako arauak ez ziren oraindik aldareko ohialen, korporalen eta objektu sakratuen garbiketaren aspektu zehatzagoetara hedatu, nahiz eta *Decretum Gratiani*-aren bidez, Eliz-legediaren oinarritzat egiten zuen *Corpus Iuris Canonici*-an jada garbi araturiko alderdiak ziren; XVII. mendearen hasieratararte ez zen halakorik gertatuko.

Hortaz, XVI. mendeko egoeran eliz-agintarien aldetik harturiko neurriak ez ziren oraindik bisitatzailen aginduetatik haratago heldu; baina eliz-agintariak ez ziren seroren egoerari erreparatzen zieten bakarrak. Zenbait agintari zibil ere arduratzen hasiak ziren, eta lehen mugimendu esanguratsuak, ondorengoei bide emango zietenak, Gipuzkoako Batzar Orokorren aldetik heldu ziren. 1557ko Gipuzkoako Batzarretan kontrol neurrien eskaera egin zuen korrejidoak, ermitetako seroren egoera eta egokitasun-eza zirela eta:

Este día el señor Corregidor representó a la dicha Junta el poco servicio que ay en algunas yglesias d'esta Provincia donde ay patronazgos que son a probisión de los pueblos, e de cómo algunos pueblos que ellos mesmos presentan los benefiçios dan aquellos a personas de poca esperiençia y que no son para ello. E que así bien en algunas ermitas d'esta Provincia o en las más d'ellas residen por monjas o seroras,

²¹⁹ Ikus II. 1. atalean, 49-50 or.

mugeres moças y de mala vida a cuya causa redundo mucho desserviçio de Dios y escándalo de las gentes; para que Sus Mercedes diese horden en todo ello (Díez de Salazar Fernández; Ayerbe Iribar 1992-2006, 2. lib., 469)

Eta Batzarrek, korrejidorearen esanak kontutan harturik, ondoren apezpikutzen eta bestelako instituzioen arautegi eta neurrietan ohizkoak izango ziren lehen debeku eta baldintzapen batzuek ezarri zituzten; honela laburbildu nituen neurriok beste ikerlan batean:

Batzarrak zortzi mandatari izendatu zituen, gaia aztertu eta hartu beharreko neurrien gaineko iritzia eman zezaten. Azterketak egin, eta batzarrean iradokizunak aurkeztu zituztenean, zenbait neurri hartzea hitzartu zen: Lehenik, alkateei, nork bere jurisdikzioan ziren seroren gaineko informazioa batzea agintzen zitzaien. Zintzoak, bizitza onekoak eta kultuaren zerbitzurako egokiak ote ziren ikertu behar zuten. Hala ez liratekeenak eliza eta ermitetatik bota behar zituzten, eta zigorrak "condignamente a sus delitos y profanidades" ezarri. Horien ordezkoez 40 urtetik gorakoak beharko zuketean izan, eta bizimodu onekoak ote ziren ikertu ostean emango zitzaiekeen kargua. Bigarrenik, Probintziak Kalagorriko, Iruñako eta Baionako apezpikutzetara eskutitzak bidaltzea adostu zen, hauek Probintziako bikario eta erretoreei aipaturiko neurriak betearaz ziezazkieten. Azkenik, herriek Batzar Orokorretara bidaltzen zituzten ahaldunek neurrien betearazpenaren berri eman behar zutela agintzen zen, bi mila marabeditako zigorraren mehatxupean (Larrañaga Arregi 2010a, 103)

Kuriosoki, ondoren apezpikutzen desagerrarazte aginduen aurrean defendatu behar izango zituzten serora haien aurkako lehen neurriak eta proposamenak, Gipuzkoako Probintziako Batzarren eskutik heldu ziren; beraiek piztu zuten ondoren itzali beharrean izango ziren sua. Gainera, ondorengo urteetan, Probintzia, artean klausuraren ezarpena heldu ez zitzaien komunitateetako serorei bezalaxe, parrokia eta ermitetako serorei zegokienean ere, apezpikutzekin jurisdikzio arazoak izaten hasia zen. Serorek, hala komeni zitzaienean (zergak, agintari zibilen eskakizunak, zigorrak, etab. ekiditeko), jurisdikzio zibilari uko egiten zioten, elizakoa zegokiela defendatuz (izan zen kontrako kasuren bat ere). Eta apezpikutzak babestu egiten zituen, bere jurisdikzioaren hedapena jurisdikzio zibilaren aurrean bermatu nahian. 1565ean, 1584an, 1593an, 1599an, eta 1601ean heldu ziren Batzar Orokorretara tankera honetako auziei loturiko kasuak. Eta hala, bitarte horretan, 1585 eta 1586 urteetan egin ziren Batzarretan, Probintziako alkateei 1557an ezarri ziren baldintzen betekizuna agindu zitzaien, aurretik esplizituki adierazi ez zen bestelako baldintza bat ere gehituz: "que estas tales sean de las naturales y originarias de la dicha Provincia" (*Ibid.*, 103-104). Ez dezagun ahaztu, bestalde, XVI. mendearen bukaera alde hartan hasi zirela ordenei loturiko seroren komunitateak klausuraperera eramateko lehen pausuak, hurrengo mendearen lehen erdialdean sendo gorpuztuko zirenak; Elizaren aldetik hasiak ziren seroretariko batzuek izpiritualtasunaren ibilbide "ofizialetara" bideratzen, baina oraindik ez ziren parrokia eta ermitetako inguruko neurri erabakiorrik hartzen hasi.

Seroren egoera juridikoa arazotsua izaten hasia zen beraz XVI. mendean; gure bilaketetan aurkitu izan ditugun zenbait liskarrek ere kontu honek arazotsua izan behar zuela azaltzen digute, egoeraren eta liskarren zergatien arabera, serorek edo hauekin liskarretan zeudenek instituzio batzueganako edo besteenganako hautua egin baitzezaketen. Bergaran 1538an gertaturiko kasu bat dugu honen erakusgarri; urte hartan Errekalde etxean San Pedro parrokiako Domenja de Ascarrunz eta Maria Garcia de Gorosabel seroren arteko liskarrak izan ziren, bigarrenak lehena ganderailu batekin gogorki jipoitu baitzuen. Eta liskarrok bi seroren artekoak izan baziren ere, jipoituriko serorak ez zuen salaketa egitera eliz-azuztegietara jo, Gipuzkoako korrejidoreagana baizik:

en Vn dia deste mes corriente y Ano en la casa de rrecalde que es en la dicha villa lindeada por la vna parte con el camino real que pasa para Mizpildi y por la Otra parte tras mancanas de la dicha mysma casa y por la parte debaxo el camino rreal que ba para Vriburu que estando yo salba y segura syn hazer ny dezir por que mal ni dapno rreçibir devisa la dicha Maria Garcia con Animo perberso y dapnado dello me dio muchos y dibersos golpes con vn candelero de laton que en las manos la tenia espeçialmente en la cabeça me herio de la qual herida me sallio mucha sangre y me corto dos y tres benas por lo qual [?] quedara [?] de vista corporal según me dizen y rrelatan cirujanos y medicos espertos que de la Arte y çiençia saben y no contenta con la dicha herida y golpe de que quede aturdida me dio otros dos golpes en el braço ezquierdo y pescueço con el dicho candelero de que E estado lijada por ende pido y suplico a Vm abiendo la rrelaçion suso dicha por Verdadera [...] a la dicha Maria Garcia condene A las mayores y mas graves penas que por derecho y fuero hallare²²⁰

Jipoi galanta, diogunez, Domenja aski kaltetua utzi zuena; honen azalpenak zeharo fidagarriak izatekotan, Maria Garcia tontakeritan ibiltzen ez zen serora bat zela dirudi, erlijiozko emakumea izateak ez zion biolentziaren erabilerarik galerazi. Tankera honetako gertakizunak izan zitezkeen, 1557ko Korrejidorearen Probintziako Batzarren aurreko kexua aurkezteko motibo.

Baina esan bezala hartu ziren neurriak ez ziren berehala efektiboak izan, eta 1593an, Oñatin, beste kasu larri batekin egiten dugu topo: itxuraz ondasunen gutizian, ermita bateko serora-laguntzaile batek eta bere zenbait lagunek serora zaharra erahil zuteneko kasu bat. Auzia, Santa Katalina ermitako (gaur egungo San Isidro) serora laguntzaileak, beste bi lagunekin batera, ermitara garia aletzera joan ziren batean serora zaharra hilik aurkitu zuenean hasi zen. Bizilagunek hasieratik izan zituzten heriotza naturala izana ote zenaren inguruko zalantzak, eta gorpua aztertu zuten bi zirujauak eta medikuak azterketak errepikatu zitzatela eskatu zuten²²¹. Susmo hauek, auziak aurrera egin ahala testigantzetan azaleratu zenez, bazuten bere oinarria, izan baitzen serora-laguntzailea, Maria Lopez de Olazaran, Mari Ramos de Laquidiola serora zaharrari tratu txarrak ematen ikusi zuenik²²². Bazen gainera auzia abian jar zedin beste arrazoi bat ere, ziurrenez serora-laguntzaileak aintzat hartu ez zuena: Mari Ramos de Laquidiolak bere seroratzarako sarreran bizitzan zehar bilduko zituen ondasun guztien dohaintza egina zeukan ermitaren alde. Serora-laguntzaileak aintzat hartuko ez zuela diogu, ezen, aurrerago ikusiko dugunez, izendapen hau salbuespenezkoa baita Oñatiko ermiten testuinguruan. Normalena izendapena auzotarrek egitea izan ohi zen, eta ez zen, Mari Ramos de Laquidiolak egin bezala, izendapenean serorak biltzekoak zituen ondasun guztien dohaintzarik egiten; ohitura existitzen zen inguruan, ez oso urrun, Leintz bailarako elizateetako parrokiatiko seroren artean, baina ez zen Oñatiko ermitetako seroren artean egoera normala. Izendapenaren berezitasunek, bestalde, ohiturarekiko salbuespena seroragaiaren jatorrizko familia boteretsuak izendapenean eragin izan zezaketela iradokitzen digute²²³.

²²⁰ BUA 01 C/539-17.

²²¹ OUA Z 1063.9, 1r-6r.

²²² *Ibid.*, 25r-26r.

²²³ Mari Ramos de Laquidiola, nahiz eta bestelako abizenak izan, auzian zeharreko dilijentzietan zalantzarik gabe aipatzen zaigu Elvira de Mercadoren ahizpa lez; azken hau herriko familia boteretsuetariko bateko partaidea genuen, eta bere ahizpa seroragaia ezkontzaz kanpoko alaba natural bat izan zitekeen, edo aurreko edo ondorengo beste ezkontza baten frutu. Edozein kasutan, Mari Ramos Oñatiko bikarioarengana joan zen zuzenean Santa Katalina ermitako seroratzaren eske, eta honek halakorik egiteko besteko influentzia zeukala adierazten digu. Eta herriko ermitetako ohituren aurka, bikarioak berak egin zuen izendapena ermita inguruko auzotarrek beharrean. Izendapena: *Ibid.*, 7r-8r; Elvira de Mercado Mari Ramos de Laquidiolaren ahizpatzat aipatua: *Ibid.*, 26v.

Edozein kasutan, ez dirudi serora-laguntzailea serora zaharraren heriotzagatik gehiegirik tristetu zenik, ez eta ondasunek jada "jabea bazeukatela" zeharo oharatu zuenik ere. Izan ere, serora zaharraren hiletak egin ondoren (hauek ere berezi xamarrek, herrian ohizkoena zenaren kontrara, ermitan bertan ehortzia izan baitzen), jada serora nagusi izatera iragandako Maria de Olazaran (horrela ere izendatzen baitute) ermitara familia-kideak eta lagunak ekartzen hasi baitzen, batzuetan goizalderaino luzatu izan ziren juergatxoren batzuek eginaz. Gainera, eta nahiz eta izendapeneko baldintzak zirela eta serora zaharraren heriotzaren ondoren ondasunen inbentarioa egin zen eta Maria de Olazaran horren jakinaren gainean zegoen (bera ere ondasunen inguruan galdekatu baitzuten), ermitarendakoak izan behar zuten ondasunen batzuek desagertuz joan ziren²²⁴. Ermitako juergak eta ondasunen desagerpenak auzotarrak eta herriko agintariak susmotan hastea eragin zuten, eta hor hasi ziren auziak eta ondorengo katramilak. Kasu honetan, auzia Oñatiko alkatetzaren aurrekoa izan zen.

Laburbilduz, auzia eta informazio dilijentziak luzeak izan baitziren, kontua da, Maria Garcia de Olazaran (edo Maria de Olazaran) serora-laguntzaileak eta bere zenbait familia-kide eta lagunak erahil zutela Mari Ramos de Laquidiola serora zaharra. Horrela azaldu zuen behintzat, garbi asko, serora-laguntzailearen hamabi urteko Juan Garcia anaiak berak; serora zaharra hilik "aurkitu" baino lehenago, bere arrebak Mari Garcia de Arriaran alargun gaztearekin bidali zuen Balzategi baserrira, ermitako arropa batzuk otar batzuetan zituztela. Baina mutikoak susmo txarra hartu zien, eta:

[...] dixo a la dicha su hermana e moça que cuya era aquella rropa que ellas algo avian hecho de la dicha Mari Ramos serora o la auian muerto. Las qoales le dixeron que ellas / o quien quiera que la hubiese muerto no hablase este confesante palabra sobre ello y si no le matarian a el²²⁵

Hainbat gorabeheraren ostean, Martin de Elordui akusazioaren fiskalak, Maria Garcia de Olazaran serora, honen anaia Joan Garcia de Olazaran, Joan de Castillo Zamalloa eta Francisca de Balzateguirendako honako zigorra eskatu zuen:

[...] los condene en las maiores y mas graves penas que por derecho leies fueros costumbres y prematicas de estos rreinos contra los tales estan estableçidas las quales por todo rrigor mande ex[ecu]tar y llebar a deuido efecto con sus personas [...] otrosi a Vm pido inçidentemente pues es el dicho delito tan grande y atroz y ay indicios suficièntes y bastantes para ponerlos a question de tormento y que alli declaren la verdad los conpela y apremie a ella porque los dichos rreos an ocultado y trasportado mucha cantida de bienes [...] los ponga en su carçel publico con bastantes prisiones y no les den soltura ni en fiado ni en manera alguna fasta que de ellos me sea hecho entero complimiento de iustiçia atento [a] los delitos por ellos cometidos asi en la muerte violenta que dieron a la dicha Mari Erramos como en trasportar y ocultar sus bienes son graves y atroçes y rrequiere la dicha prision para lo qual el offiçio de Vm imploro y pido iustiçia²²⁶

Auziak aurrera egin zuen, atxilotuak izan ziren, inplikaturiko batzuek beste herri batzuetan -ihes egin ostean- egindako lapurretak ere nahastu ziren, lapurturiko serora zaharraren ondasunen bilaketa konplikatuz joan zen... eta serora-laguntzaile zenari dagokionean, puntu batetik aurrera honek ere ihes egin zuen, eta auziaren jarraibideek ondasunen berreskurapenera gehiago jo zuten, hau aurkitzera baino. Auziaren dokumentuetatik dakigunerarte behintzat, ez zuten aurkitu²²⁷.

²²⁴ *Ibid.*, 11r-26r.

²²⁵ *Ibid.*, 36r.

²²⁶ *Ibid.*, 54r-54v.

²²⁷ *Ibid.*, 73r-78v eta hurr.

XVI. mendean aurkitu ahal izan ditugun seroren arteko liskar hauek gogorrek izanik ere, ez gaude hargatik ohizko egoeren erakusgarritzat hartu beharrean ere, seroren aurkako neurriak hartzeari ekin zioten instituzioei deigarri eginak izango zitzaizkien kasutzat baizik. Eta nahiz eta emandako adibideen kasua ez den, -hain larriak izan beharrik gabe- arazoak tarteko zeudenean, serorek eliz-jurisdikzioa zegokiela defendatzeko interes nabaria izan zezaketela ere argitzen digute, garbi definitu gabea zegoen beraien laiko eta erlijiozko bitarteko egoera probetxuzkoa izan baitziezaiekeen.

Eta hala, XVI. mendeko bigarren erdialdeko urte haietan haizeak berotzen joan ziren, eta Euskal Herriko lurrak baitaratzen zituzten apezpikutzetatik eta bertako instituzioen aldetik neurriak hartzeari ekin zioten; hainbestean eze, jada lehen desagerrarazte agindu batzuek ere ematera heldu baitziren. Gipuzkoan bertan, Donostian, jada 1568an Ramírez Señedok egindako bisitetako 8. aginduan garbiki ezarri zen bertako seroren desagerraraztea: "Item por quanto hallamos que para el servicio de las Iglesias y hermitas hay algunas seroras o monjas las cuales... mandamos que daqui en adelante no sean recibidas ningunas seroras en ninguna Iglesia ni Basilica". 1576an egin zen bisitan baina, serorek oraindik euren karguetan jarraitzen zuten, eta Antonio Manrique apezpikuak, hain zurrun ibili gabe, beraien eginbeharrak garbiketa lanetara mugatzearekin aski izan zuen (Arana 1992, 176; 2004, 856).

Gipuzkoako Probintziaren aldetiko eskakizunek akuilutzat egin zuten edo ez, ez dakigu garbi; baina apezpikutzetako konstituzio sinodaletan ere hasi ziren seroren inguruko kontuei erreparatzen, eta araudi zehatzagoak lantzen. Hauei jarraipena egiterakoan Nafarroa Garaira iragan beharrean gaude, lehenik, Bizkaian eta Araban sartu-irtentxo bat eginez. Bizkaian eta Araban badiogu, apezpikutzen aldetik seroren aurka legezko neurri garbiak hartu ziren lehen esparrua Burgoseko artzapezpikutzarena izan zelako da; Bizkaian Enkarterrien parterik handiena eta Araban, Artziniegako bailararen parte bat zeuden artzapezpikutzaren honetan barneraturik. 1575ean egin zen sinodoaren ondoren, 1577an argitaratu ziren bertako konstituzio sinodalak, eta serorekiko, ondoren beste lurraldeetako konstituzio sinodaletan ohizko egingo ziren neurriak hartu ziren; osorik paratuko dugu agindua, interesgarria baita nola eredu hau ondorengoek jarraitu zuten ikustea, are erredakzioaren alderdiei dagokienean ere:

Debaxo de especie de Sanctidad muchas personas mudan los habitos, y se hazen ermitaños para habitar en las ermitas, y de auerseles dado las tales ermitas sin examinar su vida, y persona se han seguido muchos inconuenientes, S.A. Estatuimos, y mandamos, que en las dichas ermitas, ninguna persona este, ni habite, ni more, sin que primero sea examinado de su persona, de su vida, y edad, y recogimiento, y tenga licencia especial nuestra, o de nuestros Prouisores: la qual no entendemos dar a personas casadas, ni a mugeres estando en despoblado para seruir yglesias por nonbre de freylas sin el dicho examen, y que no sean de menos edad de cinquenta años. Y mandamos, a los clerigos de este nuestro Arçobispado, sin la dicha licencia no los admitan. Y exortamos, y mandamos, a los Visitadores deste Arçobispado tengan cuidado de hazer guardar y cunplir esta constitucion y auisarnos de como se cunple, y nuestros Prouisores no den licencia a los dichos ermitaños, para pedir limosna, sino fuere en las dichas ermitas, o en el lugar en cuyo termino estuuieren las dichas ermitas (Pacheco de Toledo 1577, 208)

Konstituzio honetaz beste, ez daukagu artzapezpikutzaren honi zegozkion lurraldeetako seroren inguruko bestelako neurrien berririk²²⁸; alabaina, interesgarria da,

²²⁸ Espazio honetatik heldu zaizkigun berriak Artziniegako (Araba) Artearen Andre Maria santutegiko serorenak baino ez dira, eta esandakoarekin bat egiten dute, bertan serorak izatearen ohitura XV-XIX mendeak bitartean behintzat mantendu baitzen, eta santutegiaren inguruko informazioaren iturri dugun

behinik behin, Euskal Herriko lurralde historikoen muga haietan ardura sortzeko besteko serora eta ermitauak bazeudela agertzen baitigu. Laster helduko ziren konstituzio honen ereduaren eraginak beste konstituzio sinodal batzuetara: Iruñako Apezpikutzako 1591eko konstituzioetan Pedro de la Fuentek apezpiku zenean emandako agindua jaso zen, eta erredakzioa Burgoseko artzapezpikutzako 1577ko konstituzioetan argitaratu zenaren berdin-berdina da, izendapen instituzionalak (artzapezpikutza beharrean, apezpikutza) eta adinaren muga aldatuz: gutxieneko 50 urte beharrean, 40 ezarri ziren. Pedro de la Fuente apezpiku 1578 eta 1587 bitartean izan zenez, bi apezpikutzen aldetik aginduriko neurriak garai beretsuan ezarri nahi izan zirela ohar liteke²²⁹. Aurreraxeago ikusiko dugunez, neurri berberak, edo antzerakoak, 1602ko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan ere jaso ziren (40 urteko muga, lizentziaren beharra, ermitetako serora-laguntzaileen debekua) (Manso 1602, 88r), eta Iparraldean hartu izan zirenaren berri ere badugu, baina jakin ahal izan dugunerarte, garai berantiaragoetan kokatzen zaizkigu. 1749ko Baionako Konstituzio Sinodaletan apezpikuaren onarpen eta lizentzia beharra, seroragaia 30 urtetik gorakoa izatea, eta bere bizimodu onaren inguruko frogantzak egitea ezarri zen; bertan "anciennes ordonnances"-etan ezarri zena berresten zela aipatu zenez, neurriak aurreko garaietatik zetoztela dakigu (D'Arche 1749, 10), baina ez zaigu argi geratzen "ordonnances" horiek 1666an Olceko Monsinorea apezpikuaren mandatuz argitaratu ziren *Statuta Synodalia*-k izango ote diren, ala beste konstituzio batzuetaz diharduen.

Baina Nafarroa Garaiko egoera berezia dugu, 1584an Juan de Undiano ermitau eta apezak ekindako ermitauen erreformak baldintzatu baitzituen seroren gaineko ondorengo kontrola eta legedia²³⁰. XVI. mendearen hasieratik eta are lehenago hasiak ziren seroren onarpenerako baldintzen, eta hauen eginkizunen eta atribuzioen inguruko ika-mikak giroa berotua zuten, eta izpiritualtasunaren irakurketa klasikoetan jantzia zegoen Juan de Undiano ermitaua, Nafarroa Garaiko ermitetako ermitauen eta seroren egoerari eskandaluzkoa eritzirik, Felipe II. erregeari zuzendu zitzaion, Nafarroa Garaiko

Iturrateren lanean behinik behin, ez baitzaigu bertako seroren aurka artzapezpikutzaren edo bestelako instituzioren baten aldetik harturiko neurrien berririk ematen (Iturrate 1998 -1980-, 187-198). Zuhur ibili beharko ginateke hala ere, santutegi honetako serorek bertako ospizioaren eta erromesen ostatuaren kargu hartzen baitzuten, eta aurrerago ikusiko dugunaren arabera, funtzio hauek betetzen zituzten tenpluak izan baitziren seroren aurkako neurrietatik usuen salbuetsiak izan zirenak.

²²⁹ Honakoa da Iruñako Apezpikutzako 1591ko Konstituzio Sinodaletako bertsioa: "Muchas personas debaxo de especie de sanctidad mudan los habitos, y se hazen hermitaños para habitar en las hermitas: y de auerse les dado las tales hermitas, sin examinar su vida, y persona, se han seguido muchos inconuenientes, S.S.A. estatuyamos, y mandamos, que en las dichas Iglesias ni hermitas, ninguna persona este, ni more por serora, ni beata, o hermitaño, sin que primero sea examinado de su persona, vida, y edad, y recogimiento, y tenga licencia nuestra, o de nuestro Vicario general: la qual no entendemos de dar a personas casadas, ni a mugeres estando en despoblado para seruir iglesias por nombre de seroras, o fraylas, sin el dicho examen, y que no sean de menos de quarenta años. Y mandamos a los clerigos de nuestro Obispado, sin la dicha licencia, no las admitan: y exhortamos, y mandamos a nuestros visitadores tengan cuydado de hazer guardar, y cumplir esta constitucion, y de auisarnos como se cumple: y nuestro Vicario general no de licencia a los dichos hermitaños, y seroras para pedir lymosna, sino fuere en las dichas hermitas, y en el lugar, en cuyo termino estuieren las tales hermitas. Y encomendamos a los Curas, donde estan los hermitaños, nos auisen, si viuen conforme a su regla" (Rojas y Sandoval 1591, 93v).

²³⁰ Ondorengo orrietan, Nafarroatik Gipuzkoara itzuli bitartean emango ditugun azalpenetarako iturri nagusia Goñi Gaztambidek 1965ean idatzi zuen "La vida eremítica en el reino de Navarra" artikulua dugu; behin eta berriro artikulua erreferentziak ematea ekidingo dugu beraz. Aipuen kasuan jatorri zehatza aipatzea nahiago izan dut (hau ikerlana ala dokumentua izan), besteak beste, Goñi Gaztambideren artikulua artatzen nagusiztat darabiltzan agindu eta bestelako dokumentuak, 1622ko *Ordenanzas del Consejo Real de Navarra* zirelakoetan bildu zirenak, irakurleari ordenantza hauen artean non kokatzen ziren adierazi nahi izan diodalako, eta horrez gain, Goñi Gaztambidez aparteko beste autoreen erreferentziak ere, noski, eman beharrean nagoelako.

ermitauen erreforma eskatuz²³¹. Erregeak helarazi zien lehen eskakizunari ez zioten Nafarroa Garaiko Errege Kontseilutik eta Iruñako Apezpikutzatik kasu handirik egin, baina Juan de Undianok ez zuen amore eman, eta Felipe II.ari bigarren memorial bat helarazi zionean, honek Nafarroa Garaiko erregeordeari, Almazaneko Markesari, ikerketak pertsonalki abiarazi zitzaala agindu zion. Ikerketarako baliaturiko galdetegia luzea izan zen, hainbat alderdiri buruzko informazioa batzeko xedez egina:

Debía averiguarse el número de ermitas, su emplazamiento, el estado de sus edificios, cómo vivían los ermitaños, de dónde eran naturales, si eran clérigos o legos, en qué se ocupaban, qué necesidad había de ermitaños y de qué fruto eran las ermitas, de qué se sustentaban los ermitaños y en qué empleaban las limosnas y, por último, si en algunas ermitas había mujeres y si por ello habían nacido inconvenientes (Goñi Gaztambide 1965, 78-79)

Ikerketatik jasotako informazioak ermitauen eta ermiten egoera kaxkarra agertu zuen: ermitau askok zegozkien ermitak euren kasa utziak zituzten, eta limosna eskaeran eta izpiritualtasunetik aski urruti zegoen bizimodu nahasia eramanez iragaten zuten denbora, eta honen ondorioz, herritarrek jada ermitau kargua etekinak ateratzeko bizimodu huts bat bezala hautematen zuten, bertatik izpiritualtasunari loturiko bizimodu baten islada jaso beharrean. Egoera hau aldatzeko, beraz, hainbat neurri hartu ziren: hautagaien bizimodu onaren inguruko frogantzak, apezpikuaren lizentziaren beharra, bisitatzailen kontrola, jatorriaren inguruko mugak (lehenik nafarrak onartu behar ziren, eta bestela, "o de las provincias vascongadas y Castilla la Vieja" baino ezin zitezkeen izan), ermitauen habitu finko baten ezarpena, irakurtzen eta dotrina kristaua jakin beharra, limosna eskaeraren eta honen etekinen kudeaketaren gaineko kontrola, ermitau izateaz gain apez ere bazirenek esan beharreko mezak, etab. Eta batez ere, ermitauak izango ziren ermiten kopurua mugatu eta 60 ermitako zerrenda zehatz batean zedarritu zen, eta aipaturiko alderdien kontrolerako ermitauen bizimoduaren inguruko araudi bat eratu zen: *Regla y constituciones de los ermitaños*. Zehazki serorei zegozkien alderdiekiko, bi neurri zehatz zaizkigu esanguratsuenak: ezkonduak zeuden ermitauen kasuan (hau da, praktikan, ermitetako seroren lanak egiten zituen emaztea izan zezaketen ermitauen kasuan), hiru hilabeteren buruan ermitak uztea agindu zitzaizen, ezkongabeak izan zitezela ezarri baitzen; eta bakarka edo beste serorekin edo emakumeekin ermitetan bizi ziren seroren kasuan berriz,

por quanto en algunas Hermitas ay algunas mugeres que ocupan las dichas hermitas, y viuen vida solitaria como los Hermitaños: en lo qual ay grandes inconuenientes, y muy claros, y notorios peligros: se manda que de aqui adelante no puedan habitar mugeres las tales Hermitas, antes las que huuiere al presente, las desocupen desde luego, y vayan a viuir a poblado: y en ellas si fueren a proposito, se pongan algunos de los dichos Hermitaños, para que las habiten, y tengan cuenta con ellas. Lo qual es nuestra voluntad, que no se entienda con las que estan admitidas, las quales durante su vida, puedan estar en las dichas hermitas, con que no acojan a otros, ni pidan limosna. Y que en muriendo, ayan de entrar en las dichas hermitas hermitaños reformados (Nafarroako Errege Kontseilua 1622, 472r-472v)

²³¹ Honela azaldu zen Juan de Undianoren eskakizuna motibatu zuen egoera, Nafarroako Errege Kontseiluaren 1622ko Ordenantzetan 1584ko eta ondorengo aginduak baitaratu zirenean: "nos fue hecha relacion, que muchos de los que han viuido y viuen en habito de Hermitaños en las Hermitas que hay en este dicho nuestro Reyno, atendiendo mas al ocio y descanso suyo, que al instituto de la vida heremitica, han andado y andan por los pueblos comarcas, con color de pedir limosna, dexadas sus hermitas, tomando esto por oficio y grangeria, y no habitandolas, ni viuiendo recogidos en ellas, ni dando buen exemplo con sus vidas: y que habitauan en algunas Hermitas mugeres, de que auian resultado muchos inconuenientes" (Nafarroako Errege Kontseilua 1622, 468v).

Ermitauak egon zitezela onartu zen 60 ermiten zerrendan bertan ageri zaigu zenbait seroraren berri, arautegian adierazi zen bezala, beraien heriotzean, edo kargua desagertu, edo erreformaturiko ermitauek ordezkatuak izan behar zutenak: Lizarrako Rocamador ermitan zegoen serora kargua desagertu zedin agindu zen; Vianako "nuestra Señora de Cuebas" ermitako serora hiltzean ermitau erreformatu batek ordezkatu behar zuen; Labianoko San Paulo ermitan "tres Monjas" zeuden, eta limosnarik ez eskatzekotan eta beste inor ez onartzekotan hil zitezene arte bertan bizitzea onartu zitzairen, gero erreformaturiko ermitauek ordezkatzeko; Imarkoango Santo Domingo ermitan bere ilobaren konpainian bizi zen emakumearekiko ere, beste hainbeste ezarri zen; eta azkenik, Otxagabiako Muskildako Andre Mariaren ermitan neskame batekin batera bizi ziren hiru "reclusa"-rekiko ere, azken bi kasuetako neurri berberak ezarri ziren (*Ibid.*, 470r-471r). Datu hauen argitara, ez dirudi Nafarroa Garaiko ermitetan serora gehiegirik zegoenik, eta ermitauak izatea ohizkoagoa zela ondorioztatu liteke. Baina ez gaitezen azkarregi ondoriotara iristen hasi; 1585eko zerrendan agertzen ziren 60 ermitetako hainbatetan, nahiz eta zerrendaketa egin zen garaian ezer aipatu ez zen, bestelako iturrien bidez badakigu serorak bazeudela, edo izanak zirela, edo gerora izango zirela. Bestalde, zerrenda garrantzitsuentzat edo beharrezkotzat hartzen ziren ermitek osatu zuten; hau da, ziurrenez etekinik handienak emango zituztenak, eta beraz, serorez aparte, ermitauek ere gutzian zitzaketenak. Baina honekiko, hau da, Nafarroa Garaian, eta zehazkiago bertako landa eremuetan, serorek zeukaten presentziari neurria hartzerako orduan, aurreraxeago azalduko ditugun 1626ko Baztan eta Maia bailaretako parrokiatako seroren kontrolerako neurrietan bilduriko informazioa ere aintzat hartu behar dugu. Izan ere, egoera jakin bat sortzea helburu zeukan arautegi batean baino, egoera faktikoaren berri jasotzea helburu zuen auzi bateko informazio dilijentzietan oinarritzen baitzaigu; eta ikusiko dugunez, serora ugari agertzen zaizkigu.

1591n Iruñako Apezpikutzako Konstituzio Sinodalak argitaratu ziren, eta bertan, 1578-1587 bitartean Pedro de la Fuente apezpikuak emandako agindua jaso zen, aipatu dugunez, Burgoseko Apezpikutzako 1577ko Konstituzio Sinodaletan jaso zenaren ia berdina zena. Honek, noski, Juan de Undianoren erreformaren alde ere egingo zuen, zalantza handirik gabe; baina, esan bezala, ez ziren gauza berbera, araudiak, eta hauen aplikazioa. Izan ere, Juan de Undianok bultzaturiko erreformak Nafarroa Garaiko Errege Kontseiluaren eta Iruñako Apezpikutzaren bermea eta bultzada jaso bazituen ere, 1596rako berriro neurri zorrotzak hartu beharrean izan ziren, ezen

he sido informado que lo susodicho no ha vastado para quitar los abusos, y desordenes de algunas personas que viuen en las dichas Hermitas, y que es necessario proueer de mas eficaz remedio, para que cessen las ofensas que por este camino se hazen a Dios nuestro Señor, y el mal exemplo que dan a la republica (Nafarroako Errege Kontseilua 1622, 473r)

Felipe II.ren agindua zen, eta bere bidez, ermitau izan nahi zuenari lizentzia emateko baldintzak asko zorrotzu ziren (besteren artean, apezpikuaren aurrean, "con seys Religiosos graues" aztertu behar zitzaion bokazioa), eta erreformatzeko asmotan izan ziren bestelako ermitauekiko berriz, edo hiribilduetara jeitsi zitezela edo onarturiko ordena erlijiosoren batean sar zitezela, eta berehala ermitak utzi zitzatela agindu zitzairen:

auriendole mirado y platicado sobre ello muy particularmente, a parecido lo sera extinguir de vna vez este genero de Hermitaños que uiuen en las Hermitas, y que estas se encarguen por orden de los Obispos a los Curas mas cercanos, obligandolos a que las tengan limpias y cerradas, [...] y que los dichos Hermitaños sean reducidos a viuir en

poblado, siruiendo en la republica, o entren en Religiones aprouadas los que tuuieren espiritu y vocacion dello, pues ay tantas en la Iglesia de Dios (*Loc.cit.*)

Baina ermitauen eta seroren bizimodua aldatzea zaila bazen, ez zen errazagoa hauek ermitetatik desagerraraztea. Goñi Gaztambidek, bere artikuluan, laburbildu berri ditugun azalpenak eman ondoren, Juan de Undianoren gorabeheren jarraipena egin zuen, eta ageri zaigunez, erreformaren bultzatzaileak berak ere nozitu behar izan zituen desagerrarazte aginduaren ondorioak: Obanosko Arnotegi auzoko Andre Mariaren ermitan ermitau zegoela bertako herritarrekin izan zuen auzi batean agindua bere aurka baliatu zuten. Eta bere defentsan, bultzatu zuen erreformaren gorabeheren berri inork baino hobeto izan behar zuen Juan de Undiano berak adierazi zuen honek izan zuen eragin eskasa, 1600ean: "La cédula real, 'por ser en materia eclesiástica, había de ser admitida por los obispos y prelados y *nunca ha tenido efecto*, porque con voluntad del señor obispo *residen casi todos los ermitaños, como antes, con sus propios hábitos*" (Goñi Gaztambide 1965, 86).

1585ean ermitauen erreformaren baitan onartutzat eman ziren ermitetan eta ermitau nahiz serorarik izan zezatela debekatu zirenetan, ondorengo urteetan ermitauek eta serorek bizi izaten jarraitu zuten, zenbaitetan, are limosna eskaerarako ere, apezpikutzaren aldetiko baimena jasoz. Juan de Undianoren adierazpenaz gain, ibilbide hauen hainbat froga eman zituen Goñi Gaztambidek, ermitauen kasuak bezalaxe, serorenak ere. Seroren artean, erreformaturiko ermitauen bidez ordezkatuak izan behar zuten zenbaitek beraien karguetan jarraitu zuten: Otxagabian, Muskildako Andre Maria ermitan 1585ean ageri ziren hiru "reclusa" haiek, edo haien ondorengoak, hiru edozein kasutan, bertan zeuden ermitauen erreformaren gorabeherak desagerrarazte agindura heldu ondoren ere, 1597an; eta Labianon, San Pablo ermitan 1585ean hiru serorek osatzen zuten komunitateak ere bertan jarraitu izan zuen: 1600ean jada lau ziren, eta 1613an, Leonor eta Maria de Eransus ama-alabak sartu ziren seroratzetara, bikario orokorraren titulu eta guzti.

Gainera, bada bi kasu hauei buruz Jimeno Juriok gehitzen dizkigun datuek garbi uzten diguten zerbait: patroiak eta izendapen eskubidea zeukaten eragileek arduraren handiagoa zeukaten beraien eskubideen inguruko arazoei erreparatzerako orduan, ermitauen erreformaren harira bultzatu nahi izan ziren debeku eta neurriak betearazterakoan baino. Neurri eta arau hauek agintzen ziren artean, patroiek eta izendapen eskubidea zeukatenek berdintsu jarraitu zuten izendapenak egiten, eta beraien eskubidea beste botere esparruen aurrean defendatzen; eta hortaz, bitarte hartan ermitauen erreformaren harira eman ziren aginduei kasurik ez egiten. Hala, Otxagabian, Muskildako Andre Maria ermitan, XVI. mendearen bukaera aldean Ana de Alzate y Urtubia jatorri nobledun anderea bere iloba Joana Chacón zerbitzura zeukala seroratzat egon ondoren, 1595ean lehena hil zenean bere ilobak karguan jarraitzea zegokiola defendatu zuen, baina patroik ziren alkateak eta errejidoreek ez zuten halakorik onartu, hogeitau urte baino gazteagoa zela eta herrikoa ez, baina Iparraldekoa zela argudiatuz; Maria Juan de Labari izendatu zuten serora, ustez, erreformaren arabera, ermitaua izendatu behar zenean. Labianoko San Pablo ermitako hiru "reclusa" haiei dagokienean berriz, Muskildakoak bezala 1585ean agindurikoaren arabera ermitau batek ordezkatu behar bazituen ere, 1600ean lau serora zeuden bertan: Ana de Iturbide zen buru abadesa titularekin, eta beste hirurak bere aginduetara zeuden. Ohargarria dugu serora nagusia emagina zela, eta bere ofizioan jarduten zela. Patroi zen Zolinako Bizkondeak izendatuak ziren, eta 1600ean, izendapena bai, baina ez zeukaten apezpikutzako titulurik. Eta ez ziren, prezeski, izpiritualtasunaren eredu:

Vivían con mucha frivolidad. La abadesa permitía que mozos y mozas entraran en el convento, tañendo rabeles y guitarras, comiendo, bebiendo, danzando y cometiendo otros excesos en la basílica y en los aposentos. Hubo denuncia, siguió pleito y la sentencia las condenó a dejar definitivamente la basílica (Jimeno Jurío 1997, 70)

Serorak kanporaturik, Labianoko abade ("abad") zen Lanzarot de Aranatz izendatu zuten kapilau, itxuraz, ondorengo seroren gaineko zaintza egokiagoa izan zedin. Edozein kasutan, eta seroren bizimodu aldrebesa izana zen bestekoa izanik ere, Zolinako Bizkondeak serorak izendatzen jarraitu zuen: 1613an, esana dugunez, Leonor eta Maria de Eransus ama-alabak, 1615ean jatorriz Iruñarra zen Maria de Olo, eta 1621ean Aldonza Montero. Azken serora hau, gainera, komunitatearen bizimodua erabat aldatzeko asmotan heldu zen. Zuzenean abadesa lez egin zitzaion izendapena, hain zuzen ere, San Bernardoren erregela seroren komunitatean ezarri zezan; hala egin zuten, eta geroztik, komunitate txikia izanik ere, klausura gorde izan zuten, nahiz eta praktikan, mojenak baino propioki bestelako serorenak ziren aktibitateetan murgildurik jarraitu zuten (tenpluaren zaintza, erromesen artapena, irakaskuntza...). 1650erarte, bestalde, klausurarako itxituraren burdin hesiaren eta Santa Feliziaren gorpuaren kutxaren giltzak euren esku izan zituzten; urte hartatik aurrera patriiak tenpluko kapilauaren esku utzi zituen. Herritarren faborea zeukan monasterio txiki hau, zenbait momentutan sei serora izatera ere heldu zena, XVIII. mende bukaerarte mantendu zen, aktibitate sozialez gain, herritarren dohaintzak eta seroren euren doteak oinarri ekonomikotzat zeuzkala (Jimeno Jurío 1997, 70; Equiza 1988, 109-110). Ez da kasualitatea, Labianoko San Pablo ermitako seroren klausurarako bidea, izan ziren gorabeherak eta gero, garai hartan habiatu izana (1621). XVII. mendearen hasierako hamarkada haiek, jada ohartarazia dugunez, zeharo erabakigarriak izan baitziren seroratzak askoren etorkizuna bideratzerako orduan.

Baina 1585eko zerrendan erreformaturiko ermitauak egon zitezkeela ezarri zen ermitetaz beste, bazeuden serorak bestelako ermitetan ere, eta apezpikutzaren aldetik, bereziki, ospitale ere baziren ermitetako serorak faboratzeko joera izan zela dirudi. Eta honek, ondoren ikusiko dugunez, Kalagorriko apezpikutzaren jarrerarekin ere bat egiten duela esango genuke. Hala, 1608an, kontzejuaren bidez bikarioaren aurrean seroragaitzat aurkeztu zuten Maria Miguel de Arzu, Lesakako Magdalenaren ospitaleko seroratzat onartua izan zen, eta 1609an, orduan gutxi obrak eta konponketak izanak zituen Larrasoñako San Blas ermita eta ospitalean, bere fedearen froga ugari emanak zituen Catalina de Sumbillari (seroratzara "después de haber hecho muchas peregrinaciones a diferentes casas santas y en particular a la ciudad de Roma" onartua izan baitzen), bere adina eta sostengurako oinarri eskasak erreparaturik, Bikario Orokorrak lau legoaren barruan limosna eskatzeko baimena eman zion.

Hasiera batean hain eragin eskasa izan zuten lehen saiakera instituzional antolatuak, ikusi dugunez, Nafarroa Garaian eman baziren (Burgoseko artzapezpikutzan, dakigunerarte, aipaturiko konstituzio sinodalaz aparte ez baitzen bestelako neurri berezirik hartu), laster iragango zen debekuen eta liskarren giroa Euskal Herriko beste herrialde historikoetara ere, XVIII. mende bukaerako azken seroren desagerrarazte aginduetara luzatuko zen presioen jarraipen luze bati ekinaz. Itzul gaitezen bada, momentuz, Kalagorriko apezpikutzaren lurraldeetara, lehenik Gipuzkoara eta ondoren bertan ikerketa esparru nagusia dugun Debagoienara, seroren jazarpenaren ibilbideak nondik jarraitu zuen ikustera.

Burgoseko eta Iruñako apezpikutzen lurraldeetan aipatu berri ditugun gorabeherak gertatzen ziren artean, Kalagorriko apezpikutzan ere gauzak berotuz zioazen. Aldareetan eta sakristian serorak sartzeko debekuek jarraitzen zuten. Baina

debeku hauek arazoak ere sortzen zituzten. Azken finean, serorei sakristiarako sarrera debekatzeak askotan buruhauste gehiago zekartzan, onurak baino; hauen berri ematen digun kasu bat jaso zuen Azpiazuk, Urretxun (Gipuzkoa) kokatua:

El año 1582 las autoridades deciden prohibir a la serora mayor de la parroquia de Villarreal de Urretxu la entrada a la sacristía, pero al final revocan su decisión porque no hallan fácil solución al asunto, en parte por la dependencia del clero, que había delegado demasiadas funciones eclesiásticas y de organización del culto en manos de las seroras. Dicha serora se tenía que ocupar de "tomar los manteles y los demás adornos de los altares" y guardarlos en cajones de los que ella tenía las llaves y cargo, y para adornar los altares difícilmente se le podía prohibir la entrada a la sacristía. Pero sus atributos eran más amplios, porque la serora tenía a su cargo avisar al vicario y beneficiados "para ocuparse en hazer ofiçios populares por ser lugar más deçente para hazerse la dicha prebençion, que no yendo a las casas dellos, y es más justo que la dicha serora mayor baya a la dicha sacristía a lo susodicho que no mugeres ni criadas de vecinos" (Azpiazu 1995a, 50).

Debagoienera iraganez, 1595ean, bisitatzailleak Bergarako San Pedro parrokiako seroren kopurua hirura mugatu nahi izan zuen, eta gorago aditzera eman dugun bezala, aurreko aginduak betetzen ez zirenez, hauei aldareez gain sakristian sartzea ere debekatu zien, "ny puedan hazer ny hagan otro ministerio mas de uarrer y ençender la lampara y que la que lo contrario hiziere sea hechada de la yglesia"²³². Urte berean Oñatiko San Migel parrokian egin zen bisitan ostera ez ziren hain zurrunik izan; izan ere, seroren nahiz beste emakumeen zerbitzupekoak ziren zenbait jarleku kapera nagusiko harmailetan bertan baitzeuden. Agindua emakumeei zuzendu zitzaizkien, orokorrean:

Otrosi dixo que mandaua y mando que so pena de escomunión mayor y de dos reales aplicados para la fabrica de la dicha yglesia ninguna muger de qualquier condiçion y estado que sea pueda subir ni asçender ni asentarse sobre las gradas de la capilla mayor de la dicha yglesia sino solamente las que tubieren sepulturas sobre las dichas gradas y que la dicha pena la execute el sacristan lego de la dicha yglesia la mitad para la fabrica y la otra mitad para el mesmo y que siendo rrebeldes en pagar la dicha pena el abad las ebite de las oras canonicas²³³

Bisitatzailleak erresistentzia egon zitekeela aurreikusten zuela dirudi, aginduaren betekizunaren kargu eman zion sakristauari berari etekin ekonomikoa –nahiz eta ez oso handia– esleitzeak (eta honen bidez, hau aldarera sartzeko ohitura izan zezaketen emakumeen –eta noski, seroren– aurka jartzeak) eta isuna ordaintzeari muzin egin zioketekenen aurka, hauek otoitzen liturgiatic kanporatzeko abadeari eman zitzaion aginduak zorrotasun handia agertzen baitute. Jada seroren desagerrarazterako 1621eko konstituzio sinodaletako agindua emana zenean ere, 1627an, tankerako agindu bat eman zen, oraingoan pertsona sekularrei bideratua: "que ninguna persona lega se suba a oyr misa sobre las gradas del altar mayor y quando suuieren a comulgar bajen luego so pena de escomunión mayor"²³⁴. Aginduaren tonuari erreparatuz, aldare barruan gelditzeko edozein aitzakia izateko prest zeudela dirudi. Azken bi agindu hauetan espezifikoki serorak aipatu ez baziren ere, nabaria da erlijiozko esparruaren baitakotzat hautematen ziren gizonen soilik utzi nahi zitzaizkiela aldareetako espazioko aktibitateak, eta ez dezagun ahaztu, serorak, emakumeak izateaz gain, elizako eta alor zibileko legedien arabera, ez zirela erlijiozko estamentuaren parte; alegia, printzipioz, sekularrak zirela. Bi aginduetan baitaraturik gelditzen ziren, beraz. Parrokia berberean mende bat baino

²³² BUA 01 L/148, 262.

²³³ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 343r-343v.

²³⁴ DEAH-AHDSS 3691/001-00, 49r-49v.

gehixeago lehenago, 1517an eman ziren aginduak ahaztea ere ez zaigu komeni; aginduon arabera, sakristauari zegokion "rregir los altares"-etako lanetan zihardutenak, are meza ordutan ere, hau beharrean serorak baitziren²³⁵.

Hiribilduetako parrokia hauekin bat, badugu garai beretsuan Leintz bailarako elizateetarikoa batean eman zen antzerako agindu baten berri ere. Eskoriatzan, Zarimutz elizateko San Pedro parrokian 1584an egin zen bisitan, bisitatzailleak "que nenguna beata allege a los altares ni a cosas sagradas so pena de excomunion y de diez ducados" agindu zuen²³⁶. Beste kasu batzuen konparaziora, hemen isun ekonomiko gogorra agindu zuen bisitatzailleak. Eta oster, Bergarako Elosua auzoko San Andres parrokiako serora ugariei zegokienean, 1595ean kargurako bi seroren izendapenak egin zirenean ez zitzairen apezpikutzatik inongo oztoporik jarri, nahiz eta izendapenaren eskaera zuzenean apezpikutzara egin zutenean, jada bazeuden lau serorez gain beste batzuen beharra argudiatzeko, bai batak eta bai besteak Sakramentu Santua apezarekin batera elkarrengandik oso urrun zeuden baserrietara eramanez beharra aipatu zuten. Beste lau seroren artean bi zaharregiak ziren, eta beste biak ez omen ziren nahikoa parrokia artatzeaz gain lan gogor hau egin ahal izateko, eta seroragaiak, eurak halako kargak eramateko osasuntsu eta indartsu zeudenean adinean zeudela zioten. Apezpikutzatik, esan bezala, ez zuten inongo ardurarik agertu Sakramentu Santua batetik bestera zerabilten serora hauen izendapena onartzeko²³⁷. Eta hiribilduko San Pedro parrokian bertan ere, Catalina de Ondarzak 1572an helarazi zuen testamentuan adierazi zuenez, hala egiten zen; parrokiako seroretxearen fundaziorako aipatu zituen arrazoietariko bat honakoa zen: "para que a todas oras e tiempo [*serorak*] estubiesen çerca y a la mano de la dicha yglesia asi para salir con el Santissimo Sacramento las vezes que fuere nesçesario como – para todos los otros casos que en seruiçio de la dicha yglesia – se ofreçiere"²³⁸.

Bizkaia aldera iraganaz, Debagoienean aurkitu ditugunak baino neurri gogorragoen berri heltzen zaigu, Pedro Manso apezpikuak 1595ean egin zituen bisitetan. Ez dezagun ahaztu, aipatu berri ditugun Bergarako eta Oñatiko aginduak, ez hain zorrotzak, 1595ean bertan eman zirela. Bada, Lekeitiotik iragan zenean, Nafarroa Garaiko ermitauren erreformaren eta 1602ko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletako aginduen bitartean kokatzen zaigun agindu bat eman zuen:

Mandó al Cabildo, Justicia y Regimiento de la Villa, que, sopena de excomunió mayor, pongan hermitaños de buena vida para que sirvan las dichas hermitas y en el ynterim quede la freira más antigua en cada ermita con una criada y las demás que hubiere sean echadas de ellas

Ermitauren bidezko ordezkapena, eta ermitetako seroren kopuruaren mugapena. Zenbait egun lehenago, serorak objektu sakratuak erabili ez zitzaizkien asmoz, apezpikuak Begoñako santutegian sakristau baten izendapena agindua zuen. Lekeition ondorengo urteetan gorabeherak jarraitu zuten: bisitatzailleak 1595eko agindua atzera bota (1596an eta 1609an) eta berretsi izan zuten (1604an eta 1615ean), patroiek ere zenbait neurri hartu izan zituzten (1605an, 1615ean eta 1628an), itxuraz, azkenean, 1636an urte hartako bisitako ermitetako seroren aurkako azken desagerrarazte agindua bete zuten arte (Urquiza 1985, 140-149; Arana 1992, 174-175; 2004, 855-856). Baina jarraian

²³⁵ Oñatiko kasuak bere berezitasunak dauzka, eta aldareekiko eta sakristiarekiko kontuak bezalaxe, aurrerago ikusiko dugunez, seroren desagerrarazte agindua bera ere beste lekuetan baino beranduago iritsi zen Oñatira, 1637an. Beste espazioekiko, beraz, hamarkada batzuetako "atzerapenarekin" zebilela dirudi, nahiz eta honen motiborik argitu ezin ahal izan dugun.

²³⁶ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 31r.

²³⁷ GPAH-AHPG 1/0133, 435r-443v, 542r-543v.

²³⁸ GPAH-AHPG 1/0112, 583r.

datorren atalean emango dugu gorabehera hauen bestelako berririk, Lekeitioko kasuak XVII. mendearen lehen hamarkadetako neurrien inguruan aspektu interesgarriak azaltzen baitzigu.

III. 2.2. XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakerak eta hauen ondorioak

Debagoieneko eta Euskal Herriko herri eta parrokia ezberdinetan jaso ditugun XVI. mendean zeharreko aginduen araudi aldetiko isladarik muturrekoena, azkenean, 1602ko eta 1621eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan eman zen. 1602ko konstituzioetan parrokia guztietan sakristauak egon zitezela berrestearekin bat, hauen betekizunak zehatzago definitzeari ekin zitzaionean, aldareen eta ornamentu sakratuen garbiketa esleitu zitzaion. Halaber, jada serorei eskaini zitzaion errubrika espezifikoa garbiki zehaztu zen “le mandamos so pena de excomunion, que no toque a los Ornamentos, ni llegue al Altar, Caliz, Hostia, ni Corporales”. Era berean, serora-laguntzaileak ere debekatu ziren, eta ermitetan serora bakarra gelditzea baino ez zen baimendu, beti ere, Gipuzkoako Probintziako Batzarretan ere zehaztu zen bezala, 40 urtetik gorakoa izatekotan. Gainontzeko guztiak espazio populatuagoetara jeitsi zitezen agindu zen. Honek, laguntzailerik gabe, ermitetako serora zahar asko tenplua artatu eta zenbaitetan are euren burua sostengatu ezinean ere uzten zituen, eta praktikan, hauen desagerraraztea baino ez zuen eragin nahi (Manso 1602, 87v-88r –seroren inguruko errubrika–, 117r-117v –sakristauen betekizunak–).

XVI. mendean aldareetarako sarrera eta objektu sakratuen erabilera eliz-agintarien artean ardurak sortzen hasia bazen, eta jada agintari zibilen aldetik bezalaxe eliz-agintarien aldetik ere adinaren muga ezarri bazuten (zeina, ikusiko dugunez, araudiak araudi ez zen askorik errespetatu), jada beraien parterik handienez XVII. mendearen lehen urte hauetako konstituzio sinodaletan eta bisitatzailen aginduetan jaso ziren, Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko iturri arautzaileetatik *Decretum Gratiani*-ko (1140) bilduma eta antolatze lanaren bidez *Corpus Iuris Canonici*-ra iragan ziren emakumeen eta espazio eta objektu sakratuen arteko erlazioekiko debekuak: aldareen espazioa bezalaxe, liturgiarako elementu sakratu guztiak hartu ziren aintzat, ornamentuak (ohar bedi ornamentu lez ez zirela soilik bitxiak bezalakoak hartzen, aldareetako ohialak eta bestelako apaundurak ere ornamentutzat hartzen baitziren), kalizeak, korporalak eta ostiak. Nabaria denez, eta hau bere kabuz aski esanguratsua dugu, elementu sakratuok liturgiarekin zerikusia zuten elementuak ziren; legedien bidez emakumeei jada aski luzaroan eragotzi nahi izan zitzaizkien ministeritza sakratuei soilik zegozkienak, alegia²³⁹. Eta kontrol gabeko serora-laguntzaile gazteen gaineko mesfidantzaz gain, apezzei zegozkien espazioetatik aldendu nahiaren zeinu garbia dugu, halaber, ermitetako seroren desagerrarazterako lehen saiakera hau ere (azaldu dugunez, serora zaharrena soilik gelditzea baimentzeak askotan hauen zerbitzua ezinezko bihurtzea esan nahi baitzuen); serorak, egotekotan, apezak egunerokoan zeuden espazioetan behar zuten egon, hauen gertuko kontrolaren bidez gizonezkoiei zegozkien esparruetan emakumezkoen intromisorik izan ez zedin.

Izan ere, Aro Berrirarteko legedien transmisio ildoaz beste, eta lehenago ere adierazi dugunez, agindu hauek emakumeen inguruan Erdi Aroa eta Aro Modernoa bitartean Europa guztian zehar hedatu zen eta bereziki misoginoa izan zen ikuspegi bati ere badagozkie, eta esanguratsua eta nabaria denez, Hegoaldean eta Iparraldean izan ziren sorgin ehiza sonatuenen testuinguru orokor berberean eman ziren. Eta sorgintzat

²³⁹ Ikus *Decretum Gratiani*-rarteko araudietan jasoriko debeku eta aginduen inguruko azalpenak II. 2.1. azpiatalean, 54-57 or.

salatuak izan ziren emakumeei bezalaxe, klausurara behartu zituzten ordenetako serorei nahiz bestelakoei eragin zien ikuspegi honi jarraiki, Iparraldeko sorgin ehiza sonatuenen erantzule izan zen De Lancre berak azaldu zigun argi muga hauek non hautematen ziren, bere *Tableau de l'inconstance...*-ean (1612) serorei eskaini zien ataleko aipu batean:

Y aun cuando las mujeres fuesen en cierto modo capaces de realizar el servicio divino, y existen religiosas que llevan una vida tan ejemplar que sabrían ser las más santas ermitañas que nunca hayan existido, la propia Iglesia ha hecho siempre esa diferencia, que las mujeres y mozas, por vírgenes y castas que sean, no puedan celebrar la misa, tocar el Santo Sacramento de la Eucaristía, ni tampoco acercarse a los altares. En cambio sí se les permite que contemplen la elevación, para lo cual tiene licencia de quitarse el velo, al igual que se les ha concedido el derecho a rezar los responsos (Lancre 2004 -1612-, 54)

Hautemapen orokor hau zen, XVII. mende hasieratako testuinguru hartan instituzioen aldetik hartu ziren erabakietan eragiten zuena. 1602ko konstituzioen ostean gauzak, jada bero ez bazeuden, areago berotu ziren, eta 1607an Bergarako Santa Marina parrokiari atxikiriko ermitetako serorek ahalorde amankomun bat helarazi zuten, apezpikutzatik beraien bizimoduaren berri jasotzeko (“como biuian y sus hedades y costumbres buenas y su onestidad y decençia y otras cossas”) inkestaren bat egiteko asmotan zebiltzala entzun izan zutela eta, auzi posibleen aurreko defentsarako²⁴⁰. Urte gutxitara Lapurdiko (1609) eta Zugarramurdiko (1610) sorgin-ehiza sonatuak izan ziren, eta 1614an Pedro González del Castillo apezpiku berria kargura sartuaz geroztik, serorendako -eta orokorrean, emakumeendako- arazoak areagotu egin ziren. Apezpiku berriak euskal lurretako hainbat ohitura aldarazteko asmo irmoa zeukan, eta seroren aurka egiteaz gain, ermitetara letania eta prozesioetan joatea, limosna eskatzea, kofradia batzuek eta emakumezkoen bertako tradiziozko janzkera batzuek ere debekatu nahi izan zituen, herrien aurka, eta baita Bizkaiko Jaurgoaren eta Gipuzkoako Probintziaren aurka ere (behintzat), hainbat auzitan sartuz. Ez dezagun ahaztu, gainera, ordenekiko loturak zeuzkaten seroren hainbat komunitate edo "beaterio"-ri klausura ezartzearen prozesua pil-pilean zegoela, eta zehazki Bizkaiko Jaurgoaren kasuan, apezpikutzaren aurka komunitate hauen klausuraren inguruan eta "sacristana"-tzat hartzen ziren seroren desagerraraztearen inguruan zeuzkan auziak, urte berberetan gauzatu zirela.

Berez, seroren aurka eman ziren debekuen eta hartu izan ziren neurrien inguruko ikerketak, batez ere, bi prozesu hauei begira egin izan dira. Gure kasuan ikerketa Gipuzkoan, eta dagokionean, zehazki Debagoiensean kokatu dugunez, Kalagorriko Apezpikutzaren testuinguruan seroren aurka hartu ziren -edo hartu nahi izan ziren- neurrien ikuspuntu zabal bat jasotzeko probestuko dugu, Bizkaiko Jaurgoak izandako auzien inguruan hainbat autorek bildu izan duten informazioa Gipuzkoan ikertu ahal izan dugun prozesuaren informazioarekin bateratuz. Izan ere, XVII. mende hasieratako seroren aurkako neurririk gogorrenak bi lurralde historiko hauetan bultzatu baitziren, batez ere, Pedro González del Castillo Kalagorriko apezpiku kargura sartu ondorengo urteetan. Apezpiku honen eragina bereziki garrantzitsua da, ordurarteko debeku eta araudietan seroren sarrerarako baldintzen zurruntzea, eta eginkizunen eta espazioen mugapena baino bilatzen ez baziren, bere agindupean, jada seroren erabateko desagerraraztea bultzatu nahi izan baitzen.

Eta Gipuzkoakoekin eta Bizkaikoekin bat, Arabako serorek ere jasan behar izan zituzten garai hartan debeku eta murrizketak, nahiz eta beste lurraldeen aldean, bertarako hainbeste datu ezin aurkitu ahal izan dugun. Alabaina, bertakoak dira Pedro

²⁴⁰ GPAH-AHPG 1/0185, 184v-185v.

González del Castillo 1614an apezpiku izendatu eta ondorengo bisitatzailen lehen neurri murriztaileen berriak: 1615ean bisitatzaila Laudiotik iragan zen, eta parrokiako eta ermitetako serorei agertzeko jakinarazpena egin zitzaien, lizentzia ote zeukaten frogatzeko; halaber, laguntzailerik izatea ere debekatu zien, 1602ko konstituzioetan ezarri zenaren arabera; aldareetarako sarrera ere debekatu zitzaien, eta baita sakristiarakoa ere, beste edozein emakumerekin batera (Navarro Ullés 1998 -1997-, z.g.). Ondorengo debekuen ardatz nagusiak jada finkatuz zioazen.

Baina apezpiku berriak seroren auziarekiko lehen saiakera esanguratsua 1617an Bizkaiko Jaurgoari zuzenduz egin zuen, bertako seroren desagerraraztea aginduz, "sacristana"-k zirela argudiatuz. Tranpa egina zegoen jada, 1602ko konstituzioek serorei zegozkien lanetariko gehienak sakristauei esleituak baitzizkieten (eta beraz, muga horien barruan mantentzen ez ziren serorak sakristauen lanak egiten ziarduketen), eta horrez gain, Pierre de Lancrek, 1612an, 1609an ekindako Lapurdiko sorgin-ehizaren inguruan argitaratu zuen liburu sonatuan ere, termino berbera erabiliz egindako salaketarekin mespretxatzen ziren serorak eta beraien betekizunak. Ondorengo urteetan, kontu gehiago izan beharko zuten "sacristana" haiek, tenpluetako zeregin jakin batzuk betetzerako orduan. Baina 1617ko lehen saiakera hartan apezpikuak ezin izan zuen bere nahia burutu; 1617an bertan, Bilboko prokuradorea, Juan Arcentales Manrique, apezpikuaren aurrera agertu zen, seroren desagerraraztearen agindua atzera bota zezala eskatuz. Ez zitzaion eskaerari kasurik egin, eta Bizkaiko Jaurgoak apezpikutzako epaitegietara jo zuen; Batzar Orokorrean adosturiko protesta idazkiak aurkeztu zitzaizkion apezpikuari, eta bi aldiz apelatu nahi izan zuten seroren desagerrarazte agindua. Lehen apelazioan, izendapen kontuetan Jaurgoaren eta apezpikutzaren arteko nolabaiteko konformitate batera heldurik, serorak apezpikuaren lizentzia bereziarekin baino ezin izango zutela kargura sartu onartzera heldu baziren ere, aurkezturiko bigarren apelazioa ukatua izan zen. Berez, auzia ez zegokien serorei soilik; apezpikuak Jaurgoko emakumeen eta janzeren inguruko ohiturak ere agindu bidez aldatu nahi zituen, eta sakonki errotutako ohitura hauen aurkako neurri haiek haserrea eragin zuten. Kalagorriko Apezpikutzari zegozkion Gipuzkoako lurraldeetatik ere apezpikuari urte berean helarazi zitzaizkion kexuzko -eta aginduak atzera botatzeko eskaerazko-idatziak, apezpikuak bultzatu nahi zuen ohituren aldaketa aski sakona zela agertzen digutenak; Bergarako udalak helarazi zuen idatziak honela zioen:

pedir y suplicar enmienda y reparo de algunos autos que el dicho señor obispo y sus visitadores tiene fechos en bisitas y en otra manera en esta dicha villa de Vergara y sus yglesias parrochiales y hermitas sufraganeas en mandar proybir y vedar en forma de reformaçion de que no se visiten las hermitas en ledamas y proçiones no anden vaçines y demandas por las iglesias pidiendo entre las gentes quando dicen misas mayores del pueblo y otras cosas, que aunque su señoria y sus visitadores se ayan movido a mandar lo contrario de lo que se a echo en esta dicha villa de Vergara y sus yglesias y hermitas de tiempo ynmemorial a esta parte que segun esta tierra es derramada y las hermitas son muchas y se conserban y sustentan todas con limosnas y muchas dellas se reparan y acreçientan las obras y ornatos dellas con lo que se logre de limosnas en baçines, con averse prohibido esto se a disminuydo la deboçion y el aumento de iglesias y hermitas y resultado otros yncombenientes (Aramburu 2008, 581-582)

Oso oldarkorra zen Pedro González de Castillo apezpikuaren jarrera; ez zituen euskal lurraldeetako ohiturak ulertzen, edo ez behintzat onartzen. Eta apezpikuaren "erreforma" hari, ulergarria denez, instituzio zibilek aurre egin zioten; bertako bizimoduaren aurka egiten zuen zuzenean, herritarren eta bertako instituzioen iritzirako urrunegi zioan. Eta hala ere, Jaurgoaren ahaldunek seroren defentsan, zeuzkaten

eginkizun eta funtzioen deskribapenetara jo zutenean, seroraren langintza oso muga estuetan zedarritu zuten; ez zaigu hain garbi gelditzen, Aranak zioen bezala, "para evitar complicaciones canónicas" izango ote zen, ala berez, instituzio zibilen aldetik seroren langintzaren -eta honen kontrolaren- inguruan zegoen ikuspegia ere aski ertsia zen, nahiz eta seroratzen defentsan jardun. Instituzio zibilek ere izan zezaketen seroren aktibitateen kontrolerako interesik, eta auziaren zalapartak, instituzio zibilen papera defendatzailetzat bermatzearekin batera, kontrol neurriak efektiboki garatu zitezten ere balio zezakeen. Azken finean, liturgiatic eta objektu sakratuen maneiotik urrun mantentzen ziren, eta tenpluetako mantentze eta garbitze lanetan baino jarduten ez ziren neskame tankerako emakume batzuen irudia jorratu baitzuten: "*las tales mujeres solo sirben de limpiar la ropa blanca, encender las lámparas, y barrer las Yglesias y hacer semejantes ministerios serviles sin tratar de manejar los vasos ni cossas sagradas porque eso solo lo hacen los clerigos*". Landa eremuetako tenpluetako bizimodu sozial eta erlijiosoaren eta seroren presentziaren artean zegoen lotura nabaria ere aditzera eman zuten, tenpluen gainbeheraren kexu:

echase aora vien de ver pues muchas hermitas que antes eran de mucha devocion y estaban muy bien servidas y concurría mucha gente a ellas estan echas corrales de ganados y sin genero de servicio, y aquí entran también en juego los beaterios-seroratos: y aun llega esta falta a algunas parroquias de lugares montañosos de la dicha Vizcaya con arta lastima de los que lo an de ver haviendo costumbre ymemorial (Arana 1992, 264)

Bizkaian bezalaxe gertatu zen Gipuzkoan ere, auzietako defentsetako argumentuetan, seroren eginkizunak muga garbien pean zedarriturik gelditu zirela; jarraian xehetasun gehiagorekin ikusiko dugu fenomeno hau, Gipuzkoako gertakizunei jarraipena egiterakoan. Bizkaian, 1618ko martxoaren 16an, apelazioaren ukoaren aurrean, Jaurgoak Valladolideko Errege Kantzeleriaiko audientziara jo zuen; honek apelazioaren ukoa bidegabea izan zela epaitu zuen, eta momentuz, seroren desagerrarazte agindua baliogabetua izan zen²⁴¹. Lehen ekinaldia baino ez zen, laster jarraipena izango zuena.

Bizkaiko Jaurgoan auziak hasi ziren bezala, edo agian, prezeski Jaurgoarekiko auziak nahi izandako bideak ez zeramatzalako, apezpikutzako bisitatzaleek Gipuzkoako Probintzian ere 1618an ekin zieten seroren aurkako jazarpenei. 1618ko urtarrilerako, hau da, Valladolideko Kantzeleriaiko Bizkaiaiko seroren kanporatzeen gelditzea eta hauen karguetarako itzulera agindu baino hilabete pare bat lehenago, Ontiberos bisitatzalea Leintz bailaratik iragana zen, serora asko beraien karguetatik kanporatuz. Urtarrilaren 11n, Leintz bailarako kontzejuak bertako bi herritar ahaldun lez bidali zituen apezpikutzaren auzitegitara, seroren kanporatzearen aginduari aurka egin ziezaioten²⁴². Ahalordean ageri zaigun funtsezko argudioak bailarako egoera

²⁴¹ Bizkaiko Jaurgoaren eta Kalagorriko Apezpikutzaren arteko auzi hau hainbat autorek izan dute ikergai, gehienek, oinarrian, Labayruk bere *Historia General del Señorío de Bizcaya* lanean, "El pleito sobre la existencia de sororas y freiras en las iglesias y el cubrir las mujeres las cabezas en los actos religiosos" izeneko atalean transkribatu zituen auzi honi buruzko dokumentuak oinarritzat hartuz (Labayru 1895, 5. lib., 121 eta hurr.). Bilboko Apezpikutzako Artxiboko dokumentuez, zuzenean, María José Arana baino ez zen baliatu. Hauek dira Bizkaiaiko gertakizunen azalpenetarako erabili ditudan argitalpenen erreferentziak: Lizarralde 1921, 11-13; Saint-Martin 1976, 168-171; Frank 2001, 78-79 (1977ko eta 1997ko argitalpenetako oinarriko informazio berbera jasotzen du, baina lehenean, 3. gehigarrian dokumentua jaso zuen, Labayruren lanetik); eta Arana 1992, 175-176 eta 262-265 (2004ko argitalpenean informazio berbera jasotzen du).

²⁴² VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Wals. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g. Ondorengo orrietan auzi honen erreferentzia behin eta berriro ematea ekidingo dugu, auziaz aparteko beste dokumentuen aipamenez beste, auziari berari dagozkion

orokorraren isla dakargu: “atento que este dicho Valle es muy derramado y ay diez y ocho anteyglesias en el y muchas de ellas que no ay sino çinco o seis feligreses y no se podia allar por cortedad de los frutos sacristan que serbiese en las dichas yglessias”. Euskal Herriko beste leku askotan bizi zuten egoera sozial eta demografikoa dugu hau, elizate eta auzoetan izaten zena. Hilabetera, otsailaren 2an, Maria Garcia de Areano, Aretxabaletalo hiribilduko Andre Maria parrokiako serorak eta Mariana eta Francisca de Isurieta, Izurieta elizateko San Pedro parrokiako serorek ahalorde amankomun bat helarazi zuten hainbat ahaldunen alde, apezpikutzaren auzitegirakoez gain, Valladolideko Kantzeleriarakoak eta Burgoseko Metropolitarrerakoak ere izendatuz. Dirudenez, beraien karguetatik nahiko modu gogorrean, “sin ocaçion ninguna”, izan ziren kanporatuak, nahiz eta, ziotenaren arabera, beraien betebeharrak inongo arazorik sortzen ez zuten: “bibiendo como biben muy rrecoxidas haciendo el serbicio en las dichas yglessias como es barrer y echar azeyte a las lanparas y labar la rropa blanca de las sepulturas y poner las mantas”. Martxoaren 3an auzia Valladolideko Kantzeleriaren aurreko ahaldunen eskutara igaro zen, eta hilabete bereko 23an (apezpikutzaren eta Bizkaiko Jaurgoren arteko auziaren sententzia 16an emana zela), –ahaldun hauetariko bat zen– Gregorio de Arbidek, Leintz bailarako kontzejuaren izenean, seroren defentsarako idatzi bat aurkeztu zuen Kantzeleriako auzitegietan. Bertan, Bizkaiko Jaurgoak urte berberean apezpikutzaren aurkako auzian baliatu zituen argudioen oso antzerako argudioak eman zituzten seroren mantenuaren alde, honela laburbildu litezkeenak:

- (1) Bailarako serorak “las dichas yglessias y parroquianos de ellas”-ek aukeratuak izan ohi ziren, ordurarte sekula apezpikutzaren lizentziaren beharrik izan gabe. Seroren egokitasuna parrokiako apezek eta eliztarrek egindako “aprobacion e informacion de las uirtudes” bidez bermatu ohi zuten, “con aueriguaciones que hazen de sus buenas vidas y costumbres”. Izendapenak, gainera, “con grabamenes y condiziones” egiten zituzten, besteren artean, “que si alguna de ellas exçediesse de los limites de su onestidad por el mismo casso fuesen escluydas y echadas y perdiessen las dotes que llebaban y quedasen para las dichas yglessias y sus fabricas”
- (2) Serora hauen lanen artean garbiketari, argiteriari eta kanpaiei loturiko betebeharrak baino ez zeudekeen: “solo sirben y estan dedicadas para su limpieza y labar la rropa blanca y ençender las lanparas y tocar canpanas”. Sakristian ez omen ziren sartzen “por los fines que los dichos probeymientos disponen”, ez eta aldareetan ere, eta ornamenturik ez omen zuten ukitzen, “ni otras cosas probydidas a ellas”. Beraz, konstituzioetako araudia ez litzaeieke aplikagarria
- (3) Seroren lanak propioki emakumeei zegozkienak ziren eta gizonezkoek ezingo zituzketen egin, eta horrez gain, parrokia txikiak eta txiroak izanik, hauek ez zeukaten sakristauak mantendu ahal izateko besteko etekinik
- (4) Sakristaurik izan gabe ere, apezak meza-mutil batzuek (“mochachos que para solo eso sirben”) baliatzen ziren “para que les ayuden a rrebestir y dezir sus misas”, seroren partehartzerik izan gabe
- (5) Serorek, dotea emateaz gain, fabrikei ez zieten gasturik sortzen, ezen “se sustentan de las labores de sus manos y con alguna ayuda de personas onrradas debotas suyas que las socorren con sus limosnas”

dokumentu guztiak erreferentzia honen pean batzen baitira, foliaziorik ez daukanez gero.

- (6) Seroren kanporatzerako konstituzio sinodalari buruz, “no ha estado en huso su dispuſsion ni rrezibidosse en el dicho Valle”, eta ohitura (1) puntuan zehaztuaren arabera izan zen ordurarte

Defentsarako argudio hauek, printzipioz, nahiko sendoak ziren, nahiz eta konstituzioetan agindurikoekiko zirrikituren bat agertzen zuten (kanpaiak serorek joteara, konstituzioetan sakristauei esleitzen zitzaien lana), eta sakristauak ez izateko argudio ekonomikoa, hein bateraino baino ez zitzaien baliagarri izango, konstituzioek parrokiak gutzietan sakristauak izatea agintzen baitzuten. Aurrerago ikusiko dugunez, izan ere, azkenean, Leintz bailarako hainbat lekutan seroren desagerpena eragingo zuena, hain prezeski ere, sakristauen -eta apezken- bidezko ordezkapena izango baitzen. Baina momentu hartan, baliagarria izan zitzaien: egun berean, laburbildu ditugun argudioak bere egiten zituen Errege Agindu bat helarazi zen, baina Leintz bailararen eskakizuna beharrean, Leintz Gatzagako herriaren eskakizuna isladatzen zuena. Erregeari, Leintz Gatzagako kontzejuaren izenean ere baziharduen Gregorio de Arbidek egin zion auziaren jakinarazpena, eta kaltetu lez, Leintz bailarako parrokietako serorak beharrean, Leintz Gatzagako San Millan parrokiako eta “en la de Nuestra Señora del Castillo su anexa” zeuden serorak aipatu ziren. Ikusten dugunez, Leintz Gatzagako herriak ere bertako seroren defentsari ekina zion. Errege Aginduak apezpikutzako epaitegiei bi aukera eman zizkien: edo epaiketari zegokion lez, Leintz Gatzagako ahalduak aurkezturiko apelazioa onarturik auziak jarraitzea ahalbidetzen zuten (“notoria fuerza y agrauio” eginez, apezpikutzak Bizkaiko Jaurgoarekin izan zuen auzian bezala, ez baitzuten onartu nahi izan), edo “el proceso eclesiastico orixinal de la dicha causa” Valladolideko Kantzeleriarara bidaltzen zuten, prozesuak bertan jarrai zezan.

Astebete pasa zelarik, apirilaren 3an, beste serora batzuek ere ahalorde amakomun bat helarazi zuten, hainbat ahaldu izendatuz apezpikutzako epaitegiarako bezalaxe, Valladolideko Kantzeleriarako eta Burgoseko Metropolitarrerako ere. Valladolideko Kantzeleriarako ahaldu ordurartean Leintz bailarako kontzejuak, Aretxabaletako hiribilduko Andre Maria parrokiako eta Izurieta elizateko San Pedro parrokiako serorek eta Leintz Gatzagako kontzejuak izendaturiko berbera izan zen, Gregorio de Arbide, baina kasu honetan, hauei, Eskoriatzako hiribilduko San Pedro parrokiako Maria Saez de Durana eta Maria Lopez de Arechaga, Mazmela elizateko Andre Maria parrokiako Maria Saez de Urigoitia eta Magdalena de Aguirre, eta Marin elizateko Maria Magdalena parrokiako Luzia de Zabala serorak batu zitzaizkien. Dokumentua sinatu zuen izkribaua, bestalde –eta hau, herritarrek eta kontzejuek seroren defentsarako zeuzkaten interesekiko esanguratsua zaigu–, Mateo Lopez de Espilla izan zen, 1594ko testamentu baten bidez, serora baten iloba izana zela, eta honen albacea izendatua izan zela dakiguna (Eskoriatzako hiribilduko parrokian zerbitu izan zuen Maria Lopez de Espillarena)²⁴³.

Azkenean, apirilaren 6an apezpikutzako probisoreari Errege Aginduaren jakinarazpena egin zitzaion, eta honek, hurrengo egunean, aginduaren onarpena sinatu zuen. Leintz bailarako seroren kanporatzea agindu zuen Ontiberos lizentziatua berriz, apezpikutzako Fiskal Orokorra zena, Santo Domingon aurkitu zuten maiatzaren 9an, eta berari ere Kantzeleriararen auzitegiara joateko zitazioa egin zitzaion, bere onarpena jaso zelarik. Momentuz, auzia *impasse* batean gelditu zen, Bizkaiko Jaurgoaren aurkako auziarekin gertatu bezala.

Bizkaiko Jaurgoak izandako auzian bezalaxe, Leintz bailarak izandakoan ere, aldareetarako eta sakristiarako sarreraren eta elementu "sakratuen" erabileraren kontuak

²⁴³ GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v.

presente jarraitzen zuen. Ardura konstanteetariko bat zen, eta laster egingo zuen agerpen berri bat. Gertakizunek ez zeramaten apezpikutzarendako ibilbide onik, baina ez zeuden geldik egotekotan; Vatikanoren aldetiko laguntzarengana jo zuten. Laguntza hau 1619ko martxoaren 4an heldu zen, Lanceloto kardinalak sinaturiko Kardinalen Kongregazioko eskutitz baten forman. Eskutitzean serorak erabat debekatu ziren,

Por quanto [...] con título de freyras y sororas sirven de Sacristanes, lo qual trae muy grande indecencia consigo; porque andan en la Sacristia entre los Sacerdotes y se llegan a los Altares a encender velas, y manosean los Ornamentos, y Vasos Sagrados, demás de otros inconvenientes que se siguen en materia de honestidad²⁴⁴

Gipuzkoako Batzar Orokorretan honen berri izan zuten, eta 1619ko martxoan bertan, apezpikutzara Probintziaren izenean idaztea adosteaz gain, ahaldunak ere izendatu ziren seroren desagerrarazte aginduaren aurka apezpikutzako epaitegietan egin zezaten. Baina gainera, arazoak bata bestearen gain pilatzen ziren, Pedro González de Castillo apezpikuak, batere kokildu gabe, 1620an apezpikutzako sinodorako deia egina baitzuen. Probintziaren Batzar Orokorretan, seroren desagerrarazte aginduaren aurka egiteko ahaldunak izendatu bezain laster (hurrengo egunean), Probintziaren izenean sinodora pertsona eraginkorren bat bidaltzea adostu zen, aurreikusten ziren arazoei aurre hartu nahian. Eskakizuna Bergara, Elgoibar, Arrasate eta Leintz bailarako (hala aipatu ziren) herrien izenean egin zen, normala zenez, Kalagorriko Apezpikutzaren parte ziren Deba bailarako herriak baitziren sinodoak gehien kaltetuko zituenak; hauen eskutitzean apezpikuaren izaera auzizalea nabarmentzen zen, seroren kontuaz gain, sortu izan zituen bestelako arazo ugariak ere aipatuz: jurisdikzio auziak, ermitetako prozesioen eta kofradien debekuak, apezak eta konfesoreak kargutik kentzea, etab. (Díez de Salazar Fernández; Ayerbe Iribar 1992-2006, 21. lib., 180, 207)²⁴⁵.

Apezpikutzaren aldetik, bien bitartean, nahiz eta seroren inguruko auziek artean zabalik zirauten, Vatikanoko Kardinalen Kongregazioko eskutitzaz baliaturik, serorak berriro kanporatzeari ekin zioten. Bizkaiko Jaurgoak hau zela eta azaldu zion kexuaren aurrean, 1619ko urriaren 12an Felipe III. Erregearen eskutitz bat heldu zen, seroren kanporatzearen paralizazioa aginduz, eta Kalagorriko Apezpikutzari, Vatikanotik helduriko dekretu eta buldak aplikarazi baino lehenago, hauek Errege Kontseiluaren onarpenetik igaro behar zutela abisu emanez; Errege Kontseilua izango zen, hauek aplikatu beharrekoak ziren edo ez erabakiko zuena²⁴⁶.

Baina apezpikua setaturik zegoen, eta –1620ko sinodoaren erabakiak jasoz argitaratu ziren– 1621eko konstituzioetan, 1602koetan jada sakristauei esleitu zitzaizkien lanak betetzen ari omen ziren seroren aurka egin zen, Vatikanoko Kardinalen Kongregazioko eskutitza oinarritzat hartu eta konstituzioan transkribatuz (hau da, erregearen aginduari entzungor eginez). Honekin bat, sakristauaren funtzioak era xedatuagoan azaldu ziren, eta 1602ko konstituzioetan serorei utzi zitzaizkien betekizunak ere (“barrer la yglesia, componer las sepulturas, lauar la ropa blanca”) sakristauari esleitu zitzaizkion. Ornamendu eta ondasunekiko, gainera, honakoa agindu

²⁴⁴ Jatorrizko dokumentua latinezkoa da eta 1621eko konstituzioetan gehigarri lez txertatua dator (González de Castillo 1621, 136v-137r); aipu honetarako María José Aranak bere lanean emandako itzulpenaz baliatu naiz (Arana 1992, 175).

²⁴⁵ Eskutitz hartan aipatu ez zen funtsezko arazo bat ere bazegoen, emakumezkoen jantzi tradizionalen aurka apezpikuak helarazi zuen debekua; honek emakumeak gaztelako erara jantzi zitezela nahi zuen, bertako ohituren arabera jantziek gidatzen zituzten erlazio sozialetarako kodeei eta adierazbideei muzin eginez.

²⁴⁶ Dokumentu honen parterik handiena Saint-Martinek transkribaturik jaso zuen, nahiz eta emandako dokumentuaren erreferentzia erabat garbia ez zaigun (autore hau, ikertzailea baino, idazlea zen): Saint-Martin 1976, 169-171; eman zuen erreferentzia: N° 46, Caj. 10, R.° 2.°.

zitzaien espreski, aldi bakoitzeko lau errealeko isunaren meatxuz: “especialmente ordenamos, que personas seglares ni mugeres, no traten ni toquen los dichos Ornamentos ni Calizes” (González de Castillo 1621, 81r-82v –sakristauei buruzkoak–, 136v-137r –seroren mugapen eta desagerrarazte agindua–). Serorek artatzen zituzten espazioek bazuten jada ordezkapena emango zien kargua, aurretik ere Elizaren egituren baitan existitzen zena baina konstituzio sinodal hauez geroztik bere presentzia arautu eta agindu zena, bere ofizioaren zehaztapenekin.

1621eko konstituzioen puntu honetara heldurik, sakristauak aipagai izan ditugunaz gero, gertakizunen jarraipena eten eta hauei eta diakonoei buruzko zenbait hausnarketa egiteko parentesi bat zabalduko dugu, bi kargu hauek (bata ministeritza sakratua) emakumezkoak inplikaturik izan zirenak izanik, testuinguru orokorragoa gogoan izatea komeni baitzaigu. Aurreko kapitulu batean erlijiozko emakumeen instituzioen jarraipena egiten saiatu garen ikerlan honetan, halaberharrez, diakonotzaren instituzioaren eboluzio historikoak diakonesen presentziak eboluzio hartan izan zuen eraginera garamatza. Izan ere, ez baita kasualitatea diakonotza iraunkorraren desagertzea, zenbait mendetara Trentoko Kontzilioak (1563) -hasiera batean, kasik nominalki soilik- eta ondoren jada XX. mendean Vatikanoko II. Kontzilioak (1962-1965) berrezarria, hain prezeski ere X. mendearen ingurutik, Erreforma Gregoriarraren garaietan gertatu izana; diakonesen presentziari dagokionean, azaldu bezala, mugari dugun bitarte kronologikoa. Horrez geroztik berrezarria izan zen arte, diakonotza ez zen bere kabuzko ministeritza izan, presbitero zirenen artean banaturiko kargua baizik. Gainbehera honen prozesua, gainera, luzea izan zen, diakonesen desagerrarazterako neurriekin bat egiten duen bitarte kronologiko luze batean zehar, batez ere V. mendeaz geroztik, esan bezala, jada X. mendearen ondoren desagertzerako bidea hartzeko.

Sakristauei dagokienean aldiz, garai zaharragoetan *ostiarri* eta -ondoren-*mansiarri* zirenek izandako lanak eurenganaturik, beraien funtzioak lehen aldiz Gregorio IX.ren dekretaletan zehaztu ziren (1234an argitara emanak, hauek ere *Corpus Iuris Canonici*-aren parte izatera iragango ziren), funtsean, konstituzio sinodalen bidez jada aipagai izan ditugunak. Diakonoen desagertzea eta sakristauei agerpena elkarren segidan datozen gertakizunak izateak ez dirudi kasualitatea, diakonesen desagertzerako hartu ziren neurrien gorabeherak gogoan hartzen baditugu behintzat. Izan ere, administrazioaren eta ekonomiaren alorretan sakristauek hein handi batean diakonoek bete izan zituzten tankerako funtzioak betetzen baitzituzten, baina liturgiako partehartzerik gabe, ministeritza sakratuen parte izan gabe. Diakonotzaren desagertzea V. mendearen aurretiko garaietan hauek presbiteroen funtzio liturgikoak eurenganatu nahi izanagatik, ondoren nozitu zuten bazterketa medio azaldu izan bada ere, diogun interpretazioaren arabera, beste ministeritza sakratuen funtzioen usurpazio saiakera haiegitik baino, diakonotzaren ministeritza sakratua, ministeritza honen baitako beraien partehartzea aski finkatua zeukaten emakumeek honen bidez liturgian izan zezaketen partehartzeagatik izango litzateke, bestelako arrazoiekin bat izan, edo ez. Izan ere, emakumeak diakonesa izan bazitezkeen, apezemeen eta -agian- emakumezko apezpikuen kasuetan gertatu izan zela ikusi dugun bezala, hurrengo graduak atxikitzea heltzea eragozteko arrazoi kanoniko garbirik ez zatekeen egongo (eta hain zuzen ere, argudio hauexek darabiltzate gaur egunean testuinguru katolikoan emakumeak apez izan ahal izatearen aldekoak direnek). Diakonotzaren ministeritza emakumeen partehartzea medio baztertua izatearen agergerri dugu, esaterako, Veronako sakramentarioan (c. 560-580), diakonesekin garai haietan gertatu ohi zen bezala, apezpikuendako eta presbiteroendako "kontsekraziorako" otoitzak zehazten zirenen artean, diakonoendako "bedeinkapenerako" otoitza baino ez ezarri izana. Honek, diakonesei

buruz jardutean aipagai izan dugunez, kargua ministeritza sakratutzat hautematearen edo ez hautematearen arteko ezberdintasuna ezartzen zuen²⁴⁷. Alabaina, parekotasunak parekotasun, Antzinateko eta Goi Erdi Aroko diakonesen kasuan diakonotza bera beraien gainbeheraren zurrumbiloan eramana izan bazezaketen, Erdi Aroko eta Aro Berriko Euskal Herriko seroren kasuan, konstituzio sinodaletako sakristauen funtzioen inguruko azalpenen "berreskurapena" eta karguaren promozioa (sakristauak, tenplurik garrantzitsuenetan izan, jada baitzeuden), ordezkapen asmoz, beraien gainbeherarako hartu ziren neurrien eskutik joan zen.

Azalpenok emanik baina, itzul gaitezten, bitarte luze xamar honen ondoren, 1621eko Kalagorriko apezpikutzako konstituzio sinodalen ondorengo gertakizunetara, aipatu berri dugun ordezkapenaren -edo hobe esan, honen saiakeraren- gorabeherak eta ondorioak zertan izan ziren ikusteko. Izan ere, ez baitziren oraindik arazoak bukatu, eta behin konstituzio sinodal berriak argitaraturik, Ontiberos lizentziatua, apezpikutzako bisitatzailerik, Debagoieneko herrietan oraindik hainbat arazo sortzekoa baitzen. Baina herriz herriko gertaeren xehetasunetan sartu aurretik, denboran zertxobait aurrera egitea komeni zaigu, Kalagorriko Apezpikutzak Bizkaiko Jaurgoarekin, Gipuzkoako Probintziarekin, eta herri ugaritako agintariekin zeuzkan auziak zertan bukatu ziren ikusteko. Izan ere, auzietako emaitzak izan zirenak izanik ere, herriz herriko gertaeren jarraipenak, Ontiberos lizentziatuaren eta besteren bisitetan izandako liskarrez aparte, XVII eta XVIII. mendeetan zehar luzatu ziren presioen eta debekuen gainjartze prozesu bat agertzen digu, araudiek eta sententziek oso partzialki baino islatzen ez zutena; prozesu honi erreparatu aurretik, bada, auzien gorabeherak nora heldu ziren ikus dezagun. Edo, behinik behin, nora heldu zirela dirudien, ezen puntu honetan, iritzi ezberdinak azaltzen dituzten autoreekin topo egiten baitugu. Apezpikutzak Bizkaiko Jaurgoarekin zeukan auziarekiko, Lizarralde, Labayruk jasotako dokumentuen oinarrian, azkenean Felipe IV. erregearen sententziak Vatikanoko Kardinalen Kongregazioaren eskutitzeko irizpidea ontzat eman zuela diosku, eta beraz, auzia Kalagorriko Apezpikutzak irabazi zuela; eta hala ere, apezpikutzak beraien aurka azaldu zuen karra ikusirik ulergaitz xamarra izanik ere, Bizkaiko serorek mantentzea lortu zutela, gaur egunerarteko ibilbidean (Lizarralde 1921, 12-13). Aranek oster, bere ikerlaneko atal batean Pedro González del Castillok 1622an Erromako "Sagrada Rota" zelako -eta delako- auzitegiko mezu bat jaso zuela aipatzen digu, serorak "*expelidas y sacadas de las dichas cassas y de las hermitas y de la propiedad de ellas*" izan zitezen; itxuraz behintzat, ez dago Lizarralde zioenarekiko kontraesanik (Arana 1992, 175). Baina beste atal batean berriz, Lizarralde zioenaren aurka eta Bilboko Apezpikutzako Artxiboko eta Gipuzkoako Artxibo Orokorreko dokumentuak oinarritzat harturik, honakoa diosku:

El año 1622 el Rey, Felipe IV, hace llegar la orden de que sean repuestas las freiras, de la misma forma, en 1623 se gana la ejecutoria y pleito contra el Obispo González del Castillo. La noticia pronto llegó a los ayuntamientos guipuzcoanos que pertenecían a la Diócesis de Calahorra, para que allí también se "restituyeran" las freilas (*Ibid.*, 265)

Hau da, Aranaren ustez, azkenean, Felipe IV.ak Bizkaiko Jaurgoko eta Gipuzkoako Probintziako seroren defentsaren alde egin zuen. Puntu honetara heldurik aurreko kapituluan aipagai izan dugun Lekeitioko kasura itzultzeak zenbait argi ematen digu. Izan ere, Lekeitioko kasuan, 1622ko "Sagrada Rota"-ren agindua erabakiorra izan zela baitirudi; apezpikuen aurreko aginduekin batera, berau izan baitzen 1636an

²⁴⁷ Diakonoen eboluzio historikorako ikus Comisión Teológica Internacional 2003 eta Botero; Jesús Barrera 2014, eta sakristauen ingurukoetarako aldiz, Goggin; Kelly 1912.

azkenean ermitetako seroren aurkako desagerrarazte agindua betearazi zedin oinarria, aurreko urteetan -lehenik 1595ean eman zen- desagerrarazte agindua batzuetan atzera bota eta bestetan berretsi zelarik. Alabaina, Hernández de Soto bisitatzailleak ez zuen 1636an 1622ko Felipe IV.aren epairik aipatu ez eta aintzat hartu, eta patroiz ziren udal eta eliz agintariak ere ez zuten erregearen epairik kontutan izan, desagerrarazte aginduari men egin ziotenean (lau hamarkadatan zehar uko egin ondoren) (Urquiza 1985, 140-149). Felipe IV.aren epaia, hortaz, seroren aldekoa ala aurkakoa izan al zen? Zergatik ez zuten Lekeition ez desagerraraztearen aldekoek ez aurkakoei baliatu?

Korapilo hau askatzeko, Kalagorriko Apezpikutzako 1700eko konstituzio sinodaletan jaso ziren aginduen berri ere ematea komeni zaigu, Labayruk -eta beraz Lizarralde- seroren inguruko auziarekiko baliatu zuen iturria konstituzio hauek baitira, aipatu zuen lez (Labayru 1895, 5. lib., 123). Funtsean, 1621eko aginduak 1700eko konstituzioetan ere berretsi ziren, eta honekin bat, sakristauei kargurako eskatzen zitzaizkien baldintzak zorrotz ziren, eta beraien betekizunak xedapen handiagoz azaldu. Pertsona sekularrek eta emakumeek ornamentuak eta kalizeak ez ukitzearen agindua ere, hitzez hitz jaso zen. Eta horrez gain, hauek elizgizonen testuinguruan egoki integratzeko garrantzitsua zena, abitu jakin bat eramatea ere agindu zitzaien, elizgizon edo sekular izanaz gero ezberdina izango zena (Lepe 1700, 255-260 –sakristauren ingurukoak–, 496 eta hurr. –serorei buruzkoak–). 1700ean oraindik neurri hauek hartu beharra aski frogatu badugu, serorek XVII. mendeko lehen hamarkaden ostean ere euren karguetan jarraitu zutelako ziurtatzeko. Baina 1621eko konstituzioetako serorei buruzko aginduak jasotzearekin bat 1700ekoetan lehenari gehitu zitzaizkion luzapenetan, Kalagorriko Apezpikutzaren eta Bizkaiko Jauregiaren artean seroren desagerraraztearen inguruan izan zen auziari zegokion Errege Kontseiluaren agindu bat atxiki zen, Labayruk eta berarekin Lizarralde aipagai izan zutena. Errege Kontseiluak Kalagorriko Apezpikutzaren argumentuen alde egin zuela ziurtatu zen bertan, eta ondorioz, apezpikutzaren aldetik eskutitza emana omen zen 1623. urtean erregearen justiziaren aldetik ere seroren desagerraraztea agindu zela defendatu zuten. Agindu honi buruz jardun izan dut aurreko argitalpen batean ere, auzian inplikaturiko beste parteentz dilijentzia eta mugimendu ezberdinekiko eta hauen datekiko erabat zentzugabea dirudien Errege Kontseiluaren agindu honek faltsua behar duela ondorioztatuz, eta beraz, auziaren bukaerarekiko, Aranaren iritziarekin bat eginez:

Alabaina, hara non, 1700. urteko Kalagorriko konstituzio sinodalei begira, 1623. urtean Errege Kontseiluak 1621eko konstituzioak berretsi omen zituela ikusten dugun. Kuriosoki, Errege Kontseiluaren agindu hori 1623ko irailaren 2an emana litzateke, eta hilabete bereko 15ean bidalia. Agindua faltsua dela dirudi, edo erabat lekuz kanpo dago behintzat; eta frogatuz, ikusi berri ditugun 1623. urteaz ondorengo gorabeherak dakartzagu [*hemen, aldiz, jarraian ikusiko ditugunak*]. Izan ere, Kalagorriko apezpikuak auzia Vatikanora azaroaren 20an emaniko auto batean bideratu baitu. Errege Kontseiluak apezpikutzaren alde irailaren 2an edo 15ean egin izan balu, ez zukeen, egin zuen bezala, azaroaren 20an, auziaren gaineko erabakia Vatikanora bideratu beharrik izango. Bestalde, hurrengo urteetan, auziak Valladolid-eko Kantzelerian zabalik jarraitu zuen. 1700eko konstituzioek ziurtatzen duten lez, "sentencia favorable en todo à la justicia de la Constitucion" eman izan balu, Valladolid-eko ondorengo dilijentziak oro, lekuz kanpo zeudekeen. Gainera, Probintziak 1623. urteaz geroztik egin zituen Batzarretan, ez zen inondik ere Errege Kontseiluaren sententzia horren berririk eman (Larrañaga Arregi 2010a, 112-113 or.)

Oraingo honetan onartu beharrean gaude, lehen ikerlan hartan Bizkaiko Jauregiarekin apezpikutzak zeukan auzia, honek Gipuzkoako Probintziarekin zeukan beste auziaren argitara ikusi genuela, eta bataren eta bestearen ibilbideek berberak izan

beharririk ere ez zutela. Baina absurdua litzateke, edozein kasutan, Felipe IV.k edo bere auzitegiek kasu batean baten alde eta bestean bestearen alde egin izango zutela pentsatzea ere. Eta horrez gain, are garrantzitsuagoa dena, -Aranak kontsultatu ahal izan zituen- 1623ko dokumentuek eurek berresten dute Felipe IV.k Bizkaiko Jaurgoaren alde eman zuen sententzia, eta honek Gipuzkoan ere izan zuen ohiartzuna, 1700eko konstituzioek, XVII. mende hasieratako iturrietan -orain arte behinik behin- aurkitu ez den dokumentu bat azaltzen diguten artean. Eta dokumentua beraz beste, berbera esan liteke ustezko dokumentu honek ondorioztat eragin beharko zituzkeen desagerrarazterako dilijentzien bestelako dokumentu eta arrastoei dagokienean ere; izan ere, arakatu ahal izan dudanerarte behintzat, XVII. mendeko lehen bi hamarkaden ondorengo urteetan apezpikutzako bisitak egiteaz arduratu zirenek, seroren aurka hartu izan zituzten neurrietan, ez baitzuten sekula 1623ko halako dokumenturik aipatu. Eta noski, Errege Kontseiluaren aldeko sententzia bat eskura izan balute, Lekeitioko kasua azaltzean aipatu dugunez, inongo zalantzarik gabe, erabili izango zuketena. Eta diogunez, inkoherentzia kronologiko eta logikoez beste, 1700eko Kalagorriko Apezpikutzako konstituzioetako agindua bera, eta Errege Kontseiluaren seroren desagerrarazterako azken agindua, Gipuzkoa baino aipatu ez bazen ere benetakoa eta eraginkorra izan zela dakiguna, 1769a arte heldu ez izana, eta bitarteko urteetan hainbat serora beraien eginbeharretan mantendu izana, Errege Kontseiluaren apezpikutzaren aldeko sententziaren faltsutasuna frogatzeko aski argumentu pisutsuak ditugu²⁴⁸.

Ustezko agindu honi egin zitzaion sarreran bertan ere, 1621eko konstituzioen eta 1700eko bitarteko urteetan izan ziren seroren bizimoduaren eta karguaren etekinen zenbait xedapen interesgarri egin ziren, karguak eman zitzaizkien etekinek eta hauen bidez serorek lor zezaketen botereak sortzen zuen ardura agertzen digutenak; aipagai ditugun neurri eta debekuak bultzatzeko arrazoi garrantzitsuenetariko bat izan zitekeela dirudi:

todavía hallamos, que en muchas partes se ha introducido, y quiere permanecer la relaxacion, nombrando, y manteniendo contra la expresa, y repugnante voluntad de los Prelados, estas mugeres, que con nombre de sororas sirven, y disfrutan las Iglesias, cogiendo sus limosnas, y haziendose colectoras, y distribuidoras de las Missas, con grande murmuracion, y escandalo de los Pueblos. Y es tan crecida la ganancia, que muchas de ellas compran estos officios, dando por ellos buenas cantidades de dinero, con pretexto de dote para la Iglesia; todo lo cual, y mucho mas sacan de su manejo (Lepe 1700, 496 eta hurr.)

Hitz hauek ez ziren mespretxu hutsezkoak, aurrerago ikusi ahal izango dugunez, serora karguaren dote-emate bidezko enkantea, hain prezeski ere urte-bitarte hartan, hainbat kasutan eman baitzen.

Nabaria da seroren inguruko auzia, 1700ean ere, ezin izan zuela apezpikutzak nahi bezala itxi. Ondorengo orrietan ikusiko dugunez, serorek betetzen zituzten funtzio sozial eta erlijiosoekiko, esan behar, Debagoienean aurkitu ditugun testigantzen arabera, konstituzioetako arauetako erresistentzia handia izan zela. Eta gainera, 1700eko konstituzioetan agindua errepikatu beharrak berak hau ez bete izana adierazteaz gain, apezpikutzako bisitatzailerik ez zuten arauen aplikazio koherente bat egin ohi; batzuetan

²⁴⁸ Zoritxarrez, denera heldu ezinik, kontsiderazio hauetarako aipaturiko autoreen ikerlanez baino ezin izan naiz baliatu, dokumentuen lehen eskuko kontsulta alde batera utzita; denborarik ez dut izan, beste batean izan beharko. Edozein kasutan, historiografiaren baitan gehien ikertu izan den auzia dugu Kalagorriko Apezpikuak eta Bizkaiko Jaurgoak seroren desagerraraztearen inguruan izan zuten hau, eta gaia landu zuten ikerlanen kontsultari aski iritzi diot. Auzi hauetako eta beraien ondorioz sorturiko dokumentazioaren kontsulta zehatza Gipuzkoaren kasuan baino ezin izan dut egin (eta ez nahi beste), eta kontsulta horiek osatzen dute azalpenetan darabildan bidearen ardatzik sendoena.

debekua agintzen zuten artean, bestetan, debekaturiko aktibitate baten inguruko kontuetako partidak onesten zituzten. Baina ohituren jarraipen honen testigantzak jaso aurretik, 1621eko konstituzioen ondorengo auzien eta gorabeheren jarraipenera itzul gaitzen, generaman ildoari berriro helduz; izan ere, nahiz eta azkenean serorak euren betebeharrak itzuli ahal izan ziren, gertakizun haiek, luzera, ondorio sakonak izatekoak izan baitziren. Ondorio hauen kasu adierazgarri bat izan dugu jada aipagai, Lekeitiokoa, non, dilijentziak dilijentzia eta aldeko epaiak izanik ere, lau hamarkadako presio eta liskarren ondoren bisitatzailen aginduek azkenik 1636an ermitetako seroren desagerraraztea lortu zutela dirudien. XVII. mendearen lehen hamarkaden ondorengo seroratzaren bilakaerak, beraz, -hainbatetan maila ezberdinetako babes instituzionala izanda ere- herri eta lurraldeen arabera bilakaera ezberdinak izan zituztela haintzat hartu beharrean gaude. Maila ezberdinetako instituzioek apezpikutzen aurka izandako auziak ugariak izan baitziren, eta botere esparru lokaletako interesek, Debagoieneko espazio ezberdinen bilakaeran ere ikusiko dugunez, desagerraraztea gauzatu edo oztopatzerako orduan pisu esanguratsua izango baitzuten²⁴⁹.

Itzul gaitzen bada Debagoienara. 1621eko konstituzioen argitalpenaren ostean, apezpikuak Leintzeko artzapezpikuari eta bertako bikarioei eskutitzak idatzi zizkien, elizetan serorarik onartu ez zezatela aginduz, eta -nahiz eta desagerraraztea agintzen zuen konstituzioan honi buruzko agindu zehatzik eman ez zen, eta seroren "behar sozialaren" defentsarako argumentu nagusia zen- hauek euren kargu hartzen zituzten jarlekuen artapena bera ere debekatu. Bergaran berriz, bertako bikarioak herriko agintarien oposizioarekin egin zuen topo, seroren betebeharrak ohiturazkoak zirela, eta inongo ikerketarik egin gabe halakorik agintzea legez kontrakoa zela argudiatuz; bikarioak, egoeraren aurrean, amore eman zuen. Gertakizun hauen ondoren, 1622ko azaroko Gipuzkoako Batzar Orokorretan, auzian interesaturiko herriek (alegia, funtsean, Kalagorriko Apezpikutzaren parte ziren Deba bailarakoek) seroren defentsarako memorialak idatzi zituztela adostu zen.

Eta gauzak hortan zirela, apezpikutzako bisitatzailak are jarrera oldarkorragoa agertzeari ekin zioten. 1623an, 1618an jada hainbat liskar sortu izan zituen Ontiberos lizentziatua itzuli zen Leintz-bailarara, bisitatzaila lanetan, eta 1618an ez bezala, oraingoan ez zen, dakigula behintzat, herrietako agintarien aldetik auzietan hasteko saiakerarik egin; agian, hain zuzen ere, momentu hartan Gipuzkoako Probintziak apezpikutzaren aurkako auzia bere gain hartua zeukalako. Edozein kasutan, Leintz bailara lan honetan eman diogun zentzu zabalean hautemanik (hau da, Aretxabaleta eta Eskoriatzaz gain, Arrasate eta Leintz Gatzaga ere barneraturik), espazio honetan 1623ko bisitek izan zuten eragina bereziki handia izan zela esango genuke. Batez ere elizateetako eta auzoetako parroketan egin zituen bisitei erreparatu gero, hainbat serora kanporatuak izan zirela ikusten dugu, eta ziurrenez, bisitatzailaren itzuleraren aurrean, beste zenbait serora ezkutatu egin zirela, edo zegokien tenplua utzi zutela; tenpluen arabera, ondorengo orrietan XVII. mendeko lehen hamarkada haietatik XVIII. menderarte luzatu ziren gorabehera ezberdinen jarraipena egin ahal izan dugu. Baina lan horri ekin aurretik, esanguratsuak zaizkigun hainbat aspektu azaltzeari ekin beharrean gaude. 1623an izan ziren liskarren agergarri nagusia, Debagoienean, Bergaran izan baitzen. Bitarte batean arauen eta neurrien ildo alboratu eta bertako gertakizunei

²⁴⁹ Lekeitioko kasuan bada azaleratzen den alderdi bat, agian botere esparru lokalek ermitetako seroren desagerraraztearekiko izan zezaketen interesarekiko esanguratsua izan litekeena -eta aurrerago zehaztasun gehiagorekin azalduko duguna-: hauek ardoen salerosketan jardun izana. 1615ean patrioiek emandako araudi batean ermitetako serora administratzaileek urtero ardotan emandako limosnaren herena ermitaren sostengurako erreserbatu zezatela agindu zen, eta baita hauek ardoa "taberna pública"-n saltzea debekatu ere, hau ermitakoa edo partikularrena izan (Urquiza 1985, 144-145).

jarraituko diegu lehenik, gero, instituzio ezberdinen alorretako arau eta neurri mugatzaileei berriro heldu, eta azkenik, hauen aplikazioak Debagoieneko seroren presentziarekiko izan zuten eragina ikusteko; azken parte honetan txertatuko dugu 1623az geroztik Leintz bailaran ekin zitzaion seroren desagerrarazte prozesua ere, prozesu honek, 1623ko gertakizunetatik haratago, XVII. eta XVIII. mendeetan zeharreko bilakaera izan baitzuen. Gainera, bien bitartean, 1621eko konstituzioen agerpenari jarraitu zioten liskarren ondoren, urte gutxitara, Gipuzkoako Probintziaren aldetik serorekiko jarrera aldaketa bat izan zela dirudi, beraien desagerraraztearen alde agertu ziren beste instituzioen aurrean babesgabe uzten zituena; jarrera aldaketa honi jarraipena egin eta aintzat hartu arte ezin dira XVII. eta XVIII. mendeetako neurrien, debekuen eta bisiten gorabeherak egoki hauteman, eta ez gara araudi eta neurrien aplikazio konkretuaren jarraipenik egiten hasiko (Leintz bailaran bezalaxe, Debagoiena guztian ere), testuinguruko instituzioen eragin eta aldaketak garbi izan arte.

Hortaz: azkenerako Leintz bailaran halako ondorio sakonak izatekoak ziren 1623ko Ontiberos lizentziatuaren bisitek sorturiko liskarrak eta arazoak, esan bezala, ez ziren Leintz bailarara mugatu, eta urte hartako liskarren punturik beroena Bergaran izan zela dirudi. Bertan, 1621eko konstituzioen argitalpenaren ostean, herriko agintariak apezpikutzatik bikarioari agindu zitzaion desagerrarazte saiakerari aurre egin izan zioten, baina Ontiberos bisitatzaillearekin izango zituzten arazoak handiagoak izango ziren. Ondorengo gertakizunen berri (eta baita bikarioarekin izan ziren gorabeheren berri ere) 1622ko azaroan Gipuzkoako Batzar Orokorretan hitzartuaren arabera, Bergarako herriaren aldetik seroren auziaren inguruan idatzi zen memorialetik jaso dugu ²⁵⁰; memorialak ez dakar datarik, eta ez dakigu ziur, bisitatzaillea Bergarara heldu zenerako –Kalagorritik abiatu egin beharreko ibilbidearen arabera logikoa litzatekeen bezala– Leintz bailaratik lehenago iragan ote zen, ala alderantziz izan ote zen. Bergarako herritarrek bazekiten jada bisitatzaillea ze aldarterekin zetorren, eta horrek Leintz bailarako gertakizunak lehenago gertatuak izan zitezkeela iradokitzen digu. Alderantziz izango balitz, Leintz bailarako kanporatzeen testuinguru orokorrari ñabarduraren batzuek gehitu beharko genizkioke; izan ere, –jarraian ikusiko dugunez– Bergaran bisitatzailleak azkenean amore eman behar izan zuenez, Leintz bailarako serorek honen ondorengo aldarte garratza ere jasan behar izango baitzuket.

Edozein kasutan; Bergaran bisitatzaillearen asmoen jakinaren gainean zeuden, eta hori zela eta, herriko Sindiko Orokorra aurreratu egin zitzaion honi, eta bere asmoen berri jada bazutela eta (“*teniendo noticia de que benia a Ynquietarlas de la posesion en que estauan de tener sus beatas y Contra Ellas abia de proceder con censuras ante El padre rector de La compania de Jesus desta villa*”), bikarioari azaldu izan zizkieten arrazoi berberak argudiatu zizkion, serorak bere hortan utz zitzala eskatuz. Baina bisitatzaillea setati agertu zen seroren desagerraraztearen agindua betearazteko bere asmoan, eta herriko serora guztiei beraien kanporatzea jakinaraztea agindu zuen. Serorak eurak ere, noski, baziren gertakizunen jakitun, eta jakinarazpenak egitera bidali zuten apeza joan bezala itzuli zen; serorek alde egin zuten zegozkien tenpluetatik, horrela jakinarazpenak ekidinez. Bisitatzaileri, noski, ez zitzaion “planto” hau askorik gustatu, eta kanporatze agindua eta eskumiku meatxua elizetan publikoki irakurrarazi

²⁵⁰ Gertakizun hauen inguruko lehen berriak, memorial berbera oinarritzat harturik, Imanol Sorondok eman zituen, Bergarako ermiten inguruko artikulu arras interesgarri batean (Sorondo 1982-83, 173-223). Nik ere azaldu izan ditut gertakizun hauek beste argitalpen batzuetan, oraindik Leintz bailaran izandako gorabeheren berri ez neukanean: Larrañaga Arregi 2010a, batez ere “3. Gizarte baitako eginkizunak eta lanak; tenpluan eta tenplutik kanpo” (48-64 or.) eta “6. Neurriak eta debekuak Aro Berrian zehar” (100-132 or.) kapituluak. Ondorengo azalpenak, erreferentzia hurrengo aipuan zehazten diogun memorialaz gain, argitalpen hauetan oinarrituak daude.

zituen. Sindiko Orokorrak, beste behin, bisitatzailari seroren inguruko auzia oraindik zabalik zegoela gogorarazi zion, ondorioz, auzia bukatua izan artean, desagerrarazte aginduaren aplikazioan setatzea legez kanpoko zela esanez, eta “El auxilio real de la fuerça” ere eskatuko zuela meatxu eginez. Baina bisitatzaila gogor agertu zen oraingoan ere, eta Sindiko Orokorraren esanei muzin eginez, San Pedro parrokiako kontu-liburuan seroren eskumiku publikoa idatzia utzi zuen, apezzei honen berri emanaraziz. Bergarako agintariek, azkenean, Valladoliden zabalik zegoen auziaren probisioa ekarri zuten (auzitegiaren erabakiak betetzera derrigortzen zuen Errege Agindu baten baliokidea zena), eta bisitatzailak amore eman beharra izan zuen, seroren eskumikua baliogabetuz. Gertakizun hauek, noski, bergararren haserrea ere piztu zuten, eta auzian aurkeztekoa zen memorialaren bukaeran, Ontiberos bisitatzailaren jarrera salatu eta baztertzearekin bat seroren alde egiteko, honako argudioak laburbildu zituzten:

- La villa pretende de que en Valladolid aquellos señores declaren El visitador ha echo fuerça en el proçeder que ha tenido en esta Cauſa y El haberla hecho parece vien claro por Lo ſiguiente
- Lo primero El estar esta villa y las mismas seroras en posesion de tiempo inmemorial a esta parte y sin ser oydas ni querer admitir sus Razones El vicario de La dicha villa y El dicho visitador aber procedido a despojarlas de su Posesion no obstante Las apelaciones que de parte de la dicha villa y de las dichas Beatas se interpusieron
- Lo segundo por no ablar La Conſtitucion deſte obispado y El decreto de los señores cardenales con las beatas o seroras deſta villa por quanto no son Ellas sacristanas ni manosean ornamentos y basos ſagrados porque Las yglesias deſta dicha villa tienen clerigos sacristanes
- Lo tercero por hauer proçedido con çensuras El dicho Visitador contra las dichas sororas conſtandole de como La Cauſa principal eſta reciuida a prueua y aun las pruebas dello, cometido al mismo y no obstante todo Ello El haber mandado fueran declaradas por publicas excomulgadas Las dichas Veatas²⁵¹

Ikus litekeenez, Bizkaiko Jaurgoak eta Leintz bailarako kontzejuek eta serorek 1618an apezpikutzaren aurka izan zituzten auzietan egin bezala, Bergarako herriaren 1623 inguruko memorialean, serorek sakristauen lanak betetzearen argudioa ukatu zuten, zegozkien lanak betetzen zituzten sakristauak bazeudela esanez. Era berean, memorialaren sarreran seroren jarlekuetako betekizunak gogorarazi ziren, eta Leintz bailarakoekiko zehaztu zen bezala, beraien etekinak eliztarrengandik jasotzen zituztela aipatu zen, “sin que Ellas lleben cossa alguna de la fabrica”. Gainera, jarlekuetako zerbitzuez gain, “como la tierra es der[r]amada”, landa eremuetako baserrietako biztanleriarentzat ere onuragarri ziren, ezen baserritarrak, hiribilduarekiko urruntasuna medio “no pueden acudir al regalo de los enfermos” eta “son las dichas beatas las que cuidan dellos y de mortajar los difuntos y aun socorrer con hacienda para el entierro dellos”. Beste azalpen interesgarri batzuk ere eman ziren, seroren behar soziala azaltzerako orduan:

- Ademas del prouecho que tiene los vezinos de la dicha uilla en tener las dichas beatas para el seruiçio de sus ſepulturas Les es mucho mayor para El remedio de sus hijas porque como en ella los hombres naçen con mas obligaciones que hacienda vn hombre que se vee cargado de hijos La mas Uirtuosa de sus hijas procura que se ponga El abito de beata y a la tal en toda la prouinçia de guipuzcoa se le goarda mucho respeto como a persona dedicada al seruiçio de Dios²⁵²

²⁵¹ BUA L/063 (Mikrofilmatua: MIK. 1/A60), 295r-298v.

²⁵² *Loc.cit.*

Gizartearekiko onurak, beraz, handiak omen ziren, eta gainera, konstituzio sinodaletan ezarriak zeuden seroratzarako baldintzak betetzen omen ziren (bizitzari buruzko informazioa jasotzea, bertutetsuak izatea, 40 urtetik gorakoak izatea), eta “otra juridición no tienen los señores obispos sobre ellas sino el dar liçençia”; areago, baldintza horiek ez bete izanaren erantzunkizuna, izatekotan, apezpikutzak berari zegokion, ezen “si acaso en alguna a suçedido alguna libiandad que se niega a sido mas por no haber guardado los prouisores el tenor de la constitucion y dar liçençia para traer el dicho abito a personas de poca hedad por llebar seis ducados por la dicha liçençia”.

Baina izan ziren arazoan ardatzak, memorial honetan baino garbiago, auzia Valladolideko Kantzeleriara iragan baino lehen, Kalagorriko Apezpikutzako auzitegietan zegoenean Probintziaren eta apezpikutzako Fiskal Orokorren (Ontiberos lizentziatua bera) aldetik aurkeztu ziren galdetegietan atzeman litezke. 1618an Leintz bailarako agintarien eta seroren aurka –orduan Probisore Orokorra zen– Ontiberos lizentziatuak izandako auzian eskarmentatuta zeuden apezpikutzako auzitegietan, eta oraingoan, frogantzen dilijentziak ere egiteari ekin zioten (zuzenean apelazioak ukatu beharrean). Galderek, halako galdetegietan ohizkoa zen bezala, erantzun irekiak baino argumentuen berrespena bilatzen zuten; alegia, ez zen informazioaren eskaera egiten lekukoak egoki zeritzona erantzun zezan, gaitzespena edo berrespena eskatzen zuten argumentuak galdera eran formulatu baizik. Horregatik, galdetegiak eurak dira alde bakoitzetik azaltzen ziren argumentuen isladarik egokiena. Galdetegi hauetan eman ziren argumentuak Imanol Sorondok ederki laburbildu zituen Bergarako ermitei buruz idatzi zuen artikulua luze eta interesgarrian, eta beraz, egokiena bere hitzak jasotzea dela deritzot, nahiz eta aipuak luzea izan; seroren kanporatzearen aldeko arrazoiak honakoak ziren:

- Las freiras ejercen oficio de sacristanas, teniendo las llaves de las iglesias y sacristías, llegándose a los altares y encendiendo las velas, manoseando los ornamentos y vasos sagrados y metiéndose en las sacristías, donde ayudan a los sacerdotes a revestirse de vestiduras sagradas para la misa o procesiones, con gran escándalo e indecencia del culto divino.
 - Comúnmente se han seguido muchos inconvenientes en materia de honestidad, viviendo muchas de ellas amancebadas con los clérigos. Se cuenta el caso de la Serora de San Miguel de Aguinaga de Eibar.
 - Las iglesias y ermitas van proveyéndose de sacristanes y otras personas, que cumplen con los diversos servicios mejor que lo hacían las mujeres.
 - Es preferible cerrar las iglesias por falta de sacristanes que abrirlas sirviendo mujeres, por la indecencia, deshonestidad y pecados mortales que resultan.
 - Por todo esto, en la última Congregación Sinodal se ordenó que todas las seroras fueran “expelidas” de las Iglesias y ermitas.
- Dicho mandato se ha guardado y ejecutado en todo el obispado de Calahorra y La Calzada con gran satisfacción de todos (Sorondo 1982-83, 212)

Probintziak kanporatzearen aurka azaldu zituen arrazoiak berriz:

- Han servido de tiempo inmemorial a esta parte; al presente, todas son de edad avanzada y algunas, muy ancianas.
- El hecho a causado mucha pena a todos los que las conocen y se considera que se ha usado de extremo rigor contra ellas, cuando pensaban acabar sus vidas sirviendo.
- Las dichas freiras no hacen oficio de sacristanas, ni llegan a los altares, ni manosean ornamentos y vasos sagrados. Solamente, se ocupan de barrer las iglesias, encender lámparas y lavar la ropa.
- Las iglesias y ermitas son pobres y no tienen renta ni dotación para sustentar sacristanes y las seroras han servido a través de largos siglos, sin que se hayan sentido inconvenientes o indecencias.

- También se ocupan del cuidado de las sepulturas, de encender las candelas que se ponen sobre ellas y de abrir y cerrar las puertas. Al ser expulsadas, no habrá quien sirva en las ermitas, ni se abrirán sus puertas y se dejarán de decir muchas misas y de recoger limosnas.
- Las seroras han llevado sus dotes y bienes a las iglesias y ermitas, con cuyos ingresos se han edificado, reparado y proveído de ornamentos y otros instrumentos.
- Se sustentan con las labores de sus manos y, todavía, hacen considerables limosnas a las iglesias y ermitas.
- Eclesiásticamente, tres cuartas partes de la Provincia pertenecen al Obispado de Pamplona y éste nunca les ha inquietado.
- Entre la cualidades que han tenido y tienen, se cuentan su honestidad y mucha virtud, y son “todas ellas nobles hijas de sangre”, de buen ejemplo y reputación (*Ibid.*, 212-213)

Izango dugu aurrerago alde batetik eta bestetik eman ziren argudio hauek ze pisu eta fidagarritasun zeukaten neurtzeko betarik, baina oraingoz, ondorengo urteetan eta hamarkadetan seroren aukeraketarako gertuagotik zaindu behar izango ziren aspektuen ikuspegi bat ematen digute, beraien funtzioen eta betekizunen deskripzio mugatu batekin bat. 1623ko martxoaren 26an Bergarako herriaren auziaren aurreko ahaldunak, 1618an Leintz bailarako ahaldunek egin bezala, hau Kantzeleriako auzitegietara bideratzea aholkatu zuen, eta han ezer ez lortzekotan, zuzenean Vatikanoko Kardinalen Kongregaziora jo eta bertan “juez rescripto para España” eskatzea, ezen

me parece que no ay que cansar por el remedio en España en tribunales eclesiasticos, porque el señor obispo es de la condicion tan belicosa como se sabe, y tiene tan grande aprehension en este negocio, que ninguno tiene mas delante los ojos, y en la defensa del no perdonara a ninguna diligencia, ni gasto, y ansi si la prouision se perdiessse seria lo mas facil, y lo menos costoso acudir a la mesma congregacion de los illustrissimos cardenales²⁵³

Auziak azkenean ahaldunak iradokitako bidea eraman zuela esan liteke, urte bereko azaroaren 26an, Kalagorriko Apezpikutzako Probisore eta Bikario Orokorra zen Baltasar Gonzalez Mansok, auziaren inguruan “constituçion executoriada en contradictorio Juizio en [el] Consejo Supremo de Castilla” zegoenez, apezpikutzaren auzitegiek honen gain zeukaten eskumenari uko egin baitzion; hau Kardinalen Kongregazioaren eskumenera bideratu zuen, sententzia, azken hauek helarazi zuten desagerraraztearen aldeko eskutitzaren aurka ere bazioan eta²⁵⁴. Hemen kokatu beharko genituzke ziurrenez, Aranak aipaturikoen arabera, Bizkaiko Jaurgoarekin apezpikutzak izan zuen auziaren bukaera, eta Gipuzkoako herrietan ere berria hedatu zen momentua. 1623ko azken gertakizunen ondorengo urteetan Gipuzkoako Batzar Orokorretan gaiari buruz aipatu zirenen jarraipenak, hamarkada batean zehar luzatu zen uren baretze bat agertzen digu:

Orduantxe Probintzia Batzarretan baitzen, Juan Sáez de Aranburu ahaldunari Logroño-tik itzultzeko agindua eman zitzaion, "y, si fuera posible, trayga consigo el pleyto para que no se trate d'ello, por quanto no se espera buen suçesso por agora". Hurrengo urteetan, 1632ra arte behintzat bai, auziak bere horretan jarraitu zuen, zabalik, baina ez dirudi ezerk aurrera egin zuenik. 1624an, Eibarreko batzarkidearen eskakizunez, eta aurreko eskutitzean iradokitzen zen bezala, Juan Bautista de Oquendo ahaldunari auzia Valladolid-en "por bía de fuerça" aurkez zezala agindu zitzaion, baina 1625etik aurrera, gauzak bere horretan gelditu zirela dirudi. 1632an Valladolid-en Probintziaren izenean zegoen ahaldunari emaniko aginduaren arabera, auziaren baitan Probintzia posizio onean zegoela esan genezake, ez baitzaio ahaldunari bere ekimenez

²⁵³ BUA L/063 (Mikrofilmata: MIK. 1/A60), 296r-296v (aipaturiko memorialaren barruan sartua).

²⁵⁴ *Ibid.*, 299r-299v.

dilijentziarik egitea eskatzen; apezpikutzaren aldetik eliz auzitegietan bultza zitezkeen auzien aurrean adi egon eta erreakzionatzea, ez besterik (Larrañaga Arregi 2010a, 112)

1621eko konstituzioen ondorengo auzietan eta bisitetan sorturiko liskarrek, nahiz eta Probintziak apezpikutzaren aurka ekindako auziak bertako serorentzat, itxuraz behintzat, bukaera ona izan zuela esan litekeen, ondorio ezberdinak izan zituen herri eta espazio ezberdinen arabera. Ohar dezagun, beste behin, apezpikutzaren aldetik jorratutako argudioetan aldareetarako eta sakristiarako sarrerak eta serorek objektu sakratuak maneiatzearen aferak ze pisu zeukan, eta alderdi hauek, apezekin lizunkeriatan ibiltzearekin nola josten ziren; emakumeak sakratuaren espazioan sartzen zirela dirudi, bekatuari bertarako bidea zabalduz. Bisitatzailen aginduetan ere ageri zaigu alderdi hauen inguruko ardurarik. 1623an bertan, Aretxabaletako Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiari bisitatzailak bertako serora kanporatzea agindu zuenean, parrokiako apez eta benefiziodunei, ornamentu eta ondasun guztiak inbentario bidez jaso eta gordetzea agindu zien, eta baita, sakristiako giltza eurek izan zezatela ere ("los dichos cura y beneficiados y ellos tenga[n] la llave de la sacristia")²⁵⁵; adierazi zen moduagatik, aurretik giltza serorak eduki izan zuela dirudi.

Seroren aurkako oldarraldirik nagusienak Gipuzkoan eta Bizkaian izan zirela badirudi ere, badakigu Iparraldean bezalaxe Nafarroa Garaian ere, garai beretsuan kontrol neurriak eta debekuak zurrundu zirela. Tartetxo bat egin dezagun ingurune hauei erreparatzeko. Datu gutxi dira Iparralderako bildu ahal izan ditugunak, baina Elizaren aldetik bezalaxe instituzio zibilen aldetik ere zenbait neurri martxan jarri zirela nabaria zaigu. Lancrek, bere *Descripción de la inconstancia...*-n, 1612an, zenbait neurriren berri eman zigun: 1600ean Pariseko Parlamentuak harturiko erabakia aipatu zuen, zeinaren arabera, emakume ezkondu bat, bere senarraren nahiaren kontrara, eliza bateko "sacristana"-tzat aukeratu ezin izan zitekeela erabaki zen; seroratzak emakumeei autonomia ekonomikoa eskaintzen ziela kontutan izanik, senarrendandik aldendu nahi zuten emakumeek euren kontu egoteko izan zezaketen aukera bat zela dirudi, debekatu nahi izan zena. Serorak aldareak apaintzen eta ornamentuak erabiltzen ibiltzeari buruz ziharduela aldiz, idatzi zuen garai hartan Baionako apezpikua ohitura horiek erreformatu nahian "activamente" zebilela aipatu zigun (Lancre 2004 -1612-, 46-47, 56). Lapurditik Nafarroa Beherera iraganez, Moreauk Pabeko Parlamentuko presidenteak eta abokatu orokorrak "A une certaine époque", susmatzen dugunez XVII. mendearen lehen hamarkada haien inguruan²⁵⁶, Nafarroako Estatuari eskaera egin zien, seroren gehiegikeriei eta portaera txarrei bukaera emateko neurriak har zitzaten: "déportements criminels des benoîtes, rendus si fréquents et si scandaleux qu'il y en a qui depuis peu sont en prévention en la Cour pour leurs débauches". Jarraian, -zoritzarrez- zehaztasun handiagorik gabe azaltzen zaizkigun auzi eta liskar hauek izan eta gero, Akizeko apezpikuak Estatuari serorak ermitauren bidez ordezkatzeko eskatu zien, baina Estatuak ohitura zaharrari atxiki zitzaizkion, apezpikuaren eskakizunari muzin eginez (Moreau 1970, 237).

Lapurdira itzuliz, serorei sakristiarako sarrera eragozteak sortu zituen zenbait arazoren berriak ere heltzen zaizkigu. 1666an, Baionako apezpiku Olce Monsinorearen *Statuta Synodalia* zirelakoetan serorak "las hermanas vulgarmente llamadas benitas y encargadas del cuidado de la sacristía" bezala aipatu baziren (Webster 1911, 145),

²⁵⁵ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 29v.

²⁵⁶ Duvertrek ere Iparraldeko gertakizunak -zehazki Nafarroa Beherekoak- Hegoaldean Kalagorriko apezpikutzak eta Bizkaiko Jaurgok seroren desagerraraztearen inguruko auziak izan zituzten garai berberean kokatzen zituela dirudi, elkarren jarraian eta batera aipatzen dituen gertakizunak baitira (Duvert 1991, 17).

1710ean, Baionako apezpikuari, Biarritzeko bisita egitean seroren sakristiarako sarrera iraingarria iruditu zitzaion, hauek ofizioen denboran bertara berriketara joan ohi zirela eta: "Les benoïtes ont la fâcheuse habitude d'aller, pendant les offices, à la sacristie causer longuement..." (Moreau 1970, 237). XVIII. mendearen bukaerarako, zenbait neurrik liskarrak sortu zituzten. 1792an, Baiona ondoan, Mugerren, hainbat emakume meza bukaeran sakristiara sartu ziren, bertan zegoen apeza sakristiako giltzak ematera behartzeko asmoz; hauei ondoren emakume eta gizon gehiago batu zitzaizkien, 60ren bat izateraino, aurreko ohitura izan behar zuena defendatzekotan. Ez zen zehazki serorarik aipatu, baina itxuraz, aurretik sakristiako giltzak serorek eduki izanagatik egiten zuten emakumeek eskaera, edo hobe esan esijentzia, biolentzia ere tarteko izatera heldu zen eta. Azkenean, "insurrection" bezala hauteman zen hartan, agintariak eta funtzionarioak heldu behar izan ziren liskarrak baretzera, eta hamar emakume atxilotuak izan ziren (Frank 1997, z.g.).

Sakristiarako sarreraren inguruko arazoak, azken finean, aldarerako sarrerarenak bezalaxe, botere espazioen mugapenei zegozkien, eta hein hartan, eta motibo erlijiosoak argumentutzat harturik, emakumeak espazio hauetatik kanporatu nahi izan ziren, aginduen eta legeen bidez. Baina praktikan ez zen hain erraza neurri hauen gauzatzea, serorek espazio horietan betetzen zituzten funtzioak eta burutzen zituzten aktibitateak, sakristauek euren gain hartu behar zituztelako; eta serorek eta emakumeek, noski, euren espazio propioetako injerentzien aurka azaltzen ziren heinean, aurka egiten zieten, ikusi dugunez, batzuetan aski gogor.

Baina itzul gaitezen generaman ildoaren kronologiara, XVII. mendearen hasieratara, Nafarroa Garaiko egoerari erreparatzeko; bertan ere giroa berotuz zioan. XVI. mendearen bigarren erdialdean ekindako neurriek, Iruñako apezpikutzaren aldetikoeak eta Juan de Undianok bultzaturiko ermitauen erreformaren aldetikoeak, batez ere ermitetako egoera aldatu nahi izan zuten, ikusi ahal izan dugunez, arrakasta handiegirik gabe. Eta aplikatu zitzaiekeen legedia ere, bereziki 1591ko Iruñako apezpikutzako Konstituzio Sinodaletan jasoak gelditu zena, "en despoblado" zeuden ermitetako serorei buruzkoa zen; baina ustez ermitauen bidez ordezkatuak izan behar zuten hainbat serorak jarraitu zuten ermitetan, erreformaren baitan onartutzat aipatu ziren 60 ermitetan bezalaxe, beste hainbatetan ere. Alabaina, ermitetako serorez haratago, 1626an, Alonso González lizentziatua bisitatzailerak Baztaneko bailaratik igaro zenean, tituluaren eta adinaren inguruan bertako serorek zeuzkaten gabeziak zirela eta, legedia bertako parroketako serorei ere aplikatu zien. Zentzuduna dirudi datu hauek jasotzen dizkiogun Zudairek seroragaiei -praktikan- kargurako eskatzen zitzaizkien betekizun gutxiarik zuhurki aipatu zuenak: "Probablemente no fueron los abusos reales los que motivaron la citación sino la necesidad de evitar que el abuso se hiciera ley"²⁵⁷.

Alonso González bisitatzailerak lehenik Baztaneko bertako serorak titulua erakus zezaten deitu zituen ("Almandoz, Berrueta, Aniz, Ciga, Garzain, Elizondo, Arizcun, Errazu, Maya, Azpilqueta, Elvetea, Lecároz, Arrayoz y Oronoz"), prozesu guztian agertu ez zen Iruritakoa ezik; Zudairek agian garai haietan sakristaia izango zutela diosku. Baina bisitatzailerak ez zuen antza nahikoa izan, eta handik bi egunetara Oieregi, Narbarte, Legasa, Sunbilla eta Etxalarreko serorei ere dei berbera egin zien. Azken herri hauetako serorek protesta egin zuten, deia Baztaneko serorei zegokiela, eta beraiek bailara hartan ez zeudela eta; Legasakoak, Narbartekoak, Etxalarrekoak eta

²⁵⁷ Jarraian azalduko ditugun Baztaneko bailarako serorekin izan ziren gorabehera guzti hauen berri Claudio Zudairek prozesu hau oinarritzat harturik idatzi zuen artikulua mamitsutik jaso dugu (Zudaire 1978).

Sunbillakoek, gainera, badaezpada, tituluak erakutsi zituzten. Horrekin nahikoa izan zuten, eta bisitatzailleak ez zituen gehiago deitu. Parrokietakoez aparte, Baztanen bazeuden inongo tenpluan zerbitzen ez zuten beste bi serora ere, eta hauei ere ez zien bisitatzailleak azalpen gehiagorik eskatu. Baina Baztaneko parrokietakoek estuasunen batzuek igaro behar izan zituzten, Amaiurrekoak ez beste guztiek ez zeukaten titulurik eta; gainera, gehienak kargura konstituzio sinodaletan zehazten ziren 40 urteak izan baino lehenago sartu izan ziren, eta Zigakoaren kasuan, oraindik 28 urte baino ez zituen. Seroren presentziarekiko, Baztaneko eta beste herrietako parrokiarik gehienetan bazeudela ikusten dugu; gogoan izan dezagun, XVI. mendearen bigarren erdialdean Nafarroan seroren aurka hartu ziren neurriak aipatu ditugunean, nola, Juan de Undiano ermitauak bultzaturiko erreforman ermitauak bertan izatea onartu zitzaizen 60 ermitetan, serorek zainduriko ermitak gutxiengoa osatzen zuten -eta nola seroratzat hauen desagerpena agindu zen, arrakastarik gabe-. XVII. mendearen hasieratan Baztanen eta inguruko herrietako parrokietan serorek zeukaten presentziak, ostera, beste ikuspegi bat ematen digu. Orain arte jaso ditugun datuetatik, Nafarroan ermitauen presentzia esanguratsua zela ondorioztatu beharrean gauden bezalaxe, XVI. mendearen bigarren erdialdeko neurriek ermitetako seroren desagerraraztea lortu ez zutela ere agerikoa dela esan behar, eta Baztaneko 1626ko azken prozesu hontan ikusi ahal izan dugunez, XVII. mendearen hasieratan, Nafarroa Garaiko iparraldean -edo mendialdean- behinik behin, herri eta auzoetako parrokietan serorak ohizkoak zirela ere bai.

Baztaneko seroren egoerak, berez, Leintz bailaran ikusi dugunarekiko antzekotasun handiak dauzka. Biztanleria dispertsodun bailara bat, parrokia ugarirekin, eta itxuraz, behintzat, serorei titulurik eskatzearen ohitura ordurartean ezagutu ez zuena; hainbat seroraren erantzunek horixe iradokitzen zuten, behinik behin:

Maria de Garaycoechea, de Arráyoz, afirma que no sacó título por no "auer la costumbre de sacar tales títulos en dha valle y con toda buena fe" [...]. A Estebania de Oarrichena de Arizcun, parece le convencen los hechos consumados, tomó el hábito de sorora para recogerse y vivir mejor y ha servido a la iglesia en la limpieza y en tocar campanas "sin que para ello aya tenido neçessidad de aprobarse liçençia titulo ni otra cossa alguna", "por ser serbicio boluntario y no forzoso". La de Elvetea piensa que para barrer, limpiar los manteles y tocar las campanas no se necesita aprobaci3n, salvo la aceptaci3n de los clérigos. A Catalina de Mayora "muger nada entendida en negoçios" parecióle que no necesitaba sacar títulos del tribunal. Catalina de Vengoechea de Oronoz se atreve un poco más y afirma que ha servido "en virtud del otro nombramiento y costumbre que asta hoy se a guardado en toda aquella valle" (Zudaire 1978, 438)

Oronozeko serorak aipatu zuen "beste titulu" hura ez zen lekuan lekuko ohituren araberako izendapena baizik, hitz hutsez emana, "del cabildo o pueblo, o de los patronos de las iglesias (Errazu), de los vecinos (Arrayoz y Ciga), de los curas (Arizcun), de los jurados y vecinos (Ornoz)". Izan ziren, jada oso zaharrak ziren seroren artean, sartu ziren momentuan titulua jaso izan behar zutela, baina ordurako jada galdua zeukatela esan zutenak ere (Elizondokoa eta Errazukoa); baina azken erantzun hauek, arazoak ekiditeko eman zirela dirudi. Edozein kasutan, Iruñako apezpikutzako bisitatzaillea ez zen Baztanen, Kalagorriko apezpikutzakoa Leintz bailaran ibili zen bezain gogor ibili (apezpikutzatza bakoitzean aplikagarri zitzaizen konstituzio sinodalen araberako legedia ere, Kalagorrikoan Iruñakoan baino gogorragoa baitzen, kanporatzea aginduz). Seroretariko gehienei, behin informazioa bildu ondoren (gehienak Iruñaraino joan behar izan ziren, eta bertan lekukoak aurkeztu), titulua eman zitzaizen; baita adin gutxikoei ere, beraien bizitza bertutetsua medio, baldintzatic salbuetsiz. Almandozen kasuan, herritarrek okasioa eskandaluzko bizitza omen zeraman (gizonekin tratu lizunetan ibili eta ume bat izana omen zen, etab.) serora kargutik kentzeko baliatu zuten.

Azpilikuetakoa auzotarrek berriz, besteek egin ez bezala, apezpikutzako Fiskal Orokorraren aurkako auzi bati ekin zioten. Bertan baliatu zituzten argumentuak Zudairek laburbildu zituzten; hemen ere, Leintz bailarak Kalagorriko Apezpikutzaren aurka baliatu zituen argumentuekiko²⁵⁸ antzekotasun handia ageri zaigu:

a) La provisión o mandato de que todas las seroras se presenten a ser probadas o muestren su título, se funda en las Sinodales del Obispado, cap. 6, fol. 93, y estos párrafos se refieren a las seroras que habitan en despoblado y por lo tanto no afectan a Catalina que habita en poblado "en medio del lugar y en (casa) contigua a mas de veynte cassas y en una de ellas bibe la dha Catalina no como serora solitaria y en desierto" y según esto "no es compreensa en la dha sinodal" y puede seguir viviendo como serora sin más examen ni aprobación que la de los vecinos.

b) que "están en posesión quieta y pacífica de tiempo inmemorial a esta parte de nombrar libre yndependientemente a las perssonas que les a parecido por seroras de dha parrochial y las tales an servido en la forma que queda alegado sin mas ni otra aprobaçion ni titulo de Vmd ni de otro alguno...".

c) tiene sentencias en su favor en esta cuestión: "amas desta dha possession tiene sentencias ganadas en contradictorio juyçio por ser notorio que las tales perssonas aunque con el nombre de seroras an sido tenidas comunmente y reputadas por meras seculares...".

d) por último hace una mezcla de testificación de buena conducta y de chantaje: por la ejemplar vida de Catalina se ruega no tenga efecto el mandamiento; en el caso de persistir el fiscal, Catalina se niega a sufrir el examen, cesa en el cargo y el pueblo se ve obligado a devolver los treinta ducados que la serora prestó al comienzo de su oficio, y las primicias de la iglesia no permiten este dispendio (*Ibid.*, 444)

Serorak bazekien gaia nondik heldu, ezen, azken kasu honetan, berak kargua utzi eta doteko 30 dukatak itzultzekotan, elizako fabrika arazotan izango baitzen. Diru-sarrerak ez ziren 30 dukatak itzultzeko bestekoak, eta gainera, hala izatekotan seroraren ondoren sakristau bat ipini beharko zitzatekeen (elizako errektoreak aurretik ere nahi izan zuen bezala), eta honen soldata ordaintzeko beste ere ez zuten parrokiako fabrikaren etekinek ematen. Serora urteroko 2 dukatekin baino ez zen mantentzen, baina sakristau baten mantenua, jada, gehiegizko kopurutara heltzen zen. Auzotarren defentsa ez zen azkenean inora helduko, gaizki eramana izan baitzen (ez zituzten beharrezko frogantzak ezarritako denboretan burutu), eta urtebete beranduago, auzia galdu baitzuten; baina dagokigunarekiko, zerabiltzaten argumentuek azaltzen diguten egoera da interesatzen zaiguna.

Azpilikuetakoa auzotarrek, Leintz bailarakoek bezalaxe, defendatzen zuten seroratza konstituzio sinodaletan arautu ziren seroratzez bestelakoa zela zioten. Azpilikuetairek Iruñako apezpikutzako legedia landa eremuetako ermitetako serorei baino aplikagarri ez zitzaiela zioten, landa eremu / eremu populatu dikotomia oinarrian harturik. Leintz bailaran, Kalagorriko apezpikutzaren legediaren salaketa serorak sakristau lanetan jardutearena zenez, emakumezko / gizonezko dikotomia baliatu zuten, gizonezkoen lanak, bazeuden lekuetan, sakristauak eurek burutzen zituztela, eta ez zeuden lekuetan berriz, meza-mutilez baliatzen zirela esanez; serorek, berriz, propioki emakumezkoenak ziratekeen lanak egingo zituzketen. Defentsarako estrategia hauek, arazoak atzeratzea edo desplazatzea baino ez zekarten, kasu batean ermitetako serorak legediaren aurrean saldurik uzten baitziren, eta bestean, etekin ekonomiko handidun espazioetatik aparteko lekuetan sakristauak urriak izanik, seroren "sakratuarekiko" kontaktua ekiditeko moduak garatu behar baitziren (meza-mutilak, etab.), gehienetan,

²⁵⁸ Konparaziorako, ikus Leintz bailarako ahaldunek auzitan aurkezturiko argumentuak goraxeago, 221-223 or.

praktikan beteko ez zena. Horrez gain, aurretik seroren alde emandako sententzia bat aipatu zen Azpilikueta, apezpikutzaren manupea ukatzeko, serorak erlijiozko esparrutik aldentzen zituena; haren arabera, serorak, "aunque con el nombre de seroras an sido tenidas comunmente y reputadas por meras seculares". Hemen "serora" terminoaren erabilerari buruz aurreko kapitulu batean esandakoak berresten zaizkigu (mojek ere "serora" izena jasotzen zutela ageri baitzaigu), eta horrez beste, gogoan izan ditzagun Gipuzkoan ere Probintziaren eta Kalagorriko apezpikutzaren artean izan ziren seroren gaineko jurisdikzioaren inguruko jirabirak ere²⁵⁹.

Ohar dezagun, legedi aldetiko testuingurua, Iruñako apezpikutzan 1769ko seroren desagerrarazte agindurarte eta Kalagorrikoan 1621eko Konstituzio Sinodalak arte mantendu izan zena zela. Hau da; desagerrarazi nahi ziren serorak landa eremuetako ("despoblado") ermitetakoak ziren batez ere, hauek ermitauren bidez ordezkatur, eta sakristauren eta seroren funtzioak garbi bereizi nahi ziren, emakumezkoak elementu "sakratuengandik" aldentzeko eran. Baina, batez ere hiribilduetako eta auzotako espazio populatuetoako parrokiako serorak erlatiboki babestuta gelditzen ziren, funtzioen mugaketa nabarmenekin bazen ere. Kalagorriko 1621eko konstituzioak argitaratu eta bertan seroratzak erabat debekatu zirenaz geroztik ordea, herrien eta Gipuzkoako Probintziaren defentsak konstituzioetako arauak onartu, baina serorak bertako definiziotik at kokatzean oinarritzen zen "gutxieneko kalteen" estrategia hau alde batera utzi -behar izan- zuten, apezpikutzari onartzen zitzaion titulua emateko eskubideaz haratago, seroren defentsa sendoki ohiturazko eskubidean oinarrituz eta beraien behar sozial eta ekonomikoak azpimarratuz, parrokiako seroren kasuan bezalaxe, ermitetakoenean ere. Hau da, jada ekidinezina zen aurrez-aurreko konfrontazioa, eta ez zegoen ermitetako serorak "sakrifikatu" beharrik parrokiakoak mantentzeko, jazarraldia guztien kontrakoa baitzen. Kalagorriko apezpikutzan 1621eko konstituzioez geroztik bizi izan zen egoera hau, baina, Iruñako apezpikutzan ez zen bizi izan, bertako konstituzioak ez baitziren seroren erabateko desagerraraztea agintzera heldu; eta hala, legedi aldetik, 1626an, Kalagorriko apezpikutzan 1621a baino lehenago zegoen antzerako egoeran jarraitzen zuten.

Hala ere, ohiturazko eskubideak, noski, presente zeuden Azpilikueta auzotarren defentsan bezalaxe, Leintz bailarakoenean ere. Seroren aukeraketarako zegoen jatorrizko egoerak, bi kasuetan, oso antzerakoa baituridi. Auzotarrak edo/eta apezak ziren gehienetan, batzuetan jauntxoren bat ere bai, serorak aukeratzen zituztenak, eurei egoki zeritzen eran eta baldintzekin. Apezpikutzekin auzitan hasi zirenean, serorei titulurik eskatzearena ezezaguna zitzaien; konstituzioetako arauak ez ziren, artean, aplikaziora iritsi. Molde zaharra zerabilten oraindik, auzotarren eta botere eragile lokalen arteko neurri baterainoko kontsentsu bidez egiten zen hitzezko izendapenarena, batzuetan, ez beti, idatzirik jasotzera heldu zena.

Bi kasuetan, bestalde, arazo ekonomikoek pisu esanguratsua zuten: serorei dotea itzuli beharrak tenpluetako fabrikak oso kalteturik utz zitzakeen (seroren doteak eurak, fabriken diru-iturri garrantzitsuenetariko bat izanik), eta Leintz bailaran ikusi dugunez, hau seroraren kanporatzea baliogabetzeko motibo ere izan zitekeen; eta bestalde, parrokia txikien diru-iturrien urritasun berberak, sakristauren kargua sostenga-ezina egiten zuten. Auzotarrendako askoz ere merkeago ziren, neurri handi batean euren aktibitate independenteen kabuz mantentzen ziren serorak. Funtsean, Azpilikueta -eta estentsioz, Baztaneko- eta Leintz bailarako egoera hauek, Euskal Herrian antzerako egoera soziologiko, ekonomiko eta demografikoan zeuden herri eta auzo ugarietan bizi

²⁵⁹ Terminoaren erabilerari buruz ikus II. 3.3. azpiatala, 97 eta hurr. or., eta jurisdikzio arazoiei buruzkoak aurreko azpiatalean, 207 or.

izana zitekeen egoeraren islada dakarkigute, halako herriei serorekiko garatu ziren legedien aurrean sortu zitzaizkien oinarrizko arazoek berri emanaz.

Seroren desagerrarazterako eta kontrolerako neurriei egin diegun jarraipenean baina, lurralde historikoen eta herrien mailako instituzioen aldetik serorak defendatzeko argumentuak bezalaxe, hauen aurka egiteko baliatu zirenak ere izan ziren. Hauetariko batzuen ingurukoak jada jorratu ditugu, aldare eta sakristietarako sarrerarenak, eta "sakratu" hautematzen zenaren erabileraren ingurukoei zegozkienak. Baina hauen alboan, izan ziren apezpikutzen aldetiko portaera ezegokien inguruko salaketak ere, hein bateraino aitzakia izan bazitezkeen ere, beste hein bateraino, non oinarritu ere bazeukatenak. Ikusi ditugu jada 1557an Gipuzkoako korrejidoreak Batzarretan salatutako seroratzat ari ziren eta "mozas y de mala vida" ziren emakumeena, nahiz Lancrek apezzen ohaide eta elizetako deabruaren infiltratu izateaz salatu zituen serorena, eta serorei buruzko historiografiak jaso izan ditu beste hainbat kasu ere²⁶⁰. Ikerlan honetan bertan ere izan ditugu jada zenbait kasu aipagai, nabarmenenak, agian, 1538an Bergarako San Pedro parrokiako serora batek parrokia berbereko beste bat ganderailu batekin gogorki jipoitu zueneko, eta 1593an Oñatiko Santa Katalina (gaur egungo San Isidro) ermitan serora laguntzaileak eta zenbait kidek erail zuen serora nagusiarena. Eta ikusiko dugu aurrerago besteren bat edo beste, 1663an Maria de Gamarra serorak Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegian sortu zituen liskarrena, esaterako. Eta azkenaldian, Aguirre Sorondok Gipuzkoako hainbat kasuren berri eman digu: bortxakerizko gertaeratan eta jipoietan, eta lapurretetan inplikaturiko seroren zenbait kasuren berri eman zigun, -hainbatetan apezekin- sexu harremanak izategatik salatuak izan ziren seroren beste sei kasurekin batera (Aguirre Sorondo 2013, 59-62).

Ikerketek aurrera egin ahala halako kasuak agertuz joatea ez dugu arraroa, seroren artean denetarik baitzegoen. Azken finean apezekin bezala gertatzen zen; gutuziagarria zen kargu bat zen, eta kargua izatera heltzen zirenak ez ziren askotan debozioagatik bertara sartzen, bizimodua segurtatzeko bidea ematen zien eta askotan aski probetxugarria zen langintza bat zelako baizik. Eta sexu harremanekiko, beste hainbeste esan liteke. Ezkontza gabeko ohaidetzea ohizkoa zen garaiotan, eta nahiz eta alderdiotan XVII. mendea aurrera egin ahala eta batez ere XVIII.ean, kontrola zurrunagotu zen, apezek ohaideak izatea oso ohizkoa zen garaiak ditugu; hauek zenbaitetan serorak izateak, edo serorek eurek ere ohaideak izateak, beraz, ez gintuzke gehiegi harritu beharko. Alabaina, ezkontza kanpoko erlazioekin, serorei, orokorrean emakumeei gertatzen zitzaien berbera gertatzen zitzaien: garaiako mentalitatearen arabera, gizonezkoen kasuan akats arintzat hartzen zena, emakumeenean bekatu larria zela (Azpiazu 1995b, 173-220, 291-305). Eta hala, seroren aurka hartu izan ziren neurrietan, esate baterako, 1623an apezpikutzaren eta Bergarako herriaren artean izan zen auzian, lehenaren aldetik aurkeztu zen galdeketan, seroren ohaidetza eta ezkontzaz kanpoko haurrak eduki izana hauen desagerrarazterako motibotzat baliatzen zen.

Hausnarketarako azken tarte hau egin arteko azalpenen ibilbidean, seroren aurkako neurrien ibilbidean erpinetariko bat osatu zuen dinamika baino ez dugu izan ikergai: alde batean apezpikutzak eta elizako agintariak, eta bestean Euskal Herriko lurralde historiko ezberdinetako instituzioak eta agintari lokalak paratzen dizkiguna, elkarren artean seroren eta seroratzen inguruko auzietan liskarka. Puntu honetara heldurik, hala ere, seroren defentsa euren kargu hartu zuten instituzioen aldetik jarraitu ziren ibilbideen eta auzietan baliatu zituzten argumentuen inguruko hausnarketaren batzuk egin beharrean gaude. Izan ere, orokorrean, izan zuten lehen defentsarako

²⁶⁰ Esate baterako, Webster 1911, 149; Moreau 1970, 237; Saint-Martin 1976, 166-167; Azpiazu 1995a, 58.

estrategia, auzitan zeuden serorak apezpikutzek garatutako legedietan azalduko irudiarri ez zegozkion, eta agindu haiek aplikagarri ez zitzaizkiela defendatzean finkatu baitzen. Eta iheserako estrategia horretan ere, izan zitekeen interesik. Azken finean, auzi haietan seroratzen izaerari eta beraien eginbarrei buruz eman ziren definizioek, mugarrria osatzen baitzuten: definizio hartatik irtetzen ziren serorak, ez ziren defendatuak izango. Bizkaiko Jaurgoak 1617an, Leintz Bailarak 1618an, Gipuzkoako Probintziak 1623an eta Azpilikueta herriak 1626an, bakoitzak zegozkien apezpikutzen aurka izandako auzietan, seroren aski irudi mugatua eman ziguten. Aldareen, sakristiaren eta ornamentuen, "sakratutzat" hartzen zenaren kanpoko espazioetan baino mugitzen ez zirela zioten guztiek (eta zeuden lekuetan, sakristauek presentzia azpimarratu zuten), eta beraien eginbarren deskribapenetan, ohialen eta tenpluen garbiketa, argiteriaren eta jarlekuen zaintza, kanpaien jotea eta ermiten kasuan giltzen edukitzea baino ez ziren aipatu, eta ez denak kasu guztietan. Instituzio zibilen aldetik defendatu zituzten, baina antza denez, beti ere, neskametzat aritzera mugatu zitezkeen artean.

Orain arte jarraitu duguna, beraz, ez da seroren aurkako neurri eta debekuak egoki ulertzeko jarraitu beharreko erpin bakarra, bada XVII. mendearen hasieraz geroztik oso garrantzitsua bilakatzen den beste bat ere: maila lokalaz gairako instituzioek, bereziki lurralde historikoen mailako instituzio zibilek, kontrol sozialari begira, beste biztanleei bezalaxe serorei ere aplikatu zizkieten debeku eta mugapenena. Eta honen berri izateko, Gipuzkoako Probintziak bere kabuz hartu zituen eta bultzatu zituen neurriei begira jarriko gara, bereziki, serorei, batez ere ermitetakoei, nabariki eragin zien aktibitate baten inguruko debekuei jarraipena eginaz: limosna eskaerarena. Alor honetako aldaketak izango dira, azken finean, XVII. mendearen hasieratako liskarretan seroren defentsa bere kargu hartu ondoren, urte gutxitara Probintziak serorekiko apezpikutzekin bat egitera zeraman beste norabide bati ekitearen arrazoi nagusietariko bat. Eta horregatik kokatzen ditugu azalpen hauek hemen, arrazoi eta ardura hauek momentu hartatik aurrera hartu baitzuten pisurik gehien, nahiz eta jada XVI. mendetik presente zeuden, Elizaren aldetik hartu nahi izan ziren neurrietan: Burgoseko artzapezpikutzako Konstituzio Sinodaletan (Pacheco Toledo 1577, 208), Juan de Undianok Nafarroa Garaian 1584az geroztik bultzatu zuen ermitauek erreformarako eskaeran, eta ondorengo galdekietan eta aginduetan, eta Iruñako apezpikutzako 1591ko Konstituzio Sinodaletan²⁶¹ jada aipatu izan ziren limosna eskaeraren inguruko debekuak eta mugapenak. Eta Kalagorriko apezpikutzan, 1602ko konstituzioetan limosna eskaerarik aipatu ez bazen ere (Manso 1602, 87v-88r), Bergarako herriak 1617an apezpikuari bidaliriko kexuzko eskutitzean bezalaxe, Leintz bailaran 1618an apezpikutzaren aurka izan zen auzian ere limosna eskaerarako debekuen kexu izan ziren; eta 1621eko konstituzioetan, seroren euren desagerraraztea agindu zen, eta gainera, laster ikusiko dugunez, bestelako limosna eskaleen aurkako neurriak ere hartu ziren. Orduan, artean, konstituzioen ondorengo auzietan, instituzio lokalak bezalaxe, Bizkaiko Jaurgoa eta Gipuzkoako Probintzia ere, seroren limosna eskaeraren aldeko ageri ziren.

Ikus dezagun bada, Gipuzkoako Probintziaren aldetiko jarrera aldaketa zertan izan zen. Zehazki Debagoienari dagokionean, XVII. mendearen hasieratako desagerrarazte saiakeren ondoren, Bergarako serorek printzipioz Leintz bailarakoek baino bukaera hobea izan zuten (azken hauen gorabeheren berri zehatzak aurreraxeagorako utziko dugu); baina honek ez du ondorengo urteetan aldaketarik izan

²⁶¹ Honekiko, ikus Goñi Gaztambide 1965, 78-79; Nafarroako Errege Kontseilua 1622, 468v, 472r-472v; eta Rojas y Sandoval 1591, 93v.

ez zenik esan nahi. Aldaketak, hainbesterako aldaketak ez zirenak. Probintzian, izan ere, 1557tik entzun baitziren seroren gaineko kontrola areagotzearen aldeko hitzak, korrejidorearen aldetik; eta Batzar Orokorretan hartu zen proposatu ziren neurrien betekizuna apezpikutzak ezberdinei eskatzeko erabakia ere. Eta ondorenean, XVI. mendearen bukaera alderarte Probintziak apezpikutzekin seroren instituzioarekiko jurisdikzio arazoak izan bazituen ere, 1557an bezalaxe 1585ean eta 1586an berretsi ziren neurriek ardura garbi bat mantendu zuten: espazioaren eta biztanleriaren mugimenduen kontrola. Izan ere, Batzarrak, ohituren "garbitasunagatik" baino, Probintzia beraren eta herriko agintarien kontrolpetik at gelditu zitezkeen espazioetan batu zitezkeen kontrol gabeko giza-taldeegatik arduratuagoa baitzeuden. Eta horregatik, azkenean, landa eremuetako ermitak eta bertako biztanleak, serorak eta ermitauak alegia, arriskuen iturburutzat hautematera heldu ziren.

Eta beste faktore bat ere bada: limosna eskaera diru-sarrera garrantzitsua izan zen batez ere ermiten, santutegien eta ospitaleen mantenurako, baina Aro Berrian zehar Elizak bezalatsu instituzio zibilek ere komentuen nagusitzea eta sostengua faboratu zituztenez, batez ere XVII eta XVIII. mendeetan garatu izan zuten legediak ermita, santutegi eta ospitaleetako limosna eskaeraren aurka egin zuen. Gogoan izan dezagun, Gipuzkoan, XIII. mendea eta 1650 bitartean goraldian izan ziren komentuen fundazioak, orduz geroztik gainbehera nabarian joan zirela, ordurako zeudenez gain berriak ekonomikoki sostengatzea jada ezinezkoa egiten zelako. Probintziaren Batzar Orokorretan 1612an, 1699an eta 1708an komentuen ugaritzea ekiditeko neurriak hartu ziren²⁶². Bi elementu horiek izango dira, ondorengo azalpenetako gorabeheretan momentuoro eragina izango dutenak: komentuen faboratzea eta landa-eremuen gaineko kontrola, batez ere XVIII. mendean, bidelapurren eta kontrabandoaren aurka hartu ziren neurriei lotua dagoena. Eta ez dezagun ahaztu, bestalde, limosna eskaeraren gaineko kontrola eta landa-eremuetako parrokia eta ermitetako bakarkako serorak alokairu errejimenean sarturiko sakristauez edo ermitau senar-emazteez ordezkatzearen prozesua (ondoren jarraipena egingo dioguna), paraleloki garatu zirela.

Espazio hauetan, eta batez ere XVI. mendean eta XVII.enaren hasieratan kokatzen zaizkigu tenpluen gaineko administrazio orokorra euren esku zeukaten seroren kasuak, eta kasu hauetan, noski, limosna eskaera eta aktibitateari zegozkion diru-sarreraren inguruko kontuak ere beraien eskumenen artean zeuden. Limosnen eskaeraren inguruko lehen mugapenak ondorengo klausuraren ezarpenerako –eta beste hainbat aldaketarako– ardatzezkoa izan zen Trentoko Kontzilioa bukatu bezain laster eman ziren, Probintziako Batzarretan korrejidoreak bere serorekiko kexua azaltzetik gutxira: 1563an, Errege Agindu baten bidez. Hala aipatu zen behintzat 1629an, 1563ko aginduak berretsi eta zehaztapenekin osatu zituztenez:

Por quanto por una nuestra Provisión dada en Madrid, à veinte y siete dias de el Mes de Agosto de mil y quinientos y sesenta y tres Años, ordenamos, que cessasen los Cuestores, y Publicacion de Indulgencias, y Demandas, que algunas Iglesias, Monesterios, y Hospitales, y Obras Pias, hazian algunos abusos, y excessos, que cerca de ello passaban²⁶³

Trentoko Kontzilioan, izan ere, lekuan lekuko apezpikutzaren lizentzia izan –eta bere kontrolpean egon– ezean, “questores”-ak eta induljentzien publikazioa debekatuak zituzten jada; 1563ko Errege Aginduak kontzilioko erabakiei jarraitu baino ez zien egiten.

²⁶² Ikus honekikoak III. 1. atalean, 186 or.

²⁶³ BUA L/161, 12.

Ondorengo urteetan 1602ko eta 1621eko Kalagorriko Konstituzio Sinodalak argitaratu ziren, eta azkenetan limosna eskaerari erreparatzeari ekin zitzaion, ezen “El uso de los questores, y de personas que publican indulgencias se ha reputado siempre en la Iglesia de Dios por dañoso, porque engañan al pueblo ignorante, y assi los sacros Canones con penas seueras, y vltimamente el santo Concilio de Trento los prohibe”. Beraz, kontzilioko erabakiei jarraiki, limosnen eskaerarako eta induljentzien publikaziorako apezpikutzaren lizentzia espezifikoaren beharra ezarri zen, bi dukateko isunaren meatxupean. Alabaina, gaizki-ulerturik izan ez zedin, aginduari azalpenen batzuk atxiki zizkioten

mas por esto no entendemos que se prohibe a los mendicantes, y a los demas pobres que pidan limosna hostiatim, y la que se pidiere para pobres enuergonçantes, sea con licencia del Cura de cada lugar: y si de aqui adelante fueren licencias, y mandatos con censuras para que los Curas pidan limosna, ò nombren personas que la pidan para algun efecto, ha se de entender que esto procedio de algun yerro, y assi no es nuestra intencion que las tales liguen, solo encomendarles por su deuocion, ò por el merito que conseguiràn lo hagan, lo qual les encargamos mucho (Gonzalez del Castillo 1621, 183v-184r)

Azken azalpen hauek 1602ko konstituzioetan jaso izan zenak motibatuak izan zitezkeen; bertan lekuan lekuko apezpei jai-egunetan eliztarrei Gurutzadaren Buldaren aste bakoitzeko induljentzien berri ematea agindu zen, eta hau Trentoko erabakiekiko era kontraesankorrean interpretatu zitekeen, induljentzien publikazioa agindu balitz lez:

Otrosi, porque muchas personas pierden de ganar las indulgencias que pudieran en mochos dias del año, por no ser auisados de quando, y como deuen hazer las diligencias para ello necessarias, S.S.A. ordenamos, y mandamos a los Curas deste nuestro Obispado, que en los dias de Domingos, ò otras fiestas auisen a sus parroquianos las indulgencias que se gana aquella semana, para que assi puedan conseguir las que por la Bula de la Cruzada se les conceden (Manso 1602, 133r-133v)

Ordena mendikanteak eta txiroak ziren beraz (azken hauek lekuan lekuko apezaren baimenarekin) limosna eskaeraz baliatzea ontzat ematen zitzaien bakarrak. Baina 1621eko konstituzioak baino lehenago ere hasiak ziren limosna eskaeraren gaineko jazarpenak, konstituzioen eta hauen oinarrian egindako seroren desagerrarazterako lehen saiakeraren erantzule ere izan zen Pedro Gonzalez del Castillo apezpikuaren agintepean; garai hartan, Gipuzkoako Probintzia limosna eskaeraren alde azaldu zen, printzipalki, ermiten sostengurako erabat beharrezkoak zirela, eta horrela ermitetako aktibitate sozial eta erlijiosoak desagertpena eramango zirela defendatuz. Hala ageri zen 1617an Bergarako udal agintariak apezpikutzaren aurrean honek sarrarazi nahi zituen aldaketak eta debekuak zirela eta azaldu zuten kexuan²⁶⁴, eta baita Probintziak Kalagorriko apezpikutzaren aurka 1623an izan zuen auzian aurkeztu ziren argumentuetan ere, kalte eta ondorio berberak aurreikusiz. Azken galdetegi honen asmoa apologetikoa bazen ere (apezpikutzaren aldetik prestatutakoak asmo gaitzeslea zuen bezalaxe), seroren eta limosnen arteko erlazioa aski garbi azaldu izan zen: ermitetan serorarik izan ezean, “las limosnas que se acian cesan de todo punto”²⁶⁵. Baina Probintziak eskaleen kontrolaren inguruan zeuzkan ardurak seroren auziaz haratago zioazen, eta laster ekingo zitzaien euren aldetik ere, limosna eskaeraren gaineko neurri mugatzaileei.

1629an 1563ko Errege Aginduaren berrespena egin zenean, interes nagusia iruzurtien aurka egitea zela zehazteko ardura hartu zuten, ezen “no fuè, ni es nuestra

²⁶⁴ Ikus kexu honen gorabeherak eta aipua, 219-220 or.

²⁶⁵ Ikus auzi hau eta galdetegia, 230-234 or.

intencion, y voluntad, de quitar que no se pidan las dichas Limosnas, cessando los dichos inconvenientes” (iruzurteiek sorturikoak, alegia). Aginduaren eskaera Gipuzkoako Probintziaren izenean egin zen, eta korrejidoreari zuzentzen zitzaion: “Pedro de Plaza, en nombre de essa dicha Provincia nos hizo relacion, que en ella avia muy grande exceso en materia de Demandas, y Cuestores que pedian Limosna, sin tener para ello licencia, y lo permitiades contra las dichas nuestras Leyes”. Probintziaren asmoa, berez, Errege Aginduaren bidez iruzurren aurreko kontrol soziala bermatzea zela dirudi, batzuen edo besteren limosna eskaerak faboratu edo debekatzea baino.

Hortaz, zenbait urte lehenago (1617-1623) Bergarako herria eta Gipuzkoako Probintzia, apezpikutzaren asmoen aurrean, limosna eskaeren defentsan ageri bazitzaizkigun, 1629an Probintziak berak egin zuen aktibitatearen gaineko kontrolaren eskea. Probintziak inizatiba hartu izanik, inflexio puntu bat eman ote zen hamarkada hartan? Ez dago halabeharrez horrela ikusi beharrik, berez, limosna eskaeraren defentsa eta honen gaineko kontrola ez baitziren kontraesankorrak; Probintziaren ikuspegitik, egoera egokia honela hautematen zela dirudi: limosna eskaera bai, baina etekinak lizentzien bidez kontrolaturiko espazioetara iristekotan. Baina beste alde batetik, Probintziaren inizatiba-hartzeak izan zuen inflexio puntuaren efekturik, beste maila batzuetako instituzioen (apezpikutzak, Errege Kontseilua, etab.) aurrean limosna eskatzaileek izana zutela hauteman zezaketen –edo izan uste zuten– Probintziaren babesaren uko-egitearen adierazpena ere baitzen. Funtsean, honakoa agindu zen 1629an:

mandamos, que las Justicias de estos Reynos no consientan, ni den lugar, que anden los dichos Cuestores pidiendo las dichas Limosnas, ni que se hagan Demandas, Publicacion de Indulgencias; y asimismo mandamos a las dichas Justicias que no consientan, ni den lugar, que las dichas Iglesias, Monesterios, Hospitales, y Obras pias fuera de las Ciudades, Villas y Lugares donde están, y residen, puedan pedir la dicha Limosna, aunque sea sin publicacion de Indulgencias, y sin intervencion de Cuestores, sin especial licencia dada, y firmada de los de el nuestro Consejo, y guardando la orden, y forma, que en la dicha Proviscion se dize, y declarará, aun que los mismo Lugares en que están, y residen las dichas Iglesias, y Obras pias, podrán pedir la dicha Limosna sin medio de Cuestores, ni por publicacion de Indulgencias: Pero mandamos, que los dichos Frayles Observantes de la Orden de San Francisco, assi en los dichos Lugares, donde tuvieren sus Monesterios, como de fuera de ellos, puedan pedir sus Limosnas, como hasta aqui lo hazian, con que no las pidan con publicacion de Indulgencias, ni por medio de Cuestores²⁶⁶

Identifikatu gabeko limosna eskatzaileak eta errazegi publikatu eta maneiatzen ziren indulgentziak ziren arazoan iturri, Trentoko Kontzilioaren begitara bezalaxe, Gipuzkoako Probintziarenetara eta Errege Kontseiluarenetara ere. Beraz, eskatzaileak (“Cuestores”) debekatzearekin bat, Kontseiluaren lizentzia espezifikokoaren beharra ezarri zen, eta herri ezberdinetako agintariei, lekuan lekuko tenpluetako limosna eskaeren gaineko kontrola zorrotzu zezatela agindu zitzairen. Salbuespenez aparte, nor bere herri edo espazioan baino ez, eta lizentziarekin. Frantziskotar obserbanteen salbuespena ere deigarria da; kasu zehatz honetan, bazegoen faborezko trataturik, txirotasunaren izenean.

Aipagai izan berri ditugun gorabehera hauetan ez zen seroren aipamen espezifikoa gehiegirik egin, baina hauen aplikazioak, noski, izan zuen beraiengan ere eraginik. Ohartu beharrean gaude XVI. mende bukaera eta XVII. enaren hasiera klausuraren hedapenaren garaia izan zela, eta ordurartean seroren komunitate izan zirenetariko askok, mojen komunitate bihurtzerako bideari ekin ziotela, batzuk

²⁶⁶ BUA L/161, 12.

lehenago, besteek beranduago, klausuraren laugarren botua onartuz. Limosna eskaeraren mugapenek ibilbide honi ekin zioten komunitateak faboratzea ere bazuten xede, instituzio ezberdinetan buru ziren partaideen familietako alabak, hiribilduetako testuinguru burgesean Aro Berrian zehar bultzatu zen moralitate zurrinari jarraiki, ezkondu ezean komentuetan sartzearen ohitura hedatuz joan baitzen, seroratzenez bestelako eredu bati lehentasuna emanaz. Prozesu honen baitan eragiten zuten arrazoi hauek agerian gelditu ziren 1645ean motibo beragatik helarazi zen beste Errege Agindu batean. Agindua, 1629koa bezala, Gipuzkoako Probintziaren eskakizunez helarazia izan zen, eta bere eskaerarako arrazoen artean, ordena eta ospitale jakin batzuen sostengua faboratzea ere aipatu zen; ermitauak eta serorak ere aipatu ziren, esanguratsuki, limosna eskaera iruzurtien berri ematerakoan:

Pedro de Zabala Goitia, en nombre de essa Muy Noble, y muy Leal Provincia de Guipuzcoa nos hizo relacion, que contra lo dispuesto por Leyes de estos nuestros Reynos, en los Lugares, y Casserias de essa dicha Provincia andaban pidiendo limosnas diferentes Religiosos de Conventos Mendicantes, que debian ser sustentados con las Rentas de sus Fundaciones, y no bastando por los Lugares donde eran fundados, como tambien los pobres de cada Lugar, permitiendo el pedir la dicha limosna solamente a los Religiosos de la Orden de San Francisco de la Observancia, y no à otros algunos fuera de sus Lugares, si no era en caso de predicacion, y confession, y otros respectos voluntarios; y mucho menos debian pedir la dicha Limosna fuera de sus Lugares las Beatas, y Hermitaños de Ermitas; de lo qual, demas de contravenir à nuestras Leyes Reales, causaba este genero de gente en los Lugares, y Caserias, que estaban apartadas, y dibidadas en Montaña fragosa, muchas indecencias, engaños, y escandalos, para cuyo remedio nos pidio y suplico, mandasemos dar esta nuestra Carta, y Provisión Real, para que à ninguna de las dichas personas se les permitiese, ni consintiese pedir limosna en los Lugares de essa dicha Provincia, mandando castigasedes à los que contraviniessen à ello; y que de las licencias que se huviesen dado en contrario, no se vsase de ellas, excepto las Demandas de nuestra Señora de Guadalupe, Hospitales de Zaragoza, Pamplona, y San Anton, y las demas de cuyo socorro gozaban los Hijos de la dicha Provincia, y los dichos Religiosos de San Francisco de la Observancia, ò como la nuestra merced fuesse²⁶⁷

Debagoieneko parroketako eta ermitetako liburuetatik heldu zaizkigun berrien arabera, limosna eskaerarekiko garairik zailenak XVII. mendearen erdialdeko agindu honen ondoren hasi zirela dirudi. Ermiten kasuan, ikusiko dugu nola batzuetan serorek administrazio orokorra euren esku izan ohi zuten, eta nola limosna eskaera ere beraien aktibitateen artean zegoen. Guzti honek, edonola ere, ez du 1621eko Konstituzio Sinodalen eta 1629ko eta 1645eko Errege Aginduen aurreko garaietan limosna eskaeraren inguruko inongo kontrolik izan ohi ez zenik esan nahi. Ikusiko dugu aurrerago, espezifikoki limosnen eskaerari eta administrazioari eskainiko diogun atalean, kontrol neurrien presentzia eta indarra lekuen arabera zein dibertsoa izan zitekeen. Baina garrantzitsua dugu 1645eko agindu hau, -orduaz zirela bi edo hiru hamarkada eskas defendatu beharrekoak izan ziren- serorak eta ermitauak, Probintziarendako "susmagarri" zirenen zakuan sartu baitziren, jada gehiago ez irtetzeko.

Edozelan, limosna eskaeren gaineko kontrola, 1645eko Errege Aginduz geroztik ere, ez zen erabat gauzatu, nahiz eta aginduen eragina hedatuz zioala dirudien. Hein horretan, hainbat lekutan 1691n, 1700eko konstituzioen erantzule izan zen Pedro de Lepe apezpikuaren agintaldian egindako bisitak erabakigarriak izan zirela dirudi. Leintz Gatzagako Dorletako seroren komunitatearen bizitza erabat aldatu zuen urte

²⁶⁷ BUA L/161, 13.

hartako bisitak, Don Ambrosio de Baroja doktorea bisitatzailerak ordura artean santutegiarenerako bezalaxe euren sostengu propiorako “en esta prouincia la de Alaua y reino de Nauarra”-n eskatu izan zituzten limosnak eskatzea debekatu baitzien; 1700ean idatzi zizkieten seroretzeko konstituzioetan aipaturikoaren arabera, urte hartarako, “por falta de este aliuiio las que al presente residen padezen suma Nezesidad”²⁶⁸. Debagoieneko beste hainbat lekutan ere izan ziren 1691ko bisitetan limosna eskaeraren inguruan luzatutako debekuak; euren artean garbien adierazi zena, apezpikua beraren bisita pertsonalaren ostean, Aretxabaletako Andre Maria eta Bedarretako San Migel parrokia batuen liburuan beste hainbat aginduren artean idatzirik gelditu zena iruditu zaigu:

8. Yten mando a los Curas que no admitan ni permitan demanda para imagines, santuarios, hermitas, ni otra alguna que sea fuera de esta Villa y su tierra con ningun pretexto que venga a pedir no teniendo para ello licencia de su Illma. ô su Provisor²⁶⁹

Beste adibideren bat ere ematearren, 1692an Arrasaten, Udala auzoko San Esteban parrokiako liburuan elizaren “gubernurako” eman ziren agindu ugarien artean jasotako debekua ere aipatu liteke²⁷⁰.

Baina noski, apezpikutzaren aldetiko neurri hauek ez ziren kasualitatez urte haietan abiatu. XVII. mendearen lehen erdialdetik ekinda gainbeheran joana zen Espainiak Ameriketako kolonietarako komertzioan izan zuen -euskal lurraldeen ekonomiarako hain garrantzitsua izan zen- boterea, eta garai haietaz geroztik abiatu zen "birfeudalizazio" prozesuak propietate txikien jabe askoren gainbehera ekonomikoa ere eragin zuen²⁷¹. Mende bukaerarako gutxieneko estabilitate ekonomikoa galdua zeukan biztanleria asko hazia zen, eta XVI. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik jada abian ziren eskaleen, ijitoen, arloteen, bidelapurren, eta ofizio jakinik gabeko ibiltarien gaineko kontrol neurriek 1673az geroztiko hamarkada haietan izan zuten Gipuzkoan gorakadarik handiena, ermita eta ospitaleetako seroren testuinguruan kontrol egoera zorrotzagoa ezartzeko testuinguru egokia paratu zuena:

Urte horretatik [1673] aurrera eta mendea bukatu arte, 1687-89, 1693-1695 eta 1699-1701 bitarteko epealdietan bereziki, ospitaleetan gertatzen ziren istiluak eta pobre-eskale-arrote-ijitoak nahasten zituzten salaketak agintarien kezka nagusien artean azalduko dira. Ospitaleen ezaugarrien artean, etengabe izango dira aipatuak gaizkileek sortutako kalteak, lehen aurreratutako egoera areagotuz.

Horrela, txirotasunari lotutako gizarte-taldeak susmopean gelditzen dira behin betiko, agintariak parekotasun horretan zigorraren eztala eskaletasunaren eremuan zartatzea sustatuko dutelarik.

Idea giltzarri honen hedatzaileak, eta beraz 1673ko saioaren antolatzaileak, Batzar Nagusiak izango ditugu. Jarrera tradizionalaren iraunkortasunak, dena den, oso agerikoa izaten jarraituko du; horregatik, kontrol eta diziplinarako hartu[ri]ko neurriak bi norabide hartu zituztela esan genezake. Horrela, proposamen berritzaileak merkantilismoan eta erabilgarritasunean sustraitu arren, eskaletasunean murgildutako aleak zuzentzeko egokitutako bideak gauzatzea izango da gizarte-buruen ardura (Zapirain Karrika 2008, 129-130)

Orduan kokatzen dira Probintzia mailako gizarte-kontrolerako instituzioen lehen finkatzeak, abian jarri zen komisarioaren figuraren pean. Baina limosna eskaeraren ohiturari zegokionean, landa-eremuetako hainbat eta hainbat tenpluren sostengurako oinarritzko diru-iturria izanik, ez zen ezabatzen edo mugatzen erraza. Probintziaren,

²⁶⁸ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 63v.

²⁶⁹ DEAH-AHDSS 4143/001-01, 163r.

²⁷⁰ DEAH-AHDSS 3110/002-01, 60v-65v.

²⁷¹ Ikus azalpenak aurreko atalean, 199-200 or.

Erregetzaren eta Kalagorriko Apezpikutzaren aldetik egindako ahaleginek ez zuten artean nahi besteko eraginik izan, eta 1698az geroztiko garaietan, apezpikutzaren eta Probintziaren ahaleginek bat egin zutela nabari liteke. Urte hartan egin zen 1700eko konstituzioak ondorio izango zituen sinodoa, eta urte hartan ekin zitzaion berriro Probintziaren aldetik limosnaren inguruko debeku espezifikokoak bultzatzeari. Esanguratsua zaigu urte hartako Batzarretan berretsi zen ermitauen eta seroren limosna eskaerarako mugapena (beste behin, “fuera de sus Lugares” ezin eskatu izatearena), Beasaindarrentzat Loinazeko eta Bergararrentzat Agirreko San Martin martiria izan zenaren Beasaineko santutegiko ermitauak limosna Probintzia guztian zehar eskatu ahal izatea onartzearekin bat agindu izana. Debozio berriaren bultzada, eta landa-eremuetako tenplu zaharren gainbehera. Honela jaso zen herri bakoitzeko justiziei agindurikoa:

A las quales se buelve tambien à encargar todo el cuidado possible, para que no permitan que lo demas Hermitaños, y Seroras de esta Provincia, pidan limosna fuera de los Lugares de su situacion, porque se reconoce que à causa de tantos como la piden, se minoran los socorros de los necesitados, y de las Religiones, y Ospitales que piden de tabla en esta Provincia, y con su licencia y facultad²⁷²

1698an emandako agindu hau, apezpikutzako konstituzio sinodalak argitaratu zirenean, 1700ean egin ziren Batzarretan ere berretsia izan zen²⁷³. Baina Probintziaren ahaleginak baino handiagoak izan ziren apezpikutzarenak, 1700eko konstituzioetan, limosna eskaeraren ingurukoak zehaztasun osoz zedarritu eta arautzeko saiakera egin baitzen. Noren eskaerak ontzat ematen ez ziren garbi geratzen zaigu gaiari eskaini zitzaion konstituzio zehatzaren hasierako hitzetan:

Siendo la limosna obra de suyo tan meritoria; y como tal encomendada en la Sagrada Escritura: Debemos exortar, y exortamos à todos los Fieles à exercitar misericordia con el proximo, socorriendole providamente en sus necesidades. Mas como no aya cosa, por buena que sea, que el comun adversario no corrompa, convirtiendola en mal: assi sucede, segun que hallamos en la limosna: la qual piden muchos sin tener de ella necesidad; y con nombres de Santuarios, y cassas de devocion, sacan gruesas cantidades de dinero, estafando fraudulentamente à los Pueblos; las quales convierten en vtil proprio, burlandose de aquellos, que incautamente se la dàn (Lepe 1700, 720)

Hori zela eta, 1621eko konstituzioetan agindu izan zen bezala, apezpikutzaren “*inscriptis*” lizentzia espezifikoaren beharra agindu zuten, elizako nahiz alor zibileko agintariei konstituzioaren zaintza esleituz. Debekuak “para Hospitales, Cofradias, Santuarios, Imagenes de devocion, ni para sacar de cautiverio à algun grande personage, ni para Obispo despojado de su Silla, ni otra cosa de devocion” eskatu zitezkeen limosna guztiak baitaratzen zituen. Zaintzaren zorrotasunean sakontzen zen gainera:

advertimos à todos, que cuiden mucho de leer la licencia antes de darle el cumplimiento, para vèr si està cumplido el termino concedido para pedir; ò si està enmendada, ò con otro defecto. Porque teniendo alguno de los referidos, no se les ha de dàr el cumplimiento. Y en quanto à la Colectacion del dinero, se guarde à la letra aquella forma, que en la misma licencia fuere puesta: y en conociendo que en algo exceden, se les quitarà la licencia original, y la embiaràn à nuestro poder. Y si en alguna de estas licencias, ò mandamiento fuere impuesta censura à los Curas para que los ayuden à pedir, no valga: porque nadie debe ser ligado en las obras de supererogacion (*Ibid.*, 720-721)

²⁷² BUA L/159, 7.

²⁷³ *Loc.cit.*

Zehaztasun guzti haez gain, limosnen eskaera baimendua zuten ordena erlijiosoetako komentuen eta txiroen kasuei ere zehaztapenak eta xedapenak egin zitzaizkien, eskaeraren mugak eta hauen gaineko kontrol soziala egoki bermatzeko asmoz²⁷⁴. Eta noski, 1621eko seroren desagerrarazte agindua berresten zelarik, limosna eskaera ere seroren jarduera gaitzesgarritzat aipatzea ez zuten ahaztu: "estas mugeres, que con nombre de sororas sirven, y disfrutan las Iglesias, cogiendo sus limosnas, y haziendose colectoras, y distribuidoras de las Missas, con grande murmuracion, y escandalo de los Pueblos" (*Ibid.*, 496 eta hurr.). Probintziak serora eta ermitauei "fuera de sus Lugares" eskatzea debekatu nahi bazien, apezpikutzatik, beste behin, egokiera seroren desagerraraztea bultzatzeko probestu nahi izan zuten.

Limosna eskaeren aurka eta landa eremuetako biztanleriaren kontrolerako Probintziaren eta -behintzat- Kalagorriko apezpikutzaren artean josi zen sintonia berri honen testuinguruak, bestalde, 1700eko konstituzioetan baitaratu ziren seroren desagerrazterako aginduek, are Errege Kontseiluaren aldetik helarazi omen zenak eta azaldua dugunez, gure ustetan faltsua behar zuenak ere, Probintziaren aldetik inongo erreakziorik motibatu ez izana ulergarri egiten digu. 1621eko konstituzioen argitalpenaren ondoren izandako liskarrak eta auziak ez ziren 1700eko konstituzioen argitalpenaren ondoren errepikatu, nahiz eta azken hauetan 1621eko desagerrarazte agindua hitzez hitz jaso zen, azalpen gehigarriekin eta Errege Kontseiluaren ustezko apezpikutzaren aldeko sententziarekin egin ere. Interes komunak indartsuagoak ziren, eta aldi hartan Probintziak ez zuen seroren defentsan zipitzik esan.

Baina neurriak neurri, apezpikutzaren eta Probintziaren nahien kontrara, beraien kontroletik at zeuden limosnen eskaerek jarraitzen zuten. 1722ko Probintziako batzarretan, San Martin martiriaren santutegiko ermitauaren limosna eskaerak errazteko erabakiak hartzearekin bat, beste ermitauen eta seroren limosna eskaerarako mugapenak berretsi ziren, "porque se reconoce que sin embargo de los acuerdos que están tomados, salen diferentes Hermitaños y Sororas a pedir limosna, fuera de sus Lugares". Beste behin, herrietako justiziei aginduaren zaintza eta beharrezko zigorren ezarpena agindu zitzaien²⁷⁵. Eta halaber, apezpikutzako bisitatzailleek ere urte berean egindako bisitetan berretsi zuten aurreko urteetako aginduetan eta konstituzioetan ezarririko debekua;

²⁷⁴ Oinpeko notan bada ere, interesgarria deritzot alderdi hauen inguruko aipua ere osorik jasotzeari, limosna eskaeraren gaineko ikuspegia osatzen baitigu: "Y para mayor inteligencia de nuestra mente, en razon de demandas, y petitorios; declaramos, que todos los Conventos de Religiosos de las Ordenes Mendicantes, y los Monachales, que por razon de Santuario Insigne acostumbra a pedir, que están fundados dentro de los limites, y terminos del Obispado, por virtud de su fundacion tienen licencia para pedir; y nuevamente se la damos en virtud de esta Constitucion. Y encargamos mucho, que repartan, y dividan providamente entre si los lugares, en donde cada Convento debe pedir, para escusar confusion, y evitar inconveniente de que dos demandas de un mismo Convento, ò Religion alleguen limosna de vn mismo lugar. Y quando sucediere esto, admitan vna sola; conviene a saber, la que primero ocupa la tierra, y den repulsa a las demás.

Asimismo declaramos no ser comprendidos en este indulto, ò licencia aquellos Conventos, que son de fuera del Obispado, aunque estén muy cercanos, y en la raya de él; porque realmente no son de nuestro territorio; y no siendolo, no son comprendidos en el favor de la ley. Y si alguno de estos Conventos, alegando constumbre, ò otra alguna razon, se arroja a demandar dentro del Obispado, sea repelido, y no permitido recoger limosna; salvo si para ello tuviere nuestra licencia particular.

Los pobres pasajeros necesitados, quando vãn de camino, serán ayudados con limosna, quando la pidieren: y para pedirla, se les darà licencia, y no se les impedirà. Mas se advierta mucho, si hizieren mansion, en averiguar su necesidad; y siendo supuesta, se les mandarà que no pidan. Del mismo modo se concede a los mendigos de cada Lugar. Y quando se demanda para algun pobre vergonçante, siendo dentro del Lugar en donde actualmente tiene domicilio, bastarà que para ello tenga licencia del Cura de dicho Lugar, ò aviendo muchos, del que lo es de su propia Parroquia. En todo lo qual, encargamos se proceda con mucha prudencia, y madurez; persuadiendose a que se haze la causa de los pobres verdaderos, prohibiendo que pidan los que realmente no lo son" (*Ibid.*, 721-722).

lehenago ere aipagai izan dugun Aretxabaletako Andre Maria eta Bedarretako San Migel parrokia batuen liburuan honako agindua utzi zuen Geronimo Joseph de Santerbas Bisitatzaille Orokorrak:

Y porque esta establecido por constituciones synodales no se admitan questorias ni demandas de dentro ni fuera del obispado sin constar de la lizencia ordinaria para ellas, y lo mismo se manda por las leyes de estos reynos por los graues incombenientes que de ello se siguen, y auerse rreconocido se contrauiene a ello, especialmente en lo que toca a la rredempcion de captibos mando su merced que se cumplan las dichas synodales sin permitir rrelaxacion alguna, y no de lugar a ello el Cura a quien pribatibamente le toca su obseruancia uajo las penas impuestas por derecho y las synodales, y de que se procedera contra cada uno creciendo la contumacia a lo demas que de derecho aya lugar²⁷⁶

Baina kontrol saiakerek behin eta berriro egiten zuten porrot, eta 1730eko batzarretan beste behin berretsi zuten ermitauk eta serorek limosna zegozkien lurraldeetatik kanpo eskatzeko debekua; eta ostera, gaizki-ulertuak medio, ordenetako komentueta limosna eskatzaileak arazoak izaten hasiak ziren. Izan ere, 1730ean bertan, Probintziaren eskakizunez, 1629ko eta 1645eko Errege Aginduen kopiak helarazi baitziren herrietara, bertan agindurikoa bete zedin. Eta antza, zenbait agintari munizipalek, agindu hauek zurrunki interpretatuz, komentueta limosna eskatzaileei ere zegokien herritik kanpo eskatzea eragozteari ekin zioten. Ez baitziren beti udal agintariak ordenetakoekin ongi konpontzen, Errege Aginduak bertako komentueta koei edo inguruko herrietakoiei eragozpenak sortzeko probestu zituztela dirudi. Hala, Probintziak beste Errege Agindu baten eskaera egin zuen, aurreko Errege Aginduen debeku eta mugapenek zertan zetzaten garbiago zehaztu zedin. Helarazi zen bada Errege Agindu hau ere, bere azalpenekin:

Y respecto de que el animo de esta [*Errege Kontseiluarena*] nunca avia sido, ni era embarazar, que los Religiosos que tenian sus Conventos dentro de su Territorio pidiessen Limosna por todo èl, mediante el beneficio, y Pasto espiritual, que reciprocamente recibian de ellos todos sus individuos (lo que no sucedia con los Forasteros de essa dicha Provincia) de el que era preciso quedassen privados, si se les embarazase el salir à pedir Limosna à otras Poblaciones, como lo avian executado desde la Creacion de sus Conventos, mediante lo qual, y de que en esto essa Provincia no recibia perjuicio alguno, antes si grande vtilidad en el Pasto espiritual, con que dichos Religiosos assistian a todos sus individuos: Por tanto nos suplico fuessemos servido declarar, que la Proviscion despachada en veinte y vno de Agosto passado de este Año, era, y se entendia para con los Religiosos forasteros de essa Provincia, y que en su consecuencia no se impidiesse, ni embarazase à los que tenian sus Conventos dentro de su Territorio el pedir Limosnas, como avian acostumbrado executar por todo èl²⁷⁷

²⁷⁵ BUA L/160, 17. San Martin martiriaren santutegiaren aldeko erabakia ostera, honakoa izan zen: “Presentose otro Memorial por D. Juan de Loynaz, Capellan del Santuario de San Martin de Loynaz, en que propone la gran costa, que le hazen los demandadores, que embia à las Republicas, y que le seria mayor la limosna, si en cada Republica se señalase dia fixo, y Casa a donde se recogiesse. Sobre lo qual acordò la Junta, que el dicho Capellan, nombre personas en las Republicas, ô tome sus providencias en ellas, en la forma que considerase de su mayor utilidad, pues, la Provincia dessea el que esta limosna le sea abundante, y provechosa, para si, y para la decencia de el Santuario”. Ohar bedi nola Probintziako Batzarraren erabakiaren azken esaldi hau bi hamarkada lehenagoko Konstituzio Sinodaletako arauen aurka doan; izan ere, limosna eskaera lizentzia gabekoei debekatzeko konstituzioetan argudiatariko arrazoietariko bat, limosna tenpluarentzat beharrean eskatzaileentzat izatearena baitzen. Eta ostera, Batzarraren arabera, San Martinen santutegiko ermitauak jasoriko limosna “para la decencia del Santuario” izateaz gain, “para si” ere izatekoa zen, horrek erreparo handiegirik sortu gabe.

²⁷⁶ DEAH-AHDSS 4143/001-01, 259v.

²⁷⁷ BUA L/161, 14-15.

Baina hamar urte beranduago, 1740an, beste behin ere, berberetan zeuden. Eta beste behin ere, San Martin martiriaren inguruko gertakizunen harira berretsi ziren ermitauen, seroren, eta bestelako kontrol gabeko limosna eskatzaileen aurkako neurriak. Beasainek eta Bergarak San Martinen jatorriaren inguruan zeuzkaten liskarrak berotu ziren garai hartan, eta auziari buruzko erabakiak hartzearekin bat, Errege Aginduei aurka egiten zieten “el gran numero de Religiosos forasteros, que se introducen en esta Provincia à la postulacion de Limosnas” zirela eta, herrietako justiziei aginduak betearazi zitzatela agindu zitzairen, eta Aldundiari berriz, aginduak betearazten ez zituzten herrietako justiziei eurei zegozkien isunak jartzea. Horrekin bat, 1629ko, 1645eko eta 1730eko Errege Aginduak erregistroan jaso ziren, agindurikoari buruzko inongo zalantzatarako biderik ez uzteko.

Baina, agindu eta arautegietan behin eta berriro berretsitako lizentziaren beharra, limosna eskaeren gainbehera eragiteko aitzakia baino ez ote zen, ala ematen al zuten instituzio ezberdinek lizentziarik, halakorik eskatzen zitzaizkion? Norbere herriaz besteko espazioetan eskatzea, ordenetako komentuez beste, txiroei baimentzen zitzaizela ikusi izan dugu, beti ere, "txiroa" izatearen definizio egokiaren baitan bazeuden, eta beharrezko lizentziarekin noski. Tenplu erlijiosoen kasuan ere, gaixoei eta txiroei loturiko ospizio eta ospitaleei behinik behin, lizentzia ematea batere arraroa ez zela dirudi, limosnen eskaera eta administrazioari aurrerago eskainiko diogun ataleko adibideetan ageri zaigunez. Limosna eskaeraren inguruko jazarpenaren xede nagusi, beraz, beraien esparruetatik kanpo irtetzen ziren ermitetako limosna eskaleak eta Gipuzkoako Probintziara kanpotik sartzen ziren guztiak zirela esango genuke.

1747an beste pausu bat eman zen, ermitauei erlijiozko janzkera debekatu zien Errege Agindu baten bidez. Debekuari honako argudioarekin ekin zitzaion:

Con motiuo de hauerse entendido el desorden que hauia en Santeros, ó Hermitaños, y que para cometer mas à su saluo sus excessos usaban de trages que parecian de alguna orden regular con lo que lograban indemnidad, siempre que las gentes piadosas no se recelassen de ellas²⁷⁸

Sekularrak ziren “Santero, ó Hermitaño” guztiei erabili ohi zituzten erlijio-gizon jantziak erabiltzea debekatu zitzairen beraz, eta “al comun del Pais” iragan zitezela agindu, “con aperciuiamiento de que passado el termino que les señalasen se procederia contra ellos, a imponerles las penas establecidas contra los uagamundos”. Korrejidoreei agindua zurrunki betearazi zezatela ere agindu zitzairen. 1747ko ermitauen janzkeraren debekuaren ostean bestelako arrazoiak ere izan ziren, limosna eskaeretako arazoez beste, "cometer actos de sodomia, en contravención de la Regla de la Orden de Carmelitas Descalzos a las que pertenecían" ere aipatu baitzen. Eta hain zuzen ere, "sodomía" ekintza haiek egiteaz salaturikoetariko bat Francisco de Noguera izan zen, 1744an, aipatzen zaigun karmeliten meneko ermitauen elkargoko buru izendatua izan zena (Aguirre Sorondo 2013, 33-34). Azken datu hauen berri eman zigun Aguirre Sorondok 1747an "sacristanas, y *seroras*"-ek zeramatzen abituden erabilera debekatu zuen lehen Errege Agindu bat ere eman zela argitzen digu, hauei apezpikutzen aurrean beharrezko tituluekin agertzea ere agintzen zuena, eta etxeetatik limosna eskaeran ibiltzea ere debekatzen ziena (*Ibid.*, 34). Alabaina, laster ikusiko dugunez, 1767an serorek oraindik beraien abituak erabiltzen jarraitzen zuten, eta baita limosna eskaeran aritzen ere. Eta bi data hauen artean, ekin eta ekin, 1760ko Probintziako Batzarretan ere berriro berretsi behar izan ziren limosna eskaeraren inguruko neurri berberak:

²⁷⁸ Aipua 1769ko seroren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako aginduan baitaraturiko berridazketatik jaso da, 1747ko Errege Agindu orijinalaren bestelako kokapenik ezin aurkitu izan baitugu (KKA-ACC 17/769/1, f.g.).

eskatzaileak lekuan lekuko justiziek baimenduak soilik izan zitezkeen, eta nork bere herrian baino ezin zuen eskatu²⁷⁹.

Bien bitartean, seroren izendapen berrien harira, apezpikutzaren aldetik ere hainbat informazio dilijentzia jarriak ziren abian. Hauetariko bat izan zen 1759an Javier Ignacio de Artech Bergarako bikarioari Antzuolako Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako serora baten izendapena zela eta eskatu zitzaion –eta jada aipagai izan dugun– informea, eta bertan, bikarioak, serorak apezpikutzaren aurrean onargarri izan zitezten asmoz, etekin gutxi izanagatik biziraupen egokirako beste irabazten zutela (“se han mantenido decente y competentemente”) azaltzearekin bat, kargura sartzear zen seroragaiarekiko “con las obvenciones y emolumentos arriba expressados, y con la labor de su manos puede mantenerse frugalmente, y sin peligro de exponerse á mendigar” zioen, ordurako eskaleen eta “uagamundos”-en irudiari asoziatu zegoen limosna eskaera hauen aktibitateen artean ez zegoela adierazi nahian edo²⁸⁰. Ermiten itxierarako eta seroren desagerrarazterako 1769ko Errege Aginduaren ondorengo informazio dilijentziak egin zituenean ere ez zuen Javier Ignacio de Artech berak inongo limosna eskaerarako ohituren berririk eman, ez eta ermitetako seroren bizimoduari eta etekinei buruzko berriak eman zituenean ere. Oso etekin gutxi zituztela eta “sin el socorro del trabajo de sus manos, que es lo que principalmente las dà con que alimentarse”, ezin biziraungo zuketela baino ez zioen²⁸¹.

Baina legeen eta aginduen alorrera itzuliz: XVI-XVIII mendeak bitartean, 1563, 1602, 1621, 1629, 1645, 1691, 1698, 1700, 1722, 1730, 1740, 1747 eta 1760 urteetan instituzio ezberdinek helaraziriko konstituzio eta agindu konstanteek ezarri nahi izan zituzten debekuen azken kapitulua, Probintziak Errege Kontseiluari 1767an eskaturiko neurri batzuek jarri zuten abian. Azken kapitulua, seroren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako 1769ko Errege Agindurekin baino bukatuko ez zena. 1767an, bada, Probintziako Batzarretan eredugarritzat hauteman zuten limosna eskaeran zebilela Aian atxilotu zuten Berastegiko emakume baten kasuak bide emanik, atxiloketa eredugarriaren berri herri guztietan eman zedin agintzearekin bat, limosna eskatzaileen inguruko beste zenbait neurri hartzea ere deliberatu zuten; tartean, hogei urte lehenago ermitauei aplikatu zitzairen arau berbera serorengana ere hedatu nahi zuena. Aipuan hitzartu ziren beste neurrien berri ere emango dugu, garaian identifikatu gabeko ibiltarien gaineko kontrol sozialak sortzen zuen arduraren testigantza egokia ematen baitigu, seroren limosna eskaeraren aurkako debeku eta neurrien testuingurua ere azalduz:

Que al Padre Provincial de San Francisco se escriba, participando esta providencia [*atxiloturiko emakumearena*], y pidiendo á S.Rma. la de mandar á todas las Comunidades de su Religion, que hay en esta Provincia, no den limo[s]nas, ni comida á Mendigo alguno, que no presente Cedula de la Justicia respectiva: que cada Cavallero Procurador, en nombre de la Junta, pida lo mismo á los Superiores de las Comunidades de otras Religiones, que hay en su Pueblo.

El Cavallero Procurador de Sayaz expuso á la Junta, que á las providencias tomadas por la Universidad de Aya, se ha añadido en los seis Pueblos de la Union, la de notificar á todos los Caséros, que por ningun motivo den abrigo en los Caserios á Mendigo alguno, pena de seis ducados; y que esta providencia se observa rigurosamente.

²⁷⁹ BUA L/166, 34. Jarraian azalduko ditugun 1767ko Probintziako Batzarretan aipatu ziren 1760ko erabaki hauek; ezin izan dugu urte hartako Batzarretan hartu zen erabaki honen kokapen konkretua zehaztu.

²⁸⁰ KKA-ACC 17/759/40, f.g.

²⁸¹ KKA-ACC 17/770/18, f.g.

La Junta mui satisfecha de tanto celo, explicó su agradecimiento à la Alcaldia.

Noticiosa la Junta de que ha havido Seroras, que fundadas en la exterioridad de trage, semejante al de Religiosas, con que se visten en el País, llegan á persuadirse, y persuadir al vulgo, que poseen exenciones, que no tienen, acordò suplicar al Consejo, que asi como lo fueron los Hermitaños, sean tambien las Seroras, privadas del trage singular que usan²⁸²

Serorei zegokien eskakizunaren erantzunik artean heldu gabe zegoela, 1769ko uztailean Probintziako Batzarrek bere lurraldeko ermiten inguruan hainbat dilijentzia egitea hitzartu zuten. Abuzturako herri bakoitzeko ahaldunak Aldundiari honakoen berri eman behar zion: “quántas ermitas tiene por conveniente suprimir, què rentas tienen, y de què naturaleza, y què aplicacion intenta hacer de ellas, esponiendo los motivos, que tiene para la conservacion de las demàs”. Aldundiak Gaztelako Errege Kamarari jasoriko informazioa helaraziko zion, honek Probintziari, herrietako agintariak itxi beharrean zeuden ermitak istera behartzeko ahalmena eman ziezaion. Beharrezko zitekeen edo inplikaturiko parteek hala eskaturiko kasuetan, Elizako edo Erregeren auzitegietara joko zen itxieren betekizunerako²⁸³.

Gauzak horretan zirela, urte bereko azaroan heldu zen Errege Kontseiluaren aginduak bi arazoak batu zituen, seroren limosna eskaerarena eta ermiten itxierarena, eta erabaki zorrotzez, ermita guztien itxierarako eta seroren desagerrarazterako agindu bateratua eman zuen. Gainera, ermitetako serorez gain, parroketakoak ere desagerrarazi nahi ziren, sakristauek ordezkatu zitzatela agindu baitzen. Aginduaren sarreran ermitauek janzkera erlijiosoaren 1747ko debekua izan zuten aipagai (ermitauekin bat serorei eurei ere helarazi zitzaiona), Gipuzkoako Probintziak eskatu bezala, hau ere serorei hedagarri egiteko asmoa zela eta:

No obstante lo literal de esta resolucion [*ermitauek janzkerarena*], que por punto general se participó a todas las Justicias del Reino, se experimenta en la Prouincia de Guipuzcoa un abuso introducido por una clase de gentes que se llaman Seroras.

²⁸² BUA L/166, 34-35. Gehiegi luzatzeko arriskuz bada ere, eskaera honetarako akuilu izan zen kasu zehatza ere aipuan jasoko dugu, gaiaren inguruan garaian zegoen giro orokorra ere isladatzeaz gain, eredu lez Probintziako herri guztietan jakinarazi zelako, kasu zehatza testuinguruaren baitan eraginkorrago bihurtuz. Aiako alkateak helarazi zuen eskutitzak honela zioen: “Deseando el mas exacto cumplimiento del Cap. 10 tit. 29 de los Fueros de V.S. y el Acuerdo de la Junta General de la Villa de Segura del año de 1760 resolvió esta Universidad el dia 19 de Marzo ultimo en su Ayuntamiento General, que nadie pidiese limosna en su territorio sin licencia de la Justicia, y aun con élla, unicamente dentro del territorio, y no fuera. Que á ningun forastero se permita hacer la demanda de limosna, sea Serora, Hermitaño, Santéro, ó otra especie de Postulante, sino á los que V.S. huviese concedido licencia, y á los Peregrinos, y Romèros que siguen su viage á su destino con Pasaportes legitimos. Esta providencia se publicó de modo, que pudiesen tener noticia de su tenor todos los havitadores, y Naturales del territorio: no obstante, muchos no se han desengañado hasta escarmentarlos; y otros han proseguido sus demandas con disimulo. El dia quatro del presente mes embiè á la Villa de Verastegui [*a*] Magdalena de Verastegui, natural de dicha Villa, con Mozo, y Cavallería, por que expuso tener el muslo inchado, y no podia andar à pie. Está muger se entregò al Alcalde de aquèlla Villa, informandole de algunas de sus condiciones, y de haver sido aprehensa en la demanda, para que tomase la providencia correspondiente para su remedio: le pedia al mismo tiempo, que conforme al Acuerdo de dicha Junta, procurase satisfacer los alquileres del Mozo, y Cavallería; y me respondiò, que sin embargo de dicho Acuerdo, no se estilaba pagar iguales portes, y bolviò el conductor, sin havèr conseguido el premio de su trabajo.

Suplico à V.S. se digne de mandar á dicho Alcalde, ò á la referida Villa de Verastegui, pague treinta reales de Alquileres, que le corresponden en cinco leguas de distancia al que condujo à dicha muger, ò arreglar la cantidad, que merece atendiendo á la distancia, y ocupacion, de modo, que sirva de norma para lo succesivo para los casos que ocurran, respecto de que dicho Acuerdo de Junta no expresa, ni señala la cantidad, que debe pagarse.

Nuestro Señor guarde à V.S. en toda prosperidad felices años, como puede, y deseo. Aya, y Mayo 18 de 1767. Su mas atento, y rendido Hijo de V.S. D. Juan Ignacio de Zulaica”

²⁸³ BUA L/166, 9-10.

hermitañas o Beatas, usando indiferentemente de qualquiera de estos tres títulos y de habitos de Dominicas, Franciscas, ó del Carmen, con unas tocas tán uenerables, que infunden en toda la Prouincia un respeto tán eficaz que uiolentando la caridad de los Fieles apenas se atreben a negarles la limosna con perjuicio notable de otros uerdaderamente pobres²⁸⁴

Seroren limosna eskaera ia-ia lapurreta bezala agertzen zuen sarrera honetako argudioak akuilutzat harturik, bada, seroren instituzioa Errege Kontseiluaren agindu bidez debekatu, eta ermita guztien itxiera dekretatu zen. Landa-eremuetako eta hiribilduetako auzoetako aktibitate sozialaren erdigune izanak ziren ermitetako bizitza bapatean eten zen, eta hauetako serorek eta bestelako zaintzaileek ermiten sostengurako egiten zituzten limosna eskaerak kontrolatzeko beharra ere bapatean desagerrarazi zen. Neurri hauek testuinguru zabalago baten parte ziren, hiribilduen eta landa-eremuen arteko botere borroken parte, hain zuzen ere. Hiribilduek Probintziako espazio guztiaren gaineko erabateko kontrola lortzeko saiakeren azken kapituluetariko bat eman zen horrela, Aro Garaikidearen izenez ezagutzen dugun beste garai baterako bidea zabaltzeko pausu garrantzitsu bat emanaz.

Baina garrantzitsua den zerbait falta zaigu: XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakeren ondorengo hamarkada eta mendeetarako, arauen, aginduen eta debekuen jarraipena baino ez dugu egin, eta hauen betearazpena gauzatzen ez zela bi mende horietan zehar aginduriko neurrien errepikapenak berak azaltzen badigu ere, neurrien aplikazioak tenpluetan eta bertako seroratzetan izan zituen ondorioen jarraipena egitea falta zaigu, hau praktikara eraman zen moduari eta bere efektibitateari neurria hartzeko.

Debagoienez, esan dugunez, Leintz bailaran 1623ko Ontiberos bisitatzaillearen bisitak erabakigarriak izan ziren, eta hainbat serora izan ziren kanporatuak; baina lehenik jarraipena egingo diogun espazio honetan, kanporatzeek eurek baino gehiago, seroretxeen ondorengo urteetako jarraipenak erakusten digu seroren presentziaren gainbehera nolakoa izan zen. Kasu batzuetan, ondorengo urteetako presiozko neurriak erabakigarriagoak izan zirela ere nabari liteke. Gogoan izan ditzagun, batez ere, XVII. mendearen hasieratako desagerrarazte saiakera bezalaxe, mendearen bukaera aldera eta XVIII.enaren hasiera aldera limosnaren eta landa eremuetako kontrol gabeko biztanleriaren gain Probintziak eta Kalagorriko apezpikutzak bultzatu zituzten kontrolerako neurriak ere.

Arrasaten, Udala auzoko San Esteban parrokian Ontiberos bisitatzailleak agindua eman eta gero, aurretik serorak gozaten zituen lurrak (sagastia eta ortua) eta seroretxea errentan jarri ziren, eta 1623-1636 bitartean behintzat, hala jarraitu zuten. 1633an itzuli zitzaion jada aski zaharra behar zuen (ezagutzen diogun testamentua 1610ean helarazia zuen) Catalina de Uruburu bertako serora izan zenari seroratzat sartzerakoan eman zuen dotea (ez dakigu ziur, 8 edo 18 dukat), kanporatze agindua bete zenaren seinale. Errentan jarri zutenaz geroztiko seroretxeari buruzko hurrengo berriak 1680ko kontuetan ageri zaizkigu, eta “casilla adonde bibe la beata” lez aipatzen zaigunez, serorak itzuli zirela dirudi. 1707ko kontu batzuetan ere “la casa de la sorora” lez izendatu zuten, baina 1711ko kontuez geroztik “la casa de la yglesia”ko mantentze gastuak ageri zaizkigu, eta 1726-1727 bitarteko kontuetan, etxea sakristauari errentan eman zitzaiola ikusten dugu. Ez zen beste etxeren baten obrarik egin, eta sakristauari errentan eman zitzaizkion lurren artean “heredad de Lurgorri” bat aipatu zen, aurretik bertako seroraren ustiapenerako zen lursailetariko bat, hain zuzen ere. Ia mende baten denbora tartean eman ziren gorabeheren ostean, XVIII. mendearen hasieratan jada

²⁸⁴ KKA-ACC 17/769/1, f.g.

sakristauak pasa ziren lehengo seroren lanak egin eta etxeaz goatzera (hori bai, errentan)²⁸⁵.

Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiatik maiatzaren 10ean igaro zenean ere, Ontiberos bisitatzailleak seroren desagerraraztea agindu zuen, ondasunen kontrolerako beste zenbait aginduren artean:

Yten mando el señor Vissitador que la beata que biue en la cassa de la yglessia de Aoçaraça la desocupe y entregue la llaue de ella al cura de la dicha yglessia, dentro de dos días de la publicaçon de este mandato so pena de excomunion mayor en que incurra no lo cumpliendo = y ansi mismo mando que ninguna persona ecclesiastica ni seglar impida la execuçon de cumplimiento de este mandato pena de excomunion mayor en que ipso facto incurra, y el cura los declare pena de diez ducados en que sera, irremissiblemente condenado [...]

yten mando el señor Vissitador que el cura y beneficiados de la dicha yglessia de Aoçaraça tengan cuenta de todos los ornamentos y limpieça de [?] este mes y que a cuenta de ellos sea y que el maiordomo les entregue con inbentario a los dichos cura y beneficiados y ellos tenga[n] la llabe de la sacristia²⁸⁶

Maiatzaren 16an Julio Abad de Landak, aginduaren betekizunari jarraiki, ez parrokia bertako Inesa de Sardaneta serora soilik, baita San Anton ermitako Mariana de Zuazubiscar serora ere, biak beraien seroretxeetatik irtenak zirela eta hauetako giltzak emanak zizkiotela adierazi eta sinatu zuen. Beti ere konstituzioetako araudiaren jarraibidez, azaroaren 1ean sakristaua izendatu zuten parrokian, eta aurretik seroretxe izana zenera igaro zen bizitzera, honi zegozkion lursailak ustiatzeko eskubidearekin. Handik zazpi urtera, 1630ean, bisitatzailleak Mariana de Zuazubiscar San Anton ermitako serora izanari seroratzara sartzerakoan eman izan zuen 28 dukateko dotea itzul zieziaotela agindu zuen, “pues es justiçia por no hauerse cumplido de auerla dexado biuir en las cassas de la yglessia en el ministerio que yntento de seruir a la yglessia con auito de beata”. Baina handik bi urtera San Antoneko serora berriro seroretxean ageri zaigu; bertan gelditu zedila agindu zuen bisitatzailleak, horrela dotean emaniko 28 dukatak elizarendako geldituko zirela eta. Gorabehera hauek izan ziren bitartean, urteren batzuetan serorak seroretxearen errenta ordaindu zuela dirudi, eta bisitatzailleak, doterik itzuliko ez zitzaionez gero, errentarik ordain ez zezala agindu zuen. Serora hil ostean errentan izan zuten seroretxea, behintzat, 1727rarte.

Parrokia bertako seroretxea ere 1634an, serora kanporatu eta hamaika urtetara, errentan jarri zuten. Obra ezberdinak tarteko (parrokiatik fisikoki banandu, besteak beste), errentan mantendu zuten, 1702ko kontuetan, lehengo seroretxea “para el seruicio y viienda del cura de ella” zela zehaztu zuten arte. 1706an egindako bisitan bisitatzailleak parrokiako apezak errentan hartzen zuten elizako etxearen eskumena elizako fabrikaren eskutara iragan zedin agindu zuen; alegia, bertan bizi zitekeen, baina ezin zuten etxeaz berea bailitza baliatu, errentaren eta etxea beraren gaineko eskumena elizako fabrikarenak baitziren²⁸⁷.

Azkeneko ondorio hauek izatera heldu zen Ontiberos bisitatzaillearen lehen agindu hura Aozaratza 1623ko maiatzaren 10ean eman bazen, bisitatzaillea Goroetako Santiago Apostolua parrokiatik eta hiribilduko Andre Maria eta San Migel parrokia batuetatik hurrengo egunean iragan zenerako, serorek jada desagertuak behar zuten, bertako liburuetan egun hartako bisitetan idatziriko aginduetan ez baitzuen inongo serorarik aipatu. Gogoan izan dezagun 1618ko auzian, besteren artean, Andre Maria

²⁸⁵ DEAH-AHDSS 3110/001-01 (1500-1640) eta DEAH-AHDSS 3110/002-01 (1644-1735).

²⁸⁶ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 29v.

²⁸⁷ DEAH-AHDSS 4145/001-01.

parrokiako serora kanporatuak izan zirenen eta auzirako ahaldunak izendatu zituzten seroren artean zegoela; ez al zen serora itzuli? Ala bisitatzaillearen itzuleragatik alde egina ote zen? Goroetan oster, Santiago parrokian serorak bazeudela dakigu. 1623ko bisitaz aurretiko kontuetan seroretxea hainbatetan aipatu izan zen; izan ere, 1610ean Maria Garcia de Mendicuzza seroratzara sartu ostean, 1612an honen dotearen 30 dukatak jaso zirenetik, 1614az geroztik seroretxearen eta parrokiaren obrei ekin baizitzaien. Ontiberos bisitatzaillea –1623an– bertatik iragan zenean eta oraindik martxan zeuden obren kontuak ere jaso zituenean, ez zen hauetan seroretxearen inongo aipamenik egin, nahiz eta aurreko urteetan, azkenengo aldiz –bisitatzaille berberak bailaran zenbait liskar sortu zituen– 1618an, “la casa de la beata”ren obrak aipatu izan ziren. 1623ko bisitaz geroztik, seroren desagerrarazte agindurik parrokiako liburuan idatzirik utzi ez bazuen ere, bertatik seroren eta seroretxearen inguruko aipamenak desagertu ziren, 1636ko inbentarioan, “vna cassa don[de] biue y a de viuir el clerigo o cura que sirue la dicha yglesia con dos o tres pedacitos de guerta que goza ansi mismo el dicho cura” aipatu zen arte. Ez zegoen seroretxerik jada, nahiz eta bisitaz aurretiko urteetako obrak seroretxearenak izan, eta apezaren etxearen inongo aipamenik 1636rarte ez izan; seroretxea apezaren etxea bihurtu zela, alegia²⁸⁸.

Arrasaten, Garagartzako San Migel Goiaingerua parrokian ere antzerako ibilbidetan zebiltzala dirudi. Bertako kontu-liburua Ontiberos bisitatzaillea igaro zen urte berean hasi zuten, 1623an, eta seroren desagerrarazte agindurik jaso ez bazen ere, 1632an bisitatzailleak bertako serora izana zen Magdalena de Jaureguibarriari seroratzat sartzetakoan eman zituen 40 dukatak itzultzea agindu zuen, beste kasuetan ere ikusi dugun prozedura berberarekin. 1638an egin ziren obren kontuetan etxea sakristauaren etxe bezala aipaturik ageri zaigu, eta izandako auzi baten gastuen berri ere eman zen: auzi hau “sobre si se deuia admitir el sacristan o no y nombrar el cura o el mayordomo” izana zen; sakristaurik aurretik izan ez zutenaren seinale. Ez dakigu auzi honen gorabeherak zertan izango ziren, baina jada ez zegoen serorarik, eta 1659rako etxea jada “cassilla del cura” izatera iragan zen; 1703an apezaren bertan bizi zela ageri zaigu²⁸⁹.

Lehen parrokia hauetakoez baino data berantiaragoetako kontu-liburuak izan zituzten beste zenbait parrokiatan ere ageri zaizkigu prozesu honen azken sekuentziak, bertan noizbait serorak izanak zirela iradokitzen dituztenak. Adibidez, gaur egun Arrasateren parte baina orduan Aretxabaletarena zen Bedoña auzoko Santa Eulalia parrokiako liburua 1630-1631 urteetako kontuekin hasten da, eta bertan jada “la casilla de la yglesia” errentan zegoela ikusten dugu. Hainbat obra egiten ziharduten, eta 1636an jada apezaren etxe bihurtu zen: “la cassa de la dicha yglesia donde uiue el cura”. Urte berean bisitatzailleak apezari eman zizkion aginduetan, serora zegoen kasuetan honi esleitzen zitzaizkion aktibitateen gaineko ardura ere (bereziki ondasunen kutzak eta hauen administrazioa, eta Sakramentu Santuaren lanparako argiaren zaintza) apezari esleitu zitzaizkiola ikusten dugu²⁹⁰. Eskoriatzan ere, Mazmela elizateko Andre Mariaren Zeruratzea parrokian 1630ean serora izendapena egin zen, baina sarrera kontratua alokairuaren formularekin egin zuten jada, ikusi berri ditugun kasuetan ageri zaigun bezala. Kasu honetan kontratuan urteroko 3 dukaten errentaren ordainketa ezarri zen, eta seroraren heriotza orduan ematekoak izango ziren 100 dukaten betekizuna. Baina zenbait urtera, 1633an, serorak Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko seroretxean sartzea lortu zuen eta hainbat arazo izan zituzten, ondoren zehaztasun gehiagorekin ikusiko ditugunak, eta oraingoz, testuinguru orokorrako batean atzematera mugatuko

²⁸⁸ DEAH-AHDSS 2335/002-01.

²⁸⁹ DEAH-AHDSS 2295/000-00.

²⁹⁰ DEAH-AHDSS 1662/001-01.

garenak²⁹¹. Bada, hemen ere, parrokiako kontu-liburuari 1694an ekin zitzaizolarik, 1704rako jada seroretxean errenta ordainduz bizi zen sakristau batekin egiten dugu topo. Parrokiak bereak zituen zenbait behi gobernatzeko zituen, eta 1733an bisitatzailerak sakristauari errentaren prezioa jeistea agindu zuen, honek bere lanagatik soldatarik jasotzen ez zuela eta. Kontu-liburuko azken urterarte, 1756rarte behintzat, parrokiako etxean sakristauak izan zirela ikusten dugu²⁹².

Desagerrarazte saiakeren ostean alokairuan jarriak ageri zaizkigun Leintz bailarako auzo eta elizateetako beste parrokiaren batzuetako seroretxeen berri ere badugu. Aretxabaletan, Larrino elizateko San Kristobal parrokiakoa 1631-1720 bitartean²⁹³, Arkarazoko San Migel parrokiakoa 1717an²⁹⁴, eta Izurietako San Pedro parrokia 1723an²⁹⁵ egoera horretan zeudela dakigu. Beste datu batzuk ere badira, aldakuntzak bapatekoak izan ez zirela, eta XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakeren beroaldiaz beranduagoko garaietan luzatu zirela berresten ditugunak. Aipatu berri dugun Aretxabaletako Izurietako San Pedro parrokiako serora batek 1644an egin zuen testamentua²⁹⁶, eta Eskoriatzan, Gella elizateko Andre Maria parrokiako serora batek aldiz, 1674an egin zuen²⁹⁷.

Auzoetako eta elizateetako parrokiak egoera hori bazen, Leintz-bailarako ermitei buruz heltzen zaizkigun datu xumeek beste hainbesteko egoera azaltzen digute. Ikusi dugu nola Aretxabaletan, Aozaratzako elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiaren Ontiberos bisitatzailerak parrokiakoa bertako serorarekin bat atxikiriko San Antonio ermitakoa ere kanporatu zuen, eta gerora, seroretxeak nola errentan jarri ziren²⁹⁸. Data honez geroztikoak dira Leintz-bailarako ermitetako seroretxeei buruz jaso ahal izan ditugun datu gehienak, eta kasu guztietan, jada alokairuan zeuden. Hala gertatzen zen Arrasaten, Uribarri auzoko Santa Ana ermitaren etxearekin 1732az geroztik²⁹⁹, eta baita Bedoña auzoko (orduan Aretxabaletaren parte) Ergiñako Andre Mariaren ermitaren etxearekin ere, 1750ean behintzat³⁰⁰. Aretxabaletan, aipatu berri dugun Aozaratzako San Antonio ermitako seroretxeaz beste, jakin ahal izan dugunaren arabera egoera berean izan ziren Ibarako San Martin ermitakoa 1622-1707 bitartean³⁰¹, Leinzabaleko Andre Mariaren ermitakoa, 1685ean³⁰², eta Etxabarriko San Juan Bataiatzailea ermitakoa 1705az geroztik. Azken kasu honetan, 1763an, aurreko urteetan zehar ermitari atxikiriko etxetxo sakristauarena izana zela ere aipatu zen, ermitaren ondasunekin egin zen sakristauaren etxe berriarekin batera: “pegante a la dicha Hermita la casa antigua en que habitaba el Sachristan, y la nueva Casa de Sachristan que se hizo de los propios de la Hermita”³⁰³. Eskoriatzan ere egiaztatu ahal izan ditugu kasuak: errentan egon zen behintzat 1638az geroztik Zarimutz elizateko San Andres ermitako etxe atxikia³⁰⁴, eta 1677az geroztik XVIII. mende bukaeraraino, Gellaoko Santa Katalina ermitakoa³⁰⁵.

²⁹¹ GPAH-AHPG 1/0869, 35r-40r.

²⁹² DEAH-AHDSS 2594/002-01.

²⁹³ GPAH-AHPG 1/0868, 59r eta hurr.; eta 1/0901, 194r eta hurr.

²⁹⁴ GPAH-AHPG 1/0901, 37r eta hurr.

²⁹⁵ GPAH-AHPG 1/0902, 78r eta hurr.

²⁹⁶ GPAH-AHPG 1/0876, 146r-147v.

²⁹⁷ GPAH-AHPG 1/0889, 25r-26r.

²⁹⁸ DEAH-AHDSS 4145/001-01.

²⁹⁹ DEAH-AHDSS 3751/004-01, 1r.

³⁰⁰ GPAH-AHPG 1/0912, 97r eta hurr.

³⁰¹ GPAH-AHPG 1/0865, 56r eta hurr.; GPAH-AHPG 1/0897, 279r eta hurr.

³⁰² GPAH-AHPG 1/0891, 32r eta hurr.

³⁰³ DEAH-AHDSS 1330/003-01, 1r-58v.

³⁰⁴ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 82v.

³⁰⁵ DEAH-AHDSS 2312/003-04, 1r eta hurr.

1746an bisitatzaillea Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiatik iragan zenean eta udal-agintariak ermitetako libururik ez izatea hauek udal patroitzapekoak zirelako zela argudiatu zutenean, ermitetan "hermitaños"ak zeudela zioten. Ermitak Udalarenak omen ziren (1725eko Burgoseko Auzitegi Metropolitarrako autoaz geroztik, San Juan Bataiatzailea parrokia beraren gaineko udal patroitzaz ere bermatua egonik), eta Udalak mantentzen zituen bere ondasunekin³⁰⁶. Leintz-bailarako beste hainbat lekutan egin ohi zen lez, ermitauak alokairu errejimenean hartuak izango zituztela dirudi. Leintz bailarako ermiten egoera honek Lekeitioko (Bizkaia) kasua dakarkigu gogora; desagerrarazte aginduaren inguruko auzi nahasiak izan ziren bertan ere, eta azkenean, 1636an ermitetako patroiek desagerrarazte aginduari men egin ondoren, seroretxeak alokairuan emateari ekin zitzaion, 1650ean, ermitetako ondasunen gainbeheraren aurrean, patroiek ermitetan herriko "familias pobres y honradas" zirenak sarraraztea erabaki zuten arte, "con los mismos derechos y obligaciones que tuvieran anteriormente las seroras" (Urquiza 1985, 148-149). Leintz bailaran -aldeko epaia izanik-desagerrarazte aginduari men egin ez bazitzaion ere, azkenean antzerako ibilbidea gailendu zela dirudi.

Hiribilduetako parrokia nagusiei dagokienez, 1618ko desagerrarazte saiakeraren garaian Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan serora ezkongabeak zeudela dakigu, baina garai horien ondoren, bailarako lekuren batzuetan ohitura aldatu zutela dirudi. Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parrokiatan behinik behin, XVII. mende erdialdetik XVIII.era bitartean parrokiako serora eta sakristaua senar-emazte izatearen ohitura jarraitu zutela ikusten dugu. Gainera, hauek soldatapean mantentzen ziren, eta izendapena aldakorra izan zitekeen, ez zen bizitza guztirakoa. Bakarkako serorak izatetik sakristauren senar-emazteak izaterako aldaera, auzo eta elizateetako parrokiatan eta ermitetan aipatu berri dugun ordezkapen prozesua gauzatzen ari zeneko tarte kronologikoaren baitan gertatu zela ikusten dugu, eta ongi erreparatuaz gero, agian bi fenomenoak bilakaera berberaren parte liratekeela pentsa liteke. Azken finean, bisitatzaileren presioak ekiditeko moduak baino ez lirateke izango. Ikus dezagun zergatik.

Arrasateko San Juan Bataiatzailea eta Eskoriatzako San Pedro parrokiatan jarraitutako ohitura honi, 1612an Pierre de Lancrek idatzirikoa *Descripción de la inconstancia...* famatuan iradokitzen zenaren argitara ikusiaz gero, beste taxukera bat har dakiok. Izan ere, printzipioz ohituren nasaitasuna iradokitzen digun egoera hau, senar eta emazte ziren sakristau eta serorarena, Lancrek hain prezeski seroren kontrol hoberako aipatu zituen neurrien arteko bat baitzen: serora ezkondua izan zedila, senarrak kontrola zezan. 1600. urtean, Pariseko Parlamentuko Auzitegiak helarazi zuen dekretu bat aipatzen digu gainera, zeinaren bidez, hain zuzen, ezkonduko emakumeak euren senarren nahiaren kontrara seroratzat onartuak izatea debekatu zuten, hala gertatzen zenaren seinale³⁰⁷.

Arrasateko San Juan parrokiatan ohitura aldaketa 1677an eman zen; urte hartan Antonia de Billanueva serorari bere kargua kendu zitzaion, eta bere administraziopean zeuden ondasunak Pedro de Arroite sakristauren emazte zen Magdalena de Ugarteri eman zitzaizkion. Ondorengo urteetan, ohitura berbera jarraitu zuten³⁰⁸. Eskoriatzan ere hala egiten zela dakigu, San Pedro parrokiako kontu-liburuan (1703-1799) 1706an liburuko lehen inbentarioa egin zenetik behintzat. Inbentarioan bertan, serora batek parrokiako ondasunei eginiko gaztainadi baten dohaintza aipatzen zaigu: "el qual dicho

³⁰⁶ DEAH-AHDSS 4824/002-01, 196r-196v.

³⁰⁷ Ikus honi buruzkoak gorago, 234 or.

³⁰⁸ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 9r-11r.

castañal mando Marina de Vrigoen beatta para dicha yglesia para que su frutto gozasse el sachristan que vive en dicha cassa”³⁰⁹. Litekeena da Marina de Urigoen parrokia bertako serora izana izatea, serorek eginiko tankera honetako dohaintza ohizkoak baitziren beraiek zerbitu izan zituzten tenpluetan; eta litekeena da, dohaintza sakristauaren probetxurako egina zela adierazi zutenaz gero, parrokiako azken serora ezkongabea bera izana ere.

Leintz bailarako parroketan De Lancreren liburu sonatuaren eraginik inondik izan ote zuten jakiterik ez dago, susmatu baliteke ere; hala ere, Leintz-bailaran serora ezkonduak izateko ohitura hedatua zegoela, edo hedatu zela esan liteke. Gorago esan bezala, Leintz bailarako kasu hauetan seroren inguruko apezpikutzaren legedia ekiditeko bide bat izan zitekeen, espazio bereko auzo eta elizateetako parroketan legedi honek izan zuen eraginari erreparatzen badiogu behintzat. Zergatik diogu hau? parrokia hauetako serorak sakristauen emazte baziren, hain zuzen ere, desagerrarazte agindua bailaran izaten ari zen ondorioengandik babesteko harturiko neurria izan zela dirudielako. Izan ere, horrela, serora bere senar sakristauaren figuraren ostean ezkutatu baitzitekeen. 1621eko konstituzioetan, sakristauaren lana ordenaturiko elizgizonei esleitzea hobesten bazen ere, eta sekularra izatekotan, ezkonduaren aurrean ezkongabea hobesten bazen ere, sakristau sekular ezkonduaren azken zirrikitu honen posibilitatea uzten zen: "Y en caso que no se hallare Clerigo, y aya de ser lego, se procure que sea soltero, y no casado" (González de Castillo 1621, 81v); litekeena da Arrasaten eta Eskoriatzan zirrikitu honi heldu izana, apezpikutzaren legedian aurretik serorenak izanak ziren funtzioak jada sakristauak jasoak izanik, alde batetik sakristauak izan, eta bestetik serorak eta hauek betetzen zituzten funtzio sozial eta erritualak ere babestu eta mantentzeko. Areago, zirrikitua apezpikutzatik bertatik "irekia" izan zen, 1555eko konstituzioetan jaso eta berretsi zen 1410eko agindu baten arabera, sakristau izan behar zutenen egoera garbi adierazi baitzuten: "clerigos, o lego, que no sea casado" (Díaz de Luco 1555, 70r). 1602koetan ere, ez zen artean sakristau ezkonduarik aipatu: "en falta de Sacerdote, sea Diacono, y en su falta Subdiacono, y no pudiendo se hauer, sea de Menores Ordenes. Y no haviendo estudiante pueda ser seglar, de vida honesta y buena fama. Y qualquiera de los ordenados sea preferido al seglar" (Manso 1602, 117r).

Baina 1621ean, gauzak aldatu zirela dirudi, azken ataka hura, sakristautzat ezkonduariko laiko bat izatearena, zabaldu zuten; 1602ko konstituzioetan bezalaxe aipatu zuten guztia, baina jaso dugun azken esaldia gehituz. Kuriosoki, De Lancrek seroren botere soziala gutxitzeko proposatzen zuen neurria, kasu hauetan, hain prezeski ere seroren funtzioak babestu eta mantentzeko hartu zela esango genuke. Areago, ez litzateke arraroa izango 1555eko konstituzioetatik 1621ekoetarako araudiaren aldaketak Arrasate eta Eskoriatzako egoeren tankerakoak sorrarazteko baitaratuak izatea. Ezen, gainera, irtenbide hau noizbait apezpikutzaren baitako beste espazio batzuetan ere hartu izan zela dirudi, "serora" hitzarekin sakristauaren emaztea adieraztearena, Bizkaiko ekialdeko lurraldeetako euskaran jaso izan baita (Gernika, Arratia, Mañaria, Orozko) (De la Sota; Lafitte; Akesolo 1989, 3384; Azkue 1995, 219). Guzti horrez gain, beste gauza bat ere aintzat hartu beharrean gaude. 1621eko konstituzioetan eta baita hauetako serorei buruzko legedia berretsi zuten 1700ekoetan ere, sakristauen funtzioak definitzerakoan hauetatik kanpo zegoen eta tradizionalki serorei zegokien espazio baten artapenaren erantzunkizuna arautu gabe gelditzen zen: jarlekuen espazioa.

Eta hein batean emakumezkoen esparruari zegozkiola hautematen zen aktibitateak, serorak baztertzekotan, norbaiten esku utzi beharrean zegoelako, parroketan, sakristauen emazteen ordezkapen prozesu hau 1769ko seroren

³⁰⁹ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 1r-1v.

desagerrarazterako Errege Aginduaren garaietararte luzatu zela dirudi. Hala ageri zaigu behintzat Deban, desagerrarazte aginduaren betekizunean, 1775ean proposatu ziren aldaketetan. Oso posiblea dugu, mende bat lehenago ingurutik Arrasaten eta Eskoriatzan izan ziren aldaketen parekoa izatea, baina hurrengo desagerrarazte saiakeraren testuinguruan. Deban, 1775ean, bertako parrokiako seroren zerbitzuaren ordezkapenerako "nuevo plan" bat osatu zuten. Serorek izan zituzten langintzak eta etekinak xehetasunez azaldu ziren, eta sakristauen eta seroren arteko funtzioen banaketak errespetatuz, bigarren sakristau baten eta bere emazte izango litzatekeen "sirvienta de sepulturas, y labandera" batzuen izendapena proposatu ziren. Jarraian aipuan "Plan que se propone" zena osorik jasoko dugu, azaldu ditugun aspektuekiko oso esanguratsua baitzaigu:

1. Que se cree un segundo sacristán, y una sirvienta de sepulturas, y labandera de la ropa blanca de la Iglesia, que puedan ser para ambos marido y muger, y que sean de la presentación de los señores patronos, al mismo modo que han sido los empleos de *seroras* que quedan extinguidas con la muerte de la única que actualmente sirbe.

2. Que aplicando para su havitación al segundo sacristán y su muger sirvienta de las sepulturas la cassa que se expres en el capº 16 de las utilidades, y el pan de toque de campana a muerto, que igualmente se relaciona en el capº siguiente numº 17. con la pensión de tocarla según corresponda a la clase del muerto, tenga obligación dicho sacristán de conducir a la Iglesia los cadáveres, y de enterrarlos por sí o por interpositas personas.

3. Que aplicándosele solo al dicho sacristán los quarenta y cinco reales del toque de queda y los treinta de la agonía que se expresan en el capº 14 de las utilidades, sea de su obligación privatiba el tocar puntualmente la queda a las ocho de la noche en el imbierno, empezando desde el día de San Miguel veinte y nueve de setiembre inclusive, hasta el día de Pascuas de la Resurrección exclusibe, y desde este día hasta San Miguel a las nueve de la noche perpetuamente; y la agonía quando sea necesario, o mandase tocar el eclesiástico que estubiese asistiendo al agonizante, y la Aurora en ambas estaciones de imbierno y berano del año con toda puntualidad. Y que en igual forma tenga obligación de zerrar y abrir las puertas de la iglesia a los devidos tiempos, teniéndolas a su cuidado.

4. Que el abrir las sepulturas por los diez quartos y medio expresados en el capítulo 15 de las utilidades sea de la obligación privativa de dicho sacristán, y elebar las lámparas quando las procesiones y demás funciones que requieran esta diligencia, y bolberlas a vajar según su orden, y a tirarlas, teniendo especial cuidado de que no falte la luminaria del Santísimo, tomando para el efecto la aceite necesaria de la casa del Maiordomo de la Fabrica que debe suministrar a costa de la Iglesia.

5. Que el servicio y cuidado de las sepulturas la dirección o asistencia a la honrra en funciones fúnebres, con todo lo demás que por menos se expresa en caps 1-5-8-9-11-12-13 y 14 de las cargas de las *seroras*, sean de la obligación y cargo privativo de la sirvienta; y igualmente sean para ella misma sin parte ni dependencia del sacristan lo que se señala y se acostumbra pagar por el trabajo de hacer las belas de las seis oblaciones o ofrendas generales de año, y zerillas o *pilduanes*, que por otro nombre llaman de las luz de las sepulturas, con los veinte y quatro reales que anualmente paga el Cavildo, y que por las sepulturas nuevas pagan todo al final del año del muerto.

6. Que todo lo demás que se expresa en los restantes capitulos, de las cargas de *Seroras*, hayan de hacer y cumplir en la misma conformidad dicho segundo sacristán, y la sirvienta, con concurrencia de ambos, prestando uniforme el trabajo a todas las otras cargas y obligaciones a excepción de las particulares y privativas que con independencia se señalan, y se encarga su cumplimiento a cada uno de ellos, que deberán sufrir sin ingerirse uno con otro. Y en esta misma conformidad haian de haber y llebar igualmente a medias los derechos y emolumentos o aprobechamientos preescritos, a excepción de los que a cada uno en particular quedan aplicados, y

señalados.

7. Que si aconteciese el fallecimiento de la sirvienta siendo ésta muger del dicho segundo sacristán, y sobrecibiéndolo éste, no tubiese proporción de tener alguna hermana, thia o otra muger de suficiencia y hidoneidad necesaria que quisiese llevar las cargas de la sirvienta, cumpliéndolas con puntualidad; en tal caso, para que no haia falta del competente servicio a las partes interesadas de las sepulturas ni a la Iglesia haian de nombrar los señores Patronos nueva sirvienta aplicándosela la segunda vivienda de la expresada casa, y los aprovechamientos señalados y correspondientes a ella; y subcediendo primero el fallecimiento del sacristán, se haga lo mismo por lo respectivo a este empleo, con la circunstancia de que, siendo casado el nuevo que se nombrase, tenga su muger la futura para que, muriendo la sirvienta que al tiempo se hallase, pueda entrar sin mas nombramiento dicha muger del citado nuevo sacristán al goze del empleo de sirvienta, cumpliendo con las correspondientes cargas y llevando los emolumentos y aprovechamientos a ella perteneciente.

8. Que, en caso de que sin contravenir a reales órdenes no hubiese lugar o arbitrio de criar e instruir por V.S. y Patronos de dicha su Parroquial la expresada sirvienta de sepultura para los ministerios y labores destinados a ella en particular, y deviese recaer todo el cargo en barón que fuese sacristán primero o segundo, haia de tener el que así fuese instituido y nombrado la obligación precisa de hacer todos los servicios destinados a la sirvienta, ejerciendo los correspondientes ministerios por su muger o criadoras, que deberán ser personas de la decencia y hidoneidad que se requiere para iguales funciones, por ser éstas propias, usuales de mugeres en estos países. Y no cumpliendo así todo con exactitud no se lleve a la Iglesia el pan acostumbrado de *seroras*, ni se pague otro emolumento correspondiente a ellas, y con lo que se acostumbra dar y pagar a dichas *seroras* por los dueños de las sepulturas puedan poner estos, por sí mismos, la sirvienta o sirvientas de sus sepulturas y demás ministerios de iglesia a ellos convenientes y expresados en los capítulos de las cargas de seroras (Aguirre Sorondo 2013, 77-78)

Sakristauen eta seroren arteko funtzioen banaketan Lancrek ezkonduko seroren onarpenaren bidez aurreikusten zuen seroren botere gutxitzea eta senarrekiko meneratzea ohartu liteke, eta esan bezala, litekeena dugu Arrasaten eta Eskoriatzan, eta baita Bizkaiko zenbait ingurutan ere, halakorik gertatu izana, XVII. mendean lehen hamarkadetakoa seroren desagerrarazterako neurrien ondoren. Arrasaten eta Eskoriatzan parrokiakontu liburuetan bertan ageri zaigu nola, inbentarioa egitean administrazioan zegozkien ondasunak (kasu honetan, sakristaua egonik, ornamentuez eta bitxiez besteko arropa eta ohialak) jaso eta zin egiterakoan, beraien senar sakristauak emaniko baimenaren beharra izan zuten (Eskoriatzan 1706an, adib.: “obtubo licencia debida del dicho su marido”), beste seroren kasuan noski, ezkongabeak izanik, ezertarako aipatzen ez zena. Gainera, eta Leintz-bailararako protokoloetatik jaso ahal izan dugun informazio mugatuak erabateko baieztapenik egin ezinean uzten bagaitu ere, izkribauen aurreko dokumentuak helarazterako orduan ere beraien senarren menara gelditzen zirela dirudi. Ez dugu behintzat parrokia hauetan “beata” eta “sacristana” lanetan aurkitzen ditugun serorek euren kabuz helaraziriko dokumenturik aurkitu ahal izan; edo bestela, gure bilaketetan serorak izendatzeko termino ezberdinei egindako jarraipenetan oinarritu garenez, ausentzia honek dokumentuak, helaraztekoan, euren izen partikularraz soilik baliatuz egin zituztela esan nahiko luke. Alegia, ezkondu egoera sekularrari serora egoerari baino garrantzia handiagoa emango litzaioke. Baina ez dugu gaia zalantza hauek argitzeko besteko sakontasunez ikertu ahal izan; beste baterako, edo beste norbaitendako utzi beharreko auzia dugu oraingoz. Edozein kasutan, nabaria da ezkonduko serora hauek, beraien senar sakristauarekiko zuten lotura medio, ezin zituztela beraien ondasunen administrazioaren ingurukoak serora ezkongabeek bezain libreki erabaki. Horrela, Arrasateko eta Eskoriatzako kasu hauetan,

hiribilduetako parrokia nagusietan ere desagerrarazte aginduaren ondorioak nabariak izan zirela adierazten zaigu, nahiz eta hamarkadaren batzuek beranduago izan, eta seroren instituzioaren egoera ezkondu egoera medio “zibilagotzeko” eraldakuntza batean isladatu.

Leintz bailararako bildu ahal izan ditugun datuen arabera, ezin esan XVII. mende hasieratako lehen seroren desagerrarazte saiakera hark, bailara zehatz honetan behintzat, eraginik ez zuenik izan. Serora askok utzi behar izan zuten kargua, eta seroretxeak errentan jarri ziren; eta asko, batez ere auzoetako eta elizateetako parrokien kasuan, bitarte batean zehar errentan izan eta obraren batzuk egin eta gero, sakristauen edo apezen etxe izatera iragan ziren. Kasu hauetan ere, Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parroketan eta Debakoan ondorengo garaietan ikusi ahal izan dugunez, sakristauak serora lanak egiten zituzten emazteak izango ote zituzten? Parrokietako liburuek ez digute halakorik argitzen, jada sakristauak eta hauen etxeak baizik ez baitzaizkigu aipatzen. Baina edozein kasutan, funtsean, parroketan sakristauen emazte, eta ermitetan ermitauen emazte izanaz jarraitu zuen -batez ere- seroren instituzioak Leintz-bailaran izaten, eta gutxinaka, lekuetatik desagertzen.

Bergarako bikariotzaren parte zen Antzuolan, 1629az geroztik herriko ermitak alokairuan jarri ziren, Leintz bailaran ere gertatu zela ikusi dugun bezala, bertan senar-emazteak nahiz bakarkako ermitau eta serorak bizi izatera iraganez. Bergaran ere badaukagu XVII. mendean eta XVIII.enean zehar alokairuan jarri izan ziren ermiten berririk ere, baina ez daukagu 1769ko desagerrarazte agindua eman zenean zeuden egoerara heldurarteko gorabeherak nola izan zirenen berri ziurrik. 1739an bere jurisdikzioko ermita guztien gaineko patroitzia Udalak eskuratu zuenetik ermitetako seroren azken izendapena aurkitzen dugun 1766 urterarte, ermitetan serorak bazeudela baitirudi. Izendapenez sartuak gainera, ez alokairuan³¹⁰. Bien bitartean, alokairuan jarriak izan ziren zenbait seroretxeren edo ermitetako etheen berriak ere baditugu. 1654an San Martin ermitako etxea jarri zen alokairuan³¹¹, eta 1664-1774 bitartean Santa Katalina ermitakoarekin³¹², 1763-1775 bitartean San Jose ermitakoarekin³¹³ eta 1773-1774 bitartean San Juan ermitakoarekin³¹⁴ ere beste hainbeste egin zutela dakigu.

Antzuolako seroretxeen bilakaerak, Bergaran eman zen bilakaerarako baino askoz datu gehiago ez baditugu ere, sekuentzia argiagoa erakusten digu. Ermitetako serora ezkongabeei buruz jaso ahal izan ditugun aipamen guztiak, XVI. mendeari dagozkio (Murugarren 1975, 67, 72, 79-81). 1601ean nabari litezke apezpikutzaren aldetiko lehen presioak, urte hartan bisitatzailleak Uzarragako Santa Engrazia ermita bisitatu zuenaz geroztik, bai seroretxearen eta baita seroraren inguruko datuak ermitako kontu-liburutik bapatean desagertu baitziren³¹⁵. 1629an herriko ermitak alokairuan jartzeko apezpikuaren lizentzia eskuratu ondoren, 1659an, Antiguako Amaren ermita behintzat alokairuan zegoela dakigu³¹⁶. Santa Katalina ermitan serorak 1682 eta 1768 bitartean desagertu zirela seroretxearen gorabeherak agertzen digute: 1644ko inbentarioan "la cassa de las beatas" aipatu bazen, 1682an jada "la cassilla vieja" bezala aipatu zen, eta 1768ko inbentarioan ez zaigu batere seroretxerik ageri³¹⁷. 1746ko bisitan, bisitatzailleak, ermiten zaintza zeukatzen "seroras, mayordomos, ô personas a cuio cargo

³¹⁰ Ikus IV. 1.2. azpiatalean, 317-318 or.

³¹¹ GPAH-AHPG 1/0341, 309r eta hurr.

³¹² GPAH-AHPG 1/0321, 71r eta hurr.; 1/0323, 93r eta hurr. eta 1/0641, 303r eta hurr.

³¹³ GPAH-AHPG 1/0616, 658r eta hurr. eta 1/0642, 251r eta hurr.

³¹⁴ GPAH-AHPG 1/0641, 292r eta hurr.

³¹⁵ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 18v eta hurr.

³¹⁶ DEAH-AHDSS 1291/011-01, f.g.

³¹⁷ DEAH-AHDSS 1262/002-01, 6v-81v.

esta" zirelakoei hauek garbi eta txukun izan zitzatela agindu zienean, "en los terminos y jurisdiccion de dicha villa de Anzuola" artaturik zeuden ermitak hiru zirela aipatu zuen: "la hermita de San Bartolome la de Nuestra Señora de la Antigua y la de Santa Engracia"³¹⁸. Gutxi ziren jada, eta ez dakigu ze egoera zehatzetan zeuden (ermitau eta serora ezkonduak, bakarkakoak, edo maiordomoak soilik artatuak...).

Parrokien kasuan ere izan zuten presioek eraginik, eta horrela, -apezpikuak herriko ermitak alokairuan jartzeko lizentzia eman izatetik hamarkada batera- 1639an Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako seroretxea bertako auzotarren jabegokoa izatera iragan zenean (ikusiko ditugu gorabehera hauek aurrerago xehetasunez), esplizituki aipatu zen bertan bizitzera sartzen ziren lau serorak Konstituzio Sinodaletako arauak errespetatzera konprometatzen zirela³¹⁹.

Ibilbide honetan seroren biziraupenerako oinarriak nola gainbeheran joan ziren ikusteko, esanguratsua dugu Antzuolako Antiguako Amaren ermitako miserikordia kutxaren liburuak 1692-1731 bitartean agertzen digun bertako miserikordia kutxara gari eske gerturatu ziren herriko seroren zerrenda. Serora hauek ez zeukaten hargatik halabeharrez hain txiroak izan beharrik ere, kutxa hauetara joateko beharra gariaren ornikuntzan izan ohi ziren -eta honen prezioaren igoera handiak eragin zitzaketen-gorabeherak motibatua izan zitekeelako. Baina edozein kasutan, ornikuntza arazoak tarteko izatekotan, serora hauek egoerari aurre egiteko arazotan zeudekeen artekoak ditugunez, oso egoera ekonomiko oparoan ere egongo ez zirela pentsa liteke. Hala, bada, XVII. mende bukaera eta XVIII. hasiera bitarte horretan izan baitziren zenbait, Antiguako miserikordia kutxara gari eske gerturatu ziren serorak: Isabel de Yriarte (1692), Antonia de Izurrategui (1692, 1696, 1697, 1698, 1700, 1701, 1702, 1703), Ursola de Arana (1694, 1698, 1700, 1704, 1705, 1707, 1709, 1710, 1711, 1712?, 1713/1714?, 1715, 1716, 1717, 1718, 1719, 1720, 1723, 1724, 1725, 1726, 1727/1728?, 1729, 1731), Catalina de Gabilondo (1695, 1696, 1699, 1700, 1701, 1702), Maria Angela de Elorriaga (1695, 1696, 1697, 1698, 1699, 1710, 1711, 1712?, 1713/1714?, 1715, 1716), Ana de Yrala (1696), Francisca Antonia de Gaztanaeta (1711, 1712?, 1713/1714?, 1715, 1716, 1717, 1718, 1719, 1720, 1721, 1723, 1724, 1725, 1726, 1727/1728?, 1729, 1731), Anastasia de Lascurayn (1724, 1725) eta Petronila de Yrizar (1727/1728?, 1728, 1729, 1731)³²⁰. Ornikuntzaren gorabeherak zirenak zirela, XVII. mende bukaeraz geroztik behintzat, baziren sortatxo bat Antzuolan gari eske joan beharrean zeuden serorak.

Espazio honen baitan, Elgetari buruz daukagu daturik gutxien; dauzkagun adibide gutxiak ez digute XVII. mende hasiera hartako desagerrarazte saiakerak ze ontorio izan zituen garbi adierazten, nahiz eta trazu orokorren batzuk azaltzen dizkigun. 1615eko Uriarteko Andra Maria ermitako seroraren izendapenean apezpikutzaren

³¹⁸ DEAH-AHDSS 1263/003-01, 121v-122r.

³¹⁹ GPHA-AHPG 1/0278, 9r-10r.

³²⁰ DEAH-AHDSS 1258/002-01, f.g. Serora hauen maila ekonomikoarekiko zuhur izateko beste daturen batzuek ere bildu ahal izan ditugu. 1720-1721 bitartean auzi bat izan zen, zerrenda honetan ageri zaizkigun bi serora aipaturik ageri dizkiguna: Antonia de Izurrategui eta Ursola de Arana. Auzia lehenaren testamentuko zentsu baten ingurukoa da, eta honen albazea zen Joseph de Aldaeta Antzuolako parrokietako benefiziodunaren eta Antzuolako kabildoaren artekoa zen; Ursola de Arana berriz, Antonia de Izurrateguiaren "compañera" lez aipatu zen (DEAH-AHDSS, 1291/004-01, f.g.). Antonia de Izurrateguiaren zentsua auzi bat sorrerazteko bestekoa izateko, hain txiroa ere izango ez zela pentsa liteke. Baina kontrara, eta aurrerago ikusiko dugunez, honek zerikusi gehiago izan zezakeen Antzuolako seroren artean ohituraz finkatuak zeuden betiereko memoriaren fundazioetarako gordetako diruekin; ohituraren indarra medio serorak fundazio hauek egitera behartuak sentitzen ziren, eta kasu batzuetan, serorak behar besteko gaitasun ekonomikorik ez zeukanean, memoria hauen ordainketa testamentuan bertan familia-kideek euren gain hartzera heltzen ziren (ikus VII. 2.2. azpiatala, 727 or.).

aldetik nabari zen presioa aditzera ematen zaigu (apezpikutzarako lizentzia eskaera egin zuen, hasiera batean besterik gabe sartua izanik, zenbait agintariren aldetik salatua izan eta gero)³²¹. Eta 1623an, Ontiberos bisitatzaillea Elgetako Andre Mariaren Zeruratzearen parrokiatik iragan zenean, seroren desagerraraztearen agindua eman zuen, beste hainbat lekutan egin zuen –eta egingo zuen– bezala. Ondorengo urte batzuetan zehar parrokiako seroren inguruko berririk ageri ez bazaigu ere, 1630erako berriro serora bat zegoela ikusten dugu, eta orduz geroztik 1802rarte, behin eta berriro ageri da (edo dira) soldata jasotzen³²². Ermiten kasuan, 1746ko bisitak, -Antzuolan bezala- hauek ze tankeratako zaintzaileak zeuzkaten argitzen ez badigu ere, urte hartan -tenpluak garbi eta txukun izatea agindu zitzaizen- zaintzaileekin zeudenak oraindik zenbait zirela erakusten digu: "las hermitas de Nuestra Señora de Uriarte, la de San Antonio de Padua, San Adrian y San Antonio, y la de San Pablo, y otras" aipatu baitziren³²³. 1759an, -1615ean eta 1746an aipaturik ageri zaigun- Uriarteko Andre Maria ermitako seroretxea jada alokairuan zegoela ere badakigu³²⁴; 1746an aipatu zirenak ere ordurako egoera hartan izango ote ziren?

Iragan gaitezen Oñatira azkenik, orain artean aipagai izan ditugun prozesuen eta eraginien nondik norakoak bertan zertan izan ziren ikusteko. Oñatiko testuinguru demografiko eta geografikoak antzekotasun gehiago zituen, printzipioz behintzat, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatzen diguten espazioko egoerarekin, Leintz-bailarakoarekin baino. Hiribilduko parrokia nagusi bat eta auzoetako bi zeuden, eta horrez gain, ermita ugari landa-eremuetan. Parrokia gutxi eta zentralizatuagoak eta ermita ugari, Leintz-bailarako parrokia txiki ugarien eta bakoitzeko ermitaren bat edo besteren aldean. Baina ermitak eta euren etxeak (seroretxeak) alokairuan jartzeko ohitura Leintz-bailaran bezalaxe zabal hedatu zen, eta Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, eta Leintz-bailaran ez bezala, 1769ko seroren desagerrarazterako –eta ermiten itxierarako– Errege Dekretua heldu zenean, ermitauak eta serorak ugari ziren ermitetan, bertan alokairuaren esleipen bidez bazeuden ere. Baina goazen parterik parte, lehenik hiribildura gerturatuz.

Oñatiko San Migel parrokiako serora, ondoren zehatzago azalduko dugunez, Oñatiko kondeak izendatzen zuen, udaleko eta elizako agintariekin 1761ean hitzarmen bat eginik, izendapen eskubidea azken hauen eskutara iragan zen arte; desagerrarazte agindurarteko ondorengo urte gutxietan, Udalak egin izan zuen izendapena. Bertako serora ez zen seroretxe batean bizi, parrokiako fabrikak ordaindurik alokaturiko etxe batean baizik. Bisitatzailleek ohitura hau aldatu nahi izan zuten eta aldiren batean etxeren bat erostea agindu zuten, eta baita besteren batean seroraren etxearen alokairua ordaintzea debekatu ere. Baina ez zitzaizen aginduei batere kasurik egin (agian, alokaturiko etxea, hain zuzen ere, elizako eta udaleko aginte postuetan zeudenen jabegokoa izateagatik), eta parrokiako kontu-liburuek jasotzen duten tarte kronologiko guztian zehar behintzat, 1513-1714 bitartean, serorari bere etxearen alokairua parrokiaren fabrikatik ordaintzearen ohitura mantendu zuten³²⁵.

XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte saiakeraren ondorioren batzuek ere nabari izan ziren Oñatin, nahiz eta Debagoieneko beste espazioekiko, saiakera honen ondorioak beste tarte kronologiko batean izan zirela ikusten dugun. Ez dakigu

³²¹ GPAH-AHPG 1/1867, 116r-116v.

³²² DEAH-AHDSS 2123/002-01 (1616-1664); DEAH-AHDSS 2123/003-01 (1690-1755) eta DEAH-AHDSS 2124/001-01 (1756-1802).

³²³ DEAH-AHDSS 2123/003-01, 193r-193v.

³²⁴ DEAH-AHDSS 2120/001-01.

³²⁵ Ikus IV. 3.1.1. azpiatala, 342 eta hurr. or.

garbi 1623ko Ontiberos bisitatzaillearen liskarrek Oñatin ze puntutarainoko eragina izan zuten, nahiz eta daturen batzuk zenbait gorabeheraren berri ematen diguten.

Lehenik eta behin, badugu Leintz-bailaran ikusi ahal izan dugun prozesuaren tankerako hasiera azaltzen digun auzoetako parrokia bat, Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzearena. Bertan 1623a aurretik serorei buruz dauzkagun azken datuak 1615ekoak dira; urte hartan Oñatiko bikarioak parrokiara egin zuen bisitan, parrokiakoak omen ziren eta bertan serora izana zen Maria de Aristeguik (“freya que fue en la dicha yglesia”) eramanak zituen bi kutxa zirela eta, hauen itzulera agindu zuen. Inbentarioa egin zutenerako berreskuratuak zituzten. Ez daukagu 1623an bisitatu izan zutenaren zantzurik, baina 1627ko kontuetatik aurrera oso jarraipen motela izango zuten obra orokor batzuk egiten hasi ziren, eta 1628an egin zen bisitako inbentarioan, seroretxea “vna cassa que solia ser de las sororas” bezala aipatu zen. Kanporatuak izan ote ziren, “solia ser” hori esateko? Baina Urrexolan ez zuen seroretxeak, Leintz-bailaran bezala, sakristauaren edo apezaren etxe izaten bukatu, nahiz eta saiakeraren bat izan zela dirudien. 1654ko kontuetan parrokiako serora berriro agertzen zaigu lehen aldiz jasotzen zuen soldata batekin (ondoren aipagai izango dugun kontzeptu zelebren baten izenean: “por sus çapatos”), baina 1657-1658 bitarteko kontuetan sakristau bat agertzen zaigu bapatean, 1654az geroztik serorak urtero jaso zituen 11 errealak “salario ordinario” lez kobratzen. Sakristiako obren gastuak ere ageri zaizkigu urte hartan. Ondorengo urteetan obrek jarraitu zuten, eta sakristauak bere karguan jarraitu zuen bere soldatarekin, 1664ko kontuetan, 11 errealeko soldata serora baten eskutara itzuli zen arte. Hurrengo urteetan serorak izan ziren, 1728ko kontuetatik aurrera, berriz ez agertzeko desagertu arte. Izan ere, 1728an parrokiak primiziatan jasotzen zuenaren kontuak egiten hasi baitziren, apezpikutzatik baimena jaso eta gero, apezaren etxeko obra batzuk egiteko zenbait zentsu hartzearekin bat. Apezaren etxe berriaren eraikuntzak izan ote zuen seroren aipamenen desagertzearekin zerikusirik? Inguruko herrietan sakristauen eta apezaren etxeen agerpenak seroren desagertzearekin izan zuen loturari erreparatu, baiezkoan gaude. 1744ko kontuetan, auzotarrek jarlekuen artapenerako diruren bat eman nahi izan zuten, ez zaigu baina nori eman zitzaien ere zehazten: “Ytten se haze cargo de catorze reales y veinte y ocho maravediz que dieron los vecinos para aiuda de componer las Sepulturas de dicha Yglesia”. Aipu honen arabera, auzotarren aldetik seroraren lana eta soldata berrezartzeko saiakeratxoak egin zela dirudi, baina ondorengo urteetako kontuetan, ez da berriro tankerako partidariak ageri³²⁶.

Arautz auzoko San Migel parrokiari dagokionez, 1619tik 1628rako kontuak azken urte honetan egin ziren, eta bertako liburuko lehenak izan ziren. Urte hartako kontuak bisitatzailleak aginduak izan ziren, eta hau, bere aginduetan, parrokiako seroregatik baino, “los que tiene las llaues y atabaques de las hermitas” egatik arduratuago agertzen zaigu. Ermitetako limosnen bilketaren nondik norakoan berri parrokiari jasotzen ez zela eta, kontrol zurrunagoa eraman zedin agindu zuen. Bisitatzailleak erabili zuen espresiotik, espezifikoki serorak baino, ermitetan ermitauak zeudela dirudi. Alokairuaren ohitura zabaldua al zegoen jada Araotzen, gero XVIII. mendean zehar bezala? XVIII. mendean, izan ere, seroretxearen alokairuaren ohitura parrokia bertako seroretxera ere iritsi baitzen; errentan izan zuten 1735-1791 bitartean³²⁷. Urrexolako eta Araotzeko parrokiatan XVII. mendean zehar izan zen soldatadun serora izateko ohitura, beraz, XVIII. mendearen hasieratan desagertu zen,

³²⁶ DEAH-AHDSS 3150/002-01 (1589-1657); DEAH-AHDSS 3150/003-02 (1658-1722) eta DEAH-AHDSS 3150/004-01 (1723-1781).

³²⁷ DEAH-AHDSS 1309/004-01 (1619-1670); DEAH-AHDSS 1310/001-01 (1670-1756) eta DEAH-AHDSS 1310/002-01 (1757-1819).

auzoetako eta elizateetako parrokiatan eta ermitetan seroretxeak alokairuan jartzeko ohituraren hedapenarekin.

Auzoetako parrokiatan 1628ko bisitetan jada neurriak hartzen hasi baziren, hiribilduko San Migel parrokiako serora kanporatzeko agindua 1637ko bisitan heldu zen. Gonzalo Chacon y Velasco apezpikuak berak egin zuen bisita, eta honako agindua utzi zuen:

Yten por quanto hallo su Señoria Ilustrisima en la dicha iglesia dos mugeres seroras que sirben en ella contra lo dispuesto y mandado por su Santidad y constituçion sinodal de este obispado para que no sirban en las iglesias ni hermitas de el manda su Señoria Ilustrisima que pena de excomunion mayor latae sententiae a las susodichas no sirban en la dicha iglesia ni en otra de este obispado con aperçeimiento que se proçedera contra ellas, y manda asi mismo al abbad curas y Benefiçiadados no las consientan seruir en ella pena de suspension y busquen persona que barra la iglesia y haga lo demas que ellas haçian por quenta de la distribuçion que llebaban³²⁸

Apezpikuaren agindua azkenean ez zen bete, baina orduan serora nagusi zen Maria Lopez de Estrañok, karguan jarraitu ahal izateko, pasa behar izan zituen estualdiren batzuk. 1638an parrokiako eliz-kabildoak seroraren karguaren defentsarako ahalorde bat helarazi zuen, ahaldunak apezpikutzaren auzitegietan nahiz beste edozeinetan ordezkatu ahal izan zituzan. Bertako azalpenetan, “vna muger que llama[n] serora de barrendera y labandera de la dicha yglesia” zeukatela adierazi zuten, garbiketaz beste, ur bedeinkatuaren ponteetarako ura ekartzeaz eta jendeak dohaintzan emandako ohialekin elizarako ohial eta ornamentuak egiteaz arduratzen zela aipatu. Ez zuten 1621eko desagerrarazte aginduari jarraitu zioten liskarretan Gipuzkoako Probintziak egin bezala, edo 1623ko Ontiberos bisitatzaillearen inguruko liskarrak izan zirenean Bergarako herriak egin bezala, seroren defentsa jarlekuen zerbitzuan oinarritu; oster, 1618ko auzian Leintz bailarako auzotar eta seroren ahaldunek egin bezala, defentsa oinarritzeko, esandako eginkizunak “y otras cosas” baino ez aipaturik, hauek emakumeek baino ezin egin zituzten eginkizunak zirela zioten. Jarlekuen zerbitzua, ahalordean behinik behin, aipatu ere ez zuten egin. Bestalde, bere karguak parrokiari gasturik sortzen ez ziola ere argudiatu zuten; honen soldata kondeak ordaintzen omen zuen, “cierta rraçion por obligaçion que tiene”, eta hau, “en los diezmos perteneçientes al dicho señor conde” baitaraturik omen zegoen³²⁹. Alabaina, parrokiako kontu-liburuek kontrakoa zioten; alde batetik, serorak garbiketaren izenean XVI. mendean zehar eta XVII.aren hasieratan denbora igaro ahala urteroko dukat batean finkatu zen ordainketa jaso izan zuen, eta bestetik, serora bizi zen jabego partikularreko etxearen alokairua parrokiako fabrikak ordaintzen zuen, gorabehera hauei bide eman zien agindua 1637an eman zenerako, lau dukatetan finkatua zegoena. Honek ez du serorak kondearengandik soldatarik jasotzen ez zuenik esan nahi, baina ahalordean esandakoaren kontra, bazituen parrokiak hainbat gastu, serorari eta bere zerbitzuari zegozkionak³³⁰.

Edonola ere; gezurren batzuk tarteko izan edo ez, eliz-kabildoak bere defentsa batez ere serorak emakumeek bakarrik egin zituzketen eginkizunak betetzen zituela esanaz oinarritu zuen, serorarik gabe, artatu beharreko alderdi hauetan parrokiak kalte handia jasoko zuela eta. Ez dakigu auziaren inguruan ze beste gorabehera izango ziren, baina hurrengo urtean, 1639an, beste eragile batzuk ekin zioten seroraren kontra. Urte hartan Maria Lopez de Estraño serora nagusiak berak helarazi zuen ahalorde bat, ahaldunak apezpikutzako auzitegietan bezalaxe beste edozeinetan ere defendatu ahal

³²⁸ DEAH-AHDSS 3691/001-00, 86r.

³²⁹ GPAH-AHPG 1/3102, 61r-61v.

³³⁰ Ikus IV. 3.1.1. azpiatala, 342 eta hurr. or.

izan zezan. Bertan, aurreko ahalordean bezala, kondearengandik soldata jasotzen zuela aipatu zuen, eta baita kondea berak helaraziriko parrokiako serora tituluaren jabe zela ere. Alabaina, eta nahiz eta herritarren eta eliz-kabildoaren aldetik bere aurkako inongo kexurik ez egon, “con relación çinistra”, Luis de Ocio y Esquina Oñatiko alkate zenak bere aurkako agindu bat eman omen zuen “para que no sea amitido [*sic*] por tal serora ni se me acuda con los monumentos [*sic*] que se acostunbran pagar sin que para ello tenga poder del dicho señor conde”. Serorari kondearen hamarrenetatik ordaintzen zitzaion honek emandako soldata, baina hamarrenak alokairuan hartuak zeudenez geroztik (serorak ahalordean zegokion soldataren ordainketa “arrendadores”-ei esijitzen zien)³³¹, agian –ziurtasunez ez jakinik ere, herriko botere esparru nagusietako partaideek osaturiko udalaren ingurukoak izan zitezkeen– alokatzaileek, orduan bi urteko apezpikuaren aginduak sorturiko giroa probestuz, gastu hori paretik kentzea nahiko zuketela otutzen zaigu.

Edozein kasutan, gauza bat ziurra da; Maria Lopez de Estrañok auzia irabazi behar izan zuen, ondorengo urteetan parrokiako kontu-liburuan egiten zitzaizkion garbiketaren eta etxearen alokairuaren ordainketak aurreko urteetan bezalaxe ageri baitzaizkigu. Ondorengo urteetako seroren ordainketak ere urtero egin ziren, 1678az geroztik “soldata” bezala, liburuko azken kontuak eman ziren 1713a arte³³². XVIII. mendean zehar ere mantendu zen parrokiako serora, 1770ean – 1769ko desagerrarazte aginduaren betekizunean – hau ere kanporatu zuten arte.

Ermitei dagokienean, XVII. mendearen bukaera aldetik hasi eta XVIII. mende guztian zehar gehienak alokairuan izan zela dirudi. Kontu-liburuen faltan, gehienetan auzotarrek helaraziriko alokairu kontratuek errentan jarri izan ziren ermiten kopuru handia agertzen digute³³³: Berezanoko San Roman (1682-1773)³³⁴, San Jorge (1701-1777)³³⁵ eta Santa Luzia (1738-1788)³³⁶, Murgiako Santa Maria Magdalena (1692-1784)³³⁷, Narriako San Lorentzo (1697-1788)³³⁸, Araotzeko “hermita de Muñocoa” (?)

³³¹ GPAH-AHPG 1/3102, 11r-12r.

³³² DEAH-AHDSS 3691/001-00.

³³³ Jarraian emango ditugun erreferentziak GPAH-AHPGn kontsultatu litezkeen aurkibidetatik jasoak daude, baina ikerketaren esparrua mugatu beharragatik dokumentu bakoitzaren jarraipenik egiten hasi ez garenez, erreferentzia batzuek ez dira zeharo zehatzak, aurkibideetan ageri diren bezala jasorik baitaude. Kasu batzuetan ezin liteke foliazioa irakurri, eta beste kasuren batzuetan, beste dokumentuekin gertatu ohi zela frogatu ahal izan dugunez, foliazioa erabat zehatza ez izatea ere gertatzen da, inbentarioak egin zituzten izkribauak eurek ere, hainbeste dokumenturen artean, akatsak egiten zituzten eta. Edozein kasutan, akatsak izanagatik ere, izkribauak inbentariatu bazuen, dokumentua bazegoelako zela nabaritzat hartzen dugu, eta beraz, alokairuak emanak izan zirela zalantzagabea zaigu.

³³⁴ GPAH-AHPG 1/3215, 23 (1682); 1/3210, 450 (1691); 1/3220, 77 (1699); 1/3224, 109 (1708); 1/3228, 4 (1717); 1/3327, 71 (1738); 1/3309, 239 (1754) eta 1/3418, 68 (1773).

³³⁵ GPAH-AHPG 1/3221, 36 (1701); 1/3248, 210 (1714); 1/3228, 5 (1717); 1/3334, foliazioaren parte apurtua, baina 14-35 fol. bitartean (1745); 1/3308, foliazioaren parte apurtua, baina urteari dagozkion arteko 2. dok. (1753); 1/3418, 68 (1773) eta 1/3384, 160 (1777).

³³⁶ GPAH-AHPG 1/3248, 211 (1714); 1/3327, 6? (1738); 1/3309, 237 (1754); 1/3418, 68 (1773) eta 1/3395, 69 (1788).

³³⁷ GPAH-AHPG 1/3216, 54 (1692); 1/3246, 449 (1702); 1/3223, 53 (1705); 1/3225, 93 (1711); 1/3229, 54 (1719); 1/3335, 5 (1746); 1/3308, 208 (1753); 1/3317, 246 (1762); 1/3381, 179 (1774); eta 1/3391, 185 (1784).

³³⁸ GPAH-AHPG 1/3212, 184 (1697); 1/3232, 76 (1727); 1/3326, 161-173 fol. bitartean (1737); 1/3336, 57 (1747); 1/3340, 87 (1753); 1/3342, 5 (1761); 1/3413, 66 (1762); 1/3342, 11 (1762); 1/3382, 69 (1775); 1/3384, 3 (1777); eta 1/3395, 323 (1788).

(1703)³³⁹, Andre Mariaren Jasokundea (1735?-1792?)³⁴⁰ eta San Elias (1774-1790)³⁴¹, San Martin (1711-1762)³⁴², Zañartuko San Julian (1727-1749)³⁴³, San Kristobal (1728)³⁴⁴, San Antonio Abad edo San Anton (1729-1790)³⁴⁵, Goribarreko Santa Katalina (gaur egungo San Isidro) (1734-1782)³⁴⁶ eta San Bartolome (1738-1763?)³⁴⁷, “Nuestra Señora la Blanca” (?) (1739)³⁴⁸, Zubilagako Santa Maria Magdalena (1741)³⁴⁹ eta San Pedro (1735?-1774)³⁵⁰, Garagaltzako San Juan Bataiatzailea (1743-1766)³⁵¹, Lezesarriko San Esteban (1749-1788)³⁵², Lazarragako San Pedro (1735?-1766)³⁵³, Santa Kruz (1764-1786)³⁵⁴ eta San Andres (1777)³⁵⁵.

Oñatin bezalaxe, beste espazioetan ere ikusi ditugu, 1769ko seroren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren ondoren ermitauei egindako alokairu kontratuak. Baina horrek ez du, desagerrarazte aginduaren eraginak ezertan gelditu zirenik esan nahi; ermiten egoera eta bertako biztanleen bizimoduan, berebiziko eragina izan zuen. Izan ere, ermiten berririkieran ermitauak onartuak izan baziren, bakarkako serorek bestelako izenen pean ezkutatzen hasi beharko zuten, laster ikusiko dugunez. Hemen jaso ditugun datuez beste, ermitetako serorak gizonezko ermitauei edo ermitauei bikoteen bidez ordezkatzeko prozesuaren inguruko Gipuzkoako datu ugari bildu zizkigun Aguirre Sorondok ere, alokairu bidezko sarreraren ohituraren hedapenean erreparatu gabe izan bazen ere. Bildu zizkigun kasu ugarien gehiengoa XVIII. mendeari dagokio, eta honek ere, ordezkapen prozesu honi aipatu diogun kronologian berresten gaitu (Aguirre Sorondo 2013, 27-30).

Errege Aginduaren atarian, jada esana dugunez, seroren bizimoduaren eta instituzioaren izaeraren inguruko ikerketak eta informazio dilijentziak ugaritu ziren, izan ziren auzi ezberdinak probestuz. Ikertu ahal izan dugunaren arabera, Kalagorriko apezpikutzaren aldetik behintzat; honela aipatzen genituen Debagoiengan izan zirenak, aurreko ikerlan batean:

Leintz Gatzagan, Dorletako santutegian testamentua egiteko eskubidea izatearen inguruan izan zen auzirik luzeena -informazio bilketa eta galdeketa gehien eragin zituena- (1746); Antzuolako San Juan Bataiatzailearen parrokiako serora aukeraketa

³³⁹ GPAH-AHPG 1/3222, 67 (1703).

³⁴⁰ GPAH-AHPG 1/3282, 164 (1735); 1/3380, 75 (1773); 1/3381, 181 (1774); eta 1/3388, 17 (1781). Inbentarioan azken bi alokairuak egin zirela ageri zaigun urteari (1792) dagokion protokoloa falta da.

³⁴¹ GPAH-AHPG 1/3419, 60 (1774); 1/3395, 239 (1788); eta 1/3397, 44 (1790).

³⁴² GPAH-AHPG 1/3225, 107 (1711); 1/3340, 64 (1755); eta 1/3342, 44 (1762).

³⁴³ GPAH-AHPG 1/3250, 481 (1727); 1/3286, 124 (1743); eta 1/3356, 66 (1749).

³⁴⁴ GPAH-AHPG 1/3250, 568 (1728).

³⁴⁵ GPAH-AHPG 1/3232, 8 (1729); 1/3381, 458 (1774); eta 1/3427, 150 (1790).

³⁴⁶ GPAH-AHPG 1/3281, 262 (1734); 1/3327, 209-234 fol. bitartean (1738); 1/3412, 47 (1761); 1/3389, 75 (1782)

³⁴⁷ GPAH-AHPG 1/3327, 209-234 fol. bitartean (1738); hurrengoa ez zaigu zehazten Goribarreko ala Zubilagako San Bartolome ote zen: 1/3413, 90 (1763).

³⁴⁸ GPAH-AHPG 1/3284, 36 (1739).

³⁴⁹ GPAH-AHPG 1/3330, foliazioaren parte apurtua, baina aurreko dok. 248 (1741).

³⁵⁰ Lehen biak ez dakigu Lazarragako ala Zubilagako San Pedrori ote dagozkion: GPAH-AHPG 1/3282, 109 (1735); eta 1/3283, 94 (1736). Hurrengoetan ziur da Zubilagakoa: 1/3288, 16 (1750); eta 1/3381, 439 (1774).

³⁵¹ GPAH-AHPG 1/3332, 117-137 fol. bitartean (1743); eta 1/3415, 110 (1766).

³⁵² GPAH-AHPG 1/3356, 35 (1749); 1/3382, 268 (1775); 1/3391, 62 (1784); eta 1/3395, 321 (1788).

³⁵³ Zubilagako San Pedroren kasuan lehenik aipatu ditugun bi dokumentuak, ez dakigu ziur Zubilagako ala Lazarragako San Pedrokoak ote ziren (1735, 1736); hurrengoa ziur da Lazarragakoa: GPAH-AHPG 1/3373, 69 (1766).

³⁵⁴ Ez dakigu Kalezaharrakoa, Berezanokoa ala Garagaltzakoa ote zen, edo bi ezberdin ote ziren: GPAH-AHPG 1/3414, 161 (1764); eta 1/3393, 25 (1786).

³⁵⁵ Ez dakigu Murgiako ala Uribarrikoa ote zen: GPAH-AHPG 1/3384, 167 (1777).

medio, Ignacio Xavier de Arteach Bergarako bikarioaren seroren lan, etekin, izaera eta jatorriari buruzko informea (1759); Elgetako parrokiaren, seroren arteko kompetentzia arazo bat medio, aukeraketa eskubidearen ohituraren inguruan sortu zen auzian eginiko galdeketak (1763); eta Oñatiko San Migelen, jarlekuaren zerbitzuaren inguruan izan ziren bi auziak, eta bertako ohituraren inguruan egin ziren galdeketak (1742, 1768), testuinguru honi dagozkio. Hauen jatorriaren eta izaeraren inguruan -eta onartu eta debekatu behar zitzaizaienaren inguruan- Arteach bikarioaren antzerako iritzia (baina moderatuagoa) zuen Larramendiren *Corografía...* ere, lehenak bere informea egin zezan baino 5 urte lehenago baino ez zen idatzi (1754) (Larrañaga Arregi 2010a, 115)

Kuriosoa badirudi ere, azkenean, 1602ko eta 1621eko Konstituzio Sinodalek ziotena ziotela, eta serorak desagerrarazteko neurriek izan zuten eragina izanik ere, XVI. mendean bezalaxe, are XVIII. mendean bertan ere, karguan mantentzea lortu zuten parrokiak -ezkongabeak ziren- serorek korporalak, ornamentuak eta bestelako arropa, ohial eta bitxiak garbitzeko ardura izaten jarraitu zuten, hauek aldarekoak izan, ala ez; hala ikus liteke behintzat Debagoienean. Honek, aldareen eta bertako objektu sakratuen inguruko auzia neurri bateraino serorak desagerrarazteko aitzakia ere izan zela ere adierazten digu, mantendu izan ziren lekuetan askotan ez baitziren neurriak efektiboki hartu. Aldareetatik kanporatzearen inguruko agindu espezifikoak hainbeste izan ez baziren ere (Oñatirako aipatu dugun 1627koa baino ez), garbiketen inguruko arrasto dokumentala heldu zaigun kasuetan behinik behin, hala izan zenaren testigantzak ageri zaizkigu. Salbuespenen batez aparte, halako testigantzarik heldu ez zaigun elizateetako parrokiaren eta ermiten kasuan berriz, beraien betekizun eta atribuzioak ez ziren hain xedatuki jaso, baina tenpluen ondasunen administrazioaren gain zeukaten eskumen orokorraren testigantza oster, heldu zaigu. Eta administrazio orokor honen gaineko eskumenak, noski, aldareetako espazioaren baitako lanak eta bertako ondasunak ere baitaratzen zituen. Berez, aurrerago zehaztasun gehiagorekin azalduko dugun lez, sakristauak oso garai goiztiarretatik zeuden hiribilduetako parrokiak seroren aldean, aldareen espazioaren eta objektu eta ornamentu sakratuen erabilera eta administrazioa askoz ohizkoagoa zen elizate eta auzoetako parrokiak eta ermitetak seroren artean.

Baina ohiturek jarraitu zuten bezalaxe, hauen aurkako neurriek ere bai. XVIII. mendearen bigarren erdialdean, azken desagerrarazte aginduaren atarian bertan, Elgetako parrokiako seroren artean izandako kompetentzia liskarrak medio 1763an auzirako galdetegi bat prestatu zenean, galderetariko batean sakristiarako sarreraren debekua gogoan hartu zen; XVI. mende hasieratan bezalaxe, XVIII. enaren bigarren erdialdean ere seroren gaineko ikuspegi eta ardura berberak eragiten jarraitzen zuten:

5. Y si sauen, que las nombradas por los articulantes para dicho ejercicio, no se ocupan en otras cosas, ni sus antecesoras se han empleado en diuersas, que las relacionadas en la segunda pregunta, y mucho menos en misturarse con los Sacerdotes, introducirse en la Sachristia, tocar los ornamentos, ni repartir las misas

Eta noski, lekukoek serorek halakorik egiten ez zutela erantzun zuten³⁵⁶.

Berez, hiribilduetako parrokiak serorak espazio sakratuetan sartu ahal izaten ziren bezalaxe, objektu sakratuak ere euren eskutara ia Aro Berri guztian zehar izan zituztela dirudi; eta hau, batez ere garbiketa xedeetarako egin zitzaizkien ordainketetan erregistraturik gelditu zen. Hauen garbiketarik egindako ordainketen berri dugu Oñatiko San Migel parrokiaren, mende hasieratik, 1678an ordainketak seroraren soldataren baitan integratu ziren arte. Are jada soldata ezarria zegoenean ere, 1687an ere bada aipamen bat, serorari alben eta lanparen garbiketarik eman zitzaizkion 11

³⁵⁶ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

dukaten berri ematen diguna (5 urte hartako garbiketegatik, eta 6 aurreko urteetatik zorretan zitzaizkionak)³⁵⁷. 1672an eta 1768an egin ziren –seroren eskutan uzten ziren– ondasunen inbentarioetan ere, XVII eta XVIII. mendeetan zehar San Migeleko serorek aldareetako hainbat ohial eta arroparen gaineko ardura izan zutela ageri zaigu, eta Bergarako San Pedro parrokiako egoerak ere oso antzerakoa dirudi³⁵⁸; zaila da pentsatzen, aldareetako ohial eta arropa hauek euren esku eta ardurapean bazeuden, bertarako sarrera eragotzia izango zutenik. Elgetako Andre Maria parrokiaren kontu-liburuan ere serorak zenbaitetan aldareetako ohialak eta ornamentuak garbituz ageri zaizkigu, nahiz eta bertan, gehienetan, azalpen gehiagorik gabe, ordainketaren justifikazioa xaboiarena izatera mugatu; 1721ean garbiketagatik ematen zitzaizkion diruak seroraren soldata bihurtu ziren arte, bi aldiz behintzat aipatu zen korporalen garbiketa, 1618ko kontuetan eta 1636koetan, eta 1661-1663 bitartekoetan berriz, beste bi aldiz aipatu zen serorak egindako intsentsu-ontziaren garbiketa³⁵⁹.

Jatorririk urrunena Antzinateko eta Goi Erdi Aroko diakonesen, apezemeen eta balizko emakumezko apezpikuen, eta monastizismo zaharreko emakumeen eskutan izan ziren funtzio ministerialen aurkako legedian zeukaten aldarearen eta bertako objetuen inguruko debekuez bestalde³⁶⁰, hasieran aipatu dugun ikuspegi edo mentalitatearen adierazgarri dira gizonak eta emakumeak tenpluaren baitan banaturik mantentzearen, eta emakumeen agerpen publikoaren aurkako eta gizonen lehentasun sinbolikoaren adierazpenaren aldeko neurriak ere; hauetariko zenbait, itxuraz behintzat, aurrekariak zeuzkaten lehenak ez bezala, Euskal Herriko Aro Berriko testuinguru espezifikokoak eta bertako forma kulturek espreski motibaturiko neurriak lirateke. Aurreragoko kapitulu batean ikusiko ditugun tenpluetako jarlekuen kokapen aldaketak ere neurri hauen parte ditugu, gizonezkoen aulkiak emakumezkoek artaturiko jarleku familiarren aurrean kokatzeko obrak egiterakoan, lehentasun sinbolikoen alderantzaketa lortu izan nahi baitzen³⁶¹; hauekin bat, XVII. hasierako hamarkadak - 1769 bitartean aipatu ditugun aldaketak gertatu bitartean bizi izan zen giroa ilustratzeko balio diguten beste zenbait datu esanguratsu ere bildu ahal izan ditugu. Zentzu horretan eman ziren adibidez, emakumeak elizan estalita joateari buruz 1623ko bisitetan Ontiberos bisitatzailak eman zituen aginduak Aretxabaletan, hiribilduko Andre Mariaren parrokiak³⁶² eta Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiak³⁶³, eta Eskoriatzan, Zarimutz elizateko San Pedro parrokiak³⁶⁴. Ikusi dugu lehen De Lancreren aipu batean nola emakumeei elizaren espazio sakratuaren baitan belua kentzea elebazioaren kontenplaziorako baino baimentzen ez zitzaien; bestela estalita behar zuten egon, Kalagorriko Konstituzio Sinodal ezberdinetan ere arautzeaz arduratu izan zirenen arabera. Oñatin, Araotzen, tenpluan emakumeak eta gizonak banaturik egotera eta azken hauek lehentasun sinbolikoa izatera bideraturik, honako agindua eman zen 1655ean:

auiendo tenido noticia como, los dias festivos, a ora de missa mayor muchos hombres casados y mossos solteros sin querer pasar al cruzero principal donde estan los asientos para los hombres = se sientan debaxo del coro tras las mugeres y tambien algunos al coro de que rresulta escandalo por la sercania con las mugeres, y poca

³⁵⁷ DEAH-AHDSS 3690/001-00 (1553-1616), 394r eta hurr. eta DEAH-AHDSS 3691/001-00 (1617-1714), 25r-240r. Partidak zehazki 1610, 1611, 1612, 1618, 1621, 1625, 1632, 1633, 1634, 1638, 1640, 1650 eta 1687ko kontuetan.

³⁵⁸ Ikus honekikoak VI. 1.2. azpiatalean, 462-465 or.

³⁵⁹ DEAH-AHDSS 2123/002-01, 6v-129v.

³⁶⁰ Ikus honen ingurukoak III. 2.1. azpiatalean, 202-206 or., eta III. 2.2. azpiatalean, 224-226 or.

³⁶¹ Ikus VI. 1.5.1. azpiatalean, 482-485 or.

³⁶² DEAH-AHDSS 4143/001-01, 58v-59r.

³⁶³ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 29r.

³⁶⁴ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 56r.

dezencia mando que ningun hombre casado soltero y mozo suba al coro al tiempo de ora de misa mayor ni este en el mientras se dize ni debaxo del coro so pena de excomunion y que todos, suban al cruzero principal donde estan los dichos asientos³⁶⁵

Eskoriatzan, aipatu berri dugun Zarimutz elizateko San Pedro parrokian 1642an egin zen bisitan, bisitatzailaren aginduko debekuaren ardura “que en la yglesia del dicho lugar sse ssientan algunos hombres en unos bancos que estan mas auajo de a donde se asientan las mugeres” izan zen³⁶⁶. 1691n Aretxabaletako Andre Maria parrokian eman ziren agindu ugarietariko batean ere antzerako ardurak ageri zaizkigu: “no esten los hombres mezclados con las mugeres, antes uien diuididos y apartados unos de otros para euitar los inconvenientes grauissimos que de lo contrario pueden resultar”. Honekin bat, sekularrak koruan ez sartzea ere agindu zen, ezen “se perturba en orden Ecclesiastico; y la atenzion a la Zelebrazion de los Diuinos officios”³⁶⁷. Joera honen adierazgarria den Antzuolako Gure Errukizko Ama parrokiako azken adibide bat ere eman dezakegu, 1733ko bisitan eman zen agindu batena: “Ni en las funciones de la Yglesia repartan las mujeres las luzes a los hombres por la modestia y respeto deuido”³⁶⁸.

Laburbilduz: Debagoieneko parrokia eta ermitei dagokienean, XVII. mende hasieratako hamarkadetako seroren desagerrarazte saiakerek emaitza heterogeneoak izan zituzten. Baina hurrengo urteetan zehar, Probintzia limosna eskaerarako eta gizarte-kontrolerako ezartzen aritu izan zen legediak, landa eremuetako zaintza efektiboa lortzera bideratua zenak, ermita askotako seroren egoera aldatzeko eragin zuen, bakarkako serorak, ermitau eta seroren bikote ezkonduz ordezkatu. XVII. mende bukaera eta XVIII.enaren hasieratako eskaleen, lapurren, arloteen, ijitoen eta kontrol gabeko ibiltarien aurkako neurriek, egoera nahasia agertzen digute, landa eremuetako ermitetako serorak ermitau bikoteen bidez ordezkatzearen alde egingo zuena. Elizako eta Probintziako hainbat instituziok zeukaten nahari, segurtasun gutxiagoko egoera batek eskatzen zuen babes beharra gehitu zitzaion. Eta noski, guzti honek limosna eskaeraren inguruko debekuek sorturiko etekinen urritzea zekarren, serorak biziraupenerako beste bide batzuetara zeramatzana. Azkenean, ermitetako biztanleen sekulartzea behartu eta lortu zen, eta -1769ko seroren desagerrarazterako Errege Aginduan amaitu ziren- limosna eskaerarako neurriei loturiko habituen gaineko debekuek, joera honen azken txanpa azaltzen digute. Azken sinboloa, jantzia, izaera erlijiosoaren ematen zien zeinua debekatu zitzaion, Elizak onarturiko behartsuei -eta Elizari- bakarrik zegozkien abantailak (limosnak) ez zegozkienelako: sekularrak ziren, edo, hobe esan, behar zuten izan.

Parrokietan ere, XVII.enaren hasiera - 1769 bitarte horretako neurriek izan zuten eragina ez da gutxiestekoa. Hiribilduetako parrokietan Bergaran, Elgetan, Antzuolan eta Oñatin mantendu zirela dakigu, baina auzo eta elizateetako parrokietan, batez ere Leintz bailaran, kasu askotan sakristauak ordezkatu zituzten, edo apezek. Ez dakigu garbi, edo ze puntutaraino, Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parrokietako serorekin gertatu lez, auzo eta elizateetan ere serorak sakristauen emazte izatera iragango ote ziren; hala izatearen konstantzia bi parrokia hauetan baino ezin ahal izan dugu jaso, beste parrokietako iturrietan jada sakristauak eta apezak baino ez baitziren aipatu. Hala ere, ez litzateke batere arraroa izango, parrokia txikietan ere ermitetako ermitau eta serora bikoteen tankera hartu izana, sakristau eta serorekin. Aldakuntza hauek tarteko,

³⁶⁵ DEAH-AHDSS 1309/004-01, 68r-68v.

³⁶⁶ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 89v.

³⁶⁷ DEAH-AHDSS 4143/001-01, 261r.

³⁶⁸ DEAH-AHDSS 1263/003-01, 51v.

noski, serorek parroketan XVI. mendean zeuzkaten eskumen eta funtzioak eta XVIII.enaren bigarren erdialdean zeuzkatenak, oso ezberdinak ziren. Sakristauen -eta apezken- presentziaren ugaltzeak eta lurralde historikoetako instituzioek seroren defentsan izan zuten epeltzeak, eta baita gizartearen erlijiotasunaren gainbeherak ere, beraien erlazioen eremuen eta oinarri ekonomikoen gain eragin handia izan zuten, zeuzkaten funtzio erlijiosoak, eta aktibitate eta etekin ekonomikoak asko urritu zirelarik.

Gure begirada, Gipuzkoatik haratago, Euskal Herriko beste lurraldeetara zabalduz, Nafarroa Garaiko ermitetan tarte kronologiko hartan izan ziren gorabeherak bestelako ibilbideak agertzen dizkigute. Ikusi dugu jada nola XVI. mendean geroztik ermitetako biztanleen gaineko kontrol neurriak garatuz joan ziren, eta nola Juan de Undiano ermitauak bultzaturiko erreformak eragin eskasa izan zuen ere. Erreforma honek ez zuen, asmo zuen bezala, ermitetako serorak eta bizimodu aldrebesdun ermitauak kanporatu eta erregela jakin bat zeramaten ermitauen bidez ordezkatzetik lortu. Alabaina, hazia ereinda gelditu zen, eta seroren historian inflexio puntu garrantzitsuetariko bat kokatzen zaigun XVII. mendean lehen hamarkadetatik abiatutik, ermitauen antolakuntza gorpuztuz joan zen. 1613rako elizbarrutiko kongregazio bat osatu zuten, lehen priore izan zen Miguel de Echarren lizentziatuaren ("maestro Navarro" edo "doctor Navarro" deitua -ez bedi Martin de Azpilikueta "doctor Navarro" famatuagoarekin nahastu-) gidaritzapean. Orduz geroztik, kongregazioak, izendapen instituzional baten edo bestearen pean (hermandade edo kofradia bezala ere hautemana izan zen), jarraipena izan zuen, gutxienik, Goñi Gaztambidek ematen dizkigun berrien arabera, XVIII. mendean hasierararte, ermitau nagusi batekin eta erregela zehatzekin; 1670ean, esaterako, ermitauen kofradiaren konstituzio batzuek argitaratu ziren: *Constituciones hechas por el Ilustrísimo y Reverendísimo señor don Andrés Xirón, obispo de Pamplona y arzobispo electo de Santiago, del Consejo de Su Magestad, para la cofradía de los Hermitaños de el dicho obispado, fundada debajo de la invocación de la Anunciación de nuestra Señora en el convento de la Merced de esta ciudad.* 1672an, Miguel de Echarren lehen priorearen testamentuak motibaturiko auzi bat izan zela eta, ermitau hauetariko 33 batu ziren, eta barrutikako banaketa zeukatela ageri zaigu, barruti bakoitzeko, agintarien aginduak jakinarazteko zaintzaile bat ("celador") izendatzen zelarik. 1726an, oraingoan ere testamentu baten inguruko auzi bat medio, 50 ermitau batu ziren, eta kongregazioak honako egitura zeukan: "un general, un secretario y teniente general, cuatro diputados y varios celadores" (Goñi Gaztambide 1965, 88-92). Serorekiko, kontua honakoa dugu: ermitauen antolakuntzak ze puntutaraino eragin zuen XVII. mende hasiera ondorengo hamarkada eta mendeetako garaietan, serorak ermitetatik desagerraraztea? Ez gaude galderari erantzuteko moduan, baina gauza bat jakina da: Goñi Gaztambidek dioskunez, XVIII. mendean hasieratarako jada ermitauen instituzioa bera gainbeheran bazegoen, ordurako mantendu izan zitezkeen serora gutxien egoera, ez dirudi, inondik ere, ermitauena baino hobea izango zenik.

III. 2.3. Gainbehera luzearen osteko azken txanpa: 1769ko Errege Agindua

Heldu diezaigun jada azken txanpari, Gipuzkoara itzuli eta neurri eta debekuen ildoari berriro lotu, eta azken desagerrarazte agindua heldu zenean zegoen egoera ikusiz, bukatzen joateko. 1767an Gipuzkoako Probintziak Errege Kontseiluari -1747an ermitauen janzkerarekin egin bezala- seroren janzkera debekatzeko egindako eskaeraren erantzun lez, 1769an eman zen ermitak isteko eta serorak desagerrarazteko Errege Aginduaren garairako, parroketan bezalaxe ermitetan ere, batez ere azken hauetan, eskasa zen seroratzen egoera. Ermiten kasuan, kopuru esanguratsu bat gainbehera

bidean zegoela dirudi, jada zaintzailerik gabe. Eta hala ere, izan behar ziren zenbait, Errege Aginduan ermitetakoak ere aipatuak izan baitziren. Luze jasoko dugu Errege Agindu honen aipua, hartu ziren neurri ezberdinak bere kabuz aski garbi azaltzen baitzizkigu:

se experimenta en la Prouincia de Guipuzcoa un abuso introducido por una clase de gentes que se llaman Seroras, hermitañas o Beatas, usando indiferentemente de qualquiera de estos tres títulos y de habitos de Dominicas, Franciscas, ó del Carmen, con unas tocas tán uenerables, que infunden en toda la Prouincia un respeto tán eficaz que uiolentando la caridad de los Fieles apenas se atreven a negarles la limosna con perjuicio notable de otros uerdaderamente pobres. La ocupacion de estas Beatas, es la de seruir de Sacristanas egercitandose en la Parroquia y hermitas en uarrer y cuidar de la limpieza de los Templos, componer los Ornamentos, y demas perteneciente al uso de Altar. Para que en un assunto de tanta grauedad se tomase con conocimiento la prouidencia conueniente: Acordó en Consejo que V.S.Y. informas[e] lo que se le ofreciese, y pareciese teniendo pressente la resolucion qu[e] bá citada del año de mil setecientos y quarenta y siete. Y hauiendolo ejecutado con efecto, uisto por el Consejo con lo espuesto por el Sr Fiscal se ha seruido proueer el auto que dice assi = A consecuencia de lo resuelto por S.M. á consulta del Consejo de nueue de Nouiembre de mil setecientos quarenta y siete sobre el traje que deuen usar los santeros, ó hermitaños: se prohiue a todas las Beatas, ó seroras de la Prouincia de Guipuzcoa, y sus Arciprestazgos, assi a las que asisten a las Parroquias, y hermitas, como qualesquiera otras, que en adelante puedan usar del traje, y habito que han acostumbrado hasta aquí, y de otro particular distinto del que se use comunmente en aquella Prouincia, o Pais donde residan. Por ahora continuen sin nouedad las actuales Seroras, o Beatas en la asistencia a las Parroquias a que estubiesen assignadas, pero con absoluta prohibuicion de que puedan continuar perciuendo los emolumentos, que han acostumbrados en las oblaciones, y en los funerales, hasta que los Diocesanos arreglen los que correspondan dando quenta al Consistorio sin que puedan cuestiar en el Pueblo, ni aun dentro de sus respectiuas Parroquias, y con preuencion a los Patronos, y a los Diocesanos, que conforme fueren uacando las plazas de las Seroras por muerte de estas, ó por su uoluntaria dimision, ó por otro motiuo se uayan extinguiendo, de modo, que ni los Patronos, puedan hacer nuevos nombramientos de otras en su lugar, ni los Tribunales Eclesiasticos admitirlos en el caso que los hiciesen debiendo quedar refundido el oficio o empleo uacante de dichas Seroras en el de los Sacristanes, y de la obligacion y cuidado de estos el seruicio de su ministerio con ygal prohibuicion de perciuir por razon de el los referidos emolumentos de las Seroras, hasta que en la forma preuenida se arreglen los derechos que les correspondan. En quanto a las seroras destinadas a las hermitas se manda, que desde luego cesen en el ministerio, y egercicio de tales, y se recojan sus nombramientos por el Corregidor de la Prouincia, para que no se pueda boluer a usar de ellos reintegrandolas de la cantidad, y dotacion, que por esta razon hubiesen dado a las hermitas al tiempo que los obtubieron, y los ordinarios Diocesanos manden cerrarlas todas. y dejandolas anejas a sus respectiuas Parroquias, cuyos Parrocos, en orden á aquellas que por su situacion, cortedad de rentas, ó por otros motiuos no siruan de utilidad, y puedan causar perjuicio al publico, soliciten su extincion, y profanacion ante el ordinario, encargando a los Sacristanes de su Parroquia el cuidado de las hermitas, que se reseruen por juzgarse conuenientes, para que por razon de la agregacion de ellas a las Parroquias no se aumente en estas siruiente alguno³⁶⁹

Asko dira agindu honetan azpimarratu beharreko alderdiak. Lehenik eta behin: zergatik aipatu zen Gipuzkoa soilik? noski, habituaeren debekuaeren eskaera Gipuzkoako Probintziaren aldetik egina izan zen, baina, zein zen Euskal Herriko beste lurralde historikoetako egoera? Izan ere, eskaera Gipuzkoako Probintziaren aldetik egina izan

³⁶⁹ KKA-ACC 17/769/1, f.g.

bazen ere, Errege Agindua, beharrezkoa izatekotan, serorak zeuden Hegoaldeko lurralde guztietara hedagarria izan zitekeen, Gipuzkoara bakarrik mugatu beharrik gabe. Garai haietarako, seroren instituzioak Hegoaldean batez ere Gipuzkoan bizirauten zuela esan nahi ote du honek? ez dakigu garbi, baina Gipuzkoa serorekin izandako arazoan erdigunetzat hartzea, nahiko esanguratsua iruditzen zaigu. Bestalde, seroren desagerraraztea agintzeko motibo nagusitzat, printzipioz behintzat, hauek benetako txiroen kalterako, beraien erlijiozko abituak eta burukoak jantzirik limosna eskaeran jardutearena izan zen. Horrez gain, aurreko desagerrarazte saiakeretan ohizkoak ziren, eta ordundik presente izaten jarraitu zuten motiboak gehitu ziren: "Sacristanas" lanetan ibiltzen zirela, eta garbitzeaz beste, ornamentuak eta aldarea eta bertako objektuak atontzen zituztela. XVII. mende hasieratako motiboak eta ondorengo hamarkada eta mendeetan limosna eskaerekiko loturan ezarri ziren neurriak batzen zaizkigu, argudio nagusiak osatzerakoan. Eta limosna eskaera akuilutzat harturik, janzkera erlijiosoaren debekua bidez, ermitauak bezalaxe serorak ere, espazio erlijiosotik kanporaturik gelditzen ziren; erlijiozko espazioari zegozkion abantailez kanpo, erabat sekulariturik.

Neurririk zorrotzenak, limosna eskaeran ohizkoenak ziren ermitetako serorei zegozkien, ermiten patuari loturik: bapateko eta erabateko desagerraraztea, tituluen batzea eta balio gabetzea, eta ermita guztien itxiera. Neurriokin, XVI. mendeaz geroztik apezpikutzen aldetik serorak ermitetatik desagerrarazteko hartu nahi izan ziren neurriak azkenean asetzearekin bat, batez ere XVII. mende hasieratik arazotsu bihurtua zen landa eremuetako kontrol gabeko biztanleriarentzat -inmunitate erlijiosodun- babes-espazioak ziren ermitak istearekin, gizarte kontrol efektiborako bidean aurrerapausuak egin ziren, horrela, Probintziaren nahiak ere asez. Baina aginduaren betekizunak beste arazo batzuen sorrera ere eragingo zuen, serora hauei emanak zituzten doteak itzultzea ere agindu baitzen, eta ermita askoren kasuan, ez zegoen halakorik egiteko besteko dirurik. Parrokietako seroren desagerrarazterako aldiz, izendapen berriak debekatzeari aparte, gelditzen zirenen oinarri ekonomikoak moztea agindu zen: batez ere heriotz errituei loturik zeuden emolumentuak debekatu, eta limosna eskaera ere bai, are herrian bertan ere (ordurarte baimentzen zitzaizen espazioa). Honek bestelako eskakizun batzuek ere asetzen zituen: biztanleria bezalaxe instituzioak ere (lurralde historikoetakoak eta maila lokalekoak), XVIII. mendean zehar, heriotz errituei loturiko ohituren gehiegikeriek biztanleen aberastasunean eragiten zuten galerarekiko gero eta ardua handiagoa azalduz joan ziren, gero eta erlijiotasun apalagoa azaltzen zuen eta gero eta "ilustratuagoa" zegoen testuinguru batean; elizgizonen eta seroren alor honetako etekinak gehiegizkoak zirela kontsideratzen zen, eta seroren etekinak behintzat paretik kenduz, gastuak arindu zitezkeen³⁷⁰. Esanguratsua da honekiko, parrokietako serorak hil ahala sakristauren bidez egin beharreko ordezkapenean, seroren emolumentuak sakristauei ez esleitzea, hauei zegozkien etekinen kalkulua bere kabuz egin beharrekoa izanik. Eta baita, halaber, zabalik mantentzea komenigarritzat iritziriko ermiten kasuan ere, hauen zaintza parrokiako sakristauari berari esleitzea, "para que por razon de la agregacion de ellas a las Parroquias no se aumente en estas siruiente alguno". Ez zen ermitetan ez ermitaurik, ez serorarik nahi (alabaina, ermitauak bezalaxe serorak ere, itzuliko ziren); pertsonalaren eta gastuen murrizketarako borondatea nabaria zen. Eta noski, esanguratsua da, halaber, parrokietako plan benefizial gehienak, benefiziodunen kopuruari eta hauen etekinei neurria hartzeko asmoz abian jarri zirenak, hurrengo hamarkadetan ekinak izatea.

1769ko Errege Aginduak, beraz, denbora luzean zehar arazotsu bilakatzen joan ziren hainbat kontu zurrunki itxi nahi zituen, eta bide batez, gainbeheran joana zen

³⁷⁰ Ikus honekikoak VI. 1.5.3. azpiatalean, 510-512 or.

mundu eta testuinguru bati, azken ostikoa eman. Eta hala ere, seroren eta ermiten testuinguruak jada gainbeheran bazeuden eta Errege Aginduak min handia egingo bazien ere, ostiko hura ez zen azkena izan. Ez ditzagun baina gauzak aurreratu, eta ikus dezagun desagerrarazte aginduaren inguruan egin ziren informazio dilijentziek agertzen diguten testuingurua, diogunez, jada gainbeheran joana, nolakoa zen.

Leintz bailarako ermitetan izan zitekeen egoeraren adierazle bat Arrasaten Errege Agindua medio izan ziren gorabeherak ditugu. 1746an Udalak apezpikutzako bisitatzailari ermita guztien patroiz zela, eta bertan, alokairupean (hala zen itxuraz, tenpluen, hauetako etxe atxikien eta ondasun eta bitxien propietatea Udalarena baino ez zela aipatu baitzuten), "hermitaños"-ak zeudela ziurtatu zion³⁷¹. 1768rako, jada zenbait ermita egoera txarrean zeuden, eta Udalak Santa Marina ermita eraistea agindu zuela dakigu; ez zeukan zaintzaile egokirik, ermita ondoko etxea alokairuan emana bazegoen ere, alokairuan hartu zutenak herrian beste nonbait bizi baitziren. Ez zuten ermita artatzen, eta hori zela eta, erabat kaltetua zegoen jada. Eraistea eta bere ondakinekin ermitako etxea hobetzea adostu zen, hobekuntzekin, bertatik errenta hobe atera ahal izango zela eta. Halaber, ermita noizbait parrokiak izana zela edo momenturen batean parrokiaren laguntzat erabilia izan zela aipatu zen, bertako hilobiek hala adierazten zutela eta³⁷².

Bergarako eta Oñatiko bikariotzen kasuetan ez bezala, Arrasatekoan Errege Aginduaren harira egin ziren dilijentzien berririk, zoritxarrez, ez zaigu heldu. Agindua bera, hain zuzen ere Bergarako bikarioaren bitartez, heldu zen Arrasateko bikariotzara ere, baina itxuraz, ez zuten informazio dilijentziarik egiteko lanik hartu. Bergarako bikarioak aginduari atxiki zion eskutitzak, bestalde, seroren presentzia Gipuzkoako lurralde guztietara hedatzen ez zela iradokitzen digu, eta agian, Arrasateko bikariotzaren egoeran serora gehienak jada desagertuak egon zitezkeela ere bai; baina adierazgaitzegia dugu aipua, halakorik ziurtatu ahal izateko:

sobre el asunto presente de seroras remito este Correo [...] para que con el practique las dilixencias que preuiene, um executara lo mismo en su uicaria, Y por que dudamos si en alguna de esa Prouincia ay de dicha clase de gentes lleua el despacho la extencion y generalidad que abertira Vm, para que en el Caso de hauerla disponga embiar al uicario, ô uicarios, copia haciendo fee cometido Junto con esta a fin de que Cada uno en su distrito haga Su deuer que asi lo manda S. Y. S. Obispo mi Señor de cuiu orden escriuo³⁷³

Bergarako bikarioak badaezpada seroren presentziaren inguruko zalantzak agertu zituen, eta Arrasateko bikariotzako aginduaren kopiari atxikirik, Bergarakoan eta Oñatikoan ez bezala, informazio dilijentziak falta izateak, seroren presentziak jada oso eskasa izan behar zuela pentsatzera garamatza. Badugu ondorio berberetara garamatzen bestelako informaziorik ere, agindua aplikatu behintzat, egin zela azaltzen diguna; bertako San Juan Bataiatzailea parrokiako lehen kontu liburuaren (1654-1714) azken orrietan 1874an berridatzi ziren eta antza denez 1806koak ziren Santa Barbara ermitaren eta bertan Erdi Aroan izan zen gazteluaren inguruko "berri historiko" batzuek ematen digute Errege Aginduaren ondorengo gorabeheren berri, Santa Barbara ermita bera ere, 1769ko agindua medio itxi egin baitzuten:

El año de 1769 en las Juntas Jenerales de esta Provincia, en la Villa de Tolosa se decreto a incinuacion de la dicha Villa, Azpeitia y Azcoitia, cerrar aquellas Ermitas de los Pueblos cuias barriadas no hacian falta, llebo efecto este decreto menos en los

³⁷¹ DEAH-AHDSS 4824/002-01, 196r-196v.

³⁷² *Ibid.*, 337r-343v.

³⁷³ DEAH-AHDSS 4870/002-01, f.g.

tres lugares dichos [quejantes?] en las que ai mayor numero de Ermitas, en las demas se ejecuto con su mas y menos, pero en esta de Mondragon sin entenderse con la Villa, por un mandarin rico que habitaba y fue Alcalde el año imediato de 1770, y nada pio para las Ermitas, entendiendose con el Cura Parroco, y licencia del Obispo, se cerraron todas el Año imediato de 1771. Conociendo esta Noble Villa la suma falta que en algunas Barriadas hacian las Ermitas dispuso en su Aiuntami[en]to se pidiese licencia al Yllmo. que se bolbiesen a Abrir, la de Santa Maria Madalena, la de Nuestra Señora de las Niebes, con su Aneja de San Jose, la de San Balerio, y el Oratorio Publico del Ospitan [sic] de los Peregrinos de la adbocacion de la Concesion de Nuestra Señora lo cual se ejecuto a la letra, pero ha pocos años tubo maña y poder el mencionado ricacho arriba citado, con el mesmo Cura a quien le tenia embaucado, de demoler la de la Maria Madalena con el pretesto de Ospicio, por cuió motibo tubo que suf[r]ir la Villa algunos Pleytos, y los Vecinos barios desasones, y disgustos. Esta de Santa Barbara se incluío en la cerradura y profanacion General, y se mantubo cerrada asta el año de 1800, que en el trascurso de 30 años desmerecio tanto la fabrica de la Ermita, que ni puerta se le quedo y el tejado caio en parte, de suerte que el Altar Cuadro (que llama Retablo la fundadora) y otros adornos se desaparecieron en el año 1794 en cuió año por la Gerra con el frances, hubo Bateria de Artilleros en aquel Prado o Cima del Castillo, y ocuparon la Ermita los Soldados³⁷⁴

Serorak aipatu ere ez ziren egin, eta ermita guztien itxieraren ostean, Aro Berrian zehar Arrasaten izanak ziren 15 ermiten arteko lauzpabost bat baino ez ziren azkenean berriro zabaldu, udalak apezpikutzari hala egin zedila eskatu ostean. Arrasateko egoera Leintz bailarako beste herrietara ze puntutaraino hedagarria dugun ziurtasunez ez badakigu ere, azaltzen zaigun ermiten egoera ez zen batere ona. Gainera, herriko botere esparruetan ermiten itxierarako interesa zuenik ere bazegoela ageri zaigu nabari, alkate izan zen “mandarin rico” haren eta “embaucado” zeukan apezaren figurek azaltzen digutenez.

Ikusia dugu, bestalde, seroretxeetako biztanleekiko, Leintz bailarako elizateetako parroketan serorak nola sakristauen eta apezzen bidez ordezkatuak izan ziren. Hiribilduetako parrokiei dagokienez berriz: Arrasatekoan, 1677an bakarkako serorak izateko ohitura aldatu zutenetik, 1760. hamarkadararte sakristauarekin ezkonduko seroraren presentzia izan zela dakigu; Eskoriatzakoan, 1618an serora ezkongabeak bazeuden, 1704tik 1792rarte behintzat izan ziren familia-kide ziren sakristau eta serorak, nahiz eta 1764-1792 bitartean, ziurrenez 1769ko Errege Aginduaren testuinguruak motibaturik, hauek ofizialki kapilau batek zeukan sakristau karguaren "substituto" bezala jardun zuten; Leintz Gatzagakoan eta Aretxabaletakoan, XVII. mendean zehar (lehenean 1663rarte, eta bigarrenean 1618rarte) serora edo serorak bazeudela dakigu, baina XVIII. menderako (hurrenez hurren, 1755erako eta 1722rako), jada sakristauak baino ez ziren aipatzen kontu-liburuetan³⁷⁵. Edozein kasutan, 1769ko Errege Agindua heldu zenerako, Leintz bailaran, parroketan bezalaxe ermitetan ere, jada oso serora gutxi zeudela esan litekeela dirudi.

Bergaran, "ofizialki" behintzat, 1770. urterako, aurreko urteko seroren desagerrarazte aginduari men eginez informazio dilijentziak egin zirenerako, parroketako serorak baino ez ziren ageri: bi San Pedron, beste bi Santa Marinan, eta bakarra Elosuako San Andresen. Bazeuden beste bi serora ere, hiribilduan etxe partikularretan bizi zirenak, tenplu jakinen zaintzaren ardura gabe. Xavier Ignacio de Arteach Bergarako bikarioak apezpikutzara helarazi zuen informean, dilijentziak egin aurretik ere Bergarako jurisdikzioko ermitetan ia serorarik ez zegoela aipatu zuen,

³⁷⁴ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 218v-219r.

³⁷⁵ Ikus aipaturiko espazioei dagozkien azpiatalak IV. 2. atalean, 322 eta hurr. or.

“apenas havia ninguna en la Jurisdiccion de esta Villa”³⁷⁶. Baina badakigu ez zela hala, Bergaran bertan behintzat. 50. eta 60. hamarkadetan ermitetarako seroragaien gain Udalak egin zituen sei izendapenek kontrakoa baitiote. Bikarioak, agian, nahiago izan zuen serora hauek ez seroratzat hartzea, erabat sekularturik baleude bezala edo, nahiz eta Udaleko izendapenetan esplizituki "serora" edo "beata" bezala aukeratuak izan zirela ageri. Badaukagu, bikarioarenaz beste, izan ziren bestelako seroren "ezkutatzeeen" berri ere, Santa Katalina ermitakoa kasu, non familia-kide batek serora "Inquilino" bezala ordezkatu zuen, serorari Udalak ermitako lurrak ustiapenerako alokatzen zizkion bitartean. Bikarioaren informea, bestelako hainbat alderdi interesgarri ere baditu: Alde batetik, istea edo zabalik mantentzea komeni ziren ermiten azalpenak, ermiten mantentze-egoeraren berri ematen digutenak. Honela laburbildu zituen honekikoak, kasu honetan, Bergarakoak baino aipagai ez zituela:

Que de las ocho Ermitas adscriptas á la Parroquia de Sn Pedro es conveniente se manden demoler desde luego las de Sn Antonio y Sn Christoval, reservandose, y permaneciendo existentes las del Seminario de Niñas educandas de Nra. Señora de la Soledad, la del Hospital de Sta. Maria Magdalena, Sn Martin de Aguirre, Sta. Ana, y tambien por ahora, y en considerazion á lo que informa el Cura de Sn Pedro, las de Sn Miguel, Sn Estevan, y Sn Prudencio.

Que de las adscriptas á la Parroquia de Sta. Marina, reservandose igualmente las de Sn Adrian, que es de particular, y las de Sn Josèph y Sn Lorenzo, que estàn contiguas á esta Poblacion, y decentes, y sirven para algunas processiones, y por ahora tambien la de Sn Hemetherio, se profanen y extingan todas las demas Ermitas.

Que assibien se mande demoler y extinguir la Ermita de Sta. Ana adscripta á la Parroquia de Sn Andres de Elosua, que es Annexa de la de Sn Pedro de esta Villa, por estar sumamente indecentes³⁷⁷

Eraisteko gomendioa eman zuen ermiten artean, badakigu aurreko hamarkadetan izendapena egin zitzaizen serorak bazeudela: hala gertatzen zen behintzat Murinondoko Andre Marian (azken izendapena 1765ean), San Juanen (1766an) eta seroraren "ezkutaketan" jardun zuten Santa Katalinan (bertako serora ermitauaren emaztetzat sartu zen 1737-1738 bitartean, 1752an alargunduaz geroztik, bakarkako "serora" lez gelditzeko)³⁷⁸. Bestalde, ermitek izan zezaketen eta izango zuten egoera kaskarrak aparte, bikarioak hauen eraispenerako arrazoi "moralak" ere aipatu zituen, izaten ziren liskar eta gorabeheren azalpenak emanaz. Aipu luze honek, landa eremuetako tenpluetako bizitzaren kontrol gabeziak agintarien artean sortzen zituen ardurez gain, agintarien euren mentalitatearen berri ere ematen digu, garbi asko:

Sobre la necesidad de las 28 Ermitas, que se encuentran en la Jurisdiccion de esta Villa, años hà que soi del mismo sentir, que D. Juan Francisco de Torrano Cura de esta Parroquia de Sn Pedro, y es de que á excepcion de ocho ó diez de ellas se mandasen demoler, extinguir, y profanar todas las demas; por que ordinariamente no han servido, ni sirven, sino para profanarlas sacrilegamente con usos improprios, sordidos, e indecentes, quales son los de guardarse en ellas, por algunos labradores contiguos, arcas, y otros muebles, y cosas de sus Caserías, como maiz, castañas, manzanas, lino, paja, y aun alhechos, para reduzirlos despues á fiemo en las Cauallerizas de ellas: de manera que sirviendo las Ermitas para estos disonantes usos en todo el resto del año, solo para el dia de su advocazion procurar assearlas algo, por que el Cura, ó otro Sacerdote en su nombre hà de ir á decir Missa en ellas según costumbre, verificandose

³⁷⁶ KKA-ACC 17/770/18, f.g.

³⁷⁷ KKA-ACC 17/770/18, f.g.

³⁷⁸ Murinondoko Andre Mariako eta San Juaneko, nahiz garai berdinetako beste zenbait ermitetako izendapenetarako, ikus IV. 1.2. azpiatala, 317 or., eta Santa Katalinako seroraren gorabeheretarako, VI. 1.2. azpiatala, 458-460 or.

aquí á la letra lo que dice el R.l Profeta: Filiae eorum compositae, circum ornatae vt similitudo Templi.

Mas no es este el unico, ó mayor mal, de que son ocasión, ó causa estas Ermitas; por que prescindiendo de lo indecentissimas, que están las mas de ellas, se vén con harto dolor, especialmente en el día de la advocacion de cada una, muchissimos desordenes, mediante el concurso de Jovenes de ambos sexos, del tamboril, y vino, en unos sitios despoblados, y distantes del cuerpo de la Villa á media legua y aun á mas, y donde no concurriendo la Justicia, ni persona alguna de respeto y autoridad, que pueda contenerlos, es consiguiientemente inescusable la ruina espiritual de las Almas, y no pocas vezes tambien de los cuerpos, y aun de las familias, con alborotos, pendencias, palos, cuchilladas, heridas mortales, y otros excesos, que varias vezes han sucedido en mi tiempo: de suerte que por haver sido, y ser esto tan frecuente, es yá la regular primera pregunta, que se hace en el Lugar á la gente, que viene de la fiesta de la Ermita: Si hà hauido paz en ella?

Ni puede preponderar á estos inconvenientes la facilidad, ó conveniencia de poder oir Missa la gente de los Varrios de las Ermitas de Sn Prudencio y Sn Hemetherio, distantes ambas una legua de esta Poblacion; assi por lo que informo á V.S.I. el Cura de Sn Pedro; como por que la distancia misma y desvio, en que viven de sus Parroquias, y de todo trato y comunicacion de gente racional, y la privacion de la palabra de Dios, y de la explicacion de la Doctrina Christiana, á que se entregan, los embrutece cada día mas, y llena de Ignorancia de lo mas importante, que deben saber, como nos lo hace ver la experiencia en este Santo tiempo de la Cuaresma, y precepto annual, en que haviendo de venir á su Parroquia por precission á ser examinados en la Doctrina Christiana, y recibir de sus respectivos Curas la Cedula de aprobacion, se reconoce en ellos mayor ignorancia, è idiotismo de un año para otro³⁷⁹

XVII. mendearen erdialdeaz geroztik eta XVIII.ean zehar egosten joan ziren arazo batzuk, agintariak arazotzat hautematen zituztenak alegia, egoki laburbiltzen zaizkigu hemen. Tenpluen erabilera laikoen gaitzespena, landa eremuetako biztanleriaren adoktrinamendu eskasa, eta espazioen, jardueren eta aktibitateen kontrola. Eta arazo horien erdian, ermitak, landa eremuetako sozializaziorako espazio nagusi lez. Horregatik, ermiten itxiera, bertako seroren desagerrarazteaz gain, arazo hauei heltzeko neurri zurrun bat ere bazen; Bergaran, bikarioaren gomendioen arabera, zeuden 28 ermitetako 8 edo 10 baino ez omen ziren zabalik utzi behar. Ondoren, Arrasaten ikusia dugunez eta jarraian Oñatin ere ikusiko dugunez, biztanleen eta Udalaren eskaeraz, zabalduko ziren besteren batzuek ere; baina noski, ofizialki behintzat, jada serora gabe.

Antzuolan, 1767ko eta XVIII. mende bukaera aldeko beste berri batzuk medio, eta 1770ean desagerrarazte aginduaren zioz egin ziren informeen arabera, ordurako ermitetako seroren artean Antiguako Aman zerbitzen zuten bi baino ez zeudela dakigu. 1770erako bi serora baino ez ziren Uzarragako parrokian gelditzen, eta beste hainbeste gelditzen ziren hiribilduko Errukizko Gure Amaren parrokian ere. 1770erako, beraz, denera sei ziren Antzuolako parrokia eta ermitetan gelditzen ziren serorak³⁸⁰. Gogoan izan dezagun, 1746an parrokiara egin zen bisitan, bisitazaileak Antiguako Amaz gain San Bartolome eta Santa Engrazia ermitak ere aipatu zituela, eta nahiz eta nolako zaintzaileak zeuzkaten adierazi ez zen, aginduko seroren aipamen esplizituak hauen presentzia iradokitzen zuen; edozein kasutan, datu honek Antzuolako ermiten gainbehera graduala izan zela agertzen digu³⁸¹.

Elgetan berriz, 1769ko aginduak ez dirudi, printzipioz, hiribilduko parrokian eragin handirik izan zuenik; bertako serorek 1802rarte jarraitu zuten soldata jasotzen,

³⁷⁹ *Ibid.*, f.g.

³⁸⁰ Murugarren 1975, 70-72, 74, 79-81, 85; KKA-ACC 17/770/18, f.g.

³⁸¹ Ikus aurreko azpiatalean, 260-261 or.

etenaldirik gabe. Angiozar auzoko parrokian ere, 1747an egin zen ezagutzen dugun azken izendapena -eta bakarra-, seroren presentzia agian desagerrarazte agindurarte luzatuko zela iradokitzen diguna, baina ez dakigu gehiagorik³⁸². Ermiten buruzko datuak ere ez dauzkagu gehiegi: 1607an Angiozarreko San Kristobal ermitan, 1615ean Uriarteko Andra Mari ermitan eta 1690ean Angiozarreko Partanitiako San Bizente ermitan egin ziren izendapenak baino ez ditugu ezagutzen³⁸³. 1746an bisitatzailerak iragan zenean, oraindik nolabaiteko zaintzaile ermita sortatxo zegoela dirudi, Uriarteko Andra Mari, Paduako San Antonio, San Antonio eta San Adrian, San Pablo, "y otras" ermitak aipatu baitziren; alabaina, ez dakigu seroren presentzia ze puntutarainokoa zen, nahiz eta, Antzuolako kasuan bezala, seroren aipamen esplizituak beraien presentzia iradokitzen digun. Bi kasuetan, 1555eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletako konstituzio bati jarraiki emandako aginduak jaso ziren; baina hemen "los confrades, y otras quales quier personas que tiene a cargo las ermitas" zioen lekuan, bisitetako aginduetan "las seroras mayordomos o personas a cuyo cargo esta el cuidado de dichas hermitas" idatzi zuten; zerbaitegatik izango zen³⁸⁴.

Oñatin, ikusia dugu jada, ermitetako ermitauak eta serorak ugari izaten jarraitu zuten, eta 1769ko informazio dilijentziek egoera berresten digute. Bertan, Errege Agindua heldu zenean, udal agintariek lehenik gaiari buruzko komisionatu batzuen informea eskatu zuten. Bien bitartean Oñatiko bikarioak apezpikutzara erantzun zuen, momentuz, bertako biztanleek parrokiekiko zeukatzen urruntasunagatik meza entzuteko beharrezkoak zituztela eta, "San Joseph, la Magdalena, y San Andres" ermitak zabalik uztea erabaki zuela esanez, eta "Hermita de San Antonio Abad, que esta en el centro de la Villa, y la de San Juan Baptista por la deuocion que tienen los fieles" ere zabalik utzi beharko lirakeela iradokiz³⁸⁵. Jada 1770eko maiatzean, udal agintariek izendatu zituzten komisionatuek osatutako informearen iradokizun gehienak jaso eta berretsi zituzten, dekretu batean argitaratuz. Bikarioaren neurri zorrotzak baino dezente nasaiagoak ziren udal agintariek gomendaturikoak, baina Bergaran bezala, azken finean, ermiten murrizketa gogor bat proposatu zen, landa eremuetako eta ermitetako bizimodu eta ohituren gaineko gaitzespenekin bat. 22 ermiten artean, 13 istea eta 9 zabalik mantentzea gomendatu zuten:

que se extingan del todo las de San Juan de Artia, San Jorje, Santa Maria Magdalena de Corostola, San Julian, y San Bartolome de Marromai, por hallarse en situacion distante, y con profanacion, è indecencia, como tambien las de San Esteban, San Roman, la Ascension, San Christobal, San Lorenzo, San Anton, San Bartolome de Goribar, y Santa Cruz por el poco usso que se hace de ellas, indesencia, por cortedad y por otras Justas consideraciones. Y que las efigies de estos Santos con sus cortas rentas se trasladen à otras, que conuiene se conserben, como son, San Andres, Santa Lucia, San Martin, San Joseph, Santa Marina, San Pedro de Lazarraga, Santa Maria Magdalena de Ancholopestegui, San Pedro de Zubilaga, y San Juan Bauptista, encargando su cuidado al uecino hauitante en la casa mas inmediata respectivamente, para que la abra siempre, que concurra algun sacerdote à celebrar Misas, ò algun uecino à hacer oracion³⁸⁶

Beste hainbat zehaztapen ere egin ziren, itxiko ziren ermitetako ondasunak zabalik mantentzekoak zirenetara eramateko, eta itxieren aurrean, prozesioen ohiturak

³⁸² Ikus IV. 1.1.5. azpiatala, 304-305 or.

³⁸³ Ikus IV. 1.2. azpiatalean, 313 eta hurr. or.

³⁸⁴ Honi buruzkoak eta aipuak VI. 1.2. azpiatalean, 461 or.

³⁸⁵ KKA-ACC 17/769/1, f.g.

³⁸⁶ *Ibid.*, f.g.

eta gorabeherak aldatzeko asmoz³⁸⁷. Horrez gain, udal agintariek apezpikutzara beste eskakizunen batzuek ere egin zituzten, eraitsi beharrekoak ziren ermitetako ondasunak eta hauek betetzen zituzten eta beharrezkoak ziren zenbait funtzio babesteko. Kanpaien erabileraren mantenuak bereziki arduratzen zituela dirudi:

por quanto la Uilla de Oñate es mui estendida en Caserías y Barrios distantes; se estima tambien combeniente poner las Campanas de Sta. Maria Magdalena de Corostola, Sn Cristobal; y Sta. Cruz en las Casas de sus respectibos Hermitaños, que estan separadas de las Hermitas; para hacer señal en los casos de Yncendio casual, y otros de utilidad publica, à efecto de que pueda acudir con prontitud el Uecindario³⁸⁸

Gainera, Bergaran baino are nabariago, ermita hauetako askotako etxe atxikietan aipatu berri zaizkigun ermitau eta serorak zeuden bizitzen. Itxiera eta seroren kanporatze jakinarazpenak egin zirenean, hauek bertako apezzen esku utzi ziren Urrexola (2 ermita) eta Araotz (6 ermita) auzoetako ermitak, informazioa falta zaigunez, kanpo utzirik, 22 ermitetako 3 baino ez ziren gelditu ermitauen edo seroren presentziaren aipamen gabe. Mantentzea gomendatu ziren 9etan bezalaxe, eraistea agindu ziren 13 ermitetako beste 10etan ere ermitauak eta serorak zeuden bizitzen, ikusi dugunez, -gehienak behintzat- alokairu errejimenean sartuak. Jakinarazpenak ermitaua presente zegoenean honi egiten zitzaizkion, baina hau kanpoan zegoenean bere emazte serorari egiten zitzaion, "Beata de [...]" zela adieraztearekin bat, "muger lexitima de [...]" hermitaño de ella" zela zehazturik. Bakarkako ermitau eta serorak ere bazeuden noski, eta baita bestelako erlaziodun bikote edo taldeak ere. Edozein kasutan, presente zeuden ermitauen artetik ezkonduak eta ezkongabeak zeintzuk ziren jakiterik ez badugu ere, seroren kasuan, senarrak aipatzen ez zitzaizkion, senarrak gabeko serorak zirela ontzat eman dezakegu, gainontzeko kasuetan senarra aipatu zitzaie eta. Honen arabera, 10 senar gabeko serora behintzat bazeuden Oñatiko ermitetan, baina ez dakigu laguntzailerik zeukaten, ala ez; Bergarako Santa Katalinan ikusi dugun bezala, bestalde, hauetariko zenbait ermitauarengandik alargunduriko serorak izango zirela ere pentsatu beharrekoa dugu.

Egoera halakoa izanik, Oñatin arazo asko sortu zituen ermiten itxierak. Herriko apezpek ez zeukaten Errege Agindua betetzeko inongo gogorik antza, eta alkateak

³⁸⁷ "Que conseguida la extincion, y profanacion de las treze Hermitas citadas se trasladen las efigies de los Santos con la aplicacion de las respectibas rentas, que al presente tienen, colocando con la posible desencia: a saber San Juan de Artia, à la de San Andres. Las de San Esteban, San Roman y San Jorje a la de Santa Lucia, para cuia diligencia y hacer las obras, y reparos nezesarios se da todo el poder, y comision mas compla (*sic*) al señor Don Juan Nicolas de Antia presente Alcalde. Las de Santa Maria Magdalena de Corostola y la Ascension à la de San Martin, para cuia diligencia se da igual comision a dicho Don Francisco Xauier de Uzelai. La de San Christobal à la de San Joseph para lo que se da igual comision à Don Pedro Lucas de Ascarraga. La de San Lorenzo à la de Santa Marina, cuio encargo se comete à dicho Don Martin de Madinaueitia. Las de San Anton, y San Bartolome de Goribar à la de San Ysidro, para lo qual se comisiona à Don Christobal de Gomendio. La de San Julian à la de San Pedro de Lazarraga para cuio efecto se da tambien comision, a Don Francisco Xauier de Sagastizabal. La de San Bartolome de Marromai à San Pedro de Zubilaga, y la de Santa Cruz à la de San Juan Bautista para cuia traslacion se dà asi bien comision à Don Juan Bautista de Madina Regidor. En este congreso se represento lo combeniente por uarias razones, que se expusieron el que la procesion que en lo antiguo se hacia à la hermita de San Juan de Artia, y de algun tiempo à esta parte à la de San Elias en la Dominica infraoctaua de San Juan Bautista se ejecutase en adelante à la propia hermita de este Santo en el mismo dia de su Natiuidad. Y todos los dichos señores estimaron por justa la proposicion, y acordaron, que en adelante se suspenda la ida en procesion à la hermita de San Elias, y uaia la prozesion en cuerpo de Uilla y Cabildo à la hermita de San Juan Bautista en el dia de su Natiuidad y se celebren tres misas una cantada, y dos rezadas y se entregue por su estipendio la limosna que se recogiere en la misma hermita, y uarrios de la uilla sin contribucion alguna de sus propios por razon de dicho estipendio, ni por refaccion, ni otro motibo alguno" (*Ibid.*, f.g.).

³⁸⁸ *Ibid.*, f.g.

aginduaren betekizunerako egin behar zien jakinarazpena ekiditen ibili ziren³⁸⁹. Hori gutxi balitz, herritarrek haserre zeuden noski, eta alkatea bera apezpikutzara eskutitz bat helarazi beharrean izan zen, aginduaren betekizunerako arazoan, eta herritarren presioaren eta haserrearen berri emateko:

El clamor de los uecinos de esta uilla sobre que se abran las hermitas de que tiene hecha U.S.Y. la uilla su representacion, y la hace Oy de nuevo, es cada dia maior, sin que Yo pueda euitar la suma mortificacion, y molestia que me causan para el efecto como si de mi dependiera, y en su uista me ha parecido Conueniente hacer á U.S.Y. de mi parte la Suplica mas sumisa, a fin de que se digne atender a la representacion que se hace con la Generosidad que acostumbra U.S.Y. de que quedase en particular mui reconocido [...]³⁹⁰

Apezak, eskutitz honen ondoren, alkatearen jakinarazpena jasotzera behartuak izan ziren, eta erantzun beharrean zeudena erantzun zuten: "en razon de las hermitas que se deuen diruir y demoler en el distrito de este Pueblo, estamos prestos a executar lo inmediatamente, que nos permitan las ocupaciones de nuestros empleos". Agindua onarturik ere, artean ez zuten presa handiegirik agertzen.

Auzotarrek ere helarazi zituzten apezpikutzara eskutitzak, ermitak zabaltzeko eskatuz; San Antonio Abad ermitari zegozkion auzotarrek egin zuten eskaera oso esanguratsua dugu, auzotarrek ermitei esleitzen zieten funtzioak, batez ere uzten eta animalien babesari zegozkionak, azaltzen baitizkigu:

como à nuestra noticia ha llegado de haber vuestras mercedes mandado abrir hasta diez Hermitas de esta uilla, y que entre las que no se han mandado abrir se ha comprehendido la referida de nuestro Barrio, siendo asi que està mui decente, y haberla hallado en la misma decencia el Yllmo. Señor Don Juan de Luelmo y Pinto Obispo de este obispado en la Santa Visita personal, y haber tambien su Yllma. mandado abrir dicha Hermita para las rogaciones, y se han hecho dos procesiones, ò rogatibas a la citada hermita estando cerradas otras muchas de esta villa, A que se junta mucha debocion, y concurso que asiste, el dia de San Antonio Abad, y los dias de Santa Rita, Santa Lucia, y Santa Agueda cuias ymagenes se ueneran, experimentandose no pocas uezes la Serenidad de Uientos especialmente quando esta sazonado el Agosto, como tambien la conserbacion de los Animales de Labor por cuio motibo se hacen celebrar muchissimas misas entre año, y quando lo expuesto no fuese suficiente causa para abrir dicha Hermita se ha de tener presente haber predicado en ella y desde ella el Glorioso San Vicente Ferrer, y tambien el haber serbido de tabernaculo del Santissimo Sacramento en ocasión que se inundo la Parroquia de esta villa, llebandolo à caballo al Sacramento para preserbar de las furiosas olas de la agua, teniendose presente tambien la inmediacion que la Parroquia tiene con el rio principal, y si otra igual inundacion

³⁸⁹ "Con motibo de hauerseme Conferido en Ayuntamiento de Caualleros especiales de esta Uilla, celebrado el dia 9 del Corriente mes, Comision para comunicar a los Curas Parrochos de ella los Tres puntos, que informara á U.S.Y. el Testimonio adjunto, pasé la mañana del dia 10 por tres uezes en persona a la Casa del Cura Dn Thomas Miguel de Eguino, y me aseguraron sus domesticos hallarse fuera de ella, por lo que me fue preciso encargar a mi Alguacil, que practicase la diligencia de yndagar el paradero de dicho Cura, y le insinuase mis antecedentes en busca suia, y que se siruiese asignarme hora Competente para Comunicarle la Comision que tenia, y hauiendolo practicado asi, dicho mi Alguacil, me auiesò por medio de este referido Dn Thomas Miguel, que el dia siguiente tenia que salir de la uilla; pero se experimentò lo contrario, pues se quedò en ella, y celebrò la Misa maior, en cuiu uista di orden al esscribano de Ayuntamiento de esta uilla para se uiese con dicho Cura, y su Compañero Dn Miguel Antonio de Yrala, y manifestase á ambos la precision, que tenia de uerme con ellos, y que se siruiesen de señalarme la hora, y para que Gustasen para noticiarles la Comision que tenia de Villa y en efecto me asignaron las tres horas de la tarde del dia 11. y para mejor instruirse, les entreguè por escripto el Contenido de mi Comision, y se me dio la respuesta en la misma forma el dia 12. que su tenor se halla tambien en dicho Testimonio" (*Ibid.*, f.g.).

³⁹⁰ *Ibid.*, f.g.

sucediese (lo que no permita Dios) no haber en el cuerpo de esta uilla, otra hermita tan segura para reserbar el Santissimo Sacramento como la de nuestro Barrio, que estando en el centro de la uilla, està segura de inundaciones; por todo lo qual Suplicamos a vuestras mercedes se sirban dar su permiso para que se abra dicha hermita³⁹¹

Alabaina, apezen eta herritarren erresistentzia hor bazen ere, beste alde batetik, 1769eko Errege Aginduaren gauzatze egokia zaintzen ere baziarduten.

Iruñako apezpikutzan ere antzerakoa zen egoera; 1769ko azaroaren 18an apezpikutzak Errege Kontseiluari aginduaren betekizunaren inguruko kexuen berri eman zion:

Apenas se cerraron las hermitas y se publicó la orden de extinguir las que se contemplaban inútiles o perjudiciales, reclamaron los Pueblos, los Ayuntamientos y los Vecinos que en la maior parte son honrados Labradores, exponiendo, que toda su confianza la tenían puesta en los Santos Titulares que veneraban en dichas hermitas, como Abogados y Protectores bien experimentados contra los nublados, centellas, epidemias y otras calamidades; que acostumbraban hazer sus procesiones y rogativas a ellas en determinados dias del año; que tenían devoción de hazer celebrar Misas; y que en el desconsuelo en que vivian por las largas distancias de sus caserios a las Iglesias Parroquiales, satisfacian a su natural piedad y religiosa Devocion concurriendo a dichas hermitas a encomendarse a sus Santos titulares a rezar el rosario y otros ejercicios cristianos: Por cuio motivo fue también preciso dar muchas providencias para aquietar aquellos ánimos y permitir con ciertas condiciones el uso de las dichas hermitas, aunque con absoluta prohibición de pernoctar en ellas ningún hermitaño y mucho menos muger alguna... Y que era impracticable se ocuparan del cuidado de las hermitas los sacristanes por la mucha distancia que había a la mayoría de ellas (Aguirre Sorondo 2013, 34-35)

1772an, Errege Kontseiluak 1769ko aginduaren betekizuna gauzatu ote zenaren berririk ez zeukala eta ("Como no consta al Consejo, si su resolucion há tenido su debido, y puntual cumplimiento"), Gipuzkoako korrejidoreak herrietako agintariei beste agindu bat helarazi zien, hogeit egunen buruan, honako puntuen gaineko informazioa bidal zezaten:

Primeramente, si algunas Beatas, ó Sororas, que hayan asistido, ó asisten á las parroquias, y Hermitas, y qualesquiera otras, usan en sus Pueblos, Barrios, Aldeas, Ante-Iglesias, y Parroquianias de la comprension de toda su Jurisdiccion Ordinaria de Trage, y Abito particular del que se usa comunmente por las demás personas en esta dicha Provincia.

Si las Sororas, que anteriormente à dicha Real Orden se hallaban destinadas á las Hermitas, cesaron en el ministerio, y egercicio de tåles en cumplimiento de la mencionada Real Resolucion; y si actualmente en contravencion à su tenor hay alguna Sorora en alguna de las Hermitas de su jurisdiccion egerciendo el ministerio, y cuidado de tal.

Si habiendo muerto despues de la mencionada Real Orden, alguna Beata, ó Sorora de las asignadas à las Parroquias, ó separadose de este Empleo por dimision, ó en otra forma, se ha elegido, y nombrado á alguna otra en su lugar, en contravencion à dicha Real Resolucion.

Si las Sororas existentes en las Parroquias, ó los Sacristanes, en quienes se huviese refundido el oficio, ó empleo vacante de èllas, se arreglan en la percepcion de los emolumentos y derechos á lo señalado por los Ordinarios Diocesanos, sin exceder en cosa alguna, ni cuestuar en el Pueblo, ni aùn dentro de sus respectivas Parroquias.

Si por razon de la agregacion de algunas Hermitas á las Parroquias, se ha aumentado en èstas algun sirviente, contra lo determinado por dicha Real Orden³⁹²

³⁹¹ *Ibid.*, f.g.

³⁹² BUA 01 C/655-05, f.g.

Parrokietako, ermitetako nahiz "qualesquiera otras" seroren desagerrarazteko neurrien jarraipen zehatza nahi zen, janzkerarekiko, emolumentuekiko, izendapen berriekiko, etab., beste izenen pean gorderik mantendu zitezkeen kasuak ere aintzat harturik. Halako kasuak ere izan baitziren, are, batzuetan, Errege Agindua eman zedin baino lehenago ere: Bergaran, 1766an, udal batzarrean San Kristobal ermitarako "Custodiadora" baten izendapena egin zuten³⁹³. 1785ean, Aizarnan (Gipuzkoa), parrokiako serora zaharra hiltzean bi "sirvientas"-en izendapena egin zuten,

decretando al mismo tiempo, que se trasladasen a la Casa Seroral y ejercitasen este oficio con las propias obligaciones de las seroras antecesoras, y que disfrutasen la casa sin renta, su huerta y una pieza de sembradía, con la facultad de postular por todo el vecindario, y con los emolumentos y ganancias acostumbradas

Eta eliztar gehienak dekretuarekin ados bazeuden ere, izan zen Probintziako agintarien aurrean kasua salatu zuenik. Aizarnako jurisdikzioa orduan Zestoako alkateari zegokion, eta honek "zerbitzarien" alde egin zuen, hauen defentsan Aian, Deban eta Azpeitian ere Aizarnan bezalaxe egin izan zutela esanez. Baina korrejidoarek ez zuen argumentu hauen aurrean men egin, eta izendaturiko emakumeen kaleratzea agindu zuen, sakristau baten izendapenarekin batera (Lasa 1977, 192). Beste kasu batzuetan, ez zen seroren izendapen berririk egin, hauen "neskameen" izendapenak baizik. 1780 inguruan auzi bat izan zen Antzuolako Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokian auzotarrek halako "neskame" berri bat izendatu zutenean, serora zaharra, bere eta zerbitzupuan zeukan bere ilobaren emolumentuak arriskuan ikusirik, edo ez banatu nahi izanik, aurka agertu baitzen, 1769ko Errege Aginduko izendapen berrien debekua bere alde baliatuz. Auzotarrek, beraien defentsan, Bergaran eta Azpeitian ere hala egiten zela aipatu zuten ("para el cumplimiento de su ministerio se valen de sus criadas") (Azpiazu 1995a, 65).

Ondorengo urteetan ere, beraz, hartu izan ziren 1769ko Errege Aginduaren betekizunerako hainbat neurri. 1780an, oraingoan Kalagorriko apezpikutzako Probisore Orokorraren aldetik heldutako agindu baten bidez, Oñatiko bikarioari orduan zirela 13 urteko Errege Aginduak nola bete zirenaren inguruko informe bat eskatu zitzaion; 1782an erantzun zuen. Seroren desagerrarazteaz beste, zabalik mantendu beharreko eta eraitsi beharreko ermitak zeintzuk ziren erabaki beharrean zeuden oraindik (gogoan izan apezek Errege Aginduaren betekizunerako azaltzen zuten gogo gutxia), eta horrez gain, Bergarako bikarioaren 1770eko informean bezala, ermiten erabileraren eta bertako biztanleen bizimoduaren inguruko iritziak ere eman zituen. Seroren presentziarekiko, eta mantendu eta eraitsi beharreko ermiten inguruan, honakoa zioen:

hallo que las Hermitas de San Joseph, Santa Lucia, San Martin, San Lorenzo, San Anton, San Pedro de Lazarraga, San Ysidro, San Andres, La Aszencion, Santa Maria Magdalena de Zubilaga, Santa Marina, San Juan, San Pedro de Zubilaga, y San Esteban estan bien surtidas de Ornamentos, Calizes etc. y Con el aseo, y adorno correspondiente, y por lo mismo siendo de su agrado, pudiera Um abilitarlas, para la Zelebracion de los Santos Misterios, mandando se Entreguen sus respectiuas llaues â Personas de Entera Satisfaccion, y confianza, que se Encarguen de Su Custodia, limpieza, cuidado, y asistencia, con proibicion aubsoluta de que las Mugerres con pretexto alguno se mezelen, ni Entrometan en ellas â titulo de Seroras, ô Sacristanas. Como por abuso se Yntroduzen, [...] Las Hermitas que de Orden de su Yll.ma se hallan Zerradas, y que se solizita demoler por no ser de Utilidad alguna, son las de Santa Maria Magdalena de Corostola, San Christobal, San Jorxe, Santa Cruz, San Roman, San Julian, y San Bartholome de Goribar, [?] que, y servirse de ellas para recoxer ganado, paxa, castaña etc. me pareze ser nezesaria su total Demolicion, y Euitar Yrreuerencias

³⁹³ BUA 01 L/209, 145 eta hurr.

que Yntroduxo el abuso, ô la malicia, de[s]tinando sus materiales, y despojos para reparos, y mexor adorno de las demas Hermitas [...] La Hermita de San Bartholome de Matromay que tambien se halla Ynabilitada por su Yll.ma, trata repararla Su Patrono Don Joseph Ygnacio de Arangoiti, y recurrir a Vm por licencias, quando se adorne, y quede con la Dezencia nezesaria, por lo que me parece no se debe hazer nouedad por haora ³⁹⁴

1769an Oñatiko udal agintarien iritzia 22 ermitatik 13 itxi eta 9 zabalik mantentzearena izan bazen, 1782an, apezten jarduera iheskorra, herritarren haserreak eta auzotarren apezpikutzarako eskaerak medio, 7 itxi eta 15 zabalik mantentzearen iritzikoa zen bikarioa. Baina ermitetako serorekiko auziak garbia izaten jarraitzen zuen, izkribauak azpimarraturik utzi zuenez: erabateko desagerraraztea. Auzotarrendako, ziuurrenez, seroren presentzia, ermitak berriro zabaltzeko baimena lortu ahal izateko ordaindu beharreko txanpona izan zen.

Oñatiko bikarioa, bestalde, Bergarakoa bezala, erabilera profanoen kexu zen, eta ermiten onuren inguruko auzotarrendandiko oso bestelako iritzia zeukan. Auzotarrek, apezpikutzari ermiten berririkiera eskatzeko uzten eta animalien babesa, "la Serenidad de Uientos", santuen bisitak, uholdeen aurreko babesa, etab. gogoan bazituzten, Oñatiko bikarioak, 1782an, sakralitate gutxi ikusten zuen ermitetan izaten zen bizimoduan:

las Hermitas que se abilitasen, y quedasen Con licencias para Celebrar Misa, haian de tener sus Puertas al Campo, ô Caminos publicos Con Zerrajas, y llaues seguras, y en ninguna manera al Ynterior de las Hautalizaciones de los Hermitanos y Casas Contiguas, Condenando, y tapiando para siempre â Cal y Canto las que hay de Este Jenero en algunas de ellas, siendo cierto y ha demostrado la Experiencia, que las Hermitas que han tenido puertas reseruadas, y transito a las Casas de los Hermitaños, y sus familias, han Estado con menos respeto, y venera[zion] [???]uibandolas como sus propias Casas en Comidas, Veuidas, y combersa[ziones] ocupandolas con camas donde dormieron sin Escrupulo, y colocando en [ellas] sus axuares, arcas, armarios, y otros Vtensilios: ademas de que te[nien]do los Hermitaños familia, ê hixos, estos se diuierren, y Juegan ellos [???] sin que las repetidas admonestaciones de Personas Zelosas haian log[ra]do reprimir y remediar Estas y otras Yndezencias, que son sobradamente publicas, por lo que me parece se debe mandar de que se cierren para siempre y se condenen las Puertas interiores a las Hautalizaciones [y] que las Mugerres se abstengan del oficio de sacristanas, prouidenciando interin no se obedezca a lo asi mandado, no se Celebre en ellas mis[as] Encargando a Persona de confianza, Zele, y dando Comision, pareziendo â Vm, de poner en Execuzion quanto se siruiere ordenar en el particu[lar]³⁹⁵

Bikarioari ez zitzaion atsegin, inondik ere, itxuraz gertatzen zen bezala, ermitauak ermita, beraien baserri testuinguruko bizimoduan, erabilera profanorako beste espazio bat bailitzan erabiltzea. Ikusten dugunez, seroretxe edo etxe atxikietatik ermitetarako sarrera zuzeneko atea zeuden ermitaren batzuetan, eta ermitauen umeak ermitan jolasean ibiltzeaz beste, bisitaren bat edo beste izaten zenean, jendea tenpluetan lo egiten ere gelditzen zela dirudi; beti ere, noski, bikarioak salatzen zuenaren arabera. Ohar dezagun beste behin, bestalde, Oñatin, ermitauen emazte ziren eta hauekin umeak izan eta familian bizi ziren serorak zirela "oficio de sacristanas" egiten ibiltzen omen zirenak. Eta auzotarren testuinguruan egoera hau normaltasunez onartzen zela dirudi, nahiz eta Oñatiko bikarioak beraien bizimoduaren alderdiekiko "repetidas admonestaciones de Personas Zelosas" aipatu zizkigun; izan ere, ziuurrenez bikarioa beraren gertuko botere testuinguruetan txertaturiko jendearengandik helduak behar

³⁹⁴ KKA-ACC 6/562/85, f.g. Leku batzuetan egin ziren dilijentzietan, tenpluetako giltzak ze etxetan utzi behar ziren ere zehaztu izan zuten; Ataunen, esaterako, Kalbarioaren Gurutze Santuaren ermitako giltzak "Larracea" etxeko jabeak gorde zitzala agindu zen (Arin Dorronsoro 1929, 46).

³⁹⁵ *Ibid.*, f.g.

zuten kexu hauetaz beste, ez dugu Errege Aginduaren aplikaziorako Oñatin aurrera eramán ziren ekintza eta dilijentzia guztien artean auzotarrek eurek seroren eta ermitauren aurka azalduko inongo kexuen berririk, nahiz eta, halakorik izatekotan, Errege Aginduak aukera paregabea eskaintzen zien.

1769ko Errege Aginduak, XVII. mendeko seroren desagerrarazterako neurriek bezala, ez zuen bere xedea erabat bete. Seroretariko batzuek parroketan eta ermitetan izaten jarraitu zuten, eta, beraien ibilbide luzean, leku batzutan, kargua gaur eguneraino ere heldu izan da. Baina noski, Aro Berrian zehar seroratzek izan zuten izaerari nonbait bukaera eman beharrean bagaude, puntu hori 1769ko Errege Aginduan kokatzen da. Batez ere, serora gehien kanporatzea eta ohituren aldaketa modurik gogorrean eragitea, agindu hark lortu zuelako, eta Errejimen Zaharraren bukaeran, aldakuntza orokorragoen testuinguruan txertatua zegoelako. Oso esanguratsua da, heriotz errituei eskainitako atalean azaltzeaz arduratuko garenez, erritu horien gehiegizko gastuen aurkako neurriak seroren desagerrarazte aginduaren testuinguru berebean eman izana, eta kasu batzuetan, elkarrekin uztarturik agertzea. Gipuzkoako Aldundiak, 1783an hartu zituen alor honetako neurri erabakigarrietariko batzuk; hain zuzen ere, 1769ko Errege Aginduaren arabera azkenekoak izan behar zuten parroketako serorak, pixkanaka, hiltzen zioazen garai batean³⁹⁶.

Hemen bukatuko ditugu, hortaz, kapitulu honetako azalpenak; nahiz eta seroren bizimoduaren hainbat alderdiren azalpenak jada eman ditugun, barrenean, ez dugu oraindik seroren instituzioak zertan zetzan azaldu. Izan ere, kontrol sozialaren, erlijiotasunaren eta moralaren alorreko motibo eta argumentuez beste, neurri guzti hauek motibatuta zituen bizimoduaren baitan ze lan, ze etekin, ze erlazio, ze eragin, ze botere-esparru, etab. baitaratzen ziren ikusi beharrean baikaude oraindik. Aro Berri guztian zehar euren kontra izan ziren jazarpenen giroan, Euskal Herrian zehar aski hedatua izanik ere emakumezkoen erlijiotasun ofizialaren testuinguru orokorrean ezohikoa, heterodoxoa eta hainbat agintarientzat are gogaikarria ere bazela dirudien instituzio bat azaltzera heldu gara, baina ez gara oraindik beraien aurkako joera guzti hauek zerk motibatzen zituen osoki ikustera heldu. Hurrengo orrietako saiakera dugu hori.

Debagoieneko espazio ezberdinetako seroratzek kargu lez izan zituzten ezaugarriak azaltzearekin ekingo diogu asmo horri; orain arte emandako azalpen guzti hauek aurretik eman nahi izan baditugu, XVI-XVIII mendeak bitartean Debagoieneko espazio ezberdinetako seroren artean izan ziren aldaerak, presioak eta eraginak, azalduz joango garen ezaugarri ezberdinak ulertzeko beharrezkoak direlako da. Eta halaber, baita seroren aurka Aro Berrian zehar hartu ziren neurriek, jatorriari eta eraginei buruzko kapituluak aipagai izan ditugun erlijiozko emakumeen bestelako instituzioen aurka hartu ziren neurrien islada dakarkigutelako ere. Izan ere, honek, seroren balizko jatorrietan aipatu ditugun erlijiozko emakumeen instituzioen eta Euskal Herriko Erdi Aroko eta Aro Berriko seroren arteko jarraipen zuzena ziurra ez izanik ere, batzuen eta besteen aurka harturiko neurriek ostera Elizaren legediaren tradizioan koherentziazko jarraipen bat izana zezaketela aski segurki baieztatzen baiekaramatza. Antzerako fenomenoaren aurrean harturiko tradiziozko neurrien jarraipen baten aurrean geundeke. Hausnarketa hauez beste baina, aipaturikoez gain izango dugu, seroren aurkako neurrien inguruko beste hainbat gertakizun ikusteko paradarrik ere, tenplu konkretuetako gertakizunak, neurrien azalpen orokor batean txertatuko bagenu jarraikotasunaren eta ulermen garbi baten kontra egingo luketenak (eta horregatik tenpluen azalpen espezifikoetan baitaratuko ditugunak), ugari izan baitziren. Gainera, trazu orokorretan,

³⁹⁶ Ikus honekikoak VI. 1.5.3. atalean, 510 eta hurr. or.

orain arte azaldu izan ditugunak tenplu ezberdinetako serorek bitarte kronologiko guztian zehar kanpotik jaso izan zituzten eraginei zegozkien artean, ondoren azalduz joango garen ezaugarriak espazio bakoitzeko tradizioei zegozkien gehiago (nahiz eta aldaketak ere ugariak izan ziren), lekuan lekuko joera eta baldintzapenei zegozkienak; hein batean, orain arte azalduko kanpo-eraginei aurkako joera bati zegozkion, eta tradizio lokalen mantentzeko joera nagusiak gidatzen zituen.

IV. DEBAGOIENA: SERORATZA MOETA EZBERDINEN ARABERAKO ESPAZIOAK ETA EZAUGARRIAK

Jarraian landuko dugun kapitulu honetan, Debagoieneko herrietako tenpluetan kokaturik, bertako seroratzen ezaugarriak eta seroragaiei eskatzen zitzaizkien baldintzak azaltzen saiatuko gara. Ikusiko dugunez, espazioa osatzen duten 8 herrietako seroratzak moeten aniztasuna oso handia da, eta aniztasun hortan, Euskal Herriko bestelako kokapen ezberdinekiko eredu baliagarriak ematen zaizkigulako ustea daukat, nahiz eta, noski, espazioaren testuinguru geografiko eta instituzionaleko baldintzapenak espezifikokoak izan.

Seroratzen eta seroragaien ezaugarri eta baldintzapenak ikertu ahal izateko baliatu ditugun iturri dokumental printzipalak, herrietako botere-esparruen eta tenplu ezberdinetako patroitzaren inguruko azalpenetarako erabilitako iturri bibliografiko eta dokumentalez beste, bi ditugu: alde batetik bildu ahal izan ditugun 51 izendapenak, eta bestetik, tenpluetako kontu-liburuak. Hauekin bat, auziek eta protokoloetako dokumentu ezberdinek ere, bereziki testamentuek, informazio esanguratsua dakarkigute. Oinarri honek sarreran aipagai izan ditugun hiru espazio nagusitan banatutako seroratzak moetak ikertzeko bidea emango digu: lehen espazioa Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osaturikoa dugu, bigarrena, Leintz bailara geografikoa litzatekeena, Arrasatek, Aretxabaletak, Eskoriatzak eta Leintz bailarak osatzen dutena (geografikoa diogu, garai ezberdinetan instituzionalki Leintz bailara izan zenak aldaerak izan zituelako), eta hirugarrena, Oñatik bere kabuz osatua. Puntu honetatik aurrera, arrazoi berezirik tarteko ez izatekotan, alderdi ezberdinen ikerketa egitean herriei taldeka edo banaka erreparatzerakoan multzo eta orden hauetan antolatuko ditugu, azalpenen jarraipenerako irizpide garbi bat izateko asmoz.

Aipaturiko iturrien bidez eta esandako antolakuntzaren arabera, tenplu bakoitzerako ikergai izango ditugun funtsezko alderdiak honakoak izango dira: patroitzak eta aukeraketa, izendapen eta onarpen eskubideak; seroragaiei eskaturiko baldintzak; dotearen ematea; eta abituaren inguruko eskakizunak. Azalpenekin bukatu eta ekin diezaiogun hortaz, espazioetara gerturatzeari.

IV. 1. BERGARA, ELGETA ETA ANTZUOLA

Espazio honen baitan agertu zen lehen hiribildua Bergara izan zen, 1268an Alfonso X Jakintsua Gaztelako erregeak hiribildu-karta eman ziona. Hiribilduaren fundazioa egin zen Ariznoa izeneko kokapenean fundatu zen San Pedro parrokia, zenbaitek, aurretiko tenpluren baten gain fundatua behar zuela uste dutena. Bergarako beste parrokia nagusia zen eta den Oxirondoko Santa Marina eta Antzuolaren sorkuntzaren aurretik lehen gune populatu nagusia izan zen Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokia lehen aldiz 1305ean ageri zaizkigu aipaturik, biak monasterio bezala, Gaztelako Fernando IV erregeak Oñatiko kondeari dohaintzan eman zizkioneko dokumentu batean. Dohaintza hau Tenplarioen ordena debekatu eta desegin zuten garai eta testuinguruari dagokio, eta Uzarragako San Juan Bataiatzailearen kasuan, Lope Martínez de Isastik 1625ean hala ziurtatu izanagatik, eta lekuko tradizioek ere hala diotelako, aurretik Tenplarioen ordenako monasterioak izan zirela uste dute zenbaitek.

Beraz, Bergarako hiribildua eta San Pedro parrokia errege patroitzapekoak eta jurisdikziopekoak ziren artean, Oxirondoko Santa Marina eta Uzarragako San Juan Bataiatzailea, errege jurisdikziopekoak baziren ere, Oñatiko kondearen patroitzapekoak ziren, eta gorabeherak gorabehera, hiru parrokia hauen patroitzarekiko egoera bere hortan mantendu zen Aro Berri guztian zehar. Oxirondoko elizateak eta bere parrokiak, 1335ean Elgetako hiribilduaren fundazioa egin zenetik hiribildu honen parte baziren ere, Elgetako eta Bergarako biztanleen artean 1344az geroztik izan ziren liskarretan, azkenean –besteak beste, gertuago zeukaten– Bergararen alde egiten bukatu zuten, 1348an Santa Marina parrokiaren eta San Pedro parrokiaren arteko hitzarmen bidez, Bergararen parte izatera iragan zirelarik. Oxirondoko Santa Marina parrokiako eliztarren Bergarako hiribildurako atxikipena, Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiakoekin batera, 1391n berretsi zen, bandoen liskarren artean, bi elizateek errege jurisdikzioaren babespera iragan nahi izan baitzuten³⁹⁷.

Antzuolako hiribilduko Gure Errukizko Ama parrokiak 1523an jaso zuen Clemente VII. aita santuaren eraikitze-onespena, Olalde izena zeraman kokapen lauagoan gero eta kopuru handiagoan bizi ziren Uzarragako parrokiako eliztar batzuen eskakizuna onartuz; hauek, zegokien parrokia oso urrun gelditzen zitzaie eta jada biztanleria esanguratsua bildua zegoela (150 eliztar) argudiatu zuten parrokia berriaren eskakizunerako. Parrokia berria aurretik kokapen hartan zegoen Magdalenaren ospitalearen gain eraiki zen, eta ondorengo urteetan zerbitzu erlijiosoetako kompetentzia zela eta zenbait gorabehera eta auzi izan baziren ere, Uzarragako San Juan Bataiatzailea eta –ondorengoko– hiribilduko Gure Errukizko Ama parrokiak parrokia batuak izatera iragan ziren, ikerketa honetan dagokigun Aro Berri guztian zehar ere, egoera horretan jarraituz (Murugarren 1975, 51-57). Bergarako Elosua auzoko San Andres parrokiari dagokionez, 1545ean iragan zen ermita izatetik parrokia izatera, Antzuolan gertatu bezala, kasu honetan ere, auzotarrak Bergarako hiribilduko San Pedro parrokiatik oso urrun zeudela eta (Aramburu 2008, 2. lib., 615-616). Garai haietan patroitzatza Oñatiko kondearena bazen ere, parrokia izatetik gutxira udalaren patroitzapera iragana izan zela dirudi, ziurtasun osoz hala zela 1777erarte agertzen ez bazaigu ere³⁹⁸. Bergarak eta Antzuolak jarraitu zuten ibilbide instituzional amakomuna 1629an eten zen, Antzuola Bergararengandik aparteko hiribildu bihurtu zenean; garai beretsuan, Antzuolaren

³⁹⁷ Bergara, Oxirondo eta Uzarragaren hasierei buruz ikus Zenbaiten artean 1994, 8 eta hurr. or.; Murugarren 1975, 23-26, 34-35; eta Aramburu 2008, 1. lib., 111-112, 327. Patroitzarekikoak berriz, Diaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 366-369, 374-375; Martínez de Isasti 1985 -1625-, 210-211; eta KKA-ACC 6/453/52.

³⁹⁸ Ikus azalpenak aurrerago, IV. 1.1.3. azpiatalean, 300 or.

ereduari jarraiki, Oxirondoko elizateak ere Bergararengandik banandu nahi izan zuen, baina ez zuen azkenean halakorik lortu, gaur egunerarte, Bergararen parte izaten jarraitu izan duelarik (Murugarren 1975, 33-37).

Elgetari dagokionez, hiribildu-karta 1335ean jaso zuen Alfonso XI. Gaztelako erregearen eskutik, Maya zeritzon lekuan, eta jada azaldu bezala, hasieran Oxirondo elizatea eta bertako Santa Marina parrokia ere herriaren parte izan ziren, 1348rarte. Ez dago garbi bertako lehen parrokia gaur eguneko Andre Maria parrokia berbera izan ote zen, ala bere arkitektura eta eskultura aldetiko datazioak XIV. mendearen lehen erdialdean kokatzen duen Uriarteko Andre Maria ermita izan zen; bertako biztanleek ere azken iritzi hau berresten dute, inguru guztiko parrokiarik zaharrena izandakotzat baitaukate. Aro Berri guztian zehar Elgetaren parte izan zen (gaur egunean Bergararen parte da) Angiozar auzoko San Migel parrokia 1487an dokumentaturik ageri da lehen aldiz, eta Angiozar bezala, Aro Berri guztian zehar Elgetaren parte izanik gero Bergararen parte izatera iragan zen Ubera auzoko San Pablo parrokiak berriz, lehen aipamena ezagutzen zaion XVI. mendearen lehen erdialdetik, ermita izendapena izan zuen Aro Berri guztian zehar (San Martin 1975, 23 eta hurr., 70, 80; Celaya 1976, 29-33). Elgetako eta Angiozarreko parrokiak hasieratan Oñatiko kondearen patroitzapean zeuden eta XVI. mendearen lehen erdialdean hala egoten jarraitzen zuten, baina 1625erako, jada kondearen patroitzapetik erregearenera iraganak ziren (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 373-375; Martínez de Isasti 1985 -1625-, 210-211).

Espazio honen baitan, jada aipagai izan ditugun eta parrokien jatorri izan ziren monasterio zaharrez gain, izan ziren beste zenbait tenplu ere, garai zaharretan monasterio izanik, ondoren ermita izatera iragan zirenak. Bergarako Aritzetako San Migel ermita dugu hauetariko bat; 1050ean dokumentatu zen lehen aldiz monasterio lez, bertako abade zen Santxo (“Sanzio”) zelako batek San Juan de la Peñako monasterioari zenbait lursail eta sagastiren dohaintza egin zionean (Aramburu 2008, 2. lib., 587-588). Zenbait urte beranduago, 1203an, halaber monasterioa zen Angiozarreko Elexamendiko Andre Maria ermita, zegozkion zenbait ondasunekin batera, Santxa Perez zelako andre batek lagapenean eman zion Iratxeko monasterioari (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 133). Azken lagapen hau bereziki interesgarria zaigu seroren jatorriekiko, monasterio baten administrazioaren gaineko gidaritza zeukan emakume baten berri ematen baitigu. Oso litekeena da bi monasterio hauek, sarreran aipagai izan ditugun “monasterio familiar” horietarikoak izatea. Beste tenplu bat ere izan zen, Antzuolan, Uzarraga elizatean, ondoren parrokia izatera helduko ziren –eta lehen dokumentuetan monasterio lez aipatuak izan ziren– Bergarako Santa Marina eta Uzarragako San Juan Bataiatzailearen kasuetan bezala, Tenplarioekiko nolabaiteko loturaren bat izan omen zuena: gaur egunean desagertua den Santa Kruz ermita. Tenplarioenganako lotura, bertan ehortziak izateko asmoz, Leintz Gatzagatik ere gorpuak ekartzen zituztela dioen tradizio herrikoiak sostengatua da, eta 1537ko dokumentu batean, ermitarekin batera, atxikia zeukan hilerria ere aipatu zen (*Ibid.*, 52).

Laburbilduz, espazio hau, jada Aro Berrian kokaturik, hasieratik erregeren patroitzapekoak eta jurisdikziopekoak ziren hiribildu batzuek eta Oñatiko kondearen patroitzapetik irtetzen joan izan ziren beste parrokia batzuek osatu zuten, eta hiribilduekiko eta beraien menpeko espazioekiko, Antzuolaren Bergararengandiko banaketa izan zen aldaketa nagusia. Ezaugarri geografiko eta demografikoei dagokienez, Bergarako hiribilduak, Elosua auzoak, Antzuolako hiribilduak, Uzarragako elizateak, Elgetako hiribilduak eta Angiozar auzoak osatzen zituzten nukleo

populatuenak eta garrantzitsuenak, ermita ugariak erdigune zituzten auzoetako populazio dispersodun eremu zabal batekin.

IV. 1.1. Parrokiak

IV. 1.1.1. *Bergarako San Pedro parrokia*

San Pedro parrokiaren patroitzaren, parrokiaren sorkuntzatik bertatik eta dagozkigun XVI-XVIII mendeetan zehar, Bergarako udalak mantendu zuen, nahiz eta patroitzaren eta parrokiari zegozkion hainbat eskubideren inguruan eliz-agintariekin hainbat gorabehera izan zituzten³⁹⁹. Aukeraketa eskubidearen inguruan baina, egoera ez zaigu hain garbia azaltzen. XVI. mendearen lehen erdian ez dakigu oso garbi nori zegokion parrokiako seroren aukeraketa. Juan Castellanos Villalba Kalagorriko apezpiku izan zen aldian (1516-1518) eman ziren aginduen artean seroren kopurua mugatzeko aginduak ere eman ziren; bisitatzailleak parrokian serora bakarra egon zedila agindu zuen, eta apezpikutzak hauen aukeraketen gain zuen onarpen edo gaitzespen eskubidea bermatu nahi izan zuen: “que de aqui adelante no acoja ninguna (sin escritura?) de su señoría, y esto mando guardar a los legos so pena de excomunion y a los clerigos de excomunion y de quatro ducados para la camara y fisco de su señoría”. Baina seroren kopurua mugatzeko aginduari inongo kasurik egin ez zitzaiola ikusirik (1525ean “quatro o çinco beatas q. andan siruiendo en la dcha. Yglesia” aipatzen ziren), ezin esan apezpikutzak seroren aukeraketen zeresan handiegirik zuenik, XVI. mende hasiera hartan behinik behin (Sorondo 1994, 289). Agindu berbera 1602ko Kalagorriko konstituzio sinodaletan eman zenaz geroztik ostera, araua bete zela dirudi; 1611n, 1613an eta 1754an eman ziren apezpikutzaren aldetiko lizentzia batzuen berri badugu behintzat⁴⁰⁰. XVI. mendean eliz-agintariek parrokiako zerbitzuaren inguruan zeukaten kontrol urria nabariagoa da 1563 inguruan eman zen agindu batean; maiordomoen aukeraketarako zegoen modua gaitzetsi zuen orduan bisitatzailleak: “la mala orden q. ay en la dcha. Yglia. en el nombrar de los mayordomos, atto. q. los mayordomos de la dha Yg^a. viejos nombraban los nuevos, personas q. bien les parescia e no les parescia e no les tomaria las quantas como hera rrazon” (Sorondo 1994, 297).

Serorekiko, maiordomoen kasuan bezala eta 1572an Catalina de Ondarza serorak helarazi zuen testamentuan iradokitzen zenaren arabera, ez dirudi orduan oso arau zurrunik jarraitzen zenik, edo aukeraketa eskubidea nori zegokion garbi zehazturik zegoenik. Catalina serorak bere testamentuan ondorenean San Pedro parrokian zerbitzekoak izango ziren serorendako seroretxea fundatu zuen, zio horretarakoxe Goenkalean eresia zeukan etxe batean. Bertan biziko ziren seroren aukeraketa eskubidea parrokiako apezari eta bi maiordomoei esleitu zien, eta areago, bere ondorengo zuzena aukeratzeko orduan, bere erabaki propioz egin zuen aukeraketa (maiordomoek egin ohi zutela ikusi dugun lez); bazituen zalantzaren batzuk, hala ere, horrelakorik egin ote zezakeenaren inguruan:

y desde agora de mi mano dexo y nombro por una de las dichas tres beatas a Maria de Oruesagasti que al presente esta en mi servicio, por [la] esperi[encia] que tiene para ello, las calidades y dotes nesarias y que esta ynstruida y ensinada en las cosas que combienen para el servicio de la dicha yglesia, por auerse criado y bibido conmigo muchos años – y si para este efecto fuere nese[saria] liçençia e la aprobaçion del juez

³⁹⁹ Eliz-agintariekin patroitzaren inguruan izandako arazoekiko, ikus Aramburu 2008, 1. lib., batez ere San Pedro parrokiari dagokion kapituluaren “El patronazgo” azpiatala, 112-119 or.

⁴⁰⁰ BUA 04 MIK/SP 16, 252-259 fot., BUA 04 MIK/ SP14, 076-077 fot. eta KKA-ACC 17/755/113, f.g.

ordinario o otra diligencia alguna – desde agora pido y suplico a quien de derecho la debiere – la de y conçada como para semejante caso se requiere⁴⁰¹

Zalantza hauek arraro xamarrak suertatzen dira, Catalina bera ere norbaitek aukeratu izan beharko zuela pentsatzen badugu. Susmatzen dugun bezala, artean –edo momentu hartan, behinik behin– erabat definitu gabe ote zegoen eskubide hau? Horrela zela uler liteke, Catalina berak, seroretxearen fundatzaile zen heinean aukeraketa eskubidea ezartzeko askatasuna zeukala ulertzen zuela baitirudi.

Edonola ere, eta nahiz eta Catalinaren fundatzaile papera luzaroan goretsi eta errespetatu zen, ez dirudi ondorengo urteetan aukeraketa eskubidea parrokiako apezari eta bi maiordomoei esleitzeko bere asmoa gehiegi errespetatu zenik, udaleko agintariak, parrokiaren patroï ziren heinean –eta eliz-agintariak batzuetan erabat onartzen ez zieten patroïtza berretsi nahi izaten zuten heinean–, zenbait hamarkada beranduago hasi baitziren aukeraketeta eta izendapenetan parte hartzen. 1613an Catalina de Zuruzelaeguiaren izendapena apezpikutzaren aldetik onartu zenean, lehenik "los patronos de la obra pia que fundo la freyra de Ondarça de serora en la yglesia de San Pedro de la dicha Uilla" aipatu ziren, eta ondoren, apezpikutzaren onarpenak serora berriaren sarrera ontzat ematera behartzen zituen eragileen artean, parrokiako lau apez benefiziodunak eta beste bi serorak baino ez ziren aipatu⁴⁰²; erabateko segurtasunez ez badakigu ere, itxuraz, Catalina de Ondarzaren testamentuan ezarri bezala udal agintariak oraindik aukeraketan parte hartzen ez zutela dirudi, bestela, apezpikuaren agindua betetzera beharturikoen artean aipatu izango zituztela pentsa bailiteke. Gainera, 1613ko Catalina de Zuruzelaeguiaren izendapenaren apezpikutzaren onarpenean bezalaxe, 1643ko Ana de Guerraren izendapenean ere, ondorengo izendapenetan jada presente izango ez den beste partehartzaile bat ageri zaigu: bietan aipatu zuten Miguel Ibañez de Baliar, "como patron de la casa de beatas que ynstituio y fundo la beata de Ondarça". 1613an izendapenaren apezpikutzaren aldeko onarpenaren berrespenean seroretxearen patroïtzat presente egon zen; baina 1643rako, jada, "dueño de las Casas de la dependencia de la testadora" bezala baino ez zen aipatua izan. Patroï partikular honen izendapenetan zeukan presentziaren desagerpen graduala, hain zuzen ere, udalaren partehartzearen agerpenak motibatua izan zitekeen: izan ere, 1643rako, izendapen eskubidea zeukaten eragileen artean, alkatearen partehartzea jada zalantzagabea baitugu. Urte hartan Ana de Guerra aukeratu zuten seroratzarako, eta izendapena parrokiako apezak, herriko alkateak eta parrokiako fabrikako bi maiordomoek egin zuten⁴⁰³. Halaber, 1657ko urtarrilaren 21eko udal bilkuran San Pedroko serorek parrokiako jarlekuen zerbitzuaren inguruan zituzten eskubide eta betebeharren inguruko akordio eta dekretu bat egin zenean, seroren aukeraketan parte hartzen zutenak "señores Cura y Alcalde y mayordomos de la fabrica" zirela aipatu zuten⁴⁰⁴.

Ez dakigu ziur, patroï partikularren eskumena udal agintariak XVI. mendearen bukaeratik XVII.enaren erdialderarteko bitarte horretan baztertu izango ote zuten. Edozein kasutan, Catalina de Ondarzaren testamentuak sortutako egoera arazotsua zen;

⁴⁰¹ GPAH-AHPG 1/0112, 584r.

⁴⁰² "al liçençado Antonio de Ariztiçaua y el comisario Ynigo de Amassa y el bachiller Joan de Yrala y a Martin Abbad de Aguirre como a clerigos Ueneficiados en la yglesia parrochial de San Pedro de esta dicha Uilla y a las beatas Maria de Ondarça y Maria de Aguirre que sirben en la dicha yglesia y biben juntas en la cassa diputada para su abitaçion y morada" (BUA 04 MIK/SP14, 76-77 fot.).

⁴⁰³ "los señores Martin Abad de Aguirre cura y beneficiado entero de la yglesia parrochial de San Pedro de esta Villa Joan Perez de Olariaga Alcalde hordinario de la dicha Villa y su Juridición Joan Abad de Çuloeta Benefiçiado y Francisco Perez de Arizti mayordomos de la fabrica de la dicha yglesia de Sna Pedro" (BUA 04 MIK/SP14, 70 fot.).

⁴⁰⁴ BUA 04 MIK/SP5, 084-087 fot. eta KKA-ACC 25/689/17, 9r-12v.

honek izendapen eskubidea -seroretxean bizitzeko eskubideari loturik- parrokiako apez eta benefiziodunei eta maiordomoei esleitu zien artean, udalak bere burua parrokiako patroitzat zeukan, eta hortaz, izendapen eskubideak beretzat hauteman zitzakeen. Eta oster, XVII. mendearen lehen erdialdean (1613-1643) Miguel Ibañez de Baliar zen seroretxearen patroia eta jabe, eta bere etxearen jarlekuan ziren serora bakoitzak dotean zekartzan 12 dukatak xahutzekoak, Catalina de Ondarzaren arimaren alde. Gainera, jarraian ikusiz joango garenez, izendapenetako partehartzaileen presentzia eta ausentziez aparte, XVII. mendearen erdialdean izan ziren beste aldaketaren batzuk ere, udalaren aldetiko fundatzailearen familiaren seroretxearen patroitzaren desplazamenduagan, edo behintzat, fundatzailearen familiaren eta seroren espazioen arteko banaketagan pentsatzera daramatenak: 1653an Miguel Ibañez de Baliar berak bere etxearen jarlekuaren erabileraren inguruan San Pedroko serorekin egindako akordioa (zeinak seroren hileta-errituak mugatzen zituen, jarlekua familiakotzat bermatuz)⁴⁰⁵, eta 1657an jarlekuen zerbitzuaren inguruan izandako liskarrak medio egindako akordioko dotearen igoera (30 dukat parrokiako fabrikari esleituz)⁴⁰⁶. Aldaketa hauek ze testuingurutan eman ziren ere ez dugu ahaztu behar, XVII. mendearen lehen erdialdea Kalagorriko apezpikutzaren aldetik serorak desagerrarazteko lehen ekinaldi garrantzitsua egin zen garaia baitugu.

XVII. mendearen lehen erdian jada herriko alkateak ere izendapena egiten zuten eragileen artean baitaratuaz geroztik, partehartzaile ezberdinen arteko aurkaritzak ere sortu zituen hautagaien arteko aukeraketak, egoera nahasiak sorraraziz. 1689an Francisca de Beistegui serora hil zenean kargurako ezarri zen hautagaien konpetentzian, apezak eta elizako maiordomoak kargua Antonia de Vidaurreri eskaintzea proposatu zuten, alkateak eta fabrikako maiordomoak berriz proposamena Mariana de Zavaletari luzatzea nahi zuten artean. Baina hara non, egunen batzuk beranduago, azken hautagai honek eskaintzari erantzun ez ziola eta, parrokiako “teniente de cura” edo bikarioak apezari, alkateari eta maiordomoei Catalina de Velderrainen hautagaitza aurkeztu zien. Hauek, 1657an hartu ziren erabakiak kontsultatu ondoren, auzia apezpikutzara bideratzea erabaki zuten. Apezpikutzaren aurrean parrokiako bikarioa joku zikina egin izanaz salatu zuten eta zenbait liskar izan ziren, baina azkenean –jakin ahal izan dugun arte behintzat– aukeraketarako erabakiortzat hartu zen hirizpide bakarra doterik altuena nork eskaintzen zuenarena izan zela dirudi⁴⁰⁷. XVIII. mendearen lehen erdian zehar aukeraketa alkateak, parrokiako apezak eta bi maiordomoek egitearen ohitura arazorik handiegirik gabe mantendu zela esan liteke, 1712, 1716 eta 1734ko izendapenetan ageri zaigunaren arabera⁴⁰⁸. Alabaina, 1756an berriz zalantzatara gakartzan beste dokumentu batekin egiten dugu topo; urte hartan Bartolome de Callexa Kalagorriko apezpikutzako probisore eta bikario orokorrak apezpikuaren izenean eskutitz bat helarazi zuen San Pedror, Mariana de Aleiza serorak parrokiako serora izenda zezaten egindako eskakizuna onartuz eta bere izendapenerako lizentzia emanaz; eskaera hau, “mediante hauer sido presentada para este efecto por el Cura y Maiordomo de Fabrica de ella” egina omen zen⁴⁰⁹. 1689an gertatuaren antzerako kasu batean ote gaude, kasu honetan alde batean apezaren eta fabrikako maiordomoaren aukeraketa, eta bestean alkatearen eta elizako maiordomoaren aukeraketa leudekeela, azkenik apezpikutzak lehenen alde

⁴⁰⁵ Ikus honekikoak VI. 1.5.2. azpiatalean, 494-495 or.

⁴⁰⁶ Azpiatal berberean, 487-490 or.

⁴⁰⁷ KKA-ACC, 25/689/17, f.g. San Pedroko seroratzarako hautagaien eta hauen arteko gorabeheren inguruan, ikus: Larrañaga Arregi 2011.

⁴⁰⁸ Hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/0499, 28r-29r (1712); GPAH-AHPG 1/0503, 105r-106r (1716); eta GPAH-AHPG 1/0522, 536r-537r eta 538r-539r (1734).

⁴⁰⁹ KKA-ACC 17/755/113, f.g.

egingo zukeelarik? ala besterik gabe apezpikutzara zuzenean egindako eskaera baten aurrean gaude, eta apezak eta fabrikako maiordomoak egin zuten aukeraketa, alkatearen eta elizako maiordomoaren partehartzerik gabe? Zehaztasun gehiagorik gabe, ezin garbi esan.

San Pedro parrokiako serorek, aukeratuak izan ahal izateko, baldintza jakin batzuk ere bete behar zituzten. Lehen baldintza bat onarturiko ordenaren baten abitua eramatearena zen (gehienetan frantziskotarrena, domingotarrena edo karmeldarrena izan ohi zen); arau hau parrokietan ohikoa zen, eta San Pedoren kasuan, baldintza hau bete zedin apezpikutzatiko agindua Juan Castellanos Villalba apezpikuaren agintaldian eman zen (1516-1518) (Sorondo 1994, 289). Arau hau errespetatua izan zen, seroragai gehienak edo jada abitudunak baitziren, edo seroratzat jasotzean abitua hartzea hitzematzen baitzuten. Areago, eta nahiz eta datuen urritasunak zuhurtzia gomendatzen digun, XVII. mende erdialderarte dauzkagun berriek abitua parrokiako seroratzara sartzerakoan hartzen zuten seroragaiak agertzen dizkigute, mende berberaren bigarren erdialdetik aurrera ostera, parrokiako seroragai izaterakoan jada abitua zeukaten serorak agertzen hasten zaizkigularik⁴¹⁰. Serora sartzerako orduan, gazte ezkongabeak edo jada adinean aurrera zioazen alargunak izan, "limpias castas y de buena bida fama y opinyon" behar zuten izan, eta noski, abituan jantzirik, zelibatua mantentzeko promesa egiten zuten, eta hartara behartzen zituzten. 1657an, eliz kabildoa eta eliztarrak baturik, seroragaiak 30 urtetik gorakoak izan behar zutelara erabaki zuten (apezpikutzaren konstituzio sinodaletan agindu eta Probintziako Batzar Orokorretan hitzartuaren arabera, 40 urtetik gorakoak izan behar zuten artean), baina baldintza hau ez zen gehiegi errespetatu, 30 urtetik beherako seroragaien onarpena ez baitzen arraroa izan⁴¹¹. Guzti honi parrokiako eliztarren alaba izatea eta kaparetasunaren frogantza gehitzen zitzaizkion, "lexitimas hijas de buenos padres" izan behar baitzuten; gainera, Catalina de Ondarzak fundatzaile lez beste baldintza bat ere ezarria zuen: seroragaien artean antzerako egokitasuna ematen zenean, bere familiako edo askaziko zirenek besteen aurrean lehenetasuna behar zuten izan⁴¹².

⁴¹⁰ 1613an Catalina de Zuruzelaegui apezpikutzaren onarpena jaso zuenean, "le mandaron que biba onesta y rrecogidamente trayendo el auito de tal serora en la dicha yglesia"; itxuraz, aurretik abiturik ez zuela izango dirudi. Ohar bedi, bestalde, abitua ez zela ordenako abitutzat aipatua izan "seroren abitua" bezala baizik (BUA 04 MIK/SP14, 76 fot.). 1643an Ana de Guerra aukeratua izan zenean, hau "donçella en cabello" bezala aipatu zen; ez zeukan beraz abiturik (abitudunek "donçella en cabello" izateari uzten baitzioten) (*Ibid.*, 70-71 fot.). Ostera, 1689an seroratzara aurkeztu ziren Mariana de Zavaletak, Antonia de Vidaurrek eta Catalina de Velderrainek, hirurek zeramaten jada frantziskotarren abitua (KKA-ACC, 25/689/17), eta 1712an seroratzan sartu zen Maria Getrudiz de Recalde, 1714an sartu zen Maria de Macazagak eta 1734an sartu zen Ana Maria de Vgaldek izendapena egin zitzaizkion frantziskotarren abitua jantzeko desioa azaldu zuten (hurrenez hurren, GPAH-AHPG 1/0499, 28v; GPAH-AHPG 1/0503, 105v; eta GPAH-AHPG 1/0522, 536v).

⁴¹¹ 1613an Catalina de Zuruzelaegui seroratzara sartu zenean, apezpikutzaren aldetiko onarpenean honako ohararazpena egin zitzaion: "que biba onesta y rrecogidamente trayendo el auito de tal serora con aperçebimiento que se proçedera contra ella por todo rrigor del derecho" (BUA 04 MIK/SP14, 76 fot.). Adinarekiko, diogunez, 1657ko akordioan ezarritako 30 urteen muga (KKA-ACC 25/689/17, 12r) ez zen beti errespetatzen; adibidez, 1712an seroratzara sartu zen Maria Getrudiz de Recalde 25 urte zituen, "poco mas o menos" (GPAH-AHPG 1/0499, 28v).

⁴¹² GPAH-AHPG 1/0112, 583v. 1613an seroratzat sartu zen Catalina de Zuruzelaegui "natural de ella [herrikoa] hija legitima de Domingo de Çuruçelaegui e Ysabela Perez de Galardi su muger" zen (BUA 04 MIK/SP14, 77 fot.); halatsu gertatzen zen 1642an sartu zen Ana de Guerrarekin, "natural de ella [herrikoa]" eta "hija legitima de Pasqual de Guerra difunto y de Maria Perez de Çuruçelaegui su muger vezina y natural de esta Villa" zela zehaztu baitzen (*Ibid.*, 70-71 fot.); 1712an sartu zen Maria Getrudiz de Recalde Francisco de Recalderen eta Maria Francisca de Belazteguiren alaba "lexitima" zen, herritarra eta parrokiakoa (GPAH-AHPG 1/0499, 28v); antzerako egoeran zeuden Teresa de Macazaga 1716an sartu zenean (GPAH-AHPG 1/0503, 105r-105v) eta Josefa de Iribe 1734an sartu zenean (GPAH-AHPG 1/0522, 536v).

Horrez gain, bertako serora kargua, XVII. mendearen erdialdeaz geroztik behintzat bizitza osorakoa izan zela dirudi. 1613an Catalina de Zuruzelaegui seroratzara sartu zenean, bere aurreko serora izan zen Maria de Ganchaeguien postua "por dejacion" libre zegoela zehaztu zen⁴¹³; ez daukagu motiboen berririk, baina seroratzara orduan bizitza guztirakotzat ez hautemana izatea gerta liteke. Alabaina, XVII. mendeko lehen erdialdetik XVIII. mendearen lehen erdialderarteko izendapen gehienetan, serorari kargua "durante los dias de su vida", "para toda su vida" edo "para su vida" esleitzen zitzaiola zehaztu izan zuten⁴¹⁴.

Apezpikutzaren aldetiko onarpenaren baldintza ere aipagai izan dugu, eta baita arau honen jarraipenak izanak zitzakeen gorabeherak ere. Arau hauekin bat, dotea ere aipatu beharrean gaude. 1572an Catalina de Ondarzak San Pedroko seroretxea fundatu zuenean, 12 dukatetan ezarri zuen sarrerarako gutxieneko dotea, eta hortik aurrera, "lo que quisieren"⁴¹⁵. Kopuru hori zenbait hamarkadatan zehar mantendu zen, eta hala, 1643an Catalina de Zuruzelaegui seroratzara sartu zenean, ordaindu ohi ziren ("que se acostunbran pagar de entratica") 12 dukatak ordaindu zituen, "para que se distribuyan en sacar Missas Reçadas a yntençion y conforme a la boluntad, de la dicha testadora [*Catalina de Ondarza*]"⁴¹⁶. Baina ezarrita zegoen moduan parrokiak ez zuen doteetatik inongo etekinik ateratzen, eta laster heldu ziren aldaketak. 1657an, seroren artean jarlekuen zerbitzuaren etekinen inguruan izan ziren liskarrak zirela eta, eliz-kabildoa eta eliztarrak baturik akordio bat egin beharra izan zutenean, sarrerarako dotea 12 dukatetatik 42 dukatetara igotzea erabaki zuten (30 dukatak elizaren fabrikarako)⁴¹⁷. Hautagaien arteko kompetentzia izatean (ohikoa zena), gainera, dotearen emateak enkante itxura hartzera jo zuen, aipagai izan ditugun beste baldintzak baztertzearaino. Horrelako zerbait gertatu zen, gorago aipatu bezala, 1689an Francisca de Beistegui serora hil zenean, bere lekuan sartzeko kompetentziari ekin zitzaionean. Hainbat gorabeheraren ondoren, hautagai ezberdinek euren alde azaltzen zituzten beste argudioak alde batera utzi ziren (Catalina de Ondarzaren ahaide izatea, San Pedroko eliztarren alaba izatea, kaparetasun frogantzak, etab.), eta dotearen eskaintzarik altuena baino ez zen aintzat hartu⁴¹⁸. XVIII. mendeko izendapenetan ez dugu dotearen zenbatekoaren aipamenik aurkitzen, baina izendapenaren formulari jada dotearen aipamenik egiten ez bazen ere, 1657an ezarririk 42 dukatak behintzat ordainduko zituztela pentsa liteke⁴¹⁹.

Azkenik, parrokia honetan posesio-errituen aipamen bakarra jaso ahal izan dugu; oso xumeki adierazia izan zen, 1643ko Ana de Guerra seroraren izendapenean: "y luego en señal de posesion la dicha Ana de Guerra entro en las dichas Casas y cerro y abrio las puertas"⁴²⁰. Beste izendapenek ez digute posesio-errituen berririk ematen, nahiz eta litekeena den, dokumentuetan jasotakoaz beste, hauek egin izana (eta hau, noski, jarraian aipagai izango ditugun beste tenpluei ere aplikagarri zaie).

⁴¹³ BUA 04 MIK/SP14, 76 fot.

⁴¹⁴ BUA 04 MIK/SP14, 70 fot. (1643); GPAH-AHPG 1/0499, 28r-29r (1712); GPAH-AHPG 1/0503, 105r-106r (1716); eta GPAH-AHPG 1/0522, 536r-537r eta 538r-539r (1734).

⁴¹⁵ GPAH-AHPG 1/0112, 583v.

⁴¹⁶ BUA 04 MIK/SP14, 70 fot.

⁴¹⁷ BUA 04 MIK/SP5, 084-087 fot.

⁴¹⁸ KKA-ACC 25/689/17, f.g. Kasu zehatz honi buruzko informazio xedatuagoa: Larrañaga Arregi 2011.

⁴¹⁹ GPAH-AHPG 1/0499, 28r-29r (1712); GPAH-AHPG 1/0503, 105r-106r (1716); eta GPAH-AHPG 1/0522, 536r-537r eta 538r-539r (1734).

⁴²⁰ BUA 04 MIK/SP14, 71 fot.

IV. 1.1.2. *Bergarako Santa Marina parrokia*

Oxirondoko Santa Marina parrokiako eliztarrak 1348an Bergarako biztanle izatera iragan zirenean, aldaketak ez zuen parrokiaren patroitzagan eragin erabakiorrik izan, Oñatiko kondearena izaten jarraitu baitzuen. Ikerketari dagozkion XVI-XVIII mendeetan, eta are XIX. mendean (1815an) ere, egoera berean jarraitu zuen, gorabehera askorekin izan bazen ere⁴²¹. Aukeraketa eskubideari zegokionean, kondeak seroren aukeraketarekin zerikusirik ez zeukala dirudi, XVI. mende erdialdean elizako zerbitzariari kondeak ordaindu beharreko soldatetan behinik behin, ez baititugu aipaturik aurkitzen (seroren aukeraketa eskubidea kondearena zen Oñatiko San Migel parrokian ez bezala) (Ayerbe Iribar 1985, 560, 42 oinpeko nota). Mende bukaerakoa dugu hau ziurtatzen digun lehen izendapena: 1595ean Ana eta Maria de Jauregui ahizpen aukeraketa “estando juntos y congregados en su cabildo y ayuntamiento / el cabildo cura e beneficiados de la dicha yglesia e los mayordomos de la fabrica de la dicha yglesia” egin zen⁴²². 1655ean Agueda de Mecoleta seroraren aukeraketa egin zenean izan ziren liskar batzuk zirela eta, aukeraketa egiteko eskubidea zeukatenak “el señor Cura y mayordomo de la fabrica con consentimiento de todo el ayuntamiento” zirela ageri zaigu⁴²³. 1755ean berriz, “el Cura y Mayordomo ecclesiastico y secular” aipatzen zaizkigu izendapena egiten⁴²⁴.

Santa Marinako seroren aukeraketan, beraz, “ofizialki” behintzat –halakorik esan baliteke– Oñatiko kondea eta Bergarako udaleko agintariak kanpo geratzen zirela dirudi. Baina horrek ez du esan nahi aukeraketaren eskubidea bertan parte hartzen zuten eragile ezberdinen arteko liskar-iturri ez zenik. Santa Marinako liskarrak, izan zirenean, izendapenak egiterako orduan eliztarrek –eliz-kabildoarekin eta maiordomoekin batera– zeukaten erabaki-gaitasunaren ingurukoak izan ziren. 1595ean eta 1655ean kabildoarekin eta eliztarrekin batera egindako “ayuntamiento”-ak aipatzen zaizkigula ikusi dugu, eta 1755ean oster, apeza eta maiordomoak baino ez. Printzipioz arina dirudien aldaketa honen zergatia, 1693an seroren aukeraketaren inguruan izan ziren liskar batzuetan egon liteke. Urte hartan Ana Maria de Yrazabalek apezpikutzaren aurrean kexua aurkeztu zuen, bere seroratzarako eskaintzari apezak eta maiordomoek uko egin ziotela eta, hauen prozedura ordurarteko ohituraren aurkakoa zela argudiatuz. Beste argudioen artean, ohituraren arabera aukeraketa eliztar guztiei zegokiela defendatzen zuen: “este nombramiento toca a todos los parroquianos de la dicha Yglesia quienes juntos en su parroquia hazen la eleccion y nombramiento en la que es mas a proposito sin que tengan facultad por si solos el dicho cura y mayordomos”⁴²⁵. Apezak eta maiordomoek horrela zenik ukatu zuten:

porque el nombramiento de Serora es acto de pura economia y que mira al servicio de dicha Yglesia y sus ministros el qual es priuatiuo del cura y mayordomos de la fabrica y reside en su arbitro elixir la perssona que les parece mas combeniente sin concurrencia del Cauildo y parroquianos y en esta posesion Belquasi Vssso y Costumbre ân estado de mucho ttiempo a esta parte y en ella se hallauan al ttiempo que se mouio este pleitto⁴²⁶

⁴²¹ Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 366-367; Martínez de Isasti 1985 -1625-, 211; eta KKA-ACC 21/321/12, f.g. (1815).

⁴²² GPAH-AHPG 1/0133, 281r-282r.

⁴²³ GPAH-AHPG 1/0312, 401r.

⁴²⁴ KKA-ACC 17/755/113, f.g..

⁴²⁵ KKA-ACC 27/689/19, 1r. Foliazioa orri gutxitara eteten da.

⁴²⁶ *Ibid.*, f.g.

Beraien argumentuen defentsarako hiru izendapen aurkeztu zituzten, 1666, 1684 eta 1693 urteetakoak⁴²⁷. Kasu hauetan, 1595eko eta 1655eko izendapenetan ikusi dugunaren aurka, dokumentuaren helarazletzat apeza eta bi maiordomoak soilik ageri ziren, baina froga hauen aurrean Ana Mariaren ahaldunak egoki defendatu zuen lez: kabildoak eta eliztarrek ere izendapenean adostua betetzeko konpromezua hartzen zutenez (beraien ondasunak ere hitzartuaren betekizunerako konprometatuz), dokumentu berberetan hauen partehartzea ere nabari ageri zen eta beraien onarpenaren beharra frogatzen zuen. Bestela, ez zuketan zertan inolako konpromezurik hartu beharrik izango. Ana Mariaren ahaldunak apezpikutzako epaileari kabildoa eta eliztarrak bilkurara deitzea agindu zezala eskatu zion, hauen esanak jasorik zalantzak argituko zirela eta. Eta epaileak halaxe agindu zuen, baina hara non, azkenengo momentuan Ana Mariak auzia alde batera uztea erabaki zuen, sortzen zizkion gastuak luzaroago ezin sostengatu zituela eta⁴²⁸. Litekeena da ordundik aurrera aukeraketarako eskubidea parrokiako apezak eta maiordomoak euren eskumen propiotzat hartu izana, eta hortaz, 1755ean ageri zaigun lez, izendapenak kabildoa eta eliztarrak alde batera utziaz egiten hasi izana⁴²⁹.

Santa Marinako seroratzara sartzeko baldintzei dagokienean, lehenik eta behin, beste hainbat parrokiatako serorek lez abitua eraman beharrean zeudela ikusten dugu. 1595eko Ana eta Maria de Jauregui ahizpen izendapenean apezpikutzatik helarazi zen lizentzia “para que puedan tomar el habito de tales beatas” eman zen⁴³⁰, eta 1655eko, 1666ko, 1684ko eta 1693ko izendapenetan seroragai guztiak frantziskotarren abituarekin ageri zaizkigu⁴³¹. 1755ean apezpikutzatik parrokiara helarazi zen lizentzia ere, “para que pueda uestir, y uista el habito que han obtenido sus antecesoras” eman zen⁴³². Datu hauen argitara, Aro Berri guztian zehar Santa Marinan izan ziren serorek abitua eraman zutela dirudi.

Bertakoak (“ueçinas y naturales de la dicha Uilla”) eta parrokiako eliztarren alaba izan beharra zeukaten, eta baita “personas virtuossas honestas y rrecogidas de buena vida fama y rreputaçion” ere⁴³³. Gutxieneko adinaren kontua ez dirudi zurruntasunez mantentzen zenik, nahiz eta baloratzeko ezaugarritzat hartzen zutela dirudien; izendapen gehienetan ez zen aipatu ere egin, baina, adibidez, 1693an aukeraketa eskubidearen inguruan izan ziren liskarretan apezak eta maiordomoek euren hautagaiaren alde bestea baino zaharragoa zela argudiatu zuten⁴³⁴. 1755ean apezpikutzatik helarazi zen lizentzian ere seroragaiak “hedad de mas de cinquenta años” zeukala aipatu zen, baina ez nahitaezko ezaugarria bailitzan⁴³⁵.

Apezpikutzaren aldetiko onarpenaren araua ostera nahiko zurrun errespetatu zela esan liteke, eskuratu ahal izan ditugun –eta orripeko notetan zehaztuz joan garen– izendapen gehienak edo onarpenarekin baitatoz, edo onarpena jaso izana aipatzen baitute.

Ostera, Bergarako beste parrokia nagusian (San Pedron) ez bezala, seroratzaz ez zen –beti– bizitza guztirako kargua bailitzan ulertzen. 1693an kargua “por deaçion que

⁴²⁷ *Ibid.*, f.g.

⁴²⁸ *Ibid.*, f.g.

⁴²⁹ KKA-ACC 17/755/113, f.g.

⁴³⁰ GPAH-AHPG 1/0133, 281r-282r.

⁴³¹ GPAH-AHPG 1/0312, 399v eta KKA-ACC 27/689/19, f.g.

⁴³² KKA-ACC 17/755/113, f.g.

⁴³³ GPAH-AHPG 1/0312, 400r. Orain arte Santa Marina parrokiarako aipatuz joan garen izendapen guztiek dakarte hau bezalako formularen bat.

⁴³⁴ KKA-ACC 27/689/19, f.g.

⁴³⁵ KKA-ACC 17/755/113, f.g.

hiço Ana de Ascargorta” geratu zen libre, eta bere ordeaz apezak eta maiordomoek hautatu zuten Maria Josefa de Arana Ascargortaren aukeraketa “para mientras viuiere o fuere su voluntad” egina izan zen⁴³⁶. Eman beharreko doteari dagokionean berriz, 12 dukatetan mantendu zela dirudi; 1595etik 1693rako izendapenetan horrela ageri zaigu behintzat⁴³⁷.

Bergaran bertan, San Pedro parrokiaren XVII. mende bukaera aldean seroren artean zegoen konpetentzia giroan doterik handienaren enkantea gailendu eta seroren aukeraketari buruzko arauak alde batera utzi zirela ikusi dugu lehen. Santa Marina parrokiaren ere izan zen antzerako kasurik, San Pedron baino mende bat lehenago izan ere. 1597an, izendapen eskubideari berari buruzkoak bezalaxe, parrokiako serorei eskatzen zitzaizkien ezaugarrien inguruko berri ugari ematen dizkigun liskar batzuk izan ziren. Eta kasuak informazio guzti hau ematen badigu, hain zuzen ere, seroragaiak eskakizunetariko gehienak betetzen ez zituelako izan zen; horrek ez zuen galerazi baina, kargura sartzea lortzerik. Bitarte bat egingo diogu liskar hauen azalpenari, seroratzaren ezaugarriei buruz, eta ezaugarri hauen jarraipenari eta betekizunari buruz azaltzen dizkigunak bereziki esanguratsuak baitzaizkigu, eta bidenabar, hauek laburbiltzeko parada emango baitugu.

Urte hartan liskar-iturri izan zen Catalina de Sarralde seroragaiak prozedura berezia eramana zuen, parrokiako seroratzaren eskaera egiterako orduan. Maiatzaren 11n parrokiako eliz-kabildoak eta deialdira “copiosamente” helduriko eliztarrek batu ziren, eta maiordomoak, Catalina de Sarralde parrokiako serora izateko nahiez apezpikutzara egin zuen eskakizunaren berri eman zien:

para haber e alcançar liçençia para ello de su senioria del obispo de este obispado de Calaorra y la Calçada auia fecho çierta figura de çitaçion por mandamiento del señor prouissor e uicario general del dicho obispado como constaua e paresçia por los autos de la caussa y porque este hera negoçio de ynportançia por muchos rrespetos para la dicha yglessia e parroquia e a el como a tal mayordomo del dicho cauildo le conbenia darles notizia de lo suso dicho para seguir la uoluntad del dicho cauildo y de la dicha parroquia e procurar el probecho e utilidad de la dicha yglessia⁴³⁸

Izendapenetan parte hartzen zuen eliz-kabildoarekin nahiz eliztarrekin hitzik egin gabe, apezpikutzako auzitegietako trikimailuren baten bidez, edo bertan zeukan kontakturen baten bitartez, edo beste nolabait, seroragaiak apezpikutzako Probisore Orokorrak izendapenerako informazio dilijentziak burutzeko zitazioren batzuk egitea lortu zuen. Parrokiako eliz-kabildoak eta eliztarrek gaia eztabaidatu zuten, eta denek bat hartuta uko egin zioten seroragaiaren gurariei; probisoreari eskakizuna ukatzea eskatu zioten “para que no sea admitida ni rresçiuída por freira en la dicha yglessia ni se le de la posesion antes sea escluida de ello”, hainbat arrazoi emanez:

dixieron que no conbenia a la dicha yglessia y parroquia que la dicha Catalina de Sarralde sea freira [...] porque en la dicha yglessia ay tres freiras seruientas que biben y moran en la cassa de las freiras de ella que son uastantes y suficiençes para el seruiçio de ella y no ay neçessidad de mas y porque de entrar la dicha Catalina de Sarralde por freira de la dicha yglessia a la dicha yglessia y parroquianos de ella se les rrecresçeria costa e gasto por muchas uias y porque la dicha cassa de las freiras es pequena e no pueden caber en ella mas de las que ay y porque la dicha Catalina de Sarralde no es natural de la dicha parroquia y en ella ay otras muchas hijas naturales de la dicha

⁴³⁶ KKA-ACC 27/689/19, f.g.

⁴³⁷ 1595ean 24 dukat eman zituzten, Ana eta Maria de Jauregui ahizpa biak baitziren sartzen zirenak (GPAH-AHPG 1/0133, 281r-282r). 1666, 1684 eta 1693an 12 dukat eman zituzten (KKA-ACC 27/689/19, f.g.).

⁴³⁸ GPAH-AHPG 1/0135, 236v.

parroquia y auiendo de ellas personas benemeritas es de grande ynconbeniente meter a estrañas y ocassion de aber sobre ello pleitos y discordias e ynquietud de la dicha parroquia y porque al presente no ay bacantia de freira en la dicha yglessia atento a lo qual por las dichas caussas y otras que se diran y alegaran donde sea neçesario⁴³⁹

Nola okurritu zitzaion Catalina de Sarralderi Santa Marina parrokiako serora izan zitekeela? Eliz-kabildoaren eta eliztarren hitzez fidatzekotan, ez zegoen bakanterik eta seroretxean ere ez zegoen beste seroraren baterako lekurik, hori zela eta eliztarrek serora berri batean gastua baino ez zuten ikusten, eta gainera ez zen parrokia bertakoa eta beraz, aukeratzekotan, bertakoak aukeratuko zituzketen, bera beharrean. Ez dakigu auzi honen gorabeherek ze beste ibilbide izan zuten, baina hara non, ordainketa-karta batean uztaileak 22rako jada parrokiako serora zela ageri zaigun. Ordainketa-karta hau Santa Marinako maiordomoak Andres de Sarralderen eta bere alaba Catalina de Sarralderen alde helarazia izan zen, eta hau parrokiako seroratzara sartu zenean dotetzat zin egindako 36 dukatak ordaindu izanarena zen⁴⁴⁰. Hainbesteko aurkaritza agertu izan ostean, nola onartu zuten Catalina de Sarralde seroratzat? Erantzuna, San Pedro parrokian mende bat beranduago gertatu izan zen bezala, dotearen kopuruak ematen digu. Izan ere, Catalina de Sarraldek, berak bakarrik, parrokiako beste hiru serorek dotean emanak zituztenak beste eman zuen. Hemen ere, jada nahikoa serora izatea, parrokia bertakoa ez izatea, eta hasieran ezezkoa emateko erabili izan ziren gainontzeko betekizunak alde batera utzi ziren, dote altu baten alde. Seroragaiak hautatua izateko prozedura apezpikutzako auzitegietan bere nahierara moldatu izana bera ere ez zuten aintzat hartu. Alabaina, eta Catalina de Sarralderen kasua kasu, Aro Berrian zehar normalean egin ohi ziren izendapenetan seroragaiei beharrezko baldintzak eta ezaugarriak eskatu izan zitzaizkiela ere ikusi dugu. Beraz, arauak izan, baziren, baina ez ziren beti dote altu baten mokaduari uko egiteko besteko zurrunki errespetatzen.

IV. 1.1.3. Bergara, Elosuako San Andres parrokia

Elosuako San Andres, San Pedro hiribilduko parrokiari atxikia, eta urte askotan zehar Elgetaren parte izan zen Angiozarreko San Migel parrokiak ziren, gaur egunean Bergara denaren lurretan zeuden beste bi parrokiak, auzuneetakoak.

San Andres 1545ean bihurtu zen parrokia, aurretik zegoen adbokazio bereko ermitaren gain, Juan Bernal Díaz de Luco apezpikuaren baimenez. Parrokia bihurtzea bera eta bertako bizimoduaren ezaugarriak, hein handi batean, hiribilduarekiko urruntasunak motibatuak izan ziren. XVI. mendearen lehen erdialdean Oñatiko kondearen patroitzapean bazegoen ere (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 369), Aro Berrian zeharreko momenturen batean Bergarako udalaren patroitzapera iragan zen. 1562ko epai betearazle batek, Oñatiko kondea patroiz zuten parrokiak aipatzean, ez zuen Elosuako San Andres aipagai izan (San Martin 1975, 80); baliteke ermitatik parrokiara iragan osteko urte haietan kondearen manupetik irten izana. Praktikan Aro Berrian zehar parrokia auzotarrek sostengatu zuten eta ondasunen gaineko erabakiak beraien kabuz hartu izan zituzten, eta are XVIII. mendean zehar ere, apezpikutzari parrokiaren egoera administratiboa aditzera ematerakoan, bertako eliztarrek patroirik ez zeukala ziurtatzen zuten. Parrokiaren eraikuntzan ere, esaterako, Bergarako udalak ez zuen ia parterik izan. Edozein kasutan, 1777rako ziurtasun osoz dakigu Bergarako udalak patroitza zeukala (Aramburu 2008, 2. lib., 615-617).

⁴³⁹ *Ibid.*, 236v-237r.

⁴⁴⁰ GPAH-AHPG 1/0135, 250v-251r.

Eskuratu ahal izan ditugun 1595eko parrokiako bi seroren izendapenek, egoera honekin bat egiten dute. Petronila de Aguirrezabal eta Luzia de Monesteriobide Yriaun aukeratu zituzten orduan bertako serora izateko. Bi kasuetan, apezpikutzarako eta Bikario Orokorraganako lizentzia eskaera egin zuten zuzenean, seroragaiek eurek ahaldunen bidez, Bergarako udalaren edo San Pedro parrokiako agintarien bitartekotza gabe. Baina azken hauen onespena, bikarioaren frogantza diligentziak zirela eta, beharrezkoa zuten, eskaera egin zuten ahaldunek bikarioa seroragaien bizimoduen inguruko testigantzak eta frogantzak batzera iragan zedila eskatzen baitzuten, hauek eginik lizentzia helarazi ziezaien⁴⁴¹. Petronila de Aguirrezabalen kasuan bikarioak Martin de Moyua batxilerra (“comisario del Santo Oficio de la Ynquisiçion”) San Pedroko apeza, Antonio de Varrutia batxilerra parrokia bereko benefizioduna eta Joan Martinez de Monesteriobide Yriaun eta Pero Miguel de Eguiara Elosuko auzotarrak (“vecinos de la dicha Villa” baino esaten ez bada ere, hala behar baitzuten) deitu zituen, beraiengandik beharrezko informazioa eta zin-egiteak jasotzeko⁴⁴². Luzia de Monesteriobide Yriaunen kasuan Martin Abbad de Leturiaondo San Andres bertako apeza ere bazegoen, San Pedroko apez (Martin de Moyua) eta benefiziodunetz, eta Elosuko bi auzotarrez gain (Pero Perez de Bereybar eta Domingo de Bazterrica), eta zin-egiteekin bat, izkribauak testigantzak ere idatzian jaso zituen⁴⁴³.

Sarrerarako eskatzen zitzaizkien baldintzak, orokorrean, orain arte Bergaran ikusi ahal izan ditugunen antzerakoak ziren, eta gutxi gora behera, Kalagorriko Apezpikutzako arauak betetzen zituzten. Izan ere, eskaera zuzenean apezpikutzara eginik, ezin gutxiagorik espero izan. Herritarren alaba izan beharra zeukaten: Petronila de Aguirreçaualen aita, “maese” Miguel de Aguirreçaua, Bergarako eta Azkoitiako herritarra zen, eta Luzia de Monesteriobideren gurasoak ere Bergarako herritarrak eta Elosua bertako bizilagunak ziren, eta kasu bietan “onrrados padres” eta “prinzipales” izatea aipatzen zen. Baina Petronilaren ahaldunak “tiene deudos prinzipales” idatzi bazuen, Luziagatik ostera, bere ahaldunak “tiene muy poca azienda” aipatu zuen. Beraien familien egoera ekonomikoa ez zen, antza, berbera ere. Adinari zegokionean, Petronilla “donzella” eta Luzia berriz “moça en cauello” bezala aipatzen ziren, eta lehenaren ahaldunak bere eskaeran “de fasta quarenta años” zeuzkala esaten zuen bitartean, Luziagatik San Pedro parrokiako apezak “ser de hedad de treinta y mas años” zioen. Biak ere biak, noski, formularen arabera, “uirtuosa y linpia y onesta y buena cristiana” ziren, eta baita “recoxida” ere. Petronilaren eskaeran esperientziaren balorea ere aipagai zuten (“esta muy enseñada en las cosas del serbizio de la yglesia”). Seroratzat Luziaren kasuan baino ez zaigu bizitza guztirakotzat lez aipaturik ageri, parrokiaren zerbitzuko zeukan desioa bermatzeko asmoz honakoa zioenean: “tiene deseo y boluntad de ser frayra sorora en la dicha yglesia [...] y de estar y perseberar con el fauor de dios en el dicho estado e yglesia”. Posesioa egiterako orduan ere, baldintza hau berresten zen: “por todos los dias de su vida”⁴⁴⁴.

Dotea berriz Petronilaren kasuan bakarrik aipatzen zaigu, izendapenez aparte egin zen dote-ematerako dokumentuan. Bertan Miguel de Aguirreçaua bere aita 6 dukateko dotea ordaintzera konprometatzen zen, 3 urtean zehar aldiro 2 dukat emanaz. Gainera, momentuan egoera txarrean (“maltratada”) zegoen seroretxea konpondu beharra ordainketarako ezarri zituen epeak baino lehenago suertatuaz gero, ordainketa aurreratzera behartu zuen bere burua. Dotearen kopurua, bestalde, “las dos legitimas paterna y materna que a la dicha Petornilla su hija le caben y pertenesçen”-ari zegokiola

⁴⁴¹ GPAH-AHPG 1/0133, 435r-437r eta 542r-543v.

⁴⁴² *Ibid.*, 543r.

⁴⁴³ *Ibid.*, 438r-440v.

⁴⁴⁴ *Ibid.*, 437r, 442v.

ere aipatu zuen⁴⁴⁵. Ez daukagu Luziak halakorik egin ote zuenaren berririk, baina oso litekeena Petronilak bezala dote-ematea aparteko dokumentuan egin izana. Ala “muy pocaazienda” edukitzeagatik doterik eman gabe geldituko ote zen?

Bertako seroratzaren ezaugarriak ere parrokiako urruntasunak eta auzoaren egoera menditsu eta dispertsoak baldintzatzen zituen, eta hau oso esplizituki adierazia ageri zaigu eskaeretan eta frogantzarako testigantzetan, batez ere Luziaren izendapenaren kasuan. Hau, zehazki baldintza bat baino, testuinguruari zegokion beharra bazen ere, aintzat hartu beharreko datua dugu. Ikusi dugu nola Luziaren izendapenean Martin Abbad de Leturiaondo San Andres bertako apezpeza ere bazegoen, eta bere hitzak jasoko ditugu, egoera egokien eta zabalaren azaltzen diguna baita, eta bidenabar, bertako seroren kopuruaren berri ere ematen baitigu:

ay neçesidad de la dicha Luzia para freira y serora serbienta de ella porque en la dicha yglessia al presente ay dos freiras perssonas de larga hedad e ynpedidas y que no pueden asistir ni acudir a las cossas de la dicha yglessia como conbiene por sus largas hedades y enfermedades y / otras dos que ay mas moças no pueden tanpoco hazer el seruiçio neçessario cumplidamente porque por ser la tierra sierra y montaña muy fragossa y derramada a uezes no se alla perssona que aconpane al santissimo sacramento y a la estrema unçion quando se lleban a las casserias y partes rremotas y particularmente en ynbierno con las grandes niebes yelos y aguas que suele hazer lo qual como cura de la dicha yglessia lo a uisto este testigo [...] y asi es neçessario que aya en la dicha yglessia rrecaudo de freiras para el seruiçio de ella guardandosele sienpre a las mas antiguas su antiguedad en las cossas de la dicha yglessia⁴⁴⁶

Bi serora zahar zeuden, eta beste bi gazteago, baina ez batzuk ez besteak ez ziren San Andres parrokiako serorek bete beharra zeuzkaten eginkizunetariko bat betetzeko gai: apezarekin batera baserrietara Sakramentu Santua eramanez joatea, alegia. Petronilaren eskaeran ere, parrokiako debozio handia aipatzeaz gain, “con el sanctissimo sacramento y por los defuntos” joateko eta “otras cosas muy nezesarias tocantes al culto diuino” egin ahal izateko emakume indartsuak behar zirela ziurtatzen zen⁴⁴⁷.

Elosuako serorek emakume osasuntsu eta indartsuak behar zuten izan beraz, beste egoera batzuetan gizonei esleitzen zitzairen Sakramentu Santua baserrietara eramatearen lana bete behar izaten baitzuten, “por no hauer sienpre hombres en la dicha sierra”. Honek parrokian zeuden lau serorez gain beste biren sarrera ere beharrezkoa izatea motibatu zuen. Eta esan bezala, apezpikutzaren aldetik, dakigula behintzat, ez zen, XVII. mendearen lehen hamarkadetan azalduko zen jarreraren kontra, serorek Sakramentu Santua maneatzearen inguruan inongo arazorik agertu.

⁴⁴⁵ *Ibid.*, 552v-553r.

⁴⁴⁶ *Ibid.*, 439r-439v.

⁴⁴⁷ "porque dos que hay son muy biexas e ynpedidas y tambien / otras dos que ay no bastan para el seruiçio de la dicha yglesia porque es de mucha deboçion y de hordinario acude a ella mucha jente y estar en la montaña y sierra muy apartada de la dicha billa y ser la tierra muy derramada y pobre y aber de acudir con el cura a las caserías con el sanctissimo sacramento y por los defuntos - y / otras cosas muy nezesarias tocantes al culto diuino = y ser los ynbiernos de muchas niebes y aguas y yelos muy grandes en aquella sierra – y hofrezese muchas uezes en un mesmo dia nezesidad de acudir a muchas de las dichas caserías con el sanctissimo sacramento y por no hauer sienpre hombres en la dicha sierra hes nezesario que suplan esta falta las dichas seroras freiras = y la dicha Petronilla de Aguirrezabal hes muger rrezia y esta en hedad de poder lleuar estas cargas" (*Ibid.*, 542r).

IV. 1.1.4. *Elgetako Andre Mariaren Zeruratzea parrokia*

Aipatua dugu jada, nola 1625erako jada Elgetako parrokia Oñatiko kondearen patroitzatik kanpo zegoen. Lortu ahal izan ditudan informazio iturriak XVII. mende hasieratik aurrerakoak direnez, kasu honetan ere parrokia kondearen patroitzapean zegoeneko seroren egoeraren berri ezin garbi eman. Berez, izendapen eskubideari dagokionean behintzat, –Udalaren ordezkari lez ari zen– alkatearen partehartzea eskuratu ahal izan ditugun izendapen guztietan ageri zaigu. Alkatearena, eta parrokiako apez eta benefiziadunena. 1704an Francisca de Berraondo serora izendatu zutenean, izendapenerako eskubidea beraien esku “betidanik” zegoela defendatu zuten (edozein usadioren justifikaziorako ohizko formula); izan ere, izendapena “usando de la facultad y licencia, que tienen usada y guardada cada uno por sus oficios de Ynmemorial tiempo à estta partte de Elegir, y nombrar Sorora que asistta en dicha Parroquial” egiten baitzuten⁴⁴⁸. Areago, ospitaleko maiordomo ere alkatea eta parrokiako apez izateko ohitura zegoela dirudi; hala ageri zaigu behinik behin 1698ko izendapen batean. Herriko "Teniente de alcalde"-ak bertako "Alcalde propietario" eta "cura y Beneficiado" zirenak izendatu zituen orduan maiordomo, "por tocarles privatibamente por razon de los dhos. sus oficios" (San Martin 1975, 173).

Serorek bete beharreko baldintzei zegokienean, Elgetako parrokiak bazuen Debagoieneko beste parrokiekiko ohitura berezi bat, ziurrenez, Euskal Herriko beste lekuren batzuetan ere jarraitu izango zena. Parrokiako serorek, askotan behintzat, zerbitzua lehenik ospitalean egiten zutela dirudi; hau, ziurrenez, parrokiako eta ospitaleko botere esparru nagusiak -seroren izendapenak egiten zituzten- udalak eta parrokiako apez eta benefiziadunek osatzeak motibatua ere izan zitekeen. 1704an (Francisca de Berraondo) eta 1730ean (Luisa de Ubera) eginiko bi izendapenetan behinik behin, aurretik ospitalean zerbitu izana aipatu zuten⁴⁴⁹, eta halaxe ageri zaizkigu 1698an, maiordomoen izendapenarekin bat ospitaleko ondasunen ematea serorei egin zitzaizenean, biak ospitaleko seroratzetan (San Martin 1975, 173-174). 1746ko beste bi izendapenetan oster, ez da zerbitzua ospitalean egin izan zutenik aipatzen, eta honek baieztapen ziurrak ekiditera garamatza⁴⁵⁰. Eta halaber, 1763an seroragaien artean izan zen auzi batek (1704ko eta 1730eko izendapenak bertako informazio dilijentzietan jaso ziren) ohituraren zehazgabezia berrestera garamatza; auzia motibatu zuten arazoan oinarrian, izan ere, ospitaleko zerbitzutik parrokiako zerbitzurako iragatea garbi arauturik ez izatea baitzegoen. Berez, ospitaleko eta parrokiako zerbitzua serora denek batera betetzen zutela dirudi, baina parrokiakoak, zaharrenak eta ospitalekoen aurrekari eta nagusiak zirela. Edonola ere, urte hartan, hiru urtean zehar ospitaleko seroratzat egona zen eta orduan zela bost bat hilabete parrokiako zerbitzura iragana zen Juana Bautista de Yrigoienek kexuren bat bidali zuen apezpikutzako auzitegietara, parrokiako serora zaharretariko bat zen Mariana de Elcoro alargunak bere alaba Teresa de Aguirrebeña serora-laguntzaile lanetan zeukanenez, azken hau berari zegozkion lan eta etekinetan sartua zela eta. Kexua medio egin zen galdeketa eta frogantza-konpultsak dira heldu zaizkigunak, eta bertan lekukoek Teresa de Aguirrebeñaren alde egin zuten, ondorengo atal batean zabalago azalduko ditugun motibo batzuk medio; baina orain interesatzen zaiguna, Juana Bautista de Yrigoienek kexua luzatu bazuen, ospitaleko

⁴⁴⁸ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

⁴⁴⁹ 1704ko Francisca de Berraondoren izendapenean: “para que en uno con Maria de Albiztegui de la dicha Orden y su Compañera en dicho Ospital Siruan la dicha Yglesia toman[do] y perciuendo los prouechos y demas emolumentos” (KKA-ACC 22/763/112, f.g., 1763ko berridazketa); 1730eko Luisa de Vberarenean: “Luisa de Vbera [...] que ha seruido el Ospital de dicha Uilla” (*Ibid.*, f.g., 1763ko berridazketa eta DEAH-AHDSS 2123/003-01, 132r-132v).

⁴⁵⁰ DEAH-AHDSS 2123/003-01, 191v-192v.

seroratzaren ondoren parrokiakoa zegokiola pentsatzen zuelako egin zuela da. Ospitalean sartzerakoan eman zuen doteak ondorengo parrokiako karguak berea behar zuela justifikatzen zuela uste zuen. Baina lekukoek besterik uste zuten: ez zuten ospitaletik parrokiara iragan beharra nahitaezkoztat edo sendotutako ohituratzat hartzen, eta Teresa de Aguirrebeñaren arrazoiak pisutsuagoak zirela uste zuten (batez ere, hau erdi-mutua izatearen arrazoa, Mariana de Elcoro beste edozein lanetarako gazte eta indartsua zen artean)⁴⁵¹. Auzi honek azaltzen digun bitarte horretan gelditzen gara; ohitura izan, badirudi bazela, baina ez zen arautzat hautemateko besteko zurruna, eta arrazoi pisutsuagoak tarteko zirenean, aldatu zitekeen.

Beste baldintza bat –edo baloraturiko ezaugarri bat– ordenaren bateko abitua eramatea zela esan genezake (aipagai ditugun kasuetan, frantziskotarrena), izendapen gehienetan aipatzen baitzaigu⁴⁵². Seroratzaren iraupenarekiko, 1704ko Francisca de Berraondoren izendapenean, “desde hoy dia en adelante mientras sus largos dias” esatean, kargua bizitza guztirakoa zela adierazi zuten⁴⁵³. Dotearen inguruko berri gehiegirik ez daukagu; aipatu dugun 1763ko auzian Juana Bautista de Yrigoienek ospitaleko seroratzara sartzean 54 dukat eman zituela dakigu, eta agian, ospitaleko zerbitzutik parrokiakora iragatearen ohitura hori medio, Elgetako seroren (ospitalekoek eta parrokiakoek) dote bakarra orduan emandakoa izango zela pentsa liteke⁴⁵⁴. Ez daukagu baina konparaziorako balioko ligukeen beste daturik, eta ezin gehiagorik esan.

Seroren soldaten jarraipen zehatza egiten zen Andre Mariaren Zeruratzearen parrokiako liburuetan, eta honen bidez euren kopuruaren berri ere badugu. 1616tik 1663-1664ko kontuak egin ziren arte, parrokiakoa lez serora bakarra aipatzen zaigu. Urte honetan aipatzen dira lehen aldiz pluralean, “sororas”; ondorengo kontuetan bat edo bi izan ziren, 1766-1790 bitartean bi mantendu ziren, eta orduz geroztik 1802koetara, bakarra. Soldata berari dagokionez, beste ordainketa batzuen artean, 1616-1721 bitartean gehienetan bi errealekoak ziren ordainketa irregularrak ageri zaizkigu, garbiketagatik ordaintzen zirenak, eta askotan jaiegun zehatzetako ordainketei zegozkienak. 1721eko kontuetan, garbiketagatik eta xaboiagatik ematen zitzaizkion eta jada urterokotzat finkatuak behar zituzten 8 errealak “su salario ordinario” bihurtu ziren, eta kopuru horretan mantendu zen 1802ko kontuetararte⁴⁵⁵.

IV. 1.1.5. Elgeta, Angiozarreko San Migel parrokia (gaur egun Bergararen parte)

Angiozarreko San Migel parrokiako serorei buruz, datu solte xume batzuk baino ezin izan ditugu eskuratu. Elgetakoa bezalaxe, Angiozarreko San Migel parrokia jada 1625erako Oñatiko kondearen patronatupetik at zegoela ikusi dugu. Ezer gutxi dakigu parrokia honetako seroren ezaugarri orokorreari buruz, baina izendapen eskubidea, eskura daukagun 1747ko auzi baten arabera behintzat, bertako apezak eta benefiziodunek

⁴⁵¹ KKA-ACC 22/763/112, f.g. Karitatearen printzipioei atxikirik kargua bereziki egoera arazotsuan zeuden emakumei ematearena ez zen batere arraroa, halako egoerak ematen zirenean. Beste kasu bat Anoetako (Gipuzkoa) San Joan Goikoa ermita edo baselizako serora batena dugu: 1605ean Domenja Argindegik adinaren ezintasunak zirela eta kargua utzi zuen, patroien hautuz serora berri izatera umezurtza zen Katalina Tapia izatera iragan zelarik (Agirre-Mauleon 2005, 206).

⁴⁵² 1704ko Francisca de Berraondoren izendapenean ez da abiturik aipatzen (KKA-ACC 22/763/112, f.g., 1763ko berridazketa), baina 1730ean kargura sartu zen Luisa de Vberak (KKA-ACC 22/763/112, f.g., 1763ko berridazketa) eta 1746an sartu ziren Maria de Ojangurennek eta Teresa de Elcorok (DEAH-AHDSS 2123/003-01, 191v-192v) frantziskotarren abitua zeramaten.

⁴⁵³ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

⁴⁵⁴ *Ibid.*, f.g.

⁴⁵⁵ DEAH-AHDSS 2123/002-01 (1616-1664), 2123/003-01 (1690-1755) eta 2124/001-01 (1756-1802).

izango zuketan. Urte hartan Vicenta de Elorza y Berraondo aukeratu zuten lanerako, Domenja de Ansoategui serora zaharraren orde. Izendapen berria azken honek jada zerbitzua behar bezala ezin bete zuelako egin zen, jada zaharra baitzen, eta ez baitzuen ia ikusten. Bere bizitzaren apurrerako, karitatez, emolumentuen erdia utzi zioten. Baina serora zaharra ez zegoen pozik antza; serora berriaren lana oztopatzen zuen, eta areago, apezpikutzako auzitegien aurreko auzi bati ekin zion, erabakia onartzen ez zuela eta. Baina epaimahaiak Domenjaren eskakizuna atzera bota zuen (bere ezintasunek nabariak behar baitzuten izan), eta Bizentak jarraitu zuen karguan⁴⁵⁶.

IV. 1.1.6. Antzuolako Gure Errukizko Ama eta Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokia batuak

Antzuolako parrokia batuei buruz dauzkagun datuak XVII. mende bukaerari eta XVIII. mendeari dagozkio, eta badaukagu XIX. mende hasieratako berriren bat ere. Gure Errukizko Amaren parrokiako kontu-liburu bakarra gorde izan da, 1730-1792 bitarteari dagokiona. Bertan parrokia bertako eta zegozkion ermitetako seroren inguruko berri gutxi batzuk jaso izan ziren; garbiketen eta tenpluen zaintzaren inguruko bisitatzaileen aginduez eta hauen jakinarazpenez, eta argizariaren inguruan parrokiako serorak zituen negozioen inguruko zenbait berriz beste, ezer gutxi⁴⁵⁷. Alabaina, Luis Murugarrenek, Antzuola, Uzarraga eta Elosuari eskaini zien lan monografikorako egin zituen bilaketetan aurkitu zituen serorak aipatzeko lana hartu zuen, eta bere eskutik heldu zaigu Gure Errukizko Ama parrokiako XVI. mendeko zenbait seroren berri:

Maria de Aranguren (1537), Maria de Sagutategui (1539), Gracia de Galarza (1540), Domenja de Gorrola (1566), Osana de Yturbe (murió pobre, en el Hospital: 1556), Gracia de Aranguren (murió en 1559), la beata de Albisua (1576), Maria de Benitua (murió en 1588), Manuela de Ulzelay (1826), Vicenta de Azcárate (1829), Josefa Bautista de Arralde (murió en 1831) y Antonia de Cortabarría (1831) (Murugarren 1975, 63)

Izango dugu laster Murugarrenek azken aipatu zizkigun XIX. mende hasieratako serora hauei buruz jarduteko paradarik; jarrai dezagun baina ari kronologikoa, denboran zertxobait atzera eginaz. 1769ko izendapen batek, XVIII. mende bukaera hartan, desagerrarazte agindua heltzear zegoen momentuan zeuzkaten ohituren berri ematen digu. Urte hartan Francisca de Unanue aukeratu zuten parrokiako serora-laguntzaile lanetarako, eta izendapena parrokia batueta apezak eta herriko alkateak egin zuten. Eskubide hori bermatzeko, gainera, apezpikutzako konstituzio sinodalak ere aipatu zituzten⁴⁵⁸. Parrokia batueta apezak 1831 baino beranduago apezpikutzara helarazi zuen eskutitz batean, garaiko koadjutoreak esaten zuenaren aurka (honek elizako kabildoak ere parte hartzen zuela defendatzen baitzuen), Errukizko Amaren parrokiarako aukeraketa eskubidea “no se sabe por que principio” parrokia batueta apezaren eta alkatearen esku zegoela defendatzen zuen⁴⁵⁹. Baina kasu honetan 1769ko izendapenean aurkitzen dugunarekin bat egiten bazuen, Uzarragako San Juan Bataiatzailearen kasuan oker zegoela ikusten dugu, bertako XVII. mende bukaerako eta XVIII.eko izendapenetan ez baitugu, apezak zioenaren kontra, parrokia batueta apezak parte hartzen zuenik ikusten. Edozein kasutan, aipagai ditugun iturri urriek XVIII. mende bukaera eta XIX.aren hasiera haietan Gure Errukizko Amaren parrokiari

⁴⁵⁶ KKA-ACC 17/747/72, f.g.

⁴⁵⁷ DEAH-AHDSS 1263/003-01; bisitatzailearen aginduen ingurukoak 121r-122r eta 160v-161r, eta argizarien ingurukoak 174v, 200r, 234v, 235r, 235v eta 250r.

⁴⁵⁸ GPAH-AHPG 1/0623, 33r.

⁴⁵⁹ DEAH-AHDSS 3201/017-01, f.g.

bi serora egon ohi zirela ulertarazten digute. 1769an Francisca de Unanue serora-laguntzaitzat aukeratu zutelako, eta 1831 inguruko eskutitzean “El numero de las de la Piedad ha sido de dos” ziurtatzen zelako⁴⁶⁰. Eta goragoko XVI. mendeko zerrendan ageri zaizkigun seroren kopuruari erreparaturik, orduan ere gutxienik bi izango zirela dirudi.

1769an Francisca de Unanuei bigarren serora izateko eskatzen zitzaion –edo izendapenean behintzat aipatu zen– ezaugarri bakarra “doncella natural de esta misma Uilla” izatea zen, eta bere seroratzari zegozkion lanak eta ezaugarriak honela laburbildu zituzten, seroren desagerrarazte aginduaren atarian zeudela, konstituzio sinodalak zuzen jarraitzeko ardura nabariarekin:

para que sin contravenir en manera alguna a los Capítulos Synodales de este obispado pueda egercer la citada Francisca de Serora, que se reduce a Cuidar, y limpiar el pavimento de la referida Yglesia Parroquial, Sepulturas de ellas, y panes, que se ofrecen por los fieles para el sufragio de sus Animas, hacer la entrega de los mismos panes en ofrendas a los Beneficiados, encender uelas, y cerillas en dichas Sepulturas, amortajar difuntos y acompañar a las Mugerres en honras, y entierros de difuntos, sin otra, ni mas rentas que la que los Parroquianos de la misma Yglesia la quieren dar, y la dieren, y sin intrometer en la Sachristia, y Altares mediante hauer para su servicio, y cuidado Sachristan secular con rentas nombrado en cumplimiento de lo preuenido, y mandado en los mismos Capítulos Synodales⁴⁶¹

Ikusten dugu beraz, garai hartan behintzat parrokiako serorek ez zutela soldata berezirik jasotzen, eliztarrek euren borondatez ematen zietenaz beste. 1831 ondorengo eskutitzean ere antzera azaltzen zaigu:

Ninguno les paga salario sino solo los Parroquianos. El Cav.do Ecc.o nada les paga, por que ni tampoco les sirve, sino en cuanto sirven a los Parroquianos, o sus sepulturas. Pero si està por concordia el Mayordomo del cav.do obligado ha de cobrar de los parroquianos, lo que por costumbre tiene que pagar a las beatas, y entregarselas, cuando hay entierro, y honras⁴⁶²

Ohar bedi soldataren ohitura horrela izateko ematen zen arrazoia: kabildoak bere kabuz ezer ordaintzen ez bazien, “por que ni tampoco les sirve” zen, berez, eliztarren jarleku partikularren zerbitzura zeudelako.

Uzarragako San Juan Bataiatzailea –Gure Errukizko Amarekin bat egindako– parrokiarako berri zehatzagoak ditugu, XVII. mendearen lehen erditik XIX. mende hasieratarako tartean kokatzen direnak. Horrez gain, hemen ere Luis Murugarrenek batu zituen XV-XVI. mendeetako zenbait seroren zerrendatxoa ere badaukagu:

Gracia de Lausagarreta (citada en 1499), María de Azcárate (1500), la freira de Miquelecuca (1503), Martina de Besasti (1506), la freira de Garicaza (murió en 1561), Theresa (murió en 1565), Cathalina de Jaúregui (murió en 1582) (Murugarren 1975, 48)

Esan dugu jada nola 1831 inguruko eskutitzean parrokia batuetako apezak parrokia honi buruzko ohiturak oker jasotzen zituen. Berez, kabildoak defendatzen zuenaren aurka egitean, bi parrokiatako izendapenak funtsean berari zegozkiola aditzera eman zuen, eta zenbaitetan, parrokiatako beste eragileek ere parte hartzen zutela:

Su nombramiento siempre lo ha hecho tanto en una como en otra el Cura propio de las unidas, en la de la Piedad, no se sabe por que principio entendiendose con el S.or Alcalde, y en la de Sn Juan ya solo ya con la inteligencia de alguno que otro

⁴⁶⁰ GPAH-AHPG 1/0623, 33r-34r eta DEAH-AHDSS 3201/017-01, f.g.

⁴⁶¹ GPAH-AHPG 1/0623, 33r-33v.

⁴⁶² DEAH-AHDSS, 3201/017-01, f.g.

parroquiano. Pero nunca ha hecho ni hay exemplar lo hubiese hecho el Cav.do ni el Coadjutor Viviendo el Cura propio o Rector el nombramiento de ellas en ninguna de las Ygl.s en tiempo alguno⁴⁶³

San Juanen beraz, “ya solo ya con la inteligencia de alguno que otro parroquiano”. Baina hara non, 1672-1759 bitarterako aurkitu ditugun izendapenetan, auzotar edo eliztarrak baino ez zaizkigun izendapenak egiten agertzen; parrokia batuetako apeza bera da hemen lekuz kanpo legokeena. Izendapen guztiek bat egiten dute gainera datuak ematerako orduan; Uzarragako auzotar edo eliztarrek 1639an Oñatiko kondearekin egin zuten hitzarmen baten bidez lortu zuten bertan izan ohi ziren 4 seroren aukeraketarako eskubidea. Urte hartan hitzartu zutenaren arabera, auzotarrek hilerri ondoan zegoen parrokiako seroretxea erosi zuten, eta horrekin bat eta orduz geroztik “Dueños y propietarios de las Casas y Caserías de la dicha parroquia nuestra” zirenez, bertako seroren aukeraketa ere bazegokien⁴⁶⁴.

Eskritura honetan, lehenik eta behin, sarreran bertan seroretxeari buruz aritzerakoan erabili ziren iraganeko aditzak egiten zaizkigu deigarri: “En la cassa que fue de la Yglesia Parrochial de San Juan de Vçarraga junto al cimiterio de ella en que solian vivir las frairas que serbian en la dicha Yglesia”. Etxea parrokiarena izana zela adieraztea ulargarria da, dokumentua helarazi zenerako ez baitzen Oñatiko kondearena, jarraian ikusiko dugun lez, Juan de Yturbe Uzarragako auzotarrak (Iturbe etxearen jabea zenak) erosia baitzuen. Salmenta jada egina baitzegoen, Oñatiko kondearen ingurukorik ez zaigu dokumentuan ezer aipatzen. Baina “solian vivir las frairas” hori, zer zela eta? Ez al zen bada momentuan serorarik bertan bizi? 1639an gaude, eta orduan ez zela denbora asko, apezpikutzako konstituzio sinodalak argitaratu ziren 1621 urtearen ingurumarian, serorak desagerrarazteko lehen ekinaldi indartsua egin zen Kalagorriko apezpikutzaren aldetik, aurreko kapitulu batean azaldu ditugun arazoak sortuz. Laster ikusiko dugu nola hitzarmen honetan ere gertakizun horien inguruko ardurak ageri zaizkigun.

Etxearen salmenta egin ahal izateko parrokiako maiordomoak apezpikutzara lizentzia eskaera egin zuen lehenik (Oñatiko kondearen onespina jada jasoa behar zuten izan), eta beharrezko informazio dilijentziak egin ostean eta lizentzia jasorik, errematean gehien eskaini zuen Juan de Iturbek erosi zuen azkenik, 64 dukaten truke. Jada etxearen posesioa hartua zeukanean egin zuten hitzarmena, Juan de Yturberen ondorengo aitorenaren gain:

no enbargante hauerse puesto en caueça del otorgante la verdad es que la dicha cassa habia conprado de horden e con dinero de los Parroquianos de la dicha Yglesia de San Juan y ansi lo declara y manifiesta y que su Voluntad y la de los demas dichos parroquianos es que la dicha cassa sea y sirba para que en ella hauiten quatro terçeras de la orden del seraphico San Francisco en la forma y con las condiciones que abaxo se diran⁴⁶⁵

Hori zela eta, lehenik eta behin etxearen lagapena egin zuen auzotarren alde, eta gero, beti ere auzotarren izenean, etxearen erabilerarako serorekin hitzarturiko baldintzak azaltzeari ekin zioten. Baina eskritura honetan Juan de Iturbek auzotarren diruekin seroretxea erosi zuela azaldu bazuten ere, eskritura idatzi zenean seroretxean

⁴⁶³ *Ibid.*, f.g.

⁴⁶⁴ Izendapenak ondorengoak dira: GPAH-AHPG 1/0783, 26r-27v (1672, Mariana de Lascurain Zumaeta), GPAH-AHPG 1/0783, 210r-211r (1673, Josefa de Uizcalaza), GPAH-AHPG 1/0785, 76r-77r (1680, Antonia de Uizcalaza), GPAH-AHPG 1/0515, 799r-800r (1727, Francisca Antonia de Azcarate), eta KKA-ACC 17/759/40, f.g. (1759, Maria Ignacia de Inurriagarro Amezti).

⁴⁶⁵ GPAH-AHPG 1/0278, 9r.

sartu ziren edo sartuak ziren lau seroretariko batek, Marina de Iraetak, 1645ean bere testamentua helarazi zuenean, bestelakorik esan zuen:

yo y otras tres beatas compramos la Cassa de las beatas de la dicha Yglesia de señor San Juan de Ucarraga en cada diez y seis ducados con condiçion y calidad que las [que] nos suçediessen hauian de pagar a nuestros herederos a ocho ducados de uellon⁴⁶⁶

Etxea, beraz, serorek eresia omen zen, bakoitzak 16 dukat ipinita; eta honek ondoren ikusiko dugun 8 dukateko dotearen ohituraren zergatia ere azaltzen du. Lehen puntuan bertan bizitzera sartuko ziren serorak, seroretxea erosi eta hau auzotarren eskutara igarotzea lortu zuten Marina de Iraeta, Maria de Goenaga, Margarita de Vereterio eta Maria de Iturbe izango zirela zehaztu zen,

que son de la dicha terçera horden de San Francisco durante sus Vidas y de qualquier de ellas y en falta de ellas las elecion a de ser y tocar a los Parrochianos duenos propietarios de las casas y casserias de la dicha Parrochiana de Vçarraga / o a la mayor parte de ellos = Y si en vottos yguales ttubieren discordia / entre las propuestas por los dichos parroquianos escojan la que quisieren las terceras que estubieren de prim[ero] y esta horden la goarden todas las veces que vbiere bacante en adelante y siempre jamas⁴⁶⁷

Seroretxea beraz gain, hortaz, izendapen eskubidea ere, ordundik aurrera, auzotarrena zen. Baina nork izana zuen aurretik? Patronatuarekiko antzerako egoeran zegoen Bergarako Santa Marina parrokian bezala izango ote zen, non XVII. mende bukaera alderarte izendapena parrokiako apezek eta benefiziodunek auzotarrekin batera egiten zuten? Gogoan izan dezagun nola, Santa Marinaren kasuan, 1693ko izendapenak medio izan ziren liskarren ondorengo garaietarako aurkitu ditugun izendapenetan, eskubide hau apezek eta elizako maiordomoak eurenganatu zuten, auzotarrak alde batera utziaz. Uzarragako kasuan ostera (jatorrizko egoera Santa Marinaren parekoa izan, edo ez), auzotarrak izan ziren hitzarmen honen bidez izendapen eskubidearen jabe egin zirenak.

Bigarren puntuak bertako auzotarren ohitura baten berri ematen digu:

Que la dicha Cassa a de ser libre para mudar l[os] vestidos de los Parrochianos de la dicha Yglesia y de sus familias y goardarlos en ella para lo qualquier en que este y a de ser principalmente di[s]tinada dicha Cassa⁴⁶⁸

Uzarragako auzotarrek seroretxean mezatara joateko arropak gordetzeko eta nor bere etxe edo baserritik heltzean bertan aldatzeko ohitura zuten, mezatara behar bezala, txukun joateko. Puntu honen bidez ohituraren jarraipena bermatu nahi izan zen, horrela, jarduera honek inoiz bertan izatekotan ziren seroren aldetik eragin zitzazkeen balizko kexuak ekidinez.

Jarraian, dotearen gorabeherak zehaztu ziren. Lehen lau seroren ondoren sartuko ziren hurrengo laurek, hitzarmenean ezartzen ziren lehen lau serorendako (alegia, hauen heriotzeko meza eta errituetarako) 8 dukat eman behar zituzten bakoitzak. Hauen ondoren sartzekotan izango zirenek berriz, seroretxearendako 6 dukat utzi beharko zituzten maiordomoaren esku, honek eraikinaren sostengurako beharrezko obra eta gastuetarako erabili zitza⁴⁶⁹. 6 dukat hauek serorei ematekoak ziren 8 dukatez apartekoak izan behar zutelara dirudi, ezen, seroretxearen erosketaren erantzule izan ziren lehen lau seroretariko bat zen Maria de Iturberen 1649ko testamentuan aipatu zenaren

⁴⁶⁶ GPAH-AHPG 1/0770, 395r-398v.

⁴⁶⁷ GPAH-AHPG 1/0278, 9v.

⁴⁶⁸ *Loc.cit.*

⁴⁶⁹ *Ibid.*, 9v-10r.

arabera, hurrengo sartuko zen serorak emandako 8 dukatak propioki berari zegozkiola aipatu baitzuen, kobratzeko zor bezala: "declaro que hay costumbre as[in?] que las veatas que entran succediendo que mueren en esta Cassa traen ocho ducados [de] vellon y la tal que a mi me succedere debera ocho ducados los quales mando se cobren"⁴⁷⁰. Berez, ohiturak 1572an Bergarako Catalina de Ondarzak San Pedro parrokiarako fundatu zuen seroretxean jarraitu ziren ohiturekiko bere parekotasunak dauzka, baina fundatzaileak, bakarria beharrian, lau izanik. Lehen momentu batean fundatzailearen edo fundatzaileen ondasun izatera iragango ziren doteak ezarri ziren, nahiko baxuak (Bergaran 12 dukat, fundatzailearen arimaren aldeko mezatarako; Uzarragan 8 dukat, serora bakoitzaren ordezkapenean hildako -edo kargua utzitako- seroraren ondasun izatera iragatekoak), eta ondorengo garai batean dotearen kopurua igo zen, parrokien fabriketarako kopuru batzuek ezarriz (Bergaran ia mende bat beranduago -eta Antzuolan baino beranduago-, 1657an, 30 dukateko igoerarekin; Antzuolan osteraz asko, aipagai dugun eskritura egin zenerako, 1639an, 6 dukateko igoerarekin). Kopuru hauek nahiko xumeak dirudite, XVI. mende bukaera aldean bertako serora batek helarazi zuen seniparteen uko-egite batean ageri zaigunarekiko; 1587ko dokumentu honen bidez, Maria de Igueribar serorak kargura sartzerakoan bere gurasoen aldetik eman zitzaizkion 40 dukatez besteko guztiari egin zion uko, ezkontza hitzartua zeukan -eta Igueribar leinu-etxearen buru izatera iragango zen- bere anai baten alde⁴⁷¹.

1639ko hitzarmenarekin bukatuz; azken baldintza garrantzitsu bat ere ezarri zen, gorago aipatu dugun desagerrarazte aginduaren testuinguruan zeudela garbiki adierazten diguna: "Que las dichas terçeras no an de poder entrometerse en el seruicio de la dicha Yglessia en cossa alguna que segun las constituciones sinodales tubieren bedado el uso de ella las freiras"⁴⁷².

Jarraian posesioa eman zitzaien, etab. Ikusten dugu, bada, nola Antzuolan XVII. mende hasierako seroren desagerrarazte saiakerak euren ondorioak izan zituzten, nahiz eta azkenean, alde batetik apezpikutzaren eta ordena erlijiosoaren, eta bestetik lurralde historikoetako instituzioen eta herrietakoen artean izan ziren auziak medio, zenbait behintzat desagerrarazte agindua baztertu ahal izan zuten. Hitzarmen honek, bestalde, beste leku batzuetan ez bezala, Uzarragako parrokiako seroren dokumentuetan, batez ere izendapenetan, "terzera" hitza hainbeste erabiltzearen zergatia ere argitzen digu. Izan ere, seroratan sartzerakoan jada San Frantziskoren hirugarren ordenakoa izatea baldintzat ezarria baitzegoen. 1639az geroztik, izendapen guztiak hitzarmen honen aipamenarekin hasi zituzten, eta bertako baldintzak, dauzkagun datuen argitara behintzat, errespetatuak izan zirela dirudi.

Izendapenak beraz, auzotarrei zegozkien jada. Honekiko, gainontzeko kasuetan izendapena dokumentu bakarrian egin bazuten ere, interesgarria da 1672an Mariana de Lascurain Zumaeta aukeratu zutenean, ondoren izendapenaren onarpena auzotarren batzarra egin ostean helarazi izana, onarpen eta posesio-emate idatzia eginez⁴⁷³. Kasuren batzuetan (1673an, 1727an eta 1759an) parrokiako maiordomoa ere presente egon ohi zen, baina orduan ere, izendapena bera auzotarrek egiten zuten, besteetan lez, 1639ko hitzarmenaren berri eman ostean⁴⁷⁴.

⁴⁷⁰ GPAH-AHPG 1/0771, 239v-241r -moztuta-.

⁴⁷¹ GPAH-AHPG 1/0147, 281v.

⁴⁷² GPAH-AHPG 1/0278, 10r.

⁴⁷³ GPAH-AHPG 1/0783, 26r-27v.

⁴⁷⁴ Hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/0783, 210r-211r (1673), GPAH-AHPG 1/0515, 799r-800r (1727) eta KKA-ACC 17/759/40, f.g. (1759).

Karguan sartu ahal izateko baldintza garrantzitsu bat seroragaia parrokia bertakoa eta bertako auzotar edo eliztarren alaba izatea zen; kasurik gehienetan ze etxe eta leinutako alaba zen ere zehaztu ohi zen⁴⁷⁵, arau zeharo zurruna ez zela adierazten diguten salbuespenen batzuk izan baziren ere⁴⁷⁶. Noski, hautagaiak oro “donzella honesta recoxida de buena vida fama y reputazion” zirela ere aipatu ohi zen, hauetan bezalaxe beste hainbat izendapenetan ere aldaezin mantentzen zen formula bat errepikatuz⁴⁷⁷. Beste baldintza bat, edo printzipioz behintzat hala behar zuela hautematen zuten aspektu bat, seroratzaren bizitza guztirakoa izatearena zen. Eskuratu ditugun izendapen guztietan adierazten zen baldintza hau, behin eta berriro errepikaturik ageri zaigun “durante su vida” espresioak aditzera ematen digunez⁴⁷⁸. Baina formularen errepikapena behin eta berriro agertzen bazaigu ere, honek ez du, seroraren egoera oso txarra bazen, nahitaez bizitza guztian zehar karguan mantendu zirenik esan nahi; 1684an Maria Josefa de Eguzquizak seroratzaren bere borondatez utzi zuen, jada zaharturik (“con mas de sesenta años de edad”) eta gaixorik (“al presente con muchos ajes encamada y amenazada de Perlesia”) zegoela eta, bere burua ez zuela karguari zegozkion lanak burutzeko egokieran ikusten adieraziz (“de modo que tiene pocas o ningunas esperanzas para continuar el serbizio de la dicha parroquia”). Seroratzaren uztea, hortaz, berak ezin lanak eginik, parrokiarako beste serora bat izendatu ahal izan zedin egin zuen: “haze dejacion de tal Beata y sirbiente de dicha Yglesia y pide y suplica al Illmo. señor de dicho Obispado se sirba de hazer nuebo nombramiento y election en la Perssona que le pareziere mas ydonea y suficiente para el seruiçio de dicha Yglesia”⁴⁷⁹. Eta hara non, izendapenetan ageri ez zitzaigun apezpikutzaren aldetiko onarpena (hemen izendapena egitea bera aipatzen bada ere) seroratzaren agiri honetan ageri zaigun. Ez baitzen gauza berbera, abituaren ematea eta apezpikutzaren aldetiko seroratzaren onarpena. Jarraian ikusiko dugun lez, konstituzioetako arau hori ere mantentzen zela baitirudi.

XVIII. mende bukaera alderako, seroren desagerrarazte aginduaren aurreko testuinguruan, apezpikutzako konstituzio sinodaletan emaniko aginduak zorrotzago betetzeko neurriak hartu ziren: 1759an Maria Ignacia de Ynurrigarro Amezti parrokiako seroratzarako hautagai zenean, apezpikutzatik Bergarako bikarioa zen Xavier Ignacio de Artech lizentziatuari bertako seroren eta hauen ohituren inguruko informe bat eskatu zitzaion, eta honek seriooki eta konplutuki bete zuen mandatua, gure ziorako oso interesgarriak diren hainbat datu jasoz; hein batean, momenturarte jaso ditugun datuak ongi antolaturik azaltzen dizkigu. Baina goazen parterik parte, dakarren informazioa

⁴⁷⁵ Mariana de Lascurain Zumaeta (1672an izendatua), Zumaeta leinu-etxearen jabe ziren Joseph de Lascurain eta Maria Perez de Zumaetaren alaba zen (GPAH-AHPG 1/0783, 26r); Josefa de Bizcalaza (1673an) eta Antonia de Bizcalaza (1680an), Bizcalaza leinu-etxearen jabe ziren Juan de Bizcalazaren eta Catalina Perez de Eguzquizaren alabak ziren (GPAH-AHPG 1/0783, 210v eta GPAH-AHPG 1/0785, 76v; bigarren honetan, itxuraz akatsez, seroraren amari “Catalina” beharrean “Elena” izena eman zitzaion); eta Maria Ignacia de Inurrigarro Amezti (1759an), Amezti leinu-etxekeko jabe ziren Jeronimo de Inurrigarro Amezti eta Francisca Antonia de Lascurainaren alaba zen (KKA-ACC 17/759/40, f.g.).

⁴⁷⁶ Manuela Antonia de Billar Arimendiren kasuan (1725ean izendatua) “vezina de la dicha Villa y Parroquiana” zela baino ez zen aipatu (GPAH-AHPG 1/0534, 38v), eta Francisca Antonia de Azcarateren kasuan berriz (1727an), izendapena “attendiendo a la Virtud y pr[en]das de Francisca de Antonia de Azcarate de la tterzera orden de nuestro Padre San Francisco” egin zen, eta beste daturik aipatzea ekidin zuten (GPAH-AHPG 1/0515, 799v).

⁴⁷⁷ Hainbat izendapenetan jaso zen formula bere hortan: 1672an (GPAH-AHPG 1/0783, 26r), 1680an (GPAH-AHPG 1/0785, 76v) eta 1759an (KKA-ACC 17/759/40, f.g.). 1727ko Francisca Antonia de Azcarateren izendapenean berriz, hau bere “virtud y pr[en]das”-ak zirela eta egin zela zehaztu zenean, beste hitz batzuen bidez ezaugarri berberak aditzera eman nahi izan ziren (GPAH-AHPG 1/0515, 799v).

⁴⁷⁸ 1672an (GPAH-AHPG 1/0783, 26r), 1673an (*Ibid.*, 210v), 1680an (GPAH-AHPG 1/0785, 76v), 1725ean (GPAH-AHPG 1/0534, 38v), 1727an (GPAH-AHPG 1/0515, 799v) eta 1759an (KKA-ACC 17/759/40, f.g.).

⁴⁷⁹ GPAH-AHPG 1/0370, 457r-457v.

ondo banatu ahal izateko. Lehenik eta behin: 1759rako bertan bizi izan ohi ziren lau seroren kopurua bira jeitsia zegoen, eta hauek abitua frantziskotarren ordenako Aita Probintzialaren eskutik jasotzen zuten, zelibatu edo kastitate botua eginaz bat⁴⁸⁰. Orain arteko izendapenetan ikusi ahal izan dugun lez, auzotarren edo eliztarren jabegoko seroretxean bizi ziren, inongo errentarik ordaindu gabe, eta beraien biziraupena honako etekinen gain sostengatzen zen:

la huerta para verdura, un Jaral de robles para leña, un manzanal, y porcion de tierra, que las produce veinte y quatro Rs. Y con este socorro, y el de alguna porcion de trigo al año, y en las ocasiones de entierros, panes, y respices, con que contribuien los Parroquianos á estas dos Sororas, y el producto de la labor de sus manos, se han mantenido decente y competentemente. [...] siendo tambien cierto, que con las obvenciones y emolumentos arriba expressados, y con la labor de su manos puede mantenerse frugalmente, y sin peligro de exponerse á mendigar, pues todas las Sororas, que hà havido en aquella Iglesia en numero de quatro hasta estos ultimos años, han subsistido con decencia⁴⁸¹

Apezpikuaren lizentziaren beharra ere aintzat hartzen zen, frantziskotarren ordenak eta apezpikutzak serorekiko zituzten loturak eta eskumenak garbi ezberdinduz; frantziskotarren Aita Probintzialak abitua, apezpikuak lizentzia:

En los quatro años y medio, que està a mi cargo esta Vicaría, solas dos mugeres han entrado por Sororas en las dos Iglesias Parroquiales de esta Villa, y ambas con licencia del Tribunal de Vmo., ni permitirè, que ninguna entre de otro modo; por que tengo presente lo que docta y eruditamente dexò estampado en sus Instac.es Pastorales Nro. SSmo. P.e Benedicto 11.º de feliz memoria Tom. 1. Inst. 29. et Tom. 2. Inst. 1 o 5. al fin en las Adver.s S. 1. et seg. pagin. 369: donde refiriendo una Bula de Sr Probisor y otra de Leon decimo, y diferentes Decretos de las Sagradas Congregaciones de Roma, especifica las condiciones, que deben concurrir en estas mugeres terciarias, ó Sororas, que no viven Colegialmente, ó en cuerpo de Comunidad; siendo una de ellas la licencia del Obispo, la que no deberá conceder, sino es haviendo hecho diligente examen de todo esto, y hallado verificarse las sobredichas condiciones: de suerte que para dar á cada uno lo que le toca, al Superior Regular le pertenece el Vestirles el habito, pero al Obispo le toca dar la licencia, y examinar, si tienen los dichos requisitos. Que son las palabras formales de su Santidad, para cuiu prueba esta[n] muchos Decretos de las Sagradas Congregaciones de Roma, y bastante numero de Autores⁴⁸²

Serorek komunitaterik ez osatzearena behin eta berriro aipatu zuen bikarioak, mojekiko ezberdintasunak garbi utzi nahi zituela dirudi (“sin que en el estado presente de vivir juntas y en una misma Casa dos solas Freyras ó Sororas, pueda verificarse, que compongan Comunidad, ó vivan Colegialmente, según la decision del texto in leg. Neratius 85. ff. de Verb. Signif. y sus concordantes”⁴⁸³). Maria Ignaciak, printzipioz, baldintza guztien arabera serora izateko arazo bakarra zuen: adina. Ez zen 40 urtetara heltzen, 31 edo 32 urteren bueltan omen zebilen. Baina hau ez zen arazo handiegia, eta beste hainbat kasutan lez, hautagaiaren bizimodu “garbia” ongi defendaturik eta parrokiak zuen seroren beharra akuilutzat harturik, ez zen lizentzia jaso ahal izateko oztopoa izan; honela azaldu zuen gaia bikarioak:

⁴⁸⁰ “Visten al habito de alguna Religion aprobada, que en la Igl.^a de Uzarraga, y en casi todas las de este Pays es el de la tercera Orden de Sn Francisco, haciendo voto de celibato, ó de castidad, con previa obtenz.on de despacho ó patente del R.P. Provincial de la misma Orden. Viven las dos Sororas de Uzarraga, á que està reducido actualm.te el numero de las quatro, que hà havido en tiempos passados en aquella Iglesia, [...]” (KKA-ACC, 17/759/40, f.g.).

⁴⁸¹ *Loc.cit.*

⁴⁸² *Loc.cit.*

⁴⁸³ *Loc.cit.*

Concurren, al parecer, estos requisitos en Maria Ignacia de Inurrigarro, menos el de la edad quadragenaria, por ser notorio, que ella hà sido y es doncella honesta, recogida, virtuosa, honrrada, è hija de Padres nobles, dueños de la Caseria de Amezti, y Feligreses de la misma Igl.^a de Uzarraga [...]

Y si bien es constante, que esta Pretendiente no passa de los treinta y uno, ó treinta y dos años de edad, tambien lo es, que no ai actualmente otra de sus circunstancias, ni de tanta edad, que aia solicitado esta plaza, y este pequeño defecto de la edad quadragenaria puede suplirlo, al parecer, la pureza de costumbres, y vida ajustada de Maria Ignacia, según la regla infalible del Espiritu Sto. al cap. 1 de la Sabiduria: Aetas Senectutis vita immaculata; mayormente quando este defecto no puede influir en nulidad alguna de la licencia, que Vmd. fuese servido conceder á esta Pretendiente⁴⁸⁴

Orain artean aipagai izan ditugun baldintza guzti hauek, zehatzago edo nasaiago, antzerako ezaugarriak mantentzen zituen espazio jakin bat mugatzen digute, Antzuolako parrokiez gain, Elgetakoa eta Bergarakoak ere baitaratzen dituena. Patroitzaren egoerak ezberdinak izanik ere, onarturiko ordenekiko erlazioak eta abitua, apezpikutzaren lizentzia, zelibatuaren mantenua, bizitza guztirako zerbitzua, eta beste zenbait ezaugarri dituzte amankomunak. Printzipioz, Manuel Larramendik serorei buruz osatu zuen irudiarekin nahiko egoki bat egiten zuten hiru herri hauetako parrokiak serorek, eta sakristauekiko azaltzen zuten funtzioen banaketak arautuaren baitako patroiak jarraitzen zituztela dirudi. Elgetako parrokiakoe (eta ospitalekoek) Bergarako eta Antzuolako parrokiakoe kiko bazuten desberdintasun bat, ondoren ikusiko dugunez, Leintz bailaran eta Oñatin ohizkoagoa zena: serorak finkaturiko soldata bat jasotzera heldu ziren, parrokiako kontu-liburuetan soldata lez esplizituki adierazi zena. Salbuespen horretaz aparte, espazio honen baitako parrokiakoe serorek ez zuten fabriketatik dirurik jasotzen, eta biziraupenerako oinarriak eliztarren jarlekuen zerbitzu partikularretik, hauen limosnetatik eta ortu eta lursailetakoe lanetatik ateratzen zituztela dirudi. Baina irudi honen baitan, aurrerago ikusiko dugun bezala, beste zenbait elementu falta zaizkigu. Sakristauekiko funtzioen banaketak hain garbi mantentzen ez ziren bezalaxe, seroren biziraupen eta aberastasunean eragin handia zeukaten beste diru eta ondasun iturri nagusi batzuek pisu handia zeukaten. Horrez gain, Leintz bailarako eta Oñatiko parrokiakoe seroren ezaugarriak, testuinguru historiko-geografikoaren inguruko azalpenak ematean neurri bateraino aurreratua dugun eta ondorengo orrietan ikusiko dugun bezala, bestelakoak ziren. Baina jarraian, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan zeuden ermitetakoe seroren ezaugarriei begira jarriko gara.

IV. 1.2. Ermitak

Espazio honetakoe ermitetakoe serorekiko, zenbait gertakizun zehatzek funtsezko aldaketa batzuk eragin zituzten. Horietako bat, dokumentua ezin kontsultatu izanagatik egokiago ikertu ahal izan ez duguna, Antzuolako ermiten 1629ko alokairuan ipintzeko lizentzia da. Juan Ochoa de Romagalarza (gaztea) izkribauaren aurkibideetan “El Provisor de Calahorra: licencia de arrendar de las Hermitas de Anzuola” izendaturiko dokumentua ageri zaigu, baina ezin izan dugu aurkitu, zoritxarrez, protokoloen artean prezeski 1629 urteari dagokiona falta baita (1628koei 1630ek jarraitzen diete)⁴⁸⁵. Hala ere, 1659an Antiguako Amaren ermitan izandako –eta beste leku batean azalduko ditugun– liskar batzuk data honetan ermita alokairuan zegoela adierazten digute⁴⁸⁶.

⁴⁸⁴ *Loc.cit.*

⁴⁸⁵ Aurkibidea bera GPAH-AHPG 1/0212 erreferentzia daukana da, eta bertan, 1629 urteko protokoloen artean dagokigun dokumentua 22. folioan zegoela zehazten zaigu.

⁴⁸⁶ DEAH-AHDSS 1291/011-01, f.g.

Orduan ermitau bat eta bere emaztea zeuden ermitaren zaintzan, eta ondorengo kapituluetan Leintz-bailaran eta batez ere Oñatin ikusiko dugunaren arabera, senar-emazte ziren ermitau eta seroraren kasuak, gehienetan, ermitaren zaintzaren esleipena alokairu bidez egiten zenean ematen ziren. Espazio honen baitan, badakigu Bergaran 1654an San Martin ermitako etxea⁴⁸⁷, 1664-1774 bitartean Santa Katalina ermitakoa⁴⁸⁸, 1763-1775 bitartean San Jose ermitakoa⁴⁸⁹ eta 1773-1774 bitartean San Juan ermitakoa⁴⁹⁰ ere alokairuan jarri zirela. Eta badaukagu, bestalde, alokairuan jarri nahi izan zen beste seroretxe baten berri ere, oso garai goiztiarretatik gainera. XVI. mendearen lehen erdialdekoa⁴⁹¹ behar duen *Libro de visita del Licenciado Martín Gil* delakoan, Uzarragako Magdalenaren ospitalean zegoen seroretxea aipatu zuen; bertan, Maria de Madarioyga "huespeda que tiene el cargo al presente del dicho hospital"-ekin batera, seroretxean beste bi "sororas" zeuden, "las quales no pagan alquil[er] ninguno podiéndo[se] la dicha casa alquilar y arrendar cada año [en] quatro ducados, todo lo qual es en dapno y perjuyzio del dicho hospital" (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 368). Alabaina, eta aurrerago ikusiko dugun lez, alokairuarena Leintz-bailaran eta Oñatin gehiago hedatu zen ohitura dugu, eta espazio hauei buruz jardutean azalduko dugu hau zabalago. Lehenik beraz, Bergarako eta Elgetako ermitei erreparatuko diegu, gero Antzuolari buruz daukagun informazioa baturik, Leintz-bailarako atalari bide egiteko.

Bergaran badago bertako ermitetako seroren aukeraketarekiko erabakigarria izan zen urte zehatz bat, 1739a, aukeraketaren gaineko eskumenetan eta hau egiteko moduan aldaketak finkatu zirena. Urte hartan Udalak herrian momentuan zeuden 27 ermiten gaineko posesioa hartu zuen, eta ordundik aurrera bertako serora eta ermitau guztien aukeraketa udal batzarrean egiteari ekin zioten⁴⁹². Ermitaren batzuk aurreko mendeetatik ziren udalaren patronatupekoak, esate baterako, 1619an Beheko San Migel ermita (1590 ingurutik "Ángel de la Custodia" adbokeziora aldatua) zen bezala⁴⁹³. Baina landa eremuetako ermita guztien gain udalak posesioa hartu zuen urtea 1739a izan zen. Data hau baino lehenagoko garaietako egoeraren berri izateko, Bergarako eta Elgetako ermitetako hiru seroren eta ermitau baten izendapenak baino ezin izan ditugu eskuratu: Angiozar auzoko San Kristobal ermitako 1607ko Marina de Alday seroraren izendapena (Angiozar orduan Elgetaren parte bazen ere, San Kristobal ermita orduan ere Bergararen parte zen, dokumentuan behintzat hala aipatzen baita), Bergaran San Martin ermitako 1650eko Isabel de Alday seroraren izendapena, eta San Martzial ermitako 1714ko Ignacio de Zumeta ermitauaren izendapena⁴⁹⁴. Izendapenez beste, Aritzetako San Migel ermitako liburuak ere badakargu Bergararako daturen bat. Beste izendapen bat Elgetakoa dugu, Uriarteko Andra Mari ermitako 1615eko Marina de Sostoaren

⁴⁸⁷ GPAH-AHPG 1/0341, 309r eta hurr.

⁴⁸⁸ GPAH-AHPG 1/0321, 71r eta hurr.; 1/0323, 93r eta hurr. eta 1/0641, 303r eta hurr.

⁴⁸⁹ GPAH-AHPG 1/0616, 658r eta hurr. eta 1/0642, 251r eta hurr.

⁴⁹⁰ GPAH-AHPG 1/0641, 292r eta hurr.

⁴⁹¹ Ikus dataren inguruko zehaztapenak 362 or., 662 oinpeko notan.

⁴⁹² GPAH-AHPG 1/0581, 106r-142v. Honakoak ziren ermitak, garaian ematen zitzaizkien izenen arabera: "Ángel de la Guarda", "San Antonio de Padua", "la Magdalena", "Santa Ana", "San Lorenzo", "Santo Thomas", "Santa Cathalina", "San Antolin", "San Martin", "San Bartholome", "San Marcial", "San Juan Bautista", "San Pelayo", "Santa Cruz", "San Prudencio", "San Miguel", "Santta Lucia", "Santta Engracia", "Nuestra Señora de Buriñano", "San Christoual", "Santiago", "San Anttonio Abad", "San Fausto", "San Hemeterio y Celedonio", "Santta Cruz de Elosua", "Nuestra Señora de la Soledad", eta "gloriosso San Joseph".

⁴⁹³ BUA 01 L/135, 21v.

⁴⁹⁴ Ermitauaren izendapena ere aintzat hartuko dugu patroitzaren eta izendapenaren ingurukoak argitzeko, ermitaren zaintzailea gizonezkoa edo emakumezkoa izateak ez baitzuen ezertarako aspektu hauetan eragiten.

izendapena. Horrez gain, Angiozarko Partanitiako San Bizente ermitan 1690ean serora berri baten izendapena medio izan ziren liskarren batzuen berri ere badugu⁴⁹⁵.

Bergara eta Elgetarako dauzkagun iturri hauek 1602ko Konstituzio Sinodalen ondorengoak ditugu denak, eta seroren izendapenatariko batzuk hauen eta hurrengo Konstituzio Sinodalen argitalpenaren (1621) bitartean kokatzen dira. Nabaria denez, hau aipatzen badugu, lehenago azaldu izan dugun bezala XVII. mende hasiera hura serorendako aldaketa garaia izan zelako da. 1602ko konstituzioetan ezarri zen apezpikutzaren aldetiko onarpenaren betekizuna (Manso 1602, 88r), eta eskuratu ahal izan ditugun izendapenek egoera hau isladatzen dute. Adibiderik garbiena Elgetan, 1615ean Uriarteko Andra Mari ermitako serora izendatu zuten Marina de Sostoarena dugu, bertan, ermitaren gaineko eskumenak zituzten instituzio ezberdinek jada martxan zeuzkaten kontrol mekanismoak ageri baitzaizkigu. Beste kasu guztietan bezala, ziurraski 1602ko konstituzioen eraginez, dokumentuak agertzen duen lehen dilijentzia apezpikutzara helaraziriko izendapenaren onarpen eskea dugu. Marina de Sostoaren kasuan, eskakizuna egin arte izan zituen gorabeheren berri ematen digu:

dixo que por quanto las seroras que auian sido en la santa hermita de Nuestra Señora de Vriarte a cauo de muchos años que auian seruido en la dicha hermita se abian faleçido de esta presente uida como abia sido y sera muy publico entre los vezinos de la dicha Uilla = y como la dicha hermita quedo sin seruiçio de seroras por respeto del dicho faleçimiento ella abia tomado por su buena deboçion y uoluntad de seruir la dicha hermita por serora bien y fielmente en todas las cossas tocantes e neçesarias para el seruicio de la dicha hermita despues de lo qual el mayordomo de la dicha yglesia auia dado relaçion de ello a la Justiçia hordinaria de la dicha Villa y la dicha Justiçia mando se diesse ynformaçion al tenor de la relaçion que dio el dicho mayordomo y se dio y sobre bisto confirmo la dicha ynformaçion y los demas autos y fue nonbrada por tal Serora de la dicha hermita con la dicha Justiçia hordinaria e sin embargo de todo ello en cumplimiento de un auto proueydo por el señor Uisitador general de este obispado de Calañorra y de la Calçada a su derecho convenia presentar ante el señor Prouisor los dichos recados para que su merced con uista de todo le aprouasse la dicha nonbraçion de tal serora de la dicha hermita attenta la mucha neçesidad que para ello abia y para azer la dicha diligençia y presentar los dichos recados ante el dicho señor prouisor ella no podia asistir personalmente⁴⁹⁶

Laster ohartu zuen Marina de Sostoak serora karguan sartzeko bazela nori kontu eman beharrik... nahiz eta, ziurrenez, serora honek lehen momentuan ermitan sartzeko izan zuen era, hau da, seroratzara dilijentzia berezirik egin gabe, hau hutsik egotearren, debozio hutsez sartzea, aurreko garaietan ohizkoagoa izango zen. Kasu honetan maiordomoaren "salaketaren" ostean "la Justiçia hordinaria" (alegia, alkatea eta Udala) izan bazen azkenean lehen izendapen bat helarazi zuena (gero apezpikutzak berretsi beharrekoa), 1690ean Angiozarren, Elgetako jurisdikziopeko Partanitiako San Bizente ermitaren serora aukeraketa medio zenbait gorabehera izan zirenean, Maria de Arescurrenaga serora berriaren aukeraketa Angiozarreko San Migel parrokiako kabiloak eta benefiziodunek egin zuten, "estando juntos y congregados como lo tienen de costunbre"⁴⁹⁷.

Bergarako izendapenen arabera ere, 1739ko udalaren aldetiko ermiten posesio-hartzeak arte, beste botere espazio batzuk hartzen zuten parte. Angiozarreko San Kristobalen 1607an Marina de Aldayren izendapena egin zenean, lizentzia eskaera

⁴⁹⁵ Hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/0192, 135r-136v; GPAH-AHPG 1/0399, 485r-485v; GPAH-AHPG 1/0501, 172r-172v; GPAH-AHPG 1/1867, 116r-116v; eta KKA-ACC 6/561/1, f.g.

⁴⁹⁶ GPAH-AHPG, 1/1867, 116r-116v.

⁴⁹⁷ KKA-ACC 6/561/1, f.g.

ermitako maiordomoetariko batek –bi baitzeuden– helarazi zuen apezpikutzara, eta lizentziaren berri Bergarako bikarioaren eta ermitako bi maiordomoen aurrean eman zen, hauen aldetiko lizentziaren onarpena bera izendapena bihurtu zelarik. Izendapena berez serora-laguntzaile karguarena zen, eta maiordomoak baldintzatzat zehaztu zuenaren arabera, “dixo que fuese sin perjuizio de Marina Lopez de Alday que auia diez e ocho años que seruia en la dicha ermita”. Aldai abizenak aditzera ematen digunez, litekeena da serora zaharraren eta berriaren artean, eta are hauen eta maiordomoetariko baten artean ere (Juan Saez de Alday), nolabaiteko ahaidegoren bat izatea⁴⁹⁸. San Martin ermitako 1650eko Isabel de Aldayren (hau ere “Alday”!) izendapenak eta San Martzial ermitako 1714ko Ignacio de Zumeta ermitauaren izendapenak ermita hauen parrokia zen Santa Marinako apezten partehartzea agertzen digute, eta lehenaren kasuan, baita auzotarrena ere. Isabel de Aldayren izendapena berrespen eskaera bat zen berez, Santa Marinako apez Martin de Arguiçayn batxilerrak eta Andres Perez de Aguirre ermitako maiordomoak jada “verbalmente segun la costumbre que se ha tenido” aukeratua baitzuten. Baina ez zuen bere izendapenaren inguruko ziurtasun handiegirik izan behar, karguaren posesioa eman ziezaioten oso setati agertzen baitzaigu, izendapenetan ohikoak ez ziren eskaerekin:

y siendome Çierta y Segura y sin contradición la dicha nombración ofresco de limosna para la dicha Hermita y su fabrica veynte y quatro ducados en dinero de Vellon y los traigo aqui para entregar selos y los ofresco al dicho Mayordomo – Por lo qual me deuen dal luego la posesion de la dicha Seroria = Por tanto vna y mas vezes les pido y requiero rreçuan el dicho dinero y me den la dicha posesion y no hagan nombración en otra ppersona alguna particularmente no dando mas cantidad de limosna y de lo contrario protesto los daños y menoscauos que a mi y a la dicha Hermita nos rredundaren de no admitir la dicha Oferta / y no se me dar la dicha posesion y de dar quenta al señor Obispo / o a otro Juez competente y de como assi les digo ofresco y requiero y protesto pido el dicho testimonio y a los presentes rruego me sean testigos⁴⁹⁹

Honen zergatia aurreraxeago agertzen zaigu, izkribaua Santa Marinako apezari, ermitako maiordomoari eta bertako auzotarrei izendapenaren berri ematera joan zenean: auzotarrek beste norbait zuten kargurako nahiago, eta azkenean, Santa Marinako apezak eta ermitako maiordomoak, auzotarren ezezkoaren aurrean men egin zuten, izendapena bertan behera utziaz:

yo el esscriuano de pedimiento de Ysrael de Alday y estando ella pressente ley e notifique el rrequerimiento de esta otra parte para su efectos al Bachiller don Martin de Arguiçain Cura de la yglesia parroquial de Santa Marina de Ojirondo de la dichas Villa y a Andres Perez de Aguirre mayordomo de la hermita de señor San Martin de esta dicha Villa y ellos conprendiendo el contenim [*sic*] del dicho requerimiento = dixeran que es verdad que tiene echa eleçion de beata de la dicha hermita de San Martin berbalmente, a la dicha Ysrael de Alday y admitian y admitieron la oferta que hace de los veynte y quatro ducados los quales en veynte y dos reales de a [???] de plata exhibio la dicha Ysrael = pero los vecinos de la dicha hermita, huiendose ynformado con ellos dicen que ay otra ppersona mas conbeniente para ser beata en la dicha hermita y que quiere dar otra tanta cantidad que ofreçe la dicha Ysrael – y assi por agora no quieren rreciuir ni tomar los dichos veynte y quatro ducados – ni hacen Eleçion alguna y esto respondieron y firmaron siendo testigos [...]⁵⁰⁰

Kasu honetan beraz, auzotarren onarpena erabakiorra izan zen izendapena egiterako orduan. Ulergarria den lez, auzotarren onarpenak garrantzizko pisua izan

⁴⁹⁸ GPAH-AHPG 1/0192, 135r-136v.

⁴⁹⁹ GPAH-AHPG 1/0399, 485r-485v.

⁵⁰⁰ *Loc.cit.*

behar zuen aukeraketa eta izendapenetan. Ikusi dugu jada nola Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako serorak auzotarrek eurek aukeratzen zituzten, eta Leintz-bailaran eta Oñatin ere ikusiko ditugu aurreraxeago auzotarrek egindako ermitetako seroren izendapenen kasuak; egoera honek ez zuen batere arraroa izan behar.

San Martzialeko 1714ko ermitauaren izendapenean ostera, ez dirudi auzotarren partehartzerik izan zenik; Santa Marinako apez Bernardo de Gallaitzeguiren apezpikutzaren aurreko eskaera bidez egin zen, aurreko ermitauaren heriotza medio egindako hautagai berriaren proposamenez⁵⁰¹. San Pedro parrokiari atxikia zen Aritzetako San Migel ermitan ere, 1688an inbentarioa egin zenean, seroretxean zeuden bi seroren berri ematerakoan San Pedroko apezak hauek kargura “por nombramiento de mi el dicho cura de San Pedro” sartuak zirela aipatu zuen⁵⁰².

Elgetako eta Bergarako kasu hauek ohitura batzuen zantzuak ematen dizkigute, hipotesi modura baino ez bada ere, ardatz nagusi batzuk marrazteko bidea ematen digutenak. 1607ko Angiozarreko San Kristobal ermitako kasuak beste botere espazioen eragin eremuetatik at edo auzitan zeuden botere espazioen kasua azaltzen digu; ermita Bergarako jurisdikzioan zegoen, baina Elgetako jurisdikzioaren mugek ez zuten urrun ibili behar. Honek udal agintarien aldetiko posesio adierazpenen inguruko hainbat arazo sortu izan zituen, eta ermitari buruzko lehen berri dokumentala, hain zuzen ere, tankera honetako liskar bati dagokio. 1583an Bergarako Udalak Elgetako alkatea auzitara eramanean zuen, bere aginte-makilarekin ermitan sartu izan zela eta (Sorondo 1982-83, 187). Edonola ere, ez bata ez besteak ez zuten seroraren aukeraketan 1607an parte hartu, ikusi bezala, ermita bertako maiordomoetariko batek egin baitzuen lizentzia eskaera, zuzenean apezpikutzara. Eta izendapena, edo honen berrespena, maiordomoak berak eta –apezpikutzaren ordezkari lez– Bergarako bikarioak egin zuten. Udalen eta beraien jurisdikzioen eragin esparruan nabariago zeuden ermiten kasuan izendapenetan bertako agintariak parte hartzen zutela –edo esparru hori eureganatu nahi izaten zutela– esango genuke, 1615ean Elgetan, Uriarteko Andra Mari ermitarako serora izendapena egin zutenean bezala, edo 1739tik aurrera Bergarako Udalak bere jurisdikziopeko ermitekin egin zuen bezala. Auzoetako eta hiribilduetara atxikiriko euren kabuzko parrokien menpeko ziren ermiten kasuan berriz, izendapena zegokien parrokiako eliz-agintariak egin ohi zutela dirudi, 1690ean Elgetako jurisdikziopean, Angiozarren, Partanitiako San Bizente ermitako liskarren kasuan ageri zaigun lez, eta Bergaran, Santa Marina parrokiari atxikiriko Ozaetako San Martineko 1650eko serora izendapenean eta San Pedro parrokiari atxikiriko San Martzialeko 1714ko ermitau izendapenean ageri zaigunaren arabera.

Bergaran balizko egoera hau 1739az geroztik aldatu zen, jada aipatu izan dugun bezala. Udala aspalditik zebilen bere jurisdikziopeko ermita guztien patroitzaren jabe egin nahian; hau 1644an Soledadeko ermita fundatu zeneko aipamen batek adierazten digu garbiki: “la dicha hermita a de ser comun de la villa como todas las demas hermitas libres”. Eta 1739an Udalak bere aspaldidaniko nahia bete zuenean eta San Pedro parrokiari zegozkion ermitez gain, Santa Marina parrokiari zegozkionen posesio-hartzeak ere egin zituenean, liskarrak eta tentsio momentuak izan ziren Santa Marinako eliz-agintariekin. Honen adierazgarri, garai hartan fundatu zuten Santa Marinako eliztarrek San Jose ermita (eta kofradia) ere badugu; 1689an Udalaren aurrean lehen eskakizuna egin zutenetik (Udalaren lurretan eraiki nahi baitzuten), XVIII. mende hasiera artean ezin izan zuten beraien nahia bete. Ermita Udalaren lurretan eta honek emaniko materialekin eraiki zenaz geroztik, Udalak patronatua berea zuela defendatzen

⁵⁰¹ GPAH-AHPG 1/0501, 172r-172v.

⁵⁰² BUA, 01-L/113, 2v.

zuen, Santa Marinako eliztarrek eta bertako agintariek, bereziki Ignacio de Sagastizabal koadjutoreak, patronatua Santa Marinari zegokiola defendatzen zuten artean. Azkenean, 1740an (Udalak bere jurisdikziopeko ermiten posesio-hartzea egin berritan) akordio batera heldu zen; honen lehen puntuan Udalak tenpluaren gain zuen patroitzia berretsi zen, eta horrenbestez, maiordomoak, ermitauak eta serorak izendatzeko eskubidea berea zuela ezarri zen (Aramburu 2008, 2. lib., 577-578).

Orduz geroztik, seroren izendapenak udal bilkuren aktetan ageriko zaizkigu, “Justizia y Reximiento”aren eskutik eginak eta oso modu xumean adieraziak. Hala egin ziren behintzat 1740, 1752 eta 1765an Murinondoko Andre Marian (edo San Blas), 1751an Basalgoko Santiago ermitan, 1762an Uberako San Emeterio eta San Zeledonion, 1765ean San Lorentzon eta 1766an San Juanen⁵⁰³. Kasuren batean Udala bere eskumenak defendatzen ageri zaigu; hala, 1751an Miguel Antonio de Aldaeta Santa Marinako apezak Udalari azalpenak eman behar izan zizkion, Basalgoko Santiago ermitako seroraren izendapenaren kontu:

el dicho señor sindico propuso que en virtud de la Comision que de una con el dicho señor don Juakin Ygnacio de Moia se les dio en aiunttamiento de sauado ultimo [10?] al corrientte celebrado por ttestimonio de Lorenzo de Larraza esscriuano de Auintamientos de esta dicha Villa hauian buscado al señor Don Miguel Anttonio de Aldaetta Cura y Beneficiado de la Yglesia Parroquial de Santa Marina de ella y significandole el senttimiento de esta uilla por hauer pasado a nombrar por Serora ô Beatta de la Hermita de Santiago â Josepha de Ynarra siendo asi que esta pribatibamentte ttocaua a la Villa en en [sic] su nombre a sus mercedes por ser patrona de todas las Hermitas y que asi repusiere ô diese por reuocado dicha nombramiento para que esta dicha Villa para que esta Uilla [sic] librementte nombrase a quien gustase y que haiendole insinuado ttodo estto a dicho señor cura con mucha atencion les hauia respondido no hauia echo nombramiento formal en la suso dicha sino encargarla cuidase por algunos dias de aquella hermita ni hera ni hauia sido de bulnerar las regalias de la uilla [?]tubiese presente para este efecto y que esto pedia por via de suplica y enterados de todo y del llamamiento asi echo por el dicho señor Cura como lo esperaban de celo acordaron de conformidad nombrar como nombraron a la dicha Josepha de Ynarra por ttal Serora ô Beatta⁵⁰⁴

Auzitan zegoen kontua, noski, ez zen seroratzat Josefa de Ynarra edo besteren bat onartzea, izendapena Udalaren izenean egin zedila baizik. Guzti honek noski, Udala izendapenak bere interesen arabera pertsonengan egitera iragan zela ere esan nahi du. Hau nabariki ageri zaigu 1762an Uberako San Emeterio eta San Zeledonio ermitarako egin zen serora izendapenean; esanguratsuki, seroraren izenaren tartea hutsik gelditu zen, “uecina de esta dicha uilla y Prima de Melchor de Micolalde” zela baino ez dakigu:

estando asi juntos dicho señor Alcalde dijo que hauia bacado la ocupacion ó empleo de serora de la Hermita de San Emeterio de ella, y haiendose reconocido la posesion tomada por esta Noble uilla y nombramiento hecho en la serora difunta en dos de ottubre de mil setecientos treinta y nueve por testimonio de Juan Bautista de Elcoro ya difunto propuso por sucesora â una muchacha que siruio a la difunta serora; pero representando dicho señor sindico que tambien era pretendiente â este empleo [hutsunea] uecina de esta dicha uilla y Prima de Melchor Antonio de Micolalde â quien esta dicha uilla reconoce tantas obligaciones: en esta consideracion nombraban y nombraron â dicha [hutsunea] a quien el esscriuano haga sauer este nombramiento y

⁵⁰³ Hurrenez hurren BUA 01 L/207, 129v; 01-L/208, 101v-102r, 362r, 88v-89r, 276r, 376v-377r; eta 01-L/209, 134v-135r.

⁵⁰⁴ BUA 01 L/208, 89r.

que tendra el empleo mientras fuere la voluntad de esta uilla Patrono [*sic*] unica de dicha Hermita y su Casilla⁵⁰⁵

Hemen ere, Udalak ez zuen bere jurisdikziopean zeuden ermiten gain zeukan patroitza berresteko okasiorik galdu. Baina Udalaren eta Santa Marinako eliz-agintarien arteko liskarrak ez ziren artean bukatu. 1766an, San Juan ermitako ermitaua bapatean hil zelarik Udalak bertarako serora izendapena egin zuenean, kontzejuko ahaldun bat ermitako ondasunen inbentarioa egitera joan zen. Rafael de Garitano Aldaeta Santa Marinako parrokoak baina, ermitako giltzak hartu eta hau itxi zuen, Udalaren aurka auzitan hasteko meatxua eginaz; Udala, bere aldetik, ez zen kokildu, eta auzitan sartzeko prest agertu zen. Bost urte beranduago Santa Marinako parrokoak bere iritzia berretsi zuen, oraingoan, Murinondoko Andre Mariaren ermitako seroretxea zela eta. Udalak ermitaren ondasunetan eskuhartzeko zeukan eskubidea ukatu zuen, honen patroitza bera ere zalantzan jarriaz. Areago, hau onarturik ere Udalak ermitaren administrazioan partehartzeko inongo eskubiderik ez zeukala defendatu zuen. Murinondoko seroretxeari zegokionean, Udalarik ermitako seroretxea Santa Marinako eliztarren limosnekin eraikia izan zela eta Udalak inongo partehartzerik ez zuela izan gogorarazi zion; eta honen haritara, ziurrenez 1739ko ermiten posesio-hartzeak buruan zituela, Udala “una pretendida posesion que se tomo sin derecho ni autoridad legitima” egin izanaz salatu zuen (Aramburu 2008, 2. lib., 579-580).

Antzuolari dagokionez, 1629an ermiten alokairuaren ohitura ezarri aurretik bertako ermitetan hainbat serora izan zirela badakigu, nahiz eta hauen izenen zerrendaz beste, datu esanguratsurik eskuratu ahal izan ez dugun. Luis Murugarrenek Antzuolari, Uzarragari eta Elosuari buruz idatzi zuen lanean batu zituen XV-XVI. mendeetako seroren berri xumeak ekar ditzakegu; Antiguako Andre Mariako zerrenda dugu luzeena:

La primera mención que hemos hallado de esta ermita es de 1503, en que se cita como madrina de un bautizo a “la freyra de Santa María, la de Ibarra”, que no puede ser otra aquella iglesia de Santa María que la Antigua, pues aún no existía la Piedad [...] la freyra de Ynurrigarro (1509), la de Iriarte (1511), María Ochoa (1511), la de Ygueribar (+1567), la de Yratorça (+1561), Margarita de Yriarte (+1573), Catalina de Madariaga (+1574) y la freyra de Eguzquiza (1586) (Murugarren 1975, 67, 72)

Santa Agedan berriz: “la freyra Domenja (1510) y la freyra de Urrutia (1567)”; San Bartolomen: “La freyra de Aranguren (+1554), la de Eizaguirre (+1561), la de Lascurain (1557), y la de Lapaza (1558)”; Basaldeko Santa Engrazian (gaur egunean San Blas): “La freyra de Ariszaga (1501), Osana de Ynurrigarro (+1580), la freyra mayor de Ygueribar (+1550) y la menor (1564) y la de Olazabal (+1579)”. Santa Katalinarako ez digu serorarik zerrendatzen, baina ermitari buruzko lehen berriak jasotzen dituen 1503an bere zerbitzuan bi serora zeudela diosku (*Ibid.*, 79-81).

1629an bertako ermitak alokatzeko lizentzia emana izan bazen eta 1659 inguruan Antiguako Amaren ermitan ohitura hori jarraitzen zela badirudi ere, XVIII. mendearen erdi-bukaera alderako ez zen ermita beraren zaintza alokairu bidez esleitzen. 1745ean Ana Bautista de Azcarate, eta 1761ean lehen honen heriotzean seroratzat sartu ziren Maria Ana Ygnacia de Yraeta eta Agustina de Vgalde izendapen bidez sartu ziren kargura, eta bi kasuetan, herriko parrokia batuetako apezak eta alkateak zeukaten izendapen eskubidea. 1855ean ere hauen eskutik egin zen Ignacia de Ezpeletaren izendapena, baina azken kasu honetan, ermitako maiordomoak ere parte hartu zuen⁵⁰⁶. Honek, Bergaran bezala Antzuolan ere XVIII. menderako bere jurisdikzioko ermiten

⁵⁰⁵ *Ibid.*, 276r.

⁵⁰⁶ DEAH-AHDSS 1263/001-01, hurrenez hurren 14r-15r, 31r-32r eta f.g. (52 folioaz geroztik foliazioa falta zaio).

inguruko eskumenetan Udalak parte hartzen zuela iradokitzen digu, nahiz eta Antiguako Amaren ermitako kasu hauek beste ermiten egoera ere ze puntutaraino islada dezaketen ziurtasunez ez dakigun.

Ez ziren falta izan beraz, batez ere Bergaran, ermiten patroitzaren eta seroren – eta ermitauek– izendapen eskubidearen inguruko liskarrak. Baina zeintzuk ziren sarrerarako zeuzkaten baldintzak, eta seroratzaren ezaugarriak? Bergararako eta Elgetarako aurkitu ditugun kasu ia guztietan serorak tokian tokikoak ziren, beti ere “vezina de la dicha Villa”; salbuespen bakarra Bergaran, Angiozarko San Kristobal ermitan 1607an sartu zen Marina de Aldairengan daukagu, hau auzoko “moradora” lez baino ez baitzen aipatu. Edonola ere, nor bere herrikoak eta ezagunak behar zuten izan, parroketan gertatu ohi zen bezalaxe. Aipagai izan berri dugun kasu honetan agertzen zaizkigu, halaber, seroragaiaren ohitura eta bizimodu on eta egokiaren inguruko informazio dilijentziak ere:

por ser de las calidades parte y hedad que manda la constitucion signodal de este obispado y la ynformacion por su parte dada de lo suso dicho y de su bida y costunbres y lo demas que uerse debia [...] atento consta por la dicha ynformacion ser la dicha Marina de Aldai de buena bida y costunbres y de la calidad y calidades que manda la dicha constitucion de este obispado le daba y dio liçençia⁵⁰⁷

Gogoan izan dezagun izendapen hau ermitako maiordomo batek zuzenean apezpikutzara eskaturikoa zela, eta Bergarako bikarioaren presentiaz berretsi zela. Alegia, Konstituzio Sinodaletako aginduen betekizunak presenteago zituzten, beste kasu batzuetan baino; gehienetan, izan ere, ez baitzuten hainbeste dilijentzia egitearen inongo berririk ematen. Edonola ere, hein bateraino aintzat hartzen zen konstituzioetako betekizunetarikoa bat, bizimodu egoki eta erlijiosoari loturik hautematen zena, 40 urtetik gorako adinarena dugu. Jaso ditugun izendapenetan ez zaigu adinik inon aipatzen, baina arau honen xedea hain zuzen ere emakumeen “garbitasuna” mantentzea, alegia, gatzetasunaren sexu grina propioak ekiditea zenez, hobesten ziren egoerak adin horretatik gorako mutxurdinena eta alargunena zirela uler liteke. Hainbat dira, batez ere seroratzaren debekua eta desagerraraztea nahi izan zituztenen aldetik, hautemapen hau aditzera ematen duten adierazpenak eta gertakizunak⁵⁰⁸. Zentzu honetan, aipatu berri dugun Marina de Aldairen izendapenaz gain, beste kasuren batzuetan ere aipatu izan zuten seroragaiaren “donzella”, “solterra” edo “uiuda” egoera (Bergaran, San Martinen 1650ean, Murinondoko Andre Marian 1740an eta San Juanen 1766an)⁵⁰⁹.

Alabaina, izan ziren Bergaran, Elgetan eta Antzuolan Konstituzio Sinodaletako araudiari hain zurrun atxikitzen ez zitzaizkien, edo araudi hauetako zirrikituetaz probestuz, ermitauek figuraren ostean "ezkutatu" ziren seroren kasuak ere: serora ezkonduak. Hasieran esan bezala, Leintz bailarako eta Oñatiko kasuei jarraipena egiterakoan jardungo gara seroratzaren moeta honen inguruan zabalago, baina orokorrean serorekiko instituzio erlijiosoek garaturiko araudiak nahiko zurrun jarraitzen zituzten Bergara, Elgeta eta Antzuolaren espazio honetan ere seroratzaren moeta honen kasuak eman zirela argi utzi nahiko nuke. Kasuetarikoa bat aipatua dugu jada, Antzuolako Antiguako Amaren ermitan ematen zena, 1659an bertan zeuden senar-emazteak, ermitau eta serora lanetan baitzeuden bertan. Lehen kasu honetan bezala, Bergarako

⁵⁰⁷ GPAH-AHPG 1/0192, 135r-136v.

⁵⁰⁸ Ikus, esate baterako, Larrañaga Arregi 2010a, batez ere “6. Neurriak eta debekuak Aro Berrian zehar” kapitulua, 100-132, eta hemen bertan, III kap. orokorrean (169 eta hurr. or.), batez ere III. 2.2. azpiatala, 218 eta hurr. or.

⁵⁰⁹ Hurrenez hurren: GPAH-AHPG 1/0339, 485r-485v; BUA 01 L/207, 129v; eta BUA 01 L/209, 134v-135r.

Santa Katalina ermitako liburuan 1730-1760 bitarteko hamarkadetan jasoa ageri zaiguna ere, ermitauaren emazte zen serorarena dugu. Ermitaren zaintzaren “titulua”, halakorik esan baliteke, lehenik Joseph de Aldaeta ermitauari zegokion. Hau 1752an hil zenean, honen emazte Antonia de Louianok bere izen propioan ermitako administrazioaren kargu hartu zuenean, ez zekien antza oso ziur bere burua nola izendatu, eta “la mayordomisa” lez eman zituen kontuak. 1753az geroztik baina, “serora” bezala eman zituen⁵¹⁰. Ordurartean kontu-liburuan bere presentzia bera ere aipatu ez izanagatik ermitako serora lanak betetzen ez zituela ulertu behar al dugu? Ez dirudi zentzuduna. Gainera, bi kasu hauek badute beste zerbait amankomunean ere, Leintz-bailaran eta batez ere Oñatin, bertako ermitetako kasuetan ohikoa zena: alokairuan zeuden ermitak ziren. Ziurrenez 1629az geroztik Antzuolako Antiguako Ama ermitan –eta Antzuolako beste ermitetan– egin ohi zen bezala (ondoren ohitura aldatu zela ikusi dugu), 1664-1774 bitartean Bergarako Santa Katalina ermita hiru aldiz behintzat alokairuan eman zela egiaztatu ahal izan dugu⁵¹¹. Antzuolako Antiguako Amaren ermitan bertan 1855ean seroratzat Ignacia de Ezpeleta izendatu zutenean ere, aurretik bertako zaintza Martin de Yturbe eta Manuela de Aguirre ermitauen esku izana zela ageri zaigu. Kasu honetan, gorago ikusi dugun lez, ermitau bikotearen ondoren kargura sartu zen Ignacia de Ezpeletaren sarrera izendapena medio egin zen, alokairu bidez beharrean. Baina adibide berantiar hau jada 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren ondoren izan zen XIX. mendeko bilakaerari dagokio, eta ez dugu beraz XVII-XVIII mendeetako testuinguruaren adierazgarritzat hartuko.

Hauetz gain, orduan Elgetaren parte zen Angiozarreko Partanitiako San Bizente ermitan seroratzat zela eta apezpikutzaren aurrean izan zen –jada aipagai izan dugun– auziak tankerako beste kasu baten berri ematen digu. 1690 inguruan Angiozarreko San Migel parrokiako kabildoak eta benefiziodunek ermitako serora izendapena Maria de Arescurrenagaren gain egin zuten, aurreko serora Maria Miguel de Loitiren ordeiz. Azken hau jada oso zaharra zela argudiatu zuten, karguan 40 urte baino gehiago zeramatzala eta. Baina serora zaharra ez zegoen antza konforme, eta ez zion berriari kargurik hartzen utzi nahi. Baina hara non, Maria de Arescurrenaga ezkondua baitzen, ez zeukan antza seroretzera bertan bizitzera joateko asmorik. Hau zela eta, azkenean, kabildoak eta benefiziodunek eurek baliogabetu zuten izendapena, serora berriaren asmoen jakitun izan zirenean⁵¹². Kasu honetan, agian pentsa litekeenaren kontra, arazoak ez zetzan serora berria ezkondua izatean, honek seroretzera bizitzera joateko asmorik ez izatean baizik. Izan ere, kabildoa eta benefiziodunak jakin beharrean zeuden, noski, Maria de Arescurrenaga ezkondua zela, izendapena egin zuten momentuan.

Dotearen emateari dagokionean ez daukagu espazio honetarako datu gehiegirik, baina ermitak eurak eta sortzen zituzten gastuak eta etekinak hain ezberdinak izaki, Leintz-bailaran eta Oñatin ere gertatzen zen lez, dibertsitateak nagusi izan behar zuela dirudi. Ez dakigu ze puntutaraino dotea izendapenetan ez aipatzeak honen existentziarik eza adierazi lezakeen, baina zentzudunena, azken kasu hau auzorik txiroenetako ermitetan baino gertatzen ez zela pentsatzea litzateke. Azken finean, auzotarrek, ermitari zegokion parrokiako agintariak nahiz eliztarrek, eta baita udal agintariak ere, (izendapenean parte hartu zezaketenek) serorek dotea eman zezaten beharra zeukaten, hau handiagoa edo txikiagoa izan, ermitaren sostengurako diru-iturri garrantzitsua baitzen.

⁵¹⁰ BUA 01 L/111, f.g. Ikus halaber kasu honen inguruko azalpenak zabalago: Larrañaga Arregi 2010a, 39-40.

⁵¹¹ GPAH-AHPG 1/0321, 71r eta hurr.; 1/0323, 93r eta hurr. eta 1/0641, 303r eta hurr.

⁵¹² KKA-ACC, 6/561/1, f.g.

Edonola ere, hona dotearekiko espazio honetarako bildu ahal izan ditugun datu urriak: ikusi dugu jada nola Bergarako San Martin ermitan 1650ean Isabel de Aldayk doterako 24 dukat eskaini zituen; zenbait urte lehenago, 1574an, Bergarako San Lorentzo ermitan serora izan zen Marina de Moyugoitiak testamentua helarazi zuenean, bere seroratzarako sarreran 8 dukaten promesa egin zuela aipatu zuen (ordurartean 2 dukat soilik zituen ordainduak, eta gainontzekoen ordainketa agindu zuen)⁵¹³; Antzuolako Antiguako Amaren ermitan (beste ermita askoren aldean, itzal handikoa zena), 1587an Maria de Ygueribar bertako serorak helarazi zuen testamentuaren arabera, honek bere sarrerarako 40 dukat eman zituela dakigu⁵¹⁴. 1607an Angiozarreko San Kristobaleko seroratzara sartu zen Marina de Aldayk berriz, “lo que se acostunbra dar por tal serora” baino ez zuen aipatu, baina ondoren:

dixo que dotaua e doto a la dicha ermita de presente de sus propios bienes con vna sauana buena de balor de beinte e siete rreales para el seruiçio de los altares la qual entregara a los dichos mayordomos y demas de ello dixo que queria que despues de su muerte los bienes que tiene y tubiere fuesen para la dicha ermita con que le agan sus funerarias y entierro de que todos los dichos Uicario e mayordomos y la dicha Marina pedieron testimonio a lo qual fueron testigos [...]⁵¹⁵

Adibideotan ikusi ahal izan ditugun kopuruak ez dira txikiak, baina bailarako beste espazio batzuetako ermitetako doteei erreparaturik, agian kopuru adierazgarrienak ez zirela izango ondorioztatu liteke. San Martin ermitako 24 dukaten eskaintza seroragaien arteko konpetentzia testuinguru batean eman zen eta Antzuolako Antiguako Amaren ermita, dotetzat 40 dukat jaso zituen, beste batzuen aldean ermita garrantzitsua zen. Gainera, jada auzoetako eta elizateetako parrokien kasuan ere ikusi dugun dotazio edo izendapen moeta bat ere agertzen zaigu: testatzeko gaitasuna ukatzen zuen hitzarmena. Izan ere, horixe baitzen Marina de Aldaik 1607an hartu zuen konpromezua, seroratzan onartzekotan bere heriotzerako orduan izan zitzakeen ondasun guztiak ermitaren alde ematearen promesa egin zuenean. Bailarako beste ermita batzuen kasuetan ikusi ahal izan dugunez, kontratu moeta hau zenbaitetan serorak momentuan emateko gauza handiegirik ez zeukanean egiten zela dirudi (kasu konkretu honetan, 27 errealetan baloraturiko zaia on bat baino ez zaigu aipatzen), eta kasuak ez digu dotearen kopuruei neurririk hartzeko datu baliagarriak eskaintzen. Ez dakigu ze puntutaraino izendapen edo kontratu moeta hau Bergaran, Antzuolan eta Elgetan ohikoa izan zitekeen; edonola ere, batez ere Leintz-bailaran ohizkoagoa zela dirudi.

Aipagai izan berri dugun Marina de Aldairen kasuan nabaria da serorak bere karguan bizitza guztian zehar mantentzeko borondatea agertu zuela; esplizituki aipatu zen gainera, “por todos los dias de su vida” zerbitzera sartu zela. Alderdi honi buruz ere, urriak dira jaso ahal izan ditugun datuak. Karguaren bizitza guztirako izaera Bergaran beste behin baino ez zaigu aipatzen, Murinondoko Andre Maria ermitako seroratzarako Micaela de Usobiaga 1740an izendatu zutenean: “para que lo sea en ttodos los dias de su Vida”⁵¹⁶. Elgetan, Uriarteko Andre Maria ermitarako 1615ean Marina de Sostoa aukeratu zutenean espresio adierazgaitz bat erabili zuten, ziurtasun erabatekorik ematen ez diguna: “de dia y de noche vien y fielmente acudiendo a todas las cossas neçessarias de la dicha hermita [...]⁵¹⁷. Antzuolan ostera aurkako ohituraren zenbait adibide garbi ditugu, XVIII. mendearen erdialdetik XIX.aren erdialderarte bitartean kokatuak: Antiguako Amaren ermitarako 1745ean, 1761ean eta 1855ean parrokia batuetako

⁵¹³ GPAH-AHPG 1/0114, 698v.

⁵¹⁴ GPAH-AHPG 1/0147, 281v.

⁵¹⁵ GPAH-AHPG 1/0192, 135r-136v.

⁵¹⁶ BUA 01 L/207, 129v.

⁵¹⁷ GPAH-AHPG 1/1867, 116r-116v.

apezak eta herriko alkateak egin zituzten izendapenetan honen balizkotasuna “durante el tiempo que vien prozediere, y a gusto de los dichos señores Cura, y Justizia y Rejimiento” izango zela zehaztu zuten, eta 1855ean urtebeteko epea ere aipatu zuten: “este nombramiento hacemos por un año a contar desde esta fecha, o por el tiempo que bien procediere, y á gusto de nosotros”⁵¹⁸. Bestalde, ez daukagu kargua beraien borondatez utzi izan zuten ermitetako seroren berririk ere; alabaina, azken kasu hau, kontsulta litezkeen iturri dokumentaletan nolabaiteko liskarrak bitarteko zirenean baino agertzen ez zaigula ere aipatu beharrean gaude. Azkenik, esandakoaz gain, alokairuan jarri ziren ermiten kasuan, noski, seroratza (edo/eta ermitau izaera) printzipioz kontratuak irauten zuen urteetarako bakarrik zela ere esan behar (Leintz-bailaran eta Oñatin ere horrelaxe zen ohitura, behinik behin); alegia, ez zela inondik ere bizitza guztirakoa.

Atal honetan dagozkigun ermitetako seroren sarrerarako baldintzei dagokienean, ezin askoz gehiago esan. Funtsean, lekuan lekukoa izatea eta izendapena zegokion botere esparruaren onespena izatea baino ez ziren beharrezko, ohitura ezberdinen arabera eman ohi ziren doteez gain, eta zenbaitetan, karguaren bizitza guztirako izaera aipatu izan zen. Orokorrean, parroketako serorei eskatzen zitzaizkien betekizunen aldean, araudien eta kontrol instituzionalaren aldetik presio gutxiago jasaten zutenaren seinale. Baieztapen hau, hala ere, zehaztu beharrezkoa da, batez ere XVII. mende bukaeran eta XVIII. mendean zehar, landa eremuen gaineko kontrola ertsiagoa bihurtu baitzen. Hiribilduek euren botere esparrua landa eremuen gain sendoago finkatzearen prozesu bat eman zen garaia baitugu, hain zuzen ere.

IV. 2. LEINTZ BAILARA

Ikerlan honen xedeetarako Leintz bailara modu zabalean ulertuko dugu, hau da, bere hautemapen geografiko hutsean eta historikoki zaharrena izan zenean, Aretxabaleta eta Eskoriatzarekin batera, Arrasate eta Leintz Gatzaga ere baitaratzen dituen. Besterik ez esatekotan, beraz, Leintz bailara aipatuko dugunero, espazio honi buruz diardugula uler bedi. X. mende ingurutik daude ondoren hiribildu izatera iragango ziren “lekuek” osatzen zuten bailara, espazio amankomun lez bailaratzat hautematen zenaren berriak, euren artean, bailararako sarrera nagusian kokaturiko Arrasate zelarik partidu buru, eta populaziorik gehien biltzen zuen nukleoa.

Bere kokapenaren abantailak lagundurik, bailaran sortu ziren hiribilduen artean, legenda eta historia bitarteko tradizioen arabera (Garibay, Domingo Ignacio de Egaña) jada “Mont Dragon” izenez zenbait mende lehenagotik ezaguna zen Arrasate izan zen hiribildu-karta jasotzen lehena, 1260an; Alfontso X Jakituna Gaztelako erregeak eman zuen, eta horren ondorioz, instituzionalki Leintz bailaratik banandu zen. 1353an, hiribildu sortu berriaren abantailez baliatu nahian, Garagartza, Udala, Ereñuzketa, Isasigain, Gesalibar, Uribarri eta Oleaga elizate edo auzoak, Ugaran bailara bezala ezagaturiko espazioa osatzen zutenak, batu zitzaizkion. Erdi Aroan bandoen arteko liskarrak eta Oñatiko kondeak Leintz bailararen gain zeukan agintearen aurkako borrokak izan ostean, Aro Berri guztian zehar errege jurisdikziopekoa izan zen. Bertako parrokiari dagokionez, lehen parrokia, hiribilduaren fundazioarekin biztanleria San Juan Bataiatzailea parrokia eraikiko zen kokapen berrira (eremu lauagora) jeitsi aurretikoa, ondoren ermita izatera iragango zen Santa Marina izan zela dirudi. Hala adierazi zen behintzat 1573an egin zen parrokiako informe batean. Gainera, tenplu honek urte askotan zehar mantendu zuen parrokia titulua hiribilduko parrokia berriarekin batera,

⁵¹⁸ DEAH-AHDSS 1263/001-01, 14r-15r, 31r-32r eta f.g.

1590ean ermita izatera iragan zen arte. San Juan Bataiatzailea bera, hiribilduaren fundazioko 1260 urtea eta parrokiatzat lehen datuak ezagutzen zaizkion 1318 urtea bitartean eraikia izan zen, eta aurrerantzean, Arrasateko parrokia nagusi izateaz gain, Leintzeko Artzapezpikutzako buru izango zen (Leintz bailara bezala aipatu duguneko herriez gain, Artzapezpikutza honek Eibar, Elgoibar, Soraluze eta Aramaio ere baitaratzen zituen) (Letona Arrieta; Leibar Guridi 1970, 29-38; Astigarraga Loiola 2000, 33-37).

Leintz Gatzagak 1331n jaso zuen bere hiribildu-karta Alfontso XI.aren eskutik; bere lehen berri historikoak kapitulu bereizi bat eskainiko diogun Dorletako Andre Mariaren santutegiari dagozkio, eta 988ko dokumentu batera garamatzate. Hau Oveco Ferruz eta Muño Ferruz zirelakoek euren buruak orduan monasterio zenari eskaini zizkioteneko dokumentua dugu, hau da, biak, monasterioari 9 gatzaga-sail bere putzuarekin eta etxe bat eta bertako siloa, fruta-arbolak eta ortua dohaintzan emanez, bertako zerbitzura sartu zirenekoa. Sinaduren artean Munio Arabako apezpikuarena, Martin eta "Placentius" abadeenak, hiru "frater"-enak eta "Stephanus" presbiteroarenak ageri zaizkigu; monasterio txiki bat zela dirudi, nahiz eta bere izaerari buruzko bestelakorik esatea zaila zaigun. Gizonezkoek bakarrik sinatu izanak ez du halabarrez emakumezkoen ez zegoenik esan nahi, eta kontrara, besterik gabe "familiarra" zenik ere ezin liteke ziurtatu. 1087ko beste dohaintza baten dokumentu bat ere bada, puntu honetan ezer argitzen ez diguna, besterik gabe monasterioaren lursail bat aipatu baino ez baitzen egin. 1331n Leintz Gatzagaren fundazioa egin zenean, Dorletako Andre Maria hiribildua osatzera iragan ziren biztanleak biltzen ziren hiru elizateetako bateko parrokia zen, Goierri elizateko Zurtitzako San Martinekin eta Inurrieta elizateko parrokia zen San Juan Bataiatzailearekin batera. Hirurak hiribildu berrian eraiki zen San Millan parrokiaren atxikiak izatera iragan ziren fundazioa egitean. Dorletako Andre Mariarenaz beste, Inurrietakoa ere, parrokia izateaz gain, monasterio bezala aipatu zen hiribilduaren fundazioa egiterakoan, eta 1383an ere halatsu aipatu zen, bertan Landaren (Araba) eta Leintz Gatzagaren arteko hitzarmen bat egin zenean. 1510ean, jada ermita bihurturik, hain egoera txarrean zegoen eze, konponketetarako zenbait lursail saldu beharra izan baitzuten. *Libro de visita del Licenciado Martín Gil*-eko apezpikutzako bisitatzailleak ez zuen XVI. mendearen lehen erdialdean aipatu, eta agian 1625ean Lope Martínez de Isastik "San Juan Portalatina" bezala aipatu zuena izan bazitekeen ere, ondorengo garaietan bere berriak desagertu ziren, eta baita bere kokapenaren inguruko arrasto guztiak ere (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 363-387; Martínez de Isasti 1985 -1625-, 222).

Leintz Gatzagan ere izanak ziren, edonola ere, Bergararen, Elgetaren eta Antzuolaren kasuetan ere ikusi dugun bezala, garai zaharretan monasterio izan ziren tenpluak, ondoren parrokia edo ermita izatera iragango zirenak. Hiribilduaren fundaziotik urte gutxira, 1374an, Beltran de Guevara Oñatiko kondeak –zor zizkion faboreak zirela eta– Enrike II. Gaztelako erregeari Leintz bailara eman ziezaion eskatu zion, eta Arrasatek erregeak bere herria emate hartatik salbuetsi zezan lortu bazuen ere, kondeak, erregearen aldetik Aretxabaleta, Eskoriatza eta "las salinas de Salinas de Leniz"-en jabegoa lortu zuen. Eta gainera, gatzagen ematea, bere interesen arabera, herriaren ematezkat ulerturik, kondeak Leintz Gatzagaren gaineko jabegoa hartu zuen. Herritarek ez zuten kondearen boterea onartu, eta mende bat baino luzaragoan zehar bere menetik at irtetzeko hainbat saiakera egin zituzten auzitegietan nahiz arma bidez, azkenean, 1493an Valladolideko Kantzeleriarren aldeko sententzia bidez

kondearengandiko independentzia berreskuratu zuten arte. Aro Berri guztian zehar mantendu zituen erregearen jurisdikzioa eta parrokiaren gaineko patroitzia⁵¹⁹.

Aretxabaleta eta Eskoriatza, Arrasate eta Leintz Gatzaga baino luzarago mantendu ziren Oñatiko kondearen menpean. 1556an, auzi bidez lortu zuten bere jurisdikziotik irtetzea, eta lorpenaren ondoren, XVII. mendean zehar tenpluen gaineko kondearen patroitzia ere ukatu nahi izan zuten, honi hamarrenak ordaintzeari utziz. Arrasate eta Leintz Gatzaga hiribildu lez bailaratik banatu zirenetik, Leintz bailarak, instituzionalki, Aretxabaleta eta Eskoriatzako espazioak adieraztera iragan zen. Jada XVI. mendearen hasieratik nukleorik populatuena ziren Aretxabaleta eta Eskoriatza erdigune zituztela, eta Oñatiko kondearekin izandako liskarrez aparte, elkarren artean ere bailarako nagusitasunagatik hainbat auzi eta liskar izan ostean, bi herriak 1630ean banandu ziren bertako biztanleen eskaeraz. Aretxabaletari Aozaratza, Arkarazo, Areantza, Bedoña (ondoren Arrasateren parte izatera iragango zena), Galartza, Goroeta, Izurieta eta Larrino elizateak egokitu zitzaizkion, eta Eskoriatzari berriz, Apozaga, Bolibar-Ugazua, Marin, Mazmela, Mendiola, Zarimutz eta Gellao (Letona Arrieta; Leibar Guridi 1975, 61-75). Aro Berriaren hasieratik errege patroitzapekoa zen Eskoriatzako Marin elizateko San Pedro parrokiaren salbuespenez, hiribildu eta elizate guzti hauetako parrokiak (eta zegozkien ermitak, noski) XVII eta XVIII. mendeetan zeharreko prozesu luze baten baitan Oñatiko kondearen patroitzapetik irtetzen joan ziren; 1844an, kondeak Aretxabaletako hiribilduko Andre Maria eta Bedarretako San Migel (parrokia batuak), Izurietako San Pedro eta Areantzako Andre Maria parrokien gaineko patroitzia baino ez zeukan⁵²⁰. Bedarretako San Migel, Andre Maria parrokiari atxiriko parrokia lez mantendu zena, Bergarako Santa Marina parrokiarekin eta Uzarragako San Juan Bataiatzailearekin gertatu bezala, garai zaharragoetan –Oñatiko kondearen menpeko– monasterio izandako parrokiatariko bat dugu, 1460a bezalako data berantiarrean ere, monasterio bezala aipatua izan baitzen (Ayerbe Iribar 1985, 572). Litekeena da, nahiz eta oinarri dokumentalik ez dagoen, gorago aipatu ditugun Leintz bailarako auzoetako eta elizateetako beste zenbait parrokiaren kasua ere antzerakoa izatea, nahiz eta XVI. mendearen lehen erdialdean beraien inguruko informazioa bildu zenerako, jada ez ziren monasterio bezala aipatuak izan. Ondorengo orrietan aipagai izango dugun Eskoriatzako hiribilduko San Pedro parrokiari dagokionez, Aro Berrian zehar parrokia izanik, izen berarekin XVIII. mendearen bigarren erdialdean eraiki zen parrokia berriak ordezkaturik ermita izatera pasa zen, azkenik, hilerriko kapera izatera iragateko (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 196-197).

Leintz Gatzagan aipatu ditugun garai zaharretako monasterioez gain, badira edo baziren Leintz bailaran beste zenbait tenplu ere, ermita bezala ezagutuko zirenak, ahozko tradizioen arabera oso garai zaharretatik helduak liratekeenak. Hauen artetik datu ziurrak eskaintzen dizkigun bakarra, ospitale eta legenardundegi izateaz gain zin egiteetarako tradiziozko ermita ere bazen Arrasateko Santa Maria Magdalena ermita zena, 1073an aipatu zen lehen aldiz. Bedoña elizateko Santa Kruz ermita bertako parrokia baino zaharragozat hartzen zuten, eta elizate bereko Ergiñako Andre Mariaren ermita, Andra Mari Zuri edo “Nuestra Señora de las Nieves” bezala ere ezagutua zena, tradizio oralek bertako parrokia baino, Aretxabaletako Leinzabaleko Andre Maria edo San Blas ermita baino eta are Antzuolako Uzarraga auzoko –1305ean monasterio lez aipatu zen eta Tenplarioena izandakotzat zeukaten– San Juan Bataiatzailea parrokia baino zaharragozat hartzen zuten. Tradizioaren arabera trikuharri baten gainean eraikia

⁵¹⁹ Bergareche 1952, 17-32; Letona Arrieta; Leibar Guridi 1975, 109-120; Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 269.

⁵²⁰ Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 375-387; Martínez de Isasti 1985 -1625-, 208-209; KKA-ACC 6/453/44, f.g. (1844).

izan zen eta azpian ehorzteak omen leudekeen Eskoriatzako Mazmelako San Bartolome ermita ere, hala izatekotan, garai zaharretatik letorke. Ez dezagun ahaztu, bestalde, nahiz eta monasterioak edo tenplu erlijiosoak ez izan, Eskoriatzako Bolibar elizateko Santa Kruz ermitako kokapen estrategikoan Erdi Aroan gaztelu bat izan zela, eta Arrasaten ere, ondoren Santa Barbara ermita –desagertua– eraikiko zen kokapenean ere, tradizioaren arabera Erdi Aroan zehar gaztelu bat izana zela; 1992an egindako indusketetan aurkituriko ormaren arrastoek berretsiko luketena (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 61-62, 68-69, 199, 202-203).

Funtsean, Leintz bailarako espazioak Aro Berrian zehar bi hiribildu nagusi izan zituen, Arrasate eta Leintz Gatzaga, XVII. mendearen lehen erdiaz geroztik, behin instituzionalki banandurik, Aretxabaletako eta Eskoriatzako hiribilduak batuko zitzaizkienak; azken hauek, hala ere, ez ziren gune populatu lez lehen biek izan zuten indarra izatera heldu. Erdigune nagusi horien inguruan elizate eta auzoetan bilduriko populazio esanguratsu bat zegoen, geografikoki eta demografikoki askoz era dispartsoagoan banatua. Horrez gain, Aro Berriaren hasieratik jada Oñatiko kondearen patroitzapetik irtenak zeuden Arrasateko, Leintz Gatzagako eta Marin elizateko parrokiez beste, lurraldearen gainontzeko parrokia gehienak kondearen patroitzapetik irtenaz joan ziren XVII eta XVIII. mendeetan zehar, Aretxabaletako hiribilduko eta elizateetako parrokia gutxi batzuen salbuespenez.

IV. 2.1. Parrokiak

IV. 2.1.1. Arrasateko San Juan parrokia

Bertako lehen kontu-liburuaren (1654-1714 tarte kronologikoa) lehen orrietan, jada seroren instituzioaren ohiko hautemapen historiografikoaren baitan arrarotzat hartzen den egoera batekin topo egiten dugu: parrokiako sakristauarekin ezkondua zegoen serora. Kasu honetan, badirudi funtsezko aldaketa 1677an eman zela. 1655an Antonia de Billanueva serora berriaren sarrera zela eta parrokiako ondasunak inbentariatu ziren, alkateak eta Arrasateko bikarioak bere administraziorako eman ziezazkioten⁵²¹. 1677an ostera ondasunak Magdalena de Ugalderen eskuetan utzi ziren, eta hau “muger lexitima de Pedro de Arroytaue, sachristan al presente de la dicha yglessia” zela zehaztu zuten; serora edo beataren izendapena “por esta dicha villa” eta “en el ayuntamiento general” egina zela ere aipatu zuten. Ondorengo urteetako kontuetan sakristaua eta serora batera aipatzen dira gehienetan; geroztiko bertako ohitura sakristaua eta beata senar-emazte izatea izan zen, 1760ko hamarkadan seroren inguruko aipamenak desagertu ziren arte. Serora aipatzeko erabiltzen zuten hitza “beata” zen, Eskoriatzan erabiltzen zutela ikusiko dugun “sacristana” beharrean, nahiz eta biak ere biak, esplizituki sakristauaren emazte bezala aipatu ohi ziren. Kargua, bestalde, beste leku batzuetan gertatzen zenaren kontra, ez dirudi bizitza guztirakoa zenik. 1677an egin zen ondasunen ematean behinik behin, Antonia de Bilanueva –senar gabe agertzen zaigun lehen eta azken– serorak Magdalena de Ugalde serora berriari bere eskuz eman zizkion, eta kargua utzi zuen (Antonia “Çerora que ha dejado, de ser de la dicha yglessia” bezala aipatu zuten)⁵²². Bere borondatezkoa ala behartua izan al zen kargu-uzte hau? Ez zaigu hau argitzeko besteko daturik heldu, baina geroztik ohitura aldatu zela aintzat harturik, izendapena egiten zuten udal agintarien erabakiaren ondorio izan zitekeen. Sakristau eta serora bikoteen karguak ere, bestalde, litekeena da bizitza osorakoak ez izatea; hemen ere ez zaigu datu erabakigarriak azaltzen, baina Eskoriatzan

⁵²¹ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 7v.

⁵²² *Ibid.*, 9r-11r.

bezala, kargu hauen mantenua edo aldaketa izendapena zegokien (Arrasaten udala, Eskoriatzan apezak eta benefiziodunak) esku zegoela dirudi.

Kontu-liburuetan jasoriko tarte kronologikoaren aurretik badugu 1609 inguruko liskar batzuen berri, hain prezeski ere, serora baten izendapen eskubidea medio sortu zirenak; zehazki, Santa Isabelen kaperako Gurutze Santuaren argiteriaz arduratzen zen seroraren izendapenari buruz dihardugu. Izan da aurretik auzi honi erreparatu dionik, eta aipuan jasoko dugu, azalpenak aski garbiak baitira:

Hacia fines del siglo XVI, cierta Mari Andrés de Mitarte se encargaba en la iglesia de San Juan de *cebar, atizar y limpiar* la lámpara del Santo Crucifijo de la capilla de Santa Isabel. En el nombramiento de estos auxiliares parece darse cierta confusión de jurisdicciones entre el ayuntamiento y el cabildo parroquial. En efecto, volviendo al ejemplo apuntado, Mari Andrés de Mitarte fue destituida por el alcalde de Mondragón, Pedro de Sustaeta, que nombró como sustituta a Francisca de Goiru. Ello originó las reclamaciones de la parroquia y, por ende del obispado. En 1609 el vicario del obispado ordenó al concejo, bajo pena de excomuni3n, que readmitiese a Mari Andrés de Mitarte, punto en el que se nos pierde el proceso (Astigarraga Loiola 2000, 46)

Kasu honetan kapera zehatz bateko serora bati buruz badihardugu ere, nabaria da Udalaren eta eliz-agintarien artean seroraren aukeraketa eskubideak tentsio handiak sortu zituela, eta bi botere esparruen gaiaren inguruko konpetentziak, artean garbi definitu gabe zeudela. Baina esan bezala, kontu-liburuak ekiten dion 1654 urterako jada Udalak bere esku zeukan izendapenak egiteko eskubidea, parrokiako serora nagusiari zegokionean, behinik behin.

Serorei esleitzen zitzairen soldata garai jakin batetik aurrera bihurtu zen eta aipatu zen esplizituki “soldata” lez. 1661eko kontuetan lehen aldiz –oraindik senar gabea zen– serorari “por su trabaxo y estipendio hordinario” eman zitzaizkion 10 errealak, aurreko urteetan garbiketak egiteko xaboiagatik ematen zitzaizkion 10 errealk berberak zirela esan liteke. Beste hainbat kontzeptugatik ere jasotzen zituen serorak beste diruren batzuk (argiteriarako argizaria eta olio, ornamentu jakinen garbiketak, etab.); garrantzitsuena eta ohizkoena, ortuaren alokairuaren ordainketarako ematen zitzaizkion 13 errealak⁵²³. Bigarren kontu-liburuan (1714-1787 tarte) 1720tik aurrera sakristau sekularren eta beataren soldatak bateratu zirela ikusten dugu; aurretik –sakristaua eta serora senar-emazte ez ziren garaitik– banaka agertzen ziren ordainketak biei esleituriko 78 errealk eta 8 marabeditan batu ziren. Eta horrela izan zen 1760. hamarkadatik aurrera jada soldataren aipamenetatik serorak desagertu ziren arte⁵²⁴.

Ikusi dugunaren arabera, izendapen eskubidea udalaren eskuetan zegoen, eta bikarioak ere bazuen parte-hartzeren bat, parrokiako ondasunen zaintzari zegokionean behintzat; esanguratsua da ondasunen ematean presente egon izana. Agintari zibilen eta elizakoen artean baziren baina gorabeheraren batzuk, parrokiaren patroitzaren auzitan jartzen zutenak: bigarren kontu-liburuan 1725eko Burgoseko auzitegi Metropolitarrako auto baten kopia batzen da; bertan, parrokiaren patroitzaren udalari egozten zaio, antza denez, eliz-botereek aurretik auzitan jarri zutena, eta bertako ondasunen zaintza esleitzen zaio, baina ez erabilera eskubidea; hau, parrokiako apezari zegokien. Arazoak, gainera, ez ziren patroitzaren kontuetara soilik mugatzen. Eliz-agintariak parrokiaren inguruko espazioetan alokairuan zegoen jendeak sortzen zuen zaratak arduratzen zituen; ziurrenik, parrokiako ondasunen gain udalak, patroia zela eta, hartu zuen eskumenaren

⁵²³ Hala, 1653-1654ko kontuetan (DEAH-AHDSS 4824/001-03, 13v), 1654-1655ekoetan (*Ibid.*, 21r), 1656koetan (*Ibid.*, 24v), 1656-1657koetan (*Ibid.*, 27v), etab., 1661erarteko gainontzekoetan.

⁵²⁴ DEAH-AHDSS 4824/002-01, 18r eta hurr.

beste alderdi bat dugu hau (parrokiako apezten arabera, gehiegizkoa), parrokiaren alboan zeuden eta eliz-kabildoarenak ziren zenbait etxe alokairuan emanak baitzeuden. Besteak beste, autoan honakoa aipatu zen:

Y mediante se halla justificado en estos autos que junta a la puerta principal de dicha Yglesia y pegante a la torre de ella hauitan y exercen el ofizio de texedoras ciertas mugeres y que junto al Zimenterio nuevo de ella tiene una casa el cauildo eclesiastico de dicha villa en que viue y exerze en ofizio vn errador y que el ruido que causa el vsso de los referidos ofizios es de graue ynconueniente y mui turbadillo de la deuozion de los fieles [...]⁵²⁵

Zarata zela eta, hilabete barruan ehuleek eta perragileak aipaturiko lantokiak utz zitzatela agindu zen.

1746an apezpikutzako bisitatzalea iragan zenean, honek emaniko aginduek udal agintarien aldetik eragin zuten erantzun edo kexuak ere Arrasateko tenpluen patroitzaren ingurukoak argitzen dizkigu:

Hauendose enterado [...] sobre el mandato correspondiente a las hermitas de ella mandando hazer libro y poner en el los efectos con que hallan y les perteneze formando quenta de ellos por los mayordomos y darlas en cada un año dize que todas las hermitas de que se abla / son edificadas como tamuien las casas contiguas a ellas para la hauitacion de los hermitaños por la villa en terreno propio suio con el fin de que dichos hermitaños cuidasen como lo an echo y azen del aseo y limpieza de ellas, sin que en propiedad aia tenido ni tengan porcion de tierra alguna sino algunas cortas que la villa de lo comun y concexil les a destinado a dichos hermitaños para aliuiio suio, y a costeadado la villa todas las obras y reparos de que an tenido nezesidad dichas hermitas con cantidades quantiosas que a contribuido de sus propios efectos, como consta de los libros antiguos y modernos de la villa: Y por lo consiguiente, no an tenido ni tienen dichas hermitas vienes muebles algunos pues aun las alaxas de ellas son costeadas por la villa como son [...]⁵²⁶

Printzipioz behintzat, eta Arrasateko udal agintarien hitzak aintzat hartuaz gero, Arrasateko parrokia nahiz ermita guztien patroitza udalaren esku zegoela berretsi beharko genuke; seroren izendapena ere, euren esku izango lukete, eta hau, azaldu dugunaren arabera, San Juan Bataiatzailea parrokian 1677az geroztik sakristauaren izendapenari ere lotua legoke. Senar-emazte sakristauak izan eta XVIII. mendean zehar hauen ordainketak soldata izatera iragan izana jarraian Eskoriatzan errepikaturik ikusiko dugun fenomeno da, antzerako tarte kronologikoetan gauzatu zena. Ermiten egoerarekiko, zehaztepenen bat egin beharrean gaude: 1746an bisitatzalearen aginduei erantzuten zitzaienean, ermitetan, serorak beharrean “hermitaños”-ak aipatzen baziren ere, ez dugu horregatik serorarik ez zegoenik ulertu behar; ikusiak baititugu, izan ere, ermitauekin ezkonduetako seroren kasuak, ondorengo orrietan ere agertuko zaizkigunak.

IV. 2.1.2. Aretxabaletako Andre Maria eta San Migel parrokia batuak

Aretxabaletara eta Eskoriatzara iragango gara hurrena, Aro Berria Oñatiko kondearen patroitzapean hasi eta bukaerarako aldiz bere patroitzapetik at zeuden hiribilduetako parrokiekin ekiteko. Aretxabaletako San Migel eta Andre Maria parrokia batuen kontu liburuetan (1601-1720 bitarterakoa lehena, eta 1721-1839rakoa bigarrena) ez da ia serorek aipamenik ageri, eta beste artxiboetako bilaketetan ere ez dugu bertako seroren izendapenik aurkitu ahal izan. XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte

⁵²⁵ *Ibid.*, 18r.

⁵²⁶ *Ibid.*, 196r-196v.

saiakera izan zenean, 1618an, Andre Maria parrokiako serora kanporatua izan zela dakigu, eta Izurieta elizatekoarekin batera epaitegi ezberdinetan erabiltzeko ahalorde bat helarazi zuela; eta badakigu, halaber, 1623an Ontiberos bisitatzaileran iragan zenean, bailarako beste zenbait lekutan ez bezala, ez zuela serorarik aurkitu. Ez dakigu ezkutatua izango zen ala orduz geroztik seroratzat bukatuko ote zen, Arrasaten edo Eskoriatzan bezala, sakristau bikoteen bidez ordezkatuak izateko. Bildu ahal izan ditugun datuen artean, sakristaua 1722an aipatzen zaigu lehen aldiz. Edozein kasutan, desagerrarazte saiakeraren ondoren bailaran, batez ere Aretxabaletan eta Eskoriatzan izan zen egoerak ulergarri ere egiten du kontu liburuko aipameneren eskasia⁵²⁷. Areago, liburuari 1602ko Kalagorriko Konstituzio Sinodalen testuinguruan ekin zitzaiola pentsaturik. Alabaina, bada liburuotan seroren presentziari buruz aurkitu dugun aipamen bat: 1733an Maria Lopez de Echabe seroraren arimaren aldeko mezen memoria-liburu baten aipamena egiten zaigu, “de que es patrona Doña Paula Antonia de Antia y poseedor el dicho Don Martin de Jausoro”⁵²⁸. Mezen memoria-liburu bat izan zezaten, Maria Lopez de Echabe serorak –geroago ikusiko dugunez, beste hainbatek ere egin zuten lez– dezenteko diruak utzi behar izanak zituzkeen bere arimaren alde eman beharreko mezendako.

Seroratzen izaerari buruz, 1618ko auzian Leintz bailarako (kasu honetan Aretxabaleta eta Eskoriatza) seroren aukeraketarako ordurarteko ohitura orokorrak azaldu ziren: aukeraketa "las dichas yglesias y parroquianos dellas"-ek egiten zituzten, apezek eta eliztarrek beraien bizimodu onaren inguruko berri jaso ostean, eta portaera txarragatik kanporatzea ere aurreikusten zuten "grabamenes y condiciones"-ekin; elizateetako parrokiei erreparatzean ikusiko dugunez, baldintza horien artean, testatzeko gaitasuna ukatzearena -hau da, bere heriotzean ondasun guztiak parrokiari ematera konprometatzearena- ere egon zitekeen. 1618an, behinik behin, hiribilduetako parrokiako serorek eta elizateetakoek bat egin zuten auzirako ahalduen izendatzerakoan, eta ohitura berberak defendatzeko asmotan ageri zitzaizkigun; litekeena da beraz, ondoren elizateetako parrokiako seroratzetan ikusiko ditugun baldintza eta ezaugarriak, hiribilduetakoek ere aplikagarri izatea, XVII. mende hasieratako desagerrarazte aginduen aurretiko garaietarako, behinik behin.

IV. 2.1.3. Eskoriatzako San Pedro parrokia

Gorde izan den bertako kontu-liburu bakarra 1703-1799 tarte kronologikoari baino ez badagokio ere, oso informazio esanguratsua dakargu. Jada liburuaren hasierako orrietatik, zehazki, 1706an ondasunen inbentarioa egin zen momentutik, senar-emazte sakristauak ageri zaizkigu parrokiaren zaintzan. Inbentarioa ondasunak beraien eskuetan uzteko egin zen, eta zenbait ondasunetan bestelako seroren –noizbaiteko– presentziaren berri ere ematen zaigu: “[...] el qual dicho castañal mando Marina de Vrigoen beatta para dicha yglesia para que su fruto gozasse el sachristan que vive en dicha cassa [...]”⁵²⁹. Agian Marina de Urigoen bera izan zitekeen azken ezkongabeko serora, dohaintzaren onuradun lez jada sakristaua aipatzeak iradokitzen digunaren arabera. Edo agian, eta nahiz eta hau hain probablea iruditzen ez zaigun, aurretiko sakristauren baten alarguna ere izan zitekeen, alargundu ostean seroratzat gelditu zena. Jakin badakigu, edozein kasutan, XVI. mendearen bukaera aldean oraindik bakarkako serorek egiten zutela parrokiako zerbitzua: 1594an bertako serora Maria Lopez de Espillak testamentua helarazi zuen, eta zegokion dotea ere eman zuen ohizko bakarkako serora bat zela

⁵²⁷ Ikus honekiko III. 2.2. azpiatalean, 221-223 or. eta 252-260 or.

⁵²⁸ DEAH-AHDSS 4143/002-03, 34r. Lehen liburuaren erreferentzia berriz: DEAH-AHDSS 4143/001-01.

⁵²⁹ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 1v.

ikusten dugu⁵³⁰. Eta 1618an Aretxabaleta eta Eskoriatzako hainbat serora tenpluetatik kanporatuak izan zirenean ere, Eskoriatzako hiribilduko San Pedro parrokiako bi serora izan ziren auzirako ahaldunak izendatu zituztenen artean; hau da, XVII. mende hasieratako desagerrarazte aginduaren aurretik, bertako seroratzek Aretxabaletako hiribilduko Andre Maria parrokiarako -eta elizateetako parrokiatarako- aipatu ditugun baldintza eta ezaugarri berberak zeuzkatela dirudi, nahiz eta Eskoriatzan, parrokiako serorak bi ziren⁵³¹. Honen arabera, Aretxabaletako eta Eskoriatzako hiribilduetako eta elizateetako parrokiatako seroratzek, XVI. mendetik XVII.enaren hasieratarara behintzat, elkarren arteko alde handiegirik ez zeukatela dirudi.

Edozein kasutan, XVIII. mendearen hasieratarako aldatua zen ohitura, eta Arrasaten sakristauen senar-emazteak “sachristan” eta “beata” bezala aipatzen baziren, Eskoriatzako San Pedron berriz “sachristan” eta “sachristana” ziren ematen zitzaizkien izenak.

Eskoriatzako kasuek, senar-emazte sakristauen kasuez gain, beste zerbait ere ematen digute aditzera: garrantzitsuena ez zen sakristauak senar-emazte izatea, gizonezko bat eta emakumezko bat izatea baizik; alegia, parrokiako lan batzuk edo besteak egiteko, gizonezko baten eta emakumezko baten beharra zegoen. Izan ere, Eskoriatzan elkarren artean beste erlazio batzuk zituzten sakristauekin ere egiten baitugu topo: 1752an sakristauen aldaketa medio berriro inbentarioa egin zen, eta Joseph de Vrtaza eta bere alaba Ana Maria de Vrtaza ageri ziren sakristauen bikotetzat ondasunen kontu ematen, 1722tik sakristana izana zen Conzesion de Ysasmendi Josephen emaztea jada hila zegoela eta⁵³²; 1792an Dionisio de Belategui izendatu zuten sakristau, baina ondasunen jasotzea sinatu zezan baino lehenago hiltzea gertatu zen, eta hala, ondasunok bere emaztearen eta bere semearen eskutara igaro ziren (“á Juana de Arenaza viuda de dicho Belategui y á Josef Andres de Belategui hijo de los suso dichos”)⁵³³.

Aipatu berri ditugun bi data hauen bitartean (bereziki 1764-1766 eta ondorengo urteetan) “arau” honekiko zenbait gorabehera ere izan ziren, eta Joaquin de Junguitu Arechaga kapilaua (“clerigo de menores ordenes como ttal capellan actual de dicha capellania sacristia”) sakristau lanak egiten –edo agian, karguaren etekinak bereganatzen– ere ibili zela dirudi. Izan ere, 1752an sakristau lanetan Juan de Zubia eta bere emazte Antonia de Elorza sartu zirenean, eta 1764an Ramon de Azcarate sartu zenean, hauek Joaquin de Junguituren ordezkioak (“substituto”) zirela zehazten zen, hau da, azken honi zegozkion lanak egitera sartzeko zirela⁵³⁴. Gainera, tarte kronologiko honetan (zehazki 1764-1792 bitartean) “sachristana” nahiz emazteen aipamenak desagertu ziren⁵³⁵; hau hein batean 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren aurretiko eta ondorengo urteetako tentsioegatik azaldu ahal izango litzateke, aurreko urteetan Debagoienean hainbat mugimendu eta informazio diligentzia izan zirela baitakigu

⁵³⁰ GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v.

⁵³¹ Ikus III. 2.2. azpiatalean, 221-223 or.

⁵³² DEAH-AHDSS 2253/001-03, 218r-223v.

⁵³³ *Ibid.*, 412v-416r.

⁵³⁴ Hurrenez hurren, *Ibid.*, 226v-227r eta 295v-302v.

⁵³⁵ 1764an kargura Ramon de Azcarate sartu zenean ez zen ez emazterik, ez bere ezkondu edo ez-ezkondu egoerarik aipatzen (Joaquin de Junguituren “substituto” zela besterik ez) (*Ibid.*, 295v-302v); 1765-1766ko kontuetan Ramon de Azcarate aurreko sakristauekin batera Jose Angel de Zaldua –ondorengo sakristaua– ere agertzen zaigu kontuen berri ematen (*Ibid.*, 321v); eta 1766an sakristau kargua eta parrokiako ondasunak Ramon de Azcaraterengandik Jose Angel de Zalduarengana igaro ziren, halaber, inongo emazterik edo “sachristana”-rik aipatu gabe (*Ibid.*, 310r-317r).

(adib., 1763an gaiaren inguruan Elgetako biztanleei egin zitzaizen galdeketa⁵³⁶), eta baita ondorengo urteetan aginduaren betekizunerako neurri zorrotzak hartu zirela ere (adib., 1782an, 1769ko desagerrarazte aginduaren betekizuna bermatzeko Kalagorriko apezpikutzatik Oñatiko bikariotzara helarazi ziren aginduak)⁵³⁷. Sakristauen bikotearen presentzia "ezkutatzeko" edo babesteko modua izan zitekeen. Gainera, San Pedro parrokia zaharra izen bereko berriak ordezkatu zuen prozesuari ekin zitzaioneko –eta zaharra ermita izatera iragan zeneko– bitartea ere badugu 1761-1765 urteen ondorengoena, eta horrek ere izango zuen agian nolabaiteko eraginik (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 197). Itxuraz jada desagerrarazte aginduaren urak baretuta 1792an Juana de Arenaza eta bere seme Josef Andres de Belategui kargura sartu aurretixean ere, ondasunen ematea sinatu baino lehen hilko zen Dionisio de Belategui Juanaren senar eta Josef Andresen aitari parrokiako ondasunak Jose de Arrese aurreko sakristau eta apezak eman zizkionean, honek sakristau lanen uztea benefiziadunaren kargu hobea lortua zuelako egin zuen (“presuitero sachristan que ha sido y oy beneficiado de esta yglesia”)⁵³⁸. Gorabeherak gorabehera, izendapenetan garrantzizkoena gizonezko sakristaua zela esan liteke, honen heriotzak sakristau bikote berri baten izendapena baitzekarren, sakristana hil izanaz gero gertatzen ez zena: ikusi dugu nola 1752an Josef de Vrtaza aita eta Ana Maria de Vrtaza bere alaba sakristau izendatu zituzten, aurretik sakristana izana zen Conzesion de Ysasmendi Ana Mariaren ama jada hila zegoela eta; bada 1752an bertan Josef de Vrtaza ere hiltzea gertatu zenean, sakristauen izendapen berria egin zuten, Ana Mariaren egoera honela azalduaz: “se hallaua sola sin que pudiese cumplir el cargo que tubo dicho su padre”⁵³⁹.

Izendapenak egiteko eskubidea, XVIII. mendean zehar behintzat parrokiako apezaren eta benefiziadunaren eskutan zegoen (Arrasaten ez bezala)⁵⁴⁰. Bestalde, eta jada ikusi ahal izan dugun bezala, karguak ez zeukan zertan bizitza guztirakoa izan beharrik. 1722an Pedro Antonio de Gasteasorok kargua bere borondatez utzi zuen (“les habia despedido diziendo que no podia ni queria estar por tal sachristan”); ez dakigu erabaki honek Mari Gabon de Vribe bere emazte sakristanarekin zerikusirik izango ote zuen, honen inguruko azken berria 1709koa izanik, Pedro Antoniok bere betekizunak ezin burutu ahal izateko agian hila izango ote zen edo otutzen baitzaigu... baina ezin jakin. Ez zukeen gainera nahitaez zertan horrela izan beharrik izango, izendapen berriak ez baitziren beti aurreko sakristauak hil izanagatik egiten, eta hauen eskutatik jasotzen baitziren ondorenean sakristau berrien zaintzapean izango ziren ondasunak⁵⁴¹. Izendapenaren maiztasuna eta zergatiak apez eta benefiziadunaren erabakiaren arabekoak zirela dirudi, eta kargurako hautagaiei eskatzen zitzaizkien ezaugarriak buruzko azalpen handiegirik ez zuten eman ohi, “por parecerles concurren en el las circunstancias que se requieren para tal seruidor sachristan”, eta tankerako aipamenez beste⁵⁴².

Doteren ingurukorik ez zaigu kontu-liburuak berri ematen digun XVIII. mendean zehar ageri, eta litekeena da sakristau bikoteak karguetarako sarreran ezer ordaindu ez izana, hau “ofizio” eran hautematen zela baitirudi. Baina aipagai izan dugun

⁵³⁶ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

⁵³⁷ KKA-ACC 6/562/85, f.g.

⁵³⁸ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 415v-416r.

⁵³⁹ *Ibid.*, 218r-227r.

⁵⁴⁰ Hala ageri zaigu, adibidez, 1722ko eta 1752ko izendapenak egin zirenean (hurrenez hurren *Ibid.*, 103r-105v eta 226v-227r).

⁵⁴¹ 1752an Ana Maria de Vrtaza aurreko sakristanak eman zizkien ondasunak Juan de Zubia eta Antonia de Elorza sakristau berriei (*Ibid.*, 226v-227r), eta 1764an azken hauek izan ziren ondasunok Ramon de Azcarate sakristau berriaren eskutan utzi zituztenak (*Ibid.*, 295v-302v).

⁵⁴² *Ibid.*, 226v-227r.

1594ko Maria Lopez de Espilla seroraren testamentuak, parrokian sakristauen bikoteak izan aurretik, XVI. mende bukaera hartan serora honek ordaindu beharra zeukan kopuruaren berri ematen digu; bere heriotzean oraindik dotearen kontuak kitatu gabe zeuzkan, eta promes egin zuen kopuru osoa 20.000 marabeditakoa –ggb. 588 errealekoa edo 53 dukat eta $\frac{1}{2}$ ingurukoa– zela zioen. Dote honen ematearen promesa izkribau aurrean egina izan zen, eta kopurua, “lo que Juan Lopez de Espilla mi hermano se obligo de darne por mi legitima”-ri zegokion⁵⁴³.

Finkaturiko soldaten berririk ere ez zaigu kontu-liburuan ageri; kontzeptu jakinegatik egiten ziren ordainketak (garbiketak, joskintza lanak, etab.) eta sakristauak bizi izateko etxeaz eta bere ondasunez gozatzeko hauek zuten eskubidea baino ez zaizkigu aipatzen.

IV. 2.1.4. *Leintz Gatzagako San Millan parrokia*

Aro Berri guztian zehar errege patroitzapean mantendu zirenen artean, Leintz Gatzagako San Millan parrokiari buruz ezin genezake gehiegirik esan. Bertatik gordetzen den liburu bakarra oso berantiarra izateaz bestalde (1755-1796), kontuetan sakristauak baino ez dira ageri, baita garbiketa kontuen ordainketei zegokienean ere⁵⁴⁴. Ez dakigu kasu honetan ere sakristauen emazteek serora lanak egingo ote zituzten, baina beste hainbat kasutan hala izanagatik jakin badakigu, hauek kontuetan ez agertzeak ez duela parrokian batere serorarik ez egotea esan nahi. Besterik gabe, hauen presentzia kontuetan isladatzen ez zela baizik. 1618an Leintz bailaran serorak desagerrarazteko egin zen lehen saiakeraren inguruko auziaren baitako dilijentzietan, bestalde, “las sororas freilas que rresedian y serbian en la yglesia parrochial de la dicha villa y en la de Nuestra Señora del Castillo” aipatu ziren⁵⁴⁵; bestelako informazioarik ez badaukagu ere, XVII. mendearen lehen hamarkada haietan behintzat San Millan parrokian –sakristauen emazte ez ziren– serorak bazeudela dakigu. 1663an Dorletako Andre Mariaren santutegian izan ziren liskar batzuen dilijentzietan, halaber, San Millan parrokiako serora zen Mariana de Pagaldaireren testigantza ere jaso zen⁵⁴⁶; orduan ere bazegoen parrokiako serora ezkongaberik. Osterantzean, Leintz bailarako beste hiribilduetako parrokiatako serorak eredutzat harturik, San Millan parrokiako seroren ezaugarri orokorren irudi bat eratu baino ezingo genuke egin. Izango dugu baina Leintz Gatzagari buruz jarduteko aukerarik aurrerago, Dorletako Andre Mariaren santutegiko beaten komunitateari buruzkoak azaltzerakoan.

IV. 2.1.5. *Leintz bailarako auzoetako eta elizateetako parrokiak*

Arrasaten eta batez ere Aretxabaletan eta Eskoriatzan, ugariagoak ziren auzoetako eta elizateetako parrokiak Bergaran, Antzuolan eta Elgetan, eta Oñatin baino: Arrasaten 4, Aretxabaletan 7, eta Eskoriatzan 9 zeuden (Leintz Gatzagan, ostera, jada parrokia ez zen Dorletako santutegiaz beste, ez zegoen batere). Seroren inguruko berriak, gehiago edo gutxiago, hauetariko 8tan aurkitu ahal izan ditugu. Hein batean parrokiatako kontu-liburuen kronologiak mugatzen ditu berri hauek, ikusi dugunez, espazio honen baitan, XVII. mende erdi-bukaera aldetik XVIII. mendera bitartean, seroren lanak sakristauak jasoaz joan izan zireneko ordezkapen prozesu bat eman

⁵⁴³ GPAH-AHPG 1/0862, 16v-17v.

⁵⁴⁴ DEAH-AHDSS 2569/000-00.

⁵⁴⁵ VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Walls. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g.

⁵⁴⁶ LGUA 324.7, 3r-4r.

baitzen. Seroretxeei buruzko berrien bilakaeran ageri zaigu hau nabarien, seroretxeetariko asko garai horretan sakristauen edo apezten etxe izatera iragan baitziren. Hala ere, eskuratu ahal izan ditugun –eta XVII. mende hasieran kokatzen diren– hiru izendapenek eta kontu-liburuen artean XVI-XVII mendeetako kronologia baitaratzen dutenek oso datu baliagarriak dakarzkigute, Debagoieneko auzoetako eta elizateetako parrokiatako seroren bizimoduen berri izateko.

Izendapen eskubidearen inguruan jaso ahal izan dugun informazioa urria da, baina esanguratsua. Izan ere, testuinguru hauetan aukeraketa batez ere –edo askotan behintzat– auzotarren esku egon ohi zela baitirudi, batzuetan, parrokia bertako beste kargudunen batzuekin bat. Hala egin ziren izendapenak Arrasaten kokaturiko hiru kasutan: 1600. urtean Udala auzoko San Esteban parrokian⁵⁴⁷, 1603an Uribarri auzoko Andre Mariaren parrokian⁵⁴⁸, eta 1606an Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioan⁵⁴⁹. Uribarriko Andre Marian, auzotarrez gain, parrokiako fabrikako maiordomoa ere presente zegoen, eta Gesalibarreko Santa Agedan berriz, maiordomoaz gain parrokiako apeza ere bai. Auzotarrak izan ziren, halaber, 1615ean Aretxabaletan, Izurieta auzoko San Pedro parrokiarako serora izendatu zutenak⁵⁵⁰, eta baita 1630ean Eskoriatzan, Mazmelako Andre Mariaren Zeruratzearen parrokiarako serora izendatu zutenak ere⁵⁵¹. Ohitura halakoa zela ziurtatu zuten, halaber, 1618an, Leintz bailarako kontzejuek eta serorek, apezpikutzako bisitatzailak bailarako serorak beraien tenpluetatik kanporatu zituenean izan zen auzian; apezpikutzaren aldetiko lizentziarik sekula eskatu beharrik ez omen zuten izan, eta seroren kargurako sarrerak “nombrandolas las dichas yglessias y parroquianos de ellas” egiten omen ziren⁵⁵².

1714an oster, aipatu berri dugun Udalako San Esteban parrokiatik apezpikutzako bisitatzaila pasa zen; bertako serorak bere zereginei batere kasurik egiten ez ziela eta, hau kargutik kanporatzea agindu zuen, eta beste baten aukeraketa apezaren eta maiordomoaren esku utzi zuen:

la beata que asiste en la dicha anteyglessia no cuida de las cosas tocantes â ella y que se le an entregado por cuia causa, y descuido total que tiene, y no ser conveniente asista tal mujer, mandaba, y mando se espeliese de dicha ante yglessia tomandole primero quenta de todas las alajas, y haberes que estubieren en su poder, recibriendolas el cura, y maiordomo, quienes proberan de sujeto mas apto, ê idoneo que mire mas bien por dicha fabrica⁵⁵³

Aldatu egin ote zen ohitura, auzotarrak izendapenetik kanporatuak izateko? Ala bisitatzailak ez zeukan ohituraren berri, eta besterik gabe egoki zeritzonaren arabera eman zuen agindua? Zentzudunagoa deritzot azken aukera honi; azken finean, bisitatzailak ez zeukaten zertan lekuan lekuko ohituren berri izan beharrik (izendapenatarako arazoak izan ohi zirenean zegokion bikarioagana zuzendu ohi ziren informazio eske), eta horrelako egoera baten aurrean, edo konstituzio sinodalen oinarriaren gain eman ohi zituzten aginduak, eta halakorik egin ezin zezaketenean (seroren kasuan nabaria zena, 1621eko konstituzioez geroztik “legez kanpokoak” baitziren), kasu honetan dirudien bezala, zegokien botere esparruari atxikirik, arazoa egoki zeritzen erara konpontzen saiatzen ziren, beharrezkoa izatekotan, aholkularietara

⁵⁴⁷ GPAH-AHPG 1/2357, 136v.

⁵⁴⁸ GPAH-AHPG 1/2358, 218r.

⁵⁴⁹ GPAH-AHPG 1/2359, 143r-144r.

⁵⁵⁰ “Uezinos de la bezindad de Ysurieta” izan ziren aukeraketa egin zutenak (GPAH-AHPG 1/0866, 12r).

⁵⁵¹ GPAH-AHPG 1/0869, 35r-35v.

⁵⁵² VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Walls. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g.

⁵⁵³ DEAH-AHDSS 3110/002-01, 105r.

joz. Baina ez dirudi apezak eta maiordomoak inongo izendapenik egin zutenik, ondorengo urteetako kontuetan ez baitzaigu jada serorarik ageri, eta 1726-1727 bitartekoetan, –Leintz bailaran ohizkoa izan zen ordezkapen prozesuari jarraituz– jada sakristaua ageri baitzaigu, aurretik seroraren probetxurako ziren lurak alokairuan hartzen⁵⁵⁴.

Serorak karguan onartzeko irizpideek lekuan lekuko barianteak eta irregulartasunak izan ohi zituzten, baina printzipioz, “honesta, linpia y recoxida” izatearen formula tipikoez beste, ez dirudi hiribilduetako parroketan besteko zurrunak zirenik. Baina zenbait kasutan, hauek kargura sartzerakoan egiten zuten hitzarmenaren funtsek orain arte ikusi ez dugun seroratza eredu bat agertzen digute, oso eskakizun zurrun bat zeukana: testatzeko gaitasuna ukatzen zuen hitzarmenari buruz dihardugu. Hitzarmen moeta honen adibideak, batez ere, Arrasateko auzoetako parroketan aurkitu ahal izan dugu, eta dauzkagun adibideei heldurik, XVII. mende hasieratan behintzat horrela zela esan genezake. Halakoa zen kasua Udala auzoko San Esteban parrokitan 1600. urtean Gracia de Yraola aukeratu zutenean. Baldintza lez, itxuraz, herritarra izatea baino ez zitzaion eskatu. Izendapenean behinik behin, Gracia bera eta berarekin zegoen bere ama, biak “vezinas de la dicha uilla” zirela baino ez zen aipatu. Graciaren adinik ere ez zen aipatzen, baina hitzarmenaren bermerako Maria Perez de Estrada bere ama presente egoteak eta hitzarmena, funtsean, amarekin eginga izateak, seroragaiak gaztetxoak izan behar zuela pentsatzera garamatza. Horrez gain, Maria Perez de Estrada, besterik gabe, “muger libre” bezala aipatu zen; ez dirudi seroragaiaren ahaideen kaparetasuna edo familia edo leinu jakin eta itzaltsu batekiko lotura baldintza garrantzitsutzat hartzen zenik (bestela, alargun izaera aipatu edo zehazteaz, eta beste ahaideen aipamenak egiteaz arduratuko ziratekeen)⁵⁵⁵. 1606an Arrasateko Gesabilar auzoko Santa Ageda parrokia eta ospizioan Catalina de Arriola eta Marina de Echauarria izendatzerakoan, hauek “donçellas en cabello” zirela zehaztu zuten, azalpen zabalagorik gabe⁵⁵⁶. Uribarriko Andre Maria parrokitan berriz, 1603an, Marina de Jausoro “parroquiiana de la dicha yglesia” zela baino ez zuten aipatu; baina Udalan ez bezala, apezpikutzako probisore eta bikario orokorraren aldetik ordurako jada jasoa zuten onarpena ere aipatzen zen, izendapenerako beharrezko elementu lez⁵⁵⁷. 1615ean Aretxabaletan, Izurieta auzoko San Pedro parrokitan Marina de Ysurieta aukeratu zutenean berriz, hau “moradora en Ysurieta” zela baino ez zen zehazten; alegia, ez zen bertako herritarra, nahiz eta bertan bizi zen (bestela “parroquiiana” edo “vecina” hitzak erabiliko zituzketen). Baina oso pertsona komenigarritzat baitzuten, “y attenta su calidad y muchas partes y birtudes y a que es Perssona de dias y por otros muchos rrespectos”, Izurieta auzoko auzotar edo eliztarrek kargurako bera aukeratu nahi izan zuten⁵⁵⁸. Funtsean, adin helduaren eta auzotar edo herritarra izatearen inguruan ez dirudi arau zurrunegirik jarraitzen zenik, nahiz eta agian, baloratzeko ezaugarri lez hobesten ziren; auzotarren oneritzia zen benetan balio zuena, bestelako baldintzen aurrean. 1618ko auzian, noski, auzotarrek seroragaiaren egokitasunaren inguruan egindako frogantzak behar bestekoak eta egokiak zirela zioten, besteak beste, –ordurarte–apezpikutzaren aldetiko lizentziaren beharrik ez izana defendatzen baitzebiltzan: “an echo y hazen eleccion de personas muy onrradas con aueriguaziones que hazen de sus buenas vidas y costumbres”⁵⁵⁹.

⁵⁵⁴ DEAH-AHDSS 3110/002-01, f.g., baina 241v.

⁵⁵⁵ GPAH-AHPG 1/2357, 137r.

⁵⁵⁶ GPAH-AHPG 1/2359, 143r-144r.

⁵⁵⁷ GPAH-AHPG 1/2358, 218r.

⁵⁵⁸ GPAH-AHPG 1/0866, 12r.

Testatzeko gaitasuna ukatzen zuten hitzarmenei dagokienean, esan bezala, batez ere Arrasaten aurkitu ditugu tankera honetako kasuak. Hiribilduko San Juan parrokiari buruz jardutean ere ikusi dugu nola Arrasateko ermita guztien ondasunak eta hauen gaineko eskubideak 1746an udalak kudeatzen zituen⁵⁶⁰. Auzoetako parrokiei zegokienean ere bertako ohitura bereziak mantentzen ziren, nahiz eta XVII. mendearen hasieratan bertako seroren izendapena, ikusi dugunez, udalaren eskutan ez, baina apezen eta auzotarrenetan zegoen. Orain arte aipagai izan ditugun Udalako (1600), Uribarriko (1603) eta Gesalibarreko (1606) kasuetan behintzat, antzerako baldintzak zituzten sarrera hitzamenak ageri zaizkigu. Bertan serorei beraien bizitza guztian zehar parrokiako ondasun eta lursailetak gozatzeko eskubidea ematen zitzaaien, beraien heriotzerako orduan pilatu ahal izan zituzten ondasun eta diru guztiak parrokiarako izan zitezaren truke. Izendapenetan euren burua ondasunon salmentarik, lagapenik nahiz dohaintzarik egiteko ezgaitzen zuten; hiru kasuetan eman ziren azalpenak arras garbiak dira:

con que despues de sus dias asi los dichos bienes como todo lo que tubiere ella aya de dexar y dexe para la dicha yglesia sin que en su fin pueda disponer de cosa ninguna ni mandarlo a nadie sino a la dicha yglesia⁵⁶¹

y con que de ningunos bienes que tubiere a la ora de su muerte no pueda disponer por bia de testamento ni en otra manera saluo que todo lo que tubiere aya de ser y sea para la dicha yglesia⁵⁶²

todo lo que tubieren despues de sus dias sin que puedan disponer de cosa ninguna por testamento ni codeçillo ni [de una?] donaçion ni de otra manera alguna de todos sus bienes que tengan ni tubieren en su fin saluo que todos los bienes eazienda que tubieren en su fin sea para la dicha yglesia⁵⁶³

Arrasateko parrokia huez gain, badaukagu hitzarmen moeta honen ermitetako kasurik ere. Ikusia dugu bat, Angiozar auzoko (orduan Elgeta) San Kristobal ermitan (baina serora beraren dotea emateko gaitasun ezak baldintzatua izan zitekeen), eta bestea Oñatin kokatzen zaigu, dotearekiko antzerako egoeran; ikusiko dugu aurrerago. Kuriosoki, bi kasuak Leintz bailaratik kanpokoak ditugu. Arrasateko auzoetako parrokien kasuan, hitzarmeneko baldintza zurrin hau seroraren bizimoduaren eta sostengurako etekinen inguruko beste berme eta baldintza batzuekin konpentsatzen zen. Udalako San Estebanen, heriotz orduan serorak izango zituen ondasunen administrazioa fabrikako maiordomoari esleitzearekin bat, honek, serora hiltzerako orduan bere arimaren aldeko heriotz-erritu duinak egiteko konpromezua ere hartzen zuen, honek betekizun horretarako behar besteko ondasunak utzi, edo ez: “sean obligados a azer su honrras y cumplimiento de su anima cumplidamente conforme se usa en ella [...] y en casso de que ella no tubiese con que [...] le aya de azer [...] como si ella dexase con que”⁵⁶⁴. Gainera, zahartzaroko ajeak eta gaixotasunak ere aurreikusten ziren:

Y por el conseqüente si por casso por enfermedad o por otro qualquier casso la dicha Graçia uiniese en neçesidad la fabrica de la dicha yglesia la aya de sustentar y la sustentare como se suele y se acostumbra en la dicha anteyglesia - yten con condiçion que en todos los dias de la vida de la dicha Graçia que asi rreçiuen por fleyra de la dicha yglesia no puedan admitir a otra saluo que aya de ser ella sola sin compania si no fuere

⁵⁵⁹ VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Walls. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g.

⁵⁶⁰ Goraxeago, 325 eta hurr. or.

⁵⁶¹ GPAH-AHPG 1/2357, 137r.

⁵⁶² GPAH-AHPG 1/2358, 218r.

⁵⁶³ GPAH-AHPG 1/2359, 143r.

⁵⁶⁴ GPAH-AHPG 1/2357, 137r.

con uoluntad y consentimiento de la dicha Graçia y no la puedan echar a ella de la dicha yglesia ni quitarla ninguno de sus bienes por toda su uida⁵⁶⁵

Hitzarmen moeta honek, halaber, eta aipu honetan garbi ikusten dugun lez, seroratzatza bizitza guztirako izatea eskatzen zuen. Uribarrin berriz, serorak karguari zegokion portaera egokia eta “garbia” ez izanaz gero hartuko ziren neurriak ere aipatu ziren:

ny sera escluida de ella y de su seruiçio por sus dias por ninguna causa si no fuere por graue cosa como es de no ser linpia de su persona y se le aueriguase ser desonesta que en tal caso auiedo yncurrido en semejante pecado del sexto mandamiento y aueriguandosele pueda ser espedido [*sic*] por ello y no por otra causa sino fuese tan graue que no se pudiese tolerar y en el dicho casso bayan perdiendo los doze ducados que ofreçe de dar para la dicha fabrica⁵⁶⁶

Ohizkoa zen baldintza hau ere, gerta zitezkeen egoera “desegokiak” ere aurreikusten zituen. Arrasaten bertan, Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioan 1606ko Catalina de Arriola eta Marina de Echauarriaren izendapenean⁵⁶⁷ eta Aretxabaletan, Izurietako San Pedro parrokian 1615eko Marina de Ysurieta izendapenean ere beste hainbeste aipatu zuten⁵⁶⁸, eta 1618an, Leintz bailarako serorak apezpikutzako bisitatzailleak kanporatu zituen izan zen auzian, izendapena egiten zuten auzotarrek seroren “garbitasuna” mantentzeko baldintzak ere jarri ohi zituztela ziurtatu zuten:

con grabamenes y condiciones y entre otras que si alguna de ellas esçediesse de los limites de su onestidad por el mismo casso fueren escluydas y echadas y perdiessen sus dotes que llebaban y quedasen para las dichas yglesias y sus fabricas⁵⁶⁹

Baina hala ere, arau hauen indar loteslea ez da zurrunezi ulertzea komeni. Izan ere, izan baitugu baldintza hauek errespetatu izan ez ziren kasuen berririk. Udalako San Esteban parrokian ustez ezin zuten serorek testamenturik egin, baina 1610ean bertan serora zen Catalina de Uruburuk ez zuen antza araua hain zurrunki ulertzen, testamentua helarazi baitzuen. Bertan, sarrera hitzarmenetan ezartzen zenaren arabera parrokia bera oinordeko egin bazuen ere (eskuratu ditugun artean, tenpluak oinordeko egin zituzten seroren testamentu bakarrenetarikoa dugu), zenbait zorren kitatze eta dohaintzaren batzuek egiteko askatasuna hartu zuen⁵⁷⁰.

Ustezko betiereko loturekiko hau baino adierazgarria dugun beste kasu baten berri, 1633an Mazmelako auzotarren eta Maria Perez de Enecotegui bertako parrokiako serora izana zenaren arteko hitzarmenak ematen digu. Maria Perez parrokiako seroratzara 1630ean heldu zen, izendapenez beharrean, bertako auzotarrek helarazi zioten alokairu kontratu baten bidez (ikusiko ditugu alokairu hauek aurrerago). Aurretik ere bertako serora lanetan ibilia zen, eta urte hartan alokairu kontratua luzatu egin zuten, jada bizitza guztirakoa bailitzan hitzartuz (“mientras ella bibiese”). Orain arteko izendapenetan ikusi ditugun testatzeko gaitasuna ukatzen zuten hitzarmenen “bertsio arin” batekin sartu zen kargura, alokairuaren bertsioan: bertako parrokiako ondasunen eta lursailen administrazioa eta etekinen gozamina esleitu zitzaizkion, urteroko 3 dukat ordaintzearen, eta bere heriotzerako orduan, bere ondasun guztiak ez, baina parrokiako

⁵⁶⁵ *Ibid.*, 137r-137v.

⁵⁶⁶ GPAH-AHPG 1/2358, 218r-218v.

⁵⁶⁷ GPAH-AHPG 1/2359, 143r-144r.

⁵⁶⁸ GPAH-AHPG 1/0866, 12v.

⁵⁶⁹ VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Walls. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g.

⁵⁷⁰ GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr. (f.g.).

fabrikarako 100 dukat (zentsutan edo ondasunetan) ematearen truke. Baina ez zuen antza bere hitza bete, eta bizimodu hobea eta etekin gustagarriagoak eskaintzen zituen Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegiko seroren komunitatean sartzea lortu, eta Mazmelako parrokiako seroratzaz bere hortan utzi zuen, kargurik bete gabe eta lursailak landu gabe, dena hankaz gora. Eta noski, auzotarrak ez ziren geldirik egon:

y todo este dano y perjuicio hauia sido Causa la malicia y dolo por auer ella desanparado la dicha Yglesia y Cassa y bienes e ydo por beata a la yglesia de Nuestra Señora de las Duerlas y en ella hauer echo escriptura de entrada de beata y donado a la dicha Yglesia de las Duerlas todos sus bienes en perjuicio de la escriptura que antes hauia echo quebrantandola y pedio que se mandase embargar y secrestar los çensos y rresçibos de la dicha beata Maria Perez para que no los bendiese ni enagenase y estubiesen de manifiesto hasta que la dicha Maria Perez diese fianças de seguridad de pagar los dichos çien ducados a la dicha yglesia de Mazmela despues de sus dias y tambien pressento el dicho mayordomo la escriptura que la dicha Maria Perez otorgo en favor de la dicha Yglesia de Nuestra Señora de las Duerlas su fecha a veynte y dos de Jullio de mill y seisçientos y treinta y vn años por la qual parece dono Cantidad de sus bienes a la dicha yglesia de las Duerlas de todo lo qual [???] dar traslado a la dicha Maria Perez de Henecotegui y se man[do] embargar y secrestar y se embargaron s[us] çensos y rresçibos della y se pusieron en [de]posito⁵⁷¹

Maria Perez alkatearen aurrean agertu zen, eta alokairu kontratuak bere ondasunetaz baliatzeko gaitasunik ukatzen ez ziola defendatuz, eta noizbait bere eginbeharrak bete ez bazituen gaixo egon izanagatik izan zela esanaz, bere ondasunak berreskuratzea lortu zuen. Auzia luze zioala eta, eta “por l[as] dudas del derecho de anbas partes”, azkenean akordio batera heldu ziren 1633ko martxoaren 6an: Maria Perezek parrokiako seroratzaz utzi zezakeen, baina Bartolome de Romarate maiordomoari 36 dukat ematearen truke (30 eskura eta 6 zentsutan). Horrela ba, Maria Perez Dorletako santutegian gelditu zen, eta Mazmelako auzotarrek beste norbaiti eman ziezaioketen seroretxearen eta parrokiako ondasunen alokairua⁵⁷². Kasu honetan, Maria Perezek ez zuen kargu eta bizimodu hobe baten aurrean aukeratzeko zalantzarik izan, nahiz eta ustez, jada bizitza guztirako akordio bat egin zuen, eta bere ondasunak nolabait, edo partzialki behintzat konprometatuak zituen. Baina ez zen horregatik kokildu, edo beste norabiderik jarraitzeko aukera gabe sentitu. Serorak nahiago izan zuen Dorletako Amaren santutegiko seroratzetara ez zen oraindik testatzeko gaitasuna ukatzen zuten hitzarmenen pean sartzeko ohitura hedatu (XVII. mendearen bigarren erdialdean gertatuko zen hau); baina aipuaren arabera Maria Perezek, Leintz bailarako zenbait tenplutako ohiturari jarraiki, Dorletan ere hala egin zuenez (“donado [...] todos sus bienes”), litekeena da azken tenplu honetan tankera honetako hitzarmenak egitearen lehen aurrekaria bere kasuak ezarri zuena izatea⁵⁷³.

Agertu zaizkigu jada doteen inguruko zenbait berri. Dotea eman izan zen tokietan eta garaietan (ikus berri dugun bezala, izendapenez beharrean alokairu bidez ere esleitzen baitziren seroratzak), auzoetako eta elizateetako parrokiek oso egoera ezberdinak agertzen dizkigute. Informazio osatuagoa daukagu honi buruz, Leintz bailarako kontu-liburu batzuetan dotearen kopuruak sarrera lez jasotzeko ohitura izan baitzuten. Dauzkagun datuen arabera, kopururik ohizkoenak 30 dukaten ingurukoak izan ohi zirela dirudi. 30 dukat eman zituzten Arrasaten, Udalako San Estebanen 1600-1607 bitartean⁵⁷⁴, eta baita Aretxabaletan, Goroetako Santiago Apostoluan 1608-1613

⁵⁷¹ GPAH-AHPG 1/0869, 36r-36v.

⁵⁷² *Ibid.*, 36v-37r.

⁵⁷³ Ikus IV. 4.2. azpiatalean, 374-375 or.

bitartean⁵⁷⁵ eta Izurietako San Pedron 1615ean ere⁵⁷⁶. Baina ez zen kopuru bakarra: Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokian, 1615ean testamentua helarazi zuen Maria Lopez de Celayak 22 dukateko dotearen promesa egina zeukan⁵⁷⁷, eta 12 dukat ordaindu izan zituzten Arrasaten, Udalako San Estebanen 1533az geroztik, 1600ean 30 dukatetara igo zen arte⁵⁷⁸, eta herri bereko Uribarriko Andre Marian 1603an ere, 12 dukateko dotea eman zen⁵⁷⁹. Arrasaten bertan, 30 dukatekoak baino dote garestiagoak ere ageri zaizkigu: Garagartzako San Mikel Goiaingeruan 1632an emandako bisitatzaillearen agindu batean 41 dukat aipatu ziren⁵⁸⁰, eta 1606an Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioan kargura sartu ziren bi serorek bakoitzak 50 dukat eta ohe bana eman zituzten⁵⁸¹. XVI-XVII mendeen ingurumarian beraz, gutxi gora beherako kopuru hauen bueltan mugitzen ziren Arrasateko eta Leintz-bailarako auzo eta elizateetako seroren sarrerarako doteak.

Dotearen ematea, bestalde, batzuetan beste tankera bateko negozio eta tratuen parte ere izan ohi zen. Aretxabaletan, Izurietako San Pedron 1615ean Marina de Ysurieta seroratzat onartu zutenean, auzotarrek izendapena berarengan egiteko arrazoi zehatz batzuk aipatu zituzten: bere aitarekiko jada bazeuzkaten zorrak. Hara nola izendapenean egoera azaldurik ageri zaigun:

treinta ducados de a once rreales el ducado que en docte con ella para beata de la dicha yglessia nos aueis dado y pagado bos el dicho Pero Lopez de Ysurieta hermano de la dicha Marina de Ysurieta los quales dichos treinta ducados confessamos auerlos rreciuido de bos el dicho Pero Lopez de Ysurieta doscientos y mas rreales de ellos que nos distes y pagastes y nos prestastes por nos haçer buena obra y a nuestro rruogo e yntercession distes a la dicha yglesia de Ysurieta para alçar el texado de ella que se alço para carpinteros y para cal y canteros y para otros materiales de la obra de ella de los quales dichos ducientos y cinco rreales os hicimos juntamente con el mayordomo de la dicha yglesia obligacion de bos los pagar dentro de tres años como hauer de la dicha obligacion que passo ante [...] que nos rreferimos y lo rresto asta los dichos treinta ducados nos aueys dado assimismo a nuestro rruogo para las obras de la dicha yglessia y porque de pressente no parece la paga de los dichos treinta ducados rrenunciamos la ley y execucion de la nomerata y [...]⁵⁸²

Pero Lopez de Ysurieta ren alde auzotarrek helarazi zuten 205 errealeko betekizuna ezin ordaindu zutenez, trukean bere alaba onartu zuten serora kargurako, eta Pero Lopezek zor zioten kopurutik dotearen 30 dukatetararte zegoen aldea soilik ordaindu zuen.

Elizateetako serora hauek jaso izan zitzaizkien soldatei dagokienean, kasu bakarra aurkitu ahal izan dugu Eskoriatzan, Zarimutz elizateko San Pedro parrokian. Bertan, 1641 eta 1663 bitartean serorari urtero 44 erreale ordaindu zitzaizkion, garbiketaren eta elizako zerbitzuaren izenean. Ordainketak bi urtean behin egiten

⁵⁷⁴ GPAH-AHPG 1/2357, 137r eta DEAH-AHDSS 3110/001-01, 110v-117r. Udalako San Estebanen doteen kopurua ez zen finko mantendu izan; aipaturiko kopuruez beste, 1556an 16 dukat ordaindu zituzten (*Ibid.*, 48r), eta 1607an 18 (*Ibid.*, 117v). Haez beste, 1610ean testamentua helarazi zuenean Catalina de Urubururi bere dotetik 68 erreale ordaintzeko falta zitzaizkiola dakigu (GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr.).

⁵⁷⁵ DEAH-AHDSS 2335/002-01, 16r-21r.

⁵⁷⁶ GPAH-AHPG 1/0866, 12r.

⁵⁷⁷ *Ibid.*, 4r.

⁵⁷⁸ DEAH-AHDSS 3110/001-01, 22r-48r.

⁵⁷⁹ GPAH-AHPG 1/2358, 218r-218v.

⁵⁸⁰ DEAH-AHDSS 2295/000-00, 17v-18r.

⁵⁸¹ GPAH-AHPG 1/2359, 143r-144r.

⁵⁸² GPAH-AHPG 1/0866, 12r-12v.

zitzaizkion, 88 errealeko partidetan. Kopurua handia da, orain arte ikusi ahal izan ditugun soldaten aldean. Gainera, Leintz bailaran XVII. mendearen erdialdean serorak baztertu eta parrokiatik kanporatzeko presioak handiak izan baitziren, ordainketa egiten zitzaion emakumea ez zen serora lez aipatu izan, “la persona que barre y linpia la yglessia y toca las canpanas” bezalako deskribapenekin baizik⁵⁸³.

IV. 2.2. Ermitak

Leintz-bailarako ermitetako serorei buruz daukagun informazioa, hasieratik garbi esan beharra dago, oso urria da. Hau arrazoi ezberdinegatik da. Lehenik eta behin, bertako auzo eta elizateetako parrokiatiko banaketak ermitetako liburuen beharrik ez egotea eragin zuen, edo hala dirudi behintzat. Bergara, Antzuola, Elgeta eta Oñatiren kasuetan auzoetako parrokiak askoz urriagoak ziren (eta dira), eta hortaz, espazio handiak gelditzen ziren hutsik, bertako gorabeheren gertuko berri egokirik jasotzeko instrumentu gabe. Alegia, kontu-liburuak beharrezkoak ziren ermitetan. Leintz-bailarako parrokia txiki eta ugariak ostera, bakoitzak ermita bat edo bi baino ez zituzten atxikiak izaten, eta hauetako gorabeheren eta gastuen berri urriak, parrokiari zegokion liburuan idatzi ohi ziren, ermitetarako liburu espezifikorik izan gabe. Hori izan liteke bertako ermitetako kontu-liburu bakarra kontserbatu izanaren arrazoia (Aretxabaletako San Juan Bataiatzailea ermitakoa, zoritxarrez, atal honetako zioetarako informazio askorik ez dakarkiguna). Horrez gain, GPAH-AHPGn egin ditugun bilaketetan aurkitu ditugun ermitetako seroren izendapenen artean, bat baino ez dagokio Leintz-bailarako ermita bati. Zeharkako informazio egokia eskaini zezaketen testamentuen artean ere, gutxi batzuk baino ezin izan ditugu aurkitu, bertako ermitetako seroren testamentuen adierazgarri; eta gainera, atal honi dagokionerako, ezer gutxi azaltzen digute. Ez dakigu garbi dokumentuen urritasun hau zerk motibatzen duen. Izendapenen kasuan, agian dokumentu bat sortzeko beharra parrokiatiko seroren izendapenen kasuan baino ez zen hautemango, eta ermitetako izendapen gehienak ahozko hitzarmenezkoak baino ez ziren izango. Edo bestela, eta nahiz eta posibilitate honek erabat asetzen ez nauen, XVII. mendearen lehen erdialdetik (1622-1625 ingurutik) egiaztatu ahal izan dugun ermitak alokatzearen ohitura ikerketari dagokion Aro Berri guztian zehar nagusi izan zitekeen, eta hortaz, izendapenak urriak izango ziratekeen. Edo besterik gabe, hutsune dokumentalen loterian galtzaile irtenak izan gintezke, eta bertako ermitetako seroren izendapenak, Bergara, Antzuola eta Elgetak osatzen duten espaziorako edo Oñatirako aurkitu ahal izan ditugun tankerakoak izan ziren, nahiz eta aurkitu ahal izan ez ditugun. Aukera guzti hauen artean ezer ziurtatzerik zaila izanik, esku artean daukaguna azaltzera mugatuko gara, datu urriak ahalik eta egokien antolatu eta kokatzen saiatuz.

Arrasateri dagokionean, San Juan Bataiatzailea parrokiari buruz jarduterakoan aipatu dugu jada 1746an udal agintariak ermitetako libururik ez egotea nola justifikatzen zuten, hauetako ondasun guztiak Udalak emanak eta sostengatuak izanik, kontuen eta ondasunen berri Udala beraren kontu-liburuetan (“los libros antiguos y modernos de la villa”) jasotzen zela esanaz. Bertako ermitetako seroren eta ermitauren izendapen eskubidea, hau hala izanik, Udalaren eskutan zegokeen. San Andres ermitan 1601ean Catalina de Zuazu serora lanetan sartu zenean egin zitzaion ondasunen emateak 1746an udal agintariak ziurtatu zutena XVI-XVII mende-bitarte hartan ere betetzen zela frogatzen digu, garbi adierazi baizuten:

Pedro de Vgalde y Juan de Arangutia vezinos de la dicha Villa de mondragon y mayordomos que fueron de la cofradia de señor San Andres, conforme, a lo acordado y

⁵⁸³ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 88r-119v.

mandado por El conçejo Justicia y regimiento, de la dicha Villa, ayer Veinte y seis deste dicho mes de febrero por presencia de Santuru de Gauria Escriuano del ayuntamiento de ella dieron y Entregaron a Catalina de Zuaçu sorora Beata desta dicha hermita que por el dicho conçejo Esta nombrada que esta pressente Los Vienes, perteneçientes, a esta dicha hermita asi los raices, como los Vienes; muebles, calices ornamentos, bestimentas, y Las demas cossas e bienes desta dicha hermita para que los tenga y los administre como tal sorora beata como esta acordado y mandado, por la dicha Villa conçejo Justicia y regimiento⁵⁸⁴

Aretxabaletan berriz, jada bertarako daukagun lehen datuak XVII. mende hasieratako desagerrarazte aginduak dakarzkigute burura; 1622rako, Leinzabaleko Andre Maria ermitan Joan de Mitarte sartua zen ermitautzat, eta urte hartan, kontuetan bere seniparteen 30 dukatak dotetzat ordaindu zituela ageri zaigu⁵⁸⁵. Aozaratzako San Anton edo San Antonio ermitarako 1644an Inesa de Zelaiarengan egin zen izendapenak ere baditu presiozko testuinguruaren zantzuak ere, baina ermitauren sarrera ermita guztietara bapatean hedatu ez zela ere badiosku. Eta Leintz bailarako auzo eta elizateetako parroketan ikusi ahal izan dugun –eta dauzkagun datuen arabera, ohitura nagusia zela dirudien– ohitura baten berri ematen digu: auzotarren batzarrean eginiko izendapena. Kasu honetan, eta agian parrokiek zegozkien ermiten gain mantentzen zuten kontrolaren adierazgarri, Aozaratzako parrokiako apezta eta maiordomoa eta elizateko maiordomoa ere presente zeuden, eta izendapenean aktiboki partehartu zuten:

se juntaron a son de Canpana como lo tienen de costunbre Juan Abbad de Landa Cura y beneficiado de la dicha anteyglessia Don Sancho de Ottalora mayordomo de la dicha anteyglessia Martin Fernandez de Carrança mayordomo fabriquero de la yglessia Parroquial de señor San Juan Baptista de la dicha anteyglessia Pedro Lopez de Bergara Fauste [...] [*elizateko auzotarrak*] [...] y dixerón los dichos Cura y Vezinos que teniendo atención a poner persona que [...] se hauian conformado con Ynessa de Celaya⁵⁸⁶

Sarrerarako baldintzei dagokienean, Inesa de Zelaia “moradora en la dicha anteyglessia persona de toda satisfacion por su buena bida rrecoximiento y onestidad” genuen, eta apezpikutzaren aldetiko onarpenaren beharra ere presente zuten, izendapena bera apezpikuari egin zitzaion onarpen eskaera ere baitzen:

siempre que se encargasse de lo susodicho y entrase por beata en la dicha hermita siendo assi la boluntad de su senoria del señor obispo de este dicho obispado y para que siendo su señoria seruido de que lo sea [...] y los dichos bezinos y beata suplican a su señoria sea seruido de concederle y confirmar esta escriptura⁵⁸⁷

1644 urtea zen, eta jada izanak ziren bailaran 1618ko auzia eragin zuten seroren kanporatzeak eta liskarrak, eta baita 1621eko konstituzio sinodalen ondoren, 1623ko apezpikutzaren aldetiko bisitetan izan ziren kanporatzeak ere. Parrokietan, hasia zen serorak sakristauren bidezko ordezkapen prozesua, eta ermitetan ere hasiak ziren, serorak izendatu beharrean, ermitauak (bakarkakoak edo bikoteak) alokairuan hartzen. Aurreko urteetako gertakizunak oraindik gogoan zituztela, izendapenaren onarpenaren inguruko eta ondoren aipatu ziren konstituzioetako arauen betekizunaren inguruko ardurak (“cuydando de su aseo y limpieza y alumbraria segun y de la forma y con las condiciones que disponen las Constituciones de este obispado”) nabariak ditugu izendapen honetan. Kargua bizitza guztirakoa zela ere aipatu zen (“durante su bida [...] serbir la dicha hermita por toda su bida”); ez dakigu ziur hau ere testuinguruko

⁵⁸⁴ Euskaltzaindiaren Artxiboa. Juan Carlos Guerra Kolekzioa. Kolekzio Dokumentala. 4346 zenb., 47. dok. / Kopia mikrofilmata IRARGIn, 1-C-7 sig.

⁵⁸⁵ DEAH-AHDSS 4143/001-01, 51v.

⁵⁸⁶ GPAH-AHPG 1/0876, 124r-124v.

⁵⁸⁷ *Loc.cit.*

tentsioaren ondorio izango ote zen, edo zimentaturiko ohituratzat hartu beharra dugun. Azkenik, Inesak dezenteko dotea eman zuela ere aipatu beharrean gaude: 40 dukat. Martin Fernandez Aozaratzako San Juan Bataiatzailea parrokiako fabrikako maiordomoari eman beharrak zizkion diruok, “la mitad luego que conseguida la licencia del dicho señor obispo [...] y la otra mitad dentro de un año de la entrega de la dicha licencia para que sean para la dicha hermita”⁵⁸⁸. Arauen betekizun zurrunean, noski, apezpikuaren lizentzia ere lortu beharra zegoen.

Dotearen inguruan badauzkagu konparaziorako datu gutxi batzuk, Joan de Mitarte ermitauaren 30 dukatez eta Inesa de Zelaia seroraren 40 dukatez gain; kuriosoki, San Anton ermitan bertan zerbitzuan Inesaren aurrekari izana zen Marina de Zuazu Biscarri buruzko berriak ditugu (ohar bedi bidenabar, honek ere, bere ondorengoak lez, “Zuaçu” abizena daramala). Marina de Zuazu Biscar eta parrokiako serora Inesa de Sardaneta 1623an –Debagoienez hainbat liskar eragin zituen– Ontiberos bisitatzailerak zegozkien tenpluetatik kanporatu zituen (eta hilabete batzuetara parrokiarako sakristaua izendatu zuten), eta handik zenbait urtetara, 1630ean, Martin de Jauregui Bisitatzailerak Orokorrak Marinak ermitara dotean eraman zituen zilarrezko 28 dukatak honi itzultzea agindu zuen. 1632an oster, serora berriro bere seroretxean ageri zaigu; ez zitzaizkion zilarrezko 28 dukatak itzuli, baina trukean bere bizi apurrean seroretxean bizitzen gelditu zedin onartu zitzaion. Handik bi urtetara, jada serora zaharra hilik, hurrengo serora seroretxeagatik urteroko 14 erreal ordaindu beharrekin sartu zen⁵⁸⁹. Adibidea adierazgarria zaigu, ermitetako seroren ermitau bikoteen bidezko ordezkapena eta kargua izendapen bidezkoa izatetik seroretzeko errenta ordaintzekaren truke esleitua izaterako aldaera Leintz-bailaran ohizkoa izan zen prozesua baitugu, jada azaldu dugunez.

Leintz-bailarako ermiten berri emateko jaso ahal izan ditugun datu gutxi hauek laburbilduz: Arrasaten Udalak ermiten gaineko patroitz, izendapen eskubidea eta administrazioaren gaineko kontrola mantentzen zituen artean, Aretxabaletan (eta ziurrenez, baita Eskoriatzan ere) elizate bakoitzeko botere esparruei zegokien ermitetako serora eta ermitauen izendapena, eta litekeena da parrokiatarako ikusi ahal izan ditugun lekuan lekuko ohituren arabera egitea, auzotarren partehartzea arau nagusia izanik. Sarrerarako baldintzei buruz berri handiegirik ez badugu ere, jasotako adibideak bat egiten du parrokiatarako seroren egoerarekin; alegia, auzo edo elizatekoa, bertakoa izateaz beste, ez dirudi baldintza gehiegirik eskatzen zitzaienik. Adibide bakar berberak bizitza osorako seroratza baten kasua agertzen digu, baina ez dakigu, halaber, izendapena egin zen testuingurua zela eta, hau ze puntutaraino orokortu ahal izango litzatekeen. Era berean, ez dakigu elizateetako parrokiatarako ikusi ahal izan dugun testatzeko gaitasuna ukatzen zuten hitzarmenen kasuen presentzia ermitetan nolakoa izango zen; parrokiatan zeukan presentziari erreparaturik, litekeena da ermitaren batzuetan tankerako ohitura jarraitzea, nahiz eta gure adibide urrien artean Leintz bailarako batere jaso ahal izan ez dugun. Doteen aldetik jaso ditugun adibideen kopuru altuak deigarriak iruditzen zaizkigu, parrokiatan ordaintzen ziren pareko kopuruak baitira, eta, areago, zenbait parrokiatan dote baxuagoak ordaintzen zirela ere ikusi baitugu.

⁵⁸⁸ *Loc.cit.*

⁵⁸⁹ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 30r-58v.

IV. 3. OÑATI

Oñatiko espazioaren baitako jurisdikzioak eta bertako parrokien gaineko patroitzak ez zituen Aro Berrian zehar aldaketa handiegiak izan, biak Oñatiko kondearen eskutan izan baitziren. Oñatiko hiribilduko San Migel parrokia, Debagoieneko beste hainbat bezala, ezagutzen zaion 1190eko lehen dokumentuan monasterio bezala aipatua izan zen, eta ondorengo mende luzeetan ere, parrokia izatearekin bat, monasterio edo “yglesia colegial” izena izaten jarraitu zuen, eta bertako buruak “abad” titulua izaten jarraitu zuen Aro Berri guztian zehar. Hiribilduko monasterio-parrokia nagusiari atxikiak ziren Araotzeko San Migel eta Urrexolako Andre Maria auzoetako parrokiak ere, monasteriotzat aipatuak izan ziren Erdi Aroan zehar Oñatiko kondearen testuingurutik helarazi ziren dokumentuetan.

Oñatiko “jaunak” (konde titulua ez ziren XV. menderate erabiltzen hasi) hiribilduko San Migel monasterio eta parrokiaren gain zeukan patroitza XIV. mendearen bukaera aldera (1388-1395) auzitan jarri zuten Oñatiko herritarrek; hauek monasterioa bere kabuzkoa zela eta herria berriz “abadengoa”, hau da, monasterioaren lurretan sortua zela defenditzen zuten artean, Oñatiko jaunak tenplua Euskal Herrian hain ohizkoak ziren monasterio familiarretariko bat zela, eta bere jabegoko lurretan sortua eta berez partikularra izanik, bere jabegokoa zela defendatzen zuen. Saiakera hau ez zen urte haietan kasualitatez izan; Kalagorriko, Burgoseko eta Iruñako apezpikutzek Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako jauntxoek elizen gaineko eskubideen aurka egin zuten garaia dugu, 1390ean Guadalajarako Gorteetan azken hauen aurkako kexua aurkeztu zutenekoa, jauntxok elizetako hamarren guztiak eskuratzeaz gain, elizak "monesterio" izenez eta bertako apezak "abad" izenez deitzen zituztela salatuz (gogoan izan dezagun hemen, datu hauen berri ematean aipagai izan dugun Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko monakotza zahararren formen Euskal Herriko kontinuitateari buruzko hipotesia ere)⁵⁹⁰. Guadalajarako Gorteen epaiak jauntxoek alde egin zuen bezalaxe, Oñatin ere azkenean Oñatiko jaunak lortu -edo hobe esan, berretsi- zuen San Migel "monesterio"-aren patroitza; XIV. mendearen bukaera alde hartaz geroztik 1837an jauntxoek erregimena ezabatu zen arte, hiribilduko San Migel eta berari atxikiriko Araotzeko San Migel eta Urrexolako Andre Maria monasterio eta parrokiak Oñatiko kondeen patroitzapekoak izan ziren (Ayerbe Iribar 1985, 517-528; 1999).

Badugu garai zaharretatik helduak lirakeen zenbait ermitaren berri ere, nahiz eta, beste espazioetan bildu ahal izan ditugun kasuetan ez bezala, hauei ez zitzaion monasterio izaerarik esplizituki aipatu. Litekeena da Santa Marina ermita 1149an jada existitzea, izena lehen aldiz toponimotzat urte hartan jaso izan baitzen; Aguirre Sorondoren eta Lizarralde Elberdinen arabera, halaber, litekeena da Oñatiko parrokia zaharra izana izatea, San Migel monasterioak parrokia funtzioak betetzeari ekin aurretik. Urte berean jaso da San Pelaio ermitaren berri ere (“Sancto Pelagio”). Araotzeko Andre Mariaren Jasokundearen ermitari buruzko ahozko tradizioaren arabera, hau auzoko lehen parrokia izana omen litzateke, garai zaharretan bizilagunak alboko lurretan ehortziak izango lirakeelarik (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 298, 300, 318).

Aro Berri guztian zehar Oñatiko kondearen menpekoak izan ziren Oñatiko lur zabaletan hiribilduak eta Araotzeko eta Urrexolako erdiguneek osatzen zituzten gunerik populatuena, landa eremuan zeharreko biztanleriaren bilgune ziren ermita ugaridun lurralde zabal bat inguruan zeukatela. Jurisdikzio eta patroitza aldetik desberdintasun

⁵⁹⁰ Ikus honi buruzkoak II. kapituluan, bereziki 131 eta hurr. or. eta 158 eta hurr. or.

handiak izanik ere, geografia eta demografia aldetik Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osaturiko espazioarekin antzekotasun gehiago zeuzkan, Leintz bailararekin baino.

IV. 3.1. Parrokiak

IV. 3.1.1. *San Migel parrokia*

Jarraian ikusiko dugun Oñatiko San Migel parrokia, patroitzaren ezberdintasunak zirenak zirela, trazu orokorretan Leintz bailarako parrokiekin bat lerratu beharko genukeela dirudi. Izan ere, bertako seroraren karguak, nahiz eta hau ez zen ezkondua izan ohi, doterik eskatzen ez zuen eta soldata bati loturiko ofizio huts baten tankera handiagoa zuela esango baigenuke. Gainera, 1761erarte kondearen eskutan mantendu zen izendapen eskubidea, eta posesio ematea Oñatiko bikarioak egiten bazuen ere, bestelako botere espazioen (ordenak, apezpikutzak) eragina oso mugatua zela dirudi; orain artean aipatu izan ditugun baldintzak izendapenetan aipatu ere ez egitea nahiko esanguratsua zaigu. Goazen pausuz pausu.

San Migel parrokiako seroren izendapena, esan bezala, 1761ean kondearen eskutatik Oñatiko udalarenetara igaro zen, hitzarmen baten bidez. Hitzarmen honek Oñatiko udalaren eta kondearen artean –lehenik Valladolideko Kantzeleriaren aurrean eta gero Erregearen Kontseiluaren aurrean– 1540az geroztik patroitzaren eta parrokiako zerbitzarien hamarrenen inguruan zabalik zegoen auzi bati bukaera eman zion, eta abadearen eta benefiziadunen soldatak eta etekinak finkatzeaz gain, sakristauen eta seroren inguruko erabakiak ere hartu ziren⁵⁹¹. Berez, parrokiako gainontzeko zerbitzarien izendapen eskubideek kondearen eskutan izaten jarraitu zuten, baina bertako seroraren eta sakristauaren izendapen eskubideak osteratuta, udal agintarien eskutara iragan ziren, 9. kapituluan zehaztu zutenaren arabera:

Y ultimamente se asienta y Capitula que el nombramiento y presentacion de la Capellania Sachristia de dicha Yglesia Colegial, y Beata Serora de ella, sin embargo de que hasta aora ha sido de los Excelentisimos Señores Condes, ha de ser para desde oi en adelante pribatibo del Cuerpo de Aiuntamiento de esta Uilla, que se compene [*sic*] de Alcalde dos Rejidores, dos Diputados, y Prouisor Sindico general, quienes deberan hacer su nombramiento y presentacion en las uacantes que se ofrecieren segun, y como hasta aora lo han echo dichos Excelentisimos Señores Condes, teniendo por Regla asentada que en el caso de igualdad de uotos en los constituyentes, se ha de considerar y tener por decisibo el uoto del Alcalde, como tambien el que el nombramiento y presentacion de dichos empleos, se ha de hacer en hijos naturales, y patrimoniales de esta dicha Uilla, en consecuencia de lo que queda explicado en lo tocante á Curatos y Beneficios⁵⁹²

Aurretik egin ohi ziren izendapenen adibidetzat 1734an Ana Catalina de Ynzarengan egindakoa dugu, eta bertan kondearen eskumena argia eta nabaria da, izendapena aurretiko serora oraindik bizirik zegoela egin baitzen, hau hil zedinerako (“para quando llegue el caso de fallezer la que actualmente sirue la nombro y presento por serora de dicha mi Yglesia”⁵⁹³). Itxuraz, ez zegoen beste hautagairik tartekatzeko modurik; izendapena kondeak jada egin zuen, eta beste inork ez zeukan zer esanik. Izendapena egin eta bost urtera (1739an) eman zitzaion bere karguaren posesioa, esan

⁵⁹¹ GPAH-AHPG 1/3368, 383r-397r.

⁵⁹² *Ibid.*, 393r-393v.

⁵⁹³ KKA-ACC 22/742/12, f.g.

bezala aurreko serora hiltzean, elizako apez eta benefiziodunen aurrean eta Oñatiko bikarioaren eskutik⁵⁹⁴.

Kasu honetan, Ana Catalinak bete beharreko baldintza bakarra, edo aipatzen zen bakarra behinik behin, kondeari egoki iruditzearena zen: “hallarme informado de que Ana Cathalina de Ynza es persona Capaz y suficiente para seruir dicho Empleo”. Berez, 1761eko hitzarmenaren ondoren ere ez dirudi udal agintarien aldetik seroragaiei kondeak eskatzen zizkienak baino baldintza gehiago eskatzen zitzaizkienik; honek eginiko izendapenarekiko aldaketa bakarrak, hautagaia bertako herritar izatearen beharra eta hainbat hautagairen presentzia ditugu. 1768an kargurako Maria Gabriela de Sarraoa aukeratu zutenean, herritar izateaz beste, udal agintarien onespena baino ez zuen behar izan:

[...] y haviendo solicitado uarias pretendientes la obtencion de dicho Empleo, se á hacordado por dichos Señores el hazer nombramiento en Maria Gabriela de Sarraoa natural de esta dicha uilla por concurrir en ella las circunstancias, y calidades nezesarias para dicho ministerio⁵⁹⁵

Ez dakigu udal agintarien arabera zeintzuk izango ote ziren, aipatzen ziren “circunstancias, y calidades nezesarias” horiek, formula hutsa izateaz beste, adierazpen horrekin beste ezer esan nahi bazuten behintzat. Kargua bizitza guztirakoa lez hautematen ote zuten edo ez, eta abituaren beharrezkotasunaren inguruan ez daukagu berri handirik, izendapenek eta parrokiako liburuak ez digute ezer argitzen. Baina parrokiako liburuak argitu, argitzen digutena, besteak beste, seroren kopurua da. Normalean –kargudun eta tituludun– serora bakarra izan ohi zela dirudi, laguntzaitzat zenbait neskame izan ohi zituena. Kasu gutxi batzuetan erabiltzen dira pluraleko adierazpenak (“seroras”, “sororas”), eta agian serora nagusia zaharra izanik –neskameez aparteko– laguntzaile baten izendapena egin izanari dagozkioke⁵⁹⁶. Gutxieneko adinaren kontua 1588an, garaiko bisitatzailaren agindu batean ageri zaigu; bertan gutxieneko 40 urteko araua ez betetzeaz zen kexu, eta bete zedin agindu zuen:

Yten que de rrezebir por sororas mugeres de menos tienpo de quarenta años hera ynformado que se hauian seguido y seguiian muchos ynconuinientes ordenaua y mandaba que de aqui adelante no se rrezibiesen por sororas mugeres de menos tienpo de quarenta años⁵⁹⁷

Baina ez gara aginduari kasu egingo ote ziotenaz batere fido, emakumeak aldaretik urruntzearen inguruan eta erostarien negarren eta garraisien inguruan eman ziren aginduei, nahiz seroren desagerrarazte aginduari berari –auzi bat tarteko izanik–, batere kasurik egin ez zitzaizela ere ikusten baitugu⁵⁹⁸.

⁵⁹⁴ “[...] haviendose Exiuido el titulo antezedente de Serora maior de la dicha Yglesia ante los Señores Curas y Benefiziados de las dicha Yglesia de San Miguel Estando Juntos a pedimiento de Ana Cathalina de Ynza uecina de esta dicha uilla el señor Don Joseph de Erostequi Presuitero y Benefiziado de dicha Yglesia y uicario foraneo de esta dicha uilla y su Partido dio en dicha Yglesia de posesion de Serora maior a la dicha Ana Cathalina en uirtud del titulo Referido [...]” (*Ibid.*)

⁵⁹⁵ KKA-ACC 22/768/15, f.g.

⁵⁹⁶ Hiru dira gorde izan diren San Migel parrokiako liburuak: DEAH-AHDSS 3689/001-00 (1513-1553), 3690/001-00 (1553-1616), eta 3691/001-00 (1617-1714). Halaber, Oñatiko San Migel parrokiako seroren kopuruari eta jarlekuen zerbitzuan serora nagusiaren neskameei eta bestelako emakumei zegokien parte hartzeari buruz, ikus Larrañaga Arregi 2010a, 69.

⁵⁹⁷ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 291r.

⁵⁹⁸ Aldareetatik emakumeak urruntzearen inguruko aginduak: DEAH-AHDSS 3689/001-00, 52r (1517) eta DEAH-AHDSS 3690/001-00, 343r-343v (1595). Erostarien negar eta garraisien inguruan: DEAH-AHDSS 3689/001-00, 140v (1546); *Ibid.*, 169v (1548); eta DEAH-AHDSS 3690/001-00, 342v (1595). Desagerrarazte aginduari buruz: 1637an Gonzalo Chacon y Velasco apezpikuak pertsonalki egindako bisitan, momentuan parrokiari aurkitu zituen bi serorak kargutik botatzeko eta gehiagorik ez izateko

Parrokiako liburuek argitzen diguten beste aspektu bat serorek jaso izan zuten soldataren eboluzioa da. Arrasateko San Juan Bataiatzailea eta Elgetako Andre Mariaren parrokien kasuan jada ikusi dugun lez, Oñatin ere serorak jasotzen zituen diruak momentu jakin batetik aurrera zehaztu eta definitu ziren espezifikoki “soldata” bezala: “su salario ordinario” esakera lehen aldiz 1678ko kontuetan ageri zaigu. 1669ko kontuetaz geroztik bere etxearen alokairuagatik serorari ordaintzen zitzaiona eta arropendako erabiltzen zuen xaboiarengatik ematen zitzaiona partida bakarrean batu ziren, eta 5 dukatetan finkatu. 1678an 5 dukatak “ofizialki” bihurtu ziren bere soldata, eta hala jarraitu zuten izaten 1714ko kontuak (parrokiako liburuetan jasoriko azkenak) eman ziren arte⁵⁹⁹.

1761ean Oñatiko udalaren eta kondearen artean egin zen hitzarmenean, serora nagusiak Oñatiko kondearen aldetik esleituriko soldata bat zeukala aipatu zen; soldata hau 1714rarte parrokiako kontu-liburuetan jaso izan ziren ordainketei dagokiela pentsatu liteke, baina identifikazio hau arazotsua da. Serorak parrokiako fabrikatik soldata bat eta Oñatiko kondearen aldetik beste bat jaso izango balitu etekin handiak zeuzkakeen serora baten aurrean geundeke, eta gainera, baita ezohizko egoera baten aurrean ere; printzipioz, beraz, kontrakoa pentsatzera joko genuke. Baina kontu-liburuen arabera 1678an seroraren soldata finkatu aurretiko diru-ordainketak, soldataren kopurua finkatzeko balio izango zuketenak, garbiketen xaboiari eta seroraren etxearen alokairuari zegozkion partidak ziren. 1678a baino lehenagoko urteetan, hain zuzen, ggb. xaboiagatik dukat 1 eta etxearen alokairuagatik 4 dukat ordaindu izan zitzaizkion⁶⁰⁰. Hau da, ez ziren bere lanagatik justifikaturiko ordainketak, “materialari eta mantentze-lanei” zegozkienak baizik. Hala ere, hau ez dugu azalpen erabakiorra, Debagoieneko beste parrokia batzuetan ikusi dugunez, garbiketaren ordainketa lez justifikaturiko partiden soldatarako bilakaera, esate baterako, ez baitzen arraroa izan. Alabaina, partida huez besteko seroraren “rraçion” espezifikoa jada 1639an aipatu zen, 1637an bisitatzailleak parrokiako seroraren kanporatzea agindu ostean izan zen auzi baterako ahalordeetan. Soldata hau, serorak berak “los monumentos que se acostumbran” bezala aipatu zuen eta “en los diezmos pertenecientes al dicho señor conde” baitaratua zegoen, apezna eta benefiziadunena bezalaxe⁶⁰¹.

1661ean Bernardo de Hontiberos apezpikuak pertsonalki egin zuen bisitan eman zituen aginduak ere argigarriak zaizkigu honekiko; fabrikako diruen kontrol gabeko gorabeheren inguruan zenbait neurri hartu behar zirela erabaki zuen, “por quanto la fabrica es pobre y no tiene obligacion a ello, y ay otras cossas mas precissas”; besteren artean, honakoa agindu zuen: “Yten que tanpoco se paguen los quatro ducados de la cassa de la sorora, porque la dicha fabrica no tiene obligacion a ello, y la dicha sorora tira [*de*] los derechos y emolumentos de las sepulturas y entierros”⁶⁰². Nire eritziz,

agindua eman ondoren (DEAH-AHDSS 3691/001-00, 86r), garaian serora nagusi zen Maria Lopez de Estrañok apezpikutzako auzitegien aurreko auzi bati ekin zion (GPAH-AHPG 1/3141, 60r-60v), eta 1639an beste auzi bat izan zuen berriro kanporatu nahi izan zutela eta, oraingoan, apezpikuaren kanporatze-aginduaren alde agertu ziren herriko alkatearen eta udal agintarien aurka, eliz-kabildoa berriz, bere alde zuela (GPAH-AHPG 1/3102, 11r-12r eta 61r-62r). Ez dakigu auzi hauen gorabeheren berri, baina serorak irten behar izan zuen garaile, ondorengo urteetan, bere aldeko ordainketen inguruko partidek –eta bestelako berriek– inongo garrantzizko aldatetarik gabe jarraitu baitzuten parrokiako kontu-liburuan agertzen; ondorengo apezpikuek eta bisitatzailleek ere ez zuten kanporatze-aginduaren betekizunaren inguruko ezer esan.

⁵⁹⁹ DEAH-AHDSS 3691/001-00, 200v-340r.

⁶⁰⁰ 1650eko kontuez geroztik 1678koerartekoak, *Ibid.*, 142v-221v.

⁶⁰¹ GPAH-AHPG 1/3102, 11r-12r eta 61r-62v.

⁶⁰² DEAH-AHDSS 3691/001-00, 176v-177v. Arrazoi berberegatik emandako beste agindu bat ere bazen, kuriosoki, serorei zegokien agindua ez bezala, ondoren norbaitek ezabaturik ageri zaiguna: “Yten que por

emolumentu hauek ziren, hain zuzen ere, 1761eko hitzarmenean bezalaxe 1769ko seroren desagerrarazte aginduan aipatu eta azaldu zirenak –eta jarraian aipagai izango ditugunak–, Hontiberos apezpikuak, 1678an seroraren beste soldata izatera iragango ziren ordainketen parte ziren alokairuaren 4 dukatez aparte hauteman zituenak. Hau da, Oñatiko San Migel parrokiako serorak 1678az geroztik bi “soldata” jasotzen zituen, bata parrokiako fabrikatik, eta bestea, Oñatiko kondearengandik. Serora nagusiak hainbesteko kopuruak jasotzea, bestalde, parrokia honetako seroratzaren berezitasunek ere azaldu dezakete; San Migelen, izan ere, serora nagusiak bakarrik zeraman serora titulua, kondeak helarazia, eta serora-laguntzaileak bere zerbitzariak ziren, eta berarengandik jasotzen zuten soldata ere. Egoera hau parrokiako serora nagusi izan zen Maria Lopez de Estrañoren 1647ko testamentuak azaltzen digu. Bere “criada” izateaz gain iloba zuen Maria Andres de Empanzari 40 dukateko zentsu bat eman zion dohaintzan, 5 urtetan zehar batere soldatarik jaso izan gabe bere neskame izana zela eta, soldata horien ordainketa gisa⁶⁰³.

1761eko hitzarmeneko bigarren puntuan zehaztu zenaren arabera, parrokiako serorak Oñatiko kondearengandik jasotzen zuen soldata urteroko 7 anega gari eta 90 errealek osatzen zuten. Hauek Oñatiko kondeak ordainduko zituen aurrerantzean ere, baina diru eta garien kudeaketa udalak hartu zuen bere kargu⁶⁰⁴. 1769an berriz, seroren desagerrarazterako Errege Aginduaren ostean egin ziren informazio dilijentziek serora nagusiaren emolumentuen inguruko berri zabalagoak dakarkizkigute. Serora nagusiari karguaren izaeraren eta etekinen inguruko aitortpena jaso zitzaion, eta udal agintariak ere informe bat osatu zuten. Orokorrean bi aldeetatik emandako informazioek bat egiten dute, baina badira zenbait ezberdintasun esanguratsu ere; serorak honakoa aitortu zuen:

Por todo lo referido la da el Ex.mo Sr Conde de esta uilla Como Patrono de dha Yglesia anualm.te Siete fanegas de Trigo, y quatro Ducados de U.n en dinero: Y t. en los entierros, y onras que en cada un año se ofrecen en dha Yglesia la suelen tocar en dinero Setenta y siete Reales de U.n poco mas, ó menos de un quinquenio á otro, y mas en cada entierro, y onra a un pan igualm.te que al Sacristan: Y t. diferentes personas de esta uilla, que tiene Sepulturas en dha Yglesia, le encargan el cuidado de guardar en ella las Tablas de Cerilla, llamadas Comunmente Arguizagui olac, y ponerlas encendidas en las Sepulturas al tiempo de las misas maiores, y uisperas de todo el año y recomponerlas [¿?] despues y la que tiene dos Tablas, le paga por ello al año una fanega de trigo, y la que no tiene mas que una, media fanega, y las que le encargan esta diligencia solamente los dias festivos de todo el año le dan una quarta⁶⁰⁵

Garizko 7 anegekin bat, oraingoan serorak 90 erreal beharrean 4 dukat (44 erreal) aipatu zituen. Heriotz-errituetako eta jarlekuen zaintzako diruak eta ogiak ere xedatuki azaldu zituen, errepikatuko ez dugun informazio interesgarria emanez. Lan hauengatik urtero jasotzen zituen etekinen kalkulu orokor bat udal agintarien informean eman zuten, serorak esandakoekin bat egiten ez zuten beste datu interesgarri batzuekin batera:

Y por razon de todo este trabajo recieve por salario, y obenciones al año, siete fanegas de trigo, y nobenta reales en dinero, que le da el Ex.mo Señor Conde de esta Uilla como Patrono de su Yglesia, y lleuador de diezmos: media fanega de trigo del dueño de la Sepultura de la Zerilla, que se pone todos los dias, y una quarta por la de los dias festiuos solamente: algunos marauedis por cada entierro, y onras, que según el

la misma caussa no se paguen de aqui adelante los doce ducados de los sermones , porque esta obligacion, yncumbe a los curas y no a la fabrica, por el mismo perçuiimiento”.

⁶⁰³ GPAH-AHPG 1/3194, 105v.

⁶⁰⁴ GPAH-AHPG 1/3368, 390r-390v.

⁶⁰⁵ KKA-ACC 17/761/1, f.g.

Computo que se ha hecho importa al año ochenta reales poco mas ò menos: Y además en cada entierro, y onra un pan de dos, quatro, û ocho libras, conforme la Clase del entierro, lo que se satisface por el heredero independiente de lo que lleua el Cauildo, y sin que se perjudique en manera alguna â los Beneficiados, ni otro ningun Clerigo⁶⁰⁶

Hara! Ez al ziren 7 gari anega eta 4 dukat? Udalaren komisionatuen informean 1761eko hitzarmenaz geroztik serorak jaso behar omen zuena ageri zaigu, baina serora beraren aitorpenean, ikusi dugunez, 90 erreal horien erdia baino ez zen aipatu. 1761az geroztik ordainketaren kudeaketa beraien kargu hartua zuten udal agintariak agian jakingo zuten, serorari falta zitzaizkion 46 errealak non zeuden. Jarlekuetako argiteriaren zaintzogatik eta heriotz-erritueta jasotako gari eta ogiez beste, hildako bakoitzaren hileta, ondra, etab.ek serorari urteroko 80 erreal inguruko etekinak ematen zizkiotela kalkulatu zuten. Eman berri dugun informazioa ondorengo kapitulu batean xedatuago ikertu eta azalduko badugu ere, oraingoz, gauza garbi bat azaltzen zaigu: San Migeleko serora nagusiek Aro Berrian zehar soldata, heriotz-errituak eta jarlekuetako zerbitzuak zirela eta, dezenteko diruak eta gariak jaso izan zituztela esan liteke.

Oñatiko San Migeleko seroratzak zuen beste ezaugarri berezi bat, jada aipatu duguna, bizi izaten ziren etxearen alokairua parrokiako fabrikaren aldetik ordaintzearena zen. Alokairuaren prezioa garestituz joan zen, urteak igaro ahala: 1513an 200 marabedi eta 1536an bi urtegatik 600 marabedi ordaindu zirenaz geroztik, 1537-1542 bitartean dukat 1 ordaindu izan zen, 1543-1550 bitartean 2, 1554-1591 bitartean 3, eta 1592-1668 bitartean 4. 1669az geroztik, esan berri dugun bezala, seroren etxearen ordainketa eta garbiketagatik egiten zen ordainketa kontzeptu bakarrean batu ziren, eta 1678tik aurrera, ordainketa 5 dukatetan finkaturik, hauek seroraren soldata bihurtu ziren. XVI-XVII mendeak bitarteko alokairuaren prezioaren gorabeherak, eta etxe bat egin edo erosi beharrean alokairua bere horretan mantentzea ere ez ziren ohitura kontu huts bat. 1610a arte egin ziren ordainketak pertsona partikularrei egin zitzaizkien; antza denez, herrian nolabaiteko boterea zuten pertsonen etxeak zeuden tarteko, batzuei gehitzen zaien “dotor” tituluak aditzera ematen digunez⁶⁰⁷. Egoera horren aurrean, 1555ean, kontuak egin ostean, alkateak eta parrokiako abadeak zenbait agindu hitzartu zituzten; besteren artean, ordurartean alokairuan hartzen zen beataren etxearen ordainketan diru asko xahutzen zela eta (aurreko urtean hiru dukatetara igoa zen prezioa), ahal izatean serora bizi zedin etxe bat eros zedila: “los mayordomos de ella la ayan de comprar en nonbre de la dicha yglesia y para el serbiçio de ella”⁶⁰⁸. Baina azkenean ez dirudi halakorik egin zutenik, arazoari etekin handiagodun erremedioa aurkitu baitzioten, izan ere; 1610az geroztik ordainketa “colector” ezberdinei egiten zitzaizela ikusten dugu, eta 1618ko partidari azaltzen zaigu hauek nongo edo noren “colector”ak ziren: “a Mateo Abad de Goriuar coletor del dicho cauildo quatro ducados por el alquiler de las casas donde uiuen las sseroras de la dicha yglessia que la dicha casa es del dicho cauildo”⁶⁰⁹. Eta horrela, 1610a ondoren parrokiako fabrikako poltsatik kabildoarenera iragan izan ziren urteroko lau dukatak, behintzat, 1678 inguruan seroraren soldata finkatu zen arte; ondorengo partidetan ez dira soldataren gastuen nondik norakoak zehazten, baina alokairuaren ordainketek jarraituko zutela pentsa liteke. Tartean, aipagai izan ditugun 1661eko Bernardo de Hontiberos apezpikuaren

⁶⁰⁶ *Ibid.*

⁶⁰⁷ Ez zen beti aipatzen nori ordaintzen zitzaion, baina noizbait aipatu izan zirenak honakoak izan ziren: 1536an “la muger de Martin de Arriaga”, 1537-1538an Pedro de Arriaga, 1542an “dotor Asurduy”, 1544an “la ija del dotor Asurduy”, 1549-1550ean “dotor Mendiçabal”, 1555ean Martin de Uriça eta 1608an San Juan de Atallo.

⁶⁰⁸ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 48v.

⁶⁰⁹ *Ibid.*, 394v (1610); DEAH-AHDSS 3691/001-00, 12r (1618).

bisita pertsonaleko aginduak izan ziren, eta orain hobe uler liteke, zergatik seroraren etxearen alokairua ordaintzeari uzteko aginduari kasurik egin ez zitzaion. Seroraren etxearen alokairua, izan ere, 1610az geroztik, parrokiaren fabrikako diruak kabildoaren poltsikora desbideratzeko modua bihurtu baitzen. Eta horrela, apezpikuaren aginduari – beste behin– entzungor eginez, ondorengo urteetako kontuetan ere seroraren etxearen alokairuaren partida bere hortan mantendu zen.

IV. 3.1.2. Araotzeko San Migel eta Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea auzoetako parrokiak

Oñatiko auzoetako parrokiatarako daukagun informazioa oso partziala da, batez ere, bertarako izendapenik ia aurkitu ez dugulako. 1702ko Araotzeko San Migel parrokiako serora-laguntzaile baten izendapena baino ez dugu aurkitu, eta gauza gutxi azaltzen zaizkigu. Magdalena de Ysasmendi parrokiako apezak eta auzotarrek egindako batzarrean aukeratu zuten, “estando juntos como tienen costumbre de uajo del cimiterio de la yglesia de San Miguel de dicha Uecindad”. Serora-laguntzaile lez eskatzen zitzaizkion sarrerarako baldintzak ez ziren oso zurrinak; honako azalpenekin nahikoa izan zuten:

tiene naturaleza por sus pasados en dicha vecindad persona en quien concurren todas buenas calidades y que atendera a las obligaciones que coresponden a su estado sin faltar a cossa alguna y que despues de los dias de la dicha beata Compañera podra llevar todos los derechos emolumentos que se dan por los Uezinos⁶¹⁰

Funtsean, bertako auzotarra izatea –edo behintzat jada bertakotua egotea, “tiene naturaleza por sus pasados en dicha vecindad”– eta bizilagunen oneritzia izatea, eta zegozkion lanak egoki burutzea baino ez zitzaion eskatzen. Horrez beste, 1619-1819 tarte kronologikoa baitaratzen duten parrokiako kontu-liburuetan seroretxearen obretako berriak dira nagusi, eta bertako seroratzaren izaeraren inguruko berri gutxi jaso litezke.

Ez da seroraren soldata berezirik ageri, 1692ko kontuetan “reloxero” lanen soldata jaso zuen seroraren kasuaz beste. Urte hartan gainontzeko kontuetan soldata jasoaz ageri zaizkigun “reloxero”en faltan zeuden antza, eta serorak burutu zituen honen lanak; baina aurreko urteetan eta ondorengoetan, ez zaigu “reloxero” faltarik ageri. Edonola ere, soldatarik ez jasoagatik ere izan behar zuten bertako serorek nolabaiteko diru-sarrerarik, parrokiari egindako dohaintzaren baten berri ere badugu eta⁶¹¹.

Araotzeko San Migel parrokiako serorak 1760arte bizi ahal izan ziren seroretxean doan; urte hartako kontuetan 30 erreale jaso ziren “por la renta de la Casa de la Beata y por lo tocante al suelo de arriba”, eta ondorengo kontuetan –1619tik jada alokairuan ageri zaigun– seroretxe ondoko parrokiaren jabegoko beste etxe baten errentarekin batera jaso zuten kontzeptu hau. Bien alokairuagatik 143 erreale (13 dukat) jasotzen zituen fabrikak. 1763an oraindik “Casa de la Beata” bezala aipatua izan zen, baina urte hau eta 1791 bitartean ez dakigu garbi, seroretxearen alokairua artean serora lez hautematen zen emakumeren bati ematen ote zitzaion, edo 1792an ageri zaigun lez, jada sakristaua aurretik seroretxe izana zenean bizitzen zegoen⁶¹². Kontu-liburutik

⁶¹⁰ GPAH-AHPG 1/3221, 53r-53v.

⁶¹¹ Hiru dira parrokiaren Aro Berrian zehar osatu ziren kontu-liburuak: 1619-1670 (DEAH-AHDSS 1309/004-01), 1670-1756 (DEAH-AHDSS 1310/001-01 sig.) eta 1757-1819 (DEAH-AHDSS 1310/002-01) bitarteei dagozkie. Aipaturiko dohaintza 1722-1723 urteetako kontuetan aurkitu dugu: “Mas un escudo de plata que dio la Beata de la misma” (DEAH-AHDSS 1310/001-01, 95r).

⁶¹² *Ibid.*, 28v-97r.

badakigu, halaber, sakristauaren soldata 1792an auziren bat medio ezarria izan zela, 200 errealetan⁶¹³.

Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea parrokiaren ez dakigu izendapen eskubidea noren eskutan zegoen. Litekeena da Araotzeko ohitura bera izatea, baina ezin dugu ezer ziurtasunez esan. 1615ean Galarça doktorea Oñatiko bikarioak apezpikuaren mandatuz egin zuen bisitaren bidez, bere kargutik irten zen serora baten berri dugu. Maria de Aristeguy serora parrokiatik alde egina omen zen, eta bereak zirela eta, bertako bi kutxa eramanak zituen. Baina bikarioak eta maiordomoak kutzak parrokiari zegozkiola uste zuten, eta serora izanari hauek itzularazi zizkioten⁶¹⁴. Bertako seroratzat bizitza guztirakoa ez zenaren frogara ote dugu, ala kutxen kontua zela eta liskarrak izanik bere kargutik alde egin zuen serora baten kasua ote dugu? Hau ere ezin garbi jakin.

Bertako kontu-liburuetan, batez ere, serorei eginiko ordainketen eta garai batetik aurrera, soldataren berri ematen zaigu⁶¹⁵. XVII. mende erdialdera arte olioaren gastuegatik serorei egindako ordainketaren batzuk eta seroretxearen inguruko zenbait berri baino ez zaizkigu ageri, eta 1628an Rodrigo Abad de Çuaço y Leça Oñatiko hiribilduko San Miguel parrokiako benefiziodunak apezpikutzako probisorearen aginduz egin zuen bisitan egindako inbentarioan zehaztu zenaren arabera, 1621eko Konstituzio Sinodalen ondoren hartu ziren seroren desagerrarazterako neurriek –hasiera batean behintzat– eraginen bat izan zutela dirudi, seroretxea honela inbentariatu baitzen: “Yten vna cassa que solia ser de las sororas que esta armada y solo tiene el tejado con su huerta y propiedad alrededor de la yglessia donde se hace procession con la franquia delante”⁶¹⁶.

1654ko kontuetatik aurrera, soldata izaten bukatu zuen ordainketa zelebrea batekin egiten dugu topo. Eta zelebrea diot, orain artean seroren soldata izaten bukatu zuten beste ordainketa eta kontzeptu batzuen berri izan badugu ere (garbiketagatik, argizariengatik eta olioagatik, etab. ordaindurikoak), Urrexolan aurkitu duguna bezalako partida bereziekin artean topo egin izan ez dugulako. Urte hartan serorari 10 erreale ordaindu zitzaizkion, zapata batzuk eros zitzaizkion (“para unos capatos”). Hurrengo urtean ere arrazoi bera argudiatuz beste 10 erreale ordaindu zitzaizkion, eta horrela urtero, 1717-1718ko kontuetan zapatak erosteko emandako diruak “de su trauajo” emandakoak bihurtu ziren arte. Aurrerantzean, “su salario hordinario” lez aipatu zen partida honetako gastua. Ordaintzen zitzaion kopuruak bere gorabeherak izan zituen, 8 eta 13 erreale bitartean, eta kopuru ohizkoenak 9 eta 11 erreale bitartean mantendu ziren. 1717-1718ko kontuez geroztik soldata 9 errealetan finkaturik gelditu zen, partida azkenengo aldiz 1727-1728ko kontuetan agertzen zaigun arte. Urte hartatik aurrera seroren berriak desagertzen dira, eta honi buruz aurrerago jardungo badugu ere, urte berean apezaren etxea eraikitzeke obrak hasi zirela nabarmendu beharrean gaude. Izan ere, ondoren apezaren etxea izango zena, ziurrenez aurretik seroretxea izana zena baitzen. Seroren zapaten ordainketak izan zituen zenbait eten: 1657-1658ko kontuetan sakristau bat sartu zen parrokiaren zerbitzuan eta seroren inguruko berriak eten ziren, 1664ko kontuetan berriz ere serorak eta beraien zapatak agertu ziren arte. Sakristaua serora ordezkatzeko egon zenaren seinale, bere soldata aurreko eta ondorengo seroren zapaten ordainketaren kopuru berdinekoa zen: 11 erreale (dukat 1). Beste hainbeste gertatu zen 1701-1702ko

⁶¹³ “Yten del salario al Sacristan con arreglo al despacho del Tribunal expedido en 1º de Febrero del 1792. doscientos reales” (*Ibid.*, 97r).

⁶¹⁴ DEAH-AHDSS 3150/002-01, 25r-30r.

⁶¹⁵ Aro Berrian zehar hiru kontu-liburu izan ziren: 1589-1657 (DEAH-AHDSS 3150/002-01), 1658-1722 (DEAH-AHDSS 3150/003-02) eta 1723-1781 (DEAH-AHDSS 3150/004-01) bitarteei dagozkien.

⁶¹⁶ DEAH-AHDSS 3150/002-01, 42r.

kontuetan; bertan ermitau bat ageri zaigu 9 erreale jasotzen (garaiotan aurreko eta ondorengo serorak zapategatik jasotzen ari ziren kopurua). Hurrengo urteko eta ondorengo kontuetan baina, ostera ere serora ageri zaigu, bere zapatekin⁶¹⁷.

IV. 3.2. Ermitak

Oñatin ermitetako serora eta ermitauren hainbat izendapen aurkitu ahal izan ditugu. Ostera, kontu-liburuei zegokienean Leintz-bailaran bezalako ohitura mantentzen zela dirudi, nahiz eta han gehienetan gertatu ez bezala, ermiten parrokiekiko urruntasuna zenbaitetan oso handia izan. Izan ere, –kasualki, Leintz-bailaran bezala– ermitetako liburu bakar bat baino ez da gorde izan (Berezanoko Santa Luziakoa), eta ermitetako gastuei zegozkien partidak, parroketako kontu-liburuetan aipaturik ageri zaizkigu.

Izendapenen sortak, dena den, nahiko ikuspegi osatua jasotzeko parada ematen digu. Parrokiei buruz jardutean aipatu dugu 1761ean Udalak Oñatiko kondearekin egin zuen hitzarmena; bertan parrokiako seroraren izendapena Udalaren eskuetara iragan zen, beste zenbait eskumenekin batera. Ermiten kasuan ere data hori erabakiorra izan zela dirudi, orduz geroztiko ermitetako serora eta ermitauren izendapen guztietan ageri baitzaizkigu udal agintariak, “en nombre de esta dicha Uilla y como Patrona de las Ermitas de ella”. Eskumen hau udal ordenantzetan ere baitaratu zuten, 53. kapituluan. Itxuraz, 1761eko hitzarmenean 1540az geroztik Oñatiko udalaren eta kondearen artean San Migel parrokiako patroitzaren eta bertako apez eta benefiziodunen etekinen inguruan zabalik zirauen auziaren inguruko gorabeheren azalpenetan adierazi zenez, 1627an Iñigo Velez de Guebara konde berriak herriaren gaineko jurisdikzioari uko egin ziokeen (“salio [...] declinando fuero jurisdiccional, y pretendio [...]”), eta jurisdikzioa, orduz geroztik, udalari zegokiokeen⁶¹⁸; alabaina, ermiten gaineko patroitzaren eurengean ez ziren 1761eko hitzarmena arte iragan, antza, egoerak artean nahasia izan behar zuelako. Ez dakigu garbi. Edonola, Oñatiko ermitetako zaintzak XVII. mende hasieraz geroztik izandako bilakaerak beste zenbait ezaugarri berezi ere azaltzen dizkigu. Alde batetik, senar-emazte ziren ermitau eta seroraren kasuak ugariak ziren, eta izendapena bera ere, bien gain egiten zen, zenbaitetan, “Ermitaño y Serora” lez esplizituki aipatzen zituztela. Ermitauak ere serorekin bat aintzat hartuko ditugu beraz, Oñatiko ermitetako bizimoduan bat egiten baitzuten, eta hori medio, kasu askotan, izendapena ermitauren gain eginik ere, horrek ez baitzuen seroraren presentziarik eragozten. Honekin bat, XVII. mende bukaeraz geroztik eta batez ere XVIII. mendean, ermita askoren zaintzaren esleipena –gehienena ez bazen– alokairu bidez egiteko ohitura hedatu zen, izendapenak urriagotuz. Horrek ez du ermitauak eta serorak, banaka edo senar-emazte lez, kontsiderazio hau izateari utzi ziotenik esan nahi, “denbora baterako izendapenak” egiten zirela baizik. Ezaugarri hauek XVII. mende hasieraz geroztiko garaian zedarrizten baditugu, San Migel parrokiako lehen bi kontu-liburuetan (1513-1553 eta 1553-1616 bitartekotakoak) azaltzen zaigun egoeratik da. Hainbat datu xume ematen zaizkigu hauetan, XVI. mendeko seroren berri ematen dituztenak. Kontuetako partida motzetan ageri diren ermitetako seroren heriotzen, hauen argizarien, dohaintzen, etab.en inguruko datuak dira, mende hartan hainbat ermitetan izan ziren seroren berri ematen dituztenak. Alabaina, ermitaurik ez zaigu inondik ageri. Ermitetan ermitauak baleude, datuak hain xeheki jaso zituzten liburuotan nonbait agertu beharko lukete, behintzat, serorak aipatu ohi ziren lez, euren heriotzaren berri emateko edo. Era

⁶¹⁷ DEAH-AHDSS 3150/002-01(1589-1657), DEAH-AHDSS 3150/003-02 (1658-1722) eta DEAH-AHDSS 3150/004-01(1723-1781)

⁶¹⁸ GPAH-AHPG 1/3368, 386r.

berean, datu hauen arteko azkena 1592an eman zen; ondorengo kontuetan, parrokia bertako seroraren –hobe esan, serora nagusiaren– inguruko berriak baino ez zaizkigu ageri⁶¹⁹.

Datu hauen eta jarraian azalduko ditugunen argitara, XVII. mendearen hasieraldialde inguruan ermitetako zaintzarako pertsonak hautatu eta izendatzerako orduan aldaketak izan zirela dirudi; aldaketak trazu zabar xamarretan ematen ditugun tarte kronologiko honetan gertatu izana ez da kasualitatea noski, 1602ko eta 1621eko Kalagorriko Konstituzio Sinodalek mugarri egiten ditugun tarte kronologikoan Debagoieneko espazio ezberdinetan bisitatzailleekin hainbat liskar izan baitzituzten. Aipatu dugu nola Oñatin, San Migel parrokian, zehazki 1637ko bisitan (ezin jakin zergatik, baina beste herriekiko data berantiarrean) agindu zen parrokiako bi seroren kanporatzea eta beste serorarik izendatzeko debekua; debeku hura ez zegokien parrokiakoei soilik, ermitetakoak ere baitaratuak izan ziren. Liskarren batzuk izan ziren, baina parrokiako serorek behinik behin, beraien karguetan jarraitu zuten. Aipagai dugun ermitetako ohituren aldaera ere testuinguru horretan kokatu beharko genuke. Alokairuaren ohituraren sarrerak, bestalde, bat egiten du Leintz-bailaran (informazio gehien jaso ahal izan dugun elizateetako parrokien testuinguruan, behinik behin) garai berean izan zen bilakaerarekin ere, jada azaldu izan dugunez⁶²⁰. Baina goazen bilakaera hau Oñatin nola gertatu zen pausatuki eta adibideen bidez azaltzera, beste ataletan egin dugun lez, izendapen eskubidearen inguruko datuekin ekinaz.

XVI. eta XVII. mendeetan zeharreko izendapenetan, eta baita XVIII.aren lehen erdirakoetan ere (1761a arte), kasurik gehienetan lekuan lekuko auzotarrak ageri zaizkigu serora eta ermitauren izendapenak egiten. Hala gertatu zen 1577an Goribarreko San Bartolomen⁶²¹, 1597an Narriako San Lorentzon⁶²², 1655ean Araotzeko San Eliasen⁶²³, 1676an Lezesarriko San Estebanen⁶²⁴, 1718an Olabarrietako San Josen⁶²⁵, eta 1734an Garagaltzako San Juanen⁶²⁶. Salbuespen bakarrarekin egin dugu topo: 1589an Santa Katalina ermitarako (gaur egungo San Isidro) Mari Ramos de Laquidiolarengan egin zuten izendapena. Izendapen hau San Migel parrokiako abade eta Oñatiko bikario zen Domingo Martinez de Assurduyk egin zuen, Mari Ramos beregana postuaren eske joan eta gero. Izendapenak baditu beste berezitasun batzuek ere, posesio-ematea agindu izana bezala, zeina gainontzeko Oñatiko izendapenetan, ageri ez zaigun (horrek ez du

⁶¹⁹ DEAH-AHDSS 3689/001-01 (1513-1553), DEAH-AHDSS 3690/001-00 (1553-1616) eta DEAH-AHDSS 3691/001-00 (1617-1714). Kontuetako partidek gehienetan oso informazio xumea badakarkigute ere, datu hauen bidez XVI. mendean Oñatiko ermitetan zeuden seroren –zehatzago, hauen artean kontu-liburuetan aipatu izan zirenen– ikuspegia jaso liteke, mugatua bada ere. Urteen jarraipenean batzuek errepikatuak ageri dira eta hala jasoko ditugu (bateko edo besteko ermitako seroratzat aipatzean, berberak ote diren ezin ziurtatu dugulako), eta ospitaleko seroren ingurukoak ere batuko ditugu, ikuspegi orokorretik ez baztertzearren: “la beata del ospital” (1513), “la beata de San Christobal” (1513), “la freila de San Pedro de Leçarraga” (1516+), “la freila de Sant Anton” (1516), “la freila de la Madalena” (1516), “la freyla de Santa Marina” (1516+), “la serora de la Madalena” (1542), “la beata de San Llorente” (1549-1550), “la beata de San Martyn” (1555), “la beata de [Santo Anton?]” (1559+), “la beata de Sant Andres de Murguya” (1565-1567+), “la beata cuñada de Pedro de Landaeta” (1567-1568), “la beata de Santo Antolin” (1567-1568+), “la beata de Sant Martyn” (1569-1570), “la beata de San Andres de Murguia” (1569-1570), “La serora de Santa Cruz de Ocomardia” (1580), eta “Maria [Sen?] de Uillar serora de la Madalena de Gorostola” (1592).

⁶²⁰ Ikus III. 2.2. azpiatalean, 221-223, 252-260 eta 264-265 or.

⁶²¹ GPAH-AHPG 1/3034, 81r.

⁶²² GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

⁶²³ GPAH-AHPG 1/3175, 502r-502v.

⁶²⁴ GPAH-AHPG 1/3214, 83r-83v.

⁶²⁵ GPAH-AHPG 1/3249, 43r-43v.

⁶²⁶ GPAH-AHPG 1/3290, 44r-45v.

esan nahi erritua egingo ez zenik, kasu honetan esplizituki adierazi zela baizik)⁶²⁷. Oñatiko kondeen artxiboa ezin izan dugu kontsultatu, eta agian, bertan ermitetako seroren beste izendapen batzuk ere gordeak izan litezke, izendapen eskubidea kondearen eskutan agertzen digutenak⁶²⁸. Alabaina, ukaezina da Oñatiko ermitetako serorak auzotarrek aukeratu eta izendatzearen ohitura ere erabat ohizkoa eta hedatua zela. Oñatiko kondeak zalantzarik gabe gordetzen zuela dakigun izendapen eskubide bakarria San Migel parrokiako serorarena dugu, 1761a arte mantendu zuena. Edonola ere, eta daramagun ildoarekin jarraituz, aurkitu ahal izan ditugun auzotarrek egindako izendapenetan badira zenbait aldaera aipagarri ere, auzotarrez gain kasuren batzuetan beste partehartzaile batzuk ere izan baitziren. 1597an Narriako San Lorentzo ermitako seroratzarako, edo hobe esan, serora-laguntzaitzat Catalina de Laquitegui aukeratu eta izendatu zutenean, batzarrean Orueta batxilerra kapilaua eta Maria Perez de Olazaran serora nagusia ere presente zeuden, eta bere onarpenean –eta beraz izendapenean– parte hartu zuten. Gainera, Maria Perez ez zen ermitako serora bakarria, izendapenean serora berriari bere obedientziak aipatu zitzaizkionean, denera beste hiru serora zeudela ikusten baitugu: “y bibira en obediencia de la dicha Maria Perez de Olazarran veata mayor y despues de sus dias de Estibalis de Orueta segunda y despues de Madalena de Leceta tercera segun de vso de la dicha ermita y cargo”⁶²⁹

Apezpikutzaren aldetiko onarpenaren inguruko ardura izendapen bakarrean aurkitu ahal izan dugu, eta berau, ermitau bati dagokio: 1655ean Araotzeko auzotarrek San Elias (“Santa Ylia”) ermitaren zerbitzurako Fauste de Aguirre Sargarai aukeratu zutenean izan zen⁶³⁰; ez daukagu horrelako ardurarik ageri zuten izendapenen beste berririk, gorago aipaturiko Santa Katalina ermitako bikarioak eginiko izendapenaz aparte, noski.

1761az geroztiko izendapenetan, esan bezala, Udalaren ordenantzen eraginaren pean ohiturak aldatu ziren. Garai hartako izendapenetan alkateak edo bere ordezkariak hartzen zuten parte, auzotarrekin, edo usuago, hauen ordezkarietan helduriko maioralekin bat, hauek beragana izendapenaren onarpen eske joan ostean. Ohitura honen arabera egin ziren 1763an San Antonio Abad edo San Anton ermitarako⁶³¹, 1764an eta 1765ean Zubilagako Santa Maria Magdalena ermitarako⁶³², 1795ean Olabarrietako San Jose ermitarako⁶³³ eta 1797an Santa Marina ermitarako egindako izendapenak⁶³⁴. Zubilagako Santa Maria Magdalena ermitako 1764ko eta 1765eko bi izendapenen kasuek, funtsean, alkatearen papera jada auzotarrek egindako aukeraketa berresteara –edo eskumen honen gain Udalak zeukan manupea mantentzearena– zela azaltzen digu; izan ere, auzotarren batzarrean jada kargurako –kasu hauetan– ermitaua aukeraturik,

⁶²⁷ OUA Z 1063.9, 7r-8r.

⁶²⁸ Jaun boteretsuen aldetik egindako izendapenen adibidetzat, konparaziorako, Loiolako jaunek Azpeitiako Udalarekin batera egindako ermitetako seroren izendapenen kasuak ditugu eskura, Gabriel de Henaoren *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria* lan eskergaren 6. liburukian bilduak daudenak (Hena 1980 -1689-1691/1895-, 127-138). Gabriel de Henaok bere lana lehen aldiz 1689an argitaratu bazuen ere, dagozkigun dokumentuak 1895ean Miguel Villaltak zuzendurik egin zen argitalpen hedatuan (autore ezezagunen gehigarriekin) argitaratu ziren, gehigarri lez.

⁶²⁹ GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

⁶³⁰ GPAH-AHPG 1/3175, 502r-502v. Koba baten barnean kokaturiko ermita honen adokazioak eragin izan ditu ikertzaileen artean zenbait buruhauste, dokumenturik zaharrenetan, eta dagokigun honetan ere bai, gizezko San Eliasena beharrean emakumezko “Santa Ylia”rena baita daraman izena. Honekiko, ikus Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 316-318.

⁶³¹ GPAH-AHPG 1/3413, 71r-75r.

⁶³² GPAH-AHPG 1/3414, 15r-18r eta 49r-51r.

⁶³³ GPAH-AHPG 1/3512, 56r-57v.

⁶³⁴ GPAH-AHPG 1/3513, 307r-308r.

aunque todos unanimes y sin discrepar ninguno dieron sus uotos a favor de Juan de Balanzategui Uecino de esta Uilla, suspendieron el hacer la Eleccion hasta dar noticia a dicho Señor Alcalde como Patrono de la Ermitas de esta Uilla en representacion de ella, para cuio efecto y concurrir al otorgamiento de la escritura de arriendo que se hiciere al Electo, dieron todos su poder y comision a los dichos Juan Antonio de Ascasubi; y [...] y estos habiendo puesto en considerazion de dicho Señor Alcalde todo lo referido, combino su merced en hacer la eleccion en dicho Juan Antonio de Balanzategui, mediante estar ynformado de sus Calidades⁶³⁵

Aipagai ditugun azken izendapen hauek, ez dezagun ahaztu, jada gainbeheran zioan ohitura baten azken arrastoak ziren, ordurako ermita gehienetako ermitau eta serorak seroretxearen alokairu bidez sartzten baitziren zerbitzura. Areago, ikusi berri dugun kasuak azaltzen digunez, izendapena egin izanik ere, gero ermitako ondasunen alokairua egiten zela dirudi. Dena dela, azkenean izendapenak eurak izan ziren alde batera utzi zirenak, alokairu hutsa egitera mugatuz; baina izan dugu jada prozesu hau aztergai, eta ez gara honen inguruan luzatuko. Izendapen hauetariko batzuk, bestalde, bestelako denbora tartetean alokairuan ere eman izan ziren ermitetarakoak izan ziren; alegia, kasu batzuetan, ohituraren erabateko aldaketa eman artean gorabeherak izan ziren. Halaber, egoera hau aintzat harturik, atal honetako azalpenen egokitasuna batez ere XVI-XVII mendeen tarterakoa dela ohartu beharrean gaude, XVII. mende bukaera aldea eta XVIII.ena alokairuei buruz jardutean azaldurikoei egokitzen baitzaizkie zehatzago.

Jarrai dezagun bada, jada zehaztapenak garbi utzirik. Ermitau eta seroren sarrerarako baldintzak ez ziren oso zurrinak izan ohi. Auzotarren onarpena baino ez zen behar izaten, eta hautagaiaren edo hautagaien arabera, izendapen bidez zerbitzura sartzten aipatuak bakarkako serora (1577an Goribarreko San Bartolomen⁶³⁶) edo ermitaua (1655ean Araotzeko San Eliasen, 1764an eta 1765ean Zubilagako Santa Maria Magdalenan, 1795ean Olabarrietako San Josen eta 1797an Santa Marinaran⁶³⁷), serora eta ermitau senar-emazteak (1676an Lezesarriko San Estebanen eta 1763an San Antonio Abad edo San Antonen⁶³⁸), edo are, 1734an Garagaltzako San Juan ermitan⁶³⁹ bezala, ezkonduak beharrean serora ermitauaren koinata izatea gertatu zitezkeen. Batzuetan seroren komunitate txikiak (1597an Narriako San Lorentzon⁶⁴⁰) edo bikoteak (1718an Olabarrietako San Josen⁶⁴¹) ere izan zitezkeen. Aipatu berri ditugunen artean, litekeena da ermitauen izendapenen pean hauen emazteak aipatu gabe gelditu izana. Gainera, izendapenen inguruan azaldu dugun egoeraren oso antzerakoa ageri zaigu alokairuei dagokienean ere; gehienetan –ezkondua izatea batere arraroa izango ez litzatekeen– ermitau bati ematen zitzaion alokairua, beste batzuetan serora lanetarako sarturiko ermitauaren emaztea ere aipatu ohi zen hitzarmenean, eta besteren batzuetan serora bakarrei egiten zitzaion alokairua.

Kontsiderazio hauek aintzat hartuaz gero, XVII-XVIII mendeen denbora-tarterako askotan senar-emazteen bikoteek artatutako ermiten panorama bat geldituko litzaiguke, bestetan, bakarkako ermitau eta serorak edo seroren taldetxoak leudekeela. Ikuspegi orokor honek gutxi gora behera bat egiten du gainera (bakarkako seroren

⁶³⁵ GPAH-AHPG 1/3414, 49r-51r.

⁶³⁶ GPAH-AHPG 1/3034, 81r.

⁶³⁷ Hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/3175, 502r-502v, GPAH-AHPG 1/3414, 49r-51r eta 15r-18r, GPAH-AHPG 1/3512, 56r-57v eta GPAH-AHPG 1/3513, 307r-308r.

⁶³⁸ GPAH-AHPG 1/3214, 83r-83v eta GPAH-AHPG 1/3413, 71r-75r.

⁶³⁹ GPAH-AHPG 1/3290, 44r-45v.

⁶⁴⁰ GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

⁶⁴¹ GPAH-AHPG 1/3512, 56r-57v.

presentzia nabarmenagoarekin), 1769ko seroren desagerrarazterako (eta ermiten itxierarako) Errege Aginduaren betearazpenerako Oñatiko bikariotzaren aldetik egin ziren dilijentzietan ageri zaigun ikuspegiarekin; aginduaren jakinarazpenak egin zirenean, ermiten zaintza honela banatzen zen: ermitauak zeuden Olabarietako San Josen, San Antonio Abad edo San Antonen, Lazarragako San Pedron, San Kristobalen, San Juanen, Zubilagako San Pedron, Gorostolako Santa Maria Magdalenan eta Murgiako “hermita de la Ascension”-en. Barriako San Lorentzon eta Zubilagako Santa Maria Magdalenan jakinarazpena ermitauen emazteei egin zitzaien, hauek kanpoan zeudela eta; izkribauak ermitauen “muger lexitima” zirela azaldu zuen, eta jakinarazpenaren aldemeneko azalpenetan hauek “a la Beata de” egin zirela zehaztu zuen. Serorak baino ez ziren aipatu Santa Marinan, San Martinen, San Estebanen, Berezanoko Santa Luzian, San Romanen, Santa Katalinan, Santa Kruzen, San Bartolomen, San Julianen eta Uribarriko San Andresen (Urrexolako -2- eta Araotzeko -8- ermitetarako datuak falta zaizkigu, jakinarazpenak bertako apezten esku utzi baitziren)⁶⁴². Litekeena da serora hauen kasuan ere zenbaitzuek senar ermitaua izatea, baina momentuan izkribauari honen inguruko azalpenik ez emanik, honek jakinarazpenean ezer aipatu ez izana. Beraz, eta Oñatiko ermitetako artapenaren egoera laburbilduz: funtsezkoena, itxura guztien arabera, tenpluaren artapenerako norbait egotea zen, zeina edo zeinak auzotarrei ondo iruditu eta hauen begitara bizimodu “egokia” eginaz gero, kargurako onartua zen, edo onartuak ziren, egoera zibilari (ezkonduak, ezkongabeak, alargunak) bereziki erreparatu gabe.

Ermitaren sostenguarekin erlazio zuzena zuten beste aspektu batzuk, karguen ezaugarri eta betekizunena eta izendatuek eraman beharreko doteena dira. Aspektu hauek, jarraian ikusiko dugun lez, Oñatin ermitaren zaintzaren karguaren esleipenerako helarazten ziren izendapenen eta alokairuen artean zegoen alde pentsatu baino txikiagoa zela adierazten digute. Izan ere, XVII. mendearen hasieraz geroztik, izendapen batzuk praktikan alokairuak baino ez baitziren. XVI. mendean oster, egoera Debagoieneko beste espazioetan ikusi dugunaren antzerakoagoa zela dirudi. Azal dezagun hau. XVI. mende bukaerarako dauzkagun hiru izendapenen artean, Narriako San Lorentzon 1597an egin zenak bertako seroratzaren zenbait ezaugarri azaltzen dizkigu. Lehenago aipatu izan dugu nola Catalina de Laquitegui ermita honetan sartu zenean bertan beste hiru serora zeuden, eta hauei obedientzia zor zien. Esleitu zitzaion serora kargua (serora-laguntzailearena, zehatzago), nahiz eta hartu nahi zituen “auito y uelo, de freyla”-k aipatzen ziren, ez zen nahitaez bizitza guztirakoa, dotearen promesa egitean, izendapenean seroragaiaren aurkezpena egin eta bere sostengua eman zuten Juanes de Sagarsurieta arotzak eta bere emazte eta seroragaiaren ahizpa Mari Ramos de Laquiteguik zehaztu zutenaren arabera, zilarrezko 200 erreal “al tiempo que moriere o por casso saliere de la dicha ermita y su seruiçio” emanak izango zituela edo emango zituela zin egin baitzuten. Horrez gain beste 12 dukateko kopurua ematea ere zin egin zuten, jada seroretxean serora gehiagorendako lekuri ez zegoela eta, diruok serora berriarendako zelda bat egitera bideratu zitezten; eta obra diru gutxiagorekin egitekotan ere, gainontzekoa ermitarendako izan zedin promesarekin⁶⁴³.

Dotearen ematearekiko ere berezia izan zen 1589an Santa Katalina (gaur egungo San Isidro) ermitan Oñatiko parrokiako abade eta bikario zenaren izendapenez zerbitzuan sartu zen Mari Ramos de Laquidiolaren kasua, ondasun askorik ez zeukala eta, ez baitzuen doterik eman. Ordez baina, bere heriotzaren orduan izango zituen ondasun guztiak ermitari emateko konpromezua hartu zuen, Leintz bailarako

⁶⁴² KKA-ACC, 17/769/1, f.g.

⁶⁴³ GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

elizateetako parroketan ikusi izan dugun lez, testatzeko gaitasunari uko egiten zion hitzarmen batean konprometatuz. Konpromezu hau ez zen Oñatiko ermitetan ohizkoa, eta promesa hau bikarioak dotetzat zerbait eman zezan eskatu ostean egin zuen seroragaiak; bikarioaren eskaerak ohizko egoeraren berri ere ematen digu beraz:

y junto con esto pues sabia ella la pobreza de la dicha hermita y le constaba dello que de los bienes y marauedies que nuestro señor se los habia dado y tenia dotase y señalasse alguna cantidad a la dicha hermita y para sus rreparos pues a su seruiçio se dedicaba desde luego que para despues de sus dias como hazian las demas seroras de las demas hermitas de la dicha Villa e su Jurisdizion⁶⁴⁴

Baina esan bezala, serorak, “pues con su trabajo y con lo que tenia habia de vibir”, doterik eman nahi ez zuela, baina aipaturiko promesa egiten zuela erantzun zion. Beraz, salbuespenak salbuespen, dotereko dauzkagun datuen argitara, XVI. mendearen bukaera alde hartan behintzat izan zuten ohitura serorek sarrerarako kopururen bat ematea zela esan genezake. Garai hartarako beste izendapen bat ere badugu, 1577an Goribarreko San Bartolome ermitako zerbitzurako aukeratu zuten Maria Juaniz de Sarasolarena. Baina izendapen honek ez digu gauza handiegirik azaltzen, funtsean, Goribarreko eta “Sandipilao”-ko auzotarrek serora izan zedin eman zioten onespeneraren protokolizazioa baino ez baita, serora berak hala eskatuta egin zena (“por ende me pedia e pedio a mi el dicho scriuano le de un testimonio del dicho consentimiento y boto de los dichos bezinos de manera que agase en publica forma”), eta hori dela eta, ez diosku gainontzeko aspektuen inguruko gauza handiegirik. Jaso dezakegun informazio apurraren artean auzotarra ez zela, eta agian Oñatiko herritarra ere ez zela nabarmendu liteke, ezen “estante en esta Uilla dixo que ella pretendia ser serora en la hermita del señor San Bartolome de esta Uilla y que de ello ella abia dado notiçia a los vezinos de la vezindad de Goribar y Sandipilao para que lo tubiesen por bien”. Adierazten digun beste gauza bat, halaber, beste izendapenen batzuen kasuan kasu honetan serorak eskatu zuen protokolizazioa egin ere ez zela egingo da; alegia, izendapen formalik gabe euren karguetan jardungo zuten seroren kasuak ere izango zirela adierazten digu.

XVII. mendearen erdialde ingurutik egiaztatu genezakeen egoeraren trazu orokorrak bestelakoak dira. Garai honetarako daukagun lehen izendapena 1655ekoa da, Araotzen, San Elias ermitarako Fauste de Aguirre Sargarai ermitau lanetarako aukeratu zutenekoa. Alarguna zen, eta Leintz bailarako bizilaguna, Aozaratzakoa. Ez dirudi beraz auzotarra edo herritarra izateari garrantzia erabakiorrik eman ziotenik⁶⁴⁵. Ondorengo izendapenek informazio esanguratsuagoa dakarkigute: 1676an Lezesarriko San Esteban ermita artatzeko Sebastian de Beitia eta Luisa de Arrazolarengan egin zuten izendapena Lezesarriko auzotarrek, Juan de Arrazola aurreko bikoteko senarra hila zenetik, bere alargun Josepha de Zubia ermitaren zaintzarekin jarraitzeko gogo gutxirekin zegoela eta:

en atencion a que Josepha de Cubia biuda del dicho Juan de Arracola su marido defunto se alla con pocos deseos de asistir a ella por falta del dicho su marido y no poder sobrelleuar las cargas y obligaciones que corresponden a personas semejantes y auiendo oido [???] otorgantes la propocion de la sussodicha y conciderado bien el estado de la materia y la falta tan considerable con que se alla la dicha hermita resolbieron nonbrar persona para su admi[nistracion]⁶⁴⁶

⁶⁴⁴ OUA Z 1063.9, 7r-8r.

⁶⁴⁵ GPAH-AHPG 1/3175, 502r-502v.

⁶⁴⁶ GPAH-AHPG 1/3214, 83r-83v.

Aipu honek, kargua bizitza guztirako ez zela adieraztearekin bat, ermitaren artapena pertsona bakar batendako oso eramangarria ez zela ere aditzera ematen digu, bidenabar, senar-emazteen bikoteak edo serora bat baino gehiago egon zitezaren zergatiak ere azalduz. Agian horregatik izendatu zituzten 1718an Olabarrietako San Jose ermitako zerbitzurako bi serora, Ana Maria de Cortabari eta Francisca de Olabarria, biak alargunak, eta baita 1734 Garagaltzako San Juan ermitarako Sebastian de Aldanondo eta Maria de Alcain bere koinata ere, pertsona bakarra izendatu beharrean. Kasu guzti hauek badute beste ezaugarri bat amankomunean ere: izendapena denbora jakin baterako egin zitzairen, ez zen bizitza guztirakoa lez hautematen. Lezesarriko San Estebaneko ermitauren kasuan izendapena “por el tiempo que fuere la voluntad de [los] otorgantes y no para mas” egina izan zen, Olabarrietako San Joseko serorenean 3 urterakoa izan zen “con calidad y condición que las dichas Seroras ayan de uiuir juntas en la Casa que esta en frente de dicha hermita que es perteneciente a ella durante los dichos tres años”, eta Garagaltzako San Juan ermitako ermitauren kasuan berriz, izendapena auzotarrek egina izanik gauza kurioa zena,

por el tiempo que fuere la Voluntad del señor Uicario foraneo de esta dicha Villa y su Partido, a quien para el efecto de hacerles arrendamiento en forma, y entrega de los ornamentos y demas pertteneziente â dicha hermita, daban todo el poder nezesario⁶⁴⁷

Ikusten dugu nola jada azken izendapen honetan ondoren ermitako ondasunak alokairuan eman ziren. Izan ere, orduan zela mende erdi bat behintzat, jada hasiak ziren Oñatiko ermitak alokairuan jartzen, eta izendapenak, karguaren esleipenerako formula bezala, jada desagertzen hasiak ziren.

1761az geroztiko izendapenek egoera hau berretsi baino ez digute egiten. Horrez gain, 1763ko San Antonio Abad edo San Anton ermitako ermitau eta serora senar-emazteen izendapenez beste, gainontzeko izendapenak ermitaurenak baino ez dira. Hau 1769ko desagerrarazte aginduaren gertutasunak eragina izan liteke, are agindua eman zedin aurretik ere apezpikutzaren aldetik egin ziren seroren bizimodua ikertzeko dilijentziek (adibidez, 1763an Elgetan egin ziren galdeketek⁶⁴⁸) giroa jada nahiko nahasia zegoela adierazten baitigute, eta desagerrarazte agindua aplikatu ostean, Oñatin bertan, 1782an bertako bikarioak ermitetan serorek izanak zituzten lanen debekua (“las Mugerres se abstengan del oficio de sacristanas”) artean kunplituki betetzeko ardura hartzen zuela baitakigu⁶⁴⁹. Kuriosoki, 1763rako aipatu berri dugun izendapenean ez zen alokairurik aipatu; agian, 1761a baino lehenagoko izendapenetan auzotarrek emaniko izendapen batzuetan lez, helarazleek –garai honetan jada, auzotarrekin bat alkateak– nahiko zukeen denborarako egina zela ulertu beharko genuke. Edo bestela, denbora mugapenik gabe egindako azken izendapenen adibidea genuke. Edonola ere, ondorengo izendapen guztietan urte kopuru jakin batzuetako alokairuak ezarri ziren jada, urteroko erretoa jakin batzuk ere esleituz.

Alokairuaren ohitura, XVII. mende bukaera aldetik jada izendapen formalik gabe egindako alokairu huts zirenez beste, izendapenekin bat egindako karguaren esleipenetan ere XVIII.en mendearen lehen erdialdetik ageri zaigu. 1718an Olabarrietako San Jose ermitako seroratzat Ana Maria de Cortabari eta Francisca de Olabarria alargunak izendatu zituztenean, 3 urterako esleitu zitzaizkien karguak, urteroko 4 dukat ordain zitzaizkien betebeharrarekin⁶⁵⁰. 1734an Garagaltzako San Juan

⁶⁴⁷ GPAH-AHPG 1/3290, 44r-45v.

⁶⁴⁸ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

⁶⁴⁹ KKA-ACC 6/562/85, f.g.

⁶⁵⁰ GPAH-AHPG 1/3249, 43r-43v.

ermitako ermitau bikote lez Sebastian de Aldanondo eta bere koinata Maria de Alcain izendatu zituztenean ere, hauek “mientras uiueren en la hauitazion de la referida Hermitta” urteroko 2 dukat ordaintzearen eskaintza egina zieten auzotarrei. Jada izendapenean herriko alkateak ere parte hartzen zuenean, 1764an Zubilagako Santa Maria Magdalenan Juan de Balanzategui ermitaua kargura sartu zenean, 6 urtetarako alokairua egin zioten, urteroko 4 dukateko errentarekin⁶⁵¹. Baina Juan de Balanzateguik laster hila behar zuen izan, 1765ean jada beste izendapen bat egin baitzen Ignacio de Ezpeletaren gain, eta bidenabar, errentaren kopurua 5 dukatetara igo zuten⁶⁵². 1789an Araotzeko San Eliaseko ermitaua zen Josef de Elorzak urte hartako 66 errealak (6 dukat) ordaindu zituen⁶⁵³, eta 1797an Santa Marina ermitako ermitau izendatu zuten Juan de Arrese 9 urtetarako alokairuan sartu zen, urtero 8 dukat ordaindu beharrarekin⁶⁵⁴. Alokairuaren ohitura zabal hedatu zen Oñatin beraz, baina horrek ez zuen esan nahi, jada aipatu izan dugunez, gizartearen aldetik zeukaten erlijiozko esparruaren baitako zerbitzarien hautemapena zeharo aldatu zenik; oraindik ere, ermitauak eta serorak ziren, inkilino huts beharrean.

IV. 4. HIRU KASU BEREZI

Atal honetan, hasieran azaldu izan dugun lez, batez ere hiru tenplu edo santutegi zehatzen jarraipena egingo dugu, beraien seroren komunitateekin; lehena, laburren ikusiko duguna, XV. mendearen bukaeratan eta XVI.enaren hasieratan kokatzen zaigu, Aro Berriaren hastapenetan, XVI-XVIII. mendeetako serorek izango zuten oinarritzko testuingurua eratze-bidean zegoen garai batean. Aski ezaguna dugun Arantzazuko (Oñati) Andre Mariaren santutegiaren hastapenetan kokatuko gara, lehen ermitaren fundatzaile eta lehen seroren komunitatearen buru izan zen Arriarango Juanaren kasu deigarriari begira. Trentoko Kontzilioko klausuraren aginduaren aurretik emakumeek testuinguru erlijiosoa eta tenplu eta ordenekiko erlazioak hauteman zitzazketen modura gerturatuko gara, bereziki boteretsua izatera heldu zen emakume baten ekinbideei begira.

Beste bi kasuak, XVII. mende bukaerako eta XVIII.enaren hasierako testuinguruan kokatzen dira jada. Normala denez, eskuragarri izan dugun informazio zabalagoa dela eta, komunitate hauek Arriarango Juanarena baino sakonago ikertzeko parada izan dugu. Biak ere biak seroren komunitateen gain hauek artaturiko tenpluen patroiek moja komunitate izaterako bilakaera izan zezaten jasan zituzten presioen adierazgarri dira, nahiz eta komunitate bakoitzak bere ezaugarri bereizgarriak zeuzkan, eta beraien bilakaerak azkenean oso ezberdinak izatera heldu ziren. Dazkaten berezitasunegatik, nahiago izan ditugu era "monografiko" batean landu, bertako seroren inguruko datu eta aipamenen batzuk, beste kapituluetan ere txertatu baditugu ere.

Dorletako Andre Maria santutegiak Erdi Aroko monasterio batean dauka bere jatorria, eta bertako seroren taldea, mojen komunitate baterako bilakaera izan zezaten ezarri zitzaizkien arau eta mugapenek sorturiko arazoan ondoren, XVIII. mendearen erdi-bukaera aldera desagertu zen, serora bakarrak artaturiko ohizko ermita bat izatera iraganez. Soledadeko neskatxen ikastetxearen inguruan bildu zen seroren taldearen historia osteraz askoz laburragoa da; 1645ean eraikia izan zen ermitaren alboko eraikinetan Maria Clara de Berroeta serorak 1732an sortua izan zen, eta zenbait urtetako

⁶⁵¹ GPAH-AHPG 1/3414, 49r-51r.

⁶⁵² GPAH-AHPG 1/3414, 15r-18r.

⁶⁵³ DEAH-AHDSS 1310/002-01, 90v.

⁶⁵⁴ GPAH-AHPG 1/3513, 307r-308r.

ibilbidea izan zuen, azkenean, ikastetxearen eraikuntza eta sostengurako beharrezkoak zituzten dohaintzen emaleen eta instituzioen aldetik mojen komunitate bilakatzeko presioei gradualki men eginez, serora izaten jarraitu zuen komunitateko azken emakumea hil zen arte. 1799an fundatuko zen ondorengo Mariaren Lagundiaren ikastetxearen eta bertako mojen komunitatearen hastapenak izan ziren. Hain egoera eta bilakaera ezberdinak izanik ere, seroren instituzioa bera gainbeheran zioan garai batean, moja beharrean serora izaten jarraitu nahi izan zuten seroren taldeak dira biak, oso modu ezberdinean izanik ere, ezarri nahi izan zitzaizkien bilakaerei erresistentzia agertu izan zietenak.

IV. 4.1. Arriarango Juana serora eta Arantzazuko santutegia (Oñati)

Arriarango Juana seroraren eta Arantzazuko santutegiaren kasuak Erdi Aro Berantiarrera garamatza, Errege Katolikoek erreinaldiaren ingurura, eta hortaz, kronologikoki, Aro Modernorako atarian kokatzen gaitu⁶⁵⁵. Arriarango Juana Arantzazuko santutegiaren jaiotzan eta bere eraginaren hedapenean garrantzia handia izan zuen serora bat izan zen, bertako lehenengo ermita, seroretxea eta erromesendako aterpetxea bere poltsikotik eraiki zituen. Egoera ulertzeko garrantzitsua da ordena mendikanteak Gipuzkoan orduantxe hedatzen hasiak zirela gogoan izatea, faktore honek bere aktibitateen garrantzia areagotuko baitu (García Fernández 1995), eta hein batean bere mirakuluzko sendaketen gaineko mesfidantza ekiditerako orduan ere eragingo baitu. Emakumeen bizitza erlijiosoaren gain ez zen oraindik klausuraren agindurik hedatu, eta serorak, are ordena erlijiosoekiko loturak izanik ere, ondorengo garaietan baino askeago bizi ziren. Horrez gain, Arriarango Juana familia boteretsuko emakumea zela dirudi, eta jakina da Gaztelako Gortearekin erlaziotan izan zela; Isabel erregina Katolikoak bere zerbitzuak behin baino gehiagotan eskatu omen zituen, herritarren artean jada hedatua zen bere mirakuluzko sendakuntzaren gaitasunaz gain, profeziarako ahala ere aitortzen baitzizaion⁶⁵⁶.

⁶⁵⁵ Atal hau osatzerako orduan, lan hauek izan ditugu oinarri nagusi: Uribe 1996 ("Santa Ana de Zubicoa de Oñate" dagokion atala, batez ere 395-401 or.); Mendizabal 2001 (lehen hiru atalak – 19-94 or. – eta gehigarritzat dakartzan dokumentuak – 317-339 or. –); eta Zubizarreta 2001. Mendizabalen beste artikulua bat ere bada ("Origen de los franciscanos en Oñati", 1999), gaiaren berri modu laburragoan ematen diguna. Batez ere Mendizabalen eta Zubizarretaren lanetan bilduriko informazioa eta iritziak jaso ditut, besteak beste, aurretik gaiaren inguruan landu izan diren iritziak jaso, balorazio kritiko propioa egin, eta azken urteetan aurkituriko dokumentuetako informazioa gehitzen dietelako. Autore hauen balorazio kritikoaren parte handi bat zentzuduna iruditzen zaidanez, gidatatzat baliatuko ditut, eta lan hauetan jasoriko bibliografiara bideratzen dut irakurlea gaiari buruzko iritzi klasikoak jasotzen dituzten lanen berri izateko. Informazio iturrien errepikapena ekiditeko asmoz, ondorengo aipuak transkribaturiko dokumentuen kokapena zehazteko eta aipaturiko lanez gain kontsultaturiko informazio iturriak aipatzeko egingo dira.

⁶⁵⁶ Erlazio hauek noiz gauzatu izan zitezkeenaren inguruan, Mendizabalen hausnarketek zentzudunak dirudite: "De haber investigado con sinceridad, podían haber averiguado que doña Juana pudo ser llamada a la Corte, pero no cuando los Reyes Católicos eran príncipes sino cuando se temió por la salud de la reina Isabel, que murió el 26 de noviembre de 1504. Su secretario, administrador y hombre de confianza era don Juan López de Lazarraga, hijo de Oñati y fundador del monasterio de Bidaurreta. Al ver que los médicos no hallaban remedio a la enfermedad de la soberana, pudo él manifestarle la existencia de doña Juana de Arriarán y sus éxitos en curaciones operadas en Arantzazu. La aceptación de la reina daría la razón a la tradición en lo que se afirma de la estancia de doña Juana en la corte.

Por otro lado este hecho revela la solidez del prestigio de doña Juana, ya que el secretario no se hubiera lanzado a llevarla a la corte, si la fama milagrera no hubiera estado precedida de éxitos notorios; ni la beata de Arantzazu hubiera osado acudir ante la reina, si no hubiera abrigado la esperanza de curarla.

En conclusión: la noticia de la estancia de doña Juana de Arriarán en la Corte puede darse por cierta, pero en 1504, aunque más acertado sería afirmar que visitó a la soberana en el castillo de la Mota de Medina del Campo (Valladolid), donde falleció el 26-11-1504" (Mendizabal 2001, 36-37).

Emakume honen aktibitateek sorturiko oihartzunaren itzaletara, luzera gabe, ordena mendikanteen gizonzkoen komunitateak heldu ziren. Interesgarria da Arantzazuko santutegiaren sorkuntzan inplikaturik izan ziren hasieratako komunitate ezberdinei erreparatzea, lehen urteetan, eliz agintariak ez baitzuten partehartze esanguratsurik izan: Ama Birjinaren agerpenaren harira, Arrasateko eta Oñatiko biztanle batzuek kofradia bat osatu zuten lehenik. Arriaran andereak lehen ermita, seroretxea eta aterpetxea eraiki zituen hurrena (hainbat autore "klasiko" eta modernoren arabera, Oñatiko hiribilduan kokaturiko Santa Marina ermitako serora izana zen aurretik), eta azkenik, Oñatiko Kondearen lehen baimen irregular xamar baten eskutik (lurralde horien jabetza berea zenik ez baita uste) obserbantzia ezberdinetako fraideak agertu ziren; hurrenez hurren mesedeetakoak, frantziskotarrak, jeronimoak, domingotarrak, eta frantziskotarrak berriz. Lehen garaiez ondorengo mugimendu hauen nondik norakoetan, Juana bera eta bere seme Pedroz gain, Elizako nahiz botere zibiletako agintari nagusiagoek ere izan zuten zer esanik eta zer eraginik, noski. Jeronimoen sarrerak bertako serorak Oñatiko hiribildura jeitsiarazi zituen, eta hauek, zenbait urte beranduago, "isabelina" egin ziren (Santa Ana monastegia, ordungo Zubikua – gaur egungo San Juan – kalean)⁶⁵⁷.

Noiz heldu zen Arriarango Juana Arantzazura, Ama Birjinari eskeiniriko ermitaren zaintza lanetara? Martin Mendizabalek, gaiari buruz ezagutzen dizkiogun azken hausnarketa eta kalkulu kronologikoetan, Santa Marina ermitako seroratzat lanen hasiera 1485 inguruan kokatzen digu. Ermita honi toponimoa 1149az geroztik ezagutzen zitzaion (jada desagertua dago), eta herriaren erdigunean kokaturik, zenbaiten arabera Oñatiko parrokia zaharra izana zitekeen (Aguirre Sorondo; Lizarralde Elberdin 2000, 298). Mendizabalen arabera, Juanaren senarra 1483an zendua zatekeen, eta ordurako jada bere semeak mesedeetakoen artean zenbait urte iraganak zituzkeen, 1490 inguruan ikasketak bukatuko zituzkeelarik. Zenbaiten iritzirako, Arantzazun kokatu zeneko lehen garaiak bakarka eginak zituzkeen, ordenekiko obediencia artean izan gabe eta beste serorarik gabe; alabaina, ordenekiko obediencia artean gauzatu gabea zela onarturik ere, Oñatiko ermitetako seroratzat egoerak posible egiten du Santa Marina ermitan serorak jada komunitatean bizi izana⁶⁵⁸. Edonola ere, mesedeetakoak

⁶⁵⁷ Seroretxearen gorabehera hauen ingurukoak, goraxeagoko 655 oinpeko notan aipaturiko autoreez gain, Lasak (1966) ere aipatzen dizkigu.

⁶⁵⁸ Mendizabalek (2001, 22), Lizarralderen (1950, 51, 7 oinpeko nota) eta Zubizarretaren (2001, 70) iritzien aurka, Santa Marinako seroretxean frantziskotarren menpeko seroren komunitaterik izan ez zela eta Juana bera ermitako seroratzat bakarka egona zitekeela diosku. Hainbat argudio ematen ditu: (1) Gonzagaren *Cronicón...* (1587)-ean agertzen diren "beaterio" edo seroretxeen gehiengoa, baten salbuespenez, aurretik serorek eurek partikularki eraikiak izanak zirela, ordenekiko lotura gabe; (2) Santa Marina Oñatiko parrokia zaharra izana zen eta ordurako ermita izatera aldatua zegoen, eta herriko ohituraren arabera ermitetan serora *bakarra* egon ohi zela; (3) Santa Marinako serora kargua jada bazeukanez, ermita utzita Arantzazura joateko kargua utzi beharko zukeen, eta ordezkotzat -fray Gaspar de Gamarrak eta fray Juan de Luzuriagak zioten lez- beste serora bat izendatzekotan, ordenenganako lotura gabeko ermitako seroren ordezkapen baten aurrean geundeke; eta (4) Seroren komunitate txikiak ordenetako obediencia sartzeko beharrezkoa zen serorak euren etxean jabe izan eta hauek ordenei emateko gai izatea, Santa Marinaren kasuan bezala herriko ermita bat izatekotan, ezin egingo zuketena (eta beraz, ordenarekiko obediencia jada Arantzazuko seroretxea Juana beraren eskutik eraikia izatean baino ezin zitekeen izan). Funtsean, obserbantzia ezberdinetako ordenen obediencia perako iragateak jada Arantzazun zeudela eginga izatearekin ados nago, (1) eta (4) argudioekin bat eginez. Alabaina, Juana aurretik Santa Marina ermitan serora izanak ez du halabeharrez komunitate txiki baten presentzia eragozten; (2) eta (3) argudioetan aipaturiko ermitetako serorak kontzejuak izendatzeko ohitura, ikusi dugunez, ez zen 1761erarte abian jarri, eta ordurarteko ermitetako seroren -eta ermitauen- gehiengoa nagusia, XVI. mendeko kasuak barne, izendapena inguruko auzotarrek eginik sartu ziren kargura. Serora bakarra egotearen ohituraren ere datu okerra dugu, hainbat seroraren presentzia ez baitzen arraroa; kasurik nabariena San Lorentzo ermitakoa dugu, non, 1597an, jada ermitako laugarren serora zenaren

heldu zirenerako Arantzazun jada seroren komunitate bat bazegoenaren inguruan, ez dirudi zalantza gehiegirik dagoenik. Urte zehatzik ez jakinagatik ere, Juanak Arantzazuko ermitako seroratza jaso eta, aurretik jada berarekin ez bazeuden, luze gabe han bildu ziren beste serora batzuk ere, eta zenbait urte egin zituzten bakarka, gizonetzkoen monasterio gabe, lehen ermitaren eta bertako kultuaren zaintzan. Kandido Zubizarreta historialari frantziskotarraren arabera, mesedeetakoak, Juanaren seme Pedro de Oñate buru zutela, 1493 eta 1498 bitartean egonak ziratekeen.

1501ean frantziskotarrek mesedeetakoak Alejandro VI aita santuaren *Sacrae Religionis* bulda medio “ofizialki” ordezkatu zituztenean, seroretxe baten eta aterpetxearen eraikuntzarako baimena ere lortu zuten, seroren egoera ere “ofizializatuz”. Momentu hartan Juanak bere burua “Orden de Santa María de Aranzazu” izena zeraman ordena baten fundatzaile eta buru egin zuen, frantziskotarren ordenarekiko menpekotza onartuz. Baina zergatik joan ziren mesedeetakoak, frantziskotarren agerpenari leku eginaz? Ez dago garbi, baina Juanak bi komunitateen (serorak eta fraideak) gain mantentzen zuen agintaritzak zenbait arazo sortu izan zizkiela dirudi. Gaiari heldu dioteneke hori iradoki izan dute; ez dago baina froga garbirik, dokumentuetatik ondorioztatu litekeen Juanak *de facto* zeukan agintaritzaz besterik⁶⁵⁹. Arrazoiak zirenak zirela, ondorengo urteetan Juana eta bere semea garai hartan ordena erlijiosoen erreforman ziharduen Cisneros kardenalarekin kontaktuan jarri izan ziren, eta 1501ean Pedorekin gelditu zirenen gizonetzkoen komunitateak Alejandro VI aita santuarengandik frantziskotarren abitua hartzeko onespina jaso zuenerako, aldaketa gauzatzeko zenbait pausu ezarriak zeuden. Pedro komunitateko buru berriz izendaturik, Cisnerosek bultzaturiko frantziskotar obserbanteen abitua hartzekoak ziren, baina hasiera batean tertziarioen abitua hartuko zuketean, ondoren lehen ordenara igartzeko, beti ere obserbanteen alderdi erreformatuaren baitan. Alabaina, Alejandro VI.aren buldan komunitatea frantziskotarren Gaztelako Probintziako Ministro Orokorren agindupean egoteko prest zegoela aipatu zen, eta hau, garai hartan, klaustralen edo konbentualen alderdikoa zen. Komunitateak, gainera, aita santuari ondasunen batzuek izateko eskubidea eskatu zioten, santutegiaren kokapenaren zailtasunak medio limosna eskaera bidez bizirautea ezinezkoa izango litzaiekeela eta. Eta hauxe zen, hain zuzen ere, obserbanteak klaustral edo konbentualengandik ezberdintzen zituena, lehenek -Arantzazuko komunitatearen alderdikoek- ondasunak izateari uko egiten ziotela, limosna eskaera hutsetik biziraunez. Azkenik, Arantzazuko komunitateak aita santuaren buldaren bidez alderdi batekoei nahiz bestekoei onargaitza zitzaien eskubide bat jaso zuen: monasterioa etxe autonomo izatea onartzen zen, hau da, bertako buruak komunitateko partaideen artean aukeratzeko eskumena ematen zitzaien, frantziskotarren Ministro Probintzialarengandiko nahiz Orokorrengandiko onespinen beharrik gabe.

Egoera hartan, eta ziurrenez batez ere azken eskubide honek motibaturik, Gasteizeko frantziskotar obserbanteen komentuko Zaintzailearen eta Arantzazuko komunitatearen arteko ikamikak izan ziren; lehenak, Arantzazukoak obserbantziakoak izanik, bere menpekoak zirela hautematen zuen, eta eztabaiden artean, kanporatzeko meatxuak ere izan ziren tarteko. Ikamiken giro hartan, 1506an Julio II. aita santuak

izendapena egin zen (ikus goraxeago IV. 3.2. azpiatalean, 351 or.). Ordenekiko obedientziarik Arantzazura iragan arte izan ez zela onargarria iruditzen zait hortaz, baina Juanaren inguruan bilduriko komunitate baten existentzia posible zen, hau Santa Marina ermitan zegoen garaitik bertatik.

⁶⁵⁹ Hala zela ondorioztatzen du Mendizabalek, eta nabaria dirudi 1. eta 2. gehigarrietan jasotzen dituen dokumentuetatik, batez ere 1509an Juana ("Eroa") erreginak bidali zion eskutitzetik, non Juanak aipatu zituen argudioak azaltzean, honek santutegiaren jabegoa eta bertako bi komunitateen gaineko agintaritzak bereak zirela -edo behinik behin, berak hala kontsideratzen zituela- nabaria den (Mendizabal 2001, 317-319). Aurreraxeago azalduko dugu hau xehetasunez.

Erromako Kapitulu orokorrerako deia egin zuen, konbentualen eta obserbanteen arteko liskarrei amaiera emateko asmoz. Aita santuak monje frantziskotarren komunitate guztiek alderdi baten edo bestearen hautua hilabeteren buruan egitea agindu zuen (*Religio sancta Minorum* bulda), eta horrek Arantzazuko komunitatearen banaketa eragin zuen. Buldaren helduerarako urruntasunak motibaturiko atzerapen batzuen ondoren, 1508an partaide gehienek obserbantziaren hautua egin zuten, eta ostera Pedro, beste bost partaiderekin, konbentualen edo klaustralen hautua eginik Arantzazun gelditu zen. Partaideen gehiengoa joana zenez, Juana jeronimotarrekin harremanetan jarri zen, beste abitu aldaketa bat egin eta komunitatea berriro osatzeko.

Gizonezkoen komunitate ezberdinak santutegitik iragan ahala, Juana bizi izan zen urteetan -gorabeherak gorabehera- bere seme Pedro de Oñatek fraideen komunitatearen buru izaten jarraitu zuen, eta honek ere garbi adierazten digu santutegiaren eta komunitateen gaineko boterea eta erabaki gaitasuna Juana berarenak zirela, bere semearenak beharrean (azken finean, Juanaren ordena baitzen aldaketa gabe mantentzen zena, gizonezkoenak aldatu ahala). Hasiera batean (1509an), frantziskotarren Ministro Orokorrak Arantzazuko fraideei ordenaz aldatzeko baimena eman zien. Alabaina, ondoren, monasterioa obserbantziara joateko utzi zuten frantziskotarrek hau berreskuratu nahi izan zuten, eta Juanarekin auzitan hasi ziren. Agian aukera egokia ikusi izango zuten, ezen Juana 1509an bertan hil baitzen, bere heriotza santutegiaren ondorengo norabidean erabakiorra izan zelarik. Hasieratan behintzat santutegiaren gain izan zuen agintaritza nabaria da Juana (“Eroa”) erreginak, santutegiaren propietatearen inguruan abian zen auzian deklaratu zezan bidali zion azkenengo eskutitzetariko batean; serorarekin harremanak izanak zituen Isabel Katolikoa hila zen jada, eta 1509an, santutegira itzultzeko ahaleginetan zebiltzan frantziskotarren aldetik “la dicha casa e monesterio” Arriarango Juanak eraiki izana ukatzen zen, “antes diz que se había fecho con las limosnas que los frayles de Sant Francisco, que moraron en el dicho monesterio, pedieron e demandaron, e que el dicho monesterio diz que es de los dichos frayles de diez años e más tiempo a esta parte”⁶⁶⁰. Baina erreginak berak serorak bere eskutitzean idazten zizkionak ere aipatu zituen, eta ez dirudi azken hau iritzi berekoa zenik, azalpenak, santutegitik iragandako ordena ezberdinen gorabeheretan momentuoro bere onspenaren beharra balego bezala, eta bere agintepean hari izan balira lez emanak zituela baitirudi:

Doña Juana, etc. A vos Juana de Arriarán, vecina de la villa de Oñate, salud e gracia. [...] Bien sabedes cómo por vuestra parte me fue hecha relación que vos habíades fecho e edificado una iglesia muy devota en el término de la dicha villa de la invocación de N^{ra} S^a Sancta María. En la qual en algún tiempo diz que habíades dado lugar que estoviesen frayles de la Merced e que después por algún tiempo habían estado en ella frayles de la Orden de Sant Francisco de la Tercera Regla e que, por algunas diferencias que entre ellos había habido, los más dellos se habían ido a la Observancia de Sant Francisco e habían dexado la dicha casa e que vos, visto lo susodicho, habíades dado la dicha casa a la Orden de Sant Jerónimo, lo qual había habido por bien el Ministro General de la dicha Orden de Sant Francisco; et que agora venía a vuestra noticia que los frailes de Sant Francisco que habían morado en la dicha casa, después de se haber retroydo a la Observancia, querían tornar a venir e morar en el dicho monesterio contra vuestra voluntad e sin vuestra licencia, a fin de adquirir posesión de la dicha casa. Por ende que me suplicábades e pedíades por merced mandase amparar e defender a vos e a los dichos frailes en la dicha casa...⁶⁶¹

⁶⁶⁰ Mendizabal 1999, 109-111 or., eta 2001, 318 or. (azken honetan dokumentu osoaren transkripzioa dakar).

⁶⁶¹*Loc.cit.*

Baina Arriarango Juana –berari buruz jasoriko informazioak iradokitzen duenaren arabera– 1509an bertan hil zenerako ez zuten gauzek ondo egon behar, ziurrenez frantziskotarrekin zeuzkaten propietatearen inguruko auziek nolabait motibaturik, urte hartan bertan, komunitatea osatzen gelditu ziren lau serorek etxe bat erosi baitzuten hiribilduko Zubikoa kalean; eta halaber, Juana hil zenetik denbora laburrera (1509-1512 bitartean) santutegi ondoan zeukaten etxea saldu zuten.

Bere amaren heriotzaren ondoren Pedro estualdiek harrapatu zuten; jeronimoek, itxura guztien arabera santutegira itzuli nahian zebiltzan frantziskotar obserbanteekin liskarrik ez izateko asmoz, santutegia 1510ean utzi zuten, eta Pedro bakarrik gelditu zen. Frantziskotarren presioaren aurrean Oñatiko kondearengana jo zuen, honen bidez, domingotarrak santutegira ekartzeko asmoz. Eta hasiera batean bere xedea lortu zuen, abitu aldaketarako onespina jasoz eta beste behin, komunitateko buru izatera iraganez. Baina urte hartan bertan domingotarrek Salamankan Kapituluak izan zuten, eta bertan, Arantzazuko komunitateko buru fray Domingo de Córdoba Montemayor izendatu zuten. Hori gutxi balitz, jarraian frantziskotar obserbanteek Pedro Vatikanon zitaztea lortu zuten, Cisneros kardenalak ezarritakoaren arabera santutegia beraiei zegokiela eta. Setiaturik, Pedrok domingotarrei bezalaxe frantziskotarrei ere aurka egin zien, santutegiaren fundazioaren garaian -bereak ote ziren garbi ez dagoen- hartarako lurrak eman zituen Oñatiko kondeak santutegia berari eman ziola argudiatuz. Ez zuen baina ezer lortu, eta garaiturik eta ziurrenez mindurik, bere hastapenetako ordenera itzultzea lortu zuen azkenik, mesedeetakoenera, azken urteak abitu honekin biziz. Azaldu berri dugun ibilbideari erreparaturik, ez dut uste gehiegi nahasiko garenik, aipaturiko gertaera guztiok (serorak hiribildura jeistea, jeronimoek santutegian hain gutxi iraun izana, Pedrok komunitatearen buruzagitza galdu izana) Juana beraren heriotzak eragin zituela susmatzen badugu. Momentu hartan beraz, Arantzazutik kanpo zeuden jada bere hasieratako sorkuntzan parte hartu zuten eragileen artean bizirik gelditzen zirenak. Ondorenean, domingotarrek eta frantziskotarrek Erroman erabaki zuten Arantzazuren gaineko auzia, eta azken hauen aldeko erabakia 1513an eman zen.

Serorei dagokienez, behin herrira jeitsi eta zenbait urtetara, eta oraindik “Santa María de Aránzazu” izeneko ordenako izanik, zenbait bizilagun gaizkiesaka hasi ziren antza: besteak beste, frantziskotarrekiko menpekotasunik ez zeukatela, hiribilduan egoteko frantziskotarren probintziako ministroaren baimenik ez zutela, ez zirela beraien jurisdikziopeko, eta tankerakoak zebiltzan bolo-bolo; ordena arras berria ez zuten erabat ortodoxotzat ikusten, edo norbaitzuek bazuten interesik behintzat, uste hau hedatu zedin. Esamesen jakitun, Andrés de Cerezo frantziskotarren probintzialak, 1520ko azaroaren 10ean Bidaurretako monasteriora etorria zelarik, adierazpen bat egin zuen notario aurrean, esamesok isilarazteko seroren frantziskotarrenganako menpekotasuna berretsiz. Hurrengo urtean, erlijioso tertziarioendako emakumeen komunitateetan – Hungriako Santa Isabel beraien patroia omenez– “isabelina” izena hartu zuen erregela berri bat onartu zenean, Zubikoako serorek erregela hau hartu zuten, akaso, esamesak jada erabat isilarazteko asmoz (1962rarte mantendu zuen gero komunitate honek “isabelinen” erregela). Trentoko klausura agindua 1596 inguruan onartu zuten, jada bere taxukera guztian, klausurako komentuko moja bihurtuz.

Oñatiko espazioaz haratago, Juanaren komunitatearen edo bere eraginaren hedapenaren beste espazio posible bat ere azaltzen zaigu, *Libro de visita del licenciado Martín Gil* delakoan. Bisita liburu honetan, Arrasateko monasterioez diharduelarik, honakoa aipatzen zaigu: “[...] el uno es de la horden de San Francisco y el otro es de la horden de Sant Agustín; éstas son sujetas [al] monasterio de Badaya y las Françiscas a una señora de Arañçadi”. Printzipioz, bisita liburu honen argitalpenaren hasierako

ikerketan esaten zaigunaren arabera, eta iturri hau erabili izan duten hainbatek onartu lez, bertako datuak 1551-1552 bitartean jasoak izango ziratekeen. Alabaina, aipatu berri dugun datua, eta neure eta besteren zenbait kontsiderazio eta hausnarketa direla eta, nire ustetan behintzat, liburua, data zehatz bateko materialez baino, XVI. mendearen lehen erdialdean jasotako datuek osatua legoke⁶⁶².

Hortaz, posible litzateke Aranzadiko andere hau Juana bera izatea; ohar dezagun Arantzazuko lurraldeek Aranzadi izena zeukatela, Amabirjinaren agerpenaren istorio sonatua hedatu ahala, azkenean Arantzazu (“Arantzan-zu”) izena orokortu zedin baino lehenago. Alde batetik, badakigu lehen garaietako kofradia Arrasateko eta Oñatiko biztanleek osatu zutela; ez litzateke hain arraroa izango, Arrasateko biztanleen artean,

⁶⁶² Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 365 or. Bisita liburu honen dataren gain zalantzak izateko zenbait argudio aurreko ikerlan batean landu nituen, oinpeko nota batean: "Liburu hau, esku artean dugun edizioaren arduradunak egiten duen sarrerako ikerketaren arabera, 1551-52 urteen bitartean osatu edo konposatua zitekeen. Gutxienik bost esku ezberdin dituen eskuizkribua dugu, eta izkribau bakoitzak informazioa iturri batetik baino gehiagotik batu zuela dirudi, hizkuntz berezitasunek aditzera ematen dutenez; Martín Gil delakoaren izena ematen bazaio, besterik gabe, eskuizkribuan bere izenaren berri eman zuten bisitatzailerak bakarrik izan zelako da. Bestalde, bisita liburu honek, beste bisita liburuekiko bere berezitasunak ditu, funtsean datu ekonomikoak batzeko asmoz egina izan baitzen. 1534.ean, Paulo III.ena aita santuak, jada poltsikoak ondo husturik zituen Karlos V.a Espainiako erregeari turko eta musulmanei aurre egiteko diru laguntza bat ematea erabaki zuen. Laguntza hau Espainian Elizak zituen ondasunetatik jasotzea agindu zuen, eta hortaz, diozesi guztietako ondasun, diru eta errenten berri jasotzea erabaki zen. Kleroa laster hasi zen protestaka, diozesiak ere ez baitzebiltzan aberastasunez nasai. Kalagorriko apezpikutzaren kasuan 1542.ean hasi ziren informazio bilketak, eta kleroa eta ordena erlijiosoen erresistentzia zela eta, arazo eta atzerapenak 1551-52 urteen ingurura arte luzatu ziren. Azken urte hauetan, eta monasterioen kasuan, zenbaitek ordainketetatik salbuesten zituzten dokumentuak zituztela argudiatzen zuten, ordaintzeari uko egiteko. Hortaz gain, monasterioetako bisita ez zuten ohiko bisitatzailerak egiten, ordena bakoitzeko bisitatzailerak baizik. Hori dela eta, itxurazko anakronismo honetarako bi azalpen posible ageri zaizkigu: edo 1542.ean hasiriko inbentarioa egiterakoan izan ziren lehen atzerapenak motibaturik, Arrasateko (eta bailarako) eliza eta monasterioei zegozkien datuak osatzeko, Juana bizirik zegoen garairen batean (1509 urtea baino lehenago) jasoriko informazioak baliatu ziren, edo 1551.ean egin zen zentsu berrian, bertako monasterioei buruzko informazioa ordenetako arduradunak emana izanik, Arrasateko beateen monasterioa ordainketaz salbuesteko, ordenaren menpeko zuzentzat baino, jada zenbait urte hila zen Juanaren ardurapeko balitz lez agertarazi zuten. Lehen hipotesia zuzena balitz, 'Arçiprestazgo de Léniz' zelakoa baitaratzen duen koadernotxoari (18 koadernotxok osatzen dute eskuizkribua) dagokion informazioaren kronologia 1509. urtea baino lehenagoko garairen batera aurreratu beharko litzateke, eta bigarren hipotesiaren kasuan, 1551-52. urteen inguru horretan, noizbait monasterioa Juanaren magalpeko izana zela gogoan zutela adieraziko luke. Bi hipotesiak okerrak balira ostera, 1542-1552 urteen tarte kronologikoan bisirik legokeen 'señora de Arañadi' hau nor den argitu beharko litzateke, aurretik Aranzadi izena zeraman Arantzazuko beateen komunitatea hiribildura, beranduen jota, jada 1509-1512 bitartean jaitsi zela kontuan izanik. Pertsonalki, aipaturiko bi hipotesietakoren batek zuzena izan behar duelakoan nago" (Larrañaga Arregi 2010a, 26, 69 oinpeko nota).

Esandakoen artetik, azken hipotesiaren posibilitate urriak azpimarratu nahiko nituzke lehenik. Kasualitate handiegia baitirudi, Arantzazuko seroren komunitatea XV. mende bukaera-XVI.enaren hasiera aldean Aranzadiko anderetzat aipatua izan zen Juanak gidatzeaz gain, garai bereberetan edo 1551-1552 inguruan, Arrasateko "franciscas"-en komunitatea ere "señora de Arañadi" zelako baten menpeko izatea, areago, aipuan adierazi bezala, azken hau jada 1513az geroztik frantziskotarren ordenaren menpekotzat ageri zaigunean; komunitateaz kanpoko emakume batekiko menpekotzak ez zukeen zentzurik izango, jada frantziskotarren ordenak bere menpeko komunitateen artean onartuta zeuzkan garai batean (lehenagoko garai batean izanaz gero ostera, posible litzatekeena).

Bestalde, aipatu berri ditudan hausnarketak egin ondorengo garaietan, bestelako alderdiak, datuak eta ikerketak ohartu eta aurkitu ahal izan ditut, interpretazio zabalago bat posible egiten dutenak. Alde batetik, Leintz bailarari dagokion koadernotxo Arriarango Juanaren heriotzaren aurretiko garaietan kokatzearen aurka egiten duten beste datuen batzuk badaudela ohartu ahal izan dut; zenbait pertsonaia konkreturen aipamenek, Pablo Díaz Bodegasen 1551-52 urteen inguruko kokapenaren alde egiten dute. Besteren artean nabarmenatariko bat, Angiozarko San Migel parrokiaren patroitzat Francisco de Zuazola ageri zaigula, 1589ko bere testamentuan Azkoitiako Santa Klara komentua fundatu zuen berbera. Auzi

Arantzazuko beaten komunitatearen tankerako bat ere sortu izana. Bestalde, Juana “señora de Arançadi” lez ere ezagutzen zutela, bere aktibitate sendatzaile miragarrien berri ematen digun 1494ko eskutitz batean ikus liteke. Bertan iloba batek osabari dirua eskatzen zion, Oñatiko “santa Maria de Arançadi” elizan zegoen “devota muger” batengana joan ahal izateko (Arriarango Juanarengana, alegia); honek, gaixorik okerrenak ere mirakuluz sendatzeko gaitasuna omen zuen (Mendizabal 1999, 102 eta 2001, 317 -eskutitz honen eta data gabeko beste baten transkripzioak dakartza-). Horrez gain, Arrasateko komunitatekoak aipagai dugun bisita liburuan “franciscas” bezala ageri bazaizkigu ere, dakigunerarte behintzat, frantziskotarren iturrietan Arrasateko monasterioa 1513an ageri da lehen aldiz ordenaren menpeko lez (García Fernández

baten bidez, bestalde, badakigu proposaturiko 1551-52 dataren inguruan, zertxobait beranduago bada ere, 1556-1563 bitartean, Francisco jada bazela Angiozarko parrokiaren patroia (EUA C-32, Bergarako baserri buruzko Patxi Larrañagaren webgunean aipatua: <https://sites.google.com/site/bergarakobaserriak/home/angiozar-auzoa/angiozar-erdikoa/mikel-done---san-miguel-1>). Francisco de Zuazolarekiko datuek, beraz, XVI. mendearen erdialdean kokatuko gintuzkete, hasieran baino.

Eta oster, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiari dagozkion beste datu batzuek 1539a baino lehenago jasoak behar zutela ohartzera ere bagaramatzate. Urte hartan, serorek eurek kabuz eginak zituzten "ciertos edificios nuevos y muchos ornamentos"-en berri eman zen apez eta benefiziodunek seroren aurka apezpikutzan aurkezturiko kexu batean. Alabaina, diogun bisita liburuaren arabera, Leintzeko Artzapezpikutzatik iragan zen bisitatzaileak santutegia ermiten artean beste bat bezala baino ez zuen aipatu, –beste kasu batzuetan aipagai izan ohi ziren– obrarik aditzera eman gabe, nahiz ezer berezirik gehitu gabe: "Ay ocho ermitas: Santa María, Sant Martín, [...]" (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 387). Bisita liburua 1551-1552 urteen bitartean osatua izatekotan, 1539an ekindako obrak, edo obra hauetan eraiki zen seroretxea eta serorak, bisitatzaileak aipagai izango zituzkeen; eta ez zuen halakorik egin, ermiten zeuzkaten lursailak, berriki obrak eginda zeuzkaten komentuak, edo auzotarren, udalen eta apezten artean zeuden auziak, eta are seroretxeren bat ere aipatu izan zituenean. Gainera, 1539an serorek "alguna cantidad de hacienda para la dicha ermita" bildu izan zutela aipatu zen, eta nabaria da, esleitzen diogun kronologia delakoa dela, Gil lizentziatuaren bisita liburuak zio bereziki ekonomikoak zeuzkala: tenpluen primiziak, hamarrenak, ondasunak eta errentak ziren batez ere, bertan jaso zirenak. Baina Dorletako "hacienda"-k ez ziren aipatu. Hutsune hau bisita liburuaren 1551-1552 urteetako kronologia okerra dela dioen hipotesia sendotzera dator, eta hori hala balitz, aipaturiko datuak XVI. mendearen lehen erdialdean, zehazki 1539a baino lehenagoko garaietan, santutegiak oraindik ermita soil baten itxura zeukala aditzera emango liguke (ikus santutegiaren gorabehera hauen ingurukoak IV. 4.2. azpiatalean, 366 eta hurr. or.)

Izan dira, gainera, bestelako ikertzaileak ere, aipagai dugun bisita liburuan baitaturiko datuen homogeneotasun kronologikorik eza ohartu izan dutenak. Hala, Santiago Ibañez Rodríguez, liburuak datuen izaeraren eta espazioen banaketaren inguruko zenbait hausnarketa eginik, eta besteak beste, bisitek Bizkaiarekiko 1539az aurretiko egoera agertzen dutela nabarmendurik (urte hartan Kalagorriko apezpikuaren eta Bizkaiako Jaurgoaren artean egin zen hitzarmena arte, ezin izan baitziren apezpikutzako bisitatzaileak Jaurgoan bisitak egitera sartu izan), liburuak osatua behar zuen garaiarekiko zenbait ondorio interesgarritara heldu zen; hona bere hausnarketak: "El *Libro* fue confeccionado por diversas plumas, el título y al año que contiene también. En efecto, el *obispo don Antonio Haro*, el que menciona el título, no puede ser otro que Antonio Ramírez de Haro que ocupó la silla de Calahorra entre 1541 y 1543. Por tanto, el año de 1556 [*liburuan bertan idatziriko data*] o es erróneo o el *Libro* fue escrito con posterioridad cuando ya el obispo Haro servía en Segovia. ¿El obispo Ramírez de Haro llevó a cabo alguna visita pastoral en su diócesis? Los últimos apuntes biográficos publicados sobre Ramírez de Haro destacan de su figura la celebración de un Sínodo en Calahorra en 1542 y la publicación de un Misal Diocesano impreso por Juan de Brocar, pero nada informan sobre una visita que en todo caso parece improbable a tenor del breve tiempo que ocupó la sede calagurritana.

Si descartamos que *El libro del licenciado Martín Gil* responde a una visita de Ramírez de Haro, menos aún podemos adjudicar esta visita a Juan Yáñez (1543-44) entretenido al año que vistió la mitra episcopal en celebrar un Sínodo en Santo Domingo de la Calzada. Tanto a Antonio Ramírez de Haro como a Juan Yáñez se les puede considerar obispos de transición entre quienes les precedieron y sucedieron. La labor pastoral que transmite la *visita* sólo pudo ser llevada a cabo por dos destacadas figuras del panorama diocesano de la primera mitad del siglo XVI, o bien por Alonso de Castilla (1523-41) o por Juan Bernál Díaz de Luco (1544-56). Bernal de Luco, bien conocido como padre del Concilio

1995, 215). Hipotesi lez, Juana 1509an hil zela eta bera hil eta gutxira (1509-1512) Arantzazuko seroren komunitatea hiribildura jeitsi zela aintzat hartuaz gero, –jada berarekin auzitan zebiltzan– frantziskotarrek Juanaren menpeko bi seroren komunitateen gaineko kontrola bera hil osteko garai hartan ezarri zutela eratorri liteke, honek, Arantzazuko komunitatearen hiribildurako jeitsiera, eta Arrasateko komunitatearen “ofizializazioa” eragingo lituzkeelarik. 1501ean “Orden de Santa María de Aránzazu” zelakoa jada frantziskotarren menpeko ordenatzat eratu bazen ere, Juanak frantziskotarrekin ondoren izan zituen arazoak aintzat hartzen baditugu, litekeena ote Juana hil eta frantziskotarrek egoeraren kontrola hartu ez zuten arte, Arrasateko komunitatea ordenaren baitan ez onartu izana? Posible badirudi ere, nahasia ageri zaigu

de Trento, pasó importantes temporadas en la ciudad de Vitoria y se sabe que visitó muchos arciprestazgos, incluidos los de Vizcaya y Oñate. Más aún, entre sus innumerables labores pastorales, muchas de ellas instruidas desde Roma, destaca su escrito jurídico-práctico dirigido a sus oficiales subordinados que llevaba por título *Instrucción para los visitadores* del obispado, compuesto en Trento en 1551. [...] Es seguro que Bernal Díaz de Luco llevó a cabo visitas pastorales recorriendo toda la diócesis, incluso pudo llevar a cabo una que abarcase a todas sus parroquias, pero parece improbable que sea la que recoge el *Libro* del licenciado Gil. En un rápido análisis del contenido del *Libro* se puede observar que no se menciona ningún arciprestazgo comprendido en la provincia de Vizcaya. Del centenar largo de iglesias de Vizcaya que pertenecían a la diócesis de Calahorra sólo se anotan las de la Vicaría de Orduña, territorio rodeado por tierras de Alava y Burgos y que fue incorporado al señorío de Vizcaya tardíamente. Esta omisión no parece ser meramente circunstancial y nos traslada al tiempo en el que el obispo de Calahorra no podía ejercer plenamente su jurisdicción episcopal en Vizcaya. De igual manera se observa cómo las iglesias catedrales (Calahorra y la Calzada) y colegiales (Logroño, Vitoria y Cenarruza) de la diócesis no fueron visitadas y eso a pesar del pleito que se entabló entre cabildos catedrales, de una parte, y obispo, de la otra, en 1547 cuando se negó la entrada al licenciado Pisa en la Catedral de la Calzada.

En definitiva, la *Visita* que estamos analizando bien podría haberse llevado a cabo durante el obispado de Bernal Díaz de Luco, pero la realidad diocesana que contiene el *Libro* es precisamente la que se liquidó con anterioridad en el acuerdo de 28 de marzo de 1539 entre el obispo Alonso de Castilla y el Señorío de Vizcaya. Sólo estas capitulaciones permitieron a los obispos de Calahorra la plena jurisdicción eclesiástica sobre todo el territorio diocesano y también poder llevar a cabo una fructuosa cura pastoral" (Ibañez Rodríguez 1998, 136-138).

Honi, Díaz Bodegasek liburuari egin zion aurkezpenezko ikerketan eman zituen argudioei pisua kentzen dien beste zehaztapen batzuk ere gehitu dakizkioke. Izan ere, Paulo III. aita santuak Karlos V. Espainiako erregeari 1542an Elizak Espainiako lurretan zeuzkan ondasunetatik ematea erabaki zuen diru laguntza gauzatzeko instrumentu nagusia, dagokigun bisita liburu baina nabariago, 1543ko *Libro de las facultades de las rentas eclesiásticas de este obispado de Calahorra y la Calzada* izan baitzitekeen. Edo, areago, bisita liburuaren "azken erredakzioa" beste liburu honekiko erlazioan burutua izan zitekeen, Ibañez Rodríguezek zentzudunki azaltzen digunaren arabera: "La precisión de la información de la *Visita* y el hecho de que el libro esté compuesto siguiendo un hipotético cuestionario debe ser puesto de inmediato en relación con el *Libro de las facultades de las rentas eclesiásticas de este obispado de Calahorra y la Calzada* de 1543. En este último se plasma la averiguación de los *veros valores del obispado* para conocer las rentas de todas las iglesias de la diócesis y poder así distribuir entre las parroquias el pago del subsidio. En el *Libro de facultades* aparece absolutamente toda la diócesis, incluso el Señorío de Vizcaya distribuido en arciprestazgos. Los *veros valores* corresponden al quinquenio 1537 a 1541 [gogoan izan dezagun aita santuak Espainiako erregeari diru laguntza emateko erabakia 1534an hartu zela] y la averiguación, como hemos dicho, es de 1543. El *Libro de visita* [alegia, bere "azken erredakzioa"], sin duda, se escribió en torno a esas fechas, quizá en 1543 ó 1544" (*Ibid.*, 140).

Ze ondorioztatu dezakegu guzti honetatik? Funtsean, liburu bere izenburuak dioen datan edo lehenago (1543, 1544, 1556) bukatua izan bazen ere, bere *corpus*aren parte handi bat 1539az aurretiko egoerari dagokiola, eta baita, Paulo III.enak Karlos V.enari eman zion "subsidio" edo diru laguntzaren testuinguruan, ondorengo urteetako datuak baitaratu izan zitzaizkiola ere. Hortaz, "señora de Aranchadi"-ren aipamena bezalaxe Dorletako santutegian serorek egin zituzten obren aipamenik eza 1539az aurretiko egoeraren adierazle lirateke, eta ostera, besteren artean, Francisco de Zuazolaren patroitzaren aipamena, liburu bukatu zenean gehituriko datuen parte litzateke. Beraz: liburu honetatik heltzen zaizkigun datuak bi testuinguru kronologiko hauetariko batean garbiki kokatu ezin ditzakegun artean, kronologia zabal baten baitan hautemango ditugu, XVI. mendearen lehen erdialdekoztat, eta ondorioz, liburuaren data bera

egoera, eta ez dugu behar besteko informaziorik, Arantzazuko eta Arrasateko seroren komunitateen arteko lotura posible honen gain, ezer ziurtasunez baieztatzeko.

Arriarango Juanaren kasu berezi eta –Gipuzkoaren kasurako– goiztiarrak, dena den, ondorengo mendeetan batez ere hiribilduetako seroren aurrean orden mendikanteek hartuko zituzten norabideak azaltzen dizkigute, lehen kontaktuen garaian. Eta adierazgarria zaigu, ordenekiko loturetan, serorek ondorenean hartuko zituzten ibilbideen norabideak bere figuraren baitan batzen baitzaizkigu: tenpluren baten zerbitzuan eta herri-mailako (edo auzo-mailako) autoritateei loturik, ordenen menpekotzatik at mantentzen ziren bakarkako edo talde txikietako serorena (Santa Marina parrokia edo ermitako serora zeneko egoera); ordenekiko loturetan artean sartu gabe, tenpluren edo instituzioren baten inguruan biltzen ziren seroren talde edo komunitateena (mesedeetakoak santutegira heldu aurretik seroren komunitateak zuen egoera); eta azkenik, beraien ibilbidea ordenekiko loturen menpe garatu zuten komunitateena (ordenen bidez onarturiko erregelak jarraitu, eta azkenik klausuraren bidea hartuko zutenena). Arriarango Juanaren ekinbideak egoki ulertzekotan, hala ere, berak sortutako komunitateak azkenean hartu zuen ibilbidea ezin aurreikusi zezakeela behar dugu aintzat hartu; izan ere, urrun baitzen oraindik klausurarako aginduaren bidez ordenei loturiko komunitateen patua erabakitzekoa zen Trentoko Kontzilioa (XXV. sesioa, 1563), eta ez dirudi, zeramaten bizimoduaren arabera, Arriarango Juanak bere komunitatearendako halako egoera desio zuenik. Ezin zuen aurreikusi, komunitatea hark 1596an klausurapeko bizimodua egiteari ekingo zionik, santutegiaren inguruan bildutako sinestunen, erromesen eta behartsuen artapen lanetan jardutearekiko, aski ezberdina zen bizimodu kontenplatibo batean.

IV. 4.2. Dorletako Andre Mariaren santutegia (Leintz Gatzaga)

Atal bereziak eskaintzen dizkiegun santutegiaren ezaugarrietariko bat, serorek hasieratan ordenez aparteko nolabaiteko komunitatea osatu izana dugu. Hainbat lekutan izaten ziren seroren taldeak bizitzen, parrokia, ermita, santutegi nahiz ospitaleetan, normalean, kopuru handiegira heldu gabe. Debagoienean egin dugun gainbegiratuan, azaldu zaizkigu zenbait. Bergaran, San Pedro parrokiako seroretxea fundatu zenaz geroztik (1572) 3 serora bizi izan ziren bertan, herriko beste parrokia nagusi Santa Marinako seroretxean 1677a baino lehenagoko dataren baterarte bezala (urte hartako hitzarmen batean 3 seroratik 2ra jeisteko aurretiko erabaki bat aipatu zen), Elosua auzoko San Andres parrokiako seroretxean, 1595ean, 4 zeuden eta beste 2 sartu ziren, eta Murinondoko Andre Maria ermitan, 1570ean, 3 edo gehiago baziren (zaharrena eta "las demas"). Antzuolan, Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako seroretxean 4 serora izateko ohitura finkatu zen, behintzat, XVII. mendetik, hurrengo mendearen bigarren erdialdera, etekinen faltak motibaturik, kopurua gutxituz joan zen arte. Oñatin, Narria auzoko San Lorentzo ermitan, 1597an 4 izatera heldu ziren, urte hartan egin zen izendapenarekin. Komunitate txiki guzti hauetatik mojen ereduatarako nolabaiteko gerturapena, dagokigun Dorletako santutegiarekin bat, Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako seroren komunitateak baino ez zuen egin, eta aski modu xumean, Kalagorriko Konstituzio Sinodalek enbarazurik ez egiteko beste baino ez⁶⁶³. Ez zen, edozein kasutan, Dorletako santutegia bezala, klausurarako erdibide irristakorrean sartu. Eta gainera, 1639an auzotarrek seroretxearen jabegoa eta seroren izendapen eskubidea eskuratu zutenaz geroztik, parrokiako apezten eta udal agintarien botere

ere horrela aipatu dugu eta aipatuko dugu.

⁶⁶³ Ikus hauei buruzkoak gorago, tenplu bakoitzarenak dagozkion atalean.

esparruetatik aldentzea lortu zuten. Bi faktore hauek izan litezke pisutsuenak, Uzarragako seroren patuak Dorletakoenaz hain bestelako ibilbidea izana izateko. Izan ere, Uzarragakoek, XVIII. mendeko estualdi ekonomikoek bentzuturik bazen ere, 1769ko desagerrarazte agindurarte iraun bazuten, Dorletako komunitatea, oster, XVII-XVIII mende bitartean klausurarako erdibidera eta apezten eta -batez ere- udaleko agintarien manupera iragan ostean, XVIII. mendearen hasieran bertan joan zen gainbeheran, hainbat liskar tarteko izan ostean.

Dorletako Andre Mariaren santutegiaren historiak hutsune handiak ditu, nahiz eta oso garai zaharretatik dagoen bere berri. Leintz Gatzagari buruzko lehen iturri dokumentalek XI. menderarte garamatzate, eta santutegiaren lehen aipamena 988. urtekoa da, San Millan de la Cogollako kartulariokoa. Bertan Leintz Gatzagako "Oveco Ferruci" eta "Munio Ferruci" zirelakoek egindako lursailen dohaintza bat medio gatzagen ondoko "eclesie Sancte Marie Virginis et genitricis Domini nostri Ihesu Christi, que dicunt de Arce" bat aipatzen da, garai hartan monasterioa zena, eta ondorengo Dorletako santutegiarekin identifikatu izan dena. Santutegiaren inguruan egindako indusketek kronologia hau berretsi izan dute, XI-XII. mendeetan daturiko nekropoli bat azaleratu baitzuten. Santutegiak zeraman abizenak berak, "de Castillo", garai zaharretan bertan izandako gaztelua dakarte gogora, eta euskaraz ere, leku hark noizbait Gaztelueta izena omen zeukan. Era berean, 1371n hiribildua sortu zenean hau osatu zuten 11 baserrietako leinuetariko batek ere "Castillo" izena zeraman, eta lanean aurrera egin ahala topo egingo dugu abizen hau zeraman seroraren batekin ere (Leintz Gatzagakoa ez bazen ere).

1331n, Leintz Gatzagak bere fundazioko karta jaso zuenean, Dorletako Andre Mariaren elizak ordurarte izan zuen parroquia titulua galdu zuen San Millan parrokia berriaren alde. Dorleta elizatea izana zen ordurate, eta santutegia bere parroquia zen, Zurtitzako San Martin ermita parrokiatzat zuen Goierriko elizatearekin, eta San Juan Bataiatzailearen monasterioa parrokiatzat zeukan Inurrietakoarekin batera, Leintz Gatzagaren hiribildu fundazioa baino lehenagoko eremu populatua osatzen zuelarik. Hiribilduko parroquia San Millan izatera iragan zenean, aurreko elizateetako eliza hauek honi atxikiak bihurtu ziren (Bergareche 1952, 17-27).

Bertako lehen seroren berri garai berantiarragoetan ematen zaigu lehen aldiz, 1479an Juan Martinez del Castillo batxilerrak "a la sirvienta de Sancta Maria de Castillo" emandako dohaintza batean. XVI. mendearen hasieratan, *Libro de visita del licenciado Martín Gil* izenez ezagutzen den bisita liburuan, nahiz eta lehen lekuan aipatua izan zen, beste ermiten arteko bat bezala baino ez zen aipatua izan: "Ay ocho ermitas: Santa María, Sant Martín, [...]" (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 387). Itxuraz, serora bakarra edo gutxi batzuk baino ez sostengatzeko egoeran zegokeen oraindik, talde edo komunitate bat artean osatu gabe⁶⁶⁴. 1537an Salinas lizentziatuak beste dohaintza bat egin zuen, bertako serorek bere gaixotasunean eskaini zioten laguntza zela eta (Bergareche 1952, 189); ohar litekeenez, jada pluralean aipatuak izan ziren. 1539an San Millan parrokiako apezekin serorek izan zituzten arazo batzuen berri ere badugu; antza denez, jada hasiak ziren XVI. mendearen lehen erdi hartan, XVII. eta XVIII. mendeetan ere izango zituzten santutegiko administrazioaren

⁶⁶⁴ Diogun bisita liburua espezifikoki datu ekonomikoak jasotzeko osatua izan zen, eta hargatik, santutegiaren bestelako ondasunak, seroren komunitate bat edo seroretxea, edo ezer berezirik aipatu ez izana aski esanguratsua da, artean ohizko ermita baten itxura zeukala ondorioztatzerakoan. Bisita liburu honi, bestalde, 1551-1552 urteen kronologia esleitu izan zaio, nire eta beste zenbaiten arabera, oker legokeen data; ikus liburu hau XVI. mendearen lehen erdialdeko garai ezberdinetako datuek osatua izan zela ondorioztatzeko argudioak 362 or., 662 oinpeko notan.

inguruko arazoak. Izan ere, San Millaneko apez eta benefiziodunek, eta baita udaleko agintariek ere, santutegiko etekin mamitsuen gaineko kontrola euren esku izan nahi baitzuten. 1539an Kalagorriko Probisoreak agindu bat eman zuen, seroren kexuak azaltzen zituen:

siendo asi que ellas abían entrado en dicha ermita a servir a Dios y a su Santísima Madre, y que con las limosnas de algunos parientes de ellas y de los devotos del santuario y la dote y trabajo personal de ellas habían adquirido alguna cantidad de hacienda para la dicha ermita... especialmente, habían hecho ciertos edificios nuevos y muchos ornamentos..., e que agora vos el dicho cura e clérigos o algunos de vos habíades intentado de echar a las dichas beatas del dicho santuario (*Ibid.*, 160)

Agindu honek, apezak eta benefiziodunak serorak santutegitik kaleratu nahian zebiltzala aipatzeaz beste, santutegia seroren familia-kideen eta debotuen dohaintzekin, eta seroren dote eta lanarekin sostengatzen zela azaltzen digu, eta baita ordurako zenbait obra egin izan zituztela ere.

1611n santutegiaren gaineko patroitzaren inguruan tira-birak izan ziren, garai hartan patroitza zeukaten San Millan parrokiako eliz-kabildoaren eta benefiziodunen, eta hau eskuratu nahian omen zebiltzan udaleko agintarien artean; kexu zen Kalagorriko Apezpikutzako Probisorearen aurrean, bertako Fiskal Orokorra:

El fiscal general de este Obispado digo haber llegado a mi noticia que habiendo, como hay en la villa de Salinas de Léniz, una ermita de la advocación de Sancta María del Castillo que es ermita rural por haber sido antes iglesia parroquial y la más antigua de la dicha villa y habiendo como hay en ella cofradías y muchas misas y aniversarios y pila bautismal y entierros de difuntos después que se hizo ermita queriendo el concejo, justicia y regimiento de la dicha villa adquirir patronazgo de la dicha iglesia siendo como es del cabildo y beneficiados... han acogido en ella cinco beatas las quales han allegado mucha cantidad de reales y hecho puertas en la forma y manera que han querido... y además de lo dicho de presente pretenden edificar so color que es para recibir devotos que viene a la dicha ermita y hacer de ella algún beaterio... y lo que pretenden edificar de presente es obra de más de mil ducados granjeados para la dicha ermita y no para ellas (*Ibid.*, 160)

Bisitatzailari kexa hauen inguruko berriak jasotzeko agindua eman zitzaion Probisorearen aldetik, baina ez dago ondorengo dilijentzien berririk. Baina, udal agintariek santutegian bost serora onartu zituztela salaketa lez aipatzeko, zer gertatu zen aurreko urteetan santutegian? San Millaneko apezek azkenean serorak kanporatzea lortu ote zuten ba, ondoren, udal agintarien aldetik serora berriak (edo aurretiko berberak) bertan sartzea, patroitzaren apropiazio ekintzatzat hartua izan zedin? Aipuan San Millan parrokiako apez eta benefiziodunek Dorletako santutegian izaten ziren aktibitateak konpetentzia ekonomikoaren ikuspegiari hautematen zituztela nabari liteke, parrokia izan gabe, bertan mezak eta anibertsarioak, eta batez ere bataioak eta ehorzteak (parrokiek euren eskumen eta diru-sarrera lez defendatzen zituzten errituak) ugari zirela diotenean. Zentzu horretan, ulergarria da bertako aktibitateak edo eurenganatu, edo deuseztu nahi izatea, antolakuntza guztia sostengatzen zuten serorak kanporatuz. Debagoieneko herririk gehienetan, eta baita Leintz bailarakoetan ere, serorak desagerrarazteko ekinaldirik indartsuena 1621eko Konstituzio Sinodalen testuinguruan gauzatu bazen ere, 1602ko konstituzioez geroztik hasiak ziren jada apezpikutzaren aldetiko presioak, eta San Millan parrokiako apezak eta benefiziodunak araudi honetaz baliatu izan zitezkeen santutegitik serorak kanporatzeko. Hipotesia zentzuduna izan liteke, 1602ko konstituzioetan serora bakarra, zaharrena, gelditu ahal izan zedila baimentzen zutela aintzat hartzen badugu. Santutegiko serorak konstituzio sinodalen betearazpena behartu izanak balituzte, 1611 ingururarte bertan serora zaharrena

bakarrik gelditu izana zitekeen, eta udal-agintariek ez zuketean hau hil arte Probisorearen kexuan aipatu zen apropiazioa egin izango. Gainera, norbait santutegiaren artapan lanetan mantendu ezik, etekinik atera ahal izango zioten debozio espazio bat galbidera eramatea litzateke, eta San Millaneko apez eta benefiziodunen aldetik ere ez litzateke oso jarraibide zentzuduna izango. Hala izana balitz, bestalde, 1602ko konstituzioen harira kanporaturiko beste serorek udalaren patroitzaren gaineko 1611ko intrusioa ontzat emango zuketean, honen bidez santutegira itzul baitzitezkeen; udala izan baitzen, aipuan azaltzen zaigunaren arabera, garai hartan “muchas cantidad de reales” zekartzatela heldu ziren bost serorak santutegian onartu zituen. Edozein kasutan, puntu honetatik aurrera santutegiaren eta seroretxearen patroitza eta administrazioa udal agintarien eskumenera iragan zela dirudi, eta baita, seroren kopuru esanguratsu batez osatutako komunitate baten presentzia ordudik aurrera sendotu zela ere.

San Millan parrokiako apez eta benefiziodunak ere ez zeuden noski egoerarekin pozik, eta apezpikutzako probisorearen kexak aurkeztu zirenetik hilabetera, abenduan, Pedro Abad de Arriola San Millaneko apezaren kexu, seroren limosnen eskaerak zirela eta:

...sin que tenga licencia de su Señoría, todas las veces que se les antoja salen a questuar y pedir limosnas hostiatin por todos los lugares de la Provincia de Guipúzcoa y Alava y señorío de Vizcaya hasta Bilbao y San Sebastián y toda Alava y parte del Reino de Navarra (*Ibid.*, 161)

Kexua aurkeztearekin bat apezak hortik aurrera limosna eskaerak egitera irtetzea debekatu zion, baina ez zitzaion kasurik egin, ondorengo urteetan egindako obretarako diruen parterik handiena postulazioan bilduriko limosnen bidez ordaindua izango baitzen.

Elizako eta udaleko agintarien artean patroitzaren inguruko liskar hauek izan ziren 1611 urtean bertan, santutegiko maiordomoak eta serorek kontzejuari obrak egin ahal izateko egur eskaera egin zioten, nobenak egitera gelditzen ziren debotuetako aparteko ostatu bat eraikitzeko beharra zeukatela eta (*Loc.cit.*). Debotuen etorrera handia zeukaten beraz. Baina 1618an, apezpikutzako bisitatzailak Leintz bailarako serorak kanporatu zituen, baita Dorletako santutegikoak ere, eta Valladolideko Kantzeleriararen aurreko auzi bat irabazi arte ez ziren itzuli. 1621eko konstituzio sinodalen ondoren, 1623an, desagerrarazte agindua gauzatzen saiatu ziren berriro, eta –nahiz eta Gipuzkoako Probintziak apezpikutzaren aurreko auzi bati ekin zion, eta seroren itzulera lortu zuen– Leintz bailarako beste zenbait tenplutan ekinaldi honen ondoren serorak desagerrarazi bazituzten ere, Dorletakoak santutegian mantendu egin ziren. Orain arte aipatu izan ditugun gorabeheren laburbiltze egoki bat, 1663an izan ziren –eta ondoren ikusiko ditugun– seroren arteko liskar batzuek motibaturiko auzi batean egindako dilijentzietan ageri zaigu; honela azaldu zuten orduan santutegiaren historia:

la dicha yglesia de Nuestra Señora del Castillo es parroquia antiquissima de antes que esta Uilla fuese poblada y sienpre a sido asistida de los Beneficiados y demas saçerdotes para el culto y serbiçio de Dios nuestro Señor avnque agora esta yntroducida a ser anexa de la yglesia parroquial de esta dicha Villa y en la dicha yglesia de Nuestra Señora por particular prebillejo y prerrogativa de nuestro Señor an subçedido muy grandes Milagros y cada dia subçeden por la yntercesion de la Virgen Santissima adonde de muchas partes concurre mucha jente de deboçion y ay confradia y Jubileos y nuestros Pasados porque no estubiere la dicha santa yglesia sin que vbiere personas en ella que rresidieren para rreçibir la jente de deboçion que benia y para la linpieza y adorno de la dicha yglesia conbinieron en que abitasen algunas mugeres de onesta y

rrecoxada bida y sienpre se a continuado avnque por los señores obispos y bisitadores se fue mandado y particularmente por el señor Don Pedro González de Castillo para que no vbiese tal rrecoximiento de mugeres y no se executo el mandato y se suspendio por algunas justas consideraçones que mobio a los señores Perlados⁶⁶⁵

1611n lizentzia eskaera egindako obrak, jada desagerrarazte saiakeraren gorabeherak lasaiturik, 1624 eta 1645 bitartean egin ziren, eta arginek eta zurginek bertan egindako lanen eta materialen kostua 12.201 errealetan baloratua izan zen. Kontzejuak, egurrez gain, 1.650 erreal eman zituen, eta kofradiak berriz 1.562. Gainontzekoa, hau da, 9.989 erreal, serorek baturiko limosnen bidez ordaindu zen (Bergareche 1952, 161). Argi dago beraz, garai hartan inguru guztian (Gipuzkoan, Araban, Bizkaian eta Nafarroan) santutegiarekiko zegoen debozioa hain handia izanik, limosnen eskaera ez zela gutxietsi beharreko aktibitatea. 1611n San Millaneko apezak seroren limosna eskaera debekatu nahi izan zuenean, bazekien udal agintarien patroitzari nondik porrot eragin zekioken.

Eta gertakizun hauen bitartean, seroren kopuruak ere, debozioarekin bat, gora egin zuen urteak igaro ahala. 1479an bakarra aipatu zela esan dugu; 1537an, zehazki zenbat ez badakigu ere, bat baino gehiago bazeuden; 1611n bost aipatzen zaizkigu, eta 1625ean berriz, Lope de Isastik jada sei serora zeudela diosku (Lope de Isasti 1985 -1625-, 222). Santutegiaren ondorengo historiari XVII. mende bukaera aldeko liskar batzuekin ekingo diogu, iturri nagusizat, aurretik izan diren historialarien argitalpenetan hainbat aldiz baliatu izan duten santutegiko kontu-liburuaz (1691-1733) gain, udal arxibategian aurkitu ahal izan ditugun hiru auzi mamitsu oinarriztat ditugula⁶⁶⁶.

1625ean santutegia sei serorak artatua bazen, 1663an bakarrarekin gelditzeko kinka larrian zegoen. Izan ere, Maria de Gamarra seroraren portaera ezin jasanik, gainontzeko bost seroretatik lau santutegitik irtenak baitziren (garai hartan ere sei zeuden beraz). Informazio iturri dugun lehen auziari hasiera eman zioten liskarrak Maria de Gamarraren limosna eskaerarako irtenaldi batekin hasi ziren. Gogoan izan dezagun limosna eskaeraren gaineko kontrola jada XVII. mendearen hasieratik arautzen hasia izan zela, lehenik apezpikutzaren aldetik 1621eko konstituzio sinodaletan, eta gero, kontrol hau modu eraginkorragoan gauzatu zezakeen Gipuzkoako Probintziaren aldetik, 1629an eta 1645ean lortutako Errege Aginduen bidez. Orohar ermitauen, seroren eta bestelako eskatzaileen (ermitetako maiordomoak, kasu) aurka egiten zen, ordena mendikanteetako eta komentuetako eskatzaileak faboratuz. Kontrol hau Batzar Orokorretan behin eta berriro berretsiriko aginduen bidez areagotzen joan zen, eta halaber, apezpikutzaren aldetik, 1700eko konstituzio sinodaletan ere neurri zorrotzagoak hartu ziren. Limosna eskaeraren inguruko kontrolaren gorakada honek seroren desagerrarazterako 1769ko Errege Agindua eman zen arte jarraitu zuen, aginduak errespetatzen ez zirela frogatzen duen neurrien jarraipen batean⁶⁶⁷.

Bada, momentuan santutegiko serora zaharrena edo, hobe esan, seroratzan denbora gehien zeramana –eta beraz, besteen aurreko lehentasuna zegokiona– zen Maria de Gamarra serora, 15 bat egunetan Gipuzkoa aldetik ibilia zen santutegiarendako limosna eske, eta bere itzuleran, orduan zela hilabete inguru seroretxean sartua zen Catalina de Zumarraga serorarekin haserrealdi gogorra izan zuen, azken honek, Maria serora Gipuzkoa aldean jaso zuen limosna kopuru handia zela eta pozik azaltzen zela eta, galdera “ezegoki xamar” bat egin ziola eta: “porque tambien le dixo a la dicha Maria

⁶⁶⁵ LGUA 324.7, 29r-29v.

⁶⁶⁶ LGUA 324.7; 330.4 eta 331.3.

⁶⁶⁷ Ikus limosna eskaeraren inguruko azalpenak III. 2.2. azpiatalean, 240 eta hurr. or.

de Gamarra donde enpleaba o quien daba quenta de las limosna que en nombre de la dicha Santa Casa rrecoxia”. Ondoren auzian zehar aipatuko zirenen arabera, Catalina serorak jada Maria seroraren aldarte txarraren berri izan beharra zuen, honek, seroratzara sartu izan zenetik hainbat liskar sortu izan baitzituen; berez, badirudi bi serora hauek santutegian gelditzen ziren bakarrak zirela, gainontzekoak, jarraian ikusiko dugunez, Maria de Gamarra ezin jasanik jada alde eginak baitziren. Catalina de Zumarragak, ziurrenez Maria de Gamarrari nolabait aurka egin behar zitzaiola pentsaturik, ukitu behar ez zuen puntua ukitu zuen. Maria serorak ez zion halako galderarik egin izana jasan, eta Catalina berak testigantza ematean kontatu zuenez,

le rrespondio que no tenia que meterse en ello con mucha colera y soberbia tratandola de desbergonzada y de mala lengoa y que de no estar algunas personas de por medio le vbiera maltratado y bisto por esta testigo tal desberguenza le dixo que no tubiere tanta soberbia ni colera que ella yria de la dicha Santa Casa a otro dia y le rrespondio que fuese luego que mucha merced le aria y avnque le dixo otras muchas desberguenzas le sufrio y le llebo esta testigo con gran pazienza⁶⁶⁸

Catalina, aztoraturik, santutegiko seroretzetik irten eta “a vna ermita que esta junto a las Dorlas” (Santa Kolunba) jeitsi zen. Gertakizun hauen lehen testigantza eman zuen Maria Lopez de Uriarterekin egin zuen topo bertan; honek, serora negarrez ikustean gertakizunen berri galdetu zion, eta azalpenen ostean, aztoraturik, Mariagana joan eta “le dixo a la dicha Maria de Gamarra como no vsaba con terminos que la rreligion rrequiere y rreçibia latente con amor y boluntad como se rrequiere en la dicha Santa Casa para que aya debozion en ella y otros consejos”. Mariak ostera, “con mucha Colera”, irainekin erantzun zion.

Ordurako, Maria Lopez de Uriarte berak dioskunaren arabera,

asi bien sabe que por no poder permanecer en dicha Santa Casa por causa de la dicha Maria de Gamarra se an ydo de ella Doña Antonia de Otalora Ana de Ayesta y Mariana de Anunzybay beatas y la dicha Mariana de Pagalday por la mucha soberbia que tiene y por no poder atreguar con ella⁶⁶⁹

Lehen testigantzetan hitz egin zuten lekuko guztiak santutegiaren egoerarekin oso arduraturik ageri ziren, serora liskarti eta jasangaitza zela eta debozioa gainbeheran zioala eta; Maria Lopez de Uriartek honela zioen:

por sus escandalos que a causado y causa no quiere benir nadie a la dicha Santa Casa y que si en ello no se pone rremedio nadie querra permanecer en ella con que tendra mucho detrimento y abia poca debozion⁶⁷⁰

Santutegiaren ondorengo garaietako bilakaeran serora garrantzitsua izango zen Catalina de Ormaechea ere izan zen testigantza ematen, artean “moradora en esta dicha Villa” baino ez zela; Maria serorak Maria Lopez de Uriarterekin izan zituen ika-miketan presente izan zen, eta berak ere zenbait irain jasan behar izan zituen (“que era una desbergonzada y que fuese en ora mala”). Seroraren beste arrokeriaren batzuk ere entzun omen zituen:

Y tambien se oyo deçir el dicho dia que se encontro con la dicha Doña Cathalina a la dicha alabandose que ella abia de ser Dueña y señora de la dicha Santa Casa a pesar de todos Con que bisto sus desatinos esta ttestigo bino para Su Casa⁶⁷¹

⁶⁶⁸ LGUA 324.7, 4v.

⁶⁶⁹ *Ibid.*, 3r.

⁶⁷⁰ *Loc.cit.*

⁶⁷¹ *Ibid.*, 6r.

Catalina de Zumarraga serorak bere neskamea udaleko eta parrokiako agintariei gertatuaren berri ematera bidali zuen, eta alkatea, maiordomoa eta beste zenbait pertsona kontu eske agertu ziren seroretxean; alkateak Maria de Gamarrari seroretzeko giltzak eman ziezazkiola agindu eta maiordomoari eman zizkion, eta ondoren santutegitik irten zedila agindu zion. Urte hartako bisitan bisitatzailleak seroretxetik irten zedin eman zuen aginduari kasurik egin ez ziola aipatu zuten, eta jada serorak sortzen zituen arazoekin erabat bukatze aldera, informazioa batu eta prokuradoreekin auzitara eramatea deliberatu zuten, aurreko gertakizunen berri ematen diguten testigantzak jasoz

⁶⁷².

Testigantzen ondoren, apezpikutzako bisitatzaileren agindu batzuen konpultsak jaso ziren, liskarrak noiztik hasiak ziren agertzen digutenak. Lehena 1655ean eman zen, eta bertan, apezpikuak santutegian seroren artean zeuzkaten liskarren berri jakin zuela eta, parrokiako apezari liskarrei bukaera eman ziezaiela agindu zion, beharrezkoa izatekotan, liskarren erantzule ziren serorak santutegitik kanporatuz. Agindu hau izkribauak alkatearen eta bi errejidoreren aurrean ezagutarazi zien jakinarazpena egitean santutegian zeuden Maria de Gamarra berari, eta Maria Diaz de Durana eta Ana de Ayesta serorei⁶⁷³. Alkateak aipatu zuen Bernardo de Aranz Maldonado bisitatzaileren Maria de Gamarra serora kanporatzeko agindua ere jaso zen, urte bereko otsailaren 27an emana zena, “del thenor siguiente”:

Y por quanto su merced esta ynformado que Maria de Gamarra vna de las beatas que acuden a dicha Ymaxen es muger de terrible condizion aspereza y poca caritatiba y por otras razones que su merced rreserbo mandaba y mando al cura y beneficiados alcalde y ayuntamiento de esta Villa de Salinas que so pena de excumunion y pso facto yncurra y suspension rrespetibe que dentro de dos dias como este nuestro auto fuere publicado la mande desocupar dicha Yglesia y ospito en que bive y alla so pena de excomunion en que Ypso facto yncurra. Salga dentro de dichos dos dias y esto executado ynbiolablemente so las dichas penas la Uilla y Cabildo busque como esta mandado ermitano que asista y allado se despida la dicha beata y en caso que no se puede allar dicho ermitaño busquen vna beata a quien se aga las ynformaciones de moribus el vita para que asista con la otra mientras no se alle ermitaño o capellan como dicho esta⁶⁷⁴

Dilijentzia guzti hauek hasi zirenean maiatzaren 1a zen, eta itxuraz, bisitatzailleak azken agindu hau eman zuen otsailaren 27az geroztik ordurarte, ezin izan zuten Maria de Gamarra serora kanporatu. Benetan latza izan behar zuen serorak, santutegiko beste serorek nahiz udaleko eta parrokiako agintariak artean ezin kanporatu izan zutenean. Bestalde, bisitatzaileren aginduan, honek egoera aldrebesa santutegiko aktibitateetatik serorak aldentzeko probestu nahi zuela dirudi, Leintz bailarako hainbat ermitatan garai beretsuan gauzatzen ari zen ordezkapen prozesuaren harira, seroren ordezkari edo kapilau baten izendapena egin zedila aginduz. Ziurrenez, asmo honek ere ez zuen aginduaren betekizuna faboratuko, Maria de Gamarrarekin zeuzkaten liskarrez beste, herriko botere esparruetako agintariak santutegian serorak mantentzeko interes handia baitzeukaten, arrazoi asko tarteko zirela (santutegiko debozioa eta mantenua, doteen diru-sarrerak, euren familietako alabak bertan sartzeko posibilitatea, etab.).

Edozein kasutan, ez zen bere garaian bisitatzaileren agindua bete, eta azken liskarren harira, Maria de Gamarrak bere defentsarako idatzi bat aurkeztu zuen. Bertan, prozesuaren hasieran aipatu zena zehaztuz, alkateak berak beharrean bere ordezkarak

⁶⁷² *Ibid.*, 1v.

⁶⁷³ *Ibid.*, 6v-7r.

⁶⁷⁴ *Ibid.*, 7r-7v.

kanporatu zuela zioen (“el teniente de Um en su ausencia”), eta baita kanporatzea “sin debido conocimiento de causa y sin hauerme oydo ni citado” egin zela ere. Kanporatzea alkateak pertsonalki ez egin izana normala zen, gero, gainera, alkatea bera izango baitzen auziaren epaile. Kanporatu zutenaz geroztik, Maria de Gamarra etxe partikular batean zegoen. Prozedura legez kanpokoa zela zen beraz bere argudio nagusia, eta kexua aurkezteko era bera ere interesgarria zaigu, jarrera irmo eta arro xamarra ere agertzen baitzaigu, zer egin beharko litzatekeen ere azalduz:

[...] sin hauer para ello contra mi causa legitima alguna ni tener noticia de ella y porque a semejantes procedimientos no se debe dar lugar y hablando con el dicho debido respecto son injustos no precediendo audiencia de las partes y debido conocimiento de causa debe Um deponerlos amparandome en mi posesion y en caso de despojo rrestituiendome en ella por el remedio mas brebe y sumario anulando y reuocando los autos de qualquiera procedimiento que contra mi se hubiere echo mandandome dar traslado y [ello?] para en caso que me sea necesario alegar mas cumplidamente⁶⁷⁵

Bere alegazioa onartua izan zen, eta jarraian, bere aurkako argudioen artean Bernardo de Aranaz Maldonado bisitatzailleak bere aurka helarazi zuen kanporatze agindua erabili zutela jakin izan zuela eta, beste alegazio bat aurkeztu zuen, agindu hau frogatzat erabilia izan ez zedin. Bisitatzaillearengandik agindua honi gezurrak esanez lortua izan omen zen, eta behin oker informatua izan zela jakinik, bisitatzailleak berak emana zuen agindua baliogabetu zuela zioen; baliogabetze hau santutegiaren liburuan bertan idatzia utzi zuenez, eta hau San Millan parrokiako apezaren eskutan zegoenez, auzian aginduaren baliogabetzearen konstantzia jaso zedila eskatu zuen, bere defentsarako beharrezkoa zela eta. Halaber, bere seroratzarako sarreraren hitzarmena edo izendapena ere aurkeztu zuen, bertan hitzarturikoak auzian aintzat har zitezen.

Eskatu bezala, bisitatzaillearen aginduaren baliogabetzea jaso zen, seroraren sarrera-hitzarmenarekin bat. Kanporatze aginduaren baliogabetzean ageri zaigunez, bisitatzailleak ez zuen hau serorak aipaturiko arrazoiengatik egin:

Y por quanto ante su merced fue suplicado por parte de dicha serora alegan[do] la costumbre antigua de la probinzia en permitir tales seroras n[o?] haber podido hallarse ermitaño que sirba dicha yglesia y la otra serora [no] puede por su bexez asistir a la linpieza de la Ermita y altares y por quanto dicha serora tenia donada su hazienda a favor de la dicha Casa y sacarlas y della [sic] es a mober pleytos dixo su merced que por agora asta [que] otra cosa se probea permitia y permitio que a dicha yglesia sirba dicha serora y le encargo la suabidad de natural amor a los asistentes⁶⁷⁶

Nabaria denez, ez da bisitatzailleak esan zitzaizkion gezurren batzuen ostean egiaren berri izan zuenik, seroraren aldetik bere kanporatzeak sor zitzaizkeen arazoak azaldu zitzaizkiola baizik. Gainera, garai hartan (1662ko maiatzaren 19a –Elorrioren emandako agindua–) santutegian Maria de Gamarra berarekin batera beste serora zahar bat baino ez zegoela ikusten dugu, 1611-1625 inguruan kokatzen ziren azken berrien arabera, santutegia bospasei bat serorak artatzea jada ohizkoa bihurtua zenean, eta Maria de Gamarra santutegitik irten ondorengo garaietan ere, beste hainbesteko kopurua mantendu zenean. Eta noski, serorari agindu zitzaion “suabidad de natural amor a los asistentes” hura, ez zen kasualitatez “enkargatua” izan.

Maria de Gamarrak liskar horiek zer zela eta sortu izango zituen baloratzeko, santutegiak, zeukan debozio handia medio, jasotzen zituen etekin jorietan pentsatu beharrean gaude. Dorletako santutegiaren kokapena Donejakuerako bideen parte zen,

⁶⁷⁵ *Ibid.*, 8r-8v.

⁶⁷⁶ *Ibid.*, 9r-9v.

eta are XVII. mendearen bukaera aldean ere, izan zen bidean zela santutegian hil zen erromesik. Umeen babesagatik ere oso ezaguna zen, eta bertako Amabirjinagana ume gaixoezin sendakuntza eske, nahiz sendatuekin esker emanez joan ohi ziren, eta XVII. eta XVIII. mendeetan zehar ohizkoa izan zen, batez ere Leintz bailarako biztanleen artean, umeak bertan bataiatzea. Jarraitzen dihardugun auziaren dilijentzietan bezalaxe beste hainbat lekutan ere, bertako mirakuluak oso ugariak izan zirela nabarmendu ohi zen, eta hainbat erlikia ere baziren –eta badira– bertan, debozio handia sortzen zutenak. Hauen artean ezagunena eta deboziorik handiena sortu izan zuena Kristoren Koroako arantza izan zen, eta Santa Ursularen lagunetarikoa biren burezur osoak ere gordetzen ziren. 1632ko inbentarioan “un relicario de madera con muchas reliquias” ere aipatu zen, zeinetarik asko, gaur egunean, zegokien hobitiek aterak izanik, falta diren. Eta noski, debozioz santutegiaren alde egiten ziren dohaintzak ere oso esanguratsuak ziren (Bergareche 1952, 147-153, 179-184). Baina diru-iturri nagusia serorek Gipuzkoan zehar bezalaxe Araban eta are Nafarroan ere egiten zituzten limosna eskaerak ziren, hain zuzen ere, Maria de Gamarrarekin izan ziren liskarrei hasiera eman zietenak. Hau nabariago ageri zaigu ondorengo urteetan, 1691n bisitatzailerak serorei limosna eskaeran irtetzea debekatu ondoren bizi izan zuten egoerak adierazten digunez; baina aurrerago sakonduko dugu honetan. Azkenik, Dorletako serorek zeuzkaten etekinak beste ermita eta santutegietako serorenak baino handiagoak zirela adierazten digun aspektu erabakigarri bat, hain zuzen ere, seroren euren kopurua da. Izan ere, mantendu zitezkeen seroren euren kopurua baita, kasu askotan, tenplu baten debozioari –eta baita, are, honen jarraipen kronologikoari ere– neurria hartzeko adierazlerik egokiena. Debozio handikoak izan ziren beste zenbait ermitatan ere badugu hiru edo lau serora mantendu izan zirenen berri (esate baterako, Bergarako Murinondoko Andre Mariaren –edo San Blas– ermitan, XVI. mendearen bukaera aldera⁶⁷⁷). Gainera, santutegian 1625ean sei serora zeudela aipatu zuen Lope Martínez de Isastik, hau herriko “ermitas notables”-etariko bat zela nabarmentzeaz beste, ez zuen Gipuzkoan seroren kopuru honetara heltzen zen beste ermita edo santutegirik aipatu (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 222); Probintzian deboziorik handiena sortzen zuten ermitetarikoa bat behar zuten izan.

Aurreko garaian sei serorak artatu izan zuten tenplua ia serora bakararekin geratzea eragin zuen Maria de Gamarraren serora izendapena, auzian aurkeztu zuena, 1653an egina izan zen. Izendapen honi erreparatzeko bitarte bat egingo dugu, serora berari buruzko informazio interesgarria emateaz gain, ondorengo urteetan udaleko eta elizako kabildeen aldetik, hau da, patroien aldetik, hainbat aldakuntza jasango zituen izendapenak egiteko formula aurrekariaren berri ematen digulako. Berez, Maria de Gamarrarekin izandako liskarren ostean ekingo zitzaion aldakuntza hauek gauzatzeko presioei. 1653an, Maria de Gamarra ez zen bera bakarrik seroratzara sartu. Izendapena bikoitza izan zen, Maria de Eguino Ascarrunz bere ama eta bera, batera sartu baitziren. Ordurako, “religiosa de la terçera orden del serapico Padre San Francisco” bezala aipatu zituzten biak. Maria de Eguino Ascarrunz Bergarakoa zen, halaber herri honetako bizilaguna izana zen Joan Garcia de Gamarraren alarguna. Sarrera egitean, beraien “proposito y boluntad de permanecer y bibir en su sancto seruiçio”-a adierazi zuten. Dotea, bataren eta bestearen zentsu eta ondasunetan izanik ere, amankomunean eman zuten, eta honakoa zen: Maria de Eguinoren alde fundaturiko bi zentsu, bakoitza 100 dukatekoak, Maria de Gamarraren aldeko 47 dukateko beste zentsu bat, eta 2 ohe, bakoitzarendako 4 ohe-estalki joku osorekin. Horrez gain, ama eta alaba santutegiaren obren aldeko beste 30 dukat ematera konprometatu ziren, patroiek egoki iritzi izatean ematekoak izango zirenak. Zentsuen usufuktoa, bizi izan bitartean, euren dako gorde

⁶⁷⁷ 1570ean, esaterako, zaharrena eta “las demas” aipatu ziren, hau da, hiru edo gehiago behar zuten izan (BUA 04 CD/001, 43-44 fot.).

zuten, eta hauek euren kopuru printzipaletan ludituak izanaz gero, diruak patroien eskutara igaroko ziren, berriro zentsutan ipinirik, egoera berdinerara itzul zitezzen; behin bi serorak hilik, zentsuen usufruktoak ere santutegiari egokituko zitzaizkion. Beste baldintza bat ere bazen, ondorenean, Maria de Gamarrari buruhausteak sortzekoa izango zena. Maria de Gamarraren aldetik –bere ama, oso zaharra izanik, balizko egoeratik at hautematen zuten– “alguna fragilidad por qual debe ser expelida de la dicha santa cassa e yglessia” gertatuaz gero, ama-alabek dotean emandako zentsuen jabegoa nahiz usufruktoa galduko zituzketen, beste ondasunekin batera (baita hitz emandako 30 dukatak ere), hauek santutegiarendako geldituz⁶⁷⁸.

Ohartu litekeenez, izendapen honek, bikoitza izatearen berezitasunaz beste, Leintz bailaran garai hartan nahiz aurrekoetan parroketan eta ermitetan egin ohi ziren izendapenen antzerako ezaugarri orokorrak dauzka: abitua, karguaren bizitza guztirako esleipena, dotea (hori bai, ikusi izan ditugun beste kasuekiko oso altua) eta portaera desegokiak izanaz gero, karguaren eta dotearen galera. Baina Leintz bailarako zenbait lekutan hedatua zegoen eta ondorengo urteetan santutegiko seroren izendapenetan ezarriko zuten beste ezaugarri bat falta zen: heriotzaren orduan ondasun guztiak tenpluari emanaz, testatzeko gaitasunari uko egitea. Patroiek interes ekonomiko nabariegatik sarrarazi zuten, eta hauen eta Dorletako seroren artean hainbat liskar sortuko zituen ezaugarri honen ezarpena, diogunez, Maria de Gamarrarekin izandako liskarren ondorengo urteetan gauzatuko zen; baina zenbait urte lehenago jada nabari ziren patroiek seroren ondasunak euren gaitasunaz zeuzkaten asmoak, –prezeski Maria de Gamarrarekin izandako liskarregatik santutegitik irten izatetik gutxira hil zen– Mariana de Anuncibai seroraren testamentuaren ildora izan ziren gorabehera batzuetan.

Mariana de Anuncibaik 1655ean helarazi zuen bere testamentua, eta bertan, santutegian sartzeko orduan –garai hartan Leintz Gatzagako alkate zen– bere aitak dotetzat “lexitima materna, y paterna” lez zegozkion 200 dukat “y arreo” eman zizkiola aipatu zuen, eta baita, beste zenbait aparteko gastu izan zituela ere⁶⁷⁹. Baina Mariana santutegian sartu eta urte gutxitara hiltzea suertatu zen, eta momentu hartan bere dotearen 30 dukat baino ez zeuden ordaindurik. 1659an bere ondasunen oinordekoen (serorak oinordeko izendatu zituen bere gurasoak jada hilak zeudenez, hauen oinordeko izan zen Isabela de Anuncibai, eta bere senarra) eta santutegiko patroien arteko hitzarmen bat egin zuten, Mariana seroraren dotetik ordaintzeko falta ziren 170 dukatak zirela eta. Alabaina, behin seroraren ondasunen inbentarioa eginik, patroiek 170 dukatez gain inbentarioko ondasun guztiak zegozkiela defendatu zuten, serorak, santutegian izan zen denboran zehar limosna bidez lortu izan zituela eta. Auziak ekiditearren, euren arteko gorabeheren gaineko erabakia Lopez de Zuazo doktore abokatuaren esku uztea adostu zuten, eta honek patroiei seroraren ondasunetatik 170 dukaten balorera heldu artekoak baino ez zegozkiela erabaki zuen (oheak, ohialak eta arropak), gainontzekoak oinordekoei esleituz⁶⁸⁰.

Euren asmoa lortu ez bazuten ere, nabaria da patroiek, serorek santutegian sartu ondoren pilatu ohi zituzten ondasunen gaineko jabegoa lortzeko egin zuten saiakera baten aurrean gaudela. Izan ere, besteren artean Maria de Gamarraren kasuan ere ikusiko dugunez, serorek santutegiaren zerbitzuan zeudela pilatu ohi zituzten ondasunek, dotean emandako kopuruak erraz gainditzen baitzituzten. Santutegiaren administratzaileek, gainera, orduan zirela zenbait urtetako beste gertakizun batzuek ere izan zituzketen buruan, izana baitzen 1633an beste serora bat, kargura santutegiari bere

⁶⁷⁸ LGUA 324.7, 10v-11v.

⁶⁷⁹ LGUA 331.3, 93v.

⁶⁸⁰ *Ibid.*, 166r(bis)-175v.

ondasun guztiak emanaz sartu izan zena. Goraxeago aipatu dugun Maria Perez de Encoteguiaren kasua dugu, Mazmela elizateko parrokiako seroratzaren bere hortan utzi eta Dorletako santutegiko seroratzaren bereganatu zuen serora; eta hain zuzen ere, ondasun guztien emate hura santutegiko seroratzarako sarrerako testuinguru arazotsuak motibatua izan zitekeen. Izan ere, Mazmelako parrokiako seroratzaren bapatean utzi zuenean, artean 100 dukat baitzeuzkan ordaintzeko, seroratzaren honetarako sarrera egin zuenean egindako hitzarmenaren arabera; bere ondasun guztiak Dorletako santutegiaren alde ematean, 100 dukat horien ordainketa ekiditea ere izan zezakeen asmo, santutegia bera bere ondasunen aldeko defentsan zuzenean inplikatu. Egoera korapilotsuaren aurrean topatu ziren, eta azkenean, "por l[as] dudas del derecho de ambas partes", 36 dukaten ordainketarekin zorra finikitatzat uztea hitzartu zuten⁶⁸¹. Nabaria zaigu beraz ondasun guztien dohaintza edo ematedun seroratzarako sarrera hau ez zela egoera arrunt batean egin, eta gainera, sarrerarako halako dohaintza egitea serorak bere borondatez harturiko erabakia izan zela; hau da, ez zen zenbait urtetara Mariana de Anuncibairekin izandako gorabeheretako kasu bera, zeinetan honen ondasunen gaineko eskubideak izan uste zituztenak, edo izan nahi zituztenak, santutegiko administratzaileak ziren. Mariana berak, bere testamentuan ikusi dugunez, sarrera-hitzarmeneko 200 dukatak baino zor ez zituela hauteman izan zuen.

Mariana de Anuncibairen ondasunaz jabetzeko saiakera patroiek 1659an egin bazuten, 1663rako, ikusi dugunez, santutegiaren zerbitzuan jasotzen ziren etekinik gehienak Maria de Gamarraren eskutatik igarotzen ziren, gainontzeko serora gehienak, honen aldarte txarra ezin jasanik, jada alde eginak baitzeuden. Hau seroratzara 1653an sartu izanaz geroztiko 10 urteetan zehar, bere eta beste seroren artean sortu izan ziren tentsioek 1663aren otsailaren 27an, bisitatzaileak –gero uko egingo zion– Maria de Gamarra kanporatzeko agindua eman zuenerako santutegian hiru serora baino ez egotea eragin zuten. Maria Diaz de Durana eta Ana de Ayesta 1655eko bisitatzailearen aginduan aipatu ziren jada, eta ordurako, hau da, Maria de Gamarra sartu izatetik bi urte eskasetara, berarekin batera santutegian jarraitzen zuten serora bakarrak zirela dirudi; Antonia de Otalora, Mariana de Anuncibai eta –testigantzetan San Millan parrokiako seroratzara iragana zela ikusten dugun– Mariana de Pagaldai alde eginak zeuden. Zortzi urte luzetan Maria de Gamarraren aldaritari eutsi zioten seroretariko bat, seroratzaren zaharrena izateagatik lehentasuna zegokion Maria Diaz de Durana, ondorengo hilabeteetan hil zen, eta horren ondorioz Maria de Gamarra bera buru izatera igaro zenean, egoera jasanezina bihurtu zen. Ana de Ayestak ere alde egitea erabaki zuen, eta itxuraz, Maria Diaz de Durana hil ostean, Catalina de Zumarraga baino ez zen ausartu santutegiko seroratzara sartzen. Eta ikusi izan dugun bezala, Maria de Gamarrak bere “ongi-etorri” partikularra egin zion. Baina azken liskar horiek, jada, tentsioaren goia jotea eragin zuten. Momentu hartan Maria de Gamarrak iraindu eta aurre egin zien serorak eta bestelako emakumeetariko zenbait oso familia boteretsuetarikoak ziren, eta irainek ohorea mindua zieten:

y ultimamente ha llegado a tal extremo su proterbia [*soberbia?*] que ha perdido el respeto a personas muy principales y de mucha calidad partes y uirtud que han acudido al dicho santuario con la misma deboçion tratandolas muy mal de palabras y deziendoles que se saliesen de el y se fuesen, con atrebimiento insolente⁶⁸²

Patroiek jada santutegia bere onera eramateko neurri zorrotzak hartu beharra zegoela erabakia zuten. Ondorengo orrietan auzi honen gorabeherak laburbilduz joango gara, azalpenetan gehiegi luzatzeak ditugun xedeetatik urrunduko baikintuzke; baina

⁶⁸¹ Ikus honekikoak IV. 2.1.5. azpiatalean, 335-336 or.

⁶⁸² LGUA 324.7, 15v.

auziaren hasierako liskarrak xehetasunez azaltzeari interesgarria iritzi izan diogu, garai hartan santutegiko serorek bizi izan zuten muturreko egoera ulertzeko, eta auzitan izan ziren gaiak azaltzeko, oso adierazgarriak baitira.

Ondorengo gorabeherak, era berean, ez ziren esangura gutxiagokoak izan. Patroien eta seroraren apelazioen artean, auzia zabalik zegoen artean santutegia artatu gabe zegoela eta, zenbait pertsonak apezpikuak bere garaian seroren ordezkapenerako aipatu zituen aukerak aintzat hartu zituzten, Leintz bailarako parrokia eta ermitetan izan zen seroren ordezkapen prozesuan gauzatu ziren posibilitateak iradokiz. Andres de Arrietak, berak eta bere emazteak ermitau bikote lez santutegia artatzeko proposamena egin zuen, santutegiari, sarrera-dote lez, biek zeuzkaten ondasunen eskaintza eginez. Inbentarioan jasorik aurkeztu zituen. Eskaintza ez zen txikia, ondasunak 8.427 errealetan baloratu baitzituzten, eta horrez gain, dirutan beste 200 dukat ere ba omen zeuzkaten eta⁶⁸³. Hala ere, eskaintza honi ez zitzaion erantzunik eman. Hau ermitetako seroren ordezkapenerako baliabidea izana bazen, beste aukera, Leintz bailarako parrokiatan bezala, serorak sakristauak ordezkatzearena zen; edo, jada bisitatzailerak iradoki bezala, kapilau batek. Eta hauxe izan zen hain zuzen ere, Antonio de Jausoro lizentziatuak, San Millan parrokiako benefizioduna zenak, egin zuen eskaintza. Ondorengo mendeetan ere herrian pertsona errespetagarri bezala gogoratu izan zuten Jausoro lizentziatuak bere burua santutegiko kapilau edo apez izateko aurkeztu zuen, halaber, serorak bertara itzul ez zitezen hainbat arrazoi eta aukera emanez. Funtsean, Maria de Gamarrarekin izandako liskarren tankerakoak aurretik ere izanak zirela zioen (“porque en muchas ocasiones se a bisto la misma ynquietud”), eta horrelakoek bertara debozioz zetozenen artean, oso inpresio txarra eragiten zutela, debozioaren eta santutegiaren kalterako; beraz, bera bertara bizitzera iraganik santutegiko seroretxea ostatu tankerako bat bihurtzea proposatu zuen. Limosna eskaerarako bestelako pertsonen baliatu zitekeen, eta santutegiaren zaintza eta garbiketarako emakumeak, serorak beharrean, bere neskame hutsak izan zitezkeen. Gainera, konstituzio sinodaletan serorak debekatuak zeudela ere gogorarazi zuen. Eskaintza hau, bestalde, printzipioz, lau urterako egin zuen⁶⁸⁴.

Patroiek, lehen momentu batean, Antonio de Jausoro lizentziatuaren eskaintza onartu zuten, eta udal agintariak, beraiek ere konstituzio sinodalak aipaturik, apezpikutzari eskaera egin zioten, bertan jada serorarik ez onartzea agindu zezan (“pido y suplico a Vm mande estingir y estinga la abitacion de la dicha Beatas y otras que por titulo de rrecojimiento tubieren en ella”)⁶⁸⁵. Baina gauzak nahastuz joan ziren, alde batetik Maria de Gamarrak maisiaketarako abilitate handia zeukalako (gogora dezagun bisitatzailerak nola konbentzitu zuen), eta bestetik, auziaren zenbait dilijentzia ez zirelako zuzen egin (eta serorak bazekien hori): Maria de Gamarra Antonio de Jausoro apezaren onarpena berarekin zegoen auziaren inguruko sententzia egokirik eman gabe eginga izan zela eta kezu azaldu zen, eta eliz-kabildoak, nahiz eta lehenik Antonio de Jausororen izendapena onartu izan zuen, gero Maria de Gamarraren alde egin zuen; gainera auzian zehar beste zenbait irregulartasun ere izanak ziren, batez ere patroiek apelazioak egitean errespetatu izan ez zituzten denboretan, etab.⁶⁸⁶

Azkenean, jada 1664ko ekainean, Maria de Gamarrak Garcia de Montoya ahaldunaren bidez Valladolideko Kantzeleriarako apelazioa egin zuen, eta Errege

⁶⁸³ *Ibid.*, 21r-22v.

⁶⁸⁴ *Ibid.*, 27r-27v.

⁶⁸⁵ *Ibid.*, 29r-30v.

⁶⁸⁶ *Ibid.*, 31r-f.g.

Agindu bat lortu zuen, auzia Kantzeleriako epaitegietara iragan zedin⁶⁸⁷. Gauzak zer diren, azkenean, santutegiaren biziraupena kinka larrian jarri zuen Maria de Gamarra berak lortu zuen, bertako seroratzak apez baten sarrera bidez desagerraraztea ekiditea. Kantzeleriaren aurreko auziaren gorabeheren berri ez izanik ere, santutegiak serorek artatua izaten jarraitu baitzuen, eta ondoren ikusiko dugunez, Maria de Gamarraren ondasunak ere, edo hauetariko asko behinik behin, santutegiaren ondasunen parte izatera iragan baitziren. Baina izan ziren liskarrek zauri larriak sortu zituzten, eta patrioiak ez zeuden jada serorek santutegiaren hainbeste ondasun pilatu eta administratu ahal izan zituzten, eta tenpluari zegozkion erabakietan hainbesteko boterea izan zezaten prest; gainera, Maria de Gamarrarekin liskarrak izan zirenerako, ikusi ahal izan dugunez, serorak santutegiaren zerbitzura zeudela lortzera hel zitezkeen ondasunak ere gutiziatzen zituzten, hauek emandako doteez gain.

1664ko ekainean bertan hartu zituzten patrioiek lehen neurriak, ondorengo urteetan, hainbat liskar sortaraziko zituen erabaki batekin: Leintz bailarako zenbait parrokiatan zeramaten ohitura ezarri zuten, testatzeko gaitasuna ukatzen zuten sarrera hitzarmenak egitearena. Itxuraz, Maria de Gamarrarekin Kantzeleriaren aurrean zeukaten auzia oraindik zabalik zegoela egin zituzten tankera honetako lehen sarrera hitzarmenak; ekainaren 20an egin zuen Mariana de Learriartuk seroratzarako sarrera eskaera, eta auzia Kantzeleriara iragateko Errege Agindua ekainaren 7an jakinarazi zitzaizen udal agintariei, orduan bi aste ere ez zirela. Gainera, ohituraren aldaketan oposiziorik egon ez zedila ziurtatzeko neurriak ere hartu zituztela dirudi. Izan ere, Mariana de Learriartu y Astaburuaga, San Millan parrokiako benefiziodun izan zen Don Jeronimo de Astaburuua lizentziatuaren iloba zen, eta honek zenbait urte beranduago (1687an) helarazi zuen testamentuaren arabera, honek bere kargu hartua zuen iloba – 1664an– santutegiko seroratzara sartu zeneko 200 dukateko dotea (“con lo demas nezesario para la Celda”). Sarrerako hitzarmena Jeronimo de Astaburuaga bera ere presente zegoela egin zen, esan bezala, dohaintzekin bat, testatzeko gaitasunari uko-egitearen baldintza ezarriz:

con la condicion de que no entregando dichas escripturas en uida, fuesen las dos referidas heredades Heredades em propiedad para dicho Santuario despues de los dias de dicha Ueatta a quien asi mismo auia echo donacion de dichos Doscientos Ducados como ttambien lo demas que adquiriese en su Uida sin que pudiese disponer de cosa alguna por uia de testamento ni en otra forma sino que ttodo hubiese de quedar para la dicha Santa Casa⁶⁸⁸

Mariana de Learriartu zenbait urtetan santutegitik kanpo irten zen bere ama Maria Ochoa de Astaburuaga eta honen anai eta bere osaba Jeronimo de Astaburuaga beraien zahartzaroan artatzeko xedez, eta azken honek bere testamentuan bere oinordeko bakar izendatu zuen⁶⁸⁹; baina noski, honen seroratzarako sarrera-hitzamenaren arabera, azkenean, ondasun haiek santutegira iragatekoak izango ziren.

Mariana de Learriarturen sarrera hitzarmenari buruzkoak 1746an izan zen auzi baten konpultsetan ageri zaizkigu, eta bertan, sarrera-hitzarmena bera baino, honen inguruan izkribauak eman zituen azalpenak jaso ziren (zeinak bere fedez bermatzen zituen). Izkribauak seroren inguruan izan ziren auzi hauetan inplikazio zuzena izan zuten, mesfidati jarri ahal izango ginateke, eta bertako hitzei konfirmazio beharrezko fidagarritasuna eman. Auzi honen hasierarako motibo Teresa de Laquiteguik 1746an helarazi zuen testamentua izan zen (zeina, ustez behintzat, ezin helarazi zuen), eta

⁶⁸⁷ *Ibid.*, f.g.

⁶⁸⁸ LGUA 331.3, 158v.

⁶⁸⁹ *Ibid.*, 155v-159v.

bertako lehen orrietan berridatzi zen sarrera-hitzarmenak dakargu konfirmazioa. Hau 1694an helarazi zen, eta bere kasuan ere, herriko aginte esparruetan zuzenean inplikaturiko pertsonaiak izan ziren bere seroratarako sarreraren bermatzaile. Konkretuki, urte askotan zehar santutegiko administratzaile izan zen, bertako kontu-liburuari hasiera eman zion eta seroretzerako konstituzioak idatzi zituen Ignacio de Sagastiberria izkribaua, bere aita-ordea zen (eta noski, bere sarrera-hitzarmenean presente egon zen, eta dotearen kargu hartu zuen). Bada, sarrera-hitzarmen honetan ere garbi azaldu zen baldintza, gainera, aurrerago ere mintzagai izango dugun Aita Santuaren buleto bat ere justifikazio lez aipatuz:

Hace la dicha Teresa de Laquitegui Donacion pura mera perfecta, ynreocable, que el derecho llama, yntruibos para que sean propios de la dicha Santa Casa en propiedad asi el dicho Censo de los dichos Doscientos Ducados Como otras qualesquier bienes rraizes Ganado[s] y Uienes muebles y Censos que adquiriere en la dicha debota Casa, de forma, y manera, que no pueda Disponer de ellos por bia de testamento ni en otra forma, sino que todo aia de quedar para la dicha debota, yglesia para las obras de ella, ornamentos y demas nezesario y preciso para despues de sus dias y que solo a de gozar, del usufruto sin que pueda disponer Cosa alguna, ni de lo que adquiriere en Comformidad del buleto de su Santidad⁶⁹⁰

Esan bezala, beraz, jada 1664an bertan, santutegiko seroren egoera erabat aldatu zen. Zeramatan dotearen usufruktoaz baino ezin zezaketen gozatu, eta santutegian zeudela lor zitzaketen etekin eta ondasun guztiak, azkenean, santutegiaren jabegora iragango ziren.

Bestalde, Teresa de Laquitegui seroratzan sartu zenerako, beste aldaketa garrantzitsu batzuek ere gertatuak ziren. 1663-1664 bitartean izan ziren liskarretatik zenbait urtetara, 1670ean, jatorriz Leintz Gatzagakoa zen Juan de Ormaechea espainiar Marinako kapitainak Gaspar de la Plazari bere izenean testamentua helarazteko ahala eman zion, eta honek lehenaren izenean helaraziriko testamentuan, bere borondateari jarraiki, 6.000 dukat santutegiko serora eta kapitainaren ahizpa zen Catalina de Ormaechearen eta Gasteizeko hiritarra zen Nicolas de Forondaren esku utzi zitezela agindu zuen, hauek, Dorletako santutegiko seroretxearen obretarako izan zitezeten. Dokumentuan seroretxea “convento” bezala aipatu zen, eta datua oso esanguratsua zaigu, ondorengo urteetan santutegiaren inguruko hainbat eragilek azalduko zuten asmoa, eta Juan de Ormaechea berak egin zuen dohaintzarena ere bai, hau komentu bihurtzerako bidean jartzearena izan baitzen. Diruak, Catalina de Ormaechea serorak hala agindurik, zentsutan ipini ziren, eta azkenean, obrak, komentu bat egiterainokoak izan beharrean, oso egoera txarrean zegoen eraikina erori ez zedin bestekoak izatera baino ez ziren heldu (Bergareche 1952, 162, 190).

Dorletako santutegiari eta bertako serorei buruz jardun izan duten historialariek Juan de Ormaechea kapitainaren dohaintza erabakiortzat izan ohi dute aipagai (*Ibid.*, 162, 189-195; Letona Arrieta; Leibar Guridi 1975, 145-146, 153-156); alabaina, gutxitan aipatu ohi den alderdi bat, Juan de Ormaecheak egindako dohaintza handiaz beste, santutegia seroren euren doteekin ere sostengatzen zela da. Ikusi dugu nola santutegian XVI. eta XVII.en mendeetan zehar egin ziren obrak, seroren doteetako ekarpenen eta hauen limosna eskaeraren etekinen bidez egin izan ziren. Hau, santutegiaren historia egoki ulertu nahi bada, ezin da alde batera utzi. Jarraian ikusiko dugunez, are Juan de Ormaechearen dohaintza jaso zenean egin ziren obren kasuan ere, seroren diruen eta ondasunen ekarpen ekonomikoa handiagoa izan baitzen. Baina jarrai

⁶⁹⁰ *Ibid.*, 2r-2v.

dezagun gure ibilbidea gertakizunen kronologiaren arabera, aspektu hauei, –santutegiko lehenak izan ziren– 1700. urteko kontuei erreparatzean helduko baitiegu berriro.

1691n, santutegiko seroren bizimodua erabat aldatuko zuen beste erabaki bat izan zen; edo, erabakia baino, hobe esan, debekua, –1700eko konstituzio sinodalen erantzule izan zen– Pedro de Lepe apezpikuak limosna eskaeran irtetzea debekatu zien urtea izan baitzen. Limosna eskaeraren inguruko debekuak, ikusi izan dugunez, jada XVII. mendearen hasiera aldetik aldiro eman izan zituzten instituzio ezberdinek, eta 1691ko aginduak, beste tenpluetan ere, bereziki eraginkorrak izan zirela dirudi; gainera, oraingo honetan Dorletako seroren artean eragina izan bazuen, –patroiek jada landua zeukaten– egokiera aurreko urteekiko ezberdina zelako ere izan zen. Izan ere, 1664az geroztik seroren ondasun guztiak santutegiaren administraziopean sartzen ziren, eta beraz, bertako aktibitateen etekinen gaineko kontrol zurrunagoa egin zitekeen. Honek, Maria de Gamarrak sorturiko liskarren ondoren santutegiaren ondasunak zaintza zorrotzagoa izatera iragan zirela esan nahi du, 1691n bertan ageri zaigunez, administrazioa euren kargu gaitasun frogatua zuten pertsonak (orduan, Ignacio de Sagastiberria izkribauak) hartuz. Honekiko, gogoan izan dezagun, nola 1663an bere limosna eskaeraren kontuak, itxuraz, Maria de Gamarrak inori ematen ez zizkion. Aurreko mendean ere ez dirudi kontrol zurrunik izan zenik, 1539an obrak eta ornamentu berriak serorek eurek egin izan zituztela ageri baizitzaigun (“habían hecho [*serorek*] ciertos edificios nuevos y muchos ornamentos”), eta 1611an patroitzaren inguruko liskarretan ibili zirenean ere, serorek ate berriak “en la forma que han querido” egin omen zituzten, eta seroretxe baterako (“beaterio”) asmoz 1.000 dukat inguruko obra egin nahi zutenean, diru hauek “granjeados para la dicha ermita y no para ellas” zirela aipatu zuen kexu zen apezpikutzako Fiskal Orokorrek, serorek eurek administratzen zituztenaren seinale. Hau, bestalde, seroren ikuspegitik erabat justifikatua egon zitekeen, bi kasuetan aipagai izan zenez, xahutzekoak ziren diruak beraien doteetatik eta “trabajo personal”-etik helduak baitziren (Bergareche 1952, 160).

Bada, 1691z geroztik behintzat, eta ziurrenez lehenagotik, santutegian serorez aparteko administratzaile batek zeraman ondasunen eta diruen kontu, eta limosnaren etekinen kontrola, bere esku gelditzen zen. Gainera, administratzaile honek seroren ondasun propioen gaineko boterea ere bazuen, 1664an testatzeko gaitasuna ukatzen zuten sarrera-hitzarmenak egiteari ekin ziotenetik, doteen usufruktoaz beste, serorek bizitza guztian pilatu zitzaizketen diru eta ondasunak santutegiarenak baitziren. Hori, noski, teorikoki, eta patroien eta hauek izendaturiko administratzailearen arabera. Izan ere, seroren testatzeko eskubidearen inguruko arazoak laster hasiko baitziren agertzen. Edozein kasutan, diogun bezala, santutegiaren gorabehera ekonomikoak –ustez– patroien kontrolpean zeudenez, limosna eskaeraren inguruko debekua gauzatu zitekeen. Eta nahiz eta 1691ko debekuaren ondorengo bi bisitetan serorek Anbrosio de Baroja doktorea bisitatzaileari, zenbait pertsona printzipal aldeko zituztela, limosna eskaerarako baimena eman ziezaien eskatu zioten, honek ezezkoa eman zien, “regla y constituciones” batzuen idazketa aginduz; hona nola azaldu ziren gorabehera hauek administratzaileak idatzi zizkien konstituzioen sarreran:

de muchos años a esta parte han biuido diferentes mugeres en dicho Santuario con espezial deuo Zion de Cuidar el adorno y linpieza de la Yglesia asistiendo con toda diligencia al ospedaje y buen rezeuimiento a las personas que con frecuencia an acudido en romeria al santuario alimentandose con las limosnas que los deuotos ofrezian sin que en ningun tienpo hubiesen tenido forma de comunidad ni constituciones aunque de muchos años a esta parte an estado a un tienpo asta en numero de siete beatas de la tercera Orden del Serafico Padre San francisco subgetas a la Justicia Secular y porque respecto de que las rentas de las dotes con que auian entrado en dicha cassa no auian

sido suficientes para mantenerse se auian balido de las limosnas que recojian en esta Prouincia la de alaua y reino de nauarra asta que Su Yll.ma el año pasado de mil seisientos y nouenta y uno las hubiese ynpedido la lizencia de poder salir de cassa a pedir limosna y por falta de este aliuio las que al presente residen padezen suma Nezesidad y por que la situazion del dicho Santuario esta desbiada de la comunicazion de los Pueblos no se pueden balar de la lauor de sus manos ni Seria dezente se subgetasen a algunas lauores con que al vso de la tierra se mantienen otras mugeres por cuiu causa en las dos bisitas que hizo el Dotor Don Ambrosio de Baroja aunque se le auia pedido lizencia para pedir limosna en presencia de Don Juan de Segura y otras personas que en su aconpanamiento binieron a esta Uilla no la auia conzedido mandando las formasen regla y constituciones para que con dezensia y recojimiento podiesen tener su auitazion en dicho Santuario⁶⁹¹

Ambrosio de Barojak, Juan de Ormaechea kapitainak bere dohaintza egitean zeukan asmo berbera zeukan, azken finean: seroretxea komentu bihurtzea. Xede horretarako, arautegiaren sarreran zenbait jarraibide ekonomiko ere zehaztu ziren, ondorengo urteetan kasurik egingo ez zitzaizkien. Serorei, beraien elikadurarako, bisitatzailaren aginduz errentaren batzuek ezarri behar zitzaizkien, eta arautegian, errenta hauen administrazioaren inguruan –esperientziaren arabera– izan ohi ziren arazo eta auziak ekiditearren, Gasteizen –beraien inguruko auzi bat medio– depositoan zeuden Juan de Ormaechearen dohaintzaren parte ziren 3.600 dukatak beharrezko obretarako erreserbatu zitezela ezarri zen,

Y los demas Censos y Uienes que al dicho santuario pertenezan asi los que a heredado Por fallezimiento de las beatas como por otra Razon le pertenezere se consignent y se apliquen a las beatas que al presente residen en el y adelante fueren reseruando la propiedad para la Yglesia y que solamente las rentas anuales puedan y deuan perzeuir dichas beatas para sus alimentos como tambien las limosnas que se recojieren en la atabaca y en otra qualquiera forma con obligazion de que aian de poner el azeite y cera nezaria en la lanpara y altares en todas las funziones, que se ofrezieren y en las misas que perpetuamente se dijeren asi botibas como perpetuales⁶⁹²

Esan bezala, bisitatzailaren aginduz administratzaileak ezarririko “asmo on” hauek ez ziren ondorengo urteetan bete, eta urteroko errenta bat ez zitzaizkien serorei 1715a arte esleitu, bisitatzailaren beste agindu batek beharturik egin ere, ondoren ikusiko dugunez. Arautegiaren sarreran, esandakoez gain, eta nahiz eta diruaren administrazioa, nabaria denez, administratzailearen eskutan zegoen, santutegiko serorei tenpluaren argiteriaren eta ohial, ornamentu eta bitxi guztien zaintza esleitu zitzaizkien, hauek aldarekoak izan edo ez, eta hori hala izanik, maiordomoaren izendapena beharrezkoa izango ez zela ezarri zen.

1700ean Ignacio de Sagastiberria izkribau eta santutegiaren administratzailearen eskutik idatzi zitzaizkien konstituzioetan ezarririko arauak, seroren komunitate batetik mojen –klausurako– komunitate baterako trantsiziozko egoera interesgarri baten testigantza ematen digute. Izan ere, seroren gaineko kontrolarekiko, santutegiko patroiek klausurako komunitateen antzerako egoera bat nahi zuten, baina oster, obediencia erlijiosoarekiko, ordenak tartean sartzearekiko mesfidati ziren. Erritu erlijiosoei loturiko etekinen esparrua kontrolpean izan nahi zuten, ordenen aldetiko kompetentzia ekidinez. Arautegiak, gainera, puntuen jarraipenean patroiek zeuzkaten preferentzia garbi azaltzearen abantaila ere badauka. Puntuak jarraipen hau mantenduz laburbiltzen saiatuko gara, luzeegi joan ez dakigun, azalpenak era eskematiko batean

⁶⁹¹ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 63r-64r.

⁶⁹² *Ibid.*, 64v-65r.

emanez; seroren kopuruarekiko, doteekiko eta ondasunekiko, honakoak ezarri ziren lehen hiru puntuetan:

- (1) Seroren kopurua 7an finkatu zen, gehiago onartzeko, apezpikuaren onespeneraren beharra ezarriz. Dotea zentsutan eman beharreko 200 dukatetatik 300 dukatetara igo zen; hau ezin beteaz gero, gutxienez 250 dukat eman behar zituzten, zentsu eta ondasunen artean. Serorek zentsu hauen usufuktoa jasoko zuten, eta propietatea santutegiarena izatera iragango zen. Horrez gain, bi ohe beharrezko estalkiekin, bi goilara, zilarrezko sardeska bat eta “barquillo” bat (kikara bat?) ere eraman behar zituzten
- (2) Momentuan zeuden eta aurrerantzean izango ziren serorek ezin izango zuten beraien ondasunez baliatu, ez testamentu bidez, ez bestelako inolako dohaintza bidez ere, administratzailearen zitazio bidezko apezpikuaren lizentziarekin izan ezik; hauen propietatea, seroren heriotzean, santutegiarena izatera iragango zen
- (3) Seroren hiletetako gastuak kabildo sekularrak eta elizakoak erabakiko zituzten, seroren euren partehartzerik gabe

Ondorengo 21 puntuek komunitatearen funtzionamendurako erregela ezarri zuten, komunitate barneko erlazioak bezalaxe, kanpora begirako erlazioak eta bestelako aspektuak ere arautuz:

- (1) Barne-antolakuntza: botere-erlazioak eta elkarbizitza
 - (a) Komunitateko buruen aukeraketa
 - 7 seroren artean 3 urtean behin seroretzeko “gobernadora” bat (gero “priora o superiora” bezala ere aipatua) eta honen ordezkari bat (“teniente”) aukeratuko zituzten, izendapen hau apezpikuaren, bere probisorearen edo bisitatzailen aldetik berretsia izan beharko litzatekeelarik
 - 3 urteak beterik apezpikuari edo honen probisoreari abisu emango zitzaion, hauek aukeraketa berria agindu eta bertan ordezkatu zitzaion norbait izendatu zezaten
 - Buru aukeratuak izan ahal izateko serorek zenbait baldintza bete beharko zituzten: seroretzean “beata profesia” 10 urtean zehar izan behar izan eta 40 urte beteak izan; halakorik ez balego, apezpikuak edo bere epaileek aukeraketa zaharretarikoren batengan egingo zuketean
 - (b) Gainontzeko serorek buru aukeratuarekiko erabateko obedientziaren zina behar zuten egin, eta bere esanak “sin rreplica ni Question” egin
 - (c) Santutegiko funtzio guztietan (eta kanpokoetan) funtzio erliosotan komunitateko buruak baimena eman ezean ezingo luke inork hitz egin, eta honek jarlekuko lehentasuna luke, ondoren, gainontzeko serorak profesioaren lehentasunaren arabera jarraituz; komunitateko burua ez egotekotan, arau berdina jarraituko litzateke hurrengoarekin
 - (d) Esleitzen zaizkien zentsuen eta ondasunen errentak behar bestekoak izanaz gero era komunitarioan jango lukete, baina hala ez izanik errenta handiagodun dotea emandakoren bat izatekotan, besteek legokiekeena

berdintasunez banaturik honek bere partea bereizirik jasoko luke, “que esta a de perzeuir Cada Vna la Suia”

(2) Seroragaien sarrera, botuak eta ordenekiko erlazioak

(a) Seroragaien sarrera

- Elizan egingo zen seroragaiaren sarreran kabildo sekularrak eta elizakoak eta serorek hartuko zuten parte, eta seroragai ezberdinak egonik, “prebalezca el boto maior”
- Nobiziatu urte bat igaroko zuten, ondoren, profesioa egiteko; hau egitean, “pueda azer como y en la forma que se capitulare remysion de lexitimas a fauor de sus Padres o deudos de su obligazion”
- Nobiziatu urterako komunitateko buruak egokien leritzokeen seroretariko bat izendatu ahal izango luke, “maestra de nouizias” izenarekin
- Profesioa “con la solemnidad forma y modo con que se aze en las relixiones que profesan con los quatro botos” egingo litzateke (nahiz eta laugarren botua ez egin), apezpikuaren edo honen probisorearen lizentzia jasorik, eta hauek izendaturiko norbaiten edo herriko apezaren presentziarekin

(b) Botuak

- Profesioaren orduan egingo lirateke
- Hiru botu: kastitatearena, obedientziarena eta txirotasunarena
- Klausuraren laugarren botua ez zuketean egingo, “asta que Dios las prouea de mas azienda”

(c) Ordenekiko erlazioak

- Abitua “de la terzera Orden de nuestro Padre Serafico San Francisco” izango litzateke, baina “si por los prelados de esta orden se les pusiere algun enbarazo por falta de lizenzia o por otra Causa puedan mudar el auito a que se ynclinare mas su deuozion Ganando lizenzia, del señor Prouisor para la muda del auito”
- Obedientziaren zina apezpikuari egingo zioten zuzenean (ordenaren bateko buruari beharrea), eta bere erlijiozko jurisdikzioa onartuko zuketean, auziak zibilak nahiz kriminalak izan
- Klausuraren laugarren botua egiteko egokieran egonik ere, obedientzia apezpikuari baino ez zioketen zin egingo, eta ezingo zuketean ordenetako bikario edo konfesorarik izan, San Millan parrokiako apez eta benefiziodunak besterik; serorek klausula honen gaineko zina egin beharko zuketean, eta bertan ezarririkoari aurka egingo baliote, patroiek kanporatu ahal izango lituzkete

(3) Komunitateaz kanpoko gizartearekiko eta pertsonetikiko erlazioak

- (a) Serorak santutegitik binaka baino ezingo lirateke irten, eta komunitateko buruaren baimena jaso ondoren; jaiegunetan parrokiako mezara joaterakoan ere, modu berean egin beharko lukete

(b) Seroraren bat seroretzetik kanpo gelditzea inongo kasuan ez litzateke baimenduko, gurasoen, anaien edo ahizpen gaixoaldi edo zahartzaroko artapenaren salbuespen soilaz; kasu honetan, seroretzetik familia-kidearen etxerako bidea beste bi serorekin batera egin beharko luke, eta itzuleran berdin, eta familia-kidearen etxean legokeen denboran, ezingo litzateke bakarrik inora irten, norbaitekin baizik

(c) Egunero seroretzeko atea abemariak jo baino lehenxeago itxiko lituzkete, eta inongo kasuan ezingo lituzkete jada zabaldu, “fortuito no pensado” litzatekeen zerbait gertatu ezean

(d) Serorek bakarka ezingo lukete gizonekin inolaz ere hitz egin, hauek familia-kideak izanda ere, eta familia-kideak izan gabe negoziok hizpide balira, komunitateko buruak zehazturiko lekuren batean baino ezingo lukete hitz egin

(e) Santutegiaz kanpoko funtzioetan (1)(c) puntuan ezarri bezala egingo litzateke

(4) Erliziozko zikloen eta liturgiaren arautzea

(a) Komunitateko buruaren aukeraketaren egunean, hau Izpiritu Santuaren aldeko meza bat esan ondoren egingo litzateke, honek aukeraketan lagundu zitzan

(b) Abendu-aldian eta garizuman baraualdia egin beharko lukete, eramandako abituaren arabera ohiturak jarraituz, erlijioz agindutako gainontzeko egunetan bezalaxe; gaixotasunagatik behar izanaz gero, haragia jateko baimena komunitateko buruari eskatu beharko litzaioke

(c) Amabirjinaren ofizioaren jakitun lirakeenek egunero otoitz egin beharko lukete, eta jakitun ez lirakeenek berriz, Amabirjinaren errosario osoa hiru alditan beharko lukete otoitz egin: herena goizean, beste heren bat eguerdian, eta azkena gauean

(d) Egunero otoitz mentalezko ordu-erdi bat egin beharko lukete, komunitateko buruak aginduriko momentuan

(5) Seroren hezkuntza: momentuan zeuden serorek irakurtzen eta idazten ez zekitenez, irakurketan, idazkuntzan eta ofizioen otoitzean hezi ahal izango lituzkeen abilitate oneko emakumeren bat aurkitzekotan dote gabe onartu ahal izango litzateke, beharrezkoa izanik beste serorei emango litzaikeen errentaren bikoitza emanez⁶⁹³

Laburbildu ditugun alderdi hauek euren kabuz nahiko esanguratsuak dira, eta ez gara bertan azaldukoak errepikatzen hasiko; baina badira zenbait aspektu garrantzitsu, nabarmendu beharrekoak. Komunitate barneko hierarkiaren eta nobiziatuaren ezarpena garrantzitsuak ziren, komunitate barneko kontrol mekanismoen oinarriak gauzatzen baitzituzten. Mailaketa ekonomikoaren errespetua ere arauturik geratzen zen, gainera. Gizartearekiko erlazioen arautzea ere garrantzitsu zen, kanpora begira ere, “ia mojen” komunitate baten itxura emateko bidea ematen baitzuen. Baina ondorengo liskarrak motibatzerakoan garrantzitsuena izan zena zera izan zen: 250-300 dukaten neurrira igo ziren doteen eta seroren ondorengo ondasun guztien kontrola bermatua gelditu zen, eta ordenak etekin ekonomikoaren nahiz kontrol izpiritualaren esparruetatik kanpo mantentzea lortu zen, alderdi hauek, eskusiboki patroiei eta San Millaneko apez eta

⁶⁹³ *Ibid.*, 65v-70v.

benefiziodunei zegozkiela ezarriz; eta gainera, seroren obedientzia erlijiosoa, apezpikuarenganako zen zuzenean. Patroiek, itxuraz, santutegiko seroren bizitza kontrolpera eramatea lortua zuten.

Baina laster hasi ziren arazoak. Alde batetik, serorek konstituzioetako arauak ontzat eman ez zituztenez, errespetatzen ez zituztelako, eta bestetik, patroiek eurek ere, batez ere seroren sostengu ekonomikoari zegozkion alderdian, konstituzioetan ezarririkoak bete ez zituztelako. Arazo nagusiak, noski, bi aldeetatik interes gehien zeuzkaten alderdi ekonomikoen inguruan izan ziren; testamentua nahiz dohaintzak egitearen debekua serorek ez zuten onartu, eta heriotzaren ordua heltzen joan zitzairen ahala, testamentuak helarazi zituzten, sarrera-hitzarmenetan ezarri zitzaienari eta santutegiko konstituzioei aurka eginaz. Juan de Ormaechea kapitainak –hain zuzen ere serorak klausurako bizitzara heldu ahal izateko obrak egin zitezen– dohaintzan eman zituen 6.000 dukaten administratzaile izan zen Catalina de Ormaechea berak ere, testamentua helarazi zuen. Catalina de Ormaechea, aurretik aipagai izan dugunez, presente izan zen Maria de Gamarrarekin izan ziren liskarretan, eta honen irainetariko zenbait ere jasan behar izan zituen; ziurrenez, bere anaiak bere administraziopean utzi zuen dohaintza, santutegiko seroren komunitatean ezagutu eta bizi izan zituenak bezalako gertakizunak berriro izan ez zitezen erara moldatzeko erabili nahi izango zuen. Dohaintzaren diruek, bere administraziopean, hainbat konponketa, ornamentu eta obra egiteko balio izan zuten, besteak beste, Santa Ana eta Santa Maria Magdalenaren aldareetarako erretaula bana egitea aginduz, eta horrez gain, santutegiaren egiturak zeuzkan arazoak erreparaturik, eraikinaren gainbehera eragozteko obrak ere eginez. Baina administrazioaren aspektuak alde batera utzirik, bere erlijiotasunak, zalantzarik gabe, herriko eliteen artean hedatua zena behar zuen izan, emakumeekiko, kontenplaziozko bizitza bertutetsu bat hobesten zuena; hau da, beraien alabak komentutan sartu ohi zituztenen maila sozialetik zetorren. Eta hala izanik ere, berari ere patroiak ezarri nahian zebiltzan baldintzak gehiegizkoak iruditu behar izan zitzaizkion, 1698an hil zedin aurretik, esan bezala, testamentua helarazi eta oinordeko bat izendatu baitzuen: Leintz Gatzagako herritarra zen Pedro Garzia de Aguiriano. Nahiz eta oraindik serorendako konstituzioen erredakzioa egin gabe zegoen, Catalina de Ormaecheak ere 1664az geroztik ezarriak zituzten baldintzen arabera sarrera-hitzarmena egin zeukan, eta beraz, itxuraz behintzat, ezin zuen testamenturik helarazi⁶⁹⁴. Berez, 1700eko konstituzioek, aspektu ekonomikoekiko, 1664. urtearen ondoren harturiko erabakien apezpikutzaren aldetiko berrespen instituzionala lortu zuten.

Konfirmazio hau, ziurrenez, jada serorak ondorengo urteetan ohizkoa izango zen portaera bat izaten hasiak zirelako izango zuten beharrezko: azken urteetan santutegitik irtetzeari ekin zioten, familia-kideen etxeetan zaindu eta artatuak izanik, hauen aldeko testamentuak helaraziz. Catalina de Ormaechea bera hil baino 8 hilabete lehenago irten zen santutegiko seroretzetik oinordeko izendatu zuen Pedro Garzia de Aguirianoren etxera, eta honek zaindu zuen heriotzerarte⁶⁹⁵. Hau 1698an gertatu bazen, hurrengo urtean beste serora batek beste hainbeste egin zuen. 1699an Luisa de Aguirre, bere ondasun guztiak harturik (“todos sus bienes muebles ropa blanca y liencos y demas bienes que tubo”), bere jatorrizko Aramaioko Urbarri elizateko Aguirre etxera itzuli zen, Martin de Aguirre bere anaiarengana. 1700eko martxoaren 8an helarazi zuen testamentuan bere anaia izendatu zuen oinordeko, eta bertan izan zen bitartean, Uribarriko parrokiako apezpa zen bere iloba Juan de Alzega ekonomikoki sostengatu

⁶⁹⁴ Bergareche 1952, 162-164 eta DEAH-AHDSS 2568/000-00, 20r-21v.

⁶⁹⁵ *Loc.cit.*

zuen, bere alde 170 dukat xahutuz⁶⁹⁶. Luisa de Aguirrek, zenbait urte lehenago, 1693an, beste testamentu bat helarazia zuen, oinordeko bere arima eta albazea –berarekiko familia-erlazioren bat izan behar zuela dirudien– San Millan parrokiako apez eta benefizioduna zen Domingo de Aguirre lizentziatua izendatuz, eta seroretxearendako, dotean eman zituen 200 dukatak zentsutan emanez; testamentu honetan ez zaigu sarrera-hitzarmenean ezarri zitzaion testatzeko gaitasunaren ukoaren inongo berririk zuenik ageri⁶⁹⁷. Baina seroretxearendako konstituzioak idaztear zeudela zerbaiten berri izana behar zuen, jatorrizko etxera itzuli, eta beste testamentu bat helarazteko. Gainera, zentsutan emanak zituen diruen kopuru printzipaletaz ezin baliatu bazitekeen ere, bere ondasunak azkar xahutu nahi izan zituela dirudi; Ignacio de Sagastiberriak honela jaso zituen ondasun hauen gorabeherak 1700eko kontuetan:

segun he sido ynformado con dicha rropa blanca y lienzo y otros muebles o su balor asistio a Don Juan de Alcega su sobrino cura y beneficiado de la dicha Ante Yglesia las quales dichas asistencias auian ynportado ziento y sesenta ducados de Uellon de los quales le auia otorgado censso como abajo se dira y que de todos sus bienes muebles no auian sino vna cama cumplida una arca y los bestidos de su persona y las escripturas de zensso al tiempo de su fallezimiento⁶⁹⁸

Baina Martin de Aguirrek bere arrebaren egoeraren jakitun behar zuen egon, honek testamentua helarazi ondoren hil izatetik egun gutxira (egun berean hil baitzen), martxoaren 19an, Aramaioko Zalgo elizateko San Martin parrokiako apezka zen Andres de Garro lizentziatuarekin batera, bere arrebaren beste testamentu bat helarazi baitzuen. 1699an helaraziriko ahalorde baten bidez eman zien serorak bere testamentua egiteko ahala, eta nahiz eta egun batzuk lehenago serorak berak testamentua helarazia zuen, beste bat egin nahi izan zuten. Zergatik? Ziurrenez, seroraren sarrera-hitzarmeneko baldintzen jakitun, bertako administratzaileak Martin de Aguirreri kontuak eskatuko zizkiola zekitelako. Eta seroraren zentsu guztiak santutegiaren ondasun izatera iragan zitezela ezin ekidin izango zutela pentsaturik, azken testamentu honetan, seroraren arimaren aldeko mezak agintzeaz eta bere gaixoardiko gastuak kitatzeaz bestalde, eta “con que no se entienda quedan estos otorgantes a ningun saniamiento”, seroraren zentsu guztiak, dotetzat eman izan zituen 200 dukatak soberan gainditzen zituztenak (zentsuek 430 dukateko balorea zeukaten, eta beste ondasun eta diruren batzuk ere baziren), “para ayuda de las obras de la Ymagen de Nuestra Señora cittada [*Dorletako santutegikoa*]” eman zituzten dohaintzan. Hau da, zentsuen etekinak xede hortara bideratu zitezen nahi izan zuten⁶⁹⁹. Azkenean, Luisa de Aguirreren oinordeko zen Martin de Aguirrek, Ignacio de Sagastiberria administratzaileak hartara beharturik, jaso zituen ondasunen inguruko hitzarmen bat egin beharra izan zuen, bere arrebaren sarrera-hitzarmeneko baldintzei men eginez; eta zentsuen etekinak, azkenean, administratzailearen erabakien arabera xahutu ziren⁷⁰⁰. Catalina de Ormaecheak oinordeko izendatu zuen Pedro Garzia de Aguirianok ere, beste hainbeste egin beharra izan zuen⁷⁰¹.

Gertakizun hauen argitara, 1700eko konstituzioetan bermatu ziren testatzeko gaitasuna ukatzen zuten sarrera-hitzarmenak, seroren ondasunak jasotzeko sare bat zirela ohartzen dugu. Dotearen kopurua, konstituzioak idatzi ziren arte 200 dukaten inguruan kokatu izan zena, eta hauen ondoren 300 edo 250 dukat izatera iragan zena,

⁶⁹⁶ *Ibid.*, 24r-25v.

⁶⁹⁷ LGUA 331.3, 96r-97v.

⁶⁹⁸ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 24v.

⁶⁹⁹ LGUA 331.3, 131r-133r.

⁷⁰⁰ *Loc.cit.* eta *Ibid.*, 95r-95v.

⁷⁰¹ *Ibid.*, 20v-21v.

printzipioz seroren sostengurako etekinak emateko oinarri bat zen, hauei, zentsu horien usufruktoa jasotzea baitzegokien. Gainontzeko zentsu eta ondasunak, nahiz eta bizi ziren artean printzipioz seroren jabegokoak ziren, praktikan jada santutegiaren propietate izatera iragaten ziren, sarrera-hitzamenean hala ezarria baitzieten. Baina 1664a baino lehenago izanak ziren serorek dotearen kopurua baino ez zuten santutegiaren alde ematen, eta ondoren sartu izan ziren batzuek ere, beraien testamentuetan nabari litekeenez, ohiturak horrela izaten jarraitzen zuela uste izan zuten. Aurreko serorek egin izan zuten bezala, dotearen usufruktoaz aparte, bizirauteko beraien ondasunetaz baliatu ahal izango zirela pentsatu zuten, eta ondoren, testamentua helarazi ahal izango zutela, beraien borondatearen arabera. Baina ez zen jada horrela. Dotearen ematea, 1664an testatzeko eta dohaintzak egiteko gaitasuna ukatzeari ekin zitzaionaz geroztik, amu bat izatera iragan zen, azkenean, ondasun guztiak santutegiaren propietate izaten bukatzekoak baitziren. Ohartu beharrean gaude, maila ekonomiko jakin bateko familiendako, edo maila altuko familiekin entzute edo prestigio aldetik parekatu nahian zebiltzan familiendako, 300 edo 250 dukateko dotea, inguruko komentuetan eskatzen ziren doteekiko, nahiko baxua zela. Dorletako seroretzeko konstituzioak idatzi ziren 1700ean bertan, esaterako, Oñatiko Bidaurretako mojek (garai hartan 33 zeuden) 800 zilarrezko dukateko dotea eman beharra zeukaten, nahiz eta kopuru hau beti zurrunki mantentzen ez zen (eta doterik gabe komentuan mojen neskame lez sartzeko –neska bat edo birendako– posibilitatea ere bazegoen, eta garairen batzuetan “beata” gutxiren batzuk –1594an 3– ere izan ziren) (Molero; Lanzagorta 2000, 55-57). “Ia moja” izatearen erregimenean egotearen itxurak alaba komentuetan sartzen zuten maila ekonomiko altuko etxeen tankerako egoera baterako bidea eskaintzen zuen, baina hainbesteko dotea ordaindu beharrik gabe.

1700eko kontuek, egoera honen berri emateaz aparte, beste gauza bat ere argitzen digute: garai hartarako, nahiz eta seroren euren borondatearen kontra izan, santutegiak diru gehiago jasotzen zuen serorenak izanak ziren zentsuen errenta eta ondasunen etekinetatik, Juan de Ormaechearen dohaintzaren errentetatik baino. Urte hartako diru-sarreraren kopuru osoa 31.492 errealek osatu zuten. Santutegiari emandako zentsuen eta dohaintzen kopuru osoen kalkulu bat eginaz gero (alegia, zentsuak artean ordaindu gabe zeuden korrituekin ere aintzat hartuz, euren kopuru printzipaletan), 1700. urtean zentsuetatik jaso ahal izan zituzten korrituen kopuru printzipalak, beti ere erabateko zehaztasunera heldu beharrik gabe (hainbat partidak zehazgabezia ugari azaltzen baitute, bestalde), 51.691 erreal eta $\frac{1}{2}$ -ra heltzen zirela ikusten dugu. Catalina de Ormaechearen aldetik jaso ziren diruek, bere anaiaren dohaintza eta serorak berak emandakoak bat eginik, 27.491 errealen kopurua ematen digute. Hauen artetik 15.850 erreal dagozkio Juan de Ormaechea kapitainaren dohaintzari, eta gainontzeko 11.641 errealak serora berak emandako zentsuei dagozkie. Horiez gain, baziren lursailen alokairuetatik helduriko zenbait etekin ere. Maria de Gamara, Ursola de Uribe, Luisa de Aguirre eta Teresa de Laquiteguiren aldetik eman ziren diruak bat eginik berriz, 24.200 erreal eta erdiko emaitza ematen digu. Datu soil hauek aintzat hartuaz gero, santutegiaren erreforma eta berreraikuntzarako xahutu ziren diruei buruz jardutean Juan de Ormaechea kapitainaren dohaintza baino ez aipatzea ez da oso zuzena ere, seroren diruen ekarpena garrantzitsuagoa izan baitzen. Lehenaren 15.850 errealen aldean, serorek emaniko 35.841 erreal eta $\frac{1}{2}$ -ak zeuden⁷⁰². Hauen ekarpenik gabe, ezin izango ziratekeen obrak burutu, inondik inora. Ohar bedi, bestalde, 1700eko kontuetan etekinak eman zituzten ondasunak, ze serorengandik jasoak –edo atereak– izan ziren. Maria de Gamarraren liskarrak ezagutu ditugu jada, eta Catalina de Ormaecheak eta Luisa de Aguirrek beraien ondasunak testamentuan eman nahi izan zituztela ere badakigu. Teresa

⁷⁰² DEAH-AHDSS 2568/000-00, 3r-57r.

de Laquitegui berriz, ondoren ikusiko dugunez, Ignacio de Sagastiberria beraren alaba-ordea zen, eta 1700eko kontuak eman zirenerako, santutegian bi urtean baino ez bizi izan ondoren bertatik irtena zen (1746an hil zen, oraindik dotea ordaindu gabe zegoela). Bere ekarpen ekonomikoa, beraz, 1700eko kontuetan behinik behin, serora guztien arteko urriena izan zen. Esanguratsuki, 1746an parrokiako benefiziadun eta santutegiko administratzaile zen Sebastian de Elexalde bere osabarengandik ezkutuan, berak ere testamentua helarazi zuen, ondorengo urteetan auzi luze baterako bidea emango zuena.

1700eko kontuen gastuek 32.840 errealek kopurua eman zuten, eta hauen gehiengoa noski, obretan xahutu zen. Hauen artetik, seroren beharretarako 1.098 errealek baino ez ziren xahutu, Ursola de Uriberen heriotzako meza eta errituetan joan zirenak⁷⁰³. Beti ere gutxi gora beherako datu hauen argitara, serorek dirutan egin zuten ekarpenari erreparatzen badiogu, diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzearen aldea deigarria dela baino ezin esan.

Juan de Ormaechea kapitainaren 6.000 dukaten dohaintzaren ekarpena kontu hauetan hain urria izan bazen, bertatik zentsutan ipini ziren diruen parte handi bat auzitan zutelako ere izan zen. 3.600 dukat depositoan zeuden Gasteizen, Ignacio de Sagastiberria santutegiko administratzaileak “Presuitero y Benefiziado de las Yglesias de la Vniversidad de esta Ciudad de Victoria” zen Tomas de Elorzaren aurka zeukan auzi bat medio. Azken honen aita izana zen Juan de Elorzak kopuru horretako zentsu bat fundatu izan zuen Dorletako santutegiaren izenean aritu ziren Nicolas de Forondaren eta Catalina de Ormaechearen alde, eta Juanen seme Tomas de Elorzak zentsua luditu nahi izan zuen, baina administratzailearekin ezadostasunak izan zituen zentsuaren errentaren kopuruaren inguruan. 1701eko irailerarte ez zen sententziarik eman, eta bitartean 3.600 dukatak depositoan egon ziren, etekinik eman gabe⁷⁰⁴. Ez dakigu zehazki auziak zenbat denbora iraungo zuen, baina apezpikutzaren epaitegietatik, Burgoseko Metropolitaretatik eta Valladolideko Kantzeleriatik behintzat iragan zenez, diruok etekinik eman gabe luzaroan egon zirela pentsa liteke⁷⁰⁵.

1700eko kontuekin bukatzeko, hauek bertako serorei buruz beste tankera bateko informazioa ematen digutela ere aipatu behar. Gehiegi ez luzatzeko labur jardungo dugu honi buruz, baina kontu hauetan, serorek zentsuen bidez zeukaten botere ekonomikoaren “eragin eremua” ere ageri zaigula aipatu behar. Trazu orokorretan, santutegiko seroren zentsuen diru-iturriak batez ere Leintz-bailaran (Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Mazmela, Zarimutz eta Marin aipatu ziren), eta Araban (Aramaio, Legutio, Dulantzi eta Gasteiz) kokaturik zeuden, eta Errioxako Brioneseko zordun batzuek ere baziren⁷⁰⁶.

Catalina de Ormaecheak eta Luisa de Aguirrek 1700eko konstituzioak baino lehenago egin bezala, ondorengo urteetan ere hainbat serorek helarazi zuten testamentua, sarrera-hitzarmenean eta konstituzioetan ezarritako baldintzei muzin eginez: –1664an, testatzeko gaitasuna ukatzen zuten lehen sarrera-hitzarmenak egin zituztenean sartu izan zen– Mariana de Learriartuk (1709), Luisa Diaz de Garaiok (1709), Maria Lopez de Bergarak (1717 inguruan), Maria de Pagadigorrik (1720), Josefa de Iraeguik (1732 inguruan) eta –santutegiko administratzaile izan zen Ignacio de Sagastiberriaren alaba-ordea zen– Teresa de Laquiteguik (1746) helarazi zituztenen berri izan ahal izan dugu⁷⁰⁷. Berez, santutegiko kontu-liburuko partidek eta eskura izan

⁷⁰³ *Ibid.*, 54v-57r.

⁷⁰⁴ *Ibid.*, 73r-74v.

⁷⁰⁵ *Ibid.*, 77r-77v.

⁷⁰⁶ *Ibid.*, 3r-57r.

⁷⁰⁷ Erreferentziak dagozkien lekuan emango ditut, ondorengo azalpenetan.

ditugun hiru auzi mamitsueta konpultsek ohizko jarraibide batzuk azaltzen dizkigute. Lehenik, serorak santutegiaren zerbitzura sartu, eta zenbait urte bertan igarotzen zituen. Gerora, batzuek urte gutxitara eta beste batzuek hil baino hilabeteak lehenago baino ez, santutegitik irten eta familia-kideren baten etxera joaten zen, askotan ondoren oinordeko izendatuko zuenarenera, eta heriotzaren orduan, testamentua helarazten zuen. Jarraian, izkribaua izan ohi zen santutegiko administratzaileak –bere lankide izkribauen protokoloen artean– testamentua bilatu eta aurkitu eta bertan oinordeko izendatuari kontuak eskatzen zizkion, seroraren sarrera-hitzarmenaren baldintzen berri eman, eta auziak ekiditeko hitzarmen bat egitera behartuz. Hitzarmen honek gehienetan santutegia faboratzen zuen batez ere, serorak bere azken urteetan gaixotasunegatik eta elikaduragatik izandako gastuak kitaturik eta hileta gastuak hitzarturik, bere zentsuak eta ondasunak oro, santutegiaren propietate izatera iragaten baitziren. Eta santutegiaren kontu-liburuan, zentsu eta ondasun hauen berri, hain prezeski ere, administratzaileak testamentutik bertatik jasotzen zuen, esplizituki hainbat aldiz adierazi izan zuenez.

Jarraibide hau, bariante ezberdinekin, aipatu berri ditugun 8 seroren kasuetan eman zen. Maria de Gamarraren kasua bestelakoa dugu, baina izan ziren liskarretatik erraz ondorioztatu litekeenez, ez dugu uste santutegian geratu ziren bere ondasunak seroraren borondate onez emanak izango zirenik, auzi bidez lortuak baizik. Areago, Maria de Gamarraren salbuespenez, orain arte aipagai izan ditugun serora guztien artetik, Ursola de Uribe izan zen jarraibide hau eraman ez zuen serora bakarria, itxuraz, testamenturik helarazteagatik arazorik ez baitzuen izan; testamentua helarazi, helarazi zuen, bere hileta gastuak aipatzerakoan, Blas de Oyangureni, gastu hauek zirela eta, seroraren “bienes de la erenzia”-tik ordaindu zitzaizkion 282 errealak baino gehiago zegozkiola zehaztu baitzen⁷⁰⁸. Baina agian diru hauek ere administratzailearekin egindako hitzarmenen bat medio izango zituen jasotzekoak, 1700eko kontuetan, Ursola de Uriberengandik jasoriko zentsuen balorea 200 dukat baino handiagoa baitzen, 380 dukatekoa⁷⁰⁹. Eta muturreko data lez 1691-1733 urteak izanik ere, zenbait urte lehenagoko seroren berriak ere jasotzen dituen kontu-liburuan aipagai izan ziren serora guztien artetik, zalantzarria zaigun Ursola de Uriberen kasuarekin batera, Maria Rosa de Azcunaga eta Maria Jetrudiz de Ascarraga baino ez zaizkigu jarraibide hauetatik kanpo kokatzen, eta hori, kontu-liburuari bukaera eman zitzaion 1733an oraindik santutegiaren zerbitzura zeuden bi serora bakarrik, eurak zirelako⁷¹⁰. 1733an jada bi serora baino ez bazeuden, 1700ean santutegiko lehen kontuak eman zirenaz eta seroretzerako konstituzioak idatzi zirenaz geroztik, seroren kopurua jeitsi baino egin ez zelako izan zen. Zeina, serorei ikusi izan ditugun baldintzak ezarri izanik, ulergarria ere baden. Seroren egoeraren eta izan zituzten liskarren berri izango baitzuten inguru guztian zehar, eta honek, noski, ez zuen seroragai berrien sarrera sustatzen lagunduko.

Santutegiko serorak, izan ere, administratzaileen aldetik beraien zentsuen etekinak hain estuki hartuak izanik, biziraupenerako arazoak izaten hasi baitziren; eta bien bitartean, santutegiko obrek jarraitzen zuten, aurreko urteetan hil izan ziren seroren zentsuen etekinak, Juan de Ormaechearen dohaintzarenak bezalaxe, parterik handienez, obretan xahutzen baitziren. Bestalde, 1701eko bisitan, Ignacio de Sagastiberria administratzaileari berari ere soldata bat ezarri zitzaion, kontuei zegozkien partiden kobrantzak sortzen zizkion buruhausteak zirela eta:

⁷⁰⁸ *Ibid.*, 54v-56v.

⁷⁰⁹ *Ibid.*, 12v-28v.

⁷¹⁰ *Ibid.*, 385v-387r. Maria Jetrudiz de Ascarragari egin zitzaion hiru urtetako soldataren ordainketan (1715az geroztik hiru serorak jasotzen zituzten urteroko 100 erreale), bere seroratzarako sarrera “para que con la Zerora y ueata que a la sazón estaua” zerbitu zezan egina izan zela aipatu zen; hau da, bera eta beste bat (Maria Rosa de Azcunaga, kontu berberetan 12 urtetarako soldata jaso zuena) baino ez zeuden.

reconoziendo su merced la mucha Ynteligencia del dicho Don Ygnacio y lo enterado que esta del caudal y aberes de dicha Santa Cassa y sus cobranzas le a encargado la prosecuzion y que forme las quantas hasta el dia de oy y como tal administrador cuide de las cobranzas y aberes dando las dilijençias hechas y que fueren nezarias para su rrecobro y por su trabajo y ocupazion le señala la dezima de todo lo que assi se cobrare y fenezca los pleitos y demas dependiençias que estan pendientes y continue con las obras que estan sin concluir en virtud de la licencia dada por el Yllmo. Don Pedro de Lepe de buena memoria obispo que fue de este obispado⁷¹¹

1700-1713 bitarteko kontuak ere Ignacio de Sagastiberriak emanak izan ziren, eta bere soldata jaso zuen. Bien bitartean, beraien doteko 200 dukaten (1700eko konstituzioetan dotea 300 edo 250 dukatetara igo ondoren sarturikorik oraindik ez baitzegoen) usufuktoaz beste, serorek ez zuten konstituzioetan agindu izan zitzaien inongo soldatarik jasotzen. Soldata hau 1715ean bisitatzailerak emandako agindu baten ondoren ekingo zioten jasotzeari, baina bien bitartean, Mariana de Learriartuk 1709an “en la casa de Goico Portalea” (Leintz Gatzagan bertan) helarazi zuen testamentua bere iloba Juan Bautista de Segura oinordeko izendatuz⁷¹², eta urte berean helarazi zuen testamentua Luisa Diaz de Garaiok ere, Arabara, Arroiabera, bere ahizpa Magdalena Diaz de Garaioren etxera edo Francisco Ruiz de Azua bere iloba apezarenera, ahal izan zituen ondasunak eramanez joan ondoren⁷¹³.

1711n arazo handiagoak izan ziren, Maria de Pagadigorri serorak bere ondasunak santutegitik ezkutuan atera zituenean. Serora honen oinordekoekin ere azkenean hitzarmen batera heldu baziren ere, liskar gogorrak izan ziren tarteko, alkatearen aurreko auzi bat eragin zutenak. Maria de Pagadigorri 1676tik zegoen santutegian, eta 1711n, Magdalena de Pagadigorri bere ahizparekin batera, gauez bere ondasunak santutegitik ateratzeari ekin zion. Garai hartan, Maria de Pagadigorri beraz gain, Maria Lopez de Bergara (70 urterekin) eta Maria Garzia de Aguiriano (58 urterekin) zeuden “beata profesa” lez, eta Maria Rosa de Azcunaga (27 urterekin), bere nobiziatuko lehen urtean zegoen. Azken honek, aurrekoengandik entzun izatez eta berak ere ezagutu izanagatik Maria de Pagadigorri “yntolerable Condizion”-ekoa zela esateaz beste, honen ahizpa Magdalena de Pagadigorri santutegitik estaliriko otar beteak ateratzen azken sei hilabeteetan “mas de doze Uezes” ikusi izana aitortu zuen. Ezin izan omen zuen Maria de Pagadigorrik beretzat hartuak zituen bi zeldetan sekula sartu (lekua soberan zeukatenaren seinale), eta beraz, ez zekien honek zenbat ondasun izan zitzakeen, nahiz eta bitxi eta balore handiko ondasun asko zeuzkala entzuna zuen. Beste serorei ezer esan gabe santutegitik alde egin zuenean, jada ustiak zituen zeldetariko bateko giltza bidali zion Maria Rosa de Azcunagari, eta beste zeldako zerraila kendu eta berarekin eraman zuen. Maria Lopez de Bergarak, lehen testigantza batean, nobiziak –beraiek testigantza eman aurretik– esandakoak arindu nahian edo, aurreko urteetan Maria de Pagadigorriekin euren liskarrak izan bazituzten ere (35 urte zeramatzan jada berarekin elkarbizitzan), hauen errua berea ere izana zela ziurtaturik, azken urteetan elkarren artean ongi konpontzen omen zirela esan zuen, eta inor santutegian sartzen ikusi izana ukatu zuen. Maria de Pagadigorrik dirutan eta ondasunetan hainbat aberastasun zeuzkala ba omen zekien, baina hauek ez omen zituen seroretxera eramaten, eta bere ahizparen etxean gorde izango zituela suposatzen omen zuen. Maria Garzia de Aguirianok, Maria Lopez de Bergarak esandakoa berretsi zuen, baina santutegitik irtetzen jendeak ikusi zituen otar estaliei justifikazio bat ere eman nahi izan zien, Maria de Pagadigorri babesa eman nahian: Maria de Pagadigorri okasio batean santutegitik

⁷¹¹ *Ibid.*, 60r.

⁷¹² LGUA 331.3, 82r-83v.

⁷¹³ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 220v-223v.

estalariko otar bat eramatear zela ikusi omen zuen, eta otarreko edukinari hau estali aurretik begirada bat eman ahal izan zionez, bertan “algunos trastos de el seruizio de cocina de poca monta” baino ez zeramatzala ikusi omen zuen. Eta beraz, nahiz eta jendeak berari eta beste serorei Maria de Pagadigorriren ibileren berri eman izan zieten, ez omen zuen arduratzeko motiborik ikusi, eta gaeuz, gainera, ez omen zuen seroretxean inor entzun.

Alabaina, seroretxeaz kanpoko lekukoek testigantzek besterik zioten, nobiziaren aitorpenekin bat eginez. Maria eta Magdalena ahizpak, eta baita azken honen alaba Ana Maria de Maiz ere, hainbat aldiz ikusi zituzten seroretzetik estalitako otarrak eta bestelakoak Magdalenaren etxera eramaten, eta gainera, ibilera hauek ez ziren orduan zela hilabete batzuetakoak soilik, lau urte lehenago berbera eginez ikusi zituela aitortu zuenik ere izan baitzen. Gainera, ondasunak ez zituzten soilik santutegitik Magdalenaren etxera eramanez, bertatik seroraren beste iloba baten etxera, Francisca de Laquiteguirenera ere, beste hainbat ondasun garraiatu baitzituzten. Azken hau Oñatiko Urrexola auzo edo elizatean bizi zen bere senar Juan de Erostarberekin, Erostarbe baserrian. Batek baino gehiagok ikusi omen zuten azken hau, idi-parea eta gurdi betarekin, Magdalenarenetik gau-erdi aldera irtetzen, Erostarberako bidea hartuz. Lekukoetako batek Erostarbetik igaro zeneko batean honakoak ikusi ahal izan omen zituen: “tubo ocasion de yr â la dicha casa de Erostarbe donde bio un quarto âdornado de quadros y pinturas, y ymagenes que le parezio mui dezente al que depone lo qual no hauia uisto en otros tiempos”. Gainera, izan zen aukera Maria de Pagadigorriren aurka zeukan ernegua askatzeko probestu zuenik ere, serora oso leku txarrean utziz; Matias de Aguirre Gabiriak, ondasunen ateratzeak orduan zela lau urtetatik jada hasiak zirela esan zuen berberak, honakoa zioen:

desde aquel tiempo â esta parte Con la misma publizidad a oido el testigo que la dicha beata â trasportado, â las Casas, de Magdalena de Pagadigorry su hermana todas las Cosas que a podido aun asta la menudenzia de llena que tenian las demas beatas para su foxar[?] y que la dicha beata por su condizion, y ambizion de Uienes â motiuado muchas ynquietudes y desazones, â las demas beatas sus conpaneras, y que ellas se hauian ôlgado muchisimo de que hubiese salido la dicha Maria de Pagadigorry beata dee la Compania de ellas con que hauian logrado paz y quietud asi por su condizion como lo yndezenze con que se solia portar en dicho Santuario en su traje que despreziando la onestidad solia andar descalza y descubierta la maior parte de su cuerpo, con ynponderable yndezenzia como es publico y notorio â todos los Uezinos de esta Uilla, que todos lo an Uisto

Jada gertakizun hauen zurrumurruak hedatuak baitziren (“en esta Uilla es publico y notorio publica boz y fama”), halako batean, auzia hasi aurretiko egunean, Juan de Erostarbe Urrexolako beste bi lagunekin herrira heldua zelarik, Josef Antonio de Burunzano alkatea Magdalenarenera joan zen, hiru herritar berarekin zeramatzala (bata, gertakizun hauen berri eman zuen Pedro de Izaga):

aiar â la tarde despues que dieron las siete llegaron a esta Uilla dicho Juan de Erostarbe y otros dos uezinos de Urrejola con sus buies y carros con el pretesto de que benian con paxa para la dicha Magdalena de Pagadigorry que los tres apenas hauian traido medio carro de paxa a fin de disimular el fin â que benian y que por nottizias que de ello tubo el dicho señor Alcalde su merced les mando â el y â Pedro de Aristi y Francisco de Uranga uezinos de esta Uilla que juntos estauan para que le asistiesen a la casa y hauitazion de la dicha Magdalena de Pagadigorry y que hauiendo llegado â ella Juntos y preguntado por el dicho Juan de Erostarbe salio la dicha Magdalena deziendo que se les ofrezia y hauiendo respondido â ella que el señor Alcalde le queria ber âl dicho Juan de Erostarbe â llamamiento de la dicha Magdalena su suegra y

preguntandole â que fin hauia benido a esta Uilla a que salio con arrojo la dicha Magdalena y dixo que tenia que tomar quenta el dicho señor Alcalde y los que le âcompanauan, y el dicho Juan de Erostarbe respondio que no sauia â lo que hauia benido

Baina Maria de Pagadigorri serora ere etxean zegoen, eta disimulatu ezin zela oharturik eta amorrus mingainari ezin eutsirik, arazoan gakora jo zuen zuzenean:

y al mismo tiempo bajo la dicha Maria de Pagadigorri beata y dixo que le querian a ella si queria bender sus Uienes como bend[e] â la dicha Francisca de Laquitegui su sobrina dos arcas y una cama y que â portearlas hauian benido y que si queria bender sus bienes no se lo podia ympedir porque nezesitaua de alimentos ô para emplearlos en misas y al mismo tiempo la dicha Magdalena de Pagadigorri sin dar lugar â su merzed â que las rreplicase las rrazones que hauia en el caso con bozes descompuestas y yndecoras aun [e] señor Alcalde con suma llaneza d[?]to a su merzed y a los que fueron en su âcompañamiento que si tubiese ottra almoneda como en otras oca[sio]nes tubieron para lleuar las mejores Alaxas en el sobaco y otras palabras semexantes con suma yrreberenzia a un señor Juez de forma que a su merzed le parecia salir sin replica de la dicha casa y sin embargo continuando la dicha Magdalena la expresion de sus palabras entre otras dijo que a las diez de la noche que tenia su merzed que hazer en la casa de ella pues no tenia fraile ôculto ni ottra cosa semejante y que le tomaria quenta a su merzed y sabria como se hauia de portar pues no hera ella ôcultadora de ladrones y otras muchas palabras semejantes prouocatorias y que por entonzes disimulo el señor Alcalde el pasar â demostracion alguna asta tomar parecer de letrado con ymformacion de el caso

Maria de Pagadigorri eta Magdalena bere ahizpak beraien haserrearen arrazoiak garbi azaldu zituzten, hain zuzen ere, santutegiko serorei eragozten zitzaizkien eskubideak aipatuz: serorak bere ondasunak nahi bezala saldu ahal izateko eskubidea, eta elikagaietarako nahiz bere arimaren aldeko mezak agintzeko beharrezko zuen diruaz nahi bezala baliatzearena. Gainera, orain arte aipagai izan ez dugun aspektu garrantzitsu baten berri ere eman zuten: administratzaileak eta patroiek, serorek bilduriko ondasunak eskuratzeko zeukaten modua. Serorenak izanak ziren ondasunak enkantera ateratzen ziren, eta hauek, iradoki zenaren arabera, udal agintariak eurek eta beraien botere esparruko kideek eskuratzen zituzten. Beste testigantza batzuetan ere eman zen gertakizun hauen berri, eta xehetasunek serorak eta bere ahizpak alkate eta administratzaile zena eta bere ingurukoak seroren ondasunen lapurtzat zeuzkatela azaltzen digute; Magdalena de Pagadigorrik ez zuen aski izan, eta hurrengo egunean – auzia, testigantza hauek jasoz, abian jarri zenean– ere alkatearenganako probokazioekin jarraitu zuen; Magdalenaren etxetik gertu bizi zen Domingo de Camposek honakoak entzun zituen:

a esta le oio dezir â la mañana siguiente que era jueves desbiandose un poco de su puerta âzia el canton y casa de el Señor Alcalde para que le pudiese mejor oir, que esta quaresma el Señor Alcalde y escriuano no tenian para sardinas y querian sacar para comer carnero, â costa âjena [...] Anadiendo dijo que â la dicha Magdalena tambien le io dezir en el canton que aze quatro esquinas de la Calle de Arriua sin señalar personas que si tubiesen una âlmoneda lo tomaran para lleuar debajo de el sobaco las mejores âlajas y aunque no señalo personas, por lo antezeden ymfiere el testigo y tiene para si por zierto y yndubitable, dezia por los Cargo hauientes de esta Uilla

Testigantzek gorabehera guzti hauek azaleratzen joan ahala, Maria Lopez de Bergara eta Maria Garzia de Aguiriano serorek Maria de Pagadigorri eman zioten nolabaiteko babesa beraiendako ere arriskutsu izan zitekeela ohartu bide zuten, eta berriro agertu ziren alkatearen aurrera, Maria de Pagadigorrik santutegian faltan bota

zuten “una Arca de Comunidad” bere ahizparenera eramana izan behar zuela salatzeraz, eta oraindik, ondasun guztien erreposoa egitekotan zeudela... ez ziren berriz agertu.

Azkenean, testigantzak jaso ondoren eta Juan de Oro lizentziatuaren aholkularitzarekin, alkateak bere sententzia eman zuen: Magdalena de Pagadigorri bere etxean preso geldiaraztea agindu zuen, eta Maria de Pagadigorri serorari berriz, bere aurrera azaltzeko zitazioa egin zitzaion, santutegitik atera zituen ondasunen inbentarioa jasotzeko asmoz⁷¹⁴.

Baina Maria de Pagadigorri ez zen alkatearen aurrera agertu. Ez behintzat 1719an testamentua helarazi zuen arte, eta orduan, testamentuaren helarazpena, nork eta garai hartan santutegiko administratzaile zen Juan Antonio de Jausoro izkribauak balioztaturik egin zuen. Bertan adierazi zuenaren arabera, nahiz eta hau helarazi zuen momentuan “en esta uilla de Salinas en las casas de el uinculo que fundo Martin Abad de Belatategui” zegoen, 1711ko liskarrak izan zirenaz geroztik bere iloba Maria Rosa de Maizen etxean bizitzen egon izan zen, Aramaion, honek eta bere senarrak, Aramaioko izkribau zen Martin de Salterainek artaturik. Bere zahartzaroan artatu izan zutelako esker onez, azken hau izendatu zuen oinordeko. Mesfidati zen artean santutegiko patroiekiko eta administratzailearekiko, eta “por quanto como la esperienzia tiene mosttrado y acreditado que por fallezimiento de el testador suele hauer ocultazion de uienes y muchos mottibos y rezelos y ynquiettudes”, testamentuan bertan egin zuen –ordurarte ezin kendu ahal izan zizkioten– bere ondasunen inbentarioa, eta Urrexolara Magdalena bere ahizparen etxetik eramane zituen ondasunak Oñatiko hiribilduko parrokian kapilau zen –eta itxuraz, bere iloba Francisca de Laquiteguiren eta honen senar Juan de Erostarberen seme behar zuen– Juan Antonio de Erostarberen eskutan zeudela ere aipatu zuen. Ondasun hauen balorea mezatan ateratzeko enkargua egina zion honi, eta inongo konturik eskatu ez zekiola agindu zuen. Testamentuaren hasieran bere santutegiko irteera motibatu zuten liskarregatik nolabaiteko damua ageri bazuen ere (“hauiendo salido sin mottibo justto”), honen alde sarrera-hitzarmenean ezarririko dotea baino eman beharrik ez zeukala iritzi zion, eta hala egin zuen, “al Cauildo de gratis”, harez gain beste 20 dukat emanez izan bazen ere⁷¹⁵; honela adierazi zuen bere ustea:

en comformidad de lo que prebiene la escritura de Yngreso de mi beatorio que tengo otorgado con los Patronos de el Santuario de Nuestra Señora de el Castillo â los ueinte y nuebe de Dixiembre de el año pasado de mil seiscientos y settenta y seis por ttestimonio de Juan de Laquittegui scriuano que fue de su Magestad y de el Juzgado de esta dicha uilla que en su cumplimientto para que se le guarde al dicho Santuario el derecho que le pertteneze se le entregue a sus Patronos y a su derecha representazion los duzientos ducados que lleue en dotte al dicho Santuario en la forma que expresa la dicha escritura de Capitulaciones del dicho mi beatorio cuias escripturas exsisten en mi poder y le consigno la dicha dotte en esta forma⁷¹⁶

Litekeena da eliz-kabildoari musutruk emandako 20 dukat haiek, administratzailearen eta seroraren artean egindako hitzarmenen baten ondorio izatea. Aurreko urteetan zehar seroren testamentuekin gertaturikoen jakitun izango zen Maria de Pagadigorri, eta 20 dukaten bidez administratzailearekin aldarte onean bukatu nahi izango zuen, testamentua egiten arazorik gabe utz zekion. Serorak testamentua eta bere funtsak mantenduz zenbait gauza aldatzen zituen kodizilo bat⁷¹⁷ helarazi ondoren, hauen

⁷¹⁴ LGUA 330.4, f.g.

⁷¹⁵ DEAH-AHDSS 4812/000-00, 1r-8r.

⁷¹⁶ *Ibid.*, 3r-3v.

⁷¹⁷ Kodizilo honetan bere dotearen ordainketarako zentsuetariko bat beste birekin ordezkatu zuen, eta 72 dukateko balorea zeukaten azken hauen bidez Leintz Gatzagako San Millan parrokian fundatzea agindu

berri izanik, 1720an, 1711ko liskarretan ordungo alkateak aholkulari izan zuen Juan de Oro lizentziatuari azken informe bat osatzea eskatu zitzaion, patroiek santutegiaren gain eratua zeukaten seroren ondasunak eurenganatzeko era, serorekin izanak ziren arazoan ondoren, jada bere puntu ahulak agertzen hasia zela adierazten diguna; Oro lizentziatuari arazotsua iruditzen zitzaion serorei testatzeko eta dohaintzak egiteko gaitasuna ukatzearen konstituzioetako araua:

hauiendo salido la referida de dicho Santuario y manteniendose fuera de el en lo mas penoso de su edad desde dicho año asta el que A muerte tengo [*por mas comunmente?*] Y Azeztado que los señores Patronos se conbengan con el heredero de la suso dicha en razon de la dotte que pareze lleuo á dicho Santuario pues aunque la escriptura de donazion echa para la suso dicha le priban de disponer de sus Uienes por testamento cobdizillo o ottra forma tiene graue dificultad del que se estimen por lexitimos dichos pactos que priban de la libertad de testar Y ttienen otros yncombenientes por que sera mui Abenturada la sentenzia Que en esta Razon se tiene y mas Hauiendo la suso dicha desamparado dicho Santuario y no hauerse Utilizado desde que salio de sus frutos y Rentas Por cuias Razon el heredero obligandose a hazer buenos los Duzientos Ducados de la dotte de la suso dicha y a la Euizion Y Saneamiento de los Zensos que manda para Este efecto en su cobdizillo seria de sentir que los señores Patronos se contentasen Con el montamiento de los dichos Duzientos Ducados que es mi Dictamen⁷¹⁸

Lizentziatuak izendapenetako baldintza eta konstituzioetako araua zenarekiko azaldu zituen erreparoa ondorengo urteetan agertuko ziren, beste serora batzuen testamentuekin izandako arazoetan; hein horretan, nahiz eta santutegiko kontu-liburuan ageri zaigunez, azkenean, beste kasuetan bezala, bere oinordekoak –seroraren testamentua balioztatu zuen– administratzailearekin egindako hitzarmen batetara heldu beharra izan zuen, Maria de Pagadigorrik izan zuen bere garaipentxoaren ere, patroiek seroren ondasunak eurenganatzeko zeukaten jardura zilegitasuna galduz baitzian.

1711ra itzuliko gara orain momentu batez, urte hartan, Maria de Pagadigorrik santutegitik alde egin ondoren, serorek, beraien ondasunen gain ezarria zegoen sarea estua izanik ere, oraindik santutegiko zenbait alor ekonomikoren gainean beraien boterea mantentzen zutela agertzen digun zerbait gertatu baitzen. Urte bukaera aldera, santutegian geratu ziren hiru serorek, Maria Lopez de Bergarak, Maria Garcia de Aguirianok eta Maria Rosa de Azcunagak, bertan fundatua zegoen kapilautza bateko patroik ziren heinean, apez bat kargutik kendu zuten, beste bat izendatuz. Kapilautza hau Maria Jesus de Elejalde serorak, santutegian serorek botere ekonomiko esanguratsua izan zutenean fundatua izan zen, 1621ean, urteroko 15 dukateko dotazioarekin. Ordurako, serora fundatzaileak bere testamentuan kapilautzarako eman zuen kopuru printzipaletik 160 dukat gelditzen ziren, bertara bideratu ziren zentsuetariko batzuek baliogabeak suertatu baitziren (“auian decaido y fallido”). Bada, kapilautza esleitua zitzaion Domingo de Lamariano apezak esan beharrekoa zuen asteroko meza esaten ez zuela eta, bere ordean, Antonio de Jausoro apezak izendatu zuten (garai hartan Legutioko parrokia atxikietako apez benefizioduna zen)⁷¹⁹. Kapilautza hau sekularra zen, eta

zuen betiereko anibertsario bat balio gabetu zuen. Halaber, bere testamentuan doteaz aparte aipatu zituen zentsu guztien etekinak –oinordeko izendatua zuen– Martin de Salterain izkribauari esleitu zizkion (kodizilo hau, testamentua ez bezala, honen Aramaioko etxean emana izan zen), honek bere zahartzaroko artapenerako erabili zitzaion. Edozein kasutan, funtsean, bere iritzia mantendu zuen (LGUA 331.3, 83v-86v).

⁷¹⁸ LGUA 330.4, f.g.

⁷¹⁹ Izendapen hau deigarria egiten zaigu, Antonio de Jausoro apezak, Maria de Gamarrarekin liskarrak izan zirenean (1663-1664) santutegia bere kargu hartzeko prest agertu zen apezka baitugu, eta eskaintza hau egin zuenean serorekiko agertu zuen jarrera, printzipioz behintzat, ez baitzen gozoa izan; seroretxean

serorek, izendapen berria egiterakoan, patroitza inongo zalantzarik gabe eta beti santutegiko serorena izana zela argi eta garbi utzi nahi izan zuten:

por ser esta memoria merelega ad nulun mibile que por ttal se a ttenido y se tiene sin que en el pertenezca a la Jurisdiccion hordinaria eclesiastica yncumbencia alguna, ni en tiempo alguno desde la dicha fundacion hasta aora ningun Capellan a ocurrido a dicho tribunal eclesiastico para ninguna dependencia que se aia ofrezido tocante a su nombramiento ni para otro efecto ni fin alguno huiendolo resuelto deliuerado y ejecutado por si las otorgantes, como tales Patronas en uirtud de la pottestad autoridad y facultad que les conzedio la dicha fundadora en cuio uso y posesion han esttado y esttan sin acto en contrario a uista ciencia y tolerancia de dichos señores obispos y sus Prouisores y Uisitadores⁷²⁰

Ustearekin urrunegi joatea dela jakinik ere, Maria de Pagadigorriekin orduan zela hilabeteren batzuk izan ziren liskarren bistan, serorek, oraindik ere santutegiko alor ekonomikoren batzuen gaineko boterea zeukatela erakutsi nahi izan zutela esan liteke.

Gertakizun hauetatik urte batzuetara, 1715eko urtarrilean, Domingo de Aleson Aguado bisitatzailleak patroiei kontuak eskatu zizkien. Ignacio de Sagastiberria ez zegoen jada administratzaile karguan, eta antza, patroiek ez zituzten zegozkien kontuak egin. Bisitatzailleak, eskomiku meatxupean, kontuak hurrengo bisitarako eginak izan zitzaizela agindu zien, administratzailearen bat izendatu zezatenarekin bat. Gainera, alkateak santutegiaren izenean zenbait zentsuren etekinak jasoak zituela eta, bisitatzailleak jasotakoen kontuak eman zitzaizela eta santutegiko ondasunen inbentarioa ere egin zezala agindu zion. Serorei eman beharreko soldata ere orduan agindu zuen, nahiz eta soldata honen kopurua, itxura guztien arabera nahita, ondorengo garairen batean gaintetik idatzita eraldatua izan zen:

Otro si huiendo sido informado su merced de que las beatas que viben, y asisten en dicho santuario como sus antecessoras an dado diferentes caudales para [a]umento del, y que se an mantenido de las limosnas que recojian de los fieles debotos, concurrentes â dicho santuario, las que oy no tienen por la calamidad, e ñnjuria de los tiempos, por cuia razon, y no poder salir â pedir limosna como lo acostumbraban en otros tiempos, y constandole â su merced se hallan sumamente necessitadas, y no tener para el alimento precisso, mandaba, y mando â los dichos Patronos, y al administrador quando lo haya, les den [gaintetik idatzia eta aldatua: tre]cientos reales de los efectos, y rentas de las dotes de dichas beatas, y sus antecessoras para sus alimentos en cada un año haciendose cargo de dicha cantidad en las primeras Quantas que se dieren⁷²¹

berriro serorarik egon ez zedila nahi izan zuen, eta hauek kanporatzeko konstituzio sinodalak ere hartu zituen argumentutzat. Baina bere eskaintza 4 urtetarakoa izan zen, eta 1711n serorek beraganako azaldu zuten onespina ikusirik, agian, nahiz eta Maria de Gamarrarekin izandako liskarretan seroren aurkako argumentu erabakigarriez baliatu nahi izan zuen, hauek serora liskartsua kanporatzeko modua izan zitezkeela kontsideratu ahal izango litzateke; Antonio de Jausororen ordungo asmoa, azken finean, ez zen agian serorak erabat kanporatzearena izango, hauek, arazoak baretu artean, 4 urte haietan bere manupera eramatea baizik. Bere hortan gelditzen zaigu zalantza, baina serorekiko bere jarrera zelakoa zela, Antonio de Jausorok santutegiarekiko debozio handia zeukala gauza jakina zen; besteak beste, Kristoren Koroako arantzaren zinezkotasanaren inguruan Borjako San Frantziskok izan zuen paperaren sostengatzaile irmoa izan zen, eta are 1776an ere, bere hitza gogoratu zuten tradizioaren bermetzat. Orduan Antonio de Jausororen ahotik entzun izana ziurtatu zuten istorioa honakoa zen: “transitó por ésta [*Dorletako santutegitik*] el santo Jesuíta, Duque que fue de Gandía (hoy San Francisco de Borja), pasó a hacer oración al devoto santuario de nuestra Señora del Castillo y habiendo tenido noticia de que se guardaba en él, con mucha veneración, una de las Espinas de la Corona del Señor, después de haberla besado con humilde reverencia y por ver sin duda si era legitima, pues le faltaba su auténtica, que le rompió la punta y empezó luego a correr sangre, como hoy se ve en el mismo relicario” (Bergareche 1952, 179-180).

⁷²⁰ LGUA 331.3, 86v-91r (aipua, 87v-88r).

⁷²¹ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 109r.

Garai hartan santutegian 3 serora baino ez zeuden, eta bisitatzailleak bakoitzari zenbat esleitu nahi izan zien ez badakigu ere, ondorengo urteetan egin zitzaizkien ordainketetan bakoitzak 100 erreal jaso izan zituzten, gainetik idatzi zuten kopuruaren arabera. Hau, eta baita aginduari egin zitzaion aldaketan gainetik idatzirikoak “tre” behar zuela ere (bestela irakurgaitza suertatzen baita), 1746an Teresa de Laquiteguiren ondasunen inguruan izan zen auzian hala aipatu zelako dakigu, bertan egin zen galdeketan, kopuru hau aipatu baitzen⁷²². Seroren kopurua beraz, behera zioan, santutegiaren etekinak bezalaxe.

Bisitatzailleak eman zuen agindua, nabaria denez, serorak bizirauteko estuasunak izaten ari zirelako emana izan zen. Eta egoera honen agerri, urte bereko ekainean (agindua urtarrilean emana izan zen), gelditzen ziren hiru seroretariko batek, Maria de Pagadigorriekin izan ziren gorabeherak bizi izan zituen Maria Lopez de Bergarak, aurretik beste hainbat serorak egin bezala, santutegitik alde egin zuen. Jada oso zaharra zen eta “tabardillo”-ak eta zehaztu ez ziren beste hiru gaixotasunek jota zegoen, eta bere testamentuan albazea izendatu zuen bere iloba Pedro de Aramburu Zabalarenean, hilabete baino ez zuen bizirik iraun. Kasu honetan egin zen hitzarmenean administratzaile berriak seroraren testamentuan ezarri zena errespetatu zuen, doteaz beste izanak zituen ondasunak jada bere gaixoardian artatu zuten pertsoneri dohaintzak eginez xahutuak zituenez, sarrera-hitzarmenean zehaztu zena –honen arabera helarazi ezin zuen– testamentuan ontzat hartuz, santutegia izendatu baitzuen oinordeko. Bisitatzailleak agindu bezala ondoren egin ziren kontuetan, serora honen ondasunak zirela eta atxiki zen “declarazion” batek bizi izan zuen egoera eskasaren berri ematen digu, hitzarmena nola egin zenaren inguruko azalpenetan:

y de como por dicho tiempo vino al abrigo de la Casa de el dicho su sobrino con dicha enfermedad la qual le duro un mes a poca diferencia y porque no tenia quien le asistiese en su conbalezenzia y en la de otras tres enfermedades en las quales de como le hauia suministtrado con ttodo lo nezesario asi de el alimento que se requiere en semejantes casos como tambien con ttodos los gasttos de sus enfermedades asi de zirujia como de bottica y en remunerazion de los crezidos gastos de dichas asistencias y cuidado particular con que le haui asistido le mando dos bacas que esttaban em poder de Joseph de Zaloña vezino de estta Villa y el poco mueble que tenia en su poder que hera de poca entidad con mas veinte ducados que hera su boluntad se le diesen de el prodotto de los duzienttos y veinte ducados quedando los duzienttos de su dote para el dicho Santuario como se prebenia en su Yngreso se diese cumplimientto al dicho su testamento en atenzion a que de doze años antes asta el tiempo de el ottorgamiento de el dicho testamento le haui asistido el dicho Pedro de Zauala su sobrino para sustentarse en dicho Santuario rrespectto de que se les hauia ympedido el pedir limosna en nombre de el y no llegar el trauajo personal de ella ni lo que rrendia su dote a su congrua sustentazion ni menos para la combalezenzia de dichas enfermedades ni para poder suplir sus gasttos y para aiuda y socorro de sus alimentos le hauia dado a la dicha beatta un quarto de zerdo durante los dichos doze años en cada vno de ellos y para en remunerazion de estas asistencias le hazia las dichas mandas segun constta mas por menor por dicho tentamento por el qual le nombro por su testamentario al dicho Pedro de Zauala su sobrino y en lo rremanente de sus vienes derechos y acciones le ynstituio por su vnica heredera con los dichos duzienttos ducados de su dote al dicho Santuario por la escriptura de yngreso que para su beatorio se ottorgo⁷²³

Horrelako egoerak izan ziren, bisitatzaillea serorei soldata bat esleitu ziezaiela agintzera bultzatu zutenak (eta hala ere, esan bezala, honek soldatatzat ezarri zien kopurua aldatua izan zen). Maria Lopez de Bergarekin batera garai hartan santutegian

⁷²² LGUA 331.3, 102v.

⁷²³ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 226v-227r.

izan zen eta Maria de Pagadigorriekin izandako liskarrak ere ezagutu izan zituen beste seroretariko batek ere, Maria Garzia de Aguirianok, ondorengo urteetan seroretxea familia-kideren batzuenera joateko utzi zuela ere badakigu, nahiz eta testamenturik helarazi ote zuenaren inguruko berririk ez daukagun⁷²⁴.

Maria Lopez de Bergararen azken gorabehera hauen berri ematen diguten kontuak, jada administratzaile berriak eginak izan ziren. Eta administratzaile hau, esan bezala, ez zen besterik, orduan zela gutxi Leintz Gatzagako alkate izatera heldu zen Juan Antonio de Jausoro izkribaua baino. Domingo Aleson bisitatzaiaren urtarrilaren 15eko bisitako aginduei jarraiki deialdia egin omen zen, “alguna persona yntelijente abonada y âcptta que quisiere âdministrar los uienes y efectos de el dicho Santuario” bilatzeko xedez. Urtarrilak 21ean egin omen zen deialdi publikoa, norbait ager zedin bederatzi eguneko tartea utziaz. Guzti honen fede liburuan dilijentzia guzti hauek transkribatu zituen Juan Antonio de Jausoro alkate eta izkribauak berak ematen zuen, gero administratzaile izendatuko zutenak berak; egoera, beraz, ez zen inondik ere inpartziala. Juan Antonio de Jausorok bere burua aurkeztu zuen, beti ere zegokiona ordain zekionaren truke (“por las dezimas correspondientes”; administratzaile lez kobratuko lukeen guztiaren ehuneko hamarra); hala beharko zukeen, izan ere, “por la ocupacion grande que a de tener en dicha administracion ademas de los gastos y ôcupaciones personales y uiajes”, eta “respecto de hallarsen las cobranzas mui dificultosas por causa de la miseria y calamidad de los tiempos presentes por esttar consignados las rentas y efectos de el dicho Santuario quasi todos en zensos”⁷²⁵.

Deialdira beste inor ez zen agertu, eta bera izendatu zuten administratzaile, administraziorako zenbait baldintza ezarriz: lehenik eta behin, beharrezko ziratekeen dilijentzia eta kobrantzak zintzoki egitea; bigarren baldintza jada deigarria zaigu:

[aldemenean: Que con las Personas Poderosas no aia de Poder enprender Pleito el administrador sin dar quenta a los Patronos] Que quando fuere posible conseguir las cobranzas pertenezientes al dicho Santuario con algunas personas poderosas o de otra calidad por pretestos fribolos aya de dar notizia el dicho Administrador a este Patronato para que rresuelban lo que fuere de la maior utilidad y conbenienzia del dicho Santuario y sin expreso consentimiento de este Patronato no aia de poder enprender Pleito ninguno⁷²⁶

Gainontzeko baldintzak, orri aldemeneko azalpenetan egoki laburbildurik jaso ziren, eta ikuspegi orokorra emateko baliagarriak zaizkigu:

Que no aia de ser omiso el administrador

Que el administrador aia de llebar las dezimas y salario de los dias que se ocupare afuera segun se a acostumbrado

Que en caso de rredenzion el administrador de quenta al administrador digo al Patronato

Que el administrador escriua testimonio de hauer hecho las Dilixencia[s] para sauer el estado en que se hallan

Que las quantas aia de dar al Patronato y no a otra ninguna Persona

Que arreglandose a la [m.e?] de la fundazion en su cumplimiento los Patronos las rrentas que deho Ormaechea se enpleen en obras

⁷²⁴ LGUA 331.3, 121r.

⁷²⁵ DEAH-AHDSS 2568/000-00,115v-117r.

⁷²⁶ *Ibid.*, 117r-118v.

Que las obras de Ormaechea se hagan a rremate prezediendo declarazion jurada de maestros a fin de que declaren las obras mas utiles y nezesarias

Que los libramientos el administrador aia de pagar con ttal que esten despachados por dos Patronos en ausenzia de los demas por no ser fazil el juntarlos

Que los arredamientos se hagan prezediendo publicazion a rremate y de lo que obrare en su rrazon ponga zertificazion de escribano

Que las rrentas del dicho Santuario no pueda el administrador distribuir sin orden y libramiento de los Patronos

Que el administrador de fianzas a satisfazion de los Patronos

Que liquide y âga [a]zer el administrador rreconozimientos

Que el administrador de informazion de abono con aprouazion de la justizia⁷²⁷

Kasurako “Juez delegado” zen Juan Bautista de Oruna y Burunsanok onartu zituen izendapen idatzia eta dilijentziak, eta “abono”-a jaso zen administratzailearengandik eta bere fidatzaileengandik (Pedro de Yzaga eta Pedro de Jausoro). Juan de Ormaechea kapitainaren testamentuko dohaintzaren testigantza ere jaso zen Pedro de Galvez Sevillako izkribauarengandik, dohaintzaren testamentuko klausularen testigantza ere berarengandik jasoz. Pedro de Galvezek testamentua Gaspar de la Plaza kapitainak 1677ko urtarrilaren 19an erakutsi ziola –eta Gaspar berak berriro eraman zuela– ziurtatu zuen, eta Juan Antonio de Jausorok, bere izkribau paperean, berridazketa bere orijinalaren berdina zela ere ziurtatu zuen, 1715eko otsailaren 13an. Beti ere Juan Antonio de Jausoro berak izkribau lez jasoriko beste zenbait dilijentziaren ostean, 1715eko otsailaren 18an “sede vacante”-n zegoen apezpikutzatiko onarpena eta konfirmazioa jaso zen, Sebastian Fuertes doktorea apezpikutzako Probisore eta Bikario Orokorren eskutik⁷²⁸.

Administratzailearen eskubide eta betebeharrak ongi zehazturik gelditu ziren, eta argi ageri zaigunez, “con las Personas Poderosas” auziak izatearena, tentuz egin beharreko kontua zen; baldintza honek hainbat ordainketaren atzerapena eragingo zuen, 1722ko eta batez ere 1733ko bisitetan, bisitatzaileen aldetik meatxuak jasotzea eragingo zuena. Jada kontu-liburuan bertan hainbat aldiz jaso izan zenez, zentsuen kobrantzarako garai txarrak baitziren, XVIII. mende hasieratako krisi ekonomikoaren testuinguruan, zordun asko ezin ordaindurik ibiltzen zen eta. Eta hori horrela izanik, pertsona boteretsuek zorrak ordain zitzaten auzi eta dilijentziei ekiteari uko egiteak, bisitatzaileen begitara, santutegiarendako kalte nabaria zekarren; 1733an, oraindik Juan Antonio de Jausoro bera administratzaile zela, –beste hainbat kontu-liburutan ere gorabehera ekonomikoak erabateko xehetasunez aztertu izan zituela ikusi ahal izan dugun– Geronimo Joseph de Santerbas lizentziatua bisitatzaileak honako agindua utzi zuen:

Y por que en las dichas quantas da en dejas y por no cobrados cinco mil setecientos y ochenta y siete rreales y ueinte y un marauedis como parece a las partidas del cargo de los N.os 13-20-21-30-32-34-36-39-40-42-44-45-47-50-51-52-53-54-59 y 60 sin mostrar diligencias algunas especialmente judiciales en la cobranza no siendo deudor alguno de las personas poderosas que se exceptuaron de executar en la escriptura de conduccion para la administracion mandaba y mando su merced a dicho administrador que dentro de vn año que se le concede de benignidad haga la conbranza de dicha cantidad, y pasado no lo haciendo ô dando diligencias suficientes judiciales para ellas con expresion de su estado se le manda de y pague la dicha cantidad haciendo

⁷²⁷ *Ibid.*, 118v-122r.

⁷²⁸ *Ibid.*, 124v-133v.

deposito de ella en el dicho Archiuo bajo la dicha censura en que incurra, y se le declare por excomulgado, y ponga en tablillas por dicho Don Seuastian pasado dicho termino⁷²⁹

Bisitatzaile honi ezerk ez zion ihesik egiten, eta beste hainbat gehiegizko gasturen ingurukoak ere bizkarreratu zizkion administratzaileari; esaterako, egun bakarreko bidaia motzak, gastuetan bidaia luzeak izan balira bezala jaso izan zituela⁷³⁰.

Baina itzul gaitezen serorengana, jada, urteak iragan ahala, sarrera-hitzarmeneko baldintzen inguruan zehaztapen berriak eginez hasi ziren eta. Azken urteetan zeharreko santutegiko diru-sarrerak, Juan de Ormaechearen dohaintzaren etekinekin bat, aurreko urteetan hilaz joan ziren seroren zentsuetatik ere osatzen ziren, baina 1664az geroztik testatzeko gaitasuna ukatzen zieten sarrera-hitzarmenekin sartu izan ziren lehen seroren kasuan santutegiak –seroren borondatearen kontra– jaso ahal izan zituen zentsuek, serorek emanak zituzten doteak kopuru handietan gainditzen bazituzten, hil ziren azkeneko bi seroren kasuetan (Maria de Pagadigorri eta Maria Lopez de Bergara) ggb. hauek seroratzara sartzean hitz emandako doteetako 200 dukaten baloreko zentsuak baino ezin izan ziren jaso, serora hauek bizi izan zituzten gorabehera ezberdinak medio. Seroren kontu santutegiko patroiek ateratzen zituzten etekinak, lehen goraldiaren ostean denbora igaro ahala, urriagotuz zioazen. Zentzu honetan, garai ezberdinetako kontuetako diru-sarriren eta gastuen kopuruak arras esanguratsuak zaizkigu:

(a) koadroa. Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegiko kontuetako diru sarrerak eta gastuak (XVII. mendearen bukaera aldea - 1733)

Urte-bitartea	Diru-sarrerak (errealetan)	Gastuak (errealetan)
???-1700	31.492	32.840
1700-1713	76.463	76.818
1715 (1713) -1721	14.081 (+25 mrbd. ⁷³¹)	12.338 (+17 mrbd.)
1721-1733	23.163 (+5 mrbd.)	24.160 (+19 mrbd.)

Esanguratsua zaigu, halaber, goraldia Ignacio de Sagastiberria izkribaua administratzaile izan zen garaiari dagokion artean, dirurik gutxien sartu eta xahutu zen garaia, hau Leintz Gatzagako alkate ere bazen Juan Antonio de Jausoro izkribauak ordezkatu zuen garai nahasia izatea. Aipatu dugunez, 1713-1715 bitartean santutegia administratzailerik gabe egon zen, eta bitarte horretan, udal agintariak tenpluaren administrazioaren gain zeuzkaten eskumenak areagotu zituzten.

Gorabehera guzti hauez gain, urteak igaro ahala seroren zailtasun ekonomikoak gero eta nabariagoak egin ziren, eta hori zela eta, 1729an Josefa de Iraegui seroratzara sartu zeneko sarrera-hitzarmenean, dotea eman zuten bere gurasoek, honek biziraupenerako besteko etekin eta errentak jasoko zituela ziurtatu nahi izan zuten. Zailtasun ekonomikoek 1700eko konstituzioetan ezarritako dotea jeistea ere eragin zuten, Josefa, 200 dukateko dotea emanez sartu baitzen; dotearen propietatea santutegiari zegokiola eta usufuktoa seroraren sostengurako izango zela ezarri zen, baina horrez gain, beste zehaztapen batzuek ere egin ziren:

⁷²⁹ *Ibid.*, 404r-404v.

⁷³⁰ *Ibid.*, 403v-404r.

⁷³¹ Marabedi.

y no teniendo otros medios hubiese de representar a los dichos Patronos para empeñar el capital de dicha su dotte, o gastarlo segun la [ne]zesidad segun la facultad que tienen de ynmemorial tiempo a esta partte; y estar aprouada en Uisitta, se le hubiese de dar a dicha Veatta como a Cerora, a una con otras dos Cien rreales en cada un año, a quienes esttaua concedido esta facultad, por el trauajo asistencia y limpieza del rreferido Santuario, hauitacion para su persona, en las Celdad [sic] de el, segun la antiguedad de cada una, partte de heredad, huertta, y castañales en la forma que hasta aqui han gozado las demas Veattas, y que deuajo de esta condiciones [...]⁷³²

Beraien alabak egoki biziraun izan ahal izatearen inguruan zeukaten ardura zela eta, ordurarte serorek izan zituzten etekinen iturriak zehaztu nahi izan zituzten. Ez zen egia behar izanez gero –usufruktoaz gain– dotearen kopurua, propietatez santutegiari zegokiona, seroraren beharretan xahutzearena “de ynmemorial tiempo a esta partte” zeukaten eskubidea izatearena, baina serorek testamentua helarazi ondoren egin behar izan ziren hitzarmenetan hartu ziren erabakiei nahiko ongi egokitzen zitzairen “eskubidea” zen, azkenean, santutegiko administratzaileek serorek euren zahartzaroan eta gaixoardietan elikadura eta botikarako izan zituzten gastuen kargu hartzen bukatu izan baitzuten, beti ere, hauen ondasunak santutegiaren propietate izatera iragan zitezaren truke. 100 errealean soldata berriz, 1715an geroztik baino ez zuten serorek jaso izan, eta ikusi dugunez, bisitatzaileak berak beste kopuru batean ezarri nahi izan zuela dirudi. Aurreko garaietan, 1664ko liskarren ondoren, batez ere 1691ko limosna eskaerarako debekuaren eta 1715eko soldata ezarpenerako bisitatzailearen aginduaren bitartean, seroren estuasun ekonomikoak handiak izanak ziren.

Aurreko urteetako gertakizunek, azken finean, 1729ko Josefa de Iraeguiaren sarrera-hitzarmeneko baldintzetan beharrezkotzat hartzen ziren zehaztapenak sarrarazi zituzten, nahiz eta aurreko hitzarmenetan bezala, testatzeko eta dohaintzak egiteko gaitasuna ukatu zitzaion. Baina Josefa de Iraegui, “una enfermedad de tísica” zela eta sartu eta lasterrera hil zen, 1732an, gaixoardian gastu handiak izanik. Beraz, azkenean, bere gurasoekin egin zen hitzarmenean artean ordaintzeko zegoen bere doteko 200 dukatetatik 50 gaixoardiko gastuen ordainketara bideratzea hitzartu zuten, eta santutegiak 150 dukaten baloreko zentsuak baino ez zituen jaso⁷³³.

Dorletako santutegiko seroren ondasunen inguruko arazoei ezagutzen diegun azken kapitulua, kuriosoki, 1691 eta 1713 bitartean, alegia, santutegiak diru kopuru handienak izan zituen garaian, bertako administratzaile izan zen eta seroretzerako konstituzioak 1700ean idatzi zituen Ignacio de Sagastiberria izkribauaren alaba-ordea zen Teresa de Laquiteguik helarazi zuen testamentua zela eta gertatu zen. Aipatu izan dugunez, serora hau 1694an, oraindik 16 urte beteak ez zituela sartu zen seroratzara, baina bi urte beranduago irten zen bertatik, bere dotearen inguruko arazo batzuek zirela eta. Ignacio de Sagastiberriak, 1700eko kontuetan, bere alaba-ordearen dotearen inguruan patroiekin zenbait gorabehera izanak zituela aipatu zuen; izan ere, honen doterako emandako 200 dukatak Briones-ko (Errioxa) bizilagun batzuen aurkako zentsu batean eman zituen, baina zentsu hau baliogabea edo faltsua izatea suertatu zen. Gorabehera hauek zirela eta, udal agintariek administratzaile izaten jarraitu zezanaren inguruan 1695ean eta 1696an zenbait bilkura eginak zituztela jakin izan zuen, eta santutegiko obrak ere, administratzailearen inguruko mesfidantza hauek zirela eta, geldiarazi egin zituzten. 1700eko kontuak egin zirenean, artean geldik zirauten:

la causa de auer suspendido la continuacion de las obras que faltan todauia de azer fue porque los señores del rregimiento que fueron en los anos de nouenta y cinco y

⁷³² LGUA 331.3, 163v-164r.

⁷³³ *Ibid.*, 164v-165r.

nouenta y seis segun se me aseguro por personas de toda creenzia hizieron algunas Juntas discurriendo en ellas Justamente de mi Ynutilidad y afianzando mas en sus animos solizitaron allar algunos motiuos para pedir a su Yllma. la priuazion de mi superintendencia que sin duda omitieron esta diligenzia con la considerazion que para el buen fin de las cossas es menester aconpañar el discurso con esforzados medios y verdadero zelo que considero preualezera en ellos y con esta circunstanzia tengo por muy çierto que ay mui buenos administradores entre los vezinos de esta Uilla que me desenpenaran en adelante sin tantas desconbeniencias que me a ocasionado este cargo que lo azepte sin mas Yntereses que el de seruir a Maria Santissima Señora Nuestra a quien suplico me perdone la omision y descuidos que he tenido en el cumplimiento de mi obligazion y alunbre a los señores administradores a que me rreziuan esta quenta como espero sin mas fin que el de seruir a su diuina Magestad⁷³⁴

Ignacio de Sagastiberriak udal agintarien bilkura hauen testuinguruan atera zuen alaba-ordea santutegiko seroretzetik. 1700eko kontuak egin zituenen, honi zegokion dotearen partidari aipatu zituen azaldu berri ditugunak, eta 200 dukateko zentsu baliogabea ordezkatzeko asmotan, bere aldeko zentsu baten luditzetik jaso zituen 400 dukaten parterik handiena eta 150 dukateko beste zentsu baten etekinak santutegiko obretara bideratuak zituela adierazi zuen; azalpen hauek “Porque entiendo que resultara algun alcance nezesariamente a mi fauor y no disuene a los animos de algunas personas que acasso beran esta quenta” eman zituen⁷³⁵; argi dago udal agintariei buruz ziharduela.

Teresa de Laquitegui, 18 urte bete gabeak behar zituela, bere gurasoenera itzuli zen beraz. Ondorengo urteetan zehar, nahiz eta bere gurasoenean bizi, santutegiko seroren abitua eramaten jarraitu zuen, eta bertako prozesioetan eta funtzio publikoetan serorei zegokien erara parte hartu izan zuen, santutegiko kofradiaren egunean zegokion aharri libra eta ardo pinta-erdia ere jasoz. Bere ama Mariana de Uriarte (“doña”) 1731n hil zenerarte zaindu zuen (Ignacio de Sagastiberria bere aita-ordeak lehenago hila behar zuen), eta ondorengo urteetan ere bertan jarraitu zuen bizitzen, “en el cuerpo de la Uilla”, 1746an, heriotzaren orduan zela, lehenik testamentu bat, eta handik bi egunera, lehenean adierazirikoaren aurka, beste oinordeko bat izendatu zuen bigarren bat helarazi zituen arte. Momentu hartan, serorak azken testamentuan oinordeko izendatu zuen bere iloba Ignacio Antonio de Zuazagoitiaren, eta seroraren osaba eta garai hartan santutegiko administratzailea zen Sebastian de Elexalde, San Millan parrokiako benefiziodun eta apezaren arteko auzia hasi zen. Santutegiarekiko serorak zeukan lotura arazotsua zen, zenbaitek profesioa egitera heldu zela, eta besteek ezetz baitzioten, funtzio publiko guztietan santutegian momentuoro bizitzen zeuden seroren leku sinbolikoan mantendu nahi izan baitzuen (lekukoetako batek baino gehiagok “la bio siempre preferir a las demas mugeres que dejan de ser ueatas en dicho Santuario”), eta oster, behin bere ama hil zenean ere –ustez, seroretzeko konstituzioetan aurreikusi zenaren arabera egin izan beharko zukeenaren aurka–, santutegitik kanpo bizitzen jarraitu baitzuen. Testatzeko gaitasuna ukatzen zuen baldintza, gainera, serorek santutegian izandako aktibitateetatik lorturiko etekinei lotua zegoen, eta Teresa de Laquiteguik pilatu izan zituen ondasunak, santutegiko aktibitateekiko lotura gabe lortuak ziren⁷³⁶.

Batetik eta bestetik bestelako zenbait argudio ere eman izan ziren, limosnaren eta santutegiko ondasunen probetxuaren ingurukoak, testamentua helarazi izan zuten beste seroren ingurukoak, etab. Baina agian, bizi izan zen egoeraren tentsioa ongi ulertzeko, bere testamentua helarazteko ordua iritsi zenean bere ondasunen gain izan

⁷³⁴ *Ibid.*, 33r-34r.

⁷³⁵ *Ibid.*, 32r-33r.

⁷³⁶ LGUA 331.3, 73r-82r, 102r-121r.

zen “ehiza” azaltzea izango genuke hoberena. Serorak lehenik helarazi zuen testamentua, testamentu itxia, bere osaba Sebastian de Elexalde apez eta santutegiko administratzailearen eskutik idatzia izan zen, eta Pedro de Uranga alkateak, izkribau ere bazen heinean balioztatu zuen. Handik bi egunera, serorak ondoren oinordeko izendatu zuen bere iloba Ignacio Antonio de Zuazagoitia eta beste zenbait lekuko, –informazio iturri dugun auzian bertan izkribau lez aritu zen– Manuel de Aguiriano izkribauarekin batera, etxeko atzeko atetik sartu ziren, eta jada zirriborroan idatzia zeukaten beste testamentua irakurri zioten hilzorian zegoen serorari; honek berretsi egin zuen, eta idatzi honen gain, testamentu irekia helarazi zuen⁷³⁷.

Aurreko hainbat seroraren dokumentuen konpultsak jaso izan ziren auzi mamitsu honetan erabakitzekotan zeuden ondasunen gaineko eskubideen inguruko barreneko auziak, behin galdeketak eginik eta konpultsa guztiak jaso zirenean, seroraren oinordekoaren defentsarako aholkularitzan aritu zen Diego de la Fuente Vargas lizentziatuak osatu zuen alegaziorako idatzia azaltzen dizkigu. Bertan, aurreko dokumentuen eta galdeketen analisi xedatua egin zuen, bere partearen defentsa, indarrean zegoen legedian oinarritzen saiaturaz. Auzi konkretuaren ibilerak baino, noski, –auzi konkretu honetan bezalaxe– aurreko serorekin izan ziren liskarren muinean zeuden arazoan ardatzak azaltzea interesgarriagoa –eta zentzudunagoa– zaigunez, Vargas lizentziatuak azaldu zituen arrazoiekin emango diogu Dorletako santutegiko serorei eskaini diogun atal honi amaiera, auzitan izan ziren alderdien sintesia egiteko parada ematen baitigu, santutegiaren historiaren ziklo bati, XVII. mende erdi-bukaera alde hartatik XVIII.eko lehen erdialderarte garatu izan zenari, bukaera nola eman zitzaionaren berri ere emanez.

Vargas lizentziatuak, seroretxearen zilegitasunaren oinarrietara bertara jo zuen. Izan ere, Dorletako santutegia zenaren tankerako “beaterio”-ak, Aita Santuaren bulda bidez hauen erregelak edo konstituzioak baimenduak izan ezean, ez ziren baliozkoak, Trentoko Kontzilioan erabaki zenaren arabera. Gainera, santutegiko seroretxea jada 1733an iragan zen bisitatzailerak itxia, edo hobe esan, baliogabetua zuen jada (“quito y estinguio”), aipatu berri ditugun argumentuak oinarritzat harturik:

por que es ingenuo de duda, que semejantes Beaterios no precediendo Bulla de Su Santidad con aprobacion de Reglas, o estatutos, y las demas circunstancias, que por derecho Canonico, y disposicion del Concilio Tridentino se requieren son estimados por absolutamente profanos, o quando mas por causas pias, que no suelen tener ni ocasiona[*dos*?] aquellos fruttos, que pudieran esperarse, si los Beaterios se hallassen asistidos de Regla aprobada con sugesion a superior, obserbancia de clausura, Voto de Castidad, y pobreza, por cuiu motibo en el Auto de Visita del año de mil setezientos y treinta y tres que se halla compulsado en Autos se quito y se estinguio dicho Beaterio⁷³⁸

Orduz geroztik bertako serorak “totalmente seculares”-tzat gelditu ziren, frantziskotarren ordenako “terceras” lez. Beraz, “por la ley recopilada” ezarria zegoenaren arabera, besteak beste, gainontzeko biztanleak lez zergak ordaindu beharrean zeuden, eta beraien ondasunak “totalmente profanos” bailiran aintzat hartuak behar ziren izan. Halatsu, kastitate botu “simple ni solemne”-rik tarteko ez zegoenez, nahi izanaz gero ezkondu ere egin zitezkeen (garai beretsuan hainbat ermitetan zeuden serorak bezala). Beraien dotea, hortaz, ezin zen “Matrimonio espiritual”-aren zeinutzat hartu, ezen: (1) ez zuten profesiorik egiten; (2) ez zuten komunitate erregulaturik osatzen; (3) propietateari eta honen usufruktoari ez zioten ukorik egiten (“no abdicen de si la propiedad”); eta (4) ez zuten klausurarik gordetzen. Erlijiozko egoera bat

⁷³⁷ *Ibid.*, 110v, 123r-123v.

⁷³⁸ *Ibid.*, 177v.

“Matrimonio espiritual” bezala ulertua izan ahal izateko “segun declaraciones de la Sagrada Rota” (Aita Santuaren aurrean apelatzeko epaitegi nagusia), emakumeek klausura beharrezkoa zuten, eta honen ondorioz, santutegiari eman izan ziotena ezin zitekeen propioki dotetzat hartu, bertako ondasun, emolumentu eta limosnen probetxu ateratzearen truke emandako “remuneracion, o paga” bat bailitzan ulertu baizik. Bisitatzailleak 1733an bere kabuz seroretxearen erlijiozko egoera baliogabetu edo sekularizatu izana bera, bertako serorak “Fuero Eclesiastico”-an barneratuak ez egotearen behar besteko froga litzateke gainera, ezen, hala izanik, fundazioan Aita Santuaren bulda bidez onartuak izanak beharko zuketan izanak izan, eta bisitatzailleak ezingo zukeen seroretxea bere kabuz sekularizatu, fundaziorako bezalaxe, baliogabetze edo sekularizaziorako ere Aita Santuaren parte hartzea beharrezkoa izanik. Horrez gain, santutegiko administratzaileak berak defendatu zuenez, bertako seroratzara sartu ahal izateko ez zitekeen “mas profesion ni requisito, que el entrar en el Beaterio” egongo; hau hala izanik, beste pietatezko espazio batzuen egoera baliokidea izango litzateke, esate baterako, ospitale bateko zerbitzura sartzen zen emakume baten parekoa. Baina honek, ostera, egoera sekularrean jarraitzen zuela hautematen zen, eta bere ondasun guztiak, edo parte bat, dohaintzan ematera behartzea ez zen zilegiztat hartzen, “Fuero Eclesiastico”-an barneratuak ziren pertsona “regular”-ekin gertatu ez bezala. Beraz, ospitaleko zerbitzuko emakumeek bezala (serorak hauek ere), santutegiko serorei beraien sarrera-hitzarmenaren arabera ordaintzera behartu zekiekeen kopuru bakarra, legez zilegiztaturiko formula bati atxikiriko bakarra izatearren, –“dote” lez– dohaintzan ematea adostua zuten 200 dukatena baino ezin zitekeen izan. Izan ere, –Teresak bezalaxe, gainontzeko– serorek “la calidad de secular” zeukatenez, –Gipuzkoan egoera zibilen eta erlijiosoaren erregulaziorako eta ondasunen kudeaketarako oinarritzat hartzen ziren– Toroko legetan ezarritakoaren arabera, ondasunen dohaintza “absoluturik” ezin zezaketen serorek egin (testamentuan banatzeko derrigorrezko gutxieneko batzuk ezartzen baitziren), eta honen arabera, sarrera-hitzarmenetan bezalaxe santutegiaren konstituzioetan ezarritako arauak legez kanpokoak ziren. Eta arau hauek are zilegitasun urriagoa zeukaten, santutegiaren administratzailearen aldetik aurkezturiko galdeketa erantzunetan agertu izan zen bezala, 200 dukaten usufuktoaren etekinak, honi santutegian jasotzen ziren limosnak eta bertako ondasunen gainontzeko etekinak, seroren biziraupenerako gutxienekora heltzen ez zirenean. 1715eko bisitan egoera horrek motibaturik ezarri izan baitziren, hain zuzen ere, seroren soldatarako urteroko 100 errealak.

Argudio sorta zabal honek, Sebastian de Elexalde santutegiko administratzailearen aldetik bere aldeko argudiotzat hartu nahi izan ziren hainbat froga erroitik baliogabetzen zituen; honek Teresaren egoera santutegian zeuden serorekin parekatzeko asmoz baliatu zituen funtzio publikoetako espazio sinbolikoei loturiko argudioek ez zeukaten oinarririk jada, santutegiko serorak eurak ere, sekularizat hartzen baitziren, eta hau zela eta, beraien testatzeko gaitasuna bermatua baitzegoen. Baina bere alegazioaren bukaeran Vargas lizentziatuak are urrunago joan nahi izan zuen, santutegiko administratzaileek seroren testatzeko gaitasunarekiko zeukaten jarreraren koherentziarik eza azaleratu nahian; konpultsetan gehitu ziren dokumentuetan jasoriko zenbait adibidetara jo zuen: Catalina de Ormaecheak Pedro Garcia de Aguiriano bere oinordekoari dohaintzan eman zion Urriolako sagasti bat, nahiz eta propietatea ustez santutegiarena izatera iragan zen, oinordekoak kudeatzen eta etekinak jasotzen jarraitu izan zuen. Horrez gain, Maria de Pagadigorriren testamentua eta kodiziloa bere garaian herriko alkate eta santutegiko administratzaile zen Juan Antonio de Jausoro izkribauak berak erredaktatu eta zilegiztatuak izan ziren, eta bertan eliz-kabildoari (“de gratis”) dohaintzan eman zitzaizkion 20 dukatak, kobratu egin zituzten. Teresa de Laquitegui

beraren lehen testamentuaren kasua ere ia berdina zen, Sebastian de Elexalde santutegiko administratzaileak berak idatzi eta Pedro de Uranga alkate eta izkribauak balioztatua izan baitzen; Maria de Pagadigorriren kasuan bezalaxe Teresa de Laquiteguirenean ere, serorak testatzeko gaitasunik izango ez balute, santutegiko administratzaile edo/eta alkate ziren eta izan ziren izkribauak testamentuak idatzi eta balioztatu izana, auzian defendatzen zeudenaren arabera, zentzugabea litzateke. Gainera, Teresa de Laquiteguiren bigarren testamentua helarazi izan ez balitz, santutegiko administratzaileak ez zukeen –berak idatzi zuen– seroraren lehen testamentuaren aurrean inongo erreparorik jarri izango. Eta azkenik, serorek testamentua helarazteko gaitasunik izana ez balute, Maria Jesus de Elexalde serorak 1621ean fundatu zuen kapilautza, mezak esan eta bere etekinak jasotzen Antonio de Jausoro apezka ari zena, ez zatekeen balizkoa izango, eta aurreko urte guztietan kapilautza artatu izan zuten apezkek jaso izandako diruak, ez ziratekeen balizkoak izanak

739

Ongi oinarrituriko idatzi hau izan zen, itxura guztien arabera, ondoren lehen sententzia Ignacio Antonio de Zuazagoitiaren alde eman zedila eragin zuena, santutegiaren administratzailearen aldetik, funtsean, aurretik eman izan ziren arrazoiak errepikatu baino ez baitziren egin. Auzia ondoren modu nahasian garatu zen, Ignacio Antonio de Zuazagoitiaren defentsak, itxuraz seroraren dotearen 200 dukatak ere eskuratu nahian, lehen momentu batean, Vargas lizentziatuaren alegazioaren nagusitasun nabariak puztuta edo, –baina ostera Vargas lizentziatuaren aholkularitza zentzuduna gabe, eta honek bere alegazioan adierazi zuenaren aurka– epaiaren aurkako apelazioa aurkeztu baitzuen, gero –hanka-sartzea oharturik, berriro Vargas lizentziatuaren laguntzaz– atzera botatzeko; Sebastian de Elexalde administratzaileak mugimendu hauen aurrean kexua azaldu zuen, apelazio hauek sorturiko egoera nahasian aurrera egiteko momentuan “Abogado de los Reales Consexos” zen –eta 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren garaian Bergarako bikario izango zen– Xavier Ignacio de Artech lizentziatuaren informe bat eskatu beharra izan zuten, etab., azkenean, auzia Korrejimentura bideratu zen arte. Hortik aurrera, ez dakigu zer gertatu zen, baina gorabehera guztien artean, alkate –eta beraz epaile– aldaketa izan zen, eta nor eta –seroraren bigarren testamentua eta auzia bera balioztatu zituen– Manuel de Aguiriano izkribaua igaro zen alkatetzara, baina auziaren gaineko epaile, nor eta –seroraren lehen testamentua balioztatu zuen eta alkate aurrekaria zen– Pedro de Uranga izkribaua bera izendatuz. Beste hitzetan, auzian zehar botere-jokua irauli zen, eta Manuel de Aguirianok, alkatetzara iragan zenean, bere aurrekaria izan zen Pedro de Uranga aukeratzean, hau nolabait humiliatzeko asmoa izan zuela interpretatu liteke. Izan ere, hain nabariki azaleratu baitzen santutegiko patroiek eta Pedro de Uranga berak Teresa de Laquiteguiren ondasunak eurenganatu nahi izateko erabili izan zuten prozeduraren zilegitasunik eza eze, Pedro de Urangak, Teresa de Laquiteguiren oinordekoaren aldeko sententzia bat baino ezin baitzuen eman. Batez ere, Manuel de Aguiriano alkate izatera iragan izanik⁷⁴⁰.

Santutegiaren eta bertako seroren historiak auzi honen ondoren izan zituzten gorabeheren inguruan, ez daukagu askoz berri gehiagorik. Baina garbi dago, 1733an santutegiko seroretxea “ia komentu” bihurtzeko saiakeraren bidez santutegiaren –eta bere bidez, bertako patroien– etekinak areagotzeko negozioa bukatu zela, bisitatzaileak seroretxearen sekularizazioa agindu zuenean. Teresa de Laquiteguiren ondasunen gaineko auzi hau, aurretik izana zen egoera iraunarazteko, edo seroren ondasunei

⁷³⁹ *Ibid.*, 177r-180r.

⁷⁴⁰ *Ibid.*, 180r-f.g.

etekinak ateratzeko azken ahaleginek eragindakoa izan zen. Santutegiaren, seroretxearen eta bertan bizi zen edo ziren seroren ondorengo egoera, itxura guztien arabera, ohizko ermita baten tankerakoak izatera iragan ziren, nahiz eta santutegia beraren eta seroretxe izan zenaren tamainua eta arrandia, aurreko garaietan bere inguruan bildu izan ziren aberastasun handien testigantza lez gelditu zaizkigun. 1779an, jada 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren eragina lausoturik, santutegiko gaztainadiaren tasazioa egitean, oraindik honen etekinak jasotzen zituen serora bat zegoen (Arana 1992, 252).

IV. 4.3. Soledadeko Andre Mariaren neskatxendako ikastetxea (Bergara)

Soledadearen historia gaur egun baserri denaren kokapenean, “camino del calbario”, 1645ean eraiki zen lehen ermitarekin hasi zen. Garai hartan Bergarako alkate zen Bernardo de Recalde agindu zuen bere eraikuntza, Errekalde etxeko bere arbasoek aspaldidanik izan omen zuten guraria betetzeko asmoz. “Soledad de la Virgen” izenpekoa behar zuen ermitak izan, eta Altamira zeritzon lekuan eraiki zuen, Errekalde etxetik gertu hain zuzen ere. Lur horiek udalarenak ziren, eta ermita eraikitzeaz bat herriari dohaintzan emateko asmoa azaldu zuen, berak nahiz bere ondorengoek honen gain ondorenean izan zezaketen eskubide orori uko eginaz. Herriko agintarien eta apezpikutzaren onarpena jaso zuen, eta Errekalde etxekoen debozio partikularren sostenguz eraikiriko ermita 1645eko apirilaren 10ean (Aste Santuko astelehenean) bedeinkatu zen, 14an (Ostiral Santuan) ipini zen bertan Ama Birjinaren irudia, eta 16an (Berpizkunde Bazkoan) eman zen lehen meza⁷⁴¹.

Ermita laster hasi zen herriko bizitza erlijiosoan pisua hartzen, eta 1673rako jada, Aita Santuaren “jubileo plenissimo”-a jaso zela eta debozioa sustatzeko asmoz, udalean Gurutzearen Gorespenaren egunean (“Exaltación de la Cruz”, irailak 14) bertarako prozesioa egitea hitzartu zen. Artean ez zuen ermitak ondasun gehiegirik antza, meza diakono gabe emango zela hitzartu baitzen, “por la corta disposicion y capacidad de la dicha Hermita”⁷⁴². Hainbat obra eta aldaketa egin behar ziren oraindik, ermitaren eraikuntza erabat burutzeko eta ondorenean izango zituen ondasunak biltzeko: 1702an Manuel de Recalde y Zualak ermitarako bide berria egiteko zenbait lur trukatu zituen⁷⁴³; 1719-1720 inguruan egin zitzaion Udalarari seroretxea eraikitzeke lehen enborren eskaera⁷⁴⁴; 1725ean Maria Agueda de Olariagak (Agueda de Olariaga bezala ere ageri ohi zaigu) 6 edo 8 enbor eskatu zizkion udalari “para la nueva Casa de la Ermita”⁷⁴⁵; 1730ean bertako iturrirako bidea konpontzea adostu zen (udalak emaniko 120 errealekin eta bizilagunen limosnekin)⁷⁴⁶; eta 1731n Manuel de Vgarte San Pedroko apez eta benefiziadunak bere testamentuan “vn suelo de cassas sito en la Calle Guencale” eman zion ermitari dohaintzan⁷⁴⁷.

Bien bitartean, ermitako Ama Birjinaren irudiaganako debozioa ere handituz zioan; 1706an, irudia Loiolako San Inazioaren egunean San Pedro parrokiara prozesioan “por las calles acostumbradas” eramatea adostu zuen udalak, bertan hiru egunetan zehar errogatibak egin ziezazkioten “para defensa de nuestra Religion Catholica, y de nuestro

⁷⁴¹ GPAH-AHPG 1/0301, 28r-33v.

⁷⁴² BUA 01 L/202, 475r-475v.

⁷⁴³ BUA 01 L/204, 103r.

⁷⁴⁴ BUA L/036 (MIK 17A39), 67r.

⁷⁴⁵ BUA 01 L/206, 13v.

⁷⁴⁶ BUA 01 L/206, 156r.

⁷⁴⁷ *Ibid.*, 178v-179v.

Rey y señor Don Phelipe Quinto⁷⁴⁸. Baina ohizkoagoak ziren Amabirjinari eguraldi txarraren kontrako babeserako egiten zitzaizkion prozesioak eta errogatibak: 1709an, “por las continuadas Agoas que se experimentauan y el atraso que tenian las ceueras que auia en el campo a causa de tan malos tiempos”, Soledadeko Amabirjinaren irudia San Pedro parrokiara jeitsi zuten eta 8 egunetan zehar eduki zuten bertan “asistiendo a las misas solemnes y salues que se cantaron todos los dias los dos Cauildos eclesiasticos de esta Uilla⁷⁴⁹; 1729an ere alkateak beste hainbeste egitea proposatu zion udalari, “atento ay al presente mucha tempestad de Agua y frio que amenaza al Campo y los frutos Sembrados que parece Castigo de Dios⁷⁵⁰”.

Ermitarekiko debozioa handituz zioan eta obrak ez ziren artean bukatu, bere ibilbide historikoak beste norabide bat hartzeari ekin zionean. 1732ko uztailaren 2an Udalak egin zuen bilkuran Maria Clara de Berroeta serorak memorial bat aurkeztu zuen, bertan neskatilendako eta, garrantzitsua dena, hala nahiko zuketen emakume helduendako ikastetxe bat eraikitze proposamenarekin. Maria Clara de Berroeta Errenteriako herritarren alaba zen; Domingo de Berroeta eta Juliana de Chibitat (dokumenturen batzuetan “Juliana” beharrean "Juana" bezala izendatu zuten) zituen guraso, baina zenbait dokumentutan bere burua “natural del Reino de Francia en la mui noble y mui leal Prouinzia de Labort” bezala aurkeztu izan zuen, bere amaren aldetiko aiton-amonak, Arnaldo de Chibitat eta Joana de Sorbaindo, Itsasukoak baitziren. Ez dakigu garbi zeren zioz heldua zen Bergarara, baina egoera ekonomiko onean zegoen emakumea zen, eta horrek Soledaderako aurkeztu zuen proposamena serioa hartua izan zedila eragin zuen⁷⁵¹.

Bere ahaideen erroak Iparraldean eta Gipuzkoako kostaldeko testuinguru komertzialean zituen emakume honek, bada, noizbait Bergarara heldua izanik, 1732an Soledadeko ermitan neskatilendako eta nahiko zuketen emakumezko helduendako ikastetxe baten eraikuntzarako proposamena egin zion udalari. Aurkeztu zuen memorialean irakur litekeenez, bat edo bi lagunekin batera Soledadeko ermitan egiten hasia zeuden etxean sartu nahiko zukeen, “a fin de enseñar a las niñas, y adultas que gusten, a leer, escriuir, y todo genero de laur que pide una buena crianza, siendo la prinzipal el cuidado de las costumbres christianas⁷⁵²”. Ikastetxe honen eraikuntzarako asmoa ez zen Maria Clara beraren eskutik soilik heldu, egiten hasita zeuden etxearen eraikuntzan, izan ere, –ondoren azalduko dugun bezala– Maria Clararekin harremanetan behar zuen Maria Agueda de Olariagak ere jada parte hartua baitzuen 1725ean, lehenxeago ikusi ahal izan dugunez. Etxe hau ohizko seroretze bat izan zitekeela ere pentsa liteke, baina Maria Clararen memorialean bertan ageri zaigunaren arabera, ez dirudi asmoa halakoa zenik; beraien heldueraren aurretik bazegoen beste serora bat bertako ermitan zerbitzatzeko, Francisca de Barrutia, eta honi inongo gorabeherarik ez sortzeko asmoa azaltzen zenez (“sin que por otra parte traiga incomodidad, ni pensión alguna, para la Serora que actualmente sirue la hermita”), ermitako ohizko serora baten seroretzeaz besteko eraikuntzaren bat izan beharko zukeela dirudi. Memorialaren aurkezpenaren ondoren, obren ekimena aurretik Maria Agueda de Olariagak hartu izan bazuen ere, Maria Clara de Berroeta bera izango dugu ikastetxearen eraikuntzan eta lehen urteetako zuzendaritzan ardatzezko protagonista.

⁷⁴⁸ BUA 01 L/204, 194v-195v.

⁷⁴⁹ *Ibid.*, 279r-280v.

⁷⁵⁰ BUA 01-L/206, 132r-132v.

⁷⁵¹ Honen berri 1705ean eta 1736an helarazi zituen bi ahalorderen bidez dakigu (hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/0390, 87r-88v; eta GPAH-AHPG 1/0541, 397r-399r).

⁷⁵² BUA 01 L/206, 192r-193r.

1732ko uztailearen 2ko Udalaren bilkuran aurkeztu zen memorialean, bada, Maria Clara serorak borondate handia eta asmo onak azaltzen zituen: neskatxei bezalaxe emakume helduei ere irakasteko prest agertzen zen, eta gainera,

aun las que quieran ser educadas, solo tengan que dar aquella propina que se regularre entre partes, una conozida equidad, y a proporzion de los medios de cada uno, porque vnicamente aspira esta ydea, a algun seruizio de Dios, y vien espiritual y temporal de V.S.⁷⁵³

Asmo hauek burutzeko, Udalari zera proposatzen zion: egiten ari ziren ermitaren ondoko etxean sartu, bizi eta eskolak emateko baimena ematen bazitzaie, etxea bukatzeko falta ziren obren kargu berak eta bere lagunak hartuko zuten, zeuzkaten ondasunez eta diruez eta beste zenbait pertsonak jada eskaini zizkieten dohaintzez baliatuz. Obrarako enborren ornikuntza zen Udalari eskatzen zitzaion gastu bakarra. Udalak proposamena onartu zuen, eta enborren ornikuntza ontzat eman zen⁷⁵⁴. Erabaki hau hartu eta hil batzuetara, azaroaren 6an, nahiz eta eraiki zenetik bertatik ermita Udalarena zen, sindikoak Soledadeko ermitaren posesioa (orduan eraikitzen ari ziren San Jose ermitarenarekin bat) “en la forma que se deve” hartu zezala adostu zen⁷⁵⁵. 1733ko urtarrilaren 15eko Udalaren bilkuran aurreko urtean aurkezturiko memorialeko berretsi eta onartu zen⁷⁵⁶, eta bost egun exkaxetara, 20an, sindikoak ermitaren gaineko posesioa hartu zuen⁷⁵⁷. Maria Clara serora eta Maria Agueda de Olariaga abian jarri ziren, eta otsailaren 9an lehenak eskritura bat hitzartu zuen Bernardo eta Ignacio de Elu aita-seeekin egin beharreko etxearen eraikuntzari ekin ziezaioten⁷⁵⁸. Hil beraren 24an biek batera egin zioten Udalari obrarako beharrezkoak ziren enborren eskakizuna (memorialeko eskakizuna egitean Udalarekin adostu zenaren arabera), Ignacio de Echebarria maisu zurginaren aitortpena oinarri zutela⁷⁵⁹.

Neskatxendako –eta hasierako asmoen arabera behintzat, nahiko zuketan emakume helduendako– ikastetxea abian jarri zen, eta hasierako urte haietan harrera arrakastatsua izan zuela dirudi, ikasleen ugaritzeak etxearen obra ezberdinen beharra eragin baitzuen (Aramburu 2008, 2. lib., 615). Baina ez zeuden denak hain pozik ere; ikastetxea egin zedin aurretik ermitako serora lanetan zebilen Francisca de Barrutia kexu zen 1735an, beste serorek ermitako eraikinetan sartzean berarekiko azaldu zituzten asmo onak betetzen ez zirela eta. Maria Clara de Berroeta eta Teresa de Murillo serorez zen kexu, baina zoritxarrez, ez dakigu kexu horiek zerk motibatzen zituen, kexak aurkezten ziren udal bilkuraren aktan “diferentes quexas” baino ez baitira aipatzen. “Justizia y Reximiento”-ren aldetik Maria Clara eta Teresa serorekin Francisca seroraren kexuen inguruan hitz egin eta beharrezko erabakiak hartzea adostu zen⁷⁶⁰. Baina 1736an berriro zen Francisca de Barrutia serora kexu: Maria Clara eta Teresa serorak heldu zirenean, berak ermitako seroratzara sartu zenetik zituen “liuertades y

⁷⁵³ *Ibid.*, 192r.

⁷⁵⁴ *Ibid.*, 193r.

⁷⁵⁵ *Ibid.*, 197r. Ermita bere fundaziotik Udalaren patroitzapekoa izanik, ez dakigu garbi posesio-hartze berri hau zer zela eta egin zen, baina litekeena da handik urte batzuetara (1739an) Udalak herriko ermita guztien gain egin zituen posesio-hartzeen lehen pausu eta tentsioen testuinguruari dagokion erabaki bat izan izana; Soledadeko ermitarekin batera San Jose ermitaren gaineko posesio-hartzea egin izana esanguratsua dugu honekiko, azken ermita honen inguruko liskarrak izan baitziren ondorengo herriko ermita guztien gaineko posesio-hartzeei bidea zabaldu ziena. Honekiko ikus IV. 1.2. azpiatala, 316 eta hurr. or.

⁷⁵⁶ *Ibid.*, 203v.

⁷⁵⁷ *Ibid.*, 206r-206v.

⁷⁵⁸ GPAH-AHPG 1/0521, 44r-45v.

⁷⁵⁹ BUA 01 L/206, 208r.

⁷⁶⁰ *Ibid.*, 250v.

exempziones” guztiak errespetatuko zirela hitzartu zuten Udalarekin⁷⁶¹; baina hitzarturikoa betetzen ez zutela eta, behin eta berriro Udalaren aurrean kexuak aurkeztu bazituen ere, ez omen zen artean bere aurkako kalteak zuzentzeko ezer egin. Gainera, Maria Clara eta Teresa serorak ez bezala, bera herriko alaba omen zen, eta Udalak bere alde egin beharko zukeela zioen. Baina ez dirudi Udala Francisca de Barrutiari sortu zitzaizkion arazoekin oso arduraturik zebilenik, oraingoan ere bere kexua erantzun prosaiko batekin kendu baitzuten paretik: “se acordo dar la comission y facultad nezessaria a los dichos señores Alcalde y Sindico, para que en horden a lo rreferido dispongan y rresueluan lo que mas conuenga”⁷⁶².

Ez daukagu Francisca de Barrutiaren alde hartu izandako inongo neurriren ondorengo berririk, baina bere testamentuko zenbait aspektu nahiko adierazgarriak zaizkigu, kasu handiegirik egin ez zitzaiola ohartzeko. Abitua aipatzen diguten Bergarako beste serora guztiek ez bezala, Francisca de Barrutia, testamentua helarazterako orduan, agustindarren abituarekin ageri zaigu, frantziskotarrenarekin beharrean. Abitu hau Azpeitiako San Agustinen komentuaren bidez jaso zuela dirudi, eta nahiz eta ehorzketa Barrutia etxeko alaba lez leinuak Santa Marina parrokian zeukan jarlekuan egitea agindu zuen, San Gregorioren edo hilabeteko mezak agustindarren komentuan agindu baitzituen, "como a hermana" bezala egin ziezazkiotela ere eskatuz. Bergarako testuinguruan salbuespenezkoa dugun abituaren berezitasun hau, gorago aipaturiko gorabeherei erreparaturik, agian Franciscak Soledadeko ikastetxearen eraikuntza eta bilakaeraren lehen urteetan herriko botere-esparruetatik jaso zuen bazterketaren agergarri litekeela pentsa liteke. Ez dezagun ahaztu, gainera, bere espazioa eurenganutzen hautematen zituen beste serora haiek ere, hasierako garai haietan, frantziskotarren abitua zeramatera; hau ere, ziurrenez, Franciscak abitua aldatzeko edo -aurretik ordenetako abiturik ez izatekotan- hau hartzerako orduan beste ordena batengana joateko motibo izan zitekeen. Ez dugu baina hargatik Francisca de Barrutiak Soledadeko ermitaren zerbitzua eta bertako seroretxea utzi zituenik pentsatu behar, testamentua bera Soledadean helarazia izan baitzen, bere seroretxean gaixo zegoela, eta San Pedro parrokiako Santo Kristoaren aldarearekin batera, ermitako Amabirjinaren aldarea ere gogoan izan baitzuen otoitzezko meza solteak agintzerako orduan. Hantxe izan zen beraz Francisca de Barrutia testamentua helarazi zuen 1742rarte, Soledadeko ikastetxearen eraikuntza eta instituzionalizazio bideak (ikastetxeko konstituzioak idazteari, jarraian ikusiko dugunez, 1741ean ekin baitzitzaion) aurrera egiten zuten bitartean⁷⁶³. 1742az geroztik zeharo libre zeukaten bidea Maria Clarak eta bere kideek, santutegiko eta ikastetxeko gorabeherak aurreko seroraren kexurik gabe gobernatzeko.

Soledadeko ikastetxea arrakastatsuegia zen ermitako seroraren kexuei kasu egiten ibiltzeko, eta Udalak bere alde egiten zuen, zerbaiten beharra zegoen aldiro. Hala, 1737an Maria Clara serorak Udalari memorial baten bidez enbor gehiagoren eskakizuna egin zion, “para la execucion de un horno y una pieza comun”, zeharo beharrezkoak zirela eta. Udalak, aurretik 1732an eta 1733an eman beharreko enborren inguruan hitzarturikoak oinarritzat harturik, eskakizuna onartu zuen, eta komisionatu bat izendatu

⁷⁶¹ 1733ko urtarrilaren 15ean egindako udal bilkuran, 1732an Maria Clara serorak aurkezturiko memoriala eta orduan harturiko erabakiak berretsi zirenean, Francisca de Barrutia seroraren inguruan honakoa gehitu zen: “y se hizo en dicho Ayuntamiento relacion de que la Beatta Barruttia se mantenga en la hermita de la Soledad con las mismas Conbeniencias, Circunstanzias y Calidades con que entro á hauittar en la Cassa de dicho Santuario de que es patrona esta Villa; y que se entienda sin perxuizio del patronatto de esta Villa” (MLBA 1A-2, f.g.).

⁷⁶² BUA 01 L/207, 7v-8r.

⁷⁶³ BUA 01 L/152, 120r-122r.

zuen beharrezko enborren zenbatekoari neurria hartzeko⁷⁶⁴. Ordurako (aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala), Maria Clara jada oinordekotza bidez zegozkion ondasunak saltzen eta pilaturiko diruez baliatzen hasia zen, egin beharrean zeuden ikastetxearen hedapenerako obren gastuak ordaintzeko. Poliki-poliki, Soledadeko ikastetxe eta santutegiaren inguru ere beste itxura bat hartuaz zioan; 1734an bertako iturriaren – 1730ean hasi zituzten konponketa lanen– azken konponketak egiteko lanak hastea adostu zen⁷⁶⁵, eta 1739an bertarako bidearen inguruko honako erabakia hartu zen: “que en el camino del caluario desde dicha hermita [*Soledadekoa*] asta la del Angel se planten los pies de fresnos nezesarios asi para que aia sombra en el camino, como para su ermosura”⁷⁶⁶.

Santutegiaren, ikastetxearen eta inguruaren itxura eraldatuz zioazen bezalaxe, Soledadean serorek eta ikasleek zeramatzen bizimoduaren nondik norakoak ere aldatuz eta instituzionalizatuz joan ziren. 1739ko uztailaren 2an, ordurarte frantziskotarren hirugarren ordenako abitua zeramaten Maria Clara de Berroeta eta Maria Teresa de Murillo serora irakasleek pausu erabakior bat eman zuten, ikastetxeko dohaintzen emaleek hartara beharturik: Sortzez Garbiaren abitua hartu zuten, frantziskotarren Kantabriako Probintziako Ministro Probintzialaren baimenarekin. Maria Clara berak garbi adierazi zuen hau bere testamentuan, hirugarren ordenakoa izatetatik Sortzez Garbiaren abiturako aldaera “por cumplir la mente de los bienchores [*Soledadeko ikastetxearenak*]” egin zuela. 1741erako, Soledadeko Seminariorako konstituzioak idazteko enkargua burutua zegoen, noren eta, alderdi sozial eta politikoetan izan zuen pisuaz aparte, seroren inguruko historiografiaren baitan oinarrizko jarraibide bihurtuko zen Manuel Larramendi jesuita ezagunaren eskutik⁷⁶⁷. Konstituzioen bukaerako orrietan bezalaxe, 1740ko abuztuaren 14an Udalak egin zuen bilkuran ere lehen urte haietan konstituzioen onarpenerako egin zituzten dilijentzien berri ematen zaigu: Andres de Orbe y Larreategui Erreinuko Inkisidore Orokorrak berretsi eta zuzentzea zen asmoa, baina hau inongo erantzunik eman gabe hil zenez, Juan de Eulate y Santa Cruz inkisidoreari (“del Consejo de su Magestad y Ynquisidor en el de la Suprema y General Ynquisizion”) helaraztea adostu zuten, honen bitartekaritza medio Kalagorriko apezpikuaren onespina jasotzeko asmoz⁷⁶⁸. Azkenean, aurrerago erreparatuko diegun konstituzio hauek ez ziren Kalagorriko apezpikuaren aginduz Pedro de Calatayud aita jesuitak 1751 inguruan zenbait zuzenketa egin zizkion arte onartuak izango⁷⁶⁹. Honen arrazoiak abituaren inguruko tentsioak izan zirela dirudi, Maria Clara seroraren borondatearen arabera, Manuel de Larramendik ikastetxerako idatzi zituen lehen konstituzioetan serorak “seglares” bezala mantenduko zirela ezarri izan baitzen; berez, Sortzez Garbiaren abitua onartu beharra izan zuen Maria Clara serora hil zen arte (1750) ez ziren Pedro de Calatayuden zuzenketa zeramatzen konstituzioak onartu (nahiz eta Maria Clara berak, bere testamentuaren arabera, aldaketa hauen berri bazuen), eta Sortzez Garbiaren abituaren ezarpena izan zen, hain zuzen ere, zuzenketa hauetariko bat.

Tramite hauek eginaz ziharduten bitartean Soledadeko Amabirjinak eguraldi txarren aurkako babesle lez jasotzen zuen kultuak bizi jarraitzen zuen: 1740ko abenduaren 5ean San Pedro parrokiara prozesioan ekarria zuten 9 egunetan zehar bertan gurtzeko xedez (nobenarioa), eta aurrekoetan egin lez, Udalak bere gain hartu zituen

⁷⁶⁴ Eskakizunaren onarpena: BUA 01 L/207, 40r-41r. Eta eskakizuna bera: BUA L/036 (MIK 17A39), 72.

⁷⁶⁵ BUA 01 L/206, 234r.

⁷⁶⁶ BUA 01 L/207, 79v.

⁷⁶⁷ MLBA 1A-4, f.g.

⁷⁶⁸ BUA 01 L/207, 115v-116r.

⁷⁶⁹ BUA 01 L/208, 47v-49v.

egun horietan Amabirjinaren gurtzan izan ziren gastuak⁷⁷⁰; eta 1741eko ekainaren 6an nekazariak eurak izan ziren alkateari Soledadeko Amabirjinaren irudiaren San Pedrorako jeitsiera eskatu ziotenak (“por la mucha necesidad que hauia de agua”), aurrekotan egin izan zen lez, nobenarioa egin ziezaioten. Azken eskaera honetan prozesioaren eta nobenarioaren gorabeherak –eta bizilagunei ezartzen zitzaizkien betekizunak– xehetasun gehiagorekin azalduz ageri zaizkigu:

que todos los dichos nueve dias se cante la misa maior con la Solemnidad acostumbrada hes a sauer cinco por el Cauildo de San Pedro y quatro por el de Santa Marina y la Salue todas las tardes con asistencia de ambos Cauildos San Pedro y Santa Marina a quienes por los dichos señores Sindico y don Miguel Velez de Olaso se haga esta suplica y se pague el extipendio acostumbrado de quinze reales por cada Camisa y que la zera que se gastare se pague de la limosna que se recoguiere segun esta acordado de suso y que se de parte a todos los vecinos para que de cada Casa a lo menos asista una persona a la procesion y rogatiuas y los que no asistieren paguen medio real por cada bez que faltaren y sirua para el gasto de la referida rogatiua⁷⁷¹

Debozioa eta irakaskuntza batzen zituen Soledadeko santutegiko zuzendaritzak, 1741ean idatziriko konstituzioak artean onartu gabe zeudela, 1749 ingururarte jarraitu zuen Maria Clara seroraren eskutan izaten. Konstituzioen erredakzioa izkribau aurrean 1741eko urtarrilaren 5ean balioztatu bazen, martxoaren 21ean Maria Clarak zehaztu gabeko “persona deuota” batek emandako 600 dukat zentsutan ipintzeko baliatu zituen; egin zioten dohaintzak baina, baldintza zehatz batzuek zituen:

para el efecto y con destino de que si ubiese dicha Cantidad y su renta para entrar una persona de ablidades en este Seminario, que lo esperaua y profesase en el en auito de la Purisima Concepcion y en Caso de no llegar la tal persona o de no perseuerarse en el, fuese dicho principal y rreditos para este seminario, con condicion y obligacion de que las Maestras que en el hubiere haian de traer perpetuamente el auito exterior de la Purisima Concepcion de nuestro Padre San Francisco y en Caso de no traer dicho auito por las Maestras de este Seminario, el principal de dichos seiscientos ducados y sus rreditos pasase al Combento donde haia esta profesion y ensenanza⁷⁷²

Esana dugunez, 1739ko uztailaren 2an jasoa zuten ordena horretako abitua Maria Clara berak eta Maria Teresa de Murillok; baina bazen oraindik ordenako profesiorik egin gabe bere hirugarren ordenako serora abituan mantentzen zen hirugarren irakasle bat ere, Maria Ignacia de Berrogain. Itxuraz, dohaintza honek bera ere abitua janztera bideratzea zeukan xede. Baina ondorengo urteetan hiru irakasleek helarazi izan zituzten dokumentuetan, beste biak ez bezala, –Maria Clara de Berroetak testamentua helarazi zuen– 1750. urterarte behintzat profesiorik egin ez zuela dakigu (bere izen soilaz sinatzen zuen, besteek profesioiko izenarekin –aurretik “Sor”-a zeramatela– sinatzen zuten artean)⁷⁷³, eta 1751n Pedro de Calatayudek konstituzioei egin zizkien zuzenketetan ere, ondorengo irakasleek Sortzez Garbiaren abitua “sin permitir otro alguno” eraman beharra izango bazuten ere, momentuan zirenek euren

⁷⁷⁰ BUA 01 L/207, 130r-130v.

⁷⁷¹ *Ibid.*, 151r-151v. Proposamenaren onarpena, hurrengo egueko bilkuran: *Ibid.*, 149r-149v (foliazio akatsen bat dagoela dirudi).

⁷⁷² GPAH-AHPG 1/0555, 166r.

⁷⁷³ Honakoa zioen Maria Clara de Berroetak bere 1750eko testamentuan: “despues que se asento en dichas Constituciones por basa principal el que hubiesen de traer las Maestras de este seminario el bestuario de la Purisima Concepcion y haun en caso de que se lograrse Clausura, menos a una de las actuales mis Compañeras, que se le permitio mientras su uida el de su deuocion a lo que consentieron dichas mis Companeras” (GPAH-AHPG 1/0555, 168r). Sinadurak, beste dokumentuen artean, ikastetxeko hiru irakasleek 1748an alokairu baterako ahalorde bat helarazi zutenean (GPAH-AHPG 1/0553, 12r-13r), eta urte bereko ordainketa-karta batean ageri zaizkigu (*Ibid.*, 100r-101v).

deboziokoa eraman ahal izango zutela zehaztu zen; zehaztapen hau, Maria Ignacia de Berrogainek oraindik Sortzez Garbiaren profesiorik egiteko asmorik agertu ez zuelako motibatua izango zen ziurrenez⁷⁷⁴.

Soledadeko serorek, dohaintzen emaleek hartara behartu bazituzten ere, beraien hasierako asmoen artean ez zeukaten profesioa egin eta klausura gordetzeko asmorik. Mariaren Lagundiaren Bergarako ikastetxeko artxiboan 1741ean Manuel Larramendik idatzi zituen konstituzioen lehen bertsioa gordetzen da, 1751n Pedro de Calatayudek egin zizkion aldaketak gainetik idatziak dituela; honek, hasierako bertsioari egin zitzaizkion aldaketen berri izatea ahalbidetzen digu. Eta bi izan ziren, funtsean, aldaketak egin izan zitzaizkien alderdiak: lehena irakasleen profesioaren, klausuraren eta abituaren auziei zegokiena, eta bigarrena, aurrerago xehetasun gehiagoz azalduko dugun patroitza aldaketarena, Bergarako herriarena izatetik, Kalagorriko eta Kaltzadako apezpikutzarena izatera iragan baitzen. Lehen alderdiarekiko, 1741eko konstituzioetan eta 1751ko aldaketetan ezarritakoen artean alde handia zegoen; hain zuzen ere, komentu baten eta seroretxe –sekular– baten artekoa. Jaso ditzagun lehen bertsioa eta aldaketak, biak, konparazioa oso esaguratsua zaigu-eta. Pedro de Calatayuden aldaketaren ondoren honela gelditu zen “De las Maestras en General” ataleko 16. puntua:

Quando Dios dispusiere caudales suficientes, para que aqui se entable clausura, y haciendo los tres votos Religiosos, sea ya cosa, todas las Maestras traeran el habito de la Purisima Concepcion sin permitir otro alguno. Pero entre tanto puedan las Maestras presentes vestirse el habito y traje, que fuese de su deuocion⁷⁷⁵

Lehen bertsioak, ostera, honela zioen:

Todas las Maestras se vestiran modesta y decentemente, pero con vniformidad en la Tela y Color. No traeran en lo exterior habito entero de los que dan los Relixiosos, con nombre de Beatas, ô hermanas; y para satisfazer a su deuozion, le podran traer en cubierto, ô interior; el vniforme sera vn negro, modesto y dezente, que dize vien a unas señoras seglares, y espezialmente dedicadas a la Virtud, y dirà aun mejor que otra Color a las que siruen â Nuestra Señora de la Soledad en vn Seminario, que esta a su amparo y proteccion. Esto se entienda para las Maestras, que fueren entrando en adelante; pues las presentes, podran retener, si quisieren, el Abito de su Deuozion; en lo qual se atiende â evitar desensiones, y evitar gastos al Seminario⁷⁷⁶

Nabaria da ikastetxeko irakasleen egoera zibil eta erlijiosoaren inguruko ideiak, lehen bertsioaren eta egindako aldaketen artean, oso ezberdinak zirela; aipuek eurek diote guztia, eta ez gara alperrikako azalpenetan luzatuko, funtsean, gakoa, jada aipatu dugun hortan baitzegoen: serorak ala mojak izan behar zuten. Irakasleen egoera zibil edo/eta erlijiosoaren adierazle zen beraien abitua bezala, ikasleen janzkeraren inguruko arauetan egindako aldaketak ere oso esanguratsuak zaizkigu, bertsio orijinalaren eta Calatayud aitak moldatutakoaren artean zeuden ikastetxearen hautemapen ezberdinen adierazle; moldaketaren ostean honela gelditu zen “De las Seminaristas” ataleko 20. puntua, ataleko azkena zena:

Todas andaran vestidas decentemente, y en expezial quando vaxan a la Villa â confesarse, y otros exercizios de piedad; todas con mantilla blanca: y no traeran cintas bordados, abanicos, y otras alajas de gastos y profanidad: lo qual podra arreglar la Rectora con las demas Maestras⁷⁷⁷

Lehen bertsioan berriz:

⁷⁷⁴ MLBA 1A-4, f.g.

⁷⁷⁵ *Ibid.*

⁷⁷⁶ *Ibid.*

⁷⁷⁷ *Ibid.*

Todas andaran vestidas Vniformemente, y en expezial quando vaxan a la Villa â confesarse, y otros exerzizios de piedad; y el Vniforme sera vn negro honesto, y dezente, semejante al de las Maestras; pero esto se entienda para las que fueren viniendo en adelante; pues asi en poco tienpo andaran todas Vniformes, y no se entienda para las que oi tienen ya sus vestidos dezentes, [??] no tiene Caudal para el nueuo Vniforme⁷⁷⁸

Ikastetxearen sortzaileak eta beste serorek, Manuel Larramendik idatzi zizkien konstituzioen arabera, irakasleak serora izango ziratekeen ikastetxe bat nahi zuten, sekularra eta ordenetatik apartekoa, irakasleen euren eta ikasleen antzerako janzkeraren uniformetasunaren bidez bere berezitasuna aditzera emango zukeena eta era berean, uniformetasun berberaren bidez ikasleen arteko ezberdintasunak alde batera utziko zituzkeena. Honekiko, Bergarako udal agintariei ikastetxearen sorkuntzarako aurkeztu ziren memorialean azaltzen ziren asmoak ere gogoan izan ditzagun, emakume nagusiak ere ikasletzat onartuak izango zirela, eta ikasle bakoitzak bere ikaskuntzaren kostuak bere gaitasun ekonomikoaren arabera ordainduko zituela zioenean. Egia da konstituzioak idatzi zirenerako memorialeko asmoak urrun zeudela ere, baina komenigarria genuke ikuspegi honetatik abiatu zela aintzat hartzea. Pedro de Calatayudek egindako aldaketek ikastetxeari jada irakaskuntzara dedikaturiko ordenetako klausurako komentu baten itxura ematen zioten, ikasleen kanpoko erlazioak eta itxura ere munduarengandik aldentzearen ideiarri loturik, jantzi deigarriak eta bitxiak ekidinez eta aurpegia mantilarekin estalita hautematen zituena. 1751ko konstituzioetako gainontzeko arauen laburpen egoki bat Manuela Urra Olazabal Bergarako Mariaren Lagundiako mojak –Soledadeko ikastetxea aurrekari izan zuen– bere ordenaren Bergarako ikastetxearen historiari buruz idatzi zuen liburuan aurkitzen dugu; laburpen honetan orain arte aipatu ez dugun beste aldaketa garrantzitsu bat ere azaltzen zaigu gainera, gizonezko zuzendari baten izendapena:

seminarioak gizonezko zuzendari bat izango zuen, gotzain jaunaren ordezeko, arauak idatzi zituenaren irizpideetan ondorengo esaten baitzen: “ez da erraza, seminarioak aurrera egin eta jarraitu dezan, gobernuko lanetan bakarrik emakumeak egotea; oso komenigarria eta beharrezkoa da buru bat izan dezan gobernatu, zaindu eta zuzentzeko, eta lan hori gobernari, babesle eta zuzendari gisa egin behar du”. Aita Larramendik idatzitako araudian ez zen halakorik esaten, eta seminarioa zuzentzeko ardurua guztia andre errektorearen eskuetan zegoen. Lehen aipatutako arrazoiak zirela-eta seminarioa gotzainaren esku geratu zenean egin ziren aldaketa horiek

Andre errektoreaz gainera, seminarioak hiru maistra izango zituen, eta maistra horiek kristau ikasbidea ezagutu eta neskatxei irakasteko gauza izan beharko zuten, eta horrekin batera, gaztelania eta latina irakurtzen, edozer idazten, zenbatzen josten, brodatzen eta orratzekin egindako beste hainbat lan egiten ere jakin behar zuten. Musikako maistra izan zen jostuntzako azterketa egin beharretik salbuetsita geratu zen bakarra.

Ikasle kopuruak ezin zuen 60tik gorakoa izan, eta seminarioan sartu ahal izateko adina, berriz, 6 eta 16 urte artekoa izango zen. Uniforme beltza jantzi behar zuten, mantila, saia eta kasakaduna, baina kasakak ezin zuen zetazkoa izan.

Irakurtzen ez zekitenei, abezetik hasita irakatsiko zitzairen. Irakurtzen ikasi behar zuten, baina irakurtzen zuten horri zentzua emanda, ondo ahoskatuta, eta lehenengo gaztelaniaz eta gero latinez. Seminarioaren barruan, arreta handia izango zuten euskaraz egin ez zezaten, horrela gaztelania hobeto ikasteko. [...]

Haur bakoitzak nolako gaitasuna zuen kontuan hartzen zen, eta haurretakoren batek trebezia berezia zuela erakusten baldin bazuen, dena delako arloan hobetu zezan saiatzen ziren (Urra Olazabal 1999, 45-49)

⁷⁷⁸ *Ibid.*

Zenbait gauza jada aldatuak zeuden, 1732an Maria Clarak Bergarako udal agintariei aurkeztu ziren memorialean azaldu izan ziren hasierako asmo haietatik; emakume helduak, esaterako, ez ziren ikastetxean onartzen.

Maria Clara de Berroetak sortu nahi izan zuen ikastetxeak bazituen jada Euskal Herrian jarraitu ahal izateko ereduak, baina beti ere, mojen komunitateetatik erator zitezkeenak. Izan ere, serorek Erdi Aroan nahiz Aro Berrian neskak –eta batzutan baita mutikoen ere– irakaskuntza lanak burutu izan bazituzten ere, hauek etxeko langintzei eta jostakuntzari lanei zegozkien batez ere, eta ez zeukaten plangintza eta erregulazio berezirik; borondatezko eta karitatezko aktibitate asistentzialen parte ziren. Eta hala ere, ordenei loturiko –batez ere hiribilduetan kokatzen ziren– seroren komunitateei klausura ezarri zitzaizkionean, neskak hezkuntzaren kolpe gogorra izan zen; klausuraren ezarpenerako eta ordenekiko obedientziarik gabeko seroren desagerrazterako XVII. mende hasieratako lehen saiakera esanguratsuari Bizkaiko Jaurgoan ekin zitzaizkionean, Jaurgoak neurriei aurka egiteko eman zuen argudioetariko bat “niños y doncellas”-en hezkuntzarena izan zen (Lizarralde 1919, 595). Iparraldean ere badugu alor honetan –ordenekiko obedientziarik gabeko– serorek hartzen zituzten lanen berri. Lehenago ere aipagai izan dugunez, Webster-ek Baionako apezpiku izan zen monsinore Olceren 1666ko *Statuta Synodalia*-etan idatzirikoa jaso zuen; katekesia irakasteko, "las niñas serán confiadas á las hermanas vulgarmente llamadas benitas y encargadas del cuidado de la sacristía" itzuli zigun (Webster 1911, 145). Lafourcade-k berriz, neskak hezkuntzari zegokionean Baionako aurreko apezpikuen aginduak jarraitu eta ontzat eman zituen 1749ko monsinore d'Arche apezpikuak argitaraturiko *ordonnances synodales*-etako testigantza jaso zuen, eta baita 1737ean Baionako apezpikutzan zegoen hezkuntz-egoeraren zenbait berri interesgarri eman ere, -dagokigun tarte kronologikoan- seroren hezkuntza lanek zeukaten garrantziari neurri egokia hartzen laguntzen zutenak. Ez dezagun ahaztu, bestalde, Maria Clara bera, edo bere familia behinik behin, Iparraldetik heldua zela. 1698an Frantziar umeen lehen hezkuntza derrigorrezkotzat ezartzen zuen Errege Agindua emana izanik ere, Iparraldeko errealitatea bestelakoa zen. 1737an 19 parrokiaren arteko 4 ziren mutikoendako maisu faltan zeudenak, eta neskatilendako maistrarik ez zegoen ia, 2 parrokiatan baino ez. Hortaz, serorek neskatilekin hartzen zituzten hezkuntza-lanek garrantzia esanguratsua zeukatela pentsa liteke (Lafourcade 1991, 32-33). Duvertek ere, kasu honetan iturri etnografikoak historikoekin uztartuz, jaso zuen "oinarrizko hezkuntzan" izan zezaketen partehartzea: "Elle pouvait aussi aider à l'instruction religieuse, apprendre à lire" (Duvert 1991, 5). Hegoaldera itzuliz, bertako seroren presentziarekiko data berantiarra dugun 1771n, Bergarako San Pedro parrokiako seroren Goenkaleko etxe amankomunean, oraindik neskatilei ehungintza eta jostakuntza kontuak irakasten zitzaizkiela dakigu⁷⁷⁹.

Edozelan ere, plangintza baten arabera antolaturiko irakaskuntza erregular baten ereduak, etxeko langintzez eta katekesiaz gain, idazketa eta irakurketa, nahiz musikako abildadeak ere ikasgaien artean baitaritzen zituztenak, XVII. mendean baino ez ziren apurka-apurka hedatzen hasi, mojen komunitateetan gauzatu ziren, eta kasurik gehienetan, maila ekonomiko altuko familietako alabengana bideratuak zeuden. Iparraldean, Frantziako hainbat lurraldetan bezalaxe, XVII. mendearen hasiera aldetik baziren jada irakaskuntzarako dedikazio espezifikoa zeukaten mojen komunitateak: ursulinak zeuden Baionan (1611z gerotik) eta Donibane Lohitzunen (1635), eta Baionan bertan, mende bukaerara, beste zenbait komunitatek ere ekin zioten nesken irakaskuntzari (1650etik Bisitazioarenak, 1651tik Karitatearen Damak, 1683tik Batasun

⁷⁷⁹ BUA C/312-02, f.g.

Kristauaren eta Fedearen Damak). Hegoaldean, kuriosoki, Frantzian askoz hedapen zabalagoa zeukan baina ostera Iparraldean komunitaterik ez zeukan beste ordena bat baino ez zen heldua, Tuterara: Juana de Lestonnac-ek 1556an Bordelen sortua zuen Mariaren Lagundia, Tuterara 1687an heldua zena (Frau Diego 2004, 777-779). Hain zuzen ere Tuterako komunitate hau izan zen Soledadeko komunitatea –zailtasun askoren ondoren– 1799an ordezkatu zuen komunitatearen eredu, eta baita hau sortzeko oinarri ekonomikoaren jatorri ere, bertan moja zen Magdalena de Goizuetaren 1762ko testamentutik heldu baitzen fundazio berrirako beharrezkoa zen dirutza (Urza Olazabal 1999, 52-63).

Baina Maria Clarak eta 1741ean, Manuel Larramendik lehen konstituzioak idatzi zizkienean, berarekin zeuden beste irakasleek nahi izan zutena konstituzioen sarreran garbi adierazirik gelditu zen, Pedro de Calatayudi oharkabean pasa zitzaion 3. puntuan (ez baitzuen aldatu); bertan, halaber, beste komunitateen isla presente zeukatela adierazten zaigu:

Pero no obstante dicta la prudenzia, y la practica de otros Seminarios, y Comunidades, que haia Reglas, y Estatutos, que siruan de Gouierno â este Seminario de la Soledad, en cuia obseruanzia acrediten las Maestras, y sus Diszipulas su deseo y buena Voluntad de Cooperar con Dios a vn fin de tanta Gloria suia, y merezcan de su benefizienzia nueuas luzes, grazias, y faoueres, que aseguren el acierto, y buena direzion de este establezimiento, de manera que no siendo Comunidad de Relixiosas, por su buen exemplo y gouierno Cristiano puedan competir con ellas⁷⁸⁰

Proposamena bera, 1741ean egina izateko, oso berezia eta aurrerakoia izan zen, baina mojen komunitateen eredua hartzeko presioen pean, zenbait urtetan mantendu ahal izan bazen ere, ezin izan zuen azkenean aurrera egin. Izan ere, inguruan eredutzat har zitzakeen mojen komunitateetako ikastetxe bat baino, hauen pareko izatera hel zitekeen seroren ikastetxea nahi bazuen ere ("no siendo Comunidad de Relixiosas"), Maria Clara de Berroeta berari ere bere inguruan, bai familian bertan eta baita Bergaran izan zuen testuinguruan ere, garai goiztiarretatik heldu zitzaizkion klausurako bizitza hartzera heltzeko presioak.

Egin dezagun zenbait urtetan atzera, bere bizitza pertsonaleko gorabehera hauek zertan izan ziren ikusteko. Bere testamentuan adierazi zuenez, bere anaiak zehaztu ez zuen diru kopuru bat bidali izan zioten "de las Yndias [...] para que entrase Monja", baina diru hauek bere familiaren zorren ordainketan xahutu behar izan zituen⁷⁸¹. Agian, 1705ean Erreterian bere ahizpa eta anai batekin batera helarazi zuen ahalordea "Yndias"-etan zeukaten anai amankomunaren testamentuko dohaintzetako diruen jasotzeari zegokion: bere ahizpa Catalina Perez de Berroeta eta bere anai Pedro Antonio de Berroetaren izenean ari zen honen emazte Maria Agustina de Salaberriarekin batera helarazi zuen, izendaturiko ahaldunak anaia zuten Juan Bernardo de Berroetaren oinordekotzatik jaso beharrean zeuden 1.598 zilarrezko ezkutu eta txanpon bereko 4 errealetatik (ggb. 2.324 dukat), 983 ezkutu eta ½ eta erreale bat (ggb. 1.430 dukat) jaso ahal izan zitzaizkien⁷⁸². Maria Clarak, 1750eko testamentuan, bere iloba Maria Ignacia de Berroetari, –moja sar zedin bidaliriko diruekin– bere familiaren zorrak ordaindu izanaren ordainez esleitu zitzaion lursailaren parte zen sagastia 500 pesotan (4.000 erreale, ggb. 363 dukat eta ½) erosteko aukera eman zion; balore hau, halaber, 1705ean jasotako diruen parte izan zitekeen. Baina diru eta ondasun zehatzen identifikazioa ez da hain garrantzitsua ere; funtsean, garrantzitsuena Maria Clara mojatara sar zedin bidali

⁷⁸⁰ *Ibid.*

⁷⁸¹ GPAH-AHPG 1/0555, 164v.

⁷⁸² GPAH-AHPG 1/0390, 87r-88v. Ahalordea bada ere, artxiboan ordainketa-karta bezala ageri da.

zituzten diruak, honek, moja sartzeko beharrea, familiako zorrak ordaintzeko eta bere anaierik bati eta bere emazte eta alabari laguntzeko baliatu zituela, eta beraz, beretako pentsatua zeukaten ibilbideari, hasieran behinik behin, muzin egin ziola da.

Jada behin bere ikastetxearen proiektua onartu zutenean, 1736an helarazi zuen ahalorde batek bere esku zeuzkan ondasunen batzuen eta bere kargu hartu zituen familiako zorren berri ere ematen digu. Bere aita “abintestato” hil izan zen, eta amak, bere testamentuan, “me mejoro en el tercio y remanente del quinto de todos sus Vienes”; hau da, azkenean familiaren ondasunen parterik handiena egokitu zitzaion, oinordeko nagusiari zegokiona⁷⁸³. Amaren aldetik Itsasuko Darrechea etxea jaso izana zuen oinordekotzan; aipagai dugun ahalordea “señor Segura” zelako baten alde helarazi zuen (“Sindico anziano del noble y leal Pais de Labort”), hain zuzen ere, bere izenean aipaturiko etxea eta etxeari zegozkion ondasunak eta betekizunak (sostengatu beharreko kapilautza “ô Anibersario” bat) saldu ahal izan zituzan⁷⁸⁴. Ondasun hauen salmenta, ziurrenez, bere testamentuan bere amaren oinordekotzaz aparte, hauen ondasunen gain lortu zituen beste “derechos”-ak eskuratzera begira egina zegokeen:

y a mas de estos derechos que me son devidos [*amaren oinordekotza*], tengo sobre los Vienes que fueron de dichos mis Padres que estan situados en la dicha uilla de Renteria otros diferentes derechos mediante hauer pagado yo uarias obligaciones con que estan grauados dichos Vienes⁷⁸⁵

Bestalde, jada 1736an bere ikastetxearen proiektua onartua zegoenez, mugimendu ekonomiko hauek bere asmoak burutzera begira eginak izango zirela ere pentsa liteke. Eta ez dakigu garbi ze arazo moeta izan zuen ondasunen eta diruen gorabeherekin, baina zer edo zer gertatu zela dirudi, hurrengo urtean, 1737an, ahalorde orokor bat helarazi baitzuen Pedro de Berroeta bere anaiarengandik jada alargundua zen Maria Agustina de Salaberriaren eta hauen alaba Maria Josefa de Berroetaren alde (Errenteriako herritarrak), “para que me defiendan en ttodos mis pleittos asi Ziuiles como Criminales comenzados y por comenzar”⁷⁸⁶. Bazerabiltzan auziren batzuk esku artean.

Ahalorde honen helarazpenak ere frogatzen duen bezala, Maria Clarak bereziki gertuko erlazioa garatu zuen Pedro Antonio de Berroeta bere anaiaren familiarekin; familiako zorren ordainketagatik jaso zuen –zenbait sagasti baitaratzen zituen– lursailaren etekinak, beraiek jaso izan zituzten:

no obstante an gozado sus frutos y rr[en]tas Don Pedro Antonio de Berroeta mi hermano ya difunto, Doña Agustina de Salaberria su biuda y Doña Maria Ygnacia de Berroeta y Salauerria hija lexitima de ellos Vecinos que son y fue de dicha Villa⁷⁸⁷

Bere testamentuan Errenteriako lursailetik atera izan zituzten etekinen inguruan inork konturik eskatu ez ziezaiela agindu zuen, eta lursailaren parte zen sagastia 500 pesotan erosteko eskaintza ere orduan egin zion (sagastiaz apartekoa oinordeko izendatu zuen ikastetxeari eman zion). Itxura guztien arabera, Maria Clara serorak bere anaiaren familia ekonomikoki sostengatu izan zuela dirudi; esandako dohaintzaz aparte, hainbat urtetan bere iloba Soledadeko ikastetxean bere zerbitzuan eduki zuen, testamentuan honakoa ere aginduz:

⁷⁸³ GPAH-AHPG 1/0555, 164r-164v.

⁷⁸⁴ GPAH-AHPG 1/0541, 397r-399r.

⁷⁸⁵ GPAH-AHPG 1/0555, 164v.

⁷⁸⁶ GPAH-AHPG 1/0542, 70r-71v.

⁷⁸⁷ GPAH-AHPG 1/0555, 164v.

respecto a la poca disposicion de su Casa, es mi uoluntad que no se la obligue a la paga de sus alimentos que tomo en este Seminario en tiempo alguno, no dudando que si con la aiuda de Dios llegare a mejor fortuna sabra agradecer con alguna limosna que sea decente⁷⁸⁸

Laburbilduz; Maria Clarak, Ameriketako bere anaiek bera moja sar zedin asmoz bidaliriko diruak familiako ondasunak babesteko baliatu zituen, bere amak, ondasun gehien oinordeko –eta beraz, familiako ondasunen erantzule– izendatu zuenez gero. Moja beharrear serora izatea hautatu zuen, eta bere familiaren ondasunak eta hauen etekinak, Soledadeko ikastetxearen proiekturako baliatzeaz bestalde, bere anai Pedro Antonio de Berroetaren familia sostengatzeko ere erabili zituen.

Bergarako testuinguruan ere, Maria Clarak Soledadeko ikastetxea egiterakoan buruan izan zituen asmoek beste presio batzuek ere jasango zituzten. Azaldu dugun bezala, 1739an berak eta Maria Teresa de Murillok, ikastetxearen proiekturako beharrezko zituen diruen emaleek hala beharturik, Sortzez Garbiaren abitua hartu zuten. Ez dakigu dohaintza hauek nork emanak izan ziren, eta beraz, ezin jakin abitu hura har zezaten nahiak nondik helduak ziren. Eta 1741ean, beste “persona deuota” batek ere 600 dukat eman zizkion, zentsutan ipinirik, Sortzez Garbiaren abitua har zezan beste irakasle baten sostengurako balio izan zezaten; zentsua Teresa Antonia, Ana Josefa eta Dorotea Francisca de Murua ahizpek (hirurak “doña”) fundatu zuten Maria Clararen alde⁷⁸⁹. Esan bezala, dohaintza hau, itxuraz, abitu hau hartzeko falta zen hirugarren irakasleak ere, Maria Ignacia de Berrogainek, abitua hartzearen pausua eman zezan bideratua zegoen. Eta gainera, ondorengo urteetan sartuko ziren irakasle guztiek ere abitu hau eramatekotan soilik jaso zitekeen dohaintza zen, hala ez izatekotan, neskaten irakaskuntzara dedikaturiko Sortzez Garbiaren abitudun gertueneko komentura bideratu beharrekoa baitzen. Baina Maria Ignacia de Berrogainek ez zuen Sortzez Garbiaren abitua hartu nahi izan, are, 1751ko ikastetxeko konstituzioetan jada ondorengo irakasle guztiek izango zuten abitua izango zela ezarri zenean ere. Oso litekeena da konstituzio hauetan momentuan zeuden irakasleek nahi zuten abitua mantentzeko salbuespena, hain prezeski ere, beragatik sartu izana.

Agian, Maria Clarak eta bere hasierako irakasle lagunek serora lez mantentzeko eta Sortzez Garbiaren abitua hartzeko agertu zuten erresistentzia, hainbesterakoa izango ez zela pentsa liteke; testuinguruaren iradokizunetatik eratorritako ondorioa dela, eta Maria Ignacia de Berrogainek, mojarrena beharrear, bere serora abitua mantendu nahi izan bazuen, honi zion debozioagatik izan zela, eta oster, Maria Clara de Berroetak eta Maria Teresa de Murillok ez zeukatela zertan abituaren hartzea dohaintzen emaleen inposiziotzat edo beharturiko erabakitzat bizi izan, eta hura izan zela, ikastetxearen ondorengo urteetarako nahi izan zuten ibilbidea, Sortzez Garbiaren abitudun komentu bateko mojek gidaturiko ikastetxearena, serorena beharrear. Eta beraz, 1741eko konstituzioetako arauen aldaketak, beraien onespenez eginak izango ziratekeela. Izan ere, 1751eko konstituzioak, jada erredakzio berrian, aipagai izan ditugun irakasle guztiek sinatu zituzten, eta baita sartu berria behar zuen beste batek ere: Manuela Francisca de Olabarriak (Urra Olazabal 1999, 46, 49). Eta Maria Clara de Berroetak ere, bere testamentuan, ikastetxearen bere oinordeko izendapena baldintza berdinen pean egin zuen, hau da, ikastetxeko irakasleek aurrerantzean Sortzez Garbiaren abitua eramatearen baldintzapean⁷⁹⁰. Hau, printzipioz, bere borondatea halakoa izatearen froga pisutsua genuke. Baina 1741 eta 1751 bitartean izan ziren gertakizunen jarraipenak eta

⁷⁸⁸ *Ibid.*, 165v.

⁷⁸⁹ *Ibid.*, 165v-166r.

⁷⁹⁰ *Ibid.*, 169r-169v.

Maria Clara de Berroetak 1750ean bertan helarazi zuen kodizilo batek, irakasleen, edo behinik behin Maria Clararen borondatea bestelakoa izan zela pentsatzera garamatzate.

1741eko konstituzioen eta 600 dukateko baldintzaturiko dohaintzaren ondoren zenbait urtetako *impasse* luze bat izan zen, eta jarraian ikusiko dugunez, ez dirudi azken urte haietan Soledadeko ikastetxearen gorabeherak bide onetik joan zirenik. 1742an 3.410 errealen (310 dukat) kobrantzarako ahalorde bat helarazi zuten hiru irakasleek Jesusen Lagundiaren Palentziako kolegioko probisore zen Juan de Echebarriaren alde, diruok, zordun ziren Manuela eta Josepha Juana de Cembrerorengandik (biak “doña”) kobratu ahal izan zitzaizkien; beraien buruak “beatas” bezala aipatu zituzten hasieran, eta sinatzerakoan, Maria Clarak “Sor Maria Clara de Jesus Sacramentado Berroeta, Tercera Professa de San Francisco en su Habito de la Purissima Concepcion” bezala sinatu zuen artean, Maria Teresa de Murillo y Castrok eta Maria Ignacia de Berrogainek beraien izen soilekin sinatu zuten (nahiz eta lehena ere jada “sor” izan beharrean zegoen)⁷⁹¹. 1745ean, beste ahalorde baten bidez, Francisco de Riviera administratzaile izendatu zuten, nahiz eta 1741eko konstituzioetan zehaztuaren arabera, hau hiru irakasleek eraman beharrekoa zen; helarazpenean garbi geratu zen, jada irakasleak ez zirela karga guztiak euren gain hartzeko gai ikusten, eta lan hauek beste norbaiten esku uzteko beharrean izan zirela:

dijeron que mediante sus muchas tareas y ajes reconocieron las señoras otorgantes no poder dar bado por si mismas a la suministracion y satisfacion de los alimenttos y prouisiones necesarios para su manuttencion y de los porcionistas que an residido y residen en este dicho seminario⁷⁹²

Kasu honetan jada Maria Clara de Berroeta eta Maria Teresa de Murillo, biak “terceras profesas en haitto Estterior de la Purissima Comzeption ô de Nuestro serafico Padre San Francisco” bezala ageri ziren, eta Maria Ignacia de Berrogain osterara, “Maestra” bezala baino ez; sinatzerakoan ere, azken honi falta zitzaion mojen “sor” aurrekaria⁷⁹³. 1748ko beste ahalorde batean ere antzerakoak izan ziren sarrerako egoera erlijiosoari buruzko azalpenak eta sinatzeko modua; Gasteizeko hiritarra zen Maria Cruz de Castillo y Aldamari (“doña”) helarazi zioten ahalordea orduan, aurretik aipagai izan dugun 3.410 errealeko zorretik kobratzeko falta ziren 700 errealen kobrantza euren izenean egin ahal izan zezan⁷⁹⁴. Baina jada hiru irakasleek ikastetxea gobernatzeko zuten gaitasunak gainbeheran joana behar zuen izan; 1749an, ermitaren eta ikastetxearen patroitzak zeukan udalak, edo hobe esan, bertako agintariak, erabaki garrantzitsu bat hartu zuten. Eta erabaki hauetan, herrian eta Probintzian pisu handia zeukan pertsonaia bat agertzen zaigu: Miguel Josef (edo Jose) de Olaso y Zumalabe. Garai hartako ideia ilustratuetan oso barneraturik zegoen pertsonaia boteretsua, hain zuzen ere; honela deskribatu zigun Madariaga Orbeak:

Miguel José de Olaso Zumalabe, miembro de un rancio linaje bergarés, que como corresponde a su clase, ocupó varios cargos públicos de la mayor relevancia, desde alcalde de Bergara hasta Diputado General de Gipuzkoa; uno de los personajes que posibilitó que Bergara se convirtiera en la referencia ilustrada vasca, Secretario perpetuo de la Bascongada y promotor de una "Historia Nacional vascongada" que no se llegó a publicar (Madariaga Orbea 2004, 208)

⁷⁹¹ GPAH-AHPG 1/0547, 195r-196r.

⁷⁹² GPAH-AHPG 1/0550, 78r.

⁷⁹³ *Ibid.*, 84r.

⁷⁹⁴ GPAH-AHPG 1/0553, 12r-13r.

Soledadearen historian ere eragin zuen, bada, orduan hogeitamar urte baino gehixeago zituen -eta ordurako jada Bergarako alkate eta Batzar Orokorretan errejidore izana zen- Miguel José de Olasok, ideia ilustratuen bultzatzaile izan zenak⁷⁹⁵.

Bada, 1749an Bergarako udalan Soledadeko egoera zela eta irailaren 15eko bilkuran erabaki zutenera itzuliz; honakoa zioten, ikastetxeak garai hartan bizi zuen egoeraren berri ere emanez:

Este dia dicho señor Sindico [*Miguel Josef de Olaso y Zumalabe*] propuso que el seminario de la Soledad de esta Villa como es publico a estado casi sin gente a causa de no tener sus Maestras persona que las mande y gobierne, y que hauiendo uenido aora algunas señoritas, hera razon tomar alguna prouidencia para que el seminario uايا en aumento, y no en declinazion, y que considerando que no puede hauer medio mas eficaz que el entregarlo al dominio y direcion del señor obispo de este obispado, deseando que el Ayuntamiento resolbiese lo combeniente, y el Ayuntamiento enterado de esta proposicion, acordò que dicho señor Sindico informe de todo a su Illma., y solizite el que en el modo mas solido y uentajoso que se pueda se encargue su Illma. de la dicha Hermita y Seminario⁷⁹⁶

1750eko uztailaren 5ean, 1749an Soledadeko ikastetxea apezpikutzaren patroitzara iragan zedin dilijentziak egitea agindu zitzaion Miguel José de Olasok Logroñotik bidaliriko eskutitz bat jaso zuten udalean. Bertan, betekizunaren komisionatu izendatu zuteneko bilkurako aktaren kopia bat bidal ziezaioleta, eta Soledadeko ikastetxea bere gain hartu zezan eskatuz, apezpikuari eskaera eskutitz bat bidaltzea eskatu zien; eskaeran adieraziko litzatekeen asmoa, gainera, eredu jakin batzuen araberrako ikastetxe baten parekoa antolatzea izan zedila adierazi zuen, hauen probetxuak goraiapatuz:

suplique a su Yllma. se sirua disponer aia vna Enseñanza como la de Tudela, y Zaragoza // La religion de la Enseñanza ha dado a la yglesia y al mundo tan provechosa doctrina, que solo su medio no menos grande, que inspirado expresamente del cielo ha sido el freno de la Heregia en Francia, en Flandes, en Ytalia, y en Alemania: ha reformado los desordenes de Pueblos y Reinos enteros: ha echo felices las Ciudades y Casas particulares, en que han entrado las que uiuieron la saludable leche de tan grande Madre⁷⁹⁷

Sortzez Garbiaren abitua baino nahiago zuen Miguel José de Olaso komisionatuak Mariaren Lagundiarena. Gainera, udal agintariei gaiaren gorabeheren inguruan sekretua mantendu zezatela eskatu zien, “un grande hombre, que manexa esta dependencia” bazegoela eta, baina honek, bere izenik oraindik eman nahi ez zuela eta. Beraien susmoak orri ertzean idatzi zituzten: “Padre Pedro de Calatayud Jesuita” idatzi zuten letra sendoz, eta azpian, “ó Padre Larramendi” gehitu zioten ondoren, letra arinagoz. Udal agintariek, Miguel José de Olasok aipaturikoak onarturik, honek iradoki lez egin zedila agindu zuten⁷⁹⁸.

Urte bereko irailaren 4an helarazi zuen Maria Clara de Berroetak bere testamentua, eta bertan ikastetxeko konstituzioen ingurukoak adierazi zituen moduan ikus litekeenez, oraindik, apezpikutzaren aldetiko patroitzaren onarpena ez zen gauzatu:

respecto de que todabia no se a logrado dicha aprouacion [*konstituzioena*] encargo y suplico se solicite por los medios mas eficazes y ôportunos, y no se deje hasta

⁷⁹⁵ Ikus alkate, errejidore, eta Gipuzkoako Diputatu Orokor izan zen garaietarako, Auñamendi Entziklopediako boza: <http://www.euskomedia.org/auñamendi/116608>.

⁷⁹⁶ BUA 01 L/208, 17v-18r.

⁷⁹⁷ BUA 01 L/208, 38r-38v.

⁷⁹⁸ *Ibid.*, 38v-39r.

su logro, dejando a la uoluntad y disposicion del Yllmo. Señor obispo de este dicho obispado y su señor Prouisor dichas constituciones o las que le pareciere mas conduzentes para la permanencia de este seminario, menos en quanto a bestuario el que por los motiuos espresados de suso no se a de poder mudar ni alterar y quiero y suplico que este dicho seminario y mis subcesoras esten sujetas al dicho Yllmo. Señor obispo de este dicho Obispado a cuiu proteccion los someto⁷⁹⁹

Ordurako, itxuraz irakasleen abituaren ezarpena onartua izateaz gain, Maria Clarak ikastetxea apezpikutzaren patroitzapera iragatea ere ontzat emana zeukan. Baina bien bitartean, zenbait aldaketa izan ziren. Azaroaren 20an Maria Rosa de Olasso y Zumalabe (“doña”), Miguel Joséren arreba eta Joaquin Manuel de Berroeta izana zenaren alargunak⁸⁰⁰, 600 dukat printzipaleko eta urteroko 12ko zentsua fundatu zuen Maria Clara de Berroetaren alde; diru hauek 1741ean “persona deuota” batek Maria Clara berari Soledadeko ikastetxean Sortzez Garbiaren abitudun irakasle bat mantentzeko xede eta baldintzarekin –eta ondorengoko irakasle guztiek abitu berbera eramanez baldintzarekin– dohaintzan eman izan zizkionak ziren⁸⁰¹. Aurreko zentsua jada luditua behar zuten zordunek, eta Maria Rosa de Olasso y Zumalabek hartu zituen diruok oraingoan. Maria Rosa eta Miguel José de Olasso Zumalabe anai-arrebak zirela dakigu, baina nolakoak ziren Maria Clara de Berroetaren eta Joaquin Manuel de Berroetaren arteko familia-erlazioak; osaba, anaia, iloba? Edozein kasutan, Berroeta eta Olasso y Zumalabe familien artean, ezkontza medio, interes amankomunen bestelako erlazioen batzuk ere gauzatu izan zirela dirudi.

1751ko urtarrilaren 28an heldu zen Bergarako udal agintarien jakintzara hil bereko 25ean apezpikuak helarazi zuen patroitzaren onarpena. Onarpen honen berri Xavier Ignacio de Artech lizentziatuak eman zuen, “Presuitero Abogado de la Real Chancilleria de Valladolid, Benefiziado de la Yglesia Parroquial de San Pedro de ella [Bergara]” izateaz gain, “Juez de Comision nombrado por el Yllmo. señor Don diego de Rojas y Contreras, del Consejo de S.M., y obispo de este obispado, para las diligencias correspondientes al Colegio Seminario de Nuestra Señora de la Soledad” ere baitzen. Udal bilkuran ikastetxerako konstituzioak Calatayud aita jesuitak eginak (uler bedi, moldatuak) eta hil bereko 22an onartuak izan zirela ere aipatu zen, eta honi herriaren izenean eskerrak ematea ere agindu zitzaion Juan Francisco de Eulateri eta Miguel Ignacio de Urdangarini. Era berean, udalaren patroitzaren gaineko ukoa eta apezpikutzaganako dohaintza ere berretsi ziren⁸⁰².

Urtearen bukaera aldera, abenduaren 12an, Maria Clara de Berroetak testamentuko klausula garrantzitsu batzuek aldatzen zituen kodizilo bat helarazi zuen, abituaren inguruan bere nahiak nolakoak izan ziren azaltzen diguna, eta halaber, honen onarpenerako dohaintzen emaleen aldetik izan ziren presioek bere erabakietan pisu handia izana zutela adierazten diguna. Beste behin, bere burua aurkezteko erabili zuen modua ere esanguratsua zaigu, Sortzez Garbiaren abitua aipatzea ahaztu, edo ekidin baitzuen: “la Beata Maria Clara de Berroeta de la Tercera horden de Nuestro serafico Padre San Francisco, y Maesttra de la Enseñanza de la Basilica de Nuestra Señora de la Soledad de esta dicha uilla”. Bertan, Sortzez Garbiaren abituarekiko bere testamentuan ezarri zituen baldintzak baliogabetu zituen, egindako dohaintzak baldintzatik askatuz: 600 dukateko zentsua, ikastetxeko konstituzioetan ezarritako abitua, eta ikastetxearen oinordeko izendapena. Erabaki hau hartu izateko arrazoia esanguratsua zaigu:

⁷⁹⁹ GPAH-AHPG 1/0555, 168r-168v.

⁸⁰⁰ Pérez de Azagra y Aguirre 1944, 128; García Carrafa 1920-1963, 70. lib., 187.

⁸⁰¹ GPAH-AHPG 1/0592, 290r-299r.

⁸⁰² BUA 01 L/208, 47v-49v.

Y ahora hauiendo entendido que el Yllmo. señor Don Diego de Roxas y Contreras dignísimo obispo actual de este dicho obispado mouido de su grande celo hà tomado baxo su proteccion este dicho seminario, y desea dexarlo establecido con firmeza por la Gloria que de ello hà de resultar a Dios nuestro señor, y utilidad imponderable â todo este Pays, y â otros, deseando la ottorgante contribuir quanto es de su parte a los mismos santos fines⁸⁰³

Behin patroitza apezpikuaren eskutara iragana izanik, eta agian, baita 600 dukateko zentsuaren fundazioa bere familia-esparrura iragana izanik, honen hasierako baldintzekiko babestua sentitzen zelako ere, dohaintzen emaleek ezarri izan zizkioten baldintzei uko egin zien, era berean, ermitaren eta ikastetxearen gain izan zitzakeen eskubide guztiak apezpikuari dohaintzan emanaz. Ikastetxeko irakasleek Sortzez Garbiaren abitua eramatea ez zen jada halabeharrezkoa, ez bederen, Maria Clarak berak helarazi izan zituen dokumentuekiko; Miguel Josef de Olaso y Zumalabe udaleko Sindiko eta komisionatuak iradoki izan zuen, eta ziurrenez, Maria Clara berak ere nahiago izana zukeen bezala, Mariaren Lagundiaren abitua hartzerako pausuak ematen hasteko bidea ireki zen. Ondorengo urteetan ekingo zitzaion Soledadeko ikastetxetik Mariaren Lagundiaren fundazio berrirako (1799) ibilbide luze eta arazotsuari, jada mojen abitua harturik, serorarik gabe.

Badira beste arrazoi batzuk, zeharkakoak izanik ere, Maria Clarak Sortzez Garbiaren abituaren aurrean Mariaren Lagundiarena nahiago izan zuela, eta aipatu berri dugun kodiziloan testamentuko baldintzen aldaketa preferentzia horrexek eragin zuela pentsatzeko. Maria Clarak, Mariaren Lagundiaren fundatzaile izandako Juana de Lestonnac-en ibilbidean eta aurre izan behar izan zien arazoetan, bere ibilbide propioen islada erraz ikus zezakeen, nahiz eta Mariaren Lagundia, hasieran Maria Clarak agertu zituen asmoen kontrara, bere fundaziotik klausura onartu zuen ordena bat zen. Juana de Lestonnac bera, hezkuntza humanista bereziki bultzatzen zuen testuinguru batean hazia izan zen: Ricardo de Lestonnac bere aita Bordeleko parlamentuko kontseilaria zen, eta halaber hezkuntza ona jaso zuen Juana Eyquem de Montaigne bere ama ("buen latín y buen griego" zekizkien), abizenak azaltzen digunez, Michel de Montaigne filosofo eta humanista ezagunaren arreba zen. Ez dezagun ahaztu Montaignek hezkuntzaren inguruan bere garairako ezohizkoak eta oso aurrerakoiak ziren ideiak jorratu zituela, eta zalantzarik gabe, Juanarengan bere eragina izan zuela, eta honek jesuitekin izan zituen harremanekin bat, bere hezkuntzaren ideien oinarri sendoenak bi eragin hauek osatu zituztela. Erliziozko guduen garai hartan, bere ama kalbinismoaren jarraitzaile egin zen artean, bere aitak eta osabak katoliko izaten jarraitu zuten, eta Juana beraien alde mantendu zuten. Ezkondu, zazpi seme izan eta alargundu ostean (eta jada, izandako zazpi semeetariko hiru ere hilda zeudelarik), Juanak bere esfortzuak emakumeen hezkuntzara bideratu zituen, bizi zuen testuinguruan txertatzen jakinez⁸⁰⁴:

El acierto de Juana de Lestonnac para "acondicionar" su fundación a las exigencias eclesiásticas hizo que se la aprobaran [*konpainiaren Hegoalderako sarrerari buruz dihardu*]. Realmente fue una mujer fuerte, iniciadora de una obra grande:

⁸⁰³ GPAH-AHPG 1/0592, 351v-352r.

⁸⁰⁴ Juanaren bizitzaren azalpen laburtu egoki baterako, ikus Urra Olazabal 1999, 24-29. Montaigne-ren hezkuntzaren inguruko ideien azalpenerako, ikus 1917an Pierre Villeyk egindako Montaigne-ren testuen aukeraketaren 1990eko Enrique Díez-Canedoren itzulpena, bereziki "De la educación de los niños (Cómo ejercitar el juicio)" atala (Villey 1990 -1917-, 183-192), eta aurreko orrietako azalpenak. Montaigne beraren hezkuntza ere oso berezia izan zen (ikus *Ibid.*, 27-34). Alabaina, bere hezkuntzaren inguruko ideiak hain berezi eta aurrerakoiak izanik ere, emakumeen hezkuntzarekiko eta hauen gaitasun intelektualekiko garaiko ikuspegi misoginoa aski barneratua zeukan (ikus "I. Las mujeres sabihondas" azpiatala, 259-261). Honek ez du, edonola ere, bere iloba Juanak osabaren ideietatik probetxuzko zerizkion alderdiak jaso eta baloratu ez zituenik esan nahi.

"Entre sus innovaciones, una era particularmente notoria al exterior: la de hacer compatible la actividad apostólica de Beaterios y Terceras Órdenes, con prerrogativas específicas de la vida monástica. Esta genuina novedad llegó a crear situaciones difíciles en España y América: las de la Compañía de María, ¿eran monjas o beatas?" (Frau Diego 2004, 776-777)

Hau, Maria Clararen balizko hautuarekiko oso esanguratsua zaigu; izan ere, klausura onartu beharra izatekotan, Mariaren Lagundiaren komentuen berezitasunak erakargarriagoak izango zitzaizkion, zalantzarik gabe, Sortzez Garbiarenenak baino. Maria Clarak, azken finean, Juana de Lestonnac-ek bezala, klausuraren onarpenera zeramatzan testuinguru erlijioso eta sozial batean aurrera egin beharra izan zuen, eta neskatxen eta emakumeen hezkuntzarekiko, 1732an Bergarako udalari aurkeztu zion memorialean azaldu zituen ideiek (hezkuntza neskatxei eta emakume helduei, baita idazten eta irakurtzen ere, eta ahalik eta hedapen zabalena, norik bere gaitasunen arabera ordainketak eginez), Mariaren Lagundiaren fundatzailea bere hastapenetan konpainian gauzatzen saiatu zen ideiekiko bere parekotasunak zeuzkaten (nahiz eta azkenean, 1799an fundatuko zen Mariaren Lagundiaren kolegioa "de Señoritas" izan zen, eta klase sozial altuko neskatxen hezkuntzara mugatu zen) .

Beraz, ikastetxeak ez zuen azkenean 1741eko konstituzioen lehen erredakzioan adierazi izan zen nahiaren arabera, serora sekularren ikastetxe bat izaten bukatu; urteak igaro ahala, ziurrenez, Maria Clara de Berroetak eta bere irakaskideek, Sortzez Garbiaren abituaren "inposizio ekonomikoaren" aurrean, serora sekularren ikastetxearen ideia jada ezinezkotzat alde batera utzia izango zuketena, Mariaren Lagundiaren abitua, seroren komunitate sekular baten aurrean instituzio zibil eta erlijiosoengandik onarpena jasotzeko arazo gutxiago izango zukeena, Sortzez Garbiaren abituarekiko hobetsiz. Serora sekularrek euren kabuz zuzendu eta gidaturiko ikastetxe bat gauzatzeko asmo hura Maria Clara de Berroetak ikastetxearen zuzendaritza mantendu ahal izan zuen lehen urte haietan baino ezin izan zen gauzatu, baina ideia hori XVIII. mendearen hasiera-erdialdeko emakume batzuen buruetan izan zela jakitea bera garrantzitsua da, ordungo seroren aburuak, eta orokorrean, garaia bera, egoki ulertu ahal izateko.

V. LABURBILTZEA ETA LEHEN ONDORIO BATZUK

Jatorriari buruzkoak alde batera utzirik (oraingoz, jada emandako azalpenei aski baiteritzet)⁸⁰⁵, Debagoieneko seroren gain eman dugun errebasoak, instituzioekiko eta gizartearekiko erlazioen sorta zabal bat agertu izan digu. Beraien ezaugarri orokorrak laburbildu beharrean gaude lehenik, adibideak bilduz landuz joan garen ikuspegi zabala ondoriotarako presente izan dezagun. Bergarak, Antzuolak eta Elgetak osaturiko espazioaren baitan (eta hemen, bereziki, hiribilduetan), serorek esparru lokalez gaindiko instituzioek ezarririko betekizunak, trazu orokorretan behinik behin, nahiko fidelki errespetatzen zituztela, eta beraz, Larramendik eta bere jarraitzaile historiografikoek emandako seroren irudiari nahiko ongi egokitzen zaizkiola dirudi. Adinaren muga zen agian gutxien errespetatzen zena (40 urtetik gorakoak izatearena), baina osterantzean, tenpluetako patroiek izendatzen zituzten, ordenaren bateko abitua zeramaten, apezpikuaren lizentzia eskatu ohi zuten eta informazio dilijentziak egin ostean titulua ematen zitzaientzen, kastitatea mantentzen zuten (ermitetan, XVII. mendearen bukaeraz geroztik eta batez ere XVIII.ean, gradualki ermitauek senar-emazteen bikoteak alokairuan hartzeari ekin zitzaion arte baino ez), seroratzat –printzipioz behintzat– bizitza gutzirikotzat hautematen zen, dotea ematen zuten, etab. Parrokia bakoitzean bi edo hiru serora, eta auzoetako parroketan lau eta sei bitartean izan ohi ziren, Elgetako parrokiaren salbuespenez: Andre Maria parrokiaren bat edo bi izan ohi ziren, eta Angiozar auzoko San Migel parrokiaren berriz, itxuraz, bakarra. Eta sarrerako dotea ere ematen zuten noski; informaziorik bildu ahal izan diegun parroketan ez zituzten oso kopuru handiak ematen: Bergarako Santa Marinar eta hiribilduko San Pedro parrokia nagusietan 12 dukat eman ohi zituzten, baina azken honetan, lehenean ez bezala, ohitura 1657ko hitzarmen baten okasiaz aldatu zuten, 42 dukatetara; auzoetako parrokiaren artean berriz Bergarako Elosua auzoko San Andresen 1595ean, eta Antzuolako Uzarragako San Juan Bataiatzailean 1639ko hitzarmenaz geroztik, 6 dukat eman izan zituztela dakigu. Ermitetarako aurkitu ditugun adibide gutxiek ostera, agian hauen sostengurako oinarri ekonomiko nagusietariko bat seroren doteek osatzen zutelako, kopuru handiagoen berri ematen digute: 40 dukateko (Antzuola, Antiguako Amaren ermita, 1587) eta 24 dukateko (Bergara, San Martin ermita, 1650) doteen berri izan digu.

⁸⁰⁵ II. 5. atala, 154-165 or.

Parrokietako serorak, eta baita ermitetakoak ere, kasurik gehienetan tenpluei atxikiriko edo gertuko kokapen bateko seroretxeetan bizi ziren, eta beraien etekinak, seroratzat zegozkien betekizunetako emolumentuetatik jasotzen zituzten. Puntu honetan Elgetako Andre Mariaren parrokia salbuespena dugu besteekiko, bertako serorak, garbiketegatik egindako ordainketak “soldata” gisa jasotzen hasi baitziren 1721az geroztik.

Espazio honen baitako parroketan, bestalde, hiribilduetako parroketan behinik behin, sakristauak XVI. mendearen hasieratik bazeuden jada, eta seroren eta hauen arteko funtzioen arteko banaketa, itxuraz eta bisitatzailen begitara egokitze aldera behinik behin, mantendu eta errespetatzen zen (nahiz eta praktikan, ikusi dugunez, araukiko irregulartasunak ohizkoak ziren). Ermitetan ostera, esandako arauak batzuetan zuzen jarraitzen ziren, eta beste batzuetan berriz, ez hainbeste. Gainera, XVII-XVIII mendeak bitartean, izendapenak gradualki udalen eskumenetara iraganaz joan ahala seroratzetara sartzeko baldintzak eta eskakizunak alde batera utzi ziren: Bergaran behinik behin, udal bilkuretako aktetan jasoriko tramite hutsa izatera iragan ziren, eta orokorrean, neurri bateraino ermitau bikoteak alokairuan hartzeko ohitura ere hedatu zenez, aurreko garaietako baldintzak eta eskakizunak jada baztertuak gelditu ziren. Guzti hau seroren gaineko ikuspegi gero eta sekularizatuago bati zegokion; hain zuzen ere, XVIII. mendea, emakumezko erlijiotasunaren esparruaren baitan mojen presentziak serorena parekatu edo gainditu zueneko garaia dugula dirudi, eta zentzu honetan, kasu bereizitzat ikergai izan dugun Bergarako Soledadeko Andre Mariaren santutegi eta ikastetxeak herriko botere esparruen aldetik mojen komentuen ereduak jarraitzeko jasan zituen presioak, egoera honen adierazle garbiak ditugu.

Garai ezberdinetako baldintzapean sozial eta ekonomikoen eta seroren gaineko debeku eta neurrien eraginpean, XVII. mendearen bukaera aldeaz geroztik eta XVIII.ean zehar seroren kopuruak behera egin zuen. Gainbehera hau ermitetan bezalaxe parroketan ere eman zen, baina beherakadarik handiena landa eremuetan eta bertako ermitetan bizi izan zuten. XVIII. menderako hiribilduetako parrokia gehienetako izendapen eskubideak udal agintariak eliz-kabildoekin partekatzen zituzten, eta mendearen hasieratik bukaerara, udal agintarien patroitzak eta horrekin bat, seroren izendapen eskubideen gaineko eskumena, auzoetako parroketara eta landa eremuetako ermitetara ere hedatu zeneko prozesu bat izan zela esan liteke. Auzoetako parroketan izendapen eskubidea bertako botere esparruek mantendu zutela badirudi ere (Angiozarren parrokiako apezkek eta benefiziodunek, Uzarragan auzotarrek, eta Elosuan ez dakigu garbi), ermiten kasuan, esan bezala, XVII. mendeak aurrera egin ahala eta batez ere XVIII.ean patroitzak eta beraiekin, seroren izendapen eskubideak, udalen eskutara igaro ziren. XVIII. mendearen bigarren erdialderako, –bizilekutzat gero eta egoera okerragoan zeuden eta gero eta gutxiago ziren– Bergarako eta Antzuolako ermitetan behintzat, ermitau eta serora bikoteak alokairuan hartzearena eta bakarkako serorak izendatzearena, udal agintariak egiten zituzten dilijentziak ziren. Bergarako bikariotza osatzen zuten Bergara eta Antzuolaren espazioaren baitan, 1769ko ermiten itxierarako eta seroren desagerrarazterako Errege Agindua heldu zenean, parroketako serorak eta Bergarako hiribilduan bizi ziren beste bi serora baino ez ziren aipatu. Ermitetikiko, nahiz eta Bergaran 1751z geroztiko urteetan ermitetako seroren 5 izendapen behintzat egin zirela badakigun, partiduko bikarioak bere espazioari zegozkion ermitetan Antzuolako Antiguako Aman gelditzen ziren bi baino ez zeudela ziurtatu zuen. Antzuolan bertan ostera, badakigu, 1769an deskribatu zen egoera 1767an behintzat halakoa zela, urte hartan egin ziren ermiten inguruko informe batzuen bidez.

Bikarioak agian seroren kopurua benetan zena baino murriztagoa zela esan izan bazezakeen ere, ez ziren asko, ordurako gelditzen ziren serorak.

Leintz bailarako seroraten ibilbideak ostera, oso bestelakoak izan ziren. Bertako seroren izendapenak, XVII. mendearen hasieratako seroren desagerrarazte saiakerak baino lehenago, parrokien inguruko botere esparru ezberdinen esku zeuden. Hiribilduetako parrokien artean Aretxabaletako parrokia batuei (Andre Maria eta Bedarretako San Migel) buruzko datuak dira zehaztasun gutxien azaltzen digutenak: 1618an apezpikutzarekin izan zituzten auzietan Leintz bailarako ohitura orokortzat serorak "las dichas yglesias y parroquianos dellas"-ek aukeratzen zituztela aipatu zuten, eta Aretxabaletako parrokia batuak baieztapen honetan baitaratu baino ezin ditzakegu egin. Besteen kasuan, Arrasaten XVI. mendetik jada Udala zen eskubide horren jabe, eta Eskoriatzan XVIII. mende hasieratik apezka eta benefiziodunak ageri zaizkigu izendapenak egiten. Leintz Gatzagan Aretxabaletako egoera berdinarekin egiten dugu topo: XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte aginduaren testuinguruan, izendapena "la dicha yglesia y parrochianos"-en esku zegoela aipatu zen, bai San Millan parrokiaren kasuan, eta baita Dorletako Andre Mariaren santutegiarenean ere. Azken kasu honetan udal agintariek ere parte hartzen zutela dakigu, eta seroren komunitatea apezpikutzako bisitatzailaren aldetik 1733an "baliogabetu" zen arte behintzat, izendapen eskubideak elizako eta udaleko kabildeen esku jarraitu zuen. Dorletako santutegiaz beste, Leintz bailarako auzo eta elizate ugarietako parroketan, eta baita ermitetan ere, izendapenak kasurik gehienetan auzotarrek egiten zituzten, batzuetan parrokiatako apezken eta maiordomoen presentzia eta partehartzearekin, bestetan gabe. Doteen kopuruak berriz, kasurik gehienetan ageri zaigunaren arabera, orokorrean 30 dukaten inguruan zebiltzan, baina kasu edo tenplu zehatzetan izan zitezkeen irregulartasun handiekin; hein horretan, Leintz Gatzagako Dorletako santutegia, bere ibilbide berezian, salbuespena dugu, noiztik ez dakigula XVII. mendearen bukaerara, zentsutan ipiniriko 200 dukaten dotea emateko ohitura izan zela baitirudi. 1700ean seroretzerako idatzi ziren konstituzioetan, dotea zentsutan emaniko 300 dukatetara, edo gutxienik 250era igo zuten.

XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakeren aurretiko garaietan, bestalde, izendapenak apezpikutzaren aldetiko inongo partehartzerik gabe egiten ziren; eta ondorengo garaietan lizentzia eskaerarako ardurua gehiago hartu bazuten ere, ez dirudi beti eskatu izan zutenik. "Garbitasunaren" eta egokitasunaren inguruko gainontzeko baldintzekiko, informazio dilijentziak izendapen eskubidea zeukaten botere esparruetako eragileek eurek egiten zituzten, bestelako instituzioen parte hartzerik gabe. Alabaina, eta agian, izendapenak gehienetan auzotarrek eginik uste izan litekeenaren kontra, auzoetako zenbait parrokiatan, seroratzara sartzerakoan hauei ezartzen zitzaizkien baldintzaren batzuek beste leku batzuetan baino zorrotzagoak ziren. Izendapen batzuetan, bizitza osorako izendapena zela zehazteaz gain, kastitaterik ez mantenduaz gero kanporatuak izango zirela ezarri izan zen, nahiz eta beste aldetik, serorei, zahartzaroko nahiz gaixotasun eta heriotz momentuetako artapena ere ziurtatzen zitzairen. Seroratzara utzi edo bertatik kastitatea ez gordetzeagatik kanporatuak izatekotan, bestalde, dotea parrokiako fabrikarako gelditzen zen. Eta horrez gain, are zorrotzagoa zen baldintza batekin ere egiten dugu topo: dohaintzak egin edo testatzeko gaitasunaren ukoa. Seroratzara sartzerakoan, seroragaiari testatzeko gaitasunari uko egitea eskatzen zitzaion, eta heriotzaren orduan, bere jabegoko diru eta ondasun guztiak parrokiari ematera konprometatu behar zen. Ez dakigu hau ohitura zaharragoen arrastoa izango ote zen (monasterio bikoitzetan eta familiarretan, beste ohituren artean sarreran ondasun guztiak emateko ohitura ere izaten zen), ala landa eremuetako parrokien biziraupen

ekonomiko arazotsua seroren doteei eta ondasunei oso estuki loturik hautemateak, hau da, tenpluendako oinarri ekonomiko ziur bat seroren inguruan halako neurriak hartuz segurtatu nahi izanak motibatua izango ote zen.

Baldintza zorrotz hauek, ala ere, elizateetako parroketariko batzuetan baino ez ziren ezartzen; beste batzuetan aldiz, ondasun propioen gaineko eskubide osoa mantentzen zuten, eta dohaintzak egin eta testamentuak helarazi zitzaizketen, gainontzeko serora gehienek bezala. Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko seroren egoera ere erabat aldatu zuen ohitura berberaren sarrerak, 1663an Maria de Gamarra serorarekin izan ziren istilu batzuen ondoren, sarrera-hitzarmenetan, serora berriei dohaintzak egiteko eta testatzeko gaitasuna ukatzeari ekin ziotenaz geroztik. Patroi ziren udaleko eta elizako kabildoek seroren ondasunak eurengantzeko estrategiak ere izan ziren neurri hauen bidez landu zirenak, eta serorek eurek ere, salatu izan zituztenak. Garai aldrebesak izan ziren ondorengoak, bisitatzailak 1691n limosna eskaera debekatu ondoren, 1700ean idatzi zitzaizkien konstituzioen bidez, “ia mojen” komunitate bat sortu nahi izan baitzen, azkenean, seroren ondasunen eta hauen testatzeko eskubidearen inguruko istiluek, galbidera eramango zutena.

Ordurako gainera, alegia, XVII. mendeko bigarren erdialdeaz geroztiko garaietarako, hiribilduetako parroketakoak salbu, Leintz bailarako parroketako seroratzak gehienak jada desagertuak zeudela dirudi. Landa eremuetako parroketako seroren inguruko datuak XVII. mendearen bigarren erdialderarteak baino ez dira, eta bigarren erdialde hartarako, testamentu pare bat baino ez zaizkigu ageri. Izan ere, Leintz bailaran garai hartan aldaketa asko izan baitziren. Mende hasieratako seroren desagerrarazte saiakerak, nahiz eta azkenean, printzipioz behintzat, Gipuzkoako Probintziak eta Kalagorriko Apezpikutzak seroren desagerraraztearen kontua zela eta izan zuten auzia *impasse* batean gelditurik, serorak beraien karguetara itzuli zitezkeen, ondorio sakonak izan zituen bailaran. Bisitatzailak 1618an eta 1623an egindako bisitetan hainbat serora izan ziren kanporatuak, eta desagerraraztearen inguruko auziaren egoera esandakoa izanik ere, Debagoieneko beste espazio batzuetan gertatu zenaren kontra, landa eremuetako parroketara eta hainbat ermitetara ez ziren kanporaturiko serorak gehiago itzuli; beraien etxeak, sakristauen edo apezzen etxe izatera iragan ziren. Leintz bailaran ordurako zeuden mojen komentuek klausura seroren aurkako ekinaldien garai antzeratsuan onartu zutela aintzat hartzen badugu (Arrasateko frantziskotarrek 1598-1613 bitartean, herri bereko agustindar ermitauek 1618an eta Eskoriatzako mesedeetakoek 1622an), emakumeen erlijiosotasunaren esparruan Debagoienean aldakuntzak modurik azkar eta gogorrean bizi izan zituzten espazioa izan zela ohartuko dugu. Gainera, landa eremuetako elizateetako parrokia gehien zeuden herriek, Aretxabaletak eta Eskoriatzak, beraien kabuzko herri izatearen estatusa lortu zuten 1631n, eta honek, orduan Leintz bailara –instituzionala– zenaren banaketa gauzatu aurreko urteetan, sortzear zeuden gutziaturiko postu instituzional berrien lorpenerako, bailarako botere esparru lokalek bestelako botere esparru nagusiekiko aldarte ona agertu beharra ere eragin zezakeen. Hau da, Kalagorriko Apezpikutzarekiko ere, borondate ona agertu beharrean izan zitezkeen; eta gainera, apezpikutzako Konstituzio Sinodaletan agintzen zenari men eginez landa eremuetako parroketan ere sakristauak sarrarazteak, arlo instituzional zibileko postu berriei, arlo erlijiosoko beste batzuk ere gehitu zekizkiekeen, beti ere, familia-kideei eta bestelako lagunei leku egiteko ondo etor zekizkiekeenak. Gainera, sortzear zeuden herrietako agintariak zegozkien espazioetako tenpluen patroitzaren inguruko interesik izan zezaketan (ez dezagun ahaztu espazio honetako parrokiarik gehienak XVI-XVIII mendeak bitartean joan zirela Oñatiko kondearen patroitzapetik irtetzen), eta hau apezpikutzarekin tratutan

sartzeko motibo ere izan zitekeen. Hau guztia, noski, konjeturen sorta bat baino ez dugu, eta ez dakigu eragileen arteko jokua, benetan, nolakoa izango zen; alabaina, faktoreen multzoan, aipagai izan ditugunak behintzat presente zeuden.

Eraginak eta interesak batekoak edo besteak izanik ere, hiribilduetako eta landa eremuetako parroketan, eta bailarako ermitetan, aldaketen garai bati ekin zitzaion, orohar, Debagoieneko gainontzeko espazioetan ere bizi izan zen seroren hautemepen sozialaren sekularizazioaren korronteari jarraituz. Hiribilduetako parroketan, Arrasaten eta Eskoriatzan behintzat ziurtatu izan dugunez, XVII. mendearen erdialde ingurutik bakarkako serorak sakristauen senar-emazteen edo bestelako bikoteen bidez ordezkatu zituzten, eta serorek, familia erlazio ezberdinen arabera sakristauekin bikotea osatuz, beraien funtzioak betetzen jarraitu zuten, Arrasaten “beata” eta Eskoriatzan “sacristana” izenekin, XVIII. mendearen bukaera alderarte. Arrasateko San Juan Bataiatzailean, bakarkako serorak 1661z geroztik soldata jaso izan zuen, eta 1677an sakristauen bikoteak sartu ondoren, aurretik serorarena izandako soldata sakristaurenarekin bat eginda emateari ekin zitzaion. Horrez gain, sakristauei bizi ziren etxearen alokairua (13 erreal) parrokiako fabrikatik ordaindu ohi zitzaien. 1760ko hamarkadan desagertu ziren serora ezkonduen aipamenak Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako liburutik, eta Eskoriatzako San Pedro parrokian, sakristau eta sakristanaren azken izendapen bikoitza 1792an egin zen. Halaber, XVII. mendearen erdialdetik hasita, landa eremuetako parroketako seroretxeak sakristauen eta apezzen etxe bihurtzeari ekin zitzaion, itxura guztien arabera seroren desagerraraztea eragin zuen prozesu bat gauzatuz (sakristau edo apez berriarekin batera serora bat mantentzea ez baitzen landa eremuetako parroketako ekonomiarentzat sostengagarria). Ermitetan, antzerako bitarte kronologiko batetik hasi eta XVIII. mende bukaerararte, hauek alokairuan ematearen ohitura zabaldu zen, eta beraz, ermitauren senar-emazteak sartu ziren hauen zaintzara. Eta hala, 1769ko ermiten itxiera eta seroren desagerrarazte agindua heldu zenerako, ez dirudi Leintz bailaran jada serora ezkongabe gehiegirik zegoenik (ez behinik behin, landa eremuetako parroketan).

Oñatin, azkenik, bertako kondearen agintepeko dinamikan, bestelako ezaugarriak zeuzkaten seroratzak mantendu izan ziren. Izan ere, seroren antolakuntzek nolabait lekuan lekuko aginte-eremuen egituraketa erreproduzitzen zutela baitirudi. Bergarako parrokia nagusietan (izendapena udalak –San Pedron– eta eliz-kabildoak eta eliztarrek –Santa Marinar–), nahiz Antzuolan, Uzarraga auzokoan (izendapena auzotar edo eliztarrek), hitzarmenen bidez bertako seroren arteko ekitatezko erlazioak ezarri baziren, Oñatiko San Migel parrokian bakarra izaten zen tituludun serora nagusia, eta gainontzeko serora-laguntzaileak bere neskame izaten ziren (“criada”), tarteko, familia-erlazioak izanik ere. Titulu honen helarazpenean apezpikuak ez zuen inongo zerikusirik izaten, izendapena egin eta titulua eman, Oñatiko kondeak egiten baitzituen, eskumen hau, 1761ean kondeak Oñatiko udalarekin egin zuen hitzarmen baten bidez, azken hauen eskutara igaro zen arte. Honek bete beharreko baldintzekiko, funtsean, bakarra zen: kondeari egokia iruditzea. Eta izendapena udal agintarien eskutara igaro zenean ere, baldintzatzat, hauei pertsona egokia iruditzea baino ez zen aipatu izan. Apezpikutzako bisitatzailleek eman zituzten baldintzaren batzuen inguruko aginduak, kasurako, gutxieneko adinaren ingurukoak, baina ez dirudi agindu hauek San Migel parrokiako seroratzaren egoeran eragin handiegirik izan zutenik. Abitua eramatea, dena den, ohizkoa zela dirudi.

Serora nagusiek, bestalde, beste hainbat abantailaz ere gozaten zuen. Lehenik eta behin, ez dugu parrokiako seroren doteen berririk inon aurkitu. Gainera, kondeengandik, apezek eta benefiziodunek bezala, beraien soldata jasotzen zuten (90

erreal eta 7 gari zaku), eta horrez gain, XVI eta XVII. mendeetan parrokiako fabrikatik garbiketagatik eta bizi ziren etxearen alokairuagatik ordaintzen joan zitzaizkien partidak, 1669an jada partida batean batu ziren, 1678ko kontuez geroztik, jada garbiketegatik dukat 1 eta alokairuagatik 4 ordaintzen zitzaizkionean, bere ohizko "soldata" bilakatzera iragateko. San Migel parrokiako serora nagusiek, bada, XVII. mendearen bukaera aldetik aurrera, hileta-errituengatik eta bestelako zereginengatik jasotzen zituzten ohizko emolumentuez beste, bi soldata jaso izan zituzten. Etekin asko zeuzkaten beraz, baina noski, beraien menpeko neskameen soldatak ere, beraiek ordaindu beharrekoak ziren.

Oñatiko auzoetako parrokiatan, Araotzen eta Urrexolan, ez daukagu izendapen eskubideen inguruko berri gehiegirik. Araotzeko San Migel parrokiako 1702ko izendapen batean apezka eta auzotarrak ageri zaizkigu, eta litekeena da, Debagoieneko gainontzeko elizate eta auzoetako parrokia gehienetako ohitura halakoa izanik, Araotzen eta Urrexolan ere ohitura berbera jarraitzea. Seroratzarako sarrerako baldintzak, printzipioz behintzat eta lortu ahal izan dugun informazio gutxiagatik gehiegirik luzatu gabe, oso zurrinak ez zirela dirudi. Araotzeko 1702ko izendapen batean apezari eta auzotarrei egoki iruditzea baino ez zen aipatu, eta seroraren gurasoak noizbait kanpotik helduak izanak zirela dirudi (hau da, ez zitzaion bertakotasunaren baldintza zurrunegirik eskatu); ez zen apezpikuaren lizentziarik aipatu. Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea parrokiari 1615ean bere kargutik alde egina zen serora baten berri ere badugu. Eta hemen ere, hiribilduko San Migel parrokiari bezala, ez daukagu doterik eman izan zuten seroren berririk. Araotzeko San Migelen gertatzen zenaren kontra, Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzean 1654tik aurrera bertako seroraren soldata finkatu zen, lehen aldiz urte hartan bertan agertu zen partida zelebre baten jarraipenaren bidez: zapata batzuek erosteko ordaindu zitzaizkion 10 erreal. Orduz geroztik urtero ordaindu zitzaion tankerako kopuru bat kontzeptu berberaren pean, 1717-1718ko kontuez geroztik, 9 errealetan finkatu zena.

Bukatzeko, Oñatiko ermitetako serorak –eta ermitauak–, 1761eko kondearen eta Oñatiko udalaren arteko hitzarmena arte, kasurik gehienetan, auzoetako biztanleek izendatu ohi zituzten. Apezka eta ermita bereko beste serorak ere presente zeuden kasu bat eta izendapena, serorak zuzenean berari eskaera eginik, Oñatiko bikarioak egin zuen beste kasu bat baino ez ditugu ohitura orokortuaren salbuespenzat aurkitu. 1761az geroztik, hautagaia auzotarrek aukeraturik, auzoko maioralek ermiten gaineko patroiz lez ari zen alkateari aurkezten zioten, eta honen berrespen bidez egiten zen izendapena. Apezpikutzaren aldetiko onarpena kasu bakarrean ageri zaigu, eta berau, ermitau baten izendapenari zegokion (Araotzeko San Elias ermita, 1655). Gainontzeko kasuetan, ez dirudi onarpenarekiko ardura gehiegirik zeukatenik. Bete beharreko baldintzak ere ez ziren zehatz edo zurrinak, funtsean, auzotarrei egoki iriztea baino ez baitzen behar. Kopuruari berri handiegirik ez badaukagu ere, dotearen ematea finkaturiko ohitura zela dirudi, izendapenean, ondasunik eman gabe, bere heriotzean izan zitzakeen ondasunak ermitari emateko konpromezua hartu zuen serora baten salbuespenaz (izendapenaren eske Oñatiko bikarioarengana joan zen berbera, Santa Katalina –gaur egun San Isidro– ermitan 1589an sartu zen Mari Ramos de Laquidiola). XVII eta XVIII. mendeetan zehar, bestalde, izendapenak egitearekin bat, ermitak alokairuan jartzearen ohitura, beste espazioetan ere ikusi izan duguna, hedatu zen Oñatin ere; eta doteen kasuan bezalaxe, alokairurako denborak eta ordaindu beharreko kopuruak ere oso aldakorrik ziren. Batzuetan, bestalde, izendapena eta alokairua, biak helarazten ziren; hau da, alokairuan ezarritako denborarako izendapenak egiten ziren. Gainera, bitarte kronologiko berean, bakarkako serorei egindako izendapenez beste, bakarkako

ermitauei egindakoak, senar-emazte ziren serora eta ermitauei egindakoak, alargunei egindako binakakoak, eta bestelakoak aurkitzen ditugu; batzuetan seroren taldetxoak izaten ziren ermitetan, eta kasuren batean, serora ermitauaren koinata zeneko izendapenen bat ere egitera heldu zen. Izendapenetan egoera zibil eta erlijiosoarekiko baldintzapenik ez zegoen bezalaxe, noski, alokairuak helarazten zirenean ere dibertsitatea zen nagusi. Eta noski, bizitza guztian zehar ermitan mantentzeko konpromezua ez zen beharrezkotzat hartzen, eta abituaren eramatea ere, ez zen derrigorrezkoa, nahiz eta hainbat kasutan, eraman ohi zutela ageri zaigun.

Eta ezaugarriak aipatu ditugunak izanik ere, ez ziren horregatik serorak eta ermitauak erabat sekularturiko pertsonak bezala hautematen; 1769ko ermiten itxiera eta seroren desagerrarazte aginduaren harira egin ziren informazio dilijentzietan, izkribaua ermitetatik jakinarazpenak egiten igaro zenean, ermitauak ermitaz kanpoko lanetan zeudela serora bakarrik egotean, hau “muger legitima de” zela esatearekin bat, jakinarazpena berari, “a la Beata de” egin zitzaiola adierazi izan zuen, hainbat ermitetan. Beste batzuetan ermitauarekin egin zuen topo, eta ez zuen serorari buruzko ezer aipatu, baina ermita askotan egoera antzerakoa izango zela pentsa liteke. Eta Bergaran eta Antzuolan, eta itxuraz, Elgetan eta Leintz bailaran ez bezala, Oñatin, 1769an, serorak eta ermitauak ermita askotan zeuden oraindik.

Tenpluetako errepassoa eginez aipagai izan ditugun serora mota guzti hauez gain, hiribilduetan, familia partikularren jarlekuetako zerbitzuan ibiltzen ziren bestelako serorak ere bazeuden, batzuetan familien euren etxeetan bizi zirenak, beste batzuetan etxe propioak zeuzkatenak, eta beste batzuetan, azkenik, alokaturiko etxeetan ere bizi zirenak. Ez dugu oraindik serora mota honen inguruko berri gehiegirik jaso, egin dugun errepassoa, hein handi batean, izendapenen gain sostengatu delako; baina aipagai ditugun azken serora hauek ez ziren kargura izendapen bidez sartzen, tenpluekiko lotura kontraktualik ez baitzuten izaten (nahiz eta bertan familia jakinen serora "partikular" lez jardun). Serora hauek ordena mendikanteetako 3. ordenetakoak ziren, eta nonbaitetik jasotzekotan, zegokien ordeneko agintariengandik jasotzen zuten onespina. Hauen berri batez ere ondorengo orrietan emango dugu, baina lehen ondorio hauetako ikuspegi orokorrean ere aipagai behintzat izan beharrean gaude, seroratzat mota honen garrantzia -ikusiko dugunez- ez baita gutxietsi behar. Batez ere -baina ez bakarrik- Bergaran eta Arrasaten aurkitu izan ditugu tankera honetako serorak, hau da, testuingururik komertzialenetan. Izango dugu, gainera, itxuraz, inongo familiaren jarlekuetako zerbitzuaren kargurik hartu gabe eta inongo tenpluaren zerbitzura ere egon gabe, bere kabuz bizi zen seroraren baten edo besteren berririk ere; eta ez dihardugu “ardi galduer” buruz, euren artean, esaterako, aberastasun eta botere handia izatera heltzen ikusiko dugun Bergarako Magdalena de Castillo serora baitzegoen. Tankera honetako seroren aktibitate nagusiak, familia printzipalen jarlekuetako artapenez beste, alor pertsonaleko ondasunen kudeaketaren inguruan biltzen ziren, eta kasu batzuetan, dezenteko negozioak egin izan zituzten. Normalean, betekizun erlijioso ofizialek pisurik gehien izan ohi zuten hiribilduetako testuinguruetan mugitzen zirenez, abitua eraman ohi zuten, eta ordena erregularrekiko ere erlazio ezberdinak landu izan zituzten, nahiz eta ez ziren, azkenean klausura onartzen bukatuko zuten seroren komunitateen kasuan bezala, taldeetan bizi. Ez zaigu datu erabakiorrik heldu eta ez dakigu kasu guztietan hala izango ote zen, baina litekeena da, 3. ordenetan sartzerakoan egin ohi zenez, gehienetan edo askotan ordenetako agintarien nolabaiteko onarpenera jaso izana, ordenarako sarrera erritua eginez. Kasurik gehienetan familia garrantzitsuetako partaideak ziren, eta abitua zeramaten bezala, kastitatea ere mantendu ohi zuten, boturik egin gabe bazen ere. Doterik noski, ez zuten ematen, nori emanik ere ez zeukaten eta. Serora moeta honek

Aro Berriko garai ezberdinetan, batez ere XVII. mendeak aurrera egin ahala eta XVIII.ean, herrietan ze puntutarainoko presentzia izan zuen garbi ez badakigu ere, badauzkagu Bergarako zenbait datu, konparaziorako balio dakiguketenak. 1658ko San Pedro parrokiako eliztarren zentsuan hiribilduko etxe partikularretan –parrokiakoez aparte– zeuden zortzi serora aipatu baziren, 1769ko seroren desagerrarazte agindua heldu zenean, bi serora baino ez zeuden hiribilduan, tankera honetako bizimodua zeramatenak. Nabaria da beraz Bergarako kasuak agertzen digun gainbehera, nahiz eta, esan bezala, ze puntutarainoko adierazgarria izan litekeen garbi ez dakigun.

Debagoieneko seroratzen gaineko ikuspegi orokor honek, zenbait ondorioren eratorpena garamatza. Lehenik eta behin, sarrerako analisi terminologikoez aditzera ematen zigitenez, “serora” hitzak hartzen zituen adierak oso anitzak zirela ikusten dugu. Izenaz beste, ez dago alderdirik serora guztiei amankomuna zitzaienik, erlijioarekiko erlazio orokor eta malgu batez haratago. Areago, errepasso honetatik kanpo utzi ditugunak, hau da, klausuraren ezarpenaren aurretik bizitza sozial aktiboagoa zeukaten eta ordena erregularrekiko lotura arautuak zeukaten komunitateetako emakumeak ere, azpimarratu izan dugun bezala, “serorak” ziren, baita behin klausura onartu zutenean ere. Eta baita hasieratik klausura onarturik izan ziren emakumezko erlijiosoen komunitateak ere, XVIII. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, “moja” terminoa aplikatzen hasi zitzaizen arte. Baina hauek alde batera utzirik ere, diodanez, Aro Berriko serorei ezin diezazkiegu ezaugarri amankomunak errazki esleitu. Agertuz joan zaizkigun serora mota ezberdinen aniztasunean, ezin dugu esan, serora guztiak izendapen bidez sartzan zirenik. Ezin esan, halaber, apezpikuaren aldetiko berrespena beti beharrezkoa zutenik. Ezin esan, beraien kaparetasunaren, egokitasunaren, adinaren nahiz bizimodu egokiaren inguruko baldintzak beti eskatzen zitzaizkienik, ez eta ezaugarri hauen inguruko informazio dilijentziak beti egiten zirenik ere. Ezin esan, dotea beti ematen zutenik, ez eta ematen zutenean kopuruak egonkorak zirenik ere⁸⁰⁶. Ezin esan, ordena erregularren baten abitua beti eramaten zutenik. Ezin esan, beti ezkongabeak zirenik. Ezin esan, guztiak tenpluren baten zerbitzuan enplegatzen zirenik. Ezin esan, guztiek heriotz-errituen testuinguruarekin zerikusirik zeukatenik. Ezaugarri hauetariko bakoitza, seroren parte bati baino ez zaie aplikagarri, serorarik gehienen kasua ezaugarri bat edo bestea betetzea izan bazitekeen ere, lekuen eta garaien arabera, arauen salbuespenezko egoerak behin eta berriro aurkitzen baititugu, eta ez bakarkako seroren egoera desegoki edo heterodoxo bezala, garai eta leku jakinetako talde sozialetan txertaturiko ohiturazko egoera bezala baizik. Adibideren baztuek hautatzearen, Arrasateko parrokiako serora ezkonduak eta Leintz Gatzagako Dorletako santutegikoak, bitarte kronologiko batean zehar garaikideak izanik ere, zeukaten betekizun, bizimodu, eta hautemapen sozial aldetik, oso bestelakoak ziren. Halatsu, Bergarako San Pedro parrokian familia printzipal batzuen jarlekuetan enplegatzen zen seroraren eta Oñatiko ermita batean bere senar ermitauarekin limosnatik eta baserriko lanak eginez bizi zenaren arteko ezberdintasunei buruz ere, beste hainbeste esan liteke.

Jasotzen joan garen datu sortak, nabaria denez, seroren inguruan hedatu izan den ikuspegi historiografiko orokorraren aurka egiten du hainbat puntutan. Lehenik eta behin, izendapenaren gorabeheretik, Larramendik eta bere ildo historiografikoaren

⁸⁰⁶ Honekiko, Gipuzkoako seroren eta ermitauren doteen inguruan Aguirre Sorondok bilduriko datu ugariak oso esanguratsuak zaizkigu: 1511 eta 1769 bitartean, Gipuzkoako ermitetako 82 kasutako doteak jaso zituen, honako ondorioetara helduz: "las cantidades dadas como dotes han sido muy variadas en el tiempo y en su valor: desde los 18 ducados hasta los 700; sin olvidar los elementos materiales como camas, hasta terrenos, robledales e incluso casas. Sí es verdad que lo más usual estaba entre 30 a 50 escudos" (Aguirre Sorondo 2013, 54). Azken "escudos" honek akatsa dirudi, "ducados" beharko lukeela esango genuke.

jarraitzaile zuzen edo zeharkakoek ziurtatu izandakoaren aurka (zenbaitek, aspekturen batzuen inguruko salbuespenekin), seroratzarako sarrera ez zen beti izendapen bidez egiten, bere bizitza "egokiaren" inguruko frogak ez ziren beti bildu eta aintzat hartzen, apezpikutzaren onarpena ez zen beti beharrezkotzat hartzen, dotea ere ez zen beti ematen, kargua ez zen beti bizitza guztirakoa izaten, abitua ez zuten beti onarturiko ordenetakoa (frantziskotarrena, domingotarrena edo karmeldarrena) eramaten eta izendapena egiteko eskumena, patroï laikoez (jauntxo partikularrak, udalak), elizakoez (eliz-kabildoa, apezak edo/eta benefiziodunak) eta hauen arteko egoera mistoez gain, auzotarrek ere izan zezaketen zuzenean, bestelako botere-esparruen partehartzerik gabe. Izan da aurretik ere, jada ohartarazia dugunez, batez ere 90. hamarkadaren bukaera inguruaz geroztiko ikerlanetan, aipaturiko ikuspegi historiografiko orokorrak berrikuspen egoki baten beharra duela ohartu duenik, eta baita, horrexegatik, ikerlanetan jasoriko informazioa orokortzera beharrea, espazio eta garai aldetiko izaera konkretua azpimarratu izan duenik ere⁸⁰⁷. Azken finean, seroren ikuspegi historiografikoaren garapenean gertatu izan dena, aurreko ataletan landu ditugun alderdiekiko bederen (alegia, karguaren ezaugarri orokorrak eta hautagaiei eskaturiko baldintzak), oinarriztat hartu izan den dokumentazioak (bereziki, Henaoren lanaren 1895eko argitalpeneko gehigarrietan atxikiriko Azpeitiako ermitetako 4 izendapen eta 3 posesio-agiriekin) (Hena 1980 -1689-1691/1895-, 127-138) Larramendik emandako ikuspegiarekin bat egiten zuela izan da; honek, era berean, lehen autoreek ardatz honen gain ezarritako ikuspegia ondorengoek ontzat ematea, eta ikuspegi orokorretik at gelditzen ziren kasuak salbuespen edo berezitasuntzat hartzea eragin du, behinik behin, ikerketarako bildu izan diren izendapenen eta bestelako dokumentuen kopurua erkaperen zabalagoak egiteko neurrira iritsi den arte. Berez, eta beti ere ikertu ahal izan dudaren arabera, tankera honetako dokumentu gehiagoren transkripzio osorik ez zen 1991n Maïte Lafourcadek Iparraldeko seroretxei buruzko lan kolektibo batean Gracianne Dufauren 1778ko izendapena eta posesio-agiria argitaratu arte heldu (Lafourcade 1991, 35-38). Urquizak argitaratua zuen aurretik Lekeitiko San Nikolas ermitarako 1578an egindako izendapen bat, baina partzialki (Urquiza 1985, 136-139), eta gehienetan ez zuten ondorengo ikertzaileek bere transkripzioaren berririk izan.

⁸⁰⁷ Balio deskribatzailea zalantzan jartzen diogun ikuspegi orokorra, osoki edo partzialki, xehetasun handiagoz edo gutxiagoz, norberak berretsi eta sostengatua, edo deskripziotzat soilik aipatua, Larramendi (1985 -1754-, 136-137) beraz gain, Henaoren lanaren (1689-1691) gehigarrien autoreak (1980 -1895-, 114-115), Webster-ek (Nafarroa Behereko serorek, ezkontzeko zioz, kargua uzteko zeukaten posibilitatea aipatu zuen: "pueden casarse renunciando á las dotes que han pagado") (1911, 143-148), Lizarraldek (1921, 6-9), Lasak (1966, 190-191), Moreauk (honek ere, Webster-ek bezala, kargua ezkontzeko zioz uzteko posibilitatea aipatu zuen, 1970, 236-237 eta 2003, 208-209), Saint-Martinek (1976, 157-162), Lafourcadek (beste kasuetan ez bezala, aukeraketarako eskumena izan zezaketenen artean auzotarrak ere aipatzen ditu, aspektu hauen inguruan Iparraldean izan ziren ezberdintasunen inguruko hausnarketa interesgarri bat eginez) (1991, 27-30), Aranek (Webster-i eta Moreau-ri jarraiki, ezkontzeko asmoz kargua uzteko posibilitatea ere aipatu zuen, Iparraldeko ohituratzat) (1992, 98-99 eta 2004, 847), Aguirre Sorondok (1995, 109; 2013), Azpiatzuk (1995a, 45-49 eta 1995b, 305-313), Rubio de Urquiak (1996, 42-43), Frank-ek (1997, z.g.), Jiménez-Ochoa de Aldak eta Mujika Goñik (1999, 378), eta Garmendia Larrañagak (aurretiko lanetan ere bai, baina bereziki 2008 -2007-, 407-409) jasotzen dute; baita nik neuk ere, ikerlan honen aurrekari izan zen beste lan batean, nahiz eta jada bere partehartze interesatua zela eta hainbat erreparatu agerturik, eta ikerlan honetan -ezkontzearen auziarekiko, beharrezko adinarenarekiko, eta beste zenbait punturekiko- nabariago azalera den kasuen aniztasuna azpimarraturik izan, abiapuntutzat bere ikuspegiak baliatu bainintzen (Larrañaga Arregi 2010a, 9-10). Egoeren aniztasuna medio serorei ezaugarri eta betekizun hauek ezin zurrunki esleitu dakizkiekeela esan izan dutenen artean, aipatu berri dudana nire lana baino lehen, Jimeno Juriorena (azpimarragarria dugu Larramendiren deskripzioa "En su tiempo y en su tierra" zeuden serorei zegokiela adierazi izana) (1997, bereziki 69 eta hurr.) eta Peñaranda Garcíarena (2002, batez ere 298-300) ditugu aipagarri.

Alabaina, bide hortan, izan ziren bilduriko materialen argitara abiapuntuko ikuspegi historiografikoaren alderdiei, batean batari, bestean besteari, ñabardurak eta zuzenketak egin zizkieten ikerlariak. Motel eta izendapenez bestelako iturri dokumentalen oinarriaren gain (arautegiak, auziak), baina Larramendik helaraziriko ikuspegiari arrakalak agertzen hasi zitzaizkion. Websterek (1911, 146) eta Moreauk (1970, 237) adibidez, Iparraldeko serorek doteari muzin eginik kargua uzteko zeukaten eskubidea agerrarazi zuten jada, eta Zudairek (1978) tituluaren eta apezpikuaren aldetiko onarpena zenbait lekutan oso berandurarte (Baztaneko kasuan, XVII. mendearen 30. hamarkada) beharrezkotzat izan ez zutela erakustez gain, familia printzipaletako partaide izateko inongo itxurarik ez zeukaten serora txiroen berri ere eman zigun. Eta baita, gutxieneko adinaren eskakizuna oso malgua zela eta bazterketarako hirizpidetzat askotan erabiltzen ez zela ere. Eta hori hala izanik ere, eta Lafourcade berak, Websterek eta Moreauk bezala, serorek doteari muzin eginik kargua uzteko zeukaten posibilitatea aipatu bazigun ere, argitaratu zituen izendapenak eta posesio-agiriak Larramendirengandik finkatutako ikuspegia berrestera jotzen zuten, honek aipaturiko ezaugarri eta betekizunak aski fidelki betetzen ziren seroratzat bat baitzen azaldu ziguna, Basusarriko (Lapurdi) parrokiakoa. 90. hamarkadako eta bigarren milurtekoaren lehen hamarkadako ikerlanek, nozio orokorretan Larramendik finkaturiko funtsezko ardatzari atxikitzen jarraitu bazitzaizkion ere, aniztasunaren eta zehaztapenen berri zabalagoak eman zituzten. Jimeno Juriok (1997, 71-75) Artaxoako (Nafarroa Garaia) XVI. mende hasieratako "monjas emparedadas" zirenak ikertzean Larramendiren ikuspegian nahiko egoki txertatzen ziren ezaugarri eta betekizunen berri eman zigun artean (nahiz eta Larramendiren deskripzioaren mugak presente zeuzkan), Gipuzkoako serorak ikergai izan zituen Azpiazuk (1995a, 54-59) eta Nafarroa Garaikoekin beste hainbeste egin zuen Peñaranda García (2002, 299-300), besteren artean, gutxieneko adinaren betekizunaren malgutasuna gogorarazi zuten, eta hautagaien betekizun moralen gaineko esijentziei zegokienean, patroitza botere esparru ezberdinei egokitzeak aldaera handiak eragin zitzaizkion ere azaldu zuten (esaterako, patroi familia partikularrak ziren kasuetan, eskakizun moralek baino familia erlazioek askoz pisu handiagoa zeukatela). Arza Aldayk (2006, 36-42, 45-47), gainera, parrokia eta ermitez aparteko seroratzat moeta bat ere izan zuen ikergai: ermitaren batean, komunitatean baina klausurarik gabe bizi ziren serorena. XVI. mendean Agurainen (Araba) zeuden serorek ez zeukaten apezpikuaren tituluaren inongo beharrik (Agurainek apezpikuak eta euren bisitatzailleak hiribilduan ez sartzeko pribilejioa izateak motibatua izan zitekeena), itxuraz, ez seroren komunitateetakoek (Hulako Andre Maria eta Aranako Andre Maria ermitetakoak), ez eta bakarkako seroratzat zeuden beste ermitetakoek ere. Komunitateetako serorek, bestalde, Hulakoek behinik behin, "beata mera, lega y libre" izatearen estatusa zeukaten, eta honek, seroratzat beraien borondatez utzi zezaketela esan nahi zuen; gainera, Iparraldeko -eta beste leku batzuetako- seroren kasuetan ez bezala, kargua uztean dotea itzultzen zitzairen. Eta ikerlanaz gain, autore honek Hulako seroren izendapen edo sarrera-kontratuetariko bat ere transkribatu zigun, aipuez beste, aipaturiko seroratzaren ezaugarriak dokumentuan nola esplizituki aipatzen ziren ageriratuz. Nabariki, seroratzat moeta honek ez zuen, hainbat puntutan, Larramendiren ereduarekin bat egiten.

Baina ibilbide honetan izan dira, noski, kontzienteki edo ez, agertuz zioan aniztasunaren aurrean abiapuntuko ikuspegi historiografikoa berretsi eta sendotzen jarraitu duten ikerlariak ere, Larramendik azaldu zuen ikuspegiari egokitzen zitzaizkion izendapenak eurak ere, aniztasun hartan, noski, egin baitziren; eta berez, ordurarte transkribaturik argitaraturiko izendapen eta posesio-agiri gehienak tankera horretakoak ziren. Esanguratsuak zaizkigu honekiko Garmendia Larrañagak 2007an argitaraturiko

Tolosako (Gipuzkoa) Izaskun auzoko Andre Mariaren ermitarako izendapena (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 419-420), eta XVI. mendeko Azpeitiako (Gipuzkoa) beste 5 dokumentuak: izendapen bat, posesio-agiri bat, eta -tenpluaren eta serorek eurek kargura sartzean zekartzaten- ondasunak seroren eskutan uztean egindako hiru inbentarioak (Garmendia Larrañaga 2007, 471-481). Nire ustetan, azken dokumentu hauekin eta Henaoren lanaren 1895eko berrargitalpeneko 4 izendapen eta 3 posesio-agiriekin, argitaraturiko izendapen eta posesio-agirien multzorik handiena osatzen duten Azpeitiako seroren kasuak, duten interesa handia izanik ere, ezin ditugu Euskal Herri osoko seroren eredu orokortzat baliatu. Azpeitia bera, jesuiten etxe eta botere-gune izanik erlijiotasun ofizialaren ardatzak zintzoki jarraituko zituzketen espazioa izateaz gain, herri batetik -edo botere-esparru batetik- beste batera iragatea nahikoa baitugu, seroren ezaugarri, eskakizun eta baldintza ezberdinen testigantza jasotzeko (zenbait ikerlarik jada egin duten bezala); eta eredu orokor bat bilatzekotan, Azpeitiako kasuek besteek beste balio dute, ez gehiago, ez gutxiago.

Larramendirengandik helduriko ikuspegi historiografikoaren gaineko kritika, hein batean, lan honen aurrekari izan zen 2010eko ikerlan batean ere burutu nuen (Larrañaga Arregi 2010a, 29-43). Bertan, aipatu berri ditugunez gain bestelako hutsuneak ere salatu nizkion esandako ikuspegiari; deigarriena, sakristauekin eta ermitauekin ezkonduko seroren existentzia, hemen ere aipatu duguna. Xede berberarekin transkribatu nituen oso tankera ezberdinetakoak ziren 5 izendapen ere (argitalpen honetan ere baitaratzen direnak); esaterako, doterik eman gabeko izendapenak, apezpikuaren baimen beharrik gabekoak, hautagaiaren bizimoduaren eta egokitasunaren gaineko informazio dilijentzia berezirik gabekoak, edo posesio erriturik egin -edo idatzirik jaso- ez zitzaizkien jaso nituen bertan. Esku artean daukagun ikerlanaren kasuan aldiz, ikusi dugu nola -adibidez- Bergarako seroratzak ere hein handi batean Larramendik jasoriko ereduari egokitzen zitzaizkion, baina baita nola beste espazio batzuetako izendapenetarako eskakizun eta baldintzak Bergarakoenekiko arras ezberdinak izan zitezkeela ere. Debagoieneko herri eta auzoetako kokapenetatik bilduriko 51 izendapenek eta bestelako hitzarmen, testamentu, etab.ek eskaintzen diguten oinarriak, nire ustetan behintzat, mintzagai dugun ikuspegi historiografiko orokor horren akatsak garbi azaltzen dizkigute. Ezin dugu serorei kargurako eskatzen zitzaizkien betekizun eta baldintzek halako eta hainbesterako koherentzia jakinik gordetzen zutenik esan; kontrara, baieztatu litekeen bakarra kasuen aniztasuna eta seroragaien eskakizun eta baldintzen bateratasunik eza bera da. Guzti honek ez du esan nahi, Debagoieneko espazio ezberdinetan finkaturiko tradizio ezberdinek agertzen digutenez, seroratzetarako eredu jakinak garatu izan ez zirenik, eredu bakar batera mugagarriak ez direla baizik.

Eta hala ere, Aro Berriak aurrera egin ahala, serora guztiei modu batera edo bestera, lehenago edo beranduago, eragitera heldu ziren gertakizunak ere izan ziren, hain zuzen ere, seroren bizimoduaren arautze zehatzak gauzatzera begira bultzatu zirenak, maila ezberdinetako instituzioen aldetik. Hain zuzen ere, Larramendik osatu zuen seroren irudia ere saiakera erregulatzailerako haien irudikapen sublimatua dugu. Eraginik izan zezaketen neurrian, debekuak eta neurri mugatzaileak eurak izan ziren seroragaiei eskaturiko betekizun eta baldintzak berdintzerako bultzada nagusiaren eragile, nahiz eta, ikusi ahal izan dugunaren arabera, bultzada horren ondorioak oso irregularrak izan ziren. Edozein kasutan, izan zituzten ondorioetan baino areago, bultzada erregulatzailerako debekatzaile hauetan beraietan baino ezin liteke nolabaiteko uniformetasunik aurkitu; eta noski, aniztasuna mantendu bazen ere, mendeek aurrera egin eta seroren kopuruak ere behera egin ahala, instituzioaren berdintze eta erregulatzailerako saiakerak gero eta eragin

handiagoa izatera heldu ziren. Hala, garai eta leku ezberdinetan, auzoetako eliztar eta apezetatik ekinda, herrietako udaletako eta parrokiako agintarieratik, eta lurralde historikoetako instituzioetatik eta apezpikuzetatik iraganez, erregeen eta aita santuen mailaraino, arautze eta desagerrarazte saiakera haiek modu ezberdinetan gauzatu nahi izan ziren; ez beti seroren aurka eginez, hainbat kasutan, batez ere instituzio lokalen eta lurralde historikoetako aldetik, beraien defentsa bultzatu baitzen. Baina seroren bizimodu eta eredu arautu jakinak bultzatzea, are beraien defentsa aurrera eramaten zenean ere, instituzioen aldetiko ohizko joera izan zen (eta ia ia berezkoa, instituzioek, beti ere, eta pertsona guztiekiko, gizarte bizimoduaren erregulaziorako kontrol jakin bat gauzatu ahal izateko bizi eredu batzuek idealizatu eta bultzatzen baitituzte). Ekinaldi hauen arteko esanguratsuenak eta eragin sakonena izan zutenak, noski, XVII. mende hasierako eta XVIII.eko bigarren erdialdeko desagerrarazte aginduak eta hauen betearazpenerako dilijentziak izan ziren. Han eta hemen, dena den, Aro Berri guztian zehar nabari da bultzaturiko ereduaren eta bizimodu errealeko tentsioa.

Hiribilduetako parrokiatan, batez ere Kalagorriko apezpikutzako konstituzio sinodaletan ezarri ziren neurriak, hauetan agintzen zen seroren desagerraraztea ez beterik ere, ertsiago jarraitzen saiatu ziren. 1621eko konstituzioetako desagerrarazte aginduaren aplikazioa interpretazio ezberdinei eta konstituzioetan bertan ezartzen ziren arauen zirrikituei heldurik saihesten saiatu ziren. Bergarako agintari zibil eta erlijiosoak, seroren aktibitatea batez ere jarlekuetako zerbitzuari loturik eta sakristauen presentzia egonkorrekin –serorek sakristanen lanik egiten ez zutela eta– defendatzen saiatu ziren, nahiz eta beraien defentsaren estrategian, serorek bete izaten zituzten lanetariko asko ezkutupean mantendu behar izan. Argumentuak, gainera, ermitetako serorak babesgabe uzten zituen, eta beste faktoreen artean, babes-gabezia instituzional honek, luzarora, ermitetako seroren jarraipenean bere eragina izan zuen. Serorak “ezkutatzearen” joera 1769ko desagerrarazte aginduraino luzatu zen, urte gutxi lehenago Bergarako ermitetako hainbat seroraren izendapenak egin izan baziren ere, Xavier Ignacio Artech Bergarako bikarioa eskatu zitzaion informean, Bergarako ermitetan jada batere serorarik ez zegoela egiaztatu zenean. Leintz bailaran, XVII. mende hasierako desagerrarazte saiakeraren testuinguruan, alde batetik serorek emakumezkoek soilik egin zitzaizkien lanak egiten zituztela (garbiketak, argiteriaren zaintza, eta kanpai-joteak aipatu ziren), eta bestetik, elizateetako parrokiak eliztar gutxidunak eta txiroak izanik, sakristauak ezin mantendu zituztela, eta hala ere apezpei laguntzeko serorak behar izan ziren eliz-mutilak izaten zituztela zioten, beste zenbait arrazoiren artean (apezpikuztatik lizentziarik ordurarte ez zitezkeen inoiz eskatu, izendapenak beti euren kabuz eginak zituztela, etab.). Ondorengo hamarkadetan, Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parrokiatan, dirudienaren arabera, 1621eko Kalagorriko konstituzio sinodaletan aurreko konstituzioetan sakristauen egoera zibilarekiko agintzen zirenak laxatuz ireki ziren zirrikituetan erreparatu ondoren, sakristauen emazte ziren serorak izendatu zituzten. 1621eko konstituzioetan sakristauak eliz-gizonak izatea hobesten zen, eta sekularrak izatekotan berriz, ezkongabeak izatea, baina azken posibilitate bat uzten zen, aurretiko konstituzioetan falta zena, hauek ezkonduak izan ahal zitezkeen. Sakristau bikoteen izendapenak eginez, serorak mantendu zitezkeen (Arrasaten “beata”, Eskoriatzan “sacristana”), hauek, sakristau ezkonduen emazte izatearen ostean babestuz. Oñatin berriz, parrokiako serorak babesten zituena, batez ere, itxuraz behintzat, kondearen manupea zen. Parrokiako serorak, bisitatzaileak bere kanporatzea 1637an –beste espazioekiko oso garai berantiarrean– agindu eta gero, 1638an eta 1639an auzi batzuek izan zituen apezpikutzaren eta udal agintarien aurka, elizako agintariak bere alde zituela. Leintz bailarako kasuan bezala, parrokiaren burutzen zituen lanak beharrezkoak zirela, eta emakumeek baino ezin zitzaizkien argudiatu

zuten orduan bere alde, eta horrez gain, bere izendapena eta sostengua kondeari berari zegokiola, parrokiarendako inongo gasturik gabe. Ez dakigu ze ibilera izan zituzten auzi hauek, baina kondearen patroitzia erabakiorra izan zela esango genuke. Oñatiko San Migel parrokiako serora nagusiak, azken finean, ez ziren alperrik, Debagoienekoen artean, Aro Berrian zehar beraien funtzio eta etekin ekonomikoetan mugapen gutxien pairatu izan zituztenak izan. Ermitetik ere, gainera, hori baitzen espazio honek besteekiko zeukan ezberdintasun nagusia, eta beste espazioetan jada gehienak desagertuak zeudenean, 1769an seroren desagerrarazte aginduaren testuinguruan bertan oraindik hainbeste ermitau eta serora izateak ere, kondearen lurak izatearen berezitasunarekin loturaren bat izan beharko zukeela dirudi.

Landa eremuetako parroketan eta ermitetan, desagerrarazte aginduen ondorioak ezberdinak izan ziren. Parrokietako etxeetan serorak sakristauak eta apezek ordezkatu zituzten, konstituzio sinodaletan agindurikoaren arabera hauek parrokia guztietan -eta kokapen berebean bizitzen- egon behar baitziren, eta hiribilduetakoak baino txiroagoak ziren landa eremuetako parroketan, biak mantentzea ez zen sostengagarria; seroretxeetan beraz, zenbait kasutan zuzenean 1621eko desagerrarazte aginduaren aplikazioan egindako seroren kanporatzeak probestuz, sakristauak eta apezak sartuz joan ziren. Ermitetan ere izan ziren kanporatzeak, baina Debagoiena guztian zeharreko ermitetan gailenduz joan zen ohitura, XVII. mendearen erdialdetik hasita, batez ere XVIII.ean hedatuz, hauek alokairuan jarri eta bertara ermitau bikoteak sartzearena izan zen. Beste batzuetan bakarkako serorei ere ematen zitzaizkien alokairuak, baina aldaketa hauen alderdirik garrantzizkoena, ermitetako zaintzaileak sekularizatzeko bide batera eramatearena izan zen. 1769ko ermiten itxierarako eta seroren desagerrarazterako aginduaren pausu aurrekaria, aginduan bertan ere txertatu zen 1747ko beste Errege Agindu bat izan zen, ermitauak, biztanleen artean motibo horregatik sortzen ziren ulermen okerragatik, erlijiozkoa beharrean ohizko janzkera erabiltzera behartu zituena. Eta 1769ko aginduaren helarazpena bera ere, 1767an Gipuzkoako Probintziak Errege Kontseiluari 1747ko janzkera erlijiosoaren erabileraren inguruko debekua, ermitauez gain, serorengana ere hedatu zedila eskatu izanak motibatu zuen. Bi kasuetan, biztanleak, erlijiozko abituak ikusirik –eta horren bidez eskatzailearen benetako izaera sekularren inguruan nahasturik–, limosna ematera “beharturik sentitzen zirela” izan zen.

Ikerketa berezia egin diegun hiru kasuetariko bi, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko serorena eta Bergarako Soledadeko Andre Mariaren ikastetxe eta santutegikoena, XVII. mende bukaera aldetik hasita, XVIII. mendean hedatu zen eta aipagai dugun joera nagusiaren beste agerri batzuek dira. Biak taldeetan bizi ziren seroren kasuak dira, seroratzat zeuzkaten ezaugarriak mantendu nahi izanik ere, erlijiozko emakumeen komunitateen bizitzari ezarri nahi zitzaizkion ezaugarriak hartuz behartu nahi izan zituztenak; funtsean, klausura aktiboa. Azken finean, parroketako seroren mantentzeko estrategia ezberdinak (oinarrian, sakristauren papera finkatzera begira hartutakoak zirenak), ermitetako sekularterako joerak, eta parroketako zerbitzuez aparte seroren taldeen moja komunitaterako bilakaera behartuak, emakumeen artean sekularrak eta erlijiozkoak garbi bereizteko tendentzia berberaren parte dira. Hau da, seroren espazio propioa berezi egiten zuen sekular eta erlijiozko bizimoduaren arteko erdibidea, gizarte baitako bizi-aukeretatik eta errepresentazio eta sinbolismo espazioetatik ezabatuz zeraman korrontearen parte.

Alabaina, eta hartu ziren neurrien ondorengo aldaketa hauek amankomunak izanik ere, Aro Berrian zehar mantendu zen seroren bizimoduaren eta karguen ezaugarri erlijioso eta zibilen uniformetasun ezak, funtsean, hauen gaineko kontrola eta arau

zehatzen ezarpena erabat gauzatzerik lortu ez zela adierazten digu. Azpimarratu dugunez, gorago aipaturiko ezaugarriak, egoera errearen adierazleak baino, deskripzio ideal baten eta esfortzu arautzaile baten ondorioa dira, bere garaian maila eta izaera ezberdinetako instituzioen aldetik bultzatu izan zirenak, eta bere hastapen historiografikoak batez ere –arautze instituzional hauetan bere parte izan zuten– Larramendiren lanean oinarriturik, gaur eguneko seroren inguruko ikuspegia osatzera heldu direnak. Horrek ez du esan nahi, noski, ezaugarri hauek serorek presente izan ez zituztenik. Kontrara, serora askok euren egoera eta bizimodua hautemateko izan zuten moduan, oso eraginkorrak izan ziren, eta ezaugarri lez, aintzat hartu beharrekoak ditugu. Azken finean, denborak eta saiakera arautzaileek aurrera egin ahala, hauen eragina gero eta pisutsuago eginaz zioanez, serorek euren ere, ezartzen zitzaizkien eta beraiek ere bultzatzen zituzten ezaugarriak barneratzen zituzten, eta beraien ondorengoetara iraganarazi, mendeetan zehar iraun zezaketen ezaugarri jakinen tradizio lokalak sortuz. Baina garbi izan beharrekoa dugu, aipaturiko ezaugarri "idealak" ez direla Euskal Herriko serora guztien deskripziorako baliagarri, ez eta, ikusi dugunez, Debagoiena bezalako espazio askoz mugatuago bat ikergai dugunean ere. Garrantzitsuena, beraz, seroren bizimodu errearen berri izan nahi izatekotan, lekuan lekuko ohiturei erreparatzea dugu, eta ikuspegia zabal mantentzea, egoeren aniztasunaren baitako datuek zer dioskuten ongi ulertzeko. Serorei nolabaiteko ezaugarri orokorrik esleitu badakizkieke, horiek, erlijiotasunaren esparruari nolabait loturiko emakumeak izatea, eta lotura horren adierazpen soziala nolabait gauzatzea (gehienetan jantzi bereziaren bidez, edo aktibitate jakinen bidez) baino ez dira. Eta ikerketa honen xedeetarako ezarri ditugun mugen arabera, klausurako bizimoduaz bestelakoa egitea; baina hori, esan bezala, ikerketarako hautu bat dugu, ez Aro Berrian "serora" bat aipatzen zutenean honek zeukan halabeharrezko ezaugarri soziala.

Aro Berrian zeharreko mugapenek eta desagerrarazte aginduek, serorek espazio publikoko eragile lez tenpluetan zeuzkaten lanetan, betebeharretan eta aktibitateetan ere izan zuten isladarik, noski. Are seroren behar sozial oinarritzkoenaren argumentutzat balio zuten aktibitateak ere, tenpluetako garbiketaren eta argiteriaren zaintzaren aktibitateak ere, sakristauen aktibitateen esparrura iragan ziren 1621eko konstituzioetan; eta noski, hala behar zuten, konstituzio berberetan serorak desagerrarazteko agindua eman zutenez, aurretik hauei esleitu izan zitzaizkien lan guztiek sakristauaren eskutara pasa behar baitzuten. Baina artean ere, jarlekuetako zerbitzuaren esparrua gelditzen zen. Kuriosoki, bestalde, serorek garbiketarik jaso ohi zituzten ordainketen kopuruen beraien soldata ofizialerako bilakatzea, hala gertatu zen parroketan, 1621eko konstituzioen ondorengo garaietan gauzatu zen. Agian, hain prezeski ere, soldata ofizialen agerpena serorak bisitatzaileen begietara tenpluetako "garbitzaile huts" ziren zerbitzari bezala ager zitezen gertatua izan zitekeen.

Baina seroren aktibitateen artean, alderdirik jazarrienak, aldareetako ornamentuen, objektu sakratuen eta bestelako ondasunen gaineko administrazioarenak izan ziren. Erdi Arotik ekinda, baina batez ere Aro Berriak aurrera egin ahala, emakumearen inguruko ikuspegiaren bilakaerak gero eta joera misoginoagoa hartu zuten, eta izaki ahul eta deabruaren tentazioetan erortzeko arrisku handiagokoaren irudia orduan eta indartsuagoa izan, orduan eta garrantzia handiagoa emanaz joan zitzaion hauek espazio sozial publikoetatik baztertuz "kutsadurak" ekiditeari, garbi eta puru mantentzen zitezen, itxitura gero eta estuagoa ezarritik, bai familia-arteko bizimoduaren baitako erlazioetan, etxeetan denbora gehiago geldiaraziz, eta baita, ikusi dugunez, emakumezko erlijiosoen esparruan ere, klausuraren ezarpena gero eta indar gehiagorekin bultzatuz. Serorak aldareetatik urruntzeko eta sakristauei zegozkien

funtzioak ez betetzeko ardura ikuspegi misoginoen gorakadaren testuinguru honetan txertatzen da, eta era berean, Elizaren baitan, zikloka bezala, behin eta berriro agertu izan zen joera batekin ere bat egiten du: emakumeek liturgiaren alorreko aspektuetan aktiboki parte hartu zezaten ekiditearekin. Sarreran ikusi dugunez, izan ere, printzipalki gizonek gidaturiko Elizak, bere hastapenetatik izan baitzuen “trauma” bat, emakumeak apez –eta itxuraz, Ekialdeko Elizako lekuren batean are apezpiku ere– izatera heldu izana, eta liturgiaren gidaritza eraman izana. Hasierako mendeetako apezmeak, eta baita diakonesak ere noski, bere garaian sakratua zenarekiko kontaktutik beraien emakumezko izaera “pekataria” eta “zikina” argudiatuz baztertu eta desagerrarazi izan ziren bezala, ondorengo mendeetako abadesen, ermitau eta anakoreten, beguinen nahiz beaten bazterketa erlijiosoak ere, oinarri berberak jarraitu izan zituen. Batez ere legediaren jarraipena eginez, ikusi ahal izan ditugu Antzinatetik Erdi Arorako ibilbidean Elizaren instituzio eta alor ezberdinetatik emakumeen aldareetarako sarreraren, liturgiako partehartzearen eta bestelako aspektuen gain hartuz joan ziren neurriak, seroren aurka ondoren hartu izan ziren neurrien aurrekari izan zirenak. Elizak jazarri izan zituen erlijiozko emakumeen mugimendu ezberdinen artean, kontaktuzko jarraipenak beti izan ez baziren ere, mendeetan zehar tradizio kultural lez sendotzen joan zen kristautasunak eta bere Elizak harturiko neurriek, horiek bai, izan zuten jarraipenik, eta oinarrizko arazo baten agerpen ziklikoei aurre egiten ibiltzearen kontzientziarik. Serorekiko, sarreran aipuan jaso dugun Ignacio Xavier de Artech Bergarako bikarioaren 1759ko informeak, garai ezberdinetako emakumezko mugimendu erlijioso ezberdinen arteko jarraipenaren kontzientziaren berri aski era garbian ematen digu. Elizaren baitan agerpen zikliko hauei gailenduz mantendu zen joerak, esperientzia erlijiosoaren bi alorren artean, hau da, erritu sozial publikoen gidaritza zeramatenen arlo “sekularren” –apezen– eta erlijiotasuna jainkozkoarekiko bakarkako barne kontaktu bidez pribatuki zeramatenen arlo “erregularen” –edo “mistikoen”, monjeen– artean, emakumeei bigarrena bakarrik baimendu nahi zien. Horregatik, espazio publikoan eragina izatera iragaten ziren emakumezkoen mugimendu eta instituzioak, joera honi jarraiki, Elizako botere-esparruetatik mesfidantzarekin begiratu izan ziren. Eta seroren kasuan, hautemapen honek, emakumeak ziren heinean aldareetatik, sakristietatik, eta bertako ornamentu, bitxi eta objektu sakratuetatik urrunarazteko neurriak hartzea eragin zuen. Alabaina, serora askok aldareaz aparte euren liturgiarako esparru propioa ere bazeukaten, familien jarlekuetan eta bertako heriotz-errituetan. Finean, eman berri dugun ikuspegi orokor honekiko, Duvertek iturri etnografikoen eta historikoen oinarrian elizako espazioen banaketari buruz dioskunarekin bukatu dezakegu:

L'autel est une scene surélevée où se déploie le faste des mysteres, où s'organise et se cristallise le temps sacré. C'est là que se situe le seul domaine du prêtre. Le reste, tout le reste, appartient aux femmes, cimetière compris, et leur prêtre c'est andere-serora (Duvert 1991, 5)

Apezen liturgia ofizialaren esparrua, aldarea, emakumeen eta seroren liturgiaren esparruak eta domeinuak inguratua, Aro Berrian zehar, instituzio ezberdinak, arrakasta eta neurri ezberdinekin, apezeme tankeran bertan sartzera ausartzen ziren serorak eta emakumeak gizonezkoen espazio "sakratu" hartatik kanporatzen saiatu zirena.

2 lib.

**SERORAK EUSKAL HERRIAN:
IKUSPEGLAK, HASTAPENETATIK
DESAGERRARAZTERARTE
(Antzinate Berantiarra - XVIII. mendea)**

Mikel Larrañaga Arregi

Doktorego tesia

**Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia Departamentua,
Letren Fakultatea, EHU/UPV (Vitoria-Gasteiz)**

Doktorego Programa: Botere-guneak Erdi Aroko eta Aro Berriko Munduan

Zuzendariak: Iñaki Bazán Díaz, Alberto Angulo Morales

Bergara, 2015

AURKIBIDEA

1 lib.

LABURDURAK ETA SIGLAK.....	1 or.
I. SARRERA.....	5 "
I. 1. Antzinateko, Erdi Aroko eta Aro Berriko Euskal Herriko emakumeei buruzko ikerketa historikoak.....	8 "
I. 2. Serorei buruzko ikerketa historikoak.....	14 "
I. 3. Iturrien eta ikerketarako metodologiaren inguruko xedapen orokorrak.....	30 "
II. JATORRIAREN ETA TERMINOEN INGURUAN.....	41 "
II. 1. Norabidea hartzen: ekarpen historiografikoak.....	45 "
II. 2. Antzinateko eta Goi Erdi Aroko erlijiozko emakumeak.....	53 "
II. 2.1. Diakonesak, apezmeak eta -balizko- emakumezko apezpikuak.....	53 "
II. 2.2. Bizimodu monastikoen hastapenak.....	59 "
II. 2.2.1. Birjinak eta alargunak.....	61 "
II. 2.2.2. Bakarkako bizitza: eremutarrak eta anakoretak.....	63 "
II. 2.2.3. Komunitateko bizitza: monasterioetako birjinak eta <i>soror</i> -ak.....	65 "
II. 2.2.3.1. Emakumezkoen monasterioak eta monasterio bikoitzak.....	67 "
II. 2.2.3.2. Monasterio familiarak eta "herrixka monastikoak".....	71 "
II. 2.3. Aldaketa garaiak: ordenen hedapena, Erreforma Gregoriarra eta klausuraren orokortzearen hasiera	75 "
II. 3. Seroren aurrekarietan: diakonesak ala monakotza zaharreko <i>soror</i> -ak?.....	77 "
II. 3.1. Euskal Herriko lurraldeen Antzinateko eta Goi Erdi Aroko testuinguru sozial eta erlijiosoa.....	77 "
II. 3.2. Kristautzea eta seroren aurrekariaren helduera: frogak eta posibilitateak.....	91 "
II. 3.3. <i>Soror</i> -etik <i>seror</i> -era: terminoaren jatorriaren eta iraupenaren inguruan.....	97 "
II. 4. Ordenen eta klausuraren helduera eta hedapena Euskal Herriko lurraldeetan.....	114 "
II. 4.1. Monasterioen benedikartztea eta garaiko Euskal Herriko lurraldeetako testuinguru sozial eta erlijiosoa: <i>benedicta</i> terminoaren balizko jatorrietan.....	131 "
II. 4.2. <i>Freila</i> , <i>freira</i> , etab.: ordena militar eta hospitalarioak.....	136 "
II. 4.3. Izpiritualtasun mendikantearen hedapena eta erlijiozko emakumeak: beguinak, beatak eta bestelakoak.....	142 "
II. 4.4. "Mundutik aldentzearen" iraunkortasuna: <i>emparedada</i> eta <i>recluse</i> -ak.....	152 "
II. 5. Seroren instituzioaren sorkuntza eta bilakaeraren inguruko hausnarketak eta ondorioak.....	154 "
III. ARO BERRIKO EUSKAL HERRIKO ETA DEBAGOIENEN SERORAK: TESTUINGURUA ETA INSTITUZIOAREN AURKAKO JAZARPENEN BILAKAERA.....	169 "
III. 1. Testuinguru historiko-geografikoa.....	180 "
III. 2. Seroren desagerrarazte saiakeren ondorioak Debagoiengan eta Euskal Herrian: kanporatzeak, alokairuak eta ordezkapen prozesuak.....	201 "
III. 2.1. XVI. mendea: neurriak abian.....	201 "
III. 2.2. XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakerak eta hauen ondorioak.....	218 "
III. 2.3. Gainbehera luzearen osteko azken txanpa: 1769ko Errege Agindua.....	270 "

IV. DEBAGOIENA: SERORATZA MOETA EZBERDINEN	
ARABERAKO ESPAZIOAK ETA EZAUGARRIAK.....	287 "
IV. 1. Bergara, Elgeta eta Antzuola.....	290 "
IV. 1.1. Parrokiak.....	292 "
IV. 1.1.1. Bergarako San Pedro parrokia.....	292 "
IV. 1.1.2. Bergarako Santa Marina parrokia.....	297 "
IV. 1.1.3. Bergara, Elosuako San Andres parrokia.....	300 "
IV. 1.1.4. Elgetako Andre Mariaren Zeruratzea parrokia.....	303 "
IV. 1.1.5. Elgeta, Angiozarreko San Migel parrokia (gaur egun Bergararen parte).....	304 "
IV. 1.1.6. Antzuolako Gure Errukizko Ama eta Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokia batuak.....	305 "
IV. 1.2. Ermitak.....	312 "
IV. 2. Leintz-bailara.....	322 "
IV. 2.1. Parrokiak.....	325 "
IV. 2.1.1. Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokia.....	325 "
IV. 2.1.2. Aretxabaletako Andre Maria eta San Migel parrokia batuak.....	327 "
IV. 2.1.3. Eskoriatzako San Pedro parrokia.....	328 "
IV. 2.1.4. Leintz Gatzagako San Millan parrokia.....	331 "
IV. 2.1.5. Leintz bailarako auzoetako eta elizateetako parrokiak.....	331 "
IV. 2.2. Ermitak.....	338 "
IV. 3. Oñati.....	341 "
IV. 3.1. Parrokiak.....	342 "
IV. 3.1.1. San Migel parrokia.....	342 "
IV. 3.1.2. Araotzeko San Migel eta Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea auzoetako parrokiak.....	347 "
IV. 3.2. Ermitak.....	349 "
IV. 4. Hiru kasu berezi.....	356 "
IV. 4.1. Arriarango Juana serora eta Arantzazuko santutegia (Oñati).....	357 "
IV. 4.2. Dorletako Andre Mariaren santutegia (Leintz Gatzaga).....	365 "
IV. 4.3. Soledadeko Andre Mariaren neskatxendako ikastetxea (Bergara).....	404 "
V. LABURBILTZEA ETA LEHEN ONDORIO BATZUK.....	423 "

2 lib.

VI. SEROREN AKTIBITATEAK, ONDASUNAK ETA ETEKINAK.....	443 "
VI. 1. Tenpluetako lanak, emolumentuak eta negozio paraleloak.....	446 "
VI. 1.1. Soldatak eta tenpluaren garbiketa.....	447 "
VI. 1.2. Administrazioa.....	452 "
VI. 1.3. Argiteria: olioia eta argizaria.....	466 "
VI. 1.4. Ehunak, ohialak eta arropak.....	470 "
VI. 1.5. Heriotz-erritueta eta bestelako iragate-erritueta testuingurua eta etekinak.....	473 "
VI. 1.5.1. Jarlekuen zerbitzua eta heriotzaren testuingurua.....	476 "
VI. 1.5.2. Parrokia bertako serorak, beste serorak eta zerbitzari partikularrak.....	487 "
VI. 1.5.3. Zerbitzuegatiko diruak eta etekinak.....	497 "
VI. 1.6. Kanpaiak.....	516 "
VI. 1.7. Limosnen eskaera (eta administrazioa).....	522 "

VI. 1.8. Gaisoen, erromesen, txiroen eta umezurtzen artapena eta sendakuntza.....	528 "
VI. 2. Espazio laikoko lanak eta aktibitateak.....	532 "
VI. 2.1. Lurren ustiapena eta alokairua.....	533 "
VI. 2.2. Abereak (eta hauen produktuak).....	544 "
VI. 2.3. Ehungintzari eta joskintzari loturiko aktibitateak.....	547 "
VI. 2.4. Mailegutza.....	566 "
VI. 2.4.1. Zentsuak.....	577 "
VI. 2.4.2. Ohizko mailegutza.....	593 "
VI. 2.5. Salerosketak eta alokairuak (ondasun higiezinak, zentsuak, maileguak eta bestelakoak).....	613 "
VI. 2.6. Ondasun partikularren administrazioa.....	621 "
VI. 3. Bestelako lanak.....	624 "
VII. SERORAK EMALE: GIZARTE ETA FAMILIA BAITAKO	
ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA.....	629 "
VII. 1. Familia-kide eta lagunekiko erlazioak.....	631 "
VII. 1.1. Etxearekiko erlazioak eta familiaren sostengua.....	634 "
VII. 1.2. Oinordekotzak eta dohaintzak.....	657 "
VII. 2. Elizaren eta arimaren diruak	679 "
VII. 2.1. Elizei, ermitei eta bestelako espazio erlijiosoei eta bertako zerbitzariei egindako dohaintzak.....	679 "
VII. 2.2. Arimaren aldeko diruak: mezak, anibertsarioak, memoriak.....	713 "
VIII. ERLIJIOA, SINESKERAK ETA BOTEREA:	
EMAKUMEZKOEN ESPAZIO SAKRATUAK.....	755 "
VIII. 1. Heriotza: errituak eta arbasoen gurtza.....	758 "
VIII. 1.1. Serorekin batera heriotzaren testuinguruan jarduten ziren emakumeak: hiletariak, erostariak eta bestelako partehartzaileak.....	760 "
VIII. 1.2. Hiletako errituak: hildabidean eta elizan.....	774 "
VIII. 1.3. Ondrak, bederatziurrena, etab.	779 "
VIII. 1.4. Eskaintzak eta doluaren garaiko errituak.....	780 "
VIII. 2. Erlijiotasun herrikoia eta sendakuntza sineskerak.....	789 "
VIII. 3. Sineskeren eta kultuen alderdi heterodoxoak eta desbiderapenak.....	794 "
IX. AZKEN ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK.....	801 "
X. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK.....	829 "
X. 1. Artxiboak eta iturriak.....	831 "
X. 2. Bibliografia.....	835 "
X. 2.1. Argitaraturiko iturri dokumental eta narratiboak, terminologia.....	835 "
X. 2.2. Ikerketak.....	838 "
XI. GEHIGARRIAK.....	865 "
XI. 1. Testu barneko koadroen kokapenak.....	867 "
XI. 2. Koadroak.....	869 "
1. Bergarako 9 serorak 1556-1650 bitartean jarlekuen zerbitzuagatik jasotzekoak zituzten zorrak, euren testamentuen arabera.....	869 "
2. Debagoieneko 15 serorek 1572 eta 1664 bitartean emanak zituzten ehun, ohial eta arropazko bahidun maileguak eta hauen kopuruak, beraien testamentuen arabera.....	877 "

3.a. Debagoieneko 61 seroren testamentuetako zentsuak eta maileguak, zordunen sexuaren, kopuruen eta loturiko ondasunen arabera (1554-1784).....	879 "
3.b. 3.a. koadroko emaitzak, herrika, espazioka eta Debagoiengan.....	913 "
3.c. 3.a. koadroko mailegutza aktibiteetan zentsuen hipotekatzat eta maileguen bahitzat aipaturiko ondasunak.....	917 "
4. Bergarako Maria de Izaguirre seroraren aldeko zentsuak: zordunak, kopuruak eta hipotekaturiko ondasunak (1609-1631).....	919 "
5. Maria Lopez de Olazaran serorak Arrasateko San Frantziskoren komentuari dohaintzan emandako zentsuak. Arrasate, 1604ko martxoak 23.....	921 "
6. Bergarako San Pedro parrokiako bi seroren maileguen zordunak kopuruaren eta sexuaren arabera banaketan, beraien testamentuen arabera (1572-1607).....	923 "
7. Debagoieneko 15 seroren bahidun maileguak: zordunak, kopuruak eta bahiak (1554-1664).....	927 "
8. Debagoieneko 18 serorek 1554-1761 bitartean familia-kideen -eta lagunen- alde oinordekotza edo dohaintza bidez emandako etxe, baserri, ondasun higiezin, seniparte eta zentsuak.....	931 "
9. Debagoieneko 99 seroren testamentuetan familia-kideei, lagunei eta tenpluetako zerbitzariari egindako dohaintzen hartzaileen sexuen arabera banaketa (1554-1793).....	935 "
10. Debagoieneko 98 seroren testamentuetako oinordeko eta albazea izendapenak sexuen arabera (1554-1793).....	941 "
11.a. Debagoieneko 74 seroren testamentuetako familia-kideen eta etxekoan, eta lagunen aldeko dohaintzak, jasotzaileen eta ondasunen ezaugarrien arabera (1554-1784).....	957 "
11.b. 11.a. koadroko diruzko dohaintzen emaitzak sexuen arabera, herrika eta espazioka.....	986 "
11.c. 11.a. koadroko ondasunen dohaintzen emaitzak garaian arabera.....	988 "
12.a. Debagoieneko 78 seroren testamentuetako tenpluen eta bertako zerbitzarien aldeko dohaintzak, jasotzaileen eta ondasunen ezaugarrien arabera (1554-1750).....	989 "
12.b. 12.a. koadroko tenpluen aldeko dohaintzen emaitzak.....	1013 "
12.c. 12.a. koadroko tenpluen aldeko dohaintzetan aipaturiko xedeak espazioen eta garaian arabera.....	1024 "
12.d. 12.a. koadroko tenpluetako zerbitzarien aldeko dohaintzen emaitzak.....	1030 "
13.a. Debagoieneko 97 seroren testamentuetako mezak, lekuen eta kopuruen arabera (1554-1793).....	1037 "
13.b. 13.a. koadroko emaitzak lekuen eta kopuruen arabera (1554-1793).....	1059 "
14.a. Debagoieneko 35 seroren testamentuetako anibertsarioak eta memoriak, lekuen, kopuruen eta mezen arabera (1554-1762).....	1065 "
14.b. 14.a. koadroko emaitzak lekuen eta kopuruen arabera (1554-1762).....	1070 "
15.a. Bergarako 28 seroren aldi bakarreko mezak eta betiereko memoria eta anibertsarioak. Eboluzio kronologikoa.....	1073 "
15.b. 15.a. koadroko emaitzak, mende Erdiko ggb.ko tartetan.....	1074 "
16.a. Bergarako 28 seroren hiletetako eta deboziorako eskakizunetako gastuen kalkulu orokorrak. Eboluzio kronologikoa.....	1075 "
16.b. 16.a. koadroko emaitzak mende Erdiko eta mende eta Erdiko ggb.ko tartean arabera.....	1076 "
XI. 3. Dokumentuak.....	1077 "
1. 1589, Azaroak 18. Oñati, Santa Katalina ermita.	

- Mari Ramos de Laquidiolaren izendapena*.....1077 "
2. 1694, Ekainak 20. Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Maria santutegia.
Teresa de Laquiteguiren seroratarako izendapena edo sarrera-kontratua...1079 "
3. 1704, Urtarrilak 23. Elgeta, Andre Maria parrokia.
Francisca de Berraondoren izendapena.....1082 "
4. 1734, Martxoak 12 / Apirilak 7. Oñati, San Migel parrokia.
Ana Cathalina de Inzaren izendapena (titulua) eta posesio-hartzea.....1083 "
5. 1759, Martxoak 1. Antzuola, Uzarraga auzoko
San Juan Bataiatzailea parrokia ondoko seroretxea.
Maria Ygnacia de Ynurrigarroren izendapena.....1084 "
6. 1719, azaroak 3. Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Mariaren santutegia.
Maria de Pagadigorri seroraren testamentua.....1086 "
7. 1750, irailak 4. Bergara, Soledadeko Andre Mariaren
santutegia eta ikastetxea.
Maria Clara de Berroeta seroraren testamentua.....1090 "
8. 1570, irailak 30. Arrasate.
*Catalina de Otalora seroraren testamentuari atxikiriko inbentarioa,
bere gurasoengandik jasotako ondasunen berri emanez*.....1094 "
9. 1594, abenduak 13. Eskoriatza, San Pedro parrokia.
*Maria Lopez de Espilla seroraren testamentuari atxikiriko
ondasunen inbentarioa*.....1096 "
10. 1615, azaroak 4. Arrasate.
Maria Gimenez de Guesalibar seroraren ondasunen inbentarioa.....1098 "
11. 1625, azaroak 11. Arrasate, Gesalibar,
Santa Ageda parrokia eta ospizioa.
*Maria Perez de Bengoaren ondasunen almoneda,
bere heriotzaren ondoren*.....1099 "
12. 1587, abuztuak 7. Antzuola.
Catalina de Lizarriturri Igueribar seroraren seniparteen uko-egitea.....1102 "
13. 1608, urtarrilak 16. Bergara.
*Mateo Ibañez de Urietaren eta Francisca de Arana seroraren arteko
hitzarmena, Aparicio de Cearretaren eta bere emazte
Ana Perez de Aranaren oinordekotza zela eta*.....1104 "
14. 1639, urtarrilak 3. Antzuola, Uzarraga,
San Juan Bataiatzailea parrokiako seroretxea.
*Antzuolako Uzarraga auzoko auzotarren
eta parrokiako seroren arteko akordioa*.....1108 "
15. 1657, urtarrilak 21 - apirilak 22 - ????. Bergara, San Pedro parrokia.
*Begarako San Pedro parrokiako seroren
eta kanpoko jarlekuetako zerbitzarien arteko,
eta parrokia bertako hiru seroren arteko hitzarmenak*.....1110 "
16. 1700, apirilak 21. Leintz Gatzaga,
Dorletako Andre Mariaren santutegiko seroretxea.
*Seroren bizimodua arautzeko, Don Ambrosio Baroja
bisitatzailaren aginduz Ignacio de Sagastiberria
santutegiko administratzaileak idatziriko arautegia*.....1115 "
17. XIX. mende erdialdea. Bergara.
*Begarako San Pedro parrokiako hiletetako zerbitzarien etekinen
eta emolumentuen informea*.....1119 "
18. 1538. Bergara.
*San Pedro parrokiako Domenja de Ascarrunz seroraren kereila
Gipuzkoako korrejidorearen aurrean, parrokia bereko*

- Maria Garcia de Gorosavelek eman zion jipoiagatik*.....1122 "
19. 1597, maiatzak 11. Bergara, Santa Marina parrokia.
Apezen, benefiziodunen eta eliztarren kexua, Catalina de Sarralde, apezpikutzaren aurreko dilijentzien bidez modu irregularrean lortu nahian zeroratzaz baztertuz.....1123 "
20. 1618, urtarrila - martxoak 23. Leintz bailara.
Leintz bailarako udal agintarien aldetik Valladolideko Kantzeleriaren aurrean egindako eskakizuna, Kalagorriko apezpikutzatik serorak karguetatik kanporatzeko hartzen hasiak ziren neurriak atzera botatzea eskatuz, eta epaia eman zuen Errege Agindua.....1125 "
21. 1623, martxoak 23 - ??? - maiatzak 31 - ??? - ??? - azaroak 23.
Bergara, Kalagorriko apezpikutzak.
Bergarako herriaren eta Kalagorriko apezpikutzako prokuradorearen artean, 1623an herrian abian jarri zen seroren kanporatzeen inguruan apezpikutzako auzitegietan izan zen auziari dagozkion dokumentuak: Bergarako herriaren ahalduen Pedro de Juberak gaiaren inguruan egindako informeak, auzirako bi aldeetatik prestatuturiko galdeketak, auziari buruz Bergarako herriaren aldetik osaturiko memoria, eta apezpikutzaren aldetiko auziaren Errege Kontseilurako bideratzea.....1128 "
22. 1759, Martxoak 24. Bergarako bikariotza, Antzuola, Uzarragako San Joan Bataiatzailea parrokia.
Maria Ygnacia de Ynurrigarroren izendapena zela eta (5 dokumentua), Ignacio Xauier de Artech Bergarako bikarioak apezpikutzara bidaliriko serorei buruzko informea.....1136 "
23. 1769, urriak 13 - azaroak 4 - Azaroak 18.
Kalagorriko apezpikutzak, Oñatiko bikariotza.
Ermitauek jantzi erlijiosoa erabiltzeko debekua berrespena, eta serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Agindua, apezpikutzaren bidez jakinarazia.....1138 "
24. 1769, azaroak 28. Oñati.
Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, Oñatiko udal agintariak aginduriko dekretua.....1140 "
25. 1769, abenduak 11. Oñati.
Seroren inguruko informazioa batzeko udal komisionatuen informea.....1142 "
26. 1769, abenduak 16. Oñati.
Oñatiko bikarioaren eskutitza apezpikuari, serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, egoera azaldu eta ermiten inguruko iritzia emanez.....1145 "
27. 1770, apirilak 7. Bergarako bikariotza, Kalagorriko apezpikutzak.
Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunean, Ignacio Xauier de Artech Bergarako bikarioak apezpikutzara bidaliriko informea.....1146 "
28. 1770, maiatzak 11. Oñati.
Oñatiko alkatearen eskutitza Kalagorriko apezpikuari, serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako Errege Aginduaren betekizunerako dilijentzien eta arazo berri emanaz.....1148 "
29. 1782, ekainak 26. Oñatiko bikariotza, Kalagorriko apezpikutzak.

- Serorak desagerrarazteko eta ermiten itxierarako*
Errege Dekretuaren betekizun egokiaren berri emateko,
Miguel de Eguino Oñatiko bikarioak apezpikutzara bidaliriko informea.....1149 "
30. D.g. (1769-??), Oñati, San Antonio Abad ermita.
Ermitari zegozkion auzotarren eskutitza Oñatiko apezpei,
ermitaren berririkiera baimendu zezaten eskatuz.....1151 "

VI. SEROREN AKTIBITATEAK, ONDASUNAK ETA ETEKINAK

Orain arte ikerketak izan dituen jarraibideek garapen kronologiko bat izan dute oinarrian, eta espazioen eta garaien araberako ezaugarri espezifikoek eta aldaeren berri ematen saiatu gara, inguru ezberdinetatik leku bateko edo besteko seroratzari heltzen zitzaizkion kanpo eraginak bezalaxe, ezaugarri propioen mantentzera gidatzen zuten lekuan lekuko tradizioak ere azaltzen saiatuz. Ondorengo kapituluan eta dagozkion ataletan, azaldua dugun ingurune honek oinarritzat egingo digu, baina jada, gure atenzioa seroren aktibitateetara bideraturik. Oinarrizko banaketa, ondorengo orrietan, aktibitate "erlijiosoen", alegia, zerbitzen zituzten tenpluei eta bertan jarlekuak zeuzkaten familiei loturiko aktibitateen, eta aktibitate "laikoen", hau da, tenpluez aparte, pertsona sekular ere baziren heinean zerabiltzaten beraien kabuzko aktibitateen artekoa izango digu, nahiz eta lekuan lekuko aldaera eta tradizioak esanguratsu lez agertzen zaizkigunean, aditzera emango ditugun. Banaketarako irizpidea aldatzen badugu, lekuan lekuko eta garaian garaiko aldaerez beste, jarraian azalduko ditugun aktibitateak oso egoera ezberdinetan egon zitezkeen seroren bizitzaren parte zirelako da; zentzudunagoa zaigu, beraz, banaketa sinpleago batez baliatzea, beharrezkoa izatean eman beharreko azalpenak emanez.

Aktibitate "erlijiosoen" eta "laikoen" arteko banaketa, bestalde, hein handi batean, orain arte nagusiki ikertu izan denaren eta izan ez denaren arteko banaketa ere bada, eta erabilitako iturriekin ere badu zerikusirik. Hau da, orain arteko ikerketarik gehienak tenpluen eta seroren bertako zereginen inguruan jardun izan dira, oinarritzat batez ere tenpluetako liburuak, izendapenak eta auziak baliatuz. Tenpluen zerbitzari lez zeuzkaten aktibitateek seroren eta inguratzen zituzten talde sozialen eta instituzioen arteko loturak agertzen dizkigute. Laikotzat zeuzkaten aktibitateak oster, arlo pertsonalekoak eta parte handi batean protokoloetan aurkitzen direnak, oso gutxi ikertu izan dira. Horregatik, kapitulu honen lehen partean Euskal Herriko espazio ezberdinetako informazio ugari bilduko dugun artean (datu hauek gehienetan azpiatalen hasieran bildurik azalduko ditugu, gero Debagoieneko informazioa eman eta testuinguruan txertatzeko), bigarren, autore gutxi batzuek baino ez gaituzte lagunduko, eta batez ere Debagoienean bildu ahal izan dugun informazioa izango da agertuko dena. Honek, bestalde, metodologiari eta iturriari eskainiriko atalean azaldu dudanez, aktibitate laikoen inguruko informaziorik gehiena XVI-XVII mende-bitartetik

helduko zaigula ere esan nahi du. Eta ondo da hala izan dadin, eta baita logikoa ere, orain arte ikusi ahal izan dugunez, serorek instituzio erlijioso eta laikoen aldetik mugapen gutxien, edo mugapen hauen eraginik gutxien jasan izan zuten garaia, hain prezeski ere, XVII. mendearen lehen bi edo hiru hamarkadak artekoa baitugu. Eta horregatik, garairen bat serorek aurreko mendeetan zehar izanak zitzazketen eskumenen, funtzioen eta botere sozial eta ekonomikoaren erakusgarri badugu, garai hori, burokrazia antolatuaren protokoloetako informazioa eskuragarri izateari ekiten diogun XVI. mendetik XVII. enaren lehen hamarkadetarartekoa da. Maila pertsonaleko aktibitate ekonomiko laikoen inguruko informaziorik gehiena serorendako "urrezko aro" izan zen honetan kokatzean, aktibitate hauen inguruko ikuspegi osatuagoa jasotzea bermatzen dugu, ondorengo garaietako mugapenek, hain zuzen ere, ikuspegi ertsiago bat azaltzen baitigute. Hau argi izanik, bada, esandako tarte kronologikoa aintzatetsiko dugu, nahiz eta beste garaietako datuak ere faltako ez zaizkigun.

Ondorengo kapituluekiko, bestalde, aktibitateei eskainitako hauek, nolabaitean, aurreko kapituluetan azaldu izan ditugun soldaten bidezko etekinez gain, serorek – dirutan, espeziatan edo ondasunetan izan zitezkeen– bestelako etekinak jasotzeko zeuzkaten moduak agertzen dizkigute, ondorengo kapituluetan, etekin hauek beraien inguru sozialean (familia, gizartea, testuinguru erlijioso) izatera heldu zitezkeen eragina azaltzen saiatuko garen artean⁸⁰⁸.

VI. 1. TENPLUETAKO LANAK, EMOLUMENTUAK ETA NEGOZIO PARALELOAK

Aktibitate hauek, esan bezala, serorek pertsona erlijioso ziren heinean zeuzkaten betebeharrak sozialak azaltzen dizkigute, eta hein horretan, gizarte baitako erlazioak gauzatzen ziren espazio nagusietariko bat ziren tenplu erlijiosoetan jasotzen zituzten ardurak ere adierazten dizkigute. Ez ziren etekinak ateratzeko bideak soilik, serora lez gizartearekiko zeuzkaten zerbitzuak baizik, emolumentuak eskuratzeko bide eta "eskubide" ziren bezalaxe, erantzunezko indar lotesle bat ere bazutena, serora lez, ezin

⁸⁰⁸ Egokia iruditu zait, oinpeko notan eta "mokadu" eran bada ere, Zarautzeko (Gipuzkoa) Elkano auzoko seroraren eginkizunen eta bizimoduaren XX. mendeko deskribapen etnografiko baten aipua sarrera honi atxikitzea, ondorengo orrien irakurketarako, ikuskera orokor egoki batekin ekite aldera, lagungarria baitzaigu. Izan ere, serora nekaezin honek bere gain zeuzkan lan guztiek, ondoren azalduz joango garen aktibitateen koadro zabala eskaintzen baitigute: "En Elkano la escuela estaba al cargo de la serora, que sólo había asistido a ella siete meses, y luego tuvo que enseñar lo que no había aprendido, teniendo que hacerlo ahora para poder enseñarlo.

La historia de la serora de Elkano merece la pena contarla: Cuidaba de tres Iglesias: San Pedro, la Santa Cruz y San Blas. Los domingos había Misa en San Pedro: Fuera de este momento en que estaba el sacerdote, ella lo era todo: el cura, el sacristán, la maestra, la partera, vestía a los muertos y ponía inyecciones que previamente le había enseñado el Dr. Goñi. Había ocho caseríos entre los que se turnaban en la misión de ser "mayordomos". Quien estaba de turno, disfrutaba de los terrenos de la iglesia y, a cambio, atendía a la serora. No le pagaban, le daban un celemin de maíz y trigo, y un carro de estiércol. Los hijos de los mayordomos no pagaban la escuela. Los otros daban tres pesetas por niño. En el caso de ser dos hermanos, seguían pagando lo mismo, pero un hermano recibía clase por la mañana, y el otro, por la tarde. La Escuela consistía en un local pequeñito junto a la iglesia con dos o tres mesas por todo mobiliario, y la cuna del niño de la serora, a quien tenía que cuidar mientras daba clase. Además, se encargaba de tocar las campanas. Menos mal que 'sólo' lo hacía cuatro veces al día..., y cuando moría algún vecino de Elkano o de barrios vecinos. Una vez al año iba con el burro y el santo por los caseríos. El santo consistía en una estampa de San Pedro, metida en una capillita de metal con cristal. La gente besaba al santo y daba la voluntad: maíz, trigo, manzanas. Además de estos oficios atendía un bar que se montaba junto a la iglesia los días de fiesta. La serora cargaba las cajas de bebidas en el burro y las subía desde Zarautz. Para poder dar de comer a sus siete hijos, tenía también una vaca y gallinas" (Aguirre Delclaux 1997, 233-234).

uko egin ziezaioketena. Propioki parrokiakoak ziren serorek, esaterako, zegozkien emolumentuak ordaintzen zitzaizkien bitartean, ezin zioten inoren jarlekuko zerbitzuari muzin egin, zerbitzu hau eliztarrekiko eta beraien hildakoekiko zeuzkaten erantzunkizunen parte baitzen. Beste aktibitate batzuek, oster, tenpluek zeukaten ospari, maila ekonomikoari edo zeuzkaten ondasunei lotuago zeuden, eta noski, ardura sozial eta erlijiosoekiko ez zen gauza berbera tenplu baten jabegoko sagasti baten ustipenaren edo honen alokairuaren kargu hartzea, edo jarlekuen zerbitzuan ibiltzea. Gainera, aktibitateen garrantzia eta hauetariko batzuek egin eta besteak ez egitea, noski, lekuan lekuko ohiturei (eta sakristauen presentzia edo ausentziari) eta garaien araberako aldaketei loturik zeuden, eta eskura daukagun informazioak hartarako paradarik ematen digun heinean, ezberdintasun horiek azaltzen eta isladatzen saiatuko gara.

VI. 1.1. Soldatak eta tenpluaren garbiketa

Larramendik (198 -1754-, 137) eta Henaoren *Averiguaciones...* (1689-1691) lanaren gehigarrien autoreak (1980 -1895-, 115) seroren emolumentuak nolabaiteko "beneficio eclesiástico" bati zegozkiela aipatu zuten, baina lehenaren azalpenetan emolumentuak heriotz-errituei baino ez zaizkigu loturik aipatzen (*Loc.cit.*). Webster-ek jaso zuen M. Le Bret Nafarroa Behereko eta Biarnoko intendentearen 1700eko memorian ere heriotz-errituei zegozkien emolumentuak eta auzotar bakoitzari zegokion "serora-gari"-ak baino ez ziren aipatu, Nafarroa Behereko seroren egoera orokorraren deskribapenean (Webster 1911, 146). Honekiko, eta soldatei zegokienean, zera esan behar: motibo baten edo bestearen bidez justifikaturiko soldata, erregistraturik gelditu zitekeena eta ohituratzat finkatzera hel zitekeena, gehienetan, zerbitzua parrokiatan egiten serorek -edo debozio handidun bestelako tenpluetakoek- baino jasotzen ez zituztela dirudi; gainontzeko serorek, ermitetakoek bereziki, beraien ordaina auzotarrek emandako "serora-gari"-en -edo "serora labore"-en, edo "serora-arto"-en- eta bestelako produktuen (sagarrak, intxaurrak, etab.) bidez baino ez zuten jasotzen. Eta ordainketa hau, noski, ez zen parrokiako soldatadun seroren kasuan bezala kontzeptu espezifiko bati loturik hautematen; serorak tenpluan zeuzkan betebeharrak guztiengatik emandako ordaina zen, besterik gabe. Ordainketa hauek nola egiten zirenaren berri aski garbi batzuk Garmendia Larrañagak iturri etnografikotatik bildu zituen; Matxinbentan (lurra Beasain, Azpeitia eta Ezkio-Itsaso bitartean banatzen dituen auzoa, Gipuzkoa) kokatzen digun informazioaren izaera etnografikoa izanik ere, bere kutsu tradizionalak ikergai ditugun Aro Berriko serorenganaino ere bagaramatzala deritzot:

La serora de la parroquia de Matxinmenta recorría dos veces al año todos los caseríos del barrio. Con ella llevaba un asno, y en él cargaba el celemin o *lakaria* de trigo que en el mes de agosto le entregaba cada familia, y el de maíz que le correspondían en los días próximos a Navidad. Estos eran el *segore garia* (trigo de la serora) y el *segore artoa* (maíz de la serora).

Las casas de la calle le atendían con dinero equivalente al valor del cereal (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 415-416)

Sorazuk, berriz, Gaintzako -parrokiako nahiz ermitako- seroren zerbitzuegatiko ordainketetan elementu gehiagoren berri eman zigun, baina beti ere, dirurik aipatu gabe:

Eta eginkizun hauen ordainez baserri bakoitzekoek zer ematen zieten? Urtero, anea bat gari; anea bat, arto; lakarri bat babarrun; sutarako gurdi bat egur; txandaka, gazta, ardi-ilea; gaztainak; sagarrak; ofrendako ogia; bataioko olio; ezkontzako oilasko pare... (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Webster-en M. Le Bret intendentearen 1700eko memoriaren aipura -eta berarekin, kapitulu honi dagokion gaiaren harira- itzuliz: seroren zereginen artean garbiketarenak zeuden, eta itxuraz, aldareetako arropak seroren eskutan izateak ez zuen "kutsaduren" inguruko ardura handiegirik sortzen (eta lurralde historikoan orokortzat hartzen ziren ohiturak deskribatzeko asmoa zuela aintzat har bedi): "está obligada á lavar los paños de altar, barrer la iglesia, [...]" (Webster 1911, 146). Azpiazuk ere, esku artean izan zituen dokumentuetan oinarriturik "ornamentos y objetos dedicados al culto" zirelakoan garbiketa lanak aipatu zituen, aldareetako ornamentu eta objektuak serorek erabiltzeko Konstituzio Sinodal ezberdinetako debekuek ziotena ziotela⁸⁰⁹. Nabaria zaio:

En momentos en que la continuidad de la institución parecía depender del recelo que producía el hecho de que tuvieran acceso a personas y objetos sagrados, sus defensores intentaron diferenciar las labores del sacristán y las seroras. En la práctica, las seroras mayores cumplían con las labores propias del sacristán, a pesar de las reservas de las autoridades (Azpiazu 1995a, 49-50)

Urretxuko (Gipuzkoa) parrokiatik jasotzen duen seroraren eginkizunen deskribapenean ere garbi azaltzen zaigu, besteren artean, honek "albas, sábanas y palios de la yglesia" garbitzeko zeuzkan eginkizunak, eta baita 1582an, honi sakristiarako sarrera debekatu zitzaionean, sortu ziren arazoak ere. Azkenean agindua ezeztatu beharra izan zuten, ezen:

Dicha serora se tenía que ocupar de "tomar los manteles y los demás adornos de los altares" y guardarlos en cajones de los que ella tenía llaves y cargo, y para adornar los altares difícilmente se le podía prohibir la entrada a la sacristía (*Ibid.*, 50)

Aguirre Sorondok ere, garbiketa lanak aipagai dituela, "tanto de muebles y ornamentos como de la ropa litúrgica" diosku, emakumeen "sakratuarengandiko" banaketa berezirik aintzat hartu gabe (Aguirre Sorondo 1995a, 110), eta beste hainbeste diosku Aranak ere (Arana 1992, 101). Azkenik, Sorazuk Gaintzako (Gipuzkoa) seroren eginkizunen artean "Eliza osoa garbi eduki" eta "Aldareko zapiak garbitu eta txukun zaindu" aipatu zizkigun, garbi asko (Sorazu 2009 -1993-, 22).

Iparraldean ere halatsu gertatzen zen, eta Hiriburuko (Lapurdi) parrokiako seroren zereginen 1817ko deskribapen batean, beste zereginen artean, eliza bertako zolua eta bestelako espazioez gain, alben, aldareko zerbitzuko ohial guztien, kultuan erabiltzeko arropa guztien eta apezen ornamentuen garbiketa ere aipatu ziren, parrokia barneko elementu guztien apaindura eta edertzearekin batera. Halaber, serorak aurretik izanak zituen etekinak arriskuan zeudenez (biztanleak ohiturazko ordainketei uko egiten hasiak ziren), elizako fabrikak bere ohizko etekinak bere hortan mantendu zitezten neurri guztiak hartzeko konpromezua hartu zuen, ordurarte idatzi gabeko ohituraren arabera egin ziren ordainketak finkatuko zirela ere adieraziz (hau da, "soldata" finko bat ezarriko zela), nahiz eta dokumentuan kopuruak zertan ziren zehaztu ez zuten. Alabaina, biztanleen ukoa motibatzen zuela dirudien ordainketa zehatza ez zen seroren etekinak jasotzeko ohizko moduetako bat, eta ukoa hargatik izana ere baliteke; izan ere, Hiriburuko serorak parrokiaren ofizioetan betetzen zen jarleku bakoitzagatik, bestelako aktibitateez aparte, leku-hartze hutsagatik nolabaiteko "kanon" bat jasotzen zuela baitirudi (Desport 1991, 69-72). Gehiegizkoak izan behar zuten, ordaintzeari uko egin zioten biztanleen begitara, jarlekuen gainean zegozkion eskumenak; eta hala ere, elizako fabrika bere alde zeukan, parrokiako usantzak halakoa behar baitzuen izan.

⁸⁰⁹ Konstituzio Sinodal ezberdinetako debekuen inguruan beste leku batean jardun dugu; ikus orokorrean III. kap., batez ere III. 2.2. azpiataleko lehen orrialdeak, 218 eta hurr.

Peñaranda García Nafarroa Garaiko seroren funtzioak deskribatzean jaso zituen adibideetan ere serorek eurek aldareen eta bertako ornamentuen garbiketa ardura berezirik gabe aipatzen zituzten; Garzainekoak "linpiar los paños de sacristia y barrer la yglessia" zioen, Azpilikuetaoak "limpian los altares y la yglesia y toda la ropa blanca y lampedas y candeleros", eta Iruña kanpokaldeko Magdalenaren basilikakoek berriz, "la limpieza de la yglesia y altares e imágenes". Ordainketarako motiboak aipaturikoak izan edo ez, edozein kasutan, autore honek aztertu zituen espazioetan "soldatak", halako izenik eman badakiekegu, oso eskasak zirela dirudi:

Las ganancias y beneficios de las seroras eran muy menguados y, en algunos casos, se tiene la impresión de que no existían; se mantenían básicamente gracias a la limosna que recibían. Las declaraciones de las seroras del Baztán ilustran esta afirmación: la de Garzain aclara que no tiene salario "mas de treze reales y otras limosnas que los vezinos le dan que son pocas"; la de Lecároz se encontraba asistida por las rentas primicias de la iglesia "lleva la dicha serora diez y seys reales en dinero y un robo de trigo y otro de mixo (...) y en quanto a lo demas para ayuda de su sustento le asisten los vezinos del lugar con haces de trigo algunos y otros con medios (...) y esto lo dan por su libre boluntad y graciosamente qual mas qual menos"; en Almádoz se daba un cuartal de trigo, pero no recogido, sino en haces. En Azpilcueta, se le daban dos ducados "paga que recibía anualmente por el oficio de serora" por orden del visitador, y además los vecinos "por el trabaxo que tiene la dicha serora en servir la dicha yglesia le suelen dar sendas aces de trigo al tiempo de trillar los unos mas y otros menos conforme a su voluntad" "porque assi tocan a nublados", y lo mismo hacían los vecinos de Errazu y Arizcun; los patronos no les daban nada, a excepción de los de "las yglesias de Narbarte y Oyeregui y Oronoz (que) les dan tambien en la yglesia algunas obladas"

La basílica del barrio de la Magdalena "no tiene dotacion ni renta alguna" y "la limosna que recoge la dicha reclusa del agosto y bendimia hes con licencia del ordinario desta ciudad de Pamplona y que, descontando della los gastos que en cogerla se hazen, no seran doze ducados a lo mas en trigo y mosto; y que de la dicha limosna la reclusa repara la yglesia y cassa y provee de las cosas necesarias la yglesia, altares e ymagenes. Y que si algo sobra es muy poco, de modo que no basta para sustentar la reclusa si no tiene otra hazienda o trabaja con sus manos para sustentarse" (Peñaranda García 2002, 301-303)

Aktibitateen eta soldaten arteko erlazioak zirenak zirela, ikusten dugunez, gehienetan soldaten motiboak ez ziren esplizituki adierazten, hain zuzen ere, nabarizatzen zirelako. Edozein kasutan, azken adibide honek, soldatekiko, hitz bat baino ez dakargu burura: aniztasuna. Egoeren aniztasuna, Debagoieneko kasuak ikusteari ekitean berretsia ikusiko duguna.

Baina hauekin ekin aurretik, eta aktibitateen adierazpen faltarekin izanik ere, azken adibide bati leku egin beharrean gaude: seroren "soldatatzat" hartu ohi ziren etekinen ikuspegi egoki eta osatuena Garmendia Larrañagaren ikerketei esker heldu zaigu; 1738an, Berastegiko (Gipuzkoa) parrokiako kabildoaren eta bertako seroraren artean hitzarmen bat sinatu beharra izan zuten, azken honek, ordurarte jarraitu izan zen ohitura arriskuan ikusten zuelako edo, parrokiako kabildoa seroren soldata eta bestelako etekinak finkatzera behartu baitzuen auzitarako meatxuz.

Primeramente que a dicha Josefa de Echagoien, serora actual y sus sucesoras de aquí adelante perpetuamente le hayan de corresponder en cada un año dichos señores del Cabildo de los trigos que se recogieren en el Diezmo que les toca en esta Villa y del montón principal hasta una carga de trigo que se compone con tres fanegas, y más caso de sobrar al fin de la última repartición alguna porción que no se puede partir entre todos los interesados aquella haya de quedar para la dicha serora y sus sucesoras para ayuda de hacer ostias por cuya cuenta corren estas, y de los maíces cuando la

repartición primera hasta diez cestas grandes de las que antiguamente había y eran de cabida de diez celemines y cuarta cada una de ellas y en la repartición segunda cinco cestas de la misma medida y en la tercera y última, tres.

Item de los linos que se recogieren añalmente en el Diezmo que les toca a dichos señores del Cabildo lo mismo le hayan de dejar y partir a dichas seroras, a saber en la repartición primera que se hace de dichos linos hasta treinta manojos en bruto, en la segunda quince y en la tercera y última diez.

Item asimismo en el Diezmo del fruto de la castaña que en cada año hubiese en esta dicha Villa y su jurisdicción, dichos señores del Cabildo le hayan de señalar a su tiempo en cada año que hubiere Agosto de castaña un par de casas que tengan castaños en esta dicha Villa y su jurisdicción antes que entre sí hagan su repartición de casas y lo poco o mucho que hubiere en las dichas dos casas que así se les fueren señaladas les hayan de conducir ellas mismas por sí o por tercera persona y a su riesgo y ventura y dicho Cabildo no tenga más obligaciones que el de señalar cómo queda referido de suso dos casas que tengan castaños a su tiempo (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 429)

Serora honek, motiboak zehaztu gabeko "eskubidezko" etekin hauez bestalde, heriotz-errituei zegozkienak ere jasotzen zituen noski, eta dokumentuan hauek ere finkatu ziren, aurrerago ikusiko dugunez. Kanpai-joteegatik ere bazegokion bere partea, eta hau ere ikusiko dugu aurrerago. Baina adibide hauekin, gera bedi garbi, behinik behin, Larramendirengandik hasita aipatu izan zen "beneficio eclesiástico" haren funtsak aipaturikoak izan ohi zirela, hauek garbiketei loturik hautemanak izan, ala ez.

Soldaten eta aktibitateen arteko erlazio mugikor hauen berri emanik, jarraian Debagoiengan garbiketarik egin izan ziren zenbait ordainketek soldata bilakatzera eramán zuten bidea jarraituko dugu, gainontzeko aktibitateei buruzkoak, dagokien lekuan aipatuz. Izan ere, orain arte ikusi ditugun adibideetan soldata jasotzeko motiboen aniztasuna ageri bazaigu ere, Debagoiengan, kasurik gehienetan, soldata izatera heldu zen ordainketa garbiketarena izan zela ikusi baitugu; eta horregatik jaso ditugu soldata eta garbiketa atal berberean.

Ohar dezagun, halaber, garbiketarik soldata hauek eskaintzen diguten ikuspegia ekonomikoki hain eskasa izanik ere, honek ez gaituela, aipatu berri ditugun ikertzaileetariko zenbaiti gertatu izan zaion lez, seroren etekinak orokorrean eskasak zirela ondorioztatzen halaberrez eramán behar (egoera halakoa zen kasuak hainbat izanik ere); etekin ekonomikoak beraien aktibitatei -hauek elizaren esparrukoak izan, edo ez- lotzen zitzaizkien moduak, izan ere, oso anitzak izan baitzitezkeen, eta gainera, ez baitzuten beti arrasto dokumentalik uzten. Ondorengo ataletan ikusiko dugu behar besteko hedapenez baieztape honen oinarri sendoak dituen.

Debagoiengan, garbiketarik serorei egindako ordainketen partidak batez ere hiribilduetako parrokiako liburuetan aurkitu litezke, eta ez guztietan, eta batzuetan garbiketen gastuak jasotzen ziren, baina serorarik aipatu gabe. Beste parrokia batzuetako liburuetan berriz, ermitetakoetan bezalaxe, ez zen garbiketaren inguruko partidarik aipatzen. Askotan xaboiagatik egiten zen ordainketa, eta ordainketa hau, normalean, agertu ohi den lehen partidetan modu irregularrean eta kopuru ezberdinetan egin ageri zaigu. Baina urteen puruan, serorak soldata izatera heldu ziren parrokiatan, xaboiaren ordainketaren partida izan zen gehienetan soldata bilakatu zena, edo soldataren parte, beste gasturen baten partidarekin batuz. Elizaren legediaren baitan -desagerrarazte aginduez aparte- mugapen berezirik gabe onartzen zitzairen egin behar bakarrenetarikoa izanik (jarlekuen artapenarekin batera, baina hau zerbitzu "pribatutzat" hautematen zen), ulergarria da ordainketaren bat soldata bihurtzekotan, hain prezeski tenpluen garbiketarena izatea.

Soldata hauen kopuruak, orokorrean, ez ziren oso altuak izan. Bergarako San Pedro parrokian, esate baterako, XVI. mende erdialdean garbiketatarako xaboiagatik 1 eta 6 erreale bitarteko ordainketa irregularrak egin ziren, eta 1563an, “por el trauajo de todo el año e para xabon para lauar los paños de los altares”, Ondartzako serorari 8 erreale eta erdi ordaindu zitzaizkion⁸¹⁰. Elgetako Andre Mariaren parrokian berriz, XVII. mende hasieratan xaboiaren erosketagatik 2 erreale, eta korporalen eta ohialen garbiketagatik 6 erreale ordaindu izan ostean⁸¹¹, mende bukaera aldean, zehazki 1661 eta 1664 bitarteko kontuetan, elizaren, ohialen eta ornamentuen garbiketa festa egun bakoitzerako egin behar zenero (“corpus christi”, “pasqua de resurreccion”, “Pasquas de nauidad”, “Juebes santo”, eta “nuestra Señora de Agosto” aipatzen dira) serorari eta sakristauari bakoitzari 2 erreale ordaindu zitzaizkiela ikusten dugu⁸¹². Ohitura berbera jarraitu zuten 1721erarte; urte hartan, jada serorari garbiketagatik ordaintzen zitzaizkion urteroko 8 errealak bere soldata bilakatu ziren. Orduz geroztik eta 1802rarte, 8 errealeko soldata izan zuten serorek. Konparazio baterako, esan dezagun, 1721eko kontuetan bertan sakristauari ordaindu izan zitzaion soldata 24 errealekoa izan zela, eta horrez gain, beste hainbat ordainketa ere jaso zituela, beste zereginen batzuk zirela eta (adib., erlojuaren garbiketagatik 100 erreale, elizako itokinak kentzeagatik 22 erreale, etab.)⁸¹³. Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokian serorari xaboiagatik 10 erreale ordaintzea izan zen ohizkoena, eta horiez gain egin ziren beste ordainketaren batzuk ere, 1656-1657ko kontuetan “de escobar” eman zitzaizkion 2 errealak edo 1659koetan “por limpiar los corporales” eman zitzaizkion 20 errealak kasu⁸¹⁴. Azken urte honetaz geroztiko kontuetan 10 errealak seroraren soldata bihurtu ziren. 1677an parrokiako sakristaua eta serora senar-emazte izatearen ohiturari ekin zitzaion, eta 1720ko kontuetatik aurrera, ohituraren eraginez, sakristauaren eta seroraren soldata kontzeptu bakarrean batu ziren, 78 erreale eta 8 marabeditako ordainketa eginez. Hala jarraitu zuen izaten, 1760ko hamarkadaz geroztik serorak kontuetatik desagertu baziren ere⁸¹⁵. Oñatiko San Migel parrokian ere antzerako kopuruekin egiten dugu topo. Garbiketagatik egindakotzat zehazturiko ordainketek 1610az geroztiko kontuetan ekiten diote agertzeari, eta mende hasieratako zenbait ordainketa irregularren ostean (1610ean 6 erreale, 1611n 4, 1612an 9 eta ½, etab.), mendea igaro ahala ordainketa 11 errealetan (dukat 1) finkatu zen, 1678az geroztik, bere etxearen alokairuagatik ordaintzen zitzaizkion 4 dukatekin bat eginik, seroraren 5 dukateko soldataren parte izatera iragan ziren arte⁸¹⁶.

Hiribilduetako parrokia hauen aldean, elizateetako parrokia bakar bateko ordainketen berri dugu. Eskoriatzan, Zarimutz elizateko San Pedro parrokiako serorari, 1641 eta 1663 bitarteko kontuetan behinik behin, eliza garbitzeagatik eta kanpaia jotzeagatik, edo besterik gabe “de serbicio” bezala justifikaturiko partidetan, urteroko 44 erreale ordaindu zitzaizkion, gehienetan bi urtean behineko 88 errealeko ordainketetan

⁸¹⁰ BUA SP2/173-431, 316-372 fot.

⁸¹¹ DEAH-AHDSS 2123/002-01, 2r-64r.

⁸¹² *Ibid.*, 128v-135v.

⁸¹³ DEAH-AHDSS 2123/003-01 (1690-1755) eta 2124/001-01 (1756-1802). Salbuespen bat egin zen 1800. urteko kontuetan, urte hartan, garbiketagatik egindako ohizko 8 errealeko ordainketaz beste, Manuela de Ansoateguiri 62 erreale eta 22 marabeditako kopurua ordaindu baitzitzaion, “por limpiar y planchar la ropa blanca de la yglesia”. Ez dakigu bapateko ordainketa hau zer zela eta egin zen; emakume hau, bestalde, ez zen serora lez aipatu. Agian ohiz-kanpoko sakontasunez egindako garbiketaren batean (lisatzea behintzat, ez baitzen normalean aipatzen) parte hartu zuen emakumeren bat? (*Ibid.*, 411r).

⁸¹⁴ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 13v-34r.

⁸¹⁵ *Ibid.*, 36r eta hurr. eta DEAH-AHDSS 4824/002-01.

⁸¹⁶ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 394r eta hurr. eta DEAH-AHDSS 3691/001-00 sig.

⁸¹⁷ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 88r-119v.

. Deigarria da hiribilduko parroketan aurkitu ahal izan ditugun ordainketen aldean kopuru handia izatea, nahiz eta ordainketa honetan seroraren beste lanak ere batzen ziren (alegia, praktikan, bere soldata zen). Gainera, aurreko kapitulu batean zehaztu bezala⁸¹⁸, Leintz-bailarako elizateetako serorak sakristauen ordezkapenez desagerrarazten zeudeneko testuinguru batean kokatzen diren datuak dira hauek (eta ziurrenez horrexegatik ekidin zen “serora”, “beata”, edo bestelako izenez aipatzea); ez dakigu ondo soldaten kopuruen alde hau nola interpretatu, eta datuari ze puntutarainoko adierazgarritasuna esleitu. Zuhurtasunez hartuko dugu oraingoz.

Ikusi dugunaren arabera hiribilduetako parroketako serorek garbiketarik (edo xaboiarik) jaso izan zituzten ordainketak, bestelako ordainketa puntualez beste, urteroko 8 eta 11 erreal bitartekoak izan ziren, eta batez ere, XVII eta XVIII. mendeetan zehar finkatu, eta zenbaitetan soldata bilakatzera edo honekin bat egitera iragan ziren. Printzipioz behintzat, ez dirudi garbiketarik ordainketek parroketako serorendako diru-sarrera handiegirik suposatzen zutenik. Baieztapen hau are nabariagoa da garbiketarik inongo diru-sari berezirik jasotzen ez zuten parrokia eta ermitetan, noski. Alabaina, ez genituzke seroren beste emolumentuak edo diru-sariak funtzio honi espezifikoari esleiturikoengandik gehiegi berezi beharko, ordainketa jasotzen zuten parrokiak besteengandik banatzen zituena, funtsean, funtzio espezifikoaren ordainketa konkretua definituki hautematea baino ez baitzen. Hau da, beste tenpluetan ere herritarrek eta auzotarrek serorei ematen zizkieten diru eta espezieko emolumentuak, nahiz eta esplizituki hala ez definiturik agertu, funtzio honen ordainketarako ere bazeuden bideraturik, hain zuzen ere, seroren funtsezko betekizunetariko bat horixe zela hautematen zelako. Edo sinpleago esanda, ofizioari zegokion zerbait zelako.

VI. 1.2. Administrazioa

Larramendik serora batzuek tenpluetako giltzak izaten zituztela aipatu zuenean, tenpluaren ateen zaintza baino ez zuen adierazi: "En algunas iglesias cuidan también de abrir y cerrar las puertas, y se quedan con las llaves de noche. En algo de esto se empleaban las diáconas" (Larramendi 1985 -1754-, 137). Baina izendapenetan eta batez ere posesio-agirietan agertzen zaigun giltzen emateak, zaintzaz haratago, administrazioaren eskumena ere sinbolizatzen zuen, eta izan ziren tenpluaren administrazio orokorra euren esku izan zuten serorak ere, ateen zaintzara mugatzen ez zirenak. Gogoan izan dezagun, gainera, Aranak Sojotik (Aiarako Administrazio Batza, Nafarroa Garaia) jaso zuen posesio-erritua ere, zeinetan, giltzez gain, "el caliz y el misal de la dicha ermita" ere seroraren esku gelditzen ziren, liturgia baitako partehartzearen sinbolotzat. Kasu honetan, giltzek sinbolizaturiko administrazio eskumenetaz haratago zioan seroraren eskumenen eta boterearen neurria (Arana 2002, 847)⁸¹⁹. Giltzen balio sinbolikoa, hala ere, kalizearen eta meza-liburuarena bezala, ez da gutxietsi behar. Zehazki giltzekiko eta hauek sinbolizatzen duten tenpluaren administrazioarekiko bezala, aldareko ornamentu, bitxi eta objektu sakratuen gordailutzarekiko ere, Euskal Herrian zeharreko hainbat testigantza heldu zaizkigu.

Bizkaiara joaz, Arana baino zenbait urte lehenago, aski garbi mintzo zen Areitio, Begoñako serorei buruz ziharduela; hauen lanen deskribapenari honela ekin zion: "tenía por misión cuidar las imágenes, custodiar las joyas y vasos sagrados y atender a la limpieza del templo". Autore berberak eskumen hauei buruzko berri xedatuagoak ere eman zizkigun. Seroren karguaren garrantzia azpimarratzeko Begoñako serora baten

⁸¹⁸ Ikus III. 2.2. azpiatalean, 252-260 or.

⁸¹⁹ Ikus aipua eta azalpenak II. 1. atalean, 49-50 or. eta III. 2.1. azpiatalean, 206-207 or.

posesio-agiria aipatu zigun, giltzen edukitzea zaintza eta administrazioari lotuz; asko ziren seroraren eskutara igarotzen ziren giltzak: "diez llaves en una cuerda de cáñamo, debajo de las cuales estaban todos los ornamentos, trajes, coronas, cálices y todo el oro, plata, joyas, preseas anejas y pertenecientes a Nuestra Señora, que correspondía guardar a la serora" (Areitio 1959, 179). Begoñako serorak limosnen administrazio ekonomikoa ere bazerabilen nahierara, baina honen berri zehatzago limosnei dagokien atalean emango dugu.

Iparraldean, Lapurditik hainbat datu heldu zaizkigu. Donibane-Lohitzunen 1726an bertako parrokiako seroren betebeharrak eta etekinak zehaztu zituzten, hauek, jada aurreko garaietan besteko etekinik izaten ez zutela esanaz kexatu ondoren. Ondorengo kapituluetan zehaztuz joango garen beste aspektu batzuez beste, serorek tenplua zabaldu eta itxi behar zutela ezarri zen (hau da, giltzak euren esku zeuzkaten), eta baita, jasotzen ziren dohaintzen berri maiordomoari eman behar ziotela ere; alegia, maiordomoak jakinaren gainean egon behar zuen, baina dohaintzak serorek jasotzen zituztela dirudi (Nogaret 1925, 73). Lafourcadek, 1778an Gratianne Dufau Arrangoitzeko parrokiako seroratzara sartu zeneko posesio-agiria oinarritzat harturik, tenpluaren irekitzea eta istea, eta beraz bertako giltzen edukitzea, eta sakristiako ondasunen (ornamentuak eta ohialak) "zaintza" edo "gordailutza" ("visité et examiné") aipatu zituen, baina zurrunki administrazio eskumenak izan zitezkeenak garbiki adierazi gabe (Lafourcade 1991, 31), eta Desport ere, Hiriburuko parrokiako seroren tenpluko giltzen gordailutza aipatzera mugatu zen (Desport 1991, 69). Alabaina, aberastasunak handiak ziren espazioetan, balio handieneko elementuak gizonezkoen eskutan izaten ziren, jada XVII. mendetik. Mende hartako Baionako katedralean, izan ere, tenpluaren giltzak, kanpaiak, lanparetako olioak, ornamentuak, argiak, eta -ondorengo orrietan-seroren eskutan ikusiko ditugun beste hainbat ardura, bertako bi maiordomoen artean banatzen ziren, eta serorak, funtsean, heriotz-errituei loturiko kultu eta funtzioez baino ez ziren arduratzen ("des célébrations") (Duvert 1991, 15).

Peñaranda García Nafarroa Garaiko adibideak bildu zizkigun: Otxagabian, Muskildako Gure Amaren basilikako seroren kasua aipatu zuen, eta Labianoko San Pablo basilikako serorek apezpikutzako fiskalaren aurka zeukaten auziaren berri ere eman zuen; bertako serorek ez zuten "dar cuenta en que gastan y emplean los dichos censos del dicho monasterio y redditos y viñas y tierras del", eta serora nagusiak "a recibido, recibe, cobra y distribuye las rentas y limosnas de la dicha yglesia" (Peñaranda García 2002, 303). Nabaria da kasu honetan behinik behin, tenpluko administrazioa bere osotasunean zegoela seroren esku.

Azkenik, Gipuzkoara helduko gara, Debagoieneko kasuei heldu aurretik. Urretxun, 1582an, parrokiako serorak sakristiako eta bertako armairuetako giltzak zeuzkan (eta noski, hainbestean, parrokiakoak ere bai), eta 1572an. Soraluzeko San Esteban ermitako serorak ere, bere betekizunen artean ermita zabaldu eta istea zuenez, giltzak bere esku zeuzkan (Azpiazu 1995a, 49). Gaintzako parrokiakoak ere halatsu egiten zuen, eta hortaz, hau ere bazen giltzen jabe (Sorazu 2009 -1993-, 22). Jada seroren desagerrarazterako Errege Agindua emana zegoenean ere, 1789an, Tolosako (Gipuzkoa) Urkizu auzoko San Pedro ermitako serora hilik, honen ondorengotzat ermitau bat kargura sartzean garbi adierazi zen serorak ermitako ondasunak bere kargu izanak zeuzkala; seroratzara sartu zenean egin zen ermitaren ondasunen inbentarioa ezin aurkitu zutela eta, seroraren oinordekoari honek zeuzkan ermitaren ondasunen zinpeko ematea egin zezala eskatu zitzaion ("para que bajo Juramento fuese declarando y manifestando las alhajas pertenecientes a la dicha Ermita y que fuesen entregadas a la dicha Catalina de Ugartemendia"). Oinordekoak esan bezala egin zuen, eta baita serorari

eman zitzaizkion ondasunen artean ondatu zirenen konpentsaziorako bestelako ondasun batzuk eman ere⁸²⁰.

Gatozen bada Debagoienara. Orain arte -aurreko azpiataletan- batez ere hiribilduetako parroketako serorei buruzko datuak eman izan ditugunez, oraingoan auzo eta elizateetako parroketako eta batez ere ermitetako serorei begira jarriko gara lehenik, tenpluaren administrazioaren ardurarik handiena izan ohi zutenak eurak izan baitziren. Hiribilduetako parroketako arduren banaketari ondoren erreparatuko diogu. Aipatu berri dugu, nola batez ere ermitetako seroren kasuan, tenpluaren eta bertako ondasunen administrazio orokorra beraien esku izan zitekeen. Baina seroren kasuan beraien bizimoduaren aspektu guztiekin gertatu ohi den lez, ezin dugu baieztapen hau zentzu zurrunean ulertu, denetariko kasuak izan baitziren. Gainera, Konstituzio Sinodal ezberdinen arabera, parroketako ondasunen administrazioa apezten eta sakristauen esku egon behar zen, eta ermitetako berriz, apezek izendaturiko maiordomoen esku. Eta hala ere, batez ere XVI eta XVII. mendeetako Debagoienerako -aurretik Euskal Herrian zehar jaso ditugun adibideek ere berresten dituzten- zantzu orokor batzuk ematekotan, honakoa esan beharko genuke: hiribilduetako parroketan seroren esku aldareez kanpoko ohiak, argizari, eta bestelako ondasunak egon ohi ziren, aldareko ornamentu, ondasun eta bitxiak sakristauek gorde ohi zituzten bitartean. Auzo eta elizateetako parroketan eta ermitetan berriz, kasu askotan tenpluko ondasun guztiak, aldareetako ornamentu eta bitxiak barne, izan ohi ziren seroren eskutan eta ardurapean. Eta noski, honekiko, beste behin, beraien desagerrarazterako neurri eta aginduak tarteko izan zirela gogorarazi beharrean gaude, eta honek, jarraian emango ditugun datuak baloratzerako orduan, XVI. mendetik XVIII.era izan zen seroren eskumenen murrizketa prozesua aintzat hartu beharrean gaudela esan nahi du. Prozesu honen bukaeran, tenpluetako ondasunak serora gehienek eskumenetatik kanpo eta sakristauen eta maiordomoen esku gelditu ziren, Konstituzio Sinodalek eta bisitatzailen aginduek Aro Berri guztian zehar ezarri nahi izan zutenaren arabera.

Batez ere XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte saiakeraren aurretik, ermitetako ondasun guztien ardura eta administrazioa euren esku zeukaten seroren hainbat kasuren berri izan dugu. 1589an Mari Ramos de Laquidiola Oñatiko Santa Katalina ermitan (gaur egungo San Isidro) serora kargura sartu zenean, ermitaren eta bertako ondasun guztien gaineko posesioa eman zitzaion (“todos los bienes”)⁸²¹. Bergarako San Millan ermitan ere bertako ondasunen administrazioa seroren esku uztearen ohitura XVI. mendearen bukaera alderarte mantendu zen; 1562an hala aipatu zuen ermitako maiordomoak, esplizituki:

El dicho Martin Perez [*maiordomoa*] dixo que se hazia cargo de los doze rreales contenidos en la ultima visita e aquellos deuia / e despues aca auia tenido quenta la dicha beata y hera a su cargo de ella el darlos
La qual dicha beata de Arizpe se hizo cargo de lo siguiente [...]⁸²²

⁸²⁰ Ondasun hauen ingurukoak adierazteko moduak berak, ermitako ondasun den-denak ez baziren, ia denak izan behar zirela agertzen digu: "Todas estas alhajas declaró el dicho Arregui son las que se entregaron a la dicha Serora Catalina de Ugartemendia, menos las dichas vinagreras y platín de plata, que son traídos de limosna y agregados a la Ermita por Juan Antonio de Ugartemendia, ya difunto, y aunque declaró así bien el dicho Juan Antonio de Arregui haber entregado a la dicha Serora Ugartemendia dos camas usadas, no se hallaban éstas, que sin duda con el transcurso del tiempo se deshicieron, y en recompensa de ellas hizo en vida a su propia costa para la Ermita diferentes alhajas (...), y siendo necesario el dicho Arregui, como heredero de la dicha Serora, agrega las dichas alhajas hechas por ella en vida a la dicha Ermita en recompensa de las insinuadas dos camas y son las cosas siguientes (...)" (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 414).

⁸²¹ OUA Z 1063.9, 7v.

⁸²² BUA MIK/SM0 77-133, 87 fot.

San Millan ermitako ondasunak ez ziren oso ugariak, eta diru-iturri nagusitzat sagarrondo bat zeukan, zeinaren etekinak, 1528an Urtiz Bisitatzaille Orokorrak hala agindu zuenetik, seroraren eta ermitaren artean banatzen ziren. 1562an esate baterako, denetara 4 dukateko etekina eman zuen. 1568an egin zuen bisitan Lobiano doktoreak ermita administratzeko izan zen ohitura aldatu nahi izan zuen, “y por que no allo ningun mayordomo mando a Juan de Arizpe huesped de Arizpe so pena de excomunion asistiese en la dicha mayordomia”. Juan de Arizpe “la beata de Arizpe” lez aipatzen zaigun bertako seroraren aita zen, eta maiordomo kargua harturik, eman zitzaion agindua bete zuen. Ondorengo urteetan maiordomoek agindua bete zuten, batzuetan, ganora falta nabariarekin. Baina bisitatzailleek eurek ere aginduaren betearazpena zaindu zuten, eta esate baterako, 1602an maiordomo zen Esteban de Ynurrigarro y Arizpe inongo azalpenik gabeko kontu xume batzuk eman izan ostean, 1606an Juan Perez de Ançotegui hautatu zuten kargurako, zeinak bere betebeharrak beste taju batekin bete zituen. Eta hara non 1610ean Esteban de Ynurrigarro y Arizpe agertzen zaigun berriro maiordomo lanetan, eta ostera, ordungo kontuak, itxuraz eskarmentaturik, xehetasun osoz eman zituen. Bisitatzailleen meatxuak, edo etxeen arteko ermitaren zaintzaren inguruko konpetentzia? Ezin gara orain hemen auzi hauei jarraipenik egitera sartu, baina serorekiko esan behar, gorabehera hauek gertatuz zioazen heinean, kontuetatik erabat desagertu zirela, 1642-1652 bitarteko kontuetan berriro agertu arte⁸²³.

Bergarako San Millan ermitako kasua XVII. mende hasieratako lehen debeku eta desagerrarazte saiakerek aspektu honetan izan zuten eraginaren agergerri goiztiar bat dugu, eta beste hainbat dira azken garai honen inguruan bildu ahal izan ditugun kasuak. Bergaran, bertan, Santa Luzia ermitan 1621ean egin zen bisitan, apezpikutzatik hala agindurik bisita egin zuen Andres Lopez de Oçaeta lizentziatua Oxirondoko Santa Marina parrokiako apezak urte berebean argitaratu ziren Kalagorriko Konstituzio Sinodaletako aginduei men egin zien (“en cumplimiento de lo que mandan las constituciones synodales de este obispado y el decreto de su santidad que esta en el capitulo que trata de freyllas y seroras”), eta Magdalena de Telleria serorak ez zizkion maiordomoari ornamentuak eta bitxiak soilik eman behar izan, ordurartean bere eskutan izanak ziren ermitako ondasun guztiak baizik⁸²⁴. Murinondoko Andre Maria ermita eta santutegiko (Bergara) serorek ere, zehazki Maria de Albizek, beste hainbeste egin beharra izan zuten 1626an⁸²⁵. Bi kasuotan, aurreko urteetako ohitura ermitako ondasun guztiak, ornamentu eta bitxiak barne, seroren esku uztea izan zen. Santa Luzian 1600 inguruan maiordomoak inbentariatutako ondasun guztiak utzi zituen 20 bat urte beranduago bere manupetik kenduko zizkieten Magdalena de Telleria seroraren esku⁸²⁶, eta Murinondoko Andre Marian ohitura honen lehen berria 1568ko bisitakoa dugu. Azken honetan izan ziren gainera ermitako ondasunen inguruko zenbait liskar; 1570eko bisitan, Bisitatzaille Orokorren aginduz ermitako bisita egin zuen Pero Fernandez de Eyçaguirre Santa Marina parrokiako apez eta benefiziodunak honako agindua eman zuen:

Y por quanto En la dicha iglesia para El serujçio della las freyras que al presente estauan la vna hera vieja y las demas por otras causas que Ellas las sauen estan y Viuen en otras partes por lo qual la dicha iglesia Reçibia mucho detrimento y perdida de muchas cosas / El dicho señor cura mando A Maria de Jauregui freyra se Entregase

⁸²³ *Ibid.*, 91-126 fot.

⁸²⁴ BUA 01 C/120-03, f.g.

⁸²⁵ BUA 04 CD/001, 134-139 fot.

⁸²⁶ BUA 01 C/120-03, f.g.

de las ropas y ornamentos y adreços de la dicha hermita. y que venga a Viuir a la casa de las freyras dentro de dos dias so pena de Excomunjón⁸²⁷

Honen arrazoa agian 1587ko inbentarioan ageriratu ziren zenbait desadostasunek eman dakigukete. Litekeena da 1570ean ermitakotzat hartzen ziren ondasun haiek serorek eurenak zirela sostengatzea; izan ere, 1587an Maria de Jauregui serora eta maiordomoa eta auzotarren batzuk ez baitziren ados jarri ermitan zeuden bi kutxa noren jabegokoak zirenaren inguruan:

yt en otras dos arcas pequenas que avia que la dicha Maria de Jauregui dixo ser suyas por que dixieron y declararon el dicho Joan Martinez de Beistegui y otros sus vezinos ser las dichas arcas pertenecientes a la dicha hermita se asyentan en este ynventario por de la dicha hermita⁸²⁸

Badaezpada, “por de dicha hermita” inbentariatu zituzten bi kutxak. Baina ez dakigu maiordomoek eurek ere, zenbaitetan, konfidantza gehiegirik merezi ote zuten. Ondasun guztiak seroren esku uzten ziren kasu hauetan, maiordomoen betebeharra, funtsean, diru-kontuak eramatearena izan ohi zen. Bada, hara zenbait urte beranduago, 1616an, bisitatzailleak maiordomoei zer nolako agindua helarazi zien:

auiendo sido ynformado de que el auer de las hermitas estaba en poder de los mayordomos, y tenian todas necesidad de reparo por no acudir los dichos mayordomos a los dichos reparos y estar apoderados con el dicho dinero por tanto mandaba y mando al mayordomo que al presente es, y adelante fuesen de la ermita de nuestra señora de Burunando que de los alcances que estan en su poder acuda a los reparos que tubiere necesidad la dicha ermita con comunicaci3n y parecer del licenciado Aeta cura beneficiado de la yglesia de Ogirondo so pena de excomunion y con aperçibimiento que los daños que la dicha ermita tubiere los reparase dicho cura por cuenta del dicho mayordomo que para todo ello le dio su merced del señor Visitador comission en forma al dicho cura⁸²⁹

Ohar bedi, halaber, agindua ez dagokiola Murinondoko Andre Maria ermitari soilik; orriaren oinean ere “comission para reparar las ermitas de Vergara” idatzirik utzi zuen Lopez lizentziatua bisitatzailleak. Aipu honek garai hartako ermitetako maiordomoak oso leku onean uzten ez baditu ere, ez ziren noski maiordomo guztiak tankera horretakoak, denetarik baitzegoen. Tenpluaren kargu hartzerakoan izan ohi zuten arduraren adierazgarri, hainbat izan ziren ermiten alde egin zituzten dohaintzak ere, esate baterako.

Bergarako kasu hauez gain Antzuolan, Uzarragako Santa Engrazia ermitan ere 1601ean ermitako ondasunak seroraren eskutan zeudela dirudi. Izan ere, aurretik bertan seroratzat izana zen “freyra de Arzelus”-en eskutan utzi ziren ondasunetatik “seis sauanas y una palia y una camissa” falta omen zirela ohartu zuen bisitatzailleak, eta: "mando que de los vienes que la dicha dexo se aga pago de las dichas sauanas y las demas cossa a la dicha hermita y para el efeto de proçeder y hazer el dicho pago daua y dio comision en forma al bachiller Ynurrigarro cura de la / dicha Vnibersidad"⁸³⁰. Ez gara agian erabat ondasun guzti-guztiak (alegia, baita ornamentuak eta bitxiak ere) seroraren esku izango zirenik ziurtatzen ausartzen, baina gorabehera guzti hauetan maiordomorik inondik ageri ez zaigunez, hala izan behar zuela dirudi. Desagerrarazte saiakeren garaiaren ondoren, Oñatiko kasu baten berri ere badugu: Araotz auzoko ermitetako ondasunen eta diruen berri, hauen zaintzaren kargu zutenek baino izan ohi ez

⁸²⁷ BUA 04 CD/001, 43-44 fot.

⁸²⁸ *Ibid.*, 67-68 fot.

⁸²⁹ *Ibid.*, 119 fot.

⁸³⁰ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 18v-19r.

zutela dirudi (ez dakigu bakarkako serorak, edo Oñatiko ermitetan garai hartan hedatu izan zen lez, ermitau bikoteak ote ziren), 1628an eta 1663an auzoko parrokiako apezari eta maiordomoari ermitetako zaintzaileen eta hauetako ondasunen, diruen eta limosna eskaeren inguruko kontrola ezar zezatela agindu baizitzaien⁸³¹.

Auzo eta elizateetako parrokiatako egoerari buruz dauzkagun berri gutxiak jada XVII. mende hasieratako desagerrarazte aginduaren garaian eta ondorengo garaietan kokatzen dira, eta aurreko ataletan azaldu izan dugun bezala, parrokia hauendako bezalaxe ermitendako ere, eraldakuntza sakonen garaiak izan ziren. Ermitetarako aipatu berri ditugun kasuetan ere ikusi ditugu aldaketa hauen adibideren batzuk. Jaso ahal izan ditugun zenbait datu Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiari dagozkio. 1615ean bertako serora izana zen Maria Lopez de Celayak testamentua helarazi zuenean, bere anaiari honako enkargua utzi zion:

Yten mando que conforme al ymbentario del libro de la yglessia de quenta Juan Lopez de Celahia mi hermano de la ropa del cuerpo de la yglesia de Aocaraca que a estado a mi cargo y cuenta en mi poder el qual dicho Juan Lopez de Celahia que esta presente se obligo a ello y lo consintio⁸³²

Arropak “del cuerpo de la yglesia” zirela zehaztearen horrek bere eskutan ez zeuden beste ondasunak ere bazeudela pentsatzera garamatza; gainera, arropa baino ez zuen aipatu. Baina oster, 1623an Ontiberos bisitatzaila parrokiatik igaro zenean eta bertako serora kanporatu zuenean, seroraren eskutatik apezaren eta benefiziodunen eskutara igaro beharreko ondasunen artean ornamentuak ere aipatu zituen, “y que a quenta de ellos sea y que el maiordomo [*les?*] entregue con inbentario a los dichos cura y beneficiados y ellos tenga[n] la llabe de la sacristia”⁸³³. Honen arabera, Maria Lopez de Celayaren testamentuak aditzera ematen digunaren kontra, ornamentuak ere seroraren eskutan zeudekeen, honek sakristiako giltzak edukitzeaz gain. Zalantzarekin gelditzen gara.

XVII. mendearen bukaeran ermitaren administrazioaren eta, beste kasu batzuetan gertatu ohi ez zen bezala, kontuak ematearen kargu hartzen zuen ermitetako serora baten kasua daukagu Bergaran, Aritzetako San Migel ermitan. Halaber, hurrengo mendean ere ermitetan ohizkoa izango zen egoera bat azaltzen zaigu, ezkonduko ermitau eta serora bikotearena. Kasu honetan, askotan gertatuko zela uste dugun bezalaxe, Mariana de Aguirre serora jada Miguel de Vildasola ermitau eta bere senar izana zenarengandik alargundua zen, eta 1696-1699 bitarteko urteroko kontuak berak emanak zituen. Antza, ez zegoen ermitako maiordomorik, eta 1700ean, jada kontuak egin beharrekin asperturik, bertan apez lanak egiten zituen Joseph de Olariaga San Pedro parrokiako benefiziodunari maiordomo bat izendatu zezan eskatu zion, kontuak egitearen ardurarik ez zuela hartu nahi eta⁸³⁴.

Garai berberetako dugu ospitale bati dagokion adibide bat ere; 1698an, Elgetako Santa Maria Magdalenaren ospitaleko maiordomoen izendapena egitearekin batera (alkatea eta parrokiako apezari izan ziren izendatuak, beraien karguei atxikiak baitzeuden ospitaleko maiordomotzak), bertako ondasunen inbentarioa ere egin zen. “Ynventario de los vienes que en ser se hallan en el hospital” egin zen, alegia, ondasun guzti-guztiena, eta hauek Francisca de Berraondo eta Luisa de Uberaren eskutan utzi ziren, zeinak “Se dieron por entregadas de las cosas y alaxas que contiene el ymbentario de estado”; besteren artean lehenik aipatuak, kalize bat, frontal bat “con guarnición de oro”, eta

⁸³¹ DEAH-AHDSS 1309/004-01, 16v-100r. (akatssez, azken hau izatez 90 folioa baita).

⁸³² GPAH-AHPG 1/0866, 3v.

⁸³³ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 29v.

⁸³⁴ BUA 01 L/113, 13r.

zilarrezko edalontzi bat "para (sic) los religiosos que acuden al dho hospital" zeuden. Kasu honetan beraz, itxuraz behintzat, diruen kontuak maiordomoen esku izango ziren, ondasun guztiak seroren esku gelditzen ziren artean (San Martin 1975, 173-174)⁸³⁵.

Eta adibide hauek jaso izan ditugun garaian, XVII eta XVIII. mendeetan zehar, jada seroren desagerrarazterako neurrien eta debekuen eragina areagotuz joan bazen ere (sakristauen eta ermitau bikoteen bidezko ordezkapena, etab., administrazioarekiko horrek adierazten zuenarekin), XVIII. mendean bertan ermitetako ondasun guztien kargu zeukaten seroren zenbait adibide aurkitu ahal izan ditugu. Arrasaten kokatzen da hauetariko bat, Udala auzoko San Esteban parrokiaren. 1714an bisitatzailleak bertako serora kanporatzea agindu zuen, ezen "no cuida de las cosas tocantes â ella y que se le an entregado". Kanporatu zezaten agindu zuen beraz, "tomandole primero quenta de todas las alajas, y haberes que estubieren en su poder, recibiendo el cura, y maiordomo"⁸³⁶. Agian "en su poder" zeuden ondasun horiek ermitetako ondasun guzti-guztiak ere izango ez zirela pentsa genezake; Oñatiko beste adibide bat argiagoa dugu. San Jose ermitan, Ana Maria de Cortabari eta Francisca de Olabarriarengan 1718an egin zen izendapenean ondasun guztien ematea esplizituki aipatu zen: "se les ayan de entregar los dichos Vezinos todos los ornamentos alajas y demas bienes pertenecientes a dicha hermita dando las suso dichas fiadores legos llanos y abonados para la seguridad de dichos vienes"⁸³⁷. Kasu honetan izendapen hauek hiru urterako baino ez ziren egin, XVIII. mendean zehar Oñatiko ermitetan hedatu zen ohituraren arabera. Ohitura honekin bat alokairua senar-emazte ziren ermitau eta serorei ematearena ere hedatu zen Oñatin, baina kasu espezifiko honetan, bi serora izan ziren aukeratuak; izendapena egin zuten Olabarrietako auzotarrek ez zuten emakumeak objektu sakratuetatik nahiz tenpluen ondasunen administraziotik aldentzearen inguruko ardura gehiegirik izan, Elizako agintariek eta bisitatzailleek ez bezala.

Ardura honen adibide bat Bergaran aurkitzen dugu, Santa Katalina ermitan izan ziren gorabeheretan isladaturik. Hemen ere aipatu berri dugun egoerarekin egiten dugu topo. 1737-1738ko kontuetaz geroztik Joseph de Aldaeta ermitaua eta Antonia de

⁸³⁵ Hona inbentarioa osorik, bidenabar, garai hartan Elgeta bezalako hiribildu bateko ospitale batean izan zitzaketan ondasunen irudi bat dakarguna:

"Primera mte. un Caliz con su platena de plata.
y ten un frontal rasso blanco con guarnición de oro.
y ten un basso de plata, para (sic) los religiosos que acuden al dho hospital.
y ten dos manteles de lienzo de mar (sic) algo gastados para el Altar.
y ten dos vestidos de la gloriossa Maria Magdalena, el uno de rasso blanco y el otro de damasco morado.
y ten dos candeleros de bronze, ó latón, y una lampara de lo mismo.
y ten dos sobre camas, y nueve cobertores de almoadas mayores.
y ten catorce hazes de camas, de lienzo de esta tierra usadas.
y ten una cama cumplida sin hazes, que dio Sn Sid.e (sic) Abbad de Sostoa.
y ten dos almoadas mayores, y una menor.
y ten un bestido de damasco verde para la gloriossa Magdalena guarnecido de encajes de oro.
y ten un frontal de rasso liso blanco.
y ten otro bestido de seda azul.
y ten otro bestido de brocado muy usado.
y ten otro bestido de lana sin afino.
y ten siete camas usadas.
y ten diez arcas de madera antiguas.
y ten en la sala de arriba se allan seis asientos de tabla para los cofrades.
[y] ten una caldera de cobre y una olla de mismo metal, para los pobres, con los demas trastos de cocina."

⁸³⁶ DEAH-AHDSS 3110/002-01, 105r.

⁸³⁷ GPAH-AHPG 1/3249, 43r.

Louiano serora zeuden bertan bizitzen, eta sartu zirenetik, oso egoera kaxkarrean zegoen ermitako seroretxea berreraiki zuten (“se halla casi inhabitable, amenazando ruina”). 1752ko kontuak Antonia de Louianok egin zituen, jada alarguna baitzen. Urte hartan bere burua “la mayordomisa” bezala aipatu zuen, serora zela esateko mesfidantzaz edo, baina jada 1753ko kontuetatik aurrera “serora” lez eman zituen kontuak, bisitatzailerak inongo pegasarik agertu gabe. Kasu honetan badirudi Santa Marinako apezaren aldetiko nolabaiteko babesak ere egon behar zuela, seroraren senar izan zen Joseph de Aldaetaren eta 1742-1743, 1750-1751 eta 1752 urteetako kontuak onetsi zituen Miguel Antonio de Aldaeta apezaren, eta 1756, 1757 eta 1758koak onetsi zituen Juan Tomas de Aldaeta apezaren artean, familia loturaren batzuk tarteko zirela susmatu bailiteke. 1759ko kontuak baina, Sagastizabal zelako batek onetsiak izan ziren, eta urte hartan bertan egin zen bisitan, bisitatzailerak mesfidati xamar agertu zen. Serorari bere kabuzkoak zituen diru gutxi batzuk, 121 marabedi (itxuraz, kontuetan beste kopuru batzuk ageri baitzaizkigu), ermitako “Archibo”-an gorde zitzala agindu zion “para comberttirlos, en el adorno y desencia de dicha Hermita”, eta ondorengo urteetan kontuen ematea maiordomoren baten eskutara iragan zedila “iradoki” zuen, 1752az geroztik (berak 1753az geroztik zela bazioen ere) hauek serorak emanak izatea onartuta ere, ondorenean bestela izan zedin aginduz:

Y mandaba y mando a las personas a cuio cargo estta el dar y recibir las de estta Hermita [*kontuak*] lo hagan en cada un año con mucha puntualidad como la paga y Depositto de sus alcanzes dentro de quinze dias de como las aian dado haciendo Cargo de ellos a los Mayordomos subzesores en sus quantas, como puestos en el depositto, y Declarando a el fin de ellas el dinero que quedare en el⁸³⁸

Hala ere, 1763ko bisitan ez zen oraindik maiordomorik inondik agertu, eta bisitatzailerak aginduak maiordomoren batek egon beharko balu –baina bisitara agertu izan ez balitz– bezala eman zituen, oraingoan kontuak emateko formula zertxobait aldatuz. Kontuak serorak eman zitzala, baina diruen kargu maiordomoak har zezala agindu zuen:

personas obligadas a dar y recibir dichas quanttas lo hagan ttodos los años con mucha puntualidad satisfacciendo con la misma qualesquiera alcanzes que resultaren los que se deposittaran en parte segura junto con los ttrescientos veintte y dos reales y treintta maravedis que dicha Hermitta tiene de buenos de los que se hara cargo a dicha sorora en la primera quenta que formare⁸³⁹

Ornamentuen kontuak ere mesfidantza sortu zion antza, ermita hutsik egon zedila agintzearekin bat, oso ondo ulertzera heltzen ez garen beste agindu bat ere eman baitzuen:

que en el termino de un meses de la notificacion de este autto se haga dexar el caliz que en ella ai para celebrar el santto Sacrificio de la missa por la parte interior y la patena por la inferior sinpliem[?] Sin costte del caudal que tiene dicha Hermita⁸⁴⁰

Kalizea barruan eta patena azpian, baina non? Bistan zuenari buruz jardun behar zuen bisitatzailerak, baina niri behintzat, ez zait garbi geratzen non gorde nahi zituen. Edonola ere, leku seguruan nahi zituen. Hurrengo egin zen ondasunen inbentarioa ez zuen serorak egin, eta sinatu gabe ageri zaigu, eta datarik gabe. Bisitatzaileraren aginduz norbaitek egindako inbentarioa dirudi. 1763-1767 bitarteko kontuak baina, serorak eginak izan ziren. Bitarte horretan kontuak onetsi zituen Rafael de Garitano-Aldaeta Santa Marinako apezaren presentziak, alegia, seroraren senar izan zenaren familia-kide

⁸³⁸ BUA 01 L/111, f.g.

⁸³⁹ *Ibid.*

⁸⁴⁰ *Ibid.*

izan zitezkeen Aldaeta abizendun apezen babesaren itzulerak, ziurrenez, izango zuen zerikusirik aurretiko bisitatzailen mesfidantza giroari buelta ematen. Baina babes hau ezin izan zen luzarorako izan, seroren desagerrarazte eta ermiten itxiera agindua laster heltzekoa baitzen. Serora, ez dakigu zergatik, aginduaren helduera baino lehenago irten zen ermitatik, 1768-1772 bitarteko kontuak jada bere burua “Inquilino de la Casa de la Basilica de Santa Catalina” lez aurkeztu zuen Manuel de Aldaetak egin baitzituen (beste Aldaetatar bat)⁸⁴¹. Serora jada hil zela pentsa genezake, baina ez zen hala izan, 1773-1774 bitartean, Bergarako sindikoak ermitako lursailak bertan serora izana zenari alokairuan eman zizkiola baitakigu⁸⁴². Zer gertatu zen? Agian, serorak Santa Marinako apezen artean zituen familia-kideen bidez desagerrarazte agindua laster heltzekoa zela jakin zuen, eta 1768-1772an ermitako “Inquilino” lez agertzen zaigun Manuel de Aldaeta, bere izenaren pean seroraren presentzia ezkututzen zuen familia-kide bat baino ez genuke izango. Horrela, itxuraz ermitan bizitzen Manuel de Aldaeta egongo zitzatekeen, baina ostera, ermitaren lursailak Antonia berari alokatu zekizkioketen, ez baitzen “ofizialki” bertan bizi. Edonola ere, gure usteak zuzenak izan edo ez, kasu honek XVIII. mendean bakarkako serorek ermitetan bizitzeko izan zitzaketan oztipoen berri ematen digu.

Beste adibide esanguratsu bat daukagu Antzuolan, Oñatiko San Jose ermitan ikusi bezala, ondasunen ematea egiteko fidatzaileak izateko eskakizuna agertzen diguna. Antiguako Amaren ermitan 1742an egin zen inbentarioa Petronila de Yrizar seroraren aitoparen gain egina izan zen; bertan “a su cuidado” zeuden ondasunen berri eman zuen, baina “en poder del dicho Pedro Ygnacio de Yraeta” (maiordomoa) zeudela ere zehaztu zuen, hau hala bazen, “por no hauer sachristia, ni seguridad en la dicha hermita” zela esanaz. Inbentarioa bukatzeaz bat, maiordomoak ondasunak serorari eman zizkion, “ezepto la lampara y candeleros de plata”. Alabaina, seroraren esku uzten ziren ondasunen artean bestelako “plata” eta “ornamentos”-ak ere bazeuden. Ematea serorak Juan Bautista de Yrizar (ez dakigu ze familia lotura izan zezaketen) fidatzailearen bermea eman zuelako egina zitekeen, aurretik aipatua zuen segurtasun faltaren arazoa bazter uztea ez baita bestela ulertzen; gainera, berme honekin, serorak galdu zitekeen edozein ondasunen ordainketa bere kargu hartzea hitzartu zen. 1745ean eta 1761ean egin ziren seroren izendapenetan ere prozedura berbera erabili zen, eta ermitako ondasun guztiak utzi ziren seroren esku, ornamentuak eta bitxiak barne. 1769an, alegia, serorak desagerrarazteko eta ermitak isteko eman zen aginduaren urte berean egin zen seroren izendapen bikoitzean, lehenik ermitako bitxiak Miguel de Yrala maiordomo berriari eman zitzaizkion, eta honek, lanpara eta zilarrezko ganderailuak ezik, gainontzekoak Maria Ana Josefa de Yraeta Ybarra eta Agustina de Ugalde serorei eman zizkien. Alabaina, ziurrenez desagerrarazte aginduaren berri orduantxe heldu zelako (lanpara eta ganderailuak maiordomoak gorde izanak ere egoeraren tentsioaren jakitun zeudela adieraz dezake), emate hau egin izanaren jarraian serorei beraien esku zeuden bitxi eta ornamentu guztiak maiordomoari ematea agindu zitzairen, eta halaxe egin zuten (ermita itxi egin zuten, baina denbora gutxirako)⁸⁴³. Gorabehera guzti hauetan lanpara eta zilarrezko ganderailuak izan ziren batzuetan seroren esku utzi beharrean, maiordomoek gorde zituztenak; balore handienekotzat zituzten ondasunak zirela dirudi, eta ez genuke esango objektu sakratuak emakumezkoen eskutan uzteko ardura handiegirik zeukatenik, beste zenbait bitxi eta ornamentu ardura berezirik gabe ematen baizizkieten, gorde eta erabil zitzen.

⁸⁴¹ *Ibid.*

⁸⁴² GPAH-AHPG 1/0641, 303r eta hurr.

⁸⁴³ DEAH-AHDSS 1263/001-01, 9r-52v (azken folio hau f.g.).

Azkenik, Antzuolan bertan Gure Errukizko Amaren parrokian eta Elgetan Andre Mariaren Zeruratzea parrokian, zegozkien kontu-liburuetan 1746ko bisitetan idatzirik utzi ziren -eta jada beste motibo batzuegatik aipatuak ditugun- agindu batzuk ere esanguratsuak zaizkigu. Berez, 1545ean emaniko agindua izanik 1555eko Konstituzio Sinodaletan (eta ordukoez geroztik, baita ondoengoetan ere) jaso zen eta beste hainbat kontu-liburutan aipaturik aurkitzen dugun agindu berbera da, ermiten ardura zuten pertsonak aipatzean, konstituzioetan adierazi bezala kopiatu ohi zena⁸⁴⁴; kasu hauetan baina, besteetan ez bezala, konstituzioetan “confrades, y a otras quales quier personas que tienen a cargo las ermitas” aipatzen ziren lekuan serorak esplizituki aipatu ziren, maiordomoekin batera. Gainera, Antzuolako kasuan, agindua ez beteaz gero hartu beharreko neurriak ere aurreikusi ziren:

Y respecto de que en los terminos y jurisdiccion de dicha villa de Anzuola se allan la hermita de San Bartolome la de Nuestra Señora de la Antigua y la de Santa Engraçia, que corresponden a esta Yglesia, se manda a las seroras, mayordomos, ô personas a cuiro cargo esta / el cuidado de dichas hermitas las tengan con el aseo y limpieza que corresponde sin permitir se entre en ellas cosas indecentes [...] Y en caso de que en dichas hermitas se enquentre notable descuido, en no tenerlas segun corresponde se les da comision a los curas de esta Yglesia para que puedan multar a dichas seroras, o personas a cuiro cargo esta el cuidado de ellas a correspondencia del descuido⁸⁴⁵

Elgetako kasuan “las hermitas de Nuestra Señora de Uriarte, la de San Antonio de Padua, San Adrian y San Antonio, y la de San Pablo, y otras” aipatu ziren⁸⁴⁶. Aipu hauek agian ez dira bereziki adierazgarriak izango, baina gutxienik, “personas a cuiro cargo esta el cuidado de dichas hermitas”-en artean, XVIII. mendearen erdialdean, Antzuolan bezalaxe Elgetan ere serorak bazeudela argi uzten zaigu; ziurrenez, beste kasu batzuetan ikusi bezala, seroren eta maiordomoen arteko erlazioak garai eta espazio konkretuetan nola garatzen zirenaren arabera, ermitako ondasunen eta diruen gaineko administrazioa ere zenbaitetan serorek euren kargu hartuko zituztela pentsa liteke.

Nahiz eta azken testigantza hauetan tenpluetako ondasun guztiak beraien esku zeuzkaten XVIII. mendeko auzoetako eta elizateetako parroketako eta ermitetako zenbait seroraren berri izan dugun, zenbait aldaketa tarteko (alokairua, fidatzaileak), ohitura zaharraren jarraipena agertzen diguten kasu berezitat, edo behinik behin, jada administrazio orokorra bijilantzia estu baten pean zeramaten kasutzat hartu beharrean gaude, aurreko ataletan azaldua dugun bezala, Debagoieneko landa eremuetako tenpluen egoera orokorrak beste itxura bat agertzen baitzuen. Gainera, ermitau bikoteen kasuan ere, serorak ermitauaz alargundurik, bakarrik gelditzen zirenean, bisitatzaileek mesfidantza handia agertzen zutela ere ikusi ahal izan dugu.

⁸⁴⁴ Hona dagokigun 1555eko Konstituzio Sinodaletako kapitulua, “CAPITULO III. Que los Arciprestes y Vicarios manden a qualesquier personas a cuyo cargo fueren las hermitas tengan cuidado especial de las tener cerradas, y reparadas, y que en ellas no entren ganados ni aya otras inmundicias” titulua daramana: “Por quanto en la guarda de la ermitas de nuestra diocesi, segun somos informado, a hauido tanta negligencia, que muchas de ellas estan caydas, y abiertas, sin puertas, y sin cerraduras, y mal reparadas. Y algunas estan hechas corrales de ganados, y llenas de estiercol, y otras inmundicias, de lo qual es muy deseruido nuestro señor, pues en las dichas ermitas se han celebrado, y hecho los diuinos officios, y es lugar donde ha de ser loado, y reuerenciado, su santo nombre. Porende para que lo sus dicho cesse, y otros mas inconuenientes que dello suelen y pueden recreer, S.S.A. Ordenamos y mandamos que los Arciprestes, y vicarios, y sus lugares tenientes tengan cuidado de mandar a los curas, que cierren las dichas ermitas, y compellan, y apremien a los confrades, y a otras quales quier personas que tienen a cargo las ermitas que a costa de los frutos de ellas las tengan en pie, y bien reparadas, y a tan buen recado que cessen los dichos inconuenientes” (Díaz de Luco 1555, 64v).

⁸⁴⁵ DEAH-AHDSS 1263/003-01, 121v-122r.

⁸⁴⁶ DEAH-AHDSS 2123/003-01, 193r-193v.

Hiribilduetako parrokiatako serorek tenpluetako administrazioan izan zuten eskumena beste tankera batekoa zen, jada XVI. mendearen hasieratik. Bertan Elizako instituzio nagusien kontrola zurrunagoa zelako, sakristauak XVI. mende hasieratik behintzat bazeudelako eta ziurrenez, ornamentu, bitxi eta ondasunak landa eremuetako tenpluetakoak baino balore handiagokoak zirelako, administrazioaren alorrean serorek izan zituzten eskumenak murrizagoak ziren. Garai hartarako dauzkagun berriak batez ere Oñatiko San Migel parrokiatik eta Bergarako San Pedro parrokiatik heltzen zaizkigu. Gogoan izan dezagun nola lehenean, 1425ean jada sakristauen eta seroren funtzioak banatu eta zehaztu zirenean, serorak aldareetara sartzeko debekua jarraitu izan zen, nahiz eta ondorengo urteetan zurrunki errespetatu ez zela dakigun⁸⁴⁷. 1538az geroztik egin ziren inbentario guztietan ere ageri zaigun funtsezko banaketaren antzerakoa zen: sakristauaren esku uzten ziren zilarrezko objektuak eta ornamentuak eta seroraren esku uzten zen parrokiako “ropa blanca”. Funtsean, ornamentuak eta bitxiak eta balio handiko arropak uzten ziren sakristauaren esku, eta serorak balore gutxiagokotzat hartzen ziren arropa eta ohial guztiak jasotzen zituen bere kargura, baita aldareetako zenbait ere⁸⁴⁸. Halaber, Bergarako San Pedron, 1527ko inbentarioan “ropa blanca y antealtares” izenaren pean batu ziren Marina de Barrutia seroraren eskutan utzi ziren ondasunak, sakristauaren esku, Oñatin bezala, ornamentuak, bitxiak eta balore handiko arropak utzi ziren artean. Eta era berean, Oñatin bezala, aldareko arroparen batzuk ere baziren bere eskutan, zerrendaren atal bateko “antealtares” hitzak berak ere aditzera ematen digun lez⁸⁴⁹. Oñatin bezalaxe Bergaran ere, hein bateraino, banaketarako Oñatiko 1425eko sententziaren antzerako logika zerabiltela dirudi, baina emakumeak aldareetatik baztertzeko irizpideak baino, irizpide ekonomiko batek pisu handiagoa zuela esango genuke. Sakristauak, esan bezala, balore handieneko ondasunak zituen bere esku, ez bereziki aldarekoak edo sakratutzat hautematen zirenak. Gainera, aipaturiko arrazoi “moralak” 1425eko sententzian esplizituki adierazi bazen ere, parrokiako arropa eta ohial guztien garbiketa (aldareetakoak barne), orduan ere, serorari esleitu zitzaion. Ardura, barrenean, ez zen hainbeste moralaren edo emakumeen sakratuarekiko “kutsakortasunaren” arlokoa, ekonomiaren arlokoa baizik.

Jarraian, aipagai ditugun bi parrokia hauetako zenbait inbentario emango ditugu, seroren eskutan uzten ziren ondasunen eta aipatu berri dugun ohituraren testigantza emateko. Bergarako San Pedroko 1545eko inbentarioa dugu lehena:

Ropa blanca de lienço la qual esta en poder de la freyra de Ascarrunz
 Primeramente treynta sabanas blancas de lienço buenas
 Yten mas veynte y un manteles labrados
 Yten çinco almeyzares moriscos
 Yten quatro frontales de guada[*miçi?*]
 Yten un frontal de lienço blanco
 Yten mas una sabana que dio la muger de Xpoual Lopez
 Yten unos manteles que dio la dicha muger de Xpoual Lopez
 Yten otra sabana nueva
 Son por todo sesenta y seys pieças las quales quedan en poder de la dicha freyra de Ascarrunz⁸⁵⁰

⁸⁴⁷ Aipua eta azalpenak III. 2.1. azpiatalean, 202-203 or.

⁸⁴⁸ DEAH-AHDSS 3689/001-00 (1513-1553) eta DEAH-AHDSS 3690/001-00 (1553-1616). Bi kontu-liburuetako inbentario guztietan dago banaketa hau; azkena 1579an egin zen, eta ondorengo urteetan ez zen gehiago inbentariarik jaso, kontu-liburuetan behinik behin. Ondorengo urteetarako aurkitu ditugun inbentarioak jada izkribau aurreko protokoloak dira.

⁸⁴⁹ BUA SP2/173-431, 423 fot.

⁸⁵⁰ *Ibid.*, 415 fot.

XVII. mendeko adibide bat jasotzera Oñatiko San Migelera iragango gara; 1672an Maria de Umerez seroraren esku utzi ziren ondasunak, aurreko mendean Bergarako San Pedro parrokiako seroren eskutan utzi zirenak baino dezente gehiago, honakoak izan ziren:

inventario de la rropa blanca que se le entrega a [...]
Lo primero quatro manteles de soro[*jas?*] de lienço de tierra con sus puntos
Yten 10 manteles para altares los [*siete*] con cardenas [*sic*]
Y los tres lisos
Vn mantel de Ruan
Otro mantel de Ruan con puntas
Tres toallas y otro [*sic*] para la comunion de los señores sacerdotes – con sus puntos
Tres lienços que se le ponen al Santo Xpto con sus [*puntos?*]
Dos sabanas con listas de seda encarnada de tres ojas cada vna
Quatro sabanas con listas y labores de seda
Dos sabanas de lienço [???] listas de [???]
Quatro sabanas; digo cinco paños de manos largos y comunes para la sacristia y laboratorio de los señores saçerdotes
Dos manteles viejos de lienço uno con pantas
Quatro rroquetes para los muchachos de la sacristia y para las prosisiones
Doze paños de caliçes para enbolsarlos
Tres paños de manos para el altar mayor
Las cortinas del miserere con su cordel
Yten los paños negros para las cruces del biernes Santo
Yten la rropa del nino Jesus todo de plata
Vna cortina del altar del nino Jesus azul y blanco con su cenefa
Vna cortina en carnada de [*fie de retort?*]
Vna cortina de tafetan açul
Yten otra cortina de tafetan azul y otra morada para el Santo del claustro y la conz[*iencia?*] que hizo Juan Baptista de Tobalina por su debozion
Yten quatro sabanas para cubrir los altares
Vna cortina de red para el Santo Xpto del claustro
Vna sabana para el altar de San Nicolas con pinturas de nauios
Otras dos cortinas para diferentes altares de lienço biejo
Vn frontal del altar de San Antonio de picote biejo açul y franja de plata falsa
Otro frontal de picote atabacado con franja de plata falsa
Yten el lienço que se pone en el tablado del monumento
Yten dos paños de bocaze para cubrir el altar mayor
Yten la arca en que estan estas ropas
Yten la corona y Sagrario con sus dos angeles con oropel que son para el monumento
Dos tornillos para la anda de la Soledad
Ornamentos de la Yglesia
En el altar de los reyes vn mantel
En el altar de San Nicolas vn mantel
En el altar mayor vn mantel
Otro mantel para el aparador
En San Antonio otro mantel
En Santa Teresa vn mantel
En la Santa Beronica vn mantel
En San Sebastian otro mantel y sabana como frontal
En el altar del niño Jesus dos manteles⁸⁵¹

Inventario honetan, ohialen eta arropen azalpenen zehaztasun handiagoaz beste, “Ornamentos de la Yglesia” bezala gehitzen zaion atala egiten zaigu deigarri, jada

⁸⁵¹ GPAH-AHPG 1/3191, 649r-649v.

ohartu dugun bezala, aldareetako zenbait ornamentu, ohialezkoak denak, seroraren eskutan uzten zirela argi eta garbi azaltzen baitigu. Gainera, XVII. mendearen bigarren erdialde hartan parrokiak ehun, ohial eta arropatan jasotzen zituen ondasunen gorakada esanguratsu bat izan zela esan liteke, 1672an egin zen inbentario honen eta 1697an, hurrengo seroraren sarrera zela eta egin zenaren artean, alde handia baitago. Azken inbentario hau ez dugu hemen jasoko, luzeegia baita⁸⁵²; baina bertan jaso izan ziren Maria Antonia de Idigoras serora berriaren eskutara igaro ziren beste ondasun batzuk ere, 1672ko inbentarioan agertu izan ez zirenak: erlikia-ontziak (“Agnus Dei” ere deituak) eta bitxien kutxak. Ikus dezagun zeintzuk ziren:

Dos agnus guarnezidos en platta
 Vn Joyel de Christal con ymagenes del Saluador y la virgen guarnezido de oro
 Vn relicario de platta sobredorado con lignum crucis
 Otro agnus guranecido de platta sobredorada
 Otro Joyel con Ymagen de San Ysidro
 Otro Rrelicario con Ymagen de Nuestra Señora del Populo guarnezido de negro
 Otros quatro joyeles ordinarios
 Otro Joyel de bronze con ymaxen de San Anttonio
 Otro Joyelico pequeño con Ymagen de Nuestra Señora con sus extremos de oro
 Dos Rosarios de Coral el vno con pater nosterres de platta y el otro con vna medalla y dos cruces de plata
 Otro Rosario largo de quantas menudas con vn Santo Xpto de oro y tres perlas y las quantas de granetes
 Una cadena de Alquimia Gruessa
 Otros dos Rosarios de Coral que tiene la mesma Ymagen
 Quatro Rosarios de christal
 Vn Joyel de Porzelana [...] ⁸⁵³

Bitxirik baliotsuenak sakristauen zaintzapean izaten baziren ere, seroren ardurapean izaten ziren ondasunen artean bazeuden bitxiak eta ondasun baliotsuak ere, aldareetako hainbat ornamentu bezalaxe. Ez genuke esango serora hauek aldarean sartzeko oztopo handiegirik izan zutenik, ez behinik behin parrokiako agintari erlijiosoen aldetik. XVII. mendearen bigarren erdialdean parrokia honetako seroren administraziopean zeuden ondasunek halako egoera oparoa azaltzen badigute, 1768rako (hurrengo urteko desagerrarazte aginduaren atarian) parrokiako ondasunen administrazioaren alorrean bertako serorak zeuzkan eskumenak asko apaldu zirela dirudi; Maria Gabriela de Sarraoaren eskutan utzi ziren ondasunak gutxiago ziren, eta zehaztasun gutxiagorekin inbentariatu zituzten:

Primeramente ymbentariaron dos cofres uiejos Ajados
 Ytt. Ymbentariaron treinta y tres manteles de los Altares
 Ytt. Onze paños de manos de Sachristia
 Ytt. Siete roquetes de Acolitos y el de la Cruz
 Ytt. ocho paños de manos para el Altar Maior
 Ytt. nueve sabanas que siruen para el monumento
 Ytt. un sobrepañ de la tumba
 Ytt. Cinco paños que siruen para el Lauatorio del mandato
 Ytt. Cinco delantales del Santo Christo
 Ytt. dos tocas de Gaza de Nuestra Señora, con mas siete paños del comulgatorio
 Ytt. Quatro uestidos de Nuestra Señora de seda tres usados y uno nuebo, blanco, encarnado, y amarillo ⁸⁵⁴

⁸⁵² GPAH-AHPG 1/3246, 65r-67v.

⁸⁵³ *Ibid.*, 66v-67r.

⁸⁵⁴ OUA Z 1088.3, f.g.

Ikusten dugu bada; ondasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, baina seroren administrazioaren inguruko ohiturek, trazu orokorretan, bere horretan jarraitu zutela dirudi. Aldareetako ohial eta ornamentuei zegokienean behinik behin, ez dirudi hauen ardura euren gain hartzeko zailtasun handiegirik izan zutenik, Konstituzio Sinodaletan helarazi ziren debekuak zirenak zirela.

Arrasateko San Juan Bataiatzailean ere, 1677an sakristaua eta serora senar-emazte izatearen ohitura har zedin baino lehenagoko garaietan, Oñatin eta Bergaran jarraitzen zen ohituraren antzerakoa zeukatela dirudi; 1655ean egin zen inbentarioan behintzat, Antonia de Bilanueba serorak jaso zituenak honela aipatu ziren: “la ropa blanca, albas, çingulos, amitos y de todas las demas cossas tocantes y pertenescientes a tener a la beata de la dicha yglessia”. Kasu honetan, aurrekoetan ez bezala, apezen zenbait jantzi behintzat seroraren eskutan zeudela dirudi, nahiz eta ornamentuak eta bitxiak sakristauak izan⁸⁵⁵. Sakristaua eta serora senar-emazte izatearen ohitura hartu zutenaz geroztik berriz, inbentarioan ondasun guztiak batera emateari ekin zitzaion (adibidez, 1720an egin zenean)⁸⁵⁶. Arrasaten bezala sakristaua eta serora senar-emazte izatearen ohitura zeramaten Eskoriatzako San Pedro parrokian ere, eta ezagutzen diogun lehen inbentariotik, hau da, 1706tik, ondasun guztiak bikoteari batera emateko ohitura zutela ikusten dugu. Inbentarioa sakristauen aldaketa egiten zenero egiten zuten, eta gizonezko sakristauak baino izan ez ziren 1765-1792 bitartean salbuespenez, gainontzeko kasu guztietan egin zen esan berri dugun bezala: 1706an, 1717an, 1722an, 1752an bi aldiz, 1764an eta 1792an⁸⁵⁷.

Jaso ahal izan ditugun adibide hauek agertzen diguten egoera, besterik gabe, sakristauen presentzia ohikoa izan zen lekuetan hauen eta seroren artean eman zen funtzioen banaketarena dugu. Arrasateko eta Eskoriatzako parrokiako kasuak bereziak dira, baina ez agian hainbeste, esana dugunez, Bizkaian ere senar-emazte ziren sakristau eta seroren kasuak izan zirela baitirudi, lurraldearen eki-hegoaldera hedatzen baita –edo hedatu baitzen– “serora” hitzarekin sakristauaren emaztea adieraztearen erabilera (Gernika, Arratia, Mañaria, Orozko) (De la Sota; Lafitte; Akesolo 1989, 3384; Azkue 1995, 219). Hala ere, hauek ere arauen betearazpena heldu zen espazioetako adibideak ditugu, XVIII. mendean –batez ere– Leintz-bailarako eta Oñatiko ermitetan gertatu izan zen bezala, tenpluaren zaintzaren ardura bikote baten esku zegoenetan (kasu hauetan, sakristaua eta serora beharrean, ermitaua eta serora), ondasunak banaketarik gabe uzten baitziren hauen esku. Azaldu dugu aurreko ataletan nola Arrasaten eta Eskoriatzan jarraitu zen ohitura Konstituzio Sinodaletako arauari egokitzeko arduraren ondorio izan zela pentsa litekeen.

Edozein kasutan, ez genuke noski azaldu berri dugunagatik hiribilduetako parrokiako serorak landa eremuetakoak baino egoera okerragoan bizi zirenik ondorioztatu behar. Tenpluen ondasunen eta beraien administrazioaren gain kontrol urriagoa izanda ere, hiribilduetan zeuzkaten abantaila eta etekinak askoz handiagoak baitziren. Ikusi izan dugun bezala, parrokia batzuetan soldata ere jasotzen zuten, eta batez ere, jarlekuetako zerbitzuek eta hauei loturiko negozio paraleloek etekin handiak eman zitzaizketen. Baina horri ekin aurretik, landa-eremuko serorek bezalaxe hiribilduetako parrokiako serorek ere tenpluko beste alor batzuetan burutzen zituzten administrazio lanak aipatu beharrean gaude.

⁸⁵⁵ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 5r.

⁸⁵⁶ DEAH-AHDSS 4824/002-01, 18r.

⁸⁵⁷ DEAH-AHDSS 2253/001-03.

VI. 1.3. Argiteria: olioa eta argizaria

Ermitetako (eta santutegietako) serorek, tenpluaren administrazio orokorra beraien esku zegoenean, bertako argiteriaren kargu ere hartzen zuten noski. Eta are administrazio orokorraren gaineko eskumena maiordomoen edo ermita eta parroketako beste karguen eskutan zegoenean ere, alderdi hau askotan beraien esku izaten zuten. Alabaina, ermitetako serorek argiteriaren gain zeukaten eskumenari buruz eskuratu ahal izan ditugun datuak ez dira hainbeste; alde batetik ermitetako kontu-liburuetan jaso izan ziren datuak parroketakoetakoak baino urriagoak eta xedapen gutxiagokoak direlako, eta bestetik, esan bezala, alderdi hau administrazio orokorraren baitan txertaturik hautematen zelako. Hala ere, heldu izan zaigu aipamen zehatzen bat: Bergarako Murinondoko Andre Maria ermitan, 1611n ermitako argiteriaren aldeko 14 dukat printzipaleko zentsu baten berri eman zen, honen kobrantza eta administrazioa seroren esku zegoela argi eta garbi aipatuz: "el dinero de censo cada año suelen cobrar las freyras de la hermita deziendo estar destinado para gastar en la luminaria de ella"⁸⁵⁸.

Argiteriaren zaintza Larramendik seroren "ministerio"-aren parte lez aipatu zuen: "Cuidar de las lámparas, de que arda siempre la que alumbra al Sacramento, y apagar y encender las otras en los tiempos sabidos" (Larramendi 1985 -1754-, 137). Baina ez zigun, beste zenbait autorek egin bezala, langintza honen administrazio ekonomikoa ere beraien esku egon zitekeenik adierazi edo zehaztu. Alderdi honen berri Webster-ek eman zigun lehenik, Domingo de Mans Baionako apezpikuaren 1302ko testamentuko dohaintzak aipagai harturik; dohaintza serora berari egina izan zen, apezpikuak aginduriko betiereko anibertsarioko mezarako argiteria bere kargu baitzegoen, eta gainontzekoa ere, berari baitzegokion ordain lez:

legó cien sueldos á la Benita (*Benedictae*) de la Catedral, dos sueldos de Morláas por año para comprar cirios y otras cosas con destino á la Misa de aniversario perpetuo, mas lo que de ello restare deberá volver á la misma benita en concepto de limosna anual (Webster 1911, 143)

Beste autore batzuek, Aranak adibide baterako, lanparen -eta bereziki Sakramentu Santuarenaren- zaintzak zeukan garrantzia azpimarratu zuten, administrazioaren alderdirik aipatu gabe baina (Arana 1992, 101). Sorazuk ere Sakramentu Santuaren argia (olioa eta kandelak) eta pazko zuzia aipatu zituen Gaintzako (Gipuzkoa) San Migel parrokiaren serorak piztu eta zaindu beharreko argien artean, meza nagusietan eta azaroko igandeetan piztu beharreko urtean hildakoen jarlekuetako argizariez gain (Sorazu 2009 -1993-, 22-23). Gipuzkoako beste leku batzuetan ere badira administrazio lan hauen adibideak, liskar eta guzti: 1577an Tolosako udalbatzaren eta Santa Maria parrokiako Madalena de Belaunza seroraren ("monja mayor" bezala izendatua bazen ere, ez zen botuak eginiko moja, serora baizik) arteko auzi bat izan zen, Sakramentu Santuaren argiteriarako dirua jasotzea nori zegokionaren inguruan; antza, ordurarte serorek jaso izan zuten argiteriarako dirua, baina udalbatzak, jasotzen zena asko zela iritzita edo, arduradun propio bat ezarri zuen, serora nagusiak auzitara eramatea motibatuz (Azpiazu 1995a, 49). Aguirre Sorondok, aktibitate hauetan parroketako seroren partehartzeak azaltzen digun flexibilitatea sarrerako esaldi egoki batekin azaldu zigun: "servía a los fieles en todo lo que estos requiriesen". Eta zerbitzu hauek, zenbait kasutan, argien piztu eta itzaltzeaz gain hauei loturiko alderdi ekonomikoen administrazioa ere barneratu zezaketen: "disponer y vender la cera -en poblaciones pequeñas donde no había cerero- de la *eskubilla* para encender sobre los *yarlekus*" (Aguirre Sorondo 1995a, 110).

⁸⁵⁸ BUA 04 CD/001, 112 fot.

Araba aldera iraganez, Laudioko ermitetako serorak ere tenpluetako argiteriaren kargu harturik ageri zaizkigu; zehazten ez zaigun ermita bateko serorak, besteren artean, honako eginkizuna zeukan: "el cuidado de su lámpara de hojadelata, que habría de estar encendida las vísperas de las fiestas y en las fiestas mismas, por lo menos" (Navarro Ullés 1998 -1997-). Eta Iparraldera itzuliz baina XVIII. mendearen bukaera aldera helduz, Lafourcade-k 1778ko Arrangoitzeko (Lapurdi) parrokiako seroretxean zerbitzera sartu zen Gratianne Dufau seroraren posesio-agiria adibidetzat hartuz aipatu zituen seroren argiteriarekiko lanak: "Elle alumait et éteignait les lampes à huile et les cierges" (Lafourcade 1991, 31). Desport-ek, Iparraldeko serorei eta seroretxeei eskainiriko lan kolektibo berberean, Hiriburuko (Lapurdi) parrokiako seroren berri gehiago dakarzkigu, argiteriaren inguruan serorek zeuzkaten eginkizunen eta administrazioaren inguruko beste zenbait zehaztapen emanez: Ostegun Santuan parrokia kanpokaldean su bat pizteko ohitura zegoen antza, eta 1790ean motibo horregatik egin zitzaion 6 liberako ordainketa batek serorak su haren ohiturarekin zerikusiren bat bazeukala agertzen digu. Bestalde, koruko lanpararen suaren mantenua bere zaintzapean zegoen, eta halaber bere eskutan zegoen olioaren ornikuntzagatik urteroko 30 eta 80 libera bitarteko ordainketak egiten zitzaizkion (Desport 1991, 69).

Administrazioaren alderdi honen inguruan, Debagoienean, parrokiatan aurkitzen dugu berririk gehien. Bergarako San Pedro parrokiako serora zen Marina Garcia de Oruesagastik 1607an testamentua helarazi zuenean, zorren artean Catalina Lopez de Gallaizteguik eta bere alaba Maria Martinez de Amatianok ordaindu beharreko 14 dukat printzipaleko zentsu bat aipatu zuen. Zentsu hau San Pedroko hiru seroren alde helarazia izan zen, eta parrokiako Sakramentu Santuaren argiterian xahutu beharrekoa zen. Bere lana konplutuki betez, beraz, artean ordaindu beharrean zeuden diruen berri eman zuen: "solo a pagado dos ducados para corridos y no mas y son de la yglesia de San Pedro"⁸⁵⁹. Parrokia berean zenbait urte beranduago serora izan zen Maria de Ondarzari Santos de Zabaletak Sakramentu Santuaren argiteriarako urteroko 78 libra olio ematen zizkion, eta 1622an serorak 1621 eta 1622 urteei zegozkien ordainketen ordainketa-karta helarazi zuen bere alde. Serorak, bide batez, olio zegoakion xedean xahutu zuela deklaratu zuen, aurrerantzean ere horrelaxe egingo zuela zin eginez⁸⁶⁰.

Baina administrazio hutsaz gain, San Pedroko serorek negozioak ere egiten zituzten argiteriaren inguruan, bereziki argizariarekin. Argizari zaharrak, jada urtutako kandelenak, parrokiari erosten zizkioten, gero berriak egin, eta berriro parrokiari salduz. 1520-1521eko kontuetan Barrutiako serorari zenbait erreale ordaindu zitzaizkion "por derretir ciertos cirios e por fazer las candelas de las tinieblas e por el [palieso?] de ellas e del cirio pasqual". 1527ko kontuetan serora berberak zenbait erreale zorra zeukan parrokiarekin, jaso izan zituen argizari zahar batzuk zirela eta⁸⁶¹. 1563an Ondarzako serorak argizari zaharraren 63 libra erosi zituen 3.780 marabeditan (ggb., 111 erreale), eta beste 6 erreale eta erditan, anibertsarioetan xahutu zenaren soberakina. 1570eko hamarkadan (ezin izan dugu data zehatza irakurri) egindako bisita batean bisitatzaileak negozio hauei erreparatu zien, eta salmenta hauei bukaera ematea agindu zuen, bidenabar, negozioak berak zertan zetzan azalduz:

Otrosi el dicho señor Visitador sobre haber visto por las cu[entas] de este libro que en la çera que los mayordomos de la dicha [yglesia] uendian hazian gran fraude porque uendiendo çera de la yglesia que basta para su seruiçio a sesenta maravedis compraban a tres rreales y [me]dio. Para el remedio de los suso dicho mandaua y

⁸⁵⁹ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47r.

⁸⁶⁰ GPAH-AHPG 1/0228, 118v.

⁸⁶¹ Bi kasu hauetan ezin izan dugu kopurua ondo irakurri.

mando a los maiordomos que son o fueren de aquí adelante que no bendan ninguna çera de la dicha iglesia si no es y fuere lo que sobrare sobre hauerse cunplido todo lo neçesario para el seruiçio de la dicha iglesia so pena de excomunion trina canonica moniçione premisa y de quatro çientos marauedis aplicados para la obra de la dicha iglesia⁸⁶²

Praktika hau ez zen Bergarako San Pedro parrokiakoa soilik. Argizariaren eta olioaren inguruan serorek zeramatzaten kontuen inguruko kontrol handiagoari buruzko bisitatzailen aginduak Debagoieneko beste hainbat parrokiatan eman ziren: 1657an Elgetako Andre Maria parrokian argizariaren eta olioaren inguruko gastuak (kopurua eta prezioak) kontuetan aipatzea agindu zen, eta agindua eman ostean 1663-1664ko kontuetan olioaren gastuen berri eman zenean, hauek “por manos de la sorora de la Yglesia” xahutu zirela zehaztu zuten⁸⁶³. 1672an Oñatiko San Migel parrokian egin zen bisitan bertako bikarioari kontuak eskatu zitzaizkion, azken bisitan testamentuetan Sakramentu Santuaren argiteriarako egiten ziren olio dohaintzen kontuak eramatea agindu zitzaiola, eta agindurikoa bete ez zuela eta; bi dukateko isuna jarri zion bisitatzailak. Halaber, serorari hamabost egunen barruan olioagatik jasoak zituen diruen berri eman zezala agindu zion, eskumiku meatxupear⁸⁶⁴. Aurreko urteetako kontuetan, eman izan ziren olioaren eta argizariaren gastuen zenbait berri. Olioaren dohaintzak serorari ematen zitzaizkion, eta honek, xahaturikoaren berri ematen zuen. Argizaria berriz, bere kontu ipintzen zuen, eta parrokiak zegokion kopurua ordaintzen zion. Baina batez ere olioaren administrazioaz eta ornikuntzaz arduratzen zen. Zenbait kopuru emango ditugu, maneiitzen zituzten diruak zenbatekoak ziren ikusteko interesgarria baiteritzogu: 1565-1567ko kontuetan, serorak “solo” 24 erreale jaso zituen (olioa); 1567-1568koetan, 2349 marabedi (ggb., 69 erreale) (olioa); 1610ean, 84 erreale (olioa)⁸⁶⁵; 1621ekoetan, 6 libra eta ½ argizarigatik (“labrada”) 24 erreale ordaindu zitzaizkion; 1681ekoetan, 84 erreale jaso zituen (olioa).

1686az geroztik, agian zenbait urte lehenago bisitatzailak eman zuen aginduegatik, ohitura aldaketa bat izan zen, lanparetako urteroko olio gastuaren ordainketa partida bakarrean egiteari ekin baizitzaion. Serorak dohaintzetatik jasotzen zuena zehaztu beharrean, hau, besterik gabe, olioaren ornikuntzaz arduratzera iragan zen; urte hartan, serorak 357 libra oliogatik 378 erreale jaso zituen; 1687an, 274 libragatik 322 erreale; 1688an, lanparetako eta “monumento”-aren argiteriako oliogatik 533 erreale eta erdi; 1689an 392 erreale (olioa); 1690ean, 301 libragatik eta Aste Santuan xahutu zenagatik 424 erreale eta 12 marabedi (olioa). 1699an “por el coste y conduccion de una carga de azeitte que pesso nueue arrobas y çinco libras” 55 erreale, eta 1702an, bere kabuz ekarri eta ordaindu zituen 9 arroa eta ½ oliogatik 332 erreale eta ½ ordaindu zitzaizkion⁸⁶⁶. 1759rako, parrokian “los señores comisarios de la fabrica” zirenek hitzarmen bat egin zuten serorari ehorzteetan oliogatik ordaindu behar zitzaizkionen inguruan, eta bertan, serorak honen ornikuntzaren inguruan zeuzkan etekinak desagerrarazi edo behintzat murriztu nahi izan zirela dirudi, ezen “se preuiene [*que se?*] ha de hazer al precio corriente de la tien[da]”. Hau, “tienda” serora berarena zela ulertzen ez badugu noski, batere arraroa izango ez zatekeen posibilitatea⁸⁶⁷.

Xehetasun gutxiagorekin bada ere, orain arte aipaturikoez gain baditugu Debagoieneko beste zenbait parrokiatako serorek argizariaren eta olioaren

⁸⁶² BUA SP15/291-329, 312-313 fot.

⁸⁶³ DEAH-AHDSS 2123/002-01, 110v-111r, 134v.

⁸⁶⁴ DEAH-AHDSS 3691/001-00, 204v-205r.

⁸⁶⁵ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 139v-393v.

⁸⁶⁶ DEAH-AHDSS 3691/001-00, 24v-292r.

⁸⁶⁷ Ikus aipua eta azalpenak VI. 1.5.3. azpiatalean, 508 or.

administrazioan izan zuten partehartzearen inguruko beste zenbait berri ere. Oñatin bertan, auzoetako parrokiako adibide bat daukagu, Urrexolako Andre Mariaren parrokiari. 1589-1590eko kontuetan argiterian xahutzeko 11 erreal eman zitzaizkion serorari maiordomoaren eskutik, eta 1590-1591koetan berriz, maiordomoa eta serora izan ziren 35 erreal eta laurdeneko balorea zeukan olio kopurua argiteriaren gastuetarako jaso zutenak, “como ellos lo confesaron y se aueriguo ser uerdad”⁸⁶⁸. Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako 1654-1655eko kontuetan Sakramentu Santuko argiteriaren olioagatik Francisca de Billar serorari 110 erreal ordaindu zitzaizkion, eta 1656koetan, 1656-1657koetan eta 1657-1658koetan ere, kontzeptu beragatik beste zenbait ordainketa egin zitzaizkion⁸⁶⁹. Antzuolan, Gure Errukizko Ama parrokiari, 1756ko kontuetan “por renovar treinta y tres libras y quarteron de cabos de cera” Teresa de Benitua serorari 66 erreal eta erdi ordaindu zitzaizkion, eta 1760koetan berriz, 24 libra eta $\frac{3}{4}$ argizariarekin beste hainbeste egiteagatik, 49 erreal eta $\frac{1}{2}$. 1765eko eta 1770eko kontuetan oster, lan berbera egiteagatik seroratzat aipatu ez zen beste emakume bati egin zitzaizkion ordainketak, Maria Josefa de Ezpeletari. Eta azken urte horien bitartean, badira argizariaren salerosketen inguruko beste zenbait partida ere, baina nork erosi eta nork saltzen zituen zehaztu gabe. 1770ko kontuen ondorengoetan, jada “maestro cerero” bati erosi zitzaizkion argizariak (beste behin, aldaketa hauen atzean 1769ko desagerrarazte aginduaren testuingurua zegokeen)⁸⁷⁰.

Eta hara non, argiteriako argizari eta olioaren inguruko administrazioak eta bestelako negozioek parrokiako seroren ezaugarri amankomun izaterako bidea zeramatenean, serorekin hainbestetan gertatu ohi den lez, salbuespena agertzen zaigun. Antzuolan zenbait urtetan Maria Josefa de Ezpeletak argizariaren kontuetan parte hartu zuen bezalaxe, Eskoriatzako San Pedro parrokiari ere, parrokiako zerbitzuaz kanpoko beste emakume bat aurkitzen dugu argizariaren inguruko kontuetan parte hartzen. Bertan, 1703-1704ko kontuetan, Ana Maria de Ysasi zelako bat ageri zaigu honako lanetan:

Ytten veintte y cinco rreales pagados a Ana Maria de Ysassy por la ocupazion que tubo en componer las quatro hachas por auerse quebrado y anadido dos libras de zera amarilla, ademas de lo que pessauan las quebras y lo demas por la merma de la cera y echuras⁸⁷¹

1709ko kontuetan ere emakume berbera ageri zaigu, argizariaren ornikuntzagatik egin zitzaizkion zenbait ordainketa medio⁸⁷². Ondorengo orrietan ikusiko dugun lez, urte haietan parrokiako serora (“sacristana”) zenak ohialekin zerikusitu gehiago zuten beste langintza batzuei ekitea nahiago zuen, argizariaren kontuekin ibiltzea baino.

Serorei buruzkoak ikertzerakoan salbuespenak ia araua direla onarturik, kasurik gehienetan, maila ezberdinetan eta eskumen ezberdinekin, serorek Debagoieneko parrokiari eta ermita gehienetako argiteriaren administrazio eta ornikuntzan parte hartzen zutela esan dezakegu. Zenbaitetan, gainera, Bergarako San Pedro parrokiari ikusi ahal izan dugunez eta Elgetako Andre Marian eta Oñatiko San Migelen bisitatzailleek agertu izan zuten mesfidantzak ere iradokitzen duenez, argiteriaren inguruko lanek zenbait negozio eta etekineterako bidea ere ematen zuten.

⁸⁶⁸ DEAH-AHDSS 3150/002-01, 4v-7r.

⁸⁶⁹ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 21r-33v.

⁸⁷⁰ DEAH-AHDSS 1263/003-01, 174v eta hurr.

⁸⁷¹ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 18v.

⁸⁷² *Ibid.*, 54v.

VI. 1.4. Ehunak, ohialak eta arropak

Atal honetan seroren aktibitate hauek espezifikoki tenpluen ondasunekiko loturan nola burutu izan ziren ikusteaz arduratuko gara, baina ondorengo ataletan emango dugu zabalago, ehunen, ohialen eta arropen inguruko aktibitateek seroren aktibitate ekonomiko eta sozialen testuinguru orokorragoan izan zuten garrantziaren berri. Berez, zentzu honetan eskuratu ahal izan dugun informazioa, jada parroketako ohialen administrazioari buruz esandakoez beste, nahiko urria da, tenpluen jabegoko ehun, ohial eta arrokekin serorek burutzen zituzten konponketa nahiz joskintza lanen berri handiegirik ez baitzen parrokia eta ermitetako liburuetan jaso izan, eta protokoloetako dokumentazioari buruz ere, seroren testamentuetan tenpluen alde egin ziren ehun, ohial eta arropen dohaintzen salbuespenez, beste hainbeste esan liteke. Serorek alor honetan burutzen zituzten aktibitate gehienak, gainera, jarlekuen zerbitzuari loturik egon ohi ziren, edo bestelako salmenta eta dohaintza pertsonaletan gauzatzen ziren. Eta jarlekuetako ehun eta ohialak, ez ziren tenpluen jabegokoak izan ohi, partikularrenak edo serorenak baizik. Hauei buruzkoak aktibitate laikoaren artean ondasun hauei eskainiko diegun atalean azalduko ditugu⁸⁷³.

Atalari ekiteko baina, Nabarnizeko (Bizkaia) hil-ohialaren inguruko ikerketa batean heriotzaren inguruko arropa eta ohialen produkzioaren inguruan autoreek egin zituzten zenbait hausnarketari leku egingo diegu, hain zuzen ere, atal honetan eta zerbitzu partikularreko ehun, ohial eta arropei eskainiriko beste atalean jasoko ditugun datuek berretsiko diguten uste -edo lanerako hipotesi- bat egoki planteaturik ageri baitzaigu:

Este protagonismo en los ritos funerarios [*serorena*], nos permite ahondar en la suposición de que en torno a este cargo podría existir una producción especializada de paños funerarios y eclesiásticos, tanto para el uso de la propia parroquia o ermita como para su comercialización entre los feligreses. Esta industria podría encontrarse en manos de la serora o al menos bajo su control. Nuestra suposición se ve arropada a su vez por la independencia económica con que contaban estas mujeres, ya que por su trabajo recibían un sueldo dotado por la Iglesia y cobraban en especie a las familias de los finados (trigo, maíz y lino). La independencia económica les permitiría acceder a la adquisición de productos ajenos al territorio, que el comercio proveía en cantidad, generando una producción no solo especializada sino de calidad, y con ciertos visos de exclusividad, cualidades, todas, esenciales en los paños funerarios (Jiménez Ochoa de Alda; Mujika Goñi 1999, 378)

Esan bezala, uste edo hipotesi tankeran formulaturiko adierazpen hauek, serorek joskintza eta ehungintza aktibitateetan jokatzen zuten paperarekiko (produkzioa / aktibitatearen gaineko kontrola), heriotz-erritueta ohialen espezializazioarekiko, nahiz aktibitate komertzialetan zeukaten partehartzearekiko, serora askoren kasuan zuzenak direla berretsiko dugu jarraian. Hala, adibide aski garbi bat ematearren, Zalduendoko (Araba) ospitalean serora zen Catalina de Luzuriaga 1564an izurriak jota hil zenean, bere ondasunen kargu hartzerakoan "que se trataba en vida de beata y hera costurera" aipatu zuten (Arza Alday 2006, 44).

Oraingoan, atal honetan, tenpluen jabegoko ehun, ohial eta arrokekikoak ikusiko ditugu. Datuak, esana dugunez, ez dira gehiegi; baina hala ere, aski esanguratsuak zaizkigu aipatu berria dugun egoera modu egokian eta behar besteko sendotasunez bermatu eta berresteko.

⁸⁷³ 547 eta hurr. or.

Orain arte beste hainbatetan eraman izan dugun ordenari jarraiki, Bergarako San Pedro parrokiako berri batzuekin ekingo diogu, bertan aurkitu baititugu gainera atal honi dagozkion datu gehienak. 1545ean bisitatzailleak eman zituen aginduetariko bat ohialen berrerabilpenari buruzkoa izan zen:

Yten por quanto visitando la dha. Ygl^a. de San P^o hallo q. avia muchas sabanas demasyadas q. se perdian en la dha. Ygl^a. y las seroras se aprovechavan dellas, su md. mando al cura e mayordomos q. dexando las mexores sabanas de la dha. Ygl^a. ... dobladas p^a cada altar todas las otras vendan en almoneda p^a probecho de la dha. Ygl^a. (Sorondo 1994, 294)

Argizariarekin bezala, San Pedroko serorek parrokiako ohialekin ere negozioren bat egiten zutela dirudi; edo bisitatzailleak behintzat, hala uste zuela. Honekiko, gogoan izan dezagun goraxeago jaso dugun Berastegiko (Gipuzkoa) parrokiako seroraren kasua, zeinak, 1738an eliz-kabildoarekin finkatu zuen hitzarmenaren arabera, "de los linos que se recogieren añalmente en el Diezmo que les toca a dichos señores del Cabildo" bere partea jasotzen zuen, aurretik sekula idatzi gabea izan zen arauaren indarrez (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 429). Ez litzateke harritzekoa izango Bergarako San Pedro parrokian ere XVI. mendean tankerako ohiturak jarraitu izatea, eta hau bisitatzaillearen gustokoa ez izatea. 1553an berriz, azken parrokia honetara itzuliz, bisitatzailleak eman zituen aginduen artean jendeak dohaintzan emanak zituen arropen inbentarioa egitearena ere eman zen, eta bertako bikarioari aginduaren betekizuna agintzeaz gain, hauek seroren eskutatik kendu eta egoki zeritzon beste norbaiten esku uzteko ere agindu zion. Honen arabera, 1545eko agindua gorabehera, serorek jendeak dohaintzan ematen zituen arropak jasotzen jarraitzen zutela ikusten dugu; honek ere ohitura bidez finkatua zegoen jarduera eta etekinak zirela pentsatzera garamatza⁸⁷⁴. 1574an izan ziren gastuetan berriz, Oruesagasti "menor"-eko serorak parrokiako meza-mutilendako egin zituen bi alkandoragatik egin zitzaion ordainketa ageri zaigu, ggb. 15 erreal eta erdikoa⁸⁷⁵.

Begarako San Pedron serorek jasotzen zituzten jendearen dohaintzako ohialek parrokian izan zezaketen xedearen inguruko zalantzak (agian bisitatzailleak berak ere izan zituenak), Oñatiko San Migeleko elizako kabildoak, bisitatzaillearen serora kanporatzeko 1637ko aginduaren aurrean, 1638an seroraren auzitegieta defentsarako helarazi zuen ahalorde batean argitu dakizkiguke. Bertan aipatu ziren seroraren eginkizunen artean, honakoa zegoen: "cojer linos que dan personas particulares uezinos de la dicha uilla por su deboçion y con su procedido aze sabanas de lienso para la dicha yglesia"⁸⁷⁶. Bergarako kasuan ere, ziurrenez, ez zen egoera bisitatzailleak ikusi uste izan zuena bezain okerra izango. Ohialen batzuk euredako ere hartuko zituzten, baina parrokiarako ohialak egiteko ere erabiliko zituztela pentsa liteke.

Eskoriatzako San Pedro parrokian aktibitate hauen XVIII. mendeko adibideak ditugu; 1709ko kontuetan, Mari Miguel de Lazagabaster serorari bere senar sakristauak Gasteizetik ekarritako "tres ochauas de zeda negra [...] para adrezar los ornamentos negros"-ekin egindako joskintza lanengatik 2 erreal eman zitzaizkiola ageri zaigu. 1723-1724ko kontuetan berriz, Concepcion de Ysassi Ysasmendi serorari bi partidatan 90 erreal ordaindu zitzaizkion, parrokiarako hainbat ohial eta ornamentu egiten hartu zituen lanengatik:

por coser aluas, y manteles que se hicieron para la parrochia con los rrecados que trajo, para ella, la dicha Antonia de Belategui [...] por el trauajo de hazer dos paños

⁸⁷⁴ BUA SP2/173-431, 322 fot.

⁸⁷⁵ BUA SP15/291-329, 309 fot.

⁸⁷⁶ GPAH-AHPG 1/3102, 61v.

del pulpito uno, encarnado, y otro blanco de Damasco, de unos hornamentos biejos, que hauia en dicha yglesia, y un frontal para el altar de San Joseph, en que suplio seda, y lo demas⁸⁷⁷

Joskintza lanak egiteaz gain, beharrezko ehun eta ohialen ornikuntzaz ere arduratzen zen. Aktibitate hauen inguruan jaso ahal izan ditugun berririk zabalenak 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren atarian kokatzen dira, 1768an, Oñatiko San Migel parrokian urte hartan egin zen –eta aurreko atalean aipatu dugun– Maria Gabriela de Sarraoa serora berriaren esku uzten ziren ohial eta arropen inbentarioan; izan ere, dokumentuan, inbentarioa egiteaz gain, ematea ze baldintzatan egiten zen ere zehaztu baitzen, ohial eta arropen inguruan parrokiako serorak zituen hainbat betekizunen berri emanaz:

Primeramente ha de ser obligacion de la serora el hazer los Roquetes blancos de los Acolitos y el que lleba la cruz

Ytt. Asimismo ha de ser de su obligacion el remendar toda la ropa blanca de la sachristia como son, Albas, Amitos, Purificadores, Corporales, y Paños de manos; siendo de su obligacion el limpiar todas las ueces que le embiare el sachristan de esta Yglesia sin que tenga por ello pretension de Jauon ni otra cosa alguna

Ytt. Asimismo haian de ser de su obligacion el poner y hazer los sacos para recoger el pan segun costumbre [...]

Ytt. Asimismo ha de tener obligacion de Limpiar los manteles del Altar maior y su creencia, como asimismo el del Altar del Rosario, San Antonio San Pedro, y San Nicolas⁸⁷⁸

Labur esateko, parrokiako arropa eta ohial gehienen garbiketaren eta konponketaren kargu behar zuen serorak hartu.

Ermitetan ere burutzen zituzten lan hauek, eta Bergaran, Murinondoko Andre Maria ermitan 1626an egin zen inbentarioan, seroretxean ehungintzarako zizeilu bat zegoela ikusten dugu; alor "partikularrekoez" beste, ermita bertako ohialak egiteko ere balio izan zuela pentsa liteke, gainera, ermitako ondasun bezala jaso zen eta⁸⁷⁹. Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko serorei 1700ean egin zitzaaien arautegiak ere ematen digu aktibitate hauen inguruko beste berririk; bertan serorei esleitu zitzaizkien betebeharretariko bat, izan ere, “el azer todos los manteles y sauanas y demas lienzos que hubiere menester para altares y sacristia de la dicha Yglesia para su maior adorno” izan baitzen⁸⁸⁰.

Datu hauek, gehiegi ez izanik ere, serorek tenpluak ohialez eta arropaz ornu eta atontzeko egiten zituzten lanen agergerri zaizkigu. Nahiz eta alor honetan izan zezaketen parte hartzea esanguratsua izan zela pentsa litekeen, ez zen gaur egunean Debagoienerako eskura ditugun iturri dokumentaletan gehiegitan jaso; ez behintzat nik kontsultatu ahal izan ditudanetan. Eta hala ere, azpimarratua dugunez, esangura handiko datuak ditugu. Hartuko diogu neurria -hobe- ondorengo ataletan ere aktibitate honek seroren artean izan zuen garrantziari.

⁸⁷⁷ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 119r-120v.

⁸⁷⁸ OUA Z 1088.3, f.g.

⁸⁷⁹ BUA 04 CD/001, 137 fot.

⁸⁸⁰ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 65r-65v.

VI. 1.5. Heriotz-erritueta eta bestelako iragate-erritueta testuinguru eta etekinak

Heriotz-erritueta partehartzea serorei buruz jardun izan diren autore gehienek –guztiak ez esatearren– azpimarratu izan duten aktibitatea da. Ez gara beraz autore hauen aipamenetan luzatuko, zuzenean serorei buruzko bibliografia espezifikoki erreparatzea genuke errazena. Atal honetan testuinguru sozial eta erlijioso hori izango dugu ikergai, baina propioki hileta eta bere inguruko errituak erlijioa, sineskerak eta hauei loturiko boterea ikergai izango diren atalerako utziko ditut, hemen aspektu sozial eta ekonomikoei gehiago erreparatuz, eta bestelako errituei ere leku eginez. Hilobi ere baziren jarlekuak, testuinguru hartan, ardatzezkoak ziren; zerbitzua, batez ere, parrokieta serorei zegokien, herriko familia ezberdinei zegozkien jarlekuak bertan kokatu ohi baitziren. Jarleku hauek aldareekiko zeukaten antolakuntzak, bestalde, herriko familien arteko botere erlazioa era sinbolikoan adierazten zuen; aurrean boteretsuenak, eta atzera joan ahala, herriko botere eskalan maila baxuagoetan zeudenak. Baina noski, erlazio hauek mugikorak ziren, eta posizionamenduaz gain, jarleku bakoitzean ipini ohi ziren arbasoen gurtzarako elementuek ere eragiten zuten boterearen adierazpenean.

Espazio honetako errituekin bat, jaiotzari, ezkontzari eta bestelako errituei zegozkienak ere izan dira hainbatetan aipagai, baina gehienetan oso azalpen laburrekin. Orain darabilgun ikerketa zehatzaren kasuan ere bilduriko informazioa aipatzera baino ez gara mugatuko, arrazoi garbi bategatik: heriotz errituen alboan, jaiotzen eta ezkontzen inguruko aktibitateek seroren etekinetan zeukaten pisu sozial eta ekonomikoa, askoz mugatuagoa zela dirudielako. Onartu beharrean gaude, edonola ere, hau erabateko ziurtasunez berresteko, besteren artean, jaiotzen eta ezkontzen liburuen jarraipen ertsia egin beharko litzatekeela; baina hau ere ezin izan dugu burutu, ikerketaren mugak direla eta. Edozein kasutan, bataioetan behinik behin, serorak amabixtitzat askotan jardun ohi zirela jada azpimarratu izan da. Eta azaltzen dihardugun kapituluetan ageriratuz doan eta joango den serora askoren gaitasun ekonomiko esanguratsuari erreparaturik, ez da batere arraroa hala izatea; izan ere, amabixti lez serora bat izatearen prestigioaz haratago, serorek gurasoen faltaren aurrean eskain zezaketen babes sozial eta ekonomikoa, hazkuntza egoki baterako oso garrantzitsua izan baitzitekeen. Bataioetan hartzen zituzten lanen deskribapen aski labur bat Ataunen (Gipuzkoa) jasoriko ohiturena dugu: "asistir a las funciones de bautismos y acompañar a las comadres y llevar el tuerzo de cera, lienzo y pan que acostumbra entregar dichas comadres, etc." (Arín Dorronsoro 1929, 47). Sorazuk, Gaintzako (Gipuzkoa) parrokiako seroren eginkizunen artean, hedatuxeago azaldu zizkigun bataioekikoak:

- Norbaiten bataiorakoan, kanpaia jotzen zuten.
- Haurren bataiorakoan, aita eta aita jaun-amandreak kandelarekin laguntzen zieten.
- Berdin, haur bataiatuarekin ama bera, berrogei egunera "Elizan sartzea" ospatzen.
- Elizan zeuden San Jose eta Andre Mari irudiei kandela bana piztu, bataiatu berriaren sendiaren aldeko bedeinkapena eskatuaz (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Laudioko (Araba) seroren berri eman zigun Navarro Ullések bertako serorak hainbatetan aurkitu omen zituen amabixtitzat aritzen, eta beraien eta bestelako ohizko amabixti eta aita bixtien inguruko zenbait azalpen interesgarri eta zentzudun ere eman zizkigun:

Está claro que la actuación de las "frailas" como "madrinas", fue a mero título de "testigos" del acto, y no con el sentido representativo que tienen hoy día. Se utilizaba a estas mujeres en los bautismos por estar a mano, como sucedió con "*Susana la*

hospitalera" que prestó igual servicio en el año 1552, y que pudiera ser la "*Susana de Larrabe*" que aparece unos años después cumpliendo las mismas funciones de "madrina". Junto a ellas y en calidad de "padrinos" fueron asiduos Iñigo de Zubiaur "estudiante" y distintos "abades", como Domingo Abad de Urrutia o Pedro Abad de Larrea (Navarro Ullés 1998 -1997-)⁸⁸¹

Honen arabera, seroren bataioetako partehartzeak ez zukeen agian esleitu dioguna besteko esangura sozialik izango, zenbait lekutan tramitea burutzeraz baino ez baitziratekeen mugatuko; baina jasoko zuten ziurrenez emolumenturik paper hori betetzearren ere. Aranak ere "frecuente" bezala aipatu zuen serorek amabitxitzat izan ohi zuen partehartzea, Sumbilla, Elgorriaga, Ituren (Nafarroa) eta Gordejuela (Bizkaia) bezalako lekuetako adibideak aipatuz, eta ia parrokiako liburu guztietan adibideak aurkitu litezkeela baieztatuz; beraien partehartzea familien aldetik ohoragarritzat hartua zela ere bazioskun (Arana 1992, 102). Aranak berak, jaunartzeetan zeukaten partehartzea ere izan zuen aipagai (Arana 2002, 847), eta baita Azpiazuk ere, Urretxuko parrokiako serorari buruz ziharduela (Azpiazu 1995a, 49). Lapurdiko lekukotasunak ere heldu zaizkigu; Hiriburuko parrokiako serorez ziharduela, Desportek serorek beraien arduregatik espeziatan (garia, artatxikia,...) ordaina jasotzen zuten aktibitateen artean jaiotzak aipatu zizkigun (Desport 1991, 72), eta Gracie Lafittek eta Josiane Merschek, Arbonako serorak bataioetan amabitxitzat ageri ziren XVIII. eta XIX. mendeetako zenbait adibide jaso zituzten (Lafitte; Mersch 1991, 55-57).

Jaiotza eta bataioekikoak bukatzeko, interesgarria deritzot Iparraldean Duvert-ek jaso zuen ohitura bat aipatzeari. Arberatze-Zilhekoa inguruan kokaturiko ohitura dugu hau, eta bertan, serora lehen bataioaz arduratzen zen: umea etxeko ur bedeinkatuarekin bataiatzen zuen (etxe guztietan zuten ur bedeinkatuarendako txokoa), eta egunari zegokion santu edo santaren izena ematen zion. 8 edo 10 bat egun beranduago jasotzen zuen elizako bataio "ofiziala", bertan behin betiko izena ematen zitzaizolarik (aurrekoa aldatu edo mantenduz) (Duvert 1989, 407). Kasu konkretu honetan serora emagina ere bazen, eta lanbide hau beste emakume batekin banatzen zuen: serora Arberatzekoetaz arduratzen zen, besteari ostera Zihlekoakoak zegozkiolarik. Nahiz eta –Duvert berak zehazten duen lez– emagin lanak seroren ohizko eginbeharretan sartzen ez ziren, lehen bataioa seroren esku izatearen ohitura, ez dirudi lekuz kanpo dagoenik. Izan ere, eta dagokigun eremura etorriz, Kalagorriko konstituzio sinodaletaz dihardugularik, jada 1555.en urtetik behintzat emaginei bataioa ematen erakutsi behar zitzaizela ezarri baitzen, jaioberrien heriotzen maiztasuna zela eta (kasu horretan soilik bataiatu zezaketen) (Luco 1555, 76 fol.). Baserri eremuetan askotan gertueneko pertsona erlijiosoa serora bera izan ohi zela aintzat hartzen badugu, oso litekeena da auzokideek, bataio ofiziala egin artean, "lehen babeserako" bataio hauetarako serorarengana joan izana, emagina ez bezala, hau pertsona erlijiosotzat ere hautematen baitzen. Gainera, serorak askotan bizilagunei jaiotzaren berri kanpaiaren bidez emateko eginkizuna ere bazuenez, abisua jasotzen lehenetarikoa zen, lehen bataioa testuinguru honetan kokatu zitekeelarik.

⁸⁸¹ Areago, parrokiaren bataioetako amabitxiekiko zegoen hautemapenaren inguruan 1740an eman ziren azalpenak ere jaso zizkigun, inongo zalantzatarako biderik uzten ez dutenak: "En el '*Libro de Baptizados de esta Iglesia Parroquial de San Pedro de Lamuza cuyo principio es el año 1740*' se hace la siguiente advertencia: '*Nota, que según la costumbre que se observa en esta Yglesia en los Baptismos solemnes, ninguna Madrina contrae parentesco espiritual pues; aunque según estilo se especifican por sus nombres y apellidos por tales Madrinas en las partidas, no hacen otra cosa que asistir presentes al acto con vela encendida y paño blanco que sirven para las ceremonias. Y si en adelante sucediere otra cosa, se deberá advertir y anotar con distinción. Y para que conste, esta advertencia pongo aquí y firmo = Francisco de Rotaeché*'" (Navarro Ullés 1998).

Jaiotzez eta bataioez beste, Desportek, Hiriburuko (Lapurdi) serorek ordaina jasotzen zuten aktibitateen artean ezkontzak ere baitaratu zituen (Desport 1991, 72), eta Gipuzkoa aldera iraganez, Sorazuk iturri etnografikoetatik jasotako Gaintzako ohituren deskribapenak, ezkontzaren errituan serorei zegozkien zenbait xehetasun helarazten dizkigu:

- Ezkontza elizkizunetan bera izaten zen testigu nagusia; eta ezkonberriei berak jartzen zien "uztarria" (zapi zuria) buru (emaztegaiari) eta bizkar gainean (gizonezkoari).
- Ezkongaiak ekarritako eraztunak eta arrak zapi zuriko bandejetan prest jarri (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Heriotzari loturiko funtzioei dagokienez; gaixoen olioduran ere parte hartzen zuten, Saint-Martinek jaso zuen 1552ko aipu baten arabera⁸⁸²: "Responderán a las oraciones propias del Sacramento facilitando la descubrición de las partes del cuerpo que han de recibir los óleos, así como también tener preparadas las vedijas de hilo necesarias para dicho óleo" (Saint-Martin 1976, 162). Aranak ere izan zuen gaixoen oliodura aipagai (Arana 2002, 847). Azpiazuk berriz, aipatu ditugun jaunartzeaz gain, jarlekuetako lanez gain serorek gaixoen olioduran zeuzkaten lanak beraien betebehartzat hartzen zirela ere agertu zigun, Urretxuko (Gipuzkoa) parrokiako seroraren betekizunen deskribapenean: "acompañar los sacramentos de la comunión y estremaunción de día y de noche, poner las sepulturas donde se ofrecen algunas onras los çirios y candelas". Parrokia honetako seroraren eginbeharren artean, bestalde, mezetako jarlekuetako betekizunen kontuen kargu hartzea ere bazegoen; 1582an bertako serorei sakristiarako sarrera debekatzeko saiakera egin zenean sortu ziren arazoan azalpenetan ageri zaigu hau: "la serora tenía a su cargo avisar al vicario y beneficiados 'para ocuparse de hazer los ofiçios populares [...]'" (Azpiazu 1995a, 49-50). Ataunen jasoriko ohiturek ere, gorpuen atontzeaz gain, seroren beste ardura honen berri ere ematen digute:

asistir después de las misas en todo en año para enseñar al sacerdote que baja a los ronsos de las sepulturas en cuáles de ellas se ha de cantar o rezar el responso según la costumbre; desatar los pies y manos a los cadáveres y cubrir la cara con algún lienzo al tiempo de dar tierra (Arín Dorronsoro 1929, 47)

Azkenik, Iparraldetik bereziki, funtzio guzti hauek seroren eginkizunen artean aipatu zizkiguten autoreekin egiten dugu topo; Duvertek, etnografia eta historia uztartuz jaso zituen datuen azalpenetan, heriotzarekin bat, jaiotza eta ezkontza ere izan zituen aipagai:

C'est elle qui donne la croix que vient chercher le premier voisin d'un mort, qui annonce, par la cloche, la nouvelle aux environs, qui prépare l'église pour les funérailles, qui assiste les femmes en deuil, qui gère des offrandes de lumière à cette occasion et qui peut remplacer la maîtresse de maison dans ces rites. C'est elle qui peut "officier", à l'autel, un jour de mariage, qui peut décider du prénom d'un enfant même si, à l'église, il en reçoit "officiellement" un autre (Duvert 1991, 5)

Lafourcade-k berriz, jarlekuetan eta hauetako argi eta eskaintzen mantenuan zeukaten papera aipatzeaz gain, Iparraldeko seroren partehartzea elizako zeremoniarik gehienetara hedatu zigun, Duvertek berak ere egin bezala (Duvert 1991, 5), beraien lekua apezeme batenarekiko konparatuz:

Lors des cérémonies religieuses, messes, vêpres, baptêmes, mariages, enterrements, processions ou autres, elle était la maîtresse de cérémonie, réglant leur

⁸⁸² Zoritxarrez, autore honek, ikertzailea baino idazlea izanik, ez zigun aipuaren iturria xehetasunez adierazi; alabaina, Webster-ek ematen digu behar duen iturriaren berri, aipu xumeagoa jasoz, baina 1552ko gaixoen oliodura zeremonia Baionako katedralekoa zela zehazturik: Dubarat-en *Le Missel de Bayonne de 1543* (Pau, 1901).

déroulement et respectant un rite traditionnel. Elle distribuait le pain béni à la messe où elle tenait une place comparable à celle du curé qui distribuait la communion (Lafourcade 1991, 32).

Ogien jasotzea eta banaketa komunioaren banaketarekiko parekatzen duen azken konparazio honi 1738ko Berastegiko (Gipuzkoa) parrokiako kabildoaren eta bertako seroraren arteko hitzarmen batek ematen dio azalpen deskriptibo egoki bat; bertan, parrokiako seroraren neskamearen lanak azaltzerakoan, argi eta garbi ageri zaigu ogiak eta argizariak jaso eta hauek benefiziadunen eta serora nagusiaren artean banatzea azken honen eginkizuna zela (eta berak ere, jasotzen zuen noski bere parte):

por el trabajo de levantar los sacos de pan desde la iglesia a donde la habitación de la serora en donde se hace la repartición de dichos emolumentos hayan de tener y tengan obligación dichos señores del Cabildo de dar [...], y por el trabajo que se le da a dicha criada en hacer el sorteo de pan y cera entre los cuatro de dichos señores del Cabildo o sus amas [...] (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 430)

Nabaria dirudi, zenbait lekutan behinik behin, eliztarrengandik jasotzen ziren ogi eta argizarien administrazioa seroren esku zegoela. Ikusiko dugu aurreraxeago, jarlekuetako heriotz-errituen etekinei zehaztasunez erreparatzerakoan, Elgetan gertaturiko kasu bat ere, seroren faltak benefiziadunek jaso ohi zituzten ogizko emolumentuengan zeuzkan ondorio larriak agertzen dizkiguna.

VI. 1.5.1. *Jarlekuen zerbitzua eta heriotzaren testuingurua*

Behin gainbegiratu hau burutu eta jaiotzetako, jaunartzeetako, ezkontzetako, eta bestelako erritu komunitarioetan zeukaten partehartzea garbi utzirik, kokatu gaitezen heriotzaren eta bere errituen esparru espezifikoa. Jarlekuetako gurtza, funtsean, arbasoen eta leinuaren gurtza zen. Gurtza hau jatorrian etxeetan –etxeoandreen baratzetan– kokatu izan zen, eta XIII. mende inguruan hildakoak parrokietako jarlekuetan nahiz –beste espazio batzuetako ohituraren arabera– inguruko hilerrietan ehorzteko ohitura orokortu zenean, kultu partikularrak espazio komunitarioaren baitan antolatu ziren. Horren adierazgarri nabarietako bat etxe bakoitzeko jarlekua etxe beraren partetzat hautematea, eta esaterako, etxea saltzekotan, jarlekua ere, etxearen parte zen heinean, berarekin batera saltzea dugu (Rubio de Urquía 1996, 32 eta hurr.). Ohikoena hau izanik ere, arau hauek ez ziren beti hain zurrin mantendu, eta ikusiko ditugu jarlekuen salerosketan ibili izan ziren seroren kasuak ere.

Jarraian ikerketa batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan ohizkoa zen egoerari begira burutuko badugu ere, hau da, hildakoak elizen barruko jarlekuetan ehortzi ohi ziren lekuetako ohiturei eta hauen bilakera historikoari erreparatuko badiogu ere, Aro Berrian elizen kanpokaldean ehorzteko ohitura izan zuten lekuen erakusgarritzat eta ikuspegi konparatibo bat jasotze aldera, interesgarria zaigu Iparraldera begira jartzea. Izan ere, bertako hilerrietako ehorzte-ohituren joera nagusia Hegoaldean ez bezalakoa izan baitzen; Iparraldean hilerria askotan elizari atxikia egon ohi zen (eta egon ohi da), Hegoaldean gehienetan izan ohi zenaren kontrara. Elizen barruan ehorztearen ohitura ez zen hainbeste hedatu, eta agian honi loturik, hilarri edo estela funerarioen tradizioak jarraikortasun sendoagoa izan zuen Hegoaldean baino, non XIII-XVIII mendeen bitarte horretan, jarlekuan ehorzteko ohitura izan zen nagusi. Iparraldean ere, alabaina, elizaren barruko espazioaren –eta jarlekuen– banaketaren ardua seroraren esku mantendu izan zela ikusten dugu; horrela, kanpotarren bat elizkizunetara baldin bazetorren, andere-serorari galdetu beharra zion, ze lekutan kokatu zitekeen (Duvert 1989, 402). Halatsu, elizari atxikiriko hilerrian ere, norbaitek ehorzleku berri bat zabaldu nahi zuenean,

serorari eskatzen zitzaion baimena, eta honek adierazten zuen kokapen berria (*Ibid.*, 401).

Baina daramagun azalpenarekin jarraituz; hala gertatu zen lekuetan, hildakoak elizaren barruko espazioetan ehorzteko ohitura orokortzearen prozesua kultuen bilakaera sinkretiko baten baitan eman zen, eta arimaren eta heriotzaren inguruan Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar Elizaren aldetik sostengatu ziren sineskerak eurek ere, hein handi batean, norabide horrekin bat egin zuten, prozesua bideratuz. Purgatorioaren inguruko sineskerak, esate baterako, arimaren aldeko errituak artean ase gabeko arima pekatariaren irudiarekin, prozesu horren baitan txertatzen dira. Jarlekuko kultua, funtsean, hildakoaren arimarendako argia eta ogia ematera bideratua zegoen, hauek, zerurako bidean behar zuten elikadura izpiritualaz eta hartu beharreko bidea ezagutzeko argiaz hornitzen baitzituzten (Barandiaran 2003 -1984-, 152).

Jarlekuetako kultua, berez, etxe bakoitzeko etxeoandreari zegokion. Berari zegokion etxeko hildakoen gurtza, eta jarlekua jabez aldatzen zenean nahiz etxeoandre zaharra berriak ordezkatzeko zuenean, posesioa hartzeko eta etxeko hildakoei aurkeztu eta errespetua azaltzeko errituak egiten ziren. Etxekoandreei jarlekuetan zegozkien betekizunekiko, serorek erlazio ezberdinak landu zituzten. Alde batetik, diru edo espeziatan eginiko ordainketen truke etxeoandrea ordezkatzeko zuten, askotan, beharrezko ohiak, eta are ogiak eta argizariak ere euren aldetik ipiniz. Guzti hau ere, noski, ordain truke izaten zen, eta seroren testamentuetan ikusi ahal izan dugunez, pertsona asko izaten ziren zordun zerbitzu hauek medio. Beharrezko gauza guztiak, seroretxeetan edo parroketan izaten zituzten kutxatan gordetik izaten zituzten. Leku batzuetan, meza hasi aurretik, etxeoandreak heltzen zirenerako jarleku guztiak atondurik uzteaz arduratzen ziren. Alderdi hau bereziki garrantzitsua izan zen etxe nagusien kasuan. Askok jarlekuaren zerbitzurako urteroko soldata ordaintzen zioten serora bati, eta hau, jarlekuari zegokion errituen betekizunaz eta handitasun eta garrantziaz arduratzeaz gain, jarlekuaren boterezko testuinguru sinbolikoan familiak zuen lekua defendatu eta aldarrikatzeaz ere arduratzen zen. Beste kasu batzuetan serora ez ziren emakumeek ere betetzen zituzten ordezkapen lanak, eta baita hirugarren ordenako serorek edo “terzerek” ere. Serora partikularrez besteko erlazio hauek “alokairuzkoak” izaten ziren normalean. Bestelako emakumeek lan hauetan parte hartzeak ere sortu zituen zenbait liskar, eta badugu zentzu honetan egin izan ziren zenbait arautegiren berri ere. Izango dugu aurrerago hauek ikusteko paradarik.

Horrez gain, parrokia bertako antolakuntzarako funtzio komunitarioak ere betetzen zituzten, mezetako, eskaintzetako eta beste errituetako ordena eta egokitasunaren gaineko zaintza lanak hartuz. Jarleku bakoitzeko hilen alde egin beharreko eskaintza, meza eta errituen kontuak ere eramaten zituzten, zegokion apez edo benefiziodunari non zer egitea tokatzen zen esateaz arduratuz. Zenbaitetan esan izan den bezala, serora, jarlekuaren eta etxeoandreen testuinguru espezifikoko “apezemea” zen, nolabait esatearren. Areago, biztanleek dohaintza batzuk serorei egiten zizkieten, alde batetik aipatu berri ditugun jarlekuetako eginbeharrak egoki burutu zitzaizten, eta bestetik, testamentuetan apezek mezak esatea agintzen zuten bezalaxe, dohaintzaren truk serorek beraien arimaren alde otoitz egin zezatela agintzen zutelako; izan ere, garaiko pentsamoldearen arabera, erlijiozko pertsonen buruturiko arimaren aldeko otoitzei balore berezia esleitzen baitzitzaizkien. Ohitura honen berri eman zuen jada Arza Aldayk Aguraingo (Araba) serorei buruzko lan batean, eta halaber, dohaintza hauek batzuetan seroren komunitateei kolektiboki egiten zitzaizkiela, eta bestetan osteratzen, serora zehatzei egiten zitzaizkiela ere ohartu zuen; besteren artean, honako adibidea paratu zuen:

Yten, mando a Marina, beata en Nuestra Señora de Hula seys ducados para sus necesidades y hornato, los quales se le paguen por mis herederos dentro de quatro años que yo muriere para que tenga quenta de encomendar a Dios, Nuestro Señor, mi ánima (Arza Alday 2006, 43)

Lan honetarako kontsultaturiko Debagoieneko seroren testamentuetan ere aurkitu ditugu tankera honetako dohaintzak, baina beti ere, jarlekuetako zerbitzuari loturik ageri zaizkigunak. Ikusiko ditugu jarraian heriotz erritueta lanegatik serorek jasotzen zituzten diruak eta etekinak azaltzerakoan. Arza Aldayk jasotako adibidearekin gertatzen zen bezala, dohaintza hauek ez ziren, mezak ematearren egiten ziren dohaintzen kontrara, adieraziriko kopuru jakin baten truke egiten. Apezei meza kopuru bat agintzen zitzairen, eta askotan, aginduaren betekizuna, meza bakoitzeko ohizko ordainketez beste (2 erreal, kasu askotan), apezen aldeko aparteko dohaintzen bidez bermatzen zen. Baina arimaren alde otoi egitearren serorei egindako dohaintza hauetan ez zen otoi kopuru zehatzik aipatzen, eta bagaude, dohaintzak jarlekuetako zerbitzuen ordainketa gisa hautematen ez ote ziren, serorek egin zitzaizkien otoi ordainketa gisa baino. Jarlekuen kargurik hartu beharrik ez zeukaten serorei egindako dohaintzen kasuetan aldiz (arropak, ohialak, diru kopuruak, etab.), norbere arimaren aldeko otoi dohaintzen ohizko "ordainketatzat" hautemanak ziratekeen, "rogar a dios por my ánima" tankerako formulak erlijiozko emakume batengandik jaso zitezkeen ordainaren ohiturazko esakera bezala fosilduaraziz. Edozein kasutan, dohaintzen emaleek, dohaintza egitean, seroren otoi dohaintzek beraien arimaren alde egin zezaten nahia izango zutelara pentsa liteke, -Arza Aldayk egin zuen bezala- otoi hauek beraien aktibitate espezifikotzat hauteman, ala ez.

Propioki heriotzaren inguruko espazioari zegozkion erritu eta ohituren testuingurua, Aro Berria abian jarri zenerako, aspaldi hasia zen debekuak eta mugapenak jasaten. Gaztelako Alfontso X Jakitunak XIII. mendean *Siete Partidas* edo *Partidas* deitu izan den legeen kode edo tratatua idatzi zuenean, jada ondorengo orrietan azaltzen joango garen heriotzaren inguruko ohitura eta errituetariko hainbat gaitzetsi eta debekatu zituen. Lehen "partida"-ko XCVIII legeak ("Quáles son las cosas que los homes facen que tiene daño á los muertos, et non á ellos pro") ondorengo legeetan garatu zituen debekuen eta gaitzetsiriko aspektuen laburbiltzea egin zigun, puntu honetan, aurkezpen laburtzat balio diguna:

Daño tienen á las almas de los muertos algunas cosas que los vivos facen por ellos, asi como quando los sotierren cerca de los altares: ca esto non debe ser fecho sinon á home que fuese santo por honra de Dios, ca non por la del muerto. Eso mismo decimos de aquellos que facen las sepolturas mucho altas, ó las pintan, tanto que semejan mas altares que monumentos, ó otras sabejanías que se facen mas á placer et á voluntad de los vivos, que non á pro nin á bien de los finados. Otro tal es de los que cubren las fuesas con manteles, et ponen hi pan et vino et otras viandas para dar á pobres, ca maguer lo facen como en razon de alimosna, la manera es tan mala en que se faz, que non tiene pro al vivo, et face daño al muerto por quien es fecho. Ca bien asi como á los buenos non empesce si los sotierren vilmiente et sin honras deste mundo, asi non tiene pro á las almas de los malos enterrarlos bien nin facerles grant honra (Alfontso X Jakituna; Real Academia de la Historia 1807 -XIII. mendea-, 166)

Aurreraxeago, hiletarien eta erostarien aurkakoak ere bazituen aipagai, baina alderdi hauek geroaxeagorako utziko ditugu. Alfontso X.ren nahiak zirenak zirela, euskal herrietan bezalaxe, Gaztelako nahiz Iberiar Penintsulako hainbat lekutan luzaroan jarraitu zuten honek gaitzetsi zituen ohiturek bizi-bizirik, hainbestean eze, XVI. mende betean Juan Mal de Larak bere *Philosophia Vulgar* (1568) lanean, orduan

luzaroegi ez zela Inkisizioak desagerraraziriko hiletak egiteko era honela deskribatu baitzuen:

Assi deste manera quedó en nuestro tiempo la manera de enterrar a los cavalleros, que los llevavan en sus andas descubiertos, vestidos de las armas que tuvieron, y puesto el capellar de grana, y calçadas las espuelas, su espada al lado, y delante las vanderas que avían ganado, y otras muchas cosas de gentiles. A ciertas partes de la ciudad se paravan, quebrando los paveses y escudos de la casa. Llevavan una ternera que bramase, los cavallos torcidos los hocicos; y a los galgos y lebreles que avía tenido davan golpes porque aullassen. Tras ellos ivan las endechaderas cantando en una manera de romances lo que avían hecho y como se avía muerto. Esto quitó la Sancta Inquisición, por ser color de gentiles y judíos, y negocio que aprovechava poco el alma; aunque en derredor de algunas sepulturas antiguas en Salamanca y en otras partes se puede ver esta pompa; y las mismas endechaderas, hecho todo de marmol (Mal Lara 1568, 241v)

Heriotz errituak sakonki errotuak zeuden gizartean, eta Aro Berrian ere, azken aipu honek aditzera ematen digunez, jarraitu zuten mugapen eta debekuek. Baina goazen pausurik pausu, alderdi eta ohitura ezberdinei banandurik erreparatuz. 1555eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan, “De Sepulturis” errubrikan, zenbait urte lehenagoko agindu batzuk ageri zaizkigu, eskaintzen zaizkien kapituluaren izenek eurek ongi laburbiltzen dituztenak: “Que no se hagan llantos por los defuntos quando los lleuan a la yglesia, ni quando los clerigos les hizieren officios” eta “Que las tumbas, vultos, o ataudes que se pusieren sobre las sepulturas en las yglesias esten tan solamente en los dias de las honrras, o acabo de año, y no mas. Y si lapidas pusieren, esten parejas con el suelo de la yglesia, y no mas altas” (Díaz de Luco 1555, 47v-48v). Lehen aginduari buruzkoak ehorzteetako erritualari eskainiriko atalerako utziko ditugu, jarlekuetako zerbitzuarekin baino, errituekin eurekin lotura zuzenagoa baitute⁸⁸³. Hemen, lehenik, heriotzaren inguruko sineskera eta erritu hauen familiaren testuinguruko erdigune fisikoak, jarlekuen espazioak berak, jasan izan zituen mugapen eta debekuei egingo diegu jarraipena, ondoren, bestelako alderdiei ekiteko.

Alfontso X. Jakitunak XIII. mendean ezarririko ildoari jarraiki, 1555eko Kalagorriko konstituzioetan jarlekuei eskainiriko kapitulua osatzen zuen agindua 1539an emana izan zen, “Por quanto somos informado: que algunas vezes se siguen y acaecen muchas discordias y diferencias en las yglesias de nuestro obispado: sobre poner vultos, tumbas y ataudes, y pausses sobre las sepulturas de los finados”. Beraz, errubrikaren izenburuan zehaztu lez, hauek hildako bakoitzari zegozkion errituetan (bederatziurrena, ondtrak eta urtebukaerakoak edo anibertsarioak aipatu ziren zehazki) eta hauek irauten zuten denboran baino ez mantentzea agindu zen, jarlekuko harlauza edo lapida ere lurraren maila berean mantendu zedinarekin bat. Izan ere, heriotz-errituetako parafernaliak eta jarlekuetako harmailek hainbesteko espazioa hartzen baitzuten parroketako gorputzean, ezen “las gentes, y processiones no pueden ordenadamente passar”. Salbuespena onartzen zen patroiek euren kontu eraikiriko kaperen kasuan, beti ere, jarlekuak eta bertako errituen elementuak “en tal parte que no hagan impedimento, en el cuerpo de las yglesias” egotekotan (*Ibid.*, 48r-48v). 1539an eman zen agindu hau 1555eko konstituzioetan bezalaxe jaso zen 1602koetan (Manso 1602, 78r-79r), 1621ekoetan (Gonzalez del Castillo 1621, 128v-129r) eta 1700ekoetan (Lepe 1700, 454-455), hitzez hitz. Eta oinarrizko agindu honen gain, Aro Berrian zehar heriotz-errituen inguruko legedia garatzen joan zen, 1602ko konstituzioetan eta 1621ekoetan, baina batez ere 1700ekoetan, ohituen kontrolerako eta eraldakuntzarako beste hainbat neurri aginduz.

⁸⁸³ VIII. 1.1. azpiatala, 760 eta hurr. or.

Legedi hauek, hein batean, "discordias y diferencias" haiek sortzen zituzten mailaketa sozialen adierazpen sinbolikoak deuseztera bideratuak izan ziren; jarlekuen kokapenek eta hauen arrandiak, izan ere, lekuan lekuko botere egituren isla baitziren. Eta hein horretan, mugikortasun soziala handia zen lekuetan, bereziki hiribilduetan, ohizkoak izan ziren salerosketa bidezko jarlekuen kokapen aldaketak (familia edo leinuak gizartearen baitan hartu zuen leku berriaren adierazle), beste espazio batzuetan ostera, batez ere botere egiturak finkoagoak ziren landa-eremuetako parroketan, jarlekuen kokapenak ia aldakuntzarik gabe mantendu zitezkeen artean. Berez, ehorztekoko lekuen eta jarlekuen inguruko ohiturak ugariak eta ezberdinak ziren, herri ezberdinetako botere esparruen arteko mailaketa ezberdinak beste: batzuetan, tenpluan ehortzirikoko boteretsuen aldean, jende xumea kanpoko hilerrian ehorzten zuten; ehorzte denak tenpluan egiten ziren kasuetan, iladetan neurtzen zen mailaketa soziala, eta hori jarlekuen prezioetan islatzen zen; bestetan, hitzarturiko -nahiz boteretsuek beharturiko-kokapenak esleitu edo onartu ziren; kasuren batzuetan, enkanteak ere egin izan ziren. Azkenik, izan ziren banaketa irizpide topografikoen arabera, hau da, etxe eta baserrien kokapen fisikoak jarlekuen espazioan erreproduzitzen saiatuz, ezarria izan zen lekuak ere. Eta noski, botere esparruen arteko borrokak, jarlekuena bezalako espazio sinboliko garrantzitsu bati zegokionean, askotan gogorak izaten ziren, eta esan bezala, auzitan oso izaera eta konbinazio ezberdinetako botere esparruak inplikatu zitezkeen (Madariaga Orbea 2007, 254-257, 268-273).

Jarlekuen arteko ezberdintasunei bidea isteko nahian, 1602ko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan pertsona bakoitzaren jabegoko jarlekuen kopurua zazpi oin luzeko eta bi oin eta erdi zabaleko bi jarlekura mugatu nahi izan zen; inork dohaintza edo oinordekotza bidez kopuru horrez gaindi jarlekuren bat jasotzerik suertatzekotan, parrokiako fabrikak zegokion prezioan erosi eta erabilera komunera bideratzea ere arautu zen. Izan ere, badirudi jarleku bat baino gehiagoren jabe ziren pertsona edo etxeek, zenbaitetan hauetan ehorztearen eskubidearen inguruan negozioak ere egin izan zituztela. Komertzio berezi honetan serorek eurek ere izan zuten partehartzerik, aurreraxeago ikusteko parada izango dugun lez. Horrez gain, jarlekuetan harmailak ipintzeko debekuari iruditeriaren inguruko neurriak ere batu zitzaizkion:

que ninguna persona de qualquier estado, condicion, ò calidad que sea pueda poner rotulos algunos en las sepulturas sin licencia nuestra, ò de nuestro Prouisor, ni en las lapidas que estuuieren tendidas en el suelo del cuerpo de la Iglesia, ò Capillas particulares se pongan cruces, imagenes, ni figuras de santos, aunque sean particulares diuisas de sus armas, so pena de excomunion, y que el dueño de la sepultura tenga perdida la tal lapida sobre que se pusieren, y de seys mil marauedis para la fabrica de la tal Iglesia, juez, y denunciador por tercias partes (Manso 1602, 79r-79v)

Diogunez, agindu guzti hauetan nabaria da herrietako familia eta etxe boteretsuen botere adierazpenak mugatu eta ezabatzeko borondatea, askotan aipatu izan zen lez, hauen arteko liskarrak ekiditera bideratua; jarleku guztiak lautu eta lurrarekin berdindu, hauen kopurua mugatu, iruditeria espezifikiko eta bereziak debekatu... botere adierazpen sinbolikoen aurkako neurriak dira. 1621eko konstituzioetan gehituriko atal batek heriotz-errituak, apezrei eurei zegokienean ere, negozioak egin eta etekinak jasotzeko espazio lez hautematetik aldendu nahi zirela adierazten digu; apez eta benefiziodunei zuzendurik, "Que no se lleuen los derechos de sepultura a los pobres, y quales lo sean para este efecto" agindu zen. Hau da; gutxieneko heriotz-erritu duinak izatea, hauek ordaintzeko mediorik izan edo ez, guztiei zegokien eskubide bat bailitzan ageri zen. Apez eta benefiziodunei txiroei zegozkien ehorzteetako eta errituetako lanen kargu ohizko emolumentuak jaso gabe hartzea agindu zitzaien, eta horretarako, txirotzat nor hartu behar zen ere definitu zen:

los que huieren curadose de limosnas de las enfermedades de que murieron, a que se supiere que no han dexado bienes para pagar los derechos comodamente, y en particular se tenga consideracion, a si dexan hijos con necesidad, que estos son los verdaderamente pobres: y mandamos, que si alguna persona, Cabildo, ò cofradia diere, ò allegare alguna limosna para los tales se gaste en Misas y sacrificios por sus animas, sin dello pagar el enterramiento, ni sepultura, en lo qual les encargamos las conciencias (Gonzalez del Castillo 1621, 129v-130r)

Prozesu guzti honen baitan jarlekuak pribatuak izatetik erabilera komunekoak izaterako aldaketa eragin nahia ere nabari da, jada 1602ko konstituzioetako jarlekuen kopuruaren mugapenetik behintzat hasita. Urteak igaro ahala, XVIII. mende hasieratarako, zenbait familia boteretsuren jarleku partikularrekin bat, erabilera komuneko jarlekuak ugaritu zirela dirudi. Hala iradokitzen dute behintzat 1700eko Konstituzio Sinodalek. Urte hartako konstituzioetako “De Sepulturis” errubrika jada zehaztasun handiarekin landu zen, aurreko konstituzioetan emandako aginduak jasotzeaz gain, emolumentuen, ohituren eta zeremonialaren inguruko araudiari zedarripen eta oinarri garbiak emanaz. Gorago esan bezala ehorztearen eta bestelako heriotz errituei zegozkienak ondorengo atal batean ikusiko ditugu, baina espezifikoki jarlekuen eta bertako botere-adierazpenen ingurukoei zegokienez, 1700eko konstituzioetan emandako zenbait agindu erabakigarriak izan ziren; bereziki, aldare nagusiaren aurreko espazioan jarlekurik inori ez ematearen agindua. Bertan, jarleku partikularren eta komunen arteko erabilera ezberdintasunak ere azaldu ziren:

Ordenamos, y mandamos, S.S.A. que en quanto a las sepulturas, en cada Iglesia se guarde aquella costumbre, que hasta aora se ha observado, en donde la ay, de que las sepulturas no se enagenen, se guarde, y se cumpla, como hasta aqui: no enagenandolas, ni dexandolas apropiar à familia alguna, con qualquiera titulo que sea: por ser estilo muy conforme à derecho, y segun la caridad, y comunion Christiana. Y quando en alguna de ellas fuere enterrado algun cadaver, sea reservada para no enterrar otro, hasta tanto que aya passado el año. Y en este tiempo la persona, que haze el duelo por el difunto, la pueda ofrendar, y asistir en ella, segun comun vso, y costumbre de la tierra. Y acabado este tiempo, buelba a ser comun, como antes, la sepultura. Las que son de particulares, se conserven en su posesion, como de antes: y si por algun accidente vacaren, y se incorporaren en la Fabrica de la Iglesia, sean comunes en adelante, y no se enagenen en manera alguna (Lepe 1700, 464)

Argi ageri zaigu hemen apezpikutzak jarlekuen jabegoa esku pribatuetatik erabilera komunera (parrokiako fabrikaren jabegora, alegia) iragan zedin azaltzen zuen interesa. Baina horrez gain, aginduaren xede nagusia aldare nagusiaren aurretik familia boteretsuen jarlekuak aldentzearena izan zen. Agindua emateak berak hala egiteko ohituraren berri ematen digu, familia boteretsuen lehentasunaren eta nagusitasunaren espazio sinbolikoek XVIII. mende hasieran ere bizirik zerraitela azaleratuz:

A ninguna persona de qualquiera estado, y condicion que sea, se dè desde oy en adelante sepultura pegada, y vnida con las gradas de el Altar mayor: porque notoriamente impiden à los Sacerdotes el oficiar en el Presbyterio, y asistir decentemente en el Altar; y son ocasion de muchos enfados, y disturbios. Y las que al presente estàn, y se hallan en la forma expressada: mandamos, que se vsen de modo, que no estorven, ni impidan à los Ministros del Altar, el hazer desembarazadamente, y con toda decencia todos sus Ministerios; y de ninguna otra forma las permitimos. Y en caso de contumacia, se procederà en la manera que convenga, segun derecho, contra los que hizieren lo contrario (*Ibid.*, 464-465)

Aldare nagusiko harmailetan ere bazegoen beraz artean jarlekurik, preferentziatzeko espazio horretaz gozatzen zuenik. Eta jarleku hauek ere, noski, nahiz eta

aginduaren arabera toleratzen ziren, aldareen ingurutik aldendu nahi ziren, ezen “son ocasion de muchos enfados, y disturbios”. Horiatariko bat izan zen, esaterako, XVII. mendearen hasieratan Amurrión (Araba) Murga leinuaren eta herriko Kontzejuaren artean izan zen auzia, lehenek, beraien jarlekua presbiterioaren barrenean kokatu nahi izan zutela eta (Madariaga Orbea 2007, 260-261).

Konstituzioetako agindu hauek oinarriztat harturik abian jarri ziren eraldaketan hainbat berri ditugu Debagoienean, prozesu hau Aro Berriko bitarte kronologiko guztian zehar gauzatzen joan zela adierazten digutenak; tarteko, espazio eta denbora aldetiko irregulartasunak eta gizarteko eragile ezberdinen aldetiko erresistentzia fenomeno ezberdinak izan ziren. Hauen testigantza jasoko dugu jarraian, Debagoieneko –nahiz Euskal Herrian zeharreko– seroren aktibitate nagusietariko bat gauzatzen zen testuinguruaren aldaera hauek oso garrantzitsuak baitira beraien bizimoduaren eta ofizioaren etekinen nondik norakoak egoki ulertzeko.

Dakigunaren arabera, Bergarako San Pedro parrokiaren bisitatzailleek lehen aldiz 1533an eman zuten jarlekuak lurraren mailara berdintzearen agindua. Zenbait urte beranduago egoerak bere hortan jarraitzen zuen baina, Pedro de Ibarra argina berriro ibili baitzen jarlekuak berdintzeko lanetan (Aramburu 2008, 1. lib., 171). 1560ko hamarkadan ere eman beharra izan zuten agindu berbera; konstituzioetan agintzen zenaren aurka, “toda la dha Iga. esta ocupada de tal manera que los clerigos no pueden andar por la dha Iglia. como consta por vista ocular”, eta beraz, herriko udal agintariek hala eskaturik gainera, egoera honek sorturiko arazoak konpontze aldera jarleku guztien berdintzea agindu zen –berriro–:

mandaua y mando quitar deshazer todas las dhas tunbas que estan en la dha Iga. de Sant Pedro y hallanar y se hallane toda la dha. Iglia y que no pueda auer ni tener en ella ninguna persona de qualquier calidad que sea ninguna tunba ni estrado mas de nuebe dias del enterrorio; pero que qualquiera que quisiere poner en su sepultura lapida de Jaspe o piedra o madera, que lo pueda hazer quedando llana a raiz de la tierra (Sorondo 1994, 298)

Aginduaren betekizunerako, eskumiku meatxuaz gain, 100 dukateko isun gogorra ere ezarri zuen. Alabaina, XVIII. mendearen erdialdean ere eliztarrek nork bere lehentasuna sinbolikoki adierazteko jarlekuak eta bertako harlauzak lurraren mailatik igo eta berezitasunak lantzeko ohiturarekin jarraitzen zuten; 1737ko beste saiakera antzu baten ostean, 1748an, apezpikutzako bisitatzailleak, parrokiako jarlekuen artean bi harlauza nagusi nola nabarmentzen ziren ikusirik, agindu zorrotz bat eman zuen: “hagan trasladar al cuerpo y nave principal de ella todas las sepulturas de ambos lados, observando en la ejecucion de ellas una total uniformidad”. Jarlekuak lekuz aldatzeaz gain, harlauzen erabilera debekatu zuen, “la debida uniformidad y hermosura” lortu asmoz. Aginduriko obrak jada hurrengo urterako bukatu zituzten (Madariaga Orbea 2007, 257; Aramburu 2008, 1. lib., 171-172). Jarlekuetako irudien aurkako neurriak ere garai goiztiarretan eman zituzten San Pedron, are apezpikutzako konstituzioetan agindu berbera eman baino lehenago; 1525-1535 bitarteko bisitatzailen aginduen artean, jarlekuen gaineko ohialetako zenbait irudi debekatu zituzten, bereziki, San Andresen gurutzak: “el dho Señor Visitador allo que en las mantas que estan sobre las sepulturas de la dha Iglesia tenian cruces y aspaz de San Andres lo qual era en detrimento de Dios e parescia muy mal [...] mando [...] que tiren e quiten las dhas cruces y aspaz” (Sorondo 1994, 291).

Zenbaitetan jarlekuen berdintzearen eskakizuna udal agintarien aldetik egina izateak, Ahaide Nagusien nagusitasunezko testuinguru batetik hiribilduen gailentzearen testuingururako igaropenean kokatzen garela gogorarazten digu; jarlekuetako

espazioaren baitako botere sinbologiaren inguruko neurri eta debekuak, noski, botereborroka hauen agerpenak ere baditugu. Hein horretan, 1533az geroztiko jarlekuen inguruko arazoak parrokiari kapera partikularrak egiteko saiakerarekin ere lotuak leudeke; 1545ean, izan ere, hein batean parrokiako obretarako diru faltak motibaturik, apezpikutzaren aldetik hilobi-kapera pribatuen eraikuntzaren baimentzea planteatu zela dirudi. Udal agintariak honen berri izan zuten, eta apezpikutzari zuzendu zitzaizkion entzun zituzten berrien ziurtapena jaso asmoz eta baimentzearen aurkako arrazoiak emanez. Zenbait eliztarrek kapera pribatua izateak beste eliztarren aurreko lehentasuna izatea adieraziko zukeela –eta ordurarteko jarlekuen lehentasunen antolakuntzan aldaerak eragingo zituzkeela– eta, eliztar gehienak eta udal agintariak ez ziren kapera pribatuen baimentzearekin ados. Herriko oligarkien eta botere espazioen arteko liskar iturrizat hautematen zuten. Baina parrokiako obretarako diru-beharraren argudioz, apezpikutzak, hasiera batean, antza denez etekin ekonomikoen esperoan zeuden parrokiako apez eta benefiziodunak alde zituela, kaperak egiteko espazioen enkantea zabaldu zuen. Leinu zaharretako partaideak (Ozaeta, Ondartza, Olaso) eta hiribilduaren testuinguru burgesean aberasturiko etxeetakoak (Arrese, Eguino-Mallea) laster ekin zioten eskaintzak egiteari, eta hainbat gorabehera eta auzi izan ziren euren artean, eta baita, halaber, hauen eta jarlekuetan lehentasuna mantentzen zuten leinu zaharretako partaideen (Jauregi, Zabala) artean ere. Alabaina, azkenean, kapera pribatuen eraikuntzaren proiektua bertan behera gelditu zen. Auzien gorabeheren berri xedaturik ez badaukagu ere, azkenean ez zen kaperen eraikuntzarik egin, eta udal agintariak eta hainbat eliztarrek nahi izan bezala, jarlekuen antolakuntzak eta lehentasun sinbolikoen sareak bere hortan jarraitu zuen (Aramburu 2008, 1. lib., 152-156).

Funtsean, kapera pribatuen auzi honetan bezalaxe, jarlekuen eta bertako botere-adierazpen sinbolikoen inguruko debekuetan ere lehentasun sozialen norgehiagoka azaleratzen zaigu; norgehiagoka giro hau, botere-adierazpen sinbolikoen aurkako hiribilduetako agintarien nahiz apezpikutzaren aldetiko debeku eta neurriei XVI. mendearen hasieratik –behintzat– ekin bazitzairen ere, kasu askotan XVIII. menderarte bizirik mantendu zen.

San Pedro parrokiako kasuan baino garbiago ageri zaizkigu jarlekuen inguruko auzien inplikazio sozialak Bergarako beste parrokiari, Santa Marinaran, 1585ean egin zen akordio batean. Batez ere, argudioak esplizituki eta garbi adierazi zirelako. 1578an parrokiari handitzeko obra batzuei ekin zitzairen, eta egoera jarlekuen espazioaren baitan aldaerak egin eta ohiturak ere aldatzeko erabakiak hartzeko probestu zen. Aldaketa hauek zirela eta jada 1580an euren jarlekuak lehen iladan zeuzkaten –alegia, familia boteretsuetakoak ziren– zenbait eliztar kexu izan ziren:

a nuestra noticia ha benido como algunos parroquianos y maiordomos de la dicha yglesia pretendien deshazer y quitarnos las sepulturas que tenemos en la dicha yglesia en la primera ylera azia la parte de la caveçera y cruzero nuevo della siendo nuestras propias y de nuestras casas e patrimonio de tiempo antiquisimo a esta parte so color e diziendo que es menester ensanchar el dicho cruzero e caveçera (Aramburu 2008, 1. lib., 339)

1585ean berriz, jada gurutzadura eta kapera nagusia eraikiak zeudenean, Pero Fernandez de Yçaguirre parrokiako apezak honako proposamena egin zien eliztarrei:

el cruzero y capilla mayor de la dicha yglesia estaua çerrado y acauado en su perfeccion y conuenia y hera necessario hazer los vancos y asientos de hombres en la dicha yglesia y ponerlos debaxo del dicho cruzero en su puesto y lugar conforme a la horden e traça que estaua dada para ell[o] por los maestros artifices que tenian vista la dicha yglesia. Y que tambien como ellos sauian sobre los uancos y asientos biejos que

antes estan en la dicha yglessia hauia hauido muchas discordias y enojos por rrazon que cada uno pretende tener su asiento conoçido lo qual hera proybido conforme a derecho y que ahora que se ofreçia ocasión para ello conbenia rremediar estos ynconbenientes y que los dichos vancos y asientos biejos se deshiziessen y que la dicha yglessia a su costa hiziesse otros nuevos y que estos fuesen comunes y que en ellos no tuuiesse derecho alguno mas vno que otro y que les pedia diesen horden en ello de manera que dios nuestro señor se siruiese y se quitasen escandalos e ynconbenientes⁸⁸⁴

Ontzat hartu zen apezaren proposamena, eta banku zaharrak elizatik atera eta apurtzea, eta berriak traza berriaren arabera egitea erabaki zen,

de manera que por rrazon dellos ninguna persona tenga derecho ni açion en ninguna manera a ningun asiento ni banco de la dicha, yglessia [...] y que sean comunes y se sienten en los dichos bancos y asientos los Parroquianos de la dicha yglesia y las demas personas que fueren a ella a oyr la misa y diuinos offiçios en la parte e lugar que cada uno quisiere e fuere su uoluntad sin ecetaçion ni particularidad calidad ni preeeminencia ni eception de personas y que ninguna persona agora ni en tiempo alguno ni en ninguna manera, adquieran tenga derecho de propiedad ni posesion ni otro alguno en ellos por curso ni trascurso de tiempo ni por otra caussa ni rrazon alguna, ni tenga asiento distinto ni conosciò ninguna persona, y que si cada uno husando de nobleza y uirtud no quisiere hazer cortesia a otro no sea obligado a hazerlo por quanto de ello se sirue dios nuestro señor y la dicha yglesia se aumenta, y rredunda prouecho paz e quietud para los dichos Parroquianos⁸⁸⁵

Horrez gain, “para que el dicho cruzero y capilla mayor esten en la perfeçion horden e concierto que se rrequiere según arte de la geometria” hilobien lehen bi ilarak atzeratu beharko ziratekeela azaltzen zuen apezak (“porque estauan dentro del cuerpo del dicho cruzero que hera, gran fealdad y defeto para tan principal obra y edificio”), eta hala egin zedin erabaki zezatela eskatu zien eliztarrei. Proposamen hau ere ontzat hartu zuten:

que se quitasen y atrasasen las dos hileras de las dichas sepulturas primeras que caen debaxo del dicho cruzero, y rrespetiuamente las otras que estan detrás de ellas – Por su grado y horden de manera que uayan baxando las dichas dos hileras y las otras ylleras que estan detrás de ellas de grado en grado – subçessiuamente, conforme a la horden e traça de los dichos maestros canteros⁸⁸⁶

Obrak atzeratu egin ziren, eta ez ziren 1591rarte gauzatu. Baina edozein kasutan, elizaren hedapenerako obra hauek egin ahala jarlekuen espazioan izan ziren aldaketak, jaso berri ditugun aipuetan agertzen zaigunez, bertako eliztarren artean lehentasunak eta besteen aurreko nagusitasun agerpenak ezabatzea begira eginak izan ziren. Alabaina, 1741ean ekinda 1745erako jarlekuen mehartzeta eta elizako lurraren lauzatzea burutu zenean zenbait etxe eta familiatako jaunekin izan ziren auziek, Santa Marinan, San Pedron bezalaxe, are XVIII. mendean ere lehentasunaren eta nagusitasunaren adierazpenerako sinbologia presente zegoela agertzen digute (Madariaga Orbea 2007, 257). Zenbait urte beranduago Olaso familiako ondasunen inbentariatzea egiterakoan Irazabal etxeko jarlekua deskribatu zenean, gorabehera hauen berri eman zen:

la dicha casa solar y torre de Yrazabal y su maiorazgo tiene y posee en la parroquial de Santa Marina de Oxirondo de esta villa su sepultura principal [...] y era de una lapida de piedra con el escudo de armas de esta casa exculpido en ella siendo la unica que jamas hubo con esta distincion en la dicha yglesia pero que haviendose executado el nuevo encajonado de madera de las sepulturas de ella el año pasado de mil

⁸⁸⁴ GPAH-AHPG 1/0125, 538r-538v.

⁸⁸⁵ *Ibid.*, 538v-539r.

⁸⁸⁶ *Loc.cit.*

setecientos quarenta y siete quito de oficio la parroquia la mencionada lapida que aun entonces era la unica (Aramburu 2008, 1. lib., 363)

Bergarako parroketan bezalatsu, Debagoieneko beste zenbait espaziotan debekua XVIII. mende hasiera ingururarte ez zela bete ikusten dugu. Elgetako Andre Maria parrokian 1701ean burutu ziren jarlekuen altuerak berdintzeko obrak⁸⁸⁷, eta Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokian 1715ean agindu zuen bisitatzailleak jarlekuen berdinketa; arrazoiak orain arte aipatu izan ditugun berberak ziren, eta eliztarrek agindua ulertzearen ardura ere ageri zaigu:

haviendo reconozido en dicha yglesia, que las sepulturas algunas de ellas se hallan informormes [*sic*] y con perjuizio para poder andar sus feligreses en ella mandaua y mando que los dueños de las dichas sepulturas pongan en ellas una tabla que haga juego con las demas para dicho adorno y lo cumplan dentro de dos meses de como llegue a su notizia este auto pena de excomunion maior latae sententiae para lo que mando su merced al dicho cura publique y lea este auto en dia festiuo al tiempo del ofertorio de la misa conuentual en la lengua uulgar que sea nesesaria, para que lo entiendan⁸⁸⁸

Zenbait urte beranduago, 1722an, Aretxabaletan bertan, hiribilduko Andre Maria eta San Migel parrokia batueta liburuan ere antzerako agindua eman zen, jada San Migelen bazeuden bezalaxe, Andre Maria parrokiako jarlekuak ere berdindu zituzten asmoz:

Y porque en la dicha Yglesia de Nuestra Señora de Arechualeta se ha reconozido que las tarimas que estan encima de las sepulturas de ella, se hallan desiguales y por este motibo causan indecencia e impiden el paso al Presbyterio a las personas que asisten a dicha Yglesia: mando su merced a los dueños de dichas tarimas que dentro de veinte dias de la publicacion de este auto se bajen y compongan las que estubieren altas dejandolas al modo que estan las de la Yglesia de San Miguel, para que no causen indecencia alguna ni impidan el paso⁸⁸⁹

Oñatiko San Migel parrokiako jarlekuen kasua, aldiz, bertako kondeen nagusitasunak berezia egiten du. Bertako jarlekuen kokapena ezohikoa zen; alde batetik, eraikuntzaren gorabeheretatik: bertan familia zahar eta boteretsuenen jarlekuak Errosarioaren nabean zeuden, epistolaren aldean (ohizkoena, nabe nagusiko aldearearen aurrekoen hurren, ebanjelioaren aldekoak hobestea zen artean), tenplu zaharrak nabe honen espazioa hartu zuelako. Bestetik, konde Gebaratarrek leinuaren dorreari atxikiriko kapera batean ehortziak izateko ohitura jarraitu izan zuten, San Migel parrokiako jarlekuen botere espazioez kanpo kokaturik. Alabaina, XVII. mendearen hasieratan leinukideek ehorzlekua San Migel parrokiako botere esparruen erdigunean kokatzeko ordua zela erabaki zuten, eta lekuri onenak jada beste leinuetako jarlekuak hartuak zeudenez, aldare nagusiaren azpian kripta bat eraikitzea nahi izan zuten; kontzejua eta kabiltoa aurka agertu ziren, eta Gebaratarrek ezin izan zuten asmoa 1673rarte burutu, Catalina Vélez de Guevara kondesa zela. Oñatiko kasuan, bada, botere adierazpen sinbolikoen aurkako legedia indarra hartzen zioan garaian izanik ere, kondeek, herriko boteretsuena zen beraien leinuari parrokiako jarlekuen espazioan zegokion lekua bermatzeko ardura handia azaldu zuten; alderdi sinboliko hauen garrantzia, izan ere, oso handia baitzen artean ere (Madariaga Orbea 2007, 251-252, 258-260).

⁸⁸⁷ DEAH-AHDSS 2123/003-01, 48r-50r.

⁸⁸⁸ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 98r.

⁸⁸⁹ DEAH-AHDSS 4143/001-01, 247v-248r.

Bildu ditugun datu hauek, funtsean, jarlekuen espazio baitako botere-adierazpenen aurkako neurriak XVI. mende hasieratik behintzat abian zirela ageri digute, eta honekin bat, baita agindu eta hitzartu izan ziren araudi eta legedien betekizunaren aurrean izan zen zenbait eliztarren –eta agian, instituzioren– aldetiko erresistentzia, bereziki boteretsuenena, Aro Berri guztian zehar mantendu zela ere.

Aipatu izan dugun beste konstituzioetako agindu bat pertsona edo familia bakoitzeko jarlekuen kopuruaren mugapenarena da; hau, azaldu bezala, jarlekuen erabilera komuna bultzatzeko neurria ere izan zen. Halaber, aipatu dugu nola honek partikularrek euren jabegoko jarlekuekin bertan ehorzteko eskubidearen inguruan egin zitzaizkion negoziok zerikusirik izan zezakeen. Leinu eta familia jakin batzuek jarlekuak euren gaitzatzeko grina handia azaldu zuten, eta muturreko kasuak ere eman ziren: Gueñesen (Bizkaia), 1515-1524 bitartean Salcedotarrek herriko parrokiako 13 jarleku zeuzkaten euren esku, haietarik 8, familia-kide nagusiak ehorztera bideratuak (Madariaga Orbea 2007, 257). Baina leinu eta familiez beste serorek ere jarlekuen jabetzean parte hartzen zuten, eta gure bilaketetan, beraien jabegoko jarlekuak kudeatu eta saldu izan zituzten hainbat seroren berri izan dugu. Berez, zerbitzen zituzten etxe eta familien –eta aurreraxeago aipagai izango ditugun parrokia eta ermitetako seroren ehorzketarako– jarlekuez beste, serorek eurek, ez familiaren izenean, baizik pertsonalki, beraien jabego partikularreko jarlekuak izatea nahiko ohikoa zela dirudi. Bergarako San Pedro parrokian, esaterako, 1515ean laugarren iladan zegoen jarlekuetariko bat “La de la frayla de Sant Saluador” bezala aipatu zen⁸⁹⁰. Bergaran serora zela baino ez dakigun Catalina de Mendarasek 1609an bere jabegoko bi jarleku zeuzkan Urretxuko San Martin parrokian, eta hauetariko bat (“que es de las condonarias”) 12 errealean truke saldu zion Maria Perez de Muxika Urretxuko herritarrari⁸⁹¹. Oñatin ere badugu jarlekuen salerosketan jarduten ziren zenbait seroraren berri. 1570ean San Martin ermitako serorak hiribilduko San Migel parrokian jarleku bat zeukan bere izenean, laugarren iladan, “apegante al camino que del coro ban para el altar mayor e a de dar por ella quatro ducados”. Zortzigarren iladan “a la parte de a la Epistola”-n egonik, merkeagoa izana zen Murgiako San Andres ermitako serorak erosia zuen jarleku; serora 20 erreale ordaindu beharrean zegoen⁸⁹². 1592ko kontuetan berriz, jarlekuen salerosketaren gorabeheren inguruko berri garbiagoak ematen dizkigun partida bat ageri zaigu, serora batek jarleku baten erosketatik zeukan zorrari zegokiona:

Yten tres ducados de una sepultura que Maria [Sen°.?] de Uillar serora de la Madalena de Gorostola tomo junto a la escalera del coro en la ultima ylera, los dos ducados de ellos debe doña Luçia de Alçibar y el otro ducado debe Maria Lopez de Garibay Goitia uiuda muger que fue de Martyn de Marulanda cantero por çezion que la dicha serora hizo en las dichas doña Luçia y Maria Lopez del derecho y açion que tenia de sendas sepulturas de ellas⁸⁹³

Alegia, ongi ulertzen badugu behintzat, lagapenean emandako bi jarlekuren etekinekin beste bat erosia zeukala, eta azken honen ordainketa berari zordun zitzaizkion emakumeek egin beharrekoa zela. San Migel parrokiako bertako serora zen Maria Lopez de Estrañok ere, 1647an testamentua helarazi zuenean bi jarleku zeuzkan. Bata bere iloba Mari Ramos de Arriola Gallaistegui eman zion dohaintzan (“en la naue de Sancti Spiritus frontero del Altar de Sancta Marina [...] de limosna y por que me encomiende a nuestro señor”), eta bestea, aurrekoa baino lehenago eta “mi sepultura” bezala aipatu zuena, bere albazeek sal zezatela agindu zuen, honako baldintza ezarriaz

⁸⁹⁰ BUA SP2/173-431, 426-429 fot.

⁸⁹¹ GPAH-AHPG 1/0164, 67r-68v.

⁸⁹² DEAH-AHDSS 3690/001-00, 186v-189v.

⁸⁹³ *Ibid.*, 328v.

baina: “con que rreseruen liçençia y facultar a Maria de Ytuño tercera que biue en el Ospital de esta Uilla para enterrar sola su persona en la dicha sepultura que por uirtud de este testamento le doy este permissio”⁸⁹⁴. Ez dakigu azken eskubide hau Maria de Ytuño ospitaleko serorak parrokiakoari erosi izango ote zion, edo azken honek bere borondate hutsez eginiko dohaintza ote zen; edonola ere, serorek erosi ohi zituzten jarleku hauek, bertan ehortzia izateko eskubidea salduz (edo hauek lagapenean emanez) etekinak izateko bide bat zirela dirudi. Ziurrenez, 1602ko, 1621eko eta 1700eko jarlekuei buruzko konstituzioak azaltzean aipagai izan ditugun parrokiako fabriken jabegoko jarleku komunekin ere antzerakoa izango zen jarduera, kasu honetan, etekinak fabrikarako izanik ere⁸⁹⁵.

Aipaturiko adibideetariko batzuetan aski nabaria zaigunez, jarlekuetako zerbitzuez beste, jarlekuak eurak eta baita bertan ehortziak izateko eskubidea ere, negozio ezberdinetarako salgai ere izan zitezkeen. Jarlekuek, etxeen parte ziren heinean, hauekiko lotura handia bazuten ere, lotura hau ez zen erabat hautsiezina, eta posibilitatea izan zuten leku eta garaietan, serorek hauen salerosketa eta “alokairu”tik etekinak ateratzen jakin izan zutela dirudi.

VI. 1.5.2. Parrokia bertako serorak, beste serorak eta zerbitzari partikularrak

Esana dugun bezala, jarlekuetako zerbitzuan, parroietako serorez eta etxe nagusietako serora partikularrez bestalde, emakume soilek eta tertziariek (hirugarren ordenako serorak, "terceras") ere parte hartu ohi zuten zenbaitetan. Lan honen hasierako ataletan Bergarako seroren kopuruaren inguruan egin ditugun kontsiderazioak oso egoki datozkigu hemen⁸⁹⁶; bertan, herrian XVII. mende hasiera-erdi aldean zeuden seroren ikuspegi orokorra eta zerrendaketa ematen genuen, eta jarlekuen zerbitzuaren inguruko atal honi dagozkion lehen azalpenak, hain zuzen ere, espazio eta kronologia aldetiko antzerako testuinguruan kokatzen dira.

1657an, Bergarako San Pedro parrokian, jarlekuen zerbitzuaren etekinen motiboz alde batetik parrokia bertako seroren, eta bestetik kanpoko seroren eta bestelako jarlekuen zerbitzarien artean izan ziren liskarrak zirela eta, eliz-kabildoa eta eliztarrak baturik, akordio bat adostu beharra izan zen. Gogoan izan dezagun 1658ko parrokiako eliztarren matrikularen arabera eta serorak soilik aipatzearen, parrokiakoez aparte, hiribilduko etxe partikularretan beste zortzi serora zeudela, ermitetako beste bostez gain (Zenbaiten artean 1994, 183-212 –5. gehigarria–). Akordioa egin zenean apirilaren 22a zen, eta urte bereko urtarrilaren 21ean, parrokiako hiru seroren eskakizunez (Catalina de Zuruzelaegui, Francisca de Oruesagasti eta Ana de Guerra) dekretu eta akordio bat egina zuten jada,

en que se dispuso que las dichas tres freyras y las que adelante fueren uiuiendo juntas en la dicha Cassa con nombramiento de los Señores Cura Alcalde y Mayordomos de la dicha fabrica tengan el cuydado del Seruizio de la dicha Yglesia, y de las sepulturas de ella y lleuen los prouechos y emolumentos acostumbrados siendo elejidas como se declara en el dicho acuerdo y que otra freyra ni tercera alguna no se entremeta en el dicho Seruizio ni se den vesamanos ni oblasas en entierros ni honrras ni en otras ocasiones sino solo a las tres destinadas para el dicho Seruicio y que los Uezinos puedan encargar entre ellas a las que quisieren el Seruizio de sus sepulturas y no a otras algunas = y que al tiempo [???] de entierros honrras y demas actos en que se hazen vesamanos el dinero para esto den las partes a los que los huieren de hazer y ellos repartan y den a

⁸⁹⁴ GPAH-AHPG 1/3194, 102r-107v.

⁸⁹⁵ Goraxeago, 479 eta hurr. or.

⁸⁹⁶ Ikus III. atalean, 171-174 or.

los sacerdotes que acudieren y a los demas que se acostumbra en que se comprenden los clerigos que no son de misa y el Sacristan lego de la dicha Yglesia y a las dichas tres freyras y lo que sobrare bueltan a las partes y en esto no tengan ynteruenzion las dichas freyras⁸⁹⁷

Baina parrokiako serorek jarlekuetako zerbitzuaren eta heriotz-errituen etekin guztiak eureganatzeko egin zuten saiakera hau ez zitzaien eliztarren batzuei –eta noski, ezta jarlekuetako beste zerbitzariari ere– batere ondo iruditu, eta Juan Jorge de Yrazaua y Olaso, Olaso dorreko jauna, eta Nicolas Antonio de Madariaga, Lorenzo de Madariaga kapitainaren semea⁸⁹⁸, akordioaren aurka agertu ziren, “en quanto se quita a los vezinos su liuertad de poder encargar el cuydado y seruizio de sus sepulturas a las freyras que quisieren aunque sea fuera de las dichas tres”. Hauek herrian eragin handia zeukaten etxeetako partaideak ziren, serora partikularrak eta bestelako zerbitzariak izan ohi zituztenak (emango dugu hurrengo atalean serora partikularretaz baliatzen ziren beste zenbait etxe nagusiren berri ere). Kexatzaileek apezpikutzaren auzitegietan akordioaren aurkako auzi bati ekin zioten, eta “otros uezinos particulares que no se allaron en el dicho ayuntamiento” ere batu zitzaizkien euren alde. Kexuari aurreko akordio hartan izan ez ziren eliztarrak batu izanak, agian akordioa ongi aukeraturiko momentuan egin izan zela adieraz lezake. Azkenean, apirilaren 22an auziari bukaera emateko egin zen azken akordioan jarlekuaren zerbitzuaren kargu “a qualquiera freyra o tercera o muger de otro estado que quisieren aunque sea fuera de las dhas tres freyras destinadas” ematea zilegi zela onartu zen, baina honekin bat urtarrilaren 21eko akordioa ere berretsi zen, kanpoko zerbitzarien onarpenerako zenbait baldintzaren zehaztapenak eginez:

- (1) Kanpoko zerbitzari hauek etxe bakarreko eliztarrak zerbitzatu behar zituzten, eta jarleku bat baino gehiago, etxe eliztarrek eurek jarleku bat baino gehiago izanaz gero baino ezingo zuketuen zerbitzu; alegia, hauen zerbitzua etxe bakarreko espazioak mugatuko zuen aurrerantzean. Arau hau, jarlekuko zerbitzuaz gain, hileta, ondra, edo bestelako edozein errituri ere aplikatuko zitzaion.
- (2) Hauek ezingo zuten aurrerantzean “arca, Alacena ni otra cosa alguna para la Custodia de los Manteles de las sepulturas”-ik parrokiaren gorde.
- (3) Hauek jarlekuko zerbitzuaren kargu pertsonalki hartu beharko zuten, “y no por criadas ni otras personas”.
- (4) Hileta, ondra eta beste errituetan ohituraz serorei ematen zitzaizkien eskumuinak, ogiak eta emolumentuak, nahiz eta hauetako zerbitzuak eta errituak kanpoko zerbitzariak egin, parrokiako hiru serorei emango zitzaizkien.
- (5) Arau hauek beteko ez lituzkeen serora edo zerbitzariari, parrokiakoa nahiz kanpokoak izan, aldi bakoitzeko 10 dukateko isuna ezarriko zitzaion; hauek parrokiaren fabrikarako izango ziren.

Akordio hau, seroren jarlekuen zerbitzuaren inguruko puntu hauek zehazteaz beste, parrokiako seroren onarpenerako bertako seroretxearen fundatzaile izan zen Catalina de Ondarzak 1572ko fundazioan ezarri zituen baldintzetan aldaketak egiteko ere probestu zen, aurreko ataletan aipatu izan dugun lez. Eliz-kabildoak aldaketen momentua parrokiako seroren kontu etekinak handitzeko ere erabili zuen, eta hauek dotetzat eman beharreko 12 dukaten kopuruari parrokiako fabrikarako izango ziren 30

⁸⁹⁷ KKA-ACC 25/689/17, 10r-10v.

⁸⁹⁸ Pertsona hauek nortzuk ziren, hein batean, 1658ko San Pedroko eliztarren matrikulak agertzen digu (Zenbaiten artean 1994, 184, 188). Nicolas Antonio de Madariagari buruz, kexu hau aurkeztu zuten garaian 25 urte inguru izan behar zituela ere badakigu (Tola de Gaytán 1960, 31).

dukat gehiago erantsi zitzaizkion, eta seroragaien gutxieneko adina 30 urtetan kokatu zuten. Kasualki, Geronimo Joseph de Urrutigoiti apezpikutzako Bisitatzaile Orokorra herrian bisitak eginez zebilen momentua zen gainera, eta arautegiaren onarpenaren eskaera egin zioten, eta lortu⁸⁹⁹. Akordio honen bertsioak Kalagorriko Katedraleko Artxiboan eta Bergarako Udal Artxiboan aurkitu ditugu, eta Bergarakoak parrokiako serorei jasotzea zegozkien eskumuin, ogi eta emolumentuen inguruko berri zehatzagoak ematen dizkigu. Ogiei zegokienean, “pan añal”-aren zortzi eguneroko eta hamabost eguneroko ogiak ere parrokiako serorei zegozkiela ezarri zen, eta baita anibertsarioetakoak “para que los repartan entre filas” jasotzea eurei zegokiela ere. Eskumuinei buruz, serorek emakumeek emandakoak jasoko zituztela eta gizonek emandakoak berriz apezzei zegozkiela adostu zela dirudi; “dirudi” diogu, pasarteaz ez baitzaigu batere argia iruditzen. Nola aditzera eman zenaren arabera, gainera, emakumezkoen eskumuinak ogien banaketa egiterakoan jasoko ziratekeela dirudi. Hona pasarteaz osorik, esandakoarekiko nork bere ustea egin dezan:

y se declara tambien que el dar a las tres freyllas el dinero de los vesamanos para si, como por mano de las mugeres que rreparten los panes y no por los hombres que dan los dichos vesamanos a los sacerdotes y clerigos

Horrez gain, bertsio hontan, parrokiak kanpoko zerbitzariari ordaintzekoak elizatik kanpo nahi bezala adostu zitezkeela ere aipatu zen: “Pero fuera de la yglesia se abengan como quisieren con las que sirvieren dichas sus sepulturas”⁹⁰⁰. Edozein kasutan, parrokiako hiru serorek, akordioa medio, nahiko egoera abantailatsua lortu zutela esango genuke. Alabaina, akordio honek ondoren parrokian sartzekoak izango ziren serorei ez zien bidea batere erraztu, dotea dezente garestitu baitzen, adinaren mugapenaz aparte.

Baina San Pedro parrokiako seroren gorabeherak ez ziren hor bukatu, bertako hiru seroren artean ere jarlekuetako zerbitzuaren eta emolumentu eta etekinengatik inguruko beste hitzarmen bat egin beharra izan baitzen. Darabilgun dokumentuak aurreko akordioaren Bergarako bertsioaren garai beretsukoa dirudi, baina ezin dugu data zehatzagorik eman. Edonola ere, logika hutsez, aurreko akordioa baino beranduagokotzat hartu beharko genuke, parrokia bertako serorei baino ez zegokien akordiorik egitekotan, behin kanpoko zerbitzarietakoak argitu ondoren eginga izan beharko baitzen. Eta diogun bezala, data zehatzik eman ezin badiogu ere, ez dirudi askoz beranduagokoa behar duenik.

Parrokiako serorak euren artean liskarrak izaten hasi ziren, jarlekuak eta bertako errituen etekinak euren gaitzatzeko lehian hasi baitziren:

las dichas tres Beattas tienen diferencias sobre que cada vna pretende y solicita para ssi el servicio y probecho de las sepulturas y vnas tiene mas que otras adquiriendo por medio de sus devidos parientes y amigos por cuia caussa tienen sus diferencias y unidos y adelante se pueden esperar maiores siendo assi que la casa donde viven es destinada para las tres Beattas que an de servir en la dicha yglesia de San pedro y la mixta principal del cavildo y parroquianos a ssido y es que las dichas beattas sean como an ssido personas principales quiettas y pacificas y de forma que no solo se conozca entre ellas pendencias ni dissensiones antes bien de buen exenplo y con deseos de ebittar las dichas dissensiones y aya [t]oda buena, amistad y ermandad enttre ellas⁹⁰¹

Eliztarren arteko partzialitateen eragina, eta era berean, seroren arteko liskarrek euren artean eragiteko zuten gaitasuna ageri zaizkigu hemen. Eta noski, hiru serorak batera

⁸⁹⁹ KKA-ACC 25/689/17, 9r-12v.

⁹⁰⁰ BUA 04 MIK/SP5, 84-87 fot.

⁹⁰¹ BUA 04 MIK/ SP14, 73-75 fot.

bizitzen egonik, ez zen giro goxorik sortu izango. Beraz, liskarrekin bukatzeko, honakoa hitzartu zen:

- (1) Serorak San Pedro parrokiari zegokion seroretxean elkarrekin bizi behar zuten, “teniendo cada vna por ssi y para ssi los bienes y alajas que ttienen y ttubieren y cada una pueda disponer lo que fuere suio”
- (2) Hiru serorek batera, “sin distinsion ni separasion alguna entre ellas” egin behar zuten jarlekuetako zerbitzua,

acudiendo a ttodo lo que conbenga en las cassas y cossas que en cada vna de las dichas sepulturas se ofreciere assi en entierros honrras cassamienttos bautismos y otras cossas y a ello quedan las dichas tres beattas obligadas ynssolidum en f[or]ma

- (3) Jarleku bakoitzeko eliztarrek zerbitzu ezberdinegatik ematen zituzten emolumentu denak “ygualmente” banatu behar ziren hirur seroren artean,

assi en los mortuorios honrras y cavo de anno con el pan que se da como en las ocaisiones que sse ofreçen y lo que se da durantte el anno fatal del enttiero y ttanbien el pan que sse da por pasquas y lo que sse da de a ocho a ocho o de quince a quince dias y tanbien lo que sse da en los aniberssarios batteos por ttodos santtos conmemoraziön de difunttos y otros dias sennalados de forma que los dichos emolumenttos sean comunes y para las dichas tres beattas y entre ellas se rreparttan ygualmente sin division ni separaçion alguna y de manera que vna no lleve ni quede con mas provecho que la otra = Y si en los Batteos se diera algun dinero se rreparta tanbien

- (4) Seroretzeko gastu amakomunei zegokienean, “que las dichas tres beattas pongan el gasto de la llena para su lumbre y la mançana neçessaria para hazer sidra por iguales parttes para su sustentto y consumo”⁹⁰²

Funtsean, serora bakoitza bere ondasunen jabe, baina jarlekuen zerbitzuaren etekinei eta etxeko funtsezko gastuei zegokienean, etekin eta gastu denak amankomunean. Azalpen hauetan, bestalde, serorek, heriotz-errituez eta hauen inguruko egun seinalatuez beste, ezkontza eta bataioetan ere emolumenturen batzuk jasotzen zituztela ageri zaigu, kapituluaren hasieran Euskal Herrian zeharreko hainbat lekutan ere gertatzen zela ikusi ahal izan duguna.

Bergaran bertan eta antzerako datatan, 1677an, Santa Marina parrokian ere jarlekuetako etekinen inguruko akordio bat adostu zen, Juan Ignacio de Olariaga parrokiako apezka, elizako maiordomoa zen Juan de Arizabaleta benefizioduna eta Andres Lopez de Yrazabal (“dueño de la casa solar de Yraçauual suso”) maiordomo sekularra baturik, Ana de Herenchun eta Ana de Ascargorta seroren berrespen eta onarpenarekin. Momentuko erabakiz edo aurretik hartutako erabakiren bat medio parrokian bi serora baino ez izatea adostua zela –edo adostu zela– ageri zaigu (“se a rreconoçido que no combiene aya mas de dos”), eta “porque por este medio zesaran diligenciäs de adquirir sepulturas y abra mexor seruiçio y mas gusto para el cauildo y parroquianos”, serorei zegozkien jarlekuetako etekinak honela antolatzea erabaki zuten, labur asko:

que de aqui adelante las suso dichas acudan al seruiçio y cuydado de todas las sepulturas y todas las cosas conçernientes ayudando la una a la otra ygualmente y partan y lleuen a medias todos los prouechos y emolumenttos de pan trigo y dinero aunque la una tenga mas sepulturas encargadas por los dueños que la otra y de la misma manera partan todo el pan que a cada una de ellas se les diere en la dicha yglesia y se les ymbiare a ella por todos Ssanctos y dia de los difunttos y en las Pasquas de cada año⁹⁰³

⁹⁰² *Loc. cit.*

⁹⁰³ GPAH-AHPG 1/0324, 72r-73r.

Ez banatzekoak, eliztar bakoitzak batari edo besteari elizatik kanpo emandako ogi eta bestelako opariak baino ez ziratekeen izango, “que por bia de regalo y amistad se les ymbiaren a sus casas”⁹⁰⁴.

Inongo akordioen berririk ez badugu ere, badugu Oñatiko San Migel parrokian izan ziren hainbat tankerako liskarren berri ere. 1637an parrokiako serora nagusia zen Maria Lopez de Estrañok ahalorde bat helarazi zuen, ahaldunak, parrokia berean serora zen Maria de Goribarrekin apezpikutzako auzitegietan zeukan auzi baten aurrean ordezkatu zezan. Auzi hau, “sobre y en raçon del serbicio de la dicha yglesia en raçon de poner paños y otras cosas / sobre las / sepulturas de la dicha yglesia y por las demas causas y raçones que tengo deduçidas ante los senores probisores” hasia izan zen⁹⁰⁵.

Ahalordetik informazio xumea baino jaso ezin badezakegu ere, litekeena da Maria Lopez de Estrañok 1638an ekin zion auziaren motiboa 1739an parrokia berean serora nagusi zen Ana Catalina de Ynzak hasi zuenaren antzerakoa edo berbera izatea. Azken honek honela azaldu zuen apezpikutzako auzitegien aurrean, Bentura de Echebarria “moza soltera”, berari zegozkion jarlekuen espazioan sartu izana:

Digo que en uirtud de nombramiento del Exmo. Señor conde de Oñate Patrono de dicha Yglesia me hallo siruiendo dicho Empleo de Serora a el qual entre otros Empleos y emolumentos perteneze el encender las luzes y cerillas que estan ardiendo en las sepulturas de dicha Yglesia utilizando de la Contribuzion que hazen los dueños de ellas; y siendo pribatiuamente pertenecientes a mi, es asi que Bentura de Echeuarria moza soltera natural de esta dicha uilla de poco tiempo a esta parte se ha intrometido a encender las luzes ô cerillas de algunas sepulturas de dicha Yglesia usurpando por este medio no solo actos de Serora, mas tambien los productos que me pertenecen pribatiuamente⁹⁰⁶

Apezpikutzako auzitegitik galdeketa bat osatu zen, funtsean, serorak jarlekuen zerbitzuaren ohiturari buruz esandakoak horrela ote ziren argitzera begirako galderez osatua. Joseph de Santerbas apezpikutzako Probisore Orokorrak San Migeleko apezpei helarazi zien galdeketa, eta Ana Catalina de Ynzak hiru lekuko aurkeztu zituen, bere esanak berresteko. Hitzez hitz berretsi zituzten hauek Ana Catalinak azalduriko jarlekuen inguruko ohiturari buruzkoak, aurreko seroren kasuan ere ohitura berbera jarraitu zela ere esanaz. Lekukoetariko batek, Teresa de Narbaizak, Maria Antonia de Ydigoras aurreko parrokiako seroraren neskame izana zela zioen, eta noizbait esaten ere entzun omen zion, jarlekuetako zerbitzua eta honi zegozkion emolumentuak jasotzea, “propio y priuatiuo de dicho ministerio de serora” zela. Bentura de Echebarriak ez zion auziari aurre egin, eta apelazioen faltan, Ana Catalinaren aldeko sententzia eman zen, Bentura de Echebarriari, berriro seroraren lanetan hasiaz gero, eskumiku meatxua luzatuz⁹⁰⁷.

Auzi honetako gertakizunetatik San Migeleko ohitura parrokiako serorak bertako jarlekuetako zerbitzuaren eta emolumentuen gaineko eskubidea izatea zela badirudi ere, handik zenbait urtetara, 1768an Maria Gabriela de Sarraoa parrokiako serorak motibo berberegatik Teresa de Cortazarren (“muger legitima de Francisco Jauier de Uriue”) aurka ekin zuen auzian, ohituraren inguruko beste berriren batzuk ematen zaizkigu. Joseph Joaquin de Sarria Oñatiko bikarioari ohituraren gaineko informe bat eskatu zitzaion, eta honek “persona de Juicio” batengandik jaso zuenaren arabera, jarlekuen zerbitzuak ez omen zituen beti hain arau zurrunik mantendu:

⁹⁰⁴ *Loc.cit.*

⁹⁰⁵ GPAH-AHPG 1/3141, 60r-60v.

⁹⁰⁶ KKA-ACC 22/742/12, f.g.

⁹⁰⁷ *Loc.cit.*

me á informado persona de Juicio que á alcanzado serora que estaba encargada enteramente de este cuidado, y tambien á conocido otras en cuio tiempo la que queria ser seruida de aquella persona [que] mejor quenta le tenia a la parte como oi se ue y esto mismo me an dicho otras personas a quienes ê preguntado, y a la uerdad unas se siruen por si mismas, ô de criadas y Mugerres de confianza, y las mas de las Criadas de la misma serora, quien, como tambien su anterior an procurado solicitar las uoluntades de las gentes para que les den este cuidado; y Teresa de Cortazar, que no es sola la que tiene esta incumbencia segun me an tambien informado fue buscada para este encargo muchos años antes que la demandante fuesse serora, y no introducida de pocos dias a esta parte, por todo lo qual y hauer tambien oido es uoluntario de las partes este encargo Jusgara Vm lo que le pareciere⁹⁰⁸

Baina Maria Gabriela de Sarraoaren ahaldunak bikarioaren informeko arrazoiak bere alde moldatu nahi izan zituen, informearen lehen partea onartuz eta seroren neskameen parte hartzea honen eskubideen frogantzatzat hartuz, eta bigarren partea ukatuz, ezen: “sin embargo de que en la segunda parte quiere limitar este derecho, no lleua en ello otro fin que seguir con su hermano la Tema de fauorecer con perxuicio de dicha Maria Gabriela, á Theresa de Cortazàr”. Partzialitate salaketa honek jarlekuaren zerbitzuaren inguruan eragiten zuen beste botere-jokoren bat ere tarteko zegokeela iradokitzen digu. Azkenean, bikarioaren zehazgabeziak argitze aldera, udaleko agintarien bilkura batean eginiko informe bat helarazi zen, ohituraren nondik norakoak zehaztasun gehiagorekin azalduz, eta honekin bat, parrokiako seroraren alde eginez:

digeron, que es cierto de tiempo inmemorial siempre ha estado en Costumbre el Cuidado [de] la Serora de la Yglesia Parrochial de esta Uilla, y sus Criadas de las Cerillas, y baietas, que se ponen en las sepulturas de dicha Yglesia á escepcion de aquellas que las mismas partes interesadas han querido Cuidar, por si ô por sus criadas sin que se haia mezclado otra persona en ello hasta aora que Theresa de Cortazar se ha intrometido sin razon ni justo titulo alguno, por lo que se persuaden dichos Señores que las partes interesadas, y que mantienen dichas Cerillas y baietas tienen facultad de seruir las sepulturas por si ô sus Criadas pero no pueden encomendar este ministerio á otra, que a la Serora de dicha Parrochia la que contemplan tiene derecho á preferir en el encargo á otra extraña por el tanto de el salario, supuesto que està señalado el que se la han de contribuir los interesados; y que se la puede obligar contra uoluntad á que se encargue de dichas Cerillas por la antigua Costumbre, la que parece debe obrar tanto en fauor de la dicha Serora, como contra ella⁹⁰⁹

Beraz, udal-agintariak azalduko ohituraren arabera, Oñatiko San Migeleko serorak eta bere neskameek baino ezin zezaketen lan hau egiteko eskumena izan, eliztarrek euren jarlekuaren kargu, pertsonalki nahiz neskameen bidez, hartzen ez zutenean. Nor bere etxeaz besteko jarlekuen zerbitzuan ezin zen soldatapean beste “justo titulo”-rik gabeko zerbitzaririk ibili, esandakoez gain. Parrokiako seroraren eskubidea, gainera, betebeharra ere bazen; ezin zion –zegozkion emolumentuak jasoz, noski– parrokiako inori zerbitzua ukatu. Azken azalpen honek bestelako soldatapeko zerbitzarien beharraren argudioa ere baliogabetzen zuen. Teresa de Cortazarrek, Bentura de Echebarriak 1739an bezala, ez zuen auzitan jarraitu, eta azkenean apezpikutzaren auzitegiak bere aurkako sententzia eman zuen⁹¹⁰. Oñatiko San Migel, eta Bergarako San Pedro eta Santa Marina parroketan izan ziren liskar hauek, XVII eta XVIII. mendeetan jarlekuetako zerbitzuen eta errituen eta hauen etekinen inguruan izan zen konpetentzia giro gogorra agertzen digute.

⁹⁰⁸ KKA-ACC 22/768/15, f.g.

⁹⁰⁹ *Loc.cit.*

⁹¹⁰ *Loc.cit.*

Bestelako auzi bat, hiribilduetako seroren kompetentzia giro honen baitan arrazoi ekonomikoekin bat bestelako arrazoiek ere eragiten zutela agertzen diguna, 1763an gertatu zen, Elgetako Andre Maria parrokiako seroren inguruan. Bertan ez zen izendaturiko serorez aparteko emakumeen aldetiko jarlekuen zerbitzua eureganatzeko saiakerarik izan, parrokia bertako seroren arteko kompetentzia baizik. Aurreko atal batean azaldu dugunez, Elgetako ohituraren arabera, parrokiaren zerbitzura iragaten ziren serorek lehenik ospitalean zerbitzen zutela dirudi. Kasu honetan, orduan zela bost bat hilabete ospitaleko zerbitzutik parrokiakora iragana zen Juana Bautista de Yrigoienek, bere parrokiako postua defendatzeko asmoz apezpikutzaren auzitegien aurreko auzi bati ekin zion. Heldu zaiguna, funtsean, auzitegien aldetik osaturiko galdeketa eta honen bidez jasotako –Juana Bautista de Yrigoienen aurkako– testigantzak eta frogatzat aurkeztu ziren dokumentuen konpultsak dira; bertan, ez zaigu Juana Bautista bere serora kargutik kanporatu egin ote zuten, edo Maria Ana de Elcoro serora alargunak zerbitzua Teresa de Aguirrebeñña bere alabarekin batera egiten zuela eta, Juana Bautistak berak azken hau etekin gehiagoren gutiziaz kanporatu nahiko ote zukeen argitzen. Kontua da, galdeketaren erantzunetatik eta auzia beraren planteamendutik batak edo besteak izan behar zutela ondorioztatzen dela. Halaber, Juana Bautista de Yrigoienek bere seroratzaren defentsarako serora zaharretariko bat jada zerbitzua zailtasunez betetzeko besteko zaharra zela ere argudiatu zuela dirudi⁹¹¹. Edozein kasutan, etekinek ez zuten bi serora gazteen mantenturako ematen; garai haietan Elgetako parrokiari batzuetan bi serora eta bestetan bakarra izan ohi ziren, ez gehiago⁹¹².

Juana Bautista de Yrigoienek ospitaleko seroratzara sartu zenean dotetzat eman zituen 54 dukaten zorra argudiatzen zuen, eta testigantzetan esplizituki esan ez bazen ere, auzitegietatik prestatu ziren galderek eurek, Juana Bautistak ospitaleko hiru urtetako zerbitzuaren ostean parrokiako zerbitzua zegokiola pentsatzen zuela ulerterazten digute. Alegia; eman zuen doteagatik, ospitaleko zerbitzuaren ostean parrokiakoa zegokiola. Baina galdetegiarri erantzun zioten lekukoek Teresa de Aguirrebeññaren alde egin zuten, ospitaleko eta parrokiako zerbitzuen ibilbide horretan Elgetako serorek izan zitzaizketen etekinen inguruko balorazio ekonomikoaren gerturapen batetara garamatzen argudio batekin. Lekukoren batzuk ez ziren ausartu hainbeste esaten, baina beste batzuk, Juana Bautista de Yrigoienek ordurako jada dotean eman zituen 54 dukaten balorea jasoriko soldata eta emolumentuen etekinetatik konpentsatuak behar zituela zioten. Ospitalean hiru urte eta parrokiari bost hilabete seroratzat igaro ostean, jada sobera irabazia zuela. Batzuen zalantzak eta besteen segurtasunak, bestalde, seroraren irabazien baloreak dotean eman zituen 54 dukaten inguruan ibili behar zuela adierazten digu; bestela, errazago egingo zuketena batera edo bestera, serorak konpentsazioa jaso izana onartuz, edo ukatuz. Baina lekukoen erantzunek Juana Bautistaren eskakizunen ondoren prestatutako galdeketaren aurreko defentsa bateratu bat azaltzen digute, eta agian ez ginatke balorazio honetaz hainbeste fidatu beharko. Horrez gain, doteko 54 dukatetaz ez omen zuten ez parrokiako fabrikak ez bertako serorek inongo etekinik jaso, guztia ospitalean bertan egin ziren obretan xahutu baitzen; dotearen aportazioa medio seroratzat zegozkioken probetxuak ospitaleari zegozkion, ez parrokiari.

Elgetako serorek bertako eliztarrak behar zuten izan, eta Juana Bautista de Yrigoien ez zen Elgetako herriko parrokiari bataiatua izan, orduan auzoa zuen Angiozarreko San Migel parrokiari baizik. Nahiz eta gero, bere amaren bigarren ezkontza bidez Elgetan bizitzera iragan ostean, jada bertan urte askotan zehar bizi izana

⁹¹¹ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

⁹¹² Ikus IV. 1.1.4. azpiatalean, 303 eta hurr. or.

zen, bataio partida bere aurkako froga indartsua zen; lekukoek behintzat, Teresa de Aguirrebeñaren aldeko frogatzat zeukaten. Gainera, Juana Bautista emakume gaztea (gehienetan 26 edo 28 urtekoa behar zuela diote) eta indartsua zela zioten, eta beste edozein lan egin zezakeela; oster, Teresa de Aguirrebeña erdi-mutua edo hitz-totela zen antza, eta bere amarekin hainbat urtetan zerbitzuan egon ondoren, ofizio hura behintzat ondo ikasia omen zuen. Arrazoi guzti hauek, beraz, Juana Bautistaren aurkakoak ziren. Azkenik, honek dotean emandako 54 dukaten konpentsazioa justifikatzeko asmoz, parrokiako liburuetan serorei egindako ordainketen eta soldataren, Diego Tomas de Jauregui Salazar Santiagoren ordenako zaldunak parrokian 1708an fundatu zuen “obra pia”-n serorei zegozkien urteroko bi gari zakuen, eta dotea eman zuen urtean ospitaleko liburuan izan ziren –eta dotea obretan xahutu izana frogatzen zuten– kontuen konpultsak jaso ziren⁹¹³. Frogatzat eraman zituzten dokumentu hauek, edonola ere, seroren etekinekiko, parrokiako eta ospitaleko serorei (guztiei, ez bakarrari) urtero ematen zitzaizkien 8 errealen eta bi gari zakuen berri baino ez digute ematen. 54 dukatak (594 erreal) hiru urte eta erditan banatuz gero, bada oraindik dezenteko tarterik, kopuru guztia osatu arte. Lekukoek serorak bere konpentsazioa jaso izana konbentzimenduz defendatu ahal izateko, kopuru osorako bitarte hau beste etekinen batzuk bete beharko zuketzen; jarlekuen eta heriotz-errituetoako zerbitzuen etekinen bidez baino ezingo litzateke azaldu. Laster erreparatuko diegu zerbitzu hauetatik serorek lortzen zituzten diruei eta bestelako etekinei, baina auzi hau, edonola ere, etekin hauek seroren artean sor zezaketen konpetentziaren beste adibide bat dugu.

Gertakizun hauek aberastasun gehien biltzen zuen eta diruaren ekonomiak indar gehien zeukan hiribilduen testuinguruan kokatzen zaizkigu; beste parrokia askotan, ez dirudi gutizia izugarririk sortzeko besteko emolumentuez gozatzen zutenik, eta hainbesteko konpetentzia giroa zegoenik. Liskarren presentzia bezalaxe, ausentzia ere kontutan hartzekoa baita. Esate baterako, Leintz-bailarako auzo eta elizateetako parrokiako eta Aretxabaletaren eta Eskoriatzaren kasuetan, are hiribilduetako seroren artean ere, ez dirudi jarlekuen zerbitzuaren inguruan liskar handiegirik sortu izan zenik; ez zaigu behintzat hauen inongo berririk heldu. Bertako seroren testamentuek, bestalde, Bergaran, Oñatin eta Elgetan ikusi berri ditugun hiribilduetako serorenek ez bezala, ez digute aktibitate honengatik seroren alde sortutako zorren berririk ematen. Areago, diruaren ekonomiak jarlekuen zerbitzuan hainbesteko presentziarik ez zeukala dirudi; batzuk gordeta nahiz maileguan emanda zeuzkaten diruak aintzat hartzeko kopurutara heltzen baziren ere, bertako seroren ondasun gehienak, ehunek, ohialek eta arrokek osatzen zituzten. Serora hauen etekinen berri jarraian emango dugu, baina adibidetzat: Aozaratzako (Aretxabaleta) San Juan Bataiatzailea parrokian serora izan zen Maria Lopez de Celayak 1615ean egin zuen testamentuan, tenpluen argiteriarako olioeko dohaintzez eta ordena mendikanteei emaniko 3 errealez beste, seroraren ondasun guztiak ehunek, ohialek eta arrokek osatzen zituzten⁹¹⁴. Litekeena da espazio hauetan ohizkoena jarlekuetoako zerbitzua “serora-garien” bidez eta bestelako produktuen bidez, espezia ordaintzea izatea, soldatei eta garbiketeei eskaini diegun atalean aipatu dugunez, hainbat lekutan gertatzen zen bezala.

Jarlekuetoako zerbitzuari buruz azaldu beharreko beste alderdi bat, parrokiakoez gain ermitetako serorek ere parrokiako jarlekuen zerbitzuan izan zezaketen partehartzea agertzen diguna, seroren euren jarleku espezifikoena da. Seroretxeen sorkuntza eta sostenguari buruz jardutean, Bergarako San Pedro parrokiako seroretzeko fundatzaile izan zen Catalina de Ondarzak, seroretxearen fundazioarekin bat, bertako

⁹¹³ *Loc.cit.*

⁹¹⁴ GPAH-AHPG 1/0866, 3r-5r.

serorak bere etxeari zegokion jarlekuan ehortziak izan zitezela agindu zuela ere ikusi dugu. Urte askotan zehar jarraitu izan zen seroraren nahia, baina 1653an etxeko jabeek serorekin akordio bat hitzartu beharra izan zuten. Serorek euren testamentuetan aginduriko meza, anibertsario, memoria, etab.ak ez baitziren gutxi izaten, jarlekuaren jabe ziren Miguel Ibañez de Baliarrek eta bere alaba Ana Joaniz de Baliarrek seroren jarlekuaren erabilera mugatu nahi izan zuten:

pretendiendo los dichos Miguel Ybañes y su hija que las dichas tres freyras supuesto que no tienen en la dicha sepultura otro derecho que de enterrarse en ella quando mueren no deuen ni pueden auer otro acto alguno de poner oblada y asistir por ssi y otras personas parientas. Y las dichas freyras dicen que al entierro se sigue el açer la oblada y otros actos acostumbrados. Y tenian las unas partes y las otras las dichas rraçones y otros⁹¹⁵

Azkenean serorek urtebeteko ogiaren eskaintza egin zezaketela, eta igande, larunbat eta astelehenetan, eta jaiegunetan, hiru seroren artean nahi zuketzen besteko tamainuko ogi bakarraren eskaintza egin zezaketela hitzartu zuten⁹¹⁶.

Debagoienean, parrokiatako seroren artean, hauek parrokian jarleku espezifikoa zeukateneko kasu hau baino ez dugu aurkitu; alabaina, badakigu Euskal Herriko beste zenbait lekutan, bereziki Iparraldean, ohitura hedatua izan zela. Kasurik ezagunena, jada Websterrek aipatu ziguna, Sarako parrokiako seroren ehorzleku amankomunarena dugu; bertako inskripzioa arras esanguratsua zaigu: "Orai den seroraren / eta izanen direnen / jar lekua / eta hobia" (Webster 1911, 150). Ohar dezagun, halaber, jarleku eta hilobi hau aldarearen alboan -mahaiaren kontra- kokatzen dela, bertako zenbait apezten hilobiak bezala. 1686. urteko data daraman jarleku honen marrazkia Duvertrek bere lanetariko batean jasotzen du, eta baita Mugerreko seroren hilobiaren hilarri diskoidala ere, "Serorateguy" izena idatzia daramana (Duvert 1991, 4, 16). Peñaranda García ere aipatu zuen seroren ehorzleku konkretua izateko ohitura, Nafarroa Garaiko serorei buruz ziharduela (Peñaranda García 2002, 304).

Hau, bestalde, ez zen parrokiatako serorei soilik zegokien ohitura. Ermitetako seroren artean zenbait kasu aurkitu ditugu, Oñatin batez ere. Ohitura hau, alegia, ermitetako serorek parrokiatan jarleku propioak izatearena, Aguirre Sorondok ere aipatu zuen, darabilgun ikerketa honetan ikusi ditugun kasuen arabera, ohizkoegitzat hartu zuena: "También por lo común, se atribuía a la *serora* [*ermitetakoei buruz dihardu*] una tumba en la iglesia parroquial" (Aguirre Sorondo 1995a, 110). Horrez gain, kasuren batzuetan, serorek zerbitu izan zuten ermitan ehortziak izatea nahi izaten zutela dirudi. 1593an, esaterako, Maria Ramos de Laquidiola, Oñatiko Santa Katalina (gaur egun San Isidro) ermitan serora izan zena eraila izan zenean egin zituzten galdeketetan, serora ermitan bertan ehortzia izan zela aipatu zuten⁹¹⁷. 1689an Izaskuneko santutegian (Tolosa, Gipuzkoa) bertan ehortzia izan nahi izan zuen María Ana de Hercilla serora entzutetsuaren hiletetarako ("con cuerpo presente y misa solemne") dezenteko muntaia egin zela dirudi:

A su entierro se llevó la Cruz Parroquial de la villa de Tolosa, y todo el Cabildo y Clerecía de ésta con toda la Música de su Capilla asistió con particular agrado y sin interés alguno, (...), asistiendo también a esta función muchas personas particulares de Tolosa e Ibarra (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 418)

Garmendia Larrañagak jaso zuen beste kasu bat ere ezin dugu aipatu gabe utzi, ermitetako ehorzketa eta seroren jarleku propioa batzen zituen ohitura baten berri eman

⁹¹⁵ GPAH-AHPG 1/0309, 300v.

⁹¹⁶ *Ibid.*, 301r.

⁹¹⁷ OUA Z 1063.9, 13r.

baitzigan; Tolosako San Blas ermitan 1600ean zerbitzuan zegoen María Domingo de Otamendi seroraren testamentuaren arabera, honen borondatea honakoa izan zen: "sea enterrada en la dicha ermita de Señor San Blas, donde soy serora, en la sepultura donde se suelen enterrar las seroras de la dicha ermita" (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 420).

Debagoieneko espazioaren baitan, Oñatiko zenbait ermitetako serorek parrokian eta Bidaurretako Trinitatearen komentuan zeuzkaten jarleku propioak dira interesgarri zaizkigunak. 1591n helarazi zuen testamentuan, San Kristobal ermitako serora izana zen Magdalena de Vcelaik San Migel parrokian lurperatu zezatela agindu zuen, "en la sepultura de esta hermita de señor San Christoual". Horrez gain, ermitako beste serorei, Magdalena de Aldaya eta Mari Juan de Letamendiri, bakoitzari 4 dukat eman zizkien dohaintzan, "por el trauajo que an de tener en acudir a mi sepultura – al seruiçio neçesario". Bi serora hauek, gainera, bere anai Domingo de Ucelayrekin eta San Migel parrokiako benefiziodun zen Echebarria "maestro"-arekin batera, bere albazea izendatu zituen⁹¹⁸. Narria auzoko San Lorentzo ermitan serora izan zen Maria de Villarrekk berriz, 1629an helarazi zuen testamentuan, "en la sepultura de las seroras de San Llorente en la Trinidad de Vidaurreta" ehortzi zezaten agindu zuen⁹¹⁹. Ermitetako zenbait serora beraz, parroketan, eta kasu honetan baita komentuan ere, ermitari zegokion jarlekuaren zerbitzuan ere egon ohi ziren, beste serora eta zerbitzariekin bat. Alabaina, ohitura hauek berresten dizkiguten kasuak aipagai baditugu ere, Debagoieneko serora gehienak propioki serorenak ez ziren jarlekuetan ehortziak izan zirela ere gogoan izan behar dugu, eta honen arabera, ez dirudi "-por lo común"- orokorturiko ohituratzat har litekeenik, presente badago ere.

Azken kasu honek jarlekuek eta hileta-errituek sortzen zituzten etekinen inguruko beste auzi batzuetara ere bideratzen gaitu. Izan ere, ehorzte-eskubideen eta jarlekuak izatearen inguruan, komentuek zenbaitetan parrokiei konpetentzia egiten baitzieten. Oñatin San Migel parrokiako kabildoak eta Bidaurretako komentuek 1509tik (komentua fundatu zen urtea) 1774rarte izan zuten auzi amaitezinean konpetentzia honen eta etekin hauek zuten garrantziaren adibide nabari bat daukagu (Madariaga Orbea 1998, 432-452). Eta halaber, parroketan ez izanik ere, jarlekuen espazioak zeuden lekuan, serorak, edo hauek bezala jarlekuak artatzen zituzten zerbitzariak egon ohi zirela ere agertzen digu. Oñatiko Bidaurretakoaz gain, Bergarako Trinitatearen komentuan, 1658ko San Pedro parrokiako eliztarren matrikularen arabera, beste hainbat betekizun zituzten mojen alboan, euren arteko bi "Sacristana" bezala aipatu ziren (Zenbaiten artean 1994, 198). Baina Bergarako Trinitatean ez bezala, Oñatiko Bidaurretako komentuan ez dirudi zerbitzu hau mojek eurek burutzen zutenik, ez behintzat XVIII. mendearen erdialdean; 1761ean, izan ere, komentuan serora lanak egin zituen Francisca de Lizarraldekk testamentua helarazi zuen. Bertan, bere burua "Beata serora del conuento de la santissima Trinidad de Uidaurreta" bezala aurkeztu zuen, eta bere gurasoak bertakoak baitziren, Garibai auzoko Bedoña baserriari San Migel parrokian zegokion jarlekuan ehortzi zezaten agindu zuen⁹²⁰. Aipatu berri ditugun datuek Francisca, moja beharrean, komentu bertako jarlekuez arduratzen zen serora zela pentsatzera garamatzate. Izan ere, moja izan balitz, hauek jada XVII. mendetik behintzat egin ohi zuten bezala "monja profesas" edo tankerako adierazpideren baten bidez aurkeztuko zukeen bere burua, "Beata serora" lez beharrean. Eta gainera, komentuko moja izan balitz, hauekin egin ohi zen lez komentuan bertan ehortzia izatea

⁹¹⁸ GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r.

⁹¹⁹ GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v.

⁹²⁰ GPAH-AHPG 1/3342, 60r-60v.

litzateke normalena. Zentzudunena beraz, Francisca de Lizarralde, Aro Berri guztian zehar –parrokia-ri konpetentzia eginez– mojen eta herriko familien jarlekuak izan zituen Bidaurretako komentuan XVIII. mendearen erdialdean jarlekuetako zerbitzua burutu zuen serora zela pentsatzea litzatekeela esango genuke. Etxe, familia eta partikularren jarlekuak zeuden leku gehienetan, beraz, bazeuden serorak ere euren zerbitzuan, are, kasu batzuetan, komentuetan bertan ere.

VI. 1.5.3. *Zerbitzuegatiko diruak eta etekinak*

Aipatu izan dugu nola hiribilduetako parrokietako hainbat seroren testamentuetan jarlekuaren zerbitzuen motibozko hainbat zor ageri zaizkigun. Euskal Herriko zenbait lekutako beste berriekin bat, jarraian, testamentu hauetariko batzuen ikerketari ekingo diogu, zerbitzuaren irabaziei neurria hartzeko asmoz.

Testamentu hauen bidez, alde batetik, leinu-etxeen eta baserrien aldetik serorei ematen zitzaizkien soldaten berri daukagu. Jarraian azalduz joango garen datuen arabera, parrokia bertakoak nahiz etxe partikularretan bizi ziren serorak izan, gehienetan etxe bat baino gehiagoren zerbitzua izan ohi zutela dirudi, bestelako partikularrez gain. Aberastasun handidun zenbait etxeri eta aberastasun gutxiagodun jende sorta zabal bati eginiko zerbitzuen bidez eta bertako argizariaren salmenta bidez, serora asko diru-sarrera on bat izatera heldu ziren. Testamentuetan aipaturiko jarlekuetako zorren bidez agertzen zaizkigun maila ekonomiko ezberdinak, bestalde, zegozkien zerbitzuak, errituak eta argizariak serorei agindu eta erosten zizkieten zordunen maila sozialaren erakusgarri fideltzat har ditzakegu, jarlekuetako errituak eurak, maila horren adierazpide sinboliko baitziren. Ikus ditzagun beraz zenbait kasu.

Lehen adibideetarako jada jaso izan diren berrietara joko dugu; Arza Aldayk Aguraineko (Araba) San Martin ermitako serora bati "Joan, abad de Zuazo"-k bere 1588ko testamentuan egindako dohaintza bat aipatu zigun, serorak dohaintzaren truke hartzekoak zituen lanak ere zehaztu zituen partida batean:

Yten, le pagué a la beata de Sant Martyn, María Pérez una fanega de trigo por el trabajo de traer la oblada y cera, es a saber media fanega por el trabajo y otra media fanega por ofrecer dos obladas el lunes y sábado de cada semana (Arza Alday 2006, 43)

Ohitura hauek, lekuen arabera, oso anitzak eta aldaera ugaridunak izan zitezkeen; anitzasun honen berri Lafourcadek eman zigun egoki, "Memoire ou état du nombre des prêtres, de leurs patrimoines, prébendes, des obits fondés dans les églises paroissiales, et du nombre des benoîtes" delako memoriatik (zoritarrez, ez zigun datarik aipatu) jaso zituen zenbait Iparraldeko adibide jasotzean:

Chaque messe chantée lui valait des presents. A Briscous, les deux benoîtes recevaient à cette occasion "un pain de deux sols, 10 conques de froment et autant de blé d'Inde". A Biarritz, "elle retirait de son employ", outre les grains que lui donnait chaque maison lors que la moisson, "pour les moins deux cents livres des mariages, baptêmes, morts et autres petit droits d'église". A Lahonce, elle ne recevait, à chaque messe commandée, qu'un pain et un sol. A l'occasion des honneurs funèbres rendus aux morts, la benoîte de Garro recevait un pain et quelques offrande, et dix liards à chaque service d'obit, service religieux célébré à la mémoire d'un défunt, le jour anniversaire de sa mort. [...] A Bidart, les deux benoîtes recevaient "pour la sonnerie des cloches des morts, des grands et petits, environ 32 livres..." (Lafourcade 1991, 34)

Ugariak eta ezberdinak ohiturak, eta ugariak eta ezberdinak, halaber, irabazien motiboak bezalaxe, kopuruak ere, modu batera edo bestera, heriotzaren esparruari loturik mantentzen ziren zeregin eta errituen burutzeagatik.

Baina ekin diezaiegun Debagoieneko kasuei, aniztasunaren baitan, dagokigun esparruko ohiturak zertan ziren jakitzeko. Ohartzeko dugun lehen alderdi bat, jarlekuen artapenagatiko zorrak dirutan espresaturik ageri zaizkigun espazio bakarra Bergarako delat dugu. Beste herrietan ere ageri zaizkigu aktibitate honen inguruko zenbait zantzu, eta egin ditzakegu etekin hauen inguruko zenbait balorazio ekonomiko ere; baina zor hauek dirutan, Bergaran baino ez dira aipatzen. Beraz, aktibitate honengatiko etekinen balorazio ekonomiko bat egiterako orduan, Bergarak azaltzen dizkigu erraztasun gehien. 1556-1650 bitartean helaraziak izan ziren 9 testamentu dira denera, datuak 1 koadroan (869-876 or.) bildu dizkiegunak; hau da, XVII. mendearen lehen erdialdeko desagerrarazte aginduaren eragina oraindik hain sakona izatera heldu ez zen bitarte kronologikoan kokatzen zaizkigu. 9 serora hauei jarlekuetako zerbitzuegatik zor zitzaizkien diruak eta ondasunak, denera 6.601 erreale baino gehiagoko eta urrezko eraztun baten eta troxe txiki baten balorera heltzen zaizkigu; ez da kopuru txikia. Batzbeste, ggb. 733 erreale eta 1/2 serora bakoitzeko. Baina jarraian ikusiko dugunez, serorek aktibitate honetan izan zezaketen partehartzea oso neurri eta izaera ezberdinetakoa izan zitekeen. Serora batzuek familia boteretsu baten jarlekuko zerbitzua baino betetzen ez zuten eta hargatik soldata tankerako bat esleitua zeukaten artean, beste batzuek aniztasun handiko zordunen multzoa zeukaten, oso kopuru eta aktibitate ezberdinen zordun. Beste batzuk, aldiz, maila ekonomiko -eta sozial- jakin bateko familien zerbitzua baino ez zuten burutu, familia bat baino gehiago izanik ere.

Baina pasa gaitezen kasu konkretuen jarraipenera, aktibitate honen inguruan biltzen zen erlazioen testuingurua hobeto hautemateko. Marina de Jauregui (1556), Magdalena de Oruesagasti (San Pedro parrokia, 1610), Maria de Aguirre (San Pedro parrokia, 1631) eta Gracia de Zabala (Santa Marina parrokiakoa?, zerbitzu partikularretakoa?, 1650) ageri zaizkigu familia bakarra zordun dutela; itxuraz, nahiz eta Magdalena de Oruesagasti eta Maria de Aguirre San Pedro parrokiako serorak izan -hau da, ez ziren zerbitzu partikularretakoak-, familia bakar horren zerbitzua baino izan ez zutenetarikoa zirela dirudi.

Oso bestelakoa dugu lan honetan zehar askotan aipatu izan dugun eta Bergarako San Pedro parrokiako serora eta bertako seroretxearen fundatzaile izan zen Catalina de Ondarzaren kasua. Debagoiengan eskuratu ahal izan ditugun testamentuen artetik, serora honek 1572an helarazi zuena jarlekuen zerbitzuaren inguruko aktibitaterik zabalena agertzen dizkiguna da, eta bertatik ekingo diogu analisisian sakontzeari. Bere aldeko zordunen artean gizarte baitan oso aberastasun maila ezberdinetan aurkitzen ziren pertsonak ageri zaizkigu, 2 erreale eta 11 dukat eta 6 erreale artean kokatzen diren 44 zordunen sorta zabal batean. Kopuruei dagokienez; beti ere gutxi gora beherako datuak erabiliz, serorari zor zizkioten zerbitzuagatiko diruak denera 1.336 erreale eta 12 marabeditara heltzen ziren. 44 zordunen arteko 15, dukat bat edo gutxiagoko kopuruen zordun ziren, eta denera, 122 erreale eta 1/2 zor zizkioten. Dukat bat eta hiru bitartean beste 15 zordun zeuden, denera, 320 erreale eta 29 marabedi zor zituztenak. Eta azkenik, hiru dukatetik gorako kopuruen zordunak 14 ziren, eta denera, 893 erreale zor zituzten⁹²¹. Ikus litekeenez, Catalina de Ondarzaren bezeroak poblazioaren maila ekonomiko guztietan nahiko uniformeki banaturik zeuden; baina etekin handienak, noski, maila altuenekoengandik zetozen.

⁹²¹ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r. Ikus datuak 6. koadroan, 923 or.

Zordunen artean, gehienetan kopuru garrantzitsuen zorretan, doktoreak (Monesteriobide doktorea –4 dukat– eta Ollacarizqueta doktorea –9 dukat eta 2 erreal–), izkribauak (Joan Martinez de Gorostegui –4 dukat–), “maese”-ak (Maria Perez de Aldaeta, Andres de Zearreta “maese”-aren alarguna –7 dukat eta 2 erreal–), eta apezak (Santa Marina parrokiako apeza –dukat 1–) bezalaxe, hainbat “doña” eta alargun dirudun ageri zaizkigu (“doña” Marina de Olalde Errekaldeko apopiloa –9 erreal–, “doña” Catalina de Zabala Iribe doktorearen alarguna –26 erreal–, Mari[n?]a Martinez de Arguizain Andres Saez de Galardiren alarguna –127 erreal–, “doña” Catalina de Jauregui –6 erreal–, Magdalena de Gorostegui Joan de Elguearen alarguna –105 erreal–), kopuru xumeagoak zor zituzten hainbat partikularrekin bat. Etxeak eta hauen jabe eta oinordekoak ere –testamentu honetan bezalaxe beste batzuetan ere– aipatu ziren zordun lez (Joan Garcia de Oruesagasti jaun zen etxea –4 dukat–). Zor gehienak jarlekuko zerbitzuko eta bertako errituetako gastuei zegozkien (ehorzteak, ondraz, Domu Santu egunak, etab., eta hauetan eginiko argizari gastuak), baina gehienetan dukat batetik beherakoak ziren zenbait zor, besterik gabe, serorari argizaria erosi zioten emakumeenak ziren (Maria de Berraondo eta Catalina eta Ana bere ahizpak –11 erreal–, Maria [Marin?, Martin?] de Eguiara –2 erreal–, “doña” Catalina de Jauregui –6 erreal–, Magdalena Saez de Munabe –8 erreal–, Francisca de Mendizabal –8 erreal–, Marina Saez de Ascarrunz –6 erreal eta ½–). Hauek, ziurrenez, zegokien jarlekua euren kabuz gobernatzen zuten emakumeak izango ziren. Magdalena de Gorostegui, Joan de Elguearen alargunak ostera argizari kopuru handiagoa erosia zion serorari, 105 errealeko zorra eginez, bere senar izana zenaren ehorketan eta ondretan xahutzeko. Azkenik, bada argizariaren erosketaren beste zor bat, salmenta hauetan serorak zerabiltzan prezioen neurri bat ematen diguna: Domingo de Tolosak 5 libra eta ½ argizari erosiak zizkion, 17 erreal eta ½-ren prezioan⁹²².

Parrokia berean serora izan zen eta 1592an testamentua helarazi zuen Domenja de Ganteren zorrak, Catalina de Ondarzak zituen zorren kopuruaren erdi ingurura heltzen ziren (ggb. 661 erreal, zenbait ondasunekin batera), zordunen kopurua Catalinak zituenen laurdena izanik (11). Serora hau, Catalina de Ondarza ez bezala, ez zen parrokiako hiru seroretariko bat, jarleku partikularren zerbitzuan enplegatzen zen beste seroretariko bat baizik, etxe eta familia jakinei lotuagoa zeudenetarikoa. Bere zordun gehienak Catalinarenak baino maila ekonomiko altuagoan kokatzen ziren; dukat batetik beherako bi zordun zituen, dukat bat eta hiru bitarteko hiru, eta hortik gorakoak sei. Azken hauen artean 5 eta 18 dukat bitarteko zorrak ziren; hauetariko bat, 12 dukat eta 16 errealekoa, Ozaetako jaunarena zen, bere etxearen jarlekuko bi urtetako zerbitzuagatik ordaindu beharrekoena⁹²³.

Azken datu honek familia boteretsuetatik eta etxe eta baserrietatik serorei ordaintzen zitzaizkien soldaten berri ematen digu. San Pedro parrokiako -bertako, edo zerbitzu partikularretako- beste hainbat seroren soldaten berri badugu, testamentuen eta bestelako dokumentuen bidez. Marina de Jaureguik 1556an helarazi zuen testamentuan 12 dukateko zorra zeukan jasotzeko, “que la señora de Gauria me tiene nombrados por los seruiçios que le he hecho”⁹²⁴; hau ere, bi urtetako zerbitzuaren ordaina izan zitekeen. Magdalena de Eguino y Mallea Ondarza etxeko andereak XVI. mendearen bigarren erdialdean egin zituen etxearen kontu batzuetan, 9 urteko eta 5 hilabeteko bitartean, etxean zerbitzen zuen serorak (“la beata que sirve en casa”) 557 errelako soldata jaso izan zuela ageri zaigu (Oliveri Korta 2009, 585). 1602an Ozaetako etxekoan

⁹²² *Ibid.*

⁹²³ GPAH-AHPG 1/0157, 119r-125v.

⁹²⁴ GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v.

administratzailea zen San Juan Saez de Bidaurrek Maria de Yzaguirre serorari urtero zegozkion 6 dukaten bi urteko ordainketa egin zion, eta beste dukat bat, “de las oblanças que durante los dichos dos años a puesto al tiempo que se an dicho / las misas y se a rrezado sobre la dicha sepultura”. Soldata etxeoekin egindako “conçierto” baten bidez ezarria izan zela ere aipatzen zaigu⁹²⁵. 1607an testamentua helarazi zuen Maria Garcia de Oruesagasti San Pedro parrokiako serorak zituen zorren artean, partida bat Arrese etxe nagusiaren jarlekuko bost urtetako soldataren 30 dukatena zen, Elena de Arresek (“doña”) eta bere alaba Francisca de Zabalak (“doña”) ordaindu beharrekoa. Beste bat Isabel de Arreseren (“doña”) 60 dukateko zorrarena zen, era berean Arrese etxeari zegokiona (ez dakigu aurreko etxe berberari, ala leinu-etxe bereko beste bati zegokion), bertako ondasunen administratzaile Bernardino Perez de Zabala izan zeneko etxearen jarlekuko zerbitzuarena. Aurreko partidari erreparatuz, 10 urteko zerbitzuari zegozkien urteroko 6 dukaten ordainketa zela dirudi⁹²⁶. 1610ean helarazi zuen testamentuan Magdalena de Oruesagasti ere Arrese etxearen jarlekuaren zerbitzuan jardun zela ageri zaigu, nahiz eta aipatu zuen kopurua soldata bati egokitzen ez zitzaion; Elena de Arreserengandik 100 erreal jasoak zituen "para cumplir çierta neçessidad de una persona", eta diru hauek, artatzen zuen jarlekuko zerbitzuegatik zor zitzaizkion diruekin kitatuz, seroraren aldeko 10 errealeko zorra gelditzen zen ordaintzeko; alegia, 10 dukateko zorra zen etxeak serorarekiko jarlekuetako zerbitzuagatik zeukana⁹²⁷. 1631n berriz, Maria de Aguirre serorari Arrese etxearen aldeko zor zitzaizkion 1.216 errealak 20 urtetako jarlekuko zerbitzuagatik ordaintzeko falta zirenak ziren; zor osoa 140 dukatekoa zen, eta urteroko 7 dukateko soldata zen ezarria zeukana⁹²⁸. Datu hauen arabera, San Pedro parrokian XVI-XVII mende-bitartean etxe boteretsuen aldeko serorei jarlekuaren zerbitzuagatik urtero ordaindu ohi zitzaiena 6 dukaten inguruan zebilela, eta XVII. mende erdialdera gerturatu ahala 7 dukatetara ere heldu zitekeela esan liteke.

Bergaran bertan, Santa Marina parrokiako seroren artean ere izan dugu konparaziorako zenbait daturen berri. 1605ean helarazi zuen testamentuan, San Martin ermitako serora zen Maria de Yturbek ere, “por lo mucho que le deuo y por el cuidado que a de tener en la sepultura donde mando enterrarme” Santa Marina parrokiako “la beata de Eguren”-i dohaintzan eman zizkion diruak ere, 6 dukat izan ziren. Santa Marina parrokiako serora izan zen Maria de Beizteguik 1594an helarazi zuen testamentuan, zerbitzuagatik Lazpiur etxeari eta Aldaeta Goikoa etxeari zegozkien ordainketen partidak, lehena 46 errealekoa eta bigarrena 5 dukatekoa izan ziren; urte bakoitzeko San Pedro parrokiako serorei zegozkien soldatei gerturatzen zaizkien kopuruak, nahiz eta soldatatzat aipatzen ez zaizkigun. Alargun batzuen zor garrantzitsuak ere aipagarriak dira: Catalina Joaniz de Urieta, Juan [Saez?] de Ganchaeguiaren alargunak 122 errealeko zorra zuen bere senar izana zenaren hiletan, oparitzeetan eta urtebukaerakoan izandako elizako gastuengatik, eta Maria Juaniz de Beiztegui alargunak berriz, 7 dukat eta 8 errealeko zorra zuen bere aginduz serorak Joan Abbad de Beizteguiaren hiletan egindako elizako gastuengatik; azken zor hau, bestalde, 14 dukat eta 13 errealeko zor osoaren gainerakoa zen⁹²⁹. 1650an testamentua helarazi zuen Gracia de Zabala ez dakigu parrokiako serora edo zerbitzu partikularretakoa zen, baina bertako jarlekuen zerbitzuan jarduten zela zalantzagabea dugu; eta Maria de Eizmendik jarlekuko "ocupacion y asistencia"-gatik bere testamentuan eman zizkion

⁹²⁵ GPAH-AHPG 1/0125, 140v-141r.

⁹²⁶ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

⁹²⁷ GPAH-AHPG 1/0196, 422r-424v.

⁹²⁸ GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v.

⁹²⁹ GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v.

1.056 errealek parrokia honetan ere urteroko 6 dukateko soldata ohizkoa izan zela adierazten digute, kopuru hau urteroko 6 dukatetan banatuaz gero, zorra 16 urtetako zerbitzuari zegokiokeela ikus baitaiteke⁹³⁰.

XVII. mendearen erdialderako bidean jarlekuko artapenaren urteroko soldata 6 dukatetatik are 7ra ere gerturatzen ikusi badugu, mende berberaren bigarren erdialdean, eta San Pedro parrokiara itzuliz, Eguino-Mallea maiorazkoaren 1674-1684 bitarteko kontuen arabera, jarlekuaren zaintzaz arduratzen zen seroraren soldata urteroko 12 errealekoa baino izan ez zela ikusten dugu (Oliveri Korta 2009, 585). Aurreko hamarkadetan, etxe bereko seroren soldatak hobeak izanak ziren; zer dela eta hain bapateko beherakada hau? Ez daukagu galdera honi erantzuteko behar besteko daturik, baina XVI-XVII mende-bitarte horretan geldituko gara oraingoz, 1627an Bergarako herrian ezarri zen Prezioen Muga-Zerga Orokorrean azaltzen zaizkigun soldatek XVII. mendearen lehen erdialderako gutxi gora beherako konparazio baterako bidea ematen baitigute. Seroren soldata urteroko 6 dukat horien inguruan kokatutzat emango bagenu, 1627an soldatapeko morroi bati urtero jasotzea zegozkion 5 dukatak (eta “los çapatos de badana que hubiere menester”) baino gehiago jasoko zuten, baina baserriko morroi baten 10 dukatak (eta “las albarcas que hubiere menester”) baino gutxiago. Halaber, labangintzako eta guraizegintzako aprendizerei 6 urtean zegozkien 6 dukatak (eta “çapatos y vestidos de paño ordinario”) baino dezente gehiago jasotzen zuten. Baina hauek jada langintza beretako ofizial egiten zirenean, bi urte urteroko 5 erreal jasoaz igaro eta gero, kopuru horretatik gora jasotzeari ekin zekioketen, onenari ordaindu zekizkiokeen 16 dukatetararte (Sorondo 1987, 265-266).

Konparazio honetako soldaten arabera, seroren urteroko 6 dukat horiek bizirauteko behintzat emango zuketela dirudi. Baina noski, serora hauek ez zituzten denera 6 dukat horiek jasotzen, horiek zerbitzen zuten etxe boteretsu bakoitzak emateko ohitura zutenak baitziren. Eta ikusi izan ditugun testamentuetan, serora bakoitzak etxe boteretsu bat baino gehiagori zerbitzea arraroa ez zela ageri zaigu. Eta gainera, urteroko soldatazko oinarri finko batzuen segurtasun ekonomikoaz beste, maila ekonomiko baxuagoetako beste eliztarrei egindako zerbitzuetatik ere dezenteko diru-sarrera izatera hel zitezkeen. Xehetasunez arakatu dugun Catalina de Ondarzaren testamentuaren kasuan, esate baterako, jarlekuen etekinen kopuru osoaren heren bat, 3 dukat baino gutxiagoko zerbitzuei zegokien. Edozein kasutan, XVI-XVII mende-bitartean Bergarako parrokia nagusietan (San Pedron eta Santa Marinan) zerbitzen izan ziren serorak, jarlekuetako etekinetatik soilik, egoera ekonomiko onean mantendu zitezkeela esango genuke. Aipatu izan ditugun serora batzuen testamentuetako jarlekuetako zerbitzuaren gutxi gora beherako etekin osoek, elkarren arteko tarte handia azaltzen badute ere, aintzat hartzeko kopuruak agertzen dizkigute; San Pedro parrokian: Marina de Jaureguik (1556) 132 erreal; Catalina de Ondarzak (1572), 1.336 erreal eta 12 marabedi; Domenja de Gantek (1592), 661 erreal, urrezko eraztun bat eta troxe txiki bat; Marina Garcia de Oruesagastik (1607), 1.605 erreal; Magdalena de Oruesagastik (1610), 110 erreal; Maria de Aguirrek (1631), 1.216 erreal; eta Maria de Yzaguirrek (1631), 152 erreal eta ½. Santa Marina parrokian berriz, Maria de Beizteguik (1594) 444 erreal, eta Gracia de Zabalak (1650) 1.056 erreal⁹³¹.

Bergarako serorez gain beste espazio batzuetakoak ere aintzat hartzeari ekin baino lehenago, heriotz-errituetan jasotzen zituzten emolumentuen inguruan 1597an bisitatzailleak San Pedro parrokian ezarri nahi izan zituen mugapenen berri emango dugu, ondoren Arrasaten ere geldialditxo bat eginez. Bergaran agindua apezpei eta

⁹³⁰ GPAH-AHPG 1/0339, 333r-338v.

⁹³¹ Ikus 1. koadroa, 869-876 or.

serorei zuzendua izan zen, eta osorik jasoko dugu, heriotz-errituetakoa gehiegizko gastuen aurkako neurria izatearekin bat, erritu hauetan apezendako eskumuinak eman behar ziren bezalatsu, serorei ere eman behar zitzaizkiela hautematen zela azaltzen baitigu:

Yten que en la dicha visita personal que su señoría yço mando que no se de besamano doblado en los entierros, nobenas, y cabos de anos, y [a]niversarios de difuntos si no es al cura de la dicha yglesia y contrabinién[do] el dicho mandato lleban besamano doblado, so color que cantan un rresponso en canto de organo y tambien lleban besamano doblado los curas de las dichas yglesias que acuden de ordinario a lo susodicho en que se gasta mucho dinero y en dano y perjuicio de los dichos parroquianos de la dicha yglesia y tambien el mandato que manda que las seroras no se les de besamanos sino solamente a la que tiene cargo de serbir la sepultura y la lleban todas de la dicha yglesia y fuera del dicho mandato⁹³²

Heriotz-erritu ezberdinetan beraz, bertan izan ohi ziren apez eta benefiziadun guztiei bezalaxe, serora guztiei ere eman ohi zitzaizkien eskumuinak; izan ere, apez eta serora gehiago presente izan, orduan eta maila handiagokotzat hartzen baitzen hileta, bederatzurrrena, urtebukaerakoa, edo zena zelako heriotz-erritua izan. Bisitatzailak, eliztarren poltsikoei ohitura hauek zirela eta jasotzen zuten kaltearen motiboz, egoera honi bukaera eman nahi izan zion, eskumuinak ofizioa gidatzen zuen apezari eta jarlekua artatzen zuen serorari baino eman behar ez zitzaizkiela aginduz. Mugapen baten testuinguruan izanik ere ekibalentzia kuriosoa agertzen zaigu hemen, heriotz-errituetan apezak bezalaxe serorak ere erabat beharrezkotzat hartzen zirela erakusten diguna. Baina agindua ez zen lehenengoan bete, jaso dugun 1597ko hau, lehen agindu baten berrespena baitzen. Ez dakigu oraingoan kasurik egingo ote zitzaion, baina interes gehiegi zeuden tarteko, ohiturak bere hortan jarrai zezan.

Antzerako datatan, Arrasaten ere ohitura hau jarraitzen zela agertzen digute bi testamentuetako betekizunek. Catalina de Abendañok (1590) eta Teresa de Urisarrik (Santa Marina ermita, 1603), hiletetako eta ondretako eskumuinak zehaztean, apezak eta benefiziadunak bezalaxe izan zituzten serorak eta emakume txiroak aipagai. Lehenak, bi urtebukaeretakoa "besamano y limosna de las religiosas" ere aipatzeaz beste, hiletetako eskumuinaren ohiturarik aldatu ez zedin ardura zeukan: "y a las beatas y mugeres pobres que se allaren en el cuerpo de la yglesia por que rueguen a Dios por my anyma lo que acostunbra dar syn azer nouedad"⁹³³. Bigarrenak aldiz, ager zitezenei soilik eman zedin zehaztu nahi izan zuen: "y a las rreligiosas y beatas y pobres se de la limosna acostunbrada a las que se allaren presentes y no a otras"⁹³⁴. Bergarako eta Arrasateko adibide hauetatik garbia dugu beraz: apezak bezalaxe serorak ere, erabat beharrezkotzat hartzen ziren hiletan testuinguruan, eta hein hartan, eskumuinak batzuetarako bezalaxe ziren besteendako ere.

Bergara eta Antzuolarako jaso ahal izan ditugun beste zenbait datu, XVIII. mendean bigarren erdialdeari dagozkio. Hauei heldu aurretik gogoan izan behar dugu hiletetako gastuak, apezpikutzen aldetik bezalaxe instituzio zibilen aldetik ere, XVIII. mendean zehar arautu egin zirela edo arautzeko saiakerak egin zirela, gehiegizko gastuek familien ondasunen gainbehera eragiten zutenaren argudioz. Eliza ez zen noski apezaren –eta serorearen– diru-sarreraren jatorri garrantzitsuenetariko bat ziren hiletetako emolumentuak murriztearen aldeko agertzen, baina gastu hauek motibaturiko auzi ugariak zirela eta 1700eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan hainbat agindu eman

⁹³² BUA 01 L/148, 167.

⁹³³ GPAH-AHPG 1/2353, 23r-23v.

⁹³⁴ GPAH-AHPG 1/2353, 252r.

beharrean izan ziren, gastu hauen eta apezen emolumentuen mugak ezarriz; konstituzioen tituluak eurak, zedarritu ziren aspektuen azalpenerako arras esanguratsuak dira:

VI. En quanto à derechos funerales se guarde la costumbre, revocando todo abuso introducido, assi contra el Clero, como contra el Pueblo [...] VII. En los Lugares donde no ay cosa fixa, en razon de esto, se haga concordia entre Clero, y Pueblo, para que confirmada cesse toda ocasion de pleytos [...] VIII. Que cada uno sea enterrado con la forma del entierro que dispuso, sin poder obligar à aumento. Y què se ha de hazer en razon desto, con el que muere abintestado? [...] IX. El entierro de hijos de familias, y menores, sea à voluntad de Padres, y tutores [...] X. Lo que se ha de observar en los entierros de los muchachos, que llegan à vso de razon, para que no se retraigan sus padres de solicitar el que reciban los Sacramentos [...] XI. Que quando personas quantiosas dãn a los Sacerdotes estipendio aventajado en la asistencia à los funerales, se entiende ser gratuito, y no ser principio de costumbre [...] XII. Que los Sacerdotes no reciban combites en lugar de estipendio, y se prohíbe la asistencia en ellos [...] XIII. Se prohíbe estrechamente à los Sacerdotes, y demàs Clerigos el llevar estipendio por hazer honras de personas Reales [...] XIV. Que no se lleven derechos de sepultura à los pobres, y quales lo sean para este efecto (Lepe 1700, 456-460)

Instituzio zibilen eta herritarren euren aldetik ere, noski, hartu izan ziren neurriak, gastu hauen murrizketan eurak baitziren interesik gehien zutenak; hala, 1711n Bergarako San Pedro parrokiako eliztarrek –parrokiako kabildoa alde batera utzirik– elkarren arteko “combinación verbal y voluntaria” bat hitzartu zuten, zeinaren arabera, ondretan eta urtebukaerakoetan, ordurarteko 2 librako ogia beharrean, libra batekoa ematera, eta hainbat leinu-etxe, lehen mailako hiletetatik bigarren mailakoetara iragatera konprometatu ziren. Apezak, noski, aurka agertu ziren, eta hitzarmen nahiz auzi bidez tradiziozko eskaintzak berreskuratu nahi izan zituzten (Madariaga Orbea 1991, 50).

Eta noski, apezen emolumentuak murriztu nahi baziren, seroren emolumentuei zegokienean ere hartu ziren hainbat neurri. Apezpikutzaren aldetik, izendapen berrien harira, hainbat informazio dilijentzia egiten hasiak ziren zegoeneko, eta 1759an, Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiarako serora berri baten izendapena medio, Javier Ignacio de Artech Bergarako bikarioari bertako seroratzan inguruko informe bat eskatu zitzaion. Izan dugu jada aipagai informe hau tenpluko seroratzan ezaugarriak azaltzean, baina aipua errepikatuko dugu zabalxeago jasoz, beste espazioetako serorekiko testuinguru konparatiboan azalpen hauek nola txertatzen zaizkigun hautemateko:

Viven las dos Sororas de Uzarraga, á que està reducido actualmente el numero de las quatro, que hà havido en tiempos passados en aquella Iglesia, en una Casa mui contigua á ella, y propria de su Feligreses, destinada por ellos para habitacion de estas mugeres, sin renta alguna, como tambien la huerta para verdura, un Jaral de robles para leña, un manzanal, y porcion de tierra, que las produce veinte y quatro rreales. Y con este socorro, y el de alguna porcion de trigo al año, y en las ocasiones de entierros, panes, y respices, con que contribuien los Parroquianos á estas dos Sororas, y el producto de la labor de sus manos, se han mantenido decente y competentemente⁹³⁵

Informean zehar bikarioak Uzarragako serora hauen bizimodu egokia azpimarratu nahi izan zuen, jasotzen zituzten etekinak, urriak izanik ere, modu duinean bizitzeko besteak zirela sostengatuz. XVIII. mendearen erdialdean zehazki hiletetako eta heriotz-erritueta etekinek etekin guztien artean izan zezaketen pisuak ez dirudi oso handia, bikarioak etekin osagarritzat baino aurkeztu ez zituela dirudi.

⁹³⁵ KKA-ACC 17/759/40, f.g.

Antzerakoa izan zen 1770ean, jada 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren ondorengo informazio dilijentzien baitan, apezpikutzara helarazi zuen informean agertzen zuen ikuspegi orokorra. Bere bikariotzari zegokion espazio zabalagoko (Bergara eta Antzuola) serorei buruz ziharduen oraingoan, baina datu zehatzagoak emanez:

Los emolumentos de cada una de ellas [*parrokietako serorak*] en oblaciones, funciones funerales en el discurso de cada año, según mi computo prudencial, apenas podrian pasar de 24 ducados de Vellon. Los de las Seroras de Ermitas (donde apenas havia ninguna en la Jurisdiccion de esta Villa, sino tal ó qual en la de Anzuola) no llegarán cada año, por mi computo, ni á la mitad de la referida cantidad, sino es en tal ó qual Ermita, que esté dotada con Casa para habitazion, y alguna pequeña heredad contigua á la misma Ermita; siendo por lo regular impossible el mantenerse unas ni otras Seroras con solas estas cortissimas obvenciones, y sin el socorro del trabajo de sus manos, que es lo que principalmente las dà con que alimentarse⁹³⁶

Bikarioaren hitzak ontzat hartuaz gero, seroren etekinak, XVIII. mendearen bigarren erdialdean, nahiko urriak zirela dirudi. Garbiago azaltzen zaigu hau informe berberean, aurreraxeago: “no pueden consignarse á las Beatas, ó mugeres, que sirven en las Parroquias, menos emolumentos, que los que al presente se las dàn por los Feligreses, y son bien tenues y escasos”. Ez zuten noski XVIII. mendeko dukatek XVI. mendekoek besteko balorerik, eta parrokietako serorei heriotz-errituetoako zerbitzuegatik bikarioak kalkulatu zizkien urteroko 24 dukatek, bestelako etekinekin bat, biziraupenerako baino ematen ez zutela dirudi.

Bergarako bikarioaren kalkulu eta balorazio hauen alboan, aurreko atal batean ikergai izan dugun 1763ko Elgetako parrokiako seroren liskarrak gogoan hartzea komenigarria zaigu. Azaldu izan dugunaren arabera, bertan testigantza eman zuten lekukoetariko zenbaitek Juana Bautista de Yrigoien serorak seroratzara sartu zenean eman zituen 54 dukaten balorea ospitalean hiru urtean zehar eta parrokian bost hilabetean zehar zerbitu ostean jada jaso behar zuela zioten. Aurkeztu izan zituzten frogak urteroko 8 errealean soldata eta bi gari zaku justifikatu zitzaizketen, baina hauen hiru urte eta bost hilabeteko etekinen eta dotean emandako 54 dukaten arteko aldea handia zen oraindik ere. Kopuruen arteko bitarte hau, esan izan dugun bezala, heriotz errituetoako eta jarlekuetoako zerbitzuen etekinek bete beharko zuten⁹³⁷. Bergara, Antzuola eta Elgetako seroren etekinak asko ala gutxi ote ziren? Honakoa behintzat badakigu: Bergarako bikarioak bere informean biziraupenerako besteko mailan kokatu bazituen, Elgetako kasuak, apezpikutzaren aurreko auzi bat eragiteko besteko etekinak behintzat bazirela agertzen digu (nahiz eta azken kasu honetan, motibo ekonomiko hutsez aparte, bestelako motiboak ere izan zitezkeen).

Bergarako San Pedro parrokiako seroren heriotz-errituetoako etekinen azken argazki bat XIX. mendearen erdialdekoa behar duen (jada "Campo-Santo"-a aipatzen da, eta 1845eko hamarrenei buruzko dokumentu batzuekin batera dago) eta "Derechos de entierros" izenburuarekin datorkigun dokumentu batek ematen digu. Bertan azaltzen zaizkigun seroren etekinak, hiletan mailen arabera, honako koadroan antolatu litezke (diruaren kopuruak errealetan adieraziak)⁹³⁸:

⁹³⁶ KKA-ACC 17/770/18, f.g.

⁹³⁷ Ikus aurreko azpiatalean, 492-493 or.

⁹³⁸ Transkripzio osoa: 17. dokumentua, 1119-1121 or.

(b) koadroa. XIX. mendearen erdialdean Bergarako San Pedro parrokiako serorek maila ezberdinetako hileta eta ondretan jasotzen zituzten etekinak

		1. klasea	2. klasea			3. klasea
			Ohizkoa	"de pan de tres libras"	"de medio pan"	
Hileta	Dirua	8	4	4	4	?
	Ogiak	3 ogi 4 libr.	3 ogi 4 libr.	3 ogi 3 libr.	3 ogi 2 libr.	?
Deposito koa	Dirua	18 (+4 "amortajar")	10	?	?	
	Ogiak	(3 ogi 4 libr.?)	?	?	?	
Hondrak (bitan)	Dirua	16	8	8	8	
	Ogiak	6 ogi 4 libr. + 1 dolu-urteko igande bakoitzean + 1 urtebukaerakoan	6 ogi 2 libr. (+ 1 dolu-urteko igande bakoitzean + 1 urtebukerakoan)	(6 ogi 2 libr. + 1 dolu-urteko igande bakoitzean + 1 urtebukaerakoan?)	6 ogi 2 libr.	

Ohar dezagun hemen, dolu-urtea dioguna "catorce meses" zela. Honek, ogiak 4 librakoak (1. klasean) edo 2koak (2. klasean) izan, 14 hilabetetako igandeetan zehar serorak hildako bakoitzagatik ggb. 60 ogi jasotzera heltzen zirela esan nahi du. 14 hilabeteen ohitura hau Oñatin ere jarraitu zela dirudi (Madariaga Orbea 1998, 235), eta zerk motibatua izango zen garbi ez badakigu ere, XVIII. mende bukaerako hiletan gaineko neurri murriztaileen ondorioa izan zela dirudi. Hauez gain, umeei ("Parvulos") ehorzteetako hiletak baino ez zitzaizkien egiten (hondra gabe), eta serorek ere hartzen zuten bertan parte, beraien etekinekin:

(c) koadroa. XIX. mendearen erdialdeko serorek Bergarako San Pedro parrokiari maila ezberdinetako umeen hiletetan jasotzen zituzten etekinak

	1. klasea	2. klasea	3. klasea
Dirua	7 (+2 "amortajar"?)	4 (+2 "amortajar"?)	
Ogiak	Ogi 1, 4 libr.	Ogi 1, 2 libr	Ogi 1, libr 1

Honakoa ote, 1770eko bere informean Artech lizentziatuak Bergarako eta Antzuolako serorei buruz aipatzen zigun etekinen "mugako" egoera, bizirauteko ere ematen ez ziena, bestelako lanak ere egin ezean? Emolumentu hauek, diogunez, XIX. mendearen erdialdean jaso ziren, eta ordurako eta Bergaran eta San Pedro parrokiari bertan, badakigu XVIII. mendearen hasieratik jada eliztarren eta agintari zibilek gastu hauen murrizketarako neurriak hartzeari ekin izan ziotela; Bergarako San Pedron lehen saiakerak jada 1711n izan ziren, eta ekinaldi nagusia, probintziako hiletetako ohituretan eragin erabakiorra izango zuena, XVIII. mendearen bukaera aldera emango zen, 1769ko seroren desagerrarazterako errege aginduaren ondorengo urteetan, hain zuzen ere.

Gorabehera hauen berri aurreraxeago emango dugu⁹³⁹, baina ohartaraz dezagun, murrizketa saiakera haietan jaso ziren zenbait datuk, XIX. mende hasieratarako jaso dugun irudi hau XVIII. mendearen egoerarako ere aintzat hartzekotzat baloratzen garamatzala: 1711n Bergarako San Pedro parrokiako eliztarrek elkarren artean egin zuten "combinación verbal y voluntaria" zelakoan, ikusi dugunez, -hainbat leinu-etxe lehen mailako hiletetik bigarrenekoetara iragateaz aparte- ondretan eta urtebukaerakotan ematen zen 2 librako ogia libra bakarrekora jeistea hitzartu zuten; XIX. mende hasierako dokumentu honetan 2. mailako hiletei zegozkien urtean zeharreko eskaintza bezala ageri zaizkigun horiei buruz zihardutela dirudi. Hau da, XIX. mendearen hasierako dokumentu honetan agertzen zaizkigun emolumentu eta etekinak, agian, XVIII. mendean zehar murriztu nahi izan zirenak eta murriztu zirenak izan litezke, -apezei eta beste elizako zerbitzariei etekin gehien zekarzkie- ohitura zaharrak isladatu nahi izango zirelarik.

Edozein kasutan, beste aspektu batzuetan, nabaria da XIX. mendeko dokumentu honek azaltzen digun egoeraren aurrean, XVIII. mendekoa, batez ere lehen hamarkadetan, serorendako hobia izan zela; esaterako, 14 hilabeteko dolu-urtearen sarrera XVIII. mende bukaerako murrizketen ondorioa izan zela dirudi, aurretik, 2 eta 3 urtetako doluak ere egiten baitziren, honek, eman beharreko eskaintza eta ogien aldetik suposatzen zuen aldearekin. Eta noski, are handiagoa genuke aldea XVI-XVII mendeetako hiletetako gastuekiko, atal honetako lehen orrietan jaso ditugun adibideek aditzera ematen digutenez. Baina XVIII. mendean geldituko gara, gure zorionerako, Juan Garmendia Larrañagak bere argitalpen eskergaren baitan, propioki seroren emolumentuak zehaztu izan ziren mende honen hasierako bi hitzarmen jasoak baititu; konparaziorako ederki datozkigu. Lehena Amasa Billabonako (Gipuzkoa) parrokiako apezten eta bertako seroraren artean egin zuten hitzarmena dugu, eta bigarrena, Berastegin (Gipuzkoa) bertako parrokiako partehartzaile berdinen artean egin zena; agian, biak ere biak, aipatu dugun hiletetako gastuen aurkako giroak sortutako egoeraren, nahiz 1700eko Kalagorriko konstituzioetako arauak finkatzeko aginduaren ondorio izanak litezke. Bi herrietako ohiturak kopuruetan ezberdinak izanik ere, etekin eta emolumentuak jasotzerako orduan oinarritzko patroia amakomun batzuk agertzen dizkigute, probintziako ohituren agerigarri egokia diruditenak; hauek ere koadro batean antolaturik jasoko ditugu, informazioaren azalpenak arintze-aldera:

⁹³⁹ Azpiatal honetan bertan, 510-512 or.

(d) koadroa. XVIII. mendearen lehen erdialdean Amasa Billabonako eta Berastegiko parroketako serorek dolu urtean zeharreko heriotz errituen artapenagatik jasotzen zituzten etekinak

	Amasa Billabona 1722 (Garmendia Larrañaga 2008, 769)	Berastegi 1738 (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 429-430)⁹⁴⁰
Urteko jaiegun nagusiak	6 egunetan ⁹⁴¹ , bakoitzean 12 libra ogi	5 egunetan ⁹⁴² , bakoitzean 3 librako ogi handia eta 10 olata ("obladas o bodigos ordinarios") + jaiegunean elizan jasoriko argizari guztiaren 1/6
Larunbatak	Olata 1, "y si hubiere aniversario conforme a la ofrenda que hubiere"	
Igandeak	7 libra ogi	2 librako ogia eta 8 olata
Astelehenak	5 olata "de los medianos"	2 librako ogia eta 8 olata
Jaieguna (Igandez kanpo)	6 olata "de los medianos"	8 olata
Hondrak, ofizioak eta anibertsarioak	- "todos los días de oficios y aniversarios que se cumplen dentro de dos años contados desde los entierros o muerte", olata 1 - "cuando hay mucho concurso como en aniversarios, honrras o oficios, día de ceniza, el día de los oficios de la cofradía de Nuestra Señora se la deben dar pan o panes según y conforme a la ofrenda más o menos; y en la misma forma cuando se ofrecieren velas en la ofrenda se la deben dar velas o velas"	- "cuando la honrras y oficios de personas principales", 3 librako ogi handia eta 10 olata (urteko jaiegun nagusietan bezala) - "cuando las honrras u oficios ordinarios", 2 librako ogia "y sus obladas ordinarias", eta funtzioan jasoriko argizariaren 1/6

Darabilzagun hiru dokumentu hauen arabera, XVIII. mendeko serorek, hileta, ondra eta jaiegun nagusietan jasotzen zituzten diru eta ogiez gain, dolu-urtean zeharreko larunbat, astelehen, astean zeharreko jaiegun eta igandeetan, batez ere azken hauetan, beraien asteroko ogia ere jasotzen zutela ikus liteke, lekuen araberrako aldaerak ugariak izan behar zutela badirudi ere. Gutxi ala asko ote? hildakoen kopuruaren arabera, noski, eta diruen eta ogien kopuruaren inguruko ohitura espezifikoen arabera... edozein kasutan, Artech lizentziatua bikarioak bere 1759ko eta 1770eko informetan adierazi

⁹⁴⁰ Serorarenez gain, dokumentu honetan serora-laguntzailearen etekin eta emolumentuak ere zehaztu ziren, konparaziotik kanpo uzten baditugu ere, aski interesgarriak direnak: " y la criada que tiene y tuviere en adelante por el trabajo de levantar los sacos de pan desde la iglesia a donde la habitación de la serora en donde se hace la repartición de dichos emolumentos hayan de tener y tengan obligación dichos señores del Cabildo de dar a saber cuando las dichas cinco fiestas principales del año y oficio mayores de difuntos que sucedieren entre año un pan de una libra y en todo los demás de los días que hubiere pan en la iglesia un bodigo ordinario, y por el trabajo que se le da a dicha criada en hacer el sorteo de pan y cera entre los cuatro de dichos señores del Cabildo o sus amas les hayan de dar siempre por los cuatro a cada bodigo ordinario que en todo viene a dejar dicho Cabildo a la criada de dicha serora por ambos dichos sus trabajos hasta cinco bodigos".

⁹⁴¹ "segundo día de la Pascua de la Natividad del Señor segundo día de Pascua de Resurrección, segundo día de Pascua del Espíritu Santo, el día de la Asunción de Nuestra Señora, el día de Ánimas y conmemoración general de difuntos, y el día de San Martín".

⁹⁴² "las Cinco Fiestas principales de cada año".

bezala, etekin hauekin eta bestelako "trabajo de sus manos"-ekin, XVIII. mendeko parrokiatako serorak behintzat, nahiko egoki bizirauteko moduan zeudela dirudi.

Serorek jarlekuen eta bertako zerbitzuen inguruan izan ohi zituzten beste etekinen batzuen berri Oñatiko San Migel parrokiatik heldu zaigu. Bergarako, Antzuolako eta Elgetako parrokiatako serorekin bat, bertan bildu ahal izan ditugun datuek XVIII. mendeko serorek izan ohi zituzten etekinen inguruko ikuspegia osatzen laguntzen digute. Amasa Billabonako eta Berastegiko kasuetan, ogiez gain, argizaria ere seroren etekinen artean aipatu izan zen. Kasu honetan, iturri ezohiko xamar baten bidez (1736-1781 bitarteko protokoloen aurkibide baten lehen orrian baitator), 1759an parrokiako fabrikako komisarioen artean egin zen akordio batean, Oñatiko parrokian bertako serorari ehorteetan erabilitako olioagatik ordaintzen zitzaizkion kopuruen berri izan dugu. Dokumentua aipatu berri ditugun hiletetako gastuen inguruko arautze horietariko bat genuke, familien gastuak bezalaxe, seroren etekinak ere zehaztu zituena. Berridazketa bat da eta orria kaltetu xamar dagoenez bere hutsuneak ditu, baina azalpenen erregulartasuna medio eta nahiko nabariak diren zenbait hutsune betez, ustez, zentzudunki berreraiki ahal izan dugu:

Copia del arreglamento que se ha formado por los señores comisarios de la fabrica del azeite que se le ha de abonar a la Beata de San Miguel en los entierros de ella año de 1759

[aldemenean: Entierro de 6 cirios] En los entierros de seis cirios se abonara a la Beata por lo[s tres dias] primeros una libra de azeite y por las tres funciones de hon[rras] [una] libra, a saver por cada honrra una tercia parte de libra: [aldemenean: Entierro de 8 cirios] En los entierros de ocho cirios en los tres primeros dias s[e abonaran] libra y media de azeite y en las 3 funciones de honrras a [media libra] de azeite que el todo sube a tres libras de azeite: [aldemenean: Entierro de doze cirios] En los entierros de doze cirios se abonaran cinco [libras] de azeite; a sauer dos libras por los primeros tres dias y [en las] tres honrras a cada libra de azeite: se preuiene [que se?] ha de hazer al precio corriente de la tien[da]⁹⁴³

Zoritxarrez, ez zaigu "precio corriente de la tien[da]" hori zein zen zehazten. Gainera, hitzarmeneko "tien[da]" norena zen interpretatzen denaren arabera, kanpoko dendaren bat izan eta serorak ornitze lanak baino ez hartuaz gero, honek ez zukeen lan hargatik etekinik jasoko, edo, zentzudunagoa dirudienaren arabera, denda serora berarena izanaz gero, ohartarazpena honek prezioa gehiegi ez igotzera begirako zitzatekeen. Gainera, azaldu izan dugu lehenago, nola Oñatiko San Migel parrokian XVI eta XVII. mendeetan zehar olioaren administrazioa eta ornikuntza seroraren esku izan ziren; 1759ko akordio honetan serorak ordurartean bitartekari lez izanak zitzakeen olioaren etekinak kontrolatu nahi izan zirela dirudi (denda berea izan edo ez), eta "se preuiene" horrek ere berbera pentsatzera garamatza. Edonola ere, zaila da serorek olioagatik jasoak izan zitzaketan etekinei neurririk hartzea ere, elizako fabrikatik jasotzen zituen ordainketez beste, produktuaren erosketaren eta karriatzearen gastuen neurria falta baitzaigu. Baina olioaren ornikuntzaz arduratu izan zirela behintzat, zalantzagabea dugu. Akordio hau egin baino zertxobait lehenagokoa, 1751koa dugu San Migel parrokiako serora -nagusi- izan zen Ana Catalina de Inzaren testamentua, jarlekuetako zerbitzuagatik, Bergaraz beste, zorren partidak agertzen dizkigun testamentu bakarra. Urte hartan oraindik serorak olioaren ornikuntzaz arduratzen zirela eta jarlekuaren artapenaren ordainketak garitan egiten zirela ageri zaigu: Magdalena de Zumaldek bere senarraren eta semearen hiletetako jarlekuetako zaintzagatik zeuzkan zorrak, serorak ipini zuen -eta kopururik zehazten ez zaigun- olioak eta gari anoa 1/2-k osatzen zituzten; horrez gain, Felipe de Mendizabalekin honek emandako "recetas"

⁹⁴³ GPAH-AHPG 1/4356, 1r.

(botikarioa ote?) batzuegatik zeuzkan zorrak, bere jarlekuaren zaintzogatik zor zitzaizkion kopuruekin berdindu eta kitatzeko agindu zuen⁹⁴⁴.

Olioagatiko etekinez gain, Oñatiko San Migeleko serorak jarlekuetako eta bertako heriotz-erritueta zerbitzuagatik jasotzen zituen bestelako diru eta etekinen berri, Bergarako bikariotzan bezala, 1769ko desagerrarazte aginduaren ostean Oñatikoan egin ziren informazio dilijentzien bidez jaso ahal izan dugu. Dilijentzia hauetariko bat bere karguari eta jasotzen zituen etekinei buruz Javiera de Sarraoa San Migel parrokiako serorarengandik jasotako aitortpena izan zen, eta bertan, kondearen hamarrenengandik jasotzen zuen soldataz beste, honako etekinen berri eman zuen:

Y t. en los entierros, y onras que en cada un año se ofrecen en dha Yglesia la suelen tocar en dinero Setenta y siete Reales de U.n poco mas, ó menos de un quinquenio á otro, y mas en cada entierro, y onra a un pan igualm.te que al Sacristan: Y t. diferentes personas de esta uilla, que tiene Sepulturas en dha Yglesia, le encargan el cuidado de guardar en ella las Tablas de Cerilla, llamadas Comunmente Arguizagui olac, y ponerlas encendidas en las Sepulturas al tiempo de las misas maiores, y uisperas de todo el año y recomponerlas [???] despues y la que tiene dos Tablas, le paga por ello al año una fanega de trigo, y la que no tiene mas que una, media fanega, y las que le encargan esta diligencia solamente los dias festivos de todo el año le dan una quarta⁹⁴⁵

Udal agintarien aldetik osatu zen informeak ere antzerako datuak ematen dizkigu, zenbait aldaera eta zehaztapenekin. Hileta eta ondregatik urte bakoitzeko jasotzen zuena, serorak berak aitorturiko 77 errealekoa beharrea, “segun el Computo que se ha hecho” 80 errealean ingurukoa zela zioten, eta jasotzen zituen ogien inguruko informazio xedatuagoa eman zuten:

en cada entierro, y onra un pan de dos, quatro, û ocho libras, conforme la Clase del entierro, lo que se satisface por el heredero independiente de lo que lleva el Cauildo, y sin que se perjudique en manera alguna â los Beneficiados, ni otro ningun Clerigo⁹⁴⁶

Kopuru hauei erreparaturik, gogoan izan dezagun San Migeleko serorak XVIII. mendearen hasiera alderarte behintzat parrokiako fabrikatik tenpluaren garbiketagatik eta bere etxearen alokairuagatik ematen zitzaizkion 5 dukat jasotzen zituela (XVIII. menderako), eta horrez gain, kondeak 7 gari zaku eta 90 errealeko soldata ematen ziola. Hala zehaztu zen behintzat 1761ean kondearen eta udal agintarien artean egin zen hitzarmenean⁹⁴⁷, eta udal agintarien 1769ko informeak ere kopuru horien berri eman zuen. Alabaina, 1769an parrokiako serorak egin zuen aitortpenean, kondearen hamarrenetatik 7 gari zaku eta 4 dukat (44 erreal) jasotzen zituela zioen. Serorak kondearengandik jaso beharrekoa zuen soldataren erdia beste nonbait gelditzen zen antza, bere eskutara heldu aurretik. 90 erreal jasotzen omen zituela zioten udal agintariak agian izango zuten honen inguruko berririk. Bada, dirutan jasoriko kopuru hauen aurrean, garitan eta ogitan jarlekuen ohizko zerbitzutik eta hiletetatik eta bestelako heriotz-erritueta jasotzen zituen etekinak garrantzitsuak ziren, udal agintarien informean ere zehaztu zen lez:

El salario Consignado por el Patrono, no es suficiente para la manutencion de la Serora, por cuio motibo sin duda se introdujo, y cobra desde tiempo inmemorial en funciones de entierro, y Onras, las Referidas Oblaciones de dinero y pan, cuia corta gratificacion parece precisa por los Cargos que lleuamos expresados⁹⁴⁸

⁹⁴⁴ GPAH-AHPG 1/3358, 525r-528v.

⁹⁴⁵ KKA-ACC 17/761/1, f.g.

⁹⁴⁶ *Ibid.*

⁹⁴⁷ GPAH-AHPG 1/3368, 390r-390v.

⁹⁴⁸ KKA-ACC 17/761/1, f.g.

Seroraren etekinak urriak bezala agertzen zaizkigu informe honetan, baina zuhur xamar ibili beharko ginateke hemen, informe honen xedea, apezpikutzatik parrokiako seroraren karguaren mantenua lortzea baitzen; eta noski, soldata eta etekin urriak jasotzen zituela esan eta erakustea, intentzio horrek bideratzen zuen. Eta bai noski, Bergarako Arteach bikarioa ere intentzio berberak gidatzen zuten Bergara eta Antzuolako seroren egoera ekonomikoaren berri ematean, eta bere hitzak ez ditugu, agian, hain zuhur hartu. Baina honekiko, ez dezagun ahaztu, aurreko ataletan ikusi ahal izan dugunez, XVI-XVII mendeak bitartean behinik behin, Oñatiko San Migel parrokiako serorak, beste hainbat parrokiatako seroren aldean, soldata ona jasotzen zuela. 1661ean egin zen bisitan, esate baterako, bisitatzailerak serorari parrokiako fabrikatik etxearen alokairua ordaintzeari utz ziezaiotela agindu zuen, honek jasotzen zituen “derechos y emolumentos de las sepulturas y entierros”-ekin nahikoa zeukanaren ustean.

Konparazioaren balizkotasuna dagoenean dagoela, Oñatiko parrokiatik bildu ahal izan dugun informazioak, beste elementu bat gehitzen dio seroren heriotz-errituetakoko emolumentu eta etekinen inguruan osatzen dihardugun ikuspegiari: argizaiolen zaintzagatik garitan ordaintzen zitzaizkion emolumentuak. Hiletetan, ondretan, anibertsarioetan, urtebukaerakoetan, jaiegun nagusietan, eta bestelako jaiegunetako emolumentuei dolu-urtean -edo urteetan- zeharreko asterokoak gehitzen zitzaizkien, bada, eta argiteriari loturiko etekinak ere baziren tarteko, partikularren hilobietako argiteria zaintzeagatik ematen zitzaizkienekin bat.

Guzti honi, ikuspegi hau egoki osatzeko, XVIII.aren bigarren erdialdeko egoera eta aurreko mendeetako berberak ez zirela gehitu behar diogu, XVIII. mendearen bigarren erdialdean, Ilustrazioaren eraginak bere ondorioak izan baitzituen; ordurako, eliztarrek Erdi Aroan eta Aro Berrian nagusi izan zen munduikuskera erlijiosoari gero eta gehiago egiten zioten muzin, eta 1770ean honakoa aipatu zen Bergarako Santa Marina parrokiako benefizioen berri ematean:

Se an disminuido mucho [las ofrendas] por el espíritu de reforma, que domina à algunos seculares, que todo lo sensuran, por no estar instruidos de las loables cotumbres de la Iglesia, y de su antequisima disciplina atribuyendo a la Vanidad de las mugeres, lo que es de instruccion Apostolica y divulgando entre los sencillos especies contrarias a la disciplina mas antigua y arreglada (Madariaga Orbea 1991, 51)⁹⁴⁹

Aipu honek, bestalde, tradizioa ordurako –edo hobe esan, orduan ere– noren eskutan mantentzen zen ere agertzen digu: “la Vanidad de las mugeres”. Beste behin, jarlekuen eta heriotz-errituen testuingurua emakumezkoek sostengaturiko esparru lez agertzen zaigu; eta noski, serorek ere bazuten interesik, eta beraien emolumentuen jatorri ziren ohitura zaharren mantenua defendatzen zuten. Bergarako Santa Marina parrokian aipatu zen “espíritu de reforma” hura ez zen besterik, azkenean Gipuzkoako Aldundian gailentzera helduko zena baizik, eta zenbait urte lehenago Larramendik azaltzen zuen ardurari baino ez zegokion; heriotz-errituetakoko gehiegizko gastuen kexu zen Larramendi:

por cualquier difunto gasta la casa en el entierro y funerales mayores, y solo el coste de la iglesia, como quinientos ducados poco más ó ménos, aunque en esto hay tambien diferencias. Y á esto se llegan los gastos en dar de comer en esos días á tanta multitud de gente, como queda dicho arriba (Larramendi 1985 -1754-, 234)

⁹⁴⁹ Honakoa da argitalpenean aipaturiko iturri dokumentala: “APSPB [Archivo Parroquial de Santa Marina de Bergara], Caja 1-A, Beneficios de S^a Marina de Oxirondo. 1770”.

Berez, hiletetako gastu handien aurkako instituzioen aldetiko neurriak, partikularki otordu neurrigabeen aurkakoak, XVI. mendetik hasiak ziren biztanleriarengan eragin nahi izaten. Gipuzkoako Probintziaren aldetik, ugari izan ziren Batzarretan aginduriko mugapenak: 1553an (Oñatin 1556an) ahaideen oturuntzetako partaidetza laugarren gradurartekoetara mugatu zen, eta 1560an, hirugarren gradurartekoetara. Araua betetzen ez zela eta, 1652ko eta 1677koetan berretsi beharra izan zen, itxuraz, aurrekoetan bezala, arrakasta handiegirik gabe. 1704an berriro berretsi zen, Iruñako Apezpikutzari aginduaren betekizunerako laguntza eskatuz; apezpikutzatik eskaera ontzat eman zuten, eta 50 dukateko mehatxua ezarri zuen arau-ahusleentzat. Baina Gipuzkoako apezkeriak eliz auzitegien aurreko auzi bati ekin zion, eta aita santuaganaino heldu ziren apelazioen ildo batean, apezek azken honen babesa lortu zuten, 1719ko bulda baten bidez. 1737an Probintziaren eta bertako apezkeriaren arteko hitzarmen batera heldu zen, araua -praktikan- laikoei baino aplikatuko ez zitzaizela adostuz. Bitarte honen ondoren, Probintziak 1755ean egin zuen hurrengo saiakera, Iruñako eta Kalagorriko apezpikutzari beraien babesa eskatuz; alabaina, herri-mailako apezkeriak eta herritarrek erresistentzia agertzen jarraitzen zuten, eta debekuak ez zuen artean eragin handiegirik izan (Madariaga Orbea 2007, 132-133).

Azkenik, seroren desagerrarazterako –eta ermiten itxierarako– errege agindua eman zenetik (1769) eta Bergarako Santa Marinako benefiziodunak kexatu izatetik (1770) urte gutxira, 1783an, Probintziak -edo hobe esan, Aldundiak- beste behin hiletetako ondretako eta bataioetako gastuen aurka egin zuen, oraingoan ere “vanidad”-a aipagai zela, eta gehiegizko gastu eta “abuso” hauen jarraipenerako interesatuen artean, apezekin bat, serorak eta bestelako emakumeak ere baitaratuz:

Que realmente puede asegurarse, que en Guipuzcoa los muertos destruyen à los vivos; y para que nadie dude de esta verdad, no necesita, sino saber lo que pasa, y por aora se referira por maior. O la vanidad, ò la costumbre, tiene introducidas 3 clases de entierros, la infima, la 2^a, y la 1^a. De la infima bien se puede subir à la 2^a, y de esta a la 1^a pero de la 2^a no se puede bajar a la infima, ni menos de la 1^a a la 2^a; y esto, aunque la familia no tenga, ni con que pagar sus deudas, ni con que comer. En cada clase hay ciertos puntos, que los Clerigos, sus Amas, las seroras, y otras mugeres tienen gran cuidado en hacer observar, y por solo el què diran, se guardan con un escrupulo, que no se puede explicar (Madariaga Orbea 1991, 136)⁹⁵⁰

Purgatorioaren inguruko dotrina bera ere, edo dotrina bera baino, hiletan inguruan honek sortzen zituen gastuak eta hauen onuradunak, bereziki apezak, auzitan zeuden jada, eta Aldundiaren aldetik kritika gogorak jaso zituzten; jarraian jasoko dugun aipua luze xamarra da, baina duen esanguragatik, bere hortan jasotzeari egokia deritzot, kritikarekin batera, alderdi hauek –XVIII. mendean, eta aurrekoetan areago– biztanleriaren bizitzaren baitan zeukaten pisua oso garbi azaltzen baitigu:

No hay duda, que los sufragios del Alma se hacen por sacarla del Purgatorio, si està allà. No hay duda tampoco, que, cuando no la obligacion, a lo menos, la piedad dicta, que apliquemos con toda la posible brevedad à las Almas de nuestros hermanos, ò deudos, el alivio de sus tormentos; pero no sucede asi. Si oy se enterrò a Pedro, no se haran mañana sus Funerales. Se aguardará à un dia festivo, en qe concurrirá mas gente, que en el de labor al Templo, y entonces subirá el cura, ò su theniente al Pulpito, y anunciarà, que tal y tal dia de la proxima semana se haran los officios por el alma de Pedro, que ha 3, 4, ò mas dias, y muchas veces uno ò mas meses, que murio. Para el alma de Pedro eran de gran conveniencia los sufragios aplicados quanto antes; para quien los costea, seria tambien de mucho consuelo aplicarselos quanto antes; pero esto no tiene quenta a los Clerigos: es menester tomar tiempo, para que acuda mas gente, es

⁹⁵⁰ Argitalpenean aipaturiko iturri dokumentala: “AGG, Sección 4, Neg. 1, Leg. 53, 1783”.

menester aguardar al primer dia festivo, para publicar las exequias de alma de Pedro, aunque sea à costa del sufrimiento de esta pobre alma en el Purgatorio. Ni basta tampoco, que se publique en el Pueblo, en que se han de hacer los funerales, es preciso, que llegue à noticia de los Amigos, y Amigas, que viven fuera de aquel Pueblo, pues se sabe, que todas las casas interesadas embiaràn trigo, pan, zera, en belas y hachas, que seran para los Clerigos, y con que haia buena cosecha de esto, hace ver la practica continuada, que se matan poco de lo que se hace penar por tanto tiempo al alma, que mucho antes se pudo haver trasladado de los horrendos tormentos del Purgatorio a las delicias del Paraiso. Esto se llama piedad? Se llama cristiandad? Y lo llaman asi los que tiene obligacion de enseñar à otros la ley del xptianismo? [...] es innegable, que en Guipuzcoa los muertos destruyen a los Vivos, ya por lo que cada casa gasta con sus difuntos, ya por que con cada uno gastan todas las del Pueblo, ya porque el oficial, el Casero, ò Labrador, que apenas con el sudor de su rostro alcanza à tener un pan de maiz, con que sostener la vida de su familia, en llegado à lance de que muera uno en ella, venderà sus pocos trastos, ò sus bueies, cavallerias, ò lo que pueda, y abandonarà por muchos dias su campo, y su trabajo, antes de faltar à ninguno de los palillos, que la costumbre, y la vanidad han introducido, y conservan, para lo que se llama sufragio de los muertos (*Loc.cit.*)

“Erreforma” garaiak ziren, bada, eta hiletak sorturiko gastuak eta hauek biztanleriagan eragiten zituen zortzeek eta gainbehera ekonomikoak hainbat ardura sortzen zituzten. Aipuaeren bukaerako “palillos” horien (argizaiolak) mantenuaren eta seroren desagerraraztearen arteko erlazioa, bestalde, zuzena zen, eta jada 1769ko seroren desagerrarazte aginduaren testuinguruan azaleratu izan zen. Oñatiko udalak Martin de Madinabeitia eta Francisco Xavier de Uzelai lizentziatuei informe bat osatzea eskatu zien orduan, aginduaren aplikazioak izango zituen ondorioak neurtzeko asmoz; hauek, jarlekuetako zerbitzua, zehazki argizaiolen mantenua, edo –nahiz eta serora jantzirik ez eraman– emakumeek egiten jarraitu zezatela, edo bestela, argizari guztiak ken zitezela gomendatu zuten:

El poner, y quitar las Zerillas, y guardarlas que es en lo que mas se ejercitan las Criadas de la Serora, y en que pudiera hauer algun reparo por andar descubiertas, y causando alguna distraccion, à las Concurrentes à la Yglesia, tambien es como preciso el que se haga por mujeres; por que seria mui digno de nota é indecencia el que andubiese un hombre Cargado con el Cesto de las Zerillas, por medio de mujeres, repartiendo, y recojiendo dichas tablas, de Sepultura en Sepultura, y por lo mismo nos parece, que ò se deue prouidenciar el que se quiten del todo las Zerillas de Sepulturas, ò permitir, que en su distribucion entiendan solamente las mujeres, y en caso que se quitasen las Zerillas, tambien se disminuirian considerablemente las ofrendas de pan que son mui quantiosas en esta Yglesia⁹⁵¹

Azken esaldi honetan laburbiltzen zaigu arazoaren gakoa, zenbait urte beranduago, Gipuzkoako Aldundiak eraldatu nahi izango zuen –eta eraldatuko zuen– ohiturarena, eta bere inplikazio ekonomikoena.

Eta hala ere, hainbat lekutan serorek heriotz-errituetak funtzioetan eta hauei asoziatuak etekinetan presente egoten jarraitu zuten, XIX. mende erdialdeko Bergarako hiletetako emolumentuen inguruko dokumentuak aditzera eman digunez. Etnografia eta historia uztartzen dituzten ikerketek ere informazio esanguratsua dakarkigute, urte guztian zehar serorek funtzio hauei asoziatuak jaso zitzaizkien etekinen berri jasotzerako orduan. 1922an Gazteluko (Gipuzkoa) Andre Maria ("Santa Maria de la Asunción") parrokian izaten ziren funtzioen eta emolumentuen inguruan Pedro Rodríguez Ondarrak egin zuen deskribapena, kasu honetan Frank-en ikerlan batetik jaso duguna, azken datu osagarri batzuk jasotzeko iturri egokia dugu; bidenabar,

⁹⁵¹ KKA-ACC 17/769/1, f.g.

heriotz-errituetakoa partehartzeari eta etekinei buruz azaldukoak testuinguru zabalago batean hautemateko bidea ere ematen digu; kasu honetan ere, bestetan egin bezala, serorari buruzko datuak koadro batean bilduko ditugu, ulermena errazte-aldera⁹⁵²:

⁹⁵² Hona testua osorik, interesgarria baiteritzogu:

"DOMINGOS Y DIAS DE PRECEPTO: La ofrenda suele ser, un bollo de un cuarto de libra por cada sepultura, más el pan que llevan las familias que hubiesen tenido alguna defunción. El día de la Epifanía o de Reyes se entregan a la Serora doce manzanas, y el día de Viernes Santo doce huevos.

CONGREGACIONES Y COFRADIAS: Al tener noticia de la muerte de un cofrade fuera del pueblo se anuncia su muerte del púlpito y se tocan después de Misa Mayor, las campanas, pero no se anuncia la obligación del rosario. Por el toque de las campanas pagan a la serora 50 cts.

DEFUNCIONES: Cuando muere un congregante de San Luis, si la Congregación cuenta con fondos, se hace un funeral en el día que se convenga con la familia del interesado, asistiendo solamente el Párroco de la parroquia con una Misa Cantada, nocturno antes de la Misa y responso cantado al final; cobrando el Cura por ello 10 pts., el organista 5 pts., la parroquia 4pts., la serora 2 pts. y los tres monaguillos a 25 cts. cada uno. Honorarios: Paga el Cura a la serora 5 pts., a la parroquia 10 pts., al organista 10 pts. y comida, a los capellanes 10 pts. y comida y el mismo Cura 20 pts. Novena de Na. Sra. de los Dolores por un difunto: Hay dos clases de novenas, una solemne y otra sencilla. Honorarios: Se cobra 75 pts. por todo, que se distribuye: 58 pts. al cura por las misas y novena, 12 pts. al organista, 2 pts. a la serora, y 2 pts. a la Parroquia. Misa de Aniversario por un difunto de la familia (solemne): con los honorarios de 8 pts. (6 por la Misa, 1,50 al organista, 0,25 a la serora y 0,25 a la Parroquia) se celebra una Misa cantada, con responso cantado al final. Entierro de párvulo: Se hace el sepelio según el ritual. Luego se canta una Misa en el Altar de San Miguel 'Votiva de angelis' con responso al final en la sepultura de la familia *Pro omnibus defunctis familiae*. Honorarios: Ofrenda una vela el día del funeral. El domingo siguiente ofrendan sin distinción 12 libras de pan y hay responso extraordinario. Abonan 5 pts. por la misa, 2,50 pts. al organista y 1 pts. a la serora.

NOVENA DE LA INMACULADA: Comienza el día 30 de noviembre. Para ese día preparan los de la Casa Cural, a una con la serora, el Altar para la novena, que es el de San Miquel, donde colocando el dosel adornan la imagen de la Concepción.

DIA DE REYES: Ofrendan además del bollo de pan, manzanas, de las cuales se envían 12 a la serora. Para recoger las dichas manzanas, habrán colocado los de la Casa Cural una cesta pequeña en el lugar de la ofrenda.

LUNES DE CARNAVAL: A las nueve se canta el Nocturno; luego se celebra la Misa en el Altar de la Dolorosa. Terminada ésta, se efectúa el ejercicio de la novena de Animas. Finalmente, hay un responso extraordinario junto al catafalco y con capa pluvial; allí suelen acudir las de las sepulturas a sacar los respuestas. De la ofrenda de este día distribuyen los de la Casa Cural a cada bollo a los niños y lo restante se manda a la serora. Se da además (de los respuestas) a cada peseta a la serora.

MIERCOLES DE CENIZA: Se adelanta para lo restante de la Novena la hora de la Misa; antes de ella se bendice y distribuye la ceniza, lo cual también se hace en el Rosario de la tarde. Por la novena de Animas se da de lo recaudado en la limosna, 15 pts. al organista, 5 pts. a la serora, 2,50 pts. a la Parroquia y 50 cts. a los monaguillos.

HONORARIOS FIJOS A LOS COLABORADORES DE LA PARROQUIA: A la serora se le paga por sus servicios 50 pts. a fin de año; más 25 pts. por rezar el Rosario todos los días durante la Misa. En total: 75 pts" (Frank 1997, z.g.).

(e) koadroa. 1922an Gazteluko Andre Maria parrokian izaten ziren urtean zeharreko funtzioetan serorek jasotzen zituzten etekinak

	Dirua	Bestelakoak
Domingos y días de precepto		- "ofrenda" aipatzen da, baina serorarendakorik zehaztu gabe - "día de la Epifanía o de Reyes": 12 sagar - Ostiral Santuan: 12 arraultza
Congregaciones y cofradías	- Herriaz kanpo hildako kofraderen baten heriotzaren berri emateko "por el toque de Campanas": 0,5 peseta	
Defunciones	- "Cuando muere un congregante de San Luis": 2 peseta - "Honorarios": 5 peseta - "Novena de Nuestra Señora de los Dolores", bi klase: "solemne" eta "sencilla". "Honorarios": 2 peseta, eta "solemne"-en kasuan, "Aniversario por un difunto de la familia": 0,25 peseta - Umeen ehorzteak: peseta 1	Zehazten ez diren "ofrendas"-en parteak ere jasoko zituen, ziurrenez
Novena de la Inmaculada	(aldarearen prestakuntzan parte hartzen du, baina ez da emolumenturik aipatzen)	
Día de Reyes		12 sagar
Lunes de Carnaval	"Se da además (de los responsos) a cada peseta a la serora"	"De la ofrenda de este día distribuyen los de la Casa Cural a cada bollo a los niños y lo restante se manda a la serora"
Miércoles de Ceniza	5 peseta ("de lo recaudado de la limosna")	
Honorarios fijos a los colaboradores de la parroquia	- 50 peseta "a fin de año" - 25 peseta "por rezar el Rosario todos los días durante la Misa"	

Ogiekin batera sagarrak eta arrautzak ere ageri zaizkigu seroraren eskaintzetako etekinen artean; baita propioki heriotz-errituak zirenez aparte, jai ezberdinetako funtzioetan bestelako etekinak bazirela ere; eta baita, azkenik, kofradiekiko erlazioen testuingurutik ere serorei nolabaiteko etekinak hel zekizkiekeela ere. Aro Berriarekiko, zaila da Euskal Herrian serorek parte hartzen zuten funtzioen, errituen eta bertako etekinen konplexutasunari eta kopuruari neurri bat hartzea, baina behinik behin garbi ageri zaigu, parroketako bertako nahiz jarleku partikularren zerbitzuan zebiltzan seroren etekinen iturri nagusietariko bat osatu behar zutela.

Atal honetan seroren etekinen inguruan jaso ahal izan ditugun datuetatik, hiribilduetako parrokietak serorek jarlekuetak eta heriotz-errituetako zerbitzuetatik XVI. mendean eta XVII.enaren hasieratan nahiko etekin esanguratsuak jasotzen zituztela, eta XVIII. menderako jada nabarmen gutxituak baziren ere, biziraupena egoki bermatzeko beste ematen zutela ondorioztatu liteke. Alabaina, zerbitzu hauei buruzko informazioa jaso ahal izan dugun lekuetan egoera hau agertzen zaigula esatearekin bat, informazioa falta zaigun inguruen berri ere eman beharrean gaude, beste leku batean ere esan izan dugun bezala, presentziak bezalaxe ausentziak ere esanguratsuak baitira. Hein horretan, azpimarratu beharrean gaude jarlekuetak eta heriotz-errituetako zerbitzuen ordainketak dirutan egin izanaren testigantzak Aro Berriko Debagoiengan Bergaran baino ezin izan ditugula jaso, eta gainontzeko herrietako seroren kasuetan, zerbitzuegatiko etekinak garitan edo ogitan jasotzen zituztela dirudiela. Alegia; ordainketak, dirutan, diruaren ekonomia zabalduen zegoen espazio komertzialetan baino ez zirela egiten. Eskura izan ditugun testamentuen parte handi bat Bergarako seroren testamentuek osatzen badute ere, beste espazioetarako aurkitu ahal izan ditugun parrokietak seroren testamentuetan, Oñatiko salbuespen batekin (batez ere Antzuola, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoetan) ez zaigu ia zerbitzu hauen motibozko zordunik aipatzen. Ikusi berri dugu nola Oñatin ordainketa hauek garitan eta ogitan baino ez ziren egiten, serorak dirutan soldata eta bestelako aktibitateengatik egindako ordainketak (garbiketa, bereziki) baino jasotzen ez zituela. Beste zenbait parrokiatan ere ikusi izan dugu nola serorek motibo ezberdinengatik diruzko ordainketak jasotzen zituzten, kasu askotan, urteen puruan soldata lez finkatzera heldu zirenak. Baina esan bezala, espazio hauetako seroren testamentuetan ez dago ia jarlekuen eta heriotz-errituen zorren berririk, eta beraz, zentzudunena, zerbitzu hauen ordainketak gehienetan Oñatin egin ohi ziren bezalaxe, garitan, ogitan eta bestelako ondasunetan baino egiten ez zirela ondorioztatzea dugula dirudi. Hau Berrestera datozkigu, goraxeago jaso dugun Oñatiko San Migel parrokiako Ana Catalina de Inzaren (1751) kasuarekin bat, Elgetako Magdalena de Urrojolaeguik 1609an testamentua helarazi zuenean Andre Maria parrokian serora zen Marina de Egoecheagari eta -Elgetako ohituraren arabera, ziurrenez honen serora-laguntzaile izango zen- ospitaleko serora zen "beata de Loyti"-ri egin zizkien dohaintzak: lehenari gari anoa 1/2 eta 3 "manogillos de lino rrestrillado" eman zizkion "para que tenga quenta de mi Sepultura y de rrogar al señor por mi anima", eta bigarrenari aldiz, 2 liozko azao fin, "porque ruegue a dios por mi anima"⁹⁵³.

Hala ere, dirutan eta espeziatan eginiko ordainketen arteko banaketa hau ezin dugu oso era zurrunean ulertu, eta batez ere hiribilduetako parrokiei dagokienean, Bergarako eta Oñatiko kasuak ordainketetarako izan ziren ohitura ezberdinen adierazgarri lez baino ezin ditugu ziurtzat eman, datu gehiagoren faltan. Alabaina, auzo eta elizateetako parrokien adierazgarri ditugun Aretxabaletako eta Eskoriatzako elizateetako parrokiei dagokienean, behinik behin, XVII. mendean zehar, ohiturak garitan eta ogitan egindako ordainketena izan behar zuela nabariagoa zaigu. Berez, serora hauek ez zeukaten ia zordunik, eta dohaintzetan eman izan zituzten ondasun gehienak, diru kopuru xume batzuez bestalde, ehunek, ohialek eta arrokek osatzen zituzten. Kasu hauetan, jarlekuen eta heriotz-errituen zerbitzuak biziraupenerako medio bat izan behar zuen, etekin esanguratsuegirik gabekoa. Ezin diegu baina -ustezko- etekin hauei neurririk hartu, zorren faltaren testigantza jasotzetik haratago⁹⁵⁴.

⁹⁵³ GPAH-AHPG 1/1845, 25r-27v.

⁹⁵⁴ Ondorio hauetara heltzeko Aretxabaletako lau eta Eskoriatzako hiru seroren testamentutan oinarritu gara, hauen multzo berean sartu dugun Aramaioko serora baten testamentuarekin batera; ikus hauen erreferentziak 9 koadroan, 935-939 or. Testamentu hauetariko batzuen ikerketa zehatzagoa VI. 2.3. azpiatalean egin dut, 553-556 or.

Jarlekuetako eta heriotz-errituetoako zerbitzuen ordainketak, beraz, lekuan lekuko aberastasunen eta ohituren arabera ziren, logikoa den bezala, lekuan lekuko biztanleriaren gaitasun ekonomikoarekiko egokitasunezko neurrietan eginak. Edozein kasutan, parroketako seroren eta zerbitzu partikularrak betetzen zituzten bestelako seroren etekinen parte garrantzitsua ziren, hauek biziraupen soilerako balio izan (XVIII. mendearen bigarren erdialdean dirudien bezala), ala aberasbide esanguratsua izan (XVI. mendeko seroren kasuan).

VI. 1.6. Kanpaiak

Azken ataletan gehiagotan agertu izan zaizkigu parroketako serorak, ermitetakoak baino. Hurrengo bi ataletan berriz, gehiago ereparatuko diegu ermitetako serorei, kanpai-jotearen aktibitatea eta limosna eskatzearena, azken hauengan ohikoagoak baitziren. Kanpai-jotearen kasuan, parroketan, gehienetan sakristauek edo apezek eurek hartzen zuten kanpaiaren ardura. Konstituzio sinodaletan ere halaxe agindu izan zen, 1555ekoetan bezalaxe (Díaz de Luco 1555, 70r, 71r-71v), 1602koetan (Manso 1602, 117r-117v), 1621ekoetan (Gonzalez del Castillo 1621, 81r-82v), eta jada zehaztasun handiarekin, 1700ekoetan (Lepe 1700, 255-260). Alabaina, jarraian ikusiko dugun lez, are XVIII. mendean aurrera eginda ere, kasu askotan serorak arduratu izan ziren kanpai-joteez, batez ere, noski, sakristaurik izan ohi ez zuten ermiten testuinguruan. Hiribilduetako ordenantzetan ere jaso ziren kanpai-joteen inguruko arauak; deigarria zaigu hemen hildakoen sexuaren adierazpenarekiko uniformitatea:

La única diferencia que se puede apreciar en las ordenanzas en función del sexo del difunto es la del número de toques de campana que se dan para avisar del fallecimiento al resto de la comunidad. La uniformidad en las villas vascas es total: se darán tres toques cuando el muerto sea hombre y dos cuando sea mujer (Palacios Martínez; Urcelay Gaona 2006, 123)

Umeen heriotza bereizteko ohitura ere nahiko orokortua zegoen, kasu honetan, heriotzaren abisuan kanpai-jote bakarria emanen. Alabaina, itxurazko uniformitate honen baitan aldaerak ere onartzen ziren, bereziki, hildakoaren botere eta aberastasunaren adierazpena gauzatzerakoan, kanpai-jote gehiago baimenduz (*Ibid.*, 122-123, 126). Ordenantzetako aspektu hauen inguruko uniformetasuna esanguratsua bazen ere, lekuan lekuko aldaerak ere baziren, aurreraxeago etnografiaren alorretik jasoriko informazioak aditzera emango digunez.

Kanpaiaren gaineko ardura garrantzitsua zen, eguneko denboraren oinarrizko banaketarako bezalaxe (goizeko, eguerdiko eta gaueko denborak banatzen zituzten hiru abemariak), hainbat aktibitate sozialetarako deiak egiteko oso garrantzitsuak baitziren. Propioki erlijiosoak ziren aktibitatez gain (agonia eta heriotza, mezak, hiletak, prozesioak, pertsona bereziren baten helduera, etab.), kanpaien deira egiten ziren eliztarren eta auzotarren batzarrak, eta nekazaritzari edo abeltzantzari loturiko aktibitate kolektiboetarako deiak (uzta-jasotzeak, auzolanak, etab.). Eta noski, behin eta berriro aipaturiko beste zeregin bat, ekaitza uxatzeko edo konjurua egiteko kanpaiak jotzearena da. Kuriosoki, konstituzio sinodaletan kanpaien jotea sakristauei esleitu bazitzairen ere, 1618an, Leintz bailarako serorak apezpikutzako bisitatzailak kanporatu zituenean izan zen auzian, aktibitate horiek “onbres ni sachristanes legos”-ek ezin eginekoak zirela eta, serorek egiten zituzten gauzen artean, “tocar las campanas” ere aipatu zuten⁹⁵⁵. Leintz bailaran behinik behin, baita parroketan ere, kanpaiak seroren gauza zirela hautematen

⁹⁵⁵ VEKA-ARChV. Real Audiencia y Chancillería de Valladolid. Pleitos Civiles. Escribanía Zarandona y Wals. Pleitos Olvidados. C 3654/23, f.g.

zuten. Euskal herriko beste hainbat lekutan izan da kanpaien jotea seroren eginkizunen artean aipatua (batez ere Iparraldean, Nafarroa Garaian eta Gipuzkoan), eta aipamen guzti hauek jasotzea alferrik luzatzea genukeenez, gehienak oinpeko notan jasoko ditugu⁹⁵⁶, hemen, deskribapenik esanguratsu eta egokienak jaso ahal izan ditugun kasuak azaltzera mugatuz; lehena, Gaintzako (Gipuzkoa), non, serorak, pulpito propioa ere bazeukan.

Kasu hau aipatzean, Garmendia Larrañagak honakoa esan zigun: "en ocasiones conjuraban dentro de la ermita de San Martín, y de ello se responsabilizaba la serora, que tenía el sitio reservado, llamado Seroraren pulpito" (Garmendia Larrañaga 2008-2007-, 415). "Seroren pulpito" honen berri Sorazuk ere eman zigun, eta bertatik serorak konjururako egiten zituen otoitzez gain, konjurua egiteko serorak egiten zuen beste honako erritu hau ere jaso zigun: "inoiz, eguraldi edo ekaitza nabaritzean: erramu hostoak, edo San Juan txortako lore bedeinkatuak, bi teilen artean etxe aurrean erre, lau aldeetara ur bedeinkatua botatzen zuelarik, ekaitza erretiratu zedila eskatuaz"⁹⁵⁷. Horiez

⁹⁵⁶ Webster-ek Nafarroa Behereko eta Biarnoko intendente izan zen M. Le Bret intendentearen 1700eko memoriako aipua jaso zigun, eta bertan, kanpaien jotea Nafarroa Behereko seroren ohizko betebeharren artean jaso zen, ekaitzen konjurua egitearekin batera: "tocar las campanas para los oficios y para conjurar las tormentas" (Webster 1911, 146). Henaoren *Averiguaciones...* (1689-1691) lanaren 1895eko argitalpeneko gehigarrietan (1980-1895-, 115) ere aipatu zen betebeharrak hau, Loiolako Inaziok ezarri zuen ohituratzat pasaz. Ermitan serora beharrean ermitaua izaten zenean ere, noski, kanpai-joteak honen betekizunen parte izaten ziren. Hala, XVIII. mendean, Gareseko (Nafarroa Garaia) San Gregorio basilikako Simón de Adiós ermitauari herritarrek gehien eskertzen zioten arduetariko bat "de avisar a los nublados y hielos" zen (Goñi Gaztambide 1965, 92). Lasak honela laburbildu zituen seroren kanpaiekikoak: "tañer la campana al día tres veces para el Angelus, en la agonía de los feligreses y a los difuntos, en los incendios y proximidad de las tormentas" (Lasa 1977, 189). Zudairek Baztaneko (Nafarroa Garaia) serorei eginiko prozesu judicial bat ikergai izan zuenean, eliza eta bertako arropa eta ohialen garbiketarekin bat, kanpaien jotea aipatu zuen serorek eurek azpimarraturiko eginkizuntzat: "La obligación más taxativamente especificada es la de tocar las campanas". Zehaztasunak eman zituzten serorek hiru abemarietak eta "las campanas anublo" jotea aipatu zituzten, lurraldea "subjeta a ynfortunios y piedras y tempestades" zela eta (Zudaire 1978, 439). Peñaranda Garciak, Nafarroa Garaiko serorekin jarraituz, Garzaineko, Iruña kanpokaldeko Magdalenaren ermitako eta Azpilikuetak seroren hitzak jaso zituen; azken honek kanpai-joteen inguruko nahiko berri zehatzak eman zituen: "tocan las campanas a la horacion a las mañanas y tardes y, quando algunos murieron, a muerto y onrras y a nublados los beranos y tambien a medio dia a la oracion" (Peñaranda García 2002, 303). Lafourcade-k, Iparraldeko serorei buruz jardutean ere aipatu zituen ekaitzen aurkako kanpai-joteak, esanguratsuki, jarraian, serorei egozten zitzaizkien naturaz gairako boterea nabarmentzera iraganez. Bestelako kanpai-joteak ere izan zituen aipagai, espezifikoki lan horren kargu hartzen zuen beste inor ez egotekotan, serorari zegozkionak: "Quand il n'y avait pas de sonneur de cloches, c'est elle qui sonnait les cloches, notamment à l'occasion du décès d'un habitant de la paroisse. Elle sonnait la messe, les vêpres, l'angélus..., les baptêmes, mariages, enterrements et autres cérémonies funéraires" (Lafourcade 1991, 32). Lan kolektibo berberean Duvertrek denboraren funtsezko erregulaziorako kanpai-joteak eta heriotzaren abisukoak aipatu zituzten seroren zeregintzat: "C'est elle [...] qui rythme avec la cloche la sortie du soleil, son apogée à midi, sa disparition le soir et qui annonce les temps de la messe. C'est elle qui donne la croix que vient chercher le premier voisin d'un mort, qui annonce, par la cloche, la nouvelle aux environs" (Duvert 1991, 5). Azpiazuk ere kanpai-jotearen lana ("en los tiempos acostumbrados") Urretxuko parrokiako eta Soralezko San Esteban ermitako (Gipuzkoa) seroren betekizunen deskribapenetan aipatua aurkitu zigun (Azpiazu 1995a, 49-50). Azkenik, Aguirre Sorondok, parrokietako serorek kanpaiak sakristaurik edo kanpai-jolerik ez egotekotan jotzen zituztela aipatu zigun, honako kanpai-joteak zehaztuz: "al amanecer, al mediodía y al anochecer, cuando alguien entraba en agonía y cuando moría". Ermitetako serorek aldiz, esandako kanpai-joteez gain, suteen abisurako eta ekaitzen uxatzerako kanpai-joteak ere bazituzten euren kargu (Aguirre Sorondo 1995a, 110).

⁹⁵⁷ Kanpai joteez aparte, ekaitzaren aurka -dirudienaren arabera- kanpaiaren erabilera gabe serorek egiten zuten beste erritu baten berri, Duvertrek ere eman zigun, Iparraldeko datuak jasoz: "C'est elle qui, les jours d'orage, fait les actes nécessaires avec l'eau bénite le rameau et le feu, afin de protéger l'église et le village' m'assurait la dernière andere-serora d'Ixassou" (Duvert 1991, 5). Azken erritu hauek, funtsean, etxeoandreek etxea, bere sailak eta bertako biztanleak babesteko egiten zituzten erritu berberak zirela

gain, Sorazuk, puntutan laburturik, kanpaiekin parrokiatako serorek izaten zituzten lanen ikuspegi zabal bat eskaini zigun, joaldien berri ere emanaz; konjuruaz aparte, honakoak aipatu zituen:

- Egunero, hiru aldiz kanpaia jo Goiz-alban (argi ezkila, 32 joaldi)
- Eguerdian (Ave Mariakoan, 12 joaldi).
- Iluntzean (Aimaritakoan, beste 32 joaldi).
- Larunbatean, ordu bietan kanpai bueltakoak, igandearen hurbiltasuna gogoratzeko.
- Igandean, goizeko Meza ondoren, kanpai txikiak (etxeakoandreek Mezatan izandako gizonezkoei gosaria etxean presta ziezaioten).
- Ostiraletan, hiruretan, Jesusen heriotza gogoratzuz eta kristauei inbitatuz eskari hau egitera: Adoratzen eta bedeinkatzen zaitut Kristo, zergatik Gurutze Santuarekin erredimitu zenduan munduan. [...]
- Heriotza aurrean eta ondorenean ere kanpaiak jotzen zituzten. Bai, norbait agonian zegoela; bai, Apaizak gaixoari Elizakoak eramatean.
- Eta heriotza gertatzean, gizonezkoei, hasieran bi batekoak hirutan; segidan, bi handi eta txiki bat, bederatzi aldiz; eta bukaeran, bi batekoak hirutan.
- Emakumezkoei, berriz, hasieran, bi batekoak bi aldiz; ondoren, handi bat eta bi txiki bederatzi aldiz; eta bukaeran, bi batekoak hirutan. [...]
- Norbaiten bataiorakoan, kanpaia jotzen zuten (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Kanpai-joteak izatera hel zitezkeen konplexutasuna handia zen, gizarte baitako gertakizunen eta deialdien bozgorailu nagusiak izanik. Eta badira etnografiaren alorrean jasotako are berri zabalagoak ere, Aguirre Sorondok 1986an Aiako parrokiako serora izanik kanpai-joteez arduratzen zen Pepita Zabal Insaustirengandik jasotakoak esaterako, are konplexutasun handiagoa azaltzen digutenak; eman zizkigun azalpenak oso luzeak izanik, oinpeko notan jasoko ditugu⁹⁵⁸.

dirudi, baina etxeakoandreak beharrea serorak egitean, etxea - etxeandrea / herria edo eliza - serora asoziazioari jarraiki, herriari eta elizari aplikatua. Duvertek berak deskribatzen dizkigu errituak aurreraxeago; erramuarekiko:

"Dans beaucoup d'endroits, les jours d'orage, la maitresse de maison bénissait les hommes au champ en leur donnant une feuille de laurier béni qu'ils mettaient dans leur béret afin de se protéger de la foudre. A ce propos, le jour des Rameaux, à Hasparren par exemple, les jeunes ramenaient de rameau donné par Andere-Serora et le donnaient à l'etxekandere. Celle-ci bénissait la maison avec et le rangeait dans l'armoire de la chambre (où se trouvent les draps mortuaires, mantaleta, des cierges, éventuellement ezkoa, une provision d'eau bénite, etc.). Avec deux feuilles elle faisait une croix qu'elle fixait dans l'écurie"

Suarekiko aldiz:

"Pour préserver la maison des malheurs (gaixtoak, de l'orage, du feu...) à l'occasion de la semaine sainte, ou de la chandeleur, l'etxekandere allait chercher (ou envoyait un enfant) à l'église du feu donné par le prêtre ou par andere-serora, à l'aide d'un champignon (erdoa ou des racines ou du "bois rond"). Alors, tenant ce feu dans un récipient, elle faisait le tour de la maison (une fois ou trois dans le sens inverse des aiguilles d'une montre) et priait avec à la porte d'entrée ou à la cuisine (Ordarp, Espès). A Beyrie, ce champignon était dans la cheminée en remplacement d'un tison qu'elle avait jeté au-dehors.

Les jours d'orage, elle allume l'ezko dans la cuisine ou sur le rebord de la fenêtre" (Duvert 1991, 7-8).

⁹⁵⁸ "La torre de la iglesia tiene 4 campanas: 2 fijas (una mayor que otra) y 2 de bandeo. Todas se tocaban desde abajo por medio de cuerdas, salvo los siguientes toques para los que había que subir a la torre a tocar:

· Sábados a las 2 h. de la tarde: *ordubitakoa*.

· Días de fiesta: al ángelus: 6 1/2 h. *matutilla* y al anochecer *abemarikua*; a las 11 h. para avisar la Misa Mayor *meza-nagusia* y a las 14 h. *ordubitakoa*.

Ángelus: A las 6 1/2 h. la *natutilla* con 33 golpes seguidos a la campana grande fija, que se daban desde abajo con ayuda de la cuerda. Son 33 golpes en memoria de los años de Cristo; A las 12 h. *amabitakua* con 3 golpes pausados con la grande fija; y al anochecer *abemarikua*, también llamada *illunbistan* o *Illun-mugakoan*, con 12 golpes: 6 lentos + 3 rápidos + 3 lentos, también con la grande fija.

Días de fiesta: la *matutilla* de las 6 1/2 h. se hacía con la campana grande fija pero con ayuda de

Kanpaien erabileraren garrantzia handia zela eta, 1769an ermitak itxi eta serorak desagerrarazteko agindua eman zenean, Oñatin egin ziren informazio dilijentzien baitan, bertako bikarioaren informean aintzat hartu ziren kanpaien kolektibitatearekiko funtzio sozial eta erlijiosoak, honek, eraistekotan zeuden zenbait ermitetako kanpaiak mantendu beharra aipatu zuenean:

La campana de San Jorxe, San Bartholome, San Julian, y San Roman pudieran destinarse para la Parrochia en donde hazen falta, y fundiendolas seruiran para Campana de Relox: Las de Santa Maria Magdalena de Corostola, San Christobal, y Santa Cruz deberan Colocarse en las Casas Contiguas ê Ynmediatas â ellas, por ser sumamente nezarias para el toque de oraciones, llamar â Yncendios, Entierros, y otras muchas

un palo, no de la cuerda, con lo que se lograban toques más repetidos, durante un rato (como 3 minutos). El toque de las 12 h. y el de la noche igual que los días de labor.

Vísperas: ordubitakoa a las 14 h. con 33 golpes seguidos con la campana chiquita. Los festivos se tocaban a *vísperas* con la ayuda de un palo con la grande, a base de toques rápidos durante un rato.

Víspera de fiesta: bespera se tocaban a las 3 h. de la tarde. Se dejó de tocar hacia 1945.

Queda: Dice el Diccionario: *hora de la noche, en que, a toque de camapana, se retiraban a casa los vecinos. También se llama queda a la campana usada para este fin.* En Aia se llamaba a este toque *kera* que se daba a la 9 h. de la noche de Santa Cruz a Santa Cruz (de 3 de mayo al 14 de septiembre) y a las 8 h. el resto del año. A partir de ese toque ya no se golpeaba la campana por ningún motivo salvo el incendio. Consistía en 9 golpes pausados con la grande fija.

Meza: A las 7 1/2 h. se daban 33 golpes con la chiquita fija al empezar la misa.

Meza-nagusia: Para avisar el comienzo de la misa mayor a las 11 se golpeaba con la ayuda del palo la campana fija grande durante un rato (como 3 minutos).

Jueves Santo: Al comienzo del Gloria se volteaba la grande durante un rato (unos 3 minutos). A partir de ese momento solamente tocaban las campanas del reloj.

Viernes Santo: Kristo-agonia es uno de los pocos lugares en el que hemos recogido el toque de campanas el Viernes Santo. Con la grande fija se tocaba durante la función religiosa de la siguiente forma: 3 toques pausados, tristes + un minuto de silencio + y así durante media hora.

Sábado de Resurrección: A las 10 de la mañana al tiempo del Gloria de la misa se volteaba la mayor de las de vuelta durante un rato (como de 3 minutos). Su *aita* [*sakristaua izan zena, bere aurretik kanpai-jole*] daba él sólo vueltas a las dos camapanas de vuelta, pero Pepita solamente podía hacerlo con una.

Procesiones: Tocaban la *prosesio-kanpaia* esto es, con las 2 campanas de volteo el *aita*, y ella solamente con la mayor.

Errekanpaia: Cuando le avisan que hay fuego se toca con las dos fijas: 3 golpes rápidos a la grande, 3 rápidos a la menor, y así sucesivamente hasta que le dicen que se apagó el fuego, o que ya no hay nada que hacer, que no tiene solución.

Agonia: Cuando le daban la noticia del fallecimiento de algún vecino se tocaba la campana grande-fija 5 golpes pausados (golpe + silencio de unos segundos + golpe + silencio + ...).

Cuando era niño el fallecido, con ayuda del palo tocaba la pequeña de forma seguida unos 2 minutos. Se llama *angeru-kanpaia*.

Entierruko-kanpaia: Era el aviso de que al día siguiente había funeral y entierro, que generalmente se hacía a las 9 de la mañana. Se tocaba a las 3 h. de la tarde 12 golpes: con ayuda de las dos fijas unidas daba un golpe a la vez a ambas y luego 10 golpes con cada una de ellas: si era hombre empezaba con la grande, si mujer con la pequeña y terminaba con un golpe de ambas campanas juntas. Si llamamos G a la grande y P a la pequeñas (ambas fijas), el esquema sonoro decía:

· HOMBRE: PG + G + P + G + P + G + P + G + P + G + P + PG

· MUJER: PG + P + G + P + G + P + G + P + G + P + G + PG

Había que estar muy atento, pues tras el primero que es de aviso, y el segundo golpe es el que marca si era hombre o mujer el finado.

Il-kanpaia: En el momento de la conducción y el entierro, antes y después del funeral, se tocaban igual que en la *agonia*.

Trumoi-kanpana: Desde el 3 de mayo al 14 de septiembre al oír tronar se tocaban las campanas, con las dos fijas juntas, con las cuerdas de los badajos atadas: 6 golpes seguidos + 10 segundos de silencio + 6 golpes + silencio + 6 golpes. En total 18 golpes.

Festividad de Todos los Santos y Día de los Difuntos: A las 6 1/4 h. de la mañana tocaba igual que el toque de *agonia*" (Aguirre Sorondo 2013, 43-45).

ocasiones en que se han de Juntar los Vecinos de las Barriadas apartadas y distantes del Pueblo⁹⁵⁹

Aipatu berri zaizkigun arrisku egoeren abisurako (“su eskila”) kanpai-joteez gain, ondasunen babeserako ere baziren kanpai-joteak (ekaitzaren aurkakoak, edo larreen, uzten eta animalien babeserakoak). Babeserako kanpai-joteak erlijiotasun herrikoiaren parte ziren, eta batez ere nekazal-eremuetan fede handia izan ohi zuten beraiengan. Kanpai-jotea hodeietan eta tximistetan gorderiko jeinu (lekuen arabera Odei, Aidegaxto, Mari, etab.) edo deabruen aurkako borroka lez hautematen zen, hauei konjurua egiteko modu lez (Aguirre Sorondo 1988, 132). Aguirre Sorondo berak beste lan batean azaldu zigunez, kanpaien ekaitzaren aurkako efektua indartsutzat hartzen zen: "Hay que explicar que en la Edad Media se creía que el sonido de las campanas *cortaba* el aire, lo que provocaba la destrucción de la nube que amenazaba pedrisco sobre las cosechas. Por otra parte, al estar situada la campana en un templo, estar bendecida y por tener una inscripción religiosa, se pensaba que sus efectos eran muy efectivos" (Aguirre Sorondo 2013, 66).

Honekiko, 1724an Agustín Ignacio de Aguirrek gazteleraz idatzia eta 1760. hamarkadan Agustín Kardaberazek euskarara itzulia, zenbait urtetan zehar Azkoitiako (Gipuzkoa) Santa Kruz ermitan serora izan zen Josefa Larramendiren (XVII. m. - 1721) bizitzaren kontakizunean honako pasarte esanguratsua ageri zaigu:

Arratsalde batean turmoizko ekaitz izugarri bat asi, eta bere ermitako kanpana jotzera Josefa igo, eta oi dan bezela, asi zan, lurreko frutuak Jainkoak gorde zituan: orduan Zentoi izugarri edo infernuko mamuak aga andiaz armaturik sartu ziran, eta gora ta bera aserre andiaz zebiltzala, argiro ikusi zituen. Lenengoan zerbait izutu zan: baña Gurutze Santuaren konfianzan, kanpana jotzen nola beti sendo jardun baitzan, andik puska batera guziak ondatu, eta ekaitza desegin zan (Kardaberaz 1974 -176?-, 38)⁹⁶⁰

Pasarte honek Debagoieneko hainbat ermitetan bezalaxe, hainbat parrokiatan ere ekaitzak bizi izateko moduaren isla dakargu. Beste kasu batzuetan, kanpai joteari esleitzen zitzaion deabruak eta jenio gaizkileak uxatzeko boterea, apezek egindako konjuruek eurenganaten zuten. 1687an, honela deskribatu zen ekaitzak uxatzeko Bergaran izaten zen jarraibidea:

Esta la Hermita de Sn. Miguel en un puesto eminente, que descubre mucha persona deste pais, y en la campana della se da la seña quando ai nubladas peligrosas para q. Se toquen las campanas de las parroquias, y los sacerdotes acudan al conjuro, y por esta raçon la sogá de la campana de la dha. Hermita esta todo el verano tirada de la torre della a la cassa donde haitan los que de su aseó cuidan... (Sorondo 1982-83, 197-198)

San Migel ermitaren kokapen berezia ezin hobea zen tokatzen zitzaion eginkizunerako, eta aspalditik ohartua izan zen kokapen horren abantaila; ermita hau aurretik monasterio izan zirenetakoa dugu, jada 1050ean aipatua izan zena. Hain garai urrunetara joan ote gintezke kanpaien boterearen inguruko sineskera honi jarraika? Ez dakigu noski, baina hala izatekotan milurteko luze batean biziraundako sineskera litzateke, ondorengo aipua kokatzen den XIX. mendearen lehen erdialdean ere, baserritarrek apez konjuratzaileagan baino kanpai-jotearengan zeukaten fedea handiagoa zen-eta:

⁹⁵⁹ KKA-ACC 6/562/85, f.g.

⁹⁶⁰ Gaztelerazko jatorrizko bertsioko pasartearen kokapena: Aguirre 1724, 101. Euskarazko bertsioko "Zentoi izugarri edo infernuko mamuak" bezala aipatu zirenak, gaztelerazko jatorrizkoan "Gigantes"-ak ziren.

Tal es la fe de los sencillos caseros de esta Villa y sus inmediaciones, que en el sonido y toque de la campana confían aún más que en los mismos exorcismos sin que se les pueda sacar de esta preocupación y tienen aún más franqueza para dar de sus frutos al que lo toca, que al mismo sacerdote encargado del Conjuro y bendiciones. Los más o cuasi todos los vecinos de los caseríos contribuyen al campanero con dos cuartillos de trigo siendo así que al Conjurador sacerdote no le dan mas que una y esta de mala gana (*loc.cit.*)

Kasu honetan, jada XIX. mendean, kanpaia gizonezko batek jotzen bazuen ere, Aro Berrian zehar serorek izana zuten langintza beraren kargu; esate baterako, aurreko aipua kokatzen zen garaian, 1688an, Mariana de Aldai eta Maria de Larrea serorak bizi ziren bertan⁹⁶¹. Kanpai-joteen funtzio babesle honi herritarren aldetik esleitzen zitzaion garrantzia izendapen batek ere berretsi digu; 1763an Oñatiko San Antonio Abad edo San Anton ermitarako ermitau eta seroratzat Antonio de Ugarte eta Mari Ana de Mintegia senar-emazteak aukeratu zituztenean, beraien betebeharren artean honakoa aipatu zen: “Que siempre, que corre aire tempestuoso ô haia nubada tengan la obligacion de tocar la Campana de dicha Ermita”⁹⁶². Halaber, Antzuolan 1767an ermiten inguruan jaso izan ziren berri batzuen arabera, Antiguako Amaren ermitako bi serorek egiten zuten limosna eskaeran urtero herrian jasotako “diez quartos”-ak eta baserrietan jasotako bi anega gari, bost laurden arto eta sei errearen balorezko lioak, “por tocar la campana a nublado” ematen zizkieten (Murugarren 1975, 70-71). Berastegin (Gipuzkoa) ostera, 1738an serorak jaso behar zituen emolumentuen inguruan honek parrokiako kabildoarekin egin zuen hitzarmen batean, ez zen ekaitzen aurkako kanpai-joterik aipatu, partikularren heriotz-erritueta jo ohi zituenak baizik:

les hayan de asistir y acudir con los cuartillos acostumbrados por tañer campanas a difuntos cuando la celebración de las misas de memorias y aniversarios que están fundados en la dicha iglesia parroquial como de las que en adelante se instituyeren y fundaren en ella por personas particulares de esta Villa (Garmendia Larrañaga 2008-2007-, 430)

Beste behin, aldaera ugariak zeuzkan eginkizun bati buruz dihardugu. Alor erlijiosoan nahiz sekularrean ardatzezkoak ziren iragate-errituak ere, hau da, jaiotzeak, ezkontzak eta heriotzak ere, kanpai-jote bidez jakinarazten ziren. Eman nuen alderdi hauen berri beste ikerlan batean ere:

Bereziki azken funtzio honek [*heriotzaren abisuak*] izango duen garrantzia nabaria da; heriotzaren espazioari asoziatutako beste ohitura batzuekin gertatzen den lez (hileta, jarlekuak, etab.), bertan sexu eta klase ezberdintasunak adierazteko bideak garatzen dira, beti ere, lekuan lekuko ohituren arabera. Klase bereizketa, dena den, ez zen antza hain ohikoa, eta funtsean agonia edo heriotza egoera eta sexua bereizten ziren. Oñatin, kasurako, emakumeen agonia bost kolperekin adierazten zen, eta gizonezkoena berriz zazpirekin. Elgetan ere kolpe kopuru bera jotzen zen, auzotarren baten heriotza adieraztean, hildakoaren sexua bereizteko (Larrañaga Arregi 2010a, 50)

Testuinguru hauetan ere, biztanleria informatzeko funtzioaz gain, kanpaiek babeserako funtzioa ere izan ohi zuten. Funtzio honen berri ematen digu Oñatiko Olabarrieta auzoan gordetzen zen ohitura batek. Bertan kanpaien soinuek hildakoa hildakoa guztian zehar babesten zuten. Gorpua Olapatora heldu arte Olabarrietako kanpaia jotzen zen etengabe, eta jarraian, bakoitzak bere espazioan erreleboa hartuz, San Lorentzoko ermitako kanpaia, Bidaurretako komentukoa, San Martin ermitakoa eta azkenik, Santa Ana komentukoa jotzen ziren. Doluaren ibilbidearen jakinarazpen publikoa egiteaz gain, kanpaien soinuek hildakoa hildakoa guztian zehar “lagundu” egiten

⁹⁶¹ BUA 01 L/113, 2v.

⁹⁶² GPAH-AHPG 1/3413, 72r.

zuten (Madariaga Orbea 1998, 200-201). Iparraldera iraganez berriz, berdin-berdinak ez izanagatik, badugu antzerako ohituren berri ere. Auzotarren artean hildakoaren etxearen kokapena elizarekiko ze distantzian zegoen jakinarazteaz gain (kasu honetan gorpua elizara eraman aurretik, lehen-auzoak gurutzearen bila zioazenean), hemen ere kanpai-joteek "lagundu" egiten zuten heriotzaren orduan, baina jada hildakoan baino, agoniaren momentuan, beste mundurako igaropenean "laguntzeko", besteren artean:

Lorsque le premier voisin (kurutzeketari) ou les deux premiers en Labourd (kurutze-xirio), venaient lui chercher la croix paroissiale pour la porter dans la chambre de leur mort, elle sonnait le glas "tout le temps que l'homme, tête nue, était en chemin". On savait ainsi, d'après la durée de la sonnerie, si le mort habitait près ou loin de l'église. Mais il y a plus que cela. En sonnait elle pouvait prier pour le mort (Maria saindua otoiz egizu hin hunentzat; Ascain) ou faire brûler à ses côtés son ezko (Larceveau). Comme si le son des cloches emportait et transmettait ses intentions, en même temps que la simple annonce. Ce point mérite de retenir l'attention car dans bien des endroits andere-serora sonnait pour l'agonie, la sonnerie était entendue du mourant et "l'aidait à passer" dans l'autre monde. Entre le moment de la mort et celui des obsèques, classiquement, elle accompagne chaque angélus du glas. Le jour des obsèques elle enveloppe cortège et campagne du son du glas (Duvert 1991, 13)

Euskal Herriko beste leku batzuetan baino nabariago, Iparraldean kanpai jotea seroren eginkizun propiotzat hautematen zela dirudi. Izan ere, bertako parrokien banaketa espazialak berak ere agerian uzten duen eginkizuna baitugu; Duvertek Arberatze-Zilhekoan (Nafarroa Beherea) jaso zuen distribuzioak behintzat hala diosku: serorek, zegozkien funtzioen adierazle, beraien jarlekua kanpaiaren sokaren lekuan izan ohi zuten, bataiarriaren ondoan (Duvert 1989, 407-409).

Bukatzeko, kanpaiei buruz aipatu izan ditugun sineskerak, kanpai orori asoziatuiko sineskeren testuinguru orokorrangoan hauteman beharrean gaudela esan beharrean gaude. Babeserako kanpai-joteez bestalde, izan ere, kanpaien babesabereen kanpai eta zintzarrietara ere hedatzen zen, eta halaber, kanpaien hedapena izan zen, legenda eta mito herrikoi askoren arabera, zenbait lekutan laminak, bestetan sorginak, edo paganismoari loturiko bestelako jeinuak desagerrarazteko modua⁹⁶³. Era berean, medikuntza herrikoian ere presente zeuden kanpaiak, kanpai-jote bereziekin sendakuntza errituak egiten baitziren. Baina baziren kanpaien soinua bereziak ere (erresonantziak, esaterako), aieru txarren iturri izan zitezkeenak. Edozein kasutan, kanpaien soinua otoitzaren botere babesle eta garbitzaileari lotzen zitzaion, eta ondorioz, deabruari eta gaixotasunari asoziatuiko elementu kaltegarriak uxatzeko boterea esleitzen zitzaion. Hein horretan, esanguratsuak dira hainbat kanpaitan idatzi izan ziren lemak, otoitzak eta esaldiak; horrela, kanpaia jotzen zenero, idatzirikoaren boterea berretsi nahi izaten zen⁹⁶⁴.

VI. 1.7. Limosnen eskaera (eta administrazioa)

Aurreko atal batean zabal asko ikusi dugunez, seroren eta ermitauren limosna eskaerarako debeku eta mugapenak ohikoak izan ziren batez ere XVII. mende hasieratik XVIII.era. Ez gara beraz hemen han azaldukoak errepikatzen hasiko, eta debeku eta neurriez bestelako alderdiei erreparatzera pasako gara. Serorak aipagai izan dituzten lanetan jaso izan dira jada aktibitate hauen inguruko hainbat berri. Adibidez, XVII. mendean, Narbaxako (Araba) Santa Marina ermitan serora zen Maria de Luzuriagak

⁹⁶³ Besteren artean, eta autore aski ezagun baten erreferentzia jasotzearen, ikus Barandiaran 2003 -1984-, 116-117 ("Ocaso de las lamias" azpiatala).

⁹⁶⁴ Sineskera guzti hauei buruz, ikus Aguirre Sorondo 1988 eta 1995b, eta Enríquez Fernández 2006.

limosna eskaera bere oinarrizko etekinen iturritzat aipatu zuen bere testamentuan, ermitetako seroren artean ohizkoa zen lez, etekinen beste jatorri bakartzat aipatu zuen bere jabegoko -eta ermitari dohaintzan eman zion- lursail batekin batera; honela zioen: "he bibido por este siglo de provecho de limosna o de mys propios bienes" (Arza Alday 2006, 43). Aguirre Sorondok ermitetako seroren diru eta ondasun iturrien artean limosna eskaera lehen-lehenik aipatu zuen, orain arte aipatu ez dugun eta limosna eskaeraren debekuari oso lotua izan zen beste alderdi batekin batera: santu, santa eta amabirjinen babes-kultuei loturiko objetuen salmenta. Honela zioen: "vendía estampas, cintas, medallas del santo o santa de su advocación [...] Esta *serora* vivía de las limosnas de los devotos, de lo que recaudaba con la venta de escapularios y de los beneficios de las postulaciones por los pueblos de la zona" (Aguirre Sorondo 1995a, 110).

Neurriak hartzeari ekin zitzaion XVII. mende hasieraz -eta batzuetan are XVI.enaren bukaeraz- geroztik, seroren eta ermitauen limosna eskaerarako baimena ematea, gehienetan honako bi egoeretan baino ez zen izan ohi: txiroak, gaixoak eta umezurtzak artatzen zituzten ospitale eta ospizioen beharrak asetzeko, eta obrak egin beharra behar bezala argudiatzen zuten ermiten kasuan, obra horiek egiteko dirua bildu ahal izan zedin. Eta batzuetan, orduan ere ez. Lesakako (Nafarroa Garaia) Magdalenaren ospitalean 1608an seroratzat sartu zen María Miguel de Arzuk, esaterako, ezin zezakeen bere kabuzko eskaerarik egin, baizik "sólo podía contar con alguna limosna que las gentes le daban voluntariamente". Eta oster, 1609an, Bikario Orokorra onberago agertu zen alboan ospitalea ere bazuen Larrasoañako (Nafarroa Garaia) San Blas ermitako Catalina de Sumbilla serorarekin, eta "porque no tiene la dicha ermita hacienda propia con que sustentarse, las beatas que viven en ella y particularmente la susodicha, que por ser de edad e impedida, no puede ganar de comer, si no es que las buenas gentes le favorecen con sus buenas limosnas", ordurarte bezala ermitan libreki gelditzea baimendu zion, eta areago, lau legoaren barnean limosna eskatzeko baimena ere eman zion (Goñi Gaztambide 1965, 87-88).

Mesfidantzak eta duda-mudak nabari litezke, halaber, Arrasaten, Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioaren kasuan. 1734an, bertako serora zen Antonia de Zuazuak, lehenik, apezpikutzara eskatu zuen limosnak eskatzeko baimena. Apezpikutzatik, Gesalibarreko parrokiako apezak limosnak nola eta nondik eskatzen zituenaren inguruko informe bat egin eta bidali zezala erantzun zuten. Apezak erantzuna bidali zuen, baina informazio handirik eman gabe: serorak "ha tenido siempre licencia de los Señores Provisores para recoger limosna en lo pueblos de ocho leguas al contorno para el fin de hospedar a los pobres y peregrinos", zioen. Serorak eskakizuna berretsi zuen, eta apezpikutzatik Arrasateko Bikarriotzara erantzun zuten, Gesalibarreko apezarengandik limosna bilketaren eta elizaren zerbitzuaren inguruko informazio xedatuagoa jasotzeko esanaz. Informazioa bildurik, limosnak eskatzeko baimena berretsi zen; honakoa izan zen Agustín de Antepara bikarioak bere informean limosna eskaerarekiko azaldu zuena:

para la limosna, que se á recogido, no ha intervenido otra persona alguna, sino es ella por si, ó valiendose de alguna muger, y dicha limosna se suele recoger en los lugares circunvezinos en distancia de tres, ó quatro leguas, como es en Aramayona, Villareal de Alaba, Elguea, Marieta, y en otros lugares de dicha Provincia; en la anteyglesia de Arrazola Señorío de Vizcaya confinante á esta Villa, y en la de Bergara, y la limosna, que se recoge, no pasa de ciento y sesenta reales; y no avra ningun ecclesiastico ni secular, que quiera encargarse de la postulacion, ni del seruicio de la Yglesia, y ella solo aiute [*sic*] y cuida de ella, sin que otro ninguno le aiude, y para la leña, que se gasta, necesita la mitad de la limosna, que se recoge, y sirue la dicha

Antonia en dicha Yglesia, y hospital en estos quarenta años, aviendo procurado dar gusto al Cura, y parroquianos por el cuidado, que ha puesto en cumplir con su obligacion⁹⁶⁵

Ziur ez badakigu ere, lizentzia eman izango zitzaiela dirudi, 1734ko kasu honetan bezala, 1755ean parrokia eta ospizio beretik Francisco de Guridi sakristauak eta “sorora, y hospedera del Hospicio de ella” eta sakristauaren emazte zen Lucia de Arrik, zuela lau urte eman izan zitzairen limosna eskaerarako apezpikutzako “Especial titulo”-aren berriztapena eskatu zutela baitakigu. 1734an bezala, Arrasateko bikarioaren informe bat eskatu zen apezpikutzatik, eta honek onespenezko informe bat bidali zuen. Hemen ere ez daukagu azken erantzunaren berri, baina orduan zela lau urte lizentzia eman zitzaiela aintzat harturik, emango zitzaiela pentsa liteke⁹⁶⁶.

Beste kasu batzuetan, diogunez, limosna eskaerarako baimenak obrak egiteko beharragatik ematen ziren. Labianoko (Nafarroa Garaia) San Pablo ermitako seroren kasuan, esaterako, ermitaren mantenurako obren beharrak egoera erabat aldatu zuen. Printzipioz, -1584an Juan de Undiano ermitauak ekindako erreformaren arabera- serora berririk onartzea debekatu zitzaenez gero, ermita honetako serorak laster desagertzekoak ziren, eta halaber, limosna eskaera ere debekatua zitzairen. Baina hara non agindu hauek eman ostean, 1614an, bi serora berri sartu ziren kargura, Bikario Orokorraren lizentzia eta titulu eta guzti; eta gainera, ermita, zeukan debozio handia zela eta "muy necesitada de reparaciones y ornamentos" zegoenez gero, behar hauek asetzeko apezpikutzak guztian eskatzeko baimena jaso zuten (Goñi Gaztambide 1965, 87-88). Euskal Herriko lurralde historiko ezberdinetan ageri zaigunez, aginduriko neurriak, are aginduak eman zituzten haiek ere ez betetzea, edo batean debekua eta bestean baimena ematea, ez zen batere arraroa.

Badira obretarako limosna eskaeren beste hainbat kasu ere; Antzuolan, 1619an Santa Katalina ermitan egin ziren kontuetan 27 erreale eta marabedi bat eman ziren diru-sarreraren artean, “que se coxieran en la manda que se hizo en 30 de junio de 1617 para el rreparo de la casilla de las freyras de la dicha hermita”⁹⁶⁷. Oñatin, 1616an Santa Luzia ermitako seroretxean obrak egin beharrean zeudenean, Oñatik bikarioari eskatu zitzaion obretarako limosna eskaerarako baimena. 1606an eta 1612an ere eskatu izan ziren beste zenbait obra egiteko limosna eskaerarako baimenak (“por quanto la dicha hermita esta en el tejado peligroso”, etab.), eta ontzat emanak izan ziren. 1616an ere baimena eman zuen beraz, “por quanto la dicha hermita esta enpenado por los officios que se an hecho en la casa de las seroras de la dicha hermita”⁹⁶⁸. 1645eko limosna eskaera mugatzeko -eta ermitau eta serorei "zegozkien lekuez kanpo" eskatzea debekatzeko- Errege Agindutik urte gutxitara, 1649an, ermitetako obretarako egindako limosna eskaeren beste adibide bat daukagu, Bergaran, Murinondoko Andre Maria edo San Blas ermitan. Urte hartan seroretxea suak hartu zuen, eta goitik behera erre zen. Berreraikitzearen kontuak gainontzeko kontuez aparte eman nahi izan zituzten, “por quanto se hizo la dicha casilla con la limosna que dieron los fieles Xtianos”. Bereziki, Santa Marina eta Elosuako San Andres parrokiako eliztarren diruekin berreraiki zen seroretxea, eta diru-sarreraren artean, honako partida ere eman zen: “Mas se açen cargo de çiento y quatro rreales que se coxieron de limosna en la Villa por menor que no se hiço memorial”⁹⁶⁹. Azkenik, Iparraldean ere aurkitu ditugu tankerako kasuak; 1785ean, Hiriburuko (Lapurdi) parrokiako serorari Baionara limosna eske joatea ez soilik

⁹⁶⁵ KKA-ACC 6/561/34, f.g.

⁹⁶⁶ KKA-ACC 17/755/80, f.g.

⁹⁶⁷ DEAH-AHDSS 1262/002-01, 2v.

⁹⁶⁸ DEAH-AHDSS 3685/002-01, f.g.

⁹⁶⁹ BUA 04 CD/001, 151 fot.

baimendu, baizik agindu egin zitzaion (itxuraz, udal agintarien aldetik), parrokiak zenbait obra egiteko zeukan beharra handia zela eta (Desport 1991, 72).

Noski, postulazioan beharrean tenpluan bertan jasotzen ziren limosnak ere garrantzitsuak ziren. Eta jasotakoan administrazioa serorek euren esku izatea ere ez zen batere arraroa, batez ere XVI. mendean. Bergarako San Millan ermitan daukagu egoera hau azaltzen digun adibide garbi bat. 1562an, Joan Abbad de Ganchaegui apezak ermita bisitatu zuenean Martin Perez de Lamariano maiordomoa ere presente zen bertan, baina kontuen berri Arizpeko serorak ("la beata de Arizpe") eman zuen. Maiordomoak berak azaldu zuenaren arabera, "hera a su cargo de ella el darlos" (kontuak). Eta serorak eman zituen partiden artean, honakoak zeuden: "Yten mas de doze rreales que hauia rreçiuído de la limosna que auia auido en la dicha hermita [...] Yten de quatro ducados e quatro rreales e medio que los bienechores dieron de limosna para rrenobar e dorar el rretablo de la dicha hermita"⁹⁷⁰. Garbia zen, esaterako, Begoñako (Bizkaia) serorak limosnen administrazio ekonomikoaren alorrean zeukan eskumena ere, data zehatzik ematen ez bazaigu ere, apezpikuak esku hartzea eragin zuela dakiguna: "Un obispo, noticioso de que la freila de Begoña recibía gran cantidad de limosna y la gastaba como le parecía con su persona, parientes, criados y amigas, mandó llevarse un libro donde anotase los gastos, rindiendo cuentas anuales al mayordomo" (Areitio 1959, 179). Izendapenek ere aktibitate hauek ermitetako seroren ohizko lanen artean zeudela agertzen digute, seroraren betebeharren artean aipatzen baitute. 1644an Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Anton edo San Antonio Abad ermitako seroratzat Inesa de Celaya izendatu zutenean, argiteria "de lo que se coxiere de limosna y le entregare el dicho mayordomo" mantendu behar zuela "cosas de su ocupazion" zirenen artean aipatu zuten⁹⁷¹. "Limosna" izenpean, bestalde, dohaintzak (bizi-arteak nahiz testamentuetakoak) ere jasotzen ziren. Horrela, Antzuolan, Uzarraga auzoko Santa Engrazia ermitan 1586an egin ziren kontuetan ondorengo partida eman zen:

mas se le haze cargo de setenta y quatro reales de la limosna de desde la ultima uisita asta oy dia de la fecha y en ello entran los dos ducados que dio Martin de Olacabal para el cumplimiento de la manda que hizo su hermana la freyra y los ueinte y siete reales que dieron pa el misal de limosna en que por todo son los dichos setenta y quatro reales⁹⁷²

Gorago aipatu ditugun obretarako edo ospitale eta ospizioetarako limosna eskaera "baimenduez" haratago, XVII. mendeko zenbait kasutan, limosna eskaeraren kontrol gabezia eta gaiak sortzen zuen mesfidantza ageri zaizkigu. 1606an agindu bat eman zen Oñatin Pedro Manso apezpikuaren eskutik; Bergarako bikario eta bertako San Pedro parrokiako benefiziodun zen Arteaga lizentziatuari komisia eman zitzaion,

para que tome y rreçiuia por presençia de notario o scriuano las quantas del auer y limosnas de la hermitas y Jurisdiccion de la dicha Villa y su distrito que constare no estar rreçiuídas por nos llamado y haziendo conpareçer ante si à los mayordomos y personas a cuyo cargo es el dar de ellas⁹⁷³

Oñatin jarraituz, 1628an Araotzeko San Migel parrokian bisitatzailleak eman zituen aginduen arteko bat parrokiari atxikiriko ermitetako ondasunen eta diruen kontuak emanaraztearena izan zen, eta kontu hauek "a los que tienen las llaues y atabaques de las hermitas" eskatu behar zitzaizkiela aipatu zenez, limosna eskaera eta administrazioa ere beraien –kontrol gabeko– aktibitateen artean zegoela iradokitzen

⁹⁷⁰ BUA MIK / SM0 77-133, 88 fot.

⁹⁷¹ GPAH-AHPG 1/0876, 124v.

⁹⁷² DEAH-AHDSS 1261/009-01, 12v.

⁹⁷³ BUA MIK / SM0 77-133, 102 fot.

zaigu. Parrokia berean, 1645eko Errege Agindua jada emana zenean, 1663an, bisitatzailleak zehazki limosna eskaerari zegokion beste agindu bat ere eman zuten:

Otrosi por quanto su merced a sido ynformado que en la jurisdiccion de el dicho lugar ay algunass hermitas y que en su nonbre se rrecogen algunas limosnas y no se saue como se gastan = Por tanto daua y dio comission al cura de la dicha Yglessia con facultad de ligar y absoluer para que conpela por todo rrigor de zensuras a los mayordomos de dichas hermitas o personas a cuyo cargo esta el rrecoger la limosna de dichas hermitas acueden las cuentas de su distribuccion y se den las cuentas de ello en la primera vissita⁹⁷⁴

Leintz Gatzagan ere, Dorletako Andre Mariaren santutegiko seroren artean hainbat liskar izan ziren 1663an bertan. Aurreko atal batean ikusi ahal izan dugunez, liskarren sua piztu zuen txinparta Maria de Gamarra serorak 15 egunetan Gipuzkoan zehar egin zuen limosa eskaera, eta honi, izan zituen etekinen kontrolaren inguruan Catalina de Zumarraga serora sartu berriak egin zion galdera “desegoki” xamar bat izan ziren. Maria Lopez de Elexalde lekukoak honela azaldu zuen gertaturikoa, Catalina de Zumarragak esandakoen arabera:

Solo no mas que le dixo que abia rrecoxido por guipuzcoa Buena limosna y que se olgaba y porque tambien le dixo a la dicha Maria de Gamarra Donde enpleaba o quien daba quenta de las limosna que en nombre de la dicha Santa Casa rrecoxia – por cuya rrazon sin mas Causas que le abia dicho le rrespondio que quien se metia en ello y que callase y que le quiso arañar⁹⁷⁵

Ikusi dugu, bestalde, santutegi honi eskaini diogun kapituluan, nola 1691ko bisitatzaillearen aginduak seroren ondorengo ibilbideetan erabakiorrak izan ziren; eta oso esanguratsuak ditugu eman ziren aginduen ardatzak, nolabaitean, elkarren konplementariotzat hautematen zirenak: limosna eskaeraren debekua, eta arautegi baten idazketa, komunitatea azkenean klausurako bizitzako mojen komentu bihurtzera bideratua⁹⁷⁶.

1769an ermiten itxiera eta seroren desagerraraztea agindu zirenerako, seroren eta ermitauren -eta bestelako postulatzaileen- limosna eskaerak hainbat mugapen eta debeku jasoak zituen, eta hurrengo urtean Bergarako bikarioak bere bikariotzako egoeraren azalpenak eman zituenean, ez zuen ermitetan gelditzen ziren biztanle gutxien aktibitateen artean limosna eskaerarik aipatu. Alabaina, Bergarako bikarioak ezer aipatu ez bazuen ere, Antzuola, Uzarraga eta Elosuari eskaini zion lan monografikoan Luis Murugarrenek kontsultatu ahal izan zituen –eta zoritxarrez guk esku artean izan ez ditugun– ermitetako egoerari buruzko 1767ko azalpen batzuetan (ez dakigu informereren bat edo batzuk ote ziren), limosna eskaera Antzuolako ermitetan oso ohikoa zela ikusten dugu. Antiguako Amaren ermitan salbu, jada ez zegoen serorarik beste ermitetan (egoera hau Bergarako bikarioak ere aipatu zuen 1770eko informean); honela azaldu ziren Antiguako Amaren ermitako limosna eskaera eta honen erabilera:

Su Mayordomo es Gabriel de Yraeta, vecino de esta villa, que de caridad y de limosna en la dicha parroquia... todos los días festivos, y en la ermita los de la Asunción y pasqua de resurrección, y recoge en todo asta la cantidad de cinquenta reales, del que los emplea en pagar dos misas a razón de seis reales cada una los dichos días de Asunción y resurrección, y lo restante en reparos de la ermita.

Ai dos santeras que piden limosna en la poblacion... todos los sábados del año, víspera de las festividades de Ntra. Sra., San Antonio Abad y Angel de la Guarda, y

⁹⁷⁴ DEAH-AHDSS 1309/004-01, 16v-17r eta 100r (akatsez, berez 90. folioa da).

⁹⁷⁵ LGUA 324.7, 2v.

⁹⁷⁶ IV. 4.2. azpiatala, 365 eta hurr. or., gorabehera hauek zehazki 379 eta hurr. or.

confiesan que en cada día de éstos recogen la cantidad de diez quartos, a más en los caseríos dos fanegas y media de trigo, cinco quartas de maíz, seis reales de lino cada año, que las dan por tocar la campana a nublado; y emplean todo en comprar velas para Misas, aceite para lámpara y aseo de la ermita (Murugarren 1975, 70-71)

Ermitako kontu-liburuan bertan ere badira seroren limosna eskaeraren diru-sarrereren partidak, 1765-1766, 1773-1778, 1783-1785, 1786-1791, eta 1805-1818 urte-bitarteei dagozkien kontuetan. Bertan, gainera, limosnaren etekinak 1767ko azalpenetan aipatu ziren xedeetara bideratzen zirela ere ageri zaigu; limosnen diruekin ordainduriko honako gastuak aipatu izan ziren: “una bidriera cerraxa que a puesto a la Birgen de la Guia que esta sobre la portalada del cimiterio de Nuestra Señora de la Antigua”, “haber surtido la dicha hermita con l[a] luminaria, y cera, que para su decencia hà necesitado”, “por dos oficiales y vn peon ocupados en vn dia en retejar la casita de la enunciada hermita”, “las velas, y luminaria que se necesita en cada año pone la serora que vive en la casita de la hermita, con la limosna que ella recoge”⁹⁷⁷. Ikusten dugunez, 1769ko seroren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako aginduak eragin gutxi izan zuen Antiguako Amaren ermitan.

Egin dezagun orain bitarte bat Luis Murugarrenek Antzuolako ermitetarako bildu zituen 1767ko azalpenekin jarraitzeko, Antiguako Amaren ermitaz beste, gainontzekoetan jada serorarik ez egonagatik ere, limosna eskaeraren eta ermiten biziraupenaren artean zegoen erlazio zuzena garbi azaltzen baitzaigu. Gainera, ermitau eta serorez bestelako limosna eskatzaileak askotan ermitetako maiordomoak eurak izan ohi zirela ere argitzen digute (hauek ere Probintziako Batzar Orokorretan aski ardura sortua zuten). Postulazioaren diruak “en reparos de la dicha ermita” erabiltzen zirela, Antiguako Amaren ermitan bezalaxe, Santa Kruz, Santa Ageda, San Bartolome, Santa Engrazia (gaur egungo San Blas) eta Santa Katalina (gaur egungo San Martzial) ermiten kasuetan aipatzen zaigu; alegia, garai hartan aipaturiko espazioan zeuden guztietan. Batez ere baserrietan emandakotik, garitan, artotan eta liotan ere jasotzen ziren etekinak. Mantenerako obrez gain, Antiguako Amaren ermitaren kasuan ikusi bezala, limosnen eta beste zenbait diru-iturriren (batez ere, ermiten lursailtako produktuak) etekinek gainontzeko ermitetako argiteria eta garbiketa gastuetarako ere balio izaten zuten (Murugarren 1975, 67-85).

Limosnak gastu hauetarako erabili izanaren beste testigantza batzuk ere heldu zaizkigu Debagoieneko beste herri batzuetatik, XVIII. mendean bezalaxe XVII. ean ere hala egiten zela frogatzen digutenak. Aretxabaletan kokatzen da adibide hauetariko bat, Aozaratza elizatean, San Anton edo San Antonio Abad ermitako serora lanetarako 1644an Inesa de Celaya izendatu zuteneko dokumentuan. Bertan, serorak “segun y de la forma y con las condiciones que disponen las Constituciones de este obispado” bete behar zituen lanen zenbait azalpen jaso ziren, besteren artean, argiteriaren gastuak nola sostengatu behar zituen aipatuz: “y para su alunbraria de lo que se coxiere de limosna y le entregare el dicho mayordomo”⁹⁷⁸. Gogoan izan dezagun 1623ko bisitan Ontiberos bisitatzailleak Aozaratza parrokiako serora eta San Anton ermitakoa kanporatu izan zituela, eta Leintz-bailarako elizateetako eta ermitetako serora gehienak XVII. mendean zehar desagertuz joan zirela. Ez da harritzekoa kasu honetan bilduriko limosna serorak maiordomoaren eskutik jasotzea, seroratzat bera desagertzeko kinkan egon zitekeela aintzat harturik, konstituzioetako arauak –izendapenean esplizituki aipatu zen lez– zurrunki bete beharrean izango baitzen. Bergarara iraganez beste kasu baten berri dugu; 1688an Aritzetako San Migel ermitako serorek limosna eskaera euren eskuz egiten

⁹⁷⁷ DEAH-AHDSS 1263/001-01, 44v-f.g.

⁹⁷⁸ GPAH-AHPG 1/0876, 124r-124v.

zuten, eta ermitauak eta serorek limosnarik “fuera de sus Lugares” ez eskatzearen aginduak errespetatzen zituztela dirudi. Hemen ere, argiteria limosnekin mantentzen zen. Honakoa aipatu zuten, inbentarioa egitearekin bat, seroren betekizunen berri eman zutenean: “Y deponer Luminarias en la Lampara con la Limosna que los dias Sabado de Cada semana se recoje en la poblacion de esta Villa de Vergara”⁹⁷⁹. Eta azkenik, Bergaran bertan eta gertakizunen haria generaman XVIII. mendearen bigarren erdialdera itzuliz, 1765ean San Lorentzo ermitarako egin zen serora izendapenak ere limosna eskaeraren eta argiteriaren mantenuaren arteko loturak agertzen dizkigu:

con condizion expresa, que haia de ser obligada à recojer todas las Semanas Limosna para el Santo segun costumbre y haia de tener los àprobechamientos [...] y Casa sin que por ello pague renta alguna, sino solamente, quatro libras de Aceite para la Luminaria de el mismo Santo⁹⁸⁰

Berriro Antzuolako egoerari erreparatuz, bertako ermitetarako Luis Murugarrenek batu zituen 1767ko berriek, aipatu ditugun datuez gain, limosna eskaera ze egunetan egiteko ohitura zutenaren berri ere ematen digute. Asteroko edo bi astean behineko bilketez gain, irteera egunak ermita bakoitzak zeuzkan santu eta Amabirjinen irudien egunei zegozkiela dirudi, Murugarrenek berak ere aditzera ematen duen lez. Aurreko aipuan jaso dugun Antiguako Amaren ermitaren kasuaz gain (limosna eskaera gehien eta jasoriko kopururik handienak bertan ageri zaizkigu), Santa Kruz ermitako maiordomoak Santa Kruz, Santa Luzia eta Santa Polonia egunetan egiten zuen limosna eskaera (2 errealeko kopurua jasotzen zuen); Santa Agedakoak San Lorentzo, Santa Ageda eta San Martin egunetan (6 erreal); San Bartolomeko maiordomoak jaiegun guztietan eskatzen zuen parrokan, eta ermitan bertan, San Bartolome eta San Pedro egunetan (30 erreal), eta horrez gain, ermitaren zaintzaz arduratzen zen Domingo Azkarateren familiak hamabostean behin eskatzen zuen argiteria ornitzeko limosna kalean (erreal 1) eta baserrietan (urteko gari anega bat); eta Santa Katalinako maiordomoak Santa Katalina, San Martzial eta Santiago egunetan (18 erreal) (Murugarren 1975, 67-85).

Datu hauekin bukatzeko, azken galdera bat egin beharrea gaude. Zergatik ekidin ote zuen Bergarako bikarioak bere informetan limosna eskaera aipatzea? Izan ere, 1767an behintzat, eta kasuren batzuetan zehaztu ez bazen ere, aipatu izan zen kasuetan eskaera, kalean nahiz auzoetan izan, beti herriaren jurisdikzio barruan egin ohi zela baitirudi; itxuraz, ez zuketean zertan arazorik izan, legedi eta agindu ezberdinen mugak errespetatzen zituzten. Agian, serorak -eta ermitauak- desagerrarazi nahi zituzten testuinguru hartan, instituzio ezberdinen lizentzien falta izango zen aktibitatearen aipamena sahiestera bideratuko zuena; ez dakigu.

VI. 1.8. Gaisoen, erromesen, txiroen eta umezurtzen artapena eta sendakuntza

Serorek betetzen zituzten lanen artean bada bat oso garrantzitsua, arrazoi ezberdinegatik, nahi beste ikertu ahal ezin izan dudana. Txiroen, erromesen eta gaixoen zaintza, artapen eta sendakuntzaren ingurukoak, metodologiari eta iturriei buruzko kapituluaz azaldu dudanez, espazio eta denbora aldetiko mugapenekatik ezin izan ditut –oraingoz– nahi beste ikertu. Gai honek, gainera, seroren kategoria espezifikoko batera garamatza, aipatu izan ditugun beste izenez gain *hospitalera* izena ere jaso izan zutenengana, eta hargatik, figura honek akaso ikerketa espezifikoko bat beharko luke. Hala ere, jada bilduak izan diren hainbat datu eta aipu jasoko ditugu, zaintza, artapen eta

⁹⁷⁹ BUA 01 L/113, 2v.

⁹⁸⁰ BUA 01 L/208, 377r.

sendakuntza lan hauek izan zuten garrantziaren berri emateko, eta Debagoieneko balizko egoeraren zeharkako irudi bat, behinik behin, osatu ahal izateko.

Ezkongabeak bezalaxe ezkonduak izan zitezkeen ospitaleetako serorek buruturiko lanak sozialki eta erlijiosoki oso garrantzitsuak izan ziren, eta hein batean, serorek hildakoen esparruarekiko zeukaten loturaren beste alderdi bat ere osatzen zuten, kasu askotan, gaixotasunaren ostean, heriotza baitzetorren. Ermitetan ere askotan auzokoekiko betetzen zuten funtzio asistentzial eta sozial bat zen, beste hainbat lan bezalaxe, seroren eginkizunen artean hautematen zena, eta kasuren batean, izendapenean zehaztua ere aurkitu izan duguna⁹⁸¹. Honekiko Aguirre Sorondok Gipuzkoako ermiten inguruan egindako ikerketetatik ondorioztaturikoa bereziki esanguratsua dugu: "En total de las 552 ermitas censadas por nosotros en Gipuzkoa 55 (9'96%) tuvieron también en algún momento de su historia funciones de *hermita-hospital*" (Aguirre Sorondo 2013, 45).

Webster-ek ez zigun Erdi Aroko nahiz Aro Berriko ospitale eta bestelako artapen gunetako seroren berri zuzenik jaso, baina diakonesekiko konparazioaren baitan azken hauen funtzioak azaldu zituenean, gaixoen eta txiroen zaintza euren artean aipatu zuen (Webster 1911, 142). Goñi Gaztambidek Nafarroako zenbait ospitaleko seroren berri labur batzuek jaso zituen: 1600ean Belateko ospitalearen zaintzan zeuden hiru serora aipatu zituen, eta baita Lesakako Magdalenaren ermita eta bere ospitaleko 1608ko serora berriaren sarrera ("por servir a Dios con más sosiego y emplearse en servicio de los pobres muchos que en el hospital de la dicha ermita se recogen"), eta 1609ko Larrasoañako San Blas ermita eta bere ospitaleko seroraren limosna eskaerarako lizentziaren onarpena ere (Goñi Gaztambide 1965, 87-88). Nafarroan jarraituz, Saint-Martinek Erronkariko santutegiko serorak aipatu zituen erromesen artapen lanetan (Saint-Martin 1976, 164), eta Peñaranda Garcíaak Otxagabian, Muskildako Gure Amaren basilikako seroren berri eman zigun, zeinak, "quando ay algun enfermo suelen bissitar(lo)" (Peñaranda García 2002, 304). Gipuzkoara iraganez, Errenteriako Santa María Magdalena ermita eta bere ospitalearen 1593ko deskribapen interesgarri bat jaso zuen Aguirre Sorondok; ospitaleetako seroren bizimoduaren berri izateko oso argigarriak zaizkigun datuak ageri dira bertan:

2. Yten que la dha. casa es buena y de gran anchura y dha. ermita de la Magdalena muy buena y con mucha decencia y ornato y en una parte de la dha. casa se rijen los dhos. enfermos y en la otra tiene su vivienda una serora o freira (que como mayoral de la dha. casa) tiene de los servir y tambien la dha. ermita que lo hace con mucha voluntad y charidad. Tiene la dha. casa sus lagares en lo alto, bodega en lo baxo con algunas cubas para envasar sidra y algunas camas bastango e axuar y el demas servicio cumplido; una casa que (según la voz común) una persona había aplicado por limosna al dho. hospital con sus manzanales y algunas ovejas, dos huertas, tres y cuatro piezas pequeñas de tierra y montes. La dha. villa (que ha sido y es patrona de la dha. casa y hospital) la tiene adjudicados para el sustento de los dhos pobres cinco celemines de harina por semana en unos molinos suyos, y más anda por la iglesia un bacin los dias de fiesta para en el que se coge alguna limosna y no tiene otra renta ni bienes e todo ello se gasta en el sustento de los dhos. pobres e de la dha. serora y de un criado y una criada que tiene... (Aguirre Sorondo 2002, 216-217)

Bizimoduan aurrera egiteko ospitaleetako serorek eduki zitzaketen diru, emolumentu eta elikagaiez beste, egunerokoan bizi izatera heldu zitezkeen egoeren berri Aguraingo (Araba) ospitalean zerbitzua egiten zuen eta 1564an bere zaintza eta sendakuntza lanetan izurriak jota bukatu zuen serora baten gorabeherak ematen digute.

⁹⁸¹ Ikus, esate baterako, Oñatiko Olabarrieta auzoko San Jose ermitarako 1718ko ermitau bikotearen izendapenean zehazturikoak, VIII. 1.1. azpiatalean, 773 or.

Seroraren ondasunen kontuak jasotzeko Oñatiko kondea, Aguraingo alkatea eta apeza (ospitaleko patroiak) elkartu ziren, eta honela azaldu zituzten honen azken egunetako aktibitate eta gorabeherak:

E dixieron que por quanto a notiçia de ellos a benydo por cosa çierta y notoria que, Catalina de Luçuriaga que se trataba en vida de beata y hera costurera que bibía de mano del dicho señor alcalde como tal patrón en el dicho ospital, en una celda y cámara de él. Fallesçió los días pasados de la enfermedad de peste que corre de presente en algunos pueblos de esta comarca y en otras partes, en la hermyta de Paternyna, que es en los términos de la villa de Salbatierra y quando ella salió de esta villa para [el] monesterio de Barría a curar y regir unas dos hijas del señor alcalde, y de allí fue a visitar y curar a un cuñado suyo que se decía estar herido de peste de donde (*tachado*), en la dicha villa de Salbatierra de donde ella se salió y murió en la dicha hermita (Arza Alday 2006, 44)

Jarraian, sendakuntza lanetan jardun zuen Aguraingo beste serora baten adibidea ere badakargu Arza Aldayk: 1588an "Joan, abad de Zuazo"-ren testamentuaren albazeak Hulako Andre Mariaren ermitako serora bati 6 errealeko ordainketa egin zion, apezaren azken egunetan honen zaintzan hartu zituen lanen ordainetan (*Loc.cit.*).

Autore hauen artean ospitaleetako seroren edo "hospitalera" zirenen inguruko beste zenbait berri interesgarri, beste tankera batekoak, Aranak eskaini zizkigun⁹⁸². Lehenik eta behin, aipagai izan zuen gauza garrantzitsu bat emakume hauen egoera sozial eta erlijiosoen aniztasuna da, jaso izan zituzten izen ezberdinetan ere adierazi izan zena; "hospitalera" hutsaz gain, serorei eurei ere ematen zitzaizkien izen ezberdin guztiak: "serora", "freyla", "beata", "reclusa", "monja", "monja-serora", etab. Egoera sozial eta erlijiosoen aniztasun honen hainbat adibide eman zituen: ermitetako seroren tankerakoetatik, ordenetako mojen komunitateetarako⁹⁸³. Zentzudunki azpimarratu zuen ospitale hauetariko askoren hastapenetan egon ziren "militar eta hospitalario" ziren ordenetako mojen presentzia (lazaristak, sanjuanistak, tenplarioak, etab.), tenplu hauen eraikitze eta zabalkundeak (bereziki Magdalenaren adbokaziodunak esanguratsuenak izanik) Donejakue edo Santiagoren bidearen eraketarekin izan zezakeen lotura, eta lekuan lekuko gaixo eta txiroen artapenez gain, erromesen artapenak tenplu hauetan izan zuen garrantzia. Ez zuen baina Debagoienean ikusi ahal izan dugun beste modalitate bat aipagai izan: ospitalea alokairuan hartzen zuten "hospitalero" eta "hospitalera" erabat laikoan bikoteena; esate baterako, Oñatiko ospitalearekin 1724an egin zen bezala, zeina San Juan de Cortazar eta bere emazteari alokairuan eman zitzaien (alegia, ermitak alokairuan jarri zireneko egoera berbera, baina ospitaleetan)⁹⁸⁴. Kontua da, ospitaleetako zerbitzua euren kargu hartzen zuten emakumeen artean, emakume laiko ezkonduetatik ordenetako botuak egindako mojerarteko bitartea zabaltzen zaigula. Baina serorak ziren denak, azken finean (hitz honi euskaraz aipatu diogun erabilera

⁹⁸² Jarraian autore honengandik jasoko ditugun datuak "hospitalera" zirenei bere bi lanetan eskaini zizkien ataletatik jasoak ditugu: Arana 1992, 86-88; eta 2004, 845-847.

⁹⁸³ Gipuzkoan, Errenteriako Magdalenako "monja serora"; Araban, Aguraineko Magdalenako "las emparedadas de San Lázaro" eta ondorengo "beata"-k, eta Gasteizeko Magdalenako "lazarista"-k; Nafarroan, Mongeloseko Madalenako "donas" zirenak; Iparraldean, Sainte Madeleine de Ispoure eta Orissoneko prioratoetako "errekusak" eta Utziatiko Magdalenan "hermanas" eta "sirvienta" zirenak, etab.

⁹⁸⁴ Dokumentua zuzenean kontsultatzeko astirik ezin izan dugu hartu, sarreran aipagai izan ditugun ikerketaren mugapenegatik; alabaina, protokoloetako aurkibidean dakarren dokumentuaren deskribapenean nahiko garbi ageri zaigu bikote baten alde emandako ospitalearen alokairua dugula, Francisco Antonio de Soraluze izkribauak bestelako alokairuetarako zerabilen formula berbererarekin adierazi baitzen: "Arrendamiento para el Hospittal a fauor de San Juan de Corttazar y su muger" (GPAH-AHPG 1/4349, 187v).

zabalean, "moja"ren zentzua barne), nahiz eta Aranak hauengandik ezberdindurik agertzen dizkigun, beraien funtzio espezifikoa zela eta. Edozelan ere, Aranak, gaiari heldu zion lan haietan, esandako aniztasunaren berri eman ondoren, "las *hospitaleras*, propiamente dichas" zirenen deskripzioari ekin zion. Eta funtsean, ezaugarri eta eginbeharretan, bestelako seroren oso antzerako agertzen zizkigun, ospitaleetako lan espezifikoen ardura hartu beharrarekin izanik ere:

La *hospitalera*, como la *serora*, recibía un nombramiento civil, oficial, confirmado por las autoridades eclesiásticas y que se solía concretizar en un acto en el ayuntamiento delante del alcalde y demás autoridades y un rito de entrada o toma de posesión. [...] tenían unas obligaciones muy similares a las de las *seroras* de las parroquias y ermitas; pagaban dote de entrada, se les exigía una edad conveniente y una vida honesta, "con tal que sea honesta, casta y linpia... de buena fama..." [...] Generalmente profesaban votos privados que podían ser sólo de obediencia, de castidad, etc... aunque también podían hacer varios votos. La limpieza y el cuidado del hospital y enfermos era una recomendación obligada. Y así, se comprometían a vivir al servicio del hospital dedicándose totalmente a él, prometiendo también obediencia a la "*administradora*". Podríamos decir que entrar de *hospitalera* era tanto como tomar estado y lo hacían "para vivir y morir en la misma ermita (ospital o Iglesia). [...] Generalmente llevaban hábitos blancos o también pardos, tocados blancos, mantos o lobs especiales o al modo de alguna orden religiosa. Pero también se conocen casos en los que todos estos distintivos les estaban prohibidos, [...] (Arana 2004, 845-846)

Aranak "hospitalera"-ren irudia "serora"-renarekiko egokitu zigun, azken hauen inguruan zeukan irudiaren arabera, zeina, hein handi batean, Larramendiren irudiaren jarraipen aski fidela zen. Eta ez dezagun ahaztu Arana bera Jesusen Bihotzaren komunitate bateko moja dela; eta noski, horrek bere aurreritziak izatea eragiten du (sinestun edo erlijioso ez den batek ere bestelakoak izan ditzakeen bezala, noski). Hein horretan ospitaleetako serora hauen kastitatea eta botuak azpimarratu zituen, hainbat adibide emanaz, haragizko bekatuetan eroriaz gero zigor basatia ezartzen zuen Lekeitioko (Bizkaia) 1549ko ordenantza batena kasu: "sean acanaladas y abridas en cuerpos", beraien ondasun guztiak ospitalerako izateaz gain, noski. Baina gaude, orain arte seroren testuinguru orokorrean ikusi izan duguna ospitaleetakoei ere aplikagarri ez ote zaien, hauei atxikiriko etxeak (bertan zerbitzen zutenak bizi zirenak, alegia) alokairuan jartzeko ohiturak ermitetako seroretxeak alokairuan jartzeko ohituraren oso antzerako ibilbidea izan zuela baitirudi. Hau da, dotearekiko, kastitatearekiko, eta egoera sozial eta erlijiosoarekiko, tenpluei atxikiriko etxeak alokairuan jartzeak eragin zituen aldaketak, ospitaleetan ere, ermitetan bezalaxe bizi izan zirela (lekuan lekuko aldaeren arabera, noski). Besteren artean, Oñatirako aipatu dugun kasuak, hala pentsatzera garamatza, eta Arana berak ere badakargu beste datu bat, ermiten eta ospitaleen antzerako ibilbideetan bermatzen gaituena: 1649an, hain prezeski ermitetako serorak bikote ermitauren bidez ordezkatzearen ohitura abian zen eta -ermitetako zaintzan izana zen ohituraren aldaketarako argudiotzat erabiltzen zen- landa eremuetako ibiltari eta eskaleen gaineko kontrol soziala areagotzen ari zen garaian, Kalagorriko apezpikua bisita pertsonalki eginez Berrizko (Bizkaia) ospitaletik igaro zen, eta honako agindua eman zion ospitaleko "Sorora" zenari: "*que no recogiera a gente vagabunda ni holgazana y que a los pobres pasajeros se les dé buen hospedaje y se les tenga con toda esmeración y linpieza*". XVII. mendearen hasieratik ermiten testuinguruan gorakadan joan ziren neurri haiek, eragile eta arrisku berberen mende zeuden ospitaleetan ere antzerako soluziotarako bidea eragin zezaketen, "hospitalero" bikoteei sarrera

emanez⁹⁸⁵. Baina sakonago ikertu beharko genuke, baieztapen hau sendo sostengatu ahal izateko.

Azkenik, beste kasu esanguratsu bat Artziniegakoa (Araba) dugu, Artearen Amabirjinaren santutegikoa. Tenplu hau Amabirjinaren debozioaren gune garrantzitsua izan zen, erromesen helduera handia izan zuena. Tenpluak zeukan etxe atxikia, seroretxe izatearekin bat erromesen ostatu ere bazen, eta horrez gain bazuen beste funtzio garrantzitsu bat ere, umezurtz-etxe edo ospizioa ere baitzen. Serora nagusi bat eta zerbitzari bat edo bi izaten ziren bertako eginbeharretan, santutegiaren mantenurako seroren ohizko lanez gain, erromesak ostatuan artatuz, eta bertara heltzen ziren umezurtsak zaindu eta heziz. Aukeraketaren, baldintzen, eta bestelako alderdietan, Aranarengandik jaso dugun deskripzioan azaldukoen tankerakoa zen Artziniegako seroratzak hau; zalantzarik gabe, nahikoa lan izango zuten serora nagusiak eta bere laguntzaileek, debozio handiko santutegi honetako langintzetan eta umeen zaintzan (Iturrate 1998 -1980-, 190-198).

Edozein kasutan, azalduz joan garen aipu eta adibide hauen argitara zer bait nabaria bazaigu, ospitaleetako eta ermitetako hainbat serorak txiroen, eskaleen, gaixoen, umezurtsen edo besterik gabe, herritarren zaintzan eta sendakuntzan egindako esfortzuek edonolakoak izan behar ez zutela da; eta hau aintzat hartu beharrekoa dugu Aro Berriko (eta Erdi Aroko) serorek gizartearen baitan izan zuten garrantzia neurtzerako orduan.

VI. 2. ESPAZIO LAIKOKO LANAK ETA AKTIBITATEAK

Jada azaldua dugun bezala, hauek seroren aktibitate pertsonalak ziren, euren bizimoduari eta ondasunei lotuak zeudenak, eta inguruko gizartearengan eragin handia izatera hel bazitezkeen ere, serorei erlijiozko pertsonatzat esleitzen zitzaizkien aktibitateen esparrutik kanpo garatzen zirenak. Berez, laster ikergai izango ditugun mailegutza aktibitateek garbi azaltzen digutenez, batzuetan eragin sozial eta ekonomiko handiagoa zeukaten aktibitate hauek, tenpluari eta serora karguari asoziatuak lanek baino. Gainera, arlo pertsonal eta sekularreko aktibitateak izanik, ez zeukaten eredu jakin bati atxikitze hainbesteko presio sozialik, eta beraz, zenbait kasutan nabari agertuko zaigunez, aktibitate ezberdinetan parte hartzeko saiakerak egin zitzaizkien, beraien bizimodua garatzen zuten espazioaren ezaugarrien arabera. Hala, abeltzantza nagusi zen inguruan abereak izan ohi zituzten, komertzialki aktiboak zirenetan produkturen batzuen salerosketan jarduten ziren, etab. Baziren hala ere, noski, beraien serora egoeragatik eta honi zegokion estatusagatik eta gizartearen aldetiko begiruneagatik alde batera uzten zituzten aktibitateak ere, “serorei ez zegozkienak”. Baina moralitatearen alorreko muga horien barruan, askatasun handia zeukaten. Batez ere, kasurik gehienetan, –dotea emanda edo gabe,– behin seroratzara sarturik, beraien ondasunak erabili eta administratzeko libre zirelako, eta seroratzat gizartearen baitan zeukaten begiruneak gizonezkoen bitartekotzarik gabeko aktibitateak garatzea ahalbidetzen zirelako. Ez ziren noski, horregatik, serora guztiak sekulako pagotxa ekonomikoan bizi, baina gizartearen baitan zeukaten txertapen sozial eta ekonomiko bereziak, aukera bat ematen zien beraien kabuz bizimodua egin, diruak, ondasunak eta bestelako aberatasunak pilatu, eta beraien bidez inguratzen zituen gizartearen baitan eragin esanguratsua izatera heltzeko. Jarraian ikusiko ditugun aktibitateek garbi azaltzen digute hori.

⁹⁸⁵ Testuinguru arazotsu honekiko ikus III. 2.2. azpiatalean, 240 eta hurr. or.

VI. 2.1. Lurren ustiapena eta alokairua

Lurren ustiapena biziraupenerako funtsezko oinarria izan zen ermitetako serorentzat, eta baita hainbat parrokiatako serorentzat ere. Aguirre Sorondok serora hauen oinarrizko etekinen artean aipatu zuen ondasun hauen ustiapena: "Si la ermita tenía tierras, de su arriendo, y si dinero, de los réditos que produjese. Súmese a esto que las huertas, frutales y animales domésticos proporcionaban algunos alimentos de primera necesidad" (Aguirre Sorondo 1995a, 110). Anoetako (Gipuzkoa) San Joan ermita edo baselizak, esate baterako, 1770ean "ocho celemines de sembradía"-ko lursaila zeukan, eta bertan, "seis pies de manzanos, su huerta y otros arboles frutales" (Agirre-Mauleon 2005, 202). XVI. mendean Narbaxako (Araba) Santa Marina ermitan serora zen Maria de Luzuriagak bere oinarrizko sostengurako balio izan zuten "cinco mázzenas de tierra de pan traer" zeuzkan bere ondasunen artean, eta testamentuan ermitari eman zizkion dohaintzan, pentsa litekeenez, ondorengo seroren bizibidea bermatzeko asmoz (Arza Alday 2006, 43).

Gure ikerketa esparruaren baitan ere, batez ere ermitetako kasuetan, oso ugariak dira beraien ustiapenerako ortuen eta lursailen aipamenak; beraz, aipamen gehienak informazio aldetik hutsalak direla aintzat harturik eta ez gehiegi luzatzearen, era laburrean emango dugu aktibitate honen inguruko datuak aurkitu dizkiegun tenpluen zerrenda (data aurkitu dugun lehen aipamenarena izango da), ermita eta parrokiatako liburuak eta izendapenak oinarriztat hartuz. Ondorengo orrietan, hauen artean aipagarri iruditu zaizkigunei soilik erreparatuko diegu. Zerrenda, noski, iturrien –batez ere ermitetako liburuen– urritasunak berak murriztua dago, eta beraz, aipatu gabe gelditu zaizkigun beste hainbat ermita eta parrokiatan ere ortuak edo/eta lursailak izango zituztela pentsa liteke. Bergaran: San Millan ermita (1528)⁹⁸⁶, Santa Katalina ermita (1763)⁹⁸⁷, Aritzetako San Migel ermita (1688)⁹⁸⁸, Murinondoko Andre Maria edo San Blas ermita (1587)⁹⁸⁹, Santa Luzia ermita (1600)⁹⁹⁰, San Kristobal ermita (1747)⁹⁹¹, San Lorentzo ermita (1765)⁹⁹² eta San Juan ermita (1766)⁹⁹³; Antzuolan: Antiguako Amaren ermita (1742)⁹⁹⁴, Uzarragako Santa Engrazia ermita (1564?)⁹⁹⁵ eta Santa Katalina ermita (1644?)⁹⁹⁶; Arrasaten: San Juan Bataiatzailea parrokia (1654-1655)⁹⁹⁷, Udalako San Esteban parrokia (1500)⁹⁹⁸ eta San Andres ermita (1601)⁹⁹⁹; Aretxabaletan: Aozaratzako San Juan Bataiatzailea parrokia (1623)¹⁰⁰⁰, Aozaratzako San Anton edo San Antonio Abad ermita (1644)¹⁰⁰¹, Goroetako Santiago Apostolua parrokia (1636)¹⁰⁰² eta

⁹⁸⁶ BUA MIK / SM0 77-133, 78 fot.

⁹⁸⁷ BUA 01 L/111, f.g.

⁹⁸⁸ BUA 01 L/113, 2v.

⁹⁸⁹ BUA 04 CD/001, 68 fot.

⁹⁹⁰ BUA 01 C/120-03, f.g

⁹⁹¹ BUA 01 L/112, 78r.

⁹⁹² BUA 01 L/208, 377r.

⁹⁹³ BUA 01 L/209, 135r.

⁹⁹⁴ DEAH-AHDSS 1263/001-01, 6r.

⁹⁹⁵ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 1v.

⁹⁹⁶ DEAH-AHDSS 1262/002-01, 6v.

⁹⁹⁷ DEAH-AHDSS 4824/001-03, 21r.

⁹⁹⁸ DEAH-AHDSS 3110/001-01, f.g., baina 2v folioari dagokio.

⁹⁹⁹ Euskaltzaindiaren Artxiboa. Juan Carlos Guerra Kolekzioa. Kolekzio Dokumentala. 4346 zenb., 47. dok. / Kopia mikrofilmatua IRARGIn, 1-C-7, f.g.

¹⁰⁰⁰ DEAH-AHDSS 4145/001-01, 30v.

¹⁰⁰¹ GPAH-AHPG 1/0876, 124v.

¹⁰⁰² DEAH-AHDSS 2335/002-01, 63r.

Etxabarriko San Juan Bataiatzailea ermita (1707-1713)¹⁰⁰³; Eskoriatzan: San Pedro parrokia (1706)¹⁰⁰⁴ eta Mazmelako Andre Mariaren Zeruratzea parrokia (1733)¹⁰⁰⁵; Oñatin: Araotzeko San Migel parrokia (1759)¹⁰⁰⁶, Urrexolako Andre Mariaren Zeruratzea parrokia (1594)¹⁰⁰⁷, Olabarrietako San Jose ermita (1718)¹⁰⁰⁸ eta Zubilagako Santa Maria Magdalena ermita (1764)¹⁰⁰⁹.

Osatu berri dugun zerrenda, esan bezala, ermitetako eta parroketako liburueta eta izendapenetan oinarritua, tenpluen jabegokoak ziren ortu eta lursailena da. Serorek seroretxeekin batera –edo/eta administrazio orokorrarekin batera– jaso ohi zituzten, biziraupenera begirako ustiapenerako, eta horregatik, ustiapen eta sostengu pertsonalerako zirelako, baitaratzen ditugu kapitulu hontan. Ermitetan ohikoagoak izanagatik, ez zaizkigu elizate eta auzoetako parroketan bezalatsu (Arrasaten, Udalako San Esteban parrokian, edo Aretxabaletan, Aozaratzako San Juan Bataiatzailea parrokian, besteren artean), hiribilduetako parroketan ere falta (Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokian eta Eskoriatzako San Pedro parrokian), batez ere Leintz bailarari dagokionean.

Urriago ditugun azken kasu hauei lehenik erreparatuz, ohar dezagun, lehenik eta behin, Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parrokiak zirela bailaran senar-emazte ziren sakristau eta serorak (batean “beata”, bestean “sacristana”) izan zituztela ziurtasunez dakigun bakarrak. Baina bietan ere bietan aurretik ezkongabeko serorak izanak ziren, eta Eskoriatzan, serorek eurek ustiapenerako ondasun hauen esleipenean ere zerikusirik izan zezaketela ikusten dugu. Sakristauei ondasunen ematea egitean 1706an egin zen inbentarioan honela aipatu ziren seroretxea eta honi eta parrokiari zegozkion ortuak eta lursailak:

la cassa que esta como cossa de tres estados de dicha yglesia con sus dos guerttas y ademas el territorio y termino que se alla al rededor de dicha yglesia con diferentes frutales de traer y no traer frutto

Mas diez piez de castaños en el termino de Vrigoen que se hallan pegante a los castaños de la cassa de Vrigoen el qual dicho castañal mando Marina de Vrigoen beatta para dicha yglesia para que su frutto gozasse el sachristan que vive en dicha cassa

¹⁰¹⁰

Agian ezkongabea izango zen azken serorak kondiziopeko dohaintza egin zuela dirudi, bere etxe alboan berea zuen gaztainadia “para que su frutto gozasse el sachristan” eman zuela zehaztearen horrek iradokitzen digunez. Horrez gain, bi ortu eta zenbait arbola, frutadunak eta gabeak. 1764ko inbentarioan ondasun hauei beste zenbait lur gehitu zitzaizkiela ageri zaigu, nahiz eta azalpenek zehaztasun handiegirik ez duten: “y ahora se le han agregado las porciones de terreno que se hallauan al rededor de la explicada yglesia y portico de ella”¹⁰¹¹. Ortuena eta lursailen tamainurik ez zaigu inon aipatzen, baina zer janik emango zutela dirudi.

Arrasateko parrokian bestelakoa zen egoera, baina Eskoriatzan bezalaxe, ortua seroren biziraupenerako beharrezkotzat hartzen zela ageri zaigu. Sakristauak eta serorak senar-emazte izatearen ohiturari 1677an ekin zitzaion, eta ordurarte, parrokiako serorari

¹⁰⁰³ DEAH-AHDSS 1330/003-01, 1v.

¹⁰⁰⁴ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 1r-1v.

¹⁰⁰⁵ DEAH-AHDSS 2594/002-01, f.g., baina azken folioak.

¹⁰⁰⁶ DEAH-AHDSS 1310/002-01, 5v.

¹⁰⁰⁷ DEAH-AHDSS 3150/002-01, 10r.

¹⁰⁰⁸ GPAH-AHPG 1/3249, 43v-44r.

¹⁰⁰⁹ GPAH-AHPG 1/3414, 49v.

¹⁰¹⁰ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 1r-1v.

¹⁰¹¹ *Ibid.*, 295v.

ortu bat errentan har zezan 13 erreal eman ohi zitzaizkion urtero. 1659ko kontuetan ordurarte izan zuen ortua kendu zitzaion, 1660 edo 1661ekoetan azaltzen zaigunaren arabera, hau “a las monjas de la Concepcion” saldu zitzaielako. 13 errealak emanaz jarraitu zuten, edonola ere, serorak alokairuan beste ortu bat har zezan. 1677an bertako sakristau eta serora senar-emazte izateko ohiturari ekin zitzaionaz geroztik, bien soldatak 78 erreal eta 8 marabeditan batzera heldu ziren (1720ko kopurua), ortuaren errentagatik serorari ordaintzen zitzaizkion 13 errealak ere baitaratuz¹⁰¹². Pentsa liteke beraz, ohitura aldaketaz geroztik ere sakristauak eta serorak beraien esku ustiapenerako ortu bat edukitzen jarraitu zutela.

Arrasateko hiribilduko parrokiaren XVII. mendean jasotzera helduko zirenaren kontra, Udala auzoko San Esteban parrokiaren serorek ez zuten XVI. mende hasieratan soldatarik jasotzen, baina ostera, etekinak biltzeko zeuzkaten ortuen eta lursailen kopurua handiagoa zen. 1500ean egindako bisitan agindu zen inbentarioan, atal bat eskaini zitzaien parrokiako “Heredades”-ak zirenei. Lursail hauetariko zenbait, bertako seroren ustiapenerakoak ziren:

- Vn mançanal [??] de media fanega de sembradura junto a la iglesia en que ay pies de mançanos asta çinquenta pies
 - Mas vna pieça de tierra que se llama lugorri que es sembradura de media fanega de trigo
 - Mas vna huerta teniente a la iglesia que es para en servyzio de guerta
- Las quales pieças mançanal y huerta traen las dichas beatas¹⁰¹³

Lursail hauez gain, parrokiarenak ziren beste zenbait sagasti, arte, eta aritz aipatu ziren, seroretxearekin batera. Oñatiko auzoetako parrokiaren beste kasu batzuk ere interesgarriak dira. Urrexolako Andre Mariaren parrokiaren, 1594ko inbentarioan, ermitetako ohizko egoeraren oso antzerakoa azaltzen zaigu; seroretxe alboko ortua eta parrokiaren inguruko lursailak: “Yten la casilla de las seroras con su huerta y propiedad alrededor de la yglesia donde se haze prosesion con la franquia de adelante”¹⁰¹⁴. Araotzeko San Migel parrokiaren ostera, ez dugu 1736-1737ko kontuak arte lursailen berririk aurkitzen: urte hartan eta hurrengoan Juan de Uriarteri seroretxe alboko lursail bat erosteko zenbait dilijentzia egin ziren, denera, 108 errealeko kostua izan zutenak. Lursaila, aurrerantzean, “para la fabrica” bezala aipatu izan bazen ere, serorek ustiatuko zutela pentsa liteke. Baina ez zen oso luzerako izan, 1755-1756ko kontuetan Probisoarengandik seroretxean eta alboko beste etxean (zirujaua bizi zena baina parrokiarena zena) obrak egiteko lizentzia jaso zenaz geroztik, ggb. 1760ra arte hauek obretan egon eta gero, 1759an Andres de Porras y Tenes apezpikuak pertsonalki egindako bisitan agindu bezala, biak ere biak, zegozkien ondasun guztiekin, alokairuan jarri baitziren:

se arrienden poniendo ante carteles en los parajes publicos, rematandolas en el mejor postor uiendo auonado, y con dichas casas, y pertenecidos, se arrendará la heredad, y Manzanal de la cofradia de Nuestra Señora del Rosario fundada en la referida Yglesia, auonandole lo que merecen, y en las escrituras, se aduertirá la pertenencia para la deuida noticia en adelante, atento que dicha heredad, y manzanal estan cercanos à una de las referidas casas de la Yglesia, y que de handar bajo un arriendo, se consigue utilidad asi à dicha fabrica, como a la cofradia, y dichos arriendos se haran con interuencion del Cura, y Mayordomo de fabrica de la referida Yglesia¹⁰¹⁵

¹⁰¹² DEAH-AHDSS 4824/001-03 eta DEAH-AHDSS 4824/002-01.

¹⁰¹³ DEAH-AHDSS 3110/001-01, f.g., baina 2v.

¹⁰¹⁴ DEAH-AHDSS 3150/002-01, 10r.

¹⁰¹⁵ DEAH-AHDSS 1310/002-01, 5v-6r.

Kasu honetan, beraz, parrokiarako lursailak hartzerako orduan, seroren biziraupenean baino alokairu bidezko etekinetan gehiago pentsatu izan zutela dirudi. XVII. mende bukaera aldeko eta XVIII. mendeko seroretxeak alokairuan jartzeko ohituraren hedapenarekin, ohizko egoera izan zen hau ere, auzo eta elizateetako parrokiatan bezalaxe, ermitetan.

Esan bezala, ermitetako kasuak ditugu ugarietak, eta baita dibertsitate handiena azaltzen digutenak ere. Ohizkoena ortu edo lursail bat behintzat izatea zen; Bergaran, Aritzetako San Migel ermitak 1688an “tiene huerta pegante a la Iglessia, y vna Heredad pequeña çerca de dicha cassa [*seroretxea*] de cuiro fruto goçan los que viuen [*en*] ella y cuidan de la Hermita”¹⁰¹⁶. Bergarako kasuekin jarraituz, 1621ean Santa Luzia ermitan egin zen inbentarioan, “un pedaço de tierra que esta junto a la dicha hermita” baino ez zen aipatu¹⁰¹⁷, eta 1747ko San Kristobal ermitako inbentarioan honakoak aipatu ziren: “la casa donde vive la serora con quatro porciones cortas de tierra dos sobre [...] Y las dichas quatro porciones de tierra apenas llegaran al sembradio de vna quarta de tierra”¹⁰¹⁸. Antzuolan, Uzarragako Santa Engrazia ermitan 1564?-an egin zen inbentarioan “Una casilla para en que viban las frayllas con su huerta” aipatu zen¹⁰¹⁹. Oñatiko Narria auzoko San Lorentzo ermitako Osana de Villarren testamentuan ermitako lursailaren etekinak bi seroren artean banatzen zituztela ageri zaigu: “declaro que los frutos que ai en las heredades de la dicha hermita de San Lorenzo de trigo y maiz hemos veneficiado Catalina de Galaistegui mi conpanera y yo cuia mitad me toca [...]”¹⁰²⁰.

Ortuaz gain lursail bat edo beste izatea ere nahiko normala zela dirudi. Bergaran, San Millan ermitan, 1528an bisitatzailaren komisionatuak horrela agindu zuenaz geroztik ermitako sagastien etekinen erdiak seroraren kontsumo eta erabilpenerakoa izan beharra zuen. Ondorengo urteetan, 1539-1562 bitartean behintzat, agindua bere hortan bete zen, eta sagastiaren ermitarendako etekinak (eta halaber, serorari zegozkionak, etekinen erdia baitzegokion) urteroko 7 eta 22 erreal bitarteko kopuruetan mantendu izan ziren. Serorak, noski, sagastiaren mantenua ere bere kargu hartzen zuen, eta horrela, 1562an eman zituen kontuetan, xahuturiko bi erreal “por quatro plantones de mançano que conpro e planto en la tierra de la hermita” izan ziren¹⁰²¹. Bergaran bertan, Murinondoko Andre Maria ermitan 1587an egin zen inbentarioan honako lursailak aipatu ziren:

la casylla donde biben las beatas con su huerta y hereda[*des*] de tierra alrededor que sera hasta çient plantios poco mas o menos con los dos plantios de t[*ierra*] que Apariçio de Çearreta dueño y señor de la Casa solar de Çearreta le dio a la dicha hermita que alindan con la dicha casylla y con la dicha huerta¹⁰²²

1590ean bertako serora zen “feyra de Urquiola”-k inbentario edo memorial bat egin zuen ermitaren ondasunen berri emanaz, eta “los mancanales y tierras finalmente digo la feyra de Vrquiola que dare cuenta y rrazon quando me pideren cuenta y dare cuenta y rrazon”. 1596an ermitako maiordomoak “seis plantios de mançanos y tierra dellos pegante a la casa de las seroras” eman zizkion ermitari dohaintzan, honen ondasunak handituz¹⁰²³. Beste kasu esanguratsu bat Arrasaten aurkitu dugu; bereziki

¹⁰¹⁶ BUA 01 L/113, 2v.

¹⁰¹⁷ BUA 01 C/120-03, f.g.

¹⁰¹⁸ BUA 01 L/112, 78r.

¹⁰¹⁹ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 1v.

¹⁰²⁰ GPAH-AHPG 1/3195, 123r-126v.

¹⁰²¹ BUA MIK/SM0 77-133, f.g.

¹⁰²² BUA 04 CD/001, 68 fot.

¹⁰²³ *Ibid.*, 79-114 fot.

ugariak izan ziren 1601ean San Andres ermitako seroratzara sartu zen Catalina de Zuazuren esku utzi ziren ondasunen arteko lursailak eta zuhaitzak:

- Yten vn monte xaral en el termino de Abata[?] apegante a las heredades, de Santuru de Gauiria y su caseria de Echaburu
- Yten vn castanalejo apegante al dicho monte xaral
- Yten vn castanalejo, en el termino de Mucibar de la otra parte del rio
- Yten dos mancanales, el vno tras la casa de la dicha hermita y el otro entre el mançanal de los herederos, de Pedro Ochoa de Abarrategui y Pedro de Lara y de su muger
- Yten vn pedaçito, de tierra en el terminado, de Bolinate en linde de tierra de los herederos de Juan de Vitoria
- Yten vn pedaço de tierra y algunos castaños, y algunos robles en Bedoinabe en linde de castanaje de Pedro Ochoa de Oro
- Yten dos bellotas junto a la dicha hermita que son pequenas, donde ay algunos mancanos¹⁰²⁴

Ikus litekeenez, handia izan zitekeen serora batzuk besteen aldean zuzenean edo alokairu bidez ustiari zitzaketan lursailen arteko aldea. Antzuolara iraganez, Santa Katalina ermitan 1644?-an egin zen inbentarioan, honakoa ageri zaigu: “en el puesto de Elistegui en Yra[uaçu?] el castañal con doze pies de castaños y dos [sendos?] robles que Domenja de Lascurayn susso hija de la misma Cassa [Yturbe Yranguren] y Beata que fue de la dicha hermita dexo a ella”¹⁰²⁵. Eskoriatzako parrokian ikusi bezala, hemen ere serora batek dohaintzan emandako ondasunen berri dugu. Herri bereko Antiguako Amaren ermitan 1742an inbentarioa egin zenean berriz, “la casilla, que dicha hermita tiene a vn lado con su huerta” baino ez zen aipatu, baina 1809an udal agintarietako ermitaren ondasunak saldu zituztenean (bidegabeki, ez baitziren beraien jabegokoak), bertako ondasunak “se reducian (en este tiempo) á una casita, con su huerta, una heredad y castañal que heran propios suos como consta del folio seis de su imbentario”¹⁰²⁶. Zenbait urte lehenago, 1765ean, Bergarako San Lorentzo ermitarako serora izendapena egin zenean, zegozkion “àprobecamientos”-ak honakoak zirela zehaztu zen: “la huerta, la porcioncita de la hereda, y Casa sin que por ello pague renta alguna, sino solamente, quatro libras de Aceite para la Luminaria de el mismo Santo”¹⁰²⁷.

Bergarako azken kasu honetako zehaztapenak ez zeuden lekuz kanpo, ezen, zenbaitetan, seroretxeekin gertatu bezalaxe, lursailak ez baitziren seroren edo ermitauren ustiapenerako bideratzen, alokairuan jarri baizik. Egoera hauek, Oñatin Araotzeko parrokiaren kasuan ikusi dugun lez, seroretxeen alokairuen XVII. eta XVIII. mendeetako hedapenaren prozesuari loturik zeuden. Aretxabaletan, San Juan Bataiatzailea ermitako liburuan 1707-1713 bitarteko egin ziren kontuen arabera, seroretxea jada errentan zegoen, eta 1708an bertako bizilagunen ustiapenerako ermita ondoko lursail bat gehitu zitzaion, “por Conziderar Util y nesessaria para la Conseruazion de dicha Hermita y habitantes de la Referida Casa anerente”. Lursaila ermitako maiordomo izana zen Francisco Ochoa 1705az geroztik ermitarekin zuen zor bat kitatzeko erosi zuen, eta lehen urteetan etxearekin batera errentan eman bazen ere (errenta osoa dukat eta erdi garestituz), ondorenean bere kabuz jarri zen errentan, urteroko 11 errealean (dukat bat) prezioan¹⁰²⁸. 1763an Bergarako Santa Katalina ermitak

¹⁰²⁴ Euskaltzaindiaren Artxiboa. Juan Carlos Guerra Kolekzioa. Kolekzio Dokumentala. 4346 zenb., 47. dok. / Kopia mikrofilmata IRARGIn, 1-C-7, f.g.

¹⁰²⁵ DEAH-AHDSS 1262/002-01, 6v.

¹⁰²⁶ DEAH-AHDSS 1263/001-01, 6r-f.g.

¹⁰²⁷ BUA 01 L/208, 377r.

¹⁰²⁸ DEAH-AHDSS 1330/003-01, 1r-3r.

urtero 70 errealeko etekina ematen zuen lursail bat zeukan errentan¹⁰²⁹. Herri berean, 1765ean San Juan ermitako seroretxea errentan eman zen, “heredades, y tierras à ella aplicadas”-ekin bat¹⁰³⁰. Oñatin, ermitetako seroretxeen eta hauen lursailen alokairua gehienetan bat eginda mantendu zirela dirudi. 1718an, esate baterako, Maria de Cortabbarri eta Francisca de Olabarria alargunei San Jose ermitako seroratza urteroko 4 dukaten truke hiru urterako alokairuan eman zitzaizkion, ermitari zegozkion ondasunak ere euren eskutara iragan ziren:

gozando a medias asi de la guerta que esta pegante a dicha Casa como tambien el castañal que esta en Osategui Jurisdiccion de esta Villa y dos heredades la vna junto a la Cruz de Yraman de Sembradio de vna quarta de trigo y la otra junto a la Cruz de dicha hermita de Sembradio de otra quarta de trigo poco mas o menos cuyos vienes son pertenecientes a dicha hermita¹⁰³¹

San Jose ermitan bezala, Zubilagako Santa Maria Magdalena ermitarako ermitauen 1764ko eta 1765eko izendapenak edo alokairuak (6 urterako, urteroko lau 1764an– edo bost –1765ean– dukaten truke) egin zirenean ere, seroretxearekin bat “las dos heredades pertenecientes à ella” eman ziren alokairuan¹⁰³².

Azken finean, ermitetako ondasunak eta lursailak bertako seroretxeen gorabeheren nahasmenduak ere harrapatu zituen, hainbat aldakuntza eraginez. Alabaina, zerbait garbia bada, bertako serora eta ermitauen bizimoduaren baitan ortuak eta lursailak erabat beharrezkoak zirela da. Halaber, kapituluaren hasiera aldera ikusi izan dugun bezala, parrokia askotan ere ez ziren etekin hauei muzin egiteko moduan egoten, eta beharrezkoak zituzten biziraupenerako.

Baina baziren tenpluen jabegoko ortuen eta lursailen etekinen behar handiegirik ez zeukaten serorak ere, tenpluen jabegokoetaz baliatu beharrean, ortu eta lursail propioetaz baliatzen zirenak, hauek saldu, erosi nahiz produktuen trukezko alokairuan jarritz. Badira ustiapen zuzena, edo produktuen kudeaketa zuzena behintzat agertzen diguten kasuren batzuk. Arrasaten serora zen Maria de Arosteguik, esate baterako, 1599an helarazi zuen bere testamentuan bazituen zenbait zordun, ortuko produktuak eman izan zizkienak: Lopecha de Marquinak eta Isabela de Zubilagak 22 erreale eta 3 marabedi zor zizkieten “de resto de cinquenta y tres reales y medio de cebollas que este año las di”, eta Antona “muger de Juan de Arriola” zenak berriz, 8 erreale zor zizkion, “por ocho ristras de ajos”¹⁰³³. Bergaran, Leizariako San Lorentzo ermitan serora izan zen Marina de Moyugoitiaren 1574ko testamentuan ere emandako zenbait babarrunen zorrak ageri zaizkigu, serora bera ere partaide zen Moyua etxe nagusiaren esparruko jendeari zegozkionak: Pedro de Moyua Beytiak 6 errealeko zorra zuen “por media hanega de haba que le di”, eta berarekin batera ermitan seroratza ari zen “la freyra de Moyubeitia my Companera”-k berriz 12 erreale, “por una hanega de haba que le di para sembrar”¹⁰³⁴.

Beste kasu batzuetan zekaleen inguruko berriak ere heltzen zaizkigu, zeharkakoak, baina produktu hauekiko erlazioen testigantza dakarkigutenak. Hainbat dira euren testamentuetan batez ere garia, baina baita artoa edo bestelako zekaleen kopuru ezberdinak ere aipatu zituzten seroren kasuak, euren ondasunen artean zeuzkatela, edo norbait emandako zekaleen zordun zutela eta. Noski, kasu hauetan

¹⁰²⁹ BUA 01 L/111, f.g.

¹⁰³⁰ BUA 01 L/209, 135r.

¹⁰³¹ GPAH-AHPG 1/3249, 43r-43v.

¹⁰³² GPAH-AHPG 1/3414, 49r-51r eta 15r-18r.

¹⁰³³ GPAH-AHPG 1/2353, 201r-205v.

¹⁰³⁴ GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v.

serorek zeuzkaten zekaleen kopuru horien jatorriak ez zeukan beti ustiapen zuzen bidezkoa izan beharrik, merkatuan erosiak izan baitzitezkeen, edo beraien zerbitzuen ordainketatzat jasoriko "serora-gari" edo "serora-arto"-ak. Baina edozein kasutan, serorek pilatzen zituzten ondasunen parte ziren, zorren eta dohaintzen objektu izan zitezkeenak, eta ehun eta ohialekin gertatu bezala, hein bateraino diruaren ordezkopapera ere betetzen zutenak¹⁰³⁵. Gariak lortzeko bideen eta erabilera ezberdinen bi adibide esanguratsu XVIII. mendeko Oñatiko San Migel parrokiako bi serorenak ditugu; Ana Catalina de Inzaren testamentuan (1751), jarlekuen zaintzagatiko gari anoen -eta olio libren- zordunen berri ematen zaigu ("Don" Santos de Aristegui eta Magdalena de Zumaldek gari eta olio zorrak zituzten, eta Phelipe de Mendizabalekin zeuzkan "recetas" batzuegatiko zorrak honek jarlekuen zaintzagatik zor zizkionekin kitatu zituen), diruzko dohaintza bategatiko zorra garitan eta artotan ordaindu zitzaizola ikusten dugu (Juan de Azcarate Aumategui bere anaiak seroraren alde emandako 20 dukaten zorra zeukan, -partzialki edo osoki- 4 gari anoa eta anoa eta 1/2 arto emanaz ordaindu zituen), eta besterik gabe mailegutuan emandako gari anoak ere ageri zaizkigu (Teresa de Escalantek zor zizkion 2 anoa gari, 2 errealekin batera)¹⁰³⁶. Maria Gabriela de Sarraoarenean (1784) berriz, gariaren diruarekiko "ordezko" papera nabarmentzen zaigu; familia-kideen eta lagunaren sorta zabal batean dezenteko diru kopuruak banatu eta gero, familiako testuinguruko lau neskametarik eta halaber neskameak diruditen beste bi emakumetarik bosti, bere neskameari ez beste guztiei, zenbait ondasunekin batera gari anoa bana ematea agindu zuen¹⁰³⁷.

Badira noski beste zenbait kasu ere, kopuruegatik edo zekale ezberdinak izatearren aipagai zaizkigunak. Gariak besteko zekaleei zegokienean, Marina Garcia de Oruesagasti serorak (Bergara, San Pedro parrokia, 1607) helarazi zuen testamentua aipatu liteke: bere iloba Sancho de Garitanok zor zizkionak "el balor de una caja y una fanega de borona [artatxikia]"¹⁰³⁸ bezala deskribatu ziren, eta halaber, Francisco de Eguizabalen emazteak gari anega erdi baten balorea, eta Andres Saez de Garitanok anega batena zor zizkion¹⁰³⁹. Maria Ana de Micolalderi (Bergara, San Martin ermita, 1762) bere iloba Pedro Antonio de Unamunok 55 erreale baino gehixeago zor zizkion "de renta de quatro fanegas y tres quartas de Maiz que al precio de ueinte y tres reales se las di y bendi al fiado"¹⁰⁴⁰.

Baina artatxikia eta artoa presente egonik ere, gehienetan garia dugu seroren ondasunen artean ageri zaigun zekalea. Beste zenbait adibide esanguratsu aipatzearren: Bergarako Magdalena de Castillok, 1612ko bere testamentuan –garia gordetzeko– troxe

¹⁰³⁵ Jarraian aipagai izango ditugun kasuez gain, zekaleak ondasunen artean aipatu zituztenak honakoak izan ziren: Marina de Larraguibel (Elgeta, Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576) (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v); Gracia de Urrupain (Elgeta, Andre Maria parrokia, 1587) (GPAH-AHPG 1/1854, 53r-55v); Maria Ochoa de Marquiegui (Elgeta, Andre Maria parrokia, 1592) (GPAH-AHPG 1/1853, 41r-42v); Magdalena de Urrojolaegui (Elgeta, 1609); Gracia de Sagasta (Elgeta, Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637) (GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v); Catalina de Mendiguchia (Elgeta, Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638) (GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v); Maria de Yturbe (Antzuola, Uzarragakon San Juan Bataiatzailea parrokia, 1649) (GPAH-AHPG 1/0771, 239v-241r); Dionisia de Jauregui Madariaga (Antzuola, 1720); Maria Perez de Bengoa (Arrasateko Gesalibarko Santa Ageda parrokia eta ospizioa, 1625) (GPAH-AHPG 1/2370, 85r-86v); eta Antonia de Idigoras (Oñati, San Juan ermita, 1711) (GPAH-AHPG 1/3247, 683r-684r).

¹⁰³⁶ GPAH-AHPG 1/3358, 525r-528v.

¹⁰³⁷ GPAH-AHPG 1/3424, 105r-110r.

¹⁰³⁸ "Borona" hau ez dagokio, gerora ezagutu izan zen lez, artoari, honen landaketa XVII. mendearen bigarren herenaz geroztik hedatu baitzen. Aurreko garaietan, hitz hau artatxikiari zegokion (Zenbaiten artean 1994, 21).

¹⁰³⁹ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

¹⁰⁴⁰ GPAH-AHPG 1/0615, 423r-426v.

bat eman zuen dohaintzan San Kristobal ermitako seroren erabilpenerako, baina zenbait baldintza tarteko zirela:

pero que en algun tiempo alguna hija de la dicha casa de Castillo o alguna parienta de ella entrare por Veata o freira de la dicha ermita la pueda gozar en su vida y dexarla siempre las tales para el seruiçio de la dicha casa e tambien de los duenos de la dicha cassa de Castillo¹⁰⁴¹

Gariarendako gordailu beharra izateko, San Kristobaleko serorek gari-iturri konstanteren bat beharko zuten izan, ustiapen bidez, edo Bergaran bertan astean hiru aldiz egin ohi zen gari merkatuan erosiz¹⁰⁴². Elgetako beste adibide bat ere aipagarria dugu: Uriarteko Andre Maria ermitan serora zen Domenja de Iturrik Marina Lopez de Sostoa alargunarengandik “dos huchas de fuste labradas” jaso zituen, eman zizkion ia hiru anega gariren (“menos quarta”) 20 errealeko balorearen ordainketa gisa¹⁰⁴³. Kopuru esanguratsudun beste adibide bat Antzuolatik datorkigu: Dionisia de Jauregui Madariagak (1720) bere ahizparekin batera 13 anoa eta 1/2 gari zeuzkan gordailuan.

Badira beste daturen batzuk ere, zenbait serora okin lanetan ere ibili ohi zirela adierazten digutenak; honen erakusgarri ditugu zenbait testamentuan ondasunen artean aipatu ziren ora-mahaiak. 1607an testamentua helarazi zuen Marina Garcia de Oruesagastik, saldutako arto eta gariegatik zordunak zituela ikusi berri dugun Bergarako seroretariko batek, Errekaldeko anderea zen Marina de Zabalari (“doña”) ogia oratzeko mahai bat saldua zion, 16 errealeko prezioan. Beste zordun bat ere bazuen, bestalde, Francisco Perez de Aroztegui, ez gariagatik, baina Domusantu egunean eman zizkion ogiegatik 16 erreal zor zizkiona¹⁰⁴⁴. Zenbait urte lehenago, Bergarako hiribilduan serora zen Francisca de Igueribarrek ere, 1581eko bere testamentuan, bere ondasunen artean bi ogia oratzeko mahai zeuzkan, bata bere esku eta bestea “en cassa de la señora doña Ysabel de Ondarça”, hurrenez hurren, itxuraz bere ahaidea zen Barrutia batxiler gazteari (“el menor”) eta bere ahizpa Maria de Igueribari dohaintzan eman zizkien¹⁰⁴⁵. Ignacia de Iralak (Oñati, San Antonio edo San Anton ermita, 1755) bere ondasunen artean aipatu zuen ora-mahai bat¹⁰⁴⁶, Maria Ana de Micolalde (Bergara, San Martin ermita, 1762) bere neskame Josefa de Echalecuri eman zizkion ondasun ugarien artean bazen beste ora-mahai bat ere¹⁰⁴⁷. Lekale zekale eta lureko bestelako frutuei buruzkoak laburbildu eta hauek izan zezaketen balorearen irudi bat jasotzeko, azkenik, Arrasateko Gesalibar auzoko Santa Ageda parrokia eta ospizioko Maria Perez de Bengoaren testamentuaren ondorengo ondasunen almonedari (1625) erreparatu dakioke; bertan, olo anoa bat 7 errealetan, 3 anoa intxaur 24 errealetan, 2 anoa gari 26 erreal eta 8 marabeditan, eta babarrun anoa bat 12 erreal eta 1/2-tan errematatu ziren¹⁰⁴⁸.

Hainbat ziren bada, ustiapena, erosketa, dohaintzak edo limosnak medio, seroren eskuetatik iragaten ziren ortu eta lursailetakoa produktua. Alabaina, aurkitu izan ditugun kasuen eta datuen artean, produktuei dagozkienak baino esanguratsuagoak dira ortuei

¹⁰⁴¹ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹⁰⁴² Debagoienean, Euskal Herriko barrenalde atlantikoko beste hainbat lekutan bezala, gariaren ornikuntzak arazo asko izan ohi zituen, ustiapen bidez etekin gutxi ateratzen baitzen, urte osoa irauteko ematen ez zuena. Bergarako, Gasteizeko gari merkatuarekin alternantzia egiten zen gari merkatuarekin, egoera hobexegoa zeukan beste herri batzuen aldean, nahiz eta komertzioaren gorabeherak zirela eta, prezioak oso aldakorrak izan zitezkeen (Zenbaiten artean 1994, 21-22).

¹⁰⁴³ GPAH-AHPG 1/1862, 117r-117v.

¹⁰⁴⁴ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

¹⁰⁴⁵ GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v.

¹⁰⁴⁶ GPAH-AHPG 1/3304, 7r-10v.

¹⁰⁴⁷ GPAH-AHPG 1/0615, 423r-426v.

¹⁰⁴⁸ GPAH-AHPG 1/2370, 89r-90v.

eta lursailei eurei, eta hauen salmenta eta alokairuari dagozkionak. Eta lursailen kasuetan, zehatzak izatekotan, hauek askotan sagastiak zirela esan behar. Hainbat dira testamentuetako ondasunen artean aipaturik ageri zaizkigun lursailak: sagastiak Francisca de Gabiriarenean (Arrasate, 1639) ("con su cassa y horno")¹⁰⁴⁹, Agueda de Zumaetarenean (Antzuola, 1640)¹⁰⁵⁰ eta Ana de Ayestarenean (Arrasate, 1664)¹⁰⁵¹; gaztainadi bat Maria de Insauberenean (Arrasate, San Balero ermita, 1579)¹⁰⁵²; ortu bat, gaztainadi bat eta txaradi bat Antonia de Osinagarenean (Arrasate, Musakola, San Antolin ermita, 1603)¹⁰⁵³; eta Ines de Bidaniarenean (Oñati, San Martin ermita, 1554) sagasti bat, gaztainadi bat eta beste lursail bat¹⁰⁵⁴. Eta ohar bedi, hauei, seroren jabegoen artean zeuden baserri eta etxeen ondasunen berri ematean esan gabe zoazenak ere gehitu beharrean geundekeela; emango dugu hauen berri aurreragoko kapitulu batean¹⁰⁵⁵. Hemen baina, edukitzeaz beste, ondasun hauek mugimenduan agertzen dizkiguten dokumentuak izango ditugu zabalago aipagai, alokairuen eta salerosketen kasuek serorek ondasun hauen jabetzean eta kudeaketan zeukaten partehartzea garbiago azaltzen digutelako.

Alokairuak, batzuetan produktutan, eta bestetan diru truke ematen ziren. Hala, Leintz Gatzagako Dorletako santutegian serora zen Maria Lopez de Bergarak 1686an Maria de Porturi Eskoriatzako Uriarte auzoan zeukan ortu bat eman zion alokairuan, urteroko bi dukaten truke. Ortu honen kasuak, gainera, serorek ortuak eta lursailak eskuratzeko zeukaten moduetariko bat ere azaltzen digu. Izan ere, Uriarte auzoko ortu hau, bere garaian Maria de Portu berak eta bere senar zen Juan de Lamarianok seroraren alde fundaturiko 100 dukateko zentsuan hipotekatu zituzten lursailetariko baten parte baitzen. Juan de Lamarianoren heriotzean, honek zeuzkan zorrak medio, hartzekodunen lehiaketa egin zen bere ondasunekin, eta serorari, besteren artean, Juan de Lamariano zenak eta bere emazteak Tomas de Querejetaren etxe ondoan zeukaten ortu hau egokitu zitzaion. 1686an, beraz, aurretik berea izana zen ortua alokairuan eman zion serorak Maria de Porturi, aitzakiarik gabeko baldintzekin eman ere:

y se la arriendo en todo su riesgo y bentura de quanquier casso fortuito de piedra niebla esterilidad o otro que por hordinario y esta hordinario suceda que no por esso a de poner descuento alguno en ninguna de las dichas pagas¹⁰⁵⁶

Alokairu hau martxoaren 2an emana izan bazen, maiatzaren 13an, zena zelakoagatik (agian Maria de Portu bera ere hila izango zen jada), ortu berbera Juan de Olabe Bolibar elizateko auzotarrari eman zion serorak alokairuan, 5 urtetarako, lehen urtean 14 erreal eta ondorengoetan urteroko 2 dukat ordaintzearen truke¹⁰⁵⁷. Azkenean, Tomas de Querejetaren etxearen eta ortuen ondoan zegoen ortu honek azken honen eskuetan bukatu zuen, 1691n serorak saldu egin baitzion; dokumentuan, besteak beste, gorabehera hauek izan zituen ortuaren neurria ere eman zen: "poco mas o menos sera sembradura de vn celemin de trigo"¹⁰⁵⁸. Beste adibide aipagarri bat Ana de Ayestarena

¹⁰⁴⁹ GPAH-AHPG 1/2391, 44r-46v.

¹⁰⁵⁰ GPAH-AHPG 1/0769, 115r-118v.

¹⁰⁵¹ GPAH-AHPG 1/2402, 97r-98v.

¹⁰⁵² GPAH-AHPG 1/2341, 58r-60v.

¹⁰⁵³ GPAH-AHPG 1/2364, 2r-5v.

¹⁰⁵⁴ GPAH-AHPG 1/2857, 14v-17v.

¹⁰⁵⁵ VI. 2.5. azpiatalean, 618 eta hurr. or.

¹⁰⁵⁶ GPAH-AHPG 1/2016, 26r-26v.

¹⁰⁵⁷ *Ibid.*, 51v-52r.

¹⁰⁵⁸ GPAH-AHPG 1/2021, 21r-22r. RAEn azaltzen zaigunaren arabera, lakari ("celemín") baten neurria ggb. 537 metro karratukoa zen (webgunean: http://buscon.rae.es/drael/SrvltConsulta?TIPO_BUS=3&LEMA=celemín).

(Arrasate, 1664) izan liteke; "junto a Miraflores en el terminado de Aqueegui" zeukan sagastiaren zorren kasuan, "de sus rreditos" 31 erreal zor zitzaizkion¹⁰⁵⁹.

Eta alokairuekin bat, noski, ondasun hauen salerosketa aktibitateak ere heldu zaizkigu. 1570ean, Elgetan serora zen Isabela de Zabalak Domingo de Garro eta bere emazte Ana de Goitiari ortu bat erosi zien 8 dukaten truke; hiribildutik kanpo zegoen ortu hau, seroraren beste ortu batzuen alboan zegoen, eta salerosketa, berez, saltzaileek serorarekin zuten kopuru bereko zorra kitatzeko egina izan zen¹⁰⁶⁰. Arrasaten, Maria Lopez de Olazaran serorak 1605ean Miguel Lopez de Gandarias bertako herritarraren aldeko ahalorde bat helarazi zuen, bere izenean Pero Lopez de Otalorari egoki zerizkion prezioan eta denbora-tarteetan Arrasateko "el termino de Aguirre"-n zeuzkan "mançanal monte y castanal"-ak saldu ahal izan ziezazkion¹⁰⁶¹. Antzuolako beste kasu batean, 1655ean, Pedro de Garicazak eta bere emazte Maria Perez de Zumaetak Catalina de Lizarriturri serorari azken honen etxe ondoan zegoen lursail baten salmenta egin zioten, urtebeteko epean ordaintzekoak ziren 16 dukaten truke. Deskribapenak seroraren etxearen eta lursailaren kokapenaren berri ematen digu:

un pedaço de tierra y suelo que tenemos propio nuestro en Barundo de esta Villa que alinda por el vn lado y [sic] Camino y Puente que ba a dicho Barundo y al balle de Liçarraga y por el otro lado y por detras la cassa de la dicha Beatta y por delante la pared de la pressa del molino de Alcarte que es de Don Juan Beltran de Ocaetta y Gallaistegui señor de la cassa solar de Oçaetta¹⁰⁶²

Antzuolan bertan, Maria Ana de Goitia Bereteriok "cerca de las heredades de Lapaza" Matias Ignacio de Lizarriturri -testamentua helarazi zuen- 1733rako erosia zion garitarako lursailak berriz, ez zuen edonolakoa izan behar, 200 zilarrezko dukatetako prezioan erosia izana zen eta¹⁰⁶³.

Lursailai, edo hobe esan, bertako produktuei dagozkien beste zenbait kasutan, serorei ordaintzen zitzaizkien zorrak ageri zaizkigu. Bergarako San Pedro parrokiako seroren ezaugarriei buruz jardun izan garenean, 1657an zegozkien emolumentu eta etekinen inguruan egin behar izan zuten akordioa izan dugu aipagai. Akordio hartan, seroretzeko gastuak amakomunean ordaindu behar izango zituztela ezarri zen; tartean, oinarrizko elikagai zen sagardoa egiteko sagarrez ornitza ere bazegoen¹⁰⁶⁴. Akordio honen aurretiko garaietako zenbait dokumentuk, parrokiako serorek ornikuntza honetarako ze baliabide izan zitzaizketen azaltzen digute. Marina Garcia de Oruesagasti San Pedroko serorak 1607an bere testamentua helarazi zuenean, Ariztizabal etxeko jabe zen Domingo de Ariztizabalek 28 dukat printzipaleko eta urteroko 2ko zentsu bat zor zion, eta ordurarteko ordainketak honela eginak zituen: "desde que se otorgo en çenso asta oy para su corridos a pagado quatro costales de mancana que balieron asta cinquenta y tres rreales vn rreal mas o menos"¹⁰⁶⁵.

Parrokia bereko beste kasu batzuetan zeuzkaten lursailetatik jasotako sagarra soberan zeukaten serorak ere ageri zaizkigu, saldu ere egiten baitzuten; Francisca de Ygueribarrena dugu kasu hauetariko bat. 1565ean Pero Saez de Galardik seroraren aldeko urtebetean ordaintzeko 12 dukateko betekizun bat helarazi zuen, berarekiko zituen honako zorreatatik:

¹⁰⁵⁹ GPAH-AHPG 1/2402, 97r-98v.

¹⁰⁶⁰ GPAH-AHPG 1/1851, 40r-41r.

¹⁰⁶¹ GPAH-AHPG 1/2340, 15r.

¹⁰⁶² GPAH-AHPG 1/0773, 71r-72v.

¹⁰⁶³ GPAH-AHPG 1/0538, 232v-235v.

¹⁰⁶⁴ Ikus VI. 1.5.2. azpiatala, aipagai dugun akordio zehatza 489-490 or.

¹⁰⁶⁵ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

ochenta y cinco rreales por diez y siete costales de mançana que en el año pasado me distes y uendistes a preçio de çinco rreales el costal / e treynta y çinco rreales que me aueys dado çedido e traspassado en Graçia Rruiz de Oxirondo / e doze rreales que me aueys dado rrealmente y con efeto prestados¹⁰⁶⁶

1570ean ere beste betekizun bat helarazi zuten arrazoi berberegatik seroraren alde; 110 errealekoa zen, eta Miguel de Moyua labangileak helarazi zuen, “por rrazon del presçio de veynte y dos costales de mançana a çinco rreales cada costal / ygualados e apreçiadados entre nos en la dicha cantidad”¹⁰⁶⁷.

Ohizkoak ziren sagastiak seroren ondasunen artean, eta ortuko produktuekin eta arto, gari eta ogiekin negoziotxoren bat egiten zuten serorak baziren bezalaxe, aurkitu izan dugu sagarra beharrean, sagardoa saltzen ibili zen serorarik ere. Magdalena de Urrojolaeguik (Elgeta, 1609) bere testamentuan zenbait zordun aipatu zituen, zorretan emandako sagardoagatik zeudenak. Serorak 12 marabeditan saltzen zuen azunbrea, eta Joan Perez de Egurbide Sagastiguchiak 74 azunbre erosiak zizkion, eta 10 erreal eta anoa erdi garitan ordaindurikoez besteak zor zituen; eta Joan de Olaieta "currador"-ak 2 erreal baino ez zeuzkan ordainduak, eta gainontzeko guztia zor zuen: alde batetik 70 azunbre erosiak zizkion 80 pitxerretan eramanak, eta bestetik, neurtu gabeko kopuru bat eraman zuen bi "[c?]arriles" zirelakoetan¹⁰⁶⁸. Sagardo salmentan jardun zen beste serora bat jada hainbatetan aipagai izana dugun Bergarako Maria de Izaguirre dugu. 1631n helarazi zuen bere testamentuko zordunen artean Pero Lopez de Eguizabal zirujaua ageri zaigu; 10 dukat zor zizkion serorari, “de la sidra de una cuba que le di para su cassa”. Maria Martinez de Mendiolak (“la de Barrencalle”) kopuru txixixeagoa zor zion, 85 erreal, “que es la resta del balor de una cuba que le uendi”¹⁰⁶⁹.

Kasu hauek, noski, aberastasun eta botere aldetik egokiera onean zeuden familietako partaide ziren serorenak ditugu. XVIII. mendearen erdialdean ere badaukagu Bergaran bertan tankera honetako beste kasu nabari bat, Soledadeko ikastetxe eta seroretxearen fundatzailezat jada aipagai izan dugun Maria Clara de Berroetarena. 1750ean helarazi zuen testamentuan bere anaiek “de Yndias”-etatik moja sar zedin bidali zizkioten zenbait diruren berri eman zuen; hauek Errenteriako “Hereditad poblada de Manzanos” batera bideratu ziren, errentatik etekinak eman zituzan. Etekin hauek ez zituen Maria Clara berak jaso, bere beste anai batek eta honen emazteak baizik, eta beste hainbat gorabehera izan ziren, bere lekuan azaldu ditugunak. Baina guzti honetan adierazgarria zaiguna, –azkenean, bere borondatearen aurka izanik ere moja abitua janzten bukatu zuen– seroraren ondasunen artean zeuden sagasti hauen neurria da. Testamentua egin zuenerako jada moja zen Maria Clarak sagastia bere oinordekoentzako izan zedin nahi zuen, baina momentuan honen errentaren etekinak jasotzen zituen bere iloba Maria Ignacia de Berroetari hau erosi ahal izateko aukera eman zion, baldin eta 500 pesoko (4.000 erreal, ggb. 363 dukat eta ½) prezioan erosteko prest bazegoen¹⁰⁷⁰. Familia-kide bati merke saldu asmoz prezio horretan baloratuak izateko, sagasti galantak behar zituen Errenterian eduki.

Azaldu berri dugun datu sorta honek, egoera ezberdinetan zeuden seroren bizimoduaren baitan ortuen eta lurren ustiapen zuzena oso ohizkoa zela agertzen digu,

¹⁰⁶⁶ GPAH-AHPG 1/0082, 175v.

¹⁰⁶⁷ GPAH-AHPG 1/0110, 360v.

¹⁰⁶⁸ GPAH-AHPG 1/1845, 25r-27v.

¹⁰⁶⁹ GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r. Ez dakigu ziur kasu honetan kupela baino ez ote zen saldu zuena, ala bere sagardo eta guzti salduriko kupel bati buruz ote diharduen; baina kopurua aurrekoaren antzerakoa izanik, kupel betea zela esango genuke. Edozein kasutan, sagardoaren eta kupelen salerosketa Maria de Izaguirreren aktibitateen artean zeuden.

¹⁰⁷⁰ GPAH-AHPG 1/0555, 164v-165r.

eta baita, ustiapen zuzena bezalaxe, hauen alokairuaren eta etekin eta produktu ezberdinen inguruan hainbat jenderekin zeuzkaten truke eta harremanak erabat ohizkoak zirela ere. Alegia, ortu eta lursail ezberdinen ustiapenarekin zeukaten erlazioa, beste edozein bizilagunen kasuan lez, beraien egoera ekonomikoarekiko erlazio zuzenean lantzen zen, maila ekonomiko xumeetan beraien jabegokoak ez ziren lurak (ermita edo parrokiarenak zirenak) ustiatuz, eta maila altuagoko kasuetan berriz, ustiapen zuzena alde batera utzirik, beraien ondasunen parte ziren ortu eta lursailen alokairuaren eta hauen ordainketarako formula ezberdinen bidez etekinak jasoz.

VI. 2.2. Abereak (eta hauen produktuak)

Ortuen eta lursailen ustiapenaren eta negozioen ingurukoez gain, abereak ere hainbat kasutan agertu izan zaizkigu seroren aktibitateen esparruaren barruan. Ikusi dugu nola Aguirre Sorondok ere etxeko animalien ustiapena "alimentos de primera necesidad" zirenak erdiesteko ermitetako seroren ohizko aktibitateetat aipatu zigun (Aguirre Sorondo 1995a, 110). Debagoienean kasurik esanguratsuenak Elgetatik heldu zaizkigu, eta ez da kasualitatea, bertan abelburuen hazkuntza bereziki garrantzitsua izan baitzen biziraupenerako. Elgetako biztanleek lurren ustiapenezko eta abelburuen hazkuntzazko ekonomia misto bat zuten biziraupenerako oinarri nagusi, eta oinarri hauen babesaren beharra hiribilduaren sorrerako hiri-gutuna eman zenetik (1335) urte gutxitara, 1376an Gaztelako Erregearengandik jaso zituzten pribilejioetan zehaztu zen. Bertan, Gipuzkoan Hondarribiak baino ez zeukan pribilejioa eman zitzaion Elgetako herriari: "mandamos vos que no consintades á ninguno nin ningunos que entre á pacer con sus ganados". Elgetako zelaiak, bada, bertako abelburuentzat baino ez ziren (San Martin 1975, 30-32). Ez ziren noski pribilejioak beti errespetatu, eta tarte kronologiko handia dugu Aro Berriko gertakizunak arte, baina datua esanguratsua zaigu, bertako bizimoduan abelburuek zuten garrantzia ohartzeko. Azalpen hauekin, bestalde, serorek lekuan lekuko aktibitate ekonomiko espezifikoetan parte hartzen zutela ohartarazi nahi dugu; Bergarako testuinguru komertzialean, laster ikusiko dugun lez, seroren aktibitate nagusienetako bat mailegutzarena bazen, Elgetan berriz, abelburuen ustiapenean eta salerosketan ere parte hartzen zuten. Edonola ere; ikusiko dugun lez, Elgeta ez zen aktibitate hauetan parte hartzen zuten espazio bakarra ere.

Beste hainbat abelburu etxe eta baserrien ondasunen baitan aipatuak ageri zaizkigu, beste kapitulu batean ikergai izango ditugun salmenta eta alokairuetan. Kapitulu honetan, zehazki, abelburuen ustiapenaren eta -hauen eta zegozkien produktuen- salmentaren inguruko zenbait daturen berri baino ez dugu emango, aktibitate hauek ere beraien eragin ekonomiko eta sozialaren esparruaren baitan zeudela aditzera emateko. Ondasun hauetariko zenbat testamentuetan ageri zaizkigu, familia-kideen eskutara heltzen. Hala, Arrasateko Gesalibar auzoko Santa Ageda parrokia eta ospizioko Maria Perez de Bengoak bere lehengusina Maria Perez de Bengoari 1625eko bere testamentuan bi txerrikume eman zizkion, bata txikia eta bestea handia, heriotzaren orduan urtebeteko ogi-eskaintzen eta ehorzterako frantziskotarren abituaren gastuak bere kargu hartzekotan¹⁰⁷¹. Eta Oñatin, 1705ean bere testamentua helarazi zuen San Antonio edo San Anton ermitako Magdalena de Galarragak bere lehengusu Joseph de Guridiri behi bat, eta koinatu Juan de Unzurrunzagari txahal bat eman zizkien¹⁰⁷². Herri berean, Catalinade Villarrek (1738) bere iloba Maria Andres de Amiama eta Teresa de Balzateguiri artile artoa bana eman zien, "de las obejas de Casa"¹⁰⁷³.

¹⁰⁷¹ GPAH-AHPG 1/2370, 85r-86v.

¹⁰⁷² GPAH-AHPG 1/3223, 167r-169r.

¹⁰⁷³ GPAH-AHPG 1/3293, 378r-379v.

Baina dohaintzak baino interesgarriagoak zaizkigu alokairuak, salerosketak eta bestelako tratuak, serorek abereei eta hauen produktuei etekinak ateratzeko zeuzkaten bideen eta moduen berri ematen baitigute. Tratu hauetan ageri zaigun Elgetako seroretariko bat Catalina de Aramburua dugu. 1589an Elgetako Andre Maria parrokiako apez eta benefizioduna zen Juanes de Traynak 56 dukatetan baloraturik zeuden idi-pare bat eta asto bat eman zizkion, hauen bidez, 1582an seroraren alde helarazi zuen 100 dukateko betekizun baten parte bat ordainduz¹⁰⁷⁴. Halaber, 1592an guztira 119 dukatetako balorea zeukaten hainbat abelburu saldu zizkion serorari bere anai Pedro de Aramburuk: Egoarbila baserriko idi-pare bat, bost behi (hauetariko bi, bigantxarekin), hiru txahal (bi eme, hiru eta bi urtekoak, eta har bat), eta 22 ardi heldu, hauetariko 12 arkumeeekin; eta Aranburu baserriko 17 ardi¹⁰⁷⁵. Beste salmentaren batzuk Bergaran aurkitu ahal izan ditugu. 1609an Francisca de Arana serorak Domingo de Igueribarren aldeko ordainketa-karta bat helarazi zuen, honek, serorak saldu zion idi-pare bategatik zor zituen 24 dukatak jada ordaindu zituela eta¹⁰⁷⁶. Magdalena de Castillo ere Bergaran izan zen serora, eta 1612an testamentua helarazi zuenean, bere ahizpa Maria Joaniz de Castillok eta honen senarrak, beste zorren artean, 12 dukat zor zizkioten, “del prescio de una baca con su cria y por un pollino y aunque ualen mas los estimo para con ella en los dichos doze ducados”¹⁰⁷⁷.

Elgetara itzuliz, abelburuen inguruko tratuetan ibili zen beste serora bat Isabela de Zabala dugu; 1573an Francisco de Ugartek bere aldeko 28 dukat printzipaleko eta urteroko 2ko zentsu bat fundatu zuen, bere Ugarteko etxearen gain. Domingo de Galarraga fidatzailearen alaba Maria, Martin de Ugarte Franciscoren seme eta oinordeko unibertsalarekin ezkondu zenez, Maria bere alabaren dote lez Domingo de Galarragak aipaturiko zentsuaren kargu hartzeko konpromezua hartu zuen. Zentsuaren ordainketa Marina de Galarraga Domingoren alargunak bukatu zuen 1586an, serorari 19 dukatetan baloraturiko idi pare bat eta 11 dukatetan baloraturiko 20 ardi emanaz. Serorak, 30 dukatetara heltzeko falta ziren bi dukatak ordaindu zizkion (zentsua 28 dukatekoa baitzen), eta finikitoaren ordainketa-karta helarazi zion¹⁰⁷⁸. Finikitoa helaraztearekin bat, serorak eta Marina de Galarraga alargunak beste tratu bat egin zuten. Honek serorarengandik guztira 77 dukatetan baloratuak izan ziren zenbait abelburu jaso zituen, 4 urtetarako, hauen etekinak (eta galerak) erdizka banatzearen truke: balore ezberdineko bi idi pare, behi zahar bat, behi bat txahalarekin, umedun zegoen beste behi bat aurreko urteko bigantxarekin (“su cria de entre año”), balore ezberdineko hiru txahal (eme bat eta bi har) eta 20 ardi. Halaber, zentsuaren finikitoa egiteko Marinak serorari saldu zizkion –eta tratu berriaren pean berriro bere esku utziak zituen– idi pare eta 20 ardiak serorak Marina berari berriro saltzeko konpromezua hartu zuen (eta ondorioz, hauek beste inori ez saltzera konprometatu zen), honek hiru urtean zehar hauen balorearen erdia ematekotan (30 dukateko balorea zeukaten)¹⁰⁷⁹.

Ikusi berri dugun tratu moeta hauek, abelburuen ustiapena erdizkako etekin eta galeren truke alokatzearenak, “Salmen” izenez ezagutzen ziren, eta tankera honetako tratuak egin zituzten Debagoieneko beste zenbait seroraren kasuak ere ezagutu ahal izan ditugu. Horietariko bat –jada aipagai izan dugun– Bergarako Francisca de Arana serorak 1608an Juan de Gabilondo Ahizpileta baserriko maizterrearekin hitzartu zuena dugu. Serorak 73 dukatetan baloraturiko honako abelburuak eman zizkion Juani, urte berean

¹⁰⁷⁴ GPAH-AHPG 1/1860, 150r.

¹⁰⁷⁵ *Ibid.*, 114r-114v.

¹⁰⁷⁶ GPAH-AHPG 1/0195, 325r-325v.

¹⁰⁷⁷ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹⁰⁷⁸ GPAH-AHPG 1/1859, 66r-66v.

¹⁰⁷⁹ *Ibid.*, 66v-67v.

serorak Mateo Ibañez de Urietarekin auzi batzuk medio egin zuen hitzarmen garrantzitsuago batean zehaztu zenaren arabera; honakoak ziren abelburuak: hiru edo lau urteko kolore arredun idi-pare bat, umedun zeuden lau behi eta urtebete baino zaharxeagoak ziren hiru txahal (bi har eta eme bat)¹⁰⁸⁰. Tratu moeta hauen beste bi kasu ere Bergararik datozkigu. Maria de Mecoletak 1713an bere testamentua helarazi zuenean, bere jatorrizko etxe zen Mekoleta Goikoan jabetzat zegoen eta berarekiko familia-erlazioen ezjakin gelditzen garen Andres Saez de Mecoletaren esku behi bat eta bere txahala utziak zituen, "a media gananzia", hau da, "salmen" tratupean¹⁰⁸¹. Francisca de Barrutiak (Soledadeko Andre Maria ermita, 1742) aldiz "salmen" tratupean zeuzkanak ardiak ziren, "en la Casa solar de Aristizabal [...] â Cargo de [hutsunea] Ynquilino de ella" zeudenak eta 21 dukatetan baloratuak zirenak¹⁰⁸². Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Mariaren santutegian serora zen Maria Lopez de Bergarak 1681ean Juan de Lamarianorekin hitzartu zuena zera izan zen: hiru urteko tratua egin zuten serorak Juani eman zizkion zazpi eta hiru urteko bi behi beltzen eta hauek izan zitzaizketen txahalen etekinen gain, 22 dukaten prezioan¹⁰⁸³.

Maria Lopez de Bergaraz gain, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko beste zenbait serorek ere egin izan zituzten abelburuen inguruko zenbait tratu. Aurreko kapitulu batean hainbat liskarren protagonista lez ezagutu izan dugun Maria de Gamarra serorak zenbait behi zituen bere ondasunen artean, eta bere heriotzean, bertako seroren ondasunen oinordeko unibertsal zen heinean (seroren borondatearen kontra, hala izan zedin nahi izan baitzuten udaleko agintariak), santutegiaren ondasunen parte izatera iragan ziren. 1685ean, bertan serora zen Luisa de Aguirrek behiak santutegiari erosi zituzten, 1674an bere alde helarazia izan zen 20 dukat printzipaleko zentsu baten truke¹⁰⁸⁴. Luisa de Aguirrek, ziurrenez "salmen" erako traturen baten pean, bere etekinak atera izango zituzten behi-taldeari, baina 1692rako, Luisa serora jada hila baitzen, hauek berriro santutegiaren ondasunen artean zeuden (noski, seroren oinordeko unibertsala izanik). Urte hartan, santutegiko administratzailea zen Ignacio de Sagastiberriak, apezpikutzako Probisore eta Bikario Orokorraren onespenearekin, santutegian zenbait obra egin izan zituen ("por anibelar sus suelos y azer dos altares nuevos") Gabriel de Imaz maisu igeltseroari 20 dukatetan baloraturiko eta jatorrian Maria de Gamarra seroraren behi-taldekoa izana zen behi bat eman zion, obraren ordainketa gisa. Serorarena izana zen behi-taldeko gainontzeko behiak ere, 660 errealetan baloratuak izan zirenak eta "salmen" tratupean "en la cassa que esta en frente de la dicha yglesia" zeudenak, Gabriel de Imaz berari saldu zituzten, 1694an¹⁰⁸⁵.

Abereen produktuen inguruko salerosketen berri xume batzuk ere heldu zaizkigu. Bergarako San Pedro parrokiako Catalina de Ondarza serorak bere 1572ko testamentuan aipatu zuenaren arabera, Maria Perez de Lamarianok 106 erreal eta laurdeneko zorra zuen berarekin (bahizatzikara bat eta urrezko kofia bat emanak zituzten), saldu izan zituzten "çiento y setenta e dos libras de toçino a veynte y un marauedis la libra" zirela eta¹⁰⁸⁶. Hirugiharre askotxo zen (79 kilo inguru), ez zen salmenta txiki kasual bat. Bergarako hiribilduan serora izan zen Francisca de Igueribarrek ere antzerako tratua zerabiltzan, Elgetako herritarrek ziren Pedro de Jaureguik eta bere fidatzaile Juan de Loidik zilarrezko 27 errealean betekizuna helarazi

¹⁰⁸⁰ GPAH-AHPG 1/0193, 42r-43v.

¹⁰⁸¹ GPAH-AHPG 1/0500, 33r-36r.

¹⁰⁸² BUA 01 L/152, 120r-122r.

¹⁰⁸³ GPAH-AHPG 1/2011, 101r-101v.

¹⁰⁸⁴ DEAH-AHDSS 2568/000-00, 11v-12v.

¹⁰⁸⁵ *Ibid.*, 6v-7r.

¹⁰⁸⁶ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

baitzuten bere alde 1578an, “por rrazon del preçio de un toçino que el dicho Pedro de Jauregui parte principal a comprado rreçiuído de ella ygualado y apreciado en dicha cantidad”¹⁰⁸⁷.

Zehazki abereei ez badagokie ere, azken berriren batzuek eman beharrean gaude, serorek etxe eta baserrietako ohizko aktibitateak esparru propioaren baitan ze puntutaraino hautematen zituzten adierazten digutenak. Baserri bakoitzak erlauntza propioak izan ohi zituen garai haietan, serorak ere izan ohi ziren hauen jabe, zegokien probetxua ateraaz. 1612an, Bergaran serora zen Magdalena de Castillok dohaintza berezi bat egin zuen bere testamentuan. 50 dukatetan baloratu zituen ehun, ohial eta arropa batzuk saldu zituzten agindu zuen, etekinekin honakoa egin zezaten: “es mi Uoluntad que compren asta ueinte y quatro colmenas de auejas y la rresta se enplee en azer asientos y dar luz y camino para ellas”. Hauen probetxua Castillo edo Gaztelu etxeko jabeei esleitu zien, “porque asi es mi Uoluntad” ezarri zuen baldintza batekin: “la miel que sobrare tomado lo que an menester la demas se enple y se de a pobres y personas menesterosas de ualde y sin presçio y las tales personas a quien ellos escogieren”¹⁰⁸⁸. Bergaran bertan, "salmen" tratupeko behiak zeuzkalako aipagai izan dugun Maria de Mecoletak (1713) bere ahaide Andres Saez de Mecoletaren jabegoko Mekoleta Goikoa baserrian erlauntz bat ere bazeukan, -bere hiletetako gastuen kargu hartu beharrean zegoen- baserriko jabeari berari eman ziona¹⁰⁸⁹. Antzuolan berriz, Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako serorek ere erlauntzak zeuzkaten partekaturik, eta hala, 1673an bertako Maria de Iturbe serorak bere ondasunen artean "las abejas que hubiere en el colmenar de la huer[ta] de esta dicha Cassa tocantes a mi mesma" izan zituen aipagai¹⁰⁹⁰.

Datu hauen argitara beraz, landa-eremuetako testuinguruan bezalaxe hiribilduetakoan ere, behiak, idiak, ardiak, astoak, nahiz bestelako abereak serora askoren ohizko bizimoduaren eta tratu eta salerosketen parte izan zitezkeela ondorioztatu beharrean gaude.

VI. 2.3. Ehungintzari eta joskintzari loturiko aktibitateak

Aurreko atal batean ere eman dugu ehunen, ohialen, arropen eta joskintzaren inguruko aktibitateen berri, baina han, zehazki zerbitzen zituzten tenpluen jabegokoak ziren -edo halakotzat hartzen ziren- ehun, ohial eta arropen ingurukoak baino ez genituen aintzat hartzen. Atal honetan berriz, langintza hauek aktibitate laiko partikular bezala seroren artean zeukaten garrantziaren eta ehun, ohial eta arropatan zeuzkaten ondasunen inguruan jardungo dugu. Gure ikerketak izan dituen ibilbideak direnak izanik, alderdi honen ikerketarako daukagun informazioaren parterik handiena iturri “pasiboetatik” dator; hau da, gutxitan ageri zaizkigu serorak ehunen eta ohialen salerosketan edo joskintza lanetan aipaturik, baina beraien ondasunen ikerketak hainbat aktibitateen berri ematen digu. Berezi testametuak izango ditugu informazio iturri, eta beraz, hasieratik hau garbi utzirik, aurrerantzean momentu oro informazioaren iturria testamentu bat dela zehaztea ekidingo dugu. Iturria beste tankera batekoa izaterakoan, noski, beharrezko azalpenekin aipatuko dugu.

Esan behar, aktibitate hauetatik gehien harritzen gaituena, ehunen, ohialen eta arropen inguruan maneiatzen ziren diru eta ondasunen kopurua dela. Izan ere, gaur

¹⁰⁸⁷ GPAH-AHPG 1/0118, 220v-221r.

¹⁰⁸⁸ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹⁰⁸⁹ GPAH-AHPG 1/0500, 33r-36r.

¹⁰⁹⁰ GPAH-AHPG 1/0783, 207r-208v.

eguneko ikuspegiak alderdi hauek ahaztera bagaramatza ere, ohizko ohialak eta arropak eguneroko kontsumoko artikuluen aldean ez ziren merkeak, eta kalitate onekotzat hartzen zirenak, oso artikulua garesti eta preziatuak izan zitezkeen, belaunaldiz belaunaldi igarotzen zirenak. Ondorengo orrietan ikusiko ditugun iturrietan aipaturiko ezein soineko, jaka, edo ohialek trukean nahiz dirutan izan zezaketen balorea, ohizko arropak baloratzerako orduan ikusten ohituta gauden prezioen aldean, oso handia izan zitezkeen. Ez dugu beraz inondik ere aktibitate honen garrantzia eta eragin ekonomiko eta soziala gutxietsi behar.

Hemen ere, lehenik eta behin Azpiazuk bildu zituen datuak aipatu beharrean gaude, aktibitate hauen inguruko ikuspegi bat osatzerako orduan, ondoren jasoko ditugun datuek berak bildu zituenekin bat egiten baitute. Autore honek, nahiz eta gaia jorrazteko eta oinarritzeko erabili zuen dokumentazioa oso ugaria ez izan, analisi zentzudun eta egokia egin zuen, aktibitate honen ohizkotasuna azpimarratuz. Mutrikuko (Gipuzkoa) 1622ko dokumentu bateko irudi arras argigarria dakargu:

Una serora encargada de la ermita de San Nicolás de esa localidad relata que recibió una visita 'de dos horas a las tres después del mediodía estando en mi labor de costura al sol junto a la dicha hermita en la viña de maría de presa, dejando en la dicha hermita en su telar a maría domingo de yurre serora mi compañera' [...] Esta situación debía ser muy habitual, y estampas similares se han mantenido hasta nuestros tiempos en el ámbito rural y en pequeños núcleos de población (Azpiazu 1995a, 51)

Gure ikerketetan ere heldu zaigu honelako egoeren "ohizkotasunezko" testigantzarik ere. 1589an Oñatiko Santa Katalina ermitako Mari Ramos de Laquidiola serora eraila izan zenean egin ziren ikerketa-dilijentzietan, -serora-laguntzailea zen bere ahizpa Maria de Olazaran salatzen bukatu zuen- 11 edo 12 urteko Juan Garcia de Olazaranen testigantza jaso zenean, hain zuzen ere ermitatik joan zen batean "dena normal zegoela" adierazteko asmoz honako irudia eman zuen: bere ahizpak ogi bat emanik kalera bidali zuen, eta gero hilda azalduko zen serora nagusia "estava y quedo hilando asentada en las puertas de la cassa de la hermita sana y buena"¹⁰⁹¹.

Ohizkoa zen, era berean, Mutrikuko Kontzepzioaren eta Santa Agataren ermitako seroraren 1634ko testamentuak arropen joskintza lanen inguruan azaltzen zuen egoera; balio bekigu sarreratzat, Azpiazuk laburbiltzen dizkigun seroraren aldeko zorren partidak eta tankerakoak, jarraian ikergai izango ditugun testamentuetan ere usu agertuko baitzaizkigu:

Joan Ramos de Yturriaga y su mujer le debían cinco ducados y medio 'de mi trabaxo de texer lienços'. Agata de Ascarça le adeuda dinero de una toalla 'y de averle texido lienços y camisas de su hijo'. Catalina de Laranga le debe nueve reales y medio 'de lienços que le texí e hilo que la dí para cumplir el lienço'. Trabajaba también para gente de fuera: un vecino de Zumaya, el escribano Martín Díaz de Oquina, le debía dinero 'de lienços que le he texido', y una vecina de Deba quedaba a deber 16 reales 'de averla texido toallas' (Azpiazu 1995a, 51)

Debagoiengan kokaturik, serorek eurek joskintza lanak egiten zituztela adierazten digun lehen datu sorta bat, lehengaien edukitzeari dagokiona da. Hainbat kana, azao eta bestelako neurri aipatzen zaizkigu, "lienço", "lino", "estopa", edo bestelako lehengaiei zegozkienak, eta Debagoiena guztian zeharreko parroketako, ermitetako nahiz bestelako seroren testamentuetan aipaturik ageri zaizkigunak:

¹⁰⁹¹ OUA Z 1063.9, 35v.

Bergarako¹⁰⁹², Elgetako¹⁰⁹³, Antzuolako¹⁰⁹⁴, Arrasateko¹⁰⁹⁵, Eskoriatzako¹⁰⁹⁶, Leintz Gatzagako¹⁰⁹⁷ eta Oñatiko¹⁰⁹⁸ kasuak bildu ahal izan ditugu, aski ugariak. Ehun eta ohialen produkzioaren erakusgarri izan litezkeen adibideren batzuek aipatu litezke, langintzaren fase ezberdinetako produktuak agertzen zaizkigunak; Elgetako 1609ko Magdalena de Urrojolaeguiaren testamentuak material ugari aipatzen ditu: 3 "manogillos de lino rrestrillado", 2 azao "delgados de lino" eta beste 2 "de lino delgado que dexo rrestrillado", 12 liozko azao "que estan por majar o maçar", "el lienço para sendas camisas y sendas gorgueras de que se haga lienço del hillo y jouillos que dexo" eta saltzelkoak ziren "lo demas lienço", "unos pocos de yllos en cuellos y madejas para azer lienço", 12 azao "de lino delgado rrestrillado", 12 azao "de lino sin maçar", eta "otros pocos de lino espadados"¹⁰⁹⁹. Arrasaten, 1599an, Maria de Arostegui serorak 4 erreal eta "una libra y catorze onças de ylado de estopa debanado grueso" eman zizkion dohaintzan "la beata de Asconixa"-ri, eta inbentariatu zituen ondasunen artean "treynta baras de lienço delgado de una tela - mas asta dis libras y medio de ylado de çerro

¹⁰⁹² Francisca de Igueribarrek (1581): 18 liozko azao (12 Maria Garcia de Iturbe serorari eta beste 6 Marina de Barrutiari eman zizkien dohaintzan), eta jada landuriko liozko bost libra (GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v); San Lorentzo ermitako Marina de Moyugoitiak (1574) ere zenbait lehengai bazituela pentsa liteke, testamentuan aipaturiko ohial eta arropen beste, aparteko memorial batean zehazturiko "de linos como de lienço y otras cosas" batzuk aipatu baitzituen (GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v); eta San Pedro parrokiako Maria de Aguirrek (1631): 30 liozko azao, eta baita "yllo curado"-ko 2 libra ere (GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v).

¹⁰⁹³ Jarraian aipagai izango dugun Magdalena de Urrojolaeguiaren (1609) kasuaz gain: Magdalenaren ospitaleko Marina de Larraguibekek (1576): 8 libra "de yllos delgados en madexas por entrar en agua", 8 azao "de linos spadados con [çiertos?] copos de lino rraptulados" eta "los demas linos" (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v); eta Andre Maria parrokiako Maria Ochoa de Marquieguik (1592): "algunos linos adreçados" eta "çiertas madexas de yllo delgado de la tierra" (*Ibid.*, 41r-42v).

¹⁰⁹⁴ Agueda de Zumaetak (1640): 10 edo 11 kana "de estameña que costo a honze reales", "illo de lino para dos pieças de lienço de a çinquenta baras poco mas o menos", eta 6 azao "de lino espadado" (GPAH-AHPG 1/0769, 115r-118v); Ana de Benituak (1642): 50 azao "de lino espadados y [sin] espadar" (*Ibid.*, 324r-325v); Maria de Zumaetak (1671): 9 "sartas de lino de a seis azes o gabicás", eta "en obillos illo blanco asta en cantidad de treinta baras de lienzo de diez cassas" (GPAH-AHPG 1/0783, 1r-8v); eta Dionisia de Jauregui Madariagak (1720): xedatuki azaldu ez zituen zenbait ondasunen artean, "Ropa, lino, [...] y otras Cosas" aipatu zituen (GPAH-AHPG 1/0529, 251r-253v).

¹⁰⁹⁵ Jarraian testu nagusian aipatuko dugun Maria de Arosteguiaren (1599) kasuaz gain: Santa Marina ermitako Teresa de Urisarrik (1603): 6 liozko azao eta "las demas [...] y linos y [...]" (GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r); Udalako San Esteban parrokiako Catalina de Huruburuk (1610): "una madeja de lino sin trangar" aipatu zuen (GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr. -f.g.-); Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioko Maria Perez de Bengoak (1625): 6 liozko "[u?]naços" eta beste bat "de lino sin majar" (GPAH-AHPG 1/2370, 85r-86v), eta bere ondasunen enkantea ere heldua zaigu, eta bertan, "los linos todos" 24 errealetan errematatu zirela dakigu (*Ibid.*, 89r-90v); eta Ana de Ayestak (1664): "albas y otras cosas" egiteko zen ggb. 40 kanako ohial pieza bat (GPAH-AHPG 1/2402, 97r-98v).

¹⁰⁹⁶ Ikus aurreraxeago xehetasunez azalduko dugun Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Domenja de Zubiaren kasua.

¹⁰⁹⁷ Dorletako Andre Maria santutegiko Mariana de Anuncibaik (1655): "veinte y seis y veinte y siete Barras de lienzo Cassero de Granillo para manteles y seruilletes" eta "beatilla"-zko ohial pieza (LGUA 331.3, 92r-94v).

¹⁰⁹⁸ San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelaik (1591): lio onezko 2 libra (GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r); Narria auzoko San Lorentzo ermitako Maria de Villarrek (1629): "8 baras de lienço para unos panos menores", eta bere bi anairi, eta bere ahizpa eta koinatuari ehunak "a cada 8 baras para sendas camisas" (GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v); Narria auzoko San Lorentzo ermitako Catalina de Gallasteguiak (1678): hainbat ohial pieza, dohaintzan eman zituen ohe baterako estalkiak, 5 alkandora eta 4 "gorguera" egiteko (GPAH-AHPG 1/3206, 55r-56r); San Antonio Abad edo San Anton ermitako Magdalena de Galarragak (1705): 66 kana "de lien[zo] en dos pieças" eta 27 liozko azao (GPAH-AHPG 1/3223, 167r-169r); Catalina de Villarrek (1738): 2 arroa "de Lana de las obejas de Casa" (GPAH-AHPG 1/3293, 378r-379v); eta San Antonio Abad edo San Anton ermitako Ignacia de Iralak (1755): 2 ari libra (GPAH-AHPG 1/3304, 7r-10v).

¹⁰⁹⁹ GPAH-AHPG 1/1845, 25r-27v.

grueso” ere bazeuzkan¹¹⁰⁰. Kuriosoki, Aretxabaletan, ondoren ikusiko dugunez, serorek ondasun gehienak ohial eta arropatan zeuzkaten herri batean, ehun eta ohialen lehengaien aipamenak falta zaizkigu. Noski, zenbaitetan ageri zaigun bezala, lehengaiak salerosketarako ere izan zitzaketen, zuzenean joskintza lanen bidezko produktiorako erabili beharrean. Baina askotan, jarraian ikusiko dugun lez, batez ere Leintz bailarako (eta honen baitan, batez ere Aretxabaleta eta Eskoriatzako) serorekin gertatzen zen lez, ehunek, ohialek eta arropek beraien ondasunetan zeukaten protagonismoak nabari agertzen digu serora hauek jostun finak izan beharrean zeudela.

Are nabariagoak zaizkigu joskintza lanak, dohaintzen artean ehungailuak eta joskintzarako elementu ezberdinak aipatzen zaizkigun zenbait kasutan¹¹⁰¹, eta kasu hauetan eta beste batzuetan, ehunen eta ohialen salerosketan ere ageri zaizkigu; serora hauen artean, joskintzari, merkataritza eta salerosketa aktibitateak batzen zaizkio. Kasu deigarriren batzuek aipatu litezke: Elgetan, San Adrian eta San Antonio ermitako Domenja de Altuberi (1599) Joan de Possadak "por deuda de su madre" -diruaz gain- 3 kana "de lienço de tocas de esta tierra" zeuzkan ordaintzeko, Joan Ochoa de Urruxolaegui izkribaua bere emaztearen zor batekin egin beharrean zegoen bezala, azken honek serorari 8 kana "de beatilla de balor de cinco quartillos la bara" erosiak baitzizkion, eta Maria Garcia de Urruxoaleguik berriz, 6 kana "de lienço de tocados de mugeres a cinco quartillos por bara" zeuzkan ordaintzear¹¹⁰². Bergarako Soledadeko neskatxek ikastetxearen fundatzaile izan zen Maria Clara de Berroetaren kasua ere aipatu beharrean gaude, serora beraren jostun lanak ere agertzeaz gain, salerosketa hauetan arropek izan zezaketen balore ekonomikoa dezenteko neurrira hel zitekeela azaltzen baitigu; 1750ean helarazi zuen testamentuaren partidetariko batek honela zioen:

Tambien declaro que tengo una punta de Albatra bajada con todo primor y de punto particular por mis manos de mucho ualor y atento de que no abra persona que desembolse su ualor procurara mi heredero remitir â Bilbao ô otra parte para que se ponga en Rifa y su importe sea para pagar las deudas de este seminario¹¹⁰³

Serorak Bergaran eta inguruetan eroslerik aurkitzea ez espero izateko, balore handia behar zuen “punta de Albatra” hark izan. Adibide gutxi hauek deigarritzat aipatu ditugu, baina Debagoieneko herri gehienetatik heldu zaizkigu Aro Berri guztian zeharreko salerosketa aktibitateen adibideak, ugari heldu ere¹¹⁰⁴. Areago, serora batzuek

¹¹⁰⁰ GPAH-AHPG 1/2353, 201r-205v.

¹¹⁰¹ Elgetan, Andre Maria parrokiako Gracia de Urrupainen (1587) zordunen artean Ana de Bolibar zegoen, "del trabajo de auer texido çierto lienço que tiene en el telar" zor zizkion 7 erreal eta 1/2-rekin, eta ondasunen artean 6 azao "de lino majadas - de lino grueso" ere aipatu ziren (GPAH-AHPG 1/1854, 53r-55v); herri bereko Magdalenaren ospitaleko Gracia de Sagastak (1637), ohialen salmentagatiko zenbait zor izateaz gain ("de lienços" ziren 17 errealeko partida bat, eta 35 kana "de lienço de a dos rreales y doze marauedis la bara"-ren beste bat), Domenja de Zuazola "la beata mi companera" zenari "el pene de texer de mis telares" eman zion, eta bere iloba Maria Garcia de Sagastari aldiz, "lo demas aparejo del telar con sus armaçones de madera" (GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v); Arrasateko Francisca de Gabiriak (1639), bere ondasunen artean, "vn molde para azer tocados", "dos pares de a[*licos*?] de texer con mas diez penes de texer" eta "unos [*alicos*?] de texer biexos en casa de Ursola" aipatu zituen (GPAH-AHPG 1/2391, 44r-46v); Bergaran, San Martin ermitako Maria Ana de Micolalde (1762), ohea, oramahiak, lareak, eta bestelako ondasunen artean, Josefa de Echaleku bere "criada" zenari, "por los buenos seruiços que me hà hecho y por lo uien que me hà asistido y asiste en mi presente emfermedad", "el telar con sus aderezos" eman zion dohaintzan (GPAH-AHPG 1/0615, 423r-426v).

¹¹⁰² GPAH-AHPG 1/1853, 38r-41r.

¹¹⁰³ GPAH-AHPG 1/0555, 163r-170r.

¹¹⁰⁴ Bergaran: San Pedro parrokiako Catalina de Ondarzari (1572) San Juan de Aguirre “tanbolitero”-ak 7 erreal zor zizkion “por çiertos paños que tomo de Martin de Castillo”, eta Esteban de Madariagak 73 errealeko zorra zuen, garbi irakurtzerik izan ez dugun baina ohialezkoak ziren artikulua batzuegatik: “por

lan hauetan espezializaturik zeudela dirudi, enkarguak ere egiten baizitzaizkien, seroren euren artean ere. Hala, Antzuolako Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria de Iturbe seroraren jostun lanak preziatuak zirela esan liteke; 1645ean, parrokia bereko seroren komunitateko partaide zen Marina de Iraetak "para touajas" ziren 44 kana "la Beata de Iturbe"-ren eskutan utziak zituen, "por texer y en mi arca el yllo necesario para ello"¹¹⁰⁵. Eta Maria de Iturbe beraren testamentuan (1649) bertan, jostintza lanen enkarguen beste seroraren batzuen zorrak ere ageri zaizkigu: "la beata de Oxirondo vezina de esta Uilla" zenak 25 erreal eta 1/2-ko zorra zeukan "por texer una beatilla de ochenta baras a respecto de tres reales cada bara de nueue que poco mas o menos me cauian por texerla", eta "la beatta Cathalina de Licayturri"-k aldiz, 20 erreal eta 3/4-ekoa zuen zorra, "por texer una pica de beatilla de sesenta y ocho baras"¹¹⁰⁶. Beste kasu bat Eskoriatzako serora batzuen dugu; Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Maria santutegiko serora zen Mariana de Anunciabaik 1655ean egin zuen testamentuan "las Señoras Beatas que estan en encomienda del Bachiller Erostarbe Cura de la Villa de Escoriaza" aipatu zituen, jantziren batzuek josi zizkiotela, eta eurek esan zezatena ordaintzeko zeukala eta¹¹⁰⁷.

Testu nagusian eta oinpeko notetan azaltzen joan garen kasuetako datu sortak, salerosketan materialek eta manufakturiko elementuek izan zitzaketan prezio aldakorrek ere azaltzen dizkigute. Ohe-estalki batek 10 dukat balio zitzakeen, eta beste bik ostera, 38 erreal baino ez. Kapak, zaiak eta bestelako jantziak ageri zaizkigu, 5 dukaten inguruko preziotan, eta "pieça de beatilla" bat, 12 dukat eta 8 errealetan baloratua izan zena. Maria Clara de Berroetaren "punta de Albatra" ere balore handikoa zen, zalantzarik gabe. Baina oso zaila da balorazio ekonomiko zurrunik egitea, besteak beste, material eta arropak aipatzerako orduan, erabateko zehaztasunen beharrik hautematen ez zelako, eta beraz, baloraziorako xehetasunak aurrezten zirelako. Edozein kasutan, zenbait arropak izan zezaketan balorea handia zen, batzuetan, auziak ere sorrarazterainokoa. 1586an gertatu zen auzi hauetariko bat, auzitan zen kaparen balioa

rason del preçio de tres [??] de paño"; Leizariako San Lorentzo ermitako serora zen Marina de Moyugoitiari (1574) Pedro de Galarrolazak eta bere emazteak 10 dukat zor zizkioten ohe-estalki bategatik, eta "una persona que sabe Maryna de Habraen my prima"-k 5 dukat zor zizkion, "por un capote que les di para bender" (GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v); Santa Marina parrokiako Maria de Beitzeguirri (1594) Joan "[??]" de Narbaizak 30 erreal zor zizkion, serorak bere emazte defuntu Marina Joaniz de Egurbideri 38 errealetan saldu izan zizkion bi ohe-estalki zirela eta ordaintzeko falta zirenak (GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v); San Pedro parrokiako Marina Garcia de Oruesgasastiri (1607) bere iloba Andres de Garitanok 5 dukat zor zizkion, "por vnos Uestidos que le di esaminados en ellos", eta Magdalena Perez de Irazabalek ("hija de Miguel de Yraçaua") berriz 20 erreal, "por tres baras de Olanda" (GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v); Maria de Izaguirreri (1631) "la beata de Urruçelaegui"-k 12 dukat eta 8 errealeatik ordaintzeko falta zitzaizkion 74 erreal zor zizkion, "por la pieça de beatilla que le di echo ya el preçio" (GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r). Elgetara iraganez, San Adrian eta San Antonio ermitako serora zen Marina de Altuberi (1603) Gonzalo de Abechucok 14 erreal zor zizkion, "de rresta de una tela de lienço" (GPAH-AHPG 1/1853, 215r-218r); eta Angiozarreko Elexamendiko Andre Maria ermitako Catalina de Mendiguchiari (1638) Maria de Arexcurenaga "texedora"-k 2 dukat zor zizkion, serorak ohialen truke maileguan emanak zizkionak ("prestados por lienços") (GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v). Antzuolan, Maria de Ibarrek (1659) Bergarako herritarra zen Miguel de Argarate "dezmero"-ari "vna pieza de Beatilla [...] a tres reales menos quartillo la Bara y tenia quarenta y seis y medio" emanak zizkion, oraindik zeharo ordaindurik ez zeudenak (GPAH-AHPG 1/0774, 157r-161r). Oñatin, 1591n San Kristobal ermitako serora zen Magdalena de Uclairi Estibariz de Orueta San Lorentzo ermitako serorak 5 dukat eta 1/2 zor zizkion, "por el balor de una saya blanca que le bendi" (GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r); eta San Migel parrokiako Ana Catalina de Inzari (1751) Juan de Amezquetak 15 kana "de lienzo de la tierra" zor zizkion (GPAH-AHPG 1/3358, 525r-528v).

¹¹⁰⁵ GPAH-AHPG 1/0770, 395r-398v.

¹¹⁰⁶ GPAH-AHPG 1/0771, 239v-241r (moztuta).

¹¹⁰⁷ Horrez gain, bere ondasunen artean 26 eta 27 kana "de lienzo Cassero de Granillo para manteles y seruilletes" eta "beatilla"-zko ohial pieza bat aipatu zituen (LGUA 331.3, 92r-94v).

azaltzeaz gain, serorak ehunen, ohialen eta arropen testuinguruan elementu garrantzitsu eta errespetagarritzat hartzen zirela adierazten diguna. Urte hartan korrejidoreak kapa bat utzi zuen Bergarako Maria de Munabe seroraren eskutan, Pedro de Alaizak eta bere emazte Maria de Arcayak Gracia Lopez de Gallaizteguiren aurka kaparen jabegoa zela eta hasia zeukaten auzia bukatu artean, gordailuan izan zezan. Korrejidoreak ardurak eman izana hauen hautemapen sozialarekiko oso esanguratsua dugu, auzitan ziren ondasunen gordailutza eta zaintza ezaugarri jakin batzuk zituzten pertsonen baina ez baizitzaizkien esleitzen: fama onekoak, errespetatuak eta arazo ekonomikorik ez izateko besteko aberatsak behar zuten izan. Horrez gain, beste edozeinen eskutan beharrean kapa seroraren esku utzi izanak, gizartearen baitan propioki serorek izan ohi zituzten ondasun moeta bat bezala hautematen zela ere ematen digu aditzera. Azkenean, auzia Garcia Lopez de Gallaizteguik irabazi zuen, eta serorari kapa itzultzea agindu zitzaion¹¹⁰⁸. Azaldu berri ditugun ondoren, beraz, komeni da lehenxeago aipatu ditugun gutxi gora beherako prezioak buruan gordetzea, balorazio hauen argitara ondorengo orrietan seroren eskutan ikusiko ditugun material eta arropen kopuruari erreparatzeak, hauen ehun, ohial eta arropen dezenteko kapital ekonomikoa osatzen zutela pentsatzera baikaramatzate.

Adibide hauek ez digute argitzen, halaber, serorek salerosketa aktibitate hauek ze puntutaraino antolatutik izan zitzaizkien; aldizkako salmentak izan zitezkeen, ohizkoak izanagatik, diru-sarrera konstante bat zertan osatu ez zeukatenak. Zentzu horretan askoz kasu nabariagoa dugu Bergarako Marina de Jauregui serorak XVI. mende erdialdean Martin de Lazpiur, Domingo de Iribe eta Juan de Iribe “mercader en lençeria” eta “lençero” zirenekin, batez ere lehenarekin, egin zituen tratua. 1540 eta 1556 bitartean serorak merkatarik hauen aktibitateak finantzatzeko parte hartu zuela dirudi, hainbat erosketa ere eginez. Beraien arteko tratuen formula betekizunarena izan ohi zen, baina batzuetan serorak emaniko mailegu bat zela eta merkatariek betekizun bat helarazten zuten artean, bestetan betekizunaren helarazpena eta bertako zorraren finikitzea egun berean egin ziren; hau da, betekizunaren formularen pean ezkutaturiko salmentak ere egin zizkioten serorari. Horrela, 1540ko otsailaren 11n Martin de Lazpiurrek seroraren aldeko 76 dukateko (“setenta” hitzaren irakurketaren inguruan zalantzak ditut, 66 ere izan zitezkeen) betekizuna helarazi zuen (Juan Perez de Arrizuriaga zuen fidatzaile), eta egun berean serorak merkatarikaren alde betekizun honen ordainketa-karta helarazi zuen¹¹⁰⁹. Urte bereko apirilaren 11n Domingo eta Juan de Iribe anai merkatarik “lençero”-ek, Domingo de Zubileta fidatzaile zutela, bakoitzak seroraren aldeko 40 dukateko betekizun bana helarazi zuten¹¹¹⁰. 1543ko martxoaren 17an, “huesped de la casa e caseria de Laspiur” zela ageri zaigun Martin de Lazpiurrek eta serorak euren arteko harreman komertzialen kontu-kitatze bat egin zuten. Tarteko zeuden 12 eta 6 dukateko zor sorta baten ordainketa lez merkatarik seroraren aldeko 56 dukateko zentsu bat fundatua zuen, eta hau finikitatu zuen. Jarraian, egun berean, seroraren aldeko 30 dukateko betekizun bat helarazi zuen¹¹¹¹. 1545eko urtarrilaren 18an beste salerosketa bat izan zen; Pedro de Lazpiur (“casero dueño de la casa e caseria de Laspiur”) fidatzaile zuela Martin de Lazpiurrek seroraren aldeko 30 dukateko betekizuna helarazi zuen, eta egun berean serorak 30 dukat horien bere aldeko ordainketa-karta helarazi zuen¹¹¹². 1556an serorak bere testamentua helarazi zuenean, momentuan “en las Yndias” zegoen Juan de Iriberekin kitatu beharreko zorraren bat zeukan antza, bere emazteari edo

¹¹⁰⁸ GPAH-AHPG 1/0126, 891r-892v. Folio hauetan korrejidorearen agindua, kaparen ematerako fidantza eta ematea bera datoz jarraian.

¹¹⁰⁹ GPAH-AHPG 1/0039, 69r-69v.

¹¹¹⁰ *Ibid.*, 125v-126r.

¹¹¹¹ GPAH-AHPG 1/0043, 104v-105v.

semeei urrezko 4 dukat eman ziezazkietela agindu baitzuen, “por descargo de su conciencia”¹¹¹³. Itxura guztien arabera, seroraren maileguek bere garrantzia zuten ohialen merkatari hauen negozioak sostengatzerako orduan (batere arraroa ez zen kasua, aurrerago maileguei eskainiriko atalean ikusiko dugun lez); eta serorak berak ere, zalantzarik gabe, ohialen salerosketa guzti hauetan izango zuen etekin propiorik. Kasu honen argitara, beraz, seroraren batzuk negozio hauen inguruko antolakuntzetan neurri bateraino parte hartu izan zutela esan liteke.

Ondasun hauek seroren ondasunen testuinguru orokorrean zeukaten papera hautemateko zenbait seroraren testamentuak xehetasun gehixeagoz aztertzeraz igaroko gara; hainbat adibide bildu ahal izan ditugu, baina zalantzarik gabe, Oñatiko beste kasuren batzuekin batera, jarraian azalduko ditugun Aretxabaletako eta Eskoriatzako seroren testamentuak dira aktibitate hauen inguruko daturik esanguratsuenak ematen dituztenak, eta ondorengo orrien egituraketarako ardatzak beraiengandik jasoko ditugu. Ehun, ohial eta arropen ondasunak bereziki garrantzitsuak ziren serora hauen artean, ondoren garbiago ikusiko dugunez, hiribilduetako testuinguru komertzialek eragin handiagoa zeukaten espazioetan diruaren presentzia handiagoa zegoen bezalaxe, Leintz bailarako landa-eremuetako espazioek diruaren presentzia eskaseko espazio bat azaltzen baitigute; hau da, kasu hauek, dirua hain presente ez zegoen lekuetan, ehunak, ohialak eta arropak, truke eta harremanetarako elementu garrantzitsu zirela agertzen digute¹¹¹⁴.

Testamentu hauetan nabarmenena 1622an Eskoriatzan, Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokan serora zen Domenja de Zubiarena dugu. Bertan dohaintzan eman zituen lehengai ugariak jostun aktibitate nabari bat agertzen digute; funtsean, honakoak ziren: “de lienso casero ancho sin entrar en agoa de la tierra” 34 kana, iztupaharizko 13 libra, “lienço bueno de la tierra estrecho sin entrar en agoa” 4 kana, “lienço de esta tierra de estopa sin entrar en agoa” beste 4 kana, “estopa sin entrar en agoa” 3 kana, harizko 5 libra “que tengo echo jubillos para que aga tejer [*dohaintzaren jasotzaileak*]”, material berberetzko beste 3 kana, 2 mataza “de çerros de bino” eta “de lienço casero de la tierra sin entrar en agoa” 6 kana. Zeuzkan gainontzeko ondasunen parterik handiena ohial eta arropen osatzen zuten, eta dirutan, Gaspar Abbad de Cilaurren apezaren eskutan “para el socorro de mi alma” utziak zituen 100 erreal, eta bi emakumek, serorak mailegutuan eman izan zizkielako zor zizkioten 8 dukat baino ez zeuzkan. Hau da, Domenja de Zubiak bere ondasunak ez zeuzkan hainbeste dirutan, ehun, ohial eta arropen baizik. Hauek dohaintzan banatu eta gero, bestalde, aipaturikoen gain zeuzkan beste zenbait ohial eta arropen berri eman zuten, bere arimaren aldeko gastuentzako sal zitezzen aginduz; arimaren gastuetarako ere, Gaspar Abbad de Cilaurren apezaren eskutan utziriko 100 errealez beste, ez zen gordetako

¹¹¹² GPAH-AHPG 1/0044, 30r-31r. Foliazio nahasketa bat dago tarteko, erreferentzia azken zuzenketari dagokio.

¹¹¹³ GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v.

¹¹¹⁴ Testamentu hauek XVI. mende bukaera eta XVII. mende hasiera aldean kokatzen dira, XVII. mende hasieratako desagerrarazte aginduak Leintz bailarako seroren artean aldaketa sakonak, besteak beste mendea igaro ahala gauzatu zen serora ezkongabe gehienek desagertzea, eragin baino lehen. Hauetariko batzuk, beraz, zegokien tenpluan zerbitu zuten azken serorak izan zitezkeen. Horrez gain, Leintz bailarako seroratzat batzuen ezaugarri bereziak ere aintzat hartu beharrean gaude. Jarraian ikergai izango ditugun testamentuak, hain prezeski ere, testatzeko gaitasuna bazeukaten serorenak baitziren; izan ere, aurreko kapituluetan azaldukoaren arabera badakigu bailarako beste zenbait parrokia eta ermitatako serorek kargura sartzerakoan testatzeko gaitasuna ukatzen zuten hitzarmena egiten zutela, eta beraz, printzipioz behintzat, testamenturik ezin helaraz zezaketela. Alabaina, eskuratu ahal izan ditugun testamentuek azaltzen dizkiguten egoerak, oinarritzko bizimoduari dagokionez eta trazu orokorretan behinik behin, testatzeko gaitasunik ez zeukaten seroren egoeren adierazgarri ere bazirela pentsa liteke, nahiz eta hauek, bilduriko ondasunak banatzekotan, bizi artean egindako ezkutuzko dohaintzetan banatu beharra izango zuten.

diruez baliatu, ondasunez baizik¹¹¹⁵.

Domenja de Zubiaren kasuaren oso antzerakoak dira Eskoriatzan bertan eta Aretxabaletan aurkitu ahal izan ditugun beste zenbait serorarenak ere. Eskoriatzako hiribilduko San Pedro parrokian 1594an serora zen Maria Lopez de Espillaren ia ondasun guztiak ere ehun, ohial eta arrokek osatzen zituzten; dirutan Errosarioaren kofradiari (8 erreal), Eskoriatzako parrokia (erreal bana) eta ermitei (erreal erdi bana), ordena mendikanteei (erreal laurden bana) eta bere parrokiako benefiziodunei (6 dukat?) emandakoez, eta serorak berak Martin Abad de Aguirianorekin zeukan 6 dukateko zorraz beste, ez zaigu dirurik gehiago aipatzen¹¹¹⁶. 1634an Aretxabaletan, hiribilduko serora zen Catalina de Bengoaren testamentuak ere antzerako banaketa agertzen digu. Parrokiako Sakramentu Santuaren argiteriari dohaintzan emandako 20 dukat printzipaleko zentsu batez eta “la alumbraria de las yglesias de Nuestra Señora de Arechualeta y San Miguel de Bedarreta, Nuestra Señora de Leynçabal San Juan de esta uilla y San Martin de Ybarra” ornitzeko eman zituen olio libra banaz beste, gainontzeko ondasun guztiak ehun, ohial eta arrokek osatzen zituzten¹¹¹⁷.

Baina noski, kasu guztiek ez zuten eredu hau jarraitzen. Aretxabaletan bertan 1629an serora zen Maria Ruiz de Araoz y Duranak, ehun, ohial eta arropez beste, mailegutuan emandako diruegatik hainbat zordun zituen (ggb. 305 errealeko kopurua zor ziotenak), eta baita Larreako Kontseiluaren (Araba) aurkako 400 dukateko zentsu bat ere, bere anaiak heriotzerartean usufuktoan gozatzekoa, eta ondoren, honen alabak propietatean jasotzekoa¹¹¹⁸. Beste testamentu batzuetan oster, ondasun gehiegirik izango ez zutelako edo aipatu beharrik ikusi ez zutelako, dohaintza gutxi batzuk egiteaz gain, oinordekotza ezarri baino ez zuten egin. Horrela, Aretxabaletan, Aozarata elizateko San Juan Bataiatzailea parrokian 1615ean serora zen Maria Lopez de Celayak parrokia beraren aldeko zenbait dohaintza (aurreko serorak bere eskutan utziriko seroretzeko “bastago y axuar”-a –jarraian etortzekoa zen serorarentzat izango zena–, eta bi alba eta bi eskutarako trapu, parrokiarako eta San Migelen kaperarako) eta inguruko parrokia eta ermiten argiteriarako olio dohaintzak eta ordena mendikanteei zegozkien derrigorrezkoak (bakoitzari hiru marabedi) egin zituen, eta gainontzeko guztirako, bere anaia izendatu zuen oinordeko unibertsal¹¹¹⁹. Herri bereko Izurieta elizateko San Pedro parrokian 1644an serora zen Maria de Zabalak ere, “a las mandas forçossas” eman beharrekoak (35 marabedi) eta zenbait parrokia eta ermitatarako olio dohaintzak eginik, ez zuen inongo ondasunik aipatu, eta bere iloba Juan de Olabe egin zuen oinordeko¹¹²⁰. Eskoriatzan, Gellao elizateko Andre Maria parrokian 1674an serora zen Ana de Echabek ere antzera jokatu zuen; “a las ordenes mendicantes” eman beharrekoak eta parrokia eta ermiten argiteriaren aldeko olio dohaintzak eginik, bere iloba Magdalena Lopez de Echaberi bere ohea eta kutxa (barruan zeukan guztiarekin) eman zizkion, eta “mi lexittima patterna y matera” eman zizkion eta halaber iloba zuen Antonio Lopez de Echabe izendatu zuen oinordeko¹¹²¹.

Baina ez gaitzen gaitik gehiegi urrundu, eta itzul gaitzen ehun, ohial eta arropak ondasun nagusi zituztela badakigun seroren testamentuak ikertzera. Aipatu berri ditugun seroretariko baten kasuak, Maria Lopez de Espillarenak (Eskoriatza, San Pedro parrokia, 1594), testamentuetan aipaturiko ondasunen eta benetan zituzten ondasunen

¹¹¹⁵ GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v.

¹¹¹⁶ GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v.

¹¹¹⁷ GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r.

¹¹¹⁸ GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r.

¹¹¹⁹ GPAH-AHPG 1/0866, 3r-5r.

¹¹²⁰ GPAH-AHPG 1/0876, 146r-147v.

¹¹²¹ GPAH-AHPG 1/0889, 25r-26r.

artean egon zitekeen aldea azaltzen digu. Izan ere, gehienetan ez baitziren ondasun guztiak aipatzen, banatu nahi zirenak baizik. Beste parte bat, aipatu gabea, besterik gabe oinordeko izendatzen zen onuradunari zegokion, hau ahaideren bat, arima, edo are tenpluren bat izan. Eta honek seroren ondasunen balorazio bat egiterako orduan zuhurak izatera garamatza, jarraian ikusiko dugun lez, testamentuetan aipaturikoez besteko aipatu gabeko ondasunak asko izan baitzitezkeen. Maria Lopez de Espillaren kasuari erreparatuko badiogu, testamentuan ehun, ohial eta arropatan zeuzkan hainbat ondasun aipatzearekin bat, jarraian bere ondasun guztien inbentariatzea egin zutelako da (9 dokumentua, 1094-1095 or.). Litekeena da inbentarioa serorak bere oinordeko parrokia izendatu zuelako egina izatea; hau ez zen Debagoiengan ohizkoena, eta oinordeko pertsona jakinak izendatzen zirenean, ez zen inbentariarik egiteko ohiturarik izaten. Ez dakigu izendapen hau Leintz bailarako zenbait lekutako seroratzetarako sarrera kontratu bereziak, hau da, tenplua oinordeko egitera behartu eta testatzeko gaitasuna ukatzen zienak motibatua izan ote zen (baina ez dugu uste, bestela tenpluarendakoez besteko dohaintzarik ezingo zukeen egin eta), edo besterik gabe, debozio hutsez egindako izendapena izan ote zen. Edozein kasutan, serorak, testamentuan eta ondorengo inbentarioan bere ahizpa Marina Lopez de Espillari, Joana de Olaeta eta Isabel parrokiako beste serorei, Joana de Axperi, Marina de Alçarteri, Perixco de Leteri eta herriko ospitaleari egin zizkion ehun, ohial eta arropa dohaintzez beste, bazituen inbentarioan jaso ziren beste hainbat ere, parrokiaren ondasun izatera igaro zirenak. Goazen baina ondasun hauek zertan zetzaten parterik parte ikustera.

Lehenik eta behin: testamentuan diru gutxi batzuk baino aipatzen ez zirela esan berri dugu, baina inbentarioan ostera, kopuru handiagoei zegozkien hiru partida ageri zaizkigu. Hurrenez hurren, 212 erreal, 28 erreal, eta “todos los mrs. que [...] declaro por rreçibos en su testamento y codiçilo saliendo çientos”. Antza, diru hauen berri guk eskuratu ahal izan ez dugun kodiziloan emango zuen. Diru hauez, aipatu berri ditugun dohaintzez eta bahitzat zeuzkan –eta gero erreparatuko diegun– arropa eta ohialez beste, ondasunen sorta zabala zeukan Maria Lopez de Espillak, bi kutxatan gorderik: 7 iztupazko izara “entradas en agoa”; iztupazko lau burko-zorro luze eta erabilitako ohial finezko beste bat; sakristiarako bost amitu berri “sin entrar en agua”, eskuetarako zapi bat eta zilarrezaturiko kalize bat “con su patena y su letrero que es muy bueno” (hauek Joana de Olaeta serorari eman zitzaizkion, sakristiaren erabilerarako gorde zitzaizkion); bi erabilitako ahozapi; erabilitako iztupazko 8 emakumezkoendako alkandora; erabilitako iztupazko ohialezko 5 amantal; erabilitako hiru jipoi eta bi “gorgera”; “un texido que es como una trença / o pasamano de ylo de plata”; buruko bost zapi, bata sendoa, beste lau finak, hauetariko bat kalitate onekoa; landuriko kotoizko mahai-zapi berri batzuk eta beste landuriko mahai-zapi zahar batzuk; ohial finezko pieza baten kana gutxi batzuk; ohe bat, “que son un plumyon y un cabeçal y una coçedra de lana – y una cortina de lienço”; zaia zuri bat, arropa urdin bat, amantal arre bat eta hiru zaia txiki; beste zaia zuri bat eta beste zaia txiki bat; ohial beltzezko kapa motz zahar bat eta ohialezko mantu zahar bat; eta azkenik, zenbait laban, plater, kikara, eta bestelako gauza, “de serbiçio”¹¹²². Ikusten dugunez, sakristiarako kalizeaz eta sukaldeko gauzez beste, gainontzeko ondasun guztiak ehun, ohial eta arropatan zeuzkan. Eta balorazio ekonomiko zehatzik egitea ezinezkoa bazaigu ere, nabaria da ondasun hauen balorea handia zela; zeuzkan diruak ez ziren izugarritzko kopuruetara heltzen (demagun, behetik jota, 30-40 dukat inguru izan zitzakeela), baina ezin esan dezakegu aberastasun gutxi zeuzkan serora zenik, inondik inora. Salerosketen ingurukoak azaltzen ditugunean ikusiko ditugu Maria Lopez de Espilla serora aberatsa zela ohartzeko beste aspekturen batzuk.

¹¹²² GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v.

Maria Lopez de Espillaren kasua garrantzitsua dugu, jada esan bezala, informazioaren oinarri nagusietarikoa ditugun testamentuetan aipaturiko ondasunen balorazioa egiterakoan zuhurtziaz jokatu beharko genukeela adierazten digulako. Partida gutxi batzuetako dohaintzez beste, oinordekoa izendatu baino egiten ez zuten testamentuen kasuan, hortaz, hain informazio urria emateak ez gaitu zertan ondasun gutxi zeukatela pentsatzera halabeharrez eraman behar. Eta hau, kapitulu honetan bilduriko informazioarendako bezalaxe balizkoa da hurrengoan bilduko dugunerako ere, eta orokorrean, testamentuetako ondasunei dagozkienak aipatzen ditugun aldi ororako. Funtsean, eta hasieran azaldu izan ditugun printzipioei jarraiki, emanak ditugun eta ematear gauden datuak daukaten balore adierazlean behar dira aintzat hartu, balore koantitatibo zurrun, xehe eta zehatz batean baino; egoera ulertaraztea interesgarriagoa zaigu, datuen jarraipen oso baina hotz bat agertzea baino.

Beste alderdi garrantzitsu bat seroren ehunak, ohialak eta arropak dohaintzan jaso zituzten entitate eta pertsonen nortasunarena da. Dohaintza hauen jasotzaileak, trazu orokorretan, honako sailkapenaren pean banatu litezke: (a) tenpluak eta hauetako zerbitzariak, (b) familia-kideak (batez ere emakumeak) eta (c) familiaz kanpoko emakumeak eta serorak.

Tenpluei eta bertako zerbitzariari eginiko dohaintzek, lehenik eta behin, serorek ohialak eta arropak aberastasun garrantzitsuztat hartzen zituztela adierazten digute. Hainbat tenpluri egindako dohaintzak balore handiko ohial eta arropenak dira, eta herrietako familia boteretsuetako partaideekin bat, serorek ere tenpluen aberastasunen eta edertasunaren pilaketan esanguratsuki parte har zezaketela agertzen digute. Baina beste behin, goazen parterik parte. Seroren artean bezalaxe biztanleriarengan erlatiboki ohizkoa zen ohitura bat, tokian tokiko ospitaleari norbere ohea edo ohearen ohialezko estalki eta parte ezberdinak dohaintzan ematearena zen; askotan, normala ere badenez, ospitaleetako serorek eurek egiten zituzten dohaintza hauek. Dohaintza hauek pietatezko ohiturak medio egiten ziren; Bergarako Catalina de Ondarzak (1572) bere ohea zena "con sus cortinas y çielo y todo el rrecaudo tocante a ellas" ematean aipatu zuenaren arabera: "para socorro y ayuda de fauoresçer a los pobres que all[i] se acogen"¹¹²³. Ospitaleetako seroren kasuen artean, Elgetako ospitaleko Gracia de Sagastak (1637) zerbitzen zuen ospitaleari eman zizkion bere ohea, honen estalki-jokua, galdara, pertzea eta katilua aipatu litezke¹¹²⁴. Hauen tankerako adibideak Debagoiena guztiko herrietan aurkitu ditugu, Antzuolan eta Arrasaten salbu¹¹²⁵.

¹¹²³ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

¹¹²⁴ GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v.

¹¹²⁵ Bergaran, aipaturiko Catalina de Ondarzak (1572) egindako dohaintzaz gain, bertako ospitaleak 1631n ere beste ohe bat jaso zuen ("una cama trayda [con] sus cobertores algo traydos") Maria de Izaguirrerengandik (GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r). Elgetan, Gracia de Sagastarenaz (1637) gain, hau bezala Magdalenaren ospitaleko serora zen Marina de Larraguibelek (1576) bere ohea eta zegokion estalki-jokuaren dohaintza egin zion zerbitzen zuen tenpluari (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v). Aretxabaletan, bertako ospitaleari 1629an Maria Ruiz de Araoz y Duranak "la rropa para una cama" (GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r) eta 1634an Catalina de Bengoak "la cubierta [y] un plumion y vn cabeçal sin entrar en agoa de estopa" eman zizkioten (GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r). Eskoriatzan 1594an Maria Lopez de Espillak "la cama en que duermo con los cobertores mejores que tubiere de estopa y con la cortina que esta delante de la dicha cama" eman zizkion bertako ospitaleari (GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v). Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Maria santutegiko Luisa de Aguirrek (1693) Magdalenaren ospitaleari ohe-estalki batzuk "de lienzo de estopa entrados en agua" eta manta bat ("de marraga") eman zizkion, eta santutegi bereko Teresa de Laquiteguik (1746) berriz koltxoi bat, "con su lana de los medianos" (LGUA 331.3, 96r-97v eta 11r-14r). Eta Oñatin, azkenik, 1599an Zañartu auzoko San Julian ermitako Francisca de Estrada Basauri serorak ere beste hainbeste egin zuen bere ondasunen parte ziren hiru oheetariko batekin ("otra cama con su adreço") (GPAH-AHPG 1/3051, 134r-135v), eta baita ospitale bertako serora zen Maria de Ituñok (1657) ere, kasu honetan estalki bikoitzekin (GPAH-AHPG 1/3176,

Ospitaleez beste, serorek, tenpluen zerbitzukoak zirenean, gehienetan nork bere parroikia edo ermita faboratu ohi zuten tenpluetara bideraturiko ehun, ohial eta arropen dohaintzen arteko onentsuenekin. Areago, zenbaitetan dohaintzak aldare espezifikoei eginak ziren, nork bere debozioa edo zerbitzuaren espazioa faboratuz. Lehenik parrokietako kasuei erreparatuz, adibide esanguratsu bat aipatu izan ditugun Eskoriatzako Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Domenja de Zubia seroraren dohaintzetan daukagu. 1622an parrokiari bere kutxan zeuzkan 34 kana ohial eman zizkion (“de lienso casero ancho sin entrar en agoa”), hauek enkantean saldurik aldarerako frontal bat egin zedin. Aldare berberari iztupazko ohialezko 4 kana ere eman zizkion, eta beste zenbait ohial ere eman zituen, bere heriotzeko lehen urtebukaerarte bera ehortziriko jarlekuko zerbitzua egitera bideratuko zirenak, eta ondoren beste ohialekin bat parrokiako aldarearen zerbitzurako izango zirenak¹¹²⁶. Arrasaten, Santa Marina ermitako Teresa de Urisarrik (1603), San Juan Bataiatzailea parrokiako San Pedoren aldarerako izara bat eman zuen, “de lienso de la tierra andado que yo traigo con sus algodones”¹¹²⁷. Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranak 1629an hiribilduko Andre Maria parrokiari “[una] sabana con vnas cintas de ceda” eman zion¹¹²⁸. Bergarako Santa Marina parrokiari 1594an bertan serora zen Maria de Beizteguirengandik 5 dukat “con lo que mas fuere nescesario” agindu zitzaizkion, bere aldarerako honakoak egin zitezten:

se aga un frontal blanco a voluntad de la serora de Munaue para el altar maior de la dicha yglesia de Santa Marina de Oxirondo y se pague de mis bienes y asi mismo se agan para el seruicio de la dicha yglesia unos hornamentos de lienço a voluntad de la dicha serora de Munaue¹¹²⁹

Antzerako dohaintza egin zuen Oñatin, San Migel parrokiako serora zen Maria Lopez de Estrañok 1647an. Parrokiako Sorkundearen Andre Mariaren aldareari honakoak eman zion: “del ualor de diez ducados de Uellon de la tela que mejor les paresçiere un frontal”¹¹³⁰. 1751n berriz, Oñatiko San Migelen bertan, Ana Catalina de Inzak mantu bat (“de anascote”) eman zuen parrokiako Soledadeko Amabirjinaren apainketarako, eta parrokiako arropa zuria bere administraziopean egonik erabilpenez apurto izan ziren ohialen ordain gisa hari kopuru bat utzi zuen, oinordeko eta albazea izendatu zuen bere ilobaren esku¹¹³¹.

Ermitetako eta santutegietako serorek ere, parrokietakoek bezalaxe, hainbat ehun, ohial eta arropen dohaintzak egiten zizkieten zerbitzen zituzten tenpluei. Bergaran, -tenpluaren obretara eta seroretxearen berreraikuntzara bideratu zituen dohaintzez gain (hauei aurrerago erreparatuko diegu xehetasunez)- Leizariako San Lorentzo ermitari “una sabana nueva sin meter en agoa” eman zion Marina de Moyugoitiak 1574an¹¹³². Herri berbereko San Martin ermitari berriz, 1605ean Maria de Iturbek bere arropak eman zizkion, eta ermitak berarekin zituen zorrak ere barkatu zituen (“todo lo que tengo puesto y me deue la dicha hermita de San Martin”)¹¹³³. Bergaran halaber, San Kristobal ermitako seroretxearen berreraikuntza bere gain hartu zuen Magdalena de Castillok, dohaintza bat baino, eskaintza bat egin zion ermitako

220r-221r).

¹¹²⁶ GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v.

¹¹²⁷ GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r.

¹¹²⁸ GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r.

¹¹²⁹ GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v.

¹¹³⁰ GPAH-AHPG 1/3194, 102r-107v.

¹¹³¹ GPAH-AHPG 1/3358, 525r-528v.

¹¹³² GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v.

¹¹³³ GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r.

maiordomoari (agian jada nahikoa emana ziola iruditu baitzizaion) 1612an: maiordomoa beraren eskutan zegoen eta serorarena zen zilarrezko zinta bat hamar dukatetan erosteko aukera eman zion, honek ez onartzekotan, sei dukateko eskaintzak eginez lehenik bere –seroraren– ilobari, eta gero bere ahizpari. Serorak eskaintza ona zela zeritzon, ezen zilarrezko zintak “uale mas que los dichos diez ducados”¹¹³⁴. Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Maria santutegiko Mariana de Anuncibaik (1655) santutegiari -ohe baten eta bere estalki-jokuaz gain- kutxa baten dohaintza egin zion, bertan gordeak zeuden 5 ohe-estalki jokurekin. Erromesen artapenerako zirela eta Arriola batxilerraren eskutan uztekoak zirela ere zehaztu zuen¹¹³⁵. Oñatin, San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelaik (1591), kutxa baten eta Andre Mariaren irudia ermitan ipintzeko eta seroretxearendako egin zituen diruzko dohaintzez gain, ahozapi dozena baten dohaintza ere egin zuen¹¹³⁶. San Lorentzo ermitako Osana de Villarrek (1670), ermitako aldamenetako aldaretarako 2 izara zuri eman zituen¹¹³⁷. San Antonio Abad edo San Anton ermitako Magdalena de Galarragak (1705) beste hainbeste eman zion bere ermitari, bi aldaretarako izana bana¹¹³⁸.

Tenpluez eta bertako aldareez gain, seroren dohaintzak tenpluetako zerbitzariak arropaz ornitzera ere bideratzen ziren. Dohaintza hauek, normalean, edo tenpluari egiten zitzaizkion, bere zerbitzu orokorrerako zirela zehaztuz (hau da, ez zirela apez edo benefiziodun jakinek partikulari erabiltzekoak), edo apez edo benefiziodun jakinei egiten zitzaizkien, beraien erabilera partikularrerako. Azken kasu hauetan, normalean, familia-erlazioak izan ohi ziren seroren eta apez eta benefiziodunen artean; ohizko kasu bat, esaterako, seroraren iloba zen apez edo benefiziodunarena dugu. Halakoa zen Aretxabaletan serora zen Maria Ruiz de Araoz y Duranaren eta bere dohaintzak jasotzekoak ziren Andres Garcia de Arcarassoren eta Juan de Celayaren arteko erlazioa; serorak etxean uzten zuen ohial batetik alba bana egin zitzaizkiela agindu zuen, “para quando ca[nten] misas nuevas y si no cantaren tambien”¹¹³⁹. Bergarako San Martin ermitan serora zen Maria de Iturbek berriz, 1605ean oheko zenbait ohial sal zitezen agindu zuen, apez izatekotan zen bere semeari (erabilitako espresioa ondo ulertu badugu behintzat) arropak egin ziezazkioten: “para quando dixiere misa nueva su Hixo de Martin Perez de Aguirre Oçaeta”¹¹⁴⁰. Antzuolan, Maria de Ibarak (1659) bertako parrokia batueta benefizioduna zen Gabriel de Inurriagarro bere lehengusuari alba bat egitea agindu zuen¹¹⁴¹.

Badira beste kasu batzuk familia-loturaren bat susmatzen badiegu ere, hauek zertan ziren garbi ez dakigunak, eta beste batzuk, besterik gabe, dohaintzak serorek bereziki estimatzen zituzten apez eta benefiziodunei eginak zirenak. Antzuolan, Agueda de Zumaetak 1640an Joan de Monesteriobide batxilerrari bere ondasunetako ohialetatik alba bat egin ziezaiotela agindu zuen¹¹⁴², eta Ana de Benituak (1642) berriz, Melchor Abbad de Inurriagarro apezarendako 8 dukaten baloreko alba bat egitea agindu zuen¹¹⁴³. Eskoriatzan, Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Gaspar Abbad de Cilaurren apezari Domenja de Zubia bertako serorak 1622an “seys baras de lienço

¹¹³⁴ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹¹³⁵ LGUA 331.3, 92r-94v.

¹¹³⁶ GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r.

¹¹³⁷ GPAH-AHPG 1/3195, 123r-126v.

¹¹³⁸ GPAH-AHPG 1/3223, 167r-169r.

¹¹³⁹ GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r.

¹¹⁴⁰ GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r.

¹¹⁴¹ GPAH-AHPG 1/0774, 157r-161r.

¹¹⁴² GPAH-AHPG 1/0769, 115r-118v.

¹¹⁴³ *Ibid.*, 324r-325v.

casero de la tierra sin entrar en agoa y quatro serbiletas de mesa” eman zizkion¹¹⁴⁴. Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Maria santutegiko Mariana de Anuncibaik (1655), zeukan "beatilla" pieza batetik, Leintz Gatzagako parrokiako apezari eta Arriola batxilerra benefiziadunari alkandora bana egitea agindu zuen¹¹⁴⁵. Oñatin, San Kristobal ermitako serora zen Magdalena de Ucelaik 1591n San Juan de Ugarteri “una alba de rruan” eman ziezaioten agindu zuen, “quando [...] biniere a cantar missa”. Garaia hel zedinean ematea nork egin behar zuen ere zehaztu zuen: “se le haga ofrenda de una alba de rruan por Madalena de Aldaya serora mi companera [...] digo que le ofrezca Mari Juan su tia en falta de la dicha Madalena”¹¹⁴⁶. Herri berbereko Narrria auzoan, San Lorentzo ermitan serora zen Maria de Villarrek bere konfessore zen “padre Mirubia” bereziki estimatzen zuen antza, eta hori zela eta, “de la arca que esta en la calle 8 rreales en plata y 8 baras de lienço para unos panos menores y una toballa nueva y 2 panuelos de manga” eman ziezazkioten agindu zuen 1629an¹¹⁴⁷.

Beste dohaintza batzuk, esan bezala, tenpluei eurei egiten zitzaizkien, beraien zerbitzarien erabilera orokorrerako zirela zehaztuz. Hala, Bergaran, San Pedro parrokiari 1572an hainbat arropa agindu zitzaizkion Catalina de Ondarzaren testamentuan, bertako apez eta benefiziadunen erabilerarako izango zirenak. Kasu hau bereziki interesgarria zaigu, dohaintza handia izateaz gain, hau jaso aurretik parrokian bertako zerbitzarien arropen inguruan zegoen egoera azaltzen baitigu, dohaintzak izan asmo zuen eragina azalduz. Seroren dohaintza hauek tenpluen eta bertako zerbitzarien itxura, apaindura eta edergarrietan, eta ondorioz, hauen edertasun eta handitasunean zeukaten eragina adierazten zaigu; hona egoera nola azaldu zuen Catalina de Ondarzak:

digo que por quanto en la yglesia de señor Sant Pedro de la dicha villa / por esperiencia se ha bisto algunas vezes que por falta de no aber bestimentas y rrecaudo para dezir misa – la han dexado de dezir algunos clerigos saçerdotes que bienen / a ella porque las que ay guarda cada benefiçiado y clerigo de la dicha yglesia / en particular para si o los que ellos quieren / – por lo qual susçeden faltas en este caso en la dicha yglesia – e yo por la deboçion y afiçion que tengo al seruiçio y hornato del culto dibino deseo que no aya la dicha falta / para rremedio de lo qual – mando que de los dichos mis bienes con toda brebedad mis testamentarios hagan hazer diez vestimentas las siete de ellas para la dicha yglesia y se den y entreguen para el seruiçio de ella / a la persona que tubiere cargo de las otras bestimentas de la dicha yglesia de las quales las çinco mando espresamente que sean para el seruiçio general de la dicha yglesia / de lienço de la tierra / comun – y las otras dos de fustan / blanco las clausulas – y todas ellas con sus clausulas estolas y manipulos hechos a este proposito por la horden acostunbrada / y con todo lo nesçesario para ellas / – de las quales las dichas dos bestimentas mejores de fustan aplico y dexo para el seruiçio de los altares de San Anton y Santa Agueda de la dicha yglesia por la deboçion particular que tengo a estos dos santos¹¹⁴⁸

Seroraren dohaintzak, zalantzarik gabe, izango zuen eraginik parrokiako apez eta benefiziadunen zerbitzuan eta apainduran. Kasu honek apez eta benefiziadunek euren jantzi propioak eduki eta gordetzen zituztela ere aditzera ematen digu, hauei esleitzen zitzairen balorearen agergarri. Hain estu gordetzen zituzten eze, ez baitzituzten lagunez besteko inoren erabilerarako uzten, eta honek, batzuetan mezak eman gabe gelditzea eragiten zuen. Seroraren dohaintzak, denbora baterako behinik behin, arazo hori konpondu izango zuela dirudi. XVIII. mendearen erdialdean ere, San Pedro parrokian apezen jantziez ornitzeko arazoek jarraitzen zuten, fabrikaren txirotasuna hainbestekoa

¹¹⁴⁴ GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v.

¹¹⁴⁵ LGUA 331.3, 92r-94v.

¹¹⁴⁶ GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r.

¹¹⁴⁷ GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v.

¹¹⁴⁸ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

baitzen eze, apezek beharrezko zituzten eliz atorrak, albak, argizaria eta liburuak euren diruetatik erosten baitzituzten (Madariaga Orbea 1991, 50). Ez dugu beraz dohaintza hauen garrantzia gutxietsi behar. Tankera honetako beste zenbait dohaintzaren berri ere badugu: Bergaran bertan, 1628an Santa Marina parrokiako Catalina de Sarraldekin parrokiarako eta bertako kabildoaren zerbitzurako “vna alba de Olanda con sus puntas de pi[?]ta” eman zuen¹¹⁴⁹. Eta 1631n, Maria de Aguirrek San Pedro parrokiako apezten erabilerarako bere ondasunetatik bi alba egitea agindu zuen¹¹⁵⁰. Elgetan, Uriarteko Andre Maria ermitako Domenja de Iturrik (1604) herri bereko Andre Maria parrokiarako, kalize batez eta meza-liburu batez gain, “una alba y estola y manipulos de lienço [blanco?] - y una casula de [rrazo banco?] o de damasco - con su çenefa de terciopelo carmesi” eman zituen, “para - los dias [sañades?] - que digan mysa de Nuestra Señora”¹¹⁵¹. Arrasaten, aurretik parrokia izanik ordurako ermita kategoria zeukan, baina hala ere parrokiatzat izanak zituen funtzioen batzuk -bereziki jarlekuen zerbitzua- mantentzen zituen Santa Marina elizako Teresa de Urisarrik (1603) bere tenpluaren zerbitzurako 2 alba “de buen lienço con sus amitos” egitea agindu zuen, eta hauek, “al mayordomo y cura y fleyra de la dicha yglessia” eman behar zitzaizkien¹¹⁵² (ohar bedi, tenpluko apez propioaren existentziak parrokiako funtzioen mantenuaren berri ematen digula). Udala auzoko San Esteban parrokiako Catalina de Huruburuk (1610) ere bere parrokiarako alba bat egitea agindu zuen, “de beynte libras de ylado de estopa” ateratako aritik¹¹⁵³. Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiari eta bertako San Migelen kaperari 1615ean Maria Lopez de Celaya bertako serorak hiru alba eta bi esku-trapu eman zizkien, batzuk “de buen lienço de la tierra” zirenak, eta besteak serorak kutxan zeukan ohial jakin batetik egin behar zirenak, hala baitzen bere nahia¹¹⁵⁴. Oñatin berriz, Narria auzoko San Lorentzo ermitan serora zen Maria de Villarrek 1629an bere ondasunetatik ermitarako bi ganderailu eta “un roquete para el que lleba la cruz a las ledanias” egin zitezela agindu zuen, eta baita, testamentuko aginduak behin beterik ezer soberan izango balitz, “dos albas y unos manteles” egin zitezela ere¹¹⁵⁵.

Azkenik, beste espazio eta pertsona erlijiosoei egindako dohaintza gutxi batzuk ere baziren. Aretxabaletan serora zen Catalina de Bengoak 1634an ohe-estalki batzuk (“de b[uen] lienço de la tierra”) eman zituen Arrasateko fraile frantziskotarren elizarendako, eta beste ohe-estalki bat (“de estopa [...] sin entrar en agoa”) eman zion Leinzabaleko Andre Mariaren ermitako ermitauari ere¹¹⁵⁶. Bergarako San Pedro parrokian serora zen eta hainbatetan aipagai izan dugun Catalina de Ondarzak ere, goraxeago aipatu ditugun hamar jantzietatik hiru “para las yglesias de [la] Trinidad y Santa Ana y el ospital de la Magdalena” eman zituen¹¹⁵⁷. Bergarako Trinitatearen komentuko elizak, hiribilduko serora zen Francisca de Igueribarrengandik ere jaso zituen dohaintzak 1581ean: 6 dukat eman zituen “para un frontal blanco”, eta baita “una sobre messa” ere¹¹⁵⁸.

Eman berri ditugun datu sorta honek, gauza bat behinik behin, garbi azaltzen digu: serorek ehunen, ohialen eta arropen inguruan biltzen zituzten aberastasunek eta

¹¹⁴⁹ GPAH-AHPG 1/0258, 116r-122v.

¹¹⁵⁰ GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v.

¹¹⁵¹ GPAH-AHPG 1/1851, 122r-124v.

¹¹⁵² GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r.

¹¹⁵³ GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr.

¹¹⁵⁴ GPAH-AHPG 1/0866, 3r-5r.

¹¹⁵⁵ GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v.

¹¹⁵⁶ GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r.

¹¹⁵⁷ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

¹¹⁵⁸ GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v.

egiten zituzten tratu eta salerosketek, zerbitzen zituzten tenpluen aberastasunean, edertasunean eta apainduraren eragin nabaria zeukaten dohaintzen bidez. Eta hau hala izanik ere, seroren ondasun hauen jasotzaile nagusiak ez ziren tenpluak, beraien familia-kideak baizik; eta hauen artean, bereziki emakumeak. Seroren ehunen, ohialen eta arropen inguruko tratuek eta dohaintzek ezaugarri amakomun bat baldin badute, hau nagusiki emakumeen testuinguru baten baitako harremanetan gauzatzearena da. Dohaintzen izaerari dagokionean, bestalde, generoen arabera banaketa nabaria izan ohi zen. Gizonezkoei, dohaintza besterik gabe dirutan egiten ez zitzaizkion, jada egindako arropak ematen zitzaizkien, edo diruen edo bestelako ondasunen dohaintzak arropa jakinen batzuk egin ziezazkieten egiten ziren. Emakumeei oster, arropak bezalaxe, ehunak eta ohialak ere ematen zitzaizkien, gizonezkoei baino kopuru dezente handiagoan gainera. Oso trazu zabarretan azaltzea bada ere, funtsean honakoa zen ohizko banaketa: egindako arropak gizonezkoei, eta ehunak, ohialak eta arropak emakumezkoei.

Alabaina, beste behin azpimarratu beharrean gaude, seroren artean oso ohizkoa dugunez, kasuen arteko ezberdintasunak erabatekoak izan zitezkeela. Kasurik gehienetan familia-kideekiko dohaintzetan banatzen zituzten ondasunik gehienak, baina badira kasuak halaber, familia-kideenganako batere dohaintzarik egin ez zuten eta guztia beraien arimaren aldeko meza eta heriotz-errituen gastutara bideratu zuten serorenak, edo ondasun guztien oinordeko zerbitu izan zuten tenplua egin izan zutenenak. Bergarako Santa Marinako Maria de Beizteguik, esaterako, 1594ko bere testamentuan parrokiako aldare nagusirako frontal bat eta ohialezko beste ornamentu batzuk egiteko 5 dukateko dohaintza baino ez zuen egin, eta bere arima egin zuen oinordeko unibertsal. Ez zen serorak dirurik ez edukitzearen kasua, jarlekuen zerbitzuagatik eta maileguegatik diru kopuru ezberdinen zorra zuten hainbat zordun baitzuten. Baina bere borondatea guztia bere arimaren aldeko mezatan xahutzekoa izan zen, eta ez zuen familia-kiderik aipatu ere egin¹¹⁵⁹. Era berean, ohizkoena ehun, ohial eta arropen parterik handiena familiako emakumeei dohaintzan ematea bazen ere, izan ziren ondasun hauen dohaintzak gizonezko familia-kideei baino egin ez zizkieten seroren kasuak ere. Bergarako Santa Marina parrokiatik datorkigu, oraingoan ere, adibideetariko bat; Catalina de Sarraldek, bere 1628ko testamentuan, bere ahizpa Maria Juaniz de Sarraldek eta honen senar Pedro de Abraynek zituzten bost semei baino ez zizkien dohaintzak egin, bakoitzari 10 dukat eta ohe-estalki bana, eta horiez gain bereziki Antonio de Abrayni kapa bat eta kutxa bat eman¹¹⁶⁰. Antzuolako Agueda de Zumaetak ere, 1640an, bere ohialen probetxua albazea izendatu zuen Joan de Monesteriobide batxilerrari baino ez zion esleitu, beraietatik alba bat egin ziezaioten¹¹⁶¹.

Alabaina, salbuespenak salbuespen, ohizkoena beste testamentu batzuk azaltzen diguten egoera dugu. Hauen artean esanguratsuenetarikoak, familia-kideen arteko dohaintzen ikuspegi zabala eskaintzen digutelako, Oñatiko ermitetako bi serorenak dira. Narria auzoko San Lorentzo ermitako serora zen Maria de Villarren 1628ko testamentuak, kapitulu honetan ohizkotzat aipatu ditugun hainbat ezaugarri ditu. Lehenik eta behin, espazio erlijiosoendako (“redençion de cautibos”, ospitaleko txiroak, komentuak, parrokia eta ermitak) eta bertako zerbitzariendako (bere konfesorea) dohaintzak egin zituen, argiteriarako oliotan, dirutan eta ornamentutan. Ondoren azaltzen zaizkigun ondasun gehienak familia-kideendakoak ziren. Bere anai-arrebei eta koinatuari alkandorak egiteko ohial batzuk eman zizkien, eta Martin anaiak zor zizkion

¹¹⁵⁹ GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v.

¹¹⁶⁰ GPAH-AHPG 1/0258, 116r-122v.

¹¹⁶¹ GPAH-AHPG 1/0769, 115r-118v.

20 dukatetatik 10en dohaintza egin zion (alegia, barkatu egin zizkion), eta beste 10ak, beste anaia Andresi esleitu zizkion. Martini, halaber, “una fracada colorada y una almoada con su cubierta” eman zizkion. Gizonezkoenganako dohaintzak beraz, arropatan, oherako ohialetan eta dirutan. Mariacho eta Clara bere ahizpei zenbait arropa eta ohial eman zizkien; hurrenez hurren, “una mantelina de estameña y una faldilla fraylenga y un sayuelo de estamena y un cordon y unos adreços de cama” eta “una faldelina y vn adreço de vna cama”. Familia-kideenganako gainontzeko dohaintzak, emakumezko ilobei eginikoak izan ziren: “Isabelica”-ri bere ohea eman zion, zegozkion estalkiekin, eta baita bere kutxetariko bat ere; honen ahizpa “Francisquita”-ri berriz, zeuzkan kutxen arteko handiena eta jipoi bat “de picote”; Josefari beste kutxa bat, artilezko zaia bat eta 12 erreal; eta “Madalenica”-ri, azkenik, beste zaia bat eta 17 erreal

¹¹⁶²

Maria de Villarren testamentuarekin bat, San Kristobal ermitan 1591n serora zen Magdalena de Ucelairena ere oso esanguratsua dugu. Mariak zenbait urte beranduago egingo zuen bezalaxe, espazio erlijiosoendako dohaintzak (“las tres ordenes forçossas”, ospitaleko txiroak, parrokiak, santutegiak eta ermitak, bereziki berea) dirutan eta oliotan eman zituen. Pedro eta Hernando bere anaiei bakoitzari 3 dukat eman zizkien, “en hazerles sendos bestidos” xahutzekoak zirenak, eta bigarrenari eta Francisco izeneko beste anai baten alaba zen Mari Perez de Ucelairi, partekatzeko kutxa bat ere eman zien. Domingo izeneko beste anai batek eta bere emazte Francisca de Garibayk 52 dukateko zorra zeukaten berarekin, eta ordainez mintegi bat eman ziotela eta, zorra kitatutzat eman zuen. Hauen seme zen San Juani kutxa bat eman zion. Apez izateko bidean zen San Juan de Hugarteri, ez dakigu ze erlazio zela eta, meza esatera joan zedinean eskaintzan eman beharreko alba (“de rruan”) baten dohaintza egin zion. Anaiei eta gizonezko ilobei, beraz, dirua, arropak eta kutxak. Gainontzeko ondasunak ahizpek, emakumezko ilobek eta koinatek jasotzekoak ziren, eta aurreraxeago ikusiko dugun lez, baita leku ezberdinetako serorek ere. Bere ahizpa Maria Perezi erabilitako zaia zuri bat eta zaia txiki bat eman zizkion. Koinatei dagokienez, Franciscoren emazte zen “Migueliça”-ri artilezko zaia “frailenga” bat eta lio onezko bi libra eman zizkion; Hernandoren emazte zen Maria de Bicuñari, alkandora bat, frantses erako buruko bat eta ohial bat; Pedoren emazte behar zuen Polonia de Mendiari zetazko buruko bat, alkandora bat, gortina txiki bat, eta bere alabei zaia txiki bana egiteko erabiltzeko zaia zuri bat eta ohial bat; eta Domingoren emazte zen Francisca de Garibayri bere zaia txiki beltza, ohial bat eta gortina bat. Azkenik, emakumezko ilobek ere jaso zituzten hainbat gauza. Franciscoren alaba Maria Perez de Ucelayri ohe bat eman zion, bere ohe-estalki “senzillos”-ekin; honen ahizpa Mari Asenciori ohe-estalki bat “con su cortina por coser”; eta ospitalean zegoen Mari Gabon de Ucelayri (ez dakigu ospitalean egoteak bertan serora zela adierazten ote duen, ez eta noren alaba zen ere) erabilitako ohe-estalki batzuk “metidos en agua” eta bi zaia txiki (bata urdin iluna, bestea arrea)¹¹⁶³.

Testamentu hauetako familia-kideenganako dohaintzetan ageri zaigun banaketa orokorra, gizonezkoak: dirua, arropak eta ondasunak / emakumezkoak: ehunak, ohialak, arropak eta ondasunak, beste hainbat testamentutan ere ageri zaigu. Muga zurrunik ezarri gabe, banaketa batez ere Leintz bailarako eta Oñatiko auzo eta elizateetako eta ermitetako seroren kasuetan da baliagarria, Bergara, Antzuola eta Elgetako hainbat kasutan, eta orokorrean, Debagoiena guztiko hiribilduetako parrokiatan, emakumezkoiei ere diruzko dohaintzak egitea ohizkoagoa baitzen, nahiz eta aipaturiko banaketarako irizpideak ere, hein batean, presente zeuden. Gauzak horrela, Debagoiengan familia-

¹¹⁶² GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v.

¹¹⁶³ GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r.

kideenganako dohaintzak egin izan zituzten 74 seroren arteko 41 (%55'4), gutxi gora behera eta salbuespenezko dohaintza gutxi batzuekin, irizpide orokor hauei egokitzen zaizkiela esan dezakegu¹¹⁶⁴. Beste 13 kasu, dohaintzak urriak izanagatik -eta kasuren batean beste motiboren bategatik- zalantzakor lez gelditzen bazaizkigu ere, printzipioz, hirizpide berdinen araberrako dohaintzekin ageri zaizkigu; hauek batuaz gero beraz, 54 (%72'97) testamentutara helduko ginatete¹¹⁶⁵. Neurri handi batean orokorturiko joeratzat har genezakeela esango genuke.

Dohaintza hauek badauzkate beste ezaugarri nabari batzuk ere, hala nola, ilobenganako dohaintzen nagusitasuna, hauei oheak dohaintzan ematearen ohitura, etab. Baina alderdi hauek sakonago familia-kideei egindako dohaintzei –ez soilik ehun, ohal

¹¹⁶⁴ Testamentu hauek aipatzera mugatuko gara, kasuistika guztiaren azalpenak ematen hasteak luzeegi joko bailuke; ariketa hori egin nahiko lukeenak hor dauka 11a koadroa (955-983 or.), neuk egin bezala, kasuei bakarkako jarraipena egin ahal izateko. Aipagai ditugun jarraibideak daramatzaten testamentuak, bada, ondorengoak dira: Bergaran: Marina de Jauregui (1556) (GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v), Francisca de Igueribar (1581) (GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v), San Martin ermitako Maria de Iturbe (1605) (GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r), Maria de Mendoza (1650) (GPAH-AHPG 1/0339, 615r-622r) eta Soledadeko Andre Mariaren ermitako Francisca de Barrutia (BUA 01L/152, 120r-122r); Elgetan: Magdalenaren ospitaleko Marina de Larraguibel (1576) (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v), Andre Maria parrokiako Maria Ochoa de Marquiegui (1592) (*Ibid.*, 41r-42v), San Adrian eta San Antonio ermitako Domenja de Altube (1599) (*Ibid.*, 38r-41r), ermita bereko Marina de Altube (1603) (*Ibid.*, 215r-218r), Magdalena de Urrojolaegui (1609) (GPAH-AHPG 1/1845, 25r-27v), Magdalenaren ospitaleko Gracia de Sagasta (1637) (GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v) eta Angiozar auzoko Elexamendiko Andre Maria ermitako Catalina de Mendiguchia (1638) (GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v). Antzuolan: Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako Marina de Iraeta (1645) (GPAH-AHPG 1/0770, 395r-398v), Maria de Ibarra (1659) (GPAH-AHPG 1/0774, 157r-161r), Maria de Zumaeta (1671) (GPAH-AHPG 1/0783, 1r-8v), eta Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria de Iturbe (1673) (*Ibid.*, 207r-208v). Arrasaten: Catalina de Abendaño (1590) (GPAH-AHPG 1/2353, 23r-25r), Musakolako San Antolin ermitako Antonia de Osinaga (1603) (GPAH-AHPG 1/2364, 2r-5v), Santa Marina ermitako Teresa de Urisarri (1603) (GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r), Maria Gimenez de Gesalibar (1614) (GPAH-AHPG 1/2366, 95v-96v), Ana de Lara (1623) (GPAH-AHPG 1/2369, 69r-72r), Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioko Maria Perez de Bengoa (1625) (GPAH-AHPG 1/2370, 85r-86v), Francisca de Gabiria (1639) (GPAH-AHPG 1/2391, 44r-46v) eta Ana de Ayesta (1664) (GPAH-AHPG 1/2402, 97r-98v). Aretxabaletan: Maria Ruiz de Araoz y Durana (1629) (GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r) eta Catalina de Bengoa (1634) (GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r). Eskoriatzan: hiribilduko San Pedro parrokiako Maria Lopez de Espilla (1594) (GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v), Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Domenja de Zubia (1622) (GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v) eta Gellao elizateko Andre Maria parrokiako Ana de Echabe (1674) (GPAH-AHPG 1/0889, 25r-26r). Leintz Gatzagan: Dorletako Andre Maria santutegiko Teresa de Marquiegui (1746) (LGUA 331.3, 11r-14r). Oñatin, azaldu berri ditugun bi kasuez gain: San Martin ermitako Ines de Bidania (1554) (GPAH-AHPG 1/2857, 14v-17v), Zañartu auzoko San Julian ermitako Francisca de Estrada Basauri (1599) (GPAH-AHPG 1/3051, 134r-135v), Narria auzoko San Lorentzo ermitako Osana de Villar (1670) (GPAH-AHPG 1/3195, 123r-126v), Olabarrieta auzoko San Kristobal ermitako Mari Asencio de Umeres (1676) (GPAH-AHPG 1/3205, 272r-272v), Narria auzoko San Lorentzo ermitako Catalina de Gallastegui (1678) (GPAH-AHPG 1/3206, 55r-56r), San Antonio Abad edo San Anton ermitako Magdalena de Galarraga (1705) (GPAH-AHPG 1/3223, 167r-169r), San Juan ermitako Antonia de Idigoras (1711) (GPAH-AHPG 1/3247, 683r-684r), Catalina de Villar (1738) (GPAH-AHPG 1/3293, 378r-379v) eta San Migel parrokiako Ana Catalina de Inza (1751) (GPAH-AHPG 1/3358, 525r-528v).

¹¹⁶⁵ Bergaran: San Pedro parrokiako Magdalena de Oruesagasti (1610) (GPAH-AHPG 1/0196, 422r-424v), Santa Marina parrokiako Catalina de Sarralde (1628) (GPAH-AHPG 1/0258, 116r-122v), San Pedro parrokiako Maria de Aguirre (1631) (GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v), Maria de Izaguirre (1631) (GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r), Gracia de Zabala (Santa Marina parrokiakoa?) (1650) (GPAH-AHPG 1/0339, 333r-338v) eta San Pedro parrokiako Gertrudis de Recalde (1741) (GPAH-AHPG 1/0546, 191r-192v). Antzuolan: Ana de Benitua (1642) (GPAH-AHPG 1/0769, 324r-325v) eta Marina de Oxirondo (1661) (GPAH-AHPG 1/0774, 103r-104v). Arrasaten: Catalina de Otalora (1570) (GPAH-AHPG 1/2341, 77r-78v), San Balero ermitako Maria de Insaurbe (*Ibid.*, 58r-60v) eta Udala auzoko San Esteban parrokiako Catalina de Huruburu (1610) (GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr.). Oñatin: San Migel parrokiako Maria de Umeres (1694) (GPAH-AHPG 1/3211, 498r-498v) eta Bidaurretako komentuko

eta arropatan eginikoei– eskainiko diegun kapituluan azalduko ditugu, testuinguru orokorrago batean hobeto ulertzen diren fenomenoak baitira.

Azkenik jasotzaile nagusien hirugarren talde bezala aipatu duguna daukagu: familia baitako emakumez gain, bestelako emakumeak eta serorak ere agertu ohi dira ehun, ohial eta arropen dohaintzen jasotzaile gisa. Hauen inguruko aktibitateak agertzen dizkiguten testamentuen laginaren baitan, familiak kanpoko emakumeek jasotako dohaintzarik gehienetan izan ziren -bestelako ondasunekin batera izanda ere- ehunak, ohialak edo arropak presente¹¹⁶⁶, eta hala ez zenean, oheak eta kutxak izan ziren gehien emandakoak¹¹⁶⁷. Familiak kanpoko emakumei diruzko -eta bitxien- dohaintzak egitearen -salbuespenezko- kasu urriak bost seroren testamentuetan baino ez ditugu aurkitu; bana Bergaran eta Arrasaten, eta hiru Oñatin¹¹⁶⁸. Hau da, emakume hauei egindako dohaintzek, familia-kideekiko dohaintzen banaketari buruz azaldu ditugun irizpide orokorrak berresten dizkigute, generoen arabera ondasunen banaketari

-jarlekuen zerbitzuetako- Francisca de Lizarralde (1761) (GPAH-AHPG 1/3342, 60r-62r).

¹¹⁶⁶ Bergaran: Francisca de Igueribarrek (1581) Marina de Barrutiari eta Joaquina "que bibe en Yturroçaga"-ri egindako dohaintzak, eta Francisca de Barrutiak (Soledadeko Andre Maria ermita, 1742) Josefa de Lascuraini egindakoa. Elgetan: Marina de Larraguibelet (Magdalenaren ospitalea, 1576) "Joanacho"-ri, Maria Ochoa de Marquiegui (Andre Maria parrokoa, 1592) Francisca de Sustazari, Marina Urtiz de Izaguirreri, "[Chome?]"na hija de Maria Perez de Albiztegui"-ri eta Mari Asenci de Gongatari, eta Domenja de Altubek (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599) Mari Santuru de Galarraga eta Maria Perez de Olayeta alargunei egindakoak. Antzuolan: Maria de Iraetak (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokoa, 1645) Catalina Joaniz de Arangureni, Maria de Ibarak (1659) "a la hija mayor de Francisco [de] Venitua y de Clara Martinez de Ynurrigarro Yriarte", eta Maria de Zumaetak (1671) Magdalena de Madariaga Arizagari eta Maria "hija maior de Juan Bautista de Zumaeta y Maria Perez de Eguren su muger hermitanos en la Antigua [de] esta villa" egindakoak. Arrasaten: Antonia de Osinagak (Musakola, San Antolin ermita, 1603) Perixco [?] de Resustari eta "la sobrina de Juan de Oro Galarraga Vicario Josepha"-ri, Teresa de Urizarrik (Santa Marina ermita, 1603) Isabela de Caraari, Arrosc de Mitarteri, Maria Saez "hija del doctor Martin Ochoa de Alua"-ri, Isabela de Celaari, Clara de Oriari eta "Miquelica"-ri, Maria Gimenez de Gesalibarrek (1614) Mari [???] de Bolibarri, Francisca de Uriarteri -eta bere senar Domingo de Galarragari- eta Mari San Juan de Plazari, Ana de Larak (1623) Mari Bañez de Jauregui eta "Mari Andre y Arrosc" bere alabei, eta Ana de Jauregui eta Maria de [Asube?]-ri, Francisca de Gabiriak (1639) Marina "la que biue en las cassas de Errun[?] que estan delante del ospital"-i, "[Bauba?]" la que biue en la calle de San Agustin"-i eta Catalina de Ugalderi, Ana de Ayestak (1664) Maria Trinida de Gogendiri, [Palomica?] de Elexalderi, Juliana de Santa Mariari, "la muger de Domingo de Aranoa"-ri, "la muger de Juan de Elorriaga"-ri eta honen alabari, eta Mariana de Goxendiri egindakoak. Aretxabaletan: Catalina de Bengoak (1634) Catalina de Manriqueri egindakoa. Eskoriatzan: Maria Lopez de Espillak (San Pedro parrokoa, 1594) Joana de Axperi eta Marina de Alzarteri, Domenja de Zubiak (Mendiola, San Juan Bataiatzailea parrokoa, 1622) Ana de Marzanari, Maria Lopez de Mendiolari, Catalina izeneko Domingo de Mendiolaren eta Ana de Marzanaren alabari eta Maria Ruiz de Orori egindakoak. Oñatin: Maria de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1629) Ursola de Urcalderi, eta Catalina de Gallastegui (Narria, San Lorentzo ermita, 1678) Joana de Elorzari, Mari Estibariz de Amezetari, Catalina de Arrazolari eta Miguel de Gallasteguiaren emazteari egindakoak. Erreferentzia dokumentalarako, bai oinpeko nota honetan eta baita ondorengo bietan ere, honen aurreko bi oinpeko notak kontsultatu litezke, edo zuzenean 9. koadroa, 935-939 or.

¹¹⁶⁷ Bergaran: Maria de Iturbek (San Martin ermita, 1605) Joan [Saez?] de Ascarrunzen alabari, Catalina de Sarraldek (Santa Marina parrokoa, 1628) Mariana de Gorostolari ("doña"), eta Gracia de Zabalak (Santa Marina parrokoa?, 1650) Magdalena de Gorostolari ("doña") egindakoak. Arrasaten: Catalina de Abendañok (1590) Marian de Oquendori, Antonia de Osinagak (Musakola, San Antolin ermita, 1603) Maria [Cocho?] de Araizi, Maria Gimenez de Gesalibarrek (1614) Elena de Galarragari, eta Ana de Larak (1623) Maria Andres, Domingo de Jauregui kapitainaren alabari egindakoak. Oñatin: Ana Catalina de Inzak (San Migel parrokoa, 1751) Josefa Joaquina de Aguirreri egindakoa.

¹¹⁶⁸ Marina de Moyugoitiak (Bergara, San Lorentzo ermita, 1574) Francisca de Zabalari, Ana de Ayestak (Arrasate, 1664) Josefa de Irigoieni, Ines de Bidaniak (Oñati, San Martin ermita, 1554) Mari Martin "la de Urrexola"-ri eta Domenja [Perez Añuecos?]-i, Mari Asencio de Umeresek (Oñati, Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676) Marina de Anduagari, eta Maria Gabriela de Sarraoak (Oñati, San Migel parrokoa, 1784) Josefa de Bergara Jauregui, Maria Vicenta de Adurriagari, Maria Bernarda de Arizabaletari eta Nicolasa de Echabarriri egindakoak dira.

dagokionean. Ikus ditzagun erlazio hauetan sakontzeko parada ematen diguten kasuren batzuk, adibide gisa. Informaziorik gehien Eskoriatzako bi seroren testamentuek azaltzen digute. Lehen hiribilduko San Pedro parrokiako Maria Lopez de Espillaren 1594koa dugu; bertan, bere ahizpei egindako arropen dohaintzez gain, Joana de Axperi eta Marina de Alzarteri egindako arropa dohaintzak ageri zaizkigu (hurrenez hurren, kapa zahar bat eta seroraren hiru zaietariko bat), eta hauekin bat, baita “Joana e Ysabel beatas mis compañeras” zirenei egindako beste zenbait ere. Joanari kapa motz bat eta Isabeli txamarra bat eman zizkien, eta horrez gain, bakoitzari “cada sendos cobertores de camas / es a saber sendas sabanas y sendos cobertores de plumyon y cabeçal y sendos paños de sobre los tocados”¹¹⁶⁹. Mendiola auzoko San Juan Bataiatzailea parrokiako Domenja de Zubiak berriz, emakumezko familia-kideei emandako hainbat ehun eta ohialez gain, beste zenbait emakumeri ere egin zizkien joskintzarako materialen dohaintzak: Ana de Marzanari (“muger de Domingo de Mendiola”) 4 kana “de lienço bueno de la tierra estrecho sin entrar en agoa”, honen alaba Maria Lopez de Mendiolari (“donzella”) 4 kana “de lienço de esta tierra de estopa sin meter en agoa”, beste alaba Catalinari 3 kana “de estopa sin entrar en agoa” eta kutxa txiki bat bere giltzarekin, eta Maria Ruiz de Orori (“muger de Pedro de Vgalde”) serorak josteko prest utzita zeukan hari baten 3 kana¹¹⁷⁰. Azaldu dugunez eta adibide hauetan ikus litekeenez, seroren dohaintzen bidez agertzen zaigun gertuko emakumezkoen eta lagunen testuinguruaren baitan ez dirudi diru askorik maniatzen zenik.

Dohaintza hauen arteko beste atal garrantzitsu bat, espezifikoki seroren erlazioak agertzen dizkigutenek osatzen dute. Dohaintza hauek, orokorrean, aipatu berri ditugun hirizpideak jarraitzen badituzte ere, diruzko dohaintzei dagokienean, hein bateraino, serorak salbuespenezko egoeran egon zitezkeen. Familia-kideak ez ziren emakumeen artetik, diruzko dohaintza gehien jasotzen zituztenak baitziren, izan ere. Baina alderdi hauen berri tenpluetako zerbitzariei egindako dohaintzen inguruko azpiatalean helduko diegu xehetasunez, eta hemen esan berri dugunaren berri ematera mugatuko gara, aspektu guztiak ikuspegi egokian hautemateko beharrezko dugulako¹¹⁷¹.

Dohaintza hauek, azken finean, ehun, ohial eta arropatan gorderiko aberastasunen inguruan emakumeen artean izaten ziren harreman pertsonalen eta komertzialen berri ematen digute. Batez ere gizonezkoen eskutan izan ohi zen diruaren ekonomiaz beste, ehunek, ohialek eta arropek trukerako eta mailegurako oinarri ekonomiko bat osatzen zuten emakumezkoen artean. Eta serorek, testuinguru horretan, emakumeek ehun, ohial eta arropatan zeuzkaten ondasunak diru likidora bihurtzeko gaitasuna zeukaten, maileguen eta bahien bidez. Harreman guzti hauen berri, jada azalduak ditugun datuez gain, seroren maileguen zordun ziren emakumeek –eta beste serorek– segurantzaz lez emandako bahiek ere ematen digute. Batez ere hiribilduetako seroren kasuan, serorek dirutan emana zien maileguaren segurantzaz, kasuen gehiengoan, emakumeek ehunen, ohialen eta arropen bidez ematen zuten. Bahiaren ematea adierazteko espresioa bera ere, zerbait “en prendas” ematearena, bere kabuz nahiko esanguratsua dugu segurantzarako bahi hauetan ehunek, ohialek eta arropek zeukaten garrantzia ulertzera emateko, eta tankera honetako bahiekin eskatutako maileguekin osatu dugun 2 koadroko (877-878 or.) maileguen jasotzaileei begiratu bat ematea aski dugu, hauen arteko emakumeen nagusitasuna ohartzeko. Baina ez gara honetan luzatuko, bahien berri zabalago, mailegutari buruzko -jarraian datorren- azpiatalean emango baitugu¹¹⁷².

¹¹⁶⁹ GPAH-AHPG 1/0862, 16r-18v.

¹¹⁷⁰ GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v.

¹¹⁷¹ Ikus VII. 2.1. azpiatala, 679 eta hurr. or.

¹¹⁷² 566 eta hurr. or.

Bahitzat emandako materialak eta arropak, azken finean, testuinguru orokorrago baten parte ziren. Azalduz joan garen seroren ehun, ohial eta arropen ekoizpenak eta salerosketek, familiako eta familiaz kanpoko emakumeei egindako dohaintzek eta maileguetan bahitzat nahiz ordainketatzat materialek eta arropak izan zezaketen garrantziak, hauek emakumeen arteko harreman ekonomikoen espazio bat sortzerako orduan zeukaten garrantziaren berri ematen digute. Garaiko ideologiaren arabera ehunak, ohialak eta arropak propioki emakumeen aktibitateen munduari bazegozkion, hauek emakumeen aldetik diruaz aparteko harremanen espazio ekonomiko bat sortzeko erabili izan zirela dirudi. Eta serorek, ikusi ahal izan dugun bezala, maileguen bidez material eta arropatan emakumeek zeukaten kapital hori beharrezkoa zenean diru likidora bihurtzeko gaitasuna izan zezaketen; eurek ere, noski, ateratzen zuten etekinik, eta etekin guzti hauek, beste hainbatekin bat, familia-kideez eta emakumezko lagunen zirkuluez gain, tenpluetan eta bertako zerbitzarien artean ere bazuten eragin nabarmenik.

VI. 2.4. Mailegutza

Puntu honetara heldurik, seroren artean aktibitate garrantzitsu lez argi eta garbi azaldu zaigun mailegutza aktibitateei tarte luzea eskaini beharrean gaude. Mugitzen ziren testuinguruari begira, egia esan, aktibitate honen garrantzia nahiko ulergarria ere bada. Zeukaten egoera sozial eta erlijioso bereziak, alde batetik askotan (XVI eta XVII. mendeetan, gehienetan) edo alargunak edo ezkongabeak izateak eta beraz gurasoen familiaz besteko lotura pertsonaletatik aske egoteak, eta bestetik, erlijiozko esparruaren barruan hautemanak izateak ematen zien babes sozialak, garaiko beste emakume askoren eskumenetatik kanpo gelditzen ziren aktibitateak egin ahal izatea ahalbidetzen zien. Aro Berriko emakumeen ondasunen administrazioa, adingabeak (orduan 25 urtetik beherakoak) edo ezkongabeak zirenean gurasoen nahiz tutore familiarren onespeneren beharra zutelako, ezkonduak zirenean senarraren onspena behar zutelako, edo komentuan sartuaz gero, bertako buru egiten zuen moja edo administratzailearen baimenaren beharra zutelako, kasurik gehienetan euren eskumenetik kanpo geratu ohi zen. Baina serorak bereziak ziren alor honetan, eta behin kargura sarturik, euren kontu administratu zitzaizketen lorturiko ondasunak, eta euren borondatearen araberrako dohaintzak, salmentak, lagapenak, etab. egin. Hemen ere badira salbuespenak noski, Leintz-bailaran ikusi ahal izan ditugun testatzeko gaitasuna ukatzen zuten sarrera kontratuak kasu. Baina gehienetan, serorak beraien ondasunen eta hauen administrazioaren jabe ziren. Egia da, halaber, askotan familia boteretsuetako emakumeek, batez ere leinuen buru izatera heldu ziren alargunek, praktikan inoren onespeneren beharrik gabe eraman ohi zituztela etxeko gorabeherak eta negozioak, generoen araberrako banaketa sozialaren mugak errespetaturik ere, beraien *mater familias* paperaren baitan eta familiarren mantenuaren eta gobernu egokiaren izenean, moralitateari eta erlijioari loturiko emakumeen inguruko zenbait arau eta aurreritzi alde batera utziz¹¹⁷³. Baina hauek onarturiko arauari aurre egiteko familiarren baitan zeukaten botereaz baliatu beharrean izaten baziren, seroren egoera sozial eta juridiko bereziak eta hau askotan inguratzen zuen laiko eta erlijiozko arteko indefinizioak, beraien esparrua hein handi batean tutoreen eta familia-kideen eraginetatik kanpo gelditzea eragiten zuen. Eta egoeraz baliatuz pilatu zitzaizketen ondasunak ez ziren gutxi; ikusia dugu jada nola tenpluetan betetzen zituzten lanek eurek, askotan, diru kopuru handiak pilatzea ahalbidetzen zien. Mailegutzaaren aktibitatea, era berean, pilaturiko diruei etekin

¹¹⁷³ Honen inguruko ikuspegi orokor baterako ikus Oliveri Korta 2009, 541-556 (“Conclusiones: mujer, *oconomía*, estamento y provincia” atala).

gehiagodun irteera bat ematera bideratzen zen askotan. Jarraian azalduko ditugun zenbait kasutan nabari ikusiko dugu, lortzera hel zitezkeen aberastasunen neurria zenbaterainokoa zen.

Aurreko atalean bezalaxe, hemen ere sarreratzat jada Azpiazuk bildu zituen zenbait datu izango ditugu aipagai. Alde batetik, Mutrikuko (Gipuzkoa) Kontzepzioaren eta Santa Agataren ermitako seroraren 1634ko testamentuan aipatu ziren zenbait zentsuren zorren berri eman zigun. Hauek 5 eta 20 dukat bitartekoak ziren, eta zordunek beraien funts-ondasunak, hau da, etxe, baserri, lur eta ustiapenak zerabiltzaten bermetzat. Jarraian ikusiko ditugun kasuetan, behin eta berriro errepikatuko zaigu egoera hau. Bestetik, mailegu hauek sor zitzaizkien tentsio sozialekiko oso adierazgarria zaigun kasu baten berri ere eman zigun; hau ere, aurrekoa bezala, Mutrikun kokatua dugu. 1622an, San Kristobal ermitako serorak 40 dukat emanak zizkion maileguan parrokiako apezetariko bati (Juan de Corostolari), eta honek, ordainketarako, "tenía ofrecido de darne en pago los frutos de su medio beneficio". Baina apeza diru gehiagoren beharrean zegoen antza, eta serorarengana gehiagoren eskean joan zenean, honek ukoa eman zion, aurreko zorra ordaindu artean behintzat. Apezak erantzuna oso modu txarrean hartu zuen, eta bortxakeriz, kolpeka eta ostikadaka hasi zitzaion serorari, ez ziola aurreko zorra ordainduko esanez. Gertakizun hauek medio, serorak apeza justizia zibilaren aurrean salatu zuen (Azpiazu 1995a, 52).

Azpiazuk aipatu zizkigun bi kasu hauek, serorek ondasunen eta diruen mailegutzarako baliatu zituzten bi bide nagusiak azaltzen dizkigute: zentsuak, eta propioki diruen eta ondasunen mailegutza zena. Zentsuak, edo hobe esan, zentsu ludigarriak, epetan itzultzeko tratupean ematen ziren diruak ziren, eta kontratu bidez helarazten ziren. Zenbaitetan "salmenta" bezala ere ageri ohi dira zentsu fundazioak, hartzaileak emaleari emaniko diruen truke, azken honek urteroko kopuruaren kobrantza eskubidea saltzen baitzuen. Bertan kopuru printzipala, urteroko kopurua, eta hartzailearen aldetik ziurtasunerako hipotekatzen ziren ondasunak zehazten ziren. Halaber, momenturen batean hartzaileak zentsuaren kopuru osoa ordaindu –ahal eta– nahi bazuen, ordainketa egin, eta zentsua ludituz zezakeen. Kopuru handien –eta ez hain handien– kasuan, askotan hartzailearen etxea zen hipotekatzen zena. Honek etxearen gaineko eskubideak momentuz diruen emalearen eskutan gelditzen zela esan nahi zuen, eta hartzaileak zeukan zorra ezin ordaintzekotan, emaleak hipotekaturiko ondasunen gain kobrantza egiteko eskubidea zeukala. Anakronismoagatik, noski, bere ezberdintasunak dituen parekatzea izanagatik ere, funtsean, gaur egun bankuek emandako hipoteken antzerako mailegutza formula zen, baina bankuek beharrean, gizabanakoek emandakoa.

Zentsuen fundatzaileen artean, familia eta leinu nagusietako partaideekin bat, erdi-mailako etxe eta baserrietako bizilagunak dira gehien agertzen zaizkigunak, askotan bikote lez fundaturiko zentsuetan, eta nork bere etxea edo/eta baserria hipotekatuz. Hau Aro Berrian zehar erabat ohizkoa izan zen egoera dugu, baserrien eta lurren jabe ziren nekazari eta abeltzainen artean ondorio gogorak izan zituena, eta hainbat arazo ere sortu izan zituena. Izan ere, diru likidoa eskuratzeko beste modurik ez izanik, egin beharreko gastu garrantzitsuak tarteko zirenean zentsuen fundaziora jotea beste aukerarik ez zuten izan ohi, eta honek, denbora luzera, landa-eremuetako baserriak eta beraien ondasunak hiribilduetako klase nagusietako partaideen eskuetara igarotzea eragin zuen, askotan, zentsuen fundatzaileak zorrak ezin ordaindurik gelditzen baitziren (eta ondorioz, beraien ondasunak erremate judizial bidez zentsuen eta bestelako zorren jasotzaileen artean banatzen ziren). Egoera honek Aro Berriaren hasieratik, baina batez ere XVII. mendean geroztik, hainbat arazo sortu zituen:

En 1607 el presidente del Consejo de Hacienda dijo en las Cortes que la condena de los censos en el futuro reportaría un ‘universal beneficio y alivio para la labranza y la crianza y comercio en el estado en que está’. En teoría, el censo debía ser un instrumento de crédito que permitiera a los campesinos mejorar sus tenencias, pero existen pruebas suficientes que evidencian, muy al contrario, que su efecto era desfavorable. De entre las muchas cargas que pesaban sobre las espaldas del productor rural, el censo era probablemente la más gravosa y ruinosa, mucho más de lo que pudieron serlo otras cargas frecuentemente citadas, como los impuestos. En general, a los campesinos les era más fácil deshacerse de las deudas al fisco (que, en último término, el gobierno solía aplazar), que conseguir una reducción de la deuda legal del censo (considerada como renta de la tierra y como deuda monetaria). Conscientes de que la población rural recurría a los censos porque no existía ninguna otra manera de conseguir capital, los reformadores de comienzos del siglo XVI insistieron en la necesidad de crear fuentes alternativas de financiación. A falta de una banca, reivindicaron la formación en cada localidad de montes de piedad o montepíos, bancos de crédito que podrían adelantar pequeñas sumas a los campesinos (para equipamiento, grano) y que podrían ser reintegradas a cuenta de la cosecha. La idea fue aceptada en un principio por varios políticos (la Junta de Reformación propuso en 1622 la fundación de erarios siguiendo las normativas sugeridas por Oudegherste en 1576), convirtiéndose en un objetivo clave de la Junta de Comercio en 1679 (Kamen 1986, 42)

Baina hala ere, jada XVII. mende erdialderako, zentsuen fundazioaren dinamikak eta bestelako krediturik lortzeko ezintasunak lurjabeak gero eta urriagoak eta gero eta lursail gehiagoren jabe izatea eragin zuen. XVI. mendearen bukaera aldean hiribilduetako familia boteretsuek lurak eurenganatzeko joerari ekin zioten, artisautzak eta urruneko komertzioak izan zuten gainbeherak motibaturik. Zilarrezko ornamentu eta bitxi kopuru handiak pilatzearen praktikaz beste, klase sozial lez zeuzkaten gastuei aurre egiteko diru-iturri segurua zuten lurren jabegoa eta hauen errentak eskuratzea, eta hau, hein handi batean, baserrietako lurjabe txikiei emandako maileguez eta zentsuek hauen artean sortzen zituzten ordaindu ezinezko zorren bidez egin zuten. Honekin bat familia nagusien arteko ezkontz-politika endogamiko bat praktikatu, lurren parte handi bat eurenganatzeko lortu zuten. Azalpen hauen oinarritzat darabilgun Alberto Santana Ezquerrak honela azaldu zuen prozesu honek Bergaran izan zituen ondorioak:

El proceso de concentración fue muy rápido y ya a mediados del siglo XVII se había consolidado una estructura de distribución de la propiedad agrícola en la que el 62% de las explotaciones se encontraban en manos de los propietarios rentistas. Este índice apenas creció a lo largo de la centuria siguiente, pero sin embargo se redujo sustancialmente el número de familias que participaban en el reparto de beneficios del arrendamiento de caseríos. En 1808, cuando los objetivos de la estrategia de polarización estaban sobradamente cumplidos, un pequeño grupo de siete personajes se había hecho con el control de 73 de los 248 caseríos existentes en el término de las parroquias de San Pedro y Santa Marina. La lista de quienes integraban la oligarquía agraria local apenas encierra sorpresas; está encabezada por la viuda de Monzón y Vicente Eulate, propietarios de 15 caseríos respectivamente, seguidos por el Conde del Valle, Hipólito de Barroeta y Francisco de Moya, los tres con 10 en su haber, más la casa de Arrese con 7 y la de Urdangarín con 6 (Zenbaiten artean 1994, 45-46)

Prozesu guzti hau gauzatzen ari zela aintzat harturik, ulergarria da, esate baterako, jarraian hizpide izango ditugun Maria de Izaguirre edo Magdalena de Castillo bezalako serorek baserriak eta etxeak familia-kideen esku uzteko zentsuekiko hartu zituzten erabakiak izan ziren bezalakoak izatea. Bi kasuetan, modu batera edo bestera (oinordekotza bidez, erosketa bidez) seroren eskutara iritsitako etxeak (bata hiribilduko etxea, bestea baserria) familia-kide batzuei eman zitzaizkien dohaintzan, baina seroren euren alde fundaturiko zentsuen ordainketaren behararekin. Horrela, serorek etxearen

gaineko zentsuen kontrola hartzen zuten, beste zentsuren baten fundazioa ekidinez; bestela esanda: etxeak beste zentsu-emaleren edo mailegatzailereren baten eskutan erortzeko arriskua ekiditen zuten. Era berean, bi kasuetan, etxearen gain zegoen zentsuaren zorrak etxera itzultzen bukatu zuen.

Azken finean, orduan ere, egindako tratuetarako diru beharra edo diru likido beharra zegoenean, hau gordetzen zuten haiengana joan ohi ziren noski, mailegaturiko diruen eske; eta hauen artean serorak ere izan ohi ziren, batez ere hiribilduetakoak. Diruen mailegutza beraz, esan bezala, zentsuen bidez egin zitekeen, baina ez zen formula bakarra; besterik gabe, ordainketa egitearen promesa idatziz jasotzen zuten dokumentuen bidez ere egiten zen: betekizunak. Bertan ordainketa epe bat ezartzen zen, maileguan emandako kopuru osoa itzultzeko. Eta noski, zentsuez eta betekizunez bestalde, izan ziren beste hainbat mailegu ere, kopuru xumeagoak izanik, idatzizko tratu bidez egiten ez zirenak. Mailegu txiki hauen berri, batez ere, testamentuek ematen digute.

Serorek alor honetan garatu zituzten aktibitateei gainbegiratu emateko beraz, ikerketa ziotarako, zentsuak eta bestelako maileguak banatu ditugu. Hein bateraino, zentsuek betetzen zuten funtzioa ez baitzen gainontzeko maileguen berbera ere. Baserrien, etxeen, lursailen, ondasunen eta are parrokien eta udalen aurka ere serorek izan zituzten zentsuak, denbora luzeetarako aldiroko dirua suposatzen zuten heinean, hainbat ziotarako balio zezaketen. Gutxieneko ziurtasun bat eman zezakeen diru-sarrera konstante lez, dohaintzan eman zitekeen, familia-kideren baten sostengurako, edo jatorrizko etxearen ondasunak bermatzeko, edo norbere heriotzaren ostean arimaren aldeko mezak egiteko. Kopuru printzipalaz edo zentsuaren finikitorako falta zenaz baliatu beharra suertatuaz gero, hau erosiko zukeen norbait aurkitu eta diruak honengandik jaso zitezkeen. Salmenta bidez, zorrak ere kitatu zitezkeen. Edo ondasunak erosteko beraietaz baliatu. Posibilitate guzti hauek ziren, eta baita besteren batzuk ere, serorek zentsuen bidez euren esku izan zituztenak. Areago, batzuren batzuk, zeuzkaten zentsuen eta hauetako dirutzei erreparatuaz gero, “zentsuetan espezializatu zirela” ere esan ahal izango litzateke.

Zentsuak kopuru jakin batzuez gorako maileguak izan ohi ziren, baina honekin bat, eta mailegaturiko kopuruen dibertsitate handiago batekin, epe jakin baten mugarekin edo zehazturiko mugarik gabe itzultzeko diruen maileguak ohizkoagoak izan ziren, eta batzuetan, batez ere ermitetako seroren artean, mailegurako erabili zuten bide bakarra izan zen. Kapitulu hau osatzeko erabili ditugun iturriak bi taldetan banatu litezke: alde batetik, 99 seroren testamentuen oinarrizko laginetik, zentsuak eta maileguak eman zituzten serorak 61 izan ziren; hauetatik bilduriko informazioa 3.a. koadroan (879-912 or.) antolatu dugu, eta hau eta honen emaitzei dagokien 3.b. koadroa (913-916 or.), hainbat azalpenetarako eta analisi estatistikotarako baliatuko ditugu. Beste aldetik, batez ere zentsuei dagokienean, hauen emateei, salmentei, luditzei, eta bestelako mugimendu ekonomikoei buruzko dokumentazioa aski ugaria dugu, eta azaldu izan dugunez, 35 seroraren inguruko dokumentuei egin diegun gertuagoko jarraipenean, hainbat dokumentu tankera honetakoak ditugu. Testamentuetatik jaso litekeen ikuspegi estatikoaz aparte, beraz, urteetan zehar serorek zentsu eta maileguetaz baliatzeko zeuzkaten moduei ere egingo diegu gainbegiratu, beti ere, zenbait serora jakinen kasuei erreparatuaz, eta jarraipen ertsiagoak eginez.

99 seroren testamentuen laginaren baitan zentsuak eta maileguak eman zituzten 61 kasuak, banaketa espazialari dagokionean, nahiko ekilibratuak ageri zaizkigu. Bergara, Elgeta eta Antzuolako espazioko 53 testamentuetatik (99 testamentuko lagin osoarekiko, nabaria denez, ia kopuruaren portzentai berbera, %53'53, ondoren aipatuko

ditugun lagin osoari buruzko datu guztietan bezala) 36tan azaltzen zaizkigu; 61en arteko %59'01. Leintz bailaran aldiz, testamentu guztiak 25en kopurura heltzen zaizkigu, eta zentsuak eta maileguak aipatu izandakoak 15 izan ziren; hau da, azken hauen kopuru osoaren %24'59. Testamentuen lagin osoaren eta zentsuak eta maileguak zeuzkatenen arteko espazioen araberrako korrespondentzia Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioan eta Leintz bailaran nahiko ertsia badugu, Oñatin, bertako 22 seroren testamentuetariko 10etan baino ez zaizkigu aipatzen; hau da, 61en %16'39an, beste espazioetan baino korrespondentzia neurri bajuxeagoan. Beste hitzetan esanda: espazioen arabera eskuratu ahal izan ditugun testamentuen kopuruaren eta hauen baitan zentsuak eta maileguak eman zituztenen arteko koerlazioa aski gertukoa dugu, eta honek zera esan nahi du: espazio bakoitzeko seroren kopuru osoekiko, zentsuak eta maileguak eman zituztenen proportzioa nahiko parekatua ageri zaigu espazio guztietan; kopuru osoa 99koa dugunez, zentsudun eta mailegudun 61 testamentuek emango liguketen %61'61eko proportzioa Debagoienako herri guztietarako zentsu eta maileguak eman zituzten seroren proportzio adierazgarritzat har genezake, Oñatirako neurria zertxobait jeitsiz. Beraz, eskuraturiko testamentuen kopurua bertan handiena izanik Bergarako, Elgetako eta Antzuolako seroren kasu eta adibideak ugarietak izango badira ere, honek ez gaitu zentsu eta mailegu gehien bertan ematen zenik pentsatzera eramane behar, ez behintzat, seroren kopuruarekiko mantentzen den proportzioaz beraz haratago.

Baina apreziatio hauek beste zenbait zehaztapen ere behar dituzte. Izan ere, herrien mailara jeitsiz, itxura ekilibratu hau Bergara, Elgeta eta Antzuolari dagokion espaziokoetan baino ez da hain fidel mantentzen; Leintz bailaran, batez ere Arrasateko (denera 13 -Debagoieneko guztiekiko %13'13-, zentsu eta mailegudunak 10, %16'39) eta Leintz Gatzagako (denera 4 -guztiekiko %4'4-, zentsu eta mailegudunak 3, %4'91) seroren artean, zentsu eta mailegudunen presentzia beste herriekiko proportzionalki handiagoa zen, Aretxabaletan eta Eskoriatzan aldiz, bakoitzeko serora bakarrarekin, aktibitate hauetara dedikaturiko seroren proportzioa nabari jeisten delarik (hurrenez hurren, denera 4 eta 3 serora, zentsu eta mailegudunak bakoitzean 1, alegia, bakoitzeko 61en %1'63). Beraz: zentsuak eta maileguak emateko ohitura nahiko uniformeki banatua zegoen Debagoienean bertako espazio ezberdinetako seroren artean (%61'61eko proportzioan), baina Bergaran, Elgetan, Antzuolan, Arrasaten eta Leintz Gatzagan gehixeago, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Oñatin baino.

Testamentuetako informazioa biltzerako orduan koadro bakarrean mailegu arruntekin bat zentsuak ere baitaratzeko erabakia hartu dut, batez ere, zentsuak eurak ere, finean, ezaugarri espezifikoki jakin batzuk zituzten maileguak izanik, serorak maileguan ematera hel zitezkeen kopuru osatuagoen berri jaso baitezakegu. Gainera, erlazio sozial eta ekonomiko hauek eratzen ziren moduaren eta inplikatzeko zuten jendearen analisia egiterako orduan, mailegu arruntak eta zentsuak banatzea zentzugabea litzateke, lortu nahiko genukeen ikuspegi orokorraren hautemapena oztopatu eta murrizteko baino ez bailuke balioko. Eta honek, era berean, maileguen jasotzaileen analisia ere aldrebestuko luke. Koadroan, beraz, alde batetik jasotzaileen araberrako banaketa egin dugu, beste aldetik, zentsuen eta maileguen araberrako banaketa ere eginez, guztiak, kopuru printzipalekiko proportzioen estatistikekin. Horrez gain, 1650az aurretikoen eta ondorengoan arteko banaketa ere egin dugu, seroren presentzia bezalaxe, hauen mailegutza aktibitateetan XVII. mende hasieratako desagerrarazte saiakeraren ondorioak zertan izan ziren ikusi ahal izateko.

Beste behin, esku artean izan dugun laginaren baitako seroren egoerak oso ezberdinak eta anitzak zirela ohartzen dugu; 1 eta 11.039 errealeko muturreko kopuruaren bitartean (laginean, noski, maileguak eman zituzten serorak baitaratu ditugunez, batere

mailegurik eman ez zutenak ere izan zirela ez da ahaztea komeni), mailegutza aktibitatean jarduteko oso era ezberdinak nabari litezke, aktibitate honen bidez erlazio sozialak josteko oso modu ezberdinak bezalaxe. Esate baterako, eta izan zitezkeen kontrasteak aditzera emateko: aipatu ditugun 11.039 errealak, Arrasateko Maria Lopez de Olazaran serorari (1604) zegozkionak, Arrasateko serorek emanak zeuzkaten 14.027'75 errealen parterik handiena osatzeaz gain, eurak bakarrik Oñatiko eta Elgetako 19 serorek 1554-1784 bitartean eman zituzten kopurura (12.135'5 erreal), edo Antzuolako 8 serorak 1642-1733 bitartean eman zituztenetara (12.200'75 erreal) gerturaten dira, eta herriak banaka harturik, serora bakar honen zentsuek Oñati, Elgeta, Leintz Gatzaga, Aretxabaleta eta Eskoriatzako serorek eman zituzten mailegu eta zentsuen kopuruak gaintzen dituzte. Beti ere, noski, darabilgun laginaren baitan mugituz. Eta ez da bakarra; hurrengo kopuru handienek ere, Bergarako Maria de Izaguirrek (1631) emanak zeuzkan 6.469 errealek, Magdalena de Castilloren (1612) 5.742 errealek edo Marina Garcia de Oruesagastiren (San Pedro parrokia, 1607) 4.205 erreal eta 1/2-ek ere euren kabuz hainbat herritako seroren mailegu eta zentsuen diruen kopuruak gaintzen dituzte. Era berean, zentsuen edo maileguen erabileraren ohiturekiko, nahiz eta gehien-gehienetan alderantzizkoa gertatu ohi zen, parrokia bateko –Bergarako San Pedroko– serora zen Catalina de Ondarzak emandako 2.358 erreal eta 1/2-ak, denak ohizko maileguan emanak izan ziren¹¹⁷⁴, eta ostera, ermita bateko –Bergarako Aritzetako San Migeleko– serora zen Catalina de Querexazuk eman zituen 1.607 errealak, guztiak zentsutan izan ziren¹¹⁷⁵.

Pausuz pausu analisisian sakontzen joateko, lehenik datu orokor batzuk emanaz ekingo diogu. Lagineko 61 serorek (gogoan izan dezagun, ggb., testamentua ezagutzen diegun 99 seroren 2/3-ak) 1554-1784 bitartean emandako 431 zentsuen 83.432 errealek, lehenik eta behin, serora bakoitzak emandako diruen batzbestekoa 1.367'7 errealetan (124 dukat baino gehixeago) kokatzen digute. Kopurua esanguratsua da, eta bere kabuz, aintzat hartzeko gaitasun ekonomiko baten berri ematen digu; neurria ohartzeko, gogoan izan dezagun, esaterako, Catalina de Ondarza serorak Bergarako San Pedro parrokiako seroretxe izango zen Barrenkaleko etxea 100 dukatetan erosi zuela. Alabaina, errealen eta dukaten baloreak ere XVI-XVIII mendeak bitartean hainbat gorabehera izan zituen, eta datu hain orokorrak baloratzerakoan, zuhur ibili beharko genuke. Gorabehera hauez beste, maileguak jasotzaileen sexuaren eta egoera sozial orokorraren arabera banaturik, honako datuak biltzen ditugu: 236 emakumei (% 54'75), 114 gizonei (% 26'45), 58 bikoteei (senar-emazteak izan edo beste erlazio familiar baten bidezko lotura izan) (% 13'45), 17 etxe eta baserriei (% 3'94) eta 6 indeterminatuei (%1'39) emandakoak izan ziren. Kopuruei dagokienean, guztira emanak zituzten 83.432 errealen (ggb., noski) banaketa aski ekilibratuagoa ageri zaigu: emakumezkoei %35'13 (29.314 erreal), gizonezkoei %27'89 (23.274'25 erreal), bikoteei %22'08 (19.023 erreal) eta etxe eta baserriei %14'27 (11.910'75 erreal)¹¹⁷⁶. Ikus litekeenez, bikoteei emandakoak eta etxe

¹¹⁷⁴ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

¹¹⁷⁵ GPAH-AHPG 1/0188, 364r-366r.

¹¹⁷⁶ Emaitzak biltzeko baliatu dugun banaketak mugaren batzuek ditu, azaldu berri zaigunez, zenbait partida indeterminatutzat gelditzen baitzaizkigu. Hauen artean, pertsonaren identitatea isilpean mantendu nahi zen kasuren batzuek gain, kontzejuak, elizateak eta udalak baitaraturik daude. Zor hauek gizarte talde zabalei dagozkienez, analisisetan eta emaitzetan nolabait integratzearen, dagozkien kopuruak emakumezkoendako eta gizonezkoendakoen artean erdiz banatzeari iritzi diot zuzenena; indeterminatu hauen presentzia, azken finean, ez dugu kopurutan hain handia ere, aparteko sailkapen batean kokatzeari ekiteko. Hau hala izanik, noski, erabaki honek emaitzetan daukan islada ere argitu beharrean nago: kontzeju, udala eta elizateak zordun ziren partidak 3 ditugu, eta denera, 2.882 errealeko zorrak zeuzkaten. Kopuru hau beraz, esan bezala, emaitzen banaketan emakumezkoen eta gizonezkoen aldeko kopuruetan erdizka banaturik txertatua dago.

eta baserriei emandakoak batuz gero, hauei emandako diru kopurua, eta emakumezkoei eta gizezkoei emandakoak ggb.ko herenetan banatzen zaizkigu, azken hauek neurri bajuxeagoan geldituz. Hartzaileen kopuruen eta diruen kopuruen arteko aldea nabaria dugu, eta talde bakoitzeko, batazbesteko ezberdinetara heltzen gara. 236 emakumeendako 124'21 errealeko batazbestekoa irtetzen zaigu, 114 gizezkoendako 204'16 errealekoa, 58 bikoteendako 327'98 errealekoa, eta 17 etxe eta baserriendako, 700'63 errealekoa. Beraz, lehen balorazio bat nabaria dugu: emakumezkoei emandako diruak, termino orokorretan, gehiagoren artean banatzen ziren eta kopuru xumeagoetakoak ziren, gizezkoei emandakoen kasuetan baino. Hauek batazbeste, ggb. lehenen bi herenak jasotzen bazituzten, bikoteen kasuan batazbestekoa bikoitza eta hirukoitza artean gelditzen zaigu, eta etxe eta baserriei emandakoen batazbestekoak, era berean, azken kopuru hau bikoizten du. Hau, ikusiko dugunez, diruak emanak izan zirenerako xede ezberdinei loturik ere bazegoen; erabilera garbiena bikoteei eta etxe eta baserriei ematen zitzaizkien diruei ematen zitzaiena da: familia-taldearen eta etxe eta baserrien mantenua (obrak, lurren erosketak, doteen emateak, etab.). Gizezko eta batez ere emakumezko hartzaileek mailegu eta zentsuez egiten zuten erabilerak ostera, jada dibertsitate zabalagoa zeukan, kopuruen euren dibertsitateak berak aditzera ematen duenez.

Jasotzaileen araberrako banaketa hauetan badira espazioen araberrako zenbait ezberdintasun aipagarri. Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioan biltzen zaizkigu Debagoienera mailegutza aktibitateetan jardun zuten seroren gehiengoa, eta halatsu, baita kopuruen parterik handiena ere, emaitza totalaren %46'47. Seroren kopuruekiko emandako batazbestekoetan ere bertakoak ditugu altuenak, 1.596'71 errealetan kokatua, Leintz bailarako 1.354'48 eta Oñatiko 563'3 errealean aldean. Datuei herrrika erreparatuaz gero ere espazio honetakoetan dauzkagu kopururik altuenak, Arrasaterekin batera, 1.000 errealetik gorako batazbestekoak ematen dituztenak: Bergaran 2.040'97, Antzuolan 1.525'09 eta Arrasaten 1.402'77 erreal. Badira serora konkretuen partida jakinak ere (Bergaran, Elgetan eta Antzuolan), emaitza orokorretan eragina daukatenak; aipagarriak ditugu, esaterako, Magdalena de Castillok (Bergara, 1612) bere ahizpari eta honen senarrari zentsutan emandako 4.400 errealak, hiru herrietan bikoteei emandako diruen parte handi bat osatzen dutenak, edo Maria Ana de Goitia Bereteriok (Antzuola, 1733) bere anai Juan Baptista de Goitia Bereteriori emandako 1.591 errealak eta Francisco Antonio de Irazabali emandako 1.100 errealak, Antzuolako estatistikan gizonen aldeko maileguen estatistika hain altua izateko erantzule ditugun datuak. Eta esanguratsuenak iruditzen zaizkigun hauekin batera, badira kopuru handietako beste zenbait partida ere, estatistiketan neurri ezberdineko eragina daukatenak.

Espazio honetako datuetan emakumezkoen eta gizezkoen alde emandako maileguen kopuruak nahiko parekatuak ageri zaizkigu, gizonen portzentaia altuxeagoarekin (lehenen %30'34aren aldean, bigarrenen %32'42); oso parekatuak ditugu bikoteen eta etxe edo baserrien alde emandakoak ere, eta hemen ere azkenak altuxeago (lehenen %17'97, bigarrenen %19'26). Hiru herrien artean proportzioen zenbait bariazio ematen zaizkigu; diru kopururik handienak eman zituzten espazioa dugun Bergaran emakumezkoen eta gizezkoen portzentaian aldea handiagoa dugu eta lehenen alde egiten du (hauen %36'01aren aldean, bigarrenen %28'94), eta bikoteen aldekoen portzentaia ere altuxeagoa dugu (%19'32), etxe eta baserrienaren alboan (%15'61). Elgetan eta Antzuolan aldiz, gizezkoen portzentaia dezente altuagoak ditugu emakumezkoenen aldean (Elgetan em. %27'2 eta giz. 46'28, eta Antzuolan em. %13'69 eta giz. 36'06); zifra hauek egiten dute azkenik hiru herrietako portzentaian

gizonezkoen aldeko kopuruak handiagoak izatea. Bikoteei, eta etxe eta baserriei dagokienean aldiz, Elgetan bikoteei emandako maileguak baino aurkitzen ez ditugun artean (herriko portzentaiaetan %26'51 osatuz, nahiko kopuru esanguratsua), Antzuolan bikoteen alde emandako kopuruak ditugu txikiak (%9'13a osatuz), etxeen eta baserrien alde emandako kopuruek aldiz emakumezkoen eta gizonezkoen alde emandako kopuruak ere gaintzen dituztelarik, %41'11ko portzentaia altuarekin. Beraz, Bergaran emakumezkoen eta gizonezkoen alde emandako kopuruek gehiengo osatzen duten artean (emakumezkoen gehiengoarekin), Elgetan eta Antzuolan gizonezkoen alde emandako kopuruek emakumezkoen eta bikoteen alde emandakoei alde ateratzen diete; eta etxe eta baserriekiko ostera, Elgetan hauen izenean inongo mailegurik eman ez zen artean, Antzuolan berriz kopururik handienak jaso zituztenak ditugu.

Leintz bailarako maileguen eta zentsuen kopuruen portzentaiek hein handi batean Arrasatekoak islatzen dituzte; Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako seroren testamentuen kopurua oso urria dugu, izan ere (lehen bietan bana, eta hirugarrenean hiru baino ez), eta Arrasateko 10 seroren portzentaiek baldintzatzen dute ikuspegi orokorra. Kopuru txikitako zenbait aldaerez beste, Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranaren (1629) 400 dukateko zentsua dugu Arrasateko emaitzetatik Leintz bailarakoetarako aldaera esanguratsuren bat eragiten duen bakarra. Zentsu honek eragiten du emakumezkoen aldeko mailegu eta zentsuen kopuruak Arrasateko %35'4tik Leintz bailarako %50'49ra iragatea, eta bikoteen aldeko kopuruek aldiz, Arrasateko %49'66tik Leintz bailarako %34'54ra jeitsiera izatea. Arrasateko bikoteen aldeko mailegu eta zentsuen kopuruen portzentaia altua, bestalde, 1.003 dukatetik gora zentsutan emanak zeuzkan -eta beraz, mailegutuan eskarmentu handia zeukan- Maria Lopez de Olazaranen (1604) kasuak baldintzatuak dugu; bikoteen alde Arrasaten emandako kopuruaren parterik handiena, ia guztia, serora honen zentsuei dagokie. Baina partidarik gehienetan zorduntzat senar-emazteak ageri bazaizkigu ere, bagaude hau aipatzeko modu hutsa ez ote genukeen, eta mailegu hauek etxe edo baserriei emandakotzat ere hartu ahal izango ez ote lirakeen. Kasuren batean bikote zorduna andere batek eta bere suiak osatua izateak, edo etxeko -izkribau- jaunarekin batera "su muger e hijos" aipatu izanak, nukleo familiarretan pentsatzera garamatza. Berez, etxekotzat interpretatu dugun azken partida honek eta esplizituki "los de la casa de Santa Maria" bezala aipatu zirenen beste 2 erreal eta 3/4-eko partida batek baino ez digute osatzen Arrasaten etxe eta baserriei dagokien kopurua; eta horrek bertan ohizkoena, etxe edo baserriak beharrean, zorduntzat bikoteak aipatzea zela berresten digu. Guzti honen arabera, bikoteen alde maileguak edo zentsuak ematearen ohitura ez genuke ziurrenez azkarregi herriko seroren ohituren joeratzat hartu beharko, zordunak aipatzeko ohizko modutzat baino. Edozein kasutan, eta sortzen zaizkigun zalantzak garbi utzirik; gizonezkoen aldekoetan (Arrasateko %12'16, Leintz bailarako %11'59) eta etxe edo baserrien aldekoetan (Arrasateko %2'76, Leintz bailarako %3'31) ez da bariazio handirik ematen, eta beraz, aipaturiko zentsuak eragindako emakumezkoen aldeko eta bikoteen aldeko kopuruen alderantzketan baino ez zaigu aipagarri. Ezen gizonezkoen eta etxe eta baserrien aldeko kopuruak, ikus litekeenez, ez ziren osotasunaren %15a osatzera heltzen. Ohar litekeenez, Maria Ruiz de Araoz y Duranaren (1624) 400 dukateko zentsua portzentaian artetik kanporatuko bagenu, bikoteen aldeko kopuruak nagusi izango zirakeen, emakumezkoen aldekoak ere kopuru altuetan mantenduta; alabaina, bikoteen aldeko mailegu eta zentsuen kopurua ere hein handi batean Maria Lopez de Olazaranen (1604) zentsuek puztua dagoenez, eta hauek etxe eta baserrien ordezkariatzat hartu beharko genituzkeela dirudienez, Leintz bailarako mailegu eta zentsuen ikuspegi orokorra honakoa genuke: Leintz bailarako serora mailegu-emaleek mailegu eta zentsurik gehienak eta hauen kopuru nagusiak emakumezkoen eta

bikoteen eta hauek adieraziriko familien artean banatzen zituzten, nahiz eta zordun hauei dagozkien datuak, batez ere bikoteei dagozkienak, kasu konkretu batzuek puzturik ageri zaizkigun; gizonzkoen aldeko kopuruak aldiz, alde esanguratsu batera agertzen zaizkigu.

Oñatin, azkenik, emandako kopuruen artean etxe eta baserriei zegokien %5'64az besteko kopurua, emakumezkoen, gizonzkoen eta bikoteen artean nahiko ekitatiboki banatua ageri zaigu, gizonzkoen aldekoa, besteen aldean altuxeagoak izanik (em.: %28'63; giz.: %36'03; eta bik.: %29'68). Alabaina, hemen ere osatzen zaizkigun estatistikak serora konkretu baten zenbait mailegu eta zentsuk baldintzatzen dituzte. Emakumezkoen aldeko kopuruen eta bikoteen aldekoen parte handi bat Maria Lopez de Estrañok emandako mailegu eta zentsuei dagozkie: Bidaurretako komentuan moja sartua zegoen bere amaren alde eman zituen 1.257 errealak, eta bi bikoteri zegozkien zentsutan emandako 1.100 errealak. Oñatiko seroren aldetik emandako maileguen artean kopururik handienetarikoa ditugun hauek estatistikatik salbuespentzat kanporatuaz gero, batzbestekoek nabariago egiten digute gizonzkoen alde (%60tik gora), nahiz eta emakumezkoak eta bikoteak bestela ere presente leudekeen. Hortaz, Oñatiko serorek emandako mailegu eta zentsuetan gizonzkoen presentzia nabarmentzekoa genuke bestelakoan aldean, nahiz eta aipaturiko partidek gizonzkoen, emakumezkoen eta bikoteen arteko portzentaiak berdintzera jotea eragiten duten.

Jasotzaileen arteko banaketaz gain, beste alderdi deigarri bat, zentsutan eman ziren diruen eta mailegu hutsean eman zirenen arteko kopuruen antzekotasuna da. Zentsutan %55'05a eman zen (45.934 erreal), eta mailegutuan berriz, %44'94a (37.498 erreal). Itxurazko antzekotasun honek baina, ezberdintasun handiak ere ezkututzen ditu. Lehenik eta behin, espazioen araberrako ezberdintasunak ditugu; bestelako parametroekin gertatu bezala eta lojikoak ere badenez, testamentuen kopururik handiena bildu ahal izan dugun Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatutako espazioak Debagoieneko datu orokorrekiko antzerakoan ematen dizkigu, portzentaiak alderantzten bazaizkigu ere: zentsutan %46'46a eman zen, mailegu arruntetan emandako %53'53aren alboan. Eta espazio honek ggb.ko erdibidea ematen badigu, Leintz bailarako datuak eta Oñatikoak aurkako joeren adierazle ditugu. Leintz bailaran, ohartarazi dugunez, Arrasateko serorek osatzen digute gehiengoa, eta hauek azaltzen duten zentsuen aldeko joera, gainera, Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako seroren kasuek areagotu egiten dute; Leintz bailaran diru gehienak zentsutan eman izan zituzten, %87'01a, mailegu arruntetan emandako %12'98aren aurrean. Oñatin osterala alderantzizko joerarekin egiten dugu topo; zentsutan emandako diruek %27'44a baino ez zuten osatzen, %72'55eko gehiengoa mailegu arruntetan eman zelarik. Bi joera hauen artean, eta Bergara, Elgeta eta Antzuolak osaturiko espazioak erdibide nagusi eginik, beraz, Debagoieneko seroren testamentuetan mailegutzarako diruak banatzeko moduak zentsuen eta mailegu arruntetan artean nahiko parekatuak gelditzen zaizkigu, zentsutan emandakoen portzentaia altuxeagoarekin bada ere.

Baina espazioen araberrako ezberdintasunez beste, emakumezkoen, gizonzkoen, bikoteen eta etxe eta baserrien artean zentsuak eta maileguak nola banatu ziren erreparatuaz gero, ohitura desberdinen jarraipena ere ohartu liteke. Aipatu dugu nola emakumezko jasotzaileak ugariagoak ditugun, eta mailegu txikien jasotzaileen artean hauek gehiengoa osatzen zuten. Hau zentsu eta mailegu arruntetan arteko banaketan zeharo nabaria dugu, gizonzkoen eta beste sailkapenekiko konparazioaren baitan. Debagoiena mailako daturik orokorrenetara mugatzea aski izango dugu joera hauen berri emateko (xehetasun gehiagoren bila joan nahiko lukeenak hor dauka 3.a. koadroa -879-912 or.- seroren kasu konkretuen gain arakatu eta azalduko dugun egoera

kontrastatzeko). Mailegutan emakumeen alde eman ziren diruen %18'51a baino ez zen zentsutan emana izan, mailegu arruntetan eman zitzaizkien diruen %81'48aren aldean. Oso bestelakoa dugu gizonezkoen aldeko diruen banaketa; zentsutan %56'29a eman zitzaien, eta mailegu arruntetan berriz, %43'7a. Zentsutan emandako diruen nagusitasuna nabariagoa da bikoteei, nahiz etxe eta baserriei emandako diruei erreparatzean. Bikoteei emandako diruen %77'44a eman zen zentsutan, mailegu arruntetan emandako %22'55aren aldean; eta etxe eta baserrien kasuan, %62'61a eman zitzaien zentsutan, mailegu arruntetan emandako %37'38aren aldean. Datu hauek joera orokor batzuen agergarri ditugu, noski. Emakumeen aldeko diruen artean mailegu arruntetan emandakoak ziren nagusi, xede ezberdinetarako emandako kopuruen dibertsitate zabal bat delako estatistikan isladatzen zaiguna; emakumeen arteko maila sozial eta ekonomiko ezberdinen espektro zabal baten sostengua eta laguntza osatzen zuten seroren maileguek. Gizonezkoen kasuan aldiz, eta areago bikoteen eta etxe eta baserrien kasuetan, emandako diruen xedeak gehiagotan jotzen du leinu edo familia baten eta hauen oinarri sozioekonomiko ziren etxe eta baserrien sostengura, eta hargatik, ohizkoagoak ditugu zentsutan emandako diru kopuru esanguratsuen partidak, mailegutan emandako kopuru xumeagoen partiden alboan. Baina noski, serorei buruzko alderdi ezberdinei erreparatzean behin eta berriro ohartaraziz goazenez, hauek joera orokorrak lirateke, eta hauez kanpoko kasu konkrituak erraz aurki litezke seroren banakako jarraipena eginaz gero.

Ohitura eta joera orokor hauez gain, ezarri ditugun bitarte kronologikoen artean ere ezberdintasun nabariak daude. 99 testamentuko lagin osoarekin gertatu bezala, zentsu eta maileguen emale izan ziren 61 seroren arteko gehienak, ggb. 3/4-ak, 1650az aurretikoak ditugu. Ez gara honen motiboen inguruan berriz bueltaka hasiko, aski dugu XVII. mendearen lehen hamarkadetako seroren desagerrarazte saiakera eta honen ondorioak gogoraraztea. Diruen jasotzaileen arteko banaketak eta zentsuen eta maileguen erabilerak azaltzen dizkiguten zenbait ezberdintasun, hala ere, oso esanguratsuak zaizkigu. Seroren kopuruaren gainbeheraz beste, hauetariko bakoitzak emandakoaren batzbestekoak ere behera egin zuen nabari; 1650erartekoetan dezente altuagoa dugu (1.412'66 erreal), 1650az ondorengoetan baino (966'37 erreal). Jasotzaileen arteko aldaketak ere deigarriak zaizkigu. Lehen bitarte kronologikoak, XVI. mendearen hasieratik 1650era doanak, Aro Berri guztiari dagozkion datuen antzerakoak ematen dizkigu, emakumezkoiei emandako diruen portzentaia altuagoarekin (Aro Berrirako %31'52ren aldean, %35'48) eta gizonezkoiei emandakoen bajuagoekin (Aro Berrirako %29'44ren aldean, %26'82), eta bikoteen aldeko diruen portzentaia ere altuagoa delarik (Aro Berrirako %24'07ren aldean, %28'61), etxe eta baserriei emandako diruen portzentaia bajuagoekiko (Aro Berrirako %15'07ren aldean, %9'07). 1650aren ondorengo 16 serorei (ez dezagun ahaztu, aurretiko 45ekiko, hauen herena baino ez) buruzko datuek ostera, zenbait aldakuntza agertzen dizkigute. Batzbestekoaren gutxitzeak agertzen digun gaitasun ekonomiko urriagoaz beste, emakumezko eta gizonezko hartzaileen arteko proportzioak iraulketa nabari bat jasaten du; lehenei emandako diruen osotasunarekiko portzentaiak, aurreko bitarte kronologikoko %35'48aren aurrean, %15'24ra jeisten dira; eta gizonezkoen aldeko mailegu eta zentsuek ostera gora egiten dute, hauek ere nabari: aurretiko %26'82tik, %39'64ra iragaten dira. Eta beste hainbeste gertatzen da, bikoteei emandako eta etxe eta baserriei emandako zentsu eta maileguei dagokienean ere; 1650erarteko testamentuek bikoteen aldeko zentsu eta maileguen portzentaia esanguratsua, %28'61ekoa, 1650az ondorengoetan %5'4ra jeisten zaigu, eta ostera, 1650erartekoetan etxe eta baserrien aldeko zentsu eta maileguak %9'07a baino ez ziren artean, urte hartaz ondorengoetan nabarmen egiten du portzentaiak gora, %39'71eraino. Aldaketa hauek, halaber,

zentsutan emandako diruen eta mailegutuan emandakoen arteko proportzioen iraulketa moderatuago batekin ere egiten dute bat. 1650erarteko testamentuetan zentsuek %56'006a eta ohizko maileguk %43'99a osatzen bazuten, ondorengo urteetan zentsutan emandakoen proportzioa %38'35era jeitsiko da, ohizko mailegutuan emandakoen neurria %61'64ra igotzen den artean. Joera orokor hauek, gainera, Debagoienaren baitan ezberdindu ditugun hiru espazioetako bakoitzean ere betetzen zaizkigu, trazu orokorretan behinik behin, eta portzentaien bariazio handiekin izanik ere; maila handiagoan edo txikiagoan, baina aipaturikoak ditugu beraz bitarte kronologikoekiko joera orokorrak.

XVII. mendearen erdialdez geroztik, hortaz, seroren gaitasun ekonomikoak behera egiten zuen artean, ohituren aldaketak ere izan ziren; eta guzti hau noski, seroren aurkako neurrien areagotzearekin, funtzioen, langintzen eta hauen etekinen mugatzearekin, eta instituzioa desagerrarazteko saiakerekin ertsiki erlazionatua zegoen. Hau, era berean, emakumeen espazio publikoen baitako partehartzearen aurkako moralitate eta ideologia baten gailentzearekin lotuta dago: emakumeen "garbitasunaren" nozioa, kaparetasun unibertsalaren ideia sendotzeak ohorearen mantenuaren garrantzi-hartzea eragin zuen testuinguru batean, gero eta garrantzitsuagoa bihurtu zen, emakumeen gaineko kontrol mekanismoen areagotzearekin; eta ez dezagun ahaztu, XVII. mendearen bigarren erdialdea, klausura aktiboaren inposizioaren garaia ere badugula. Bada, zentsuen eta maileguren hartzaileen proportzioen iraulketa, guzti horren zeharkako adierazgarri ere bada; azken finean, diruaren administrazioaren alorrean emakumeek izan zuten eskumeneren galeraren islada baino ez da, serorek XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik mailegutza aktibitateetarako gizonengan konfidantza handiagoa agertu izana. Maileguan emandako diruak itzuli egin behar baitziren, eta hartarako, maileguaren jasotzaileak administrazio ekonomikorako eskumen garbiak eta askatasuna behar zituen izan, etekinak ematen zituzten aktibitateak gauzatzeko gai izatearekin bat, maileguaren emalearengan konfidantzarik sortuko bazuen. XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik, emakume aski gutxiago ziren serora mailegu-emaleen artean konfidantza hori sortzeko gai.

1650az aurretiko eta geroztikoen arteko jasotzaileen arteko beste iraulketa garrantzitsua, alde batetik bikoteei, eta bestetik etxe eta baserriei emandako diruen artean gertatzen dena, beste faktore batzuen eraginpean uler liteke argiago. Hemen, kapitulu honen hasieran azaldu izan dugun ondasun higiezinaren kontzentrazio fenomenoaren ondorioak hauteman ditzakegu. Etxeak eta baserriak, zorpetzen joan ahala, gero eta jabe gutxiagoren eskutara igarotzen joan ziren, ondasun hauen jabe izandako asko, -askotan berbera zen- etxe edo baserria errentan hartu eta inkilino izatera iragan beharrean izan zirelarik. Honek, beste hainbat gertakizun eta faktoreekin batera gizarteko hainbat sektore asaldatze eta are matxinada egoerara bultzatzeaz beste, -orokorrean, aurreko garaietan bezain boteretsu ez ziren- seroren artean, batzuek ondasunen kontzentrazioerako joerarekin bat egitea, eta beste batzuen artean familiaren ondasunen defentsarako joera areagotzea ere eragin zuen. Hau mailegutuan emandako diruen artean etxe eta baserrien aldekoek 1650az geroztik izan zuten gorakadan ageri zaigu aski nabari, eta gizonezkoen aldeko diruen gorakada ere hein bateraino prisma berberaren pean hauteman liteke. Alabaina, beste fenomeno bat ere ohartzekoa dugu; serorek beraien maileguren jasotzaile egiten zituzten pertsonen arteko aldaketa hauek gain, zentsutan eta mailegutuan emandako diruen kopuruen iraulketa proportzionalak, maileguren bidez sostengatu nahi zituzten esparru sozialen alde egiteko serorek zeukaten gaitasun ekonomikoaren gainbehera ere agertzen digute. Jasotzaileen kopurua mugatzen da, gizonezkoen eta etxe eta baserrien alde egiten da gehiago, baina guzti hau eman

zitzaketen diruen murrizteak ere eragiten du, beraien maileguren eraginkortasun sozialaren galeraren islada. Baina oraingoz eman ditugun datu orokor hauek, orokorregiak izanik, ez digute egoeren aniztasunaren berri, ez eta serorek mailegutaz baliatzeko zeuzkaten modu eta estrategia ezberdinen berri ere, modu egokian ematen. Horretarako, kasu zehatzei erreparatu beharrean gaude.

Kopuruez aparte, serora batzuk zor guztiak zentsutan zeuzkaten artean, beste batzuk ohizko mailegutuan zeuzkatela ere ohartzekoa dugu. Eskuratu ahal izan ditugun dokumentuen muga barruan eta adibidetzat Bergarako kasuak baino ez aipatzearen, lehenen artean, goraxeago aipatu dugun Catalina de Querexazu (Aritzetako San Migel ermita, 1592-1602) eta Francisca de Arana (1607-1631) aipatu ahal izango genituzke. Talde berean sartu beharko genuke, esaterako, Magdalena de Castillo ere (1584-1612), zenbait diru ohizko maileguan emana bazuen ere, gehiengoa zentsutan zeukalako. Zentsutan batere dirurik eman ez zutenak berriz, gehixeago ziren: halaber aipatu berri dugun Catalina de Ondarza (San Pedro parrokia, 1572), Marina de Moyugoitia (Leizariako San Lorentzo ermita, 1574), Domenja de Urgoitia (San Pedro parrokia, 1580-1599), Maria de Munabe (1585-1591), Domenja de Gante (1592), eta Maria de Beiztegui (Santa Marina parrokia, 1594). Pasa gaitezen datuak eta kasuak ikusi eta aztertzeraz, aktibitate hauek gertuagotik ezagutzeko.

VI. 2.4.1. *Zentsuak*

Zentsuez baliatu ohi ziren seroren artean, azpimarragarria da hauetariko gehienak gizonei eta bikoteei emanak izatea. XVI. mende bukaera eta XVII. enaren hasiera aldean bizi izan ziren seroren artean, Catalina de Querexazuk (Aritzetako San Migel ermita) bere aldeko zazpi zentsuetatik bakarra zeukan emakume baten aurkakoa, Francisca de Aranaren (hiribilduko serora, zerbitzu partikularretakoa) zentsuen artean ez zegoen emakumeen aurkako batere, eta Magdalena de Castillo izeneko bi seroren (serorak zirela baino ez dakigu) kasuan berriz, bederatzi zentsuen arteko bi baino ez¹¹⁷⁷. Ohizko maileguez baliatzen ziren seroren kasuek, osteraz, ggb., gizonen eta emakumeen arteko diru-banaketa nahiko ekitatiboa agertzen digute. Baina sakondu dezagun lehenik zentsuetaz baliatzen ziren seroren kasuetan, eta ekingo diegu ondoren mailegutaz baliatzen zirenei.

Hainbatetan familia boteretsuetako partaide izan ohi zirenez, zenbait aberastasun, eta hauen artean, zenbait zentsu, oinordekotza bidez heltzen zitzaizkien serorei. Eta hein horretan, serora batzuei zentsuen baliatzea eta maneiua “tradizio familiarretik” heldua zitzaien. Halakoa dugu, adibidez, Francisca de Aranaren kasua. Serora hau bere ahizpa Ana Perez de Aranaren oinordekoa zen, eta azken honen senar izan zen Aparicio de Zearretaren oinordeko zen Mateo Ibañez de Urietarekin Korrejimentuaren aurreko auzi bat izana zuen 1607an, bere ahizpak ezkontzara eraman zuen dotearen ondasunak zirela eta. Ordainketa-karta baten bidez, epaian Mateo Ibañez de Urieta serorari 403 dukat eta 8 erreal eta $\frac{1}{4}$ ordaintzera zigortu zutela dakigu. Ordainketaren parterik handiena dirutan egin zuen, eta 48 dukat, zentsuen lagapen bidez eman zituen¹¹⁷⁸.

¹¹⁷⁷ Magdalena de Castillo izeneko bi serora izan ziren, izeba eta iloba zirenak. Zentsuen gorabehera hauen inguruko azalpenetarako bien zentsuak batera aintzat hartu ditugu, lehenak bigarrena 1599ko kodizilo baten bidez bere oinordeko izendatu zuenez (GPAH-AHPG 1/0082, 193v), bere ondasunak bigarrenaren ondasunen parte izatera iragan zirelako, eta dokumentu zehatzen identifikazioak, kapitulu honetan dagozkigun xedetarako, nahastu baino ez gintuzkeelako egingo. Bi seroren arteko loturei buruz, ikus aurreraxeago 579 eta hurr. or.

¹¹⁷⁸ GPAH-AHPG 1/0192, 193r-197r. Ordainketa-karta eta lagapena dira.

Baina euren arteko kontuak ez ziren oraindik bukatu, eta 1608an egin beharra izan zuten hitzarmenak auziaren inguruko berri gehiago ematen dizkigu; honela azaldu zituzten oraindik auzitan zegoenaren funtsak:

el dicho Mateo Ybanes como heredero del dicho Apariçio de Çearreta pretendia tener derecho a los ganados que dexaron – y la mitad de las conquistas y mejoras y sobre el vsufruto de los tres años de los quatro que le dexo el dicho Apariçio a la dicha su muger y otros derechos e [ac]çiones – y la dicha ueata pretendia tener derecho tambien del dicho usufruto de los dichos tres años y bienes de conquista y camas y ganados e mejoras y la mitad de los sesenta ducados que el dicho Apariçio de Çearreta pago e dio a los de Garitano y la mitad de los ochenta e cinco ducados de la sentençia arbitraria de entre maese de Arana e Apariçio de Cearreta e otros derechos e açiones que pretendia asi la una parte como la otra¹¹⁷⁹

Auzietako gastuak handiak baitziren, “y por tomar paz y concordia y guardar la amistad que auian tenido”, ondasunen banaketa hitzarmen bidez zehaztu zuten. Bertan, serorak 169 dukat eta ½ printzipaleko eta urteroko 9 dukateko balorea zeukaten hiru zentsu jaso zituen (hauen korrituen parte bat bien artean banatu beharra zeukaten), eta besteren artean, jasotzea zegozkien honako maileguren bidezko zorrak banatu zituzten erdibana: Joan de Zubiateren 224 dukat; Domingo de Argarateren oinordekoen 18 dukat; Juan Perez de Aizkoeguiaren 17 dukat; Mateo de Lizaurren 6 dukat; Miguel de Oruesagastiren eta bere anaiaren 4 dukat; Guillen “el tejero”-ren 3 dukat; Maria de Aguirrerren 8 erreal; Juan de Urrutiaren 48 erreal; Pero Perez de Arimendi Antzuolako herritarren 27 dukat; Adrian de Olabarriaren 32 dukat; San Juan de Ondarzaren (“ynquilino de Çaualeta”) 8 dukat; eta Joan de Gabilondoren 25 dukat.

Aurretik jada jasoak zituenak, zor hauen bidez zegozkion ggb. 206 dukatak eta bestelako ondasunak seroraren ondasunen parte izatera iragan ziren, eta ondorengo urteetan, hauek eta bestelako diruak maileguan jasorik, hainbat pertsonak fundatu zituzten bere aldeko zentsuak. Kopuruek serorak aipatu izan ditugun zentsuez aparteko diru iturririk bazeukala adierazten digute, 1614 eta 1616 bitartean, bost pertsonen artean serorarengandik 3.520 erreal (320 dukat) jaso baitzituzten. Neurri honek berak, zentsuen fundatzaileak eurak ere maila ekonomiko onean zeudela adierazten digute. Bikote bat eta lau gizonezko ziren: bakoitzak 1.100 errealeko zentsuak zituzten Martin de Ascasuak eta Juan Perez de Loiti Elgetako izkribauak (halaber Elgetako izkribau zen Pero Ochoa de Loiti zuen fidatzaile), bakoitzak 550 errealekoak Martin Perez de Aguirre Ozaetak eta Andres de Zuloeta eta Marina de “[???]tayça” Elgetako (Angiozar) herritarrek (fidatzaile Miguel de Zuloeta), eta 220 errealekoa Juan Perez de Barrutiak. Azken hau hiribilduan bizi zela dirudi (Arruriagan), eta bertan zeukan etxea, Matxiategin zeukan lursaila eta Anguamendin zeukan sagasti bat hipotekatu zituen. Gainontzekoek nork bere baserria (“casa y caseria”) edo oinetxea zeukaten, eta nork berea hipotekatu zuten, zegozkien ondasun, mendi, lursail, zelai, sagasti, gaztainadi, etab.ekin: Martin de Ascasuak Askasua Goikoa, Juan Perez de Loiti Elgetako izkribauak Zalbide, Andres de Zuloeta eta Marina de “[???]tayça” Elgetako herritarrek Zuloeta, eta Martin Perez de Aguirre Ozaetak Aguirre oinetxea¹¹⁸⁰. Juan Perez de Loitik, bestalde, 100 dukateko zentsua fundatu aurretik jada serorari Elgetako herritar batzuen gain zeukan beste 100 dukateko zentsu bat saldua zion, aurretiko zorrak kitatzeko¹¹⁸¹. Hau da, zentsu fundazio berriarekin, bere aurretiko zorra luzatu baino ez zuen egiten. Itxura guztien arabera, Francisca de Aranak nahiago izan zuen bere diruak neurri

¹¹⁷⁹ GPAH-AHPG 1/0193, 23r-23v.

¹¹⁸⁰ GPAH-AHPG 1/0221, 81v-83r eta 88r-89v; GPAH-AHPG 1/0222, 44r-45r; eta GPAH-AHPG 1/0223, 41v-43r eta 74v-76r.

¹¹⁸¹ GPAH-AHPG 1/0221, 87r-87v.

dezente bateko zentsu gutxitan batu, eta hauek, maila ekonomiko jakin bat zeukan jendearen artean banatu. Baina ez zituzten serora guztiek beraien diruak horrela administratzen, noski; ikusiko ditugu zenbait kasu aurrerago.

Zentsuen bidez serorek jorratu zitzaketen erlazioen beste adibide egoki bat Magdalena de Castilloren zentsuen ibilbideetan aurkitzen dugu. Hau, berez, Bergarako serora bat izatera heldu zela baino ez dakigu; ez daukagu inongo tenplurik zerbitu izan zuenaren zantzurik, ez eta hiribilduan, jarleku partikularren zerbitzuan ibili izan zenarenik ere. Daukagun informazioaren arabera, bere kabuzko negozioak baino ez zeuzkala esan liteke. Edonola ere, egoera ekonomiko onean bizi izan zen serora bat dugu, eta nahiz eta San Kristobal ermitako seroretxearen berreraikuntza bere kargu hartu zuen, hiribilduko testuinguruan ere mugitzen zela dirudi. Alabaina, jarraian azalduko ditugun gertakizunen garaian ez zen oraindik serora, nahiz eta serora zen bere izeba homonimoak urte hartan bertan izendatuko zuen oinordeko, eta ondorengo urteetan bera ere serora izatera iragango zen. Hala ere, kasua garrantzitsua dugu eta azaltzeari garrantzitsua deritzogu, azalduko ditugunak, ondorengo urteetan serora lez izango zuen bizitzarekin erlazio zuzena izan zuten gertakizunak izan baitziren¹¹⁸². Magdalena de Castillok bazituen familia-kide batzuk, momentu jakin batean, arazo ekonomikoren batzuekin zebiltzanak. Martin Ochoa de Loydi eta bere ahizpa zen Maria Joaniz de Castillo ezkondu zirenetik, azken honen doterako Joan Ortiz de Castillo zenak eta Maria Joaniz de Arana honen alargun eta Magdalenaren amak, besteren artean, dirutan emaniko 600 dukaten promesa egina zeukaten. Martin Ochoa de Loydira berriz, ezkontzarako, bere guraso Pedro Ochoa de Loydi eta bere emazteak “su cassa e solar de Loydi y todo su pertençido y sus molinos y otros uienes contenidos” emanak zizkioten. Baina senar-emazteak bizimodua egiten hasi zirenean Loydiko etxeak zenbait zor hartu zituen bere gain, eta Pedro Ochoak ezkontzarako kontratuan eraman zituen fidatzaileek fidatzaile lez erantzuten ez zuten, Joan Ortiz de Castillok eta Maria Joaniz de Arana, Maria Joaniz de Castilloren gurasoek honen doteagatik eskaini zituzten 600 dukatetatik ordaintzeko falta zirenak ordaintzeari uko egin zioten, bestaldetik fidatzaileen ziurtasunik ez zegoela eta; ez behintzat fidatzaile ziurrak ematen zituzten arte. Azkenean, 1599ko urtarrilaren 23an honako puntuetan oinarrituriko hitzarmenera heldu ziren:

(a) Maria Joanizen de Castilloren gurasoen aldetik eman beharreko diruen kopurua 600 dukatetatik 500era jeitsi zuten.

(b) Pedro Ochoaren eta Martin bere semearen eta honen emazte Maria Joaniz de Castilloren aldetik Loydiko etxearen gain pilatzen joan ziren zorren kargu azken honen ama eta ahizpa ziren Maria Joaniz de Arana eta Magdalena de Castillok hartzea hitzartu zuten,

y de çederles para su paga los rreditos e frutos de la mitad o parte de los pertençido de la dicha casa de Loydi y sus molinos que tiene arrendados a Joan Garçia de Ascasibar vezino en jurisdicïon de la dicha uilla de Vergara en treynta e nueve ducados de rrenta cada año - y que en execuçion de este conçierto çedian y trespasauan el dicho arrendamiento frutos de el a las dichas Maria Joaniz e Madalena de Castillo su hija y a quien su uez y causa obiere para que por tienpo de diez años continuos o mas

¹¹⁸² Zehaztu dugu lehenago, nola Magdalena de Castillo izeneko bi serora izan ziren, izeba eta iloba zirenak, eta bigarrena, lehenaren oinordeko izana zena. Ondorengo azalpenetako protagonista bigarrena dugu, 1599an bertan oinordeko izendatua izan zena; hau hala zela, Magdalena de Castillok Maria Joaniz de Castillo alaba izateak berak bermatzen digu. Seroretxearen eraikuntzaren ingurukoekiko berriz, ikus VII. 2.1. azpiatalean, 684 or.

años los que uastaren para la paga de las dichas deudas y cargos que de yuso se hara mençion en la forma que sera declarado los puedan auer rreçiuir y cobrar¹¹⁸³

Maria Joaniz de Aranak eta Magdalena de Castilok beraz, baserriaren zorren kargu hartu zuten, Loidiko etxearen eta bertako errotaren etekinen “mitad o parte” jasotzearen truke. Honakoak ziren euren kargu hartu zituzten “cargos y deudas de que an de librar y rrescatar la dicha azienda que por agora mas aprietan y son mas preçiosos”:

- (1) Joan Garçia de Sagastiçauual de Çalgomendiari 56 dukat printzipaleko zentsu bat, eta korrituen 8 dukat.
- (2) Magdalena de Castillo berari 56 dukat, bi zentsutan.
- (3) Andres Martines de Arana de Castillori 22 dukat printzipaleko zentsu bat.
- (4) Joan Martines de [Çalarte?] Elgetako herritarrari ggb. 42 dukat, “de rresto de mas suma”.
- (5) Joan de Anytua arotzari 26 dukat.
- (6) Joan de Aguiriano arotzari 18 dukat.
- (7) Jacobe de Goecheagari 100 dukat printzipaleko zentsu batetik ordaintzeko falta zirenetatik 58 dukat eta erdi printzipalekoak, eta korrituen 5 dukat.

Ikusten dugunaren arabera zorren parterik handiena harturiko zentsuek osatzen zutela dirudi, eta beste parte bat, baserrian egindako obrei zegokiokoen, arotzekiko zorrak eta garbi ez dakigun arren, halaber arotza, edo agian argina izan zitekeen Joan Martines de [Çalarte?] Elgetako herritarrari zor zitzaizkion 42 dukatek aditzera ematen digutenez. Guztira 295 dukat eta ½-ko zorra hartu zuten Magdalenak eta bere amak euren gain; Loiti baserriarekiko eta bertako ondasunekiko zeuzkaten zorrak mantentzen ziren, baina gertuko familiakoengana (Maria Joaniz de Castilloren ahizpa eta amagana) iragaten ziren¹¹⁸⁴. 1584az geroztik Magdalena de Castillo serorak, gertakizun hauetako protagonista dugunaren izebak eta Magdalena de Castillo bere iloba oinordeko izendatuko zuenak, bere alde zeuzkan hainbat zentsuren berri ere badugu¹¹⁸⁵, eta Magdalena de Castillo iloba oinordekoak, hauekin eta baserriaren eta bere errotaren etekinen erdiarekin, bertako zorrak konpondu ahal izan zituztela dirudi. Handik zenbait urtetara, 1612ko azaroaren 12an, jada bera ere serora zelarrik, Magdalena de Castillo ilobak testamentua helarazi zuen, eta bertan, ondorengo gorabeheren zenbait berri ematen zaigu. Loitiko etxea 400 dukaten prezioan erositako zeukan jada, eta ordurako Maria Joaniz de Castillo Loydi izena hartua zuen seroraren ahizpak eta bere senarrak, 400 dukat horiez gain, serorarekin 28 dukat printzipaleko eta urteroko 2ko zentsuaren zorra zeukaten. Korrituen beste 20 dukat eta behi baten eta bere txahalaren eta “pollino” baten ordainezko 12 dukat ere (gehiago balio omen zuten, baina serorak prezio horretan utzi nahi izan zizkion bere ahizpari) zor zizkioten. Serorak denera 60 dukaten kopurura heltzen ziren azken zor hauen kopuru bereko dohaintza egin zuen euren alde, 60

¹¹⁸³ GPAH-AHPG 1/0182, 72r.

¹¹⁸⁴ *Ibid.*, 71r-72v.

¹¹⁸⁵ 1584an Pero Perez de Aldaetak eta bere emazte Marina Martinez de Gorostolak seroraren aldeko 24 dukat printzipaleko zentsua fundatu zuten (GPAH-AHPG 1/0170, 58r-59v.); 1592an, Lamariano etxearen jabe zen Magdalena Perez de Lamarianok 14 dukat printzipaleko bat (GPAH-AHPG 1/0130, 673r-672v.); eta Contanza de Gabiriak 1594an Miguel Saez de Alday eta bere seme Juan Saez de Aldayrengan zeukan zentsu baten salmenta egin zion, eta salmenta honekin eta korrituen beste 14 dukatekin, seroraren alde fundatua zeukan zentsu baten ordainketa egin zuen, zorrak kitatuz (GPAH-AHPG 1/0132, 118v-119v eta 136r-136v).

dukatak kitatuz. Alabaina, baldintzaturiko dohaintza zen. Agian etxeak eta bere ahizpak aurreko urteetan izan zituzten gorabeherak motibaturik, 60 dukaten dohaintza bere ahizpak eta honen senarrak etxea edozein auziren aurrean defendatu zezaten baldintzarekin egin zuen; bestela, dohaintza baliogabeturik geldituko zitzatekeen:

digo que si alguna persona en algun tiempo pusiere mala uoz a mis erederos sobre ello es mi uoluntad que la dicha / mi erma[na] / y sus bienes salga a la causa a defenderla y azer bueno y con que asi lo aga le ago gracia de los dichos sesenta ducados pero si hubiere ocasion de seguir el dicho pleito y no quisieren seguir ni azer bueno que en tal caso agan rrecurso los dichos mis bienes debido al dicho pleito y para ello los cobren los dichos sesenta ducados – de la dicha casa de Loydi e sus duenos porque asi es mi Uoluntad¹¹⁸⁶

Etxearen defentsa beraz, serorak aintzat hartzen zuen balorea zen, eta Loitiko etxea bere ahizpa eta honen senarrari fabore egiteko erosi bazuen ere (“por su orden y encargo de ellos conpre la casa de Loydi suso”), ez zegoen etxea berriz gainbeheran ikusteko prest.

Halaber, ordurako, serora bere izeneko Castillo etxearen jabe ere izana zen (dakigunaren arabera 1601ean behintzat hala ageri baitzen)¹¹⁸⁷, baina Juan Garçia de Azcarate eta Maria Joaniz de Aumategui (seroraren iloba) ezkondu zirenean, ezkontza kontratuan Castillo etxe beraren eta Loiti etxearen erosketatik zor zitzaizkion 400 dukaten korrituen lagapena egina zien; trukean, Juan Garcia de Azcaratek dotean zeramatzan 200 dukaten usufruktoa gorde zuen beretako. Horietatik 100 dukat jada jasoak zituen, eta Castillo etxearen obretan xahutuak; dotearen beste 100 dukat zor zitzaizkion oraindik, eta baita bere alde helarazia zeukaten 80 dukateko zentsu bat ere. Azken hauek ere etxeko obretara bideratu zitezten agindu zuen (upategia eta beste zenbait konponketa egiteko, etab.), eta gainontzekoan, Castillo etxeko jabeak bere oinordeko egin zituen (beste 100 dukaten zorra baliogabetuz)¹¹⁸⁸. Bere ahizpa bizi zen Loitiko etxearen kasuan ere ikusi dugunaren antzerako egoera batean, baldintzaturiko dohaintza hauek serorak bere abizeneko etxearen gain egiten zuen “zaintza” agertzen digu, etxearen mantenurako obren ardura hartzekotan soilik egin baitzuen dohaintza. 1612ko azaroaren 30ean helaraziriko kodizilo batean zenbait aldaketa egin zituen: Castillo etxeko jabeen alde Loitiko etxetik zor zitzaizkion 400 dukaten lagapena egina bazuen ere, Loiti “mayor” etxeko jabeek eta zorra zeukan Loiti “menor” etxean bizi zen bere ahizpa Maria Joanizek, serorak eresia zeukan Loiti “menor” etxearen jabegoa berreskuratu nahi izatekotan, hauek 400 dukateko kopurua eta horrez gain etxearen hobekuntzan xahutu zena ordaintzekotan, itzul zieziaietela agindu zuen¹¹⁸⁹. Honek etxeen eta leinuen batasunaren ideiak gidatzen zuela adierazten digu, berak erosi zuen Loiti “menor” etxea Loiti etxearen eta leinuaren adar nagusiak bere manupera berreskura zezan posibilitatea zabalik utzi baitzuen, espreski horrelakorik egin beharrik ez zeukanean.

Azkenean, handik urte dezentera, 1635ean, jada “estando sana aunque constituida en mucha hedad” zegoenean helarazi zuen azken testamentu batean Loiti “menor” etxearen aurka zeuzkan 400 dukat horien jabegoa berea zela berretsi zuen (Castillo etxeko jabeen lagapenean utziak baitziren), eta bere oinordeko ordurako Castillo etxeko jabe zen Agustin Garçia Azcarate Castillo izendatu zuen, serorak lagapena egin izan zien Joan Garçia de Castilloren (lehen bere burua "Azcarate"

¹¹⁸⁶ GPAH-AHPG 1/0198, 452v.

¹¹⁸⁷ GPAH-AHPG 1/0214, 46r-47r.

¹¹⁸⁸ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹¹⁸⁹ *Ibid.*, 456r-457r.

abizenez aurkezten zuena, jada baserriaren izena harturik) eta Maria Joaniz de Aumateguiaren semea, hain zuzen ere¹¹⁹⁰. Kasu honetan ere, ez zuen Castilloko etxea bere 400 dukateko zentsuari loturiko “zaintzapetik” askatu, heriotzaren ordurarte.

Magdalena de Castillok serorek etxearen eta leinuaren mantenurako zentsuak erabiltzeko zuten modua agertu digu, baina bada beste adibide bat, Maria de Izaguirrerena, jarduera honen motiboak esplizituki azalduz agertzen dizkiguna, eta horregatik, aspektu honi buruzkoekin oraingo bukatzeko egokiago datorkiguna. Baina goazen pausurik pausu, 1609 eta 1631 bitartean azken serora honen aldeko zentsu ugari helarazi baitziren, egoera eta maila ezberdinetako jendearen partetik. 13 zentsuren berri izan dugu denera, 4 koadroan (919-920 or.) bildu ditugunak.

Maria de Izaguirreraren zentsuen zordunetarik asko, herriko familia boteretsuetako edo hauen ingurumariko pertsonak ziren. Izaguirretarrak eurak leinu boteretsua izan baitziren, lehenik eta behin, serora beraren ahizpa behar zuen Magdalena de Izaguirre alarguna aipatu beharrean gaude, zordunik handiena bera izan baitzuen, 400 dukateko zentsu batekin. Honen heriotzean zorra bere alabetara, Mariana eta Magdalena de Gorostolagana iragan zen, eta azkenean, izeba zuten serorak dohaintza bidez barkatu zizkien zorrak bere testamentuan, guztia kitatutzat emanez¹¹⁹¹. Gertukoaren artean, beste emakume boteretsu bat 1609an seroraren aldeko 40 dukateko zentsua fundatu zuen Catalina Lopez de Ibarra alarguna dugu; 1611n serora alargun honen etxean bizi zela dakigu (Juan de Olazabal Larrinagak urte hartan fundaturiko zentsuan hala aipatu zen), eta baita, 1609an alargunak bere alde fundatu zuen zentsuan hipotekatu zuen Barrenkaleko etxea ere, azkenean, seroraren eskutara igaro zela ere, 1631n azken honek helarazi zuen testamentuan, aurreraxeago ikusiko dugun lez, bere lehengusina alargun bati eta bere alabari etxe berbera dohaintzan eman baitziren. Beste zordun aipagarri batzuk, nork bere botere-esparrua zeukatenak, Miguel Abbad de Arguizain San Pedro parrokiako benefizioduna (40 dukateko zentsua) eta Juan Ochoa de Romagalarza, Bergarako numeroko izkribaua (28 dukatekoa) ziren. Eta bada beste kasu aipagarri bat ere, kopuru dezenteko zentsua izateaz beste (100 dukatekoa), serorek botere-jokuetan nola parte hartu zezaketen adierazten diguna. Zentsu fundazio bidez eman zen mailegu hau Maria de Inarraren alde izan zen lehenik fundatua, eta 1621ean, honek mailegua Maria de Izaguirreraren diruekin eman zuela aitortu zuen, zentsua seroraren alde lagapenean emanez. Honek ez zukeen ezer bereziki arrarorik izango, zentsuaren jasotzailea Catalina Perez de Madariaga, Bernardino Perez de Gabiriaren alarguna izan ez balitz. Ikusia dugunez, Bergaran, Ozaetako eta Gabiriako leinuak Erdi Aroko Ahaide Nagusien arteko liskarretan bi leinu etsai nagusiak izan ziren, lehenak ganboarrak eta bigarrenak oinaztarrak izanik; etsaigo honek Aro Berrian zehar ere iraun zuen, eta 1594an, Maria de Izaguirre serora San Pedro parrokiako ogi-eskaintzetan izan ziren liskar batzuetan inplikaturik egon zen, Ozaetakoaren jarlekuan zerbitzua ematen zuen serora zen heinean. Eskaintza Gabiriakoaren aurretik egin nahi izan zuelako izan ziren liskarrak, eta saiakera hau probokaziozkoa izan zen, Gabiriako leinu-etxearen etxeoandre izan zen Catalina de Mallea orduan gutxi hila izan zenez, lehentasuna azken hauei baitzegokien (Bergaran hala arautua zegoen: parrokiako azken hildakoaren etxeari zegokion lehen eskaintza) (Zumalde 1962, 330-332). Nire ustea zuzena izanik, ogi-eskaintza zegokion “Catalina de Mallea” defuntu hau Catalina Lopez de Mallea y Larrinaga, Cristobal Lopez de Gabiria y Galarza kapitainaren alarguna balitz, gainera,

¹¹⁹⁰ GPAH-AHPG 1/0264, 90r-91v.

¹¹⁹¹ Izango dugu aurrerago pasarte ezberdinetan Maria de Izaguirreraren erlazio familiarren inguruko gauza gehiago ezagutzeko betarik ere, serora honen aktibitate anitzetan azaleratzen baitzaizkigu.

garrantzia handiko gertakizunen aurrean geundeke, emakume hau Gabiriako maiorazkoa fundatu zuena izan baitzen (Tola de Gaytán 1960, 19-20).

Maria de Izaguirre serorak, beraz, Ozaetako jarlekuaren zerbitzua egiteaz gain, leinu honen aldeko botere borroketan aktiboki parte hartu zuen. Eta aipagai dugun zentsua, etsaiak menperatzeko beste bide bat baino ez zela dirudi. Izan ere, Catalina Perez de Madariaga alarguna, 100 dukateko zorra Maria de Inarraren aldekoa zuela uste zuena, bat-batean diru horiek 20 bat urte lehenago bere leinuaren aurkako liskarretan probokazioz jokatu izan zuen serorari zor zizkiola ohartu izango baitzen. Eta noski, horrek, zorraren ordainketa, –“etsaiarekiko”– menpekotasun erlazio bilakatzen zuen. Zentsu honen fundazioan alargunak zer hipotekatu zuen ez badakigu ere, litekeena da, beste kasurik gehienetan bezalaxe, bere etxea eta honi zegozkion ondasunak hipotekatu izana. Hala egin baitzuten, izan ere, Maria de Izaguirreren alde zentsuak fundatu izan zituzten beste hainbatek ere (beste hainbat seroraren zentsuen kasuetan bezala); euren artean, jada aipagai izan ditugunez beste, Ondarza leinuaren ingurumariko pertsonaiek (Adrian Ibañez de Ondarza, 20 dukateko zentsua; hipoteka: Aguirre Mecolalde etxe eta baserria eta bere ondasunak), Larrinaga leinuaren ingurukoek (Juan de Olazabal Larrinaga, 60 dukateko zentsua; hipoteka: Larrinaga etxe eta baserria eta bere ondasunak), eta Iribe etxeok (Juan Lopez de Elcoro Iribe, lehenik 40 dukateko zentsua luditu eta jarraian 20 dukateko beste bat fundatu; hipoteka: Iribe etxea eta baserria eta bere ondasunak), eta baita hiribilduko etxeetan bizi ziren (Pedro de Eguizabal eta bere emazte Maria Perez de Ariztizabal, 40 dukateko zentsua; hipoteka: Barrenkalean zeukaten etxea eta “Yturriocaga”-n zeukaten lursail bat) eta artisau langintzetan zihardutenek ere (Pedro de Ascargorta maisu zurgina eta bere emazte Catalina Joaniz de Moyua, 20 dukateko zentsua; hipoteka: Tobalina etxea eta bertako ondasunak, Matxiategin zeukaten sagasti bat eta Catalinaren doteko “arreo y axuar”-a).

1609 eta 1631 bitartean, aldi eta modu ezberdinetan, 838 dukat behintzat eman zituen serorak maileguan; hau da, kopuru honek bitarte horretan zirkulazioan jarri zuen diruaren neurria ematen digu. Berez, seroraren aldeko zentsuen kopuruak handiagoa behar zuen izan, 1631n bertan helarazi zuen testamentuan, koadroan jaso ez ditugun beste zentsu batzuk ere aipatu baitziren. Honakoak ziren testamentuan aipatu zituen zentsuak, batzuk jada agertu zaizkigunak, eta denera 320 dukaten kopurua ematen zutenak: Magdalena de Ozaetaren (“doña”) aurkako 100 dukat printzipalekoa, Gregorio Ochoa de Romagalarzaren aurkako 60koa, Joan Ochoa de Romagalarza izkribauaren aurkako 40koa, Miguel Abbad de Aguzain San Pedro parrokiako benefiziodunaren aurkako 40koa, Oianguren baserriaren aurkako 40koa eta Amutxastegui etxe eta baserriaren aurkako 40koa. Litekeena da lehen zentsua serorak Ozaeta familiaren jarlekuan egindako zerbitzuei loturik egotea, leinu honen jarlekuko zerbitzua 1594az geroztik behintzat betetzen zuela jakiteaz beste, motibo honegatik egindako ordainketa baten berri ere baitugu¹¹⁹².

Testamentuko zentsu hauek bizitza eta heriotza on baten baitan hautematen ziren betebeharrak erlijiosoak kunplitu betetzeko bidea eman zioten. Lehen hiru zentsuen 200 dukatak San Pedro parrokiako kabildoak bere arimaren alde urtero 36 meza esan zituzten eman zituen, eta 40 dukateko hurrengo hirurak, hurrenez hurren Errosarioaren Kofradiaren, San Pedro parrokiaren eta Jesusen Konpainiaren Ikastetxearen alde eman zituen dohaintzan. Baina bere arimaren salbaziorako balio izateaz gain, Maria de Izaguirrek zentsuak beste era batera ere baliatu zituen: familia-kide batzuei dohaintzan emandako etxe baten nondik norakoak bideratzeko. Herriko Barrenkalean zeukan etxea,

¹¹⁹² 1602an Ozaeta etxearen alde ordainketa-karta bat helarazi zuen, hauek bi urteko jarlekuko zerbitzuagatik ordaindu zizkioten 12 dukategatik (GPAH-AHPG 1/0215, 140v-141r).

itxuraz 1609an –2 urte beranduago serora bere etxean bizitzen zeukala dakigun– Catalina Lopez de Ibarra alargunak 40 dukateko zentsuan hipotekatu zuen berbera, dohaintzan eman zien zegozkion ondasun guztiekin Marina de Oregui bere lehengusina alargunari eta honen alaba Maria de Antia y Guerrari, bere heriotzeko errituen kargu hartzeaz gain, etxearen jarraipena bermatu zezaten baldintzarekin; honela dio testamentuko klausulak:

Yten mando que la cassa que yo tengo y poseo con su huerta en Barrencalle, con una cuba, troxe, mesa redonda, el escaño, murillo y lares de fierro = una arca grande y otra pequeña que tengo [mas?] en mi poder gozen mi prima Marina de Oregui uiuda y su hija Maria de Antia y Guerra donçella uiuido y auitando en ella por los dias de su uida con las condiciones y calidades que de juso iran declarados = que la dicha cassa con los bienes referidos ypoteco y binculo para que las dichas Marina y Maria su hija ni los suçesores puedan uender ni açensuar por los dias de su uida si no es en neçesidad forçossa y entonces no mas de asta treinta ducados que mi uoluntad es que se conserbe la dicha azienda siempre sin que tenga mas tributo ni carga para que los suçesores tengan boluntad de cumplir mis mandatos en esta clausula = quiero y es mi uoluntad que las dichas madre y hija ayan de uiuir en la dicha cassa y acudir a la sepultura con la oblada y çera que se acostumbra entre año y el dia de todos santos y el dia siguiente [...] y para despues de los dias de las dichas Marina y Maria con la dicha obligacion y carga mando desde agora para enton[çes] a uno de los hijos que Martin de Ascargorta tubiere de Maria [de] Antia y Guerra su muger legitima e hija de la dicha mi prima Marina de Oregui, y en falta de tales hijos, suçedan los hijos de Francisco Perez de Arizti y Maria Perez de Querexaçu, y en particu[lar] quiero que el de mis braços preçeda a los otros¹¹⁹³

Argi dago Maria de Izaguirrek bere lehengusinari eta honen alabari dohaintzan eman zien etxea familiaren baitan eta zorrik bere gain hartu gabe mantendu zedin nahi zuela, eta horregatik egin zuen etxearen dohaintza horrela, honen hipoteka eta zorren lotura bere alde ezarri. Horrela, etxeak beste inorekiko zorrik ez hartzea bermatu nahi zuen (Magdalena de Castilok bere ahizparendako eta honen senarrarendako erosi zuen baserriaren kasuan bezalaxe). Gainera, dohaintza, azken puntuan, Maria de Antia y Guerraren (seroraren lehengusinarekin alaba) seme-alabei bideratua zegoen; honek noski, dohaintza etxearen jarraipenak baldintzatua zela esan nahi zuen.

Maria de Izaguirrek, dohaintzan eman zuen etxe honez beste, beste hainbat ondasun eta diru zituen, eskura, nahiz mailegu eta zentsuetan; Magdalena de Castilok bezala, aberastasun handiak zituen, besteren artean, etxe partikularren zerbitzuaren bidez lortuak. Bere zerbitzuak jasotzen agertu zaigun etxea ez zen edonolokoa, Ozaetakoa; ez dakigu ze beste etxe zerbitu zezakeen, edo agian, etxe bakarra zerbitzen zuen. Horrez gain, ordungo gizartearen baitan –eta batez ere emakumea izanik– batere ohikoa ez zena, idazten zekien, Magdalena de Castilok eta beste seroren gehiengo nagusiak ez bezala¹¹⁹⁴.

Beste hainbeste gertatzen zaigu Arrasaten serora izan zen Ana de Lararekin ere. Berarekin tratutan zeuden familia-kideen aktibitateak behinik behin, hiribilduan gauzatzen zirela dirudi, 1620ko abuztuaren 24an bere alde 132 dukat printzipaleko (eta urteroko 6ko) zentsua fundatu zuen Ana de Jauregui bere ilobak honen ziurtasunerako hipotekatu zuen etxea (bera bizi zena, “la mi cassa principal”), Arrasateko plazan bertan kokatua baitzegoen¹¹⁹⁵. Ana de Jauregui, ondorengoko dokumentu batzuetan Ana Banes

¹¹⁹³ GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r.

¹¹⁹⁴ *Loc.cit.* Testamentua bere eskuz sinatu zuen, eta ziur ez badakigu ere, sinatzeaz gain testamentua bera ere idatzi zuela dirudi, sinadurako letra eta testamentua berarena, bat bera direla baitirudi.

¹¹⁹⁵ GPAH-AHPG 1/2368, 68r-69r.

de Jauregui bezala aipatzen zaiguna, “hija de Capitan Domingo [*de Jauregui*] y de doña Maria Banes de Artazubiaga su muger” zen; Jauregitarren eta Bañez de Artazubiagatarren etxe boteretsuen ingurumarikoa zen, zehazki non kokatu ez badakigu ere¹¹⁹⁶. Esteban de Zabala y Oro lizentziatuarekin ezkontzekotan baitzen, zentsua fundatu zen egun berean serorak hau Ana de Jauregui bere iloba zordunaren alde eman zuen dohaintzan, bere mantenuaren, ehorzketaren eta heriotz-errituen kargu hartu zezanaren truke¹¹⁹⁷. Ikusten dugunaren arabera, seroraren diru hauek Ana de Jauregui bere ilobaren eta Esteban de Zabala y Oro lizentziatuaren ezkontzarako tratuen parte ziren; seroraren dohaintzaren jarraian, izan ere, Ana de Jauregui, ezkontzara begira, bere senar izatekotan zenari bere aitonaaren dohaintza bidez zeuzkan 500 dukaten eta aitaren eta amaren aldetik zegozkion seniparteen dohaintza egin baitzion, seroraren 132 dukateko zentsuarekin batera¹¹⁹⁸. Esteban de Zabala y Orok, Ana de Jauregui bere emaztearen 132 dukateko zentsua handik hiru urtetara luditzen zuen, nahiz eta serorak jada Ana de Jauregui dohaintzan emanak zizkion¹¹⁹⁹. Portaera hau, itxuraz, serorak dohaintza egiterakoan ezarri zituen baldintzei zegokion: beraien etxean ez bizitzekotan, serorak beretako gordeko zituen zentsuaren urteroko 6 dukat eta 6 erreal eta ½-ak, bere sostengurako. Esteban de Zabala y Orok zuzenean zentsua luditzea nahiago izan zuen, eta egun berean, lizentziatuak serorari bere bizitza guztirako urteroko 6 dukaten dohaintza ere egin zion (lizentziatua hilik ere, ordaindu beharko ziratekeenak), honako arrazoiak emanez:

por quanto a Ana de Lara beata tia de doña Ana Banes de Jauregui tengo muchas obligaciones y por el Amor que la tengo y la que ella a tenido y tiene a la dicha doña Ana de Jauregui mi muger y por los seruiçios que me a hecho y espero hara lo mismo adelante¹²⁰⁰

Asmoa serora, bere dohaintzaren baldintzen arabera, etxetik kanpo bizitzera joanaraztea bazen, hitz hauek erabat faltsuak lirateke; baina ez zen hala izan, gero ikusiko dugunez, serora beraien etxean bizitzen gelditu zela baitirudi (eta beraz, Esteban de Zabala y Orok dohaintza asmo onekoa izan zela). Hemen dagokigunarekiko, seroren zentsuen erabilerak familiako tratuen eta gorabeheren baitan eragin esanguratsua izan zezaketela ikus liteke.

Orain arte ikusi ditugun kasuak hiribilduaren testuinguruan kokatzen dira, eta diru-kopuru esanguratsuak ageri zaizkigu batera eta bestera. Izan dugu Arrasate bertako beste kasu baten berri ere, zeinetan serorak bere esku zeuzkan zentsuen kopurua 1.000 dukatetik gorakoa izatera heldu baitzen; ikus dezagun. Maria Lopez de Olazaran serorak, hiribilduaren testuinguruan ordenen eta hauen komentuen inguruan bildu ohi ziren seroren egoerara gerturatzen gaituela esango genuke. Bere herriko komentuei egin

¹¹⁹⁶ Ana Bañez de Jaureguiren eta Ana de Lararen arteko erlazioa bera ere ezin izan dugu egoki kokatu, nahiz eta eskuratu ditugun dokumentutan lehena bigarrenaren iloba zela behin eta berrero garbi adierazirik ageri zaigun. Garbi geratzen ez zaiguna, erlazioa aitaren edo amaren aldetikoa ote zen da. Ana Bañez de Jauregui, esan bezala, Domingo de Jauregui zuen aita, eta ama berriz, Mari Bañez de Artazubiaga. Ikusten dugunez, bietariko batek ere ez zeraman seroraren abizena, baina hau, garai hartan ez zen batere arraroa, ezkontz-loturen bidezko etxeen abizena jaso eta erabiltzea ohizkoa baitzen. Mari Bañez de Artazubiaga bera, Domingo de Jaureguiren emazte izateagatik, zenbait dokumentutan Mari Bañez de Jauregui bezala ageri zaigu. Beste posibilitate bat serora Domingo de Jauregui kapitainaren alaba naturala izatea litzateke, baina honi ezagutzen dizkiogun beste bi ahizpek, Mariak eta Anak, serorak bezalaxe “de Lara” abizena zeramatenez, lehenik aipatu dugun aukerari zurragoa deritzogu. Edonola ere, eta zalantzak bere hortan badirau ere, izeba-iloben arteko lotura behintzat ziurra dugu.

¹¹⁹⁷ GPAH-AHPG 1/2368, 69r-71r.

¹¹⁹⁸ GPAH-AHPG 1/2368, 71r-72v.

¹¹⁹⁹ GPAH-AHPG 1/2369, 37r.

¹²⁰⁰ *Ibid.*, 37v-38r.

zizkien eta egin nahi izan zizkien dohaintzen neurriak, hauengandik oso gertu sentitzen zela adierazten digute. 1604ko urtarrilaren 24an Arrasateko frantziskotarren komentu eta kolegioaren alde, zentsutan zeuzkan 1.000 dukaten dohaintza egin zuen. Zentsu hauek Arrasate bertako, Leintz-bailarako eta Aramaioko pertsona eta ondasunen gain zeuden fundatuak, eta 5 koadroan (921-922 or.) antolatu ditugun kopuruak eta zordunak zituzten¹²⁰¹.

Bere zordunen ikerketa xedatu bat egiteak luzeegi joko baliguke ere, badira aipagarriak diruditen zenbait aspektu. Lehenik eta behin, zordunetarik asko, gehienak, bikoteak ziren; honek, zentsu hauen atzean etxearen edo baserriaren sostengurako xedeak egon zitezkeela iradokitzen digu, xede honetarako maileguen eskaera, oso ohizkoa baitzen gainera. Leintz bailaran itzal handikoak (batzuek gehiago, besteak gutxiago) izan ziren zenbait abizen ere ageri zaizkigu zordunen artean; besteak beste: Zelaa, Barrutia, Santamaria, Oro, Bergara, Balda, Salzedo, Lara, Salinas edo Umendia aipatu litezke. Santamaria abizendun pertsona batek aipamen berezia merezi du: zentsuen artean Rodrigo de Santamariak lagapenean eman zion bat ageri zaigu. Rodrigo hau serorak dohaintza egin zuenean Arrasateko alkatea zen, eta dohaintza egitearen baldintzetako bat, serorak bere aurka zeukan auzi bat San Frantziskoko komentuko fraideek beraien kargu hartzea izan zen. Auzi honek, aurrerago ikusiko dugunez, ondorio latzak izango zituen seroraren ondasun eta diruengan, azkenean, hauek ez baitzuten serorak nahiko zukeen lekuan bukatu. Zenbait “doña” ere ageri zaizkigu zordunen artean, euren artean, aipatu berri dugun Rodrigo de Santamariaren ahaide izan zitekeen Tomas de Santamaria zelako baten emazte jada defuntua, Isabel de Oro. Bikote honek bere garaian seroraren alde 21 dukateko zentsua fundatu bazuen, beste “doña” batzuen kasuetan, kopuru handiagoekin egiten dugu topo. Maria de Balda y Salzedo alargunak, esaterako, 70 dukaten kopurua batzen zuten bi zentsuren zorra zeukan. Beste Salzedo batek maila sozialaren hautemapenerako beste datu bat dakargu: bere emaztearekin eta seme-alabekin batera 35 dukateko zentsuaren zorra zeukan Joan Gonzalez de Salzedo, izkribaua zen Arrasaten. Azkenik, nabaria dirudien zerbait aipatu behar: kopuru handieneko zentsuen zordun zirenek, kopuruek eurek eta abizenek adierazten digutenaren arabera, maila sozial eta ekonomiko altuan kokaturiko pertsonak behar zuten izan: 91 dukateko zorrarekin Joan de Zabaleta (“defunto”) eta bere emazte Maria de Salinas; 97 dukat eta 4 errealekoarekin Domingo de Barrutia eta bere emaztea; 98 dukatekoarekin (3 zentsu) Pedro de Oteiza eta bere emazte Maria de la Renteria Aramaioko herritarrak; eta 210 dukatekoarekin (3 zentsu), Marina de Olabe alarguna.

Guztira 1.003 dukat eta 6 errealeko balorea zeukaten 26 zentsu horiez gain, urte bereko apirilaren 11n San Agustineko komentuak eta bertako mojek bere alde emanak zeuzkaten hainbat zentsuren eta zorren dohaintza ere egin zuen: bere alde fundatua zuten 28 dukat printzipaleko (eta urteroko 2ko) zentsu bat, komentuak Asencio Bañez de Artazubiagari zor izan zion eta serorak “a ruego y encargo de las rreligiosas de dicho monasterio” bere gain hartu zuen 50 “y tantos” dukat printzipaleko beste zentsu bat, komentuak “a otra persona o personas” zor zizkien eta serorak “por su ruego y encargo” ordaindu zituen 60 dukat, eta aldi ezberdinetan eskatu izandako kopuruengatik zor zizkioten 14 dukat¹²⁰².

Kasu hauek zentsuekin tankera ezberdinetako negozioak egiten zituzten, aberastasun handiak zeuzkaten eta batez ere hiribilduen testuinguruan mugitzen ziren serorak agertzen dizkigute. Zentsuek, mailegu bidez urteroko kopuru bat ordaintzeko betebeharrarekin euren menera gelditzen ziren baserri, etxe eta ondasunen mapa

¹²⁰¹ GPAH-AHPG 1/2339, 1v-4r.

¹²⁰² GPAH-AHPG 1/2339, 18r-19r.

ezberdinak osatzen zituzten, eta hauek, zordun ziren heinean, seroraren eragin-eremu ekonomiko bat osatzen zuten. Zoritxarrez, ez daukagu Maria Lopez de Olazaranen zentsu hauen helarazpenean hipotekatu ziren ondasunen berri; ziurrenez, espazio zabal batean zehar barreiatu ondusun ugariaren mapa bat eskuratu ahal izango genukeen, informazio hori dokumentuan zehaztu izan balitz. Jende askoren artean egiten zuten itzal seroraren maileguk, eta honek, errespetuarekiko eta hautemapen sozialarekiko ere erlazio zuzena zuen. Edozein kasutan, zordunen zerrendak berak zentsuen eragin sozial eta batez ere ekonomikoaren mantu zabal bat agertzen digu, seroraren alde maila eta egoera sozial ezberdinetako jende askoren ondasunak konprometatzen zituena. Maria Lopez de Olazaranen 26 kontzeptutan baturiko zentsuek Leintz-bailara guztian eta Aramaion zehar barreiatu egon behar ziren hipotekaturiko etxe, lursail eta ondasun ugari izan behar zirela azaltzen digute, eta nabaria da serora honek bere testuinguruan dezenteko boterea izan zuela. Izan ere, zentsu baten zorra izatea ez baitzen tontakeriatan ibiltzeko gaia. Hainbat izan ziren maileguen hartzaileek zorrak ezin ordaindurik emaleen eskutara iragan ziren ondasunen (etxeak, lursailak, etab.) kasuak, Bergarako Magdalena de Castillo serorak Loitiko etxea bereganatu zueneko bezalakoak. Epaileek, bestalde, zordunekin arazoak zeudenean, zenbaitetan gogor egiten zuten hauen aurka. Ezagutu berri dugun Maria Lopez de Olazarane berak ere izan zituen halako liskarren batzuk: 1578ko azaroaren 22an ahalorde bat helarazi zuen Miguel García de Çupide Bergarako herritarren alde, bere izenean Arrasateko herritar ziren Joan de Çuaçu eta bere emaztearengandik zor zizkioten 51 dukat auzi bidez eskuratzeko dilijentziak egin zitzaizkion¹²⁰³. Urte bereko abenduaren 21ean Bergarako gartzelan zegoen Joan de Çuaçu preso, eta 51 dukatetatik ordaintzeko falta zitzaizkion 24 dukatak, epeen atzerapen bat eskatuz, 4 urteren barruan ordainduko zituela promes egin zuen. Serorak proposamena onartu zuen, eta Joan de Çuaçu gartzelatik irteten ahal izan zen¹²⁰⁴.

Zentsuen ematea eta administrazioa ez zen hiribilduko serorei soilik zegokien aktibitatea. Gehienetan ikusi berri ditugun kopuruera heltzen ez baziren ere, ohizkoa zen bere alde helarazirik zenbait zentsu zeuzkan landa eremuko parrokiako edo ermitako seroraren kasua. Eta itzal bereziko santutegien kasuan are ohikoagoa zen, hainbeste debozio gozatzen ez zuten bestelako ermiten aldean etekin handiagodun testuinguru bat izanik, bertan sartzeko hautagaiak eta beraien doteak familia aberatsagoetatik heldu ohi baitziren. Lehenago ikusi izan dugun Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegiaren kasuan, areago, dotetzat eskatzen ziren 250 edo 300 dukatak zentsutan emanak izatea ohitura bilakatzera heldu zen. Kasuren batzuei erreparatuko diegu, hemen ere, esan berri dugunaren testigantza emateaz beste, zentsuen erabilera sozial eta familiarren beste aldaera batzuk ikusi eta beraien testuinguruan zuten garrantziari neurria hartzeko.

Marina de Altube Elgetako San Adrian (eta San Antonio) ermitako serora zen. 1579 eta testamentua helarazi zuen 1603 urteen bitartean hainbat zentsu fundatu ziren bere alde, eta baita beste zenbait luditu ere: 1579an Juan Garcia de Altube Elgetako eta Bergarako herritarrak seroraren aldeko 42 dukat printzipaleko eta urteroko 3ko zentsua fundatu zuen, bere Iribeko etxea eta honen sagastiaren gain¹²⁰⁵; 1582an Pablo de Marquiegui izana zenaren oinordekoek honek seroraren alde helarazia zuen 200 dukateko zentsua luditu zuten¹²⁰⁶; 1582an Martin Garcia de Irigoien Elgetako herritarrak seroraren aldeko 126 dukat printzipaleko zentsua fundatu zuen, bera bizi zen Leaniz

¹²⁰³ GPAH-AHPG 1/0118, 475r-475v.

¹²⁰⁴ GPAH-AHPG 1/0118, 517r-517v.

¹²⁰⁵ GPAH-AHPG 1/1858, 122v-125r.

¹²⁰⁶ GPAH-AHPG 1/1858, 9v-10r.

etxearen eta bertako ondasunen eta Meiztegui izeneko lursail baten gain¹²⁰⁷; zentsu honen luditzea 1591n egin zen, Martin Garciaren emazte Ana de Leanizen (“doña”) eskutik¹²⁰⁸; 1588an Maria Ochoa de Yzaguirre eta Domingo de Guiliz senar-emazteek Martin Vrtiz de Yzaguirre Mariaren aitarengandik zetorren urteroko 2 dukateko zentsuaren korritu guztiak ordaindu zituzten, eta ondorengokoak artean ordaintzeko utzi zituzten¹²⁰⁹; 1590ean Martin de Marquieguik seroraren aldeko 14 dukat printzipaleko eta urteroko bateko zentsu bat fundatu zuen “Eysaras” lursailaren gain¹²¹⁰; 1600ean Joan de Ochoa de Ariolak bere emazte Maria Estibariz de Yzaguirrek Maria Ochoa de Yzaguirreren oinordeko lez seroraren alde zeukan 14 dukat printzipaleko zentsua ludituz zuen¹²¹¹; 1603an, serorak testamentua helarazi zuenean, Gonzalo de Abechucok (Elgetako herritarra, baina momentuan “rresidente [...] en Biloslada o Lunbreras, en la sierra”) 121 dukat printzipaleko eta urteroko 8 eta ½ko zentsua eta honen korrituen 17 dukat, Juan de Iturri Castilok 21 dukat printzipaleko zentsua, eta Juan Garcia de Altube Antzuolako herritarra izana zenak 42 dukat printzipaleko zentsua eta honen ggb. 23 urtetako korrituak zor zizkieten¹²¹²; 1605ean 119 dukat printzipaleko balorea zeukaten 4 zentsu saldu zizkion Gonzalo de Abechucok serorari, salmentaren bidez, berak seroraren alde helarazia zeukan kopuru bereko zentsua ludituz¹²¹³; 1614an serorak bere guraso Juan de Altube eta Maria de Egoecheagak Elgetako kontzejuaren alde fundatu zuten 28 dukat eta erdi printzipaleko zentsua ludituz zuen, bere jatorrizko etxea, Altube, zentsutik askatuz¹²¹⁴.

Harrapaladan eman dugun seroraren zentsuen gorabeheren zerrendaketa honek zenbait gauza agertzen dizkigu. Diruen kopuruak ez ziren Maria Lopez de Olazaranen zentsu-zerrendan agertzen zaizkigun oso ezberdinak, zentsuak eurak dezente gutxiago baziren ere. Azken honen zentsuak 7 eta 210 dukat printzipaleko bitartean zeuden, eta Marina de Altuberenak berriz, 14 eta 200 dukat bitartean. Kopuruek zordunen gaitasun ekonomikoa, eta honi loturik, askotan, gizarteko estamentua ere adierazten digutenez, bi seroren zentsuen “eragin eremua” antzerako estamentu sozialetan gauzatzen zela esan genezake. Noski, Marina de Altuberen eraginen sarea hamar bat familia eta etxetara mugatu zen, Maria Lopez de Olazaranen sarea zabalagoa zen artean. Edonola ere, Elgetako San Adrian eta San Antonio ermitako serorak ere bazuen, ermitako lanez eta

¹²⁰⁷ GPAH-AHPG 1/1858, 10v-11r.

¹²⁰⁸ GPAH-AHPG 1/1860, 124v-125v.

¹²⁰⁹ GPAH-AHPG 1/1855, 62r-62v.

¹²¹⁰ GPAH-AHPG 1/1860, 97r-98r.

¹²¹¹ GPAH-AHPG 1/1862, 43v-44r.

¹²¹² GPAH-AHPG 1/1853, 215r-218r. Juan Garcia de Altube 1579ko zentsuan aipatzen zen berbera dela dirudi, nahiz eta batean Elgetako eta Bergarako herritar lez eta bestean Antzuolako herritar lez ageri zaigun. Izan ere, ggb. 23 urtetako korritu horiek, 1579 eta testamentuaren helarazpeneko 1603 urteen bitartekoak behar baitute izan.

¹²¹³ GPAH-AHPG 1/1865, 80r-82r.

¹²¹⁴ GPAH-AHPG 1/1867, 34r-37v. 1614ko azken dokumentu hauetan (bi baitira), 1619an helarazi zuen alokairu batean bezalaxe, serora Angiozarreko Elexamendiko Andre Maria ermita eta santutegian zerbitzen ageri zaigu, aurretik kargua San Adrian eta San Antonioren ermitan izana bazuen ere. Promozioa, izkribauaren akatsa, ala –agian familia-kidea izango zen– beste serora homonimo bat? Ezin dugu ezer erabateko ziurtasunez esan, baina, alde batetik, akatsa izan zitekeen, serorak bere testamentuan San Adrian eta San Antonio ermita faboratu baitzuen batez ere (21 dukat printzipaleko zentsu batekin), eta Elexamendiko Andre Mariaren ermitari, beste zenbait tenplu eta ermitari lez, 4 erreal baino ez baitzizkion eman (alegia, inongo bereizgarririk gabe). Zentsuaren finikitzearen dokumentuaren aurkibideko deskribapenean, bestalde, Elexamendiko Andre Maria ermitan zegoela esaterakoan “la serora al presente en la iglesia de” esanez egin zitzaion sarrera, “al presente” horrek aurreko bestelako egoera bat iradokiko balu bezala; honen arabera, serora ermitaz aldatua izango zitzatekeen. Edozein kasutan, esan bezala, bere testamentuak San Adrian eta San Antonio ermita agertzen digu bereziki faboratua, eta nahasketak ekiditeko, besterik zehaztu ezean, serora ermita honetakotzat aipatuko dugu aurrerantzean.

limosnez beste, nondik bizi eta etekinik atera. Testamentua helarazi zuenean gelditzen zitzaizkion zentsuen bidezko zorrek 201 dukateko kopurua ematen zuten. Maria Lopez de Olazaran Arrasateko serorak zituen 1.000 dukatetik gorako zentsuetarako aldea badago ere, Marina de Altube berak ere ez zuen gose handiegirik pasatzen, eta lehenak bezala, familia-kideez eta baserrietako eta herriko etxeetako jende xumeez beste, tratuak egiten zituen herriko eta inguruko botere esparru ezberdinetako partaideekin ere.

Beste kasu bat dugu Bergaran, Aritzetako San Migel ermitako serora izan zen Catalina de Querexaçurena. Marina de Altuberen kasuan bezala, hemen ere zentsuen bidezko erlazioen sarea zenbait familia eta etxetara baino ez zen hedatzen. 1593 eta bere testamentuaren helarazpenaren urtea izan zen 1602a bitartean Juan Garcia de Oruesagastik (Oruesagasti leinu-etxearen jabea)¹²¹⁵, Juan Perez de Ganchaegui Eguinok (Eguino leinu-etxearen jabea)¹²¹⁶, Pero Martinez de Arteagak (Juan Perez de Ganchaegui Eguino fidatzaile zuela)¹²¹⁷, Francisca de Segurak eta Juan Saez de Oxirondok¹²¹⁸ bere alde fundaturiko zentsuen berri daukagu. Gehienak 28 edo 14 dukat printzipaleko zentsuak izan ziren (Juan Perez de Ganchaegui Eguinok 1598an fundatu eta 1602an ludituz zuen 49 dukat printzipaleko zentsua salbu), eta nork bere etxea edo leinu-etxea hipotekatuz fundatuak izan ziren. Serorak 1602an testamentua helarazi zuenean 14 dukat printzipaleko bost zentsu gelditzen zitzaizkion artean ludituz gabeak, 70 dukat printzipal denera. Zentsu hauez gain, bere arimaren aldeko memoria baten fundaziora bideratu zituen 28 dukat ere bazeuzkan dirutan, eta baita San Pedro parrokiako fabrikari dohaintzan eman zion beste dukat bat ere, bestelako ondasunez aparte¹²¹⁹. Bere garaian gurasoen aldetik jaso zituen seniparteak 20 dukatekoak izan zirela aintzat hartuaz gero¹²²⁰, testamentua helarazi bitartean bildu zituen ia 100 dukatak esanguratsuak direla ohartuko dugu. Eta nahiz eta Aritzetako San Migel ermita Bergaran debozio –eta tradizio– handikoa izan zen, ermitetako seroren ohiko diru-sarreraren bidez baino, diruok eta ondasunok bestelako aktibitateen bidez lortuak zituela esango genuke; hauen artean, mailegutzak eta zentsuen emateak bere garrantzia izan zuten. Ermitetako seroren alde zentsuak fundatzen zituzten “bezeroak”, dena dela, hiribilduetakoenen aldean, askotan serorekiko erlazioak beste modu batera josten zituzten. Bezero hauek banaka batzuk izan ohi ziren, gertutasun sozial edo espazialagatik seroragana diru eske joan ohi zirenak, eta honekin bat, serora berari eta bere gertueneko testuinguruari etorkizunerako behar zuen segurtasun ekonomikoa eskaintzen ziotenak. Hiribilduetako serora boteretsuen kasuan garbiagoa zen negozio hutsaren alderdia, eta zentsuekin egindako salmentak, lagapenak eta dohaintzak

¹²¹⁵ 1593an 28 dukat printzipaleko eta urteroko 2ko zentsua fundatu zuen seroraren alde (GPAH-AHPG 1/0152, 2r-3v), eta 1597an ludituz zuen (GPAH-AHPG 1/0135, 257v-258r).

¹²¹⁶ 1598an 49 dukat printzipaleko eta urteroko 3 eta ½ko zentsua fundatu zuen (GPAH-AHPG 1/0186, 34r-36v), eta 1602an ludituz zuen (GPAH-AHPG 1/0188, 44r-44v). Azken zentsu-luditze hau egitearekin bat 14 dukat printzipaleko eta urteroko bateko zentsua fundatu zuen seroraren alde (GPAH-AHPG 1/0188, 45r-46v); urte berean serorak testamentua helarazi zuenean, zentsuaren urte hartako zorrak kitaturik zeuden (GPAH-AHPG 1/0188, 364r-366r).

¹²¹⁷ 1602an seroraren aldeko 14 dukat printzipaleko eta urteroko bateko zentsua fundatu zuen (GPAH-AHPG 1/0188, 71r-73v), zeina urte berean seroraren testamentua helarazi zenean, urteko zorrak kitaturik zegoen (GPAH-AHPG 1/0188, 364r-366r).

¹²¹⁸ Bi zordun hauek seroraren testamentuan ageri zaizkigu, eta bakoitzak 14 dukat printzipaleko eta urteroko bateko zentsua zuten fundatua; Francisca de Segurak errentaren 5 errealeko zorra zeukan, eta Juan Saez de Oxirondok berriz, 9 errealekoa (*Loc.cit.*).

¹²¹⁹ *Loc.cit.*

¹²²⁰ 1592an, Kerexazuko etxea eresia zeukaten Pero García de Luçu y Gaçaeta eta Maria Miguelez de Ondarsa bere emazteak salerosketako tratua medio bere gurasoen seniparte lez zegozkion 20 dukatak ordaindu zizkieten serorari, honek helarazi zuen ordainketa-kartan ageri zaigunaren arabera (GPAH-AHPG 1/0130, 590r-590v).

ugariagoak izan ohi ziren; etorkizunerako berme ekonomiko huts bat baino, modu aktibo batean hautematen eta erabiltzen ziren diruak ziren.

Ikusi berri ditugun kasuek posibilitate bat adierazten dute, ermitetako serorei ere zabalik zegoena, beraien egoera sozial, erlijioso eta juridikoak, bestelako serora gehienak bezala, ondasun propioen administrazioaren gaineko boterea ematen baitzien. Baina ikusi berri ditugun kasuez beste, ermitetako seroren egoera ohizkoena, izatekotan, zentsu bat edo beste izatearena zen. Zentsu hauen etekinak norbere arimaren aldeko fundazioetara, tenpluen mantenua edo familia-kideen sostengura bideratu ohi zituzten. Zentsuen erabilera, nolabait esatekotan, hiribilduetako serora boteretsuenen aldean, “pasiboagoa” zela esan liteke. Gainera, eta hautemapen honekin bat, ermitetako seroren maileguak zentsu bidez baino betekizun bidez gauzatzen ziren gehiago, mailegutaz epe jakin baterainoko gordailutzaz bezala baliatuz. Eta hau, ermitetako serorena bezalaxe, auzo eta elizateetako parroketako seroren –eta Leintz bailaran, are hiribilduetakoen– ohiko egoera ere bazen. Ikus ditzagun zenbait kasu.

Bergaran San Martin ermitan serora izan zen Maria de Iturbek 1605ean helarazi zuen testamentuan urteroko 2 dukateko zentsuaren (kopuru printzipalaren berri eman ez bazuen ere, urteroko 2 dukateko zentsuak 28 edo 40 dukat printzipalekoak izan ohi ziren) dohaintza egin zuen Santa Marina parrokiako apez eta benefiziodunen alde, hauek bere arimaren aldeko betiereko memoria baten fundazioa egin zezaten¹²²¹. Orduan Elgetaren parte zen Angiozar auzoan, Elexamendiko Andre Maria ermitako serora izan zen Catalina de Mendiguchiak 1638an helarazi zuen testamentuan, ermita beraren aldeko 20 dukat printzipaleko zentsuaren dohaintza egin zuen, hauek bertako argiteriara eta obretara bideratu zitezten¹²²². Aretxabaletako hiribilduan serora zen Maria Ruiz de Araoz y Duranak -oinordeko izendatu zituen- Cristobal Ruiz de Araoz bere anaiaren eta “doña” Maria Ruiz de Araoz honen alabaren alde Larreako kontzejuaren aurka zeukan 400 dukateko zentsu baten dohaintza egin zuen 1629an helarazi zuen bere testamentuan; bizi zen artean honen usufruktoaren etekinak bere anaiarenak izatekoak ziren, ondoren, zentsuaren propietatea -azken onuradun zen- ilobarengana iragateko¹²²³. Kasu honetan, zehaztu behar, zentsuaren kopurua handia bazen ere, honen erabilera, aipatu berri dugun bezala, “pasiboa” izan zela. Serorak ez zeukan gainera beste zentsurik bere alde, eta zeukan hura, familia-kideen segurtasun ekonomikorako bermetzat erabili zuen. Maria bezala Aretxabaletan hiribilduko serora zen Catalina de Bengoak, 1634ko bere testamentuan 20 dukat printzipaleko zentsu baten dohaintza egin zuen parrokiako sakramentu santuaren argiteriaren alde, eta hauek eta bere arimaren aldeko anibertsario baten fundaziorako zentsutan ipin zitezten agindu zuen beste 30 dukat, beraien ordainketarako bere seniparteak hipotekatuz bermatu zituen¹²²⁴.

Ikusi berri ditugun zentsu hauen erabilera ermitetako seroren dohaintza eta oinordekotzen ohiko hartzaileei bideratua zegoen: familia, etxe, eta leinukideak, tenpluen mantenua, eta arimaren aldeko anibertsario, memoria eta mezak. Zentsuek, beraz, garrantzia handia zuten serorek familiarekin eta testuinguru sozialarekin zituzten harreman ekonomikoen baitan, nahiz eta parroketako seroren eta ermitetakoen artean, lehenek mailegutzarako formula hau gehiagotan erabili, eta hauen salerosketak, lagapenak eta dohaintzak ohikoagoak izan. Hau, noski, mugitzen ziren testuinguruaren ezaugarriei dagokie, azken finean, hiribilduak izan baitziren Aro Berriko (eta Erdi Aroko) ardatz ekonomiko nagusiak, eta beraz, bertan izaten baitzen dirurik eta harreman

¹²²¹ GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r.

¹²²² GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v.

¹²²³ GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r.

¹²²⁴ GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r.

komertzialik gehien, eta halaber, dirua eskura izateko beharrik gehien. Eta hor, serorak, beraien egoera sozial, erlijioso eta juridiko bereziarekin, euren diruak maileguan emateko abantailazko egoeran zeuden.

Zentsuei dagokien azken alderdi bat, eta zenbaitetan parroketako seroren artean ageri bada ere, batez ere ikergai espezifikoko izan dugun Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegian ikusi duguna, doteak zentsutan ematearen ohitura (eta kasu honetan, araua) da. Hau komentuen mantenurako erabili ohi zen baliabidea zen, eta taldetan bizi ziren seroren artean ere erabili zela dirudi. Ikergai izan dugun kasu konkretuan santutegiko seroren komunitatea komentu bilakatzeko erdibide batera eramana zuten, eta 1700. urteaz geroztik, aurreko urteetan dotetzat eman izan zituzten 200 dukatetatik 250 edo 300 dukateko dotera igo bazuten ere, kopuruak artean klausura gordetzen zuten komentuen aldean urriak ziren. Edonola ere, Leintz Gatzagako udal agintarien, santutegiaren administratzaileen eta apezpikutzaren asmoa, seroren euren doteekin (hauei, idatzi zizkieten arauen indarrez, testamenturik egiteko eskubidea ukatuz) eta Juan de Ormaechea kapitainak dohaintzan eman zituen 6.000 dukatekin, diruok zentsutan jarri eta hauen bidez komunitatea santutegiaz kanpoko aktibitateerik gabe sostengatzea zen (eta honekin bat, klausurako egoera batera heldu ahal izatea). Baina serorekin izan zituzten zenbait liskar tarteko, ez zuten halakorik lortu.

Eta Dorletako santutegiak printzipioz parroketako eta ermitetako serorek egiten zuten zentsuen erabileratik urrun legokeen egoera bat azaltzen digula badirudi ere, prozesu guzti hauen erdibidean izan zen serora baten testamentuak bestelako serorek zentsuetaz baliatzeko zuten moduaren oso antzerako jarraibideak agertzen dizkigu. Maria de Pagadigorri serorak, santutegiko administratzaileekin zenbait liskar izan eta santutegitik irten eta gero, -bertako beste serora gehienek bezala- 1700. urtean ezarri zitzaizkien arauak errefusatu eta testatzeko gaitasuna ukatzen zien arauari aurka eginez, 1719an bere testamentua helarazi zuen. Bertan, santutegiari bere dotean eraman zituen 200 dukatak baino ez zegozkiola adierazten zuen, eta hauez gain, beste 20 dukaten dohaintza ere egin zion. 220 dukat hauek, 100 dukateko eta 120 dukateko kopuru printzipaleko bi zentsutan emanak zituen. Beste zenbait dohaintzaz bestalde, bere propietate eta administraziopekotzat zituen beste zentsuek beste hartzaile batzuk izan zituzaten nahi zuen: 72 dukat printzipaleko bi zentsu (30ekoa bata, 42koa bestea) bere arimaren aldeko betiereko anibertsario baten fundaziora bideratu zituen, eta 50 dukat printzipaleko beste zentsu bat berriz, bere zahartzaroan artatu zuten bere iloba Maria Rosa de Maizi eta honen senar Martin de Salterain izkribauari eman zien; azken hau, halaber, bere albazea eta oinordeko unibertsal izendatu zuen, eta beraz, testamentuan bertan inbentariatu zituen beste diru eta ondasunak oro ere bere eskutara igarotzekoak izango ziren¹²²⁵. Maria de Pagadigorri bere testamentuan adierazi zuen borondatea ez zen bete, santutegiko administratzaileak auzi bidez aurka egin baitzion, ondasun gehienak santutegian gelditu zitezten lortuz¹²²⁶. Baina hala ere, testamentuan agertzen zaigun zentsuen erabilerak bat egiten du beste serorengan ikusi ahal izan dugun familia eta gizarte baitako erlazioen sarearekiko garatzen zuten dinamika orokorrarekin.

Bergarako Soledadeko neskatxan ikastetxeko seroren komunitateari buruz ere beste hainbeste esan liteke; hemen ere, nabari ageri zaigu horrelako komunitate batean bere aktibitateen mantenurako zentsuek zeukaten garrantzia. Maria Clara de Berroeta fundatzaileak, izan ere, ikusi ahal izan dugunak iradokitzen digunez bere borondatearen aurka, bertako serorek Sortze Garbiaren habitua eramatea onartu bazuen, dohaintzan

¹²²⁵ DEAH-AHDSS 4812/000-00, f.g.

¹²²⁶ Ikus laburbildu berri ditugun gorabehera guzti hauek zabalago santutegiari dagokion azpiatalean, 365 eta hurr. or.

eman zituzten zentsuak jaso ahal izan zitzaten emaleek ezarri zuten baldintza horixe izan zelako izan baitzen. Bestalde, Maria Clara beraren testamentuak, ikusi berri dugun Maria de Pagadigorrirenak bezalaxe, seroren komunitateen testuinguruan zentsuek izan ohi zuten erabileraren berri ere ematen digu. Oinordeko unibertsal Soledadeko ikastetxea bera izendatu zuen, eta dohaintzan eman zituen zentsuekiko eta fundatu zitezkeenekiko, honakoa ezarri zuen:

Yt. declaro y es mi uoluntad que si se redimiere algun censo que se fundase con caudales pertenecientes a mi, se haga su deposito Judicial en la forma del derecho hasta que haia finca segura para uoluer â inponer, y que dicho deposito se haga sauer á mis subcesoras, al señor Cura actual y uenideros de la dicha Yglesia Parroquial de San Pedro de esta Uilla y al Maiordomo que tubiere el Seminario y en defecto de este al Señor Capellan que hubiere al tiempo en esta dicha Uasilica para que bean si es de las circunstancias que preuiene el derecho y que dicho deposito no le pueda alzar nadie sin autoridad Judicial y beneplazito de dichos Señores Curas Maiordomos o Capellanes¹²²⁷

Zentsuak komunitatearen diru-iturrien oinarrian egoten jarraitu behar zuten, eta zentsu baten luditzeari beharrezko zaintza eta arretarekin egindako beste fundazio batek jarraitu behar zion. Arau hau klausura gorde ez zedin bitarterako egin zuen baliagarri, klausura gorde zedin momentuan, ordenek zentsuen luditzeekiko eta fundazioekiko zerabiltzaten arauak jarraitzea agindu baitzuen¹²²⁸. Seroren komunitateen eta beraien aktibitate, tenplu eta seroretseen mantenurako beraz, garrantzi handia izan zuten zentsuek. Ahaztu gabe noski, baieztapen hau oinarritzen diguten adibideak XVII. mende bukaerako eta XVIII.aren hasierako testuinguruari dagozkiola, eta seroren komunitateak, jada XVI. mende bukaera - XVII.enaren hasiera aldetik, mojen eta hauen klausurako bizitzaren ereduera bideratu nahi izan zirela.

Atal honetan azalduz joan garen aktibitateek, diru likido beharrean zegoen testuinguru ekonomiko eta komertzial baten baitan seroren zentsuek zeukaten garrantzia adierazten digute. Batez ere hiribilduetako bizitza sozialaren erdigunean zeuden parroketan, bertako serorak zio ezberdinetarako (baserriren baten mantenurako obrak egin beharra, enpresa komertzialen bat hasteko diru beharra, epe barruan kitatu beharreko zorren batengatik diru premia, bapateko gaixotasunen batek sorturiko gastuak, etab.) mailegu beharrean zeuden herritarrentzat diru likidoa eskuragarri izateko posibilitate bat eskaintzen zuten, eta ez dugu uste asko erratuko garenik, herritar eta familia askok seroren diruegatik izan ez balitz zailtasun ekonomiko handiak igaro izango zituztela esanaz gero. Kapitulu honetan bezalaxe aurreko kapituluetan zehar azaldu izan ditugun kasuei errepasso azkar bat eginez gero, lehenik eta behin, herrietako familia boteretsuenen abizenak dezente agertzen zaizkigula ohartuko dugu. Emakumeen artean “doña” asko agertu dira, baita hainbat alargun ere, eta gizonen artean hainbat izkribau, lizentziatuak, kapitainen bat eta apezten bat ere. Horrez gain, bestelako langintzak ere presente zeuden, nahiz eta gutxiago agertu: zurginak, lentzeria-saltzaileren bat ere bai, eta baita teilagin bat ere. Baina ofizio ezberdinak eta artisauak usuago agertuko zaizkigu aurreraxeago, ohizko maileguei buruz jardutean. Aipagarriak dira, halaber, kontzejuen (Larreko kontzejua) eta elizateen (Marin elizatea, Eskoriatzan) aurka fundaturiko zentsuak ere. Zentsu guzti hauek seroren eta maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako pertsonen artean izaten ziren erlazioen berri ematen digute; baina hemen ez gara zentsuekiko azaldu berri ditugunez haratago joango, erlazio hauen testuinguru zabalago bateko ikerketa, sakonagoa, ondorengo kapitulu baterako utziko baitugu¹²²⁹.

¹²²⁷ GPAH-AHPG 1/0555, 167r.

¹²²⁸ Ikus azalpenak zabalago dagokion azpiatalean, 404 eta hurr. or.

¹²²⁹ VII. kapituluaren, bereziki VII. 1. atala, 631 eta hurr. or.

VI. 2.4.2. *Ohizko mailegutza*

Hasieran eman ditugun datu orokorren bidez seroren aldeko zentsuek bikoteak eta gizonezko zordunak ohizkoagoak zituztela ikusi ahal izan dugu, eta ondoren eman ditugun kasu partikularrek baieztapena berretsi baino ez digute egin. Noski, bikoteekin eta gizonekin bat, emakumeekin ere egin dugu topo, batez ere, maila ekonomiko altuko emakumeekin; alabaina, zentsuen fundatzaileen proportzioak nabariki gizonen eta bikoteen alde egiten zuen. Horrekin bat, ohizko mailegutza kasuan emandako kopuruak txikiagoak zirela eta hauen hartzaileen artean emakumeak ohizkoagoak zirela ere aipatu dugu. Eta zentzu orokor batean hala bazen ere, ez da egia osoa. Salbuespenak ez dira falta, emakumeen gehiengoaren artean, hainbat gizon ere aurkitu bailiteke, kopuru xumeak maileguan hartuak zituztenak. Eta horrez gain, orokorrean ohizko maileguan emandako kopuruak zentsuetan emandakoak baino urriagoak baziren ere, baziren kopuru handietako maileguak ere, zentsutan emandako diruak gaintzen zituztenak, eta gizarte nahiz ekonomia maila altuko “bezeroei” eman zitzaizkienak. Hein batean, zentsuek moralisten aldetik jasotzen zituzten kritikak ere aintzat hartu beharrean gaude (hauen erabilera lukurreria praktikatzat salatzen baitzuten), zenbait seroraren kasuan, zentsuen erabileraganako uko konstziente bat legokeela baitirudi. Beste behin, orokortzeak zuhurtasunez hartu beharreko esparru batean gaude.

Erabili izan ditugun datuen inguruko zehaztapenen batzuk ere egin beharrean gaude. Maileguak, izan ere, batzuetan mailegu lez esplizituki aipatzen baziren ere, beste batzuetan, batez ere kopuru txikiei zegokienean, zorraren berri baino ez baitzen ematen. Alabaina, zorra salmentaren batek edo propioki serorei zegozkien zerbitzuren batek motibatua bazen, edo oinordekotza bati nahiz lagapenen bati bazegokion, kopuruak txikiak izanik ere zergatia esplizituki adierazi ohi zela ikusten dugu. Hain prezeski ere, motibo hauek esplizituki aipatzeko ohitura zela eta jorratu ahal izan ditugu aurreko kapituluetakoa zenbait aktibitateen ingurukoak: esate baterako, jarlekuen zerbitzuari zegozkienak edo ehunen, ohialen eta arropen inguruko aktibitateei zegozkienak. Hortaz, motibo berezien aipamenik gabe zor bezala aipatzen zirenak, gehienetan maileguen bidezko zorrak izan beharrean zeudelakoan gaude, eta halakotzat sailkatu ditugu. Edozein kasutan, irizpide honekiko mesfidati agertuaz gero ere, serorekiko zorrei buruz dihardugu beti, eta orain arte aipagai izan ditugun aktibitateei loturiko zorrak ez izatekotan (esan bezala, hauek gehienetan esplizituki aipatzen baitziren), zail da jakiten zorra zerek motibatua izango ote zen; mailegutza aintzat hartuko ez bagenu, bederen. Eta bestela, mailegu lez sailkatu ditugun hauen artean kasuren bat edo batzuk beste nonbait sailkatu beharko balira, azalduz joan garen aktibitateak aintzat hartu beharko genituzke. Gainera, irizpide honek kasuren batzuetan balioko ez balu, guztietan ere guztietan, esplizituki azaldu gabeko motibo bategatik edo besteagatik serorek emandako zerbitzuen edo produktuen ordainketa edo kopuruen itzulpen *atzeratuen* kasuei buruz dihardugu, eta hein horretan, datu horiek maileguri eskaini diogun kapitulu honetan baitaratzea justifikatua dagoela kontsideratzen dut, zentzu zabal batean, ordainketa edo itzulpen atzeratu bat ere mailegu bat baita; eta areago, sailkapen honek oinarri sendoagoak hartzen ditu, kasu hauek sailkatzerakoan zor hutsaz haratagoko irizpide zentzudunik gabe geldituko ginatekeela aintzat hartzen badugu. Guzti honek garamatza, ondorengo orrietan ikusiko ditugun kasuak ikertzerako orduan, aipatu berri dugun irizpide orokorra jarraitzera.

Zentsuen erabilerarako arazo moralak izatearena ez da lehenik ikusiko dugun seroraren kasua, maileguekin bat, bere alde fundaturiko hainbat zentsu ere bazituen eta. Baina lehenik aipatuko dugu, bere kasua zentsuen eta maileguen arteko sexuen eta

kopuruen araberako ohizko banaketaren erakusgarria baitzaigu. Aipatua dugu jada Maria de Izaguirreren kasua, bere aldeko zentsuak zirela eta. Aipagai izan ditugun beste adibideetan bezala, bere aldeko zentsuen fundatzaileak batez ere gizonak eta bikoteak ziren, nahiz eta kopururik handienak, kasu gehienetan ez bezala, emakumeei zegozkien; euren artean, familia-kidea dirudien Magdalena de Izaguirreri (“doña”, San Juan Martinez de Gorostolaren alarguna) zentsutan emandako 300 dukatak zeuden (zor guztia ohizko mailegutzan emandako beste 100 dukatekin batera osatzen zen). Zor hauek Magdalenaren alabek jaso zituzten oinordekotzan, eta serorak dohaintza bidez barkatu zizkien; hau serorek ilobekiko izan ohi zuten ohizko portaera bat izanik, dokumentuan esplizituki aipatu ez bazen ere, Magdalena Maria seroraren ahizpa ez ote zen otutzen zaigu¹²³⁰. Edozein kasutan, Maria de Izaguirrek bere aldeko zentsuez gain ohizko mailegutzan emandako diruen hainbat zor zituen, eta zordun hauen artean emakumeak ziren nagusi. 22 zordunetatik 5 baino ez ziren gizonetzkoak, eta bakarra zegokion bikote bati. Pedro de Sagarraga eta bere emazte Catalina Martinez de Churruca Soraluzeko herritarrak ziren azken hauek, eta beraiei zegokien zorrik handiena, 90 dukatekoa. Gainontzeko zorrak 220 eta 7 erreal bitarteko kopuruen maileguei zegozkien; ggb. 77 errealekoa da azken hauen kopuruen arteko batzbestekoa.

Maria de Izaguirreren kasuan, beraz, Magdalena de Izaguirrek zentsutan eta ohizko mailegu bidez zor zizkion 400 dukatak, Martin de Amuchasteguik bere alde zeukan 2 dukateko zentsua (kopuru arraroa izanik ere, garbia du irakurketa) eta Soraluze aldetik zor zizkioten 90 dukatak, seroraren 39 zentsu eta maileguren arteko salbuespentzat alde batera utziko bagenitu, zentsuen eta ohizko maileguren arteko muga 220 errealetan kokatuko litzaiguke. Izan ere, salbuespenez aparte, kopuru horretakoa baitzen bere alde fundaturik zeukan zentsurik txikiena, eta baita ohizko mailegurik handiena ere; nahiko garbi ageri zaigu zentsuen eta maileguren banaketarako irizpide ekonomikoa: 20 dukatetik gora zentsuak, hortik behera maileguak.

Zentsuak bezalaxe maileguak ere eman zituztenen artean, beste serora batzuetan ere ageri zaigu tankerako irizpide orokor baterako joera: Bergaran Marina de Jauregui (1556), Francisca de Igueribar (1581), Maria de Irala (1596), Maria de Iturbe (San Martin ermita, 1605) eta Maria de Mendoza (1650); Elgetan Marina de Larraguibel (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576), Marina de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1603), Domenja de Albisua y Arescurenaga (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1605), eta Catalina de Mendiguchia (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638); eta Antzuolan -salbuespeneko partida batzuekin- Marina de Iraeta (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1645), Maria de Zumaeta (1671) eta Dionisia de Jauregui Madariaga (1720) aipatu litezke. Ikus litekeenez, adibide guzti hauek Bergara, Elgeta eta Antzuolako espaziotik datozkigu.

Leintz bailaran, hirizpide honi egokitzen zaion serora bakarraren kasua daukagu, Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranarena (1629). 400 dukateko zentsu bakarra zeukan, eta 7 mailegu, 110-15 erreal bitarteko kopuruetakoa. Bailarako beste kasuetan banaketa hau ez zaigu bakarkako seroren zentsu eta maileguei begira ageri, osotasuneko datuetara begira baizik. Catalina de Abendañoren (Arrasate, 1590) eta Maria Lopez de Olazaranen (Arrasate, 1604) kasuak, batez ere bigarrena, Leintz bailarako beste serorekiko salbuespenetzko kasuak ditugu, Leintz Gatzagako Luisa de Aguirreren (Dorletako Andre Maria santutegia, 1693) eta Maria de Pagadigorriren (Dorletako Andre Maria santutegia, 1719) kasuekin batera; lehenaren 1.408 errealeko mailegu batez beste, gainontzeko diru guztiak zentsutan eman zituzten, eta lauren artean

¹²³⁰ Ikus zordun zituen zenbait familia-kideren ingurukoak VI. 2.4.1. azpiatalean, 582 eta hurr. or.

emandako diruek, Leintz bailarako serorek zentsu eta mailegutan eman zituzten diruen parterik handiena osatzen dute, alde handiarekin (15.917'25 errealetik 14.664'5, %92'12). Gainontzeko 11 serorek guzti-guztia mailegutan eman zuten, eta 220 errealetik beherakoak ziren denak.

Bergaran, Elgetan eta Antzuolan ere aurkitzen ditugu, Leintz bailaran bezala, mutur batean edo bestean, zentsutan 220 erreal baino gehiagoko kopuruak soilik emanez edo mailegutan kopuru hortatik beherakoak baino eman ez zituzten serorak; hirizpide orokor hau daramaten hainbat kasu ditugu, batez ere maileguak baino eman ez zituztenenak, kasuren batzuetan salbuespenezko partidaren bat azaltzen badigute ere. Zentsutan batez ere kopuru handiak -220 errealez gorakoak- eman zituztenak honakoak ditugu: Magdalena de Castillo (Bergara, 1612), -partida bakarrarekin bada ere- Maria Ochoa de Marquiegui (Elgeta, Andre Maria parrokia, 1592), eta Ana de Benitua (Antzuola, 1642). Talde honetan sartu beharko genuke agian Maria Lopez de Olazaran (Arrasate, 1604) ere; diru guzti-guztiak zentsutan zeuzkan serora honek 7 eta 14 dukateko zentsuak ere bazeuzkan 8 kasutan emanak, hau da, 220 errealetik beherakoak, baina gainontzeko 15 kasuetako kopuruak handiagoak ziren. Ia partida guztietan mailegutan 220 errealez beherako kopuruak eman zituztenak, aldiz, esan bezala, gehiago ditugu: Marina de Moyugoitia (Bergara, Leizariako San Lorentzo ermita, 1574), Domenja de Gante (Bergara, 1592), Maria de Beiztegui (Bergara, Santa Marina parrokia, 1594), Magdalena de Oruesagasti (Bergara, San Pedro parrokia, 1610), Maria de Aguirre (Bergara, San Pedro parrokia, 1631), Gracia de Urrupain (Elgeta, Andre Maria parrokia, 1587), Domenja de Altube (Elgeta, San Adrian eta San Antonio ermita, 1599), Gracia de Sagasta (Elgeta, Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637), eta Maria de Iturbe (Antzuola, Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1649).

Oñatin berriz, serora gehienek diru guztiak mailegutan emanak zeuzkaten, kasu gehienetan 220 errealetik beherako kopuruetan, baina baita kopuru hori gainditzen zuten kasu gutxietan ere. 10 seroren artetik bi baino ez zaizkigu joera honetatik kanpo gelditzen, biak ere biak, esanguratsuki, hiribilduko San Migel parrokiako serora nagusi izandakoak: 40 eta 60 dukateko bi zentsu eta 1.257 errealeko mailegu bat emanak zeuzkan Maria Lopez de Estraño (1647) eta 2 eta 10 errealeko bi partidez gain, 114 eta 332 errealen baloreak zentsutan emandako diruetatik jaso beharrean zegoen Ana Catalina de Inza (1751).

Kopuruen dibertsitate handi batekin, zentsuak bezalaxe maileguak emanda, beraien diruak gizarteko klase ezberdin guztietako partaideei banatzen zizkieten seroren kasuez bestalde (zeinak, ikusi dugunez, Bergara, Elgeta eta Antzuolako espazioan baino ageri ez zaizkigun), maila sozial eta ekonomikoekiko ezaugarri bereziak zeuzkaten bi talde banatzen zaizkigu. Alde batetik, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko bi serorekin batera, diru guztiak 220 errealetik gorako kopuruetakoz zentsutan eman izan zituzten 9 serorak hiribilduen testuinguruetan ageri zaizkigu, bana Bergaran, Elgetan eta Antzuolan, eta bina Arrasaten eta Oñatin. Bestetik, Debagoieneko herri guztietan zehar banaturiko 28 seroren beste talde bat perfilatzen zaigu: diru guztiak ohizko mailegutan eman izan zituzten, eta salbuespenen batzuekin, kasurik gehienetan 220 errealetik beherako kopuruak eman izan zituzten.

Maileguen jasotzaileei erreparatzera jotzen badugu, estatistiken azalpenak ematerakoan garbi ikusi dugun bezala, emakumeak ziren nagusi. Ardatz bezala darabilgun Maria de Izagirreren (Bergara, 1631) testamentura itzul gaitezen ildo honi jarraitzeko; kopururik handien zordun lez hainbat “doña” ageri zaizkigu, bahitzat seroraren eskutan hainbat bitxi eta ornamentu utziak zituztenak: Ana de Zabala Iturrichok 220 eta 110 errealeko bi zor zituen (bahitzat: bi Agnus Dei, bata urre-

kolorekoa), Maria de Galarza “mayor en dias”-ak 165 errealekoa zuen (bahitzat: urrekoloreko portzelana bat) eta Andres Perez de Laudansen alarguna zen Antonia de Ozaetak 110 errealekoa zuen (bahitzat: belusezko ohial bat). Juan Ochoa de Romagalarza izenez Bergaran izan ziren bi izkribauen arteko gazteenaren emaztea dirudien Isabela Perez de Achoteguik ere bazuen serorarekin mailegu bidezko zor bat, 55 errealekoa. Kopuru nagusien artean, aipaturikoez gain Maria de Inarra (220 erreal), Ursola de Machain (154 erreal), Isabel Saez de Micolalde (76 erreal) eta Magdalena Perez de Ascarrunz (63 erreal) ere bazeuden, eta azkenik, beste “doña” batek, Maria de Oxirondok, 12 errealeko zorra zuen. Gainontzeko 6 emakumezko zordunek 30 eta 8 erreal bitarteko kopuruak zor zituzten, eta ohial batzuez eta zilarrezko kikara batez aparte, serorak ez zeukan beraien segurantzarako bahirik harturik. Gizonezkoak ere bi kategoria probisional hauetan baitaraturik ageri zaizkigu: alde batetik, Andres de Arandia (99 erreal) eta Joan Garcia de Oruesagasti (42 erreal) zeuden, eta bestetik, Martin de Butron (12 erreal) eta Juan Perez de Elorregui (7 erreal)

¹²³¹

Kasu honek maileguei loturik agertzen dizkigun zordunen ezaugarri sozial eta ekonomiko orokorrak beste hainbat kasutan berresten zaizkigu. Diruak batez ere zentsutan jaso izan zituzten gizon eta bikoteez bestalde, emakumeekiko mailegutzak jasotzaileen esparru sozial eta ekonomiko anitz bat agertzen digu, diruak zentsutan ere jasotzen zituzten “doña” eta bestelako emakume aberats eta boteretsuetatik, zurginen, labangileen nahiz artisau ezberdinen emazteetatik igarota, maileguan erreal gutxi batzuk jasoak zituzten emakume txiroetaraino. Zentsutan “espezializaturik” zeudela ikusi izan dugun seroren kasuetan beraien maileguak maila ekonomiko jakin bateko pertsonengana bideratzen baziren, beraien mailegutza aktibitateak gizarteko maila sozial eta ekonomiko ezberdinetara zabalik mantendu zituztenen artean, kasu askotan bereziki emakumeak faboratu izan zituztela ikusten dugu. Baina azken aspektu hau azpimarratu beharra dagoen bezalaxe, gizonezkoen aldeko mailegutza ere garrantzitsua izatera heldu zela esan beharrean gaude. Alderdi guzti hauei erreparatzeko, Bergarako San Pedro parrokian bata bestearen ostean serora izan ziren Catalina de Ondarzaren (1572) eta Marina Garcia de Oruesagastiren (1607) testamentuetako zordunei begira jarriko gara, hauek adierazgarritzat harturik, jarraian beste hainbat kasuren berri emateko¹²³². Jarraian emango ditugun azalpenen jarraibidetzat, bi serora hauen testamentuetan oinarrituriko 6. koadroaz (923-925 or.) baliatuko gara.

Catalina de Ondarzaren zordunen banaketan Maria de Izaguirreren kasuan erabili ditugun antzerako mugarri ekonomikoak erabiliko ditugu; hau da, zordunak 220 eta 33 errealeko kopuruez –edo bestela esanda, 20 eta 3 dukateko kopuruez– gorako eta beherakoetan banatuko ditugu. Hau noski, zentsuen eta maileguen emateen ohituran 20 dukaten mugarria esanguratsua zela ohartu dugulako ere egingo dugu; honi 3 dukatetan kokaturiko beste mugarri ekonomiko bat gehituaz gero, datuak oso modu interesgarrian batzen zaizkigu. 20 dukatez gorako kopuruei dagokienez, ikusi dugu nola kasurik gehienetan zentsutan emandako diruei dagozkien. 39 serora izan ziren kopuru hortaz

¹²³¹ Izan gogoan, aurrekoan bezalaxe azpiatal honetan ere, ematen ari garen datuen jatorria 3.a. koadroa dela (879-912 or.), honen emaitzen 3.b. eta 3.c. koadroekin batera (hurrenez hurren, 913-916 eta 917 or.).

¹²³² Marina Garcia de Oruesagastiren –edo gehiagotan agertzen den lez, Marina de Oruesagastiren– izendapena berezi xamarra da, bere aurrekari Catalina de Ondarza serorak berak izan baitzuen bere testamentuko klausula batean, San Pedro parrokiaren zerbitzurako seroretzea egiteko etxe baten dohaintza egin zuenean. Marina urte askotan zehar izana zen Catalinaren serora-laguntzaile eta zerbitzari, eta hori zela eta justifikatu zuen Catalinak bere kargurako egokitasuna eta izendapena bera. Nahiz eta printzipioz Catalinak izendapenik egiteko eskumenik ez zeukan, Marina karguan egon zela dakigunez, ziurra da onartua izan zela.

goragoko zentsu edo maileguren bat eman zutenak, eta osotara eman zituzten 220 errealetik gorako 92 partidetatik 56 izan ziren zentsutan, guztira 38.693 errealeko kopurura heltzen zirenak (bb. 690'94 erreal). 37 partida aldiz (pertsonek bat bikoiztua kontatzen dugu, zentsutan eta mailegutuan eman zitzaizkion kopuru ezberdinak ageri baitzaizkigu, biak 220 errealetik gorakoak) maileguenak ditugu, eta hauetan ere diru dezente emana zuten: 24.574'25 erreal (bb. 664'16 erreal). Zentsuen inguruan jardun dugunean aipatu izan dugu nola jasotzaileen artean bikoteak, etxe eta baserriak eta gizonezkoak ohizkoagoak ziren emakumeak baino, eta hau zerk motibatua izan zitekeen, etab. Eta noski, esandakoak baliozkoak ditugu 220 errealez goragoko zentsuak zirenean, hauek ohizkoak ziren eta. Ohizko maileguei dagokienean berriz, 220 errealez gorakoek ez digute, diruen banaketari dagokionean, zentsuen egoera berbera agertzen: 19 emakumezkoek dagozkie (12.501 erreal, 220 errealez gorako maileguen %49'53a), 11 gizonezkoek (7.486'25, %29'66), 6 bikoteek (3.476, %13'77) eta 3 etxe edo baserriek (1.771, %7'01). Lehenik eta behin, ohartu beharrekoa, zentsuen kasuan bezalaxe, iloben eta bestelako familia-kideen gehiengoa da, emakumezkoetan bezalaxe, gizonezkoen eta bikoteen kasuetan ere; 5 ilobek (4 em., 1 giz.) 3.332'5 erreal jaso zituzten, eta dibertsitate handia azaltzen diguten bestelako 8 familia-kideen (bi anai, ahizpa bat, koinata bat, ama bat eta bestelako bi familia-kide) artean berriz, 5.775 erreal. Familia-kideez aparte, maileguak bakarka edo partekatuta jasotzen emakumezkoen artean hainbat "doña" eta abizen entzutetsudun emakume ageri zaizkigu (familia-kide ere bazirenekin bat 11 behintzat aipatu ziren, Monesteriobide, Zabala, Gaztelu, Eizmendi edo Ozaeta bezalako abizendunak), eta gizonezkoen artean, etxe edo baserrien jabe bezala aipaturikoekin (Askarruntz Goikoa eta Azkargorta Goikoa -Bergaran-, Laskurain -Antzuolan-) eta etxe ezaguneko abizendunen batzuekin (Jeronimo Perez de Arrese, eta bere amaren eta arrebaren zorra ordaindu beharrean zegoen Miguel Perez de Amezqueta kapitaina) eta apezten batekin (Miguel Abbad de Arguizain) batera, Debagoienaz kanpoko zordunen bat ere ageri zaigu (Urretxun, Guerra etxekoekin errotan bizi zen Matias de Erazu). Orokorrean, bada, zentsuen jasotzaileen antzerako espazio sozialen testuinguru bat ageri zaigu, baina emakumezkoen presentzia handiagoarekin. Azkenik, seroren maileguen beharrak ze espaziotaraino hedatu zitezkeenaren erakusgarri, XVIII. mendearen erdialdean Mariana de Aleizak (Bergara, San Pedro parrokia?, 1758) "las reales Fauricas de armas de la Villa de Plazencia" zirenei mailegutuan emandako 2.200 errealetik gorako kopurua ere aipagai dugu.

Gidatzat egiten diguten testamentuetara itzuliz, 220 errealez gorako maileguetatik eratorri dugun ikuspegia hein batean 33 errealez gorakoek ere hedagarri zaiela ikusten dugu, jada, maila ekonomikoaren eta sozialaren arteko korrespondentziak iradokitzen digun bezala, bestelako espazioetako partaideak ere gehituz; emakumezkoen kasuan "doña" zirenek, alargunek eta familia boteretsuen abizendunek agertzen jarraitzen dute, eta gizonezkoen kasuan, familia garrantzitsuetakoez beste, ofizioetako langileek agertzeari ekiten diote. Catalina de Ondarzaren (Bergara, San Pedro parrokia, 1572) 3 dukatetik gorako zordunen artean, emakumeen eta gizonen presentzia nahiko ekitatiboa zen. Emakumeen artean hainbat "doña" zeuzkan zordun (Magdalena de Oxirondo, Catalina de Galarza, Maria de Aroztegui), beste zenbait familia garrantzitsuen abizenak zeramatzatenak (Castillo, Roma, Ondarza), eta baita seroraren bat ere ("la beata de Leçeta"). Gizonezkoen artean, zordun guztien artean kopuru handiena (715 erreal) zor zuen Joan Perez de Ariztizabalez gain, doktore bat (Ollacarizqueta doktorea) eta labangile bat (Joan Perez de Ayardi) ageri zaizkigu. Hauekin bat, Marina de Oruesagastiren zordun nagusien artean ere agertuko zaigun San Juan de Elusa gaztea ere badugu, bere familia-kide behar zuen San Juan de Elusa nagusiarekin bat.

3 dukatetik gorako maileguei erreparatzeari utzi gabe Marina de Oruesagastiren testamentura iragaten bagara, antzerako egoerarekin topo egingo dugu, honen kasuan emakumeen presentzia nabariagoa bazen ere¹²³³. Serora honen zordunik handienak lez, 20 dukatetik gorako zordunen artean eta Chariaco de Oruesagasti seroraren iloba buru zutela (528 errealeko zorrarekin), batez ere emakumeak ageri zaizkigu. Ilobaren zorrak hainbat alditan serorak eman izan zizkion 18, 10, 7 eta beste 18 dukaten baturak osatzen zituzten; nabaria da serorak bere ilobaganako preferentzia sentitzen zuela. Hiru emakumek zeramaten Basalgarai abizena, eta hauetariko bi behintzat, ahizpa bezala aipatu ziren (Ana Perez eta Margarita Perez, 308 errealeko zorrarekin). Litekeena da hirugarrena ere (Maria, 403 errealeko zorrarekin) beste ahizpa edo bestelako familia-kidea izatea, eta serorak tratu ekonomiko berezia zeukan familia baten kasua izatea. Beste zor nagusiak abizen itzaltsudun emakumeen oinordekoei zegozkien: Maria Lopez de Gaztelu bere amaren eta Maria de Amezqueta (“doña”) bere arrebaren oinordeko lez zorra jaso zuen Miguel Perez de Amezqueta kapitaina (297 errealeko zorrarekin) eta Catalina de Zabalaren oinordekoak (264 errealeko zorrarekin). 220 eta 33 errealen bitarteko zordunen artean ere baziren hainbat “doña” (Francisca de Zabala eta bere oinordeko Elena de Arrese 154 errealekin, Joana de Azcarate 44 errealekin eta Catalina de Galardi 41 errealekin), eta baita gizonen artean beste zenbait ofizio eta kargu deigarri ere: komendadore bat (Catalina bere amaren oinordeko lez zorra jaso zuen Joan de Gabiria komendadorea, 100 errealekin) eta “maese” baten emaztea (Pedro de Beizteguirena, 59 errealekin) ageri zaizkigu. Bitarteko kategoria honen baitan baziren beste hainbat emakume eta gizon ere, maileguaren kopuruaz beste, informazio gehiegirik ematen ez zaigunak; aipatu berri ditugunak ere aintzat hartuz, 12 emakume eta 12 gizon ziren guztira. Kopuru nagusien kasuan emakumeak gehiago baziren, 220 eta 33 erreale bitartean nahiko banaketa ekitatiboa ageri zaigu.

Bi kasu hauek Debagoienako seroren artean 33 errealetik gorako maileguak ematerakoan izan ziren bi joera nagusien adierazgarri ditugu. Bata, joera nagusia, mailegu hauek alde batetik emakumezkoen, eta bestetik gizonaizkoen, bikoteen eta etxe edo baserrien artean nahiko ekitatiboki banatu zituztenek azaltzen digutena dugu; edo behinik behin, mailegu hauen zordunen artean preferentzia nabaririk azaltzen ez zutenena. Beste joera, oster, bereziki emakumeak faboratzera jotzen zutenena da. Lehen joeraren adibideak Debagoieneko ia herri guztietan aurki ditzakegu¹²³⁴: gehienak Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espaziotik helduak zaizkigu; hala, Bergarako Maria de Sarralde (1567)¹²³⁵, Marina de Moyugoitia (San Lorentzo ermita, 1574)¹²³⁶,

¹²³³ Serora honek 1607an testamentua helarazi zezan baino lehenago, 1594 eta 1604 bitartean, bere alde fundatu ziren hainbat zentsuren berri dugu. San Juan de Elusa izana zenak (bi homonimoen arteko nagusia, itxuraz) eta honen alargun Catalina Lopez de Arizpe y Oxirondok bien artean (baina bakoitzak bere aldetik) 464 errealeko kopurura heltzen ziren bi zentsu zeuzkaten fundatuak, eta Pedro de Arin eta bere emazte Mariana de Beizteguik ere beste bi zentsuren zorra zeukaten, denara 256 erreale eta ½-ko kopurura heltzen zirenak. 1607an testamentua helarazi zuenean zentsu hauek eta beraien etekinak parrokiako seroretxearen probetxura eta bere arimaren aldeko anibertsario baten fundaziora bideratu zituen; gainontzeko zordun guztiak, ohizko mailegutuan emandako diruei zegozkien.

¹²³⁴ Ondorengo aipueterako, dokumentuen erreferentzia zehatzez beste, ikus 9. koadroa, 935-939 or.

¹²³⁵ Aurkitu diogun zordun bakarra zen bere anaia Martin de Sarralde 264 erreale zor zizkion (GPAH-AHPG 1/0012, 52v-53r).

¹²³⁶ Maileguen kopuru handieneko zordunen artean bere anaia Geronimo de Moyua (12 dukaten zorrarekin) eta Martin de Beiztegui (6 dukat) zeudela ikusten dugu, eta baita aurreko bi partida hauen artean aipaturik ageri zaigun bere koinatu Martin Saez de Oxirondo ere, irakurri ezin izan dugun dukaten kopuru batekin (baina lehenik kopuru handieneko zordunak aipatu zituenez, honenak ere kopuru esanguratsua izan behar zuen). Martin de Belazteguik eta bere amak ere bazuten serorarekin zorrak, 44 errealeko mailegu batena (GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v).

Domenja de Urgoitia (San Pedro parrokia, 1580-1599)¹²³⁷, Maria de Munabe (1585-1591)¹²³⁸, Domenja de Gante (1592)¹²³⁹, Maria de Irala (1596)¹²⁴⁰, Maria de Iturbe (San Martin ermita, 1605-1607)¹²⁴¹, Catalina de Sarralde (Santa Marina parrokia, 1628)¹²⁴², Maria de Aguirre (1631)¹²⁴³, Gracia de Zabala (Santa Marina parrokia, 1650)¹²⁴⁴, Maria de Mendoza (1650)¹²⁴⁵, eta Maria Ana de Mecolalde (San Martin ermita, 1762)¹²⁴⁶; Elgetako Marina de Larraguibel (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576)¹²⁴⁷, Catalina de Aramburu (1577-1599)¹²⁴⁸, Isabela de Zabala (1570-1584)¹²⁴⁹, Marina de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1593-1603)¹²⁵⁰, eta Catalina de Mendiguchia (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638)¹²⁵¹; eta Antzuolako Marina de

¹²³⁷ 1580 eta 1599 bitartean eman zituen maileguen arteko gehienak gizonei emanak zizkien: Santuru de Ariztizabali eta honen aita Pero Perez de Ariztizabal guraizegileari (80 erreal), Joan de Basauriri ("residente en la dicha Uilla") (80 erreal) eta bere –seroraren– bi anairi, Pedro de Urgoitiari (100 erreal) eta Alonso de Aguirre Urgoitiari (473 erreal) (hurrenez hurren, GPAH-AHPG 1/0120, 507r-507v, 512r-512v eta 512v-513r, eta GPAH-AHPG 1/0124, 171r-172r). Azken kopuru hau jada aipagai izan dugun Marina Garcia de Oruesagasti serorarekin batera Maria de Basalgarairengandik hartzekoa zuen, itxuraz, 1599ko bere testamentuan azaltzen zaigunaren arabera, bi serorek bere seme Cosme Ruiz de Oxirondori emandako mailegu baten zorrei zegozkienak (GPAH-AHPG 1/0182, 81r-82r).

¹²³⁸ Serora honi aurkitu ahal izan dizkiogun hiru zordunetako bi gizonezkoak ziren, Juan de Urrutia Arizabaleta (88 erreal) eta Pero Perez de Berasiartu (275 erreal) (hurrenez hurren GPAH-AHPG 1/0127, 713r-713v eta GPAH-AHPG 1/0129, 660r-661r), eta bestea "doña" bat, Maria de Aroztegui (110 erreal) (GPAH-AHPG 1/0125, 701r-701v).

¹²³⁹ Kopuru handien artean Domingo de Arteagaren oinordekoen 80 errealeko zorra ageri zaigu, Martin Garcia de Sagastizabalen 74 errealekoarekin batera (GPAH-AHPG 1/0157, 119r-125v).

¹²⁴⁰ Zentsutan emandako zenbait kopuru handiagoz beste, Charico de Garitanori 110 erreal emanak zizkion, bere koinata Catalina de Goitiari 88 erreal, eta Martin de Esta[ffeta?]-ri, eta Joan de Arin eta bere emazte Magdalenari, 44na erreal (GPAH-AHPG 1/0134, 711r-719v).

¹²⁴¹ 1605ean helarazi zuen testamentuan, baserri bati emandako zentsu batez beste, Maria de Amezquetaren ("doña") ondasunetatik 154 erreal (14 dukat) zor zitzaizkion (GPAH-AHPG 1/0162, 75r-76v). 1607rako zorra handitua zen antza, ezen Miguel Perez de Amezqueta kapitainak Maria de Iturbe serorari zor zizkion 17 dukat eta 3 erreal eta $\frac{3}{4}$ - Catalina de Eguren serorari ordaindu baitzizkion, azken hau Mariaren testamentuko albazea baitzen (GPAH-AHPG 1/0218, 115r-115v).

¹²⁴² Bere mailegurik handienak emakumeei emanak izan ziren, -zerbitzatu izan zuen etxe eta jarlekuaren jabe zen- Maria de Eizmendi ("doña") (2.552 errealekin) eta Catalina Perez de Aroztegui (330 errealekin), baina bere testamentuan agertzen zaizkigun bi gizonezko zordunek ere 3 dukatetik gorako kopuruen zorrak zituzten: Pedro Perez de Galarrolazak 4 dukat, eta Juan de Abrainek ("que viue en Buruñano") 42 erreal (GPAH-AHPG 1/0258, 116r-122v).

¹²⁴³ Bere zordunik handiena Miguel Abbad de Arguizain apezka izana zen (ordurako ordainketa oinordekoei zegokien), 417 errealeko zorrarekin, eta Aldaitarrek zeuzkaten zorrak ziren 33 errealez gorako hurrenak: Magdalena de Aldairen 77 errealak, eta Joan Saez de Aldai "Susso"-ren 52 errealak (GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v).

¹²⁴⁴ Zentsutan baserri bati emandako kopuru handiago batez beste, bere zordunak emakume bat (Francisca de Igueleta, 384 errealekin) eta familia entzutetsuko gizon bat ziren (Jeronimo Perez de Arrese, 231 errealekin) (GPAH-AHPG 1/0339, 333r-338v).

¹²⁴⁵ Zenbaitetan familia boteretsuetakoak diruditen emakumeren batzuekin bat (Mariana de Arteaga, Jeronimo de Arreseren alarguna, 191 errealekin; Magdalena de Galarraga 100 errealekin; eta Isabela de Achotegui 55 errealekin), bikoteei emandako beste zenbait mailegu ere bazeuzkan (Ignacio de Amunssategui eta Catalina de Gomezkortari 220 erreal, Francisco de Lascuraini eta Isabela de Azpitarteri beste hainbeste, Juan de Zabala "platero"-ari eta bere emazteari 47 erreal, eta Andres de Ozaeta eta bere emazte Antonia de Ozaetari -"doña"- 36 erreal) (*Ibid.*, 615r-622r).

¹²⁴⁶ Askarruntz Goikoa baserriko jabea zen bere anaia Pedro Antonio de Unamunori baino ez zion dirurik mailegutuan eman, baina honi dezenteko kopuruan, 1.594 erreal eta $\frac{1}{4}$; azaldu zuenez, orduan lau urte "para recurrir a sus Urgencias" emanak izan zirenak (GPAH-AHPG 1/0615, 423r-426v).

¹²⁴⁷ 4 dukateko mailegu bana emana zien Maria de Larrinagari, Catalina de Iturria alargunari eta Pedro de Altuna errementariari (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v).

¹²⁴⁸ 1577-1599 bitartean hainbat mailegu eman zituen: 1577an, bere ahizpa Marina de Aramburuarekin bat, bien anaia zen Juan Ortiz de Aramburuari 98 dukatekoa (GPAH-AHPG 1/1857, 25v-26r); 1582an,

Iraeta (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1645)¹²⁵², Marina de Oxirondo (1645-1665)¹²⁵³, Maria de Iturbe (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1649)¹²⁵⁴, Maria de Ibarra (1659)¹²⁵⁵, Catalina de Lizarriturri Igueribar (1659)¹²⁵⁶ eta Maria de Zumaeta (1671)¹²⁵⁷ dira multzorik handiena osatzen digutenak. Baina baziren beste espazioetakoak ere: Arrasateko Maria Lopez de Olazaran¹²⁵⁸, Maria de Insaurbe (San Balero ermita, 1579)¹²⁵⁹, Teresa de Urisarri (Santa Marina ermita, 1603)¹²⁶⁰, eta Catalina de Huruburu (Udala, San Esteban parrokia, 1610)¹²⁶¹; Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Durana (1629)¹²⁶²; eta Oñatiko Ines de Bidania (San Martin ermita, 1554)¹²⁶³, Magdalena de Ucelai (San Kristobal ermita, 1591)¹²⁶⁴, Francisca de Estrada Basauri (Zañartu auzoa, San Julian ermita, 1599)¹²⁶⁵, Maria de Villar (Narria auzoa, San

Elgetako Andre Maria parrokiako apez eta benefizioduna zen Juan Abbad de Aranari 100 dukatekoa (GPAH-AHPG 1/1858, 71v-72r); 1591n, halaber Andre Maria parrokiako benefizioduna zen Juanes de Trañari 44 dukatekoa (GPAH-AHPG 1/1860, 140v-141r); urte berean, bere anaia Juan Urtiz de Aranburuari 46 dukatekoa (GPAH-AHPG 1/1860, 141r-141v); eta azkenik, 1599ko lagapen baten bidez, Juan Ortiz eta Pedro de Aramburua seroraren anaiek mailegu ezberdinak medio honekin 24 dukat eta ½-ko zorra zeukatela dakigu (GPAH-AHPG 1/1862, 76v-77v).

¹²⁴⁹ Kopuru handietako zenbait mailegu emanak zituen: 1570ean Domingo de Garrok eta bere emazte Ana de Goitiak serorari ortu bat emanez kitatu zuten honekin zeukaten 8 dukateko maileguaren zorra (GPAH-AHPG 1/1851, 40r-41r); 1581ean, Pedro de Urrojolaegui 15 dukat eta 4 errealeko mailegu baten zorra ordaindu zion (GPAH-AHPG 1/1852, 3r-3v); 1584ko ezagupen batek, bere koinatu Mateo Ibañez de Olaegui serorarekin 83 dukateko zorra zuela aditzera ematen digu (itxuraz, mailegu baten edo batzuen motibozkoa zena) (GPAH-AHPG 1/1859, 21r-21v).

¹²⁵⁰ Bere 1603ko testamentuan Juan Ochoa de Urroxilaegui izkribauak 5 dukat, Izaguirre etxeak 14 dukat, eta Egocheaga batxilerrak 22 dukat eta 2 erreal zor zizkioten (GPAH-AHPG 1/1853, 215r-218r). Halaber, 1591n, Marina de Izaguirri eta honen seme Martin de Izaguirri 116 erreal emanak zizkiela dakigu (GPAH-AHPG 1/1860, 39r-40r).

¹²⁵¹ Batez ere kopuru txikiak zordunak zituen, baina 3 dukatetik gorako zordun gutxien artean Juan Ochoa de Agurlaeta "de yuso" zegoen, 34 errealeko zorrarekin (GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v).

¹²⁵² Laskurain etxeko jabe zen Juan de Lascurain, 660 errealekin, eta Joan Perez de Iraeta eta bere arreba Ursola, 110 errealekin, zituen maileguen zordun nagusi (GPAH-AHPG 1/0770, 395r-398v).

¹²⁵³ 1645ean Martin de Ezpeletari eta bere emazte Maria de Ugalderi 10 dukaten mailegua eman zien, eta 1657an berriz, Pedro de Garicazari eta bere emazte Maria de Zumetari 20 dukatekoa (GPAH-AHPG 1/0770, 313r-313v eta GPAH-AHPG 1/0773, 10r-11r). Serora honen kasua esanguratsua da, maileguen emale, serora aberatsak bezala, hain aberats ez zirenak ere izan ohi zirela azaltzen baitigu, aktibitate hau seroren artean ohizkotzat berretsiz. Marina de Oxirondok, izan ere, nahiz eta mailegu hauek eman ahal izan zituen, 1661ean helarazi zuen testamentuan bere arimaren aldeko betekizun gutxi batzuk baino ezin izan zituen agindu: hileta, bederatziruena eta urtebukaerakoa, eta horiez gain, -aurrerago ikusiko dugun bezala- Antzuolako seroren artean ohizkoa zen 40 dukaten baloreko betiereko memoria bat fundatu nahi izan zuen, baina xede horretarako, 20 dukat baino ez zitzaizkion gelditzen. Beraz, testamentuan, oinordeko ere izendatu zuen bere ahizpa Maria de Oxirondori beste 20 dukat jar zitzala erregutu zion, bazekien eta 20 dukateko memoria baten fundazioa parrokiako kabildoak agian ez zuela onartuko (gutxi iritzi izanagatik) (GPAH-AHPG 1/0774, 103r-104v). Ahizpak 1665ean jarri zituen serorak eskaturiko beste 20 dukatak (memoriaren fundazioa eginez), eta esanguratsuki, hauen parte bat, serorak 1657an Pedro de Garicazari eta honen emazte Maria de Zumetari emandako 20 dukatetatik bideratua izan zen (GPAH-AHPG 1/0776, 135r-136v).

¹²⁵⁴ Gizonezkoen artean -Guerra etxeko errotan bizi zen- Matias de Erazu Urretxuko herritararekin batera (330 erreal), Urrutia etxean "Inquilino" zen Juan de Leturia (125 erreal) eta Legazpiako herritarra zen Juan de Erraizabal (77 erreal) ditugu; hauekin bat, Isabel de Zumeta "la beata"-ri emandako 220 errealak, eta seroraren ahizpa Francisca de Iturberi eta honen senar Martin de Larreari emandako 110 errealak daude (GPAH-AHPG 1/0771, 239v-241r -moztuta-).

¹²⁵⁵ Emakume bati emandako kopuru berdineko zentsu batekin batera, bere ahizpa Isabela Perez de Inurriarri eta honen senar Bartolome de Gaztañetari emandako 440 errealak baino ez zituen eman (GPAH-AHPG 1/0774, 157r-161r)

¹²⁵⁶ Isabela Perez de Igueribar bere ilobari Joseph de Zumaeta Antzuolako alkatearekin gauzatzekoa zen ezkontzarako eman zizkion "todo quanto tengo ofrezido"-ez gain (kopuru txikia izango ez zena, ziurrenez), mailegutuan Aranburu leinu-etxeari emanak zizkion 1.210 errealak ditugu (*Ibid.*, 84v-86r).

Lorentzo ermita, 1629)¹²⁶⁶, -honen ahaidea izatea batere arraroa ez litzatekeen- Osana de Villar (Narria auzoa, San Lorentzo ermita, 1670)¹²⁶⁷, Mari Asencio de Umeres (Olabarrieta auzoa, San Kristobal ermita, 1676)¹²⁶⁸ eta -azken honen abizen berbereko-Maria de Umeres (San Migel parrokia, 1694)¹²⁶⁹ talde honetan baitaratu ahal izango genituzke.

Azalpenen jarraipena ez oztopatzeko oinpeko notetan bilduta jaso ditugun datu sorta zabalak zerbait azaltzen badigu, zentsuen bidez bezalaxe, ohizko maileguen bidez serorek, emakumez beste, gizonetzkoen, bikoteen eta etxe eta baserrien ekonomian izan zezaketen eragina esanguratsua zela da. Etxe eta baserriei eta bikoteei dagokienean, zentsuei buruz aipatu ditugunak gogorarazi beharrean gaude; hauek bezalaxe seroren maileguek zeukaten indar lotesleak zordunen ondasunek askotan seroren eskutan bukatzea eragin zezakeen, oinpeko notetan jaso izan dugun kasuren batean ageri zaigun lez. Aro Berrian zehar, batez ere XVII. mendearen hasieraz geroztik, familia aberats eta boteretsuek beraien ondasunak mantentzeko garatu zuten estrategia berberean parte hartu zuten serorek ere, etxeen, baserrien, lursailen eta bestelako ondasunen pilaketara joaz. Gizonezkoenganako maileguei dagokienean, hauen egoeren dibertsitatea aipatu

¹²⁵⁷ Mailegurik handiena, 440 errealekoa, Juan de Zabala Iralaren ("don") alarguna zen "la señora" Josefa de Yn[?] Isasiri emana zion; horiez gain, Melchor de Gorosabelek eta Elena Perez de Asurceren ondasunetatik 220 erreale zor zitzaizkion, eta Antzuolako eta Zumarragako herritarrak ziren Jeronimo de Elgarezta eta bere emazte Elena de Inurriarrok ("doña") 165 errealeko zorra zuten, 30 dukateko mailegu batetik ordaintzeko falta zitzaiena zena (GPAH-AHPG 1/0783, 1r-8v).

¹²⁵⁸ Serora honek, nahiz eta zentsuei buruzko atalean ikusi dugunez, zentsutan emanak zeuzkan diruen kopurua oso handia izan, izan zuen mailegutuan diruak emateko betarik ere; hala, 1578an, honek -ustez, maileguan- emanak zizkion 51 dukatetatik ordaintzeko falta zitzaizkion 24 dukatak zirela eta hartu zuten Joan de Zuazu preso Bergaran, eta 1601ean, betekizun baten bidez Miguel de Azcaratek serorari zor izan zizkion 17 dukaten berri dugu (hauek ere, itxuraz, mailegu lez emanak) (GPAH-AHPG 1/0118, 475r-475v eta 517r-517v; eta GPAH-AHPG 1/2358, 72r-72v).

¹²⁵⁹ Domingo de Isasigaña eta bere emazte Laurenzari 76 erreale emanak zizkien, Andres de Oquendori 80 erreale, eta M[aria?] Lopez de Urrupain alargunari 59 erreale (GPAH-AHPG 1/2341, 58r-60v).

¹²⁶⁰ Maria Perez de Oro -Juan Saez de Mendiaren- alargunari eta Cristobal de Bengoari 7na dukat emanak zizkien (GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r).

¹²⁶¹ 33 errealez gorako mailegu bakarra lehengusua zuen Asensio Abbad de Barrutia apezari emana zion, 66 errealekoa (GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr.).

¹²⁶² Serora honek Larreako (Araba) kontzejuaren aurkako 400 dukateko zentsu bat bere anaiari eta -azken onuradun zen honen alaba- ilobari eman zien, eta 3 dukatetik gorako maileguen beste zordun gutxien artean Aozaratza elizateko Domingo de Lecuona (46 erreale) eta Eskoriatzako Juan de Echabarria (10 dukat) zeudela ikusten dugu, Marina Ruiz de Arkarazorekin batera (64 erreale) (GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r).

¹²⁶³ Bere testamentuko maileguen zordun gehienak, Maria Ochoa de Bidabaynen salbuespenez (143 erreale), gizonen eta baserriei zegozkien: Araatz auzoko Etxebarria baserrian 32 dukat, Pero Lopez de Zubiak 10 dukat, Martin Ochoa de Araoz Urritiak 12 dukat, eta Andres de Balzateguik 6 dukat (GPAH-AHPG 1/2857, 14v-17v).

¹²⁶⁴ Bere maileguen artean bakarra zen 3 dukatetik gorakoa: bere anaia Domingo de Ucelairi eta honen emazte Francisca de Garibayri eman zizkien 52 dukatekoa (mailegu honen zorra serorari mintegi bat emanez kitatu zuten) (GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r).

¹²⁶⁵ Eibarreko herritarra zen Francisco de Elixalde 200 errealeko mailegua zor zion, eta Pedro de Balenzateguik ("el de Subilaga hijo de Joan de Balenzategui que al presente viue en Villarreal de Guipuzcoa") 100 errealekoa (GPAH-AHPG 1/3051, 134r-135v).

¹²⁶⁶ Maileguak zirela eta zeuzkan zordunen arteko 3 dukateko kopuruaz gaindiko zordun bakarra bere anaia Martin zen, 20 dukateko zorrarekin (GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v).

¹²⁶⁷ Bere zordun bakarra bere anaia Andres de Villarren ("don") ondasunak ziren (GPAH-AHPG 1/3195, 123r-126v).

¹²⁶⁸ Gizonezko zordun bakarrekin ageri zaigu: Pedro de Uzelai, 253 errealekin (GPAH-AHPG 1/3205, 272r-272v).

¹²⁶⁹ Aurreko biak bezala gizonezko zordun bakarrekin ageri zaigu, kasu honetan, familia-kidea izan zitekeena: Lazaro de Umeres, 275 errealekin (GPAH-AHPG 1/3211, 498r-498v).

beharrean gaude. Asko familia-kideak ziren (batez ere anaiak), eta familiaz aparte, izkribau ugari, kapitainak, komendadoreak, doktoreak, batxilerrak eta apezak ere agertu izan zaizkigu, asko oso kopuru handietako maileguen zorrekin, eta baita ofizio eta gremio jakinetako langileak ere: labangileak, guraizegileak, errementariak, zurginak, "platero"-ak eta besterik gabe "maese" bezala aipaturik ageri zaizkigunak, hauek ere zor esanguratsuekin. Aipagarriak dira, halaber, Debagoienaz kanpoko herrietan zeuden zordunak ere, maileguak ematearen aktibitateak herri konkretuen mugak gaingintzen zituela erakusten baitigute: Debagoieneko bertako beste herri eta auzoetako biztanleei emandakoez beste, Urretxuko, Zumarragako, Legazpiako eta Eibarreko zordunak ere agertu izan zaizkigu. Azken finean, maileguen bidezko zorren esparru hauek, familiaren baitan eta bertatik kanpo serorek gizonezkoen gain izan zezaketen boterea eta eragiteko gaitasuna agertzen digute, eta orokorrean, serorek gizartearen baitan izan zezaketen boterearekiko, errespetuarekiko eta itzal onarekiko oso esanguratsuak zaizkigu. Halaber, XVII. mende hasieratako seroren desagerrarazte saiakeren aurrean herrietako eta herrialde historikoetako agente-eremuetao gizonezko agintariek agertu izan zuten defentsa, beste ikuspegi baten pean kokatzera garamatzaten datuak dira. Seroren instituzioak, izan ere, hauen defentsarako argudioetan aipatu ez zen beste abantaila edo probetxu bat ere bazuen: zentsuen eta maileguen bidez diru likidoa lortu ahal izateko talde sozial bat osatzen zuten.

Baina serora gehienen -ohizko- mailegurik handienen (ez dezagun ahaztu oraindik 3 dukatetik gorako maileguei buruz baino ez dihardugula) jasotzaileen parte esanguratsu bat gizonezkoek, bikoteek eta etxe eta baserriek osatzen bazuten, beste serora batzuk ostera, emakumeekiko tratuak nagusi ziren esparruetan mugitzen zirela esan genezake; kopuru handieneko mailegutza aktibitateak, behinik behin, halako esparru baten baitan edo behintzat, halako preferentziazko esparru baten baitan garatu izan zituztela dirudi. Kapitulu honen hasieran aislatuki azaldu ditugun seroren arteko Maria de Izaguirre eta Marina Garcia de Oruesagasti, nonbait kokatzekotan, talde honen baitan kokatu beharko genituzke. Serora hauen diruek batez ere emakumeak faboratu zituzten, eta joera honetan, Maria de Izaguirrerekin eta Marina Garcia de Oruesagastirekin batera, Bergarako Marina de Jauregui (1556)¹²⁷⁰, Francisca de Igueribar (1570-1581)¹²⁷¹, Maria de Beiztegui (Santa Marina parrokoa, 1594)¹²⁷², Maria de Iturbe (San Martin ermita, 1605)¹²⁷³ eta Magdalena de Oruesagasti (San Pedro

¹²⁷⁰ Bere ahizpa Domenja Martinezek maileguan emandako urrezko 12 dukat zor zizkion, eta Mari Antona de Irazabal alargunak berriz, urrezko 6 dukat (GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v).

¹²⁷¹ Pero Saez de Galardik eta honen emazte Ana Ortiz de Monesteriobidek zentsutan eta mailegutan zeuzkaten zorrez (zor guztien arteko kopururik handiena, 704 erreale), eta mailegu bidez Miguel Martinez de Galarzak zor zizkion 239 errealez eta Juan Martinez de Elcorobarrutiaren 40 errealez beste, 3 dukatetik gorako mailegu guztiak emakumeei zegozkien: Maria Perez de Hondarza, Pero Lopez de Izaguirreren alargunari 66 erreale emanak zizkion; Maria Perez de Ugarte alargunari eta honen alaba Charia Perez de Ugarteri 132 erreale; Maria de Villaberde eta Magdalena de Aguirreri 110 erreale; Cristina de Ondarzari ("doña") 38 erreale eta ½; Magdalena de Oxirondori ("doña") 44 erreale; Magdalena de Irazabali 33 erreale; Maria Martinez de Arguizain, Andres de Galardiren emazteari 203 erreale eta ½; Maria de Ondarzari ("doña") 77 erreale; eta Maria de Ganhaegui 36 erreale (GPAH-AHPG 1/0113, 424r eta 426v-427r; eta GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v).

¹²⁷² Bere testamentuan emanak zituen mailegu guztiak, Aldaeta etxeko jabeai emanak zizkien 5 dukatez aparte, emakumeei emanak ziren; euren artean 6 dukateko bat, Catalina Joaniz de Arrieta, Juan Saez de Ganhaeguiaren alargunari emana (GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v).

¹²⁷³ Arizti Zalgomendia baserriaren aurka zeukan 28 dukat printzipaleko zentsuaz aparte emakumeei emandako maileguen zorrak baino ez zeuzkan, euren artean, 3 dukatetik gorako bi: Maria de Amezquetaren ("doña") 154 errealekoa, eta Marina de Alaba eta bere alaba Maria Perezen 33 errealekoa (GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r).

parrokia, 1610)¹²⁷⁴, Elgetako Domenja de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599)¹²⁷⁵, Domenja de Albisua y Arescurenaga (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1605)¹²⁷⁶ eta Gracia de Sagasta (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637)¹²⁷⁷, Arrasateko Catalina de Abendaño¹²⁷⁸, Eskoriatzako Domenja de Zubia (Mendiola elizatea, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1622)¹²⁷⁹ eta Oñatiko Maria Gabriela de Sarraoa (San Migel parrokia, 1784)¹²⁸⁰ baitaratu ditzakegu. Baina aipagai ditugun bi joeren arteko mugak ez dira noski zurrinak, eta beste joeraren baitan aipagai izan ditugun kasuen gainbegiratua egitea aski dugu, hauen artean ere, nahiz eta gizonezkoen, bikoteen eta etxe edo baserrien aldeko maileguak ere ohizkoak izan, emakumeen aldeko mailegu aski esanguratsuak eman zituztenak ere bazirela ohartzeko.

Adibide hauetan garbi ikus litekeen zerbait, kopuru handieneko maileguen jasotzaileen parte esanguratsu bat “doña” tituluarekin aipatzen ziren eta familia garrantzitsuen abizenak zeramatzen (Ondarza, Izagirre, Irazabal, Amezketa, Moyua, etab.) emakumeek osatzen zutela da. Aipagarria dugu, era berean, alargunen presentzia garrantzitsua. Emakume hauen parte esanguratsu bat, bestalde, seroren euren familia-kideek osatzen zuten. Datu hauetatik eratorri litekeen ikuspegiak seroren inguruko emakumeen esparru bat aditzera ematen digu, hein batean familia-kideek osatua eta botere eta aberastasun maila on batean izateagatik bereizten zena, eta bereziki alarguntzerakoan, seroren maileguez baliatzen jotzen zuena. Kopururik handieneko maileguen kasuan, momentu jakinetan leinu-etxea edo ondasunak mantentzeko zailtasunak izatean, garrantzi handikoak izan zitezkeela dirudi.

Jarrai dezagun baina seroren maileguen hartzaileei begira, errepasso orokorra artean bukatu gabe baikaude; 3 dukatetik beherako maileguen azterketa falta zaigu. Kopuru txikiagoko mailegu hauek ezaugarri orokorren bat badute, hau emakumezkoen presentzia nabariagoarena da. Hemen ere orokortzeak zuhurtasunez egin beharrean bagaude ere (seroraren batzuen kasuan, gizonezkoak nahiz bikoteak ere ugariak baitziren), erratzeko ardura handiegirik gabe ziurtatu liteke kasurik gehienetan hala zela. Mailegu hauen berri batez ere testamentuen bidez daukagu, kopuru txikiak izanik, ez baitzen normalean propioki maileguari zegokion dokumenturik (betekizunik, lagapenik edo dohaintzarik) helarazten; 2 dukaten inguruko kopuruekin kasuren bat edo beste aurkitu izan dugu, baina salbuespentzat hartu beharko genituzke. Aipagai izan berri ditugun seroraren batzuen testamentuak ezin izan ditugu aurkitu, eta beraz, orain arteko

¹²⁷⁴ Bergarako San Pedro parrokian apez -benefizioduna?- zen Arteaga lizentziatuari emanak zizkion 33 errealez beste, gainontzeko guztia emakumei emandako mailegutuan zeukan: Bergaran Joan Bautista de Bazterraren neskame izana zen Elgoibarreko Francisca de Abendañori emanak zizkion 193 errealak, eta Elena de Arrechek ("doña") bere ahizpa Isabel de Arrecheren ("doña") elikagaiak ordaintzeko serorari maileguan hartutako 176 errealak (GPAH-AHPG 1/0196, 422r-424v).

¹²⁷⁵ Bere iloba Maria Perez de Olayeta alargunari 330 erreale, bere ahizpa Maria Perez de Galarragari eta honen alaba Mari Santururi 300 erreale, eta Domenja de Izaguirreri 35 erreale emanak zizkien (GPAH-AHPG 1/1853, 38r-41r).

¹²⁷⁶ Zentsutan emandako diruen zordun zeukan bikoteaz beste, ohizko mailegutuan eman zuen kopuru bakarra Maria Martinez de Hercillari emanak zizkion 4 dukatek osatzen zuten (GPAH-AHPG 1/1853, 112r-121r).

¹²⁷⁷ Kopuru txikietako hainbat maileguren artean, 33 errealez gorakoak emakumei emandako bi baino ez zeuzkan: Maria Joanis de Zuloetari eta "las monjas de Ermua"-ri emandako 40na errealak (GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v).

¹²⁷⁸ 3 zentsutan bi gizoni eta bikote bati emanak zizkion diruez beste, mailegutuan emandako 1.408 errealak bere ahizpa bati emanak zizkion, Mari Diaz de Estellari (GPAH-AHPG 1/2353, 23r-25r).

¹²⁷⁹ Emakumei emandako bi maileguren hartzekodun baino ez zen: Marina de Ascoaga, Juan de Sarribarteren emazteari emandako 4 dukatena, eta Marina de Mendiola, Juan de Charroalderen emazteari emandako beste 4 dukatena (GPAH-AHPG 1/0865, 31r-34v).

¹²⁸⁰ Bere mailegu bakarra emakume bati zegokion, Lorenza de Cortabarriari (80 erreale).

laginaren baitako ikerketa esparrua murrizten zaigu. Hauetan, bestalde, zenbaitek mailegu handiagoen berri baino ez zuten eman; ez dakigu hau testamentuetan mailegu txikiagoak aipatzeari garrantzitsua iritzi ez ziotelako, edo neurri batetik gorako maileguak baino ematen ez zituztelako izango ote zen. Kasu batzuetan behinik behin, maileguen hartzaileen maila sozial eta ekonomikoak klase altura mugaturiko erlazioen esparru bat agertzen digute; serorak eurak ere, mailegutzan aritzen zirenak behinik behin, askotan klase altu honetako partaide izanik, beraien mailegutza aktibitateak ere klase honetako partaideetara mugatu izana ez da batere arraroa. Honi, hainbat kasutan ikusi ahal izan dugunaren arabera, zorren eta hauen kobrantzen berri oinordekoen eta albazeen esku uzteko ohitura ere batzen zaio; adibidez, Marina de Oxirondoren testamentuan (Antzuola, 1661) esplizituki aipatu izan zen bezala: “de los rreziuos saue y tiene noticia el dicho mi heredero a cuya causa y por no darne lugar mi enfermedad y tener comunicados con dicho mi herede[ro] no las declaro”¹²⁸¹.

Guzti honek, ezarri dugun 3 dukatez beherako seroren maileguen berri izateko iturriak are mugatuagoak izatea eragiten du, eta beraz, eskuratu ahal izan ditugun adibideen adierazgarritasun maila ere txikiagoa dela onartu beharrera garamatza. Baina hala ere, bildu ahal izan ditugun datuak oso esanguratsuak zaizkigu, eta garrantzitsua deritzot hauek jaso eta azaltzeari, ekonomikoki pisu handiegirik izan gabe ere, gizarteko maila sozial eta ekonomiko baxuetan seroren hautemapen eta estima soziala eragin zezakeen aktibitate baten berriak jasotzeak, hauen eraginen beste esparru garrantzitsu bat azaltzen baitigu. Izan ere, zenbait errealeen maileguak, esate baterako, biztanleriaren alderdirik txiroeneko bikote edo familia batek, zenbait egunetan behinik behin, aurrera egin ahal izatea eragin baitezakeen; eta horrek noski, gizarteko alderdi hauek serorekiko eta hauek errepresentatzen zutenarekiko izan zezaketen estiman eta uste onean eragin handia izan zezakeen. Baina ekin deizaiegun azalpenei.

Lehenik eta behin, 3 dukatetik gorako maileguei buruzkoekin hasterakoan oinarritzat hartu ditugun Bergarako San Pedro parrokiako Catalina de Ondarza eta Marina Garcia de Oruesagastiren testamentuei begira jar gaitezen, hartua dugun prozedura jarraitzeaz gain, beste seroren kasuetan ere presente ditugun bi patroiz oinarritzeko azaltzen baitizkigute. Catalina de Ondarzaren kasuak mailegu txikiak batez ere emakumei ematen zizkieten seroren egoerara garamatza. 3 dukatetik beherako maileguen 16 zordunetatik bakarra zen gizonezkoa, eta beste guztiak emakumeak ziren; ez zaigu ez bikoterik, ez etxe edo baserririk aipatzen. Emakumeen artean ez zaigu egoera sozialarekiko datu argigarri gehiegirik ematen, hauetariko bi etxe ezberdinetan “huespeda” eta beste bat serora (“la beata de Olan”) izateaz aparte¹²⁸².

Joera honetan baitaratu litezkeen serorak hainbat izan ziren; darabilgun laginaren baitan honakoak bildu ditzakegu: Bergarako Marina de Jauregui (San Pedro parrokia, 1556)¹²⁸³, Marina de Moyugoitia (San Lorentzo ermita, 1574)¹²⁸⁴, Francisca de Igueribar

¹²⁸¹ GPAH-AHPG 1/0774, 103r-104v.

¹²⁸² GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

¹²⁸³ Emakumeak baino ez zituen emanak zituen hiru mailegu txikien zordun (kopuru dezente handiagoko bi zentsuak ordea, gizona zegozkien), eta hauetariko bat 3 dukatetik beherakoa zen: Gracia Ruiz de Narbaizari emanak zizkion 27 erreale eta ½-ena (GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v).

¹²⁸⁴ Mailegu handien bost zordunetaz gain (2 emakume, 2 gizon eta bikote bat, euren artean bere anaia, bere ama, izeba bat eta honen alabak) agertzen dizkigun mailegu txikien zordunen artean, 12tik bakarra baino ez zegozkien bikote bati (12 errealeko zorrarekin), eta gainontzeko guztiak, 21 eta 2 errealeko arteko zorrarekin, emakumei zegozkien. Hauen artean, “doña” bat (Catalina de Zabala, 10 errealeko zorrarekin), errementari baten emaztea (Catalina de Moyua, 2 erreale), labangile baten emaztea (Andres de Aguirrerena, ez zaio izenik aipatzen, 16 erreale), eta bi alargun (Maria Perez de Moyua, Miguel de Seguraren alarguna, 21 erreale; eta Marina de Hondarza, Martin de Inarraren alarguna, 6 erreale) (GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v).

(1578-1581)¹²⁸⁵, Maria de Beiztegui (Santa Marina parrokia, 1594)¹²⁸⁶, Maria de Irala (1596)¹²⁸⁷ eta Maria de Iturbe (San Martin ermita, 1605)¹²⁸⁸, Elgetan Gracia de Urrupain (Andre Maria parrokia, 1587)¹²⁸⁹, Domenja de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599)¹²⁹⁰, Gracia de Sagasta (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637)¹²⁹¹ eta Catalina de Mendiguchia (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638)¹²⁹², Antzuolan Marina de Iraeta (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1645)¹²⁹³ eta Maria de Iturbe (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1649)¹²⁹⁴, Arrasaten Maria de Insaurre (San Balero ermita, 1579)¹²⁹⁵, Maria de Arostegui (1599)¹²⁹⁶, Catalina de Huruburu (Udala, San Esteban parrokia, 1610)¹²⁹⁷, Maria Perez de Bengoa (Gesalibar,

¹²⁸⁵ Lortu dugun informazioaren arabera behintzat, talde honetan baitaratu beharko genukeela dirudi; 1578an Maria de Ameztiri eman zion 23 errealeko maileguaz gain (kopuru txikia izanik betekizuna helarazi izan zen kasu urrietakoa dugu hau) (GPAH-AHPG 1/0118, 205r), 1581ean bere testamentuan aipatu zituen 3 dukatez beherako maileguen bost zordunen arteko lau emakumeak ziren (22 eta 2 erreale bitarteko zorrekin), eta 6 errealeko beste zorra bikote bati zegokion (GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v).

¹²⁸⁶ Hiru emakumeri emandako maileguak baino ez zeuzkan, 14-11 erreale bitarteko kopuruetakoak, bata "huespeda" bati ("de Artolaçabal") (GPAH-AHPG 1/0157, 64r-67v).

¹²⁸⁷ Kopuru handietako zenbait zentsurekin eta mailegurekin batera, "zordun txiki" sorta bat zeukan: 8 emakumezko eta 2 gizonezko. Azken hauek izan ziren kopururik handien hartzailerik, Francisco de Segura (33 errealekin) eta "su vezino" bezala aipaturiko Juan de [Ari?]xola (24 errealekin), Maria de [U?]ixolarekin batera (33 errealekin), eta 22 eta 4 erreale bitarteko mailegurekin zeuden beste 7 emakumeak, euren artean bi "huespeda" ("de Oyanguren" eta "de Olabarria") (GPAH-AHPG 1/0134, 711r-719v).

¹²⁸⁸ Mailegu handien artean baserri bat zeukan zentsu baten zordun, eta bi "doña". Horiez aparte 4 mailegu txiki emanak zituen, guztiak emakumei, eta 14 eta 9 erreale bitartekoak (GPAH-AHPG 1/0162, 77r-80r).

¹²⁸⁹ Zeuzkan 16 zordunen artean bakarra zen 33 errealez gorakoa, emakume bati emandako 48 errealeko mailegu bat; besteen artean 3 baino ez ziren gizonezkoen emandakoak izan, 14 eta 5 erreale bitartekoak, eta gainontzekoak, 12, emakumezkoen emanak izan ziren (asko, ezkonduko emakumetzat aipatuak izan ziren), 22 eta 5 erreale bitarteko kopuruekin (GPAH-AHPG 1/1854, 53r-55v).

¹²⁹⁰ Bere ahizpari eta ilobei, eta beste emakume bati emandako mailegu handiagoekin bat, kopuru txikiak 7 zordun zeuzkan, gizonezkoa bakarra (22 errealekin) eta 6 emakume 22 eta 10 erreale bitarteko zorrekin, tartean, bi alargun (GPAH-AHPG 1/1853, 38r-41r).

¹²⁹¹ Emakume bat eta Ermuako moja batzuk zeuzkan mailegu handiagoez zordun, eta beste guztiak, kopuru txikiagoetakoak, 8 emakume (25 eta 1/2 eta 2 erreale bitarteko kopuruekin) eta 3 gizonen (24 eta 3 erreale bitartekoekin) artean banatu zituen. Lehenen artean baziren "tejedera" bat eta alargun bat, eta bigarrenen artean, "harmero" bat (GPAH-AHPG 1/1854, 17r-18v).

¹²⁹² Mailegu handienak 3 gizoni emanak zizkien artean, 3 dukatez beherako 6 maileguetarik bakarra zeukan bikote bati emana (25 errealekin), eta beste 5ak, 22 eta 6 erreale bitarteko kopuruekin, emakumei emanak zizkien; hiru emakume ezkonduak, eta bata, "texedora" (GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v).

¹²⁹³ Mailegurik handienak hiru gizoni eta bikote bati emanak zizkien, baina bi txikiak aldiz, 15 eta 3 errealekoak, bi emakumeri zegozkien, bata "huespeda" bat ("de Goytia") (GPAH-AHPG 1/0770, 395r-398v).

¹²⁹⁴ Mailegu handiak 3 gizonezkoen, serora bati eta bikote bati emanak zizkien, eta txikien artean, bikotei emandako 4rez beste (27 eta 20 erreale bitartekoak), gainontzeko 9rak emakumei emandakoak zituen (27 eta 1/2 eta 2 erreale bitartekoak) (GPAH-AHPG 1/0771, 239v-241r -moztuta-).

¹²⁹⁵ Mailegurik handienak bikote bati eta emakume bati emanak zizkien, eta 3 dukatez beherakoak, ostera, 3 emakumeri, bata alarguna (21 errealekin) eta beste biak familia garrantzitsuetako abizendunak, Mari Anton de Oro (29 errealekin) eta Maria de Balda (8 errealekin), azken hau "doña" bezala aipatua eta gizonezko zordun bakar zen Cristobal de Artazubiagaren emaztea (33 errealekin) (GPAH-AHPG 1/2341, 58r-60v).

¹²⁹⁶ Bere mailegugatiko zordun bakarra Maria de Gabiria zen, oso kopuru txikiarekin, 2 erreale eta 1/2 (GPAH-AHPG 1/2353, 201r-205v).

¹²⁹⁷ Bere lehengusu apeza zuen kopuru handien zordun bakarra, baina ostera zordun txiki bakarra emakumezkoa zuen, "molineria de [Auspiroz?]" zen Maria Perez, 10 errealekin (GPAH-AHPG 1/2361, 56 bis eta hurr.).

Santa Ageda parrokia eta ospizioa, 1625)¹²⁹⁸, Francisca de Gabiria (Ospitalea?, 1639)¹²⁹⁹ eta Ana de Ayesta (1664)¹³⁰⁰, Leintz Gatzagan Mariana de Anuncibai (Dorletako Andre Maria santutegia, 1655)¹³⁰¹, eta Oñatin Ana Catalina de Inza (San Migel parrokia, 1751),¹³⁰²

Kasu hauetan ez bezala, Marina Garcia de Oruesagastiren testamentuak, mailegu txikiak, emakumeez gain, gizonezkoei, bikoteei eta etxe eta baserriei ere antzerako maiztasunarekin eman izan zizkieten seroren eredia ematen digu. 16 ziren Marinak 1607an testamentua helarazi zuenean 3 dukatetik beherako kopuruetan emanak zituen maileguak; horien arteko 8 emakumeei zegozkien (29 eta 8 erreal bitartekoak), 6 gizonei (22 eta 7 erreal bitartekoak), eta 2 baserriei (Arana Behekoa eta Arana Erdikoa, hurrenez hurren, 24 errealeko eta 12 errealeko zorrek). Emakumeen artean, seroraren aldeko 28 dukat printzipaleko zentsu bat ere fundatua zeukan Catalina Lopez de Arizpe y Oxirondo, San Juan de Elusaren alargunaren presentziaz beste (22 erreal), ez zaigu datu deigarrikeri ageri. Gizonezkoen artean serorak zerbitzen zuen parrokiako apezka ("el cura de San Pedro", 16 erreal) eta Joan de Beiztegui sakristaua (22 erreal) zeudela ikusten dugu¹³⁰³.

Joera honetan baitaratu litezkeen serorek beste sortatxo bat ematen digute, aurrekoa baino txikiagoa; honakoek osatua legoke: Domenja de Gante (Bergara, 1592)¹³⁰⁴, Magdalena de Oruesagasti (San Pedro parrokia, 1610)¹³⁰⁵, Maria de Aguirre (San Pedro parrokia, 1631)¹³⁰⁶ eta Maria de Mendoza (1650)¹³⁰⁷, Elgetan Marina de Larraguibel (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576)¹³⁰⁸, Arrasaten Teresa de Urisarri

¹²⁹⁸ Kopuru txikietako 3 zordun baino ez zituen, hirurak emakumeak, 11 eta 2 erreal bitarteko zorrek (GPAH-AHPG 1/2370, 85r-86v)

¹²⁹⁹ Zeukan zordun bakarra emakumea zen, Catalina de Jauregui, 12 errealekin (GPAH-AHPG 1/2391, 44r-46v).

¹³⁰⁰ Mailegu guztiak kopuru txikietakoak emanak zeuzkan, baina aurreko biek baino dezente gehiago: 8 emakumeei (32 eta 4 erreal arteko kopuruekin), 2 bikoteei (10 eta 2 eta 3/4 erreal), eta 2 gizonezkoei, bata apezka (9 erreal eta "alguna cantidad") (GPAH-AHPG 1/2402, 97r-98v).

¹³⁰¹ Emandako 4 maileguak txikiak eta emakumeei emandakoak izan ziren, 22 eta 7 erreal bitarteko zorrek; handiena Leintz Gatzagako izkribauaren emaztea zen "doña" Ana de Uriberi zegokion (LGUA 331.3, 92r-94v).

¹³⁰² Emakume bati eta "maestro uoticario" bati emandako bi zentsurekin batera, bi mailegu txikiren zordun zeuzkan, biak emakumeak, bata seroraren ahizpa (10 errealekin) eta bestea emakume ezkondu bat (2 errealekin).

¹³⁰³ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

¹³⁰⁴ Bere kopuru txikiko maileguen 8 zordunen artean gehiago ziren emakumeak, 5 zehazki, 22 eta 3 erreal bitarteko zorrek; baina gizonezkoak ere baziren, are kopuru txikiagoekin, 12 erreal eta 2 erreal eta 1/2 bitartekoekin. Emakumezkoen artean 13 errealeko zorrarekin ageri zaigun Maria de Alaba San Martin ermitako Maria de Iturbe seroraren zordunen artean ageri zaigun "Marina de Alaba" izan liteke, edo honen alaba, "Maria Perez" bezala aipatu izan zena. Izatekotan lehenak izan beharko lukeela dirudi, Domenja de Ganteren testamentua 1592koa baitugu, eta Maria de Iturberena berriz, 1605koa. Edozein kasutan, hala liteke, baina ziurtapen gehiagorik ezin eginean gaude. Bada, emakume hau, Ozaetako errotari izandakoa zen (eta kopuru handien zordunen artean, halaber, Pero Lopez de Ozaetaren emaztea ageri zen) (GPAH-AHPG 1/0157, 119r-125v).

¹³⁰⁵ Emakumeei emandako kopuru handiagoetako bi mailegurekin batera, Arteaga lizentziatua Bergarako San Pedro parrokiako apezari emandakoa (33 erreal) eta Magdalena de Aldairi emandakoa (16 erreal) zeuzkan (GPAH-AHPG 1/0196, 422r-424v).

¹³⁰⁶ Apez bati, -aurreko seroraren zordunen artean ageri zen- Magdalena de Aldai berari eta Joan Saez de Aldai Susso zelakoari emandako mailegu handiez beste, emakumezko bat (33 errealekin) eta -anai-arreben- bikote bat (18 errealekin) zituen mailegu txikien zordun (GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v).

¹³⁰⁷ 4 bikoteri, 3 emakumeri eta bi gizoni emandako mailegu handiak emanak zeuzkan, eta bere zordun txikiak, 3 emakume (33 eta 8 erreal bitarteko zorrek), bi gizonezko (24 eta 10 errealekin) eta bikote bat (16 errealekin) ziren (GPAH-AHPG 1/0339, 615r-622r).

(Santa Marina ermita, 1603)¹³⁰⁹, eta Maria Gimenez de Gesalibar (1614)¹³¹⁰, Aretxabaletan Maria Ruiz de Araoz y Durana (1629)¹³¹¹, eta Oñatin Magdalena de Ucelai (San Kristobal ermita, 1591)¹³¹² eta Maria de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1629)¹³¹³,

Seroren 3 dukatetik beherako maileguak, ikusten dugunaren arabera, nahiz eta gizonek ere jasotzen zituzten, emakumeei ematea ohizkoagoa zela ondorioztatu liteke, aurreratu izan dugun lez. Gehienetan izenaren berri baino ez dugun emakume hauen artean, mailegu handiagoen kasuetan bezala, nahiz eta gutxiago, "doña"-ren batzuk ageri zaizkigu; zenbait "huespeda", bi errotari, bi jostun, eta izkribau baten, errementari baten eta labangile baten emazteak ere baziren, seroraren bat, eta espero zitekeen lez, hainbat alargun. Gizonezkoen artean ere gutxi dira egoera sozialari buruzko daturik eratorri ahal izateko datuak; zenbait apez, sakristau bat eta "harmero" bat ageri zaizkigu, baina osterantzean, ez digute izenek gauza handiegirik adierazten. Orokorrean, zordun hauen gehiengoa jende xumeak osatzen zuela esan liteke.

Maileguen beste alderdi garrantzitsu bat, kapitulu honen hasieran aipatu badugu ere, lantzen jarraitu ez duguna, hauen segurantzarako ematen ziren bahiena da. Zentsuen kasuan ordainketarako segurantza zentsuaren eskriturak berak eta hipotekatzen ziren ondasunek ematen bazuten, maileguen kasuan, funtzio hau bahiek betetzen zuten. Seroren aberastasunen parte esanguratsu bat, espazio jakin batzuetako seroren kasuan (Leintz bailarako elizateak, adib.) parterik handiena, pilaturiko ehun, ohiak eta arropek osatzen zuten, eta emakumeen aldetik aberastasun horiek askotan maileguen bahitzat erabiltzen ziren. Baina ez ziren noski hauek izan bahitzat erabili izan ziren ondasun bakarrak; bestelako ondasunak ere, bereziki bitxiak, eman ohi ziren. Bahien ematea, bestalde, XVI. mende bukaera eta XVII. hasiera aldean gizarteko alderdi aberats eta boteretsuek ekin zioten etxe eta baserrien, lurren eta ondasunen pilaketarako aipaturiko estrategiaren parte ere izan zen, zentsuen zorren bidez etxeak, baserriak eta lurak eskuratu bazitezkeen, maileguen zorren bidez bahian emandako balio handiko bitxiak eta bestelako ondasunak ere pilatu baitzitezkeen. Beste behin, zenbait serora ere testuinguru honetan txertaturik ageri zaizkigu, familia aberats eta boteretsuek momentuan landuriko aberasbide berberei heldurik.

Serorek maileguen ematearen bidez jasotzen zituzten bahiek zenbait ezaugarri berezi zituzten. Alde batetik, emakumezkoen testuinguruari dagokion ehunen, ohiaren eta arropen erabileraren garrantzia daukagu; bahien emale ia guztiak ere, bestalde, emakumeak baitziren. Gutxitan ageri zaizkigu gizonezkoen maileguak emandako bahi batekin; alde batetik, normalean gizonezkoen maileguan emandako kopuruak, zentsu

¹³⁰⁸ Bikote bati, alargun bati eta "rrementero" bati emandako kopuru handietako maileguez gain, mailegu txikiagoak 3 emakumeri (33 eta 4 erreal bitartekoak), bikote bati (29 erreal) eta gizon bati (6 erreal) emanak zizkien (GPAH-AHPG 1/1853, 187r-188v).

¹³⁰⁹ 7na dukat alargun bati eta gizon bati eman zizkien bezalaxe, mailegu txikiak ere gizon bati (22 erreal) eta emakume bati (8 erreal) emanak zizkien (GPAH-AHPG 1/2353, 251r-258r).

¹³¹⁰ Bere zordun guztiak zituen kopuru txikiak, 3 emakume 18 eta erreal 1en bitarteko zorrekin, bata alarguna, eta bi gizonezko, bata 22 errealeko zorrekin, eta bestea apeza, beste norbaitekin batera ("el padre Hurbina y su [???]") 12 erreal zor zituena (GPAH-AHPG 1/2366, 95v-96v).

¹³¹¹ hiru gizoni eta bi emakumeri emandako zentsu eta mailegu handiegi gain, kopuru txikien maileguen zordun 3 bikote (22 eta 15 erreal bitarteko zorrekin) eta emakume bat (33 errealekin) zeuzkan (GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r).

¹³¹² Bere anaiari eta koinatari emandako mailegu handi batez beste, gizon bati emandako 22 errealeko eta emakume bati emandako 7 errealeko zorrek baino ez zeuzkan (GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r)

¹³¹³ Bere anaiari mailegu handi bakarra eman zion, eta 32 errealeko mailegu txiki bakarra aldiz, zehaztu gabe utzi bazigun ere gizonezkoa ("el dueño") dirudien pertsona bati ("la arca de la calle es ajena y el dueño debe") (GPAH-AHPG 1/3088, 1r-2v).

bidez edo ohizko mailegu bidez, handiagoak izan ohi zirelako, eta horrenbestez, gehienetan ordainketaren segurantza dokumenturen baten helarazpenak ematen zuelako (zentsuak eurak, edo betekizunak, edo lagapenak, etab.). Bestetik, dokumenturik helarazten ez zen neurriko maileguen kasuan, beraien presentzia urriagoa zelako, eta antza denez, horrek, hauei segurantzarako bahia eskatzearen ohiturarik ez egotea motibatu bide zuelako. Edozein kasutan, ikertu ditugun seroren eskutara bahi lez heldu ziren ia ondasun guztiak, emakumeek emanak izan ziren, eta balio ezberdineko ondasun hauek, maila sozial eta ekonomiko guztietan kokaturiko emakumeengandik zetozen. Ikus ditzagun zenbait kasu, orain arte aintzat hartu dugun mailegu handien eta txikien arteko banaketa alde batera utzirik. Funtsean, bahietatik intereseko zaiguna, seroren eskutara hel zitezkeen ondasunak eta bitxiak nolakoak ziren, eta ze kopururen trukekoak ziren jakitea da.

Maileguan emandako kopuru orokorrak handiegiak ez zirenean, honek ez gaitu hauek garrantziarik ez zeukatela pentsatzera eraman behar, maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako emakumeen eskura zegoen baliabide bat zela ageri baitzaigu. Esangura soziala, gainera, ez dagokio kopuru ekonomiko soilari, mailegua jasotzen duenari egiten zaion faboreari baizik; kopuru txikiak izanagatik, momentu jakin batean seroraren mailegu bat erabat garrantzizkoa izan zitekeen emakume txiro baten biziraupenean. Eta hau behar izandakoan, adibide baterako, ohialen batzuk baino ez zeukakeen honek eskura, mailegua bermatu ahal izateko; horrelako egoerei irtenbidea eman ahal izatea zen ehun, ohial edo arropen bahidun maileguak garrantzitsu egiten zituena.

Esan berri dugunaren adibide egoki bat, Oñatiko Santa Katalina (gaur egungo San Isidro) ermitako Mari Ramos de Laquidiola seroraren erailketaren ondoren 1593an ekin zitzairen ikerketen ondorengo galdeketetatik heltzen zaigu; galdeketa egin zitzaienen artean Maria Perez de Plasencia, Juan de Balzateguiaren emaztea zegoen, eta aipatu izan zituen gorabeherak, maila ekonomiko xumeko emakumeek, beharra zeukatenean, ehunen eta ohialen truke ogiak, gariak eta diruak nola lortu ohi zituzten agertzen digute. Gainera, orain arte aipagai izan ditugun kopuruak baino urriagoak ziren bahien bidez dirutan edo produktutan Maria Perezek jaso izan –edo jaso nahi izan– zituenak, eta hortaz, dokumentaturik gelditu ohi zenaz beheragoko kopuruen inguruan sortzen ziren tratuen berri ere ematen digu.

Maria Perez de Plasencia, Maria Ramos de Laquidiola seroraren erailketan parte hartu zuen Maria de Olazaran –lehenaren– serora-laguntzaileak “un banasto lleno de rropa blanca” eraman ziolako galdekatu zuten, ondasun hauek nora heldu ziren jakin nahiean. Azalpenak ematerakoan, Maria Perezek, bahi lez hainbat ehun eta ohialez baliatuz, gari nahiz diru eske egin zituen ibileren berri eman zuen. Lehenik, erabilitako izara fin bat, ohe-estalki bat eta burko-estalki bat bahi lez eskainiz gari anega baten mailegua lortu nahi izan zuen, Elvira de Mercadori (“doña”, abizen ezberdina izanik ere, auzian eraila izan zen seroraren ahizpa zela garbi adierazi zena), mailegua eskatu nahi zion Marina Lopez de Elorduy –Miguel Ruiz de Landaetaren– alargunaren aurrean bitartekaritzat egin ziezaion eskatuz. Baina ezer lortu ez zuenez, ondoren maileguaren eskaera berbera egin zion Ana de Lezetari, honegandik ere ukoa jasoz. Mari Lopez de Aguirrerekin ere beste saiakera bat egin zuen: “le hiziese plaçer de darle vn [?]cal de panes o un rreal prestado” eskatu zion, baina honek ez zeukala ez dirurik ez ogirik erantzun zion; alabaina, Juan Lopez de Hernaniren emazteak “vn rreal en pano dineros e pan” lortu ahal izan zitzaizkion harizko hiru azao eman zizkion, eta bildu zituzten ehun eta ohialekin bere alaba bat bidali zuen mailegu eskaera egitera. Azkenean Mari Saez, Martin de Billarren emaztearengandik 3 rreal lortu zituen esandako ehunen eta ohialen bahi bidez, “y despues esta declarante pago los dichos tres panes y boluio a su dueño las

otras tres madejas”. Gorabehera hauez gain, galdeketaren momentuan bi hari azao ere emanak zizkion Domeca de Balzateguiri, “en prendas de vn celemin de trigo”¹³¹⁴. Kasu zehatz honetan zehazki serorei egindako eskaerarik agertu ez bazaigu ere, emakumeen artean gauzatzen ziren erlazioetan bahien bidezko maileguen eskaera ohizkoa zela agertzen digu, eskaera hauetarako, emakume boteretsuen bitartekaritza baliatzea ere garrantzitsua zela ere ulertaraziz (eraildako Mari Ramos de Laquidiola seroraren ahizpa zen Elvira de Mercado, esate baterako, nahiz eta kasu honetan bere bitartekaritza etekinik eman ez zuen, emakume boteretsua zen). Emakume behartsuen alde emandako mailegu txiki hauen testuinguruan ere, nahiz eta dokumentuetan jasoriko arrastoak gehiegi ez diren, nabaria da emale nagusiak maila ekonomiko jakin bateko emakumeek izan behar zutela; euren artean, serorak.

Kokatu gaitezen hortaz serorek emandako bahidun maileguen testuinguruan, datu orokorren batzuk azalduz. Bahien erabilera mende bat baino gehixeagoko tarte kronologikoan kokaturiko (1554-1664) 15 seroren kasuan aurkitu ahal izan dugu, eta beraien testamentuetan oinarriturik jarraian azalpenetarako baliatuko dugun 7. koadroa (927-929 or.) osatu dugu. Ikerketako espazio nagusiekiko, Bergarako 8 serorek eta Elgetako 2ek osatzen zuten gehiengoa, Arrasateko 3en eta Aretxabaletako eta Oñatiko banaren alboan; serora hauek, zentsuak eta maileguak eman izan zituzten 61 serorekiko, %24'59a ziren, laurdena alegia. Konparazioa herrietara hedatuz, banaketa espazialean 61 serora horiek 99 seroren lagin osoarekiko azaltzen zituzten proportzioak, bahien erabileradun seroren lagin are mugatuagoan ere nahiko fidel mantentzen ziren; Bergarako, Elgetako eta Antzuolako 61 serorek osatzen zuten %59'01a, bahidun maileguak aipatzen zaizkigun 15 seroren kasuan %66'66 izatera iragaten dira; Leintz bailaran are ertsia goa da korrespondentzia, 61en %24'59aren eta 15en %26'66aren artean; baina Oñatin osterera, jada zentsuak eta maileguak eman zituzten seroren kopuruaren proportzioa lagin osoko seroren kopuruarekiko proportzionalki baxuagoa bazen, %16'39a, bahidun serora bakarraren kasuan are gehiago murrizten zaigu proportzioa, %4'54ra. Hau da, Bergarako, Elgetako eta Antzuolak osaturiko espazioaren eta Leintz bailararen kasuan proportzioak nahiko parekoak agertzen zaizkigu, lehen espazioa proportzionalki gailentzen zaigula. Oñatin osterera, bertako bahidun serora bakarrak herri honetan bahiak ematearen ohitura ohizkoegia ez zela pentsatzera garamatza. Alabaina, gogoan izan dezagun nola bahien erabileraren inguruko lehen azalpenak emateko baliatu dugun adibidea Oñatitik bertatik heldua genuen. Agian, kontua, bahiak ematearen ohitura testamentuetan jasorik gelditzeko kopuru txikiegiak zirenekin baliatu izanagatik izan liteke. Edozein kasutan, Debagoienean bahiak emanak zeuzkaten seroren %24'59arekiko, Bergarako, Elgetako eta Antzuolak osaturiko espazioak proportzio hori gaintutuko luke, Leintz bailaran pareko geldituko litzaiguke, eta Oñatin osterera, edo ohitura oso gutxi hedatua zegoen, edo ez zaigu behar besteko berririk heldu.

Espazioez aparte, maileguen jasotzaileen inguruko datu orokorren batzuk ere eman beharrean gaude, oinarritzko ezaugarri batzuk hasieratik finkatzeko: guztira 73 ziren bahiekin emandako maileguak, eta horietatik 56 emakumeei emandako maileguei zegozkien; 9 gizonezkoei, 6 erlazio ezberdinek loturiko bikoteei eta etxe edo baserriei, eta 2 ezezagunak ditugu. Bahien ematean aski nabaria da, beraz, emakumeen nagusitasuna (mailegu guztien %76'71).

Maileguan emandako kopuruaren eta bahitzat jasoriko ondasunei dagokienez, badira zenbait ondasun eta bitxi behin eta berrero agertzen zaizkigunak, beti ere, gutxi gora beherako kopuru batzuei dagozkien maileguei loturik: Agnus Dei zirelakoak zenbait aldiz agertzen zaizkigu, gehienetan, eta beste bahi batzuekin bada ere, kopuru

¹³¹⁴ OUA Z 1063.9, 17v-18v.

handiei loturik (220, 143, 110, 41, 19 eta 18 errealeko kopuruak, bb. 91'83 erreal). Litekeena da azken kopuruak, 19 eta 18 errealekoak, zor handiagoen azken kopuruak izatea, gehienetan, Agnus Dei zirelakoak (literalki, "jainkoaren arkumea") balio handiko elementutzat agertzen baitzaizkigu, ez soilik maileguen bahien kasuetan, baita dohaintzei zegokienean ere. Izen hau lepotik zintzilik eramateko erlikia-ontzi batzuei ematen zitzairen, eta hauek, barnean eraman ohi zituzten erlikiei zegokien balioarekiko korrespondentzian, askotan urrezaturikoak edo zilarrezaturikoak izan ohi ziren. Elementu hauetan babesezko sineskera herrikoiek erlikien kultuarekin bat egiten zuten, eta hortaz, materialean bezalaxe esanahi kulturalen ere, balio handia izatera hel zitezkeen.

Agnus Deiak baino usuago agertzen zaizkigu urrezko eta zilarrezko nahiz urrezaturiko edo zilarrezaturiko ondasun eta bitxiak (zintak, kikarak, pitxerrak eta portzelanak), hauek ere, gehienetan kopuru esanguratsuei loturik: 265, 220, 165, 143, 110, 108, 77 (3 aldiz), 66, 48, 47 eta $\frac{1}{2}$, 40, 32, 30, 29, 24 eta 22 errealeko maileguetan zeuden hauek segurantzian emanak (bb. 87'8 erreal). Bigarren eta hirugarren kopuru nagusiak, hurrenez hurren, zilarrezaturiko portzelana baten eta urrezaturiko beste baten bidez segurtatu ziren, eta honek, hauen balore handia agertzen digu. Zenbait partida kategoria honetan arrazoi bereziegatik sartu ditugu: 48 errealak "un doblon de oro"-ren bahiarekin hartuak zeuden, eta bitxiaren artean sailkatu dugu, balore handiko diruak izanik; 77 errealeko maileguetako bat 2 eraztun zaharren eta "de aral" zen errosario baten bahiarekin hartua zen, eta nahiz eta eraztunak beste sailkapen batean sartu izan ditugun, hauek bi izateak eta errosario batekin batera agertzeak balore handiagoko ondasunekin batera kokatzera eraman gaitu; berdin gertatzen zaigu 32 errealeko maileguarekin, zeina zilarrezko goilara baten, errosario baten eta "bu[rr?]jico" baten bahiarekin hartuak izan ziren. Azkeneko kopuruei buruz berriz, Agnus Deien kasuan esandakoa aplikagarri zaiela esango genuke, beste kopuruekiko alde handia baita: kopuru handiagoen azken ordainketak behar zuten izan. Horrela zela esplizituki aipatu zen 30 errealeko zorraren kasuan. Catalina de Irazabalek zilarrezko kikara bat emana zion bahitzat Maria de Izaguirre (Bergara, 1631) serorari, eta 30 errealeko zorra, maileguan emandako 60 errealen "resto"-ari zegokion.

Nahiko kopuru handien bahien beste talde batean oheak eta kutxak batu litezke; hauek bahitzat harturik, honako kopuruaren maileguak eman zituzten: 203 eta $\frac{1}{2}$, 116, 76, 66, 50 eta 8 erreal (bb. 86'58 erreal). Hauen balorearen berri, Agnus Deien eta beste ondasunen kasuan bezalaxe, dohaintzek ere ematen digute, oheen dohaintzak, gehienetan, estimu handia zitzairen familia-kide edo pertsoneri egiten baitzitzaizkien, edo bestela, pietatezko ohitura lez, ospitaleei eman.

Jada kopuru txikiagoei loturik, manufakturatutako arropen (zaiak eta kapak, luzeak eta motzak) eta emakumezkoen burukoek osaturiko beste talde bat ere bildu liteke antzerako kopuruaren maileguen inguruan: 49, 38, 36, 33 (3 aldiz), 24, 22 (2 aldiz), 20, 16 eta 12 (2 aldiz?) errealekoak izan ziren maileguok. 26'92 errealeko batazbestekoa ematen digute, eta, batez ere, emakumezkoen burukoak zortzi bahiturak egiten zaizkigu deigarri, emakumeengan tradiziozko janzkeraren parte ziren buruko hauek, diru likidoa eskuratzeko ere balio zezaketela, eta horrela erabiltzen zirela, ikusten baitugu. Beste behin, dohaintzetan ere aipaturiko ondasun hauei ematen zitzairen balioa, gorago aipaturiko beste ondasunekiko, berresten dela esan beharrean gaude. Hau da, orain arte aipaturiko ondasunei baino balio gutxiago esleitzen zitzaizela, baina hala ere, estima eta balore dezentean hartuak zirela.

Antzerako balioen azken talde bat, aurrekoak baino heterogeneoagoa, alde batetik ehun eta ohial "arruntak", ohe-estalkiak, mahai-zapiak eta izarak, eta bestetik,

urrezko nahiz zilarrezko eraztunak eta goilarak baturik osatu litekeena dugu: 44, 42, 40, 34, 33 (2 aldiz), 27, 25 eta 1/2, 24, 22, 12, 11 (2 aldiz), 10 (2 aldiz), 8 (2 aldiz), 6 (3 aldiz), 4 (2 aldiz), 2 erreal eta 18 marabedi, 2 erreal eta erreal 1 eta 6 marabeditako kopuruak ageri zaizkigu ondasun hauen bahiturari loturik. Kopururik altuenen kasuan bahian beste ondasun batzuk ere sartzen ziren, edo bat baino gehiago izan ohi ziren. Edozein kasutan, azken zehaztapen hau alde batera utzirik, kopuruek 17'04 errealeko batazbesteko bat emango lukete. Bestalde, ohialek, ohe-estalkiek, mahai-zapieak eta izarek izan zezaketen balioa oso aldakorra izan zitekeen, materialen eta manufakturaren kalitatearen arabera. Baina hala ere, eta salbuespenak salbuespen, zentzudunena hauek kopururik txikien bahien taldean sartzeari deritzot, eraztunekin eta goilareekin bat (bada titare bat ere) mailegurik txikienak eskuratu zitezaketen gizarteko partaideek bahizat erabiltzeko eskura izan zitezaketen ondasunen artean aurkitzen baitziren.

Taldetan bildu ditugun ondasun eta bitxi hauez eta esplizituki aipatu gabe gelditu ziren beste zenbait ondasunez (“çiertas prendas” bezala aipatuak, etab.) aparte, kopuru handiei nahiz txikiei loturik, baziren beste zenbait bahi, sailkapenetik kanpo gelditzen bazaizkigu ere, aipagarriak iruditzen zaizkigunak. Maria de Izaguirreri (Bergara, 1631), Maria de Inarrak, 20 dukaten bahizat bere aldeko eskritura bat emana zion lagapen bidez (betekizun bat, ziurrenez), eta Antonia de Ozaetak (“doña”, Andres Perez de Laudansen emaztea) berriz, 10 dukaten bahi lez, belusezko ohial bat emana zion, balio handikoa behar zuena.

Serorengandik emakumeen eskutara iragaten ziren diru kopuruez beste, badira harreman hauetan interesa pizten diguten beste zenbait alderdi ere; hala, emakumeak zirela garbi ageri zaigun bahien emaleen ezaugarri sozial eta ekonomikoena. Baziren “doña” tratamendua jasotzen zuten nahiz etxe boteretsuetako abizenak zeramatzaten (Monesteriobide, Ondarza, Irazabal, Ozaeta, Churruca, Amasa, Jauregui, etab.) zenbait emakume (3 eta 24 dukat bitarteko maileguak jaso), “maese” baten eta labangile baten emazte lez aipatzen zaizkigunak (hurrenez hurren, 49 erreal eta 16 erreal), “huespeda de Mocolaeta” zen bat (6 erreal), Soraluezko herritarra zen emakume bat (44 erreal), Ermuako moja batzuk (40 erreal), bi alargun (77 eta 21 erreal) eta serora bat (108 erreal), eta egoera zehatzik ezagutzen ez diegun beste zenbait; hauen artean, egoera ekonomiko eta sozial xumeagoetan zeuden hainbat, maileguen kopuruari erreparatuz gero. Bahien baloreari buruz beste hainbeste esan liteke, maileguen jasotzaileen maila sozial eta ekonomikoari zuzenean loturik baitzeuden; hala, balore handia izatera hel zitezkeen bahiekin batera (Agnus Dei-ak, harribitxiak, zilarrezko eta urrezko kizarak, hainbat zilarrezko zinta, belusezko edo bestelako material garestietako –“lienço llamado flore”– ohialak, oheak, kutxak eta baita hainbat emakumezkoen buruko ere), balore xumeetakoak ere hainbat ziren (harizko azaoak, mahairako edo bestelako xedeetarako zapiak, ohe-estalkiak, etab.). Eta baita, noski, balore oso aldakorrak izatera hel zitezkeen beste hainbat ohial eta arropa ere (izarak, zaiak, kapak, kapa txikiak, etab.), maila sozial eta ekonomiko zehatz bati esleitzen jakingo ez genukeenak.

Baina noski, mailegu bat ez da dohaintza bat. Mailegua itzultzen ez bazitzaien, serorek bahiaren –edo honen parte baten– jabegoa eskuratzen zuten, eta bahiak zeuzkaten artean, hauek erabil zitezaketen, nahiz eta ezin saldu izan. Horrek ere, serorek bahietan izan zezaketen kapitalarekiko, bazuen esangurarik. Batzuetan, gainera, zorren kobrantzarako bahizat harturikoak zordunaren baimenarekin saldu zitezkeen, edo seroren euren beste maileguren bat bermatzeko ere erabil zitezaketen: Francisca de Igueribarrek (Bergara, 1581) Ana Urtiz de Monesteriobidek 6 dukaten bahizat emanak zizkion oheetariko bat 3 dukatetan saldua zion Gracia de Lecunzari (Ana Urtizen baimenarekin, suposatzen dugu), eta beste ohea Ana Urtizi honek 3 dukatak ordaintzean

itzul ziezaiotela agindu zuen¹³¹⁵. Maria de Izaguirreri (Bergara, 1631) Andres de Arandiak 3 dukaten maileguaren bermetzat eman zion kapa motza, serorak Diego de Balanzateguiri emana zion, honek serora berari maileguan eman izan zizkion 6 dukaten bahitzat¹³¹⁶; emandako 3 dukaten bahiaren bidez serorak 6 dukaten mailegu bat eskuratu zuen. Posibilitate hauez gain, maileguak batzuetan dirutan beharrean produktutan ordaintzen ziren: esaterako, Marina Garcia de Oruesagastiri (San Pedro parrokia, 1607) Maria de Esenagusiaren oinordekoek zor zizkioten 7 dukatetatik 17 erreal, zordunek zaia zahar baten bidez ordainduak zituzten¹³¹⁷.

Beraz, ondasun eta bitxi guzti hauek, norik bere aberastasunen neurriko maileguak emanez, seroren eskutara igarotzen ziren, eta bahi ziren heinean, maileguaren ordainketa ez betetzekotan beraien ondasun propio bihur zitezkeen (eta batzuetan, bihurtzen ziren). Horrez gain, serorek estima onean zeuzkaten ondasunak ere agertzen dizkigute, zerbaitek, bahitzat onartua izateko, mailegua ematen zuen pertsonarendako behintzat baliotsua izan behar baitzuen. Horregatik, zeharka bada ere, seroren ohizko ondasunen ikuspegia osatzeko ere baliogarriak zaizkigun datuak dira hauek.

Zentsuen eta ohizko mailegutzaeren bidez serorek jaso izan zituzten etekinei neurria hartzea ez da batere erraza; eta ez da errazagoa, aktibitate hauek serorak mugitu izan ziren testuinguruetan izan zuten eragina neurtzea ere. Baina serorei loturiko dokumentazioan agertzen duten presentzia ez da edonolakoa, eta behintzat, hainbestean baloratu beharrean gaude: aktibitate garrantzitsu lez. Gainera, aktibitate hauek preferentziatzko zenbait joera garatu izan zituztela ere ikusi ahal izan dugu. Kopuru handiak zentsutan ematea ohizkoa zen, nahiz eta seroraren batzuk, motiboak zirenak zirela, zentsuen erabilera alde batera utzia zuten. Beste batzuk aldiz, esan izan dugun bezala, zentsutan “espezializatu” zirela esan liteke. Hauen jasotzaileen artean batez ere maila ekonomiko erdi-altuan kokatu beharko genituzkeen gizonezkoak eta bikoteak ageri zaizkigu, eta baita zenbait emakume ere, askotan, “doña” tratamendua jasotzen zuten etxekoandreak eta alargunak. Serorei eurei dagokienez, batez ere hiribilduetakoak, diruaren ekonomia nagusi zen testuinguruetakoak ziren zentsu gehien helarazi zituztenak, baina ermitetako seroren artean ere hainbat serora ikusi izan ditugu zentsu ugarirekin, nahiz eta beste zenbait, maila xumeagoko ohizko maileguak ematera baino heltzen ez ziren. Hau da, hiribildu/landa-eremu banaketa zentsuekiko neurri bateraino baino ez dugu baliagarri, landa-eremuko tenplu bateko serora izateak, ez baitzuen nahitaez maila ekonomiko xumeko serora zenik esan nahi, hainbat adibidetan ikusi bezala.

Ohizko maileguen kasuan bestelakoa dugu jasotzaileen sexu araberako proportzioa; hau erabat alderantzizkoa izan beharrik gabe ere, emakumeak nagusi ageri zaizkigu, baita kopuru handietako maileguei dagokionean ere. Batez ere kopuru txikietako maileguek, eta serora batzuen kasuan baita kopuru handiei dagozkienek ere, maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako emakume multzo zabal bati emandako maileguen sorta bat azaltzen digute, emakumeen esparru espezifikoan jorratzen ziren lotura sozial eta ekonomiko batzuen berri emanez. Maileguen segurantzarako bahiak ematea ere, ikusi ahal izan ditugun ia kasu guztietan emakumeen arteko tratuei zegokion, eta askotan, ehunak, ohialak eta arropak erabiltzen ziren xede honetarako. Kopuru handien kasuan eskritura bidez, eta beste kasu batzuetan bahien segurantzarekin, serorek maileguen jasotzaileek diru likidoa jasotzea ahalbidetzen zuten, zeina, kopuru altuen jasotzaileendako bezalaxe, kopuru txikien jasotzaileendako

¹³¹⁵ GPAH-AHPG 1/0121, 618r-619v.

¹³¹⁶ *Loc.cit.*

¹³¹⁷ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

ere oso garrantzitsua zen. Eta zentsu eta mailegu handien kasuan eragin hau batez ere gizonezkoen, bikoteen eta etxe eta baserrien esparruetara –baina baita hainbat “doña”-rengana ere– hedatzen bazen, mailegu txikien kasuan batez ere emakumezkoen artean hedatzen zen, hauei, bahiekin edo gabe, hainbat xedetarako balio zezaketen diru kopuru xumeagoz baliatzeko aukera emanaz.

VI. 2.5. Salerosketak eta alokairuak (ondasun higiezinak, zentsuak, maileguak eta bestelakoak)

Serorak, euren ondasunen eta hauen administrazioaren jabe zirenez gero, hauek saldu edo alokairuan jar zitzaketan, eta baita, noski, beste ondasunen batzuk erosi edo alokairuan hartu ere. Orain arte aktibitate ezberdinei eskaini izan dizkiegun kapituluetan azaldu izan zaizkigu hainbat salerosketa eta alokairu, ondasun, produktu eta aktibitate ezberdinei loturik: argizaria eta olioak, ortuak eta lursailak, hauetako produktuak, abereak eta hauen etekin eta produktuak, ehunak, ohialak eta arropak, eta baita, salerosketari edo lagapenei begira zehazki landu ez dugun aspektua bada ere, aurreko kapituluan ikergai izan ditugun zentsuak eta betekizunak (zorrak) ere. Zentsuen eta betekizunen lagapenek, hein batean, hauen alokairua suposatzen zuten edo suposatu zezaketan, kopuru osoaren parte bat jasotzeko eskubidearen emate bat ziren heinean. Hauekin bat, jada agertu izan zaizkigun beste salerosketa aktibitate batzuk, parroketako jarlekuei zegozkienak ziren. Bilduriko datuen bidez azaldu izan dugunez, serorek jarlekuak saldu eta erosi izan zituzten, eta bertan ehorzteko eskubidea bera ere, salerosketen objektu izan zela dirudi. Argizariari eta olioari, nekazaritzari, abeltzantzari, ehunei, ohialei eta arropei eta jarlekuei loturiko salerosketak aktibitate hauei dagozkien azpiataletan, ustez behintzat, behar besteko garbitasunez azaldu izan ditugunez eta aktibitate hauen garrantzia azpimarratu dugunez gero, ez dugu hemen produktu eta ondasun hauen salerosketa aktibitateetan gehiago sakonduko, aipamen solteez beste.

Zentsuen eta betekizunen salerosketak ere, esan bezala, seroren aktibitateen baitan sartzen ziren, eta kasu honetan, gaiari eskaini diogun aurreko kapituluan salerosketa hauen berri eman ez dugunez gero, izango ditugu jarraian aipagai. Baina ondasun eta diru hauez bestalde, batez ere, kapitulu honetan hainbat ondasun higiezin salerosketen gain jarriko dugu gure arreta, ez baitziren gutxi izan serorek saldu, erosi, alokairuan eman edo alokatu izan zituzten etxe eta baserriak, eta hauei loturiko ondasunak eta lursailak. Kasu haueitariko bat edo beste, bestalde, agertu izan zaigu jada, eta gogoraraziko ditugu. Zentsuen eta betekizunen salerosketa eta lagapenekin bat ondasun higiezin salerosketa eta alokairuak azaltzeak, bestalde, badu bere zentzua, ondasun higiezin salerosketa zentsuen eta betekizunen bidez ere egiten baitzen, zenbait kasutan ikusi ahal izango dugun lez.

Baina hauekin ekin baino lehen, kasu berezi batzuei lekua egingo diegu, aurreko kapituluetan azaldu izan ditugun ondasun, produktu eta aktibitate ezberdinez gain, serorak, bizi izan ziren testuinguruetakoa aktibitate berezietan ere parte hartzeko arazorik ez zutela izan ohi azaltzen baitigu. Lehen kasua Desportek jaso zuen, Hiriburuko (Lapurdi) seroren gain egin zuen lanean. Hiriburu Baionatik Lapurdiko barrenalderako sarrera nagusietariko batean kokatua dago, eta noski, Baionako testuinguru komertzialarekin ertsiki loturiko bizimodua garatu zen bertan. Bada, 1715ean, Baionako errejidoreek Hiriburuko Graciane Duhalde serora salatu zuten, bere seroretxean Espainiako ardoa saltzen ziharduela, eta saltzen ziharduena ardo haren gain Baionako hiriari zegozkion eskubideak ordaindu ez zituela eta. Serorak seroretxean ardoa saltzea ez zitzaien gauza handirik axola antza, baina ardoaren gaineko zerga ez ordaindu izana

ostera, bai. Seroretxean zer zegoen ikertzea agindu zuten, eta Espainiako ardoz beteriko hiru kupel aurkitu zituzten. Alabaina, Hiriburuko alkateak eta zinpekoek protesta egin zuten, seroretxea Lapurdiko jurisdikziopean zegoela, eta Baionako jurisdikzioak serora ezin epaitu zezakeela esanez. Azkenean baina, Baionako errejidoreek irabazi zituzten bai jurisdikzioaren inguruko auzia, bai eta seroren aurkakoa ere, eta honi, prozesuaren gastuak ordaindu beharraz gain, kupelak konfiskatu zitzaizkion, eta enkantean saldu (Desport 1991, 75). Epaiak eta bestelako gorabeherak, itxuraz, inork serora batek seroretxean ardoa saltzen jardutearen inguruko inongo erreparorik azaldu gabe garatu ziren; erabat normaltzat hartzen zenaren seinale.

Ardoaren salmentan (kasu honetan, ziurrenez, txakolina) jarduten zirela dirudien beste serora batzuek Lekeitioko (Bizkaia) ermitetakoak izan ziren, 1615ean ermiten eta hospitalearen patroiz ziren kabildoek (elizakoa eta sekularra) erabakitako akordio baten arabera. Ardoaren administrazio eta salmentarekiko honako bi puntuak zehaztu ziren:

1.º Que las administradoras de las ermitas, cada una en su año, procure gobernar y administrar los bienes y limosnas de las ermitas, de tal manera que cada año ahorren en limpio la tercera parte que hubiere de vino en cada ermita, para emplear el alcance en las cosas que fuesen más necesarias en bien de las ermitas y mayor servicio del Señor. [...]

3.º Que ninguna sorora venda vino en taberna pública, bien sea el vino de la ermita, bien de particular, so pena de que será expulsada de la ermita (Urquiza 1985, 144-145)

Aurrekoan ez bezala, kasu honetan bai, bazuten serorek alderdi hauetan zeukaten pàrtehartzearekiko ardurarik.

Azken kasu bat Debagoienetik bertatik datorkigu. Labangintzaren eta guraizegintzaren industria oso garrantzitsua izan zen Bergaran, eta herriko aberastasunaren iturri garrantzitsu lez loratu zen XVI. mendean zehar, behintzat, XVII. mendean hasieraz geroztik gainbeheran joateari ekin zion arte. Guraizegile hauetariko bat izan zen –edo izateko bidean zen– Martin de Altuna, Gracia de Mendiarsen semea, honek, 1566an, bere ama eta administratzaile lez, 13 urterekin Pero Perez de Ganchaegui labangilearen esku utzi zuena, ofizioa ikas zezan. Baina maisua hiltzea suertatu zen, eta bere ikaskuntzaren ardurua maisuaren alargunak, Martina Juaniz de Ariztizabalek hartu zuen bere kargu (Azpiazu 2010, 35; 103). Martinen ama Graciaren ahizpa behar zuen izan Catalina de Mendiarsen serorak, ondoren aipatuko ditugun dokumentuetan, serorak bere iloba lez aipatzen baitu. 1587an, Martinek 34 urte inguru behar zituenean, Catalina de Mendiarsen serorak alokairu bat helarazi zuen Juan de Zuloeta labangilearen alde; bertan, ondoren zehaztuko ditugun hainbat labangintzarako instrumentu utzi zituen labangilearen esku, 2 urtetarako, eta urteroko 36 zilarrezko errealean truke. Alokairuan emanak izan ziren instrumentu hauek, halaber labangilea zen Andres de Burunaondoren esku zeuden momentu hartan, eta beraz, aurretik ere instrumentu berberak alokairuan emanak izan zirela dirudi. Alokairu honek, gainera, beste baldintza batzuk ere bazituen: seroraren iloba Martin de Altunak instrumentuak behar izatekotan, Juan de Zuloetak hilabeteren epean eman behar izango zizkiokeen (ez dakigu Martin de Altunak zergatik ez zituen bere izeba serorak berarendako gordetzen zituen instrumentuak erabiltzen, baina 13 urterekin ikasteari ekin zion ofizioan ez zen, antza, jarduten). Horrez gain, piezaren bat apurtuko balitz, bere konponketaz Juan arduratuko litzateke eta alokairuan ordaintzekoa zenetik ordainduko litzateke, eta Pedro de Olariaga “ofizial” eta Juanen fidatzaile zenaren aurrean egingo litzateke (hau alokairuaren momentuan presente zegoen)¹³¹⁸. Azken hau merkatari lanak ere egin izan

¹³¹⁸ GPAH-AHPG 1/0147, 172r-173v.

zituen maisu guraizegilea zen, urteen puruan, merkataritzarekin aberasten bukatuko zuena; baina garai hartan ez zuen oraindik bere burua merkatarari lez aurkezten (Azpiazu 2010, 139-140).

Alokairuaren helarazpenetik hiru urtetara, 1590ean, Catalina de Mendaras serorak aurretik alokairuan eman izan zituen instrumentuak Domingo de Irure “maestro official cuchillero” zenari saldu zizkion; instrumentu hauek, salmentan adierazi zenaren arabera, serorak bere iloba Martin de Altunarendako erosiak zituenak ziren, baina espresioak aditzera ematen digunez, hau jada hila zegoen (“conprada para Martin de Altuna su sobrino gloria posea”). Litekeena da, hain zuzen ere, salmenta horrexek motibatua izatea, ikusi dugun alokairua, behinik behin, bere ilobak instrumentuak erabili nahi izan zitzakeenaren erreserbarekin egiteak, espreski beretako gordetzen zituela esan nahi baitu. Prezioa 17 dukat eta 8 errealekoa izan zen, eta segurantzarako, Domingok instrumentuak eurak hipotekatu zituen seroraren alde. Honakoa zen lehenik alokairuan emanak, eta gero salduak izan ziren instrumentuen zerrenda:

- Primeramente dos fuelles o Barquines
- Yten una tobera de ellas
- Yten un hiunque de fierro con su çepo
- Yten un rrepassador con su torno y çepo
- Yten una bigernia tambien con su çepo
- Yten otra bigernia pequena de la tienda
- Yten una trauesaña con el asiento o marco de los dichos fuelles
- Yten una pilla de hagua de la ffragua
- Yten otras dos pillas de hagua de las muelas
- Yten dos tornos de ellas
- Yten un banco de picar limas
- Yten tres pares de tenaças de fierro
- Yten dos martillos uno batidor y el otro pequeño de la fragua y del seruiçio de forxar en el hiunque
- Yten otro martillejo del seruiçio de la tienda
- Yten dos piquettas de muelas
- Yten un taxador de fierro
- Yten un tornillo con su çepo
- Yten mas dos brunidores¹³¹⁹

¹³¹⁹ GPAH-AHPG 1/0149, 26r-26v. Dokumentu honen berri José Antonio Azpiazuk ere eman zuen aipatu izan dugun lanean (Azpiazu 2010, 26), baina, tamalez, zenbait akats eginaz. Lehenik, bere lanean ematen zaigun erreferentzia, dagokion 1/0149 signatura beharrean, 1/0148 da. Bestalde, dokumentuaren testuingurua ere ez dago behar bezala azalduz. Berak “el maestro oficial cuchillero Domingo de Irure traspasa a su sobrino Martín de Altuna ‘ciertas herramientas del ofiçio de cuchilleria’” esanaz aurkezten digu dokumentua, baina bestelakoa izan zen gertaturikoa, eta baita bertako partehartzaileen arteko erlazioa ere. Protokoloen aurkibideetan dokumentuari ematen zaion izenburuak azaltzen digu zerrenda honen gauzatzeko salmentaren muina: “Scriptura de benta y obligaçion otorgada entre la beata de Mendaras y Domingo de Yrure”. Martin de Altuna ez zen Domingo de Irureren iloba, Catalina de Mendaras seroraren iloba baizik. Iloba hau, bestalde, jada zehaztu dugunez, dokumentua helarazi zenerako hila zegoen. Horrez gain, zerrendako bi elementuren transkribapena oharkabean pasa zitzaion: “Yten tres pares de tenaças de fierro”, eta azkena, “Yten mas dos brunidores”. Martin de Altuna seroraren iloba zela –eta ez Domingo de Irurerena– aipatu berria dugun alokairuaren dokumentuak ziurtatzen digu. Bidenabar, jaso dezagun alokairuan aipatu ziren instrumentuen zerrenda, serorak lehenik alokairuan eman eta gero saldu zituen instrumentuak berberak zirela ziurtatzen baitigu, partehartzaileen identitateari buruz esan berri dugunari ere oinarri emanez: “dos fueles un hienque con su çepo de fierro vn rrepassador con su çepo y torno una bigernia tambien con su çepo otra bigernia pequena de la tienda una trabessana o gallo de los dichos fueles de madera una tobera de fierro una pilla de tener hagua para la fragua de madera dos pillas de muelas dos tornos de fierro de ellas un banco de picar limas tres pares de tenaças de fierro dos martillos uno de batir y el otro pequeño de forxar mas otro martillejo de la tienda dos piquetas de picar muelas un tajador de fierro un tornillo con su çepo y dos brunidores” (GPAH-AHPG 1/0147, 172r).

Domingo de Irurek hurrengo urtean egin zion serorari ordainketa, eta gainera, prezioztat ezarri zituzten 17 dukat eta 8 errealak beharrean, 18 dukat ordaindu zituen¹³²⁰.

Ikusten dugunez, seroren salerosketa eta alokairu aktibitateak, propioki seroren esparruaren baitako aktibitateak hauteman zitezkeenez gaindi, lekuan lekuko probetxuzko industrietan erreparatzera ere hel zitezkeen; aipagai izan dugun azken kasuan, esaterako, familia-kide batek ofiziorako behar zituen instrumentuen erosketa eginez. Ondasunak edo objektuak zirenak zirela, ez dirudi serorek euren kabuz erosi, saldu, nahiz alokairuan hartu edo emateko inongo arazorik zeukatenik, gizona zkorik tarteko izan beharrik gabe. Areago, ondorengo kapituluan ikusiko dugunez, ondasunen atxikipen eta administraziorako autonomia honek zenbait serora familia boteretsuetako partaideen ahaldu izatea ere ahalbidetu zuen.

Zentsuei eta betekizunei dagokienez, hauen salerosketa arrazoi ezberdinek motibatua izan zitekeen. Batzuetan, besterik gabe, momentu jakinen bateko diru likidoaren beharrak eragiten zuen zentsuren baten salmenta, eta ez zen arrazoi zehatzik aipatzen. Horrela, esate baterako, Catalina de Querexazuk (Bergara, Aritzetako San Migel ermita), 1600ean, Domingo de Sagastizabali Elgetako hainbat bizilagunen (Francisco Garcia de Ascasibar eta bere emazte Domenja de Gongeaeta Ascasibar, eta Pero Perez de Agurlaeta Ascasibar eta bere emazte Maria Perez de Ascasibar) aurka zeukan 14 dukat printzipaleko eta urteroko bateko zentsua saldu zion¹³²¹. Beste kasu batzuetan, diru likido beharra serorei zentsuak saltzen zizkietenek izan ohi zuten. Hala dirudi Domenja de Iturri serorari (Elgeta, Uriarteko Andre Maria ermita) 1595ean bere koinata zen Maria de Leaniz Iturrik saldu zion 119 dukat printzipaleko (eta urteroko 8 eta ½ko) zentsuaren kasuan (Martin Garcia de Irigoien aurkakoa zen)¹³²². Nabariagoa da Pero Ochoa de Loiti Elgetako izkribauaren kasua; Martin de Jauregui bere morroia Bergarara bidali zuen, Francisca de Arana serorari 100 dukat printzipaleko (eta urteroko 5eko) zentsu bat saldu (Pedro de Sostoa eta bere emazte Marina de Sostoaren aurkakoa), eta honengandik 100 dukatak dirutan har zituzan¹³²³. Beste batzuetan, zentsuen salmenta zorrak kitatzeko egin ohi zen. Marina de Altube serorari (Elgeta, San Adrian eta San Antonio ermita) Gonzalo de Abechucok zor zion 119 dukat printzipaleko zentsuaren ordainketa, honek bere alde zeuzkan beste lau zentsu eta hauen zenbait korritu serorari saltzearen bidez egin zuen 1605ean. Lau zentsu hauek, era berean, Francisco de Aguirrebeinak lagapen eta salmenta bidez Gonzalo de Abechucok berari eman izan zizkionak ziren¹³²⁴. Debagoienean presente izan genuen zentsuen salerosketarako beste motibo bat, hauek seroratzaren sarrerarako dotea ordaintzeko beharrezko izatearena zen. Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Mariaren santutegian horrelakoa zen ohitura XVII. mende erdialdetik behintzat, eta 1700ean serorei idatzi zitzaizkien konstituzioetan ere, 250 edo 300 dukatetan finkatu zen dotearen kopurua zentsutan eman beharra ezarri zen. Motibo hau esplizituki aipatu zen 1679an Joan Bautista Lopez de Bergarak santutegiko

Salerosketa Domingo de Irureren eta seroraren artekoa izan zela berriz, jarraian ikusiko dugun salmentaren ordainketa-kartak berresten du (ikus erreferentzia hurrengo oinpeko notan).

¹³²⁰ GPAH-AHPG 1/0150, 252r-252v.

¹³²¹ GPAH-AHPG 1/0187, 131r-132v.

¹³²² GPAH-AHPG 1/1861, 30r-31r.

¹³²³ GPAH-AHPG 1/0221, 87r-87v.

¹³²⁴ GPAH-AHPG 1/1865, 80r-82r. Lau zentsuak honakoak ziren; lehena: Juan de Olayetaren pertsona eta ondasunen gain, 28 dukatekoa (urteroko 2). Bigarrena: Marina de Ybarguynen eta bere fidatzaile Pedro de Berraondoren pertsona eta ondasunen gain, 14 dukatekoa (urteroko 1). Hirugarrena: Pero Saez de Galarraga eta bere emazte Maria de Santuru Ansoategui Galarragaren pertsona eta ondasunen gain, 35 dukatekoa (urteroko 2 dukat eta ½). Laugarrena: aurreko bien eta Maria de Santururen ama Maria Perez de Altuberen pertsona eta ondasunen gain, 42 dukatekoa (urteroko 3). Horrez gain beste 16 dukat, “de corridos que le debian en la dicha casa de Galarraga”.

seroratzan sartzekoa zen bere alaba Maria Lopez de Bergarari saldu zizkion –bakoitza– 100 dukat printzipaleko (eta urteroko 5eko) bi zentsuen salmentetan:

y disponer de los dichos reditos por los dias de su bida y despues de ellos de la Boluntad de la dicha Villa de Salinas y su Justicia y Reximiento para que en conformidad de la obligazion que tengo otorgada al tiempo y quando se le dio el abito de la tercera horden a la dicha mi hija quedo dispuesto¹³²⁵

Erabilpen hauez beste, zentsuak eta betekizunak, esan bezala, etxeen erosketarako ere erabili ohi ziren. Hauen eta beraien bidez serorek eskuratu zitzaizkien ondasunen arteko loturak, Bergarako San Pedro parrokiako Marina Garcia de Oruesagasti eta Domenja de Urgoitia seroren zentsuen gorabehera batzuk aski garbi azaltzen dizkigute. 1592ko abenduaren 5ean, bi serorak eta Martin Garcia de Eguino batu ziren izkribauaren aurrean, etxe baten salmenta medio. Martin Garcia de Eguinok Marina Garcia de Oruesagastiren aldeko 4.461 marabeditako betekizun bat (ia 12 dukat)¹³²⁶ eta Domenja de Urgoitia aldeko urrezko 35 dukateko beste bat helarazi zituen¹³²⁷, eta baita lehenaren aldeko 26 dukat eta erreal leko lagapen bat ere¹³²⁸. Hauen ordain, serorek Martin Garcia alde honako lagapena egin zuten:

sobre las casas e bienes y herençias que quedaron de Madalena de Gorostegui e Madalena de Sagastiçaua difuntas vezinas que fueron de la dicha Uilla y espeçialmente sobre las casas bienes muebles y alaje de Lasa que como es de ellas las dichas beatas los tiene[n] comprados y rrematados judiçialmente = que son y estan en el barrio de Uidacuruçeta de la dicha Uilla hauiendo sido executados a su pedimiento por mandamiento de la justiçia hordinaria de la dicha uilla [...] como consta e pareçe por los autos de la dicha execuçion rremate y benta judiçial y sus posesiones a que se rreferieron conbiene a sauer la dicha beata Marina de Oruesagasti treze mill y çiento y noventa y dos marauedis de prinçipal y la dicha beata Domenja de Vrgoitia trezientos y diez y nueve rreales de prinçipal y anbas quatro mill y noventa y quatro marauedis de costas proçesales que sobre la cobrança de los dichos creditos se hizieron que estan tasados en ellos por la justiçia hordinaria de la dicha Uilla¹³²⁹

Erremate judizial bidez heldu zitzaizkien serorei Lasako etxea, Magdalena de Gorostegui eta Magdalena de Sagastizabal defuntuek beraien alde zeuzkatzen aipaturiko kopuruetakoz zorrak zirela eta. Martin Garcia de Eguinok zor hauen kopurua (eta zertxobait gehiago) eman zien serorei lagapen eta betekizunen bidez (bakoitzari zegokiona), eta hauek, Lasako etxearen lagapena egin zioten trukean. Zentsu edo betekizun bidezko zor batzuen bidez heldu zitzaizkien etxea eskutara, eta betekizunen eta lagapenen truke eman zuten lagapenean, denera, –aurretik zorretan jaso beharrean zeuden– ggb. 827 errealean prezioan (ggb. 75 dukat).

Serorek etxeak erosi, saldu edo alokairuan jartzea, ez zen batere fenomeno arraroa. Testamentuetako oinordekotzek eta dohaintzek seroren jabegoko hainbat etxeren berri ematen digute¹³³⁰, eta aipatu berri dugun kasuaz gain, gogoan izan dezagun Bergarako San Pedro parrokiako Catalina de Ondarzak gero parrokiako seroretxe izango zena 1567an 100 dukatetan erosi zueneko ere¹³³¹. Beste zenbait salerosketaren berri ere izan dugu: 1574ko lagapen baten arabera, Maria Juanes de Sostoa y de Mendraca Corta Ermuako herritarrak, “estante al presente en la villa de Elgueta”, Isabela de Zabala

¹³²⁵ GPAH-AHPG 1/2009, 5v-6r (urtarrilak 12koa, aipua hemengoa da) eta 19r-19v (urtarrilak 20koa).

¹³²⁶ GPAH-AHPG 1/0130, 843r-844r.

¹³²⁷ *Ibid.*, 844r-844v.

¹³²⁸ *Ibid.*, 845r-846r.

¹³²⁹ *Ibid.*, 846r-848r.

¹³³⁰ Ikus aurrerago VII. 1.1. azpiatalean, 639 eta hurr. or.

¹³³¹ Ikus seroretxe honen fundazioaren gorabeherak VII. 2.1. azpiatalean, 681 eta hurr. or.

Elgetako serorari herriko etxe bat eresia zion 46 dukatetan; era berean, Maria Juanesek etxea Domenja de Urrojolaegui zelako bati saldu zion, eta zorra eskualdatzeko, 46 dukaten lagapena egin zuen seroraren alde, eta Domenja de Urrojolaeguiaren kontra¹³³². 1620an, Arrasaten serora zen Ana de Larak, Santuru de Elorriaga eta bere emazte Maria Balda de Otorarekin batera, San Frantziskoren komentuari atzekaldean zeukaten etxe baten salmenta batean parte hartu zuen; 40 dukateko prezioan saldu zuten¹³³³. Serora honek beste etxe batzuk ere bazeuzkan, edo izanak zituen zenbait urte lehenago, 1612ko urtarrilaren 20an, Catalina de Amaritaren alde 60 dukat printzipaleko (urteroko 3) zentsu bat fundatzearekin bat, Domingo de Berroetarekin bere jabegoko etxe batean dolare bat berreraiki eta handitzeko obraren hitzarmena egin baitzuen. Dolare berria egin beharrean zegoen etxe hau serorak zentsuaren fundazioan hipotekatu zuen “ferrerias” kaleko berbera zen; baina etxe honetaz gain beste etxe bat eta sagasti bat ere hipotekatu zituen: “la otra cassa y su suelo que tengo en [Arrabal?] de Abaxo [...] el mançanal que tengo en Ugalde”. Ana de Larak bere jabegoko zenbait etxe bazeuzkala dirudi. Burdingileen kaleko etxe dolarearen obraren gastu guztietarako serorak Domingori alde batetik 58 dukat eman zizkion, eta soldatatzat berriz, momentuan 300 erreal eman zizkion, eta bukatzerako orduan beste 150 erreal ematea hitzartu zuten¹³³⁴. Catalina de Querexazuren (Bergara, Aritzetako San Migel ermita) kasua bestelakoa dugu; bere seroratzarako sarrera etxe baten salmenta medio gauzatzen ikusi zuen. Zegokion dotea, bere gurasoek zorrak medio saldu zuten Querexazuko baserriaren erosketaren diruetatik heldu zen; ez dakigu baserria erosi zuten Andres Perez de Laudansek eta bere seme Pero Perez de Laudansek seroraren guraso izanak ziren Joan Lopez de Querexazurekin eta honen emazte Maria Martinez de Arguizainekin zehaztasunez zer hitzartu zuten, baina alde batetik 1592an Catalinari “para en pago de sus legitimas paterna y materna” 20 dukat eman zizkiotela dakigu, eta bestetik, 1597an beste 12 dukat ere eman zizkiotela –eta hitzarturikoaren arabera, bere ahizpa Agueda de Querexazuri ere beste hainbeste eman behar zizkiotela– ere badakigu¹³³⁵. Alabaina, serora honek bere gurasoen baserriaren salmenta bizi behar izan bazuen ere, ondorengo urteetan aberastasun esanguratsuak pilatu ahal izan zituen (batez ere zentsutan).

Serorek alokairuan eman izan zituzten baserrietariko bat, adibidez, Bergaran, Amuskibarrekoa dugu. 1593an Oñatiko herritarra zen Miguel Perez de Elorreguik Bergarako Maria de Munabe serorari 6 dukaten lagapena egin zion, horrela, Amuskibarreko baserriatik Joan de Izurrateguik serorari urtero ordaindu behar zizkion 26 dukat eta bi sagar zakuren zorraren parte bat ordainduz¹³³⁶. Beste kasu interesgarri bat Marina de Altuberena dugu (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita)¹³³⁷; 1614an, bere bizitzan zehar –neurri handi batean, zentsuen eta maileguren bidez– zenbait diru bildu ostean, 1585az geroztik bere gurasoek (Juan de Altube eta

¹³³² GPAH-AHPG 1/1857, 63r-63v.

¹³³³ GPAH-AHPG 1/2368, 87v-89r. Etxearen kokapenaren berri ere eman zuten: “la cassa que abemos y tenemos detras del monesterio de señor Sant Françiso linderos por una parte el camino real que ba al rio llamado [Barçate?] y por otro las cassas de los herederos del capitan y castellano que fue Gaspar [Martin?] de Cortazar = y por la parte de arriba cassas de los hijos del primer matrimonio de Sant Juan de Guraya y por la parte delante la estrada que ua por junto a las cassas de Juan de Santamaria a la dicha cassa y huertas” (*Ibid.*, 87v-88r).

¹³³⁴ Zentsu fundazioa: GPAH-AHPG 1/2366, 6r-7v; eta obraren hitzarmena: *Ibid.*, 7v-8r.

¹³³⁵ 1592ko ordainketa-karta: GPAH-AHPG 1/0130, 590r-590v; eta 1597koa: GPAH-AHPG 1/0184, 118v-119r.

¹³³⁶ GPAH-AHPG 1/0131, 620r-620v.

¹³³⁷ 588 orrialdeko 1214 aipuan zehaztu izan dugunez, serora honek lehenik Elgetako San Adrian eta San Antonio ermitan zerbitu zuen, azken urteeko dokumentuetan ostera, Angiozarreko Andre Mariaren ermitaren zerbitzuan ageri zaigularik. Hemen, aipagai dugun dokumentuan hala ageri zaigunez, azken ermita honetako serora bezala aipatu dugu.

Maria de Egoecheaga) Altube Marindano baserriaren aurka eta Elgetako kontzejuaren alde fundatua zeukaten 24 dukat eta ½ko zentsu bat finikitatu zuen (zegozkion korrituekin), bere gurasoengandik jasoriko zorretik eta baserriaren hipotekatik askatuz¹³³⁸. Handik bost urtera, 1619an, Altube Marindanoko baserria Martin de Berazari eman zion alokairuan, 6 urtetarako, 9 dukaten prezioan. Baldintza berezi bat ere ezarri zuen: bere ahizpa Maria de Altuberi “estanzia y hautazion en la dicha cassa en un aposiento con su cama” utzi behar zioten, alokairuaren denbora guztian zehar bertan bizi zedin¹³³⁹.

Seroretxeetan beharrea etxe partikularretan bizi ziren seroren kasuan, izan ziren noski etxea alokairuan hartuta bizi izan zirenak ere, baina gutxiagorekin egin dugu topo gure bilaketetan. Hauen artean zegoen, esaterako, Bergarako Maria de Ondarza. 1625ean, urteroko 5 dukat ordainduz Juan de Barrutiaren jabegoko Artekaleko etxe batean bizi zela dakigu¹³⁴⁰. Urte inguru haietan bizi izan zen Francisca de Arana ere, Bergaran bertan, Maria Antonia de Sagastizabal (“doña”) izana zenaren jabegoko Bidekurutzetako etxe batzuetan, eta 1620an, azken honen oinordekoek, bere osaba ziren Inurrigarro batxilerrak (Antzuolako parrokia batueta apezka) eta Joan Perez de Altunak (Bergarako eta Azpeitiako herritarra, “doña” Catalina de Gorosteguiaren senarra) 8 dukaten truke eman zioten alokairuan¹³⁴¹. Ez daukagu Maria Antonia de Sagastizabali edo beste inori etxe horregatik lehenago serorak alokairua ordaindu izan zionaren berririk, nahiz eta jada bertan bizi zela aipatu zen (“las cassas en que uiue”), eta serorari buruzko dokumentazioa 1607az geroztik behintzat ezagutzen dugun. Seguruena da serorak Maria Antonia de Sagastizabali aurretik batere ordaindu ez izana, honek bere testamentuan egin zizkion dohaintzei erreparatzen badiegu behinik behin; 1617a baino lehenago hil zen, eta serorari zenbait dohaintza esanguratsu (batez ere, bere ondasunetatik urtero ordaindu beharreko 400 errealea) egin zizkionez eta oinordekoek dohaintzak eman nahi ez zituztenez, hauen eta seroraren arteko auziak hasi ziren. Serorak dohaintzaren gaineko eskubideei uko egiteko urteroko diru bat, etxe bat eta ortu bat eskatzen zizkiela eta, 1617an hitzarmen bat egin zuten, zeinaren arabera, Inurrigarro batxilerra eta Pero Garcia de Sagastizabal,

se obligaron de pagar a la [*dicha*] ueata y su boz los dichos quatroçientos rreales en cada un [*año*] mientras biuiere por los dichos alimentos pagados a[*l*] plaço para lo qual dieron por pasado el plaço de[*l*] medio año y tanuien se obligaron a que se le da[*ra*] un aposento alto en las dichas casas que cae acia la call[*e*] y para que tenga seruidunbre en la cocina y [*tan*]uien el pasaje a la guerta y en ella la quarta p[*arte*] para que pueda açer su ortaliz y tanuien un[*a*] cuba para enbasar sidra con que lo aya de ma[*jar*] ella de su mançana y no mançana ajena y qu[*an*]do no majare lo puedan arrendar a quien qu[*isie*]ren y si alguna costa tubiere lo aia de adreçar la persona p[*ara*] quien se enbasare la dicha sidra y para ansi cunp[*lir*] y pagar los dichos quatroçientos rreales por los dichos alimentos en cada un año y de acer bueno la dicha biuienda y aposento y seruidunbre de cocina y camino para la guerta y la dicha cuba de la manera suso dicha obligaron los bienes y rrentas de la dicha herençia¹³⁴²

1619 eta 1631 bitartean serorari egin izan zizkioten –eta dohaintzari zegozkion– zenbait 200 errealeko ordainketen berri badugu ere¹³⁴³, ez zuten oinordekoek hitza osoki

¹³³⁸ Zentsu-luditzea eta ordainketa-karta: GPAH-AHPG 1/1867, 34r-37v.

¹³³⁹ GPAH-AHPG 1/1868, 1r-2v.

¹³⁴⁰ GPAH-AHPG 1/0230, 28r.

¹³⁴¹ GPAH-AHPG 1/0206, 225r-226r.

¹³⁴² GPAH-AHPG 1/0203, 494r-497r.

¹³⁴³ 1619an (GPAH-AHPG 1/0055, 27r-27v), 1621ean (GPAH-AHPG 1/0207, 136v), 1622an (GPAH-AHPG 1/0228, 124v-125r; 329r-329v) eta 1631n (GPAH-AHPG 1/0236, 155v) egin zirenak aurkitu ahal izan ditugu.

bete, ikusi dugun bezala, 1620az geroztik behintzat, ustez alokairurik gabe eman behar zioten etxeagatik 8 dukat kobratzeari ekin baitzioten.

Alokairuei dagozkienekin eta kapitulu honekin bukatzeko, aberastasun eta botere handiaren adierazgarri zaigun azken kasu bat aipatu beharrean gaude. Bergaran, San Pedro parrokian jarleku partikularren zerbitzuan jarduten zen Maria de Izaguirre (besteren artean, Ozaeta etxekoen jarlekuan zerbitzen zuelako jada aipagai izan duguna), eta bizi, 1611n, Catalina Lopez de Ibarra alargunaren (“señora”) Barrenkaleko etxe batean bizi zen¹³⁴⁴. 1609an Catalina Lopez berak seroraren alde fundaturiko 40 dukat printzipaleko (eta urteroko 2ko) zentsuan hipotekatu zuen Barrenkaleko etxe berbera zela dirudi¹³⁴⁵. 1612an, Santa Marina parrokiari zegozkion hamarrenen parte bat hartu zuen serorak alokairuan. Ana Perez de Ganchaegui Juan de Querexazu izana zenaren alarguna zen, eta hauek,

tenian arrendadas entre otros diezmos los diezmos pertenecientes al conde de Oñate en la yglesia parroquial de Señora Santa Marina de Oxirondo y partido de Elgueta que son seis suertes por tiempo de quatro años [...] por presçio y quantia de seteçientos y çinquenta ducados en dineros y cada suerte çiento y veinte y çinco ducados pagados por sus terçios de fin de abril y fin de agosto y fin de diçiembre

Martin de Galardi fidatzaile zuela, 4 urteroko sei “suerte” horietako hiru hartu zituen Maria de Izaguirrek alokairuan, 2 urtean zeharreko hamarrenak bere gain hartuz (hasierako asmoak alokairua lau urteetarakoa izatea behar zuen izan, “dos años” horiek “quatro” ezabatu baten gainean idatziak izan baitziren), 375 dukateko prezioan. Hainbat baldintza ere ezarri ziren, hamarrenen alokairuari zegokion lez, parrokiako apez eta benefiziodunen soldata seroraren esku gelditu zela agertzen digutenak:

con condiçion que si fuere nesçesario pagar alguna cantidad a la voz del dicho conde asi para pagar las situaçiones, o pensiones e subsidio y escusado ayan de acudir con ello sin atender ni esperar a los terçios por escusarle las costas y gastos que le podian rrecreçer al dicho conde y su voz y con que ayan de dar y pagar al cura y beneficiados de la dicha yglesia de Santa Marina de Oxirondo cada año a cada veinte y dos fanegas de trigo de la medida de Auilla y mas por otra parte veinte fanegas de trigo de la dicha medida por todas las dichas suertes que a rrazon y rrespeto de tres fanegas y quatro çelemines y esto a los quatro beneficiados a entero, como a entero, y a medio como a medio y con condiçion que si no se pagaba a los plaços las dichas cantidades que le ayan de pagar doze rreales de salario por cada un dia de los que se ocupare de yda estada y buelta aunque no execute como todo ello y otras cosas mas largamente constaba y paresçia por el [*sic*] escriptura de arrendamiento que en rrazon de ello les otorgo el capitan Diego Ladron de Guebara en nombre del dicho conde de Oñate¹³⁴⁶

Orain arte beste motibo batzuegatik ere askotan agertu izan zaigun Maria de Izaguirre seroraren aberastasuna eta boterea, eta hauen bidez gizartearen baitan zeukan eragina, ez ziren edonolakoak, eta ziur gaude, herriko familia boteretsuen eta parrokiatako apez eta benefiziodunen artean errespetu handia izango ziotela; asko baitziren, izan ere, serora honekiko zeuzkaten lotura sozial eta ekonomikoak (zerbitzuegatiko zorrak, zentsuak, maileguak, hamarrenen alokairuari loturiko soldatak, etab.). Ez ditzagun ahaztu, halaber, Ozaeta leinu-etxekoen ordezkari lez eskaintza egiten ari zela 1594an sortu zituen lehentasunagatik liskarrak; gertakizun hauek ere, serora honek, Santa Marina parrokiako hamarrenak alokairuan hartzera heldu baino 18 urte

¹³⁴⁴ Juan de Olazabal Larrinagak seroraren alde fundaturiko zentsu batean ageri zaigu: “la dicha ueata Maria de Yçaguirre que al presente bibe y mora en la calle de Uarrencalle de esta dicha Uilla en la casa de la Señora Lopez de Ybarra ueçina de esta dicha Uilla” (GPAH-AHPG 1/0165, 9v.)

¹³⁴⁵ GPAH-AHPG 1/0164, 121r-123v. Etxeaz gain, hiru ortu ere hipotekatu zituen.

¹³⁴⁶ GPAH-AHPG 1/0198, 33v-36r.

lehenago, jada gizarte baitan izan zezakeen eraginaren kontzientzia garbia zeukala adierazten digute¹³⁴⁷.

Salerosketei eta alokairuei dagokienez, laburbilduz, serorek izan zitzaizketen mugak, muga erlijioso, moral edo sozialak beharrean, muga ekonomikoak zirela esan liteke. Hau da: jarduera eta lan aktibitateen aldetik, gehienetan tradizionalki emakumeei esleituriko esparruetan mugitzen ziren; baina ondasunen atxikipen eta alokairuari zegokionean, serora bakoitzak erosi, saldu, edo alokairuan hartu edo eman zezakeenaren muga zeuzkan aberastasunek eta diruek baino ez zuten ezartzen. Horretaz aparte, ez dirudi arrazoi erlijioso, moral eta sozialengatik ezer bereziki beraien salerosketa eta alokairu posibilitateen esparrutik kanpo gelditzen zenik.

VI. 2.6. Ondasun partikularren administrazioa

Hasiera batean, ez neukan aktibitate honi eskainiriko kapitulurik osatzeko asmorik; baina ikerketan aurrera egin ahala, zuen garrantzia oharturik, hala egitea erabaki nuen. Bilduriko datuen argitara, batez ere Bergaran, baina baita Oñatin ere, hainbat serorak hartu zuen familia-kideen eta bestelako pertsonen ondasunen administrazioa bere kargu, askotan, hauek kanpoan zeudelako edo bizi zirelako.

Honekin bat, serora asko, bestelako seroren (eta hainbat pertsonaren) albazea ere izan ohi zirela aipatu beharrean gaude, eta hein horretan, serora defuntuaren ondasunen administrazio lanak bete izan zituztela. Garmendia Larrañagari deigarri egin zitzaion 1609ko testamentu batean topatu zuen Tolosako San Blas ermitako serora baten albazea izendapena, honen anaiak egina; izendapen hura seroren eginbeharrez kanpokotzat zuen, eta bitxikeriazat hauteman zuen jasotzerakoan: "con este apunte me limito a dejar constancia de la inquietud de esta mujer que se asoma a actividades que se hallan fuera del cometido religioso propio de una serora" (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 18). Alabaina, gure ikerlana burutu ahala alderdi hauen inguruan bildu ahal izan ditugun datuetatik, seroren euren testamentuak baino ikergai ez izanik ere, hauen artean albazea lanak batere arraroak izan ez zirela ondorioztatu liteke. Areago, eta honi aurrerago erreparatuko badiogu ere, serorak albazea izendatu izan baziren, hain zuzen ere heriotz-errituetakoa betekizunen inguruko ardurak motibaturik izan zela esan liteke, kasu hauetariko asko, esanguratsuki, oinordeko arima izendatu zutenetarikoak baititugu. Edozein kasutan, Garmendia Larrañagari iruditu zitzaionaren kontrara, ezin liteke esan aktibitate hauek seroren artean arraroak zirenik, ez eta "fuera del cometido religioso de una serora" zeudenik ere.

Testamentuetako informazioaz aparte (honi gero erreparatuko diogu), albazearen administrazio lanetan serorek izan zitzaizketen buruhausteen adibide bat Bergarako Santa Marina parrokiako Catalina de Eguren serorarena dugu. San Martin ermitako Maria de Iturbe seroraren albazea zen heinean¹³⁴⁸, azken honi Miguel Perez de Amezqueta kapitainak bere ama Maria Lopez de Castilloren ("doña") oinordeko lez zor zizkion 35 dukaten kobrantzak egin zituen 1606an eta 1607an, ez aurretik zenbait auzi izan gabe. Auziak hasi zirenerako kapitainak jada bi dukat ordaindu izan zizkion, eta serorak berak

¹³⁴⁷ Ikus honen inguruko azalpenak VIII. 1.4. azpiatalean, 782-783 or.

¹³⁴⁸ Maria de Iturberen testamentuko albazea izendapenean, kuriosoki, Catalina de Eguren beharrean "Marina de Eguren" bezala aipatu zuten (GPAH-AHPG 1/0162, 79r.), baina Catalinak berak helaraziriko dokumentuen bidez nabaria dirudi, Catalina beharrean "Marina" ipini izana, Maria de Iturbe seroraren edo dokumentua idatzi zuen izkribauaren akats hutsari dagokiola. Ez litzateke arrarora izango, dokumentuetan ere usu ageri zaigunez, "la freira de Eguren" edo "la beata de Eguren" (edo euskaraz, "Egureneko serora") bezala ezaguturik, izenarekin akatsen bat izatea.

“del mismo capitan a cuenta de la dicha deuda” jasoak omen zituela esan zuen. Baina kapitainak, antza, gehiagorik ordaintzeko asmorik ez zeukanez, serora Bergarako alkatearen eta justiziaren aurrera joan zen kexuz, eta kapitainaren ondasunen aurkako aginduak lortu zituen. Miguel Perez kapitainaren herriko ondasunen administratzailea Joan Perez de Arteaga bertako numeroko izkribaua zen, eta honek, auziak lehenbailehen bukatu asmoz, gaia “su letrado” bezala aipatu zuen Monasteriobide doktorearekin kontsultatu zuen. Azken honek seroraren eskakizuna bidezkoa zela eta ordainketa ezin ekidin zitekeela, eta onena besterik gabe ordaintzea zela erantzun zuen. Konbentziturik, serorarekin hitzarmena egin zuen Joan Perez de Arteaga izkribau eta kapitainaren ahalduak, ia 16 dukat hitzarmenaren momentuan (1606an), eta gainontzeko 17 dukat, 3 erreal eta $\frac{3}{4}$ -ak hurrengo urtean ordainduz¹³⁴⁹.

Besteren ondasunen administrazio lanen kasu interesgarrietariko bat Bergarako Francisca de Igueribarrena dugu. 1578an, Pedro de Ondarzak seroraren aldeko ahalorde orokor bat helarazi zuen, honek bere Bergarako ondasun guztien gaineko administrazioa izan zezan (saldu ezik, beste edozein dilijentzia egin ahal izan zezan: alokairuan ipini nahi zituen baldintza eta prezioen arabera, ordainketa-kartak, finikitoak nahiz kontratuak helarazi, etab.). Ahalordearen arabera, halaber, Pedro de Ondarzak herrian zeuzkan eta izan zitzakeen auziei eta arazoei bere izenean Bergarako alkatearen aurrean, Probintziako korrejimentuaren aurrean, nahiz beste edozein epaitegiren aurrean aurre egiteko ahalmena ere eman zitzaion¹³⁵⁰. Pedro de Ondarza hau, jarraian ikusiko dugun dokumentuko bere etxe nagusiaren kokapenak (Bidekurutzetan) adierazten digunez, Ondarzarren leinu-etxearen bigarren adarraren buru eta Trinitatearen komentuaren fundatzaile izan zen Ondarza komendadorearen (Andres Martinez de Ondarza y Uzarraga) semea zen, eta bere garaian, leinu-buru izatera iragan zen¹³⁵¹. Ondarza etxeko hainbat partaide Bergarako alkate izan ziren garai batean bizi izan zen, eta 1581-1582 bitartean, kargua berea izan zuen (Oliveri Korta 2009, 485-486).

Francisca de Igueribarrek, esandako ahalordeaz baliatuz, 1578an bertan Pedro de Ondarzak Bidekurutzeta kalean “junto a sus cassas principales” zeukan etxe baten alokairua helarazi zion Marta de Arizagari, urteroko 60 errealen truke¹³⁵². Era berean, 1580an, “en nombre de don Pedro de Ondarza vezino de la dicha villa como su poderhauiente” ari zela, Juan Perez de Ariztizabalen alde 2.900 “y tantos” marabeditako (ia 8 dukat) ordainketa-karta helarazi zuen,

que el dicho don Pedro de Ondarça su parte ubo de hauer del conçejo de la dicha uilla el año pasado de quinientos y setenta y ocho del juro que de la dicha cantidad en cada un año tiene puesto y situado por preuilegio de su magestad sobre el dicho conçejo y su alcauala de los quales en el dicho nonbre siendo neçesario se dio y llamo por bien contenta y pagada [...] el dicho Joan Perez de Ariztizabal como arrendador que fue de la dicha alcauala el dicho año los treinta y seis rreales de ellos a

¹³⁴⁹ Hitzarmena: GPAH-AHPG 1/0101, 165r-166v; 1607ko ordainketa-karta: GPAH-AHPG 1/0218, 115r-115v.

¹³⁵⁰ GPAH-AHPG 1/0118, 157r-157v.

¹³⁵¹ Pedro Perez de Ondarza ere deituriko Pedro de Ondarza honez gain, Ondarzarren leinu-etxearen hirugarren adarraren fundatzaile izan zen lehen Pedro de Ondarza batekin hasita, beste 3 Pedro de Ondarza ere (aitonatik ilobara) izan ziren Francisca de Igueribar serora bizi izan zeneko garaikide. Garai berean Bergaran, San Pedro parrokiaren serora izan zen Catalina de Ondarzak berriz, aipagai dugun Pedro de Ondarza (Ondarza komendadorearen semea) bigarren-iloba zuen; aipatu ditugun besteei zegokienez berriz, lehena (leinu-etxearen hirugarren adarraren fundatzailea) osaba zuen, bigarrena (“Pedro Perez”, “el mozo” bezala aipatua) lehengusua, eta hirugarrena bigarren-iloba (bigarrenaren semea zena) (Tola de Gaytán 1959a, 119; 137-138).

¹³⁵² GPAH-AHPG 1/0118, 354v-355r.

ella misma y la cantidad rrestante a mi el dicho escriuano como a çesionario del dicho don Pedro de Ondarça y en rrazon de la entrega e paga de ellos¹³⁵³

Ez zen edonolako kargua izan Francisca de Igueribarrek Pedro de Ondarzarengandik jaso zuena, bere garaian herriko leinurik indartsuenetariko bat izan zeneko partaide garrantzitsu bati buruz baitiardugu; testuinguru hartatik, besteak beste, gortean, erregeen gertuko zerbitzuan lan egin zuten pertsonaiak irtenak ziren.

Hainbatetan aipagai izan dugun Bergarako Maria de Izaguirrek ere hartu zituen administrazio lanak bere kargu, bati baino gehiagori zegozkienak hartu ere. 1622an, Geronimo de Aguirreren (“ya difunto uezino que fue de la dicha villa y de la ciudad Segouia”) ahaldun zen heinean ari zela, honek Zubieta kalean zeuzkan etxe batzuk Joan Martinez de Amileta eta bere emazte Marina Perez de Inurrigarrori eman zizkien alokairuan, 8 urterako eta urteroko 4 dukat ordaintzearen truke, eta “con cargo de pagar las fogueras hordinarias de entre año”¹³⁵⁴. 1627an berriz, serorak “una heredad mançanal que es a su quenta y cargo en Çalduendo pertenesçiente a la señora doña Madalena de Aldaetta” alokatu zion Domingo de Artizi, alboko zenbait lurretan laboreak landatzeko posibilitatearekin, urtero sagastien etekinak erdizka egitearen truke¹³⁵⁵. Kanpoan zeudenen bertako ondasunak bezalaxe, bertan zeudenen kanpoko ondasunak ere administratu zitzaketen serorek, Maria de Izaguirreren kasuak agertzen digunaren arabera.

Azken kasu interesgarri bat dugu Oñatiko San Migel parrokian serora izan zen Maria Lopez de Estrañorena. Serora honen ama Bidaurretako komentuan moja sartua zen, “doña Maria de Trinidad Gauna” izenarekin. Maria Lopezek bere testamentuan bere amak zor zizkion 1.257 errealak dohaintza bidez barkatu zizkion, Altxibarreko etxeen administrazioaren kargu hartu zueneko hainbat azalpen ematen dizkigun partida batean:

digo y declaro que por rruego y persuaçion de mi señora madre Doña Maria de Trinidad Gauna rreligiosa en el combento de la Sanctissima Trinidad de Vidaurreta en muchos años administre las casas prinçipales con sus casas y orno pegantes acesorias suias y tierras de Alçiuar que fueron de Miguel Saez de Gauna su señor padre y cobre sus rrentas y con su procedido en los dichos años y en otros muchos sustente a su hermano Juan Andres de Gauna su hermano macebo enfermo y ympedido y baldado dando en todo el dicho tiempo el Bestuario y calcado necesario y despues de su falleçimiento le enterre conforme la calidad de su Persona y de sus Padres y Antepasados y en los dichos años gaste muchos en los rreparos de las dichas casas y orno de que di quantas con cargo y descargo por menudo a la dicha señora madre Trinidad de Gauna como constara por los Papeles que estan en mi Poder a que me rrefiero en las quales dichas quantas ago alcance a la dicha haçienda de mil y dosçientos y çinquenta y siete rreales de los quales hago graçia y donaçion a la dicha señora madre Doña Maria de Trinidad y Gauna para que los cobre en mi nombre como hija maior de aquella casa para su necesidad y si no los hubiere cobrado en sus dias es mi uoluntad no pase esta mi dinero a otra persona alguna sino que ago donaçion a los subcesores en los sobre dichos y hacienda¹³⁵⁶

Bere amaren jaiotetxe izan zen eta urte askoan zehar kargupean izan zuen Altxibarreko etxea bere aldeko zorrez aske egon zedin nahi zuen Maria Lopez de Estrañok, –beste zenbait kasutan ikusi ahal izan dugun bezala– etxearen mantenurako asmoz, bere amaren alde, eta honen faltan, “a los subcesores en los sobre dichos y

¹³⁵³ GPAH-AHPG 1/0120, 113r-113v.

¹³⁵⁴ GPAH-AHPG 1/0255, 237r-238r.

¹³⁵⁵ GPAH-AHPG 1/0257, 20r-21r.

¹³⁵⁶ GPAH-AHPG 1/3194, 102r-107v.

hacienda” egindako dohaintza baten bidez. Etxeen maneian –eta bere osabaren artapenean– izan zituen administrazio lanen adibide bat 1633an aurkitzen dugu; urte hartan, beti ere “doña Maria de la Trinidad” bere amaren izenean, etxe baten eta bertako lursail eta ondasunen alokairua eman zuen Domingo de Gorospe eta Magdalena de Garcia senar-emazteen alde, urteroko 2 dukat eta ½-ren eta lursailen frutuen zenbait portzentaiaren truke¹³⁵⁷.

Administrazio lan hauek zerbait azaltzen badigute, hau, serorek inguratzen zituen gizarteagan sortzen zuten konfidantza da. Albazea bezala edo ahaldun bezala, zenbait serorek hainbat pertsonen –eta hauen artean, familia-kideen eta pertsona boteretsuen– ondasunen administrazioa izan zuten esku artean, ondasun eta diru-kopuru handiei zegozkien erabakiak hartuz. Eta guzti hau, gehienen kasua zen bezala, idazten eta irakurtzen jakin gabe; alabaina, nabaria da askok kontuak egiten ongi zekitelara, jarlekuetako zerbitzuetatik, zentsuetatik, maileguetatik eta beste hainbat negoziotatik lortzen zituzten etekinek garbi utzi izan digutenez. Gainera, pertsona boteretsuek halako erantzunkizunak seroren eskutan utzi izana, hauek legearen eta bere instituzioen aurrean konfidantzazko pertsona lez zeukaten zilegitasuna azaltzen digu. Ez dezagun ahaztu, beste kasu batzuetan, antzerako lanak –Aro Berriko gizartearen baitan ardatzekoak izan ziren– izkribaei, edo batxilerrei, edo doktoreei esleitu izan zitzaizkiela. Hala zen adibidez, kapitulu honen hasieran ikusi bezala, Amezqueta kapitainak Bergaran zeuzkan ondasunen administrazioaren kasua, eta kasu honetan ageri zaigun lez, aintzat hartu beharrean gaude, albazea nahiz ahaldun lez serorek izan zituzten auzietan pertsona partikular boteretsuei eta hauen ahaldunei aurre egin behar izan zirela. Hau, bere kabuz, aski esanguratsua dugu serora hauek izan zuten itzala, errespetua eta boterea aditzera emateko.

VI. 3. BESTELAKO LANAK

Aktibitate garrantzitsu bat, Bergarako Soledadeko neskatxek ikastetxeari eskainitako kapituluaren txertaturik azaltzen saiatu garena, irakaskuntzarena dugu¹³⁵⁸. Hemen ez gara jada emandako azalpenetan luzatuko, baina esandakoak laburbilduko ditugu. Ikusi ahal izan dugunez, oinarrizko irakurketa eta idazketa ikasketak Aro Berri guztian zehar maila sozial eta ekonomiko altuko oso neskatxa gutxiengana baino ez ziren heldu izan, gehienetan, mojen komunitateen eskutik. Baina beste maila bateko neskatxek irakaskuntza (eta zenbaitetan baita mutikoen ere), katekesia, emakumeen etxeko lanak eta ehungintza eta joskintza kontuak baitaratzen zituztena, oso ohizko lana zen seroren artean, Erdi Aroan bezalaxe, Aro Berrian ere; zoritxarrez, dokumentuetan ez zen gehiegitan jaso izan, hauek helaraziak izan ohi ziren motiboen artean aktibitate honek ez baitzuen leku berezirik izan ohi. Azken finean, asistentzia sozialaren eta karitatetaren inguruko aktibitate bat gehiago zen. Serora nagusiek serora-laguntzaileei karguaren inguruan irakasten zizkieten langintza eta aktibitateez bestalde, hainbat izaten ziren seroren taldeengana edo bakarkako serorengana neskatxak emakumei zegozkien oinarrizko betekizunak ikastera bidaltzen zituzten gurasoak, auzoetan ermitetara eta hiribilduetan seroren taldeen etxetara. Komentuek ere, bestalde, hartu zuten zenbaitetan funtzio sozial hau euren gain.

Hezkuntza lanez aparte, lekuan lekuko eta garaian garaiko ohituren arabera, baziren parte hartu zezaketen beste hainbat aktibitate ere; Aguirre Sorondok, esaterako, parrokiako seroraren lanez diharduela "fabricaba las hostias" aipatzen digu (Aguirre

¹³⁵⁷ GPAH-AHPG 1/3091, 81r-81v.

¹³⁵⁸ Ikus IV. 4.3. azpiatalean, 412-413 or.

Sorondo 1995a, 110), eta Sorazuk ere Gaintzako (Gipuzkoa) parrokian "Mezatarako osti handiak eta txikiak" egitea seroraren lana zela aipatu zuen (Sorazu 2009 -1993-, 22). Garmendia Larrañagak ere jaso zuen langintza hau, Berastegiko (Gipuzkoa) parrokiako seroraren emolumentuen inguruko 1738ko hitzarmen batean (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 429). Autore berberak Tolosako (Gipuzkoa) Urkizu auzoko San Pedro ermitan 1789an hil berri zen seroraren ordezkari -hauen desagerrarazte aginduari jarraiki- ermitau bat kargura sartu zenean honi zehaztu zitzaizkion betekizunen berri eman zigan; hau da, ermitauak seroraren ordezkotzat aintzat hartu behar zituen betekizunak ziren. Beste azalpen batzuetan falta diren xehetasunak eman ziren bertan, ermitako liturgiaren gorabeheretan serorak zeuzkan zenbait lanen berri emanez:

Que haya de asistir el dicho Zunzunegui continuamente en dicha Ermita, poniendo en ella persona capaz que ayude a misa siempre que se ofreciere haber de celebrar en la misma.

Que haya de ser de su obligación poner oblación de vino, ostias y velas para todas las misas que así se celebraren en la dicha Ermita. [...]

De poner al sacerdote que fuere de víspera a celebrar misa en dicha Ermita la lumbre, luz y cama, y componerle la cena y de tener la dicha Ermita y su casa con todo aseo y limpieza

Ohizkoena seroren eginbeharren hainbeste xehetasunetan ez sartzea bazen ere, kasu honetan azalpen konkretuagoetara heltzea nahiago izan zuten, badaezpada, ermitau berriak gogoan izan zituzten. Beste datu interesgarri bat ere badaezpada Garmendia Larrañagak jarraian, XIX. mendearen bigarren erdialdeari dagokiona (1864-1865): Belauntzako (Gipuzkoa) parrokiako serorari tenpluaren dorrean zegoen erloju publikoaren zaintzagatik emandako 44 errealek ordainketa (*Ibid.*, 415). Duvertek, etnografiaren oinarrian, Iparraldeko seroren eta beraien laguntzaileen beste zeregin bat ere aipatu zigan, kutsu sakratuduna: bataiarriko ura ekartzea, eta bertan gatz botatzea (Duvert 1991, 5, 23). Sorazuk, Gaintzako (Gipuzkoa) seroretaz ziharduela, "nahiz prozesioa, nahiz errotatiba eta konjuruak gertatzean" parte hartzen zutela jaso zigan, ondorengo beste eginkizunarekin batera: "Apaiza eta Sakristauarekin batera bidean doazela ur bedeinkatua eraman, eta bide-gurutzetan, ura bota, auzotarren bedeinkapenerako Santuen letaniak abestuz" (Sorazu 2009 -1993-, 23). Aranak ere jaso zigan langintza berezirik, Bilboko serora batek hartzen zuen honako zeregina kasu: "todos los sábados recorría las calles tocando la campanilla para recordar que se hiciera la oración por las almas del purgatorio" (Arana 1992, 103).

Beste esparru garrantzitsu bat ere bada, lan honek izan dituen mugapenengatik, beste behin, ikerketatik kanpo utzi beharra izan duguna: serorek kofradietan zeuzkaten eginkizunena. Ez dut kofradietako libururik eta bestelako dokumenturik ikertzeko paradarik hartu ahal izan, baina banago, 1522an fundatua izan zen Tolosako (Gipuzkoa) Izaskuneko santutegiko Andre Mariaren kofradiari buruz Garmendia Larrañagak dioskuna beste hainbat lekutakoendako ere baliagarria izango ez ote zen, nahiz eta aipua adierazgaitz xamarra izan: "no hay duda de que las seroras ejercen su cometido dentro del influjo de esta Asociación piadosa" (Garmendia Larrañaga 2008 -2007-, 416). Aranak ere oso azaletik aipatu zigan gaia, Larreako (Araba) eta Lekeitioko (Bizkaia) kasuak oinarrian harturik: "parece que acogían en su ermita las reuniones de Cofradías y Hermandades: ...*Ytem ay en la hermita seis bancos y mesas donde suelen comer el día de la cofradía*" (Arana 1992, 103). Elgetako Santa Maria Magdalenako kasua ere berbera zela dirudi, ezen, 1698an Francisca de Berraondo eta Luisa de Ubera seroren kargu utzi zituzten inbentariaturiko ondasunen artean, kofradeendako jarlekuak ere bazeuden: "y ten en la sala de arriba se allan seis asientos de tabla para los cofrades" (San Martín 1975, 174).

**VII. SERORAK EMALE: GIZARTE ETA FAMILIA
BAITAKO ERAGIN SOZIOEKONOMIKOA**

Deskribatzen joan garen aktibitateen bidez, jada modu nabarian ikusi ahal izan den bezala, serora batzuek aberastasun esanguratsuak pilatzera hel zitezkeen. Honek, erlijiozko bizimodua zeramaten emakumeak izateak zekarzkiekeen begirune eta errespetuaz beste, familiaren eta gizartearen baitan kokapen errespetagarri bat ematen zien, beste era bateko “errespetu” bati zegokiona. Familia, etxe, nahiz leinu baten gainbehera edo gorakada sozial eta ekonomikoa, momentu jakinetan, seroraren baten esku izatea gerta zitezkeen, zenbait kasutan ikusi ahal izan dugun eta jarraian zabalago azalduko dugunez.

Ondorengo orrietan, aberastasun eta ondasun propioen gain zeukaten administrazioarako askatasuna medio familiaren baitan bezalaxe gizartearen baitan ere izan zezaketen eraginari neurria hartzen saiatuko gara, dohaintzei, oinordekotzei, eta beste tankera batzuetako ekonomiaren alorreko erabakiei erreparatuz. Testamentuek alderdi hauei ekiteko landuko dugun oinarri dokumentalaren parte handi bat osatzen dute, beste edozein pertsonaren kasuan bezala, heriotzaren orduko dohaintzek eta oinordeko izendapenek bizi izan ziren testuinguruarekiko landu zituzten erlazioen erretratu orobiltzaile bat eskaintzen baitigute, bizitzan zehar pertsona eta instituzio ezberdinekin izandako erlazioak ondasunen eta aberastasunen banaketaren inguruko borondateen isladan laburbiltzen dituenak. Bestalde, edo horrez gain, dohaintzen eta oinordekotzen esleipenek seroren artean ohizkoak ziren tendentzia batzuek ere azaltzen dizkigute, familien eta gizartearen baitan betetzen zituzten funtzioen eta garatzen zituzten dinamiken adierazle ere badirenak, eta generoaren, eta familia eta gizarte baitako kokapenaren arabera jarraibide jakin batzuen berri ematen digutenak. Ikus dezagun seroren eragin sozial hauek nora eta nola bideratzen ziren.

VII. 1. FAMILIA-KIDE ETA LAGUNEKIKO ERLAZIOAK

Ikerketaren atal honetan eta ondorengoetan, gertuagoko jarraipen dokumentala egin diegun XVI-XVII mendeetan bizi izandako 35 seroren dohaintzez, zentsuez eta bestelako dokumentuez beste, ardatz eta oinarri nagusitzat eskuratu ahal izan ditugun 99 seroren testamentutatik ateratako datuak baliatuko ditugu. Espazioen arabera, testamenturik gehien Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatzen digutenean dauzkagu, 53

(30 Bergaran, 11 Elgetan, 11 Antzuolan). Leintz bailaratik eskuratu ahal izan ditugunak 25 izan dira (13 Arrasaten, 4 Aretxabaletan, 3 Eskoriatzan, 4 Leintz Gatzagan, eta Aramaio 1, hemen txertatu duguna), eta Oñatin berriz, 22. Garbi dago beraz, informaziorik gehien lehen espaziotik heldua zaigula, eta datuak, hortaz, lehen espazio horretarako aberatsagoak eta esanguratsuagoak izango zaizkigula.

Halaber, testamentu hauek zerbitzuen espazioen arabera banatu litezke: hiribilduetako parroketako serorak (denera 21: Bergaran 11, Elgetan 2, Antzuolan 1, Eskoriatzan 1, Oñatin 6), auzo edo elizateetako parroketakoak (denera 8: Antzuolan 2, Arrasaten 2, Aretxabaletan 2, Eskoriatzan 2), ermita eta santutegietakoak (denera 29: Bergaran 7, Elgetan 4, Arrasaten 3 -1 zalantzarria-, Leintz Gatzagan 3 -Dorletako santutegikoak denak-, Oñatin 12), ospitaleetakoak (denera 4: Elgetan 3, Oñatin 1), komentuetoakoak (Oñatin 1) eta tenpluekiko lotura gabe ageri zaizkigunak (denera 35: Bergaran 12, Elgetan 2, Antzuolan 8, Arrasaten 8, Aretxabaletan 2, Aramaion 1, Oñatin 2). Parrokietakoen (29), ermita eta santutegietakoen (29), eta tenpluekiko lotura gabeko seroren (35) arteko proportzioak nahiko ekilibratuak ageri zaizkigu. Eta banaketa are berdinduagoa liteke, ezen azken hauen arteko gehienak hiribilduetako bakarkako serorak zirela badakigu ere, zenbaiten kasuan, ermitetako edo parroketako serorak izanak litezke, nahiz eta testamentuan ez zuten datu erabakigarriarik aipatu. Leintz Gatzagaren kasuan, bertan Dorletako Andre Maria santutegiko seroren testamentuak baino ezin izan ditugu eskuratu, bilaketa dokumentalean izandako mugengatik¹³⁵⁹.

Baliatuko dugun beste banaketa bat kronologikoa izango da, seroren aurkako neurriei eta desagerrarazte saiakerei buruzko kapituluan azaldukoaren arabera, XVII. mendeko lehen hamarkadetako desagerrarazte aginduak eta hauen ondorioak seroren bizimodurako erabakigarriak izan baitziren. Garai haiek bizi izan zituzten seroren testamentuei muga bat ezartzerakoan zenbait urteren tartea aintzat hartu beharrean gaude, desagerrarazte aginduaren aurretiko egoeraren adierazle zaizkigun azken serorak baitaratzeko; konbentzionalki 1650ean ezarri dut, Aro Berriko mendeen gutxi gora beherako erdigunea ere ematen digun data delako, eta jarraian azalduko denez, aurretiko eta ondorengo egoeren ikuspegia jasotzeko mugarri adierazgarria dela ikusi ahal izan dudalako. Data honetarartekoak (1650a barne), 56 testamentu ditugu: Bergaran 19, Elgetan 10, Antzuolan 4, Arrasaten 12, Aretxabaletan 4, Eskoriatzan 2 eta Oñatin 5. Eta 1650az ondorengo 43ak honela banatzen zaizkigu: Bergaran 12, Elgetan 1, Antzuolan 7, Arrasaten 1, Eskoriatzan 1, Leintz Gatzagan 4, -Leintz bailaran txertatu dugun-Aramaion (Araba) 1 eta Oñatin 17.

Lagin honek, noski, zenbait zehaztapen behar ditu. Alde batetik, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatzen duten espazioan, Elgetako protokoloetako bilaketen muga kronologikoa aintzat hartu beharrean gaude, 1650az geroztiko testamentuen urritasuna ez baita halabeharrez hauen faltak sortua, gure bilaketen gorabeheren ondorio baizik¹³⁶⁰. Hein horretan, 1650az geroztiko garaietarako, Antzuolako testamentuek osatzen dizkigute espazio horretako testamentuetan Bergararekin batera jasotzen diren datuak. Antzuolaren kasuan, dokumentazioaren kronologia hiribildutzat jaso zuen fundazioa 1629an izateak ezartzen du; bertako izkribautzak ordundik aurrera abiatzen dira, Bergarako izkribautzetatik bananduz. Leintz bailarak azaltzen digun egoeran oster, ez dute ez bilaketa dokumentalen gorabeherak, ez izkribautzen faltak eraginik izan. Itxura guztien arabera, XVII. mendearen lehen hamarkadetako desagerrarazte saiakeren ondorioak azaltzen dizkigute. 25 testamentutatik 6 baino ez dira 1650az geroztikoak, eta hauetariko 4, kasu berezia dugun Leintz Gatzagako Dorletako

¹³⁵⁹ Ikus ikerketako bilaketa dokumentalen ingurukoak I. 3. atalean, 30 eta hurr. or.

¹³⁶⁰ Ikus aurreko oinpeko notan aipatu berri dugun kokapenean.

santutegiko serorenak ditugu. XVII eta XVIII. mendeetan zehar Leintz bailarako parroketan sakristauen emazteak ziren serorak eta ermitetan ermitauak eta hauen emazteak izan zirela badakigu ere, hauek ez ziren, antza, jada propioki seroratzat -edo "beata", edo "freira"tzat- hartzen; ez dugu behintzat gure terminoen araberako bilaketetan hauen arrastorik aurkitu. Eta ostera, kontrakoa gertatzen zaigu Oñatin. Ez dakigu garbi Oñatiko seroren testamentuen artean 1650a baino lehenagoko hain gutxi (5) zer dela eta ageri zaizkigun. Baina 1650az geroztikoen ugaritasuna (17), hain zuzen ere, Leintz bailarako ermitetan zeuden ermitauen emazteen kasuan ez bezala, ermitauen emazteak seroratzat hartuak zirelako da. Ikusi dugu nola 1769ko desagerrarazte aginduaren ondorengo dilijentzietan errealtate hau garbi azaltzen zaigun, ermitauaren emaztea "beata" bezala izendatzen zutenean. Hau da, seroren erlijiozko egoeraren inguruko hautemapenek dugun lagin dokumentalean eragiten dute, eta Leintz bailaran XVII. mendean bigarren erdialdean eta XVIII. ean ermitetan izan ziren serorek, agian, dirudiena baino antz gehiago izango zuten Oñatikoekin, nahiz eta dokumentuetan isladaturiko egoeran, erabat laiotzat hautemana izan.

Eta informazioaren oinarritzat testamentuez baliatuko garenez gero, dokumentu hauen errepresentatibitateari buruzko azalpenen batzuk ere eman beharrean gaude; Madariaga Orbeak XVII-XIX mendeak bitartean Euskal Herriko -eta kostalde kantabriarreko- testatzaileen proportzioa %20-25 bitartekoa izan zela diosku, Europa hegoalde testatzailearen eta iparralde ez-testatzailearen bitarteko portzentaia batean. XVII. mendean eta XVIII. enaren lehen erdialdean mailak altuagoak izan ziren, mende honetako bigarren erdialdean, XIX. mendean zehar areagotuko zen gainbehera bati hasteko. Honen erakusgarri Bergarako eta Oñatiko datuen berri ematen digu, eta beraz, Debagoienean -edo herriotan behintzat- ohiturak halakoak izan zirela nabaria zaigu. Baina testamentua helarazi zuten seroren proportzioa, herrietan zeudenekiko, halakoa al zen? Madariaga Orbeak ikerturiko biztanleria orokorraren laginean errepresentaturik zeuden gizarteko maila eta esparruen inguruko azalpenen arabera, baietz dirudi:

Estos porcentajes son suficientemente representativos del conjunto de la población tanto en lo que hace al género, como a la edad o a la diversidad socio-profesional. Es cierto que se dan más testamentos de personas maduras, pero tenemos suficientes ejemplos de los otorgados por jóvenes; en cuanto al equilibrio entre los testamentos dados por hombres y mujeres, casi responde al reparto demográfico real entre sexos. En cuanto a los testamentos otorgados por los distintos grupos sociales están sobrerrepresentados los mayorazgos y propietarios e infrarrepresentados los criados, jornaleros, arrendatarios y sobre todo los pobres de solemnidad. A pesar de ello, hay suficientes ejemplos de cada grupo como para hacerse una idea de sus inquietudes y deseos a la hora de escriturar sus últimas voluntades (Madariaga Orbea 2007, 29)

Ikerketan zehar ikusi ahal izan dugunez, seroren jatorriak gizarteko maila ezberdinetan zehar zabal hedaturik zeudenez, hitz hauek aplikagarri zaizkiela ulertu beharrean gaude. Botere ekonomikoaren araberako errepresentazio mailen ezberdintasunez beste, testatzaileen %20-25eko portzentaia, beraz, seroren talde sozialerako ere ontzat eman liteke, termino orokorretan. Eta honek, eskuratu ahal izan ditugun testamentuak 99 izan direla kontutan izanik, Aro Berrian zehar Debagoienean izan ziren seroren ggb.ko kopurua 400-500 inguruan ibili zela esan nahiko luke. Hori noski, eskuratu ditugun testamentuak serorek helarazi zituzten guztiak izan zirela ontzat ematekotan (egin ezin litekeena, ez baitugu testamentu guztiak aurkitu ditugunik uste), bestela, kopurua are gorago joango bailitzateke. Zifra sinesgarriak ote? Ezin erantzun, oso zaila baitzaigu, besteren artean batez ere, desagerrarazte aginduek seroren kopuruetan eragin zituzten gorabehereri neurria hartzea. Gera bitez baina azalpen hauek

emanak, testamentuetatik jasotzen joan garen eta jasotzen joango garen informazioaren esangura egoki baloratu ahal izan dadin. Eta noski, jarraian azalduko ditugun aspektuekiko, espazio erlijiosoan eta bertako zerbitzarien aldeko dohaintzek eta arimen eskakizunetarako diruek, testamentua helarazi zuten seroren kopuruetatik, seroren kopuru errealeran izan zezaketen aldea gogora ekartzeko. Laginaren ezaugarri espezifikoak eta testatzeko ohituren inguruko kontsiderazio orokorrak aintzat harturik, bada, ekin diezaiozun testamentuen analisiari.

Mojen kasuan, klausurako munduarengandiko urruntzean askotan erlijiozko ahizpak garrantzitsuago bihurtzen baziren eta familia-kideekin eta gizartearekin zeuzkaten loturak hein batean desagiten ziren testuinguru bat sorrarazten bazuen, seroren kasuan osteran, erlazio hauek familia baitan bere garrantzia zeukan emakume batekiko ohizko harremanen egoeran bizi izaten ziren. Hau da, familiarekiko erlazioek estuak izaten jarraitzen zuten, eta gehienetan, ezkongabeak edo alargunak izan, izaten zuten serorek zahartzaroan norik artaturik, familia baitako testuinguruan. Ohizko kasuetariko bat zahartzaroko artapenaren kargu ilobek hartzea izan ohi zen, eta hala, seroren dohaintzen ohizko jasotzaileak izan ohi ziren, oinordeko ere askotan izendatuak izanez. Ez ziren falta beste familia-kideak ere, noski, ahizpak eta anaiak, lehengusinak, gurasoak, etab. ere; baina esandakoa joera nabaria dugu. Horrez gain, ondasun jakinen eta diruen sexuen araberako banaketarako jarraibide jakin batzuk izan ohi zituztela ere nabari izan dugu, zeinak, generoei esleituriko aktibitate esparruen logikari ere jarraitzen zion. Familiak kanpoko lagunei emandako ondasunek eta diruek ere, apezak, serorak eta tenpluetako bestelako zerbitzariak alde batera utziaz gero, generoen araberako aktibitate ezberdinen bidezko loturak iradokitzen dizkigute.

VII. 1.1. Etxearekiko erlazioak eta familiaren sostengua

Etxearen sostengua beraien erabaki askoren motibo izan ohi zen, eta seroren eta etxearen ekonomiaren arteko loturak, hauek seroratzara sartzearekin hasten ziren gehienetan, dotea ematerako orduan. Ikusi dugu seroren doteekiko eta areago, dotearen ematea berarekiko zein aniztasun handia zegoen Debagoiengan; lehenik eta behin, noski, Arrasateko eta Aretxabaletako parroketan XVII. mende bukaeraz geroztik XVIII.ean zehar izan ziren sakristauekin ezkonduko serorak, eta Debagoiena guztian zehar baina bereziki Leintz bailaran eta Oñatin garai beretsuetan izan ziren ermitauekin ezkonduko serorak beste nonbait sailkatu beharko genituzke, lehenek ez baitzuten doterik ematen, eta bigarrenak, dotea eman beharrean, errenta ordainduz bizi baitziren. Kasu hauetan serorek etxearen eta familiaren baitako testuinguruan zeukaten zeresan ekonomiko eta soziala, emaztearen ohizko egoerari zegokion. Serora ezkongabeen artetik, hiribilduetan leinu eta familia jakinen etxeetan eta hauen zerbitzura bizi ziren serorek ere ez zeukaten doterik ordaindu beharrik, inongo tenpluarekiko baino, beraien karguaren lotura leinu edo familiekiko ezartzen baitzen.

Bestelakoa zen dotea eman beharrez serora zirenen egoera, esan bezala, aniztasun handia agertzen diguna. Esaterako, antzerako garai eta testuinguruetan kokaturiko bi kasu zeharo ezberdin aipatzearren: Oñatin, 1589an Santa Katalina ermitako seroratzara sartu zenean jada zaharra behar zuen Mari Ramos de Laquidiolak izan (1593an erail zutenean, heriotza naturaltzat pasarazi nahi izan baitzuten); karguaren ematea Oñatiko bikarioari eskatu zion zuzenean, eta doterik ez zuen eman nahi izan, ezen “pues no tenia a quien dexar sus bienes sino es la dicha hermita”, izendapenean bertan ermita bera oinordeko egin baitzuen¹³⁶¹. Oso ezberdina izan zen osteran Oñatin

¹³⁶¹ OUA Z 1063.9, 7r-8r.

bertan zortzi urte beranduago (1597) Narria auzoko San Lorentzo ermitan Catalina de Laquitegurengan egin zuten izendapena; ermitaren zerbitzura sartzen zen laugarren serora zen, eta bere izendapena alde batetik auzotarren, Orueta batxilerra kapilauaren eta Maria Perez de Olazaran serora nagusiaren, eta bestetik Juanes de Sagarsurietaren eta seroragaiaren ahizpa Mari Ramos de Laquiteguren artean hitzartu zuten. Catalina de Laquitegui seroragaia, “donçella” zena, bere ahizpa nagusiak eta honen senarrak sartu zuten seroratzara, beste hiru serora zaharragoen serora-laguntzaile edo zerbitzari izatera

¹³⁶²

Beste mutur kronologikora joanez, XVIII. mendean ere, testuinguru historikoak, eta seroren euren testuinguruak eta bizimoduak hainbeste aldakuntza jasan zituelarik ere, egoeren aniztasunak handia izaten jarraitzen zuen; aniztasun honen berri emateko, garai eta testuinguru konkretu antzerakoetan emandako beste bi adibide ekar ditzakegu: Bergaran, Murinondoko Andre Maria ermitan, 1752an Manuela de Elcoro Ariztizabal izendatu zuten serora izateko, eta 1765ean, serora zaharraren heriotzean, bere alaba Josefa de Ezenarro izendatu zuten kargurako, ermitaren probetxu guztiekin “segun y en la forma que la referida su difunta Madre”¹³⁶³. Zenbait urte lehenago, herriko ermiten patroi ziren udal agintari berberak Uberako San Emeterio eta San Zeledonio ermitako seroratzarako izendapenerako beste era bateko motiboak izan zituzten; ziurrenez amarekin batera kargua bete izan zuen alaba bati seroratzatza ematetik oso urrun zeuden arrazoiak, aurreko atal batean ere aipatu izan ditugunak. Udal bilkura hasi zutelarik, serora zaharraren serora-laguntzaileari emana zioten lehenik kargua, baina sindikoak Melchor Antonio de Micolalderen lehengusina bati kargua ematea ondo legokeela iradoki zuen, herriak Melchor jaunarekiko zor handiak zituela eta; eta halaxe egin zuten, nahiz eta, bata eta bestearen artean, serora berriaren izena idaztea ahaztu zuten¹³⁶⁴.

Dotea ordainduz kargura sartu ziren serorek, aniztasun zabalaren baitan izanik ere, bazeukaten zerbait amankomunean: zegokien tenpluak jada dotea jasotzen zuenean zeukaten askatasun ekonomikoa (dotea ematen ez zutenek zuzenean, seroratzara sartzean jasotzen zutena). Seroren familien gaitasun ekonomikoak ere anitzak izan ohi ziren, baina batez ere landa-eremuetan, batzuetan, egoera horretara heltzea ere ez zen erraza izaten; familiak promes egindako dotea ezin ordaindua ere gertatzen zela ikusten dugu. Bestalde, parroketako eta ermitetako apezten eta bestelako zerbitzarien eta maiordomoen, eta seroren artean, askotan izaten ziren familiarterako loturak, seroratzaren esleipenean zerikusia zeukatenak. Baina azal ditzagun zenbait kasu, esaten dugun hau bere testuinguruan ikusteko.

Elizateetako eta auzoetako parroketan eta ermitetan, tenpluko maiordomoa eta serora ahaide ziren kasuak, izan ziren zenbait. 1553an, Arrasaten, Udala auzoko San Esteban parrokian, Domenja de Barrutiak, seroratzarako sarreran promes egindako 12 dukatetatik 10 ordaindu zituen. Diruak jaso zituen maiordomoa bere aita zen, Juan de Barrutia. 10 dukatak serorak berak ordaindu zituen, eta 2 dukaten zorra ere serorarena zen; bere aitak behintzat hala adierazi zuen: “los dos ducados rrestantes [...] debe la dicha Domexa de Barrutia freyla”. 1534ko kontuetan 2 dukaten zorra gogorarazi zuten, eta gero, zenbait urtetan kontua ahazturik gelditu zen. 1548an, bisitatzaila iragan zenean, Domenjaren 2 dukateko zorra gogoan hartu zuen (1543ko kontuetako akats bat zela eta), eta 1547an seroratzara sartua zen Marina de Barrutiari meatxu egin zion, dotea oraindik eman gabea zuela eta:

¹³⁶² GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

¹³⁶³ BUA 01 L/208, 101v-102r, 362r.

¹³⁶⁴ *Ibid.*, 276r.

uisitando la dicha yglesia fue ynformado que Maryna de Bengoa beata de la dicha yglesia que a gozado e goza de los bienes de la dicha yglesia e esençiones e premynençias e no ha leebado dote alguna a la dicha yglesia / Y mando su merced a la dicha Maryna trayga el dicho dote dentro de tress meses por modo e segun de la data e pena excomunyon e sy [???] dentro del dicho tiempo [???] no traydo el dicho dote la echen de la dicha casa e no goze de los bienes ny premynençias que a las beatas e sororas se suele dar¹³⁶⁵

Marina de Bengoaren dotearen ordainketak, Domenja de Barrutiarenak bezala, zenbait urteko atzerapena izan zuen. 1554ko bisitan seroraren dotea zela eta bisitatzailleak Martin Abbad de Urrutia apezari kontuak eskatu zizkion, eta 1556ko kontuetan jada dotearen 12 dukaten ordainketa ageri zaigu. 1561eko kontuetan berriz, nahiz eta 1556ekoetan Marina de Bengoaren dotearen ordainketa ageri zen, berriro aipatu ziren honek zor omen zituen dotearen 12 dukatak, beraien ordainketa –zorraz oinordekotzaren baten bidez jasoa edo izango zuen– Mateo de Leorragari zegokiola eta.

Marina de Bengoak dotea ordaindu –omen– zuen urte berean, 1556an, Barrutia etxearen inguruko beste emakume bat sartu zen (edo sartua zen) parrokiako seroratzara: Juan de Barrutia Echaguibelen alaba zen Catalina de Barrutia, 16 dukateko dotearen promesapean. Ez dakigu Juan de Barrutia hau Domenja de Barrutiaren aita berbera ote zen, maiordomoa izan zena, baina hala izatekotan, Domenja eta Catalina serorak ahizpak izango ziratekeen. Edozein kasutan, kontuen arabera, hurrengo urtean ordaindu zituzten 16 dukatak Juan de Barrutia berak eta bere anai Telmo de Barrutiak. Baina hara non, Marina de Bengoaren dotearekin gertatu bezala, 1584ko kontuetan Catalina de Barrutiaren dotea berriro azaltzen zaigun, baina kasu honetan, diru-sarreraren artean apuntaturik (ordaindu omen zutelako). Udalan kontuak hartzeko modu arraro xamarra zeukatela dirudi. Bada 1593an, Catalina de Barrutia serora hila zela eta, honen iloba zen –eta 1561ean ere maiordomo izana zen– Martin de Barrutia ordungo maiordomoari Arrasateko bikarioak (bisitatzaille lanetan) kontuak hartu zizkion, ezen:

auiendo benido a notiçia del dicho bicario que al tienpo que Catalina de Barrutia beata que fue de la dicha yglesia murio dexo çiertos bienes para sufragio de su alma y lo que sobrase dexaua por probecho de la dicha yglesia y queriendo tomar la quenta de los dichos bienes hizo llamar ante si a Martin de Barrutia sobrino de la dicha Catalina de Barrutia beata al qual abiendole reçiuido juramento se le hizo el cargo siguiente¹³⁶⁶

Eta seroraren ondasunen inbentarioa egin zuten, hiletetako gastuak zehaztearekin bat. Arrasateko bikarioa, agian kontu-liburuan Barrutiako seroren eta maiordomoen gorabeherak jarraitu zituelako, edo norbaitek zerbait esan izan ziolako, Martin de Barrutiak bere izeba seroraren dohaintzak ondo gordeko ote zituenaren inguruan mesfidati ageri zen, eta ondasunen berri parrokiako liburuan ere izan zedin nahi izan zuen¹³⁶⁷. Funtsean, Udalako San Esteban parrokiako serora hauen gorabeherak, bi gauza azaltzen dizkigute: maiordomo postua bezalaxe, parrokiako seroratzak ere etxe edo leinu jakin batzuk eskuratu ohi zituztela, kasu honetan Barrutia abizena zeramatenena, eta doteen ordainketa, batzuetan, luze joaten zela.

Bisitatzailen eta apezan aldetiko tankerako mesfidantzak ageri zaizkigu Bergaran ere, Murinondoko Andre Maria (edo San Blas) ermitan, Maria de Jauregui seroraren inguruan. Serora hau aipagai izana dugu jada, serorak ermitatik kanpo bizi izatearen eta ondasunak eta ornamentuak ermitatik ateratzean inguruan 1570ean

¹³⁶⁵ DEAH-AHDSS 3110/001-01, 38r.

¹³⁶⁶ *Ibid.*, 102r-102v.

¹³⁶⁷ *Ibid.*, 22r-104r.

bisitatzaileak eman zuen agindu bat zela eta¹³⁶⁸. 1555az (liburuaren hasiera) geroztiko kontuak Pedro de Jauregui maiordomoak emanak izan ziren, eta aurretik bere aita Joan de Jauregui izana omen zen karguan. 1564an Esteban de Jaureguirengandik Estibariz de Larrinagarengana iragan ziren maiordomo lanak, eta orduan agertzen zaigu lehen aldiz Maria de Jauregui serora ere, hitz-ematepean ermitaren kontuak ematen: “declaro que quitas algunas costas que auia hecho en la dicha hermita quedaba deuiendo quarenta e vn rreales”. 1570eko aipaturiko liskarrak, Maria de Jauregui bera eta beste seroraren bat edo batzuk seroretzetik kanpo bizi zirelako (zaharrena baino ez zen bertan bizi) eta ondasunen batzuk eramanak zituztelako izan ziren, eta 1587an, Joan Martinez de Beiztegui maiordomo zenean eta Bergarako bikarioa bisitan zela egindako inbentarioan, bi kutxa txiki serorak bereak bezala aipatu zituen, baina maiordomoak eta auzotar batzuk ezetz, ermitarenak zirela. Bikarioak ermitako ondasunak zirela erabaki zuen, eta “se asyentan en este ynventario por de la dicha ermita”. Serorari ez zitzaion gustatu antza, inbentarioa bukatu zutenerako joan egin baitzen. Ondasunak ermitako kutxa nagusian sartu ondoren giltza serorari eman behar zitzaionez, bikarioak, “rrespeto de que la dicha Maria de Jauregui beata pareçia que estaba yndispuesta de su persona”, itxuraz (ez zaigu oso garbi gelditzen) maiordomoari eman zion giltza¹³⁶⁹. Ez daukagu Maria de Jauregui buruzko berri gehiagorik, baina susmo bat airean gelditzen zaigu. Kasualitatea izan al zen, serorak lehenik bizilekuaren, ondasunen eta ornamentuen, eta gero inbentarioko kutxaren inguruko gorabeherak, Jauregutarrak maiordomotzat egoteari utzi ondorengo urteetan gertatu izana? Kutxaren kontuan, Joan Martinez de Beiztegui eta auzotarrak aurka agertu zitzaizkion; 1587an behintzat, baziren tentsioren batzuk seroraren eta auzotar batzuen artean.

Bergaran bertan, ermita baten inguruan behin eta berriro ageri zaigun beste abizen bat Arizpetarrena da: San Millan ermitako maiordomoen artean, 1539 eta 1623 bitartean, Arizpetarrak behin eta berriro agertzen zaizkigu. Eta testuinguru honetan ageri zaigun beste kointzidentzia bat, ermitaren administrazio orokorra beraien esku zeukaten serorena da. Maiordomoak eta serorak aita-alabak edo anai-arrebak zirenean, ermitaren kontuak serorek euren kabuz eramatea nahiko ohizkoa zela dirudi. San Millanen, 1568ko bisitan Lobiano doktoreak maiordomoei ermitaren administrazioa euren gain har zezatela agindu baino lehenago, ermitako serorek, edo hobe esan serora nagusiek, eman ohi zuten tenpluko kontuen berri. 1553a baino lehenago hil zen Maria Hurtiz de Ipenza, kontuetan agertzen zaigun lehen serora, eta 1562ko kontuetan jada lau urte lehenagotik kargura sartua zegoen Catalina de Arizpe serora nagusiaren berri ematen zaigu. Ermitetan ohizkoa zenez, litekeena da Catalina de Arizpe, “freyla mayor” izan aurretik, Maria Hurtizen serora laguntzailea izan izana. Maiordomoei dagokienez, 1562rarteko urteetan, hiru dira behin eta berriro agertzen zaizkigunak: Juan de Zupide, Martin Perez de Lamariano eta Catalina de Arizpe seroraren aita, Juan de Arizpe. 1639ra arte behintzat, era berean, lehen hauen ahaideak ziren maiordomoek jarraitu zuten karguan (Martin Lopez de Lamariano, Juan Martinez de Zupide, Pedro de Inurriagarro Arizpe, Esteban de Inurriagarro Arizpe). Maiordomotzak Lamariano, Zupide eta Arizpe abizendun pertsonen esku izan ohi ziren lez, serorak ere, hauen ahaide izan ohi ziren. Catalina de Arizpe, Juan de Arizperen alaba zen bezala, 1596 eta 1606ko kontuetan Arizpe abizendun beste serora baten berri eman zen, honek egin zituen dohaintza batzuen kobrantzaren ingurukoak zirela eta: Maria Martinez de Arizpe, noiz garbi ez badakigu ere, noizbait ermitako serora izan zena. 1606ko kontuak aipaturiko abizenik ez zeraman maiordomo batek eman zituen (urte haietarako salbuespen bakarra), Juan Perez de Ansoteguik; baina hau ere ahaidegoaren parte zen, Maria

¹³⁶⁸ Ikus VI. 1.2. azpiatalean, 455-456 or.

¹³⁶⁹ BUA, 04 CD/001, 30-70 fot.

Martinez de Arizpe serora, bere emaztearen (Maria Martinez de Munabe) izeba izana baitzen. Erlazio hauek iradokitzen diguten panoramari erreparaturik, 1568an bisitatzaillearen meatxuak izan zirenarte maiordomoek ermitaren administrazioaren gain ardura handiegirik hartu ez izanak ez dirudi batere arraroa. Diru-sarrereren eta gastuen zenbait gorabehera seroren esanen arabera (hala zehazten baita gehienetan) apuntatzeaz aparte, bisita askotan agertu ere ez ziren egin; berez, 1562rarteko kontuetan, batzuetan ez ziren maiordomoak aipatu ere egin, eta beste zenbaitetan, beraien ausentziaren berri eman zen¹³⁷⁰. Baina noski, serorak beraien alabak, arrebak edo izebak baziren, zergatik ez zuten –azken finean, bizilekua zuten– ermitako administrazioa beraien esku utziko?

Tankera orokor honetako beste kasu bat daukagu Aretxabaletan, Goroeta elizateko Santiago parrokiari serora izan zen Maria Garcia de Mendicuzarena. Bere 30 dukateko dotearen promesa Francisco de Mendicuza anaiak egin zuen, 1608an, oraindik parrokiako maiordomo ez zenean. Urte hartako kontuetatik kanpo, baina jada diruak jaso izana aipatu zen. 1610ean bisitatzailleak aginduriko kontuetan, jada Francisco maiordomoa zela, diru-sarreretan dotearen 30 dukaten ordainketa berriro ageri zaigu. Seroretxea egiteari ere ekin zitzaion, dotea, espreski honen eraikuntzara bideratzea hitzartua baitzuten. Baina 1612ko bisitan egin ziren kontuetan ere 30 dukatak berriro ageri dira, diru-sarrereren artean. 1613an Francisco de Mendicuza (“mayordomo que fue”) kexuz agertu zitzaion bisitatzaileri, Tomas Garcia doktoreak (1610ean) eta Armendia doktoreak (1612an) beraien bisitetan hartu zituzten kontuetan, 30 dukaten diru-sarrera behin eta berriro agertu zela eta, “no debiendosele haçer cargo de ellos mas de una bez”. Bisitatzailleak arrazoia eman zion, eta kontuen zuzenketa eta kitatzea egin zuen¹³⁷¹.

Ermitetako seroren eta beraien familia erlazioen inguruko beste kasu batek XVIII. mende erdi-bukaera aldera garamatza, eta apezekin erlazio familiarrak izateak ekar zitzakeen abantailen berri ematen digu. Kasu hau izan dugu jada hizpide (eta horregatik, labur xamar emango dugu bere berri), eta aipatu berri ditugunengandik oso testuinguru ezberdin bat agertzen digu: XVIII. mendeko ermitau eta serora ezkonduak, alokairuan zeukaten seroretxean edo ermitauren etxean bizi zirenak. Bergaran, Santa Katalina ermitan, 1737-1738 inguruan Joseph de Aldaeta ermitaua eta bere emazte Antonia de Lobiano sartu ziren ia gainbeheran eroria zegoen seroretxean bizitzera, eta honen berreraikipenari ekin zioten. Data hori eta 1758 bitartean, Santa Marina parrokiako apez izan ziren Miguel Antonio de Aldaetak eta Juan Tomas de Aldaetak sinatu izan zituzten kontuak, eta bitarte horretan, hauen ahaide behar zuen Joseph de Aldaeta ermitaua hil egin zen, Antonia de Lobiano serora alargunak kontuak ematearen kargu hartu zuelarik. Baina 1759an Sagastizabal zelako batek sinatu zituen kontuak, eta hara non, serora urte hartan bertan bisitatzailleekin arazoak izaten hasi zen, ermitaren administrazioaren, eta ornamentuen eta diruaren zaintzaren inguruko zalantzak eta mesfidantzak hasi baitziren. Zalantza eta arazo hauek 1763an bukatu ziren, –aurreko Aldaetatarrak bezala Santa Marina parrokiako apez zen– Rafael de Garitano Aldaeta kontuak sinatzen ageri zaigun urtean bertan. Zenbait urtetara seroren desagerrarazte agindua aurreikusitako zutela dirudi, 1768-1772 bitartean bere burua “Inquilino de la Casa de la Basilica de Santa Catalina” lez aurkeztu zuen Manuel de Aldaetak eman baitzituen kontuak, Antonia de Lobianok osteratuta, ermitako lursailak alokairuan hartuak zeuzkan bitartean (1773-1774 bitartean behintzat hala zela dakigu); hau da, Manuel de Aldaetak,

¹³⁷⁰ BUA MIK/SM0, 77-121 fot.

¹³⁷¹ DEAH-AHDSS 2335/002-01, 16r-21r.

seroretxearen alokairua bere izenean eginik, bere presentzia “ofizialarekin” oraindik ermitan zegoen Antonia de Lobiano serora babestu zuela dirudi¹³⁷².

Dotearen ematearekin ekin diegu azalpenei, eta familiak seroren eta seroratzen babesean izan zezaketen papera agertzen digun kasu batera heldu gara. Seroren eta euren familien arteko erlazioen parte bat joera horri dagokio, familiaren aldetik, seroraren kargurako sarrera eta bere mantenua faboratzera. Baina zalantzarik gabe, beste norabidea zeraman joera ere, serorak bere familia faboratzeko egiten zituen ahaleginena, oso garrantzitsua zen, garrantzitsuagoa ez bazen.

Jarraian garatuko ditugun familiekiko laguntzaren alderdiei lehen gainbegiratu bat emateko, 99 seroren testamentuen laginean ageri zaizkigun oinordekotzan eta dohaintzetan emandako zenbait ondasuni begira jar gaitezke. Bertan familia-kide -eta "lagun"- ezberdinei eman zitzaizkien ondasun garrantzitsuenean, hau da, etxeek eta baserriek, ondasun higiezinak (eta bestelako ondasunek) eta seniparteek, zenbait norabide eman dakizkigukete. 8. koadroa (931-934 or.) osatu dugu elementu hauen inguruko datuekin, azalpenen oinarri egin dakigun. 99 testamentuen artetik 18tan agertzen zaizkigu tankera honetako ondasunen familia-kide edo lagunaren aldeko dohaintza edo oinordekotza bidezko emateak esplizituki aipaturik, 1554-1761 bitartean. Beste hainbat oinordekoei zegokionaren baitan izango zirela pentsa liteke, ez baitziren beti honi zegokion ondasunak zehazten, dohaintzez aparteko guztiak zirela hautemanik. Testamentuen lehen gainbegiratu honen ondoren, dokumentazio ugariagoaren bidez garatuko ditugun kasuetan argi azalduko zaigu hau. Hala ere, gainbegiratu egitean familia-kideen sostengurako bailatzen zituzten ondasunen lehen ikuspegi bat jasoko dugu.

18 serora horien testamentuetan, bada, 5 etxe eta 2 baserri ageri zaizkigu, bat zalantzakorra. Etxeetariko 4 hiribilduetan zeuden (Bergaran Barrenkalen 2, Arrasaten "ferrerias" kalean 1 eta Oñatin Kale Zaharra atzekaldean "unas casas"), eta bestea Elgetan zegoen, Angiozar auzoan. Oñatiko kasua berezia dugu, etxea oinordekotzan emana izan baitzen, eta oinordeko, bere arima egin baitzuen. Halakorik egin zuela dakigun kasu bakarra, baina posibilitate hori ere bazela gogorarazteko balio diguna. Baserrien artean oinordekotzan 1633an emandako baserri bat baino ez dugu ziurra, Bergarako Lesarri Behekoa baserria, eta 1660an aipaturiko Oñatiko Uriarte baserria zalantzakorra dugu, dohaintzan serorari baserrietik zegokion seniparteak baino ez baitziren aipatu, baina baita baserriaren jarlekua ere. Honek seniparteen artean baserria bera ere bazegoela adierazi zezakeen, edo bestela, jasotzaileari jarlekuetik eman zitzaiona ehorzteko eskubidea izan zela, jarlekua beraren jabegoa beharrean. Ondasun higiezinak, hau da, batez ere ortuak eta lursailak, 11 kasutan aipaturik ageri zaizkigu. 3 ortuak ziren, hiribilduetan kokaturiko etxeekin emanak, eta beste 8ak lursailak, batez ere sagastiak, gaztainadiren bat, baina baita 200 dukatetan erositako garitarako lursail ("de pan sembrar") bat, eta hiribilduko lurzoru huts bat ere. Eta noski, ondasun higiezin hauei loturiko bestelako ondasunak (kupelak, troxeak, etxeko bestelako ondasunak, etab.) ere, hainbat kasutan aipatu zituzten. Azkenik, seniparteen dohaintzak, oinordekotzako emateak eta familia-kideen aldeko uko-egiteak 7 kasutan aipatu ziren; izen honen pean oso ondasun aldakorak sar zitezkeen, serora Herenean eta Bostenean "hobeturiko" alaba izan baitzitekeen (eta hala, etxeen edo baserrien eta hauen ondasunen parterik handiena egokitu), edo oster, hobeturiko seme edo alabarenez aparteko diru edo/eta ondasunen kopururen bati zegokiokeen. Baina kasu batean bezalaxe bestean ere, serorek xede ezberdinetarako baliatu zitzaizkien zegokien seniparteak, arimaren aldeko mezatara bideratzen, baserrien gainbehera ekiditeko dohaintzak eta uko-egiteak

¹³⁷² BUA 01 L/111, f.g. Ikus VI. 1.2. azpiatalean, 458-460 or.

egiteraino. Zentsu eta maileguekin batera, ondasun moeta hauek izan ziren, beraz, serorek familia-kideak onuratzeko eta familiaren eta gizartearen testuinguruan eragin ekonomikoa izateko baliatu zituzten bide nagusiak. Eta ondorengo adibideetan ikusiko dugunez, serorek leinuen, familien, etxeen eta baserrien patuetan izan zezaketen zeresana, orientazio xedetarako eman dugun lehen ikuspegi honek azaldu diguna baino esanguratsuagoa zen; hartarako, gainbegiratu eman berri deigun testamentuetako informazioaz gain, protokolutako bestelako dokumentuetako informazioa ere izango dugu oinarri.

Adibideetan barneratzeko, lehenik, seniparteen erabilerari erreparatuko diogu. Izan ziren, noski, zegozkien seniparteen kobrantza egin zuten serorak ere, ez zituzten guztiek hauek besteren etekinetarako bideratu¹³⁷³. Baina hala egin zuten kasu askotan, familien baitako solidaritatean eta sostengu ekonomikoan hainbat kiderendako zeukaten zeresan garrantzitsua azpimarratua geratzen zaigu. 1587an Antzuolako Maria de Igueribar serorak helarazi zuen seniparteen uko-egitea, seniparteen erabileraz gain, serorek familiarekiko eta bere etxearen eta leinuaren mantenuarekiko zeukaten atxikipenaren adibide esanguratsua dugu. Juan de Lizarriturri Igueribar zena eta Ana Juaniz de Igueribar ziren bere gurasoak, “la cassa y solar de Ygueribar suso”-ren jabeak. Alde batetik Ana Juaniz bere amaren eta Domingo de Lizarriturri Igueribar bere anai nagusiaren eta bestetik, Joan Abbad de Inarra apezaren (“clerigo presbitero”) artean hitzartua zegoen ezkontza medio egin zuen serorak uko-egitea. Domingo de Lizarriturri bere anaia eta Marina Juaniz de Inarra, Joan Abbad apezaren eta Maria de Azcarateren alabaren artekoa zen ezkontza, eta Ana Juanizek (seroraren ama) bere semea Herenean eta Bostenen soberakinetan hobetu zuen. Bere anaiak buru hartuko zuen etxe nagusiari on egitearren, Maria de Igueribar serorak bere seniparteei uko egin zien, anaiaren alde. Uko-egitea helarazteko aipatu zituen arrazoiak arras esanguratsuak dira:

[...] y para que juntamente con [...] y los demas bienes y arreo dotales con que por el dicho Joan Abbad de Ynarra la dicha Marina Juaniz su hija a sido y esta dotada para con el dicho Domingo de Lizarriturri Ygueribar su esposo y a la dicha casa de Ygueribar suso y su pertenesçido fuesse rreparada y conseruada la memoria y troncalidad y permanesçiese y fuese en haugmento como cassa y solar conoçida pagandoseles a ella y a los otros sus hermanos y hermanas por la dicha Ana Juaniz de Ygueribar su madre lo que les ha sido señalado y rrepartido a cada uno de ellos para en rrefasçion y pago de sus legitimas paternas y maternas y derechos de suplemento de ellas y de sus fucturas subçesiones y preteritos y por todo lo demas rrestante que les pueden y deuen pertenesçer [...] y deseando como ella desea de su parte que por su rrespecto ni de otros no venga a menoscauar y deteriorar a que ella y la dicha su memoria partiendose la dicha cassa y herençia entre ella y los dichos sus hermanos y hermanas // antes que hunida y entera permanesca en pie y se conserue de bien en mejor para que baya en haugmento la dicha casa y su memoria como de cassa y solar conoçida de hijosdalgo y a manera de subçesion de binculo y grauamen de mayoradgo y bienes ynpartibles y binculados conforme a la costumbre suso dicha [...]¹³⁷⁴

¹³⁷³ Magdalena de Urrojolaeguik (Elgeta, 1609) (GPAH-AHPG 1/1845, 25r-27v) eta Maria de Zubiak (Oñati, 1701) (GPAH-AHPG 1/3264, 6r-6v), esaterako, beraien testamentuetan hurrenez hurren zegozkien 20 eta 80 dukateko seniparteen kobrantza agindu zuten, azkenaren kasuan, bere hiletetako gastuetara bideratu beharrekoak zirela zehaztuz, albazea eta oinordeko izendatu zituen bere iloba Juan de Umerez eta Marina de Erostarberen kargu. Halatsu egin zuten, era berean, nahiz eta zegozkien seniparteen kopururik zehaztu ez zuten, Antonia de Idigorasek (Oñati, San Juan ermita, 1711) (GPAH-AHPG 1/3247, 683r-684r) eta Ignacia de Iralak (Oñati, San Antonio Abad edo San Anton ermita, 1755) (GPAH-AHPG 1/3304, 7r-10v) ere.

¹³⁷⁴ GPAH-AHPG 1/0147, 280r-283v -zuzenketan, 329r-332v-.

Etxearen eta bere ondasunen batasunaren alde beraz, -ez dakigu non- seroratzara sartzerakoan eman zitzaizkion 40 dukatetaz eta “arreo bestidos y otras cossas”-ez besteko guztiari uko egin zion. XVIII. mendearen erdialdean ere aurki litezke seniparteen uko-egiteak; 1761ean testamentua egin zuenean, Oñatiko Bidaurretako komentuan jarlekuen artapenean jarduten zen serora (eta ez moja) zen Francisca de Lizarralde, bere jatorri zen Bedoña baserriaren ordungo jabe zen Gregorio de Lizarralde bere anaiaren aldeko seniparteen uko-egitea egin zuen, baserria seniparteen zorretik askatuz¹³⁷⁵.

Seniparteen gaineko eskubideen bidez serorek familia-kideak faboratzeko zeukaten beste modu bat, azaldu dugunez, hauek testamentuan oinordekotzan edo dohaintzan ematearena zen. Hala, Eskoriatzan, Gellao elizatean, parrokiako Ana de Echabe serorak 1674an testamentua helarazi zuenean, oinordeko ere egin zuen Antonio Lopez de Echabe bere ilobari, gurasoengandik zegozkion “lexitima patterna y matterna” eman zizkion dohaintzan¹³⁷⁶. Oñatin, Uribarriko San Andres ermitako Maria Andres de Uriartek ere beste hainbeste egin zuen 1660an, Ignacio de Legorbururekin ezkondua zegoen bere iloba Mariana de Gallaisteguiri dohaintzan “el derecho que tiene como hija del dicho Martin [*de Uriarte*] en la cassa casseria de Uriarte llamado Banastaingo” ematerakoan. Kasua aurrekoaren oso antzerakoa da, hemen ere, dohaintzaren jasotzailea serorak oinordeko ere izendatu baitzuen; baina horrez gain, San Migel parrokian Santa Marinaren kaperaren aurrean –preferentziazko kokapen batean– etxeak zeukan jarlekua ere dohaintzan eman zionez, serorak ilobari emandako baserriaren gaineko eskubideek baserria beraren jabegoa adierazten zutela dirudi¹³⁷⁷. Alabaina, badakigu seroren kasuan jarleku baten edukitzeak ez zuela beti etxe edo baserri baten edukitzea esan nahi, eta beste behin, zuhur izatea tokatzen zaigu. Azken adibide bat ematearren Oñatiko beste bat aipatu liteke, seniparteen balorea esplizituki aipatu zena. 1738an testamentua helarazi zuen Catalina de Villar serorak oinordeko egin zuen bere anai Antonio de Villarri aitaren eta amaren aldetiko seniparteak eman zizkion, zenbait gorabehera tarteko, ordurako, hasierako 250 dukatetatik, 230 izatera jeitsiak zirenak¹³⁷⁸.

Beraiei zegozkien seniparteen administrazioaz aparte, serorek –batez ere– iloben aldeko seniparteen ematean ere parte hartu ohi zuten, etxeko buru ziren anai-arrebak ekonomikoki lagunduz. Hori dugu, esate baterako, Elgetako Catalina de Aramburuaren kasua. Serora hau aipagai izana dugu jada, abereen salmenta batzuk eta mailegutza aktibitateak zirela eta. Salmenta eta mailegu hauek, hein handi batean, bere anaia Pedro eta San Juan faboratzera begirakoak izan ziren, nahiz eta hauek, aldiro, serorarekiko zeuzkaten zorrak ordainduz joaten ziren. Alabaina, balantzean handiagoak dirudite seroraren maileguez, bere anaien ondorengo ordainketek baino¹³⁷⁹. 1600erako, beste hainbat gauza ere gertatuak ziren. Seroraren beste anai batek, Juan Urtiz de Aramburuak, Catalina Lopez de Sagastiguchiarekin Catalina de Aramburua Egurbide izana zuen alaba, eta era berean, azken hau Domingo de Egurbiderek ezkondu izan zen. Bai Juan Urtiz de Aramburua eta bai Domingo de Egurbide ere hilak zeuden ordurako; ama bezalatsu alaba ere (seroraren ahizpa eta iloba), alargunak ziren jada. Hainbat arazo zeuzkaten, gainera. Catalina de Aramburua (iloba) Domingo de Egurbiderek ezkondu zenean, Aranburuko etxearen aldetik zegozkion seniparteak auzi bidez lortu behar izan zituen. Azkenean auzia irabazi zuen, baina kobrantzara heldu arteko bitarte guztian zehar (bitarte luzea, Catalina bera ere alargun izatera heltzeko

¹³⁷⁵ GPAH-AHPG 1/3342, 60r-62r.

¹³⁷⁶ GPAH-AHPG 1/0889, 25r-26r.

¹³⁷⁷ GPAH-AHPG 1/3198, 432r-432v.

¹³⁷⁸ GPAH-AHPG 1/3293, 378r-379v.

¹³⁷⁹ Ikus VI. 2.4.2. azpiatalean, 599 or., 1248 oinpeko nota.

bestekoa) Catalina serorak sostengatu zituen bere ahizpa eta iloba, besteak beste, 1600ean, bere ilobari zegozkion seniparteen 30 dukat honi dohaintzan emanez.

Azkenean, 1602an, jada seniparteen inguruko auzia irabazirik eta kobrantza eginik, Catalina de Aramburua ilobak, bere familiaren sostenguan eman zion laguntzaren ordainez, seniparte lez zegozkion 220 dukaten lagapena egin zuen bere izeba seroraren alde, arrazoi lez, bizi izan zuten egoera laburki azalduz:

al tiempo ansi por la dicha rrazon abia tratado pleyto y despues de la dicha sentencia a esta parte para alimentar sus hijos para pagar algunas deudas que durante matrimonio abian echo = Ella abia tomado e rreçibido en bezes en rreales de contado de Catalina de Aramburua fraylla su ermana [*bere aita San Juanena esan nahi du*] docientos y beynte ducados rrealmente y con efeto y en rrazon de la paga e prueba de ello [...]¹³⁸⁰

Catalina de Aramburua ez zen familia-kideen ezkontzak posible egiten ibili zen Elgetako serora bakarra. San Adrian eta San Antonio ermitan serora izan zen Marina de Altubek, bere alaba Maria Perez de Altube e Ibarguen ezkondua zuen, 1579an, lagapen bat egin zuenean. Bere alaba hila zegoen jada, eta ezkontzarako seniparte lez eman zizkion 16 dukatak bueltan jasoak zituen serorak, bere alabaren testamentuko dohaintza lez. Seniparteen itzulera hau alabak amarekin zorrak hartu zituelako gertatu zen, beste 16 dukat, alabak “de dineros prestados” zor baitzizkion. Egoeraren aurrean, serorak 16 dukateko dohaintza egin zion Juan de Arechabaleta bere alabaren alargunari, alabak berarekiko zeuzkan zorrak kitatu eta barkatuz, eta halaber, seniparteak jada bere suhi alargun zenari emandakotzat utziz¹³⁸¹. Gogoan izan dezagun, serora honek, zehazki 25 urte beranduago eta jada beste ermita bateko serora izatera iragana zenean (Elexamendiko Andre Mariarena, Angiozarren), 1614an, bere arbasoen eta gurasoen Altube etxeak 1585az gerotzik Elgetako kontzejuaren alde fundatua zeukan 24 dukat eta ½-ko zentsua bere korritu eta guzti finikitatu zuela, etxea zentsutik askatuz¹³⁸².

Ezkontzen kontuetan serorek ematen zuten laguntzaren beste adibide bat Antzuolakoa dugu; Maria de Zumaeta serorak, 1671n bere testamentua helarazi zuenean, jada hila zegoen bere iloba baten (Joseph de Zumaeta) ondasunak eta oinordekoak, honek Isabela de Lizarriturriengandik ezkondu zenean jaso zuen 50 dukateko dotearen itzulera -ziurrenez Isabelaren aita izango zen- Juan Bautista de Lizarriturri Igueribarri ordaindu beharrean zeuden. Serorak, bada, bere testamentuan 50 dukateko dotearen itzulera bere ondasunetatik ordaintzea agindu zuen, ilobak bere heriotzean utzitako zorrak kitatuz¹³⁸³. Aipagarria dirudigun beste kasu bat, Debagoieneko espaziotik kanpoko herri baten kokatua izanik ere gure eskutara heldu dena, Aramaioko Mariana de Ascoagarena dugu. 1693an helarazi zuen testamentua, eta bertan, nahiz eta familia-loturen berri espezifikorik ez daukagun, Baraxoen elizateko Oruna baserriko bizilagunak faboratu zituen (agian ez ziren familia-kideak izango, baina serora abegi onean hartua edo babestua izango zuten, horrelako kasuak ere baziren eta). Oinordeko Pedro de Oruna etxeko jabea izendatu zuen, eta Joan de Oruna semeari, kikara bat opari emateaz gain, 20 dukateko dohaintza egin zion, “para quando tomare estado”¹³⁸⁴.

Eta nahiz eta seniparteei dagozkienetik urruntzen garen, familiarekiko atxikimendu sentimentuek gidatua dirudi Bergarako Domenja de Urgoitiak hartu zuen

¹³⁸⁰ GPAH-AHPG 1/1865, 10v-11r.

¹³⁸¹ GPAH-AHPG 1/1858, 121v-122v.

¹³⁸² GPAH-AHPG 1/1867, 34r-37v.

¹³⁸³ GPAH-AHPG 1/0783, 1r-8v.

¹³⁸⁴ GPAH-AHPG 1/0889, 139r-139v.

erabakiak ere; Pedro de Urgoitia bere anaiarekin batera, Pedro de Aguirrerren aldeko ahalorde bat helarazi zuen 1580an. Azken hau “soldado de su magestad rresidente en la cibdad de Panplona, del Rreyno de Nabarra” zen, eta ahalordea honako motiboa medio helarazi zitzaion:

para que por nos y en nuestro nonbre / y por nosotros mismos podais pedir e demandar rresçiuir auer y cobrar / asi en juizio como fuera de el / de los señores tesoreros pagadores rreales y behedores de la gente de guerra de su magestad que rresiden / en el dicho Rreyno de Nabarra y en las fronteras de entre estos Rreynos de España y el Rreyno de Françia [*ezabaturik*: Nabarra] / y de quien / vos bien bisto fuere, qualesquier dineros marauedis y otras cosas que a Pedro de Urgoitia nuestro padre ya dicho soldado que fue de su magestad se le deuian y se le quedaron debiendo de su sueldo del tiempo que sirbio a su magestad por soldado en el dicho Rreyno de Nabarra / cuiu rrazon esta asentado en las nominas de su magestad a que nos rreferimos¹³⁸⁵

Ez dakigu aita soldaduaeren soldatarik jasotzerik lortu ote zuten, baina zegozkion soldaten kobrantza defendatu beharrekotzat zeukatela, nabari ageri zaigu.

Badira beste adibideren batzuk ere, familia kideekiko laguntza agertzeko moduen aniztasuna agertzen digutenak. Antzuolako Maria de Ibarak, esate baterako, testamentua idatzi zuenean (1659) zenbait ardura zeuzkan, -itxuraz- zahartzaroko gaisoaldi edo/eta ezgaitasunen bat ("ya constituido en hedad y enfermo con muchos ajes [*nece?*]sitado") zeukan bere anai baten artapenari zegokionaren inguruan. Hortaz, betiereko memoria baten fundaziorako erreserbatua zeukan 40 dukateko zentsu baten etekinak honen elikadurara, zahartzaroko artapenera eta hiletetara bideratu zitezen agindu zuen ("en sustentarle y alimentarle al dicho mi hermano y en sus funerales"); alabaina, bizi zen artean anaia bere ondasunekin bizirauteko eta hileta duinak agintzeko gai izatekotan, edo zena zelakoagatik diruok xede hartara bideratu beharrik ez izatekotan, 40 dukatak, hasierako asmoaren arabera, betiereko memoriaren fundaziora berriro bideratu zitezen ere agindu zuen¹³⁸⁶.

Bestelakoak ditugu Arrasateko Musakola auzoko San Antolin ermitan serora zen Antonia de Osinagak familia kideen "duintasuna" gordetzeko hartu zituen lanak. Bere testamentuan "en descargo de mi conçiencia" egin zuen aitorpena bere hortan jasoko dugu, bere kabuz guztia azaltzen du eta:

digo y declaro [...] que el dia de San Lucas primero que biene de este presente año habra honze años que una muger que se llama Catalina de cuyo sobre nombre no me acuerdo al presente vezina de Lecaytio me truxo vna criatura deziendo ser hijo de Domingo Abbad de Osinaga mi sobrino clerigo y uezino de la dicha uilla de Lequeytio encargandome de parte del dicho Domingo Abbad la buscasse vna ama para la dicha criatura para que la criasse y que el acudiria con todo lo nescesario para la dicha crianza de la dicha criatura, digo y declaro parada [aqui?] y delante de dios que no he rreciuido del dicho Domingo Abbad en los dichos honze años mas de tan solamente ocho ducados - en dos vezes - y que el suso dicho me deue de la dicha criança de los dichos onze años - çiento y çinquenta ducados antes mas o menos - y le tengo puesta para demanda al dicho Domingo Abbad ante el obispo de este obispado y ay pleyto sobre ello mando que mis testamentarios y albaçeas cobren los dichos çiento y çinquenta ducados que asi me deue el dicho Domingo de su persona y bienes¹³⁸⁷

Garesti ordaindu zuen Antonia de Osinagak, nahiko esker-txarreko izatea suertatu zen bere iloba apezari eskainitako laguntza; 150 dukatak xahutu, xahutu zituen,

¹³⁸⁵ GPAH-AHPG 1/0120, 183r-184r.

¹³⁸⁶ GPAH-AHPG 1/0774, 157r-161r.

¹³⁸⁷ GPAH-AHPG 1/2364, 2r-5v.

jaso baina, ez askorik. 11 urteko mutikoak behintzat, izan zuen bere hazkuntzaz arduratu zenik.

Eta ez zuten seroren artean familia kideekiko halako "babes" lanek hain arraroak izan behar, beste kasuren bat ere heldu baitzaigu esku artera; Joana de Xerba (edo Gerba) seroraren aurka egindako salaketarena, aipatu berri dugun kasuaren antzerakoa dugu. Lezo eta Pasaia (Gipuzkoa) bitarteko ermitetariko batean zen emakume hau serora, eta Joana de Arçu iraindu zuelako egin zuen azken honen senarrak bere aurkako salaketa 1610ean. Joana de Arçu emakume gaiztoa eta zikina zela ("una mala mujer, una puerca") eta Pasaiatik portaera txarragatik deserriratu zutela esan zuen serorak, salaketa gogor bat ere eginez: ume bat "entre zarzales" erditua omen zuen, eta bere lotsa estaltzeko, Lesakako (Nafarroa Garaia) Santa Maria Magdalenaren ermitan serora zen bere ahizparen eskutan utzi zuen, honek hazi zezan. Gertakizunei egiazkotasunik ematekotan, serora batek, familiaren ohorea babesteko asmoz bere ahizparen ume baten hazkuntza hartu zuen bere kargu, baina beste serora batek ordea, esamesa zabaldu eta salaketa publikoki hedatu zuen -ezagutzen ez ditugun arrazoiren batzuek bultzatuta- (Rilova Jericó 2006b, 414).

Seniparteez, ezkontzez eta familia kideen behar partikularrez haratago, modu batera, edo bestera, serorak familien dinamiketan eta hauen handitzerako eta defentsarako ekimenetan barneraturik zeuden, eta batzuetan, beraien egoera sozial eta erlijioso berezia medio, familiak etxe baten galera ekiditea lor zezakeen. Honen zenbait adibide on bildu zizkigun Azpiazuk. Bata, Soraluzeko (Gipuzkoa) San Esteban ermitako serora baten 1572ko dohaintza batena; honek, bere kargu ermita ondoan etxe bat eraikia zuen, bera bizitzera iragana zen seroretxea alegia. Ikusiko ditugu aurrerago seroretxearen eraikuntza euren kargu hartu izan zuten beste seroraren batzuek ere. Baina kasu honetan, antza denez seroraren iloba batzuek etxe beharrean zeuden, eta bere etxearen dohaintza egin zien, beti ere, gurasoek etxeko nagusi berri izatera iragango ziren ondorengoekin egin ohi zuten bezala, bere bizitza guztirako bizilekua eta artapena etxe hartan izatea ziurtatzeko baldintzapean. Beste adibidea Mutrikuko (Gipuzkoa) parrokiako Maria de Corostola serorarena dugu; herriko erdigunean, Barrenkalean zegoen seroraren jatorrizko etxea orduan zirela hilabete gutxi gainbehera eroria zen. Seroraren koinatak, jada alargundua zenak, laguntza eskatu zion etxea berreraiki ahal izateko¹³⁸⁸, eta honek gastuak bere kargu hartu zituen, etxearekiko eta familiarekiko serorek mantentzen zuten atxekipen handiaren erakusgarri; jasoriko aipua oso esanguratsua dugu:

la dicha maría de corostola freyra acordándose de sus padres y passados y que su memoria no se perdiessse, avida liçençia de la justiçia ordinaria de la dicha villa, considerando que ningún ofiçial carpintero ni cantero tomaría a su quenta el reparo della, que asibien por jornales de cada ofiçial se aría mejor la obra y a menos costa y que asi bien los materiales de maderamen y piedra la vuscaría mejor y mas baxo preçio... la dicha maría de corostola freyra a reparado y edificado la dicha cassa con mucha mejoría alcançando una estada más que primero echándole afuera los canales que primero tenían en daño de la dicha cassa, en el qual dicho reparo y edifiçio sabe esta otorgante a gastado la dicha maría de corostola las partidas siguientes (Azpiazu 1995a, 53-54)

Hainbat serorak, bada, familia kideen ondasunen gain nolabaiteko babespea emateko egoeran izaten ziren; eta zenbaitek, boterea euren esku zeukatenean, etxearen

¹³⁸⁸ Akats bat egin nuen kasu hau aipatzean 2010ean argitaratu nuen serorei buruzko lanean, etxearen gainbehera sute bat medio izan zela eta seroraren anaia orduan hil zela aipatu nuenean (Larrañaga Arregi 2010a, 80). Azpiazuk ez du halako xehetasunik aipatzen, eta ordungo nire ondorioztapenak oharkabean eginak izan ziren, interpretazio oker bat emanez.

gaineko babes ekonomikoa -eta honek inplikatzeko zuten agintea eta erabaki gaitasun-heriotzaren ordurarte mantendu ohi zuten, jada ikusiak ditugun zenbait adibideren arabera, zentsuen binkulazio bidez. Hauei buruzko kapituluan ikusi izan ditugun Magdalena de Castillo eta Maria de Izaguirre (Bergara) seroren kasuak ere, azaldu berri ditugunekin bat, honen adibide garbiak ditugu.

Magdalena de Castilloren ibilbidean, berarekin batera Gaztelu Goikoa baserrian bizi izana zen bere izeba homonimoak egindako oinordeko izendapena aberastasunen pilaketarako momentu erabakiorretariko bat izan zen. Oinordekotza izendapena jaso baino lehenago bere ahizpak eta honen senarrak Loidi “menor” baserriaren jabe ziren heinean hartu zituzten zorren kargu hartua zuten jada, oraindik serora ez zen garai batean. Ziurrenez bere izebaren oinordeko izendapena eta gero, Loidiko baserria erosi zuten bere ahizparendako, eta honek berarekiko hartu zuten 400 dukateko zorrarekin, Gaztelu Goikoa baserria bera konpontzeko lanak ordaindu zituen. Bi baserriak bere aldeko zentsuekin zorpeturik mantendu zituen, hau da, berarekiko zeuzkatzen zorren bidez beste pertsonenganako zorpetzerik izan zezaten ekidin zuten, eta bere heriotzerako orduan, dohaintzen eta oinordeko izendapenen bidez zorpetik askatu zituen¹³⁸⁹.

Maria de Izaguirrek berriz, besteren artean, bere 1631ko testamentuan Marina de Oregui bere lehengusina alargunaren eta honen alaba Maria de Antia y Guerraren alde dohaintzan etxe bat eman baino zenbait urte lehenago, 1619an, bere iloba Catalina Lopez de Izaguirreren dotea ordaintzeko 20 dukat eta 4 errealeko lagapen bat helarazi zuten, azken honen senar Andres de Inarra Guibelondoren alde. Serora honen aktibitateei erreparaturik, eta zaigu arraroa egiten diruak zentsuetatik eta mailegutzatik lortuak izateak: 10 dukat Andres de Jauregui Izaguirreren eta bere emaztearen aurkako zentsu baten korrituetatik, beste 6 Martin de Amuchasteguiaren aurkako beste zentsu baten korrituetatik, eta 4 dukat eta 4 erreal, Miguel de Moyua Goitiari maileguan emanak zizkionak¹³⁹⁰. Azkenean 24 dukat ordaindu zituen, hiru bat astetara senarrak, Andres de Inarrak, seroraren alde helarazi zuten ordainketa-karta batean agertzen zaigunez¹³⁹¹.

Serora honek familiarekiko egin zituen dohaintzen beste adibide bat Magdalena de Izaguirre (“doña”) alargunaren oinordekoei egin zien 400 dukatekoa dugu; maileguei buruz jarduterakoan, sakonago heldu ez diogun kasua. Ez dakigu Bergarako Izaguirre leinu-etxearen baitan Maria de Izaguirre serora non kokatu; ez daukagu behar besteko informaziorik, eta beraz, ezin dugu Magdalena de Izaguirrerekiko familia aldetiko loturarik erabat ziurtatu, nahiz eta iradoki izan dugun, agian ahizpak izan zitezkeela. Baina Magdalena de Izaguirreri buruz, bere anaia Martin Fernandez de Izaguirre y Recalde lizentziatua hil ondoren, Izaguirre leinu-etxearen bigarren adarraren buru izatera iragan zela dakigu¹³⁹². Adar hau Laureaga dorretxean kokatua zegoen, eta Magdalena, San Juan Martinez de Gorostolarekin ezkondu zen. Hau Mexikon hil zen, eta Magdalenak, alargundurik, seroraren testamentua helarazi zen 1631rako, honen aldeko 300 dukateko zentsu bat fundatua zuten, eta beste 100 dukat ere hartuak zizkion

¹³⁸⁹ VI. 2.4.1. azpiatalean, 579 eta hurr. or. Bertan, Magdalena de Castilloren inguruko ondoren Maria de Izaguirreri buruzkoak doaz.

¹³⁹⁰ GPAH-AHPG 1/0205, 413r-414r.

¹³⁹¹ GPAH-AHPG 1/0206, 542r-542v.

¹³⁹² Magdalenaren ahizpetariko bat Maria Garcia de Izaguirre y Recalde zen, eta Tola de Gaytáñen arabera, hau Zubikoako Santa Anaren komentuan, Oñatin, lehenik “beata” lez eta gero moja lez bizi izan zen. Maria de Izaguirreri dagozkionetatik baina, ez dugu Oñatiko Zubikoako komentura bereziki lotzen zuten dokumenturik aurkitu, eta beste froga askoren artean, jarlekuetako zerbitzutik zor zitzaizkion diruek, Bergarako San Pedro parrokian serora lanak egiten ibili zela agertzen digute; ez zen, beraz, Tola de Gaytáñek Zubikoan kokatzen zigun “beata”. Baina Tola de Gaytáñen lanean behinik behin, beste Maria izeneko ahizparik ere ez zaigu aipatzen... (Tola de Gaytán 1959b, 395).

maileguan. Magdalenak ere ordurako zaharra behar zuen izan, bere testamentua 1635ean helarazi baitzuen. Edozein kasutan, testamentuan serorak zorra jada Magdalenaren alaba Mariana (“doña”) eta Magdalena (“doña”) de Gorostolaren iragana zela kontsideratzen zuen, eta 400 dukaten dohaintza egin zien,

por quanto de [...] he resçeuido muchas buenas obras en toda mi vida assi en salud como en tiempo de mis largas y graues enfermedades y cada dia resçiuo en su propia conpania y adelante espero resçeuir a quienes he tenido y tengo particular afiçion y amor y por otras caussas justas que allo me mueben de mi mera espontanea y libre boluntad¹³⁹³

Kuriosoki, Izaguirretarren adar honen azken buru izan zen dohaintza egin zitzaion (edo zorra barkatu zitzaion) eta bere ahizparekin batera serorak hainbeste estimatzen zuen Magdalena de Gorostola hau, ez baitzen ezkondu, eta 1660an, bere heriotzean, bere iloba Magdalena de Arguizain y Monasteriobideri (Ignacio de Iturbe kapitainaren emaztea) eman zizkion dorretxeari zegozkion ondasun guztiak; honen ondorioz, Izaguirretarren hirugarren adarreko buruekin liskarrak hasi ziren, oinordekotza eskubideak zirela eta (Tola de Gaytán 1959b, 395-396).

Gogoan izan dezagun, gertakizun hauen bitartean, Maria de Izaguirre 1611n Catalina Lopez de Ibarraren Barrenkaleko etxe batean bizi zela, eta etxe hau bera, ziurrenez 1609an Catalina Lopezek seroraren aldeko 40 dukateko zentsu bat fundatzean hipotekatu izan zuen berbera zela. 1631n testamentua helarazi zuenean bere lehengusina alargun Marina de Oreguiri eta honen alaba Maria de Antia y Guerrari eman zien etxea ere Barrenkalen kokatua zegoen, eta etxe berbera izan behar du honek (bi etxe ezberdin izatekotan, etxe askotxo lirakeke jada), ordurako, seroraren jabegokoa izatera heldua izango litzatekeena¹³⁹⁴. Ez dakigu Maria de Izaguirre testamentua helarazi zuenerako non bizitzen zegoen, baina bere arbasoen jarlekuan ehortzia izatea nahi izan zuen, eta hau, “al presente yo la poseo”¹³⁹⁵. Baina kontua da, urte askotan zehar, Maria de Izaguirre hiribilduan bizi zen alargun boteretsu baten etxean bizi izan zela, eta hau, hiribilduko seroren artean ohizko egoera zela. Hiribilduen testuinguruan, batez ere familia jakinen zerbitzura dedikatzen ziren seroren egoera izan ohi zen (Maria de Izaguirreren kasuan, Ozaeta etxekeoa), parroketako serora gehienak, seroretxeetan edo espreski euredako alokaturiko etxeetan bizi baitziren. Baina baziren azken hauen artean euren kabuzko etxeetan bizi zirenak ere, eta ikusiko ditugu aurreraxeago.

Maria de Izaguirre bezala bizi ziren seroren beste adibide bat dugu Arrasateko Ana de Lararena. Ikusi dugu nola serora honek, 1620an, bere iloba zen Ana Bañez de Jaureguiren (Domingo de Jauregui kapitainaren eta Maria Bañez de Artazubiagaren alaba) eta Esteban de Zabala y Ororen arteko ezkontzarako 132 dukaten dohaintza egin zuen, bere ilobaren dotea, honek aitonaren (seroraren aita) dohaintza bidez zeuzkan 500 dukaten eta aitaren eta amaren aldetik zegozkion seniparteekin batera osatuz¹³⁹⁶. Lehenik Ana Bañez de Jaureguik bere izeba seroraren aldeko 132 dukateko zentsua fundatu zuen, hain prezeski ere, aitonaren aldetik zeuzkan 500 dukatak eta aitaren eta amaren seniparteak hipotekatuz; baina gero serorak zentsua bere ilobari dohaintzan ematea erabaki zuen, eta bere etxeari eta familiaren testuinguruari dagokionez, ezarri zituen baldintzak oso esanguratsuak zaizkigu:

Por que lo hago de todo ello para despues de mis días: y con condiçion que me aia de sustentar en su cassa y en su huessa sirbiendola uoluntariossamente y sin fuerça

¹³⁹³ GPAH-AHPG 1/0260, 67r-68v.

¹³⁹⁴ VI. 2.4.1. azpiatalean, 582 eta hurr. or.

¹³⁹⁵ GPAH-AHPG 1/0236, 158r-163r.

¹³⁹⁶ Ikus VI. 2.4.1. azpiatalean, 584 eta hurr. or.

ni premia alguna: y con condiçion espressa que no hallandonos a un pan y a una messa: me aia de dar y pagar en todos los dias de mi uida la rrenta de los dichos seis ducados y seis rreales y medio desde el dia que saliere de su cassa y no sea obligada durante que en ella estubiere a pagarme nada de todos los dichos corridos = con que despues de mis dias sea todo ello y todos los demas bienes que quedaren mios sean propios suyos de ella y de sus hijos y herederos y sucesores: con que tambien sea a cargo de la dicha doña Ana de Jauregui el cunplimiento de mi entierro y honrras conforme la calidad de mi persona por todo lo qual me obligo de no rrebocar esta donaçion [...]¹³⁹⁷

Dohaintza, zahartzaroko artapenaren truke. Ikusten dugunez, Ana de Lara bere ahizparen ezkontzaren inguruan bilduriko familiaren testuinguruan bizi zen, eta hauen etxeko jarlekuaren artapenez arduratzen zen. Bi etxe behintzat izan zituen bere ondasunen artean, “ferrerias” kalean zeukan bat, 1614an, 60 dukateko zentsu bat hartuz (eta etxea bera hipotekatuz)¹³⁹⁸, dolarea handitu eta eraberritzeko obrei ekin ziena¹³⁹⁹; eta Santuru de Elorriaga eta honen emazte Maria Balda de Otalorarekin zeukana, 1620an bertan (bere ilobari dohaintza egin baino astebete lehenago), 40 dukatetan Andres de Gabiriari saldu ziotena, San Frantziskoren komentuaren atzekaldean zegoena¹⁴⁰⁰.

Esteban de Zabala y Orok 1623an bere emazteari serorak jada dohaintzan emana zion 132 dukateko zentsua bere korrituekin luditu egin zuen (nahiz eta jada dohaintzan emana zegoen), hau da, diruok serorari eman zizkion, eta gainera, urteroko 6 dukateko dohaintza bat ere egin zion¹⁴⁰¹. Baina jada esan bezala, honekin ez zeukan, zentsuaren baldintzetan ezarritako betekizunak honen luditzearen medio ekidinez, serora etxetik kanpo botatzeko asmorik; izan ere, seroraren testamentuak aditzera ematen digun testuingurua, ustez bere azken urteetan izango zuena, Domingo de Jauregui kapitainaren (etxeko jaun zaharra) inguruarena baita. Albazea Domingo de Jauregui bera izendatu zuela dirudi (ez dakigu ziurtasunez)¹⁴⁰², eta litekeena da oinordeko Ana Bañez de Jauregui bere iloba izendatu izana ere, bere ezkontzarako egin zion dohaintzan hala egitera konprometatu baitzen (“con que despues de mis dias sea todo ello y todos los demas bienes que quedaren mios sean propios suyos de ella y de sus hijos y herederos y sucesores”). Testamentuko dohaintzen jasotzaile gutxien artean, Domingoren emazte Mari Bañez de Jauregui (“doña”) eta bere iloba Ana Bañez de Jauregui (“doña”) zeuden; egin zizkien dohaintzak koinatei eta ilobei serorek egin ohi zizkieten tankerakoak izan ziren. Bere ondasunen banaketan, bere ohea, zeukan zaiarik onena, “una herrada”, pertze bat eta bi kutxa eman zizkion –oinordeko egin zuela uste dugun– Ana Bañez de Jauregui (“doña”) ilobari, eta beste kutxa bat, beste iloba Mari Andresi. Sei ohe estalki jokutarik bost Mari Bañezi (“doña”), eta bat, bere ahizpa Maria de Larari eman zizkien, eta horrez gain,

de çinco lienços y tres gorgeras que tengo se les de sendos medianos lienços a mi hermana Maria de Lara, y otro a Mari Asencio de Insaurre, y mas una gorgera a mi

¹³⁹⁷ GPAH-AHPG 1/0236, 70r

¹³⁹⁸ GPAH-AHPG 1/2366, 6r-7v.

¹³⁹⁹ *Ibid.*, 7v-8r.

¹⁴⁰⁰ GPAH-AHPG 1/2368, 87v-98r.

¹⁴⁰¹ Zentsuaren luditzearen ordainketa-karta: GPAH-AHPG 1/2369, 37r; eta dohaintza: *Ibid.*, 37v-38r.

¹⁴⁰² Gustatu baino gehiagotan gertatu ohi den zerbait da, dokumentua egoera txarrean dagoenean, justu informaziorik interesgarriena apurtutako edo irakurgaitzenak diren zatietan gelditu zena izatea. Hala gertatzen zaigu Ana de Lararen testamentuarekin. Lehenik eta behin, ez da izkribau aurreko testamentua, azken borondateen eskutitz bat baizik, gero, garaiko ohituren arabera, protokolizatua eta onartua izan zena. Eskutitza liburuan josia dago, eta hara non, albazea eta oinordeko izendapenari dagokion zatia, justu, josturan sartzen den (bestaldera ere egin izan zezaketen). Albazeari dagokion “Domingo de” baino ezin izan dugu irakurri, nahiz eta jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik, hau “Domingo de Jauregui” zela pentsa litekeen.

hermana Maria, y todo lo demas, tome la señora Doña Mari Bañez para sus hijas, ecepto el mejor lienço que quiero que sea para si¹⁴⁰³

Dohaintzek eta aipuaren tenoreak bere ehun eta ohialen jasotzaile nagusiak Mari Bañezen inguruan (bera eta bere alabak) zeudela azaltzen digute, eta inguruko beste emakumeei (bere ahizpa barne), preziatuak izanagatik ere, arropa jakinak eman zizkiela. Beste arroparen batzuk ere banatu zituen (zaia motz bat, soineko bat, etab.), baina funtsean, esandako testuingurua da agertzen zaiguna.

Baina Ana de Lararen testamentuak arazoren batzuk bazirela ere azaltzen digu, hauek nahasi xamar ageri bazaizkigu ere. Serorak, bere osaba “el Bachiller Bañes”-ek “para mis alimentos” utzi zizkion urteroko 8 dukateko errenta baten inguruan, Domingo de Jauregui kapitainarekin liskarrak izan zituela dirudi:

Ytem es mi uoluntad que para raçon de ocho ducados que mi tio el Bachiler Bañes me dexo de renta por cada un año para mis alimentos, y se obligo de acudirme con ello como testamentario [???] [...] que me funde un aniuersario menor, con que le libro de todo lo demas que por esa via o de otra me fuere cargo el sobredicho capitan, y reuoco con esta condiçion el poder y çesion que le di al liçençado Çabala contra el dicho Domingo de Jauregui¹⁴⁰⁴

Zabala lizentziatuak testamentuaren helarazpenean oraindik seroraren 7 dukat zeuzkan bere esku, ziurrenez auzia jarraitzekoak izango zirenak, eta hauek ere arimaren alde, “misa añal” baterako izan zitezela agindu zuen. Gainera, jada 112 dukateko dohaintza bat egin zion serorak Zabala lizentziatuari berari, “todas las sobredichas mandas”, testamentukoak, betearaz zitzanaren truke. Betearazi zitzala beraz, eta auziaren ingurukoak ere, bukatu zitezela:

Ytem es mi uoluntad nadie le pida nada al capitan Domingo de Jauregui por qualquiera çesion que no hubiesse [???] contra el al liçençado Don Esteban de Çabala con condiçion que cese tambien del pleito intentado contra mi por los alimentos¹⁴⁰⁵

Ikusia dugu lehenago Bergarako Francisca de Aranaren kasua, orain berriz helduko dioguna; berak ere, Ana de Larak bezala, izan zituen zenbait arazo, “por los alimentos”.

Francisca de Arana, Ana de Lara bezala, hiribilduan bizi izan zen, baina alargun baten etxean, lehenago aipagai izan dugun Maria de Izaguirre bezala. 1617 inguruan, alargunak berak, Maria Antonia de Sagastizabal (“doña”) zenak, testamentuan urteroko 400 erreal eman zizkion dohaintzan, “para sus alimentos”. Alargunaren oinordeko ziren Antzuolako parrokia batuetako apez Sebastian Martinez de Inurrigarro batxilerrarekin eta Pedro Garcia de Sagastizabalekin (eta honen oinordekoekin) zenbait auzi izan zituen, urteroko 400 errealak jasotzen hasi aurretik, eta gainera, ustez errenta gabe bizitzeko eman zioten etxeagatik, urteroko 8 dukat kobratzeari ekin zioten¹⁴⁰⁶. Francisca de Aranak, bestalde, Maria de Izaguirrek bezala, bazekien zentsuei etekinik ateratzen¹⁴⁰⁷, eta honen kasuan bezalaxe, beraien bidez etxe baten jabegoa lortu zuela dakigu. Juan Perez de Barrutiak 1615ean seroraren alde 20 dukateko zentsua fundatu zuenean hipotekatu zituen Arruriaga kaleko etxeak (Arrese etxea alboan zeukanak) eta Matxiategiko lursailak¹⁴⁰⁸, eta Josephe Abbad de Eguren apezak eta serorak, 1621ean,

¹⁴⁰³ GPAH-AHPG 1/2369, 69r-72r

¹⁴⁰⁴ *Ibid.*

¹⁴⁰⁵ *Ibid.*

¹⁴⁰⁶ Ikus azalpenak zabalago VI. 2.5. azpiatalean, 619-620 or.

¹⁴⁰⁷ Honekiko, ikus VI. 2.4.1. azpiatalean, 577 eta hurr. or.

¹⁴⁰⁸ “la mi casa de Arruriaga pegante a la de Arrese y la eredad e mançanal de Macheategui e Anguamendi que son en el termino y juridiçion de la dicha uilla” (GPAH-AHPG 1/0222, 44r-45r).

San Pedro parrokiako benefiziodunen alde 40 dukateko zentsua fundatu zutenean “vna cassa que tenemos” bezala aipaturik hipotekatu zuten Arruriagako etxeak eta Matxiategiko lursailak¹⁴⁰⁹ behintzat, berberak dirudite. Gogorazi dezagun, azkenik, serora honek bere ahizpa Ana Perez de Aranaren oinordeko zen heinean, honen senar izana zen Aparicio de Zearretaren oinordeko zen Mateo Ibañez de Urietarekin izan zuen auzia, eta nola, auzi hartatik jasotako zentsuak eta diruak, batez ere, kopuru handietakoak eta beraz, maila ekonomiko altuko pertsonak fundaturikoak ziren zentsuak ematera bideratu zituen¹⁴¹⁰. Baina ezagutzen dizkiogun zentsu handiak 1614-1616 bitartean eman zituen, eta Inurriagarro batxilerrarekin eta Catalina de Gorosteguirekin (Pedro Garcia de Sagastizabalen oinordeko) 400 errealek inguruan izan zituen liskarren akordioa, 1617an egin zen. Zoritxarrez ezin izan dugu bere testamentua aurkitu; Francisca de Aranaren bizitzaren azken erretratu hori falta zaigu, eta daukagun azken dokumentuak besteez urte askoren alde dauka; 1631ko ordainketa karta bat da (aurrekoa 1622koa zen), 400 errealek horien erdiaren ordainketa zela eta helarazi zuena¹⁴¹¹. Horiek behintzat, kobratuz jarraitu zuela dirudi.

Bergaran, alargun baten etxean bizi izan zen beste serora bat Domenja de Gante dugu. 1592an, gaixorik zegoela, ez zion izkribau aurreko testamenturik helarazteko denborarik eman, eta Joan de Oxirondo apezak idatziriko memorial batean jaso zuen bere azken borondatea, gero, lekukoek aitortuak medio, testamentu lez balioztatuko zena. Irekierarako testigantzetan azaltzen zaigu bere bizilekua, agonia orduko egoera deskribatzen:

este testigo fue llamado a rruego de la dicha veata de Gante a las cassas de la morada de Catalina Lopez de Gallaiztegui Ybarra viuda y en ella vio este testigo que la dicha veata de Gante estaua enferma y en cama estando presente con ella el Cura don Joan de Oxirondo y los demas nonbrados en el dicho memorial [...] ¹⁴¹²

Ez dakigu serorak Catalina Lopez de Gallaiztegui Ibarra alargunarekin ze familia-erlazio edo lotura zeukan. Testamentuak berak ez du askorik laguntzen, funtsean, jarlekuetako zerbitzuen eta maileguren bidez zeuzkan zordun guztien kontu-kiatze bat baita. Hori bai, zorren testuinguruak, Francisca de Aranaren kasuan bere zentsuek azaltzen ziguten bezala, maila sozial eta ekonomiko jakin bateko “bezeroak” azaltzen dizkigu; besteak beste, Ozaetako jaunak, jarlekuko bi urteko zerbitzuagatik 12 dukat eta 16 errealeko zorra zeukan. Edozein kasutan, kontua da, serorak Catalina Lopez alarguna egin zuela oinordeko; zalantzarik gabe, honen etxearen eta testuinguruaren parte sentitzen zen¹⁴¹³.

Hasierako adibideetan ez bezala, azken hauetan hiribilduko familia boteretsuen testuinguruan bizi ziren serorak agertu zaizkigu, hauen etxeetan bizi eta serora lanen zerbitzua ematen zutenak. Gertuagoko edo hurrunagoko familia-erlazioekin, batzuk agian are nolabaiteko “erlijioaren alorreko” zerbitzari lez ere, baina guztiak sentitzen ziren, modu ezberdinetara, beraien talde familiarrean txertaturik. Bergarako Santa Marina parrokiako Catalina de Sarralderen kasua ere, egoera ezberdina izanik ere, tankerako patroik orokorrari dagokio. Serora hau Santa Marina parrokiako seroratzara

¹⁴⁰⁹ “vna cassa que tenemos en la calle de Arruriaga de esta dicha uilla que alindan por el vn lado con la cassa de Arrese y por detras con vna casa de los herederos de doña Maria de Achotegui y por delante con la calle publica y por detras con la ua[ruac]ana y sobre el uastago y axuar de ella y sobre una tierra heredada que tenemos en la uega de Machiategui de esta dicha uilla que alinda con la eredad de la cassa de Moyugoytia y con la del contador Urquin[es?]” (GPAH-AHPG 1/0207, 535r-537v).

¹⁴¹⁰ Ikus 1407 oinpeko notan zehazturiko orrietan.

¹⁴¹¹ GPAH-AHPG 1/0236, 155v.

¹⁴¹² GPAH-AHPG 1/0157, 123r.

¹⁴¹³ *Ibid.*, 119r-125v.

sartu zenean, 1597an izan ziren liskarrak zirela eta izan dugu aipagai. Ibilbide ilun xamar batzuk zirela eta heldu nahi izan zuen parrokiako seroratzara, apezpikutzako epaitegietako trikimailuren baten bidez kargua eman ziezaiotela nahi izan baitzuen. Parrokiako kabildoa eta elizarrak, gorabehera hauen berri izanik, aurka agertu zitzaizkion, eta auzitan hasi ziren. Gainera, parrokiako serorak, seroretxean bizi zirenak, jada ohiturazko hiruak ziren (gero ohitura bi izatera aldatuko zen), eta ez zegoen gehiagorendako ez lekurik, ez beharrik, ez dirurik. Itxuraz guztia kontra zeukala, Catalina bere seroratzara 36 dukateko dotea ordaindu sartu zen; garaian parrokiako serorek dotetzat ordaindu ohi zutenaren hirukoitza. Txanponek –eta agian baita beste eraginaren batzuk ere– konbentziturik, onartu zuten bada seroragaia¹⁴¹⁴.

Bere jatorria Abrain etxean zegoen (bere gurasoak Abraineko jarlekuan ehortziak zeuden), eta bere lehengusina Maria de Eizmendiren (“doña”) Laskurain etxera joana zen, ez dakigu serora izan baino lehen, edo geroago. Laskurain etxeak ere izango zuen zerikusirik agian, seroratzarako sarreran izan zituen ibilbide nahasietan. Lotura hauen berri, eta etxe hauen artean izan zitezkeen botere-mailaketen berri, seroraren hiletetarako betekizunek ematen digute. Santa Marina parrokiako Laskurain etxeko jarlekuan ehortzia izan nahi izan zuen, bere “señora y prima” Maria de Eizmendik hala nahi izan zuelako (“cuia voluntad fue esta y assi la declaro”), eta bertan hiletak, ogi-eskaintzak eta ondorengoko bere arimaren aldeko hainbat meza eta betiereko memoria bat agintzearekin bat, 12 dukat eman zituen bere kargu zirenen arimen aldeko otoitzezko mezatarako (“por descargo de mi consciencia”), eta bere gurasoen ehorzleku zen Abraineko jarlekuan San Simon eta San Judas egunez urteroko requiemezko meza eta errespontsu kantatu bana egiteko, 30 dukateko zentsua eman zuen kabildoaren alde. Bere ahizpa Maria Juaniz de Sarralderen eta Pedro de Abrainen bost semeak ere izan zituen gogoan, eta bakoitzari 10 dukat eta ohe-estalki bana eman zien, eta hauen arteko Antonio de Abraini, horiez gain, baita mantu bat eta kutxa bat ere. Hauek eta elizari egin zizkion dohaintzez aparte, Mariana de Gorostolari (“doña”) kutxa txiki bat eman zion (“asi de la manera que estuuire”), eta dirutan bildurik zeuzkan zilar bikoitzezko 300 dukat eta 13 erreal, “en moneda de bellon” zeuzkan beste 51 dukat, eta “en quartillos de rreal” zeuzkan beste 20 dukat, bere albazearen esku utzi zituen; ia ia, albazea bakarrik baino, oinordeko egin zuen bere “primo hermano” Pedro de Elusa:

y cumplidas las mandas i legados en este mi testamento contenidos en el remanente de todos mis bienes dexo libre y asoluta Uoluntad del dicho Pedro de Elusa para que haga de ellos lo que bien visto le fuere y por bien tuiere sin quedar obligado a dar quenta ni raçon de ellos a ninguna persona assi por el deudo y afixion que le tengo como porque tengo satisfacion que la execucion de las dichas mandas y legados acudira con la diligencia y puntualidad que de el me prometo¹⁴¹⁵

Ez dirudi serora honek bere etxekoandre alargunaren inguruarekiko Francisca de Aranank edo Domenja de Gantek agertzen zuten besteko gertutasunik sentitzen zuenik; ez zaigu azaltzen behintzat, besteen kasuan ez bezala, Maria de Eizmendi alargunari edo bere testuinguruko familia-kideei egindako dohaintzarik, nahiz eta alargunaren nahiari jarraiki, bere jarlekuan ehortzia izatea agindu zuen. Areago, Maria de Eizmendi bere zordunik handiena ere izana zen. 232 dukat zor zitzaizkion bere ondasunetatik, “prestados para sus necesidades como declaro en su testamento”. Honekiko, bestalde, Catalina de Sarralderen egoera aipatu izan ditugun beste seroren berbera ere ez zela

¹⁴¹⁴ Ikus IV. 1.1.2. azpiatalean, 299-300 or.

¹⁴¹⁵ GPAH-AHPG 1/0258, 120v.

aintzat hartu beharrean gaude, hauek ez bezala, Catalina parrokia bateko serora baitzen, etxe edo leinu batzuen zerbitzukoa izan beharrean.

Egoerak anitzak izaten ziren serora hauen artean, eta gainera, hiribilduetako serorak ez ziren parroketako seroretxeetan, edo leinu-etxe eta bestelako etxe partikularretan soilik bizi izaten. Bazeuden, lotura hauek gabe, hiribilduan euren kabuzko etxeetan bizi izan ziren serorak ere. Arrasateko San Frantziskoren kolegio eta komentuari 1604an 1.000 dukaten baloreko zentsuen dohaintza egin zion Maria Lopez de Olazaran, dohaintza egin zuen momentuan, etxe propio batzuetan bizi zela dirudi, zentsuen ematea “en las casas de la beata Maria Lopez de Olaçaran” helarazi baitzen¹⁴¹⁶. Zoritxarrez ezin izan dugu serora honen testuinguru sozial eta familiarra argitzen lagunduko ligukeen datu gehiegirik bildu ahal izan, nahiz eta aberastasunen neurriagatik nabaria den, serora bera maila ekonomiko eta sozial altuko partaidea zela. Bizi, edozein kasutan, leinuren edo alargunen baten etxean beharrean, bere kontu bizi zela dirudi.

Adibide xumeagoak ere badira Arrasaten bertan, 1599an testamentua helarazi zuen Maria de Arosteguirena kasu. Maria de Arosteguiaren familia ere, jarlekua zeukaten lekuari erreparatuaz gero (San Migelen kaperaren aurrean), nahiko maila sozial eta ekonomiko onekoa zela dirudi. Bere ondasunak, hiribilduko beste seroraren batzuen aldean, ez ziren hainbeste, nahiz eta txiroa izatetik urrun zegoen. Bere zor propioek eta zordunek 2-3 dukat inguruko ordainketa, tratu eta mailegu sorta bat agertzen digute, ehunen eta ohialen inguruko aktibitateak (“unos manteles de lienço de la mar”, “una libra y catorze onças de ylado de estopa de banado grueso”) eta ortuaren ustiapena (“cebollas”, “ocho ristras de ajos”) nabarmentzen dizkigutenak. Jarlekuen zerbitzuaren inguruko daturik, ez zaigu agertzen batere. Itxuraz, Maria de Arosteguiaren bizimodua, nahiko bizimodu lasaia eta xumea bezala ageri zaigu. Batez ere, esan bezala, bere etxe propioa zeukalako, eta ortua ustiatuz, joskintzan jardunez eta aktibitate hauen inguruko erdi-mailako zenbait salerosketa eta tratu bitarteko zirela mantentzen zela dirudielako (antzerako egoera dirudi Domenja de Gantek, bere azken egunetarako, mantendu izan zuen alargunaren oinordekoei eskatzen zienak). Baina bere aktibitateek itxura hori ematen badigute ere, bere ondasunen deskribapenak jatorri familiarren arrastoa azaltzen digu, kupelak, kutxak eta etxeko aparejuen artean, ez baizitzaion gauza handirik falta; jaso dezagun deskribapena aipuan, erretratu orokor bat osatzeko oso baliagarria baitzaigu:

estas casas de mi morada que son en la calle de las ferrerías sobre la mura[lla] pegante a las casa de Francisco Abbad con tres cubas que son una de seys cuebanos y otra de çinco y otra de quatro – y ocho arcas entre mayores y menores y un ap[?]rador grande en la sala delantera – y una mesa larga con su banco biejo – y ocho escudos llamados por use antiguos de tabla pintados – y onze picheles de estaño entre may[ores] y menores y nueue platos y diez salzeras de estaño y tres candeleros – yten una cama cumplida con quatro co[ber]tores de plumion y otros quatro de cauezal de estopa y tres sabanas de los mismo metidos en agua – y dos manteles de lienço los unos y los otros de estopa – treynta baras de lienço delgado en una tela – mas asta dis libras y medio de ylado de çerro grueso – y mis camisas y tocas y bestidos que tengo¹⁴¹⁷

Ez dirudi Maria de Arostegui, ekonomikoki jatorri “erosoa” izanagatik ere, leinu-etxeen edo alargunen zerbitzuko dinamiketan sartzeko asmo handiegirik izan zuenik. Esan bezala, bere testamentuan ez zaigu jarlekuetako zerbitzuen arrastorik ere ageri. Etxe propioaren eta dezenteko ondasunen jabe izanik, bere kabuz bizi izatea hautatu zuela dirudi, leinu-etxeen eta familien botere-joku eta errepresentazioen

¹⁴¹⁶ GPAH-AHPG 1/2339, 13r.

¹⁴¹⁷ GPAH-AHPG 1/2353, 201r-205v.

testuingurutik kanpo. Bere oinordekoaren izendapenak ere, modu autonomoan bizi zela eta erabakiak hartzeko independentzia izatearen kontzientzia zeukala aditzera ematen digu:

Yten digo y declaro que por quanto yo no tengo erederero forçoso y toda la dichaazienda es mia propia para poder mandar a quien fuere mi voluntad – por ser parienta de esta mi casa y demas de ser parienta por lo mucho que la quiero y por la confiança que tengo de que conseruara como persona principal que es la memoria de esta mi casa y defuntos de ella y su fuesa llamo por mi heredera unica y unibersal [...] a Catalina de Santamaria hija legitima de Juan de Estamena y de doña Madalena de Çauala su muger [...] y a falta de ella a Ysauela de Santamaria su hermana y en falta de ella o de sus hijos si los tubieren a Juan Ochoa de Santamaria su hermano¹⁴¹⁸

Ikusten dugunez, oinordekotza “a quien fuere mi voluntad” emateak ez zuen familia-kideak ahaztuak edo baztertuak zeuzkanik esan nahi. Itxuraz, serorak familia-ildo baten ondorengo gabeko azken harmaila osatzen zuen, pilaturiko zenbait ondasun bere eskuetan zeuzkana, eta etxea, bere ondasunak eta bere “memoria”, familiaren beste adar batekiko binkulazio bidez mantendu nahi zituen. Hau da, bizimodua nahierara egina izanik ere, Maria de Arostegui ez zen, noski, zegokion testuingurutik eta bertako baloreetatik kanpo bizi. Etxearen jarraipena ziurtatu nahi zuen, eta horregatik ezarri zituen oinordekoak iladan, bataren eta bere oinordekoen faltan, etxearen memoria beste baten eta bere oinordekoen bidez mantendu zedin.

Serora honek, gainera, familiaren ondasunen banaketan eta hauen zaintzan ere izan zuen partehartzerik. Ermuan bizi zen bere iloba Ana de Zuazori 70 dukat eman zizkion dohaintzan: 50 bere ahizpa Maria Perez de Arostegui ilobarendako gordailuan emanak zizkionak (“para despues de mis dias”), eta bere aldetik dohaintzan eman zizkion beste 20 dukat (heriotzatik bost urtera arte ezin kobratu izango zituenak). Hau da; Maria Perez de Arostegui bere alabari –ziurrenez seniparteen banaketatik– zegozkion diruak bere ahizpa seroraren esku utziak zituen, beharrezkoak izan zitezkeen momentuan (ezkontza, kasurako) erabili zituzan, edo azkenean egin zuen bezala, bere heriotzean dohaintzan eman ziezazkion. Edozein kasutan, bere ilobaren diru horien administrazioa bere eskutan utzi zuen ahizpak. Testamentuaren helarazpenetik denbora gutxira, urte berean, kodizilo bat ere helarazi zuen; badirudi izendatu zuen lehen oinordeko Catalina de Estameñak oinordekotza onartua zuela jada, kodizilo honetan, oinordekotza-ildoan bigarren paratu zuen eta lehenaren ahizpa zen Isabelaren aldeko dohaintza bat egin baitzuen: 100 dukat eman zizkion, zenbait baldintzarekin. Bere ahizpak serora berarekin egin zuen erara, dohaintzaren jasotzailearen amaren (Magdalena de Zabala, “doña”) esku utzi zituen diruok, hauek, “en la legitima materna que hubiere de auer” sar zitezzen. Ezin zuen beraz ilobak diru horretaz baliatu, motibo bategatik edo besteagatik seniparteen kobrantza egitea tokatu arte¹⁴¹⁹. Izan zuen parterik Maria de Arostegui, beraz, hainbat familia-kideren etorkizuna bermatzerako orduan.

Printzipioz, Arrasateko Maria de Arosteguiaren oso antzerako egoera sozial eta ekonomikoan zegoela dirudien beste serora baten berri ere izan dugu Antzuolan; 1640an testamentua egin zuenean, Agueda de Zumaetak honela deskribatu zituen zeuzkan ondasunak:

esta cassa donde uibo con su huerta detrás y un mançanal junto a las heredades de Lapaça cuios linderos son sabidos y cognoçidos = una cama en que duermo nueva con dos almuadas grandes y quatro fundas o açes todo al uso de esta tierra = una cortina de paño = dos cajas y una arca = diez o honze baras de estameña que costo a honze

¹⁴¹⁸ *Ibid.*

¹⁴¹⁹ *Ibid.*

reales = illo de lino para dos pieças de lienço de a çinquenta baras poco mas o menos = seis açes de lino espadado = los uestidos de mi persona = otras cassullas = los quales todos son mios propios¹⁴²⁰

Etxe bat, ortua eta sagastia, ohea, kutxaren batzuk, ehunak eta ohialak... agian kopuru xumeagoa zeukan, baina orokorrean, ondasunek Maria de Arosteguiaren antzerako egoera bat azaltzen digute. Baina Maria de Arostegui ez bezala, Agueda de Zumaetak ez zituen ondasun hauek familia-kideen artean edo tenplu eta zerbitzari erlijiosoen artean banatu. Hiribilduko Gure Erruzkizko Amaren parrokiaren aldeko 9 errealeko dohaintza bat egiteaz eta albazea izendatu zuen Joan de Monesteriobide batxilerrari bere ondasunen arteko ohialekin alba bat egitea agintzeaz beste, bestelako zenbait zor ordaindurik, ondasun guztiak bere oinordekoari eman zizkion: Joan Perez de Lizarriturriren eta Catalina de Bizcalazaren alaba zen Catalina de Lizarriturri. Oinordeko honi ez diogu serorarekiko familia-loturarik aurkitu ahal izan (erlazioren bat susmatzeko, “por dos mançanos plantios” serorak Joan Bautista de Lizarriturri zelako bati ordaindu zizkion 2 erreale berri baino ez dugu), baina, itxuraz, bera ere serora izatekotan zegoela dirudi; zenbait urtetara, 1659an, testamentua helarazi zuen Catalina de Lizarriturri Igueribar serora, Agueda de Zumaetak oinordeko egin zuen berbera bazen, behinik behin. Oinordekotzak bere zentzua hartzen du, gainera, Agueda de Zumaetak “en la sepultura de mi cassa” ehortzia izan nahi izan zuen artean, Catalina de Lizarriturrik “sepultura de la cassa de mi auit[*azion*] y morada” zenean ehortzia izan nahi zuela aintzat hartzen badugu. Catalinak “mi cassa” beharrean, “la cassa de mi auit[*azion*] y morada” esan bazuen, agian, etxea oinordekotzan jasoa izan zuelako izan zitekeen. Hau hala balitz, etxea, Catalina de Lizarriturrik zehaztu zuenaren arabera, herriko “Barundo” auzoan (?) kokaturik zegokeen. Familiaz beste, ondasunak seroren artean oinordekotzan emateak, bestalde, Agueda de Zumaetaren testamentuko familia-kideen ausentziari nolabaiteko zentzua ematen dio. Agueda de Zumaetak, gainera, Catalina de Lizarriturrik eskaintzen zitzaion oinordekotza ez onartzekotan, ondasun guztiak bere arimaren aldeko mezatan xahutu zitezela agindu zuen; edo ez zeukan familia-kiderik, edo ez zeukan hauek faboratzeko asmorik. Agian familia-kiderik ez izanagatik egingo zuen gerora serora izango zen emakume bat oinordeko; edo bere ondasunak beste serora batendako izan zitezzen nahi zuen, eta horregatik, hala ez izatekotan, familia-kideak alde batera utzirik, ondasunek bere arima baino faboratu ez zezatela –edo hobe esan, bere arima eta parrokiako benefiziodunak baino faboratu ez zitzaala– nahi izan zuen.

Konparaziorako laburbilduz, Arrasateko Maria de Arostegui, nahiz eta erabakiak bere kabuz hartzeko askatasuna zeukan eta egoera hartan bizi izatearen kontzientzia zeukan, leinuen eta etxeen dinamikari lotua ere bazegoen; halabeharrez, testuinguruaren baloreek hala agintzen baitzuten. Antzuolako Agueda de Zumaetak ostera, uste dugunaren arabera, bere ondasunik gehienak serora izatekotan zen beste emakume bati eman bazizkion, seroren ondasunek har zezaketen beste norabide bat azaltzen digu, familiako loturak beharrean, seroren arteko bestelako lotura erlijioso edo sozialak aintzatesten zituena. Edozein kasutan, gauza bat nabaria da: serorak oinordeko bakarraren ondasunen pilaketa aintzatesten zuen gizarte batean bizi zitezkeen, baina testuinguru haren baitan, egokitu zitzaizkien ondasunekin egiten zutena, beraien kabuz erabakitzen zuten. Garaiko eragin eta kohertzio sozial eta kulturalen baitan zeuden, noski; baina hein batean, eredu sozial eta ekonomikoa bere inguruan ondasunik gehienak pilatzen zituen leinu-buruarena zen testuinguru hartan, ondasunen eta diruen boltsa autonomoak ziren serorek jasotzen eta mugitzen zituztenak, beraien borondate

¹⁴²⁰ GPAH-AHPG 1/0769, 118r.

propioaren arabera mobilitate handia izatera hel zitezkeenak, eta familia baitako ezkontz-politiketan eta dinamika sozial eta ekonomikoetan eragin esanguratsua izan zezaketenak.

Hiribilduen testuinguruan bizi ziren serora hauek, bizilekuaz aparte, ikusi dugunez, beste etxeren batzuen jabegoa ere izatera heldu ziren, hauek erosi, obretan jarri, saldu, edo dohaintzan ematen agertu baitzaizkigu. Baina bizilekuaz aparteko etxeen edukitzea, ez zen hiribilduen testuinguru aberatsagoetako seroren kasuan soilik ematen. Honen adibide bat, bestelako testuinguru bati dagokiona eta, halaber, oso esanguratsua dena, Elexamendiko Andre Maria ermitaren (Angiozar, Elgeta –gaur egun Bergara–) seroretxean bizi izan zen Catalina de Mendiguchiarena dugu. Arras esanguratsua, diogu, familia-kideen promozio sozialean serorek izan zezaketen papera azaltzen digulako. Serora honek bere 1638ko testamentuko dohaintzak egitean ondasunen banaketa nola erabaki zuen oso interesgarria zaigu. Dohaintzak gutxi batzuk baino ez dira, baina familiarekiko erlazioen ikuspegi garbi bat ematen digute. Alde batetik, bere ahizpa Maria de Mendiguchiari eta honen alaba Marina de Mendiguchiari bakoitzari ohe bana eman zien zegozkien ohe-estalkiekin, eta oinordeko, hauen seme eta anai zen Pedro de Mendiguchia bere iloba egin zuen. Hau albazea ere izendatu zuen, bere aita eta seroraren koinatu zen Martin de Galarraga Saconarekin batera. Pedro de Mendiguchiak jaso zituen ondasunen parterik garrantzitsuena 40 dukateko zentsu bati zegokion, baina ez dakigu, seroraren testamentuko betekizunak bete ondoren, etekin handiegirik izango ote zuen. Baina gertueneko testuinguruan serorak zeukan familiari (bere ahizparenari) emandako ondasun hauez gain, honek bere jabegoko etxe bat ere bazeukan Angiozarren, “con su mançanal y castanales y rrobredal que la dexaron sus padres”. Etxearen jabegoa bere oinordekoarengana iragatekoa bazen ere, honen 20 urtetako usufuktoa apez izateko bidean zegoen beste iloba bati eman zion dohaintzan, Irigoin batxilerrari. Seroraren eskaintza honakoa zen: “aya sin rrenta para bibir en ella por tienpo de ueinte años sin ynteres”, baina baldintza garbi batzuekin: “si [...] biniere a dezir [*meza*] y a bibir a Anguioçar”, eta “no siendo clerigo no es mi uoluntad”¹⁴²¹. Irigoin batxilerrak beraz, hobe zuen meza berriak Angiozarren esan, seroraren etxea 20 urtetan zehar musutruk gozatu nahi bazuen. Baina zalantzarik gabe, seroraren eskaintzak batxilerraren bizimoduan eta gizarte baitako promozioan eragin handia izan zezakeen, gastu handi bat aurrezten baitzion. Eta halaber, promozio hau talde familiar zabalagoaren baitan ere onuragarria izan zitekeen, zenbait kide, leinua eta gainontzeko familia-kideak babestu ahal izateko posizioan kokatu zitezten ahalbidetzen baitzuen.

Familiaren promozioaren beste kasu nabari bat daukagu Antzuolan, Catalina de Lizarriturri Igueribarren 1659ko testamentuan. Bertan, bere arimaren aldeko memoria bat fundatu zuen, ez zuen familia-kideenganako dohaintzarik egin, eta bere iloba Isabela Perez de Lizarriturri Igueribar egin zuen oinordeko, baina baldintza garbi batekin: Joseph de Zumaeta Antzuolako alkate zenarekin ezkontza gauzatzekotan¹⁴²². Catalina de Mendiguchiaren kasuan bezala, dohaintza, kasu honetan oinordekotza, familiarendako onuragarria zen egoera baten gauzatzeari loturik ageri zaigu; beraien diru eta ondasunak, promozio sozialean lortzera bideratuak zeuden, eta honen lorpenak baldintzatuak zeuden.

Hainbat dohaintza esanguratsuk ere argi asko azaltzen digute serorek familiaren testuingurua faboratzeko zeukaten nahia eta borondatea, eta gaitasuna. Batzuetan, ikusi berri ditugun hainbat seroren ibilbideek azaltzen digutena berretsiz, dohaintza hauek etxe edo baserrien iraupenera bideratuak zeuden. Halakoetan, kopuru handietako

¹⁴²¹ GPAH-AHPG 1/1853, 105r-106v.

¹⁴²² GPAH-AHPG 1/0774, 84v-86r.

dohaintza gutxirekin egiten dugu topo. Edo Maria de Umeresen (Oñati, San Migel parrokia, 1694) kasuan bezala, jada emandako maileguen zorren barkamen bidez egindako dohaintzekin. Serora honen alde, Umeres baserriaren jabe zen bere iloba San Joan de Umeresek 100 dukateko zentsu bat fundatua zuen. Zentsuei buruz jardutean beste seroraren batzuen kasuetan ikusi dugunez, Maria de Umeresek ere zentsuaren zorren barkamena agindu zuen bere testamentuan, badaezpada, seniparteen ingurukoak ere kitatuta zeudela adieraziz:

del qual ago suelta y quiero que ni el principal ni sus rreditos no se les pida y queden para San Joan de Umeres mi sobrino dueño de la dicha Casseria declarando como declaro thener cobrado y estar satisfecha y pagada de todas las lejitimas paternas y maternas [...] y no thener derecho alguno en los vienes que dexaron los dichos mis padres¹⁴²³

Tankerako beste kasu bat Antzuolako Dionisia de Jauregui Madariagarena (1720) dugu. Ignacio de Guerra Mendizabal bere ilobari "para quando tomare estado" eman zizkion ohe-estalkiez beste, serora honen familia kideenganako dohaintza bakarra 50na dukateko bi zentsurena izan zen, Ignacia de Gaztelu bere ilobari emandakoa. Honen identitateari buruzko azalpenak ematean, nahiko garbi adierazi zuen bere asmoa etxearen iraupena zela:

hija lexitima de Juan Miguel de Gastelu, y Ygnazia Baupista de Jauregui Madariaga su lexitima Muger y sobrina Carnal de la dicha otorgante, por ser como es dicha Ygnazia hija de Pilla de la otorgante, y en falta suia quiere sea para el hijo ô hija que tienen o tubieren dichos Juan Miguel y su Muger, â eleczion y beneplazito de ellos¹⁴²⁴

Bergarako San Martin ermitako Maria Ana de Mecalalde (1762) dohaintzak banatzeko izan zuen modua ere oso esanguratsua dugu. Askarruntz Goikoa baserriko jabe zen bere iloba Pedro Antonio de Unamunok 139 dukat eta 10 errealeko zorra zeukan serorarekin, honek orduan zirela 4 urte, 7 urtetara itzultzeko baldintzarekin, "para recurrir a sus Urgencias " maileguan eman baitzizkion. Zor zitzaizkion diru horietatik Santa Marina parrokian anibertsario bat fundatu ziezaiotela agindu zuen, eta 174 erreal eman zizkion Albisua etxeko jabe -eta Manuel de Albisuaren emazte- zen Maria Ana de Unamunori, eta -beste- 174 erreal eta 1/2 -dohaintza hauen jatorri ziren diruen- zordun zen bere iloba Pedro Antonio de Unamunori barkatu zizkion, "Cuias mandas declaro que las hago por el expecial cariño que les professo". Azken honi, gainera, saldutako artoagatiko beste 55 errealeko zor bat ere barkatu zion¹⁴²⁵. Bereziki faboratuak ziren iloben aldeko beste dohaintzaren batzuk ere aipagarriak ditugu, Leintz Gatzagako Maria de Pagadigorrirena (Dorletako Andre Maria santutegia, 1719)¹⁴²⁶ edo Antzuolako Maria Ana de Goitia Bereteriorenak (1733)¹⁴²⁷ kasu.

Bestetan, familien ildo tronkalak, etxe edo baserriak egoera ekonomiko onean egoteagatik izan zitekeena, familia kideen taldetxo bati egindako dohaintza ekitatiboen sortatxo batekin egiten dugu topo (nahiz zenbaitetan, hauen arteko batek kopuru handixeagoa jasotzen zuen, "faboratuen" bezala). Hala, Bergarako Mariana de Aleizak (San Pedro parrokia?, 1758) 75na errealeko dohaintzak egin zizkien Francisca Xaviera de Aleiza bere ahizpari, eta halaber "parientes" bezala aipatu zituen Gaspar de Izaguirre,

¹⁴²³ GPAH-AHPG 1/3211, 498r-498v.

¹⁴²⁴ GPAH-AHPG 1/0529, 251r-253v.

¹⁴²⁵ GPAH-AHPG 1/0615, 423r-426v.

¹⁴²⁶ 50 dukateko zentsu bat eman zion bere iloba Maria Rosa de Maiz, Juan Martin de Salterain Leintz Gatzagako izkribauaren emazteari (DEAH-AHDSS 4812/000-00, 1r-8r).

¹⁴²⁷ 100 dukateko zentsua eman zion bere iloba Josefa Antonia de Goitia Bereteriori (GPAH-AHPG 1/0538, 232v-235v).

Juachin de Izaguirre eta Miguel de Gorosabeli¹⁴²⁸. Eta Oñatiko Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784), ilobei, hauen seme-alabei, neskameei eta bestelako ahaide eta lagunei egindako dohaintzen 16 partidatan 4.300 erreale banatu zituen. 9 iloba eta hauen seme alabei 300 errealeko dohaintzak egin zizkien, eta kopuru handiagoekin -eta hainbat ondasunekin- bereziki faboratu zituen iloba baten alaba zen Xaviera "por ser de mis brazos" (60 dukatekin), Josefa Bergara de Jauregui (30 dukat) eta bere lehengusina Maria Bautista de Lizarralde (20 dukat). Zeuzkan bi neskameri, beste ondasun batzuekin, 75na erreale eman zizkien, eta Maria Bernarda de Ariznabarretari 160 erreale, eta Lorenza de Cortabarriari -kasu honetan zorraren barkamen bidez- 80 erreale eman zizkien. Eta horiez gain, bere iloba Maria Esteban de Sarraoaren alaba Mariana de Valleri, "se le haga de Uestir, y se le paguen los gastos que causare asta llegar a la Ciudad de Cadiz"¹⁴²⁹.

Baina seroren egoerak ugariak baitziren, familiekiko harturiko erabakiak ere hainbestean ziren, eta kasu batzuk, orain arte ikusi ditugunen aldean familiarekiko erlazioen oso hautemapen ezberdina ere agertzen digute, jarraian bukatzeko ikusiko dugunak bezala. Oñatin, San Julian ermitan serora zen Francisca de Estrada Basaurik, beste serora batzuek bezala, etxe bat zeukan inguru populatuagoan, Oñatiko hiribilduan. Ehortzia izan nahi zuen jarlekua, etxeren batekiko loturaz beharrean, "mi sepultura" bezala aipatu zuena, San Pedroren aldarearen ondoan zegoen; ez zeukan kokapen txarra. Maileguengatik 100 eta 200 errealeko bi zordun zeuzkan, eta berak ere 6 dukat eta 2 errealeko mailegu bat ere jaso zuen, bere konfessore zen Orueta batxilerrak zekien norbaitengandik (hau da, honen bidez eskatuak izan ziren), eta 14 dukaten baloreko kikara bat emana zuen maileguaren bahitzat. Bergarako Ana Joanes de Ganterekin eta honen ahizpa Charin de Ganterekin auziren batzuk izana zen, eta lehenari 24 dukat eta 3 erreale eta auziko gastuak ordaindu behar zizkion artean, bigarrenak berari 26 dukat eta auziko gastuak ordaindu behar zizkion. Etxe bat bazeukan ere, Francisca de Estradaren ondasunak ez ziren ikusi berri ditugun seroren bestekoak:

las casas de la calle trasera de Calle Çaharra y la huerta de Orayturri con cargo de pagar un ducado de çenso a los herederos de Julian Gomes de Uerganço vezino de esta villa [...] tres saya[s] y tres rropas y tres camas todo ello traydo y tres arcas entre mayores y menores dos herradas y dos calderas y veinte cargas de lena y tres panos de lienço¹⁴³⁰

Gutxi dira ondasun hauek jasotzen ageri zaizkigun familia-kideak. Ohe bat, kutxa bat eta zapietariko bat eman zizkion bere iloba Magdalena de Murguisurri, beste zapi bat bere lehengusina Maria de Arrazolari, eta zeuzkan beste bi oheei zegokienez, bata herriko ospitaleari eman zion, eta bestea, Martin Garcia de Olazaran Oñatiko alkateak nahiko zukeen pertsona txiro bati ematea agindu zuen. Hirugarren zapia ere, alkateak erabaki zezala norentzat izango zen. Gainontzeko guztia, etxea, ortua, eta bestelakoak barne, enkantean saldu eta bere arimaren aldeko mezatan xahutzeko utzi zuen. Eta testamentuko nahiak bete ondoren, "si algo sobrare", San Migel parrokian alkateari egoki zeritzon eran betiereko memoria bat fundatzea agindu zuen. Eta alkatea bera egin zuen albazea, "al qual le rruego y encargo lo açepte". Beste inor ez zeukalako jo ote zuen alkateagana, agintaria izateagatik, ala erlazio pertsonalen bat zegoen seroraren eta alkatearen artean? Ez dakigu. Baina seroraren etxea behintzat ez zen inongo familia-kidearen eskutara joan; bere arimaren aldeko mezatan xahutu zen (edo serorak hala nahi izan zuen behintzat).

¹⁴²⁸ GPAH-AHPG 1/0596, 127r-128r.

¹⁴²⁹ GPAH-AHPG 1/3424, 105r-110r.

¹⁴³⁰ GPAH-AHPG 1/3051, 134r-135v.

VII. 1.2. Oinordekotzak eta dohaintzak

Serorek beraien familia-kideei ematen zieten laguntza ekonomikoari jarraipena egiterakoan, zenbait ezaugarri edo alderdi bereizgarrik berehala egiten dute agerpena. Alde batetik, orokorrean, egin izan zituzten dohaintzetan emakumezkoek zeukaten presentzia nabarmentzen da. Deigarria suertatzen den beste ezaugarri bat, oinordekotzetan nahiz dohaintzetan ilobek zeukaten pisua da. Azken bereizgarri lez, familiaren, leinuaren eta etxearen sostengura begira egindako dohaintza eta kudeaketa ekonomikoak nabarmenduko ditugu, hein bateraino, jada ikergai izan ditugunak. Dohaintzen hiru ezaugarri hauek serorek preferentziarekin faboratzen zituzten espazio sozial eta familiarren berri ematen digute, eta atal honen ardatz nagusiak ezaugarri hauei begira osatuko ditugu.

Lehenik eta behin, emakumezkoen presentziak gizonezkoekiko azaltzen dituen ezberdintasunei begira, 99 testamentuen laginetik serorek dohaintzak egin zizkieten pertsonen sexuaren araberrako estatistika atera dugu 9. koadroan (935-939 or.). Datu hauek, noski, zuhurtasunez hartzeoak dira, oso tankera ezberdinetako dohaintzak zenbaki baten pean jartzen baititugu. Alderdi hauei aurrerago helduko diegu, baina oraingoz, egin dugun estatistika basikoan azaltzen zaizkigun emaitzei begira, arras esanguratsuak diruditen zenbait joera azaltzen dizkigutela esan behar. Ohartzeko lehen puntu bat, familia-kide eta lagunei batere dohaintzarik egin ez zieten 22 serora (gehi 2 zalantzakorrak) ageri zaizkigula da. Gainontzeko 76 seroren artean, 298 emakumezko (familia-kide eta lagunei egindako dohaintzen %73'76) eta 100 (%24'75) gizonezko faboratu zituzten dohaintzekin, eta 6 kasutan (%1'48) ez dakigu sexurik. Emakumezkoen kopuruak gizonezkoena hirukoizten du, eta kasu batzuetan, ez dago gizonezkoegi egindako dohaintzarik. Gainera, eta hau aurreraxeago ikusiko badugu ere, gizonezkoen aldeko dohaintzak gehiago ziren kasuetan, egoera hau askotan leinuaren etxearen mantenuaren beharrari zegokiola ohartu dugu. Seroren heriotzean, beraz, hauen ondasunen jasotzaileen esparrua, nagusiki, emakumezkoena zen. Zenbait galdera datozkigu jarraian, datu orokor hauen emaitzei begira: Zer dela eta dohaintzen kopuruaren hainbesteko aldea? Dohaintzan emandako ondasunen artean, zeintzuk esleitzen zitzaizkien emakumei, eta zeintzuk gizonezkoegi? Zergatik?

Saiatuko gara galdera hauei aurrerago erantzuten, baina poliki-poliki datuetara gerturatuz joateko, hain modu orokorrean batu ditugun dohaintzen inguruko estatistikak baino, oinordekotzaren esleipenak modu argiagoan erakusten du seroren preferentziak nondik norakoak ziren. 99 seroren testamentuetatik 98tan aipaturik ageri zaizkigun 113 oinordekoen sexuaren, eta oinordeko arima edo tenpluren bat egin zutenen araberrako banaketa eginaz gero, 10. koadroan (941-956 or.) jaso ditugun datuen ondorengo emaitzak irtetzen zaizkigu¹⁴³¹: emakumezkoak 47 (%41'59), gizonezkoak 38 (%33'62), arimak 22 (%19'46) eta tenpluak 6 (%5'3). Oraingo honetan sexuen arteko balantzea dohaintzetan baino parekatuago gelditu zaigu. Beste ezaugarri bat ere bereizgarritzat aipatu dugu: iloben nagusitasuna. Emakumeen artean 47 oinordekotik 18 (emakumezkoen %28'29, pertsonen %21'17, oinordeko guztien %15'92) ziren ilobak, eta gizonen artean berriz, 38tik 14 (gizonezkoen %36'84, pertsonen %16'47, oinordeko guztien %12'38). 32 iloba hauek osatzen dute talde nagusia (pertsonen %37'64, oinordeko guztien %28'31), hurrengo taldea ahizpek eta anaiek osatua litzateke, lehenak 14 (emakumeen %29'78) eta bigarrenak 14 (gizonezkoen %36'84), denera 28 (pertsonen

¹⁴³¹ Jarraian landuko dugun informaziorik gehiena koadro honetan antolaturik batu dugu, eta aurreko zenbait koadroren kasuetan bezala, errepikapenak ekiditeko, dokumentuen erreferentzien kontsultarako irakurlea bertara bideratzen dugu. Osterantzean, aipuen inguruko erreferentziak baino ez ditugu emango.

%32'94, oinordeko guztien %24'77), eta arima oinordeko egin zuten 22 kasuak datoz gero (oinordeko guztien %19'46). Azken talde bat tenpluek (6, oinordeko guztien %5'3), serorek (3, gehi serora ere baziren ahizpetariko 2, emakumeen %1'06) eta bestelakoek (5 emakumezko eta 3 gizonezko, pertsonen %9'41) osatua litzateke, eta azkenik, bazen apez bat ere (gizonezkoen %2'63).

Datu hauek zenbait norabide ematen dizkigute. Alde batetik, oinordeko izendapenen bidez seroren ondasunak askotan ilobengana, eta anai eta ahizpengana iragaten zirela ikusten dugu. Honek, noski, badu familiaren ildo tronkalarekiko loturarekin zerikusirik. Ikusi dugu aurreko kapituluan nola serora askok ahizpen eta anaien familien babes sozial eta ekonomikoa euren betebeharren artean hautematen zuten, eta nola hainbat dohaintza, zentsu, lagapen... etxearen jarraipena ilobek bermatzera bideratzen zituzten. Oinordekoen izendapenek ere joera orokor hau azaltzen digute; zenbait kasutan etxearen jarraipenerako borondatea esplizituki aipatu izan zen, eta iloben euren edo ahizpa eta anaien izendapenak, hauek etxean gelditzearen baldintzapean egin izan zen. Aurreko kapituluan azaldu izan ditugun kasuez aparte, oinordeko “mi sobrina que queda en casa” izendatu zuen Ines de Bidaniarena (Oñati, San Martin ermita, 1554) aipatu liteke¹⁴³², eta baita bere borondatea garbi asko azaldu zuen Catalina de Bengoarena (Aretxabaleta, 1634) ere; oinordeko bere ahizpa Francisca de Bengoa egin zuen, eta:

despues de ella los aya y herede vna de sus hijas la que quedare en las cassas en que todos viuimos ["las cassas de Garaycoa"] insolidum sin parte alguna de su hermana y herederos si los tuuiere porque quiero que la dicha mi legitima quede por acrezentamiento de la dicha cassa¹⁴³³

Hein horretan, sexuaren faktorea baino etxearena garrantzitsuagoa zela dirudi. Familia-kide zuzenak ez ziren kasuren batean ere logika berbera hatzeman liteke; hori dugu, adibidez, oinordeko Catalina Lopez de Ibarra alarguna egin zuen Domenja de Ganteren (Bergara, 1592) kasua, jada aipatua. Hiribilduko serora bat zen, bere erlijiozko zerbitzua alargunaren etxean gauzatzen zuena, eta oinordekoa izendatzerakoan, bere zerbitzuko espazioa, bizilekua eta azken finean, bere “familia” ere osatzen zuen espazioaren buru zen alarguna bera aukeratu zuen. Testamentuaren irekiera bera (itxia izan baitzen), alargunaren eskakizunez egin zen¹⁴³⁴.

Ikusi dugunez, talde esanguratsu bat oinordeko euren arima edo tenpluren bat egiten zuten serorek osatzen zutena zen. Serora hauek banaketa espazial jakin bat agertzen digute, arimaren salbaziorako arduraren presentzia azaltzen digun heinean, Aro Berriko erlijiotasunaren barneratze-mailen distribuzio espazialaren adierazgarritzat har genezakeena. Eta ez dirudi kasualitatea, oinordekotza hauek batez ere Bergarako eta Oñatiko espazioaren baitan emateak. Laginean baitaratu ditugun Bergarako 21 seroren arteko 8 (ggb. %38) ditugu joera honen adierazle, gehienak 1650a baino lehenagokoak (7). Oñatin 22 seroren arteko 6ren (%27'27) kasua dugu, eta hemen, 4 1591-1657 bitartekoak ditugu, eta beste 2ak bertako parrokiari izan ziren azken serorak ditugu, 1784an eta 1793an helaraziriko testamentuekin. Debagoieneko gainontzeko 55 seroren artean, 8k (%14'54) egin zuten beraien arima oinordeko (Elgetan 2, Arrasaten 3, Eskoriatzan 1, Leintz Gatzagan 2). Zerbitzuen espazioen araberrako banaketari erreparatuko bagenio, parrokiatan 9 (%40'9) seroren hautua izan zela ikusten dugu, beste 5 (%22'72) kasutan tenpluenganako lotura gabeko serorak ziren, ermitetakoak 6 (%27'27), eta 2 (ggb. %9) ospitaleetakoak. Azken hauetatik eskuratu ditugun testamentu

¹⁴³² GPAH-AHPG 1/2857, 14v-17v.

¹⁴³³ GPAH-AHPG 1/0872, 148r-150r.

¹⁴³⁴ GPAH-AHPG 1/0157, 119r-125v.

urrien erdiaren kasua dugu, baina oso kopuru txikietan mugitzen gara, ezer adierazgarririk ateratzeko. Darabilgun laginean zerbitzu partikularretako eta hiribilduetako seroren, parrokietakoen eta ermitetakoen artean gordetzen den proportzioarekiko nahiko gertukoak ditugun portzentaiak dira, eta honek, printzipioz, oinordeko arima egin zuten seroren artean zerbitzuko espazioen arabera ezberdintasun handiegirik ez zegoela adieraziko liguke. Alabaina, erlijiotasunaren inguruko alderdi hauei erreparatuko diegu aurrerago beste ikuspegi batzuetatik ere, bestelako informazio esanguratsuekin erantzun garbiagoak emate aldera.

Oinordeko izendapenekin batera, albazea izendapenek ere oso datu esanguratsuak ematen dizkigute. Kasu honetan deigarria dena, gizonezkoen presentziaren nagusitasuna da. 144 izan ziren albazea lanetarako aukeraturiko gizonak, emakumeak 52 baino izan ez ziren artean. Albazeatzat gizonezkoak bakarrik 58 testamenturen kasutan aukeratu zituzten (%59'18), emakumezkoak eta gizonezkoak 26 kasutan (%26'53) eta emakumezkoak bakarrik 14tan (%14'28). Hau, noski, hein handi batean Aro Berrian emakumeen aurrean gizonek zeuzkaten legezko abantailek motibatua zen. Seroren euren askatasun eta autonomia ekonomiko eta soziala hor baziren ere, bizi izan ziren testuinguruan salbuespenezko egoera bati zegokion. Hein horretan, oso esanguratsua da albazea izendaturiko 52 emakumeen arteko 15 (%28), halaber serorak izatea. Gainera, hauetariko 8, oinordeko arima egin zuteneko kasuetan izan ziren albazea, eta honek, arimaren aldeko betekizunen zaintzarako zenbait serorak beste seroren presentzia garrantzitsua zela hautematen zutela adierazten digu. Albazeatzat emakumeak bakarrik aukeratu zituzten 14 kasuetara mugaturik, elkarrekin edo bakarka, "doña" eta alargun bezala aipatuak ageri zaizkigu gehien (7 kasutan), ahizpak eta ilobak hurrena (5tan) eta serorak eta bestelakoak azkenik (3tan eta 2tan). "Doña" eta alargunen kasuetan, eta baita iloba eta ahizpenean ere, gehienetan parrokietakoa eta zerbitzu partikularretako serorak ageri zaizkigu, albazea izendaturiko emakumearekiko edo emakumeekiko zerbitzuzko edo/eta familiako lotura zeukatenak. Batzuetan, albazeak eurak egin zituzten oinordeko. Albazeatzat serorak ageri zaizkigun 15 kasuetara mugatuaz gero ere, zenbait ezaugarri esanguratsu azaleratzen zaizkigu. Ohartzekoa dugu, hauen artean oinordeko euren arima (5) edo -bakarka edo beste norbaitekin- albazea izendatu zuten serora bera (4) egin zutenekoek osatzen dutela parterik handiena. Bestalde, oinordekoak esandakoak zirenean bezalaxe bestelakoak zirenean ere, albazeen taldea osatzen serorak parte ziren familia-erlazioen testuingurua ageri zaigu, familiekiko zerbitzuzko erlazioak barne. Honekiko salbuespen urriak ermitetakoa bi serorari eta ospitaleko bati dagozkie: esanguratsuki, oinordeko euren arima (2tan) edo albazea zen serora (1tan) egin zutenetarikoak dira, eta hiruretan familia-kide ez ziren albazeak serorak ziren, ermita berean, edo herriko parrokian. Hau da, ofizioa eta bizimodua partekatzearen hirizpidea nabarmentzen da. Eta antzerakoa dugu, bestalde, serorekin batera albazeatzat familia-kideren bat ageri den, edo oinordeko eta albazea izendatutako serora bera familia-kide zeneko 5 kasutan ere. Laburbilduz, albazeatzat gizonezkoak nagusi ez ziren kasuetan, "doña" eta alargunekin batera serorak ageri zaizkigu arduraren kargu hartzen, bereziki, familia-kideak eta serorak eurak albazea bezalaxe oinordeko ere egin zituzten kasuetan.

Gehienetan, hala ere, nahiz eta emakumeen eta beste seroren presentzia hor izan, testamentuek argi azaltzen digute azken borondateen betekizunaren arduraren eta zaintzan, batez ere, gizonak presente izatearen nahia. Albazea izendatuak izan ziren 144 gizonen artean, hiru talde nabarmentzen zaizkigu, antzerako emaitzekin: iloba eta anaiena (39, ggb. %27), bestelako familia-kideena (37, %25'69), eta apezena (39, ggb. %27). Batzuetan -8 kasutan- familia-kidea apezaren izatea ere gertatzen zen; kasu hauetan,

sailkapena egiterako orduan familia-erlazioa aintzatetsi dugu, apez izaeraz aparteko gertuko erlazioari garrantzitsuago iritzirik. Ilobei eta anaiei zegokienean, bakarka edo beste norbaitekin oinordeko izanik behar besteko nagusi zirenean, albazea izendapena ere euren gain egin ohi zuten, bakarrik edo beste norbaitekin batera (normalean aita edo semea, edo apezzen bat); Debagoienean zehar banaturiko hainbat kasutan izan zen horrela, eta konstanteetariko bat zela ikusten dugu, 24 kasuen (28 anai eta iloba) arteko 19tan hala egin baitzuten. Ilobarekin edo anaiarekin bat, oinordeko “doña”-ren bat edo seroraren bat izendatu zituzten kasu batzuetan ere beste hainbeste egin zela ikusten dugu; hau da, goraxeago ere oharitu dugunez, legezko gaitasunari zegokionean, zenbaitetan “doña”-k eta serorak gizonen pareko tratuarekin ageri zaizkigula: “doña”-ren kasua, adibidez, oinordeko eta albazea bere iloba Maria Ruiz de Araoz eta bere anaia Cristobal Ruiz de Araoz (Mariaren aita) izendatu zituen Maria Ruiz de Araoz y Duranarena dugu (Aretxabaleta, 1629), eta serorarena berriz, parrokia berean serora zen Catalina de Sagastizabalekin eta bere iloba Pero Garcia de Oruesagastirekin beste hainbeste egin zuen Marina Garcia de Oruesagastirena (Bergara, San Pedro parrokia, 1607).

Izendapen hauek gidatzen zituzten patroio orokorrak hautemateko esanguratsuek dira Catalina de Sarralderen (Bergara, Santa Marina parrokia, 1628) oinordeko eta albazea izendapenak ere: Pedro de Elusa bere “primo hermano” zena izendatu zuen oinordeko, eta albazea berriz, Pedro berarekin batera, Maria de Gorostola (“doña”) eta Gracia de Zabala serora izendatu zituen. Alabaina, eta hau nori zer zegokion ulertzeko adierazgarria dugu, bere ondasunak Pedro de Elusaren “libre y asoluta Uoluntad” pean, “para que haga de ellos lo que bien visto le fuere y por bien tuuiere sin quedar obligado a dar quenta ni rraçon de ellos a ninguna persona” utzi bazituen, Maria de Gorostolak (“doña”) eta Garcia de Zabala serorak zeukaten papera bestelakoa zen:

nombro para la execucion de las obsequias funerales entierro y entre año y cauo de año tan solamente sin estender su facultad mas que a esto solo por mis testamentarias juntamente con el dicho Pedro de Elusa a Doña Maria de Gorostola y Gracia de Çauala a quienes suplico acudan a esta charidad como de ellas fio y quiero y es mi Uoluntad que todo lo demas contenido en este testamento priuatiuamente quede por quenta del dicho Pedro de Elusa sin que las dichas Doña Maria y Gracia de Çauala se puedan entremeter¹⁴³⁵

Honek, funtsean, oinordeko arima izendatzen zuten seroren kasuetan beste serorek albazea lez izan ohi zuten paperera ere bagaramatza, zenbait serorek elkarri arimaren aldeko betekizunen zaintza esleitzeko joera zutela berretsiz.

Oinordekotza moeta guztietan, baina bereziki emakumezko ilobenetan ageri zaigun beste konstante bat, albazea lanak familiako gizon bati edo batzuei eta apez bati edo batzuei esleitzearena da; hau da, seroren egoera sozial eta erlijiosoari jarraiki, familiaren alderdi laikoaren eta Elizaren alderdi erlijiosoaren arduradunak izendatzea, kasu askotan, bi parteak presente izanik (batzuetan pertsona berebanean, esate baterako, anaia apezka izanik). Horrela, familia-kideak eta apezak 20 kasutan ageri zaizkigu albazea lanak partekatzen, beste 4 kasu zalantzakorrekin batera (azken kasu hauetan, nahiz eta ziurtasuna erabatekoa ez izan, familiakoak ez izanik ere nabaria da konfidantzazko pertsonak izan behar zutela, eta beraz, gertueneko testuinguru sozialean kokatu beharko genituzkeela)¹⁴³⁶. Familia-erlazioa zehaztu gabe izena edo titulua

¹⁴³⁵ GPAH-AHPG 1/0258, 116r-122v.

¹⁴³⁶ Francisca de Igueribarren kasuan (Bergara, 1581) elkarrekiko osaba eta iloba ziren bi batxiler ageri zaizkigu albazea lez. Ez dakigu ziur bietarikoren bat apezka zen edo izateko bidean zen, ez eta ziurtasun osoz, seroraren familia-kide ote ziren; alabaina, serorak egin zizkien dohaintzak esanguratsuek izan ziren

("bachiller", "comisario", etab.) emandako familia-kideak ere izango zirela aintzat harturik, zalantzakorrak ere ontzat emango ditugu kalkulutarako. Honi, emakumeen presentziaz aparte, gizonezko familia-kideak (apezik gabe) edo apezak (gizonezko familia-kiderik gabe) albazea izendatu zituzten 42 seroren kasuak gehituz gero, 98 seroren arteko 66k (% 67'34) familiaren edo Elizaren inguruko gizonen bat albazea izendatu zutela ikusiko dugu. Beraz, serorek beraien borondatearen betekizunerako aukeratu izan zituzten –eta beraien ondasunen banaketaren gaineko kontrola mantentzen zuten– pertsonen artean, gehienetan, hau da, proportziorik handienez, espazio hauetako gizonezkoak zeuden.

Esan berri dugunak, noski, emakumezko oinordekoen kasuetan ere gehienetan gizonezko albazeak izendatuak izatea esan nahi zuen (batzuetan emakumeren batekin edo batzuekin batera bazen ere); hauek, ikusi berri dugunari jarraiki, askotan familia-kideak izan ohi ziren, edo hala ez izatekotan, apezak. Emakumeak soilik oinordeko izendatuak izan ziren 34 kasuetan (kasuen %34'69, gizonezko oinordekoekin batera zeuden kasuak 10 izan ziren, %10'2), 8 izan ziren emakumezko albazeak baino izendatu ez zituzten kasuak (emakumeak bakarrik izendaturiko kasuen %23'52a, eta oinordeko pertsonaren bat izendatu izan zuten 70 kasuen %11'42a). 4 tenpluenganako lotura gabeko serorak ziren, 3 ermitatekoak eta bakarra parrokiakoa. 6 kasutan familia-kideak izan ziren aukeratuak, ahizpak eta ilobak batez ere (batean parrokia berean serora zen izeba, beste bat "doña" alargun bezala aipaturiko iloba), eta beste bi kasuetan, bata alargun bezala aipatua izan zen, eta bestea "doña" bezala.

Lehen ikuspegi honetatik zenbait ondorio atera litezke. Testamentuetako dohaintzen jasotzaileen parterik handiena nabariki emakumeek osatua izanik ere, oinordeko, emakumeak bezalatsu, gizonak ere izendatu ohi zituzten, nahiz eta hemen ere emakumeak ugariago izan. Garai hartako testuinguruan normala zen lez -gaur egungoan bezalaxe-, oinordeko gehienak familia-kideak ziren, eta hauen artean ilobak, bereziki emakumezkoak, ziren faboratuenak. Hurrengo onuradunik handienak ahizpak eta anaiak izan ohi ziren, eta hauek oinordeko izendatzea ere askotan ilobak faboratzeko asmoz egingo izaten zen. Oinordeko izendaturiko gizonezko familia-kideen artean, ilobak ohizkoak izanik ere, ez ziren arraroak urrunagoko familia-erlazioak ere, leinuaren testuinguru zabalagoko kideen promozio soziala ere sustatu nahi izaten baitzuten. Era berean, ilobei, ahizpei eta anaiei egindako izendapenek etxearen eta leinuaren mantenuaren logikari atxikitzen zaizkio, beharrezko zenean adar nagusia faboratuz, eta beste kasuetan, ildo nagusitik kanpo geldituriko familia-kideen sostengua sustatuz. Horrez gain, seroretariko batzuk euren arimak egin izan zituzten oinordeko, eta Debagoieneko testuinguruan, arimaren salbazioaren eta purgatorioaren inguruko ideiekiko arduraren neurri bat azaltzen digu joera honek. Albazea lanetan gizonezkoen presentzia emakumezkoen aldean askoz handiagoa zen, eta batez ere, familia-kideak eta apezak izan ziren aukeratuak. Oinordeko euren arima egin zuten seroren kasuetan nabariagoa zen emakumezko albazeen presentzia, bereziki serorena, nahiz eta kasu hauetan ere, gizonezkoak ere gehienetan presente zeuden.

(iloben kasuan ohizkoak izaten zirenak), eta oso gertuko pertsonak zituela dirudi. Maria de Izaguirrerren (Bergara, 1631) kasuan berriz, apez batekin batera Juan Garcia de Oruesagasti zelako bat ageri zaigu, albazea izendapena egin aurretik, serorak maileguan emandako 42 errealeko zorra barkatu izan ziona; erlaziorik bat bazegoela dirudi, baina zail da familia-kidea izan ote zitekeen jakiten. Antzera gertatzen zaigu Marina de Oxirondorekin (Antzuola, 1661) ere; apez batekin batera, Pedro de Garicaza izendatu zuen albazea, testamentuan Antzuolako herritarra zela baino aipatzen ez zaiguna. Azkenik, Maria Lopez de Espillaren kasuan (Eskoriatza, San Pedro parrokia, 1574), izkribaua zen iloba batekin batera Domingo Perez de Sardaneta komisarioa aipatzen zaigu ("comisario" izendapena inkisizioko komisarioa zelako izango balitz, apez bat izango litzatekeena).

"Arimaren zaintzan" izendaturiko serora albazeen presentzia honekiko, eta presentzia honek gizonezko albazeekiko azal dezakeen mesfidantzarekiko, Axularren eskeptizismoa gogorarazi eta geure egin beharrea gaude. Euskal literaturaren autorerik goraiapatuenak Aro Berrian zehar hildakoen ondasunen administrazioak izan ohi zituen gorabeheren erakusgarri garbia dakargu. Bizi denboran aberastasun eta ondasunak batu eta eurretaz gozatu, eta testamentuan berriz guztiak arimaren salbaziorako emateko ohitura, serora batzuetan ikusi berri duguna, oso hedatua zela aditzera ematearekin bat, hala egiten zutenei, Pedro Damian-en (Pierres Damiano) ipuintto bat eskaini zien:

behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espirituan, ametsetan bezala, ifernuko suaren erdian eskalera bat: eta eskalera haren lehen pausuan eta maillean zegoela konde bat, iaun handi bat. Eta gero ikhusi zituela halaber zazpi konde, ethorki berekoak, bata bertzearen ondoan, eskalera hartan berean zeudezilla. Zeren bata bertzearen heredero, ondoko, eta elkharren onen primu eta iabe izan baitziren. Eta lehenbizikoak gaizki eta bidegabeki beretakotu zuena, eta safisfatu gabe utzi; hala bigarrenak, hirugarrenak, eta zazpigarrenak ere utzi baitzuen, ezpaitzuen batek ere deskargurik egin: eta halatan guztiak bata bertzeari zerraitzala kondenatu ziren (Axular 1643, 138)

Heriotzaren orduan egiten ziren dohaintzen eta izendatzen ziren oinordekoen inguruko gorabeheren berri bazuten noski serorek, eta arima oinordeko izendatu izan zutenetariko zenbaitek nahiago izan zuten, badaezpada, beraien lankide edo serora-laguntzaile izan ziren serorak ere, albazea lanen kargu uztea. Ez dezagun ahaztu, beraz, testamentuetako oinordekotzak eta dohaintzak, borondatearen adierazpen ziren heinean aintzat hartu behar ditugula; adierazpen hauek batzuetan heltzen ziren beteak izatera, eta bestetan ostera, ez ziren errespetatzen. Eta hau batez ere oinordeko arima egiten zuten kasuetan gertatzen bazen ere (arima noski, pertsonak ez bezala, ezin baitzen bere kabuz defendatu, nahiz auzitan hasi), zehaztaper hauek, hein batean, bestelako kasuetarako ere balizkoak zaizkigu.

Lehen ondorio hauek noski, azalduko erreserbekin eta guzti, probisionalak dira eta oinarri sendagoen beharra dute. Baina jarraian ikusiko ditugun dohaintzen inguruko hausnarketak gidatzeko baliagarri zaizkigu, eta era berean, dohaintzek eurek ondorio hauek sendotzen edo baztertzen lagunduko digute. Gainera, dohaintzekin ekin baino lehenago zehaztu beharreko gauza bat, oinordekotzen eta dohaintzen arteko erlazio irregularra da. Testamentu batzuetan oinordekoak nabariki ondasunik gehienak jasotzen zituen artean, beste kasu batzuetan, ondasunik gehienak dohaintzetan banatzen ziren, oinordekoari ostera, nolabait esatearren, soberakinak baino ez zitzaizkiolarik gelditzen. Batzuetan soberakin honen jasotzailea arima bera izaten bazen, beste batzuetan berriz, albazea ere izendatua zen oinordekoari zegokion; hau da, praktikan, oinordekotzan jasotzekoak ziren ondasunen banaketaren soberakinak, albazea lanak betetzearen ordainketa baino ez ziren. Hortaz, oinordekoen gaineko hausnarketak, esan bezala, gidatzat baliagarri bazaizkigu ere, ikuspegi orokor egoki bat ezin izango dugu jaso, dohaintzei xehetasunez erreparatu arte.

Familia-kideen, etxekoen eta lagunuen aldeko dohaintzak, 99 testamentuko laginaren baitan, hauetariko 74tan aurkitu ditugu; 11.a. koadroan (957-985 or.) bildu ditugu datu hauek, eta 11.b. koadroan (986-987 or.) jasotzaileen sexuaren araberako emaitzak eman ditugu, 11.c. koadroan (988 or.) garaien araberako emaitzak eman ditugun artean. Hauetaz baliatuko gara ondorengo orrietako azalpenetarako. Lehenik eta behin, tankera honetako dohaintzarik egin ez zuten serorek laginaren laurdena baino gehixeago osatzen dute; hau, kasu gehienetan, ondasun guztiak edo gehienak oinordeko bakarrari bideratu izanagatik da. Zerbitzuen espazioei begira talde heterogeneoa osatzen

dute: hiribilduetako parroketakoak, auzo eta elizateetako parroketakoak, ermitetakoak eta tenpluenganako lotura gabekoak ageri zaizkigu. Herrien arabera ere nahiko uniformeki banaturiko taldea dugu, azpimarratu beharreko berezitasunen batzuk ohartzearren, Bergarako seroren presentzia proportzionalki handiagoa, eta Eskoriatzakoen ausentzia aipatu litezkeelarik. Talde honetatik oinordekorik ezagutu ezin izan diegun bi kasuak alderatuz (beraz, 25 kasurekin gelditzen gara), oinordekorik ohizkoenak familia-kideak dira (16, familiakoen eta lagunen aldeko dohaintzarik gabekoen %64, oinordekoak ezagutzen dizkiegunen %16'32), beste behin, ilobak nagusi direla, baina badira ahizpak, anaiak, izebak, lehengusinak edo koinatuak ere. Gainontzekoen artean 6 kasu oinordeko arima egin zutenenak dira (familiakoen eta lagunen aldeko dohaintzarik gabekoen %24, oinordekoak ezagutzen dizkiegunen %6'12), eta falta diren lau kasuetan, bi alargun, serora bat eta lizentziatu bat ageri zaizkigu (guztiak batuz, familiakoen eta lagunen aldeko dohaintzarik gabekoen %16, oinordekoak ezagutzen dizkiegunen %4'08). Lehenik aintzat hartzeko aspektua, beraz, horixe dugu: kasuen laurden batean diru eta ondasun guztiak -batzuetan arima, baina gehienetan familia-kidea edo "gertuko" norbait zen- oinordeko bakarrari bideratu zitzaizkion, beste inori dohaintzarik egin gabe.

Testamentuetako dohaintzak ikertzeari ekin bezain laster nabarmentzen den zerbait, beste behin, iloben presentzia da. Kasu zalantzakorrak bukaeran batzeko utzita, 74 seroren testamentuetako dohaintzen jasotzaileen artean identifikatu ahal izan ditugun 342 familia-kide eta bestelako dohaintzen jasotzaileen ("lagunen") artetik¹⁴³⁷, 135 (familia-kide eta lagunen %39'47) ziren ilobak, eta hauen artetik, 106 (iloben %78'51, fam. eta lag. % 30'99) emakumeak ziren, gizonezkoak berriz, 29 (ilob. %21'48, fam. eta lag. %8'47) baino ez ziren artean. Ilobei ahizpak (25, fam. eta lag. %7'3) eta anaiak (11, fam. eta lag. %3'21) eta hauen senar-emazteak (koinatak 9, fam. eta lag. %2'63; koinatuak: 4, fam. eta lag. %1'16) batuaz gero, familiako gertueneko espazio honetako jasotzaileak familia-kideen eta bestelako pertsonen kopuru osoaren erdia baino gehixeagora heltzen zirela ikusiko dugu, -zalantzakorrak kanpo utziz- 180 pertsonatara helduz (fam. eta lag. %52'63). Halaber, emakumezkoen presentziak nagusi izaten jarraitzen du (140, orain arte baturiko familia kideen %77'77, fam. eta lag. %40'93), gizonezkoenaren aldean (44, baturiko fam. %24'44, fam. eta lag. %12'86). Hauekin bat, kopuru honi familia-kideen taldea osatzeko urrunagoko ahaideak (ilobak -"nieta/o"-, lehengusu/sinak, etab.), eta garaiko familiaren hautemapenari jarraiki, neskameak ere gehituko bagenizkio (emakumezkoak 26, emakumezko ahaideen %15'66; gizonezkoak 9, gizonezko ahaideen %16'98), 166 emakumezko (orain arte baturiko ahaideen %75'79, fam. eta lag. %48'53) eta 53 gizonezkorekin (baturiko ahaid. %24'2, fam. eta lag. %15'49), 219 jasotzaile izango genituzke familia-kideen taldean (fam. eta lag. %64'03), zalantzakorren tarteekin bada ere. Azkenik, hauei 8 zalantzakorrak gehiturik (5 em. eta 3 giz., fam. eta lag. %3'52), 171 emakumezko (fam. eta lag. %50) eta 56 gizonezko (fam. eta lag. %16'37) gelditzen zaizkigu, 227 familia-kideren kopurua osatuz (fam. eta lag. %66'37)¹⁴³⁸. Familia-kidetzat identifikatu ezin izan ditugun dohaintzen jasotzaileak, nolabait sailkatzearren, dohaintzen jasotzaile izateak gertutasuna adierazten duen heinean, "lagun" izena emango diegun 115 pertsonak (dohain. jasotz. %33'62), 75 emakumek (lagunen %65'21, dohain. jasotz. %21'92), 25 gizonek (lag. %21'73, dohain. jasotz. %7'3) eta 15 indefinituk (lag. %13'04, dohain. jasotz. %4'38) osatzen zituzten.

¹⁴³⁷ Kontaketak sinplifikatu eta patroï amankomun batez baliatzeko asmoz, jasotzaileak besterik gabe pluralean aipatzen zirenean ("hijas", "pobres", etab.), 2 pertsona kontatu ditut.

¹⁴³⁸ Seme zalantzakorra Maria de Iturberena (Bergara, San Martin ermita, 1605) zen ("su Hixo de Martin Perez de Aguirre Oçaeta"), eta ama berriz, Maria Lopez de Estrañorena (Oñati, San Migel parrokia, 1647).

Datu hauek ohartarazten diguten lehen aspektu bat, familiaren eta leinuaren presentzia nagusia da noski; garaian instituzio hauek zeukaten garrantzia aintzat hartzen badugu arraroa ez dena, eta jada nahikoa adibideren bidez ikusi ahal izan duguna. Dohaintzen arteko %66'37 dagozkie, eta areago, portzentaia honetatik kanpo gelditu zaizkigunen artean litekeena da familia-kide gehiago ere izatea, baina erlaziorik ezin ezagutu izanik, "lagun" lez sailkatu behar izana. Beste bi aspektu ere deigarri agertzen zaizkigu: jasotzaileen artean emakumeek zeukaten nagusitasuna (jasotzaile guztien -indefinituak barne- %71'92), eta halaber, iloben presentzia handia (familia kide eta lagunen %39'47, familia kideetara mugatuz %59'47). Azken aspektu hau areagotua agertzen zaigu, gainera, ahizpei, anaiei, koinatei eta koinatuei bideraturiko dohaintza askok, azken jasotzailetzat ilobak zituztela aintzat hartzen badugu (eta hauek estatistikan sartuz gero, familia kide eta lagunen %53'8a izango lirateke, familia kideen arteko %81'05). Beste behin, datuen berri ematerakoan dohaintzen izaeraren eta hauen balorearen inguruko erreserbak agertu beharrean gaude, oraindik ez baikara zer nori dohaintzan eman izan zitzaion ikusten hasi, eta ikusiko dugun lez, gizonezkoek jasotzen zituzten dohaintzen balorea, termino orokorretan, emakumeek jasotzen zituztenena baino handiagoa izan ohi baitzen (eta dirua presenteago zegoen). Alabaina, datu hauek baliagarriak zaizkigu, dohaintzek azaltzen diguten testuinguru familiar eta sozialeko esparrua zedarritzerako orduan. Izan ere, zenbait espazio pribilejiatu perfilatzen baitzaizkigu: gertueneko familia, hau da, ilobak, ahizpak, anaiak eta hauen senar-emazteak, eta hauen artean, bereziki emakumeak, eta espezifikoki ilobak. Ikuspegi honek, funtsean, oinordekotzei begira jarri izan garenean ondorioztatu ahal izan ditugun joerak berresten dizkigu; gogoan izan beharrean gaude, halaber, dohaintza guzti hauen eta oinordekotzen gaineko administrazioa eta kontrola, gehienetan, gizonezko albazeen esku gelditzen zela.

Eta guzti hau hala izanik ere, ondasunei begira jarri artean ez dugu ikuspegi erreal bat jasoko. Seroren ze ondasun heltzen zen, noren eskutara? Alderdi hauei heltzerako orduan, lehenik eta behin, espazioek agertzen dizkiguten zenbait ezaugarri orokorren berri eman beharrean gaude. Ohartu beharrean gaude, serorek dirutan familia kideei eta lagunei egin zizkieten dohaintzen gainbegiratu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko banaketaren argitara eginaz gero, oso emaitza esanguratsuak ageri zaizkigula, eta emaitza hauek orain arte azaltzen joan garen egoerarekin bat egiten dutela. Baina has gaitezen daturik orokorrenetatik. Lehenik eta behin, diruzko dohaintzak ze motatako serorek eginak izan ziren ikustea komeni zaigu. Aro Berriko gizartean normala zenez, dohaintzetako diruaren presentziari dagokionean hiribilduen testuinguruari loturiko serora motak ditugu nagusi: tenpluenganako lotura gabekoak 13, gehi zalantzakor 1 (hiribilduko parrokiakoa ala tenpluenganako lotura gabekoa ote zen ez dakigun Bergarako Mariana de Aleiza, 1758ko testamentuarekin). Parrokietakoen artean 7 hiribilduetako parrokietakoak ziren, eta 2 auzo edo elizateetakoak. Bi moeta hauetako seroren dohaintzak XVI-XVIII mendeen bitarte osoan zehar ageri bazaizkigu, ermitetako 8 serorek azaltzen diguten bitarte kronologikoa, salbuespen batekin, murriztagoa dugu. 7 testamentu 1574-1670 bitartekoak ditugu, eta beste bat aldiz, bitarte handiarekin, 1762koa, Bergarako San Martin ermitako Maria Ana de Mecolalderena. XVIII. mendean, tenpluekiko lotura gabeko serorez eta parrokietakoez beste, ermitetakoen artean hau eta santutegietako seroren arteko bakarra dugun Maria de Pagadigorri (Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Maria santutegia, 1719) baino ez zaizkigu ageri familia kideei, etxekoei eta lagunei diruzko dohaintzak egiten.

Daukagun 99 testamentuko laginetik familiakoen, etxekoen eta lagunen aldeko dohaintzen emale izan ziren serorak 74 izan baziren, hauen artetik dohaintzetan diruzko

partidak eman zituztenak azaldu berri ditugun 32ak (%43'24) baino ez ziren izan. Bergara, Elgeta eta Antzuolako espazioan 37tik 16k (%43'24ak), Leintz bailaran (eta Aramaion) 20tik 8k (%40ak), eta Oñatin 17tik 8k (%47'05ak). Ggb. %40, %50 inguru horretan beraz, Leintz bailaran gutxien, Oñatin gehien. Gainontzeko 42 testamentuetan, familia kideei, etxekoei eta lagunei ondasunen dohaintzak baino ez zitzaizkien eman, tenpluei eta bertako zerbitzariari eman zitzaizkien dohaintzetan diruak izan zezakeen presentziaz aparte; aurrerago sakonduko dugu hauetan. Orain kontsideratuko ditugun 1554-1784 bitartean helarazi ziren 32 testamentuetako familia kide eta lagunen aldeko diruzko dohaintzek 21.814'5 errealeko emaitza ematen digute; batzbeste, diruzko dohaintzak emandako seroren kopuruarekiko 681'7 errealean balorera heltzen dira (dohaintzak egin zituztenen artean, batzbestekoa 294'79 errealekoa dugu). Hauen artetik emakumeei emandakoak 17.081'5 erreal izan ziren, %78'3a, eta gizonezkoei aldiz 4.733 erreal, %21'69a. Zalantzagabea dugu beraz, familia kide eta lagunei dohaintzetan emandako dirurik gehienak, alde handiarekin, eta zentsu eta mailegutan emandako diruekin gertatzen zenaren kontrara, emakumeei emanak izan zirela. Dohaintza hauen emaleetatik 19, 1650erarteko bitarte kronologikoari dagozkio eta diruzko dohaintzadun seroren %59'37a osatzen dute, eta 1650az geroztikoak 13 ziren, %40'62a. Emandako kopuruen batzbestekoak aldiz gora egin zuen, 1650erartekoan 601'26 errealetik, 1650az geroztikoan 799'26 errealetara. Bestalde, emakumeen aldeko dohaintzak bi garaietan nagusi izan baziren ere, 1650az geroztikoetan gizonen aldeko dohaintzen ugariagotze eta emakumeen aldekoen gutxitze arin bat nabari da; 1650erarteko emakumeen %80'93 eta gizonen %19'06tik, ondorengo emakumeen %75'4 eta gizonen %24'59ra.

Espaziokako emaitzek beste xehetasun batzuetara gerturatzen gaituzte. Bergaran, Elgetan eta Antzuolan batzbestekoak 1650erarteko 10 seroren 462'6 errealetik (4.626 erreal denera), ondorengo 6 seroren 650'91rako igoera izan zuen (3.905'5 erreal); batzbestekoan kopuruak Debagoieneko beste bi espazioetakoak baino urriagoak dira, baina joera berbera azaltzen dute. Bertako serorek denera Leintz bailarakoek baino diru gehiago eta Oñatikoek baino gutxiago eman zuten, baina bi espazio hauetakoak baino gehiago izanda, alegia, serora bakoitzeko kopuru txikiagoen batzbestekoarekin. Sexuen arteko proportzioekiko, emakumeen alde eman ziren 8.531'5 errealean %68'56a, eta gizonen alde %31'43a. 1650erartekoan eta ondorengoan artean emakumeen aldeko proportzioak gora egin zuen %61'37etik %77'09ra, gizonezkoena %38'62tik %22'9ra jeitsiz.

Berez, espazio honen baitan ggb. banaketarako baliatu ditugun bi garai nagusiei egokitzen zaizkien bi multzo nagusi ageri zaizkigu, tankera ezberdineko diruzko dohaintzekin. Zorren barkamen bidez egindako dohaintzak alde batera utziaz gero, XVI. mendearen erdialdearen eta XVII. enaren lehen hamarkadararteko gutxi gora beherako tartean, 22 dukat eta 8 erreal bitarteko kopuruen dohaintzak eman zituzten Bergarako 4 serora eta Elgetako 2ak dauzkagu; dohaintzak pertsona bakarretik 7rarteko jasotzaileen artean banatu zituzten: Marina de Jaureguik (Bergara, 1556) eta Catalina de Ondarzak (Bergara, San Pedro parrokia, 1572) zeuzkaten diruzko dohaintzen jasotzaile gehien, hurrenez hurren, 4 eta 7. 2 izan ziren aldiz Marina de Moyugoitiak (Bergara, San Lorenzo ermita, 1574) onuratu zituenak, eta bana, Bergarako Francisca de Igueribarrek (1581) (dukat 1) eta Elgetako San Adrian eta San Antonio ermitan serora izan ziren Domenja (1599) eta Marina (1603) de Altubek (5na dukat). Bergaran, Catalina de Sarralderen (Santa Marina parrokia, 1628) eta oso ondorengo garaietako Mariana de Aleizaren (San Pedro parrokia?, 1758) testamentuak, hurrenez hurren, familia kide ezberdinen artean banaturiko 10na dukaten (5en artean) eta 75na errealean (4ren artean)

kopuruekin, joera honen jarraipen bezala ageri bazaizkigu ere, jada 1612an Magdalena de Castillock kopuru handiagoak eta ahaide gutxiagori banatuak emateko joerari hasiera ematen digu, ilobari, ahizpari eta koinatuei egindako 100 eta 60 dukateko dohaintzekin. Honekin batera bigarren joera deritzoguna osatzen duten Antzuolako 1645-1733 bitarteko 4 serorek, zorren barkamen bidezko bi dohaintza txikiagoen salbuespenez, 20 eta 100 dukat bitarteko diruzko dohaintza bakarrak egin zituzten, oinordeko izendatu ez zituzten familia kide bereziki estimatuei -konpentsazio lez- edo behar bereziren bat zeukatenei emanak. Bergarako Maria Ana de Micolalde (San Martin ermita, 1762) ere, bere bi dohaintzak baserrien jabe ziren bi ilobei egin zizkien; Albuakoari eta Askarruntz Goikoakoari. Lehenari 174 erreal, eta bigarrenari 174 eta 1/2, beste 55 errealeko zor bat ere barkatuz. Hau da, diruaren erabileraren jasotzaile ugariagotik gutxi batzuetarako "kontzentraziorako" bilakaera orokor bat nabari liteke, kopuruaren handiagotzearekin batera.

Leintz bailarako dohaintzen "erradiografia" bestelakoa dugu, nahiz antzekotasunak ere badiren. Esan dugunez, espazio honetarako dauzkagun familia kide eta lagunen aldeko dohaintzak egin zituzten 20 testamentuen artetik 8tan eman ziren diruzko dohaintzak; bertako emaitzak -laster azalduko dugun- Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranak (1629) bere anaiari (bizi arteko usufruktoan) eta ilobari egindako 400 dukateko dohaintzak baldintzaturik daude. Dohaintza honek darama 1650erarteko 5 testamentuetako diruzko dohaintzen batzbestekoa 928'4 errealetera (eta guztiena 713'62 errealetera), ondorengo 3 seroren testamentuen batzbestekoa 355'66 errealekoa izanik. Esandako baldintzapena aintzat hartuta -eta baita ez hartuta ere-, emakumeen aldeko dohaintzen portzentaia 1650erarteko 5 testamentuetan nabariki altuagoa da (%98'81) gizonen aldekoa baino (%1'18), ondorengo garaietako 3retan, emakumezkoen aldekoak behera (%76'28ra) eta gizonezkoen aldekoek gora (%23'71ra) egiten dutelarik. Horrez gain, Leintz bailaran ere, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan ikusi bezala, seroren kopuruaren gutxitzearekin bat gertatu zen diruzko dohaintzen kopuru handiago eta onuradun gutxiagokoetarako bilakaera; edo hobe esan, Debagoieneko beste espazioetako datuekin batera hautemanda, aldakuntzarako korrante horren baitan egoki txertatzen direla esan liteke.

Kronologikoki lehen biak zirenek, Catalina de Otalorak (Arrasate, 1570) eta Catalina de Huruburuk (Arrasate, Udala, San Esteban parrokia, 1610), hurrenez hurren 3 eta 2 dukateko dohaintzak egin zituzten, lehena apez bati arimaren aldeko otoitzen motiboz emana, eta bigarrena, zorren barkamen bat. Hauekin bat, Ana de Ayestak (Arrasate, 1664) egindako 3 dohaintzak izan ziren, iloba bati eta emakume bati emandako 12na dukatekoak, eta Eguiguren kapitainari (familia kidea?) emandako 3 dukatekoa. Lehen hauek emandakoak baino dohaintza handiagoekin, 1629-1719 bitarteko beste 4 serora, aipatu berri dugun "kontzentraziorako" joeraren baitan hauteman litezke, oso kopuru ezberdinekin bada ere (-jatorrizko 20tik- 10, 400, 20 eta 50 dukatekoak), familia kide jakinak faboratzeko emandako diruzko dohaintza bakarrak izan baitziren. Bi multzo hauen artean, Maria de Arosteguiaren (Arrasate, 1599) dohaintza salbuespenezkoa dugu, nahiz eta azken hiru hauen tankerara gerturatzen zaigun, kopuru handiko dohaintza bakarra izatearren. Serora honek Santamaria etxeo bi ahizpa eta anai bat kokatu zituen bere oinordekotzaren segidan (besteak beste, etxe bat jasotzekoak ziren), bere gertueneko testuingurua familia honen zerbitzuari zegokiola baitirudi. Alabaina, bere ahizpak 50 dukat utzi zizkion bere heriotzean, hauek Ermuan bizi zen iloba bati -ziurrenez artean adingabea izango zelako- eman zekizkion. Bere ahizparen nahia betez, 50 dukatak eta bere eskuz emandako beste 20 eman zizkion dohaintzan. Familia kideen aldeko dohaintza handi bakarrak egin zituzten hiruren artean

-hainbatetan aipagai izan dugun- Maria Ruiz de Araoz y Durana (Aretxabaleta, 1629) dugu deigarriena, dohaintzaren azken onuradun bere iloba zuen (bizi zen artean honen aita eta seroraren anai zenak usufruktoaz goza zezala ere ezarri baitzuen) Larreako (Araba) kontzejuaren aurkako 400 dukateko zentsuarekin. Besteek ere gertukoak egin zituzten dohaintzen jasotzaile; Francisca de Gabiriak (Arrasate, 1639), "señora" tituluarekin aipatu zuen familia kide homonimo bati eman zizkion -20 dukateko dohaintza baten erdia ziren- 10 dukatak, Aramaion bizi zen eta Oruna etxeokak (ez dakigu familia kideak izatearren, edo bestelako erlazioen bategatik izan zitekeen) bere dohaintzen onuradun bakar zituen Mariana de Ascoagak (1693) oinordeko egin zuen Pedro de Orunaren seme Joan de Orunari "para quando tomare estado" eman zizkion 20 dukatak, eta Maria de Pagadigorrik (Leintz Gatzaga, Dorletako Andre Maria santutegia, 1719) bere iloba Maria Rosa de Maizi eman zizkion 50 dukatak (oinordeko, honen senar eta Leintz Gatzagako izkribau zen Juan Martin de Salterain egin zuen artean). Leintz bailaran ere, hortaz, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan gertatu bezala, nahiz eta 1650 urtean ezarritako muga inondik ere zurruna ez izan, familia kide jakinei egindako dohaintza nagusi bakarren joera denbora igaro ahala hedatzen joan zela dirudi.

Oñatin, azkenik, 8 serora agertzen zaizkigu halako dohaintzekin, 1650en mugarrizko datarekiko, 4 eta 4. Debagoienean batzbestekoa kopururik altuena ematen digun espazioa dugu, denetara eman ziren 7.574 errealek 945'75en batzbestekoa ematen baitigute. Baina Leintz bailaran Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranarekin (1629) gertatu bezala, Oñatin ere emaitzetan serora baten presentziak berebiziko eragina du, kasu honetan XVIII. mendekoen artean, tankera honetako diruzko dohaintzak egin zituen azken serora baitugu: Maria Gabriela de Sarraoa (San Migel parrokia, 1784), familia kideen, etxeokoen eta lagunen artean 4.300 erreal (ggb. 390 dukat) banatu zituena. Dohaintza hauen presentziak igotzen du 1650erartekoen 539 errealeko batzbestekoa, data horretaz ondorengoetan, 1.354'5 errealean batzbestekora. Eta dohaintza hauek eragiten dute 1650az geroztikoen artean proportzioek gizonezkoen alde ez egitea, hauen faltan, emakumeei egindako dohaintzak 10 errealetan baino ez baiziratekeen geldituko, gizonezkoen aldekoak 1.108 errealetara helduko ziratekeelarik; hauen arteko proportzioak aurreko garaiarekiko zeharo irauliak geldituko ziratekeen, emakumezkoen aldeko %0'89 eskasarekin, gizonezkoen aldeko %99'1aren aurrean. Leintz bailarako estatistiketan Maria Ruiz de Araozen dohaintza handiaren presentziak kopuruetan bai, baina emakumezko eta gizonezko jasotzaileen arteko proportzioan askorik eragiten ez bazigun, Oñatiko kasuan, dohaintza hauen presentziak beste seroren dohaintzen artean izan zen gizonezkoen aldekoen gorakada eta emakumezkoen aldekoen beherakada kamuflaturik gelditzea eragiten digute, 1650erartekoen eta ondorengoan arteko batzbestekoen gorakadak sexuen arteko proportzionaltasuna mantentzen zuenaren itxura emanaz.

Diruak banatzeko moduei begira, Oñatin ere hein bateraino azalduriko joera berresten zaigu, nahiz eta berezitasun batzuekin izan. Maria Lopez de Estrañoren (San Migel parrokia, 1647 -1665-) aurretik kokatzen zaizkigun familia kideen aldeko dohaintzadun 3 seroren testamentuetan, dukat 1 eta 10 bitarteko zenbait dohaintza egin zituzten: Ines de Bidaniak (San Martin ermita, 1554) 4, Magdalena de Ucelaik (San Kristobal ermita, 1591) 3, eta Maria de Villarrek (Narria auzoa, San Lorentzo ermita, 1629) 4. Ondorengo garaietako kopuru baxuetako dohaintzak bi serorenak baino ez ditugu: Osana de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1670), bere ilobaren seme bati eta "vezino" bati eman zizkien 4na errealak, eta Ana Catalina de Inzak (San Migel parrokia, 1751) bere ahizpa bati zorren barkamen bidez emandako 10 errealak. Haez eta Maria Lopez de Estraño (San Migel parrokia, 1647 -1665-) berak Domingo de

Aguirre zirujauari emandako 2 dukatez beste, gainontzeko diruzko dohaintza guztiak San Migel parrokia nagusiko serorek eman zituzten, eta kopuru handietakoak eta familia kideei emanak izan ziren. Mugatzat egin digun Maria Lopez de Estrañok (San Migel parrokia, 1647 -1665-) iloba bati emandako bat (40 dukateko zentsua) eta Bidaurretako komentuan moja zen bere amari zorraren barkamen lez emandako beste bat (1.257 erreal) zeuzkan, eta Maria de Umeresek (San Migel parrokia, 1694) aldiz, Umeres baserriko jabe zen bere iloba bati emandako 100 dukateko zentsu bat. Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) eman zituen diruzko dohaintzen esparrua oster, aurreko biena baino askoz zabalagoa dugu, familia kideen eta etxekeen aldeko 16 partidatan 4.300 errealen baloreko dohaintzak egin baitzituen. Bergarako Catalina de Sarralderen (Santa Marina parrokia, 1628) eta Mariana de Aleizaren (San Pedro parrokia?, 1758) kasuekin bat, XVI. mendean ohizkoagoa zen diruzko dohaintzak familia kideen -eta lagunen- artean zabaltzeko ohitura XVII eta XVIII. mendeetan zehar mantendu zuten seroren sortatxo osatzen digu. Hori bai, dohaintzen kopuru dezente handiagoekin. 9 iloba eta iloben seme-alaben -batez ere alaben- artean 300na errealeko dohaintzak egin zituen, eta eurentariko beste ilobaren alaba bat, "por ser de mis brazos" 60 dukateko dohaintzarekin bereiztu zuen. Bere lehengusina bati eta lotura ezezagunekoak zaizkigun Josefa Bergara de Jauregui, Maria Bernarda de Arizabaletari eta Lorenza de Cortabarriari -honi zor barkamen bidez-, hurrenez hurren, 20 dukat, 30 dukat, 160 erreal eta 80 errealeko dohaintzak egin zizkien, eta bi neskameri ere bai, 75na erreal.

Behin espazioen araberrako datuak ikusirik Debagoieneko datu orokorren ikuspegira itzultzen bagara, testamentuetako diruaren erabilerarekiko zenbait ondoriotara heldu gitezke. Ikusi dugunez, serora jakin batzuen kasuek, batzuetan, espazio ezberdinetako diruzko dohaintzen emaitzak baldintzatzen dituzte, besteekiko azaltzen duten alde ekonomiko handiagatik. XVII. mendearen lehen erdialderarteko testamentuetan, edo hobe esan, mende honetako lehen hamarkaden eta azkenengoen arteko trantsiziozko egoera batek banaturik, aurretiko garaietan diruzko dohaintzak familia kideen eta lagunen arteko zenbait jasotzaileraren artean banatzea ohizkoagoa zen, eta serora moeta ezberdinen artean, ermitetakoak ere presente zeuden. XVII. mendearen erdialdeaz geroztik beste bilakaera bati hasiera eman zitzaiola dirudi; ermitetako seroren diruzko dohaintzak salbuespen bihurtu izana dugu aldaketa hauen agergarrietariko bat, eta bestea, azalduz joan garen diruen jasotzaile bakar edo gutxietarako "kontzentraziozko" joera. Bi fenomeno hauek, halaber, XVII. mendearen lehen hamarkadetako desagerrarazte saiakeren ondorengo seroratzen gainbehera luzean eta hainbat espaziotako seroren *status* laikorako aldakuntzetan (sakristauen eta ermitauen emazte izaterako aldaerak, ermitetako seroretween alokairuaren hedapena, etab.) txertaturik ageri zaizkigun bezala, eragin zabalagoko gertakizunei ere loturik daude; hauen arteko garrantzitsuena, XVII eta XVIII. mendeetan zehar familia boteretsuen aldetik -Europa guztira hedatu zen gainbehera ekonomikoak motibaturik- gauzatu zen balore handiko ondasunen eta ondasun higiezinen eurenganatzea eta hauen maiorazko fundazio bidezko banaezintasunaren ezarpena, "birfeudalizazio" bezala izendatua izan dena. Mende horietako seroren artean hedatzen ikusi dugun diruen kontzentrazioarako joera, izan ere, testuinguru hark motibatua izan zen. Aurreko garaietan diruak gertueneko testuinguruko jendearen artean hedatzeko hirizpidea nagusi izan bazen, familia kide jakinen, etxeen eta baserrien zorpetzeak eta gainbeherak serora batzuek beraien familia eta leinu-etxeak babestera jotea eragin zuen (maiorazkoak ere fundatzen helduz), eta baita, besteren batzuek, ondasunen kontzentrazioarako joerarekin bat egitea ere, familia boteretsuen aldetik martxan zegoen estrategiarekin bat eginez.

Alabaina, diruzko dohaintzek azaltzen diguten egoera esanguratsua izanik ere, seroren ondasunen eta egindako dohaintzen inguruko ikuspegi osatu bat ezingo dugu jaso, diruaz beste eman zituzten ondasunezko dohaintzen kopuru, modu, joera eta ohituren ingurukoei neurria hartu arte. Diruaren erabilerak zedarrizten dizkigun espazioen banaketak alde batera utziz, dohaintzak bi talde nagusitan banatu ditzakegu, edo hobe esan, bi joera nagusik gidaturik ageri zaizkigu, eta jarraian, azalpenak bi joera horien araberrako banaketan emango ditugu. Elkarren artean nahasten ziren irizpideak ziren noski, eta banaketa hau, azalpenen xederako baino ez dugu egingo. Lehenik eta behin, zentsuen, diruen, etxeen edo lursailen dohaintzetariko batzuk, familiaren sostenguari buruzko aurreko kapituluaz azaldu ditugun dinamiketan txertaturik ageri zaizkigu, lehen joera bat osatuz: leinu-etxearen edo familiaren mantenua eta promozioa. Beste dohaintza batzuk osteraz, lehen joera alde batera utzi gabe, dohaintzak egiteko “tradiziozko” joera bat jarraitzen zutela esan genezake, familia-kide jakin batzuei, moeta bateko edo besteko dohaintzak egiteko “arauak” jarraituz; joera hau, esate baterako, ilobei dohaintzan emandako ohe eta kutxen kasuan ageri zaigu, edo modu orokorragoan, familia-kideen eta etxearen sostengura begira egindako dohaintzen salbuesenez, diruzko dohaintzak batez ere tenpluei eta familia-kideei berriz ondasunezkoak egiteko ohituran ere hatzeman liteke.

Leinu-etxearen edo familiaren mantenua bideraturiko dohaintzei ekiterakoan, familiaren sostenguari buruz jardutean -eta aurreko kapitulu batzuetan- aipaturikoak sendoago oinarritu eta osatu baino ezin ditugu egin. Kapitulu horietan jada leinuaren eta familiaren sostenguari dagozkion nahikoa adibide eman ditugu, eta hemen, sostengu honen formen eta moduen aniztasunean sakondu baino ez dugu egingo; azken finean, ondasunen antolakuntzarako testamentuen baitan ageri zaizkigun irizpide berberen parte izan baitziren.

Dohaintza baldintzatu berezi batzuen berri emango dugu lehenik, ohitura ezberdinen berri emateari ekiteko: apez izateko bidean zeuden familia-kideei eginak izan ziren dohaintzei buruz dihardugu, baina hauek apez izatera hel zitezkeen baldintzari lotuak zeuden kasuetan. Aurreko kapituluaz aipatu dugu Catalina de Mendiguchiaren (Elgeta, Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638) kasua; apezgai zen bere ilobari Angiozarren zeukan etxea 20 urtez musutruk gozatzeko aukera eman zion, baldin eta apezgoa lortu eta Angiozarren mezak esatera joaten bazen¹⁴³⁹. Izan ziren antzerako beste dohaintza batzuk ere, maila xumeagokoak, baina halaber, “meza berriak esatera etortzearen” baldintzari lotuak. Magdalena de Ucelaik (Oñati, San Kristobal ermita, 1591), esaterako, familia-erlazio zuzenik ezagutzen ez diogun, baina ermita bereko beste serora baten iloba zela dakigun¹⁴⁴⁰ San Juan de Ugarteri alba baten (“de rruan”) dohaintza egin zion, “quando [...] biniere a cantar missa”¹⁴⁴¹. Marina de Moyugoitiak ere (Bergara, San Lorentzo ermita, 1574), bere iloba Pedro de Moyuari ohe bat bere estalki jokuarekin eman zion dohaintzan, baina “en tanto que [...] benga a dezir mysas”¹⁴⁴². Maria Ruiz de Araoz y Duranak (Aretxabaleta, 1629) berriz, bi iloba zeuzkan apez izateko bidean: Andres Garcia de Arcaraso eta Juan de Celaya. Bakoitzari, meza berriak esan zitzaizkion, ohialezko alba bana egin ziezaiotela agindu zuen¹⁴⁴³. Bergarako San

¹⁴³⁹ Ikus goraxeago, 654 or.

¹⁴⁴⁰ Martin de Ugarteren eta Mari Martin de Letamendiren semea zela dakigu, baina ez daukagu hauen eta seroraren arteko erlazioen berririk. Serorak albazea izendatu zituen ermitako beste seroren artean (“mis compañeras”) Mari Martinen ahizpa Mari Juan de Letamendi zegoen (San Juan de Ugarteren “su tia” bezala aipatua izan zen); baina ezin haratagoko ezer esan.

¹⁴⁴¹ GPAH-AHPG 1/3045, 174r-177r.

¹⁴⁴² GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v.

¹⁴⁴³ GPAH-AHPG 1/0865, 35r-36r.

Pedro parrokiako Maria de Aguirrek ere apez izateko bidean zen iloba bati 16 dukaten baloreko zilarrezko kikara baten dohaintza egin zion, "en su missa nueva" ematekoa zena¹⁴⁴⁴.

Leinuko edo familiako pertsonak, eta hauen bidez, leinuaren eta bere testuinguruaren egoera orokorra hobetzera begira egindako dohaintzen artean, "tradiziozko" joera batzuen adierazgarri diren beste dohaintza batzuk ere ageri zaizkigula esan dugu. Aurreratu dugunez, joera hauetariko bat, nabariena, ilobei oheak eta kutzak dohaintzan ematearena dugu. Ondasun hauek baliotsuak ziren, eta belaunaldiz belaunaldi igaro ohi ziren, arropa garestiekin –eta ez hain garestiekin– batera. Halako dohaintzak, erabili izan dugun 73 seroren testamentuen laginaren baitan, edo ondasunen dohaintzak -hau da, diruzkoak alde batera utzirik- egin zituzten 65en laginaren baitan, 44 seroren kasuetan aipatu zituzten; hauek denera emandako oheak 43 izan ziren, eta kutzak 64. Bestalde, bestelako kasuetan diruzko dohaintzak egin izan zituzten serora aberatsekin edo ia dohaintzarik egin gabe, oinordeko arima egin zuten serorekin egiten dugu topo, eta noski, oinordekoen alde emandako eta aipatu gabeko ondasunen artean ere, izango ziren oheak eta kutzak ere.

Oheei dagokionean, aipaturiko 44ak, 33 seroren dohaintzetan banatuak izan ziren. Hauen artetik, ilobei emanak izan zirenak 28 izan ziren, %63'63; kopuru honi beste 6 familia-kideak (anaiak, ahizpak, lehengusinak, etab.) gehituz gero, %77'27ra heltzen zaigu portzentaia. "Lagunei" emandakoak aldiz 10 ohe izan ziren, %22'72. Hauen artetik, bestalde, tenpluenganako loturarik gabeko zenbait seroren kasuetan euren zerbitzuko familietako parteideei -batez ere seme-alabei- emanak izan ziren; hauek ere familiaganako dohaintza lez interpretatu litezke, seroratzaren zerbitzuko familia, dohaintzei bezalaxe bestelako aspektuei zegokienean ere, askotan familia propiotzat hartua izaten baitzen. Sexuen arteko banaketari dagokionean, gizonezkoei 5 ohe baino ez zitzaizkien banatu (%11'62), eta kasu batean indefinitua dugu (pertsona txiro bati); beste 37 oheak, emakumeei eman zitzaizkien (%86'04). Kasu gehienetan ohe bakarra, serora berarena, izan zen dohaintzan emana izan zena (23tan), baina ez zen inondik ere arraroa ohe bat baino gehiagoren jabe zen seroraren kasua. Banaketarako izan zituzten hirizpideak ohartzeko, azken kasu hauen berri emango dugu: Marina de Jaureguik (Bergara, 1556) ohe bana eman zien bere bi ilobari (bata "nieta", bestea "sobrina"); Marina de Moyugoitiak (Bergara, Leizariako San Lorentzo ermita, 1574) Pedro de Moyua eta Chariaco bere ilobei eman zizkien zeuzkan biak; Marina de Altubek (Elgeta, San Adrian eta San Antonio ermita, 1603) beste hainbeste egin zuen Marina Garcia eta Marina Ochoa bere ilobekin (azken honen ohea, serorak erabiltzen zuena, 7 dukatetan baloratua omen zegoen); Magdalena de Oruesagastik (Bergara, San Pedro parrokia, 1610) bere anai Juan Garcinari eta koinata Maria Perez de Querejazuri bana eman zizkien; Catalina de Mendiguchiak (Elgeta, Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638) bere ahizpa Maria de Mendiguchiari eta iloba Marina de Mendiguchia y Galarragari eman zien bana; Maria Gimenez de Guesalibarrek (Arrasate, 1614) bere oherik onena "pariente" zuen Juana de Soperuari eman zion, eta erlazioen izaerari buruz ezer ez dakigun Elena de Galarragari beste bi eta Mari [??] de Bolibarri bat (aurrekoaren ahaide dirudien Martin de Galarragaren emaztea); Ines de Bidaniak (Oñati, San Martin ermita, 1554) oinordeko ere egin zuen bere iloba Magdalenari eman zizkion zeuzkan biak; Francisca de Estrada Basaurik (Oñati, San Julian ermita, 1599) bat bere iloba Magdalena de Murguisurri eman zion, beste bat ospitaleari, eta hirugarren bat –bere albazea izendatu zuen– Oñatiko alkateak txiroren bati eman ziezaiola agindu zuen; Maria Lopez de Estrañok (Oñati, San Migel parrokia, 1647 eta 1665), zeuzkan biak bere

¹⁴⁴⁴ GPAH-AHPG 1/0286, 5r-6v.

iloba ziren –eta neskame izanak zituen– Maria Andres de Emparanza eta Maria Lopez de Echabarriari eman zizkien; eta azkenik, Catalina de Gallasteguik (Oñati, Narria, San Lorentzo ermita, 1678), beste ondasunen artean, ohe bana eman zizkien bere iloba Antonia eta Joan de Umeresi. Eta beste hainbat ere izan ziren, hauek bezala, zeukaten ohea, bakarra, familia-kideren bati, ikusi dugun bezala batez ere ilobei, eman zienak, eta beste zenbait halaber, pietatezko ohiturazko dohaintza lez ohea herriko ospitaleari eman ziotenak.

Kutxei buruz ere, beste hainbeste esan liteke. 73 seroren laginaren baitan halako dohaintzaren bat egin zuten 34 seroren testamentuetan emandako 64 kutxak oheak baino proportzio txikiagoan heldu ziren iloben eskutara, baina hala ere, emandakoen erdia baino gehixeago osatzen zuten: 34, %53'12. Beste 16 (%25) familia-kideen artean banatuak izan ziren; hauen arteko zehazgabe batzuek ilobak ere izan zitezkeen, eta osterantzean batez ere ahizpak eta anaiak ageri zaizkigu, baina baita koinatak, lehengusina bat, eta neskame bat ere. Gainontzeko 14k (%21'87) "lagunen" artean banatuak ditugu. Hauetariko zenbaitek, bestalde, zerbitzu partikularretako serorek euren zerbitzuko familien partaideei eginak dirudite -batez ere "doña" zirenei eta familietako alaben kasuetan-; hau da, beste dohaintzen pareko banaketa hirizpideei atxikitzen zaizkie, baina zerbitzuzko familiaren testuinguruan. Edozein kasutan, kutxak ere serorek batez ere familiaren testuinguruan banatzen zituzten ondasunak ziren, kasu honetan ere, ilobak bereziki faboratuz. Eta kasu honetan ere, oheekin bezala, emakumezkoen dohaintzen aldeko proportzioak nabaria izaten jarraitzen du: emakumezkoen 56 (%87'5), eta gizonezkoen 8 (%12'5).

Dohaintzen artean kutxa bakarra aipatu zuten 15 serorekin bat¹⁴⁴⁵, hainbat izan ziren kutxa bat baino gehiago zeuzkaten serorak; oheekin egin bezala azalpenetan azken hauek baino aipagai ez hartzearren, bi, hiru, edo are lau kutxa eman zituzten 19 serorak honakoak izan ziren: Bergarako Maria de Iturbe (San Martin ermita, 1605)¹⁴⁴⁶, Magdalena de Oruesagasti (San Pedro parrokia, 1610)¹⁴⁴⁷, Catalina de Sarralde (Santa Marina parrokia, 1628)¹⁴⁴⁸, Maria de Izaguirre (1631)¹⁴⁴⁹, Maria de Mendoza (1650)¹⁴⁵⁰ eta Gertrudis de Recalde (San Pedro parrokia, 1741)¹⁴⁵¹, Elgetako Maria Ochoa de Marquiegui (Andre Maria parrokia, 1592)¹⁴⁵² eta Domenja de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599)¹⁴⁵³, Arrasateko Teresa de Urisarri (Santa Marina ermita,

¹⁴⁴⁵ Bergarako Marina de Moyugoitia (San Lorentzo ermita, 1574) eta Gracia de Zabala (Santa Marina parrokia?, 1650), Elgetako Gracia de Sagasta (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637), Antzuolako Marina de Iraeta (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1645), Arrasateko Catalina de Abendaño (1590), Maria Gimenez de Guesalibar (1614) eta Ana de Ayesta (1664), Eskoriatzako Domenja de Zubia (Mendiola, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1622) eta Ana de Echabe (Gellao, Andre Maria parrokia, 1674), Aramaioko (Araba) Mariana de Ascoaga (1693), eta Oñatiko Magdalena de Ucelai (San Kristobal ermita, 1591), Francisca de Estrada Basauri (San Julian ermita, 1599), Mari Asencio de Umeres (Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676), Catalina de Villar (1738) eta Francisca de Lizarralde (Bidaurretako komentua, 1761).

¹⁴⁴⁶ Lau kutxa banatu zituen bere iloba baten, eta ziurtasunez ez badakigu ere, halaber ilobak zirela dirudien Santa Katalina ermitako serora baten eta beste bi emakumeren artean.

¹⁴⁴⁷ Zeuzkan bi kutxa bere koinata bati eman zizkion.

¹⁴⁴⁸ Kutxa bana eman zien bere iloba Antonio de Abraini, eta Marina de Gorostolari (“doña”).

¹⁴⁴⁹ Marina de Oregui bere lehengusina alargunari eta honen alaba Maria de Antia y Guerrari egin zien etxe baten dohaintzan, kutxa handi bat eta beste txiki bat ere aipatu zituen.

¹⁴⁵⁰ Sagastizabala eta Sagasta abizena zeramaten bi ahizpa bikoteri, bakoitzari ohe-estalki eta kutxa bana eman zizkien.

¹⁴⁵¹ Familia-kideei egindako dohaintza bakarrak bi kutxa izan ziren, bata bere anaiari, eta bestea ilobari.

¹⁴⁵² Iloben eta lagunen artean ohialak eta arropak banatu zituen, baina zeuzkan hiru kutxak faboratuena izan zen iloba bakarrari eman zizkion.

¹⁴⁵³ Bere iloba Maria Perez eta Maria Ortiz de Altuberi, 2 dukaten baloreko zaia txiki bana eta kutxa bana eman zizkien.

1603)¹⁴⁵⁴ eta Ana de Lara (1623)¹⁴⁵⁵, Oñatiko Ines de Bidania (San Martin ermita, 1554)¹⁴⁵⁶, Maria de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1629)¹⁴⁵⁷, Maria Lopez de Estraño (San Miguel parrokia, 1647 -eta kodiziloa 1665-)¹⁴⁵⁸, Osana de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1670)¹⁴⁵⁹, Catalina de Gallastegui (Narria, San Lorentzo ermita, 1678)¹⁴⁶⁰, Magdalena de Galarragak (San Antonio Abad edo San Anton ermita, 1705)¹⁴⁶¹, Antonia de Idigoras (San Juan ermita, 1711)¹⁴⁶², Ana Catalina de Inza (San Migel parrokia, 1751)¹⁴⁶³ eta Maria Gabriela de Sarraoa (San Migel parrokia, 1784)¹⁴⁶⁴. Hemen ere, noski, seroren ondasunen artean aipatu gabeko bestelako kutxak ere egon zitezkeela behar dugu aintzat hartu; Arrasateko Ana de Ayestak (1664), esaterako, nahiz eta dohaintzetan kutxa bakarra aipatu zigun, hura "la mayor que tengo" zen, eta Oñatiko Mari Asencio de Umeresek (Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676) emandako kutxa bakarra "de las mexores que tengo" izan zedila agindu zuen. Alegia, biek ere biek, bazeuzkaten kutxa gehiago.

Datu hauetatik eratorri litekeenez, Debagoiena guztiko seroren artean hedaturiko ohitura bezala aipatu genezake familia-kideei, eta bereziki ilobei, oheak eta kutxak dohaintzan ematearena. Zenbait kasutan, gainera, serorek nork bere ohea ilobari ematea, norbaiti jantzirik "onenak" –edo "igandetan erabiltzen zituenak"– emateak edo jantzi garestiak egiteko dirua emateak bezala, esanahi berezia hartzen zuela dirudi. Hala, esate baterako, Maria de Izaguirrek (Bergara, 1631) bere lehengusina Marina de Oreguiri eta honen alaba Maria de Antia y Guerrari etxe baten eta bertako ondasun guztien dohaintza egin zienean, horiez gain, bere ohea, ohe-estalki berriekin, –Martin de Ascargortarekin orduan zela gutxi ezkondua zen edo ezkontzekotan zen– alabarendako izan zedila nahi izan zuen. Era berean, Ana de Larak (Arrasate, 1623), itxuraz (nahiz eta ziur ez dakigun) bere oinordeko izatekotan zen –eta bere ezkontzarako doterako 232 dukateko dohaintza esanguratsua egin zion– Ana Bañez de Jaureguiri besteren artean bere ohea eman zion, bi kutxarekin batera. Berdintsu egin zuen Ines de Bidaniak ere (Oñati, San Martin ermita, 1554), goraxeago ikusi dugun lez, oinordeko izendatu zuen eta familia bizi zen etxean gelditzekoa zen bere iloba Magdalenari, besteak beste, zeuzkan bi oheak, hiru kutxa eta bere zaiarik onena eman zizkionean. Marina de Altuberen (Elgeta, San Adrian eta San Antonio ermita, 1603) kasua ere aipatu liteke, oinordeko izendatu zuen bere iloba Maria Garcia de Sostoari ez bere ohea, baina ohe berri bat eman baitzion, ohe-estalkiarekin eta "pluma y manteles"-ekin.

¹⁴⁵⁴ "hija del doctor Martin Ochoa de Alua" zen Maria Saezi kutxa berri bat ("la mayor") eman zion, eta honen eta Domingo Lopez de Celaaren alaba Isabela de Celaari, bestelako dohaintzen sortaz aparteko "arcas y cama y ropa blanca y linos y axuar de cassa" guztia.

¹⁴⁵⁵ Aurrekoa bezala familia baten zerbitzukoa zen serora honek –ziurtasunez ez badakigu ere, oinordeko izendatu izana litekeena den– bere iloba Ana Bañez de Jaureguiri ("doña") bi kutxa eman zizkion, eta beste bat honen ahizpa Maria Andresi.

¹⁴⁵⁶ Hiru kutxa aipatu zituen oinordeko egin zuen bere iloba Magdalenari eman zizkion ondasunen artean, eta bere anaia Martin Ochoari beste kutxa bat ere eman zion.

¹⁴⁵⁷ Kutxa bana eman zien "Isabelica", "Francisquita" eta Josefa bere ilobei.

¹⁴⁵⁸ Bere iloba eta neskame zen Maria Lopez de Echabarriari bi kutxa eman zizkion, handia eta txikia.

¹⁴⁵⁹ Kutxa bana eman zizkien "doña" zen iloba bati eta beste iloba baten alabari.

¹⁴⁶⁰ Aurrekoak bezalaxe, zeuzkan bi kutxak bi ilobari ematean, beste familia-kide eta -batez ere- lagunen artean ohiak eta arropak banatu zituen artean.

¹⁴⁶¹ Lehengusu bati, honen emazteari, koinatu bati eta iloba bati ehun, arropa eta abereren batzuk emanda, bere bi ahizpari kutxa bana (bat berria) eman zizkien, "lo demas que quedare de mis bienes" ere euren artean banatuz.

¹⁴⁶² Beste ohiak eta arropa batzuekin batera, kutxa bana eman zizkien hiru ilobari.

¹⁴⁶³ Aurrekoak bezala egin zuen zeuzkan hiru ilobarekin, hauei kutxa bana emanaz.

¹⁴⁶⁴ Bere besoetakoa izanda diru eta ondasunetan faboratuena izan zen ilobari emandako kutxaz gain, beste iloba bati ere kutxa bat eman zion, eta beste bana, Josefa de Arrazola ("la de [Sustiabe?]") zelako bati eta etxean neskame izandako Josefa de Cortabarriari.

Beste kasu batzuetan ostera, oheek eta kutxek, oinordeko izango ez ziren iloba eta familia-kideekiko konpentsaziozko paper bat jokatzeko zutela dirudi. Azkenengo aipatu dugun Marina de Altuberen kasuan bertan, zeukan beste ohea, berak erabiltzen zuena, beste anai baten alaba zen iloba bati eman zion, 7 dukatetan erositako omen zela aipatuz. Elgetan bertan, Catalina de Mendiguchiak ere (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638), bere iloba Pedro de Mendiguchia egin zuen oinordeko, eta halaber iloba zuen Irigoien batxilerrari, Angiozarren zeukan etxea eman zion, 20 urtetarako musutruk, Angiozarren bertan apez izatekotan; bada Maria de Mendiguchia bere ahizpari eta Marina de Mendiguchia y Galarraga bere ilobari bakoitzari ohe bana eman zien, zegozkien estalki-jokuekin. Marina de Oxirondok (Antzuola, 1661) berriz, bere ahizpa Maria de Oxirondo oinordeko egin zuen artean, bere anai Jose de Oxirondoren alaba Mariana de Oxirondori erabilitako ohe bat eman zion, bere estalkiekin. Ana de Echabek (Eskoriatza, Gellao, Andre Maria parrokoa, 1674), oinordeko egin zuen bere iloba Antonio Lopez de Echaberi, amaren eta aitaren aldetik zegozkion seniparteak dohaintzan eman zizkion artean, aipatu zuen beste iloba bakarrari, Magdalena Lopez de Echaberi, bere ohea eta kutxa eman zizkion, azken honek barruan zeukan guztiarekin. Maria de Iturbek ere (Bergara, San Martin ermita, 1605), oinordeko bere arima eginik, erabilitako ohe bat bere estalkiekin eman zion erlazio zehatzik ezagutzen ez diogun Joan "[Saez?]" de Ascarrunz zenaren alabari, eta Adrian Ibañez de Ondarzaren alaba zen bere iloba bati eta ziurrenez iloba izango ziren beste hiru emakumeri (bat serora zen) kutxa bana eman zizkien. Francisca de Estrada Basaurik ere (Oñati, San Julian ermita, 1599) bere arima egin zuen oinordeko, eta bere iloba Magdalena de Murguisurri, zeuzkan hiru oheetatik onena eta kutxa bat eman zizkion.

Preferentziaz ala konpentsazioz jokatu, oheak eta kutxak elementu garrantzitsuak ziren serorek egin izan zituzten dohaintzetan. Kasu batzuetan, garrantzi handiagoko oinordekotzen edo etxeen dohaintzen kasuetan bezala, ezkontzaren baten testuinguruan egindako dohaintzak zirela ikusten dugu; zalantzarik gabe, ohe eta kutxa propioak izatea garrantzitsua zen, batez ere emakumeen kasuan, ezkontzara begira itxurazko ondasunak osatzerako orduan. Beste batzuetan, batxilerrak edo apezak ziren familia-kideak azaltzen zaizkigu oheak eta kutxak jasotzen; hauendako ere, itxurazko bizimodu bat aurrera eraman ahal izateko elementu garrantzitsuak izan zitezkeen. Xede huez aparte, bestalde, besterik gabe dirua lortu asmoz saltzekotan, balore esanguratsua izan zezaketen ondasunak ziren.

Preferentziazko espazioak nabarienez ezartzen zituzten ondasun higiezinak, diru kopuru handiez, oheez eta kutxez gain, urrezko edo zilarrezko, edo urreztaturiko edo zilarrezaturiko, edo balore handiko zenbait ondasun eta bitxi ere ageri zaizkigu, kasurik gehienetan, familia-kide edo lagun bereziki faboratuen eskutara heltzen zirenak. Horietariko zenbait Bergarako serorek emanak izan ziren: Francisca de Igueribarrek (1581) Barrutia batxilerra "maior en dias" zenari eman zion zilarrezko kopa, Maria de Aguirrek (San Pedro parrokoa, 1631) bere iloba apezari "en su missa nueva" ematea agindu zuen zilarrezko kikara (16 dukaten balorea aipatu ziona), eta Gracia de Zabalak (Santa Marina parrokoa?, 1650) Magdalena de Gorostolari ("doña") emandako "tres marcos de liencos al [oleo?] pintados", "vn espejo y rreuocino de estano parda" eta "dos platillos de la China". Aretxabaletan eta Aramaion ere eman zuten tankerakorik: Maria Ruiz de Araozek (Aretxabaleta, 1629) beste hainbat ondasunen artean bere iloba bati emandako zilarrezko zinta, eta Mariana de Ascoagak (Aramaio, 1693) Joan de Orunari emandako kikara, "de peso de catorze o quinze pesos" zena, eta honen ama zela dirudien Ana Maria de Isurietari emandako portzelana, "de peso de diez y siete pesos". Oñatiko serorak ere, esandakoekin bat, izan ziren halako ondasunen emale; honakoak

ziren: Osana de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1670) bere iloba baten semeari emandako zilarrezko goilara, Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) iloba baten alabari eman zizkion beste bi zilarrezko goilara, lagun bati emandako "unas euillas de platta que uso" eta "unos rosarios engastados en platta", beste bati eman zizkion ispilu handia "con [???] dorado" eta "en una cajeta" zegoen gurutzeta eta beste lagun bati emandako zilarreztaturiko Agnus Dei-a eta errosario txikia, eta irakurketan garbi identifikatzerik izan ez ditugun beste zenbait ondasun, baina zilarrezkoak izanik, baliotsuak diruditenak; hala, Mari Asencio de Umeresek (Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676) lagun bati emandako "[bajo?] de platta que tengo", eta Catalina de Gallasteguik (Narria, San Lorentzo ermita, 1678) bere bi ilobari emandako zilarrezko goilara eta "vn [???] de platta".

Orain arte aipagai izan ditugun ondasunak, gutxiago edo gehiago, Debagoiena guztiko espazioetan ageri zaizkigu, eta serorek familia-kideak, eta euren artean bereziki ilobak, faboratzeko baliatu zituzten ondasunak dira. Ikusi dugu, halaber, nola ondasun hauen parterik handienak, alde esanguratsuekin, emakumeei eman zitzaizkien. Azken ezaugarri hau jarraian ikusiko ditugun ondasunetan mantendu egiten zaigu, edo hobe esan, areagotu, baina jasotzaileen esparrua familia-kideetatik haratago zabaltzen zaigu, laguneren esparrura. Orokorrean, orain arte aipatu izan ditugun ondasunak baino balio gutxiago izan ohi zuten ondasunei buruz dihardugu: ehunak, ohialak eta arropak. Eta orokorrean diogu, ondasun hauei buruz jarduterakoan beraien baloreari buruzko kontsiderazioak egitea aski zaila dugulako da. Ohialek eta arropak, ehungintza eta joskintza aktibitateei eskainitako atalean ikusi ahal izan dugunez, oso balore aldakorak izan baizitzaketen, zenbaitetan, oheen, kutxen edo bitxien balorea erraz gaudituz. Ez gara beraz hemen ondasunei hauei buruzko balorazio ekonomiko zurrunik egiten hasiko, testamentuetan ageri zaigun informazioak ohizkoa duen zehazgabeziak (oso gutxitan aipatzen zaigu ohial batek edo arropa batek izan zezakeen diruzko balioa) ezineko egiten duen saiakera baitugu. Kalkuluak, halaber, jasotzaileen kopuruaren eta hauen alde testamentuetan emandako partiden gain egingo ditugu, oso modu orokorrean, ondasun hauen kopuruari neurria hartzea oso zaila, ia ezinezkoa baitugu, gehienetan deskribapenak oso orokorrak baitira. Ehunen eta ohialen kasuan zenbaitetan aipatzen zaizkigu pieza ezberdinen kanak, edo liozko azaoak, etab., baina ohizkoak ditugu "los demas de los linos" eta tankerako espresioak ere, kopuruaren balantze ekonomiko zentzudunik egitera heldu ahal izateko. Azken finean, objektu errealearen presentziarekiko egindako deskribapenak dira, eta guri objektu errealeak falta zaizkigu. Beraz, jasotzaileen ezaugarrien araberrako banaketa azaldu, eta espazioen araberrako ohituren ezberdintasunak aditzera ematera baino ez gara helduko, beste ondasunekin bat azaltzen zaigun ikuspegi orokorra hautematera heltzeko. Horretarako, tankera honetako ondasunen funtsezko banaketa bat ezarriko dugu: alde batetik ehunak, oinarritzko materialak, eta ohialak eta ohea janzteko elementuak, eta bestetik, arropa manufakturuak. Gure interesa jasotzaileen ezaugarrien gain dugunez gero, ohialak arropa jakinen konfekziorako emanak izan ziren kasuetan (alkandora bat egiteko emandako izara bat, esaterako), azken sailkapen honetan baitaratuko ditugu.

Dohaintza hauen kopurua jada esanguratsua dugu, eta emaitza orokorren gaineko baloraziotara mugatuko gara, kasuistika guztiaren azalpenetan sartzeak ikerketa gehiegi nahastuko bailiguke. Esandako ondasunak 176 partidatan ageri zaizkigu; normala denez askotan partida berberetan, ehunak, oinarritzko materialak, ohialak eta oherakoak hauetariko 93tan eman ziren, eta arropak aldiz, 106tan. Lehenen arteko 37 partida (%39'78) izan ziren ilobei emandakoenak, familia-kide eta etxeakoak gehiturik 66 partidara (%70'96) heltzen direla, eta lagunei emandakoak aldiz, 27 (%29'03) ditugu.

Bigarrenen kasuan, ilobei emandakoenak 33 (%31'13) izan ziren, 62 (%58'49) ilobekin batera bestelako familia-kide eta etxekoei ere dagozkienak, eta lagunei emandakoenak aldiz, 45 (%43'68). Beraz, familia-kide eta etxekoen, eta lagunen arteko portzentaiak, oheen eta kutxen dohaintzetan ageri zaizkigun portzentaien antzerako banaketa agertzen digute, baina kasu honetan, lagunen aldeko dohaintzek gora egiten dute. Sexuen araberrako banaketari dagokionean, ehunak, ohialak, etab. emakumezkoei 78 kasutan (%83'87) eman zitzaizkien, eta gizonei -eta bestelakoei- aldiz, 15etan (kasu batean onuraduna bikotea) (%16'12). Arropen kasuan portzentaiak oso antzerakoak dira: emakumezkoei 91 (%85'84) kasutan eman zitzaizkien artean, gizonezkoei -eta bestelakoei- 15 kasutan (kasu batean onuraduna bikotea, eta beste batean indeterminatua) (%14'15) emanak ageri baitzaizkigu. Ikusten dugunez, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko portzentaiak oheekiko eta kutxekiko oso antzerakoak ditugu.

Ondasunen eta hauen dohaintzen inguruko balorazio orokorrei ekin baino lehen, antolatu dugun sailkapenetik kanpo gelditzen diren dohaintzak ere aipagai hartu beharrean gaude, noski. Bestelako ondasunen kasuistika zabal bat ageri baitzaigu, izan ere, hemen, xehetasunetan sarturik ezin azal ditzakegunak. Labur emango dugu beraien berri, ondasun moeta ezberdinen sortaren erakusgarri zaizkigun adibideak batzen saiatuz. Alde batetik, goraxeago urrezko, zilarrezko, urreztaturiko edo zilarrezaturiko edo balore handiko ondasun bezala aipatu ditugunak egongo lirateke, kasu gutxi eta berezi xamarrek diren heinean. Aipagarri zaizkigun beste ondasun batzuek etxeko eta sukaldeko tresnak dira; mahaiak, pertzeak, pitxerrak, kikarak, platerak, edalontziak, etab. ere emanak izan ziren, bestelako etxerako elementuekin batera. Francisca de Igueribarrek (Bergara, 1581) -nahiz eta froga erabakiorrik aurkitu ez diogun, familia-kidea izan zitekeen- Barrutia batxilerra "menor en dias"-i egin zion dohaintza, esaterako, etxe bat aski jantzia uzteko bezalakoa izan zen; ohe batez, ohe-estalki erabili batzuek eta bi pare mahai-zapiz gain, honakoak eman zizkion: pitxer bat, ganderailu bat eta hiru plater (bi eztaizuzkoak, bat buztinezkoa), mahai-tapiz bat, eztaizuzko bi ganderailu zuri eta ogiarendako oramahai bat. Dohaintzetan presente izan zen beste ondasunen multzotxo bat, abereek eta lurreko produktuek osatua litzateke. Hala, Oñatin, Magdalena de Galarragak (San Antonio Abad edo San Anton ermita, 1705) bere lehengusuari emandako behia eta bere koinatuari emandako txahala aipagarriak zaizkigu, eta baita Leintz Gatzagako Teresa de Laquiteguik (Dorletako Andre Maria santutegia, 1746) Pedro Benito de Aguirianori ("a quien le pido me encomiende a Dios") emandako behia ("buena de las que tengo") eta, irakurketa egokia egin badugu behintzat, Maria Perez de Bengoak (Arrasate, Gesalibar, Santa Ageda parrokia eta ospizioa, 1625) bere lehengusinari ("prima carnal") eman zizkion bi txerrikumeak ere ("dos [lechones?] vno ma[ior?] y otro menor"). Izan zen gariak eman zituenik ere: Maria Gabriela de Sarraoak (Oñati, San Migel parrokia, 1784) hainbat laguni eta neskameei egin zizkien gari anoen dohaintzak; bati anoa 1/2-ko zorra barkatu zion, eta beste biri eta bi neskameri, anoa bana eman zien.

Atal honekin bukatzen joateko, oheen, kutxen, bestelako ondasun baliotsuen eta ehun, ohial eta arropen dohaintzak aintzat harturik, zenbait ondorio orokorretara heldu gitezke. Lehenik eta behin, ondasun guztien kasuan ematen den zerbait, emakumezko eta gizonezko onuradunen arteko proportzioen aldea dugu; kasu guztietan %85etik gorako proportzioa ematen digu emakumezkoen alde. Bere kabuz aski esanguratsua dugun datua. Iloben aldeko dohaintzei dagokienean aldiz, oheen eta kutxen kasuan dezenteko aldearekin jasotzaile nagusiak ziren artean (erdia baino gehiago, oheen %65'11 eta kutxen %53'12), ehun, ohial, etab.en eta arropen kasuan %40tik behera jeisten zaizkigu (ehun, ohial, etab.en %39'78 eta arropen %31'13). Familia-kideen

aldeko dohaintzen portzentaiek ere ondasunen banaketarekiko antzerako koerlazioa agertzen digute; oheen eta kutxen kasuan %75etik gora mantentzen zen hauen alde emandakoen proportzioa (hurrenez hurren, %77'27 eta %78'12), baina ehun, ohial, etab.en kasuan jada jeitsiera bat daukagu %70'96ra, arropen kasuan jada nabaria egiten dena, %58'49rekin. Beste hitzetan, datu hauek honakoa azaltzen digute: oheak eta kutxak nagusiki ilobei eta familiako testuinguruko kideei eman ohi zitzaizkien artean, ehun, ohial, etab.en eta arropen dohaintzetan iloben eta bestelako familia-kideen arteko proportzioak gora egiten du azken hauen alde, eta fenomeno berbera gertatzen da familia-kideen eta lagunen aldeko dohaintzen proportzioen bilakaeran, ehun, ohial, etab. eta arropen kasuetan azken hauen aldeko gorakada bat nabari dela. Beraz, oheak eta kutxak familia-kideak eta hauen artean bereziki ilobak faboratzeko erabiltzen ziren artean, ehun, ohial, etab.ekin eta arropekin, lehenen aldeko dohaintzek nagusi izaten jarraiturik ere, onuradunen esparru zabalago baten aldeko dohaintzak egiten ziren.

Puntu honetara heldurik, ikerketarako zedarritu ditugun espazioen arabera dohaintzen banaketarako ohitura ezberdinen jarraipenen inguruko zenbait azalpen eman beharrean ere bagaude, diruen dohaintzak ere aintzat harturik, familia-kideei, etxekoei eta lagunei serorek dohaintzan emandako diru eta ondasunen ikuspegi osatu bat eratzeko. Ohar dezagun, garrantzitsua baita, ez dihardugula serorek eduki, zeuzkaten diru eta ondasunei buruz, familia-kideei, etxekoei eta lagunei ematea erabaki zutenei buruz baizik. Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatutako espazioan, aspektu amankomunak bezalaxe, herri bakoitzeko berezitasunak ere nabari litezke. Lehenik eta behin, etxeak eta baserriak dohaintzan eman zituzten espazio bakarra dugula esan behar; etxe bat eta baserri bat Bergarako seroren dohaintzei dagozkie, eta beste etxe bat Elgetan, Angiozar auzoko bati. Horrez beste, Bergaran, 1631-1750 bitarteko 9 seroren testamentuetan diruzko dohaintzen hutsune luzea badaukagu ere, aurretiko 9tik 6tan eta ondorengo 2tan ageri zaizkigun diruzko dohaintzek "ohizkoak" dirudite, eta ondasunen artean hainbat ohe eta kutxa eta zenbait bitxi eta baliozko ondasun zeuden, eta baita ohialak, ohe-estalkiak eta arropak ere, nahiz beste herri batzuetan baino neurri txikiagoan izan. Ohartzekoa dugun alderdi bat, ehungintzarako eta joskintzarako lehengaien eskasia dugu, ohial, ohe-estalki -eta izara, mantu, etab.- eta arropen aldean. Elgetan aldiz, testamentuek jasotzen duten 1576-1638 bitarte kronologikoan, dirutan -zortzitik- bi serorek ilobei emandako 5na dukat baino ez ziren eman, oheak eta kutxak nahiko ohizkoak ziren, eta ohial, ohe-estalki eta arropak ohizkoago baziren ere, zenbait kasutan -zehazki bitan- ehungintza eta joskintzarako lehengaien dohaintzak ageri zaizkigu, eta baita, beste kasu batean, -nahiz eta besteetan lehengairik ez agertu- dohaintzan emandako ehungailu bat ere. 1642-1733 bitarteko Antzuolako seroren 8 testamentuek azaltzen diguten egoera ere nahiko berezia dugu, eta hein bateraino, Elgetako egoeraren txanponaren bestaldea agertzen zaigu. Serora hauetariko bik baino ez zuten ohe bana dohaintzan eman, kutxak ere bi baino ez zaizkigu ageri, eta Bergaran bezala, ohialak, ohe-estalkiak eta arropak dira nagusi (eta beste herriekiko konparazioan ez dira hainbeste), ehungintzarako eta joskintzarako lehengaien aldean. 8 seroretariko 3k ez zuten dirurik dohaintzan eman, baina besteekiko, -zorren barkamenari dagozkienez aparteko dohaintzen- kasu guztietan kopuru dezenteak eta pertsona gutxiri emanak ageri zaizkigu; Antzuolako seroren dohaintzarik ohizkoen bezala, azken finean, diruak eta ohialak, ohe-estalkiak eta arropak aipatu litezke.

Leintz bailaran ere, diruzko dohaintzak egin ziren kasurik gehienetan, nahiko kopuru altuak eman ziren, eta bertan daukagu familia-kide bati Debagoieneko espazioan serora batek egindako diruzko dohaintzarik handiena ere, Aretxabaletako Maria Ruiz de Araoz y Duranak (1629) bere ilobari emandako 400 dukateko zentsuarena. Alabaina,

Leintz bailarako dohaintzen ezaugarriak nabarmenena ez da bertako serorek dirutan eman zituzten dohaintzena; bertako dohaintzen alderdirik deigarrienak bestelakoak dira: ohialen, ohe-estalkien eta batez ere arropen ugaritasuna, eta ondasun gehienak ehungintzarako eta joskintzarako materialetan eman zituen serora baten (Domenja de Zubia, Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiakoa, 1662) presentzia. Oheen eta kutxen dohaintzak nahiko ohizkoak ziren, eta abereen dohaintzetariko batzuk ere bertakoak ditugula ikusi dugu. Beste ezaugarri deigarri bat, Arrasateko eta Eskoriatzako seroren artean ohartu duguna, beste espazioetakoan aldean dohaintzen jasotzaileen artean "lagunek" zeukaten presentzia esanguratsua dugu.

Oñatin, kuriosoki, kontrako joera da ohartu litekeena. Familia-kideen, etxekoen eta lagunuen aldeko dohaintzak eman zituzten 17 seroren artetik "lagunen" kopuru esanguratsuei dohaintzak Catalina de Gallasteguik (Narria, San Lorentzo ermita, 1678) eta Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) baino ez zizkieten egin, besteen arteko gehienetan batere ez, eta zenbaiten kasu bat edo bi baino ez ziren artean. Oheen eta kutxen dohaintzen neurria beste espazioetan baino handixeagoa ageri zaigu, eta diruzko dohaintzen eta ondasunezkoen arteko balantzea, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak eta Leintz bailarak azaltzen dizkiguten egoeren bitarteko batean legoke. Alegia, bietarik aurkitzen dugu, eta Bergaran gertatu bezala, XVII. mendearen erdialdetik XVIII. mendearen erdialderarte testamentuetan diruzko dohaintzen hutsunea egiten zaigu; kasu honetan, 1657 eta 1761 bitarteko 11 testamentuetan erreal gutxi batzuetako hiru partida baino ez zaizkigu ageri (4na errealeko bi eta 10eko bat). Halatsu, seroraren batzuek Bergarako eta Antzuolako seroren artean ikusi ditugun dohaintzetarako ohiturei gerturatzen zaizkie, San Migel parrokia nagusikoak batez ere, baina baita ermitetakoren bat ere (diruaren presentzia esanguratsua eta kopuru handiak, ehungintzarako eta joskintzarako lehengaien eskasia), baina oster, ermitetako beste batzuek Leintz bailarako eta Elgetako serora gehieneko egoera dakarkigute burura, ohialen, ohe-estalkien eta arropen ugaritasunarekin eta halaber, ehungintzarako eta joskintzarako elementuen presentzia esanguratsuekin ere.

Ez ditzagun ahaztu, aipatu berri ditugunekiko, diruaren erabilerak garai ezberdinetan izan zituen aldaeren inguruan goraxeago egindako hausnarketak ere; hein horretan, Bergarako eta Oñatiko seroren diruzko dohaintzen XVII. eta XVIII. mendeen erdialdeen bitarteko hutsune horiek, esaterako, faktore askoren eraginpeko ohituren aldaketak azaltzen dizkigute. Ohartu beharrean gaude, bestalde, oinordekotasun eta dohaintza handien, eta oheen eta kutxen dohaintzen kasuetan azaldu ditugun joerak, hau da, familiaren sostengu eta erdigune ziren etxe, baserri eta partaide -printzipalen- alde egiten zuten "preferentziazko" eta hauen beste partaideen alde egiten zuten "konpentsaziozko" dohaintzenak, ehunak, ohialak eta arropak banatzerako orduan ere, presente zeudela. Atal honekin bukatzeko dinamika hauen erakusgarri iruditu zaizkigun hiru kasu zehaztasun handiagoarekin azalduko ditugu beraz, aukeraketan, bereziki -eta hauekin bukatzeko-, azken dohaintza moeta hauen kasuekiko eredarriak iruditu zaizkigunak hautatuz.

Ikusi dugu, itxuraz oinordeko bere iloba Ana Bañez de Jauregui ("doña") egin zuen Ana de Larak (Arrasate, 1623) nola honi bere ohea eta bi kutxa eman zizkion. Horiez gain, suil bat eta pertze bat ere eman zizkion. Beste familia-kideei hainbat ehun, ohial eta arropa banatu zizkien "konpentsazioz": oinordekoaren ama (ustezkoa, oinordekoaren inguruko ziurtasun osorik ez baitaukagu) eta bere koinata Mari Bañez de Artazubiagari (Domingo de Jaureguiren emazte izateagatik, Mari Bañez de Jauregui bezala ere aipatua) eta honek etxean zeuzkan beste bi alabei, Maria Andresi eta "Arroscho"-ri, bost ohe-estalki joku eman zizkien, eta beste bat bere ahizpa Maria de

Larari. Lehenei, gainera, bere beste ahizpa Ana de Larari eta honen senar Asencio de Insaurberi emandako ohial “mediano” banaz eta “gorguera” batez (azken hau ahizpari emana) aparteko ohial guztiak eman zizkien: hauen arteko onena Maria Bañez amari, eta beste guztiak alabei. Gainera, alaba hauen arteko bati, Maria Andresi, kutxa bat ere eman zion. Ahaideen artean (dokumentuaren egoeragatik Ana Bañez de Jauregui bera baino ezin izan dugu identifikatu) zenbait arropa ere banatu zituen: hiru zaia txiki, kapa motz bat, mantelina bat, soineko bat, bi “fandilla” eta bi jantzi luze. Ikusten dugunez, Ana de Larak, bere iloba Ana Bañez de Jaureguiren gertuko familia-kideen eta bere ahizpen artean banaturiko ondasunekin, hauen artean hainbat ehun, ohial eta arroparekin, lehenari ondasunen parterik esanguratsuen eman izana berdindu nahi izan zuen.

Maria Ruiz de Araoz y Duranak (Aretxabaleta, 1629) ere bere iloba oinordekoak eta bestelako familia-kideek jasotzekoak zituzten ondasunak nolabait berdindu nahi izan zituen, nahiz eta lehenaren alde nahiko nabariki egin zuen. Bere anai Cristobal Ruiz de Araozen alaba zen Maria Ruiz de Araozen, oinordeko izendapenez gain, 400 dukateko zentsu bat jaso zuen (lehenik usufruktoan, seroraren heriotzaren ostean propietatean), eta gainera, serorak honi “vn bestido de porgueran [= “*gorgorán*”], de la color y como ella quisiere” egin ziezaiotela agindu zuen. Soineko txukuna nahi zuen, besteen gain faboratu zuen ilobarendako. Gainontzeko ilobei, zenbait arropa eta ohial banatu zizkien: apez izateko bidean ziren bi ilobari meza berriak kanta zitzatenerako alba bana egitea agindu zuen, eta batez ere, beste iloba Maria Ruiz de Zabalarari bi ohe-estalki joku, bi kana luzeko mahai-zapi “alemaniscos” batzuk, zilarrezko zinta bat eta “vn corte de jubon” eman zizkion, eta baita “de carisea colorada” izango zen zaia bat egin ziezaiotela agindu ere. Nahiz eta ziurrenez iloba oinordekoari eman zizkion ondasunen balorearen mailara heltzen ez ziren, ganorazko ondasunak ziren hauek ere. Ez zaigu garbi iloba oinordekoa, Maria Ruiz de Araoz, ezkundurik ote zegoen azaltzen; baina litekeena da hala ez izatea, ez baitzaio senarrak aipatzen, aita aipatu zitzaion artean. Maria Ruiz de Zabala ostera ezkondua zen (Martin Saez de Madinarekin), eta litekeena da, oinordekotza eta ondasun preferentziak ezartzerakoan, elementu hori garrantzitsua izan izana. Baina ohizko jokaeren gain osatu genezakeen hipotesi bat baino ez dugu, eta ez gara posibilitatea aipatzetik urrunago joango.

Badira beste adibide batzuk ere (hauen berri izan nahiko lukeenak 11.a. koadroa -957-985 or.- kontsultatu lezake), baina gehiegi luzatu gabe posibilitate ezberdinen arku guztia jasotzeko, -ia- ehun, ohial eta arropa denak ere berari emanik, ondasunen dohaintzen erabateko preferentzia oinordekoari (beste behin, iloba bati) ematen zitzaion kasuen adierazgarri, azken adibide bat baino ez dugu emango; Ines de Bidaniarena (Oñati, San Martin ermita, 1554). Serora honek, aipatua dugun lez, bere iloba Magdalena egin zuen oinordeko, eta zeuzkan ondasun esanguratsu guztiak eman zizkion: alde batetik, Eztenagan zeukan sagasti bat, “la tierra de Jamendi” bezala aipatu zuen lursail bat eta ermitako seroretxean zeukan etxeko “aparejo” guztia; ohial eta arropatan berriz, bi ohe ohe-estalki bikoitzekin, zaia zuri bat (zeukan onena), mantu batzuk, zaia txiki bat, eta “de paño e lino” zeukan guztia, San Andres ermitako serorari eta Estibaliz izeneko beste iloba bati eman zizkien bi zaia ezik. Azken honi eman zion zaiak ona izan behar zuen (beste ilobari ia gainontzeko guztia eman zionez gero), igandetan erabiltzen zuena bezala aipatu baitzuen. Guzti horrez gain, bere aita -eta seroraren anaia- Martin Ochoarekin partekatzeko gaztainadi bat ere eman zion Magdalenari, Durun kokatua eta “en exido” zeukana. Jada esandakoekin batera, ilobak jaso ez zituen ondasun bakarrak, azken honi eman zion -eta ziurrenez, azkenean, ilobaren eskutara heltzekoa izango zen- kutxa batek eta Santa Marina ermitako serorei

eman zizkien zapata pare banak osatzen zituzten. Horrez gain pertsoneri egin zizkien dohaintza guztiak dirutan egin zituen. Ines de Bidaniak, bada, zeuzkan ondasunik gehienak bere iloba bati eman zizkion, gertuko testuinguruko gainontzeko familia-kide eta lagunei ondasun xumeak erreserbatuz. Bere oinordeko ilobaren aita zen anaiari eta beste ilobari egin zizkionak baino ez ziren aintzat hartzeko bezalakoak izan.

VII. 2. ELIZAREN ETA ARIMAREN DIRUAK

Familien eta lagunuen inguruan beraien ondasunen eta diruen ematearen bidez izan zezaketen eraginarekin bat, beste jasotzaileen talde nagusia tenplu erlijiosoek eta bertako zerbitzariak osatzen zuten. Bai zuzenean, parrokiei, ermitei, apez eta benefiziodunei, eta beste serorei egindako dohaintzen eta oinordeko izendapenen bidez, eta tenpluetako zerbitzarien artean, baita zeharka ere, testamentuetan aginduriko hileta eta mezetako emolumentuen eta soldaten bidez. Hiletek eta beraien eta besteren arimen aldeko meza ugariak, halaber, arimen salbazioaz gain, serora askoren sostengurako etekinen iturri baten mantenua ere bazuen xede, noski; izan ere, jarlekuetako zerbitzuetako eta hileta-erritu ezberdinetako emolumentuak eta eskumuinak ugariak izatea eta –XVIII. mendean zehar gainbeheran joan zen– ohitura bere hortan mantentzea, apezendako bezalaxe, serora askoren bizimoduaren jarraipenerako ere ardatzekoa baitzen.

VII. 2.1. Elizei, ermitei eta bestelako espazio erlijiosoei eta bertako zerbitzariari egindako dohaintzak

Atal honi ekitean lehenik heldu beharreko gaia, serorek eurek seroretxeen eraikuntzan eta mantenuan izan zuten garrantziarena da. Izan ere, nahiz eta eraikin hauen erantzule bakarrak ez izan, kasu askotan beraien sostengatzaile nagusiak izan baitziren. Ermitetako serorei buruz ziharduela, Aguirre Sorondok egoki laburbildu zigun bertako serorek tenpluarekiko eta bere ekonomiarekiko zeukaten lotura estua: "En resumen, todo influía en la economía del templo y por ende en la particular prosperidad de la *serora*. Generalmente ésta invertía sus ahorros en la mejora de la ermita, bien en forma de gastos culturales o para el mantenimiento de la *serora-etxea* (casa-seroral)" (Aguirre Sorondo 1995a, 110). Bereziki azken alderdi hauei erreparatuko diegu jarraian.

Baina lehenik eta behin, eta jada ohartarazi dugunez: serorak ez ziren beti seroretxeetan bizi. Parrokiako serorak izan gabe, jarleku partikularren eta familia jakinen zerbitzuan ibiltzen ziren serora asko, zerbitzen zituzten familien (ez gutxitan, euren familia propioak) etxeetan bizi izaten ziren, eta baziren, euren kontu, beraien jabego partikularreko etxeetan bizi zirenak ere, etxe hauek propioki seroretxeak izan gabe. Gainera, zenbait tenplutan izaten zuten ohitura bestelakoa izaten zen; adibidez, Oñatiko San Migel parrokian ikusi dugun bezala, ohitura bertako serora alokaturiko etxe batean bizitzea izan zitekeen. Baina ukaezina dugu, edonola ere, seroretxeen sorrerak eta eraikuntzak dokumentaturik aurkitu ahal izan ditugun kasuetan, gehienetan seroren dohaintzekin edo dote-emateekin topo egiten dugula. Normala den bezala, bestalde, eraikuntza hauetan interesatuenak, serorak eurak baitziren. Gero, behin seroretxea eraikita zegoenean, zegokion tenpluaren fabrikak hartzen zuen mantenuaren eta egin beharrezkoak ziren obren ardura, eta parrokiatako eta ermitetako liburuetan ugariak dira obra hauen inguruko gastuen partidak, tenpluaren fabrikatik ordaintzen zirenak; izan ere, behin seroretxea tenpluaren parte izatera iragaten zenean, bere mantentze-lanetarako azpiegituraren parte baitzen, eta beraz, zaindu beharra izaten baitzen. Orduan

ere, seroretxearen mantenurako serorek emaniko limosnak eta dohaintzak ugariak izaten ziren, eta xede horretarako egindako limosna bilketak ere, hainbatetan izaten ziren. Azken hauek hain ohizkoak ziren eze, ez baikara beraien berri ematen luzatuko; alabaina, bereziki seroren eskutik ordaindu ziren seroretxeen eraikitze eta konpontze lan esanguratsuei nahiz espezifikoki seroretxeen alde emandako dohaintzei erreparatuko diegu, beraien berri emateari garrantzitsua baiteritzogu.

Debagoieneko kasuei erreparatu baino lehenago, seroren inguruan jardun izan duten lanen artean aurkitu ditugun zenbait adibide izango ditugu aipagai; lehena xumea: 1572an Soraluzeko (Gipuzkoa) San Esteban ermitako serorak, bertako seroretxea bere kontu eraikia zeukala dakigu (Azpiazu 1995a, 50). Hurrengo oster, seroretxeek izan zuten bilakaerarekiko, oso esanguratsua dugu: 1692ko berri batzuen arabera, Hiriburuko (Lapurdi) seroretxea 1640-1660 bitartean eraikia izan zela ondorioztatu liteke; bere eraikuntza Marie de Sallenave serorak agindu zuen (bere kargura noski), ondorengo seroren bizileku izan zedin. Kurioso da kasu honek ondorengo orrietan azalduz joango garen bilakaeraren pausuak zein azkar burutuak ageri dizkigun. Seroretxearen eraikuntzaren berri ematen zuen 1692ko dokumentuan, eraikuntzaren eskerronez, parrokiako apezpa zen Pierre Pascauk Marie de Salenave serora zenaren arimaren aldeko urteroko 12 mezatako anibertsario baten fundazioa erabaki zuen; meza horiek, baina, nondik ordainduko, eta seroretxearean alokairutik! Alegia, dirudienez, seroretxea ondorengo serorendako alokairuan jarri zen, zer eta anibertsarioko mezak esango zituzten apezpei mezen ordaina emateko (Desport 1991, 62). Modu kurioso, diogunez, seroretxearen eraikuntzaren erantzule izan zen serorari eskerronak emateko, honen ondorengo izango ziren serorek ordaindu beharreko seroretxearen alokairuaren etekinak apezten patriketara bideratzearena; eta noski, serora ongilearen arimaren onurarako. Baina ez genuke azkarregi trikimailuen bila ibili beharko, serorek eurek arimen salbazioaren inguruan zein ardura handia zeukaten haintzat hartuz gero; hala ageriko zaigu ondoren, seroren testamentuetako memoria eta anibertsario fundazioei erreparatzean. Borondate onaren eta trikimailuen mugak daudenean daudela, adierazi nahi genuena honakoa zen: askotan serorek eurek eraikiaraziak izan ziren seroretxeak, ikusi dugunez, alokairuan jarrita, edo sakristauen edo apezten bizileku bilakatuta bukatu zutela, beti ere, seroren ez besteren probetxurako.

Seroretxe honen gorabeherak, baina, ez ziren azaldu ditugunetan bukatu. Ez dakigu zenbat denboran zehar iraun zuen alokairuaren etekinen mezetako xahutzeak, eta noiz, hauek bukatuak, etekinek zuzenean parrokiako fabrikaren poltsarako bidea egiteari ekin zioten; edozein kasutan, Frantziako Iraultza garaian Hiriburuko seroretxearen jabegoa esku partikularretara iragan zen (1794an), bertako seroren alokairuaren diruak bezalaxe. Eta hara non, mende erdi bat baino gehixeago beranduago, beste serora baten eskutik itzuliko zen seroretxea parrokiako ondasunen artera. Desportek ezin izan zuen, bere bilaketetan, seroretxea Dominique Dolhagaray seroraren eskutara zein bidetatik heldua izan zen aurkitu; erosketa, dohaintza... Bidea zelakoa izan zela ere, 1852an, Hiriburuko udal kontseiluak seroretxea parrokiako fabrikarendako -1.000 frankotan- erosteko proiektu bat onartu izatetik bost hilabetera, hil-hurrenean zegoen serorak, bere testamentuan, seroretxea dohaintzan eman zion parrokiako fabrikari, 50 frankorekin batera (*Ibid.*, 76-78). Hiribururen kasuan, behinik behin, nabaria zaigu serorek izan zuten garrantzia handia, seroretxearen eraikuntza, mantenu eta zaintzari zegokionean.

Ikusi berri dugunaren antzerako ibilbidea nahi zuen, jada Debagoienera etorririk, askoz data goiztiaragoetan, XVI. mendearen lehen erdialdean¹⁴⁶⁵, Uzarragatik igaro zen

¹⁴⁶⁵ Ikus daten inguruko zehaztapenak 362 or., 662 oinpeko notan.

bisitatzaileak ere (*Libro de visitas del Licenciado Martín Gil*, izena bisitatzaileetariko batena baino ez zen), bertako Magdalenaren ospitalean -"la dotó" esakerarekin ulertzen dugunaren arabera- Maria de Madarioygak eraiki zuen seroretxearentzat:

Yten hallo que tiene el dicho hospital de la Madalena una casa pegante della que la dotó María de Madarioyga, huéspedea que tiene cargo al presente del dicho hospital, la quoyal casa está ocupada con dos sororas, las quoyales no pagan alquil[er] ninguno pudiendo[se] la dicha casa alquilar y arrendar cada año [en] quatro ducados, todo lo quoyal es en dapno y perjuizio del dicho hospital (Díaz Bodegas 1995 -XVI. mendearen lehen erdialdea-, 368)

Maria de Madarioygak ez zeukan serorei alokairurik kobratzeko asmorik, baina bisitatzailearen iritzia bestelakoa zen; eta ez dirudi Mariak bisitatzaileari kasu egingo zionik, hau ez zatekeen bestela kexu izango eta.

Baina Debagoieneko seroretxeen artean Bergarako San Pedro parrokiakoarena izan da xehetasunik gehien eskaintzen dizkiguna. Ikusi izan dugu nola fundazioa 1572an parrokiako serora zen Catalina de Ondarzak egin zuen, bere testamentuan. Baina parrokiarako seroretxe bat egiteko asmoa ez zen berea izan, aurretik izan baitzen beste saiakera bat. 1556an, izan ere, Marina de Jauregui serorak, honek ere bere testamentuan, urrezko 100 dukat eman zituen, "para enpeçar a fabricar vna casa junto a la yglesia de Sanct Pedro de esta dicha Villa o si se enpeçare a hazer por otra persona donde biban las freiras de la dicha yglesia de Sanct Pedro". Eta etxea eraikitzeari ekin edo eraikuntzarako lursaila erosi bitartean,

se pongan siete ducados de la rrenta y çenso que traen los dichos çient ducados en la lumynaria y lanpada que tengo puesta y tenemos puesta yo e doña Maria Martinez de Jaureguy my hermana delante del altar de Nuestra Señora de la yglesia y en ello se distribuyan los dichos siete ducados de rrenta por año hasta que aya hefeto lo por my en este capitulo mandado o declarado¹⁴⁶⁶

Baina urteek aurrera egin zuten, eta Marina de Jaureguiren dohaintzaren xedea bete gabea zen oraindik, 1568an, Hernan Juarez de Toledo doktorea bisitatzailea heldu zenean. Marina de Jaureguiren testamentua ekar ziezaioten agindu ostean, seroretxearen eraikuntzari ekin bitartean Andre Mariaren aldare aurreko lanpararen argiteriarako ezarrita zegoen urrezko 100 dukateko zentsuaren administrazioa oraindik serora defuntuaren ahizpa Maria Martinez de Jaureguik zeramala eta, hau parrokiako maiordomoaren administraziora iragan zedila agindu zuen:

mando que de aqui adelante los dichos siete ducados de çenso se cobren en cada un año por los mayordomos de la dicha yglesia y se hagan cargo de ellos para que se gasten por ellos en la dicha luminaria y lo que sobrare quede para la dicha yglesia hasta tanto se conpre la dicha casa o solar confrome a la manda de la dicha testadora / Y si para la cobrança de los dichos siete ducados de çenso fuere neçesario que la dicha doña Maria Martinez entregue alguna escritura a favor de la dicha yglesia la entregue en forma devida de derecho¹⁴⁶⁷

Bisitatzailearen agindua bete zela, eta parrokiako fabrika, maiordomoaren administrazioaren arabera, Jaureguiko ahizpek Andre Mariaren aldare aurrean ipinia zeukaten lanparako argiteriaren gastuen "lo que sobrare" jasotzen hasi zela dirudi; alabaina, parrokiako kontu-liburuan jaso zen agindu honetan esandakoarekiko ñabardura edo ezberdintasun txiki bat aurkitzen dugu parrokiako patroitzairen kontu-liburuan 1568an bertan bisitatzaileak idatzirik utzi zuen agindu batean. Maiordomoei parrokiako fabrikarako egiteko zeuden kobrantzen dilijentziak egin zitzatela

¹⁴⁶⁶ GPAH-AHPG 1/0055, 72r-74v.

¹⁴⁶⁷ BUA SP2/173-431, 406 fot.

agintzerakoan, Marina de Jaureguiren testamentuko dohaintzaren 100 dukatei buruzkoak ere aipatu zituen, baina hauen etekinak, Andre Mariaren aldare aurreko lanpararako baino, Sakramentu Santuko argiteriarako emanak bailiran:

[...] haziendo la diligencia conbeniente acerca de la manda de la beata de Jauregui de los çient ducados que mando se pusiesen a çenso para la luminaria del Santissimo Sacramento lo qual dixo mandaua y mando ansi hazer [...]¹⁴⁶⁸

Bisitatzaillearen akatsa edo despistea, ala 100 dukaten etekinen bideratze interesatua? Izan ere, ez baitezagun ahaztu, Andre Mariaren aldare aurreko lanpara, bere argiaren mantenuan zentsutan ipiniriko 100 dukaten urteroko 7 dukatak –seroretxea eraiki bitartean– xahutzeak zirenak, ez zela parrokiarena, Marina de Jauregui berak eta bere ahizpa Maria Martinez de Jaureguik ipinitakoa baizik; Sakramentu Santuaren argiteria ez bezala, zeinaren mantenua, noski, parrokiako fabrikari zegokion (ardura zen heinean, ezen, gastu hauen parte handi bat, partikularren dohaintzen bidez betetzen baitzen). Trikimailurik tarteko egon edo ez, azkenean ez zen Marina de Jauregui serorak bere testamentuan aginduriko seroretxe fundaziorik egin, eta ez dakigu garbi, urrezko 100 dukatak nola xahutzen bukatu zuten ere.

Agian gorabehera hauen berri izango zuen Catalina de Ondarzak¹⁴⁶⁹ ere, eta horregatik, 1572an egin zuen seroretxe fundazioa, momentuan bera bizitzen zegoen etxearen dohaintza bidez egin zuen. Etxea 1567an erosi zuen, edo agian, erosi zioten, salmenta dokumentuan, bata bestearen gain idatziriko bi izen agertzen baitzaizkigu. Lehenik idatzi zena “Ana de Ondarça” izan zen, eta gero, “Ana” ezabaturik, gainetik “Catalina” idatzi zitzaion. Hau lehen momentu batean etxea familia-kideren batek erositako izango ziolako izan zitekeen, edo besterik gabe, izkribaua erratu zelako (ez dezagun ahaztu, serorak gehienetan “bateko edo besteko serora” bezala aipatu eta izendatzen zituztela, izenik aipatu gabe). Edozein kasutan, “Ana de Ondarça” familia-kideren bat izatekotan, berak ere serora izan beharko zukeen, “veata” hitza ez baitzen gehitua izan. Jarraian helarazi zen etxearen posesio-agirian berriz, jada Catalina de Ondarza aipatzen zaigu, nahasmendurik gabe. Etxea Joan Garcia de Altuberi erosi zion –edo zioten–, Marina de Jaureguik bere testamentuan seroretxearen eraikuntzara bideratu nahi izan zituen diruen prezio berberean, 100 dukatetan¹⁴⁷⁰.

¹⁴⁶⁸ BUA 01 L/148, 240.

¹⁴⁶⁹ Kokatu dezagun hainbatetan aipagai izan dugun serora hau dagokion testuinguru sozial eta familiarrean, bere fundazioaren papera eta garrantzia behar bezala ulertzeko. Leinu honetako partaiderik esanguratsuenak Andres Martinez de Ondarza komendadorea izan zen, Errege Katolikoaren gortearen zerbitzura sarturik, ondorengo hainbat errege eta erreginaren gertueneko zerbitzuko postuetan jardun zena, eta Bergarako Trinitatearen komentua 1563an fundatu zuena. Catalina bera, Tola de Gaytánek leinuko hiru adar nagusien fundatzaile izan zirenen anai baten ondorengo lez kokatzen digu: “5.º Don Garcia Perez de Ondarza, padre de Don Pedro Garcia y abuelo de Doña Catalina de Ondarza, serora y beata de San Pedro, que falleció por enero de 1607; era hija del anterior” (Tola de Gaytán 1959a, 121). Ez dakigu Catalinaren heriotzaren dataren inguruko informazioa nondik jasoa zuen, baina neurri baterainoko zehaztasunez urtarrilean kokatu ahal izan zuenez, nolabaiteko oinarri fidagarria izan zezakeela dirudi. Hala ere, data hau zalagarria iruditzen zaigu. Testamentuak beti heriotzerako ordua gertu zegoen helarazten ez baziren ere, Catalinaren testamentuaren dataren (1572) eta bere ustezko heriotzaren dataren (1607) aldeak handiegia dirudi. Litekeena da Tola de Gaytánek jaso zuen data, Catalina beraren heriotzarena baino, bere ondoren hildako beste “beata de Ondarza”-ren baten heriotzarena izatea. Honekiko, gogoan izan dezagun, Catalina de Ondarzak bere testamentuan San Pedroko seroretxearen fundazioa egin zuenean, ezarri zuen baldintzetariko bat bere leinu-kideek hiru seroratzetarako lehentasuna izatearena izan zela; eta izan dugu beste “beata de Ondarza”-ren baten berririk ere, garai berantiaragoetan.

¹⁴⁷⁰ GPAH-AHPG 1/0012, 177v-179r.

Fundazioa egiteko azaldu zituen motiboak, parrokia batean seroren zerbitzuek izan zezaketen garrantziarekiko, eta beraz bertan, gertu legokeen seroretxe bat egotearen garrantziarekiko oso interesgarriak zaizkigu:

digo que por quanto de muchos años a esta parte yo con zelo y deseo de serbir a dios continuamente he tenydo particular cuenta con el seruiçio de la yglesia de señor Sant Pedro de la dicha Uilla / y he hecho en ella como es notorio todo lo que he podido y deseo que en my ausençia y lugar subçediese quien hiziese lo mismo y lo mejorase / y teniendo consideraçion a que para ello es nesçesario aparejo y comodidad para que con mas façilidad se pudiese hazer / y teniendo ojo asi lo procure de edificar y hazer esta mi casa de la calle de Goencale en que al presente estoy enferma / para dexar en ella algunas pertenençias que de todo tubiese particular cuenta con la horden / y forma nesçesaria / para que en ella hubiese personas deçentes y apropiadas para este efecto / para que a todas oras e tienpo estubiesen çerca y a la mano de la dicha yglesia asi para salir con el Santissimo Sacramento las vezes que fuere nesçesario como – para todos los otros casos que en seruiçio de la dicha yglesia – se ofreçiere porque por causa de esto acaesçiera algunas vezes no aber con la breuedad conbenyente personas que lo hagan / - y acaesçen otras faltas semejanτες – para rremedio de las quales [...]¹⁴⁷¹

Serorak gertu izan gabe, parrokiako zerbitzuak bere hutsuneak zeuzkala dirudi; hala uste zuen behintzat Catalina de Ondarzak. Jada izan ditugu aipagai fundazio honetan ezarri ziren baldintzak, San Pedro parrokiako seroratzetako ondorengo urteetako ezaugarriak taxutuko zituztenak: kaparetasun eskakizuna, 12 dukateko dotea, izendapenerako eskubidearen esleipena parrokiako apez eta maiordomoei, seroren ehorzleku amankomunaren ezarpena, bere ondorengo seroraren izendapena, bere ahaideen lehentasuna, etab. Azkenean, San Pedro parrokiak bazeukan seroretxea, parrokiaren zerbitzurako hiru seroren bizileku bihurtuko zena, Aro Berrian zeharreko ondorengo hamarkada eta mendeetan zehar.

Aipatu dugun bezala, beste kasu batzuetan, dotearen ematean ezartzen zen seroretxea egin, egokitu edo konpontzeko baldintza¹⁴⁷². Aretxabaletan, Goroeta elizateko Santiago parrokian Maria Garcia de Mendicuza seroratzara 1608ean sartu izan ondoren, 1610eko kontuetan, 30 dukateko dotearen emateak seroretxea eraikitzearen baldintza zeukala aipatu zuten: “Aduiertesse que treynta ducados [...] en que fue dotada Maria Garcia serora de la dicha yglesia concordan que la dicha yglesia o a su costa se haga una cassa en que uiua la dicha serora”¹⁴⁷³. Oñatiko San Lorentzo ermitan 1597an Catalina de Laquitegui bertako serora-laguntzaitzat sartu zenean berriz, jada beste hiru serora egonik seroretxean lekurik ez zegoenez, bere heriotzerako orduan edo seroretxetik irtetzeko kasuan ematera konprometatu zen 200 errealez gain, bere ahizpa eta honen senarra 12 dukat ematera ere konprometatu ziren, zelda berri bat eraiki zedin:

atento que la cassa de las freylas de la dicha ermita no tenia aparejo de poder ser abitada por mas freylas que de los que antes estauan y era menester aser vna selda para la dicha Catalina y atento la promesa que tiene la dicha ermita era neçesario que le diese alguna limosna la dicha Catalina y su cunado y ermana le prometiesen algo // Por ende los dichos Juanes de Sagarsurieta y Mari Ramos de Laquite[gui] su muger y la dicha Catalina prometian y prometieron que luego comensarian [a] azer vna selda en la dicha cassa de freylas de costa de una doçena de ducados por lo menos la qual darian

¹⁴⁷¹ GPAH-AHPG 1/0112, 577r-585r.

¹⁴⁷² Dotearen ematea propioki dohaintza bat ez izanik ere, kasu hauek ere hemen biltzea nahiago izan dugu, azken finean, seroretxeen eraikuntzan serorek eta beraien familia-kideek izan zuten parte hartzeari buruz baitiardugu. Gainera, dotea kasu askotan “limosna” lez aipatu eta hautematen zen, eta derrigorturiko eta borondatezko ematearen arteko mugak, ez ziren hain garbiki adierazten, ez eta hautematen ere, nahiz eta ohituraren indarrak hartara behartu.

¹⁴⁷³ DEAH-AHDSS 2335/002-01, 17v.

echa de[?] de un año y si menos costase lo demas en el dicho plazo sea para la fabrica de la dicha ermita e cassa de freylas¹⁴⁷⁴

Baina noski, ez ziren seroretxe guztiak seroren diruekin eginak izan; seroretxeen beharra parrokietako eta ermitetako maiordomoen eta apezzen aldetik ere, XVII. mendearen hasieratako seroren desagerrarazte saiakeren aurretik behinik behin, beharrezkotzat hautematen baitzen, eta hala, zenbaitetan, tenpluen fabrikek euren gain hartzen zuten seroretxeen eraikuntza. Esate baterako, 1500ean Arrasateko Udala auzoko San Esteban parrokian bisitatzaila igaro zenean egin zen inbentarioan, egina zuten seroretxe berria honela aipatu zuten: “vna cassa nueva de argamas que ha hecho la iglesia para la bibienda de las seroras”¹⁴⁷⁵.

Seroretxeak jada bazeuden beste kasu batzuetan, doteez beste, dohaintzak izaten ziren hauek beharrezkoak zituzten konponketak egitera bideratzen zirenak. Jada aipatu izan dugu Bergaran serora zela baino ez dakigun Magdalena de Castillok nola bertako San Kristobal ermitako seroretxea berreraikitze dohaintza bat egin zuen. Serora honek hasieratik dezenteko aberastasunak zeuzkala dirudi, eta zentsuen maneiuaren bidez, beste hainbat aberastasun pilatu ahal izan zituen; ikusia dugunez, bere jatorrizko Gaztelu Goikoa etxe eta baserria eta bere ahizparendako eta honen senarrarendako erosi zuen Loiti “menor” baserria bere jabegoen artean izan ziren. Berari buruz bildu ahal izan ditugun dokumentuek sortatxo osatzen badute ere, ezin izan dugu serora moetak identifikatzeko darabilgun oinarrizko sailkapenean beste inon kokatu, tenpluenganako loturarik gabekoen artean geratzen zaigularik: San Pedro parrokiako eliztarra bazen ere ez zen bertako serora, ez eta beste parrokiaren edo ermitaren batekoa ere, eta ez dugu jarlekuen zerbitzu partikularrean jardun izan zenaren zantzurik ere. San Kristobal ermitari egin zion dohaintza, funtsean, bere jatorrizko Gaztelu Goikoa baserria zegoen Aldai Egia auzoko ermita zelako izan zen, eta “por auer mucha neçesidad de ella”. Ikusi dugunez, ermitari troxe baten dohaintza ere egin zion, noizbait Gaztelu etxeko serorarik bertan sartzekotan, honek bizitza guztian zehar bere erabilerarako lehentasuna izan zezanaren baldintzapean; hau da, Gaztelu etxeko alabak auzoko ermitan serora izan zitezkeen, eta Magdalena de Castillok, ermitako ondasunak eta seroretxea bera, egoera onean mantentzea desio zuen. Beraz, 1612ko bere testamentuan xede horretarako zentsu baten bidez zor zizkioten 66 dukaten dohaintza egin zion ermitari, eta eraikuntzari jada ekitea nahiko zukeela ere adierazi zuen, gauzaren batzuek jada prest zeuzkala eta: “querria por la mano luego en ello y concertar con un oficial para que tengo traido cal y otras cosas para la dicha obra”¹⁴⁷⁶. 1613an egin zuen Juan Perez de Elorregui maisu zurginarekin hitzarmena, honek esandako 66 dukatekin seroretxea handitzeko obrak (“asi de canteria como de carpinteria”) egin zitzaizkion, “por tener como tenia mucha necesidad de ello por ser muy pequena”. Materialen gastuak ere maisu zurginak berak hartu zituen bere kargu, eta serorak, seroretxearen hedapenak “asta ocho estados de pared mas o menos lo que fuere menester a la parte de auajo y el arroyo de dos pies y medio de ancho y por la otra parte de dos pies” izan zitzaizkion nahi zuen, “ensanchando el dicho sitio siete braços”¹⁴⁷⁷.

Bergaran bertan, San Lorentzo ermitako serora izana zen Marina de Moyugoitiak ere, bere 1574ko testamentuan, zerbitu izan zuen ermitako seroretxearen berreraikuntzarako 4 dukateko dohaintza eman zuen¹⁴⁷⁸. Eta Bergaratik irten gabe,

¹⁴⁷⁴ GPAH-AHPG 1/3095, 26r-26v.

¹⁴⁷⁵ DEAH-AHDSS 3110/001-01, f.g., baina 2v.

¹⁴⁷⁶ GPAH-AHPG 1/0198, 450r-454r.

¹⁴⁷⁷ GPAH-AHPG 1/0199, 194r-195v.

¹⁴⁷⁸ GPAH-AHPG 1/0114, 698r-701v.

Elosua auzoko San Andres parrokian ere, 1595ean Petronila de Aguirrezabal bertako seroratzara sartu zenean, bere gurasoek emandako bi aldeetako seniparteeek osatzen zuten 6 dukateko dotea eraman zuen, ordainketarako zenbait epe ezarriz; baina jada oso “maltratada” zegoen seroretxea lehenago konpondu beharra izanaz gero, bere gurasoak konponketa hauen ordainketak euren kargu hartzera konprometatu ziren¹⁴⁷⁹. Herri honetako azken kasu batean, zehazki obretarako xederik aipatu ez bazen ere, San Pedro parrokian serora izan zen Marina Garcia de Oruesagastik 1607an 28 dukateko zentsu bat eman zion seroretxeari¹⁴⁸⁰. Oñatin ere izan ziren seroretxearen beharretan diruak xahutu zituzten serorak; 1670ean, Narria auzoko San Lorentzo ermitako Osana de Villarrek "todo lo que he gastado en las obras y reparos de la casa de auitacion de las seroras" ermitari eman zion dohaintzan, eta zorrak barkatutzat eman zituenez, ez zigun kopururik aipatu ere egin¹⁴⁸¹. Antzuolara iraganez, 1748ko bisitan bisitatzailleak seroretzeko konponketak agindu ostean, Antzuolako Antiguako Amaren ermitako serorak, “para acer la obra”, 45 erreal eman zituen, ggb., gastu guztiaren hamarren bat (obra guztiak 495 erreal eta 4 marabeditako kostua izan zuen)¹⁴⁸².

Azken kasu hau kokatzen zaigun XVIII. mendean ere, ermitetako zerbitzura ermitau eta seroren senar-emazteak sartzeko ohitura hedatu zegoen lekuetan, hauek ekarritako diruak seroretxeen edo hobe esan, jada ermitau-etxe zirenen berreraikitzeak eta obrak egiterako orduan erabakiorrak izan zitezkeen; baina era berean, zaindu beharrean, ermitauak seroretxeen gainbehera ere eragin zezaketen, utzikieriaz jarduten baziren: Bergarako Santa Katalina ermitan maiordomoak 1737-1738 bitarteko kontuak eman zituenean, Josef de Aldaeta ermitaua eta bere emazte Antonia de Lobiano serora bizitzera iragan ziren etxea “casi inhabitable, y amenazando ruína” zegoen, Miguel de Iriberria aurretiko ermitauak, -arazoetatik ihesean- Bizkaia aldera bizitzera joan aurretik 3 urteko alokairuagatik zorretan utzi zituen 12 dukatetaz maiordomoa ezin baliatu izan zelako. Hori zela eta, bikote sartu berriak konponketak tenpluaren diruen kontu ordain zitezen baldintza jarri zuen, hala egiten bazen, euren buruak etxearen eta lursailaren alokairutzat urteroko 26 erreal ordaintzera konprometatuz. Kasu honetan, ermitauen etxearen biziraupena -eta ermitaren artapena euren kargu zegoen heinean baita ermita berarena ere- ziurtatzeko, ermitauak maiordomoa alokairuaren prezioaren jeitsiera onartzera behartu zuten; eta hala ere, ermitau berrien sarrera izan zen ondorengo urteetan ermitaren mantenua eta bere aberastasunen suspertzea piztu zuena. Hau da, askotan, ermitetako etxeen eta ermiten euren biziraupena eta patua, bertako zerbitzura sartzan ziren serora eta ermitauen patuari eta hauen kudeaketari ertsiki lotua zegoen¹⁴⁸³.

Serorek, noski, seroretxeez beste, zerbitzen zituzten edo zerbitzu izan zituzten tenpluei ere egiten zieten dohaintzarik; areago, zenbaitetan, dotearen ematearekin bat dohaintza hauek tenpluen sostengurik garrantzitsuena zirela dirudi, batez ere ermiten kasuan. Gipuzkoako Probintziak 1623an Kalagorriko apezpikutzaren aldetik serorak desagerrarazteko saiakeraren aurka egin zuenean izan ziren liskar eta auzietan seroren mantenurako eman zituen arrazoi nagusien artean tenpluen mantenurako egiten zuten ekarpenarena zegoen, eta jaso dugun eta jarraian azalduko dugun informazioaren arabera, Probintziaren argumentuek oinarri sendoa zeukatela dirudi.

Seroretxeen inguruko azalpenei lehenik heldu diegu, seroren eta seroretxeen artean askotan izan ohi zen lotura ertsiak hala egitera eraman gaituelako. Jarraian

¹⁴⁷⁹ *Ibid.*, 552v-553r.

¹⁴⁸⁰ GPAH-AHPG 1/0102, 43r-47v.

¹⁴⁸¹ GPAH-AHPG 1/3195, 123r-126v.

¹⁴⁸² DEAH-AHDSS 1263/001-01, 25v.

¹⁴⁸³ BUA 01 L/111, f.g.

testamentuetako informazioaren oinarri estatistikoaren gain azalduko datuei lekua egingo diegu, seroren tenpluen aldeko dohaintzen testuingurua ikuspegi orokor batetik hautemateko. Azpiatal honetan eta ondorengoan azalduko ditugun datuak 12.a. koadroan (989-1012 or.)¹⁴⁸⁴ bildu ditugunak dira, eta serora eta espazio konkretuak xehetasunez begiratzeko bertara bideratzen dugu irakurlea. Tenpluen aldeko dohaintzen emaitzak 12.b. koadroan (1013-1023 or.) laburbildu ditugu. Hauen bidez, egiten saiatuko gara tenpluei serorek dohaintzan ematen zizkieten ondasunen moetak eta hauen dohaintzek espazioen arabera azaltzen dizkiguten ohituren inguruko azalpenak ahalik eta garbien ematea da. Ondoren, dohaintza hauek egiterakoan serorek onuratu, konpondu, eraiki edo mantendu nahi zituzten tenpluetako elementuak zeintzuk ziren xehetasun gehiagorekin azaltzeari ekingo diogu, edo beste hitzetan, dohaintza hauen ostean zegoen borondatea azaleratzeko saiakera egingo dugu, hartarako testamentuetatik xedea zehaztu izan zitzaizen dohaintzen lagin murriztagoaren gaineko estatistikez eta eskura izan ditugun adibide esanguratsuez baliatuz. Hauek 12.c. koadroan (1024-1029 or.) antolatu ditugunak dira.

Gaian sartuz bada, lehenik eta behin, testamentuetan tenpluen eta bertako zerbitzarien aldeko dohaintzak egin zituzten seroren lagina ze neurritakoa dugun ikus dezagun: 99 testamentuen laginaren baitan, 78 izan ziren tenpluren edo hauetako zerbitzariaren baten aldeko dohaintzaren bat egin zutenak. Dirutan bezalaxe ondasunetan ere izan ziren dohaintza hauek, eta lehenetan eta bigarrenetan emandako dohaintzen espazioen araberrako banaketak ezaugarri ezberdinak azaleratzen dizkigute. Tenpluen aldeko dohaintzen eta zerbitzarien aldekoen azalpenak banaturik emango ditugu; has gaitzen lehenekin. 78 serora horietatik 72 izan ziren tenpluren bati dohaintzaren bat egin ziotenak. Printzipioz, ez dira gutxi, praktikoki familia-kideei, etxekoei eta lagunei dohaintzak egin zizkietenak beste (hauek 73 izan ziren). 72 serora horietatik 49k (%68'05) egin zuten diruzko dohaintzaren bat, eta guztien artean, 28.654'5 erreal eman zituzten 1554-1784 bitartean; batz bestea, 584'78 erreal. Hasieratik ohartu behar gaude, familia-kideen, etxekoen eta lagunuen aldeko dohaintzetan gertatu bezala, zenbait espaziotako eta are zenbait serora konkreturi dagozkien datuek ere, kopuru hauetan nabarmen eragiten dutela. Baina azalduko ditugu gorabehera hauek aurreraxeago. Seroren kopuruarekin batera noski, dirutan emandako kopuru osoek behera egin zuten 1650erarteko testamentuetatik ondorengoetara (17.691'5 errealetik, 10.963ra), baina deigarria zaigu dirutan dohaintzak egin zituzten seroren kopuruak -tenpluenganako dohaintzak egin zituzten- seroren kopuru orokorrekiko azaltzen duen beherakada, 47ren artetik 38tik (%80'85), 25en artetik 11 baino ez izatera (%44). Eta hala, serora kopuruarekiko batzbestekoak, nahiz eta kopuru osoek behera egin, bi garaien artean gora egiten dute, 456'56 errealetik 996'63ra. Honek, printzipioz, bat egiten du familia-kideenganako eta lagunenganako dohaintzen berri ematerakoan aipagai izan dugun diruen eta ondasunen "kontzentrazioarako" joerarekin; ikusiko dugu aurrerago korrespondentzia hau ze puntutaraino balizkoa dugun.

Ondasunetara iragaten bagara, noski, familia-kideei eta lagunei egiten zitzaizkien dohaintzekiko ikuspegi ezberdina jasoko dugu. Lehen datu bat badugu, itxuraz zirkunstantzialki, parekatua agertzen zaiguna: bi dohaintzen jasotzaileen taldeetan ageri zaizkigu 3na elementu, "Etxeak, baserriak eta ondasun higiezinak" sailkapenaren pean. Kasu honetan, kapitulu honen hasieran ikusi dugun Bergarako San Pedro parrokiako Catalina de Ondarzak parrokiari, seroretze bihur zedin asmoz, 1572ko

¹⁴⁸⁴ Aurreko zenbait ataletan eta azpiataletan egin bezala, testamentuei dagozkien erreferentziak koadroan bertan -edo hobe esan, honek bideratzen gaituen 935-939 or. etako 9. koadroan- bildu ditugu, eta jarraian, bestelako erreferentziak emango baditugu ere, testamentuei dagozkienak aurreztuko ditugu, errepikapenak ekiditearren. Hauen berri izan nahiko lukeenak esandako koadroan erraz aurki ditzake.

bere testamentuan egin zion bere etxearen dohaintza, eta 1603an Arrasateko Musakola auzoko San Antolin ermitako Antonia de Osinagak bere ermitari dohaintzan eman zizkion gaztainadia eta txaradia ditugu. Datu hauek, nahiz xumeak diren, kasu honetan emale izan ziren seroren tankerakoek parrokiaren eta ermiten testuinguruetan egin bide zituzten maila edo tankera honetako dohaintzen funtsezko norabideak azaltzen dizkigute. Ez dezagun ahaztu datu hauetarako darabilgun lagina testamentuena dela, eta tenpluen aldeko halako dohaintzak edo ekarpenak, dotearekin bezalaxe, bizian zeharreko dohaintzen bidez ere egin zitezkeela. Hala azaltzen digute bestelako iturri dokumentalek; esate baterako, Antzuolako Santa Katalina ermitan, –ustez– 1644an egin zen inbentarioan, bertan serora izana zen eta Iturbe Iranguren etxeko alaba zen Domenja de Lascurain “susso”-k ermitari eman zion lursail baten berri eman zen: “en el puesto de Elistegui en Yra[uaçu?] el castañal con doze pies de castaños [y] dos [sendos?] robles”¹⁴⁸⁵. Eta Eskoriatzako San Pedro parrokiako Marina de Urigoen serorak 1706a baino lehenagoko garairen batean parrokiari dohaintzan eman zion gaztainadiaren zatia (“diez pies de castaños”) ere aipatu beharrean gaude¹⁴⁸⁶. Hala ere, aurreko kapituluetan ikusi dugunaren arabera, zalantzarik gabe, usuago heltzen ziren halako balio handiko ondasunak familia-kideen eta lagunaren eskutara, tenpluen ondasunen zakura baino.

Etxe eta lursailez besteko ondasun baliotsuak ere heltzen ziren seroren dohaintza bidez tenpluen ondasunen artera, kasu honetan ere, familia-kide eta lagunei ematen zitzaizkienak baino dezente gutxiago; urrezko eta zilarrezko bitxiei (elementu 1 baino ez), oheei (10) eta kutxei (4, hauen arteko bat troxea) buruz dihardugu, eta baita, nahiz eta balore aldakorragoetakoak izan zitezkeen, manufakturatutako arropen buruz ere (4). Oheak, bestalde, eta normala denez, Leintz Gatzagako Dorletako Andre Mariaren santutegiari erromesen artapenerako emandako bat salbu, gainontzeko guztiak herrietako ospitaleei emanak izan ziren. Berez, serorek tenpluei eman ohi zizkieten dohaintzen artean ondasunen izaeragatik eta kopuruagatik balore handieneko multzoak osatzen dituztenak liturgiarako elementuak (32) eta ehunak eta ohialak dira (47), batez ere lehenak. Etxeko eta sukaldeko tresnak ere ugari ageri zaizkigu (45), baina datu honek ez gaitu nahastu behar, gehienak -42- dohaintza bakar bati dagozkio eta: Aretxabaletan, Aozaratz elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria Lopez de Celayak 1615ean bere parrokiari bertako seroren erabilerarako eman zizkion etxeko tresnak, bere serora aurrekariak ekarritakoez eta Maria Lopez berak gehiturikoez osatuak zeudenak; dohaintza parrokiari egin zitzaiolako daude elementu hauek tenpluei egindako dohaintzen artean, nahiz eta tankera honetako dohaintzak -zuzenean- tenpluan ondoren jarraitzekoak ziren serorei egitea ohizkoagoa zen. Esan bezala, hortaz, tenpluei egiten zitzaizkien dohaintzek familia-kideei eta lagunei egiten zitzaizkienekiko ehun eta ohialen dohaintzak baino ez zituzten kopuru esanguratsuan jaso, eta kasu honetan ere gutxiago, eta horiez aparte, propioki tenpluen espazioari zegozkion ondasunak zeuden, aipatu berri ditugun liturgiarako elementuekin. Hauekin bat, beste dohaintza moeta bat ere ageri zaigu ugari, propioki tenpluei zegokiena: argiteriara bideraturiko dohaintzena, dagokigun laginaren baitan, 380 eta 3/4 olio libra eta 2 argizari zurizko kandelaren emaitza ematen diguna. Ikusiko dugunez, dohaintza hauek oliotan egitea zen ohizkoena, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatzen duten espazioaren salbuespenez, non ohiturarik zabalduena dirutan egitea izan zen.

Seroratzen gainbehera prozesuaren eta seroren kopuruaren jeitsieraren ondorio, diruekin gertatu bezala, ondasunen dohaintzetan ere nabaria dugu 1650erarteko testamentuen eta ondorengoaren artean azaltzen den beherakada. Aipatu berri ditugun

¹⁴⁸⁵ DEAH-AHDSS 1262/002-01, 6v.

¹⁴⁸⁶ DEAH-AHDSS 2253/001-03, 1r-1v.

etxe, baserri eta bestelako ondasun higiezinak eta liturgiarako elementuak, guztiak, 1650erartekoetan eman ziren, eta oheak eta kutxak ere, data horrez ondorengoetan bana baino ez ziren eman. Urrezko, zilarrezko edo balore handiko bitxien tenpluenganako dohaintzetan aurkitzen ditugun kasu gutxiak (familia-kideei, etxekoei eta lagunei emandakoez gain) berriz 1650az gerokoetan aurkitu ditugu (propioki ondasunak eman zirena, bakarra), baina Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Maria santutegiko serorei dagozkie, eta ohartua dugu jada santutegi honetako egoera berezia zela eta bertako seroren jatorrizko maila ekonomikoa Leintz bailarako -eta Debagoieneko- XVIII. mendeko testuinguruan altua zela, eta beraz, gehiago ditugu salbuespen, adibide adierazgarri baino. Emango dugu hauen berria aurreraxeago.

Bigarren tarte kronologikoko seroren testamentuen kopurua ggb. aurrekoen erdia izanik ere, ondasunen beherakada nabaria dugu. Salbuespenak salbuespen, antzerako proportzioetan mantendu ziren dohaintza bakarrak ehun eta ohialenak, eta manufakturatuturiko arropenak izan ziren (azken kasu honetan gehiago izan ziren, 3, 1650erartekoak arteko bakarraren aldean). Argiteriarendakoek, berriz, gorakada izan zuten, 1650erartekoak 142 eta 3/4 libra oliotatik, 238ra (+ 2 argizari zurizko kandela). Hemen Oñatiko datuek daukate eraginik gehien, argiteriarendako olioeko dohaintzak egiteko ohitura bertan errotu baitzen sendoen, maila apalagoan ageri zaigun Leintz bailarekin batera. Oñatiko seroren kopuruaren garai arteko aldeak (1650erartekoak 5, ondorengoak 14) eta dohaintza handi batek (San Migel parrokiako Ana Catalina de Inzak 1751n emandako 100 librak -4 arroa-) eragiten dute, garaien arteko argiteriarendako olioeko dohaintzek testamentuen laginean agertzen dituzten garaien arteko gorakadan.

Espazioen arabera, datu hauek oso modu irregularrean baturik ageri zaizkigu. Diruzko dohaintzen parterik handiena, alde handiarekin, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espaziotik datorkigu; hauen artetik, nabariki Bergaran eman zuten dirurik gehien, Elgetakoen proportzioa bajuxeagoa izanik, eta Antzuolakoak, Debagoieneko beste herrietako serorek emandako diruen antzerako mailan kokatzen zaizkigularik (Arrasaten, Maria Lopez de Olazaranen 1604ko dohaintza-testamentua alde batera utziaz gero, noski). Hiribilduetako parrokien aldeko diruzko dohaintzak eman zituzten 31 seroren 5.942 errealen parterik handiena, 5.250 erreal (%88'35), espazio honetako 23 serorek emanak izan ziren. Eta berdintsu esan liteke gainontzeko tenplu moeten aldeko dohaintzei dagokienean ere, ospitaleen eta komentu eta kolegioen aldekoen salbuespenez: auzo eta elizateetako parrokien alde -9 seroren aldetik- eman ziren 58'5 errealetatik -7 seroren- 38'5 (%65'81), ermiten eta santutegien alde 22 serorek eman zituzten 2.854 errealetatik 18 seroren 2.116'5 (%74'15) eta kofradien alde 16 serorak emandako 611 errealetatik 12 seroren 591 (%96'72) espazio honetan emanak izan ziren. Ospitaleen aldeko diruak ostera gehiago izan ziren Oñatitik irtendakoak, 12 serorak emandako 976 errealetatik 2 serorak baino ez emandako 580 errealak (%59'42), Bergaran eta Elgetan 10 seroren artean emandako 396 errealen aldean (%40'57) (eta Leintz bailaran ez zuten dirutan ezer eman). Komentu eta kolegioen aldeko dohaintzetan biltzen zaizkigu tenpluei emandako diruen arteko kopururik handienak, 18.212 erreal, zeinetariko 17.600 (%96'63), hau da, ia dena, 2 seroren dohaintzei dagozkien. Biak izan ditugu jada aipagai: Arrasateko Maria Lopez de Olazarane herri bereko frantziskotarren komentu eta kolegioaren alde 1604ko bere dohaintza-testamentuan emandako ggb.ko 1.000 dukatak (baino gehiago), eta Bergarako Soledadeko Andre Maria ermita eta santutegian neskatzendako ikastetxearen fundazioa egin zuen Maria Clara de Berroetak 1750ean helarazi zuen testamentuan bere fundazioko instituzioari emandako -abituarekiko baldintzaturiko- 600 dukatak. Dohaintza hauek laginetik

aterako bagenitu, komentu eta kolegioen aldeko dohaintzak ospitaleei eta kofradiei dirutan eman zitzaizkien antzerako mailan geratuko lirerateke, 5 seroren artean emandako 612 errealekin. Hala ere, aparteko dohaintza hauek serorak beraien garaiko ezberdintasun sozialen islada baino ez zirela agertu besterik ez digute egiten, eta estatistiketan elkarren arteko alde izugarridun dohaintzak batera kontutan hartu beharrean gaude, aparteko dohaintzak, ohizkoak ez izanik ere, testuinguru sozial jakinen artean serora gutxi batzuek hartu izan zituzten erabakien ondorio direlako. Salbuespen soiltzat hauteman eta estatistiketatik kanporatuko bagenitu ez ginateke errealitatea bere konplexutasun guztian azaltzen arituko, salbuespen izanik ere, seroren aniztasunaren erakusgarri baititugu, beraien testuinguru sozialetako aktore eraginkor bezalaxe. Eta alderdi hauek ezin dira baztertu. Datuak hein horretan kontsideraturik, beraz, diruzko dohaintzen parterik handiena hiru esparrutatik dator kigu: Bergararik, Elgetatik eta Arrasateko Maria Lopez de Olazaranen dohaintzatik; hiruen kopuruak baturik 26.314 errealeko kopurura heltzen gara, hau da, Debagoiena guztian 1554-1793 bitarteko testamentuetan eman ziren 28.654'5 errealen %91'83.

Testamentuetako informazioarekin batera, diruzko dohaintzen berri tenpluetako liburuak ere ematen digute. Datu estatistikoaren baldintzapean sahiestu eta gertuagoko ikuspegi bat osatu liteke horrela, besteak beste, Bergaraz, Elgetaz eta Antzuolaz aparteko Debagoieneko espazioetan ere diruzko dohaintzak izan zirela, eta ondasunezko dohaintzak dirutara bihurtzeko enkantearen baliabideak ere ohizkoa behar zuela azaleratzen diguna. Hemen, tenpluetako liburuak informazioarekin batera, ikuspegi orokorra osatzeko testamentuetako xederik aipatu gabeko dohaintzen berriak jasotzen saiatu naiz, zehazki baterako edo besterako eman zirenak xedeen arabera analisia egitean aipagai izango baititugu. Has gaitezen baina lehenik, orain arte ohizkoa dugun jarraipenean, Bergara, Elgeta eta Antzuolako datuei begira.

Erdigune komertzial ere baziren hiribilduetako parrokiatan serorek emandako dohaintzek izaten zuten maiztasunarekiko eta hauen kopuruekiko, Bergarako San Pedro parrokiako liburuari batean zedarrituriko tarte kronologiko bateko gainbegiratu eman liteke; 1512az geroztik 1569ko obren inguruko "manda general"-ak izan arte, parrokiako liburuan serorek egindako zenbait dohaintzaren berri jaso izan zen: 1512an "frayra de Barrutia"-ren eta Gracia de Jaureguiren dohaintzak izan ziren; ezin izan dugu lehenak eman zuen kopurua irakurri, eta Jauregiko serorak berriz, erreal 1 eman zuen. 1519-1520 bitartean Gracia de Jauregui berak fabrikarako urrezko 3 dukat eman zituen, eta 1563an, "beata de Rreçaua"-ek "en su fin" parrokiari eman zizkion 11 errealen berri jaso zen¹⁴⁸⁷. Parrokien aldeko diruzko dohaintzak, parrokiako bertako serorez gain, ermitetakoek eta tenpluenganako loturarik gabekoek ere eman ohi zituzten. Honen testigantza ditugu 1602an Aritzetako San Migel ermitako Catalina de Querexaçu serorak San Pedro parrokiako fabrikarako emandako dukata, eta Maria de Mendozak 1650ean parrokia berberaren fabrikarako emandako 50 errealak. Handiagoa izan zen, aldiz, parrokia bertako serora ote zen garbi ez dakigun Mariana de Aleizak 1758an tenplu honi egin zion dohaintza: Soralezko "reales Fauricas de armas"-ek zor zioten 200 dukat baino gehiagoko mailegua.

Ermiteen kasuan, parrokiaren baino areago, dohaintza nagusiak tenpluko bertako seroren aldetik emanak izaten ziren. Bergarako kasuan artean, San Millan ermitan, 1602 eta 1606 bitarteko kontuetan, bertako serora izana zen Maria Martinez de Arizpek ermitaren alde 4 dukateko dohaintza egin zuela ikusten dugu¹⁴⁸⁸. Halaber, Aritzetako San Migel ermitako Catalina de Querexazuk, 1602an bere ermitako

¹⁴⁸⁷ BUA SP2/173-431, 178-365 fot.

¹⁴⁸⁸ BUA MIK/SM0 77-133, 103 fot.

fabrikaren alde 16 dukateko zentsu baten erdia eman zuen, eta San Martin ermitako Maria de Iturbek, 1605ean, aldean zeraman guztia eman zion bere ermitari, eta honek berekiko zeuzkan diruzko zor guztiak kitatutzat eman zituen. Ohitura hau, egindako dohaintzez beste norbere "ondasun guztiak" zerbitzaturiko tenpluari ematearena, ermitetan bezalaxe auzo eta elizateetako parroketan ere izan zen, aurreraxeago ikusiko dugunez. Ondasunen dohaintza hauetariko asko, bestalde, ondasuntzat xede jakinetarako emandakoak ez zirenean (esate baterako, aldare jakin batetan erabilia izateko emandako ohial bat), diru-sarrerak lortzeko saltzen ziren. Hala egin zela ageri zaigu, adibidez, San Millan ermitako 1602-1606 bitarteko kontuetan, bertan serora izana zen Maria de Bizcayak ermitari dohaintzan emandako ohe baten salmentatik lorturiko 4 dukaten diru-sarrera jaso zenean¹⁴⁸⁹. Noiz edo noiz izaten ziren, bestalde, dohaintza xumeagoekin bat, kopuru handietako dohaintzak ere; gogoan izan dezagun Bergaran bertan Soledadeko Andre Mariaren ermita eta santutegian neskatxendako ikastetxea fundatu zuen Maria Clara de Berroetak bere fundazioari eman zion 600 dukateko zentsua (lehen emalearen jatorrizko baldintzatzat bertako ondorengo serorek Sortzez Garbiaren abitua hartzea zeukana).

Elgetan ere diruzko dohaintzen kopuruaren aniztasun handia zegoela atzeman liteke. Hala, Andre Maria parrokiako Maria Ochoa de Marquieguik 1592an bere parrokiari 2 dukat eman zizkion, eta parrokia berberari Magdalena de Urrojolaeguik 1609an dohaintza handixeagoa egin zion, tenpluen sorta batean zabalduko zenbait errealeko dohaintzen artean 4 erreal emateaz gain, zorretan zioten 14 dukateko zentsu bat ere eman baitzion. Parrokia honek serorengandik jasoriko dohaintzetan izan ziren noski, esandako kopuruak baino txikiagoenak ere; 1616an, "la beata de [la iglesia?]"-rengandik 2 erreal jaso zituen, eta 1648-1649 bitartean, "la beata de Egoecheaga"-rengandik dukat 1¹⁴⁹⁰. Ermitari buruz beste hainbeste esan liteke; ohartzekoa dugu, gainera, ermiten aldeko dohaintzek ez zutelako zertan parrokiakoen aldekoek baino txikiagoak izan behar: San Adrian eta San Antonio ermitan elkarrekin batera -eta jarraian- serora izan ziren Domenja eta Marina de Altubek ermitari egin zizkion dohaintzak behintzat, esanguratsuak izan ziren. Lehenak 1599an 4 dukateko dohaintza egin zuen, eta bigarrenak aldiz, 1603an, 21 dukateko zentsu bat eta bere korrituak eman zituen ermitaren alde.

Espazio honekin bukatzeko, Antzuolako parrokien eta ermiten aldeko zenbait dohaintzaren berri ere badugu; orokorrean, Bergarako eta Elgetako seroren tankerako kopuruetakoa dira ageri zaizkigunak. Kasurako, Gure Errukizko Ama parrokiari 1662an Agueda de Otamendik 6 dukat eman zizkiola dakigu, eta Uzarragako Santa Engrazia ermitaren liburuan, 1568an "la freylla de [Yguerabire?]"-k dohaintza bat egin zuela ikusten dugu (baina ezin izan dugu kopurua irakurri), eta baita 1586an, Martin de Olazabalek bere arreba serorak ermitari eman zizkion 2 dukatak ordaindu zituela ere¹⁴⁹¹.

Leintz bailarara iragaten garen momentuan, goraxeago azaldu lez, tenpluen aldeko dohaintzarik gehienak argiteriarako oliotan egiteko ohitura zegoen espazioan barneratzen gara, nahiz eta, esan bezala, diruzko dohaintzarik handiena, Arrasateko Maria Lopez de Olazaranen 1604ko 1.000 dukat baino gehiagorena, bertan emana izan zen. Salbuespenezko kasuez aparte, dohaintzetako diruaren eskasiak ez du seroren dohaintzek beraien tenpluendako diru-sarrerarik ematen ez zutenik esan nahi, dohaintzak egiteko formak ezberdinak zirela baizik. Ikusi dugu nola Bergaran San Martin ermitako Maria de Iturbek 1605ean momentuan zeuzkan ondasun guztiak bere

¹⁴⁸⁹ BUA MIK/SM0 77-133, 103 fot.

¹⁴⁹⁰ DEAH-AHDSS 2123/002-01, 2r-92r.

¹⁴⁹¹ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 3v-12v.

ermitaren alde eman zituen, honek berarekiko zeuzkan zorrak barkatzearekin batera. Ohitura hau Leintz bailaran ere izan zen, eta bertako adibideetan tenpluek ematen zitzaizkien ondasunez baliatzeko zeuzkaten formak ageri zaizkigu. Tenpluaren zerbitzurako baliaigarri baziren bere hortan jaso zitezkeen, edo hartarako beharrik bazen, enkanteko salmenta bidez dirutara bihurtu.

Jarraibide hauen adibiderik esanguratsuenak Arrasateko Udala auzoko San Esteban parrokiako liburuan topatu ditugu, XVI. mendean zehar parrokiak bertako serorengandik hainbat dohaintza jaso baitzituen. 1538ko kontuetan izenik aipatu ez zitzaion serora batek bere heriotzean parrokiari egindako zenbait dohaintzaren berri eman zen, egin ohi zela aipatu dugun bezala, maiordomoek jaso eta ondasunen salmenta egin beharra zeukatela eta: “çiertos rresçibos de dinero que dexo la dicha serora para la dicha yglesia como haze mençion en su testamento e çiertos linos en la [???] casa que dexo e la herençia de su legitima que la podia haber”. Ez daukagu dohaintza hauen bidez izan ziren diru-sarrereren berririk, baina ez dute gutxi izatearen itxurarik, seniparteak ere tarteko baitzeuden. 1584ko kontuetan Maria de Urzaondo serorak memorial baten bidez parrokiari dohaintzan eman izan zizkion ondasun batzuen berri eman zen, beraien salmenta medio, 4.165 marabediko (122 erreal eta 1/2) diru-sarrera izan zela eta: “un manto nuevo y otros biejos y una jaqueta y una cama y huna [???] saya y los cobertores nuevos y biejos de las dichas camas y de [???] y los que quedaron de [portejos?] y de una parte de un [lechon?] y de una arca”. 1593an berriz, agian Maria de Urzaondok egin izango zuen bezala, orduan gutxi hila zen Catalina de Barrutia parrokiako serora izan zenak, bere arimaren alde eman zituen diru eta ondasunez aparte zeukan guztia parrokiari eman zion, eta maiordomoa zen bere ilobari, Martin de Barrutiari, bisitatzailleak ondasun hauen kontuak eskatu zizkion, inbentario bat osatuz¹⁴⁹².

Baditugu Leintz bailaran ohitura honen bestelako adibideak ere: Aretxabaletan, Aozaratzako San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria Lopez de Celayak, 1615ean hainbat ondasun eman zizkion parrokiari, batzuk Catalina de Echabe serora aurrekariak bere esku utziak, eta besteak, berak borondate propioz emanak; serora aurrekariarenak: sagardo kupel bat, kutxa luze bat, kobrezko pertze bat, suil bat, burnizko pisu batzuk, eztainuzko pitxer bat eta platerak eta katiluak, eta Maria Lopez berak emanak: 12 plater, 12 buztinezko katilu, 2 otarrandi, “un arnero”, burnizko zartai handi bat, burnizko 2 goilara, burnizko 4 burrunzi, buztinezko 2 pitxer, aitzur luze bat, jorrai bat eta aitzur zahar bat.

Oñatin ere, nahiz eta Leintz bailaran bezala, edo agian areago, tenpluendako dohaintza gehienak argiteriarako oliotan egitearen ohitura nagusi izan zen, izan ziren diruzko dohaintzaren bat edo beste egin izan zuten serorak ere. Testamentuetan bezalaxe San Migel parrokiako kontu-liburuan ere, diruzko dohaintza gehienak XVII. mendearen erdialdea baino lehenagokoak ditugu. Testamentuetako informazioa azalduz joango zaigu; baina parrokiako kontu-liburuko partidetan, 1555ean San Martin ermitako seroraren albazea zen Monte apezarengandik jaso ziren 3 dukaten, 1561ean Uribarriko San Andres ermitako serora izana zenaren erreal eta 1/2-ko “manda”-ren, eta Santa Kruz ermitako serorak bi partidatan eman zituen 8 errealen berri izan dugu¹⁴⁹³.

Tenpluen aldeko diruzko dohaintzei buruzkoak laburbiltzeko, beraz, gehiena Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioan eman zirela esan liteke, eta Leintz bailaran eta Oñatin, nahiz eta ondasunen eta batez ere argiteriarako olioeko dohaintzak

¹⁴⁹² DEAH-AHDSS 3110/001-01, 27v-104r.

¹⁴⁹³ DEAH-AHDSS 3690/001-00, 45v-111v.

nagusi izan, zenbait diruzko dohaintza esanguratsu ere egin izan zituztela. Dohaintzen jasotzaileei dagokienean, parrokiekin batera zenbait komentu, santutegi eta kolejio edo ikastetxe ageri zaizkigu kopuru esanguratsuetako dohaintzekin. Ospitaleek eta ermitek ere jaso izan zituzten zenbait kopuru esanguratsu, baina gehienetan maila xumeagokoak jaso ohi zituzten; dirutan edo argiteriarako oliotan, azaldu dugun espazioen banaketaren joeren baitan.

Baina diruen gehiengoa esandako espazioetan eman bazen, ondasunen banaketa orokorrak bestelako distribuzioa agertzen digu. Liturgiarako elementuei zegokienean, diruekin bezalaxe, Bergara, Elgeta eta Antzuolako espazioan eman ziren denera eta proportzionalki gehien, 35 seroren testamentuetan ageri zaizkigun 21, ggb. 2/3ak edo, Leintz bailaran 1/3ek (18 testamentutan 6) eta Oñatin ggb. 1/4ak (19tan 5) eman zituzten artean. Azkenik, Elgetako 3rekin eta Bergarako 2rekin, ospitaleei emandako oheak ere espazio honetan ageri zaizkigu gehien, Arrasateko, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako banarekin, eta Oñatiko 2rekin batera; hala ere, balantzea ospitaleen -eta Leintz Gatzagako kasuan Dorletako santutegiaren- alde dohaintzak egin izan zituzten seroren proportzioarekiko nahiko parekatua ageri zaigu, Bergara eta Elgetako 12 seroren 5 oheen, eta Arrasate, Eskoriatza, Leintz Gatzaga eta Oñatiko 13 seroren 5 oheen artean. Bi dohaintza moeta ditugu, zalantzarik gabe, Leintz bailarako eta Oñatiko espazioetan Bergarak, Elgetan eta Antzuolak osaturikoan baino kopuru dezente handiagoan ageri zaizkigunak: ehun eta ohialenak, eta argiteriarako olioarenak. Ehunak eta ohialak Bergara, Elgeta eta Antzuolako 35 seroren artean 6 baino ez zituzten eman, Leintz bailaran 18ren artean 19, eta Oñatin 19ren artean 22 eman zituzten artean. Olioak librekin antzera gertatzen zaigu; Bergara, Elgeta eta Antzuolako 35 seroren artean 3 libra baino ez zituzten eman, Leintz bailarako 18en artean 89 libra eta 1/2, eta Oñatiko 19en artean 286 eta 1/2 (+ 2 argizari zurizko kandela) eman zituzten artean. Datu hauen azpian, noski, ohituren ezberdintasunak daude; Leintz bailarako eta Oñatiko ehunen, ohialen eta argiteriarako olioaren dohaintzek, azken finean, batez ere Bergara, Elgeta eta Antzuolan dirutan egin ohi zituzten dohaintzen korrespondentzia edo txanponaren bestaldea azaltzen digute, baina ondasunetan emana.

Baina segi dezagun aurrera, ezberdintasun hauek dohaintzen xedeen azalpenean sakontzen joan ahala garbiago azalduko baitzaizkigu. Serorek dohaintzak egiterakoan azaltzen zuten borondatearen agergarri ditugun dohaintzen xedeen azalpenetarako, darabilgun 72 seroren testamentuen laginaren baitatik ateratako beste lagin murrizago batez baliatuko gara. 46 seroren testamentuekin, lagin murrizago hau dohaintzen partidetan hauek ze xedetara bideratu zitezten esplizituki aipatu zuten kasuekin osatu dugu, 12.c. koadroan (1024-1029 or.) antolatuz. Koadro honen ardatzetik jasoriko datuak testamentuez besteko iturrietatik jasorikoekin uztartuko ditugu, tenpluen artapenean serorak arduratu ohi zituzten alderdiak ahalik eta hobekien isladatzeko. Jarraian emango ditugun azalpenetan, beraz, aurreko koadroan (12.b., 1013-1023 or.) fidelago isladatzen zaizkigun ondasunen kopuruak baino, ondasun moeten eta hauek bideratu nahi izan ziren xedeen arteko lotura interesatzen zaigu gehiago. Ospitaleei, eta komentu eta kolegioei egindako dohaintzak koadro honetatik kanpo utzi ditugu, espazio hauei tartetxo propioak eskainiko dizkiegu eta.

Seroren ohizko dohaintzetariko bat tenpluko obretara bideraturikoa izaten zen, beti ere, obrak egiteko beharra izaten zenean. Testamentuetan obretara bideraturiko dohaintza guztiak dirutan egin ziren, parrokien kasuan bezalaxe (3.369 erreal), ermiten eta santutegienean ere (355 erreal). Beste behin, diferentzia handiarekin, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioa ageri zaigu obretarako dohaintzen gehienekin: parrokien aldeko 3.244 erreal (%96'28) eman zituzten, eta ermita eta santutegiaren aldeko

349 (%98'3). Leintz bailaran parroketako obretarako emandako 11 erreal baino ez zaizkigu ageri, eta Oñatin aldiz, parroketakoetarako 114, eta ermitetakoetarako 6 erreal. Tenpluen alde dirutan eman ziren dohaintzen parte nagusia, zalantza handiegirik gabe, obretan xahutu ohi zela esan liteke, eta diruzko eta ondasunezko dohaintzen ezberdintasunek xedearen arabera logika hori isladatzen zutela dirudi.

Hiribilduetako parrokia nagusietan obrak egiteko diru bilketak egiten ziren moduari eta serorek hauetan zeukaten partehartze eta pisuari buruz, Bergarako San Pedroko obren bilakaerari buruzko zenbait datu interesgarri ditugu. 1569an parrokia hedatzeko obra garrantzitsu batzuei ekin zitzairen, 1557an erregearen idazkari izan zen Juan de Galartzak, honengandik, eta parrokiako obrak gauzatzeko, kamarako isunen gain 60.000 marabeditako ematea lortu ondoren; urteroko 10.000 marabedi ziren, obra sei urtean bukatzeko asmoa baitzegoen, nahiz eta zenbait hamarkadatan zehar luzatzen bukatu zuen. 1569an obrak artean hasi gabeak ziren, bitartean, aurreko obren zorrak ordaintzeaz beste, zenbait eraikuntza-arazo izan zirela eta. Hernán Suárez de Toledo Errege Kontseiluko epaile komisionatua heldu zen urte hartan herrira, erregearen ematearen kontuen berri jasotzeko asmoz. Jada ematearen 60.000 marabedietatik 46.000 jasoak izanik ere obrak geldi zeudela ikusirik, ematea jasotzen jarraitzekotan, obrak berehala has zitezela agindu zuen, beharrezkoa balitz, herritarren gaineko diru-bilketa antolatuz. Meatxuaren eraginez obrei ekin zitzairen, eta parrokiak herritarrengandik hainbat “manda” jaso zituen ondorengo urteetan, Errege Kontseiluaren komisionatuaren esanei jarraiki, apezek herritarrek hartara akuilatu eta gero (Aramburu 2008, 1. lib., 156-158). Testuinguru honetan, seroren dohaintzak esanguratsuak izan ziren. 1570 eta 1571 bitartean egin ziren diru-bilketetan, 60 dukat emanez ageri zen Catalina de Ondarzaren ostean beste hainbat serora ere bazeuden, gehienetan dukat batetik gorako kopuruak emanez:

la serora de Hesaube vn ducado [...] la beata de Arana cuatro ducados [...] la beata de Leçaran vn ducado [...] la beata de Olaran tres ducados [...] de la beata de Oruesagasti rreal y medio [...] de la beata de Abrayn quatro rreales [...] la beata de Hondarça siete ducados y medio [...] de la beata de Ygueribar tres rreales [...] de la beata de Abrayn quatro rreales [...] conoçe maese Pedro cantero aber rreçibido siete ducados y medio de la beata de Hondarça [*aurreko partida bateko dohaintzaren ordainketa*] [...] la beata de suso[?] çinco rreales [...] la beata de Arimendi doze ducados [...] la beata de Abrayn dos ducados [...] la beata de Leçeeta y sus hermanas tres ducados [...] la beata de Ygueribar dos ducados [...] la beata de Oruesagasti por si e por su hermana Maria de Oruesagasti dos ducados [...] la beata de Amatiano ocho rreales¹⁴⁹⁴

Dohaintza hauen bidez, bi urte haietan ggb. 100 dukat eman zituzten serorek, “manda general”-etan. 1570eko zerrendan emakumeen artean lehena zen Catalina de Ondarza seroraren 60 dukatak aipagarriak dira noski, herriko etxe eta pertsonaia nagusiek egindako dohaintzen mailan kokatzen baitzen. María José Aramburuk, “manda general” haietan izaten ziren dohaintzen berri ematean, hauen ohizko neurriak honako adibideen bidez aipatzen dizkigu:

desde las más humildes, de 4 u 8 reales, a las más importantes de los próceres de la villa, bien fueran las de 20 o 24 ducados ofrecidos por las casas de Ozaeta, Gabiria o Eguino-Mallea o las más llamativas de 80 ducados de la casa de Arrese o de 100 del contador Azkarate (Aramburu 2008, 1. lib., 158)

Ikusten dugu bada, beste adibide hauetan bezala, seroren artean ere maila ekonomiko ezberdinetako aportazioak izan zirela, xumeenetatik handienetara. Parroketan ohizkoak izaten ziren tankera honetako obrak egiteko diru-bilketak, eta

¹⁴⁹⁴ BUA, SP15/291-329, 295-305 fot.

serorek egindako dohaintzak oso maila ekonomiko aldakorren arabekoak izaten baziren ere, kasu askotan beraien aportazioak esanguratsuak izan zirela esan liteke. Hala, Debagoieneko eta batez ere Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioko seroren testamentuetan ere oso kopuru ezberdinetako obretarako dohaintzak dauzkagu: zenbait errealekoak, dukat gutxi batzuetakoak, eta baita, Catalina de Ondarzaren kasuan ikusi dugun bezala, kopuru handietakoak ere¹⁴⁹⁵. Parrokia berebereko beste serora batzuen dohaintzak ere aipagarriak zaizkigu: Marina Garcia de Oruesagastik (1607) emandako 4 dukatak, eta Mariana de Aleizak (1758) emandako 150 errealak. Eta Elgetan, Andre Maria parrokiako Gracia de Urrupainek (1587) obretarako eta argiteriarako emandako 6 dukatak.

Parrokietako serorez gain, ermitetako serorek ere egin izan zituzten zegozkien parrokietako fabriken aldeko obretarako dohaintzak, maila xumeagoak baziren ere. Esate baterako, Catalina de Mendiguchiak (Elgeta –gaur egun Bergara–, Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638), Angiozarreko San Migel parrokiako obrarako, bertako fabrikaren aldeko 12 errealeko dohaintza egin zuen; eta Magdalena de Ucelaiak (Oñati, San Kristobal ermita, 1591), zenbait ermitetako obretarako dohaintzekin bat, San Migel parrokiako obrarako 4 erreal ere eman zituen. Alabaina, ermitetako seroren kasuan, laster ikusiko dugunez, ohizkoena, dohaintzen bidez batez ere zerbitu izan zuten ermita faboratzea zen, eta –meza, memoria eta anibertsarioez aparteko– parrokietarako dohaintzak, gehienetan, bateko edo besteko argiteriara bideratuak izan ohi ziren.

Ermitetako obretarako dohaintzei dagokienean, esanguratsuenetariko bat Bergarako San Lorentzo ermitako Marina de Moyugoitiak 1574ko bere testamentuan ermitaren alde eman zituen 8 dukatena dugu. Bergaran bertan, San Millan ermitan, 1553an Maria Hurtiz de Ipenzak bere kontu “en el edificio de la dicha hermita” kopuru handiak xahutu izana aitortu zuen: 140 florin (ekibalentzia Bartzelonako soldatekikoa edo Valentziakoekikoa izan, ggb. 1.260 eta 1441 erreal bitartean, 114 dukat eta ½ eta 131 dukat bitartean); adierazpena ermitari hauen dohaintza egin nahi ziolako jaso zen idatzirik bertako kontu-liburuan¹⁴⁹⁶. Angiozarren (orduan Elgetaren parte), Elexamendiko Andre Maria ermitako Catalina de Mendiguchiak 1638an 20 dukateko zentsu baten erdia, 10 dukat, eman zituen ermitako obretarako. Baina hemen ere, noski, bazeuden maila xumeagoetako dohaintzak ere; Oñatin, adibidez, 1591n, San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelaiak, zerbitzatzan zuen ermitari bestelako zenbait dohaintza egitearekin bat, obrak egiten edo egin beharrean zeuden Santa Marina, San Esteban eta San Jose ermitetarako zenbait dohaintza egin zituen: lehen biei erreal bana, eta hirugarrenari 4. Eta gehienetan parrokietako serorek zehazki ermitetako obretarako dohaintzarik egiteko ohiturarik izaten ez bazuten ere, Mariana de Aleizak (Bergara, San Pedro parrokia?, 1758) Santa Ana ermitari "para aiuda de hazer una Sachristia ô otra cosa que se ofreciere" emandako 150 errealak ere aipagarriak ditugu.

¹⁴⁹⁵ Bergarako San Pedroren kasu espezifikoa, Catalina de Ondarza seroraren ekarpenak eta garrantziak esangura berezia hartzen dute, hainbat hamarkada iraungo zituzten obrei ekitearekin bat 1570ean egin zuen dohaintzaz beste, handik bi urtetara helarazi zuen testamentuan etxe baten dohaintza bidez (1572) parrokiako seroretxearen fundazioa egin zuela aintzat hartzen badugu. Parrokiako obretarako dohaintza 60 dukatekoa izan bazen, serorendako etxea 100 dukatetan erosi izan zuen, eta horrez gain, –neurririk hartzea zail zaigun– etxeko ondasun guztien dohaintza ere egin zuen. Honi apezten erabilera amankomunerako eman zituen 7 apez-jantziak eta San Anton eta Santa Agedaren kaperetarako eman zituen 2 meza-liburuak gehituaz gero, serora honek urte haietan parrokiari egin zizkion ekarpenek herriko etxe nagusien ekarpen partikularrak ere gainditu izanak zitzakeela ohartuko dugu.

¹⁴⁹⁶ BUA MIK/SM0 77-133, 85 fot.

Dohaintzen beste ohizko xede bat, parrokiak beraien zerbitzurako ornamentuz, bitxiz, jantziz eta bestelako elementuez ornitzea izan ohi zen. Dohaintza hauen testigantzak, testamentuez gain, parrokia eta ermitetako liburuetan ere aurkitu ditugu; ondasun hauen balorea eta hauek izateko interesak, emateen konstantzia tenpluen liburuetan ere jasotzea eragin zuen. Eta noski, ohizkoena, bai parrokien, ermitan, nahiz bestelako tenpluen kasuetan, dohaintzarik esanguratsuenak bertako zerbitzuko seroren aldetik eginak izatea zen, nahiz eta bestelako kasuak ere falta ez diren. Aipatu behar, dohaintza hauetariko gehienak dirutan egin ziren kopuruetan baitaraturik gelditu zaizkigula, ondasunak eurak eman ziren kasu bakar baten salbuespenez, gainontzekoetan hauek egin zitezzen emandako diruak izan baitziren dohaintzan emandakoak. Horregatik, zertxobait luzatuko gara kasuen azalpenetan, koadroan-dirutan espresaturik agertzearren- bereizturik ageri ez zaigun dohaintzen aspektu bat azaltzen digutelako, eta kasuen aniztasuna bera oso esanguratsua dugulako.

Dohaintza hauetariko zenbait, tenpluetarako kalizeak egitera bideratu ziren. Parrokietatik hasiz, Bergarako San Pedro parrokiak 1556an, Marina de Jaureguirengandik kalize bat egiteko 12 dukat jaso zituen. Elgetan, Uriarteko Andre Maria ermitako Domenja de Iturrik 1604an, bestelako liturgiarako eta jantziteriarako dohaintzekin bat, zilarrezko kalize bat eman zion Andre Maria parrokiari; parrokiako kontu-liburuan 1618an jaso zen dohaintza hau edo honen parte bat: Domenja de Iturri dirudien "la beata de Yturri [*goitia?*]" zelako batengandik zilarrezko kalize bat eta kasula bat egiteko 52 dukateko dohaintza jasotzeari ekin zitzaion¹⁴⁹⁷. Ermitetara iraganez, kasu bat Bergaratik heldua dugu: San Milian ermitan, 1602-1606 bitartean, bertako serora izana zen Maria Martinez de Arizpek bere heriotzean 15 dukat eman zituen, ermitarako kalize bat egiteko¹⁴⁹⁸. Kultuko erabilerarako bestelako dohaintzak ere izan ziren: Oñatiko San Lorentzo ermitako Maria de Villarrek bere ermitaren eta bertako kultuaren apaingarrirako hainbat dohaintza egin nahi izan zituen 1629an, eta euren artean, bi argimutil egin zitezela agindu zuen.

Beste dohaintza batzuk irudietarako eta beraien apainketarako eginak izan ziren. Oñatin, San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelatik 1591n Andre Mariaren irudia ermitan ipini ahal izateko 4 dukat eman zituen, eta baita kutxa bat ere, ermitako ornamentuak bertan gorde zitezzen. Leintz Gatzagan, Dorletako Andre Mariaren santutegiko serorek Amabirjinaren irudi ezberdinei egindako dohaintzak ere esanguratsuak zaizkigu. Lehena Luisa de Aguirrek 1693an Dorletako santutegiko bertako Amabirjinaren apainketarako emandako 60 dukateko zentsua dugu (zor baten bidezkoa zena); xede zehatza honela aipatua izan zen: "para que [...] se hagan dos arañas de plata para delante de la dicha Virgen". Beste dohaintza esanguratsua Teresa de Laquiteguik 1746an egin zuena dugu, baina kasu honetan, ez daukagu zeharo garbi dohaintza egin zitzaion Amabirjina nongoa ote zen: Dorletako santutegian bertan edo San Milian parrokiaren -edo beste nonbait- ote zegoen ez dakigun Soledadeko Andre Maria bat. Edozelan, bere garaian Dorletako santutegirako sarrera egin bazuen ere, azken urte luzeetan bertatik kanpo bizi izan zen Teresa de Laquiteguik¹⁴⁹⁹ pertsonalki artatu izan zuen Amabirjina baten irudia behar zuen izan, ezen dohaintzan eman zituen eta "engastados en plata" zeuden burukoa ("toca") eta "rosario de Jerusalem"-a, halaber dohaintzan emanak izan ziren zenbait arroparekin batera, "son los mismos, con que he acostumbrado vestir, y adornar â su Magestad todas las Semanas Santas de Quaresma".

¹⁴⁹⁷ DEAH-AHDSS 2123/002-01, 6r.

¹⁴⁹⁸ *Loc.cit.*

¹⁴⁹⁹ Serora honen gorabeheren ingurukoak ikus IV. 4.2. azpiatalean, 399-401 or.

Dohaintzetan hainbatetan ageri zaizkigun beste ornamentu batzuek ohialetan egindakoak izan ziren. Hauen arteko garesti eta esanguratsuenen artean, aldareetarako frontalak ditugu aipagarri. Hala, Bergarako Santa Marina parrokiak 1594an Maria de Beiztegui serorarengandik 5 dukat jaso zituen parrokiako aldare nagusiarendako, bertarako frontal bat eta ornamentuak, ohialak eta arropak egin zitezen “a voluntad de la dicha serora de Munabe” (berarekin batera parrokian serora zena), eta 1647an, Oñatiko San Migel parrokiak bertako serora nagusi zen Maria Lopez de Estrañorengandik, klaustroko Andre Mariaren Sorkundearen aldarerako frontal bat egiteko 10 dukat jaso zituen. Leintz bailaran berriz, Eskoriatzan, Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Domenja de Zubiak, 1622an hainbat dohaintza egin zituen bere parrokiaren apainketarako: zeuzkan ohialezko 34 kana (“de lienço casero de la tierra sin entrar en agoa”) salduri aldarerako frontal bat egin zedin agindu zuen, aldare bererako 4 kanaren neurriko iztupazko mahai-zapi batzuk ere eman zituen, eta baita beste ohialezko mahai-zapi batzuk ere, lehen urtean bera ehorztekoa zen jarlekuaren zerbitzurako izan ondoren, aldarerako izango zirenak. Azkenik, nahiz eta propioki frontal bezala aipaturik ageri ez zaigun, Antzuolako Maria de Zumaetak 1671n Antiguako Andre Maria ermitako Amabirjinaren aldarerako egitea agindu zuen "cortina"-k ere ondasun baliotsua dirudi, berau egiteko 15 dukat "y sus intereses" eman baitzituen, ondorengo soberakinak ermitarendako utziz.

Parrokiei, ermitei eta hauetako aldare konkretuei emandako ohialak, izarak eta estalkiak ere izan ziren zenbait; hauei balorea esleitzea aski zaila dugu, esana dugunez, arrokekin gertatu bezalaxe, ohialen diruzko balio aldakorrei neurria hartzea, aipamen hutsekin, oso zaila baitugu. Hala ere, tenpluen apainketarako dohaintzak zirela aintzat harturik, serorek, nor bere mailan balorezko harturiko ondasunak izango zirela pentsa liteke. Parrokiei emandako izaren dohaintzen artean Arrasaten, Santa Marina ermitako Teresa de Urisarrik 1603an San Juan Bataiatzailea parrokiari emandakoa (izara bat "de lienço de la tierra andado que yo traigo con sus algodones") eta Aretxabaletako Andre Maria parrokiak 1629an Maria Ruiz de Araoz y Duranarengandik jasotakoa (izara bat “con unas cintas de ceda”) ditugu, eta hauekin bat, baita Oñatiko San Migel parrokiako Ana Catalina de Inzak 1751n Soledadeko Amabirjinaren apainketarako emandako mantua ("de anascote") ere. Ermitei ere egin zitzaizkien halako dohaintzak, Bergarako San Lorentzo ermitako Marina de Moyugoitiak 1574an bere ermitari eman zion izara berria ("sin meter en agoa"), edo Oñatin, Narria auzoko San Lorentzo ermitako Osana de Villarrek 1670ean ermitako aldamenetako aldareetarako emandako 2 izara zuriak, eta San Antonio Abad edo San Anton ermitako Magdalena de Villarrek 1705ean bere ermitako bi aldareetarako emandako beste 2 izarak kasu. Eraikuntza berriko ermitek ere jasotzen zituzten dohaintzak; Antzuolako Dionisia de Jaureguik, esaterako, 1720an dohaintzan eman zuen "tualla ancha"-rekiko honakoa zehaztu zuen: "se le entregue a Don Joseph de Aldaeta, para la hermita nueva que esta fabricando, de San Bartolome".

Apainketarako eta jantziteriarako dohaintzek, xede jakinetarako dirua emateaz eta ondasunak eurak emateaz gain, bestelako formak ere hartzen zituzten, emaleak zeuzkan ondasunen edo eman nahi zituen zehaztapenen arabera. Oñatiko San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelaik, 1591n, San Migel parrokiako Errosarioaren Andre Mariaren erretaularen apainketarako dohaintza dirutan egin zuen, 4 erreal emanaz. Oñatin bertan, San Juan ermitako Antonia de Idigorasek 1711n Santa Isabelen kofradiari "para la composicion de la santa" gari anoa bat eman zion ("luego que se tomare el agosto"). Bergarako Francisca de Barrutiak -oraindik neskatxendako ikastetxe bilakatu gabe zegoen- bere zerbitzuko Soledadeko Andre Maria ermitari 1742an eman

zizkion "salmen" tratupeko 21 dukateko artaldearen etekinek ere apainketarako emanak dirudite, "se expenda por su Albacea en hacer alguna señal en esta santta Hermita" ondo interpretu badugu behintzat.

Tenpluetan apezek burutzen zituzten lanetarako hainbat apez-jantzi edo alba ere eman izan zituzten serorek. Hauen arteko garrantzitsuena jada hainbatetan aipagai izan dugun Bergarako San Pedro parrokiako Catalina de Ondarzak bere parrokiako eta beste tenplu batzuetarako -beste hainbat dohaintzekin batera- eman zituen albena dugu: parrokiaren zerbitzu orokorrerako 5 alba eta bertako San Anton eta Santa Agedaren kaperen zerbitzurako beste 2 eman zituen, Santa Ana ermitarako, ospitalerako eta Trinitate Santuaren komenturako emandako beste banarekin batera. Parrokia berberean serora zen 1631n bere ondasunetatik bertarako 2 alba egitea agindu zuen Maria de Aguirre ere. Bergarako beste parrokia nagusiak, Santa Marinak, 1628an bertako serora zen Catalina de Sarralderengandik parrokiako kultuaren eta kabildoaren zerbitzurako "vna alba de Olanda" jaso zuen. Elgetan, Uriarteko Andre Maria ermitako Domenja de Iturrik 1604an hainbat dohaintza egin zizkion Andre Mariaren parrokiari, euren artean "una alba y estola y manipulos de lienço [blanco?] - y una casula de [rrazo blanco?] o de damasco - con su çenefa de terciopelo carmesi".

Auzo eta elizateetako parrokiek ere jaso izan zituzten seroren aldetik alben eta bestelakoen dohaintzak. Arrasaten, Udala auzoko San Esteban parrokiako serora zen 1610ean Catalina de Huruburuk 1610ean parrokiarako alba bat egitea agindu zuen, "de beynte libras de ylado de estopa" ateratako aritik. Aretxabaletan, Aozaratza elizateko San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria Lopez de Celayak, 1615ean parrokiako San Migelen kaperaren zerbitzurako bi alba egin zitzatela agindu zuen, eta beste alba bat eta esku-zapi bat egiteko ohiala ere eman zuen, bere esku-zapirik onenatariko bat ematearekin batera.

Eta ermitetarako ere izan ziren alben dohaintzak. Arrasaten, Santa Marina ermitako Teresa de Urisarrik 1603an ermitarendako 2 alba "de buen lienço con sus amitos", "al mayordomo y cura y fleyra de la dicha yglessia" ematea agindu zuen. Oñatin, San Lorentzo ermitako Maria de Billarrek ere ermitaren eta bertako kultuaren apaingarrirako hainbat dohaintza egin nahi izan zituen 1629an; besteren artean, letanietan gurutzea eramateko ardura hartzen zuenarendako eliz-ator bat egitea ere agindu zuen; gainera, bere testamentua bete ondoren soberakinik izatekotan, ermitarako 2 alba eta mahai-zapi batzuk egiten xahutu zitezela ere agindu zuen.

Azkenik, zenbait meza-libururen dohaintzen berri ere izan dugu: 1572an, Bergarako Catalina de Ondarzak San Pedro parrokiaren zerbitzu orokorrerako eta bertako San Anton eta Santa Agedaren kaperen zerbitzurako 2 meza-liburu eman zituen; Elgetan, 1604an, Uriarteko Andre Maria ermitako Domenja de Iturrik, alba baten, kalize baten eta liturgiarako bestelako elementuen artean meza-liburu bat ere eman zuen Andre Maria parrokiarako; eta Antzuolan, Uzarragako Santa Engrazia ermitan, 1586an, Martin de Olazabalengandik bere arreba serorak meza-liburu baten erosketarako eman zituen 27 erreal jaso ziren¹⁵⁰⁰.

Orain arteko dohaintzek, noski, seroren preferentziazko esparruak agertzen dizkigute, nork bere tenpluari egindako dohaintzek ere adierazten dutenez. Argiteriaren alde egindako dohaintzek ere, beraien ugaritasunean, kultu edo gurtzarako preferentziazko esparruak agertzen dizkigute, pietatezko ohitura orokorrak bezalaxe. Dohaintza hauek oso ohizkoak ziren, eta parrokien aldekoak bezalaxe, bestelako tenplu eta instituzioen aldekoak ere ugariak izaten ziren. Aipatua dugu, nola Bergara, Elgeta

¹⁵⁰⁰ DEAH-AHDSS 1261/009-01, 12v.

eta Antzuolak osatzen digun espazioan xede honetarako dohaintzak dirutan egiteko ohitura ohizkoagoa izan zen. Espazio honetan aurkitzen ditugu zehazki argiteriara bideraturiko dohaintzarik egin ez zuten seroren gehiengoa. Bergaran, tenpluen eta bertako zerbitzarien aldeko dohaintzak egin zituzten 20 seroren arteko 9ren kasua dugu, eta hauei beste 4 zalantzakor ere gehitzen zaizkie, azken hauek kofradiei egindako dohaintzek, kopuruetatik eta banatzeko modutik eratorri litekeenez, argiteriarako xedea izan bazezaketen ere. Elgetako 10 seroren artean, ostera, gutxi ditugu argiteriarako dohaintzarik zehaztu gabekoak, erabat ziurra bat baino ez. Antzuolako 7 serorek, aldiz, ez zuten batek ere argiteriara bideraturiko dohaintzarik aipatu. Azken hauen artean, gainera, ziurra dugu ohituraren falta, beste xede batzuetarako dohaintzak, esplizituki aipaturik ageri baitzaizkigu. Bergaran eta Elgetan ostera, batez ere azken herri honetan, argiteriarako dohaintzarik esplizituki aipatu izan ez zutenen artean hainbat serora dauzkagu beste lekuetan oliotan egiten ziren ohiturazko dohaintzak dirutan egiten; hau batez ere "ermita guztiei", edo "bateko edo besteko parrokiari atxikiriko ermita guztiei" egindako erreal erdiko edo erreal bateko dohaintzen kasua dugu. Hala ere, azken ohitura hau -oliozko dohaintzekin- ohizkoagoa izan zen Leintz bailaran eta Oñatin, laster ikusiko dugunez. Bergarako eta Elgetako seroren artean ohizkoak ziren argiteriarako beste dohaintza batzuek ere: lanpara, kapera edo aldare espezifikoki bati zegozkionak, eta beste argiteriarako dohaintzen aldean kopuru handiak agertzen dituztenak. Zenbait kulturenganako preferentzia nabaria zaigu hemen.

Dirutan edo olio libratan serorek eman izan zituzten dohaintza handiak noski, preferentzia hauen adierazpenak ditugu. Dirutan, eta dukat bat edo gehiagoko kopuruetarara mugatuz, zenbait dohaintza ditugu aipagarri: Bergarako Marina de Jaureguik San Pedro parrokiako Andre Mariaren lanpararako 1556an emandako 3 dukatak, Santa Marina parrokiako Catalina de Sarralde bere parrokiako Sakramentu Santuaren eta Errosarioaren Andre Mariaren argiteriarako 1628an emandako 3na dukatak, San Pedro parrokiako Maria de Aguirrek 1631n bertako Santo Kristoaren argiteriarako emandako 12 errealak, Maria de Mendozak argiteria berbererako 1650ean emandako dukata, Elgetako Andre Maria parrokiako Gracia de Urrupainek 1587an bere parrokiaren argiteriarako eta obretarako emandako 6 dukatak, Andre Maria ermitako Domenja de Iturrik 1604an Andre Maria parrokiako Amabirjinaren argiteriarako emandako 12 errealak, Angiozar auzoko Elexamendiko Andre Maria ermitako Catalina de Mendiguchiak 1638an bere ermitako argiteriari emandako 10 dukatak (20 dukateko zentsu baten erdia), eta Oñatiko San Martin ermitako Ines de Bidaniak 1554an San Migel parrokiako argiteriarako emandako dukata. Eta kuriosoki, Oñatin bezala argiteriara bideraturiko dohaintzak oliotan egiteko ohitura nagusi zen espazio batetik datorkigu diruzko dohaintzarik handiena, Leintz bailaratik: Aretxabaletan, 1634an, Catalina de Bengoak Andre Maria parrokiari eta bertako Sakramentu Santuaren maiordomoari argiteriarako eman zien 50 dukateko zentsua. Dirutara bihurtu beharreko zenbait ondasunen dohaintzek ere dezenteko kopuruak dirudite. Aski aberatsa izan zela dakigun Bergarako Maria de Izaguirrek, 1631n testamentua egin zuenean, testamentuan agindurikoak bete ondoren geratuko lirakeen ondasunak zentsutan jarri zitezela agindu zuen, San Pedro parrokiako Santo Kristoaren argiteriarako; eta Elgetako Magdalena de Urrojolaeguik, 1609an, Andre Maria parrokiako Amabirjinaren argiteriarako, arropak egiteko eman zituen 2 mantu beltzetatik izango ziren soberakinak eman zituen.

Oliotan ere izan ziren dohaintza nabarmenak. Ohizkoena libra erdiko edo bateko dohaintza sortatxo bat egitea izan zen, zenbaitetan, norbere tenplua edo besteren bat laboratuz. Laboratuenak izan zirenen arteko zenbait dohaintza aipagarriak ditugu:

Arrasateko Udala auzoko San Esteban parrokiako Catalina de Huruburuk 1610ean parrokiako argiteriarako emandako 4 librak, eta Oñatin, San Migel parrokiako Maria Lopez de Estrañok 1647an parrokiako Sakramentu Santuaren argiteriarako emandako 6 librak, eta hauekiko alde handiarekin, parrokia berbereko Ana Catalina de Inzak 1751n tenpluaren argiteriarako emandako 4 arroak (100 libra).

Kopuru aipagarrietako dohaintzez beste baina, herrien arabera ohitura ezberdinak zeuden argiteriarako dohaintzak egiterako orduan. Bergaran, esplizituki argiteriarako dohaintzatzat aipaturikoak 7 seroren kasuetan aurkitu ditugu, gehienak tenpluenganako loturarik ezagutzen ez diegun seroren eta parrokiatako seroren artean, parrokiatako argiteria orokorra edo aldare edo kultu konkreturen bat faboratuz. Hauek gorago aipaturiko Andre Mariaren lanpara, Sakramentu Santua, Errosarioaren Andre Maria eta Santo Kristoa ditugu. Eta dohaintzarik gehienak ere jada aipaturikoak ditugu, dukat bat edo gehiagokoak izan baitziren. Guztira 201 erreal eman zituzten. Ermitetako bertako serorek fabrikeri egindako dohaintzez beste, 7 serora hauen artetik ermiten argiteriarako eta obretarako emanak izan zitezkeen diruzko zenbait dohaintza egin zituztenak Maria de Izaguirre (1631) eta Maria de Mendoza (1650) baino ez ditugu. Maria de Izaguirrek (1631) Bergarako ermita guztiei erreal bana eman zien, eta Maria de Mendozak (1650), argiteriara espezifikoki aipatuzat Santa Ana eta Burunanoko Andre Maria ermitei 3na erreal eman zizkien, xederik aipatu gabe San Lorentzo, "Santo Tomas de El[?]", San Fausto, Soledadeko Andre Maria eta San Migel ermitei 3na erreal eman zizkien bezala. Eta azkenik, Bergaran argiteriarako dohaintzak oliotan egiten ageri zaigu serora bakarra Soledadeko Andre Maria ermitako Francisca de Barrutia (1742) dugu; San Jose eta Santo Tomas ermitei libra bana eman zien.

Elgetan ere ohizkoa izan zen parrokiari atxikiriko ermitei erreal bateko edo erdiko dohaintzak egitea, sei seroren kasuan hiribilduko Andre Maria parrokiari, eta birenean Angiozarreko San Migel parrokiarenei. Bakarrak, Domenja de Altubek (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599) egin zizkien itxuraz guztiei, "bailarako" guztiei ("todas [...] de este balle"). Hauen artean zenbait ermita, -Angiozarrekoak ez ziren seroren kasuan- Angiozarreko San Migel parrokiarekin batera, bereziki faboratuak izan ohi ziren: Elexamendiko Andre Maria, Uriarteko Andre Maria eta Asentzio edo Jasokundearen ermita, batez ere lehena. Kopururik ohizkoenak 4 errealenak ziren. Baina diogunez, hauek ez ziren esplizituki argiteriara bideratzeko dirutzat aipatzen, orokorrean fabrikendako eman baizik. Parrokietako Amabirjina eta santuen alde emandakoetan aipatu ohi zuten argiteriarako xedea. Gorago aipaturiko dukat bat edo gehiagoko 3 dohaintzez beste, Andre Maria parrokiako Sakramentu Santuari (6 erreal), San Migelen kaperari (4), eta Angiozarreko San Migel parrokiako santu berari (8) eta Sakramentu Santuari (8) emandakoak ditugu aipagarri.

Antzuolan, esan bezala, ez zaigu argiteriaren alde zehazki emandako dohaintzarik ageri. Bertako 7 serorek Gure Errukizko Ama parrokiaren eta Antiguako ermitaren aldeko diruen, ehunen eta alben dohaintza esanguratsu gutxi batzuek egin zituzten, baina argiteriarik ez zuten aipatu.

Leintz bailaran eta Oñatin, argiteriarako dohaintzak oliotan egiteko ohitura nagusi zen espazioan sartzen gara. Orokorrean, norbere, edo gertutasun edo preferentziazko tenpluenganako kopuru handiagoekin bat, gainontzeko jasotzaileen artean libra bateko edo erdiko kopuruak ekitatiboki banatzeko ohitura zegoen. Baina ohituraren espazioen araberrako aldaerak ere baziren, bi nagusiki, eta Arrasaten, biekin egiten dugu jada topo. Bata, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ohizkoena zena, espazio faboratuenen aldeko dohaintza handiagoekin batera, kopuru berdinen dohaintzak espazio liturgikoei zegozkien *aukeraturiko zenbait* parrokia eta ermitari, edo/eta

hautako santu, Amarbijina edo aldareei egitearena zen. Bestea, Oñatin ohizkoagoa, dohaintzak multzoka hautematearena zen; hau da, alde batetik hiribilduko tenplu nagusien edo "lau sakramentuen", eta bestetik "letaniako eta atxikiriko" ermita *guztien* aldeko dohaintzak egitearena. Arrasaten, diogunez, bi aldaera edo joerak aurkitzen ditugu; lehena Teresa de Urizarri (Santa Marina ermita, 1603), Catalina de Huruburu (Udala, San Esteban parrokia, 1610), Maria Gimenez de Guesalibar (1614) eta Francisca de Gabiriaren (1639) kasuetan, eta bigarrena, Catalina de Otalora (1570), Catalina de Abendaño (1590) eta Antonia de Osinagarenetan (San Antolin ermita, 1603). Nork bere tenplua bereziki faboratu zuten kasuez bestalde, -kopuru handiagodun-dohaintza espezifikoeekin faboraturikoen artean "Nuestra Señora la Blanca" bezala aipaturiko Bedoña elizateko Ergiñako Andre Maria, eta San Andres ermitak ditugu jasotzaile nagusi, serora bakarrak arrazoi propioegatik faboraturiko beste batzuen alboan (San Frantzisko, Santa Ana, "Santo Domingo del Ospital", San Kristobal eta Santa Kruz ermitak, eta baita Uribarriko Andre Maria parrokia ere).

Aretxabaletan eta Eskoriatzan, Bergaran, Elgetan, Arrasaten eta Oñatin ez bezala, argiteriaren aldeko dohaintzekin parrokiak eta ermitak baino ez ziren faboratuak izan, ospitaleak, komentuak eta kofradiak alde batera utziz. Bi herri hautako ohitura orokorrarekiko salbuespen bi serora ditugu: bestelako dohaintzetan ohitura orokorra jarraitu zuen baina Andre Maria parrokiako Sakramentu Santuaren argiteriarako 50 dukateko zentsuaren dohaintza ere egin zuen Aretxabaletako Catalina de Bengoa (1634) eta Bergarako eta Elgetako ohituraren tankerara elizateetako parrokia guztiei -erreal bateko- eta ermita guztiei -erreal erdiko- diruzko dohaintzak egin zizkien Eskoriatzako San Pedro parrokiako Maria Lopez de Espilla (1594) baino ez ditugu. Beste bostek olio libra bateko (eta Eskoriatzako Gellao elizateko Andre Maria parrokiako Ana de Echaberen -1674- kasuan, bi librako) dohaintzak egin zituzten, tenplu propioez eta parrokia nagusiez aparte, zegozkien espazioko ermiten artean aukeraturiko zenbaiti. Aretxabaletan, Andre Maria parrokiak eta bi seroren zerbitzuko parrokia ziren Aozaratzako eta Izurietako parrokiez gain, parrokia zahar izana zen eta ermita kategoriara jeitsirik hiribilduko Andre Maria parrokiari batua izan zen Bedarretako San Migel, Leinzabaleko Andre Maria, Ibarako San Martin eta Etxabarriko San Juan ermitak izan ziren faboratuenak, serora bakarrek dohaintzak emandako Goroetako (Santiago), Areantzako (Andre Maria) eta Larrinoko (San Kristobal) parrokiez, eta San Anton eta Oroko San Martin ermitez gain. Eskoriatzan ostera, diruzko dohaintzak egin zituen Maria Lopez de Espillaz (San Pedro parrokia, 1594) eta bestelako dohaintza esanguratsuekin bere parrokia baino faboratu ez zuen Domenja de Zubiaz (Mendiola, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1622) beste, Gellao elizateko Andre Maria parrokiako Ana de Echabe baino ez daukagu ohituraren adibide; parrokiaren argiteria orokorrerako eta espezifikoki Sakramentu Santurako emandako bina olio librez gain, beste bina eman zizkien Etxabeko Santa Katalina, San Antonio, Santa Marina eta Muruako San Juan Bataiatzailea ermitei. Tankera honetako dohaintzak eginez Leintz Gatzagatik eskuratu ahal izan dugun kasu bakarrak, Dorletako Andre Maria santutegiko Teresa de Laquiteguirenak (1746), Oñatin ohizkoagoa zen aldaeraren zantzuak agertzen dizkigu: alde batetik Sakramentu Santuei (kasu honetan San Milian parrokiakoa baino ez) eta bestetik parrokiari edo espazio jakinei zegozkien "ermita guztien" aldeko dohaintzak egitearena (kasu honetan parrokia nagusiaren jursidikziopeko hiru, bakoitzari libra bana).

Orain arte ikusi ditugun espazioetako dohaintzen ohizko jasotzaileen artean espazio ezberdinetako Sakramentu Santuak hainbatetan agertu izan zaizkigu. Oñatin, 1554ko -San Martin ermitako Ines de Bidaniaren- lehen testamentutik ageri zaigu jada

parrokia nagusiko Sakramentu Santua faboratzeko ohitura, eta honetan eta 1650erarteko beste hiru testamentutan parrokiako eta herriko komentu eta kolegioetako sakramentuei dohaintzak egiteko ohitura sendotzen joan zela ikus dezakegu, 1657ko Santa Maria Magdalena ospitaleko Maria de Ituñoren testamentuaz geroztik, ia kasu guztietan ageriko zaigun formula finkatuz: "a los quatro sacramentos" dohaintzak egitearen ohitura, alegia, San Migel parrokiako, Bidaurretako Trinitatearen eta Santa Ana komentuetako eta Jesusen Lagundiaren kolegioko Sakramentu Santuei kopuru berdineko dohaintzak egitearena¹⁵⁰¹. 1650az geroztiko 14 seroratik 12tan aurkitzen dugu ohitura hau, eta salbuespenak, zenbait ondasunen dohaintzekin bere ermita baino faboratu ez zuen San Antonio Abad edo San Anton ermitako Magdalena de Galarraga (1705) eta dohaintzen jasotzaile ospitalea, bi serora eta apez bat baino egin ez zituen San Migel parrokiako Maria Gabriela de Sarraoa (1784) ditugu. Eta parrokia bereko Josefa de Lizarralderen kasuan, testamentua jada Jesusen Lagundia Espainiako erreinutik kanporatua izan zen garai batekoa izanik (1793koa), hiru Sakramentu Santurenganako dohaintzak baino ez zituen -edo ezin izan zituen- egin. Ermitetarako dohaintzen ohitura ere finkatuz joan zen, Oñatiko "ermita guztiei" edo plaza edo erreka erreferentziazat hartutik, bertatik beherakoei edo gorakoei egindako libra banako edo libra erdinako dohaintzen ohitura izan baitzen nagusi. Finkapen hau, bestalde, Sakramentu Santuen aldeko dohaintzen ohitura sendotu baino are lehenago ere gertatu zela esan liteke, aipatu berri ditugun salbuespenez beste, ermitetikiko dohaintzak esandako modura egin ez zituen kasu bakar bat baino ez baitugu, Magdalena de Ucelairena (San Kristobal ermita, 1591). Serora honek ermitetarako dohaintzak obretarako dirutan emandakoen eta argiteriarako olio libratan emandakoen artean banatu zituen, baina honez eta goraxeago aipaturiko beste biez aparteko guztiek, 15ek,

¹⁵⁰¹ Sakramentu Santuaren argiteriak garrantzia sinboliko berezia zeukala ohartu beharrean gaude, sineskera eta sinbologia kristaua iraupen luzeko sineskera aurrekariekin batzen zen gunea baitugu. Kristautzea gainjarri zitzaion kulturetan ere baziren bezalaxe -eta euren artean, Euskal Herrikoan ere bai-, kultura "klasikoetan" ere izan ziren suaren inguruko sineskera eta sinbologia sozial eta erlijiosoak; beste hainbat lekutan bezalaxe Euskal Herrian ere kristautzearen aurrekari zuzen izan genuen erromatartzean garrantzitsuak izan ziren kultuei erreparatzearen, vestalen eta beraien zaintzapeko suaren ingurukoak aipatu ditzaun.

Vesta jainkosa erromatarren lurraren jainkosa zen, eta baita etxearen jainkosa ere; greziarren artean etxeko jainkosa zen Hestiaren antzaldatze erromatarra genuen. Eta Hestia, unibertsoaren erdigunean zegoen, makrokosmosaren stabilitatearen zaindari, familien zaindari zen bezalaxe. Grezian bezala Erroman ere, etxeko suaren mantenuak familiaren biziraupena adierazten zuen, eta sua itzaltzen uztea kalte larritzat hartzen zuten. Eta Atenasen Hestiaren sua Pritaneoan gordetzen zuten bezalaxe, Erroman Vestaren sua Vesta beraren tenpluan gordetzen zuten, familiei bezalaxe, hiriei ere bere suaren babes sinbolikoa emanaz. Vestalek komunitate bat osatzen zuten, garaien arabera 2-6 emakumek osatua, eta bereziki, jada aipatu bezala, Vesta jainkosaren tenpluko sua pizturik mantentzea zeukaten eginbehartzat. Lan hau ez zen edonolako, jatorria etxeetako suen kultuan zeukan su hark Erroma beraren (edo zegokion hiriaren) bizitza eta biziraupena sinbolizatzen baitzituen ("betiereko sua"), eta ondorioz, suaren itzaltzea gertatuaz gero, momentuan zaintzaren ardura zegokion vestala gogorki zigortua zen, eta su berriaren pizterako errituei ekiten zitzairen ahal bezain laster. Hiria, sua itzalia zegoen artean, babesgabe baitzegoen. Darabilgun konparazioaren baitan, suaren zaintzak, halabeharrez, serorek tenpluetako argiteriaren gain zeukaten zaintzara garamatza, eta seroraren batzuen kasuan, hain zuzen ere, beraien betekizun nagusira. Izan baitziren serorak, kasuren batean ikusi ahal izan dugunez, tenpluetako su jakinen zaintza espezifikora dedikatzen zirenak ere; eta parrokiako seroren kasu askotan, Sakramentu Santuaren sua zen argiaren mantenuaren erdigunea, vestalek beraien tenpluko suarekin egin bezalaxe, momentuoro pizturik mantendu behar zutena, nolabait, arbaso partikularrei eskainiriko suez beste, komunitateari bere osotasunean zegokion sua zena. Seroren euren debozioa ere askotan Sakramentu Santuaren argiaren inguruan sendoki biltzen zela esan liteke, zenbaitek argiteria horren mantenturako egin izan zituzten dohaintza esanguratsuei erreparatzen badiogu. Vestalen inguruko informazio orokorrerako, ikus, argitalpen zaharra izanik ere, artean ohizko iturria den William Ramsay 1895; erlijioaren eta alderdi juridikoen arteko erlazioen ikuspegitik -eta serorekiko, hemen aipatu ditugun eta bestelako parekotasunetarako- ikus Kroppenber 2010 eta Sanz Martín 2011.

hiribilduko "quatro sacramentos"-en eta bereziki faboraturiko ermita gutxi batzuek gain, herriko ermita guztiei, edo plazaz edo errekaei edo beherakoei egindako kopuru berdinetako dohaintzak eman zituzten; kopuru handiagoen kasuak ere izan baziren ere, askotan, sakramentuei eta preferentziakoa tenpluei olio libra bana, eta ermitei -edo preferentziakoez bestekoei- aldiz libra erdi bana eman zizkieten.

Ospitaleen aldeko dohaintzak ere egin ohi zituzten, ospitaleetako bertako serorez beste, baita parrokiako eta ermitetako serorek ere. Diruzko eta argiteriarako olioetako dohaintzez beste, oheen dohaintzak izan ziren ohizkoenak. Oheez gain, bestelako dohaintzarik esanguratsuenak egin zituzten artean ospitaleetako serorak eurak ere bazeuden noski; kasu honetan testamentuetako informazioa dugu soilik erabilgarri, eta hauen artean, ospitaleetako lau serora baino ez ditugu, Elgetako hiru eta Oñatiko bat. Azken honek, Maria de Ituñok (1657), bere ospitaleari 2 olio libra eman zizkion (lau sakramentuei bina eman bezala). Elgetako ospitaleak oheak estalkiekin jaso zituen Marina de Larraguibel (1576) eta Gracia de Sagastarengandik (1605), eta horiez gain, lehenak emandako 6 dukat eta bigarrenaren galdara bat, pertze bat eta katilu bat "para traer agoa". Domenja de Albisua y Arescurenagarengandik (1605) jasotakoak balore handiagokoa dirudi: dukat 1, kutxa handi bat, eta dohaintzan emandako ohe bat ezik "todo el demas bastago e axuar de cassa", "con declaracion de que mi companera Maria Joanez de Loiti durante su vida goze el dicho axuar e despues de su fin sea para el dicho / ospital".

Parrokietako eta ermitetako seroren oheen dohaintzak ere izan ziren zenbait. Esandako Elgetakoez beste, Bergarako ospitaleak San Pedro parrokiako Catalina de Ondarzarengandik (1572) eta Maria de Izaguirrerengandik (1631), Arrasatekoak Francisca de Gabiriarengandik (1639), Eskoriatzakoak Maria Lopez de Espillarengandik (San Pedro parrokia, 1594), eta Oñatikoak Francisca de Basaurirengandik (San Julian ermita, 1599) jaso zituzten oheen berri izan dugu. Oheak estalki-jokuekin eman ohi ziren, eta beste batzuetan, azken hauek eta ohialak baino ez. Hala, Aretxabaletako ospitaleak hiribilduko Maria Ruiz de Araoz y Duranarengandik 1629an ohe baterako estalkiak jaso zituen, eta 1634an, era berean hiribilduko serora zen Catalina de Bengoarengandik, "plumion" baten estalki bat eta iztupazko burko bat ("sin entrar en agua"). Eta Leintz Gatzagan, Luisa de Aguirrek (Dorletako Andre Maria santutegia, 1693) bertako Santa Maria Magdalena ospitaleari ohe-estalki batzuk "de lienzo de estopa entrados en agua" eta manta bat "de marraga" eman zizkion, eta Teresa de Laquiteguik (Dorletako Andre Maria parrokia, 1746) koltxoi bat "con su lana de los medianos".

Obretarako eta argiteriarako diruzko, ondasunezko eta olioetako dohaintzak ere izan ziren zenbait, bestelako tenpluekin batera kopuru txikien sorten dohaintzetan baitaraturik bezala (parrokia eta ermitei halakoetan emandakoen tankerako kopuruekin), ospitaleak hauen artetik bereziki onuraturik dohaintza esanguratsuak egin zizkietenetara. Azken hauen artean aipagarri ditugu Bergarakoak jaso zituen Catalina de Ondarzak (San Pedro parrokia, 1572) emandako alba edo apez-jantzia, Catalina de Quereazuk (Aritzetako San Migel ermita, 1602) emandako 16 dukateko zentsuaren erdia eta Mariana de Aleizak (San Pedro parrokia?, 1758) "para la Composicion de su Coro ô otra que se ofreciere" emandako 150 errealak, eta Elgetakoak Gracia de Urrupainengandik (Andre Maria parrokia, 1587) obretarako eta argiteriarako jasotako 20 errealak eta Maria Ochoa de Marquiequirengandik (Andre Maria parrokia, 1592) obretarako jasotako 4 dukatak; azken kasu honetan garbi adierazi nahi izan zen gainera diruek zertan xahutuak behar zuten izan: "se hayan de distribuyr en la hobra que [es?] començada en la parte mas urgente / y no en otra manera". Antzerako egoera dirudi,

nahiz eta ziurtatu ezin izan dugun, XVIII. mendearen bukaera aldean Oñatiko ospitaleak zeukanak, ezagutzen diogun 1657ko azken dohaintzaren ondoren mende bat baino gehiagoko denboran zeharreko 11 serorengandik batere dohaintzarik ezagutzen ez diogun artean, bapatean Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) bere alde emandako 50 dukatak ("de una vez" ematekoak, zehaztu zuenez) eta Josefa de Lizarralde (San Migel parrokia, 1793) emandako 30 errealak ageri baitzaizkigu. Dohaintza hauek ospitaleak agertzen zituen -konponketetarako- beharrek motibatuak izan zirela pentsa liteke.

Kofradien aldeko dohaintzaren batzuek ere izan ziren. Gehien-gehienak parrokiatiko Sakramentu Santuaren eta Errosarioaren kofradiei emanak izan ziren, eta 4 eta 8 erreale bitarteko kopuruak ditugu ohizkoenak. Haez apartekoak, Bergarako Santa Marina parrokiako San Sebastianen eta Aingeru Goardakoaren kofradiei, eta Oñatiko Santa Isabelenari emandakoak baino ez ditugu. Azken kasu hau, San Juan ermitako Antonia de Idigorasena (1711) dugu dohaintza dirutan egin ez zuen bakarra, kofradiari gari anoa 1 "para la conposicion de la santa" eman baitzion, "luego que se tomare el agosto". Ohizko kopuruetakoez beste, badira aipagarriak zaizkigun dukat batetik gorako zenbait dohaintza ere, denak Bergarako parrokiatiko kofradiei emanak: San Pedro parrokiako Sakramentu Santuaren kofradiak 12 erreale jaso zituen Maria de Aguirrerengandik (San Pedro parrokia, 1631), eta Errosarioaren kofradiak aldiz, azken honek emandako beste 12 errealez gain, Marina Garcia de Oruesagastik (San Pedro parrokia, 1607) emandako 5 dukat, eta parrokia berean jarleku partikularrak zaintzen zituen Maria de Izaguirrek (1631) emandako 40 dukateko zentsu bat. Santa Marina parrokiako Errosarioaren kofradiari emandako dohaintzen artean Maria de Iturbek (San Martine ermita, 1605) emandako 12 errealak ditugu aipagarri.

Azkenik, zerbitzen zituzten parrokien, hauetako kofradien, ermiten eta ospitaleen aldeko dohaintzez beste, komentuek eta kolegio edo ikastetxeek ere jaso izan zituzten seroren dohaintzak. Bergaran, dohaintza hauen jasotzaile aipatuena Trinitate Santuaren komentua eta Jesusen Lagundiaren konpainiaren kolegioa ditugu. Lehenak Catalina de Ondarzarengandik (San Pedro parrokia, 1572) alba edo apez-jantzi bat, Francisca de Igueribarrengandik (1581) frontal zuri bat egiteko 6 dukat eta mahai-zapi bat, Maria de Izaguirrerengandik (1631) argizari gorrizko libra bat eta Maria de Mendozarengandik (1650) bertako Sakramentu Santuaren argiteriarako 6 erreale jaso izan zituen, eta bigarrenak aldiz, Maria de Izaguirrerengandik (1631) 40 dukateko zentsu bat jaso zuen, Inauterietako berrogei orduetan Sakramentu Santua zabalik egotean, argiteriarako argizari zuria eros zezaten emana, eta Maria de Mendozarengandik, halaber Sakramentu Santuaren argiteriarako, 50 erreale. Eta herri bereko Soledadeko Andre Mariaren santutegi eta ikastetxeak, 1750ean, bere fundatzaile izan zen Maria Clara de Berroetarengandik jaso zituen 600 dukateko dohaintza eta oinordeko izendapena ere ezin ahaztu.

Arrasateko San Frantziskoren kolegio eta komentua ere jaso izan zituen zenbait dohaintza, euren artean dirutan aurkitu ahal izan dugun handiena, Arrasate bertako Maria Lopez de Olazaranek 1604an zentsutan eman zizkien 1.000 dukat baino gehiagorena. Komentu honi, Francisca de Gabiriaren (1639) kasuan bezala "quatro sacramentos"-en aldeko dohaintzetan emandako olio librez gain¹⁵⁰², Leintz bailarako beste herrietako dohaintzak ere heldu zitzaizkion; Aretxabaleta aldetik 1634an heldu

¹⁵⁰² Serora honek Arrasateko lau sakramentuei, hau da, ustez San Juan Bataiatzailea parrokia, San Frantziskoren komentua eta kolegioa, eta moja frantziskotarren eta agustindarren komentuetakoei, eta Uribarriko Andre Maria parrokiaren eta Santa Kruz ermitaren artean banatzeko 7 olio libra eman zituen, azkenari 2 libra, eta besteei "lo que a mis testamentarios les pareciere".

zitzaion baten berri izan dugu: hiribilduko Catalina de Bengoak jantziteriarako eman zizkien ohe-estalkiena ("de buen lienço de la tierra").

Lau Sakramentu Santuen aldeko dohaintzetan moja frantziskotarren eta agustindarren komentuetaoak ere sartzen ziren, eta forma kolektibo horretan emandakoez beste, diruzko eta argiteriarako olioizko bestelako dohaintzak ere jaso izan zituzten. Catalina de Abendañok (1590) lehenari ("la Conceçion de las franciscas") argiteriarako olio libra 1 eta bigarrenarendako 6 erreal eman zituen, eta Teresa de Urisarrik (Santa Marina ermita, 1603) bakoitzari olio libra 1/2 bana. Azken honek, horiez gain, komentuaz aparteko seroren komunitate batekoak diruditen "las veatas de San Francisco" zirenei ere eman zien beste olio libra 1/2.

Oñati aldean, Bidaurretako Trinitatearen eta Zubikoako Santa Ana komentuek, Arantzazuko Andre Mariaren monasterio eta santutegiak eta bertako Jesusen Lagundiaren kolegioak jasotzen zituzten herriko seroren dohaintzak. 1650erarteko testamentuen arteko hirutan ageri zaizkigu halako dohaintzak, eta komentu bakoitzari bere aldetik emandakoak izan ziren. Ines de Bidaniak (San Martin ermita, 1554) Zubikoako Santa Ana komentuari olio libra 1 eta Arantzazuko santutegiari beste bat eta dukat 1 eman zizkien, eta Magdalena de Ucelaik (San Kristobal ermita, 1591), azken santutegi honi emandako 2 olio librez gain, jada ondorengo testamentuetan ohizkoa izango zen -eta Arrasaten ere ikusi dugun- formula lehen aldiz erabili zuen: "a los quatro sacramentos" egindako dohaintzena, hau da, Oñatiko kasuan, San Migel parrokiako, Bidaurretako Trinitatearen eta Zubikoako Santa Ana komentuetao, eta Jesusen Lagundiaren kolegioko Sakramentu Santuei emandako olio libra banako dohaintzena. Maria de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1629), halere, nahiago izan zuen bere dohaintzen jasotzaile, San Migel parrokiatz gain (olio libra 1), Trinitatearen (2 libra olio) eta Zubikoako Santa Ana (olio libra 1) komentuak baino ez egin, Trinitatearenari, gainera, ornamentuen konponketarako 4 dukateko dohaintza bat ere eginaz. Maria de Ituñorengandik (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1657) hasita, 1650az geroztiko tankera honetako dohaintzak hurrengo 12 serorek eman zituzten, guztiak "quatro sacramentos" zirenei emandako argiteriarako olioizko libren forman; Bidaurretako Trinitatearen eta Zubikoako Santa Anaren komentuek eta Jesusen Lagundiaren kolegioak hainbat olioizko dohaintza jaso zituzten horrela, aipagai izan dugun Maria de Ituñok (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1657) bakoitzari emandako 2 librez eta Osana de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1670) emandako libra 1/2 banaz beste, bakoitzarendako olio libra bana eman ohi zelarik¹⁵⁰³. Josefa de Lizarralderen (San Migel parrokia, 1793) kasuan, testamentua helarazi zuenerako Jesusen Lagundiaren konpainia Espainiatik jada kanporatua izan zenez, parrokiakoarekin batera beste bi komentuetaoek baino ez zizkien halako dohaintzak egin.

Arantzazuko Andre Mariaren monasterioak eta santutegiak jaso zituen dohaintzak beste tankera batekoak izan ziren; Ines de Bidaniak (San Martin ermita, 1554) dukat 1 eta olio libra 1 eman zizkion, eta baita 1591n, San Kristobal ermitako Magdalena de Ucelaik 2 libra olio ere. Serora hauek egindako dohaintzen artean monasterio eta santutegiak beste tenpluen aldean preferentziazko kopuruak jaso bazituen, ondorengoetan ermitei egin izan zitzaizkien olio libren edo libra erdien

¹⁵⁰³ Hala izan zen Mari Asencio de Umeresen (Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676), Catalina de Gallaisteguiaren (Narria, San Lorentzo ermita, 1678), Maria de Umeresen (San Migel parrokia, 1694), Maria de Zubiaren (1701), Antonia de Idigorasen (San Juan ermita, 1711), Angela de Erostequiaren (Uribarri, San Andres ermita, 1712), Catalina de Villarren (1738), Ana Catalina de Inzaren (San Migel parrokia, 1751) eta Francisca de Lizarralderen (Bidaurretako komentua, 1761) kasuetan.

dohaintza "orokorretan" baitaratua izan zen; hala adierazten digu Maria Lopez de Estrañok (San Migel parrokia, 1647 -1665-) ermitenganako -libra erdi bana olio-zokahalako dohaintza egitean gehituriko zehaztapenak: "se de en espeçie ecepto a Arançau". Bada, beste hainbesteko kopuruak jaso zituen monasterio eta santutegiak Maria de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1629), Osana de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1670), Mari Asencio de Umeres (Olabarrieta, San Kristobal ermita, 1676), Catalina de Gallaistegui (Narria, San Lorentzo ermita, 1678), Catalina de Villar (1738) eta Francisca de Lizarralderen (Bidaurretako komentua, 1761) dohaintzetan.

Kapitulu honen hasiera aldera 1623an Gipuzkoako Probintziak seroren defentsaren alde eman zituen arrazoiak izan ditugu aipagai, bertan, serorek tenpluen mantenurako zeukaten garrantzia azpimarratu izan zela eta. Bildu ahal izan ditugun datuek, gizarteko beste talde sozial batzuekiko konparaziozko neurriak hartzea zaila izanik ere, argumentuak bere oinarria zeukala frogatzen digute: batez ere parrokiek, ermitek eta hauei zegozkien seroretxeek, eta -kopuruei zegokienean- komentuek, baina baita santutegiek, ikastetxeek eta ospitaleek ere, dohaintza ugari jaso zituzten maila eta gaitasun ekonomiko ezberdindun seroren aldetik, oinarrizko mantentze lanetarako eta obretarako, argiteriaren sostengurako, ondasunen ugaritzerako, eta baita beraien apaindura eta edertasunerako ere.

Serorengandik tenpluetako zerbitzariak jasotzen zituzten dohaintzei dagokienez, 12.a. koadroan (989-1012 or.) hauen inguruan batutako informazioaren emaitzak 12.d. koadroan (1030-1036 or.) laburbildu ditugu. Dohaintza hauen arteko parte handi bat beste seroren aldekoek osatzen zuten, batere harritzekoa ez dena. Oinordeko eta albacea izendapenetan ere ikusi ahal izan dugun bezala, dohaintza hauek, familia-kideekiko loturez beste, seroren artean batzuetan sortzen ziren laguntasunezko loturak ere agertzen dizkigute; tenplu bereko seroren artean bezalaxe, tenplu ezberdinetako seroren artean ere.

Jaso ditzagun lehenik 99 testamentuetako laginak eskaintzen dizkigun datuak. 99 testamentu hauetariko 21etan ageri zaizkigu -beste- seroren edo serora-laguntzaileen aldeko dohaintzak, 15etan apezan aldekoak, eta 3tan bestelako zerbitzarien aldekoak. Serorei denera emandako 1.018 errealek eta apezan emandako 701ek dohaintzen emaleen kopuruekiko antzerako batazbestekoak ematen dizkigute, hurrenez hurren, 48'47 eta 46'73 erreal. Bestelako 3 zerbitzariak denera 15 erreal baino ez zitzaizkien eman. Ondasunen dohaintzetan, familia-kideen aldeko dohaintzekin gertatu bezala, nabaria da generoen araberrako banaketa, eta kopuruetan, seroren aldekoek erraz gainditzen dituzte apezan aldekoak, jasotzaileen kopuruaren arteko aldea aintzat harturik ere. Ondasun higiezin gutxiak apez baten alde emandako sagasti bat eta serora-laguntzaile baten alde emandako gaztainadi baten erdia baino ez ditugu; hala ere, ondasun moeta hauetan generoen araberrako banaketak eraginik ez zeukala behintzat adierazten digute. Oheak eta kutxak, bakoitzeko bana, seroren alde emanak izan ziren. Hain kopuru urrietako datu hauek zirkunstantzialak izatea suertatu liteke noski, eta ondasun hauen generoen araberrako banaketarako joera garbirik ezin liteke atzeman. Beste ondasun batzuetan, hala ere, banaketaren zantzuak garbiago ageri zaizkigu; hala, urrezko, zilarrezko edo balore handiko ondasunak eta bitxiak eta liturgiarrako elementuak, urriak izanik ere, apezan baino ez zitzaizkien eman (zilarrezko kikara bat, urrezko kaxa bat eta bi alba), eta gainontzeko ondasun moetak, alde handiarekin, seroren alde emanak izan ziren. Manufakturaturiko arropak, ehunak eta ohialak, etxeo eta sukaldeko tresnak, abereak eta lurreko produktuak, seroren aldeko dohaintzekiko oso kopuru urritan ageri zaizkigu apezan eskutara heltzen, eta argiteriarako emandako olio librak, serorei emanak baino ez zaizkigu ageri.

Xehetasunen berri kasuen azalpenetan barneratu ahala emango badugu ere, funtsean, honakoa esan liteke: darabilgun laginaren arabera, serorek, apez-jantziez eta urrezko, zilarrezko edo balore handiko ondasun gutxi batzuen salbuespenez, gainontzeko ondasun moeta guztietan apezek baino askoz dohaintza ugariagoak jaso zituzten; apezek aldeko dohaintzak edo diruzkoak, edo arroparen batenak izaten ziren gehienetan, etxerako tresna eta ohialen batzuekin batera. Bestelako ehunak eta ohialak, gutxi batzuk baino ez zitzaizkien eman, arropak egiteko edo dirutan etekina ateratzeko emanak. Askoz ugariagoak izan ziren seroren aldeko dohaintzak, batez ere ondasunei zegokienean, baina baita dirutan emandakoen kasuan ere.

Banaketa kronologikoan ere, beste jasotzaileenganako dohaintzekin gertatu bezala, alde handiak ageri zaizkigu. 1650erarteko bitartean moeta honetako dohaintzak egin zituzten 24 serora dauzkagu, ondorengoan 7en aldean. Deigarria dugu benetan seroren aldeko dohaintzen beherakada handia; 1650az geroztiko dohaintzen jasotzaileen balantzea bera nahiko adierazgarria dugu honekiko: 9 gizonezko -gehienak apezak- eta 5 serora. Hau da, jasotzaileen kopuruen arteko balantze orokorrak seroren kopuruak apezena bikoizten zuela azaltzen badigu ere (43 serora, 20 gizonezko), 1650erartekoen eta ondorengoan artean jasotzaileen kopuruen generoaren araberrako alderanzketa ematen da, seroren aldeko dohaintzen erabateko beherakada medio. Zehatzago adierazirik: 1650erarteko seroren dohaintzen jasotzaileen kopuruetan seroren kopurua (38) gizonezko zerbitzari guztienaren (11) hirukoitza baino gehiago bazen, ondorengoetan gizonezkoen aldekoak (9) ia seroren aldekoen (5) bikoitza izatera iragan ziren. Alderanzketa honen adierazgarri ditugu, halaber, 1650erartekoetan ondasuneko dohaintzen parterik handiena osatzen zuten ehunek eta ohialek, manufakturaturiko arrokek, etxe eta sukaldeko tresnek eta abereek eta lurreko produktuek azaltzen duten beherakada, eta -salbuespen urri batzuek beste- serorek baino jasotzen ez zituzten ehun eta ohialen eta argiteriarendako olioeko libren desagerpena.

Baina dohaintzen banaketa hauen taxukera orokorra egoki hautematera heltzeko hobe dugu kasuen azalpenei ekitea, erlazioen testuinguruak eta ondasunekiko hirizpideak garbiago azaltzen zaizkigu eta. Xede honetarako Oñatiko ermitetako bi seroren testamentuak bereziki aberatsak ditugu, eta gainera, XVI. mendearen bigarren erdialdean Oñatiko zenbait seroren artean harreman onak izan zirela agertzen digute. Ondasunen eta jasotzaileen inguruko azalpenetan barneratzeko baliatuko ditugu hortaz, batez ere, seroren artean izaten ziren dohaintza moten ikuspegi orokor egoki bat azaltzen digutelako. Beraien arteko lehenak, San Martin ermitako Ines de Bidaniak, 1554an, honako dohaintzak egin zituen beste serora batzuen alde: San Andres ermitako serorari zaia bat (berak egunerokoan zerabilena) eta ohe baterako estalkiak, San Kristobal ermitako Catalina de Basauriri dukat 1, “beata” bezala baino aipatu ez zuen Maria de Ucelairi beste dukat 1, eta Santa Marina ermitako serorei (bi zirela dirudi) 2 dukat eta zapata pare bana. San Kristobal ermitan 1591n serora zen Magdalena de Ucelai ere izan zituen beste serora batzuk gogoan: bere jarlekuan izan behar zuten lanagatik, “serora de Villar” bezala aipatu zuen Magdalena de Aldayari eta bere ermita bereko serora zen Mari Joan de Letamendiri 4 dukat eman zizkien bakoitzari, eta horiez gain, lehenari zapi bat (“de tocar bueno”) eta amantal more bat, eta bigarrenari zapi on bat eta amantal iluna, eta baita manturik onena erosteko aukera ere, 4 dukat eta ½ ordaintzekotan (hau da, prezio merkean estimatua) (hemen, San Kristobal ermitak bertako seroren ehorzketarako San Migel parrokian jarleku propioa zeukala aintzat hartu beharrean gaude; serora berriek jarlekuaren kargu hartzen zuten, zaharren arimen aldeko bertako errituak burutuz). Magdalena de San Llorente izendatu zuen eta “mi companera” bezala aipatu zuen serora, izenak berak iradokitzen duenez, San Lorentzo ermitako

serora zela dirudi; edozein kasutan, eta lehen biekin parekatze aldera edo, testamentuan amantal bat erosteko 12 erreal eta zapi on bat eman zitzaizkion. Azkenik, Magdalena “de abaxo”-ko Francisca eta Zubilagako San Pedro ermitako Mari Lopez serorei 2 dukat ere eman zizkien, bana.

Ikusten dugunez, dirutan bezalaxe ondasunetan ere eman zituzten beste seroren aldeko dohaintzak, eta azken hauen artean, bereziki, arropa, ohial eta ehunetan. Lehenik diruzko dohaintzetatik ekinez, hauen artean izan ziren kopuru aipagarrietako zenbait: Arrasaten, San Balero ermitako Maria de Insaubek (1579), berarekin batera ermitako serora zen Maria de Langararen iloba eta honen serora-laguntzaile zen Mariacho de Langarari 20 dukat eman zizkion, zenbait arroparekin batera; eta Elgetako Magdalenaren ospitaleko Domenja de Albisua y Arescurenagak (1605), ospital berean serora (laguntzailea?) zen Maria Joanez de Loitiri, besteren artean, 14 dukateko zentsu bat eman zion. Francisca de Igueribarrek (Bergara, 1581) Maria Garcia de Iturbe serorari, beste zenbait ondasunekin batera, 12 dukaten dohaintza bat egin zion. Magdalena de Oruesagastik (Bergara, San Pedro parrokia, 1610) berarekin batera parrokiaren serora zen "la beata de Sagastiçauual mi conpanera"-ri 21 erreal eman zizkion. Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) bere bi serora-laguntzaileri (bere neskame bezala aipatuak izan ziren, San Migel parrokiako ohituraren arabera), ordaintzea agindu zituen soldaten zorrez beste, 75na erreal eman zizkien. Eta bada beste kasu sortatxo bat ere, kopuru xumeagoetako dohaintzenak¹⁵⁰⁴.

Diruren batzuk jarlekuko artapenagatik banatzen zitzaizkien, bestelako ondasunekin bat. Hauetariko bat Bergaran aurkitzen dugu; San Martin ermitako Maria de Iturbek, 1605ean Santa Marina parrokiako “beata de Eguren”-i 6 dukat eman zizkion, aipaturiko xederako. Bi seroren artean konfidantzazko tratua zeukatela nabaria zaigu, dohaintzaz gain, San Martin ermitako serorak parrokiakoa albazea izendatu baitzuen, eta zenbait arropa ere eman baitzizkion, honek elkarren artean hitz eginda zeukaten erara banatu zitzan.

Azken kasu honek, bestalde, tenplua ondoren zerbituko zuten serorei etxeko tresneriaren dohaintza egitearen ohituraren berri ere ematen digu; batere arraroa izan behar ez zuen ohitura. Maria de Iturbek 1605ean honakoak eman zizkion San Martin ermitan bere ondorengo izango zen serorari: 8 laban, lare batzuk, supala bat, egurrezko hiru aulki, buztinezko 5 plater, buztinezko 4 katilu, 4 burrunzti, kobrezko eltze txiki bat eta burnizko eltze-estalki bat. Domenja de Iturrik (Elgeta, Uriarte, Andre Maria ermita, 1604) ere bere ondoren ermitan gelditzekoa zen serorari 20 libra baino gehiago ("ueynte y [???)") oliotan edo hauen balorea dirutan emateaz gain, bere heriotzean ermitan utziko zuen "axuar"-a ere eman zion. Kasu hauetan, Aretxabaletan Aozaratzako San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria Lopez de Celayak 1615ean egin ez bezala, etxeko tresneriaren dohaintzak zuzenean seroren artean egin zituzten, serorarengandik parrokiaren jabegora iragan beharrean (nahiz eta, kasu guztietan, dohaintzak ondorengo seroren erabilpena bideratuak zeuden). Transmisio hauek gauzatzeko moduak ez ziren noski bakarrak, eta Domenja de Albisua Arescurenagak (Elgeta, Santa maria Magdalena ospitalea, 1605) bestelako formula bat hautatu zuen; kutxa handi bat eta dohaintzan emandako ohe bat ezik beste "bastago e axuar de cassa" guztia ospitaleari berari eman

¹⁵⁰⁴ Jarraian aipagai izango ditugunez gain, Ines de Bidaniak (Oñati, San Martin ermita, 1554) San Kristobal ermitako Catalina de Basauriri eta "beata" bezala baino aipatu ez zuen Maria de Ucelairi emandako dukat banak, eta Santa Marina ermitako bi serorei emandako dukat binak; Gracia de Urrupainek (Elgeta, Andre Maria parrokia, 1587) "la beata de Çauala mayor"-i emandako erreala; Domenja de Iturrik (Elgeta, Uriarte, Andre Maria ermita, 1604) herriko Andre Maria parrokiako bi serorari emandako 8na errealak; eta Maria de Arosteguik (Arrasate, 1599) "la beata de Asconiça"-ri eman zizkion 4 errealak.

zizkion dohaintzan, baina berarekin batera ospitalean serora zen Maria Joanez de Loitiri hauen bizitza guztian zeharreko usufuktoa emanaz, eta baita 14 dukateko zentsu bat ere (serorari bakarrik, ez tenpluari). Oñatiko Narria auzoko San Lorentzo ermitako serorek aldiz, galdara bat, zartagiak eta "asadores"-ak zeuzkaten denen artean erosiak, eta beraien arteko Osana de Villarrek 1670ean testamentua egin zuenean, bere partea besteei eman zien dohaintzan.

Seroren arteko gertutasuna eta estima agertzen dituzten dohaintzak bestelakoak ere izan ziren noski, batez ere arropa eta ohialezkoak. Euren heriotzean arropa propioak beste serora bati dohaintzan ematearen ohitura eta norbere ehunen, ohialen eta arropen kargu beste serorei ematea, esaterako, elkarrekiko laguntasunaren adierazgarri ditugu; zenbait dohaintza ditugu halakoak: Maria de Izaguirrek (Bergara, 1631), halaber Maria de Izaguirre izena zuen San Martzial ermitako serorari bere arropak eman zizkion, "que son un manto, saya, y dos sayos, Basquina pardos"; Ines de Bidaniak (Oñati, San Martin ermita, 1554) beste hainbeste egin zuen, "ueata de San Andres" zenari "la saya de cada dia y rropa de una cama" emanaz; eta Bergaran, Aritzetako San Miguel ermitan 1602an serora zen Catalina de Querexazuk, testamentuan agindurikoez aparte zeuzkan "camas, rropas y bestidos"-en kargu, albazea ere izendatu zituen eta berarekin ermitan serora ziren Catalina de Esaube eta Magdalena de Esauberi eman zien, "porque tengo confianza que te[*ndr?*]an mucha quenta con mi anima".

Tankera honetako beste dohaintza batzuek, ehungintza eta joskintza aktibitateen eta hauen bidezko loturen berri ere ematen digute; halakoa dugu Arrasateko Maria de Arostegui serorak "la beata de Asconixa"-ri 1599an egin zion dohaintza. Bere ondasunen artean, besteak beste, jostun lanetarako "treyn ta baras de lienço delgado de una tela – mas asta dis libras y medio de ylado de çerro grueso" ere bazeuzkan serora honek 4 erreal eta libra 1 eta 14 ontza "de ylado de estopa debanado grueso" eman zizkion "Asconixa"-ko serorari, joskintza medio probetxua ateratzea ziezaien. Teresa de Urisarrik (Santa Marina ermita, 1603) aipatu berri dugun Francisca de Asconiza serora berberari "por el amor que le tengo" zaia bat ("de estamena blanco"), beste bat "que de ordinario traigo" eta 6 liozko azao eman zizkion, sutarako egurrarekin batera. Eta bere ermita berberean serora ote zen zalantzak ditugun ("Santa Maria" tenplu batetako serora bezala aipatzen zaigu, akatsez Santa Marina ermita bera izan zitekeen) Ana de Oquendori buru-zapi bat eman zion, "de lienço de los que yo traigo". Bergaran, Francisca de Igueribarrek 1581ean Maria Garcia de Iturbe serorari eman zizkion ondasunen artean ere bazegoen jostun lanerako elementurik, nahiz eta diruak eta arropak esanguratsuagoak ziren: 12 dukat, ohe-estalki batzuk, bere manturik onena eta liozko 12 azao. Elgetan, Magdalena de Urrojolaeguik (1609), Andre Maria parrokiako Marina de Egocheagari, garizko dohaintza batekin bat, 3 "manogillos de lino restrillado" eman zizkion, eta Santa Maria Magdalena ospitaleko "la beata de Loyti"-ri aldiz, 2 liozko azao fin. Elgetako ospitalean bertan serora zen Gracia de Sagastak, 1637a, dohaintza esanguratsuagoak egin zizkien bertako beste serorei eta bestelakoei: Domenja de Arançatari 15 kana ohial eman zizkion; ospitalean bere "conpanera" zen Domenja de Zuazolari -"para que me encomiendera a dios"- "el pene de texer de mis telares" eman zion; eta halaber ospitaleko bere "conpanera" zen Maria Perez de Aguirreri berriz, bere ohialetatik "quatro libras adreçadas" eta kana eta erdiko "un cubrichel de Gaça".

Hauetan eta beste hainbat dohaintzatan, seroren artean izan ziren erlazioek dohaintzetan isladatzeko izan zuten modua, alegia, nori zer ematen zitzaion ohituraz ezartzeko modua, azken finean, serora-laguntzaileen kasuan familietan ilobek hartzen zuten paperarekiko, eta tenplu berberetako seroren kasuan familietan ahizpek hartzen

zuten paperarekiko analogoak zaizkigu. Eta noski, serorak eta beraien laguntzaileak hainbat kasutan izeba-iloba izaten zirela aintzat harturik, analogiak ez dirudi batere aldrebesa; areago, *seror* eta *soror* hitzen jatorrian "ahizpa" esanahia daukagula kontsideraturik.

Hala, ilobak bailiran, Eskoriatzako hiribilduko San Pedro parrokiako Maria Lopez de Espillak (1594) parrokia berean serora –ziurrenez bere serora-laguntzaile– ziren Joana de Olaetari eta Isabeli, bakoitzari ohe-estalki joku oso bana (izarak, ohe-estalkiak eta burkoa) eta “sendos paños de sobre los tocados” eman zizkien, eta horrez gain, lehenari kapa motz bat, eta bigarrenari txamarra bat; eta Oñatin, Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) -parrokiako ohituraren arabera- neskametzat aipatu zituen bere bi serora-laguntzailerri arropa eta ohialen zenbait dohaintza egin zizkien, diruzkoez beste (soldaten zorrak eta 75na erreal); batari zaia bat "musca que traigo los dias de fiesta", "una atorra, y charamela", eta 2 trapu eta 2 zapi zuri, eta besteari "una atorra, y charamela". Era berean, esanguratsuak zaizkigu Maria de Insaurbek (Arrasate, San Balero ermita, 1579) bere serora-laguntzailerri egin zizkion dohaintzak ere. Mariak ez zekien, antza, orduan bost urte zirela bere laguntzaile izatera sartu izan zen Gracia de Zubilagak bere heriotzaren ondoren ermitan gelditzeko erabakia hartuko ote zuen; beraz, hau Maria de Langara ermitako beste seroraren laguntzaile izatera ez iragatekotan emango ziren dohaintzak ezarri zituen, honek ermitatik kanpo bizirauteko beharko zituzkeen oinarrizko elementu batzuek emanez: ohe bat estalki bikoitzekin, zaia berri bat "de [pasmylla.?" eta gaztainadi baten erdia, Maria de Langararen serora-laguntzaile zen Mariacho de Langararekin partekatu beharreko 3 zaia eta "otras ropas y bestidos"-en erdiarekin batera.

Jasotzaileak serora-laguntzaileak izan beharrean "lagunak" edo maila bereko lankideak ziren serorak izatean, esan bezala, dohaintzek ahizpek edo ilobez aparteko emakumezko familia-kideek eta lagunak jasotzen zituztenen tankerakogoak dirudite: Magdalena de Oruesagastik (Bergara, San Pedro parrokia, 1610) San Migel ermitako Marina de Garitanori eman zion "plumion" bat, Gracia de Zabalak (Bergara, Santa Marina parrokia?, 1650) Marina de Inarrari emandako "vn abito de estamena que io tengo", Marina de Iraetak (Antzuola, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1645) Maria de Iturberi emandako "una mantelina de estamena parda", edo Ana de Ayestak (1664) "doña" Josefa de Oro "beata de la tercera orden y de san [???] de esta uilla" zenari emandako gonapekoa ("de anascote parda mas ordinaria con su es[ca]pulario") aipatu litezke.

Eta bestelako ondasunak ere ageri zaizkigu, azkenik, orain arte aipaturikoekin bat. Marina de Larraguibekek (Elgeta, Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576) ospitalean berarekin batera serora zen "la beata de Uruburua"-ri bi zaia eta gari anoa bat eman zizkion, eta "la beata de Urrupain"-i ere, beste gari anoa bat. Magdalena de Urrojolaeguik (Elgeta, 1609), ehunen batzuekin batera, gari anoa erdi eman zion Andre Mariaren parrokiaren serora zen Marina de Egoecheagari. Maria de Insaurbek (Arrasate, San Balero ermita, 1579) azken bost urteetan bere serora-laguntzaile izana zen Gracia de Zubilagari, ermitako beste seroraren laguntzaile izatera iragatea nahi ez izatekotan, arropa batzuekin batera, ohe bat estalki bikoitzekin eta gaztainadi baten erdia eman zizkion. Teresa de Urisarrik (Santa Marina ermita, 1603), arropoz gain, Francisca de Asconizari sutarako egurra ere eman zion, "la leyra que tengo en la dicha cassa de Aroscale Arriba".

Gizonezko zerbitzariei egindako dohaintzen artean, gutxitan aurkitzen dugu landu gabeko ehun edo ohialik. Kasu bakarretariko bat, bere joskintza aktibitateengatik hauei dagokien atalean aipatu izan dugun Eskoriatzako Domenja de Zubiarena dugu;

Eskoriatzako Mendiola elizateko San Juan Bataiatzailea parrokian zen serora, eta 1622an, Gaspar Abbad de Cilaurren parrokiako apezari 6 kana “de lienço casero de la tierra sin entrar en agoa” eman zizkion, 4 mahai-zapirekin batera. Beste kasu bat Oñatiko San Lorentzo ermitako Maria de Villarrena dugu; 1629an, bere konfesoarea zen Mirubia aitari, 8 errealez, eskuzapi berri batez eta beste 2 zapiz (“de manga”) gain, 8 ohial kana eman zizkion, “para unos panos menores”¹⁵⁰⁵. Francisca de Barrutiak (Bergara, Soledadeko Andre Maria ermita, 1742) ostera, kuriosoki, beste material batekin egiten zuen lan: eztainuarekin. Eztainuzko zenbait platertxo (“plartillos”) eman zituen dohaintzatan, hauen arteko bi bere konfessore Domingo de Uriarteri.

Ohizkoena, edozein kasutan, diruzkoak ez ziren dohaintzak arropatan edo arropak egiteko ohialetan egitea izan zen: Agueda de Zumaetak (Antzuola, 1642) Melchor Abbad de Inurrigarro apezari 8 dukaten baloreko alba bat egitea agindu zuen, eta Marina de Ibarak (Antzuola, 1659) Antzuolako parrokiako batuetan apez benefizioduna zen bere lehengusu Gabriel de Inurrigarrori beste alba bat egitea agindu zuen. Leintz Gatzagan berriz, Mariana de Anuncibaik (Dorletako Andre Maria santutegia, 1655), zeukan “beatilla” pieza batetik San Millan parrokiako apezarendako eta Arriola batxilerra apez benefiziodunarendako alkandora bana egitea agindu zuen. Haez beste, eta ohialei dagokienez, azken dohaintza bat Aretxabaletan aurkitzen dugu:

¹⁵⁰⁵ Kasu hau, bestalde, deigarria zaigu seroren erlazio sozial eta erlijiosoek izan zitzaketen joera ezberdinak hatzematerako orduan. Oñatin bertan, San Migel parrokian jarleku eta ehorzleku amankomuna zeukaten San Kristobaleko seroren artean, dohaintzek elkarren arteko erlazioak agertzen dizkigutela ikusi dugu. San Lorentzo ermitak ere bertako serorendako jarleku eta ehorzleku amankomuna zeukan, baina San Migel parrokian beharrez, Bidaurretako Trinitatearen komentuan. Familia-kideekiko dohaintzak bi seroren kasuetan hainbat izan baziren, tenplu erlijiosoenganako eta bertako zerbitzarienganako dohaintzek erlazioen testuinguru oso ezberdinak agertzen dizkigute. San Kristobaleko serorak 1591n batez ere ermita bera faboratu zuen, eta argiteriarako eta obretarako kopuru txikiagoekin, herriko San Migel parrokia, Arantzazuko Andre Maria santutegia eta beste hainbat ermita, tartean, San Lorentzo ermita ere bai. Ez zuen komenturik ez eta apezik ere bere dohaintzen onuradun egin; tenpluetako zerbitzarien artean, serorak baino ez zituen faboratu. Berarekin batera ermitan serora zirenez gain, beste zenbait ermitetako serorei ere egin zizkien dohaintzak, tartean, San Lorentzoko serora zela dirudien Magdalena izeneko bati ere bai, tenpluei egin zizkienak baino dezente handiagoak. San Lorentzo ermitako serorak berriz, 1629an, San Kristobalekoak bezala bere ermita faboratu zuen gehien, eta beste ermitei ere egin zizkien bakoitzari libra ½ olioeko dohaintzak ere; baina San Kristobaleko serorak zenbait urte lehenago egin ez zuen bezala, Santa Ana komentuari eta batez ere Bidaurretako Trinitatearenari ere egin zizkien zenbait dohaintza, bereziki, azken honen alde eginez. Tenpluen artean olioeko dohaintzarik handiena ematez beste (2 libra), ornamentuen konponketarako komentuari eman zizkion 4 dukatak, ermitari egindako dohaintza salbuetsirik, egin zituen beste dohaintzen arteko parterik esanguratsuena osatzen dute. Eta tenpluetako zerbitzarien artean ez dugu ez serorarik, ez apezik aurkitzen, bere konfesoarea zen eta bere anaiekin batera albazea ere izendatu zuen Mirubia aitaz beste. San Kristobal ermitako serorak ez bezala, Bidaurretako komentua eta –ziurrenez honekiko loturaren bat izango zuen– konfessoreak eragin handia zeukaten San Lorentzon serora izan zen Maria de Billarren gain. Ondorengo kapituluan ikusiko dugunez, hiletetako mezek eta betekizunek ere banaketa berbera agertzen digute; San Kristobaleko serorak denak San Migel parrokian agindu zituen, eta San Lorentzokoak aldiz gehienak Bidaurretako komentuan, San Migel parrokiarako aldiz, Zubikoako Santa Ana komenturako, Arrasateko San Frantziskoren komenturako eta agian, Arantzazuko Andre Mariaren komenturako egin zuen bezala, zenbait meza aginduz (bakoitzean 10 edo 12).

Printzipioz hain antzerako testuinguruetan zerbitzua eman zuten bi serora hauen arteko ezberdintasunak azaltzeko, bi faktore lotzen zaizkigu: alde batetik, 1629rako, seroren desagerrarazterako –eta honekin bat, komentuen promoziorako– XVII. mende hasieratako saiakeren eragina nabariagoa zen, orduan zela 40 urte baino. Bestetik, ermita bakoitzeko seroren jarleku eta ehorzleku amankomunaren kokapenak (bata San Migel parrokian bestea Bidaurretako komentuan) eragin erlijiosoaren eragin esparruak aditzera ematen dizkigu, beraien dohaintzen bidez lotura erlijioso ezberdinak agertzen dizkiguten seroren bizimoduak eta portaerak baldintzatu eta moldatuz. Ez da kasualitatea, seroraren konfesoarearen figuraren testigantza dakargun dohaintzen kasu bakarrentarikoa dugun hau (bestea jarraian izango dugu aipagai), Trinitatearen komentuari hain lotua zegoen ermita bateko serora baten testamentuan agertu izana.

iztupazko ohe-estalki batzuk ("sin entrar en agoa") jaso zituen 1634an Leinzabaleko Andre Maria ermitako ermitauak, hiribilduko Catalina de Bengoa serorarengandik.

Nabariki, parroketako apezak eta benefiziodunak ohizkoagoak ziren seroren dohaintzen jasotzaileen artean, zehazki konfesore zirenak eta tenpluetako beste zerbitzariak baino. Eta arropak eta ohialak –eta are kasuren batean ehunak ere– jasotzen ikusi ditugunez beste, ohizkoagoak ziren dohaintzak dirutan (edo bitxietan) jasotzen zituztenak. Arrasaten, Catalina de Otalorak (1570) bere iloba Mazmela batxilerrari 3 dukat eman zizkion, Francisca de Gabiriak (1639) Juan Bautista de Sodes apez lizentziatuari berriz 10 dukat (20 dukateko dohaintza baten erdia), eta Ana de Ayestak (1664) bere albazea izendatu zuen Juan Bautista de Gabiria apez batxilerrari 12 dukat "en lo mejor de mi hacienda" eta sagasti bat ere eman zizkion. Eskoriatzan, aipatu dugun Domenja de Zubiaren kasuaz (Mendiola, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1622) beste, hiribilduko San Pedro parrokiako Maria Lopez de Espillak, 1594an parrokiako benefiziodunei 6 dukat eman zizkien. Oñatin, San Martin ermitako Ines de Bidaniak 1554an 6na dukat eman zizkien Gorostidi batxilerra apezari, zapatak eros zitzaiz, eta Martin Abbad apezari, bere hiletetan izango zituen lanegatik. Bergarako Maria de Izaguirrek, 1631n, San Pedro parrokiako benefizioduna zen Pedro de Aleiza apezari, bere erabilera propiorako zeukan zilarrezko kikara baten dohaintza egin zion. Leintz Gatzagako Maria de Pagadigorrik (Dorletako Andre Maria santutegia, 1719) San Millan parrokiako kabildoari 20 dukat eta Martin de Otaegui sakristauari 11 erreal eman zizkien. Oñatin, Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) bere albazea izendatu zuen eta "mi amo" bezala aipatu zuen Josef de Cortabarría San Migel parrokiako apezari urrezko kaxa bat eman zion, "que me embia mi sobrino don Juan Bautista de Sarraoa"; eta horrez gain, testamentuko aginduak bete ondorengo gariaren soberakinak ere eman zizkion. Azkenik, gogoan izan dezagun, adibide hauei seroren familia-kide ere bazirela jakin ahal izan dugun apezaren aldeko dohaintzak ere batu behar zaizkiela, ikuspegia egoki osatzeko¹⁵⁰⁶.

Laburbildu ditzagun orain arte azaldukoak. Gizarteko beste talde batzuekiko konparaziozko ikuspegiak jasotzea zaila bazaigu ere, nabaria da serorek tenpluen eta bertako zerbitzarien alde eman zituzten dohaintzek hauen biziraupenerako beharren artapenean paper garrantzitsua izan zutela. Hau bereziki nabaria zaigu ermitetan, non seroren doteak eta dohaintzak tenpluen ekonomia eta biziraupena erabat baldintzatzen hel zitezkeen. Eta are sona handiko santutegietan ere tenpluaren sostengua seroren ekarpenei estuki lotua egon zitekeen, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko seroren kasuan ikusi ahal izan dugunez. Halatsu, hein horretan landa-eremuetako auzo eta elizateetako parrokien egoera ere batzuetan ez zen ermitetakoenetik oso urrun egoten, eta seroren ekarpenak garrantzi handia izatera hel zitezkeen. Eta bestelako tenpluen kasuetan ere seroren ekarpenek bere pisua zeukaten, hiribilduetako parrokien kasuan obretarako diru-bilketek edo parroketako seroragaien dotearen enkantearen praktikak agertzen digutenez.

Diruzko dohaintzez gain, ondasunen dohaintzak ere neurri eta kopuru esanguratsuetara hel zitezkeen, eta tenpluak eta bertako zerbitzariak ornamentuz, jantziz eta ohialez, nahiz argiz ornitzerako orduan, seroren dohaintzak garrantzitsuak izan ziren. Parrokiaren, ermiten, santutegien eta ospitaleen kasuetan ohizkoena dohaintza esanguratsuak tenpluetako bertako seroren eskutik helduak izatea bazen ere, bestelako seroren pietatezko dohaintzak ere hainbat izan ziren, zenbait, aintzat hartzeko kopuruak. Eta halaber, komentuek eta kolegioek ere jaso izan zituzten hainbat dohaintza, nahiz eta dohaintzen eta hauen emaleen kopurua mugatua izan; batez ere

¹⁵⁰⁶ VII. 1. atalean zehar azaldu izan zaizkigu, 631 eta hurr. or.

parrokia nagusietako serorek eta tenpluekiko lotura gabekoek emanak izan ziren. Alabaina, serora emaleak hainbeste ez izanik ere, kopururik nabarmenenak tenplu eta instituzio hauei dagozkie, arraroa ez dena, emaleen hiribilduetako testuingurua Aro Berrian diru eta aberastasun gehieneko familiak eta leinuak kokatu zirenekoa baitugu, eta dohaintza hauen emale izan ziren serora gehienak, familia horietako partaide edo/eta beraien zerbitzuko izan baitziren. Aipagarria dugu, hala ere, komentu eta kolegioen aldeko dohaintzak hauen presentziak indarra hartua zuen espazioetan soilik eman zirela, bestelako espazioetan, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Elgetan kasu, -salbuespenak salbuespen- jasotzaileen artean bestelako tenpluak baino agertzen ez zaizkigularik.

Horrez gain, Aro Berrian hiribilduetako testuinguruek, batez ere komertzialek, izan zuten protagonismoak hiribilduetako parrokiak dohaintzarik handienekin onuratuak izatea ere eragin bazuen, auzo eta elizateetako parrokiek eta ermitek -gehienetan bertako seroren aldetik- jaso izan zituzten dohaintzak ere askotan ez ziren kopuru txikietakoak izan; hau da, hiribildu / landa-eremu banaketa, seroren aberastasunen edukitze eta ematearekiko neurri bateraino baino ez dugu adierazgarri, eta landa-eremuetako tenpluen aldeko dohaintza handien kasuen kopuruak, hauek anekdotikotzat hartzea galerazten digu.

Alabaina, nahiz eta diruen eta ondasunen tenpluen arteko banaketan guztiendako parterik izan zen, Aro Berriak aurrera egin ahala seroren aberastasunetan izan zen beherakada, familia-kide eta lagunuen aldeko dohaintzetan ere ikusi dugunez, nabaria izan zen. Seroren euren kopuruaren jeitsierarekin batera noski, dohaintzan emandako kopuru orokorrek behera egin zuten, baina serora bakoitzak emandakoen batzbestekoek, ostera, gora egin zuten. Hau, familia-kideen eta lagunuen aldeko dohaintzei buruz jardutean azalduko aberastasunen "kontzentrazioarako" joera orokorrek seroren testuinguruan ere bere islada izan zuelako izan zen; XVII. mendearen lehen hamarkadetako desagerrarazte aginduaren ondoren seroren kopurua gradualki jeitsiz -eta izaeraz aldatzen- joan bazen ere, aberastasunak familia eta botere-esparru mugatuagoen eskuetan pilatuz joan ziren prozesuaren baitan, seroraten egoera eta estatus sozial eta ekonomiko bereziak zenbait serorak pilaketa prozesu hartan parte hartzea eragin zuen. Hala, XVIII. menderako seroren egoera ekonomikoak polarizatuagoak ageri zaizkigu aurreko garaietakoak baino: parrokietako eta hiribilduetako tenpluenganako loturarik gabeko serora batzuk aberastasunen pilaketa prozesuan barneraturik ageri zaizkigu, eta ostera, landa-eremuetako eta bereziki ermitetako serorak, seroretxeen alokairuaren ohitura hedatzen joan ahala "laikotuak" izateaz beste, askoz maila ekonomiko xumeagoan ageri zaizkigu, beraien ermitei dohaintza esanguratsuak egin zizkieten aurreko garaietako serorak baino.

Tenpluetako zerbitzarien aldeko dohaintzek aldiz, orokorrean, familia-kideen eta lagunuen aldeko dohaintzetan hauteman ahal izan ditugun generoen araberrako banaketan hirizpide berberak jarraitzen zituztela esan liteke. Bai dohaintzen jasotzaileen kopuruei dagokionean, bai ondasun moeten araberrako banaketan, bai eta 1650erartekoan eta geroztikoen arteko gizonzkoen aldeko dohaintzen gorakadan ere. Eta konkretuki tenpluetako zerbitzarien kasuan, gizonzkoen aldeko dohaintzen gorakada bera baino seroren aldekoen beherakada nabariagoa dugu. Hemen ere badira, beraz, Aro Berriaren bigarren erdialdeko seroren instituzioaren gainbeheraren zantzu aski garbiak.

VII. 2.2. Arimaren aldeko diruak: mezak, anibertsarioak, memoriak

Seroren testamentuetako beste alderdi garrantzitsu bat arimaren aldeko diruena da, beraien heriotzean egin beharreko hileta elizkizun, ondra, bederatziturren,

urtebukaerako, etab.ena, eta fundatu izan zituzten anibertsario eta memoriarena. Elizkizun eta meza guzti hauek, seroren euren arimez beste, noski, bazuten beste onuradunik: ofizioak egitearren emolumentuak jasotzen zituzten tenpluetako zerbitzariak eurak, batez ere apez eta benefiziodunak, baina baita beste serorak ere (gainera, lehenak bezala, zenbait kasutan hildako seroren oinordeko edo albazea izan ohi zirenak).

Lehenik argitu beharreko puntu bat, seroren hiletak, errituotako mailaketa sozialen testuinguruan zeukaten tokiarena da. Testamentuak ditugu noski hau argitzeko oinarri nagusia, eta hauetan, mailaketen adierazpenerako ohitura eta hizkera sinboliko ezberdinekin egiten dugu topo, herrien eta espazioen arabera. Kokatzen joateko Madariaga Orbearen lanek laguntzen gaituzte oraingoan ere; XVIII. mendearen bukaera aldeko eta XIX.aren hasierako datuekin izanik ere, herriren batzuetarako mailaketen inguruko informazio garrantzitsua ematen digu:

Según una Concordia "inmemorial" en Arrasate/Mondragón se seguía manteniendo en 1785 que los funerales podían ser de cuatro niveles: de primera o de honra mayor con novena y cabo de año; de segunda o de honra mayor de una mañana; de tercera o de honra mediana y de cuarta o de honra de una mañana sin misa; este último era el que se aplicaba gratuitamente a los pobres. [...] En Bergara en 1828, había un entierro de primera que costaba 550 reales, otro de segunda que valía 200 reales, el de tercera de 60 reales, el de cuarta de 30 reales y a los pobres hospitaleros se les enterraba gratis. En total cinco niveles. En la parroquia de San Miguel de Oñati había igualmente cinco niveles, llamados: "de nueve capas negras y 12 cirios", "de 5 capas negras y 8 cirios", "de una capa negra y 6 cirios", "de una capa negra y 4 cirios" y de "una capa negra". Mientras tanto en el convento de Bidaurreta se distinguían 7 niveles: "con todos los clérigos", con 12, 8, 6, 4 o 2 clérigos o "con cura y sacristán" (Madariaga Orbea 2007, 209-210)

Horrez gain, Madariaga Orbea berak Lekeitiorako jasotzen digunaren arabera, "cirio" kopuruak seroren kopurua adierazteko ohitura gurean ere balizko izan zitekeela aintzat hartu beharrean gaude:

Así, lo constata, por ejemplo, el padre Azkue para su pueblo natal Lekeitio, en donde estos tres tipos se llamaban: el de primera: *zortzikoa*, el de segunda: *laukoa* y el de tercera: *batekoa*. Se debe esto a que, entre otras diferenciaciones, en el primer caso el cortejo funeral iba encabezado por cuatro seroras portadoras de ocho velas, dos cada una, en el segundo, eran dos seroras con cuatro velas y en el tercero era una con una única luz" (*Ibid.*, 210)

Hauekin bat, beste elementu batzuek ere baziren, hiletan mailen identifikazioan lagun gaitzaketenak: euren artean, animalien eskaintzen sinbolismoa. Trazu orokorretan, honakoa izaten zen Euskal Herrian (edo Gipuzkoan behinik behin) jarraitzen zen ohitura:

Desde luego el número de animales ofrendados iba en función de la categoría social de cada cual. Generalizando mucho, los niveles superiores implicaban la ofrenda de bueyes y/o novillos, en los intermedios se entregaban carneros y en los más humildes pan y cera, que por supuesto se entregaba también en los niveles superiores. El buey correspondía exclusivamente a los funerales de primera categoría que tocaba a las "casas principales"; el carnero, por lo general a los demás dueños de casas y el pan y la cera solamente a los no propietarios. En una declaración de los Cabildos secular y eclesiástico de Elduaiein con motivo de diezmos se dice textualmente: "Que el día del entierro de los Vecinos dueños de casa que son y hubiesen sido de esta Villa, conforme se ha practicado y practica hasta aquí hayan de llevar a las puertas de la Iglesia un carnero vivo, el cual ha de ser para el Cabildo; y que si el Cabildo no lo quisiera tomar, haya de pagar la parte quince reales de vellón en dinero" (*Ibid.*, 120)

Debagoieneko herrien arabera, hiletan mailak elementu sinboliko ezberdin hauen arabera identifikatu ohi zituzten, nahiz eta kasu ugarian informazioa falta zaigun, "como se acostumbra" edo "como a personas de mi Calidad" bezalako esakerek ezkutaturik. Alabaina, halako adierazpideen erabilerak berak berresten digu hiletan mailen berri eman zuten seroren testamentuetako informazioaren fidagarritasuna, finkaturiko ohituren presentzia nabaria agertzen baitigute. Horrez beste, informaziorik heldu zaigun Debagoieneko herrietan behintzat ez dirudi ohiturak zehazki Madariaga Orbeak deskribaturikoak zirenik, lehen mailako hiletak adierazten zituen eskaintza, idia beharrean aharia izan ohi baitzen.

Bergaran, hiletan mailen inguruko berririk ematen diguten testamentuetan, San Pedro eta Santa Marina parrokiako ohiturak gehienetan "'cirio" kopuruetan adierazirik ageri zaizkigu. San Pedron 3koak izaten ziren, eta Santa Marinan 4koak. Hala adierazi zuten kandelan kopurua aipagai izan zuten parrokia bateko eta besteko kasu guztietan. San Pedro parrokiako mailen identifikaziorako "Derechos de entierros" izenburua daraman XIX. mende erdialdeko dokumentua ere badaukagu¹⁵⁰⁷, eta honetan kandela kopururik aipatu ez bazen ere, ogiaren eta eskumuinen inguruko informazioak bertako mailakatzetan serorak non kokatzen ziren jakiteko bidea ematen digu. "Ohituraren arabera" eskaturiko hiletez beste, hiletak San Pedro parrokian egitekoak zituzten seroren artean 2. mailakoak eskatu izan zirela dirudi. Maria de Mendozaren (1650) testamentuak ematen digu giltzarrietariko bat, 3 kandelatako hiletak 2 librako ogizko eskaintzei zegozkiela argitzen baitigu. 2. mailako hiletak, XIX. mende hasieratako "Derechos de entierros"-en arabera, azpimailaketa bat zeukaten, -besteak baino garestiagoak ziren- "de Deposito" modalitateko ez beste, 3 maila bereizten zituena. Lehenean hiletetako eskaintzak 1. mailakoetakoak bezalakoak ziren, 4 librako 21 ogirena; ondretan 60 ogi banatzen ziren, eta -14 hilabeteko- urtean zeharreko ogi-eskaintzak lehen mailakoan bezala egiten ziren (hau da, igandero 6 ogi eta larunbat eta astelehenetan bana, bestelako jaiegunez gain), baina 4 librakoarekin beharrean 2 librako ogiarekin. Hileta hauek bariante garestiago bat zeukaten, eta beste bat merkeagoa. Garestian ("de pan de tres libras") urtean zeharreko ogi-eskaintzak 2 librakoarekin beharrean 3 librakoarekin egiten ziren, eta merkean aldiz ("de medio pan"), ogi-eskaintza guztiak, hileta eta ondretakoak barne, 2 librako ogienak egiten ziren.

Nahiz eta zenbait aspektutan aurreko mendeetako ohiturek XIX. mendearen erdialdean jaso zirenekin zeharo bat egin beharrik ez izan (esaterako, Aritzetako San Migel ermitako Catalina de Querexazuk -1605- igandero 5 ogiko eskaintza aipatu zuen, XIX. mendeko dokumentuan 6 ogi ematen zirela dioskun artean), aipatu berri dugun Maria de Mendozaren (1650) hiletan deskribapenean azaltzen zaigun "los domingos el pan de a tres libras y las fiestas y lunes de a dos libras y lo demas aderente a ello" horrek, hiru azpimailen arteko garestiena adierazten digula dirudi. Bada beste elementu bat, kandela kopurua nahiz ogien pisua aipatzen diguten testamentuetan bezalaxe, beste batzuetan agertzen zaiguna: zenbateko eskumuinak ematen ziren. 1650erarteko testamentuetan erreal laurdeneko eskumuinak ematen ageri zaizkigu,

¹⁵⁰⁷ BUA 04 MIK/SP14, 131-133. Goraxeago jaso dugun Madariaga Orbearen aipuan Bergaran 1828an zeuden ohituren berri ematen zaigu, 5 mailatako hiletak aipatuz. Jarraian egingo ditugun kontsiderazioetarako baina, nahiago izan dut XIX. mendearen erdialdeko dokumentu honetaz baliatu, ezen, nahiz eta, itxuraz, Madariaga Orbearen aipuko lehen hiru mailen berri baino ematen ez digun, hiletan eta bertako gastuen inguruko informazio xedatua eskaintzen digulako, askoz lagungarriagoa zaiguna. Dokumentuan ohitura zaharragoen berri eman zela eta datuen inguruko erabateko zehaztasuna, edozein kasutan, ezinezkoa dugula aintzat harturik, zentzudunagoa deritzot dokumentu honen aldeko hautua egiteari.

azkena urte hartan bertan, baina eskumuinen hurrengo aipamenetan, jada XVIII. mendearen hasieratan, ugariago ziren erreal erdikoak eman zituztenak ("quatro quartos"), erreal laurdenekoak ("dos quartos") eman zituztenak baino. Horrez gain, azken kasu hauetan hiletak "con pan de dos libras" bezalakotzat ere aipatu ziren, eta 2. mailakoen arteko erdibidekoa adierazi nahiko zuketela dirudi; bestetan egin bezala, "de tres libras"-ko hiletatzat aipatuko zituzketen bestela. Edozein kasutan, beraien hiletan modalitatearen berri ematerako orduan hauetariko elementu bat edo beste aipagai izan zuten San Pedro parrokiako eliztar ziren seroren testamentuak 6 ditugu, eta gainontzeko 9ek ohituraren arabekoak, edo familia-kide ezberdinei egindakoen parekoak edo albazeekin hitzartutakoaren arabekoak eskatu zituzten. Eskuragarri daukagun informazioarekin, printzipioz, Bergarako San Pedro parrokian serorek eskatu eta izan zituzten hiletak 2. mailakoak zirela esan liteke, azken hauen arteko azpimailaketaren baitan, garestienak edo erdibidekoak izanik ohizkoen.

Begarako beste parrokian, Santa Marinan, nahiz eta kandela kopurua aipagai izan zuten kasu guztietan 4 kandelako hiletak eskatu ziren, bertako seroren hiletak San Pedrokoenen antzerakoak dirudite. Ogi eskaintzak aipatu zirenetan 2 librako ogien mailakoak edo "pan añal entero"-koak aipatu ziren (gogoan izan San Pedro parrokian XIX. mendearen hasieratan ageri zaigunaren arabera, 2. mailakoen arteko merkeena "de medio pan" zela), eta eskumuintan San Pedro parrokian XVIII. mendeko testamentuetan ageri bezala erreal erdikoak emandakoren bat badaukagu ere, gehienetan, San Pedro parrokian 1650erartekoetan bezala, "a quartillo" ematen ziren. Itxuraz, beraz, Santa Marina parrokian ere, San Pedro parrokiako antzerako mailetan kokatzen ziren bertako eliztar ziren seroren hiletak.

Elgetan bestelakoak ziren hiletan mailak aditzera emateko moduak, eta ez dakigu garbi bertako mailaketetako ohituren artean seroren hiletak zeinetan kokatzen ziren. Hala ere, hemen ere ohiturak aski finkatuak zeudela dirudi. Andre Maria parrokiako eliztar ziren serorek hiletetan, bederatziurrenetan eta urtebukaerakoetan bezalaxe, benefiziodunei gari anoa erdi ogitan emateko ohitura zeukaten, txiroei eman ohi zitzaien anoa laurdenarekin batera. Hau da, horiek ziren hiletan maila zehazteko aipatu izan zituzten elementuak. Andre Maria parrokiako eliztar ziren 8 seroren arteko 6k agindu zituzten hiletak horrela, ohituraren arabekoak agindu zituen batekin, eta benefiziodunei, txiroei bezalaxe, anoa laurden baino eman ez zien kasu batekin batera. Azken kasu hau Andre Maria parrokiako bertako serora zen Maria Ochoa de Marquieguirena (1592) dugu, eta benefiziodunek arimen aldeko mezetara agertzerakoan euren kale-egiteak izaten zituztela iradokitzen digu; eta parrokia bertako serora izanik horien jakitun baitzen, Maria Ochoak de Marquieguik, benefiziodunei ogi-eskaintzetan beste serorek baino gutxiago emateaz gain, bestelakoak ere zehaztu zituen:

se de el pan añal a los dichos beneficiados en los dias de domingo de entreaño de mi finamiento con tal que los curas tengan quenta particular de haçer memoria por su anyma en dichos dias de domingo de entreaño y que los dichos beneficiados hagan deçir una mysa en los dias domingos de entreaño por my anyma y se pague de pitaça rreal y medio de cada mysa y que en los dichos dias de domingo acuada la tal mysa ayan de dar un rresponso por my anyma allandose al dicho rresponso los dichos beneficiados todos y ha la mysa faltaren de dichos en los dichos dias de domingo que a ocasion de algun entierro o cauo de año o nobenario en tal caso es mi uoluntad que el pan añal del tal dia se de a pobres bergonçantes de la tierra a dispusiçion de mis testamentarios

Ez zuen serorak, antza, benefiziodunak bere arimaren aldeko mezetara prestuki agertuko zirenik gehiegirik uste. Salbuespenak salbuespen, hala ere, Elgetako Andre Maria parrokian hiletak izan zituzten serorek benefiziodunei gari anoa erdiko ogiak

ematearen neurrikoak ziren. Angiozarreko San Migel parrokiako eliztar aldiz, Elgetako bi serora ziren, eta batak ohituraren arabera aipatu zituen artean, besteak benefiziadunei gari anoa laurdeneko ogien neurria eman zien, hau parrokiako ohiturazkotzat aipatuz. Ogi-eskaintzez eta eskumuinez gain, Elgetako serorek hiletan gorabeherak zehazteko zeukaten moduak Leintz bailarako eta zehazki Arrasateko ohituretara gerturatu gaitu, aurreraxeago azken herri honetan ikusiko dugun lez, Elgetan ere hileta egunean "con sus diaconos e sodiacono" esan beharreko meza kantatu bat agintzen baitzuten, egunean bertan esan bazitekeen orduan esatekoa, baina ezin izatekotan hurrengo egunean esan beharrekoa; eta horiez gain, zeregin gabe zeudekeen apez guztiek otoitzezko meza bana esatea ere agintzen zuten.

Ostera, Antzuolako parrokia batueta, alegia, hiribilduko Gure Errukizko Ama eta Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailea parrokitan, Bergarako ohituren antzerakoak ageri zaizkigu. Bietan serorei 4 kandelaren mailako hiletak egiteko ohitura zegoela dirudi, eta hemen ere, noski, "a las demas personas de mi Calidad" egiten zitzaizkien hiletak eskatu zituztenak ere izan ziren hainbat, eta baita "a mis padres" edo beste pertsonaren bati egindakoen parekoak agindu zituztenak ere. 4 kandelako mailak Bergarako Santa Marina parrokiako mailakatzeko ohituretara garamatza, eta gainera, aspektu hauek zehaztasun gehienarekin aipatu izan zituzten seroren testamentuak Bergarako Santa Marina parrokiako eta Antzuolako Uzarraga auzoko San Juan Bataiatzailekoak ditugu, eta hein handi batean bat egiten dute. Ez dezagun ahaztu bi parrokia hauek -Goi Erdi Aroko- garai zaharretako "monasterioetakoak" ditugula, eta biak batera igaro zirela Oñatiko kondearen ondasun izatera, Aro Berrian zehar, honen patroitzapean mantenduz. Antzekotasun handiak dituzten ibilbideak dituztela, alegia, eta antzerako jatorrizko ohiturak izanak zituzketela. Bi testamentu hauetan, bada, Bergarako Santa Marina parrokiako Catalina de Sarralderenean (1628) eta Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako Maria de Iturberenean (1673)¹⁵⁰⁸, 4 "cirios"-ez gain beste 2 "belas" ere aipatu ziren; azken honen kasuan, hileta, bederatziaurrea eta urtebukaerakoa honela egin behar zirela zehaztu zuen: "con pan entero de a libra y media quatro çirios [asi] uien de libra y media y mas dos belas, medio real de bessamano y demas aderente".

Baina kasu honek, antzekotasunak bezalaxe, ezberdintasunak ere azaltzen dizkigu. Aipuan bertan ageri zaigu nola Antzuolako "pan entero"-ak libra eta erdikoak ziren, Bergarako bi librarakoak beharrean; beste testamentu batzuetan ere pisu berbera aipatzen zaigu. Eskumuinekiko osterara, Bergaran aipatu dugun erreala laurdenetik erreala erdirako igoera berresten zaigu; Antzuolako testamentu gehienak 1650az geroztikoak ditugu, eta eskumuinak aipatu izan ziren 1649ko lehen testamentuaren ondorengoetan, hauek erreala erdikoak agindu izan ziren, Bergaran 1650erartekoetan gertatzen zenaren kontrara, non erreala laurdenekoak emateko ohitura izan zen. Bergaran XVIII. mendearen hasieratik ikusi ditugun erreala erdiko eskumuinak, beraz, Antzuolan jada XVII. mendearen erdialdetik ematen ziren. Ez dakiguna, Antzuolan aurretik izandako ohitura erreala laurdenekoena, edo erdikoena izango ote zen da.

¹⁵⁰⁸ Serora honen bi testamentu eskuratu ahal izan ditugu, bata 1649koa eta bestea 1673ko hau; beste zenbait baloraziotarako lehena baliatu dugu, dohaintzen berri emateko, etab., azkenak baino askoz informazio xedatuagoa eta zabalagoa ematen digulako, eta azken testamentu honetan, jada lehenean aipaturiko diru eta ondasunak emanak izan behar zituelako. Testamentu batean eta bestean ageri zaigun aberastasunen aldeak behintzat, jada bigarrena erredaktatu zuenerako banaketa eginga zeukala iradokitzen du. Alabaina, arimaren aldeko betekizunetan bigarren hau osatuagoa dugu; harritzekoa ez dena, adierazten duen lez azken bi urteak ohean iragan izanik, izango baitzuen bere arimaren zaintzari buruz arduratzeko aski denbora.

Arrasatera igaro eta Leintz bailaran sartzen garenean bestelako hizkera sinboliko batekin egiten dugu topo. Ikusi dugu goraxeago, nola 1785eko hitzarmen "inmemorial" batean lau mailako banaketa jaso zen; itxuraz behintzat, bertako seroren testamentuetan aurkitzen ditugun hiletak, lehen eta bigarren mailetan kokatu beharko genituzke. Hau da, Madariaga Orbeak "de honra mayor con nobena y cabo de año" eta "de honra mayor de una mañana" bezala jaso zizkigunetarikoak. Baina hemen ere, testamentuetako hizkerak zalantzatarra garamatza. Zalantzagabea duguna, hala ere, finkaturiko ohituretariko bat hileta requiem mezarekin eskatzearena, eta goizean hil izanik mezak esateko denbora emanaz gero hileta goizean bertan, eta hala ez izatekotan hurrengo egunean egitearena dugu. Halaber, ahal zuten apezek otoitzezko mezak esatea ere aipatzen zuten, eta baita hiru nokturno esan behar zitzaizkiela ere. Elgetan ere aurkitu ditugun zehaztapen hauek, Arrasateko serora gehienek egin zituzten. Bederatziurrena eta bi urtebukaerako egitea ere serora gehienek artean aurkitzen dugu, eta beraz, printzipioz, lehen mailako hiletan aurrean gaudela pentsatu beharko genukeela dirudi. Arrasaten bederatziurrena heriotzetik hiru egunera egin ohi zen, eta hiru ondrek, egun hartan ("onrra del nobeno") eta bi urtebukaerakoetan egiten ziren, betekizunak agindu ziren moduetatik eratorri litekeenez; izan ere, bederatziurrena eta bi urtebukaerakoak ondrek baino gehiagotan aipatzen zaizkigu, "ofrendas"-ak egiteko momentu bezala. Eta gehienetan aipaturiko beste elementu bat, hain prezeski ere, hiru ondretako ahariaren eta gari anoaren eskaintza dugu; baina honek ez digu halabeharrez lehen mailako hiletak zirenik adierazten, Bergarako San Pedro parrokiako XIX. mende hasieratako "Derechos de entierros"-etan ere agertzen baitzaizkigu ahariaren eskaintzak, baina garai hartako banaketako 3 klaseetan, errealetan emandako balio ezberdinekin: lehen mailan 120, bigarrenean 60, eta hirugarrenean 44. Halatsu izan zitekeen Arrasaten ere, San Juan Bataiatzailea parrokiari.

Esandako elementuak gehienetan aipatu izan bazituzten ere, bestelako alderdi batzuek aginduriko hiletetan maila bat baino gehiagokoak zeudela pentsatzera garamatzate. Honen frogarik garbiena Maria Gimenez de Gesalibarren testamentuak (1614) ematen digu: hiletak "con la honra maior o menor" egitea albazeen esku utzi zuen. Ondra hauen oinarrizko banaketaren eta oinarri honen gain izan ohi ziren bariazioen inguruko aspektuak ikertu eta azaldu dituenik izan da, gure zorionerako:

Se distinguía entre honras mayores y menores de acuerdo al aparato y solemnidad de los ritos. La honra mayor era la ceremonia que se celebraba con tres capas y dos cetros de plata, llevando una de aquéllas el cura semanero junto con una estola. Las otras dos capas las vestían los dos medios beneficiados semaneros de las diaconías con los dos cetros y dos velas de cera. Aunque los repartos monetarios por la celebración de las honras se hacían extensivos a todos los beneficiados, estos dos curas recibían el tercio de lo ofrecido por la misa de difuntos.

En la honra menor, a diferencia del anterior, el preste celebraba con una capa y dos cetros. Sin embargo existía una gran variedad de honras, cuya mayor o menor ostentación estaba en consonancia directa con el precio que se ofrecía por la celebración de las mismas. Así, durante el siglo XVII, la honra mayor se pagaba a cincuenta reales, mientras que la honra con tres nocturnos y una capa pero sin cetros costaba un real. Estos pagos no incluían la cera que los curas gastaban en las velas y que eran satisfechos por la familia del difunto. En este sentido, fueron también continuas las luchas del cabildo con los feligreses que, aduciendo pobreza, celebraban honras mayores más baratas por veintisiete reales, y, al mismo tiempo llamaban a los frailes del convento de San Francisco para celebrar los entierros y para vestir a sus finados con el hábito de esta orden monástica, que cobraba los derechos correspondientes. Tales prácticas, que desviaban posibles ingresos de la parroquia en provecho del convento franciscano, resultaba intolerable a ojos del cabildo ya que con ello "vienen a

defraudarse los beneficios porque no se celebra la nobena ni el cabo de anno y se priban del trigo, pan y carne que se ofrece entre anno". De este modo, se decretó que los feligreses podían acompañarse de los franciscanos para celebrar misa de difuntos en la Iglesia parroquial, siempre y cuando previamente hubiesen provisto de semejantes misas a todos los beneficiados del cabildo, con el fin de que éstos no se viesen privados de su sustento (Astigarraga Loiola 2000, 94-95)

Aurreraxeago erreparatuko diegu frantziskotarren komentuarekin izandako gorabehera hauei, baina ohar dezagun oraingoz, esan bezala, seroren ogi-eskaintzetako eta eskumuinetako bariazioek ere maila ezberdinak bazirela eta barianteetarako flexibilitatea zegoela pentsatzera daramatela. Halaber, ohitura hauek erabat finkatu gabe zeudela eta urteen igarotzean aldatuz joan zirela ere pentsa liteke. Ogi eskaintzei dagokienean, XVI. mendetik XVII. erako igarotzean eskaintzen denbora eta ogien neurriaren murrizteak gauzatu joan zirela esan liteke; hala, Catalina de Otaloraren (1570) eta Catalina de Abendañoren (1590) kasuetan 3 urtetan zeharreko eskaintzak agindu ziren, lehenak lehen urtean libra batekoak eta beste bietan erdikoak, eta bigarrenak aldiz, lehen urtean libra eta erdikoak, bigarrenetan librakoa eta hirugarrenean libra erdikoak nahi zituztela. Antonia de Osinagak (Musakola, San Antolin ermita, 1603) aginduriko ogi-eskaintzak aldiz 2 urtetakoak izan ziren, "a media libra de pan". 1603an bertan helarazi zen beste testamentu bat dugu urtebeteko ogi-eskaintzak agintzen ageri zaigun lehena, Santa Marina ermitako Teresa de Urisarrirena; urtebetean "oblada de media libra de pan" eman zedin nahi zuen. Ana de Larak (1623) ere beste hainbeste egin zuen, baina eskaintzak libra batekoak edo erdikoak izan, bere albazearen erabakira utziz.

Diogunez, ez dakigu garbi ogi-eskaintzetako bariazio hauek garaien araberako aldaketak ala hiletan maila ezberdinen agergerri ditugun, eta eskumuinekiko ohiturek ere erdibide berberera gakartzate. Alabaina, ez dute ogi-eskaintzek agertzen diguten seroren arteko banaketa berbera agertzen, parrokiako ohituren aniztasuna eta flexibilitatea berretsiz. 3 urteko ogi-eskaintzak agindu zituzten Catalina de Otaloraren (1570) eta Catalina de Abendañoren (1590) kasuetan, lehenak eskumuinak erreal batekoak (lehen eskaintzan erdi, beste bietan laurden) eman zituen, eta bigarrenak osterari bi errealekoak (lehen eskaintzan bat, besteetan erdi). Baina ohizkoenak ditugun kopuruak lehen bi serora hauen ondorengoetan agindu ziren erreal eta erdikoak eta hiru errealekoak izan ziren, eta ohizkotasan horrek nolabaiteko banaketa agertzen digula dirudi. Lehenak Maria de Arosteguiaren (1599), Teresa de Urisarriraren (Santa Marina ermita, 1603), Ana de Lararen (1623) testamentuetan agindu zituzten, eta bigarrenak berriz Antonia de Osinaga (Musakola, San Antolin ermita, 1603), Francisca de Gabiria (Ospitalea, 1639) eta Ana de Ayestarenetan (1664). Hiletan mailen inguruko zalantzak erabat argitu gabe gelditzen bazaizkigu ere, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako eliztar ziren seroren hiletak, edozein kasutan, lehen edo/eta bigarren mailetan kokatzen zirela esan liteke.

Auzoetako parrokiako eliztar zirenen kasuetan informazio urriagoa daukagu, eta ezin gara hortaz eskatzen zituzten hiletei buruzko zehaztapen askotara heldu. Eskura dauzkagun bi testamentuek, hala ere, goiko mailetan kokatzen zirela adierazteko besteko daturik ematen digute. Udalako San Esteban parrokiako serora izan zen Catalina de Huruburuk (1610), ohituraren araberako hiletak aipatu bazituen ere, garbi utzi zuen nahi zituenak garrantzizko pertsonen zegozkien hiletak zirela: "conforme se acostumbra en ella a las personas principales parroquianos de ella". Gesalibarreko Santa Ageda parrokia eta ospizioan serora zen Maria Perez de Bengoak (1625) ere "con la honrra que se acostumbra a persona de mi calidad" nahi zituen hiletak, hiribilduko

parrokia nagusian bezala bederatziurrenarekin eta urtebukaerekin (pluralean aipaturik, bi zirela pentsa liteke), eta urtebeteko ogi-eskaintzarekin. San Balero ermitan serora izan zen Maria de Insauberren (1579) kasua ere badaukagu, asko izan gabe ere, zenbait serorak egin izan zuten -pietatezko- hautua agertzen diguna: parrokian beharrean, norbere ermitan ehortzia izan eta hiletak bertan eginak izatea. Parrokian beharrean ermitan, baina "todos los refrigerios mysas y novena y mysa de rrequiem y cabos de anos y todo lo demas que a semejantes personas que a my se acostumbra azer en la dicha villa sin que falte cosa alguna" nahi zituen, hau da, parrokian eginak izan balira bezalakoak.

Arrasateko ehorzteetako eta hiletetako ohiturei buruz bestelako azalpen batzuek ere eman beharrean gaude. Teresa de Urisarriren kasua gorago aipagai izan dugu, San Juan Bataiatzailea parrokian izan ohi ziren hiletan artean. Alabaina, serora hau Arrasateko hiribilduan ehorzteen eta hiletan inguruko kompetentzia gehien izan zuten bi tenpluen arteko ikamiken erdibidean kokaturik ageri zaigu, hainbatetan aipagai izan dugun Maria Lopez de Olazaranekin batera. Goragoko aipuan agertu zaigunez, beste hainbat herritan gertatu ohi zen bezala, Arrasaten ere parrokia nagusiaren eta bertako komentuen arteko liskarrak izan ziren ehorzte eskubideen inguruan. Kasu honetan, moja agustindarren eta frantziskotarren komentuek ere baziren ere, gizonezko frantziskotarren komentu eta kolegioarekin izan ziren liskarrik handienak. Hau 1585ean fundatua izan zen, eta esan bezala, 1603an Teresa de Urisarri eta 1604an Maria Lopez de Olazaranek euren testamentuak helarazi zituztenerako, hasiak ziren komentuaren eta parrokiaren arteko ikamikak. Teresa de Urisarri komentuan ehortzia izan nahi zuen, baina ez zegoen hala egin ahal izango ote zuten erabat ziur, eta beraz, "si por ventura vbiere algun ympedimento para que yo y mi cuerpo no sea enterrado en la dicha sepultura", hiletak San Juan Bataiatzailea parrokian egin zitezela agindu zuen. Ez dakigu azkenean non eginak izan ziren. Maria Lopez de Olazaranen kasua (1604-1607) are esanguratsuagoa dugu, serora honek bere testamentu-dohaintzan frantziskotarren kolegio eta komentuari bere arimaren aldeko betiereko meza sorta zabal baten truke eman nahi izan zion diru-kopuru handiagatik (1.000 dukat baino gehiago), eta ondorioz, parrokiaren eta komentuaren artean ehorzte-eskubideegatik izan ziren liskarretan hartu izana zezakeen pisuagatik. Kasu honetaz zehatzago betiereko memoria eta anibertsarioei buruz jardutean arituko gara, seroraren testamentu-dohaintzan eman ziren diruak, hain zuzen ere, betiereko memoriaren truke emanak izan baitziren. Esan dezagun baina hemen labur, dohaintzak seroraren eta garai hartan Arrasateko alkate zen Rodrigo de Santamariaren arteko auzi bat motibatu zuela, bi tenpluen arteko tirabiren testuinguruko gertakizunak diruditenetan. Eta luzaro iraun zuten oraindik serora hauen kasuek agertzen dizkiguten parrokiaren eta frantziskotarren komentuaren arteko liskarrek; 1697an bi komunitateen eskubideak finkatzeko hitzarmen bat egin zen, azkenean bi aldeetariko batek ere bete ez zuena, artean ere hainbat liskar eta ikamikarako bidea emanez (Astigarraga Loiola 2000, 98-100).

Arrasateko hiletan egoerari buruz informazio ugaria bildu ahal izan badugu, Aretxabaletako eta Eskoriatzako seroren testamentuetan oso eskasak dira atera litezkeen argibideak. 7 dira hiletei buruzkoak aipatu zituzten testamentuak, eta hiletak, bederatziurrenak, ondraz eta urtebukaerakoa gehienetan aipatu izan baziren ere, hauek Leintz bailarako (Aretxabaleta eta Eskoriatza) ohituraren arabera egitea guztietan agindu zen, zehatzapen askorik eman gabe. Aretxabaletan bederatziurrenez gain zazpiurrena egiteko ohitura zegoela ere badakigu, bertako lau testamentuetariko bitan behintzat aipatu ziren eta. Horrez beste, Maria Ruiz de Araoz y Duranaren (Aretxabaleta, 1629) testamentuak baino ez digu bestelako daturen bat ematen: hiletetan

requiem meza bat esatea agindu zuen, eta Arrasaten ere ikusi dugun bezala frantziskotarren aldeko preferentzia agertu zuen, meza ahal balitz ordenakoren batek esatea nahi baitzuen, ordena bereko diakonoekin, eta beraiei eta bestelako apezpei, ohizko ordainketak eginez.

Leintz Gatzagako serorei buruz daukagun informazioa ere mugatua da, Dorletako Andre Maria santutegiko seroren testamentuak baino eskuratu ahal izan ez ditugulako. Eta gainera, santutegi honi eskaini diogun kapituluan azaldu izan dugunez, bertako serorek santutegiko administratzaileekin eta udaleko eta elizako agintariekin izandako gorabeherak hauetariko gehienek heriotzaren aurretiko garaiak santutegitik kanpo iragan izana motibatu zutenez, serora hauen hiletetako betekizunen artean irregulartasun askorekin egiten dugu topo. Hala ere, egin liteke bertako seroren San Milian parrokiako ohizko hiletan gutxieneko irudi bat osatzeko saiakerarik. Lehenik eta behin, Luisa de Aguirreren testamentuan (1693) ohituraren arabera hileta eta hiru ondra egiten zirela ageri zaigu, hauek "a disposicion de los Señores Sacerdotes del Cabildo de dicha Yglesia" egin zitezela agindu baitzuen; hileta eta ondra horietan xahutzen zenaren ideia bat ere ematen digu, hauek egitearen eta beharrezko argizariaz ornitzearen truk, 40 dukateko zentsu bat eman baitzien. Teresa de Laquiteguik (1746) aldiz, bere hiletetan, elizako kabildoaz gain, "señores Curas de los Lugares de Marin, Zarimuz y Mazmela" ere presente egon zitezela nahi zuen. Ogi eta argi eskaintzen inguruko irudi bat ere eman zigun, hauek "segun se estila" egitea agindu zuenean:

que sobre mi Sepultura se me ponga durante tres años del dia de mi fallecimiento el pan, y Zera por via de Ofrenda; el primer año vna libra de pan, todos los dias duplicando el Lunes, y Sabados â Missa de Animas, y Rosario media libra; el segundo año tambien de a media libra todos los dias, y el terzero Oblada de tres en libra

Hiru ondradun hiletak eta hiru urteko ogi-eskaintzek Arrasateko zenbait seroren hiletan antzerako betekizunetan kokatzen gaituztela dirudi; zehazki, ogien eskaintzen hiru urteekin, Catalina de Otalorak (1570) eta Catalina de Abendañok (1590) agindurikoen tankerakoak dirudite. Hala ere, informazio gutxi dugu herriko hiletetako ohituren berri izateko, eta ez gara antzekotasunak ohartzeaz haratago joango. Areago, Dorletako santutegiko serorek izandako gorabeherak ugariak izan ziren, eta bertako beste bi seroren testamentuek gorabehera horien testigantzak dakarkizkigute.

Mariana de Anuncibai (1655) Legutioko (Araba) bere gurasoen etxera itzulia zen testamentua helarazi zuenerako, eta bere anai Simon de Anuncibai apez zen bertako San Blas parrokian agindu zituen hiletak, anaiak esanak noski, eta lekuko ohituren araberrakoak: "las honrras y Misas acostumbradas en esta Yglesia a personas de mi Calidad como son Septenario Misas de Apostoles nouenario cauo de año por los dichos señores Cura y Cauildo de esta dicha Villa y anejas y se les den sus limosnas acostumbradas". Ogi-eskaintzak urtebetekoak agindu zituen, eguneroko "medio pan"-ekoak, eta bere ama Maria Ruiz de Ulibarrik eskaini beharrekoak. Hartu beharreko lanen ordainez, anaiari eta amari ohial eta arropazko dohaintzak egin zizkien; lehenari 26 kana "de lienzo Cassero de Granillo para manteles y seruilletes", eta bigarrenari soinean zeuzkan arropak. Zalantzarik gabe, joskintza lanetan jarduten zen serora bat dugu, aberastasunak ere aktibitate horren ingurukoak zeuzkana. Mariana de Anuncibai gurasoenera itzulia bazen, ezegonkorragoa zen, itxuraz, Maria de Pagadigorrik testamentua helarazi zuenean (1719) zeukan egoera. Momentu hartan Leintz Gatzagan bertan "en las casas de el uinculo que fundo Martin Abad de Belatategui" bazegoen ere, santutegitik ondasunak ateratzearen inguruan izandako liskarren eta auziaren ondoren ez zeukan herrian bertan hiletak egingo zizkietenaren segurantzaz handirik¹⁵⁰⁹, eta bere

¹⁵⁰⁹ Ikus gertakizun hauek IV. 4.2. azpiatalean, 389-394 or.

hiletak "en la yglesia parroquial adonde fueze y tubieze y allase al tiempo de mi fallezimiento o en la Yglesia y Sepultura que quisiere y elijiere mi ymfra escripto albaze" egin zitezela agindu zuen. Hori bai, "con el hauito que ttengo de la Terzera Orden de mi beatorio" ehortzia izan nahi zuen, eta bi urtetarako ogi-eskaintzak agindu zituen, lehenean libra 1/2 ogikoak, eta bigarrean libra 1/4-ekoak. Leintz Gatzagan beraz, Dorletako santutegiko seroren testamentuetako hiletetarako betekizunak nahiko bereziak ditugu, eta beraietatik herriko ohituren oso ikuspegi partziala baino ezin dugu jaso.

Oñatin, azkenik, ohitura uniformeagoekin egiten dugu topo, eta hargatik, azaltzen laburragoak ditugu. Maria Lopez de Estrañok, bere 1647ko testamentuan, argi adierazi zuen bere burua ze mailatan hautematen zuen; hileta "con la Benerazion de la Cruz maior y çinco capas" nahi zuen. Alegia, goragoko aipuan ikusi dugunaren arabera, Madariaga Orbeak Oñatiko San Migel parrokiarako aipatu zizkigun bost mailetako bigarrean. Gurutze nagusiko hiletak, 5 kapakoak eta 8 "cirios"-ekoak, Josefa de Lizarralderen (San Migel parrokia, 1793) hiletan azalpenetan ageri zaigunez, "hiru egunetakoak" bezala ere aipatu izan ziren. Gurutzea, kapak eta "cirios"-ak, eta egunen kopuruak aintzat harturik, hauetariko deskribapenen baten bidez hiletan maila identifikagarria zaigun Oñatiko seroren gehiengoak 2. mailako hiletak agindu zituela esan liteke; hala egin zuten, aipaturiko biez gain, Francisca de Estrada Basaurik (1599), Catalina de Villarrek (1738), Ana Catalina de Inzak (San Migel parrokia, 1751), Ignacia de Iralak (San Antonio Abad edo San Anton ermita, 1755), Francisca de Lizarraldek (Bidaurretako komentua, 1761), eta Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784) ere. Bidaurretako komentuan ehortzia izatea agindu zuen Osana de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1670) berriz, "con ocho cirios" eskatu zituen hiletak; kasu honetan, "cirio" kopurua apezten kopuruarekiko parekatzekotan, honek komentuko hiletetako mailaketetan 3. mailan kokatuko luke. Identifikazioa hau ez dugu baina ziurra. Edozein kasutan, behegoko eta goragoko mailetakoak ere bazeuden; Magdalena de Ucelaik (San Kristobal ermita, 1591) aginduriko hileta 3. mailakoa zen, "cruz mediana"-rekin egin zedila eskatu baitzuen, Maria de Ituñok (Ospitalea, 1657) bezala, "con cruz mediana, y seis hachas". Aberastasun esanguratsuen jabe zen Ines de Bidaniak (San Martin ermita, 1554) berriz, "las ledanias dobladas en casa y en la yglesia con cruz maior" nahi izan zituen; hau da, goiko mailetariko batean kokatzen zen. Ez dakiguna, "la estrena unçion con nueve clerigos" eskatu izanak, 9 kapetako lehen mailako hileta adierazten ote zuen da, nahiz eta litekeena den. Halaber, jada XVIII. mendearen bukaera aldean, hiletak "con ocho achas" -alegia, 2. mailakoak- eskatu zituen Maria Gabriela de Sarraoak (San Migel parrokia, 1784), bederatziruena bezalaxe urtebukaerakoa ere "con estrauagante de nuebe capas" nahi izan zituen, 30 errealekoak zirela zehaztuz. Oñatin ere, antza, hiletetako mailaketetarako ohiturak ez ziren zeharo zurrinak. Edozein kasutan, laburbilduz, Oñatiko seroren hiletak, mailakatze orokorraren baitan maila altuetan edo erdikoetan kokatzen zirela esan liteke.

Hileta, ondra, urtebukaerako, eskumuin edo ogi-eskaintzetan espresaturiko gizarte-mailaketarako kodeez beste, hauekin bat tenpluetako zerbitzariendako etekin iturri ziren bestelako agindu batzuek ziren nagusi: alde batetik, aldi bakarreko, hilabeteko eta anibertsario amaikorretako mezak, eta bestetik, betiereko anibertsario eta memoriak. Hemen ere espazioen eta herrien arabera aniztasuna dugu nagusi, gutxi gora behera finaturiko ohiturekin bat, desio eta preferentzia pertsonalen araberrako aldaerak ere ohizkoak izanik. Datu hauek garrantzitsuak dira, gainera, debozioaren eta gaitasun ekonomikoaren agergerri garbiagoak ditugulako; hileta, ondra, etab.ei zegokienean, izan ere, serorak, -hainbatetan aipatu izan zituzten- "beraien mailako" hiletak eskatzera

behartuak egon zitezkeen artean, mezak, anibertsarioak eta memoriak aldiz, nahiaren eta gaitasunaren gorabeheren menerago gelditzen baitziren, ohituren indarrak eragiten bazuen ere. Eta, diogunez, hemen ere aniztasuna arau dugunez gero, datu orokorrekin ekin eta jarraian herrien gainbegiratu egitera jo beharrean gaude, lekuan lekuko aldaeren azalpenak emateko. Guzti hau gauzatzeko eta ondorengo azalpenen gidatzat, aspektu hauen inguruko datuak 13.a. koadroan (1037-1058 or.) jaso ditugu, eta emaitzak 13.b. koadroan (1059-1063 or.) laburbildu.

Lehenik ohartzeko alderdi bat, logikoa denez, hileta, ondra, etab.ez besteko mezak, anibertsarioak eta memoriak agindu zituztenen eta agindu ez zituztenen arteko aldea dugu, multzo bakoitzaren berezitasunekin bat. 99 testamentuen laginaren baitan, 97 dira heriotzaren inguruko errituen berri eta aginduak dakarkizkigutenak¹⁵¹⁰; hauetariko 5 kasutan ez daukagu berri gehiegirik, heriotz-errituak albazeen esku utzi izan zituztelako. Hori dela eta lagina 92 testamentutara mugaturik, hauen arteko 12 (%13'04) izan ziren ohizko heriotz errituez aparteko mezarik, edo anibertsario edo memoriarik agindu ez zutenak. Esanguratsuki, hauen arteko 2 baino ez dira 1650a baino lehenagokoak, biak Arrasatekoak, eta gainontzeko 10ak (Bergarako 5, Elgetako 1, Antzuolako 2, Leintz Gatzagako 1 eta Oñatiko 1) geroztikoak ditugu; areago, azken 10 hauen arteko 8, hau da, gehienak, XVIII. mendekoak ditugu. Hau ez da noski kasualitatea eta seroren gaitasun ekonomikoaren gainbeherari dagokio, eta jarraian herriz herri ikusiko dugunez, mezen, anibertsarioen eta memorien gutxitze orokorraren testuinguruan zaigu ulergarri.

Debagoieneko datu orokorreari erreparatuz eta tenplu moeten arabera banaketa aintzat harturik, nabaria zaigu aldi bakarreko, hilabeteko eta anibertsario amaikorretako mezak hiribilduetako parroketan agindu izan zituztela gehien, alde handiarekin egin ere. Hiletez, bederatziurrenez eta urtebukaerakoez aparteko mezak (amaikorrek nahiz betierekoak) agindu zituzten 80 seroren artean, aldi bakarreko mezak eta anibertsario amaikorrek 72k agindu zituzten; horiek 1554-1793 bitartean aginduriko 4.738 mezatik eta mezatarako emandako 727 errealetatik, 3.428 meza (mezen %72'35) eta 692 erreal (diruen %95'18) hiribilduetako parroketarakoak izan ziren. Komentuak eta kolegioak ditugu hurren, dezenteko aldearekin: 916 meza (%19'33) eta 22 erreal (%3'02). Auzo eta elizateetako parrokia, ermita eta santutegietan berriz askoz gutxiago izan ziren aginduriko mezak; guztiak bat eginik, 390 meza (%8'23) eta 13 erreal (%1'78). Eta azkenik, ospitaleetan esatea agindu ziren mezak hutsaren hurrengo ditugu, 4 baino ez (%0'08). Ezarria dugun funtsezko banaketa kronologikoari erreparatuko bagenio aldiz, seroren euren kopuruaren jeitsieraz beste (1650erarteko 46ren aldean, ondorengo 26), batatzeste xahaturikoen neurriak nahiko pareko mantentzen zaizkigu; 1650erarteko 64'45 meza eta 14'13 errealetatik, ondorengo 68'19 mezetara.

Datu hauek, edonola ere, ezin dira betiereko memoria eta anibertsarioei dagozkienetik bereiz ulertu. Datuak banaturik jaso ditugu amaikor eta betiereko arteko

¹⁵¹⁰ Domenja de Ganteren (Bergara, 1592) testamentua bere zordunen eta dohaintza gutxi batzuen zerrendaketa edo "memorial" bat baino ez dugu, hau da, beste kasu batzuetan ere egin ohi zenez ondoren protokolizatu eta testamentutzat onartuko zen idatzi bat, heriotzaren orduan larri zegoelako presaka egina eta heriotz-errituen inongo berririk ematen ez duena; Maria Lopez de Olazaranen (Arrasate, 1604) kasuan aldiz, bere "testamentua" ez da propioki -eta formalki- testamentu bat, dohaintza bat baizik (bere 1.000 dukat baino gehiagoko kopuruagatik aipagai izan duguna eta izango duguna), ondorengo dokumentuek gerora testamentutzat hautemana izatera iragan zela adierazten digutena. Nahiz eta serora honen inguruko dokumentuetako informazioa ondorengo analisietan txertatuz joango garen, nahiago izan dugu testamentutzat ez kontatzea, ez baitago propioki halakorik, eta dohaintzaren truke deboziozko mezak eskatu bazituen ere, hiletan eta hauekin bat egiten ziren funtzioen (ondrak, bederatziurrenak, etab.) inguruko informazioa falta zaigulako.

banaketak hartara garamatzalako, eta lehenek batez ere preferentziazko tenpluen berri ematen diguten artean, bigarrenak arimaren salbazioaren inguruko arduraren neurgarri fidelagoak zaizkigulako; alabaina, nabaria denez, mezak agintzeko bi moduen kontsiderazio bateratua ere derrigorrezkoa dugu, debozioaren izaera eta intentsitateari neurria hartzerako orduan. Espazioen eta herrien arabeko analisisa egitean, aurreraxeago, sartuko gara betiereko mezen fundazioek erlijiotasunaren eta izpiritualtasunaren eboluzioaren testuinguruan izan zuten papera azaltzera, baina oraingoz, serorei dagozkien datu orokorren lehen gerturapen batean, zenbait orientabidetara mugatu gaitez. Lehenik eta behin, laginaren zenbait ezaugarri zehaztu beharrean gaude: hiletez, bederatzizurrenez eta urtebukaerakoez aparteko mezak agindu izan zituzten 80 seroren artean, 35 izan ziren betiereko memoria edo anibertsarioen bat fundatzea agindu zutenak. Hauen berri 14.a. koadroan (1065-1069 or.) jaso dugu, 14.b. koadroan (1070-1072 or.) emaitzak emanez. Ezaugarri garrantzitsutzat, halako fundazioak parroketan eta komentuetan baino egiten ez zirela ere zehaztu beharrean gaude; ermitetan, santutegietan eta ospitaleetan meza amaikorrek baino ez ziren agintzen. Horrez beste, alde batetik, banatuak ditugun bi garai nagusien artean, Debagoieneko betiereko memoria eta anibertsarioei dagozkien datu orokorrek debozioaren gutxitzea agertzen digute, meza amaikorrek pareko batzbestekoak ematen zizkiguten artean: 1650erarte 25 serorek halako 29 fundazio egin zituzten, 2.035 dukat baino gehiago hartara bideratuz; ondorengo 11 serorek egindako beste hainbeste fundazioetan aldiz, 542 dukat baino gehiagoren neurrira heldu ziren. Honek, batzbestekotan, halako fundazioen bat egin zuen serora bakoitzeko 81'4 dukatetatik 49'27 dukatetarako jeitsiera emango liguke.

Datu orokorrenetatik eratorri dugun irudi hau baina, noski, zuhurtzia handiz hartu beharrekoa dugu, espazioen, herrien eta garaien arabeko datuen aldaerek lehen begiratu honetan ikus litekeena baino panorama askoz anitzagoa eta konplexuagoa azaltzen baitigute, erlijiotasunaren, debozioaren eta izpiritualtasunaren forma ezberdinak agertaraziz. Lehenik eta behin, aginduriko mezak izaera amaikorrekoak edo betierekoak izatearekiko, azken hauek agintzeko ohitura, batez ere eta alde handiarekin, Bergaran eta Antzuolan hedatu zela ikus liteke. Ohitura hauetan Elgetako ohiturak Leintz bailara eta Aramaiokoengandik gertuago hauteman beharko genituzkeela dirudi, non, nahiz eta betiereko memoria edo anibertsarioen fundazioen batzuren berri izan dugun, ohiturarik zabalduena meza amaikorrek agintzea izan zen, hauek agindu zitezkeen modalitate ezberdinetan. Ezin dugu ahaztu, hala ere, betiereko fundaziorik handiena, besteenganako alde handiarekin ageri zaigun 1.000 dukat baino gehiagokoa, Arrasateko hiribilduko serora batek egindakoa dugula (Maria Lopez de Olazarane, 1604an). Berez, fundazio honek eta Bergara eta Antzuolakoek osatzen dute Debagoieneko betiereko mezen fundaziotara bideraturiko diruen parterik handiena, ia guztia, ezen Elgetaz eta Leintz bailaraz gain, Oñatin ere ez baitzen betiereko fundaziotarako ohitura handirik izan: halako fundazioak agindu izan ziren lau kasuetan, testamentuko soberakinetatik hartarako besteko dirurik gelditzekotan baino ez egitea agindu zuten. Azkenik, Debagoiena guztian, -jarraian ikusiko dugunez- ohitura bereziak garatu zituzten Antzuolako seroren salbuespenez, nahiko uniformeki zabalduerik ageri zaigun ohitura bat, meza amaikorren artean zutabe bereizi batean lerratu ditugun hilabeteko mezena dugu; "trentenario", "treintanario" edo San Gregoriotan meza ere deituriko hauek ere bazituzten herrien arabeko aldaerak, baina nagusiki hiru modalitatetan hedatuak zeuden: 30, 40 eta 48 mezatakoetan.

Datuen analisisa herrien mailara jeisterako orduan, ohi dugunez, Bergarako serorekin hasiko gara; eta aurreraxeago egingo ditugun kontsiderazio konparatiboetan

ere Bergarako serorak agertuko zaizkigu nagusiki, bertako serorei buruzko datuak dauzkagun ugarienak izateaz beste, herri honetan alderdi hauetan biztanleria orokorrak azaltzen zituen ohiturak seroren ohitura espezifikoeikiko perspektiba konparatibo batean ezartzeko aukera gorpuzten zaigulako, Madariaga Orbeak eta beste ikertzaile batzuek ohitura hauen inguruko ikerketak bertan kokatu izanari esker. Lehenik baina, Debagoieneko herrien errepasoa eginez azal ditzagun gure testamentuen laginean Bergarako serorenetatik jaso ahal izan ditugun datuak, kokatzen joateko. Hiletez, bederatziurrenez eta urtebukaerakoez aparteko aldi bakarreko mezak agintzeari dagokionean, halako aginduak 1554-1772 bitarte kronologikoa jasotzen duten 20 testamentutan ageri zaizkigu. 1554-1650 bitartekoak 15 ditugu, eta 1650az ondorengoak aldiz 5, baina hutsune baten ondoren datozkigunak, 1742-1772 bitartekoak dira eta. Baina datu hauek, esan bezala, hileta, bederatziurren eta urtebukaerako ofizioez aparteko aldi bakarreko mezak eskatu zituzten serorei dagozkie; 1650 eta 1741 bitartean beste 5 serora badauzkagu, edo hiletak eta bestelakoak albazearen esku utzi zituztenak, edo ohizko hiletak eskatzera mugatu zirenak, bestelako mezarik agindu gabe. Eta antzerako gorakada eta beherakadak ageri zaizkigu, gutxi gora behera, betiereko memorien edo anibertsarioen fundazioari dagokionean ere; 1572-1650 bitartean 11 serorak egin zituzten halako fundazioak, eta ondorengo garaietan 3 serorak baino ez zuten fundaziotarako gaitasun ekonomikorik -eta borondaterik- agertu: XVII. mende erdialdetik XVIII. mendearen bigarren erdialderate ageri zaigun Maria de Mecoletaren 1713ko fundazio bakarra, eta XVIII. mendearen bigarren erdialdean Mariana de Aleizak (San Pedro parrokia?, 1758) eta Maria Ana de Micolalde (San Martin ermita, 1762) egindakoak. Hau da: XVII. mendearen erdialdeko inflexio puntua baino lehenagokoak ditugun testamentuetan agindu izan ziren batez ere hiletez, bederatziurrenez eta urtebukaerakoez aparteko aldi bakarreko mezak eta betiereko memoria eta anibertsarioak, eta XVII. mendearen bigarren erdialdean eta XVIII. mendearen lehenean -1713ko Maria de Mecoletaren betiereko memoriaren fundazioaren- salbuespen bakarreko hutsunea egiten zaigu, XVIII. mendearen bigarren erdialdean, seroren desagerrarazte aginduaren atarian, jada urriagoak ziren serora batzuen eskutik bigarren loraldi txiki bat izateko. Guzti honek, aurreraxeago ikusiko dugunez, partzialki baino ez du biztanleriaren debozioak orokorrean izan zuen bilakaerarekin bat egiten, tarteko, XVII. mendearen lehen hamarkadetan seroren instituzioaren aurka izan zen ekinaldi garrantzitsua -eta eraginkorra- izan baitzen.

Kopuruak datu hutsez beste, Bergarako seroren testamentuetako aginduetan bertako ohitura eta bilakaera bereziak ageri zaizkigu, Debagoieneko beste herriekiko berezitasun propioak agertzen zituztenak. Alderdiri deigarrienera bat, jada aipatu bezala, betiereko memoria edo anibertsarioak fundatzerako orduan, Antzuolakoekin batera, Bergarako serorak Debagoieneko testuinguruan deboziorik finkatuena azaltzen digutenak direla da. San Pedro parrokian 6 serorak 1572-1758 bitartean fundatzea agindu zituzten 8 betiereko memoriatarako 604 dukatek eta Santa Marina parrokian 8 serorak 1594-1762 bitartean fundatzea aginduriko 10etarako 424 dukatek, alegia, guztira ematen dizkiguten 1.028 dukatek, Arrasateko San Frantziskoren komentu eta kolegioan Maria Lopez de Olazarane 1604an fundatu -nahi izan- zuen 1.000 dukat baino gehiagoko betiereko memoriarekin bat, Debagoiena guztian izan ziren tankera horretako fundazio guztietarako agindu ziren 2.577 dukat baino gehiagoen parterik handiena osatzen zuten. Hala, bi kopuru nagusi hauek ggb. fundaziotarako diru guztien %78'69a osatzen zuten; eta gainera, beste %21'3aren erdia baino gehiago, 549 dukatetatik 320, halako fundazioak egin ziren beste espazio nagusitik datozkigu, Antzuolatik. Bergarako serorek aginduriko mezen beste ezaugarri bat, tenpluen artean bi parrokia nagusiekiko zeukaten preferentzia nabaria dugu, auzoetako parrokien, ermiten

eta komentu eta kolegioen aldean. Ermitetan aginduriko mezak proportzionalki oso urriak izan ziren, eta -ermita bertako serora batek aginduriko mezen- salbuespen bakar batekin, XVI. mendearen bigarren erdialdean eta XVII.enaren lehenean aurkitzen ditugu; berez, zedarripen kronologiko hau ohituren aldaketaren agerria dugu.

Bergaran, izan ere, ohitura hauen bi "mugimendu" nagusi nabari litezke; bata, ermitetan aginduriko mezen desagerpenak aditzera ematen diguna, erlijiotasun "herrikoi" batetik "barroko" baterako aldaera bezala izendatu ahal izango genukeena dugu. Ermitetan aginduriko mezen desagerpena, egokiago adierazirik, aginduriko mezen kokapenaren aldaketa bati dagokio, mezak parroketan eta ermitetan agintzetik, hauek parroketan eta bertako aldare konkretuetan agintzera iragaten baitira. Esanguratsuki, ohituren aldaketa honen inflexio puntua XVII. mendearen hasiera-erdialdean kokatzen zaigu, lehen hamarkada haietan bertan, jada erlijiotasun "barrokoa" nagusitzen ikusten dugularik. Eta halaber, XVII. mendearen lehen erdialdea dugu, darabilgun laginean konkretuki 1602-1650 bitartean kokatzen zaizkigun 11 testamentuak helarazi ziren bitartea, betiereko nahiz amaikorrek ziren meza kopururik handiena agindu zuten serorena, alde handiarekin gainera. XVI. mendearen bigarren erdialderako dauzkagun Bergarako seroren 6 testamentuetan oso xumeak ditugu aginduriko aldi bakarreko mezak eta betiereko memorien fundazioak, eta garai gorenaren ondoren, 1650az geroztiko testamentuetan eten bat daukagu. 1650ean meza amaikorren kopuru esanguratsua agintzen ikusten dugun azken serorak, bestalde, Leintz bailarako serorek agindu ohi zituzten mezen eredu jarraitu zuen, Bergarako besteen artean salbuespena dugularik. Maria de Mendozak, Bergara bertako San Pedro parrokian esan beharreko 100 otoitzezko mezez eta 40 dukaten balorearekin fundatu zuen betiereko memoriaz beste, Arrasateko San Frantziskoren komentuan esan beharreko 48 otoitzezko meza, herri bereko moja frantziskotarren komentuko Santo Kristoaren aldarean esan beharreko beste 5 otoitzezko meza eta Arantzazuko Andre Mariaren santutegian esan beharreko 30 meza agindu zituen. Eta beste arrazoi bategatik ere badugu testamentu hau salbuespenezkoa: Bergarako seroren artean Elosua auzoko San Andres parrokian esan beharreko mezak (3) agindu zituen bakarra dugu. Serora honi sumatzen diogun izaera "kanpotarra" aintzat harturik, aldi bakarreko edo hilabeteko mezak eta anibertsario amaikorrek, nahiz betiereko memoria edo anibertsario gehien agindu izan zituzten seroren mugarri kronologikoa XVII. mendearen lehen hamarkadetakoa desagerrarazte aginduaren ingurumarira gehiago gerturatuko litzaiguke, mende hartako hirugarren hamarkadara.

Edozein kasutan, urriak dira ondorengo urteetan aldi bakarreko, hilabeteko, nahiz betiereko fundazioetako mezen aginduak; 1692-1750 bitarterako dauzkagun 6 testamentuetan -besteekiko ezberdintasun esanguratsuak agertzen dizkigun testamentu batetako- hilabeteko mezen agindu bat eta ermita batean esatekoak ziren 2 meza¹⁵¹¹, eta esanguratsuen lez, itxuraz 40 dukatekoa behar zuen betiereko memoria bat baino ez zaizkigu ageri. Desagerrarazte aginduaren testuinguruan ostera, XVIII. mendearen bigarren erdialdetik 1758-1773 bitarterako dauzkagun 5 testamentuetan, zenbait serorek

¹⁵¹¹ Soledadeko Andre Mariaren ermitako Francisca de Barrutiaren (1742) kasua dugu, zeina ermita hura neskatzendako ikastetxe bihur zedin baino lehenagoko azken serora izan zen, eta ikastetxeko fundatzaile Maria Clara de Berroetarekin (1750) eta honen lagunekin zenbait liskar izana zela dakigun. Ez dakigu gorabehera hauek bere testamentuko deboziozko aginduetan ze eragin izan zezaketen, baina aski iradokikorra dugu Francisca de Barrutia, aurkitu ditugun seroren artean bere ehorzteetarako -frantziskotarrena beharrean- agustindarren abitua eskatu zuen bakarra izatea, eta hilabeteko mezak, hauek agindu zituzten Bergarako beste serora gehien-gehienek ez bezala, herriaz kanpoko kokapen batean agintzeak: Azpeitiako San Agustinen komentuan. Litekeena da erabaki hauetan bere ermitaren ikastetxerako aldakuntzaren erantzuleekin eta nabariki azken hauen alde egin zuten Bergarako udal agintariekin izandako gorabeherak zerikusirik izatea (ikus IV. 4.3. azpiatalean, 405-407 or.).

aginduriko mezetan gorakada xume bat ageri zaigu, batez ere, Maria Ana de Mecolalde (San Martin ermita, 1762) eta Maria Ana de Aleizaren (San Pero parrokia, 1772) kasuetan, aldi bakarreko eta hilabeteko mezen, eta betiereko fundazioen "berragerpenarekin". Motza eta xumea izango zen "berpizkundera", desagerrarazte agindua heltzearenean eta behin heldua zenean gauzatu zena. Beste behin, beraz, "berpizkunde" xume honez beste, behin eta berriro ageri zaigun garai erabakiorraren garrantzia azpimarratua gelditzen zaigu; XVII. mendearen erdialdea, mendearen lehen hamarkadetakoa seroren desagerrarazte saiakerak nozitu zituzten seroren eta beraien ondorengoen arteko inflexio puntua. Hau da, beste kapituluetan jorratu izan ditugun alderdiak, debozizio aginduen atal honetan berretsi baino ez zaizkigu egiten; XVI. mendearen bigarren erdialdetik XVII. enaren lehen erdialdera doan aginduriko mezen kopuruaren gorakadak bapatean eten bat jasaten du, askoz maila xumeagoko debozizio agerpenak baino ezin agindu izan zituzten seroren testuinguru bati bide emateko.

Antzuolako debozizio testuinguruak, Bergarakoak bezalaxe, berezitasun propioak zeuzkan. Berezitasun horietako bat, "las missas de la nouena" esan zekizkietela eskatzeko zeukaten ohitura dugu, meza hauek esanaraztea biztanleria guztiak egiten ez zuen zerbait zela adierazten diguna. Horiez beste eskatu izan zituzten aldi bakarreko, hilabeteko nahiz anibertsario amaikorretako mezak oso gutxi izan ziren, beste espazio batzuetako seroren aldean. Hainbestean eze, 11 seroren arteko 2 Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokiako eliztarrak izanda ere, aginduriko mezen zenbaketa egitean parrokia honetarako bat bera ere zenbatu ahal izan ez dugun; Maria Ana de Goitia Bereterioren (1733) hilabeteko mezak baino ez dauzkagu, baina zenbaketatik kanpo gelditzen zaizkigu, ez baitzuen hauek esaterik agindu, jada esanaraziak zituela aipatu baizik. 1640-1733 bitarteko dauzkagun 11 seroren arteko beste testamentuetan, Gure Errukizko Ama parrokian "entrando en estas las de la nouena" Andre Mariaren aldarean esan beharreko 15 meza agindu zituen Agueda de Zumaetaren (1640) kasuaz beste, aldi bakarreko mezen kopuru esanguratsuak agindu zituztenen bi kasu baino ez zaizkigu ageri: Catalina de Lizarriturrik (1659) Gure Errukizko Ama parrokian esatea aginduriko 70 otoitzezko mezak, eta Maria Ana de Goitia Bereteriok (1733) "donde mejor uisto le fuere a mi heredero" esatea aginduriko 50 mezak, hauek ere otoitzezkoak. Azken hau izan zen, halaber, Antzuolako seroren artean hilabeteko mezak eskatu zituen bakarra, eta baita, ermitetan esan beharreko mezak eskatu zituzten gutxienetarikoa ere. Kasu honetan ohiturari buruzko zenbait zalantza dauzkagu; herriko ermita guztietan esan beharreko mezak Ana de Benituak (1642) eta Maria Ana de Goitia Bereterio (1733) berak baino ez zituzten eskatu, eta horiez gain Dionisia de Jauregui Madariaga (1720) baino ez zaigu ageri ermita batean mezak agintzen: Antiguako Andre Mariaren ermitako 5 aldareetan meza bana esatea agindu zuen. Kontua da, 1733an Maria Ana de Goitia Bereteriok herriko ermitetako mezak aipatu zituenean, jada esanarazi zituela zehaztu zuela, eta gainera, "las que se acostumbra rezar" bezala aipatu zituela. Gerta litekeena da, beraz, nahiz eta Antzuolako seroren testamentuetan ermitetan esan beharreko mezak oso urri ageri zaizkigun (11 baino ez), urritasun hau bertako seroren artean meza hauek testamentua helarazi aurretik esanarazteko ohitura zeukatelako izatea; baina zalantzatan gelditu beharrean gaude, ez daukagu behar besteko erabakiorra zaigun informaziorik.

Aginduriko aldi bakarreko, hilabeteko edo anibertsario amaikorretako mezen kopurua, beraz, Antzuolako seroren artean, aski eskasa dugu; 11 seroren arteko 5ek baino ez zituzten agindu, eta Bergaran gertatzen zenaren kontrara, 1650az geroztiko 3ek meza gehiago eskatu zituzten (bb. 52), lehenagoko 2ek baino (bb. 10'5). Antzuolan,

beraz, nahiz eta kopuru urriagoetan mugitzen garen, ez zen itxuraz Bergaran ikusi ahal izan dugun 1650az geroztiko gainbeherarik eman (edo behintzat, ez garai berberean), eta era berean, Maria Ana de Goitia Bereterioren (1733) kasuak iradoki digunez, litekeena da ermitetan mezak agintzeko ohiturak XVIII. mendearen hasiera ingururarte biziraun izatea.

Baina Antzuolako seroren testamentuetan aldi bakarreko, hilabeteko eta anibertsario amaikorretako mezak hain urriak izateak ez du esan nahi, inondik ere, debozio eskasekoak zirenik. Herriko ohiturak, izan ere, beste norabide bat ezartzen zuten: betiereko memoriaren fundazioarena. Fundazio hauek ditugu Antzuolako seroren ohiturak eta -hauek mantentzeko- egoera ekonomikoa XVII. mendean zehar eta are XVIII. mendearen hasierararte ere antzerako mailetan mantendu izan zirenean frogarik esanguratsuenak. Gure Errukizko Ama parroquia nagusian bezalaxe honi baturiko Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokian ere, 11 seroren arteko 8k agindu zuten betiereko memoria banaren fundazioa, eta aski finkaturiko ohitura zela esan liteke, esplizituki behin baino gehiagotan hala adierazi baitzuten ("como se vssa y se acostumbra", "en la conformidad que se acostumbra en esta dicha Villa en semejantes memorias por los señores del cauildo de ella", etab.). 40 dukat hartara bideraturik, aukeraturiko egun batean meza kantatua esan zedila agindu ohi zuten, bere nokturno eta erresponsoarekin. Marina de Oxirondoren (1661) kasuak, gainera, ohiturak aginduriko betebeharrak seriozki hartzen zela agertzen digu: testamentua helarazi zuenean 20 dukat baino ezin izan zituen bideratu memoriaren fundaziora, baina kabiloak diru gutxi zela kontsideraturik fundazioa ez onartzea gertatuaz gero, beste 20 dukat jar zitzala erregutu zion oinordeko egin zuen bere ahizpa Maria de Oxirondori. Ikusten dugunez, Marina de Oxirondok garrantzi handiko afera zeritzon memoriaren fundazioari; eta baita bere ahizpak ere, zenbait urte beranduago izan bazen ere, 1665ean, serorak eskatu bezala – zentsutan emandako– beste 20 dukat jarriarik, 40 dukateko betiereko memoriaren fundazioa egin baitzuen¹⁵¹².

Betiereko memoria edo anibertsarioen fundazioak Bergaran eta Antzuolan ugariak izan baziren, Elgetako egoerak beste espazio batetako ohituretara gerturatzen gaitu, Leintz bailarakoetara, non halako fundazioak ez ziren gehiegirik izan. Bertatik eskuratu ahal izan dugun 11 seroren testamentuen laginean, bakarra ageri zaigu betiereko memoria baten fundazioa egiten, eta Bergararekiko harremanak gertuagokoak ziren -eta ondorengo garaietan Bergarako parte izatera iragango zen- espazio batean, Angiozar auzoko San Migel parrokian. Angiozar bertako Elexamendiko Andre Maria ermitan serora zen Catalina de Mendiguchiaren (1638) kasua dugu; iraileko Andre Mariaren egunean edo zortziurrenaren barruan urtero esateko meza kantatu batetarako, 20 dukat zentsutan ipini zitezela agindu zuen. Baina diogunez, orokorrean, Elgetan bestelako ohiturak jarraitzen ziren. Bertako serorek aginduriko aldi bakarreko, hilabeteko edo anibertsario amaikorretako mezen -eta hartara bideraturiko diruen-batazbestekoa, Bergarako edo Antzuolako serorena baino altuagoa dugu, 89'5 meza eta 20 errealekoa. Izan ere, beste herriotan ez bezala, Elgetako serorek aginduriko meza gehien-gehienak aldi bakarrekoak edo hilabetekoak ziren, betiereko mezen fundaziorik egin gabe. Berezik deigarria dugun aspektuetariko bat agindu ohi zituzten hilabeteko mezen ugaritasuna da, ez baitzituzten gainera soilik euren arimen aldekoak agintzen, familiakoen eta bestelako lagun eta gertukoaren aldekoak ere aginduz. 11 seroren artean 6k agindu zituzten hilabeteko mezak, -bakar baten salbuespenez- bakoitzeko bi, hiru edo lau, norbere eta besteren arimen alde; Elgetako serorek aginduriko mezen kopururik handiena hilabeteko meza hauetan agindu zen, Debagoieneko beste herrietan gertatzen

¹⁵¹² GPAH-AHPG 1/0776, 135r-136v.

zenaren kontrara, bestelako aldi bakarreko mezatan edo anibertsario amaikorretan baino gehiago: 510 meza hilabeteko mezatan, aldi bakarreko 385en aldean. Mezak agintzeko modu honekiko preferenziaren agerigarri, esate baterako, Gracia de Urrupainek (Andre Maria parrokia, 1587), bere arimaren aldeko hilabeteko mezez gain, bere arimaren eta "por los difuntos que yo soy en cargo" zirenenen aldeko beste batzuk ere agindu zituen, eta baita "la beata de Olayeta" izana zenaren arimaren aldeko beste batzuk ere, honen albazea zen heinean, bere borondatea betez. Norbere kargu zeudenen arimen aldeko hilabeteko mezak, eta baita gurasoen arimen aldekoak ere, diogunez, beste hainbat seroren kasuetan ageri zaizkigu: espazio eta tankera ezberdinetakoen berri ematearren, Maria Ochoa de Marquiegui (Andre Maria parrokia, 1592), Domenja de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599) eta Magdalena de Urrojolaegui (1609) ere aipatu litezke. Eta nahiz eta bertan hainbatetan aurkitu izanagatik Elgetako serorei buruz dihardugula aipatzen ditugun mezak izan, Debagoieneko beste espazioetan ere halako mezak esatea agintzen zela esan beharrean ere bagaude; Bergarako San Pedro parrokian serora zen Marina Garcia de Oruesagastik (1607), esaterako, beste hainbaten artean, 100 otoitzezko meza eskatu zituen bere eta bere "encomendados"-en arimen alde, eta 150 meza esatea ere agindu zuen,

en descargo de mi conciencia en sufragio de almas que yo tenia obligacion por particulares auerlas de dezir y por escupulo que tengo de auerme descuydado de las cumplir y que sean estas misas por las almas de quienes yo me encargue y falte en dezirlas¹⁵¹³

Elgetako seroren artean ere, aipatu berri ditugun hilabeteko mezez gain, aldi bakarreko mezak agintzen ziren besteren arimen alde, edo diru kopuru jakin bat mezatarako eman: Marina de Larraguibeleg (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1576), esaterako, Estibaliz eta Maria izeneko bere bi ahizpen arimen aldeko 12na meza agindu zituen, eta Domenja de Iturrik (Uriarte, Andre Mari ermita, 1604), Ojanguren baserriko ("donde hera hija mi madre") eta Iturri baserriko ("donde yo naci") hildakoen arimen aldeko mezatan xahutzeko, 100na erreal eman zituen.

Elgetako seroren artean aurkitzen dugun beste ohitura bat, Bergarako seroraren batean edo bestean ere ageri zaiguna, baina orokorrean, nagusiki Elgetan txertaturiko ohituratzat hartu beharrean gaudena, norbere arimaren aldeko zenbaki sinbolikoen kopurutako mezak agintzearena dugu. Hemen ere, gainera, finkaturiko ereduak zeudela dirudi, Andre Maria parrokia nagusiko eliztarren artean bezalaxe, Angiozar auzoko San Migel parrokiako eliztar zirenen artean ere. Leheneko eliztarra zen Magdalena de Urrojolaegui (1609) eta bigarreneko eliztarra zen Gracia de Sagastak (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1637) "las missas ordinarias" bezala aipatu zituztenak eta -XVIII. mendekoa dugun- bakar baten salbuespenez herriko beste serora guztiek ere eskatu izan zituzten mezak honakoak izan ziren: Aingeru Goardakoaren omenezko 1, Trinitate Santuaren omenezko 3, Jesukristoren 5 zaurien omenezko 5, Amabirjinaren 7 misterio edo "angustias"-en omenezko 7, eta beste hainbat lekutan ere eskatu ohi zituzten 12 apostoluen mezak, hau da, beste 12. Esandakoei beste mezaren batzuek gehitu zizkietenen bariantek ere izan ziren: San Migel Goiaingeruaren omenezko meza 1 ere eskatu zuen Gracia de Urrupain (Andre Maria parrokia, 1587), Jesusen omenezko meza 1 gehitu zien Domenja de Altuberen (San Adrian edo San Antonio ermita, 1599), "por las animas del purgatorio - por las que no tienen quien se las haga dezir" 6 meza eskatu zituen Marina de Altuberen (San Adrian eta San Antonio ermita, 1603) eta Jesukristoren Koroaren omenezko 33na meza eskatu zituzten Domenja de Iturriren

¹⁵¹³ GPAH-AHPG 1/0102, 43r.

(Uriarte, Andra Mari ermita, 1604) eta Magdalena de Urrojolaeguiaren (1609) kasuak ditugu.

Elgetako serorek eskaturiko azken ohizko meza batzuek, beste herrietako leku berezietan esatea agindurikoak ziren. Hauen artean ohizkoenak, 11 testamentuetako 7tan ageri zaizkigunak eta Leintz bailara guztian ere ohizkoak zirenak, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako aldare pribilejiatuan esan beharreko mezak ziren, normalean, serora bakoitzeko bat edo bi. Aipagarria dugun beste espazio bat, 4 testamentutan aipatua, Arantzazuko Andre Mariaren santutegia -eta monasterioa- dugu, 4 edo 2 mezako eskakizunekin. Eta izan ziren, azkenik, serora bakarren eskakizunetan aurkitzen ditugun bestelako kokapenetako mezak ere: Catalina de Mendiguchiak (Angiozar, Elexamendiko Andre Maria ermita, 1638), Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiaren esan beharreko mezez gain, herri bereko frantziskotarren kolegio eta komentuan esan beharreko otoitzezko 2 meza ere agindu zituen; Magdalena de Urrojolaegui (1609), hiletetako betekizunak Andre Maria parrokiaren egitekoak bazituen ere, mezen banaketan herrian garrantzia erlijioso handienekoak ziren beste bi espazioak ere gogoan izan zituen, Angiozarreko San Migel parrokia eta Elexamendiko Andre Maria ermita, bakoitzean 2na meza aginduz; eta Domenja de Albusua y Arescurenagak (Santa Maria Magdalena ospitalea, 1605), Arrasateko parrokiakoan baino, beste aldare pribilejiatu batean eskatu zituen otoitzezko 2 meza, Elgoibarreko San Frantzisko komentukoan.

Zoritxarrez, ez dakigu garbi Elgetako seroratzek XVII. mendearen erdialdeaz geroztik ze bilakaera izan zuten, iturrien eta metodologiaren inguruko kapituluaz azaldu ditugun bilaketa dokumentaletako gorabeherak medio¹⁵¹⁴. Jada XVII. mendean bertan gainbehera hasiak izan zitezkeen, edo XVIII. menderate mantendu, aldaketa handiago edo txikiagoekin, Debagoieneko espazio ezberdinetako bilakaeratan posibilitate guztiak zabalik zeudela ageri baitzaigu. Zerbait susmatzeko zantzu bakarrak, ez oso adierazkorrak, XVIII. menderako daukagun Elgetako testamentu bakarrak ematen dizkigu, 1742ko Magdalena de Echavarriarenak. Testamentu honek garai berebean Bergara aldeko seroren artean aurkitu ahal izan ditugun serorarik "xumeenek" helarazitakoen tankera dauka, hiletak, bederatziruena eta urtebukaerakoa "en la misma conformidad que a las demas personas de mi Calidad" eskatu bazituen ere, ez baitzuen batere bestelako mezarik agindu, ez inorenganako dohaintzarik egin (postulazioetako derrigorrezkoak ezik, noski); oinordekoak eta albazeak izendatzera mugatu zen. Testamentu honek seroraren itxurazko egoera ekonomiko xumea agertzen digu, eta XVI. mendetik XVIII.era seroratzek bilakaera orokorra aintzat harturik, Elgetako serorek ere botere sozial eta ekonomikoaren gainbehera nozitu zutela zentzudunki pentsa liteke.

Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osaturiko espazioaren baitan, herri bakoitzak bere ohiturak garatu zituela ikusi dugu. Leintz bailarara iragango gara hurrena, bertan, lehenik, Arrasateko serorekin ekinez. Orain arteko herrietan ez bezala, Arrasaten, hiletetako, bederatzirueneko eta urtebukaerako mezei zegozkien ohiturez aparte, zaila zaigu bestelako meza amaikor nahiz betierekoen inguruko ohitura finkaturik atzematea. Bergaran, Elgetan edo Antzuolan ikusi ahal izan dugun uniformetasunik ez dugu hemen aurkitzen, eta serorak tenpluenganako zerbitzu jakinik gabekoak, auzoko parrokiakoak edo ermitakoak izan (gogoan izan dezagun bertako parrokia nagusiko seroren bilakaera berezia, seroratzak hauek artatzera sakristauen emazteak iragan baitziren), espazio ezberdinetan aginduriko mezak ageri zaizkigu, modu eta kopuru ezberdinetakoak. Hala ere, zantzu orokor batzuk aipatu litezke: tenplu jakinik gabeko serorek eta ermitetakoek

¹⁵¹⁴ Azalpenak I. 3. atalean, 30 eta hurr. or.

aginduriko hiletez, etab.ez aparteko meza gehienak, komentuetako gutxi batzuek beste, San Juan Bataiatzailea parrokian esatekoak izan ziren, eta auzoetako parrokiatarako dauzkagun bi seroren testamentuen kasuetan, nork bere parrokian esan beharrekoak agindu zituzten. Moduak eta kopuruak baina, anitzak ziren, Debagoieneko beste espazioetan gutxi gora behera finkaturik zeuden ohituren tankerakoak, eta ez ziren hiletez, etab.ez aparteko mezarik batera agindu ez zuten serorak ere falta izan (Maria de Insaurre -San Balero ermita, 1579- eta Antonia de Osinaga -Musakola, San Antolin ermita, 1603-). Arrasatetik eskuratu ditugun 12 seroren testamentuen arabera, izan ziren hilabeteko mezak eskatu zituztenak (Catalina de Abendaño -1590-, Francisca de Gabiria -ospitalea, 1639- eta Ana de Ayesta -1664-), 12 apostoluen mezak baino eskatu ez zituztenak (Catalina de Otalora -1570-), Bergaran bezala motibo edo dedikaziorik zehaztu gabe parrokian esan beharreko ehundaka mezak agindu zituztenak (Catalina de Abendaño -1590-), edo Elgetan bezala zenbaki sinbolikoen kopuruen araberakoak eskatu zituztenak ere (Maria Perez de Bengoa -Gesalibar, Santa Ageda parrokia eta ospizioa, 1625-). Izan ziren, halaber, familia-kideen edo etxekeoen arimen aldeko mezak eskatu izan zituztenak (Catalina de Abendaño -1590- eta Catalina de Huruburu -Udala, San Esteban parrokia, 1610), karguan hartuta zeuzkaten besteren mezak agindu zituztenak (Maria de Arostegui -1599-), eta Arrasate bertako edo Debagoieneko monasterio edo komentu ezberdinetan esan beharrekoak agindu zituztenak ere (Catalina de Otalora -1570- eta Catalina de Abendaño -1590-).

Kuriosoki, ia ez ditugu Arrasate bertako seroren artean Leintz bailarako beste seroren artean ohizkoak ziren meza batzuek aurkitu: San Juan Bataiatzailea parrokiako aldare pribilejiatuan esatea agintzen zirenak. Bertan otoitzezko meza bat esateko aginduak Teresa de Urisarriren (Santa Marina ermita, 1603) eta Maria Gimenez de Gesalibarren (1614) testamentuetan baino ez ditugu aurkitu; lehenaren kasuan, litekeena da hau serora honek bere ehorzte-lekua agintzerakoan izan zituen zalantzek motibatua izatea: goraxeago aipatu dugunez, hiletak eta bestelakoak San Frantziskoren monasterioan egitea agindu zuen, baina hala ezin egin izanaz gero, San Juan Bataiatzailea parrokian egin zitezela ere aipatuz. Bigarrenaren kasuan hileta, bederatzirenen, etab.etako betekizunak nahiko modu xumean formulatuak izan ziren (ondrak "con la honrra maior o menor de la forma que a mis testamentarios pareciere", eta "se digan las missas que comodamente pudieren", beste seroren kasuetan garbi asko adierazirik ageri zaizkigun aspektuak), eta agindu zituen bestelako 3 meza bakarren artean, bata aldare pribilejiatuan esana izan zedila zehaztu zuen (beste batek Aingeru Goardakoaren omenezkoa behar zuen izan, eta besteak Andre Mariaren aldarean esana). Hau da, bi kasu hauetan aldare pribilejiatuko mezak zehaztu izana hileta, bederatzirenen, etab.etako betekizunen berezitasunek motibatua izan zitekeen, eta beste seroren kasuetan, funtzio printzipalak parrokian bertan -itxuraz aldare nagusian- esatekoak izanik, aldare pribilejiatua aipatu beharrik ez izan izana.

Betiereko memoria eta anibertsarioei zegokienean ere, Arrasateko serorek ez zuten uniformetasunez jokatzeko. Gehienek aipagai izan berri ditugun bestelako formulak nahiago izan zituzten, baina izan ziren serora gutxi batzuek, San Juan Bataiatzailea parrokian betiereko anibertsarioak eskatu izan zituztenak: Maria de Arostegui (1599) 60 dukat betiereko 3 anibertsariotara bideratu zitezela agindu zuen (bere eta bere kargu zeudenen arimen alde), eta Ana de Larak (1623), Zabala lizentziatuari emanak zizkion 7 dukaten balorearekin urteroko meza bat atera zedila agindu zuen, eta baita bere osaba Bañez batxilerrak "para mis [*ali*]mentos" emanak zizkion urteroko 8 dukateko errentaren zorrarekin "un aniuersario menor" fundatu ziezaiotela ere. Goraxeago aipatu berri dugun Teresa de Urisarri (Santa Marina ermita,

1603) ere agindu zuen betiereko memoria bat, 20 dukateko zentsu baten bidez fundatzekoa, eta bere hiletak eta bestelako funtzio printzipalak bezalaxe, printzipioz frantziskotarren komentuan fundatzekoa zena, hala ezin izatekotan, San Juan Bataiatzailean fundatua izatera iragateko.

Arrasateko betiereko memoria eta anibertsarioen hurrengo adibideak ere bi tenplu hauen arteko kompetenziaren testuingurura garamatza, eta aipagai dugun uniformetasun faltaren erakusgarri ere izateaz gain salbuespenezko kasua dugu, bere fundazioaren balore handiagatik. Hainbatetan aipagai izan dugun Maria Lopez de Olazaranen kasuak (1604-1607), komunitateen arteko kompetenziaz gain, arimaren salbazioagatiko ardurak XVII. mendearen hasieratan zeukan garrantzia azpimarratzera ere bagaramatza. Arrasateko frantziskotarren kolegio eta komentuen alde 1604an dohaintzan eman zituen ggb. 1.003 dukatek¹⁵¹⁵, izan ere, bere, bere arbasoen eta purgatorioko arimen aldeko ordaina eskatzen baitzuten, betiereko mezen memoria forman: 3 bazko egunetan (“de nauidad rresurreçion y de Pentecostes”) eta Andre Mariaren jai eta bazko egun guztietan eta San Frantziskoren jaietan, eta baita memoriaren administratzaile izendatu zituen Arrasateko frantziskotarren kolegio eta komentuko zaintzaileak, bertako sindikoak eta Arantzazuko komentuko zaintzaileak egoki eritziko liozketen jaiegunetan ere, egun bakoitzean requiem meza kantatua esan zedila,

con sus [diacunal?] e so diacono [...] sacando la cruz de la dicha iglesia en frente del altar mayor de ella y poniendo dos candelas de çera a los dos lados de la cruz y en vno de los dias suso declarados en cada año perpetuamente poniendo vn auito de los de la dicha horden

Gainera, dohaintza onartzekotan, bertako fraileak bezperako bijilia eta nokturno kantatuetan eta meza osteko erresponsoan egotera behartuak zeudekeen. Arranditsua zen serorak bere arimaren alde irudikatu zituen mezen irudia. Baina dohaintzak bazuen beste baldintza bat ere, azkenean, bere ondorioak izango zituen: fraileak Arrasateko alkate zen Rodrigo de Santamariaren aurka serorak zeukan auzi bat euren kargu hartzera konprometatu behar ziren,

de que de vna sentençia en su fauor y contra mi dada por Pedro Garçia de Oro y Vmendia segundo allcalde hordinario de esta dicha uilla que con comision particular del corregidor de esta prouinçia de Guipuzcoa ha conoçido del dicho pleyto y dada con Lope de Marquina su aconpanado por mi parte esta apelado para ante la deuida superioridad tomandolo el dicho pleyto en el ser punto y estado en que esta y siguiendolo en todas ynstançias fasta executoriarle

Auziaren jarraipenerako, zentsuen korrituetatik beste 50 dukat eman zizkien. Baina auziak, bere gorabeheren berri zehatzik ez badaukagu ere, ez zuen bide onik hartu, 1607an serorak bere dohaintza-testamentuaren uko-egite bat helarazi baitzuen,

¹⁵¹⁵ Kopuru honen inguruko zenbait zehaztasun eman beharrean nago, jada ohartuko zenez, pasarte eta kalkulu batzuetan "1.000 dukat baino gehiago"-ko kopurua aipatu eta baliatu dudatan artean, hemen eta beste batzuetan ggb.ko 1.003 dukaten kopurua aintzat hartu baitut. Hau ikerketan zeharreko dokumentuen analisisen gorabeheretatik gertatzen zaigu, ggb.ko 1.003 dukaten kopuru zehatzagoa ematen digun dokumentua ondoren aurkitu eta analizatua izan baitzen. Ordurako "1.000 dukat baino gehiago"-ko kopurua aintzat harturik hainbat kalkulu eta analisi eginak neuzkan, eta kopuru eta portzentaia guztiak berriro kalkulatzeko ez hastearren, nahiago izan ditut hasierakoak bere hortan utzi. Hainbatetan adierazi dugunez, garrantzitsuena duguna erabateko zehaztasuna baino kopuruen eta portzentaia adierazgarritasuna izanik, kalkuluen baitako 3 dukaten alde ez dugu ikuspegi eta kalkulu orokorretan -eta hauei dagozkien ondorioetan- aldaketa esanguratsurik eragiteko bestekoa, eta beraz, akats-tarteari onargarria deritzot.

ondoren gertaturikoak oso era laburrean azalduz; tonu tristea zeukan, diru guztiak eskuetatik joan zitzaizkion eta:

y que despues aca auia dado y pagado a Rodrigo de Santamaria vezino de esta dicha Uilla en virtud de carta Executoria Real que auia sacado en el pleyto que contra ella auia tratado en la Real Chancilleria de Ualladolid ochoçientos ducados / y asi agora no tenia con que cunplir las cosas contenidas en el dicho su testamento y queria y hera su boluntad que con la poca hazienda y bienes que le auian quedado y tenia / Marina de Vergara muger de Miguel de Gandarias su donataria y heredera que esta presente quando dios nuestro señor fuese seruido de lleuarla de este presente bida le haga enterrar su cuerpo en la yglesia parroquial de señor San Juan Bautista de esta dicha uilla en la huesa donde estauan enterrados sus padres que era conosçida y notoria / y en la dicha yglesia le haga la dicha Marina los sufragios de su anima lo mejor que pudiere y como de ella esperaua que le haria a quien para ello encargaua su conçiencia y con lo suso dicho como mejor podia y deuia y auia lugar de derecho rreuocaua y rreuoco el dicho su testamento çerrado

Bere arimaren aldeko hainbeste meza nahi izan zituen Maria Lopez de Olazaranek, azkenean bere oinordeko eta “donataria” zen Marina de Vergararen eskutan utzi behar izan zituen hiletetakoak, “lo mejor que pudiere” egin zituan. Kuriosoki, ukoegite hau otsailean izan bazen, urte bereko (1607) abenduan, Rodrigo de Santamariak, Maria Lopez de Olazaranen aurkako auzia irabazi zuenak eta Arrasateko alkate izana zenak, 1599an testamentua helarazi zuenean Maria de Arostegui serorak agindu zituen – 60 dukateko– betiereko 3 anibertsarioen fundazioa egin zuen. Catalina de Santamariaren albacea testamentarioa zen, eta azken hau, era berean, seroraren oinordekoa izana zen.

Arrasateko serorek aginduriko hiletez, etab.ez besteko mezei eskainiriko tartea bertako ohituren uniformetasunik eza eta posibilitateen ugaritasuna berresten digun azken kasu bati leku eginez bukatuko dugu: Gesalibar elizate edo auzoko Santa Ageda parrokia eta ospizioko serora zen Maria Perez de Bengoak (1625), bere zerbitzuko parrokian aginduriko mezez beste (Elgetan ikusi ditugun zenbaki sinbolikoen araberako tankerakoak, Santa Agedaren eta San Antonioren omenezko meza bana gehiturik), 30 dukateko zentsu bat Gabon egunean, San Martin egunean eta Andre Mariaren Aurkezpenaren egunean esan beharreko 3 meza kantaturen betiereko memoria baten fundaziora bideratu zuen; alabaina, fundazio hau ez zuen zegokion parrokian egin, -agian jatorrizkoa izango zuela otutzen zaigun- Aramaioko (Araba) Ibarra elizateko San Martin parrokian (garai hartan "de Çalgo" deitua) baizik.

Arimaren inguruko izpiritualtasunari eta ekonomiari buruz aipatu berri ditugun kasuek iradoki diezaguketenaz bestalde, esan bezala, Arrasateko tenplu erlijioso nagusiek, Leintz bailarako beste herrietakoen artean, leku berezia zeukaten mezak agintzerako orduan. Batez ere Aretxabaletako eta Eskoriatzako, baina baita Bergarako, Elgetako, Aramaioko eta Oñatiko serorek ere, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako “aldare pribilejiatuan” eta San Frantziskoren kolegio eta komentuan zenbait meza agindu ohi zituzten, norik bere parrokian esan beharrekoak agintzeaz gain. Faktore honek 13.b. koadroan (1059-1063 or.) Arrasateri dagozkion emaitzetan eragiten du, tenplu hauetan bakoitzak meza gutxi aginduriko serora asko izanik, mezen eta hauetara bideraturiko diruen batzbestekoa, beste herrien aldean, baxu gelditzen baitzaigu, 19'1 meza eta 2'35 errealetan. Alabaina, ez gaitu datu honek nahasmenetara eraman behar, emaitzak Arrasateko 12 serorei dagozkien 402 mezetara eta 66 errealetara mugatuaz gero, aldi bakarreko, hilabeteko eta anibertsario amaikorretako mezen eta diruen batzbestekoa Debagoieneko beste zenbait herritako (jarraian ikusiko ditugun Aretxabaleta eta Eskoriatza) seroren antzerako neurrian gelditzen baitzaigu: 33'5 meza eta 5'5 errealetan.

Garai hartako Leintz bailara instituzionala osatzen zuten Aretxabaleta eta Eskoriatzara iragatean (Aramaioko testamentu bakarra ere hauekin batera kontsideratuko dugu), bestelako ohitura batzuen testuingurura iragaten gara. Berez, hein bateraino, azaldu berri dugun Arrasateko egoerak Debagoieneko beste herrien artean daukan erdibide geografikoa deboziozko planu batean azaleratzen digu; alabaina, jada aipatu dugunez, inguruko herrietako deboziozko ohituren artean Arrasatek leku berezia ere bazeukan, bere parrokiako aldare pribilejiatuak eta frantziskotarren komentuak deboziozko gune nagusi bihurtzen baitzuten. Testuinguru hartan, Aretxabaletak eta Eskoriatzak osaturiko bailarak norabide horietariko eraginen jatorrizko espazioetariko bat zedarritzen digu. Izan ere, alde batetik, Aretxabaleta eta Eskoriatzatik -eta Aramaiotik- eskuratu ahal izan ditugun 8 seroren testamentuetariko 6tan agindu izan ziren Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiako aldare pribilejiatuan esan beharreko mezak, bakoitzak bat edo bi, eta horietariko 5 kasutan, mezez gain defuntuen buldak hartzea ere agindu izan zuten (bulda hauek emateko gaitasunak egiten zuen Arrasateko parrokiako aldarea "pribilejiatu"). Bi seroren kasuetan aldiz, hautua Arrasateko beste espazio erlijioso nagusiaren aldekoa izan zen: Maria Ruiz de Araoz y Duranak (Aretxabaleta, 1629), 2 meza eta 2 defuntuen bulda eskatzea agintzerakoan, parrokiakoa beharrean, "el altar preuilejiado de San Francisco de Mondragon" aipatu zuen, eta Mariana de Ascoagak (Aramaio, 1693) hilabeteko mezak komentu eta kolegio berberean esan ziezazkiotela nahi izan zuen. Aretxabaleta eta Eskoriatzako -eta Aramaioko- seroren deboziozko eskakizunen norabideetariko batek Arrasatera jotzen bazuen, beste norabide batek Oñati aldera egiten zuen, Arantzazuko Andre Maria santutegi eta monasteriora. 8 seroren arteko 3k eskatu zituzten mezak bertan, 2 eta 6 bitarteko kopuruetan, eta euren artean, Maria Lopez de Celayaren (Aretxabaleta, Aozaratza, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1615) eskakizuna zaigu deigarriena: Andre Mariaren kaperan bere arimaren aldeko 6 meza esan zitzaizkion, "mando que en mi nombre bahia una perssona en rromeria [...] que tengo ofrescida".

Meza horiez beste, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, batez ere elizateetako parrokiatan, aginduriko mezen kopuruak xumeagoak izan ohi ziren, orain arte ikusi izan ditugunak baino. Ohizko hiletak, ondrak, bederatzaurrena eta urtebukaerakoak beste, zenbait kasutan zazpiurrena ere agindu ohi zuten, eta kasu askotan, hiletei zegozkien mezak bailarako seroren ohituraren arabera egin zitezela aipatu izan zuten: "con sus misas como se acostumbre en este balle entre mis yguales". Bakoitzak zegokion parrokian eskatuak, 12 apostoluen mezak ere ohizkoak ziren (8tik 6 kasutan eskatuak), eta baita hilabeteko mezak ere (5 kasutan¹⁵¹⁶). Baziren, noski, eskaturiko mezetan bestelako aldaerak nahi izan zituztenak ere: Maria Lopez de Celayak (Aretxabaleta, Aozaratza, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1615) bere parrokian esan beharreko 9 meza baino ez zituen eskatu; Maria Lopez de Espillak (Eskoriatza, San Pedro parrokia, 1594) "las animas del purgatorio por quien soy en cargo" ere gogoan hartu eta hauen aldeko 4 requiemezko meza agindu zituen; eta Ana de Echabek (Eskoriatza, Gellao, Andre Maria parrokia, 1674) hiletetaz eta 12 apostoluen mezez aparte, bere arbasoen arimak ere izan zituen gogoan, beste 6 meza aginduz.

Alderdi honetan ere maila ekonomiko xumeagoan mugituz, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ohizkoena, halakorik agintzen zutenean nork bere parrokian heriotz-urtearen ondorengo zenbait anibertsario amaikor agintzea izan zela esan liteke; betiereko anibertsarioak ere izan ziren zenbait, 3, baina ohitura zabalduenak anibertsario

¹⁵¹⁶ Marina de Ascoagak (Aramaio, 1693) Baraxoen elizateko Andre Maria parrokian bere eta bere "encomendados"-en arimen alde esatea agindu zituen 30 mezak ere hilabeteko mezat hartu ditugu, espreski "trentena", "treintena" edo San Gregorioren meza bezala aipatu ez bazituen ere.

amaikorrak eskatzea agintzen zuela dirudi. Bazen anibertsario amaikorren inguruko finkaturiko ohituraren bat; Ana de Echabek (Eskoriatza, Gellao, Andre Maria parrokia, 1674) agindu zituen 3 anibertsarioak “como hay constumbre en Leniz” izan zitezela agindu zuen behintzat. Catalina de Bengoak (Aretxabaleta, 1634) eta Domenja de Zubiak (Eskoriatza, Mendiola, San Juan Bataiatzailea parrokia, 1622) agindurikoek eman dakizkigukete ohitura horren jarraibideak, bakoitzak heriotz-urtearen ondorengo 3 urteetan esateko 3 anibertsario agindu baitzituzten, lehen kasuan 4 mezatakoak, eta bigarrenean berriz, 5ekoak. Alabaina, bestelako kopuruak ere agindu izan zituzten: Maria de Zabalak (Aretxabaleta, Izurieta, San Pedro parrokia, 1644) heriotz-urtearen ondorengo 4 urteetan egiteko 4 anibertsario agindu zituen, bakoitza 4 mezatakoa, eta Maria Lopez de Espillak (Eskoriatza, San Pedro parrokia, 1594) berriz, heriotz-urtearen barruan egiteko 6 anibertsario, bakoitza 6 “apezekoa” (6 mezakoa?). Betiereko memoria edo anibertsarioak (kasu honetan anibertsarioak, edo hala aipatuak behintzat), espero zitekeen bezala, hiribilduetan zeuden -baina propioki parrokiakoak ez zirela dirudien-seroren artean aurkitzen ditugu Aretxabaletan, bi kasutan: Maria Ruiz de Araoz y Duranak (1629), heriotzetik urtebetera esan beharreko 5 mezako anibertsario batez gain, bere amak eta anaiek aginduriko betiereko memoriak ere bete zitezela agindu zuen, eta bere eta bere arbasoen arimen alde, Santa Marina eta San Frantzisko bere "abokatuen" egunetan urteroko meza banaren memoriak egitea ere bai; eta Catalina de Bengoak (1634), aipatu dizkiogun mezez gain, zentsutan ipintzeko 30 dukat eman zituen betiereko memoria baterako: urtero San Bartolome egunean esateko 3 mezakoa behar zuen izan, bata nokturno eta errespontso kantatuduna. Hauen ordainak, 3 apezendako urteroko 16 errealekoa izan behar zuen. Beste betiereko anibertsario bat Aramaioko Mariana de Ascoagari (1693) Baraxoen elizateko Andre Maria parrokian bere ahaide, edo behintzat testamentuan nagusiki faboratua zen Pedro de Orunak fundatu beharrekoa zion, zehaztu ez zuen kopuruarekin, abuztuko Andre Mariaren egunean.

Aipatu berri ditugun deboziozko agindu hauek, Leintz bailaran -edo hobe esan garai hartan instituzionalki hala hautemana zen espazioan- hiletez, bederatzizurrenez, etab.ez aparteko mezen inguruko bailarako ohitura bereziak agertzeaz beste, Bergarako eta Elgetako serorek agindurikoenak baino batzbesteko baxuagoak agertzen dizkigute, Arrasateko batzbestekoarengandik gertuago kokatzen zaizkigunak, kalkulutarako seroren kopurua txiki xamarra (8 serora) izanik ere: Aretxabaletan 24 mezatan, eta Eskoriatzan 34tan kokatzen zaizkigu, eta Aramaiorako daukagun serora bakarrak 47 meza agindu zituen. Espazio honetako betiereko fundazioak urriak izan zirela aintzat harturik, termino orokorretan, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan baino, Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, eta hauekin bat Aramaion ere, meza gutxiago eskatzen zirela esan liteke.

Ikerketa xedetarako zentzu geografikoan hauteman dugun Leintz bailararekin bukatzeko falta zaigun herrian, Leintz Gatzagan, gorago ere ohartarazi dugunez, testamentuak lortu dizkiegun seroren kopurua urria izateaz gain, guztiak Dorletako Andre Maria santutegiko serorei dagozkie, eta santutegi honetan patroiekin eta administratzaileekin serorek izan zituzten gorabeherak zirela eta, hauen testamentuetako adierazpenak eta aginduak nekez har litezke herriko ohitura orokortuen agergarritzat. Datu gutxi daukagu ezer ondorioztatzeko; Mariana de Anuncibaik (Dorletako Andre Maria santutegia, 1655), hiletak eta bestelakoak bezalaxe, hilabeteko mezak ere Legutioko (Araba) San Blas parrokian esatekoak agindu zituen, eta Luisa de Aguirrek (Dorletako Andre Maria santutegia, 1693) ez zuen hiletez eta hiru ondrez bestelako mezarik eskatu. Maria de Pagadigorri (Dorletako Andre Maria santutegia, 1719) berriz, bere arimaren aldeko mezak bermatzeko neurriren batzuek hartu zituela esan

liteke; Oñatiko Urrexola auzo edo elizatean (zehazki, "Urrejola Garay") bere ahizpa Magdalenaren Erostarbe baserrira eramandako ondasunen balorea (santutegiko administratzailearekin auzitan ekitea eragin zuten ondasun berberak) Oñatin kapilau zen -eta seroraren iloba edo behintzat baserriko seme zela dirudien- Juan Antonio de Erostarbe apezak enkargatuak zizkion meza eta aginduetan xahutu zitzala nahi izan zuen, "por cuja rrazon es mi Uoluntad no se le pida al suso dicho cosa alguna y en esta considerazion no mando el que se zelebren a mi ynttension mas misas ni las de San Gregorio ni Aposttoles". Eta horrez gain, San Millan parrokiari ere bere partea emanaz, betiereko memoria edo anibertsario baten fundazioa egin zuen bertan, hartara bi zentsutan zeuzkan 72 dukat bideratuz.

Baina Leintz Gatzagako seroren artean mezak eskatzeko zeuden ohituren gerturapenik fidagarriena, ziurrenez, Teresa de Laquiteguiren (Dorletako Andre Maria santutegia, 1746) testamentuan azaltzen zaiguna izan liteke, beti ere, Leintz bailaratik eskuratu ahal izan ditugun beste testamentu guztien kasuetan ez bezala, jada XVIII. mendearen izpiritualtasunaren testuinguru betean gaudela aintzat hartuaz gero, noski. Izan ere, hiletan ingurukoez beste eskatu zituenen artean zeuden "la Missa de Transito" eta "por la que hestuviere mas necesitada en las penas del purgatorio" eskaturiko meza, jada izpiritualtasun barrokoaren ikuspegiaren baitan hauteman beharrekoak baititugu. Horiez beste eskaturiko mezak 100 izan ziren, eta hauek banatzeko moduak, Leintz Gatzagako serorek faboratu izanak zituzketen espazioen berri ematen digute: hauetariko 12na meza banatu zituen San Milian parrokiako Andre Mariaren aldarean, Dorletako Andre Maria santutegian eta Arantzazuko Andre Maria santutegian (ohar bedi Andre Mariari eskainitako espazioekiko preferentzia nabaria); gainontzeko 64ak "en la parte, que quisiere la persona â quien deyo encomendado este Cuidado" esanak izan zitezen agindu zuen.

Azken testamentu honek Leintz bailarako beste ezaugarri garrantzitsuetariko bat ere gogorarazten digu, espazio honekikoak bukatzeko berriro azpimarratu beharrean gaudena: bertako seroratarik gehienek XVII. mendearen lehen erdialderarte baino ez zuten iraun, behintzat, izkribauk pertsona erlijiosotzat hautematen zituzten heinean. Aipatu izan baitugu, halaber, XVII. mendearen erdialdeaz geroztik ermitetako seroretxeen alokairua hedatu ahala hauen artapena ermitauek bikoteen esku geratzen joan zela, eta espazio batzuetan, Leintz bailaran bertan bezala, honek ermitauekiko hautemapena jada erabat pertsona laikoena izatera iragan zela dirudien artean, beste espazio batzuetan, jarraian aipagai izango dugun Oñatin kasu, erlijiozko pertsonen kontsiderazioa izaten jarraitu zutela. Eta parrokiatako seroren artean, azaldu izan dugunez, hauek sakristauek emazte izaterako aldaera eman zen, hiribilduetakoetan behintzat, eta elizateetakoen kasuan ezin ziurtaturik baikaude. Edozein kasutan, Leintz bailaran -eta Aramaion- bildu ahal izan ditugun 24 testamentuetako 7 baino ez ziren 1650az geroztiko datatan emanak izan, eta hauetariko 4, hain zuzen ere, egoera aski berezian zeuden Leintz Gatzagako Dorletako Andre Maria santutegiko serorenak ditugu. Beste 3en artetik, Arrasateko bat (1664koa) eta Eskoriatzako bat (1674koa) ditugu, dagozkien espazioetan eskaturiko hileta, meza, anibertsario, etab.en testuinguruan normaltasun osoz txertatuak diruditenak, eta bestea Aramaiokoa (1693) dugu, Aretxabaletako eta Eskoriatzako seroren oso antzerako eskakizunekin; hau da, lehen biak behinik behin, Leintz bailaran jada desagerpen bidean zegoen bizimodu baten azken agerpenetarikoak ditugula esan liteke, eta baita Dorletako Andre Maria santutegiko 4 seroren testamentuak 1650az geroztiko Leintz bailarako seroratzen

testuinguru orokorrean salbuespenezkoak zirela ere, beste kapitulu batean ikusi ahal izan dugun ibilbide bereziarekin¹⁵¹⁷.

Oñatiko serorek aginduriko mezek, bertako seroren beste zenbait aspekturekin gertatu bezala, berezitasun propioak zeuzkaten. Lehenik eta behin, hiletak, ondraz, etab.ak agindu ohi zituzten San Migel parrokiaren eta Bidaurretako Trinitate Santuaren komentuan esan beharreko mezez aparte, mezak esatea agindu zuten beste espazio nagusiak bertakoak ziren: Zubikoako Santa Ana komentua eta Arantzazuko Andre Maria santutegia. 22 seroren artetik heriotz-errituak albazeen esku utzi izanagatik daturik ez daukagun 2 kasuak alderatuz, 20tik 7 kasutan bi tenplu nagusietako bakarrean baino ez zituzten mezak agindu, beste tenplurik aipatu gabe; beste 13etan tenplu bat baino gehiago izan ziren aukeratuak, oso hirizpide ezberdinen arabera mezen kopuruekin. Eta lehenen kasuan bezalaxe bigarrenenean ere, norbere edo besteren arimen aldeko, eta -preferentzien arabera- tenplu batean edo bestean esan beharreko mezen sortak banatzeko ohitura zen hedatuena. Hala, hiletez eta bestelakoez aparteko batere mezarik agindu izan ez zuen Ana Catalina de Inzaren (San Migel parrokiaren, 1751) salbuespen bakarrarekin, ehorzleku ziren nagusiki faboraturiko tenpluetan aginduriko 50, 100 edo 150 meza bezalako kopuruen aldean, 3, 5, 10, 12, 25 edo are 50 mezen sortak arimen, kaperen edo tenpluen arabera banaturik ageri zaizkigu, serora bakoitzaren hirizpideen arabera banatuak, baina beti ere, aipatu berri ditugun tenpluak tarteko zirela. Zenbait kasutan hilabeteko mezak, edo bederatziruurenekoak, edo bestelakoak, aginduriko mezen kopuru handiagoen baitan esanak behar zutela zehaztu ohi zuten.

Irudi orokor honetako salbuespen lez Ines de Bidaniaren (San Martin ermita, 1554) testamentua aipatu beharrean gaude, eskura dugun lagineko seroren artean kronologikoki lehena, Elgetako eta Leintz bailarako ohituretara gerturatzen duten berezitasunak agertzen baitizkigu, Oñatiko beste seroretan falta zaizkigunak: zenbaki sinbolikoen arabera mezen kopuruen eskaerak, eta anibertsario amaikorren fundazioak. Testamentu honek baditu beste zenbait berezitasun ere, beste serora batzuen kasuetan ere parekoak dituztenak; hala, besteren arimen aldeko mezak eskatzeko ohitura, beste espazio batzuetan (Elgetan batez ere) oso ohizkoa zena; Ines de Bidaniaz (San Martin ermita, 1554) beste, Magdalena de Uelaik (San Kristobal ermita, 1591), Osana de Villarrek (Narria, San Lorentzo ermita, 1670) eta Maria de Umeresek (San Migel parrokiaren, 1694) ere eskatu zituzten arbasoen edo "encomendados"-en arimen aldeko meza sortak. Leintz bailarako herrietan aurkitu dugun beste ohitura bat Maria Lopez de Estrañoren (San Migel parrokiaren, 1647) testamentuan ere aurkitzen dugu: defuntuen bulda bat har ziezaiotela eskatzearena. Hauek, baina, diogunez, herriko ohitura orokorretan berezitasun lez ageri zaizkigun aldaerak ditugu; gehienetan meza sortak eskatzen ziren aipaturiko tenpluetan, nahiz eta banaketarako moduetan eta kopuruetan, alde handiak zeuden.

Oñatin, Debagoieneko beste herri batzuetan ere ikusi dugun bezala, parrokiaren nagusiaren eta komentu baten arteko lehia izan zen eliztarrak eta beraien heriotz-errituak eurenganatzeko orduan; 22 seroren artetik, 17k hiletak, etab.ak parrokiaren nagusian agindu zituzten, eta beste 5ek Bidaurretako komentuan. Eta noski, heriotz-erritu nagusiez besteko meza gehienak ere, espazio hauetan agindu izan zituzten. Faboratuena, diferentzia esanguratsuekin, San Migel parrokiaren nagusia zen (915 meza eta 33 erreal), eta batean eta bestean heriotz-errituak agindu izan zituzten seroren proportzioarekiko nahiko fidel, Bidaurretako Trinitate Santuaren komentuan esatekoak zetozen hurrena (280 meza), bai aldi bakarreko meza ezberdinak agintzerako orduan,

¹⁵¹⁷ IV. 4.2. azpiatala, 365 eta hurr. or.

bai eta hilabeteko edo San Gregorioren mezak agintzerako orduan ere (20tik 7 kasutan eskatu zituzten, eta gehienetan 48 mezakoak izaten zirela dirudi). Kuriosoki, nahiz eta Oñatin ermitek eta bertako seroren eta ermitauen parte handi batek XVIII. menderarte biziraun zutela badakigun, ez dirudi deboziozko mezak agintzerako orduan hauek leku handirik hartzen zutenik; 2 serorek baino ez zituzten mezak ermitetan eskatu, eta biak, esanguratsuki, ermitetako serorak ziren. Ez ziren baina daukagun lagineko ermitetako serora bakarrak, eta beste 8ek (bi kasutan ez dakigu, edo zalantzakorrek zaizkigu), ez zituzten ermitak aintzat hartu.

Parrokia nagusian eta Bidaurretako komentuan aginduriko mezen ondoren Arantzazuko Andre Mariaren santutegian esatekoak ditugu, 227 meza eta 22 errealeko kopuruekin. Santutegi sonatu hau genuen Oñatin kanpoko seroren -eta bestelako biztanleen- aldetik mezak eskatu ohi ziren espazio bakarra; meza gehien, noski, Oñati bertako serorek eskatu ohi zituzten (3 eta 50 meza bitarteko aginduekin), baina ohizkoak ziren 1 eta 6 meza bitarteko aginduak batez ere Leintz bailara bezala zedarritu dugun espazioko herrietan eta Elgetan, eta izan zen kasuren bat Bergaran ere; Antzuolako serorak ditugu bertan batera mezarik eskatu ez zuten bakarrak. Aski hedatua zegoen beraz Debagoieneko seroren artean, Arantzazuko santutegian mezak eskatzeko ohitura. Zenbait serorak mezak eskatu zituzten azken espazio esanguratsua Zubikoako Santa Ana komentua dugu, Arriarango Juanaren Arantzazuko seroren komunitatea herrira jeisterakoan sortu zena; kasu honetan Oñatiko seroraren batzuek baino ez zuten gogoan izan mezak eskatzerako orduan, 20tik 6k, 3 eta 25 meza bitarteko aginduekin, dena 67 meza. Azkenik, badira mezak agindu izan zituzten beste espazioen batzuek ere, aipagarriak zaizkigunak: bi kasutan, aipatu berri ditugun tenpluetan eskaturiko mezekin bat, Oñatiko Jesusen Lagundiaren kolegioan esan beharreko zenbait ere eskatu izan zituzten (3 eta 10 meza); eta deigarria dugu Catalina de Villarren (1738) kasua ere, zeinak San Migel parrokian "con Cinco Capas" eskatu zituen hileta, etab.ez beste eskatu zituen meza bakarrak Logroñoko Trinitate Santuaren gizonetzkoen komentuan eskatu zituenak izan ziren, 2 errealetara esan beharreko 200 meza, bere ahaidea behar zuen Francisco Lazaro de Umeres komentuko frailearen kargu egon behar zutenak.

Oñatik Debagoieneko beste espazioekiko agertzen digun beste bereizgarri bat bertako serorek XVIII. mendearen hasierararte behintzat gaitasun ekonomiko esanguratsua azaltzen digutela da; hau da, Bergaran, eta itxura guztien arabera baita Elgetan eta Antzuolan ere, eta Leintz bailaran -Dorletako Andre Maria santutegiko seroren salbuesenez- XVII. mendearen bigarren erdialdean eta batez ere XVIII.ean atzeman litekeen gainbeherarako eta desagertzerako eboluzioa ez zaigu Oñatin hainbestetako ageri, bertako seroren deboziozko eskakizunak behintzat, are ermitetako seroren kasuan ere, mezen kopuru esanguratsuetan kokatzen baitaizkigu. Ermitetakoak nahiz parrokia nagusikoak izan, Debagoieneko beste herriekiko, Oñatiko seroren deboziozko eskakizunen batzuekiko goian mantentzen zaizkigu: 1554-1793 bitartean, 20 seroren artean (alderdi hauek albazeen esku utzi zituzten bi serorak kanpo gelditzen zaizkigu), dirutan aipaturiko kopurua alde batera utzirik, 1.811 meza eskatu zituzten, batzuek 90'55. Banaketa kronologikoaren arabera, 1650erarteko 5 serorek 549 meza agindu zituzten, bb. 109'8, eta ondorengo 15ek aldiz 1.262, bb. 84'13. Beraz, beherako joera egon, badago, baina kopuruak Debagoieneko beste espazioekiko oso altuak ditugu (ggb., bikoitza eta hirukoitza bitartean), eta beherakada ez dugu hain esanguratsua. Guzti honek orain arte espazio ezberdinetako serorazten eboluzioari buruz ikusi ditugunak berretsi baino ez dizkigute egiten; aski dugu 1769ko desagerrarazte aginduaren ondorengo informazio dilijentzietan serorazten egoerari buruz jaso zen ikuspegia gogoan hartzea: beste espazioetan oso serora gutxirekin topo egiten genuen

artean, Oñatin ugari ziren oraindik. Bestela esanda, beste leku batzuetan seroratzen desagertzen eragin zuten aldaketek, bereziki ermitetako seroretkeen alokairurako aldaerak eta bertan ermitau bikoteak sarrarazteko ohituraren orokortzeak, ez zuten Oñatiko seroratzen hautemapenean hain erabakiorki eragin, seroren erlijiozko-emakume izaera mantenduz. Eta diogunez, honek bere islada dauka serora horiek beraien testamentuetan deboziozko eskakizunetan agertzen diguten gaitasun ekonomikoan ere.

Alabaina, datu hauek behar dute beste zehaztapenik ere, bertako ohituren berezitasunak direla eta; izan ere, Oñatiko seroren artean, Elgetako eta Leintz bailarako gehien artean bezala, ez baitzegoen betiereko memoria edo anibertsariorik eskatzeko ohitura handiegirik. Zalantzatarako biderik gabe halako fundazioen bat egin zuen bakarra, besteen aldean aski testamentu orijinala helarazi zuen Ines de Bidania (San Martin ermita, 1554) dugu, zeinak bere iloba Magdalenak dohaintza baten truke meza kantatu eta erresponsozko betiereko anibertsario bat fundatu ziezaiola agindu zuen. Betiereko memoria edo anibertsarioen fundazioak aipatu ziren beste hiru kasuetan hauek baldintzatuak izan ziren, testamentuetako aginduak bete ondoren geldituriko diru eta ondasunak aski izatekotan baino ez baitziren fundatu behar; alegia, fundazioak, egitekotan, soberakinekin egitekoak ziren. Hori hala izanik, XVI eta XVII. mendeetan Oñatiko serorek aginduriko mezen kopuruak, Bergarak, Elgetak eta Antzuolak osatzen diguten espaziokoek agindurikoak baino baxuagoak eta Leintz bailaran agindurikoak baino altuagoak izan zirela ohartu behar dugu, eta baita XVIII. mendean zehar balantzeak Oñatiko seroren alde egingo zuela ere, hauek mezen kopuru esanguratsuak agintzen jarraitzen zuten artean, Leintz bailarako seroratzak ia desagertuak baitzeuden, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan seroratzen kopuruaren eta seroren gaitasun ekonomikoaren gainbehera esanguratsua izan zen artean.

Lekuan lekuko ohiturez beste, badira ohartzeko beste alderdi batzuek ere, bestelako logikei atxikitzen zaizkienak. Alde batetik, aipagarriak zaizkigu meza agintzerakoan besteren arimen kargu hartzen ageri zaizkigun serorak, edo hobe esan, familia-kideen arimez aparteko pertsonen ("encomendados"-en) arimen kargu hartzen ageri zaizkigunak; zenbait kasutan nabaria zaigu "encomendados" haiek beraien arimen alde esan beharreko mezen ardura seroren esku uzten zutela, apezten esku baino: aski nabariak zaizkigu goraxeago aipagai izan ditugun Marina Garcia de Oruesagastik (Bergara, San Pedro parrokia, 1607) ahaztu izanaz beldur izanez agindu zituenak, eta Maria de Arostegui (Arrasate, 1599) ere, esaterako, garbi asko adierazi zuen 6 dukat Simon de Aranguren bere kargu utziak zituen meza esatera bideratu beharrekoak zirela. Kasu hauetariko zenbait herrien erreposoa egiterakoan aipagai izan ditugu, baina komenigarria zaigu adibideak ia Debagoiena guztira hedatzen zaizkigula ohartzea: aipatu dugunez kasu gehien Elgetan¹⁵¹⁸ aurkitu ahal izan dugu, baina Bergaran¹⁵¹⁹, Arrasaten¹⁵²⁰, Eskoriatzan¹⁵²¹, Leintz Gatzagan¹⁵²² eta Oñatin¹⁵²³ agindu zirenen berri ere

¹⁵¹⁸ Gracia de Urrupain (Andre Maria parrokia, 1587), Maria Ochoa de Marquiegui (Andre Maria parrokia, 1592), Domenja de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1599), Marina de Altube (San Adrian eta San Antonio ermita, 1603) eta Magdalena de Urrojolaegui (1609).

¹⁵¹⁹ Marina Garcia de Oruesagasti (San Pedro parrokia, 1607), Catalina de Sarralde (Santa Marina parrokia, 1628) eta Maria Ana de Aleiza (San Pedro parrokia, 1772).

¹⁵²⁰ Catalina de Abendaño (1590) eta Maria de Arostegui (1599).

¹⁵²¹ Maria Lopez de Espilla (San Pedro parrokia, 1594).

¹⁵²² Mariana de Anuncibai (Dorletako Andre Maria santutegia, 1655), nahiz eta bere "Encomendados"-ak, behin Leintz Gatzagako santutegitik joan ondoren, Legutioko (Araba) San Blas parrokian zeuzkanak izan.

¹⁵²³ Ines de Bidania (San Martin ermita, 1554), Osana de Villar (Narria, San Lorentzo ermita, 1670) eta Maria de Umeres (San Migel parrokia, 1694). Lehenaren kasuan, ez zuen "encomendados"-ik orokorrean aipagai izan, partikularrek esatea bere kargu utziriko meza diruditenak banaka aipatu baizik: San Migel parrokian Diaz de Arroite jaunaren arimaren aldeko 3, Juan "[Miguel?] de Hernany" eta bere emazte

izan dugu. Espero zitekeen bezala, euren kargu besteren arimen aldeko mezak esatea zeukaten 15 serora hauetariko parte esanguratsu bat, bi herenak, parroketako eta bertako zerbitzu partikularretako serorek osatzen dute; alabaina, beste herena osatzen diguten 5ak, bata Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko serora -edo serora izana-, beste bi Elgetako San Adrian eta San Antonio ermitako serorak (ziurrenez elkarren familia-kide zirenak) eta beste bi Oñatiko San Martin eta San Lorentzo ermitetako serorak ditugu. Hau da, ermitetako seroraren batzuek ere parroketako jarlekuetako zerbitzuetan parte hartzen zutela ageri zaigu, bestela ez baitzuten halako enkargurik aipatuko; Oñatiko San Lorentzo ermitako seroren kasuan badakigu Bidaurretako komentuan zegoen ermitako seroren jarlekua artatzen zutela, baina besteen kasuan, printzipioz, partikularren jarlekuetako artapenari buruz dihardutela dirudi. Kasu hauek serorek biztanleek euren arimen alde esatea eskatzen zuten mezen gain zeukaten ardura agertzen digute, eta baita serorak, herritarren hautemapenean, bizidunen eta hildakoen arteko erlazioen kudeaketaren erdibidean kokatzen zirela ere. Eta ez zen hau edonolako ardura, purgatorioaren eta zerurako bidearen inguruko sinesmenen testuinguruan, serorak arimen patuen zaintzaile baitziren, eta hautemapen hartan, mezen betekizunak edo ahazturak arimaren salbazioa edo galera erabaki baitzezakeen.

Serorek eurek ere, noski, beraien arimen aldeko mezen eta eskaintzen betekizuna segurtatu nahi izaten zuten, eta bidenabar, zenbait kasutan ageri zaigunez, familia-kideak ziren serorak -edo bestelako emakumeak- eta apezak faboratu, mezen esatea eta eskaintzen burutzea noren esku izan behar zen zehaztuz. Halako zehaztapenak Bergarako Catalina de Ondarzaren (San Pedro parrokia, 1572)¹⁵²⁴ eta Marina de Moyugoitiaren (San Lorentzo ermita, 1574)¹⁵²⁵, Antzuolako Catalina de Lizarriturri Igueribarren (1659)¹⁵²⁶, Maria de Iturberen (Uzarragako San Juan Bataiatzailea parrokia, 1673)¹⁵²⁷ eta Dionisia de Jauregui Madariagaren (1720)¹⁵²⁸, Arrasateko Antonia de Osinagaren (Musakola, San Antolin ermita, 1603)¹⁵²⁹, Leintz Gatzagako Mariana de Anuncibairen (Dorletako Andre Maria santutegia, 1655)¹⁵³⁰ eta Teresa de Laquiteguiren (Dorletako Andre Maria santutegia, 1746)¹⁵³¹, eta Oñatiko Ines de Bidaniaren (San Martin ermita, 1554)¹⁵³², -jada aipagai izan dugun- Catalina de Villarren (1738)¹⁵³³ eta

"dona Juana"-ren arimen aldeko beste hainbeste, eta Martin de Asurdiren eta bere jarlekuko arbasoen arimen aldeko 6, eta Bidaurretako komentuan Bicuña batxilerraren, eta goragoko berberak diruditen Juan Miguelezen eta "dona Juana"-ren arimen aldeko meza bana.

¹⁵²⁴ 6 dukaten balorean esatea agindu zuen urteroko meza bat eta Bergarako ermita guztietan esatea agindu zituenak Pero Abbad de Gorostolak esan zitzala agindu zuen.

¹⁵²⁵ Santa Marina parrokiari atxikiriko ermita guztietan esatea agindu zituen mezak bere anai Miguel Abbad de Moyuak esan zitzala nahi izan zuen.

¹⁵²⁶ Gure Errukizko Amaren parrokiaren esan beharrezkoak ziren bere arimaren aldeko 70 otoitzezko mezen arteko 30, parrokiako aldarean Miguel de Ugarte apezak esan zitzaizkion nahi izan zuen.

¹⁵²⁷ Bere hiletak, bederatziurrena eta urtebukaerakoa bere iloba -eta albazea- Francisco de Iturbe ("don") apezak esan beharrekotzat zehaztu zituen, eta ordain gisa 60 dukat eta oheak, kutxak eta erlauntzak bezalako zenbait ondasun eman zizkion.

¹⁵²⁸ Bere hileta eta bestelako heriotz-errituekikoak "al Cuidado de Maria Bautista de Jauregui Madariaga mi hermana [oinordeko egin zuena] que viue en mi Compañia" uzteaz beste, Antiguako Andre Maria ermitako 5 aldareetan agindu zituen meza banak Joseph de Aldaeta ("don") Antzuolako parrokia batuetako "Cuadjutor" eta benefiziodunak esan zitzala zehaztu zuen.

¹⁵²⁹ Bi urtetan zeharreko ogi-eskaintzen ardura hartuko zuen "persona onesta" bat izendatu zedila eta "a la tal muger o persona" zegokion ordain ziezaiotela aipatzeko ardura hartu zuen.

¹⁵³⁰ Bere hiletak agindu zituen Legutioko (Araba) San Blas parrokiaren apez eta benefiziodun zen bere anai Simon de Anuncibaik hiletak eurak eta hilabeteko mezak pertsonalki esan zitzala nahi izan zuen.

¹⁵³¹ Hiru urtetan zehar egin beharrekotzat aipatu zituen ogi-eskaintzak bere iloba Isabel de Laquiteguik egin zitzala zehaztu zuen.

¹⁵³² Bere "oblada anal"-a bere iloba "Madalena"-k eskaini zezala agindu zuen.

Josefa de Lizarralderen (San Migel parrokia, 1793)¹⁵³⁴ testamentuetan aurkitu ditugu. Kasu hauek agertzen digutenez -eta normala denez-, hainbat serorak beraien heriotz-errituetako lanen etekinak familiakoek eta gertukoek jaso zitzatela nahi izan zuten, hauek errituotako gizonaen nahiz emakumezkoen esparruei zegozkienak izan.

Goraxeago azaldu ditugun datuek Debagoieneko seroren hiletan eta ondorengo heriotz-errituen eta mezen arteko espazioen arabeko banaketak eta ezberdintasunak agertzen dizkigute, baina beti ere, seroren testuinguruaren baitan mantenduz. Datu berberak, baina, beste galderaren batzuek erantzuten saiatzeko bidea ere eman diezagukete. Zein zen, Debagoieneko biztanleriaren artean, seroren hiletak eta deboziozko eskakizunek zeukaten tokia eta esangura, erlazio sozialen mailan bezalaxe, ekonomikoan ere? Eta heriotz-errituen ekonomiaren baitan, ze garrantzia zeukaten serorek aginduriko hiletak eta mezek, tenpluetako zerbitzarien etekinetan?

Lehen galderari erantzun diogu jada partzialki, hiletak, ondrek, eta bestelako errituek herri ezberdinetan zeukaten mailaketetan, serorenak ze lekutan kokatzen ziren argitzen saiatu garenean. Lekuan lekuko aldaerak gorabehera, seroren hiletak, ondrek, etab.ak gizarte-mailaketen goi- edo erdi-mailetan kokatzen zirela esan liteke, nahiz eta desberdintasun handiak ere tarteko izan zitezkeen. Baina deboziozko mezen eskakizunen bilakaerak, hautemapen sozialaren arabera zegokien estatusaz eta hauei zegozkien hiletez beste, izpiritualtasunak eta ekonomiak bat egiten zuten esparru hartan serorek izan zuten garrantzia eta garapenaren berri eman diezaguke. Hau egoki ikusi ahal izateko Madariaga Orbeak aspektu hauen inguruan hemen ere ikergai ditugun Debagoieneko herriren batzuetako biztanleria (Bergara eta Oñati) ardatz lez harturik egin zituen ikerketak oso probetxuzko zaizkigu; ikerlan hauei esker XVII eta XVIII. mendeetan Bergarako biztanleen artean agindu izan ziren meza eta anibertsarioen kopuruen berri daukagu, eta datu hauek Bergarako seroren artean eskuratu ditzakegunekin parekatuaz gero, lehenxeago aipagai izan dugun seroren testamentuetako deboziozko aginduen "etena" garbi aski ageriko zaigu. Jarraian, bildu ditugun datuak Madariaga Orbeak bere datuak antolatzeke erabilitako hirizpideetara gerturatuko ditugu, konparazioak egoki egiteko¹⁵³⁵.

Alde batetik testamentuen data eta aginduriko aldi bakarreko mezak, eta bestetik data eta betiereko memoria edo anibertsarioak hartuta 15.a koadroa (1073 or.) eta honen kronologikoki antolaturiko emaitzen 15.b. koadroa (1074 or.) osatu ditugu. Horrela bilduriko informazioaren gaineko begiratu hutsa aski dugu, XVII. mendearen bigarren erdialdeak aurretiko garaiarekiko suposatzen duen eten garbia atzemateko. Eta halaber, XVI. mendearen bigarren erdialdeko serorek eskatu izan zituzten mezekiko ere alde handia agertzen digute XVII. mendearen hasieran eskaturikoek, 42'33ko batazbestekotik 87'5ekora. XVII. mendearen bigarren erdialdeko 62 mezako batazbestekoak beherako joeraren hasiera adierazten digu, eta XVIII.eko lehen erdialdeko 8koak eta bigarreneko 21'16koak, aldiz, jada gainbehera nabaria. Alabaina, Bergarako biztanleria orokorraren deboziozko mezen eskakizunen bilakaerak ez zuen ibilbide berbera eraman, meza gehien agindu izan ziren garaiak, batazbestekorik altuenak agertzen dituztenak, hain zuzen ere, seroren deboziozko mezen eskakizunek behera egiteari ekin zioteneko berbera baitugu: XVII. mendearen bigarren erdialdean (bb. 102'2 meza) eta

¹⁵³³ Logroñoko Trinitate Santuaren gizonaen komentuan esatea agindu zituen 200 mezak bertan fraile zen eta bere familia-kidea behar zuen Francisco Lazaro de Umeresek esan zitzala agindu zuen.

¹⁵³⁴ Bere jarlekuan bi urtetan zehar ipini beharreko argien eskaintzez bere iloba Maria Josefa de Letamendi arduratu zedila nahi izan zuen

¹⁵³⁵ Ondorengo parrafoetan garatuko ditugun konparazioetarako Madariaga Orbeak koadrotan antolaturik batu zituen datuez baliatuko gara; honakoa dugu datu horien argitalpeneko kokapena, jarraian errepikatzen ibiliko ez garena: Madariaga Orbea 1991, 84.

XVIII.enaren lehenean (bb. 79'2) kokatzen zaizkigu. Areago, XVII. mendearen hasieratako bilakaeran seroren mezen eskakizunek biztanleria orokorrarenak gainditzen zituzten (seroren 87'5 mezako bb.koaren aldean, biztanleria orokorraren 70'6), esan bezala, XVI. mendeko mezen eskakizunekiko gorakada deigarria izan ondoren. Hau da: XVII. mendearen lehen erdialdean seroren debozioaren bilakaera biztanleria orokorrak izan zuen bilakaeraren patroia berberetik gidatu zutela dirudi, serorek, erlijiozko pertsonak izanik normaltzat har dezakegun bezala, biztanleriaren batzbestekotik gorako mezen kopuruak eskatu zituztelarik; baina mende hartako lehen hamarkadetan izan zen seroren desagerrarazterako lehen saiakera indartsuaren ondoren, hauek aginduriko deboziozko mezen kopuruan gainbehera izugarri bat eman zen, biztanleria orokorrak aginduriko mezek, garai "barrokoenean" barneratu ahala, gorako bidean jarraitzen zuten artean. Serorek deboziozko mezak agintzerako orduan agertzen diguten beherakada, noski, beraien ekonomiaren alorreko baliabide eta etekinen beherakadaren erakusgarria zaigu, bere azken ondorioetan, testamentuan arimaren zaintza bermatzerako orduan. Eta serorak erlijiozko emakumeak zirela eta izpiritualtasun barrokoaren bilakaerak biztanleria orokorraren artean deboziozko mezen eskakizunen gorakada handia eragin zuela aintzat harturik, serorek arimen zaintzarako eskaturiko mezen beherakada bereziki deigarria zaigu, beraien gaitasun ekonomikoaren gainbeheraren neurgarri gisa.

Madariaga Orbeak debozioaren bilakaerari neurria hartzeko erabili zituen beste baliabide batzuek, alde batetik betiereko anibertsario edo memoriak, eta bestetik hilabeteko mezak eta 12 apostoluen mezak eskatu zituztenen portzentaiak kalkulatzeko zetzaten. Datu hauek, azaldu berri dugun bilakeraren baitan nabardura garrantzitsuak gehitza garamatzate. Anibertsarioen fundazioek (Madariaga Orbeak memoriak eta anibertsarioak, biak anibertsariotzat batzen ditu) seroren deboziozko agerpenak biztanleria orokorrarenetik goragoko proportzioetan agertzen dizkigute, bai konparaziotarako baliagarri zaigun garaia osorik kontsideraturik, XVII-XVIII mendeak bitartean (seroren arteko %54'54en aldean, biztanleria orokorraren %23), eta -azaldu berri dugun seroren deboziozko "etenarekiko"- garrantzitsuagoa dena, baita garaia kontsideraturik ere: XVII. mende guztian zehar seroren bi herenek, %66k, agindu zuten anibertsario edo memoriaren bat, biztanleria orokorraren kasuan mendearen lehen erdialdean %38'3ak, eta bigarrenean %30'7ak agindu zituzten artean; XVIII. mendearen lehen erdialdean seroren batzbestekoa laurdenera (%25) joaten zaigu biztanleria orokorraren %13aren aldean, eta bigarren erdialdean aldiz, seroren batzbestekoak erdira egiten digu gora (%50), biztanleria orokorraren %10aren aldean. Datu hauen eratorpenerako seroren laginaren kopurua murriztu xamarra dugula onartu beharrean bagaude ere, aldeak, beraien kabuz, nahiko esanguratsuak zaizkigula ere aintzat hartu behar dugu, nahiz eta datuen zehaztasunak eta balizkotasunak -laginaren neurri txikiagatik- erabatekoa izan beharrik ez duen. Kontrara, aldiz, portzentaietan espresaturiko datu hauen pean seroren kopuruaren beherakada ere aintzat hartu beharrean gaude, ezen, zeuden seroren artean betiereko memoria edo anibertsarioak fundatzen zituztenen neurria esanguratsua izanik ere, seroren kopuruaren jeitsierak berak, halako fundazioen testuinguru orokorrean hauen presentzia murriztagoa izatea eragin baitzuen. Honekiko, baloraziorako azken datu batzuk, 1815ean Bergaran egin zen "Reducción de Aniversarios"-ak ematen dizkigu. 1655-1790 bitartean fundatuak izanik, 1815erako gelditzen ziren 73 anibertsarioen artean, 3 baino ez ziren serorenak: 1656ko Maria de Antia "beata"-rena, 1671ko Asenzi de Ascargorta "freira"-rena, eta 1772ko Maria de Aleiza "beata"-rena (*Ibid.*, 133-134).

Hilabeteko mezen (edo San Gregorioren mezen) eta 12 apostoluen mezen inguruko datuek ere, bestalde, eta nahiz eta hemen ere laginaren mugak presente izan

behar ditugun, seroren eta biztanleria orokorraren batazbestekoen arteko alde esanguratsuak agertzen dizkigute. Betiereko memoria eta anibertsarioekiko alderantzizko koerlazio batean, hilabeteko mezak edo 12 apostoluenak XVI. menderako dauzkagun serora gehienek eskatu zituzten, 6tik 5ek (%83'33), ondorengo mendeetan, behera egiteko. Nahiz eta aginduriko mezaren batzuen inguruan hilabeteko edo 12 apostoluen mezatzat kontsideratzerakoan zalantzak datozkigun (kopuruak, 30 edo 48, edo 12koak, hilabetekoen eta 12 apostoluenen berdina izanda ere, esplizituki halakotzat aipatu ez zirenak izan baitziren zenbait), biztanleria orokorrak XVII. mendearen lehen erdialdean (%8'3) eta bigarrenean (%2'4) agindu zituztenen neurritik gora kokatzen zaizkigu (esplizituki aipaturikoak soilik, edo kopuru berdinetaekin batera kontaturik, mende osorako %22'22 eta %66'66 bitartean), XVIII. mendean, aldiz, biztanleria orokorraren batazbestekoek gora egin zuen artean (lehen erdialderako %35'9, eta bigarreneko %17), serorenak behera egin zuelarik, lehenek agindurikoen neurritik behera egitera ere helduz (lehen erdialdean %25, eta bigarrenean %16'66 eta %33'33 bitartean).

XVII. mendearen hasieratan kokatu dugun hilabeteko, urtebeteko, eta anibertsario amaikorretako mezen kopuruetako "etena", betiereko anibertsario eta memoriaren fundazioei eta hilabeteko nahiz 12 apostoluen mezen eskakizunen proportzioei erreparaturik, propioki "etena" baino, antzaldatze edo bilakaera bat izan zela esan liteke. Alde batetik, Bergarako serorek aldi bakarreko mezen, etab.en eta betiereko anibertsario edo memoriaren fundazioen artean azaltzen dizkiguten preferentziek, Aro Berri guztian biztanleria orokorren datuen arabera emakumeek gizonezkoen aldean agertu zituzten ezaugarri bereziki bat egiten dute. Hau da, termino orokorretan (XVIII. mendearen bigarren erdialdearen salbuespenez), emakumeek aginduriko aldi bakarreko, etab.eko mezak gizonezkoek agindurikoak baino dezente gutxiago izan ohi ziren, hilabeteko mezak edo 12 apostoluenak agintzerako orduan, eta batez ere betiereko anibertsarioak eta memoriak agintzerakoan, oster, gizonen pareko neurrietan mantentzen zirelarik, zenbait garaietan (bereziki XVII. mendearen lehen erdialdean) hauenak gaintzera ere helduz. Testuinguru hartan seroren deboziozko eskakizunek tankerako logika zeramatela esan liteke, baina orokorrean, edo hobe esan, batez ere XVII. mendearen bukaerarako tartean, emakumezkoen batazbestekoetatik goragoko neurrietan kokatuz. Gizonezkoekiko, aldi bakarreko, etab.eko mezen batazbestekoetan seroren mezen kopuruak neurri apalagoetan mantentzen baziren (emakumeen batazbestekotik gora izanik ere), hilabeteko edo 12 apostoluen mezak agintzerako orduan, eta -era berean- batez ere betiereko anibertsario edo memoriak agintzerakoan gizonezkoek eskaturikoak baino gehiago eskatu ohi zituzten, alde esanguratsuekin, konparaziorako baliagarri zaigun XVII-XVIII mendeen bitarte guztian zehar.

Bergarako biztanleria orokorraren deboziozko aginduek, bestalde, eboluzio orokor bat agertzen digute, seroren kasuan aipagai dugun XVII. mendearen hasieratako "etenak" eraldatua ageri zaiguna. Aldi bakarreko, etab.eko mezak, biztanleria orokorraren kasuan, XVII. mendea eta XVIII.enaren lehen erdialdean eskatu izan ziren ugarien, eta XVII.aren bigarren erdialdean jo zuen batazbestekoak goia; esan bezala, serorek agindurikoen kopuruak gainbehera gogor bat jasateari ekin zion garai berbera. Betiereko anibertsario eta memoriaren eta hilabeteko eta 12 apostoluen mezen artean aldiz, portzentaien elkarrekintza bat nabari liteke: XVII. mendean zehar lehenak izan ziren nagusi, eta XVIII. mendearen lehen erdialdean, hauek nabari behera egin zutenean, hilabeteko eta 12 apostoluen mezen eskaerek egin zuten gora, mendearen bigarren erdialdean, azkenik, mezak eskatzeko forma guztiek, hauek aldi bakarrekoak,

hilabetekoak, 12 apostoluenak edo betiereko fundazioak izan, nabarmen behera egiteko. Bilakaera honen aldean, serorek eskaturiko aldi bakarreko, etab.eko mezek goia jo zuten garaia XVII. mendearen lehen erdialdean kokatzen zaigu, beherakadari bigarren erdialdean ekinez, biztanleriak orokorrean agertzen digun bilakaeran baino mende erdi lehenago. Jada XVII. mendearen bigarren erdialdean, esan bezala, seroren eskaturiko moeta honetako mezen batzbestekoa biztanleria orokorrarenetik behera kokatzen zaigu. Betiereko anibertsario eta memoriaren fundazioak eta hilabeteko eta 12 apostoluen mezen eskakizunak osteratzen XVII-XVIII mendeen bitarte guztian mantentzen zaizkigu biztanleria orokorraren batzbestekoetatik gora, XVII.en mendean aski maila altuetan mantenduz, XVIII.ean jada beherako joeran sartzeko.

Bergarako serorek, hortaz, arimaren aldeko mezak agintzeko formen artean bertako emakumeek jarraitu ohi zuten banaketarako moduari atxikitzen zitzaizkion, baina XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik, aldi bakarreko, hilabeteko, urtebeteko eta anibertsario amaikorretako mezen kopuru orokorrak eten bat jasan zuten, deboziozko aginduak betiereko anibertsario eta memoriaren edo hilabeteko edo 12 apostoluen mezatan eskatzeko joerara iragateko. Azken hauek, batez ere betiereko anibertsario eta memoriak, debozioaren espazio publikoetako espresioak ziren aldi bakarreko, etab.eko mezen aldean (nolabait, hileta, ondra, etab. etako aparatua inguratu, areagotu eta "apaintzen" zuten debozio espresioak baitziren), iraupen luzeko eta izaera "pribatuagoko" mezen fundazioak zirela aintzat harturik (propioki arimaren salbazioaren inguruko ardura pertsonal -eta beraz pribatu- "barrokoago" baten agerpenak baitziren), XVII. mendearen lehen hamarkadetakoa serorak desagerrarazteko saiakeren ondoren, hauen espazio publikoko botere agerpenek, eta euren artean garrantzitsuenetariko lez, baita hiletak eta hauei asoziatutako arimen aldeko mezen eskakizunek ere, espazio publikoetatik aldendu eta "ezkutatzeko" joera bat garatu zutela susma liteke, XVII. mendearen bigarren erdialdean eta XVIII.ean zehar, instituzioaren oinarri ekonomikoen gainbeherarekin, "laikotzerako" joerarekin eta seroren euren kopuruaren beherakadarekin, eta, finean, garai berri baterako instituzioaren baitako aldakuntzekin bat.

Bergararekin batera ikerketarako espazioetariko bat osatzen diguten Elgetako eta Antzuolako seroren deboziozko eskakizunen bilakaerari buruz gorago azaldukoen berriro erreparatuz gero, gainera, ibilbide berberaren zantzuak atzeman ditzakegu. Elgetako serorarik gehienak, 10etik 9, 1650erarteko bitartekoak ditugu (1742koaz aparte, azkena 1638koa), eta aipagai izan ditugun bertako ohitura berezietz beste, betiereko anibertsarioak 2 kasutan baino ez zaizkigu agertu, eta bietan, fundazioak Angiozarreko San Migel parrokiaren eginak izan ziren, ez Elgetako Andre Maria parrokiaren nagusian. Antzuolako seroren testamentuak, aldiz, 1640-1733 bitarte kronologikoki helaraziak izan ziren, gehienak 1650aren ondoren, eta edozein kasutan, guztiak XVII. mende hasierarako seroren desagerrarazte saiakeren ondorengo garaian. Eta bertako seroren deboziozko eskakizunek hiletez, bederatzirenez, etab. ez besteko arimen aldeko meza gehien-gehienak betiereko memoriaren forman eskatu izan zituzten, zehazki 40 dukatetan finkaturik zeuden fundazioetan. Herri bateko eta besteko datuak erkatuz eta ildo kronologiko berean baitaratuz, Bergarako kasuetan azaldu dugunaren tankerako debozioaren eboluzioa ematen dela ohartuko dugu.

Alabaina, bilakaerak ez ziren leku guztietan berberak izan, ez eta Debagoiena bezalako espazio mugatu batean ere. Madariaga Orbeak Oñatiri buruzko datuak ere jaso eta antolatutako dakarzikigu, bertako bilakaeraren gorabeherak ere konparaziozko argitara gerturatzea ahalbidetzen digularik. 1700-1850 bitarteko bilduriko datuak honela azaldu zizkigun:

el promedio de misas encargadas por los testadores en la parroquia era de 86, mientras que en el convento de Bidaurreta era de 70. Claro que esta cifra encubre diferencias muy notables. Mientras que aproximadamente un tercio de los testadores no encarga ninguna misa en algunos casos extremos podían llegar a pedir entre 1.200 y 1.500. Además las misas como el resto de los encargos piadosos van disminuyendo drásticamente según avanza el tiempo. De esta forma, aunque el promedio general de todo el periodo considerado de los testadores que encargaron misas fue de un 58%, la evolución de este porcentaje fue muy brusca; así, mientras que en la primera mitad del siglo XVIII, los testadores que encargaban misas constituían el 99% del total, en la segunda mitad de este siglo no llegaban más que al 52% (Madariaga Orbea 2007, 42)

Datu hauen alboan Oñatiko serorenak kontsideratzean, hauen XVIII. menderako arimen aldeko mezen batzbestekoak biztanleria guztiaren batzbestekoaz behetik kokatzen zaizkigula ikusten dugu: San Migel parrokiako eliztar ziren 9 serorek (hauen arteko kasu batean ez zen hiletez, etab.ez besteko mezarik eskatu, eta beste batean jada esanarazi izana baino ez zen aipatu) parrokian bertan eskaturiko mezek 52'75eko batzbestekoa ematen digute, eta Bidaurretako komentuko eliztar zen serora bakarrak bertan 49 meza eskatu zituen. Hemen Madariaga Orbeak testatzaileen eskakizunen muturreko zifrek batzbestekoetan izan zezaketen eraginaren ohartarazpena ere aintzat hartu beharrean gaude, seroren mezen eskakizunen batzbestekoak ez baitzeukan zertan ohizko biztanleek eskaturikoekiko hain urrun egon beharrik (batazbestekoa ateratzerako orduan, Madariaga Orbearen lagin zabalagoko pertsonaia boteretsuen eskakizunen presentzia falta baitzaigu). Hau oharturik, eta XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik biztanleriak azaltzen duen mezarik eskatu ez zuten testatzaileen gorakadarekiko, 9 seroren arteko 8k (kasu batean kopururik ez badakigu ere) mezak eskatu zituztela eta eskatu ez zituen bakarra bi garaien erpinean (1751n) kokatzen zaigula aintzat harturik, gainbehera hau seroren artean hainbesterakoa izan ez zela ondorioztatu liteke, mendearen lehen erdialderako %100eko (5etik 5) eta bigarrenerako %80ko (5etik 4) portzentaiekin. Beste alderdi batzuen berri ematean ere aipatu izan dugunez, Oñatiko seroren egoeraren eboluzio kronologikoak ez zituen Bergara, Elgeta eta Antzuolak osaturiko espazioaren, ez eta Leintz bailararen ibilbide berberak eraman, propioa baizik, termino orokorretan "berantiarragoa" bezala hauteman litekeena.

Datu guzti hauek aditzera ematen digutenez, itxura guztien arabera, Debagoieneko seroren hiletak eta mezek (beraien mailaketa eta kopuruekin), orokorrean eta Aro Berriaren parte handi batean zehar behintzat, eta nahiz eta espazio batzuetan gutxiago eta besteetan gehiago izan, biztanleriaren ohizko hiletetako gastuak gaititu izan zituzten, XVIII. mendea hurreratu ahala, gainbehera gero eta nabariagoan joateko. Baina seroren debozizko eskakizunek gizarteko testuinguru orokorrean izan zuten lekuaz beste, garrantzitsua deritzogun beste galdera bat ere formulatu dugu gorago, ahal dugun neurrian erantzuten saiatuko garena: ze pisu izan zezaketen gastu hauek tenpluetako zerbitzariak (bereziki apezak eta serorek) jaso zitzaizkien etekinetan? Nolabaiteko gerturapen bat, egin izan ditugun bestelako gerturapenezko balorazio ekonomikoak bezalaxe, zehaztasun handikoa baino (eskuragarri dauzkagun datuekin zehaztasunak ezinezkoak baitira), adierazgarria izan liteke. Horretarako Bergarara itzuliko gara, konparaziotara joteko besteko datuak bertan bildu ahal izan baititugu. Aro Berriaren zehar, Bergarako apezken etekinen panorama ez zen oso itxura onekoa izan:

En Bergara, al igual que en otros muchos lugares del País Vasco, la situación económica del clero secular no era nada boyante. Santa Marina que integraba abundantes caseríos diezmeros era de patronato laico y no controlaba estas percepciones y San Pedro, cuyo patronato municipal no entrañaba derecho diezmal, poseía muy pocos caseríos en situación de contribuir. La "tenuidad" de los frutos decimales hacía

que por una parte que la ración beneficiar fuese muy breve, por otra, que las fábricas de las iglesias fuesen pobres y para culminar, que se dependiese, tanto para mantener los edificios como a los eclesiásticos, de las contribuciones populares; éstas se materializaban por dos vías, la de las limosnas y la de los gastos funerales. [...] En 1712, se reconocía que las ofrendas de los domingos, lunes y fiestas y funerales en general representaban la parte del león del mantenimiento eclesiástico: "consistiendo en dicho pan y pie de Altar y obtenciones de difuntos la mayor congrua de dichos Beneficios; y la cantidad de dichas ofrendas de pan de veinte años a esta parte, ha baxado como a la mitad" (Madariaga Orbea 1991, 50)

XVIII. mendearen hasiera hartan ekindako bilakaeraren parte izan ziren Larramendik mendearen erdialdera heriotz-errituetakoko gastuei buruz aipatu zituenak ere; gehiegikeria salatzeko testuinguru batean adierazia izanagatik zuhurtziaz hartu beharrean bagaude ere, handikien hiletetan izaten ziren gastuak aipatzean 500 dukaten bueltan izaten zirela esan zuen (Larramendi 1985 -1754-, 234). Baina noski, gastu guzti horiek ez ziren tenpluen eta bertako zerbitzarien etekin izaten, garai hartako euskal gizartean botere agerkari lez gertakizun garrantzitsuenetariko batean hildakoaren eta familiaren garrantzia gizartearen aurrean antzesteko parafernalia guztian xahutzen zirenak baizik; hauen parte bat baino ez zen tenpluetako zerbitzarien eskutara heltzen. Horregatik, Madariaga Orbeak Aro Berriko Bergarako parrokietakoko apezten etekinen inguruan dioskuna eta Larramendik hiletetakoko gastu handiez egiten duen salaketa, ez dira kontraesankorrak. Hiletak, -apezen eta beste zerbitzarien etekinen iturri ziren-arimaren zaintzarako erritu ziren heinean baino, gizartearen aurreko botere agerkarizat garrantzia handiagoa zeukatela baino ez digute azaltzen. Eta gastu orokorretatik apezten eta tenpluetako zerbitzarien etekinetara zegoen aldea ohartzeko, XIX. mendearen erdialdeko Bergarako "Derechos de entierros"-en inguruko dokumentuko kalkuluez baliatu gintezke. Nahiz eta Larramendiren 500 dukatetatik dokumentu honetakoko datuetara mende bateko aldea daukagun, nahiko esanguratsua dugu bertan dirutan eta ogitan lehen mailako hiletetan aipatzen zaizkigun etekinen kalkulua 500 dukaten seiren baten inguruan kokatzea, 86'18 dukatetan¹⁵³⁶.

Baina seroren hiletetakoko eta deboziozko mezetako gastuek tenpluetako zerbitzarien etekinetan izan zezaketen neurriarenganako nolabaiteko gerturapen bat egin ahal izateko, beste jarraibide batzuek hobe lagun gaitzakete. Erreferentziatzat Aro Berriko zeharreko Bergarako pertsonaia eta etxe ezberdinen hiletetakoko gastuen inguruko datuen batzuez baliatuz, Bergarako seroren hiletetakoko gastuak horiekiko non kokatzen ziren ikusten saia gintezke. Hartarako, lehenik eta behin, Bergarako seroren hileta, ondra eta urtebukaerakoetan xahutzen zirenen kalkulua egin beharko genuke; -azaldu izan dugunez- herriko mailaketan seroren hiletak 2. mailan kokatu ohi zirela dirudienez, aipatu berri dugun "Derechos de entierros"-en dokumentuak erreferentziatzat egin dakiguke, nahiz eta nabaria zaigun XIX. mendearen erdialdean baino, Aro Berriko zehar hiletak arranditsuagoak izango zirela. Dirutan eta ogitan adierazirikoko datu hauek dirutara itzuli ditugu¹⁵³⁷, serora bakoitzak arimen aldeko

¹⁵³⁶ Ogiaren baloreak gorabehera asko izan zituen noski XVI-XVIII mendeen bitarte honetan, eta ezarri dugun librariko erreala 1/4-eko balorea kalkulua behetik ezartzeko daramagun joerari jarraiki ezarri dugu; zalantzarik gabe, ogiaren garestitze garaia tarteko, hemen kalkulurako erabili ditugunak baino handiagoak ziren eskaintzetarako ogitan xahutzen ziren kopuruak.

¹⁵³⁷ Ogiaren balorearen inguruko kalkuluetarako, ikus aurreko oinpeko nota. Ogi kopuruetarako, nahiz eta zenbait testamentutan pisuak eta kopuruak zehazturik ageri zaizkigun, "Derechos de entierros" dokumentuko jarraibideei atxikiko gatzazkie, agertzen zaizkigunean, testamentuetako azalpenak partzialak edo zehazgabeak izanik, kasu bakoitzeko kopuruak zehaztearen korapiloa askatzen jarduteari beharrezkoa ez deritzodalako, asmoa gerturapenezko kalkulua orokorrak egitea dugunean. Hala, gorago ikusi dugu nola Bergarako seroren hiletak 2. mailakoak izan ohi ziren, eta baita, hauetakoko ogi-eskaintzen

mezatan -eta betiereko anibertsario eta memoriatan- eskaturikoen balorearekin egin dugun bezalaxe¹⁵³⁸. Hala eginik Bergarako seroren hileta eta deboziozko eskakizunetako gastuen zerrenda bat osatu dugu, nahiz eta, ohartarazia dugunez, egin ditugunak behetik jotako kalkuluak direla jakin; 16.a. koadroan (1075 or.) egin dugu zerrendaketa hau, 16.b. koadroan (1076 or.) kronologikoki antolaturiko emaitzak emanez..

Oso gutxi gora beherakoak eta gerturapen hutsezkoak ditugun koadro hauetako kalkuluetatik, gainera, testamentuetako betekizunak kunplitu osteko soberakinak mezatan xahutzeko aginduak, bestelako ogien eta produktuen eskaintzak –diru eta elikagai sarrera handiak izan zitezkeenak–, edo serorei ere ematen zitzaizkiela ikusi ahal izan dugun eskumuinak, esaterako, kanpo utzi ditugu, eta beraz, oso behetik jotako kopurua da eman duguna; serora askoren kasuan, gainera, hutsune handiak leudeke, hiletak besteren eskutan utzi izan zituztenak kasu, zeinak batere bestelako mezarik agindu gabekotzat zenbatu beharrean izan garen. Hala ere, zifra hauek zenbait balorazio egiteko bidea ematen digute.

Lehenik eta behin, gastu orokorren inguruko kalkulu hauek, Bergarako seroren hiletan eta deboziozko mezen bitartez ikusi dugun bilakaera testuinguru ekonomikoan berresten digutela esan behar. XVI. mendearen bigarren erdialdeko seroren hileta eta deboziozko eskakizunek gastu apalagoak agertzen dizkigute, ondoren, XVII. mendearen lehen hamarkadetan, progresioan gorakadan joan ziren gasturik handienekoek baino. Garai hartan izan ziren XVI. mendeko gastuen mailetan mantentzen zirenen beste zenbait kasu ere. XVII. mendearen bigarren erdialdean gainbehera nabari bati ekiten zaio, XVI. mendeko seroren hileta eta deboziozko eskakizunen gastuen antzerako edo are beheragoko mailetara helduz. XVII. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik XVIII. mendera salbuespen gutxi batzuek moldatzen dizkigute estatistiken emaitzak, batez ere XVIII.enaren erdialdeko bi seroren kasuek, hiletak bere albazeen esku utzi zituen -eta beraz gastuak deboziozko mezen eskakizun gabe kalkulatu behar izan dizkiogun- baina aberastasun esanguratsuen jabe izan zela dakigun Maria Clara de Berroetaren (Soledadeko Andre Mariaren ikastetxea eta santutegia, 1750) kasuarekin batera, 1769ko desagerrarazte aginduaren aurretiko "berpizkunde garai labur" bat adieraz dezaketenak.

Bere kabuz nahiko esanguratsua dugu ekonomikoki boteretsuenak izan ziren serorak desagerrarazte agindu eta saiakera nagusien garaian edo aurretitxoan kokatzea bera: XVII. mendeko lehen hamarkadetan eta XVIII. mendearen erdialdekoetan. Testuinguru hauetan aurkitzen ditugu 1.000 errealeko muga gainditzen duten gastuak aginduriko testamentuak, XVII. mendearen lehen erdialdean 5 (edo 1650eko bat ere baitaratuz, 6), eta XVIII.enaren erdialdean, esan bezala, 3 baino ez. Beste serorak maila xumeagoetan mantentzen zaizkigu, XVI. mendean zehar 749 errealeko batazbestekoarekin, eta XVII eta XVIII.etan zehar bajuxeago, hiletez, bederatzirenez, etab.ez besteko deboziozko mezarik agindu izan ez zuten seroren kasuekin (4, eta meza bakara bat agindu zuen beste bat).

araberako hiru azpimailaketen artean, lehen bien artekoak izan ohi zirela ere, hau da, "de pan de tres libras", eta "con pan entero". Hauek, "Derechos de entierros" dokumentuan azaltzen zaizkigun gastuen kalkuluen arabera, hurrenez hurren 628'5 eta 483 errealeko baloreak ematen dizkigute. Batzuetan esplizituki adierazten bazaigu ere, kasuz kasu serora bakoitzari azpimailaketetako zein dagokion jakitea ezinezkoa zaigunez, bien batazbesteko borobildua ezarri dut serora guztiei esleitzeko balore orokortzat: 555'75 erreal, zifra bete batez baliatzearren 555 errealetan utzi ditudanak.

¹⁵³⁸ Hemen ere behetik jotako kalkuluak egitera joko dugu, agintzerakoan esplizituki adierazi ezean, meza bakoitzeko 2 erreal esleituz; baziren noski beste baloreetako mezak ere, zenbait erreal batekoak, eta gehiagotan, 3, 4, edo are 6 errealekoak ere, baina ez gara nahasmen horietan sartuko, ez daukagu hainbesterako zehaztasunen beharrik eta.

Datu hauek oinarritzat hartuz, gizarteko botere espazioetako bestelako pertsonaiekiko konparaziozko gerturapenak ere egin ditzakegu. XVI. mendearen bigarren erdialdeko datu esanguratsu batzuk, motibo ezberdinegatik Ondarza etxeko jabeen aldetik egin ziren kontu batzuetatik heldu zaizkigu. Alde batetik, XVI. mende bukaeran, Francisco de Ondarzaren heriotzean izan ziren hiletetako gastuen berri daukagu. Francisco de Ondarza, Ondarzarren leinuko bigarren adarreko oinordeko izan zen; Ondarza komendadorea (Andres Martinez de Ondarza y Uzarraga) bere aitona izana zen, eta honek fundaturiko maiorazkoaren lehen buru izan zen Juan Martinez de Ondarza y Araozen lehen semea zen. Santiagoko zalduna izan zen, eta ez dakigu zergatik, baina bere aita baino lehenago hil zen, bere ondoren maiorazkoaren oinordeko izatera iragan zen Andres de Ondarza y Eguino bere anaia bezalaxe; aita 1608an hil zenez, ggb., Francisco de Ondarza XVI. mendearen azken urteetan hila izango zela pentsa liteke (Tola de Gaytán 1959a, 127-130). Francisco de Ondarza beraz, leinuaren baitan pertsonaia printzipala izan zen, eta baita herrian ere, esate baterako, 1576-1577 bitartean, bertako alkate izan baitzen. Bere heriotzean mezatan eta ogi-eskaintzatan izan ziren gastuak (argizaritan xahutua alde batera utzirik), 3.822 errealetara heldu ziren. Bergarako serora garaikideen gastuak urrun xamar kokatzen zaizkigu; gertuenekoak lirakeen 1594-1602 bitarteko hiru kasuetan, hurrenez hurren, 895, 835 eta 877 errealeko gastuak kalkulatu ditugu. Alabaina, hauen jarraian ekiten dio 1631n 3.195 errealekin goia jotzen duen gastuen progresioak goranzko bideari, eta azken kopuru hau, ez zaigu jada Francisco de Ondarzaren hileta, etab. etako gastuen kopurutik hain urrun gelditzen. XVII. mende hasieratako zenbait seroren hileta, etab. etako gastuak aberastasun eta botere maila esanguratsuko pertsonaien gastuen ingurura gerturatzen direla esan liteke.

Balorazio orokor hauei laguntzeko, garai beretsuetan (XVI. mendearen bigarren erdialdea) Magdalena de Eguino y Malleak egindako –jada aipatu izan ditugun– kontu batzuetatik heltzen zaigun informazioa ere badaukagu; leinu-buru izan zen andere honek Ondarza etxearen aldetik 9 urte eta 5 hilabetetan meza, hildakoen kultu eta pietatezko obratan xahutu izan ziren diruen kontuak eman zituen. Hauen arabera, denbora hartan mezatan eta ogitan ggb. urteroko 730 erreal xahutu ziren (Oliveri Korta 2009, 485, 585-586, 594). Mende hartarako dauzkagun 6 seroren testamentuetako gastuek ematen diguten 749 errealeko batazbestekoa, ikuspegi honen pean, ez zaigu hain xumea iruditzen, serora baten gastuek herriko etxe boteretsuetako batek urtebetean izan zitzakeen arimen zaintzarako gastuak berdintzen baitizkigute.

Konparaziorako beste datu interesgarri batzuk XVII. mendearen erdialdetik heltzen zaizkigu. 1656an, Jorge de Irazabal eta Francisca de Zabala ezkondu ziren, Olasotarren etxeko jabeen hurrengo belaunaldia osatuz. Urte hartako gastuen artean, familia-kide baten hiletak eta bestelako heriotz-errituek sortu zituztenak ere izan ziren. Ez dakigu familia-kide honek leinuaren testuinguru orokorrean ze garrantzia zeukan, baina bere heriotzaren ondorengo gastuak, urte hartarako egindako kontuetan, 694 errealetan baloratu ziren (Madariaga Orbea 1991, 47-49). Laster ekingo zitzaion beherako joerari, baina data honek kronologikoki gertuenekoak dituen 1650eko bi seroren testamentuek gastu handigoak azaltzen dizkigute, 995 eta 1.367 errealekoak. Alabaina, deboziozko mezarik eskatu izan ez zuten seroren kasuak ere garai beretsuan hasten zaizkigu agertzen; hau da, gainbeheraren hasiera zen, eta serora batzuek maila ekonomiko altuari eusten jarraitzen zuten artean, beste batzuek jada txiroagoak ziren.

Konparazioez gain, datu hauen bidez herriko serora guztien gaineko estrapolazio baterako saiakera egin dezakegu, bere fidagarritasuna oso erlatiboa izanik ere, balorazio orokorretarako baliagarri izan litekeena. Ikerketa honi ekin diogunean, hasierako

kapituluetariko batean, Bergaran izan zitezkeen seroren zerrendaketa bat egin dugu, 1607-1658 bitarteko datuetaz baliatuz. Gutxi gora beherako kalkulu batean (hau ere behetik jotakoa), herrian 35 bat serora izan zitezkeela ondorioztatu dugu¹⁵³⁹. Bergarako seroren testamentuen laginean antzerako tarte kronologikoan kokatzen zaizkigunak 9 serora dira; kuriosoki, testamentuen errepresentatibitateari buruzko azalpenak ematean¹⁵⁴⁰ aipatu dugun Euskal Herriko testatzaileen %20-25eko portzentaiatik oso gertu kokatzen zaigun proportzioa (%25'71). Hau da, 9 serora horiek %20-25-eko testatzaileen testuinguruan -35etik gertu kokatzen zaigun- seroren kopuru osotik testatu zuketena izango lirateke, eta beraz, balizko genuke kopuru osorako estrapolazio baterako saiakera egitea. Emaiza, bestalde, ikerketan zehar seroren "Urrezko Aro" bezala finkatzen joan zaigun garaiaren agergerri izango zaigu, "beraien hoberenean" izatera heldu ziren botere ekonomikoaren neurgarri.

Estrapolazioaren muturrak, 35 serorek 1607-1650 bitarteko 9 serora horiek besteko eskakizunak egingo zituztela suposatuzetik, maila horietako eskakizunak 9 serora horiek soilik egingo zituztela eta gainontzeko 26ek, ez-testatzaile izanik, orokorrean xumeagoak egingo zituztela suposatzearen artean kokatuko lirateke. Eta hala, 9 serorek guztira 14.238 errealeko gastuak agindu zituzten, batazbeste 1.582 erreal. 35 seroren gaineko estrapolazioa gorenako muturrera eramanez gero, 55.370 errealeko emaitza ematen digu (dukatetan, 5.033'63). Beste muturrera joateko, 9 seroren 14.238 erreal horiez bestekoak, hau da, beste 26ei esleitzekoak, 9 horien arteko baxuenen batazbestekotik atera ditzakegu. 1.000 errealetik beherako 4rak kontsideratuz, batazbestekoak 734'5 errealeko balorea ematen digu; hauek 26 serorei esleituz, 19.097 errealeko emaitza lortzen dugu, 9 seroren 14.238 errealei gehiturik, 33.335 erreal ematen digutela (dukatetan, 3.030'45). Madariaga Orbeak Bergarako testatzaileei buruz azaldukoak aintzat hartuz gizarte maila altuak batazbestekoetan gainerrepresentaturik leudekeela kontsideratu beharko genukeenez, zinezko baloreak azken kopuru honetatik gertuago egon beharko luke, gorenako estrapolazioko balorekotik baino.

Zoritxarrez, ez daukagu apez eta benefiziodunen etekinekiko konparaziorako datu garaikiderik, eta XVII. mendearen lehen erdialdeko seroren hiletetako eta deboziozko mezetako eskakizunek apezzen, seroren eta tenpluetako bestelako zerbitzarien etekinetan osatzen zuten partearen ezjakin gelditu beharrean gaude, nahiz eta kopuruei erreparaturik, hauek nahiko esanguratsuak diruditen. Aldiz, XVIII. mende bukaeran badugu halako konparaziorik egiterik. 1770ean Santa Marinako kabildoak jasotzen zituen errenten gain egindako kalkuluak, denera, 24.189 errealeko emaitza ematen zuen (Madariaga Orbea 1991, 84). Badakigu, 1769ko desagerrarazte aginduaren ondorengo dilijentzietan ikusi ahal izan dugunez, ordurako Bergaran serora gutxi zegoela, "ofizialki" 7 baino ez, 4 bi parrokia nagusietan, beste bat Elosuako San Andres parrokian, eta beste bi hiribilduan, tenplu zehatzenganako zerbitzurik gabekoak. Badakigu baina ermitetako seroren izendapenak Udalak berak egin zituela ere, 50. eta 60. hamarkadetan, sei¹⁵⁴¹. 1758-1773 bitarterako bost seroren testamentuetako gastuen neurriaren batazbestekoa 1.155'8 errealetan kokatzen zaigu, gorago ere aipatu izan dugunez, batez ere 1758ko eta 1762ko bi testamenturen balore altuek baldintzatua. 13 seroren kopuru honi XVII. mendearen lehen erdialderako egin dugun estrapolazioaren ariketa berbera aplikatu lekiok, goiko eta beheko muturrekin. Hala, goiko muturrean 15.025'4 errealeko emaitza genuke, eta behekoan aldiz, 5 testamentuetariko 3k azaltzen dizkiguten 1.000 errealetik beherako kopuruaren batazbestekoa atera (613 erreal) eta

¹⁵³⁹ Ikus III. kapituluan, 171-174 or.

¹⁵⁴⁰ Ikus VII. 1. atalean, 633-634 or.

¹⁵⁴¹ Ikus IV. 1.2. azpiatalean, 317-318 or.

kopuru altudun biez besteko 11 serorei balore hori esleituz, 10.683 errealekoa. Bi kopuru hauen erdibidea, 1770ean Santa Marinako kabildoak urtero jasotzen zituen 24.189 errealeko errenten erdiaren inguruan kokatzen zaigu; hau da, 13 seroren belaunaldi baten hiletetako eta deboziozko mezen eskakizunen gastuek, Santa Marinako kabildoak urtebetean jasotzen zituen errenten erdia asetzeko beste emango zuketean. Seroren instituzioa eraginik nagusienekoa izango zen 1769ko desagerrarazte aginduaren atarian zegoela eta jada beraien kopuruak -aurreko mendeekiko- esanguratsuki behera egin zuela kontutan harturik, ez dirudi kopuru txikia.

Datu hauen isladan nabaria zaigu, bestalde, XVIII. mendearen bigarren erdialdeko 13 seroren aldean, XVII. mendearen lehen erdialdeko 35ek aginduriko hiletetako eta deboziozko mezetako gastuek, bere garaian batere muzinik ez egiteko bezalako mokadua osatuko zutela, tenpluetako zerbitzarien etekinen testuinguruan. Noski, XVIII. mende bukaerako errearen balorea ez zen XVI-XVII mendeak bitartean zeukana, erreal gehiagok, -trukeko- balore urriagoa baitzeukaten¹⁵⁴², eta ondorioz, garai bateko datuak bestera estrapolatzea oso zabarra genuke. Demagun hala ere, eta konparaziorako bidea egiteko besterik ez bada ere, XVI-XVII mendeen bitarteko errearen balore zinezkoa, produktuekiko erlazioarena, XVIII. mende bukaerako errearekiko bikoitza zela. Hala izatekotan, XVII. mendeko 35 seroren belaunaldiari behetik jotako estrapolazioan kalkulatu dizkiogun 33.335 errealak bikoiztuaz gero, edo alderantziz, 1770eko Santa Marina parrokiako benefiziodunen etekinen 24.189 errealak erdira jeitsiaz gero, seroren belaunaldi batek hiletetan eta ondoren aginduriko mezen gastuek, benefiziodunek bi urte eta erdian, edo ia hiru urtetan jasotzekoak litzuketen etekinen inguruko emaitza emango luketela ondorioztatuko genuke. Eta noski, goitik jotako estrapolazioak are emaitza handiagoak emango lizkiguke. Eta honek, kopuru esanguratsua adieraziko liguke.

Guzti hauek, hala ere, konjeturen ariketak baino ez dira, gerturapenerako balioarriak bazaizkigu ere, gerturapenez haratago zinezko baliorik izateko, bestelako froga sendagoen beharrea daudenak. Baina honek ez du esan nahi noski, ikergai izan berri ditugun datuetatik zenbait ondorio garbi ezin atera ditugunik. Nabaria zaigun alderdietako bat, serorek euren instituzioa ohoragarritzat hartzen zutela, eta bere parte zirenei zegozkien hileta, etab.ak kontsiderazio ohoragarriaren pertsonaiei zegozkien zirela da. Beraien "Calidad"-eko pertsonen zegozkien hiletak eskatu izan zituzten kasu ugariak, gizarte-talde ezberdinak izatearen kontzientzia garbia agertzen digute, taldeari ohorezko tratamendua zegokiola hautematen zutela adieraztearekin bat. Herri bakoitzeko hiletetako mailaketa sozialen testuinguruetan, izan ere, serorek eskaturiko hiletak goi eta erdi mailetan kokatzen ziren, hauez aparteko deboziozko mezak eskatu ala ez, mantendu ohi ziren mailak. Orokorrean ohiturak aski finkoak izaten zirela dirudi, nahiz eta batzuetan ez ziren maila bakarrekoak izaten, batzuek goragokoak eta besteek beheragokoak eskatuz (diogunez, goi eta erdi mailetan), eta eskumuinen eta eskaintzen iraupenen eta kopuruaren inguruko bariazioak ere izaten ziren.

Hiletan mailaketa kokapenek serorei hautemapen sozialaren baitan herri bakoitzean zegoen maila soziala adierazten badigute, deboziozko mezen eskakizunek, zeuzkaten forma anitzetan, lekuen eta garaien araberrako ezberdintasun esanguratsua agertzen dizkigute. Bergaran, eta agian baita Antzuolan ere, parrokiatan eta ermitetan

¹⁵⁴² Honen neurgarri, Bergarako San Pedro parrokiaren 1655-1790 bitartean fundatu ziren anibertarioen kapitalek gora nola egin zuten ikus liteke: diakonoarekin eta nokturnoarekin esandako meza kantatuetara mugatuz, 1655etik 1715erartereko gehienak 40 dukatekoak izan zirela ikusten dugu; 1720an fundatu zen hurrengoaz geroztiko gehienak, 1760ko hamarkadararte, 100 dukatekoak izan ziren; eta azkenik, 1770eko hamarkadaz geroztik 1786ra bitartean fundatu ziren gehienak, 150 dukatekoak izan ziren.

aginduriko aldi bakarrek mezen testuinguru batetik, XVII. mendearen erdialdeaz geroztik parroketan eta bertako aldare ezberdinetan agintzen ziren mezen eta betiereko memoriari fundazioen testuinguru batera igaro ziren. Elgetan hein bateraino antzerako bilakaera ere gertatua zitekeen, baina -datu gehien dauzkagun- XVII. mendearen lehen hamarkadak arteko abiapuntuzko deboziozko testuingurua bestelakoa zen: hilabeteko mezak eta zenbaki sinbolikoen kopuruetakoz mezak ziren nagusi, eta Arrasaterako eta Oñatirako joerak ere ageri zaizkigu, leheneko parrokiako aldare pribilejiatuan eta bigarreneko Arantzazuko Andre Mariaren santutegi eta komentuan esan beharreko mezeekin.

Elgeta bezala ageri zaizkigu Aretxabaleta eta Eskoriatza ere, garai hartan instituzionalki -ez geografikoki- Leintz bailara bezala hautematen zen espazioa, Arrasateko eta Oñatiko tenplu berberetan eskaturiko deboziozko mezeekin. Hauekin bat Arrasateko frantziskotarren komentua ere ageri zaigu, Arrasaten bertan ere, noski, deboziozko eskakizunen testuinguruan parrokiari konpetentzia egiten zion tenplu nagusia. Baina Aretxabaletak eta Eskoriatzak osaturiko bailaran bertako ohiturak jarraitzen zituzten, funtsean, 12 apostoluen mezak eta anibertsario amaikorrek (3 edo 4, bakoitzean 3 edo 4 mezaok) eskatzean zetzatenak, zenbaitetan, bestelako aldi bakarrek meza gutxi batzuekin. Orokorrean Bergarak, Elgetan eta Antzuolak osaturiko espazioan baino meza gutxiago eskatu ohi zituzten, eta ez zeukaten betiereko anibertsario edo memoriarik eskatzeko ohitura handiegirik, hiribilduetako seroraren batzuen kasuez beste. Arrasaten, hiletan inguruko ohiturak nahiko uniformeak zirela badirudi ere, deboziozko mezen eskakizunei eta hauen kopuru eta formei zegokienean, Debagoienean zeharreko herri ezberdinetako ohiturei atxikitzen zitzaizkien, itxuraz behintzat, herrian bertako ohitura finkorik izan gabe baina. Herri honetan, bestalde, nahiz eta deboziozko mezen kopururik handienak hiribilduko San Juan Bataiatzailea parrokiaren eskatu ohi ziren, honen eta frantziskotarren komentuen arteko konpetentzia ere nabaria zaigu, batez ere, Maria Lopez de Olazaranen (1604) kasu berezi eta deigarriak aditzera ematen digunez. Leintz Gatzagako ohiturak, azkenik, zailagoak zaizkigu atxikitzen, hainbatetan aipatu ditugun testamentuen laginaren mugapenengatik. Hala ere, Leintz bailara geografikoko beste herrien tankerako ohiturak susma litezke, baina -herrirako dugun testamentuen lagin murritzean ageri zaigunez, eta logika hutsagatik- oso litekeena da, tenplu faboratuen artean, herriko kultuleku nagusi zen Dorletako Andre Mariaren santutegia ere ohizkoa izatea.

Leintz bailaran Aretxabaletako, Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako serorek agertzen dituzten beraien herriez kanpoko deboziozko eskakizunek, Arrasateko kultuleku nagusiez beste, Oñatira ere jotzen zuen, Arantzazuko Andre Mariaren santutegi eta komentura. Herri honetako serorek ere ez zeukaten, Leintz bailarako gehienek bezala, betiereko anibertsario edo memoriarik fundatzeko ohitura handiegirik; agindu ziren gutxietariko gehienak, testamentuko betekizunak kunplitu ondorengo soberakinak aski izatekotan baino ez ziren fundatu behar. Izan ere, beraien debozioa nagusiki herrian bertako tenpluetan banaturiko mezen sorten bidez gauzatzen baitzen: garrantziaren araberrako mailaketan San Migel parrokiaren nagusian, Bidaurretako Trinitate Santuaren komentuan, Arantzazuko Andre Mariaren santutegi eta komentuan eta Zubikoako Santa Ana komentuan. Aginduriko meza kopuruari dagokionez, Bergaran, Elgetan eta Antzuolan eskatzen zirenak baino gutxiago izan ohi ziren, baina Leintz bailaran eskatzen zirenak baino gehiago. Egoera hau XVIII. mendean aldatu egin zen, ezen beste espazioetako seroratzak nabariki gutxitu edo desagertu ziren artean, Oñatin bertako serorek beraien oinarri ekonomikoen testuingurua mantendu ahal izan baitzuten, honek heriotz-errituetan eta deboziozko eskakizunetan bere islada izan zuelarik; eta beraz,

XVIII. mendean Debagoieneko seroren artean heriotz-erriturik esanguratsuenak eskatzen zituztenak Oñatiko serorak ziren, instituzioaren gainbehera beste herrietan baino gutxiago nozitu baitzuten. Hau heriotz-errituetako eskakizunen kopuruetan eta formetan ere isladatzen zaigu, XVI. mendearen erdialdeko salbuespenezko testamentu batez beste, gainontzekoetan kontinuitatea nabari bailiteke, -beste espazioetan baino askoz arinagoa dugun- eskaturiko deboziozko mezen gutxitzerako joerarekin bada ere.

Debagoienari bere osotasunean begira, XVII. mendearen hasieratako desagerrarazte saiakeraren ondorioen itzala herri guztietan hedatu zela esan liteke. Eta esan berri dugunez Oñatin ondorio hauek hain latzak izan ez zirela badirudi ere, beste espazioetan mugarrizko gertakizuna izan zen, instituzioaren biziraupen eta norabideetan erabateko eragina izan zuena. Leintz bailaran, parroketako seroratzak edo hauen funtzioak -askotan kargua estrainekoz ezagutzen zuten parroketako- sakristauen emazteek jaso zituzten, eta ermitetakoen kasuan, itxura guztien arabera -eta nahiz eta informazio urri xamarra daukagun-, seroretxean alokairuan jartzeko ohiturak bertako biztanleak erabat "laikoturik" hautematea eragin zuen, inkilino soil izatera iragan eta erlijiozko pertsonatzat zeuzkaten eskubideak eta abantaila sozialak galduz. XVII. mendea bukatu orduko egoera hau gailendu zela esan liteke, XVI. mendean instituzioak zeukan itxura eta hautemapen sozialetik erabat aldendurik jada, eta hala, Leintz Gatzagako Dorletako santutegiko seroren kasu bereziaz beste, XVIII. mendean ez daukagu jada bertako seroren testamentuen berririk, seroratzen Debagoieneko mapatik desagertzen zaizkigu. Eta honek, itxuraz -eta logikoa denez-, propioki bertako serorenak ziren heriotz-errituen formen desagertzea ere eragin zuen.

Bergaran, Elgetan eta Antzuolan ere sendo nabari izan zen eragina, baina beste modu batera; herri hauetako seroratzen parte bat ermitetako zaintzaileen laikotzerako joerarekin desagertu zela badirudi ere, instituzioa ez zen desagertu. XVII. mendearen erdialdeaz geroztik espazio honetako seroren erlijiotasunak izaera "herriko" bat izatetik "barrokorako" iragatea egin zuen, eta horrekin bat, denborak aurrera egin ahala seroren kopurua murrizten joan zen, 1769ko desagerrarazte agindua heldu zenerako, Bergaran eta Antzuolan behinik behin, oso gutxi gelditzeraino. Eta bitarte "barroko" horretan, azaldu dugunez, serora hauen heriotz-errituek agertzen diguten itxurak, betiereko memorien fundazioan islatzen den izpiritualtasun barnerakoi eta pribatuago baterako joerarekin bat, batez ere XVIII. mendera gerturatu ahala gaitasun ekonomikoaren gainbehera nabaria azaltzen digu, biztanleriaren gehiengoaren deboziozko eskakizunen goranzko joeraren aurkako norabidean.

Mugarriztat dugun XVII. mendearen erdialdearen aurreko garaietan, batez ere mende hartako lehen hamarkadetan, seroren hiletak eta deboziozko eskakizunek eragindako gastuak gizarteko pertsonai printzipalenek izan zituztenei gerturatzera heldu ziren; hau aurreko kapituluetan azalduz joan garen garai hartako seroren botere sozial eta ekonomikoaren azken adierazle bat baino ez dugu, ordungo gizartean, ordungo serorek -edo hobe esan, serora batzuek- izan zuten bizimodu eta botereari zegokion ondorio logikoa. Eta halatsu, XVII. mendearen bigarren erdialdean ekiten zaion gainbeherari buruz beste hainbeste esan liteke; garai hartako seroren botere sozial eta ekonomikoaren gainbeheraren azken islada baino ez dugu beraien heriotz-errituen eskakizunetatik osatzen dugun koadroa, herrien arabera aipagai izan ditugun aldaera guztiekin. Eta garai ezberdinotan, seroren heriotz-errituek tenpluetako eta bertako zerbitzarien mantenuan eta onura ekonomikoan izan zuten papera, instituzioak izan zituen partaideen kopuruarekiko eta hauen botere ekonomikoarekiko korrespondentzian hauteman liteke; nahiz eta egin ditugun gerturapenezko kalkuluek -ezinezkoa den-

erabateko ziurtasun eta zehaztasunik ematen ez diguten, nabaria zaigu eratoritzen den irudia halakoa dugula.

VIII. ERLIJIOA, SINESKERAK ETA BOTEREA

Azken kapitulu honetara iragatean, lehenik Aro Berriko erlijiotasunari buruzko zenbait zehaztapen egin beharrean gaude. Aurreko kapituluan serorek euren testamentuetan eskatu izan zituzten hiletak eta deboziziozko eskakizunak izan ditugu ikergai, eta hauen ikerketatik eta aurreko kapituluetako azalpenetatik zerbait nabaria bazaigu, serorak, zenbaitetan instituzioak erlijiotasun ortodoxo batean izan zezakeen txertapen arazotsuaz beste, Aro Berriko izpiritualtasunaren norabideetan barneraturik egon zirela da. Hau da, seroren erlijiotasuna eta izpiritualtasuna, nahiz eta instituzioak ortodoxiarekiko bere ezaugarri eta berezitasun heterodoxoak izan, ezin ditugu besterik gabe heterodoxotzat hauteman. Kontrara, serorek euren buruak garaiko Euskal Herriko erlijiotasun eta izpiritualtasunaren parametro ortodoxoen baitan hautematen zituzten, eta beraien hiletetako eta deboziziozko errituak testuinguru hartan txertaturik hautematen zituzten, bertan hartzen zuten gorputza eta zentzua. Baina honek ez du esan nahi erlijiotasun eta izpiritualtasun hark taxukera nagusiki sinkretikoa ez zeukanik, ez eta serorak sinkretismo erlijiosoaren euskarri nagusienetariko bat osatzen ez zutenik ere. Azken finean, ortodoxo eta heterodoxo arteko banaketa gehiagotan ezartzen baitzaigu ikertzaileen parametro analitikoetatik, garaiko bizipen erlijiosoaren barrenetik baino.

Baina hau ala dela aitortzea garrantzitsua izanik ere, ikertzeko elementuak banatu egin behar baitira, hemen ere ortodoxo / heterodoxo banaketaz baliatu baino ezin dugu egin, batez ere, seroren euren bizipen erlijiosoaren modu bakunean sentitua izango bazen ere, erpin analitiko horretan kokatzen zaigulako instituzioaren patua izan zena izateko arrazoi garrantzitsuenetariko bat. Hau da, serorak bizi ziren gizartearen parte integral izanik ere (bai euren eta baita jende xehearen hautemapenetik ere), erlijiotasunaren bilakaeran instituzioa baztertzeko joera, ortodoxo eta heterodoxo bezala definitzen bukatu zuten aspektuek erabaki zutelako. Eta halaber, "sozialki komenigarri" zenaren parametroetatik ere kanpo gelditzen bukatu zutelako, beraien desagerrarazterako eta eskumenen mugapenerako hartu ziren neurriei buruzko kapituluan ikusi ahal izan dugunez. Hemen sartzeko zaizkigu sakristauen bidezko ordezkapenaren eta seroratzen "laikotzerako" joeraren alderdiak, serorak espazio sakratuetatik kanporatu eta objektu sakratuen erabilpenetik aldentzeko neurriak, landa-eremuetako kontrol sozialerako XVII eta XVIII. mendeetan hartu zirenak, heriotz-erritu etako gehiegizko gastuen aurka harturikoak, etab. Eta ibilbide guzti hauek

mugak ezartzea zaila bazaigu ere, ortodoxotzat hartzen zenaren mugak seroren aurkako neurriei buruzko eta aktibitate ezberdinei buruzko ataletan zedarrizten joan direnez gero, kapitulu honetan serorek erlijiotasunaren testuinguruan zeukaten lekuaren baitan "heterodoxotzat" har zitezkeen aspektu batzuei erreparatuko diegu, beti ere, posible zaigun neurrian noski, informazio mugatua baitugu. Baina ez dugu "heterodoxia" ortodoxiari halabeharrez aurkajarririko joeratzat hautemango; heterodoxotzat, modu orokor batean, ortodoxiaren jarraibide nagusiaz aparte -baina kasu gehienetan honen ibilbideari loturik- ildo propioan garatu izan ziren erritu, sineskera eta ohiturak ulertzen ditugu, ildo ortodoxoak bere burua sostengatzen zuen euskarriez bestelakoak zeuzkatenak; hauen artean, seroren instituzioa.

Kapitulu hau hiru atal nagusitan banatzen da, eta propioki erlijioari eta sineskeriei dagozkien alderdiei eskainiko diogu, alderdi sozial eta ekonomikoak beste ataletan azpimarratu izan ditugunez gero. Lehen atala, seroren aktibitateei eskaini diegun kapituluaren heriotz-errituei eskainitako tartearekin batera ere kontsidera litekeena, heriotzaren esparruko erritu nagusien azalpenei eskainitakoa da, bertan, serorek eta bestelako emakumezko partehartzaileek zeukaten ardatzezko papera ikusi asmoz. Heriotz errituena emakumeek erlijio kristauaren barruan protagonismo handia hartzen zuten esparrua dugu, jada aipagai izan dugun bezala, liturgia ofizialarekiko modu paralelo batean garatzen zen errituen testuinguru batean, serorak nolabaiteko "apezeme" papera betetzera hel zitezkeelarik. Lehen atalean bada, erritu horiek eta bertako emakumezko protagonistak xehetasunez ikertzen saiatuko gara. Eta lehen atalean azalduko ditugun erritu eta sineskerak batez ere parroketan izan ohi ziren serorei bazegozkien (hauek parrokia bertakoak, nahiz zerbitzu partikularretakoak izan), erlijiotasun herrikoari eta sendakuntza sineskeriei loturiko errituei eskainitakoan, ermitetan eta landa-eremuetako parroketan ohizkoagoa zen testuingurua izango dugu ikergai. Azkenik, hirugarren atalean, seroren "unibertso" propioan sineskeren, dotrinaren eta kultuaren alorretan izan ziren berezitasun eta desbiderapenen batzuk izango ditugu aztergai, edo hobe esan -berriak urriak dira eta-, aipagai, ahal den heinean, bizipen erlijiosoen testuinguruan serorek euren burua non kokatzen zuten, eta herritarrek nola hautematen zituzten azaleratzen saiatzeko.

VIII. 1. HERIOTZA: ERRITUAK ETA ARBASOEN GURTZA

Honez gero nahikoa argi badugu, serorek heriotzaren inguruan zeuden sineskera, ohitura eta errituekin lotura zuzena izan zutela. Baina ez serorek bakarrik, orokorrean, etxeoandereek baizik. Berez, serorak jarlekuko zerbitzua betetzen zuenean, etxeoanderea ordezkatzeko zen bere lana. Parrokiako serorak (parrokia bertakoak eta zerbitzu partikularrak egiten zituztenak) espazio horretan "espezializatu" ziren pertsonaiak ziren, zerbitzua beraien lanetarako bat lez integratzen zutenak. Hein batean, hildakoen zerbitzuarekiko, etxeoandereak etxeo espazioan zuen funtzio bera zuten serorek, baina elizako espazio komunitarioaren baitan. Elizako kultura etxeoaren luzapen hainbestean zen eze, elizako jarlekua bera etxearen partetzat hautematen baitzen.

Heriotzaren errituek, ikerketa etnografikoetatik eratorri izan denaren arabera, etxearen baitan eta inguruan izan zuten beraien hastapena. Sutegiak, itsusuriak eta baratzak hildakoen lurrazpiko munduarekiko errituen gune izandakoak dira, Historiaurretik ezagutzen delarik gune hauen ehorzleku erabileraren praktika. Etxea bera, XIII.en menderako eliza barruko jarlekuetan eta inguruko hilerrietan ehorztearen praktika orokortu baino lehenago, etxe izateaz gain, panteoia ere bazen. Elizako

jarlekuetan ehorztearen praktika berriz, XVIII.en mendearen bukaeran eliz barruko ehorzteak debekatu ziren arte luzatu zen. Alabaina, eta nahiz eta etxeko baratzean ehorzteko ohitura aipaturiko garaietatik gainbeheran joan zen, arbasoenganako kulturu leku izan duen erabileraren testigantzak XX.en mende hasierataraino luzatzen dira (Rubio de Urquía 1996, 12, 25)¹⁵⁴³.

Ehorzteak etxekoanderearen baratzetik elizara (etxekoanderearen jarlekura) edo hilerria igarotze honek, praktika komunitario batzuen garapena eragin zuen. Herribide eta elizbide ere deitzen ziren –eta diren– hildabideek etxeak elizarekin lotzen zituzten, azken hauen inguruan erabilpen amankomuneko bideen sareak osatuz. Bideok sakratutzat hartzen ziren, eta zerraldoarekin, hildabidea ez beste bide bat hartu behar izana suertatuz gero, bide-zortasuna sortzen zen; alegia, eginiko bide berritik iragateko eskubidea hartzen zela. Halatsu, bideon inguruan ezin zen eraikinik egin, eta aldemeneko lurrak, ezin ziren hesitu (*Ibid.*, 27-28).

Heriotz errituei buruzko informazioaren parte handi bat auzietatik eta motibo ezberdinegatik (seroren desagerraraztea, izendapenak) egindako informazio dilijentzietatik heldu zaigu, Larramendi bezalako iturri narratiboez gain. Parrokia eta ermitetako liburuetan nahiz izkribau aurreko dokumentuetan, izan ere, posesio-hartzeaz aparte, ez baitzaigu ohitura nahiz erriturik deskribatu ohi. Iturri hauetariko bat Bergarako bikario izan zen Xavier Ignacio de Arteachen informeez osatzen dute. Informe hauetariko lehena 1759an Antzuolako San Juan Bataiatzailea parrokiarako serora izendapen batean apezpikutzatik eskatu zitzaiona dugu. Bertan ofizioari buruz eman zituen azalpen xumeetan, heriotz-errituen inguruko lanak honela laburbiltzen zituen:

Ellas encienden las luces, ó cerillas de las sepulturas, cuidan de los paños de ellas, acompañan á las demas mugeres, que hacen el duelo en los años de difunzion, y tiempos de entierros, honrras, y demas funciones funerales, y hacen otros ministerios semejantes igualmente propios de su sexo, que inconnexos y diferentes de los que tocan por su officio a los Sacristanes¹⁵⁴⁴

1770ean aurreko urtean eman zen seroren desagerrarazte aginduaren betekizunean idatzi zuen informean berriz, xehetasun gehixeagorekin eman zituen azalpenak, baina hemen ere aski labur:

á encender las luces de las Sepulturas; cuidar de los panes, que se ofrendan, y paños, que se ponen en ellas; acompañar á las demas mugeres, que hacen las ofrendas, y el duelo en los años de difunzion, y dias, en que se celebran los entierros, y honrras primeras, y segundas; amortajar los difuntos, assi del poblado, como de las Caserías¹⁵⁴⁵

Funtsean, serorak presente zeuden hiletetan bezalaxe, ondretan eta “demas funciones funerales” zirelakoetan. Oñatin desagerrarazte aginduaren betekizunean egin ziren informazio dilijentzietan ere, parrokiako seroraren betekizunak deskribatzerakoan antzerako hitzak erabili ziren: “cuidar de poner y quitar las tablas de Zerilla de las Sepulturas todos los dias para Misa maior, y Uisperas, y acompañar al duelo en la Yglesia y hasta la Casa mortuoria, los dias de entierro, y funcion de onras”¹⁵⁴⁶. Seroren euren testamentuetan ikusi ahal izan dugunez, hileta eta ondretako lanengatik zor zitzaizkien diruez gain, urtebukaerakoak, bederatziurrenak, eskumuinak, Domu Santu

¹⁵⁴³ Lan honek, hein handi batean, bere ardatzak J.M. Barandiaran eta J. Caro Barojaren lanetatik jasotzen ditu, hauen azterketetatik, emakumearen eta erlijioaren espaziori dagozkien aspektuak batuz.

¹⁵⁴⁴ KKA-ACC 17/759/40, f.g.

¹⁵⁴⁵ KKA-ACC 17/770/18, f.g.

¹⁵⁴⁶ KKA-ACC 17/769/1, f.g.

egunak, meza kantatuak eta oparitzeak ere aipatu izan ziren biztanleek eurekiko zeuzkaten zorren motiboen artean ("elizako gastu" lez aipaturiko beste hainbat partida zehazgaberekin batera).

Azkenik, serorek heriotz-erritueta zeukaten partehartzea azaltzeko Larramendiren hitzak jasotzea ere egokia dugu, ondorengo orrietan ardatz lez hainbatetan baliatuko baitugu, eta gainera, serorei zegokienarekiko, motz eta garbi emandako azalpenak baitira bereak:

Cuidar del ceremonial particular de las mujeres en entierros, funerales, procesiones y otros actos de la iglesia. Salir guiando las del duelo de la casa del difunto a la iglesia, y acabada la función, volver a la misma casa, en cuyo zaguán y calle vecina se detienen todos, hasta que, rezando algo por el muerto, dice la *serora* su *Requiescat in pace*, en latín o vascuence (Larramendi 1985 -1754-, 137)

Hileta-errituari buruzko irudi orokor hau gorde dezagun buruan, baina Larramendiren XVIII. mendeaz aurretik, XVI eta XVII. mendeetan zehar, ohizkoagoak izanak ziren beste bi emakumezko figurari ere erreparatuz: hiletariak eta erostariak. Hiletako eta honi loturiko errituen deskribapen zehatzago bati ekin aurretik beraietaz ere jardun beharrean gaude, serorek gidaturiko emakumezkoen testuinguru hartan presente izan ziren figurak izan baitziren, eta serorek lez, mugapen eta debekuak jasan baitzituzten. Figura hauekin batera, lehen-auzoen papera ere oso garrantzitsua izaten zen.

VIII. 1.1. Serorekin batera heriotzaren testuinguruan jarduten ziren emakumeak: hiletariak, erostariak eta bestelako partehartzaileak

Aipatu izan ditugu jada 1555eko Kalagorriko Konstituzio Sinodaletan "De Sepulturis" errubrikan jaso izan ziren jarlekuen eta hiletari edo negartien inguruko neurriak. Lehen alderdia, jarlekuena, izan dugu jada ikergai, baina hiletarien edo negartiei zegokien aginduarekikoak, atal honetan lantzeko utziak genituen. Beste hainbat aspektuekin gertatu zaigun bezala, legedi aitzindarien bila Antzinate Berantiarra jo beharrean gauden aspektu batekin egiten dugu topo. Toledoko III. kontzilioko (589) 22. kanonean jada heriotz-orduko kantuen (eresien) eta minaren gehiegizko agerpenen aurka egin zen, nahiz eta "religiosos" zirenen hiletei buruz baino ez ziharduen:

los cuerpos de todos los religiosos que, llamados por Dios parten de esta vida, deben ser llevados hasta la sepultura entre salmos solamente y las voces de los cantores; y *prohibimos terminantemente* las canciones fúnebres que de ordinario suelen cantarse a los difuntos y *que los familiares o siervos los acompañen entre golpes de pecho*. Baste, pues, que en la esperanza de la resurrección de los cristianos se tribute a los restos mortales el homenaje de los cánticos divinos [...]. Y si le es posible al obispo, *no dude en prohibir esto mismo a todos los cristianos...* (Pérez Calvo 2006, 207)

Biztanleria orokorraren hiletetan arruntak ziren ohiturak ("de ordinario" egiten zirenak), apezen kasuan -hain zuzen besteekiko eredutzat egin zezaten- debekatu nahi izan zirenak; agindua, biztanle guztiengana "si le es posible al obispo" baino ez zen hedatuko. Hau da, debekuak sendo finkaturiko ohiturei buruz ziharduen, eta aplikazioaren hedapena erlijiozko instituzioek biztanleriarengan eragiteko zeukaten gaitasunera mugatua gelditzen zen, hauen kristautzea artean sendo gorpuztu gabe zegoeneko garai batean.

Ahalegin hauek Erdi Aroan zehar jarraipena izan zuten, desagerrarazten batere errazak ez ziren hiletetako ohitura "gentil"-en aurka. Alfontso X. Jakituna Gaztelako erregearen XIII. mendeko *Partidas* zirelakoetan legedi honen garapenaren beste puntu garrantzitsu bat daukagu, bertan, jakina denez, ondorengo legedietan ardatzezko eragina izan zuten arauak finkatu baitziren. Hiletetan dolua negar, garraisi eta norbere buruari egindako minez adierazteko ohitura "Gentil"-tzat gaitzetsi zen, hainbesteko dolua sineskera kristauei ez zegokiela eta; ezen, jentilek bezala, eta jada Toledoko III. kontzilioan (589) ere salatu izan zenaren arabera, "creyen que quando el hombre finaba que todo morie tambien el alma como el cuerpo". Gehiegikeriak oso muturrekotzat azaltzen zituen:

facien grandes duelos et desaguisados por los muertos; así que algunos habia que non querian comer ni beber fasta que morien, et otros que se mataban con sus manos, et otros que tanto se ponien el duelo á corazon que perdian el seso: et los que menos desto facian mesábanse los cabellos et tajábanlos, et defacian sus caras rascándolas, ó ferien con alguna cosa, ó se dexaban caer en tierra de manera que recibian lision ó habian á morir. Et todas estas cosas facien por desesperamiento en que los metie el diablo [...] (Alfontso X. Jakituna; Real Academia de la Historia 1807 -XIII. mendea-, 166-167)

Oso esanguratsua dugu, gainera, errege honek XIII. mendean ohitura desagerrarazteko agindu zituen debekuek, hein handi batean, Aro Berrian agindu zirenekin bat egitea; aipua luze jasoko dugu, bere hortan irakurririk aski garbi atzemango baitiegu legediei (batez ere ondoren ikusiko ditugun Kalagorriko konstituzioetakoekiko konparazioaren baitatik), *Partidas* zirelakoek ondoren izan zuten eragina:

Et por ende tovieron por bien los santos padres que los que desta guisa lo feciesen que non los diesen los clérigos los sacramentos de santa eglesia, nin los cogiesen en ella quando hobiesen á decir las horas fasta que fuesen sanos de las mesaduras, ó de los rascaños, ó de otras feridas ó males que hobiesen fecho, et feciesen penitencia dello; salvo ende si cayesen en muy grant enfermedad de que se temiese que moririen, [...] Otrosi mandaron por esta razon mesma que quando los clérigos aduxiesen la cruz á las casa onde el muerto estodiese, et oyesen que facian ruido dando voces por el home, ó endechando, que se tornasen con ella et non la metiesen ahi donde tales duelos feciesen: eso mesmo decimos quando toviesen el cuerpo del muerto en la eglesia, que non deben llorar nin dar voces por que se estorben de decir las horas, ca en aquella sazon todos deben callar et rogar á Dios por los muertos que les haya merced á las almas. Et esto deben facer mayormiente en quanto dixieren la misa, porque estonce consagran el cuerpo et la sangre de nuestro señor Iesu Cristo: ca tan noble et tan santa cosa es esta, que todo lo al debe ser dexado mientras esto fecieren, asi que non pueda venir por ello destorbo nin embargo al clérigo que lo consagrare; et si alguno porfiare non queriendo dexar de lo facer, débenle echar luego de la eglesia, quier sea clérigo ó lego. Et aun sin esto mandaron que si en levándolo á la eglesia ó á la fuesa lo feciesen, que dexasen los clérigos de soterrarle et de acomendar el alma á Dios diciendo sobre él aquellas oraciones que son establecidas; et esto fasta que se callasen. Et defendieron otrosi que quando toviesen los muertos en la eglesia que les non dexasen las caras descubiertas, et esto porque los homes en catándolos non se moviesen á facer duelo por ellos: et aun dieron mas pena, que si alguno besase al muerto ó se echase con él en el lecho, que ayunase ocho dias á pan et á agua, et que le non recibiesen en la eglesia por un mes (*Ibid.*, 169-170)

Gaztelako errege Jakitunak kar handia zeukan ohitura pagano haien aurka, nahiz eta ingururik pertsonalean ere aski presente zeuzkan (edo agian horrexegatik); besteak beste, hiletariei zegozkien gehiegizko dolu espresio hauek, bere aita Fernando III. ren

hileta arranditsuetan bizi izan zituen (Pérez Calvo 2006, 209). Halaber, XIII-XIV mendeetako hainbat errege, erregina eta pertsonaia boteretsuren hilobietako ikonografiak ere, hiletariak behin eta berriro azaltzen dizkigu; esate baterako, Alfontso beraren anaia izan zen Felipe infantearen hilobian. Euskal Herrian ere badauzkagu adibideak; kasurako, XIV. mendearen erdialdean Kalagorriko katedralean artxidialkono izan zen Santikurutze Kanpezuko (Araba) Fernán Ruiz de Gaonaren hilobian¹⁵⁴⁷.

Baina Alfontso X.enaren pentsaerak bazuen ohiartzunik ere, Gaztelan bezalaxe, Euskal Herrian ere; Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar, batez ere XVI. mendean geroztik, oso ugariak dira debeku hauen adibideak. Jarraian erreparatuko diegun Kalagorriko apezpikutzako Konstituzio Sinodaletako debekuez beste, gaia landu izan duten zenbait autoreren lanetatik agindu eta debekuen zerrendatxo esanguratsua osatu liteke: Lizarran (1280), Baionan (1298), Tafallan (1309), Burgoseko katedralean (1334), Deban (1394), Lekeition (1412, 1499, 1519), Oliten (1412, 1486), Burgoseko apezpikutzako Konstituzio Sinodaletan (1412), Gernikan (1455-1514), Alerian (1462), Bilbon (1479, 1493), Oñatin (1479), Zestoan (1483), Gasteizen (1487), Plentzian (1508), Portugaleten (1516), Bizkaiko Foruan (1526), Tolosan (1541), Gordexolan (1548), Azkoitian (1581) eta Iruñako apezpikutzako Konstituzio Sinodaletan (1591) instituzio ezberdinen aldetik agindu ziren debekuen berri dugu¹⁵⁴⁸. Ez bego zalantzarik beraz: Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar, instituzio ezberdinek, hiletarien -eta erostarien- aurkako neurrien bidez ohitura desagerrarazi nahian jarraitzen zuten.

Ohitura hauek euskal lurraldeetan zehar aski hedaturik zeudela ikusirik, bada, dagokigun espaziora etorriko gara, diogunaren jarraipen ertsiagoa egiteko asmoz. Kalagorriko apezpikutzan, 1555eko Konstituzio Sinodaletako agindua 1503an emana zen (Díaz de Luco 1555, 47v-48r), eta hauen eta ondorengo konstituzioen harira, Debagoieneko hainbat hiribildutako parrokiatan eman zituzten bisitatzailleek ohitura honen inguruko debekuak: Oñatiko San Migelen 1546an, 1548an, eta 1595ean¹⁵⁴⁹, Bergarako San Pedron 1516-1518 bitartean, 1525ean (Sorondo 1994, 288-289) eta 1533an¹⁵⁵⁰, eta Eskoriatzako San Pedron 1570ean¹⁵⁵¹. Hauen arteko adierazgarrienak jasoko ditugu, negar eta garraisiez gain, eresiak ere aipatu zituztenak. 1533an Bergarako San Pedro parrokiatan eman zena dugu lehena; agindu honetan, elizkizunetan eta heriotz-erritu ezberdinetan emakumeek sortzen zuten giroa iradokitzen zaigu:

Otrosy mando el señor visitador a todas e qualesquier mugeres de la dicha villa e su juridiçion que de aquy adelante dentro del cuerpo de la dicha yglesia e durante que en ella se dizen e çelebran las oras e dibinos ofiçios no llanten nyn den bozes ni digan lamentaçiones ny endechas algunas syno que esten callando sentadas o de rrodillas e no esten en pie so pena de escomunyon e de cada sendas libras de çera para la fabrica de la dicha yglesia y que [???] so la dicha pena execute la dicha pena a los rrebelde e contumaçes / ni se muden de vna sepultura a otra durante misa [???] ni bysperas¹⁵⁵²

Elizan bertan, ofizioak egiten ari ziren bitartean, emakumeek euren ofizio propioa egiten zutela dirudi, negar eta garraisiak eginez, eresiak kantatuz, eta zutik,

¹⁵⁴⁷ Oso ugariak dira garai hartako hilobietan aurki litezkeen hiletarien testigantzak, batez ere, Artearen Historiaren alorretik ikertu izan direnak; mereziko luke aparteko ikerketa bat egiteak. Hemen jaso ditugunen iturriak aipatzearen, ikus Inclán Inclán 1919, Franco Mata 2003 eta Lahoz 1993.

¹⁵⁴⁸ Madariaga Orbea 2007, 137-138; Palacios Martínez; Urcelay Gaona 2006, 111-117, 141-147; Pérez Calvo 2006, 206-210; eta Franco Mata 2003, 66.

¹⁵⁴⁹ DEAH-AHDSS 3689/001-00, 140v-342v.

¹⁵⁵⁰ BUA 01 L/148, 288 fot.

¹⁵⁵¹ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 20v.

¹⁵⁵² BUA 01 L/148, 288 fot.

batetik bestera zebiltzala. Oñatin 1595ean eman zen agindua dugu egoera hauen testigantza ematen digun beste bat:

que los curas no consientan ni permitan que en los enterramientos y honrras de los difuntos las mugeres agan llantos ni digan endechas sino que esten callando sin hazer rruido ni alborotos ni lamentaçiones y que a las rrebelde fueren las echen de la yglesia y las ebiten de los ofiçios¹⁵⁵³

Hiletari edo negarti eta erostariak, bada, serorekin batera, heriotz-errituetan funtzio ezberdinak betez partehartu ohi zuten emakumeak ziren. Lehenak soldatapeko “negar-egileak” ziren, hiletari nahiz bestelako heriotz-errituari zegokion dramatismo giroa handitzera dedikatzen zirenak. Aipatu ditugun aginduetan xehetasun ezberdinak agertzen zaizkigu, giro honetako tentsioa ze neurritara heldu zitekeen adierazten digutenak: “las mugeres no se mesen los cabellos ni rronpan las tocas ny hagan llantos tan traidos que ympidan e que turben los dibynos ofiçios”¹⁵⁵⁴, “pena de un rreal por cada vez que llanto o voces diere sobre tal cuerpo o sepultura” (Sorondo 1994, 288), “no agan llantos ni lloros por los defuntos en la yglesia ni en la calle”¹⁵⁵⁵. 1555eko konstituzioetan jaso zen 1503ko aginduak berak ere giro honen berri ematen digu: “Por que acaece hazer llantos y tañer bozinas por los defuntos, y rasçuñarse los hombres y las mugeres: especialmente quando lleuan el cu[e]rpo del defunto a la yglesia: y al legar de la cruz para lo traer” (Díaz de Luco 1555, 48r). 1602ko (Manso 1602, 78r-78v), 1621eko (Gonzalez del Castillo 1621, 128v) eta 1700eko konstituzioetan ere (Lepe 1700, 452-453) jaso izan ziren hiletarien aurkako aginduak, 1555ekoen antzerako hitzetan adieraziak, eta honetan bezala, bereziki hildakoaren elizarako bidean eta eliz-aurrean egiten ziren negar eta garraisiak aipatuz; horrez gain, doluan zioaztenek, elizan sartzean eta hala behar zen bestelako momentuetan burua besteekin bat desestaltzea ere agindu zuten. Baina hiletarien figura, edo hobe esan, beraiek sustengatzen zuten -minaren adierazpen publikoaren- ohitura, nahiz eta XVI. mendetik jada debeku eta mugapenak jasan zituen, XVIII. menderarte eta zenbait lekutan are XIX. erarte ere mantendu zen, oso antzaldatuta izanik ere; aurreraxeago zehaztasun gehiagorekin azalduko dugunez, Manuel Larramendik, aurreko garaietakoak gaitzetsirik ere, bere garaikoak jada onargarriztat eman zituen, “gentilismo”-ari loturiko gehiegikeriarik ordurako egiten ez zela eta (Larramendi 1985 -1754-, 230)¹⁵⁵⁶. Hiletan eta heriotz-errituen testuinguruan eta bertako girotzean, beraz, hiletariena momentuoro aintzat hartu beharreko figura dugu.

Hileta eta bestelako heriotz-errituetan eresiak kantatzearen ohitura berriz, zenbaiten eritzirako, XVI. mendean geroztik gainbeheran joana litzateke. Hildakoaren familiako emakumeren bat izan ohi zen erostari lanak egiten zituena, hiletetan eta ondretan hildakoaren omenezko eresiak kantatuz. Ohargarria eta esanguratsua da -seroren etxeoandreekiko "ordezkapen" papera sendotuz-, zenbaitetan, eresiak kantatzeko familiako partaiderik ez zegoenean, hauek serora batek ere kantatu zitzakeela (Arana 1992, 101). Eresia hau hildakoaren arimaren ongi-izatera eta babesera begira osatutako kanta edo koplak izan ohi zen, honen kalitate eta bertuteak goraiatzeko zituena (Rubio de Urquía 1996, 29-32). Baina halaber, emakumeen espresio-gune garrantzitsu bat ere bazen, eta bertan, gizarteko gertakizun ezberdinen inguruko kritika gogorak ere egin ohi ziren, familia eta etxeen arteko tentsioak –gorde izan diren iturrietan batez ere Oñaztarren eta Ganboarren arteko liskarrak– ere azaleratuz.

¹⁵⁵³ DEAH-AHDSS 3689/001-00, 342v.

¹⁵⁵⁴ *Ibid.*, 169v.

¹⁵⁵⁵ DEAH-AHDSS 3222/002-01, 20v.

¹⁵⁵⁶ Ikus halaber Rubio de Urquía 1996, 29-32.

Kronikariak jaso izan zuten ahozko tradizioak gorde izan ditu eresia batzuk, eta hauetariko zenbaitek, Debagoieneko eta inguruetako gertakizunak kontatzeaz gain, emakumeak erostari lanetan agertzen dizkigute. Hauen berri emateko tarte luze xamar bat egingo dugu, garrantzitsuak baitira, bai emakumeek heriotz-errituen testuinguruan izan zuten espresio-bide honen garrantziaz ohartzeko, eta baita serorek emakumezkoen gortearen gidari lanak egiten zituzten erritu haietan bizi izan zitekeen giroa hautemateko ere.

Aipatuko dugun lehena Martin Bañez-en eresia da (1464-XVI), ikusiko ditugun beste gehienak bezala Esteban de Garibai historialari eta kronista arrasatearrak jaso, bere *Los siete libros de la progenie y parentela de los hijos de Estevan de Garibay* (1586-???) lanean. Martin Bañez ganboarren aldekoa zen, eta oñaztarren Bizkaiko buru zen Juan Alonso de Muxica Aramaioko kondearen aginduz, aurretik izandako beste erailketa baten mendekuz erail zuten, Arrasatetik Garagartzarako bidean bere jabegoko Ibarreta baserrira zioala¹⁵⁵⁷. Garibaik honela aurkeztu eta jaso zuen eresia:

Doña Sancha Ochoa de Oçaeta hizo gran llanto, muy usado en este siglo, por la desgraciada muerte de Martin Bañez, su marido, y soledad suya y de sus hijos, y canto muchas endechas, que en vascuence se llaman eresiac, y entre ellas se conservan oy dia algunas en memoria de las gentes, en especial estas:

Oñetaco lurrau jabilt icara,
Lau araguioe vere an verala,
Martin Bañes Ybarretan il dala.
Artuco dot escu batean guecia,
Bestean çuci yraxegua,
Erreco dot Aramayo guztia (Mitxelena 1964, 90-91)

Sancha Ochoa de Ozaetak, bere mina agertzeko, meatxuzko hitz gogorak erabili zituen bere senar izana zenaren heriotzean.

Oso ezaguna da Garibaik liburu berberean jaso zuen Milia Lasturkoaren eresia ere (XV-XVI), eta interesgarria zaigu, eresiak kantatzerako orduan alde bateko eta besteko emakumeak parte ordezkaritzat aritzen ageri baitizkigu, heriotza honek familien artean sortu zituen min eta liskarren bozeramaile eginez. Kasu honek, hau etxeoandreei eta familiako emakumei familia beraren baitan zegokien paper garrantzitsua zela agertzen digu, espazio publikoan egiten ziren salaketen eta defentsen protagonista baitziren. Milia edo Emilia Lasturkoa Debatik Arrasatera joana zen, Pero Garcia de Ororekin ezkondu zenean. Baina gazte hil zen erditze-minez, eta Pero Garcia de Orok azkar xamar hitzartu zuen beste ezkontza bat Marina de Arrazolarekin, “a quien de antes estaba aficionado”. Horren aurrean, Debatik heldua zen Milia Lasturkoaren ahizpa batek eresia garratzak kantatu zituen hildakoaren ondretan:

Cer ete da andra erdiaen çauria?
Sagar errea, eta ardoa gorria.
Alabaya, contrariomda Milia:
Azpian lur oça gañean arria.
Lastur-era bear doçu, Milia.
Ayta jaunac eresten dau elia,
Ama andreac apaynquetan obia.
Ara bear doçu, Milia.
lausi da cerurean arria,
Aurquitu dau Lastur-en torre barria,

¹⁵⁵⁷ Eresia hauek kantatu izan ziren testuinguru orokorra hautemateko, hain zuzen ere bere ikerketaren espazio printzipala Arrasaten kokatzen digun Achón Insaustiren Bañez eta Mondragondarrei buruzko ikerlana ezin egokiago datorkigu (1995).

Edegui dio almeneari erdia.
Lastur-era bear doçu, Milia.
Arren, ene andra Milia Lastur-co,
Peru Garciac eguin deuscu laburto:
Eguin dau andra Marina Arraçolaco.
Ezcon bequio, bere idea dauco

“Lastur-era behar doçu, Milia”; alegia, Miliaren gorpuak, Arrasaten beharrean, Lasturreko jarlekuan ehortzia beharko zukeela, Pero Garciaeren portaera lotsagarriaren laidoa zela eta. Etxeko “Ayta jauna” eta “Ama andrea” bere hiletetarako gertakizunak egiten agertzen dizkigu: aitak “eresten dau elia” (eskaintzarako abereak prestatu) eta amak “apaynquetan obia”. Baina Pero Garciaeren arreba Sancha Hortizek, bere anaiaren defentsarako beste eresia batekin erantzun zuen:

Eç dauco Peru Garciac bearric
Ain ga<c>h andia apucadua gatic,
Ceruetaco mandatua içanic,
Andrarioc ala cumpli jasoric.
Guiçon chipi sotil baten andra çan,
Ate arte çabalean oy çan,
Guilça porra andiaen jabe çan,
Onrra andi asco cumplidu jacan

Pero Garciaarena ez zela kulparik, Zeruko nahia baizik, eta bizi izan zen artean, senar “chipi sotil” bat izanik ere, ondasun handien probetxua jaso izan zuela Miliak (“Ate arte çabalean [...] Guilça porra andiaen jabe”), eta heriotz erritu duinak egin zitzaizkiola (“Onrra andi asco cumplidu jacan”); hau da, ez zegoela kexu izateko arrazoirik. Gertakizun hauen inguruan Garibaik jaso zuen azken eresia ere interesgarria zaigu, orain arte ikusi ditugun familiaren defentsari begirako kantuez gain, emakumeen egoerari buruzko kexuzko kantuen erakusgarri delako. Hau ere Miliaren ahizpaka kantatua izan omen zen, eta bigarren partea honakoa zuen:

Mondr<a>goeri artu deusat gorroto,
Guipuç andraoc artu ditu gaxtoto:
Iturrioç calean andra Maria Balda-co,
Arte calean andra Ojanda Gabiola-co,
Errebalean andra Milia Lastur-co

Arrasatek Gipuzkoako andreak ez zituela ondo hartzen zen kexu, eta bere ahizparen kasuaren aldean beste pare bat aipatu zituen, Garibaik jarraian zenbait azalpenekin argitu zituenak: “doña Maria de Balda, muger de Rodrigo Ibañez de Avendaño, en Mondragon, [...] Doña Ochanda de Gabiola, la que fue muger de Ochoa Bañez de Artaçubiaga vecino de Mondragon” (Mitxelena 1964, 75-77). Ez dakigu beste hauek bere ahizparen kasuarekin zer izango ote zuten amankomunean, baina bere garaian, emakumeen egoera txarraren salaketa honetan zertaz ziharduen ongi jakingo zuten. Azken finean, Garibaik “endechas de mugeres” bezala batu zizkigun hauek, emakumeek gizartearen baitan eragina izateko zuten baliabide garrantzitsua ziren.

Debagoienaren inguruko lurraldeetatik datorkigun beste eresia bat ere aipagarri dugu, ama baten eta bere alabaren arteko ika-mikak agertzen baitizkigu. Honen berri ere Garibairengandik datorkigu (*Ilustraciones Genealógicas de los Catholicos Reyes de las Españas* lanetik, 1596), eta kontatzen digunaren arabera, oñaztarren eta ganboarren arteko liskarrak bitarte baketsu batean zeudelarik, eta bakea mantentzeko asmoz, Elgoibarko Olaso dorreko jauna zen Martin Ruiz de Gamboak (ganboarra) eta Gomez Gonzalez de Butron Aramaioko Jaunak (oñaztarra) ezkontza bat hitzartu zuten

lehenaren eta bigarrenaren alaba Juana de Butronen artean. Baina ezkondu bitartean bandoen artean izan ziren liskar batzuetan Gomez Gonzalez de Butron eraila izan zen, eta erailketa honetan Martin Ruiz de Gamboa berak ere parte hartu zuen. Beraz, minaren minean, hildakoaren emazte Elbira de Leibak ezkontza-hitzarmena desegin nahi izan zuen, baina bere alaba Juana berak egin zion aurre ezetz esanez, aita hil izanagatik ere bera Olasoko andere izatera heltzea garrantzitsuagoa zela eta:

Verba orren verba gacia,
Verba orri nay ez daquiola valia.
Dardoac eguinarren vere aldia,
Olaso da ene egoteco aulquia

Alaba bere horretan mantendu zen, eta azkenean bere amak eta anaiak ezkontza onartu beharra izan zuten (Mitxelena 1964, 88-89).

Gehiegi luzatzeko arriskuz bada ere, azken eresia bat aipatuko dugu, familien arteko liskarrez haratago, edo hauekin bat, emakumeek kantuzko adierazpide hau euren egoeraren eta gizartearen ingurukoak kontatu eta salatzeke nola baliatu izan zutenaren inguruko adibide aski esanguratsua baitugu. Kasu honetan eresia ez zen zenbait belaunaldi beranduagoko edo garaikide ziren iturrietan jaso, XIX. mendeko legenden bilduma batean baizik. Alabaina, gertakizuna historikoki identifikatua dago, XV. mendearen lehen erdialdeko Deban. Juan Venancio de Araquistainek bere *Tradiciones Vasco-Cántabras* liburuan (1866) jaso zituen Beltrán de Alósen heriotzeko eresiei buruz dihardugu¹⁵⁵⁸. Nabaria da mendeen iragatean eresiak aldaerak jasan izango zituela, baina Aro Berrian zehar bere gogoramena mantendu izana arras esanguratsua dugu, mende haietan zeharreko hainbat emakumeren sentikeren agergarritzat baliozkoa dugun dokumentua dela adierazten baitugu. Eta halatsu, eresien itzala hauek jada debekatuak izan ziren garaiaz haratago hedatu zela ere argi azaltzen digu.

Beltrán de Alósen alaba batek kantatua izan zen eresia, leinuaren inguruko legendetatik eta eresiaren kontakizunetik eratortzen denaren arabera, bere lehen ezkontzan izandako alaba bakarra litzatekeena, Usua izenekoa. Beltrán de Alós edo Beltrán Pérez de Alósen inguruan honakoa kontatzen digu Juan Carlos Guerrak:

Contaba la leyenda que un antiguo señor de esta torre, don Beltrán Pérez de Alós, estuvo casado dos veces. De su primer enlace sólo tuvo una hija, Usua, heredera de las virtudes de su madre, que fue una santa. Muy diferente la segunda, le fue infiel cuando marchó a Castilla á guerrear contra los moros. Al regresar á su torre el señor de Alós, se hizo cargo de que algo anormal había ocurrido en ella, y su muger, para desvanecer toda sospecha, imputó a Usua la maternidad del bastardo fruto de sus clandestinos amores. Perplejo el buen don Beltrán, quiso descubrir la verdad de lo ocurrido é imaginó el arbitrio de simular su muerte. En el juicio supremo de la *Gau-illa* descubrió el secreto, se levantó del fêretro y tomó venganza atravesando con su espada al autor de su deshonra (Guerra 1984, 51)

Eresia ustez testuinguru honi legokioke; hau da, eresia hau izango zatekeen, seme izkutua bigarren emaztearena zela salatu zuena. Bertan gertakizun guztien ildoazaltzen zaigu: Usua bera dorretik kanpo, zirela zortzi urte ezkondua eta jada -"legezko"- seme bat -behintzat- izana; bere aita Gaztelan zen bitartean honen bigarren emaztearen izkutuko ibileren berri izan zueneko; eta aitaren -itxurazko- heriotzean

¹⁵⁵⁸ Iturritzat baliatu dugun Juan Carlos Guerraren artikuluko (1984) azalpenetan aipatzen zaigu nola Araquistain berak aditzera eman zionaren arabera, eresia 1865ean 88 urte beteak zituen emakume baten ahotik jaso izan zuen, "mujer extraordinaria por su memoria, [...] que [...] tenía más fe en esas leyendas que en todas las historias del mundo, pues le señalaba los lugares, los peñascos y los puntos de todas las escenas" (Guerra 1984, 52).

bigarren emaztearen eta honen seme-alaben partetik bera ixilarazteko nahiak, eta hauek etxeko jaunaren heriotzagatik izan zuten poza. Eta horiez gain, bada emakumeek espazio hauetan gauzak azaleratzeko zeukaten askatasun handiaren berri ematen digun bestelako pasarterik ere; ezkondu zutenekoak aipatzean Usuak bere ezkongai oso estima onean izan ez zuela garbi asko adierazia ageri zaigu, naiz eta bere patua onartu zuela ere nabaria izan:

Gero Bidania gustian
Bat zan erorik eta zororik
Aita-jauna neriak aura
Senartzat eman dit
Baña ez nuke trukatu
Obiagoagatik (Guerra 1984, 53)¹⁵⁵⁹

¹⁵⁵⁹ Eresia osorik jasoko dugu, azalduko gertakizunen eta Usua beraren bizitzaren berri nola eman zen ikus dadin:

"Etxe eder leyo bage onetan,
Ez naiz sartu zaspri urte aubetan,
Eta zortzigarrenian
Neretzat zorigaitzian
Aita Beltran'en iltzian.

Ama-andria neria nizaz
Bi erdi egin zanian
Milla ollo il eta
Ezkaratzian
Zaspri zezen korritu ere
Enparantzian
Ni ere banenguen
Lumatxo artian
Eta nere Ama-andria
Urre gortina artian.

Gero Bidania gustian
Bat zan erorik eta zororik
Aita-jaun neriak aura
Senartzat eman dit
Baña ez nuke trukatu
Obiagoagatik.

Aita-jauna neriak
Niri eman zidan
Imiñan dotia
Ama-andriak ere ixillik
Bere partia.

Lenen gabian
Begiak biotzak luen mendian
Baita berriz ere bigarrenian:
Irugarrena igaro baño len
Ondo poztu ziñan Alos-torria
Eldu zalako neregan semia.

Alos-torria ¡Bai Alos-torria!
Alos-torreko eskallera luzia
Alos-torrian nenguanian
Goruetan
Bela beltzak kua kua
Leyuetan.

Eresien inguruko azalpen hauek luze xamar eman baditugu ere, garrantzitsua da hauen berri izatea. Izan ere, emakumezkoek gidaturiko espazio bat agertzen baitigute; emakumeek gidatua, eta bizi ziren gizarte baitako baloreen eta liskarren testuinguruaren baitan eraginkorra izateaz gain, emakumeen ardura eta kexuei ere bide ematen ziena. Heriotz-errituak, bada, ez zegozkion soilik hildakoen espazioari; nabaria den lez, bizidunendako ziren batez ere garrantzitsu.

Aipatu dugu nola zenbaiten arabera XVI. mendeaz geroztik erostarien ohitura gainbeheran sartua zen. Debagoiengan eman izan ziren hiletarien eta erostarien aurkako debeku eta aginduek ere kronologia hori berretsiko lukete, batez ere XVI. mendean

Andik jaiki eta
Urre gozuaz jo nuan
Baña andik laster
Berri gaiztuak jo ninduan.

Zaldunak esan zion ¡ixil, ixil!,
Ama dolorkumia,
Ez dela hori zure
Esateria.

Ixil, ixil zaldun odol
Txarreko gastia,
¡Ala ere gutxiago zan
Zure eginpidia!

Aizpa ederrak or daude
Ederrik eta galantik.
Aatz ederrak erastunez
Beterik,
Ez daukatela mantubetan
Zolorik;
Ala ere gutxiago
Begietan negarrik.

Ama-andriari ere bai
Poza dario
Nere biotzari bakarrik
Mindura jariyo.

Aita-jauna neria
Gaztelan zanian,
Ixil askorik jayo zan
Alos-torrian semia;
Eta ala-ere ixillagorik
Dago bakian
Azitzen Zarautz aldian,
Gure jatorriaren loitukerian.

¡Ai! au mindura beltza,
¡Ai! ¡nere lotsa!
¡Alabak negarra ta
Aitak lur otza!
¿Zeinek loitu zaitu zu
Alos-torria?
¡Ai, nere Aita maite,
Aita maitia!
¡Iltzia ondo egin dezu

eman baitziren. Madariaga Orbeak hiletarien iraupenari buruz egiten dituen kontsiderazioak nahiko argigarriak zaizkigu:

autores coetáneos no llegan a ponerse de acuerdo con respecto a la eficacia de todas éstas y otras disposiciones parecidas a finales del siglo XVI; así, dos autores vizcainos discrepan notablemente, mientras Miguel de Alonsotegui da esta costumbre como caída en desuso para su época, el licenciado Poza señala que las plañideras seguían siendo cosa corriente en los funerales vascos. Algo más tarde, en 1625, Isasti, destacaba los llantos inmoderados que continuaban haciéndose en los funerales vascos, pero ya no menciona rasgaduras, ni caras heridas, ni cabellos mesados, ni tampoco que las que lloren sean plañideras; se refiere a los llantos que hacen exclusivamente las mujeres de la parentela. Y aquí puede estar un matiz muy importante: aunque se mantuviesen los llantos escandalosos, estos parecen ya reducirse a madres, hermanas y esposas, quedando cada vez más reducido el campo de las lloronas asalariadas. Así las cosas, a lo largo de los siglos XVII, XVIII y XIX seguimos teniendo bastantes testimonios de lugares en los que los llantos seguían siendo excesivos, por ejemplo en Rigoitia (B) en 1793. No faltan tampoco referencias a lo excesivo de los llantos en autores como Larramendi y Gorosabel, pero los testimonios de auténticas plañideras son muy marginales; sin embargo el padre Barandiaran, en la encuesta etnográfica publicada en el Anuario de Eusko Folklore de 1923, todavía señala que se conocían "*negartiak*" [lloronas] en lugares como Gernika (B) y Kortezubi (B) (Madariaga Orbea 2007, 138-139)

Gure aldetik bildu ditugun eta jarraian azalduko ditugun datuekin, Madariaga Orbearen hitzak berretsi baino ezin ditugu egin; edo, ahal den heinean, aberastu. Hala, Kalagorriko apezpikutzako 1700eko Konstituzio Sinodaletan 1602koetan eta 1621ekoetan eman zen debekuari gehitu zitzaion luzapenean, ohiturak, nolabait, familiaren testuingururik gertuenekoan bizirauten zuela agertzen zaigu:

Y se prohíbe severísimamente el detestable abuso, que en algunos lugares se ha practicado, de que las mugeres viudas, estando asistiendo en la Iglesia al entierro de su marido, digan públicamente muchas cosas domesticas, y ridiculas, que les sucedian con los maridos, quando vivos: Y la que esto quebrantare, sea sacada, y echada de la Iglesia. Y loamos mucho la costumbre, que en muchos lugares se practica, de quedarse las mugeres en casa el dia del entierro de el marido, y no asistiendo en èl, escusandose por este camino la corruptela antecedente, y otras muy dignas de ser extirpadas (Lepe 1700, 452-453)

Berez, Martínez de Isastik, labur bada ere, antzerako egoera aipatzen digu 1625erako. Beti ere, noski, ordainpeko hiletarien gehiegikeriazko ohiturak gaitzetsiz, eta XIII. mendeko Alfontso X.enaren *Partidas*-etako argudioen nolabaiteko ohiartzuna jasoz:

Es notable cosa lo que lloran las mugeres de esta tierra: las casadas por sus maridos, y las hijas por sus padres y parientes, y todos las de la parentela, diciendo en sus llantos las bondades del difunto, y su propia soledad y trabajo, echando lágrimas de sus ojos, que lastiman y causan compasion á los que las ven: y no como dice Roman que usaban alquilar mugeres, para que llorasen en sus mortuorios, atribuyendo á Garibai, que lo escribió en su compendio: que esto bien se ve, que es abuso [...] Lo que se reprehende es el exceso y abuso de llorar y lamentar, como predicó San Crisostomo por los que torcian manos y brazos, arañando las caras, y cortandose los cabellos, que esto parece especie de Gentilidad, según San Pablo á los de Thesalonia diciendo: no queremos que vosotros tengais ignorancia de los que duermen, porque no os entristezcais como los que no tiene esperanzas de resurreccion: que con esta esperanza quiso consolasen unos a otros (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 202-204)

Aita-jaun maitia!" (Guerra 1984, 52-55).

Bi kasuetan, ez da kanturik edo eresirik aipatzen jada, baina emazteak eta beste familiako emakumeek hildakoaren inguruko gauzak kontatzeak espresiorako espazio horrek XVII. mendean eta XVIII. ren atariraino nolabait biziraun zuela azaltzen digute. Hala ere, ez dezagun ahaztu 1700eko Kalagorriko konstituzioetan aurreko konstituzioetako debekuak ere jaso zirela; errepikapenak bere zergatia ere izan zezakeen.

1700eko konstituzioetan beste zenbait agindu ere eman ziren, seroren heriotz-erritueta partehartzearen testuinguru orokorrari eragiten ziotenak. Alde batetik, alargunei luzaturiko debeku honez gain, apezpei luzaturiko beste bat ere eman zen, hein bateraino hildakoaren irudiaren goraiatzeta azken hauek ere euren kargu hartua zutela adierazten diguna. Debekua zehazki hiletetan, ondretan, eta urtebukaeratan apezkek egiten zituzten sermoiei buruzkoa zen, eta bertan hildakoaren goraiapamena egin ohi zela aipatzen zaigu:

en ellos muy frecuentemente son alavados los muertos de las virtudes, que no tuvieron; por aver estado muchos de ellos llenos de vicios: y si tuvieron algunas, las realzan tanto, que con ello mueven à risa à los Auditorios; los quales comunmente salen desedificados de los tales Sermones, y no pocas vezes escandalizados (Lepe 1700, 453)

Badirudi aurreko urteetan erostariak bete izan zuten –eta emakumezkoen espresiorako espazio bat osatu zuen– doluaren agerpenaren eta hildakoaren goraiapamenaren funtzioak, 1700. urterako, hein batean alargunek (eta euren familiek) eta apezkek jaso izan zituztela, eta halaber, hauek ere apezpikutzako konstituzioen debekua jaso zutela. Zeremonien pertsonalizazioa ekiditera begirako neurriak ziren, azken finean, seroren etekin-iturri zen funtzioetako parafernaliari ere zuzenean eragiten ziotenak; eta Madariaga Orbeak zehaztu bezala, mugapen hauek ohitura zaharren antzaldatzeek familiaren testuinguru gero eta ertsiagoan baino ez bizirautea eragin zuen. Eta era berean, hiletarien eta erostarien arteko funtzioen banaketak eurak ere lausotuz joan ziren, debekuen araura.

XVIII. mende erdialdean Larramendik hiletan eta hauei loturiko errituen deskripzioa egin zuenerako, "aunque las desterraron largos tiempos há", hiletariei eta erostariei loturiko ohituren "algunos residuos" baino ez ziren omen gelditzen. Berez, Larramendiren hitzak kontraesankor xamarak ere bazaizkigu, ezen, -emakumeen-ondretako segizioa deskribatzean "con tal modestia y silencio, que no es permitido el hablar ni mirar á un lado ni al otro" zioen artean, alargundu berriaren oso bestelako irudia baitakargu:

Porque las mujeres van siguiendo el cadaver de su marido, no sólo llorando lágrimas vivas y serias, sino gimiendo y hablando en voz levantada, ya quejas de su desgracia y abandono, ya lástimas de los hijos, que quedan sin arrimo para su subsistencia, ya las buenas partidas del difunto; todo con expresiones tan vivas y sentidas, que mueven á compasion á los oyentes. Así van por la calle, así prosiguen en la iglesia, hasta que como por fuerza las hacen callar durante la misa, bien que no hay fuerza bastante para tenerlas en silencio cuando ponen el cadáver en la sepultura. En todo esto nada hay de vituperable, y todo lo que se reprende en órden á esto por muchos autores es el exceso y demasía del gentilismo y una cierta supersticion: y nada de esto hay en los llantos de las gupuzcoanas (Larramendi 1985 -1754-, 230)

Larramendik ohitura hauen berri eman zuenerako, debekuek eragindako gainbeheraren baitan, hiletarien eta erostarien arteko mugak, esana dugunez, ez ziren jada hain garbiak; hala, "*aldiagilleac, adiaigilleac, erostariac*" bezala izendatu zituen (Bizkaian gordetzen ziren izenen arabera), batzuek eta besteak zaku berean sartuz, "plañideras" bezala (*Loc.cit.*). Baina gainbeherak gainbehera, emakumeek hiletetan

minaren adierazpen publikoak egiteko ohiturak kaskagor zerraien, nahiz eta, nabaria ere badenez, andreek XVIII. mendean beraien senarren minez azaldutako kexu, pena eta arduren eta erostariak XVI. mendean eresien bidez arrotzen zituzten arazo eta gertakizun sozialen artean alde handia izango zen, adierazpen hauek gizarte baitan izatera hel zitezkeen eraginari zegokionean.

Hiletariei eta erostariei loturiko aspektuei loturik, baina haratago joanaz, beste agindu bat ere bada, azkenik, Larramendik –1754an– hileta-elizkizunaren osteko azken otoitzak egiterakoan aipatzen zigun “zaguan o calle vecina”-n, 1700.eko konstituzioen aurretiko garaietan behintzat, hiletako nokturno edo bijiliak egiteko ohitura zegoela azaltzen diguna. Debekua apezpei zuzendurikoa izan zen, baina serorek, hiletariak eta erostariak ere bijilia hauetan nolabait parte hartuko zutela pentsatzea ez zaigu batere aldrebesa iruditzen. Azken finean, Larramendik aipatzen zigun “ceremonial particular de las mugeres”-aren parte ere izango baitziren. Honela azaltzen zaigu ohitura konstituzioetan:

en muchas partes ay estilo, de que en los entierros, quando sacan el cadaver de la casa, en donde està, lo ponen en el zaguan, ò en la calle; y alli el Clero, puesto en bancos, que tienen prevenidos para este efecto, ò en otra forma, le haze, y canta el Nocturno, ò Nocturnos de difuntos, reservando tan solamente, para la Iglesia, la Missa, y oficio de la sepultura: todo lo qual se haze, con muy grande indecencia, como cosa que se haze en calles, y plaças publicas (Lepe 1700, 465)

Debekatu egin zen beraz hala egiterik, eta guztia Zeremonial Erromatarraren arabera egitea agindu: labur esateko, hildakoaren eramateaz beste, erritu guztiak –nokturnoak eta bijiliak barne– elizan egin zitezela. 1700ean beraz, Kalagorriko Apezpikutzako zenbait lekutan zabalagoa zen hileta-errituek espazio publikoan zuten presentzia Larramendik 1754an agertzen zigun irudikoa baino. Ez dakigu agindu hau dagokigun espazioko testuinguruari ze puntutaraino ote zegokiokoen –edo apezpikutzako beste nonbait kokaturiko ohiturak ziren–, konstituzioez aparteko iturrietan ez baitugu bestelako berririk aurkitu ahal izan. Alabaina, heriotz-errituetan espazio publikoetan kokatzen ziren aktibitateak murrizteko joera orokorrarekin bat egiten du, eta serorekiko nahiz hiletari eta erostariakiko, nabaria da euren heriotz-errituetako aktibitateen garapenean zuzenean eragiten zuten neurriak zirela. Aro Berrian zehar testuinguru honen baitan bizi izan ziren aldaketek, azaldu izan dugun emakumeen espresiorako espazio horren murrizte bat eragin zuten, seroren bizimoduan ere aldaketak eraginez.

Hiletan ondorengo heriotz-erritu sortaren baitan, serorez, hiletariek eta erostariek aparte, lehen-auzoek eta bestelako emakumeek ere hartzen zuten parte, beste behin, heriotzarena emakumezkoen kultu-esparrutzat berretsiz. Larramendik bere *Corografía...*-n ere honela azaldu zigun heriotz-errituekiko XVIII. mende erdialdean gordetzen zen atxekipena, jada gainbeheran zioana eta laster -mende bukaera alderako-sortzen zituen gehiegizko gastuak medio neurri eta debekuak jasatekoa zena:

Todos los oficios funerales, el séptimo, noveno, trigésimo, cabo de año, y dos años, están en práctica corriente en toda Guipúzcoa; ni pienso que sus mujeres pongan más cuidado y atención, ni más puntualidad que en estos oficios, ni muestren tanta devoción a otra cosa alguna, como a esta piedad en las ánimas de sus difuntos (Larramendi 1985 -1754-, 231)

Nahiz eta debozio adierazle ziren heinean emakumeen inguruan biltzen ziren heriotz-erritu hauek ontzat hartzen zituen, Larramendi ere, hainbat herritako udal agintariak eta Gipuzkoako Batzar Nagusiekin bat, hiletetako gehiegizko gastuen aurka zegoen, eta batipat, hauetako jendetza, burrunba eta nahasmena zitzaizkion arbuia garri.

Eta hala ere, hiletan eta ondorengo erritu eta elizkizunen deskribapen aski zehatz bat eman zigun, batez ere hileta elizkizunei eta ondrei dagokienean. Jarraian emango ditugun azalpenetan bere deskribapenak ardatz nagusi lez baliatuko ditugu, baina, beti ere, iturri etnografikoen bidez jaso izan diren testuinguru tradizionaletako hileta eta bestelako heriotz errituen inguruko datuekin uztartuz. Izan ere, ohitura hauek gorde izan diren lekuetan, ikerketa etnografikotik Aro Berriko iturri idatzietatik baino zehaztasun handiagoko testuinguruak atzeman baititzakegu. Gainera, serorekin eurekin, hiletariekin eta erostariekin batera, heriotz errituen testuinguru baitako beste emakumezkoen talde bat iturri etnografikoetatik jasoriko datuekin gorpuzten zaigu, alderdi hauei kasu handiegirik egin ez zieten Aro Berriko dokumentu idatzietatik baino: lehen-auzoaren instituzioari buruz dihardugu. Eta honekin batera, baita emakumezkoen beste "karguren" bat ere, maila xumeagokoak eta ziurrenez, horrexegatik, dokumentu historikoetako azalpenetan are baztertuago gelditu izan zitezkeenetarikoak: "zesterazalea" (Ataun, Gipuzkoa) edo "aurrogie" (Areatza, Bizkaia) bezalako izenekin ageri zaizkigunak eta jarraian azalduko ditugunak, esaterako. Ondorengo orrietan azaleratuko zaizkigu talde berezi hauen aktibitateak, hiletak, ondrek eta ondorengo heriotz errituen zikloa, eta emakume ezberdin guzti hauek batzuetan eta besteetan zeukaten partehartzea eta garrantzia, azalduz goazen heinean.

Funtziorik arranditsuenak, noski, hiletak eta ondrek izan ohi ziren. Hauetan biltzen zen jendetzarik handiena, eta baita "gehiegikeriarik" nabarmenenak (gastuetan, hiletarien negar eta garraisietan, etab.) bertan egin ere, nahiz eta, Larramendik azaldu lez, hiletetan klaseen araberrako mailaketak ezartzen ziren, eta batzuek besteak baino xumeagoak ziren: "Hay varias clases de entierros: mayores, medianos y menores, que tiene ménos solemnidad de parte de los clérigos y de la iglesia, y de más o ménos ofrenda de pan y cera de parte de las mujeres; pero en todos se guarda el mismo método" (Larramendi 1985 -1754-, 229), jarraian azaltzen saiatuko garena.

Maila soziala zelakoa zela, pertsona baten heriotzean serorek zeukaten partehartzea hileta bera baino lehenago hasten zen askotan. Alde batetik, kanpaei buruzko atalean zehatzago azaldu dugunez, hiltzeaz zegoenaren egoeraren berri ematea izan zitekeen beraien lehen eginkizuna. Parrokietan bezalaxe ermitetan ere, kanpaien kargu hartzen zuten serorek (ez baitzen beti hala izaten) hiltzeaz zegoenaren agonia inguruan jakinarazteko eta honi "hiltzen laguntzeko" kanpakiak jotzen zituzten. Heriotzaren momentua, agoniarena bezalaxe, kanpai-jote berezien bidez jakinarazten zen.

Ondoren, serorek ere parte har zezaketan beste aktibitate bat zetorren: gorpuaren atontzea. Geldiune bat egin dezagun hemen, iturri etnografikoez beste, Aro Berriko dokumentuek ere langintza honen zenbait berri ematen baitizkigute. Esate baterako, Nafarroa Garaiko Aro Berriko serorak ikergai zituela, izan zuen Peñaranda García alderdi hau aipagai (Peñaranda García 2002, 304). Debagoienean bildu ahal izan ditugun datuei dagokienean, gorpuaren atontzeari buruzko zenbait berri esanguratsu Elgetako Andre Maria parrokian 1763an serora izendapen bat medio izan ziren zenbait liskarretako informazio dilijentzien bidez heldu zaizkigu. Dilijentzia hauen baitan galdeketa bat prestatu zen, eta bertan, seroren eginkizunen inguruko galderak ere egin ziren. Lekukoek eman zituzten erantzunetan, guztiek aipatu zuten hildakoen gorpuak atontzearen lana ("aliñar cadaueres"). Zehaztu beharrean gaude ez dirudiela eginkizun honen kargu leku guztietan hartzen zutenik; beste herri batzuetan izendapenen nahiz liskarren kontu egin ziren informazio dilijentzietan (Bergaran, edo Oñatin, esate baterako) ez zen eginkizun hau seroraren edo seroren lanen artean aipatu. Ez dakigu hau garrantzi gabeko aktibitate zat hautematen zelako, edo beste leku hauetako serorek

aktibitate hau burutzen ez zutelako ote zen. Honekiko, Elgetan ospitaleko eta parrokiako zerbitzua loturik zeudela ere aintzat hartu beharrea gaude; agian horregatik hautemango zuten herritarrek eginkizun hau hain garbiki seroraren betekizun lez, sendakuntza lanak eta hil ondoren gorpua atontzea langintza beraren parte lez uler zitezkeelako. Edozein kasutan, eta nahiz eta ohitura orokortuzat ezin har genezakeen, Elgetan jarraitzen zen ohitura beste hainbat lekutan ere jarraitzen zenez, aktibitate hau ere seroren heriotz-errituetakoa partehartzearen baitan hauteman beharrea gaude. Elgetako galdeketa lekukoen artetik, parrokiako sakristauarena dugu aktibitate honen inguruko azalpenik adierazgarriena: “y asi mismo se ocupan en la Caridad de Aliñar y Componer los Cadaveres y haun soltarles las manos Cruzarlas taparles la Cara y otros ejercicios Semejantes de piedad”, zioen¹⁵⁶⁰.

Oñatiko izendapen batzuetan ere zehaztu izan zen gorpuen atontzea, seroren betekizun lez. 1718an Olabarrietako San Jose ermitako serora lez Ana Maria de Cortabari eta Francisca de Olabarria alargunak izendatu zituztenean, honako betekizunak ere zehaztu ziren: “ayan de tener obligacion de asistir a los enfermos y enfermas que se ofrecieren en dicho Uarrio durante los dichos tres años vistiendolos al tiempo que murieren cumpliendo en todo lo demas que es de su Cargo”¹⁵⁶¹. Hemen ere, Elgetan bezala, gaixoen artapena eta hildakoen atontzea eskutik ageri zaizkigu. Oñatin bertan, 1763an San Antonio Abad edo San Anton ermitarako ermitau eta serora lez Antonio de Ugarte eta Maria Ana de Mintegua izendatu zituztenean ez ziren zehazki hildakoen atontze lanak aipatu, baina hil-kutxaren kargu hartu beharrea zeuden: “Yten que a su costa haian de poner y tener de repuesto una mortaxa para quando muriere alguna persona de dicho Barrio, cobrando su importe de la persona, que les pidiese”¹⁵⁶². Azken datu bat Duverten Iparraldeko ikerketa etnografikoetara iraganaz jasoko dugu, aipatu berri ditugun iturrietan gorpua atontzearen lana oso modu xumean deskribaturik ageri bazaigu ere, bere dimentsio erlijiosoak garrantzitsuak izan behar zuela pentsarazten diguna; Lafitte kalonjearen hitzetatik honako ohitura jaso zigun: “dans le temps, andere-serora venait dans le maisons boucher les orifices naturels des morts avec de la cire d'ezko” (Duvert 1991, 13). Gorpua zuloak argizariarekin istea ez zen ziurrenik usain txarrak ekiditeko modu soila; arimaren ihesak ekiditeko babes neurri bat ere bazela esango genuke. Sorazuk ere, Gaintzako (Gipuzkoa) seroren berri iturri historikoak eta etnografikoak uztartuz ematerakoan, “Hilberria txukundu eta jantzi” seroren egitekoen artean aipatu zuen, eta argizariarekin sudurzuloak istearenarekin gertatu bezala, garbitasun neurrien eta sinesmen erlijiosoaren bitarte horretan kokaturiko beste zeregin bat ere aipatu zigun: “Beronen ezpainak eta esku barruak menta belarren ukenduz igurtzi, hilezkortasuna gogoratuaz” (Sorazu 2009 -1993-, 23). Aro Berrian zehar serorek edo emakumeek (“mujeres devotas” zirelakoek) hiletetan landareak erabiltzeko zeukaten moduari buruzko datu xumeren batzuk 1625ean honakoa idatzi zuen Martinez de Isastirengandik ere helduak zaizkigu:

y la sepultura: en la cual poco antes ponen las mujeres devotas, ramos de laurel, hinojos, ruda y otras yerbas olorosas, y para debajo de la cabeza del difunto una almohada pequeña on las mismas yerbas, y las suelen poner sobre la sepultura todos los Domingos y Fiestas, para templar el dolor de ver muertos á los que tanto querian en vida (Martinez de Isasti 1625, 203)

Zaila zaigu, hemen, belarren funtzio “higienikoaren” (kiratsa estaltzearena) eta erlijiosoaren edo majikoaren (bizidunak hildakoengandik babestearena) arteko mugak

¹⁵⁶⁰ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

¹⁵⁶¹ GPAH-AHPG 1/3249, 43r.

¹⁵⁶² GPAH-AHPG 1/3413, 72r.

ezartzea. Garai hartan, izan ere, ez baitzen halako mugarik hain garbiki hautematen. Honekiko, bestalde, aurreko kapitulu batean aipagai izan dugun Frank-en "belhargin"-en eta "braguine" edo "brayine" zirelakoan (serora-laguntzaileak, Iparraldean) arteko loturaren hipotesia gogoraraztea ere ondo datorkigu¹⁵⁶³, propioki sendakuntza aktibitateak zirenez beste, hiletetan landareak errituetan txertaturik zeudela erakusten baitigu.

Baina serora, edo serorak, ez ziren prestakuntza lan hauetan parte hartzen zuten bakarrak; Martinez de Isastik ere "mujeres devotas" zirelakoak aipatu zituen, ziurrenez, propioki serorenari baino, orokorrean, emakumeen espazioari zegozkion errituei buruz ziharduelako. Emakumeen artean, hildakoaren baserri edo etxetik gertuen zegoen etxeko partaideek, lehen-auzoek, hainbat lan hartzen zituzten beraien bizilagunaren heriotzaren ordu hartan, beti ere, komunitatearen loturak sendotzeko balio izaten zuten ohituren arabera. Aipagai izan berri ditugun bi autoreek, Duvertek eta Sorazuk, hainbat berri eman ziguten alderdi hauen gain, ikerketa etnografikoen oinarrian. Bertako partaide bat -askotan seme edo alaba- izan ohi zen elizara dolua gidatuko zuen gurutzearen bila joan eta honekin bat, kanpaiarekin berria hedatu behar zuen serorari¹⁵⁶⁴ eta noski, bestelako herrikideei heriotzaren berri ematen ziena; beste kasu batzuetan serorek edo bestelako pertsonak egin ohi zuten lana ere hartzen zuten, gorpua atontzearena, ohituraren arabera hala zegokienetan; hildakoa zegoen estantzia atontzea ere euren zegokien (ispiluen estalketa, lehioen erdi-istea, argiak, erramua, ur bedeinkatua, etab.); prestatu beharreko janariak euren kargu zeuden; dolurako jantzien prestaketa ere bai; funtsean, lehen-auzoek, eta bereziki bertako emakumeek hartzen zuten hildakoaren etxean gertatu eta egin beharrekoen kargu, bertako familia minean, doluan gelditzen zen artean (Duvert 1991, 8-10). Sorazuk, espezifikoki Gaintzako (Gipuzkoa) seroren egitekoetaz ziharduela, gorpuaren atontzeari zegozkenez gain hildakoaren etxean kokatzen ziren honako eginbeharrak ere aipatu zituen:

- Hildakoa zegoen gelako ispiluak trapuz beltzez estali. Lehioa erdi-irekian eduki, itzalik bertan sartu ez zedin.
- Hilberriaren alde auzotar guztiekin, ilunabarrean, hamabost misterioko Arrosarioa errezatu.
- Gorpua kaxan zegoela, elizako ur bedeinkatua erramu adar bedeinkatuarekin jarri, adiskideak etortzean, "Pater Noster" bat errezatzean, gorpuaren gainean gurutze eran zirtatzeko.
- Nahiz ofrendarako edo erresponsturako ematen zuten dirua jasotzeko bandeja berezi bat jarri.
- Hildakoaren gainean, bere bizitzan irabazitako buldak (Elizaren induljenzia paperak) jarri (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Lekuen eta garaien arabera langintza batzuek batzuei eta besteak besteei nola egokitzen zitzaizkien jakiterik ez badugu ere, gauza bat bada zalantzarik gabea: hildakoa elizara hiletara eraman aurretiko abisu eta prestakuntza lanen kargu hartzen zutenak serorak eta lehen-auzoak izaten ziren, hildakoaren familia doluan zegoela.

VIII. 1.2. Hiletako errituak: hilibidean eta elizan

Gorpuaren, etxearen eta hildakoa kokatzen zen gelaren atontzeak behin gauzaturik, familia kideek, atontze guztien kargu hartzen zuten serora eta lehen-auzoak lagun zituztela, pizturiko argizaiolen argitan apezaren, meza-mutilen, eta hauek

¹⁵⁶³ Ikus II. 4.3. azpiatalean, 143-145 or.

¹⁵⁶⁴ Eginbehar honi buruzko berri zehatzagoak kanpaiei buruz jarduterakoan eman ditugu, VI. 1.6. azpiatalean, 516 eta hurr. or.

zekartzaten parrokiako gurutzearen eta hildakoa partaide izan zen kofradietako "insignias o estandartes"-en helduera itxaroten zuten. Behin hauek heldurik, gorpua elizarako bideari ekiten zitzaion:

Hácese señal con las campanas de la iglesia, y luégo con otra menor que va por las calles llamando al entierro. Algo ántes que los clérigos concurren á la sala donde está el cadaver las parientas y otras amigas de la casa y demas mujeres, y no cabiendo en la sala, se extienden á otros cuartos, ó se quedan en el zaguan, guardando todas un gran silencio. Vienen los clérigos con sobrepellices y el preste con capa pluvial muy rica; suben arriba, cantan el responso y demas acostumbrado. Levantan el cadaver cuatro señalados y bajan con él á la calle, y se ordena la procesion, y detras de ella el cadáver, y va el cabildo cantando el *Miserere* (Larramendi 1985 -1754-, 227)

Puntu honetatik aurrera gizonen taldeak eta emakumeen taldeak nork bere aktibitateak eta denborak zeramatzen, batean apeza gidari, bestean serora. Apezen atzetik gizonen taldea luto jantzi luzez joan ohi zen, multzoan, emakumeak ez bezala. Gizonen ondoren zoazen emakumeak, parrokiako serora buru zutela, botere-mailaketen, azken hildakoen eta lekuan lekuko tradizioen arabera antolatu ohi ziren jarraipen jakinetan, bata bestearen atzetik iladan. Emakumeak ere lutoz jantzita joaten ziren noski, eta familia kideek beraien egoera adierazteko bereizgarriak ere izaten zituzten¹⁵⁶⁵. Eta prozesio hau zen, emakumeena, "*seguicia y progua*" izenekin ezagutzen zena. Gizonezkoak elizara heltzen zirenean elizkizunari ekiten zioten, nokturnoarekin, emakumeen segizioaren helduerari, edo honen bukaerari, itxaron gabe. Larramendik emakumeen heldueraren momentua irudikatu zigun modua argigarria zaigu:

Cuando llegan las mujeres á la iglesia ya los hombres están en sus asientos, de rodillas ó sentados, y el del duelo, con sombrero ancho y alicaído, y sin espadin, junto al alcalde; los clérigos están cantando con gran pausa y solemnidad el *Nocturno*. La serora en pié reparte la procesion de las mujeres y señala el lugar en que han de sentarse la del duelo y sus acompañadas, no, como ántes, inmediatas á la sepultura abierta, sinó bastante retiradas. Los cofrades, que han acompañado al cadáver con hachas encendidas, que son de sus cofradías, las apagan y arriman á su lado, hasta que, acabada la misa, las vuelven á encender, quedándose el féretro ó la caja donde ha de estar durante el oficio: y quedan ardiendo doce hachas grandes nuevas, ó de cera blanca, ó amarilla, á ambos lados del cadáver, y en todos los altares velas encendidas, y sobre su caja algun vestido ó tela rica, que es regalo para la parroquia; en algunos de estos entierros se visten á algunos pobres, que es gran caridad, y van acompañando con hacha al difunto. Pocos forasteros acuden al entierro, porque no pueden estar avisados (*Ibid.*, 228)

Deskripzio hau, noski, serorei buruzko kapituluarekin ere gertatzen den bezala, ideal baten azalpena gehiago dugu, hileta guztietan izan ohi ziren jarraibideen azalpena baino. Berez, aurreko mendeetako zenbait heriotz errituetakoa ohitura "erreformatuak" izan ziren XVIII. mendeko euskal hiletaren irudi idealizatua dugu. Besteak beste, eta ikerketa etnografikoek argi azaltzen dutenez, deskripzio honetako hainbat aspektuk lekuen arabera izan zitzaizketen bariazioak handiak dira, eta noski, Larramendiren deskripzioak ere ez zituen hiletetako alderdi guzti-guztiak isladatu. Zenbait lekutan, esaterako, eta kanpaitaz jardutean ikusiko dugunez, gorpua parrokiararteko hildabe guztian zehar laguntzeko kanpai joteak ere izaten ziren, tenplu bakarrean, nahiz hildabidean zeuden tenplu ezberdinetan, elkarren artean erreleboa jasoz. Kasu askotan seroren kargu izango ziren kanpai-jote hauek, uzten babeserako kanpai-joteekin gertatu

¹⁵⁶⁵ "Todas de luto y con mantos largos de anascote de particular hechura, y la del duelo echado el manto hasta la cintura, conchia ó falda arrastrando, y un delantal muy blanco á manera de las imágenes de la Soledad" (Larramendi 1985 -1754-, 228).

bezala, hildakoaren arima bere zerurako bidean "laguntzeko" funtzioa bezalaxe, bizidunak hildakoaren arimaren aurrean babestea ere izan zezaketela dirudi.

Hiletako prozesioaren ordenean eta eskaintza nork egitearen ohituretan ere aldaketa handiak nabari litezke, hain zuzen ere, leku ezberdinetako botere esparruen eta hauetako aktore ezberdinen arteko mailaketa partikularrak adierazten zituztenak. Lekuen arabera, zenbaitetan serorek hiletarako eskaintza ere eraman ohi zuten hileta prozesioaren aurrean; bestetan emakumezko bat edo neskatila bat izan ohi zen (Agirreazaldeggi 1989, 50). Areatzan (Bizkaia), adibidez, Garmendia Larrañagak jaso zuenez, azkeneko hau zen ohitura, eta segizioaren aurrean buruan otarra zeramala joaten zen auzoko emakumeari "aurrogie" izena ematen zitzaion (Garmendia Larrañaga 2007 -1987-, 51). Beran (Nafarroa), eskaintzaren otarra serorak eraman ohi zuen buruan (Duvert 1991, 17). Gaintzan (Gipuzkoa) serorak "Hileta elizkizunetan, hildakoaren bederatiurrenean, eta urteko igandetan (hil Mezak) produko-burua [*segizioko buru*] egiten zuen" (Sorazu 2009 -1993-, 23). Ataunen (Gipuzkoa) "zesterazalea" izena jasotzen zuen "lehenateko" (lehen-auzoa) neskatxa batek zeraman eskaintzaren otarra, hemen ere, segizioko buru (hau da, gizonezkoen gortearen atzetik); gero seroraguntzaile tankerako papera hartzen zuen, eta eskaintza bera serorak egiten zuen. Zigan (Nafarroa) berriz, "lehenatea" bera zen hileta elizkizuneko eskaintza egiten zuena. Azkenik, Elosuan (Bergara, Gipuzkoa), "etxekona" deitzen zitzaion -eta gaztea eta ezkongabea behar zuen- lehen-auzo bat zen eskaintza hileta prozesioan zeramana, ez segizioaren -hau da, emakumeen prozesioaren- lehen postuan, apezaren, sakristauaren eta gizonezkoen prozesioaren aurretik baizik, eta behin elizan, eskaintza jarlekuan utzirik, korupeko azken iladara joaten zen, hildakoaren emakumezko ahaideak -baita etxekoandrea bera ere- jada belaunikaturik zeuden lekura. Ondoren beste bi "etxekona" joaten ziren jarlekura, eta bata jarlekuko argizaiolaren zaintzan gelditzen zen artean, bestea otarraren eskaintza egiteaz arduratzen zen (Frank 1997, z.g.).

Ikus litekeenez, bada, Elosuan bezala serorak eurak jada desagertuak zeuden lekuetan ere hileta-prozesioetan leku garrantzitsua zeukaten emakumeek, orokorrean, eta bereziki lehen-auzoek; berez, bi multzo hauen arteko mugak nahastu ere egin litezke. Duvertek Iparraldeko hiletetako prozesioetako ohiturak hiru puntutan laburbilduta jaso zizkigun:

- 1 - En Labourd, les femmes pouvaient **fermer le cortège** et la femme la plus proche du mort pouvait être la dernière.
- 2 - Dans beaucoup d'endroits elles se signalent au titre de **premières voisines**: les femmes des 4 premières maisons entourant celle du mort, sont en grand deuil, comme la famille (en manteleta). C'est surtout le cas en Basse-Navarre.
- 3 - En Soule et Basse-Navarre surtout la première voisine joue le rôle de **gardienne de lumière** (ezkoandere ou argizaina) en portant dans un grand panier son ezko, celui de la maison du mort et ceux des autres "premières" maisons voisines (en principe quatre).

Areago, batzuetan, batez ere Nafarroa Beherean, lehen-auzo zen bikotea bakarrik izaten zen presente apezarekin batera ehorzketan, eta hiletan ondorengo erritueta argiteriaren zaintzan ere hartzen zuen lehen-auzo andreak parte, hildakoaren etxekoandrearekin eta serorarekin batera. Eskaintzen erritueta eta bestelakoetan ere modu ezberdinetan parte hartu zezakeen lehen-auzo andreak: bizilagunek emandako diruak biltzen, hileta ondorengo erritueta argizarien zaintzan, edo hildakoaren etxeko emakumeak -jada apeza joana izanik- ehorzlekutik elizara itzuleran laguntzen (Duvert 1991, 5-11). Gaintzan (Gipuzkoa), gorpua hiltzean zeramatela, "bide gurutze bakoitzean, apaizak edo serorak erresponstua otoizten zuelarik" joaten ziren (Sorazu 2009 -1993-, 23). Saran (Lapurdi) berriz, eta jada hileta

prozesioa elizara heldurik, prozesioko partaideek hartzen zuten banaketa honakoa izaten zen: emakumeak behean, eta gizonak balkoi eran hiru paretetan hedatzen den galerian. Lutoz jantzitako "lehenatea" eta bere emakumezko ahaideak hildakoaren etxeko jarlekuaren inguruan kokatzen ziren, eta gizonak, "lehenatea" eta ahaideak, galerien erdiko gunean jesarrita (Frank 1997, z.b.). Halakoxea zen Donibane-Lohizunen (Lapurdi) hartzen zuten banaketa ere, ezen:

Antolaketa honek sexuari lotutako erritu-jarduerei erantzuten zien, eta eserlekuak antolatzeke moduak ezkututzen duen sinbolismoa elizen egitura arkitektonikoan ere antzematen da, elizarako sarbidea eta aldarerako bidea kontrolatzen baitzuten emakumeek. Hilobiei lotutako erritu ugariaren arduradunak izanik, emakumeak atari nagusitik sartzen ziren santutegian eta beren jarlekuraino iristen ziren zuzenean. Gizonak, berriz, elizkizunetan eginkizun gutxitxo zutenez, santutegirako sarrera nagusiaren kanpoan kokatutako eskailera batetik igotzen ziren galerietara. Galeria hauek arkupearen barruan edota elizaren kanpoaldean itsatsita zeuden. Gizonek aldarera joan behar zutenean, santutegiaren aurreko aldeko barne-eskailera batetik jaisten ziren, aldare-eremuaren aurretik igaro, eta balkoietara itzultzen ziren berriro, beste aldeko eskailera batetik igoz. Honela, gizonak ez ziren inoiz sartzen emakumeei eta beren jarlekuei zegokien eremuan (Frank 2001, 77)

Baina azken kasu hauek emakumeek heriotz errituen testuinguruan mantendu izan zuten -eta duten- lehentasuna garbi adierazten badigute ere, ezin dugu ahaztu, jarlekuen gain ezarri ziren konstituzio eta araudi mugatzaileen eragina, leku askotan, sakonagoa izan zela. Debagoienera bildu ahal izan ditugun kasuek -espazioaren erabileran lehentasunaren kalterako ziren- jarlekuen kokapenen desplazamenduak agertu dizkigute, eta baita aldarearen espaziotiko jarlekuen kanporatzeak ere, eta jarlekuen harmailen berdinketa, sinbologia arloko debekuak, etab. Hau da (eta daramagun harira itzuliz), XVI. mendeko hiletan eta XVIII. mendeko artean, hileta prozesioa elizan sartzen zeneko momentuek, eta errituek eta elizek izango zituzten itxurek eta moldeek oso desberdinak izan behar zutela; hiletan handitasunean eta hauen eragin sozialari dagokionean, XVIII. mendea XVI.enaren itzala baino ez zela izan.

Hein horretan, Larramendiren hiletaren deskribapenak baditu, prozesioaren ordenean berak azalduko moduz aparte izan zitezkeen barianteenarekin bat, beste ohartu beharreko alderdi erritual batzuek, Larramendiren garaiaren aurretik bestelakoak izan zirenak. Gogoan izan dezagun, honekiko, goraxeago aipagai izan dugun 1700eko konstituzio sinodaletako debekuetariko bat: ikusi dugunez, "zaguan, ò en la calle" egiten ziren errituak debekatu ziren, eliza barruan meza eta hileta ofizioa baino ez zirela egiten eta, erritu guztiak eliza barruan egin zitezela aginduz. Bada, Elosuan (Bergara, Gipuzkoa) izan ziren ohituren artean, bazen, hilkutxa elizara sartu aurretik, hau elizatik 100 bat metrotara kokatua zegoen harrizko mahai tankerako batean bitarte baterako uzteko ohitura. Aizpurutxotik heltzen ziren hilkutxek ere bazuten beraien harrizko mahai propioa (ziurrenez, Elosuakoak ez zirelako, Azkoitiako auzo batekoak baizik), gaur egun artean bere lekuan dagoena (Goñi 1979, 162-163). Itxura guztien arabera, eliza barruan beharrean kalean egiten ziren "Nocturno, ò Nocturnos de difuntos" haiek egiteko hilkutxen kokapenak seinalatzen dizkigute harrizko mahai hauek. Baina ohitura bera, noiz desagertu ote zen Elosuan? ezin zehaztasunez jakin. Bego, edozein kasutan adibide hau, 1700eko konstituzio sinodalek arbuiatu zuten ohitura aurreko -eta baita ziurrenez ondorengo- garaietan zenbait lekutan nolabait kontserbatu zela, eta halako hiletetan eliza barruan egitekoak ziren errituen parte bat kanpoan egiten zela gogorarazteko; Larramendiren deskribapena, puntu honetan ere, zuhurtziaz hartu beharrekoa dugu, Aro Berri guztian zeharreko Gipuzkoako eredu bati dagokiola azkarregi ontzat eman beharrean.

Baina elizarako heldueraren momentura itzul gaitezen; behin elizaren barruan, jarlekuetako elementuen sinbolismo erlijiosoarekin egiten dugu topo: sua (ezkoa) eta janariak (ogia bereziki). Praktikoki unibertsa den suaren eta heriotz kultuen arteko asoziazio honek Euskal Herrian sua/etxea/ehorzlekua identifikazioa hartuko du ardatz (Madariaga Orbea 1998, 233). Suaren sinbologia etxea beraren hastapenetako guneari loturik dugu (sukaldea), eta horrela, etxeko suak, bere testuinguruan, etxe inguruko lurrazpian (sutegian bertan, itsusurian, edo etxeoanderearen baratzean) ehortzirik zetzaten arbasoen arimak, eta baita jeinu gaizkileak ere, bizien mundura iragan zitezkeen espazioa adierazten zuen; arbasoen munduaren eta bizienaren arteko igarobidea. Bertan, etxeoandereak hiru eginkizun xume baina erritualki garrantzitsu betetzen zituen. Sutondoko sua itzali ez zedin zaindu (etxeko sendiaren jarraikortasuna sinbolizatzen zuen heinean), argiak piztu eta etxeko hildakoendako janarizko eskaintzak egin (gauez bisitan etortzen ziren arbasoen arimek argia eta janaria izan zitzaten), eta azkenik, errautsak batu, lotara joan aurretik (etxe garbiak jeinu ongileak, eta zikinak berriz gaizkileak erakartzen zituelako sinesmenagatik) (Rubio de Urquía 1996, 19-27). Ezkoaren eta suaren sinbologiari loturik beste ohitura batzuk ere gordetzen dira, usu aipatu izan den adibide bat aipatzearen, erleei, ezko gehiago egin dezaten, heriotzen abisu emateko ohitura kasu (Agirreazaldeggi 1989, 40-42).

Zenbaiten arabera, sua/etxea/ehorzlekua ardatzaren jarraikortasunaren adierazgarri lirateke argizaiolak ere; beraien dekorazioak aditzera ematen duenez, sutegietako, hilarrietako eta argizaiotako sinbologia geometrikoak irizpide berberen gain lantzen zirela dirudi, izan ere. Azken bien kasuan, gainera, antropomorfismorako joera nabaria da; hein horretan, argizaiola, elizako jarlekuko gurtzara moldatutako hilarri txiki bat omen litzateke (Rubio de Urquía 1996, 40-42). Zaila da, hala ere, ziurtasunez halakorik sostengatu nahiz ukatzea, interpretatzen zaila den sinbologia geometriko baten gain ezartzen baitzaigu lotura. Azkenik, heriotza suaren errituekin lotzen duen beste ohitura interesgarri bat, eta halaber, apezaren presentziarik gabe egina izanik, bizilagunek, lehen auzoek eta bereziki emakumeek espazio publikoan burutzen zituzten errituen baitan hauteman genezakeena, etxeko suaren itzaltze sinbolikoarena dugu, hainbat oinarrizko sineskerari loturiko erritua zena:

Más complicadas de interpretar son las creencias que vinculan la muerte y el fuego, que también estaban presentes en la funeración tradicional vasca. Además el fuego de la cocina y la propia casa se identificaban plenamente, casa=fuego, hasta el extremo de que las viejas contabilidades fiscales se hacían por "fuegos" y la casa estaba a su vez identificada con la sepultura (unida por el cordón umbilical que suponía el *elizbide*). Para cerrar este círculo, de alguna manera en la mentalidad popular seguía operando la antiquísima idea de que los antepasados reposaban bajo las cenizas del llar. La identificación fuego/casa/sepultura era bastante poderosa. Así, en muchos lugares, cuando moría uno de la casa se echaba el fuego delante de ella y se encendía uno nuevo tras el entierro. En algunas localidades del País Vasco Norte se seguía la costumbre de reunirse los del cortejo y hacer fuego delante de la casa mortuoria (precisamente delante de la puerta), formando un círculo alrededor del mismo, rezando a continuación; todo ello se hacía sin la presencia del cura; el encendido del fuego correspondía a los vecinos del finado. [...] La idea dominante es la de hacer desaparecer las huellas dejadas por el finado, es decir evitar que volviera. En ocasiones se quemaba parte o la totalidad del colchón del muerto (Madariaga Orbea 2007, 54-55)

Hildakoaren arimaren itzulera ekiditeko babes neurri hauek, goraxeago aipatu ditugun beste batzuekin ere bazeukaketen erlaziorik: hildakoaren sudur zuloak argizariarekin istearenarekin, belarren eta ukenduen erabilerarekin, edo, are, ispiluak estali eta lehioak erdi-istearekin ere. Horrez gain, deigarria zaigu suaren itzaltzearen

erritua, lekuren batzuetan behinik behin, auzotarren erritu kolektibo bat izatea, eta apeza presente egon gabe egina izatea. "Beste aldeari" zegozkien errituen parte ziren beraz, zeremonial ofizialaz bestalde, Larramendiren esanetan emakumeen (edo bizilagunen, emakumeen bidezko errepresentazioa bizilagunena baitzen, jarlekuetan bezala) "zeremonial partikularra" osatzen zuten erritu haiek bezala, edo haien parte.

Segi dezagun baina, ez ditugu oraindik hiletaren bukaerarenak aipatu eta. Hemen ere gizonezkoak eta emakumezkoak nor bere aldetik ibiltzen ziren, eta hildakoari azken agurra ematea emakumeei zegokien:

Acabado el entierro, salen primero los clérigos de la iglesia con sus sobrepellices y van á la casa del difunto y esperan á la entrada en la calle hasta que lleguen los hombres y éntre el del duelo con sus acompañados en el zaguan de la casa: y entónces dicen los clérigos un responso rezado y entran á dar el pésame al que lleva el duelo y se van á sus casas. Despues han de venir las mujeres que quedaban en la iglesia. Levántase la serora, hace señal y la van siguiendo todas con el mismo órden que vinieron. Las primeras se van quedando en el zaguan y suben arriba con la serora las del duelo y otras que tienen conexion de parentesco y amistad. Encomiendan el difunto á Dios, y diciendo la serora su equivalente del *Requiescat in pace*, se despiden, dando un pésame (Larramendi 1985 -1754-, 228-229)

Ikusten dugunez, espazialki bezalaxe sozialki eta erlijiosoki ere, hileta inguratzen zuten aktibitateetan esparru jakin bat zedarritzen zaigu: hildakoaren etxea eta bere gertuko auzotarrena, eta hauen artean, bereziki, bertako emakumeena. Testuinguru honi erostariak eta hiletariak gehituz gero, eta mezak eta hileta ofizioa ez beste heriotz-erritu guztiak "en el zaguan, ò en la calle", hildakoa nahiz Elosuan bezalako harrizko mahai batean kokatutako hilkutxa baten inguruan, kanpoan, egiten irudikatuaz gero, parterik handiengan emakumeak nagusi ziren heriotz-erritu batzuen aurrean gaudela ohartuko dugu. Eta hauen gidari, serora edo serorak, René Veillet kalonjeak XVII. mende bukaera eta XVIII.enaren hasiera alde hartan hiletetako "maîtresse des cérémonies" bezala izendatu zituenak (Duvert 1991, 15); orain arte ikusi izan dugunaren arabera, batere harridurarik sortzen ez digun titulua.

VIII. 1.3. Ondrak, bederatziurrena, etab.

Baina noski, hiletaren ondoren errituen ziklo bat hasten zen, bederatziurrenarena. Bitarte horretan, Larramendiren hitzak egoki ulertzen baditugu behintzat, jarlekua, edo berbera zena, hilobia, zabalik mantentzen zen, bereziki apaindu eta ornitua:

Ponen tumba levantada cubierta de bayeta hasta el suelo y al pié la cruz de la parroquia, que se quita en acabándose la misa cantada y responso, que se dicen los nueve días siguientes al entierro con cuatro velas encendidas sobre la tumba, y tambien un grande rollo de cera blanca, y más delgada, que arde todo el tiempo del oficio (Larramendi 1985 -1754-, 229)

Bederatziurreneko ofiziorik garrantzitsuenak *ondrak* izan ohi ziren; Larramendik bi aipatu zizkigun, baina garai berberean eta beste leku batzuetan, Oñatin esaterako, hiru egiten zirela dakigu¹⁵⁶⁶. Ondretara hiletetara baino jende gehiago joan ohi zela dirudi, ezen hiletetan, "porque no pueden estar avisados", kanpotar gutxi izaten bazen, ondretan oster, igandeko mezatan egun seinalatuaren berria zabaldurik, urrunagoko familia-

¹⁵⁶⁶ Hala ageri zaigu aurreko kapitulu batean ikergai izan dugun eta parrokiako serorak olioaren administrazioan zeuzkan eskumenen berri ematen digun 1759ko arautegi batean; ikus VI. 1.5.3. azpiatalean, 508 or.

kideak eta lagunak heltzen baitziren. Larramendik giro honen irudi esanguratsua dakargu:

Derrámase la noticia áun por los lugares vecinos y tambien lejanos, en que hay conexiones de parentesco y amistad. Vienen el día señalado grande número de hombres y mayor de mujeres, y es lo que les tiene más cuenta á los clérigos por la ofrenda que ellas hacen de pan y cera. No viene mujer alguna que sea de cuenta que no traiga su capellan, y de estos capellanes se juntan muchos, ademas de otros que vienen por sí mismos; encárgase la misa mayor ó la del oficio á un clérigo forastero respetable, y todos los demas dicen sus misas rezadas por el difunto cuyas honras se hacen (*Ibid.*, 231)

Ikusiko dugu jarraian -eskaintzei buruz espezifikoki jardungo baitugu-, apezek emakumeen eskaintzekiko ze puntutarainoko dependentzia zeukaten, Larramendik agertzen digun apezan ardura ez baitzen tontakeri kontua. Funtsean, hiletetan herriko familia-kideek eta eliztarrek parte hartzen zuten, eta ez zuten ondren "publizitaterik" jasotzen, "bertakoendako" ofizioak ziren; ondretan baina, hildakoaren testuinguruari loturiko jende multzo zabalagoa biltzen zen, eta hildakoa eta bere familia "dimentsio publiko" zabalagoan agertzen ziren.

Errituen eta elizkizunen dinamikari zegokionean hiletan eta ondren jarraibideak antzerakoak ziren, sexuen arabera banaketa berberarekin, ondretatik, hiletetan espezifikoki gorpuren eta hilkutxaren presentziari zegozkion eginbehar eta errituak falta baziren ere. Parrokiako kanpaien abisura gizonak hildakoaren etxera abiatzen ziren, bertatik doludunarekin batera elizarako bidea hartzeko; denak lutoz jantzita eta "el del duelo con capa larga y de mucha falda, sombrero ancho y desatado y sin cintillo ni espadin". Elizan, hiletetako egunean bezalaxe esertzen ziren. Emakumeen helduerari itxaron gabe ekiten zitzaion ofizioari, nokturnoarekin, eta hauek heldu aurretik pizten ziren aldareetako argiak eta hildakoaren jarlekuko argizaiolak eta kandelak. Hiletan bezalaxe, emakumeak gizonen ondoren irtetzen ziren hildakoaren etxetik, serora buru zuen segizioan, eta parrokiara heldurik, zegokien ordenean iragaten ziren nor bere jarlekura, beti ere seroraren zaintzapean. Nokturnoa eta jarlekuko erresponsoa esan ondoren, apeza sakristiara "casulla" janztera joan bitartean, gainontzeko apezak korura igotzen ziren eta mezari sarrera emateko *Requiem aeternam* kantatzeari ekiten zioten, bi edo hiru abotsetara. Meza bukaturik etxerako itzulera nola egiten zuten ez zigun Larramendik jaso, ziurrenez, beharrezkotzat hartuko ez zuelako; ez zaigu garbi gelditzen hildakoaren etxera itzulerarako prozesiorik egiten ote zuten, edo ez, nahiz eta azalpenen hutsuneagatik, ezetz dirudien.

VIII. 1.4. Eskaintzak eta doluaren garaiko errituak

Heriotz-erritu nagusi hauez beste, baziren ziklo ezberdinetan banatzen ziren beste hainbat ofizio eta erritu, Larramendi berak aipatu zizkigunak: "el séptimo, noveno, trigésimo, cabo de año, y dos años". Hauek, hiletan eta ondren kasuetan ez bezala, testuinguru sozial orokorrari begirako funtzioak baino, hildakoaren arimaren salbazioaren ardurak gidatzen zituen errituak zirela esango genuke; bereziki, bederatziiurrenaren ondorengo errituei zegokienean. Heriotzaren dimentsio soziala, itxura guztien arabera, hiletetan eta ondretan islatzen zen, ondorengoek askoz maila "pribatuagoko" funtzio eta errituak diruditen artean. Horregatik daude, halaber, arimaren aldeko mezen, ogien eta argizarien eskaintzen zikloi loturik, eta hauekin batera azalduko ditugu.

Izan ere, orain arte hileta, ondra, eta arimaren aldeko meza ezberdinetan egiten zen eskaintzen erritua alde batera utzi badugu, bere kabuzko azalpenak behar dituelako baino ez baita izan. Ohizkoenak ogiaren eta argiaren eskaintzak izaten ziren, batez ere lehenarenak. Janariei eta bereziki eskaintzarako ogiei dagokienean, zenbait lekutan orain gutxirarte ohizkoa izan da hildakoak hauen "sustantziak" elikatzen zirenaren sineskera, eta horrela, eskaintzaren ondoren ogiak jada elikagaiak galtzen zituela pentsatu izan da. Halatsu, leku batzuetan (Aretxabaletan adibidez), ogia eskaintzaren ostean arinagoa bihurtzen zela esan ohi zen, sustantzia galdu izanaren adierazgarri (Madariaga Orbea 1998, 235). Eta eskaintzek eurek ere, noski, segizioaren ordenak bezalaxe, botere-mailaketen adierazpena gauzatzen zuten. Eta halaber, hiletetan, presente zeuden apezten kopuruak bezalaxe, seroren kopuruak ere hildakoaren maila soziala eta itzala adierazten zituen; eta horren arabera, errituetako mailaketak ezartzen ziren. Gogoan izan dezagun, adibidetzat, Azkueregandik Madariaga Orbeak jaso zuen Lekeitioko (Bizkaia) kasua, oraingoan Aranak aipaturiko eran dakarguna:

los de más prosapia llevaban hasta cuatro freiras; el rito funerario tomaba entonces el nombre de "zortzikoa" -de a ocho-, porque cada una llevaba dos velas; también los había de a "cuatro", "laukoa", etc... y en el de menor importancia iba una sola freira que ostentaba una sola vela: "batekoa", es decir de una sola candela. Los entierros de las mismas seroras se efectuaban con particular honra (Arana 1992, 102)

Gorago ere ikusi ditugu "con particular honra" egiten ziren seroren hileta horietariko zenbait, hauek beraien testamentuetan agintzen zituzten meza eta betebeharriritualei erreparatzean¹⁵⁶⁷. Eskaintzen testuinguruko botere adierazpenen baitan, serorek eurek eskaintza burutzea eta eskaintzaren neurria, noski, hildakoaren itzalaren adierazgarri ziren; hala, 1759an Lorenako Leopoldine printzesa Baionan hil ondoren, honakoa izan zen bere hiletan anibertsarioko eskaintza -Duverték Ducéré-rengandik jasotako aipuan-: "Lors de l'anniversaire de la princesse Léopoldine de Lorraine, cinq dames conduites par la benoîte de cette eglise, qui tenait à la main un cierge allumé vinrent à l'offrande. Chaque dame offrit un pain et la benoîte un cierge" (Duvert 1991, 17).

Eskaintzek, diogunez, gizarte-mailaketen irudikapen lez zeukaten balorea handia zen, eta seroren partehartzeaz eta eskaintzaren neurriaz gain, edo are, hauek baino gehiago, hau burutzeko emakumeek jarraitu beharrekoa zuten ordenari garrantzia sinboliko handia ematen zitzaion. Lekuan lekuko botere-mailaketak nolakoak zirenaren arabera, halakoa izan ohi zen hiletetako eta ondretako segizioetan joaten ziren emakumeen ordena, eta honekin bat, ohizko mezetako eskaintzetan jarraitzen zen ordenaren ezarpena. Eta hurrenkera horren baitan, etxeen eta leinuen arteko mailaketak zirenak zirela, eta mailaketa hauetan integraturik izan, edo ez, ohizkoena, serorek gainontzeko emakumeen aurrean lehentasunak izatea izaten zen. Mailaketa hauen adibide bat, Hiriburuko (Lapurdi) XVIII. mende hasieratako eskaintzen ordenarena, Desportek eman zigun, hain garai berantiarrean, Erdi Aroan usuagoa izan behar zuen egoera azaltzen diguna. 1713an ezarri edo berretsi zenaren arabera, bertako parrokiako serorak bere jarleku propioa lehen iladan zeukan, koruaren ondoan (hau da, leku pribilegiatuan), eta eskaintzetan, parrokiako patroik ziren -eta Lissague-ko etxe noblearen jabe ziren- Hureauz familiako andrearen ondoren joatea zegokion, emakume plebeioen aurretik (Desport 1991, 72-73).

Etnografiaren alorretik ere heldu zaizkigu eskaintzen bidezko maila sozialen adierazpenerako beste modu batzuen berri ere. Beran (Nafarroa), hiletetako eskaintzetan, mailaketa eskaintza ahari hanka batekoa, bakailao batekoa, edo arrautza

¹⁵⁶⁷ Ikus VII. 2.2. azpiatalean, 713-721 or.

batekoa izateak ezartzen zuen (Duvert 1991, 17). Atauneko (Gipuzkoa) hiletetako eskaintzetan ostera, lehen klaseko edo "cofradia entera"-koak zirenetan lau liberako lau ogi, eta bigarren klaseko edo "media cofradía"-koak zirenetan aldiz, lau liberako hiru ogi eta erdi emateko ohitura zegoen. Beste leku batzuetan ostera, hiletetako eskaintzetarako finkaturiko ohitura bai, baina maila sozial berezien adierazpenik ez zaigu ageri: Areatzan (Bizkaia), otarrean bi kiloko ogia eraman ohi zen ohial beltzarekin eta zuriarekin estalirik, eta "Elizkizuna amaitu ondoren, serorak hartzen zuen ogia eta *aurrogiak* [*segizioan eskaintzaren otarra eramateaz arduratzen zen emakumea*] gauza bera egiten zuen otarra eta ohialekin" (Garmendia Larrañaga 2007 -1987-, 51); Zigan (Nafarroa) "lehenateak" ogidun otar bat eta haragidun beste bat eskaintzen zituen, eta hildakoaren ahizpa edo arrebak, edo emakumezko ahaiderik gertukoena, propio horretarako zen otartxo batean dozena erdi bat arrautza edo gazta bat eskaintzen zituen (Frank 1997, z.g.). Zenbait lekutan, argiarena eta ogiaren eskaintzak batzea ere gertatzen zen; Iparraldeko eskaintzetarako ohituren artean Duvertek gainean kandela zeraman lau mutur okerdun ogiarena aipatu zuen (Duvert 1991, 17), eta autore berak ere jaso zuen Lancre-ren tratatuko pasarte batean ageri zaigun Donibane Lohizuneko (Lapurdi) "pastelaren" eskaintzarenak ere tankera hartakoa dirudi: "y que cuando las mujeres lo hagan [*eskaintza*], ofrezcan un cirio atado a un pequeño pastel hecho de la forma más indecente que uno pueda imaginar en una mujer honesta" (Lancre 2004 -1612-, 47).

Jaun boteretsuen jabegoko parroketan, ikusi bezala, eskaintzen ordena hauen boterearen adierazpena begira antolatzen zen. Parrokia bera etxe nagusi baten jabegokoa ez zenean ostera, serorek etxe partikularren izenean egin ohi ziren eskaintzetan zeukaten partehartzearen, eta eskaintzetako ordenak hartzen zuen esangura sozialaren berri, Bergaran, San Pedro parrokian 1594an izan ziren liskar batzuk ematen digute. Elizkizunetan ogiaren eskaintzan eraman beharrekoa zen ordena 1545ean egindako bisitan zehaztu eta berretsi zuen bisitatzailleak, zenbait liskar izanak zirela eta. Aginduaren arabera, etxeen arteko lehentasunak alde batera utzi eta emakumerik zaharrenari zegokion eskaintza lehenik egitea, eta zaharrenen artean ere izan zitezkeen ezberdintasunak aldentzeko, zehaztasun gehiagora ere jo zuen; lehenik "las casadas y beladas, (y) se yendo iguales en calidad la (que) primeramente. fuera casada y belada aquella ofrezca primero". Agindua, ohitura hau "costumbre antigua que asta aqui en la dha. Y^a. (se ha) tenido e guardado" zela eta eman omen zuen (Sorondo 1994, 296). Ohitura hau ohizko eskaintzei zegokion, baina berriki hildako pertsonen eskaintza egiten zuten etxeek, 1594ko liskarrek azaltzen digutenez, besteen aurreko lehentasuna zeukaten. Honela azaldu zen orduan ohitura:

habia sido y era contra la ordenanza y costumbre que en la dicha iglesia se había tenido y se tenía de tiempo inmemorial a esta parte por orden y acuerdo del cabildo clero y justicia y regimiento e vecinos de la dicha villa, en que por oviar y excusar las diferencias e inconvenientes que podía haber en el modo de ofrecer estaba ordenado que en las cuatro partes que se hacen y se acostumbra hacer en la dicha iglesia las ofrendas se guardase el orden como se ha goardado; de que de la sepultura del defunto más moderno se hiciese la primera ofrenda (Zumalde 1962, 330-332)

Baina Ozaeta etxearen izenean eskaintza egiten zuen Maria de Izaguirre serorak (aurrerago bere testamentutik eta beste zenbait dokumentutatik ikusiko dugunez, oso boteretsua izatera heldu zen serora) urte hartan ohituraren edo behinik behin 1545eko akordioan ezarritakoaren aurka egin zuen,

con intento de anticiparse a la ofrenda que se iba a hacer de la sepultura de la casa y solar de Gabiria por doña Catalina de Mallea, señora de ella que murió y fue

enterrada el dicho día de San Miguel, o por otros intentos a fin de causar alboroto y escándalo en la dicha iglesia (*Loc.cit*)

Eskaintza egiterako ordenean aurre hartzearen saiakera hau garrantzitsua eta esanguratsua zaigu jarlekuetako botere sinbologiaren testuinguruan. Gabiriako eta Ozaetako etxeak, izan ere, Erdi Aroko bandoen liskarretako testuinguruan Bergaran izan ziren bi etxe nagusiak ziren, eta –Erdi Aroarekiko– garai berantiarrotan bada ere, Ozaetako serorak egin zuen saiakera, Gabiriako andrea berriki hila zela eta beraz, aipaturiko akordioaren arabera lehentasuna zegokiola kontutan hartuaz gero, probokazio nabaria zen. Alkateak, kabildoarekin sakristian baturik, serorari kontuak eskatu zizkion, eta arautuarekiko lehentasun berezirik inork ez zeukala (“ninguna persona de ningún estado ni condicion que sea”) ere gogorarazi zion. Serorak agindurikoa betetzea zin egin zuen, eta egin zuena egiteko arrazoitzat oso erantzun sinplea eman zuen: Ozaeta etxeari zegokion jarlekua eskaintza egiten zen lekutik gertuen zegoenez, eta aurretik ere inork ezer esan gabe eskaintza lehenik egin omen baitzuen, orduan ere halaxe egin nahi izan zuela, besterik gabe. Agian erantzunaren intentzioa ohitura arautu aurretik eraman ohi zen eskaintzaren ordena berrezartzea izan zitekeen, orden zaharraren arabera –jarlekua, etxe nagusi lez, lehen iladan zeukan– Ozaeta etxearen eskaintzari lehentasuna emanez. Izan ere, serorak “cabildo clero y justicia y regimiento e vecinos de la dicha villa”-k hitzartua zuten ordenaren berririk izango ez zuela pentsatzeak ez baitirudi zentzuduna. Beste alde batetik, erantzuna hain era sinplean emana izan zen eze, probokazioaren intentzioa ere berresten digula baitirudi:

Que la sepultura de la casa y solar de Ozaeta de donde ella había ofrecido y suele ofrecer como persona que tiene el cargo de servir la dicha sepultura, estaba pegante a la dicha ofrenda, y que así había ofrecido conforme a lo que en días y tiempos atrás después que tiene al cargo de la dicha sepultura lo había hecho, sin que nadie la hubiese dado ningún parecer ni consejo sobre ello (*Loc.cit.*)

Edonola ere, gertakizun hauek, beste emakumeen artean serorek ere etxeen ogi eskaintzan zeukaten partehartzearen berri ematen digute, bidenabar, egoera hau etxe boteretsuen kasuan ohizkoagoa izango zela iradokiz (logikoa ere baden bezala).

Ogien eta argien eskaintzak, bestalde, ziklo liturgikoei ertsiki loturik zeuden eta hein batean hauen adierazpena ziren, eskaintzen kopuruak eta denborak, beti ere lekuan lekuko ohituren arabera, jakinak izaten baitziren. Eskaintzen inguruko zenbait datuk, bestalde, bederatziruaren barruko errituen eta honen ondorengoan artean banaketa bat zegoela adierazten digute; bederatziruaren baitako eskaintzek oraindik familiaz aparteko eliztarren partehartzea izaten bazuten, hau da, heriotzaren ondorengo erritualek oraindik "gizarteratuta" egoten jarraitzen bazuten, ondorengoak jada familiaren alorrekoagoak ziren, "partikularragoak". Hori adierazten digu, adibidez, Larramendik ondretako eskaintzen inguruan azaltzen digunak:

Durante el *Nocturno* y antes de la misa llevan sobre la tumba ó sobre la sepultura la ofrenda de pan y cera, la cerilla ordinaria ardiendo sobre el pan y las velas y hachas, metidas ó arrimadas á hacheros largos y bajos, que se ponen á los lados de la tumba. Esta ya es costumbre antigua, y con ella quisieron dar á entender que aquel pan y cera que iban á ofrendar eran en sufragio del alma de aquel difunto, y no de otro alguno [...]. Al empezar la epístola va cada una en busca de su pan y cera, y se la dan las mujeres instruidas, sin equivocarse, y en esto hay siempre alguna confusion y ruido. Al Evangelio están en pié con su pan y cera ó hacha en la mano. Al ofertorio sube el cura ó su teniente al púlpito, y nombrando al difunto á quien se hacen aquellos oficios, exhorta á todo el auditorio á que lo encomiende á Dios con un Padre nuestro y Ave María (Larramendi 1985 -1754-, 232-233)

Eta ohartu beharrekoa dugu, Larramendiren ondren deskribapen honetan ageri zaigunez, askotan meza kantatua bukatua izanda ere, eskaintza oraindik bukatu gabe egoten zela; orduan, apezak eta gizonak itxaronean esertzen ziren, eta eskaintza bukatzean jarraitzen zen errituekin, apeza jarlekura erresponsoa kantatzera iraganez (*Loc.cit.*). Gizonezkoen eta emakumezkoen errituek, beraien autonomian, nork bere erritmoak zeuzkatela esan liteke. Baina jarrai dezagun; Larramendik ondretan aipatzen digun ohitura Elosuan (Bergara, Gipuzkoa) jasoriko ohiturek berretsi eta osatzen digute, kasu honetan, hiletetako argi-eskaintzetara mugaturik:

El día del funeral se coloca en la sepultura la *manta beltza* y sobre esta tela negra las *argizaiolak* de la casa, un hachero con dos hachas, más la cruz alzada de la parroquia, con crespón negro. Antes de comenzar el funeral una mujer de cada caserío del pueblo coge una de las *argizaiolak* de su *jarlekua* y la coloca, con la vela encendida, en la sepultura del caserío de la persona fallecida. Las *argizaiolak* permanecen allí durante el novenario (Frank 1997, z.g.)

Gogoan izan dezagun, halaber, bederatziurrenean zehar mantentzen zutela jarlekua zabalik (aski sinbolikoa dena), Larramendirengandik goraxeago jaso dugunez.

Hildakoaren alde bederatziurrenaren ondoren mantendu beharreko eskaintzek, iraupen ezberdinak izan ohi zituzten. Madariaga Orbeak 4 eta 5 urterainoko luzapenak ere aipatzen dizkigu, baina kasurik ohikoena, Larramendiren garaian eta hitzetan, handikien kasuan 2 edo 3 urtekoa izaten zela zehaztuz. Oñatin, bestalde, ezin jakin zergatik, ohitura askotan 14 hilabetekoa zela dirudi (Madariaga Orbea 1998, 235), eta ikusi dugu lehenago nola Bergaran ere -XIX. mendearen erdialdeko "Derechos de entierros" dokumentuaren arabera behinik behin- ohitura berbera jarraitu izan zen¹⁵⁶⁸. Honekiko, deskribapen etnografiko egoki bat, nahiz eta urtebetera mugatua baino ez izan, 1923an Joxe Migel Barandiaranek Atauneko (Gipuzkoa) San Gregorio parrokiako ohiturez egin zuen ikerketan daukagu, oraingoan ere, Roslyn Frankek azaldurik jasoko dugun eran. Aipua luze jasoko dugu, errituek, urtebete ez, baina bi edo gehiago iraun zitzaketan Aro Berriko gizartean, are xehetasunetan hedatu gabe ere, hauek izan zezaketan konplexutasuna irudikatzen lagun baikaitzake:

Al terminar las funciones del novenario empieza otro ciclo de actos rituales asociados con el sufragio por el alma del difunto. Estos durarán un año entero. El domingo después de la terminación del novenario recibe el nombre de *ogi-astea*, lo cual significa "comienzo de pan". Cuando el funeral es de "cofradía entera", a contar de este día, todos los domingos del año se llevan a la *jarlekua*, para la hora de la misa conventual, un pan de cuatro libras y un panecillo de una libra, de los de tres picos, llamado *olata*. Si en la semana ocurre alguna fiesta o media fiesta, la *etxeoandrea* reserva el panecillo de tres picos para ofrendarlo ese día. La *etxeoandrea* de la familia del difunto, coloca los panes en la *jarlekua* de su casa y los cubre con un velo negro que permanece allí todo el año. En el momento del ofertorio de la misa, la *etxeoandrea* los descubre y se los entrega a la *serora*. Luego, ésta los lleva a ofrendar. El ciclo de *ogi-astea* termina con la celebración de *urtebetetzea*, "el año completo", el aniversario o ceremonia de fin de año, llamada también *ogi-ixtia* "el dejar pan". Esta ceremonia postfuneraria tiene lugar el domingo que conmemora el aniversario de la *ogi-astea* y se celebran un nocturno y una misa en sufragio del alma del fallecido. En los ritos que se celebran este día participan activamente la *zesterazalea* y la *serora*. Cuando el funeral es de "cofradía entera", la *zesterazalea* lleva en la cesta tres panes de a cuatro libras y diez *olatak* de media libra, es decir, los panecillos de tres picos, todos cubiertos con una prenda blanca hecha de puntos llamada *prutera*. Lleva la serora una cesta con sesenta y seis *olatak* y otros tantos *eskuiloak* o manojos de cera en espiral. Los distribuye entre las

¹⁵⁶⁸ Ikus VI. 1.5.3. azpiatalean, 504 eta hurr. or.

jarlekuak de la iglesia. Cuando el funeral es de "media cofradía", la *zesterazalea* lleva tres panes de a cuatro libras y diez *olatak* de media libra como en el caso de "cofradía entera". Pero la serora coloca sólo cuarenta y seis *olatak* y *eskuiolak* en otras tantas *jarlekuak*. En el momento del ofertorio de la misa mayor, la serora vuelve a recoger los panes y los lleva a ofrendar (Frank 1997, z.b.)

Aro Berrian izan zitekeenaren irudi urrun bat baino ez, diogunez, baina zenbait oinarrizko elementu garbi azaltzen dizkiguna: zikloaren denborek ogien kopuru konkretuen ematearekin bat egiten zuten; ogi eskaintzen urtebeteko zikloan, etxeoandrearekin batera, serorak eta "zesterazaleak" ere parte hartzen zuten; ziklo honetan ere mantentzen ziren mailaketa sozialaren adierazpenak, eskaintzako ogien kopuruan sinbolizaturik; eta jarlekuan ohial beltz eta zuri bereziak erabiltzen ziren, urtebeteko zikloa isteko. Elosuan (Bergara, Gipuzkoa) ere, hiletan jarlekuan ipintzen zen ohial beltza, urtebetean bertan egon ondoren, "una tela blanca, muy cuidada, con bordados y puntillas" batek ordezkatzeko zuela dirudi. Eta gainera, ogi eskaintzak egiten ziren urtebete hartan zehar etxeoandrea ez zen jarlekuan belaunikatzen; hiletetan bezala kokatzen zen, azken iladan jarrita, koruaren azpian, eta jarlekua etxeo beste emakumeek artatzen zuten¹⁵⁶⁹. Larramendiren deskribapenean ere bada *tabu* honen

¹⁵⁶⁹ Puntu honetara heldurik, Elosuako (Bergara) hiletetarako deskribapena osorik jasotzeari komenigarri iritzi diot; alde batetik, nahiz eta deskribapen etnografiko honetan jada serorak falta ziren, -Elosua bertako adibideak jasoz- azalduz joan garen hiletetako elementu ezberdinak nola elkar josten ziren era labur batean azaltzen zaigulako; bestetik, Debagoieneko espazio bateko testigantza den heinean, bertako ohituren ohiartzuna dakarkigukeelako:

"Cuando muere alguien en casa, se avisa en primer lugar al primer vecino "Etxekona" y éste se encarga de llamar al cura, médico y todo lo que haya de hacer fuera de casa.

El día del entierro se forma el cortejo fúnebre "duelua", que sale de la casa, siguiendo este orden:

Una chica de la primera casa, vestida de negro, con mantilla de dibujo, llevando sobre la cabeza un rodete negro "sorkia" y encima una cesta conteniendo un pan redondo cubierto con un pañuelo negro y blanco, cuyos tres picos cuelgan fuera de la cesta. El sacerdote y el sacristán con la cruz. El cadáver llevado a hombros. El primer vecino. El mayorazgo, seguido por sus hermanos. Los hermanos del difunto. El resto de la familia, en fila y en este orden se colocan en los bancos de la iglesia.

Las mujeres, también en fila, llevan el mismo orden:

La primera vecina. La mujer del Mayorazgo; las hijas de la casa; las hermanas del difunto; el resto de la familia.

En la iglesia se colocan en la sepultura sobre el "manto negro" donde hay una cruz y la "argizaiola".

En la sepultura se coloca la primera vecina y un poco más atrás la primera de la familia, seguida de las demás parientes.

El manto negro no se quita de la sepultura hasta que pasa el aniversario, "urteburu meza", que es a los 14 meses.

A los nueve días del entierro, "ondrak".

El día del entierro un hombre pasa el plato y el dinero que se recoge es para la iglesia.

Después del Evangelio, el sacerdote baja del altar hasta el centro, entre los dos bancos, y da a besar la estola y echan una o dos pesetas, "ofrendia"; cuando termina la misa, el sacerdote va a la sepultura y reza un responso.

El luto de los padres 2 años de negro y luego se quita.

Las viudas se vestían siempre de negro.

De los tíos, un año.

Hoy el cadáver viene en coche fúnebre y el cortejo se forma en el pórtico de la iglesia.

La chica que llevaba el cesto con el pan y las mujeres del duelo, con una mantilla por la cabeza y otra grande desde el cuello hasta las rodillas, han desaparecido hace como 10 años.

Las capas negras con esclavina no se usan desde la guerra, 1939.

El trapo negro de la sepultura, desapareció en 1970.

Las argizaiolas de las sepulturas se quitaron el año 1975.

Las mujeres de más de 50 años se visten de luto, no de tanta duración, y las viudas al cabo de unos años de alivio.

En los jóvenes va desapareciendo como en la calle.

zantzurik, baina hiletetan bakarrik gorde beharreko ohituratzat aipatzen digu (doluan zegoen etxeoandrea eta bere laguntzaileak zabalduriko jarlekutik urrun, "bastante retiradas" kokatzen zituen serorak), ondretako eskaintzen deskribapenean, jada etxeoandrea bere jarlekua artatzen agertzen baitigu. Saran (Lapurdi) ere hiletako argizaiola eta ohial beltza urte guztian zeharreko mezatan piztu eta mantentzen ziren, baina kasu honetan, Elosuan ez bezala, ez zen etxeoandrea jarlekuan urtean zehar ez esertzeko araurik jarraitzen, eta hiletatik bertatik, etxeoandrea zen jarlekuko errituen buru, hauen burutzea beste familia-kide batengan edo serorarengan delegatu, edo ez. Bederatziurrenaren baitako argizaiolen eta eskaintzen kasuan bezala, lotura komunitarioen beste agerpen bat Otxagabiatik (Nafarroa Garaia) heltzen zaigu, argiei lotua; bertako funtzio erlijiosoetan, azken hildakoaren etxeoandreak elizako lanparatik hartzen zuen bere argizaiola pizteko sua, eta gainontzeko emakumeek su hartatik pizten zituzten eurenak (*Ibid.*, z.b.).

Ziklo hauen baitako edo urtean zeharreko mezetako ohizko eskaintzen alderdi oso garrantzitsu bat, han eta hemen aipagai izan duguna, mailaketa sozialen adierazpenarena dugu. Hein horretan, batez ere hileta elizkizunetan, ogiaz eta argiaz aparteko eskaintza bereziak ere ohizkoak izaten ziren. Dubarat-ek, XVI. mendeko Baionako katedralean egiten ziren eskaintzak mintzagai dituela, diruaz gain, lurraren frutuak, animaliak, ogia eta arrainak (batez ere amuarrainak) aipatzen dizkigu, guztien artean deigarrien lez, ahari "odoldu" batena ("sanglant" dio, larrutua ote?) nabarmenduz. Hileta ofizioak zirauen artean, pizturiko bi kandelen artean zetzala, ahari odolduaren ikuskizunak ez zuen edonolakoa izan behar, eta XVII. mendearen hasieran izan ziren, botere esparru ezberdinen artetik, ohitura debekatzeko zenbait ekinaldi; azkenean, luze gabe, debekatu zuten arte (Dubarat 1901, 289-290). Seroren testamentuetako agindu eta nahiei erreparatzean ikusi dugu nola ahariaren eskaintzaren ohitura hau Aro Berriko Debagoienean ere izan zen (seroren euren hiletetan), Arrasaten eta Bergaran. Esandako Baionako kasua aipagai izan zuen Duverttek, eskaintza lez idiak eman izan ziren Aizarnazabal (Gipuzkoa) eta Okina (Araba) bezalako kokapenetako 1787ko eta 1898ko kasu batzuk ere aipatu zizkigun (Duvert 1991, 18). Larramendi berak ere aipatu zigun eskaintzen ohitura hau, beti ere, bere deskribapenaren oinarri izan ziren (eta hau ere ez da ahaztea komeni) hileta "handien", hau da, familia boteretsuetako pertsonaien hiletetan egin ohi zirela zehaztuz:

en tales grandes funerales por modo de ofrenda se trae á la puerta de la iglesia un buey vivo en unos lugares y en otros un carnero, tambien vivo, que acabado el oficio se vuelven á la casería ó carnicería, y por esto se paga al cura una cantidad determinada de dinero (Larramendi 1985 -1754-, 233-234)

Ikus litekeenez, halako eskaintzen ohiturak aski zabalduak izan ziren Euskal Herrian zehar. Ohargarria da, halaber, jada Larramendiren garairako Gipuzkoan idi eta ahariak bizirik eramatea eta hauen eskaintza beraien balorearen diruzko ordainketa batek ordezkatzeko zela (abelburua etxera itzuliz, edo harategira eramanez), XVI. eta XVII. mende hasieratako Baionan, ostera, aharia hilda eta odoletan eskaintzen zen artean; hau da, aharia bera eskaintzen zen, diruzko ordainketa baten bidez ordezkatu izan beharrean. Alabaina, ez daukagu eskaintza berezi hauetan serorek izan zezaketen partehartzearen inongo berririk; ez dakigu garbi eskaintza hauetako erritualetan parterik

Antiguamente a los muertos se les traía envueltos en una sábana de lino "eune" y antes de entrar en la iglesia se les colocaba en una como mesa de piedra que había a cien metros de la iglesia.

Hasta la guerra del 36, las cajas las hacían en el mismo Elosua con la madera que hubiere en casa, roble, castaño, y las forraban por fuera con una tela negra.

De Aizpurutxo traían a los muertos al cementerio de Elosua y antes del enterramiento los depositaban sobre una losa que todavía existe" (Goñi 1979, 162-163).

ote zuten, edo beraien esparrua ogien eta argien eskaintzara mugatua gelditzen ote zen. Berri gehiagoren faltan, hor datza zalantzak.

Baina zein zen serorek gidatu eta kudeaturiko eskaintza hauek maila ekonomiko batean zeukaten pisua, familien gastuekiko bezalaxe, apez eta benefizioidunen etekinei zegokionean? XVI. mendearen bukaera aldean, gorago aipagai izan dugun Bergarako Maria de Izaguirrek bezala, parrokiako serora izan gabe, etxe partikular baten zerbitzura zegoen serora batek eskaintzak egiten izan zitzakeen lanen eta familien gastuen adibide bat, Bergaran bertan, Magdalena de Eguino y Malleak Ondartza etxerako egin zituen mezen, hildakoen kultuaren eta “obra pía” zirelakoan gastuen kontu batzuk ematen digute. Bertan, Trinitateko komentuan eta San Pedro parrokian etxeko hildakoen arimen alde eman beharreko mezen eta argizariaren artean, ogiaren inguruko zenbait partida ere ageri zaizkigu. Ogi hau, zentzudunki, kontu berberetan soldatapean agertzen zaigun serorak (“la beata que sirve en casa”) eskainiko zukeela pentsa liteke. Seroraren kargu zeuden etxearen ogi eskaintzen berri beraz, ondorengo partidetan ageri zaigu: “El pan que se ofrece en la Trinidad” (1.014 erreal), “Tres fanegas que se ponen el día de Todos los Santos menos una cuarta que se pone en la sepultura de los padres de Magdalena de Eguino y Mallea” (408 erreal), “La libra de pan que se ofrece cada sábado en la sepultura principal de San Pedro” (122 erreal) eta “Tres cuarterones de pan que se ofrecen los domingos, lunes y fiestas en la sepultura de María Pérez de Azcárate” (263 erreal) (Oliveri Korta 2009, 585).

Azkenik, eskaintzaren ematetik jasotzera iraganez, parrokiako bertako serorek ogiaren eskaintza jaso, gorde eta banatzerako orduan, hau da, administratzerako orduan zeukaten garrantziaren berri ematea dagokigu. Sorazuk izan zuen alderdi hau aipagai, bilaketa etnografikoetan oinarria hartuz Gaintzako (Gipuzkoa) seroren zereginak laburbildu eta eskematizaturik jaso zituenean: "Meza Nagusitako ofrendak (ogia, erresponstu diruak, opilak...) jaso eta apaizari eman" (gero eskaintza hauek, "karidade" izenean behartsuei banatzen zitzaizkien) (Sorazu 2009 -1993-, 22). Gogoan izan dezagun, Larramendik aipatu lez, eskaintza hauek Aro Berrian benefizioidunen soldataren parte nagusietariko bat, nagusia ez bazen, osatu izan zutela:

No es creible, si no se ve, el mucho pan y cera que se ofrece, y es comunmente la congrua ó la mayor parte de ella en los beneficios que dan los patronos, que piensan cumplir con su conciencia y obligacion por la piedad ajena, y viven miserablemente engañados (Larramendi 1985 -1754-, 233)

Debagoieneko testuingurura etorritz, bada, hitz hauek idatzi zirela hamar urte ez zirela, 1763an, izendapen kontuak zirela eta izan ziren liskarrak medio, Elgetako parrokian seroren zerbitzua etena zegoen, eta ondorioz, parrokiako eskaintzak gorde eta kudeatzearen lana aldrebestu zen. Auzirako prestatu zen galdetegiko galderetariko batek egoerak sorturiko kexuetariko bat jaso zuen:

4.^a Y si saben, que por este mismo motibo, y no hauer quien desdoble los manteles, en que se lleua el pan de ofrenda, se deja en mantas asquerosas, y se ha conocido bastante minoracion, y que esto es en perjuicio de los Beneficiados de la expresada Yglesia, que tienen la tercera parte de su congrua en este emolumento. digan etc.¹⁵⁷⁰

Galdeketa hauetan usu gertatu ohi zen lez, galdetegia bera eman nahi ziren erantzunei moldatua zegoenez gero, lekukoek emandako erantzunek galderan aipatua berretsi baino ez zuten egin, xehetasun gehiago emanaz. Garaian 69 urte zituen Joseph de Lezeagaren erantzuna jasoko dugu, azalpenik esanguratsuenak bereak izan baitziren:

¹⁵⁷⁰ KKA-ACC 22/763/112, f.g.

Dijo que tambien es Uerdad Publico y notorio y visto por el testigo, que despues que falta la Asistencia de dichas mugeres en dicha Yglesia, por no hauer quien desdoble los Manteles en que se lleua el Pan de Ofrenda, este se deja en unas Mantas comunmente viejas rotas y hasquerosas de forma que con repugnancia y mucho antojo se puede comer por no estar sobre las Sepulturas en su[s] Manteles muy Limpios como lo han estado en el tiempo que dichas mugeres han Cuidado de esta limpieza y aseo por lo que se experimenta conocidamente mucha mineracion [*sic*] en el Pan de Ofrenda con grandisimo perjuicio de los Curas y Beneficiados de esta Parroquial de Elgueta por consistir la tercera parte de su Congrua en este emolumento y al presente despues del movimiento de este Pleito es muy poco o nada el Pan que se ofrenda por la falta de dichas mugeres y su gouierno en dicha Yglesia y que de no boluer a ella se esperimentara maior calamidad¹⁵⁷¹

Testigantza hauen arabera, Elgetan, seroren faltan, ogiaren eskaintzaren ohitura bera ere gainbeheran joana zen, hainbestean eze, apez eta benefiziodunek ere ezin baitzuten zegokien ogiaren emolumentua behar bezala jaso; emolumentu honek beraien etekinen herena osatzen zuenez, ondo nabari zuten seroren falta. Azalpen hauek, bestalde, eskaintzetako ogia ohialetan jasotzea eta gordetzea seroren betekizuna zela agertzen digute, eta ziurrenez, hauen banaketa ere euren esku izango zela. Eta, halaber, emakumeek eskaintzak seroren administraziopean izan zitezela nahi zutela ere ageri zaigu, seroren faltan, emakumeen eskutatik heltzen ziren eskaintzen kopurua nabariki jeitsi baitzen. Hurrengo kapituluan xedatuago ikusiko dugunez, egoera berbera izan zen Oñatin mintzagai 1769ko seroren desagerrarazte agindua heldu zenean; serorak kentzekotan eta bestelako emakumeei funtzio hau betetzea eragoztekotan, jarlekuetako argien eta ogien errituak eta eskaintzak mantentzeari zentzugabea zeritzen udaleko agintariak informe baten gauzatzea eskatu zieten lizentziatuek, eta hala izatekotan, Elgetan gertatu bezala, apezten etekinek murrizketa larria jasoko zutela ere bazioten¹⁵⁷².

Ogiaren eskaintzan beraz, serorak presente izan ohi ziren errituaren bi aldeetan: ematean eta jasotzean. Azkenean, eskaintzen eta inguratzen zituzten errituen testuingurua Larramendik salatzen zituen gehiegizko gastuek eraman zuten gainbeherara. XVI. mendean jada tankera honetako neurriak hartzen hasiak baziren ere, XVIII. mende bukaerararte ez ziren maila, demagun, "jasanezinera" heldu; mende honetako krisiek eta ondasunak eta boterea esku gutxiagotan pilatzeak ez zuten jada hain gastu handiko ohituren mantenurako biderik ematen, eta eliztarrez eurez gain, hainbat instituziok hartu zituzten hiletetako eta bestelako heriotz-errituetako gastuen aurkako neurriak. Eta noski, ilustrazio garaiak ere baziren, eta erlijiotasunaren gaineko ikuspegia, mentalitatea, XVI. mendekoarenaz oso bestelakoa zen. Gainbehera hau XVIII. mende bukaerako aldaketa handien parte zen, seroren euren desagerrarazterako eta ermiten itxierarako aginduarekin batera. Azkenean, eskaintzen errituak apezten eta seroren etekin ekonomikoen iturritzat zeukan garrantzia galdu zuen, ikerketa etnografikoetan bilduriko datuetatik eratorri litekeenez, jada ia maila sinboliko hutsean baino ez gelditzeraino.

Atal honetan aipaturikoak laburbilduz, bada, eta jada beste hainbat lanetan azpimarratu izan den lez, serorek heriotz-errituetan partehartze handia zeukatela baino ezin dugu esan. Herritar edo auzotarrei agoniaren eta heriotzaren berri kanpaia joaz ematetik eta gorpua atontzeaz arduratetik ekiten zitzairen errituen testuinguruaren baitan, serorak hiletetan, ehorzteeetan, ondretan, urtebukaerakoetan eta bestelako heriotz-errituetan emakumezkoen doluen gidari izaten ziren, hiletariekin eta erostariekin bat, Larramendiren hitzetan "ceremonial particular de las mugeres" bezala azaltzen zen

¹⁵⁷¹ *Loc.cit.*

¹⁵⁷² Ikus azalpenak eta aipua, VI. 1.5.3. azpiatalean, 512 or.

horretan parte hartuz. Halaber, heriotz-errituez aparteko hainbat zeregin erritual ere izaten zuten, batez ere, eskaintzen esparruari zegokionean. Hala, beste zenbait emakumezko figurarekin batera, eskaintzen errituan elementurik garrantzitsuenetarikoak ziren, ogi eta argizko eskaintzak egitetik hasita, errituaren zaintzatik iraganda, eskaintzak jaso eta administratzeraino. Ez da harritzekoa, hortaz, seroren desagerraraztea eta heriotz-errituei loturiko testuinguru oso honen gainbehera, eskutik joan izana.

VIII. 2. ERLIJOTASUN HERRIKOIA ETA SENDAKUNTZA SINESKERAK

XVI eta XVIII.en mendeak bitartean bizi izan ziren seroren erlijioaren inguruko praktika eta bizipenen inguruko aspektu ugari Aro Berriko iturri dokumentaletatik kanpo gelditzen dira, batez ere, praktika hauek eta beraiei asoziatuak sineskerak, Elizak bere menpeko zituen instituzioen ingurumarian kokatzen ez zirenean; eta horixe dugu erlijiotasun herrikoia hainbat agerpenen kasua, eta ondorioz, informazioa gehienetan zeharkako iturrietatik edo diziplina lagungarrietatik baino ezin da jaso. Hurrengo orrietan garatzen joango garen aspektu erlijiosoen inguruko informazioaren parte handi bat, hortaz, Arkeologia, Etnografia edo Artearen Historia bezalako alorretatik datorkigu.

Baziren noski erlijiositasun herrikoia zegozkion hainbat betekizun, serorak paper garrantzitsua betetzen agertzen dizkigutenak; hauetariko bat dugu hainbatean aipagai izan dugun kanpai-jotzearena. Izan ere, abisuek izan, bazuten dimentsio praktikoaz bestalde, kanpaiei eurei ere botere ongile eta babeslea aitortzen baitzitzairen. Baina eman dugu kanpaien inguruko sineskera hauen berri espezifikoki kanpai-jotearen funtzioari eskaini diogun atalean¹⁵⁷³, eta beraz, erlijiotasun herrikoia bestelako agerpenen azalpenei ekingo diegu.

Bereziki ermiten testuinguruan, sineskera hauek kokapen ugarian gauzatzen ziren, eta nahiz eta serorei buruz eskuragarri dagoen dokumentazioak sineskera hauekin zituzten loturak argitzeko ezer gutxirik eskaintzen duen, ukazina da partehartzeren bat izan behar zutela. Baina praktika hauek, zehaztu dugunez, gehienetan Aro Berriko dokumentazioaren alorretik at gelditzen zaizkigunez, oso zaila da jarraipen historikorik egitea. Eta hala ere, azken finean, ermita jakin batera gaixotasunen baten erremedio eske heltzen zen hark, egin beharreko sendatze-errituaren berri bere kabuz ez bazuen, bertako serora edo ermitauarengandik jaso behar izango zituen egin beharrekoen gaineko xehetasunak. Gainera, debozio hauek limosnak zekartzatenez, nabaria da ermitau eta serorek sineskera hauek mantentzerako orduan interesik eta partehartzerik izango zutela.

Etnografiaren alorretik heltzen zaigu berriren bat edo beste, errituotan serorek izan ohi zuten partehartzeari buruzko informaziorik ematen digunik; ohizkoak behar zuten Astigarragan (Gipuzkoa) jaso den erritu honen tankerakoek:

A la ermita de Santiago se llevaba a los niños de mucho llanto. Se llevaba el niño y allí se le acostaba sobre el altar donde la mujer [*serorak*] le daba vueltas. Le hacía además la señal de la cruz (“aitaren, semearen, eta espíritusantuaren, amen”) y le daba un beso. Las madres de los niños, por su parte, llevaban aceite que dejaban en la misma ermita depositándolo en unos vasos donde ardían las mariposas de las velas. Después tomaban del aceite que ardía una cucharada, con una cucharilla que allí había y lo llevaban a casa. En la casa durante nueve días, había que frotarle al niño con este aceite en el ombligo, haciéndole sobre el mismo una cruz si era niño y frotando de otra

¹⁵⁷³ VI. 1.6. azpiatala, 516 eta hurr. or.

manera si era niña. Tras los nueve días, el aceite que sobraba, se echaba tras el fuego, beheko sue atzetik (Elorza 2007, 4)

Ez da soilik serorak erritua gidatzen duenik, etxean gero – orokorrean etxekoandereak – bete beharreko eginbehar erritual batzuk ere ezartzen baitira, umea ondo sendatzekotan. Autore berberak ematen digu, erritu honen aintzinasunaren eta zergatien berri ere:

El ritual de la rodadura de niños sobre el altar, está documentado en Europa desde el siglo XV, y en un principio se realizaba tras la ceremonia del bautismo y en ausencia del sacerdote, como modo de cerciorarse de la calidad de los sentidos de las criaturas, para fortificarles el cuerpo y evitarles finalmente los males. Procedimiento que con el tiempo derivaría tal y como se ha conocido o como nos lo han relatado, en práctica para atajar el llanto infantil, la falta de habla, los desarreglos del sueño, las dificultades de andar y otros problemas, y que han estado vigentes en el siglo XX (*Ibid.*, 2)

Aipatu berri dugun honekin bat, Aguirre Sorondok beste zenbait adibide ere aipatu zizkigun, euren artean Debagoienean kokaturiko zenbait, serorek sendakuntza errituetan aktiboki parte hartzen zutenak:

En Gipuzkoa, por ejemplo para el sistema fonador estaba [*la*] Virgen de Zikuñaga (Hernani), a donde acudían las madres de los niños tardos en hablar. La *serora* tomaba al niño y lo pasaba encima del altar mientras rezaba un Credo y dos Padrenuestros. [...] Santa Catalina de Deba, asimismo, se tenía como beneficiosa para los niños que venían tardos en hablar, y a tal objeto la *serora*, que vivía en el caserío cercano, rezaba con ellos una oración y les hacía una cruz en la frente con el aceite de la lámpara. [...] A la ermita de San Pelayo de Zestoa, acudían las madres con niños que sufrían *malos sueños (amezako kontra)*. También se acudía con el mismo fin a las ermitas de Santa Engracia de Segura, Santa Inés de Aretxabaleta, Santa Clara de Erretería, Santa Inés de Zestoa e igual a la del St.º Ángel de la Guarda (Eskoriatza), en donde la *serora* colocaba a los niños encima del altar mientras rezaba por ellos (Aguirre Sorondo 2013, 64-65)

Adibide hauetan aipatzen zaizkigun umeen negarrak, mintzo berantiarra, lo egin ezinak (amesgaiztoak), eta ibiltzeko zailtasunak, Debagoieneko ermita askotara joateko arrazoien artean ere aurkitzen dira. Ez dezagun ahaztu, gainera, ermita hauetariko batzuek, beraien hastapenak, prezeski artapen eta sendakuntza xedeetara begira Donejakue bidean hedatu ziren aterpetxe eta ospitaleetan izan zituztela, eta hiribilduetako ospitaleak ere seroren zerbitzuaren ohiko espazio bat zirela. Bada lotura dezente beraz, seroren, sineskera erlijiosoen eta sendakuntzaren artean. Euskal Herri osoko kasuen berri jaso eta laburbiltzea hemen egin dezakeguna baino askoz lan handiagoa izanik, egin dezagun behintzat erreparatxo bat Debagoieneko sendakuntza-sineskeren gain, serorek partehartzerik izan zezaketan dimentsio erlijioso honi ikerketa espazio nagusi dugunaren testuinguruan neurria hartzeko¹⁵⁷⁴.

Lehen begiratu batean, Eskoriatzako Aingeru Guardakoaren ermitan, umeei lotarako arazoak kentzeko, ikusi berri dugun errituaren antzerako bat praktikatzen zela ikusten dugu: Serorak umeak aldarearen gainean jartzen zituen, beraien alde errezatzen zuen bitartean. Lotarako arazoak eta amesgaiztoak uxatzeko baina (eta *Inguma* gaueko

¹⁵⁷⁴ Atal honetako ondorengo orrialdeetako informazioaren gehiengoa Aguirre Sorondok eta Lizarralde Elberdinek buruturiko Gipuzkoako ermitei buruzko lanetik atera dugu (2000), eta Debagoieneko herrien inguruko informazioa honako orrialdeetan aurkitzen da: Antzuola, 48-54; Aretxabaleta, 54-61; Arrasate, 61-69; Bergara, 112-138; Elgeta, 176-182; Eskoriatza, 196-209; Leintz Gatzaga, 265-270; eta Oñati, 298-324. Aipurik eman ezean, beraz, iturria eta eta bertako kokapenak honakoak direla uler bedi. Oinpeko notetan, bestelako iturrien aipuez beste, batez ere errituen inguruko xehetasunak emango ditut.

jeinu gaizkileari aurka egiteko¹⁵⁷⁵), Santa Ines izan da bailaran – eta are bertatik kanpo ere – gurrik gehien jaso izan duen santa. Ines Ruiz de Otorra, 1607.en urtean Valladolid-en hil zen Arrasateko familia boteretsu bateko emakume bat izan zen. Bere gorpua, azken gurariei jarraiki, Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiara – Okariztarren kapilan ehorztera – eramateko jaso zutenean, momifikaturik zegoela aurkitu zuten (Herrasti Erlogorri; Etxeberria Gabilondo 2004, 640). Ordudik aurrera abiatuko zen – batez ere umeen – amesgaiztoen eta lotarako arazoan aurreko babesletzat santutzea, gurtza eta bere errituak, Arrasateko parrokiak gain, Aretxabaletara, Goroetako Santa Ines ermitara ere hedatu zirelarik¹⁵⁷⁶. Kasu honek XVII.en mendean hasieratan erlijiositate herrikoiak gurtza berriak sortzeko zuen bizitasun sinkretikoa aditzera ematen digu, berriki – herriaren ahotan – santuturiko emakume batekiko gurtzaren baitan, eta momifikaturiko gorpua amets goxoaren iradokizunez, *Inguma* lako tradiziozko jeinu gaizkilearekiko sineskerak ere txertatzen zirelarik.

Jarrai dezagun umei asoziatutako gaitzekin, errituen parte handi bat beraien babes eta sendakuntzara begira gauzatzen baituzten. Ibiltzen ikasteko zailtasunak zituzten umeak, Antzuolako San Bartolome eta Antiguako Amaren ermitetara, eta Oñatiko Lezesarri auzoko San Estebanenera eramanez ohi ziren¹⁵⁷⁷. Hizketan berantiarak zirenak berriz, Bergaran San Pedro auzoko San Estebanera eta Elosu auzoko Santa Kruzera, eta Oñatin Santa Maria Magdalena ermitara eramanez zituzten. Bergarako San Estebanen kasuan, belarrietako gaitzak zituztenak (aldareko olioarekin sendatzeko zioz) eta negartiak (“sustua kentzeko”) ere bertara eramanez zituzten¹⁵⁷⁸. Tripetako minak

¹⁵⁷⁵ "Es genio maléfico que aparece de noche en las casas cuando sus moradores se hallan dormidos. Aprieta en la garganta de alguno de éstos, dificultándole la respiración, de suerte que le causa una indecible angustia" (Barandiaran 2003 -1984-, 84).

¹⁵⁷⁶ Aretxabaletako Goroeta auzoko Santa Ines ermitak izena Arrasateko santa momifikatuaren agerpenaren aurretikoa zuen (1551-52 inguruan jada izen horrekin dokumentatua dago), Santa Ines martiri erromatarren zegokiokeelarik (neskatilen eta bikoteen patro). Alabaina, Arrasateko Santa Inesek gurtza absorbitu zuela dirudi, bertako errituaren baitan amesgaiztoen eta lotarako arazoan aurreko babesgoa jasoko baita. Ines / amets hotsen loturatik, *Ingumaren* aurka babesteko, lotara joan aurretik kantatzen edo errezitatzen ziren letaniak ere egin ziren; hemen Arrasateko eta Bergarako bariante ezberdinak jasoko ditugu:

Arrasate:

Amandre, Santa Ines, / bart eginjot amets, / Ona bada, bion partez, / txarra bada, dihoala ihes.
Amandre, Santa Ines, / bart egin dot amets, /Ona bada, bion partez, / eta txarra bada, inondako bes.

Bergara:

Amandre Santa Ines, / bart egin dot amets: / Ona bada, bion partez, / txarra bada, batere ez.
Amandre Santa Ines, / bart egin det amets: / Ona bada, bion partez, / txarra bada, bion kaltez.
(Herrasti Erlogorri; Etxeberria Gabilondo 2004, 642-643).

¹⁵⁷⁷ Antzuolan, amak hiru ostiraletan jarraian joaten ziren San Bartolome eta San Pedroren ermitara, lehenaren irudiaren aurrean errezatzera, eta umeak santuaren irudiari eskuineko hankan muxu eman ziezaion, honek indarra emango ziola sinesten baitzen. Antiguako Amaren ermitan, kanpoan den gurutzera eramanez ohi zituzten. Bertan, amak, familiakideren batek edo serorak lagundurik hiru bira eman erazten zitzaizkion umei, bira bakoitzeko Aita Gure bat errezatuaz eta umei gurutze azpikaldean dagoen oilar baten irudiari muxu eman eraziz. Gero ermitara sartzen ziren errezatzera, eta limosnaren bat utzi edo kandelaren bat pizten zuten. Oñatin, Lezesarri auzoko San Esteban ermitan, kriseiluko olioarekin umeen hankak igurzten zituzten, eta gero bertan horretarakoxe dauden adreilu batzuei hiru bira emanez zitzaizkien.

¹⁵⁷⁸ Elosuko Santa Kruz ermitara amak etortzen ziren, errezatu eta kandela bat eskaintzera. Oñatiko Santa Maria Magdalena ermitan berriz, Borjako San Frantziskoren kanpaitxoia edalontzi lez erabilirik, umei ur bedeinkatua edan araztean datza errituak.

kentzeko, Oñatin, Zañartu auzoko San Julian ermitara, eta Bergaran, Angiozar auzoan, Pertegoitiko San Migelera joatea zen ohitura. Azken honetara bularretako arazoekin zebiltzan emakumeak ere joan ohi ziren¹⁵⁷⁹. “Errosena” deituriko azaleko gaitza sendatzera Bergarako Aritzetako San Migelera eramaten zituzten¹⁵⁸⁰. Azkenik, Gatzagan, Dorletako Amaren Santutegira ere umeak eramaten ziren, gaitz ezberdinen sendakuntza, edo hauen aurreko babesa eskatzera.

Haurdunei eta jaioberriei zegozkien erritu eta sineskerak ere baziren zenbait¹⁵⁸¹. Ume jaioberriak Elgetako Santiago Apostoluaren ermitara eramaten zituzten, santuaren babesa jaso zezaten. Erditze onaren eske Arrasaten, Bedoña auzoko Ergiñako Amarenera, eta Bergaran, Buriñondoko Andre Maria (San Blas) eta San Antonio Abad ermitetara joan ohi ziren. Azken honetan kandelak bedeinkatzen ziren, erditzeez gain, animalien gaitzen aurrean eta beste egoera arriskutsuetan pizturik, babesa eman zezaten. Haurdun gelditzeko nahia zuten emakumeak berriz, Oñatin, Araotzeko San Elias ermitara joaten ziren¹⁵⁸².

Biztanleria guztiak pairatzen zituen gaixotasunen inguruan ere, bada noski sineskera eta erritu dezente. Katarroak eta eztarriko gaitzak sendatzera ohikoa zen San Blasengana babes eske joatea. Santu honi eskainirik Antzuolako Basalde auzoan, Bergaran, Elgetan eta Aretxabaletako Leinzabal auzoan dauden ermitetan, eta baita azken herri honetako San Lorentzo ermitan ere, joateko ohitura gordetzen zen, orain gutxirarte behintzat. Beti ere, santuaren egunean egin eta bedeinkatzen ziren – eta diren – San Blas opilak janez (abereei ere ematen zitzaizkien) edo errezu eta kandelaren eskaintza bidez lortu nahi izaten zen babesa¹⁵⁸³.

Belarriko gaitzen aurreko babesa eta sendakuntza berriz San Kristobali zegokion, eta santu honi eskeinirik Arrasateko eta Bergarako Angiozar auzoko ermitetara joateko ohitura gordetzen zen. Bertako olio bedeinkatuaren sendatzeko gaitasuna zela eta, kriseiluetako olio hartu eta berria uzten zen.

Begietako gaitzei zegokienean, Santa Luzia zen babesle. Gaixoak, Eskoriatzako Marin eta Bolibar auzoetan, eta Oñatiko Berezano auzoan santa honi eskeinirik zeuden ermitetara joaten ziren¹⁵⁸⁴. Bergarako Santa Luziara joaten zirenean berriz, begietako gaixotasunegatik baino, norbaitek botatako begizkoa kentzeagatik izan ohi zen.

Hortzetako eta buruko minak kentzeko, Arrasaten, Meazterrekako San Balero ermita zen joan beharreko lekua¹⁵⁸⁵. Buruko minei dagokienean, Oñatin, Garagaltzako

¹⁵⁷⁹ Oñatiko San Julian ermitaren kasuan, amak joaten ziren bertako kriseiluko olio bila, umei tripako minak kentzeko gaitasuna zuela eta.

¹⁵⁸⁰ Santuari errezatu, limosna eta kandelak eskaini, eta ermitako kriseiluko olio – bedeinkatua – hartu eta ordeztzeko uztera joan ohi ziren amak, umeekin. Olio honekin igurzten zen umearen burua, eta hau hiru astetan, asteko egun berebean bertara joanaz egin behar zen.

¹⁵⁸¹ Jaioberrien inguruko erritual eta sinesmenen gainbegiratu labur baterako, ikus Erkoreka 1988.

¹⁵⁸² Bertako harri batean landuriko bataiarrian gerriraino bustitzean zetzan errituak, horrela umeak errazago izateko “berau” (beratu) egiten zirelarik. Lotsati zirenek zapiren batekin bustitzen zuten gorputza.

¹⁵⁸³ Elgetako San Blasen, apezak, mezaren ostean, “V” eran jada bedeinkaturiko bi kandelaren tartean mutiko eta neskatilek burua sartzen zutela, erritualari zegozkion otoitz batzuk egiten zituen. Gero, amek eskakizunerako kandelak pizten zituzten.

¹⁵⁸⁴ Eskoriatzako Bolibar auzokoan, santak plater batean aurkezten dituen begiak ukitzen dira behatzekin, ondoren gaixoa beraren begiak igurtziz.

¹⁵⁸⁵ Aldareari hiru bira ematen zitzaizkion, bakoitzeko Abemaria bat errezatuz.

San Juan Bataiatzailearen ermita ere famatua izan zen, jada 1516.etik dokumentatzen denaren arabera. Juan Ochoak, Mercado de Zuazola (Oñatiko Unibertsitatearen fundatzaile) bere anaiari eskutitzez erantzun zion orduan, agindu bezala, bere burukominak arintzeko ermita honetan zenbait meza atera zituela esanaz. Ikusten dugunez, pertsonaia boteretsu eta ilustratuek ere sinesten zuten ermitetako santuen sendatzeko gaitasunetan.

“Isipula” edo sarna Bergarako San Martzial ermitako iturrian sendatzera joaten ziren, eta herri bereko Leizariako San Lorentzora berriz, azaleko erreduren sendakizun bila¹⁵⁸⁶. Garitxoak kentzeko txanpon batekin igurtzi eta hau limosna lez uzteko ohitura, Antzuolako Santa Agedan eta Oñatin, Arantzazuko Santa Kruz ermitan gordetzen zen.

Gatzagan, Zurtitzako San Martin ermitara, Lope Martinez de Isasti-k 1625.ean idazten zuenaren arabera, berak “ethicos” deiturikoak (tisikoak) joaten ziren, edo sendatu, edo hiltzera (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 222). Herri berean, San Antonioren edo Santa Kolonbaren ermitatik herrirako bidean zegoen hormako hobi batean, agonian zeuden familiakideek heriotza ona izan zezaten kandelak ipintzen ziren.

Animalienganako babes eske ere, bedeinkazioak egiten ziren; Bergaran, Angiozar auzoko Pertegoitiako San Bizentera San Anton egunean eramaten ziren, eta auzo bereko Elexamendiko Andre Mariaren ermitan ere beste hainbeste egiten zuten.

Azkenik, Oñatin, Arantzazuko Amaren santutegian, inkisizioaren jazarpen garaietan, Amabirjina sorginkerien eta hauen kalteen aurreko babesletzat zutela aipatu behar. Baina Arantzazuri dagokionean, ezin ditugu Juana de Arriaranen sendakuntza gaitasun miragarriak ere ahaztu; izan ere, santutegiaren hasieratako garaietan, Amabirjinaren agerpen miragarriaz gain, Juana beraren gaitasun taumaturgikoez ere zeresan handia izan baitzuten, santutegiaren itzala handitzerako orduan; Anoetako Juanes de Echezarreta-k bere Asteasuko osaba eta aitapontekoari idatziriko bi eskutitzek gordetzen dute honen testigantza, 1494.en urtean, ilobak osabari Arantzazura sendatzera joan ahal izateko dirua eskatu zionekoa:

Honorable padrino: ... como el que está con trabajo demanda remedio, habemos información de personas de creer: que cabe Oñati está una iglesia de Sancta María, que se nombra de santa María de Arançadi, en la qual está una devota muger, que santigoa a los que van allí con necesidad e se han remediado personas tollidas, que estos miembros no se podían valer, e son sanos; e destos muchos, que casi hombre estaría pasmado de lo que se cuenta.... (Mendizabal 2001, 317)

Ez ziren noski serora denak Juanak sortzen duen debozioa sortzeko gai izango, baina, batez ere ermitetako serorei zegokienean, –ermita sostengatzeaz gain– sendakuntzarako errituen gordailu ere izateak, bizilagunen artean errespetua eta aintzatespena izateko balioztatzen zituen. Goraxeago ikusi ahal izan dugu, bestalde, nola hainbat sendakuntza errituren parte seroren otoitzak ere baziren, beraien otoitzei egozten zitzairen sendakuntzarako indar eta balio bereziaren berri ematen diguna (eta gogoan izan bitez hemen, heriotz errituetan ere seroren otoitzei egozten zitzairen balore berezia).

Juanaren aktibitate taumaturgikoak eta seroren otoitzen indar bereziak alde batera utzirik, sineskera hauetariko askori, gainera, alderdi animista ere nabari zaie, kriseiluetako olioia edo ura bitarteko, edo ukipenaren bidez, gurtza objektuaren indar sendagarria gaixoaren gorputzera iragaten delako hautemapena baitaramate baitan.

¹⁵⁸⁶ San Martzialeko iturrira trapu zuri bat eramaten zen; hau iturriko uretan busti, eta berarekin burua igurtzi ostean, inguruko sastraketara botatzen zen. Trapuek gaixotasuna eurekin zeramatela eta, bertan gelditzen ziren, inork ukitu gabe.

Errituak, santuaren egunari zegozkion batzuen salbuespenaz, urtean zehar beharrezko zenean –eta zitekeenean– gauzatzen ziren, ermitetan, norbait egotekotan, serorak eta ermitauak baino ez zeudenean. Hori dela eta begiratu diegu zehatzago. Ohiturazko edo mandatuzko mezak (santuaren egunekoak, eta beste) eta prozesioak ostera, erritu kolektiboak ziren, erroa hiribilduetan zuen erlijiotasun elizkoiago, ofizialago, eta publikoago batekiko lotura ezartzen zutenak. Errogatibak ere espazio publikoan gauzatzen ziren errituak ziren, baina sineskera eta erlijiotasun herrikoiarekin, azken hauek baino lotura estuagoa zutenak.

VIII. 3. SINESKEREN ETA KULTUEN ALDERDI HETERODOXOAK ETA DESBIDERAPENAK

Ortodoxiari eta heterodoxiari buruz jarduterakoan, elkar baztertzen ez duten eta elkarrekintzan dauden nozioak direla behar dugu aintzat hartu. Ermitetan aipatu berri ditugun sineskeren sostengu ziren serorak ez zeukaten ziurrenez "sinkretismorik" gauzatzen zebiltzatenaren zantzurik, eta euren buruak kristau zintzotzat zeuzkaketen; halatsu, nahiz eta beraien instituzioa garai hartako Europako testuinguruan aski orijinala zen, Aro Berriko erlijiotasun "ofizialaren" bilakaeran erabat txertaturik zeuden, eta aurreko atal batean ikusi ahal izan dugunez, purgatorioaren dotrinari loturiko beraien arimaren inguruko ardurak, batoren eta bestearen omenezko mezak, hilabeteko mezak, anibertsarioak, etab.ak agintzera zeramatzen. Hau are nabariagoa dugu parroketako eta zerbitzu partikularretako seroren artean, zeinak, heriotz-errituen testuinguruko sineskeren arrasto paganoen gordailu izatearekin bat, beraien arimen salbazioagatik -normalean edo gehienetan- ermitetako serorek baino are ardura handiagoa azaltzen zuten, zenbaitetan, mezen eta bestelako "obra pía" zirelakoan "errosario" zabal askoak aginduz. Ohartu ahal izan dugu, halaber, -batez ere jarlekuen kargu hartzen zuten- serorek euren burua bizien eta hildakoen bitartekaritzat hautematen zutela, jarlekuetako erritu eta eskaintzak egin zitezenaren, mezak esan zitezenaren eta arimen alde otoitz egitearen arduradun egiten zituzten eta euren buruak hala ikusten zituzten heinean. Eta hala, seroren otoitzei indar berezia esleitzen zitzaaien, batzuetan ahal "magikoeekin" nahasteraino, eta hargatik, apezei mezak esan zitzatela segurtatzeko dohaintzak egiten zitzaizkien bezala, serorei ere dohaintzak egiten zitzaizkien, arimen alde otoitz egin zezaten.

Aro Berriko munduikuskera katolikoaren baitan zerbaitek ikaratzen bazituen, hain zuzen ere, norbere arima purgatorioan eternuki gelditzearen ideia baitzen. Eta mezak eta otoitzak beharrezkoak ziren, arima purgatoriotik zerura iragango baten. Arima erratuaren figura, galdurik eta egindako bekaturen bat edo arima askatzeko bete gabe utziriko eginkizunen bat duela ase gabe batetik bestera dabilen arima, legenda ezberdinetako betekizun partikularrez beste (esate baterako, bizi zela gaiztakeriz mugituriko mugarriren bat bere lekura itzultzea), laguntza izpiritual hauen beharrean dagoen arimarena dugu. Oso zabaldurik zeuden sineskera hauek Euskal Herrian zehar; Barandiaranen adibide pare bat ematera baino ez gara mugatuko:

En una casa de Ostabat aparecía al mediodía una llama sobre una cuba de su bodega. Los que allí vivían no dudaron de que se trataba del alma de algún difunto de la familia. Después de varias apariciones, el difunto les dio a entender que quería que fuesen celebradas unas misas para él. Así lo hicieron y el difunto no apareció en adelante. [...]

También existe tal creencia en la región de Orozco. Cuentan que un vecino del caserío Santuena, yendo a la iglesia en pleno día con sol, vio junto a sí a dos sonbras de forma humana. Lo mismo le ocurrió al regresar de la iglesia. Sospechando que la

segunda sombra sería de algún difunto, le preguntó qué se ofrecía. La sombra le contestó que le hacía falta cumplir una promesa que tenía hecha durante su vida terrenal: la de hacer celebrar una misa. El de Santuena mandó celebrar una misa. Terminada ésta, vio al alma que, en forma de paloma, desaparecía por los aires (*Ibid.*, 19)

Sineskera hauen testuinguruan, serorek ardatzezko garrantzia hartu zuten, eta beraien otoitzak luzaroan izan ziren estima handitan hartuak. Hala, Sorazuk, Gaintzako (Gipuzkoa) serorei bere ikerketa etnografikoan eskaini zien atalean, seroren otoitzen laguntza eta santuen aurreko bitartekaritza aipatu zituen:

Serora hauek herri erligiotasunezko Santuen debozioa asko eta asko zaindu izan zuten. Nahiz bakarka, nahiz famili batek, nahiz Ermandade batek, nahiz herri osoak Santuari laguntasun eta mesede eske agertzen zutena, berak otoitz eginaz Santuen bitartekotasuna zaintzen zuen (Sorazu 2009 -1993-, 23)

Eta esan dugunez, Aro Berrian (eta zalantzarik gabe, baita Erdi Aroan ere) zenbaitetan otoitz hauen indarra ahal "majikoei" parekatzera ere heldu izan ziren; Lope Martínez de Isastik honakoa jaso zigun bere *Compendio historial...*-ean, 1625ean, bera benefiziadun izan zen Lezoko (Gipuzkoa) San Juan parrokiako serora baten inguruan entzuna zuen -eta zenbait erreparorekin azaldu zuen- "caso maravilloso" bezala:

Oi decir un caso maravilloso, y extraordinario á personas fidedignas de mi patria, que teniendo esta iglesia muchas bacas en la sierra de Jaizquibel, que está á vista á cuarto de legua, *vinieron ladrones que los llamaban lacayos*, vagamundos, y llevaban el ganado: visto por la serora que servia la iglesia, llamada Marota la Santa, acudió á San Juan y se puso en oracion delante de su imagen, pidiendole con mucho encarecimiento, hiciese volver á su puesto las bacas: hecha la oracion se iba á la plaza, que está detras de la iglesia en un alto, á ver lo que pasaba: y como todavía las llevaban, tornó con gran coraje, y con un celo indiscreto tomó en los brazos la imagen de San Juan, y la echó en unas hortigas, diciendo que no la sacaria, hasta que hiciese volver sus bacas. Fué cosa maravillosa, que luego los ladrones quedaron atónitos sin proseguir mas su intento, y las bacas volvieron á su puesto. De lo cual dió la serora muchas gracias á Dios y volvió la imagen de San Juan á su altar, pidiendole perdon del desacato, y es venerada de las gentes (Martínez de Isasti 1985 -1625-, 215)

Esanguratsuki "Marota la Santa" deitzen zutenarenak bezala, herritarren sinesmenean santu eta amabirjinekin hain erlazio intimo eta berezia omen zeukaten seroren otoitzak oso erangikorrak izan zitezkeen, bada. Nahiz eta, kasu honetan, otoitzak baino meatxuzko errituak (hainbat herritako tradizioetan gorde izan direnak) eraginkorrakoak izan ziren. Edozein kasutan, seroraren debozioa izan zen mirakulua eragin zuena.

Beste kasu batzuetan, serorei egozten zitzairen izpirituekiko gertutasunak bestelako probetxuak zeuzkan, ez hain miresgarriak. Gertakizun kurioso bat Erreterian (Gipuzkoa) 1634an gertatua dugu; auzi bat izan zen orduan, begizkoak jota eta "espiritados" omen zeuden bertako biztanleak "sendatzen" jarduten ziren Erreteriarako apez benefiziadun zen Bartolomé de Yartuaren aurkakoa, eta Oiartzuneko San Salvador ermitako Maria izeneko serora gaztea ere inplikaturik zegoena. Apezaren aurka salaketa bat izan zen, gaixoei sorgindurik zeudela, eta esandako ermitan berak esaten zuen meza bederatzi egunetan entzutera joan zitezela esaten ziela eta. Eta noski, egindako lanegatik ordaina eskatu eta jasotzen zuela eta. Ermitako serora gaztea ere konjurtatzen zuen, eta serora zaharra noizbait kexatu izanda jipoituko zutela meatxatu omen zuten; apez eta serora gaztea mendian ibiltzen omen ziren gainera, "gran escándalo" sortuz. Hori gutxi balitz, apezak berarekin etxean bizi zen alaba bat ere bazeukan. Serora gaztea hortaz,

ermitara zoazen gaixoak bezala "espiritada" omen zegoen, eta auzian apezak bere defentsan azaldu zuenez, hori zela eta konjuratzen zuen, bestelako erlaziorik izan gabe. Ez da zaila ermitan Bartolomé de Yartua apezak esaten zituen mezatako egoerak irudikatzea: apeza, -hainbestetan konjuratu beharra izateko, itxuraz "espiritada" egoteari uzten ez zion- serora gaztea konjuratzen eta berarekin batera edo -espektakuluaren- ondoren bertara joaten ziren gaixoei ere "izpirituak kentzen", eta bere ordaina jasotzen. Apezaren alderdi andrezalea azpimarratzeko istorio zelebrenen bat ere kontatu izan zuten testigantzetan: "Que el dicho don Bartolomé haciendo un agujero en la pared de la casa de la viuda doña Francisca de Garay, a la cual visitaba con frecuencia, pasó a casa de Lorenzo el carbonero, donde tuvo relaciones con la hija de Lorenzo". Baina istorio andrezaleez aparte, gaixoak "sendatzerako" orduan izan zezaketen *modus operandi*-a beste lekuko batek azaldu zuen egoki, bera ere, sineskera haietan murgildurik agertzen zaigula:

Diego de Çubieta y Zabaleta, de 70 años, declaró que estando él enfermo los médicos le habían dicho que lo que tenía no era enfermedad natural, sino efecto de hechizos y fue a que le exorcizara el dicho don Bartolomé. Éste "*en nombre del Padre, del Hijo y del Espíritu Santo*" le preguntó a la serora moza, de nombre María, qué males inquietaban a Diego y la dicha María indicó que estaban dichos males en ocho partes distintas dentro de su propia casa. Fueron a ella y reconociendo los lugares se encontraron allí "*muchas quejas de difuntos*", por lo que se quemaron dichas cosas y luego mejoró Diego y tuvo salud, que se estaban quemando le atormentaban mucho sus males

Ezin jakin, akaso medikuek eurek ere izango zuten negozioan parterik, gaixoak apezarengana konjuratzera joaterako orduan. Edonola; apezak auziak zirauen artean zenbait denbora igaro zuen gartzelan, baina sententzia ez zen oso gogorra izan. 4 dukat ordaindu beharraz gain, konjuratzea eta ermitara joatea debekatu zitzaion, eta salatu zuten bezala alabaren bat bazuen etxetik kanporatzea eta aurrerantzean zintzoago jardutea agindu zitzaion (Aguirre Sorondo 2000).

Ohar dezagun nola testuinguru honetako elementuak erlijiotasun herrikoiairen parte ziren, eta apezak eta serorak beraien probetxurako baliatu zituzten: purgatorioan kexuka zeuden arima erratuak bizidunei eragozpenak sortzen, eta bizidunak gaixotzen zituzten "quejas de difuntos" haiek aldentzeko, nola, heriotz-errituei buruz jardutean ikusi ditugun babes-errituetan hildakoaren koltxoiarekin egin ohi zen bezala, hildakoen kexu haiek gordetzen zituzten gauzak erreta izpirituak uxatu, eta gaixoaldia bukatzen omen zen. Eta izpiritu haiek identifikatzen, ez apeza bera, serora gaztea baizik, "espiritada" egoteaz gain serora izate hutsagatik ere, biztanleek hildakoen eta bizidunen tarteko eremuarekin harreman berezia aitortu zekioketena.

Eta seroren ahal miragarriak aipagai ditugula, Arriarango Juanaren mirakuluzko gaitasunak beste behin gogorarazi beharrean gaude, sendakuntzaz gain, profeziarako ahala ere baitaratzen baitzuten. Bere kasua aztertzen jardun dugun atalean garbi geratu denez, Arantzazuko Andre Mariaren santutegiaren (Oñati) hastapenetako debozioaren indartzean -eta beraz, bertako emakumezkoen eta gizonezkoen komunitateen sostenguan-, biztanleriak mirakuluzko gertakizun hauetan zeukan sinesmena erabakiorra izan bide zen¹⁵⁸⁷. Ez zen, gainera, Arriarango Juana profezian aritu izan zen serora bakarra izan. Garmendia Larrañagak 1691n Antonio de Aldabalde Izaskuneko (Tolosa, Gipuzkoa) Andre Mariaren ermitako kofradiaren kapilauak idatziriko dokumentu argitaragabe bateko datuak bildu zituen. Apez honek ermitako seroren berri jaso zuen, Garmendia Larrañaga berak azaltzen duenez, gaur egun "investigación de campo"

¹⁵⁸⁷ Ikus IV. 4.1. azpiatala, 357 eta hurr. or.

deituko genuena burutuz; alegia, pertsona zahar eta fidagarriengandik jaso izan zituen datuez baliatuz. Bere informatzaileen artean Magdalenaren ospitaleko serora ere izan zen, eta beragandik honako kontakizuna jaso zuen:

me declaró [...] haber oído decir a María de Olano, natural de Araya, mujer que murió ha muchos años, en edad muy anciana y criada que asistió en Isazcum (...), que en dicho Santuario sirvió de una vez a cinco seroras, y que una de ellas solía ser tan virtuosa que salía a los montes vecinos de Isazcum, a ver y reconocer los Santuarios que se divisan y alcanzan de vista, y a los que había Sagrario hacía estación del Santísimo siete veces en siete diversos parajes del monte (...). Y que por dicha serora oyó decir a las mismas Doña Gracia de Idoiaga y María de Olano criada de Isazcum, que oyeron a sus pasados de cómo la tal serora, al tiempo que se ganó la batalla de Lepanto por Dn. Juan de Austria, dijo: "Demos gracias a Nuestro Señor, que ya la batalla ha ganado el señor Dn. Juan de Austria". (...), la batalla de Lepanto fue a los siete de octubre de mil quinientos setenta y uno, con que parece que la vida hermanable de las cinco seroras sería por estos años (Garmendia Larrañaga 2007 -1991-, 21)

Ohar ditzagun hemen Arantzazuko eta Izaskuneko testuinguruaren arteko antzekotasunak: Andre Mariaren kultuari eskainitako santutegi bat, komunitatetzat har litekeen seroren talde esanguratsu batekin, eta euren artean bereziki bertutetsu eta debotutzat hartua den serora nagusi bat, bere pietatezko ekintzengatik ezaguna eta profeziarako ahala azaltzen duena. Giro hau, ziurrenik, ez zen aipagai ditugun bi kokapen hauetan soilik emango.

Erlijiotasun herrikoiaaren alorreko sinesmenez eta profeziarako gaitasunez beste, izan dugu seroren artean izan ziren kultuaren eta dotrinaren alorreko desbiderapenen bat edo besteren berri ere. Lehen kasu bat goiztiarra dugu: beraien partehartzeari buruzko informazio gehiegirik gorde ez bada ere, jakina da 1439an fundaturiko Durangoko (Bizkaia) Santiago seroretzeko -hirugarren ordenako- serorak, bertan -serorak bezala frantziskotarren ordenakoa zen- frai Alfonso de Mellak zabalduko heresian parterren bat izan zutela; 1441ean herese izatearren eskomikatuak izan zirenen artean zeuden behintzat, eta litekeena da momenturen batean fraide heresiarka gida izpiritualtzat hartu izana (Bazán Díaz 2007, 565, 653-661).

Baina Durangoko hereseen inguruko kasu honek, seroren izpiritualtasunaren testuinguru orokorrean, salbuespena dirudiela esango genuke; kontrara, Amabirjinaren inguruko desbiderapen kulturek eta sinesmenek onarpen zabalagoa izana zezaketela esango genuke, areago, kultu honen inguruan aipatu berri ditugun profeziarako ahalduen serorak eta komunitate esanguratsuak bildu zitezkeela aintzat harturik. Eta testuinguru hauekiko erlazioan, badugu Debagoienean bertan Amabirjinaren kultuari loturiko beste agerpen heterodoxo xamar bat ere: Bergaran, Buriñondoko Andre Mariaren edo San Blasen ermitako Amabirjina irekigarria. Seroren presentzia eta kopuruarekiko, ohar dezagun ermitaren zerbitzuan taldetxo bat izan zela dakigula; ermitako liburuan 1564. urtetik aurrera ageri zaizkigu (liburua bera 1555etik aurrerakoa da), eta 1570ean hiru edo gehiago baziren bere zerbitzuan, bertan bizi zen serora zaharrenaz gain, ermitatik kanpo bizi ziren "besteak" aipatu baitziren¹⁵⁸⁸. Bada, ermita honetan, itxitura fasean haurdun dagoen Amabirjina, irekidura fasean trinitatea baitan duela agertzen da, Aitaren, Semearen eta Izpiritu Santuaren jatorri, Amabirjina bera egingo balitz lez. Adierazpen sinboliko hauek bere garaian teologoen gaitzespena jaso zuten, irudi asko suntsituak izan zirelarik. Ikonografiaren ikertzaileen artean, Buriñondoko hau, gorde direnen artean interpretazio heterodoxo hau garbien azaltzen duena dela esan izan da (González Hernando 2006, 60).

¹⁵⁸⁸ BUA 04 CD/001, 30-44 fot.

Estilo artistikoetan oinarririk, Amabirjina hau XV. mendean egina izan zela diosku González Hernandok (zehatzago, 1420/1430 eta 1460/1670 bitartean), eta baita, kronologia hau, hain zuzen ere, Andre Mariaren kultuak indar gehien izan zuen garai historikoari dagokiola ere. Alabaina, Amabirjina irekigarri trinitarioen artean salbuespena ere bada; bere kanpoaldeko ikonografia berezia da, irudi bakarrean haurdun dagoen Amabirjinaren, Amabirjina otoizlearen, eta *Sedes Sapientiae* Amabirjinaren arteko koerlazioa adierazten baita (*Ibid.*, 62-63).

XII.en mendean Adam de San Victor-ek Amabirjina trinitatearen gordailutzat esplizituki adierazi zuenetik (“Salve, Madre de Piedad y de toda la Trinidad noble mansión / morada”), –Amabirjina trinitatearen gordailu baino, jatorri egiten zuten–interpretaziorik muturrekoen XV.en mendean zehar jo zuten goia, XVI.enetik aurrera, Trento ondorengo garaietan jada indarra galdu, eta gainbeheran joango zirelarik. Ikuspegi tradizionalak, trinitatearekiko, Maria Aitaren alaba, Semearen ama eta Izpiritu Santuaren emazte egiten zuen, baina irekigarri trinitarioek erlazioa alderantzten zuten, jainko Aita, Semea eta Izpiritu Santua bere sabelean kokatzean, Maria “–bere– Aitaren ama” bihurtuz. Maria fededunen aurrean “sortzaile” paperean agertzen zen, “como si la Trinidad al completo hubiese tomado carne humana en la Virgen María”(*Ibid.*, 69-73). Gaitzespenak, bere garaiko Frantzia *turlupins* izenez ezagutzen ziren begardo eta beginen mistizismo "faltsuaren" aurka ere egin zuen Gerson-ekin (1363-1425) (Bazán Díaz 2007, 110) hasi ziren, eta Trentoko Kontzilioan irudien sorkuntza eta gurtza gaitzetsi baino, beraien onarpen edo gaitzespenaren ardura apezpikuei esleitu bazitzairen ere, Gerson-en ideiek aldeko asko izan zituzten. Horrez gain, protestanteen artean, Molanus-ek, Trentoko Kontzilioa amaitu eta bost urte eskasetara (1568), Gerson-en ideiak bere egin zituen. Teologo hauen gaitzespenak, ondorengo garaietan irudi hauetariko askoren suntsipena eragin zuten. Funtsean, ikonografia hauek Idatzi Sakratuetan nahiz Eliz Gurasoen idatzietan inongo oinarririk ez zutela, eta interpretazio okerretara gidatzen zutela argudiatzen zen, irekigarri trinitarioak debekatu beharko lirakeela sostengatzeko. Ia bi mende beranduago, 1745ean Benedikto XIV. aita santuak erabat debekatu zituen azkenean, Behe Erdi Aroan eta Aro Berrian zehar polemika iturri izan zen gai bati bukaera eman nahian (González Hernando 2006, 73-75). Guzti hau aintzat harturik, Buriñondoko irudiari sabela itxita duela altzoan ipintzen zaion umea, zentzudunki, ondorengo garairen batean Amabirjinaren ikonografia zaharra ezkutatzeko gehitua izan zitekeela pentsatu izan da (*Ibid.*, 66).

Beste zenbait aspektu ere ohartzekoak dira. Trinitatearen inguruko alderantzketan teologikoen irudikapenez gain, erlijiositate herrikoia alorretan, Buriñondoko ermita hau, jada aipatu lez, eta esanguratsuki, haurdun zeudenak erditze onaren eske joan ohi zirenetarikoak zen. Haurdunen eta erditzeen babesletza beste irekigarri batzueganako kultuetan ere ematen -edo eman izan- da, Autun-en (Frantzia) eta Pie de Concha-n (Kantabria) kasu (*Ibid.*, 64-65). Elementuak eta parekotasunak batzen zaizkigu, baina euren artean ze lotura zeuden zail da jakiten, iturri dokumentalek zuzenean isladatzen ez dituzten aspektuak baitira. Nolabait gorde edo mantendu izan ote zuten Burinondoko ermitako serorek, Aro Berrian zehar, irudiaren ikonografiak aditzera ematen duen interpretazio teologikoa? Amabirjinaren altzoko umearen gehitza "ezkutatu beharreko" zerbait edukitzearen kontzientziaren adierazgarri izan liteke, baina ez daukagu haratago joateko datu erabakiorrik.

IX. AZKEN ONDORIOAK ETA HAUSNARKETAK

Azken ondorio eta hausnarketetarako tartera heltzen garen hontan, kokatu gaitezen ikerketan zehar azaltzen joan garen aspektu guztien testuinguru orokorrean, oso labur, ondorioei eskaini dizkiegun aurreko kapituluetak gainbegiratu bat eman, eta jarraian, horien ondoren landu ditugun kapituluetan azaldurikoen laburbiltze bat ere egiteko. Instituzioaren alderdi guztiok aintzat hartu beharrean baikaude, azken hausnarketa eta ondorioak egoki planteatzeko. Ekin baino lehen gure ikerketak izan dituen zenbait hutsune aitortu beharrean gaude baina: ez ditugu behar besteko xehetasunez ikertu serora-laguntzaileak, eta *hospitalera* zirenen gainean osatu ahal izan dugun ikuspegia ere, ohartu izan dugunez, nahiko mugatua dugu. Eta izango dira, noski, bestelako aspektuak ere, oharkabean igaroko zitzaizkigunak. Gure ahaleginak heldu diren neurritik heldu dira, eta jarraian datozen ondorioak muga horien barruan kokatzen zaizkigu.

Jatorriari eta eraginei buruzko atalean zenbait gauza argitu ahal izan ditugu; diakonesengandiko jatorriaren hipotesiak, euskal lurraldeen kristautzearen eta hau gauzatua izan zitekeen garaietan eta jatorrizko lekuetan instituzio honek izan zuen presentziaren arabera, egiazkoa izateko bere posibilitateak lituzkeela ikusi ahal izan dugu. Alabaina, hipotesi honek diakonesen figura, bestelako seroren balizko jatorrizko erlijiozko instituzioen aurretik paratzen digu, besteek baino posibilitate handiagorik zertan izanik ez daukan artean. Ikusi ahal izan baitugu, seroren jatorriak kokatu litezkeen garaietan euskal lurraldeetara eragin kulturalak -eta kristautzaileak- helduak izan zitezkeen espazioetan, bazirela bestelako emakumezkoen erlijiozko instituzioak ere, seroren aurrekarietan erabat zentzudunki egon zitezkeenak. Monakotzaren forma zaharrak izan ditugu hala ikergai, eta egin dugun analisiaren arabera, hauetako emakumezko partaideei diakonesei baino posibilitate gehiago ikusten dizkiegu, seroren hastapenetako emakumezkoen erlijiozko instituziotzat. Nabariki, *seror*-en aurrekari dugun *soror* terminoak testuinguru hartara garamatza, dotearen ematearen ezaugarria ere hemen dugu zentzudunago, eta euskal lurraldeen lehen kristautzean protagonista izan ziren erlijiozko forma nagusiak monakotzarenak izan zirela kontsideratzea ere beharrezkoa dugu.

Halatsu, elizako aktibitateetako partehartzeak halabeharrez diakonesengana begira jarri beharrik ez gaituela ere ikusi dugu, ministeritza sakratuen eta monakotzaren

formen arteko nahasketa erabat ohizkoa izan zen garaiotan, Europako hainbat lurraldetan, diakonesa izan gabe halako aktibitateetan jardun ziren erlijiozko emakumeen kasuak ez baitziren batere arraroak izan. Gainera, monakotza formen beneditartzearen eta Erreforma Gregoriarraren aurretiko garaietako bizimodu monastikoan klausura -aktiboa- ez genuen inondik ere ohizkoa eta *soror*-en monasterioekiko binkulazio formen aniztasuna handia zen (terminoak berdintsu adierazi baitzitezkeen monasteriora *donati* eran sartutakoak nahiz *familiaritas* erlazioen bidezko lotura zeukatenak, zenbaitetan "barruko" eta "kanpoko" *soror*-ak ere izaten ziren, etab.), eta honek, monakotzaren jarraibidearen arabera bizi ziren ordungo erlijiozko emakumeen bizimodu ezberdinak ondorengo seroren bizimoduetara gerturatzen dizkigu, beraien klausura gabeko aniztasunean. Honi Euskal Herriko erlijiozko instituzioen eta bertako botere egituren bilakaera berezia gehitzen badiogu, monasterio familiarrak nagusi ziren, eta Behe Erdi Aroan sartu ahala -halako monasterioak desagerrarazi nahi izan zituen- Erreforma Gregoriarraren eragina oso eskas nabari izan zen testuinguru batekin, monakotza zaharreko *soror*-engandik ondorengo *seror*-enganako transmisio ildoak posiblea, eta areago, erabat zentzuduna dugula ohar liteke. Nabariagoa ere baduguna, tenpluen izaeraren hautemateari eta gizonezkoen alderdiaren bilakaerari erreparaturik. Inguruko lurraldeen aldean oso berandurarte *monasterio* izena jaso zuten tenpluek (ondorengo bilakaeretakoa sailkapenen araberrako parrokia, ermita, etab.-ek) eta *abbas*-etik eratorririko *apez/apai*z nahiz *abade* izenez ezagutuak izaten jarraitu zuten ministroek (propioki bizimodu monastikoa zeramatenei baino, liturgiaren gidaritzaz zeramaten ministeritzak sakratuetakoei aplikatuak izaten bukatu zuten izenak), esandakoa berretsi baino ez digute egiten. Areago, monasterio hauen dinamika tenpluek euzuz haratago, lurralde batzuetan behintzat gizartearen antolakuntza orokorrera iraganaz herrixka monastikoak sortu izan zirela pentsarazten duten hainbat zantzu bildu ahal izan ditugu: Bizkaiako espazio batzuetan behintzat izan ziren "legos y casados" izandako tenpluetako *abad*-en kasuak eta Iparraldean alkate diren *auzapezak* ("auzoetako *abbas*-ak", alegia), *beacumial* orrazkeraren erabilera, 1388-1395 bitartean Oñatiko herritarren eta bertako kondearen artean herriaren eta *monasterioaren* menpekotzaren inguruan izandako auzia, etab.

Testuinguru hartan, Aro Berriko dokumentuetan serorak izendatzeko erabili ziren terminoen jatorri ditugun emakumezkoen erlijiozko instituzioen helduera ere izan zen, lurraldearen kristautze gradualaren garai sinkretikoenak igaro ahala, bestelako forma monastikoak ere agertuz joan zirelarik. Beneditarrak eta kanonesa agustindarrak, ordena militar eta hospitalarioetako *freira*, *freila*, etab.-ak, ordena mendikanteetako *beata*-k... eta hor ziren Antzinatetik Aro Berrirarteko jarraikortasunezko ildo luze batean mantendu ziren bakarkako bizimodu eremutarraren formak ere, gaztelaraz *emparedada* eta *reclusa* bezala, eta frantsesez *emmurée* eta *recluse* bezala ezagutuko zirenak. Testuinguru europarrean garatzen ziren eta euskal lurraldeetan beraien eragina izan zuten erlijiozko forma hauek lurraldearen bilakaera berezian txertatu ziren, monakotza zaharretik helduriko *soror*-en testuinguru hartan hedatuz -eta nahastuz-; erlijiozko bizimodu hauen formek, gainera, artean ere elkarren arteko antzekotasun esanguratsuak zituzten, euren arteko nabariena klausura aktiboaren gabezia, hau ez baitzuten, modu eraginkor batean, Trentoko kontzilioko erabakien aplikazioa heldu zen XVII. mendearen hasierararte sarrarazi. Batzuen eta besteen bizimoduen arteko ezberdintasun erabakigarria izan zen hau hain berandurarte ez gauzatu izateak azaltzen du, besteak beste, monakotza zaharreko *soror*-en ondorengoak eta hauei gehitu zitzaizkien ordenetako forma berrietako partaideak, guztiak, Aro Berrirarteko ildo luzean zehar euskal hiztunek *serora* bezala ezagutu izana. Terminoa, bere euskarazko erabileran, ikusi dugunez, XVIII. mendean klausurapekoen eta besteen arteko

ezberdinketa terminoetan isladatu zedin baino lehenago, zentzu zabal batean "erlijiozko emakumea" adierazteko erabili izan zela ikusi baitugu. Seroren jatorrien garaitik Aro Berrirarte, Baskonia zaharreko eta ondorengo Euskal Herriko lurraldeetan izan ziren erlijiozko emakumeen bilakaera honek azaltzen digu, halaber, *serora* ziren haien sarrerako baldintzek, betekizunek, elizetako nahiz kanpoko aktibitateek, tenpluekiko erlazioek, bizimodua bakarka edo taldeka egiteko moduek, instituzioekiko erlazioek, etab. luze batek, hainbesteko aniztasuna agertzea ere. Aro Berria heldu orduko, mendeen igarotzean helduriko ohitura anitz horiek lekuan lekuko barianteetan fosilduak zeuden jada, jatorrien gogoramena "tiempo inmemorial"-etan galdurik.

Terminoaren erabilera orokorrak ez du esan nahi, hala ere, erlijiozko emakumeen forma ugarien ezberdintasunak garaian garaiko biztanleek inondik ere hauteman ez zituztenik. Areago, eliz-hierarkietako agintari eta partaideei zegokienean. Seroren inguruko berriak eman zituzten lehen autoreak eurak, Lancre eta Larramendi, eta baita *serorak* (klausurapekoak) eta *penitentziako debotak* (3. ordenakoak, klausura gabeak) ezberdindu zizkigun Haranburu ere, banaketa hauek nabariki hauteman eta azaltzen dizkiguten autoreak ditugu. Saiakera hauek behin lurraldean tenpluen parrokia, ermita eta ospitale arteko mailakatzea gauzatu (X-XIII mendeetan), hauen *monasterio* hautemapena alde batera utzi (XIV-XV mendeetan) eta "jabego sistematik" "patroitza sistamarako" iragatea finkatu zirenean (XV-XVI mendeetan) baino ez ziren egin, eta ez da kasualitatea, autore hauek seroren instituzioa desagerrarazteko izan ziren bultzada nagusien garaietan kokatzea, XVII. mendearen lehen hamarkadetan, eta XVIII.enaren bigarren erdialdean. Kasualitatea ez den bezala, noski, serorak desagerrarazteko lehen ekinaldi nagusiak, klausurapeko komunitateen lehen hedapenaren garaiarekin, nahiz sorginen aurkako jazarpenik gogorrenen garaiarekin bat egitea ere (eta aipatu berri ditugun autoreak, esanguratsuki, prozesu horietan zuzenean inplikaturikoak ditugu). Garai hartan seroren aurka hartu ziren neurriak Antzinateaz geroztik erlijiozko emakumeen aurka hartu izan ziren hainbat neurriren "tradiziozko" jarraipena ditugu. Europako lurraldeetan zehar Antzinateko garaietatik emakumeak aldareetatik eta liturgiatic, "sakratutzat" hautematen zenarengandik nahiz espazio publikoetako aktibitateetatik kanporatzeko hartu ziren neurriak (apezemeak eta diakonesak bezalaxe, emakumezkoen beste hainbat erlijiozko forma ere aintzat hartu zituztenak), batez ere, ardatzekoa izan zen *Decretum Gratiani*-aren (1140-1142) bidez gauzaturiko transmisio ildo medio, Aro Berrian zehar Euskal Herriko seroren aurka hartu ziren neurrien aurrekari ditugu. Harritzekoa ez duguna, Euskal Herriko lurraldeek Europako testuinguru orokorrarekiko Aro Berriaren hasieratan erlijiozko antolakuntza eta botere-egitura aldetik azaltzen zuen egoera "arkaizantea" gogoan badugu. Hau da, European zehar aurreko garaietan erlijiozko emakumeek aldareetan, liturgian, ornamentu sakratuen erabileran, eta erlijioaren alorreko nahiz alor publikoko espazioetan izan zuten boterearen aurka hartu ziren neurriak, Euskal Herriko lurraldeetara, bertako bilakaera historikoaren berezitasunak medio, Aro Berriaren hasieratan baino ez ziratekeen heltzen hasiko. Eta orduan, jada eliz-legediaren baitan tradizioz finkatua zegoen legedia baliatu zen, konstituzio sinodaletan berrizaturik eta bisitarien aginduetan finkaturik seroren eskumenen eta funtzioen, eta instituzioa beraren aurka egiteko. Halatsu, sakristauen eta ermitauen tenpluetarako sarrera eta hedapena bultzatu zen, seroren espazioa gizona eskutara iraganaraziz. Eta azaldu dugunez, Larramendi seroren "domestikazio" prozesu haietan zuzenean inplikaturik egon zen; ulergarria zaigu beraz, testuinguru hartan, seroren inguruan helarazi zigun irudi interesatuki murriztua. Alabaina, autore honen itzalak eta berarekiko gaizki ulerturiko errespetu batek, seroren irudi mugatu hura bere jarraitzaile historiografikoek orokortzea izan zuten ondorio, hauen errealtate historikoa atxikitzerako orduan, kasu askotan

XVIII. mendearen erdialdeko mentalitatearen parametroetatik askorik aurreratu gabe gelditu zirelarik.

Honakoa dugu, bada, hausnarketei eta ondorioei eskaini dizkiegun kapituluetan azaldu ditugunen ikuspegi orokorra. Ondorengo orrietan beraien aktibitateen, eragin sozioekonomikoaren, eta erlijioaren eta boterearen alorreko alderdien inguruan ere jardun gara, eta hauek ere laburbildu beharrean gaude, ikuspegia egoki osatuko badugu. Ikuspegi diakroniko baten azpitik, hau da, jatorriaren auzitik desagerrarazte prozesuetaraino garamatzen ildoaren azpitik, seroren egunerokoa osatu izan zuten alderdiak baititugu, gertakizunen ildo kronologikoa baztertu gabe baina ikuspegi sinkroniko baten pean azaltzekoak; hauek, izan zuten esangura sozialari eta botereari neurria hartzerakoan, garrantzitsu eta argigarriak ditugun alderdiak ditugu, azalduko prozesu guztia argi berritara dakartenak. Laburbildu ditzagun bada aspektu hauen gain azaldu ditugunak ere.

Serorek, batez ere tenpluen administrazioaren alderdi gehienak euren kargu edukitzera heldu izan ziren ermiten testuinguruan, neurriak neurri, ez zeukaten, askotan, objektu sakratuak nahiz bitxiak gorde, erabili, maneiatu, garbitu, edo batetik bestera eramateko arazorik, ez eta aldareetan batera eta bestera ibili eta egin beharrekoak egitekorik ere; azken finean, tenplua euren kargu zeukaten, eta beraiek ziren urte guztian zehar bertan zeudenak, ez urtean zenbait egunetan meza esatera etortzen ziren apezak, nahiz euren etxeetan bizi ziren ermitako maiordomoak. Sineskera herrikoetan oinarriturik, sendakuntza edo prebentzio errituak ere baziren, kasurako, serorek euren kabuz ermitetako aldareetan egiten zituztenak. Sakristauak zeuden parroketan ere, nahiz eta –aipaturiko irizpideegatik baino areago, irizpide ekonomikoengatik– ornamenturik eta bitxirik baliozkoenak eurek gorde eta administratzen zituzten, aldareetako bestelako hainbat ornamentu, oihal, eta bestelako ondasun ere izan zen seroren administraziopean, eta garbiketa xedeetarako, objektu sakratuak eta bitxiak ere arazo handiegirik gabe iragan izan ziren beraien eskuetatik. Beraien kargu izan ohi zen beste aspektu bat, aldareez aparte, garbiketen alorra bezala tenpluen espazio osoari zegokiona eta kulturalki emakumeei zegokiela hautematen zelako, beraiei duda-muda handiegirik gabe esleitzen zitzaiena, tenpluetako ohialen eta arropen (eta ehunen) administrazio, zaintza eta garbiketarena zen. Dohaintzan ematen ziren ohial eta arropak jaso, hauek konpondu, bateko edo besteko joskintza lanak egin beharra zegoenean ohialak lortzeaz arduratu, etab., seroren esku izan ziren aspektuak ziren.

Horiez gain alor erritualeko alderdi garrantzitsuak zeuden, serorek partehartzen zutenak. Bataioetan eta ezkontzetan azalduz joan garen hainbat funtzio betetzen zituzten, baina alderdirik esanguratsuenak, botere espazioen testuinguruetan zeukaten garrantzia ohartarazten digutenak, jarlekuetako zerbitzuei eta heriotz-errituei zegozkienak ditugu. Parrokietako jarlekuetako zerbitzuak, funtsean, hildakoen argi eta ogi eskaintzek osatzen zuten aktibitatea, zenbait lekutan kompetentzia eta tentsio giro handietarako motibo izan zen. Berez, norbere familiaren jarleku eta hilobiko erritu hauen kargu hartzea, etxe bakoitzeko etxeakoandreaki zegokion. Eta etxeakoandre askok halaxe egiten zuten. Baina serorek, ohituraz ezarritako soldata batzuen truke, langintza horretan ordezkatu zitzaizkuten. Eta karguak sortzen zuen kompetentziak eta aktibitate honen zioz sortu ziren auzi ugariak aditzera ematen dutenez, hainbat etxek eskatzen zituzten seroren zerbitzuak. Horrez gain, parroketakoak ez ziren serorak ere bazeuden zenbait familien zerbitzuan ibiltzen zirenak, eta etxe edo familiarik printzipalenen kasuan, eksklusiboki euren zerbitzuan aritzen zen serora ere izatera heltzen ziren; azken serora hauek, etxe partikularretan bizi ziren hirugarren ordenako abitudunak edo “tercera”-k izaten ziren askotan, eta hainbatetan, halaber, beraien zerbitzuaren esparru

baitako familietako –ezkontz-estrategietatik alboratuak izandako edo alargundutako– alabak izan ohi ziren. Batzuetan “erabat laikoak” ziren emakumeak ere izaten ziren zerbitzuotan parterik izaten eta etxe ezberdinen jarlekuak eurenganetzen, eta parrokiatako serorek zenbaitetan epaitegietan salatu izan zituzten, beraiei zegozkien emolumentuen lapurretan ari zirela eta. Izan ere, parrokiatako serorek jarlekuetako zerbitzuen kargu hartzea eurei zegokien eskubidea zela hautematen zutenez, hauek etxeoandreek eurek edo familia bertako serorek ez burutzekotan, enkargua eurei zegokiela defendatzen baitzuten. Lekuen eta garaien arabera jarlekuetako zerbitzuen esleipenaren inguruan flexibilitate ezberdinen arabera ohiturak izan baziren ere, arautegiak eta akordioak ere egin izan ziren, sortutako liskarrek motibaturik.

Jarlekuen espazioa, bestalde, parrokia eta herri baitako botere-mailaketen adierazpenerako espazio nagusienetarikoa zenez, bertako errituen esangura soziala oso handia zen. Familiaren maila soziala nabarmentzeko jarlekuen harlauzen gain mailak igotzea, harlauzaren gainean etxeetako edo familietako ikur eta sinboloak jartzea, eta argimutilen eta kandelen parafernalia konplikatuaren presentzia ohizkoak izaten ziren, parrokiatako jarlekuaren gunetik iragatea liturgia ofizialerako "oztopoz" betea gelditzen zelarik. Aldare nagusiaren eta kapera ezberdinen aurreko postuak oso gutiziatuak izaten ziren, eta halaber, mezetan eskaintzak egiteko ordenek aldakuntzak jasaten zituztenean, familien arteko liskar handiak izaten ziren; serorek, testuinguru honetako eragile nagusien parte ziren heinean, parrokia baitako botere adierazpenen borroka hauetan parte hartu zuten, eta eurak ere, gizarte baitako botere eta kompetentzia partzialitateen arabera banaketan irizpideak jarraituz kokatu izan ziren. Serora partikularren kasuan, noski, partzialitate hauen jarraibideak ere nabariagoak ziren.

Propioki jarlekuetakoak ziren eskaintzen errituez beste, heriotza momentuaren testuinguruan eta hiletetan serorek zeukaten partehartze errituala ere ardatzekoa izaten zen. Batzuetan, seroren hildakoarekiko lanak gorpua atontzearekin hasten ziren, eta batez ere ermitetako testuinguruan, lehenago ere bai, agoniako eta heriotzako kanpaijoteak eginez. Hileta-egunean, gorpua hiltzetatik zegokion parrokiara bidean eramatean eta hileta elizkizunera sartu aurretik eliz-aurrean, eta agian, nahiz eta hau ziurra ez dugun, baita nokturnoak kantatzean ere, serorek, emakumezkoen dolua gidatzen zuten, erostariekin eta hiletariekin bat, hildakoaren aldeko otoitzen, negarren eta eresien testuinguru osatuz. Testuinguru honetan emakumeek hartzen zuten hildakoaren familiaren ordezkariak, hildakoaren goraiamenaz gain, familien eta gizarte baitako bando eta partzialitate ezberdinen bozeramale lez ere arituz, eta baita, emakumeen eta beraien arduren eta arazoaren espresio gune bat osatuz ere. Batzuetan, eliz kanpoko ibilbideetako hiletarien negarrak, garrasiak eta min agerpen zaratsuak (tarratzeak, ileak atera eta arropak apurtzeak, etab.) elizkizunetara ere iragaten ziren, eta hauek oztopatza ere hel zitezkeen. Hildakoaren etxerako itzuleran ere emakumezkoen doluaren gidaritzan joaten ziren, azken otoitzak eta *Requiescat in pace*-a esan arte. Hiletez gain, gainontzeko elizkizunetan ere, hau da, ondretan, bederatziruarenetan, etab.etan ere, emakumezkoen dolua gidatzen zuten, eta prozesioetan ere, bestelako emakumeen aurretik joan ohi ziren.

Jarlekuaren zerbitzuak eta heriotzaren inguruko espazio erritualak, batzuetan, tenpluetako betebeharrak eta langintzetan serorek izan ohi zituzten etekinen parterik handienaren iturria osatzen zuten. Tenpluaren garbiketa, argiteriaren zaintza, nahiz ehunen, ohialen eta arropen administrazioak ez zieten normalean hainbeste etekin ematen, nahiz eta, ikusi ahal izan dugunez, batzuetan negozio paraleloren batzuek mantentzen zituzten olioaren eta argizariaren inguruan, eta dohaintzetako ohial eta arropetatik probetxu propiorik ere batzuetan ateratzen zuten. Garbiketaren inguruko

ordainketek, bestalde, nahiz eta orokorrean oso xumeak izan, parrokia batzuetan izan zuten soldatarako bilakaeran bertako serorei gutxieneko –oso gutxieneko– diru-iturri finko baten mantentzea ahalbidetu zien. Diru-sarrera hauen aldean, jarlekuen zerbitzuetako eta heriotz-errituetakoko etekinak dezente handiagoak ziren, esan bezala, hainbatetan serorek parrokietako zerbitzuen testuinguruan zeukaten diru-sarrera nagusia osatuz. Serora batek, esate baterako, parrokiaren garbiketarik urteroko dukat 1 jaso zezakeen, etxe printzipaletariko baten jarlekuaren zerbitzuan urteroko 6 dukat jasotzen zituen artean; eta noski, etxe guztien aldetik ordainketak hain mamitsuak izaten ez baziren ere (hauek ere ohiturazko arauak izan ohi zituzten, esate baterako, zerbitzua gauzatzen zen egunen edo argizari kopuruaren arabera ordainketa ezberdinekin), urtean zehar etxe sorta baten zerbitzua aurrera eramane zezaketela aintzat hartuz, etekin batzuen eta besteen arteko aldea oso handia zela ohartu liteke. Horrez gain, zenbait serorek euren jabegoko jarleku bat baino gehiago ere izan ohi zuten, eta bertako ehorzte eskubideetatik ere, hau da, bertan ehortziak izateko eskubidearen salmentatik, etekin ateratzen zituzten. Hori, noski, batez ere parrokietako serorei zegokienean; eta alde handia egon zitekeen, testuinguru komertzial nagusi bateko parrokietako serora izan (Bergarako San Pedron, esate baterako), edo urruneko auzo edo elizate bateko parrokietako izan (Oñatin, Araotzeko San Migelen tankerakoren bat, adibidez).

Auzoetako eta elizateetako parrokietan, seroren etekin nagusien testuinguru gehiago gerturatu zen ermitetako seroren etekinen egoerara. Oinarri finko bat tenpluari zegozkion lursailek eta ortuek osatzen zuten, zeinak, ustiapen zuzenaren bidez nahiz alokairu bidez, biziraupenerako funtsen batzuk eman zitzaizkien. Batez ere ermiten kasuan, nahiz eta hauen administrazioa teorikoki (konstituzio sinodaletan arautuaren arabera) maiordomoen esku egon, eta hauek, arduratsuak zirenean, batez ere alderdi ekonomikoen gaineko kontrola mantendu, serorek tenpluaren administrazio orokorreko alderdi guztiak euren kabuz eramatea ere batere arraroa izaten ez zenez, hala gertatzen zenean, ermitetako lursailen ustiapena eta kudeaketa baserri batekoari parekatu zekiokien. Lursailak eta ortuak, bestalde, hiribilduetako parrokietan eta euren seroretzek ere izaten zituzten, nahiz eta auzo edo elizateetako parrokien eta ermiten aldean, hauek biziraupenerako zeukaten papera, ziurrenez, ez zen hainbestetako izango. Auzo edo elizateetako parrokietako eta ermitetako mantentze eta administrazio lanek jasotzen zituzten ordainek, bestalde, ez zeukaten hiribilduetako parrokietan besteko ohitura bidezko arau finkorik, eta baserri edo etxeen aldetik ordainketak espezial egitea ez zen batere arraroa, leku askotan ohizkoena ere izanik. Soldata eta eskubide bezala beharrean, ermitetako eta hainbat parrokietako serorei bizilagunen aldetik ematen zitzaizkien “serora-gari” eta “serora-arto”-ak gehiago hautematen ziren limosna bezala, eta uzten eta baldintza ekonomiko eta sozialen kondizionamenduek ordainketa hauek oso aldakorrak izatea motibatuz zezaketen.

Batez ere ermitetako serorei zegokien beste betebeharrak bat (bazeuden parrokietan sakristauek burutu ohi zutena), ordaina esandako moduan jasotzen zuena eta auzoetako bizitzaren baitan erabat garrantzizkoa zena, kanpaia jotzearena zen. Gertakizun erlijiosoen deietarako eta erabilerarako bezala (heriotza bat edo jaiotze bat, bisita garrantzitsu bat, mezetarako deiak, hodeien eta ekaitzen uxatzeak, etab.) arlo zibileko bizitzaren erregulaziorako (eguneko hiru kanpai-jote nagusiak, batzarretarako deiak, auzo-lanetarakoak, suteen abisurakoak, etab.) ardatzezkoak ziren kanpaiak, eta horrek, serorari, bere testuinguruko bizitza sozialaren baitan garrantzia esanguratsua ematen zion. Azkenik, seroren euren sostengurako bezalaxe, ermiten mantentze ere erabat beharrezkoa zen beste aktibitate bat, limosna eskaerarena dugu. Auzotarrek ermitaren mantentze lanei asoziatutako seroraren lanak, ermitan bertan limosna emanez ordaintzen

bazituzten ere, horrez gain, ohizkoa zen aldiro-aldiro, edo beharra zegoenean, inguruko herri eta lurraldeetatik serorak –eta ermitauak– limosna eskaeran ibiltzea, batez ere, bateko edo besteko obrak egin beharra zegoenean; ermitetan, biziraupenerako elikagaien funtsez beste eta seroren euren doteak alde batera utzirik, pasiboki –ermitako atabakan bildu– edo aktiboki –bila irtenda– jasotzen ziren limosnena zen diru-iturri likido nagusia (hau da, momentuan erabili zitezkeen txanponetan jasotako –eta momentuko beharretan xahutzeko baliatu zitezkeen– diruarena; ez errentetan, edo beste era batera ordaindu zitezkeen balorean jasotakoarena).

Seroren tenpluetako betebeharrak eta diru-iturriak osatzen zituzten aktibitate hauen artean, hain zuzen ere, etekinik handienak jaso ohi zituztenak izan ziren debeku eta mugapen gehien jaso izan zituztenak. Parrokietako jarlekuen zerbitzuak eta heriotz-errituetako aktibitateen kasuan, jaso izan zituzten debekuak eta mugapenak ez zuten hainbeste bertako seroren etekinetan bapatean eragin izan, nahiz eta luzera izango zuten eragina handia izango zen. Ardura nagusia, espazio hauek gizarte baitako botere esparruen arteko liskarrak sortzeko zeukaten joera gutxitzean zegoen, eta horrela, jarlekuetan maila sozialen arteko ezberdintasunen eta batzuen besteren gaineko nagusitasunaren sinbolo ziren harmarriak eta bestelako irudiak, altuera igotzeko harmailak, eta bestelako ornamentu arranditsuak kentzeko legedia garatu zen apezpikutzen aldetik, eta era berean, parrokietako espazioaren baitan gizonezkoen espazioa emakumezkoen jarlekuen espazioaren aurrean paratu zedin, eta batzuen eta besteen espazioen arteko mugak zurrunki errespetatu zitezten neurriak hartu ziren. Horrela, emakumeak kokatzen ziren jarlekuetako espazioa, etxeen errepresentaziorako espazio nagusia zena, aurrean paratu ziren gizonen eserlekuen atzean kokatzeko obrak egin izan ziren, aurreko garaietan gizonezkoak kokatu ohi ziren alboetako pisuak kenduz (oraindik mantentzen da distribuzio hau hainbat lekutan). Hiletetako eta bestelako heriotzaren inguruko emakumezkoen espazio erritual sinbolikoak ere hainbat mugapen jasan zituen, erostarien aurkako agindu ugariak eman zirelarik, eta baita hiletarien aurkako beste hainbat ere, nahiz eta azken hauek, lehenek baino dezente luzaroago iraun zuten. Funtsean, emakumeek talde sozialen ordezkaritza eurenganaten zuten espazio hau ixilarazi nahi izan zen, eta behin erostariei ahoak itxi zizkietenean, hiletarien negarrek ere, oso eskandaluzkoak ez baziren behintzat, ardurazko auzia izateari utzi zioten. Batez ere heriotz-erritu publikoetako adierazbideei zegozkien mugapenak, erostariei eta hiletariei zegozkienak, XVI. mendean bultzatu eta gauzatu ziren, XVII. mendean hasietaraino luzatuz; lehenagotik ez bazen, mende honen bukaera alderako jada eresiak kantatzeko ohitura gainbeheran joana zen. Ondorengo garaietako erostarien eta hiletarien ohiartzun ebakia, familia baitako emakumeen testuingurura mugatua eta erabat moteldua, ez zen jada gizartearen baitan hainbesterako eraginik izateko gai izango. Trazu kronologiko orokorretan, erostarien eta hiletarien aurkako mugapen eta debeku eraginkorrenek, sorgin-ehizarik entzutetsu eta eraginkorrenak, ordenei loturiko seroren komunitateen gaineko klausuraren ezarpena eta serorak desagerrarazteko lehen saiakera indartsuak kokatzen diren garaiarekin bat egiten digute; edo hobe esan, azken gertakizun hauen aurreko urte eta hamarkadetako girotzearen parte dira, emakumeen bizitza publikoko aktibitateak jasatear zeuden debeku eta mugapen gogorren aurrekari eta garaikide.

Ermitetako –eta santutegietako– seroren etekin iturri nagusi zirenen aurkako neurriak aldiz, zerikusi gehiago dute XVII. mendeko eta batez ere XVIII.eko gainbehera ekonomikoazko, eta gerrak eta pobrezia tarteko, batez ere landa eremuei eragin zien segurtasun gabeziazko testuinguruarekin. Eta baita, era berean, hainbatetan aipatu dugun bezala, serorak, mojekiko aurkaritzan, hautemapen sekular baten baitara

eramateko joera orokorrarekin ere. Limosna eskaeraren inguruko neurriak batez ere XVII. mendearen bigarren erdialdetik areagotu ziren Gipuzkoan, behin mojen klausurako komunitateen fundazioen “urrezko garaia” (XVII. mendearen lehen erdialdea, aipatu berri ditugun aldakuntza guztiak gogoz bultzatu ziren garai berbera) gainbeheran zioanean; limosnaren etekinak fundazio hauen sostengura bideratzeko presio instituzionalen garai bati ekin zitzaion orduan, eskaleen kontrola nabarmenki areagotuz, eta seroren eta ermitauren limosna eskaerak tenplu bakoitzari zegokion herrira mugatuz, komentuetako eta Probintziak preferentziazkotzat zeuzkan beste kultu-leku batzuetako (Loinazeko edo Aguirreko San Martinen ermitak) postulanteei, limosna eskaerarako askatasuna bermatzen zitzaizkionekin bat. Halaber, hiribilduek nor bere espazioko ermiten gaineko patroitzak eskubideak eurenganatzeko mugimenduak egin izan zituzteneko garai berbera dugu, eta azkenik, baita, gertakizun hauekin erlasionaturik, ermitetan ermitau eta serora bikoteak (edo bestelako bizilagunak) alokairuan hartzen hasi zitzaion garai berbera ere. Gertakizun guzti hauek, noski, erlasionaturik zeuden. Izan ere, ermiten sostengu ekonomikoa alokairuaren bidez bermatu nahi izan zen, limosna eskaerarako debekuek eragiten zuten diru-sarreraren gutxitzea konpentsatzeko asmoz, eta era berean, ermitetako bizilagunak “sekulartu” nahi izan ziren, espazio erlijiosoei bideraturiko limosnak, –instituzioetan buru zirenen alabak sartu ohi zituzten– komentuetara bideratu zitezkeen. Mugimendu guzti hauen bultzada instituzioetako agintariek konstzienteki edo besterik gabe, korrante bati jarraituz gauzatu ote zuten diskutigarria izan baliteke ere, landa eremuetako testuinguruaren baitako transformazioen jatorri izan ziren eragin ezberdinak aipaturiko joera, debeku eta aldaketetan gauzatu izan zirela, eta gertakizun hauek elkarren arteko loturak zeuzkatela, nahiko nabaria da. Honekiko, oso esanguratsua dugu, azkenik ermiten itxierarako eta seroren desagerrarazterako 1769ko Errege Aginduaren akuilua, limosna eskaeraren etekinak jasotzerako orduan abituak zeukan eragina zela eta, aurretik –1747an– ermitauei erlijiozko abitua debekatu izan zitzaizkion bezala, serorei ere debekatzeko Gipuzkoako Probintziaren 1767ko eskakizuna izan izana.

Parrokietako serorek, emakumeek -batez ere erostarien bidez- heriotz-erritu publikoetan izana zeukaten gizarte ordezkarietarako espazioa jada gainbeheran izanik ere, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar ere jarraitu zuten jarlekuetako eta heriotz-erritu etekinen bidez sostengatzen, areago, nahiz eta esandako boterezko espazio sinbolikoa gutxi gora behera deuseztua zegoen, elizkizunen arrandia eta maiztasuna gehiagora joan baitziren, garai barrokoan erlijiotasunak izan zuen bilakaera barnerakoiarekin. Arimaren salbaziorako ardurak, jainkozkoarekin erlazio intimista eta pertsonal bat bultzatzen zuen –eta mojen klausura gauzatu zuen hautemepen orokorrarekin bat egiten zuen– erlijiotasunaren joera berriaren gailentzearekin, mende hauetako heriotz-erritu etekinak segurtatu zitzaizkien zenbait serorei, nahiz eta gizartearen baitan izana zeukaten lekua eta esangura soziala oso bestelakoa zen. Alabaina, biztanleek arimen aldeko mezak agintzeko zeukaten joerak eta hauen kopuruen estatistikek agertzen dutenez, joera honek, XVII. mendean zehar goraldia izanik, XVIII. ean behera egin zuen, batez ere, bigarren erdialdean. Ideia ilustratuen helduerarekin izan zen balore erlijiosoen gainbeherak, eta lurjabeen ondasunen kontzentrazioak eta beste faktore batzuek eragindako –eta bitarte kronologiko berberean areagotuz joan zen– biztanleria xehearen pobretze orokorrak bat eginik, arimaren aldeko mezen eta bestelako heriotz-errituen etekinak bukatuak ziren.

Azalpen guzti hauen artean, ezin dugu beste gauza bat ahaztu: seroren instituzioaren ezaugarri orokorrean buruz esandakoa, neurri bateraino, azaldu berri ditugun tenpluetako zereginei ere aplikagarri zaie. Joera orokorrak aipatu berri

ditugunak eta lanean zehar azaltzen joan garenak izanik ere, bestelako ohituren kasuak, batean eta bestean, temati agertzen zaizkigu. Propioki tenpluen zerbitzukoak ziren seroren artean, guztiak batzera heltzen ziren aktibitate bakarrak, garbiketa eta parroketakoen kasuan jarlekuen artapena zirela esan liteke, nahiz eta egin dugun ikerketaren baitan, zenbait espaziotako parroketako seroren jarlekuen artapenaren inguruko berriak falta zaizkigun, eta agian, bereziki sakristauekin ezkonduko seroren kasuan (Arrasateko eta Eskoriatzako hiribilduetako parroketan), baieztapen hau hain zurrunki egitera ausartu beharko ez ginatekeen. Posible bailitzateke, izan ere, egoera zibilaren aldaketak jarlekuen zerbitzuan ere eraginik izatea, hau, besterik gabe, jarleku partikularren zerbitzuan ibiltzen ziren beste seroren esku geldituz; baina ez gara esandakoaz haratago joango, behar besteko datuen gabezia zuhurtzia izan beharrean baikaude.

Bestelako aspektuetan ere, egoeren aniztasuna zen nagusi. Tenpluen administrazioaren gain serorek izan zitzaizketen eskumenek oso tarte zabala azaltzen digute; parroketan, tenpluko esparru pribatuei, hau da, jarlekuei zegozkien ohialak baino bere esku ez zeuzkan eta gainontzeko guztia sakristauak gorde eta administratzen zuen kasutik, ia ondasun guztien administrazioa serora beraren esku zegoen eta sakristaurik egon ere ez zegoen parrokiako kasuraino igaro gintezke. Ermitetan ere, nahiz eta aipatu berri dugun muturreko egoera ohizkoagoa zen, maiordomoak serora garbiketa xedeetara baztertuta eta administrazioetik zeharo alboratuta zeukan beste muturreko kasua ere aurki liteke. Parroketan bezalaxe ermitetan ere, batzuetan, beste iturri batzuen bidez serora bazegoela badakigu ere, kontu-liburuan ez da ezertarako aipatu ere egiten. Eta beste kasu batzuetan, esan bezala, maiordomoa bera da ia agertu ere egiten ez dena, eta bisitatzailen aginduek baino agerrarazten ez dutena. Olioaren eta argizariaren ingurukoek eta ehun, ohiak eta arropen ingurukoek ere antzerako egoera agertzen digute. Alde batetik, zenbait serora ageri zaizkigu, olioaren eta argizariaren inguruan negozio propioak egiten zituztenak, erabilitako argizariak erosi eta kandela berriak egin eta salduz, edo olioaren ornikuntza bere kargu harturik, bitartekari lez zeuzkate etekinak jasoz, etab. Beste kasu batzuetan argizariaren ornikuntzaz parrokiak kanpoko emakumeak edo “maestro çerero”-ak arduratzen ere ikusi izan ditugu. Ehun, ohiak eta arropetik, nahiz eta parroketako seroren joskintza lanen berri gehiegirik jaso ahal izan ez dugun, hauen administrazioa seroren eskuetatik kentzeko bisitatzailen aginduak bezalaxe, parrokiako ohiak eta ornamentu guztien edo gehienen joskintza konponketen kargu hartzen zuten eta laguntzaile jostunak zeuzkaten serorekin ere egin dugu topo, eta baita, parrokiako ohiak eta ornamentuen joskintza lanak arautegi bidez ezarria zeukaten seroren kasuekin ere. Kanpaiak jotzearen karguak ere, bere funtzio sozial eta erlijiosoekin, hainbat gorabehera izan zitzaizkeen. Sakristauak zeuden parroketan hauek hartzen zuten kanpaiaren ardura (teorian behintzat), baina sakristauak ez zeuden parroketan eta ermitetako testuinguruan (ermitaen bikoteak seroretxeetan sartzeari ekin baino lehenago behinik behin, eta askotan baita ondoren ere), lan hauek seroren aktibitateen parte zirela esan liteke. Eta bariantek hainbat izango zirela pentsa liteke, baina noski, sakristauak parroketan sartzeko prozesuarekin bat, halaber, kanpai-joteen kargu hartzen zuten parrokiako seroren kopurua ere gutxitu egin zen. Limosna eskaerari buruz ere, beste hainbeste. Batez ere aktibitate hau nagusia zen ermiten testuinguruko aldaketak izan ahala, ermitauak (hauek seroren bikote edo nolabaiteko familia-kide izan, edo ez) ere ohizkoagoak egin ziren limosna eskean, eta beste kasu batzuetan, ermitetako maiordomoek eta bestelako postulanteek ere hartzen zuten limosna bilketaren kargu.

Aipatuez gain, beste zenbait aktibitate ere bazeuden, tenpluetako lanen parte zirenak, edo seroren lanen artean, dimentsio sozial publiko batean garatzen zirenak. Umezurtzen eta batez ere neskatxen zaintza eta irakaskuntza nahiz gaixoen sendakuntza, serorek, modu antolatuan bezalaxe, modu informalean ere betetzen zituzten aktibitateak ziren, nahiz eta ikerlan honetan denbora eta espazio motiboegatik zabalegi baitaratu ezin izan ditugun, beraien garrantzia eta eragin handiagatik aipatu gabe ezin utzi direnak.

Aktibitate hauek seroren funtzio sozial eta erlijioso publikoei zegozkien; ohituraz zegozkien lanak ziren, nahiz eta lekuan lekuko eta garaien araberrako aldaerak ugariak izan, gizartearen baitan zeukaten papera definitu eta justifikatzen zutenak. Baina planu publiko horren azpitik beste aktibitate batzuek ere garrantzia handia zeukaten, ekonomikoki, orain arte aipaturiko aktibitateek baino handiagoa zena, eta aktibitate hauek, serorek gizartearen baitan zeukaten eragina beste ikuspegi baten pean jartzen digute. Serorek, Aro Berriko gizartearen testuinguruaren baitan, batez ere familia printzipaletako buru izatera heldu ziren alargunekin partekatzen zuten ezaugarri bat zeukaten: ondasun propioen administrazioarako askatasuna. Eta honekin bat, ahaztekoa ez dena, hainbat aktibitateetan parte hartzea ahalbidetzen zien gizarte baitako egoera ohoretsua, erlijiozko pertsona bati zegokiona. Behin dotea emanda (batzuek hau ere ez) eta abitua hartuta (hau ordenetakoa izan edo ez), familiaren gizonezkoen agintepetik eta administratibotik kanpo gelditzen ziren, euren erabakien jabe. Noski, orokortze honi zehaztapen asko dagozkio, gizarte eta familia baitako baterako eta besterako presio eta eraginak ugariak baitziren, are seroratzan sartuak zeudenean ere. Baina seroratzaren egoerak presioen aurreko ezezkoak emateko gaitasuna ere ematen zien, eta zenbaitetan, testamenturen batzuetako oinordeko izendapenetan ikusi ahal izan dugunez, gaitasun hau bazeukatela eta erabiltzeko asmoa zeukatela garbi asko adierazi izan zuten. Labur esanda, abituari abantaila soziala ateratzen zioten, honek –klausuraren eta emakumeen ondasunen gaineko kontrolaren inguruan– zeuzkan galerei berriz, muzin eginez. Eta hemen ere, ostera, salbuespenak aipatu beharrean gaude. Bazirelako, ikusi dugunez, dohaintzak egin eta testatzeko gaitasuna ukatzen zieten sarrerarako hitzarmenak eginda kargura sartzan ziren serorak ere, esandako abantailez baliatzeko modurik ez zeukatenak. Alabaina, hauen kopurua ez zen beste seroren jarduerako ekonomikoaren eraginari garrantziarik kentzeko bestekoa; gehiago ziren beraien ondasun eta aberastasunez baliatzeko askatasuna zeukatenak, eta beraien eragin ekonomiko eta sozialaren baitan, gaitasun honek ahalbidetzen zizkieten aktibitateek, gehienetan, pisu handiagoa zeukaten alderdi publikoan, hau da, tenpluetan, burutzen zituzten aktibitateek baino. Antzerako mailako etekinak ematera heldu zitekeen aktibitate bakarra, izatekotan, jarlekuetako zerbitzuena zen, baina gehienetan, jarlekuetako etekinekin bat, alderdi pribatuko edo pertsonaleko aktibitateak uztartu ohi zituzten. Testatzeko gaitasuna ukatzen zitzaizen serora hauen kasuek, bestalde, seroren jatorrietako ohituren aniztasunean berresten gaituzte; ondasunen administrazioaren askatasuna eta autonomia izatea ohizkoagoa zen egoeren dibertsitatearen baitan, hastapenetako monasterioekiko loturarik sendoenak hartzen zituztenen kasuak azaltzen dizkigute, hauek ere, ohiturak eta denboraren iragateak fosilduak.

Gaitasun horrek ondasunen pilaketa ahalbidetzen zien, eta boteretsuak izatera heldu ziren seroren kasuan, etxeak, ortu eta lursail ugariak, abereak, eta bestelako hainbat ondasunen jabe izan, hauek erosi edo saldu, edo alokairuan jarri, edo nahi zuten bezala administratuzera heldu izan zirela ikusi ahal izan dugu. Batzuetan, gainera, familien baitan seroren oinordekotza ildoak ere izan zitezkeen, eta horrek, ondasunen transmisioak zenbait belaunalditan ematera helduaz gero, serora oinordekoak bere esku

oso aberastasun handiak izatea eragin zezakeen. Noski, batez ere ermitetan, serora txiroak ere bazeuden, bizilagunen limosnatik eta ermitako ortuaren eta lursailen etekinetatik ozta-ozta bizi zirenak. Baina ez dugu horregatik ermitetako seroren bizitza, orokorrean, biziraupen soilaren maila ekonomiko batean hauteman behar. Izan ziren ermitetako serorak ere, eta ez gutxi, batere txiroak izan ez zirenak. Batzuek, ermitako seroretxean bizi izanda ere, euren jabegoko beste etxeak zeuzkaten, eta baita alokairuan jartzen zituzten lursailak, abereak, nahiz bestelako ondasunak ere, eta hainbat salerosketa eta negoziotan ibili ohi ziren. Baina egia da, halaber, serorarik aberatsenak, Aro Berriko gizartearen baitan normala zenez, hiribilduetan kokaturik zeudela. Parrokietako serorak eta euren kabuz edo familien zerbitzura bizi ziren serorak ziren aberastasunik handienak zeuzkatenak, eta alderdi pribatu edo pertsonaleko aktibitate gehienetan ibili ohi zirenak.

Ondasun pertsonalen etekinen salmenta edo alokairutik ateratako etekinak, beraz, hainbat izan ohi ziren: ortuak, lursailak, abereak, etxeak, eta beste hainbat ondasunen inguruko negozioak ugariak ziren. Bere ortuko produktuak saltzen zituen serorarengandik bere jabegoko baserriak, abelburuak nahiz lursailak alokairuan jarri edo saltzen zituen serorara, handia zen egoeren dibertsitatea. Eta horrez gain, baziren zenbait aktibitate, bereziki garrantzitsu lez ageri zaizkigunak. Ehungintzari eta joskintzari loturiko lanek osatzen dute horietariko bat, kasuren batean beharrezko lehengaien inguruko maila ekonomiko esanguratsu bateko aktibitate komertzialetan ziarduen seroraren batekin topo egin badugu ere, batez ere, diruaren ekonomia hain zabaldurik ez zegoen espazioetan nabarmentzen zaiguna. Ohialek eta arropek, eta hauen konfekzioarako lehengaiak, emakumeen arteko erlazio ekonomiko eta sozialen esparru berezi baten berri ematen digute, zeinetan ondasun hauek, diruaren ordezkotzat egiten zuten. Aipatu izan dugunez, zerbait “en prendas” ematea espresio bezala fosildu izanak, hauek diruaren ordezko lez zeukaten garrantziaren berri ematen digu. Batez ere landa eremuetako parrokietan eta ermitetan aurkitu ahal izan ditugun hainbat serorak, beraien ondasunen parterik handiena, trukeetarako, salerosketarako eta dohaintzak egiteko erabiltzen zituzten ehun, ohiak nahiz arropatan zeukaten. Testamentuetan garbi ageri zaigu hori, diru likido gutxiak arimaren aldeko mezatara edo anibertsarioen batetara bideraturik, gainontzeko guztia familia-kideei emandako lehengai, ohiak eta arropek osatzen zutela ikusten dugunean. Serorek arlo ekonomiko honetan izan zuten zeresanak handia behar zuen izan, nahiz eta testamentuetako deskripzio mugatuek ondasun hauek izan zezaketen baloreari buruz datu gutxi eskaintzen dizkigutenez, neurria hartzea oso zaila dugun. Edozein kasutan, ez da beraien balorea gutxietsi behar. Ohial eta arropak baziren, oso balore handia izatera hel zitezkeenak; esate baterako, ohial bakar bat serora batek bere seroratzarako sarreran emandako doterearen bikoitza balio izatera hel zitekeen.

Diruaren mugimendu handiagoa zegoen lekuetan, batez ere hiribilduetan, beste aktibitate garrantzitsu batekin egiten dugu topo: mailegutza. Seroren aktibitate ekonomiko eta sozialen artean, mailegutza diru eta ondasunen bolumenik handiena mugiarazten zuen aktibitatea zen, eta baita, noski, etekinik handienak ematen zituena ere. Zentsuetan edo ohizko maileguen bidez emandako diruen zorrak moeta guztietako seroren artean aurkitu ditugu; baina aktibitate honetaz gehien baliatzen zirenak eta aberatsenak zirenak, hiribilduetako testuinguruan mugitzen zirenak ziren: bertako parrokietako serorak eta familia partikularren zerbitzukoak edo euren kabuzkoak. Batez ere azken hauen artean, “zentsuetan espezializatu” zenik ere izan zen. Debagoieneko testuinguruan, aktibitate hauetan murgilduriko serora gehienak ingururik komertzialenetan aurkitu izan ditugu, Arrasaten eta –batez ere– Bergaran. Halaber, gehienetan mailegutza bidez ageri zaizkigu serorek botere esparru eraginkorretako

pertsonaiekin zeuzkaten loturak, nahiz eta zentzu honetan, jarlekuetako zerbitzuak ere lotura asko agertzen dizkigun. Gizonezkoen artean, seroren aldeko zentsuak fundatzen eta maileguak eskatzen kapitainak, komendadoreak, apezak, izkribauak, batxilerrak, lizentziatuak, doktoreak, komertziantek, etab. ageri zaizkigu, eta baziren, halaber, seroren aldeko zentsuen zorra zeukaten herriak eta elizateak, eta mojen komunitateak ere. Maila ekonomiko xumeagoetan, beherako bidean, beste hainbat bizilagun ere baziren: maisu zurginak eta harginak, guraizegileak eta labangileak, eta bestelako ofizioetakoak ere hainbat ziren, eta maila ekonomikorik xumeenean zeuden eta inongo bereizgarririk aipatzen ez zitzairen zordun txikien talde garrantzitsu bat ere bai. Testuinguru orokor honetan, serorekiko zorpeko loturak esparru boteretsuetako hainbat gizonek zeuzkaten, eta honek, serorekiko, errespetu eta babes sozial handia ere bazuen ordain, etekin ekonomikoez beste.

Gizonezkoak lehenik nahita aipatu ditugu, jarduera ekonomikoen bidez serorek beraien gain izan zezaketen boterea, sexuen arteko botere erlazioen testuinguruan, garrantzitsua baitzen. Baina emakumeak ere bazeuden noski seroren zordunen artean, kasurik gehienetan gizonezkoak baino gehiago, erlazioen testuinguru nagusia osatuz. Hainbat “doña” zeuden seroren zordunen artean, askotan alargunak zirenak, eta seroren eta hauen arteko erlazio konstante eta estuak sortzen zirela ikusi ahal izan dugu. Batez ere familien zerbitzu partikularreko seroren kasuan, “doña” hauekin eta beraien familiekin bizitzen aurkitu izan ditugu, eta batzuetan, etxekoandre alargunaren mailegu-emaile garrantzitsuak bihurtuak ziren, zorren ordainez, beraien aldeko zentsuetan hipotekaturiko ondasunak eurenganatzera ere helduz. Batzuek, nahiz eta beste jatorri familiar batetik helduak izan, “doña”-ren jarlekuan ehortziak izatea ere eskatu zuten, honen borondatea halakoa izan zela eta. Finean, seroren eta zerbitzen zituzten familietako emakumeen artean, alargunduriko etxekoandreen artean bereziki, gradu eta sendotasun ezberdineko loturak gauzatzen ziren, eta etxekoandreendako bezalaxe beste emakumeendako ere, serorek, mailegu bidez diru likidoa lortzeko aukera onak eskaintzen zituzten. Eta seroraren batzuek maila ekonomiko jakin batetik gorako maileguak eta zentsuak baino ematen ez bazituzten ere, beste batzuen kasuan, maila sozial eta ekonomiko ezberdinetako espektro zabal bat aurkitzen dugu maileguen zordunen artean; batzuetan, areago, nabaria zen beraien maileguak batez ere emakumezkoen espazio sozialaren baitan banatzearen joera (eta beraz, borondatea). Oso alderdi garrantzitsua dugu hau ere, emakumeen behar ekonomikoen gaineko babes sozialaren praktika baten berri ematen baitigu; hau da, serorek beste emakumeei, txiroak izanik ere, mailegu txikien ematearen bidez diru likidoaz baliatzeko aukerak bermatzen zizkietela adierazten digu. Mailegu hauen segurantzarako, bestalde, serorek hainbat bahi jaso ohi zituzten, askotan, aipaturiko praktikaren arabera, ehun, ohiak eta arropatan emanak zirenak. Kopuru handien kasuan hainbat bitxi ere baziren, bahitzat eskuratzen zituztenak. Mailegutza aktibitateen bidez, serorek etekin ekonomiko handiak jasotzen zituzten zentsuen korrituetan, eta zenbaitetan, zordunen gainbehera ekonomikoak, hauen aurkako auziez beste, hainbat ondasun seroren eskuetara heltzea ere eragiten zuten; maileguetako zorren bidez lorturiko lursailen, etxeen, eta bestelako hainbat ondasunen berri izan dugu.

Azken alderdi bat, serora boteretsuek bizi izan ziren testuinguruan zeukaten itzal eta begirune handiaren berri ere ematen diguna, ondasun partikularren administrazioarena da. Zenbait serorek beste pertsonen ondasunen gaineko administrazioa jaso izan zuten, kasu askotan, albazea izendatuak izatean, baina baita beste kasu batzuetan, beraien alde xede horretarako helaraziriko ahalordeen bidez ere. Hala, pertsona boteretsuen espazio jakin bateko ondasunen administrazioa eramanez,

bere izenean salmentak edo kobrantzetarako dilijentziak egin, lursailak edo etxeak alokairuan eman eta hauetako etekinak jasotzeaz arduratu, auziak aurrera eraman, eta bestelako hainbat lan hartu zitzaizkien; hain zuzen ere, gorabehera hauen gaineko eskumena eman zien pertsonak pertsonalki egin izan beharko zituzkeen berberak. Beste kasu batzuetan izkribaueti, lizentziatuei edo doktoreei esleitu ohi zitzaizkien ordezkapen pertsonalerako gaitasunak serorei eman izana, inongo zalantzarik gabe, serora batzuek bizi izan ziren gizartearen baitan izatera hel zitezkeen itzal, errespetu eta botere handiaren adierazle nabaria dugu.

Diru eta aberastasunen iturri guzti hauek, tenpluetako lanen artean batez ere jarlekuetako zerbitzuek, eta ondasun pribatuen kudeaketaren esparruan, aipatu ditugun aktibitate guztiek baina batez ere mailegutzarenek, serora askok, bai mugitzen ziren testuinguru familiarraren baitan, eta baita gizarte erlazioen testuinguru zabalagoan ere, eragin ekonomiko eta sozial eta erabaki gaitasun handia izatea ahalbidetzen zuten. Eta horrek, seroren defentsarako lurralde historikoetako eta herrietako instituzioek agertu zuten interesaren beste alderdi bat ere azaleratzen digu. Gainera, XVII. mendearen bigarren erdialdean zentzu horretan eman zen inflexio puntuari ere ematen dio azalpen zentzudunik. Izan ere, aurreko mendean eta mende bereko lehen hamarkadetan, hazkunde ekonomiko eta demografikoaren testuinguruaren baitan, seroren diru likidoaren eta hainbat aktibitatearen beharra izan zen bezalaxe, XVII. mendearen erdialdeaz geroztik hasi zen “berjauntzearen” (“reseñorialización” bezala aipatu izan den prozesua) lurren eta ondasunen pilaketarako tendentziaren baitan lurjabe handiak izatera igaroko ziren familiei konpetentzia egitera, edo beraien familien lurrak, etxeak eta ondasunak zorretatik askatuz, hauen gutizian zeuden lurjabe handiei erresistentzia agertzeraz iragan zirenez, agian, seroren abantaila sozialen inguruko ikuspegiaren aldaketak hein batean horrek motibatuak ere izan zitezkeen. Babestu izan zituzten instituzioetako agintariak ez zuketean izango jada hain garbi, serorak izatearen abantailak zertan ziren. Edozein kasutan, serorek ondasun eta aberastasun asko pilatu zitzaizkien eta hauen bidez beraien familien ondasunak babesten zituzten, eta aberastasun eta botere gehien izatera heldu ziren garaia, bildu ahal izan ditugun datuen arabera, hain zuzen ere XVI. mendetik XVII. enaren lehen erdialdera bitartekoa izan zela dirudi; lehen desagerrarazte saiakera indartsuaren ondoren, nahiz eta serorak kanporatuak izan ziren leku gehienetan gero beraien karguetara itzuli ahal izan ziren, beraien botere ekonomiko eta sozialaren gainbehera motel eta luzeari ekingo zitzaion. Eta XVII. mendean kokatu ahal izango genuke ziurrenez, oso trazu orokorretan eta bukaera alderago gehiago, hasiera aldera baino, seroren eta mojen kopuruaren arteko balantzeak azken hauen alde egiteari ekin izango ziokeen momentua.

Beste garaietan ere bai, baina batez XVI. mendetik XVII. enaren lehen erdialderako bitarte horretan kokatzen dira serorek testuinguru sozialaren baitan egindako dohaintzarik handienak eta esanguratsuenak. Familiari dagokionez, serorek beraien ingurukoaren sostengu ekonomikoa bermatzen zuten, beharrezkoa zenean, familia-kideen etxe edo baserriak zentsuetatik askatuz edo beraien jabegoko etxeak familia-kideei dohaintzan emanaz, ahizpa eta anaien alde zegozkien seniparteei uko eginez, iloben ezkontzarako doteak partzialki edo osoki ordainduz, apez izateko bidean zeuden edo ikasketak egiten zeuden iloben sostengurako dohaintzak eginez, auziekin zebiltzan familia-kideak hauek bukatu artean diruz lagunduz, familia-kideren baten heriotzean bere seme-alaben ezkontzak ordaintzeko konpromezua hartuz, baserriren baten gainbehera ekiditeko obren kargu hartuz, etab. luze bat. Mugimendu eta familia-kideenganako laguntza guzti hauetan, zenbait joera nabarmentzen zaizkigu. Alde batetik, serorek, etxeen eta baserrien jarraikortasuna bermatzeko ardura handia agertzen

zuten. Hala, familia-kideei eskainitako laguntzak baldintzatuak ageri zaizkigu batzuetan, berak emandako laguntzaren azken onuradun etxe hartan gelditzekoa izango litzatekeen seme edo alabak izatearen baldintzarekin. Edo beste batzuetan, esate baterako, dohaintza bat baserri baten hurrengo buru lehen ezkontza bateko seme edo alaba izatearen baldintzapean egina izan zitekeen; hau da, serorak, bigarren ezkontza baten aurrean, etxearen jarraipenean bere familiari loturiko seme-alabak mantentzea bermatu nahi zuen. Edo dohaintza, xede jakin batean, esate baterako baserriko obretan, xahutu zedin baldintzapean egina ere izan zitekeen, etab.

Beste hainbat modutara ere agertzen zuten serorek beraien borondatea, eta familia-kideen erabakietan eragiteko gaitasuna. Horrela, baldintzaturiko beste zenbait dohaintza, adar nagusiaz aparteko familia-kideen promoziora bideratzen ziren; esate baterako, apez jantzienak ziren zenbait dohaintza, baina baita kasuren batean etxe batena ere, familia-kide ezberdinek –nagusiki ilobek– apez ikasketak bukatu izanari loturik ageri zaizkigu; hau da, hauek meza berriak esatean, eta esatekotan soilik, gauzatzekoak ziren.

Beste joera nagusi bat, dohaintzetan bezalaxe oinordekotza izendapenetan ere nabaria dena, serorek ilobenganako garatzen zituzten erlazio eta loturena da. Alderdi hauei buruz ikerketan zehar jaso izan ditugun daturik gehienak aipaturiko XVI-XVII. mendeen arteko bitarte kronologikoan kokatzen zaizkigu, eta bitarte horretako seroren arteko gehienak, edo ezkongabeak edo alargunak izan ohi ziren. Ezkonduriko serorak ondorengo garaietan izan ziren ohizkoago. Bada, are alargunak zirenean ere, eta ziurrenez seme-alabenganako seniparteen kontuak jada kitatuak izango zituztelako (nahiz eta dohaintzen jasotzaile lez seme edo alabaren bat agertzen den kasuren bat edo beste ere aurkitu izan dugun), joera nagusia ilobak (“sobrinos/as” zentzuan, ez “nietos/as”-enean) faboratzekoa izaten zuten; era berean, serorek askotan zahartzaroko azken urteak iloben etxeetan igarotzen zituzten, zahartzaroko ajeetan eta gaixotasunetan hauen babespea jasoz. Izeba serora izateak, izan ere, baliozko gauza izan behar baitzuen. Ohizkoa zen iloben ezkontzak seroren diru eta ondasunek ahalbidetuak izatea, eta seroren oinordeko askotan ilobak izan ohi ziren bezala, oinordekoaz bestelako ilobek ere ondasunen banaketan dohaintzen parte esanguratsu bat jasotzen zuten. Batez ere ilobak faboratzearena, bestalde, familia baitako dinamiken zenbait jarraibideri zegokion. Alde batetik, oinordekotzak edo dohaintza handiak jaso izan zituzten zenbait iloba, familiaren adar nagusiaren jarraipena bermatzen zuten etxe edo baserriko jabe izatekoak zirenak ziren. Hau, normalean, familiako etxe edo baserriaren sostengua bermatzeko arazoak zeudenean gertatu ohi zela dirudi; esan bezala, norbere etxearen edo baserriaren jarraikortasuna, seroren ardura handietariko bat baitzen. Seroren dohaintzek, kasu hauetan, familiako adar nagusia sendotzera jotzen zuten. Beste batzuetan aldiz, oinordekotza izendapenak edo dohaintzak zeharo aurkako norabidea zeraman; hau da, gurasoek familiaren adar nagusiaren ondorengoko etxeko jaun-andreak izatekoak ziren seme edo alabak faboratzean, ondasunen banaketan parterik txikiena jaso izan zuten ilobak ziren serorak oinordeko egiten zituenak, edo dohaintza esanguratsuak egiten zizkienak (esate baterako, ezkondu ahal izan zedin balio zezaketenak). Horrela, familiaren dinamika ekonomikoaren baitan, adar nagusia bermatua zegoenean, seroren ondasunek gainontzeko ilobenganako konpentsaziozko joera bat azaltzen zuten. Joera honek, noski, oinordeko bakarraren ezarpena jarraibidetzat daraman gizarte baten baitan, bere logika dauka, oinordeko bakarrak aparteko seme-alaben sostengua bermatzeko mekanismoak garatzeko beharrea. Azken jarraibide nagusi hauei zegozkien lursailen, etxeen, eta bestelako ondasunen dohaintzez aparte, beste zenbait ondasun ere nagusiki iloben artean banatzen ziren. Serora bakoitzak zenbait ohe eta

kutxa izatea ez zen batere arraroa, eta hauek, normalean, ilobengana bideratzen ziren, oinordekotzen eta bestelako dohaintza handien kasuan bezalaxe, dohaintza hauek preferentziazkoak (adar nagusiaren aldekoak) edo konpentsaziozkoak (adar nagusiaz kanpokoan aldekoak) izan. Dirutan egindako dohaintzei buruz ere, beste hainbeste esan liteke; onuradunik nagusienak ilobak ziren, gehienetan ezkontzara edo etxearen sostengura bideraturiko diruekin. Bestalde, eta seroren ondasun eta aberastasunen faboratuenak ilobak izanik ere, azaldiriko joera nagusiak beste familia-kide batzueganako dohaintza eta oinordekotza izendapenetan ere gauzatzen dira. Oinarrizko joerak jarraituz, batzuetan ahizpa bat edo anai bat izan zitekeen laguntza beharra zeukana, beste batean iloba –“nieto/a”– bat, ama alargunen bat, edo are kasuren batean, lehengusina baten alabaren bat ere.

Oinordeko izendatuek eta dohaintzen jasotzaileek agertzen diguten beste ezaugarri bat, oinordeko izendapenetan hainbesterakoa ez izanik ere dohaintzetan nabaria dena, emakumezkoen nagusitasunarena da. Hau, neurri bateraino, azaldu berri dugun dinamika beraren ondorioei ere badagokiek; azken finean, familiako adar nagusiaren jarraipena ongi bermatua zegoenean, oinordeko bakarraren alde ekonomikoki alboratuak izan ziren iloben artean, emakumezkoak baitziren egoerarik zailenean gelditzen zirenak. Topikoaren araberrako “ezkontza edo komentua” aukera bakarrak ez izanik ere (izeba-ilobak serora ziren kasuekin ere egin dugu topo, eta ugari ziren euren lanetatik bizi ziren ezkongabe eta alargunak ere), zailagoa baitzen alaba batendako bizimodua egoki bermatzea, kanpoan ikasketak egitera, ofizioaren bat ikastera edo lanera, edo ejerzitura bideratzen ziren bigarren- semeendako baino. Eta hemen ere, batez ere ilobak ageri bazaizkigu ere, familia-bidezko edo laguntasunezko erlazioen loturazko beste hainbat emakume ere antzerako egoeran izaten ziren. Baina noski, dohaintza guztiak ez ziren irizpide horien araberrakoak. Batzuk, besterik gabe, estimu eta maitasun agerpenei zegozkien. Edozein kasutan, ikuspegi orokorrago baten baitatik, familiaren testuinguruan bezalaxe gizartearen testuinguru zabalagoan ere, seroren dohaintzek batez ere emakumezkoak faboratzen jotzen zuten, funtsean eta -nabaria denez- emakumeak izate beraz aparte, mugitzen ziren esparruak batez ere emakumezkoenak zirelako, eta konpentsaziozko hautemapen bati jarraiki, emakumeek gizonen baino seroren ondasunen behar handiagoa izan ohi zutelako. Emakumeak faboratzearen joera honen baitan, ehun, ohial eta arropen dohaintzek leku berezia zeukaten. Gizonen bestelako ondasunak, eta hauen artetik, arropak baino ez zituzten normalean jasotzen, baina bestelakoak, emakumei zegozkien. Dohaintza hauek, bestalde, familiaren espazioaz haratago hedatzen ziren, eta lotura ekonomikoen gain, lagunenganako estimua eta atxikipena adierazteko ere egiten ziren.

Familiarekiko loturaz bestalde, serorek erlijioaren alorrari zegozkion dohaintza asko ere egiten zituzten. Parrokiak eta ermitak, eta bereziki seroretxeak, beraien dohaintzen ohizko onuradunak izaten ziren. Hainbat seroretxe serorek eurek diru propioz eraikiak izan ziren, eta hein batean –ermiten kasuan, hein handi batean– beraien doteekin sostengatzen ziren, bestelako dohaintzak ere hainbat izatearekin bat. Obretarako dohaintzak bereziki garrantzitsuak ziren. Parrokiek, parroketako bertako eta hiribilduko serorez gain ermitetako seroren tankera ezberdinetako dohaintzak ere jasotzen zituzten: batzuetan dirutan besterik gabe egindako dohaintzak izaten ziren, bestetan argiteria espezifikoren batera bideratu beharreko zentsuenak, obretara edo ornamentuak egitera bideratu beharrekoak, ohial eta ornamentuak eurenak, edo apezen jantziteriarakoak, etab. Funtsean, obrak, argiteria eta ornamentuak izaten ziren ohizko xedeak. Ermiten buruz ere beste hainbeste esan liteke, nahiz eta, kasu honetan, jasotzen zituzten dohaintzak gehiago heltzen ziren propioi ermitetako serorak zirenen

aldetik, parroketan eta hiribilduan egoten zirenengandik baino; eta beste xedeetarako baino, ohizkoagoak ziren argiteria mantentzera bideraturikoak. Bestalde, hiribilduetako testuinguruko serorek diruzko dohaintzak egitea ohizkoagoa zen landa eremuetakoen aldean, hauek, normalean –nahiz eta ez beti– maila ekonomiko xumeago batekoak izanik, batez ere ehunezko, ohialezko eta oliozko dohaintzak egitera gehiago jotzen baitzuten. Landa eremuetako serorengan ohizkoak ziren beste dohaintza esanguratsu batzuk, ermitako eta bertako serorendako probetxurako ortu eta lursailena izan ohi zen, eta baziren beste hainbat dohaintza ere, seroretseen eguneroko erabilerara bideraturiko ondasunena (troxeak, platerak, mahai-zapiak, kizarak, etab.). Funtsean, parroketarako dohaintzak kulturako begirakoagoak ziren artean, ermitetakoak biziraupenari begirakoagoak ziren, nahiz eta noski, banaketa hau batere zurruna ez zen. Ezin ditugu, halaber, kofradiak, komentuak eta bestelako instituzio erlijiosoak ere ahaztu, nahiz eta parroketan eta ermiten aldean, jasotzen zituzten dohaintzak gehienetan xumeagoak izaten ziren; alabaina, hemen ere badira salbuespen deigarriak, eta aurkitu ahal izan dugun dohaintzarik handiena (1.003 dukat ingurukoa) komentu bati zegokion.

Tenpluetako zerbitzariak ere hainbat dohaintza jasotzen zuten seroren aldetik, batez ere, beste serorek eta apezek. Hauek, orokorrean, familia-kideei egiten zitzaizkien dohaintzen patroia orokor berberak zeramatzen, baina batez ere apezek kasuan, hain balore handikoak izatera heldu gabe. Eta noski, batzuetan, dohaintzak jasotzen zituzten serorak eta apezak dohaintzaren emale zen seroraren ahaideak ere izaten ziren. Apezei eta benefiziodunei, eta askoz ere neurri txikiagoan tenpluetako beste zerbitzariak (sakristauak, konfesoak), batez ere, diruak, bitxiak eta arropak ematen zitzaizkien, eta serorek, horiez gain (nahiz eta dirutan eginiko dohaintzak, gehienetan, apezei egindakoak baino xumeagoak ziren), jostintzara bideraturiko ehunak eta ohialak ere jaso ohi zituzten. Familia-kideekin ere ohizkoa zen lez, apezek –hau da, gizonezkoek– dohaintza gutxiago baina orokorrean balore handiagoak jasotzen zituzten artean, serorei egindako dohaintzak ugariagoak izan ohi ziren, eta zenbait kasutan, seroren arteko erlazioen sare nahiko zabalak agertzen dizkigute. Testuinguru hauetan, ohizkoak ziren estimua eta esker ona azaltzeko seroren arteko ohial edo arropa preziazuen dohaintzak ere.

Dohaintzen bidez ondasunak eta diruak jasotzeaz aparte, tenpluetako zerbitzariak beste etekin batzuek ere bazeuzkaten seroren testamentuetan agindurikoen bidez: hauek beraien heriotzerako agintzen zituzten arimen aldeko meza, anibertsario eta memoria ugarien etekinak. Honekiko, lehenik eta behin, seroren arteko zenbaitek, eta ez gutxi, beraien arima oinordeko izendatu ohi zutela ohartu behar dugu. Honek, egindako dohaintzez aparteko diru eta ondasunak beraien arimaren aldeko mezatan xahutu behar zirela esan nahi du. Eta horrez gain, bestelako kasuetan, eta baita kasu horietan ere, norbere eta besteren arimen alde esan beharreko mezen kopuru ezberdinak agintzen zituzten. Bergarako egoeratik eratorri ditugun konparaziozko zenbait datuen arabera, serorek arimaren alde esan beharreko mezatara bideratzen zituzten diruak biztanleriaren batzbestekotik dezente gorakoak zirela ikusi ahal izan dugu, eta baita, batzbesteko honen eta herriko pertsonariak boteretsuenen arteko erdibide batean kokatzen zirela ere. Halaber, serorek beraien eta besteren arimetaz arduratzeko zeukaten gaitasun ekonomikoaren gainbehera eta eten nabaria ere azaleratu zaigu, XVII. mendearen hasierako hamarkadez geroztiko beraien -eta zeuzkaten aberastasun iturrien- aurkako neurriak seroren gaitasun ekonomikoan izan zuten eragin esanguratsuen agerri duguna. Orokortze hauen balioa erlatiboa izanik ere, eta serorek eurek zeuzkaten aberastasunen aldeak oso handiak baziren ere, tenpluetako zerbitzariak jasotzen zituzten etekinen testuinguruan, serorek aginduriko mezek muzinik ez egiteko

bezalako parte bat osatzen zuten. Alderdi ekonomikoez beste, arimen aldeko mezek beste aspektu garrantzitsu baten berri ere ematen digute: serorek hildakoen arimekiko hautematen zuten erlazioarena. Izan ere, arima propioaren, norbere arbasoen arimen nahiz motibo ezberdinegatik erlazio pertsonalak zeuzkaten etxe eta baserrietako jarlekuetako arimen aldeko mezez, purgatorioko arimen aldeko ez, eta fundaturiko anibertsario eta memoriez aparte, oso ohizkoa zen diru kopuru bat, batzuetan oso esanguratsua, “beraien kargu” zeuzkatenean arimen alde esan beharreko mezatarako agintzea, eta baita, agindu izan zizkieten baina ahaztuagatik bete izan gabe geldituak izan zitezkeen mezen badaezpadako ordain bezala beste meza kopuru bat agintzea ere. Halaber, beraien kargupekotzat zeuzkaten hildakoen arimen artean, batzuetan, defuntu jakinen arimen aldeko mezak ere agintzen ziren, izen eta abizenekin. Guzti honek serorek, heriotz-errituen testuinguruaren baitan, beraiak betetzen zuten paperaren gain zeukaten ideiarekin berri ematen digu. Beraien kargupeko arimek zegozkien mezak jasotzearen arduradunak ziren, bizien eta hildakoen arteko erlazioak gauzatzen ziren -erdi-bideko- jarlekuen espazioko zaintzaileak, eta beraien zegozkien, batak edo besteak agindutako mezen betekizunaren zaintza eramatea; eta beraien heriotzean esan beharreko mezak falta ziren hildakoen arimak bazeuden, hauek esan zitezkeen ardura hartzen zuten (beharrezkoa izatekotan, zenbaitek egin zuten bezala, mezak diru propioekin ordainduz), eta izan zituzten enkargu guztien artean, bete izan ote zituzten batzuen inguruko zalantzak izatekotan, kontzientzia garbi izanik hiltzeko, badaezpadako meza kopuru bat agintzen zuten, ahazturikoen arimen alde. Jarlekuen eta heriotz-errituen espazioak, etekinen iturri izatearekin batera, onartuak eta ongi barneratuak zeuzkaten sinesmen eta kultuen espazio bat ere osatzen baitzuten.

Bada dohaintzen eta bereziki testamentuen azken aspektu deigarri bat, ahaztu behar ez dena: oinordekoen eta dohaintzen jasotzaileen artean emakumeek gehiengo osatzen bazuten ere, albazea izendapenei zegokienean, gehiengo nabarmenean, gizonezkoak izan ziren izendatuak. Familia-kideak bezalaxe, apezak eta benefiziodunak ohizkoak ziren enkarguan. Eta emakumeen artean, gizonekin batera edo hauek gabe, beste serorak ziren izendatuenak, eta kasu hau, batez ere, testatzaileek oinordekotzat euren arima izendatzen zutenean gertatu ohi zen. Dohaintzetan eta oinordeko izendapenetan esandako joerak agertzen bazituzten ere, albazeak izendatzerako orduan nahiago izaten zuten, bizi ziren testuinguruaren baitan gizonek emakumeen aldean zeuzkaten legezko abantailen bistan “errealistak” izan, eta testamentuaren betearazpenerako, gizon bat edo batzuek izendatu; eta hala ez zenean, esan bezala, edo hauekin bat, serorak. Honek ere, azken finean, emakumeen artean testamentuetako aginduak betearazteko gizonen besteko legezko abantailak (berez, zehazki “legezkoak” baino, ohitura hutsezkoak zirenak) serorek eurek zeuzkatela hautematen zutela agertzen digu.

Serorek oinordekotza eta dohaintza bidez beraien aberastasunak eta ondasunak banatzeko izan zituzten moduek, seroratzei esleitzen zitzaizkien ezaugarrien eta tenpluen inguruan burutzen zituzten lanen nahiz euren kabuzko aktibitate ekonomikoen kasuan bezalaxe, erabateko dibertsitatea agertzen digute. Beste behin, joera orokorren berri eman dugu, baina salbuespenak eta bariantek hain ugariak dira eze, joera hauek, bakarkako serorei erreparatzean, gutxi gora beherako adierazletzat baino ezin hartu baititugun. Baina talde bezala hautemanik, esan litezke serorek familien eta gizartearen baitan izan zuten eragin ekonomiko eta sozialaren inguruko oinarritzko azken gauzaren batzuk.

Serorak dohaintza hauen bidez beraien familien baitan botere handia izatera hel zitezkeen, eta bertan hartzen ziren erabakien baitan, momentu askotan, beraien hitza

erabakigarria izan zitekeen. Hain zuzen ere, emakume nahiz gizon izan, zenbait familia-kidek etorkizunean aurrera egitea beraien esku izatea, ikusi dugunez, ez zelako egoera arraroa. Bestalde, familiarekiko babesezko portaera izatea ohizkoa zen, etxe eta baserri nagusiak gainbeheran zirenean oinordeko nagusiaren alde eginez, eta ostera honen egoera ona zenean, aberastasunak gainontzekoen sostengura bideratuz. Egiten zituzten dohaintzak, beti ere aberastasun maila ezberdinak izaten ziren herrietan, bakoitzean zegokion mailan, baina gehienetan esanguratsuak izaten ziren, bai familia-kideen alde, batez ere ilobak eta ahizpa eta anaiak faboratuz, nahiz tenpluen alde, beraien sostengurako nahiz ornamenturako, bai eta bertako zerbitzarien alde ere, hauen sostengua bermatze aldera. Guzti hau, noski, batez ere, XVI-XVII mende bitartean inguruko serorei buruz dihardugunean da balizkoen, ondorengo garaietan, instituzioaren beharakadari ekin baitzitzaion, lurralde historikoetako nahiz herrietako botere esparruak beraien desagerrarazterako neurrietan gero eta inplikatuagotzen joan ahala. Eta hain zuzen ere izan zuten botere ekonomiko eta sozialagatik, beraien gainbeheraren prozesu luzeak, sostengatzen zituzten gizarteko eta familietako alderdien gainbeheran ere izan zuen zerikusirik (ziurrenez, uste izan dena baino gehiago).

Familiaren eta inguratzen zituen gizartearekiko lotura ekonomikoez beste, eta heriotz-errituei loturiko aspektuez gain, badira serorei, eta orokorrean emakumeei zegozkien sineskera eta erlijiotasunari buruz, eta aspektu hauek emakumeen boterearekiko suposatzen zuenari buruz, azpimarratu beharreko beste alderdiren batzuek ere. Baskonia zaharraren kristautzearen testuinguruan euskal lurraldeetara helduak izan zitezkeen erlijiozko emakumeen instituzioen artean, arlo liturgikoan parte hartzera heldu ziren diakonesak, apezmeak eta bizimodu aszetiko eta monastikoari loturiko erlijiozko emakumeak presente zeudela ikusi dugu. Oso zaila dugu hauek "jainkozkoarekiko" erlazioak nola bizi izan zituzten hautematea, baina ikusi ahal izan dugu halaber, Antzinate Berantiarreko euskal lurraldeen erlijiozko testuingurua -itxura guztien arabera, proportzio esanguratsu batean ondoren heterodoxotzat baztertuko ziren korronteen parte ziren- kristauen eta paganoen elkarbizitzarena eta sinkretismo prozesuena izan zela, eta egoera hau, espazio batzuetan are Goi Erdi Aroaren lehen mendeetaraino ere luzatu zela. Garaiotako erlijiozko emakumeen instituzioetako partaideek arlo liturgikoan izatera heldu zitezkeen partehartzea eta kristautze prozesuaren moteltasuna eta gradu sinkretiko altua ohartuaz gero, eta euskal lurretako biztanleen erlijiotasunaren ezaugarriei begira, garai paganoetatik kristautetarako jainkosen edo jainkozkoari loturiko emakumezkoen figuren kontinuitatea postulatzeak ez dirudi hain aldrebasa. Ez gara noski orain Ortiz-Osésekin eta bere jarraitzaileekin batera Paleolitoko edo Neolitikoko *Venus*-etako jainkosaren sineste eta kultuetako mantenua eta matriarkalismoa defendatzen hasiko, ikerlan honen sarreran egin diogun kritikan aski garbi ikus litekeenez. Baina euskal lurraldeetan jainkosa paganoek bezalaxe Amabirjinak izen duten pisua eta presentzia esanguratsu eta garrantzitsuak izan direla nabaria zaigu, nahiz hargatik matriarkalistorik postulatatu beharrik ikusten ez dugun: gune erromatartuetan Zibeles *Magna Mater*-aren kultua (esanguratsuki, bere ekialdeko jatorrian "piztien anderea" zen jainkosa) IV. mende inguruan indartu zela gauza jakina da; Pirinio erdialdean eta inguruetan hedaturiko erromatarren garaiko zutarrietan *and-*, *andr-* eta *andere-* erroden jainkosak -eta bestelakoak- ageri zaizkigu; beraien erroak Antzinate Berantiarreko eta Goi Erdi Aroko garai sinkretikoetan dituzten mitoetan eta sineskera herrikoietan *Anderea* edo *Mari* erro paganodun jainkosaren agintea eta boterea nabariak zaizkigu; XIV. mendean Bizkaiako botere-egiturak bermatzeko Europan zehar hedatuak ziren *ipuin melusindarren* eredu bertako *Damaren* ("Dama Pé de Cabra") eta *Maju* edo *Sugaar*-en figurez baliatuz jaso zen (biztanleriak sinesmenok mantentzen zituenaren agerri); Nafarroan behinik behin,

tenpluen adbokazioetan eta hagiotoponimian -mito eta legendetan aurrekoarekin nahasteko joera nabaria duen- Amabirjina dugu nagusi; eta Amabirjinaren kultuak, XV. mendean goia joz, Erdi Aroko Europan zehar izan zuen gorakadaren baitan, hau jainkosa sortzaile baten paperera eramaten zuten muturreko kultu heterodoxoen agerpen ikonografiko garbienetariko bat Euskal Herrian bertan daukagu, XV. mendean bertan datatua izan den eta -Aro Berritik heltzen zaizkigun datuen arabera- seroren talde batek artatua izan zen Bergarako Buriñondoko Andre Maria edo San Blas ermitako Amabirjina trinitario irekigarrian. Aro Berrian zehar ere, Amabirjinaren kultura *Anderearen* edo *Mariren* inguruko sinesteekin batera mantendu zen; bi figuren sinesteen ingurukoak gizarte tradizionaletan buruturiko ikerketa etnografikoetako mito eta legenden bidez jaso izan dira, eta Amabirjinaren kasuan, Aro Berrian zehar serorek eskaini izan zioten gurtzaren berri ere izan dugu. Izan ere, -hauek ere, nabariki sinkretikoak ziren- sendakuntza errituetan Amabirjinari eskainitako tenpluek zeukaten presentziaz beste, ez baita kasualitatea, seroren taldetxoak askotan Amabirjinari eskainitako tenpluetan osatu izana, eta halaber, tenplu horien zerbitzuan, gaitasun taumaturgikoak eta profetikoak esleitu izan zitzaizkien serorak egon izana ere.

Baina diogunez, jainkosa baten edo emakumezko jainkozko figura baten kultura indartsu mantentzeak ez du halabeharrez gizarte egituren baitako emakumezkoen aginte efektiboa suposatzen. Emakumeekiko kontsiderazioa eta errespetua hobetzen lagundu dezake, baina -gutxienik- Erdi Aroaz geroko euskal lurraldeen kasuan bezala, kultura grekoerromatarraren jasotzaile eta jarraitzaile ziren erreinuen eta kristautasunaren balore patriarkalen eragin eremuan sartua zen espazio batean antzinako matriarkatu baten, alegia, gizarte egituren gaineko boterea emakumeek izango zuketzen gizartekera baten eraginez kultura zeharo "berdinzale" bat mantendu izateari, gehiegixko uste izatea deritzot. Eta noski, badira kasu esanguratsuak, hemen ere aipagai izan ditugunak, euskal lurraldeetan emakumeak izatera hel zitezkeen boterearen agergerri direnak; hor dugu, esaterako, XI. mendearen bukaera aldera Iruñako apezpikutzan zenbait urtetan agintari nagusi izatera heldu zen Aragoako Santxa kondesaren kasua, garai hartako testuinguru europearrean parekorik ez zeukana. Eta sarrerako atal batean aipagai izan dugunez, arlo juridikoari eta familiako zuzenbideari dagozkion hainbat alderditan, euskal lurretako Erdi Aroko eta Aro Berriko emakumeak egoera abantailatsuan izan ziren, Europan zeharreko ordungo emakume garaikideekiko. Baina euskal emakumeek ingurukoekiko egoera hobea izateak ez du gizarte berdinzale batean bizi zirenik esan nahi; are gutxiago, gizartearen eta kulturaren baloreak azpitik hauspotzen inongo matriarkaturik zeukatenik. Emakumeen botereak euskal gizartean eta bere historian izan duen pisuari dagokiona eman behar zaio, errealitate historikotzat zegokion neurrian. Hau da, egia da emakumeak leinu-buru izan zitezkeela eta izan zirela, eta hein hartan boteretsu izan zirela, baina garbi izan beharrean gaude, halaber, ezin zitezkeela inongo kasuan alkate edo epaile izan, eta espazio pribatuan botere esanguratsua aitortzen zitzaien bezala, espazio publikoko partehartzeari zegokionean, mugapen esanguratsuak ezarri izan zitzaizkiela.

Eta serorek ere, guzti honetan, noski, beraien lekua zeukaten. Euskal lurraldeetako emakumeen egoera soziala inguruko gizarteekiko abantailatsua izan bazen, seroren egoera are abantailatsuagoa zen, batez ere, erlijiozko emakume izanik zor zitzaien begirunea eta zeukaten autonomikoa ekonomikoa medio. Baina serorak eurak ere botere-erlazioen testuinguruan dagokien lekuan kokatu beharra dago, abantailak bezalaxe, mugapenak ere presente izanik. Hala, biltzen joan garen alderdi guztiei begira, ikerlan honen ondorioetan zerbait azpimarratu beharrean bagaude, seroren irudi historikoa berrikuspen sakon baten beharrean dagoela da. Serorek bizi izan

ziren gizartearen baitan izan zuten papera egoki ulertu nahi badugu, moja izan nahi baina ezinean zegokeen emakume jainkotiaren irudia bezalaxe, ermita galdu batean mundutik zeharo bazterturik eta txirotasunean bizi zen seroraren irudia ere baztertu beharrean gaude; edo baztertu baino, egokiago, seroren irudi orokorraren baitan izan beharko luketen lekura eraman, hau da, kasu eta seroratzak moeta berezi eta espezifikotara. Irudi hauen akats nagusienetariko bat, hain zuzen ere, seroren esangura eta eraginkortasun sozial historikoa erabat itzalperatzea baita. Ezen, serorak ez baitziren mundutik aparte bizi, munduko aktibitateetan ongi txertaturik baizik. Hein horretan, Aro Berriko emakumeen erlijiotasunaren testuinguruan seroren presentzia bazterreko eta eragin eskasekotzat hauteman beharrean, seroratzak, ohizkoak ziren, erabat onartuak zeuden eta gizarte baitako botere-dinamiketan beraien papera jokatzeko zuten instituziotzat hauteman beharko genituzke.

Lehenik eta behin, kopuru aldetik, Aro Berriaren parte handi batean serorak mojak baino gehiago izan zirelako; ikerlanaren hasieran egindako batzuen eta besteen kopuruari buruzko galderaren erantzuna, honez gero, aski argia baitzaigu: klausuraren prozesuak moja izaterako bidera eraman zituen seroren komunitateen aldean, bilakaera horretatik kanpo, parroketan, ermitetan, santutegietan, ospitale eta ospizioetan, edo etxe partikularretan bizi izan ziren bakarkako eta taldekako serorak gehiago izan ziren, XVII. mendearen erdialderate behintzat, eta ziurtasun handiz, baita are beranduago ere. Noski, espazioen araberako ezberdintasunak ere ugariak izan zirela dirudi; ez ziren berberak izan Leintz bailaran ikusi dugun bilakaera, edo Oñatin ikusi duguna. Baina termino orokorretan, eta hasieran Bergarako kasuan egin dugun zenbaketarekin bat, seroren instituzioari mugapenak ezarri eta desagerrarazteko hartu ziren neurriak agertzen digutenez, mojen kopuruak serorena gainditu zuen gutxi gora beherako garaia, nonbait kokatzekotan, XVII. mendearen bigarren erdialdea eta XVIII. en mendea bitartean kokatu beharrean geundeke. Beraz, "ezkontza ala komentua" topikoa Aro Berriko emakumeen oinarritzko bizi aukeren adierazletzat baztertu beharrean gaude; seroratzena ere ohizko aukera zen, komentuen beste presenteko zegoena, presenteko ez bazegoen, Aro Berriaren lehen erdialdean behinik behin. Topikoaren balizkotasuna aroren bati egokitzeakotan, garai barrokora, XVII. mendearen bukaeratik XVIII. enera hedatzen dena mugatu beharko genuke; eta orduan ere hainbat seroratzak mantentzen zirenez gero, balizkotasunak ukatzekoa izaten jarraituko luke.

Seroren gizarte baitako eragina, bestalde, mojenaren aldean, bizitza publikoa egin izanak areagotzen du. Mojen eragin erlijioso eta asistentzialak gutxietsi beharrik ez dago, serorek, klausuratik kanpo eta aktibitate sozial, erlijioso eta ekonomiko ugarietan txertaturik, gizartearekin garatzen zuten elkarrekintza eraginkorragoa zela hautemateko. Kopuruaz haratago, bada, instituzioaren izaera "publikoak" eraginkortasun soziala nabarmenki areagotzen zuen. Eta honi, mojen kasuan ez bezala, beraien ondasunetaz baliatzeko zeukaten askatasuna gehituz gero, potentzialki eragin eta botere handia izatea ahalbidetu zezakeen instituzio baten aurrean gaudela ohartuko dugu.

Aro Berriko gizarteko emakumei egozten zaizkien bizi-aukeren gaineko "ezkontza ala komentua" topikoarekiko beraz, gauza bat argi esan dezakegu: Euskal Herriaren kasuan, topikoak adierazirik ere dotrinala hainbatek egia historikotzat onartu izan dute, oker egin ere. Hau, hein batean, serorei dagozkien oinarri historiografikoak elizgizonen testuingurutik ezarriak izanak eragin du, eta baita, ondorengo historialari askok, lehenen itzala beharko litzatekeen beste ikuspegi kritikoa gabe jarraitu izanari ere. Hala, gehienetan, serorak "mojen orbitatik" ikusiak izan dira, edo Euskal Herriko biziraupen kultural eta bitxikeriatzat, korrante erlijioso nagusitik bazterturik, Aro Berriko -nahiz Erdi Aroko- gizartearen baitako dinamiketan

eraginkorra izateko aukera gutxi zeuzkan instituziotzat; hori, aipatuak izan direnean, ikerketa historikoetan nahiz eskuliburuetan testuinguru erlijiosoaren azalpen orokorrak ematerakoan, askotan koadrotik kanpo gelditu izan baitira. Aipatuak izan diren kasu askotan berriz, bertako ohituren aintzinakotasunaren lekuko baino ez lirateke, jatorrizko kristautasun herrikoi baten ordezkari, galbidera destinaturiko arrasto makala. Horrez gain, beste ohizko akats bat, hainbat ikerlarik jada ohartarazi izan badute ere beste hainbatek egiten jarraitzen dutena, dokumentu arautzaileak seroratzen ezaugarrien adierazletzat hartzea izan da, hauek, hain prezeski ere, seroren bizimodua erregulatu eta kontrolatzeko neurrien parte zirela, eta honek halabeharrez ezarritako arauaren ordurarteko betekizunik eza inplikatzeko zuela ohartu gabe; bizitza errealaren eta arauen artean baina, alde handia zegoen, eta izan ohi da. Ikerlan honek ikuspegi hauek okerrak edo hutsune handidunak direla azaltzeko balio izan duelakoan nago, edo hala nahiko nuke behintzat. Izan ere, ezkontza eta moja egoera bitartean seroratzat mota ezberdin ugari izan baitziren emakumeen bizi-aukeren artean, eta beraien autonomia pertsonalarekiko egoerarik abantailatsuena, hain zuzen ere, seroratzek eskaintzen baitzuten, mojekiko, besteak beste, dote merkeagodun -edo are doterik gabeko- aukera bat ere emanez.

Baina guzti honek ez du, halabeharrez, seroren instituzioa eta zeramaten bizimodua bizi izan zuten testuinguruaren baitan erabat "iraultzaileak" zirenik esan nahi. Tenpluetan bezalaxe hauetatik kanpo ere, seroren aktibitate sozial eta ekonomikorik gehienak garaiko emakume batentzat "onargarri" zirenen artean kokatzen ziren, nahiz eta beraien erlijiozko eta laiko bitarteko egoera arazotsua izan. Tenpluekiko erlazioan, oinarritzko eginkizunetan, serorek etxekoandre batek -eta etxeko alabek edo neskameek- bere etxe edo baserrian egiten zituen lanen baliokideak egiten zituzten: garbiketen, argiteriaren eta ohial eta arropen kargu hartu, eta etxe baitako *oeconomia* edo elikagai, ondasun eta aberastasunen administrazioa eraman. Alabaina, karguaren dimentsio erlijiosoak espazio publikoaren baitako presentzia eta esangura handia ere bazekarkien, garai hartako etxe edo familia baten barne dinamiketaz eta emakumeen ohizko botere esparruetaz haratagokoa: parrokiatan jarlekuen zerbitzuarekin eta heriotz-errituekin, eta ermita, santutegi eta ospitaleetan erlijiotasun herrikoiaren erritu eta sinesmenen sostenguearekin bezalaxe, bizimodu kolektiboaren baitako hainbat funtzioarekin (denboraren erregulaziorako kanpai jotzen, edo ekaitzen, suteen, auzolanen, nahiz bestelako gertakizunetarako deien bidez, etab.), beraien presentzia gizartearen dinamikaren baitan ardatzekoa izatea lortzen zuten, edo lor zezaketen. Emakumeen eta gizonen aktibitateen artean ezartzen zen pribatu / publiko banaketa, ohizkoa eta orokorra, gainditzen zuten horrela. Areago, heriotz-errituena eta erlijiotasun herrikoiaren baitan zeukaten partehartzean, espazio publikoetan gauzaturiko errituen aurreko gidaritzat izatera hel zitezkeen, zenbait autorek adierazi izan dutenez, beraien papera apezeme baten gisakoa izateraino. Eta ez dezagun ahaztu, heriotz-errituena, garai haietan, botere mailakatzeen agerpen sinbolikorako espazio -publiko- nagusia zela; halako espazio batean serorak ardatzeko papera betetzen egotea, aski esanguratsua dugu izan zezaketen boterearekiko.

Tenpluek gizartearen bizitzaren erdigune lez zeukaten garrantzia medio, bertako zerbitzaritzat izan zitzaketen abantaila sozialez beste (besteak beste, auzietan lekuko pisutsu izatea, edo erritu sozialetan lehen mailetan kokatzea), serora gehienek, baita tenpluen kargurik ez zeukatenek ere, Aro Berriko emakumeen ohizko aktibitateetatik at kokatzen dizkigun beste ardatzeko ezaugarri bat ere bazeukaten, lan honetan hainbatetan aipagai izan duguna: ondasun propioen gaineko administrazio askatasuna. Ezaugarri honek alargun boteretsuen ("boteretsuen" diogu, *de facto* zeukaten boterea

medio aktibitate ekonomikoetarako legez agintzen zen gizonezkoen bitartekaritza ekiditen zuten alargunak nolabait adieraztearren) antzerako egoera sozioekonomiko batean kokatzen zituen. Eta hala, gizarte baitako errespetua eta itzala "salbuespenezko" egoera sozioekonomiko bereziarekin uztartuz, euren kabuz etekin handiko salerosketa eta negozioak egin zitzaizketen, hainbat diru, mailegutza aktibitateetara ere bideratuz. Zordunen espazioek ematen digute, nabarien, gizarteko eta familia baitako testuinguruetan zeukatzen pisuaren berri. Baina salerosketek, alokairuek eta mailegutza esparru pribatuko aktibitateetan mantenduz esparru publikoan eragiteko izan zezaketzen gaitasuna agertzen badigute (ez dezagun ahaztu, parrokiak, komentuak edo herriak ere izatera heldu zirela seroren maileguen zordunen artean), beraien egoera sozioekonomiko bereziak oso garrantzitsua zen beste aktibitate -edo ardura- bat ere ahalbidetzen zien, bere kabuz botere-adierazle ere badena, eta alor publikoko aktibitateetat ere har litekeena: beste pertsonen ordezkapena. Albazea lez edo pertsonaia jakinen ahalduz lez, serorek pertsona eta familia askoren bizitzetan zeresan eta erabaki gaitasun handia izan zezaketzen. Azpimarratu izan dugunez, bestetan doktoreek, lizentziatuek edo izkribauak hartzen zuten ordezkapen lan honen esangura ez zen nolana hikoia.

Guzti honek, serorak, bizi izan ziren gizartearen baitan izatera hel zitezkeen boterea handia zela adierazten digu, eta halaber, emakumeei "onargarri" ez zitzaizkien aktibitateetan bezalaxe (funtsean gidaritza, autonomia eta ordezkaritza izatera heltzen ziren esparruetakoak), onartzen zitzaizkienetan ere, instituzio erlijioso nahiz zibilen aldetik jasan behar izan zituzten debekuak eta mugapenak, eta baita, noski, desagerrarazte saiakerak ere, beste ikuspegi batean kokatzen dizkigu. Batez ere, alde edo aurka zeuzkatzen aktore sozialek euren kabuz serorekiko izan zitzaizketen borondate eta desio on edo txarrez aparte, serorek eurek aktore sozial berberetan presioa gauzatzeko zeuzkatzen medioen berri ematen digutelako. Kasu konkretu baten bidez adieraztekotan: 1623an Ontiberos lizentziatua Kalagorriko apezpikutzako bisitatzailerik lez Bergarako serorak euren karguetatik kanporatzeko asmoz heldu zenean, seroren alde egin zuten herriko agintariak borondate on hutsez egin ote zuten bisitatzailerik aurka, ala, seroren hainbat testamentutan agertu izan zaigunaren arabera, serora horien maileguen eta/edo jarlekuetako zerbitzuen, edo bestelako aktibitateen zordun ziren -edo izan zitezkeen- heinean, zeukatzen diru likido iturrietariko bat defendatzen ere ez ote ziren ibiliko? Honek ez du esan nahi, noski, esplizituki aipatu ziren bestelako motiboak ere, aldekoen nahiz aurkakoaren artean, presente ez zeudenik; baina aipatu berri ditugunak, gutxietsi gabe kontutan hartu behar diren alderdiak dira.

Oraindik kronologikoki kokatzen zailak zaizkigun beraien hastapenen garaietatik, itxuraz, Goi Erdi Arotik behintzat bai, serorak emakumeei garaian garaiko euskal herrietan esleitzen zitzaizkien "egokitasunezko" testuinguruaren baitan txertaturik bizi izan zirela esan liteke, apezek, abadeek eta fraideek egin ohi zuten bezalaxe erlijiozko egoerari abantaila sozialak ateratzen eta gizarte-bizitzaren alor publikoetan arazorik gabe -eta esanguratsuki- parte hartuz, gero eta testuinguru ideologiko misoginoago batek, klausuraren ateetara eramatean "egokitasun" hartatik aldendu zituen arte. Ordurarte izan ziren seroren -eta baita ondorenean izaten jarraituko zutenen- egoera eta aktibitate sozial eta erlijiosoen aniztasuna, emakume batek erlijiozko zat izan zitzaizkeen berdina zen; hau da, erlijiozko bizitzari nolabait loturiko emakume guztiek, mojak barne, XVIII. menderarte euskaraz "serora" izena jaso izanak, euskal hiztunen komunitatearen baitan "erlijiozko emakumea = serora" hautemapena nagusi zela adierazten digu, izen horren pean adierazirik emakumearen bizimodua eta egoera soziala, zelakoa izanik ere. Eta ikerlan honetan ikusi ahal izan dugunez, are klausurako komunitateak hedatu ziren garaian ere, hautemapen horrek bizirik iraun zuen, jazarpen

instituzionalek eta erlijiotasun barrokoaren gailentzeak XVIII. mendean "moja" izena eta bere hautemapena "serora"-renetik aldentzea lortu zuten arte, azken hauen instituzioa, saiakeren ibilbide luze baten ostean, erabat sekulartzera eraman eta -ofizialki- desagerraraziz.

Ibilbide hartan, hein bateraino, serorek, Euskal Herriko emakumeei, orokorrean eta Europako beste espazioekiko konparazioan, aurkitu izan zaizkien abantailak izan zituzten (bereziki, familien buru izateko gaitasuna, eta egokiera hartan izan zirenen autonomia eta erabaki askatasuna), eta abantaila hauen gainbeherazko prozesu paralelo bat bizi izan zuten (foruetan eta ordenantzetan, emakumeen familietako ondasunen administrazioarekiko arautu ziren mugapenak, espazio publikoetako aktibitateen kontrola, etab.). Aro Berrian zehar, XVI. mendeko egoera "abantailatsuenetik", jada mugapenek eta desagerrarazte saiakerek gainbeherara ekarria zeukaten XVIII. mendearen bigarren erdialderarteko instituzioaren ibilbidean ohar liteke jarraipen paralelo hori, agian, seroren kasuan nolabaiteko "atzerapen" kronologiko bat azaltzen diguna. Serorek Euskal Herriko emakumeen testuinguru orokorrean izan zuten papera, edozein kasutan, ikerlanean zehar azaldu ahal izan ditugun alderdien arabera garrantzitsua izan zela esango genuke. Alde batetik, heriotz errituetan zeukaten paperaren bidez alor publikoko espazio garrantzitsu batean boterezko eragileak izan ziren. Bestetik, familia boteretsuetako emakumeekin eta batez ere alargunekin autonomia sozioekonomikozko eta erabakien gaineko askatasunezko egoera partekatzen zuten heinean, emakumeen talde sozial zabalagoaren baitan eragiteko gaitasun esanguratsua izan zuten. Eta ikusi ahal izan dugunez, serorek beraien egoera sozial eta ekonomiko berezian zeukaten abantailak, laguntza, eskaintza, mailegu, dohaintza, edo zena zelako formaren pean, hainbat emakumeren egoeratan izan zuten eragin positiboa. Alegia, familia boteretsuetako emakumeen eta seroren egoera berezietako abantailak, emakumeen talde sozial zabalagoaren egoera, halaber, Europako beste espazio batzuekiko behinik behin, abantailatsuagoa izatea gauzatu ahal izan zuen, edo hartan lagundu. Seroren kasuan behintzat, nabaria zaigu beraien aktibitateek eta aberastasunek bizi izan ziren gizarteko emakumeen egoeretan izan zuen eragina, onuragarria izan zela.

Hor non diren, bada, serorek izan zituzten abantailak, eta hor mugapenak. Alde batetik, bazen seroren ohizko aktibitateen esparru bat, garai haietako emakumeendako "egokitza" hartzen zenaren barruan kokatu zitekeena, eta nahiz eta espazio publikoetara loturik egon, etxe bateko aktibitate pribatuen mailan hauteman litekeena: garbiketak, argiteria, ehunen eta arropen maneiua eta joskintza, etab. Baina baziren, halaber, beraien erlijiozko emakume egoera eta gizarte bizitzaren erregulazioaren zentru egiten zuten tenpluetako zerbitzari izaera medio, emakume arruntei atxikiezina zitzaienten aktibitate publikoen alorrera iragatea ahalbidetzen zieten aktibitateen espazioak ere: garai zaharrenetako balizko liturgiako partehartzeaz beste, iragate-erritu ezberdinak (bataioak, ezkontzak) eta batez ere heriotz errituak, sendakuntza sinesteei zegozkienak edo kanpaien gaineko ardura ditugu nabarietak, baina tenpluen administrazioa, edo pertsona behartsu ezberdinen artapena eta sendakuntza ere, hein bateraino, aktibitate publikotzat hauteman litezke. Eginkizun hauetan serorak gizartearen aktibitate publiko eta komunitarioen erdigunean kokatzen ziren, erritu eta eginbehar publikoen gidari eta antolatzaile lez, guztientzat agerikoa eta nabaria -baina emakumezkoentzat "salbuespenezkoa"- zen espazio berezi batean. Eta azkenik, zeukaten autonomia ekonomikoak ahalbidetzen zituen aktibitateen sorta zabal bat bazen, printzipioz espazio pribatuan kokaturik ere, espazio publikoan eragin handia izatera heldu zitezkeenena. Hemen kokatu litezke zeharo pribatuak ziren aktibitateak, hala nola, lurren eta abereen ustiapena, salmenta nahiz alokairua, eta ehunen, ohialen eta arropen inguruko

salerosketak eta bestelako aktibitateak, eta baita espazio publikoan eragin ukalezina zeukatenak ere, nabarietak, mailegutza aktibitateak, eta beste pertsonen ondasunen administrazioa eta ordezkariak. Eta izan ziren, halaber, nabariki espazio publikoan garatu izan ziren probetxu pribatuden aktibitateak ere, tabernak ipinita ardoa saltzen ibili ziren serorenak kasu. Esan liteke, beraz, Erdi Aroko eta Aro Berriko euskal lurraldeetako emakumeek Europan garaikide zituzten emakumeekiko egoera abantailatsuan egon baziren, serorek are abantaila handiagoz gozatu zutelako, testuinguru hartan, beraien erlijiozko estatusak eta autonomia ekonomikoak ahalbidetuz, gizartearen onarpenarekin gidaritza eta ordezkariak aktibitateetan espazio publikoetan jardun ahal izan baitziren, eta familiaren eta gizartearen espazio zabalagoaren baitan, ondasunak pilatu eta aberastasunez baliatzeko zeukaten askatasuna zela eta, eragin eta botere handia izatera heldu baitzitezkeen. Baina gozatzen zituzten abantaila haiek, bi ahoko laban bilakatu zitzaizkien. Ezen espazio pribatuko nahiz publikoko eragiteko gaitasun eta botere horietan izan ziren, hain zuzen ere, azkenean, seroren aurkako jazarpenean gero eta instituzio gehiago inplikaturik joatearen arrazoiak, Aro Berriak aurrera egin ahala emakumeen irudi orokorra eta beraien inguruko diskurtsoa gero eta ikuspegi misoginoago batean barneratzen joan ahala, serorak behinola "tradiziozko" izan zituzten espazio eta aktibitateetatik baztertu nahi izan zituen, sakratutzat nahiz publikotzat hautematen ziren espazio eta aktibitateetatik kanporatuz.

Ondorengo garaietan "berpiztu" izan zen instituzioa, eta badira, gaur eguneko ere, ermiten zaintzan jarduten diren azken seroraren batzuek; baina XVIII. mendeko bigarren erdialdeko desagerrarazte agindua oso garrantzitsua izan zen, ez soilik neurriak aurreko desagerrarazte saiakeretan baino efektiboagoak izan zirelako, maila ezberdinetako instituzio guztien edo gehienek oneritziak jaso zuen Errege Agindu batean sostengatu zelako baizik. Gainera, seroren desagerrarazteak ez ziren serorei soilik eragin, areago, ziklo historiko zabalago baten amaiera adierazten zuen gertakizun bat izan baitzen, eragin guzti horien baitan gertatua, eta karga sinboliko handikoa. Izan ere, ez baitzen ermiten itxiera seroren desagerraraztearekin batera kasualki agindu; serorak parte izan ziren unibertso sozial eta ideologiko guztia zen gainbehera zegoena, eta unibertso hartako hainbat espaziotan izan ziren eraldakuntzak: pentsamolde ilustratuaren helduera eta biztanleriaren erlijiozko antzaldatzea; honi loturik, erlijiozko herrikoien bazterketa eta jarlekuen espazioaren, heriotz-errituen eta bertako gastuetako gehiegikerien inguruko legedia murriztailea; parrokiak eta ermitak erdigune zituzten auzo eta herrietako kontzeju irekien gainbehera; etxe, baserri, lur eta bestelako ondasunen pilaketa gero eta esku gutxiagotan ("berjauntzea"); biztanleriaren mugikortasunaren eta landa-eremuaren espazioen gaineko kontrol sozialaren areagotzea, ermiten itxiera motibatzerako orduan ere ardatzekoa izan zena; etab., etab. Seroren amaierak, azken finean, edo hobe esan, behinola seroratzak izatera heldu ziren instituzio garrantzitsu haien amaierak, bere erroak -Antzinate Berantiarreko hastapen urrutetatik ekinda- Erdi Aroan txertatzen zituen arau sozialen, instituzioen, sinesmenen, ohituren eta pentsamoldeen mundu baten azken arrastoen amaierarekin bat egin zuen, azken ondorioz, gaur egungo Euskal Herria izango zuen eraldakuntza sorta bati atea ireki zion prozesu bati ekinez. Eta ibilbide honetan, progresuaren ideiak biztanleriaren egoerak denborak aurrera egin ahala hobera joana behar zuela eta behar duela pentsarazi nahi badigu ere, ez zaigu batere argi gelditzen, Euskal Herriko emakumeen eta erlijioaren arteko erlazioei begira, Erdi Arotik Aro Berriko igarotzeak, Aro Berriko Aro Garaikiderako igarotzeak bezalaxe, emakumeendako abantailak ala kalteak ekarri ote zituen. Serorei eta hauek gizarte baitan zeukaten errespetu, itzal, eskubide eta botereari dagokienean behin behin, gainbehera motel baina konstante baten jarraipena agertzen zaigula esango baikenuke.

X. BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK

X. 1. ARTXIBOAK ETA ITURRIAK

Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoa = Archivo Histórico de Protocolos de Guipúzcoa (GPAH-AHPG)

Aurkibideak: Bergara: 1/0011; 1/0012; 1/0014; 1/0015; 1/0016; 1/0017; 1/0018; 1/0019; 1/0020; 1/0021; 1/0023; 1/0024; 1/0025; 1/0027; 1/0028; 1/0030; 1/0032; 1/0033; 1/0034; 1/0035; 1/0036; 1/0037; 1/0038; 1/0039; 1/0043; 1/0044; 1/0045; 1/0046; 1/0049; 1/0050; 1/0052; 1/0054; 1/0055; 1/0056; 1/0057; 1/0058; 1/0059; 1/0060; 1/0061; 1/0062; 1/0082; 1/0087; 1/0098; 1/0101; 1/0102; 1/0111; 1/0112; 1/0113; 1/0114; 1/0115; 1/0116; 1/0117; 1/0118; 1/0119; 1/0120; 1/0121; 1/0122; 1/0123; 1/0124; 1/0125; 1/0126; 1/0127; 1/0128; 1/0129; 1/0130; 1/0131; 1/0132; 1/0133; 1/0134; 1/0135; 1/0137; 1/0138; 1/0139; 1/0142; 1/0143; 1/0144; 1/0145; 1/0146; 1/0147; 1/0148; 1/0149; 1/0150; 1/0151; 1/0152; 1/0155; 1/0156; 1/0157; 1/0158; 1/0159; 1/0160; 1/0161; 1/0162; 1/0163; 1/0164; 1/0165; 1/0166; 1/0170; 1/0173; 1/0182; 1/0184; 1/0186; 1/0187; 1/0188; 1/0190; 1/0192; 1/0193; 1/0195; 1/0196; 1/0197; 1/0198; 1/0199; 1/0200; 1/0201; 1/0202; 1/0203; 1/0204; 1/0205; 1/0206; 1/0207; 1/0212; 1/0221; 1/0222; 1/0223; 1/0224; 1/0225; 1/0227; 1/0228; 1/0230; 1/0236; 1/0238; 1/0239; 1/0240; 1/0334; 1/0335; 1/0336; 1/0464; 1/0466; 1/0467; 1/0528; 1/0613; 1/0673; *Antzuola:* 1/4309; *Arrasate:* 1/2335; 1/2336; 1/2337; 1/2338; 1/2339; 1/2340; 1/2350; 1/2358; 1/2359; 1/2360; 1/2361; 1/2362; 1/2364; 1/2372; 1/2373; 1/2388; 1/2389; 1/2390; 1/2391; 1/2392; 1/2393; 1/2394; 1/2395; 1/2397; 1/2398; 1/2400; 1/2401; 1/2402; 1/2403; 1/2404; 1/2405; 1/2406; 1/2407; 1/2409; 1/2411; 1/2413; 1/4337; 1/4338; *Leintz bailara (Aretxabaleta eta Eskoriatza):* 1/2027; 1/4311; 1/4312; 1/4313; 1/4314; 1/4315; 1/4316; 1/4317; 1/4331; 1/4332; *Aretxabaleta (soilik):* 1/4318; 1/4931; *Oñati:* 1/4343; 1/4344; 1/4345; 1/4346; 1/4347; 1/4348; 1/4349; 1/4350; 1/4351; 1/4352; 1/4353; 1/4354; 1/4355; 1/4356; 1/4357; 1/4370; 1/4936; 1/4966.

Testamentuak eta kodiziloak: Bergara: 1/0055, 72r-74v; 1/0102, 43r-47v; 1/0112, 577r-585r; 1/0114, 698r-701v; 1/0121, 618r-619v; 1/0134, 711r-719v; 1/0157, 64r-67r, 119r-125v; 1/0162, 75r-80r; 1/0182, 193v; 1/0188, 364r-366r; 1/0196, 422r-424v; 1/0198, 450r-454r, 456r-457r; 1/0236, 158r-163r; 1/0258, 116r-122v; 1/0262, 263r-265r; 1/0286, 5r-6v; 1/0339, 333r-338v, 615r-622r; 1/0374, 64r-64v; 1/0376, 7r-8r; 1/0500, 33r-36r; 1/0522, 234r-235v; 1/0546, 191r-192v; 1/0555, 163r-170r; 1/0596, 127r-128r; 1/0599, 137r-138v; 1/0604, 39r-40v; 1/0605, 217r-218v; 1/0615, 423r-426v; *Elgeta:* 1/0547, 370r-371r; 1/1845, 25r-27v; 1/1851, 122r-124v; 1/1853, 38r-42v, 105r-106v, 112r-121r, 187r-188v, 215r-218r; 1/1854, 17r-18v, 53r-55v; *Antzuola:* 1/0529, 251r-253v; 1/0538, 232v-235v; 1/0769, 115r-118v, 324r-325v; 1/0770, 395r-398v; 1/0771, 239v-241r; 1/0774, 84v-86r, 103r-104v, 157r-161r; 1/0775, 72r-73r; 1/0783, 1r-8v, 207r-208v; *Arrasate:* 1/2339, 13r-16r; 1/2341, 58r-60v, 77r-78v; 1/2353, 23r-25r, 201r-205v, 251r-258r; 1/2361, 56 bis eta hurr.; 1/2364, 2r-5v; 1/2366, 95v-96v; 1/2369, 69r-72r; 1/2370, 85r-86v; 1/2391, 44r-46v; 1/2402, 97r-98v; *Aretxabaleta:* 1/0865, 35r-36r; 1/0866, 3r-5r; 1/0872, 148r-150r; 1/0876, 146r-147v; *Eskoriatza:* 1/0862, 16r-18v; 1/0865, 31r-34v; 1/0889, 25r-26r; *Aramaio:* 1/0889, 139r-139v; *Oñati:* 1/2857, 14v-17v; 1/3045, 174r-177r; 1/3051, 134r-135v; 1/3176, 220r-221r; 1/3088, 1r-2v; 1/3194, 74v-75v, 95r-98r, 102r-107v; 1/3195, 123r-126v; 1/3198, 432r-432v; 1/3205, 272r-272v; 1/3206, 55r-56r; 1/3211, 498r-498v; 1/3223, 167r-169r; 1/3226, 17r-17v; 1/3247, 683r-684r; 1/3264, 6r-6v; 1/3293, 378r-379v; 1/3304, 7r-10v; 1/3342, 60r-62r; 1/3358, 525r-528v; 1/3424, 105r-110r; 1/3428, 87r-89r.

